

Azkatzailleak

ASTE SANTUAN

Bere buruaren jabe izateko egiña dan gizona, gaur egun loturaz beterik ikusten dogu. Ori baietzuteko, naikoa dogu geure barrura ta geure ingurura begiratzea: Erriak menperaturik eta gizonak bear dabena lortu eziñik non-nai eta noz-nai agertuko jakuz.

Norberagan lenengo ta bein: bear geunken maillara eldu eziñik, eguneroko burrukan naikotuta ta lurra jota, ainbeste legeren eta agintaritzza gogor eta zeatzaren menpean loturak baztertu eziñik... Orrelan doa gutariko asko ta askoren bizitzea.

Erakundeetan gero: zapaltzeak ugari, jauntsukeriak sarriegi, lan eta lan egin eta gure izerditik beste batzuk onurak atera... Lotura estuak jartzen dauskuez.

Gizartean bertan urrengo: alkar laguntzaz poztuta bizi bearrean, alkar ulertu eziña, alkarrari oztopoak ipiñi ta kalteak egin... Zoriona urri, nekeak ugari.

* * *

Ba dauka egoera onek arako israel-darren Egipto'ko bizikera larriaren antza. Sasoi onean agertu zan orduko azkatzaille zan Moises: Neke barriak erriarentzat, baiña baita jabetasunerako bide latza ta zuzena be.

Gure Azkatzaille barria, gure bigarren Moises, ez da lenengo baiño makalagoa. Ez. Bizitza ta eriotza neketsuak bide dirala, mundu onetako basamortuetan zear, beronek eroango gaitu azkatasun eta jabetasun zorionsura.

Ori da urreratu jakun Aste Santua, geuretzat bear dogun giroan, artzeko era eder bat.

Gomutapena da, baiña gomutapen bizia, gaur euskaldunontzat zer-esana daukan gomutapen gogoangarria.

Itzi dagiguzan alde batera antzerkeri edo teatrukeri baragarriak eta ausnartu dagigun Aste Santu onen esangura ta guna. Orretarako doguz egun onetan kristiñauok egingo doguzan eleizkizunak.

* * *

Egun gurena izango dogu batasunaren eguna. Baiña baita banatzearen ordua be. Egun orretan banandu ziran Azkatzaillea ta bere saltzaillea. Baiña geu Mai Santuan alkartuko gara. Gau aretan iñoiz baiño nabarmenago agertu ziran geure arteko makaltasunak eta bildurrak, Aurrelariaren ondoan egiten diran atzerakadak.

Baiña gaba igaroko da eta egunaz batera etorriko dira adorea ta indarra.

* * *


Bariku gurena izango dogu gure Azkatzaillearen adorea agertzeko eguna. Bera azkeneraño elduko da, makalkeriari lekua emon barik. Bera bakarrik geratuko da nekeen artean. Guk taldean lan egin bear dogula esaten dogu, baiña sendotasuna ta kemena bear diran orduetan bakarrik aurkituko gara. Atzera egin? Ez. Azkeneraño ekin bearko dogu. Une aretan geroa illun agertzen ba'da be, ondorenak laster agertuko dira.

Eriotzarik ederrera ikusiaz, arerioak bildurtuko dira, eriotzeak emoten dauan itzala kontuan arturik; lagunak adoretuko dira Azkatzaillearen egin dan lana ta egitekoa ikusirik; gizadiarentzat erduri ederrera izango da. Eredugarri izan zan Sokrates ospetsuaren eriotza otzana ta bere zikuta artzea, baiña askoz eredugarriago Kristo'ren eriotza neketsu ta baketsua.

* * *

Gomutapen eder onek adoretuta emen geratuko gara bere jarraitzailleak: Erri lanerako indartuta, alkar adoretuta, ingurua ta Erria azkatzeko gurari biziak, Eleiza lez alkartzeko ta zintzoago jokatze erabagi sendoaz.

Azkatzaillea dator, Beragaz azkatzailleak izango gara.



Erronkari Ibarretik

IDOIA'EN JAIA

Kanpoko Idoia'i eskeintzen zaien jai, garagarriaren azkeneko igandean ospatuko da; larunbatean, done Petri egunean, asiko dira ospakizunak. Izaba'ko eta Ibar guztiko Idoia'k gure Ama Birjiña ikustera etorriko diranei ongi-etorria egingo die. Ta erronkariar gisa jantzita datoztenak Ama Birjiñari egingo zaion lore-eskeintzan parte artuko dute.

Jesus Arbeloa, gure apaiz jaunaren zuzendaritzapean, orain illabete batzu ezkeroztik, esku-lantegiak jardun dute, eta bertan bukatzen ari dira jaiarako errondariar andereen janzkerak. Izaba'ko andereen gogo bero ta trebetasunari eskerrak egin aal izan da lan zail au. Jai egun ortan emango zaio merezi duen balioa egindako lanari, eder antzeari dagokionez. Beste berrialdi batean xetasun geiago emango degu, itxura denez, ospe aundiko izango dan Idoia'en billera oni buruz.

JAKINTZA-ETXEA

Osorik berritua, joan dan ilbeltzaren 27'an idiki zan, Iruña'ko «Coral San Jose»k emandako musikaldi ederrarekin, Viana'ko Printze'aren eta Iruña'ko Udaletxearen Aurrezki Kutxaren babespean.


EGUTEGI EDER BAT

Aurten Naparra'ko Aurrezki Kutxaren 1974'ko Egutegia napar ermita ta erromeriei eskeiña dago. Kolore askotariko zenbait irudiek Idoia, Arrako ta Muskilda'ko festak dakarskite. Ba dakar ere Iru Bigaen Zerga. Egutegi eder au ongi artua izan da alderdi ontan.

ALMADIZAI EI OMENALDIA

Zangotza'ko Jakintza Etxeak, Iruña'ko agintari ta Saraitzu ta Erronkari'ko ordezkariekin batera, almadizai ei omenaldi bat prestatzen ari dira: oraindik bizi diranei ta aurretik beren bizia arriskatu ta ibaian il ziranei.

Omenaldi au ongi artua izango da Naparrua osoan. Baiña ez geneku zuzen jokatuko Salbaterra'ko ta Sigues'eko talde aiek aaztuko bagenitu, ainbeste Erronkari'ko almadia erabili zituztenak eta oraindik ere aietako zenbait bizi diranak.



Aditza Aztertzen

Aal-eran bitariko jokoak darabilguz euskaldunok. Zein transitiboan, zein intransitiboan. Baiezko esaldietan eta ezezko esaldietan Azkue'k oinarriak diñosku: «Hay dos maneras de indicar la potencialidad: la una, muy sencilla, en el verbo infinito; la otra, un verdadero maremagnum, en la conjugación» (Morfología, 765 orrial).

Ta bitariko jokook gauza bat eta bera adierazoten dabela dirudic. Gazteleraz beinik-bein itzulpen bat baiño ezin daikete euki.

Ikus:
Etorri al naz — etorri naiteke = puedo venir.
Etorri al izan nintzan — etorri neintekan = pude venir.

Ezin etorri naz — ezin etorri naiteke = no puedo venir.

Ezin etorri izan naz — ezin etorri neinteken = no he podido venir.

Ekarri al dot — ekarri daiket = puedo traerlo.

Ekarri al izan dot — ekarri neinken = he podido traerlo.

Ezin ekarri dot — ezin ekarri daiket (neike) = no puedo traerlo.

Ezin ekarri izan neban — ezin ekarri neikean = no pude traerlo.

Orra adibide batzuk. Ta onelako esakunak ainbat eta ainbat ekarri neikez. Ta sarritan entzun oi doguz. Nun-nai ta noiz-nai erabiltzen.

Aditza jokook eta esakunok aditza berekoak ete dira? Ala, esan-gura bestelakoa ete dabe? Au da: *etorri al naz* eta *etorri naiteke* esaldiak, esate baterako, gauza bat eta bera esan ete daskue? Ta *ezin dot* eta *ezin daiket* esaldiak be, gauza ber-bera? Ta zein bata ta zein bestea neure gogora erabilli ete daikedaz? Ona argitu nai neuken zatitxoa.

AZKUE JAUNAREN IRITZIA

Ba dirudi Azkue jaunarentzat esaldi bitzuok aditza bereko dirala. «La misma fuerza tienen *ezin etorri naz* que *ezin etorri naiteke*» Morfología, 766 orri. «Mis compañeros notan alguna diferencia que yo no percibo» (ib.) Ta bere Itzegi aundian auxe dirakurru: «La imposibilidad en las ideas presentes ofrece hasta tres grados de expresión: *ezin jan dot*, *ezin jan dezaket*, *ezin jan al dezaket* (es imposible expresar la significación neta del segundo y tercer grado)» (I, 298 orrial).

Azkue jaunaren iritziak, beraz, esaldi bitzuok esan-gura bardiña dabela dirudi. Arrigarri deritxat. Azkue jaunaren iritzi oni. Geroago esango dot zergaitik.

ALTUBE JAUNAK IRAKATSIA

Sebero Altube ez etorren puntu onetan Azkue jaunagaz bat. Onak irakatsia okertzat jaten eban. Eta jorratu ta astindu egiten dau arek esana. Jakingarririk asko ba damosku bere «Observaciones al tratado de Morfología» deituriko liburu irakurgarria. Altube jaunarentzat esan-nai berezia, oso berezia, dabe «al» eta «ezin» darabilguzan esaldiak, batetik, eta «ke» izkiaren bitartez aal-era bera jokatzu darabilguzan jokook, bestetik. Gauza bat adierazoi nai dogu *etorri al naz* esaten dogunean, eta beste bat *etorri naiteke* esaten dogunean. Bardin, gauza bat *ezin etorri naz* darabilguzan, eta beste bat *ezin etorri naiteke* esan badagigu. Gauza bat da: *Au egin al dot*, eta beste bat: *Au egin daiket*. Gauza bat: *Ezin dot ekarri*. Beste bat: *Ezin daiket ekarri*. «El pueblo no contaminado del habla cervantina, nunca llega a confundir ambas categorías de flexiones» diño berak (Observaciones..., 127 orrial).

Altube'k dirakuskunez, *etorri al naz*, *ezin etorri naz*, *ezin dot*, *ezin dot* eta onelakoak aal-eraren ORAIN-ALDIARI dagokioz. Ta *etorri naiteke*, *ezin etorri naiteke*, *ezin daiket*, *ezin daiket* eta onelakoak, barriz, aal-eraren GERO-ALDIARI. Ber-beraren itzak aiatu naiago dot:

«Potencial Presente.—Se usa cuando el acto está en ejecución, es decir, cuando la

potencialidad está ya puesta a prueba. Ejemplos: a) *Ezin ibilli naz* (cuando se está caminando y no se puede andar). b) *Ezin lorik egin dot* (cuando se está acostado sin poder conciliar el sueño).

Potencial Futuro Presente.—Se emplea cuando el acto a que se refiere el nombre verbal debe ser realizado después del momento en que se habla, aunque la potencialidad del sujeto sea considerada como actual en dicho momento. Ejemplos: a) *Eroan daiket*, puedo llevar (aunque no estoy llevando). b) *Ezin lorik egin daiket*, *lan asko daukat-eta*, no puedo dormir (no puedo ponerme a dormir...). c) *Ezin etorri daiteke ordurako*, *ankako miñaz dago-ta*, no puede venir (no puede ponerse a caminar...). Por eso, las locuciones euskéricas de Futuro Presente pueden revertirse a otras castellanas formadas por flexiones de subjuntivo. Ejemplo: *Ezin ibilli naiteke*, es imposible que pueda andar; *ezin lorik egin daiket*, es imposible que pueda yo dormir, etc. En cambio, las potenciales de Presente se expresan con más exactitud por fórmulas castellanas gerundiales. Ejemplo: *Ezin ibilli naz*, estoy no pudiendo andar; *ezin lorik egin dot*, estoy no pudiendo dormir...» (Observaciones..., 127-128).

Argi ta garbi daukagula uste dot Altube jaunaren irakatsia. Berau gogoan baldin badogu, ez dogu izango zalantzarik noiz *al dot*, *ezin dot* eta onelakoak, eta noiz *daiket*, *ezin daiket* eta onelakoak erabilli jakiteko.

GAURKO IDAZLEAK

Gaurko idazle batzuk nastau egiten dabez aitaturiko joko ta esaldi bitzuok. *Ezin daiketu* (*dezaketu*), *daike* (*dezake*) ta onelakoak erabilli bearrean, *ezin dogu* (*dugu*), *dau* (*du*) ta onelakoak darabillez. Liburuetan eta asterokoetan orrelako okerrak eurrez ikusten doguz. Gure belarria (*entzumena*) gaztelera entzuten oitu jakunez, euskeraren esakera jatorrak galtzen goaz. Euskaldun uts eta garbi dirauanak ez dau orrelako utsik egiten. «El pueblo no contaminado del habla cervantina...», Altube aundiak esango leukeanez. Esakun bata naiz bestea, zeuk gura dozuna, ezin zeinke erabilli (emen *ezin zeinke* edo *daiketu*, *ez ezin dozu*...), euskera jatorrez itzegin ta idatzi nai badozu. NOIZ dan eta adierazoi nai dana ZER DAN jakin bear. Ona argibide batzuk:

—Inaki'k Koldo'ri gorrotoa badautso, onelan esango dau: *Koldo ezin DOT ikusi*. Euskaldun jatorra bada, ez dau egundo esango: *Koldo ezin DAIKET* (*neike*) *ikusi*, belarrian min emongo dautso-ta.

—Etxe barria egiteko asmoa izan arren, etxe ori egin ezapozko, onela esango dozu: *Etxe barria egin NEINKEAN* (*nezakean*), *baiña eneban egin*. Ez dozu esango: *Etxe barria egin AL IZAN NEBAN* *baiña eneban egin*, zer adierazoi nai dozun gogoan izanik, esaldi orrek min emongo dautso-ta.

—Etxea egiten asi bazara, baiña ezin amaitu, onan esango dozu: *Etxea ezin egin IZAN DOT* (*NEBAN*). Ta ez: *Etxea ezin egin NEIKEAN*, ezina ikusi dozu-ta.

—Peru'k Yon'i itandu balegio: *Egia da bizi izaten Bilbo'ra zoazana?* Yon'ek euskera jatorrez, onan erantzungo leuskio: *Ezin DAIKET* (*neinke*, *nei*) ori ukatu. Baita: *Ezin daiketsut* (*neikizu*, *neizu*) ori ukatu. Ta ez: *Ezin DOT* ori ukatu. Ezta: *Ezin dautsut* (*dizut*) ori ukatu.

Orra argibide batzuk. Askotan eta askotan argi-argi dakusgu joko ta esakun bitzuon artean dagoan aldea. Au dala-ta, Azkue jakintsuak idatzi zituan itzak zelán idatzi zituan ezin dot ulertu (emen *ezin dot ezin*, *daiket* ez letorke ondo nire belarriko). Beste batzutan, barriz, zalantza izan leiteke, ta, izan be, izaten da.

PUXANA

Sasi-Irakasleak

Azken-aurreko «AGUR»en, (ikus «AGUR», 126 zenbakia, KUKURRUKU BARRIAK idazlana) ondo imini dau Arenaza jaunak «Arri»ren ziplatea. Ederto dago ta polita da.

Eta neu, berealan, beste gertakizun batera eroan nau idazki politik.

Denpora asko ez dala, Aralar'ko Santutegian izan genduan batzar baten, abadeak, fraideak ta laikoak gongoan baturik. Danetarik; baiñan abadeak geiago.

Euskalerri'ko kristautasuna eraberritu, bizitu ta indartu bear zala, ori zan erabilli izan genduan gaia.

Iruña'ko gotzai laguntari, «Larrauri» yauna, bilkura guztietan aurrean izan zan; eta Iruña bertako gongotzai «Mendez» yauna, ere, egun batean edo bestean bai. Baita, azken egunean beintzat, Donosti'tik etorrita, «Setien» gotzai yauna bera, ere.

Entzun genduan bai gauza ederrik egun arceitan...! Baiñan orra, batzarra laster amaitzera zoan ordu berean, batzarkide bik «Euskera Batua» kontua ekarri euskuen aurrera ta ordira.

«Euskera Batua» ta «Euskera Batua» egin bear genduela, iñoen...
Eta orduan Bilbo'ko abade yakintsu batek: «Baiñan zer zabiltzate «Euskera Batua» ta «Euskera Batua» esan ta esan... Ori oraindik eztago egiñik-eta...?»

Ain zuzen be, etzagoen egiñik; baiñan gure batzarkide bi areik, alde aurretik (a priori) ta bertatik, danok onartutea gura eben. Danok asperturik entzuten, areik biek muxikari ekiten eutsoen bitartean. Orduan baten batzuk «ez giñala kontu ori erabakiteko etorri», esan; ta itxi eben zezioa.

Baiñan geroago, yende taldetik ta beste leku batetik, beste yaun zartxo bat agertu zan; ta gaidikiroko gauza batzuk esan eta esaten gelditzen zan: izkuntzaren batasuna bearrezko zala, izkuntzak indarra artzeko, ta abar...

Yaun zartxo arek erderaz ondo egiten eban; ezagun zan ikasiz ondo yantzita egoela. Baiñan esaten ebazan baietzak, ez eben ezertarako balio ta ezer balio. Orregatik ez yakun eder, arri be, entzuten egotea; baiñan egon bear. Azkenez, iñork be ez eutsola yaramonik egiten-eta, isildu zan.

Geroxeago yakun genduan, Be-Ameriketako mixiolaria zala; eta napan-erriberan yaio zanez, etzekiela euskerarik, naizta Euskeraren aldekoa izan biotzez. Illabete batzuetarako, atsedean artzera etorria zala Euskalerri'ra.

Bilkura amaitu zanean, lagun moltzo batek ba-zuan an bazterrean zer esanik franko: «eztago eskubiderik, Euskerarik yakun ez ta irakasle gura izan gure aurrean. Eztago eskubiderik orretarako. Lenago gure gudu aurrean, euskeraz etzekitenak edo euskal barri ziranak, ixillago egoten ziran ta apalago be bai, egiako euskaldunen aurrean. Baiñan gaur egun, orrek, euskeraz yakun barik be, irakasle lez agertuten yakuz. Eta guri, beti euskeraz egin ta beti euskera ikasten ibilli izan garanoi, irakatsi gura daskue zer egin bear dan «euskera salbatzeko». Eta olangorik eztago etsi bear», adierazoten eben moltzoko lagunek...

Azken-aurreko «AGUR»en be, («AGUR», 126 zenbakian) olan azalduten yaku «ARRI» erdal idazlea be, guri euskaldunoi irakasten, berak iñoz be ez dauela euskeraz idatzi, Arenaza jaunaren lanean dagoen lez.

Ori dok azkena...!

Bai ete yake ardura, Euskerak bizirik irautea ta errian mintzatua izateak...?

MOTXOGANE'K

Sariketa Nagusia

Nagusia ta maitagarria. Lengo urteetan lez, bostgarrenez, ona emen «AGIRRE TA LEKUBE'TAR JOSEBA ANDONI SARRIA». Zertarako? Euskerea bizkortu ta irauraraziteko asmoz, «Euskal-Kulturaren Alde»koak erazten daben sariketa garrantzitsua.

Sari au iru urte barruan argitaratzen diran idaztien artean banatzen da. Beraz, igazko Epaillaren 23'garrenetik 1976' gneko Epaillaren 22'gn arte euskeraz argitaratuko dan idazti onenaren saria dogu.

Milla dolarreko sari bakarra da; «Euskal-Kulturaren Alde»koak izaten dira

epai-maiko, ta onen erabakia gora ezin jotekoa izango da. Saria ezin legike zatitu, ta saria lortzeko añaikorik ez ba'lego ez da saririk emongo.

Epaikarien lana errezteko, ongi litzake agertu diran idaztien ale bi bertara bialduko ba'leuskiguz, baita zertzelada geiagoko jakin gura dabenak be zuzenbide onetara idatzi: Euskal-Kulturaren Alde, 48, rue Singer, 75016 Paris, edo 10, Bd. d'Alsace-Lorraine - 64100 Bayone.—Bilzaillea,

ASTI

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, berekoi, politikoa naiz ondasungarri asmoen gaitetik daben iritxi-onoeko euskaldun guztiak Euskeratzak dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egileak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M.^a MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guttirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966



eziketa jostailuak eskulanetarakoak irakasketa gaiak

gregorio de la revilla, 1 bilbao - 11

Jolasean ikasi, or zure aurrentzako emoitzarik onena

KONTU KONTARI

BARIXEKU

SANTU

Lena, beintzet, oraiñ ogeitaz edo ogetamar urte barren, orduko urteeta-ko aste guztixok zien santu-santuek; gaurko urtien aste santu bakarria baiño.

Gure umetan, «tinieblak», judas illtzeko asmuen; «fariseuok» «eskribanuek», «publikanuek»... a zuan eguen santu eta barixeku santu egun eder parie...

Don Donato, orduen organiste, geu tiplick. Staba materrok, Bone pastorrok, Eslaba, Palestriña... Kurutzetako ederrak, belaunbiko, alan izen bi'ko, begixek argi-argi, negar malkuon kristel ostien... Orduko jendie Jesukristo'gaz bat-bat eginde... bizite'ban egun eguena eta barixeku santu ospatsu mintsuek.

Kanpaiek erromara alde, da, kale-kale, karraka zarra, mailluketan, drambada otsien eleizako deire.

Sermoi, zaspri berbatako sermoie, abots onengo, oneteiko abadiak «pulpitxuen», bete-bete beraz, gizon, pulpitueta eta berba aldixe, danok biribill-biribillek.

Altaran, kristelezko kaxan, Jesukristo preso, ilde. Albueta, lau «fariseo», markiñeko lau mutill pelotariexek edo latoneruek eurok, baiñe arratsalde orretan jantzitze alako eran. Gutzet pelikula ederrena eta sutsuena baiño obie.

Lau armaillako eskillaran, sakristauek goiko kandeleta eltzeke dauken eskillara armaillan, Tejer'en semie, bere buru biribill Neron Napoleon tipu, buru rapau boltan erioitz koroie, eta Urdanpilleta señorian gabeko kamisoiak dago lo, zurrustada baten. Bai, iñor edo iñoiz izen ba'da benetako publikanue, ederra bai zan Urdanpilleta'n gabe-ogerako goniaz Tejer.

Bere zurrustadak, barritz, Golgotako aixe boladak baiño uluatsuek...!

Abadie, bere sermo erdi inguruen, esan eran «Jesukristo ill de... ill de...!», pariseuok, batera, zaparrada trumo baten, euron makilla luzioi esku batetik bestera pasau ta egite'ben: TRANBA...!

Tranbadie jo eran, zatatsue eta tramba sutsue jo eran, Tejer'ek esnatze txarrien, jausi de kamiso, parpaila, erioitz rapo-bola boladie eginde gradan bera. Abadie alarau eten baken, pariseuok dranbada, Tejer astronauta: Marixe'n alabok, Jesus'en biotzan kopradixekuok, andra eta eleiz gizonok, arek bai artu bela sustoik itzelena.

Tejer'ek ez, ezekixen nun danik pez. Eleiz sala erdixen gatuzanien, goitxik berakadan, zirku ba'zan, eleiza barruko terremoto azpixin ba zan... edo Urdanpilletan kamisoiak lengleng eta ospatsueneteiko astronauta biurtu eñ ba'zan, millagro be...

Aren danbarrio otsa, Golgota'ko gora berak azaldu eran apaizek, benenetan dar-dar zien gorputzok, biotzak salto-salto, arimak be ike-ikeran.

Andik etxera, Xemein'go zelaixen asi eta kamiñuz kale, Tejer'ek erue'ban erpe-jorra, bere kamisoi aidez, erioitz koroie buru biribill rapauan ganien dabela, ez, ezan izen makala.

Tejer-bolie ikusitxe gero, kalian gora, kalian bera, bai oixe euki gendule zer esana geure aitzari eta geure amari.

JUAN JOXE ARRIZABALAGA
«MARKIÑA»

ARROLIOA DALA-TA

Gure egunotan al dabenak al daben guztia egiten dau edozer gauzatan besteai ekarri leikion ardura barik. Esate baterako 50.000 laurlekon neurkin lauki lurra saldu al badau 45.000 gitxi eretxiko jako ta ez dau salduko. Ta olantxe beste gauza guztietan.

Noizik bein norbaitek olako geiegikerien aurka zerbait esango edo idatziko dau, baiña geienetan normaltzat artzen dogu ori. Geuk aukera ori ez izatia izaten da gure tamala.

Al dabenak al dabena egite au arabitarrek be ederto ikasi dabe. Israeldarrek izan daben gudea dala-ta arrolioa zeruetaraiño jaso dabena guztiok dakigu. Eurak arrolioagaz artu dituen neurriak kalte andiak ekarri ditu mundu guztira: lana gitxitu ta bearreko diran gauza askori ikaragarritzko gorakada egin eragin: kezka ta ezin bizia sortu toki askotan.

Edozein biotz bako salerosleren geiegikeriak baizen gaiztetsitekoa da arabitarren arrolioagazko jokabidea. Gudan alik-eta ondoen atarateko neurri orreik artzea errazoizkoa da, baiña gudea amaituta be lengo bideari eutsi nai izatea iñundik iñora ezin onartu daiteke. Ortik Errusi'rentzat kalterik izan balitz olakorik ez zan jazoko. Munduko politikan buru diran alderdi biak alkar artu ezkerro makurtu biarko ziran arabitarrek. Baiña Errusi lagun agurtu jake ta edozer geiegikeri egiteko bildurrik ez dabe.

Arrolio ezak Laterri batzuei sortu dautsezan larritasunak ikusirik, erri aurreratuen aurrerapena erri atzeratuen kontura izan dala esan izan da. Ez dakit erri atzeratuen len-gaiak biar dan lez ordaindu dituen edo ez erri aurreratuak. Kontixu, geiegi baiño gitxiago ordaintzea ziurrago izan izango da. Ala be ori esatia aoa geiegi zabaltzea da. Errien aberastasuna edo aurrerapena kulturak ekarri dau, tenika bidez asko sortu edo produzitzeak. Atzeratuak dirauen errietakoak baiño aurreratu diran errietakoak burutsuago ta langilleago izan dira.

Gauzak bera egitea kostau diran arabera balio badabe arrolioa ondo ordainduta dago lengo saneurrietan be. Len-gai gitxi dira arrolioa arabitarrei baizen gitxi kostauak. Arrolio putzuak Jaungoikoak ipiñi eutsezan euren lurpean, eta Europar eta ameriketarrek bera etarateko tresnak. Arabitarrek bape neke barik dirutza andiak sakuratu, Orixe euren lana bakarrik. Arrolioa ondo be ondo ordaindua izan dala konturatzeko oraintsu zabaldu dan barria gogoratzea naikoa da, zera, arrolioaren jaube diran arabitar Laterriak dirutan iñor baiño aberatsago dirala.

Euren aberastasunak loteria izan dira ta loterian aberasten dan iñori ez jako ukatzen bere diruen jaubetasunik. Arabitarrei be euren arrolioagaz biar dan lez balioteko eskubiderik ez dautsagu ukatuko, ta on egin deioela. Baiña, Jaungoikoarren, iñungo erriri estura ta ezin bizirik sortu barik.

Ta amaitzeko: Arabitarrek ainbeste diruren jaube izan eta palestinar koitaduei bizimodu eroso egin al izateko lurralde bat ezin egokitu deikioe?

KAMIÑAZPI

BASERRI-ALDE

ITURRIAGA'TAR KANDIDO TA DAÑOBEITIA'TAR MARIA

Izena daroan Baltsa-Laguntzeak, baserria giza aldetik eta teknika bidetik indartzea ta anditza dauz bere elburu, ta onenbeste aurten lortu naiaz, BASERRIKO LAN-AZTERTZE TA EZAUPIDEEN LENENGO SARIKETEAK eratu dau:

OIÑARRIAK

1.—Sail bi izango ditu leieketa onek, eta bakoitzaren irabazleak 50.000 laurlekoren saria jasoko dau.

A.—LAN-AZTERTZEA: Bai giza aldetik naiz teknikaren ikuspegitik osotzen diran baserriko jakintza-azterketak osotuko dabe sail au; gaurko egoera, gertaketa ta aurrera bideen azterketa lanak. Lan onetan, Euskal-Erri'ko baserri luginza edo abel-azketea, osoan, naiz atal bereziren baten emon daiteke. Onesgarrien artuko diran lanak onaitzek izan leikez, irabazpidea ta teknika arloa aztertuz:

—Ezne ta aragi jasoteak.

—Abel-azkuntzako era barriak.

—Baratz eta zugaztiko lanak.

B.—EZAUPIDE BARRIEN AZALPENAK: Lagintza lan-era, teknika ta azokarazteen ezaupide barrien aurkeztea izango da sail onen gaia. Euskal-Erri'an edo toki bar-dintsu baten egiñak izan bearko dabe.

2.—Edonork, gizaseme naiz legezko-batzak, eta edozein laterrisemetasunekoak esku arte dagikee sariaketa onetan.

3.—Lanak, lenago argitaratu gabeak izan bearko dabe, ta lenengo argitalpena egiteko eskubide guztiak Baltsa onen eskuan geratzen dira.

Dokortatze naiz ikasketa amaierako ager-peneri ta orrelako laneri, bereziz dagokioen neurrian ezarriko yake oiñarri mailla au.

4.—Lanak, irukiz bialdu bear dira, olanda orrietan, orrialde bakarretik kamiñaz idatzita, ta Epai-maikoeri lagunduko dautsen mapa, marrazki, argazki ta beste ezargarriak be lanari josita bialdu bear dira.

Bai cuskeraz, baita gaztelaz be, emon legikez lanak.

Baltsa onetako zuzendaritzak berak erabakiko dau, argiro, beste izkuntzaren baten be etorri leikezan lanak onartzea ala ez.

5.—Ezaupideeri buruzko jardunen sarian esku artzen dabenak, Epai-mai eta Baltsa onetako zuzendaritzak eskatu leiskien en zeat-tasun guztiak emon bearko dabez euren ezaupide lanagaz batera.

Sariketara letorken ezaupide-azalpen orrek, 4'gn oiñarri ori bete bearko dau.

6.—Lanok bialtzeko epea, 1974-XII-31' gnean amaituko da. Baltsa-etxera igorri bear dira edo eskuz-esku ekarri. Jaso-albistea be emongo da.

Zuzenbidea: «JAI-ETXE», Erandio-Asua (Bilbo).

7.—Epai-maia bost lagunek osotuko dabe. Leiaketa gaitan lan egin dabenak batetik, ta, bi gitxienez, Baltsa onetakoak dirala.

Epai-maikoeri erabakiak, gorago ezin jo-tzekoak izango dira.

8.—Epai-maikoak, Baltsako zuzendaritzakin bat, albo-sari edo «accesit»ak be emon legikez, ala uste ba'dabe. Baita agertu diranetatik lan bat be ez ba'da saria irabazteko aiñakoa, Epai-maikoak «utsik» dagola erabagiko dabe, eta saria lan onenen artean banatu.

9.—Sariketa onetako oiñarrien esan naia azaltzea, Baltsako zuzendaritzari bakarrik dagokio, ta bere garaian Epai-maikoeri. Baiña, lanak bialdu aurretik eskatu daikeezan argitasun guztiak emongo dira.

Asua-Erandio, 1974'ngo. neguan.

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

ZAZPI-KALEAK



CASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

GAZTE

LASTERKA

Lasterka da itza
erritik urira,
ez berdin mendira
itsas aundien bitza.
Guda denen giltza,
«Etxe-Zuritik» begira
gaitzen arira
ez datorren lotsa.

Loretxo, lore-lillura,
diruaren indarrak
denen tarteko bakarrak
eden zikiñaren gallurra.
Muin gabeko biotza
dezuten garrak,
gori jarririk larrak,
jazoz zure baratza.

Ernai gabeko ibarra
zerua usmatzen,
bertzek asetzen,
eziñik den liorra.

Gosez da ludia,
ituna nereaz,
gaixoa zurea,
denon nai bidia.


Itxaropen eza ezta,
bakarrik Unamunorena,
nai-ta olerki sari onena
izan, oraingoz, festa.
Jaiak —«festa»—, aizta,
guda ta usoa,
batera pausoa,
nai Amerikarrak, nai ezta.

Aiztu eziñeko baratz ontan
gozo simaurrena
zori txar lurruna
aitu gabeko asmotan.
Irakurtzea? Olerkia?
eroen oiua,
da ta gure leioa
arri txiskorren aterkia!

PELLO

SAN MIGUEL

Euskal idatzi ta eresmintztegiaren zuzenbide barriaren marrazkia damotzugu emen azpian. Ezertariko euskal argitalpenen zertzeladak jakin nai ba'dituzu, deitu 23 60 24 urrutizkiñera, edo Prim, 41-3.ª izqda., Bilbao, 6'era idatzi zuzenean. Etxe onetako atek be, zabalik dituzu lan orduetan.



PAPEREZKO ILLARGIA...

Izaki osoan —Gaztelu aldean— musika. Musika goxo, ixilla: Mala'ko erreka garbian, zeru urdiñean, baso illunean, mendi zurian, erri-txo paketsuan, musika alai, sakon, apala.

Iñauteri zaratsuan, musika eroa, aspergarria! Iskanbilla nunai!

Emen, bakardade maitagarria! Bakardadea ederra da... (ez beti). Lenbizi egin... gero pentsatu. Antziñako Gaztelu «aundi» «ospetsu» «kez-katsua», joan zan... eta orain erri illa, ixilla, utsa biurtu da! Denboraren goraberak!

Emen goian, dena zakarra arkitzen det gaur! Aizea, baso ta mendia... jendea... baiñan ederra, ona, egitazkoa... ez gezurrezkoa, Iñauterietan bezela. «Pailasoak» dirala... jai-gurdi apañak... jantzi apartak... Irriparrak. Dena gezurra... dena polita. Komeri galanta! C'est la Vie!

Ara. «Apeztegi» txuria... Emen bizitu zan Orixe orain dala amalau urte! Zer denborak! Zer udara! Luze ta beroka, ametzet betea! Euskal jai bikañia egin zan Gazteluko Plazan! Joanak Joan.



Lukas ta Ione Dorronsoro... Orixe... Ion Azaldegi...

Ta orain zer? Otza, illuna, aize illezkorra, naspilla, Berri- edo il? Nastu eta il... Leen, dena. Orain ezer ez.

Zeruan, Paperezko Illargia... utsa... ariña... ariñegia. Giro aztuna, bai. Errimiñak ere bai. Gogoramen errudunak. Itxaropen utsak. Giro otza, oso otza. Siberian be-

zela. Bestela galdetu Solhenitsyn'eri. Bai, Marxismoa diktadura da; gezurra... Tolosa zarrean, or dabil jendea saltoka... zer erokeri! Askatsuna zertarako?

Izaera, gezurra baiño arri-garriagoa da... bai noski! Gaztelu'n, Pake geiegi. Ba ote?

MATXIN

Eziketa Arloa

Euskerazko ikaskintzan alegintzen gara gure auzunean, ta sarritan lez, lengo baten, ikasleeri itxaroten nengoan artean, barriketa alditxoia izan genduan gazte batzuek, Eleizeak eurentzat daukan aterpean.

Ule zuridun nazalako, arlo txiki baten baiño ez ba'da be, arduratuta ikusten nabelako-edo, Jaungoikoak daki... itaunketa garratz bat egin eusten eterpe orren arduradun areik:

«Gure arteko gazteak ikusirik, ementxe bertan, Eleiz magaleko toki onetan gidari barik, barriketa utsean, ezergeitik arduratu barik, NOR DA ERRUDUN?»

Galdera garratza benetan, minkorra, baiña erantzun barik itxi ezin gein-kena: «NOR DA ERRUDUN?»

Parkatu gogortzat artzen ba'daustazue. Nire eretz gu, gurasoak gara lenengo errudunak. Amaika atxaki daukaguz erru ori lepotik kentzeko; gaurko ibilbideak dirala-ta, telebizio, irrati ta abar, gure gaztearen bizitza irudigin edo modelatzen dabenak.

Egi aundi bat baiña ez osoa: Zelako oiñarriak ezarri doguz euren biotzetan, guk, gurasoak gareanok? Gogoan artu ete dogu benetan, gu gareala euren lengo irakatsaille ta ezin dogula iñoren eskuetan ezarri egikizun ori?

Ez dagin esan ez jakiñak gareala, gaurko gizearteari buruz ez gareala iñor ta abar. Ez ete da egia, geugandik asi ta ez dogula ezer besterik billatu gura: zelan obeto bizi: zelan diru geiago egin; gure seme-alabak zer izango diran bier-etzien; gizeartean zelako maillan izango diran, baiña beti ekonomi aldetik? Gure ardura garrantzitsuena, nondik dirua atera, lenengo ikastetxeetara bialtzeko, gizaseme jakintsu batzuk egin daitezten.

Bear bearrezkoa ekin aldi ori, baiña ori ete da dan-dana, gizona osotzeko?

Garrantzi aundikoa izan da be, ez ete da lenago, beragandik gizon oso-oso bat garratzea? Ta arlo onetan ezin dogu uts egin; len esan dodan lez, zeregin onetan gu gara lenengo maillan egon bear dogunak. Eta orretarako, geu izan bear gara eredu.

Alditxo bat dala, Madril'dik Bilbo'ra etorren Talgo'an, Argentina'ko ziñe egille bategaz alkartu nintzan, Donosti'ra etorrena, an izaten dan erakusketara, bere pelikula bat agertzera.

Gure alkar izketan euskaldun nazala igerri eustala, besarkaturik onela esan eustan. —«Ba-neukan gogoa Euskal-Erri'ko seme bat besarkatzeko. Ez an Argentina'n ez daukaguzalako, baiña emengo bat, bere Errian bizi dana, bere erotik izakera osoa artzen daben bat». Poztu bearrean, itun gelditu nintzan arek eukan asmo ederra ikusiaz ta gaurko gure izateari begiratuaz.

Jarraitu eban berak poz-pozik. —«Ba ete dakizu Ego-Ameriketa'n, baiña batez be Argentina'n, gizon bat goraidu nai dabenean, bere osotasun guztia agertu gura dabenean zer diñoen beragaitik?: Euskalduna dala esan leiteke».

Euskalduna jakintsua dalako ete diño ori, beste gizon guztiak baiño argi-agoa dalako? Ala ez ete dabe esango, Euskaldunak ez dautsalako iñoiz uts egingo, gizon zuzen ta egizkoa dalako, laguntzarako gertuta, ta biotz zabalekoa beti?

Ta, anaiok, gure seme-alabok ez dabe ori etxetik kanpora ikasiko; Argentin'dar esan eustan lez, Erriaren erotik artu bear dabe nortasun ori, ta Erriaren oiñarria gu gara, Euskaldun sendiak izan bear dau bizitzarako bear daben ezne mamintsua emongo dautsena. Begiratu dagiegun gure asaba zarreri, euren sendikoeri etxeko teillatu-erlaxpean lur emoten, ildakoen doai ta aberas-tasunak galdu ez daitezten, etxean gelditen ziranentzat onuragarri izateko.

Gaur, Kristau ikasbideak, beste era batera irakatsi dausku, baiña jokutzen ete dogu onela, buru-bide garbi oneikaz? Azterketa bat egin dagigun, ta onen ondoren, ia nor ikusten dogun gaurko Euskaldun gazteen gidari-ezaren errudun, eziketa arloan beintzat.

ATXUTEGI'TAR BITOR

ERRIARRA

Mendexa

Lea araneko arazoa aurrera doa. Len bost erri txiki izan gara alkartuta, inguru onen alde lanean asiak: Munitibar, Auleztia, Giza-buruaga, Amoroto ta Mendexa. Orain Lekei-tio geitu yaku ta sei erri gara. Erri onetako gazte jator onen asmoa au da: kooperatiba bat sortu industria jartzeko.

Industria zertarako?, itaundu lezake bateon batek. Arrazoa au da. Lenengo aitatu dodazan bost erriok beintzat, baserri utsak dira, ta baserriak ustutzen doaz. Baserriak utsitu ezkerok, erritxo onek utsituta dagoz, eta tamalgarria da ori. Erritxo onek, biar edo etzi, baso-mendi batzuk izango litzakez erriak utsitu ezkerok.

Ori ikusi dabe emengo gazteak, eta orregatik nai dabe bertan lantokiak sortutzea. Baserriak be, orrela irauu lezake. Baserria erosotu, abelgorri edo ganadua gutxitu lana errezteko; oia edo pabrika lana egin eta baserrian bizi.

Lekei-tio'k eztauko arazo au, baserri-rik eztaukalako, baiña bai beste zerbait. Beste onetan sei erriak sartzen dira. Emengo ikasleak euren ikasketak amaitu ondoren, kanpora joan beerra dauke lan billa, ta onek emen geldit-zeko, bertan lantokiak sortzea bearezkoa da.

Oraindik inguru onetan euskaldun giroan bizi gara, zorionez, eta onek irauu dagian, bertoko jendea emen gelditzea bearezkoa da. Bestela, bertokoak kanpora doazan bitartean erdaldun giroa sortzeko arrikkua dago. Jarraitu guztiok asmo eder erreri.

TXAPELKETA

Mendexa'ko gazteak museko txapelketa bat antolatuta dabe. Amar bikote dira izenak emonak. Epailaren 3'an asi zan txapelketa au.

ERIoTZA

Urtarrilla'ren 18'an il zan «Algorta» baserriko Karmen Zabaleta, 95 urte zituala. Goian bego! Etxeko ta senide guztiak lagun-tzen dautsegu atsekabean.

TXAKARTEGI'TAR JOXE

Orozko

MUS'EAN TXAPELDUN

AGUR'en arripedun dan Ibarra'ko Rotaetxe'tar Karmelo bere lagun Letona'gaz, «mus»ean txapeldun izan da. Orozko-Ibarra'n Larrea ta Vidal'en edandegietako ordezkariak Mus azkenaldiko zein-gaietako ikusgarri bat egin eben. 500 notin giza-talde azkenaldiko Mus jokoaren zalantz-aldarketak ikus edo jarraitzen egon ei-ziran.

Ibarra'ko zelai enparantza ta arako bide zabalak berebillez bete-beterik izanak, Ibarre'tik Bilbo'ra egunero joan-etorriak egin oi-dauan berebil andiak biratzeko atzeratu egin bear izan eban aneurkin bat edo, ia Uñibaso'rarte.

Amabiak eta laurenetan Mus azkenaldi ori asi zan. Lenengo jokaldia 3-0 biribil bete bat Rotaetxe ta Letona'ren alde izan zan. Bigarren jokaldia 3-2 Iturbe'tar Felix'ek ta Amundarain'dar Goyo'k

irabazi eben. Azkenengoan aintebatean izanez, garai-pena esan dogunak izan eben, au da, Rotaetxe ta Letona geratu ziran.

Gizaldra lagunarte andi bat eldu zan Ibarra'ra; Baranbio, Areta, Laudio, Okendo, Arakaldo, Arrankudiaga ta Zeberio'tik... Ain nabarmen neurriz-goitik zein-geiagoka mus orrek zuzpertz egin ebazanok.

Orozko-Ibarra'tarrak erronketsu dira orain. Gertaurik dagoz ango azken-aldiko bikote biak, Durango ta Zeberio'ko txapeldunekaz jokatzeko. Entzun dogu Orozko-Ibarra'n kukurrukuz diñotsiela zeberiotarrei: «Ezkontzeko bildur ba'dira, Musean, kartetan beintzat kementsu direala erakusteko».

Barri-kontari onek Zeberio'ko ta bardin Orozko-Ibarra'ko mutil zarrei aolku, burubide, argitasun bat emon gura leuskie, esanaz: Gizonak, munduan abade, praille edo ezkontzarako, adoretua ta kementsua izan bear leuke.

EGILUZE

Arrasate

EZBEARRAK

Gure erritar Perez'dar Xanti, Bilbo'tik etxeruntz etorrela berebillean, beste-bi lagunekin batera, Amorebieta inguruan Ibaizabal errekkara jausi eta ilda jazo zuten. G. B. Iru semeren aita zan eta beste bat bidean. Erritar zan eta maitea bere lagun askoren artean. Jaunak Beragan dezala.

ERRIKO-KALE GORABERAK

Len geltokia izan zan inguruan, etxe barri bat jasotzen ari dira eta bere zeregiña, «anbulatorio» edo ortarakoen egin bearra izango du. Lendik ere ba zegoan orrelako zerbait, baiña bere lanak oso urriak izaten dira, eta orregaitik gexoak Gasteiz'era eroan bearrak izaten ziran. Orain berriz, esaten diran guztiak egiak ba'dira, emen bertan osatzeko lan asko egingo dira. Etxe barri onen zeregiñak Oñati, Aretxabaleta, Ezkoria eta Arrasate'ko gexoen aldekoak izango dira. Ba zegoan zerbaiten bearra, len esan bezela oker asko izaten dira-ta, bai gaxoen aldetik, baita beren etxekoe-kin ere, lan-ordu asko galdu eta beste diru-eralgitzak izaten dira-ta.

UR-POTZUA

Gure erri onetan sarri izaten gara, batez ere, uraren urritasunakin. Ori gaindutzeko asmoz, or, Korueta auzoan, Aretxabaleta'ko errialdean eta Urkulu deritzon tokian, ur-potzu aundi bat egiteko asmotan da'biltz eta bertan eralgiko dan dirutza, gutxi gora-bera 300 milloez pezata izango ei-da. Ez da diru gutxi alajaña! Baiña bear-bearezkoa nunbait. Ortik aterako ura Ezkoria eta Aretxabaleta eta Arrasate'rako izango da. Au aurrera eroango ba'litz urte mordo baterako bakia egiña izango litzake.

UDALAITZ

BARRIA

Bermio

Zumarraga

GIZON OSPETSUA

Une ontan, begien aurrean daukat gure abendaren kondaira zaarra, aranuan asere begiak topo egiten dute, 16'grn gizaldiaren asieran, ain zuzen, gure erriko gizon ospetzu batekin.

Gure erriko tren-bide zabalaren geltokiaren aurrez-aurre, mendiska gainean, alde baretik tren-bideak, eta bestetik, Orbegozo anaien Lantegiak, inguratua arkitzen da JAUREGI-AUNDI, etxe torrea.

1503, edo 1505 urtean, gutxi gora-bera, jaiotzan Migel L. Legazpi, opetsua, jauregi ontan, bere gaztaroari buruz kondairak gauza gutxi argitaratzen du, Baiñan, konturatzen ba'gera aro ontan, euskaldun jauntxoaren zeregiñik bereziak da guda-gizon bulartsuak izatea ta letradu trebeak.

1528'grn, urtean Mexiko lurraldeetan aintari arkitzen degu, idazle trebe, epailari, ta abar.

AGUR'en irakulei, gure erriko gizon ospetsu onen berri ematean, ez da gure asmoa uneontan, erritar onen politika egintzetan jarraitzea, gai oni buruz ba-dira luma zorrotzak epaituko dutenak dagokion mailan.

Nere lantxo au bukatzeko, gure erritar ospetsu au agertu nai det, Kristau eta Esukaldun mailan, lantxo au zuzenago jarraitzeko, aritzen det ARTE-TXE zanaren LEGAZPI liburua. Ona zer dion: Itz gutxi ta egintza aundietako gizona.

Iñori emandako itzaren eusle porrokata. Guztiz biotz bera. Ez Odol zale ta elkorra. Euskaldunentzat aitsende ta babesa. Gogoko zaio bere aberriarekin aurtzaroan mintzatu duen elean mitzatzeta. Aberas purrutakua, eman duen itza betetzeko txautuko du bere ondasun guztia, beartsun mailan ilko da, bakardadean, Baiñan Indietan berak ain maite zuan erriak, menderik mende, AITA! deituko dio.

LEEN JAUNARTZEAK

Zuzendarien iritzia jarraituaz, aurtan umetxoan jaunartze nagusiak taldeka ospatuko dira.

Epailak 19, aita San Jose; Goizeko amarretan aurtxo talde politik ospatu dute beren leen Jaunartzeak. Ikusgai ederra, Gure eliza ederra, jai aundietan lez, apaindua, argi ta lore usaintsuz alaitua, aldare nagusiaren oiñetan bikario jauna irri barre ezia jario, jantzi ederrez soñta inguratua, aurtxoan gurao ta senidez Eliza barrua leporatño bete, Guruze deuna aurretik, abesti elziak ezpaitatetik jario, aurrak bi lerrotan egiten dute elizan beren sarrera.

Katekesisko zuzendari argi dan D. Luis apaiz argiak, bere etorriaren arian berotu ditu umetxo ta aundien biotzak. Txoragarria benetan aurtxo auzen leen Jaunartzeak dala-ta, mai santura urreatzen ikusi degun jende otea. Aspaldi ontan aspertuak geunden beti aurpegi berak ikusten.

Jaiero izango ditugu garizuman Jaunartze nagusiak.

Pazkoa egunean Euskeraz Kristaubidea ikasi duten aurrak egingo dute beren Jaunartze nagusia.

AZPEITIA'TAR GOTZON

AZKARRAGA

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra
BILBAO - Casco Viejo
Tenderia, 15 eta 16



MONRAY

ARKONDARA-GINTZA

ANDEREENTZAT AZKEN-JOSKETAK

Bidebarrieta, 2
43 46 urrutizkiña

Alderdi-zarra
BILBAO-5

ERRIARRA

ARRATIA

Mexiko

EUSKALDUNAK MEXIKO'N (IV)

Aurreko ene idazkian agindu ere agindu nizuen, Erregeak Mexiko'tik biran etortzen ba'zitzazkidan ango berriak emango nizkizuela, berealaxe batean jarriko nizkizuela jakeñean. Alaxen, bada, eskutiz ori etorri zait baita atsegiñez irakurri ere.

Aipatzen nizuen, esan bezela, Ilbeltza'ren bostgarrenean ospatu zan jai ori. Umecen taldeak eta aundiagoen taldeak beren egin-kizuna guztiz ongi bete omen zuten, jendeari txaloak parratzadan atera azteraiño. Euskal-Erri'ko antzin dantzak ikustea eta abestiak entzutea, an, urruti aietan, naitanaiez euskaldun biotzak bigundu ta dardaratu egin bear. Txistuak, txalapartak, albokak, txirulak eta abarrek ots bereziak eta txit ernagarriagoak izan oi dituzte jaioterrik urrun entzun oi diranean. Zein indarra duala gero erbestean jaioterriaren deiak!

Guztia oso pollita ta beroki txalotua izan omen zan. Baiñan, kilikagarrigena, nere adiskidearentzat, an, emendik urruti artan, amar aurrekin txistulari taldea osatuta edukitzea izan omen zitzaion ta, erbestean daraman lana ongienik ordaindu ziona.

Eta jai ori, Eguberria'ren ordeztatu eratu zalarik, ume txikiak osatutako abesbatxo bat ere irten omen zan. Eta guztia pozik, emaitza onik jasotzen bai-da azia ongi ereiten ba'da, eta ikusten degunez, Mexiko'n, euskaldunak ez daude lo euskal alorraren aldamenen.

Gerogoz ere, agirian ipiñi dute sorlekuari dioten maitatesuna, bai gure gauzentzat ere. Erregetako jai orren ondoren, ez zitzaion aaztu Deun Agate bezpera, ez eta egun ontan emen ikasi zituzten abesti atsegiñak. Gazte talde bat antolatu ta etxez etxe ibilli ziran abesten. Oso ongi irten omen zitzaion ta jendeak abegi onez artu omen zituzten. Onela bada, txanpon ederrik bil omen zuten. Zertarako? Diru onekin antzoki bat alkatatu nai omen dute, ta berriz ere beste euskal jai eder bat ango euskaldunei, bai bertakoei ere, eskeintzeko.

Eta asmoak asmo ez, baizik eginzale diralatik, Boletin bat ateratzeko omen dabilta Mexiko'ko Eukal Etxean biltzen diran gazteditarak.

Eta Euskal Etxea aipatu degunez, esan dezagun indar aundia artzen dijoala. Jan-toki edo restaurant bat erantsi nai diote, deigarriagoa izan dedin euskaldunentzat, betegarri bat alkatu arazteko, ta or omen dabilta buru-belarri lan ta antolamendu ontan.

Beste gauzarik ere ba-da Mexiko'n. Urruti, etxetik kanpo, Euskal-Erri osoa, ta bere zatiak gogoratzen dira. Izan ere zatiak, zati guztiak osatzen bai-dute ama-lurra. Alaxen, erri bakoitzekoak, beren jaioterriko jaiak oroituz biltzen omen dira txolarte eder ta atsegiñetan. Donostiarrak bai omen dute, Donostia'n bezela, beren «Gaztelupe Elkarte». Asteazkenero afarixkoa, eta afarixkoan ogeitabosten bat lagun. «San Sebastian» egunez ere bazkari batean bildu omen ziran, ta bertako lendakariak omen zionez: «Beasain'go orkestararen laguntzaz...» esan nai du, nere adiskideak txistua eta dultzaiñari astindu ederrik ematen dizkiela.

Nolanai ere, beti zaizkigu pozgarri onelako berriak jakitea. Ango anaien alkartasuna pozgarri baldin ba'zaigu, pozgarriagoa da oraindik jakitea, alkartasun orren zaiñak onaiño luzatzen dirala, euskal famili guztiari besarkatu naiean. Eta, ontan, guk ere gureak zabaltzen dizkiegu biotzez. Ez baita gauz ederragorik sendi ongi alkartutako bat baiño.

UXOLA

Errenderi

Gaur, epaillak 17, bukatu zaigu euskaldunen aste ederra.

Euskaldunen astea dei genezaioko, izan ere urteero gure Andre Mari'ko elizan egin oi zaizkigun, astebeteko itzaldi sayoari.

Antxe ibilli gera aste osoan, utsik egin bage, eta pozik asko gaitera. Danon iritziz, laburregia izan baita. Ordubeteko itzaldia, instant patian joaten zitzaigun-da. Alako euskera entzuteagatik bakarrik ere egon zitekean!

Bi elizak betekada aundia ikusiak dute aste ontan. Guri, Andre Mari'n, illunabarreen egiten zitzaizkigun, eta Zamalvide'ko elizan, berriz, arratsaldean egiten ziran. Bietan izalari, Aita Mikel Mari Zubiaga izan degu, leen ere emen itzaldi bikatiki egina. Bai gayaren aldetik, baita esateko eratik ere, ezin zitekean obeki egin. Zoragarriko itzaldi sayoa izan degu. Alaxe diote entzule denak ao batez.

Eskarri asko gure Apaiz jauneri, orren aste ederra antolatu digutelako.

* * *

Aste ontan izalari izan degun Jesus'en Lagundiko Aita Zubiaga argiaren euskerazko liburu apaiñ bat, salgai daukagu erriko liburutegietan eta erruz saldu dela jakin dugu. Nik ere, bat erosi det, eta ez nago erosiaz damuturik.

Zorionak, Aita Zubiaga, ain liburu goxoa eta beroa Euskalerrira'ri eskeini diozulako. Atsegiñez irakurtzen da, asieratikan bukaeraraño, eta izugarri argitzen du. Etzait iruditzen, irakurlerik oituga-beenak ere, oztoporik arkitu dezakenik. Euskerarik garbiena eta, batipat, errezena du-ta. Euskaldunen etxe guztietan sartu dedilla!

* * *

Dei bat, emendikantxe, «IDOLA» izena daramatenei, egin nai diet.

Isaba'ko nere aizkide batek auxe egiteko eskatu bai dit.

Datorren udaran, garagarriaren 30'garren egunez, (igandea da) izen eder ori bataiotik daramaten guztiak, Isaba'ko Idoia'n, Idoia'ko Andre Mari'ren elizatzon alegia, jai aundi bat ospatu nai dute eta, al dela, Erronkari'ko soñeko ederrez jantzirik joatea nai litzake.

Beraz, Garagarriaren azkenengo igandean! Ez aztu eta garaiz prestamenak egin! Jai onen berri, eta beste edozer jakingarri izateko, deitu edo idatzi Isaba'ra, Jesus Arbeloa Jaunari.

ORERETA

Zeberio

Orain amabost egun-edo, Bilbo'ko erdel eguneroko baten irakurri nuen, Zeberio'ko mutil-zarren kontua, baiña nik eta lagun askok, ondo dakigu, argazkian agertu ziranak, geyenak, ezkonduak direzela, neurekin eskolan ibilli ziranak.

Orregaitik, guzur andia da ori. Eta orreik morroyok, ezkondu barik dagozen batzuk, Zeberio'n daukiez neska polit eta ederrak, erbestera joan bearrik ez dabela, emaztea topetako.

LARRAGOTI

Galdakano

EUSKERA MORDOILL-ZALEAI

Egunero artu bear ba'dogu be erderazko izparringia, arreta andi barik irakurriten dogu, idatzi leikiden gai askorik ez dakarrelako. Orraitiño atsegiñez irakurten dogu Astelen'eko Orria'ren azken aurreko orrialdean Olmos marrazkilariak idatziten dabena, erdi barrezka ta erdi ziñez idatziten dabena, egi biribillak esaten daukuzalako, ezer ez dabela esaten, adiraziten emoten ba'dau be. Ona emen gure euskerea morduiliduten, erdel itzez nastutzen dabilzanentzat egoki datozen itz batzuk; berak dirauskun antzera idatziko doguz:

PALABRA.—Ahora se está poniendo de moda otra palabra inglesa, en manía que tenemos los españoles (euskaldun askok be bai, esango neuke nik) por utilizar palabras extranjeras y complicadas para sustituir a otras españolas más sencillas» ta abar da abar. Eta aurretxuago diño; «Ya me imagino que quieren decir algo en castellano, pero ¿por qué no se dice?» Erakutsi ederra erdel itzez euskera «apaindu» naian dabiltzazan euskal idazle askorentzat. Artu beie eurentzat, erdel idazle kementsu orrek gaztelertaz idatzi dabena.

EGUTEGPTIK

«Goiz-Argi» ta AGUR'eko egutegi txukunetik artu doguz urrengo lerrotxu oneik, gure uestez ifoiz baiño egokiago datorriguzalako aldi ontan:

«Komunista audientetako bat gosaldutzen ari zan da bere morroia etorri zitzaion esanaz: —Langille «huelgista» batek galdetzen du zu etxean ote zauden.

—Sartzeko, esaiozu, baiña lenengo eraman ollasko au ta ekarri eidazu azaa».

Ez dago zalantzarik orretariko komunismoa egiten dabena bat baiño geyago dirala geure inguruetan be, baiña, ez gitxiago «progresista» buruba egiten dabena «burgues» kume, ta «burguesik» andienak baiño biziera «bapagoa», eura irabasi ez dabena txindiekin bizi diranak; bai orixe!

Irakurle, ez dozula etxean oindiño, aipatu dogun egutegi ori?, ez da egia izango! Baiña orretara ba'da, erositen alegindun zaitte idaztigiten baten izango da batonbat-eta; ez yatsu damutuko, aipatu dogun esakera ta jakingarriagoak be irakurriteko era izango dozu-ta.

ERİYOTZA

Epalla'n 14'ganean Jaunak bere aldamera deitu citsan Astigarraga'tar Josune, Zamalloa'tar Koldobika'ren alargun zintzoai, irurogei ta amazortzi urtedun zala Urrengo egunean ospatu ziran bere illetak, euskeraz jakeña, erriko txadon nagusian. Goyan Bego emakume jatorra ta lagun gaitube atsekabeen bere seme-alabak, eta sendikide guztiak, batez bere Karmel adizkide urtenak.

OSTIKOKETA

Aurreko albiste batzuetan esaten genduban «Galdakano» ostikolari taldea ez ebillela ondoegi, ta orretara esan legikean. Baiña, obeagoaren aurka guretarrok be bizkortu diralako-edo, Epalla'n 15'ganean larunbat arra-

tsaldean, gernikarren aurka jokatu eben, eta taldeko onenak izan arren oneik, bi ta bat irabazi egin uteseen emengo oneik. Gaitera, esan daukuenez, aurtan izan dan girorik alaiena zuzmetan zala landa inguruok betetan eban notintza andiaren tartean. Jakeña gernikarrakin ezin asarratu leiteke galdakotat onik-eta. Ainbat obeto orretara jarraitzia.

BASA-JAUN

Arratia

Aste onetan be ba, Zeberio'ra joanbearra izan dogu, ez baiña gaztain arroko mozoillo zarrak zirikatu ta barrien barriz argitara ataratera.

Udabarri-txorien ezkontza izan dogu, Landajo'tar Iñaki eta Itaso auzoko Amaia. Ezkonbarriak, gaztetasunez bete-beteak, alkarren errikide, euskaldun osoak. Ezkondu epaillaren 16'ganean, egin ziran, eta arrezkeroz gozo-gozorik eta ezti-etzirik bizi dira.

Arantzazu'ko Antzerki-Taldean Ama birjiñaren antzeko egiten, Bizka'ko ainbat errian azaldudutakoa, Tolosa'n be izan zana, Bengoetxea'tar Errosa Mari'k (Errekargorri'tarra) be, aukeraturik dau eguna, jorrailla'ren 20'gna. Neskatil maratz onen bigitarie argiaren jabe bakarra izango dan morroskoaren izenik ez dakigun arren, Usansolo'koa da, Galdakao'ko Andramari talde entzutetsuan buru-belarri sartua ta arduratua.

AGUR onetatik gogoz eta biotzez, urterik asko ta luzeetan izan dagizuela ba ZORION, Usansolo'n, Arantzazu'n eta Zeberio'n.

* * *

Dirala astebate batzuk, Erri-Irrati'ko euskal-saillean, batek zirikatu, besteak erantzun, ari ziranean, au lakoren bat edo beste jaso izan genduan: «Trena», «telefono» ta itz arrotzik ugari gugarriño olaxe etorri ziralata, olaxe esan eta erabilli bear doguzala, bakarrik eta atzean gelditzerik gura ez ba'dogu.

«Abioia», «barkua», «estaziñoa», «eskribidu», «leidu», «intze» ta «plumea». «Alpinista», «ziklista», «kazari», «pastore», «panaderu» ta abarrik etorri izan zan, nire belarrietara beintzat, txiki ta ume giñanean, eta, olaxe esan bear ete doguz gaur egun be, INTERPROBINTZIALDUZ ta INTERNAZIONALDUZ, atzerakoi bakarrak izan ez gaitazan? «Foto kolorezkoen premio inportantean», «kritika kondizionamenduren erregelak», «organizazioneak akordatutako programa, festibala ta trofeoek», «esplikatzeko kualitatea eta estiloa» abar i'abar bere, irunisi bear ete doguz ba, PROGRESAREN izenean, INTERNAZIONALGOAREN onerako, euskeraren zapuzte ta Erriaren ondamentirako? Gure txapela sasiva, eta auzokoaren bekoki-egalduna gure burua? Lendik doguzan zorriak galdurazoten lagunduko ba'leuskigie, obe litzakigu.

Beti bezela akatz eta lakatz besterik aurkituko ez dozuen lan onetan, Arrati'ko gaztedi errizale zindoa, andereño irakaste ta ume-etzitailleak gogoan izanik egin dot.

* * *

Etzaitz larritu irakurle. Nasaitu zaitz AGUR zale.

Lengo batez asteroko onetan agertutako «h» dun lana, ezan izan satorrak musturra sartzea.

Izparringiak bere lege ta araudi («erregela-mendu») bereziak ditu-ta, azaldu bearrekoa izan zan, idazleak idatzi eban era berean.

LANDAJUELA'TAR A.

ARGI-ONTZIAK

EMOITZGARRIAK

EREDU BAKARRAK

ALBERTO URRUTIA GOTI

Ribera, 19 (Pelota, 1'en ertzean) 21 14 89 Urrut.

Carnicería Vieja, 8 - 23 56 25 - Urrutizkiña.

Santuchu, 16 - 339491 - 333123 - Urrutizkiñak

BILBAO

OROZKO'N

Abando'n jai eta Audio'n bizi, Orozko'n maitasunak erdituta. Edo geituta. Esakeren gorabera da ori. Orre Jose Arrue margolaria, pintatzailea.

Orozko'ko maitasunak erri au barru-barrutik ikustera eroan eban. Bere jai eta erromerietan, bere feri eta merkatuetan, bere oitura eta sinistetan.

Ibiltari bohemioa gatzetan. Europa'tik zear arlotean bizitzan. Teatroetan eta bertako artistekin bizi modua atara nairik. Geroago etxean, baiña beti bere begiak ikusten ebana eta bere irudimenak biribiltzen ebana kua-droetan agertzen.

Arrue'ren margo irudietatik, kuadroetatik asi nitzan Orozko eguztzen. Bere kuadroak eta bere tarjetak, geinetan barregarrikeriz, ugari dabiliz bazterretan. Santa Luzia'ko feria; San Anton'go kalean toretatzalleen arrera; San Juan'go elizpean, mezatako sarrean; erromeri eta merkatu eguntakoak; bolatokian; Meza nagusi ostean etxerako bidean...

Ezin ukatu margolariak, pintatzaileak, erri baten erakusle on eta deigarri izan leikezanik. Onetan Orozko'k, bere mendi eta bazterrak, bere gizon eta izateak, erakusle onena billatu eban Arrue'gan.

Argi ikusten da orozkotar emakumeak, bere atzetik ebillan artisteari, andratu zanean etxera begira biziten erakutsi eta zaletu ebana.

Orozko'k eta bertako emakumeak nortasuna emon eutsen lau anai artisten artean bere zaletasunetan ez-bardifiena izan zan Arruetarrari.

* * *

Lurrez Bizkai'tik bigarren andiena da Orozko, Karrantza'ren ondoren. Baiña Karrantza'k kilometro lautuko 30 bizilagun dauka, eta Orozko'k 23.

Lurralde ederra baketsu biziteko. Danetara be. 102 km. lautuetan bi mila eta laureun bizi lagun. Gora bera andi barik urte luzeetan.

Orozko'k ez dau beti Bizkai barruan iraun. Zortzi gizaldi ingurutan ez beintzat. Jauntxoan goraberak. Ayalatarren eta Abendaño-tarren mendean bizibide berezia euki eban. 1574'n nai izan eban bertakoak Bizkai'ra bihurtu, baiña Ayalatarrek euren, eutsi. Azkenez, 1785 urtean lortu eban euren naia. Orditik bizkaitar dira.

Bere legegian bizi zan artean amairu Jaun agintari gitxienez euki zitun.

Laudio'tik sartu eta Murueta'tik Arbaiza'ra, edo Zalloa eta Gallartu'ra, edo ta Uri-goiti'ra ibillaldi ederra egin bear.

Auzoetako etxadiak, itxas oiñaren gain, 145 metroan asi Murueta'n eta 250 Gallartu'koen bitartean billatzen dira.

Zubiaur. Erri burua. Bertan bizi da jentetik geien. Gero Bengoetxea eta Ibarra'n. Txikiak Zalloa eta Pagazandi.

Amabigarren gizalditik ezagutzen dira bertako parrokiak. San Joan eta San Martin zarrenak. Azken au 1570'n zabaldu eta anditu eban. Ermita ugari. Andra Maria'ren irudia erromaniku jokarako da, baiña ez garbia. Txikia, metro erdirik ez. Lenengotan San Antolin'en ermitan egona dala diñoe. Ermita orerri Andra Mari'koa be deitzen dautse.

Murueta'ko parrokia 1545'n barriztua da, Martinez Urzaa'ren ardurapean. Olarte'ko San Bartolome'n dagon Errikiaren irudia, jatorriz flamenkotarra zan Guiot Beaugrant'ek egia. Intzerako irudietan negarrez eta mal-kotan aukusten dira bertakoak. Emen, negar ordez, laguntasun borondatea igarten dala diñoe eta alaxe da. Tailugille onek Bilbo'n, Balmaseda'n, Portugaleten eta Ziortza'n ba daukaz bere lanak.

* * *

Bizi tokiak, etxadiak, itxasotik goratasun andirik barik egiten badira be, Orozko'n mila metrotik gorako mendiak ba dagoz. Gorbea mendietan sartzen dira iru. Ala Ubixeta, 1.106 metrodua; Usotegieta, 1.178' gaz eta Oderiaga, 1.234'ra eltzen dala.

Orre erri askok ez daukezan iru monumetu, iru agerik.

Beietan, eleiza eta ermitetatik kanpora, ba dagoz ze ikusiak.

Zubi ikusgarri bat ba dago Murueta'n. Kurutze andi bat arrizko arku eta ate andi baten buruan. Egaletan irudi bi. Eta ormetan iru ikurdi, eskudo. Martin Larrea'k egiña da 1741 urtean, bertan irakurri leikenez. Anun-zibai zubia deitzen dautse, abizen orretakoena izan zalako inguru au. Izen bereko torrea galdu zan, eta torrearen ordez etxe eder bat dago gaur. Mikel deunaren ermitatxoa egal baten.

Beste torre eder bat Ibarra'n, Aranguren izeneko. Torre jatorra. Arlanduzko orma lodiak zapi metrotan. Goiak ladrilloz jasoak. Sasoi baten, jauntxoaren denopretako asarreetan beratua izan zanaren ezaugarri. Torre zabala, neurri onekoa.

Olabarri'koa be ikusgarri da. Gaur baserri andi. Bardin Torrelanda. Galdu eban torreak euren izate. Gaurko denopretan gure asaben bizimoduaren barri emoten dauskue. Besterik ez.

* * *

Orozko'n ibiltari nabillela, gertaera zarrak gogoratzen, gipuzkoar abade gerrazale bat

datorkit gogora. Karlos erregearen alde ebillala, ementxe il zan 1834'ko Mayatzean, gau baten.

Gipuzkoarra zan Ezeiza. Beizama'ko abade laguntzalea. Frantzetarren aurka urten eban lenengotan. Gerrako merituz Burgos'ko kanonigo egin eban, 1824 urtean. Baiña, ikusten denez, amar urte geroago barriro gudan ebillan. Eta emen jausi.

Bardintso gertatu yakon beste gipuzkoar bateri, Gorostidi entzutetsuari. A Santiago'ko kanonigu egin eban, merezimendu bardifuez. Arek be odolak bero eta kanonigo zan errian bertan urkatu eban isabeldarrak.

* * *

Abadeak aitatu doguzan ezkerro, gogoratu daigun emengo abade bat. Aizpuru'ko abadea. Orogotarrak almen andiko gizontzat eukun. Sorgiñen eta lamiñen lagun, eta ezkutuko espirituen bildurgarri.

Ainbat esaera eta gertaera dagoz erriko zarren kontuetan berari buruz.

Iñor ez ei zan ausartzen, lengo denopretan, Supelegor'eko kobara urreratzen. Andra gazte edo umien oiñatzak sarri ikusi zituen artzaiñak bere atean. Anboto'ko damiak, Orozko'n, antxe eukan bere etxea. Zaindariz beteta; saiak, erderazko itzez «buitreak» zaindari.

Sai onek urrundu egiten ei ziran abadea bertara joaten zanean. Edo ta berak agintzen eutsen bazterrean gelditu.

Garaigorta'ko aitzaren azpian barikueta batzen ziran sorgiñak be lotsaz begiratzen ei eutsen.

Prakagorri'n lagun be ba zan. Eta bere «familiarrena». Bein, bere serbitsariak Madrid'era joan nai ebala, eskatu ei eutsan, zezenak ikustera. Zezen plazan ba ei egoan beste lagun bat, a be lagunei «familiarrekin» joanda. Arek ikusi ta bere lagunei Aizpuru'ko abadea an egoala esan. Siñistu nai ez. Ziurtatzeko, zapatea kendu ta eroango eutsela agindu. Eroan be bai. Aizpuru'ko abadea konturatu zanean, bat batean zapatea biurtzeko eskatu, adar bat bekokian sartuta lagatea nai ez ba eban. Esan eta argin. Besteak, ori igaritzen, lotsapean ez irauteagaitik, oiñetakoa biurtu ei eutsen.

Ez esan emen gertaera onek guzurrak izan leikezanik. Zarren errespeturik ezin lei galdu. Ez al dira gaurko gertaera asko siñisgaitzak eta ala ta be iñor ukatzen ausartu ez?

* * *

Orozko'n atzo agura bi dagoz orozkotar jatorrak beti bardin ezagutu dituenak. Zein diran ez badakizu, ez esan ortik zear orozkotarra zanean, edo erri au ezagutzen dozunik. Begiratu Astapekatu'ko aitzera: an dagoz biak, izadiaren monumendu, Orozko'ri ezau-garri bat emoten gizaldien gizaldietan.

* * *

Pralle bi eta monja bat agertzen dira Orozko'ko seme alaba argi lez.

Domingo Olabarria, augustindarra. Irakaslea. Argia baiña apalegia, bildurtiegia. Murueta'n jai 1815 urtean eta Valladolid'en il 55 urtedun. Bere lan jakintsuak erakusten be lotsatu egiten ei zan umiltasunez.

Bestea, Joan Jauregi, ordena berekoa, Salamanca'n il zan 1841. Irakasle ibilli zan au be toki askotan.

Bizkai'ko Jesusen Teresa deitzen eutsen sor Madalena'ri. 1629'n Soloa'n jai 1706'n Madrid'en il. Merzedeko alaba. Erderaz idazten eban, baiña euskaldun joskerarik galdu ezinda.

* * *

Orozko izena ezaguna da munduan. Emengo jatorriz? Ez jakin Cuba'n ba dago izen onetako erri bat; Txile'n be bai. Mexiko'n errantxo bi ba dagoz beintzat, bata Coalcoman estadian eta bestea Temaulipas'en.

Txile'n esakera au entzuten da sarri: Yo me llamo Orozko, cuando como no conozco. Esatea lez: Nire izena Orozko, jaten nagonetan sarri erantzungo dautzut betozko.

Emengoak zabal eta borondatetsuago ikusten dodaz, zeken deitura ezarteko biderik barik.

* * *

Orozko'ren saltzalea Iñigo Lopez, Bizkai'ko seigarren jauna izan zan. «Ezkerra» deituraz. Bere illobei emon eutsen lurralde au X gizaldian. Esker gitxi egin eutsen orozkotarrei Ezkerra orrek.

* * *

1910'ko kontuetan irakurten denez, 716 etxe eta aterpe kontatan ziran emen urte orretan eta 3.221 bizilagun.

Ordainsuko urtetan bardintso iraun arren, gizaldiaren asieratik ora % 25 urritu da Orozko.

Mendi eta basoetako bizi modua goratzen dogu paperetan, baiña bizimodu erre ez nasaiaogak tatarrez eroaten gaitu uri andi eta eratsuetara, aitzaki ta guzti be. Nai eta Bilbo'n edo Audio'n, Orozko lako tokirik munduan ez dagola esaten il.

A. ZUBIKARAI

NORENTZAT

Izenburu onen bidez galdera bat dagit. Gaurko idazkai au norentzat da? Kristo'k irakatsia onarturik, MAISU areri jarraitu nai dautsen kristiñau ta abadeentzat. Gaur egunean, kristiñautza ta abadeta, sarri errezezi, saltzen dira plater erdi lenjeta baiña gitxiagotatik. Izan be, agiaren lorratza ez da ustelkeri, sats, nasaikeri, lapurreta, tripakeri ta goikerizko arrokeriaren bidea. «Nire ondoren etorri nai dabenak, kurutzea artu ta jarraitu beist». «Ni egia naz». «Zapalduak askatzera etorri naz». Kristo'k, orretara etorri ta ori bere odol samintsuagaz baieztu eban.

Nundik nora sortu jatan gaurko izkuntza modu au? Kristiñau bidea, berez, orixe da. Baiña gaur, Arenaza, zuk astindu daustazu kristiñau min barruko. Nire Jainko siñismen sentikizuna urratu, baita lertu egin be. Gure kristiñau erriari itz bat esan barik, geldi ezin egon neitekean ba. Ori dala-ta, Euskalerrri, zugana siñisdun leial orrengana nator.

Euskaldun zintzoak, oraintzu artean, Jaungoiko ta erriaren maitasunak, biak batera, alkartu ditu. Orain, beste bide batzuk onartzen asi da jendea. Lengoan, gizon batek, oso-osoan au esaten eustan: «Jaungoikoa bai, baiña apostolu gabekoa. Era orretan ulertzen dabe». Amaraun artean eulia nastetan dan bezela, ta azkenez ilda bertan geratu, olantxe, siñeskon-siñeskor dagon tolezgabeko jendea, parra-parra doa eulien gisara jausten.

Erritarrak, Arenaza kementsuak, ondo argi jarri dautsuez gure inguruko arazo aundi onen oiñarri ta matasak zeintzuk diran, eta nundik nora etorri ta zabaldu ziran. Jakiturizko gora-berak, iñoz ez datoz jende ikasigabeagandik. Ez-jakiñak arpeirik ez dau agertzen. Jende ikasiak, euren baitan, bideak ikusi ta gertatu zituan.

Baiña zelako bideak... Gurasoen seme-alabagazko nortasun, ardura ta eginbearrak indar barik itzi ditue. Erlejiñoa gizadiaren etsai bezela jarri dautse erriari. Askatasuna ta ona eskeintzen datozela otska ari dira, ta emen, argi agertzen dabena da, Euskalerrri siñisdunaren gauzarik mamintsu ta sainduenak lurpera botatzken dituelan, ta euren eretxiak gogorkeiz erriari ezarri nai, lurreko interes itxurazten artean.

Lenengo, umeak norenak diran ikutu dagigun. Berezko legeak bakoitzari eskatu ta bultz eraginda, mutil ta neskatillea alkartze baten izenean ezkondu ziran, ta uste onagaz kristiñau diranak, orri, alkartze berrorri beste zerbait geiago ezarri eutsen, au da, sakramentuaren aunditasuna ta indarra. Kristiñauarentzat au ez da jolasa, ez zabarkeria, bizitzako alkartasun saindua baiño. Ta ez da zoroen erara banatze-koa, Jaungoikoak bere jarraitzaileentzat maitasun au betirako bedeinkatu eban-eta.

Ezkontza ortatik datozen umeak, euren nortasunez ta izatez batera, eginbear eta eskubideak dakarrez. Gurasoeri, bizitzaren sorrera emon dautsen ezkerro, aztea ta ezitea eskatzen dautse txiki aldi beartsu ortan. Baita eurok be bizi bidearen izenean, garasoeri maitasuna ta esana egitea zor dautse. Alkarkidetasun aundia dago ba guraso ta seme-alaben artean. Guzti au bizitzaren sort-iturritik dator. Iñork bestek ez dauka ume orrengan iñungo eskubiderik. Ezta zertan eukirik ere.

Gurasoak, zeuenak dituzue ba zuen erraietako umeak. Kontuz ibilli, zuen maitasun bide ta eskubideak kendu nai dautsuezenekin.

SOLOZABAL'TAR PAULIN

SIKOLOGI GAJETAN

GOGAPEN BARRENKOIENEN NEURKETAK

Julian Martnez Isla Jauna «Silva Mind Control»en ordelari lez Otsaillaren amaieran Bilbo'n izana dogu. Egunotan ba Bilbo'ko Carlton Otel ospetsuan Kontrol-jakintasun neurketen irakasketa labor-mamintsuak izan dituez. Andrazkoen artean Clara Winter-nitz'ek ere, gai onetan oso ezaguna danetz, bertaratu ta parte garrantzitsua izan ei dau. Gaztelarazko librotar izparlari batek alkarriketa bizi, labor ta jakingarri bat euren izan eban. Aor laborpen bat.

SILVA IZENEZKO JAKINTZ-IRAKAS-KETA

Zetan datza Silva izenezko irakasketea? Nundik norako erroak ditu?

Silva Jaun jakintsuak, mexikotarra jayotzez, hipnologi lo-iztilari, eragiñezko lo-amesen gertakera gelsuetan txito argitsua bera, Texas'ko Laterrian ta Laredo'ko urian atan be, 25 urte luzeetan ikasketa latz, gogoangarriak egin zituan.

Ondorengo baliotsua lez gogapen barneko onen guna, gogo barrenean oiñarriturik darabilgula idoro ei eban.

«ALFA» IZENTATURIKO GOGAPENAK

«Beta» deitu oi doguzanak baiña laborragoag ei dira, baiña indartsuagoak, ala ere. Dagigun azalpen labur bat: Jakintzea, berez, mueta guztietariko dogu. Ola ta be Alfa izenezkoak daragoiogunez, jakintsuegandik deituriko gogapen onek zuzentzean, Kontrol neurripen zearo ipiñi, eureka jabetu ta berebat eginkizun ontan ziurtasunez jokatzean ain zuzen, aurkitu oi dira euren un eta gun bedegarrak. Gure gogapen ta adiminetan indar-bultzagaiak lez, bizitasun-energi geiago sortu oi dabez ziñez, «Beta» izenezkoak bardindu oi ba'doguz.

NOLAN SORTUTEN DIRA?

Gure adimen-almen zoragarriak iturburu indartsuak lez, nun-naika bere izpi jatorrak darozala, jario ez-bardintso baten darrai ei datoz. Goibera ta aldakuntz batuekaz zer ikusi nabarmentsuak ei dauke. Batzuetan gogapen barrien sortzeaz topo dagigu, bestetan pentzakeria argienetarikoez, baita

iñoz, era askotako erti-lan ezbardinakaz ere, abar t'abar. Aberastasun iturri eten gabea dogu. Guzti onekaz baliatu oi da bera ta neurri maila ezbardinagaz jokatua.

ZE ERATAKO ERABAKI ONDASUNAK DAURKIGUZ?

Arazo ta guztiriko jokabideetan amai argi, burutsu batz tril dagigu. Ori ta be Erligiño gaitan, azkatasun osoaz jokatua bearra dogu ta orrela Erligiñoagaz ez du zer ikusirik. Beste guztietan bai.

Ekonomi gaitan esate baterako lagun bakoitzari diru biltzetan alik ondoen urteteko erak, bide errezenak emongo dautsoz; ez besterik.

Gizaki miñak dirala-ta, ta berebat oitura zaartuakaz ori berbera esan desakegu. Sofrologi-jakintzagaz be ez dauko naastu bearrrik. Ez ei dira zer bardinak. Zelan ba ezbardintasun au? Guk gizaki osoaren obekuntz ta aurrerapenagaz ei daragoioen. Gure elburu bakarra fisiologi iñarkunetan idoro bearra ei dogu. Orrela soiñ-miñ orretan, buruko miñetan, urdaillaren min zorrotzean abar t'abarretan ain zuzen. Iñola ere ez Psiki-gogo utsezkoetan.

EKANDU ZAARTUEKAZ NOLA JOKATU?

Aulakoak doguz zigarro errete, patar edate, drogak artze eta beste... larregikeri astingarriak. Osakai bardinak, oitura guzti onieztako doguz, beraz.

ZE ASMO-BARRIETA SILVA EGIZTAPENEN BIDEZ ETE GABILTZ?

Oraingoz beintzat azkeneraño eldu gara. Gure elburua, gogapen barriak zabaltzea ei da. Ta au era bitara. Lenena ziur-zig gure senean, konarte osoan gagozala dagiguzan burutapenen jabetasunagandik, erdi-ortuzko, gaztelaraz «subconsciente»raño, daroaguzan pentzakerak eltzea ei da. Bigarrena, ala ta be, erdi-ortuzko giza-barnetik, au da, alde-rantziz, poliki-poliki urtenaz, buru argitasun osoraño daroaguzanakaz zearo jabetzea. Joan-etorri ortan ei dago Silva Jaunaren Ikaspi-deorien gun guztia. «Alfa» gogapeneta alegia.

ARREGI'TAR JOSU

Gure Eguna

Erri guztiak izaten dabe euren eguna: azkatasuna lortu ebenekoa, edo arrisku aundiren bat azpiratu ebenekoa, edo Jainkoaren jai aundi bat dalako, edo beste olako errazoren batagaitik ospatzen dabena.

Egun orretan poz berezia izaten da errian eta jai bereziak eginaz alaituten dira egun orretan erritarak.

Gogoratu dagigun Israel'arren Pazkoa, esate baterako. Egipto'arren menpean eta joputza gogorrean bizi ziran eta andik urten eta azkatasuna lortu eben egunean, jai egin eben. Gero egun ori urtero ta alaitasunaz ospatzen eben eta ospatzen dabe.

* * *

Guk be ba daukagu gure eguna. Egun onek, il zorian egoan eta dagon Erriari zor jakon herbizkunde gogor gatzten dauku.

Udabarran izadia berbiztuten dan antzera, negu gogorra igaroten dagon Erriak be berbiztu bear dau.

Erritarren barrumiñak berbiztu be arra dauka: geuretasuna be aitzu egingo ete jaku ba? Erriko lez alkarrerri izan bear dautsagun maitetasun berezia be baztertu egingo ete dogu? Ez. Berbizkundera bear dogu.

Gure izkuntzeak eta oiturak berbiztu be arra dauke. Egia esan, apurka berbiztuez doaz, baiña adoretuago, indartsuago, berbiztu bear dau erri-bizitza onek.

Gure diruketeak be berbiztu be arra dauka, ez ondasunak gitxi diralako, txarto erabiliak diralako baiño.

Eta zenbat alderdi esan-ezineko diran gure artean berbiztu bearrekoak! Ondo aukeratua dogu ba gure eguna, berbizkunde-eguna.

* * *

Erriak euren egun ori jai aundi lez ospatzen dabela, esan dogu: jolasetan, alkarteetan, aztertze bereziak egin, janari ta jatordu ugariagoak eta obeak izanez...

Guk bere olako zer edo zer egin bear genduke egun onetan. Gura doguna ezin ba dogu, al doguna beintzat. Zer egingo dogu gure egun onetan?

Lenengo gure gauzak oldoztu ta ondo ausnartu: orretarako ez dogu eragozpenik izango.

Baita gure gogorapen orreik adiskideen artean agertu be. Egun aundi onetan izango doguz, zalantza barik, berba egiteko erak. Ez dagigun aitzu gure Erria, beronen geroa eta orretan guk egin bear dogun lana konturatu dagiguzan.

Eta alkartze oneitan, berbakaz batera, abesti ederrak be abestu al izango doguz. Ori be bide on bat dala ezin ukatu, gure artean errimiña bizi izan dagigun.

Zer geiago? Asko ez. Agiriko gauzak gaur dakarskuezan ondorenak ez dira txantxetakoak.

Egokia bai egun au erri-zaletasuna zelan doakun ikusteko. Baiña zaletasuna lanean agertzen dan ezker, begiratu dagigun zelako lanak egiten doguzan Erriaren alde. Guztiok ezin artu izango dogu bide bakarra edo bardiña, baiña guztiok egin bear dogu, zelan edo alan, erri-lana, bakoitzak bere erara eta bere bidetik, baiña guztiok elburu bat daukagula.

Berbiztu gaitez, lanerako berbiztu be, geure egun onetan.



XABIER PEÑA ALBIZU

IRAKASLE

Au da nere ustez gure adiskide maite onen doairik bereziena. Gazte gaztetandik ekarri zuan joera ta deia: irakasle, erakusle, eskola-emaille, maisu argi, egonarritsu ta zintzo batena. Ontarako, Tolosa eta Iruña'n ikaskizunak eginik zituan, eta eskuan irakasle agiria zeukala, jakituriz ondo ornitua, zaletasun eta barne-deiez obeto jantzia, bereala gogo eta biotzez irakaskintzari ekin zion.

Zumai'ko ikastetxe batean eman zituan lenengo urratzak. Laister, ordea, Xabier'en balioa ezagutuaz, Republika aurretik Tolosa'n jarri berria zan Sozial-arazoko ikastetxera eraman arazi zuten. Ordurako Belgika'ra joan eta an langille-gazteak ezitzeko eskoletan ibillia zan, bide berriak ikasi ta aztertzen. Ango kristau-gizarte giroan sartu ta biziturik. Gaur-egun ere Sozial-Demokrazia deritzan elkartea, bai gizarte arazoan ta bai politikan, beste guztien gañetik dabil. Euskal-errizaleak garai artan, langille-auziaz ez zizala arduratzen diotenak oker daude. Jauntxo aberats batzuen egitekoa besterik etzala diotenak gezurra diote. E. L. A'k artu zuan indarra da lekuko. Belgika'n ikasitakoa Euskal-erria'n zabaltzera ziñjoan Tolosa'ko Gizarte-ikastola, langille gazteak eziturik. Xabier Peña Albizu izan zuten irakasletatik bat; eta onenetakoa, noski.

Damurik 1936 urtean gerratea sortu zan eta asitako lan ederra, nai ta ez, etenik gelditu zan.

Gudartean Bilbo'n lanean aritu ta gero, Xabier'ek, beste askok bezela, erbesterratu bearra izan zuan. Ez noa esatera jazo zitzaizkion gertakizun guztiak. Gerra bukatu ondoren eta nolabaik al izan zualarik itzuliari arpegi eman zion etxeratzeko asmoz.

Madrid'en erdi ezkutuan zeudela, presondegian ere sartu zuten. Azkenik, 1946 urte inguruan Bilbo'runtz etortzeko asmo bizi bete al izan zuan bere anai Xebe'rekin. Eta biok zorionez, bertako Aseguro-etxe aundi bateko otsein-laguntzaille sartzea lortu zuten. Ez zan gaitzen atera artu zituan etxea. Langille argi ta zintzo ezik, arduratsu ta eragille bizkor bait ziran anai biak; eta ori dala-ta, maillaz-mailla buruzagi lan-lekura igo ziran.

Xabier Peña Albizu'k inolaz ezin aztu zezakean irakaskintzako bere doai ta zaletasuna. Ikusirik Bilbo'n euskera ikasteko irrikia pizturik zegoala, gazte ta jende larrien artean, 1949 urtean euskera irakasten asi zan. Ain zuen orain 25 urte! Eta ortan dirau utsik egin gabe, doarik, eta atsedenari uko egin. Lan ontan jarraitzen du, ikastaro-ikastaroz... ikasle asko eta asko biltzen zaizkiola inguruan. Zenbat 25 urtetan? Ez dakit. Nola nai, sail ederra ta lan ederragoa gure izkuntzaren alde egiten ari dana. Isillik, apaltasun osoan, zaratatik urrun. Xabier Peña Albizu onelakoa dugu: benetako kulturadun irakasle, kristau zabal eta errizale suitsu.

Ikasle izan dituanak eta adiskide ta lagunak orok, aren borondatearen aurka, omen egin nai diote. Ezekoa eman du, baiñan alaz eta guztiaz, zertxobait asarretuko baldin ba' da ere, omenaldi ori egin bear zaio euskeraren onura ta zabalkunderako. Eta entzungor zenbaitek eta ikusi nai ezik dabilzan itsuok nolako gizona dogun gure artean jakin dezaten. Irakasle lanetik at, idazletzat ere lanak eginak ditu: ikastola liburu ta ikasbideak. Bizkaieraz ikasteko bere metodo-idaztinoak argitarapen asko izan ditu eta arrera oparoa izan duala erakusten digute.

Gipuzkera ta Bizkaiera errotik ezagutzen dituala, zentzuzko batasunaren bidean jardun da, ta euskeldun berri ugari sortu ditu. Onak erakusten digu bide zuzenetik ibilli dala: garaipe-nera daramana. Guztiok onela joka izan ba'lute bestelako abiadura ta burrundara artuko luteke kultura ta euskaltasunak.

Tolosa'k esku-erakutsirik bikaiñena egin dio Bilbo uri-nagusiari, X. Peña Albizu, euskaltasuna txertatzen dabillearik. Tolosarrok oso pozik eta arro gaude eta merezi duan omenaldian lekuko izango gaituzu, Jainkoa'k lagun. Egun ortan utsegitea erru aundia litzake. Beraz, laister arte! Eta bitartean, Zorionak, Xabier, anitz urtez.

ANTONIO M.^a LABAYEN

Eskerrik Asko Xabier

Urte mordoia joan dira, erriaren alde zerbait egiteko asmotan, mai baten inguruan bildu giñanetik ona. Zuk beintzat, inork baiño obeto bete dozuz euskeraren alde lan egiteko artu genduzan erabakiak.

Eundakak dira, ogeita bost urte oneitan, euskalduntze-egaria asetzeko zugana jo daben ikasleak. Bilbo'n, eta bear ba'da Euskal-Erri'an, omenaldirik inok merezi ba'du, eta parkatu apaltasunean mindu ba'zaitut, zeu zara bat, Xabier.

Gauero-gauero, beti irriparretsu, eroapen aundienagaz, inoiz asarratu barik, gure izkuntz arloan lenengo oinkadak emoten ebezanei laguntzen! Euskera ikasten asten diranak asko dira, baiña asko, zoritxarrez, aspertuta edo nagikeriz ikasi baiño len itxen dabena. Zuk erakutsi dozun kemena bear da, zarata barik, ixil-ixillean, olako giroan, jo ta ke aurrera jarraitzeko... eta au da goragarriena: ortik ogi biderik izan ez dozula.

Irakasle ta andercioño guztien lan ederra txalagarria da zalantza barik... baiña zurea txalagarriagoa. Euskeraren onerako, atse-denerako orduak zuk beste galdu dituen gizonak gitxi izango dira.

Ez gara gu «intzentsu» emoiliek; euskaldunak berez olakoak ez ei dira izan. Aldizkarietan eta idaztietan, orain ikusten dogu alkarrerri «lurrun» emotea erbestekoen nastea da aurki. Ez genduke oitura orretan jausi nai, baiña zure ikasleak omenaldi bat egiteko asmotan zebiltzala jakin genduanen poztu giñan bene-benetan. Arantzatzu'n, il onen 28'nean. An izango gara!

Irakasle bezela eroapen aundikoa izan ba'zara, beste arazoetan eta gizarte artu-emonetan pake zale amorratua.

Azken urte oneitan, euskereak daroan beruzko abiadeak mindu zaitu barru-barruan. Sasi-jakintsu batzuen arrokeriz eta beste askoren setakeriz sortu dan burruka giro onek mindu ez eze, lanerako gogoia be otzitu eutsun inoiz. Izkuntz erriko ta garbia maite dozun orreri, atzekoz-aurre ta erderakadaz «ofizialki» beterrik ikusteak ez eutsun atsegin aldi aundirik emongo.

Baiña zu ez zara inoiz odol-berotu, zuk zeureari eutsi dautsazu, inoren aurka goragoraka jarri barik. Jakitunak, geienean beintzat, apalak eta pake-zaleak izan dira... ta orreitarikoa zaitugu.

Orain urte mordoia dirala, prakadunak eta «karreradunak» bear zirala-ta, ezertariko meritu barik euskaltzain izendatu ginduzanean, zu kanpoan gelditu ziran, urren-go izendatzerarte, betiko jauntxoan trabalanez edo «kerezpearen» bildurrez.


Baiña itxi daiguzan burruka gaiak beste baterako ta gulako ezjakitzentzat, eta igaro daigun benetan maite zaitugun lagunok omenezko egun paketsu ta alai bat. An izango garenen artean, egun orretan beintzat, ez genduke eztabaidarik nai. Merezidauan gizon baten inguruan piloturik, Arantzatu'ko amari mirari bat eskatzea baiño. Girorik sortuko ete da? Gauza gaxtagorik entzun da. Donosti'tik ondarrutar bat bitarteko, artu dodan pakerako deiari «gu ez giñala gorrotoko giro onen sortzailleak izan» erantzungo neuskio. Dana dala, borondate onean eta setakeri barik datozenekin alkar-izketarik ez genduke ukatuko.

Baiña goazen barriro gaurko arira. Eskerrik asko Xabier dicit asieran eta ez da zureganako nere zorra makala. Zuk euskaldundu zendun nere emaztea ta zati on baten zuri esker, gure etxea euskalduna da, gure seme-alabak euskaldunak.

Nik beti esan dodana da: Bilbo'ko giro galgarrian, izateagaz batera euskerea emon eustan gure amari eskertzen ba'dautsat, zelan ez nere seme-alabentzat ber-bera lortzeko bitarteko izan zaran orreri?

Ekin eta jarrai oraiñarteko lanean. Gurearen antzera sendi askotan, euskeraren gozotasuna sartu dozun orrek gure besarkadarik beroena merezi dozu. Biotz-biotzez.

ARENAZA'TAR JOSU



Gaurko Eliza

ZORRAK ORDAINTZEN

Bizkaiko Elizak urrats aundia emanik du Euskalerrinari begira. Elizbarrutiko artzaitza-lanbiderako (Plan Diocesano de Pastoral) eginkizun nagusi batzuek ezarri ditu. Eginkizun oietatik laugarrenak onela dio:

«Euskal erriaren ondasun bereziak indartu, izkuntzari, kulturari, oiturei... dagokien saillean, batez ere». Azkenengo itzok «Pakea lurrean» deritzan enziklikatik jasotakoak dituzte.

Urruna, eginbide au zuzentasunak eskatzen duela dio, ta Elizak ezin dezakela Bizkaia'n bere artzaitza lana zuzentasunez burutu, Euskalerriarren kultura osoosorik ar ez badeza, berau indarturik eta garbiturik. Eta Elizak sail ontan zerbait egin duela egia izan arren, azken urteotan bereziki, ez duela bear zukean ainbat egin, argi ta garbi airtotzen du.

Ondoren, funtsezko eginbide nagusi oietatik berez-berez datozkigun zenbait egiteko aitatzen dira, gauzak xeetuz. Jarraibide nagusi oien arabera, gorabehera aundiko erabakia onartua izan da oraintsu Bizkaiko, alegia, artzaitzan jardungo duten apaizak euskera nai-ta-nai-ez jakin bear dutela, erriarekin itz egiteko beste jakin ere.

Garrantzizko urratsa danik ezin uka dezakegu. Berandutxo etorri arren, txalo ta txalo egiñez eman bear diogu gure ongi etorria aurrerakada oni. Gaiñontzeko elizbarrutietan beste orrenbeste egin balezate, ainbat eta ainbat obe izango litzaioke gure euskal erriari.

Izan ere, Euskalerriarren ondasun bereziak indartze onek ezin-esan alako garrantzia duela esango nuke gure erri onen etorkizunerako. Erabaki au bezelakorik ez du Elizak, erakunde bezela, egundaino artu izan.

Bai, ba danik Elizak euskeraren alde, esate baterako, du Elizak erakunde duena. Eliza au izan ez balitz, euskeraren onak etorkizun aspaldi egingo zukea diotenak ere ba dira. Beste batzuek, ala ere, ezer gutxi egin duela esango dizute.

Emen ere, beste gauza askotan bezela, saillak bereizi egin bear. Euskera ta euskal kultura geien eta ongien landu dutenak eliz-gizonak izan diranik ezin uka ditekela uste dut. Gure egunotan erri-gizonak ere murgildu dira euskal alorrean, zorionez. Leen-leen, ordea, langillerik oparotsuenak eliz-gizonak izan gaituen, bat edo beste izan ezik.

Oroi Leizarraga, Axular, Larramendi, Kardaberaz, Mendiburu, Mogel, Añibarro, ta abar, ta abar. Gure egunotan ere eliz-gizonak gogotsu diardute lanean.

Eliza erakunde bezela ar ba dezagu, baiña, berdin esan ote dezakegu?

Jakiña, erakunde bezela ere ezer egin ez duenik ez dugu esango, zuzentasunez itz egin nai badugu.

Elizak geintsuenetan euskeraz itz egin dio euskal erriari. Euskeraz erakutsi izan dio kristau-ikasbidea. Ez da gutxi. Ez duzu beste erakunderik Eliza aña erriari euskeraz mintzo izan dakionik. Egia.

Ala ere, euskal kondairari gagozkiola ta oro ar, Eliza Euskalerriarrentzat arrotz gertatu dala esango nuke. Ez da kulturaren bidez bertokotu. Ez da euskaldundu. Erdal kultura ekarri digu, euskal kultura gutxietsiz. Euskal kulturarentzat galgarri izan zaigu, zati aundi batean.

Euskal Gotzaiogetan izan diran Gotzaiak asko erdaldun uts izan ditugu. Ez dute euskerarik jakin. Elizek batio agiriak-eta erdera utsez idatziak izan dira beti.

Gaur ere Gazteiz'ko ta Bilbo'ko Gotzaiogak Burgos'koari daude atxikirik. Ez dugu oraindik Euskal-erri guziko Gotzai-Elkargorik.

Euskera bera ez da ikaskizun izan oraintsu arte gure Apaizgaitietan. Ezta gerrate aurreko urteetan Gazteiz'ko Apaizgaitiegi artan ere, batzuek besterik uste izan arren.

Ikastetxe artako «Ratio Studiorum» edo ikas-eraketan gure mintzaira onek etsuan tokirik. Ez euskerak, ez euskal istoriak, ez euskal literaturak. Euskal kultura lekarkigukun ezertxok ere ez. Ba zan, izan, askatasunik nai zuanak euskera ta euskal kultura ikas ete beregana zitzan. Ba zan «Kardaberaz Bazkuna».

Baiña guzti ori «Ratio Studiorum»etik at, ofizialtasunik gabe. Norberak bere kontura jolasaldietan-eta egin bear.

Gaur Bizkaiko Elizak eman duan urrats au garai artan eman? Euskalerriarren ondasun bereziak indartzeko erabakia artu? Ta ori Elizak erakunde bezela? Ezta iñori orrelakorik bururatu ere Gazteiz'ko urte aietan.

Amaikaxko apaiz euskaldun atera ziran ikastetxe artatik euskal kulturaz antzu, euskeraz idazten ere etzekitela, «analfabeto» uts zirala. Ta euskal errietan lan egingo zuten. Ta gorriak ikusi bear, gero, euskal parrokiaren batera joaten ziranean. Euskaldunentzat arrotz, bai, arrotz izan zan garai artako apaizgaien ikasbidea, ezibidea ta gertubidea.

Leen, euskera tresnatat arizen zuten. Ez dakit nun irakurri dudana, baiña onoko au irakurri dudana egia da, alegia, gure idazlerik onenak etzirala euskaltzale izan. Nola izan liteke Axular, Mendiburu, Mogel, esate baterako, euskaltzale ez izana?

Eliz-gizon ziran eta euskera erabiltzen bazuten eta euskeraz idatzi bazuten kristau-bidea, euskal erriari erakuste arren izan oi zan. Euskera tresnatat arizen zuten, beraz. Etzuten euskeraren beraren baliokizunik ikusi. Gogora Kardaberaz'en itz sonatuk: «Baña gure Pobretxo on askoren animak salbatzeko Euskerak burua jarotzea Jainkoak nai du»: «Animak salbatzeko», au da, euskera bitarteko ta tresna.

Ez dakit egi osoa izango danik. Ala balitz ere, euskera tresnatat artu izanak ere on aundia egin diola euskerari esango nuke. Orrexeatik ditugu, ziurki, Axular'en «Gero» ta ainbeste ta ainbeste euskal liburu-ena. Ez genituzkean, bestela, izango. Idazle aiek idatzi egin zuten, idatzi. Ta orixe izan garrantzizkoena. Onegatik edo argatik idatzi zutela? Ori beste arazo bat da.

Gaur, zorionez, pentsakera aldatu egin zaigu. Gaur ez dugu euskera beti tresnatat bakarrik artzen. Euskal kultura bera dugu baliokizun. Euskal kultura bera ta berenez aintzat artzekoa, landu bearrekoa ta zaitu ta indartu bearrekoa.

Aurrera goaz. Urrats batzuek eman ditugu. Baiña Eliza euskal errian osorik txertatu danik ezin iñola ere esan. Tokian tokiko ta garaian garaiko, Eliza ori ez da oraindik gurea etorri.

Betorkigu lenbailen.

AGIRREGABIRIA

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskera bera beste edozein, berekoi, politiko naib ondasungarri asmoen gainetik daben iritzi-onoeko euskaldun guztiak Euskeratza dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egileak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M.^a MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITILDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion gutiritako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

“ZUEN” ALA “ZUAN” -Batasun - bidean-

Peña'tar Xabier'i

BATSUNA.—Euskeraren literatur-batasuna —egin bearra dagola-ta, idazteko formarik egokienak aukeratu bearrean arkitzen gera. Bide ortan aukeratu bearreko bat, auxe da: «zuen» ala «zuan»? Itzik-ortzera erabili bearreko itzak bait dira olakoak.

Nere iritzia gai ontan, —an formaren aldekoa da. Itz bitan esango det zergatik (1).

* * *

Batasun bidean, besteak beste, fonetis moak baztatu bearra dago beintzat. Fonetismoen bidetik ez goaz batasunera, bi edo irutasunera baizik. Itzen berezko forma jatorrera jo bearra daukagu. Eta, gero, euskalkirik geienak erabiltzen dituzten formak aukeratu bear ditugu. Eta, ortaz gainera, forma naasiak baztatu.

Ikustagun orain, aipaturako bi forma oien artean, zein dan, balditza oien barruan garbien dabilena.

* * *

EUSKALKIRIK GEIENAK erabiltzen

duena, zein da? «Zuen» ala «zuan»?

Gipuzkoerak —Gipuzkoera jatorrak— «zuan» esan oi du. Bizkaierak ere —an formara jotzen du garbi-garbi. Zuberotarrek ere, garbi-garbi, —an formara, eta arreakin batera eronkariarrak ere (2).

Laburdi eta bi Nafarrok dira —en forman dabilzanak, eta aickin batera Gipuzkoa Berria.

«Iru, iruren kontra» gaudé, beraz. Gero ikusiko degu beste alderdietatik nola gabilzan.

* * *

Gipuzkoaren aditz-jokua gai ontan, garbi dago:

Nuan
uan (ukan, unan)
zenduan
zuan;
genduan
zenduen edo zenduten
zuen edo zuten.

Bizkaierak ere berdin egin oi du:

Neban
zenduan (zeban)
eban;
genduan (geban)
zenduen
eben.

Bizkaia eta gipuzkoar aditz-jokutik agiri danez, —en formak, askozko formak —plural formak— dira, ez bakarkakoak. Zenduen forma, zenduten'en berdiña da; zenduten, berriz, guztiok dakigun bezela, askozko forma da, ez bakarkakoa. Ala berean, zuen eta zuten elkarren berdiñak dira; zuten, berriz, garbi-garbi, askozkoa da.

Gipuzkoan ori, Bizkaian ere berdin gertatzen bait da. Bakarkako formak, —an formatara jotzen dute: neban, zenduan (zeban), eban... Askotara iristean jotzen dute bizkaitarrak ere —en formara: zenduen, eben (tartean, berriz ere, genduan (geban) —an formaren sallean gelditzen dala.

Beraz euskera batuan, bakarkako sallean —en forma sartzea, NAASKILLO bat sortzea da, batasunaren kalte aunditan.

* * *

Laburdi eta Napartarren gauza ola da:

Nuen
zenuen
zuen;
genuen
zenuten
zuten.

Dana —en forman —guretzat askozkakoa dan forman— berak, ezik, ederki bereizten dutela bakarkakoagandik askozkakoa; zenuen'i

eta zuen'i «t» bat tartean sarturik: zenuen, zuten. Bañan bide ori euskera batuari ezin ezarri genezaioke, gipuzkoar eta bizkaierentzat naaskillo bat sortu gabe.

Bizkaian eta Gipuzkoan —e formak askotazko formak dira: dezu, du; dezue, due; dozu, dau; dozue, dabe (daue); diot; diet; dautset; gizonari: gizoneri etab. Beraz, gauza au arruntean eramatekotan, zenuen, zuen ere —beren— e formaren, askozko egin bearko ditugu, eta ez bakarko.

Alderdi ortatik, beraz, naaskillo aldetik, alegia, arrazoibide bat geiago dago —e formaren kontra.

Ikustagun orain beste alderdia, fonetismo —alderdia.

* * *

Berezkoa al da, ala fonetismo sortua, —en forma? nuen, zuen? Pentsatzekoa bait da, fonetismo sortua dala eta ez berez.

Izan ere, fonetismo, garbi-garbi, —e bihurtzen dira, u edo i baten ondoren datozten berezko —a formak: burua, burue; begia, begie; laguna, lagune; egiña, egiñe. Ez bait da gertatzen, ordea, alderantzira.

Ikusi ditzagun argiago adibide batzuek aditz jokoa:

I baten ondoren datorren a, e bihurtzen da adibide auetan:

esan nikan nik; esan niken nik;
esan niñan nik; esan niñen nik.

Zein da emen forma jatorra?

Berdin esan bait liteke, u baten ondoren datorren a'rentzat: e bihurtzen dala, alegia. Ikus:

ez ukan esan ik; ez uken esan ik;
ez unan esan ik; ez unen esan ik.

Berriz ere galdera bera egin bait genezake: zein da emen forma jatorra? zein fonetismoa? Au da gai ontan nere arrazoibidea —dilema garbi-garbia:

Edo-ta —e forma da, —a formaren fonetismoa; edo-ta, kontrara, —a forma da —e'ren fonetismoa. Ez bait da, ordea, iñor, —a, —e'ren fonetismoa dala esango duanik.

Nuen da, beraz, nuan'en fonetismo, eta ez alderantzira. Forma jatorrak beraz, nuan, uan (ukan, unan), zenduan, zuan eta genduan dira; eta ez nuen, zenduen, zuen, genduen.

* * *

FONETISMOAREN baldintzari dagokionez ere, beraz, arrazoibidea —a formaren alde dago, eta —e formaren aurka.

OARRAK

(1) Txosten onen antzeko beste bat bidali nuan nik Euskaltzaindira bere garaian. Euskaltzaindik nuen, zuen etab. aukeratu du, bere batasunerako. «Nola?, ez dakigu»

(2) Zuberotarren, gauza ontako iritzi eta praktikaz, garbi-garbi ageri da, gure zuan'en ordez, berak zian esaten dutela, —a forman garbi-garbi; berdin baita gure nuan'en ordez, berak nian —naizta askotan, nin esan, guk nun esango gendukene bezela. Orixen da ango forma. Errokarri'n ere gauza bera gertatzen bait da.

Gipuzkoerari buruz, orain urte batzuek, egin nuan nik, Euskaltzaindiarentzat beste txosten bat, A. Larramendi'ren iritzi oker bat zuzenduaz. Aita andoaindarrak, bere Gramatikan, gipuzkoartzat jartzen bait du nuen, zuen, Zeterriko forma Gipuzkoa gutziari egotiaz, eta alderantzira Laburdi ta Naparroai nuan, zuan. Ta Lardizabal bera ere Larramendi'ren iritzira makurtu bait zan, bere «Testamentu Zar ta Berriko kondaira» liburu ederrean; Agirre asteasuara, ordea, garbi-garbi, —a formaren barruan dabil beti... eta baita Kanta Zaar gipuzkoarrak ere...

Bart arratzean / beranduan
panparrozeria / ba genduan;
kantatu oi da Bergara aldean,
Ogeitalaugarrena degu Abenduan;
deseo-genduan logratu genduan;
entzun oi da Gabonetan, Gipuzkoa-Goierrian.

LEKUNA'TAR MANUEL'EK

GAZTE

DEI BAT

ARRATI'KO GAZTEAI

Gazte lagun guztiok; gaurko gai au artu ba'dot, neuretzat benetan interesgarria dalako izan da. Eta uste dot zuentzat be bai.

Aspaldiko erdal-aldizkari, irrati ta telebisiñoiak erakutsi dauskue, danok dakizuen lez, petroleoak ipiñi dauskun arazoa.

Arazo onek, danori ukutu dausku apur bat, eta or gabiz burua apurtu bearrean zer egin ez dakigula. Ez dozue uste, guk gizonok, ardura aundiegia eukiten dogula energia-indarra geuregana ipinteko?

Gauza ori oso ona da, orrelan errezago izango jakuz gauza asko; baiña nik pantsetan dodana da, gizona gertautu ete dagon energi-indar ori gure aurka biurtuten dan ordurako?

Nire ustez, gitxiegi dago gertautu, orregaitik orrenbeste ezbear izaten dira gure lantegietan, bideetan berebillaren bitartez, eta abar. Orduan, indar au gizonak menperatzea oso gatxa izaten da, baiña indar onek egiten dauskuzan ezbearrezkoak sarritan konpondu geinkez.


Ez bear oneitan, eriotzak be asko izaten dira, sarritan osagillerik ez dalako ur, edo eroate txar bat egin dausagulako, ta abar...

Orduan emen, arazo aundi bat ikusten dogu. Zer egin? Galdera oneri nik diñotzat: Zuk, nik eta ak besteak bizi bat salbau legikegu. Zelan? Erantzuna: Lenengo laguntzak edo «Primeros Auxilios»ak apur bat ikasita.

Au da ba, nik esan nai dautzuedana: Bearrizan aundia dagoan lez, arduratu bearra dogula Arrati'ko gazteok; baita beste errieta-koak be, baiña batez be, guk, geure artean orrenbeste jente gure basoetara doazelako, ta gure lanak sarritan, ezbear asko dakar-kiezalako.

Baiña errietan ezin dira kursilloak egin. eragozpen batzuk dagoz-da, oneik, kursillo orreitarako osagilleak ipiñita; ez ei-dabe astirik danera joateko.

Ala ta be, gure eskuetan daukaguz Federaziño'ko pelikulak, sokorrista-laguntzaille askoren erakusketak, ta abar... Orduan, oneikaz, zer edo zer egin bear dogu, erriak ikusi dagian bear-izan ori, baita kontzientzi apur bat be artu dagian.



Au eginda, ikusi al izango geunke zelako ardurea dagon gure artean, eta gero, bear ba'da, alkarte bat egiteko benetan gura dabenari, laguntza apur bat emon Bilbo'ra joan daiten kursilloak egitera, ta abar...

Orretarako, dagoan bear-izana ikusi dagizuela bear dogu, ta zuen benetako gogoa ezagutu. Erreza da ez arduratzea norberari elduten ez jakon arte, baiña gero... sarritan barandu izaten da.

Iñor ba'lego onetzaz arduratuta, alkar-izketa bat euki nai neuke beragaz.

Parkatu nire erratuekatik, eta ez dagiala iñork esan Arrati'an sorbaldak altsau nai dabezela arazo onen aurrean.

ZEANURI'TIK
JESUS M.^a ASTONDOA'K

Biziaren Zugaitza

Ara or pago aundi, eder bat... zillarezkoa dirudi.

Gaztelu'ko Basoan, gure zuaitza, ikusgarria da, aparta. Bere enborra, lodia ta sendoa da, zauriz betea... Bere adarrak, ariñak eta luzeak... Zeruraino irixten diranak. Nunai, orbel gorriak.

Bere frutua —urrezkoa noski— amodioa, Pakea, zoriona da. Baita osotasuna ere. Ala diote beintzat aintziñeko ipuiak.

Ba ote? Eden'go Arbola bezela? Apolo'rena bezela? Florida aldean ere ikusten omen dira olako zuaitz gelsuak, arrigarriak.

Amodioa, bai, baiñan nun?

Iñun ez... ezta gure Euskalerrri'an ere. Gaiñera, gaur beintzat, amodioa ta gorrotoa ain daube bertan! Ain daude nastuak!

Ain daude berdinduak! Amodioaren ize-nean, gorrotoa, gogorkeria zabaltzen dira... alde batetik, eta... bestetik. Ta libertadearen izenean, berdiñ, askatasunik ez, zapalketa nunai.

Emen, baso morean, Pake ta Ixiltasun; Bakardade ta Zorion... Usai gozoak. Amodioa, egitazkoa... Egitazko Amodioak, apaltasuna, ukamena eskatzen du... Biotz Zabala.

Egia. Justizia. Fedea ere bai.

Beti marruka, beti negarrez batak eta besteak, goikoak eta bekoak— (utikan demagogoak) eta gero, zer?

Utsa, gezurra, arrokeria. Jatetxe ta jolas lekuak bete-beteak... zineak, kirol-zelaiak, berdiñ. Berebillak nunai... Ez dagola dirurik?

Au ez da aldaketa... au erokeria da. Buru-erioa.



Izadia, basoa, berritzen da noski, udaberri alaiean. Baiñan ondo, «buruarekin» neurri barruan.

Goian, zeru urdiña. Noiz arkituko degu Biziaren zuaitza? Noiz? Nun ote dago? Gaztelu'n? Amerika'n? Txina'n?... Nork daki?

Ala gure barruan? Nik baietz uste det... Amodioa, Pakea, Zoriona, ez al dira biotza-ren urrezko frutu ezlikorrak?

Leizearen gaiñean, Gaztelu'ko Eliza, zutik! Zer ikuskin bildurgarria! Benetan dantekoarra! Berde biguñez josia.

Biziaren arbola... zukan arkituko al degu illeziñ zoriontsua?

MATXIN

Burrukan eta ostikoka

EUSKEREAGAZ

Olantxe esan daikegu aspaldiko aldi onetan, zoritxarrez, entzun eta idazten diran atzerritar esakera ta itzakaz. Ikusten dogunez, nai eta nai ez, Euske-rearen unetan sartu gura dabez «atzerritar esakerak eta itzak».

Euskerea naspildu ta iltamura eroateko bide kaltegarriak, aintziñatik yatorkun geixo edo gaitz au naikoa ez palitz lez, itz, esakerakeriak eta oldozkeri ustelak ezarririk, «biziana» geixo ikaragarria baiño itzalagoagaz, gure Euskerea il-zorira eroateko asmo bildurgarriak ikusten doguz, geure tarkekoak direala ao-miñean diñoenen artean.

Bai, atzerritiko itzok: «show, folklore, prolema, utopia, ofiziala» eta oneitariko asko eta asko irakurten doguz aspaldi dala Euskera izeneko izparringien artean. Ostera, baita be: «alfabetatzaille, hit-parade, ta onein antzeko «esakeriak». Eta nastekeri oneik naikoa ez palitz lez «izkuntza bat iteko», samintasun andiz sortu dauskue H'keri geixo zitala. Aibat urtetan batasun bidietatik ibilli gintzan Euskal-idazkera garbi eta erraza «apurtu, eten» nairik dabilbaz baten batzuk, eta bai, itz atzerritar, esakeri eta H zalekeri arteko ekinen-ekinagaz.

Aibat dira irakurlien artean, Euskaldun izparringietatik, orrein bultzakadaz iges egin dabenak, oraingo izparringi orreik irakurtea laga dabenak. Eta izan ere, «itz, esakeri eta H ustelkeri» orreik Euskerearentzat «beatz-arr» gogorak ezarritea da. Obetoago esateko, «itzok, esakeri eta h» orreik dira Euskerea zapaldu, eta ondiñokarren gelditzen dan arnaseagaz burrukan eta ostikoka ibiltzea.

Idazlari askok H'ak erreztasun andiz sartzen dituez. Bardin, sartzen dituen lez, emen tabernetan erderaz itz egiñaz, jokuan edo futbola dala, euren ekin-aldietan, itz bat esanda beste itzari eusteko bitartean, añen, birau edo itz zatar eta zikiñak.

Izkuntza bat edo bestea mintzatzean, nai idazkeran, garbi erabili bearrean gagoz, onek ostopook sartu barik, eta aldanik erreztasun bidean emon idatzita irakurliari.

Gure artean beti izan oi-da Anaitasuna, baiña oraingo burutasunkeri batzuk diardue idazten eta esaten: «Harrieta, nahi, Therese, behar» eta abar, eta idazkera au ezarriten ba'dautsegu, Anaitasun —garbi eta argiari— sortuko litzakio: «Hanahithashuna», eta onen antzera beste itz asko, eta orreri deritxot: «Euskereagaz Burrukan eta Ostikoka Ibiltea».

Alegiña egin dagigun gure artera egizko Anaitasuna eta Maitasuna erakarteko.

Hitz-parade'keridunok, H'keri zalekeridunok,

Alfabetazeta aldekoak, gomuta zaiteze

Euskal Iztegi ederrak, gure artean bai-dirala.


Eurak irakurri ta ikasiaz, danok joan gaitzean beti,

Bat-batera, gure Agakadeak diñozkun lez Alkartzeri!

JAUREGIZAR TAR J. M.

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK
OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

ZAZPI-KALEAK



CASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

«KRILL»

Itxasoaren sakonetan zer dagon? Oraindik mundu erdi gosez bizi dala, ez jakin itxasoaren ondoetatik zenbatean arindu leiken es-tutasun ori.

Gaur gaurkoz mundu guztian itxasotik ataraten dan arraiña 69 milloi toneladatan aibatzen da, urteko.

Arraiñik geien arraintzaten daben erria Peru da. FAO'ren erizietan Peru'ko itxasertza da mundutik aberastarikuena. Baiña perutarrek ez dira arraiña jaten zaleak. Ango arrain asko urun biurtzen da.

India, erri gosetia, arrain billa dabil. 500 milloi bizilagun daukaz. Gaur gaurkoz irureun milla tonelada arraintzaten dira bertan. Eta gosez bizita be, USA'ra bialtzen dau asko. Kamaroia geien be.

Irureun arrasteru barri eta beste 5.500 motordun itxasonizi egiteko asmotan dabil India, oraingo lau urteko egitamu.

Berrogetak estatu sartuta dagoz ICCAT'en. Atlantiko aldeko atuna zaintzeko batzorde edo alkarte da ori. Geien be laureun milla tn. atun arrantzatu ditue bertan sartuta dagozan errietako arraintzalen artean, urteko. Ortik 78,4 milla toneladatan dabil España'ren aldertitik dabilzan arraintzaliak aritutakoa. Ega-luzea, atun zuria, gero ta gitxiago arraintzaten da. 1963'n 28,5 milla tn.; geroztik urtero beratzen, 1972'n 24 millatan geldituzeko. Urte bakan bat bitartean: 1967'n 34 milla liozteratu ziran.

Eta orain... erusitarrek asi dira itxas janari barri bat ataraten: «Krill» («Plankton»).

Zer dan ori? Bale (ballena) andien janaria. Otarraña, oskolduna. 69 milloi tn beste era guztietako arraiñetan munduan arraintzaten ba' dira, eun milloi artu ei leikez «krill»etan.

Urdailletik gaixo dabilzanentzat berebiziko janaria dala esan dabe eurusitar jakintsuak. Zornakaitzez, ultzeraz ibilli diran gaixoetatik osatuten diranetan % 60 geitu ei dira au artu dabenetan. Proteina ugari, «B» taldeko bita-minetan aberats.

Eratuten gaitz. Zapaldu egin bear da itxasoan bertan, bestela txikia dalako errez galduko litzake, eta bere ura, bere jusa atara. Gero, berotu ondoren, bere proteina mamitu, loditu egiten da. Au gorde eta itoztuta laga bear da, ondoren pasta, orea egiteko.

Lenengo lanak itxasoan bertan egin bear, onetarako ontzi egokietan, galdu ez dedin.

Beste eragozpenak: «Krill» au ez da urte guztian artu leikena, bere aldi egokietan baiño, eta itxas urrunetan.

Orra itxasoak bere erraietan ona izan leiken janari ugari bat. Baiña otarrain ori janari biurtze-ko... erakunde barri bat bear. Al leikena al izatean biurtu bear.

Itxasoa or dago, zenbat eta sakonago ta ez ezagunago. Mundua zenbat eta ugariago ta gose-tingo. Eta gizona, itxas gizona, arraintzalea, gero ta arduratsua bide barrien olatuetan.

ZUBEGI

MENDIGOIZALEEN

GORA-BERAK

Beste edozein gai baiño egokiago era-billi geinkela uste dot ipiñi dogun idazbu-ru orretakoa, mendigoizalearen artu-emon guztiak ez diralako gora-beratazko gaiak baiño, pizkat oldoztu ezketiño. Aldi bat da-da kirol onetaz aipatu baiño besterik idatzi ez dogula, baiña, azken aldian ainbat «gora-bera» izan dala mendi-zalean artean, euro-taiko batzuk dakarguz AGUR onen orri-aldeatara.

Orain berrogei ta hamar urte, Orduña gaiñeko aitz-ertzean aurkitzen dan «Le-kaidearen-erpiña» (Pico del Fraile) Sopi-fia'tar Anjel mendi-zale purrukatuak igon eban lenengoz. Eta mendi-zale kementsua naita larogei ta bi urtedun izan, orain be mendirik mendi txori bat baizen bizkor dabilanez, eta gaiñera mendi-kirol garbi ontan ezer baiño geiago izan zalako: Eus-kalerrri'ko Mendigoizale Batza'ko lenengo idazkaria, guda-ostian bere barriz-piztutza-

lle ta Lendakari luzeroan eta F. E. M.'ko lendakari ordezkoa ta abar, oso ezaguna da mendi-zale guztiontzat.

Aipatu dogun eta ez luzatzearren, beste esangai askogaitik merezi eban omen aldi bat eskiñi dautse Bilbo'ko «Deportivo»ko mendi-zaleak, euren areto zabalean ta Epai-llé'ko 3'gn aste osoan. Ospatu ebezan gauzak, mendietazko itzaldia eta mintz bikaiñak eta abar izan ziran. Gu be egun baten, bertan izan giñan Sopena adizkidea agur-tutearren geyen be. Ikasigarriak izan ziran, egintza orreik, eta guk bezela uste izan eban bertaratu ziran mendi-zale askok be.

* * *

Amorebieta'ko «Zornotza» mendigoizale tal-de barri kementsuak (barria esan dogu orain iru edo lau urte sortua dalako) eta Galdakano'ko «Ganguren» taldekoak jai polit bat antolatu eban Aramotz'eko Belatxikieta'n. Epai'lla'n 3'gn. iganderako, mendi-zale talde bi oncin artean ospatutako ibilketa neurtuetan alde artu ehenen artean. irabazle urten ebeneri sariak bananduteko. Eta jai ori zala-ta, gaztiak ederra batu zan bertan dan zelai zabalean.

Mendigoizalean artean beti izaten da izan be, benetako alaitasuna ta an be ez ez alaitasun garbiaren utsik izan. Mendi-goizalean jairik geyenetan bezela euskal dantza txukunak be euki genduzan, eskarrak Zornotza'ko txistulari ta dantzari gaztetxuei. A zan gaztediaren benetako jolastu bearra ta alaitasun garbia, abesti errikoiak bitar-teko zirala. Jarrai bide ortatik euskal gaz-teak, zeuok zare ERRIA'ren itxaropena-ta.

* * *

Ez dago esan bearrik, edozeiniek iku-siten dau-eta, ikusgarrien geitu, ugaritu dala gazteen artean mendi-zalaitasuna. Edo-zein igandetan ikusi legikez Euskalerrri'ko mendi guztierantz doazala neska-mutil mordo andijak, batzuk eberdeterako bakarrik eta beste asko egun guztia mendian igaroteko. Zalaitasun ori bide dala, ainbat bazkun sortu dira, edo lege barruan, Mendi-goizale Bazbatzan sartu dira azken aldian, eta euron artean Bermeo'ko «Garbola» izeneko taldea ta Gernika'ko «Goi-zale» izen politdu-na. Beste bazkun barri batzuk be gertuak izan bear dabe, baiña ez dogu oindiño oncin izenik.

Baita ez sortu bakarrik, ain erreza ez dan ibilketa neurtu bat be gertuak dira bermeotarrak Epai'lla onen azkenengo igan-derako. Baiña lerro onetik argia ikusi da-beneko ospatua izango danez, ez goaz ar-gibide geyaga emotera. Auzp bermeo-rrak! beste egikizun askotan be erakutsiak zaree zeuon kemena, ta mendi-arazoetan be, ez zaree atsean geratuko, ez orixe arra-notan! Eta kontuz, gemikarrak be ez kikil-duta geratuko; zerbait onik egingo dabe eurak-be!

* * *


Urren datorkigun Jorraillan 24'gnerako Ibaizabal-Nerbion izenpean bilduten diran mendigoizale bazkunak, au da, Baskonia, Edesa, Ganguren, Osea, Padura ta Zor-notza mendigoizale taldeak ibilketa neurtu andienatariko bat gertuten dabiltz.

Ibilketa luzea izango da berau; Zen-goitzagana'n urten eta Oiz'etik Ibarruri ta Gorozika'tik, Bizkargi'ra, Emendik jatsi Larrabetzu'ra eta Ganguren'go gaillurrer-igon ta ortik Basauri'ra jatsiteko. Gurriz bederatzit ordutik gora izango dala dirauskue antolatzaillak, baiña zerbait gitxitxuago izan-go dala esango geunke guk, lekuri, biderik zuzenetatik bidalduten ba'ditube beintzat. Edozelan be, ibilketa neurtu orretan alde artutzea nai dabenak. Emakumezko edo gi-zonezko, irukoteak izango dira ibiltailleak, eta jakina! Bazbatzako agiria jabe diranak.

Ea ba mendigoizaleak! gertu ondo eta jarraitu ERRI'ko bide-zior guztiak ezagutzen, da maitatzen!

ALTUNA'TAR JOSU

Arri batekin asi zan



zure aurrezkien banketxea



BANCO DE BILBAO

gizaldiz goiti aurrezkitzan

GARIZUMA BASAMORTUAN

Autsegunean Garizuma asi dogu. Baru-aldia da. Oitatz eta biotzeko biurtzea egiteko egunak. Zer da Garizuma lekaidearekin batean? Ementxe daukadaz gauza batzuk, lekaide barria nintzala lenengo Garizumako igande batean idatzi nebazanak.

Bakartasuna ez da gelditasunik. Kristaua beti artegatasunaz dago. Lekaidearen bakea atezu gogor eta betikoa da. Lekaidearekin ez da iges-toki bat. Eremutarrak bere bakartasunean itoiz geldidirik ez dauka. Arte barik zirikapenetan dabil, inork baino geiago Jainkoaren itzak eta Gaiztoaren marmararik entzuten dauz-eta.

Basamortuko oia Jainkoaren itza da. Eta edateko ur otza biotz damutua da, zintzo ta apala eta sinismenaren Itzari zabal-zabalik. Baiña Aren itza entzun al izateko, bakartasunaren ixiltasunaz gogoaren barru-barruetan bere bai ixiltasuna egin bear dau.

Basamortua ez da eupada bat izatearen kontra. Ezta be indar-leiarik: arimarentzat, barriz, bear-bearekoa da. Bakartasunean Jainkoa lanbroan ikusten dogu, inguru-bizia ba'ltzakuz lez. Baiña bakartasun au, basamortua Jesus eroan eban Espirituan oiñarritzen da. Ortan onako autakuntzaren baihoa; bestela amets utsa ta burukeria litzateke.

Or dago basamortua: aundi ta luzea. Itxasoko zabaleran lez, Jainko aurrean, gizonaren ezer-eza garbiago dendetzen al da. Izatea guztiz mugatua dan ezker, basamortua ezereztasuna da. Orregaitik emen Jainkoa agiri da bizi ta eraginkorra; eremu-tarrak ezer ez daukalako, Jainkoa baizik. Gaiñerak; dana basamortua da.

Olan ulertuko dogu zergaitik Jainkoak eta Erriak basamortu batean alkartasuna egin eben.

Basamortuan bere bai Jesus'ek ogi-ugaritzea egin eban. Gizona ezaugarri baten bila dabil, eta basamortuko ogiaren ezaugarria baiño beste ezaugarriarik ez dautso emongo. Bakartasunaren gantetasunaren daitela eta benetan erlijioetasunaren ezaugarria eukiko dau. Jainko-gizon izango da, besteegan itxaroten dauana. «Oitotzen ezakiana Jainkoari, berraiio itxasorari», gure esakune-sortan irakurtzen dogu.

Basamortuko utsak burrundatu daitzenean, ez dakiozala bildurak etorri, Jainkoaren itxas-gora dalako. Jauna da, ustasuna egiten dabilena, Bera bakarrik betetasuna izan arte. Jainkoa ortxe dago, nigaz basamortura sartu zan-eta. «Ni zeugaz egondo naz beti; zeuk oratzen daustazu nire esku-mako eskutik» (Sal. 70).

Lekaidea Kristo'ren indarketaria. Jainkoaren gudarria. Gogo-gudako gizona. Basamortutik bide gabe bidelaria. Ezer barik, ibiltzeko beti azke.

Inor ez leiteke gelditu basamortuan. Bizitegi bat ez dalako. Iltea izango litzake. Baiña lekaideak Kristo dau gidari bakarra, bideko Aren oiñatzai ba'darraie. Berak bai esan al izango dau: «Zure bideetan zaindu zagiezala agindu dautse bere aingeruak-eta; euren eskutian eroango zaitue, zure oiñak arrian laban egin ez dagien; sugu ta lar-rasuge gainean ibiliko zara...». Salmu au basamortuko salmu da.

Eta Jainkoagan, gizon anai guztiak, beti lekaidearen biotzean.

ARANGUREN'tar IÑAKI,
Zister'ko lekaidea.

AURRERAPENA?

Aurrerapenaren ondorenak

Begien aurreran daukoguz eta esan bearrak be ez da, gaurko asmakizun eta aurrerapenak gizonari ta gizarteari on asko ekarri dautsezala: Lan gogorak bigundu, indar-bearrak gitxitu, atsedean eta opor-aldiak geyagotu, ikasbideak erreztu, bizitzaldia luzeta, aukerak ugaritu, artu-emoterako bideak erreztu ta zabaldu, labur esateko, askorentzat bizitzea erosoagotu, lengoan aiatu genduzan asmakizun eta aurrerapenari esker. Onak, gizona «zoriontsuago» egin dabela, ez dau esan gura benetako «zoriona» iturri orretatik bakarrik sortzen dala; edonork daki-ta. Izan be, azaleko aurrerapena barrukoa barik, gizartearentzat onuragarri baiño kaltegarri geyago izanten dala, egunoro geure begiz ikusten doguna da. Aurrerapen zaleak izan bear gara, gizona gizonagotuten dabena. Ori egiten ez daben aurrerapena arimabakoa izango da, beraz errena.

Aurrerapenagaz arrotu ete geintezke?

Itaun oneri, Wladimir D'Ormesson'en itzakaz erantzungo dautsugu: Igaro dan udagoyenean Danielou Kardenala Prantz'ko «Académie»n sartu zanean, Ormesson zan erantzuteko, eta ille bi lenego il zalako, gertautu itxi eban itzaldia Guitton yaunak irakurri eban. Ara bere itzak: «Egia, gauza andiak lortu doguzala ta arrigarriak yaritxi —esaterako illargiraño eltzeta— ta askoren bizikerea obetu dala. Baiña, atomo-indarra munduari azkena emetoko gertautu ikusten dogunean; ainbeste eundaka gizon-erailte zentzumbako; alkarraren bildurragaitik bakea zaintzen dala; arrolioa errege dala ikustean; eguneroko oia yateko bear dogun dirua; laterrien norberekeriz eta batetik bestera dabilen diru-lapurretak dirala-ta, meago, merkeago; balio gitxiagoa ikusten dogunean; ankerkeri ta gogorleri aldira eldu gareanean; atxillotez, baitura ta beren-beregi su emotea; setu gayak ikastoletan irakasten diranean; ume-galtzea, lizun-itzulketa egunoroko gauza lez artu, lizunkeri idazle ta abar maitekieriaz batera aberastuteko biderik onentzat dagozanean; drogen bitartez gazteai inpernuko zerua eskintzen ikusten dogunean; eta gugandik urrin barik erri osoak, gosez gorputzak biurtuta, ezbearrez usteltzen; ainbeste apainkeri ainbeste ezbearren ondoan ikustean, gure azkatasunakaz ain arro egoteko eskubiderik ete dogu?»

Argi ikusi geinke ba, aurrerapenagaz ezin arrotu geintezkala, ainbeste txarregaz nastuta datozenean ta ondiño ainbeste aurrerapenen bearrizanean dagozan bitartean; asko dakian batek, ez dakiana geyago dala oartzan ba'dau, zertan arrotu ez daben lez. Asmakizun ta aurrerapena «oso-osoa» pozgarri ta txalogarri izango litzakez, «baino...» barik etorriko ba'lira.

Onk'ez dau esan gura baikor izan bear ez dogunik, baiña bai, gauzak bear diran lez ikusteko, alderdi guztietatik begiratu bear dautsegula.

Egizko aurrerapena

Aurrerapena gizartearen onerako, eta gizon osoaren osotasunerako izan bear dau. Arimearen onerako bakarrik ba'litz lez litzake naikoa izango, eta soñaren onerako bakarrik ba'litz, gitxiago; aurrerapena aber eiderak egiteko bakarrik ez da-ta. Neurri bardiñean izan bear dau, ostantzean aurrerapen «errena» izango litzake. Egizko aurrerapena gizona, eta kristiñauon artean kristiñauago izateko erreztasunak. emoten dituana izango litzake, eta orixe da ikusten ez doguna.

Agotan erabiltea ez da naikoa

Gizonaren duintasun eta eskubideak «agotan» inoz baiño geyago erabilten dira. Baiña besterik aiatu barik be, gaurko langillari begiraten ba'dautsugu, irabazi geyago ta aukera geyago izan arren, sendiaren bearrizana erantzuteko, or dakusgu gau eta egun lancan sendiko bizitzarako asti barik, langintzan al bait etekin geyago atarateko makiña bat ba'litz lez, edo azkenengo tantaraiño atarateko aurrerapeneko «limoi» bat, beste alper asko lasai biziko ba'dira.

Onk' esan gura dau, gaur eguneko aurrerapen guztiak gora-bera, zerbait oker dagola, aurrerapen guztiak arimearen bearrizana dabela. Bardin gertatzen da, langintza-bazkunak «S. A.» diranean. Niretzat, «S. A.» orreik erderaz «Sin Alma» sarritan beintzat esan gura dau.

«Diz-Diz egiten daben guztia ez da urregorri», esaten dan lez, «aurrerapen dirudian guztia ez da aurrerapen», egiz esan geinke.

GAMA

Akino'ko Tomas

Bera illik, aurtan zazpigarren mendeurrena. Ba dirudi 1225'gn urtean, azken aldera jaioa zela. Akino'ko Landolfo kondearen zazpigarren eta azken semea zen. Roccaseca zeritazioan Gazteluan ikusi zuen leen argia, Napoles iritiki ez ain urrun. Bere aita noblia zen longobartarretan, eta aitaren aldeko Tomas'en amona, aldiz, Federiko Bizargorri'aren arreba. Beraz, odol urdiña zijoakion zaiñetan Tomas aurrari.

Gorputzez andia izan bear zuen, aski bakartia, aingeru xamarra ere zerbait bai, ta egurasteko, arratsean, konbentuko atarira irtetzen zenean, burua oso goitik eramaten omen zuen. Jaiera andia izan diot eta diot oraindik Tomas Akino'koari. Zordun naiz berekiko ta esker ona azaltzea zuzenak beartzen nau...

Iraultzapen edo social aldakuntza larrien artean jaio eta bizi izan zen Tomas Akino'ko

Ba zen orduan ere komeririk asko. Ez dezagula pentsa gu, XX mendeko gizontok gerala bakarrik iraultza edo ekaitzaren semeak. Ez da urrik eman ere! Orduko aldakuntza Europa zear, izugarrikoa izan zen. Gizarte eta gizalege batetik besterako aldakuntza larria ta lasterra. An-emen, iriak edo burgoak sortzen. Burgoak berekin zeramakien klase nausi berria, burges-klasea, noski. Diru aberastasun berria ere bai, sal-erosketaren aberastasuna. Klase-burgesak berekin zeramakien, albotik zinzilik, aberaskume berria.

Orduraino nausi izan zen feudal sistima atzera utzia, burgoak edo uriak zijoazten, joan. Leen, ibarretan, beneditarren etxe-atarietan eman oi ziren eskolak zaarkituak agertzen ziren. Aldi berriari, irakaspide berriak. Gaztedi berriari, bide berriak.

Tomas Paris'go Inubersidadetako irakasle izentatua izan zen. Paris'go Ikastola Nagusia zen orduan Unibersidade guzien ama, lege ta eredu. Bestalde, Europa arazo larri baten aurrez aurre zegoen. Eguerdialdetik, ots, Europa'ren oiñetatik, ate-joka zegoen arabarrak, gizalege, zibilizazio, kultura berria zekarkitelarik, beren maisu eta iskrubuetan. Aien bidez eta bizkar zetorren Aristoteles greziarra.

Menderen mendez Elizaren ugazetan azitako gizarte jator ura milla puska egin eta lur jotzera zijoala esan zitekean. Zer egin? Aristoteles'en filosofia ontzat eman? Ez zen gauza erraza, ez orixe. Orduko gazte ikasi askoentzako, Aristoteles'ek gaurko Mao edo Hegel edo Marx'ek ainbat edo geiago zuen.

Arabeek zekarkiten zibilizazio eta kulturaren bizkar-bizkarrean zetorren argiz inguratirik Aristoteles pentsatzailea. Baiñan, Aristoteles'en filosofia paganau zen erro-errotik. Zer egin orduan? Burdiñaz eta giltzaz atekak itxi? Erabat atekak iriki? Batsuek ura maite zuten, beste batzuek au. Nondik eta nola asi Jerusalem eta Atenas arteko zubia egiten? Nor egille? Nor eragille?

Artarako Europa'k, kristau Europa'k, autatu zuen pentsatzailea, ta ez debaldeetan, Tomas Akino'ko izan zen. Berak bere eskuz, egiazko sinismenari izpi batean ere uko egin gabe, baitaiatu zuen Grezia'tik, Bagdag'ko eskoletatik, arabean maisuz gantzutua zetorren Aristoteles ura. Arriskuko jokua jokatatu zuen Tomas'ek eta irabazi gaitiera.

Tradizioaren aria eskuan zuclarik, Tomas Akino'kok erakutsi zigun gauzarik nausia, nere ustez, auxe izan zen, ots, gizonaren etorkia eta azkena gauza berbera direla, Jaungoikoa, alegia. Nor da Jaungoikoa? Zer da Jaungoikoa?

Jaungoikoarengana giza-adimena iritxi dedin, Tomas Akino'ko ipiñi zigun «quinque viae» edo bost bideek bezelakorik ez zen sumatu Tomas Akino'ko jaio baiño leen, ez dut uste sumatuko denik geroztik ere, bide bakarrak bai dire.

Tomas'en eriotza

Epaillaren 7'an il zen, 1274'gn urtean. Berrogei ta bederzati urte zituen. Montecasino'n asi zuen bere eziera, Cister'go Monasterio batean itxi zituen betiko mundu ontako argiari bere begi zabal urdiñak. Sancta Maria de Fossa Nova zen Monasterioaren izena.

Ba dago gorderik Oxford'en Tomas'en obra osoa. Azken orrian, eitzean ezarriarik, au irakurtzen da: —«Hic moritur Thomas. O mors, quam sis maledicta! —Emen, mement ontan, il da Tomas. Zein madarikatua zaren zu, eriotza!»

JOXE LASA

GURE LAGUNAK

Guk beti geiago nai. Alegia, lagun geiago. Langille azkarrago. Iarraille zintzoago. Baiñan morroirik ez. Oraingo gizarteak morroi itz au ez maite. Eta morroi itz oni, guztiok izugarriko beldurra diogu. «Onezkeri ez dizuet sei esango...» «adiskide esango dizuet, berriz...» (Yon 15,15).

Gure lagunak nortzuk diran, irakurleak liparrean asmatuko. Noski, geron ondoren bakarrik ez-baiña, oraintxe bertan ere belguntza-lanetan ari litzekenak: oriek gure adiskide, gure etxeko, gure benetako maikide. Belguntza-lurretan Asiain 4.854 apaiz-gai ditugu: aurreko urtean baiño 157 geiago; Afrika'n 3.312 gazte, eta leen baiño 153 geiago; Amerika'm 366, leengo urtean aiñaxe; Europa'n 112, leengo urtean baiño 23 gazte gutxiago eta beste tokietan 85' leen baiño zazpi bakarrik geiago.

Urte bakoitzaren azken-aldera Kepa Bidali Deunaren Bazkuna'ra iritxi izan diran azkeneko izen-zerrendak diotenez, leengo urte ortan 622 apaiz berri izan dira eta 112 geiago aurrekoan baiño. Ala ere, kopuru ori ez da osoa, zenbait lurraldetakoek beren apaiz berrien zerrenda ez dute bialita.

Edonork errex ikusi dezakenez, delako getze pozgarriak korapillo guztiak ez askatuko. Belguntza-lurretako kistar-batza gazteek (berriek) asko bearrekoak ditugu, eta beñolako belgundarien emana erruz agortu dalarik, egin bear liraken lan asko egiteke bazterrean utzi bear.

Zer gertatzen danaren berri inork baiño ederkiago dakian Paulo VI onako auxe esan berria degu: «Oraindik, urte askoz, Afrika eta asiatar kistarbatzek beste lurraldeetatik urbidutako beldungarien bearrean izango. Alegia: apaiz, lekaide-lekaime eta kistar soillen bearrean, Berri Ona'ren azia egoki danez erein al dezaten. Nigana, Erroma'ra, agertzen zaizkidan Gotzai iaunei, maiz Nik entzuten: Belgundariok!! Zeron aberriak utzita

guregana atozte!! Eta, berein Gotzai iaunek, batez ere Uganda eta Kamerun'goek olako eskeak berritu dizkidate, baita Nairobi'ko Otunga ianzkordunak ere: Berein belgundari iritzi tximeneko orain, egin dezaketen lana bukatuxe ere ote-dan uste dute-ta. Bitartean belgundariak beren lana asi besterik ez dute egin».

Oraingo aurrerapenen argitan, gizonak beti lan berriak eta buruauste aundiak izaten. Eta Kisto'ren irakatsiei amor ematen ez dietenak ere zerbait nai: beren biotzetan nabaitzen dituzten egarri sutsuak ase nai. Non? Nork? Noiz? Eta, gizon guztien nai erantzun bakarra Kisto izan! Areal, Doibatza bein ere ez izan ain gertu siniskabeak: alegia, asko eta asko Doibatzen itzalera oldez etorriko lirakela. Baiñan, bere indar utsez oso gutxi iristen egizko argira. Egia esateko inor ez!! Eta, gertakizun ori iakiñik, Paul VI'ak belguntza-lanak eraberritzea nai eta ortarako langille onak geitzea. Izan ere «belguntza-sena Iainkomaitaleak berotzeko txit aukerakoa izan», Doipuruak berak esan izan duanez. Baita, belguntza indarberritzeko asmoz udazken ontan izango da Gotzai-Batzarra. Urte Santurako ere, datorren urterako, ia asmo ori nagusia: Eraberritzea eta onezkoak egiten.

Bai ta: Formosa ontan aurtengo uztaillean zazpi iesulagun gazte apaizgora artuko dizkigite. Urritzen ari geranontzat laguntza ederra. Eta, urteoro olaxe izango ba'litz, amaikatxo kezka bazterrean utziko genituzke. Ortarako, ordea kistar zaarretako lurraldeetatik gazte gartsuak onera etorri bear. Adifnean gooraka asi gabeak obe: olako gazteek emengo izkerak liparrean ikasiko, eta ondoren apaizgorako ikasketak burutzen dituzten bitartean, aurretik ikasitako izkuntza beren mami biurtuko dute. Bein urte batzuk gero, izkerak gogoan artzeko lan geiago egin bear izaten.

ETXEBERRIA'tar P. s. j.

UDABERRI

Egunak, argi, atek zabal, Bizi ikaraz, lerroz-lerro,
goituz datorren bizia da, inurri langille, ingumaz...
ikutu me baten ezkutuz aurrera dator bai guztia
maite-itxaropenez iaual aizea laztanduz maitari,
izateari lokarritua, belardi eze, lora bipil,
betikotasun amets gartsuz. burura datozen gariakaz:
ibarrak, zelaiak, mendiak
oro bizi-mienduz, txoratil,
Egal batetik besteraño itxaropenezko etorriak!
ezetasunezko etortez,
lore bitxi ta belar apal Zugaitz orritu, zelai ezez
izakirik txikieneraño, oro eder-mintzoz bildua,
beren izkuntza ixilllean txori txiunta, aize arañez
udaberri dala diote ta, berein zeru-eskukada
ta, alaxe da izan ere ego-zabaltze atseginez,
ain sakonkiro aurkeztu dan bizia-bizi eske ari da
alatz aundi baten bitartez. gogai alaietan gerotua,
urduritasun bioztuenaz.

Kantu ta eresi artean Neguari iges egin dion
—oro goitiar ta iaunkiro— goraldi onen barrenean,
soñeko ederrez iantzia, betikoaren gogoa datza
—oro itxarokor ta sendo— bizi indartsu ta, sakon,
gazte lerdan baten antzera Aldiari eskeñiz biotza
bizi alai, ikusgarri, zitu izango dan lorean!
goi-billa... ain begiragarri! MUNIATEGI tar SABIN

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra

BILBAO - Casco Viejo

Tenderia, 15 eta 16

Prantzia ta Ipar-Amerika

Erri batek beste bateri eskarrik izan biar ba dautso Prantzia'k Ipar-Amerika'ri. Mende onetan izan diran guda andi bietan Ipar-Amerika'k gaizkatu edo salbau eban Prantzia. Guda areitan sartu barik gelditu cikean Ipar-Amerika, izkilluak saldu ta ederto irabaziaz, orduan gudearen txipristifik ara elduko zan bildurrik ez eban-ta. Edo irabazten joazenen alderdian sartu. Bere pixua ipinten eban aldekoak garaille urtengo eben ziurtasuna ba-egoan. Baiña, guda bietan, ordura arte galtzen joazenen alderdian sartu zan, bietan Prantzia ta lagunen taldekoak batu zan. Ta gero, guda amaitu zanean, Plan Marshall izeneko laguntza inok baiño andiagoa izan eban Prantzia'k. Au da, Ipar-Amerika'ri eskerrak, gudeak ekarritako ondameditrik Prantzia'k burua jaso eban, Europa sartaldeko guztiak lez.

Baiña errezo guzti orreik gorabera, De Gaulle'k begi txarrez ikusi eban beti Ipar-Amerika. Prantzitar gudaiburuaren ipar-ameriketarrenganako ezin ikusi onen sustraia nun dan ez dakigu. Biar bada, «aliadu» izenekoak Europa'n sartu biar ziran aldi areitan biar aiña edo nai aiña aintzat artu ez ebelako-edo.

Dana dala, arrezkero De Gaulle'ren gobernuak eta Ipar Amerika arpegiz-arpegi arkitu izan dira mila arazotan. OTAN'etik urten eban Prantzia'k eta bere lurretatik be urten egin biar izan eben Europa zaintzeko egozan ipar-ameriketarrak, orretarako euketzan «baseak» laga egin biar izan zituen-ta. Ta Laterri artean izan biar zan diru arazoan be orain arte izan dan dolarraren agintaritzaren aurka agertu izan da. Ta orain azkenez, arrolioa dala-ta Ipar Amerika'k erregai onen biar diranen alkarte bat egin nai izan dabenean, Prantzia aurka agertu izan da.

Egia, gudetan, batez be azkanengo gudan Ipar-Amerika'k gaizkatu ebalako beti onen nai edo esanetan ez da ibilliko Prantzia. Baiña, Europa'ko beste Laterrietako agin-

tariak be euren erriak Ipar-Amerikaren morroi ipiñi naian dabizenik ez genduke esango; ta oneik ez dabe izaten ainbeste asarre Ipar-Amerika'gaz.

Prantzia'ren jokabidea, askotan, norberekeri utsa izan da, orain arrolio kontuan lez. Israeldarrak baiño arabitarrekaz zer irabazi geiago dabelako onen adiskidetasuna irabazten alegindu izan da, arrolio barik gelditu diran Europa'ko beste Laterriakaz arduratu barik.

OTAN eta ipar-ameriketarrak Europa'n dituen «baseak» dirala-ta Prantzia'k artu eban jokabidea ikusirik, areik emendik joatea nai dabela esan daiteke. Ta ori ez da olan; ezta urrik emon be. Ez De Gaulle'k nai izan eban eta ez Poupou'k nai dau ipar-ameriketarrak Europa'tik joaterik. Biar bada Europa'ko beste inok baiño gixiako nai dabe ori prantzez agintariak. Baiña euren beaztopoak gorabera ipar-ameriketarrak emen jarraituko daben ziurtasuna ba-dabe eta arazo guztietan bereko jokatzen dabe, ortik etorkizunerako kalterik etorri leitekioen kezka barik.

Prantzia, azken guda arte, munduko andien artean arkitu izan da eta gaur be alegiñak egiten ditu lengo maillan jarraitzeko. Baiña alperrik. Bi dira benetan andiak gaur munduan: Errusi ta Ipar-Amerika. Ta aldi baten ola jarraituko dabela esan daiteke. Denporagaz irugarren andia inor izatekotan Txina izango dala dirudi. Europa'k andien artean zerbait izan nai badau, alkartu biarra dauko. Prantzia'k ba-daki ori, baiña bere nagusitza ipinteko erako batasuna Europa'ri emon nai dautso. Baiña, ez dau errez izango. Iru-lau bomba atomika eukiteak nagusitza ori ez dautso emongo.

KAMIÑAZPI

Oarra: Garbizale edo mordoillozale ez garanok besteak baiño sintaxis txarragoa erabiltzen dogula esen ebanari, GORANTZIAK.

Kuwait Aberatsa

Mundu guztioko laterri aberatsena da Kuwait. Persia'ko itxas-koikoan dago. Lurralde onek 16.000 aneurkin zabal eta 800.000 biztanle ditu. Sendi bakoitxaren urteko izabazkiak batz besté millo laurleko baiño geiago dira. Inok ez dau zergarik ordaintzen, duan izanez gainera osasuntza ta irakasketea. XXI gizaldiko irudimen bat lez, eremuko are bero artean agertzen yaku Kuwait. Saltsarri (zemento), gultzairu ta leyarez eginda dago Kuwait, ludiko aberri aberatsenaren uriburu dana. Dirutza guzti ori, baiña, gutxi batzuen eskuan.

Estu-larri krisidun gaurko egun oneitan, eginkizun indarren garrantzitsuena Kuwait'ek oi-dagi munduan. Aré-pean dagon arrolioa jokolari nagusiena dala.

An dago tegiratuta agerturiko arrolioaren geienbat. Azkenengo ugetabost urteetan ingeladarren babes-erria izan zanetik, Laterri aberats bat egin da, bakoitxeko (per capita), gixi gora-bera, 5.000 dollarrekaz, Iperamerika altsuan baiño 800 geiago. Kuwait, sozialisten artean sozialistena; ta kapitalisten artean dirudunena dala diñoe. Arabiar lurraldeetan osaba aberats batek lez diardu, ta olan Egipto'ri, Sudan'eri, Tuñez'i milloika dollar emoten dautsez, eta israeldarrak gudatzeko, bear dan guztia.

Gizarte-laguntza

Diru-eskuarte ainbat daukanez, Aberri onek Suez'k baiño gizarte-laguntza obeagoa emon leikie, ta egitan damotse, bertako erri-tarrei. Oneik osakuntzea duan dabe, baita irakasketea be. Bigarren ikasbidea bearrezkoa da, ta kuwaitarrak euren Laterriko sorozpide-laguntzaz ikasteak duan egiten dabez eta bertako Ikastol-Nagusi, Europa'ko, Iperamerika'ko edozein ludikoetara joan leitekez.

Etxe bizitegiak egiteko edota tresnatu ta ipinteko emoten diran diru-aurreratzeak irabazki mozkin barik doaz, eta urrutizkiña etxakoe lauzirikorik be kostetan kuwaitarrei. Eguratsa egokiratzeke zazpi tresna ta berebil bat iru notuñentzat dagoz Kuwait'en; eta ezin-siñistu aiñakoa izaten da etxe barruetako ozgiraoren edertasuna, ain bero diran ango lurraldeetan.

Ura

Kalteren bat egon be egon bear dau Kuwait'en: an ez dago ur onik. Len itxas-ontzi

txikitian ekarren edateko ura. Orain itxasoko urari gatza kentzeko olakintza itzal bat tresnatu dabe, ta olan naizta ez izan iturrietako langoa, ura dauke.

Txirotasunetik aberastasunera

Munduko bigarren guda ostein asi zan arrolioaren goraldi «boom» aren aurretik, Kuwait'en irurogetak milla biztanle egozan, eta eurentzat ogeta amabost dolar, batz beste, urteroko irabazia. Danak edo geienak txiroak ziran, eta Aberri txiki ori ez zan ia ezaguna be. Oraingo igotzea, geroago emir-buruzagi egin zan Sir Abdullah al-Salim al-Sabam'eri geienez zor dautsa. Bere trebetasun aundiakin, neurrigaifekoz arrolioak emoten eutsan dirutzakin, goraldtu, edertu ta aberastu eban bere Aberriakua.

Urrengo argibideak, arrolioaren agerkeak eta erabilteak Kuwait'eri egin dautsan itsalezko aldakuntzea erakusten daukue. Arrolio ori urtero 1.000 millo upel betez erbestera doa. Arrolioaren oraingo salneurrian 800.000 millo laurleko balioa dau, espainiar letterriko aurrekontu-dirutza baiño geiago.

1961 urteko azkenetan Emir-buruzagi Abdullah mundu guztioko gizon aberatsena ikusten zan. Arrolioaren irabaziaz, egunero 120 millo laurleko artzen ebazan. Baiña gizon oroztat erabagita dagona eldu yakon: 1965'gn urtean il egin zan.

Problema-asmakizunak

Alan da be Kuwait ez da Eden'go lora-gegia. Ainbeste aberastasunek, gizarte arazo buruausteak sortu ditu barruan, ta estukuntzak kanpoan. Maomar godeszaille lurralde au arduraz ibilli dabil baretasuna ta laguntza erosten, 4.100 millo dolar emonez zortetan arabiar erriarren azte ta etorpiderako. Orain-tzu, Kuwait. Arabia ta Irak'ekin alkartu da, 500 millo dolar balioa dabezan su-izkilluak erosteko euren ondalpe ta zainbidetaz. Kuwait'eren diru-ondasun jabetasunak ez dau aldatzen bere zintotasuna alboko arabiar laterriekaz. Euren artean mugarriak ba-dira, baiña onen gaitetik arabitarren mundu-barne, elburu-norabide bardiñaz lotuta bizi dira, naita batzuk euren elburuak besteek ezarri nai.

LETONA

ARRATIA

Iruña

AÑOBEROS

Napar guziok, gure anai napar dan Añoberos gotzaiaren arazoa, bertatik jarraitu dugu. Eta bere arazoa gure-gurea egin dugu. Egun auetan, Xabier gurca ainbeste aipatzen den egunotan, bere jarraitzaile bat ikusi dugu, naparren siñismenez, ausardiz eta kemenez.

XABIER

Epaillaren 10'ganean mutillak, eta 17'ganean emakumezkoak, aurten ere berritu dute Xabier alderako ibillaldia. Aunitz jendeek joan dire, beste urteetan bezenbat, ain ziur. Siñismen baten bultzadaz araruntz abitu giñanok, aibat biotz-zirraraz jota ibilli giñen, gazte adoretu aien artean. Biotzak ziren otolari, gurekikoan, ala baiñan, biotzak eta Xabier'en izkuntz zaarra ziren bitarteko. Doi-doi euskera aditzen genuan, kondaira garbi ta ederugarri baten abost antzera. Amasei minutu bear izan zuten berrogeita bat apaizek eske ziren kristau guziei Jauna emateko. Ba-zan an kristau sua. Ba, gero era ere, Xabier Deuna, zaindu gure Naparroa!

RWANDA

Eta naparrok. Gure babesean bai-dauka-gu Rwanda'n kristautasuna zabaltea. Baita al denean laguntzea ere. Eta eman dugun itz orri al denez eutsirik, Epaillaren 9'ganean, Naparroa'k gizaki ta elkarteak ontan bat egiñik, 17 tonelada sendakai bidali ditugu. Amazazpi tonelada auek amazazpi milloi peza balio dute. Bildalketa egazkiñez egin da, kilo bakoitzeko 55 peza kostatzen delarik.

«Medicus Mundi»ren arduraz eta naparren laguntzaz, Tanzani'k ikusiko du Gaixo-etxe baten ornitza, jende beartsu aien onerako.

URDE-GAITZA

Gaitz au zabaltzen ari denez, beldurrez eta ardurati dabilatz napar ganaduzaleak. Urtetik urtera, bearrik, urde pilloak il bear izantzen dire, ta negarra ta kezka ba-dago. Onegatik, Naparroa'ko Al-dundegiko Ganadu-arduradunak, idazki bat eman du argitara, erakutsi ta egin-bearreko aunitz zeetasunekin. Arazo au txantxetako gauza ez denez, urde-zainketa darabiltenak, guzian on-bearrez, artuko al dituzte beren neurriak.

«PRINCIPE DE VIANA»

Dagizutenez zaunka, joan zaizue mauka. Auxe esan arazten digute aldizkari oni atera zaizkion etsaiei begira jartzean. Zuzendaritza eskuz aldatu denez, zaunkatza-leentzat «triumfalismoaz» pipiak jota dago; baiñan beste batzuek, gero ta ederrago, biziago ta naparrago ikusten dute. Guk, napar erria ikusten dugu, gero ta geiago, aldizkari au irakurtzen. Eta azkenean, zein jo-muga obeagorik au baiño?

ZUUR ETA LABUR

Epaillaren 16'ganean, Naparroa'n lenengo aldiz, ain ziur Tudela'n, gure Muskaria'n, txofer bati alkoolik ba'zeraman azterketa egin diote. Eta bai, odola kutsatua arkitu. Goizeko seirak ziren... Ordu txarra kamio-lari arentzat.

Iruña'ko Abesbatza —Orfeón Pamplo-nés— Madrid'etik itzulian etorri da, iru abest-saio eman ondoren. Gaitza aundia lortu dute, ta Epaillak 17'ganean, igandez, omenezko bazkaria eman zaie Iruña'n.

San Jose egunak izan ditu bere gauz bereziak. Bezperan josulagunetan eta egun ortan karmeldar lekaimeenetan, eleiz bietan, oi diren euskerazko mezak eman dire.

Balantzatarrak altzatu zuten, aurten ere, euren Falla ori, Iruña'n: Arrioltoa arkitzeko torre bat eta guda-gurdi batez osatua, nai zuanak nai zuan iritzia atera zezan.

San Jose eguneko konzertuak ere balentziarren giroa izandu zun, lur aietako eresiak joaz. «Iruña» taldeak dantzari talde berriak, bere saioa egin zun, arrotz suak eta napar-dantzak naasirik.

Igandeko beroaren ondorioz, gaur as-teartez, bazkal ostean, euri tantak erortzen dire. Ugari, aunitz ugari egin dezala lurrak legor bai-daude. Joseba Deuna, zaindu egizu zure babespean artu dituzun lur-langilleak!

OROITZAK

Iruña'ko izparringiak gogoratu digute egun auetan, berrogeitamar urte osotu direla On Mateo Muxika, gotzai berri bezela, Iruña'n sartu zela, ta nolako arrera beroa egin zioten iruñarrak egun artan.

BARAÑAINDARRA

Arratia

Zer ete da ba, Euba'ko Etxebarri'n jazo izan dana eta gertatzen ari dana? Dei ta ots urrutizkiñez gurera egin ebenaik zeintzuk andra barrabas izan ete ziran? Andra txepetxurruok ez al daki-zue ba, aspaldiz eta antxiñez, inongo izkuntzarik gorrototu bage, geurea do-dala guztien ganetik kutun-maite? Nongo ta nolako deabruaren burduntziz zirikatuak izan zarie, erderan agurtuz geroztik be atzerriko arantzaz biotz-mamian oiñazezko ikutuak egitera?

Taketa eta adarra jo asmoz izan ba'zan, baiña... Baiña «bainak» eta lekak alde batera itzirik gero be, nire barrua kezakzoko garretan.

Emon nagusitasuna, arren, Aitor'en izkuntzeari. Eta guk bosteko beroa alkarri.

* * *

Lan muetarik (klaserik) geintsuene-tan eskumatia nozue. Eskoitia. Eta as-teroko lan txepelok eskumaz edo eskoiz egiñak izaten diranarren, ezkerriakin jaurti arria ta baso-beorraren buztan-peko eulia begian jotea errezago izango litzakik, eskoiz idatzitakoz baten bat-zuten gogoa atsegintzea baiño.

Batek itzez, besteak erderazgo esku-titzez, «mutila ei-naz aldizkari ta al-dizkariak ez diran irakurrietatik jaso ta politoen baten biribildutako erdel-it-iturriari bide-giltza iriki edo zabal-tzen, ifloren FAILLOAK (utsak eta aka-tzak) PUBLIKOKI DENUNZIATZEN, RE-BESAK REBESAGOTZEN, FALTA KA-PITALAK BISTARTZEN» t'abar.

Guztiok doguz akatsak eta lakatzak, baiña akats-lakatzak zuzentzen alegin-tzea, eta akats-lakatzekian buru-belarri sartu, eta irri-mirrika ta gogo txarrez gure AREITZA erbesteko saratsaren kimuz mentutzea, bi asmo ta bi egintza oso ezberdiñak doguz. Eta gizona ba'da, gizonaren aurrean eta eguzkiaren argi-tan, iflorek beartu gabe, egiten dauana-tzaz salatzean, DENUNZIATZEAN zer-gaitik ba'da larritu eta minberatu!

Nik neuk ba, zuen arteko diranen egiteetatik eta idazlanetatik artu eta argitaratu besterik ez dot egiten, no-raezan dabilzanen gatz-itxargarri izan daiten.

* * *

Aste onetako zozokeriak Euba'ko Etxebarri'rantz begiratzu asi izan dodaz, eta gaurkoz, bego bakean udabarriko kimu samur eta lore-pipillen tar-tean esanik, Arratia'ri, emen non dogun auzi barria, bor-borka asiko dan baiño len, erro-errotetik galtzea ondo litzakiguna.

«INTERNACIONALISMOCO» goren-go maillara igoterik eta angu eta emengo PERSONEKIN TUTEATZERIK (itanoka egin) nai ba'dogu, itz arrotzen ugaritza ontzat artu ezeze idazkera (ortografia) berbera bere lateratu (latiferatu) bearko ei-dogu. «Guipuzcoa», «probintziacoa», «chacur chiquia» t'abar, idatzi bearko, beraz.

Gure mendien magaletan eta ba-soetako sakonetan ba-dogu ur lerdenik. Ez edan ba, irakurle, lupuz zinkindu-takorik.

LANDAJUELA'tar A.

Galdakano

EZKONTZAK

Epaillaren 16'ganean, erri ontako Andra-Mari'ren txadon zar ospetsuan, Totorika ta Ortiz'dar Iziar neskatil liraiña, erriko alaba jatorra bera, ta Algorta'ko Antuñano ta Garai'tar Jon-Erramun mutil euskaltzalea ezkondu ziran.

Ezkonbarrioi, euskaltzaleak izamik, «Andra-Mari» dantzataldeko dantzari txikiak, oneik ain ederto dakiezan dantza bikaiñak eskeiñi eutsezan txadonetik urteran, giro oso egokian ezkontza ori ospatuzeko.

Baita, il orren 23'ganean, naita urte bi edo iru Bilbo'n bizi izan, gure erri ontako San Sal-bador eta Berna'tar osagille gazte euskaltzalea, Durango'ko Ortuzar eta Magunazelaia'tar Zuriñe neskatil liraiñakin ezkondu zan, Larrea'ko karmeldar lekaideen txadon zoragarrian. Ori dala-ta, an bildu ziran ezkonbarri orreñ sendikide ta adizkiderik urrenekoak. Gure zorionik beroanek ezkonbarrioi AGUR onen bitartez, eta amaibako zoriona eukiko al dabe laurok, euron naiagaz artu daben biziera barrian.

ERIYOTZA

Egunokaz, Epaillak 25, Jaunak gure artetik betiko eroan dauku, Bergara'tar Sorne, Bilbao'tar Mikel zanaren alargun zintzoa, irurogei ta amalau urte dun zala. Beraz, erriazale jator kementsu bat galdu dogu galdakanotarrok, errian izan dogun emakume euskaltzalerik zintzoenetariko izan dalako Sorne, bere bizitza guztian. Goyan Bego aberkide maitagarria.

MENDIGOIZALEAK

Eun eta ogeiren bat, edo geyago, izan ziran Epaillaren 24'ganean, bermeotarrak gertutako ibil-keta neurtura joan ziran galdakano mendizaleak. Sarritan esan dogu lez, igandero dabiltz gure neska-mutilok mendirik-mendi, baiña ibilketa ontara geyago be joan ziran, adizkidetasun andiagoa ta angu mendizaleekin anaitasun zindoagoa indar-tzera. Ori-ori, euskal gazteak, alkarri ta gure lurraldea ezagutuaz, argitu ta berotu batasun osoan!

BARREGARRIA

Bai, barregarri antza dau, baiña ba-dau egi-pizka bat be. Azkenengo izan genduban eurtzen ostean, aspalditxoan ikusi barik neukan Peru adiz-kideaz arkitu nintzan, eta janzki apaiñez ikusi nebanean, esan neutsan: Astegunean orretara apain-duta, nondik arrayo zabiltz Peru?

—Ba, berebil bat erositzen joan nok.
—Ez dago txarto, baiña zuk daukazun adiñean, urte orreikaz, zertarako gura dozu ba, berebil bat? Zein berebil erositzen dozun jakin legike?
—Bai gizona! Anfio orreitako bat.
—Olakorik! Ur-lurtarra izango da euskeraz. Baiña, ez dakit zertarako izan zeinken orreitariko berebilla, arraintzarako ala zingiraren bat igaroteko ez ba'da beintzat.
—Ez yoat ez arraintzarako ez zingirea igaroteko bear, euria danean Urretako nere etxera joteko baiño. Inguru ortan yagozan zulo ikeragarri ta ur-bideak loituta dago-zalako, etxagok eurije egiten dabenean ortik igaroko danik. Orretarako bear yoat, ik diñoan ur-lurtar berebil, automobil edo traste ori.

BARRIA

—Tira, ba, Ondo ibilli Peru, ta ea noz edo noz neu be eroaten nozun, eurtzak dirala-ta, ifloiz, ene berebillagaz, igaro ezinda geratu naz-eta.

«GOIZ-ARGI»

Aspalditxoan gengoan itxaroten eta agertu yaku «GOIZ-ARGI» asteroko eginda. Ez dago esan bearrik, atsegiñez eskeratu ta irakurri dogula gure AGUR onen anaia. Aurrera giputz anaia! egune-roko biurtu arte. Zorionak!

BASA-JAUN

Tolosa

AIZKORAKADAK

«Cuadernos»ekin, arestian, bilduak dira, irakurtzen degunez, Buztamante, buztangorri ta buztanzuri —irakur: tontos útiles— batzuek. Alderdikeria ta txepelkeria ugari ba'darabil-kite, ez dagokien arkondaretan sartzen diralako da.

Progresisten (?) arteko zenbaitzuk ere asa-rreru ta beren masiaketak izan dituzte. Baiña oso gorriskak, larros kolorekoak, eta oriz jan-tzitako praille bat edo beste, bat dotoz, «a dos», gauza batean: etsai bat dute guztiak: eus-kaldun erria!

Oraindik, baiñan, ez dira asko esnatzen beren lo-zorrotik. Noiz arte gure etsaiei lan-guntzen jarrai?

Ez dakit merezi ere ba'duan erantzutea. Baiñan ziur nago, bear duten erantzuna eman-go ba'genieke, orain ixillik dauden «modera-tu» askok, Kaipas'ena egingo lutekela, jan-tziak urratu. Gu makillatzea atsegin zaio, edo ez dute ikusten nunbait. Guk, ordaiñez, ma-killa ematea, ordea, «intrasijentzetat» artzen dute, artzen gaitzute.

Aukek dituk azalak, auek!

ASTE-SANTURAKOAK

Aste Santua ta Pizkunde Igandea ba-datoz, eta erri kristaua bere antolaketan asia da.

Ba-dakigu, Aste Santuz, Tolosa'ko Leidor Abesbatz taldea konzerto bat emotekotan dana. Tokia: prantziskotarren eleiza.

Berpizkunde Igandez, Berazubi'ko zelaian, korrikolarien txapelketa, arratsaldeko bostetan. Ara zeintzuk diran jokatzeko: Esteban Agirre-zabala, Luis Garcia Ruiz, Agustín Argiñarena, J. M. Irazu —lengoa txapeliduna—, L. Albéniz «iruntxiberri», J. J. Irazuzta, ta J. M. Tapia. Sei gipuzkoar eta napar bat.

XABIER PEÑA

Entzun degunez, Bilbo'n izan dituan euskal-ikasleak, omenaldi bat eskeiñi nai diote il onen azkenengo igandean. Ongi merezitako omenaldi ortara berreundik gora ikasle bilduko omen dira, Arantzazu'n.

Lan ixil bati zor zitzaion aitorten ederra auxe. Zorionak, Xabier!

ZERUTAR ARGIAK

Joxe Azurmendi'k —praillea omen da— «Utopiaren faseaz» izenburua izan, eta «Uto-piak ere prozesoa konsideratu behar dira» asten duan idazki bat, onela bukatzen du: «uste dut, hor dagoela neomarxismoa eta arrunki pentasamentu dialektiko modernoa marxismo ortodosotik berezien dituen pun-turik importanteena».

—Gaztelera ta prantzesearen dikzionario liburu klaribidentetik transkribitua!!
—Justua eta nezesariora da...
—Amen!
—Estrañoekin parlantzearen alde.
—Pater noster.
—Amen!
—Martxatu bulegoaren pakean...

UXOLA



DEPURACION DE AGUAS S. A.

URA EGOKITZEN ETA UR-LANETAN BEREZITUAK, EDANGARRIAK - LANTEGIRAKOAK - ZIKINDUAK NAIZ IGERITEGIKOAK ZUZENTZEN

+ 32-37-00 - + 31-00-10 - 32-37-01 Urt.

Gordoniz, 44, 12.^a
BILBAO-2

AMEZKETA 'N

San Martin auzotik ete dator Amezketa-ren sortzea?

XIII gizaldiko edo aurreragoko ermita txiki bat or dago, Tours'eko zoriandun onen omen eta aintzaz, auzoari izena emoten. Ermitatxo txikia. Zaria, baiña konpontzean zar itxurak agertzeko gogo eta ardurak bazterrean lagata, barriztatua. Eleizpetik, egurrezko agana artetik ikusten da bertako irudia. XIII-XIV gizaldietako irudien tankerakoa.

Aralar mendiaren egaletan gabiltz, Gipuzko aldetik. Mendiaren betetasun eta anditasunaren ederra! Baiña ez gaitzen tellatura igo, edo ez gaitzen ganbaran sartu tellatutik.

Pernando Amezketa'raren antzera, platerari bira eragin dagoiogun eta gure aldetik ipini daiguzan mamiañak; azurrak, koipeak eta gantzak alboan lagata.

Ate nagusitik sartu gaitzen Amezketa'n.

* * *

Euskaldunik geienok Fernando'ren izenetik artu dogu Amezketa'ren barri. Bere lodi eta gizen diranak inok baiño umore geiago eukiten ei dabe. Biziari irri egiten dakie. Bizia pixuz artu eta umorez sustraizten jakin izan dabe. Itxasaldean, udan, errez ikusten da ori. Liraiñak, mirriñak, argalak eta estuak, inok ikusi nai ez da lez ibiltzen dira ondartzetan, bañuko erropetan. Lodiak, gizenak, alaitasunez beterik plisti-plastaka ibiltzen dira olatuen bitsetan, inoren ardura barik jolasean.

Nok edo zek emon ete eutsan Fernando'ri gatza? Nundik sartu eta zetatik sortu bere umorea? Aitak? Umorea bear eban amabost seme-alaben arduretan. Amar lenengo ezkontzatik. 38 urtegeaz emaztea il, bikiak ekarria laster. Illetak amaitu orduko, au da, emaztea il eta 50 egun geroago, bigarrenez ezkondu zan. Umedun familetarako neskarik ez dala billatzen? Fernando'ren aitaren bigarren emazteak andratasunari eskiniñitako monumentu andi bat eskatzen dau. 24 urte-dun neskatilla zala amar seme-alaben alarguna artu eta beste bost geiago mundura ekarri. Eta dirurik, ondasunik ez bitarteko.

Ori, jakiña, antxiña gertaten zala esango dabe. Bai. Berreun urte, zazpi gitxiago, jazo zala. Alaxe da. Eta es al egoan orduan arantzarik, ez eta ondo bizi egarririk?

Pernando bera zan lenengoa. Aurreneko ezkontzako lenengoa, eta keixu jaihoa. Gurasoak ezkondu eta 58 egunera etorri zan mundura umorezko frutu bedeinkatu ori. Itxuraz, mundua alaitzeko kezkatu. Popa-keixua deitzen dautse olakoari Ondarroa'n.

Arin etorri eta nekez joan? Ez. 59 urte bete baiño len il zan. Bera be begi onagaz ezkondu zan 18 urteko neskatil batekin. Amar seme alaba ta... oraindik geiago nai. Sasiko ume bi, kajako bi euren gain artu zituzean.

Ez esan bizitza umorez artzen jakin ez ebenik. Umorea biribildu eta zabaltzeko eskoletxe ederra amabi lagunen familia. Aurak azi, nekeak asi? Itxuririk ez.

Ez dakigu il aurretik bere gurari beterik lortu eban. Bere naia, bere eskabidea, lotsa barik agertu eban: Jakiña da Fernando angore erretore edo bikarioaren laguna izan zala. Beragaz euki zitun gertaera asko. Bein onek itandu ei eutsan, sarri legez, zirikalari: —Pernando, zuzretzat zeintzuk dira munduko gauzarik onenak?

—Asko. Baiña printzipalena onek: «Osasuna ta pakia, andre ona ta dotia,

iru ankako lapiko andi bat txarri solomoz ta oillazkoz betia, zato potxolo bat napar ardua onez betia, Orrek eukita bestiak sobre dira».

Ardau botia eskatu ta urak gaitz eginda il. Ara Fernando'ren zorigaitza. Bai, alaxe. Okaran sasoiari, okaranan jan. Geiegi nunbait. Ura edan, seguritik neurri barik, eta ortik il. Urak gaitz egin da, Goen-errotako erreka urak.

Itlen egoala be umorerik ezin amaitu ta bere inguruan egozane esan ei eutsen toki guztietan jakin eraziteko, bizi guztian erdi gose eta miserian bizi izan ba'zan be, ondo asetuta il zala.

Olakoxea zan Fernando Bengoetxea eta Altuna, toki guztietan erri deituraz ezagunagoa: Fernando Amezketarra.

* * *

Edonundik jota be Oria'ko Alegi'ra jo bear da Amezketa'ra kotxean sartzeko. Beasain eta Tolosa bitartean dago Alegi, bide nagusian. Emen Amezketa bertara duan bidea artu. Zazpi kilometro, erreka baten ondoan, ez ain zuzen be bide eratsuan. Oria ibaian sartu arte Amezketa izena daroa erreka onek. Erria Donosti'tik 38 kilometrota

gelditzen da. Tolosa'tik, 13. Beasain aldetik, 20 km.

Mendizaleak ondo ezagutzen dabe Amezketa. Mendi askoren bidea bertatik artu bear da. Ala 1.390 metroko Aldaon'era. Balerdi, 1.179 metrokoarena, Ganbo, 1.408; Intzeko torrea, 1.427, bear ba'da Irumugarrieta izenagaz ezagunagoa; Pardarri, 1.359; Larrunarri, 1.341; Uakorri, 1.170 eta Uarrain, 1.321.

Millta ta laureun lagun inguru erriak. Papalgintzako fabrika bat. Amar bat lagun kanpotik lanera etorten ba'dira be, geiagok urtetan dabe erbestera. Tolosa, Alegi edo Beasain'eko lan tokietara berrogeien bat lagunek urtetan dabe egunero. Azken urteotan geitu egin da. 1900 urtean 1.193 lagun bizi ziran. Eun geiago 1950'n. Ugarte'n bizi diran berreun inguru lagunak kenduta, besteak erri buruan bizi dira.

230 ume batzen dira eskoletan. % 81,4 euskaldunak. % 18,6 euskerarik ez dakienak. Sinistu ete lei ori mendian sartuta dagon euskal erri garbi baten? Estadistikak ori diñoe.

Parroki bi. Erromaniku zar baten testigu Ugarte'koa, bere puntu erdiko arkuakin. Ama Birgiña'ren irudi gotikoa. Erri buru-goian dagoana, San Bartolome'na, XVI'ean barriztatua da. Eskillara mordoia igaro bear bertarako. Markiña-Etxebarri'koa dakarkit gogora. Taillugille onak egindako atea.

Emendik laster dago Igone baserria. Ba dago istori pixkat emen. Arri batek zuloa dauka. Gizonen baten urratsa. Bere alboan kurutze baten ikurra. Bertatik igaroeran dirua lagaten dabe askok. Eta atzetik doanak artu eta eleizaren baten laga bear izaten dau diru ori. Ez ei da oraindik diru ori beste zerbaitetan eralgi dabenerik ezagutu.

Olako siñiskeretan sartu ezkerok, jakin-garria eleizaren tokia zelan aukeratu zan, ain zuzen be eritrik urrun egiteak euki lei bere istoria. Au diñoe: Plazan egin nai zala eleiza ori, baiña San Bartolome'k berberak Ergone'n egitea naiago. Egunez egiten zana, gabaz aldatu. Eta arriak aldatzea egiten eben beiei San Bartolome berberak akuilluz zirikatu ta esan ei eutsen: «Aida gorrie, aida zurie, zelatarie! atera egiozue begie». Orrela, esan eta egin, Mizpisasti'ko atsoari begiak atara ta itsu gelditu ei zan. Eta gaurko tokian cleiza egin.

Orrelako esakera eta siñistez betea da Amezketa.

* * *

Zer da emen famako? Erri guztietan billatzen da zerbait. Alboan, Alegi'n, an lako zintzaririk inun ez dala egiten esaten dabe. Emen, Amezketa'n, sagarrak. Eguastenetan Ordizia'ko merkaturara joaten diran emakumeak diñoenaz, emen aiñako sagar eder eta mamintsurik ez ei da inguruetan batzen. Origaitik pozik kantaten dabe bertakoak kantu txiki bat:

«Sagartxo txiki betea
aurten da zure urtea,
orain urreneko plazakon
etxeko andre onen partea».

Parterik onena, askotan, urteetako fameari custea.

* * *

Merezi dau Amezketa'n bein da barrero Fernando gogoratzea. Aren esanak barregarri dira beti. Esanak eta esateko dagozanak. Fernando'ri bereak eta inorenak be leporatzen eutsotzean eta dautsez.

Aren umorea euskal umore garbi eta erreza da. Bat batean algarea ataraten dabena. Eta sakona.

Azken orduetan egoala, zerbait artzeko eukan bat agertu ei yakon, eta ikusi orduko Fernando'k: «Ai gure Jaunak zuri zor dautzudana emoteko osasuna emongo ba'leuskit!» Ori entzun eta bertan egoan abadeak: «Jainkoa ona da ta izan lei mesede ori egitea».

Pernando'k: «Naiago neuke ba. Orrela ez neutsake gizon oneri zorrik ordainduko eta... sekulako osasuna seguru neuke». Eta kifu egiaz, abadeari geitu: «Ordu arteko bizia emen ezkerok, bererrek ere ez leuke beriala nire emtierrurik kobratuko!»

* * *

Bakea eskintzen dautso Amezketa'k bertara doanari. Aize garbi, mendiko arnas eta gaurko zarata askok eten gabeko bakea. Umorez betetakoa, gaiñera.

Origaitik «Biba Amezketa» goraka urten bear emendik. Esakera ori ikusten bizi izan dira luzaro amezketarrak, 1483 urtean Joan Amezketa'k Larrunarri'ren aurrez aurre, emen esaten dan lez «Nauharri'ren muturretan» jaso eban jauregian.

A. ZUBIKARAI

«AGUR» 128'GARREN ALEA

Goizeko bost eta erdiak. Makaltxo aspaldion, soñia, gorputza, oean lotua, loa urrutitxo «aidean enada bezela». Ez buruko min, ez sukar, AGUR'i ikustalditxo egiteko gauza bai beintzat.

128'garren alea begi aurreran, irakurle. 128'garren alearen azken-orrialdea. Gure asteroko kutuna orrela tolestua etortzen bai zaigu, azken orrialdea gaiñean dula.

Azken orrialde orretan ageri-ageri «ITZALAK POTO!!!», idazkia ta izenpea ELOSEGI. Bera ote? Gure aspaldiko MALATX? «AGUR» zabaldu ere gabe, ekin diot ITZAIK POTO! irakurtzeari.

Aspaldi gure MALATX aren ezer irakurri gabea izan arren, errez antz eman diot:

«...URA ZAN, BERA ZAN, ALA ZAN...».

Irri-par maltxurra begietan, amaika aldiz ORIXE'ri abesten entzun genion bezelaxe.

Ongi etorria, lagun, ASABA ZAARREN BARATZ'era. Jarrai Jaunak egindako emaitzak lantzen.

ARENAZA'ren eskubiko lenengo idazkiak txanda urrea. Ezker eta eskubi naasten asia nauzue oraintxe. Ta, Eibar'ko «E», zu errudun. BEIZTEGI ezkerbeldur ote degun idatzi omen dezu ta...

128'garren ale onetan ere, ezker-aldean argitara ez dizu ba, bere idazkia?

Josu, beti ere gogoz irakurtzen dizkizut zure idazkiak baiña gaurko au, pozgarri berezia izan zaio nire gogo abailduari. Ezagun asko bai dizkizut CUADERNOS PARA EL DIALOGO ta EL CIERVO ta, orrelakoetan bazka billatzen dutenak.

Asmo zuzenez dabilta ta bearra zizuen zure lan ori, JOSU.

ZUBEGI'ren ANTIXOA idazkia irakurri urrea. Beto, betoz ugari gure AGUR'en orren antzeko lan bikaiñak.

Ta RAMON ZAPIRAIN'en txoko txiki polita irakurri ta ANDONI'ren argazki egokiari so, une goxoa igaro ondoren, itzaiak bezelaxe, pote onoko onek ere. Nekatu egin eta ezin AGUR irakurtzen jarrai, alegia.

Ta, zula ta zula, arantzatxo gelditu barruan: ELOSEGI, JOSU, ZUBEGI, RAMON ZAPIRAIN, ANDONI, guziak gizonetzko!

Ta aspaldi batean, ARENAZA'k esandako zerbaitak eragin eta, AGUR'era biali-asmu izan nizuen idazkia gogora. LO EGON EZ DIRAN EMAKUME BATZUK, ortxe dago, beste onen antzeko lan sailakin nire idazki-gordailuan goxo-goxo lo.

Ea, urrea ua bialtzen dizuedan.

IRA'k

ARRAINTZA

«AGUR» en 129'ngo zenbakia be irakurri dut. Azken orri-aldian, au ekanren, izen-buru onegaz: «Arraintzaliak Bildur...». Idazlan orren tartean irakurri dut auxe be: «Dakigunez (au bermiotar lege zale oieri...), Santander'ko ta beste legeak aintzakotzat artu ziranen ondorenak diran ala ez, Otsaila'ren 28'rarte ontzat artua zeukaten, alegia, ez asteko antxo arraintzan, arrapatzen. Zer gertatu da? Ba, baimena eman antxia aurreragotik arrapatzeko. Ori, ba, etzalako antxorik. Nik galdetuko diet; zergaitik orduan legeak aintzakotzat artzen dira, gero ez bai dira betetzen?».

Neure itauna, galdera: Zelak, nolako legeak? Santander'eko BATZAR'ean imiñitako LEGEAK —neuk entzundakoak— eta arraintzale geienak aintzakotzat artu dituenak, onexek dira: «Otsaila'ren 28'rarte ez arrapatzeko bokartik; Jorrialla'k agur egiñarte ez arrapatzeko ARGIA'gaz bokartik, eta Dagonilla'rarte ez arrapatzeko eguluzerik «PERTXAKAZ izan ezik».

Zuk diñozunez, Donosti'ko iru itxas-ontzi Baiona'ko portura eramane dituzte ta orain zigor zain daude an, eta ori zuk esatian, bear ba'da, errudun diran lez iminten dituzula bermiotarrak... nik uste. Ba, bermiotarrak... bokart-zaleak, gure —nai— dute ta neuk bere gure dut, azke egongo ba'litiz; Baiona'ko barrarriño ta onen inguru edo ezker-eskoiko ur-txikietara sartzea. Onela, bokart geiago sartuko litzake gure kaietara-ta.

Baiña orrela izango danik, ez uste nik, bestera baiño. Au da: bestaldeko anai arraintzale euskaldunak, aintzakotzat arturik euren legea, zainduko dute, zaintzailleak imiñirik. Onek, orain, zaindu egiten ditue euren itxasoak. Baiña egon zan sasoi bat, azke izan zana. Sasoi a izan zan, alemanak Prantzi artuta zeukaten sasoi. Orduan arrapatzen genduan arraiña, bai txardiñak baita bokartak bere. Baiña ez orain lez «ardorien», au debekatuta egoan-da, arbijegaz eta izur-dekaz baiño.

Onelako zer esanak itxiaz, noan aurrera: «Santander'ko erabaki zitalak lenengo egu-

netan edo illetan BEITAKIN galeriaz. Ez ote da obeagoa kentzea, edo ez aintzat artzea lege ori, ta nai duten erara arrapatu. Kazan nai beitakin. Nola biziko dira arraintzaleak olako eragozpen zital oiekin?».

Gaizki zauda Ozkin jauna esatiaz onexek be: «Santander'eko erabaki «zitalak», «nai duen erara» arrapatziaz, eta «nola biziko dira» arraintzaliak, olako eragozpen «zital» oiekin?» diñozunean.

Gaizki zaudela esan neutsun, eta gaizki zaudela esan neutsun ezkerok, aurretik diñozudaz: Santander'en erabakitako onartuak izan dirala nik uste, orrexegaitik juanak izan dira pertxakaz arrapatzeko Dagonilla'rarte egaluzek. Onela egin dugu itxasontzi guztietako arraintzaliak, Gipuzkoa'ko itxasontzi batzuetako arraintzaliak izan ezik.

Arraintzaliak, arraiñak arrapatzen dituen guztiak dira. Au be ba-diñozu: «Nola bizi arraintzaliak?». Bear ba'da, gipuzkoar batzukaitik esan duzu ori, nik uste. Zure idazlana or Gipuzkoa'n irakurriaz jakin-arazi egin ba'dituzu Gipuzkoa'ko arraintzale danak, or Gipuzkoa'n bertan dituzuz zure idaz-lanaren arerioak, nik uste. Bear ba'da, esango duzu, «nortzuk?». Sare gabeko pertxadun arraintzaleak. Ta Gipuzkoa'tik sartalderuntz, zenbat? Jaunak Berak daki!

Ez al dakizu asieratik beitagaz asi ezkerok sarekun guztiak, gu, pertxadunok irebazi kaxkarragaz edo bear ba'da, irebazi gabe geratuko gara? Ez al du bizibear pertxadun arraintzaliak? Ez al dakizu au be, beitagaz arrapatuz egaluzek, arrapatzen ez diranak ez duela jaten goxoki «MALUTA», edo bear ba'da, iges egiten dutela egaluzek? Onek onela izanik, zelan bizi PERTXADUN arraintzaliak?

Zure idaz-lana ulertzen dodanez, etzara zu arraintzale guztien aldeko idatziko zenuke. Arraintzale guztiok gara kezkatuak areitxik edo orreixik, edo, aregaz edo orregaz. Onexegaitik bidezkoa dugu lanak zuzen egitea.

AZPEITIA'TAR GOTZON

AGVR

V URTEA
133 ZENBAKIA

ASTEROKOA
1974 - JORRAILLA - 20

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

ABIZENAK

Gure artean nor nor dan jakiteko guraria ugari izaten da eta jakingura au guztiz txarra danik ez neuke esango: alkar ezagutzeaz ez dogu ezer gaitzen, alkarri itzaltasunez begiratzen ba'dautsagu beintzat.

Alkar ezagutzeko bide bat abizena izaten dogu: beronek agertzen dausku zein senditakoa edo zein erritakoa dan bakoitza.

Euskal-abizenak, esateko gaitzak dirala sarri entzuten dogu, eta zalantza barik orrelan da euskera ondo ez dakienentzat. Guretzat, ostera, errez-errezak dira geienak. Noizean bein, batez be abizen bigaz bat egin danean geuretzat be ez dira guztiz errezak izaten, baiña orregaitik ez da zetan aldakuntzarik egin bearririk.

Abizenak, geienetan, odolez euskalduna nor dan be agertzen dausku. Ez beti. Ba dagoz Ameriketean, entzun dodanez, euskal-abizena dauken baltzak be. Antza, euskaldun ospetsuren batengandik artuak izan bear dabe. Eta zenbat euskalduneri, batez be uritik ekarriak diranean, erdel-abizen baragarriak ezarri dautsezan! Baiña geienetan beintzat abizenak zuzen agertzen dau euskal-sendia edo euskal-odola.

Abizen asko abere-zaintzatik artuak dira, eta abere-ardura au guztiz zarra be ez dan ezkeru, gure abizenak be bi milla urte inguruz onantzakoak dirala esan geinke. Soloak, barrutiak, bedarrak, zugatzak, basoak eta etxeak dira abizen askoren oiñarri. Beste lan-era batzuk be agertzen dira abizenetan, olak edo errementariak esaterako. Or daukagu ba gure antxiñako «industria» txikiaren gomutakia be. Errotak edo bolunak, artzain-lana edo baserri-lana izan ez arren, abizen askoren zuster doguz.

Gure abizenak aurretik erdeldunak «de» jarten dautse, eta Sabin'en denporetatik «tar» abizenaren ostein. Au gauza egokia dala uste dot, «tar» orrek sendia adierazo eta izatez oso euskalduna dan ezkeru.

Azkue'k, ostera, «tar» baiña «ko» ezartea eban naiago. Orrelantxe diño berak bere «Morfologia Vasca»n, eta bere eritxi ori oiñarrituteko, berari Alemania'n zer jazo jakon azaltzen dausku. «Tar» jauntxuak ta aundikiak dagokiena dala diño eta «ko» dala tokia adierazteko egokiagoa. Bere ustez, gure abizenik geienak tokikoak dira.

Abizenetan erdel-kutsua ugari sartu da, batez be ortografi edo idazkeran. Ulertzeko gauza da. Sabin'en aldira arte ain lotua zan ezkeru gure idazkera, erdereari lotua esan gura dot. Baiña or zuzentze bat egin bear leitekela uste dot eta abizenak geure ortografiz idazten asi. Zori txarrez, erdeldunentzat irakurteko gaitzagoak izango litzakez, baiña orreri begira ez dogu egon bearko. Bai abizenetan, baita toki-izenetan be, gaurko ortografi zuzena sartzea ondo izango da, eta orrertan, beti ez ba'da be, geienetan beintzat, Sabin maixu ona izango dogu.

Abizen batzuk erabilliaz laburtu egin dira. Ez berbetan itzak laburtu diran besteko neurrian, baiña batzuk laburtuta dagoz. Orreik ez neukez aldatuko.

Eta abizen erdeldunak, beran daroenak euskera ikasi ta bertokotu diranean, euskaldundu egin bear ete dira? Ezetz uste dot nik. Ez dot aldakuntza ori egiteko ziorik aurkitzen.

Ba dagoz abizen batzuk, eta ez gitxi be, latiña ta euskerea nastean danenak be. Eta euskaldunen artean oso abizen zarrak dira, esaterako Armendariz, Rementeria, Rotaetxe, Bolumburu... Oneik euskal-abizenak dira eta onartu bearrekoak.

Beste batzuk gaur erdel-antza artu dabe, baiña jatorriz euskaldunak dira: Sierra (len Zearra), Olivares (len Ollibariz)... Oneik nik, euskal-jatorria ziurra danean beintzat, lengotu ta euskaldundu egingo neukez.

Gure erriaren nortasuna agertzeko bide bat abizenak dira. Zaindu dagiguzan.



GAZTEIZ

Gazteiz euskalduntzen doa

Gaua da. Bilbo'tik etxeratzean —ez bidenabar, noski— nola joana suertatu zait eta Markiña'ra joan naiz, emengo karmeldarren konbentua ikusi eta Aita Lino Akesolo euskal «eskribauarekin» itz bi egin naiean. Bertan gogoratu dut ain nere biotzeko den Frai Bartolome, predikadore famatua, «Marquinaco Carmen Ortozeco», ta bere liburu ederrak Iruña'n argitaratuak 1616'garren urtean. Etxe luze-zabalean lagun zait Mañari'ko Aita bat, bear bada, ixil-ixillik beste inork baiña lan geiago egin duena —noiz ikusiko ote dute argia bere lan argiak, txukun iskribuz egiñak eta oraiño bear baiña obeto gordeak?— bere kide Frai Bartolome'z.

Markiña'ri agur egin baiño leen, ardotxo bat artzen dut aspaldiko nere adiskide Lauren'ekin, Markiña'ko Ikastolan pin ari den gizon gazte batekin.

Eibar argiz apaindurik atzera utzi dugu, bere zulo edo gorde lekuan. Ura giza-erlauntza!

Bederatziak. Gazteiz'en gagoz.

Kalean gora, kalean beera nabil, arako abesti artako zezenkok bezala. Ikusmiran eta nun sartu begira, izarditsu nator ta garagarardo fresko bat artu naiean edo.

Calvo Sotelo du izena ni nabillen karririkak. Bereala, II lumeroan, gelditzen naiz, arriturik.

Kanpoan, burdin landuaren barna, argi orian, GAROA irakurtzen dute ene begiak. Gazteiz'en? Zer dala ta GAROA? Nondik nora izen ori? Zeiñi bururatu ote zaio? Jakin nai nuke orixe. Lantegiz betetzen ari den Gazteiz'en atsitzen eta zikintzen ere ari den Gazteiz'en, nondik nora jeitxi ote da menditar landara bere usain ain bereziarekin?

Besterik gabe, sartzen naiz Garoa'n. Bar edo Edangu berria da. Mutil koskorak guda-mutillak dirudite. Alkandora eta praka urdiñez, txaleko eskoziar beltz txuri gorritz denak, lau bost bat izango dira, berdin jantzirik, jendeari arpegira begira, zer jan edo edan gura ote duten.

Garoa Bar edo Edangu da. Baiñan, azalpen-maiean, ba dago zer jan, sardiña prejidu, arrautzopil, txipiroi prejitu, urdaiazpiko, kroketa, opil biguin, bertan iturria garagarardo naroki dariola, usaiñez bezain kolore ederreko ardo pozgarriak.

Ta ori dana gutxi balitz bezala, otartxo batean etzana Txomin Agirre'ren liburua, Itxaropenak aterea, Joanes artzaia ardiak zaintzen azalean duela.

Baiño, zer Bar arraio da au gero, galdetzen diot nere buruari? Mutikoari galdetzen diot ea nun diran nausiak, nai detela berekin itz egin-da.

Bereala dator mutil, obeto esan da, gizon gazte bat. Joan du izena, dionez, ta Oñati'ko mendietan jaioa da, ain zuzen Arantzazu deitu auzoan, Arrola izeneko baserrian. Ortze antxe ogei ta zortzi bat urte edo geixago izango ditu.

Gutxiago baditu, barka dedilla, ez da emakumea ta. Bere emaztea, Ana, triste dago, beltzez jantzita, aita il berria omen du-ta.

Sartu ta atera, jendea erruz dabil; ba da ementxe otsa eta iskanbilla. Baita diru-soiñua ere. Ura jendearen emana! Euskara ere an-emenka entzuten da.

Nausiak dionez, Bilbo'tik, Arrasate'tik, Oñati'tik, Soraluze'tik, Bergara'tik Gazteiz'a datozten jendeak, ez dira karrika artatik igarotzen, Garoa'n sartu gabe.

Atsegin zaiote nonbait ardo pizgarria. Atsegin bixigarriak. Baita ere atsegin Garoa'ren usaiña.

Zorionak! Jon.

Zorionak! Ana.

Urte askotan! Ala opa dizue ortik pasatu zen ibilkari batek.

«Gurea Gutzat eta Zuena Erdi-Bana»

Euskaldun egin ginduazan amaren eriotzak oiñeztarriak jota bezela itxi gaitu; mundu onen ezereza urrian ikusten doguean, beti burrukan ibiltzeko gogoa be kentzen dausku noizik bein, baiña gure asteroko lan oneri ezin utsik egin, batez be unerik larrinetan.

Pakea nai genduke; eskua be sarri luzatu dogu. Baiña pakea nai ba'da, zintzotasunean oiñarritutakoa izan bear; bata bestean bidean oztupoak jartzeari laga bear, auzokoaren soloan sator-zulatzeari laga bear... Ez da baiña ori mingaiñean «pake» itza ta biotzean gorrotoa daroenen jokabidea.

Eleizeak, berak jakingo du zergaitik, euskal-liturjia al zanik batuen lortzeko, batzorde bat aukeratu eban. Lan gogorrean ekin eutsen, gizon oso jakintsuak tarteko zira, erriari oparirik egokiena eskeintzeko; ulertu al izateko erretasuna goiburua bakarizat arturik.

Baiña euskeranto zale bedeinkatuok, ezin ixildu! Euskaltzaindiaren azpian dan-dana nai leukeen prailleak or dabiltzaz zarataka... baiña nor arraioren izenean? Guztiok dakigunez Euskaltzaindian bertan % 50 baiño geiago gara gitxienez euskeranto orreina aurka gagozanak. Liturji batzar orretan be, Euskaltzainak dira geienak; zelan, bananduta dagoan alkarte baten azpian, burruka barik lanean diardun beste alkarte bat menperatu nai? Jarraitu begi prantziskotar talde orrek bere, gure iritzi alperriko, «Jakin» sorta bide «entzutetsu» ortatik, eta laga bakkean bakean dagonari... bai zera!

Ala, ez diño ba, euskalkien aurka dagozala esatea guzurrezko salakuntzea dala? Aldizkarietan, erri-orrietan, eleizetan, irratietan, erri-euskereari arnasa bide guztiak ebagi ezkeru, zer? Zer nai dabe prailleok?

Irratia aipatu dogu, ta emen be betiko leloa. Bizkai'ko erri barrutiko edo erri-irratia lan ederra asita dauka. Egunetik egunera geitzen doaz euskal saio onen entzuleak, eta oso atsegiñak, burruka barik emen be, erri geienetik ordezkaririk bialtzen dabean albiste ta jakingarriak emoten. Orretarako ez dago «euskera literario» baten bear izanik. Emen bertan oguzten dan, belarrietatik sartuko dan euskera jator eta errikoia bear da... ala ez «euskaltzain jakintsuok?»

Ba, gauzak orrela diralarik, or dabiltzaz batzuk «ziriki ta zaraka» euskeranto amabakoa sartu naian. Eleizako irratira deika, eleizeari aspaldi bizkarrak erakutsi eutsenak!

Baiña neutralak be lurgaiñetu jakuz. Donosti'ko «venerabilis barba apuchinorum» en estalpean agertzen dan asterokoak, erpak erakutsi dituc. Ez dira makalak —ezta laburrak be— aspaldiko ezagun zarra dan Laspiur'ek, Beistegi'tar Jon'eri jaurti dautsoan iraiñak; ezagun zarra esan dogu, antxiñako «saltsa»tik, ez baiña laguna. Olakoen jokareia ikusia da sorkaldean: norberari komeni ez jakon egi-zabaltzaillea zoro-ctxera bialtzea... edo ixildu erazotea.


Emen be, agintaritza urruntxo daukien gogor-zale ta sasi-jainkotxoak bide bardiñetik jatorkuz. Ara irakurle, egun batzuk dira Sopolana'ko ikastolan umeak daukezan guraso arduratuak, egia jakiteko, «mai biribil» bat eratu ebenetik; euskerari buruzko arazoak aztertzeko «mai biribilla». Maikoen artean iritzi danetariok, baiña eztabaidan eta ondorengo alkar-izketan «euskeranto» zaleak eta Euskaltzaindiaren izenean inar-duenak... ankazgora!

Guraso batek gogor inarduala bere arrazoiak emoten, ez baiña danen gustora, beti bezela, guraso ez diran gazte taldetxo eazguna egoan batzar tokira sartuta, batzarren eratzailleak deitu bakoak, euskeranto aldekoak ziran, jakina! ta alako baten, onetarioko batek or diño: «zergaitik ez ete da ixiltzen cabroi ori?» erderaz noski. Alboan egoan ama gazte batek: «cabroi ori neure senarra da!» Gero... iskanbilla!

Alakotxeak doguz euskerantoa goitik bera sartu nai dauskuen sasi-iraultzaille ta eleizgizon kokolo —ala maltzur— banaka batzuk. Pakea zelan eta norekin? Ea argimollerik agertzen dan...

JOXE LASA

ARENAZA'TAR JOSU



«Goiz-Argi»

AGUR

Aste ontan Udaberria zorionez gaur (etorria).

Zugaitzetan kimu berriak lertzen Bestetzuk soñeko orlegiz jazten. Begi aurrez bizi berria sortzen Zain guztietan odola berpizten.

Udaberri! batzuentzat bizi, ostro za- (rrentzat eror-aldi).

Izadi osoko legia, orra! Urte guztietan eortze bera. Urte guztietan berotze gora. Indar berriz dager odola-zorna.

Gure euskal-alorretan, landare lirain bat (aurrean).

Amabosteko ostro zarrak... Agur! Asteroko orri berriak... Agur! «Goiz Argi» dana gaztetuta degu. Zenbat euskal-biotzak poztu ditu?

Argia pozaren arpegi, Goian dauka bere (iturri!)

Jakite ta kemena dira batu. Luma ariñ eta trebeak sortu. Gaur «Goiz Argi» gure eskuetan degu. Bai, astero kilikatuko gaitu.

Gizon askoen itxaropen «Goiz Argi» degu orain men.

Aitzgorriko lañuak dira autsi. Eguzki ditzira egin da «Argi». «Goi» txuri tartetik zaigu jetsi. Euskaldunen miña arindu bedi.

Euskal olerki batzuetan etsipena ager (benetan).

Gure mendi geienak beltzak, noski. Euskal kutxa dan baserria utsik. Beko ibar orlegi asko zikin. Bertan zillar-ari ziranak ori.

Jaso burua olerkari... Ikus erne-berri («Goiz-Argi»).

Euskal muiñ barru-barrukoa dezu. Euskera txukuna jario dizu. Goi ta Argia dira zuretaz batu. Poz-pozez gogoia beteko dizu.

Euskaldunen Kantauri itxaso, sarri nas- (pil, asarre dago).

Gure artean zurrubillo asko. Euskal-Erria pake eske dago. «Goiz Argi» zauri sendatzaille zatoz! Euskal itxasoa baretsu bego.

Bai, asteroko «GOI ARGIA» izan gure (artean: «Ongi etorria»).

OLABEAGA-TAR IÑAKI

Villasante Aitaren

«Axular-en Hiztegia»

Aita Villasantek egin berri duen liburuak (Axularren Hiztegiak) ez du nik aurkeztu bearrik. Egilleak berak naiko aurkeztua du, an eta emen, Euskalerriko uririk nausienetan, eta euskal-aldizkariak ez dira otz egon aren gorespentetan. Gure klasikorik ospetsuena inork ere ez omen du ezagutzen Euskaltzaindiaren buru degun onek baiño sakonago, eta oraingo onekin Axular zaarraren euskera ezagutzeko egin omen du; eskuetatik ezin utzikoa. Ez det uste inork utsik edo akatsik aurkitu dionik. Oraintsu samar gure arteko idazle batek esan dituen itzak erabiltzeko, oso «critica constructiva» egin zaio, alegia, edozeri AMEN esan bear diotenena, «en román paladino conformismo beato» besterik ez danaren estalgarria. Baiña AMEN-JESUSKA utsean ibilli bear ote degu? Eman diran gorespenei ezer kendu gabe, beste egitekorik ez ote degu izango? Irigarai Jaunak ere, gorespen utsa ez-tan artikulo bat egin du Diario de Navarra'n, Aita Villasanteren liburuari buruz.

Axular guztiona da; guztiona, aren eta gure euskera, ez bakarrik orrena edo onena. Eza edozeinek izan dezake zer esan, eta guztiok lagundu bearko diogu elkarri argi billa. Ez da besterik nere asmoa ere, lerro auk idaztean. Idazlea lore utsez estalita utzirik zer aurreratzen degu? Ea uts batzuk salatuz, Aita Villasanteri, urrengo argitaraldiak (esan digutenez) obeak eta akats gutxiagokoak egiten laguntzen diogun.

Eta asteko, utsune andi bat ikusten det nik Villasante Aitaren liburu onetan: ez atziki ez aurre izkirik ez du jaso, bait-edo BAITA izan ezik. Euskal-iztegiak (Azkué, Lhande) leku andia ematen diete itzen osagarri oiei, eta bai bear ere. Axularrek ba du ortan zer erakatsi, eta buk an zer ikasi: —AGO, aditz-forma batzuekin (galtzenago, urrunzenago); —gatik ere berdintsu, nordun aditz formekin (barka diazagungatik), besterik ez aipatzeko. Pisistrato, Kleomenes, Lisimako, Abradat eta euskerarekin ikusizunuk ez duten beste ainbat izenez liburu bat betetzea baiño ez ote zan askoz bearrezkoago eta obe beste atziki oien berri sartzea?

EKIDIN itza ez du egilleak zegokion lekuan sartu, baiña uts ori zuzendu du gero. Beste utsune batzuk ere bete bear zituen eta ez du egin. Salho ez degu inon aurkitu. Orain «proposamendu» edo «erresketa» esango lukete. «Iarraitunik izan eztena, mandaturik edo SALHORIK egin etzaihana», dio andre batez. Itz ori ulertu nai duenak Azkué edo Lhandarengana jo bearko du. Etxedun sartu duenak ALABADUN ere zergatik ez? Erraile ahantz-ordu, goganbeharrazi, aldanahitu, abenikoazko (ez aldaguratu eta abenikoa bakarrik), eta olako beste itz batzuk bear zuten beren lekua. GOGARA itza ez da bakarrik A GUSTO; izentzat ere eta pluralean erabilli du Axularrek: BERE GOGARAK GATIK. BERRI eta LEHENBIZI sustantibotzat ere ba ditu: berri hartan, lehenbizi hartan.

Geienetan, iztegi onen egillea ez da asko saiatu itz bakoitzaren adiera bereziak zeatz eta maillaz-mailla bezela ameten. Gauza jakiña da, itz bati aldamenen dituenek argi eta esan-nai berezia ezartzen diotela sarri. Ar dezagun, adibidetzat, EGITEKO itza. Klasikoetan asko irakurtzen da onako esaeretan (eta Axularrengan geien): egitekotan sartu, egitekotan ibeni, egitekotan ibilli, egitekotan izan (egitekoak egitekotan diranean). Villasantek ez du jakin, ez du asmatu olako esaerei beren adiera eta koska berezia billatzen, askotan beintzat SENDAGAILLA itzarekin alatsu gertatu zaio. Obe zuen, itz orrek zer esan nai duen Azkué edo Lhandenetik artu balu. Ez du jakin erderazko HAZAÑA eta PROEZATIK ateratzen, eta itz ori ez da egokiena Axularrek esan nai zuena adierazteko. Sarako erretorak esan-nai berdiekotat erabilli zituen prezatu, loriatu, sendagaila egin, sendagaila iritzi. Beste bein SENDAGAILLAZ BEZALA idatzi duenean, aldamenen dauka adierazgarria: OHORE BAILLIZ BEZALA. Azkueren JACTANCIA eta Lhanderen VANTERIE egokiago daude, bata nai bestea, Axularrek esan zuena erderazteko, Villasanteren erderakada badaezpadakoak baiño. Eta non utzi du LEGUN, Axularrek leun eta legun erabilli baititu?

Goazen orain beste uts eta utsune batzuetara. Non da iztegi onetan Axularren AILLIOTSA ulerterazi eta erakusteko argibiderik?

Azkuek eman zigun, Lhandek ere bai. Aurre-izki bat degu or, aditzaren era batzuetan erabiltzen dana. Ez ote zegokion lekutxo bat Axularren itzen artean? Aaztu egin zaio Aita Villasanteri, oarkabez edo. Baiña beste bat oarkabez ez, ez—jakiñez utzi duela esango nuke, ALBAIT edo ALBEI aurre-izkia, XVIII menderarte idazle batek baiño geiagok inperativo-era bat osatzeko erabilli oi zutena. Argirik naiko eman du ortaz orain il berri degun Lafon jaunak: PRESCRIP-TIF esaten dio, eta Leizarragak eta Etxeberri Ziburukok asko erabilli zuten; Axularrek ere bai, bein edo birritan. Lafon ez zan izan, orratio, aditz-era orren aurkitzaille eta leenengo maisu; askoz leenago eman zigun aren berri Etxeberri Sarakoak. Beste Etxeberriren bertsoetatik jasota, ainbat olako forma eman zizkigun, eta Axulartarrik axulartarren izan zan onek bere maisu maitearenak ez zituen jaso gabe utzi, latin irakasteko liburuan: «Gauza baten egitera zohazinean, eta zeure adiskideak eztagizula erraiten deratzunean, ez albaitzenegi, gibela albaitzindezi», Villasantek ez du orko aginte-era ori ikusi, eta ez du zeatz itzuli al izan erderara. Zer dira EZ ALBAITZENEGI eta gibela ALBEITZINDEZI ori? Zer esan nai dute? Ez egizu egin eta ez zaitetz atzera abia, besterik ez. Lafonek zioenez, inperatibo orrek ez du agintzen berealakoan egiteko ezer, geroago ordua dato-rrean egiteko zerbait baizik.

Azkenez beste AHANTZ-ORDU bat izan du Villasantek ALA itzarekin (ala ez-jakiñen bat?) Lafittek EXCLAMATIF esaten dion ALA ori ez da Villasanteren liburuan ageri, mugaz andiko euskaldunen artean oso erabillia dan arren. «Bereterraxen» kantuan agertzen da: Adorezko ibarra, ALA ibar luzia!... Ezpeldoiko bu-kata, ala bukata ederra! Oraingoetan ere bai: «ALA baita dolu-egin-garri amodioetan dena!» Olaxe, gero, H'rik gabe, Ala Jaunkoa, ala zu, eta olako oi-esaeretan bezela. «Ala ni», idazten du Axularrek, «plazer apurragatik... errege eta librea nintzena, mutil eta gatibu egin bainaiz!... Ala ni, deus gutigatik... Jainkoaren adiskide nintzena, etsaitu bainaiz!» Aita Villasantek ez du artu esaera orren miña, eta ALA orrek ez du lekurik bere iztegian. Gaiñera, beste pekatu bat egin du emen: azkenengo ALA ori. ESPIRITUALES ESPAÑOLES' entzat egin zuen argitaraldian H'kin eman du. Nonbait ere, gaizki eta oker ulertu zuelako. Bere maixuari zuzendu bearrez, zorione letra ori jainko txipi salbatzailletzat artu dutenei atsegin emateko edo, aren aldarera bere kandelatxoa ekarri gabe ez da gelditu.

Nik uste det, nola nai ere, pekatu ori erderazko VAQUETA itza euskal-iztegiaren ez sartzea baiño andiagoa dala, leenago aipatu ditugun utsak barne sartzen baditugu, areago. Gauza bitxia, erdaldun espirituales «dirantzat esan zuena, jakin ez euskaldun jakintsuenak aien aurrean lotsagarri uzteko, ala bere burua farragarri jartzeko, izan zan. VAQUETA zer zan jakiteko, erdal-iztegiara jo bear izan omen zuen. Nonbait itz ori ez zitzaion gertatu erderaz ere berealakoan ulertzekoa, eta erderazko iztegiaren baten ikasi bear. Non, bada? Baiña euskal-iztegiak erdal-iztegia osorik barnean sartu bearra ote daukate? Urkijo zana iritzi zabalekoa zan gai onetan, baiña ez zuen orrenbestarik nai. Eta Aita Villasantek uste al du Urdazubiko semeak bein idatzi zuen itz ori, Sarako semeek berak baiño errezago ulertuko zutela? Ez du, bada, beste inon aztarna andirik utzi. Nik uste det «Espirituales Españoles» liburu-sortaren irakurtzailleek txunditurik gelditu zirala, baldin irakurri badute, Villasanteren ateraldi eta aserreakin.

Danari «amen» esan eta omen egiteari utzita. CONFORMISMO BEATORIK gabe aztertu nai duenak, zer zuzendu eta zeri BAINA-NEREN BAT ipiñi aurkituko du AXULARREN HIZTEGI ONETAN. SOINA itzarekin egiñak ere eman dezake aririk naiko. Baiña beldur naiz, gauzarik bitxiaren izenean (ezkertiar-demokrata-neutralen izenean, esaterako) amenka eta omenka utsean ariko danik geiegi izango ez ote degun. Nik berriz diot: Axular eta euskera euskaldun guztiona dala eta guztiok egin bear degula al deguntxoa aren GERO obeki ulertzen eta aren urrengo argitaldiak naiz itzulpenak obeak izan di- tezen.

LINO AKESOLO

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskera bera beste edozein, bereko, politiko naiz ondasungarri asmoen gaiñetik daben iritxi-onoeko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egilleak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M.^a MARTIN DE RE-TANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAI-NA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guz-tirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

ESNEAGAZ EGINDAKO

BASERRI

ESKATU BASERRI

BASERRI

BASERRI

CHOBIL

BASERRI

ESNEAGAZ EGINDAKO

Santageda'ra Noiz?

Irakurle! Enatok zabalkunderik eixera. Baiña zeozer esan biar ba. Gaiñera, eztagok luzeera danori irakurriko dabenik, naitxa «h»ak kendu ezkerd erdira etorri.

Egia esan, neuk be etxuak Z'ko Argia'rik artzen; ezta nai be. Gure lagunen artian be geruago ta gitxiagok. Orregaixik-edo, berandu arte etxestek eskuratu 578'gn ale ori. Lagun bat etorri jatak ziara estututa: «Yon. Zoratu ei-aiz jifuek emen!»

Beste nere lagunok alakorik ez irakurtzia, penagarrixa litzakek. Ez ete juek arduradunak txortatxo bat duan emongo, nere gudarien artian zabaltzeko? Ia zer deritxoen.

Diarduan danoretik ibiltzeko astia biar, eta nik alpeirikorik ez. Gaiñera, Aste-gueneko jaixak ditxuk-eta, bestetan baiño egun bi lenago eruan biar juat ale onetarakua irakolara. Ala ta be, esan juat, zertxobait esan biar:

Erantzuten jarri ta, zergaitxik neretik esanik garrantzitsuenak ixildu?: —Odoletik eta zigoretik etara genduan batasun a, apurtzea—. —Lekuona'ren botatzea, onetarako or eñ juen anonimo a ta guzti—. Elixan sartzen ez diranak zertan biartu biar jaitxuek, goiazenok euskeriaren ordez euren euskerantoa erabiltzera or? —Zertan eta norentzat diarduen— ta ez jifiat au sorkaldera bakarrik begira, egoaldekuak be asko irabazi juek-eta.

Edo zergaitxik nik esandakuak erdiska bakarrik azaldu ta ortik euren esan naiak etara?: «orrenbeste erakutsi euskuen gure zarrak: «Abakiak sakristixan» (ba-dakik zer esan gura daben orrek, gure zarrak esaten euskuela ori). Ta jarraitzen najuan: «Eta gizonen artian sartu (ba-dakik, politikan, taldekerixetan eta abar) ta eitxen ditxuen anka-sartziak ikusitxa, zarrak ekiten a, onbiarrian erakutsixa zuan, orixe bai».

Zertan gabizen esan biar gendukek, lotsatu barik eta bildur barik. Erexiak errespetagarriak ditxuk garbi azaltzen diranian, ez baiña bestera, guzurakin ezkutauta dakarrezienan. Nere jokabidia jakitxa dok: Gure erriaren etsaieri aurre emoten, nere bizi guztian.

«Euren frututik ezautuko ditxuk!» Ba, bateron-batek esaten ba'jeutsek goitxik orreri: «Euskara!», or jarabixek danok, ixil-ixillik, «euskara» sopen be. Urrango, «Olentzaro» ta gure lorituok saillean «Olentzaro»ka, ez ondo ez txarto dagon aztertu barik. Gerotxuago: «H»ak or!», ta dabazpadan alboan, goixan eta azpizan be bai.

Nere oni «h» batzuk sartuko ba'neujixozak or-emen eretxira, beste orrenen aiña luze urtengo lajeustan; nere bigarrena irakurri ebela, zerbait kendu ba'jeutsek be.

Oñ, goitxik agindu barrixa artu juek: «Esan eta zabaldu danian Beiztegi zoratu egin dala». («H»ren bat biarko jok agindu onek, ez baiña jakin nun jarri biar najuekian), ta or entzungo dautsek, begiak zabal-zabal, gora zearka begira, itxurri nausixan edaten daben beixak lez, aieneka baten esaten: «Ba-dakizu? Au penia! Beiztegi zoratu egin da. Etxian dauke iru indaratorrekin lotuta!»

Asmakizun merkeegixa, kalte eitxen jeutsezan egixak ixiltzeko. Beste oberik asmau biarko juek. Ez ditxuk konturatu gaiñera, zer esango daben or ziar, iñork ziñesten ba'jeutsek be: «Zorruak dakixe egixak esaten».

Ba-litzakek gaiñera, euren «paradisuetan», ertz bixetaketan, eitxen dakixena eñ nai izatia, sartu etsaia Santageda'n eta betiko ixildu! Ia ba orrenbeste al daben, gixajuok.

Gero, zemaika jatozak, ez ei-juat barriz nere «ausarkeririk» erakutsiko. Leku onera datuaz zemaika! Ogetabost urte najuazela orma-aurrian euki minduenetik onuntz, zeren bildur izango gaitxuk ba, arrezkeroko urtiok epetan artutakoak izan ba'ditxuk! Orduan il ziraneri jarraitzen alegindu nok, eta arek bizi izan ba'litsozak eingo ebena eitxen be bai: Euskal-erri'aren etsaieri aurre emoten, lengueri ta gaurkueri be bai. Len, aurretik arpegia erakusten etuazeneri, ta gaur, barruan sartu jakuazzen satorreri.

Ta, bitxartian, ondo irabazitako zigorra noiz jasoko zorian, pozik. Len eta oñ. Etsaiengan-dik atzen-orduko «saria» be ez litzakek txarrena zartzen doian burrukalarri batentzat. Emen «argumentotxo» bat zorututa nagola esaten jarraitxu nai ba'juek.

Baiña egon ari ziurrian, ordurarte enok ixilduko, ta gero, besteren batzuk eingo dozue itz nere ordez. Orrek ez beintzat, etxuek onezkero nere izena euren oberako erabilliko, minduta jeuken nere adizkide «Jautarkol»ena ta beste batzuen lez. Oraintzu onetan, gauzak garbitxu al izan jixuagu, ta orixe nai najuan. Orrek an, eta ni ta neriak emen. Orrekin, lengo etsaien anaiokin, ezta onerako be, etxatozak orretara-ta.

Ba-jakixat, eta asko poztu najok, nere lengo lan bixak Eibar'en, bertan zapalduta euki jixuezanak, berotu ditxuela, eta oin entzungo jixuk entzun nai dabenak beintzat, ixillik gorde biarrian izan ziran egixak. Ni Abando'netik asi nok!...

Gero, eurak ei-dauaz erdixan! Erdikua? Lenengo izan eta gero egoten be jakin eñ biar izaten dok. Naita ukulondoka ta mokorka erdian sartu nai izan, ondo betia jagok, eta eurok aurrenpoetan aukeratu juen ertzian jarraitxu biar, naitxa burdi orretako lagun zarrak izan ez gaur gustoko: «h» santifikatzen ibilli ta sotanak esegi jixuezelako, gaurko bedekalarrien zerrenda orregaitxik «ez neuke errez amaituko» esan biar.

Au Z'ko Argia'ra bialdu biarko ei-najuekek. Zertarako? Lenago be esan izan jauskuek: «Afera personalkia» dala, ta bapez! Orainguan, atzen au guzurtu, ta argitaltzeko gertu ba' legozak, emen joiak nere baimena itzez-itzez eta osorik argitaltzerakotan; baimena, ta biar ba'juek, baitxa nere eskaria be. Ia ba!

BEIZTEGI'TAR JON

Ez Nator Iñori Erantzuten

Bakar-bakarrik nere kontzientzia Jaunaren eta erritarren aurrean, onerako ondo derizaten iritziak azaltzea da. Asteroko baten azaltzen diranak, atal berezi baten, dala apaiz edo beste batzuen iritzi oyekin ez nator bai. Euren idazkeran garbi agertzen da, apaiz ezkonduen alde makurtzen dirala. Ni bestera, aurka.

Apaiz ezkon-gabe ta ezkonduen arazo oyek, nik uste, obe litzazkela alde batera utzi ta ez aitatu ere. On baiño kalte audiago egingo dutelako bai jende tartean baita apaizen artean ere: itz-bidea ta mar-marra besterik ipintzen ez dutelako.

Gizaseme bat dala abade edo praille 25 urtetan, zentzunduna edo osoa ba'da bere izatean, ba-du bere buruaren jabe izateko bidea ta bere gorputz eta griñen berri ere. Ta osoan ez ba'da-re, gutxi gora-beran ezagutzeko bidea ere, berak bere burua aztertzen ba'du. Ez ba'da bere buruaz piatzen ez guraso ez beste iñokin. Obea litzakio 4 bat urte luzatu ta beste lan batean jardun, al duan ondoen apaiz edo prailleari dagozkion otoiitz eta bizitza egiñaz eta Jaunari Bere borondate edo naira egiteko grazia eskatu. Eta grazi ori biotzez eskatzen ba'dio, bai edo ez, esango dio, zalantzik gabe Jaunak, eta orduan artu beza bere bizitzaren erabakia.

Ogeitamasei edo berrogeitxik gora irten eta apaiz eta prailletza utzita ezkondu diranak ba-dira; ez denak. Ezin dut sinistu oyek bokazioa izan ez dutenik. Okerra, txarto erantzutean izango zan, beren eginkizunak tarrastaka edo debozio gutxiagaz egitean. Argizari ontziak gaia duan bitarte, ederto argia ta heroa ematen ditu, baiña gaia amaitzean, ez argi ez bero, bukatua gelditzen da. Berdin gure anima ere, otoiitz gabe illundua, itzalia gelditzen da.

Animak ez du bear ardo-ogia edo lapikokoa. Jainkoak, gizonaren soñari arnas egintziola, ta arnas ori nola Jainkoagantik dan, ezta azkenik, eta ez da lurkekoa. Berari dagokiona otoiitz da, ta ori barik, aula, ezetarako indar gabe gelditzen da. Sotana edo abitua zintzilik utzita irten diran abade edo praillek, egunero ordu erdi baten meditazio edo buru-otoitza egin ba'lute, Arts'eko apaizak bezela Jesus Sakramentatuaren aurrean, eta egunero Errosarioa errezatu Zeruko Andre Mariari, euren bokazioa ez zan itzaliko, galduko.

Baiñan beren bizitzari tokatzen ez zakona eman; mundukeri ta lasakeria; beren lekuan ezin egon eta irten egin bear... zine..., telebista, dantza, jan-edan era gabeak, gaueko etxeratze beranduak. Oyek denak animaren etsai audiak dira te orrelan

oituraz dabilzanak, ez daukate etsayan tentaldi bearrik, euren dauke lizunkeria.

Gure erri ta sendietan oitura garbi ta ederrak ezgatu ditugu. Elizari ta eliz gizonari maitasuna, itzala ta errespetoa. Eta gaur? Nun da kristautasuna ta euskaltasuna nora jun zaigu?

Orain 50 urte, Garizuma zaitzen zan, gazteak berak, ez guraso ez alkatek debekatuta, itzala eta errespetoa Garizumari zioten. Pilotan edo musean egingo zuten, baiña ez dantza ta jai zaratatsurik. Bai guraso ta bai Elizaren esaneokoa ziran, eta ori bai dala Erri baten zoriona.

Lengo arira nator: Asteroko ortan diotenez, bakartasunetik ere ba-datorio apaizari ezkonze izateko eziña. Amaika apaiz gazte jator eta onak ezagutu izan ditut Euskal-erri'ko erri txikielan. Gaiñera diote, leen erri bizitzan apaiza norbait zala: konseju emaille, noriasun aundikoa gizarte bizitzan. Gaur galdu omen du noriasun ura, askoren artean gutxietsi ta despreziatua dagola apaizaren bizitza, gizartearen aurrean bere ezeztasuna nabarmen omen. Ez nator bat ortan. Gezegiz ez beratu, arren, apaizari dagokion eta tokatzen zakon lekua ta bizimodua.

Gaur bertan, abade jatorra, eliz-gizon ona ta langillea, erriko jendea Kristo'ren erakutsiaz ermaten sayatzen dan apaiza, bere errian, bai zar bai gazteak ondo ikusia ta istimatua da. Baita gizartearen be. Oraindi geyago, bere sotanax ba'da-bill, gizon askori ta ez oso zartuati entzun diot; «Apaiz eta praillek paixano asi ziranetik erlijioak asko galdu du». Ni ere ortan nago, ikusten diran gauzekin.

Apaizak eta praillek munduan bizi dira, baiñan irten ziran munduaren sailletik, eta Kristo'ren saillean sartu ziran, eta orregati, munduan euren jantzili, itzeli eta egiteetati ezagutu bear dira, baita munduari ikasbide ona ematean ere.

Azenik, apaiz ezkonduai laguntzea aipatzen da. 40 urtez abadetza utzi ta irten danak, ondo daki Ebangelioa, eta naiko du bide orretan jarraitzea. Ba-daki ere Jainkoak gizonari agindua: «zure kopetako izerdiaz jango dezu ogia». Egin bezate lana ogia irabazteko.

Elizkizun eta batzarretara deitu ere bai? Len apaiz izatea zabal eta lasai izatearren utzi duanak, alaxe naiko luke Elizako gauzetan aurrera ere. Ta nik: oyen lekuan nayago nuke Erri'ko gizon edo emakume jator eta kristau ona gauza oyetarako artu.

SOIÑU-ZALE

SHUSAKU ENDO

Irakurle: oraingoan izen arrotza dakarkizut. Idazle ospetsu eta zintzo omen danarena. Orañago iaun orrek Iesu'ren Bizitza idatzi digu. Lendik izen aundia eman zioten edesti-aizun berein idatzi zituan: «dsilla» eta «Itxaso illarena». Irakurgai bi oriek Shusaku Endo'ren izena oso gora iaso zuten. Japon'go idazle onenen maillara. 1973'garren urtean, azilleko bi aste osoz kistar idazlearen idazti berria geien saldutakoa. Ain salketa aundiko kistar-idaztiak gutxi-gutxitan izaten emen: alegia, Eguzki-alde auetan. Idazlearen izen onak berak irakurle asko Iesu'ren Bizitza berria erostera eraman. Ez kistarrak eta siñistunak bakarrik, bai ukuzpena zer dan eta siñismenak zer erakusten digun ez dakitenok ere: agian, auetako irakurle geiago. Irakurle guztiek eta erosle sutsuek Iesu'ren Bizitza oni oso mami ederra aurkitu diote. Japondar askok ba-zekiten Endo idatzi eta idatzi ari zala, eta idazle iaioak zer asma zezaken eta zer eskeñiko zuan zai zeudenak sailka ziran. Eta, uste zutena ez ustel gertatu.

Alderdi auetan Iesu'ren bizitzazko beste zenbaiten lanak japan-izkeraz argitaratuak izan: Giuseppe Ricciotti'rena beste askoren artean. Itzulpena ordea geienetan alakoze zertxo gabe izaten. Beraz, Endo, lana benetan egitera bertaua genduan, esku-artetik besteak ez bezelako zerbait atera zezan. Beste lurraldeetan, bai kistar zintzoak, bai erdizkako siñistunak ere Iesu'renak aztertu izan dituzte. Papini'k bere garaian ots aundiko Iesu'ren bizitza idatzi zuan: olerki-giroz txairo eta txito irakurgarria. Arako Renan'ek ere Iesu'ren bizitza idatzi zuan: agian, ez asmo zuzenez; ala ere, sakonki. Ondoren, beste iakintsu asko dira idazteun-ikasteetan izen aundia lortu eta lan bikañak atera dizkigutenak. Endo'k orietako gutxi baztertu ditu eta arakatu gabe utzi.

Endo'k orain arte IESU'ren Bizitza aztertu izan dutenen mamia bereganatu digu, eta bai kistarrentzat, bai beste irakurleentzat lan zitutsua osatu.

Iesu Kisto'ren garaian agintari izan ziranen giza-aiurri, asmo eta ibilkerak zeoro aztertu eta ikasi ditularik, oraingo irakurleentzat Endo'ren idazkera atsegingarri. Oraingok maite deguna auxe: giza-biotzak zerk iñarosten dituan iakin: giza-gogoak zer aieketara makurtzen diran ikasi. Orrela Pilat'en asmorik ezkutue-nak azaldu ditu. Erode'ren maltzurkeria argira atera. Kaipa'ren biurrikeri eta azaluskaria zeatz-meatz azaldu, iaun oriek eta oriekien bat-egiñik ziranen ibilliak eta ioerak argi-argi ipiñi.

Iñondik ere, Shusaku Endo'ri iruditu garai artako iauntxoan biotzak toles askoko alozak zituztela'edo, eta bakarka-bakarka aien zimur-uneak adiraziz idazle maratzak garai auetakoentzat oso lan irakurgarria ondu.

Beste zerbait ere bai. Endo here gizarte-girokoa degu: eta, japonar iatorrak Iesu'renak eguzkialdekoek nai lituztekez eman. Iesu'rengonako gogo ona eta siñismen sutsua ezergatik ere bestelakotu gabe. Endo'k ongixto iakin, koloka-moloka dabilzanan ezkerre eta lainkotasuna baztertzera makurtu-bearra.

Arek, lenagoko idaz-lanak ere guztiak eguzkialde girokoak ditu, eta arenak irakurriz emengoek beti oso gogara izango.

ETXEBERRIA'TAR P. S. J.

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra

BILBAO - Casco Viejo

Tenderia, 15 eta 16

Argi Barik...!

Basarri bakar-bakarra. Gaillurre ixexie lañuek joten, basamortuen, mendi mendixen...

Arratsalde erdi baten, erriko bikarixo barri gaztie, agertu de beko landetan, gorutz, basarri ori aldera. Oñgo eran jantzitze: praka-bakero, txamarra gorri illune, alkondara «playboytarra», eta abar. Basarriko gizonak, Patxi maixozkuek, ondo baiño obeto begitxu arren, goiko tonorretik, eziñ sumau zeñ izen leikenik.

Apaiz jator ori gora; Patxi, berutz, korta pareko kaltzadan tope egin dabe.

—Arratsalde on, gizona.

—Bardiñ —diño Patxi'k.

—Zu, emen urriñ bizi arren, ona, bier bada, agertuko diez ba zenbait jende modu, kale aldetik, euron eskintza eñez, e?...

—Nik dakit ba?... Zeu be ortik edo andik zatoz, eta zeñ zaren be...

—Nai dot esan, gizona, erbestetik edo kale zulu aldetik etorriko jatzuzela bat baiño geixa...

—Bai, bai... saso batetik ona, bai oixe. Gausak azko aldatute dagoz. Len beintzet, arimaik be ezan eltzen onutz. Oñ, ostera, takien-takien, inprixuek. Piñu kontue dala, solo mendi neurtzailliek dizela, tela saltzaillioik...

—Eta garbitzaille barrixok, ez?...

—Garbitzaillioik pe bai; bai. Autsoak, saixok, eta abar erropentzat, platezentzat, bai. Olako kimikokiñ ba'toz, bai...

—Arima garbitzaille barrik ez?...

—Zer naidozu esan gizona!...

Patxi'k, nora doienik eziñ ulertu. Apaiz gazte orrek, argixa edo garbixa be ez nai esan... Ordez tantien.

—Gaur egunien, ateik ate dabiz ba garbitzaille orrek. Bai erropa galdarok garbitzeko autsoak eskintzen, eta, baitxe, arimako erretzasunok...

—Tire-tire, orrei gausoi geldik kontuok. Guretzat baiño aundixuek ditxuk-eta.

—Bai, alan da. Baiñe argitxasune be derrigorra da. Ara gure gana urratu ezkeri, tiniebletan sartute bizi barik, argi ederra etorriko jatzu. Gausak danak argi eta garbi ikusteko bidez...

—Bai, orrek danok ondo jazak, mutill. Len karburuaz betulak erre bierrien, da oñ putanuaz eztarrixok siketute. Baiña posterixe, alambra killometro baiño luze, beko barrenetik, pendizen gora, gure etxe burure argi ori ekarteko!... nundik ata dirue?...

—Zu, gizon, zer diñozu?...

Praka bakero, txamarra odol gorri illun, alkondara loratsue... ikusi eran parrokuan narru gani, atxurran kirtenan deskantsuen, difotse Patxi'k:

—Eza ba, «iberdurokie»?...

JUAN JOXE ARRIZABALAGA «MARKIÑA»

Konponketak

Zaratea entzuten da ta jendea bizi da. Itamuan dagoanak, geienetan, itzik ez dau egiten. Arek ez dauka ez indarrik, ez adorerik. Ezer ezin esan dau. Baiña zaratea gogotsu, egiten dan tokian, jendea gogor bizi da. Indarra ugari dago Olako inguru artegatsuan. Jokera oso ez-bardiñak ikusi ditugu jazoera bi onetan. Au garbi-garbi, dagola deritxoguz. Emen iñork ez dauka illari itz eragiteko gogorik, ezta barrixuari ixil-erazteko asmo larregirik.

Beste arazo batzuetan ostera ausimasi aundiak dagoz. Eleizak nun, noz, zelan, ta zer esan bear daben... Lurreko gauzetan noraiño sartzeko eskubideak ete ditun... Zein ete dan Elizari dagokion beste munduko eskubidea ixiltasunezko ori ta abar. Gora-bera guzti onek siñismendun batzarrekoen artean Eleiz buruak sail orretan, ez dabe orrenbesteko zer ikusirik.

Kristo siñistu ta bere ordezkoa Erroma'n geure burutzat daukagunok, eratzten dogu gure arteko Eleiza. Eleizaren semeak, bakoitzak bere tokian, norbere eginbearrak ditu. Guztiok Kristo'gandik irakatsi bardiñ artu dogu. Ta jakituri orrek argitu bear ditu gure pentsamentu, gurari ta jardun guztiak. Ikaslea, nai baserritarra, nai abadea, nai langillea izan, Ebanjelio berberak laguntzen daukudean.

Guk gure argiz, maitasunez ta askatasunez jokatu dogu gure bizitzako saillean. Baiña guretzat gizon izatea, kristiñau izateko osotu egiten dabenez, beti jokatu dogu Kristo'ri begiraturik. Au argi dagola dirudi alde batetik, baiña bizitzako arazoetara goazenean, gauzak nai eskubideak beste arpegi bategaz agertzen dira aurrera.

Nork esan bear dauku, orduan, gure arloak aztertuteko egizko argia ta zuzentasun bidea nun dagoen? Guri kristiñau bezela, Kristo'ren argiz, ondo zuzendu dogun erantzupenak. Auxe izan

bear dau gure barruko argia. Zuzentasunez goazen bitartean, iñork ez dauku ezer esango bidean. Gu be Kristo'rekin ta batzarren gogoagaz batera ibilliko gara. Gizartean alkartasuna izango da.

Baiña Kristo'ren irakatsiak alde batera itzirik, naita onen izena erabili be, ezpaia laster sortuko jakuz. Lenengoan egin doguzan galderak, or jaikiko dira.

Siñismendun egiteak, batzuk mundukoak, ta beste batzuk beste mundukoak direla, sarri entzuten dogu. Biziak alderdi bi ditu guretzat; orain ikusten doguna ta gero itzaroten doguna. Baiña alderdi biok, iñundik iñora, be ez dagoz bananduta. Bata laburra da ta beste bat betiko. Oraingo aldian, egi, zuzentza ta bata bestearen eskubideak, deduz, artzeko agintzen jaku. Geroa da barriz, egite orreen saria.

Au kristiñau bezela ezin ukatu giñaike. Gure Irakasle ta Jaube geure Egillea dogu. Baiña au ikusten ez dogun lez, bialduak itxi zituan bere ordezko, ardura onegaz zamatuta. Bialduak dira ba, kristiñau erriari argi egin bear dautsenak Ebanjelioaren bidez, zintzo eta gogoz, Kristo'ren legera.

Gizona izan leiteke bere bakarreko edota beste batzuen arduradun. Gu, siñismendunon pentsabide ta egiteak Jaungoikoa'ren eretxipean dagozan ezkerok, guk dagigun guztiak, Arek argitu ta epaitu bear dau ta Jaungoikoa eskutuan dagon ezkerok, bialduak Aren izenean argitu bear ditue kristiñau siñismendunon jokabideak. Beti, Ebanjelioaren jakituriz, gizonak egiten daben guztiak, nai bakarrik, nai aldran, nai esana egikera, nai erriari agindukeran, ta gizona Ebanjelioz ez ba'doa, bialduak gogor egin bear beko dautso, ta ari jaramonik ez ba'dagio, epaituta geratuko da Egillearen epaitegian.

SOLOZABAL'TAR PAULIN

IL-ARTITZAK

Il-artitzak edo obi-illetak. Il tokietako eta il arrietako arpegi eta egaletan irarritako itzak. Au da, epitafoak.

Erroma zarreko epitafoak irakurten ibilli naz. Urteen urteetan arriaren izerdiak eta negarrak erdi illundu eta lizundutako esakera eta agergerriak. Bata baiño bestea politaguak, maitetsuagoak. Samurkeri eta laztanaren erruak igarten dira batzutan. Kezka eta estualdi baten itaun eta egoerak bestetan. Negarraren malkoak tar-tean; beste santu baten eroapena bestetan.

Gizon zuzen bateri kantua, edo ta gixuren bateri omena askotan; garbitasuna goratzen edo zuzentasunaren aintzaz tartetan. Indar eta nortasunari txaloak edo ta gizontasunaren adoreak noz-nai. Bai eta bizirik gelditutako negar, zoritxar, atsekabe, kezka eta ezin etendako bakartadearen agergerriak be.

Itxutasunez egiñiko andi naiokak; apaltasunez izentatutako serbitsukoak. Danetakook. Berba baten: Biozkadak. Aberatsa da orretan Erroma.

Eurak ikustean gureak be gogoan erabili dodaz. Ainbeste bertsolari doguzan errian, inguru guztiak poesi giroa sortuten daukuden alderdi onetan, uts gelditzen gara euskaldunok olakera esakeretan. Danentzako gogo bat, esakera bat dogula esan lei:

Goian bego. Esan nai andiko dala, otz geratzen da, sentimena galduta, danena bardin dalako. Onetan gure il erriak eta gure il arriak biotz gitxi dakarre. Edo ta astuntasun geiegi esan lei era bardiñean.

Ni gaur izen bateri begira nago, eta jakingarri izango dalakoan, edo beintzat oargarri, aukeratu dodan izen ori emen azaldu nai dot. Gertaera? Euskal izenak datorkidaz burura. Juzgadueta onartzen ez diran izenak, Sabin'en ixendegiko joseran egiñiko izenak.

Ara il-artitzetako bat, epitafo bat: «Gensane, pax spirito tuo». (E. Diehl, Inscriptiones Latinae Christianae Veteres. 2.259). Euskeratu ete geinke: Gentzane, bakea zure espirituari?

Aidean lagaten dogu itauna. Ba dira onetan ikasiak eta ikasi nai dabenak. Olakoak nai dituenak euren ikasaldiak agertzeko. Itzen jatorriak eta izenen sortzeak eskutuko asko euki leikez, edo ta bete-beteko osotasun eta araberen neurrietan egiñak gertatu.

Nik, gaur, izena agertzen dot. Gaur guk darabilgun itxurakoa. Ala dala? Zorionak. Ez dala? Beti be... bakea bere espirituari.

ZUBEGI

Mendizaleetasuna Goraka

Sarritan esan dan bezela, gaztediak kirola bearrekoa dau. Neurritz egin ezketiño, ongarria dau bai soñaren azierarako, adimenerako ta osasun osorako, ta bai pizkat baiño ez bada be, jakintzarako, lurraldeak ezagutuaz batera, lagun-artekoa be egiten laguntzen dautsalako mendiko kirol garbi kementsu orrek. Eta orretara oldoztu dabela esan daiegegu euskal gazte askok, zorionez azken aldian, ba beste idazlantxu baten esaten genduban bezela, udabarri ontan lorak ermeten diran antzera, mendigoizale taldeak sortuaz doyaz gure Bizkai ontan beintzat, guk geyen bat dakigunez.

Esan dogunez, ainbat dire lage-barruan sartu-barri diran mendi-zale taldeak, Ondarru'ko «Aurrera», Gernika'ko «Goiz-zale», Bermeo'ko «Garbola», Mungi'ko «Jata», Bilbo'ko «Santutxu» mendigoizale taldea ta abar, eta beste talde batzuk be ba-dira izapidean daukezala euren araudiak, lage-barruan irauteko, eta laster izango dabezalakuan bear diran eskubideak. Beraz, ikusten danez, ugarikera, gorakada ikusgarria egin dau azken aldian mendigoizale-tasanak.

Gure itxas-aldeko mendi-zaleak, taldeak sortu ta bakarrean lan egiteaz bakarrik ez dagoz. Esakerea dan bezela, batasunak emoten dau indarra ta, orretarako, Ibaizabal-Nerbion Alkartea sortu ebenez inguru ontako mendigoizale taldeak, itxas-aldekoak be. «Itxas-alde Mendigoizale Alkartea» izen bikañaz bildu dira Garbola, Goiz-zale, Jata (ta Aurrera?) indar andiogo ta onuragarriagoa emoteko, eurentzako lez kementsu artu daben, kirol osasungarri oni. Esan dogun au aurrerantzerako da, ba bermeotarrak iragarria euki eben ibilketa-neurtua, Epaila'n 24'gnean, eurok bakarrik antolatu eben, goralpenik andiena lortuaz, geuk geure begiekin ikusi genduban bezela, ba mendizale «barri» batzuk gertua izateko ederto eralduta egoalako ibilketa-nertu ori; ondo marratuta mendigoizaleak igaro bear ebezan bideak eta gaiñetiko arazo guztiak.

Eta, gauza erreza ez dana, bertaratu ziran berreun bikote, neska ta mutil, gazte ta ain gazte ez ziran mendi-zaletza, atsegiñez ta pozez ikusten zan, gauzak ondo gertuta egozalako; ta alantze izan zan.

Lenen Mañu'ko enparantzatzuan ibilketarik geyenak ikusi genduzan. Au zan gaztedi eder alaitua, Bermeo'ko txistulari gaztetxuen mordo eder baten txistu-otsean abopekoa egiñez, abeslari ta alai aurkitzen zana! Ori lako gaztedi kementsua ikustearren bakarrik orretariko ibilkeretan izaten gara. Ba-dira oraindik, zorionez! euskal gazte zindoak.

Egin eben ibilketea, ez zan izan luzea, lauren bat ordukoa, baiña bai oso polita ikuskizun ederrak ditualako. Au izan zan:

Urten Bermeo'tik eta Sukarrieta gaiñean aurkitzen dan Katillutxu irureun ta ogeita amalau (334) neurkin goiti daben menditxura igon, eta ortik Sollube gaiñera jo. Emendik Mañu'ko eleiz ondoan dan enperantzatzura jatsi ziran, goxaldu ta Mañu-goikoa basetxeetatik Garbola mendira igoteko. Mendi ontatik jatsi-ta mendi-lepoa zear, Burgoa aldamenetik bera, barriz Bermeo'ra, lenago esan dogunez, oso ibil-leku gokiak.

Aupa Bermeotarrak! eta ea urren, beste orrelako edo antzeko zerbait gertutzen dozuen.

ALTUNA'TAR JOSU

LUDIKO GORABEERAK

USA TA EUROPA KONPONTZEKO MUGONA

Asko ez dala, sartaldeko europatar adiskideeri egin bearreko ikustaldia atzeratu du Nixon'ek. Berez, igazitik zetorren ibillaldi ori atzeratzen. Inorentzat ez dira ezkutuak atzerapenaren zioak.

Beste onenbeste erabakiko ote du orain Mosku'tik zear egitekoa zuan ibillaldia-ekin? Aurreko ikustaldian eskeintza aundiak egin zizkion Breznev'eri amerikatar lendakariak. Gero, ordea, etzuan bereala betetzerik izan. Laister ipiñi zizkioten oztopoak Legebiltzarrek. Eta sobietarren aldetik, berriz, erraztasun gutxi itxaron zezakean ezer eskeintzekorik esku-artean ez edukitzez. Gaiñera, Kissinger'en burubide bizkorri esker Erdi-Sortalde'an burutako aurrerapenak arabitarren adiskidetasuna berriro irabazten lagundu dion berean, baiña alderantziz, sobietarrendandik urrunerazi du Ipar-amerika.

Au ongi ikusi da Kissinger'ek sobietarri arestian egin dien ikustaldian. Ez du nunbait uste bezain giro atsegiñik aurkitu Mosku aldean. Eta oarleek zalantzan jartzen dute atzerri-ministroaren atzetik Nixon'ek egin nai zuan joan-etorria. Zergatik? Nixon ez dalako —gaurko bere egoera berezian beintzat— inora joateko zale etxera eskutsik itzultzekoz. Eta auxe gerta lekiok Kremlin'go nagusiarengana aurki joango ba'litiz; besteak beste, Breznev onek ere oztopo gogorrik aurkitzen dualako bere alorrean Ipar-amerika'z artuemanak tinkotzeko asmoak aurrera eramaterakoan.

Bien bitartean, gorabeera aundiak izan dira USA ta Europatar Elkarte'aren artean. Batez ere Frantzi'ak arekiko erakusten duan mukerkeri setatsua dala bide. Azkenean, larregi berotu zitzaiezen odola Kissinger naiz Nixon'eri; ez esatekoak esateraino. Arrolioaren iturriak itxi ondoren, europatarri bai baiña amerikatarri ez irikitzea erabaki zuten arabitarrek, salneurriak geitzeaz gaiñera. Orduan, USA'k indar egin nai izan zuan, ortarako bere inguruan Canada, Japon eta sartaldeko europatar berderatzi laterriak bildurik.

Frantzi'k, ala ere, USA'ren asmoak ezereztera jo zuan kupidarik gabe. Eta lortu ere, zertxobait lortu zuan bere bazkideak arabitar ogei laterriekin lankidetzat batera irixteko gertutu zitularik. Auxe izan zan, noski, amerikatar jaurleriak txispak botatzen jarrierazi zitua. Arrezkero, eta aldi laburrean, aski aldatu dira gauzak. Arabitarren arrolioak berriro ere artuko Ipar-amerika'ko bidea. Gaiñera, auk ez dira ain egoskorrak Erdi-Sortalde'ko arrolioaren ziurtasun gabe Europa galdurik dagoala ez igartzeko. Beraz, gauzarik egokiena litzake leendik tinkoak diran arabitar eta europatarrekiko artuemanak areagotzea geroari begira. Onela, sal-erosketa utsetik askotariko adarrak lituzken artueman batzuetara igaro bear dute ok.

Ez, nolana ere, Ipar-amerika'ri bizkarra emanaz. Auxe bai litzakela burugabekeri izugarria. Ongi da amerikatar laterritzar aundiaren morrontzara bein betirako ez makurtu nai izatea. Onak ere, ordea, eskeintzen dion babesaren truke, mesedeak eskatzen ditu. Onerainoakoak dira diru edo ekonomi alderdiak. Milla alderditatik begiraturik ere eskualde biak elkarrekin bear dutela itxu batek ikusten duan zerbait da. Ba'litike, bai, Ipar-amerika'k ere goitik beira jokatu nai izatea, elkarrekiko artuemanak berritzeko baldintzak erakutsi situanean Kissinger'ek, dalako «Carta Atlantica» ain eztabaidatuaren bidez. Eta ortaz, ezin esan Frantzi'ak arrazoi apurren-bat izango etzuanik aurka egiteko. Inorentzat ez da izan onuragarri, baiña, onen zipokeria. Eta zorionean itza atera dute alemandarrek naiz ingelesdar jaurleri berriek, Europa'ren batasunerako baldintza nagusienetako bat lez, Ipar-amerika'rekiko kidetasunaren jarraipen autsieziña aldarrikatzen. Orain, azken orduan jakin degunez, Pompidou il dela, aldakuntza aundiak letorkez, Europa'n batez ere.

INGELEDAR LANGILLE-ALDERDIAREN GARAIPENA

Gauzarik zailletakoa ba-dirudi dala ingelesdar auteskundearen ondorenak asmatzea. Eskuindarrek ustekabean irabazi zuten agintaritzat orain lau urte. Eta goraka zijoan buruzagiaren ospea ta eragiña danon ustetan, aldi berean Harold Wilson'en izarra itzaltzeko zorian sumatzen zalarik. Ontan, ingelesdar txanpon ospetsua balantzaka asi zan, dolarraren erordialdiak erasanik. Ez, ordea, gertakizun orrek soilki, ingelesdar ekonomiaren beerakadak nagusiki.

Ingelesdarren igoera ziran urterik dizdiratsu ta mardulenak. Eta beraien zoritar asko, ain zuzen, ortitxek zetozen azkenaldian. Egoera berrira ezin egokitu edo oitu, nunbait. Eta lanari ekin ala utzi, atzerrietako morroien lanaren emaitzetatik bizitzen jarrai zezaketelakoan, errazegi jo izan dute oportetara azkenaldian. Au ez da, bestalde, nere iritzia, ingelesdar bat baiño geiagori entzundako zerbait baizik.

Indargai urritasuna zala-ta ere antzeko erabakia artu zuan Heath jaunaren jaurlaritzak: asteko lanaldia iru egunetara laburtzea. Eta onela, gero-ta abiada bizkorraoan zijoan leize zulara ingelesdar ekonomia. Eta ondorioz, larregi naasten gizar-teko giroa. Gero, meagizonen eskabidearen aurrean ere etzuan asmatu buruzagiak. Eta erriaren aurrean auzia agertu ezkeri onak meagizonen jarkera setatsua gaitzetsiko zualakoan ausartu zan ura auteskundeak garaiz leen ospatu-eraztera. Gauzak atzeko aurrera atera zaizkiola eran bearrik ez dago, guztiok dakizute-ta.

Ala ta guztiz ere, langille-alderdiaren garaipena ez da izan bere egitaraua oso-oririk eta erabakitsu aurrera eraman aal izateko ainbatekoa. Eskuratu duan jaur-laritzat ari batetik zintzilik dagoala jabeturik, erdiko bidetik jokatzera iduritu zaió onela. Langille ta gizar-teko maila apalen aien aldeko zerbait neurri artuak ditu, baiña ez erabatekorik. Lanari utzirik zeuden meagizon aiengandik asirik, lansariak jasotzeko eragozpen ziran legeak ezereztuak ditu. Baita zaar-sariak jaso ere. Zerbait zerga berri ezarriak izango zaizkie aberatsen aieri, diru orrekin egunoroko bizitzarako bear-bearrezko diran janari edo ondasun aien garestitzea gozatzeko, eta albar.

Ez du joko, oraingoz beintzat, diruetxeak laterrikotzera edo Goiko itxasoan idorotako arrolio putzuak edo beste zerbait ekintza aundiak gizar-tekotzera. Ala ta guztiz ere, langille-elkarte edo sindikatuak lagun izango ditu jaurlaritzat berriak agintaldiaren lenen neotan. Onak ez du esanai beren eskabideak areagotzen joango ez dinanik. Erriak ere ongi artu ditu gobernu berriaren lenen burubideak. Eta auxe da Wilson jauna ta bere lankideen elbururik nagusiena: erriari atsegin zaión bidetik joatea, joatea, urren auteskundeetan aalik autarkirik geiena bereganatzeko. Eta Legebiltzarrean erabateko geiengoa lortu ondoren sartu langille-alderdiak dituan asmo gizar-tezaleak betetzera.

Dagoanekoz, eskuindar alderdikoe eta ekintzaille naiz ugazabek egozten dioten erririk nagusiena, zera da, ekonomiaren putzuetara larriagotu ta areago ondartzera doazela jaurlaritzat berriaren burubide alaiak. Oraingoz, ala ere, auk borroka galdua dute. Eta gerta lekieken ezbearrik txikiena ba-da. Izan ere, une ontan jaur-lari berriek auteskunde berrietara erriari deitzezko eskatuko ba'liote erregiñari, ba'litike azkenengoan baiño alki geiago galtzea langille-elkartearen edo-ta liberalen mesedean.

Laterria bere gaurko egoera latz ortatik ateratzeko egiñalean langille-alderdiak bere kemenak uzten dituan bitartean, beste biak indarrak eta asmoak berritzen leiatuko dira batere bururik baldin ba'dute. Auxe ez al da demokraziaren jokoa?

IRIARTE'TAR JOSE LUIS

Gizon Bati Omena

!Bai jaunak, jaun-andre irakurleak! Gizon bati, gure Xabier Peña'ri, bere euskera aldeko lanaren orogarriztat, omen bat, opari bat eskintzera di-joatzela esan dauste.

!Amaika aldiz neure buru barruan erabili izan dodan ametsa!

Aurrea artu dauste ta poztu egi-ten naz. Ez zenun erreza Xabier'eri gorasarrerik txikiena, bere omenez, aitatutea! Ez, irabazteke eukolako, baizik bere apaltasunak aipagarririk aintzat artzea galasoten utsaloko.


XABIER ondo ezagutzen dot nik esparru orretan; berak euskera alde-egin izan duan lan itzala be bai. Lan bikaña, lan iraunkorra, lan eman-korra, uzta berezia pillatu al izan dauana. Ta batez be, LAN IXILLA. Eten bageko lan ixilla.

Azkenengo izakera orri buruz, esan izan dot, orogallu aundi baten duin dala; baiña ain zuzen be ortxe egoan eragozpena; ezin aitatu berari gorasarrerik. !Ezin atera bere apaltasunetik!

Orain, bere millaka ikasle eskar-tuk, omen egitea erabagi dutenean, nai ta ez, euren zioa izango dute ta nik pozez beterik jaso dot izpar ori. Berari ez eutson grazi andirik egingo, aurrerago aitatu dodan izakeregaitik.

Ala ta ere, gure Tolosa'ko bilbotar adiskide begikoari auxe esan bearrean naz:

XABIER: Ez adi naigabetu, eure izakera apal orren estalpetik atera autelako. Eskartu egioek eure bio-



tzeko kutun diran euskal-ikasle guz-terri, Arantzazun eu ikusiaz, eus-kaldunen biotz-zarradaxoa nabaitu dagien.

ABELETXE

SIKOLOGI GAIETAN (2)

Gogapen barrenkoien kontrol neurriak

«Silva Mind Control»agaz jarraiturik, «Alfa» deituriko egiztapenagaz, kontrolagaz lengo baten laburpen bat egin bai-neutsuen, oraingo ontan ta lengoan guztiz erroturik gure adimenaren ezkutuak sakon-sakonak bai diranez, onetzaz zertxobait geitzera noatzue.

Gure adimen, ulermenak, jakintsuen aburuz, lau mueta ezbardeizko indar agirie-kaz jokatu oi dau. Bata, esanda dogun «Alfa» izenezkoagaz.

Jakin-bide au nabarmentsuena ei da umeekaz ikastoletan erabiltzeko, ta orre-gaitik guretzako interesgarriona ta irakasle orok garrantzi geiago emon bear dautso-guna. Bestea ta bigarrena «Beta» deitzen dautsenegaz; ondoren ta irugarren «Zeta» izentaturikoagaz, ta azkenik orain arte beint-zat amabi bide lez dogun «Delta» deritxoen ezaguera-indar berezia. Lau izen oncik, jakintz gaietan asko oitu oi danez, illara osoan ez ba'da be gerkerazko abadetzetik arturikoak doguz. Gaur «Beta» deitu-rikoaz jarraituko dot, «Alfa»gaz dun ezbar-dintasuna adieraziz, ta bide batez «Zeta» ta «Delta»zko ulermen-gogapenetan labur-kiro jo, zerbaiten ba'da be zuen adimenak argitzeko asmoz.

«Beta», esan geinke, dan danok egunero darabilguzan alkar-izketetan batik bat erroturik lez dagoa. Ez du bestelango gaizta-sunik, ta bere gogapenak «Alfa»renak baiño maizagoak, sarritasun geiagokoak ei dira. Arruntak guztiz.

«Zeta» izenagaz dazauguzan burutape-nak barrurago, barrenerago ei doaz bezaz, ta zentzuzko pentsaketetan erruz darabil-guz. «Delta» deiturikoak ordea guztien artean sakonenak barrukoienak ei dira. Loan, amesetan ta berezko jite ta senean oiñarri-turik daurkiguzanetarikoak.

Amesak dirala-ta lengo baten maixuki idatzi euskun Aita Letona Pasiotar idazle trebeak. Azterkatu dagigun barrito «Alfa» izenezko jakin-bidea, gure gazteekaz al-bidea erabiltzeko. Gure barrunbean batu bearra dogu, ta orretarako begiak itxitzea gaurá egokia. Lenengo lortu oi doguna,

gogapen ta pentsaketa txarrak aienatzea ei da. Gauza baikorra benetan.

Bide zuzena

Bide zuzenena au lortzeko adierazo da-gigun. Adimenak, zentzunak ta almenak bi-tarteko, anitz zeatzasun ta argibide artzen ditu, zenbatzaille, Konputadora bat ba'litiz bezela, ta bereala erdi-oarmen edo sub-konzienteak nasainasai jokaturik bere lan bedegarra txit egokiro artu oi dau. Lernaian edo tenziñoiz jokatzekotan bada, «Beta»n edo itzarrik lez jarraitu bearra izango ebanez ziñez.

Gaztetan danok «Milla ta bat gauen ipuiñak» geienak beintzat irakurriak naiz autuetan entzunak doguz. Beitan guztiriko batuak batzuk lelo samarrak bestetzuk argiegiak daurkiguz. Mailla ezbardeiz baten dantzan dagiela esan geinke.

Ba patu oncin jokabidea lez erdi-oarme-nan idorotzen dogu.

Lotan gagozala?

Zortzi orduko loa ba'da, larogeta bost miñutu ortxe-ortxe gure adimena «Alfa»ko gogapenetan darrai, sentzunen oar-ikasiak dirauskun lez. Ondorengorik? Ba ustari, teoriz beintzat gizaki batek goizetan ogeiren bat miñutu «Alfa»n ba'dago ta arratsaldean beste ainbeste, gauaz lau orduko loaz lar-neiku daukola bezaz.

«Alfa» irakaspidearen jarraile ta Buda jaingo-izunaren gurtzailleak diran praille-budistak iru-lau orduko loaz, osasuntsu da-rraie egun guztian.

«Alfa»ren beste onurarik? Umeen adi-mena ulertu. Euren irudimena, adimena-ren.

Darrai

Zabalpen bat lez da. Umea geienak «Alfa»n bizi dira. Orregaitik ume ta gaz-teen aziera, jakin-bide onetan be, alaikiro ta biotzez artu bearra dogu. Eurentzako arlo barriak erein bear doguz. Lan berezi-berezia azleentzako.

ARREGI'tar JOSU

ERRIALAKO

BARRIAK

Berriatu

TRANPAN JAUSITAKO TXORIA?

Mutikotatik txori zale nintzan. Egaz ebilzanak eskuratu nai! Zelan?

—Tranpan.

Sei urte enitula, baten batek emoniko txanponaz tranpa bat erosi neban. Nire aita etzan eiztaria, baiña semeari poza emorearren, bera izan zan tranpa ipinten lenengoz lagundu eustana. Etxe-alboan, ber-bertan ipini be. Pekorotz eta guzti.

Andik laster... plast! arta txori edo pintxo bat jausi da. Banoia arifieketan eta bizirik ateraten dot. Igesi eztagidan estu-estu esku biekaz artuta zarataka noia gurasoekana:

Aita, ama, txorixe atrapau dot!

Nire poztasunaz aita be poztuten da; baita ama be, baiña erdizka bakarrik, txorixoa emoten deutso-ta. Ni mindu, txorixoa nire eskuetatik libretia nai dau. Zelan?

Txotxo, —diñost— itxixok egax egiten abixia egin dagian.

—Ez, ez, au neuri da.

—Baiña orretara il egingo jak.

—Ez, jaten emongo deustat.

—Txotxo, errial bat emongo euat ba.

—Erriala?

—Bai, autso. Ta itxixok txorixoa orri egax egiten.

Orduarte nire esku bien zeregiña txoria estu-estu eukitia izan zan. Eta bitartean txixe-larrik eldu bajaten ezta-ki praktik busti barik zelan konponduko nintzan. Baiña, erriala jasote arren, luzatu neban esku bata. Beste be, alako baten... zabaldu neban «juari ba» txorixoa nire esanaz.

Ikusten dok —esan eustan amak— ze pozik joan dan txorixoa? Orrek etxuek kalterik egiten, eta danok poztuten gaituezak euron kantuekin. Errial ori itxulapikoan gordeik ba, eta ez tranpak erosten gastatu.

Onetara pozik gelditu giñan danok: txorixoa bere askatasunaz; ni, neure errialaz; eta gurasoak, semearen okererako griñak pixkat ezi zituela-ta.

* * *

Berriatu tranpan jausitako txoria bada, tranpa ipini deustan mutikoa ba-dakizue nor dan. Eta gurasoak, goragokoak.

Berriatu tranpak arrapatu dabe; baiña ez pikutik, anketatik baiño.

Berriatuko Ayuntamentuak, diru-exkas aldia inoiz izan ba-eban be, ifioren poltzikotik bizi izateko amesik ez eban egin, ixillean lan eginda baiño.

Eta ortu larri a (orain zortzi edo bederatzirteko) aprobetxau eban baten batzuk, Berriatu'arrok ezer ezgenkiela, gure erriaren informelotsagarri bat egin eta (laguntzeko atxakian), eurenaganatzeko.

Berriatu itzartu zanerako anketatik lotuta egoan. Alan da guzti be, zapartadaka asi zan bere burua librau nairik. Informe barri bat eginda, Supremora jo eban. Baiña, itxura dagoenez, oingo egia baiño lengo guzurak indar aundiagoa izan dabe, eta ez gaitue aintzakotzat artu.

Eta, jakiña, trapadun mutillak pozik, txoria euren dabela-ta.

Guzti au, ez Berriatu'k ez Ondarru'k ezer ezekiela. Danok lo gengozela iru-lau azerik egin eban lana!

Baiña Berriatu ondiño bizirik dago, naita txorixoa mutiko gaiztoaren eskutan lez izan.

Eta ba-dakigu, Berriatu ta Ondarru arteko soka-tira ontan, Ondarruko Ayuntamentua konforme izanik, konponketa bat egiteko bideak gertatzeko prest dagoala gobernua.

Eta, onetarako, Berriatu gertu dago Ondarru'k bear-bearreko ebala esaten eban Barrio Magdalena izteko.

Mutikoa errialaz baiño onegaz Ondarru obeto gerdialz dala unegaz dot.

Ala, ondiño, «txori ori neuri de ta neuri de» jarraituko ete dau? Nundik

berarena? Ain zentzun gitxiko mutiko agertuko ete jaku? Onako gauza bat mutiko bateri parkatu leixiko, baiña Ondarru'ri, ez.

Jazo diranek jazo, onako konponketa bat danontzat ez ete da oba?

Eta nok ukatu Ondarru'ren etorkizunarentzat be oba litzakela?

ERRIAL BAT itxulapikoan baiño ERRI IL BAT kolkoan naiago ete dau?

«BIZI-NAI»

Markiña

Lengo baten gertatua. Nun? Obe ixilik euki. Neska-mutil koskonduta talde bat (oso progresistak, ori bai!) akeitetxe baten, Ducado'nen kee ta Whisky'ren lurrin artean ebillan zarraparra utsean, gure gizarte gaixo ta atzeratu au konpontzeko bide-billa. Ez dabilz adarretatik. Sakon eta suñaira jotzen dabe. Azken baten onan diño eurenariko batzuk: *Bai, lan pixka bat egitea ondo jakok. Besteak, barriz, ez dagoz konpromete, sakonago doaz-ta. Lana?* —diño— *Egin dagiela gurasoak; guri ezer esan barik ekarri giñozean mundua-ta.*

Au entzutean, alboan ordurarte ixilik egoan benetako prakadun batek, irakitan zutundurik: *Mekasuen zot!* —diñotse— *Alde eizazue beginen aurretik, eskuetan dodan makillie lepuetan dantzan ipintie nai ezpozue. Baita agudo alde egin be!*

Akeitetxe bakotxean ta beste baztar askotan gizon orren antzekoren bat agertuko ba'litz, *atzerantza ala aurrerantza joango ete gintzatekez?* Gabaro'ko ta Santimamiñe'ko kobetan bizi izan ziran gure aurretiko *koiaduak*, neska-mutilon zentzuna ta jakituri sakona euki ba'lebe, nun ez ete giñan onezkeroko egongo?

ITZALDIAK

Emen izan gendun aurreko egun bitan Laspiur Jauna itzaldi batzuk egitera etorria. Lenengoan bai, baiña bestean ez zan Kirkillik agertu. Gauza jakingarri ta bikaiñak esan zitun itzaldi aretan, eta egoki esan be. Oraindiño jai barik dagon *euskera batuan* ekin ei eutsen, izlariak berak autortu eban.

Gure Lege Zarrak ez, baiña Marx'gen jakituri-tanta batzuk aitatu euskuzan. Gogai batzuk jatorkez orain:

Etxe-konpontazillea Alemania'tik ekarri bear izateko, zer jazoten jako gure Aretx bedekatuari? Ez ete dauka adar barriak emoteko zumo ta indarrik? Zugatz orren ingurua, ain zuzen be, alemanak-eta kiskaldu euskuenetik, bere sustraiak be jota geratu ete dira? Kanpokoai laguntza eske joan baiño len, ez ete litzake obe, etxea etxekook etxekoagaz barrizatzen alegintzea? Lapur bat uxatzeko, beste bat ekarri? Olan ez jaku erreza izango etxearen jaun eta jabe *geu* izatea.

Aztertu ta sakondu daiguzan gure Lege Zarrak; ez euron itz soilai begiraturik. euron asmo, gogo ta espirituari baiño. Bear ba'da, or aurkituko doguz bideak; gure Erriaren gaurko arazoai egoki erantzuteko. Leenago be euron bidez egin zan gure Erri au *eredu-erri*. Beraz, zaindu ta indar-barritu, lenengo, geure esi-barruko Zugatz, geure lur eta odolietik sortua. Ta gero, premiñazko adarrik falta ba'jako, edonungo mentuakin osotu; baiña ez edozelakoakin; Zugatzak, bere nortasun berezia galdu gabe, egoki ta ondo artuko dituanakin baiño. Slogan eta modai jaramonik egin gabe.

Orra gure gazteak egin leikeen lan zoragarria, batez be Ikastetxe Nagusietan diarduenak.

«KONTU KONTARI»

Ixillaldi luzetxo baten ondoren, orra nun jatorkun gure Abeletxe begikoa bere gatzontziagaz. (AGUR 127). Gauzak agokutsutuaz gainera, beste doai bereizi bat be ba-dau gatzak; ez dauala arrik sortzen. Zauriai min emotea izan legi. Baiña errua ez da gatzarena, zauriarena baiño.

Errezago da —diñosku idazleak— *agiña* ataratea, *agiñeko miña kentzea baiño*. Eta tri-

palakin zer? Miñok, geienbat, jan-edan larregi ta ez-egokietatik sortu oi dira. Baiña gorantz daroen abiadeagaz, gairizka aundirik egiteko arriskurik ez dogu izango geienok, eztegetara edo deitzen ez ba'dauske. Bai, oster, gerriko sendoak estututzeko. Baiña ba-dagoz jan-edarien artean be, tri-palak sortuak gairera, zera bigundu ta zirintzen dabenak. Kontuz olakoekin! Euron ondorenak ez dira, Kirkillok ain maite ditugun udabarriko landa ta lorategiak apaintzeko. Ulertzen ez dauana, bego *inuzente-inuzente... txakurrak buztana tente*.

ZERUTXU'REN BATZARRA

Aurreko igande baten ospatu eban «Zerutxu Alkartek» urteroko Batzar Nagusia. Egia esan, lagun gitxi ta laguntzaille gitxiago agertu ziran. Erriaren arazoekin ain kezkatuta bizi dirala diñoenak nundik ziran? batez be gazteak?

Alkarte orren elburua, elbururik ederrera dogu: gure euskal izate ta kulturari, ta kultura orren inguruko adar guztiai eutsi ta indarra emotea; euskaldunoi benetako euskaldun lez irauazotea. Erriaren alde egitan lan egin nai dauanak, ba-dauka nun.

BATEO TA ERIOTZAK

Bateoak be izan doguz. Leire, Garikoitz, Izaskun, Asier... Izen ederrak, benetan, umetxui ipiñitakoak. Ba-dakigu, umcon guraso jatorrak, euskal izenak bakarrik ez dirala nasai lotan geratuko. Ikastolarik ederrera euren etxeetan izango dabe. Bedi! Zorionak umetxo ta gurasoi!

Atzerri au ustekabean utzita, Aitarenera joan jakuz oraintsu Arriola'tar Erramon eta Urizarbarrena'tar Jose Mari. Biak oindiño sasoe oneko gizon zindoak. Goian Begoz! Otoitz bat euron alde. Senitartekoai gure samin-agurra biotz-biotzez. Agur, Adiskideok, laster arte!

KIRKILLAK

Berritu

Euskal-Erriok emen Bizkaian

Uri politik asko ditu;

Euretarik bat gugandik urran,

Ur zaitugu zu, BERRITU...

Beste asko lez aspaldi ontan

Eder baizara t'auditu,

Alboko erri aundiagoak

Zu jan, iruntsi nai zaitu.

Aldamenetik, azpi-jokoan,
Jabiltzuz azerioak;
Banakak baño ez diran arren
Olako etsai gaiztoak,
Kalte aundiak egin deustez,
Errez ez konpontzekoak;
Okerkeriok zuzendu nairik,
emen gaukazuz zintzoak.

Ba dakigu, bai, auzi orretan
Ondarru ibilli dala,
Baiña bertan be banaka batzuk
Joko ortan izan dirala;
Olan jokatzuz ingurukoei
Ez deutse-ein kalte makala,
Eurakutsirik ezdazauela
Maitasunaren azala.

Antxiñaldiko gure kondairak
Garbi dagersku BERRITU;
Orain norbaitzuk galdu nai arren,
Guk daigun bizi-barritu;
Azpikeriok, zintzo jokatzuz,
Bear ditugu garaitu,
Eldu jakuzan larritasunok
Arin daitezen uxatu.

Ez dogu, ba nai gu Ondarroak
Bere altzoan artzea,
Orixe da-ta gure-erriari
Daukan izena kentzea;
Ez geunke gura erri bat illen...
Orren errez ikustea...
«Geuria da-ta, geuria da-ta»,
BERRITU erri maitea.

Erriaganazko maitasun utsak
Orain alkar batu gaitu;
Zaindu daigun, ba, olantxe beti
Ain maite dogun BERRITU;
Gaur arteño lez erritxu onek
Bizirik nai dau jarraitu...
Ez erri aundi bateren mende,
Morroitxo bat lez amaitu.

BARBIN

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK
OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK



ZAZPI-KALEAK

CASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

ERRIATZAKO

BARRIAK

Arratia

Kukuak jo dau Kutzte'n kuku, Sarasola'ko sasiar txepetxak txipirritxi, Arantzazu'n zazpi andrarentzat kazuela bete ar-kume-txiki.

Zazpi ziran maiaren inguruan, erraldetik gorako artxoak koipe-lurruntzan, guztien erdian, maisarena be bai, ba-zan, baiña neurrian.

An bai ba-zan giro txeratsurik, odola barrizterik eta Udabarriari ongi-etorria egiterik.

Astegunetan langille, jaietan jaizale; eta kuku entzutean Udabarria loratzean, nork lotu ta nork euki emakume amamatuak etxean!

Etxe ta inguruak zaintzen oso dira ardura-tiak; arrautzak txitadun egiteko oster... eperdiz dantzaregiak

Kukuak kuku, txepetxak txipirritxi...

* * *

Gizon izatera iritxi edo eldu diran gazteak bere, ba-doguz erri onetan Pitiño'ren semea, J. L. Atutxa, erbestetik erriratutako bat eta Etxebarria'tar bat be bai?

Urrengo urtean gudaritza egitera joan bear-ta deia izan eben. Eta udaletxean egitekoak egin ondoren, bakoitzaren eretxiak eta usteak gizon egin zirala izanik, erriz-erri joan ziran, eguna emotera, tximistetsu ta pozik.

Un, do; bat, bi...

* * *

Beko ibarretan neguan ardauz ta paitarrez gibela erre ta beaztuna anditu yakenean, mendiko aize garbiaren leia biziz eta ur gardenaren egarri (?) Kereñako-Atxa'n izan ziran, Gorbaie'rako bideetan gora naiz beera ibiltzen diranentzat iturriak garbitzeko asmoz joan-da.

Kerexako-Atxe'ko etxearen jabeak, Atutxa Leji'k, Atutxa Xabier'ek eta Etxebarria Ina'k, izaten dabe arrokeri ta erronkarik goi artako urari buruz. Eurak baiña opeko auzt-narrutik drangada.

Noe'ren edariak gizonari naizta bizia laburtu, urak baiño bestelako espiritua ta indarra ditu.

* * *

Kain'ek Abel il ezkeroz eriotzaren ayotzak ez dau aterrik eta asti-galtzerik. Eta ba-goaz, ez arorrik, lurraren erraietara, gaur a, biar ni, etzirako i.

Orangoan Ozerin'tar Josu adizkide ononak Zeanuri'n GERO ARTE esan dauskuna (G. B.).

Ozerin'tar atsekabetuentzat, AGUR onen bidez, nire samin-agurrik sakonena.

LANDAJUELA'tar A.

Bakio

BAKIO

Aimbat seme-alabaren ama on, euskaldun eta kristau zintzoa, Uriarte'tar Erramona, laugeta urteaz, lengo illaren azkenengo egunetan joan jakun Aita Orokorraren Etxera, betiko zoriontasun tokira. Amaika seme-alabetatik, Kristo'ren Eleizari lekaidetsein bi emon eutsazan.

Erritxu polit baketsu onentzat, bere aldeko illeta-eleizkizunak, egundoko jazoera eder-andiak izan dira. Praille baten ama zala, jakiña, onek esan bear illeta-mezea. Jauhari au Barturen'tar Paskual, Deusto'ko pasiotarra ospetsua da, «Euskal Meza» egin ebanetik batez bere.

Amaika pasiotar joan giñean illetetara, ta il zanaren semeagaz 9'k esan genduan batera Mezea. Aita Barturen'ek, ezagun eta lagun asko dituzalata, lagunarte andia eldu zan gure errira. Berrogei berebil baiño geiago zenbatu leikeazan inguruetan. Parroqui edo Erri'ko Eleiza Nagusia ondo bete eben etorri ziranak. Ezin-esanezko biotz ikaraz abestu zan Mezea euskeraz. Nok ukatu euskerazko eleizkizuna atsegin yakula euskaldunori. Omili edo irakurgaien atzalpena be, dana euskeraz. Gure Jauna be aimbatek artu eben.

Jauartzearen ondoren, azkenengo Meza-otoiak baiño lenago, ildakoaren semeak berba egin euskun. Bere amaren illetetara etorri ziran danei emon eutsazan esker zintzoak, bere ta beretarren izenean. Eia oroiari gozo bat lez eskertuz, amaren errietatik atera eban musika-zaletasuna adiezi ta erakusteko laguntza ari, berak egitiko eresia, euskal-itzez, egoki ta samurkiro abestu eban, danentzat eresaldi ederra eskeintuz.

Goyan bego, ama maitea. Bere seme-alaba ta sendeak artu beie gure tamal-agurrik zintzoa.

EGILUZE

Bermio

Bermio'ko Abesbatza berriz berbiztutzen da. Aspaldiko urteetan deseginda egon ondoren, berbiztutzeko gogoagaz dabilatz lanean «GARBOLA» mendigoizale taldekoak. Euren artean ba-dira abesbatz zarrean parte artu zutenak, eta orain gazte talde oneri bultzakada bat emotera datoz, Jose Antonio Egia zuzendari dala. Ekin egin ezkerro, dana lortzen da, aurrera ba mutillak! ea gure erriak eukitzen dun bear dogun abesbatza.

Epaile onen 24, igandean, ibillaldi neurtu bat euki dogu Bermio'n «GARBOLA» talde gazte onek antolatuta. Bost orduko ibillaldia, Bermio'ko mendietatik. Erriko enparantzatik urten goizeko 8'etan, bikoteetan, eta Demiku, Katillotxu, Solube, Mañu eta Garbola tunturrak igon, eta berriz Bermio'ra.

Lareun bat mendigoizale batu gara Bizkaie'ko ainbat taldekoak. Gure errian aspaldiko urteetan ez da mendigoizale geiagorik ikusi. Euskal endak oraindik irautzen du. Zelan eldu, talde ontako gazteak, ikur bana eman dauskue oroi-garritzat. Egualdi ona ere gugaz izan da eta guztiok pozik.

Garbola talde gazte sortubarria dala, benetako lan ederra daroa aurrera, kirola eta kultera. Gaztedi ona dago bazkide-tuta eta olantxe jarraituten ba'dute, lanak emango dautsie bere frutua.

Itxas gaietzaz, esateko gutxi dago oraindik. Txalupa geienak kaiean aurkitzen dira. Alde batetik euki duguz eztabaida batzuek petrolio-a dalata, salneurria gora neurri gabe, batzarrak ugari, zalantzak zenbat nai, zigurtasun gabe gelditu gara, beste aldetik egualdi txarrak eta arrañik eza. Baiña itxaropenak ez dogu galdu bear, eta ementze gagoz erne aurten ere gure itxas ibillal-diak asteko. Euki daigula ba, arraintza ugari.

RENTERIA'tar JOSEBA ANDONI

Tolosa

ANTZERKIA IKASTOLETAN

Tolosa eta inguru errietako ikastol eta kolejoak, beren antzerki saioak egiteko aukera ederra ba-dute, orain CIT'ek eratu duan nor-geiagokoan.

Azaldu nai duten ikastol eta kolejoak, beren izena Jorrailla'ren 20'garrenetako eman bearko dute.

Antzerki saioak Loreilla'k 27'garrenetik Garagarrilla'ren 9'garrena arte izango dira.

Euskeraz edo erderaz, berdin antzeztu ditezke, ta Epai-maiekoren aurrean indar berdiña izango dute izkutz biak.

ABESBATZAK

Aurten ere Tolosa'ko CIT'ek eratu du Abesbatz Leiaketa. Aurten, sariak obeagoak izango dira: abots naasiokak 75.000, 50.000 eta 25.000 pezeta, domiñekin. Abots berdiñekoak: 50.000, 30.000 eta 20.000 pezeta, domiñekin.

Aurreko urteetan bezela, beartutako abestia euskeraz, eta beste bietatik bat ere euskeraz bearko dute abestu. Au da, irutik bi euskeraz, gutxienez.

Beste sari berezi bat: sariarik irabazi ez arren, puntu geienen ataratzen duten euskal-abesbatzentzat 10.000 pezetako saria izango da.

Abesbatzentzat Abesti-Sortze III Leiaketa ere izango da. Berebiziko saria izango du: 100.000 pezeta (eun milla).

Ea bada, euskal konpositoreok, ez esan orain laguntzarik ez dezutela. Saiatu gogor!

TXAPELA-IPINTZE SARIKETA

Sariketa au Tolosa'ko «Txinparta» Alkarteak eratzen du. Berpizkunde Pazzo Bigarrenaz egiteko. «Bai gauza ederra dala euskalduna txapelarekin», «antirrazizten» baimenarekin diogu.

Ontan, bi sariketa izango: bat, emakumeentzat eta bigarrena gizonezkoentzat. Ea, bada, nork obeki jartzen duan txapela. Txapela gurea dalako lendabizi, ta bigarren sari pillo bat banatzeko dalako azalduko diranen artean.

Ongi, bai «Txinparta»!

Zezen plazetan axaxaturik txinpartak ditu zezanak; txinpartak ere bizi-bizirik irikitzen txanpañak, txinpart dizditsuk burni-gorrici ateratzen malluketak, parranda egitxi joan geranean gutxigo ez emazteak; indar geiago dute, ordea, «Txinparta» baten... txinpartak.

UXOLA

Galdakano

ESKONTZA

Igaro dogun Epaillean zakenengo larunbatean, erriko txadon nagusian Meabe'tar Jon eta Garabietar Maite erriko neska-mutil zintzo euskaltzaleak eskondu ziran. Ea ordua zan adizkide agurgarriak, biziera barri ori artuteko; baiña tira, iñoz be ez da berandu zorionerako ba'da. Gure zorionik beronenak AGUR onen bertartez.

KIROLAK

Aspaldiz egoan erabagitan artuta, pelotatoki apain bat egiteko, bertoko Elexalde'ko Jolaseta barrian, ori, aspaldiz egitekotan. Oraingoan, baiña, laster egiz egingo dalakoan gara, asiak dira-ta egiteko dan tokira egin-gaiak eroaten.

Pelota-toki ori egiteko artu dabena-kaz oraindik ez gara aurkitu ta ez dakigu ze neurri ta zein antzerakoa izango dan, baiña, bear zan bezala sarratua ta oso egokia izango ei-dana bai. Ea urrengo izpar batzuetarako argibide geiago emon al ba'dautsegu gure irakurleai.

Erriko gai guztiak ardurea emoten dauskue-ta, zelan ez kirol-arazoak be, kirol-darra izanik? Orregaitik geiago be Epaille'n azkenengo igandean «Santa Barbara» ostikoketa landara joan nintzan an jokatutzen eben Barakaldo'ko «Juan Pedro» ta gure erriko «Galdakano» ostikoketa kideak ikustera. Eta egiz, aspertuta urten neban. Aldi ontako Galdakano'ko ostikolariak jokatutzen daben baiño gitxiago ezin legike jokatuz, kirol kementsu ortan. Ori, landea egutaldi onagaitik-edo zelai-zelai eguala, pizkat dakienak jokatuz-zeko eran.

Barakaldotarrak be ez eben askotzaz geiago jokatuz, baiña bai adoretuago ta, orregaitik edo, bat eta utsa irabazi egin eben. Dakiguz, ta tamalez, azkenengo lerroetan dabilatz gure «Galdakano»-kuak baiña ez gara arritzen, geiago egiteko ez dirala al, esan legike-ta.

«Ganguren» mendigoizale taldekoak, igandero dabiz mendirik-mendi baiña, igandekoak ibilketa andiak egiten dabez, Jorraill onen 21'gnean ospatuko dan ibilketa-neurtu luzerako trebetuz-zeko asmoz-edo. Igaro dogun Epaillean, azkenengo igandean be, ibilketa luzea egin eben gure mendizaleok; joan ziran Balmaseda'ra, ta bertatik igon Kolitza ta andik Burgueño'tik Maza de Pando zeur Karrantza'ko goi auzunera. Guztiz bosten bat orduko ibillaldia. Nor aurkitu leiken neska-mutil gogotsu onekin ibillaldi luze orreik egiteko eran, bai orixe!

ZAR-SARIDUNENTZAT

Areto ederrenatariko bat gertutzen dabiltz erri ontako ingururik onenian, Bilbo'ko Erri aurre-ki Kutxa'ren bitartez. Ez dakigu ziur baiña, ba'ltizake lerro oniek argia ikusi dabeneko azkundua, erderaz esaten danez, «inagurututa» aurkitzea. Orduan, sartzen itxilen ba'dauskue beintzat, esango dogu zelako apaiña ta zertarikoa izango dan be.

Erriko enparantza aldamenen jaso barri dan etxe eder apañeko lenengo maillan aurkitzen da bera. Tamalez zar-saridun guztiak ezin izango dira etxe ortara sartu al-izan, zerbait txindi euki bearko ei-da Txindi-Etxe ortan, bertara sartzeko.

Arrasate

JAI BAT

Juan zan illaren 31'an eta «Danok» Alkartek eratuta eta emengo «Gurea» antzez-tokietan, txistulari eta abar. Danok oso ederto saiatu ziran eta txalo ugari irabazi. Urrengo, sari-banaketa, eta 50 baiño geiago izan ziran sarituak eta ezin emon danen izenak.

Lendabiziko saioan Ikastolako neska-mutikoak jardun zuten: abesti, bertso, ipui-kontaketa, txistulari eta abar. Danok oso ederto saiatu ziran eta txalo ugari irabazi. Urrengo, sari-banaketa, eta 50 baiño geiago izan ziran sarituak eta ezin emon danen izenak.

Aurretik gure Zaitegi'tar Iokin apaiz-euskaltzaleak itz-jardun eder bat egin euskun. Esan zuana izan zan, gaurko umeak euskal-kulturarako daukaten aukerarik ez genduala izan gure gazte denporan. Orregaitik eskerrak emon zien gurasoei umeak ikasi dezaten egin izaten duten opariagatik. Beste orren-beste eskeini zioten andereño eta irakalei, euren lana goratuaz. Baiño akats-txo bat ere aitatu zuan: umeak Ikastolatik atera bezin laister, euren artean, batzuk, erdera erabiltzen dutela, eta tamalgarrria dala. Kontuz-ba, batez ere guraso maiteok eta arduratu zuen ume oek oitura galgarri auetzaz jabetu ez ditezen. Ondo dago erderaz ikastea, baiña gure euskera bastertu barik.

Urrengo Donosti'ko «Giñol» talde bat agertu zan eta au izan zan umeak artu zuten zartada audienetako bat, an ziran 500 umeak egin zituzten barrak eta solaz aldiak etzaizkiote bein-goan aztuko. Oien barreak, uluak, antzezlariet erantzuten —jakiña euskeraz jardun zuten— oso pozgarriak izan ziran, bai umeentzako eta ain ume ez gintzanantzako. Pozgarria da baita, umeak ederto ulertu eutsolako «Giñol»-eko antzezlariet eta orrek erakutsi dausku umeak ederto sakonduta dagozala euskera garbi eta errikoian.

Zerbait geiago esan leiteke jai onetzaz, baiña ezin luzatu. Bakarrrik, eskerrak «Danok» Alkarteari, Andereño eta Irakasleeri eta Zaitegi jaunari ain itz-jardun polita egin zigulako eta, aztu barik, Donosti'ko «Giñol» taldekoeri. Eta azkenez zorionak sarituak izan ziran umetxoeri ta onein gurasoei. Esan bear dot, baita ere, aretoa, goi eta be, dana umez eta nausiegaz beteta egon zala.

«ALMEN»

Ikastetxe au, Ezkoria'ta'ko lurraldeetan jasota dago, eta asmo txaloga-irakasketa indartzea. Orain arte zerbait egiten zan, baiña emetik aurrera indar geiagorekin egiteko da. Ez lendik euskaldun diranekin bakarrik, baita euskeraz ez dakitenen artean ere. Ederto deritrat erabaki eder orri eta guztiok lagundu bear diogu bai diruz baita beste laguntasun guztiakin ere. Aurrera ba-da eta jarrai bide ortatik, gure Euskalerri maitea gurtu eta jaso dezagun, aspertu barik alegiñak egiñaz. Orretarako hide asko dagoz-eta.

ERIoTZA

Tamal audiz euskal da errian emakume zintzo eta euskaltzalea izan zan Billar eta Kapanaga'tar Andresa'ren eriotza. Goian Bego. Atsekabeen laguntzen dautset une margarri ontan, bere seme Ajuria'tar Peli, gure lagun onari eta errain Mirari'ri, eta seme-alaba ta beste sendieei.

BASA-JAUN

UDALAITZ

DERIO'N

Mungia aldetik nator, Artekakarra'n bera. A zelako laprastadea egin dodan, bide nausi ondoan, Derio'ko Artea'n sartzean.

Ni be Jaugoikuak egiña naz. Ba nekarran buruan deriotarrei zitalkeriz norbaitek asmatu eutsen esakera bat. Zazpikia izan, eta sartu orduko, baserri baten aurreko munitxoan bertan igitagiazag belarondoak batzen ebillan buruko zapi-zuridun andrazko igar bateri, egunonak emon aurretik, esaten asi.

Zorionak andrea, Gaurko neskak ez leukiez errez zuk bezin artez abarka zabal orreik batu eta belauñ oñeraño ain dotore lotuko.

Gizon, nik eta zuk onezkero matsak batuta eukiko doguz, itxuraz beintzat, ez? Egunon lenengo ta gero koipeak.

Benetan, lenengo egunon. Eta koipeak lapikorako lagata, mingain puntan darabil-dan zerbait egiña izan eite leike?

Gaur egiña zer dan iñok ba al daki?

Ara. Zamudio perrotxiko erria, Lezama... (gaur beintzat guzurrea da beragaitik esaten zana), eta Derio'.

Bai igarri be atsoak nora jo nai neban, eta nik berba erdika bat geiago esan aurretik, berak zoli:

Derio? Zein erritan ez da urtean bein kandelario? Jasan al izango eite doguz gure erriari ats eragin nairik datozen tximintxoak? Tximintxena gogoratu nai bazendun, jakin kanpotik ekarri ezik guk emen ez dogula olakorik. Entzun?

Ez dakit andreak igarri eban nire barruko atzerakadea. Berak bai jarraitu:

Gizona, zareana zareala, mésedeu edo bera barik, jakin aurretikoen esakera: «Zuk niri esateko Txorierrikoa, nun daukazu erririk txori bakoa?» Eta esakerak dotriñea dira. Ori, gaur ortik ikasi nai ez dozuen benetako dotriñea.

Ez beti. Jakiña, dotriñea ez da iñori irri egin eta izorratzea.

Garizuna onetan deriotar dotriñako txartela artzeko, ikasi bearko dogu ba bertako zerbait. Asi gaitezen:

Lara lere lerio
Zamudio ta Derio,
arbela likaz dario
txoria egaz gaindio.

Gamiz eta Derio bitartean menditxo bat dago: Berreaga. Ez da mendi gaitza. Baiña derioarrak kakua sartu eragin nai izaten dauste. Arro eta destañez esango dautzue: Esan ezetz ogei bidar naste barik esakera au: Bealek Berreagara zerbait daroa; ba daroa, berea daroa; baba errea egoan daroa.

Bai? Ez dala korapillotsua? Asi, ba, beste onegaz: Berreagako txekor gorri adar okerduna baiño txekor txakurragoren urratsik Arratzun arraztu ezetz.

Ekin, al bestean, eta goazen aurrera.

* * *

Goraka doa erri au. Bilbo'ren arnas. Emen ez dago baso, solo eta baserrien buruasterik. Lur baltza urre gorri biurtzen dator. Len esan zeinkean: «Asua ta Erandio, Sondika ta Loyu, arto asko ercin eta gari gitxi koiu». Edo beste au: «Derio eta Erandio, Sondika eta Loyu, alegin egiñarren arto gitxi koiu».

Gaur basterrak beteten datoz. Soloak fabrika biurtzen. Etxe barriak bide egalak bete dituz. Auzoak alkartzen. Santuen erria deitzen eutsen len Derio'ri. Eta ez abade-etxeagaitik. Emengo auzoak santuen izenez agertzen dira paperetan: San Antolin, San Kristobal, San Esteban, San Isidro, Santimamiñe. Auzo txikiak danak. Orain eun urte 250 bizilagun. 1966 urtean, bi milla geiago. Gaur Bilbo'ren estadistike-tan ikusi bear.

Gernika'ko batzarretan 72'garren jarlekua eukiten eban bertako ordezkariak. Bilbo'tik Lezama'rako tren bertatik igaroten da. Bilbo'tik Bermeo'rako bide zabala be bai. Baita Erletxes'tik Erandio'rakoa be. Baiña kontuz bide kurutzetan. Zur ibilli. Laster artu leike emen beste mundurako bidea.

Bizkai'ko abade-etxea, seminarioa, bertan dago. Andiegia. Zatarregia. Andikerien denporetako agerpide nabarmena. Zoroetxe baten-tzako asmatan eskeletoak egiña. Gure gerratean, gerrarako lantegizat erabili ziran bertako azpiak. Bilbo'ko obispadutza, gotzaingoa, irasi-barri. Aldundiaren bete-beteko eskintza. Gaur gotzaingoarentzat neke eta buruaste pixotsua. Etxeari buruz diardugu.

Bizkai'ko Aldundiak, Diputazioiak, ba dauka emen abere edo ganadu berezientzako etxea. Bizkai'ko ganadutza indar barritzeko asmatan sortua da etxe ori. Erbestetik ekarri

edo bertan sortzen diran abereen ikastegi eta leku berezi eta ondo zaindua. Ardura eta arreta andiz jokatzen dan entzutea ba dauka etxe onek.

Orrez gañera gaurko industriaren erruak zabaltzen igarten dira. Bilbo berde toki eta arnas leku izateko diran inguruok ez eite dira ariñegi bete eta zabartuko?

* * *

Derio'k nekez lortu eban Gernika'ko batzarretan bere nortasuna. Origaitik 72'garren jarlekua. Eleizatetan azkena. XV-XVI gizaldietan 30 sutondo edo bizitzagaz eza-gutzen da. Erri langillea. Biargiña. Zamudio'n burdiñola on bat ezagutzen zan sasoi orretan. Muzkiz'etik eroaten eban bertara burdinkia. Ango mendietatik Asua'ko portura. Eta emendik Zamudio'rakoa deriotarrak egiten eban. Zeregin orretan agertzen ziran Gastetua eta Maurika abizendunak.

Lengora jota, 1688 urteko Iralla'ren 28'n egin zan batzarrean emon eutsen Gernika'n bere nortasunaren ezagueria.

* * *

Derio'n euskeraz jakin ba dakie. Egin, ez asko. Asko zenbat dan? Parkatu. Gitxi egiten dala esanda, ez daukagu zetan erantzun orreri.

Eleiz ondoan abadien zine bat dago. Ondo? Asieran polito. Gaur erri txikietan be zineak ez dauke indarrik. Origaitik ez dauke jaubeak gogorik bertan jarraitzeko. Zinean, jakiña, erderaz egiten da.

Eta eleizan? Erri batzuetan gitxi egin dirala ta asarre agertzen dira euskal-zaleak. Emen, erantzunik ez daukelako larritzen diranak, abadeak dira.

Eta euskal ikastolan? Derio'n ez da ezagutzen garrik umeak olako ikastolara bialtzeko. Erri askotan, ikastolei bizirik emon ezinda badiltz, irakasle edo maixu euskaldunik ez daudelako. Emen gertu egozan beste ikastola bat sortzeko, baiña neska-mutillik ez, umerik ez, au da gogorik ez bialtzeko. Gurasoak naiago dabe erretetik jokat.

Igarten da Derio'n euskera bera doala. Gero ta nekezago eta lotsatiago berba egiten dabe. Mingarri da esatea, baiña ezin eskutatu.

Derio geitzen, ugarituten eta zabaltzen badua, Bilbo'n bizi diranen kontura da. An bizi diranak ez dira beti bilbotarrak. Bilbo'n ba dakigu zelako indarra daben euskerak, ba dakigu angoentzako zer dan gure berbetea: santuen erlikia. Zoritxarrez gero ta errezago lagaten dogu santuei gure biotza erakustea.

Ukatu ezin leiken giza-legea da santuei mun egin eta illel betiko bakea eskintzea. Kontzientziko agerpidea.

Derio'n dago Bilbo'ko iltoki nautia. Ederra. Ildakoak auts biurtuta egonarren, monumentu aberatsen kerizpean dagoz biztuera barria itxaroten. Arri eta marmolak, burdin eta egurrak, edozein artisten irudipenen biurrikeriz landuta ipiñi leikez. Monumentu andi falta: gure illel betiko bakea euskeraz opateko, eragozpen ugari. Kurutze ixil askok gure berbetearan negarra itto egin dabe euren arritzko gogortasunean.

* * *

Derio, gaur, Bilbo'ren auzoa da. Baiña oraindik erri dalakoan.

Artxanda azpitik tunela egiten danean, bilbotarrak tatarrez sartuko dira emen eta emengoak bat batean bilbotartu. Ori ikusia dago, edo beintzat, gaurkoz, igarria.

Esakera zarra da len itaunduten zala: Nondik dago Bilbo'ra bidea? Eta emengoak erantzuten ebela: Aki, aki por aki, Makoa'ko portaleti, aurreran bost gaztaiña, aretzen beko aldeti.

Gaur egokiago izango litzake nun urteten dan Bilbo'tik itaundutea. Eta konturatuko giñateke urteera bakarra daukala: Artekakarra. Ain zuzen be gu sartu garean bidea.

* * *

Ba goaz Derio'tik. Unamuno'k diñonez, eurak ume zirala arrokeria zan bilbotar umientzat Deusto, Portugaleta eta Derio ezagutzen zirala esatea.

Gaur, Derio'n gogozalakoan, Bilbo'n gabiltz.

Bilbotar txinberuak, igarri barik, txori-erriar biurtu dira. Jakiña, laster izenik be ez yako geldituko Txori-erri baketsu oneri.

A. ZUBIKARAI

ARABA

Egoalde ta Sartalde, Euskalerrri'ko alderdia da Araba. Bizkai ta Gipuzkoa'kin iparalderantz pikokatuz dagozan mendiak egiten dautsoz bere aurrean orma aundiak. Sartaldean Kantauri mendiketea agertzen da. Eta Ibero ibaia urrutitik ta luzean, Burgos ta Logroño'gaz, laterri-muga daga. Araba eskualde ederra, goi-zabaldian sarturik; ibai, mendi, ibilbide, elkarbidez urratua, zelai ugartitu bat da. Bere alderdi ikuskizunak aldaketaren lillurea dabe. Ango mun-dixka leunak Prantzi ta Itali'koak gogoratzen dabez. Kantauri'ko ezitutasuna ta Gastelerrri'ko garraztasuna ditue erabatean.

Mendi ta basoetatik leunki, mara-mara jatsiten dira errekek, ibero ibai aitagana; euren igaropide, bazter ta inguruetan zugazti, baratz, ortu, lorategi, solo, eiza ta arraintza askotariko ta ugari sortuazo ta ernatuz. Noiz edo bein tontor baltzetatik agertzen dira gaztelu erauskiñak, euskaldun, belauñ jator ospetsuen sortburuak.

Bizkai'ko muga ondoan, Gorbei azpian, urte batzuk onantz, alderdiak bertan-bera itsumustuan aldatu dira. Erdiko Itxaso (mediterraneo)'tik okertu, alde eragiten dauzan urak geure Kantauri'ra ekarteko ur-osin ikaragarriko aundi luze ta zabala egin dabe, argindartarako ta edateko be urak bilduaz. Suiza'ko toki ederren bat dala esan geinke.

Sartaldeantaz Mena ta Ayala'ko aran busti, limuri, orlegi Bizkai'koen antzekoak dagoz. Laudio'ra ta orain beste asko Araba'ko errietara be bizkaitar ta gipuzkoar lagintzak doaz, an Ekonomi-itupena da-goalako.

Araba Errioxa'ren aizemaille

Eskualde Egoalderantz, Kantauri mendikate ostean, zabaltzen da Araba'ko Errioxa. Bere erriburu Biaizteri (Laguardia) da. Erri zarra ta edertiz apaindua. Ardao ona egiten dakie bertan. Antxiñako uria ormaz inguratu, jauregiz beterikoa Salazar'ena ta, Santxo Abarka errege euskaldunak Samaniego'n irasi ebana langoak. Idazlari danak, Galdos'etik Baroja'raino erri onetzaz jardun izan dabe.

Biaizteri ta bere antxiñako oroikarrien oiñetan, Errioxa'ko alderdi lillugarriak zabaltzen dira. Aretx artetik mastegira jatsi bear dogu. Sagarrondotik, oliboondora. Or agertzen yakuz Labastida, Elciego, Samaniego. Orko lur emoilreak, guda, sarraldi ta anai-burruken tokiak izan dira. Alboan, Peñacerrada'ko orma-inguruak jasoten ditu,

Espartero gudal-nagusiak, burruka-gogor baten ostean, artu zituanak lenengo karlistaldian.

Gazteiz, uri jaun-jauna

Araba erdian egotaro, lur ta alderdi desbardiñak nagusitzen Gazteiz dago. Uri jaun-jaun onek, arabar arrietako arri zu-ziekien eginda izanez, lillura zoragarri berezia dau. Zati bitan dago erdibituta. Zati zarra tontor baten bizkar ta gerrian, ta zati barria zelaian. Jauregi zarrak gizaldiz urregorrituak agiri dira: Bendaña, Belasko, Maeztu, Arrieta, Eskoriaza-Eskibel'tarren ta ainbat geiagoean.

Gazteiz'ek uri aldakorren lillurea dauko; ez dago zaldi ganean lez bakarrik Kantauri ta Gastelerrri artean, baita joandako ta etorkizunen aldietan be, olan bere nortasunaren mailladi bereizgarriak sortu-araziaz. Ekonomi-itupen'aren babespean gero ta geiago agertzen dira langintzak, VI Santxo errege euskaldunak, XII eunkian, irasitako uri zar onen inguruetan.

Baiña ez da orregaitik urratzen Gazteiz'ko gogo bardintasuna ta zentzuna. Aita Vitoria, Iradier, gudal-nagusi Alava ta Dato'ren jaioterri, seaska dan uri txairo onek bizi-kondairaren ekartze barri gustiak beretakotzen dakiz ondo. «Odes et Ballades» en Victor Hugo'k goresi eban orko Eleiz-Nagusiko kanpadorretiko metalki abotsa; siñestudunari Andra Mari Zuri'ren aurrean otoiztera dei egiten jarraiten dau. Eta antxiña lez Arriaga'ko Batzarretan, Araba'ko Batzar Nagusiak orain be barriro gauzak erabagiteko biltzen dira.

Araba'k ta bere uriburu Gazteiz ederra'k nortasun-aberasturen bereizgarrien nabardura aundiagoa damotse Euskal-Erria'ri; eta euren izamen bare, egokera garbitik zabalduta, ongari ederra ta aurrerapide gustia; ta emengo gizonak, napar, bizkaitar ta gipuzkoarrek in alkartzen dabez euren indar ale-giñak, kemenez ta gizonkiro etorkizunaren aurrean.

Ba-dagoz Araba'n euskeraz jakin ta egiten daben erri batzuk: Aramaiona ta ni gazte nintzanean beintzat, Laudio'ko baserriak, eta abar... Zorionez, erri aunditsuenetan, Naparroa'n lez, galduriok lengo euskerea, poz eta adoretz, irakasten diardue ikastolatan.

Nire ustez, napar ta arabar geienak ikasten daginean geure izkuntza zar maite, au, Euskal-Erria berbiztuko da, ta bere arpegi ederra dizdiraz agertuko yaku.

LETONA

“ZUMARDIAUNDI”KO BIRIGARROA

Birigarro atsegingarria!... birigarro txintxo!... birigarro txintalari ezta!...

Aurtengo negu-ondarrean, udaberria iritxi-garaiez, Tolosa'ko «Igaralde»tik «Amundu»rako bide-ertzean, «Zumardiaundi»ko zumartxo lerden baten gallurrean, zumardi-go-igoienetako zumartxo polit artan, egunero, gure txakurrari goiz-lasa-aldia emanez ibil-txangoa egiten genduncan, txintalari txintxo, atsegiñez entzun oi gendun birigarro zoragarria!

Bai gozoa... bai entzungarria... bai kilimakor eta zirrarakorra zure eresi ozena (eta aldi berean, xamurra) kabia osatze-garaiez oi dezutenekoa noski, gure auzoan egun-argitzeaz batera barreatzen zenduna!...

Bai pozik gu auzokiedok, zure eguneroko agur-eresia, diosala pollita, itxaropenez bete-betetako txirulirula entzuten gendula...!

Aurki, kume-sailtxoa iñutuko zendun kabian, eta, gero, guraso eta etorri-berriok «Zumardiaundi»ko sorkaririk agurgarrienak izango ziñaten zorioneko pake-urte ontan, gentza-albistari antzera gu gizonok gero ta anaikorrigo izatera bultzatuz...!

Amaika barru-gogapen eragindako birigarro apal, goiztar, maitea...!

* * *

Ez nuen azken-egunotan zure txintarik aditzen!...

Tiroz txautu zaituela jakin det gaur!...

Gizon izeneko gizatxarren batek, azpikeriz eta astakirtenkeriz bizidunetatik baztatu zaitu...!

* * *

Etxetik «Amundu»rako gure ibillaldietan, emendik aurrera, etzaitugu zumartxo-gallurrean, pinpirin era ernai ikusiko... Ez degu zure txirultxinta alairik entzuteko zorionik izango...!

Ziur gera, nolana datorren urtean, beste birigarroen bat eztala peit izango «Zumardiaundi»ko inguruak eresi xamurrez alaituko dituna...!

Aurtengo eraitzalle astakirtenak ez al du jarraitzallerik izango, berriro tiroz, auzoko txirulari ezta dollorkeriz txautzeko...!

Jainko aundiaren sorkari zoragarria, gizatxar burugabeak ergelki ondatzea... bada gero eginkizuna!...

ELOSEGI

AGVR

V URTEA
134 ZENBAKIA

ASTEROKOA
1974 - JORRAILLA - 27

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

ODOL- EMOILLEAK

Gaur iñoz baiño geiago, eta biar ez gaur baiño gitxiago, gure gaizo etxeetan odola bear da: batetik bide zabaletan diran alkar-joteak, zori txarrez geroago ta ugariagoak, bestetik ainbeste gizonen gaizoak eta gorputz-ebaketak, sarritan eta odol asko eskatzen dabe.

Non billatu orretarako bear dan beste odol?

Gaurko aurrerapenak aundiak izan arren, gizonak ezin dau asmau odola egiteko ezelako biderik. Beste alde batek, abereen odolak be ez dau balio gizonari sartzeko, bereala eriotzea ekaritzen dautso ta.

Ez dago ba beste biderik: gizonak alkarrari odola emon. Orrelan alkarrari lagutzera beartzen gaitu izadiak berak.

* * *

Bear dan neurrian izan ezkerro, odola emoteak ez dautso gizonari kalterik egiten, izadiak berak gure zanetan bear dan baiño ugariago ipinten dau ixurki gorri au.

Eta bai besteai, bear-izanean aurkitzen diranai, mezedu aundia: askoren bizia ez galtzea gura ba'dogu, orixe da bide bakarra, geure odola emotea.

Eta geienen odolak balio izaten dau orretarako, gibelesko gaizoa ta eritasun loia daukenak alde batera itzi ezkerro, ia geienak dauke balioa dan odola.

* * *

Odola, ain bearrezkoa dan ezkerro, emoteko gaur erreztasun aundiak dagoz.

Erri baten talde bat orretarako gertu ba'dago, Bilbo'ko gaizo-etxean barri ori emotea naikoa izango da. Laster etorriko jake andik osagille bat eta onek berbal-di argi bat egingo dautse gai oneri buruz.

Gero izenak emoten dira eta egun egoki baten, noizik noizera, berebil eder bat etorten da errira eta beronen barruan egiten dabe odol-artzea. Orretarako bear diran osagilleak eta gaizo-zaiñak bertan etorten dira.

Esan bearrrik be ez dago arrera ona egiten dabela emakume ta gizon oneik.

* * *


Lenengo bear dana, erri baten olako talderik izan ezkerro, arduradun bat da. Onek bai lan ederra egin daikela gizonen alde!

Baiña nor izan arduradun ori? Or dago unteza! Ardurak artzen zaleak gitxi izaten dira ta. Ez ete daikela berba oneik irakurten ditunetatik baten batek olako lanik egin? Olakorik ba'lego, egin begi berba Bilbo'ko gaizo-etxean.

Zenbatetan egoten gara geideagatik zerbait egiteko gurariz, eta ez dogu jakiten nondik asi ez nondik jarraitu. Ona emen irakurle bide bat. Ez da izango munduaren aurrean bide zaratatsua, ez ekintzaille batek aberriaren alde egin daiken lanaren neurrikoa, baiña bai lan ederra, ixilla ta onuraduna.

Eta, au be ez aitzu, nork daki norbera be egunen baten olako egoera larri baten aurkituko dan eta besteren odola bear izango dauan? Gaur emon eta biar artu izan daikela.

Ez miñez bakarrik, egitez lagundu dagozun gure geideari, eta orretan agertuko dogu ain bearrezko dogun alkar-maitetasuna.



U Z T A R O A

Talde txikia giñan Xabier'ekin euskera ikasten asi giñanean, 1949'gko urtean. Ogeitabost urte! Urrun eta urbil: biok batera, oraindik orain orren ondo gogoratzen gara-ta garai artaz eta bizirik bai-doguz orduko irakasaldiak eta lagunak.

Batzuek ez genkian itz bat be euskeraz; beste batzuek, txikitatik ikasitakoa erdi-aztuta euken; besteak, naiz eta jakin eta itz-egin, orain «alfabetizazioa» deitzen dana egiten asi ziran. Guztiok, ordea, EUSKERA IKASI gura genduan eta bai ikasi be.

Ez geunkan gure eskuetan idaztirik «método» edo ikas-bide lez. Xabier'i entzundako azalpenak, aditz-jokoa, itz barriak, joskera-arauak, esaerak... dana entzun lenengo, guk ere esan, ikasi eta idatzi egiten genduan. Aren esanak, gogoan ondo artzen genduzan.

Guretzat ori lana baldin ba'zan, Xabier'entzat areago ondiño: berak ekiana, mol-datu bear guri irakasteko, ango ta emengo idaztiak aztertu ta egokiena bildu, ta guri zelan emon eta ulertu-erazo pentsatu.

Maitasun eta eroapen aundikoak izaten ziran beti, bere irakasaldiak: pedagogia ondo ezagutuaz eta izkuntza sakon, errotik erabilliaz. Erakusten euskun euskeera, ez mordollo, ez ulertzeña, erriko euskera jatorra zan.

Eta euskereagaz batera, ERRIA EZAGUTU eta MAITE-IZATEN erakusten euskun: euskal-idazleen barri izan genduan orduko klaseetan, baita erri-oirurak eta euskaldun ospetsuak ezagutu ere. Ibillaldiak antolatzen ebazan, poliki-poliki Euskal-erria ezagutu al-izateko: mendi, erri, jai ospatsu, oitura ezberdiñak. Eta lagunak. Naiz Araba'ko, naiz Gipuzkoa'ko ikasleekin biltzen giñan alkartasun beroan. Eta, a gure poza, baserritar, itxasgizon, itz batean gure erriko jendearekin alkar ulertzeko eta alkar-izketan sartzeko gai giñala ikustean!

Gomutapen ugari datorkiguz burura gaur, 25 urte igaro ta gero. Orduko azi txikia eldu ta ugaritu egin da. UZTAROA eldu da, Xabier. Orain ez gara banaka batzuk bakarrik euskera ikasten ari garanok. Eunka gara. Eta ez gitxi, zure bidez ikasita —ba-koitzak bere neurrian—, zenbait lanetarako gaitasuna artu al-izan dogunok.

Benetan, zure lanaren JARRAIPENA ikustea pozgarri da: orduko ikasleak, gaur euskeraz egiten daben seme-alabak dituzte; beste batzuek irakaste bezela edo beste lan batzuetan sartuta diardue. Orra, gaur, bildu dagikezun uzta ederra.

Ori dana ospatu naiez jaialdi bat antolatu da. Il onen 28'gñean, igandez, Arantzazu'n, Euskal-erriko muiña dogun txoko ederrean, lagun asko bilduko gara: lagun zar eta barri, antxiñeko ikasle eta oraingoak, alkartasun-egun bat igarotzeko.

—Goizeko 9.00'tan abiatuko gara «La Union» autobusetan (Henao kaletik).

—9.15'tan, Arriaga'n geldituko dira une batean, an artu gura daben lagunentzat.

—12.15'tan Meza izango dogu Arantzazu'n.

—Ordubiak aldean, bazkaria.

Txistu ta bertsolariak, poztu-arazteko. Alkartasuna ta alaitasuna. Egun ederra izango dalakoan gagoz. Eta, batez bere, bata bestearekin berotu eta kemena emongo dautsugu alkarri, etsi barik, asitako bideari jarraitzeko.

Imanol Laspiur'i

ERANTZUN IREKIA

Zuk, Beiztegi'tar Yon adizkideari eginda-ko «gutuna» irakurri ondoren, naizta olakorik ez egiteko berak eskatu, zuri erantzutea erabaki nuen, ez baiña kaputxinoen nagusiagana «chantaje» joaterik.

Laspiur'tar Imanol'eri egitekotan egon naiz, baiña zutzat be, «tar» ori, madarikatu baten asmakizun utsa izango dalakoan, oraingoz kentzea obe deritzat. Ez zan ez, zutzat madarikatua, ezagutu ziñutanean, eta orain be, bear ba'da, barru-barrutik ez da izango; poztuko nintzake.

Ez naiz gogoratzen nun, Egan'en etezalakoan nago, euskal joskerari buruz egin zendun lana zogagarria iruditu jatan. Joskera jator eta bereziaren maitale sutsua izandako bat, euskera errikoaren maitale izandakoa, zelan demintres makurtu leiteke euskerantoren asmatzailleen aginduetara? «Herri osoarentzat euskara bat», esakera polit ori ikurriztat artuta, zelan onartu leike izkuntz-zapaltzailleekin egiña dan «omeleta» ori, euskerantoa? Errizalea izanik, zelan Vasconia edo Ukronia'ren egilleekin nastatu? Ala, menpeko?

Ezagutu nun Imanol'etik gaurkora —taldeak, jomugak eta jokatzen aparte— alde aundia dago. Zuek aurrera ta gu atzera, ala noraezean? Ba ete dakigu atzea ta aurea, ezkerra ta eskumea nun dagozan? Baiña luzeegi urten ez daiten goazen barriro arira, ixillean itxi dozuzan iru edo lau gauza zuri esatera:

Ez zaitetz artegatu, Beiztegi'k ez du bururik galdu. Ia egunero ikusten dot eta lengo lepotik daukala esan leiskizut. Euskeraren alde zuk eta nik baiño askoz ordu geiago sartzen dauazan gizonak, ezin olako gaixorik izan. Bere lobatxo dan Lartaun mutikoa al-tsoan dabela, euskera txukunean aitiita-illo-bak diarduela, illuntzietan asten da, AGUR onen, gero gaueroko bere lana dan aztertze luzean. Eroa olako lana daroan gizona? Ez lagun, antzekoren bat izango zan zuetarikoren batek, osagillearenean itxaroten egoala, ikusi ebana. Olako larri unetan, bata bestearen ordez artzea ez da arrizkekoa-ta.

Ez Imanol, Beiztegi'k olako idatz-lan gogor eta zorrotza idatzi ba'du, beste arrazoi batzuk bultzaturik egin du. Zergaitik? Aragoi bizi-bizian gauzak jartzeagaitik, zuk eta nik ondo dakiguzan goi-agindu batzuk bitarteko, kanpo-eder eta bildots-zuri agertzen diranen jokabideak eraginda. Aurrez-aurre aurpegia emoteko gauza ez eta azpi-jana ta sator-lana dira gaur nagusi, olakoen lana bitarteko, ez dakit eskutitz au berau be agertu al izango dogun: telefono-otsa, mandatarien joan etorriak, eskutitzak ez dira palta oraingoan, gure aldizkari au ixiltzeko erabilliak.


Era berean jokatu da ta jokatzen da beste arlo guztietan, asi eleizako orrietatik eta «madarikatua» izan zan gizonak sortutako aldizkarietaraño. Ez da baiña orretarako geizentzen abotsik entzun nai izan, ezta irizirik eskatu be. Orretarako, naiko izan dira sator-lanean ondo ezita dagozan lau-katuren «miauak». Orrek eta ez betek bultzatu du Beiztegi'tar Yon zerbait garratz eta minkor idaztera; asunen igurtziak bezela, olako osakiak izaten dira barruko gaixoak ezalera atezatzen dituenak-eta.

Ez noa zure esanak banan-banan aztertzeraz. Ezagutuko dozuz dalako «euskera batu» orreiri buruzko gure iritziak, baita bitxikeri orreien Espiritu-santutxo, babes-leku ta eleiz-mutil edo managillo diraneri buruzkoak bere. Ori dan-danori, nere liburutxoan idatzi dot (erderaz, zoritxarrez). Irakurtzeko astirik edo gogorik ez ba'daukazu be, entzungo zendun zerbait onezkerro, gudi bar-diñean zoazenetarikoz batzuk irakurri dabe-ta.

Azkenez, zure lerro batzuk nereak egingo ditudaz, «h» bat edo beste kenduta: «Euskal-Erria bestelako erantzun jator baten zai dugu: lana, emana, erterkiak alde batera utzi eta erdi bide baten danok alkatu, Eki-libioa eta zentzu irekia duten gizonengandik izango dugu zerbait, anaia artean gaizki esaka, gezurretan, azpijanean eta puskaketan ibili gabe».

Ea ba Imanol, nundik asten garan. Iritziak ezberdiñak izan arren, giro orretan bizi giñan, gaurkoegunez, Zugaizaren onduan bildu giñanean. Arrezkerro, zuk nik baiño obeto, nundik sortu dan dakizun ekaitzak banandu gaitu; anaiak ikubilka jarriaz, etsaien barregarri garaia.

Bakio'n, 1974'ngng Berbizkunde Igan-dean.



SASKI-NASKI

Kamaraka'ren idazlan jakingarria, zuentzat berridazten jarraitzeko asmoz nere lanari ekin diot. Euskera batasun arazoan, EUSKALTZAINDIA ari zan lanari buruz da. Au ba-dakizute len beste idazlanak irakurri dituzutenak, baiña auek irakurri ez dituztenentzat da, batez ere, argibide au. «Kamaraka»kin uzten zaituet ba.

«Gure izkuntzaren egoera eta zeatasun guztiak ondo-ondo jakin, eta beren lanean asmatu naiean, billaketa bat egitea erabaki zun EUSKALTZAINDIAK. «ERIZKIZUNDI IRUKOITZA» (triple cuestionario) zeritzana erri guztiari erakustea. Euskal Erri guztiok berreun da larogaitazaz errietan ondo berezitateko beste ainbeste euskaldunai, izpiyakera (fonética) itz, eta joskera gaitan galderak egin zitzaizkien: Beren erantzuerak eta baita adin, erri bakoitzean zaramaten aldia eta abar, «Euskera», Euskaltzaindiaren aldizkarian argitaratu ziran, 1925'gn da 1930'gn artean. Zuberoa'rekikoa, Henri Gavel'ek Barkoitze eta Tardets'en (Atarratze) egiña, 1936'gn urtean R. I. E. V.'en argitaratzeko gertua, 1960'gn urtean EUSKERA V'ean argitaratu zan 1960'gn urtean, 293-316'gn orrietan». Oneraiño, «Kamaraka».

Euskera eta oraingo arazotaz kezkatzen dan guztiengat (asmo zuzenez ba'dadil beñepein) jakingarria eta jakin bearrekoak dirala derizkiot Kamaraka'k esaten diskigunak.

Orain guzia asmatu ba'lute bezela, beren burua agertu nai dutenak, arro-puts, gezurtiak dirala agertzen du onek guziak.

Ikusten dezute ba, len euskera batutzeko arloan jo ta ke ari zirala. Ala ere orain dik ofiarrak jartzen ari zirala, eta erriari ez zitzaion oraindik egera bererazi. Orain berriz nolana! agindako «euskerrant» ori (oraindik bukatua ez dagoa adierak aitortu arren) ikastoletan ere sartu digute. Erne, aurak dituzuten gurasoak! Irakurri, Arenaza'tar Josu argi ta jatorrak idatzi dun idatzia. «Tus hijos y el euskera» deritzana. Ora idatzitako argi edo ia guziaz beintzat aldizkari ontan idatzia du len, baiña zori-tzarrez gutxiagatik irakurten dute, euskeraz eginda. Askok ez dakitelako; eta alperkeriz edo astirik ez dutelako, besteak. Ea orain, ulertu ezina aitzeki ez daia, guztiak irakurri eta ondo ausnartu ondoren, gure aletxoak jarririk, guztien artean, gauzak zuzentzen ditugun!

Gaur, gure eginkizuna, euskera jasotzea da. Gipuzkoarrok, gipuzkera; bizkaitarrok, bizkaitera e. a.

Sendotu ditzagun guztiak! Izan dedilla euskera GURE IZKUNTZA! Au ez da ordea, noizean bein... aurrakin... itz egiteko. Edo txakurrakin bestela! Au ez da txanxetan gero!... Bein baiño geiagotan neronek entzuna. Guztia erderaz egin etxekoan artean baiña txakurrari... euskeraz! Txakurretzako izkuntza alajafia, gure euskera!

Ariara bihurtuz; GURE IZKUNTZA izan dedilla euskera. Beti, edo egin genezaken guzian erabiliko deguna. Bestela, alperrik izango dira gure lan guztiak. Gure izkuntza ERDERA ba'lde gure nortasuna euskalduna izaten naiko lan. Ez dezagun egin ludiko beste errialde batzuetan egin zutena; beren buru jabe izatera irizti, baiña beren izkuntza galduta. Ez dezagun aztu izkuntza gaitzen ba'degu, berakin joango zaigula gure NORTASUNA. Zertarako orduan azkatasuna? Ez ote goaz bide ortatik? Azterketa sakon bat egin dezagun, gure erria benetan maite ba'degu!

Onezkerok arritzeko gauzik ikusiko ez nula uste nun, baiña bai zera, arrigarriak ez dira inoiz ere bukatzen! Donosti'ko aldizkari batean irakurritako idazlan batek berriz ere txundituta utzi nau beñepein!

Apaizen ezkontza arazoan, «apaiz» bateri galdera batzuek egin dizkiote. Egia esan apaiz KATOLIKOA izan bearrean PROTESTANTEA dala esango nuke, bere erantzuerak irakurrira...

Lenengo galdera au izan da. «Zer iritzi daukazu apaizak 'ezkonge' izatera bear-tzen dituen eliz legeaz? Eliza Katolikoko apaiz guztiak beartzen al ditu?»

Erantzuerak:

«Ezkonge izatera beartzen duan legerik EZ LUKE IZAN BEAR...» Alajafia!

Auzi ontaz jardun eta erabakitzeke, Eliz-gizon jakintsuak egin zituzten batzarretan, etzuten itxuraz gure APAIZ jaun onen berri izan, eta etzioten bere iritzia eskatu, bestela...

Iñola ere ezin ulertu APAIZ batek, ainbeste batzar eta oldozpen ondoren, Elizako jakintsuak, Aita Santua tarrean dala, APAIZAK, KATOLIKO APAIZAK EZKONGE irau bear dutela irabagiarri ondoren, KATOLIKO APAIZ batek orrelakorik esatea.

Lizunkerik giro izugarri bizi gerala dio gero eta apaiz ezkongeari ortatik iges egitea oso zail zaiola.

Len ere etzan errez-errez izango noski! Ori orrela esanda ba-dirudi arrixkua «apaiz ezkongentzat» hesterik ez dala; baiña aurreraxeago au dio: «Baiña kontuz, lizunkerizko giro ori EZKONDUENTZAT ere or dago». Ba-nengoan ba... Zertan gera ortaz? Zer egin bear ote degu zintzo eta garbi irauteko? Berak, Arostegi jaunak esango digu aurreraxeago:

«Kristo'ren Espiritua'ri oso lotuak egon ezik galduak gera».

Ontantxe zearo bat gatoz! «Or tziok koxka! «Bide bakarra auxe degu. «KRISTO'REN ESPIRITUARI OSO LOTUAK EGON!...» Orrela ba'giña... Duzik orrela ba'giña... Baiña, apaizak, ortzai eta gidari izan bear dutenez, aurretik ditugula. Ereduditugula. KRISTO'REN ESPIRITUARI OSO LOTUAK egon ditezela, bidea zintzo jarraitzeko; emandako ITZA ez jateko.

AMALE'K

AGUR

Ez Agur au beratu, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten Alkartzete baten erakustokia izan nai danetik, Euskera bera beste edozein, bereko, politikoko naiz ondasungarri asmoen gainetik daben iritxi-onoeko euskaldun guztiak Euskeratza dituen iritxi, baita bitartekari ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egileak dira.

Agur au, bere zuzendaria ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskaintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M. MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guttirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

EIZMENDI'TAR IÑAKI

«Basarri»

Ezbairik gabe, «Basarri» degu, orainaldiko euskal-idazlerik jarraitkiena. Egunero idazten bait'du, EUSKERAZ, Donosti'ko «La Voz de España» egunerokoan, aldi baten «KIRIKIÑO» zanak idatzi izan zuan antzera Bilbao'ko «Euzkadi» izparriangian. Ark bezelaxe, euskera erriko eta ulerterrezean idazten jarraitzen duan idazlea degu, «Basarri», bai aipaturiko egunerokoan, baita «GOIZ ARGIZ» asterokoan ere.

Zergaitik?

Ber-bakik «GOIZ-ARGI»ren 186'garren zenbakian argiro adierazten digun zio arazoitsu onetxengatik, noski: «Irakurleak —dio— iruntsi ta uler ezin duten izkuntza erabiltzea, denbora alperrik galtzea da, batetik, eta aurrera egin bearrean, atzera egitea, bestetik».

Ortaz, arrazo du, «Basarri»k.

«La Voz de España»n, egunero euskeraz idazteaz gainera, astero idazten du «GOIZ ARGIZ»n; noizik beñ, «AGUR»en, eta illero, «ARANZAZU»n.

Ortaz gainera, Donosti'ko «La Voz de Gipuzkoa» irratian, asteko egun guzitan mintzatzen zaigu, euskera jatorrean, egu-

nari ta giroari dagozkien berririk azalgarrienak egokitasi entzungarrienean emanaz irati-entzuleeri.

Baiña, «Basarri», ez degu, idazlea ta izlaria bakarrik; danok dakigun bezela, bertsolaria ere, gain-gaiñekoa degu, eta 1936'garren urtean asi ta 1962'garren urterarte, bertsolaritzako TXAPELDUN izana ere bai. Euskalerria'k ainbat aldiz omendua izan dalarik bere bertsotarako, itzaldietarako eta idazlanetarako izan dituan doai eta gaitasun bereziengatik.

Izan ere, zein beste bat, erreizildar-see entzutesu au bezin biotz-onoagorik, kristau zintzoagorik, izlari gozoagorik, bertsolari txalozagorik eta euskal-idazle irakurriagorik?

Bertsodun idatzi edo liburu ederrak ere, ba-ditu, «Basarri»k, aspaldi ontan argitaratuak: batibat, «Atano III». «Bere Bizitza», «Bertso Kantari», «Basarri'ren Bertso-Sortza», «Kantari Nator» eta «Laugarren Txinparta».

Euskera-zalea eta bertso-zalea danak, ba-du ze irakurri eta ze ikasi «Basarri»ren idatzi lilluragarri abetan!

Gure ZORIONIK BIOZKOIENAK, izlari, bertsolari ta idazle goralgarriari!

ZELETA

Deunoro'ren Eskutitza

AGUR'en, 129gn. zenbakian Zeanuri'n jasotako bertso zar batzuk ezarri ta azaldu nituan. Norenak diran ez nekiala esan neban, egia zan lez. Baiña laster artu dot, Gernika'tik, Deunoro bertsolari ospetsuaren eskutitz bat. Berak daki ondo norenak, nozkoak eta noz abestuak diran bertso orreik. Bere eskutitza emen ezartea izango dala uste dot azalpenik argiena ta garbia:

«Gernika'n 1974'ko epailak 26

Agur'en zuzendaritzara

Bilbon

Zuzendari Jaun: Bigarren Agur eskuratu barri dot eta «Gamiz»ek izenpeturiko lan bat irakurri dot «Bertso zarrak» izen buruagaz. Zeanuri'ko Artxe'ren taberna edo edatetxean entzun zituala diño «Gamiz»ek eta ez ei daki norenak direan.

Ara: Nik bai dakit norenak, noiz, nun eta zelan abestuak direan.

1916'garren urtean, Bermeon, goizean, mitin bat ospatu zan. Lenengo izlaria Conde de Lariz izan zan. Onen ondoren, bertsolaria. Bertsolaria Enbeita'tar Kepa izan zan eta bertso oneik abestu zituan.

Agur'en dakarzenetatik aldakuntza apur bat ba dabe batzuek:

Euskaldunen fedea ondatu gurarik (nairik); Fraille ta moja kendu, erre konbentuak...

Ego aldetik... olango (alango); Aita San Franzisko ta A. San Inazio, Santo Domingorekin, Ama Karmeloko... (ingo dau) egin dau betiko.

«Gamiz»ek uste ez ba'dau be, itsas-ertzeke irudia da oso-osoan, arrantzaleari adierazoten emoteko erarik onena auxe dalako.

Bertsoen azalpena «Gamiz»ek damoan eran emoteko, bertsolariaren barrua, bertsoari jarri zituan unean ezagutu bear zan eta ori ez da ain erreza.

Gizonari bertsoetako ta bizitzaren oñari bear dan sinismena zein dan eskutitzi jatorron esateko, gizona bera ezagutu bear dala uste dot.

A! Idazki au ez artu, arren, kritikatzat, ez gogorkeriztat. Oso pozik irakurri dot lan au eta beste guztia be. Neu izan bertso-zale purrukatua ta... okertxu oneik zuzendu gura ba.

Parkatuko daustazu; baita «Gamiz»ek be, nire ausarditza au ta... ekin, bertso zarrak daustatu ta argitaratzen.

Beste bat arte: Sarduy'tar Deunorok».

Eskerrik asko, Deunoro, bide okerrak zuzendu eta nire illuntasunari argi ederra egin dautsazulako. Diñozun guztiagaz batera nago eta zalantza barik bertso oneik Kepa Enbeita'renak dirala jakinez eta zertzelada orreik kontuan izanaz, indar barria artzen dabe.

GAMIZ

GAZTETXOEN TXOKOA

ELGOIBAR'TIK LENENGO MAILLAKO BI

Egun batean ziren bi mutil, Joseba eta Inaki; eta joan ziren errekarara eta esan zuten Inakik: —Gaua egin da eta goazen etxera. —Goazen erreka ondo ikustera. Bukatu da. Eta gero gaua egin zen eta Josebak esan

JOSE JOAKIN LAZKANO

Zelai eder batean neskati bat bizi zen eta egunero joaten zan loretxoekin izketan egitera.

Eta bere aita etortzen zenean, neskatoa joaten zan etxera eta bazkaltzen zenean, dena kontatzen zion.

NEREA LARIZ

BESTE AMAZAZPI IDAZLAN URRETXU'TIK

Amazazpi orrietan, bakoitzak bere ipuina jarri ta, marrazki ta guzti, danak ederki margotuak. Ezin danak gaur emen agertu, erreskadan datozen bezela jarriko ditugu al diran geienak, besteak

urregorako utzirik. Margoak, gorriak eta ilunak oso beltz agertzen dira klitxeak egitean. Orregaitik, garbiago aterako dana aukeratu dogu gaur A.

GAMELUA

Gameluak izaki biziak dira, abereak diralako, orregaitik jaio, azi ta iltzen dira. Gamelueri eremuko edo basamortuko itsas-ontzia deitzen zaie, eremua egun batzuetan igarotzen dutelako, eta oso indartsua dalako.

Gameluak belarra jan gabe ilabete oso osoa irauten dute, eta urik edan gabe astebete edo bi. Asia'ko eta Aprika'ko gizonak etxeko-abere bezela azten dute. Gameluek gauz asko ematen dizkigute adibidez, esnea, narrua eta abar.

Gameluak luzeeran bi metro dituzte, eta egunean eremuko eguzkitan berrogei eta hamar kilometro ibili ditezke, baina berreun kilo astun eraman dezakete bizkarrean. Alere auek konkorr batekoak eta bikoak izaten dira, konkorr batekoen jatorria Aprika aldean dago, eta bikoena Asian.

Gameluak eremuko arearen gandik estaltzeko begi eta zudur ondoetan zurda luzeak dituzte. Gameluek itsusiek izan arren gizonari laguntza aundiak eta gauz asko ematen die.

ALBERTO NUÑEZ (7 urte)

LAN ABEREAK

Gizonak etxean dituan lan abereak zaldiak, astoak, idiak eta mandoak dira. Abere auek bulardunak dira, aboan ortz aginak dituztelako, bere gorputza narruz estalita dutelako eta eron umeak esnez azten dituztelako.

Abere auek belar-zaleak dira belarra jaten dutelako, baiñan neguan otz danean pentsua ere jaten dute. Abere aue-tan mandoak, astoak eta zaldiak azkazar batekoak dira anka bakoitzean azkazar bat dutelako, eta idia berriz bi

azkazalekoa. Azkazar bat duteneetatik zaldia ederreña da, bere gorputzean ilea motza du eta lepo geinean ta isatsean ile luzea, anka medarrak ditu, eta belarriak motzak eta zuzenak.

Mandoak eta astoak ez dira ain ederrak baina gizonari asko laguntzen die. Orain abereen ordez traktoreak erabiltzen dira azkarragoak diralako.

MIREN YOSU POZUETA (8 urte)

ARRANTZA

Arraiak arrapatzen ikusten degun arrantza egiten ari dirala esaten degu. Arrantza egiten ditenei arrantzaleek deitzen zaie. Itxasoetan, ibaietan, antziretan eta zingiretan arrantza egin duteke.

Ibaietan arrantza egiteko amuagok, eta sare txikiak erabiltzen dira, orrez gainera ibaietako arrantzaleek ur-oskiek, nasek eta amuagan ipintzeko amuek eta txitxarek erabiltzen dituzte.

Ibaietan arrantzatzen diran arrai ezagutuena amorraiek, eskaluek, aingirek, zarboek, eta abar dira. Ibaietako arrantza kirol bezela egiten da. Itxasoetan arrantzatzeko berriz itxas ontziek, sare aundiek, amuagok, arpoiek eta abar erabiltzen dira.

Era askotako arraiak arrantzatzen dira itxasoetan, txitxarroek, legatzek, bixigiek bezela, baita ere arrai ez diran abere batzuek arrapatzen dira, baleek, txirlek, txipiroiek eta abar.

Itxas ondoetan ari-bitxiak ere bilatzen dira. Itxasoetan egiten dan arrantza lan bezela egiten da, oso arrikutsua eta neketsua izaten da arrantzaleen lana. Arrantzaleek itxasoan dauden bitartean eron emazteek puskatutako sareek konpontzen egoten dira kai bazterretan.

Itxasoan aberasun aundiko iturri bat da.

MARIA BEGOÑA MENDIA (8 urte)

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

ZAZPI-KALEAK



CASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK



IPUIA

Bein batean mutiko batek gamelu bat zuan eta basamortuak igarotzen zituan, eta gauza arrigarriak ikusten zituan. Egun batean basamortuan zebilela gamelua gelditu egin zan, janaria bear zualako orduan pentsatzen eta pentsatzen asi zan gamelutik jetsi, eta oñez joan zan gameluarentzako janaria bilatzen, joan zan aurrera eta aurrera ta azkenik bilatu zuan janaria artu eta gameluari eraman zion jan zuan aurrera jardun zuten eta potzu bat billatu zuten eta edaten, asi zan mutikoaren gamelua potzua uztu zanean, urdailean zuan, zorro antzeko toki batean, gorde zuan ura.

Egun batzuek igaro ziranean zulo, batera iritsi ziran, eta abere azurrak ikusi zituzten. Aurrerago jardun zutenean mutikoari gamelua il egin zitzaion. Gero berebil bat ikusi zuan orduan pentsatu zuan emen norbait dabil bainan berebilean sartu zan eta basamortutik irten egin zan.

Orduan pentsatzen jarri zan nora joan bear zuan. Eta pentsatu zuan erri batera joan eta berebila saldu egingo zuala eta esan zuan nik basamortua igarotzea nai det eta berebila baiño gauza egokiagoa gamelua dala esan zuan berak nai zuan gauzak egiteko.

AITOR BARRENETXEA (7 urte)

GAMELUA ETA MUTIKOA

Bein batean mutiko bat basamortu batera joan nai zuan eta ortarako gamelu bat erosi nai zuan. Berak esan zuan gamelu bat erosteko lan egin bear det eta lantegi batera joan zan lan egitera. Egunero joaten zan lana egitera baina bein pentsatu zuan beste lantegi batera joatea ta ala egin zuan.

Gero lagunak egin zituan lantegian eta jaiero erakin joaten zan, diru asko irabazi zuan gamelu bat erosi zuan eta urrengo egunean basamortura joan zan da an oso gaizki ibili zan berriro iritxi zanean bere amatxo potzu zan da andik aurrera oso pozik ibili zan bainan berriro gogoratzen zan basamortu akin da janariak erosi zituan gameluari belarra eman zion da berriro joan zan basamortura ango beroakin arrituta gelditu zan baina gero andik egun askotara etorri zan etxera eta orduan bai pozik izan zala bere asmoa bete zuan.

ARANTZA LOINAZ (7 urte)

UDABERRIA

Udaberria urtearen lebiziko urte-aroa da epailaren ogei ta batean asten da eta ekainaren ogei ta batean bukatzen da. Udaberrian egunak luzatzen dira eta gauak laburtzen. Egunez zeru urdin egoten da geinetan, eguzkia sarri azaltzen da.

Urte-aro ontan zelaietan eta mendietan lorak irtetzen dira. Zugaitzei nitikoak ostoeak eta loreak irtetzen zaizkie, eta lebiziko igaliak biltzen dira, marrubia eta keriza bezela.

Ixoriek Aprika aldetik etortzen dira, munai

kabiek egiten dituzte, abesten asten diranean gure biotzak pozez betetzen dira.

Udaberrian nekazariak lurra landu eta azia eraiten dute lur sagarra bezela. Garai ontan giro epela egiten du jantzi meagoek jaten ditugu. Eguraldi eder ornekin mendira joaten gera ibilaldiek egitera.

Udaberriaren ondoren udara dator.

YOSUNE GALARZA (8 urte)

BASAMORTUA IGAROTZEN

Bein batean motiko batek ikastolan jai zuan ile batean eta gamelu bat erostea erabaki zuan basamortua igarotzeko eta gamelua erosi zuan.

Aitarengana joan eta gamelua zuala basamortua igarotzeko esan zion aitak baietza eman zion eta etxetik irten eta gutxi joan zan, etzekialako zer zan basamortua eta ba zijoan eta janariak etzuan bilatzen eta ori ikustean bildurtu egin zan eta ain despiztuta zegoen momentu bidea galdu egin zuan beroa egiten zuan eta autsa altsatzen zan eta begietara area sartzen zitzaion eta urrengo goize arte lo egiten gelditu zan eta urrengo goizean bilatu zuan bidea eta segi egin zuan bainan etzekian zer egin eta gosea zuan eta etxera joateko gogoia etortzen ari zitzaion bainan ilea etzan pasatu eta etzuan joan nai etxera eta egunak joan egunak etorri etxera joateko garaia etortzen ari zan, eta bi bide zituan inguruan etxera joan bear zuan garaian eta etzekian nundik joan eta bigarrenetik joan zan bainan ura etzan eta bestetik joan zan eta etxera ba zijoala gamelu pizti bat ikusi zuan eta korrikan joan ziran etxeko bidea artzera bainan gamelu piztiak jarraitu zion bainan etzuan egin ezerrez eta jarduntzen ari zala mutilak erri bat ikusi zuan eta etzuan ezagutu eta bere erria zan eta bere aita ikusi zuan eta oso zoriontzu bizi izan ziran.

ENEIDA ANDUEZA (7 urte)

IPUIA

Bein batean mutilla eta gamelua basamortua igarotzea joan ziran, zijoaztela mutillak gamelu langile bat ikusi zuan bere gamelua utzi eta bestea Igotzen asi zan baiñan ezin zuan, eta lurre-ra erori eta anka ausi egin zitzaion gero ezin zan ibili eta mutil orrek urruti urruti batean beste mutiko bat ikusi zuan, eta deadar egin zion, mutiko ura joan zitzaion eta onela esan zion zer dezu? eta besteak: anka ausita det.

Igo gameluaren gainera baiñan ezin zuan Igo eta Lagundu egin zion beste

mutilak. Eta gero gameluaren gainean aitatxorengana eraman zion eta aitatxok sendakintzakin sendatu egin zion. Eta obean egon bear zuala esan zion.

Orduan konturatu zan aitak ogirik Etzuala eta emaztea ogita bialdu zuan eta etortzerako mutilla sandatu egin zitzaion. Eta emazteak Ekarritako ogi pusketa bat jan zuan eta gero sendi guztiak pozik eta alai gelditu ziran eta ordutik aurrera etzan olako gauzarik gertatu.

IMANOL PEREZ (7 urte)

Gaurkoz tokirik ez-eta, beste bederzti ipuin geratzen yakuz urrengorako, onexek dituzuez egilleak: Miren Yosú Pozueta, Josune Galarza, Ixiar Etxezarreta, Maria Jesus Madina, Nuñez'tar Alberto, M.ª Begona Mendia, Ane Miren Arrazola, Agurtzane Basabe, ta goian datorren marrazkiaren egilea dan Inaki Urteaga. Laster arte ba, Urretxu ta Zumarrago neska-mutilok.

ASTI

Desodorantea

Errian ordularia konpondu ezkerotziz, kontentu zebillen jendea. Sei bat urte inguru egon ziran erri ortako bizilagunak, udaletxeko ordularirik gabe. Edo obeto esateko, ordularia bazan baiña, geldik eta ixillik egoten diren oietakoa.

Orrela ba gaur egun, alai mogitzen ditu bere gorratzak, baita kanpai soñu ederraren otsa zabaldu ere. Une ontan bertan, zazpi aldiz aritu da din, dan, din, dan, joaz.

Prudentxio gertu arraio apaindurik, ba-dijoa ene biotzeta kutunarengana, «Gurea da ta ez da» abestuz.

—Puntual zatoz orratik gaur Prudenten.

—Ai Malen, Malen, ekarri edo eman nauzu musu bat lenbailen.

Baiña Malen'ek ez dio musurik ematen. Ez da mogitu ere ortarako; okerrago oraindik, pitin bat atzeratu egin da. Prudentxio jakiña, arriturik geratzen da.

—Aizu Malen. Zer gertatzen da emen? Esan zaidazu erneatu baiño len.

Malen'ek kremallera jarrita dauka ordea ezpafietan.

—Min egin al dizut? Itz gogorren bat edo esan? Esan Malen!

—Usai txarra daukazu zure beso azpi ortan.

—Nungo usaia ordea?

—Izergi usaia.

—Ustez beintzat ondo txukundurik azaldu naiz ba zure ondora!

—Ni ba noa, agur.

—Aizu baiñan nora zoaz?

—Etxera!

Orrelaxe utzi zion, planto eginda mutil gizajoari.

Urrengo egunean, Prudentxio ukui-llu garbitzen ari zela, bere arreba etorri zitzaion galdezka:

—Zer duk Prudentxio. Kopet-illun ikusten aiz gaur.

—Ni kopet illun? Bei edo asto baten itzalarekin nastuta ibilliko aiz, ni beintzat, lasai asko natxagon beintzat, eta...

—Etzekiat ba, etzekiat!...

—Asarretu egin naun, bai, Malen'ekin; edo obeto esateko bera asarretu den. Nere usaia etzaion oso atsegin nunbait.

—Zeiñen usaia gero!

—Izerdiarena nunbait.

—Egia esateko arrazoi dik. Etzekiat nolatan etzeraten arduratzen gauz abetazan... desodoranterik ez ba'legok... baiñan...

—Desodorantea nik? Aizan baiñan ik ze uste dun ni marikiten bat nai-zela ala? Gure aiton-amonak, kontu gutxiokin ibiltzen zituztan alazankoa!

—Ta, ire maitasuna nun zegok? Malen'ek olako usai gozorik ez duela merezi pentsatzen al dek? Zer uste duk gero!

—Aizan, Malen'ek lenbailen gauz bat besterik ez din egin bear, nerekin ala desodoranteakin ezkondu bear duen erabaki, alegia.

Azkenean ordea, zereko zerekoak esan eta egiten ibilli ondoren, emakumearen esanetara errenditu bear izan zuen Prudentxio gizaxoak.

Gaur egun biak, senar-emazteak, egunero egunero telebistan azaltzen dira zabalgunde au eginen:

—Ondo ezkondu nai ba'dezu, igurtzi zure beso-azpiak, desodorante bikain onekin.

* * *

Oarra.—Batzuk diote ipui au egitazkoa dela, besteak berriz ezetz. Zer derizkiozu zuk?

RAMON ZAPIRAIN

EGUZKIA

Eguzkiaren izpiak berotu oi gaitue. Gizadi guztiaren bizitz-sorburua dogu bera. Origaitik landara ta mueta oroetako belarkietatik asi ta abere ta gizakiekaz jarraiturik, dan-danok beragandik datorkigun berotasunagaz bizi gara.

Orain jakitunak, arriolio ta anitz lengai premiñazkoak urriturik ta garestitzen doazenez, eguzkiaren berotasun-indarrez baliatzeke premiazko ugariak egin dagiez. Aspaldibatetik Israeldarrak euren Kibutz, etxalde inguru landatueta eguzki izpillu bereziz ta argi-aurreaz, eguzkiaren izpiak batu oi ditun pantalla bedegarrez, baliatu ei ziran ta millaka, Kibutz oroetan edatu. Berez Erri txikia izanez, adoretzu ontan be, gudaldietan bezela jokatu oi dabenez, beste errialde orooi eredu bikaiñenatarikoa damotsee. Tximist-indarretan ordez ta berogaillu aparta lez eguzkiaren berotasun garbi-parebakoa berein Kibutzetan darabille; baita landola batzuk be.

Eguzkiatuz asko be asko esan lei, baiña laburtzera noa. Neurkin lautu bakotxean gure lurraldeak Eguzkiagandik arturiko berotasuna tximist-indarretan kilovatio baten baliaduna ei da. Obeto ulertarazoteko dagigun edonungo errizka bat bere luze-zabaleran 50 Ectareatan kokatu oi dala, Eguzkiagandik artu daroan berotasuna tximist-indarrena zenbatu, neurtu ezkeroz, 10.000 megawatiorena edo bardin dana 10.000 milloi watiorena or nunbait izango da. Orrela, 100 watioko 100 milloi bonbil edo argi-madari iziotu geinkez batera. Ez da txanxetako zera beraz. Merezi du bai orretaz jakitunak konturatu daitezela.

Laterri Batuetako Arizona'n eremu ta basamortuak ugari dira. Dakigunez 6.500 kilometro lautuetan edatu oi dira geienbaten. Ori ta be, Eguzkiaren berotasuna artu oi dabenez izpilluz ta argi-aurre berezietaz, ortarako bearrezkoak jakezan gertakizunak egitekotan, 1980'garren urterako ia Laterri Batuetako serbitzurako bear dan tximist-indar erdia basamortu ortatik atara leikee, alegia.

Gure lurraldeetara etorririk, Auñamendi mendi-katean ba-dogu Prantzi aldeko Mont-Louis deritxon alderdian guztionein eredu bikain-bikain bat. Eguzkiaren berotasuna bi-tartekotzat dabela tximist-indarrol bat egin dabe. Arrigarritzkoa dogu bera. Laiñoak ugariak dira. Ori ta be egun argitsuak batz besta 200 inguru urtero zenbatu geinkenez; izpillu-berogailluen kopurua 20.000'raiño igon dabe, ta etekin baliotsuak atara.

Eralketak 340 milloi laurlekoenak izan ei dira, baiña onurak txito aundiñoak izan ta izango. Ez dogu aaztu bear eguzkiagandik datorkigun tximist-indarretan garbitasuna. Ez dauko, dirauskuenez, besteagaz bardintzekotan, paretasunik. Askoz be txukunagoa, garbi-gardenagoa ei-da. Orrela ba tximist-indar aro, aldikada barri bat jatorku. Orain artekotan eguzkiak berotu ezeze bizitz giro osoa emanaz, bizidun guztiak bizkortu ta ernaitu ba'gaituz, gaurkoz geroztik, gure tximist-indarrolak ta onein odolez bizi diran bestelango industri guztiak izango dabe izan Eguzkiaren indar berezi-berezi onekaz, gun ta izerdi barri bat. Arroligaz ta berein lengaiekaz jarrai bide izango dogu, jakiña, baiña beste indar batek be esku garrantzitsua izango dau gure lurbira osoan. Ots, Eguzkiaren berotasun indarretan tximist-indarra sort-azoteko egingo diran aurrerapen ta gertakizun baliotsuak, kontuan artzeakoak izango dira egiz. Orretara goaz. Geroa lekuko.

ARREGI'TAR JOSU

ORBELAK

BIARGIÑEN EGUNA

Langille edo biargin gustiok, era batera nai bestera pentsatuta be, amets batek eta bear izan batek erabilten gaitu: bizi-bideak.

Jainkoaren maitasun bidetik jokatu, nai olako ardura barik ibilli, ezin baztertu ta ezin ukatu gure izatea, langille izatea.

Bizitza au, nai ta ez, langintzaren bidetik erabili bear dogu. Era batera nai bestera, eratsuago edo neketsuago, baiña lanaren izerdi eta ardura barik ezin bizi.

Buruzko lana, eskuzko lana, ardurazko lana, indarrezko lana; itxaso, legor nai aizetan egin leikeana... Batera nai bestera deitu ta ezagutu, ezin ukatu ala danik.

Mundubarron zeregiña Jainkoagandik dator: «Zure izerdi edo alegiñagaz irabaziko degegiñerako ogia».

Lanak, biarrak, gizona gizondu egiten dau; anditu, goratu, bete. Biarrik zatarrenetan dabillana be, edozein gizonen antzeko da, edozeiñen besteko.

Diruak ez dau gizonik egiten, lanak baiño. Diruak gizona galdu lei; lanak goratu baiño ez. Gero ta argiago ikusten da. Origaitik, iñoiz aldebanatuta egon eta euki izan bada be, gero ta kezka geiago sortuten dau langintzak mundu guztian.

Gaur politikarik geienak ardura onetzek erabilten ditu. Errien arteko estutasun eta norberekeri asko galdu egin dira langintzaren ardura eta eskabidiei ateak zabalduteko. Onez batzutan, beste askotan langintza orren indarrak bultzatuta, indar orreri eutsi ezinda.

Erri agintariak lez, siñisteen arduradunak batasun ori billatzen dabiliz. Lotsaz batzutan, bestetan bigunegi bear bada. Batzutan erdi eskutuan, bestetan bete-betea.

Gaurko giroa ez da koldarkeriz ibiltekoa. Ez da zimelkeriz jokatzekoa. Langilletasunak batasun bat dau mundu guztian, indar bat. Erak, bideak, jokerak, bultzadak, bakoitza zelako alakoak. Baiña langilletasuna gain-gaiñean ipiñita.

Laster dator langille-eguna. Eleizeak gizon zuzen bat izentatu dauku, egun onetan, langille eredu. Arotz bat. Edozein, esate baterako, langintza arloan. Baiña gizon zuzena. Zuzentasunari omenaldi lez egun au biurtu nairik. Gaurko langintzaren problemarik andiena, berea, berari dagokiona eta beragandik datorrena, ain zuzen be, zuzentasunean dago-ta. Zuzentasunak goratuko dau lana eta langillea.

ZUBEGI

IDAZTI BARRIAK

Egilea: M. M. ZUBIAGA.

Izena: ZORION BIDEA

Irarkolea: Izarra-Usurbil.

Urtea: 1974. Donostia'n.

Gure elertia mixiolari ta idazle diran lekaide ospetsuz beterik daukagu, bai kondaira guztian, baita gaur egun be. Oneitariko bat dogu M. M. Zubiaga Josulaguna: erririk erri, gogojardunak eragiten ibiltzen da eta asko dira bere billa dabilzan erriak eta arduradunak.

Liburu onetan bere berbaldietako gai batzuk dakar, batez be maitatasun-damua eta onen ondoren onak aztertzen ditu.

Liburuan euskal-zaletasuna agertzen da: «Euskaldunentzat joera aundiko dan Bizkai'ko Urkiola'n» (65 orr.) «Ilberri dan Canarias'ko Gotzai Agurgarri ta euskaldun jator...» (68 orr.) «Iruña'n 1952'garrenko ilbeltzaren laugarren egunez, ustegabeko eriotzaz, euskaldun sendagille jakintsu bat il zan» (69 orr.) «Liburuxka au, bati-pat, euskaldunentzat izanik» (85 orr.) «Xabier berdigabearen... lenengo otoi-tzak... cuskerazkoak baita ere» (95 orr.)

Baiña, neure ustez, liburuan agertzen dan pentzakerea goitik berakoa da eta ingurua bear dan bestean ez dau gogoratzen.

Bakotxaren zorion-egarria asetzea ez ete da norberekeri bat? Liburuaren oiñarrian dago eritxi ori: «Zugan ain itsatsia, ain berezkoa dezun zorion-gose orren asebidea erakustera...» (14 orr.)

Ardura nagusi lez bakoitza zeruratzea agertzen da, ez ete da beste norberekeri bat au be?: «Asko ta askorentzat, beraz, bear bada geientxoentzat, maite damua egin bearrezkoa da. Bestela ezin zeruratu eta, bien bitartean, ezin barru-zorion eta pake-lasai osorik izan» (44 orr.) «Gurutze

batiñan gure alde il zanak eta gizonak, guztiak pillaka eta bakoitza zeruratzea nai duanak...» (45 orr.)

Pekatuak gizonakaz dauan zerikusia gitxi agertzen da. Goitik berako arazo utsa ete da obena?: «Pekatu larriak, astunak, zakurra eleizatik uxa oi danez, beragan bizitokia egiñik zeukan Jaungoikoa, utikan! esanaz bezelatsu, botatzen du» (49 orr.)

Gaur egun, erlejiñoa ta Erria, inguruan bizi dan gizona, geiago alkar-tu bear dirala uste dot; Jainkoa lenen kontuan dala, jakiña. Au dala uste dot gaur artu bear dogun bidea, eta onetara eratu bear dirala gure berbaldiak, ezin ukatu.

* * *

Izkuntza-aldetik M. M. Zubiagaren liburu gipuzkoeraz idatzita dago. Euskera garbia, ederra ta erreza.

Idazkeran izki luzatuai gaiñean ezaugarri berezi bat ezarten dautse: orratik, áztu, mätsondotik, nástu, axáturik, zárrenari, tártean, xâr, xê-xêtu...

Izlarian oiturai jarraituz, ba daukaz ipuiñik geienak oso zarrak eta lar ezagunak dira.

Itzak pizka bat uler-gaitzak diranean, alboan beste esaera bat jartzen dau. Ori be ez degu esango txarto dagoanik. Idazti baten lenengo ta beñen, ondo ta errez ulertzea da: nazazu (zadazu), eskaiñi didazun Zeruak (eskeiñitako)...

Esakun jatorrak eta politik be ugari datorz: «Zirt edo zart egingo al degu!», «Orduerdixoren bat. Ortxe ortxe...»

* * *

Zorionak eta esker beroak ba, M. M. Zubiaga'ri liburu polit au ain euskera jatorrean idatzi ta agertu daukulako.

MARTIN

ZER EDO ZER

Eleizaren Gurutzea

Edestian garbi ikusten da Eleiza Amaren bizitza Gurutz-bidea izan dala. Ez gara arritu bear gaur egunean bardin yarraitzean, Kristo berberak iragarri eban Berak baiño zori ohea ez ebal izango-ta. Ori yazoten da komunisten menpean yausi diranetan. Beste zeregin barik ito ez dabe egingo, baiña biziten itxi be ez. Olango errietan bizi diran eleiz gizon eta katolikuburu egiten dabenen zoria, benetan tamalgarria da. Martiri ez dituez egingo, ori goragarria izango litzake-ta. Ori baiño bide maltzuarragoa da kontzientziz bete ezin leikezan legeak emon ta gaizkin biurtu. Arein arerio agertzen diranen artean be, beste ainbeste egiten dabena, Eleizaren azkatasunari buruaste gitxi ez dautse emoten.

Gizonaren eskubideak, indarkeriz, gogorkeriz eta ankerkeriz zapalduta ikusten dituanen, zuzentasuna zapalduta ikuste dabenean, ixillik egotea ontzat emotea uste izan leikenean, Eleizak, edo eleiz-gizonak zerbait esaten asartzen ba'dira, gorriak bakarrik ez, zuri antzeko asko asarez yarten dira, Eleizaren arazoa arimak zainetzea dala esanaz. Dana izaten da, gizonak gorputza be ba-dabela aztuten diralako, eta Eleiza gizon osoa salbatzen alegindu bear dala, *gorputz eta arima* betiko zorientsu egiteko. Eleizaren Buru Yesu-Kristo be orretarako gizon egin zan, Eta EGI BER-BERA, izan arren ezker eta eskoi, lapur biren erdian gurutzean yosi eben. Mundu onetan Eleizari be orixe yazoten yako.

Argi itz-egiteko ordua

Eleizea, bidebagekeriak ikusita, ixillik lan egiten dau okerrak zuzentzeko, zarata asko eginda sarritan txarrago izaten dalako. Baiña nozbait zarata egiteko aldia eltzen da-ta, Ipar-Amerika'ko Gotzain Batza'ren Batzorde-egileak, 48 gotzaiñek, ango agintariei adierazo dautse, Txile ta Brasil'en gizonaren eskubideak aintzat artzen ez dabezalako, diru ta izkillu languntzarik ez emoteko, gizonaren eskubideak zaintzeko baldintzapean izan ezik. Eta gotzaiñok, agintariei diñotse, ori, kontzientziak eskatzen dabena gauzea dala. Gogorkeri, ankerkeri ta zuzenbagekeri azpian dagozanei laguntzea, ez inoren gauzetan sartzea maitasunak

agintzen dabenean baiño, Sao Felix'eko gotzain adoretu Kasaldaliga yau-nak idatzi dabena, naiko da Ipar Amerika'ko gotzaiñak zuzen dagozala yakiteko.

Brasil'en lur-yabetasuna zelan dagoan yakiteko, auxe baiño ez dogu aitatu: Lur-alde izugarriak ezerezkeri bategaitik saldu dautsez langintza edo empresa batzueri, eta beste askoren artean bat dago 695.843 ektarea sendi batena dana, eta Para estaduan beste bat 1.500.000 ektarearen yaube dana. Eta menpekoak ogia urri ta lurrik non yuasi be ez. Orretarako ez dala eskubiderik argi dago.

Solzhenitsyn. Otoi bat

Aspaldian ainbeste aitatzen dan errusitar idazle ospetsuaren, Nobel saria irabazi arren, an yazo diran bidebakeriak azaldu ditualako yaurtia izan danaren otoi bat ingalanderaz, *Catholic Herald* asterokoan, argitaldu dabe. Zerbait esan gura dabena otoi au, euskeraz biurtuta ara emen:

«O. Yauna!, Zugaz bizitea gauza (erreza da,

Nitzat Zugan zifnestea beste errez. Espiritua nire gain illuntzen danean, eta ni zapalduta mututu. Gizonik bizkorrenak be, biarko egunak ekarriko dabena ezagutzen dabenean.

Zuk ziurtasuna emoten daukuz ziuurki eragozpenbako Ontasunaren erretena zaintzen dodala. Lurreko aintzaren erpiña olan goituz Nik egundo, bakarrik aurkituko ez (neban

Bidea ikusten dot Bide arrigarria, etsipenaren aurrez (dagoana.

Zure munduaren ditzira izatera eldu (naitenean Zer esan bear dodan Zeuk bakarrik (agertuko daustazu

Eta aurrera eroateko astirik ez ba'dot, Orrek esan gura dau,

orretarako beste batzuk autu dozuzala. Otoi au, yakiña, lenengoz errusieraz idatzi eban. Gero Txikago'ko Prantzizkotarren egutegi baten kroatarren izkuntzan agertu, eta andik ingalanderara aldatu.

Otoi au onetan ikusi geinkenez, zifnestudun gizona da, eta aldi bateko Bakon'ek esaten eban lez, yakituri askok Yaungoikoagana eroaten dau, eta yakituri gitxik aldendu.

GAMA

ARRAINTZAK LASAIAGO

Bermio'ko Azpeitia jaunari ez diot geiago miñik eman bear. Nik ez det ori bururatu ere egin. Zure zer esanetan oso ongi ta garbi idazten dezu. Zerbait, gaitzat izan bear degu arraintza kontuak idatzi bear ditugunean eta, askotan, bateko ta besteko iritziak askori on egingo diete. Zuk eta nik, ongi dakigu ere, arraintza gaitetan, ze nolako gora-berak izaten diran, ta sortzen diran, unero. Nik zure iritzi oiek oso ongi artzen ditut, eta nereak txarkitzak artu ba'dituzu, nere eskua ipiñi bular gaiten, biotza ikutuaz eta barkapena eskatzen dizut.

Askotan, itzak, bakarrak, zer esan asko dute. Idazlan guzia ordea irakurri bear da, ta batuaz ederkiago agertzen dira ideiak. Eta, orain esan nai dizut, ni zu baiño arraintzale txikiagoa naizela. Zu ortan zabiltz ta ni ere aitak zortzi urterako eraman nindun arraintzara. Ez da oraingo kontua!

Guk ordun itxas ontzi txikia gendun, bere zortzi zaldiko makiñakin. Geuk egiten genduzan langostetako otarrak, palangreak, sareak, era guzitakoak, ta ordun gauaz MALLA izena zun arraintzara joaten giñan antxuak arrapatzera. Ez ziran aiek giro ederrak, askotan gaueko aize bildurgarri aiek sortzen ziranen eta sareak itxasoan zegarrean barrura sartu eziñik...

Ortan 23 urte arte (kendurik bi soldadutzan igaro nitalako) ta soldadutzatik etxera eldu nintzanean... gure guda sortu zan. Ez daukat emen zer esanik lenengo egunetik ze alderdin jokatu numik... une aiek joan ziran eta orain zure ta nere ezta-baida au bukatzeko, nere aldetik beintzat, ontan geldituko da. Uste det, aurki batuko gerala idazlariok igaz batu giñan bezela, ta a ze nolako poz atsegin izango zaiten zu ezagutzea!

Loyola'n batu giñanean zure erritar idazlari orrekin, elkar ezagutu giñan, ta txolarte ederra egin gendun maian, izanik gure lagun Iriarte bermiotar ta bere emaztea, ta Azkarraga Zumarraga'ko idazlaria. Ia zu ere etorri, ta orrela gozatzen degun eguna! Mentuaz zuretzat zaila izan leike, arraintzan zabiltzalako, baiñon, ba-leike etxean izatea, ta Iriarte'ri eskatu lekua bere berebillean etortzeko. Ez dakit noiz izango dan egun ori. Oriako daudenak adierazuko digute. Dakitena da, batuketa auek, urtean bein bada ere, ez dirala galdu bear, orrela lortzen degulako elkarganetzea eta bien bitarteko anaitasunak.

Aurrero esaten nun bezela arrolioa 6,50'tik, arraintzaliendat 2,85 jetxi zieten, Jaunari ezker! Egun auetan Epaillak azken ta Jorralaren aurrenetan Donosti'ko kaian egundako arraintzak izan dira. Geien berdelak: Amar milla kilo, baita ogei millakoak ere. Nere anaiek ere emen izan dira bi ontzietan ta aste ontan, batek 180 kaja ta besteak 200, antxoetan ekarri dituzte. Beste ontziak ere bai, ta ordainketak, asi zortzireunean eta beztzireun arte kajeko. Baiñan, antxua kazkarra ta prexkurako. Emen diotenez, berdelak gaita artua dauka ta antxua bildur da gora igotzeko... zerbaiteri aitzakia eman bear, eta ortan daude arraintzaleak. Bien bitartean berdelakin zerbait irabaziaz. Bat ere ez baiñon obe noski. Antxo aundia denok dakigu, urtero ill ontan agertzen da. Jorrallean. Eta, ordun zer? Erosleak nola ordainduko dute? Soñu txarrak daude ta, ikusi ta ikasi, esan bear.

Lebatz zaleak ere poliki arrapatzen dute emen. Orain beita galanki bai dute... ta mokari goxo orrekin lebatzak aixa mauk egiten dio amuari. Nik, gogoratuaz, bein an Venezuela'n, nola arrapatu nun MERO bat 50 brazetan, ta 36 kiloko pixua berak... ta kor-del edo lokarri meiak...

E. OZKIN

Portugal Erbestean

Azkenengo munduko guda asi zanean Aprika osoa (Ego Aprika ezik) ta Asia'ko lurralde aundiak Europa'ko Laterrien mendean egozan. Pilipinas Ipar Amerika'renean; baiña (uste dot 1936'garren urtean) ordutik amar urtera askatasuna biurtzeko erabagia artu eban. Amar urteko epe ori, Pilipinas askatasunerako gertutu eitean zan.

Ta arrigarria; guda irabazle izan ziran Laterriak Aprika ta Asia'ko erri orrei askatasuna biurtu biar izan eutsen. Ta ez beti gogo onez. Bai ba, gudearen benetako irabazleak Ipar Amerika ta Errusi izan ziran-da, ta Laterri andi biok kolonizazioaren arerioak ziran. Ipar Amerika erri guztiak bere buru jaube izatearen aldeko zalako ta Errusi'k Europa'ko Laterriak indarra kentzea zalako.

Biar bada erri batzuei ariñegi be emon jaken bere buru jaubetasuna, biar bada erri orreik urte batzutarako O. N. U.'ren eskuetan-edo ipintea obeto izango zan eurentzat ta orretarako gertu-ala askatasuna biurtu.

Dana dala, askatasuna gauza andia d'

ta bera lortzeagaitik neke batzuk eroatea merezi dau. Ta Aprika guztia, nekez ta lorrez badabe, euren erri bizitza egiten diardue.

Baiña, ez; danak ez. Portuga'ek ez dautse askatasunik biurtu nai bere mendeko erriak. Ingalaterrak, Prantzia'k, Españia'k, Beljika'k eta Itali'k (eta Holanda'k be bai Asia'ko bere lurraldeak) aske laga zituen. Baiña Portuga'ek inuñdik ifiora ez ditu laga nai Aprika'n mendean daukazan lurraldeak.

Europa'ko Laterrien Aprika'ko nagusitasuna oso-osorik angoentzat kaltegarria izan danik ez neuke esango; an dauken aurrerapen apurra emengoai zor dautsela esan daiteke. Jakiña, galtzen ez eben urtengo Europa'ko Laterriak, egin dabena guztia ondo kobratu izan dabe.

Baiña... zek darabil Portugal, irabazi naiak ala arek aurrerabidean aurreratu naiak? Baiña ala be buru barik dabilela esan daiteke. Aldi baten, bere nagusitza bakean eroan al ebanian, ondo etorriko jakon Portuga'eri an ataraten eban obaria. Baiña orain bertan iraun al izateko 125.000 laguneko gudataldea bialdu biar badau guda egitera, irabazi andirik ez dau atarako.

Ta, dirudianez, begiak argitzen asi dira Portuga'en. Spinola gudalburuak arazo onetzaz idatzi dabena idaztiak ze pentsau naikoa emon dabela dirudi ta egoera oneri amaia emoteko gogua be bai. Bertan Portuga'en jagi dan matxinada txikiak erakusten dau ori.

Portugal Laterri biartsua izanik, Aprika'ko lurretan ataraten dabena irabazi barik ezin bizi leitekela uste izango dabe bertako agintariak. Prantzia'k be bardin uste eban Arjelia'ri buruz. Baiña bildur areik errezo andirik ez eban. Prantzia, Arjelia galduta be txartuago ez da bizi. Portuga'eri be bardin ez ete leuskio jazoko?

Jakiña, euren bizimodua an dauken portugaldarrentzat (an jaiotakoak asko) ez litzake ona izango ori. Baiña gaurko jokerea orixe da ta burua makurtu biarra besterik ez danko Portuga'ek. Ango portugaldarren ona etxean billatu biar-ko dau.

KAMINAZPI



DEPURACION DE AGUAS S. A.

URA EGOKITZEN ETA UR LANETAN BEREZITUAK, EDANGARRIAK - LANTEGIRAKOAK - ZIKINDUAK NAIZ IGERITEGIKOAK ZUZENTZEN

+ 32-37-00 - + 31-00-10 - 32-37-01 Urt.

Gordoniz, 44, 12.^a
BILBAO-2

NOIZEAN BEIN

Aspaldi ontan gure artean, tamalez, abade barri gutxi egiten dira. Noizean bein orraitino gazte kementsu batzuk goi mailla orretara elduten dira.

Epaillaren amarrean, arratsaldeko lau ta erdietan, Arrazola'ko erritxu politera eldu gintzagan ostera be. Gaiñaldeko Anboto aitz ikaragarri ta antxiñetako sorgin jauregia, erdi ingururaino edurrez zuri agertzen zan, onte guztia odei moltzo illunakaz estalduta ta uneka negarra eriola. Mendi gailurrak edur-kapela zuria aldean ebela; baso zelai orle-giak eta basetxe zuriak or emen. Bai polita Arrazola! Antxiña, nire ibillaldi baten ikusi nituan Alpes menditartetakako erriakaz gogoratu nintzan.

Arratsalde ortan elizkizun berezia: euskal kutsua daben bertako eliza txukun-txukue-nean, On Austin Leturiaga Diakonu gazteak, abade maillara igongo eban. Gotzain sa-garatzaillea, Donosti'ko Laguntzaille dan Setien Gotzain gazte ta jakintsua, ba, gure Gotzain On Antonio Añoberos, ots aundi ta atsekabe ikaragarriagaz Madril'en egoan.

Elizkizun guztia, bai itzaldia, bai abesti ta meza ta sagaratzekak, euskera uts-utsean egin ziran... Eliza eliztarrez bete-betea egoan, gaztedi ugari ta ederra aurrenengo zala. Bai egun ederra ta itxaropentsua Arrazola'n Epaillaren amargarrenean!

Abade urtetsuok orrelako elizkizunetan indar barria artuten dogu, pozez biotza ur-turik, elizaren eta erriaren etorkizuna, olako abade gazteetan indartua ikusten dogulako.

Abadeak gutxituten diran larri-une onetan, abade barri bakan orreik elizaren zuziari indartsu ta alik eta ondoen eutsingo dautse; abade geiago etorri artean, ba, nire eritxiz, gure errian, Jainkoaren deiari biotz aundiagaz laister beste gazte askok erantzungo dau-tsoe, orrela leen oi zan bezela gure artean eliz gizon ugari, zintzo ta jakitun izan daitezkan.

Bein eta eun bidar, au izan zan nire otoi arratsalde aretan: «Jauna, On Austin Abade barri au Zeurepean artu egizu eta gure abade-geiak ugaritu, bear-bearrezkoak dogu-zan eziketa on eta maitasun benetakoa gure artean zabaldu ta indartu dagiezan».

Udabarria loratsu dator, udabarri onetan Kristo bere loratu da barriz On Austin Leturiaga'rengan.

Zorionak On Austin eta urte luzeetan Kristau «igali» ugari ta garbiak emon!

Kristo bakarrik bizi emoilte,
baita egi ta bidea.
Kristo'ren Kimu gorenkoa da
ludi ontan abadea.

Eskerrak Jauna biotz-biotzez,
bizi zara abadean;
izan beiz Zure antzeko
artzain maitati lurrean!

GALLASTEGI'TAR KAULDI

AZTERTZEN

AROSTEGI'TAR JOKIN, APAIZA
TA
ARENAZA'TAR JOSU, OSALARIA

Egiz, nik eztot izan aukerarik Aroste-gi'tar Jokin apaiz Jaunak, apaizen gora-beran, Zeruko-argia'n idatzi dabena oso-osoa irakurtzeko. Baiña Arenaza, osa-lari jaunak, orrenak lez, dakartzan txat-batzuk beintzat akatz andiak daukez, eta nik ezin ontzat emon. Oso gogo-jausi agertzen dala diño, Arenaza Jaunak, Arostegi. Eta olantxe da. «Parro-kiak iltzera doiaz», diño. Nik ez uste orrenbeste. Gauza batzuetan zerbait gal-du egin da, baiña beste batzuetan iraba-zi be, bai. Galdu bada, barriz, ziur-ziur geu apaizon errua da. Zergaitik erri-zeiak ulertu, iruntsi ta ausartu ezin leikezan auzi astunak aixelara atara?

«Talde txikietan banatuak izango ei-dira geroko kristiñauak, diño Aroste-gi'k. Siñismen talde, edo «Comunidades de fe» deritxate. «Talde bakoitzak aukera dezake, batez be eukaristi batzarrerako, taldearen buru izan bear dun Apaiza».

Ze eskubideguz eta nungo oiñarriz ete diño ori Arostegi'k. Ona emen zer iñotsen ointzu gure Paul VI Aita San-tuak, erriak izentau bear zituela bere apaizak iñonen batzui: «Elizea, edozein lurraldeetako Jaurrean bizi da, eta lotsa ta itzalik andian begiratuten dau-tse Jaurrea guztiei, Giza-legea-derecho-natural— eta Jaungoikoaren legea on-tzat artzen ba'ditue; baiña onetan, zuek diñozuen zail onetan (Elizea), iñotsen, ezta erriar edo «demokratiko».

Arostegi Jaunak eztiño zelakoak izan-go direan erriak izentauko dituan apaiz-ak. Ziburur'k, San Juan de Luz'eri uku-tzen dauzala dagoan erriak, bein, Apaiza izentau ebalako? Ziburur'n, bein, txai-dez-txai-de, kalez-kale giñoazala Don Bo-nifacio Etxegaray ta biok, onek esan eustan, Prantzi'ko iraulteketa, errebolu-siñoa izan zanean, emengo Jaun-erreto-rra, Parrokoa il egin ebela. Baiña erria ezin zen egon Parroko barik, eta erriak

berak izentau eban parroko barriya: au da, SAKRISTEUA NOMBREU EBAN PA-RROKO.

Baiña onek ezituan ase ta bete bere eleiztarrak, eta gero Bayona'ko Gotzai-ñak izentau eban beste bat. Baiña ezta erreza emen Arostegi'k diñoana lortutea be: «talde bakoitzantzat apaiz bat». Pa-rroki bakoitzerako apaiz bat lortutea be, ezin dogu lortu, eta, zelan lortu talde bakoitzantzat? Nok eroan baserrietara gaurok apaiz gaztea? Txakur amesa!

Gero garbitasun gaia darabille. Arlo guztian dago ondo Arenaza. Baiña emen ezin obetoago erantzuten dautso: «Narra-utsik aragia esku artean darabilgun osa-gille ta beste erriar soillentzat, zer? Argi dago Arostegi'k aitzu dituala une baten beintzat, Pablo Deunak, bere ara-gian zirrikadak susmatu zituanean, zeru-tik entzun zituan itz oneik: «Zerutar grazia naikoa doz». Ezin obeto Arena-za'k: «Eskasa ete da Espiritu Santuaren indarra?»


Azkenez: Itz bi oneik darabiltz Arena-za'k: «Apaiz ezkonduak eta ezkongeiak». Apaizak danak dira ezkonduak. Eleiz Ama deunagaz. Onegaitik «abadetza itxi daben apaizai Aita Santuak itz garratz oneik esan eutsezan: «desertores» «gest-ariak». Baiña abadetzea itxi dabenai erderaz, «secularizados» esaten yake. Euskeraz, zela esango genduke? «Secu-lum» latinez, gizaldia da. Au itzez-itzez euskeratu ezker, esango genduke: «gi-zaldiratua». Baiña, beste era baten? Be-gira, Mungia'tik ur-urreen dago erri bat, Jatabe deritxona. An egon zan Parroko bat Barturen izena ebana. aurretik ala-guna izan zan, eta erriak «gizon-abadia» esaten eutson; abade baiño len gizon ez-kondua izan zalako. Orain bada, au oi-ñarriz artu ezker, zelan deitu gein-kiño lenengo apaiz edo praille izan eta gero eleiz-baimenagaz ezkondu danai? Abade-gizona?

JOSE-ANTONIO
OAR-ARTETA, apaiza

ANTZUOLA

IESU-Lagundiko Anai Iñarra Gre-gorio'k, Lagundian berrogeitamar urte bete dizkigu. Aurten epaillaren 23' garrenean bete ere, eta jai-egin diogu. Olako urte-urrena iñola ere ez izan aztutzekoa. Lenago ere berrogeitama-rreko urte-sailla gogoangarri izaten zan. Orain ez gutxiago. Urte-sail txi-kiagotan ere ospakizunetan ibiltzen zaizkigunak ez gutxi.

Iñarra Anaia Antzuola'ko semea degu: ludi ontara 1905'garrenko irai-llaren 9'garrenean azaldu zitzaigun. Bere anai txikiagoa, izenez Domingo, oso gazte zala Andoain'en latin ikas-ten asi zan. Geroage, bere biotz be-roak eskatzen zionez Burgos'ko Erbes-te-Belgundari Bazkun'ean sartu zan: apaiztu baiño len il zan. Gaur beze-lako egokieran, Gregorio'ri anai za-naren aipamena egin gabe ezin utzi.



Jaikizunera askuak bildu gerala esan bear: txinarrak, euskaldunak, es-pañarrak, parantzarrak, italiarrak, ipar-amerikarrak, ungariarrak, kana-datarrak eta ego-amerikarrak. Bazkal-tzerakoan, oitura zarrari eutsiz itzal-diak eta abestiak izan ditugu. Eta, lenbizi Arrupe'k Erroma'tik Iñarra'ri zorionak emanez idatzi dion eskutitz luzea irakurri digute. Euskaldunok antzuolarrari Iparragirre'ren «Kitarra zartxo bat»... abestu diogu. Urretxu eta Antzuola auzo-auzo dirala go-goan izanik, noski.

Bañan, aurretik elkar-meza izan degu: emengo Iesu-lagunen nagusia buru, eta egokiera polita izan, eta Loiola'ko Iñaki Deuna'ren iaupako otoiizat eta irakurgaiak izan ditugu. Berri Ona irakurri ondoren bakoitzak zerizkiona esan eta itzalditxoen bildu-ma osatzeko elkar-meza-buruak Iña-rra'ren bizitzakoak gogoraziz, auxe esan digu: alegia, zerbaitetan berro-geitamar urtez irautea gora aundikoa dala, lankizun aipagarria eta egona-ri bikañaren zantzu. Baita ere esan dio, berak (orain Nagusi degun onek) Iñarra Shanghai'ko Zikawei'n ikusi zuala, artean kistar ez zala, eta Iña-rra'ren lanerako zintzotazun eta guz-tiekiko ar-eman txeratsuak beti zirrara aundia egin ziola. Eta, ondoren kis-tartasunera eldu ba'zan, Iñarra'k gu-txi ez-baiña asko eragin ziola.

Arratsalde aldera bakarrik aur-kitu dedanean izkutukoak adirazi die-zazkidala eskatu diot:

—Nik berri tximenak? Emengoek ez dakitena, beintzat, lenengo auxe: Donosti'ko Ategorrieta'ko Iesu-Lagu-n-dikoez gazteentzat duten ikastetxea eraikitzerakoan (alegia, asterakoan) Ansoleaga iesun-lagun apaiza buru genduala antxe nintzala. Aspalditxo-ko gertari, noski.

—Eta Belgique'n izan ziñanean?

—Bai! Liege'ra ioateko esan zida-ten. An Lasarte'ko etxakandere batek semea zuan ikasle eta emakume mara-tzak beste euskaldun gazte geiago artu zitan bere etxean, aiek beren ikas-tekeetarako aukera ohea izan zezaten, eta txoko isillagoa bizi izateko eta arratsean lo egiteko. Ni, ordea, ez nintzan ikasle. Ala ere, ertzañei eman genizkien agiritan ikasle nintzanekoa esan eta aiek ez siñisten. Eta, sarri etortzen zitzaizkidan zearkako galdeak eginez. Beingoa eta bigarrenkoa... be-go! Irugarrenkoa ere... erdi-purdi! Gero, ordea, aspertzen asi nintzan eta nik motz erantzuten. Belgikar ertzañek zer egingo eta Donosti'ko ertzañei nere berriak eskatu. Donosti'koek ezer ez zekitela erantzun, eta alako izen-dunik iñon ote-zanik ordurarte ez zu-tela entzun. Orduan belgikar ertzañ-iek sutu ziran eta kukurrukuka antxe agertu zitzaizkidan, arazo guztia gar-bitu zutela esanez eta gaiztakerian etoi nenbilena egi zala neri egotziz.

—Zer erantzun zenien?

—Donosti'an nik ez nuela okerrik bein ere egin eta ango ertzañak ez zutela okergileen artean nere izenik. Ortaz, isil-isillik utzi nituan.

—Beste zerbait ere izango dezu.

—Txina'rako izendatu nindutenean nere esku-zorroa potxolo-potxolo ar-tu-ta, senidei agur egitera agertzeko asmoz Liege'ko bultzi-geltokira ioan nintzan. Oso garaiz ioan ere eta nere esku-zorra potxoloa bazterrean utzi-ta, aruntzaka eta onuntzaka egun ar-tako izparringia irakurtzen asi nin-tzan. Bultzia iristerakoan langako atea zabaldu zutelarik, nere esku-zorroa artu eta atera urbilduz, ertzañak:

—Eup! Esku-zorro ori zurea al dezu?

—Alegia! Norena izan diteke, ba?

—Zure dezula zertaz adiraziko di-dazu?

—Eta, zuk artzain argi orrek, ne-rea ez dedala zertaz adirazi nai dida-zu? Ez gero uste izan nereza ez dala adiraztea nere lana danik. Ori zure egitekoa da! Besterik gabe itza moztu nion. Zer gertatzen zan? Aurteko egu-nean, mailla aundiko gudugizon bati bere esku-zorroa ostu zioten geltoki artan bertan eta ertzañek oso aldarte txarreko zebiltzan eta ni ebasle ote-nintzan uste izan zuten.

—Txina'n ere zerbait gertatuko zitzaizun, ba?

—Neri baiño latzagoak beste asko-ri egin gorriek. Bitartean, zerorrek eta beste askok ordukoak iñori ez dizkio-zute esaten.

—Ez zaitetz estutu. Garai egokia etortzen danean, guri gertatutakoak ere norbaitek aizatuko ditu. Maindire zuriak bai'liran eguzki txuritan zabal-duko guztiek iakin ditzaten. Orain zure aldi da!

—Gorriekin Wuhu'n alakoxe izka-mizkatxoa izan genduan. Aiek ba-zekiten apaiz ez geranok esku-laneta-rako oso egokiak giñala, txito aukera-koak. Eta, aiek izugarriko langille-bearra zuten. Eta aiek guri iñongo irabazpiderik ederrenak eskeñi. Guk, ordea, erantzun bakarra eman genien. Alegia:

—Apaizak eta apaiz ez geranok Lagundia osatzen degunekoak gera, eta apaizak uxatu bear baldin ba'di-tuzute, gu ere aiekin ioango gera. Emen ez dago bereizkuntzarik.

Dakizunetz, ondoren guztiak bialdu ginduzten. Usai txarrekoak izan gu, nonbait! Aiek, ikastetxean zebiltzan mutikoen errukirik ez! Gorrastak, ala-koek, beren asmo eta uste bitxiak bete nai zituzten. Guk, berriz, arrokeriz ez-baiña lurzabalean siñisgabeko asko zirala iakiñik Formosa ontarako egaz-kiñiak artu genituan.

Iñarra gorai patuz egun ederra izan degu. Antzuolar iesulagunari eta aren senideei zorion-agurrik aundiena!

ETXEBERRIA'TAR P. S. J.

ERRIENAKO

BARRIAK

Ondarru

ATXUKALE'RI ERANTZUNA ETA OARPEN BAT

Ez naz beste asko baiño bake zaleago, ez gerra zaleago. Baiña gauza batzuk entzun edo ikusten dodazanian, batez be neurritz kanpo edo itxurabakoak, ezin izaten naz, une onetan lez, ixillik gelditu. Origaitik, neure adiskide batek bialdu daustan Zeruko-Argia'ko (Otsailak 24) zure idazlana irakurrita Kitolis'en tirabirari buruz, batetik barregurea eta bestetik negar egiteko gogoa emoten daust. Zelan esan leike aibeste urtean itxas-ertzean bizi dan batek eta bera be arrantzalea izandakoa dala diñoanak, Kitolis'ek gertakari a edestu chanian, bera an egon balitz, gezurtia zala be esango eutsala? Konturatzan al zara, Atxukale, zer esaten dozun? Konturatzan al zara ori esatean, ez Kitolis, baizik Kresala'ren egille aundi ta berdingabe ber-bera guzurtien kutxara jaurtitzan dozula? Nire ustez ez zara bape konturatu, zure ikusmen txiro ta laburra orraxe baiño arutzago eltzen ez dalako!

Zeureak eta bi esango neuskitzuz, egi-egiak diranak, baiña niri asti gitxi gelditzen jata zulakoeri alperreko berbetan jarduteko. Ala ta guzti be jakin egizu neuk esanda, On Domingo Agirre'k zuk baiño obeto ekiala orduko ondarrutar arrantzalienen barri, eta bera il zanetik berrogetamar urte baiño geiago igaro ondoren, gaurko arrantzalienen bizitza be zuk ainean, ondarrutarrok esaten dakigun lez, «ortxe ta ementxe» dagoan tokitik.

Ez dautuz esango Kitolis'en edestia alan gertatua izan zeinkeanik. Bearbada, baliteke, On Domingo kontu-kontari ona be ona ta irudimen argiko gizona zalako, bere ames baten esan-naia izatea be. Baiña ain zuzen, idazle yaio eta bikain baten zabalera ta santonasunaren ezaugarria ortxe dago; amesak be egi biurtu ta josita laga bere ekintzetan, adibidez, Cervantes'ek, Pereda'k, Baroja'k eta beste batzuk egin eben lez.

Gabon aurretioxan ezin zeinkeezela joan Ondarru'tik Orio'ko inguruetaraino, batez be berdeletara, orduan bixigua aukeran eta urrago egoten zalako? Bai, denpora areitan bixigua ez-eze legatza be ain ugaria zalako, Ondarru ta Mutriku'ko eskaratzetan berez be sartzen ziran paper edo agiriak be ba daukazuzala esatea palta dozu bakarrik! Arrantzale seme ta arrantzan ibillia zarala? Ta gu zer? Salamanka'tik etorritako Prantzisko kalegarbitzaillearen (ezagutzen al zendun?) ume, lapa batzen ibillitakoak?

Ez daukazu itxasoan ibillitako itxura aundirik, lanbasaren ondoan izan ezik, gabon inguruan potin txiki batean Ondarru'tik urtenda Orio'ko aurreraino lau laguntxo joan zeinkezenik ez dozula siñisten diñozuean. Jakin egizu orduan lez gerotxuago be ibillik dirala Ondarru'ko potin txikiak, erre-muetan joanda, ez Orio'ko inguruetan bakarrik, baita Castro, Santander, San Vicente de la Barquera eta urrunago egozan eta dagozan lekuetan be, bizi bear edo premiñak zirt edo zart eraginda. Diñotzudan au ola dala jakin daizun, ildakoeri Jaunaren bakan itxia, egon zaitez, esate baterako, Agustín Akarregi'gaz (Pastela) eta, bide batez, denpora areitan berak Agustiñ'ek zenbat urte eukazan eta zenbat lagun izaten edo ibiltzen ziran be itaundu egiozu, ia bein eta betiko ixiltzen ziran astakeriak esatetik.

Au diñotuz zuk Ondarru'ko egiazko edesti ta izatearen lautik biren erdirik ez dakizulako; zu zeure erritik jaurtita (zeuk dakizu zergaitik) eskale bat lez gure errian kokatutako arrotz bat zaitugulako; zabil-tzan toki danetan mustarra ta ankasartzen baiño ez dakizulako. Bai, makiñatxobat kirtenkeri esan izan dozu, batez be irrati bidez, arrantza gora-berak zirala-ta. Eta arrantza ta arrantzalienen inguruan bizi ez danak siñistu ta onartu be bai, bear bada, agozabalik geldituz. Gu ostera lotsatu egin izan gara geienetan zure zentzubako jardunak entzun-da, arrantzako gorabereri zelako kaltea egi-ten dautsazun konturatuta.

Arrantzako lana betidanik izan da latza ta garratza. Naidana ta nabeste iñoiz ezin arrantzatu, aldana ta albete baiño, eta Kitolis'en denporan be, ez dago esan bearrik, berdela ta txitxarrua ugariago izango ziranik bixigu ta legatza baiño: Eta emendik On Txomin bardin gabearren berdeletako aipamen lilluragarria, Kitolis arrantzale jatorra ereduat artuta.

Don Domingo ta Kitolis zu zeurean zaran baiño obeagoak izan ez balitza euren zereginetan, au da, bata abade on eta euskal-idazle argi ta garbi lez ta bestea arrantzale zintzo ta leial bezela (Joanes artzainia aztu barik artzaintzan) gaur-egun euskal-elertia-

ren edertasun eta bikaintasuna ez dakit nun idoroko gendun. Atxukale'ren barriketan ez beintzat!

Bestalde, gabon inguruan egun laburrak eta egualdi aldakorak izaten dirala gure alderdian, len lez orain be, edozeinek dakiana da. Ego aize zakarrak jotzen ditu sarri-askotan gure bazterrak. Ego aize baltz edo «galgoia» deitzen jakona. Eta aize gogo eta latz onek iru-lau egunean gelditu barik jarraituarren, kostan eta kostatik urtean itxaso bare-bare egoten da. Baiña gero amarretik amarretan eta noiz izango dan jakin barik mendebalera jotzen dau bat-batean eta itxaso guztia galarrana esaten dautsazun aize ta olatu bildur-garrien mende ipiñi. Au ez dakian arrantza-lerik ez dago eguzkiaren azpian, baiña jan bearra gogorra izan, batez be Kitolis'en denporan, eta askotan bizi galbidean jarrita be, zcozer egin bear ogi pixka bat aora eroa-teko.

Gaurko egunetan, egia esan, gertaera bakanen bat kanpo, ez dago olako galarrarenen bildur aundirik ontziak gisa artara eginda-koak diralako, baiña denpora areitako txalupa-txauak, intxaur oskol baten pare gelditzen ziran eta galarren txikiak be tirabira era-gin arrantzale gaixoak iruntsiaz. Eta niri onetxek esaten daust Kitolis'en txalupa-tirabiraren edesti edo aipaldi arrigarri ta zoragarria zelan eta zergaitik idatziko eban don Txomiñ'ek, ondo baiño obeto ekialako mundik nora ebillen, guzurrekin amesetan egurastu barik.

Orregaitik, ala dalako edo zalako, arren eta arren begirune geiago izanik, laga egiozu don Domingo aundiari bake-bakean, atsedean tokian, gizaldien gizaldietarako, bere Kitolis, Joanes, Malentxo ta beste enparauekin, ondo-be-ondo antxe dagoalako euskeraren itzal eta ikasbidetzat.

Gaiñera ondo pentsatzen jarri ezkeru Kitolis maite dozula diñozuean egia ez dala esango neuskizu biotz-urri ta aobero tenteltzar baten antzera agertzen zaralako. Baita Kitolis arranondotarra izan zana muturzulotarra izan balitz, ezpairik barik andik edo emendik, zeure aitittamuma izan ziranen senitar-tekotasuna be atarako zeuntzala. Baiña guzti au orpo-orpotik batekoz beste izan eta zure Kitolis'enganako maitasuna bildur damuaren antzekoa dala nik zuri onela esan:

Bere lekutik, zartuta gero, aldatutako (arbola, Berak naita be leku barrian ezin sustraitu (iñola; Ondarru'gaitik ibilliarren berba-laban da (riola, Eun legutik ikusten jatzu nungoa dozun odola.

Guzurtia zein? Gure don Txomin edo bardiñ dana, gure Kitolis?

Guzurtia ez-eze izenik be asmau ezin leikioenen artean nortzuk egon ete leikeezen aztu ez daizun, azterketa sakon bat egitea komeni jatzula uste dot.

ONDARRUTARRA

Usansolo

ARGITASUN BATZUK

Gure azken idaslana eziketari buruz, ez dabe danak onartu.

Lenengo ta bein esan bearrean gagoz, egi osoa Jaungoikoaren eskuetan bakarrik dagoala. Baiña iñork ukatu ezingo dauana, an azaldu ziran eretxiak gure biotzean egizat daukazuzala.

«Errua gurasoen sorbaldan ezarritea erreza da, baiña utsak ikusten dauzanak, bideak eta gidariak azaltzen jakin bear dau, bestela ixillik egon».

Benetan, utsak ikustea errezago da bideak agertzea baiño, baiña zerbait zuzen egiteko, lenengo oinkada, txarto zer dagoan azaltzea izango da.

Onarte alkarregaz ba gagoz, urrango oinkada emon daigun. Zelan jokatu geinken? Argi ta garbi itxi daigun lenengo, notin bakotxak bere nortasun berezia daukala, ta ezin geinkezela gizaseme guz-tiak neurri bardiñean sartu.

Baiña beste alde batetik, ezin ukatu, danak daukagula zerbait bardin antzeko izan leitekena, batez be, gizadi baten bizi garan ezkeru, ta emendik azaltzen goaz gure eretxia.

Antxiñako Grezia'tar batek esan eban: «Oñarri edo 'punto de apoyo' bat emon eiztazue ta aga edo palanka bategaz ludi osoa jasoko dot». Guretzat artu daigun esakera ori, eziketari buruz be ba-dauka nondik agiña sartu-ta.

Arek, ludi osoa ipinten eban tokian, gure Euskal-Erri maitea ezarri daigun, ta aga orde, gure seme-alaben eziketara, teknika baten aldetik, osagille, argin, lege-gizon, arotz ta abar.

Gurasoak izango gara, aga orreri indarra emongo dautsoguna. Gure gogoa Euskal-Erria jasotea, goraltzea; gure gurari maitagarria, jarraitu dagiela esaten, naiko oñarri dagoalako, ta gure seme-alabak gidari ta bide zuzenak ikusiaz, zintzo ta alai jokatu dagiela, euren biziñan, euren Erri ta ludi osoko gizadiaren onerako.

Azaldu doguz ba, alde batetik, elburua, Erria jaso; begikune zabalenagaz artuta esakera ori. Gizadia aberastu; gurari ori lortzeko bultza egingo dautson aga, gure seme-alaben eziketa tekniko; ta bestetik, onek bear dauan indarra, gurasoak.

Baiña Grezia'tar arek esaten eban lez, ezin ezer egin, bultza egiteko agea non ipiñi ez ba'dago. Oñarria bear. Emen dago utzia. Emen non ikusten dodan nik gurasoen errua. Gure asabak ba-eukezan oñarri sendo bi. Jaungoikoa ta Legezarrak. Guk, gaurko euskaldun gurasoak, zelakoak ipinten doguz?

Len esan dogun eziketari bai, orreri gure laguntza osoa, ta bearrezkoa ganera. Baiña alde orretatik bakarrik jokatu ezkeru, ez ete doguz notin jakintsu batzuk egingo, baiña gizontasunaren alde-tik umezurtz?

Gure seme-alaben lenengo irakasleak gurasoak izan bear gara, ta teknika aldetik ikasitakoak etxetik urrin onuragarri izan daitezkan, len esan dogun lez, euren bizitza ta Erriari buruz, zuzen egarria, egia, Erri zaletasuna, maitasuna ta alkar laguntzako oñarriak ezarri bearko doguz euran biotzetan.

Baiña zelan? Lenengo ta bein, euren eredu izanda. Antxiñatik esaten zan gure Errian: «nolako gurasoak, alako semeak». Ez dogu bearrezkoa onerako, gizon edo emakume jakintsuak izan, gaur itz oneri emoten jakon esan guran; gure asabagaitik artu dogun aberastasuna, gizontasunari begira, naikoa izango da.

Gure biotzetan oñarri sendo bat ba'daukie gorago esandeko gai orreik, ta gure ekin ta eruduz gure seme-alaben ariman ezarri, ziur egon aga arek, eziketateknika arek, oñarri sendo areitan palanka eginda, gure laguntzagaz, gure Erriari emondako bultzadagaz, gorengo maillan agertuko da barriro gure nortasuna Erri lez, ta gure aurtxoak gidari garbiak izango dabez euran biotzetan.

Baiña, ta parkatu aspergarri ba'naz, lerro edo puesto ori ezin dogu iñoren eskuetan ezarri, etxe barruan egosi bear dan gauzea da-ta. Ta zeregin orreri uko egiten ba'dautsagu, barriro be neska-mutil gazteak nora jo ez dakiela ikusiko doguz.

Azterketa zintzo bat egin daigun euskaldun guraso bakotxak, norarte errudun garen ikusteko, ta zer aldatu bear dogun gaur arte izan dogun bi-zitziatik.

Argitasun naikorik ez ba'dautsuegu emon, azaldu, ta poz pozik jarraituko dogu arlo onen ekintzan.

ATXUTEGI'TAR BITOR

Arratia

Lapur andi-andi ta lodiak, urtearen buruan, egunik geienak on eta onurakor. Aterik-ateko eta leiorik-leioko txikiaren-tzat, aurtengo udaldia izango berebiziko egokiena.

Lau txakur eta iru zotz eskuan ikusten doguzaneko, or zear ez al gara joaten izan ba, eperdia galduko ez galduko, an jan eta bestean edan, emen erronka ta an arrokeri, astelenean aorako ogirik naizta euki ez!

Eperdi estu dardar ibiltaria lendik izan ba'gara, nor euki al izango gaitu etxean loturik udaldian, eguneroko lan-saria «225» lauerlekora jaso izan daukue-ta!

Ni neu beintzat, gure «beste mutilek» maiz eta sarri aitaturten daben PRO-LETARGO'koa izatetik azkatu izan nai-zala ustez, ba-dot asmorik, nonbaiteko errien batzuetan opor-egunak andikiro emotekorik. Eta Jaunak alan nai ba'leu, Bedia'tik Zeanuri'ra bitarteko Arratia ibarrean izango naz, ziur asko. Asti epetsuetan arkoloka, kontu-kontaritzara-ko aitaririk izango dot, egarria ilteko iturrietan ur gardenik, eta eztabidaz burrukatzeko alako edo olako gazterik.

Emen, ba, PROLETARGO'ren seme bat non dozuen, 225 lauerleko egunero jasotze aberatskumeen sareetara eroririk, jausirik.

«Daukanak ez daukanari» esanik, daukanari narrurainoko guztia kendu gurarik ari garanok, zer egingo ez genduke, goizetik gabera aberats andikia izatera biurtuko ba'giñake?

* * *

An eta emen, emen eta an, lur zabal onetan egiazg baiño guzurrez gizenago azaltzen diran eguneroko izparringiak, barriro bere garestitu-bearra izango ei-dabe.

Kontua ta ipuiña, guzurrea ta hai egia iñoizkorik ugarien doguzanean, ingi edo papelik-eza. Eta ezak garestitzea, karututzea.

Saldu-erosketak gitxitu egingo dira lenengo egunetan, gerotxoago, beti lez, ugaritu; eta urtearen buruan millakak diru emonik izango doguz neke ta miñik barik.

Geureak diran asteroko ta illero-koentzat zenbat emoten dogu? Eta emoten doguna esku zabalez eta samurrez ala zekenez emoten ete dogu? Gure nortasunaren izatea ilterik nai ez ba'dogu, barren-arra, kontzientzia indarbarritu bearko dogu.

* * *

Dima ta Zeberio bide nagusietatik baster egiten diralako-edo, ez dogu bertako barririk izaten, baiña, emen naz, gaur, Dima'ko gaztediagaz itaun egitera etorria.

Aizea, Laiñoa ta Uriolea izan ziran, Dima'n. Nortzuk ziran?

Erantzunaren begira.

LANDAJUELA'TAR A.

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra
BILBAO - Casco Viejo
Tenderia, 15 eta 16

EA 'N

Umetan, zabalduko kardabera bat biltzen gendunean, ebaki, eskuan artu eta alkarrari «praille ala monja» urtengo ete eban esanez, putz egiten geuntsan idartu. Kardabera ori bere orri zuri guztiak galduta kaskamotz gelditzen bazan, «praille» esaten gendun; orriarik galduta ez, «monja». Eta erdizka geratzen bazan, «ez praille ta ez monja».

Urte bete igaro dira asteroko nire errizko ibillera asi nebala. Ea'n nitzan egun baten zirikalari sentidu nitzan eta nire lengoia bialdu neban: «Ie, erri estu ta luzie». Niri be adarra jo eusten eatarrak izen-buru origaitik.

Barriro, urtearen buruan, bide kuru-tzean nago. Jarraitu? Bai? Ez? Erri asko ikusita daukadaz eta oraindik agertu barik. Urriburuak, kapitalak, ez dauste tenik egiten. Errez ezagutzen dira. Ez diñot eureri be ikuririk egin bear ez danik, baiña euren sarrigotan agertzen da edonon, batez be eurretako artxiboen arduradunen bitartez.

Erri txikiak maitago dodaz. Ara barriro Ea aurrean, Bedaru'tik bera, Beaskoa, Bix, ingurutatik zear.

Asiko ete gara putzka? Sartu gaitzen gaur Ea'n. Errez sartzen da emen, edonundik be, aldatz beran. Urtetea neketsuago.

* * *

Bedaru'ko toki alai eta politak gogoa bizitu egiten dautsa bateri. Aurrean ikusten dan Natxitu'k lez. Zenbatean baliatuko ete leukiiez errialde batzuetan aukera onetako tokiak? Ainbeste kezka sortu daben Ispaster inguruko Indartegi barria egiten bada, Bedaru bere gain-gaifnean geratuko da, bere zelatari, bere talai lez.

Geroakoak lagata, barrua poztuteko, Bedaru'ko sakristau izan zan Zarakondegi umoretsua gogoratu dagigun. Ez ei zan agertu, bizi zan artean, berak aiña eleizako nai kaleko kanturik ekian abaderik. Danetakuak. Fedeko, amodiozko eta zitalkerizkoak. Beragandik ikasita gelditu zan aitatu dogun au. Ain zuzen be Bizkai'ko euskera beteen erabilten dan inguru onetan, gipuzkerazkoa da. Zatika kantatzen da, barriz-esate edo errepetisiño bakoitzean gauza bat geituz. Guk dana batera ipiñiko dogu, esan nai osoa erakutsiz:

Nik ba ditut galtzerdiak emazte-gaiak emanak, txamarrek be sakeldunak, gerriko gorri illunak, galtzerdiak txilindronak, ebillak ere zidar fiñak ta zapatatako kordonak emazte gaiak emanak.

* * *

122 baserri etxe batzen dira danetara Ea'n. Gaur, batzuk, utsik. Natxitu'renak 68 dira: Elexalde'n 13, Aldebaster'en 15, Angetrutxu'n 25 eta Olagoria'n 15.

Bedaru'koak 42; Elexalde'n 4, Mendio-la'n 15, Urtza'n 16 eta Olabe'n 7.

Ea bertakoak 12: Allona'n 8 eta bana-katuak 4.

Ea'k, auzoak sartuta, 1.009 bizilagun eukazan 1970 urtearen azkenean. 1973'n, sasoi bardiñean, 1.023. 14 geiago.

1.330.000 pesetako diru gora-bera, erriko presupuestoa, aurtengo.

Gaurko eran batuta, au da Natxitu eta Bedaru'gaz alkartu eta erri bat osotzeko legea 1883 urteko Lorailla'ren 28'n agertu zan. Lenengo batzarra Garilla'ko 20'n egin zan bertan. Oraindik eun urte ez.

Lenengo irakaskintzako 6 eskola daukaz. Natxitu'n bi, Bedaru'n bat eta Ea bertan iru.

Lanerako industri bakarra: papelgintzauka. 82 langille.

Gaur galduta, baiña errota bi egon ziran eta burdiñola (ferreri) bat be bai.

Kabotajerako itxas-ontzi txikiak be egiten ei ziran orain berreun urte inguru. Orain eun urte eskabetxea be egiten zan eta, diñocenez, atun, besigu eta lebatz asko arrantzaten zan inguruetan.

Eleiz legez lau parrokitan bananduta dago. Bedaru'n bat, San Pedro'ren omenez. 1586 arte Lekeitio'ko parrokiaren mendeko. 170 lagun sartzen dira gaur eleizalde onetan, 46 etxe. 1973 urtean iru jaiotza eta iru eriotza gertatu ziran. Ezkontzarik ez. 1631 urtean asita dagoz bertako liburuak. Lenengo jaiotza Marina Altarraga'rena agertzen da. Natxitu'n be bat, Andra Mari Poztasunekoari eskiniña. 390 eleiztar, 71 etxe. 1438 urterarte Ibarrangelu'koaren auzoko. Igaz 5 jaiotza, eriotza bat eta ezkontza bi gertatu ziran. Parroki onetan bataiotako liburuak 1653 urtean dauke asiera. Lenengo, Jorrala'ren 18'an, Diego Zuloaga Monasterio'rena irakurten da.

Ea'n, uri buruan, parroki bi. San Joan'en 280 lagun, 81 etxe, 191 bizileku edo pisu. Igaz jaiotza bi eta zortzi eriotza. Ezkontzarik ez. Emengo liburuak 1691'an asten dira. Lenengo jaiotza Miguel Nachitube Echarvarria.

Yesu'ko parroki, 251 lagun, 68 etxe eta 203 bizileku. 6 jaiotza, 11 eriotza eta ezkontza bi, igaz. Emen be 1691'tik datoz liburuak eta lenengoz agertzen dan jaiotza Madalena Verreaga Garro'rena da.

Bizi leku asko, neguan utzik.

* * *

Noiztik ete dira itxastar eatarrak? Cristobal Colon'ek Ameriketara egin eban lenengo osteran, Lekeitio inguruko gizon batzuk ezagutzen dira. Ba dira diñocnak eurok berotu ebela Juan de la Cosa ospatsua ara joatera.

Ispaster'ko bat agertzen da euren artean: Domingo Atxia, upel egintzallea, tonclerua. Au «Navidad» fueratan geratu zan lenengo osteran. Beragaz batera mare-erdiko edo grumete bat. Eatarra au: Martin Urtubia. Bizi-sari edo pensiuña artzeko denporan, bere ama Maria Urtubia zan diru ori artzen ebana. Pensiño orreik lortuteko Likonatar bat ibilli zan alegin betean, 1513 urtean.



Gazte onein kontramaixu lez Txantxu bat ezagutzen da. Ez dago garbi lekeitiarra ala debarra zan. Emaztea debarra. Itxasgizon jatorra zala esaten dabe paperak. Onen eskabidez geratu ziran an lenengo osteran euskaldun batzuk, bigarren osterarako lekuak zaintzeko ardura eta alegiñez. Eatar Urtubia lez, betiko geratu, zoritxarrez.

1582 urtean, Bizkai'ko Batzar Nagusiak erabagita, itxasertzeko erriak zainduteko bertako gizonak izentatu bear ziranean, zortzi agertu ziran Ea'tik ebiltzanen artean.

1639 urtean lau galeoi armatu ziran Bizkai'n Galizi'ko errialdearen kontura. Euskaldun askok billatu nai izan eben euren euren bizi-modua. Ea'tik, artilleru lez, Juan Bias (Beasko?) agertzen da. Bere fitxak diño, begi malkotsuak eukazala.

Armada orretan, beste eatar bat be ikusten da: Martin Onzueta. Bere fitxa: naparreri pekaz beteta eta begi baltzak.

Urtetan aurrera joanda, 1740 urtean biltatu leikez Ea'n sei txalupa txiki eta 300 kintaleko bat. Ala ta be 1741'n gerrako adifnean zenbat mariñeru egongo ete ziran itaundu zanean, eatarrak esan eben ez eukela olakorik.

1757'n, Armadarako mariñeru bi eta grumete bi eroan ebezan Natxitu'tik. Iru urte geroago, 1760'n, itxasertzeko gizonen kontua artu zanean, Bedaru'ko sei eta Ea'ko 17 mariñeru eta 8 grumete agertu ziran.

Bilbo'ko Konsuladuko liburuak irakurtean, 1765-1770 urtean Ea'ko portutik itxasontzi oneik agertzen dira: «N. S. Consolación», 17 toneladako. Santi Agirre jaubea. Donosti'tik Santander'era ibiltzen zan. «N. S. Concepción». 11 tn. Natxitu'ko Txomin Kortazar, jaubea. «N. S. Begoña». 8 tn. Jaubea: Migel Kortazar. «San Miguel», 12 tn. Jaubea, Andres Galdiz. «San Benito», 34 tn. Patxi Ibiñaga, jaubea. Bayona-Ribadeo osteran egiten. «N. S. Begoña», 28 tn. Batis Ibiñaga, jaubea. Burdeos-Santander osteran. «San Juan Bautista», 20 tn. José Urtubia'rena. Ferrol'erako osteretan. «San Juan y San José», 40 tn. José Erdaide, jaubea. Bayona'rako osteretan. Orrez gañera Arteaga'ko beste lau ontzi Ea'ko portuko lez ibiltzen ziran.

1809-1810 urtetan, 11 ontzi ezagutzen dira Ea'n. 30 toneladako bat, 20'ko bi, 15'ko bat, 10'ko bi, 8'ko bat, iru 6 ko eta 5'ko bat. Jaubeen izenak: José Badiola; Manu Ibiñaga; Manu Gabikagoxeaskoa; Bixente Eixe-

zabal eta Anton Endeiza; Anton Kortazar eta Manuel Erkiaga; Martín Goitisolo, Santi Zarakondegi eta Patxi Ibiñaga, eta azkenez, bost toneladakoarena, Miel Kortazar.

Trafalgar'eko itxas burruka ospatsuan, 1805 urtean, eatar bat be agertzen da illen artean: Domingo Intxausti.

Gaur eatarrak zapaldu ez daben itxasorik ez dago. Ez arrantzan. Orretan ez dira zale. Baiña bai itxasontzi andi eta baliotsuen gidari, eroantzalle edo serbitsari. Onetan Ea'k izen andi eta garbia dauka.

* * *

Gizaldien luzean, Bizkai'ko itxasertzean sarri ezagutzen ziran burrukak. Ingelesak batzutan, frantzetarrak bestetan eta bertakoak be bai iñoiz. Origaitik erri guztietan kañoiak egoten ziran itxas aurreko tarteren baten.

Zein tokitan egoten ete zan iatarren armamentua?

1779 urtean zarpiko kañoi bi egozan emen. Biak ezetarako gauza ez ziranak. Itxas ontzietako kureñak eukezan. Eta... elizako koroan gordeta egozan, nasterik bazan garbituta eukiteko agindua artu zanean. Elizaren izenik ez diñoc paperak.

* * *

Ana Calera adiskideak, bere arduren gurrez «Cocina Vasca» liburua egin ebanean, gure ingurutako berezitasunak aizetu nai izan zitun. Orrela, Bizkai'ko janari famadunak aitatutean, Nabarniz'ko basa-arbi edo naboak, Kanala'ko txiriak, Arrankudiaga'ko txorizua, Ugarte edo Isla'ko angulak, Elan-txobe'ko txibi eta txanguruak, Armintza'ko langostak, otarrañak; Lekeitio'ko kabrak, Bermeo'ko lebatz eta bonbixak, Orduña'ko zizak, Ondarroa'ko lupiñak, Bakio eta Balmaseda'ko txakoliña, Durango eta Barinaga'ko eskallu eta sarbo txikiak, Zalla eta Gueñes'ko piperrak, Getxo'ko mutxilloiak, Santurtze'ko sardiñak, Gernika eta Berriz'ko ortuariak aukeratuta daukaz. Azkenerako laga dot Ea. Emendik zer? Ea'ko lez «be-giandi» (begi andidun tximiñoiak) eta itxas-kabrak (cabracho colorado) izentatuta dagoz.

Aspaldion iatarrek ametsetan ikusiko zituen arraiñok, eurak artuta beintzat. Kala ederrak ba dira ingurutan. Zenbat arrantzale eta nun, gaur?

A. ZUBIKARAI

URTEBETE

J. MARITAIN'EN GOMUTAZ

Bere eriotzeatzaz zerbait esan gendun, baiña ain yakitun andi ta euskeldunon adizkide zintzoa izan zan ezkerro, bere gomutaz zer edo zer geyago esatea egoki deritxogu.

VI Paul'ek bein baiño geyagotan bere itzaldietan aitatu dau. Igaz, Yorraillak 29'garrenean, itz oneik aitatu zituan: «Edezein irakaslek, berak irakasten daben gaya al bait zeatzen azaltzen alegindu bear dau, al daben ondoen gai ori sakonduten aleginduta. Baiña ondiño sakondu egiaren serbitzari izan bear dau. Egiari osoan opalduta dagon ezkerro, danen gaiñetik egia maitatu bear dau; eta kristiñau ba'da, Yaungoikoa bera maitatzen dau».

Eta itandu eban: «Olan itz-egiten dabena, nor da? Au da Maritain atzo Toulouse'en il zana. Gure aldi onetako adin-langille andia, oldoztu, bizi ta otoiitz egiteko erea irakatsi euskuna. Bakarrik eta txiro il da Foukauld Anayetxoan etxean».



Goyan aitaturako itzak oin amar urte inguru esandakoak dira, baiña igaz il-obiratu ebeneneko eleizkizunean, itzaldi ordez, berak esandako itzok entzun ziran.

VI Paul'en adizkide andia

Bere samin agurra agertzeko Aita Santuak Yesu'en Anayetxuen nagosiari bialdu

IL ZALA

entsan mezuan, esaten eban Maritain izan zala «guztionzat pilosopo andi bat, zihertean eredu zan kristiñaua, eta guretzat berariz maite genduan adizkidea». Batez be, Batikano'n Prantzia'ren Ordeleri izentau eben ezkerotik.

Maritain Yakituri-zale ta Egizale

Lenengo gizaldietako Yustino deunaren antzera pilosopoen irakatsiak arakatuta egia aurkitu arte ez eban izan bakerik. Bein egia ondo ezagututa idazti sakonen bidez eta irakasletzan batez be, alegin guztia egin eban. Egiaren arerioen aurka kement-su yokatu eban bere bizi guztian, iñoren bildur barik. Bere ikurritza aldi bateko euskaldun ospetsu batena izan zan non-bait: «Egia geugaz, danen aurka». Baiña batez be, egia ezagutu, egia maitetu ta egia egiten izan zan guztion eredu.

GABIREL

AGVR

V URTEA
135 ZENBAKIA

ASTEROKOA
1974 - ORRILLA - 4

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

ERRIARI EUTSI

Erritar guztiak eta erri guztietan, euren erriari eusteko, eginbear astuna dauke. Eta erria aldatz-bere bildurgarri baten dagonean, eginbear ori astunagoa da. Olako egoeran aurkitzen da gure Erria gaur. Baiña zetan eta nortzuk lagundu bear dautsoe Erri oneri. Gai luzea ta sakona auxe. Aztertu dagigun, al dogunik laburren eta sakonen.

NORTASUNEAN

Erri bakoitzak bere izaerea izaten dau, bere nortasuna. Lenengo ta bein nortasun ori ez galtzen alegindu bearko dau. Gure erriak be ba dauka nortasun bizi bat. Or gure lana. Lenengo, nortasun ori bere izkuntzan agertzen dau. Erri bakoitzak bere izkuntzea dauka eta, ez ba'dauka, urterik urtera izkuntza ori sortuez ibilliko da. Guk antxiñatik egiña dogu geure izkuntzea. Berau erabilten dabena eta lantzen dabena Erriaren eusle doguz.

Ertillariak, euren erti-lanetan, erriaren nortasuna agertzen dabe, ez erbesteko erara ertillanak egiten dituenan, erriaren nortasuna agertzen dabenean baiña. Margolariak, euskal-izaerea euren margo-lanetan agertzen dabenean, Erriari eusten dagoz. Irudigiñak antzera. Etxegilleak bardiñ Dantzariak, Erriko dantzak egiten dituenan, benetan eusleak doguz, eta onetan egin dau lan gure Erriak. Abeslariak eta ereslariak, euren lana Erriaren aurrean agertzen dabenean laguntasun ederra damotsoe Erriaren nortasunari. Ez gitxiago idazleak eta idazteari indarra damotsoenak be. Kondairako idaztietan geratzen da gure zarren gogoa eta gaurkoetan urrengoztako gure gaurko barrua.

Zelako garrantzia gai onetan irakasleak be. Oneik Erriaren aurrean dauken erantzun-bearra ikaragarria da. Gure errietako irakasleak, geienak, gaur, erri-iltzaille doguz eta au irakaskintzaren iru mailletan: oiñarrian, erdian eta goian. Eskerrak ikastolen ardurea sortu doguna, baiña Dabid txiki onen indarrak makalak dira Goliat aundiaren aurrean. Sendia dogu Erri barriaren iturria. Zelako erantzun bearra Erriaren aurrean gure sendiak artu dabena!

AZKATASUNEAN

Erriari bere azkatasuna emotea maila guztietako agintarien zeregiña da. Betetan ete dabe zeregin au gaur? Ba dagoz bide barriak asmatzen dituen billatzaileak be eta zentzunez jokatzeko dabenean txalagarriak dira. Erritar guztien zeregiñak dira bide onen eskariak: al danean al dana.

ERLEJIÑOAN

Erriak gogoz eusten dautsoe euren erlejiñoari. Gure aurretikoak euren erlejiñoa ei euren, baiña ez dau agiri askorik itzi.

Egun baten gure kondairean Kristo agertu zan eta euskaldunok, geure berezitasunak galdu barik onartu gendun. Emen be, bear ba'da, sartuko ziran okerreko gauzaren batzuk. Geure ardurea izango da eguneratzea eta Erria indartzeko bideak artzea. Ba daukagu lana Kristiñauok.

ONDASUNETAN


Antxiñako ondasun-bideak ezagunak doguz: baserriak, abereak, olak, gatza-gak, ikastegiak, lliñategiak... Baiña eun urtetik gora daroaguz iraulketa bildurgarrian. Langilledia sortu jaku eta lanaren euskaltasuna jentetza aundiaren galtzen jaku. Asmatzaileak esan bearko dabe zelako lanak izan bear dauan gaur euskal-lanak.

Eta jentetzeari buruz, domu-zalekeria itzi ta gizarte-zalatasuna artu bearko da. Gure langilleak Erriaren eusle doguz, baiña ez arazo sakon barik.

GIZADIAN

Erri lez, gizon erritarren ardurea, osasun arazoa ezin aitzu. Or daukaguz osagilleak, gaizozaiñak, asmatzaileak... guztiak Erriaren eusle. Oneik ikusi bearko ditue gero etorri ledikezan arazoak: lar edatearen ondorenak, urietako aize-atsa...

Gai oneitariko baten, edo askotan, guztiok gara Erriaren eusle. Bete dagigun geure zeregiña: Erriari eutsi.



Batzuk lanean be ikasi nai, bestetzuk ikasteko be lanik nai ez!

LAN-AUZIA

Gizonaren bizia lurraren gainean dardarea da. Izan be, geldi egotea, buru-gabeena edo giza-sena galtzen doazenean da. Argi ta bulardun giza-semeak, ziri zart, zerbait egin nai dau. Barruko indar berezibillak eraginda, jakitunak, ertillariak, langilleak aurrera doaz buru ta esku-lan bideetan. Gaurko gizarteko aizea be orixe berori dogu. Ekitea, jardutea... Gizon guztiok daukagu ba alkartasun aundia zerbaitetan.

Ta bearraren ingurua ez da edozelako puntua. Bizitzako arazo nagusia dogu, bizitzaren sorreran artua. Ori dala-ta, gizon bat bear gabe ezin bizi daiteke, lapurretan egin barik. Lanaren agindua ta bear izana ditugu gizartean. Ta gure lan guztiak, ondo loru-rik dagoz katei baten gisara bata besteagaz. Bearraren senak, berez garoaz alkartasun-erantz.

Baiña lanaren onuretan gizonaren jokabidea, zoritxarrez, banandu egiten da. Indar-tsuak pillo nauziak bereganantz eruan nai ditu. Ta ortik dator aundi ta txikien alde. Banatze au, inundik inora ere ez da egokia, mingarria bai ostera. Gizadiko batasuna geien bat, besteen lur, ondasun ta eskubideak ez onartzeak apurtzen dau.

Zuzengabekeri orreek ondoren txarrak dakarrezan lez, gizadian, beti agertzen dira gizon egizaleak, gaiztakeria ikusteko gai direnak, ta bizikera obeagoa nai leukeenak. Era ortako gizonak onaren alde lanean dabilte, gizartearen onerako. Jakituri saillean, pintura bidean, musika arloan nai literatur edo elertialdean, gogor jokatzeko da. Guztiok dira bearreko, gaiztakeri ta edozein zapalketaren azkatasuna gizon ta erriei emoteko.

Lan orreetan arduratzen diranak Kristo'ren antza dabe euren pentsabide, nai izate ta egiteetan. Egiz, gizon arrigarriak izan dira euren bizitza, jakituri ta indar guztiak beste askoren otsentzarako erabili dituenak. Besteen alde norbere bizia eskeintzen dabena zuzentasuna bera baiña gorago dagon zerbait maite dau. Izan be, zuzentasun bidez jokatzeko dabena, lagunari edo lagunai zor dautseena emoten daute. Au munduan, batzuetan, egin-bearrago izango da. Beste batzuetan ostera, ordain zurra. Ta zoritxarrez, noznai, giza bizitza jokabide gaiztoz zaurituta egon oi da.

Gaiztakeri guzti orreen artean giza-seme ta alabak, beti sortzen dira on egin naiean. Asmobide ondun jendea lanean ari da, on billa jokabide zuzengabeak barriztu nairik. Jendearen neke ta bear izanak dei egiten daute. Ta inoren samintasunak arintzen, alak al egiten ditue era guztietara. Buruz ta biotzez jokatu dabe askok mailla ez-bardiñetan, getienak asmo oneetan bizi-bidea ondu nairik.

Ainbaten jokabidea gizon lez bakarrik, izan da. Lurrera begiratu dabe, ta gizadia lur ontako biztanle bezela arturik, onen alde neke garratzak artu ditue, euren bizia nekez ta odolez gizartearen alde emonez. Norbere bizia inoren alde emon dabena aiñako maitasunik nork agertu dau? On egiten il ziran. Ba ete da inor beste orrenbeste egin dabena? Bai, Jesus Nazaretarra, bizia osoan ezagutzen ebana. Maisu onek gizadiko bizitza zuzentasun-arren, ta maitasuneko egiaren bidez gizona betirako askatze-arren, bizia, gogoz, maiteki, emon eban, ta bizia bere eskuan eukala, barrero, berpiztuaz, aditzen emon euskun. Gizonaren auzia zan berari ardura eutsana, ta origaitik il ta berpiztu zan.

Zergaitik

Noizik bein adarra joten datozenen barrua ikusteko gai ba'giña, ez gendukez irakiten dagozan «lapiko» makalak ikusiko! Ixillik egon nai izan arren, noizik bein zirikadea jaurti bear, naizta olako laprastadetan kaskarreko galantak artu.

Olako zerbait jazo jako Zeruko-Argia'ko «zenbat gara» saillean, «kazetalarri» taldearen buru egiten dan Amatiño'ri (ñ, Euskaltzaindiaren aginduz kendu bearrekoa, ez?) Ona emen Z. (?) Argia'tik artuta itaun bi:

«Zergaitik Agur astekaria ulertu ahal izateko, lehenago Zeruko-Argia aldizkaria irakurri bear dugu?»

«Zergaitik apezpikuaren esanarekin bat ez datozen katoliko 'zintzoek' eta Euskaltzaindiari jaramonik egiten ez dioten euskeltzale «sutsuck» elkarren traza haundia dute?»

Itaun bi orreik, bata bestearen ondoa datozelarik, «intenzio» zorrotzez jatorruz, baiña olakoak pozik artzen ditugu, besterik ezean, txirrist dagianari bidea erakusteko baiña ez ba'da be. Ez gozak, atzekoak!

Adarra jo bearrean, eskerrak emon bear leuskiguz kazetalarri orrek AGUR ulertzeko Z. Argia erostera beartzen ba'ditugu gure arpedunak. Zabalkunde merkeagorik ez daute inork eskeñiko... baiña ez dabe aintzakoztat artzen. Olako asterokoakin merkeago edo biurkeriz jabetu diralako ez daute duan egiten dan zabalkundeari garrantzirik emoten.

Ez dakigu katoliko «zintzo» garan ala ez, baiña bai oraingo Euskaltzaindiari jaramonik egiten ez dautesegun euskeltzale «sutsu» edo otzak. Baiña gauzak ez doguz danok bardin ikusten. Guk lengo Euskaltzaindiari begirune edo errespeto itzela izan geuntzan; lenagotik euskeltzale garanok, euskerea, euskal elertia, Euskaltzaindia ta alakoak euskaldun guztion zerbait diranak, alperriko ta kaltegarri diran nasteetatik urrin eukitzen ikasi gendun gure «aurkeogandik». Egun batetik bestera baiña, agertu ziran erri guztietan dagozan axeri edo nderazko «distillo»ak, eta Lekuona jaunaren jaurtiketatik asita, dana irauli eben —ausartak eurak! Orregaitik ez dautsagu oraingo Euskaltzaindiari jaramonik egiten; «ez diralako dagozan guztiak, eta ez dagozalako diran guztiak». Argi dago gure erantzuna?

Ara baiña gure kazetalaria, euskaltzainak eta apezpikuak konparatzen! Eta bide batez, izkuntz arazoan aspian nastea dagoala diñogunean, arazoia daukagula egiztatzen.

Ta, gauzak bere tokian jartzeko, ona emen jazoera txiki bat: Apezpikuak eskuz, buruz eta aburuz indarrari lotuta egozan aldirik larrienean, euskaldunak ez genotozan bat; euskaldunok opetsuenetariko bat gendun Onaindia'tar Alberta Kanonigoa... eta ez edozelakoa. Argi ta garbi azaldu eban munduaren aurrean ez egoala «esanekin» bat.

Orain baietz uste dot, puntu askotan beintzat. Ba, denpora asko ez dala bera ezagutzeko era izan gendun. Nor nintzan entzunagaz batera «zugaz nago Josu, oso osoan; pozik irakurtzen dituz zure lanak», esan eustan. Ez dot uste ba ain atzerakoi izango garanik, ala ez ete da sasi-aurrera-koitasunak eta askatasun zaletasunak ez daukiela alkarren antzik?

Ikusi dogunez, Gotzain edo Apezpiku atzerakoiekin bat ez giñanok —oraingo jokabidean bai, eurak eta edozeiñek dakian bezela— lengo Euskaltzaindiagaz bat genotozan; ez baiña oraingoaren jokabideagaz. Zergaitik?

Ene irakurle, itaunka asiko ba'giñake!... Adibidez; Zergaitik ez datoz gotzainen esanekin batera, eskumatar ezagun eta eleiz-gizon erantzuleen artean abadetza utzi dabena? Zergaitik erriaren aurrean eta erria ez ikaratzeko Kristo'ren jarraitzaile agertu arren, ezkutuan eta galbidera daroetan gazteen aurrean leninista amorratu agertu, kristautasuna «desfasauta» dagoala zabalduaz?


Zergaitik Euskaltzaindiaren legepean —eurak asmatutakoenean— idazkera ori artu dabena, % 80 gitxienez, apezpikuakin ez-eze, ezertariko erlijioagaz ez datoz bat? Zergaitik Euskaltzaindiak onartu baiño len, edu lau urte lenago, euren orritxoetan —ez eleiz kutsuzkoak— erabilen idazkerea nai dauskue goitik bera sartu?

Zergaitik Madril'eko izparringietan Lendakari jaunari buruz irakurri doguzan «lorak» eta Matxari zanarenak, eta Hautsi ta antzekoak, eta «Le Monde»n geienean agertzen dituenak... «elkarren traza dute?»

«Ez dakigun nungo dan Argia'ko kazetalarieri jaramonik egin barik, erantzunak zeuk asmau, irakurle!»

SOLOZABAL'TAR PAULIN

ARENAZA'TAR JOSU



IRURA'ko

maixu zarra

85 urtekin joan da beste mundura D. Crispin Guasch Espina, Irura'ko maixu zarra deitzen geniona.

Asturias'ko Aces-Candamo'tik, orain 52 urte, etorri zan Irura'ra, emen zegoen maixuarekin trukada eginda.

Katalana zan, Tarragona'ko Villanova de Escornalbou'n jaio ta azia, bañan biotzez euskalduna.

70 urte zitularik —1958 urtean— erretiratu zan eta, naiz Donosti'n bizi izateko era ederra euki, Irura'n gelditu zan.

Orain 3 urte Donosti'ra eraman zuten bere alabek eta bere pozik aundiena Irura'ra etortzea izan oi zan.

Donosti'n il da, bañan bere korputza Irura'n lurperatzea nai izan du eta gure artean Egun Aundi arte gelditu da.

D. Crispin 34 urtekin euskal-erriratu zan. Eta, naiko berandu izanda ere, euskera ikasteari gogor ekin zion: Anai arteko guda aurretik «Elebitza»ren alde jokatu zan, itzaldi ta erakuskizun asko an eta emen egin eta emanaz; bere alabek ondo baño obeto ikasi zuten eta itz egiten dute euskeraz, naiz batzuek erbestean urte asko eraman.

Erretiratuta gero beraren «hoby» bakarra euskera zan eta ordu geientxunak euskerazko lantxotan ematen zituan. Azkeneko gaxotu zanian, bere lan-maian, irikita, Mugika'ren itzpegia gelditu zan.

Azkeneko urteetan euskerazko gramatika bat eskoletarako antolatzen ari zan.

Jainkoak eman dezaiola betiko pakea.

YODABE

Sasi-

Maixukeriak

Neure SASI-MAIXUKERIAK idaztean kontu andia izaten dot iñor ez minduteko. Orregaitik, neure ustezko utsak aitatzen dodazan arren egilerik bein be ez dot aiatatu. Ala be, euren utsakaz besteak (neu) konturatu dirala jakiteak batzuei ez jakela atsegin dirudi. Ez dot uste onetan ezer txarrik egiten dodanik. Utsak edonok egiten ditu ta zuzendu egin biar dira, besteentzako okerbide izan ez daitezkan. Neuk be bein baño geiagotan uts egin izan dot eta nire esanen aurka urten izan dabe. Oraindik ez da aste asko neure utsak agertzen batek idatzi daustala; ta errezoia eukalako eskerrak emoten erantzun neutsan.

Utsak aldizkarian agertu barik euren egilleai zuzenean eskutitzez agertzea obe izango litzakela norbaitek esan daiteke biar bada. Baiña ni ez naz eretxi orretakoa. Utsak askotan deskuidoz egiten dira, ta olakoai igarri be egiten dautsagu ta jaramonik be ez. Baiña utsa oituraz egiten dala ikusten danean, idazleak zerbaitetan jokera okerren bat daukala oartzan dautsagunian jokera oker ori agerian salatzea bidezkoago ereitzen jaku, ba askotan beste geiagok oker ori bererandu izan dabe ondo dagoelakoan.

Bere idazlanai akatsak billatzen dautsedazala iñoan lengo baten neure adiskide batek. Ez, txotxo. Zure lanak atsegiñez irakurten dodazala lenago esanda daukatut. Baiña akatsen bat eskura badator, edozeiñena bada be, bai, jaso egiten dot. Aman AGUR'erako zerbait batzen dot.

A izkiagaz amaitzen diran izenai EN atzizkia edo E'gaz asten dan beste edozein atzizki lotzeko A ori eskutatu egiten zala idatzi neban; «AlabAEn gauzak» barik «AlabEn gauzak» eta idatzi biar zala esan neban. Orixe nire obena.

AGUR'en nire idazlan ori agertu ta laster, KARDABERAZ baskunakoa be gai au erabagi edo argitzeko zirala euren batzarrean DIARIO VASCO egunerokoa irakurri neban. Ez dakit zein alderdira jo eben gure maixuak. Nire esanen aurka biar bada. Beintzat euretari batek arrezkero egin daben idazlan baten, «abesbatzAEn» eta «abesbatzAEtako» itzak idatzi ditu. «Abesbatza» itza barria da, erriak erabili ez dabena. Beraz erriarrez ala edo ola danik ezin esan daiegegu. Baiña antzeko itzetatik zerbait atara geinke.

Esaten dogu: «NeskatzEn kontuak». «OntzEn begiak». «Izan ziran erioztzEn gomutak bildurtuta dauko erria». «DantzEn eresia». Ta abar.

Beraz, «abesbatzEn», «abesbatzEtako» ta abar idatzi biar dala esan daiteke.

KAMIÑAZPI

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra

BILBAO - Casco Viejo

Tenderia, 15 eta 16

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri asmoen gaitetik daben iritxi-oneko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxi, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egilleak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M.^a MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guttirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

IDAZTI BARRIAK

Izena: Segunda Semana Internacional de Antropología Vasca.

Argitaratzailea: «La Gran Enciclopedia Vasca». Zalla-Vizcaya.

Irarlea: Aldecor. Diego de Siloé, 18. Burgos.

Euskal-gaiak sakontzen ditun liburu eder bat eskuetara etorri jaku: euskal giza-iztiaren bigarren astean izan ziran irakasleak dakar.

Gogoan daukagu gaur be oraindino aste a: berbaldi entzungarriak, alkar-izketa edo mai biribil beroak, artu ziran idazti edo idatzi jakingarriak...

Izlariak oneixek izan ziran: J. de Haritschelar, M. Arrazola, F. Escudero, J. Dorao ta J. M. Azaola. Eurak aztertutako gaiak: Maitemñaren erazgarriak Euskalerrian; XVI gizaldiko izudigaiak Euskalerrian; Txistua; Bizkaia eta bere gerorako ondasun-arazoa: Euskaldunak gure aldiari dauken jakintza-zeregiña.

«Mai biribillean» esandako edo agertutako eritxiak be ba dator: euskaldunen legedia, euskerearen irakaskintza, Erroma' tarrak Euskalerrian.

Esandakoen gaiñera, era batera edo bestera, Aste onetan izlari edo idazle izan zirenen izenak oneixek dira: Mañarikua, Vallespi, Llanos, Marcos, Mezquiriz de Catalán, I. Michelena, I. Barandiarán,

Apellaniz, Rodríguez Solís, Elozegui, Marcos Pous-García Serrano, L. Michelena, Albertos, Etorza, Lecuona, Tobie, Fatas, Banús, Arenaza, Arza, Olazar, Urrutia, Aguirre, Goti, Ibarrondo, Leizaola, Peña Santiago.

Aipamen berezia egin bear dautsagu Euskerearen irakaskintzari buruz egin zan Jendaurreko alkar-izketa edo «mai biribillean»ri: Maipuru A. Villasante izan zan; eratzaille, L. Michelena; mai bitartekoak, F. Altuna, J. Arenaza, E. Erquiaga, X. Guereño, A. Irigoyen, J. Mocoza, J. Oleaga, F. J. Quintana, M. Ugalde.

Alde bietako izlariak aukeratzea izan zan eratzailleen guraria, baiña argi ikusten dan lez, alde bat agertzen zan askoz eskubidetsuago. Ori ta guzti be, gure izkuntzearen erazoetan sartu barik dagozanak, or dauke argi-izpi bat.

Azkenez D. Julio de Urquijo'ri egin jakon omen-aldiko berbaldiak dakarzu liburu onek: bere bizitzako jakingarriak azaltzen ditu Juan Ramón de Urquijo'k, eta Euskerologian berak egin eban lana, M. Lecuona'k.

Onen lako aipamen labur baten ezin agertu norberak gura leuken bestean liburu au oso interesgarria dala eta gairik geienak oso pozik irakurriko dituela.

MARTIN

GAZTEA

BAKIO'KO IDI-DEMAK

Joseba-doneatan oiturea dan lez, aurten bere epaillako 16, 17 eta 19' gnean idi-demak izan doguz Bakio'n. Aspaldi guztian bezela, idi-dema onen erakunde, Muruaga'tar Sabin'en eskuetan izan dogu.

Gaur egunean gure errian, olako zerbait egiteko ondun gertautu dagona dala uste dogu, eta gañera gaztediaren laguntza ere izan dau aurten.

Baiña alan ta be, uts bat aurkitu dautsagu. Sariak emotean erdere baiño ez erabiltea.

Baten batzuk esan eben baita, larunbatean barik igandean emon bear jakola asiera, eta larunbateko buztarriak, astelenerako itxi.

Baiña astelenean egin zuan eguraldia ikusirik, larunbatean asitea iragarte bat zala esan bearko dogu.

Tamalgarría Bakio'ko egoera. Ez dago jairik eguraldiaren aurka jokatu bearrean ez garanik. Baiña, iñork ez dautse iminten urteerarik. Ain zaila ete da pelota leku ori eta probaleku ori, albotik ez ba'da, beintzat goitik



estaltzea? Ia ba ain eretxi onean daukagun udaletxea, gure itzakaz zirikatzen dogun eta datorren urterako pelota-leku ori goitik estalduta ikusten dogun.

Gutziz, ogeta iru buztarri batu ziran, eta lenengoak era onetara geratu:

1.^a—Gonzalez'en idiak; Legoa eta Ali itzain; 94,50 kilo gei zamatzaz, 47 untze eta 5,43 metro.

2.^a—Antzua'ren idiak; Legoa eta Antzua semea itzain; 124 kilo gei zamatzaz, 47 untze.

3.^a—Aurrekoetxea'ren idiak; Ali eta Intxia itzain; 43 kilo gei zamatzaz, 46 untze.

4.^a—Otegi txikia, biak eta Legoa itzain, 45 untze eta 5,08 metro.

5.^a—Gonzalez'en bigarren idiak; Legoa eta Ali itzain; 24 kilo gei zamatzaz, 41 untze 3,86 metro.

Onen atzetik Telleria, Cotarelo, Pedernales, Gonzalez, Basarrate, abar eta abar. Danak izan eben euren saria.

Lenengo «marka» biak, lenengo

egunean lortu ziran; eta Joseba Done egunean egiten zuan eguraldia ikusirik eta oraindiñokarren buztarri izendatuenerakoak geratzen zirala jen-teak pentsatsen zuan, marka onek onduak izango zirala, baiña olakorik etzan gertatu.


Alfa Sariketarako, olan geratu ziran.

1. ^a —Antzua	4 punto
2. ^a —Aurrekoetxea	3 »
3. ^a —Otegi	2 »
4. ^a —Gonzalez	1 »

Aipamen berezi bat egin bear dautsagu emen, Uriagereka'n buztarriari; bera izan dogu ba erriko ordezkari bakarra, eta urte bian geldi egon diran idientzako, txarto ez direlako geratu.

Datorren urtean baba geitxuago emon Luis eta ia lenengoan artean geratzen zaran.

URIARTE'TAR KEPA



Gaztetxoan

Txokoa

GURE IZKUNTZA

Gu Euskal errian bizi gara. Gure erria Euskalerrria da, Euskal erriko izkuntza euskera da; orregaitik gure izkuntza euskera da. Baiña gure izkuntza euskera izan arren, guk euskaldun umeok, erdera egiten dogu geienetan.

Euskaldunok erdera egiten ba'dogu euskera egin bearrean, euskera galtzen gabiltz, eta norberen izkuntza galtzen dauan gizona ez da gizona.


Orregaitik euskaldunok beti euskera egin bear dogu, erdera egin daiela erdaldunak. Guri euskaldun umeoi, euskera, erakutsi daskue gurasoak; orregaitik ez gara lotsatu bear gurasoak erakutsi daskuen gure izkuntza egitean. Baiña beti ez da olan. Euskera dakigun askok ez dogu euskerarik egiten, erdera baiño eta Euskalerrrian bizi diran beste askok ez dakie euskerarik.

Onen erru andia gurasoak daukie, batez be euskera dakien gurasoak, eta umeoi erdera bakarrik erakusten dautselako; eta Ingles be euskera baiño lenago.

Geiago barik, amak erakutsi eustan kanta bategaz amaitu gura dot:

«Aitorren izkuntz zarra nai dogu zabaldu munduaren aurrean, gizonki azaldu baldin gure zaiñetan odolik ba dogu euskaldunok euskeraz itz egin bear dogu».

IRUSTA'TAR ANDONI (10 urte), Usansolo



UDABARRIA

Epaillaren ogeta bat da, eta «ZUGAITZ EGUNA» ospatzen dogu. Zer-gaitik gaur eta ez beste egun baten? Udabarriko lenengo eguna dalako.

Negu baltz eta atsekabea joan da ta etorri jaku Udabarría ta berakin etorten dira elaiak eta elaiakin poztasuna. Inguetara begiratzean lur guztia lorez beteta ikusten dogu, zelaiak bedar orlegiz jantzita, zugatzak orri barri ta lore politakin apainduta, txoriak kanta-kantari euren abiak zugaitz adarretan ipinten txori-kumatxoak azteko. Beste abere batzuk euren loetatik urtetan dabe. Ta gora begiratzean Ortze urdin eta garbiak gure biotza alaitzen dau.

Esan leike ilda egon dan izadia, Udabarría etorteagaz berbiztu egin dala.

Olerkarietzat ez dago Udabarría baiño gai polit eta ederragorik euren olerki lirainak idazteko ta margolariak be urtearo onetan urtetan dabe euren ikuspegi kutunak Baserritarak soloetan lanean asten dira orain eraiten dabezan azi txikiak landuaz gero igali ederrak azteko.

Urtearo onein edertasuna noraiño eltzen dan jakiteko zoaze Udabarríko goiz eder baten mendira atsedan apur bat artzen eta begiak zabalduzik ikusiko dozue. Onek emoten daben poztasun ta alaitasuna aundiak dirala ta ames barri batzuk gure barruan sortzen dirala.

JOSE M.^a ASTIGARRA URIARTE


(11 urte) Zornotza.

FERRETERIA UNCETA S.A.

Landola tresnak - Galtzairu neurri zeatzekoak
Langailu guzietarikoak - Leunketa gaiak

Ibarrekurutz kalea 14
71-10-00 Urrutz.
Apartado 18

E I B A R



Don Donato

Abadetxu zar jator bat. Lagun ona, zintzue. Jaun-Goikuana urratzeko oba edo obie eziñ izen. Antiguleko klasera, abade gonadune, baltz-baltz jantziz; zuri, bere ule mietzak bakar-bakarrik, zider eder bere buruko pentsamentu onen tellatu.

Zaparrada barik, ixil-ixillik bastar guztixeta eltzen da gure zuzentzailie. Refice, Perosi, Ravello, Eslava... Gizon aundixek, eleizako meza ederak moldatzen. Baitxe, gure Goikoetxea be euren aldrea ederrekue.

Erriko aitxe, Don Donato be onen gizon ospatsuen tarte egotekue da, bai oixe!...

Urte askon jun-etorrixen ikusikuek gara, Xemein'go eleiz parroixian. Amar edo amabost urtetik onutz gausak aldatute, beste era batera erunde egon arren.

Don Donato, gure gerra ostien eldu zan Markiña, zigortue esanteben lez. Bai leike zigorra izetie berantzat, Markiñe'n sartzie. Ondo baiño obeto dakigune markiñarrok da, guretzat, premixo eder, suberte onenik onena izen zala, bai.

Aste santuko Bone pastorrek, Palestrina'k egindeko kurutzetako ederrak, Eslava'n «Staba mater...»

Gabonetako Belengo portalian..., Mesias. Meza nausi zoragarriok Perosi'n pontipikala, iru abotsekue. Te Deum Laudamus, eta abar luze-luzie... Don Donato'ri eskerrak, gure errixez egagutu zitxun.

Izetez, edo jaxue zan lez, lekeixarra. Barakoldik edo olako leku batetik etorrixe, obeto esateko, bialdue Markiña, geure zorionez.

Biergiñe, zintzue, jatorra. Don Donato geurie, zan bai, bene-benetan. Muxika paperak, erreixau be beti eskuz. Esku batien lumie bestien painoloue, zur puntako negarra, otzak jota, bere ostate-errixe, orma galanten erdixen...

Etenda egoen, gizajue. Zenbat bider ikusi gendun meza nausi galanta organuen laguntzen, esku bata tekletan eta bestie tripa barren a gordetan, etena agertze jakon minberatute takien-takien.

Kantorie nitzen beraz. Ba-dakizue nire belarri gogorren ixtorixa garratza eta baltza, euli kaken gora beretan. Orregaitik ba, zenbat txatxamurkada artutekue nitzen!...

Urrengo eran, leun-leun agertze zan pastel gozo eta ardau zuri presko preskuaz, ezarrixe labandu, belarri ostiok epeldu.

Esakera ederrak be ba-ukezan oso gozo-gozuek. Arek meza ederrak atzeratu ta «erriko» mezak agertu zien, erderaz, euskeraz, plamenko... gustu gustire.

Ume aldrice bere bolta... esan be ei'ban baten:

—Agur, agur gure lagun aundixori. Arkentiña'ko Don Domingo'k be estu bi'dau. Eztotsegu geixa esango: «PERON... ian sekula sekulorum»

Asko-askotan suberten dana: GIZONA ZIGORTU, ERRIXE EDERTU...

JUAN JOXE ARRIZABALAGA «MARKIÑA»

IJITOAK ETA GU

Aspalditik dugu ezaguna gurean arraza orren semeen izena: ijitoak esanaz, alan-olango jendemodua ekarri oi dugu gogora. Gure artean errixe erri, alperkerian, nagikerian eta lapurretan dabilen erri loa, zikiña, lotsaga-bea.

Ijitoen beste ezaupiderik ez geunkan.

Urte batzuk dirala, ijitoentzako eskolak jaso zituela, jakin genduan: Gazteiz'en gugandik urrean, bat.

Ara baiña: Juan de Dios Ramirez Heredia ijito-seme jakitunak idazti bat emon dasku, Bruguera-argitaldarian (Barcelona, 1974, «Nosotros los gitanos»).

Arritzekoa, neretzat beintzat, ijito bat olako maillan ikustea. Ta are arrigarriago, ijitoen alde esaten dituanak irakurtea.

Etnia berezia dirala ez ezik, berezitasun orretan jarraitu bear dabela ere diosku bero-bero. Bes-teen artean errikotu ta etxekotu? Bai orixe. Ala ere, euren ijitotasuna galdu barik. Inun arraza-zalderik ba'da, or dugu bat.

Andaluzia'n-eta dituzten beste lanbideen berri zeatza damosku. Apur bat arte bere usaia dariola. Ba-dirudi giza-kristau birtute geienak ijitoengan mamitu dirala. Jainko-ardurapenaren siñismena ta sena bizi gordetzen ei dabe. Biaramonean zer jango ote ardura ta kezka gabe egoterriñokoa ere

bai? Ene ustez ori ardurapenazko ustea barik, alperkeri garbia. Alan ta guzti be, parkagarria da idazlea, arraza madarikatu onen aldezele sutsua agertzen ba'da. Ijitoen kultura gauza anditatz jotzen du. Egia esan, flamenko-gauzetan noraiñoko zer ikusia dauken bakarrik dakar euren kulturaren ezaugarritzat. Arrazoi eskasa, ziñez. Izkuntzari dagokiozanak guretzat jakingarriago: munduko zarrrenetarikoa, sanskrito jatorrizkoa, 10 bat milloek mintzatua (Su-yag; gure-amaro; bat-yek; eguzki-kan; etxe-quer; Jainko-De-vel) Gramatika ta Iztegia gertatzen omen dabilz. Gure idazle trebe Karlos Klaberia'ren aipamen ederra dabi, kalo-izkera ezagutzen daualako. «Gazte ijitoen artean, gurari bizi daga, kalo-izkuntza España'n bere errauts beroetatik biztu dadin» (98'garren orrialdea).

«No se trata tan sólo de conseguir la convivencia pacífica de unos grupos étnicos distintos en mentalidad y cultura, ya que esta convivencia sólo podría realizarse tras una fase larga y programada de acciones que consigan la eliminación de aquellos factores que piden el entendimiento de los hombres, sino la justa valoración de los matices con que cada grupo se manifiesta a causa de su diferente cultura» (13'garren orrialdea).

ETXEBARRIA'TAR JUAN ANJEL

ORRILLAK BAT

Lanaren egun ospa dezagun,
Ta gora-gora biotzak:
Izerdi onak barren a pozten
Ez ala gizon arrotzak.
Goizetik utzi maindiretxoak!
Ez gaitzan beldurtu otzak...
Aurrerapenak esnatzen ditu
Gure adimen zorrotzak.

Morrontzarik guk ez degu maite,
Baztertu bein gorrotoa:
Are geiago! Aztu betiko
Guda-izkilla eta aiztoa.
Itzul-mitzuli atzetik dabil
Kaskallu eta iñozoa...
Anai aserre liskartsu-gaizto
Guregan ez atzokoa.

Esku-nabako kabatxo latza
Urre-gorri bezin eder:
Etsegín aundiz aita eta amak
Etengabe ematen esker.
Euskal-gazteak ekin-ekiñaz
Zenbait alditan egin ler?...
Alakoetan ez zaio iduri
Burutu dunikan ezer.

Bakarrean maiz zapal gaituzte,
Zillar-gosez dabilzanez:
Xumearentzat errukirik ez,
Ez bata eta ez bestek.
Ekar aundiko alegin biziz
Zekena poztu litekek...
Sariak, baña, beti mearrak!
«Gaur orrela bearko dek!»

Negarrez ez guk auzia ontzen,
Oba biotz alaia:
Lano lodiek argi estaltzen
Beroak piztu zelaia.
Izadiaren egiñetatik
Aberats dezagun naia...
Iritzi tximen baztertu beti
Eta zuzendu epaia.

Bakoitzak bear nortasun aundi
Orobat zorrotz belarri:
Sukalderako egoki dana
Ebaskeriz ez ekarri.
Zuzentasunez etxeak ai! lu,
Iraun luzean oñarri...
Orrilleko len-egunak, arren!
Ken bezaigu gogo-larri!

ABALEGI'KO P.

Gorbeian Egun Bat

Joseba deunaren aurre-eguna, zubi zala ta, atsedan egun artu gendun. Egun orretan betiko lanen estutasuna alde batera itzi, eta Gorbei'ra joan etorri bat egitea bururatu jatan.

Olako joan-etorriak bakarrik egitekoa da nire zaletasuna. Egunoro gizonak alkar-izketak eta artu emonak izaten doguz, eta egoki dala uste dot izadiagaz berba egiteko olako egun batzuk izatea be.

Ordu pare bat ibilli ondoren, Etxebarria'tar Basilio aurkitu neban bidean. Beronen urteak aurrera doaz, baiña oindiño ez dau izten Gorbei'ra joatea. Ez jengo bestean, baiña noizean bein bai.

Basilio ta bere alabea aurrera joan ziran eta nik, astiro-astiro, bakarrik jarraitu neutsan bidetari.

Arraba'ra eldu nintzan. Aize otza. Lurra oso ezotua. Bazterretan edurra. Ango txabolak urretik ikusteko ibiltaldi bat egin neban eta barrua samindu jatan izen guztiak edo geienak erderaz egozala ikusirik: «Grupo Alpino Ganguren», «Albergue D. Angel Sopena»... Gorbei'ko inguruetara be erderearta sartu jaku! Au tamala! Konturatu be ez dogu egiten nortzuk garan eta non gagozan!

Txabola edo etxe orrean arduradun diranai nik dei bero au egingo neuskie: «Gitxienez, erderazko izenaren ondoan euskerazkoa ipiñi egizue». Obeto izango litzake, orregaitiño, euskera utsean ipintea, izenak ulertzen dira ta.

* * *

Gero Arraba'tik Igiriñao'ra joan nintzan. Emen be izenak erderaz eta sata edo ondakiñak botateko lekuan, izki aundiz «Basurero». An ikusi neban eliza barria be egiten asita amaitu barik. An ostatea, izena erderaz dauala.

Edurtzetako Amaren eleizatxorantza niñoala, euskaldun gazte talde bat aurkitu neban pago eder baten oiñetan. Oneik euskera egiten eben berba, baiña birau lotsagarriak erderaz esaten ebezan, eta ez gitxi, host minutuan amar-inguru bai. Eleizatxuak be ba dauka aurrean irakurgai au; Ave María Purísima. Au zelan? Euskeraz? Erderaz? Ez. Au latiñez. Ze pekatu egin eta dau gure euskera ederrak onelan baztertuta egoteko! Eta noz zuzenduko eta doguz oker oneik?

* * *

Gero barriro Arraba'ra. Bazkaltzeko ordua zan, baiña laiño bildurgarri bat etorren betik gora. Zer egin? Basilio adiskidearen laguntza eskatu neban eta bertan bazkaldun ondoren, bide zurrta ikusi arte berak lagundu eustan. Eskerrak berari, bakez eta sasoiz etxeratu nintzan.

GAMIZ

BASAMORTUTIK

Lekaidea, Jaungoiko billatzalea da. Ortarako, basamortura joan da. Benito deunak, bere arauan, alan azaldu eban: «Jaungoikoa bene-benetan billatzen ba'ozu...»

Jainkoa norbait da. Egun batez, lekaideak Jainkoa aurkitu eban. Bapatean dan-dana gazbako bihurtu jakon. Orregaitik beronek esan daikigu: «Jaungoikoa ez da itzal bat; Jaungoikoa ez da amets utsa; ez, emen eta orain eta beti norbait da».

Ez litzake lekaiderik, ez ixiltasunik, ez bakartaderik, Jainkoa norbait ezpaltiz. Barmu-barrukoa, bizi-bizia, gu guztion ur-urrekoa ezpaltiz. Gizonak Jainkoa aurkitu dagianean, ez dau atsedetik geiago izango. Betiko alkartzeta da, eten bakoa, Jainkoa, Jainko izanez jarraituko dalako.

Gogamen au oso ezaguna da. Baiña gogamen onek daroan egia, ezkutukia da. Mundu onetan ez daki inork «Jainkoa billatzea»k zer esan nai dauan, areik-eta billa asi arte. Inork es daikio azaldu beste bati, billaketa onek zer esan nai dauan, besteak Espirituaren argiz biotz-barrua argiturik ezpadauko.

Lekaideak Jainkoa Jainkoagaitik billatzen dau; ez norberagaitik. Bere-berean dago: Jainkoagan. Jainkoaren aurrean baiña, ostendu egiten da ta ez dau osoan beragandu nai izaten.

Donetasun-miña ondorengoa da, ez elburua. Berak donetasunari daragoio Jaungoikoaren antza euki al izateko ta onelan Beragana urreratzeko.

Lekaidearentzat nor da Jaungoikoa? Geienetan, emen eztagoana izaten da. Urrunaldi onetan, gizonak oiugu dago salmo-bidez:

«Ausi egiten jataz azurrak arerioaren iraiñez:
Nun da zure Jainkoa?» dirauste egun guztian».

Jaungoikoaren urrun-aldi onek, ondiño biziago sortzen dau Jaungoikoaren bearra. Au dala-ta, beragaitik au esan daiteke: «Inoiz bere egarria asetzen ez dauan gizona». Salmo onetan azaltzen da bere egoera:

«Lausotu egiten jataz begiak
nire Jainkoaren zain onen luzaro egonez».

Bere billa ibiltzeak ago-biko ezpata dirudi. Alde batetik, Jainkoak esaten dau: «Ikusiko naben edonor, il egingo da». Ta gizonak bere aldetik Jainkoari: «Erakutsi egidazu Zure arpegia». Egia esan, «ezkutuko Jainkoa zara Zu, Jauna». Bai. «Ezkutupean itz-egin neutzun, baiña ez illunpean. Ez neutzun esan: Billatu nagizu ezer-ezean».

ARANGUREN'TAR IÑAKI (Zister'ko lekaidea)

Nekazarien

Biltzarra

Lemoniz'tik asi ta Plentzi'raiño, aspaldi baten «Uribe» deituriko Ibar-jaurriaren babesean izan ziran erri ta errizka geienak egungo egunean batu oi dituzela, gure nekazarien lur ta baserriak jaboteko lurralde oneitako «Solo Antolabideen Eskualde» bat, gazteleraz «Zona de Ordenación Rural» sortu-azoteko lenengoko urratsak emon dituez. Eskualde onen biltokia, lur-jagole ta beti aurrerakoi-urduitsua dogun Mungi'ko Erria izango ei da, ta batuko dauzan nekazariak 2.500 ortxe-ortxe.

Lengo baten Euskalerrria izandako ta orain Burgos'ko lurraldekoa dan Bureba'n bere, beste ainbeste egiten daragoio. Ezin geinke ukatu nekazarien biltzar benetako bat lortzeko ordua danik, ta errizka ta basetxeak utsiturik doazenez guztiriko laguntzak euren eskeintzeko bearrizan gorrian aurkitu oi garala, bizitz barri bat izan dagien, ta baserriarrak bertan gelditaz azoteko, beste onurak ta biotz-poztasunak be euki dagiezan. Zalantzarik gabe gaurko neska gazteak baserrian irautea oso gaxago izango dalakoan nago.

Or dogu benetako untzea. Ortan be jardun bearra dogu. Ortarako, basetxea, aurrerapen guztiekaz ornidua izan bear.

Lengo aria jarraiturik ta dirautzuedan lez, elburu au lortzeko lenen-oinkadak emon dituez, ta Mungi'ko Alkate Ordezkoa batetik, ta berebat alderdiko Alkate-Ordeleria ere danetz bestetik, Marcelino Arteta Jauna, ortarako «dryda»-tik baimen ta eskubide guztiak irizteko izendatua izan ei da. «dryda» deitu oi dan izki-laburtze onen esankizuna. «Berri-tze ta etorpiderean laterri-etxea» ei da. Or doatzue erri guzti onein zerrendea. Ots, Morga, Arrieta, Fruniz, Gamiz-Fika, Meñaka, Bakio, Mungi, Gatika, Maruri, Lemoniz, Gortiz, Plentzia, Barrika, Lauquiniz, Urduliz, Sopelana, Berango, Getxo, Lejona, Erandio, Lujua, Sondika, Derio, Zamudio, Lezama ta Larrabetzu. Bizkai'ko guna lez dirala esan lei ta euren barru-erdia Mungi beraz. Gernika alboak, oingoz beintzat parkatu!

ARREGI'TAR JOSU

EGUNAK

ZIRAN AIEK...

A. Zubikarai, ondarrutar jatorran «ERRIZ-ERRI» idazlanak irakurtzen ditugunok, ta berak gogoratzen dizkitan igarotako jokararak, bateze, gure gudakoak, ta gudari izan giñaneok... ez dira aztekoak. Zorionak zuri Zubikarai jauna! Zure azkenengo zertzeladan esaten dezunean Intxorta'ko kontu ura... Or bertan, Elgeta'n, euskaldun idazlariak lenengo aldiz batu giñanean, orain urte asko ez dirala, ta begiratu nioanean alboko mendi muturrai; esan nien nerekin zijoazten lagunei: Aizu, ikusten dezun mendi mutur ortan, artan eta bestean, etzan giro bizitzen taka-taka entzunik une guzian.

Gure kementasuna pentsaturik ta berdin bestaldetik zeundenak ere, gaur emen idazteko lekurik ez dago. Bakarrik, gogoaturik, an Karakas'ko Euskaldun Etxean bein-batez bertako izparkari batek esan zituanean: «egunak eta gauak, nerekin zijoazten soldaduak, ezinka, aurrera nai egin, ta zuek goitik xectu, kokilduta utzia, aurrera egin nai ta ezin; nik ezin ziñistu nun zuen kementasun aundi ta ikaragarri ura; nundik atera zezakezuten...»

Bai, arrazoi dezu jauna, gure orduko odol berotasuna, ez zan txantxetako. Gere ziñistez, arrazoi aundi bat gendun zaitzeko, ta bi alderdikuok bikañik burukatu giñan. Berak zion berriz: «Dana dala, nik ura ikusirik... zuri gaur ta emen, danleku ontan, TXAPELA KENTZEN DIZUT». Etzan txapela, sombrero bat besterik.

Intxorta bakarrik ote zan? Eta, Mandubi, Bidani, Legutiano, Bizkargi, Kalamua, Sollube, Artxanda, Lemona, Orduña ta abar, zer? Egunk ziran aiek! Geroztik, makiña ur jetxi da ibaitik barrena, ta itxasora irten. Arrezkero guziok eta bakoitzak daramakigun biotz miña il arte izango da, ta gaur orduko arerioak eta gu, alkartu oi gera kalean eta esan alkarriz: «Gogoratzen aiz alako burruka bildurgarri aretzaz? Zuek aurretik eta gu atzetik, zuek aurreraka ta gu atzeraka, baiñan basterrak odoloz estaliaz... ez dek aztekoa! Orduko gure ogei urte aiek, gaztetasunez beteak, gaur bizkarrean izanik urteak ta ille zuriaren geruak estalita, ze nolatan gelditu geran. Orduko alkar ezin ikusi, gorrotoa, gaur guziak ezereztuta gelditu dituk euskaldunen artean, ta esan genezake-la, guda baten ondorenak guzientzat kaltegarriak dirala, batak eta besteak, galdurik. Jakiña, garaille ateratzen dan batek izango dik bere bularrean alako zillar edo urrezko irudiren bat. Besteak; zer? Galtzen duanari zigorra ta kito».

Egunak ziran aiek, diot berriro. Gaur oienak eta gureak baturik eta semeak alkar-ganaturik ta illobatxuak sorturik bizi gerantontzat, ez da barkatzeko bezelakorik. Baiñan ezin aztu!

Nola iges? Lepotik zintzillik jarriko ez bai giñuzten, nora joan? Atzera ta atzera ta azkenik lur guziak galdu genitunean, artu onzi txiki bat eta orra nola azaldu giñan La Pallize urian.

Geroz zer? Prantzesak beren soldaduekin ta bayoneta ta guzi eldu ta esan... «mora joan nai dezute, alde batera ala bestera?» Ezin noski bi alderdieta joan, ta bat aukeratu nun nik, bertan gelditzea. Nun lan egin goseak ilko ez ba'giñan? An zeunden PIÑUAK, Landes ta Gironde aldietan, ta bertara joan, lan da lan egiñaz, izerdi ederrik ateraziaz. Geroztik Laburdi aldean beste millaka euskaldunen artean ta gu bezela eldu ziranen alkartean. Guzia orrekin bukatu izan ba'litz gaitzerdi. Gerokoan ordea ez ziran txantxetako egunak. Alemanak guda eman zuten eta andik ere iges egin bear...

Menturaz zu, Zubikarai jauna, gogoratu zera, urte bete edo, nola igaro genitun Itxaso'ko «ETXE DOIA»n. Emen ondarrutar asko ezagutu nitun, bateze Azpiri abeslari famatua, Etxaburutarak (auek ze jatorrak) ta beste taldea.

Alako batean, or nun agertzen dan Motriku'ko Kapitan Burgaña ta onek esan ia Venezuela'ra joan nai gendun. Nola? Ze ontzirekin? Nik baitetz erantzun nion esanaz: «baita igerian ere joango nintzake...»

Ala irten giñan Bayona'ko kai artatik, ta irteran an bildu ziran bizpaitiru milla euskaldunen agurrakin itxaso zabalera irten gendun. Lenen Kapbreton aurrera joanaz ta an bizi ziran millaka aiek agurtu ta eurak besoak gora altxata deadarka guri... ziur asko esanaz ongi eltzeko Venezuela'ra.

Bi ontzixko giñan bata bestearen inguruan aurrera ta aurrera. Goratu ginduzen belak, eta makiñatxo arekin lagunduaz... eldu giñan beintzat Venezuela'ra, naizta Bayona'n askok esan tiburoien janari izango giñala.

Jakin bear dezu zuk irakurle, kondaira guzia emen idazteko, ez dagola lekurik. Ori aparte, idatzia daukat, egunen batian menturaz argitalteko.

Karakas'ko kaiara eldu giñan, an beroaz eta egarri kokilduta geunden. Alako batean, orra nun azaldu zan Lekeitiu'ko Eustasi Sarasola ta Algorta'ko Maguregi Kapitana (auek biok kapitanak dira) ta galdetu zigunean... «jaunak, nola eldu zerate oneraiño?... Nola zaudete orrela, galtza-txiki edo taparru oiekin ta bizar luze orrekin?... Zer nai dezute?» Erantzun genion: «Ekarri azkar URA egarri ilko ez ba'gera...»

Urteak joan ziran, bien bitartean Karakas uri ederrean lan galanki egiñaz. Ongi artuak izan giñan, ta beste milla edo elduak ziran ordurako ta eldu ziran geroago. Europa'ko guda sortua zan ta guziak igeska Amerika'runtz. Gu bidean gentozela radiotik entzunte gendun ta estuasun ederrik igaro ere bai bidean submarinoren batek xectuko ez ote ginduzan... Ondarrutar Jose Bedialauneta uste det, gurekin joan zan ura, an Kumana'n dagola seme pillo batekin, Jose Zabaleta osteria or Ondarru'n bizi da bere amazte Mari'kin. Pedro Bernedo, gijazjoa, an il zan gazte, La Guaira errian, ta besteak... Goitiz Urkidi'tar Kosme Lekeitiu'n dago, ta Mundaka'ko Anton gizajoa berriro artu beste ontzi txiki bat bakarrik eta Santo Domingo'ra joan eta andik irten zuanean... itxasoak jan ta barruratu zuan aztarnik gabe.

Karakas urian lenengo gure etxea sortu zanean, gendunean, kalearen izena au zan: Cipreces a Velazquez, gero goi aldetik Balkonzito deitzen dioten kalean, ta emen urte asko igaro genitun, pelota leku edo frontoi ta guzi. Ez da aztekoa Europa'ko guda gogorrenetan, iges eginda, bertara eldu zanean gure maite gendun Lendakaria, ta onek alkartean igaro zitun egunak, itzaldiak egiñaz eta abar... ta, azkenik euskaldun guzian diruakin egin zan gaur dagon Euskaldun-Etxe au. Bai eder ta zoragarria. Pelota leku, busti-leku, gela aundi, bi edan-leku, bat beetik deadarka abesteko... beste salan berotzen ez ziranentzat... ta andereñoentzat ere bai. Goitik gaztientzat dantza lekua ta irakur lekua ta abar. Lurrez oso aundia ta ordun millo ta berreun bolibar kostatua. Gaur, zenbat balio ote du?

Orra esan gutxi gora-bera Zubikarai jaunak esan arazi ditana. Ez bai dira azteko kontuak! Azken arnasa eman arte ez beintzat!

E. OZKIN

ARRIASO

Arrasate

URANGA

Egun oneitan, askoren aotan dabil margolari onen izena eta Arrasate'k ere ba-du berakin zerbaiten arremanak. Lendabizi, ezkondu emen egin zan. Geroago, 1914'garren urtean emen izan zan, Parrokiko aldare nagusiko urtean margo eder bi marraztu zituan. Emen izan zan garaian, bertako E. Batzokian ere lan polita egin zuan bertako orman sagardotegi itxurazko margo eder bat eginik. Orduan Batzoki au, gaur Resusta kaleko 8'garren zenbakian egon zan. Bestalde, lagun asko egin zuan erri onetan.

Lagun batzuen argazkiak egin izan bear zitun eta bear ba'da emengo etxeren baten bastertuta-edo egon litezke. Ondo litzake arakatze bat egitia.

ERRI-KALEKO GORA-BERAK

Biteri'tar Kepa, emengo semeak, diru-laguntza ugari emon zuan Ikastetxe batzuk egiteko, emen eta eta Gipuzkoa barne, zigur. Leendik ba-zan erri onetan, oroitari bat gizon ospetsu orren irudiakin, oso polita gaitiera, eta berau zegoen Biteri izeneko lorategian, baiña emen etxe barri batzuk egin dira eta oroitari ori kendu egin zuten, eta emen izan sortu dira ezta-baidak.

Udaletxeak aukeratu zuan toki bat izan zan San Juan izeneko etxe-tartea, baiña etzan erriar askorentzako atsegin, ala ta guztiz ere Udaletxeak aukeraturako leku ortan bertan jarri dute. Orain, ipiñita gero ikusi dogunok, askori beintzat, ondo dagola iritzi jaku. Leku egokia deritzagu, bear ba'da eskutu samar, baiña bertaratu ezker, esan bezela, oso egokia. Toki baketsua, eta inguruakin ondo bateratua. Merezki du bertatik jira bat egitia eta gero epaitu Udaletxearen erabaki au.

ASTESANTUA

Ospatu dira eta naiko gairiduta. Eleiz guztietan, Astesantuko eleizotoiak aundikiro izan dira. Notintzak ederto erantzun du. Lenago izaten ziran ibilduek ez da izan. Onetan aldatuak bai-gagoz. Baiña eleiz barruan, kistar-sendi bezela, ederto batzuk izan gera. Tamalez, baiña, gazte guztixoa izan da, euren artean esker-bideak artu samar dira-ta, eta sarritan nundik dabilzan ez dakitela.

Beste galgarri bat ere ikusten da, eta au berbil jabeekin gertatzen da. Oneik euren tramankuluak artuta or juaten dira «bakasiñuak» igarotzen. Ni ez naiz inor euren jesar-bidea epaitzeko, baiña euren jokaeraz Astesantuari bere aunditasuna galerazen diote.

Berpizkunde eguna ere oso ederra izan zan. Parrokiko abestaldeak Jaupa eder bat abestu zun, naiz eta au latinez izan. Meza-nagusi guztia gure euskera maitean izan zan. Bestalde egun zoragarri onetzaz, jakituan ipiñi gaitue pulpituak, Pasko egun aako irraeldarrak azkatasuna lortu zuten eguna ospatzeko eratu zutela eta ortik datorrela euren Aberri-Eguna. Zorionekoak eurak! Orduan ere, oraintxe bezela, ejiptoarrak ei-ziran Israel zapaldu nai-ebenak.

UDALAITZ

LANDAJUELA'TAR A.



MONRAY
ARKONDARA-GINTZA
ANDEREENTZAT AZKEN-JOSKETAK

Bidebarrieta, 2
43 46 urrutizkiña

Alderdi-zarra
BILBAO-5

ARRIASO

Azpeiti

Jorrraila'k 12, Ostiral Santu eguna; lendik datorren oiturari jarraitubaz, eldu gera Ernio mendiko tontorrera gozoko 9'ak alderako. Ebaldi ederra ere bai noski eta, ebardirako etxera eldu gera geyenok damu aundi gabe.

Aspaldi ontan askotan entzun det, gazteen artean ez dagola sinismenik (federik) Euskal erriyan, baiñan, nik esango nuke Euskal erriyan isil askorik gordezten dala sinismena (fedea).

Loyola'ko erri Irratiak antolatuba izan da aurten egun ortako Ernio mendiko Jesus'en neke aldiko eskeintza (Calbarioak). Ori da edertasuna! Zebat eta zenbat gazte eta, gazte izatia gorputzez atzera utzitako, oraindik bi-otzez gazte diran bildu ote gera gaur-mendi punta ortan, Jesus'enganako Sinismenak DEI eginda. An bai otoitz egin dala benetan neka-aldi osoan. Gure Jaunak, aintzat artuko al ditu an Euskalerriyaren onerako egindako eskaerak. Antxen egundun gure artean Gipuzko'ako Gotzai laguntzaille dan SETIEN jauna; berak egin dizkigu azkenengo otoitz eta eskaerak Euskal erriyaren alde.

Goizean goizetik asi zan jendea alde guztietatik gooraka, inork ez diyo agindun besteri ze bidetatik jun, baktza bere erara baño, guztiok gai bat, toki batera.

Ura ala ikusita, onoko au gogoratu zait; gaur Euskal-erriyan erri ontaraxe giartzik eta. Ez ote gera, danak espada ere, gayenok, alkarri gogo onez begirata piskabat jarrita, mendi tontor-ortara bildu geran bezela, Euskeraren maitasunera bilduko?

Ala izan bedi!

IZAGIRRE'TAR LORENZO

Berriatua

Illeak dira gure erriko ermita bat erre zala. Ermita zarra, anxiñakua, debosiño asko euki izan dabena. Madalena'koa.

Erre zan, bertako auzokoak garbiu eben, eta an dago, eskua nok luzatuko.

Ermitan ez dago ezer. Lau ormak garbi. Ez imagiñik, ez aldarerik, ez tellaturik. Lau ormak tente, aterpe bat eskatzen, au da, tellatua egiteko eskatzen, eta tellatua egin ondoren arrizko maitxu bat, kurutze bat eta bertako zaindari Madalena'ren irudi bat.

Suak be bere zoroaldia eukiten ditu, bere kasketaldiak, eta emen be euki eban.

Dana erre, ta pulpitoa bakarrik geratu zan bere tokian, erreten asita bakarrik.

An dago, sermoi ederra bertatik egiteko eran. Ba dago gaia, eta premiña be bai zerbait esateko. Ainbeste illabetearen berrituaren istori luzea eukan ermita bat zelan aztuta euki leiken, ezin dogu buruan sartu.

Ba dakigu auzokoak pozik biarra egingo leu-kela. Zenbat kostako litzakez ba gañerakuak? Eleizak eta erriak ez ete leuke materixala batu eta ordainduko? Orretarako arduratuko dan norbait agertu bear da, eta dirudiaz, norbait zirikatu ezik, bertan bera usteltzen joango da, bear bada erremediorik ez dagonean negar egiteko.

Madalena'ko auzo lez sartzen ziran baserriak oneik dira: Arantzadi, Beketxe, Burdiñoleta, Gixona, Kaltzakorta, Kategi, Iturrino, Legarregi, Olabe eta Pertika. Len Urkixa baso be bai. Gaur, baserri oneitatik, Kalizakorta, Kategi, Legarregi eta Olabe'n bizi-lagunik ez dago.

Madalena'k ba dauke bere Kofradi zarra be, antxiñetatik datorrena, eta emen berrogeiak etxe sartzen dira, bai baserriak eta bai kalekoak. Alkar berotu ta danon artean zerbait egiten asteko ordua eldu dala uste dogu. Berrituaz izatearen kontzientzi pixkat artu eta ekin.

IBILTARIXE

Antzuola

MARISTAK JOAN ZAIZKIGU

Bai, irurogei ta amar urte gure artean egin ondoren «maristak» joan zaizkigu betiko. Leen, garai batean, irureundik gora ikusten oitua geundenak, azken urte aue-tan ordea, bakar batzuek besterik ez gifu-zen; azkenik ere Logroño'ra joatea erabaki duten arte.

Izan ere, dirala urte batzuek arte, emen Antzuola'n zuten beren asmo-sendo artzea, eta ortik beren ugaritasuna gure artean. Baita «Berriotxo» izenarekin ikastetxe bat ere iriki zuten eta erriyan alakoxe sona eta begirunea izan zuena gaitiera. Bertatik pasatoko ainbatek gogoratuko duten bezela noski.

Bergara'tik gatzela, sarreran zuten beren tokia, an ikusi zitekean beren eleiz txukun eta apaña, apañik ba'da, gaur egun, gaitontzeko guziakin bezela, guraso alkartea jabe egin dana eta onen asmoak burutzen diranean, leen otoitz leku izana, zaar-sarri-tuen atsedan toki eta beste amets askoren kabi biurtuko dana.

Desegintze orrek bati baiño geiagori pena emango diola? Eta, gure aiton-amonak alkarrekin une goxoak igarotzea eta abar, ez al da otoitza? Bestalde leen elizatzko artan ematen ziran mezak, ordu berdiñetan, eleiz nagusian amaten dira, eta leen, au, batek azurrak nun zeduzkan jakiteko besteko otza ba'zan ere, gaur Jaunari esker, berogarriaren aldetik ondo ornitua dago.

Ala ta guztiz ere, leen baiño jende guxtiago joaten dala? Ori beste kontu bat da, eta ez det uste emengo aize bolada bakarrik danikan, eta zergaitik ez? Ba-liteke onuragarria izatea ere, garia ere galbaran pasatuta sartzen bai da kutxan.

MATXALEN

Zeanuri

ASTE SANTUA

Urtero lez aurten bere jente asko batu da, Andra-Mari'ren eleizan egin diran eleizkizunetara. Oraindiño ba-dogu ainbat bizi-lagun geure erri onetan. Berbaldiak parroko jaunak zuzendu euskuzan; arreta aundiz entzun geuntsozan: Gaurko egun oneitan ainbeste bear izan dogun alkar-maitetasunarena. Entzun, eta betetan alegindu gaitzean ba.

XABIER PEÑA

Jaunari, gure zorionak eta eskerrak biotzez. Gogoratuen gara ainbat urte dala Bilbo'ko Erri-irratik'ko euskal-orduan emoten euskuzan barriakaz, euskal abesti zarrak eta soinuak.

DONOSTI'KO

Euskal gogoak eratuta «Arantzazu» yatetxean batu ziran ainbat arratitar. Emendik Victoria Kamiño'ko Paulo Mendibil. Yurre'ko bat larogei urtekoa baita Basilio Eleixartsa bere emazte eta Gokoetxea aitzak. Paule'k irugarren urten ei-eban irabazle. Diskoak grabau egin ebezan, ia ba noiz entzuten doguzan.

Ba-doguz emen lenagoko kantariak Berretxi'ko Daniel, Elbira Igartualdekoa. Urrengoan bialduko doguz orrean kanta batzuek, baita Bilbo'ko Erri-irratik'ak egiten dauan eguneroko euzkerazko ordu beteko ekinaldian etorri ziran Daniel'en kanta batzuk. Ba-dakizue, Arrati'ko barriak zapatueta dirala.

Euskal-erria beti izan da kantaria, erri abeslari itxaropen ugariduna.

EZKONTZA

Ezkondu yakuz Andra-Mari'ren eleizan, Olabarri'ko Ana-Mari eta Artea'ko Jose Migel. Zorionak AGUR'en irakurle bai dira.

BASERRI UTSAK

Ainbat doguz gure erri onetan, iges dagie bertakoak eta urteokaz askok egin dauskue; zoritxarrez, gure erria bitsuez doakigu. Egia da baserriko bearrak ez dau emoten lan saria beste lan batzuen ondorako; baiña asko, Bilbo ingurukoak, or etorri yakuz euretara euren oporraldiak igaroten eta olan, yakiña, baserriko aixe osasuntsua, txorien kanta alaiak, kukuaren kantu betibardiña non entzun gure baserrietan izan ezik?

Aurrera etorri daitezala euren gogo ona gure euskera ikasteko agertutzen dabe-ta.

Eskerrak Karmele ta Jesustxo'ri, zeuok ortik bialduriko agurrakaitik, emendik bialtzen dautsuedaz bai gotik.

GORBEITARRA

ERRIATOKO

BARRIAK

Oñati

Oñati'ko Ikastolako Batzordeak idazki bana zabaldu die guraso eta laguntzaile daneri, Ikastolako urteko gora-beren kontuak emateko. Idazkiaren zorroan (sobrian) irakurtzen da: «Oinatio», guk, oñatiarrok itzetik ortzera Oñati edo Oñate erabiltzen deguna. Ikusten denez, euskera batuaren izenean oñatiarri be, geure ezpañetatik, ain mailte eta erabilia degun «eñe» ori kendu nai diguz.

Emen ondorean jarriko det, izen erreskada bat, oñatiarrok, batezere IKA, zenbat itzetan «eñe» erabiltzen degun.

Gutxi eskolatua naiz, eta orregatik izen-erreskada labur bat emango det. Nai nukeana da, nere ondorean datorrela beste bat, ni baño obeto eskolatua. Jaritzen dedan izen-arreskada ondorean, erriak erabiltzen dituan «eñe» asko ez daudelako. Nere zorionak izango lituzke.

Oñatiarrok, «eñe» ori zenbat erataria erabiltzen degun ikasteko, ez det itungo liburuetan irakurri; ezta itungo maixuak erakutsi ere. Nere lenengo maixua, nere AMA zana izan zan, bere altxoan kontu kontari, muxu batetik eta muxu bestetik, itz egiten erakutsi zidana. Ondoren, aita, anai-arrebak, adiskide eta oñatiar danak, geure aolan bizi-bizi darabilgumok. Eta goazen arira.

Aurrena eta onena, gure erriaren izena. Oñati edo Oñate eta ez «Oinatio». Bigarren gure Aloña mendi. Ao bete-betean erabiltzen degun «eñe» ederrarekin. Ba-degu auzo eder bat ere ZAI-NARTU deritzaiona. Gaztediaren Bazkun bat ere bai. OÑATE deritzaiona. Obeto ulertzeko, emakumezkoak izki aundiarekin ipiñiko ditut!

Bañatok, BAÑATON, bañoiak, BAÑOIAN, bañekian, BAÑEKIAN, bañetorran, BAÑATONAN, bañengoan, BAÑENGONAN, eñoiak, EÑOIAN, bañabik, BAÑABLĪ, jan ñekek, JAN NEIKEN, bañeukak, BAÑEKON, al-bañuk, AL-BAÑON, eruan ñuan, eruan NO-NAN. Emen iru aditadizteratara itz asko jarri dituzkez. Adibidez: jaten ñuan, jaten ñonan, jango ñuan, jango ñonan. Eta auk bezela. Ikusi, ekarri, eraman, jo, euki, edan, eta abar. Nik, Aloña mendi bazkuneko gaztediari euren bazkuneko bazkidien iritzia eskatuko nieke. Euren bazkuneko ate-buruan onela idatzita egon dedilla. Lenengo. OÑATEKO ALOÑA MENDI. Bigarren. OINATIKO ALOÑA MENDI, ia zein aukeratzuten duten euren ezpañetan erabiltzeko. Lenengo idazkera ala bigarrena.

Etorri dedilla erbesteko bat Oñati'ko Enparantzarara eta galdetu dezala, Aloña nun dagoen. Naiz eta Caceres'tik etorria izan, Oñati'n bizi dana baldin ba'da beintzat, laister erakutsiko dio Aloña mendia nun dagoen. Eta egin dezaiola beste Oñati'n jaito ta bizi dan berrogeta amar urteko persona bateri Aloña nun dagoen galdera. Ziur nago, ez diola erantzungo, ez diolako ulertu zer galdetu dion. Aloña esanda ederki ulertu. Aloña esanda ez.

Nora goaz onelako Euskerarekin. Len batua zegona naastuta? Oñatiarroi geure amaren altxoan ikasiak geran geure Oñati'ko izkeran «eñe» ori kentzea, bizitzako pertsona bateri arpegia kentzearen antzekoa litzake. «Eñe» orrek ematen bai dio Oñati'ko izkeriari bere gatza ta piperra.

Nik, gure antxiñako guraso zaarrei, euren lege zaarrik ematen zien eskubideari elduta jarraitzen zuten bideari jarraituko diot. Noizbait Gaztela'ko erregeak agintzen ba'zien euari ez zegokien aginduren bat, erantzuten ziena: «SE OBEDECE PERO NO SE CUMPLE». Nik ere orixe egingo det, oraingoz beintzat. Nere EÑE'rekin jarraituko det.

ERIOITZA

Idigoras eta Billar'dar Eustasio il da, irurogea zazpi urterekin. Guda garaian, Bizkai aldean ibillia. Goian bego. Bere seme-alaba ta eriotza orrek mindu dituan gañerako danori euren atseka-bean laguntzen diegu.

ERRIZALE

Irun

«GURE ASTEA»

Alaxe deitu oi diogu urteero Garizumaz izan oi degun euskerazko itzaldi asteari. Beste urtetan baño geigo ibilli gerala iruitzen zait, ni gauekoetara bakarrik joaten nintzan baño. Arratzalde erdian egiten zianetara ezin joan, lantegian baintintzan.

Aurten ere Aita Zubiaga langille utsak itzaldiak egin dizkigu. Jatorri egin ere gañera. Gero-ta izlari trebeago dago izan ere Aita Zubiaga. Urtetxoak ba dituan-arren, sasoi-sasoiaren irauten du. Alaxe urte askoan izan dedilla.

Ostiralean, «Gurutze-Bide» berdiñik gabea egin zigun, amalau egonaldiak azalduaz eta abestuaz. Abestiak gure Joan Baxurko Ansola'renak izan genituan. Aita Zubiaga'k «Baxurko» zanaren idaztiatik artu eta orrietan irarri eragiñak. Xenpeler'en doñuan erakutsi zizkigun eta belakoxe batian ikasi genitun denak. Ikusgarria izan zen Gurutz-Bide ura!

AZERIAK

Egiten asi ziran kalteak esitzeko gure eiztariak lanean jardun dute eta, dirudianez, baita garbiketa egin ere.

Denak garbitu dituztenik ezin esan. Bakantza aundia egiñak dirala bai beintzat. Oילו jabeak alaxe aitortzen dute. Lasaixeago bizi dirala ere baita.

XABIER SAGARZAZU

«Ama Xantalen» iturri ondoan agurtu degu.

Berak esan zigun bezela, Jorraillaren 8'garrenean Ondarrabi'ko «Txantxangorri» aretoan ogei-t'amar lauki berrien erakusketa zabalduko du eta illabete orren azkenegara zabalduz egongo da.

Garai, Grazena, Montes Iturrioz, Alda, Albizu, Mendiburu, Basterrechea eta beste pintagille askocin artean ez dabilkigu atzera Xabier Sagarzazu.

Zorionak, Xabier!

ASTE SANTUA

Elizkizunen iragarkia ikusia det. Euskerari eliza batzuetan leku geixago egiten zaiola iruitu zait aurten. Ala obe. Ez eliza denetan orde: batzuetan bakarrik. Danetan zergatik ez? Elizen gogorik ezaz? Eliztarren ajolagabekeriz? Auxe ongi aztertu bear litzakela uste det eta bear diren neurriak artu ere baita.

URANZU

Tolosa

SEKUESTROA

Edo antzekoa da GOIZ-ARGI'ri gertatu zaiona Tolosa'n. Argi bedi baiñan, ez dirala erri ertzaiñak izan sekuestradoreak, praille gazte-progresista (?) batzuek baizik. Ara nun dijoakizuen argia: «Goiz-Argi» bere sorkera egunetik, San Franzisko eleiz atadian saltzen da, irtezten dan lenengo igandeko meza guztien bukaeran. Aita Garate'k, monagiñoen eskuetan lagatzen du eginkizun au.

A! baiñan 187'gn zembakian nere idazki bat zetorren «Tolosarre» izenburua zuana. Ba, praille gazte aurrerakoi edo «progresista» baita demokratik joan eta «GOIZ-ARGI»ren ale guztiak, an saltzen zeudenak, erosi zituzten. Eta meztatik irtetzean ezin erosi, ez nik nere lagunentzat, ez beste inork!

Zertarako erosi ote zituzten? Erretzeko? Erriak egia irakurri ez zezan? Pekatuan eror ez zitezten? Aita Garate'n atsegiña egiteko ez beintzat... monagiñuen arriduraz, eroatera joanik beroiek esan zigutenez.

Gertatutakoa esana dago. Nik ez det nere iritzirik emango. Jendeak naiko poz eman dit onetzaz.

Irakurleak berak egin ditzala bere azterketak, eta ondorioak atera.

BIXITALARI OSPATSUAK

Sakramentino aitei esker, «Laskorain Ikastola»k areto ederrak ba-dauzka oien tellatupean. Edantoki edo bar pollit askia ere bai, billeretarako, txanpon batzuek ateratzeko ta abar. Afaritzoak ere bertan egiten dira.

Arestian, «mineuzbaiña»tar eta «bulegoladore» ospatu baten ikerraldia izan dute. Afari goxo bat ere izan zuten berarekin ikastol agintari batzuek, txolarte ederrean. Magnetofonoa erabiltzeko oiturarik ez hai-du jendeak, ez dakigu «ni neu ez naiz atxezale, baiñan...» gaiaz argibideak eman zituan. Ez zaigu ajolarik ere. Gaiñera ez da komeni itzegiten dan guztia zabaltzea, orduan berak baiño geigo jakingo genuke, ta ez zaigu ajolarik gaiñera. Onela, «ni neu ez baiñan...» obekiago jarraituko du bere lanean.

Ez dagokigu, orregaitik, «opa xamurrak», «Lauaxeta» zanaren itzez, ematea baiño: «Hon da zabal dagizueta jaknak, eta gaitzik ez edanak!»

UXOLA

Zumarraga

UDA-BERRIA

Aroaren gurpilean, negu beltzak eman dio leku uda-berri argi loretsuari, gure izate guztia ta inguratzen gaituen izaki guztia alaiñuaz.

Kristau gogoak era berean ba-du bere negu ta udaberria. Joan da negua, gogorazten digun garizuma, ta begien aurrena daukagu Euskaldunentzat esan nai aundiko Pazkoa.

GARIZUMA

Aro oni dagokion mallan, ospatu dira gure Eliz-nagusian Elizkizun bereziak, itzaldi sakonen bidez leiatu dira izlariak, oker bidetik gabiltzan ardiak, bide zuzenera ekartzen. Au da, illunpetik argitara.

Eliztar ugari on artu dute Jaun argi auen jarduna, ta beren itzalarekin onetsi dute. Baiñan gaztedi talde aundia pikoian.

OSTEGUN SANTU

Gure Gotzai gazte, Setien Jauna, bederatzi apaiz agurgarri inguratu, buru dala, ospatu da gaur egun oni dagokion elizkizuna, jende oste aundia eliz-barruan ta eliz-sapaia ler zorion abeslariz; Gotzai ta irakasle trebe bati dagokion mallako itzaldia. Nere ustez iru izan dira Elizkizun ontan eliztarren biotzak geien bat mogitu dituen uneak:

Gotzai Jauna'ren itzaldia, Kristarrak lagun urkoari zor dion begiramena, izan dala gaia. Gotzaiak bere inguruko apaizekin batean ta abeslariak erriarekin bat egiñik, GURE AITA abesten duten une. Ta, Gotzai Jaunak bost apaizek lagunduta, erria, bat-banako lerro bukatu eziñean, GURE JAUNA artzera urreratzean.

Egun zoragarri ontan, dastatutako jaierekin ospatu ditugu, ostiral, larunbat eta, nola ez, Berbizkunde eguna, gogoz oroituaz egun eder onek gurutzat daukan esanairekin. AMEN...

AZKARRAGA

euki dogun Eresbatz ospetsua aurretik eres bikaiñak joten zirala, meza nagusira.

Eberdian, erriko enparantzean, Eresbatz orren erestaldi ederrak eta abar. Erririk geyena txaideak zear jantzirik onenakin apainduta ebillela esan geinke. Eta ondoren, jakina euskal semeen artean, bazkari apañagoa, egun orreri berea emon bear yakolako, euskal abesti ta santzo, besterik geyago egin ezin genduanean, geure siñeskerea ta Erria'ren alde zerbait egiten. Eta arratsaldean, amaikak edo amabiak arte, jantzaketa ta jolasak ugari enparantzean, gure erritar eta erriratuten zan gaztedi ugari ta ederraren jolasgarri.

Orain, azkenengo urte otan, beste edozein igandetan bezin motel eta itun ikusi dogu gure erria, naita alegintxuak egiñak garan euskaltzaleok, ludi zapalduak batez bere goralduten daben Berbizkunde igandea, erarik egokienean ospatu, noz edo noz Kisto'gaz batera gure Erria be piztu daiten.

MENDI IBILLERAK

Igaro barri doguzan Aste Deun'eko jaiak zirala-ta, askoak izan dira mendirantzta urten diran mendizaleak, baiña urterarik luzeen eta ibiltaririk neketsuenak edo gogorrenak egin dabezanak talde bi izan dira. Bata, amaika lagunen taldea, Aragoi ta Castilla bitarteko Monkayo eta alboan dagon Urbion euskal izeneko goi mendi zorrotz zabaletan ibilliak dira. Beste, beste orreik bezelako zazpi gazte kementsuk osotua, Mendi-galdu'an edo aztuan (Monte Perdido'n) 3.355 neurkin goiti dituan aitz erpiñean.

Bai batekoak naiz bestekoak, edurrik naita zapaldu bearra izan dabe, ta be aldean euria, ta bidean goruntz txingorra ta edurra parra-parra gaiñera jausten ei-yaken. Baiña gure gazteok, eta ain gazte ez diranak be, ondo trebetuta aurkitzen ziranez, eurak aukeratuta eukezan gaillurretaraño eldu ziran, baita pozez etxeratu be. Nor aurkitu litzaken noz-nai ta nora-nai gazte kementsu oneikin ibilteko aukeran! Bai orixe!

ERIOITZAK

Jorraillaren 7'gnean, Uriarte'tar Miren, irurogei ta amabost urtedun zan andera zintzoa Jaunak eruan eban gure artetik. Urte askoan «El Ocaso» alkatereko ordezkaria emen. G. B. andera langillea, ta lagun gaitube bere seme-alaba ta senide guztiak aldi samin ontan.

Baita, igaro zan Epaillaren 32'gnean, errian ain ezaguna zan Uriarte'tar Purdentzi, berrogei ta amar urtedun gizon sasoihoa il zan. Errian ain ezagunak diran Uriarte anaietako bat zan; batez bere erriko eiztarien artean, eiza-zale purrakatua zan bera-ta. G. B., adizkide ona, ta lagun gaitube atsekabean bere sendikide guztiak.

UDABARRIA

Ez naz igarlea, baiña auxe esaten ausartuko nintzake: azkenengo urtetan baiño udabarri epelagoa izango dogula aurtengo au, udabarriko lau-arroak edo «tenporak» aize epelera emon dabela uste dot-eta.

BIDE-BARRIZKETEA

Jakin dogunez, gure erriko Udal-gizonci esker, Plaza'ko etxe'tik Zuazo ta Merkadi-illo'rako txaidea edo bitxabala, laster izango ei-da apaindua. Madrid'en Erri-egintzako jaurliaren bitartez lortu dabe. Benetan pozgarria izango da bide ori egunero igaro bear daben amaika notiñentzat, bitxabal ori, noz, zulo ikeragarri barik, leun-leun ikustea.

Al danik lasterren izango al da!

BASA JAUN

LEGAZPI'N

Oñate eta Zumarraga bitartean dago Legazpi. Estutu daigun geiago eta lenengotatik mugatu: Lengoak eta Antzuola, Urretxu, Gabiri, Mutilloa eta Zerain dira bere muga-erriak.

Urola ibaiaren sorleku da. Bere jaubetasunean sartzen dan Aizkorri'ren alderdian jaioten da burdin ura daruan erreka ori. Jaiotza amaika kilometrotan Legazpi'ren lurretatik urten barik dabil. Eta ur barri geiago bertan artzen: Ayerdi, Barrendiola, Pagola eta beste txikiagoen erreketatik ugaritzen.

Burdiñolen ibaia. Deitura ori emoten dautse asko Urola'ri. Langintza oneri geien lagundua. Ogetabi burdiñola ezagutu ziran ibai onen bidean. Ori'na, bide luzeago egin da be eta ur geiagoz, 21. Deba'n 12. Urumea'n 4. Bidasoa'n 2.

Burdiñatik datorriko ain zuzen be Legazpi'ri bere entzute eta izatea. Izatea, lana eta dana. Balbuena'ren erdal bertsoak go-goan daukadaz:

«El río Urola de herrerías lleno, con más fraguas que Liparo y Vulcano riega allí el valle de Legazpi ameno».

Legazpi'ko aran eta ibar alaia? Bai. Mendiegi begiratu, Aizkorri'ren maldak aurrean. Eta Aizeleku eta Satui-mendi. Erri osasuntsu. Oraintsu arte zaar; gaur barri deitzeko eskatzen. Eratsu. Lanaren serbitzuan sartuta eta lana bere serbitzuan. Ikus daigun.

* * *

Arbola bat eta bere azpian arrain bi. Alaxe ikusten dira Legazpi'ko ikurdian, eskudoan, egal baten. Besteon gizonaren esku bat, ezpata puntaz koroe bateri eusten.

Amar milla Bizkoina. Bederatzi uri barruan. Besteak Brinkola eta Telleriarte'n. Geitzen. 1960/1970 bitartean, urteko % 4,5 ugaritzen. Gizaldi onen asieran baino sei bidar geiago. Esku lanaren premiñaz deituta etorriak bizi lagunik geienak. Lenengotan naparrak. Gero beste alderdietatik geiago. Erdaldunak. Orrela gaurko giroa: Umeen eskoletan % 60 euskeraren tutik ez dakienak. Langilleak artu eta emoten dabil egunero. Trukatzen. Geien bat be Zumarraga'rekin. Batzuk emendik ara, besteak andik ona egunero. Altsasu aldetik be etorten dira.

Goazen asierara. Zetatik datoz arrain biak Legazpi'ko ikurdian? Ur garbietako amuarrainak, trutzak ete? Edo ta batzuk esaten daben lez, legatz bi? Azkenengo au gaur ez leuke inok sinistuko, eta gitxiago ontzat emongo, erriaren esan edo erakusgarritzat. Dana dala, or dagoz arrainok, gaur eta azpalditik Legazpi'k erabilli eta erakusten daben bere eskudoan.

Legazpi, itxasoa neurritzat artuta, 390 metroara egiten da. Osasun neurria. Parroki txukuna. Torrea, XVIII'ean egiña, ez ain jatorra, naita Carrera anaietako batek jasoa izan. Zabalegi? Motz? Jakin nai litzake zenbatean neurritu ete eben, egitean, artistaren ametsa.

Erri-etxea, arlanduz egiña, ederra.

* * *

Burdiñak, burniak, ba eukan Euskalerrian bere indarra. Baserri gaiak kenduta, ostalona jateko bakarrik emoten eben baserri lana kenduta, ba erri askoren bizitza zan. Gaztelanaren Romancero'n irakurri lei: «yerros y más yerros son todos sus tratos».

Ona, egokia, sendua ataraten zalako, entzute andia artu eban. Ez bakarrik bertan eta inguruetan. Ameriketara be eltzen ziran emengo burdiñak. Bidasoa, Ori eta Urumea'ren inguruetan egozan burdiñoletan gertu eta landuten zana, plantxetan, zati zapalenta bialtzen zan Ameriketara, batez be Cuba'ra. Donosti'ko kaira etorten ziran itxasontziaren bialtzen zan.

Urola'ren inguru eta ibarretakua, beste salerosketa bat, beste komertzio bat eukan. Tresnetan biurtzen zan bertan egiten zan burdiña, erremintetan. Askotan sarrailetan. Eta geiena España guztian zabaltzen zan.

Auzoan itxaur zindoak beti eta etxean ustelak? Bai gizon. Sinistu orreri makurtzen gara sarri. Luzaro ibilli izan gara erbesteko galtzairu eta burdinkien bila.

Makiña eta Erramintzen ordezkariak joan ziran bein Ingalterra'ra. Ez dira urte asko. Merkatuak ezagutu eta barniak billatu nairik. Gaitasunak eta ontasunak ikasten. Erriren premiñak eta jokaerak susmatu nairik. Erosleen eskabideak igarri eta euren naiei tankera artzen. Londres'ko etxe andi baten ebiltzan. Bata eskatu ta bestea ikusi. Gauza bat atara eragin, bestea aztertu, salneurriak jakin, kostuekin ziurtatu. Tresna on eta aukerakoekin beti. Orrela ebiltzala, ordezkari batek, sakondu nairik:

—Tresna oneik onak dirudie. Beste oba-gorik ez?

—Nekez lortzen da baiña ba dogu. Gaur mundutiak onenartikuena izan lei au.

Eta ezkur ikurra, ezkur (bellota) agerria ezaugarritzat eukana atara eutsen. Legazpi'ko egitura. Erbestearen etxean baiña fama geiago. Askoren gaitza da ori.

* * *

Telleriarte'ko jaiak San Joanetan izaten dira. Zumarragatarrak luzarotatik joerea dabe bertara. Geroago, Iraillean, Mikel

goiaingeruaren egunez bigarrenak. Oñati'n be jaiak eta banandu egiten ei da jentea.

Brinkola'n San Agustín dabe zaindari. Bertakone fidea itsua dala esaten da, sinismen beroegi daukela, eta ez dautsela begiratzen bizarretara euren zaindariaren irudiari.

Len Mendiaraz irudi-egileak, santugiñak egindako bat euki eben. Santugin on eta zintzoen entzute eta izena euki eben orain gizaldi bi famili onetakoak, Urretxu'n. Arcik San Antonio'tzat egin ei eben irudi bat. Lakiogoiok eusi eben bera eta geroago Telleri'enera aldatu ziranean, bertara eruan. Ez jakin zegaitik, San Antonio San Agustintzat aldatu ei eben, kartoizko gotzain kapela eta jantziak itxuratuta. Enda nastuko kolorea, mestizoen kolorea ei eukan gainera arpegian ta bete-betoko irudia trukatzeko. Ala, tren bidea inguru areitan egin zanean, eleiza bat be jaso eben eta santu ori ipiñi.

Beste kontu bat be ba dago gaur gurtuten dan irudia dala-ta. Azpeiti'tik ekarri ei eben, an Bari'ko Nikolas'tzat gurtuten eben irudia. Eta emen, berbera, San Agustín'tzat ipiñi.

Ba dago Bizkaia'n esakera zatar bat: San Bizente Abando'koa, legitimoa; San Bizente Barakaldo'koa, bastardo. Billatu kaku esakera orreri.

Zer esango dogu Brinkola'ko «doble» onegaitik? Brinkola'n bertan ez dautse ardurandi. Itxurak ez dabe praillerik egiten. Erri batzuk, udako Andra Mari jaietan aspertuta, urteko jaiak amaitu ondoren etxeratzten diranean, emengoak bertakoa ospatzeko garra eukiten dabe, eta eurenari jator txiz beste esakera jator bat barritzut: «Txilin txilin San Agustín, kuartillu bete txakolin? Eta salto ta brinko, Brinkola'n saltoka eguna igaro».

* * *

Olatik berri onik ez?

Ba da orrelako esakera bat olagizonen artea. Gaurko teknika eta gaurko ziurtasun barik lan egiten zan garaietan, sarri elduko zan barri txarren bat. Edo arrigarriren bat. Legazpi'n Kurutzeko egunez euki eben ain zuzen be gertaera miraritsu bat.

Amalau ikatz karga eta lau kintal burdin atarateko aña burdingai erabilli ondoren, eguneko lan eta izertzen onura ordez, amabi libra inguruko kurutze itxurako burdin zatia lortu ei eben, bertakoak, orain urte asko, 1580'n.

Barri onek erri guztia ikaratu eban. Miraria? Orduko siniskeretan, bete-betea.

Orduetik, gertaera ori ezkerotzik, Kurutzeko egunetan dauke jaiak Legazpi'n. Eta ori gertatu zan burdiñolea, gaur Legazpi'ren ezaugarri lez, monumentu lez, barritzut, egokitu eta burdiñolen oroitzarik ziur eta egitsuen lez gelditzen da, P. Etxeberria'ren amets bat beteta. Legazpi ikusi danik ezin esan, Mirandaola burdiñolea zara ikusi barik. Legazpi'tik Oñati'rako bidean, Telleriarte'ra eldu baiño len, merezi dau ikustaldi bat egiten burdiñola onetan sartzea. Alboko ermitatxu zuria be bai.

* * *

Legazpi erri zatar izan zeinkean, eta dotore ikusten da. Erri loi, zikiña izan zeinkean, eta garbi ikusten da. Erri batu, pillotsu, alkarren gaitziko izan zeinkean, eta erri zabal, aizetsu ezagutzen da. Lanagaz batera erriaren izateak be kezka sortu dabela igarten da. Ezin eskutatu olakorik.

Noiztik datorren Legazpi? Ba dirudi erri izateia Santxo Erregeak emoniko legetik datorriola. 1290 urtetik. Orduko be mendietan zabaldu eta gaitzen ziran burdiñolak. Basa-mortuetan. Uraren indarraz baliatu barik, gizon indar utsez lan egiten ziran denporak ordukoak. Olako tokierri «agarrolak» deitzen eutsen. Bai eta «gentil-olak» be. Antxitasunaren ezaugarri dira oneik. Eurokin batean «gentil-etxeak», ikaskiñen etxeak eta abar.

Geroago erriaren urratzen, bizi-lagun pilluetara urratzen ezagutzen dira. Erreka ondora etorten.

Zar edo barri, Legazpi'n beti ezagutu izan da burdin lana. Gipuzkoa'ko meatzik, miñarik onenak be, bere mugetan ezagutu izan dira, Mutilloa eta Zerain'en lurretan. Gipuzkoa'ko legetan, meatzak ez ziran erriaren, probintziarenak baiño.

Legazpi, gaur, burdiñari kantua da. Burdin egilcen oroitzik biziena. Lengo «urzailleak», «ieleak», «peailleak», ikaskiñak, «txiketzaileak», erdal izendun ofizialen deituran jokatuko dabe gaur. Baiña ezin bastertu eta ukatu lengo ola-gizonak.

«Gabriel Zelaya»ren «Baso-jaun ferren» poema gogoan daukat. Ez ekian bere ironik. Ez ekian urterik. Geiegi ekialako, ez eban esaten, edo ta gitxiegi ekialako, jo ta ke, moskorten danaren antzera lanean itsu inarduan. Baso-jaun deitzen dautsagu, basotik etorri zalako... Ballerako ola-gizonik onena zan. Oraindik inok irakasten ez ebana, ba ekian berak bere zeregiñean. Mirari bat lez zan gure euskal lurtean burdiña menderatzea. Baiña gaurko gintza, industria, ezeña izango zan, egun baten Baso-Jaun, ezerezean asarretuta, ola-gizon izatera makurtu ez balitz.

Lengo Baso-jaun, Legazpi'n erri-jaun biurtu da. Ekonomik baten indar. Eutsi.

A. ZUBIKARAI

LORA ESKINTZA

Lorak, lorak eta lorak. Loreillea'n gara. Orrillea'n. Danetako esakerak daukaz Maiatza'k. Amesgarriak geiago, mingarriak baiño. Bi-ziari poz-aizeak ekarten daki. Eguraldi alaia, argiak, luzeak. Eta eguraldi illunetan be errenta lagaten zalea da. «Mayatzean milla euri, milla ogi».

Pasku argia eleizetan. Lenagokoak igarri bai edo ezetzean biribiltzen ebena: «Sortzen ta bateatzen, iltzen ta ez eortzen». Betiko argia. Itxaropenezkoa.

Berdetasuna mendi, baso, zela eta ibarretan. Orlegia, berdea, itxaropenaren ezaugarria. Gaztetasuna, arintasuna, gizonaren izakeran. Etxeatiko asarreak be neguak astundu egiten ei-ditu ta udabarriak arindu, argitu.

Olerkarien illa, poeten illa. Olerkari sentidu ete danik ba ete dago bere biotzeko kanturik Maiatzaren neurtuta eskiñi ez dautsanik?

Maitasun barrien illa. Konturatu barik dei eta ten egiten ei daki maitasunak. Igarri barik ikutu. Era berean il onek, bizitzaren legean.

Ezaugarri berezi bat dauka, bere berea: lorea. Bear ba'da gizonari atsegiñen yakon emaitza. Itz gozoei lorak esaten dautsegu; loxintxa bigunei be, lorak. Eta Orrilla da ain zuzen be loren illa.

Loren illa dalako, eskintza bat billatzekotan, lora bat eskiñi, esaten da. Maiteen danari zerbait egitera illeak berak beartuten dabela esan lei. Eta lorea penitentzi bat izan lei, edo alegin bizitza bat; kiñu gozo bat izan lei edo irripar bigun bat; ukapen bat edo ta bete-betoko eskintza bat.

Gaztetatik daukat gogoan sartuta lora eskintzaren premiña. Eta bizitzan erantzun egin bear dala zentzu onak eskatu eta erakusten dau. Origaitik, gure mendiak lora eskintzen daukadazan aldi onetan, nik be erantzun bearra sentiduten dot. Nori?

Gaur niretzat bigun eta irrisu dan gizartean, lagunartean, etxean, errian, bizikeran... ba-dago norbait lore eskale. Sinismenaren sentimentu bat izan lei. Bear ba'da gizartea bera, lagunartea bera, etxea, erria, anaia...

Bakotzaz bere lorea dau. Askotan arantz ta guzti. Baiña lorearen ederrak arantzaren miña ixoldu eraziten dau. Lorearen izatean loreak lilluritzen gaitu eta ez bestek.

Lora eskintzaille sentidu eta agertu gaitzen. Gure lora batek numbaiten edo norbaiteri udabarri poza biztu eta indar barria sartu lei.

Urtearen giltza da Maiatza eta gure lorea be zerbaiten giltz izan leiteke.

ZUBEGI

EUSKALDUN PELOTARIAK

Esku ta oiñekaz gauza biribil ta arin bat jo, sakatu ta eragitea gizona baizen antxiñakoa, antza danez, izan da. Askotarikoa dan pelota jokoaren ekiñaldia nungo lurraldean asi zan jakiteko ez dago argibiderik. Gure erriarteko pelota lango gauza arin ta biribiltzaz Home-ro, Herodoto ta Mezenas'ek zerbait esan eben, ta orregaz jokatu ebela antxiñako egitotarrak eta Erroma ta Grezi'ko aundiki ta izendunak. Ameriketan inkar, aztekar ta mayatarren aldiko gitzakundeetan be ba-erabillela joko pelota antzekoak oraingo ikasteak be egiztu ta ziurpetzen ditue.

Batek baiño geiagok itaunduko dau: Zer dala-ta euskaldunak ezer esan barik, mututu lez, ixil-ixillik euren pelota jokalariei buruz geratzen ete ziran, jakinda grezitarrak euren kirol-zaleak gorlinda ebezalera giza-irudi oroigarriak ezarritarriño, Kariste'ko Aristonikos'eri giz-irudia egin eutsen lez?...

Onetaz Blazy abadeak bere idazti «La pelote basque»n diñosku: «Itaun korapillotsu, illuna, estalkien misteri izkutamenean inguratuta oraindik; Euskaldun belaunaldiak milla urtez zear biaroten ikusi dabezanak, euren alderdi giatoko Añamendiak gorde ta zainduten dabe ixil eskutukoa. Ez da kondairan agertzen askotariko kirolen asiera ta euskal pelota jokoaren sorburua zeatz jakiteko argibiderik».

Jatorrizko endan onen berarizko zerbait da bere oitura, kirol ta olgetarik idazkiz ez besteganetzea. Sendoro gorderik, bere semeai gizaldi ta menderik mende ao-belarriz odolakin emonez, pozik egon ta bizi da euskalduna.

Euskaldun idazlari batzuk esan dabe pelota-kirola Euskalerrian sortu ta asi zala. Baiña biotzak eragiñik idatziko ei-eben ori, diñoen besteak.

Greziarren «Saphira» erromatarren «pila» antzera, kide ta bardintzia izanik be euskal pelotea, Euskalerrian batezbe obetu ta berariztu ei-zan eta ei da, mundu zabalean entzutetsua izateraño.

Bein ta geiagoz, Kamilo Julien'ek aiaturiko abenda lege aundia egizatzen da izugarritzko eran: «Euskal gizakunde onek gizaldiz zear lurralde gustiek damotso eurak gozortu daben oitura eder betirako bat».

Orregeatik, ain zuzen be, pelota jokoaren jabetasuna dau euskal endeak. Beste erri danak aitzu oi-eben bitartean, alde guztietan ezetzatuz edo txikiturik ume jokoan antz-neurrira, Euskalerrian, ama batek lango ardureaz, zainduten ebazan pelota jokoak, gogoratuz ta ego-

kituz bere seme giartsu ta indartsuentzat.

Pelota kirola, batzuk gura daben lez, ez ei da sortu Euskalerrian, baiña hai emen erne ta gogortu aren zustraiak, indar arrigarri ta kemen itzalez, erri onek dakian lez, gura dauanari emote-raño.

Pelotarako burdiñezko-giarrak, indarra ta trebetasun andia bear dira, baita lurralde gitxidun endan onek beste izan leikezan soin-indar, izaera ta aukera onak be.

Gorago aitatu dogun Blazy'k Euskaldunen pelota joko gaiaz idatziten ebala, aurrerago diño: «XV mende azkenetan ta XVI'aren asieran, gure pelotarian aitamena aurkitzen dogu: aldi atan gure kirolzaleak emengo bioztun itxasgizonekin batera joango ziran Ingaltera, aste dogun lez. II Enrike'ren kondairan (1547-1559'n) bere izena ez dakigun bizkaitar bat agertzen da, erregeak emoniko 100 esterlin libera bere pillotagaitik, joko sarizat.

Aldi bertanxe, Mixe lurralde erdian, Saint Palais alboan, Garris'en, pelotari ospetsu bat il zan. Onen egitadarik ez-takigu, diskoidal illobian idatzitako bere izena baiño, ez apain barik, bere irudieren ondoan. Kolas'ek, bere idazti ederran euskal diskoidal illobian buruz, bereiztasun oneik erakusten ditu: «Idazpuruak agertzen daukuz ezin gitegoz euskal epigrafiaren bereizgarri batzuk. Eta pelotaria iruditzen da pillotea jaurtiteko uean».

Diriar'ar Gillermo —au pelotarian izena—, neurritz goitiko jokolaria izan bear eban bere izena ta irudia etorriko ziran gerokoei emetoko.

XVII mende erdian, beste txapeldun ospetsu bat be diskoidal illobian agertzen da. Banka'n Naparro-bean datza, eleiza ondoan dagon iltegiaren, euskal idazpuru onegaz:

«Manais Souron Suairin-txaretco Yau-na Marie. Orsafirain Aldudeco Etxotoko alaba».

Suairintxa'ren etxe ikusten da on-diño be, baita Orsafirain'tarren sendifamilia bizi be.

Añamendiko gure aldetik be agertzen yaku gipuzkoar Urtxalle, beste aldeko ordurarte ezin-goituzko pelotariei askotan irabazten.

Euskal abendaren berezko sorkunde ikusgarria, gaurko aldiak emon leiken kirolzale eredu galantena, ortik munduan zear erakusten dabilzen euren atletik giartsu itxurea, tankera argi eder maitekorra ta grezitarrak eurak miragarritako deituko leusitioena.

LETONA

Gaurkokeriak

Gizonak beti bizi nai izan dau bere aldiari jagokan lez eta orretarako egin ditu alegiñak: zarkeriak kanpora; barria dana. Eta barri-zaletasun onetan emakumeak izan dira urduriagoak.

Ortik burruka txiki edo aundi bat sortzen zan, zar eta gazteen artean, gizaldien burruka deritxona, eta ez da gauza txarra be, gizarteko bakera apurta arteraño erooten ez ba'da beintzat.

Baiña gaur barri-zaleen artean be, barruko burruka bat sortu da. Batzuk dana barritu ta gaurkotu nai dabe, baiña zentzunez ibilliaz; beste batzuk, zentzunez ibilte oneri jaramonik egin barik, barre-garrikeri itxusi ta motzetara jo dabe.

Barritasun edo gaurkotasun au ez da beti barria izaten. Gauza barriak beti asmetako irudimen aundirik ez dagolako edo, sarritan antxiñako gauza zarrak gaur gauza barri lez erakusten doguz. Esaterako, ule luzea eta bizar aundia erabiltea gaurkotasun lez agertu dira, baiña guztiok dakigu gauza bi oneik ondo antxiñakoak eta zarrak dirala.

Gaurkotasun au jantzikeran be agertzen da, eta aldi bakoitzean, antxiñako erara jazten diranak barregarri agertzen dira. Au be gizonen artean lez emakumeen artean, baiña Eba'ren alabak beti arduratsua go.

Jantzikeretan gauza barregarriak agertu dira gaur egun, eta bakoitzak bere naia iñori miñik emon barik egiten dauan artean, or konpon. Eta min emote onetan be batzuk arin minduten dirala ez aizu; eta gauza barregarriak be luzaro ta sarritan ikusi ezkeru oitu egiten gara, kontuan artu bear da.

* * *

Oraintsu agertu jakun gaurkokeri bat «streaking» esaten dautsoena dogu: Urietan eta ikaste-etxeetan, kaleetan eta bi-deetan, ezelako jantzi barik, mundura agertu ziran lez, aurkezten dira batzuk. Olako barriak ugariegi dakarskuez izparringiak: gure urietan edo erbestean «streaker»en batzuk agertzen ba'dira, izparringi guztiak barri ori aitatzen dabe, beste zer esan garrantziagorik ez ba' leuke lez. Orixe izan ledike oitura au zabaltzeko bidea. Gaur, bere burua ospetsu egin gura dauanak, naikoa dau olako egite iguingarri bat egitea. Noraiño jatsi dan gure gaurkokeria!

Zertarako egiten ete dabe egite au?: Erriko jazoerari erantzun egoki bat emoteko dala esaten dabe batzuk. Gose-aldia egiten dan antzera. Baiña era au baiño egokiagorik ezin ete leiteke billatu? Euren burua erreten daben «bonzo»ena baiño ohea da, baiña zuster geiagoko gauzaren bat asmau bearko dabe gaurko gizonak.

Izan leiteke, baita, norberaren burua agertu ta ospetsu egiteko bide bat. Ortik barribideen errua, olako jazoerak aitatzen dabezalako.

Edo zoroaldi bat: gure aldi onetan, ainbeste zarataz eta ainbeste kutsaduraz edo gizonak larregi urietan pillatu diralako, batzuk olako gauza bakanak egitera jotzen dabe.

* * *

Eginbide au onartzekoa danik ez dogu uste. Gizonaren jazkiak, era batekoak edo bestekoak, ba dauke euren elburua. Giroak eskatzen dau jantzita ibiltea, inguruan diran otza ta euria ta aizea gure soñarentzat kaltegarri izan ez daitezkan; eta gizarte-giroak be jantzia eskatzen dau bakoitzaren lotseak eta alkarteko bizitza izan bear dogun itzaltasunak.

Ez dogu uste ba, «streaking» egite onek ondoren onik izango dauanik; gaurkokeri igarokor bat izango dalakoan gagoz, eta obeto iñoz agertu ez ba'litz. Zentzun apur bat az eguneratze oneitan jokatzea jagoko gizonari, eta ez «moda» guztiak «moda» diralako aintzat artzea.



Arantzatzu'n

Xabier'i omenaldia gaur. Urduri etxean goizean goiz, tarranta aundietara garaiz elduko ete giñan. Zortzi t'erdietarako an giñan, «La Unión» berebillen etxe aurrean, ala ta be ez gara izan lenenak. Ba-da bai azkarragorik eta urduriagorik.

Be-laiño gogorra daukagu Bilbo onen gainetik, zerbait nabaitzen da gorago, odei arteko urdiñak be bai, aurreko egunetako egualdi otz baiña garbien itxura be bai, naita laiñoak lodiagoak izan gaur.

Urten gara; gure tarrant onek Arenalean geldu alditxo bat, an zain egozanak jasoteko, ez dira gitxi, gurea bete da ta or goaz aurrera. Danetik dakien batzuk diñoenez, eguraldia ondatzen ei-doa. Guk biotzetik ona nai, baiña...

Asi da euria, tantaka. Ez da aundia, baiña... Au tamala, ba-gendun ba asmo txiki bat, Arantzatzu'tik gorako mendi maldetan, eguzki ta aize garbian alditxo bat egiteko. Mezea asi baiño len, mendi apur bat urratzeko...

Danetik dakienak baiña, ez dira errez makaltzekoak: «Ola oba, diño, egualdi onegiakin or sakabanatuko giñan danok, ez mezarako, ez bazkaltzeko ez etxera itzultzeko ganorarik izango ez gendula. Orain, danok alkarren beroan, jai polita ta etxekoia egingo dogu...»

Mezea zoragarria; Zeruan dogun Euskal-erri'ra elduak giñala irudin. Itzak, doiñuak, abestiak; egoera bera Euskaldun Fededun'en garaikoa ta ezin obetua. Malkoak begi askotan, Xabier eta bereak danon begietan. Etzaitzu arin aaztuko, Xabier, meza eder orren luzeera maitekorra.

Bazkaria, bear zan aiñakoa. Uritik igotako mendi-aizez goseti agertzen ziranen sabelak eta urdaillak ondo bete, ta azken orduko abestiak indartsu emoteko aiñakoa. Adizkide ta lagunak alde guztietan, ezin baiña danekin itz egin. Xabier'ek jan ete-dausku ezer, ez zan une batxo bat be, bakarrik egon al izan ebanik, bere azpil eta sarda-zaliekien lasai jokatzeko eran. A zan zoriondu bearra; a berakin itztxo batzuk izateko egarria... gero, an urriñeko lagun guztiak be agertu nai izan genduzan, ezin baiña 350'etik gorako notintza orretan daneri jaramon egin. Gero be esango dabe, «arroto ditun Bilbo'ko neska-zarrak».

Azkenean, Xabier'i oroigailu polit bat, zidarrezko ol bat, esan nai aundiz beteta; danon aldetik, danon artean osotuta... euskaldunen eskeintza, txikia, loisatia, baiña bero-beroa!

Tarrantan berritz, pozik eta goibel, dana ez ba'da amaitu be, onena egin dogu, zergaitik ez beste olakoxe bat biar bertan, datorren igandean, illero edo noiz nai? Oindiñoik be etxerako bidean izango ditugu geure abesti eta barre aldiak. Danori ondo igaro danaren atsegiña be bai. Zorionak Xabier, zure alegiñak, zure idaztiak, euskaldun barri asko sortu ditu. Gaur, bilbotar pillo eder batek be euskeraz egiten eban, eskerrak zuri!

Begoña'ko Amaren magaletik Arantzazu'ko Amaren altsora joan giñanok Irurenetik gora izan giñan. An bildu giñanok 358 guztiz aurrez-aurre, baiña beste asko, gogoz eta biotzez. Zertara joan ete giñan baiña? Apaltasuna loratan ikustera, Peña Albizu'tar Xabier guztion adiskideari besarkadarik be-roena emotera. Bost autocar bete-beterik eta ainbat berebil txiki orrenbeste lagun eroateko. Bidean euskerazko abesti gozoen ots pozgarria... eta uste baiño lenago Arantzazu'ko Amari agurka! Zenbat gomutaki nere burura! Oñaztar eta gamboatarren arteko burruka berbiztu baiño lenago, zeru txiki aretan igarotako egunen oroitza. Azkeneko aldiz Garitaonaindia'tar Gotzon'egaz egin-dako joan etorria...

Baiña goazen arira: Lagunarteko meza polita izan gendun Amezu'a'tar Iñaki bilbotar abade gaztea meza-emoille zala. Enbeita'tar Balentin'en bertso eraginkorrek tartean eta abesti gozoak jaunartzean.

Gero, ordubiak inguruan bazkaria. Mai buruan Xabier; alboan Labayen, Emille Garay eta Enbeita alde batetik; N. Etxaniz, M. Angeles Garay eta Jaime Guenaga bestetik; erdi-erdian lora txorta zoragarria Kyrti Peklarren, finlandar euskeltzale kementsuaren ordezko. An ziran Julene Azpeitia, On Gabriel Manterola, Zeleta, Oleaga, Olazar eta beste idazle ta lagun asko; Beste mai baten neba-arreba ta senideak; eta maikoen artean sakabanatuta omenaldiaren eratzaille txorta zoriongarria.

Fabian Loidi, Igeldo'ko Parrokoaren bertso batzuk abestu zituan on Nemesio aztu eziñak... eta gero bazkaria; orrenbeste lagunentzat bero ateratzeak merezi du norbaiteri zorionak emotea. Dana ondo ta abestiak ugari, Geroago ta «zorrotzagoak», jakiña. «Bera mutil ona dala, orixe diñoen, beti esan dogu», ago batez abestu gendun.

Amaitu baiño len Xabier'ek eskerrak emon euskuzan: «Pozik nago baiña pozago izatea nai ba'dozue emetik aurrera euskera maiteago izan!», «Eskerrak baita, esan eban Xabier'ek, euskera sortu ebanari, eskerrak belaunez-belaualdi erabili dabeneri, euskera irakasten lagundu dausteneri, ikastoletan zintzo eta gogoz dabilzatan andereiñeri, nere aita ta ama izan zireneri... eta osasuna emon eustan Jainkoari».

Txalo-ots artean, urrutetik eta erbestetik bialdu eutsezan zorion agurrak irakurri zituan gero.

Azkenez, «nere poza zuentzat izan daitela eskatzen dautsat Arantzazu'ko amari...» «baiña ez esan, geurea da-ta, geurea da-ta, euskerarik egiten ez ba'dozue!»

Txalo bero artean bere tokian jezarrita egoala, guztion izenean, eta atzetik guztiok izenpeturik zillarrezko «plaka» bat eskeñi geuntzan. Ona emen zer iñoan: «Euskera bidez. Aberri gogoaren zabaltzaille Peña Xabier'... Beraren ikasleak», Gipuzkoa ta Bizkaiaren ikurrak eukazan gomutaki ederra.


Etxaniz Jaunaren abesti alaiak, Enbeita'tar Balendiñ'ek bertso ederrak... eta beste guztion «alegiñak».

Ori izan zan, gitxi gora beera, loratan egoan eguncan Xabier'ek bere apaltasunean merezi izan dauan omenaldi biotz-biotz-zeko. Pozik egon leike orrenbeste lagun daukazala ikusten daben gizona.

Amets kabi, otoiitz leku izan zan Arantzazu'k egun paketsua ezagutu eban beintzat. Ez giñan danok iritzi bateko, ez ta urrik be, baiña Xabier'ek antxiñako Errodrigo'tar antzera biotzeko maitasun garra biztu eban gure biotzetan.

Ez ete gara euskaldunak orrela jarraitzeko gauza? Bakoitzak bere alegiñak garbi ta argi egitea naiko litzake; urko lagunaren lanak, iritziak, zelai ta landarak sator zuloz jo barik. Ori lortzen ez dogun bitartean, gure poza egun batekoa izango da. Dana dala betoz ordu onean olako omenaldiak. Zorionak zuri Xabier AGUR onen izenean eta zorionak zuri, ain ondo jaia eratu dozuen andereiñeri ta lagun zintzoeri.

Zuk, zer dezu Arantzazu?...



MERKEEN ORDAINARI EUSKERA

Iñungo ta iñolazko aldizkarietan errietako berriak ematea ezin pozgarriago deritzait. Euskal-Erria txikia dan arren, noiz-nai sortzen dira, baztarretan, berriak emateko nai aña ta geiago gai. Zestua'ko berrietan, berdin sortzen dezaquegu, naizta, Zestua'ko erria soillki arturik, oar bat erantsi bearrean izan: erri onetan, berri jakingarririk gutxi sortzen dala. Iñoiz sortzen diranak, ordea, berezitasunez josiak dira.

Orrela bada, San Jose'tan, Zestua'n idi-demak ospatu ziran. Au, garai auetan, ez dala gauza berririk azaltzea, jakinaren gainean nago. «Baiña, ez noa, ez jai oietaz, ez idi-dema oietaz mintzatzeraz». ZERUKO ARGIA'ko 578'gn aletik, ERNAI'k, erriko berrietan azaltzen zituan zenbait, nereki, kirtenkeriri erantzutera baizik.

Eta, aurrera jarraitzerako, oar bat: ni «euskera batu» orretakoa ez, «erri-bide» aldekoa baizik, naizunez, ERNAI'ren zenbait pusketa, gure erara idatziko ditut. Barkatu, ERNAI, nere idazkortzak bere tinta alperrik galdu nai ez izateari.

Lenengo esan nai dizudana, auxe da: Zure barrutiko zenbaitengandik at, etzaitugula iñork ezagutzen. Bestetik, zenbait xeetasun bereizten asi bearrean zaude(te)la. Ikastola talde bat, eta, norbere gogoz Ikastolari lagundu nai diotenena(k) bestea(k) d(ir)ala, gero ta garbia-goto kontuan euki bear duzu(te).

Orain arte, Ikastolari opa izan zaion guztia, bere esku utzia izan da. Ta, xeetasun orrek berekin dakarzkian lantegi ta buru-austean berri dakizunentz ez dakit, baiñan, nik ori, apur bat ikusterik izan dedanez, zer dasidan dakidalakoan nago. Zorionez, bestetik, gai orretaz beste iñor konturatu ondoren, jakotzen asi dala ikusteak ezin-bestekoa poza damait.

Orain, gaurau bada, arrazoi motzez azalduko ditut. Zuri, ta, neurri baten Ikastolako Batzordekoeri, dirua nondik datorren —borondate onez eskeñia ba'da— zer ajola dizute, zueri iñondikako buruko miñik eman gabe zeuenganatu ba'zaitute?

Idi-demak, Zestua'n San Jose geienetan ospatzen dira. Baiñan, emen bein bildu dan dirua Ikastolarako eskeintzeak, «Batzordekoak ikastolaz arduratzen diranak erriak ikusterik nai ez?» galderarekin zer-ikusidauka?

«Ekitzen onen inguruan erabili dan azpijara», zer da? Zu(e)k «azpijara erabiltzea» jeri deitzen diozu(te)? Asmoak azalduaz Erri azpijara aurrean erabiltzeko jokia erabiltzea jeri erabiltzea» al da? Iñori txintik ere aitatu gabe, gutxiene uste danean, «golpe de gracia» ematea jatorra izango da nonbait. Gu, arlote alenok, itzen esan-nai jatorrak, oraindik, ikasi bearrean gara. Barkatu, ERNAI, gure ezjakintasuna...

Alaz ere, berdin diozudana: Idi-dema ta gaiñontzekoak antolatzearen buru-auste guztiak zeure(n)ganatu nai al zenitu(e)n? Apur bat geroxeago zezorrek au aitortzen ez duzu ba, alegia, lanik egin nai al zudenten garaiz galdetu ba'litzaitute, gogoz arituko zifinatekeala, ta bertako irabaziak jaso: «ain zailla al da... zenbait ekintzetan bat egitea?». Kontuan euki ezazu, ordea, ta, lasaitu burua: ez duzutela ezer egin bearrik izan; «Batzordekoak Ikastolaz arduratzen diranik» Erriari ikus-arazi bearrik ez dala izan —Batzordearen Ikastolarekiko ardura azaltzeko garrantziua goko jokabiderik bai bai-dagoz—, eta, jota-ke saiatu ondoren bezela, irabazi guztiak jaso dituzutela.

Eta, «norbaitek tantoa beretzat jaso nai?»ri, berriz, galdera ori sakelean gorde ba'zendu obe zendula erantzungo ditut. Ez bai-dago, okerreko bidetik eta bazterrak aztoratuaz jaso nai«ko tantoa» bezain eskasik.

«Tanto» onetan ixiltzera noa. Ba-dago, gai ontaz, ni aña eta egokixeago mintzatuko litzakeanik ugari. Ain «norbaitek... beretzat» aitatzen duzunez, nola artu bear dut: bat ala talde? Tamalez, ordea —ta zuk ondo dakizu—, onentzat erantzun egokia zeukaten denak ez dira bizi. Biok, eta ugari geiagok dakigun arek, gure artean izan ba'litz, eta, gaur, oraindik Zestua'ko Ikastolaren zaitzaille ta euskari sendo dugun zure «norbaitek» onek, esan bearrik ez daukadan arren, a zer kukurrikuz erantzungo zenizuketen!

Baiñan —eta ez da oraindik «tantoa» bukatu—, gauza bat gogorazi nai dizut: Ikastola, Zestua'n noiz, nola, ta nortzuk, zenbat burruka ta ez-bear ondoren sortu zuten, konturatu zaitezala —jakitekorik ez dizut esan nai, ez al zera, barruti orretan ain berria ta, zenbait gaietan, ez-jakifia izango beintzat—, eta iñor «tantoa beretzat jaso nai» izateari, bear bada, beste iñoren erantzun-bearrik gabe, zerezorrek erantzungo diozu.

Erantzun-aldi batean —ala «interview»— erantzuteko galdera asko daukazun arren, beste oneri ere, erantzun gabe ezin nezaioke utzi. Garrantzizko galderak bai-dagizkizu. Erria zaitzeko ta eraman-eziñak pizteko ekintzarik erabiltzea ez da batere txalogarria ta gutxiagorik ere, «ain zuzen, Ikastola bitartekotzat arturik» areago.

Nik, galdera oneri erantzunaz esan dezaizukedana auxe da: Zer, zeu(e)k iñoren aurrean izukutu ezin dezakezu(te)nik, iñori bizkarreratu naiean asi al zera(te)k?

Ez orixe, «bide onek ez dio onik ekarriko ez erriari ez Ikastolari». Baiñan, zenbait argiturik ikusi nai nukena au da: «jokabidez aldatzeko indarrak ez ba'dugu, gure Erriak eta Ikastolak etorkizun illuna dute», zertaz diozute? Nik, onekin, zer irizpide atera bear dut? —«dugu», bat baiño geiago bai dira, garbi dazaltzu—, zuek nai duzutenari erriak atzea ematen diola?

Era askotako laguntzailleak daudenez, zueri bururatzen etzaizkizunten eran azaltzen dira batzuek, eta, ba-dakizute: aurrerapenari txapela kenduta begiratu bear zaiola. Kontuan artu: «retrogrado» izatea gauza bat dala; aurreregi-zaletasunezko ustez beterik, «utopian» erortzea bestea, ta, bere neurrian aurrera-zale izaten saiatzea egokia. Erdi-bide orretara jo bear dugu, baiñan, ni pekatari naiz azalduaz. Ez, orain nerea, gero ere bai nerea, adieraziaz.

Gaurkoa naikoa luzatu dan arren, galdera berezieneri erantzun diedalakoan bukatu nai nuke. Aspergarriegi izan baiño len...

«Eliza ta Ikastola» beraxeago gelditzen zan. ERNAI'ri ain ondo iruditu etzaizkion arrazoiak, bear bezela artu ezker, jatorrenetakoak zirala adierazi bear dut. Iñori gertatu lezaiokena, ERNAI'ri gertatu zaiolakoan nago: naizta, arrazoi esaldi, gaiñentzeko entzuleak ondo artu, bat ez dutela bete, ta, esan-naia jan arte, arrazoi-billa asten da.

«TXIGUA'K» ETXEBERRIA'TAR J. L.

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, beseoi, politikoa naiz ondasungarri asmoen gaiñetik daben iritxi-oneko euskaldun guztiak Euskeratzat dituten erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egileak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M.^a MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guttirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

Eredu bikaiña

Ez ei da aldi asko igaro, Sendiko Latetxe-Aldun napartarra dogun Jesus Ezponda Garaikoetxea Jaunak, Euskerearen ta berebat Errialdeen berezitasunen Irakaskintzaz, Españiar Araudi ta Lege Batzarrari eskari zeatz garbi bat egin eutsanetik. Aulako eskariaren zioa 1970'garreneko Dagonillaren 4'an edaturiko «Eziera'ren ta bardin Eskolatzaile Era-berritzearen Ordaintze Lege Orokorra»n erro-turik daurkigu.

Oraintzu, ordea, urten barria dan «Españiar Araudi ta Lege Batzarraren Gobernuko Aldizkaria»n erregu au azaldu oi da.

Ezponda Jaunaren itaunak

Aor Jaun argi onen itaun batzuk: Nola egungo egunean Euskerea Irakaskintza'n sar-arazirik, txertaturik lez ikuskatu geinke? Aulako arazoari irakastaldietan bear daun aña'ko goratasunik, garrantzirik emon oi dautsoe? Lengo baten Euskereatzaz agerturiko usi ta gogomiñak onartuak al izango ete dira? Azaldu dagiguzan gurari nabarmentsu oneik.

Euskerearen irakaspena, orokorra, izkera-bikoa izan bearra du. Bi-eleduna —bilingüe— batetik ta arau-jarraigarriakaz, praktikaz ornidua bestetik.

Nola lortu eiburu oneik?

Orretarako lenen ta bein batxillermaillako ikaspenetan ezezik, Irakasketa edo Profesional Erakunde-egitامتuan ere Euskerea sar-araziz.

Bigarren. —Irakast-aulkiak sort-araziz.

Irugarren. —Irakasleentzat, geroko baten eurak izango daben lan go-

goangarriari so egiñik, ikastaldi berezgarriak batik bat gertaturik.

Laugarren. —Zuzenbideko agerbide ta jakingaiak orobat ezarririk, abar t'abar.

Dan-danoi, orain arteko zalantz ta illuntasun guztiei, argitasun ta erabaki artezak emon oi dautseela.

Orain Naparraz bereziki diardugula zeintzuk izango ete dira Euskal-arazo onek amai bide ona izan dagian arduradun bein-enak?

Ezponda Jaunaren aburuz Naparro'ko Lege Zarreko Aldundia, ala Principe de Viana'ko Zaindaritza ta Iraskundeak bitarteko izango ete?

Guzti oneik itaunak dira. Ori ta be beste eskari bat be ba-dogu. Au be Ezponda Garaikoetxea Jaunak Españiar Araudi ta Lege Batzarrari egiñikoa ziurrik asko. Au da diñotsonaren mamiña: Jakin-arazoko diran ala ez sarigarri diran leiaketetara joateko ta Oiñarrizko Eziera Orokorrak dituan Laterri Ikastetxeetako zuzendaritzan aurkitu oi diran utsuneak bete al izateko. Argi dagon lez zuzendari barrien bearizanean dagoz. Nola ala ta be Zuzendaritza igan? Or kozka, guztion irabazkiak aztertzen ez ba'dira beinipein.

Ezin geinke ukatu Españiar Lege Batzarrak zertxobait egin duala Euskera-arazo au azalduaz, ta nire ustez orrela pitiñ bat aiatuaz. Lenengo urratza emonda dago. Saiatu gaitzean guztion artean aurre-urtxoago joaten.

Gure Euskereari bizitasun berezi bat emoteko.

ARREGI'TAR JOSU

OMENALDI ORI

Azkenengo «AGUR»en, pozez irakurri degu, Xabier Peña jaunari omenaldia eskeintzeko artu dezuten asmoa. Bat egiten gara asmo orretzaz, eta arren, gogo onez artu egizue gure laguntza apala. Omenaldi orren oroitzaz opari eskeintza bat egingo diozute noski. Guk ere ortan «parte» artu nairik, «giro-postal»bez, eta zure zuzenbidera bialdua degu zenbait. Geiago zor diogu Xabier jaunari, berak geiago merezi ere, baiñan gari ale bat, beste geiagoaz bilduta, mordoxka lortzen dala-ta...

Egun on bat igaro dezazutela, bere inguruan batuko zeraten guztiok. Gu ere gogoz an izango gara. Bai Arantzazu'ko Amari gure otoiak zuzendu. Euzkera eta euzkalzale guztien alde, Xabier Peña Jauna eredutzat arturik.

Barkatu arazorik eman ba'dizut, gure agindu onekin. Eskartzen zaitugu. Eta artu arren, nere ta nere senar Manuel Abaitua'ren agurberoa.


PIQUER'TA JONE

GAZTE

Everest'en Oinetan

Labur-labur esango dautzuegu emen, noiztik, nundik eta zertan diarduen gure mendigoizaleak. Azken orduko barririk ez dogu, ezin ba, ain urrin eta ain goitik bai dadiltz. Eta gorago, ta neketsuago arengatik zuzenean jakitea. Gaur bertan, au idazten dogun une onetan, nork jakin?, baiña IV eta V kapardietan, 7.600 eta 7.980 neurkin goitik ibilliko dira, okerrik ez ba'dabe izan.

Ez daigun baiña, izango danakin amets egin, orrelakorik egitekotan beste au be esan bear: AGUR'en ale au zure eskura danerako ba-litzakela gailur bildurgarri ori oinperatua izatea be. Orra ba, asi gaitzean orain arte jakin doguzan barrietzaz idazten.



Tyang-botxe'ko lamaetxea

Lagun bi joan ziran aruntz Otsailaren 2'gnean, azken baimenak eskuratu ta zama-croataille (600'en bat) eta 35 Xerpa aukeratzera, oneik bide erakusle ta goi-gaiñeetako zama-croataille berezi ta bearrezkoak izaten dira.

Lenago, igaz, AGUR'en esan zan zenbat tresna ta jan eta senda-gai eroango ziran emetik. Ba, egun batzuk berandutxo eldu dira Katmandu'ra; orrela, Otsailaren 22'gnerarte ez ziran asi, gaiok, Lukla'ra, ipar-

sorkaldera dagon urira bialtzen. Lenengo asmoa, zati au be oiñaz egitea zan, baiña gaiok berandu eldu zirako Katmandu'ra, egazkiñez bialdu ziran Lukla'ra.

Uri onetan ziran danak, gizon eta gaiak, edo eldu ziranak beintzat, Epailaren lenengoan, eta urrengo egunean, 14 euskaldun euren Xerpa ta eroatailleak lagun ebezela, or joan ziran urrengo egoitzara; Tyang-botxe, lamatarren lekaidetxera eltzeke asmoan.

Atzetik etozenak, Katmandu'n azkenengo gaien zain geratu ziranak be, or alkartu ziran besteekin. Epailaren 9'gnean, 3.867 neurkin gora dan Tyang-botxe orretan lotu ziran, egun batzuetarako, goi aldeetara oitu bearrean. Oitu bearreko aldi ori baiña, ez da alperkerian igarotzen, Xerpa eta eroatailleak, eta indartsu naibaitzen diran gure mendigoizaleak, or doaz aurrera, gero kapardi nagusia izango dan egoitza gertatzera. Bitartean, Lusarreta gaztea ez dabil ondo, ta Katmandu'ra eroan bear izan eben, ala ta be, bereala obeto aurkitu zala, or etorri zan barriz lagunen artera.

Kapardi nagusi au 5.400 neurkin gora dago, Izotz-jausi izena daben gora «bidea»ren asieran, or bildu ziran Epailaren 26'gnean an goraka doazen danak, goian izateari oituta eta danak indartsu nabaitzen dirala.

Azkenez, aregandik zuzenean dakinaguna auxe da: Izotz-jauste ori igarota I Etzantza, 6.100 neurkiñetan, gertatzen ei-diardue. Egikizun au, Jorrailaren lenengo egunetan bete dabe, arrezkero or doaz gora ta gora, nun ete dira gaur? Garaille? Ori nai genduke. Ta ori eskatzen dautsagu Jaurari!

Barri oneik, igazkoak lez, TXIMIST etxeari eskerrak damotzueguz. Eskerrik asko ba eureri!

KEPA TA XABIER

ZENTZUNEKO SASOIAN

Etxebarri'n 16-4-74

Berandu samar da izan, bada orain aitatu nai ditugun barriak eurak be berandu etorri ziranez, gure oneik tokia izango dabelakoan gagoz.

Markiñako barrietan «Kirkillak» Etxebarriko antzerkilariak aita-tzen ginduezan, eta antzerki ostein gu erderaz parra-parra egiten entzuteaz euretariko bat minduta geratu zala iñoen.

Olantxe da, ezin ukatu. Baiña «Kirkillak» poztu daitezcan, onako au be esan bear, gauzak aldatu be egin leitekezela, ta gure artean orixe jazo dala. Oraingoan, belarriak luzatu ta zuur jarri dagiala eta ea zer entzuten dauan. Oker bategaitik gu baño gaztetxoagoan artean belarria jarriko baleu, leengoa jazoko litzakio arenbaten eta min artuko leuke.

Bada gu antzerkilariok eta gure adiñekoak zentzunean sartzeko sasoiak gagoz eta beste bat dala uste dot orain.

Eta Markidarrak zer? Or bai ba dozuela «Kirkillak» zer esanik.

ETXEBARRI'KO ANTZERKILARIAK

ZUBIALDEA'TAR FATIMA
ANA MA. BUSTINDUI
P. M. ARRIETA

MERCHE IBARLUZEA
MIGUEL A. BASCARAN
JOSE MA. ARRIETA

NEGARRA BEGIETAN

Aingeruak ere negar egiten dute.

Gaztelu'ko bidean, Ebia, misterioa, lainoa. Ostegun Santu musiña benetan! Or nunbait, kukuaren kanta goxoa.

Txintzarrien ots ezta... ardiak. Artalde bakarra artzai batekin. Gaztelu'ko Elizaren kanpaiak... talan, talan!

Elizkizuna laister asiko da. Labur ta bakuna; alaia, sakona ere bai. Aita Gotzon Urrutia'k, ederki iz egiten du.

Ba-du gatza... «Denak ez berdiñak gera... ez gera konpontzen. (Batez ere Euskaldunak) «Ala ere... beti lagun!» Errexa zegok!

Kantak, politikak, errikoiak, zoragarriak. Organista, batzuetan, bere aldetik dijoa, eta «koroa» ere bai.

Baiñan zer nai dezute! Gaztelu ez da Erroma... Al dana egiten da... Elizan, otza... kanpoan, eguzki motela, margo illunak, aize zorrotza. Mendi moreak. Ixiltasuna.

Elizako retabloa ikusgarria da... Ama-Birjiña aingeruz inguratua dago. Oso da ederra. Aingeru txiki oiek, parrez edo negarrez ote daude? Nork daki? Aingeruak ere negar egiten dute... gaur beintzat... Elizan «krisisa» dala-ta... Aldaketa. Ekaitza, naspilla. Ez betiko noski.

Dana dala, siñisten det. Jainkoa beti da berdiña. Fedea ez da Filosofi bat, ekin-tza baizik.



Ori, alde batetik. Bestetik, Zientziak ez du dena argitzen. Akatzez josia dago. Beraz...

Elizkizuna bukatu da. Azkar atera da jendea kanpora. Azkarregi? Baserriak ez dira aldatu. Ezta munduba ere.

Gizona aldatu bearra dago... ez, «Sistemak...». Agur, Gaztelu, Erri pobre ta librea!

«Zorionekoak, ikusi gabe siñisten dutenak! Oiek ez dute, ez, Marx'en bearrrik? Gaztelu'k ba-dauka Artzai berria.

Gaztea. Jatorra. «Progre». Noiz arte? Juanito, lagun zarra, Zeru Arte! Eta orain, abestu dezagun, Gaztelu'ko nextamutillekin:

«Adora dezagun, menderen mendetan,
(Jesus Jainko

Fauna...Eukaristian».

(Gora maitasuna, utikan gorrotoa).

Aita Gotzon Urrutia, beti gazte ta bizkor, bere lerogeta ta lau urteekin! In-glaterrako aizeak osasungarriak dira noski?

MATXIN

DEPURACION DE AGUAS S. A.

URA EGOKITZEN ETA UR LANETAN BEREZITUAK, EDANGARRIAK - LANTEGIRAKOAK - ZIKINDUAK NAIZ IGERITEGIKOAK ZUZENTZEN

+ 32-37-00 - + 31-00-10 - 32-37-01 Urt.

Gordoniz, 44, 12.^a
BILBAO-2



MENDIRI-MENDI GAI BILLA "Moderatuei"

Bai, orretara ibilliten gara sarritan mendigoizaleen artean sartuta, euron eginkizunak eta asmoak jakingo ba'doguz. Benetakako mendi-zaleak ez ditu ba bere ibileketa luze neketsuak edo aitz-igokera bildurgarriak, izparringien bitartez oztetzaren abotara ekartearren egiten, kirol garbi ongarri au maite dabelako baiño. Ori, kirol ortatik bizi diran gitxi batzuentzat bakarrik da. Ba-dakigu baiña, ainbat irakurleri atsegin izaten yakela mendiko zerbait jakitea, orregaitik geien bat, mendigoizaleen gora-berataz zerbait idatziten aleginduten gara.

Orrillean berrogei ta amar urte betetan dira, Euskalerrri'ko Menditar Bazbatza, edo eurak ipiñi eutsien erderazko izenez esanda: «Federación Vasco-Navarra de Alpinismo», Elgeta'ko erriana lage barruan sortu zala. Beraz, il ontan ospatuko dira urrezko ezteguak eta orretarako ainbat jai egoki euskal mendietan egiñaz; euron artean, Gorbeya'n, eskualdeko landaketa bat.

Gai onetaz geyago idatzi baiño len baiña, argibide bat emon bearrean gara, gure irakurleei, Bazbatza onen izena dala-ta:

1924'gko. Orrillean sortu zan, esan dogunez, izen orrekin. Baiña, andik lasterrera eta napartar zintzoen eskapidez, «Federación Vasca de Alpinismo» edo euskaraz Euskal Mendizaleen Bazbatza izena jarri jakon, eta orretara jarraitu eban gurartean izan genduban gudaketa zitala amaitu artean. Orduban, barrizatu ebenean, bearbada asierakoa baiño beste asmu batekin, barriz «Vasco-Navarra» deitutuzera jarri ziran. Dana dala, guretzat beti izango da Euskal Mendizale Bazbatza, orduko naparrak ondo esan ebenez: Nabarra beste euskal erkiak bezain euskalduna dalako.

Bazbatza ori sortu ebena, ogei ta zazpi bazkun izan ziran; Gipuzkoa'tik emeretz, Bizkai'koak bost, Naparroa'koak bi ta Araba'ko bat. Mendigoizale bazkun onen izenak be gure esku-artean doguz baiña, luzegi ez egitearren, beste idazlantxu baterako itxiko doguz.

Esan dogunez, urrengo Orril ori oroigarria dogu euskal mendizaleok eta bera goralduartaren, Ibaizabal-Nerbion'go mendizaleen Alkarteak, Gorbeya'n ospatuzeko asmua dau urteroko leyaketak egiteagaitik irabazi daben mendigoizaleai sari-banakuntzea, au da: Baskonia, Edesa, Ganguren, Osea ta

Zornotza mendigoizale taldeak; orain arte dakiguzanak beintzat. Orregaitik, ba-dakite bai talde ontakoak eta bertakoak ez diran mendigoizaleak be, Orrillaren 12'ganean nora joan: Gorbeya'ra neska-mutillak!

* * *

Aspalditxuan iragarrita egoan egon be-ta, Jorrailla'ren 21'ganean bederlatzi ordu edo geyagoko mendizaleen ibilketa neurtu luzea ospatu zan. Bai benetan luzea, Berriz eta Mallabi bitarteko Zengotita gaiñean urten eta Basauri'raiño etorri bear izan ebela ibilketa orri amaia emoteko. Orretarako, Oiz-mendi gaiñetik igaro, ta Ibarri'ri abopeko bat, nai ebena, egin ondoren, Gorozika'tik gora Bizkargi'ko gaillurrera igon bear ziran, eta igon eben, ortik bera, Larrabetzu'ko Goikoeleza'ra bazkalduten jatsiteko; or dan ikastola ondoko zugadian ordu erdi edo ordu bete bazkalduten eginda, Larrabetzu'ko urira urten ziran, ori igaro ta, Legiñak basetxeetan igon ondoren, Ganguren'go gaillurrera igoteko. Gaillur ortatik jatsi, Azpuru basetxetik Aperribai'ra ta esan dogun lez Basauri'n amaia emoteko.

Guztiz, berreun eta ogei ta amasei irukotek, neska edo gizonetzko, goizeko zazpiretan urten ziran, Zengotita gaiñean eta amaikak ta laurenetarako, Bizkargi'n aurkeztu ziran le-nengokoak, eta orretara enparukoak.

Beste idazlantxu batzutan esan dogunez, ba-da euskal gaztedian artean mendi zaletasuna, beraz, ibilteko asmoa ta kemena be. Eta ez ziran danak gazte-gazteak be, zazpireun eta geyagoko mendigoizale mordo orren artean, ba-ziran ainbat, urteatan goratuta aurkitzen diranak, eta euron artean baita irurogei ta amaika urteduna be. Ez da anai Patxi?

Bizkargi'n gengozan, eta gerotxoago bazkaltzen aurkitzen ziran zugadian, eta naita ordurako ibiltaldi andia eginda aurkitu, pizkat nekatuta ikusten ba'ziran be banaka batzuk, bazan benetako kioldarren artean, alaitasuna ta euskal-gogoa.

Nortzuk izan diran irabaslak?, iñor be ez, eta danak, kirol garbi orri emon dautsen bultzakadeagaitik. Gora mendigoizalea!

ALTUNA'TAR JOSU

Gure aldizkaria irakurtzen dutentzat, baiñan batez ere beste aldizkari batzuek irakurtzen dituzten euskal-irakurle «moderatu» oientzat dijoa ene idazki au. Nere aldetik gutxi jarriko det, eta beste aldizkarietan ipintzen dutena azalduko; lastoa ta alea ongi bereizten ikasten joan gaitzen.

Eta onela bijoakizue aldizkari batean irakurtzen detana. Idazlan orrek «Utopiaren faseak (II)» du izena. Eta abaila ontan mintzatzen da:

«Arana Goirik egin zuen utopia ere lehenengo utopia bat zen. Nahiko primitiboa hau ere, halabeharrez. Gainera, osagarri kontserbakor eta restaurazale askoduna, zoritxarrez. Baina harek ere, problema batzuen erdian kausaturik, etorkizun ideal bat proiektatu zuen. Ikusten zuenaren arabera (industriari-kin kanpotarrak etortzea eta Euskal Herriaren deseuskaltzea) PROIEKZIO ARRAZIZTAK EGIN ZITUEN. Deseuskaltzea arraza-nahastearen ondorioztat hartu zuen, numbait. Aurrean zedukan problema besterik ez zuen kontraesplikatzeko utopia honekin, nolana ere: agian problemaren terminoak gaizki baloratzeak edo, bere utopia nahiko PETRAL formulazten bazion ere. Dena-den, ahal zuen moduan bere proiektzioa egin zuen».

Aurrerago beste au: «Halaber, Aranaren pentsamentuan elemento BURGES-KOXKOR asko egongo da, baina Proudhonenean ere bai». Nork egin ote du ezer onik jaun onentzat?

Eta gero: «Guzi honekin ez dituz, noski, Abandotarra eta Treveristarra parekatu nahi! Teoriko eta ideologo bezela, ez daude inolaz ere maila berdinean. Baina Arana, zentzu hortan, izugarriko teorikotzat dadukanik ere, ez dut inor ezagutu; hura adoratzeko zuelako, haren edozer gauza miresten zuen bat espada. Uste dudanez, behintzat, interesatzen zaigun Arana, utopia baten biztaila besterik ez da. Ez haren formulazio teorikoa. Bere ESKASIA, USTELKERIA, ZIKINKERIA eta NARRASKERIA guzietan ere, utopia bat eta burruka bat biztu zituen. Hobeto esateko, hortan ere Arana, beste edozein bezelaxe, HISTORIAREN TRESNA BAT izan zen».

Eta onela dio geroxeago ere: «Beren lehenengo fasean, ordea, utopia denak dira nahiko ZIZTRINAK».

Bai enetxoak, au guztia nun idatzi dala esango zenuteke? Ez da ba argitaratu guk «gogor» eta «intrasijenteok» idazten ditugun aldizkarietan, ez. Au, asteroko zubigille, elkargille, erdibideko, neutral, goxo-bigun, leun-leun eta labaiñ-labaiñ dan Z. Argia'n baizik: 850'ngongo zenbakian. Zuzendariak konturatu gabe ote? Agian, baiña memori txarra, beti alde batera erortzen dala ikusten degu...

Eta galde egidazute orain, nork idatzi duan. Bada Joxe Azurmendi deritzan prantziskotar batek, Jaungoikoa'ri esker, ez dira prantziskotar guztiak onen bardiñak. Asistar otso-baregille bat, uxo biltzaille goxo-goxoa, kristautasun zabaltzaille leun-leun batek...

Nola liteken? Ez naiz ni ortan sartuko, irakurle. Ez eta emen epaituko. Idazki ortatik ondorioak ateratzea, «moderatu» oien eskuetan utziko det. Guk, dagokion neurrian erantzuten ba'diogu, «gogor» eta «intrasijenteok» izango bai-gaitzuz. Ixilik gelditzen gera, berak erabaki dezaten.

Zer egingo duten? Guregana asarre etorri diran bezela, oiengana ere bizi-bizi joan eta ea zertan ari diran galdetuko diote? Agian atsegin izango zaie, ainbat aldiz bezela, idazki orren barruan dagon pozoi ta gorrotoaz ez oartzeta, eta «utopiar pilosopo» idazle orrek ba-duala «ironi fina» esango digute. Ala berealdiko pilosopo argia dala esango al dute, atsegiñezko lerdea dariotela? Baiña benetan mindu ba'ditu, asarrea agertuko al diote? Nori? Nola? Aranisten berotasunez sortu ta oraindik ere aranisten diruz bizi dan aldizkariari laguntza ukatuaz? Nola, baiñan, itz goxoz ala gogorrez?

Baita Arantzazu'ko frailegoari, esan dogu, praille guztiak ez dirala berdin; euskera garbiaz eskatzen duten diruaz orrelako filosofo «argiak» eta «euskera matxatu»en zaleak mantendu ez ditzen, ezta Alemani'n filosofokeri ikasketetan ainbeste urtean txorabiatu ez ditzen, diru laguntza ukatuaz? Jabetuko ote dira «h» bakarrik ez dala, badaramala berarekin beste zerbait, eta darabilten jokaeren muiña zein dan, gu bein jabetu giñan antzo?

Ez dakit. Nolanai ere, zuen erabaki «goxo-goxo» eta «leun-leunaren» zai gelditzen da.

UXOLA

Arri batekin asi zan



zure aurrezkien banketxea



BANCO DE BILBAO

gizaldiz goiti aurrezkitzan

ZER EDO ZER BAKARTASUNA

INDIOTARREN ALDE

Brasil'eko sei gotzaiñek 34 orrialdeko agiria agintariei zuzendu dautse Amazonia'ko indiotarren alde. Izan be, Transamazonia'ko bide zabala egiten diarduenak indioen erri osoak ondatu ta euren kultura-yakintza yator berezia galtzeko zorian ipiñi ta Europa'koak sartzen dituelako, agintariei eskatzen dautse, alegin guztiak egin daizela kalte orreik galarazteko. Indiotarren gauza onak zaindu ta erbesteko kultura onagaz geyagotutea, ederto etorriko litzakie, baiña dauken ona ondatu ta txarragoa ezartea, gizabidea danik inork be ez dau esango.

GIZONAREN ESKUBIDEAK

Alde guztietan ondo zainduko ba'lira ainbeste aitatu bearrik ez litzake izango, baiña, zoritxarrez, VI Paul Aita Santuak diño O.N.U.'k iragarri zituan ogetabostgarren urtean, toki askotan ez dira aintzat artzen, ez azalez ez mamiz, ori izenpetu ta ontzat emon ebezan laterri askotan. Ori dala-ta Olinda ta Refize'ko gongotzain Helder Kamara'k Suiza'n 7.000 lagunuen aurrean egin eban itzaldi baten eskatu dau laterri arteko epaitegi bat eraldu bear litzakela, gizonaren duintasanaren aurkako bidebakokeri ta gogorkeriak zigortzeko. Epaitegi onetan alde guztietakoak, zixstedun eta ainbakoak be sartu bearko litzakez, gogorkeri guztiak gizaditik baztertzeke. Ainbeste buruaste eta lan bakearen, eta langille, goseti ta beartsuen alde egin dan deya aizeak ez al dau eroango.

Gotzain ospetsu onek oraintzu artu dau berarizko bake saria, Nobel'en orde, eta orain barrero eskatzen dabe aurtengo bakearen aldeko Bake-sari beroneri emoteko, eta beste askoren artean, Ingalanda'ko 36 aldun edo diputauk.

KATOLIKUAK INGALANDA'KO ALDUNDIAN

Oraintzu auteskundeak izan dira Ingalanda'n eta apur bategaitik laboristak urten dabe nagosi. Alderdi guztietakoak 37 dira katolikuak, egin-eginean, len beste. Norbaitek uste izan lei geyenak konserbadoreak izan dirala. Orretan oker legoke. Ingalanda'ko katoliku diputauk laboristen artean beti izan dira geyago, konserbadoreen artean baiño. Eta oingoa be bardin da. Izan be, erlejiño arazoan ango laboristak emengo «socialisten» antzik ez dauke. Lenengo batzarraren aurretik egiten daben eleizkizunean Idaxti Deuneko irakurteak gobernuko buruak egiten ditu, eta oingoa Wilson'en txandea izan da.

GOSE DIRANEN ALDE

Aspaldian sarritan entzun dogu, lurbiran irutik bi gosez edo bear dan beste yateko barik bizi dirala. Eta ez oin egon dan siketeagaz Apirka'ko laterri askotan Sahara inguruetan eta Etiopia'n be millakaz asko gosez il diralako, beti be lurbiran gosez asko ta asko ilten izan dira-ta. Eta ointxe be egunean 500 Sahara inguruan ilten dirala-ta, Batikano iratiak dei bat egin dau laguntzeko. Gosez ilten diranen artean zaspitik bost umeak izaten dira. Irrati orrek diñonez, izkilluz, armaz, ornitzearren, birritan ilten dabe: lenengo erri atzeratuen artean arek bear daben ogia izkullutan eralgiten dabelako, eta bigarren gudak egitean. Au da, lenengo, tirorik yaurti barik, ogitako bear dana izkullutan eralgiten dalako, eta bigarren, tiroka ilten dabenean. Alan ba or gabiliz arro-arro «zibilizau» ta «aurretatuak» gareala esaten! Itxurea ba'dago...!

BETIKOA!: BESTEREN ONA EZIN IKUSI!

Lawrence Elliott amerikar idazleak XXIII Yon'en bizitza bat argitaldu dau. Itzurrea Edward Kennedy'ña. Beste gauza askoren artean Ronkalli'n umea azaltzean, mutil bizkorra izan zala diño. Ori, abadetzarako lagundu eutsun parrokoak, laster ezagutu eban, baiña lagunak ez eben aintzat artzen. Egun baten ikastola-ikerlariak, guztioi txikitzen egin yakun itauna egin eutsen: «Zer da asunago, tonelada bat burdiña ala tonelada galtzu?» Mutiko guztiak garrazi baten erantzun eban: «Tonelada bat burdiña». Danak ixildu ziranean Ronkalli txikiak erantzun eban: «Astuntasunez tonelada bat, tonelada bat da». Ikerlariak txalotu eban, baiña, bere lagun batek diño: «Guk lepoa berotu geutsen». Alde guzti eta betiko gatxa: Besteen ona ezin ikusi!...

GAMA

BAKOITZTASUNA ETA BATASUNA

Iru lora polit ederrak, sustrai berdiñetik datorzan iru lora margo ez berdiñekoak. Autetsi nai dezun margoa eta jarri iruroi bana; esaterako, zuria bakartasunari, odolaren gorria bakoitztasunari eta itxaropenaren orleja batasunari. Orrela, diran baiño politago ta ederrago agertuko zaizkizu. Irurok atsegin-garri, irurok lilluragarri, irurok alkarri laguntzen eta alkar edertzen, naiz ta irurok beren bereiztasuna zaindu ta sendotu. Aztertu ditzagun iruron bereiztasun batzuk eurok usain gozoz betetzen duten euskal-baratza sakonago maita dezagun.

I. BAKARTASUNA

Bakartasuna lora dala esan det. Bere margo ta usain ditun lorea. Margo ta usain oiek ez dira berarentzako, besteentzako dira. Bere baitan bildu ta bakarrik izateko egiña dan gauzarik ez dago; bakar dan gauza bakarra Jaungoikoa da eta Jaungoikoa ere, nortasundun adimena ta zeintasuna dun naia dauzkan ezker, ez da bakarrik. Berdiñik ez daukalako bakar da; bestela ez litzake Jaungoiko izango. Berdiñik ba'leuka ez litzake are Jabe izango eta beraz Jaungoiko ere ez.

Ametz politik gizona bakarrik eta basamaurtuan Jainkoari begira jartzen dutenak; Kristo beraxe bere ikasleai egindako deiari erantzunez: Zatozte zeurok apart leku desertu batetara eta reposa zaitzete guti bat. (Lizarraga). Ikusi dezagun nola euskeraldu duten dei ori Olabide ta Arriandiaga Abeak: Zatozte zuek berezian basaldera, apur bat atsedeteko (Olabide'k), eta Erdu bakarrera basamaurtura eta atsedendu amiotxu bat antxe (Arriandiaga'k). Argia baiño argiago dago or, bigarrenak lenengoak baiño euskera garbiagoa dula eta irugarrenak beste biok baiño txukunagoa.

Kristo Jaunaren dei orreri erantzun-naiez-edo, askotxu jua dira basamaurtura bakartadean bizitzeko asmoz, baiña ez ziran bakartasun osoan bizi, alkarrekin artu-emanak zituzten. Basamaurtuko Andoni eta Paul'ek jai aundietan alkarrekin batzen ziran eta aiek il ziranean bakarrerazale askotxu batu ziran eta aien jantzi ta beste gauza batzuk gomutakitzak eskuratu, jaubeak il ziranean.

Gizona ez da bakartaderako egiña izan, gizarerako egiña da. Luna naiz katamotza naiz beste abere ankerren bat etortzen ba'zaio orruka ta agiñak crakutsiz, gizonak bere burua zaintzeko ifloren laguntza bear du. Lapur edo gaizkillen batzu joaten ba'dira bakartasuagana berau erailteko asmoz, onek beste bateren laguntza bearko du.

«Ez da on gizona bakarrik egotea; dago-kion laguna egingo diot» esan zun lenengo gizonaren Egilleak, eta sendia irazi zuan. Sendiak ere beren sustrai berdiñari begiratuz eta bearkunakaz arduratuz gizarateak borobildu dituzte, bata besteari lagunduz, aurrera zorientasunerantz egiteko. Bakartasuna ez da gizonaren elburu, bide baizik.

Bide bezela, ondo da, naiz Jainkoa'ganako gure bearkunak sakonago ezagutzeko, naiz gizonai zor diegun itzal eta eginbearrak zabalago betetzeko; baiña elburu bezela ez, ez geralako bakartadean geure buruakaz korapillatuta bizi izateko egiñak. Jainko'tik il bakartasuna ezer ez ta illuna da. Gauerdiko illuna, ituna, deusa.

Gauerdiko orrean
Nion ez da argirik lurrean
Ez ditake mendian adi deusik
Aizearen abarrota baizik.

URRUTIA'TAR GOTZON M. B. S.

ORBELAK

“ZEN”

Euskeraz zen itza joana da, igarora, izana. Au da, izan zena. Illa.

Baiña euskeraz «sen» ezaguera da, sentzuna, juizioa. Senean egon, esaten da. Norbere sentsuan egon.

Ba ete dauka zer ikusirik gure sen onek, jopardarren «zen»egaz?

Eta zer da sorkaldekoen «zen» ori?

Gizaldi luzeetatik dator. Laugarren gizaldirako Tao eta bere jarraitzaileak gogartearen garrantzia goratu eban. Gizona pentsatera, bere buruagaz nortasun eta jaubetasun apur bat artzera beartzen dabena; bakartadea izan barik, norberetasunaren (ez norberkeriaren) izatea sentidu eragiten daben zerbait. Bardin da ikuspegieta, nai edergailluetan agertu. Bardin pinturan edo izadian. Edo ta apaingarrietan, etxe-gintzan, artean edo antzerako erakusaldietan. Gelditasuna. Baiña kontuz. Gelditasuna, bertatik bete-beteko argitasun berezia billatzeko.

Psikoanalisen pareko, ain zuzen be psikoanalisi garbia izan barik. Budatarren giroan be «zen» onek kutsu berezi bat dauka. «Zen» ori, era baten edo bestean, «relax» dalakoaren kideko da. «Relax» geldi, baretsua.

Bete betean norberengan jarri, ingurueta kezka eta larritasunetatik urten, aztuntasunak laga, ingurueta kutsukeriak baztertu, sentzun jator eta on bat artzeko.

Gero ta zabalago dua munduan «zen» onen premiña; gero ta ezagunago eskola ori.

Ez da gizaratearen aurkako, mesederako baiño. Baretsun orrek, gelditasun orrek, ez dau erakutsi nai mundutik igestu bear danik, lagun urkoa baztertu bear danik, erria edo erritasuna ukatu bear danik, ez.

Era guztietan gertaten dana da. Gizona, ittoten dagonean sentiduten ei da gizonen.

Emen be zarata eta nasterik geieneko denporetan billatu bear dogu gizonok baretasun ori, gure ta ingurueta gelditasuna, nortasun osoz, gizonki, jaubetasun betez norbere altasuna eta sena dan bestean ikusi eta aukeratzeko.

Mundu zear zabaldu da «zen» jokera onen giroa. Gaztedietan igarten dira bere ondorenak. Guk euskaldunok be ba dogu premiña «zen» ori gure sen onaren esnatzaile artzeko, gure sena egotaldi baketsu batetik gogoratu craziteko, argi biztutzailearen betetasuna gure senez ikusteko.

ZUBEGI

FERRETERIA UNCETA, S.A.

Landola tresnak - Galtzairu neurri zeatzekoak
Langailu guzietarikoak - Leunketa gaiak

Ibarrekurutz kalea 14
71-10-00 Urrutz.
Apartado 18

E I B A R

ESNEAGAZ EGINDAKO

ESKATU **BASERRI**

UMETXUENTZAT

AGIÑEKOENTZAT

CHOBIL

ESNEAGAZ EGINDAKO

ERRIATZAKO

Arjentina'tik

Dakustanez, Arjentina'ko barriak ontzat artuak dira «AGUR» aldizkari eder orretan, eta orain MONES CAZON gogoan izango dit, eta zergaitiok laster ikingo dozuez.

Ogeitamasei urte luzeak igaro dira, Burdeos'ko kaian, LIPARI izeneko itxasontzi baten, Ameriketarako bidea artu gendula. An gengoan beste aizkide talde batzuekin, erriñiak barru-barruraino iota, ta alako baten apaiz bi sartu ziran, bata Don Emilio Agirrezabal, berau orain bost urte Buenos Aires'en bakar-bakarrik emeko Abadetxean il zan. Inor konturatu giñaneko elizkizunak eta obiratzea egin cutsen. Apaiz euskotar bat bakarrik ioan zan bere gorpuari laguntzen. Oneik dira uri aundietako gertakizunak, txakur bat bezela iltzen zara inor konturatu barik. Beste apaiza Jakakortexarena tar Txomin, Berastegi'ko semea zan. Beriala alkar-egagutzeko alegiñak egiñaz, arrezkero aizkide begiko gara, ta benetakoak, ez azalekoak. Zenbat aldid alkarerri adore emanaz, bilkuntza zoragarriak izan ditugun, eta zelako on aundia egin diguen, bakotxak bakarrik dakigu.

Ba, zortzi egun zoragarri apaiz onekin igaro ditugu, bera ta bere izeba Mikela Garmendia'kin Txomin Mones Cazon'go txauburu da, txauburu ta dana, ba apaiz bat bakarrik dago, ta bere izeba Mikela, bertoko serora, bere eskuetatik igarotzen dira eleizako gora-bera guztiek-eta, esan nai dot eleiza txukuntzea, ta bear diran gauza guztiak aukeraz zaindu ta bear diranean garbi ta euren tokietan gertuta eukitzea. Astegunetan Meza lagundu bere bai, ba kanpo erria dan lez geienak, euren zeregiñak an daukez, ta mezararako astegunetan, il dan batenbatentzako edo ezpada, oso gutxi biltzen dira. Aditñeko atzotxu edo agureturren bat, besterik ez.

Mones Cazon, bi milla biztanle inguruko baso erri bat da, emen Panpa inguruan eta beste toki askotan dagozan erri asko lakoa. Biztanlerik geienak, baserri lanetatik bizi dira. Beiak, txalak, artaldeak, garia, artoa, ta abar. Azkenengo urteotan, ezta ere bai, ba ogibide ori Txomin apaizak erakutsi zien. Ordurarte oso gutxi, ta etxerako edo pizka bat kanpora salduz, baiña garatz bezela ez zan erabilten. Txomin iaunak ipiñi zitun bide orretan, eta orain sarrera ederra lortzen dabe arazo oneri eutsi dioenak. Onezaz gaitñera beste on bat erriarentzat, ba gazteak etzekien nora io bizibidea lortzeko, ta orain askok bertan lortzen dabe, onura aundia egiñaz erriari, ba oiturak dirala ta beste gauza on asko, senitartean zaintzen dira ondoen kanpora ioatetako arriskuak kenduz.

Ezirik onenatarikoa berriz, emengo inguruetakoa ei-da. Alemania'ra bialtzen dabe asko ta asko, ta Arjentina'tik artzen dabentatik, emengoa dala oso ona diñue. Urtean milla bat tonelada bialtzen dira emengo inguruetatik bakarrik, au da Pehuajo, Alvario, Alagon, eta beste erri batzuetatik.

Pehuajo da emen inguruetako uriburua. Mones Cazon ta izentatu ditugun erriak eta beste asko Pehuajo'ri erantsita daude. Mones Cazon'en Pehuajo'ko alkatearen ordezkarri bat dago, ta baita beste errietan ere.

Pehuajo indar aundiko uria da, Mones Cazon'etik irurogeitamar kilometro daude Pehuajo'ra. Pehuajo'n euzkal-batzoki eder bat dabe, ta oraindik zar asko daude baiña euskaldunen ondorengoak, or dira Ezpeleta, Ugalde, Dualde, Etxebarria, Iparragirre, Inxaspe, Azkona, ta beste asko. Euren bizibidea, batzuek, egotitxetiarrak (estanceros), azkensalketariak (errematadoreak), banketxetako nagosiak, eta ebar... Oneik dira batzoki ortoko bazkide taldea, beste batzuen artean. Izen oneko gizonak, ondo ikusiak. Au da euskaldunak eta ondorengoak daukagun ogasunik aundierna.

Igaz eurite aundiak izan ziran alde orrietatik. Lur asko ur azpian gelditu ziran. Pehuajo'ko batzokiko gizon ospetsuenak lan ikaragarria egin eben kalteok arintzeko. Orain urte ederra izango dabelakoan daude, ba lurak emankor agertzen dira, ta abere kontuan ere oso ederki dabilta.

Igaz beste gertakizun bat ere izan zan Pehuajo'n MARTIN FIERRO arjentinarr. poema agertu zaneko eungarren urtea betetzen zan, eta urteurren orreri omenaldi bezela. Jakakortexarena apaizak euskeratu egin eban, MATXIN BURDIN izenaink.

Emeko agintariok, aurkezmen berezi bat egin zuten, eta gure euskera oso goraldua izan zan, liburu orreri egindako omenaldiakin. Omenaldi ori Udaletxeak egin zun.

Mones Cazon onetan egon gara ba, beti bezela, egun zoragarri batzuk igaroz, gure anai Kortexarena ta izeba Mikela'kin. Aiztuko etxakuzan egunak. Don Txomin, zuk esaten dezun bezela, zenbat eskar zor diogun gure Iaun onari!

TORKATIKO

Bermio

Jorraitlan lenengo igandean, euskal-jai txiki bat izan dogu gure errian, abesti saio bat goizeko amaika t'erdietan. Parte artu zutenak: Miren Aranburu, Lazkao'ko abeslari gaztea. Txalo bat berantzerako.

Gero, Azpeiti'ko Amagar bikotea, ederto onexek ere, itzak onak eta euskal-nortasuna be ugari. Ondoren, Ondarru'ko laukote bat, «Gure Bideak». Euretariako bat, ezagun dodan Gerardo Garramiola dantzari trebea. Orain bi urte, Euskal-erriko txapeldun gelditu zan bere emaztegiaren laguntzagaz. Agurrik beronak idazlan onen bidez. Laukote onek, benetako abots ederrak, ondarrutar geienak bezela.

Eta azkenenz, Oskorri taldea. Artez esateko jaialdi onetan ez zun euki sarrera onik, entzute aundiko abeslariak ez ziralako-edo. Nik beintzat gogo pizka bat euki neban batez ere Oskorri taldea entzuteko, baiña ikusi dot abeslari bakarra daukela, «Natxo de Felipe». Beste laurak ez dute abestutena; txistu alboka, eta gitarra jo baizik. Eta esan bear dot, abeslari bezela abots ederra daukela, bertsoz jositako doñuagaz, baiña an geundeneri argi edestu euskun, iz gutxitan, bere iritxi eta jokabidea, Gabriel Aresti olerkariak idatzitako abestiagaz.

Antzokiko sarreran gazte batzuek abesti ingiak banandu zituen nai zutenak irakurtzeko. Uste dot gazte aiek ez ziralako konturatu orrian elburuatzaz. Nik beintzat, beriala irakurri neban eta konturatu nintzan zertzuk entzun bear genduzan. Ni bezela, beste entzule batzuek eta zur ikusi nebazan; lo egiteko sasoi amaitu da-ta.

Ez noa idazlan au geiegi luzatzen, abesti oietan irakurriko dezute ba, beste guziaz:

I

«Zuei, Barzelonako euskaldun Unibersidade mutilok. Zuen arteatik batek baldin eta esplotatzen badu hemendik eta hamar edo hiru urtera beraren anaia, obrero edo kontadore, hori, zuen arteko hori, neure maldizorik borobillenaekin hornituko dudala sipula sipulorun mundu honetako puta semerik semeena bezela.

It

Zergaitik zara zu mitozale, baldresa aldrebesa? Mitoa beti da ametsaren ametsa, ezereza. Zalbidegoitia Kepa, zara zu, eta euskalduna antza. Baina zuk ez dakizu euskaldun hizkuntza eta ez daukazu euskaldun bihotza, zu zara mito hutsa, apeliidu mito hotsa. Euskara garbi ta ederra nahi duzu, Euskara hutsa: Bakalduna ta txadona, donoki ta arkatza, garbi garbi! beti garbi! nahiz aditu ez hitza. Garbikeri mito motza, hizkuntzaren heriotza. Nor gara gu? zer gara gu? dena da handi putza! Zarata asko, egintza gutxi ametsa ta ametsa. Eta gure etxearen barruan dago sista, ezereztu ezin arin mitoen kabi beltza, izango gara gu satsa. Ta, irakurle, bakoitzak bere iritzia!

RENTERIA'TAR JOSEBA ANDONI

Arratia

Egun euritsua, egun aundia, gogoan izatekoa Jorraitlan'ren 14'grna.

BARRIAK

Galdakano

OIN-BIDE BEARRA

Izenburu onekin orain aldi andirik ez dala, Bilbo'ko Erri Irrati'ko euskal saioan esan neban zerbait, baiña, barriz be geyago idaztera gatoz ea jakin bear dabenak, noz edo noz, aintzakotzat artutzen daben.

Olabarri'ko auzunea, galdakanotar guztijok dakigun bezela, Bilbo'tik Donosti ta Gazteiz'erako bitxabalcan, gure Udal-etxetik anei ta bosteun neurkiñera aurkitzen da, eta bitxabal ona ta zabala ba'du be, Abusu'tik Olabarri'ra ta ortik Urgoiti'ra (El Gallo), ez dauke bitxabal-ertzeke oin-biderik. Eta jakina, bitxabal ortatik egunero ta ordu guztietan dabilan berebiltzatik arriskurik ikaragarriena dator bertatik oiñez igaro bear dabentzat. Eta asko diranez, derrigor orretara ibilli bearra dabenak, batez bere erri-barruko, Bekea edo Urgoiti'ko ikastoletara joan bear daben ikastola-umeak, eta ume orreik bakarrik ez bidaldutearren, euron gurasoak, umetxu orreitaroren bat ezbeartu ez daiten, zenbat arrisku igaro bear daben egunero, ume ta guraso orreik! Ez gitxi.

Esan doguzan arrisku orreik dirala bide, sarritan utsituzan dira, auzune lantsu ta polit ortoko bizilekuak; batez bere umeak dabezan gurasoak erri-barrure edo beste alderdi egoikiagotara alde egiten dabelako.

Guk, jakina, ez dakigu nor dan oin-bide ori egiteko arduraduna: Erri-Egintza (Obras Públicas) ala Udal-etxea, edo biak batera, baiña ziur dakiguna au da: inon bear ba'da bitxabal-ertzeke oin-biderik, Olabarri'tik Abusu'ra eta Olabarri'tik Urgoiti'ra bear da. Ta ainbat lasterren izan be!

SENDATUTA?

Ainbat illabete gaixorik egon ondoren, barriz gurartean dogu Agirre-malloa'tar Xabier apaiz euskaltzale jatorra. Eta geurartean esan dogu, bere senideekin Gernika aldean eta Bilbo'n egon bear izan dau-ta. Poztuzten gara benetan, Xabier adizkide zintzoa, barriz gure txadon nagusian eta bere inguruan ikusteaz, bearbada guztiz sendatu ez ba'zara be, naita orretara nai izan zure adizkide guztiok, badozu bertoko euskal-arloan, zeregiñik asko. Gora biyotza Xabier!

Baita aspalditxuan daukoguz oso makal samar Bilbo'ko osatetxe nagusian, Laka-tar Loren eta Uriarte'tar Joseba euskaltzale zintzoak, eta beraz, AGUR onen irakurleak. Ea laster baten guztiz sendatuta barriz gurartean ikusten zaituguzan adizkide ta aberkide jatorrok.

ERİYOTZAK

Asko izan dira azken aldiotan be, Jaunak bere aldamenera eroan dituzanak, Galdakao zabal onan asko gara bizi garenak izan be-ta. Ara emen eurotariko batzuk: Jorraitlan'ren 3'garren astean oraindik gaztea zan Euba'tar Eusebe andera liriaña, Barrenetxea'tar Pidel' en emaztea il zan.

Baita il orren 21'ganean. Diego eta Arenaza'tar Mikele, Pereda'tar Patxi'ren ezkonama edo amaginarra, irurogei ta amalau urtedun zala il zan. Goyan Begoz emakume zintzo orreik, eta lagun gaitube atsekabeen euren sendikide guztiak.

LANDAJUELA'TAR A.

BASA-JAUN

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra
BILBAO - Casco Viejo
Tenderia, 15 eta 16

MENDATA'N

Toki bakoitzak bertako zerbait eukiten dau. Esakeretan, izatean, artean, oituretan, egiteetan, emaitzetan, artu-emonetan.

«Mendata'n atso guztiak saldadan», esaten da. Baiña beste zerbait ziurrago be ba dauke bertan: indiabarik, indarrak.

Emendik gabiltzala etxerako zerbait eroatea pentsatu dogu. Tabernan, baserrietan billatu geinkela. Baserri batzuetan ots egin, eta batian bat, bestean beste, ezetzean len letxe.

Albiz inguruan gizon alai batek urten dausku. Etorri onekoa bera.

- Indiabarik?
- Iru urte oneitan ezin dogu artu.
- Ze gertatzen da ba?
- Ez jakin. Lurrak geixoen bat sartuta dauka.
- Nun dagoz ba Mendata'ko indiaba famatuak?
- Nun? Astelenetan Gernika'n.
- Artzen dira ala ez?
- Batzutan bai, bestetan ez.
- Gizon, euririk egiten dau emen?
- Aizeak be ba daki ederto josten.

* * *

Albiz'ko eleizea txikia da.

Alkar artean lez entzun dogu meza, zapatu illuntzeko zazpiretan. Ogetamar lagun inguru mezakide. Atze aldean danok. Ume, neska, gizon. Korroan lez. Danetara be zenbat lagun gaur Albiz'en? 140? Biar da igandea ta etorriko da jentea.

Abadeak iru-lau aldiz bana-banaka lez begiratu dausku. Eztakit lista pasatzeko oiturarik daben.

Taloparea lako bandeja biribil bat dauke emaitzak, limosnak, batzeko. Egurrezkoa. Kirten luze ta guzti. Eukiko dau seguru asko bere istoria. Bizkai'ko Kofradietatik zarrenek-takoa da Albiz'ko au, difuenez. Erdian bete-beteko kurutza daukanez, lau alderdi dirua batzeko. Paparentzako azalegi.

Lengo denporetan inguru oneitatik astoak bete-bete eginda aldratan joaten ekien emengo andrak ortuari eta frutu saltzen Zornotza, Galdakano edo Bilbo'ra. Gau illunean urtenda, edo goizaldeko argia eskutuan egoala.

Bost lekutarako bide kurutzean gagoz. Etxe bat: taberna, denda, etxeko despentsa, dana leku baten. Kaixa zar bat be tartean dago, urdiaik gordeteko. Egalean eskaratza. Gaztai pilloa agetan, ketan. Beko sua. Adar lodi ta ozpalak sutan. Euren artean, erreteko arriskuan, berotasun premiñan, antxuma baltz bat. Egunetakua. Lenengoa eta bere amak asarre artua izan da auma koitadu au, diñosku artzaiñak. Antxumeak be ze pentsatu emoten dabe mundu negargarri onetan.

—Basili, zenbat urte?

—Joanei gatza emon. Zegaitik itaundu ez zenbat geiago bizi nai dodan?

Oraindik gordin dago. Narruzko abarka ta artillazko galtzerdi zuriak, jaso. Berbetako zorrotz, txorixuak erreten bixkor.

—Sarri joaten al ziñan astoagaz emendik Bilbo aldera?

—Durango'ra bai. Ni tronperitiek ez nitzan igaro.

—Diru asko ekarten al zendun?

—Dirua? Plazan artzen genduna dendentan truka. Ori izaten zan gure zeregiña. Etxean ugari genduna eroan eta bear genduna ekarri.

—Tratu onak?

—Erregateren fama emoten euskuen. Baiña guk, beti be, batera edo bestera tratua egin. Guri, orde, ez euskuen lagaten tratutik egiten. «Precio fijo» sartu ta kittu.

—Zenbat urte ori zala?

—Kontuan euki 82 urte eginda nagola ta neskatil joaten nitzala.

* * *

Nunbaiten irakurria daukat Maume'ko baserriar aberatsen barri. Ointxe baiño



Gaur lenengoz, «estrefako» ikusi dot monja bat limosna emoten. Konzilio ondoren eskutuko poltsa eukiten asi ete dira eurok? Bertakoen bat seguritik, bakarrik egon da-ta.

Dana dala, ni be egon naz abadearen «neure entzule kristiñau maiteok»en artean. Sermoi bigun, samurra. Ainbeste bidar berresaten daben «neure, entzule, kristiñau, maiteok», lau berbok, zer pentsatu emoten dabe izatez, esatez eta bizitez zelan gabiltzan be ez dakigun giro onetan. Euskera gozoa erabilten dakie lekeitiar abadeak sermoietan. Nungo zurkulotan lotan edo jolasean egon zeinkezanei esnatu eragin edo lotsa sartzeko egin ete eben albizar zarrak ia tellatua joteria cltzen dan ainbeste eskillaradun pulpito birihilla?

Guazen aurrera, onela jarraitzekotan «Cuadernos para el diálogo»n barriro be idatziko dabe «Agur» konzilio aurretikoa dala, «conceptos reconciliares en lo católico». (Suplemento 44-1974). Ni beintzat barri baten eskale naz.

Laga daigun Madalena bere eleizan, baketan. Lagun baketsuak daukaz alboan: illak, eleiz inguruko ibilleraren orma josten dagon il-erri loratsuan.

Kezka batek bai lotu nau: kantu bat bakarrik ez meza bitartean. Ez al dakie mendi goi oneitan espiriturik nasaitzen? Emengoak ba ekien ba len:

Birgiñaren gaba da gaur da esaugun bere kantea, nik kantauko dot kantea, baia gogoz erantzun jentea.

* * *

Oiz aldera jo pixkat. Igarri barik Urrutxua'n sartu gara, Mendata'ko lurretatik urtenda. Ibarruri da au.

urrerago noiz? Goazen. Ezaupideak ez dakar kalterik.

Bertara joan gara. Ezer ikustekotan beintzat, barriro ez. Piñadiak dana iruntsita dauke emen. Etxeak, eleiza, dana, utz igarten dira emen. Maume'n, Magunas'en izen berbera be bai. Osta-osta, bidea gelditzen da. Emen eta Oxinbaltza'n eun lagunik ez dira biziko gaur, piñu eta arriolak, kanterak zenbatu ezik.

Goazen barriro Mendata'ra.

* * *

Zenbat urte ezkerrean ikusten dogun Albiz'ko torreak?

Jesukristo baiño 62 urte aurretikoa ba'da, diñoenez, atara kontuak. Emen ingurutako amaika barri jakingo eben eta ixillean gorde bertako basterrak. Or dagoz bere orma zarrak, metro bete lodiz, alde bakoitzera amairu metro zabalez. Beste etxe asko zabaldu zituen bertakoak Bizkaia'n, Arteaga, Busturi, Ibarangelu, Murueta eta Ondarroa'n, naita gaur euren azterrenik gelditu ez. Ondarroa'n beintzat ba dira ia bost gizaldi abizen ori agertzen ez dala, eta liburuetan irakurten danez emen euki eben etxe jator bat.

An, berago, Montalban'go torrea ikusten da, Arratzu'ko lurretan. Oraintsugokoa da bera. 783 urtean jasoa.

Gaur torre zarrak izenetan gelditu dira. Euretako oiñordekuak, izenari eutsita, be, naiago dabe etxe barrietan bizi.

1474 urtean Ingalterra'ko Eduardo IV'k Bizkai'ko sal-erosleie angoez tratutak egiteko baimena emon ebanean, ori eskatzen joan ziranen artean Albiz izeneko Fortun bat agertzen da, emengo iru ordezkarietako bat. Besteak Martin Zumelzu, bilbotarra, eta

KATALANERAZ ETA EUSKERAZ

Aurten beteko dira 500 urte «LES TROBES» liburu argitaratu zanetik Valencia'ko urian, 1474 urtean ain zuzen.

Liburu ori da gaiñera, España guztian lendabizi imprimaturik agertzen zaiguna. Barcelona eta Valencia'ren artean eztabaida sortu izan da irarkola sistema berri ori aurrenik nun jarria ote zuten. Baiñan gaur ez du iñork ukatzen Valencia'k duala ogeitamaika eskutik. Nola nai, katalan guztien poztasunerako, Aragoi-koroiairen pean kokatu zan Alemania'n Gutenberg'ek sumatutako lantegia.

Eta, jakiña, tresna berria Alemania'tik igesi egindako zenbait langillek ekarri zuten Valencia'ko urira. Beraz, «LES TROBES» deritzan liburu edo gutuna «incunable» diralako oietakoa dugu, «princeps», extraiñ-extraiñekoa.

Lentxeago, bai Barcelona, bai Zaragoza, Segovia ta beste nunbait, liburuak xume ta paper-orriak argitaratu zituzten, baiñan esateko liburu osorik ez. Valencia'n 1474'an irarritako «Les Trobes» izan zan lendabizikoa. Turia'ko uri nagusia Erreñu guztian ospetsu ta aundiena zan, itsas-ertzean, Italia'ko lurraldeen aurrez aurre zabaldua. Onizien joan etorri ta sal-erosketako zer naitarako egokia. Ondasun eta bizi lagunez ez ezik, Barcelona baiño geiago zana. España guztian ere ez zuan kiderik. Orobat kultura gauzetan. Olerti ta itzneuritu ta gaiñerako jakintzetan gizonik ugari zeuzkana.

Espiritu-burruketan erne zeuden beti ta orregaitik, 1474'gn urtean eratu zuten nor geiago batzaldira, beren buruen asmamenak bidaltzen ez ziran atzean gelditu. Berrogeiren bat olerkariren izenak ezagutzen ditugu. Guztien artean 45 olerki lan azaldu zituzten: 40 katalanez, 4 gaztelez eta bat italiaraz. Ba zan nun aukera! Eta sail ura bilduaz sortu zan «Les trobes de la Verge Maria» deritzan liburu.

Ontan Katalunia'k Kastilla'ri aurrera artu zion. Geroztik Jaume Vila imprimaizailleanen etxe berean, gaztelarazko beste zenbait lan argitaratu ziran, baiñan «Trobes» aurren; «princeps». Eta gaur gordetzen dan ale bakarra, Valencia'ko Unibersidadeko liburutegian dago. Arizko paper lodi samarrean irarria ta larrutxiko azalez estalia: «urrezkoa bai'litza! Arrezkero ber-argitaraturik izana da lau edo bost aldiz, eta 500'gn urteurren ontan berriz ere, azal eta mamiz, ondo azterturik izango da.

* * *

Guk, euskaldunok «Les Trobes» ori, Detxepare'k 1545 urtean, beraz, 71 urte geroxeago argitaratu zuan «Lingua Vasconum Primitiae» liburuarekin aldeatu dezakegu. Benapar idazleak deadar egiñez atera zuana:

«Heuskara jalgi adi plazara!»

Bi liburuok ba dute zerbait antzeko: «TROBES» dalakoa, Ama Bitjiñaren omenezkoa neurtitzez ondurik dagoala:

«Mare de Deu, en lo cel noua dea los angels bons corren a vostra fama».

Gure Detxepare, berriz, Andre dena Mariaren oorez onela da mintzo:

«Andere honek duen lekura

altxa itzak begiak

Mundu oro eztakidik

hura bezain balia».

Jainkoko'ren Amari jaiera aundia zion eta aren bitartez emakumezko guztiak goretsi nai ditu. Liburu bietan beste zer edo zer berdintsu arki genezake: izki itxuraz erromaniko tankerakoak ditugula biok.

Urteurren ontan gogoratu bear dugu gaiñera, katalanera azko literatura oharoan «Les Trobes» dala lenengoa. Kritikari batzuek gauzak naastu naiena, esango dizute bear bada: «Les Trobes» ez dala katalanera egiña, valenzieraz baizik... azken au katalan izkeltzia ez ba'litz bezela. Ez gaitezen utsegite ortan erori, nabar-euskera gurea danik ukatuko ba'genu antzo... Alderantzian, eta pozaren pozez 500'garren urte betetzea ospatu bear dugu eta are geiago katalan liburu ori lenengo argitaratua izan zalako España'n. (MCCCC L XXIII - Valencia). Zorionak!

Irurogeta amaika urte beranduxeago agertu zan Bordole'n, Francois Morpain etxean, Detxepare'ren «Vasconum Primitiae» gure literaturaren asikiña... Baiñan ez zan Euskal-Erria'n imprimatu... Geroztikoak ziran Iruña, Lizarra ta Bilbo'n jarritako irarkolak. Ez dugu «incunable» diralakoetatik, nik dakidala beintzat. Prantzia'ko Tolosa'n bai; ez Gipuzkoa'koan ordea...

Au idatzi ala gogora datorkit Iruña'n, Brocario'ren etxean, 1497'gn urtean, S. Buena-ventura'ren liburu bat atera zala, «incunabiletakoa» naski; askozaz beranduago 1578'gnean, Bilbo'n, Mathias Mares'en etxean agertu zan «Hieronymi... etc.» deritzana, Bizkaia'n lendabizikoa.

Berri jakingarria da, aurten San Buenaventura'ren eriotzaren 700'gn urteurren dala esatea. Eta pozgari adieraztea, D. Luis Egia euskal itzultzaile bikañak aren lanak (Speculum Virginis Mariae ta Meditatione) euskeraturik argitaratzeko asmoetan dabilela. Zorioneko gu, ala ba'ledi! Gai orietaz beste egun batean, J. l., luzarago ta zeatzago jarraituko dugu.

Jardun au bukatzeko, aipa bear dugu azkenik, «LES TROBES» lenengo liburu ortatik, goraxeago esan dugunez, ale bakarra gelditzen dala, eta ura Valencia'ko Unibersidadean. Gure «Lingua Vasconum Primitiae»tik beste ale edo ieki bakarra, «unicum» Paris'eko «Bibliothèque Nationale» dalakoa.

ANTONIO MARIA LABAYEN

Martin Urkizu, lekeitiarra izan ziran.

* * *

Gernika'ko batzarretan bederatzigarren jarlekua eukan Mendata'ko eleixateak.

Milla lagunetik gora eukiten zitun. Oraindik eun urte milla ta eun. Gaur 500 inguru.

Erriaren erdian, eleiza eta taberna aurrez-aurre. Eleiza ederra. Mikel zoriondunaren omenez jasoa. Zar entzutea dauka. Amar gizaldi bete. Lengo zarra bost gizaldira eldu zanean, oraingo lez barritzuta eta zabaldua gelditu zan.

Torre zabal jatorra. Eleiz inguruko ibiltokia be bai, euskal eleiza zarren tankeran. Toki eder eta aizetsuak ikusteko leku berezia.

Bere sasoiaren eleiz onek entzute andia euki ebantik ezin ukatu. 1641 urtean eleiz gizonak eta erriak konponketa bat egin eben alkar laguntza eta berbitsurako. Sasoi aretan Mendata'ko parrokiaren errotan ebenak, bertako eleiz gizonak, Moya lizeniduna, Olaeta batxillera, Sagargasta'ko Mateo abadea, Urkia'ko Matias eta Arribalzaga'ko Simon agertzen dira. Naiz eta gero, eleiz barriak jasotean, parroki onetatik euretara aldatu, edo ta zaartuta jaustean barriro jaso ez, lengo denporetan parroki onen mendeko sartzen ziran Lemandaro'ko San Joan eta San Martin ermitak, Zarra'ko San Kristobal, Urkiza'ko

San Pedro, Enbeita'ko Santa Mañe, Elosu'ko San Lorentzo, Argana'ko San Anton eta Besantza'ko San Joan.

Parroki au aberatsa izan ba'zan be, bere errenta onak eukazalako, ez Albiz'koa. Sasoiok liburuetan irakurten da eleiza pobrea zala eta bertan batzen zana bertako abadearen premiñetarako bear zala.

Goazen tabernara. Izen dotorea: Menpe. Eztakit izenaren filosofia zein alderditik artu. Bertakoak ete diran inoren menpe, ala bertan sartzen dana geratzen ete dan espiritu barrien menpe. Bietara gertatu lei.

Mendata'ren bizia bertako etxe nautsi lotuta billatzen da. Arestieta, Lamikiz, Olaeta, Olabezararrusti, Zugaza eta abar.

Jauntxuen denporetan ofiaztarren aldera geiago josten ba'eban be, ez zan beti alderdi orretan itsu ibilli.

Burdiñola bi, ferri bi ezagutu ziran bertan. Bederatzi errota be bai.

Gaur Mendata Gernika'ra begira bizi da. Bere auzo bat, Marmiz, Gernika josten dago. Erri txikiak bizi-modu erosua nai dabe. Mendiak laga eta zelaietara jo. Gaitz da giroko jokrak bastertzea.

Guk aize ederra artu dogu. Eta emen sortzen dan Mundaka'ra doan errekontoa lagata, ba goaz gure bidetan beste ikustaldi bat egiteko garrez.

A. ZUBIKARAI

Lusitaniarrak

Azken-egun oneitako barri nagusia au izan dogu: Portugal'en gudarozteak matxinadea egin dala. Barri onek, lenengo ta bein, alderdi on bat dauka: luzaroko guda bildurgarri bat izan barik, ordu gitxian amaitu dala. Eta orregaz batera etorri dan beste au: eriotza edo odol-ixurte gitxi izan dala.

Olako aldakuntzak bildurgarriak izaten dira, baiña aldakuntza au egin bearrekoa ba'zan, ain baketsu egiña izatea, poztutekoa da.

Ez dogu emen aztertze sakonik egingo. Ba ditu AGUR onek aztertzaile trebeak eta euren esku izten dogu lan ori. Baiña agiri-agirian diran jazoerak eta orrik sortzen diran pentzakerak batzuk agertzea, ez da kaltegarria izango.

Gaur arte datozkuzan barriak, geienak pozgarriak dira: erbestekoak etxeratu; giltzapetuak askatu; galtzaileak zigortu ez... Ez dira olako barriak sarritan entzuten gaur-egun egiten diran matxinadetan.

Zalantza barik, izango dira jazoera mingorak be, ta bakean aurrera egiterik gura ez dabenak. Baiña olako barri asko ez da eldu gure belarrietara oraingoz. Gudarozteak matxinada au ondo gertatu izan dauala egin ukatu izango dogu. Portugal'dar gudariak, burukoak batez be, trebetasuna agertu dabe onetan.

* * *

Eta geroari begira, zer? Onetan be itxaropentsu dago gizartea. Koloni-ara-za sakon aztertuko ei da eta bear dauan lako urtenbidea izango ei dau. Ez da erreza izango. Ba dauko Portugal'ek kolonien bearkizuna, bere lurak, geienak, ez dira emonkorak eta. Baiña koloniak be, euren buruen jabetasunerako eskubidea dauke.

Zelan alkartu alderdi bi oneik? Kolonien eskubidea onartu bearko da, eta Portugal'en beste irabazbide batzuk sortu, batez be industriari indarra emonaz. Orretarako epea bear: gizonak gertatu, dirua billatu, lantegiak eta saltokiak edegi...

Baiña kolonikeri lotsagarriak bere azken arnasea emon bearko dau, gaurko gizadiak olakorik ez dau onartuko ta.

* * *

Laterriari begira, agintari barriak demokrazirantza joko ei dabe. Gudalariak demokrazia aitatzea, txerrenak eleizan itzaldia egitearen antza ei dauka. Baiña itxaron dagigun. Geroak ekarriko dau argia!

Giza-eskubideak aintzat artuko ei dira. Agintze au ekintza izatera ba'da-tor, ez da gitxi. Gaurko munduan giza-eskubideak asko aitatzen dira, baiña gitxi bete.

Irabazbideak sortu ta indartuko ei dira. Bearko da ori be. Azaletik baiño ez ba'da be, ikusi dogu Portugal, eta beste ikusle batzuk be onetan geugaz dagoz: Txirotasun larria ugari agiri da an. Eta Europa'rantza joan garanean, mugetan, Portugal'darrak sarri ta asko ikusi doguz egoera ondo mingarrian. Bidasoa ibai zinezlari.

Ori ta guzti be, Portugal'darrak arroak doguz, aundikerizaleak. Lisboa'ra sarreran aurkitzen dogun zubia, Tajo ibaiaren gainean, ez da txantxetako, alako injenieru lanak laterri aberatsetan egin izan dira. Euren esakunetan be, arrokeria ugari agertzen dabe.

Zori on bat opa dautsagu Portugal'eri. Aldakuntza guzti oneik, onerako izan beitez.



Lan ohea alkartuta.

INDAR BARRI BAT

BER-ALKARTZE Urtea, Urte Santua aurrera doa, ta geroago ta bananduago gogozala dirudi, bai uskurtz gaietan, bai sozial-gizarte arloan, bai izkuntza gaietan, baita beste arazo askotan bere. Zergaitik ete?

Jakintsu batek iñoanez, gizon bakoitzak bere akatz, txarkeri ta griña txarrak, norberaren umetxoak ba'lira bezela biotz barruan laztandu ta kutunkiro maitatuten ei ditu.

Iñork ere ez dau nai bere burua pekarari lez agertzerik. Bere biotz barruan, gizonak, batez bere geien maitatu ta gordeten dabena, griña txar bat da: Norberekeriagandiko Arro-keria. Orregaitik, berarentzat, mingarria ta gatxa da Ber-Alkartze au. Norberekeri ori azpiratu bearrak emoten dauzan larritasuna ta txistu mingarria irunsiteko, Indar-Barri bat bear.

Sinistredun gizonarentzat, Indar-barri ori Barri-Onean dago. Kristo'ren erakutsiakaz eta Bere eskarragaz griña biurri guztiak azpiratzeko albide eraginkorra izango dogu gizonok. Kristo dogu eredu bere samintasuna ta bakardadea gainduten; eredu baita, gizaldi guztietako deunak ere; ta guk be bardin, kristu bezela, mundu guztiarentzat eredu izan bear dogu, aurretik ibilliaz.

Ber-Alkartzea dala, adiskidetzeta dala, etb., etb., aspaldion it geiegi darabilgula uste dot. Eta, egin, zer? Bakoitza bereari loturik aurkituten gara. Ez amor emon iñori, ez ezerr...

Au irakurtzean, bateren batek, ostera be esango dau: «Orrek diñoanak sermoi kutsu iguingarria dauka». Ba-leiteke, baiña sermoi kutsua daben itzaldiak eta idazkiak beste-lako itzaldi ta idazkiak aiñako garrantzitsuak ez ete dira, bai izkuntza aldetik, baita burutapen jatorren aldetik ere?

Ala kristauok bakarrik ez ete dogu eskubiderik mundugintza onetan gure iritxiak emoteko?

Sinistgabeak, indar bat ei-dabe, «eurena»: Gizadia osotu, atondu ta zuzentasuna, askatasuna ta bardintasuna lortu bizitza onetarako. Baiña kristauok eta sinistredunok, Indar bikoitza dogu: gauza orreik danok lurreko bizitzarako ta betiko bizitzarako lortutea.

BER-ALKARTZEKO indar barri bikoitz ori, or dozue guztiok. Itz gutxiago ta Kristau Indar barri orregaz saio bat egin gaurtik asita; ta gero jardungo dogu.

EUZKO ALA EUSKO

Aldi baten «z» ta «s»ri buruz euskeltza-len artean sortu ziran eztabaidak ezagunak dira. «R. I. E. V.»en agertzen diran Arana, Azkue, Campion eta beste batzuen iritziak irakurri izan ditut eta, egia esan, ez jataz gauzak larregi argitu. Dakidanez, Orixe'k berak, «Euzko-Gogoan» uste dot, Arana'k aiñako azterketa sakonik ez ei eban iñork egin iñoan... eta gauzak orretan jarraitzen dabe.

Dana dala, «z» erabili eban Arana'k eri osoari izena emoteko; ta «z», berak sortu eban alderdiarentzat, au da, jeltzale alderdiarentzat. Etimologi aldetik, zuzen ala oker, olantxe zabaldu dira ludi guztian eta izen orren esan-nai ta elburuak zaintzearen, gaztedi ederrenaren odola ixuri zan gure lurraldeetan.

Baiña, mutillak! Ekaitza sortu dauskue arrezkero. Gorrotoa dariela, Arana'ren mardarikatzaileeri jarraituz, arek emondako iritzi, ikur eta asmo guztiak apurtu bear dirala esanaz. «Z»ren ordez «s»; gurutza bikodun ikurriñaren ordez, igitai ta mailloduna, edo biak nastean...

Lenengoetan, aizea nundik etorran jakinik, ez geuntzen jaramon larregirik egin, baiña oraingo au ez da bardia. Gazte askori entzun izan dautsegu: «Zertan gabilta? Kanpoko ta barruko etsaiekin burrukan, gure lagunak errizaletasun au gordetzen... ez dogu ba ikusi «s» eta «h» zabalzaileen oiñak zapaltzen dabezan baratzetan, iru margodun lorak gorri uts biurtzen dirala? Erri-zaletasuna txikitat eta «desfasatuzat» salatzen dala? Zelan arraio da len «z»gaz, Epailla, Jorrailla, illen izenekin eta «h» bako euskera ekarren alderdiaren aldizkari ta orriak, orain «s»ak, «Martxoak», «Apirilak» eta «h»ez jositako lanak ekartzea?»

Ona emen, argi ta garbi, nere iritzia, naizta alde batetik edo bestetik sordaba gain-ñean egurra jaso! Alderdi onen oiñarriek sendoena, demokrata izatea da; demokrata izateak bazkide geientzuen iritziak aintzako-koz artu bear dirala agintzen du, gitxiagorenak errezpetatuz. Baiña ixilleko lanean diarduan alderdi baten, ez dago, ez, sarri askotan, ez argirik ez garbitasunik.

Olako giroan, naikoa da sator bat edo beste artean sartzea... ta zuloa aurkitu ez-kero, irarkolara zuzen jotea. Demokrata izatea zer dan ez dakian satorra ba'da... laister jaurtiko ditu bere adur iguingarrien tankadak aldizkari ta orri guztiak loituz, bazkideen iritzier jaramonik egin barik. Olakoak, barruko «komplejodunen» laguntzak eta kanpoko etsaien oorezko aipamenak eta izendatzeak jasoko ditue.

Atxakia, zein? «Z»ak, «s»ak, «h»ak, illen izenak eta abar, gaurko arazoan artean, garrantzi bakoak dirala esan. Ba, garrantzi bakoak ba'dira, zertan ez len bezela itxi? Zergaitik «aldaketa» alperrikoan astia gal-tzen ibilli? Ala, «garrantzi bako» gauza oien esan-naia aldatzea ez ete-da zerbait sako-nagoaren izpitxo?

Bitartean burrukan zintzoen egin ebenak, nora-zean. Bazkideak zateara egin arren, erriak izendatu bako orretarikoa, jauntxo-keriz barrura sartuak, jauntxo-keriz jokaten. Jeltzale izaten latsaten diranak, ez dabe oindio demokrata izaten ikasi, etsaieri sal-duta ez dagozanean, beintzat.


Zer egin? Olako orriekin datozeneri auxe esan: «Zuek aiñako bazkide gara, baiña gu, odola emon ebenekin gagoz. Zuek ez zaree iñor sortzaileak eta bere jarraitzaile zint-zoenak eskeini euskuzean oiñarriak, ez bar-rrutik ez itxuraz, aldatzeko. Zoaze orri zi-kindu oiekin, gure lepotik barrezka dagozan etsaiengana, ea eurak diru laguntzarik emoten dautsuen. Ala bai?»

Eta, zateara egin; satorrak zulotik atara. Orrela jokatu ezker, bear ba'da, erriagan-dik agindua artu eben buruzagi apurrak, konturatuko dira, erriari bizkarra emoteko eskubiderik ez dagola gogoratuaz.

Bitartean, erriarrak, olako zerbait abes-tu geinke:

«Gure didarra ez entzuteko,
Num zara aita Sabiño...
Zu il da gero, etsai gogorak,
Bizi dirala oindio!»

Eta ez gitxi... Satorrak kanpora!



Zer da euskera?

Idazlan bat ausnartuz

Eskuetara etorri-berria degun «Aranzazu» aldizkarian, elizgizon ezagun baten «Zer da Eliza?» gaietz osotutako idazki sakon eta iraulgarria irakurri ta gero... gure Eliz-Ama'ri bear dan itzala gordez... eta gure Euskera'ri begirapen aundiarena aitortuz... an, «Aranzazu»n *Eliza* ageri danean, guk *Euskera* erabilliz, ona emen barne-eragingarri litezken zenbait gogakizun, sortu zaizkigun bezelaxe:

«Euskera osatzen duten zernai gai munduan bizi diran euskaldunak sortuak dira. Ori ala dalarik, munduan gailen eta nabarmenen agiri diran gogai, joera ta tankerak, Erria'n muturra sartu nai izatea, ez da batere arritzekoa...»

«Bidegurutzean bezela arkitzen da gaur *Euskera!* Aldaketa batzuek egin bear dituela konturatu da. Orregatixe, noski, *Euskera*'ren egikeraz, mamiz eta zernolakoaz jabetzea bear-bearrezkoa degu bereziki. Bestela, *Euskera*'ren jabetza bereziak jabetzen ez ba'gera, berari ez dagozkion asmo, amets eta jugabeko txorakeriak erantsi naiko dizkiogu. Gaur maiz gertatzen dan makurra!...»

«Gaur, adibidez, lelo au entzuten da maiz sako... Guk geok osatzen degu Erria ta *Euskera*. *Euskera* gurea da. Beraz gogoak ematen digun bezela antolatatu bear degu *Euskera*».

«Gauzak, ordea, ez izaki orrela. Geuk ere osatzen degu bai *Euskera*... Baiña, ez guk bakarrik... eta zati nagusienez ere ez. *Euskera*'k ba-ditu beste norbaitzu gutaz landara... Beraz, burubide ori okerra dute geintzuen!»

* * *

«Beste lelo bat oraindik! Aldiaren aztarrenak —denboraren señaleark— artu bear dira gidari. Baiña ori ere, zernola artzen dan, izan diteke egi... eta bai ere gezur biribilla. *Euskera*'k berekin du bere barne-muiña ta auxe du bere oiñari-lege bakarra. Neurri ortaz neurri bear dira *Euskera*'k dituan zer-nai guziak. Aldi-aztarrenak, ein ortan neurtu-bearrekoak dira. Eta neurri ortara ez ba'datoz, ezertako ez dira».

«Zer nolako izakia da bada *Euskera*? Amaika aldiz entzun degu gizon gurenek erasia: **EUSKERA ERRIA'REN SOIN-GOGOA DA**. Erria da bere buru. Eta buru ortatik eldu zaio guzia *Euskera*'ri. Beraz, Erria alde batera utziz *Euskera* ez da ezer; ez da izaki oso ta erabatekoa; ez du buru-jabetasunik; ez du zutik irauten...»

* * *

«Euskelzaleak *Euskera*'ri erantsiak izan gera. Neurri batean, *Euskera* biurtu gera. Aren gogaide, anai ta gun banatzaille bear degu izan».

«Oldospide nagusi auen istaz eta erraiñuz bear dira *Euskera*'ren gauzak. Erria ta erri-gogoa bizi dira *Euskera*'ren ta *Euskera*'gan. Baiña Erri-gogo ori, zein maillatan arkitzen dan erritar bakoitzean, ortxe auzia... ortxe zuribeerra. *Euskera* buruzko gure asmoak eta oldozkizunak Erri-gogo orrengandik ala beste nunbaitetik artuak ote ditugu? Ez ote da guban, Erri-gogoa ez baiña Erri-gogo orren etsaia bizi?...»

«Gure aburu-nagusiak kaskartu ala... gero eta egokiera-gabeagoak izango dira *Euskera*'ri buruz sortu ditzakegun asmazioak...»

* * *

Iñork, or goien dijoana tinkoago aztertu nai ba'lu, ikus beza: «Aranzazu» n.º 517. Abril 1974. 2/3 orrialdeak.

ELOSEGI

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, *Euskera* bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri asmoen gaiñetik dabon iritxi-onoeko euskaldun guztiak *Euskeratza* dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen crantzule bakarrak euren egileak dira.

Agur au, bere zuzendaria ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren *Euskeraren* aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M.ª MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guturako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

Xabier Peña'ren Omenaldian

Aranzazu, 1974'ko

IV'ren 28'an

Jakituna nintzan. Aranzazu'n. Igan-dez. Eta ara joan nintzan.

Ba neukazan neure eragozpenak: Igan-deetan lana, joan-etorria luzea ta berebillaren erregaia karu, etxetik ur-teteak dakarskun nagikeria...

Baiña ziur nekian antxe *Euskalerria*'ren ikuspegi bat aurkituko nebala, ta nire antxiñako lagun Gabirel Manterola neugaz joiala, bertaratu nintzan: Barazar'go aldatza igon, Legutiano'n Aramaiona'ra bidea artu, ibar onetako inguru politikak ikusi, eta, gora ta bera, ara ta ona, Oñati'ko Inkastetxe zarraren ondutegi igon giñan Andra-Maria'ren santutegi zoragarri aretara.

Gure zeregiñak bete orduko, urte-teko berandu egin jakun, eta mezatarako ez giñan sasoz eldu.



Gerotxuago etorri ziran Zamalloa' tar abadeak, euren arreba Karmele, baita Erretolatza Kili-Kili'koa be.

* * *

Ordu bietatik laster bazkaria. 350 maikide. Balendin eta Nemesio Etxaniz bertsolari ta aurkezle. Akeita artzeko ordura ezker, ebekiak ugari. *Euskalerri*'ko abesti zarrak abesten ziran gogotsuen, baiña gaurkoak be entzun ziran: «Ume eder bat»... «Geurea da-ta...»

Egia esan, erdera asko entzuten zan, baiña abestiak eta txaloak agertzen eben euskereak agertu ezin eban euskal-gogoa. Antxe bai agiri zala gure Erriaren barru-min aundi bat: euskalzaleak izan, euskaldun —euskerradun— izan gura, eta ezin bear dan bestean euskerea norberagandu! Eta, beste alde batetik, euskerran egiten ziran uts aundiak ez euskuen min makala emoten! Ori ta guzti, an agertzen zan gogo ona, pozgarria zan. Irakasle ona Xabier, ikasleak gogotsu... baiña euskerea ondoen ikasi, amaren agotik.

Gure Erriaren larritasun onetan ez dogu gure itxaropena galdu bearko. Bizi gura dauan erririk ez da ilten.

* * *

Bazkal ostean, Xabier'entzat zan lauki eder bat, bere ikasleen izenak ostean zituala, ikusi gendun. Gomutaki polita.

Xabier'ek itzaldi labur bat egin euskun: euskera giotzi ta ederra, zalaran zuzena, biotz ona... agiri ziran bere berbetan. Eta gogoangarriak bere azkeneko berbak: «Euskaldun ona izateko, ez da naikoa «Geurea da-ta, geurea da» abestutea, euskerea ikasi bear da».

* * *

Egun ederra, *pez ta barrumiñez bete, igaro genduan ba.

Zorionak Xabier, eta eskerrak ogei ta bost urte oneitan egin dozun lanagaitik. Bat izaten da erillea eta beste bat uzta-batzaillea.

GAMIZ



GAZTE

Igorre'tik

Askotan esaten dogu, oporraldietan denpora geiago izango dogula gure bearrak betetzeko, baiña beste askotan jazoten iaku, nagitu egiten gareala ta dana alde batera itxirik ez gara ezeregar gogoratzen.

Niri beintzat olangoren bat jazo iata, baiña orain nire idazteko zeregiñagaz gogoraturik, emen jarri naiz zerbait idazten.

Ez da erreza, ez, gai batetzaz idaztea, ez dakit nondik eta ze alderditik asi. Baiña, uste dot, oporraldiari ta ospatu doguzan eguneri begirada bat emon bearko dautsedala:

ASTE SANTUA

Ezin dodaz alde batera itxi egun oneik. Aste Santua beti izan iat atsegin. Txikitan, an joaten giñan umeak, poz-pozik, bear ba'da, korbata barritxu bat ipiñirik eta amak, zapatak izpillua baiño garbiago garbiturik, an joaten giñan, burua artez, gu be zozertxo giñalakoan.

Denpora aundia igaro da ordutik ona. Orain ez noa korbatea erakustearren, edo oiñetako garbiak ipintzearen. Orain, beste sentidu bat aurkitzen dautsot Aste Santuari.

Orain, zapatak alde batera itxirik, pentsau egiten dot. Pentsau, bai, zergaitik dan jai au ta ze sentidu daukan. Gu, gazteok —gazteen artean be jartzen naz— gure biotz zintzo ta ona daukagun lez, pertsona idealisten eta elburu baten jarraitzaile on diranen atzean joaten gara. Ez dago zetan esan, Kristo be olango bat izan zala, baiña beste elburu bategaz. Nik itaunduko neuskie nire lagun gazteeri:

Zelan ikusten dogu Kristo edo zer esan nai dau Kristo'k? Kristo eleizea da, ala iraultzaile bat ete?

GAZTEAK ETA ASTE SANTUA

Txikia nintzanenetik ona, gauza asko aldatu dira, alderdi asko, ta alderdi oneitan erlijoa be sartzen da.

Len, egun oneitan, jente asko joaten zan; eleizan, jente gutzia ezin izaten zan sartu ta atek zabaltzen ziran, ta jentea eleiz-atadian egoten zan. Baiña orain ez, orain eleiza barrua naiko da; zozertxo jazo da. Gazte gitxi ikusi neban, asko mendira joan ziran. Orren kontra ez daukat ezer, bakoitza libre da pentzaten dauana egiteko. Baiña esaten dodan lez, orren kontra ez daukat ezer, orreri erantzun bat ez emotearen kontra baiño.

Gazteak esaten dogu zartu egun dala. Non gagoz gu ez gaztetuteko? Esaten dogu baita, lengo ideakaz dagola. Non gagoz gu idea barriak ez erakusteko? Eleizea, gauza askotan erresponsablea da, baiña... gu gazteok ez ete gara ezergaz erresponsable? Arazo bat daukagunean eskaldunok, askotan, «or konpon» esan eta dana alde batera itxiten dogu.

Beti entzun dot, eta orra noa, zezen bateri adarretatik eldu bear iakola, edo beste itz batzuek, arazo bat daukagunean, arpegia emon bear iakola ta ez iges egin.

EUSKALDUN GURASOERI

Euskaldun gurasoeri be, gaur, zozertxo esan bear dautsuet. Zintzoak zariela pentzan gura dot, baiña gauza batzuk dagoz ez dodazanak garbi ta gitxiago argi ikusten.

Gurasoak, zergaitik alegintzen zarie sarri, umetxo bat daukazuenean, izen zailena ta iñoi entzun bakoa billatzen berarentzat? Zergaitik agertzen dozue «or» zuen euskal zaletasuna? Zergaitik euskal ume askok, ortik, plazatik noanean, «Amatxu, dame la merienda» edo «Amatxu tengo hambre» esaten dautsue? Itz orreri nire belarrietan sartzea kosta egiten iake, baiña azkenez, sartu egiten dira... Gurasoak! Zergaitik? ZERGAITIK?

Dana esanda dagola uste dot. Beste gauza asko esan neikez, baiña gaur ixildu egingo naz.

BARRIAK LABUR

Euskal mutillak soldadutzara.—Orain denpora asko ez dala, euskal mutil batzuk euren soldadutzea betetzen joan dira, oneik izan dira: Olazarri'tar Andoni, Egizabal'tar Iñaki, Bilbao'tar Joseba ta Garzia'tar Mikel-Andoni. Lagunok, uste dot berbak alde batera itxi bear direala, baiña gauza bat esango dautsuet: Zuen euskal-nortasuna zaindu egizue!

Igorre'ko jaiak, nok antolatatu?—Uste dot igezko arduradunak ez leukeela egin bear, ez dauke ba igezko «jaiak» zer esan aundirik euren onerako, ta bai txarrerako. Gazteak sartu bear dabe. Gazteak, zozertxo konturatzen ba'dira beintzat.

Arratia Futbol alkarteari.—Nire zorion beroenak talde au Regional 1'go mailara igon dalako. Zuek beintzat, zeuen arloan, erantzun ona emon dogue.

Ta, barri oneik emonagaz, amaitzen dot. Beste bat arte!

IGORRE'KO IRRINTZI

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra

BILBAO - Casco Viejo

Tenderia, 15 eta 16

Gaztetxoan Txokoa

Urretxu ta Zumarraga'tik gaztetxoan lan oneik bialdu euskuezenean, pillo bat argitaldu al izan gendun, baiña beste asko emen daukaguz oraindik noiz sartuko. Jazoera bateko ipuñiak izan ez ba'lira, gamelua ta mutikoarenak, aspaldi agertuko genduzan danok, naita beste gai askori tokia ukatu. Banaka-banaka eta aldika, ongi datoz, eta ara gaur emen beste txortatxo bat. Idaz gaia bardiña izan ba'dabe be, bakoitzaren esarea ausnargarria da, ipuin batetik zer nolako iritxiak ateratzen di-tuen!...

BASAMORTUA IGAROTZEN

Bein batean, mutiko gaizto batek gamelu bat zuan. Egun batean mutikoa asper-tuta zegoen bere amaren esanak eta aitanak betetzen. Eta auxe pentsatu zuan. Inun-tzean bere gameluari ur asko eta janari asko ematea eta gero basamortu batera joatea.

Eta esandakoa egin zuan bainan eguna argitzen asi zanean prisaka joan zan eta beretzat janaria aztu zitzaion.

Basamortura iritzi baiño lenago andra batek ikusi zun eta zerbait esan baino le-nago mutikoak iges egin zuan eta korrika eta korrika ari zala basamortura iritxi zan. Zorroan ogi puska bat zuan lenagoko egunean utzita eta gosea zualako pixka bat jan zuan, ogi gutxi zuala, konturatu zanean esan zuan; gaur ez det geiago jango, biar-ko gordeko det. Bainan konturatu gabe ogi guzia jan zuan urrengo eguna iritzi zan eta gose aundia igaro zuan ogirik ez zualako. Ain gose aundia zuan basamortuko area eta aurkitzen zituan landareak jaten zituan.

Ikustean basamortuan bizirik ez zegoala gameluaren gainera igo eta berriro etxera joan zan. Iritxi zanean bere amatxok eta bere aitatxok eskuak zabalik muxu aundiak eman zizkiten, eta oso pozik gelditu zan gameluak egin zion mesedearekin.

MARIA JESUS MADINA (8 urte) Zumarraga

MOTIKOA TA GAMELUA

Bein batean mutiko jakintsu batek ere-mua ezagutzea nai zuan, eta aitatxori esan zion:

—Aita eremua ikusi nai det badakit lu-zea dala.

Eta aitatxok esan zion:

—Nola joango zera? Txikia zera.

Eta umeak:

—Bainan nik asko ikasina det.

Bainan aitak:

—Esan dizut ezetz.

Aunditu zanean eta gamelua erosi zuan:

—Aita ba-daukat gamelua. Lagatzen di-dazu eremu joaten?

—Ez ume oraindik ez.

Berriro urte bat igaro zanean esan zion aitari:

—Orain aundia naiz lagako al didazu joaten?

—Datorren urtean joango zera ume eta ez galdetu geiago.

Bainan urte ori mutil orrentzat oso lu-zea izan zan. Eta azkenean esan zion aitak:

—Joan zaitez mutil baiño etorri azkar.

—Aita ogei urte ditut, eta laister etorriko naiz. Ilabete egongo naiz.

—Ondo ibili, esan zion aitak, artu zuan gamelua eta joan zan dena gertatuta.

Bainan an aizea egiten zuan eta area zel-golako are guzia goraka igo zan eta mutilari sudurren sartzen zitzaion bainan gameluari

ez zitzaion sartzen sudur ondoan ileak zi-tualako.

Gelditu zanean galduta zegoala eta ne-garrez asi zan. Orduan Jaungoikoak entzun zion negarrez ari zala eta mutikoari eta ga-meluari bere bidea erakusi zien orduan mul-tilak eskerrak eman zion Jaungoikuari. Eta pentsatu zuan:

—Etxera joan bear gera.

Eta gameluak baietz esan zion. Eta etxera joaten, aste bat pasatu zuten, eta iritxi zi-ranean gauca eta dena ilun zegoan eta ez ze-kin nun zegoen bere etxea eta urrengo goize arte etxoin egin zuan. Eta zortzirak zirala ikustean gameluakin etxeko atearan aurrera joan zan, eta atea jo zuan bainan bere aitak lana egiteko neska bat artuta zuan denpo-raldi artan, eta ikusi zuanean esan zion:

—Nor zera zu?

—Ni emengo nagusiaren semea naiz.

—Eta onela jantzita?

—Bai eremura joan naiz.

Eta neskak esan zion:

—Sartu zaitez mutil, eta aitarengana era-man zuan.

Eta denpor bat egon zan begiratzen, eta azkenean muxu bat eman zion, eta orduan ikusi zuanean bereala ezagutu zuan, eta laz-tan aundi eman zion.

Andik aurrera guziok alkartuta bizi izan ziran.

—Nor zera zu?

—Ni emengo nagusiaren semea naiz.

—Eta onela jantzita?

—Bai eremura joan naiz.

Eta neskak esan zion:

—Sartu zaitez mutil, eta aitarengana era-man zuan.

Eta denpor bat egon zan begiratzen, eta azkenean muxu bat eman zion, eta orduan ikusi zuanean bereala ezagutu zuan, eta laz-tan aundi eman zion.

Andik aurrera guziok alkartuta bizi izan ziran.

—Nor zera zu?

—Ni emengo nagusiaren semea naiz.

—Eta onela jantzita?

—Bai eremura joan naiz.

Eta neskak esan zion:

—Sartu zaitez mutil, eta aitarengana era-man zuan.

Eta denpor bat egon zan begiratzen, eta azkenean muxu bat eman zion, eta orduan ikusi zuanean bereala ezagutu zuan, eta laz-tan aundi eman zion.

Andik aurrera guziok alkartuta bizi izan ziran.

—Nor zera zu?

—Ni emengo nagusiaren semea naiz.

—Eta onela jantzita?

—Bai eremura joan naiz.

Eta neskak esan zion:

—Sartu zaitez mutil, eta aitarengana era-man zuan.

Eta denpor bat egon zan begiratzen, eta azkenean muxu bat eman zion, eta orduan ikusi zuanean bereala ezagutu zuan, eta laz-tan aundi eman zion.

Andik aurrera guziok alkartuta bizi izan ziran.

—Nor zera zu?

—Ni emengo nagusiaren semea naiz.

—Eta onela jantzita?

—Bai eremura joan naiz.

Eta neskak esan zion:

—Sartu zaitez mutil, eta aitarengana era-man zuan.

Eta denpor bat egon zan begiratzen, eta azkenean muxu bat eman zion, eta orduan ikusi zuanean bereala ezagutu zuan, eta laz-tan aundi eman zion.

Andik aurrera guziok alkartuta bizi izan ziran.

—Nor zera zu?

—Ni emengo nagusiaren semea naiz.

—Eta onela jantzita?

—Bai eremura joan naiz.

Eta neskak esan zion:

—Sartu zaitez mutil, eta aitarengana era-man zuan.

Eta denpor bat egon zan begiratzen, eta azkenean muxu bat eman zion, eta orduan ikusi zuanean bereala ezagutu zuan, eta laz-tan aundi eman zion.

Andik aurrera guziok alkartuta bizi izan ziran.

—Nor zera zu?

—Ni emengo nagusiaren semea naiz.

—Eta onela jantzita?

—Bai eremura joan naiz.

Eta neskak esan zion:

—Sartu zaitez mutil, eta aitarengana era-man zuan.

Eta denpor bat egon zan begiratzen, eta azkenean muxu bat eman zion, eta orduan ikusi zuanean bereala ezagutu zuan, eta laz-tan aundi eman zion.

Andik aurrera guziok alkartuta bizi izan ziran.

—Nor zera zu?

—Ni emengo nagusiaren semea naiz.

—Eta onela jantzita?

—Bai eremura joan naiz.

Eta neskak esan zion:

—Sartu zaitez mutil, eta aitarengana era-man zuan.

Eta denpor bat egon zan begiratzen, eta azkenean muxu bat eman zion, eta orduan ikusi zuanean bereala ezagutu zuan, eta laz-tan aundi eman zion.

Andik aurrera guziok alkartuta bizi izan ziran.

—Nor zera zu?

—Ni emengo nagusiaren semea naiz.

—Eta onela jantzita?

—Bai eremura joan naiz.

Eta neskak esan zion:

—Sartu zaitez mutil, eta aitarengana era-man zuan.

Ixil-Ixillik...

«Arkitutzen da, ixil ixillik munduba... ez da mendian ezer entzuten ez bada on- (tzaren oiua...»

Areso'n ezta ori ere... arratsalde gris, ixil ontan. Sasieta'n, baso aldean, txori bat kantari, alaiki... pozik. Udaberrian gaude-ta... Emen ta an, zelai berdeak... lorak... arbi oriak... erreka garbiaren ots goxoa... musika ixilla.

Zeru argia, mendi illuna... Eliz txuria tontorrean, zutik... Bidetxoan, gurdi bat belarrez bete... baserritarrak parrez ta barriketean... (Zorionezko parra, anima-ren argia!)

Or nunbait, baserriko atarian, neska gazte polita... Karreteran, or dijoaz bi zi-billak tapa-tapa benta aldera.

Areso, erri illa, erri utsa, erri aparta. Fabrikak ondatu du. Euskera ere laister ilko da... ba ote?

Larre goxoetan, bildots jaiio berrien negarra... gure biotza aztunki ikutzen duna.

Neretzat au da Bizia: Mendia, erreka, lorak, basoa, txorien kanta, neskatoaren irripar ezta, bildotsaren negar ituna... gi-zonaren ontasuna... Izadi ederra, paketsua.

Utikan munduko gezurra, iskanbilla, zaborra!

Gora Izadiaren EGIA, PAKEA, EDERTASUNA!



«Munduko goraberak dirala meriyo Biotzean sortzen da... zenbat amodio».

Bai, askakeria zertarako? Naspilla sor-tzeko? Alperkerian ibiltzeko?

MATXIN



Kirola ala kirolkeria

Edozeinek daki, ene idazlantxoetatik baiño ez ba'da be, kirolar purukatua naizela, gazte-gaztetik kirol bat edo geyago egiten. Sarritan esan dodanez, neurritz egin ezketiño, nire ustez beintzat, egokia da kirolen bat egitea, bai soñarentzat, adimenarentzat, ta beraz, osasunarako be bai. Orregaitik izan dodaz atsegin, eta orregaitik egin dodaz, bai ostikoketa, esku-pelota, txirindularitza ta, batez bere, mendi kirol garbia.

Baiña ortik, kirol-egitetik, kirol-zalekerian itsukeriz ia zorabiatuta, tamalez, asko dabilizan bezela ibiltera alde andiya dago. Au da, ez da bardin kirolarra izan ala kirol-zalea, ikusten zalea izatea. Lenengoak, bere soña ta adimena sendotutearren eta iñoiz bizi-bidea bidebatez lortzearen dabilizan artean; besteak, zerbait egiten dabenen lepotik jolastuaz, jendetza andia zalekerian itsutuaz, euren onerako dabiz... egunerokoen zabalkunde utsak erraz nastuten ditu ikusle pilloak.

Madri'eko Atletico eta Glasgow'ko Keltik orrean ostikolarien artean jokatu ebanan biaramonean, beste askoren antzera, ezagutzen ez neban antz-onego gizon bat euki neban bezeru ene lantegian, eta zerbait itz egitearren, asi giñan izketan. Aurreko egunean, esan eustan, Madri'en egon zala.

—Madrildarren eta eskoziarren arteko jokaldia ikusten?, itaundu neutsan.

—Ostikoketa ori ikusteko amets andia neukan, baiña derrigorezko beste bearkizuna egin bearra be bai. Ezin joan izan nintzan jokaldi garrantzitsu ori ikustera, baiña urrutikuskiñez ikusi neban. Benetan poztu nintzan españarrak irabastiaz, Laterri-ara-zo andikoa zan izan be-ta, ben-benez esan eustan.

Nik be, bardiñean, madrildarak irabasitea nayago nebala, esa neutsan. Bertan, euskaldun bik, Garate'k eta Irureta'k jokatutzen dabelako, esan barik. Ez dot uste baiña, orretariko garrantzirik daukanik, Laterriari eragiteko aiñako azoza danik ostikoketa jokaldi bat.

—Bardin, garrantzi bardiña izango ete eban zuretzat, madrildarrak izan barik, bizkaitarrak edo gipuzkoarrak izan ba'lira jokatu ebanak? Pizka bat adi geratu yatan, baiña azkenez esan eban:

—Bai, españarrak izan ezketiño.
—Baiña, espan daustenez, Madri'eko talde orretan ba-dira españarrak ez diranak be. Ego-amerikarrak eta abar.

Ez neban izan azkenengo oni erantzunik. Baiña naikoa da, irakurle, guarko «kirol-zaleak» darabilen oldozkerea zelango dan jakiteko. Aipatu dogun gizon au lako aneika, millaka ta milloikak aurkitu legikez inguru zabalean. Euren buruak ostikokeriz, zezenkeriz edo beste ikuskizunez uleataraiño beterik daukez, jakiña, bearrago diran beste gaientzat tokirik ez dabela.

Orregaitik, auxe diñoguz beren artean: **KIROLA BAI, baiña KIROLKERIA EZ!** Onekin len baiño geiago astotu edo geldotu nai ez ba'dogu.

Mendigoizaleai

Aurreko idazlan baten esaten neban, Orrillaren 12'nean, Gorbeyan ospatuko zala Ibaizabal-Nerbion alkatetako bazkunen urteroko sari-banatzea, baiña, talde orretako ordezkariak esan daustanez, Orril onen 26'rako atzeratu dabe. Gorbeyan bertan izango ei da ba, dirauskuenez, Elgoibar'ko Morkaiko taldekoak eraturako mendi-jai ederra, ta bata besteari indarrak ez kentzearren.

Ori izan ba'da bitartean egoan eragozpena, ondo ikusten dogu aldaketea, bata-besteanganako begirunea. Baiña aipatu dogun erabagia artu dabenean, ez dabe, bear ba'da, aintzat euki, egun ortan bertan, Orrillaren 26'an, Enkartaizño alderdiko mendizale taldeak be alkarren artean ospatutako antolatuta dauken menditar jaija dala, ta ori, batzuen ala besteen kaltegarri dalakoan gara.

ALTUNA'TAR JOSU

Mendizaleak

Inguruan daukaguzan izakiakazko artu-emonak geroago ta gitxiago ta txaragoak dirala uste dot. Gaur gizonak ez dauka lore baten edertasunari edo gau baten agiri dan ortzi ederrari begira egoteko astirik.

Gaurko lanak eragin asko oñez, gure gorputz eta ibilterik geinak be berebilean, ez antxiñakoan lez oñez, egiten diran jakuz.

Orregaitik mendizaleak sortu jaku. Inguruko izakiai astiro ta atsegiñez begiratzea eta geure gorputz astuna apur bat bizkortzea, izan leitekez mendizaleatasunaren elburu bi.

Eta ez da arritzekoa gaurko gizona mendizalea ta basozalea izatea, bere aurretikoak be olako lekuetan bizi ei ziran eta.

Gaiñera, ez aitzu gizonak asko ugari ta garala lur-gaiñean eta gure ibaiak eta aizea bera be zikinduta daukaguzala. Ur gardena ta aizea garbia billatzeko gaiñetara joatea ez da arrigarri.

Mendira igoteak, batez be mendi aundiak diranean, garaipen baten antza be ba dauka, eta gizon burrukaliari garaipena ta izadia azpiratzea atsegin izaten jakoz eta orretan izan daiteken arriskua be pozik artzen dau.

Mendizaleatasun au gizonak alkatzeko be bide bat izaten da. Talde batek elburu bakarra aukeratzen dauanean, laster sortzen da alkar-tasuna, poza. Eta mendietara igotea elburu bat izaten da. Orretarako alkar-tzen diran taldeak ez dira txarrenak izaten: alkar laguntzailleak, biotz onekoak, garbiak, Jainko-zaleak... izaten dira.

Sarritan taldeetan sartu barik dagozan gizon banakak be joaten dira mendi gaiñetara eta oncin artean mota guztietakoak izaten dira.

Ongarri izango gendukela uste dot erri askotan mendizale-taldeak sortzea, ezibide on bat izango litzake.

Udabarria aurrera doaku eta egualdi onak etorriñez, mendizaleak be ugari-tuko dira. Mendizale egiñak, negu ta uda egiten dabez igoaldiak, baiña zale-otsak diran udaldian artzen dabez olako bideak. Aolku batzuk emon bearko doguz ba, ikusten dogun jazoerak kontuan artuta.

Iñoiz entzun dogu mendizaleak eurenak ez diran txaboletan sartzen dirala eta itxita aurkitzen ba'dabez ateak, apurtu be bai. Ez diñot arrisku aundi badeo norberaren burua galdu baiño lenago, olako bear bat ezin egiten legikenik, baiña iñoiz eginda olakorik, uzazabari ordu bete itxarot be egitearren. Ez dagigun iñori kalterik egin. Ez dagigun ezer apurtu, ez txaboletan, ez inguruetan, ez iñori.

Mendietan eta errietan, iñoiz entzun dogu baita, mendizaleak dana zikinduta izten dabela: janari-ondakiñak, txolet utsak, zapi zarrak...

Mendizale onak, mendia ta bere ingurua aurkitu dauan beste garbi edo garbiago itziko dau, berak toki atsegiña aurkitu dauan lez, urrengoak be olakoxea aurkitu dagian. Ondakiñak eta loi guztiak lurperatu, edo ostendu, edo croan egingo ditu.

Erri-barruan, edate-etxeetara ta, sartzen diranean, euren zorroak ibilbidean izten be ikusi doguz. Ori be kontuan artu bear leukee, eta ez iñori eragozpenik ipiñi.

Sua egitean ardura aundiz ibilli bear dabela be, ez dogu esan barik itzi bearko. Gaur gure basoetan balio aundiak dagoz eta zurtasun barik sua egitea naikoa izango litzake kalte ikaragarriak egiteko. Eta sua egin dan tokia itzi eta beste batera joakeran, ez aitzu sua ondo amatatzea.

Norberak neke pizka bat artuta izan arren be, ingurukoai lagunduko dau-tse mendizale onak. Alkar laguntzetik sortzen dan pozaren gomutapen bizia ba dauke mendizaleak.


Eta, azkenez, ez aitzu euskerea mendietan. Erdeldunak erdera egin bearko dabe, baiña urietan erdera entzuten ba'dogu, mendietan beintzat euskerea be entzun dagigula. Txaboletan iputzen diran izenak, zergaitik ez euskeraz?

Mendizaleak izanetan, geurentzat eta gure ingurukoentzat poza ta alaitasuna billatu dagiguzan.

MARTIN



BI, ZEIN OBEAK!



Azken-jokaldi zoragarria Anoeta Pelota-tokian, igandez ikusi genduna. Or aurrez aurre pelotari guren bi: Gorostitza'tar Iñaki bizkaitarra ta Erretegi'tar Iñaki naparra. Niretzat txapeldun bi egozan joakoan.

Jokaldi ederra, ondo ta zur jokatu bien aldetik, ezer makalik izan ba'zan, Gorostitza'ren ateratzeetan izan, ezker txokotik ataritzen eban ba, Erretegi'n eskuma makalagoaren billa-edo. Bestela, jokolari biak eten arte jokatu euskuen, euken dana eskeiñiaz.

Iñoiz ez dot ikusi Erretegi ain gogor eta ausarti, bere ale batzuk, 12'gna-ta, dana besagain eta boleaz jokatu ebazala, ziñestu euzen alakoa atara euskun.

Atxondo'ko gure Idaki'k bestalde, jokaldi azkarra erakutsi euskun, batez be bigarren erdian agertu eban indarra ta dana apurtu bearra, gorenego pelotariena izan zan, Bizkai'ari egun ospetsuak ekarriko dautsazan pelotariarena, egitan.

Urteak emoten daben ikasia ta zurtasuna, izan ebazan Erretegi'k, barditsu ebillazan indar ezbardin orren neurria alde batera bialdu al izateko lagun.

Ta, aleen gora-berea zelakoa izan zan betiko idatzita geratu dadin, ona emen zelan jokatu ziran; Erretegi'renak lenengoak:

0-1, 1-1, 2-1, 3-1, 4-1, 4-2, 4-3, 5-3, 6-3, 6-4, 7-4, 8-4, 9-4, 10-4, 10-5, 10-6, 10-7, 11-7, 12-7, 12-8, 13-8, 13-9, 13-10, 14-10, 15-10, 16-10, 17-10, 17-11, 17-12, 17-13, 17-14, 17-15, 17-16, 17-17, 17-18, 17-19, 18-19, 19-19, 20-19, 20-20, 20-21, 21-21, 22-21.

Gitxitan erakutsi dabe zenbakiak ain garbi, jokaldia ze nolakoa izan zan.

Donosti'ko gaiñezka egoan pelota-leku polita, inguru egokia azken-jokaldi eder onentzat. An igartzen ziran Euskal-errietako pelotazale ezagun eta zaleenak.

Giroa be zoragarria, Anjelus'ari asierea emoteko, gure Txistua be an zan, alan pelotazaleen zirrarea goi-goitik ebillan.

ETXEGARI'TAR IXIDOR

58 urte. Emaztea ta lau seme. Gaixo: bizia.

Zegaitik deitzen ete dautsagu euskaldunok kantzerari, ain zuzen be, bizia? Bizi guztia berak eteten dabelako?

Erriak euren oiturak daukez.

Geienetan, eriotzeari buruz, zeregin pilloak agertzen dira. «Okasiñoia» gertatu egiten da eta gertu bear be bai: Artu-emonak, anderuak, auzoak, ofrenda, oyalak, mankala, kandelak, argizari-ola, «dutu», errespon-tsuak, gauela eta abar.

Itzen dagonari bere ardura barik batuko dautsez dan-danak. Beste gauzak obeto estu-tiko dabe bat orretan sartu barik.

Esandakoen gain ba dagoz beste kontuan artu bearrak: kanpaiak.

Bat ilten dagonen, obeto esanda, ilda gero, kanpaiak jotzen dira erriari eriotza adie-ratzeko. Jakin-erazi eta otoi bat eskatzeko oiura ederra. Erredoble bitako taldeetan, emakumea ba da; irukotan, gizonezkoa dan-ean, eta bostekotan abade edo eleiz gizona danetan.

Erri batzutan, nirean lez, aurrez iltamu edo agonixako kanpaia be jotzen da: kanpai bakarragaz biña-biñako joaldietan. Ez dago emen asieratik bereizterik. Gizonezko edo emakume izan, danentzat bardin jotzen da.

Ori bai, jentea konturatzeko aña bidar kanpai era orretan jo ondoren, azkenean emoten da igargarri lez, bi, iru edo bosteko ezaugarria. Orrela, senideak eta auzoak igarri leikie euren deduzkoa dan ala ez.

Gertatzen zan len, bateri agonixa jo ta osatzea. Ori, edozein izat be, gogorra izaten zan: Origaitik gaur iltamua jotzen ba'da, azalez beintzat il danaren ziurtasuna artuta gero izaten da.

Gauzak orrela, nire adiskidea, esan dogun lez, gaixo egoan oraintsu. Lenegotan itxaro-pentsu, baiña azken aldian etsita eta agurre-rako gertuta. Eriotzaren zain. Il baiño egun bat lenago, beste baten iltamua adierazoteko kanpaiak jo ziran. Etxetik ondo entzuten ziran lez, adi geratu zan bera kanpai otsa sumatzen. Igarri be bai iltamuarenak zirala. Ixilleko otoiitzen bat egin ete eban igarri cutesen. Eta oraindik kanpaiak jotzen inarduen artean, bere etxekoei sentzun guztiagaz itaundu cutesen: Nirea da?

Orbel asko batzen dira bizitzan. Baiña adiskide baten orbel jauste au, gure errietan bakarrik gertatu leiken au, oargarri da benetan. Ondorengo zer pentsatuak, bakoitzaren gain.

ZUBEGI

Sasi-Konfesiñoia

Guk, elizgizon ez garan eliztarrok, abadeen esanai «bai, bai» esaten besterik ez ei dogu jakin. Beraz, gure lengo jokabide ori zuzena izan ez bada, gaurko nire urteera au ontzat emotekua izango da.

Ta itzaurretxu onen ostean, mamiñean sartu naitean.

Elizan, aldatu bearreko gauza bat baiño geiago egozan. Ta azken urteotan egin diran aldaketa batzuk, geienok ontzat emon doguz. Baiña gauza guztiak, on ta txar, danak azpikoz gora ipiñi nai izatea ez dago ondo. Ortik ez dator gauza onik erlejiñoiarentzat.

Azkenengo aldaketa konfesiñoi edo autortzagaz izan da. Egia esateko, teoriaz edo legez ez da aldatu; lengoa orniu edo konpletan bakarrik. Baiña egitez, makal-makal ebillen autortzari puntilla emon dautse.

Makal-makal ebillela esan dot; ta alantxe da. Ta au, asko, abadeen erruz. Len abadeak autortzara bultzatzen egiten eutsan jendiari, konfesiñoia asko aitatuz edo kongregaziñoiak ipiñi ta illeroko jaunartzeak, urteko lenengoko bederatzi bariakuak, San Jose'ren zazpi domekak eta abar egiñaz. Orain orrek guztiok ainkaz gora juaun dira; jendea olako kontuetan beti atzerakorra izaten da ta abadeak gauza onetaz ez dirala arduratzen ikusi dabenian danai laga dautso. ta len esan dodana, orain puntilla emon dautse.

Bear bada toki batzutan lengo konfesiñoia len lez gelditu da, baiña beste batzutan, oraingo lege barriakaz, kendu egin izan balitz lez jendea gelditu da. Nik entzun dodan elizan beintzat lengo konfesiñoia bearrezkoa edo obligazi-ñoikoa ez balitz lez itz egin dabe ta jende askok alantxe ulertu dau. Ori oker jokatzera da. Elizak lege barriakaz lengo konfesiñoirik ez dau kendu, orniu baiño (Asmo orregaz ondo dago). Ta lengo lege edo aginduak, (Eleizarenak) ola esaten eban: «Urtean bein gitxienez autortzea, eta orrezaz gañera, ilteko arris-kuetan eta Jauna artu baiño lengo, oben astunean egon ezker».

Elizak bere agindu au kendu dabenik ez daust iñok esango.

Ta, guazen aurrera. Zein autortza era da ohea, lengoa ala, alkartasuneko autortza barria? Lengoa autortza txarto ipiñi naian, erlejiñoiaren arerioen berbak bereganduaz, «konfesanario illunetara joan eta pekatuak autortu ta bereala lengo pekatuan jausten ei giñan». Ain zuzen, autortza era barria lenengo aldiz egin zan elizkizunean berba orretzek entzun nituan. Ta konfesiñoia ori baiño geiago ei da.

Egia, gizarteko problema batzukaz bear zan beste ez giñan arduratuko. Baiña autortzeko era aldatuaz ezertan be len baiño obeak ez gara izango. Ta egia baita be lenera jotzen dogula, Baiña baita be egia da, ta andia gañera, lengo autortza oraingo barria baiño milla bidar obeagoa dala.

Lengo eran, geure utsak iñori azaltzea asko kostaten jaku, lotsatu egiten gara askotan eta orretxegaitik, beti ez bada be, atzera egiten dogu, ez dogu nai izaten txarto ereitzen jakun gauza a egitea. Bai, lengo autortza era frenua da askotan. Oraingoa barriz, ezer be ez. Denporagaz, beste edozein elizkizun baiño geiagotzat jendeak ez dau artuko, beixperak, bederatziurrenak eta olakoxeak lez izango da. Lengoa gure damua, egizkoa ez bazan, bildurra edo lotsa bada be izaten genduan; oraingogaz, iñori ez bajako autortu bear, ez bildurrik eta ez lotsarik uts egiteko.

Ta emen beste itaun bat egin nai neuke; Bat gaxorik, ilteko dagonian be ez dauko autortu bearrik?

Lengo eran autortu nai dabenak, oraingo konfesanarioetan barik toki egoki edo eratsuetan egingo ei da. !Tira, tira! Autortzera juaun nai dogunok lengo eran egitea naiago izango dogula uste dot. Beraz guk nai doguna izan bear da. Gu zarrok ez gara urte askorako ta gerokoak nai dabena egin daiela.

KAMIÑAZPI

OARRA

Ondo diño «Kamiñazpi» gure idazleak, autortzea «ez da legez aldatu; lengoa orniu» baiño.

Orregaitik, lana bear dan lez egiten ba'da, ez jako «autortzeari puntilla» emongo, eta era barri onetan, autortzak obeak izango dira.

Zer aldatu dan? Azterketea egiteko era, damua sortzeko era, askezpena emoteko berbak.

Baiña autortza lanak egitea ez da kendu. Autorlekuan edo beste leku ego-kiago baten, bakoitzak aukeratu bearko dau.

Eleizan autortzea kendu egiten dala, iñork esan edo entzun ba'dau, txarto esan edo entzun izana ledike.

Ez aitzu, orregaitiño, ez len ez orain ez daukala autortu bearrik, oben astunik egin ez dauanak, eta Sarri, meza guztietan al ba'da, Jauna artzea ondo dagoala.

AGUR

Bakartasuna ta batasuna

Gizona ez da bakarrik bizi izateko egiña, baiña gizon guztiak bakoitz izateko egiñak gera. Bakoitzak bere bakoitztasuna, bakoitzak bere nortasuna du, bakoitza bera da ta ez beste.

Zetan dagon gure bakoitztasun ori azaltzea ez da ain errez, baiña guztiok dakigu gu ez gerala beste, ta besteak ez dirala gu. Bakoitzak daukagu zeozer geure-geurea dana, neure-neurea dana, besteai eman ezin diotena, neurea dan izakera, neurea izatea, neurea dan gizatasuna, neurea dan euskotasuna. Ni ez naz nire anaia, nire aita ta ama ere ez dira ni. Ni neu naz ta neu izan bear.

Lotu genezake geure buruak gizonak asmatuiko naiz indarrez jarritako gizarte ta laterri beteri edo besteari, baiña jaiotzez eta odolez daukagun izakera ta gizartea ezin degu aldatu. Ez eta ukatu ta ezertu ere. Or dago geugan, nai ta nai ez. Geu izatea nai ez ba' degu ere, geu izango gera. Obe ta zuzenago degu, gerana nai izatea.

Argibidez esango det ni neu giza-legez edo gizarte ta laterri legez britaindarra naizela, baiña Jainko-legez eta izate-legez euskaldun. Gizonak gizarte-legez nere agiriak eskatzen dizkidazenean, nik nire gizarte-agiri ta igarobide britaindarren ematen dizkiet, baiña jaiotzaz eta dodolez, Jainko-legez euskalduna naizela jakin eraso. Bakoitza bakoitz izateko egiña da; baiña ez bakoitza bakoitzentzako egiña.

Gu ez gera geure ELBURU, gu ez gera geure asiera ta geure azkena; nere Egilleak eman zizkidan nere asiera, izakera ta nire izatea, eta aberastasun oiek ez zizkidan eman neu bakarrik bizi izateko, gizartean, senideekin eta besuekin bizi izateko baizik. Orregaitik zorretan naiz nire Egillearekin eta nere gizakideekin nere eginbearrak ditut.

Ez naiz nere buruaren egille; nere izatea norbaitek emana det, norbaitek zaindua naiz. Norbait ori nere Egille ta Zaindari da. Baiña ez naiz nere Egillearena bakarrik, besteentzako ere egiña izan naiz.

Besteek gabe ez dago bakoitz izaterik, bakar izango nintzake, eta ni ez naiz orretarako egiña. Bakoitztasunean bere burua lotu nai dunak berekoitzkeria ta zapokeria lortuta ditu. Bakoitzak bakoitz izanik besteena ere izaten jakin bear du, besteekana ere jo bear degu. Besteek ez dira du galtzeko, gizarteak ez gaitu ondatu ta galtzen, ondotu ta indartu baizik.

Jon Jagoka Rousseaux'ak, gizartea gizon bakoitzarentzat kaltegarri zala uste zuan, baiña ez da orrela, bestela baizik. Gizarteak gizon bakoitzari laguntzen dio, osoago ta gizonkiago bizi izateko. Gizona gizartean ondatu ta galtzen ba'da, ez da gizartearen erruz izango, beste gizon bakoitz batzuk galtzen duelako baizik. Beste gizon bakoitza gure kide da, senide, errikide, aberrikide, gizakide, eta berakin bat egin bear degu, geure elburu ta zoriona lotzeko.

Baiña bat egite onetzat, batasunatzaz urrenguan inarduko degu.

URRUTIA'TAR GOTZON M. B. S.

ETORKIZUNA

«Cuadernos para el diálogo» aldizkariak AGUR'ri «preconciliar» eretxiko ta gogoetak izatea katoliko gaietan leporatzen eutsala destaiñez, Arenaza'tar Josu'k bere idazlan mamintsu ta zorrotz baten esan euskun. Nire ustez, AGUR'eko idazlariak «preconciliar» eta «postconciliar» kristau-gogoetak onartzen ditue, egoki ta oneskorak ba'dira beintzat.

Ona emen zergaitik idazlantxo onetan, «postconciliar» eritxi batzuk esatera goazan: Uste-onoekoa izan bear etorkizunari begiratzeko. Itxaroten dakianak oraindik dago etorkizuna; bere bizitzea luzatzen dau eske-intz-opariz beteriko neurri aldian. Uste-onaren bitamiñea da eskeintzea, eta ustez beterik diran gizonak etorkizunera begiratzen dakie.

Izakiagandiko dei bat da gizona. Emen datza dei edo bokaziñoa, beren-beregi barruan dauana ondiño beteteko izan arren. Ori dala-ta, arrazoidunen artean bakarrik izan ledike deia bere jabe. Goitikorantz deia bere gorengo almenakin oi dagi: Jainkoagan argit-zen dautsazan adimen eta norbere-jabetasunez.

Bizi izatea, ez da jazo zana gogoratzea bakarrik, baita urrengo jazo leitekena ta jazo bear dana be. Unamuno'k iñoan: «Gizonak, bere zertzelada alderakoietan eta berberaren trebetasunakin bizitzeko, etorkizunean bera izango leitekena asmatu, iruditzea bear dauala agertzen dau». Gizonak, bere aurrean, egin edo ez-egiteko al-izate indar batzuk ditu. Baiña bere dei-bokaziñoak eskatzen dautson ori egin bear dau etorkizunean. Orretarako esperientzi, oar-ikasiak ainbat balio dautsa.

Nork ikusi legike aurrez, etorkizuna? Gizonak berak, bere gogoetak eta biotzkadak gogoratu, iruditu ta alkartzen dauazanean. Alan, ez da ustegabea etorkizuna, usmagarria baiño. Zenbat zoritxar, zenbat ondamendi, zenbat gudaldi galerazo ta bastertuko liraken, aurrez ikusi ezketiño!

Gizon jakintsuak, aurrez-ikusterako tresnak egin nai izan dauz. Adibidez, aro-igertzale edo eguraldi-gizonak aurrez ikusten dauanean jazoko dana: euria, eguzkia, aizea, beroa, otza ta abar— egun batzuk barruan, ez dabil motzailak lez aztikeririk egiten, ezpabere, bere argibide ikasietan aurrez diñoana dakia-lako diardu.

Etorkizunari begira dagoana ez da zorgin-miragillea, ongille bat baiño. Etorkizunatzaz mintzatzeak, barriztea esan gura dau. Eta barriztuten dana, bizirik egoten da. Barrizterako ba, itxaropen bizi bat bear dogu. Pandora'ren mito-ipuñia argitzean, Teogonis olerkariak esango eban: «Lur onetan itxaropena Jaungoikotasun soilla da; besteak itxi gaitue, Olinpo'ra joanak. Ziñesmen on dun jainkosa agurgarria joan yakun; Eratasuna gizonakandik aldendu zan, eta Grazi-Zoramenak be iges egin eben; gizonen artean ez dago ziñespen zintzo ta zuzenik... eta iñork be ez dau ezagutzen eta gitxiago betetzen erlijio ta legerik. Baiña alan eta guzti be, gizonak gurtu ta jauretsi dagiela Itxaropena eta onen laguntasuna izan beie bizi diran bitartean».

Ziñesdunak eta kristauak etorkizunaren itxaropena lagun dau. Batikano'ko II Batzar Nagusian, itxaropenatzaz berba gitxi izango ziran, oneik baiña, dirdiratsua! «Zio-errazoi beteagaz, gizadiaren etorkizuna, be-launaldi-gizaldi bizi izateko zergaiti-bultzagaiak ta itxaroteko errazoiak emon oi-dakien eskuetan dagola gogoratu legike».

Gizonaren kondaira guztia, itxaropen eta etsipenen tartean dabil. Filosofo guztiak, itxaropenaren eta etorkizunaren buruastea arazo-arloan jarten dabe; Dilthei, Kant eta ainbatzuk itandu dabe: «Nor da gizona? Zer jakin, zer egin, zer itxaron daike?»

Teknikak eta jakintzak argindar ozkin bat, urrutikuskin bat, berebil bat... eguneko bost ordu-lana, ta oindiño gitxiagokoa be itxaron legikela esan dautso gizonari. Ontasun gitxioko gauzak, onura agortugarri ta eurenz bete ta asetzen ez gaituenak dira orreik. Gizadiaren almen mugabakoarentzat, erren eta kaskar diran eskeintzak!

Erlijioak, Eleizeak etorkizun bat, obeto esan daigun, etorkizun osoa dau. Etorkizun au, Jainko Jaunak amaitu ta obetuko dauan ezin-esan-alako zortzigarren egun zoragarria izango da.

Gure bizitzaren elburua, etorkizuna, auxe da: lortu, jadetsi betiko erreiñu zorionsua!

LETONA

ZER EDO ZER

«BAI» ETA «EZA» EZIN ALKARTU

Aspaldian asko dira ames ori lortzeko alegintzen diranak. Gauza eziña dala zentzunak esan arren, zer edo zer egin gurarik ba dira orretan alegintzen diranak.

Ointzu Burdeos'en zosialista ta kristiñauen batzar bat izan da. Protestanteak be an izan ziran. Katolikotarren artetik Graffé abadea yoa zan. Azkenean komunistak agertu dabe, euren irakatsiak eta kristiñauenak zuztarrez alkartu ezindakoak dirala. Beste ainbeste iragarri dabe Ungria'ko komunistak. Komunisten asmoa, ziñeskera guztiak ondatutea da, Yangoikoaren izatea zearo ukatzen dabe-ta. Egia da, zur ez dabilena atzipetuteko, euren legedietan, ziñeste azkatasuna aldeztzen dabe, baiña era berean erlejiño guztien aurka ekiteko azkatasuna, eta orretan dira mutillak! Bardin dira marxista ta marxista irakatsietan oiñarria daben zosialistak, Baita egia da izen ori artzen daben ebanek: «Iñor be ezin leiteke izan batera katoliku on eta benetako zosialista».

Orrek ez dau esan gura, langille arazoetan gizarte zuzentasunaren alde batera jo ezin leikenik, baiña bai, euren irakatsietan «bai» ta «ez» ezin alkartu leikezala.

ENTZUN ETA GOR

Atsegin ez dan egiari entzun eta gor egitea, gizartean zabal dabilen gexoa da. Batez be indarkeriz yokatu gura dabenez artean. Auxe jazoten da Txile'n be. Lengo udagoyenean, yazokun negargarrien ondoren, gudari-buruak aginpi-degatz yabeta ziran. Eta indarragaz yayoten dana indar barik ezin bizi daiteke-ta, zuzentasuna opor-aldira bialdu dabe nayobait.

Gauza negargarriak yazo dira gizonaren eskubideak aintzat artu ez diralako. Txile'n eleiz-buru dan kardenal Raul Silva Henriquez'ek diño: «Guk esan dogu indarkeriak indarkeria baiño ez dakarrela. Guk gure erriari ta agintariei esan dautsegu gizonagazko itzala aldeztzen daben irakatsiak aintzat artu bari dirala; gizonaren eskubideak itzalgarriak dirala, eta iñor be ez dituala ausi beal. Egia era guztietara esan dautsegu, baiña, entzun eta gor, egin dauskue». Auxe era eundaka lagunen aurrean Santiago'ko Gotzain-eleizan. Orrez gaiñera, nork esan barik, «eriotzeagaz zemaitu ebela». esan eban. Agintariak laster iragarri eben eriotzeagaz zemaitu ebenak «ezker-ezkerrekoak dirala. Batek baki!»

Dana dala, kardenal adoretu onek, igaro dan Azilllean, Erroma'ra egin eban osteran, argi azaldu eban Allende'n aldiari, eta agintari barriekaz be, egi ta zuzentasunez yokatu ebela, egia esan bear zanean egia esanaz, naiz barri zabaltzailleak bein baiño gayagotan gauzak naspiltzen alegindu. Egia erregarri eza'p' litz mundu au beste era batekoa izango litzake!

LOURDES'KO BIDEZTIAK 1973'GNEAN

Igaro dan urtean Lourdes'era bidezkundez yoa diranak 3.568.610 izan dira. 413.739 bultzi edo trennez; berarizko bultziz 759.873; 144.714 egazkiñez; 390.360 berarizko autobusetan; 1.740.814 bakoitzaren berebilletan; azkenez 215.000 eurak euretara, bultziz ala oiñez. Askoren epelkeria gora-bera, ba-da Andra Maria'ganako zaletasuna!

«GABAZ BAKARRIK»

XXIII Yon Aita Santua abade egin barria, Bergamo'ko gotzain ospetsuak bere idazkari egin eban. Ronkali'k gero, aren bizitzea idatzi eban eta «bere abadetzako artizarra» izan zala esaten eban. Radini Tedeski gotzain kementsua izan zan. Bein burdiñolako langilleak, aloger gitxi emoten eutsela-ta, opor egin eben eta euren alde urten eban. Aldi aretan benetan adoretua izan bear ori egiteko. Amar urte gotzaiaren idazkari igarota lenengo guda nagusia zalata-1915'garrenean gudatzitzara eroan eban, eta sarjento izatera egin zan.

Egun baten gudari bat, egin eban utsen bategaitik, iru egunean gudaletxe kuartelean egoteko zigortu eban. Beste guztiak opor aldia eukela-ta urira yoa ziran.

Ronkali gudaletxera yoa zanean an aurkitu eban zigortu eban gudaria ta itaundu eutson: —Zu zergaitik ezan ara yoa besteakaz urira?»

—Zuk iru egunean gudaletxean egoteko zigortu ninduzulako.
—«Bai, bai; erantzun eutson Ronkali sarjentoak —nik esan gura neuntzun gabaz bakarrik egon bear ziñala. Egunez zeuk gura dozun tokira yoateko azke zagoz». Or ikusten da bere gogo ona, eta biotz gogorrekoa ez zala izan.

GAMA

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

DIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

ZAZPI-KALEAK



CASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIQUEAK

Elgoibar

ESKONTZAK

Joan dan larunbatean, emengo Eliz nagusian, Mujika'tar Erramon eta Ibañez'tar Francisco, Zuazubizkar'tar Mari-Conchi ta Elizabete aizpekin ezkondu ziran.

Begira nolako asmo ona euki zuten; egunari zerizkion bezelaxe, aur-azteratuen aldeko eskeri edo diru-biltzea egin zuten bazkaltarren artean, baita 5.500 lauerlako batu ere. Onitxe esaten zaio karidadea eta kristauki jokatzera. Zorionak guztiori.

BERRI ONA

Udal-etzeko ziñegotzi edo konzejalak, azkenengoz batzartu ziranean, emengo Eresbatz edo erriko musika bandakoeri jantzi berriak egiteko erabakia artu zuten, aspaldi onetan zurrab-murru zebillena, orain erriak pozez eta gogoaz artu duala dirudi.

JAIOTZA

Semetxo bat izan dute, Katei jatetxe ospetsuko Aranzamendi'tar Juli'k eta Froilan'tar Jose Ramon'ek. Unai izena-kin ugatzatu dute. Zorionik beroena guraso ta baita aiton-amonari ere.

ERIoTZA

Jaunak bereganatu digu, 81 urtekin, Esnaola'tar Juliana, garai bateko «Gelaxo» soñitu jotzale ospetsu zanaren emaztea. G. B. Gure samin-agurra sendi guztia.

MIREN

Tolosa

ESKUPEKO EDERRA

Jakin degunez, norbaitek Tolosa'n, Tolosa'ko aur-atzeratuentzat lau milloi pezeta eman ditu. Emaliek, bere izena ixilik gordetzea nai omen du. Nor dan ez dakigun arren, bijoakio erriaren baita nere esker ona.

MEZA NAGUSIA

Ez da nik esmatua. Batek baiñon geiagok esan didate, eskaera egin dezadan, alegia, jaitetako Meza-nagusia orduz alda bear lutekeala. Garai aietan, Vaticano II'aren ondoren, goizeko amarrak goiztxo dirala, batez ere neguan edo otz egiten duanean, eta bi ordu aurreatuta gabiltzala, amaiketan bear lutekeala izan bere ordua.

Aldaketa au elizaren onerako izango omen litzake, jende geiago joango litzakelako. Ara emen nere lagunen eskabidea, nere bitartez egin. Orain, Bikario jaun agurgarriak du itza.

IÑAKI LINAZASORO

Tolosar biurtu zaigun zumarragatar adiskideak, arestian eman berria digu beste liburu bat: «Gaserios de Guipúzcoa», Aurrezki Kutxa Probintzial'aren ardurapean agitaratua da.

Ongi egindako liburua. Aztertzeo liburua. Zorionak damaizkiogu, eta onegatik Jorralilla'ren 29'ganean, «Txinparta» Alkartean egin zitzaion omenaldian izan gintzaion, gure txaloak jotzera joanak. Jarrai onela, Iñaki!

PAZKOTAN

Berpizkunde egunez, Berazubi'n, korrikolarien txapelketa izan zan. IRAZU'k irabazi zuan, bigarren «Iruñiberrri». Dagonekoz «desapioa» bota dio onek ari.

Pazko bigarrenez, Iparragirre Antzokian euskal antzerkia: Urnieta'ko «Egi-billa» taldeak «Lurrin argia» antzerkia eman zigun, iru ekitaldietan. Au dala-ta, bere itzultzailea dan Iñaki Begiriztain adiskideari, zorionak damaizkiogu, aurtan, «Agora Antzerki Sariketa» irabazi dualako.

Egun berean, Beotibar Pelotalekuan, «Txapel Jartze Sariketa». Osagarri bezela, «Leidor» abesbatzak eta «Udaberrri» Dantza taldeak saio txalotzak egin zituzten.

UXOLA

Bilbao

IBAIEN KUTSUTASUNA

Gaur-eguneko ludia kutsutasunezko egoaldi negargarrian daurkigu. Bere erreka ta ibaiekaz beste orrenbeste esatera baerturik gagoz, naizta, Ipar-amerikako ibaiak, esate baterako, gureak baiño lantegi ta zikin-sortze aundiagoak izan, gureen aldean zikin-ta txukun zainduak dagoz, orretara arduratu diralako azken berrogei urtean, eta batez beste, garbizalegoak diralako bertako biztanle ta arduradunak.

Gure Euskal-erriko ibaietan, ala ere, jazo-kizun au beste nunbaiten baiño nabarmen-tsuago nabaitu oi da. Kantauri itxasoko ondartzak, ugolde zikiñen ondorena lez, planditzako ondolde zikiñen beteturik bein eta geiagotan aurkitzen dira. Ba-dakigu, itxasoa bera be, batez bere lurrez eta gizasmezt inguratutik ba'dago, geroago ta kirastuago, ustuleriz betetutako, pozoituago ikuskatuko dogula. Or dozeuz esate baterako Japoi'koa, Baltiko'koa ta urrago dagon Lurrarteko Itxaso itxia. Laster, bizi barik gelditzeo arriskuan aurkitu oi dira.

Gure ibaietan jarrai bide dogularik, euren aldaietan jaregi diran industri ta mueta orotako lategi ta bizilekuak dirala-ta, aziduz eta kimia-naaste naskagarrien ur loikorrez gaiñezka itxasoruntz doazenez, baster guztiak kutsuturik, ondaturik lagatzen dituz. Gizonaren aurrerapenaren eta alperkeriaren zeregin makurra benetan! Ta, kalte aundigaitza ziurkiro!

Nola zuzendu ezbear au? Erreketako zikinleriari muga zurrak ipiñi berretan aurkitzen gara. Gizona da errudun bakarra ta bera salbatzalde soilla be. Ta, arazoa ez da zailla zuzentzen, beste toki askotan dagokin lez; nai izan bear noski.

EUSPEN-ESKERAK

Japoi laterritik asi ta beste anitz errialde aurreratuetan be, bai ibaietan, baita itxas-ertzetan ere, ur-gaiñe plastiko, arri-olio ta bestelango ondakin zikiñak geratu-azoteko esparru-moltso luzangak an-or ta errezkadan jarriak darabillez. Oñein zeregiña, ta bertako arraiñei iñolako kalterik egin бага, barradera ta euspenez lez egitea ei-da. Onurak bikaiñak dirala ezin ukatu.

Ez da gaiñera lantegirik edegiten, bertako ondakiñak bildu, garbitu, ta urak egokitu ta ibaietara biurtuko dituen eragigailuak jartzen ez ba'dira aurretik. Errietako zikin eta ondakiñak ere, ondo bildu ta errekin edo zimaugarritarako ibaietara bera, bere toki berezietan egokitzea eroan bear izaten dira.

NOLAKO ESPARRUAK DARABILLEZ?

Era bitarikoak ei dira. Ondakin zikin orreik noiz-beinka esparruan erre oi dira, ta orduan, orrekin len-gaia ezin leiteke erregarri edo su artuko leukeen orreitarikoa izan. Baiña geienak, aulako eskerak igarigaiak izaten dira, sintetikoak. Naiz sintetikoak naiz erre-ziñak izan, euren luzeeran eta bardin zabaleran aldatu leitekez, eta igarika lez ur-ganean osko erren erabilili, ta an, or, emen ipiñi. Eskerearen goiberra larogei zentimetrokoa izaten da; ur-ganetik 30'en bat, eta ur barrutik, 50 nunbait. Ta, neurkin balioa, milla lauerlekotik bi milla ta berreuneriñakoa izan lei.

ONURAK

Askotarikoak dira. Gure Ibaizabal ibaiari laster igarriko litzakez. Itxasoraiño joango litzaken loikeria ez litzake gora aundikoa izango, ta arraiñak —garbitu dalaren ez-garrik onenak— ugariatuko litzakez, Gure ondartzak txukunugoi, garbiagoak bertetik, eta itxas-ertzeo Udal-etxeetako eraketak, ondartz-garbitasunari dagokiezenak bati bat, merketu. Bizetik, aztko urriazotera joanik, danok pozit itxas-ertzera eragaztera izango giñake.

Arraiñak bai irabaziko leukela, ta Ibaizabal ibaiari bizitz kaskarra indartu. Gure arraiñak irotuta, intoxikatuta bizi dira. Orrela angulak edo txitxardiñak, izkirak eta abar. Garbitu dagiguzan gure erreka, ozin, ibai ta itxas-bastera, arraiñen bizitzak ez eze, gure osasunak ere esker ta begi onez ikusi al izango du.

ARREGI'TAR JOSU

FERRETERIA UNCETA, S.A.

Landola tresnak - Galtzairu neurri zeatzekoak

Langailu guzietarikoak - Leunketa gaiak

Ibarrekurutz kalea 14

71-10-00 Urrutz.

Apartado 18

E I B A R

ERRIETAKO

BARRIAK

Arratia

Kristau-sinismenaren oinarria arrankaldurik dogu, eleizarako berotasunik ez, biziera ta ogibide barietara apaizkien igesketa, eleizgizontzarako gazteetan deirik eza t'abar, eta abarrezko abar-otsik, pitean-mitean an eta emen, belarrietan beti, edo begipean, orri barrilariren bat eskuratzen doguean.

Erri koskorretan eta aundi egin diranetako eleizetan, lendik saietasarte zabaleko diranetan, leku nasaitak, orain bere, erriko eleiztarrentzat.

Bilbo'n eta bera lako uri andietan, kristautasuna ta sinismena berotu ala otzitu izan diran ez dakidan arren, auzotegi, ta auzotegietan etxepeko txadonak (eleizak) ugaritu egin dira.

Eta jorraitaren 26'gn eguna illunizean etxepeko txadon, eleiza baten nengoan, eleizkizunaren bidez ludi (mundu) onetako azken-agurra egiten Kepa Txartarina adizkideari. (G. B.)

Notintza andia izan giñan eleizaren aurrean, ildakoaren begira, Arratia'tik, Bilbo'ko Urribarri auzotegitik eta inguruetatik. Euskaldunak ugari. Euskerea nagusi. Areatza (Villaro)'ko talde txiki bat izan zan agurka, zelan?, eta nolaka euskal-bizkar-azurrari miña emoten asi zana.

Il-txartelak izparringietan, erderaz ipintzen doguz; illobietako gurutzetan bizitzan euskaldun izandakoak, il geroztik, erderan agertzen doguz, eta illetak eta eleizkizunik askotan euskerea bastertu.

Alaxe jazo izan zan Euskalerria'ren zaindari dogun Mikel Deuna'ren eleizan, Txartarina zanari azken-agurra egitean. Eleizkizun guztia erdera utsean.

* * *

Urrutikuskiniari, telebistari begiratu bat egitean, beriatik azaldu dauskuen eleizkizunak, gudaketa izan genduan, baso eta bizkarretan, atxarte gogor eta zuloetan bizia emondako lagunak gogoratuazorik, emen nire zantzua barruko arrak eragindak.

Noiz izango dogu, mezatxo bat Arratia'n, gure lagun izandakoen alde?

LANDAJUELA'TAR A.

Arrasate

ARANTZAZU'N

Juan zan illaren 28'an, Peña eta Albizu'tar Xabier euskal-irakasleari omenaldia zala-ta, Arantzazu'n izan giñanok pozez beterik etorri giñan. Egunderrera benetan: Jaupa pozgarria, beko eleizan, bete-beterik. Enbeitat'ar Balendin'en bertso saioa. Abeslari jatorrak, batez ere emakumezkoak. Gero bazkari gozoa, praillean ostatu-etxean. Aretoa bete-beterik, egoera jatorra, umoretsua; onetan gure Etxaniz jauna apartekoa, bere abesti eta bertso ederrakin ornitua, danen pozgarri izan zan. Xabier'en esker emotea txalo ugarien artean, Egunderrera benetan, Bilbotar gazteak eskini euskuea.

Eta zenbat lagun? Or kakoa. Nik ez dakit, baiña asko izango giñan; praillean ostatuok jantokia zein aundi dan eta esan ezkerio dana bete-beterik egon zala, naiko esatea da! Askon iritzi an bazkaien batu giñanok, izango gintzala 300 edo gaiego. Ba'like? Ereduderrera askorentzako, gutxi garala esaten dabenezako. Itxuak ez diranak ikusiko al-dute.

LIBURUAK

Esquetan darabil oraintxuago agertu diran bi liburu: Arnaza'tar Josu'ren «Tus Hijos y el Euskera», erderaz, baiña gaur-gaurko euskal kutsuz beterikoa. Irakurgai eta gai pensakorrez beterikoa, guraso eta ikastola buruz. Zerbait jakin nai duanak irakurtzea bear-barrekoa du.

Beste liburua berriz Labaien'dar Andoni Mirena'rena. Au euskeraz, naiz-eta itzulpen batzuk erderaz izan. Gaurko gazte askok ez dute «Txiki» marrazkilariaren entzuterik izango; gure gazte aroan alaitu poztu giñuana. Guri, gazte ez gareanok ura gogorakartzen dauku, eta gazteei ondo letorke marrazkilari ospatu au ezagutzea. Erosi bada idazti bi onek.

ERIOZAK

Emengo euskal-etxe batzuetan negargarritzko egunak izan dira. Eurotan iru eriotza

izan dira: Olabe eta Marzana'tar Balendin, 56 urtedun. Garai eta Urrutia'tar Kostan eta Etxeberria'tar Joseba; au Aranguren baserrikoa. Atsekabea laguntzen dautset euren emaste eta beste senideei. Goian Begoz.

ERRI-KALEKO GORA-BERAK

Madalena eta Garibai kaleen bitartean dagon Aranzabal'darren baratza Udaletxeak bereganatu du, eta bertan erriarentzako egurastoki eder bat jartzeko lanean ari dira. Toki egokia, batez ere umezaintzerako eta zarrak une ederrak igartzeko. Uste dot jarleku egokiak eta zugaritz aukerako batzuk ipintzen ba'dira sarri izango dala jendez ondo beteta.

KAMIÑAZPI

«AGUR» onen 134'garren zenbakian irakurria naiz idazle on onen idazlan bat eta bertan Portugal'etzaz jardunten da. Jakiña, idazlan ori, Laterri orretan izan diran goraberak baiño lenago idatzia da eta ain zuzenbe, erdi-erditik igarri dautsa bertan jazoriko guztiari. Ori dok ori, mutil, igarle ona izatia! Zorionak Etxaburu.

Erbesteko Laterri arazoetan ondo ezagututa gagoz «AGUR»en irakurleak, bada «Kamiñazpi» orrez gaihera or daukagu gure Iriarte'tar Jose Luis. Egundoroko baten idazle izateko lain ba-dauzkagu. Bai alaja ña!

UDALAITZ

Galdakano

ARANTZAZU'N

Euskaldun kistarrantzat beti atsegin-garri izan dan, Oñati gainean eta Aizkorri-Aloña mendidi magalean aurkitzen dan Arantzazu'n izan giñan Jorraitaren azkenengo igandean.

Beti atsegingarria izan dala esan dogu, ta orretaraxe izan da izan be guretzat Arantzazu, ta sarritan eta pozez bertaratu izan gara, bertako inguruak ikusi ta Ama Neskutsa'ri ikusketa bat egiñaz, inguru artako mendi gaillurren batera igoteko.

Baiña ez orratio ain pozik azkenengo urte oneitan, bertako txandonera. Euskal arloan orko leikadeak ertu dabon jokabideagaitik. Baiña ori bai, egun onetan, pozik aurkitu gintzazan Arantzazu'ko Ama'ren magalpean, bertan izan gendun euskal-giro errikoagaitik. Baita eskatu be Ama Neskutsa'ri, bertara, Peña'tar Xabier'en omenez joan giñan eta beste euskalzaileen alde, urte askotarako zorionak eskatu be, gure euskera ta Erria'ren onerako.

Arantzazu ortan, Xabier'i bere ikasle izandakoak eskeiñitako omenaldia ospatu genduban. Baiña, Xabier euskal-irakasle jatorraren ikasle izan ez giñan asko be bildu giñan an, naita beragandik asko ikasitakoan izan, ta gure opari apala baiño askotzaz andiogoaren merezigarri dalako bera. Beraz, eundaka asko izan giñan meztan batu giñanok.

Eberdiko amabi ta laurdenetan izan gendun euskerazko, jakiña, jaupa atsegingarria, Ama Neskutsa'ren azpiko eleizan, eundaka euskaltzalez beteta egoala. Jaupa, mezea, Xabier'en ikasle dan apaiz gazte batek emon euskun, an giñan guztiok erantzunaz, eta, tartean, bere aldi egokian, Enbeitat'ar Balendin bertsolari ezagunak bertso txukunak abestua euskun, ta zelan ez!, Jauna jasotzean, txistularien «Agur-Jaunak» doiñu goxoa entzuten genduala.

Urren, ordubiak igaro barri, lagun arteko bazkaria bertako ostatu-etxean. Irureun eta herrogeita amazotzi jatale, esan euskuen, sasoi-oneko danak, bildu gintzazan jan-areto zabalean. Emakume ta gizonezko, zar eta gazte, onetarikoak lautik iru, baiña danok benetako alaitasunez eta anai-arreba bezela.

Etxaniz'tar Nemesi apaiz jaun jatorra, ta zaartu eziña, zirikalari, abeslari, bertsolari ta bizkortugari danontzat. Baita, jakiña, an izan genduzan txistulari bikain azkarrak be, gure artean genduan gaztediaren pozgarri, onein odol biziaren bultzakadan dantzatuteko.

Azkenez, omendua genduan Xabier'ek, itz sakon eta maitekorrez, zetan ez

eukan esker beroenak emon euskun. Itz gitxi baiña biotz-biotzekoak. Amaiera, Agur Jaunak, abesti goxoa zutunik abestuz emon geuntzan. Urren, beste orrelako bat, edo andiagoo al ba'da, ospatutzeko asmoakin, Urte askoan, Xabier, Jaunak emon dagizula osasuna, euskerearen eta gure Erria'ren onerako.

TXORI-ABESLARIEN LEYAKETEA

Orril onen 19'gnean, XII Txori-abeslari norgeyago ospatuko da erri ontan, azkenengo urteetan ospatu izan dan lekuan bertan, au da: Bidorreta'ko sagaztian.

Leyaketa au, beste urteetakoan antzera, txoka-pardillo, kardantxori-jilgero, ta mota bi orrekin erdikizentzat, mixtoentzatzat, izango da. Leyaketa ortan alde artu nai dabena, ordubete lenago emon leikee euren izena, jokatuko dan tokian bertan. Ikusten denez, ba-dabe txori-abeslari zaleak nora jo egun orretan. Galdakao'ra!

BASA-JAUN

Ea

BASERRIEN IXENAK

Oraintsu, Erriz-erri saillean agertzen diran lanetan, Ea'n 122 baserri-etxe egozala esan neban. Adiskide batek deitu eustan ainbesterik ez egoala ta. Gauzak berean lagateko izenak aitatu ta kittu, ez? Baserri batzuk utzik dagoz, Ori esaten neban. Orrek ez dauka zer ikusi izenekaz. Ara, auzoetan bananduta, nik dakidazanak. Ez gara asarratuko. Naiago neuke erri guztietan, zu lez, kontuartzalleak agertuko balitzakez. Ara izenak, kontatu, ta urrangoan agindutako txikitoo ordaindu. Agur ta erdi, J. M. adiskide!

Natxitukoak: 68, danetara

Elexalde'n 13: Aldai-Etxebarria; Aldai-Etxetxikia; Elxpe; Etxezarra edo Fieltxuena; Kurtziakua; Longakua; Plantiena; Plaza aurrekua; Potsuondo; Solarte; Zilluaga-aurrekua; Zilluaga-atzekua; Zilluaga-etxebarri.

Aldebaster'en 15: Agarre; Arteta; Bizkoe-txe; Ezkoiz; Ezkoiz-etxetxikia; Ezkoiz-goxeaskoa; Galdiz; Galdiz-etxebarri; Garategana; Garai; Musturtzukoa; Natxitupe; Sabarri; Sabarri-etxebarri; Ugalde.

Angerutxu'n 25: Alastra; Aldekoa; Anduiza aurrekua; Anduiza atzekua; Aretxondokua; Atzekua; Bidarte; Bizkua-bekua; Eikua; Erdikua; Goikua; Goitikua; Goitisol; Iribar-etxebarri; Irustiaga; Jauregi; Kale-aurrekua; Kale-atzekua; Madariaga; Urizar; Urizar-etxebarri; Urtiaga; Zarandegi; Zeleta-bekua; Zeleta-goikua.

Olagorta'n 15: Astegi; Berezi; Etxaburueta; Erkiako-etxebarri; Erkizaiz-bekua; Erkizaiz-goikua; Landakua; Legarza bekua; Legarza goikua; Leuzate; Merru-bekua; Merru-etxebarri; Olagorta-etxebarri; Olagorta-etxetxikia; Olagorta-goikua.

Bedaru'kuak: 42, danetara

Elexalde'n, 4: Alagarreta, Alegria, Dendarikua eta Etxetxu.

Mendiola'n 15: Agirre, Altamira, Beitikua, Bergara, Biaskua, Burnika, Guenengua, Irigorri, Jauregi, Koskorrotza bekua, Koskorrotza erdikua, Koskorrotza-goikua, Mendiola andikua, Mendiola emetikua, Ollotxe.

Urtza'n 16: Altarraga, Aurrekoetxea, Bis-atzekua; Gorostiaga, Larrabal, Meretzika, Olabarri, Sasturri, Talaia, Ubide, Uribe-bekua, Uribe-goikua, Urtza erdikua, Urtza nagusia, Urtzatxu, Zumendi.

Olabe'n 7: Elorriaga, Etxebarri, Olabe, Portua, San Bartolome, Zarakondegi, Zarakondegi-bekua.

Ea'n: 12

Allona'n: Allona-andi, Allona-bengoetxe, Allona-goikoetxe, Erreketa, Ola-zarra, Ola-barri, Otegi, Oiarbe.

Banakatuak: Goikoetxe, Kurtzia, Urtubiaga eta Zubialde.

Nire kontuetan or dagoz 122.

Ez dot uste onetan txarto esanak parkatzeko eskatu bear danik.

A. ZUBIKARAI

Usansolo

EZKONTZA BARRIAK

Gure adizkide Garai'tar Nikolas zanaren alaba kutuna, gure biotzeko Maria Angeles, ezkondu jaku. Utsunea, ta ez txikerra, gure auzunean, berak eta bere amak, Arana'tar Mari'k itxikoa.

Baiña dana ez da kaltegarria izango. Gu galtzai ba'gara, Lemoa'ko auzuneak irabaziko arein aberastasunagaz, areik daukien euskal-zaletasun apal eta garbiagaz. Ta, ez agokoa, biotzeko baiño. Erdi jolasean, erdi zaintzen, gure umeak bere aldamenean erabilten zituanean, bera be beste umetxo bat izan ez da be, zelako biotz zabala, nolako maitasuna agertzen eban gure Maria Angeles'ek.

Bere ezkontzea be, maitasunean eta apal-tasunean. Apaltasunean, ixil-ixillik, aundikeri barik egin zalako Larra'ko Ama Birgiñaren magalpean, bere, ta orain bere senar dan Jabier'en gurariz. Ta, maitasunean, olako egun zoragarri baten, geinok, ludiko ardatz lez egongo giñaken lez barik, bere biotzean ardura astun bat egoalako: Bere ama alargunaren mingostasuna, bakartadean, euren eztegu-aldia igaro bitartean.

Zorioneko zu Mari, olako lora garbia sortu dozulako. Ta, zorionsuago zu Jabier, artu dozun emazteagaitik.

Azken baten, danok zorionsu, euskaldun sendi barri bat sortu dalako, Erri'aren onerako. Maria Angeles, ez gaituzula aiztu!

EMALDIÑENKOAK

Be, ba-dauke zergaitik poz ta zoriuntsu izan. Emen bakarria barik, ezkontza bikoitza izan dabe:

Juan Antonio, Andra-Mari taldeko oinkari edo dantzari ospetsu-entariakoarena bata, ta bigarrena, talde orretako ta gure euskera meztako creslari edo soñularia dan Arantza zintzoarena.

Baiña ez da izan ori bakarrik: Sendi ugari orretatik urtendako beste lora baten kimu barri bat be agertu zan egun orretan. Blanka'ren aurtxo baten bateoa.

Ez dot uste sarritan ikusiko danik Eleiz baten olako mordo ederra. Ba-daukazue zergaitik arrotasun garbia izan, Antonio ta Juanita. Seme-alaba bi ta illoba bat altarean egun berean, eta ori gitxi ba'litz, Aita Juan Jose meza emoille. Ez, ez da errega an zan zaletasuna, an egoan alkartasuna ikustea.

Ta mezea amaitukeran, Andra-Mari taldeak egindako agur alaia, euren irrada edo dantza zoragarrien bitartez, aldi luzean izango da auzeneko oroimeneak.

EMALDIÑE BASERRIA

Zu zorionsuena, zure aterpean, zure kerizpean sortu diralako ainbeste kimu eder, gogo garbienagaz gure Euskal-Erria goraltzeko, bai auzune bere atan, eta ez gitxiago euren arnasea eltzen dan tokietan, bat, bera, Arrasate, Jose Antonio seme zarraren bizitoki barrian.

Danotzat zorion beroenak eskeintzen ba' dautzueguz be, zuoi biori, Juan Antonio ta Arantza, biotz-biotzekoak, zeunekin.

Betiko zoriona izan dagizuela.

ATXUTEGI'TAR BITOR

ORDIZIA'N

Umeak giñala, Gazteiz'en, Eleiz-Musikaren Batzar Nagusia egin zan.

Egun areitan erri txiki bat aitatzen zan eleiz kantuan erri eredu lez: Arama.

Berreun lagun inguruko erri txiki or, ukabillean sartuta eukan gergoriar kantu ezituauren zale batek, Joakin Tolosa jaunak.

Arama, gipuzkoar errien artean txikien-tarikuen, ez ezagun zan askorentzat. Nun dagon be ez ekien geienak. Eta billatzen asteko, beste erri baten auzo aitatasunetik argitasuna emoten zan, Ordizia'ko Billafranka'tik.

Gaur ona, natorrela, nire umetako gar bat bete nai izan dot: Arama ezagutu eta goratu. Isasondo eta Alzaga'ren erdian egiten dan erri txiki auzo maitatu.

Geroagoko beste gertaera batek be gogoangarri egiten dau Arama. An il zan orain amabost urte gure mendia eta basoen berezitasunetaz euskal libururik mamintsuena egin daban Inocencio Munita jauna. Bizkaia'n, Etxebarria eta Barinaga'ko ingurutan askok ezagutzen eben bere garaian «piñu abadia», Eibar'eko Aginaga'n bizi izan zalako. Larogei urte eukazala agertu eban bere liburu jakintsua: «Gure mendia eta oianak». Eta gertuta laga beste bat: «Fruu arbolak». Askori emon eutsen berak piñadien egokitatsunaren barri.

Ezin leikez ixillean gorde olako gizon eta olako erriak. Ordizia'ren atetan, Ordizia'ren mugan, bidezko izan Arama txapelak kenduta agurtzea. Lengo irakatsi onik ez daigun aztu gure gaurko bidean.

* * *

Len Oria'ko Billafranka. 1970 ezkerotzik, Ordizia'koa. Ordiziarrak luzaro ibilli ziran izen ori bereganatu nairik. Gipuzkoa'ko Al-dundiak, 1968'ko Epailla'ko batzarrean onartu eban eskabide ori, bidea erretzatuz. Euskeraz, len eta orain, ordiziar izena errotan dabe bertakoak.

Gaur, bide barria egin ondoren, Beasain eta bertako igariera kanpora atara ondoren, asko ez dira konturatzen erri au nun gelditzen dan. Bertara jo bear orretarako. Len erdi erditik igaroten zan, askotan nekez.

Bederatzi milla bizi lagun inguru gaur. Gizaldiaren asieran, 1.421. Gorakada ederra. Bertako eta Beasain'go industriak erbesteko asko ekarri dabe. Orain Zumarraga eta Olaberria'ra urtetan dabe bertako langille askok. Beasain, egin kontu, atean dago. Biak alkatu egiten dira igarri barik. Batzutan nastatu. Ordizia ta Beasain, eskua luzatu ta alkarrekin dantzan.

Orain zortzi urte egin ziran enkueta batzutan, Billafranka'n 1.333 ume batzen ziran eskoletan amalau urtetik berako umetan. Au da, lenengo mallako irakaskintzan. Euren artean erdera utsa ekien umeak % 66,2 batu ziran. Konturatzen? Gipuzkoa'n beste amar errik geituten dabe euneko ori. Euneke larogei ume erdaldun utsetik gora emoten daben erriak Irun, Pasai eta Donosti dira, erreskada orretan. Irurogeitarretik gora dabilte, goitu berako erreskadan, Errenderi, Urritxu, Lazkao, Zumarraga, Andoain eta Ernani. Ondoren Segura % 66,6'gaz eta gero Billafranka.

Orrez gain, erderaz ondo ta euskeraz makal ekienak, % 15,1. Erdera ta euskera ondo % 11,5. Erderaz txarto ta euskeraz ondo % 5,9. Eta euskeraz bakarrik ekienak % 1,3.

Ikusi daikenez, irutik bik ez ekien euskeraz berba egiten.

* * *

Merkatu egunez erri bete eta joan etorri andikoa da erri au. Ez bakarrik ingurutatik. Napparroa'tik be saltzale ugari etorten dira. Erosleak edonundik. Bilbo aldekuak be ugari ezagutzen dira emen. Tratarientzat, eskotan, ementxe markatzen da iragaltz (fruta) barrien sal-neurria, sasoko janari eta gauzen balioa.

Luzaroko entzutea dauka merkatu onek. Ba dira berreunen bat urte astero gaur lez merkatua egiten dala. Aurrerago be euki zitun antzeko urteak. Baiña obago izango zalakoan aldakor egiña be ibilli zan, eta orrela ebillala eta merkatuentzako lege barriak agertu ziranean, ezin lortuta ibilli ziran asteroko bihurtzera. 1512 urtetik datorkie ordiziarrei orretarako baimena, baiña baimen agiria galduta eukenez, milla traba. Uste barik, bat-batean eskribadu baten etxean billatu eben 1787 urtean agiri ori eta orrela barriztatu oitira.

Merkatu aberatsa egiten da eta jatorra.

* * *

Ogei kilometro lautura ez da eluzen, lurrez, Billafranka, 19,5 ain zuzen. Muga erriak: Beizama, Arama, Isasondo, Lazkao eta Beasain.

Lengo denporetan erri ertsia, ormaz inguratu izan zan. Iparralde, Garagartza eta Gaztelu izeneko atek. Bai beste ate zaindua be. Kaletan, ezkerreko geienetan lez, iru jator: Erdikoa, prazira nauaiak erditibuta; Goien kalea eta Eleiz kalea. Istori luzea dauke kale zarrak. Orain eun urte 91 etxe batzen ziran erri buruan, eta 36 mendia baten berretan. Sasoi aretan 1.316 lagun batzen ziran; 267 etxe-izuru edo etxe-jaun.

Lazkao'n inguruan erri asko batu ziran lez, Billafranka'n be batu edo alkatu ziran inguruetakoriak. Orrela Atan, Arama, Alzaga, Isasondo, Legerretan, Beasain eta Zaldibi, bakoitza bere jaube, baiña erri burutzat Billafranka artuta. Bakoitzak bere alkatea eukiarren, eukubiderik geienak emengoari emonda euzuban. Ardura batzutan, eskubide osoak.

Orrela iraun eben 1399 urtetik 1616 bitartean. Txikiak ugari artean, bekaizkeri asko eta, jakina, asarreak eta giro larriak askotan.

XIII gizalditik, Andra Mari eleiza parroki. Gero, XV'an azken aldetik edo XVI'etik, oraingoa.

Erria inguratzen eben orma zarreko zaindarien torrea be eleiz barriaren barruan gelditu zan. Ala ikusi da oraintsu egiñiko barriztapenetan. Bartolome Cordero'k egiña da aldare nausia. Ba dira beste edergarri batzuk. Zabala'tarren kapillan, Kristo etziña, etzana. Ikusgarria. Nuñez Delgado'rena ete? Ederrak Gergorio eta Santiago santuen kapiletako erretablauk. Azken au Goikoetxea'k egiña.

* * *

Buru barik bizi ete lei?

Gai oneri buruz Aita Nuremberg'ek egin zitun agerkeri batzutan, bateko ta besteko gertuerak aietatu eta gogoratuz, ba dakar bat erri oneri dagokiona. «Bizkaia'ko Billafranka'n be ume bat jaio zan buru barik», diño. Esan bearrik ez dago sasoi baten Euskalerrri'ko edozein alderdiri Bizkaia deitzen eutsola erbestean.

Orra Billafranka, gertaera mingarri eta erriakitsu bategatik, ezagun egin.

* * *

Gizon baten izena gogoan dauke ordiziarrik. Irudi eder bat ba dauka 1904'n berari eskiniña. Urdaneta.

Elkano ta Urdaneta alkatu bear dira itxas ibilleretan. Elkano buru. Urdaneta morroi. Munduari bira egin al izateak askoren gogo eta biotzei zotin eragin eutsoten. Orrela, Elkano baten osteria egitera gertu zanean, aibat euskaldun gaztek nai izan eben bere lagun joan. Euren artean Andres Urdaneta, Joan eta Garazi'ren semea. Ordiziar jatorra aita, alkate be izana. 17 urte. Zeifentzako ez da amesgarri orrelako ibillera aberats bai?

Ara Urdaneta «Santi Spiritus»en. Billafranka'n jaiak. «Santanak». Ordurako be egiten ei ziran eguneko dantzak. Bear bada Manila'ko mantoi ez dantza orreik egiteko oraingo oitira, ibillera onein ondoren sortuko zan. Bera Coruña'n egun orretan, itxas bidean. Iru urte igaro ziran lenengo osteran. Magallanes'ek asi eta Elkano'k amaitu ebanean. Amaika urte eta ia beste illebe bat Urdaneta'k. Irugarriak bideko bertakoak. Gose, neta, iraultza, norberekeri, gorakoen eskabide, burruka, alkar pozoitze eta eriotzak. Ainbestera gizona naskatu egiten da eta adozetara urten. Gaur ugarte baten, bira bestean, arriskurik arrisku dabil Urdaneta. Baiturak, sekuestroak eguneko janari dirala? Urdaneta'k be bere estuntzak daukaz. Eta danetara jo. Or konpon bitartekoak. Asmotxa da ta berea edozetara be aurrera eroan bear. Emakumeak agertzen yakoz bidean. 17 urte orduko ezagutu ete eban neskatillik Euskalerrri? Gaitz. Marina Molinches bat sartzen da bere loxintzetan. Alaba bat laster. Maittekerietarako andrea laga ta be, izenik bako alaba beragaz dabil. Ezbearretan gizon agertzen ba dakie inoiz gizon andiak.

Mexiko'n makurtzen da bein. Belauniko. Eta diru barik eta il arte garbitasunean biziteko eskintza, botoa egiten dau, augustindarren jantzia artuz. Barriro inditarren artera doa. Oraingotan itxastar eta mixiolari. Barriro itxasontzi buru. Konfiantzarik andien berak eskintzen dau Pacifico'ko ibillaldi bero ta luzeak artez egiteko. Itxas orratza deitzen dautse.

Irurogei urte orduko konbentu baten bare-aldian gizonki ilten daki 1568'ko udan. Azkanean be eriotzaren olatuak iruntzi. Billafranka'k, itxas lurrunik bertara eldu ezarren, ba daki itxasoari begira biziten. Itxasoak sarri daki gizonak puztuta leorrera bihurtzen.

* * *

Era guztietako langintzak igarten dira Ordizia'n. Aitz izango da ezazu lako beste erri baten aintzeste lan-era berardun billatzea. Lanaren izkuntza entzuten da kale eta basterretan. Lanak ekarri dau erbesteko jentzea. Bertakoekin kidezeko astirik emon barik.

Origaitik aisieran aiatu doguzan euneko arrigarri orreik. Kezka barik, bildurra sartzen dabe gure izkuntzaren etorkizunari begira.

Nire zeregiña, ardura orren mitez amaitzen dot gaur. Baiña urten aurretik gogora ekarri nai dot orain 250 urteko emengo bikario bat. Erri izkuntza maite eban; gure berbetak arduratzen eban, eta bere zeregiña ori zalako, Dotriña bat idatzi eban Villafrañca Gipuzkoako onetan euskeraz itz egiten zan moduan. Jose Otxoa Arin zan bere izena. Ordiziar gizon kezkatien artean leku on bat eskiniñi dagoiun.

A. ZUBIKARAI

KATUA TA SAGUA

Eguroko orretan irakurtzen ditugunontzat, oso lagun digute Nixon lendakaria. Dalako «Wategate» orretan zenbat idatzi dan! Egia esateko, aspergarri zaizkit, ez det ikusten ba noraño dijuazten. Ala ere, lenengo orritik asi ta azkenengorarte irakurtzen detanez, ezin utzi gai ori.

Ikusialak ikusi al izan ditugunontzat, bazter guztietako agintaritzak ze nolako lapurketak egiten dituzten jakin degu, ta arrezkero patxaran bizi, an edo emen; guk ezagutu giñuzten batzuk izan ezik. Baiña, gaur, gauza auk ez dute burukomin aundirik ematen.

Kontatu, laterri aietan, zigor bidez agintzen duten oietan, nun eta noiz entzun edo irakurri degu bertako nagusiak ostu duenik? Edo ta fiskoari amur eman dienik, eta ori egiñik, beren poltzikoak diruz bete dituztenik...? Ez, ez oiek ez aiek ez daukate Ipar-amerika'n duten askatasunik, eta orregaitik, eta politikak eraginda, bakoitzari komeni zaizkionak idazten dituzte.

Nixon'ek, bosteun milla dolar zor omen dizkio fiskoari. Zenbat zor ote zioten onen aurreko beste lendakari aiek, eta ixilleko beste oiek? Ongi dakizkigun berriak dira auteskunde batean bear izaten diren eraketak: lanak, baterako ta besterako ibilketak, bestelako millaka paper ta orma-erakusgarri ta abar, ta orrek eraginda zenbat diru lortu bear batak eta besteak. Nork ematen dizkie dirutza oiek, beren lagun eta asmo bardiñekoak ez ba'dute?

Alderdi batek edo partidu batek berea aurrera eraman nai ba'du, alde guztietako laguntzen billa dabil, nundik datozten eta zeinik ematen ditunai jaramonik egin gabe. Nolabait, orain irakurtzen degunetik, Ipar-amerika'n ez dute ontzat artzen diru biltze ori, eta gero, Nixon'ekin, sortzen dira eztabaida gogorrak.

Auteskunde batean, eta ongi dakit gure gazte denboratik, ze nolako eskeintzak egiten diran onelakoari edo alakoari laguntzean; irabazten ba'zun, ortan ibilliak, aren laguntzailleak jasoko izaten esker-ona: alako lekuan exeri, beste onelako lekuan jarri buru, «adulaziñoak» eta diruak errez irabaziaz... Ta, zer?

Ori izan zan eta ori izango da beti. Zer esanik ez, orain Wilson jaunakin asiak dira, Nixon jaunakin bezela, Au egin dala, ta ura erosi merke ta garesti saldu, ta ez diola ordaindu fiskoari, ta nik al dakizela aitzaki!

Gozoak galdituko lirazke, baldin guzien eta bakoitzaren irabazpenak neurtuko ba'lizazke, a ze nolako dirutzak agertuko. Ondo bizi bearraren naia, geroarekiko bildurra, zuzentasunaren-ganako siñimen makala, orrek eragiten dio gizonari lapur izatera makurtzea, ta al duncan «Patxa» bat ba'litz bezela bizi izatea... Ai, ori bakoitzak bere kontzientzia gordeta duncan latsagarri bat da, ta ez dio inori bere berri emango, esango ba'lu bezela: «Nere etxeke goraberak ni naiz zaitzeko, ta besteak ez dute zertan sarturik».

Orregaitik, egunero irakurtzean Wategate orren kontuak bakarrik, aspergarri izatera eldu zaizkit.

Ta orain zer gertatu da Paris aldan? Pompidou gixajoa il eta an batu ziran dozenaka aundiak, lagun eta etsai: elizkizunetarra denak jun, baiñan ondoren, batzuk or, besteak, alkatu ta alkar-izketetan asi; Nixon sobietarrakin, oso lagun, baita Brand, Rumor, ta besteekin ere. Ta orrekin erakutsi digute Nixon gizon aundizat dutela beren artean. Bitartean, Prantzia'ri bizkarreko ederra eman dio, ta Jobert'en arrotasunak xeltu.

Ikusten du Nixon'ek ze nolatan aurkitzen dan Prantzia: De Gaulle'n iritziak eta arrokeriak il ziran eta lurpetu. Pompidou'renak, naizta bigunak, berdin. Ta orain, Chaban-Delmas, Giscard d'Estaing, Royer, Faure, Messmer... erregalarrekin burrukan eta ezkerarrak Mitterrand jaunakin bat eginda. Ezkerarrak, sozialistak eta komunistak gurdin baten, lengo degaullistak bakoitza bere astoan.

Mitterrand jaunak irabazten ba'du, sozialistak izango dira nausi Prantzia'n, berdin da Inglaterra'n eta Alemania'n, baita Eskandinabi'ko laterrietan, Suezia'n beintzat eta Portugal ere bide ortan. Ez dira baiñan denok bardiñak. Or zear entzun degunez, ingelestar sozialistak ez dute maite Chaban, ezta baiña Mitterrand bera ere larregirik, komunistekin bat dijoalako ta Europa, Ipar-amerika eta munduko beste arazo askotan bide ezberdinetan dabilzelako. Itxuraz, Giscard ori obeki ikusten omen dute...

Beraz, ez dakigu zeinik irabaziko dun Prantzia'n. Leengo sozialistak ere agindu zuten, aspaldi baiñan, eta ez dakigu zer nolako jokabidea maite duten gaur. MRP, edo erdikoak ere, indartsuak izanak ziran, gero baiña sakabatuak oso-osoan, gaur aben ezaugarri Giscard ori omen da, baiña berdin berdiña.

Orra nun, gerorako utzi bear, zer izango dana asmatzea.

E. OZKIN

OR-EMENKA

Nok asmatu?: Goizetik gabera, berrogeta amar urtean zindo ta sendo egoala irudian Lisboa'ko jokabide zarra, ankar-gora. Ordu banaka batzuen eragitean.

Orain, beste Jorral bat be gogora. Ta, lengoak barriztu ez daitezkan urduri: Itxiko ete-dautse azkatasunaren ume jaiotz barriari amasea artzen, ala alde batekoak eta besteak, len-bait-len itoten aleginduko ete-dira? Ta, orrenbeste egin izan zala ta egiten dala danok dakigula gaitzera.

* * *

Beste aldean, auteskundeak. Or be, goizetik gabera auxe nabarmen: Ia ogei urte luzetan zindo ta sendo egoala irudian Prantziar Amatar orren goillistarkeri zarra, ankar-gora. Ordu banaka batzuen eragitean.

Giro-itxura batetik jaso ziran «gizandiaren koizuntzat» erriaren zaletasunaren barik, okerrakortzen bildurtean eukezan euren autarkiak, igesik. Ordeko erdiagoko zerbait, naita osoan ona izan ez Giscard jakonean, «gizandiok» bakarrik, erriari aukeratu erretzeko, «gizandiok» bakarrik, geratu dira, aulki aundietan lo.

* * *

Orain, bat-bateko era-barrizteak dakarren Villafrañca'ko erria. Mitterrand ala Giscard, ala bestera? Biak urrago litzazke, txarto ibilliaren ondorenak ez ba'leorikiez tartera; urrunago daukean badaezpada leorik lotuta ez ba'legoz: Marchais eta Messmer.

Errezagoa ta ohea, Giscard, ezin bestean, Lendakari, ta Mitterrand Jauriaritzako buru izatera ba'letoz (Utopia'ren fasea, au be), Lecanuet, Mendes France ta Servan-Schreiber tarteko dirala, erdi-bideko jauriaritza bat osotzen. Oba litzakela erdiagoko bat? Orize bai, baiña beste au be ezin lortu; ortxe, eskuan izan arren.

* * *

Ta, diñozenak egiak ba' dira, Mitterrand dago irabazteko bidean; ba-litzake lengo ekiñaldian bertan lortzea be. Orrela, J. F. S. S.'ek ederto sartu lei bere anka; ez dau ba esan, lenengo txandakoa ikusi ondoren esango dabela noren alde joango dan? «Listo pasaua» gertatu leikio oraingoa!

* * *

Azken azterketan ikusi daikenez, Chaban'ek beste % 3 zale galdu ditu; Mitterrand'ek irabazi dituanak eurok. Zeintzuk ete? Goillistar ezkerarrak noski. Ikusi al izan dabe ba, bikartean, Chaban'en lagunak ez daukela zer-egirik; goillistarren buztin-nezko oñak agerian geratu dirala.

* * *

Lenegotik Mitterrand nagusi? Bigarren ekiñaldia jo bear? Bien bitartean, auzoan bizarrak moztuten...

UBITZA

Jaun Audiak

Gure egunotan, eta epe labur baten barruan, jaun aundi batzuen jaustea edo jausteko erriskua ikusi dogu. Laterri aundietako buruak damotset gaur «jaun aundi» izen au.

Jaun oneik, izan be, geienak urte gitxi-rako aukeratuak izan arren, ospe aundia lortzen dabe gure artean. Beste gizonen gainetik, antxiñako Saul'en antzera, agertzen jakuz. Gogoratu dagiguzan Gaetano, Pompidou, Billi Brandt eta Nixon, Golda Meir be aitzu barik.

Erriaren aurrean utsen batzuk egin zitualako, betez be kolonikeriagaitik, Portugal'eko gudari-buruak gogorkeriz kendu eben Gaetano. Ez zan beste batzuen bestean ospetsua Portugal txiroagoa dalako edo, baiña ugartetxo baten, ixil-ixilik, bizi da bere lankideakaz, bere arerio irabazleak zaintzaille ditula.

Guztiak ekien Prantzia'n euren lendarakaria gaitzirik egoala, baiña gaizo ori inork uste eban baiña astunagoa zalako edo, ustetik gitxi zanean, il zan Pompidou ospetsua eta berak itzi eban uts-una betetzen diardue su ta gar prantziarrak. Au, gizonak, ez dabe kendu, berak be ez dau itzi aginpidea... Beste dei bat, guztiok gero baten izan bear doguna, izan, dau. Eriotzeak ez dautse begiratzin gizonen aundikeriak, jauregiatara ta txahole-tara itzaltasun bardiñagaz sartzen da.

Eta zer jazo ete jako Alemani'ko Brandt kantziller ospetsuari? Guillaume azpikariagaz bigunegi jokatu ei dau, eta berak itzi ei dau agintaritzea. Ezelako gogortasun barik, ixiltasunera, beke-bakean doa Brandt ospetsua.

Antzekoa da Nixon'en auzia. Baiña au ez doa bere gurariz agintaritzea izitera.. Kendu egin bearko dautsoe. Aspaldiko izparringietan ez da gitxi aiatatu «Watergate». Or be, beste gauza askoren artean, ba dago «espionaje» edo azpikaritzea ugari.

Jaun aundiak be euren utsak egiten ditue ba, eta uts orreik agertzen diranean erriak ez dautse parkatzen, eurak be erriaren eskari au ontzat artu eta agintaritzea izten dabe sarritan.

Argitasun au gure denporetako aurre-rrapen bat dogu. Antxiñako erregeak eta agintariak olako utsak eta aundiagoak egin arren be, ez eben agintaritzea izteko asmorik izaten. Arein azkena, erria nekaituten zanean, odol-eriotza gogorra izaten zan. Ba daukaguz ba gaur garbikusia egiteko bide zuzenak, eta au pozgarria da. Ainbeste eriotza, lapurreta, zigortze ta oratze daukaguzan aldi onetan, olako argi-izpi bat ez jaku txarto etorriko.

Politikako gizaundi onei, euren eguzki-sartze ordua eltzen jakenean, gizarteak esker onez erantzuten dautse. Geienetan ixiltasunean, baiña bizitza baketsua izateko era ez dautse ukatzen. Orrez gaiñera, irabazi ona geratzen jake euren bizitzarako: gitxienez be lanik egin barik ondo biziteko beste.

Gero gizaundi barriak laster sortzen dira. Zelako ardurea euren jokerea zein eta zelakoa izango dan ikusi arte!

Ez dira barri txarrak orain arte artzen doguzanak. Gaurko gizaundiak, astiro baiña ez ba'da be, gizarte-zaletasunerantz eta demokrazi edo erri-agintarizarantz ez ete dau jotzen? Pozgarria da au be. Argi izpi-bat, au be.



GIPUZKOA'KO BASERRIAK

Lotsakor da Inaki Linazasoro. Itxura baten dirudi. Eta bildurti. Bai? Sartu atzamarra aon eta ikusiko dozu. Ez dakizu zorroz-arriak saltzen ibiltzen danik?

Adiskide gara. Askotan pentsaten dogu batera. Ez da gaitz Euskalerrian lan egin bear dala konturatu eta alkar berotzea. Bakoitzak bere saillean, jakiña. Asper-une barik lanean diardu berak. Txaloak.

Donosti'n nitzan oraintzu. Liburu barri bat agertzeko zan egun aretan, Gipuzkoa'ko Aurrezki Kutxa'ren babespean. Seigarrena nire kontuetan. Zazpigarren bat bidean dauka. Euskeraz batzuk, erderaz besteak, beti be gure erraren min eta kutsuz. Oraingo au ez da euskeraz, baiña euskerari zor geiago dautso, erderari baiña. «Caseros de Guipuzcoa» dauka izentzat.

Ez da liburu jakintsua, mamintsua bai. Ez da literaturako liburua, baiña elertiko liburu askori argi-bidea emongo dautsana bai. Langille amorratu eta aspergaitz baten liburua da. Euskalerrian'n premiñazko.

Gipuzkoa'ko erri guztietako barri dakar, baserri-etxei buruz. Au da, erri bakoitzean zenbat baserri dagozan, izenak, bertan bizi diranak etxe jaube edo erreteru diran, inor bizi dan ala utsik dagozan, askotan noiztik datorren etxea dan. Orrela, 8.820 baserriren izenak datoz, 87 errietan bananduta. Orrez gañera, erri bakoitzean baserrietako jatorriz datozan bizilagunen jakingarriak.

Lan au, erdaldun batek egin ba'leu, izen askoren arrasturik ez gendun zeatz irakurri eta jakingo. Inaki'k, etxe bakoitzari bere izena jator adieraziz, askorentzat eta betiko, lan sakon, onuragarri, eskartu eziñekoa egin dau.

Bizkaia'n beste olako bat egingo ba'litiz, gure abizenen azterren asko eta izate asko jator eta kutsu barik agertuko litzakez.

Inaki, azpalditik, Gipuzkoa'ko ur, ibai, mendi, ikuspegi eta paisajearen garbitasunaren alde jokatzin dabil. Garbitasunik ederrena baserrien izen eta deituei emon dautsa. Ixil-ixilik, alai-alai. Ezer egin ez dabelakuan. Orra, 1972'urtean, Gipuzkoa'ko baserriak jator.

Autopistak, fabrikak, errien anditzeak, industrien premiñak eta gaurko gora-berak, urte gitxi barru eurerariko asko jan, iruntsi, austu edo zapalduko dituez. Abizenak jarraituko dabe.

Euskaldunentzat liburu jakingarria da. Erdaldunentzat, batez be gure errietara datozan eskribadu, lege-gizon eta kontu-artzalle askorentzat, mai gainetik kendu ezin leikien liburua.

Willy Brandt gizona

Gaurko bizitzaren aldakuntzak ikaragarriko abiadea daroc. Adibidez, Portugal'en egun batetik bestera, gitxienez uste zanean, eta itxuraz sendoen egoan agintaritzea gogor-zalea, ankaz-gora bota dabe. Alemania'n ostera, Willy Brandt gizon argiak lendakaritzea itxi bear izan dau... Auzoko laterrietara begira, gauza asko ikusi ta ikusten dira, pozgarriak batzuk —Portugal'ekoa— baiña ez orrenbeste besteak.

Gutzat beintzat, azken onetarikoa izan da Brandt'eri jazo. Iritziak irritzi, geienetan gurekin bat, gizon jatorizat euki dogu beti: jokaera zuzenakoa, pakezalea, gizarte bardiñaduz barriztatzaillea, eta demokratea. Lerro oneik idaztean, ez dakigu argiegi zer jazo dan, ezta saldu dauan «Judas»ek, Guillaume dalako orrek, zer esan legikean, baiña Willy Brandt'en itzak garratzi aundikoak dira, gure ustez: «Agintaritzan egon naizen bitartean ikasi ditudanak bultzatu nabe, politikari ta gizon bezela, nere nortasuna ez apurtzeko ta idatzi bako demokrazi jokoaren arauak ez zapaltzeko alegiñak egitera».

Zer jazo dan jakin ez arren, gizon eta askatasun zale bezela jokatu dabela, dakigu. Euskal Erria'k izan dituan «bere» gizon aurrerakoien antzera, eta erudugarri.

Uste dogunez, betikoa: gizon zintzoegia, bear ba'da, errugabea, bere taldeko batzuen zitalkerriz erreta! Bakoitzak bere burua ideoloji baten alde erretzen dakien gizonekin, edonora joan leiteke, ez bestelakoekin. Brandt'ek, asmorik onenakin, alemandar guztien batasuna lortu nai izan dau, dalako *ostpolitik* bitarteko. Baiña betikoa!, demokratek gogorzaleekin artu-emonetan asten diranean.

Ertz bietakoak, eskumatarrak eta ezker-tarrak, ez dakie demokraziari dagokion joko garbirik gordetzen, eta ori izan da Brandt'en galbidea: komunisten azpijokoa.

Portugal'en bertan be, demokrazia ta askatasunarentzat atek iriki dirala dirudi, baiña, ona emen gure kezka bakarra: erriarentzat askatasuna lortu danean, eskumatar agintari gogor-zaleak ankaz-gora jaurti al izan diranean, jakingo ete-dabe beste ertzeako askatasuneari jokatzen? Etorrizuna izango dogu erantzule.

Euskaldunok be demokratea izaten aztu ete-dogun nago, edo obeto esateko, ikasi ez ete-dogun eta giroaren seme-alaba ete-garan.

Aspaldian erakutsi gendun gure jokoak; beste batzuk eraberean jokatu ba'lebe, ez gendun erriaren aurrean azpi-lanik salatu bearrik izango. Erria, ta batez be, gurasoak itxartzearen alegiñak egin ditugu, eta orretan jarraitzeko asmotan gagoz. Iritzien zabalasunean, batzuk uste daben baiña aurrerakoia-goa gara, bardiñazalegoak, baiña ez itsu-itsuan edo txoriburuen antzera. Alako edo olako taldeari ez geunkio zabalkundea egiterik ukatuko, ez orixe, baiña aurrez aurre, gizonki.


Gure jokaera, eta batez be, gure idazlanak dirala-ta, «satorrak» barriro be, azpilan eta sasi-kumekeri zikiñean diardue: «Correo Español»eko zuzendaria naizela, ekintzaille zauritu bateri osatzea ukatu ez-eze, salatu be egin nebala... Oraingoan, Zestua'ko gazteok, eta urrengoan bear ba'da Euskal Erria'n zear ezagutzen ez nozuenok, borondate onekoak ba'zaree beintzat, olako guzurrekin jatorizuezanak, ez dabe zuen laguntzarik merezi. Egia jakitea ez litzake zuzentzat zailla izango-ta. Olakoak asmatu dituanak, ez du zuen aurrean oinkada askorik emongo.

Gizarte arloan, ekintza arloan, izkuntza arloan, iritzi ez-bardiñak izan geinkez, baiña inoiz alkar-izketarako giorrik lortuko ba'gendu, demokratea zintzo bezela jokatu bear genduke... bestela, galtzaille, gure erria.

Asieratik, egieren alde gure buruak erretzea, erabaki gendun batzuk (politikari bezela, esan nai dogu), naizta bein baiña sarriagotan banatzailetzat salatuak izan. Baiña gure, batasuna nai dogu, aurrez aurre gizon bezela alkar-izketa bidez lortu leikean batasuna, naizta alakorik, oraingo beintzat, urrun, lurrin artean ikusi.

Bitartean, arnagarri dira gutzat, munduan zear su bako «bonzoen» antzera, ideologi baten alde euren burua erretzen dakien gizonak: Willy Brandt lako gizonak. Olakoak izango dira erriaren barrizaille ta askatzailleak, ez bits-utsa diran berbalapikoak.

Kondaireak epaituko gaitu!



Labaien'dar Andoni M.

EUSKAL-IDAZLE BIKAIN ETA UGARIA

Alaxe da, gure Labaien'dar Andoni Mirena jauna: *euskal-idazle bikain eta ugaria*, 1932-1936'gnetan, Donosti'ko «Antzerki» aldizkariaren Zuzendaria izan zan ezkeroztik, eta orain arte, gure eguneroko, asteroko ta aldizkarietan ugari idazten jarraitzen duana, eta orretzaz gaiñera, 22 Euskal-antzerki liburu argitaratuak dituana.

Bere idaz-lanak, beti sakonak, eta jakingarriak, benetan txalogarriak; gure errietan atsegintsu antzeztuak izanak diran bere antzerki edo teatro ugariak.

Ortaz gain, euskal-gaietan jakintsurik ba'da, gure artean, aurrenetakoa degu Labaien jauna. Euskal-erri'ko izaera ta oiturak oso ongi ezagutzen dituna, izkuntzalari aparta, euskaltzale gogotsua ta Euskaltzain osoa, gaiñera; baiña... zori gaiztoko «baina»,! gure Lekuona jaun agurgarria Euskaltzaindia'ko Lendakaritzatik —maltzurkeriz— kendua izan zan ezkeroztik, izkuntz-alkarte ontako illeroko Batzar'etara geiago joaten ez dana, beste euskaltzaindiko asko bezela...

Labaien jaunak, gure izparringietan aterrik gabe idazten dituan idazlan irakurgarri ta jakingarrietaz gaiñera, argitaldu ditu, oraingoz, idazti edo liburuetan, ondoren aipatzea merezi duten antzerki-liburu ugari abek:

- 1921'gn urtean, «Txinparta Buruzagi».
- 1930'gn urtean, «Ostegun Gizena».
- 1932'gn urtean, «Maya».
- 1932'gn urtean, «Mateo Txistu».
- 1932'gn urtean, «Euskal Eguna».
- 1933'gn urtean, «Iparragirre».
- 1934'gn urtean, «Berezi».
- 1934'gn urtean, «Irritzaidia».
- 1935'gn urtean, «Gizon bizarpeitu...».
- 1936'gn urtean, «Irunxeme».
- 1954'gn urtean, «Muga».
- 1955'gn urtean, «Lurrikara».
- 1956'gn urtean, «Jostuna».
- 1956'gn urtean, «Petrikillo».

- 1960'gn urtean, «Jokua ez da errenta».
- 1961'gn urtean, «Galtzaundi».
- 1962'gn urtean, «Malentxo alarguna».
- 1965'gn urtean, «Domnejon Gipuzkoa'ko Erregea».
- 1966'gn urtean, «Su ta gar».
- 1967'gn urtean, «Perretxitu jatea».
- 1967'gn urtean, «California... kuku!».
- 1967'gn urtean, «Tajuz eta Zentzuz».

Erderazko liburu batzuk ere, baiditu argitaratuak, oso irakurriak izan



diranak: «Teatro Vasco» eta «Sasi-Batasuna», batez ere. Laister, euskeraz, beste iru argitalduko ditu.

Egiñalak egin, gauza batek nauka ni, guztiz arriturik, alegia, gure errietako Antzokietan ain txalogarriro antzeztuak izaten diran Labaien jaunaren antzerki guzi oien eskergarri, Euskal-antzerki taldeak ez dietela «Antzerki-egun» on baten bidez, ongi irabazitako Omenaldi egun bat, oraindik eskini... berari.

Arrigarria auxe, benetan!!!

ZELETA

Antzerki Aiek Gogoraturik...!

A. M. Labaien jaunak idatzi dun antzerki gaiak «Teatro berriaren billa» idaz lanean (AGUR 130'garren zenbakian) ta orrek eraginda natorkizue zerbait idaztera. Ez da oraingo kontua, gure guda aurretiko gertaerak baizik.

Urte aietan, GETARI'n egundiko aurrera izan zun antzerkiak. Nola sartu? Noiz agertu? Nun ortarako antzokia? Ala ere, neu nitzan burutzat ibilli nitzana beste lagun gizonezkoekin ta zer esanik ez Juliana Garmedia ta beste andereño batzuekin.

Lenen egin bear gendun pausoa, lekua antolatzea izan zan. Getari'n, naizta antzoki lekuri izan ez, ba-zeunden ortarako moldatu leizkean tokiak.

Auek antxo latetako ziran. Ez da aztekoa, lenengo aldiz nola moldatu gendun antzokia. Kanpos Felizita zanaren bodegan izan zan. Ezenayua jartzeko tinak bildu genduzen eta gaiñetik tabloiak, beauek antxoak gaxitzekoak ta gero antxuak latetan jartzen ziranian, oiek gaiñetik, arriz ezalita. Oiek ziran moldaketak. Gero trapu aundi ardin edo berde batekin itxi, ta aurrez, jarleko edo silla pilla bat.

Sarrera oso merkea, amar xentimo edo zerbait geiago ordainduaz. Egundako arrera ona izan zan, ta bete-beteak beti erritarrez.

Lenen buru ta maixu Dn. Franzisko apaiz jauna izan zan, onek ze nolatan lan egin bear gendun erakutsi zigun. Dn. Franzisko il zanian Juliana Garmedia izan zan zuzendari ta nik aukeratzan nitun gizon eta andreak eta ze nolako lana egin bear zun bakoitzak. Jakiña, «galan» edo ortakoa nintzan... ta ez dira aztekoak egun zoragarri aiek, ze nolako indar bizia artu zuten. Gogoraturik orain...! Emen idatzi nai ditut neska-mutil aien izenak. Segunda Zubillaga, gaur Ondarru'n izi dana, bere senar Felipe Balenziaga'kin. Benito Uranga, ta xaberi Malen Uranga, Sole Balenziaga, Teresa Ituarte, Rosario Uranga, kontaxi Mutilletan ostera, E. Ozkin, Julian Balenziaga «Ezkerra», Silbestre Isasti, Baltasar Garmedia ta onen arreba Juliana Garmedia maistra ta erakustaille.

«Ongillearen Sariya», Garitaonaidia'tar Bitor'en ipuia; «Ametz Gozuak» Jose Elizondo'na; «Itziartxo», Garitaonaidia berana; «Aitona ta Billoba», au ere Bitor'ena; «Bateko Urria», Ramon Illarramendi'rena, ta... abar eta abar, ez naiz bestien izenaz gogoratzen.

Guzietatik «Itziartxo» oso zan ederra. Nere lana Xabier'ena zan, eta Kontxesi Iribar, Itziar. Morroia Baltasar Garmedia, ta ez zait azten oraindik, morroia itz egiten asi zala, nola jo ta bera erorizan ezenarioaren barrura. Zergaitig? Ba, tiñen gañian zeunden olak mogitu edo ziralako, erori zan azpira. Jendeak, aiek barreak...! Usteko zuten ala gertatzen zala kondairan, antzerkian, ta ez zan noski egia. Alako zaragata atera zun morroi gizajoak, bizkarrean egundako miña somatuaz, ta begira zeunden egunkak, asi ziran barrez, eta gu ere, ezenarioan geundenak, berdin egin gendun. Zer esanik ez Dn. Franzisko apaizak ortako zegon zulotik...! Urteak ziran aiek!

Gero, soldadutzara joan nintzan ta bi urtean ez nun lanik egin. Soldadutza bete nunian urte berean eldu zan guda mardarikatua ta arrezkeroz guzia deseinduta gelditu. Lenengo urtean toki batean lan egin zan, bigarren urtean beste leku batean, ta an ez zan besterik jaten, arnas artuaz, antxo usai ta koipea besterik... Azkenik, oso antzoki aundigoan lan egin zuten Alegria Lasa'tarren antxo fabrikian, leku aundi ta zabalagoa izanik.

Ogeitaka urte egin ondoren Ameriketara, Getari ezin ezaguturik negon. Sortu zuten Antzerki eder ta aundia ta baita ere noiz beinka bertan antzeztu.

Gatu zer? Antzerki-erleku nai ori itxita dango, gaurko zineak egiten asi ta ortan gelditu dira gure orduko naiak. Esan geinik gaurko gaztediak ez dula gure orduko pentsakerarik. Gaur, beste jolasketak dituzte, beren gozoko dantza tokiak, eta mundu ontako jokaera ez da berdiña.

Aurrerapenak eragitzen ditunak dira auek...! Guk orain zer? Gogoratuaz, negar egin, ta kito. Guzia galtzen, izkuntza azten, oiturak zikintzen, jitz eta pitz usteltzen ta... zer geiago esan nik? Guzia esana bait dago...!

E. OZKIN

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanek jabe egiten Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, bereko, politiko naiz ondasungarri asmoen gaiñetik daben iritxi-onoeko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egileak dira.

Agur au, bere zuzendaria ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M.^a MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guturako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK
OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

ZAZPI-KALEAK



CASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIQUEAK

GAZTE

IGORRE'TIK

Ez dakit poesia ba' da,
ala negarra dan;
ez dakit zer dan,
baiña bakarrik dakit
biotzeko kantua dala.

JORRAILLAREN Pa,
LANGILLEEN EGUNA
ALA NEGAR EGUNA?

Makiñaren durunda, lantegiko autsak,
agintarien alaruak, sari mixerableak.
Lanak apurtu bear zaitu, langille;
kapitalistak ez daude iñoiz korforme:
«Geigao, geiago».
Zuk, langille, burua makurtu:
«Bai, bai», esaten dautsazu.

Zortzi ordu gitxi ba' dira,
amar egin bear dozuz;
oneik gitxi ba' dira, orduan,
jausi arte jarraitu bear dozu.
Ai langille, langille!
Gizartearen egille.

Zure ogiaren zorraille,
kapitalisten jarraitzaile.
Lagunak lanetik bota dituez,
areik be semeak daukez,
areik be ogia bear dabe:
«Semak negarrez, emakumeak negarrez,
danak negarrez».
Zuek burua makurtu:
«Ondo dago, ondo dago», esan dozu.
«Jauna emon dirua,
semeak gosez, emakumeak negarrez,
emoteko ogia».

«Langille! Ez dakit zer dan dirua;
ez daukot dirurik;

ezin dautsut emon nik,
bestela ez dozu egingo bearrik.
Baiña artu arri ori,
semeen gosea asetzeko.
Artu baita, izara ori,
emakumearen negarra kentzeko.
Artu, artu, bildur barik!».

Baiña ez ikaratu langille,
zuen abotsa ixiltzeko,
zuen negarra legortzeko,
Kapitalista jaunak emon dautsue
Maiatzaren bata!
Egun orretan dana aztu dozu:
semearen negarra, ogi-eza,
sari mixerablea...
baiña zuk, langille,
belarriak gortu dozuz,
Zuk langille, begiak iriki dozuz.

Ez da naiko mozkorrak artzea,
ez da naiko ikusi ez nai izatea,
ez da naiko, ez, kobarde izatea.
Zu langille, kobardea ete-zara?

Dirua autsa,
negarra semea,
ogia dirua kapitalista.
Langillea dirua,
mozkorra dirua,
dirua ogia,
kulturea dirua.
Dana dirua...!

IGORRE'KO IRRINTZI

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra

BILBAO - Casco Viejo

Tenderia, 15 eta 16

Alkateak

Ikusi, entzun, aztertu...

Erri txiki geienetan, bertako alkateak ordu gutxi igaro oi dituzte beren erriko arazoak zuzentzeko, edo beste modura esanda; arazo oietzaz arduratzeko bear luteken orduen jabe ez dirala. Zergaitik? Beren eguneroko egin-bearretik aparte ari bear dutelako erriarentzat lanean. Onek, arazo bat dakarki, ene iritziz: iñoiz ezin dezakeala ondo eraman zuzendaritza. Alkate batek ez luke beste egin bearrik eduki bear, bere erriko arazo ta goraberetzaz arduratu eta erantzuna ematen saiatzea baizik. Alare naiko lan izango luke-ta.

Zergaitik ez, sari bat ordainduz ez dira jartzen alkateak? Zergaitik ez luke izan bear alkateak, erriko idazkaritzaren antzekoa? (Ordu batzuk lanerako, zortzi, amar?, ta sari bat eskeiñi lanaren ordainez?).

Gauz bat dago argi eta garbi, gaur egun erri txikiak ere abaida guzian aunditzen ari dirala, ta derriorez arazoak ere gaintzen joango dirala, eta bear anitzeri erantzuna emateko ez dala aski borondate on bat agertzea.

* * *

Españi'ko artista sonatu batzuen albisteak irakur al izan nituen, Barcelona'n argitaratzen den aldizkari batean.

Zineman beti edo ia beti, España'n beintzat, artisten gorputzari garrantzi geiago eman zaie, beren burutasun eta balioari baiño. Azken urte auetan gañera eundoko zabalkunde baten bitartez, geiago nabarmendu da oraindik arazo ori.

Orrela bihurturik dago gaur zinema. Emakumearen izter, gerri eta bularraren edertasunari leku emanaz. Talentu aundiko emakume artistak gaur egun ez du lekuri, alik eta len esandakoak ez bai ditu sobera betetzen. Len esandako guztiak, goian aipatutako aldizkari ortan, nabermen-nabermen azaltzen dira Ikus:

Sara Montiel'en, esate baterako, gerriaren neurria 90 cm. omen da, paparra berriz 93, Carmen Sevilla'k ere bere neurriak, eta orrela, beste 40 edo geiagoren izenak azaltzen ziren beren gorputzen neurriekin.

Nik diot. Noiz asiko ote dira, beren benetako balioaren neurriak argitaratzen edo «artista» abek ez al dira irixten neurri oietara?

Tolosa'ko perian bei baten errapea neurtzen ibiltzea, ez dago gaizki, baiñan emakumeakin tira, tira...

RAMON ZAPIRAIN

Gurutzea ta Ezpata

Albiztur, erri izkutu berezia benetan. Zuloan sartuta egon arren, ta naiz txikia izan, oso da ikusgarria.

Bere Eliza, aparta da, ta Erri-etxea berdin. Etxeak, ederrak dira ta apaiñak. Baserriak ala jauregiak? Ala biak batera?

Or nunbait, illobi beltz aldean, kukuaren kanta ixilla. Alperrizkoa? Babiliteke. Ainbeste euskaldunen lana bezela? Lana ala azpi-lana...?

Ostiral Santuan gaude. Egun luze ta aztuna benetan... Zergatik? Elizkizunegatik? Albiztur'ko Eliza ia beteta dago. Bean, emakumeak. Goian, gizonak. Emen eta an, argizaiola ugariak... denak piztuak. Beren argia ez da da nolanaikoa... ba-du misterio bat-edo...

Aldare aldean, Ama Birjiña, beltzez jantzia —Doloretako. Jesus, gurutze aztunarekin zumatua —Nola ez? Ta, Mikel Deuna, bere ezpatarekin eta guzi.

Gurutzea ta ezpata... Gorrokeria, denentzat kaltegarria. Orain eta beti. Beste indarrrik dauka gurutzeak! Indar apala ta sakona. Amodioarena. Azkenean, Maitasuna beti garaille. Ta, orain, iñoiz baiño geiago gañera.

Iturri aundi ederrean, neska-mutil batzuk jostatzen. Gelditu dira. Ez al da zoragarria? Iturri bikaiña benetan, Juan Simon eta Francisco M.ª Labayen'en diruekin egiña. Orain eun urte dirala.

Ebia azten da... Albiztur'ko Pakea zerutarra da. Or goian Goyatz, nere



aurtzarako urrumaren txoko polita. Nola aztu? Ebiak ondatu du prozezioa.

Bai, Arenaza jaunarekin nago. Arrazoia dauka. Baiñan zer egin bear degu orain? Bere liburuan guzia beltz ikusten da... nere ustez beintzat. Gutxi gera, ta Euskeraren etorkizuna oso illuna agertzen da. Lana, denen artean egin bear degu... ala ez?

Ebia, beti ebia... ebi motza... itxia.

Il-kutxan gelditu da gure Jesus, lotan. Il, lo egin... piztu... baiñan, noiz? Dana dala, aurrera beti!

«Kristorenak, kristorenak gera...»

Euskera, bai... Politika, ez. Politika, «droga» txarra benetan, ondatzaillea.

MATXIN

LORAILLA

Alaya ta pozkarriena danontzat. Andra Mari goretsi ta maitatzeko illa. Ondo gogoan det, orain 50 urte, Gipuzkoa'ko errietan, eta Bizkaya'n be, arkitu nintzan iñoiz. Igande arratsalde batez, Eliza gaztediz betea, bai motill eta neskatill, zeru txiki bat zirudin Elizak.

Errosario ederra eta abesti zoragarriak, lorak eskeñiaz Ama Birjiñari. Baiñan, nola abestu? Idako bat pitutzeko aiña, oso ederki. Antziñago, enezake esan nola izango zan, baiñan gure denporan, aparta, berezia izan da, euskaldunen artean, Andra Mari'ren jayera debozioa.

Eta, gaur, esan ote genezke berdiñ? Ez ote degu gaur, Jesus'ek bere begietan zeukan Ama maitagarri ura gure amatzat ematea, aztu? Ez ote du merezi gure esker ona agertzea, eta bera maitatzea, orrelako ama on batek? Asko izango ote da, il ontako jayetan ordu erditxo bat Ama ori goresten igerotzea?

Egoa aldean agertzen dan Ecclesia deritzaion asterokoak, Epailaren 30'gnekolean, 23 orrialde osoak dakarki, Aita Santu onek itzez esan duna: Maria'ren Liturgia Elizan, «Ama Neskutzarenganako gurtzaren alde; Amarenganako maitasunaren indaberritze ta geitzea gure Elizan; Maria'k eskeintzen dio gaurko gizonari Itxaropenaren geraitza». Izenburu onekin, ta azkenean: «Aremaitakoa ta Agurtza, Berri-Ona'ren mami ditugu».

Ez dakit apaiz jaun guziak artzen duten aldizkari au, baiña uste det, andik edo emendik, jakiñean egongo dirala; Aita Santuak, Gotzaiak aitatzen ditu, abadeak eliztarrei adierazo, ta Maria'renganako zaletasuna piztu ta berotu dediñ eliztar eta mundutarren artean. Eta eginkizun orren zati aundia, apaizen baitan dago.

Ba-dira urte nabaitzen dedala, Andra Mari ta Errosarioaz oso gutxi itz egiten dala. Ez da komeni apaiz denak toki baten sartzea, baiña ba-deritzat, ba-dirala ainbat, Ama Birjiña ta Errosarioa, gordean edo oso gutxi aitzaten dutenak.

Azkeneko urte auek kenduta, ez daukat gogoan Urrilleko illean, Errosarioaren aunditasunaz eta bikaintasunaz itzaldi bat entzun gabe izan denik. Baiñan, azken aldi ontan elizgizonak ikusi ditut, Urrillan, Berri-Ona edo beste itzaldia eman, eta Errosarioa aitatu ere ez. Bada nik, au esan bear: Andra Maria'k berak jakingo du, apaiz oyen biotzetan zelako maitasuna ote dagoan, Ama maite orretzaz.

Larregikeria, maitakeria, gurenkeria zala, salatu ziguten, orain urte batzuk, erriak Maria'ganako zun zaletasuna. Gutxitu egin bear zala... aiek joan ziran geyenak Elizatik, utsune aundia utzirik erriaren biotzetan Maria'ganako maitasuna gutxituaz. Larregikeria aitzaki, «ezer ere ez» eskeintzen digute orain.

Aita Zerukoak, Maria'ren birtartez bialdu zigun bere Semea guregana, eta guk Jesus billatu nai ba'degu, Maria degu bide ori, ta bide orretati, zuzen elduko gera Jesus'gana:

«Goazen, goazen guztiok
Birjiña Ama'gana,
eskeintzera biotzez,
loratxo eder bana,
loratxo eder bana.

Lora mota guztiok,
lurraren gainean,
Zure antzeko dira
edertasunean,
edertasunean!»

SOIÑU - ZALE

III. Batasuna

Gizona besteekin batasunean bizi izateko egiña da. Bakoitz izanik besteekana jo ta besteekin elkartu. Bakoitztasunari eutsi ta besteekatasuna landu, besteekin batuz. Inor ezin da bere buruakin batu, batzekotan beste bat edo beste batzuz bear ditu. Jaungoikoa bakar dalako ezin da beste jaungoikotxuakin batu. Bat da, bakar da.

Gizonak bat eta bi baño geiago gera, euskotarrak ere bat eta bi baño geiago; baña batasuna bear degu, elkar batzen alegindu bear gera.

Nola baña? Bakoitzak bere bakoitztasuna zainduta, bakoitzak bere nortasuna gordez, bakoitzak besteen bakoitztasuna ta nortasuna ezagutu ta lotzaz artuz. Basamaurtuan bakarreran naiz gizartean beste gerala, baserrian naiz uri aundietan, gizonak besteekana jo bear degu, besteekin batu ta elkartu bear. Besteek ere gu bezin gizon dira, beste euskotarrak ere gu bezin euskotar. Nola elkartu ta batu? Amen koska ta koroska.

Geure eskubideak zainduta ta geure egin-bearrak betez

Bizitza-Eskubideak. Euskeraz daukagun itz eder eta bide polita. Esku-bide. Eskuko bide, eskura datorkiguna, eskuz artzen deguna, eskuz ematen deguna. Giza-eskubideak! eta lenen lenengoz bizi izateko eskubidea. Eta nire eskubideak besteen egin-bearrak elkartu ta batzen dira. Besten eskubideak, berriz, nire egin-bearrak. Nire alboan bat edo bat gosez ointxe ilten ba'dago eta nik bear ez detan janaria euki, nire alboko bat edo bat orrek bere eskubidea dauka nire janaria artzeko eta nik areri laguntzeko bearra. Janari ori, bere bizitzarako bide bakarra ba'da, nirea baño geiago da berea, naiz ta neure lanez-edo nik lenago nerea egin nuala.

Jakiña! neu ere gosez ilten egon ezker nerea da; baña bestela ez. Giza-legez nerea zana bizitza-bidez eta izate-bidez bestearena biurtzen da. Giza-bideak ezin du izate-bidea ezeztu. Giza-bideak eta elkar-maitetasunak beste oiek elkartu ta goraltzera beartzen naute. Nire egin-bearra da aren eskubidea zaintzea, arekin zainduta, arekin bat egitea, giza-batasuna. Aien egin-bearra da nire eskubidea zaindu ta indartzea.

Bakoitzak geure aurpegia daukagun bezela, daukagu geure izakera. Batak besteekin elkar bizi izateko, besteen aurpegia ontzat artzen duan bezela, bakoitzak besteen izakera ere ontzat artu bear du, izakera ori elkar-bizitzan borobildu ta edertzeko. Elkar lagunduz, elkar argituz, elkar maitatuz, elkargana jo, batasunera etorri. Al dala, guztien bidera jo. Guztiek derabilten bidea nun edo an, norako edo arako zuzena izango da. Guztien biderik ez ba'da, geienenera jo eta bide ori edertzen lagundu.

Geienak burua gora ba'dabiltz, zegaitik gu buruz bera eta besoakaz ibilli? Baña bat edo batek, anketako ezurrak bigunegi ditula-ta, oñez eta zutik ibilli eziña ba'du, ibilli dedilla besoakaz edo lau oñez eta orrela besteekin elkartu ta batu. Au ez da eziñezkoa, au litekena da, au egin dana da. Ez det iñoiz aitzuko, oin berrogeta amar urte dirala, Asturias'etako erri txiki baten ikusi nuana. Emakume bat beso biak galduta.

Umetxu zala, besoak galduta zituanean bere bizitza eskean irabazi bearko zuala esan ziotenean, bere erabagi sendoa artu zuan eta aginikaz eta oñakaz eta anakaz lan egiten jarri. Aren anakak sugeak zirudien, anakak jazten zan, anakak janariak aboratu, oñetako beatzakaz idatzi. Bai eta su-iskillua oñakaz sutu ta urrun jarrita zegon jo-mugea lurrera jaurti. Orrela lan egiñez aberastu zan eta ezkondu ere ondo ezkondu ta bere seme-alabeei ezikera eder bat eman. Besteen bideetara jotzen ikasi bear degu eta ez geure bideak besteie iruntsi eragin. Orrela lortuko degu batasunerako bidea.

URRUTIA'TAR GOTZON M. B. S.

kistar-batasuna

Egi ederrak esan zituan John C. Heenan, Liverpool'ko Artzobispo Jaunak idazki baten:

«Ez egizu iñoiz agertu gaiztotzat katoliku ez dana. Baketsu agertu zaite ez-jakiña, okerrez, zure erlijioaren aurka mintzatu danean». «Erantzun bai zure zintismenaren aurka diarduan; baiña ez egizu eztabaidan jardun aserretzen ba'zara». «Katolikoak ez diranekin zagozanean, ez kendu garrantzia, euri edo egitearren, euren eta gure erlijio-tarteko ezberdintasunari». «Ez euki gauza txikitat egi au: Eliza Katolikoak babarririk dala egizkoa. Katolikoak ez diranak ezetsi egitendabaz egia ixildu ostenduten dituen katolikoak eta goraldu egia agertzen dabena».

«Kistar-goimaitasunak eztaite beartzen beste erlijioetako eleizkizunetara joatera; baiña Aita Santuen ganetik be ez gera agertu bear onetan. Errezatu daiegegu agirian. Kanean-da, Gure-Aita ta Kredoa beste kistarrakin eta bakarrean oitotz egin be bai». «Lagundu katoliko ez diranai be erriaren alde. Katolikoak ikasbide ona agertu bear dabe gizarte-azkiak ebatziten: Sindikatoetan, politikan». «Kistar-batasun lana egiteak ez dau aztu-erazo bear gure egia zabaldu-bearra oitotz eta ekintzaren bidez».

Idazki ederra, mamintsua egitan. Zoritzarrez katoliko askok eta askok jokabide okerra dauke onetan. Ezer ez dabe nai eurretariok ez diranakin. Ez dabe nai euki artu-emonik katolikoak ez diranakin. Au ez da katoliko izatea. Goimaitasuna ausi dabi jokabide onek. Ikasbide ederrak daukaguz idazteunean gai oni buruz. Kristo'ren eta Paulo apostoluaren esanak gogora ekarri.

Nire Aitaren etxean bizitegi asko dagoz —diño Kristo'k —Danentzat dago tokia.

Batikano Bigarrenak argirik asko egin eban gai onei buruz. Alkarri arrika barrik batuta jokatu dagigula diñosku Batzarrak. Eta laxate da. Jainkoaren Semeak gara danok eta erri bat, Jainko-erria osotu bear dogu danok. Sendi bat.

Zenbat oker izan dan zoritzarrez onetan joandako gizaldietan. Gaur zorionez mugak kendu eza;dira be, leundu egin dira. Ez da erlijio ezberdinetan lengo gogortasunik, lengo laztasunik, lengo etsaitasunik. Bideak zabaldu egin dira. Biotzak urreratu.

Gizon danokat Jainkoaren semeak gara. Aita baten semeak. Sendi batekoak. Burrukan ez, anaitasun-bidetik gabiltzan!



DEPURACION DE AGUAS S. A.

URA EGOKITZEN ETA UR LANETAN BEREZITUAK, EDANGARRIAK - LANTEGIRAKOAK - ZIKINDUAK NAIZ IGERITEGIKOAK ZUZENTZEN

+ 32-37-00 - + 31-00-10 - 32-37-01 Urt.

Gordoniz, 44, 12.^a
BILBAO-2

GOIRIA

LUDIKO GORABEERAK

LEENGAIK, LUDIAREN KEZKA

Arrolioz zer gertatu dan ikusirik, aurea artu nai izan dute zenbait laterriek, beste onenbeste ez dedin jazo leengaiekin. Batikpat, europarrak txit onez artu zuten argeliatar buruzagiaren asmoa. Eta antxe bilduak dira oraintzu ONU'ren etxean, ludiko erririk geienetako ordezkariak, Burmediak jaunak eragindako batzarren inguruan.

Besterik eztekean eta gerta, irizpide nagusi bi agertu dira. Onelakoetan gertatzen denez, batzar-kide danek zuten itzegiteko aukera. Eta jakifia, bakoitza bere erriaren izenean mintzatzen zalarik, nork bere alderditik ikusi nai izan zuan arazoa, aritzekoa ezteke.

Beraz, argeliatar eragileak —irugarren munduko leengai jabeen arduraz— zeraman asmoa ta sartaldeko laterri aurreratuen etziran inoiz ere berdiñak. Eta, nola ez!, Kissinger guztiz ospetsua gaillendu zan azken alderdiko izlarien artean. Ba-zirundian, eman ere, ludiko leengai altxorak erri guztien onerako erabiltzera irixtea besterik ezuala irrikatzen Ipar-amerikak. Ordu onean ludiko jauntxoak zuzentasun eske arlo ontan!

Eta oraindikoa ia duan etxeratutako leengaiari esker, metatu aal izan dituzten aberatasunak eta ezarri duten jaurgoa, ez ote zutekean inoiz ordaindu bearko? Arabiatar arrolio jabeek baietz diote. Eta zordunik aundiena Europa zaarra dalarik, zama astuna ezarri nai diote orain, leenaldian egindako geikeri guztien ordainez.

Argatik, arabiatarrak, onezkeren beren ondasun orreri etekin mardulagorik ateratzeko neurriak artu ez-ezik, leengaien jabe diraneri ere jarraibide berbera damaiete. Aien antzera leengai jabeek elkartzan diran arabera, gero-ta geiago kostata etxeratu aal izango dituzte ondasunok beren erosleek. Emendik zer letorke? Landutako gain eta bizimodu guztia eragotziz. Onela, laterri aurreratutako ez lirake izango azken galtzailak; aurrerapenik, ez arrolorik, ez leengairik eta zerjanik ezuten erri errukarri aiek baizik.

Irugarren munduan sakabatutako erriok areago ondaztera bai letorke indargai naiz leengaien gorakada eragabe bat. Ontaz oarterazi nai izan ditu leengai jabeak, amerikatar atzerri-ministroak; onoko-ta izugarritzko «puztuera» orokor baten eragile izatearen erantzukizuna egotzi nairik-edo. Noiz arduratu ote dira, ala ere, orain baiño leen, USA, URSS, Europa ta gainerako laterri aundizkiak aien zoritzarrez?

Onezkeren ordea, irugarren mundu ortako erririk aberatsenek berengan dute atzerapena ta txirotasuna garaitzeko izkillua. Izkillu ori eskuartearen dutenok asmatuko ote erabiltzen? Eta atera lezaioketen etekiñez, kide-beartsueri laguntza eskeintzeko prest ote lirake gero, ontan ere arabiatar arrolio jabeen jarraibidea onarturik? Auetek dira irugarren munduak eman ditzaken oinkadak. Eta burubide onen ondorenez gizadiaren bizimoduaz lastuko ba'litz ere —Kissinger'ek adierazi duan bezela, leendik zenbaitentzat latza ez-ezik errukarria ere ba-zala aazturik— USA'k, URSS'ek, Europa'k eta gainerako laterri aundizkiak eman bearko lukete lendabizi orren kontu zorrotza.

SIRIA'REN BAKARTASUNA

Erdi-Sortalde'ko auziaren —azken gudatea ezkeren, alegia— irabazleak bertako arrolio jabeak zirakean alderantziz, galtzailerik nagusiena Siria zitzaizkela idazten duan Egipto etsaiaz zuzenean —Kissinger bitarteko izanik, obeki esateko— konpontzeko prest zala ikustean. Siriatarrek beraiek ere ortaz jabeturik berriztu dute judutarrekiko guda. Eta begira nundik, ortarako inoiz ez bezelako laguntza artu duten sobietarregandik.

Izan ere, siriatarrak ez-ezik aukeratu ere aserreturik agertzen dira, Iparamerika'ren aurrean Egipto'ko agintariak ain erraz makurtu zirala egiztatean. Aitor dezagun, noski, argi bezain maltzur jokatu duala Sadat'ek sobietar iriari Siriatar kideekiko. Besteak beste, argatitzek ezta ainbat erraztasun aurkitu Kissinger'ek, Siria ta Israel'en gudarozteak elkar bereziti ta konponbidean jartzeko jo dituan kiñatan. Eta oraintzu, konponbide onen giltza Mosku'n dagoala ba'nioen, ezin besterik esan gaur ere, amerikatar atzerri-ministroak jarraitzen duan burubide ortan, Gromiko tar-teko dala nabaiturik.

Nolanai ere, oraingoan URSS'ek gaurdaiño ez bezelako izkillu bizkor eta eragikorak ipini ba'ditu ere siriatarren eskuetan, ark ezta bestegatik egin, espada Ipar-amerika ta Egipto oar-eratzeko leiaz; URSS alde batera utzirik Erdi-Sortalde'ko pakegintzarik eztagoala burutzerik adierzate arren. Argatik, Siria'ren bakartasuna —bere semideek ezarri diotena, noski— ezta pixkabat baizik gozatuko sobietarren azken orduko laguntza.

Eta Ipar-amerikak zertxobait bigundu-eraz ba'dezake ere judutarren jarkera, aukeratu bereala utziko Siria'ri gudateetan kendutako lur eta toki oro. Berdintu gertatzen da Jordania'rekiko. Are gutxiago, etsairik nagusi ta indartsuen zuzen Egipto'gandik zetozioketan eraso-aldietatik arindu ezkeren. Egipto bera ere buruauste askotatik arindu bai zan Kissinger'en bitartez Israel'ez konpontzen asi zan unean; espaitago aazterik, guden bidez galdutako ur-erretena ta zenbait lurralde ber-eskuratzeaz gainera ain atsegin ezitzaion kidetasun baten —sobietarrekikoa, noski— lokarriak lasaitu ta ziñez atsekabetzen zuan etsaikeritzko —USA'rekikoa, alegia— egoera bat gairiditza lortu duala Egipto'k.

Onezkeren, beraz, Sadat'ek geienbat irrikatzen duana zera da, ots, aundi bien erdian kokatu emendik aurrerako bere jokaera. Eta bidenabar, gudateek ondatutako egiptotar ekonomia jasoteko bear dituan laguntza izugarriak bereganatzea amerikatar eta europatarregandik. Ona emen, Sadat'en jokabide burutsu ta zuurraren arazoi nagusiak. Siria'rentzat, berriz, itz politik besterik ezta.

TXINA IRUGARREN MUNDUAREN ALDEKO

Leengaien arazoa aztertzeko Washington'en bildu ziranetako bat, ain zuzen, Txina gorriaren ordezkaria izandu zan. Eta beraz zan, Teng Hsiao Ping, uneotan jaurlari-buru orde dana. Garai batean komunist alderdiaren idazkari izandako jaun auxe da orain urte batzuk «kultural iraultza» zalakoaz ezbeharren eroritako bat.

Burutsuen artean sailkatua; eta beraz, Chu En Lai'ren jarraitzaile izanik, esku-bitar eta atzerakoitzat jo zuten orduan. Nolanai ere, duala urtebete inguru, Lin Piao ezkutataz, leengoratu izandu zan, jaurgoa ta erantzukizun aundiak ber-eskuratuz.

Eta Pekin aldeko berriek diotenez, emengo egazkin-zelaian jende ospetsu ta aundiak agurtu zuan amerikatarako bidea artzean. Bere adiskide Chu En Lai buruzagiak gainera, Mao'ren emazte ta Wang Hung Wen gazteak. Ok biok, noski, aien arerio nabariak.

Askatasun Aizeak

JO DU PORTUGAL

Portugal bat il da. Portugal bat piztu da. Gora Portugal! Gerocean ere, lotu dio Portugal'ek bere burua Europa berriari. Zorionak!

Nonbait irakurri dugu A. Spinola'ren liburu famatu ark lurrikara bat sortu dula Portugal'en; ea nola siñestu aal ditekian ainbesteko indarra izatea liburu batek. Ori egia da, baiñan ez egi osoa. Liburu famatuak ez du astindu Portugal besterik gabe. Liburu ori bera idatzi balu aldameneko *Peilo*'k, zer gertatuko zen? Bear bada, deus ez. Onezkeron zibiliteke preso zuten liburuaren egilea. Al. Baiñan liburuaren mamari josia zeterren beste zerbaite, ots, «A. Spinola» ta orduan bi indar elkartu oriek mugitu dute Portugal, ideiak eta indarrak.

Dena dela, goizean goiz, iraultze bat —idaberriaren batbateko lertzea zirudian— egin da Portugal'en, gizalege jatorraz, odolirik isuri gabe, dotoretasun aundian. Camoens'en arrazak ejemplo eman du oraingo ontan, txalo ta txalo merezi duen ejemplo gainera.

Leen agintzen zeudenekin ere oso ondo portatu dire. Ugarte polit batera eraman dituzte, saillean, marmararen aritzeko izan dezaten denbora eta ainbat urteetan *bulago* itxietan lan egin dutenek artu dezaten naroki itsas aize osasungarria. Zer geiago opa etsaiari?

Zorionez, sartu da Portugal sozial-demokratiko bideetan eta, gure aldetik, ez genioke besterik opa beti aurrera egin dezala baizik. Ba dirudi zuurki, zentzudun eta bide-zale jokatu duela A. Spinola'k. Oraio ez dakigu zer gertatuko ote den bere menpean daukan Afrika'ko lurraldeetan. A. Spinola'ren eskaintza, sarritan gerta oi den bezela, batzueri geiegi eta besteeri gutxigi irudituko zaie.

JOXE LASA

Onek adierazten duenez, ertzekoien eta burutsuen arteko borroka gogor ortan, oraingoaz bederen, aukeratu gaillendu dira. Onek ezta esanai, ala ere, Txina'ren jarkera leen baiño bigunagoa danik, ez URSS'ekiko, ez Ipar-amerika naiz sartaldeko erri aundizkiakiko.

Txina'ren azkenaldiko irekitasunak bere lekuan ezarriak ditu mugak. Ideoloji edo pentsakerak du ortan zer-ikusirik asko. Txina'k ezta oraindik ainbeste garrantzi ta arreta prestatzen komentuziari. Argatik, naizta Japon, Ipar-amerika edo Sartalde-Europa'z sasoi batean ezbezelako ongi konpontzen dan, ezta inoizko arretarik ipintzen erri aurreratuen laguntza bereganatze arren. Eta ez, ain zuzen, bearrean aurkitzen ezalako; norbere jokabidean aurrera jarraitzeko eskuak zearo aske eduki nai ditualako.

Argatik, ONU'ren etxean leengaien jabeen aldeko erabakitsu agertu da bere ordezkaria, sartaldeko erosle aundizkiak naiz sobietarren iritziak erabat gaitzetsiaz. Ezparririk eztago, noski, Txina'k ere ludiko laterri altzuen artean leku berezian bat artu nai duala. Eta ezta bide okerretik, Ipar-amerikak, Europa'k naiz Sobietar Erresumak zapuztu besterik egin ezituzten irugarren munduko errien buruzagi lez gaillentzeko alegiñak egitean.

CEE, ONDORIK GABEKO LEIZEAN BEERA?

Europatar Elkarteak darama abiada goitik beera! Ezbeharrek ezbeharren gainera, gero-ta beerago sakatzen diote ondorik gabekoa dirudian leize-zulo bateruntz. Osorik jarraituko ote du azpia jotzen duanean? Kanpotik naiz barrutik, etzagoan zapaldu duten baiño areago zapaltzerik. Aietatik gaizkillerik nagusienak: dolarra ta arrolio. Barruan sortutako etsaieratik zitalenak: salneurrien etengabeko gorakada; azkenik oraingoaz eztago, gainera.

Eta guztia ondartzeko zorian jarri duana, bazkideen berekoikeri ta izukeria. Prantzitarren norberia; ingelesarren zurberia edo italiarren auleria. Berez elkar-teko erririk arloteena izateaz gainera, barruko naasketa ta gizarte-egoera biurriak eragindako ondamen batean erori da aspaldian italiar ekonomia. Inork eztezake uka, noski, ordu geiegi oztutzen zaizkiola lanari laterri ontan, gero ondorenak ez banaitzeko. Edo-ta berdintu dana, azkenik gabeko lan-oporren zama astuna erantsi bear zaiola, naitaez, leendik gorako joera bortzitza duten salneurrieri.

Orain, zama ori areago astuntzera dator Italia'k atzerrietatik erosi bearra duan indar-gai edo leengaien garestitzea. Emendik, besteak beste, Italia atzerrietatik egiten ari dan zorra izugarritzea, egunetik egunera. Ainbesteraifio, neurririk zorrotzenak artzera jo du italiar jaurlaritzak, bidenabar Elkarte'arekiko betebeharrek ia erabat zapuztuaz.

Ala ta guztiz ere, gainerako zortzi bazkideek ezta inoizko purrestadarik egin, aien egoera larria ezagutuaz. CEE berberaren egoera areago naustu ta xamurtzera datozen neurriak izan arren —Italia'k artutakoak, alegia, atzerrietatik italiarrek erosi nai dutenaren gain balioaren erdia laterri-kutxan sei illabeteren buruan uztera beartzen ditu ta aukeratu, batasun gogorik erabat eztezela galdu egiztatzen dugu.

Dana dala, Europa askean gizonak dute garrantzirik nagusienak. Eta ain zuzen unerik larrienak igarotzen ari danean, iru aberik sendoenak erori zaizkio. Heath ingelesdar buruzagiak Wilson ingelesdarragoari agintaritzaz uzteaz, eztaizki oraindik zenbateraiño astindua eman lezaioketen Elkarteari. Bere ordezkari dan, Callaghan gizandiaren bidez jaurti duan aupada or baitago zutik erantzun zai.

Prantzi'ko auteskondeetatik ateratzen dan gizonak ere —ezkerrekoa naiz eskubikoa—, eztaizki bere aurrekoaren europazaletasuna gairidituko duan. Eta azkenik, ustekabeko biozkada eragin dio Europatar Elkarteari, Brandt jaunaren mailako europazale batek agintaritzaz batpatean uzteak. Onek erakutsitako gizontasun eta duintasuna ba-dira, ala ere, Europa'gan eta bere gidaritzaz dagokien gizonengan itzaropena bein eta berriz ipintzera bultzatzen daizkuten doaiak.

IRIARTE'TAR JOSE LUIS

Burdin-Zarra

TXATARRA

Ba-dogu gure injeneru-maisuen artean «Dyna» izenezko aldizkari burutsu bat. Aldizkari onek bil-araziriko leiaketa baten iru irabazle sortu ziran, ta eurretariko bat José M.^a Palacio Jauna izan zan. «Dyna» aldizkari ontan burdinzar-txatarratzaz zerk-jakingarriak, berak dirauskunez, euren gun mamintsua, laburkiro, idazlantxo ontan zuei jakinarazotea gura neuke.

Erbestetik urtero dakargun burni-zarrak, toneladetan zenbaturik, mailla goren-gorenetarikoa lortu dula diño. Bi milloi t' erdi toneladaraiño or numbañt euren kopurua eldu oi da, ta geien baten, bostetik lauko einean, Euskal-erria'n ta Asturias'en geratu. Gora andiko len-gaia txatarra bait-da ta azken aldiko urte bi oneitan areago ziftez. Epe labur ontan bere salneurria, eskatu-eskiñiak bide dirala, bost bider igon ei da, au da: % 500 edo eunetik bosteuneraiño goratu da.

Begiztatu dagigun bakarrik zenbat burni zar landu edo atara lediteken batetik, ta erabilli bear doguzan txatar moltzo izugarriak bestetik. Ezin geinke dakusgunez euren artean inolako berdintzerik egin. Arazo guzti onen zergaitia emen daurkigu beraz. Ez da ori ta be gure arazoa soilik, ludi osoarena baiño.

UGAR-GALTZE ARTEZA

Laster baten azalduko dogun «aldaketa arteza», gazteleraz «reducción directa» txit bearrezkoa dogu burdin zarraren urritasuna orekan ipintzeko. Aldaketa onetzaz Palacio Jaunak bere lan sarituan gogapen ugariak erabilli oi ditu. Asiera baten, azkera edo etorpidigintz bat bezela artzen zala dirausku, orain baiña aldaketa arteza deitu oi dogun au, industri-gintz orokar bat biurtu dala, ziur asko.

Bere esan naia lerro batzutan azaltzera noatzue:

Diñogun elburu au lortzeko burdin-mea erabilli bear da, ta egin-molde batzuen ondoren, txatarra ez, baiña bere ordez erabilli lediteken metaliki bat lortu oi da.

GALTZAIRU-GINTZA

Galtzairu-gintzarako gauz biren bearrizana, batez bere, dogu. Bata len-gai garvantzitsuen lez laba garaietan erabilli bear dan burdin-mearena: ta bestea, ala ere mako edo uztaioko tximist-labeetan erabilli oi dan txatarrarena beraz.

Onetzaz Euskerazalea'ko idazgela nagusiko orman ezarririk dogun, marrazkiz osoturiko idaz-lan argi ta zeatz baten, jakingarri bereziak dozuz. Nire adizkide miñak diran Xabier Peña euskal-irakaslea ta Carlos Ibañez Bizkaia'ko Laba Garaientariko Injeneru-maisu bat, idazlan-marrazki onein egilleak dira. Lauki aindi bat lez idazgelaren ormea apaintzen da berak. Euskera garbi txukunean egiña dago, barru ta kanpoen oargarri. Nire azalpena azalekoa bakarrik da izan be.

Ta onela amai-bidez dirausuet burdin meaz batera galtzairua aterateko kare-arria ta arri-ikatza, laba garaietan, len-gaiak lez, bearrezkoak dirala aurki.

GEROKOA

Ikuskatu dogu geroago ta are garestiago dala burni-zarra erbestetik ekartea. Olan, beste bide batzuk, bere ordezkoen bat billatu al izateko, iriki bear doguz. Eurretariko bat aldaketa-arteza ei da. Beste bide barririk idaroko ete?

«Dyna» aldizkariagandik atara geinke ludiko injeneru-maisu jakintsu oroen gorengo arazo bat dala. Guztiok batu oi ba' dira, errezago azalpen argi bat idoroko dabe antza.

ARREGI'TAR JOSU

ONDARRU

Kitolis'en tira-bira Dala-ta

«AGUR» onen 134'garren zenbakian, «Ondarrutarra» izenpeturik, iraiñez betetako erantzuna emon eutson Atxukale'eri, Kitolis'en tira-bira dala-ta. Beste irain askoren artean, onako oneik bota eutsozan; Bere erriitik jaurtita etorri zala Ondarru'ra; berak jakingo ebal zergaitik; Eskale bat lez etorri zala; Ondarru'n kokatuta, arrotz bat lez daukiela; kirtenkeriak baiño ez dabezala esaten irratit bidez; arrantzalai kalte aundia egiten dautzela; ikusmen txito eta gitxia izanez, ez dabela jakiten zer esaten daben; musturra eta anka sartzen baiño ez dakiala toki guztietan; arrantzale seme eta arrantzale izandakoaren antzik ez dabela; Atxukale berean dan baiño Kitolis eta On Domingo Agirre beren egintzetan obeak izan ez balira ez litzatekela zer agertzen diranak izango; Bereak eta bi botako eustakiala, egi-egiak diranak, astirik baleu... eta abar eta abar. Eta au dana zergaitik dala uste dozue? Beriala jakingo dozue.

Euskal asteroko batek, «Kresala», «Garoa» eta Don Domingo Agirre'ri buruzko kritika sakon eta jakingarria argiratu eban, Atxukale'ek poz-pezoz irakurri ebana; baiña, irizpideak irizpide dira-ta, ez egoan oso-osoa bat kritika artan, eta, leendik be, ainbeste aldiz irakurria eban, «Kresala», Kitolis'en pasarte buruz ikasia be bai, aztertzen asi zan. Eta berak ebazan ustean gaiñera, Ondarru'ko arrantzaleengana jo eban, itaunak egiten, eta, jakiña dana, guztietako irizpideak jaso ebazan arrantzaleengandik.

Lan a, biar a, egin da gero, andik illabete batzuetara, Gabonak etozen eta, oiturari jarraituaz, (Gabon Jaietan, euskal Gabon usaiñezkoa lanak bialtzen ditu irratira) Kitolis'en tira-bira buruzko lana bidaldu eban, ain zuzen, tira-bira a Gabon-aurretxoan gertatua lez Kitolis'ek edestu eutson Don Domingo Agirre'ri ta. Jakiña, ezezean-bezean, Zumaya'tik Bilbora bitartekoa bakarrik ez zala «Kresala»ren gertalekua adierazten, gitxienez Orio'tik Bilbora bitartekoa baiño; tira-bira a Orio aurrean izan zalako. Eta era berean, batzuen irizpideai arrazoiak kendu barik, arrantzale geintxoenen usteari toki emanaz; orrela, Don Domingo'ren alde bere ondar aletxoa ipiñi nairik.

Baiña, leenengo asteko «Atxukale'ren Berriketak» esandakoa oker ulertu eta, ondarrutari jator batek, bere kritika egin eban aldizkari batean. Jakiña, Atxukale konturatu zan oker ulertuaren okerra agertzen zala kritika artan eta, on bearez, gipuzkeraz bere lanak idazten dituan ezker, Donosti'an azaltzen dan Zeruko Argiara bidaldu eban bere irratiko lan a, barrenean kritikari eskaiña, eta ala argiratu be, eta ori izan zan guztia; baiña... zuzendu bearez, ona, «Ondarrutarra»k irakurri eta ba dakizue zertuk bota eutsozan Atxukaleri.

Zer txar arkitu eutson ba «Ondarrutarra»k Atxukale'ren biarrari? «Kitolis'ek bere edestia esan ebanean Atxukale an egon balitz, guzturia zala botako eutsola». Ori izan eban «Ondarrutarra»k bere arrazoi guztia Atxukale'ri bota eutsozan iraiñak botateko.

Zuok eta irratit entzuleak ondo dakienez, Atxukale'k bere irratiko lanak, ez ditu jakintsu lez bere Berriketak bidaltzen; arrantza-

le erriko, xeble, eta arrote lez be bai askotan. Gero, arrantzale erriko batek, beste arrantzale bateri guzturia dala botatia edo botako eutsola esatia, orrenbesteko iraiña ete dauko?

Baiña, errua ez dago or, esandako ortan. «Ondarrutarra»k eta Atxukale'k daben irizpidean baiño.

«Ondarrutarra»k Atxukale'ri au diño: «Ez dautzut esango Kitolis'en edestia alan gertatua izan zeinkienik. Bear bada, baliteke, On Domingo kontu-kontari ona be ona ta irudimen argiko gizona zalako, bere amets baten esan-naia izatea be. Baiña, ain zuzen, idazle baten yaiotasuna eta bikaintasuna eta zabalera-sakontasunaren ezaugarria ortxe dago: amesak be egi biurtu ta josita laga bere ekintzetan, adibidez, Cervantes'ek, Pereda'k, Baroja'k eta beste batzuk egin eben lez».

Berba orreik, ondo dakizue, «Ondarrutarra»k idatziak dozue.

«Ondarrutarra»k ez dau egiztazen Kitolis'ek tira-bira a, zalantzan jartzen ipinten dau. Baiña, «Ondarrutarra»rentzat, amesak egi legez lagatea, or ikusten dau On Domingo Agirre'ren yaiotasuna.

Atxukale'k, barriz, ez dau uste Don Domingo'k bere amesa jaso ebanik. Don Domingo'k, Kitolis'ek esandako guztia, berberba jaso eutsola, eta Don Domingo'ren yaiotasuna, beste yaiotasun askoren artean, Arranondo'n ikusi eban guztia «erretratu» baten antzean jaso ebal ta cntzundako guztia «magnetofon» batek lez.

Eta Kitolis'en tira-birako edestian akatsak, edo ezin leitekezenak, edo guzurak egon, Don Domingo Agirre'renak ez dirala, ari kontatu eutsoanek baiño, Kitolis'enak baiño. Eta Atxukale'k bere idizpidiaren alde José de Arteche, Euskalerria'k, azkenengo urte auetan izan daben idazlerik goenatariko baten idatzita laga ebana dakar lekuko. José de Arteche'k, Don Domingo Agirre'ri buruz, au diño:

«El escritor se limita a transcribir las palabras de este (Kitolis'gatik) relatando un naufragio que le acontece en circunstancias trágicas, cierto anochecer invernal. En tiempo de Don Domingo no existía el magnetofono; pero es imposible una transcripción más perfecta... Son a mi manera de ver, sus páginas de valor universal».

Ori erakusten emotera eldu asmoz asi eban bere irratibidezko lana Atxukale'k baiña, arrantzaleen artean sortu ziran arazoak garrantzitsuagoak ziralakoan, astiz egiteko laga eban, eta, bitarte ortan, oker entzunaren kritikak asi ziran eta laga egin eutson asitako lanari. Ez eban nai izan, inoren aotan bere izena erabiltzerik. Eta ikusi dozue, aotan ez ezik lurpean be sartu dabela. Baiña, Atxukale'k ez dau asmo galdurik, onez ez bada txarrez, izango dabela erantzupen jator bat bere izenari dagokiona.

JOSE-ANTON ARKOTXA

(«ATXUKALE»)

Ondarrutarra'ri Brankaz

Ez dakit mesede aundirik egin eutsa-zun Txomiñ Agirrerri «Atxukale»ren iriztziak salatuz, «Kitolis»en ibillaldiak zirala-ta berdeletan. Ni ez nator auzi au erabakitzeko asmoz, ze nolako eztabaidak sortu leitekez nobela berak ezertariko kalterik jaso gabe. Emen KRESALA tinko dago. Baiña ori argitzezko edo zuzentzeko, zek bultzatu zaitu orrenbeste barrabaskeri, herba garratz eta mingarri jaurtiteko gure artean bizi dan motrikoar jator eta zintzoari?

Zuk, ez dakit zer egin dozun euskal kulturearen alde, baiña «Atxukale»k maikiña bat bidar parte artu dau ondarrutarrekin euskal jaietan jendearen gustora, maikiñatxo bat txalo bero berenganatuaz. Obe dogu, zure hibe kaskarrari jarraitu baiño (eta aspaldi ontan parra-parra agiri dira akulukadak, eztenkadak, gibel ondoko ukabillkadak eta biotz ondorañoko zatzadak, gure idazleen artean) alako bidezko ta sentzunko ibil-

kera bat agertzea: GIZON. Beste gora-bera guztiak konpondu leitekez GIZON'en auziak badira. Eta azkenez, ez izkatutu ez-izen gonapean.

Ni billatuko nauzu, jai askotan, entzuteko eta erantzuteko Saturrarant'go makal luze eta zuzenen urte. Betaurrekoak be bai eta txapelaren «entena» «estiborrera» apainduaz. Txakur «mozolo» bat ere nere ondoik izaten dot. «Erresto» geiago?

OARRA: Zein ortulauk esan dautzu aldatutako arbolak ez dabela bizirik urregino lur barrian? Egon zaitez Pedro Laka'gaz ezer merezi badautzu. Ez, lagun, ez dau izango ostro berderik eta gitxiago igalirik, zure antzera ekin ezkerro latruakaz zulaketan eta kaustikagaz bete.

TREBOLA



ARRIENAKO

BARRIAK

Zeanuri

Orrilla edo Loraila dogu, eta Andra Maria'ren loyetako eleizkizunak, Ixidro Deuna'ren eleizan arantsaldeko meza ostein izaten dira. Aibat jente ikusten dogu. Abesti auxe kantatutuzen da: «Guazzen guztiok Maria Amagana, eskeintzera biotzen, lora eder bana».

Baserriko gora bera batzuek. Ez noiya ezne arazoa ta olangoen barririk omoi. Gauza aundirik ezin dot esan-da. Ezpa'da, aurten gure igali edo fruta arbolak aibat loraz yantzirik ikusten doguz, batez bere sagarrak. Lengo urtean bere, asko euki eben, orain bere itxura ona daukie.

Eguraldi onak bere, ez doyoaz, eta oraindik artuak erieteko daukaguz. Ba-daukagu esakun zar bat, diñoana: «San Yurgi, artoak erieteko gozezi. San Markos, artoak ereinda ba'legoz».

Al dogun artean ekin daiogun baserriko lan oneri, eta gero pifnuak jarri bearko.

Yazoriko bat, ez da ipuina. Orain dirala egun batzuek, ba-nebillan gure plaza inguruan nire burditxo onagaz, ara-ona, ezneak eroaten etxeetara. Kartieruak aibat euskal-aldizkari emon eustazan. Ona emen, urreratutako batek, begiratu ta artu bat eta ezin irakurri, beste bat artu ta bardin. Itandu eustan: «onek pagau egiten dozuz?». Erantzun, «bai». Berak, «ba ez daukazu dirua zeri emon aundirik».

Euskalduna zan, berriz, bera. Noiz izango ete dogu euskaldun edadeko garen onentzat eskolaren bat?

San Isidro jaiak. Laster doguz eta idi-probak dagozela diño. Ni gorabera, bakea daukie.

Gaurko naiko izango da. Domeka arrastie dogu, izeko gaisoa eta biok sutondoan gagoz. Baten bat etorriko ba'litiz, pozpozik artzeko lagun egitera.

Agur, eta urrengoan Elbira'n kantak jarriko doguz. Ez dot izan astirik beragaz egoteko.

GORBEITARRA

Bermio

Arraintzaliok, negua izan dogu, guztiz txarra. Zergaitik? Bi esan-naitik. Esan-nai bat; eguraldi txarra izan dogulako, eta bigarren esan-naia; arrain-eza izan dogulako. Amu-arrainegaitik esan neike. Baiña itxaropena ez dugu galdu. Noizkoa? Udabarrirkoa. Zer gertatu da udabarrir onetan? Esan neike ez dala txarra eguraldiakaz eta amu-arrainekaz.

Euron sal-neurria, neure ustez, aski, neikua jexi da. Geiegi, bizi-moduegaz neur-tuaz. Arrain bi etorri dirala ta, prast beera sal-neurria! Ukustegietan aski, areik eta orreik asko ikusiaz be, ez daukue merkatuten; garestitu bai.

Jorral au poztutekoa da, amuegaz arrain-ñetan ari diran arraintzaliak... ez sal-neurriagaitik, arrainagaitik baiño. Ligortarrak esango dute, merke daukagun bitartean, jan arraina «maute-maute», ta arraintzaliok zer esan dezakegu? Auxe bai beintzat: Aurreko illeetan eguraldi txarrak zirala-ta, eta arrain-eza zala-ta, ez dugula irabazi onik egin, eta jan eta jantzi bear ligortarrak bezelaxe, eta orain arrain bi sartu dirala-ta, merketu daukue. Au bai bizi-bide egokia arraintzaliokentzat!! Izan dai-gula Orrilla, sal-neurri obetuagokoa, arrain-mota guztiegaz, eta ondo arrapatuaz. Poz-tuko gara arraintzaliok...

AZPEITIA'TAR GOTZON

Mendexa

Bigarren mus txapelketea amaitu da. Amar bikotek artu eben parte. Erroman Agirre ta Pedro Uskola gel-ditu dira txapeldun; Patxi Zilloniz eta Xabier Guenaga, bigarren.

Azkenekoarentzat be egon da saria, ta au Julian Juaristi'k eta Erramon Goenaga'k jaso eben.

Txapelketea amaitu zanean, lagu-narteko aparti bat egin genduan anaita-sun ederrean.

Apal ostein, abesti ederrak abestu genduzan, eta azkenean «Agur Jaunak»-ekin amaia emonik, alaitasun ederrean etxeratu giñan.

* * *

Neska-mutil gazteak, alfabetatze bat eratu dabe, lenengo eurak ikasi ta gero umei erakusteko. Asmo ederra benetan!

Alfabetatze onetan irakasle, Markiña-Etxebarri'ko abade Juan Gallastegi da. Abade argi ta bizkorra. Jarrai, gazteok, bide orretatik!

* * *

Lorailaren 4'an ezkondu zan «Perliane» baserriko Erroman Agirre, Lekeitia'n «Mendexa» ardanegian serbitzari dagon Mari Anjeles Anakabe'gaz. Zorionak!

TXAKARTEGI'TAR JOXE

Arratia

Alkarrenganako zintotasunez bizitzeko erabagiz ezkondu ei-ziran, Udabarriz, Izadia ta Gizadia. Alan izamik ba, neguan il-itxuraz, zar, igar eta billozik izandako zugaztiak bizigogo ta soñeko barriz agiri dira. Txoriak pioka ta txorrika dagie, eta areitzen erai arrotuetan eta arripetako zuloetan negu luzean egon diran piz-tiak, landaratu dira. Alkarri keñuka, bata beste-ari lastanka ari dira. Egillearen arnasa barria daroe odol-bideetan eta azur-muñetan.

Gizadia, izadiaren senarra ala emaztea dan ez dakigun arren, alkarren antz eta irudi dira, eta bat datoz.

Gizadia be ba, gu, Udabarriz odola barritzean eta neguko lo ordutzuetatik itxartzean, geuzeko barru-alaitasunak ta aldiari dagokion berezko poz-giroaren eraginez asi giñan, eta or zear gabiltzaz erriz-erri, tokirik-toki, alboka ta txistu; zantzo, irrintzi ta oyu, Berbizkunde-Egunetik. Gure egun andia izan zan ezkeroztik.

Zornotza'ko Orue muño landatsuan, jorrai-lla'ren 28'grnean; erri oso bat izan zan batzar-turik, eta alkarturik, alkate jaunik barik, Aita Pasiotarrak eraturiko jaietan: ume potoloak atxiki-atxaka, saltoka; gaztedi errikota, guraso ardu-ratiak ugari, ule zuridun aitite-amamak ere ez gitxi.

Peña Xabier euskera irakaste trebe-azkarrari, Orue'ko egun berean, omen, txalo ta gorralpen, lareunen bat euskaldun barri eta ikaslek eskeindua, Gipuzkoa'ko Arantzazu'n.

Olaxe doakigu Udaberria, olaxe etorri udaroa. Zantzo-irrintziak Bizkargi'tik, Bernagoiti'tik, Mungit'ik, Zeberio'tik, Zeanuri'tik, Iurre'tik... zenbat erri ta tokitatik, jai-aizea firi-firi, deika.

Eldu,ba, matazari, eta ekin Erria'ren onerako aria egiteari.

* * *

Zenbatzuk arratiar ete-gara, GOIZ-ARGI eskuratzen dogunak? Onduz eta gizonduz dator-kigu, asterokoa egin zanetik. Azken argitaratu-tako iru-lau aleetan, A. Onaindia'ren orrialde mamitsua ikusi daikegu. AXULAR'en HIZ-TEGIA'ri ta egilleari, A. Akesolo arratiarraren orrazketa zorrotza. Gaztañaga'ren BATASUNA ta EUSKERA BIZIA. J. Lasa'ren EUSKAL ERRIAREN ELKARGOA edo FEDERAZIOA. Amaito izan-bearreko Amaitio'ri, Iriarte'ren erant-zuna ta.

Ba-dogu non, norengandik eta zer ikasirik.

* * *

ERRIZ-ERRI ibiltari A. Zubikarai'ri.—Urtebetean jo dozu, erriz-erri, errietako kondaira, edesti zarrak eta barriak guri azaltzen. Jarrai ba, olaxe, URRE-EZTEGUAK arte.

Arratia'n jan izan zenduzan odoloste ta txis-torrek... ez dagizuzala izan kaltekorrak.

LANDAJUELA'TAR A.

Galdakano

IDAIZIÑO BAT:

«Txistua yotea erreza da» izen-buru da-bela idaziño polit bat argitaldu dausku, Barrentxea'tar Joseba-Maren euskaltzale ja-torrek. Txistua jotez ikasteko, batez ere umeak, ikasbide labur bikain bat.

Nik ez dakit, tamalez, txistua jotez, baiña bai Maren adizkideak, eta ongi jakin be, baita alboke be; ereslari azkarra da izan be ta. -Orregaitik ereslari onek, gure ereskin maitagarri ori jotez ikastea erreza dala dirauskunean, egiya izango dalakoan gagoz.

Idaziño ori, bear-bearezko marrazkiekin emoten dausku; ikasteko erarik egokiena. Eta, euskeraz eta gaztelera idatzita, batera edo bestera jaretsi dayen ikasleak. Gure lerro onek argia ikusi dabeneko Aurrez-kikutxan, nai dabean ikastola guztientzat, ezer ordaindu barik izango da. Aa! ta Biz-kai'ko Aurrezki-Kutxa'ren laguntzaz eta Ma-ren'en lan zintzoaz argitaratua izan da idaziño egoki au, beraz, zorionak ereslari euskaltzale orri ta bere laguntzaileeri.

BATZOKI BARRIA:

Orain aste batzuk esaten genduban, areto andi apain bat gertutzen ebiltzala errian dan lekuri onenean: enperantza onduan eta Bilbo'ko Erri-Aurrezki Kutxa'ren bitartez. Orduan, baiña, ikusi barik genduban, eta ezin izan gendun argitasun geyagorik emon, ta beste baten argi-bide geyago emongo gendubala esan.

Gaur esan daikegu erriko zar-saridunentzat gertu dabean batzokia, gure erri ontan inoz-bera egon ez dan era beste erri askotan be izango ez dan batzartoki zabal apaiña dala. Sartuta era berean, egoteko areto ederra bere mai ta jarleku apatz onenekin. Areto orren eskuma aldera, beste areto txikiago bat idaztegitirako, au be ondo ornituta. Ezkerrean, arteka edo barnebide eder luzea, bere aldamenen dabean etxegain (terraza) zabal ikusgarria urtetako, edo edateleku ta guztiko areto egokia, argia ta zabala, bera be, mai ta jarleku onez apaindua, bertan jokoan edo jolastu nai dabenantzat, zerbait edon nai dabean bitartean. Asieran esan dogunez, ametsetan lez ikusi legiken lako batzokia bera.

Gero aldatutzen ez ba'dabe beintzat, areto ortara sartuko al izango diran zar-saridunak, irurogei ta bost urtetik gorakoak izan dira ta Bilbo'ko Erri-Aurrezki Kutxa zerbait txindi dabena. Aurrezki Kutxa orrek emongo dauksen agerkairen bidez.

Lerro onek idatzi doguzanean batzoki orren askunde ospatu barik ba'dago be, onek argia ikusi dabeneko, beardada, bear diran gauza guztijak osotu ondoren, bere bearkuna betetan izango da. Poztutzen gara orrelako Batzoki bikain bat errian ikusteaz.

EZKONTZAK:

Bai, naita batera ezkondu, bitzuek ziran ezkondu ziranak, orril onen 11'nean Gi-puzkoa'ko Itziar'en. Gure erriar eta adizkide zintzo diran Goiri'tar Joseba-Mirena ta Patxi anai zintzo azkarrak, Elgoibar'eko Sarregi'tar Miren-Josune ta Azpitarte'tar Josepñe neskatil lrañekin ezkondu ziran. Joseba-Mirena, Ganguren mendizale taldeko txindi-zaiña, mendigoizalea izan be-ta, goi-aldera juañ yaku biziara barriakin garbi ta goi-goitik oratutuzera, bere anaia bezela. Gure zorionik bereonak bikote adizkide orrei AGUR onen bitartez.

GAIXORIK:

Aspalditxuan daukagu gaixorik Ibarre-txe'tar Joseba euskaltzale jatorra ta beraz AGUR'en irakurlea. Baiña, zorionez obe-rantz andija eginda aurkitzen ei-da, ta laster izango dogu gure artean. Benetan poztuko gara guztiz sendatuta ikusteaz.

BASA-JAUN

Antzuola

Presaka bizian goazen abiada ontan, ia ezerk arritzen ez gaitun onetan, noiz beinka gizon batzuen bizitz ixill eta ere-dugarriak pentsa-arazitzen digute. Orre-la AGUR onen orrietan pozez beterik irakurri ditugu Formosa'ko urrutietan Antzuola'ko seme bati egin dioten go-ratzarrearen albisteak. Uzarraga auzoko «Elutze» baserri sendo ta bikaiñean sortutako Iñarra'tar Gregorio'k, Jesus'en lagundian, berrogei ta hamar urte —errex esaten da— bete dituaneko omenaldi anaikorraren berriak ain zuzen ere. Beranduxeago ba'da ere, bijoazkio An-tzuola bere txoko ontatik, gure zorion agurrik sutsuenak, eta beste urte askoan «Kitarra zartxo bat» abesteko zoria izan dezala.

* * *

Zakurrak libre.—Bai, baiñan orain-goan, zaunka egiten duten oietakoak, bego argi, beste modu batera esanda, lau ankakoak. Txakurra, gizonaren la-gunik leialena ba'da ere, pikardi bapoak egiten ere ba-daki. Ontaz, zerbait esango leukete «Jauregi» baserrikoak; loraila-ren lenengo egunean, alakoxe naigabe batek goibeldu bai zituatan, beren artal-deko ardi guztiak izutu ondoren, au izan zan ondorena: iru ardi itoak, beste iru txikitua eta beste iru-lau galduak. Ederra kontua! Gaur goizeko baiño lenagoko legea dala uste det, txakurrak dituztenak zaintzeko, —ez det esan nai urietako «señoritako» bezela— baiñan bai ardura bat izanaz. Leen, gure artzaiei, au ta ori dala, mendietako sailak naiko urritzen ba'dijoazkie... orrelako lagun-tasunekin, ez dute poz geiago izango. Berriro ere «Idiazabal'go gazta» izena-rekin, jan bearko ez dakit nungoa.

* * *

Lerro onek argia ikusten dutenerako, ziur asko ospatua izango da «Arrola» mendi zale bazkunak, mendi zale azien-tzako antolatua duan ibillaldi neurtua, eta zalantzik ez det egiten, aukeratu duten ibillaldia ikusiaz, Trekutz, Irimo, Izazpi eta abarreko mendi gaillurretatik somatzen dan ikusmira eziñ ederragoa-gaitik, joandako guztiak, anak ezetzik, begiak ere nekatuak izango dituztela, baiñan ori bai, gogo onuz, mendi zale-tasuna benetan maite dueneri dagokien bezela.

* * *

Kirastutako barrunbeetan igarotzeko naiko egun ba-ditu asteak. Aurrera! Antzuola'ko mendi-zale zar eta gazteak. Ezaituzte bildurtzen, ez, aldapa gora asteak. Ori ta geiago merezi du gorputz eta adimenez jazteak.

MATXALEN

FERRETERIA UNCETA, S.A.

Landola tresnak - Galtzairu neurri zeatzekoak

Langailu guzietarikoak - Leunketa gaiak

Ibarrekurutz kalea 14

71-10-00 Urrutz.

Apartado 18

E I B A R

ZIORTZA'N

Burutasun bat.

Durango'tik Goiuria'ra igo giñan bazkaltzera, emendik Garai'rako bidea billatuko gendulakoan.

Goiuri'tik gaitetxoan igarten da, aurrez-aurre, Oiz'erako bidea, baiña kotxean ezin. Barrero bide nagusira jatsi, Markiña aldekoan sartu, Garai'koa artu ta igo, eta leku aizetsu eta garbi onen erriko etxe ondolik zear doan bideari jarraitu, bide kurutzean eskumakoa artu eta jo aurrera neke barik kotxean, pago arstean batzutan, bestetan pituak ikusten, San Kristobal'en ermitara. Arbazegi, Gerrikaitz, Ziortza eta Bolibartarrak batean euken eliz onen jabelasuna. Ermitatxoa ikusi, bere mendizaleentzako arrizko jan leku edo mai ta guzti, eta barrero kotxean oraindik gorago.

Egun illuna. Oiz. Bide ertzetan, edurra. Ez lodi, bai fin. Tontorrenan oitëan, amar metro lentxuago, TV'ko txabola barrira egiten. Eskutuan langilleak, otzari ostea billatu nairik. Azken eguna dabe. Teknikoen lana dator orain. Kotxean bertan laga ta igarri barik, buzoietan gagoz. Orta tontorra. Egia: alkarri begiratu eta ia lotsatu egin gara kotxean eldu bearragaz. Bertan laga dogun tarjetatxoan au ipiñi dogu: «Kotxean eldu gara, edurtzan. 22-2-74».

Edur lañoa ingurutan. Ikuspegi gitxi. Erritxoak, jakinda, saso-baten azagaz eguztuen dira. An, magalean, Ziortza. Saso baten arago abade kanonigoak ondo ezagutzen eben mendi au. Jakiña denez, lauretin urte aurretik etozanak ziralako ordurartekoak, emengo prailiei kanonigo deitura emon eta eroateko agindu eban. Albiz'ko Peru zan garai aretan emengo abade Nagusia. Aurrez, amarretan, abizikiak, jauntxoan adiskidetasunak eta olako goraberak bitarteko. Sasoi aretan abade nagusi bat eta sei kanonigok erabilten eben kolegiata au.

Larogei urte geroago, Peru Ubisate nagusi zala, Erroma'ra be jo eben, alkarregaz konpondu ezinez. Ez zerala alkartasunean bizi, edo menpetasunik ez eutsela nagusiari agertzen, onen ustez. Prailiek lana ta nagusiak artzen ebala dana, besteak. Etxeko gora-berak. Baretu zituzten, batari eta bestiei bakoitzarena zer zan erakutsiz.

Asarreak ez ziran beti barrukoak. Munitibar'eko erriagaz be euki zituen garratzasunak. Alkar artean egin eben konponketa baten erabagi ebenez, Isunsubasobarri, Unbe mendi guztia Garrikasolo arte eta emendik Markola'ko pintaraño, eta goitik beko errekaraiño Ziortza'renak ziran.

Sasoi baten Ziortza onen indarra zenbakekoa zan jakiteko, naiko da gogoratzea Murelaga, Axangiz, Berriatua, Luno, Amoroto, Leketio, batzuk izentatzeko, eta inguruko erriak geienak, erri legez eta eurretako etxejauntza legez, Ziortza'gaz lotuta egozala amarrin edo bestelako laguntzekin. Araba'n bertan ainbat tokitan euken artu-emon. Jakiña dan, Naparroa'ko erregeen eukide batek, XIII gizaldian, 24 bei umedun eskiñi eutsazala bere borondate oneko opari lez.

Labur. Luzea da Ziortza'ren istoria. Eleiza, 986'egiña, lenegoa. Geroago anditua. Bizkai'ko kolegiata bakarra. Jakintsu eta gizon andi askoren sorleku eta esnatzailea.

1386 urtetik ospital bat be euki eben bertan. Santiago'rako bidean etozan erromes asko bertan billatu eben nun atsedan egin eta osatu.

Bear ba'da Diego Irusta, bertako abade nausia, izan zan bere aldekorik alegintsuena. Jator, biargin, borondatea eta argi agertu zan bera. Bertakoa, semez. Ospital ori barriztuen aleginduz zan. 1517 urtean dotore laga. Bederatzi urte geroago erre egin zan, San Estebantxe egunez. Bertan eukazan Irusta orrek bere ondasunak. Zearo ondatu. Orta San Estebantxe, beti len letxe.

Kikildu barik, indar harriz jaiki zan. Aita Santu eta Erregeagandik nun-nai eskale ibilteko baimena lortu be bai. Orrela Gaixotegi ori, eleiza, klaustroa eta il obia egiteko aña batu eta eurak barriztu edo egin ondoren, sasoi aretako gerrateetako estutasunak arintzeko be emon eban gaiterakoa.

1487'n jaiu eta 1563'en il zan.

Emen dauka, eleizan, danen aurrean, arlanduzko bere illobia.

Goazen emendik.

Ba diardue, ezetik ezin esan, urteetan lanean. Bizkai'ko Aldundiak, urtean onenbesteko bategaz, zerbait barriztatzea lortu dau. Lengo kondaira, istoria zarratzipatu na bertan. Lortuko ete? Gaitz. Eltxe barriztatze da. Zeinentzat? Eleiza denporaz trukundü lei, bere ederrak agertu eraziz. Baiña etxea eta eleiza ez ete dira ondutuko Ziortza'ri bizi bide barri bat billatu ezik?


Ziortza'tik jan edo bere izena eroan eta Bilbo'n biziteko prailiek edo lagunak, begoz euren tokietan. Gaitz izango da, egia da, bertarako bizi lagun egokiak billatzea. Ori da gaur Ziortza'ren buruaustea, problema.

Lengo pagadi zarrak galdu ziran inguruetan. Garbiago daukaz gaur egalak. Edonundik begiratu ta be bere nortasuna erakusten dago. Ara emen Bizkai'ko istoria, esaten da. Baiña, uts.

A. ZUBIAKARAI

«GUK OARPENA JAINKOAK SARIA»

EMAIOTZU
JAUNA
BETIKO
ATSEDENA
TA



BETIKO
AAGIAK
EGIN
BEZAI
ARGI

J. Maritain Favre'ren eriotz-urtemugan

Mutillak ditugu, gero, gure senide euskaldunak esatera egokiak aukeratzeko. Zuberuko il-arri batetik jasoak dizkizut, irakurle, idazburuko bi esanguneak: Guk oarpena, Jainkoak saria».

Orain 14 urte, Maritain'en emaztea, Raissa, onen, oni, Raissa'ri, ikastaldia eskeiñi zion gure artaldetxoak, omenaldi. Geroago, pantzera aldamenen zula, omenaldi orren oroigarri, il-arria ta idazkariaren ondakia bialen gizegizon ilargia berriari. Andakio geroago, urtemugan edo.

Zergaitik orrenbeste luzatu? Emaztearen eriotz-ondoko egumetan jasoko zun urrutidaxi ta eskutitik kopuru ausdian, gure aletxoa galduta, oar gabe, igarotzerik nai ez guk, orra.

Aintzakotzat ar dezaten, bere bidexkak billa bear algo txikia dunak.

Ondo gogoan daukat aldakiakin bial genion eskutitzaren asiera: «Euskalerrri txikiko ikastola txiki batean...» Pantzeraz, noski. Maitexko jasoa ez ba-dizugu, ba, irakurle, Maritain'en erantzuna!

Orain, bere urtemugan, ezin eskeiñi berari, Maritain'i, omenaldirik. Artaldetxorik ez il-arria ta idazkari egin erazteko. Artaldetxorik ez baiña, AGUR bai gaur, amaika miñen aringarri. Raissa'ren omenaldian senar-emazteak ageri bai ziran, lengo lan ua AGUR'en argitaratu ta, orra, Maritain berari ere gorazarre. Orra, idazburuaren, guri dagoki-gunaren, lenegoa gogaia bete: «Guk oarpena».

Ez dezu izan, ala ere, irakurle, ez dezu izan esker on utsa, argitaratze onen eragile bakarra. Or onen dabilta, zenbait eskalirakasle, Kristau-Ikasbidea irakasteko gertu ez daudela-ta, aitzeki-maitzeki.

Kristau-Ikasbidea ez? Eta Oñiarri-Irakintza'ko (Enseñanza Básica) beste gaiak irakasteko bai? Zerbait barrira ta, Elizati berria ta, irakasteko gertu ote?

Ikastetxe aundietan, idaztietan jasoa de-zutena, zuen barruan ausnartuaz, eio, egosi ta ai guri-guria biurtua, zuen jakintza ori txikiari ematea, ez ote da irakaslearen egitekoa?

Oñiarri-Irakintza gai guzietan, gertu bear aundia gaur irakasleak, inoren «errezeta» zai egon gabe. Ez Kristau-Ikasbidean bakarrik. Zergaitik, beraz, Kristau-Ikasbidea bakarrik beti aitatu?

Irakasle-egiteko ori, egiñalean jator betetzen, 45 urtean, onoko onek egin dizuen lanaren erudutxoa argitaratzea, egoki ote litzaken eman gogoak orra, ba, Maritain'en gorazarrea argitaratze onen bigarren eragilea.

Ala, etxeko bazterrak ezagutu gabe, urrutiko intxaur billa joan naiago? Argeli'ra ta...

Omenaldiko lerro orietan, ez ote dira ageri, elkartasun ederrean, Kristau-Ikasbidea, Gizalegea (esker ona emen) ta gure Erria'ren Edesti-erriroa. Zer besterik eskatzen gaur Oñiarri-Irakintza'ko irakasleari, gaien elkartasun eder ori (conjunto armónico) baizik.

Eskerrik asko, maite-maite ziñuztedan Raissa ta Maritain, zuen eriotzaz, iritzi aukeratzeko egokiak eman didazutela. Ta «Egi alde-zuzen alde» bere bidexka uste dun onetan, kementsu jarraitzen lagun egin, arren, Goi orretatik,

IRA'ri

Donosti'n, 1974'garrengo jorrrailak 28.

Raissa zure Egi'koa zan, Jauna, judutari.
Bere renaria ta biak lan aundia egin dute zure alde,
Jauna. Saritu ezazu orain zure m.
"Etxerik gabe menbilimean, zuzenara jaso minuztem eta atoste Aita'ren maitetok." Zureak dira itz oriek, Joxe, Arkan Epia'm eratekoak.
Zu, euskotariek, guda-igeri genbiltzimean, etxerik gabe, Raissa ta renariak bilatu ziguten etxea.
Esaiotzu, bai, orain, Jauna: Atoz, atoz Raissa maitetok.

AGVR

V URTEA
139 ZENBAKIA

ASTEROKOA
1974 - BAGILLA - 1

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

ZABALTASUNA

Gaur ainbeste entzuten dan berbea aurre: zabaltasuna. Baiña zergaitik ainbeste aitatzen ete da zabaltasuna aspaldion? Ez ete da, zabaltasun asko barik, estutasunean bizi garalako? Ogia sarritan aitatzen dabenak, eurak gose diralako izaten da geienetan.

Gaurkotatzen edo gaurkokeriari apur bat jarraituz, gogoratu eta aztertu dagigun zabaltasun au.

* * *

Zabaltasuna, gizonaren eta gizartearen izaera bat da, lenengo ta bein. Gizon batzuk biotzez zabalak izaten dira: dana onartu, danerako lagundu, dana ondo ondo entzun, guztiari ondo berba egin.

Bakotxaren zabaltasun au, errietan be ez da beti agertzen. Erri batzuetan, ez dira eritxi guztiak onartzen, era batzuetako erriarrak baztertuta dagoz... Ez dago zabaltasunik; estutasunean bizi dira.

* * *

Gutariko bakoitxaren barruan egin bear dogu ba, lenengo, zabaltasun au. Egia esan, bide bat artu bear dogu. Bide au, azterpen on bat egin ondoren, onena dala uste doguna izango da. Eta bide orri zintzo jarraitu bearo dautsagu. Aurka joatea, geure gizontasuna azpiratzea izango litzake.

Itioz, oker gagozala ikusten ba'dogu, au be zabaltasunak eskatzen dau, bide ori itzi ta beste bat artu bearo dogu. Eta beti beste bide batetik dabiltzanai, naizta gure ustez oker ibilli, itzaltasuna izan bear dautsegu. Itzaltasun eta zabaltasun orrek ez dau esan gura, orregaitio, gure burubideak ez doguzala agertu bear eta besteak dituen akatzak, itzaltasunez, ez doguzala aztertu bear.

Uste dot, gure arteko ezdabaidak larregi artetatzen gaituela. Orixe be zabaltasun gitxi daukagulako ez ete da? Egin dagigun berba, idatzi dagigun; alkarren aurka be bai bear ba'da. Baiña zintzotasunez, Erriaren ona billatu dagigun, norberekeri barik, norbaiten morroi izan barik. Esaten eta entzuten jakin bear dogu.

* * *

Berbetatik egiteetara goazanean, zabaltasun au gatzagoa izaten da. Batzuk edo beste batzuk, agintaritzea artzen dabenean, errian naiz eleizan, sarri uste izaten dabe eurak dirala salbatzaille bakarrak eta eurak jausi ezker, joan zala erria. Ori ez da zabaltasuna.


Era askotara eta bide askotatik eldu gaituzte elburura. Portugal'eko salbatzaille bakarrak joan ziran, eta angoreria pozik eta aurrera-bidean ei dago.

Erria salbau gura dauanak, geien eritxiagaz batera jokatu bearo dau, baiña eritxi ori zabaltasunez agertzen izita. Izan ziran Portugal'en be eritxi batzuek, baiña geienak alde eritxia emon arren ori ez zan barrutikoa izan. Orain ikusi da Erriak barrutik zer nai eban. Jokera guztiak artu bear dira ba, eta norberarena aurrera eroaten alegindu. Baiña danen gainetik, erria salbatzen dala ta giza-eskubideak beteten dirala.

* * *

Ondasun arloetan be, antzeko zabaltasuna bear da. Domu-zalekeri —kapitalismo— itxi baten, zabaltasun barik sartzen ba'da gure gizarte, ondamentia dator. Ondasunak, zabaltasuna bear dabe gizonen eskubide bardiñak kontuan artzen dirala. Eta bide orretatik arira datorku langileen arazo. Ugazabak euren ustezko eskubideetatik urten barik bizi ba'dira, zabaltasunik ez ba'dabe, euren zat eta langilleentzat, orain edo gero, ondamentia ekarriko dabe.

Zabaltasuna bear dogu: eritxietan, berbetan, egiteetan, alkarrean, erri-arazoetan, ondasun-goraberetan, langille arazoan, eta zetan ez?



BERGARA JAIETAN

Urteak urte, Mendekostez Bergara'n jai nagusiak. Izaten ditugu beste batzuk ere, ia-ia errikoentzat bakarrik eratuak: San Marzial, Agirre'tar Martin deunarenak... baiña udaberriko jai abek indartsuenak.

Ba-diño, errietako jaiak, ligor barruko errietako jaiaren deia gutxitzen, dijoala geienetan. Bergara'koak ez, emen, oraindik, eta zati baterako, oso ong'artuak dira. Errikoak ez-eze, erbestekoak ere ba-dute onerako joera, ingurukoak eta urrutiragokoak emen izaten ditugu. Galdetu bezela eibartareri.

Igandekoak jairik aipatuena, biribillena eta jendez beteak. Ala ere, «ontzi txikian usai gozoena», emen ere, «irugarren egunekoak» onenak, ta ori ere ba-dakite naizta errikoak eurak izan ez, or datoz illuntzean, lan orduak bete ondoren —ez dute ba oiek jairik izaten egun ortan beren errietan— or datoz, arin-arin eta goiz apalduta, edo emen bertan aparti arin bat egitera, gero emengo jai, lagunarte ta dantzaldietan murgiltzera.

Izan ere, Bergara'ko neskatillak beti izan dute polit eta atsegin izatearen izen aundi ta ederki zabaldua. Ta ez gabiltza emen ezkontz-eragille bezela zabalduzik egiten. Egia beti egi, ta bergarar neskatilla, beti zoragarri.

Mutillak, ba, mutillak ere zintzoak eta zindoak, baiña —ba-ote?— trabenetan lartxo ez ete dabiltzanaren zalantza ere izaten du norbaitek. Ez da baiña ori egi osoa. Begira bestela mendizalatasunean buru-belarri dabillen gaztedi zoragarriari; gazte-gazte ez diranak, gazteak, eta batez ere, gaztetxoak. Or barruan irakurri al izango dezute, «POL-POL»ekoak daramaten lan neketsu baiña pozgarria.

Tripazientzat ere ba-da emen zertara etorri: Antzuola'ko babarrunak, Egotxia'ko gazta —au ere txikian usain gozoenetakoa, ez da ba askorik egiten eta ezagutzen dutenak arin ibiltzen dira billa, perretxioekin bezela— a!, ta perretxioak ere bai, onak eta ugariak, Ba-ditugu baita, bertan azi ta loditutako galeperrak, beatzak miaztatzeraino jatekoak.

Ez uste izan, jende billa, Bergara'ko edertasunen zabalkundea egiten nabillenik, ez, jendea erruz etorten da, ta beste au da nere gaurko asmoa: zuk ere ez dezazula galdu onelako bitxirik!

Bergara'n, Mendekostezetako jaietan ea zu ta ni, neska polit, alkar ikusten geran!

Arrituta... Baiña, Bai!

Bai, geuk be, euskaldunen arteko griñatxarrak eta eztabaidak amaitzeko ordua eldu dala, uste dogu; orlik eta emendik entzuten diran kantu eder eta deieri erantzunez.

Baiña ordua eldu dala esatea ez da naikoa, lenengo oinkadak nundik emon, argitzen ez ba'da. Eta ez dogu biderik aukeratu, sarri esan dogun bezela, bakoitzak, berari dago-kionean, zintzotasunez eta garbitasunez jokatzen ez ba'dogu. Eta garbiketa ori, ikusten dogunez, sukaldetik asi bear dogu, atejoka auzora joan baiña lenago.

Orain dirala amabost egun, gogor maki-llatu gendun, Amatiño'ren iritzi «aldizkari kaskajo» dan bateko ixilleko zuzendaria. Zergaitik? Aspaldi erakutsi euskulako bere asmo txarra. Baiña, zer arraio! Gurengana datorkiguzan txepetx gixajuak «linboan» bizi dira... bestelakoak dira, albisteak emoteko txantxangorriak. Eta olako txori batek emonda, Anaitasuna ta Zeruko Argia'k era batera argitaratu daben albisteak arrituta itxi gaitu! Amatiño ta Kintana'ren idaz-laneri esker Jaurilaritzako lendakari ordezkoaren izena jakin al izan dogu... eta au, jaunak, ekitaldi baterako mamín larregiko opil beroa dogu!

Nork uste «Jaurilaritza» orren lepotik barre naiko egindakoak —batez be, Kintana'k, «Ukronia» ipuñean, irakurle alperrok— «lenengo eskuko» barri emoilie izango ziranik? Azurmendi prantziskotar «pilosopo» baten idazkerari oratuz, «Ukronia utopiaren urrengo fase»ra joko dogulakoan nago. Kintanowsky izkuntzalararen euskaltzain bazkide ta atxezaleatasunean lagun maitea dana, lendakaritzara elduko ba'litz, ona emen aldakuntza batzuk: «Ez litzake Arana'ren argazkirik txaideetan ikusiko (erretorik kaleetan, ez!); Napoleontxo txokolatagiri-rre'n aukia iritzi zabaleko —baiña H-sopa «erraziñoakin» asetuko gizuñana— gizon jator batek beteta; amaituko litzakez «arraza-keri» guztiak; umeak ez litzakez «kaikuekin» ikastolara joango; ikastola orretako zuzendarriak (orain modan ipiñi dan lez) «aurrera-koien» artean izendatuko litzakez; Jaurilaritzako aukiren bat, bear ba'da, «Kultura popularreko» Kintanowsky lagun maitearentzat izango litzake... ainbat oorezko aipamen esker-erakutsiz; Erdaltzaindiak ofizialki baimen guztiak izango leukez...»

Ez goaz aurrera «utopian» ametssegiten... lurrean tinkoturik, zerbait aztertzeraz baiño: Bakoitzak, h'ari, ta beste bitxikeriari buruz, bere iritzia izango du. Alde bateko ta beste gazte jator askoren eskutizak artzen dituz; egia esan, danak zintzotasunez beteak orain arte. Baiña erri zearen artean burrukan dabiltzanak, min aundia artu dabe orangoan. Zelan ez? Lenengo atxeak eta s'ak ikusi genduzanean, irakolako «erratak» ziralaz esan euskuen. Gero, argi ikusi gendun, «errotarria» iruntsi bearo gendula, kokotetik zintzarria dingillizka... baiña gu orretarako buru-gogorak izan. Eta, ez!, esan gendun; ez, orri oieri ta ez, lendakari ordezko orri. Gizon jatorra dala? Ez dogu ezer ukatuko, baiña gure iritzirik eskatu ez danean, ez dago gure burua lotzeko indarrik... ez gara ba, demokratek?

Lan au idazten nagola, adiskide batek deitu daust: «Josu, arren eta arren, ez egizu banatze barririk sortu!» Ez, ez noa olakorik egitera, baiña ezergaitik be ez nere askatasuna saltzera.


Bakearen izenean ixilduko ba'nintz, betiko izango litzake. Euskerea irakurteko gai ez diran guztiak, «batua»ren zabaltzailerik sutsuenak dira. Bardin «gizarte» arazoetan «linboan» bizi diran geienak be. Etxean, seme-alaben artean «ikerea» artzen dabenean... betikoa!: gu errudun.

Batasuneruntz jo bear dogu euskaldunok, baiña orretarako, etxe barruko batasuna egin bear dogu... ta gurean, oraingo bezelantzat, ez dago «verticaltasunik» Ba-dakit asko dirala «gurean» aurka dagozenak, batez be bildurten —ala saltzaille— artean. Ba, geurea garbitzen dogunean —edo ixiltzen gaituenean— eskuak luzatzeko ordua izango da.

Betor ba, euskaldunen arteko alkartasuna, baiña len esan dogun bezela, zintzotasunean. Eta gogoratu begiez buruzagi batzuk, zuzaitzen arean pean esandako itz oneik: «nere aginduba ondo betetzea zin dagit». Au da: ordezkarriak dirala ta ez agintariak.

Irarkule, ez dozu ulertzen? Parkatu!

ARENAZA'TAR JOSU



ZUK ZER DEZU,

SASKI NASKI

ARANTZAZU?

Kanta ezagun onen itzekin bukatu du J. Arenaza'k bere idazlana, Arantzazu'n Xabier Peña euskal-irakaslearen omenez egindako billeraren berri emanaz. Anaitasun giroan izandako billera; pake-giro gozoan idatzitako lana Arenaza sutsuarena. Nork dio, edo nork uste du Arenaza'k ez dakiala garrasi miñak egiten, luma ozpiñez bustitzen besterik? Ni baiño paketsuago, gozoago itzuli da Arantzazu'tik. Nonbait ere, Arenaza'k ez zuan ikusi nik ikusi nuana: aurtengo Aste Santu'ko programa.

Ostegun Santuaz an idatziak ikusi nituanean, nola ez nintzan arrituko eta irrituko? Ez bein, bai berrian irakurtzen nuan: «Kristo ohinak garbitzen dugu, bere ikasleai ohinak garbitzen». Eta, «guk nohiz irabazten dugu, gu nohiz gara nagusi?»

Ni ere kantuz asi nintzan: Zuk zer dezu, Arantzazu? Baiña ez Arenaza'ren gogotankera eta biotz-giro berean. Zuk zer dezu, Arantzazu? Non da emengo zentzun ona, non da emengo argia? Euskaldunok lepotik ola irri ta farra egiten nork erakutsi dizu? Noiz eta nungo euskeran idatzi da egundaino nohiz eta ohina, tarteko atxe orrekin, noiz eta oiñak esateko? Noiz eta Ostegun Santu argi eta paketsuan sartu bear zenuten eta euskaldunon begi-aurrean jarri su-pizgarri ori, orrenbesteko ez-jakiñaren ezaugarri ori? Zerk jan dizue buruko muiña?

Eta jakin dedanez, ez da izan aruten bakarrik uts ori, oker lotsagarri ori. Aurreko urteetan ere berdin agertu omen da. Arantzazu'n ez ote da iñor ori salatu eta zuzentzekorik? Orain ulertzen det ez-baiña-tarrak maiz esaten dutena, alegia, letra orrek ez duela garrantzirik bat ere. Nola nai ere, batzuentzat, letra ori ez erabiltzea da pekatua; baiña jartzen baldin ba'dezu, gaizki naiz ongi, arira etorri, naiz ez etorri, berdin da; aurrerakoi azaltzen zera! Gure arteko kokolo askori orixe sartu diote buruan. Gure «ez-baiñatarrentzat» uskeria da, ez du garrantzirik, eta aurrera! Orregaitik edo, Arantzazu'n ez da iñor kezkatu Ostegun Santuko uskeritxo ori zuzentzeko.

Orrela, laster, beti Oñate edo Oñati izan dana Ohinati idatzirik ikusten ba'dezute, ez batere arritu, mutillak. Orrenbeste ikusiak gara. Olatsu egin du bere burua maisutzat darabilan bilbotar batek Bizkai'ko Lemoa —Lemona— erri-izenarekin: Lemoha idatzi. Bilbotar au maisu aunditatzat daukanen batek esan du gero, agoa zabalik: «Au diaguk au, Maisua, au gizon jakintsu eta aurrelaria!» Orrenbesterañio ari dira norbaitzuk gazte diralako batzuen buruak ergeltzen eta kaitutzen.

Jo ezazute Arantzazu'ra bertara. An degu Aita Gandiaga, olerkari bikaiña eta bakana. Nork beartu du, berak atxerik gabe asma-

tutakoa atxeekin idaztera? Neurri zarretan bizkaieraz ondu dituan bertsoak, zergaitik atera bear izan ditu, letra ori tartean dutela, bertsoen neurria luzeegituz eta ondatuz? Eta orrez gairera, nork erakutsi dio, nork edo zerk beartu du bein eta berriz lehun jartzera? Ez ote daki itz ori legun edo leun izan dala beti eta non-nai? Gandiaga'ren olerki-liburua Deusto'ko Ikastetxe Nagusiaren itzalpean bezela atera dute. Ikastetxe orri, edo orren inguruan dabilzanai omen aundirik emango dienik ez det uste eskol-ume batek egin bear ez lituzken utsetan erortzeak. Pipiak jota dago gure gazte batzuen jakitea. Zerk egin du ori? Zer-nolako gaitzak artu ditu gure argitegiak: Deustu ta Arantzazu?

Pipi au ez da agertzen atxearekin bakarrik gero. Gogoan det emen Goerri'n (Beasain'en zeatzago esateko), orain dirala iru lau urte antolatu zuten euskal-astea. Emen zan izlari, Arantzazu'tik etorrita, ez-baiña-tarren maisu aundia. Orduko programa artan irakurri genuan gure artean zabaldu dan tentelkeriaren agergerri bat. Nun ziran itzaldiak? «Udaletxearen baitan». Udaletxearen esan bear zuten, eta kito! Beste ori, euskera berri jator batuagoan esana dagolakoan, ez-jakiñaren euskera besterik ez da. Baiña ori jator erabiltzen duan batek, berea duan batek ez du sekula esango etxearen baitan. Baiña olako itz bat erabiltzeak gure arteko kaiku batzuen buruan, beren iritzi, noraino jartzen dituan! Onelako kaikukeri asko da gure artean. Ez det entzun itzlari arek oker ori zuzentzeko ezer egin zuanik. Arantzazu'ko nohiz eta ohinak zuzentzeko ere ez. «Ez-baiña-tarren» iritzi berekoa degu, nunbait. Letra orrek onentzat ere ez du garrantzirik; uskeria da. Baiña sartzen ez ba'dezu, zure erukarria! Gotzaiarenganañio joko du ta joko dute, ez dakit zeren izenean. Au aurpegiko azala!

Orrelaxe, kaikuak ortik, eta kokolo eta kokillak andik, aurpegi gogorreko batzuen egitez, sekulako matasa sortu eta sartu dute, euskera gaxoa gaixoagotzeko. Eta matasa orren sortzailletan ez ote dabil negargarri Arantzazu'ren izena?

Nik ba-nituan, bada, nere arrazoiak, gain artatik Arenaza paketsuaren pake-tankeran ez jeixteko. Nere kantua ez zijoan, ezin joan, Arenaza'ren biotz-giro eta doiñu berean. Naiko bestela baizik:

«Zuk zer dezu, Arantzazu?...
Izen latza daramazu.
Baiña latzago egin bearrez
ari ez ote zera zu?
Ai ene, ai, Arantzazu!
Zer joko darabillazu?
Arantza berriz euskera josten
zabiltzala-ta naukazu.

GOIERRIALDE

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri asmoen gainetik daben iritxi-onoeko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxi, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egilleak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M.^a MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guturako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

Aurtengo Garizuma ere joan zaigu ba!
Zer izan da 1974'ngoko Garizuma? Asko ta askoentzat, opor-aldi bat besterik ez. Langilleentzat bi edo iru egun, pixka bat luzeago ikasleentzat, eta kito. Besterik ez. Negargarria benetan! Gure Erri gaxoak Jainko'rik gabe nora joko ote du? Inguru guzian etsai erasoak besterik ez, eta Jainko gabe... zer?

Baiña ez da au bakarra. Gu, urte aurretan, Ayete'ra igo izan gera egun oietan, an izaten bai-dira elizkizunak euskeraz. Joan zan urtean, gauza batzuek ez zitzaizkigun oso gogoko izan; apaiz batek irakurtzen zitun otizetan sartzen bai zigun «euskerantoa». Eta aurretan, gure txikiak ikastolatik ekarri ziguten elizkizunen egitaraua, h'az idatzia. Ikusi genuen beraz, lengo urtean poliki asitako bidean aurrera zijoazela.

«Agur»en ikusi dedanez, Bilbo'n eta beste erriren batean ere au bera gertatzen ari da. Elizan h'ak eta gaitzenteak sartzen alegia. Elizarako, «liturja»rako erri-euskera jatorra erabiltzea erabakia dagonez, nola diteke au? Eliza ikusi ere egin nai ez dutenak, nola sartu dezakete berea? Euskera au erabiltzen duten apaizai doakie galdera au, ZERGAITIK?

* * *

Nere idazlana oneraino idatzi ondoren, lengo igandean Arantzazu'n izan giñan. Peña'tar Xabier irakasle jatorrari bere ikasleak egin zioten omenaldia zala-ta. Bai egun ederra igari ere!

Lenegoz, Meza ederra entzun genuan, an bai, pozik eta gogotsu otoi egin genua! Gipuzkoar gutxi giñan, Bilbotarrak eratu bai zan. Mezetan, poz-pozik entzun genitun bilbotar anai-arreba guztiak abo batez jator euskeraz erantzuten. Pozkarriak ardo giroa, alaitasuna ta ALKARTASUNA!

Irureun eta berrogeitamarren bat bildu giñan. Ez da gaizki! Orrelako egunak bear-bearrak ditugu indar-berritzeko. Bai orixe! Zorionak Xabier!

Guztia pozgarria ezin izan baiña oraingoan ere. Gutxiena uste izango gendun jaun betekin eztabaida gogor xamarra izan genuan. Samingarria da, gure gizon jator batzuekin gertatzen ari dana. Betiko errizale zintzoak izanik beste «gurok» gazteak —ain gazteak ez, batzuetan— arrapatu ta buruan bi edo iru GEZUR sartuak eta nai dutena silitaritzen diete.

Aiatu dedan jaun onentzat, gu gera, batez ere GU beñepein, gorrotoak eraginda ari geranak. Era batera edo besterakoak, euskera ta Erria maite degun guztiok, alkarrekin ibilli bear degula zion. Ulert erazi nai izan genion, gu Euskera ta Euskalerra egiz maite dituztenen aurka ez gerala, baiña zoritxarrez, euskeltzale agertu arren, etsai oiek egiten dutena ezin genezake la onartu. Baiña guzia alperrik!

Samingarria benetan! Nere ustez, jaun au jatorra da, eta ez baita bera bakarrik orrela atzipetu dutena. Geienetan gertatzen baita orrelako jokabidea!

* * *

Kamaraka'ren idazlanetik beste zatitxo bat.

«Erikizundi —cuestionario— ontan bildu ziran zeatzasunak laburregi argitaratu zirala esan da. Osatutakoago argitaraldi berria egitea litzakela onena, baiña entzun degunez, Erikizundia bildu zanean egin ziran inguraztitzoak Euzkaltzaindi'ko «archivo»tik galdu egin dira. Au ala ba'litz galera aundi eta erantzukizun gogorra litzake».

Kamaraka, oneraino: Orain nere bi itz.

Irakurri, arren, denok, arreta aundiz Kamaraka'ren idaz-lan eder au. Ondoren idazten ditudan zatiak, garrantzi aundia dutela derizkiodanak dira:

«Euzkaltzaindi'tik galdu egin ote dira inguraztitzo aukerak? Ori ala ba'da, Nola? Nork ote du «Kamaraka»k dion erantzukizun ori...?»

Lengo lanak «galdu» ezkerre, erreza da «len ezer egin etzala» esatea! Gu gera ordea «bartzarrak nartzen» gabiltzanak...

AMALE'K

UDAKO EUSKAL IKASTAROA

DERIO'KO SEMINARIO-IKASTETXEAN

Datorren Uztaillaren 1'etik 13'ra bitartean, Bizkai'ko Eleizaren Irakaskintza Batzordeak eratuta, iru maillatoko ikasleentzat, eta ikastaro onen elburua euskera bera dala, euskera jakin bai, baiña gramatika ta literatura maillan landu ez dabentzat, ikastaldi sakonak izango dira.

Egunero, goizean 9 1/2'etatik 14 ordurarte, ta arratsaldetan 4 1/2'etatik 6'retara ta 7'retatik 9'arak arte.

Gaiak, gramatika, aditza, idazkerea, literatura; iru mailla ez-bardifetan banatuak. Ordaindu bearra, egun osoa barruan, «internaduan» izango diranak, 200 lauerleko eguneko, 2.000 ikastaro osoa. Erdi-«internaduan», 90 lauerleko eguneko, edo 900 ikastaro osoa.

Izenak emoteko epea, Bagillaren 15'ean amaitzen da. Izenak, eta egun-osoko edo erdi-internadu nai dan jakin erazten, idatzi goiko zuzenbidera. Aurten lenengo aldiz datozenak, azterketa bat izango dabe aurretik.

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra

BILBAO - Casco Viejo

Tenderia, 15 eta 16

BERGARA



EDUARDO IBARROLA: 100 urte

Emen nago Ibarrola'rekin. Datorren larunbatean 100 urte.

Bergara'ko jaiak dirala ta lantxo bat eskatu didate Agur'erako gazteei buruz. Eta zer idatziko, pentsatzen, pentsatzen... «Bergara'n gazteetan gazteen Ibarrola, bere 100 urte ta guzi», esan det nere artean. Biotzez beintzat, kostako da gaztegorik arkitzea.

Emen gaude biok bere etxe berrian. «Berria», diot; baña leen ere emen bizi izana degu; gerra arte emen bizi ei zan. Gero... gerra gerra, ta... etxez aldatu bearrean izan zan. Oraintxe zortzi egun etorri ei dira berrira. Terraza ederra du. Ondo etorriko zaio.

Erderaz diardugu. Berak ez ei zuan euskeraz ikasteko astirik izan. Bera, bizi bearrez, lanera etorri ei zan. Ala ere, inguruan daudenak, kontuz ibiltzeko esaten didate: «euskeraz ere...». Bere seme danak dakite, ondo ere jakin. Bigarren eta irugarren illobak ere bai. Barrutiatar gazteak irugarren illobak dira, Patxi'ren semeak, eta oraintxe egun batzuk Izakun'en bodan, «laxter ezkondu bearrean izango zerate, —esaten nien— zuen aitona laugarren aitona (biznieto) egin al izateko».

Datorren larunbatez, gu Loreillaren 8'ganean ari gera, eta igandez jai aundiak egitekotan dira. Eta bildur pixka bat ei dauka Eduardo'k mezatarako. Oztu egin ei zan Milagros bere illobaren bodan oraintxe bi urte, ta orduan, Elizan, arrapatutako katarrotzarra ez ei zaio joan oraindik.

Pozik dago. Apetitu ona ei dauka. Begi ta belarriak orrelaxe eukiko balitu... Olloaren ipurdiko zuloa ere, erderaz «bocado de la reina», jana ei da. Baña ez ei du berriz jango. Ziri ederra sartu ei zioten.

* * *

—Eta... zu nun jaio ziñan?

—Ni Torres'en, Naparro'n. An dagon Mujia basetxe batean. Baña txiki-txiki-tatik Sansol'en bizi izan gera, ta Sansol'koa naizela esan izan oi det. An nekazaritzan lan egiten nuan, eta beti mandazai.

—Noiz irten ziñan andik?

—Ezkondu ta laxter. Jazinta Albeniz'ekin ezkondu nintzan; 22 urte nituan. An bizi ezin eta Bilbao'ra jo genduan. Emen 3 illabete Arriaga aretoan jardun nuan lanean. Lan onek ere aspertu egin nindun eta berriz ere mandazai ekin nion: minatetik mina karreoan Atxuri'ra. Lau mandokin ibiltzen nintzan. Bilbao'n jaioa degu seme zaarrena: Patrizio alegia. Baña Jazinta'k ezin zuan etsi ta Sansol'era joan zan. Ni Bilbao'n. Tarte orretan bi seme jaio ziran Sansol'en.

—Bergara'ra nolaz etorri ziñan?

—Ara bada: nere emaztea Paulino Manso'ren lengusu egiten zan eta onek ardo almazena zeukan Bergara'n. Paulino au emengo Mansotarren aita zan. Eta Bilbao'n ez emazte ta ez ezer, aspertu ere bai, eta diru gutxi irabazten zala ta, Bergara'ra jo nuan, Paulino'ren gana. Onek mandazai artu nindun. Bost mandokin ardo karreoan ekin nion. Mañeru, Zirauki, Puentelarreina, Zenizero, Laguardia, Puebla de la Barca. Haro ta amaika Naparro'ko ta Errioxa'ko errietatik ardo ugari ekarria naiz Bergara'ra. Baita Lekeitio'ra ere eramaten nuan nik ardo, eta andik Haro'ra ere bai arraia.

—Beti ortan jardun al zenduan?

—Ez, ez zan lan ona; gogorra zan, beti etxetik kanpora eta aspertu egin nintzan. Sereno sartu al izan nuan eta 25 urte orretanxe jardun nuan: gure gudate bitartean. Orduan etxetik alde egin bearra izan nuan eta Bizkai'ra joan nintzan. Andik etorri nintzanean, ez etxe ez lan gelditu nintzan. Etxe bat billatu nuan, baña ez nuan berriz sereno iza-

terik al izan. 1952 gu urtera arte ez nuan nere lan-korapilloa konpontzerik izan. Jubilazioa eman ziraten orduan. Lan ontan Paskual Arana'k lagundu ziran asko. Oso genduan au etxe.

—Serenoza lan ona al zan?

—Batzutan. Astindu bearra ere izaten nuan ifioiz. Bein dantzari sonatu bat etorri zan, ez dakit zenbat ordu dantzan gelditu gabe jardun bear zuana. Ekin zion, eta bai jardun ere: 70 ordu jardun zuan, gelditu gabe. Ambrosio'ren zinean zan ori, eta sarrera ordainduta, Jendea sartu ta irten ibilli zan. Azkenerako aspertu ere bai, ta gazteak bereak eta bi egiten asi ziran. Ez zioten dantzariari, berak nai bezela dantzan egiten uzten. Inguru artako serenoak gauza ez gazte aiek menderatzeko, ta neri ots egin zidaten. Ni Mazterrekan nengoa. Ba nator, eta «Ibarrola, Ibarrola» asi ziran gazteak; baña ez ziran danak bildurtu ta ezta alde egin guziak. Astindu ederrak artuak izan ziran, eta txirolan sartuak ere bai iru.

—Ondo konpontzen al ziñan gazteekin

—Bai, oso ere ondo, naiz eta batzuetan gogor xamar astindu bearra izan. Jende ona zan. Kantari onak ere ba ziran. Ortik etorriko zaio gaurko orfeoiari indarra. Baña ez zituzten beti orduak errespetatzen, eta... jakiña! orduan gogor artu bear, eta ni ikusten nindutanean, «Ibarrola, Ibarrola» esan eta goiko estaziora joaten ziran. An abesten zuten. Ni ez nintzan arutzaño joaten. Baña oso ondo konpontzen giñan.

—Zenbat seme-alaba izan dituzu?

—Zortzi. Gaur bost bizi dira. Ezkon-duta danak: lau Bergara'n eta bat Oñati'n. Patrizio, Aurelia, Nieves eta Pakita emen; Luis, Oñati'n.

—Eta billobak?

—Orixe bai ez dakitala. Asko.

Asten gera kontatzen eta 18 kontatzen ditugu.

—Eta Irugarren illobak? (Biznietos).

—Uuu!... ori gutxiago. Ori jakiteko... Ene! Ez nituzke kontatuko.

Bere alaba Aurelia'rekin 25 kontatu ditugu. Ondo konpontzen ei da bere illoba ta billoba guziekin. Danak maite ei dute, ta pozik da. Ikustekoa da onen sasoa. Burua argi dauka; jan berriz... jango luke... baita... Baño orain korapillo txiki bat sortu zaio: etxez aldatu dan ezker ez ei dabil ondo. Beste etxean txoko guziak ezagunak ei zituan eta bera bakarrik ondo moldatzen ei zan; baña orain ezin ei du gauzarik arkitu. An berakatz-zopa egunero berak egiten ei zuan eta jan ere bai; baña orain etxe txokorik ezagutzen ez, eta begiak lauso xamartuta ei dauka ta ezin gauzak arkitu. Baña ikasiko ei ditu emengo txokoak ere.

—Eta zer egiten dezu goizetik gabera?

—Zortzitaerdiak inguruan jeikitzen naiz. Etxe berri ontan goiza luze egiten zait. Ez ditut baztarrak ezagutzen eta nun ibilli ez det jakiten. Arratsaldeko iruretatik seirak edo zazpirak arte aize pixka bat artzera irtetzen naiz kalera. Len, Gorla aldera joaten nintzan. Orain Poligono aldera. Txorabio batek jo ninduan bein eta estutu egin nintzan, nere burua bakarrik arkitu nuan eta. Izan ere an jende gutxi ibiltzen da. Poligono aldean zenek langundua errexago da arkitzen. Txorabioa, ordea, bere illoba Milagros'ek esan digunez, butanoren eskape batek eman ei zion.

Eduardo'k esan dizkigun guziak jarri nai izango ba nitu, ez nuke naikoa AGUR osoa ere. Eta astirik ez gendualako esan gabe utzi dizkianak askoz ere geiago ei dira. Guk baztaretan entzun deguna au da: sereno zuzena izan zala. Napar onek zuztarrak bota ditu beintzat Bergara'n.

Gazte, benetan gazte gure Ibarrola zarra, bere EUN urterekin.

Ibarrola!

URTE ASKOAN TXAPELA KASKOAN

Agur. ESNABIDE



román

DANETARIKO ARGAZKIAK
BALTZEZ NAIZ MARGOZ
ARGAZKIGAIEN SALTOKIA

Simon Arrieta enp. 4
76 25 23 urrutizkiña

BERGARA

Zubikua

—Felisa Elkoro—

Galtzetorraz lanak
Ugal eta narruzko gaiak

Barrenkale, 24
761016 urrutizkiña

BERGARA

GOZOTEGIA

RAIZABAL

GOZOKI BARRUNBETEAK

Artekale, 9
761183 urrutizkiña

Bidakurutzeta, 20-22
761219 urrutizkiña

BERGARA

JANTZIGINTZA

YOSKIN

761727 urrutizkiña BERGARA

Lombide

OSKITEGIA

NEURRI BEREKO OSKIAK

Bidakurutzeta, 7
761057 urrutizkiña

BERGARA

TXIKI TA AUNDIENTZAKO
JANTZIAK

Aranzabal

BOUTIKEA

Zubieta, 13
76 12 59 urrutizkiña

BERGARA

ULTZAGINTZA
BURNI-ARI ZAPALAK
Kartoi Joskintzarakoak

ROTALDE

LANGINTZA

Ortuibar, z/g.
761267 urrutizkiña
76'gn idazki-kutxa

BERGARA

BIZI - NAI

Muxika

JOSTUNAK

Barrenkale, 1

EIBAR - BERGARA

BITXI TA ERLOJUTEGIA

Gantxegi

Bidakurutzeta, 13
761373 urrutizkiña

BERGARA

ERTI APAINKETAK

EDERTU

ERREDIZAK

Barrenkale, 23

761604 urrutizkiña

Irizar ibiltokia, 2

762965 urrutizkiña

BERGARA

MODAS

AMENABAR

Ondo jantzi nai al dezu?
Zoaz AMENABAR dendara
Jazki apañak. Ondo egiñak
Giza-emakume ta gaztetxoentzat

Barrenkale, 4

761128 urrutizkiña

BERGARA


MUXIKA

GOZOTEGIA

Artekale, 3

BERGARA

B E R G A



Igaz, POL-POL'ek, garatutako m...

UNAMUNO IDAZZLEA

Bergara'tar askoek ez dakite, agian, Unamuno idazle ospatsua Bergara'ko jatorrikoa zala aitaren adetik. Bilbao'n jaioa zarenen, aita Bergara'tarra zuan eta eztaikit errikidetasunak ikuluta edo, atsegintasunak dituta, idazle orrek idatzita bildu diran idazki oro irakurriak ditut.

Atsegin zait beraren idazkera, naiz-ta asma askoetan berarekin ezpanago ere. Batez ere euskera gaietan. Ez zun euskera bear bezela ikasi eta gaitandu eta orregatik esan izan zitun azalkei asko. Baiño, oiek alde batera utzita, atsegin zaizkit beraren ausarta, egizaletasuna, jakintza eta idazkeraren giar tinkoa. Zitu edo fruta askoko zugaitzak ostu gutxi izaten dituan eran, ez du Unamunok apaikeri larregirik beraren azalpe-

netan. Bai, ordea, egi sakonik billots. Egizale zan. Noski, berak uste zuan egiaren zale. Ez zuan beti arrazoi izango, baiño, aski zaio gizonari egiltzat daukana garbi azaltzea eta ez beste idazle askok bezela kedats edo intzentzu lurruna sendo jaurti elkarren utsegiteak izukatu naian.

«Erria zaurituaz esaten diran egiak dira ongariak. Bear dan bezelakoa izan dedin erria, egi zorrotzekin zauritua izan bear da». —zion. «Gizonaren jakintza norbere aberriaren alde egon bear luke... Zu Españiatarra zeranez. Españi alde, noski» —erantzun zion alboko batek—. «Gizonaren jakintza egiaren alde egon bear da, betin». —«Unamuno'k—.

Orrela zan gure Bergara'tarren semea. Idazten zuana, luma ordez orratz muturrarekin urratuz idazten zuala zirudin. Orregatik, zaurimintzen ziran asko.

Gizon arroskotzat zeukaten askok; jakintzaren arrokeriz beteia eta batzuek behaitzek eta beste batzuek beraien jokeren aurka azaltzek sumintzen zitun eta arierio asko izan zitun beraren bizitzan. Ala ere, berean jarraitu zuan ausarti, ziur dagonaren berekoitasunez.

Ba-zekian Unamuno'k jakitea bakarrik ez zala aski, ezta egiaren ezaguera jabe izatea ere; ontzat artu, azaldu eta jarraitu egin bear zitzaioala egiari gizonki. Gezurra nagusi degun gizarte onetan egi argi eta garbi esateak arriutu egiten gaitu eta iges egiten diogu egizaleari okerrik izan ez dezagun. Orregatik iges egiten zioten askok Unamuno'ri ere baiño ez bakoitzaren baitan ontzat artzen ez zutelako.

Bildurrik gabe esango nuke Unamuno'k adiskide geiago dituala gaur, beraren bizitz-aronan baiño eta orrek egiztatzen du nik gorago diodana.

Egiak mingots izan oi dira geienetan eta Unamuno'k mai gaitera ateraten zituan otzara amariak, frutak, ez ziran izaten gozozale aozentzat. Gordin eta gazi-gozo zaleentzat baizik. Egizaleentzat, alegia. Luzera, baiño, gozokiak iguindu egiten gaitu eta mingotsaren bearra arkitzen degu ao-sapatian bear degun egiaren gurariz. Orra Unamuno idazlearekin gertatzen zana.

Bere idazti edo liburuetan, ez du Bergara erriaren izena sarri erabilten. Idaski bat ba-du, ordea, S. Martzial'ko jaietaz idatzia. Baita Bergara'ko Martin deunaren aldele porrokatua izan zan beraren osaba baten aitapena ere egiten du.

«Agirre'tar Lope etoia» deritzan idazkian, beriz, Unamuno'tarren jatorrikoa ote zan dio, eta ez nuke ezetzik esango. Batetik, Agirre abizena berak ere ba-zualako, bestetik gertukoak ziralako, baiño, geien-geien sinistarazten ditana izakera antzerakoak zituztelako, naizta egintzak oso ezberdiñak izan. Biak ziran egizaleak eta gezurraren aurka gogor aurkezten ziranak, naiz ta Oñati'ko Agirre'ri etoia esan eta Bergaratarraren semeari arro setatsua. Egizaleen amariak berandukoak izaten dira baiño iraukorrak eta goragarriak.

GALLASTEGI'tar MARTIN

OSINAGA'TAR FRANZISKO'REN ALARGUNA

IGELTZERITZA

Bidakurutzeta, 38

762999 urrutizkiña

BERGARA

OIALAK

PORTU

JOSTUNDEGIA

Mazterreka, 1

762493 urrutizkiña

BERGARA

GALARRETA

OSKITEGIA



EIBAR

BERGARA

JANTZIAK

USAI GOZOAK
APAINGARRIAK

IDARRETA ETXEA

Gauza onak eta
moda-modakoak
ementxe saltzen dira

AUREN JAZKERAK

Arratsaledko 8'rak edo dira. Gazte talde bat, «Pol-Pol»aren ofizian. Zarata bizian diardute izketan. Sasoiko mutil eta neska; kolore ederrekoak. Ogei bat egongo dira. Gorbea mendian izanek geienak, Pazkoa astean. Birika-auspoak aizez ondo beteta, ez da arritzekoa auen jarduna. Etxepekoak izando dute naikoa lan auen zaratakin, baiña gazte dira ta... zeñiek ixilduerazi? Mutu baiño obe da ta, jarrai dezatela orrelaxe.

Orain denbora asko ez dala, izparringi batean, «kaleari igesi joan oi dirala mendira», irakurtzen genduan. «Eta... gizartearen burruka kalean dago. Eta burruka ori da gizonaren benetako burruka».

Ez zeuden konforme mutillak.

«Ez; gu ez goaz igesi. Gizartearen burruka bizia ez da jai egunetan. Astegun buru zuri da burruka garaia. Jai eguna indarrak biltzeko da».

Nik orduan, pixka bat zirikatatu naiean:

«Ardura al dizue, bada, zuei gizartearen burruka?»

«Bai ta asko. Guk ere nai degu burruka ortan parte artu, ta artu ere egiten degu gure modura. Eta mendiak asko laguntzen digu».

«Ba al dakizute Irun'go Ramuntxo Trinketean jartzen zuana?» Gizona kendu, koipea jartzen, giarra geitu, osasuna sortu». Ez al da polita ta ederra?

«Bai, guk ere osasuna nai degu, ta orretarako mendia bezelakorik, mendian ibiltzea bezelakorik ez dakigu dagonik. Egongo dira toki egokiak, baiña mendia ere oso egokia da. Baiña guk ez degu gorputzaren osasuna bakarrik nai. Baita buru ta biotzarena ere. Burua argi, biotza garbi ta kemena ugari bear gizarte-burrukarako, gogorra ta latza dalako burruka ori. Eta guk ez degu mendia bezelakorik orretarako arkitzen. Gu beintzat ez goaz igesi mendira».

Gauza asko entzun nizkien auei. 16, 17, 18 urtekoak dira.

LETE

OIAL - ESTALKIAK

EGITE - BERRIZTE - ERAENTZA

EGUTERA, BALKOI, AKEITETXE TA ABARRERAKO MARGO


ASKOTAKO BELAKIAK

BERGARA.—Zubieta, 34 — 761224 urrutizkiña

EIBAR.—Amaña, 1 — 718133 urrutizkiña

ARRASATE.—San Andres auzunean — 792383 urrutizkiña

ARRA



k, gaztetxearen mendikoa-egonaldia.

berak eta gaztetxeoenak aztertzen dituzte. Eta... ez eztabaidarik gabe; baña eztabaidaren ondoren erabakiak artzen ondo baño obeto dakite. Gaztetxeoen igandeko ibilladiak, mendi-ibillaldi neurruak, mendi-egonaldiak eta beste gaztetxeoen aibeste gauza batzar auetan sortzen dira. Eta gero... beren txanda dutenean gaztetxeoen bide-erakusle ta zaindari ere bai mendira. Illean bein edo... geienetan.

Ez, ordea, ori bakarrik. Beste ekintza ederrik ere ba daramate aurrera. Perretxulari sail eder bat ba da. Konkursotan ere parte artzen ba dakite; ta... irabazten ere bai. Orretarako aurrez, urtearen buruan, ikas-saioak izaten dituzte beren maixuakin eta euren artean.

Baño guziak aiatatu gabe, orain argazkilarien taldea aiatatuko det: Ostiralero, gazte auen inguruan 50 gaztetxo biltzen dira. Eta amarnakako sailletan jarri, ta... argazki ateratzen, laboratorioan rebeltzen eta argazkilariak jakin bear dituzten jakingarririk berezienak erakusten dizkiete.

Aurten bertan, Otsaillaren 10'ean, ARGAZKI-RAYLLE bat egin zuten. Zoragarria izan zan. Eguna ere berezi-berezia: argi-argia; argazkietarako onena ikustekoa zan. Arrasate, Kanpazar, Elorrio, Elgeta ta Bergara zear... Abere bizi baten argazkia bear, eta... «an, an asto bat bi astakumekin», eta danak atzetik. Bai arrapatu ere; baña orain nola ar-

YAZKI

AURREN JAZKERAK

Aur-gurdi ta seaskak

Irizar ibiltokian
761654 urrutizkiña

BERGARA

JANTZI TA BITXI-TEGIA

IGARTZA EXTEA

Artilezko ta
Galtzetorrazeko
Lanak

Ariznoa, 15
762488 urrutizkiña

BERGARA

ERLOJUTEGIA

arantza

BEZUZA GAIK

Barrenkale, 4
761004 urrutizkiña

BERGARA

EMEN BERRIZ

gazki egokia atera astoari? Ez zan geldi egoten eta, ezin. Baña bai, ederrik atera zuten.

35 gaztetxok artu zuten parte. Ogeiña argazki atera zituzten, gero andik zapiña aukeratzeko. Guziakin, zapihorik berezienak aukeratuta gero exposizio bat gertatu zuten. 350 argazki eder, zein baño ezin ederragoak jarri zituzten. Ikuztera joan zan jendea, eta asko izan ziran ikusleak; arri-arri eginda gelditzen ziran, urte oietako neska ta mutil koskorrak orrelako argazkiak egin al izan zituztela ikusita.

Ez noa beren ekintza guzien berri ematera. Ez zan au nere asmoa. Igesi ez dijoazela mendira esan nai nuan. Kultura bidean lan egiten duten mutillak dira, ikusten danez. Gaur egunean bear bearrezko diran neska-mutillak.

Lagunartekoak dira. Ez dira bakardaderako jaiok. Lagunartekoak eta lagunartean lan egiten dakitenak. Gizarteari, aurrera bidean, bultz egin nai diote eta urte auetan egiten dituzten lanak, gure ustez, asko erakutsiko die gizatasun bidean. Eta... mendiak asko laguntzen die.

OLAETA

Raul Calvo, Julio Unamuno, Juan Narbaez, Gotzon Bikuña, Xabier Oregi ta Xabier Unamuno'k osatzen dute Bergara'ko abestalde au.

Nork ez ditu ezagutzen talde onen abestiak? Eta nor ez da gogoratzen HIT PARADE deritzan leiketan lenengo mallara iritxi ziraneko «AITORREN IZKUNTZ ZARRA» «NESKA ZARRAK» ta «AURRA SEASKAN» abestiekin?

Geroztik gudaritza edo soldaduzka garaia eldu zitzaieanean, deseginduta gelditu zan talde au, baña orain berriz asi dira, beren asmo onarekin eta nire adiskide dan Gotzon'eri, galdera batzuek egin dizkiot.

—Izango ote duzute oraingo ontan lengo arrakasta?

—Nire ustez bai, batetik abestaldeak gutxitu egin diralako (au ez da arritzekoa, laguntasunez ain eskas oi dabiliz, euskal taldeak) eta bestetik saio gogorak egiten ditugulako.

—Ezin da zuen elburua abesti oiekin?

—Ba, guk, gure abestiarekin erria ta bere izkuntza dauzkagu gure gogoan, nortasunari eta gizatasunari eutsi dakien.

—Azken galdera bat Gotzon, zuenak izaten al dira doña ta itzak?

—Ba, egia esateko lenengoan abesti ezagunak abesten genituen, baña geroztik, Xabier Azurmendi'k ematen dizkigu itzak, Lenago, Txomin Amasorrain gizon bikain arek ematen zizkigun bezala ta, doñaak berriz... gure taldeko Raul Calvo'k egin-dakoak dira.

Au etzunda lagatzen dugu gure adiskidea beren asmoak lortuko dituzten itxaropenarekin eta gure aldetik aal dugun laguntzarik aundiena emango diegu orrela izan dedin.

ERROMAN

idatzi

Ingi ta Idaztegia
Marratz eta Idazkola Gaiak
Idazgailuak

Barrenkale, 14
762392 urrutizkiña

BERGARA

IÑAKI ARANZABAL

OYAL

Ariznoa, 5

762111 urrutizkiña

BERGARA



OPIL ETA GOZOKIÑAK

GOXO - TOKI

Ariznoa, 3

761235 urrutizkiña

BERGARA

LANTEGIETARAKO GAIK

ORNI

Zakarkentze ta leunketarako langai berezkiñak

Aize ta oliobultzadun lotura azkarrak

Bidakurutzeta, 38

761362 urrutizkiña

BERGARA

FILO AGIRRE

Drogategia Usain gozoak

Bidakurutzeta, 6

761025 urrutizkiña

BERGARA

BITXI-TEGIA

“JESUSA”

Mertzeria

Matxategi, 10

BERGARA

BERGARA'N

LASA

ZURE JATETXEA

maza

Soiñekogintzat'ik

Agurrik Beroena Bergarrarei

Erriko Jaietan

Bidakurutzeta, 9

761625 urrutizkiña

BERGARA

ARRIATOKO

BARRIAS

Bilbo

Bilbo'ko gaztetxoak Belgika'n

Loraila'ren lenengo egunean, eguastena, goizeko zazpi ta erdian, Henao txaidean, ogeitamabi neska-mutil, gure lau andereñoek eta Xabier Peña'k lagunduta, Ziriako berebil zuzari genduz, asi gendun ibillak au.

Gugari etozan txistulariak soñu jolaka, esan geuntson gure guraso ta lagunari agur ta urrangoarte. Neerpelt'eraño. Belgika'ko ipar aldiari, 1.500 km. geunkozan. Bizkaia ta Gipuzkoa igarota mugara eldu giñan.

Andik zuzen Blois'era joan giñan, lekaike batzun etxean gaba igaroteko. Goizeko zortzi ta erdian, goizaldu ta gero beste bein bideratu giñan bigarren zatia ibilteko. Goiz erdian Paris'era eldu giñan, uri erditik igaro, Torre Eiffel eta Arco del Triunfo ikusi ta gero bidea jarraitu gendun. Liven'era gabaz eldu giñan ta bertan egin gendun lo.

Goizak goizetik jaigi ta beste lo Neerpelt bidean, erri ontara arratsaldeko lau ta erdian elduteko. Erri polita, dana etxe politet beteta, bere baratzeekin. Bakotza sendi baten etxera joan giñan eurekaz egun onek igaroteko.

Larunbatan, goizeko amar ta erdian abestuten gendun. Estu ta larri genduzan ordu ori eldu arte. Ondo abestu gendun nire eritxiz. Arratsaldean, abestiak amaitu ta gero an barru giñan talde guztiak, emetik ziar joanak, erriaren txalo artean. Abeslarien artean lau malla ziran: txikiak 14 urterarte, nagusiak, txadonetakoak eta profesionalak.

Malla bakotzan «puntuaziño» geiago eukan abes-batzak, lenengo mallea irabasten eban. Txikien artean gure taldeak artu eban lenengo «kategoria». A zan gure poza!

Talde batzuk euren errietara jon ziran eta igande arratsaldean, gelditu giñan artean jaialdi bat egin gendun. Astelen goizean, bederatziretan edo, autobusera igoen eta Bilbo'rantz etorri giñan, Blois'en igaro gendun gaba lengo lekaike etxean. Martitzen gaban, 12'etan Bilbo'ra eldu giñan Belgika'ko ibilaldia amaituaz.

ELIXABETE

Gazteiz

ANDEREÑO BILLA

Uri onetako Ikastolaren arduradunak, urrango jartzen dogun dei au emen agertzea eskatu dauskue. Arduratu zaitte ba, irakurle, lan orretarako gertu dagozan zure ezagumeri jakin arazoten. Ba-dakizu, or eta emen, zenbateraino andereño ta irakasle bearra daukagun, ez dadilla orrelako lana bete daikuan iñor geratu, ez jakituan ta nora jo ezean, bere laguntza ederra emon barik. Pozik agertuko ditugu onelako deiak, baita lan gabe legoken andereño ta irakasleen eskeak.

«Gazteiz'ko Ikastoleak, datorren ikastororako, andereño batzuk bear ditu. Andereñoek, titularen jabe izan bearko dute, (maistra) Izenak emateko edo zertzelada geiago jasotzeko, dei egin begie onoko urrutizkin onetara: 21 40 29.

Gure zuzen bidea: Ikastola Aita Erraimun Olabide. Avda. de Estibalitz, 10, Gazteiz».

IBUR

Tolosa

IRU ABESLARI TALDE TOLOSA'KO PRANTZISKOTARREN ELIZAN

Iru eres-taldi ospatsu izan ditugu Aste Gurean: Praga'ko gizonetzkoen koral, Tolosa'ko «Leidor» eta Etxarri ta Billaba'koa, Iruña'ko eresbatza euren kin zutela.

Praga'ko taldeak, Miroslav Kosler oiñarri zutela, oso jakintsu ta zer egiten zuten ondo zekitelak abestu zuten eliz abesti mordo polita: Cantante Domino, Hans leo Hassler; Agnus Dei, Jacobus Kerle; Favete Linguis, Kampanus-Vodnansky; Hack Dies, Jacobus Gandl Gallus; Graduale, Cherubini Luigi; Les Grandes Etendus de Champs Natsals, Foerstr J. L.; Un Vrai Amour. Leos Janacek; La Priere, Bedrik Smetana.

Batera abeste ta akorde jokoan zogarri zaldun ziran pragatarrak, lenengo ekinaldi oñtan. Bigarren zatian, abots batera, ta Dereux organoa inguruan zutela, eresi gogorra ta zailla, betiko maixu zutela, eman aldi biribilla egin al izan zuten. Baita Quatre Petites Prieres, maixu prantzesarenak ere, ederki, jolas egiten zutela, azaldu zuten. Gizonetzko osotutako Pragatar talde au, onena eta oso aipatua da Txekoslovari'an. Ezagurri batzuk: Tajuz ezagutzen dute abestia, aozkatzen ere garbiak, gaiari buruz egoki diran goi-berak, abestia marrazkituzen bai zehar, bai bakoitzaren aberasgarrien arabera, ta nabarmen, beti, gozotasuna. Entzuleak oso bero txalotu zituzten.

Bigarren musikaldian abestalde trebe bat izandu zan. Lau abotsetara latinez edo gaztelez. Koral Leidor tolosarra, abestalde ospatsua belarrietan genuan. Itzulpen laburra ta triunko berea, Iruña'ko abestari.

Ona Leidor'ekoak eman zigutena: Ave Maria; Una Hora; Judas Mercator; Tenebrae; O Vos Omnes. Tomás Luis de Vitoria maixuaren eresi barrunkoiak. Oroimen ederra egin du Leidor'ek Vitoria'ren eresiak goratuaz. Tomas Luis de Vitoria, Avila'ko semea zan, eta Palestrina'ren lagun aundia. Itali'n ikasi zuan musikaren ezkutukoak.

Francisco Guerrero'ren Que Buen Año, eta Pan Divino y Gracioso; Jaen'go elizan emezortzi urtekin maixu zegoana ederki aipatu zuten.

Gero, Cristobal Morales'en O Magnum Misterium, ederra ta atsegiña. Au Palestrina'ren aurretikoa izandu zan Erroma'n.

Liberame'a, askoren gogozkoa izan zan. Neri atsegin izan zaidan. Miserere, pusketak, Bixente Goikoetxea, Aramaio'ko semearen musika zerutarra, berak nai izan zun bezela abestia. Aderki. Berobero txalotuak izan ziran abestalde ta onen zuzendaria dan Aizpurua'tar Perando.

Ostiral Gurenez, ongi ospatu al izandu zuten, Iruña'ko Cecilia eresbatzak, Etxarri-Aranaz'eko abestaldeak eta Billa-

ba'ko Koralak. Felipe Gorriti ta Charles Gounod'en erestaldia izan zan. Gure Felipe Gorriti, oso maitea Tolosa'n, eta ezagutzen asi diran abesteko toki askotan. Musikalari urterik onenak, Tolosa'n igaro zitun, emen bere eriotz arkitu arte. Santamari'ko, X. Bello'rena, gogora!

Gradual; Adoracion; eta Lamentación 2.ª del Miercoles, ederki emanak izan ziran. Bigarren zatian «Gallia» Charles Gounod maixuarena, agertu ziguten. Gounod prantzesak Wagner'en bizitasuna zahaldu zun bere aldikoan artean.

Bakar-abeslari, abeslari guziak eta eresbatzak zintzo bete zuten aldi au, oso aipagarri, batez ere Jerusalem ortan. Zorionak Maria Angelas Olariaga, bakar abeslari trebea. Orain bi urte, Gazteiz'ko Iradier taldeekin oso goian izandu zan, bere bakar abeslari zekarren Olariaga ospetsua. Gaurko erestaldi oñtan iñoiz bainon apaiñago arkitu det. Txalo ugariak denentzat, eta oso aipatua izan zan beren zuzendari ospatsua dan Xabier Bello.

Musikaldi emen antolatzaileeri, nere zorion beroena.

ARREGI'TAR ESTEPAN

Donosti

Jorraillak 23, Donosti'n iru gertakizun izan ditugu. Bi oso tamalgarriak. Asiera eman diotan, ondartzan ikusi detanakin. Sarritan joaten naiz Kontxa'n barrera, asi portu aldetik eta Antigu'ko tunela arte. Bira ortan ikustaldi ederrak izanik, nere zogarri izaten dira, batez ere eguerdi aldean, ta zer esanik ez arratsaldeko lauretatik zazpirak bitartean.

Zer ikusiko ta, tiburoi aundi bat aitz artean zirpi-zarpaka. Pentsa, iru metrokoa bera. Arrigarria neretzat, emengo ur auetan ez dalako olako arrairik ikusten. Emen urak ardetik, batez ere il oñtan. Tiburoiak ur beroagoak nai ditu, ta geien tropikoko itxas ertzetan ibiltzen dira.

Zer gertatu zan tiburoi orrekin? Alajaiña, ainbeste zarata atera ondoren, aitz artetik atera, ortarako joan ziran gizon bonberuak, eta arraia kanporantz bialdu. Ez ote zan obe, legorrera atera ta gero puskaka nai zutenak etxera eramane jateko bere aragia? Biotzkada izan ordea, ta tiburoiak, a ze nagusa poza artuko zun!

Dakigunez, tiburoi oso arrai gaiztoa da. Arrantzalieri kalte aundia egiten dietena, nola sareak autsi, edo ta ondartzetan bustialdiak gertzen daudenak jan eta olako ezbear aintz gertatzen dira ludi gaitan. Emen ostera, bizirik bialti, ta orkonpon.

Bigarren gertakizuna au da: «Gainza» erri txiki bateko «Amiama» baserriko na-

gusia, Fermin Sukia, etxe barrenean erail dute. Bere arreba Bixenta, aurreko egunean, eiztari antzeko batek perdigoen zauritu zun. Anaiak jaso zun eta etxe barrura eramane, bildurrez gaizki nai zun batek erail naiko zula-edo.

Au Igandean gertatu zan, il orren 21'nean. Astelenean, bere anaia, alboko baserrira joan zan, bere berri eman eta sendagillari deitu zauriak berritze, ta bien berritarie deituarieri zer gertatu zanaren berri eman. Gero, Fermin, bere baserrira joanik, emen, nolabait, zai zeuden, eta tiroka erail zuten.

Zeintzuk izan dira erailleak...? Ezin esan, ez da oraindik agertu erailtzaillea. Izparrak diotenez, jitanuak omen dirala-edo, baiña ezin leike ezer esan, ta gutxiago zeintzun izan diran. Ba'leike laister garbitzea ori, ortako bai daude gizona rgiak.

* * *

Irugarren gertakizuna, au da: Emengo «Pascu Berri» deitzen diogun bide ortan, Elkano aundiaren irudia, bere kapilatxoekin, dagon ortan, aurrez aurre omen zegoen berebil bat. Barruan zeudenak bi gazte, senar-emazte gazteak. Gizonak, 25 urte, ta amateak, 23. Gaurko bidezatirak or numbat. Aun zeuden beste gazte batzuk ikusi zuten, nola berebil ori aurrera abiada aundiakin asi zan. Jaunak eta! Zeiñek usteko zun: zuzen-zuzen aurrera, ta jo baranda ta bera, aitzartera, itxasora jausi...?

Beraz, bi gertakizun tamalgarriak, ta biak oraindik ez jakitukoak. Ba'leiteke bata denporaz argitzea, baserritar orren iñolza. Baiñan beste bi gazte oiena, ez da iñolaz ere garbituko, berakin eramane dutelako nai zutena edo ez zutena.

Izaten dira millaka eriotz bide bazerretan, batzuk bata-besteakin joaz, edo uste gabean goitik bera eroriaz mendiartera Oiena ordea, ezin ulertzeko gertatu da, leku ori oso zabala izanik, eta bira emateko zabaltasun aundikoa. Neskak zeraman zuzentza, txopertza.

Orren gazte iltzea, tamalgarria da. Ez gendun aspaldi oñtan, olakorik ikusi. Biak naita joan ote ziran goitik bera? Olakorik, beren gurasoak beintzat, ezin dute siñistu, ta ez dakite zer nolatan, eta zergaitik artu zuten bide ori. Ala, gogok kontra ote zan gertatua? Jaungoikoak bakarrik daki.

Izantzen dira egosgorrak, alde guzitan, ta lioziari jaramon gutxi diotenak. Beste milioiak oñtan, alik eta urte geien bizi nai, ta zerbait oker somatzen ba'du olako batek bere soñean, sendagille billa dijoa, ta orko pestillak, alako indezioak, besteke ez geio edate, gutxiago jate ta abar. Ba-dira, Asia aldean, iltzen diranean beste alde baten berriro jaitzen dirala siñesten dutenak, gaitz erdi oientzat. Gu ez izan olakoak, eta ilda gero, bakoitzak bere gogoa alik eta garbien eduki nai; gero, an goian Jaungoiko'ri kontu emateko!

E. OZKIN



MONRAY
ARKONDARA-GINTZA
ANDEREENTZAT AZKEN-JOSKETAK

Bidebarrieta, 2
21 43 46 urrutizkiña

Alderdi-zarra
BILBAO-5

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK
OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK



ZAZPI-KALEAK

CASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIQUEAK

ARRIENAKO

BARRIAK

Arratia

Bizkaia'n eta Gipuzkoa'n «Erriz-erri» dabilkigun ondarrutar ibiltariak, bein Elgeta'n izan zanean, zaldibizkar bizi dan erritxo ari dagokion kondaira zarra ta barria, gure egunetakoa, azaldu euskuzan.

Barria biribiltzeko, 1937'gneko Jorraillera atzeratu eban ordularia, lumatxo zorrotzez inguruak urratu, iru-lau bider Intxorta aitatu, eta aldi aretan an izan ziran keak, suak, kañonazo, illak eta zaurituak argitaratzez, zazpi illabete lenagoz, Urrillaren 4'gnean, an izan oneri oroimena berbiztu. Eta arrezkerotzik ia-ia berrogei urte izan diran arren, ezerik eta lerdenik dodaz oraintxe ere are-rioren crasoaldi gogorak, gure eutsi-bear larria, egun aren garratza, ta eguna illun-izean... gure garaitza!

Intxorta'ren barren-inguruetan polbora errearen usainen kide, ta crasoan adiskide ta arerio izan giñanetatik asko, alde bateko naiz besteke, jausi ziran betirako. Noiz batzar-tuko ete-gara, bizirik garanok, alkarri agur egiñaz eta mezarxo baten eragiñez gure ildakoak gogoratzeke?

Zeozer egiterakoan, zelan edo alan, andik edo emendik, batek edo besteak asi bear ba nonbaitetik. Emen dogu ba, deia, ezkil eta kanpai-otsa. Izango ete-dogu inor dei onegaz jabetuko danik, ildako lagunakaz arduratuko danik?

Eginbearreko zeregin au burutu ta lora-tzeko, dei dagioet Sarasola'n astitsu ta osasun onean dogun Ladis'eri; Zakari'ri; Ipiñazar Ali'ri; Kuka'ri ta beste zenbaiti.

* *

Gudaketea, Elgeta, Intxorta, illak eta zaurituak eta aldi aretako gure egiteak... Oraingo gazte askori esan dausenez, zoro-ke-riak. Eta zoroak giñala diñoenak, zer diraus-ku Israel'i, Siria'ri, Golan'i buruz? Zer diraus-ku oiseintza-lokarriak apurtu eta zatitzen diarduen baltzai buruz? Langille ta nagusien arteko «esketa ta czetzka» egite ori ere ez al da guda, gerratea?

Orain ere ba-da munduan zoro ta erorik, jakitun itxurazko gazte señoitoen ustetan.

Etxean ere ba-dogu gudarik, sator-gerrarik eta gudari satorrik... Erri saltzailerik, izkun-tza erderatzaillerik, zatitzailea dan batasunik, langillearentzat itzezko erruki aundi ta lane-rako gogo gitxidunik. «Amor libre, predikatu» ta norberana norberarentzat zaintzen dakia-nik. Umeak estaduarentzat oyu egin bai... baiña etxekoa etxerako ta neurtzeko egiten dauskunik. Emen ba, zoro ta txatxu gal-duakaz osatzen dogun ludia, mundua.

LANDAJUELA'TAR A.

Markiña

ETXEBARRI'KO ANTZERKILARIAI

Pozik irakurri dogu Etxebarri'ko antzerkilariak AGUR'en bitartez emon dauskuen erantzuna (AGUR, 136): Ba-dakigu, ta ziur gagoz, artu daben erabagia zintzo beteko dabela neska-mutilok. Ganau onak dira olakoetan Etxebarritarak!

Irakatsi bikaina Markiña'ko ume ta neska-mutil askorentzat. Baita zentzun geitxoagoren jabe aspalditik izan bear leueen kirten eta mamala bat baiño geiagorentzat be. Noiztik ona esketo-jantziakin norberanekin baiño apañago ta txairoago? Ala norbaitzuk oraindiño Mostoles inguruetan bizi dira! Uste ete dabe?

Oraintxe bai zulozko aurrean, udabarriko eguzki epeletan, kri-krika pozik abestuko dogula arako:

Markiña-Etxebarri'ko senar-emazte bik alaba eder bat euken zeruak emonik...

Inok jakitekotan zuok beintzat jakingo dozue abesti polit ori. Jo, bestela, zeun antzerki-zuzen-dariagana.

Kirikil guztion partez ZORIONAK, Zubialdea' tar Fatima, Ana M. Bustindui, P. M. Arrieta, Morte Ibarluzea, Mikel A. Baskaran eta J. M. Arrieta. Aurrera jo-ta-ke! Geuria da-ta, geuria da...

ASTE SANTUA

Eguraldia moteltxo baiña, biotzak galdatan. Euskaldun fededunonak beintzat. Eleizak beterik, siñismenez betetako Markiñarrakin. Pekatariak bai, baiña santuen alkartasuna siñisten dabena.

Eta betikoa! Lora artean kardulatzak be bai. Nortzuk eta nundikoak ete ziran, Bariku Santua Inauteritzat arturik, inoren eta ezereen begirune gabe, kaleak gora, kaleak bera (ta zelan?) ibilli ziran oillanda-oillaskoak? amabost-amasei urte inguruko neska-mutilak? Gizonkeri andi bat egiten ebelaokan ibilliko ziran, bear ba'da, inuzente gixajoak. Ez ziran konturatzen gizon izatera eltzeke oraindiño bide luzea daukela aurretik; euren adinezko geienak baiño luzeago.

Aurreko ta albokoan siñismen, sentipen eta eritxirik sakonenak, besterik ezean, begirunez artzen ez dakianak, oillo-lokearen egalpean jarraitu bear leue arik eta koskondutxuago egin arte. Gizon izatea ta gizonkeriak egitea, gauza bi ta oso ez-bardinaik dituk, txotxo. Onak zagoze kukurruku egiteko!

Eskerrak neska-mutilok ez zirala Markiñarrak izan! Txapelpean zentzun andiagora dabe emengoak Beste gazte batzuk (bertokoak onek) Eleizea itxiaz ei doaz; oraingoz beintzat. Zer dala-ta? Batek ba-daki! Bariku Santuko Kurutzetako ondoren itaun au egin geuntzen gazte batzui: Zergaitik itxi dausazue eleizkizunetara joateari? Eta zintzotasun ederrez erantzun au emon eban eurretarike batek, apurtxo baten kili-kolo egon ondoren: Zer nai dogun be ez dakigula, puztu egiten dogu alkar. Ta gero, napar-zumo lartxo barruratzen dogunean, Napoleon batzuk garala uste izaten dogu; goiak eta beak zuzitzeko kapaz. Ta urrengo goizaldean geure senera gatozanean, ezpata biren bitartean aurkitzen doguz gure buruak: alde batetik geure barru-barruak diñoskuna, ta bestetik, geure barruari jaramon egin ezker, adizkideak zer esango ete dabenen ardurea.

Ta benetako nortasuna noizko, norako ta zertarako, mutilak?

Ta benetako nortasuna noizko, norako ta zertarako, mutilak?

ERROMA'RA

Urte Santua dala-ta berrogetamar bat alargun joan ziran Aste Santuz Erroma'raño. Euron artean oraindiño urte luzeetan (olan izan bedi!) alargun-duko ez diranen batzuk be bai. Pozik itzuli dira baztar ederrak ikusi ta jubileo ederragoa irabasi-az. Ba-dauke zati baterako zertzaz jardun.

Ta alargun ez garanok, Don Julian, ez ete dogu jubileotxuren bat Erroma'n irabasteko premiñarik?

MARKIÑA'KO URAK

Ez dakigu aspalditxu onetan zer arraio ger-tatzen dan gure errian. Oraindik asko ez dala, zer-esan andia emon eban emengo aragiak. Orainguan, barriz, urak. Alperrekoak dira, antz, gure Mogel argiaren bertsoak, Karmen'go iturri ederrean agiri diranak:

Ur au ederra zala esanik aituak, alan arindu dira neke ta kastuak.

Mogel eta aitu orrean eritxia guzurtu nairik edo, txartel zuri batzuk ezarri dauskuez beste aituago batzuk, izki gorritan NO POTABLE diñoenak. Baiña norentzat ipiñi ete ditue txartelok? Euskaldunontzat ez, antza. Mostolestarrentzat edo... Bildurra sartu ta emendik uxatzeko asmoz? Tire, ba!

Dana dala, gure mutiko batek baiño geiagok (euskaldun utsak, ziur asko) apatxak aska ganean ezarrita, danga-danga zurrutada galantak egiten dabez ederazko txartelok gora-bera. Ta ez dautse ezetarike kalterik egiten. Euron arpegi gorrikak eta atzoko matriil gizen-biribillak lekuko.

Urrengo zer esango ete dauskue pozoituta dau-kogula gure errian? Ardua? Kontuz ortse! Spinola'k eginadakoa baiño andiagoren bat jazo ez daiten. Mostoles zaleak ez, baiña mosto zaleak guztiok gara-ta. Ai, matsaren orpotik...!

BATEOAK

Jorraillaren 14'gnean, izan genduzan Bateoak. Euskal izenak ugari ta politik: Jon, Mikel Ernaitz, Agurtzane, Zigor...

Urte gitxi buru beste, bereiztasun bat geiago izango dogu agiri-agirian euskaldunok. Baiña bitartean ez daigula ondatu ederrena. Umetxuok euren izenai dagokien eziketa jatorra izan begie amaren magal eta sutondotik. Ez bedi jazo, inoiz entzuten doguna: Eneko, venir pacá, lodemás le diré a la andereño.

Zorionak biotzez gurasoai, ta jator jokatu! Loretxuok euskal lorategirako izan bediz.

ILDAKOAK

Beragana eroan dauskuz Jaunak azken aldi onetan iru erritar maiteok: Raul Vila, Eugenio

Elexpuru, ta Ilario Olalde 87 urteko gizon mazala. Goian begoz! Ez aitzu gugaz, adiskideok. Gogoan izango zaituegu guk be barrio arpegi-arpegi alkar ikusi arte.

Gure samin-agurra senitartekoai.

!!!??

Ba-geunkan beste zerbait be esateko arako gizon madarikatua dalata. Urte batzuk dirala, bertan itzaldi baten entzuna. Baiña zera eragiñago ta atsituago ez biurtzearen...

Bukan eta zan osoa gure Erriagaitik emon eban 37 urteko gazte a... ikusten dogunoi begiak zabalduazo euskuzan a... ta abar, madarikatua ba'zan, nortzuk ete doguz onetsi bearrekoak Euska-lerrian? Ta zer garalokotan ete gabiltz beste bedeinkatuok, naiz ta santu deituraz zurituta agertu?

Erria maite dogula ta dabela? Baiña zein Erri? Or jagok unteza. Geure artean argiago ta bargiago jokatzan ez ba'joagu, gureak egin jok. Edo txarrago, gure ERRIARENK.

KIRKILLAK

Galdakano

ENE LANTEGITIK

Sarritan esan oi da, ez dala inoiz berandu zori onerako ba'da, ta orretara dala esan geinke oraingo au be. Lenago be esaten genduban AGUR onen bidez, zelako apañketa berreana aurkitzen zan gure erriko gurutzerro nagusia, edo Plaza-koetxetik, Zuazo zear, Arkotxa'ra arteko bitxabala. Dana zulututa, ta beraz, neguan eta curia egiten eban guztian, ur eta lupetzez beterik, oiñezkorik, goitik-bera loituta edo zikunduta urten nai ez ba' eban, bertatik igaro ezin eikeala egoan.

Baiña, tira!, zorionez, eta eskerrak errian dogun Endore jaunari, berak, lenengo Bilbo'n eta gero Madrid'en egin ebazan eskapideen eragiñez, bitxabal ori apañdutea lortu eban, Erri-ekintzak eta Erriaren laguntzaz. Eta, ez da eskeint-zakaz bakarrik geratu, ikusten dogunez, kementsu diardue apañteza egiten, eta gure lerro onek argia ikusi dabeneke, bear ba'da, guztiz amaituta aurkituko da, bear-bearrezkoa zan bitxabal zati igaro-bearreko ori.

Asieran esan dogunez, ez da inoiz be berandu, ondo datorkigulako guztioi bide apañte ori, ta batez bere, bertatik egunero birritan edo lau bidar igaro bear izaten dabena.

GAIXORIK

Luzarotxoan dogu ogeratuta Artetxe' tar Begoñe andere gazte euskaltzalea. Bere gaixoa, esan daustenez, zaindu bearrekoa izan da. Oberantz eginda aurkitzen da ta laster sendatuta aurkituko dogulakoan gara.

LENENGO JAUN-ARTZEAK

Orrillaren bigarren igandean, ume-txoan Lenengo Jaun-artzea (erdeldunen-tzakoa; euskaldunak irugarren igandean izango dabe), erriko txadon nagusian izan zan. Ori zala bide, ainbat neska-mutilo bildu ziran Mai-deunaren aurrean. Egu-raldiak be lagundu eutsen, eta poz-pozik ospatu eban egun gomutagarri ori.

Ez dago esan bearrik, kistar ziñes-kerrea daukagun guztijontzat, pozgarriak dirala eleizkizun orreik, baiña ez lenengo Jaun-artze ori atxakigarri dala, arrokeriz egiten diran oturantz edo bankete ikera-garriak, alperriko txinditzak eralgiaz, naita batek baiño geyagok urrengo egu-netarako jateko urriak izan etxean. Jazokun ori dala-ta, erri ontako jatetxe guztiak bateta aurkitu ziran, geyago eziñean. Batzuk, beste erri batzuetara urten bear izan eban oturantz apain orreik egiteko, besteok baiño gitxiago ez izatearren-edo. Noraiño eldu bear ete dau, irakurle, gure arteko arrokeriak?

OSTIKOKETEA

Aspaldi gengozan bildurrez, beno!, ostikoketa-zaleak beintzat, emengo tal-dearen berakadeaz. Bildur ori orretara urten be urten dau: beragoko maillara jatsiaz. Bein baiño sarriago esan dogunez, aspalditik gagoz ostikoketatik urrunduta, gitxi-gitxitan baiño ikusten ez dogula, baiña orain igande batzuk, «Galdakano» taldeko ostikolariok ikustera ta joko onen

zaleei zerbait esan naian, an giñan. Baiña ain gitxi jokatzan ikusi nebazala, jokaldia amaitu baiño len urten neban landa artatik, sartu nintzanean baiño aspertuago. Txarto jokatzan dabelako jatsi dira beragoko maillara. Noiz arte? Jatsitea erreza da, baiña igotea...?

IXIDOR DEUNA

Lenago, jai politik ospatzen ebezan, erri ontako baserritarak, baiña aurten ez dogu ezetarike jairik izango dabunik susmatu, daukaguzan baserritar banaka onein artean.

BASA-JAUN

Arrasate

ITZALDIAK

Emengo Pantzeskatarren Aretoan, lau illabetez izan diran itzaldiak onezkerok buka-tuak izango dira. Itzaldi orreitan apaiz ja-kintsuak parte artu dute eta azkenengoetan itzleri izan da Odriozola'tar Imanol. Azke-nengo itzaldiak jaun onen gain izan dira eta besteak-beste Odriozola jaunaren itzaldiak izan dira barrukoena, gaurkotasun geiago-koak. Ausarta izan da jaun au egi biribillak esaten eta entzuleak, ezin asperturik, geiagoka eskatzen zioten. Ai!, lendik, eleiz gizon askok olako egiak esan ba'zuten, gaur, gure elizak, beste giro bat izango zuan errian. Baiña onerako ba'da, inoiz ez da berandu eta jarrai bide ortatik.

ZAR-SARITUAK

Urtero egiten zaien omenaldia egin zan ill onen 10'an. Arastaldeko 6'etan izan zuten meza, gure txauburu Iñarra jaunak emanda. Eta gero «Vergaresa»ko berebilletan eroan zituzten «ULGOR» lantegiko jantokira eta aparti gozo bat izan zuten, eta onen ondoren edergailu ugarien zozketa ere bai. Guzti ori edertu zuten Eriz'dar Karmel eta «Kiko»k euren soñu alaigarriekin. Azkenez ipiñi zioten Eriz'dar Kazinto'ri txapela, danen artean zaarrena dala-ta.

ATSEDENA

Zar-sarituai dagokion atsedena artu dute emengo Santageda, gaixo etxean lana egiten zuten bi gizonok: Arana'tar Patxi eta Olano'tar Bitor'ek. Lenengoak 45 urte egin ditu sukaldari bezela eta bigarren ori beste orren-beste urtean osagillea izan da. Nik ezagutu geien dodana Olano jauna izan da eta osagille ona izan ba'da be ez da gutxiago izan euskaltzale bezela. Orain dala 40 urte berakin emengo Batzokian solaz eta alkar-izketa ederrak izaten genitun. Zorionak Olano jauna.

AURREN JAIA

Aurten be izango dogu nunbait jai os-patsu au, Ekainilla'ren 16'an-edo. Jai gutxi gora-bera, beste urteetan bezela izango dala-koan nago. Baiña azkenengo urteetan gauza bat azzuta ikusten dogu: meza. Lenengo urtean meza ori goiko enparantzan izan zan eta danok dakigu zein ederra izan zan. Orduan bezela kalean egitia, nai ez ba'da, nik uste, egin leikeela Parrokian edo Pantzes-katarretan, bakarka edo bi eleiza orretan batera, danontzako lekua egongo litzake-ta. Olako jaietan, euskaldunok, beti oitu izan dogu meza izatea eta oraintxe bertan Eibar'en izan dute euren euskal-meza ango Karmel-darren eleizan, eta emen zergaitik ez? Jai onein erakunde «DANOK» Alkarteak egiten du eta euroi dagokie erabakia artzea.

«TXANTON-PIPERRI»

Idazlan au argitaltzen daneko, emona izango du bere azkenengo Bergara'ko errian gure «DANOK» Abesbatzak, eta dakigunez abesbatz ori osatzen zun erri-eresbatzakin batera. Baiña orain dakigunez, «banda» ori desegindur egin da eta orregaitik «Txanton-Piperrri» Eres-antzerkia ezin izango da jarraitu ematen. Tamala, benetan, eresbatz ori apur-tzea, urte askoetan erriaren alaitasuna eta kultur-bidean erakutsi ederra emondakoa izan baita. Baiña gaur eguneko, gai askotan, dagon giro zantarren ondorenak baiño ez dirala, jasan egin bear, burua makurtuta.

UDALAITZ

BERGARA'N

«Mustur edo punta bako aiztoak egiteko agindu bear zenduke Bergara'ra; ez luzeak, andiak, arra betekoak baiño; bai idaz-tresnak be, an ederrak egiten dakiezalako; eta artazi (guraiz) luzeak...»

Mexiko'tik etorran karta ori. Orduan deitzen ziran Indietatik. Fray Juan Zumarraga durangoar gotzain argi eta entzutetsuak eginda.

Andik laster, 1554 urtean, andaluzitar merkatarik batek, beste gauza eta tresna askoren artean, Bergara'n egindako aiztoak eroiazan. Ez nabil asmatzen. Ikusi «Catálogo de Pasajeros a Indias» eta irakurri Alonso Quiros merkatarik bere tratuetarako zer eroan eban.

Zer euken Bergara'ko aizto eta artaziak eta tresnak ain bereziki andik eskatzeko?

XV-XVI gizaldietan Tolosa, Arrasate eta Bergara'n egiten ziran galtzairuzko izkilla eta tresnak, benetako entzutea euken. Euskal olagizonen denporak ziran burdingintzan. Sasoi aretan Bergara'ko tresna asko itxasoz bialtzen ziran erbestera, orduan Deba ibaian zear Alzolarafio sartzen ziran txalupetan.

Gogoan euki geroago Bergara'n billatu eta lortu ebala «jauntxo asmatzale» batek, Iñaxio Zabalo eta Zuazola'k, galtzairua zementaztu, erindu eta irazitako era egokia. Botoi fabrika eukan Zabalo'k. Eta ingelesak gozotasun ohegoz egiten zituelako, barruak artuta ibiltzen zan, curak gaindu eziñik. Origaitik, eta asmotza zalako, alegin asko egin ondoren, gaitasun ori lortzera eldu zan.

Ordutik, Toledo'n ain fama andiko zan Errege-ola edo fabrikak Aleman'ko galtzairua baiño naiago izaten eban Bergara'n gertuten zana, ezpatak egiteko.

Ez arritu, ba, bergararrak galtzairu tresnetan nortasun zabal eta bete eukiteaz. Dagona erakusteko izaten da eta daukana erakuslari. Edo beste askotan, emengo ondana lez, ezin eskutatu. Berezko arrokeria. Obeto esanda, duintasuna.

Gero eungiak, telakiak sartu ziran eta burdinkien indarra alboratu. 1846'tik dator Bergara'n lenengo eungi edo tela fabrika.

* * *

Esakerak ba daukez iñoiz euren alderdi argalak be. Ezin beti jaramon osorik egin, edo itsu artu. Orrelakoa leike au: «Bergara, ikusi ta igara». Eta ixtorian, legetan, irakaskintzan, etxadietan eta bizikeran daukan izatea ain errez baztertu?

Pio Baroja'ren ikusteko era be zetatik begiratu eta artu da: Bergara pitxi eta edergarri askodun erri zabal, ospetsu, baiña itzala da. Ala ete benetan?

Sarreretatik bai, itzala da. Bergara'k ez dauka bere sartuerako bideetan atadi alai eta zabalik. Malzaga'ko bidetik etorri, nai Elgeta aldetik; Antzuola'tik sartu nai Arrasate'tik, Bergara'ko sarrerak ez dira alai eta argi. Baiña Bergara'k barru zindua dauka, biotz ona. Eta biotz zinduak bizi luzea.

Itzala dala? Jo tamboliña eta ikusiko dozu. Breton de los Herreros musikalaria ondo konturatu zan orregaz. Origaitik idatzita laga eban tamboliña zala Lekeitio eta Bergara'ren atsegin-aize eta esnagarria. Euren gozamina. Jo daigun ba zek urtetan daben ikusteko.

* * *

Bergara'ren izena sarri ibilli izan da dantzan.

Bein, orain berreundak urte, alkate eta abadeak asarretu ziran. Neskatil beartsu eta premiñadun laborariei laguntza banatuteko bialdu zan batzarreko deia. Mai buruan jarrean, zein buru izan bear zan erabagi eziñik, alkarri nortasunik opa nai ez-da. Konpondu ezin eta gora jo. Eta Errege-konseillutik esan eban, abadeak, erri batzarretan, alkate eta beste erri agintarien atzetik jarri bear ebela. Gerotxuago, 1771 urtean, Gipuzkoa'ko Batzar Nagusiak, Donosti'n batuta agindu eban, eleiz jantzielkin joaten ziranetan ezik, alkateak ez eutsela laga bear abadiet iñungo batzarretan edo batualdian euren gaitetik eta euren aurretik jarri edo ibiltzen. Esatea lez, erri gaitetan, gangorra, gandoiarra erakutsi bear dabenak erri gizonak dirala.

Erri fedetsua izan Bergara. Baiña itsukeri bakoa eta bakoitza bere tokian agertzen zalea.

Parroki bi. Ariznoa'ko Pedro donearena, 1268 urtetik ezaguna eta geroago 1569'n barriztatzen asia, eta Oxirondo'ko Santa Marina, 1305'tik datorrena, 1542-1584 bitartean gaur ezagutzen dan lez eratua. Oxirondo au Elgeta izan zan 1348 arte. Iñun baiño ermita geiago. Orain Santa Marina'n zortzi eta San Pedro'n zazpi. Baiña ogeta-amairuren ezaupidea ba dago gizaldien denporetan. Erriaren makurtasun bat erakusten dau orrek. Ala ta be ainbeste arrara eragin eban Diderot'en Encyclopedie Francaise agertu zanean, iñun baiño erosle geiago eta irakurle ugariago billatu zituan emen. Norbaittek esana da Enziklopedia au, erriaren neurrian, proporzioan, mundutik geien irakurri zan tokia zala Bergara. Orrek be, Enziklopedia ori ainbeste zirikatu zan urteetan, dantzan erabili eban Bergara'ren izena.

Beste era baten, ezaguna da Canovas del Castillo'ren eriotza, bat bateko erailtza, Gesalibar'en, au da, Santa Ageda'ko uretxean. Itzallea, Angiolillo italiarra. Bergara'n sartu eban giltzapean. Eta ementxe epaitu eta il. Zarata asko atara eban bere eriotzarako gertakuntzak eta origaitik be dantzan ibilli zan erri onen izena. Nai eta orduan gaur baiño gaitz eta zaillago izan kontu eta barri asko aidetan erabiltea.

* * *

Baiña tamboliña iñok baiño aizetsuago erabiliz, Bergara'ren izena asko arrotu ebana, bere Ikastetxea, Seminario izenez ezagutua da. Aurreratua. Askontzat geiegi. Geiegi ikasteak bildurra sortzen eban garaiak egon ziran. Aurrera, Kimika eta Metalgintzako katedrak lenengoz sortu eta ipiñi ziran erria, berau. Olako sortzeak ez dira errezak izaten. Lenengotatik erakutsi eban Ikastetxe onen ikasibearretan sakon sartzeko asmua. Abade eta gizon ugari batzen ziran bertan: emengo abadei be arpegira bota eutsen euren zeregiña baztertua bide arrikutsuetan ebiltzala. Emen ibilli ziran irakaskintzan Antonio San Martin, «Ondarroa'ko abadea» deitueagaz ezagunagoa; emen Sodupe eta Landazuri arabarrak; emen Benitua; emen Zalbidegoitia abadea, Bizka'ko Arantzazu'koa, Calahorra'ko eleiz kartzelatik igesia eta abar. Ikasle zur ugari ezagutu ziran bertan. Eta bestelako irakasle zintzo, argi, kementsuak.

Gogoan artu Chabaneau prantzetarra. Beragaz batean Elhuyar. Geroago Tunborg, suezitarra. Platinoa batu, eratu eta guritzea ementxe lortu eban gaur industrietan ainbat premiña eta erabilpidei bidea zabaldu eta erretzuz.

Eun urte osta-osta irau eban Ikastetxe onen biziak. 1776'n sortu, eta bost bidar beintzat izena aldatu ondoren, 1876'n il. Alako esakera beteta: Bizi laburrean luze bizita. Bateko gerrak, besteko ikusi eziñak, uste gabeko gora-berak eta gure errialdeko nasteak, ez eutsen geiago biziten laga.

* * *

Pelota toki inguruan nabil. Etxe eder, jolastoki dotore, atsegin leku txukun... Bergara barria emendik dator. Ementxe zan Fraisko-zuri'ko landa. Ba datorik burua istorietan Bergara'ren izena darabilen gertaera. Atzeratuko ete gara 1839 urtera? Gogoratuko ete doguz emengo kezka eta emengo negarrak; emengo etsipenak eta emengo ixilleko tratuak; gogoratuko ete dogu emengo besarkadea, edo ta zur eta egitsuago esateko, emengo besarkadak; bat baiño geiago emon ziralako? Nik ez dodaz aztu.

* * *

Orain 50 urte, lau erri egozan Gipuzkoa'n Bergara baiño andiagoak, obeto esanda, bizilagunez ugariagoak. Ara, betik gora: Tolosa, Eibar, Irun eta Donosti.

Bergara'k 9.292 lagun eukazan sasoi aretan. Gaur, biribilean, bi bidar geiago. Baiña gaur, lengo lauren gaitera, beste lau errik irabazten dautse bizilagunez: Pasai, Arrasate, Ernani eta Errederi'k. Gaitera Bergara'tik oraindik lagun askok urtetan dabe egunero erbestean lan egitera. Anzuola eta Soraluze'tik etorten dira bertara langilleak, egia da. Baiña iru bidar geiagok urtetan dabe Arrasate, Eibar eta Soraluze bertara.

Amalau urtetik berako umeetan ia % 40 agertu ziran euskeraz tutik ez ekianak.

Erria ikustea baiño ez dago erri aurreratua dala igarteko, nai ta kale estuak euki. Lengo jauregi asko oraindik euren nortasuna erakusten igarten dira.

Artearen kezka bizi da. Erri gitxitan eusten dautse musikearen garrari emen lez.

Plaentxiatarren auzoko dala, angoen gatza igarten da bertakoen artean be. Eta filosofi sakona. Gaur bertan esan dauste. Gizon bat diru eske ebillan oraintzu. Ba eukan zati bat, beste zerbait Kutxaren batetik atarateko eta oraindik geiago bear.

Bankoan esan eutsen iru lagun abala eroateko. Nekez, baiña bik emon eutsen. Bere ustez gaitzenak. Eskuan eukan irugarrena.

—Abala gura neuke.
—Eta ori zer da?
—Dirua, baiña zuk emon barik, Bankuak emongo dau. Zuk izenpetu bakarrik.
—Zetarako?
—Ba orretxetarako, dirua atarateko.
—Nok esan dautzu nigana etorteko?
—Esan iñok ez, baiña Bankuan esan dauste lepo andia daukazula ta zure abala baliotsua izango litzakela.
—Kontxo! Tratua egin neikela uste dot.
—Bai?
—Ara. Nik emongo dautzut dirua.
—Ba nekien portatuko ziñala.
—Egon. Nik abala emon bearrean, dirua emongo dautzut. Baiña Bankuak abala emoten dautzuecan. Nire lepoa baiño andiago da arena.

A. ZUBIKARAI

BERGARA'KO IPUIN ZARRAK

Gure erriak ez dira lengoak. Biztanlez asiala, bizi-giroa be aldatu eta onek berekin dakar errikeren arteko ezagutze eta artuemonak gutxitzea. Orretxegaitik, bear bada, lengo erri arek ezagutu giñuzenoi orduko ipuñak entzun eta nolabait beintzat aldi artako erri-giroa somatzea atsegin izaten jaku.

Txomin Amasorrain mutilla zan orrelako ipuñak esaten. Damurik, nik dakidala beintzat, idatzi zituanetan ez dago Bergara'i buruzkorik, idazterakoan, beti, ain barruan zeroian Mundraue'koak emon bai-zeuskuzan. Berari entzunda dakit lenengo aldatzera noian au.

Toki-izen eta abizenetan gertatu oi diran ziurtasunik ezak eta illuntasunik guztiok dazkigu; izan be, JAREI eta MOSTEI entzun eta JAUREGI'z eta MONASTERIOBIDE'z diardugula asmatzea ez da errez. Abizenetan, aita-semeetan IGARZA, IARZA eta IGARTUA nasian erabiltzen zituztenak be ezagutu ditugu.

Askotan, S ala Z autatu bearrak ematen doskuz lanak, eta Bergara'n arago; bi ots orrek ez bai-ditugu bereizten: ASKARGORTA / AZKARGORTA, ASPIAZU / AZPIAZU, familia bakoitzak bere kasa eta oiturari baiño ez darraizkiola darabillez idazterakoan. Altos Hornos'eko langilleetan be ba ei zegon, Txomin'ek zionez, beretzat beti zalantzabide gertatzen zan oietako bat: LASPIUR, alegia.

Egun baten lantegian zebilela, dalako langille ori aurrean gertatu eta, zalantza ori bein betiko garbitzeko bidea aukeran ikusiaz, onela galdetu ei zotsan:

—Zu! Zuek Laspiur nola idazten dozue?

Eta erantzuna: —Guk, geuk, ELE'kin eskribitzen dogu.

* * *

Bigarren ipuñia zarragoa da: Neguak negu ziranekoa. Izan be, nere umetako oroitzapenak gezur ez badira, orduan neguak negu ziran eta zegozkionean, Gabon inguruan eta, edurra eta otza izaten ziran nagusi.

Orduko bizi-malla be ez zan oraingoa; nork orduan otzak jotzen ebanerako berokirik edo trintxerarik eta? Iñor gutxik.

Dana dala, Urliia (izena ba dakit, baiñan bear bada bere ondorengoei ez litzakioe emen azaltzerik gustatuko) ez zan gutxi oietakoa. Igande batez, Santa Maña'ko mezetarako gertatzen ziar duala, presaka-xamar ei zebillen gure gizona; astegun-gorrietan eten gabeko lanean nekatu eta igande goizean goxo, nunbait, izara arteko epela.

Azkenengo orduan, estuasunak; bigarren kanpaia jotzen, eta aura oraindik etxean, arrapaztaka jazten. Jartzen dau alkondarea eta, bizkor naiaren naiean edo, orra «kraxk»..., lepoko botoia jausi. Besterik eziñean, zeukan alkondara bakar ori amorrus lurrera jaurti, musu-zapia punta batetik gerrikopean atze-kaldean katiatu, txaketa jantzi, otzaren aitzekiarekin bere alkondararik eza estaltzeko txaketa-lepoa okotz-belarrietaraño jaso, eta or doia Santa Maña'ra, azkeneko kanpaia jotzen ziar duala.

Ala be, ez zan azkena. Beste gizon bat zetorkion ondoren, aura be azken-orduan presaka, Eleizako atean batera gertatu ziran, eta besteak gure Urliari:

—I! Alkondarea bistan daroiak?

Eta, bat-bateko erantzuna:

—Daukanak erakusten jok!

Orduan arek alkondarakin egin ebana gaur zenbaitek beste gauza askokin egiten dabelakotan nago: «Daukena» erakutsi, iñoren engañagarri.

YOSU

NORTASUNA TA NUNGOTASUNA

Idatzi bat agertu zaigu oraintsu: «Hablando con los Vascos», Martín de Ugalde (Ariel-Barcelona, 1974).

Izketara ekarritako euskaldun bat Aita Arrupe josulagun entzute andikoa. Polito ari da euskalduntasunari buruz. Bestalde, P. P. C.'ek Madrid'en bilduma andia atera berri du: «Quién es quién en la Iglesia de España». 850 lagun agertzen dira bertan, apaiz, monja ta laiko. Oietatik 104 Euskalerrian jaiotakoak. Euskalerrian eliztasunik ez duguta, albokoan sartu dizkigute gure gizonok. Auen artean Aita Arrupe. Nungoa dugun ba-dakigu-ta, nundarra edo nungotarra dan jakin gura nuke. Bidenabar, Villasanten'ren euskal-lanak aipatzen ditu, Barandiaran eta Sukia'renak ixilduta. Nor nor dan? Orixe, idatzi onen egillea nor ta nolakoa dan beingoan igarri diogu.

MATEMATIKALARI GAITZA

Lur'eko «Aurtengo zenbait berri» idaztitan, Ainhoa izenekoak auxe jaulki

digu 41'garren orri aldean: «bi gizon... datoz. Bakoitzak kotxe bana eskatzen du»... Bi gizon eskean; bakoitzak kotxe bana eskatu ta... lau kotxe, ene ustez eta iritzi!

Oarra: H'ak jarrira ere berdin gelditzen da problema.

BAI ETA EZ

Gotzaierekiko ta Euskaltzaindiarekiko muzin diranak bat jotzen ditu Amatiño'k azkenengo Z. A.'n. Askotan ni ez nator bat gotzainagaz, Euskaltzaindi dalakoagaz eta Amatiño orregaz. Zorionez Amatiño ori nor dan ez dakit. Zoritxarrez, nolakoa dan bai.

Oarra: Euskeranto-zale batzuk beren zabalkunde-eraz eta bidez «Testigos de Jehova» oiek antz andia dute, ikusi izan dudanez.

ETXEBARRIA'TAR JUAN ANGEL

AGVR

WATERGATE

V URTEA
150 ZENBAKIA

ASTEROKOA
1974 - IRAILLA - 7

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

Eriotzak udan

Oporrak dirala, egualdi onak dirala... eta pozik urreratzen gara udara. Baiña zenbatetan gure pozak negar biurtzen diran!

Aurrean daukat izparringia eta labur gogoratuko dodaz azken eriotzak, udeak udea dalako ekarri dauskuzanak:

«La Peña»n lau gazte jausi dira euren berebillagaz Nerbion ibaira; gure ondartzetan, igandean, bost milla izan ziran laguntasun bearrean aurkitu diranak eta euretatik zortzi uretatik atera dabez eta beste iruri arnasea emon bear izan jake; Sopuerta'ko uretza baten domekan ito zanaren gorpua atzo atera eben; aurtengo udako lenen ito dana, domekan atera eben Bolintxu'n; Bilbo'tar bat ito da Legutiano'ko uretza; Basauri'tar bat il eta beste bat zauritu egin dira Murgia'n bidezabaleko alkar-jote baten; Iruña'ko zezenketan zauritu bi izan dira... eta zenbat olako barri negar-garri! Udea datorren bakoitzean auxe oldoztu bear izaten dogu: Zein adiskide ilgo eta jat aurtengo udan? Edo beste au: Nongo bide bazterrean edo nongo ibai-ertzean aurkituko ete dabe nire gorpua?

Gure osagille trebe ta jakitunak ainbeste lan egiten dabe gaiztoentzat osakia edo osabidea billatzen. Eta onetan aurrerapen jakingarriak egin dira, gizonen bizia urte asko luzatu da, baiña, zori txarrez, geroago ta geiago dira, batez be udaldian, uste gabeko eriotz mingorra artzen dabenak: Batzuk lanean (gogoratu Galdakano), beste batzuk mendian, beste batzuk bidean, beste batzuk itxasoan, beste batzuk ibai eta, uger egiteko, errietan jarri dituen uger tokietan... Urte guztian olakoak entzun doguz, baiña barri mingarri oneik udan ugaritzen jakuz.

* * *

Gaurko aurrerapenaren ondorenak dira, baiña ardura geiago artu ezker, arrisku asko ez litzakez izango arrisku. Ardura erakundeen aldetik. Esaterako, lan txalogarria ta goragarria da Bizkaiko Aurrezki Kutxa'k gure ondartzetan egiten dauan «Salbatze ta Laguntze Alkarte»aren bidez. Eta orretan laguntzen daben gazteak be, inoz euren biziak arriskuan dirala, gazte aipagarriak dira. Orreik bai ba dirala Erriaren laguntzaille.

Baiña ez da naikoa erakundeen aldetik olako laguntza izatea, gutariko bakoitzak be ardura artu bear dau arriskuan ez sartzeko. Eta ardura au toki askotan eta era askotakoa izan daiteke: bidezabalean, uretza, mendian, ariñetan, jolasetan, lanean, jan-edanean... Arriskuak ez doguz inoz oso-osoa eta zearo baztertuko, baiña bai gitxitu.


Beste alde batetik, norberarentzako inoz kalteren bat etorri arren be, arriskuen sarean jausita, bear-izanean aurkitzen danari laguntza emon bear dauzagu.

Len aitatu doguzan ezbearren artean, «La Peña»koan, errudun izan zan berebilliko autolariak (errudun zan bere argi indartsuak aurrekoa itsutu ebalako) iges egin ei eban, egindako kaltea, koturata gero. Eta olakoak geiegi jatzoten dira. Eta zergaitik iges egin?

Erruaren ondorenen bildurra daukalako; edo gero barriak emoteko ara ta ona erabilliko dabela ta, ikaritzen dalako; edo besteren batek ardura artzea naiago dalako; edo une labur eta arin aretan, zer egiten dauan be konturatzen ez dalako, edo milla errazogaitik. Baiña olakorik egiteko ez dago errazoirik. Bear-izanean aurkitzen dan anai bateri laguntzea emon bear jake, eta askoz errazoi geiago norberaren erruz ezbear ori etorri ba'jako.

Bideetan naiz edonon gure anaien bat larrune baten aurkitzen dala konturatzen ba'dogu, gelditu gaitzen beti eta gero, datorrena datorrela, erantzun ona emon geure aldetik.

Udako eriotzak eta samiak kentzen edo gitxituten alegindu gaitzan.



BUENOS AIRES

Argentina'ko euskaldunen iraspen bat

Aurten 74 urte, Argentina'ko euskaldunak «EUSKAL-ECHEA» izeneko Bazkun bat, sortu zuten. Bazkun orren sortze-asmak onak zivala, ta zenbat on egin duten, egipenak erakusten dute, eta zenbat-on egin dioen lurralde aundi onetan bizi diran euskaldun eta euskal-odola daroen gure anayori.

Aita Prantzisko E. Laphitz izan zan euren onularia ta bera dedugarritzko Lendakari egini, beriala aukeratu eben oraiñoraingo Batzorde bat, Martin Errekaborde lendakari ta beste berrogeita lagunekin. Euren arduraz lanean asiz, Buenos Aires'eko «LAURAK-BAT»ek 1899'gnek Azillaren 6'an artutako asmoen egille izanik. Beraz, iraspenarako lanak LAURAK-BAT'en naitasunak betetzeko egin ziran eta beti izan du Batzoki onen laguntasuna ta adorea.

Oraiñoraingo Batzorde orrek ainbat bilketa egin ondoren, Araudiak egin zitun eta 1904'gnek egin zan Batzar Orokorrek atakotzat artu zitun.

Araudi orrekin bigarren atalak diño zertarako sortua zan EUSKAL-ECHEA. Asmo benetan egokiak, euskaldun ioskera dunak. Ikusi zer diñoen: «Jarri ta zabaldu Euskalerriko semeen artean zeintzuk diran gure asmoak eta zertarako sortzen dan EUSKAL-ECHEA. Danontzako eginko deia izan zan, au da, Naparroa, Bizkaya, Araba, Gipuzkoa, Laburdi, Zuberoa ta Benabarra'ko diran euskalduneri. Baita Argentina'n bizi diran euskalduneri be, beste edozein tokitan iaioak izan arren, sortzen dan Bazkun oneri euren laguntza eskatuz.

Orretarako, lenengo lana, Llavallol'en EUSKAL-ECHEA izeneko etxe batzuk egitea erabagi zan; bat zarrentzako, bizitzaren ezpiarragaitik nora ioan ez daukenentzako. Baita ikastolak iartzeko ere, kanpoan bizi diran euskaldunen seme-alabentzako, baita edozein ezpearragaitik ikasteko erraztasuna etzeunken neska-mutilentzako, bear dan asiera ta eziera izan dagien. Ikastola orreik Naparroa'ko Kaputxino ta Anglet'eko Mojen zainpean iarri ziran, eta alan iarraitzen dute gaurko eguneraino.

Ontan ikusiko dezue euskaldunak zer egin duten Argentina'n, beste gauza on askoren artean. Argazki onetan ikusiko dezute gaurko EUSKAL-ECHEA nolako dan. Euskalerritik Ameriketara ekarritako erri bat dirudi.

Zenbat gauza on egin leitezke gura-nai izateakin. Aldra bat bildu, gura izan eta egin, danok alkar ondo ulertuz.

Au izan zan EUSKAL-ECHEA irasi zuten euskaldunen naia. Orretarako bilduz eta alkar-ulertuz al izatea tortu eben. Guk bere gauza on asko egin geinkez, nai izanakin bilduz lanean ba'gabiltz. Batez bere Iaungoikoak ipiñi gaitun lekuan Euskalerria gogoan ba'degu.

Alan egin zuten orain irurogeitamalau urte bildu ziran euskaldunak emen Argentina'n. Euren lanak geroago ta indartsuago iarraitzen du.

Adibide on au aurrean degula, ekin eta iarra euskaldun anayok!...

Lerro oneik argitaratzen diranerako —oporrak errudun— Nixon'ek ezinbestean agintaritzari egindako «agurra» erdi aztuta egongo da. Dana dala, olako jazoera baten esanaiari ezin ikututxo bat egin barik itzi.

Azko poztu giñan oindiño demokrazia-gan siñesten dogunok, eta oker ez goazela jakiteko, ez dago «gogorzaleen» aldizkarietan arrezkerio irakurri al izan doguna aztertzea baiño.

Sorkaldeko demokrazia-izeneko agintaritzaren utsak aundiak dira ta ezagutzen ditugu. Ipar-amerikan bertan be, gizartean daukezan arazoak askatu ezinleko korapilloa dala esango geunke: kapitalisten, dirudunen zapalketak, baltzeri egindako makurkeriak, drogak, mafia deritzan lapurren indarra, sendi arteko batasunik-eza, orko aundikiak beste latorrietan egiten dabezan barrabaskeriak, abar eta abar... Baiña sasar guzti orren gaitetik, Watergate arazo entzutetsu orrek euki daben amaierera, demokrazia ta askatasunaren garaizta izan danik ezin ukatu geinke.

Naizta bideak garbiegiak izan ez ba'ziran be, auteskunde bidez eldu zan Nixon lendakaritzara. Demokraziak emoten daben eskubideari esker, jaurti al izan dabe lendakaritzara orretatik. Auzia, luzea ta biurria izan da, baiña azkenean, geure burua demokratizatatzat daukagunontzat, argi itxaropentsua egin dala esango genduke. Obarik bear zala? Bai, eta zalantza barik, baiña olakorik ez dogu inoz ikusi «zurien» eta «gorrien» agintu dupean. Gogorkeriz jabetutako jaurlaritzak, gogorkeriz aldatzen dira, bai sorkaldean baita sartaldean be.

Gure artean demokraziaren jokoa ezagutu ebenak urritzen doaz. Guda ondoren jai, azi ta ezi garanok, ez daukagu demokraziaren eraginez ezer egiteko oiturarik, eta kaltegarriena, zabalkunde txarra, izen txarrenezko ezarri nai izan jako demokraziari. Bai zuriak, bai gorriak, bat datoz demokraziaren lepora zikerkeriak botatzean. Agintaritzaren zitalenak, demokrazia izena artu nai izan dabe estalgarritzat, eta orrela, demokratik garala esaten be lotsatzera eldu gara. Gaur, dizdiratsua agertu naian «marxista» naiz esan bear ei dogu, naizta «marxismoa» zer dan, geienak, jakin ez!

Zenbat olako, batez be ikastetxe Nagusietako ikasleen artean?

Baiña, sarritan makillatuak izan arren, ez dogu itxaropenik galdu, ez dogu ba fazismo ta komunismo pean dagozan latorrietan Watergate lako arazo bat zuzentzeko erarik ikusi al izan. Orreragaitik, demokrazia, berez, giza-bizitza zuzentzeko biderik egokiena dala uste dogu, demokrazia izaten ikasten ba'dogu beintzat.

Zoritxarrez baiña, gure artean gogorzaletasuna zabaldu dauskue. Edozelako alkar-te txikien barruan agintaritzara eltzen garanean, «diktadore» okerrenak bezela jokatzen ikasi dogu.

Lengo baten, izen jatorra daroan euskal aldizkari baten, albiste xelebreak irakurtzeko era izan gendun: Lauros eta Beasain'go ikastoleri buruz. Ikastolak bakean lagatzen ez dakien «kazetari» batzuk, laprastada galantak egiten dituzte. Bein zerbait esaten asi ezker, zergaitik ez da egi osoa esaten? Ez genduke arazo orretan sartu nai, baiña euren umeetzaz arduratzen diran gurasoegaitik alakoak esateko ez dago eskubiderik:

«Iragan ekainean, ikastola bitan (Lauru eta Beasain) eskuin aldekoak eginahalean ibili dira, beren eritzak besteri bortizkeriaren bidez ezarri nahiz». Gero, zerbait gogorragoa dator lotsabakoren batek idatzita.


Ez dakigu Beasain'go barririk, baiña bai Lauros'en jazo dana. Gurasoak edo gurasoen ordezkariak, titulorik ez daukan bat zuzendaritzat ez nai izatea «bortizkeria» ete da? Ta, eskuindar izatea? Ala goitiki beera olako artagarau bat irunsi erazotea ez ete da «bortizkeria» aundiagoa? Guk baietz uste.

Ez dakigu zein izan dan auzi orren amaierera, baiña aldizkari orretatik sua-bizitutzen jarraituko ba'lebe, zeatzasun guztiak emongo gendukez emen, ikastola baten erantzule diran gurasoak eskatzen ba'dabe. Bitartean, ixillik baiña emai geratuko gara... ea bakez, eta danon artean, Lauro gora doan.

Dana dala, ta entzun dogunez, aldizkari orretan orain ainbat aipamen eta hurrun jasotzen daben «buruzagi» barri batek, idazle gau-argi batek, «zuzendari-gai» orren alde emon ei dau bere iritzi-ona. Ezagutzen dabelako ba'da... or konpon, baiña kontuz! Ezagutzen ez ba'dau, laprastada larregi emoten dabela uste dogu. Bear ba'da, aldizkari orretako «sendi-arteoak» bereganatze-kotan ibilliko da «ordezkari» barri ori. Orrela ba'litz, tira! Baiña ez ete da gero, ezagutzen ez dogun beste baldintzaren baten morroi? Arritzekoa da ba, erderaz idazten danean gora-goraka jartzen dakitenak, gizon onen erderazko liburuak bolandera-ots artean goraltzen ikustea... konsigna pean?

Ea ba, bere garaia eltzen danean, bear ba'da, Watergate txiki bat izango dogu etxe barruan, eta gauzak argitzen ez ba'dira, «sorkaldean agiri dan argi gozo bigunak» eragina, ez ete da Nixon txikiren bat be emen agertuko?

Jakiña, orain arte ikusi al izan ez dogun demokraziaren jokorik garbienagaz baliaturik, eta erratu garala ikusten ba'dogu... ni pekataria esateko gertu. Baiña...



Filolojiako jardunak

GALEGOERA ta EUSKERA

(III)

Ni ez ezik beste norbait ere Galizia'ko Errialde ta izkuntzaren etorkizunaz arduratzen dala irakurtzeak pozkidaz bete nau.

Eta auzo geiago nere adiskide begiko dan Dr. Hernandorena dala ikusiaz.

«GOIZ-ARGI» asterokoan Galizia'tik zear egin duan ibillaldiaz lan-sail bat argitaratze-koa omen da. Lenengo artikuloan ango berri emanez barruan sartu zaizkion kezak adierazten dizkigu.

Ontarako Alonso Montero'ren «Informe dramático sobre la lengua gallega» liburuak gaia ematen dio.

Eta galego izkuntzaren egoera «dramatikoa» baldin ba'da, Hernandorena'k galdegiten du: «Nola deitu bear diogu, erria «dramatikoa» baldin erria daukan egoitza negargarriari?...

Gure idazle argi ta aspaldiko lagun maiteak bai aguro erantzun ere:

«Galizia ortan barrera belarriak erne genbiltzarik, auzo esaten genduen gure baitan: «Ai! gure euskera gallegoa dagoan izakera 'dramatikoa' ortan balego! Beintzat, gu suertatu geran toki 'TOKI GUZIETAN' erria GALLEGOZ mintzatzen nabaitu dugu. Eta gure galderai erantzun gallegoz egiteko oituru ori ERRI GUZIAN mintzatu dago».

Gai ori sakontzeago aztertuko duala agintzen digu Hernandorena jaunak.

Bitartean gure aztertute uste esango dizkitzuegu.

Bata auzo dute: alegia, galego izkuntzak gurea baño indartsuago dagoala bai mintzaran, bai literaturan, eta etorkizunerako ere edadura aundiagoa daukala bere esku.

Au ez dago dudan jartzerik. Galegoera apala Brasil eta Portugal'eko izkuntzen kidea izanik sendotasun eta iraupena berezkoa du. Ontan inglesa, español edo gaztelera, errusiera eta beste izkuntza aundi-maundien pare izan ditek: millo asko jendetzaren mintza bidea.

Norbaitek esan dezake eta egia da, izkuntza ez dala aski munduan eroso bizi al izateko. Zoritxarrez galiziar gizarajo askotxo erriatik kanpora ikusi ditugu, ogia irabaztera joanak. Oro bat gaztelaraz «parraparra» eta arto mintzatzen diranak Kastilla'tik alde egin bear izan dute erdi goserik ilko ez ba'ziran.

Alderantzian, ea erderarik ez dakian euskaldun langille trebe batek nun nai irabazi onak eta lan leku egokiak errez arkituko ditu.

Izkuntza ez da guzia ez! bai ordea aintzat artzekoa.

Orregatik Galizia'ko intelektualek gero ta geiago ari dira beren izkuntzaren alde leiatzen.

Victoria Armesto, «Augusto Assia» ezagunaren emazteak, «VERBAS GALEGAS» liburu argitara berria du. Erriko izkuntza errez argi ta aberats batean, Elisa Lamas beste galiziar andre idazleak esaten digunez. Castelao ospetsuak zionez gallego erria galegoz mintza oi zan baiñan gaztelaraz idazten... Geroztik asko ta asko dituzu bitara: bai galegoz eta bai gaztelaraz ederki idazten dutenak.

Auen artean Cunqueiro, besteak beste. Bilinguismo edo elebitza onuragarri dala berriz ere esan bearra dago.

Orrela erakutsi digu len aitaturako Victoria Armesto «Verbas Galegas» liburuaren egilleak orain urte «Rosalia de Castro»k asitako bidetik joanez.

Azkenik, Eleiza ere bide ortatik abiatzen asi dala esango nuke. Oraintsu-orain, Galizia'ko Obispoak bildutako «Pastoral Batzarrean», berandu bederik asmo onak artuak dituzte.

Quiroga Palacios kardenalaren denboran, 1968 urtean, zerbait egin naiez azaldu ziran. Orain Sukia-Goikoetxea Santiago'ko goi-gotzai euskaldunaren ardurapean urrats bat aurrera eman dute. Ez da goizegi Vaticano II'tik amar urtera aurrerago bear zutekean. Au dala-ta gallego zale gazteak arrazoiz gaizki esaka ta masiatuaz ibillik dira.

Dirudienz oraingo Eleiz-Batzar orrek erabaki zeatzak artuak dituala bai galiziar gizartearen onez eta bai Liturjian galegoera sartuak artuko zabarkeria zuzentzeko asmoz.

Sukia-Goikoetxea Goi-apezpiku zaldibitarra onela mintzatu da: «Uste osoan gaude Pastoral Batzar au Galizia'ko Eleizaren eraberritzea izango dala; gure jende arteko bizitza obetu ta kristautzeko».

Galizia'ko erri-xea, bearrean eta nekepean dagoalarik Eleizak ez dezake «entzungor» egin... Gure beartsuekin bat gaituz, naigabe ta pozaldietan. Eta ortaz gañera galego izkuntzari indar emen bear diogula ez dago esan bearririk».

Erri-izkuntzaren alde euskaldun apaizak aurrea aspaldi artu zutela aitortu bear dugu gure eleiz-gizonen omenez. Egia berea zor zaio. Eta Galizia'ko Eleizari gurea eredutzat ar dezala opa diogu. Gure euskerari berriz, galegoaren zabalkunde eta iraupena.

ANTONIO M. LABAYEN

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, euskera bera beste edozein, bereko, politiko naiz ondasungarri asmoen gainetik daben iritxi-onoeko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egileak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskaintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M.^a MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guttiraiko:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep.Legal: BI. 879-1966

BURUGABEKO

BIDEAK

Ba-gabiltz ibilli gu euskeldunok gora ta bera, aurrera ta atzera, albo batera ta bestera geure euskera zaindu ta goraldtu, borobildu ta edertotu, indartu ta zabaldu bear dogula bein eta berriz esaten.

Deadarka, sarataka, irrintzika. Batzutan arrantzaka ez ote-gabiltzan eta nago.

Ikusi dezagun:

1. Apaizak.—Oñarte aibeste lan eder ta onurakor egin duten jaun txaloga-rrerik ez ta nolako bideak derabillez gaur euskera za zabaldu ta indartzeko? Jo eliz-ateetara. Iragarpenez beteta daude: ezkontzeak dirala, elizkizunak dirala, batzarrak dirala. Nola daude idatzita? ERDERAZ. Erdera utsez geien geienetan. Lengo egun baton Donosti'ko eliz batzuen aurretik igaro-bearra nuala-ta jo nuan beren atee-tara. Bat ere ez euskera utsez. Bat bakarririk erdera ta euskeraz. Au be orrelaxe. Lenengo erderaz, gero euskeraz. Beste guztiak erdera utsez. Ori al da guk euskera goraltzeko erabilli bear degun bidea? Nok esango du Euskalerrian gaudela?

2. Ziñegotzi ta udal-gizonak.—Jun naiz erri batzutako udal-etxeetara. Ango ate ta leioetan ere ba-dira iragarpenak. Zein izkeraz? Erdera utsez. Eta baserritarren ezkontzak dira an iragarten diranak, euskaldun uts diranen artu-emanak. Nun ote gaude?

3. Sendagille ta Sendakintza-etxeak.—Osasun-azterketak egiteko naiz gizadiaren onerako osakiak saldu naiean edegita dauden erakustokietan ere ba-ditugu iragarpen itxaropentsuak. Zein izkeraz? Erderaz.

4. Bizarkentzalle, salerosle, jostun ta abar. Nola jartzen ditue beren iragarpenak?

Ez al da lotsagarri gure artean jazoten dana? Ez ote gara geu obendari? Ez ote gara geu guziok geure bideak zuzendu bear ditugunak?

Arren, irakurle adizkideok, geure baitan bildurik oldoztu dezagun zer egiten degun geure euskera gaixo au egiz maitatu erasoteko. Ez esan besteak orrela egiten dutela, ez esan erria orrela oituratuta dagoa, ez, arren eta arren. Geure etxe begarretan geu gara buru, geu zuzendari, geu irakasle, geu jabe ta jaun.

Errezerak bidea ez da oberako bide. Erreza ta oba ez dira berdin. Erreztasuna oituratik-edo dator, baña oba izatea gauzearen mamitik, gunetik, izate'tik. Izatea eta Ona bat (ens et unum convertuntur) esaten zuten antxiñako jakitunak, eta gaur ezer dakitenak ere berorixe esan bearko. Izatea berez beti da on, txarrak ez dauka izakerarik. Txarkeri naiz txartasuna beti da utsunea, beti ez, zeozer'en eza, utsa. Ez gera utsean ibilli bear, zer edo zeozere-tan baizik. Orregaitik zeozer izatera eta zeozer egitera jo bear dugu.

Erreztasunaren billa bakarrik ba'gabiltz galduta gaude. Errezago da alperkeritan egon, lanean ibilli baño: errezo gauzak puzkatzea, beraxek berriz egitea baño; errezo ez ikastea, ikastea baño... baña zer ote-da GIZONAGO?

Gizonak ba'gara gizontasunera jo bear dugu, gizon-izakerea zaindu, gizonkiro jokatuz, gizon bidez ibilli eta ez aberen alde ta zentsu-bidez beren mallara beeratu.

Zaindu burudun bideak, gizonaren bidea buruak erakusten dau ba-ta.

Utikan burugabeko bideak!

URRUTIA'TAR

GOTZON M. B. S.



MONRAY

ARKONDARA-GINTZA

ANDEREENTZAT AZKEN-JOSKETAK

Bidebarrieta, 2

21 43 46 urrutizkiña

Alderdi-zarra

BILBAO-5

GAZTE

IGORRE'TIK

MAIRUELEGORRETA

Danok dakigun legez, izen au, Gorbea'ko leize aundienetariko batena dogu. Leize onek, izen aundia artu dau euskaldunen artean, Uztaillaren azkenengo igandean bertan egiten dan jai ederragaitik. Jai orretan ainbat artista izaten da, euren ekin-tzakaz jendearen eta erriaren euskal-zaletasuna indartuteko.

Aurten be, beste urteetan legez, poz-pozik joan naz. Jende asko ikusi dot; batzuk euskeraz egiten ebenak, eta beste asko erderadunak. Aurten, dultzaiñeru, txistulari, txalapartari, abeslari, dantzari, bertsolari ta musikolari asko izan da. Ez dago esan bearririk, baiña au diñot: jai aldi onek arrakasta aundia izan zuela.

Artista danak euren jakituri guztia erakutsi euskun, bakoitzaren saio berezietan. Baiña orain arte idatzi dodan onek ez dau beste asmorik, ez dakien euskaldunei gure leize zar au zer dan eta bertan zer egiten dan esatea baiña.

Beste alde batetik, zer izan iatan atsegiñen ipiñiko dot. Egia esan, dana izan zan ederra, baiña guzti orretatik, itz batzuk eldu iatazan biotzera, abesti bateko itzak. Abeslari Ibai Rekondo zan eta itzak oneik: «Erria ez dago ilda; ez dago ilda aberria. Erria lo dago, lo dago aberria. Erria esnatuko da, esnatuko da aberria».

Ez dakit, Rekondo, nire iritzi au irakurriko dozun. Arrazoi aundia daukazu ori abestuten dozunean. Ez, ez dago ilda, zorionez. An, Mairuelegorreta'n ikusi gendun, erria bizirik egoala, erri errizalea; baita tartean ere sugeren bat.

Arrazoia dozu lo dagola esaten dozunean be. Oba da lo egotea, ilda baiña. Dakigun lez, lo dagona esnatuko da, orain edo geroago, baiña esnatuko da. Euskalerria bere, lo dagoanez, esnatuko da. Baiña... noiz? Dagigun itxaropen!

JAIK

Udan aurrera goaz, erri bakoitzeko jaiak, or eta emen. Gora-bera aundiak dabilz errietan jaiak dirala ta ez dirala. Gazteen eskuetara emetoko bildur izaten dira, ta gazte barik ez dago girorik. Olan, erri askotan, jaiak itoten doaz; astiro-astiro, baiña laster itoko dira. Zarrak antolatzen dituez. Zarrak, illusiño barik, alaitasun barik diardue, ta egiten ba'dituez, egin bear diralako bakarrik... ta eginda dago!

«Gazteak ez! Gazteei ez emon! Gazteak, dirua, neurri barik eskatzen dabe! Gazteak euskal-jaiak eskatzen ditue! Ez, gazteari emotea kaltegarria guretzat eta gure... jauntxoentzat!»

Olango pentsakera bat emen daukagu gure ondoan, gure anai agintarien artean. Oneik be euskaldunak dira; eurak be, erderean baiña ariñago, amaren magalean entzun eben gure euskera maitea, ta ori entzun bear dogu gure jaietan eta beti. Olan ez dalako, jaiak ilten doaz gure errietan: Dima, Bedia, Igorre, Artea, Lemoa'n eta inguruetan.

Arantzazu'n ez. Emen, Udaletxeok gazteei, 3.000 pezeta!, emon eutsozen. Ta, nere buruari galdetzen dautsat: zertarako? Pipak, gozokiñak eta limonadak crosteko ete zan diru moltzo ori?

Arrati aldeko jai guztietaz idatziko dodan lanean esango dautzuet geiago.

«BETI-BIZKOR»

Dantza-taldearen ekinaldia.—Agertu al izan dira azkenez, itxaropenezko izar bat lez agertu be Igorre'n «BETI-BIZKOR» dantza talde au. Igorretarrak dakien lez, talde au umetxoak osotzen dabe, benetan gazte-gaztetxoak: 6'tik amar urtera artekoak. Urtebetean ixil-ixillik egon dira gure dantza ederrak ikasten, ta orain lan orren frutua ikusi al izan dogu.

Lenengo ekinaldia.—Zuluaga'tar Eusebio, Igorre'ko parroko zanaren omenaldia izan zan. Umeak, euren alaitasun bereziagaz egin eben dantzan. Andra bateri entzun neutsana bakarrik esango dot: «Ori bai, ori da Euskalerria». Ez dau merezi geiagorik esatea.

Bigarren ekinaldia.—Sankristobal auzunean, bertako jai-egunean izan zan. Gauza bat bakarrik esango dot, umeak erakutsi eben benetasuna ikusteagaitik bakarrik jaon daiteke.

Ola ba, «Irrintzi» onen zorion bero-beroena umeei batez be; gero, gurasoei, ta azkenez, aitzu barik, erakusleei.

Danok baturik: ume, guraso, erakusle, Aurrera erria! Aurrera «Beti-Bizkor»! Ez makurtu burua!

GURE UMEEN EUSKAREA

Lengo baten, ume batek itaun bat egin eustan, eta au izan zan: «Nok ganeu zen boxeo?» Esan eustan legez idatzi dot.

Lelokeri bat izango da bear ba'da, baiña zer pentsau aundia dauko: Nora doaz gure umeak? Nora gure euskerea? Esangura barria ba'da, zelangoa izango da gure euskerea?

Gurasoak! Ba-dakizue nora doazen zuen umeak? Erantzun zintzotasunez.

Gabaz nago idazten, lo-gurea be eldu iat. Gabeko 12 terdiak dira. Kanpoan dana ilun-illun. Nun dago gure izarra, nun gure argia, nun gure askatasuna?

IRRINTZI

Kuzkurritilla Aldean

Erritxo txiki ta pobrea benetan. Amar bat etxe, naiko zarrak, eta ogeitamarren bat biztanle...

Eliza ederra.—Erromanikoa—ia ondatuba. Ta antolatzeo dirurik ez-edo...

Erritxo au, naiz izen euskalduna izan, Errioxa'n dago. Leenago, Errioxa euskalduna zan. Orain Euskalerria erdelduntzen ari da.


Kuzkurritilla ikusgarria baldin ba'da ere, bere inguruak ez dira ez makalak. Bideko txokoak oso politak. Emen eta an, nuna, zelai edo eremu izugarriak, soloak gariz josiak.

Ikuskizun dantezkoak... bakardadea, beroa. Lore urdiñak, zuaitz gutxi. Berdea ere ala bear. Ta, beti, urrezko gariak.

Lur gorriak. Geiegi? Usai gozoak. Zeru urdiña. Erlak. Pakea. Bakardadea. Urrumean, Burgos'ko mendi zakar eta ilunak.

Burgos, Biviesca, Pancorvo. Ure ta gorri. Noiz joango gera Burgos'era, bere Eliz-nagusi edo Katedral zoragarria ikustera?

Nere ezkerrean, intxaur aundi baten parean —naiko bertan— Ollauri, beste erritxo polita; tantai artean izkutatu. Ikuskin arrigarria benetan, baiñan baita apalgarria ere.



Kuzkurritilla'ko alkatea oso da jatorra. Baita eliza erakutsi dandan neskaitilla ere; ta Elisa, nexka txikia...

Eliza gaxoa! Kanpotik eta barrundik ia erortzen dago. Gure San Martin ere ez al da zalditik eroriko? Dana dala, irudia aparta da...

Kanpoan betikoa... solo aundi ori ta gorriak, amaigabeak, umillak, geltsuak... Tristeak?

Urrumean, Haro gainean, Toloño mendi bildurgarria. Arkaitz utsa...

Bai, Kuzkurritilla, erritxo pobrea ta utzia. Etxeetan, askotan, argirik ez... eta ura, ur-puztuan... Ez dakigu ez, nola bizi geran... printzak bezala.

Ta, ala ere... beti negarrez. Ez daukagu barkaziorik!

MATXIN

Ertilari Gazte Egiña

Ogetalau urte Otxando'tar Saulo'k. Margolari ta zizelketari ezagun eta lanera benetan lotu au, emen dogu, gure bilbotar Saulo. Bilbotarra diñot, emen jaioa izan ez arren: bere aitaren aldetik, bere gurariz eta bere egoitza iraunkorrez, emengoa dogulako.

Aurtengo urte au izan be izan yako Saulo'ri, urte zoriontsu ta ibilkotasunez beteriko bat: Amsterdam, Kopenhague, Paris eta Barzelona'tik zear bide-egiten, bere eginkizunen bizibidea egokitu ta indartzeko ibilli da. Prantzi'ko Jaurlaritzatik urte baterako bekasaria jaso dau.

Bai ausartasuna be, berak, Saulo'k daukana! Edozein tokitan, edozein gizaldran, notin eta laterri aundi ta aberatsenetan, buru kementsu, argi, ondo-eritxiz ta inoren bildur bagarik... sartu da. Baita zori-adu ezin ohea berea be!

Emendik-ortik-ara ibilli dabil lan egiten, aztertzen, billa, ta obeto esateko, Pikasso'k iñoaz, ederto aurkitzen dau billa dabilena.

Illabete gutxi dirala, barri au jakin gendun: Kataluñia'ko erritxu bake baten lotu zala bere ogibideko lanak biribiltzen. Lenxago Amsterdam'en izan zan. Oraintzu baiña, barriz Bilbo'ra etorri yaku, ta alkarizketatxo be izan. Olan esan neuton:

—Aspaldiko nire lagun on eta ospatsu ori, zelan zabilz?

—Ondo ta pozik. Beti nire gogozko ertilanetan.

—Barriz be joan-etorrietako ibilleratan ekiteko asmoan?

—Bai, Dinamarka'ra joango naz barriro. An eta Paris'en asko irakasten dabe. Nire ustez, alderdi oneitan, erti-teknikaren Euro-

pa'ko ikastetxe ta irakasle onenak dira, batez bere erti-aurrelari taldekoen artean. Baiña nire erti-lanetan inork ez dagidan eragin-arazi ta nire buruaz jabetu. Poloni'ra noa laster baten.

Eta, joango da bai. Orain arte beintzat, bere asmo guztiak lortu ta bete al izan ditu. Ara joan baiño len, uda ontan bear ba'da, Barzelona'ko Virreina'ren Jauregian, bere margoki, zizeladura ta edergarriak aurkeztu ta erakutsiko dauz.

—Esaiztazu arren, zenbat dira zure ertilanok?...

—Berrogetamar margoial amaituta, bost zizeladura, sei grabadu ta eun eta berrogetamar marrazki...

—Ta, Bilbo ta Euskalerrri'ko margozki edo lanik ez ete dozu egin?

—Beste lan orreetzaz gainera, euskaldunen gauza ugari margoztu ta osotu dodaz: Nerbion itxas adar luzea, bere uretan dagonan eta dabilzan itxasontzi, kabarr, txanel itxusi ta polit, bere basterretako ontzigitza lanpetu ta zaratatsuak, olak, kezulo aundi ta ugarien artean kea dariocela. Baita Gernika alde ta ango «Arbola Santua, euskaldunen artean guztiz maitatua» be.

—Zuk, zeuk, ez dakizu euskerarik, baiña zer deritxazu euskereari, zer da zuretzat euskal izkuntzea?

—Lenago be esan neutzun. Euskerea niretzako, erri zintzo ta antxiñakoaren adierazpen sakona da. Ategingarria yat. Alegindu naiz bere izatea ta nortasuna ikasten. Bere doiñua entzutean, gizonki ta era batera ez-titsu ots egiten daust nire belarrietatik biotzera. Doiñua margoztu al ba'ledi, euskererearena nire erti-gaia izango litzake.


Otxando'gaz nire alkar-izketetan, mutil gazte onengan izakera sendo ta zintzo bat aurkitzen dot: gauza on guztientzako gogamenduna, gizartean ibilli ta izaki guztiak begiraturta, euron izaerea eratu ta erabiltzeko sentipen samurtsu ta zoragarriak, ta erti-lanarentzat bere eskeintza osoa. Latin esakun arek diñoana esan lei Otxando'k: «Bizi izatea ez da bearezkoa, bai baiña naitanaiezkoa margoztutzea!»

Saulo'k, margoztu ez eze, zizelatzan be ederto daki. Idazlantxo onen alboan —tokirik ba'da— Otxando'ren taillakuntza zoragarri bat agertuko dogu, lo-zorro sakon baten irudipena. Beste lan eder batzuk be egin ditu, oneitarikoen artean bat, Francisco Greña zanaren giza-irudi, soingaina izan da.

Saulo'ren zaiñetatik euskal-odola dabil, ta urrean, asaba zarren joeraz, emengo giroan, berean eta atsegiñez bizi da, ta era batera, europar kultur eta erti-joera aundieri zabaldurik dagoan asaben oitura onetan lilluratuta.

Otxando'tar Saulo, egon leiteke gaur Barzelona'n, biar Prantzi'n, laster bear ba'da Poloni'n, Dinamarka'n edo Itali'n, baiña gogoz beti, ta soñiez geienetan, Bilbo'n, Euskalerrri'an!

LETONA



KONTU KONTARI

Ulojio'n asiñoiek

Etxebarri aldera, gerra ostetxuen, juten zien batzuetan Patxi ta Joxe, argi konpontzaillioek eurok, alanbrak inketan, postioek tentetzen. Eten birrien, beti birrien.

Patxi, ez zan ez pumatzaillie, baiñe, Joxe, beti keetan.

Solo barrenien, poste galanta jausi de, gabeko aixe bolada gogorran sakan. Bixamonien, goiz erdixen, gure Patxi ta Joxe aor doiez oiñez, tapa-tapa, poste ori zuzendu da tentetzea.

Eldu diez solo guena. Postie luze da mota kontran, bere alanbretan txintxilize dala. Gure gizon parie, sasoirik onenien eurok, asi diez auzixen ia goratzeko kontuen poste zekor ori.

Solo erdixen bera, or dator patxadaz, Ulojio, alboko Etxe-zuri'ko basarri-jau-bie.

—Egun on, gizonak!

—Bardin, Ulojio!...

Joxe'k, ixotzu dau laugarren zierrue, aurrez poltikotik atera «kuarteroie», paperrien biurtu, ezpanokin busti... pospolue, garra, keie... Ulojio, begi-begire...

—Ia ba, mutillak. Asi, asi birrien beinbat beintzat. Asi ezik etxak amai-teik!...

Patxi'k eta Joxe'k, oratu poste galant orri, da putz baten, zezerlan tentetu bier ba... Alanbrok tirtetu, bedar-tximok alboratu, dan amaitxueran, eguer-di inguruen etxerutz.

Urrengo, andik pare bat illebete ingurure, ostera be jo dau ego-aixe gogor-rak, da Ulojio'n goiko pagariko postie eratzu dau.

Patxi ta Joxe, au, bigarren au, bere zierro «ebriaz» ezpanien, urten dabe Etxebarri'rutz.

—Beti izen bier dabela Ulojio'n etxe inguruko posterixe!...

Jakiñe, tontorrien dagon lez Etxe-zuri, bere saillek aixian menpe beti.

Dana dala, eldu diez bere lekura, da Joxe, ostera be, laugarren zierrue biztu nairik.

Emen dator gure Ulojio, azkar, landan gora, tipi-tapa.

—Orain be, zierrue ezpanien da geldik golpioek... e?

—Lelen lelengo, Ulojio, egun on!, diño Patxi'k.

—Etxakixat egun ona izen bier daben zuon patxadie ikusitxe! Ia, asi bein. Eldu koiño... zezer beintzet!...

Patxi'k eta Joxe'k, alkarri begitxu, sorbaldak altzau... Orraitxiñoik, Patxi berotu de...

—Ii, Ulojio, zer koiño nai dok? Emen ator bigarrenez zaparradaka, zoro mardarikatu ori. Iri zer dauk ardure gure bierraz!...

—Et, et, et, geldik, geldik berbok. Ni onera ba'natok, zozer gaitxi izango dok. Eta nai ba'dozue jakiñ, entzun!...

—Entzungo'gu, bai pozik!...

—Ba, ara. Ni neu, Ulojio Etxe-zuri, zuekin jaubete najak aspaldi. Zuek, bixok, neure krixauk zare, da kontuz ba...

—I, burutik ago...

—Et, et, et. Entzun gaur eta betiko. Bost asiñoi Iberduero'kuok erositxe jaukazat, aspaldi ganera. Alan ba...

—Ederto gazak! Iberduero'ko asiño-dun danok etortzen ba'dituk Joxe ta nire atzetik, zer dabilgun begire?... Ik daukek gibela, Ulojio!...

—Kontuz, kontuz gero berbaldiñ, Patxi. Kugauko atiek zabalik jazak!...

Andik aurrera, Joxe ta Patxi, gabeko aixe boladak entzueran, dar-dar kukulumixo oien. Ulojio Etxe-zuri, barritz, bere bost asiñoien inderrez, zaiñ, zaiñ poste boltan.

JUAN JOXE ARRIZABALAGA
«MARKINA»

ERRI - ARTEKO GORABEERAK

TXINA'K AUERRERA DARRAI

«RUGARREN MUNDUAN» BARN

Txina'k aukeratu du bere bidea ludian zear ibiltzeko. Gaurkoz bera baiño altsuago diran USA'k eta URSS'ek aundizkien jokoa dagiten bitartean, Mao'ren Txina'k dalako «irugarren mundu» zabalaren buruzagitza bereganatu digu. Eta norbere erri-barneko azkunderen-tzat ainbat asti artzen ba'udu ere erriotan sartzean, ez izan ezpairik setaz diardula ordan. Izan ere, txinatar oen doarik apagarriena —euren atzerri-burubidean, alegia— ba-dira eraman-pen eta jarraipena.

Aprika beltz eta txiro-atzeratutik abiatu ziran maotar pentsakeraren azia ereitera. Eta zergatik ez abiatu Europa'n zear? Ezagunak zaizkigu Albania txiki ta ausartaz dituan artu-eman tinkoak, sobietarren lotsagarri. Eta oraingoan, beste agintari aurrerakoi bezain ausart bategan aurkitu dute kide bikaiña. Eta onela, Mintoff'en Malta'ko olagintzan esku-artzen dakusgu txinatarrak. 350m luze ta 62m zabaleko ontzitegi bat ari baldira jasotzen ugarte ontan; 300.000 Tm.'ko itxas-ontziak artuko omen ditu bere alboan. Eta diru-laguntza ezezik jakin-duria ere eskeñi dio Txina'k ugarte txikiari, ekintza ori burutze arren onera bidali dituan tek-nikoak eundik gora diranez.

PORTUGAL

BIDE ONETIK

Beingoz jakin aal izan dugu nortzuk diran Portugal'ko erriaren egiazko askatzaillak: Gu-du-gizon gazteak. Auek, alde batetik iraultza erdi-bidean gelditeko arrisurik nabaiturik; eta bestaldetik, demokraziaren arearri nastatzaillak oztopo zirakeala oarturik, jauirlaritzaz norbere esku. artzea erabaki dute, beraiek osatutako laterri-batzordean.

Dirudianeaz, ez dute bide egokiagorik sumatzen ekindako iraultza aurrera eramateko. Eta orainarte beintzen dute aien zearan.

Argatik, lenen unetako zalantzak erabat utzirik, berebiziko erabaki bat artu dute. Eta ortxe jakin zaio itz ederrik Spinola'ri. Izan ere, minbiziak bezela portugaldar erriaren osasuna jaten zuan atzerri-guda negargarria amaitze arren, an-da-emen zituzten jabetasun gaitzeri uko egitxi, erri oeri zor zaien askatasuna emateko prestutasuna erakutsi digute Portugal'ko agintari berriek.

Ia aldi berean, Europatar Elkarteak ere lenen unetako nagikeriak astinduta, nolabait kide dan Portugal'ez benetan arduratzearen bearra nabaitu du. Renat Van Elslande beljikatari ministroaren deia darra larria bada: «Txit beldur naiz, Portugal'ko demokrazialcen ekintzak ez ote duan porrot egingo, berealaxe ez ba'diegu prestatzen elkartaren laguntza».

Asko ez dala, Mario Soares izan zan CEE elkarrekin Bruselas'en duan etxean. Alabaiña, itz limurgarriak baiño ezer geiagorik etzuan jaso nunbait. Oraingoan, ordea, bestela gerta bedi, batikpat, Portugal'en gidari berriek ziñez demokraziaren atzetik dabilzan zantzuak garbiak diralakoan. Eta kontuzagun, emengo egoera ziñez dala kezagarria. Azkenaldiko lan-uzteek, atzeritarren diru-eraketak urritu izateak, turismoaren emaitzak murrizteak naiz atzerrietan diarduten langilleen diru-bidalketak ere jeixteak, danen artean asko ondatu dute laterri au; gualosteen kastu izugarri guztiez landa noski.

Beraz, laguntza aundien bidez bakarrik jaso aal izango da portugaldar ekonomia. Eta bi-denabar, emen ezarria dan jaurpide berria ta dakarkean demokrazia sendotuko. Eta argatik azaldu bearko dute esku-zabal Sartalde-Europa'ko laterriek.

AZKENEAN ERE,

NIXON AUZITEGIRA DARAMATE

Ipar-amerika'ko epaille ta lege-gizonak etzebiltzan ez jolasean «watergate» arazoaren erruak Nixon dendakari jaunari egotzi ta ordaindu-erazteko burubidea azaldu zuten. Auzia astiro joan da aurrera, baiña etenik gabe. Gizon oek ez dute izugarriko presarri zuzen-tasuna ezartzeko, baiña bai orregatik setatsu jokatu ere, jokatu digute, bai arranpola!

Ni ere Byrd aldunarekin batera nator, auzia luzatzen zan arabera errazago galduko zua-la Nixon'ek baizten zuanean. Izan ere, onetrek berak ere erakutsi du seta galanta. Ain gore-nean ikusten zuen nunbait bere burua, iñolazko kalterik egin zeziaketarik etzuan uste giza-gaixoak... Eta begira nun aurkitzen dan orain. Piskanaka bederen burua makurtuz etorri da, gaur ukatzen zuana biaramonean aztertzaillan eskuetan uzteko kinka larrian jartzen zutelarik epailleek.

Azkenean ere egun ikarriak urbildu zitzaizkion, eta etxera biali dute. Baita erriak eta atzerriak batpatean aztu. Egia, epailleek bertan bera ustean ba'digute Nixon'en auzia, ez du onek izango ludian gogorapen aundirik, edo, antxiñetako jokin bat bezela gogoratua, txarrean.

JOLU'K

FERRETERIA UNCETA, S.A.

Landola tresnak - Galtzairu neurri zentzekoak
Langaillu guzietarikoak - Leunketa gaiak

Ibarrekurutz kalea 14
71-10-00 Urrutz.
Apartado 18

E I B A R

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra
BILBAO - Casco Viejo
Tenderia, 15 eta 16

IKIRIKI


eziketa jostailluak
eskulanetarakoak
irakasketa gaiak

gregorio de la revilla, 1
bilbao - 11

Jolasean ikasi, or zure aurrentzako emoitzarik onena



LASA



ANAYAK

Kimi-arrolio, iraztegi ta beste lantegietarako ikatzkaira jotako galtzairu naiz menastedun uz-tarbil eta aldagarriak

83-11-11 ta 83-11-13 urrutizkiñak

IRAETA-ZESTUA

EGOITZA - ETXEGINTZARAKO
ALKARTEA

D A N O N A

83-10-72 urrutizkiña

ZESTUA

GAZTAÑAGA

ITURGINTZA

Julio Urquijo ibiltokia, z/g.

81-18-67 urrutizkiña

AZKOITI

Kurutz Donea kalea, 9

83-10-52 urrutizkiña

ZESTUA

D M

DISTRIBUIDORA DE MAQUINAS, S. A.

ETXERATZE TA ERBESTERATZE

SAL-EROSKETAK

83-11-69 ta 83-11-31 urrutizkiñak

ZESTUA-Gipuzkoa

Z E S T U A

ORAINDIK BA GERA

Azkenengo urte auetan, beste toki askotan gertatu izan dan bezela, gaztedia, aurrekoen oitura, naiz geienak izerdi asko eskatu, jatorreri jarraitu bearrean, Zestua'n ere, errexera jota ibilli da. Baiñan, gauza jatorra usteltzen ez danez, geroxeago ere gogoratzen da, ta, azkenean, garaille irtetzen da. Zestuarrok, orretan ere, ez gera atzera gelditu.

Mundu zabalean zear ain ezagunak izan diran pelotariak eman ditugure erriak. Kirol-saillean, Zestuar askoen izenak ezagutu dira. Berdin jokatuzuten beste sailletan ere: dantzari-taldeak zirala, antzez-taldeak, eta abar luzea...

Gaur egun, zenbait oitura on alde bateratuak arkitzen ziran, baiñan, azialurpeen zegonez, alako batean erne da, ta, ara, berriro, taldeak osatzen, eta lanean, pixkanaka asi. Antzeztalderik, berriro ikusterik izan dugu, ta aurrera jarraitzeko gogotsu azaltzen dira.

Nexka-mutillez osaturiko dantzari-taldetxo baten saioak ere txalotzerik izan dugu. Eta, azken aldi onetan, berriz, erri-dantza jatorra ikasten diardutenak ba ditugu.

Danetariko pentsekerak dauden arren, uste onez diardutenen artean, arrazoa nagusi aterako dalakoan gaude.

Orain, gaiñera, euskerazaleak izeneko taldetxo-bat, lanean gogotsu asi zaigu. Talde onek, oraingoz berria danez, ez du, orain arte, ezer agerian egin, oraindik indartzen bai-diardu. Baiñan, gutxi barru, lerro aukeragarritaritzen diranerako or nunbait, ezagutza ematen asiak izango diralakoan nago.

Talde au ez da Zestua'n sortua, baiñan, Estaduaren baimen guztiakin, Gipuzkoa ta Bizkaia'n jo ta ke diardutenen tarteko sailtxo bat dugu.

Bere jomuga, askoek jakingo dutuzuten arren, euskal-erriko oitura jator guztieri eldu ta indar-berritzea da. Euskeraren alde lan egin nai duzute-



nen artean, taldea ugariturik ikusi naigenduke.

Orain, erriko jaiak igarotzen diranetik aurrera, lenbailen asita, euskal-alfabetatze-saiotan astekotan gera. Saio aukerak, izan leiken zabalenetik artuta osatu nai genituzke. Au da, Euskeraz dakitenentzako alde batetik, eta ez ez dakitenentzako bestetik. Izan ere, ia gabe, euskaldun aiña erdaldun bizi bai-da Zestua'n. Eta, guk nai ainbat izan ez arren, zorionez, ba dira, gure izkuntzari eldu ta aogozatu nai lutekenak.

Askotan, gauza berri bati, izkuntzari berdin, ikuste-aldera eltzen zaio. Gogoia gero berotzen da. Nork jakin, gutxiena uste dugunen bat, gaur euskerak benetan bear dituan oietako izatera elduko dan...

ETXEBERRI

BLASA

Ostal-Etxea

MARIA CRUZ
KEREXETA

83-11-07 urrut.

ZESTUA

ZESTUA'N

"ELIZ - ONDO"

ZINEMA

ARETOAN

Erriko jaietan agertuko diran film edo pelikulak:

Illaren 7'an eta 8'an
CABARET

9'an

LA POLICIA AGRADECE

10'ean

EL GUAPO

Denak 18 urtetik gorakoentzat

LANABES

LANDOLA

I. Z. E. A.



Marrazkietan oiñarrituta edozelako burni-ebaketak



83-12-03 urrut.

ZESTUA

GUZITARIKO
BURNI-SALTOKIA
TA TXIMIST-INDAR GAIAK

UGARTE

Andra Mari'ren jayotza, 15
83 - 11 - 54 - urrutizkiña
Z E S T U A

ILLE - APAINKETAK

GLORIA

83-11-15 urrutizkiña
Z E S T U A

LANABES

L A N A K

— C. E. A. —

Generalísimo, 8

83-10-27 urrutizkiña

«CEAKO» urrutidatz ikurra

ZESTUA-Gipuzkoa

Gaztañaga



ETXEGINTZA

Zumai'ko «ALAI» zokodi auzunean, 180 egotza jasotzen ari da 100 mt. lauki bakoitzat; etxe-gai onenatarikoak. Aur jolastoki ta abar Salneurri onurakorrak - Ordaintza-erreztasunak

83-10-52 urrutizkiña

Z E S T U A

GUREA ZESTUA

Aurrerapen eta aldaketa-garai auetan, norbera bakarrik aldatzea, au da, «modernizatzea» ez dala naikoa, ta, gauza berririk esatera ez noan arren, geientsuenentzat berri izango dalakoan, gure errian ere, zenbait aldaketa «aurrerazale» sortzen, eta, indar-artze bidean diardutela adierazi nai nuke.

«Garaiko ondore» geranez, oraingo au ere ikusi bear gendun, alajantetan!

Euskal-izen guztiak jatorrizko izena dute. Ori esan bearrik bai ote? Zestua errian izenak ere bere jatorri berezia du. Gure arbasoek ba zekitela toki bakoitzari izen egokia ipintzen!

Zumai aldetik gatozela. Iraeta'n sartzen gera. Iraeta —lugar de helechos—. Garai batean, gaur baiño ugariago izango zan, noski. Baserri onetatik Azpeitiruntz jo, ta, Osinbelz'en sartzen gera. Osinbeltz —pozo profundísimo—. Zulotzar orreri bai izen egokia aukeratu ere! Gaur egunean, oso oker ez ba'nago, geintsuenak Osinbeltz erabili bearrean, Osinbeltz darabilkite. Baiñan, ez noa onen aurka. Izen au bezela, borondaterik onenez, gaizki erabili oi diran itz asko dauzkagu-ta.

Alako batean, maiz, ez nai bezain azkar, neguko aize zorrotzak jotzen duntetan,

edo ego-aize zakarrak indar artzen duntan beintzat, osin ortatik irten, eta zabal-gune batera irtetzen gera.

Ze estua dan toki au! Ara ba, gure errian nundik datorkion izena. Ze estua: Zestua. Eta, bein errira sartu geranez, kera txiki bat egitea ere...


Euskal-zaletasunik ba da gure errian. Benetako zaletasunik duten? Besterik ezcan, iñori adar-jotzeko, tresna bezela, euskera artzen ez dutenak.

Oraindik asko dala, euskera, era batera, «modan» zegola-ta, biar beste era batera jarri bear ba'zen, aldatuko zutela ziotenak ba ziran. «Moda» aurrera dioja. Itxura danez, euskal-kutsuko sail guztietara etzan iritxi, ta, orain, «moda-zale» oiek, jatorrizko zenbait izen aldatzeari eman diote. Nora joko, ta, dirala illabete batzuek, berri-berri (nueva noticia) bezela, «ERNAI»k azaldu zuan errian izen-aldatzeari eldu diote. Zer arrazoikin? Ez dute arrazoi-bearrik izango, noski. Ura, gauza berria zan, eta, moda baten jatorritasunari begiratzen ez dienez, euskal-izenen jatorri-bearrik ez da. Orain, bada, Zestoa idazten dute. Nola ez bada? Iñork, adarra jotzearen, iñoz esan oi diguna: de Cestona, pueblo de los cestos? Ara ba, itxuraz, izen jatorra aldatu: Estu izateari utzi, ta, zesto biurtu. Baiñan, au ere, erdal-itza, orde! Au dek au, mutillak, euskerari eman nai diogun batasun-bidea!

Gero, «au nola leike, orde» esatea astakeria da; gu atzera bizi gera. Utikan!

Gauza ez da ortan bakarrik geratzen. Bai zera! Gure errian gazte «aurreraturik» ba da! Pentsa, beste itz eta berari eman dioten esan naia: «se jugará en el txoko y dentro de la raya». Aurrean eta *atxe* barroan jokatuko da». Noski! H marra besterik zer da?

Orain artekoerri eragiteko aiñakorik sortze dirra gure errian. Euskera (?) berririk iñork ikasi nai ba'lu, beste iñork ez bezela dakiten zenbait emen ba dira. Ontaraiño iritxi bear gendunik...



Inguruko mendia: Ertxin. Ertxi-estretchito danez. Ertxin —en el estrechito— esan-nairik jatorrena bear lukelakoan nago.

Jatorrizko izenez ornituriko bazter eta errialdeari, izen jatorra aldatzerik bai al dago? Au, zenbaitentzat, alperrikako galdera. «Moda», guztiak anka goratzekoa da-ta. Baiñan, Zestuarrok, oitura zarreri errotuta gaudela diogunok, onelako era berrizkingarri aueri ez al diegu jaramonik egin bear? Orain, garaiz esnatuta, «moda-zale» aueri anak geratzen ez ba'dizkiegu, bereala, gutxiene uste genezaken aldetik irten dezaizkigute. Ta, errian onak txotxik ajola ez dienez, ez jakin zertaraiño iritxi leizken. Duten aundiena, lotsa galdu zutenaz, aupgia bai-dute.

Auxe da, aurtengo jaietarako, nik daukadan ikuspegi ituna. ZESTUA gurea da, baiñan, ez, irentsi ezin dezakegun, eta ikusiak begietako miña, ta negargurea damai-gun Zestoa.

TXIGUA

GOZOTEGIA

AKEITETXEA

ALKORTA

Jesus'en Biotza'ren kalea, 7

83-11-95 urrutizkiña

Z E S T U A


IRAZ-BURNI GALDA LABEA

LANABES ASTUNETAN BEREZITUAK

FUNDICIONES SAZ

BURNI-GL

STU A URETAN BIZI GERA



JAI AK

Iraillaren 7'an asi ta Andra Mari'ren jaic-tza ospatzean 8'an, aurten igandez, eta Arant-zazu'ko Ama'ren eguna 9'an, gero urrango la-runbat eta igandez, jaiak biribiltzean, urtero be-zela ekintza politikak izango ditugu gure errian, Zestua'n.

Dultzaiñeruen goiz-dei esnagarriak. Eres-ba-izaren kalez-kalekoak ondoren, Gizandi ta bu-ruaundiak, Meza, Azpil-puskatzeak, Joaldiak en-parantzan. Jai-goizak edertzen.

Arratsaldetan berriz, soñulari guziak aurreti, zezenketara. Gero, Pelota-jokaldiak. Ta arrats eta gau luzean dantzaketak.

Aurren jaiak ere bai. Ain maitagarri zaizku-gun aurtxoen ekiñaldiak, beren dantzak eta abes-tiak, aben zintzotasuna ta benetasuna beren egin-bearrak betetzen. Erriko jaiak asko irabazten dute aurrak bitarteko diranean.

Zai-zai gaude denok jaiari begira; egia, poz-tasunezko egunak izaten ditugu gure erritarrentzat eta erbestetik letozkenentzat.

GOTZON

Aspalditxo baten onelako zerbait irakurri nun: Giza-soiña, gure larrupean, zagi bat bezela, urez beteta dagoan itxaso txiki bat dala, ta ura, or bilduta daramagun ur ori, bizitzaren eskarri bakarra omen da. Itxuraz, ludi ontan ezagutzen degun bizitza itxasoan sortu zan, eta legorreatzean, biziak aurrera egingo ba'zun, uretan irauñ bear, eta or nun gertatu zan, izaki guziak, soiña urez beteta gordetzea. Zagi, berriz esan bear.

Gure barneko itxaso txiki au, bere neurrian betata eukiteko, ura edan bear; ur garbia ta ozkirria. Iñoiz entzun izaten degu: «Nik ez diat urik edaten!» Gezur aundia benetan, naizta mozkorrik mozkorra izan, janarietan, igali ta baratzkietan jaten dun erdia baiñon geiago ura izaten da. Baita ardo ta eznetan ere. Orra nola tabernari ta bei-zai bateatzailleak, kalterik gabe, mesede ederra egiten diguten sapaburuts gabeko ura beintzat ezartzen digutenean.

Ura bearrezkoa dala, edestian ere aipatzen digute, nabarmen. Begira bestela Moises'ek bere makilla urarekin arkaizta jo ta zer sortu zun egarri zegon erri aren-tzat, edo AGUR'eko gure «Markiña»k naiz «kirkillak» idazten dituzten beren erriko iturrieri buruzkoeri. Esturasunetan ere, osin zipin eta mando apatzek lokaztutuko ur loi aiek zein pozik edaten zituzten.

Ala ere, ba-dira urak eta urak; ardoak bezela, baiñan eibartar ark esaten zun bezela —ardoagatik noski— ez omen da txarrik; onak eta obeak baizik.

Bein, bi lagunek artu ninduten Zarautz'en, bildots-erre jan bat egin bear genula-ta. Baiñan oso goizetik irten bear izan genun. Bi oien oitura Zestu'ko urak edatea bai-zan, janaldi aztuntzoak egiten zebiltzanean, eta oporraldietako aste ura oso «be-tea» omen zeramaten. Orrela ba, goizean goiz an jun giñan Zestu'ra, sartu Balnea-riogan, ura eskatu ta iru edontzi izugarri luze, bete-beteak, atera zizkiguten. Nik enu-la iñoiz artu-ta, baiñan aterata zegonez, nik ere artu bear nula esaten zidaten, eta artu nun ur epel ia bero zan ura.

Besteak, ibilbide artan gora ta bera denok ibilli ondoren, bigarrena ere artzera jun ziran. Ez ni, nik planto egin nun, baiñan ez luzerorako gelditu ere. Eragin zidan bai eragin, ur orri oitu gabea izan noski. Ariñeketa baten erabili ninun, ate batetik bestera, ortako dauden gelatxo uts baten billa.

Gero, meza entzun, gozari arin bat egin eta patxadaz Santa Engrazi'ra eguardi-rako igo giñan. Aiek bai babarrun gozoak, ura bai bildots-erre bikaiña, gutxitan bezelakoa; inguruan zekarzten kipula, tomate ta baratzki ospintsu aiek ere sarda-bateka barrura. Ura zan gosea ta ura mauka; uru iruntsi bearra! Lagunak, parrez esaten zidaten, «Zestu'ko urak iriki dik zulo izugarri ori! Ta, nire ustez, orrela izan zan.

Arrezkero, Zestu ta Azpeiti naiz Gorla'ko lagunak orrelako janaldi «oso» bate-rako dei egiten didatenean, goizean goiz, Balneariora joten det eta ur epel orrekin urdailla zeatz garbitu; bigarren edontzia edaten ere ikasi det, naizta ondorengo ari-ñeketak urduriagoak izan.

Ondo jan eta atsegiñez gaiñera, ta ardoa ere lasai edateko gertakizunik onena, goizeko Zestu'ko urak artzea bezelakorik, gutxi. Orra ba, urak ere ba-du bere garran-tzia!

ARDONTZI

JAKI - SALTOKI

ALKARTEA

NATIVIDAD

San José, 13

83-10-25 urrut.

Z E S T U A

MOTO - TXIRRINGAK

ERA GUZTIETAKO

SEGUROAK

ETXABE

83-11-06 urrut.

ZESTUA

ZAMAKETA

ARIN ETA ASTUN

“Marcelino”

83-10-24 urrutizkiña

Z E S T U A

GIPUZKUTAR BANKETXEA

Diruetxe on baten bidez gauza asko zuzendu lezazke

Egia da baita, urrago ta errezago

Banco GUIPUZCOANO

Gogoz beterik eta esku-eskuan dezun Banketxea

83-10-13 urrutizkiña

Z E S T U A



«ERREXIL»

ZAMAKETARIA

Erri guziak ezagutzen du

Z E S T U A

LANABES

LANDOLA

coer, s. a.

«COER» IZENENKO ITZULIKA DORNUEN EGILLEA

Lotura arteko luzeera 10.000 mm.'ra arte

83-10-44 ta 83-10-45 urrutizkiñak

Z E S T U A

OMAZU Y CIA., S. A.

GILDA OLA

83-11-19 urrutizkiña. Lantegi-auzo aldean ZESTUA-Gipuzkoa

Aita Patxi

Gaixoak be ez ziran konturatu bera gaixo egoanik.

Ez ekian agurrik egiten. Ordu barik, neke barik, asper une barik, beti egoan gaixoen serbitsurako gertu. Atsedean aldi bat, «relax» bat sekula artu edo euki ete eban Aita Patxi'k, edo ta berak jakinda, bere buruari eskiñi?

Siguena ingurutan nebilla, gerratean, Guadalajara'ko lur garratz eta sikuetan. Gugandik kilometro batzuan alde ebilla bera, beste atxurlarien artean. Ez gendun orduan alkar arteko artu emonik, ez erreztanunik be orretarako, baiña bere egitadak inguru guztietan ezagutzen ziran eta bere jokabidea jakiten zan. Eriotzaren aria noiz etengo ipinten eutsen batzueri, bizitzaren poza edo arnasa eskintzen eutsen berak, euri kendu eikiena, berak adoz eta sekula be ez ordaintzekotan eskiñiz.

Aita Patxi, zoritxarrean jausitako batallio bateko kartero, eriotzaren bidazkari be izan zan.

Biotzak arindu ezarren, gerrateko estuntzak biguntzen asi ziran. Lanak amaitzen, gizonak etxeratsen. Aita Patxi be eldu zan gau baten Deustu'ra. Bere anaia, pasiotarra, itxaroten eukazan. Ikusteko eta agurtzeko garretan. Atean sartu ta... Aita Patxi, ixillik, aurrera, bere gelara. Konbentuetan, konpletak ondoren aginduta egoten dan ixildepora jausita egoan. Berak ez eban eten nai izan, beingo be, bere ordenako eguneroko bete-bear ori. Gerrak eta nekeak, gordinkeriak eta lizunkeriak ez eutsen aztu eragin bere ordenako legerik.

Bein Deustu'n gertatu giñan, konbentu zarrean, ibillaldi bat egin ondoren, lantegi bateko langilleak. Konpletak amaitzen egozan prailleak. Ango arduradunari esan geuntsan nai gendula ondoren bedeinkasiñoa artu. Agertu zan Aita Patxi. Egin zitun oi diran otoitzak. Lagunak aldarre inguruan ebiltzala, sartu nitzan sakristira Aita Patxi besarkatzeko asmotan. Begiratu, berbarik ez, eskuturrean eroian orduaria atzamarragaz erakutsi, eta ixiltasunik apurtu barik, eskutatu zan. Ara laguntzarra!

Miranda'lik Bilbo'ra netorren bein kotxean, beste lagun bigaz. Espejo inguruan, ara Aita Patxi oiñez. Kotxea gelditu, artu, agurtzen asi orduko, norbait premiñan egon zeikeala ta denporarik galdu barik errosarioa erreztatu bear gendula... ta guk erantzunik emoteko betarik laga berik, ara bera, «agur Mirena» erreztaten eta iru gizonok, alkarri begira, erantzuten.

Kilometro batzuk egin genduzan. Erri-txo bat. Gelditu eragin eta angu abade zarra

lagun premiñan egoala ta an geldituko zala, gero besteren bategaz aurrera joateko. Gugaz txofer etorranak, sekula alakorik ez yakola gertatu ta negar egiten eban, samurki, gogoratu ala.

Bein koñatu bat Bilbo'n neukan, gaixotegian, eriotzari itxaroten. Etorri zan. Esan zitun beragaz ixilleko kontu batzuk. Agurtu neban, kontu esaten jarraitzeko asmotan. Parkatu, esan eustan, zuk ez daukazu oraindik laster ilteko itxurarik. Eta segundo bat gelditu nai ez-ta, beste gelaetara joan zan.

Orra Aita Patxi. Bide ertz guztietan bardin. Txoferrik gorrienagaz be bardin. Jakin ez da be, alako berezitasunez espan-arteoko berba makurrez ba'da be, otoiñza atara eragiten. Nundik artzen ete eban indarra orretarako?

Gertatua. Adiskide bat Bilbo'tik Erandio'ra bitartean eioan, kotxean. Ara Aita Patxi bidean. Prisaz ebilla... baiña nok laga Aita Patxi jaramonik egin barik? Sartu. Nora? Or gorago... Eldu. Geratu ta... bost minutu barru etorriko naz, berak. Egongo? Ezin ezetzik esan. Erlojuari begiratu ta kezka. Ba dator Aita Patxi. Lengo jokoa. Barriro be lengo eskaibidea beste etxearan aurrean. Adiskideak, bere bostean, ze pensatu ete ebanka mar-marrean, baiña ezetzik ezin esan. Beste etxe batera kilometro bi ingurura. Ori ikusi ta adiskideak, goiza gal-duta eukala-ta, eroapenez artzeko erabagia artu noraiño eldu ete zeinkean ikusi nairik. Orrelaxe, igarri barik, amarren bat etxe atetara eroan ei eban.

Eguerdia eldu eta Lexona inguruan ebiltzala, eguerdia eldu zala ta onekero eroango ebala konbentura, Deustu'ra. Aita Patxi'k: Ba daukat ba Algorta'n beste gaixo bat eta a be premiñan egongo da ba! Aurrera. Bidean kezka bat adiskideari. An, Algorta'n, nora ete eioan? Jo, sartu kale batetik, eta etxe baten aurrean geratu eragin. Goitik berako arrandea lagunari. Ain zuzen be gaixorik egoan bere ama ikustera eioan.

* * *

Aita Patxi joan da.

Udako egun baten Eriotz'a'k urten eutsan bidera. Berba gitxi, kontu-kontari ibilteko asti barik: Aita Patxi, etorri zaituz. Goazen. An goietan egon lei norbait zu ikusi nai zaituna. Erdi.

Eta joan ziran. Azken ibilleran be Aita Patxi'k ez eban kotxerik ordaindu. Eta oraingoa ibillalderik luzeena izan da.

ZUBEGI

Aita Patxi

Gizon, euskaldun, praille pasiotar ta askoren eretziz santu izan zan. Aita Patxi'ren gorpua dagonillaren zaspian lurperatu eben. Baiña Aita Patxi ezagutu ebenen miñiak, egundo ez dira ixilduko. Norbere erara itz egindo dabe. Bakioitzak aren nortasuna ezagutu al izan eban cran .

Orain irurogei ta lau urte direla, betirako odol gorrituta dagon Bizka'i'ko Sollube mendi bizkar barrenean, mutiltxo bat jaio zan Orbe basetxean. Mendi, solo, aldapa ta baserritar zintzo batzuk emon eikioen bizi, izate ta irakatsia artu zituan. An goian, bakardadeko lur gogortasunean siñismendun guraso ta beste auzotarren artean bizi zan. Antxe, mutil koskor erara, beartsua izan, ta bizi izateko lurragaz burruka neketua egitea zer zan ikusi eban. Bere biziaren oiñariak ez ziran, iñundik iñora, arrokerizkoak. Ta oneik emon eta ezarri eutsen nekepetuenganako maitasun ta errukia betirako.

An, Orbe'ko sendi giroan, mutil aren siñismena be erne-giroten ta azten joian. Ta Jaungoikoaren gogo, Berak nai daben toki ta mendiatik dabillen ezker, mutiltxo aren atetan geratu zan deika. Ta arek «baitz» erantzun eutsan. Jaungoikoak, mutil arengan jarri eban ustea; ta morroiak, zintzo erantzun be.

Ordu-ekero, Orbe'ko semeak beregan eroango ditu siñismena, maitasuna ta itxaropena. Jaungoikoa ta bere erria siñisten ditu. Ez dira edozelango gauzak. Ainbeste illuntasun, arrokeri ta zapaltze egoan garaietan, berak argi ekusazan egirik sustraituenak. Egi ederrez ta Jaungoikoaren laguntzaz jantzi, ta Jesukristo'k gizadiaren alde egifiko Salbamena adierazoko dautso Euskalerriri. Arazo onetan laguntzaille, Jaungoiko Berberak Bere gizon egifiko Semea

gizartera bialtzeko aukeratu eban bidea, Aita Patxi'k be artu eban: Andra Maria.

Jaungoiko egarria ta gizon egarria izan zitun, bere barrua, beti onerako, astintzen izan eutsen asmo zuzen ta goragarriak. Munduak bere bideak ditu. Ta mundutarren artean be bide oso ezberdiniak dagoz. Biotz bigun, zabal ta laguntzailleak onbide zabalzabalek doaz; biotz estu, diruzale ta zapaltzailleak ostera, beste bide kaskarragoatik dabilz.

Aita Patxi'k, gazterik, bere bidea aukeratu eban. Sortueraz artu eban izateak, ezpairik gabe, indar aundia egingo eutsan bizitzako jokabide guztian. Bere izakera ta nortasunean artu eban, gazte aroko ikastaroetan emon eutsen irakatsi guztia, ta orduantxe, esango neuke, bere erria maitatzen ikasi ebala be. Maitasun bi onek ezin banatu giñaikez, ta onek banatu ezkeru santu ezin egin.

Aita Patxi'k Jaungoikoaren bizia nai izan eban Euskalerrientzat. Ta orretarako, bere bizia bai Aitari ta bai gure erriari egizko gogorik samurrenagaz eskeiñi eutsen. Erria maitatu ta serbitzeko ordu onak asko dira. Baiña onen artean, gaiso aldiko laguntzako oso estimagarriak izan oi dira. Gure adiskide onek bere bizitzako zati bezela eginda eukan, gaisoak, edonun, ikusi ta poztuz, arei on egitea. Bideak, orduak, nekeak ez eben atzeratu ta bildurtuko. Urteen joan etorrian zenbat orio gaisoen zaurietara ta zenbat poztasun bizitzako samintasun aundien orduetan ixuri ete eban... Jaungoikoaren serbitzari ibilli zan gizonen etxeetan. Jaungoikoak, egiz, maite dau bere Euskalerriko artaldea.


SOLOZABAL'tar PAULIN

ARRIZABALAGA

Arrizabalaga izenez euskaldun asko. Orain bat nik gogean. Caracas'en 1974'garren urte ontako garagarriaren amalaugarrenean il zitzaiguna. Il zitzaigula esanez, neretzat ua zerbait nuala adirazi nai.

Arek ber-berak ainbeste aldiz bere buruari alaxe deitzen, Arrizabalaga'tar kol dobika Mirena euskal-idazle genduan. Aspalditxe, 1920 urtegarrenetan Bilbo'ko IESU Biotz'ren Deia'n idazten zigun. Gero ixildu egin zitzaigun. Betiko ez!

Caracas'en iesulagunek ikastetxea dute. Neronek ikusita orain bi ere bai. Eta ua antxe irakasle. Euskaldun geiago ere baziran: Bidani'ko Beloki, Ernani'ko Gastamintza, Mungi'ko Agirre eta abar.



Aruntza ioin berri artan arek bere burua alderdi aietarako egin nai. Izan ere, Venezuela'ko lurralde bietako biztanleak ain dira bestelako! Orrela, euskalgaiak, nai zituten ainbeste egin erabili. Euskeraz idazteari, ordea, arek era bat ez utzi.

* * *

Donosti'n giñan. Arek ez zekian eta nik ez nekian. Uztail ederreko goiz eguzkitsuz, meza emateko asmoz Garibai txaideko Iesulagunen elizara agertu nintzan. Ain zuzen, orduantxe bertan, barrerik bere meza bukatuta, gizaseme mear, aurpegi alai, illetxuria, antxe. Arek utzi zituanak nik iantziko. Ontan, ez dakit zerk eragin zidan eta egun on! esan nion.

—Bai ta zuri ere. Bixkor?

—Goiz ontan ere maindireak oztutzen utzi ditugu, ta...

—Zu, oraindik erdi-gazte'edo. Bein ere ikusi izan al zaitut?

—Ez det uste.

—Beraz!...

—Iñondik ere zu Arrizabalaga zaitut.

—Nondik dakizu?

—Barrenak esaten.

—Eta, zu?

—Etxeberria, ni...

—Gizona! Gizona! Gizona!! Zu ikusteko gogo ba-nuan. Zoaz. Yaupa bukatzen dezunean itz-egin bear degu.

Esan bezela, baraua ausita gero irten giñan. Bultzi getokira alderuntz goiko zubira iritxi aurretik eskubi-alderuntz iarraituz, zumardiko itzalak babes ederra egiten. Gora eta gora Urumea ibaiaren ezkerreko aldetik. Ua ez aspertzen.

Entzuteak, beti ere, lan gutxiago izan, eta ni ez aspertzen.

Orduan Olabide'ren Idazteuna nik eskuarte, eta Arrizabalaga'k zertxo asko iakin nai zituan. Nik iardetsi:

—Bai! Irarkolara eramango degu eta ango lanak amaitzean Olabide'ren itzulpena aukeran izango degu: maxiatu dezagun, Itun Zar eta Berria'ren errialdeetako okerrak zuzendu ditzagun, eta Iainkoarenetan murgildu gaitezten.

—Batez ere azkeneko ori! Beste ezer baño len Iainkoarenak ikasi eta gogoan erabili ditzagun. Ori egiten ez duanak, Idazteunari akats asko aurkittuko dizkio. Beste izkeretan ere ala-ola ibiltzen dirala zuk dakizu. Igarle deunak aspaldiko gizonak dira eta aiek beren aldiko eta giroko semeak ditugu. Gu, berriz, oso bestelakoak.

—Idazteunari itz-aurrea ia-ia egin diot: baiñan, ikutu batzuen bearrean det eta lenbizi-lenbiziko itzak ez dakit guztiek bear bezela ulertuko dituzten. Alegia: Idazteuna gezna bikoa degula. Eta geznari bere mamia aurkitzen ez ba'diogu axalekotan ibiltzea ezer gutxi ditekela.

Alde batera iruditzen zait Idazteuna zubi'edo degula. Zubi orrek Iainkoaren-gana garamatzi. Zubia zertaz eta norc eraikia dan iakite utsaz zer aurreratuko degu?

—Ai, zu! Etxeberri! Goguan zer degu? Azelain'go zubia? Ua ere euskaldun mikolas-sail aundiek eraiki, eta azkeneko arria bere tokian ipiñi gabe mikolasek iesi ioan. Euskaldun arek ezote zuan astirik eta erarik ber-berak zubia txukun eraiki zezan? Euskaldunok gaizki oituak ote-geran ere iruditzen zait.

—Enda xume geranez, gerok indarrik aski ez degula uste izaten degu, edo'ta uste ori norbait ekarri eta erantsi eta siñistarazi digu, eta guk ontzat artu.

—Enda xumea!!!... Bakioitzari berea emanez, gizon guztiak mailla berean altsu eta lanerako zintzo.

—Aizu! Eta zu zabilzan alderdi aietan, zubiaren ezkerrean iainkoti zaituna, beste aldera igarotzean, zubiaren eskubian ere iainkoti izanten al da?

—Nai luke!! Zu besterik ikusia al zaitut?

Berri Ona aldarrikatzen ibillia nauzu, eta eskuarte auek bukatzean, berriro araxe ioan nai nuke. Eta angok'lenagoko beren iainkotxoan zale ba'ziran, ondoren, lengoak utziz Kisto'ren siñismena artzean txito Kisto-zale iarraitzen dute. Baiñan, iainko-zale ez izan eta gero Kisto'renak siñisten dituztela esanez bataioa artzen duanak, iainko-zale izanten ez du ikasten... eta, txakurrak bezela len okaztatutakoetara lotsa geiegirik gabe biurtzen.

—Ori orrela ba'da, zuen lana oso zaila!!

Egun artan Arrizabalaga'renak entzunik era-bat gogo-berritu nintzan, neronek batetxo uste gabe bizkarreratu zidaten lanean aritzeko. Eta biok bein ere baiño adiskidego gelditu giñan: ordurate elkarren izena besterik ez genekian. Aurrerantzean, neretzat beintzat, besterik izango.

Geroago, nere osasuna ere zaindu bear nuala eta aberri-aldean iru ilabete eta eguntxo batzu eman ondoren, ain gazteena ikustera Argentina'ra ioatea ere aizu nik. Andik gorakoan, ordea, Arrizabalaga iztunari ikustalditxo egin nai. Idatzi nion eta esandoko egunean egazkin-zelaira Arrizabalaga irten. Zesaidan:

—Poz aundia neretzat zu emen ikustea. Oraintxe lurbira euskaldunontzat tikia gertatzen ari zaigula esango nuke!

Iardetsi nion:

—Egia dala ere, geren etxe utsik utziz, irabazia eskalientzat.

ETXEBERRIA'tar P.sj

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAOKAK

ZAZPI-KALEAK



CASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

ANTZIÑA

JATETXEA

Pza. Armas

ONDARRIBI

IRUSI

OIÑETAKOAK

San Pedro, 5

ONDARRIBI

AKEIT ETA JATETXEA

RAFAEL

San Pedro, 18

64-27-34 urrut.

ONDARRIBI

ARGAZKI GAIK

BEGI

Ikusgailuak

Begi-oskolerako leiarrak

Miramar, 8 - 64-13-26 urrut.

ONDARRIBI

INGI TA
IDAZTEGIA

KAI-AMETS

Eresmintzak - Margogaiak

Matxin de Arzu, 1

64 - 19 - 83 urrut.

ONDARRIBI

ERREKIÑAK

BITXITEGIA

PINPILINPAUXA

ONDARRIBI

ONDARRIBI

ALBERTO

LASA

JAUNA

Ondarribi'ko seme jatorra, urrearekin ordaintzen ez dana dezute. Langille porrokatua, otzana ta apala. Bere zer egiña Erriko Etxean dauka. Antxe guzizon zerbitzari gogo onenarekin, bere eginkizuna beteaz. Zale-tasuna, maitasuna ta naimen ezin ta obeak danori eskeintzen aldi oro. Lasa Jauna beti dago prest urkoaren zerbitzuko. Leen ere bere emanaren ordain sari, omenaldi bat baiño geiago jasoa da.

Aspergaitza danez beti lanean diardu. Ondarribi'ko «Alaitso» ereslari taldearen zuzendaria. Erriko-Etxeko txistularien buru. Zolfa erakusle. Elizako abeslari aldraren artezkari. Neska-mutikoen ezarri-zuri ta go-zen zaintzaille. Berrogeitik pasiak dira berarekin txistu, danbolin eta atabalak ikasten ari diranak. Noiz nai, zoragarrizko ibiltaldiak eskeintzen dizkigu, kale-zear eta zer esanik ez joaldiak tajutzen dituanian. Euskal-Erriko txistularien artean oso ezaguna ta maitatua. Aldi batean «Ondarribi» zeritzan abestaldearekin or-barna ibillia ta txalo ta goramen ugari jasoa. Berak esaten zidan, ez daukala laguntza askorik baiña gaur bertan eunetik pasiak dirala bere ikasle zolfa, soinu-jotzaille ta abar. Ba da zerbait.

Gero, «Olentzero» jaiak dirala; Meza berriak, Abesti zeingeigokoak, bir-idazkiak, ereskidetu, armonia eman... Nik dakita!

Lengo batian auxe esaten nion nere lagun bati. Bere eginbearra onelako zale-tasunarekin artuko balute aur eta gaztearekin zer ikusia daukatenak, beste kuakuak abestuko liokela gure erriari.

Koipekeriak eta lausenguak ez ditu maite, alaere gure aldetik egi batzuek argitara ematea geiegikeria ez dela uste dugu.

Bai, ba dakit onelakoak bai dirana beste tokitan; gure errian zintzo ta jatorra, apala ta otzana, bear bezelako gizon prestua badakagula csan gura nuen. Ikusi dezute nolakoa.

FEDEA

MAMUTZAR

Sukalde berezia,
Errekiak batez ere.

Eguzki kalean

ONDARRIBI

MARGOLARIAK

Andra Mari'ren arkupetik Kale-Nagusian sartuta, ezker aldetik, iturritxo bat dago. Jaiz-kibel'go ur-garbia eskeiiko dizu oparoan uda ta negu. «Margolarien txokoa» deritza txoko orri. Izan ere, bertatik amaika margolarik edertu dituzte euren laukiak. Eta, kontuan artzekoa da, bertako seme ta margolari sonatua izana, Etxenagusia ospetsua, urrean jaio zala.

Ondarribi'ko kale nagusi onek ba dizu alako illun aide bat; trixkantzta dariola eze-ne-gartiaren giroa eskeintzen digu beintzat. Trentxaz landutako teillatu-egalak apartak dira. Orobat mailluz landutako balkoiak. Benetako ederrak dira baita ere, arri-mimarriz eraikitako etxeak; batzu-batzuek armarri sendoak erakusten dizkigute, esanaz: «Ni, olako nauk».

Kale onen azken-ederra, joale galantak agirian, Eleiz-Torrea; Iberok tajutua. Gero Armetako emparantzta bere gaztelu galantarekin. Ez gera edesti-zear bere berri ematen asiko. Eunka dauzka granada zuloak, eta millaka balak egiñiko zulo ta koska. Inguru-minguru arresi ta murru zaarrek, txiga-oztuak estaliak.

Kale-nagusiak ba dizu alako kutsu aparta bat. Illunean argi dagi iparreko izarrak lez, eta orrek ikuslea lillurutzen. Itzala duzu kale-nagusiko Nagusi, ta gu ondarribitarrok konten aibbestez. Eguzkiak ere arteka ba du parte. Zirritutik eta lotsati bezela sartzen bada ere, urre zaarra baitlitzan agertzen da paregabeke kale onetan.

Eta giro onetan nor ez da margolari? Pentsa irakurle, idazkortzaz ere margoztu ditekela. Lanbro ta lantxurdak damaio nun busti, bidasotar ertiliariari ta aurtan, iñoiz ez bezela, nik ez dakit zenbat «Pintura - erakusketa» (Ondo zaldu gañera!) egin diran gure errian.

Oore zueri ederti maitaleak, alde eta moldez erti-lanetik bizi zeratenok ugari zerate Olearso'ren magalean: Bienabe Artua, Montes Iturrioz, aita-semeak, Enrique Albizu, Joxe Grazenea, Javier Sagarzazu, Jaime Sorondo, Ernesto Villar-Zabala, Maria Pilar Alda, Virto-Olascoaga, Arbelaiz; besteak beste.

Bego Bidasoa'ko oraingo eskola bere ortan; bego Basterretxea emen kokatua. Ez arritu bizkaitarrok; Iger munutik ederki agiri da Matxitzako...

Ibaizabal

Ibaiona...

Oraño, itxasoa laño dago.

Eta zuek gure «Margolarien-txokoa» oinkatu ta maitatu zenutenak; zuek, gure itxasoa ur-diñabartua, Bidasoa zillarrez apaindua, ta Txingudi'ko zerua beltz-txurritua ikusi zenutenok; Regoyos, Maura, Salis, Berrueta, Vazquez Diaz eta abar aipatuak gelditzen zerate. Eta nolatan aantzi aibbeste Lady, Mister, Madame ta Monsieur; guztioi naiz ez-ezagunak izan, Thank you very much. Merci. Eskerrikasko!

Eta zuk, irakurle aukera ederra dezu. Gure jai egunik ospetsucna Amabirjiña eguna da, igandearekin gutxitan bezela aurtan. Millaka gizonetako praka txuritan, txapel gorritan, xamarrak txuri, urdin, gorri, beltz... Su-izkilluak; txillibitu ta atabal, zaldizkoak, eta neskatil-kantinerak, Bidasoa'ko loreak... asma ditekene ibilkunde arrigarrienean ikusiko dituzu etortzen bazera. Etorri. Etzaitu damutuko. Eskerrikasko.

BORDARI



ONIBAR

BAZKUNA

ARTOLA

ONDARRIBI

ARRIATOKO

BARRIAK

Markiña

KARMENAK

Juan jakuz aurtengo Karmenak, gure erriko jai nagusiak. Ganora, jai-usain eta erri-kutsu andi barik jaiak be. Batzuk erri-tik alde egin eben. Eurak dakie zergaitik, eta... guk be bai.

Kirkillok erdi-lotsatuta gengozan: oin-bikoak trebeagotzat geunkazan jaiak eta olakoak antolatzen. Ba-dago: egon, ondo dakigu, gizon oso bari eta erri-zale diranak gure udalkideen artean; baiña... egosi-eziñeko *baña* nagusiagaz zer egin? Dana dala, ez aspertu ta ez atzera egin, udalkide jatorrok! Elduko da noizbait *prixa-lapikoren* bat. Eta orduan ez doze erriaren aurrean buru-makur ibilli bearrik izango.

Eleiza-aldetiko egitarauari buruz ez daukagu zer-esanik aurka. Karmen'go Amaren bederatzurrena, polito. Ori bai, noizbait baiño geitxoago. Jai-eguneko Meza guztietan, Karmen'go eleizea betekadaka; Meza Nagusian, berriz, gaizteka. Itzaldia A. Eleuterio Pasiotarrak. Maisu dogu orretan. Egi mardul eta biribillak bere ezpanetatik entzun genduzanak, gaurkotasunez beterik. Entzun bai, baiña, betarkotasalagunduko ete gara?

Beste itzalditxo bat be entzuteko etean izan gendun askok Meza Nagusi ostean; sekular batena, ain zuzen be: Eleizatik urten eta artez-arte Goiko Portale'ko iturrira doa gizon eldu ta giartsu bat. Eta agiri-agirian dagon erdal-txartelari jaramonik egin gabe, dzanga-dzanga edaten asten da.

«Zu, —diñotso albo batak— ur ori zer diñon or? *NO POTABLE*».

«Kabuen seis! Aldeixue danok! Jun daneko berrogei inguru urtiotan Karmen'go Amari eskerrak emotera nadjatok urtero-urtero, or Kalamu ta Akarregi mendietan ondo urten nebalako; ta Karmen aurreko ur bedeinkatu au edan barik sekula enok etxeratu. Ta gaur danok dabixue ipuin bardiñe: «Ezin lei edan, ezin lei edan». Zer jaukok ba? Emen gazak osasun ederraz gervandeporan mando-apatzen lorrotzetan guratiñe edanda. Zer jaukok, ba, onek?... Len okela txarra ta oñ ur txarra. Ze demoniño dabixue Markiña'n?... Beno, beno! Olako ipuinai jamonik bez. Banaka batzuen patrikerak loditzeko baiño eztozak-eta».

Zurrutada luze bat egin, datorren eskuz laguta ta «Agur danoi! Ezparren urterarte, Karmen'go Ama ta Markiña'ko urak lagun!» esanaz, or doa gure bigarren sermolaria pozik eta tente-tente. Ez dakigu nor zan. Une atan, tamalez, ez jakun itanduterik bururatu be egin.

Udaletxean erdera etzauk antolatutako egitarauari buruz be ez daukagu zer-esanik. Itauitxo bat bakarrik: Erriari ala nori begira egiten dira programok?

KARMENAK ORAIN EUN URTE

Eun urte dira laster Euskal-Jaiak ospatu zirala gure erriari, Karmen'gan ospatu be. Iru eguneko jaiak. 1883'garren urte ba. Bizi ete da iñor gogoan daukazanik?

Kirkillon ustez, bat baiño geiago poz-tuko da Markiña'n, gure aurretikoak zelako jai polit eta jatorrak antolatzen ebezan jakiteaz. «EUSKALERRIA» aldizkari za-

rrean irakurri al izan doguz jai areitako gora-berak, eskerrak bertoko praille kirkil-zale bati. Orduan ospatutako txapelketak bakarrik aitatuko doguz, baita irabazleen izenak eta sariak be.

LENENGO EGUNA: 1.—*Arinkalariak*: Sei gazte agertu ziran. Lenengo saria, 240 errial, Markiña'ko Malaxtxebarria'tar Jose Mari'ko eroan eban; bigarrena, 120 errial, Elgoibar'ko Olabarria'k.

2.—*Pertzak-eroailleak*: Andrazkoak baka-rrik. Pertzok, urez beteta, buru gainean eroan bear ziran, eskuakin ikortu gabe. Lenengo saria, 240 errial, eskualen kobrezko pertzak eder bat, Lekeitio'ko Zunzunegi'tar Teodora'k; bigarrena, 120 errial, Elgoibar'ko Muger-tza'tar Fernanda'k.

3.—*Txanboliñak*: Lau agertu ziran Elgoibar, Eibar, Bilbo ta Markiña'tik. Irabazle, Elgoibar'ko Ansola'tar Roke; 300 errial.

4.—*Dultzaiñalariak*: Lau agertu. Txapel-dun, Getaria'ko San Sebastian'dar Manuel; 300 errial.

5.—*Trontzalariak*: Iru bikote agertu ziran. Txapeldun, Rekalde'tar Antonio buru ta zu-jose Domingo, Markiña'koak; 480 errial.

6.—*Ezpatadantzariak*: Irabazle, Xemien'go taldea, Rekalde'tar Antonio buru ta zu-roskari zala. Saria 800 errial eta txalo be-roak.

7.—*Santzolariak*: Bost agertu. Txapeldun bi: bata Xemien'goa ta bestea Etxebar-ri'koa. Aldizkariak ez dakar euren izenak, ezta zelako saria izan zanik be.

BIGARREN EGUNA: 1.—*Pelota-jokua*: Txapeldun, Txikibar eta Bega bikotea; do-nostiarrak, 1.600 errial.

2.—*Aurreskulariak*: Irurogei urtetik gora-koak bakarrik. Zazpi agertu ziran. Irabazle, Eibar'ko Agirre'tar Basilio; saria, bigantxa eder bat.

3.—*Palankalariak*: Irabazle, Onandia'tar Iñazio, Murelaga'koa; 200 errial.

4.—*Bellsolariak*: Bi agertu ziran, Astea-su'ko Pello-Errota ta Etxebarri'ko Peru. Parran geratu ei ziran, eta 320 errialeko saria erdi-bana egin eben.

IRUGARREN EGUNA.—Ertilari edo Artisten eguna. 1.—*Olerkirik ederrera*: Zumaia'ko Etxegarai'tar Karmelo'k; 320 errial eta urre-buruko *puskila-makilla*.

2.—*Ipuinik eskolara bertsotan*: Otxandiano'ko Arrese-Beitia'tar Felipe'k; saria *urrezko larrosa*.

3.—*Bizkaï'ko seme aspetsu baten bizitza*: Irabazle, Otaegi'tar Klaudio; Mazarredo'ri buruz idatzitako lanagaz; saria, erti-lan bikain bat.

4.—*Margo-lana*: Markiña'ri buruz; Bilbo'ko Adolfo Morales'ek irabazi eban; saria *erti-lan* eder bat.

5.—*Sari-banaketa*. Eta ondoren, Eibar'ko Abes-batek «Markiña'ra», jai orreitarako berein-berezig idatzi ta eratu abestia jo ta abestu eban, txalo bero ta ugariak jasoz.

Iru egunotan, goizean-goizetik txistula-rien kalerik-kaleak, eta illungetan euskal-erromeri alai ta bizia.

Jaioi azkena Markiña'ko Alkate jaunak emon eutsen *euskerazko* itzalditxo labur eta txukun batez. Arrezkero zeinbat ur eta zelakoak, Artibai beera itxasoraiño!

Ba-dogu Markiña'arrok erriko jaiak antolatzen nun ikasi, urrin jaiak gabe.

KIRKILLAK

Yurre

Ala-Iurre, Iorre, Igorre...?

Neure errikide ta adiskide on dodan «Landajuela» idazle yatorrak dei egin dausku «Agur»etik aren irakurle garan guztioi: «Yurre» erri-izenena, zelan dan ta zelan idatzi bear dan: Yurre ala Iurre edo Iorre edo Igorre.

Bertan bera noa zer edo zer erantzute apurtxo azpaldaz.

Lenengo: «Yurre'koak» bertakoak, be, uste dot ez dabela danak bardin esaten.

«San Kristobal»koak eta «Basautez» aldekoak («Iorre» edo «Igorre» esaten dabe; baiñan «Elejalde» ta «Lasarte» ta «Garbe» aldekoak, «Yurre» esaten dabela ta esaten belata, uste dot. Kontu! Uste dot; ez nago ziur.

Bigarren: Gipuzko'ar «Yurre» auzoa ei dago Beasain'dik ur; eta Araba'z be ba dago «Yurre» erri-txo bat; eta «Landajuela» berak ataraten dituzan ainbat eta ainbat toki-izenetan ba izenetan, be, «Yurre» erabili oi daroe.

Orra ba, nik be itauntxo egin gure dot, erriko bertako basoaldeko yendeez deituten daben «I-o-rre» edo «Igorre» ez ete da euren, euren gustora, egindako era bat...? Esate baterako, «Zornotza'ri, be, Yurre'n lenago beintzat, «Zorrontza» deituten yakon.

Irugarren: Naparroa'n «Irrure» ta «Irrure» ei dagoz; biek izenean antzekoak; baiñan bata bestegandik urrin-urrian. Batak azkenean «r» gogorra, besteak berriz «r» biguna. Baiñan bertara au emen uzten dot, geroago bairin pertua etorteko.

Laugarren: Intza'r Damas Aitak Kanpion andiari aurkeztu ninduan bein, neure gazte-deporan. Ordurako Kanpion itxurik egon; eta Damas Aitak «Yurre»-koa nintzala esan eutsonean, Kanpion'ek «Irrure'koa» lez artu ninduan eta Intza Aitak bairri esan bear izan eutsen, Bizkaï'ko «Yurre'koa» nintzala ta ez Naparro'ako «Irrure'koa». Laster kon-turatu zan Kanpion yauna.

Boskarren: dirala 20 bat urte, Omae-txebarria frantziskar A. yakintsuak Du-rango'n itaun egin eutsan itxumustuan zer ete da «Yurre» eta zer esan gura ete dau...? Eta nik, be, neure aldetik itaun bardiña egin neutson berari.

Gura eger baldian «urre» edo «urre», yateko ain gozo dana, be, urten zan; eta Yurre'n «urreko» edo «urra» errian ta erri-inguruetan ba direzala, errian-zun neutson nik; ta orregaz amaitu genduan «Yurre'ri buruzko izketa».

Seigarren: geroago, geroago egun batez, erriko yaietan egin eben egitarauan, «Yurre» «Iru-ur-aurre» zala esaten eban, an bertan «Iru-ur-aurre» ta «San Kristobal'dik eta Zeanuri aldetik etozen errekek, bat egiten belata. «Iru-ur-aurre», «Yurre», «I-u-rre», «I-o-rre», «Igorre»...

Zazpigarren: boskarren atara dodan arrazoia, au da Yurre'n ba direzala «urrak» edo «urrek», «Yurre» erri-izenak daroan «r» gogorra, zelan edo alan, azaltzeko izan da.

Bairin laugarren edo seigarren zatietan dagon argitasunagaz, «r» gogor-raren kontu ori naiko argitzen dala uste dot. Eta orregatik, boskarren zatiko «urrak» edo «urrek» alde bat utzirik, laugarren ta seigarren zatietako azal-penagaz geldituten naz, au da, Yurre «Iru-ur-aurre» dala, Naparro'ako «Iru-ur» lez.

Zortzigarren: Naparro'an ba dago beste erri-txo bat, «Irrure» deituten dana; ta azkeneko «r» ez dauka gogorra, biguna baiño; beraz or ez da bearrezko «aurre» berbatxo, «r» bigunagaz amaituten da. «Irrure»k, «Iruur» esan gure dau; eta «Yurre»k be bardin Nainan «Yurre»k «r» gogorra dauko ta orrek zer edo zer geiago emoten dautzo: «Iru ur aurre».

Neure bizi-tza guztian ez naz, iñoz be, toki-izenen azalpenik paperetan emoten ibilli. Oraingo da, lenengo. «Landajuela»na da errua, orrek sartu bai nau saltsan ta neure agertze au lotsaz dagit.

Euskalerrri osoko toki-izenetan ta abi-zenetan ainbeste ta ainbeste «Yurre» da-goelarik eta «Igorre»rik bat be ez, nik dakidala, ni «Yurre»gaz geldituten naz; ta ez «Igorre»gaz.

Ala da guztiaz, be, «Landajuela» ya-nari ta «Igorre'ko Irrintzi» idazle gaz-teari, baita abade yaunei, esatera eusker-tzen naitakee, elizak ta udaletxe-ko beñolako paperetan begiraldien bat egin dagiela; ta zer edo zer argirik aurtituko

baieue, «AGUR»en bertan danoi yakitera emon daigula.

Baiñan zelan bertan nago, zerbait aurkitu al izango ete dabeenik, gure izkun-tza maite, eder onok nortasun txikerra euki eban-ta leenagoko garaian; eta dana latinez edo erderaz idazten ei eben... Agur ta urrango arte Yainkoa baitan.

YURRE'tar YULEN A.k

Galdakano

ERIYOTZAK.—Aspaldian adu txarrean ga-goz galdakanotar euskaltzaleok, aldi laburrean ainbat errizale jator gwartetik betiko joan yakuzelako. Oraingoan be, lengoak betiko izan ba'ltzaz, beste iru eroan dituz Jaunak Bere aldamera. Garillan 26'ganean Solabarieta'tar Estepan sasi onko Estepan, irurogei ta bost urtedun'zala. Egia da, ez zan Estepan errizale sutsua, baiña euskaltzalea zan eta gizon argi ta lagun artekoa.

Dagonillaren 6'ganean bariz, beste bi eroan euz-kuzan, urrogen egunen illobiratuak. Beke'ko ain au-zuean ain ezaguna zan Urribarri'tar Ander, gizon zint-zo ta euskaltzalea, luzerlotxoan gaixorik egona.

Eta aspaldiz erri-txo al bizi zan, Peli-Mirena-zeula eta gero Bilbo'n, Irabazal'dar Peli-Mirena-osagille ospetsua, errizale jatorra, benetako galdakaoiarra, naita errira bere guraso maite ta adizkide onak ikustazera baiño etorri ez.

Maite gendubazan adizkide orreik, baiña Jaun-Goikoa orretara nai izan dau, ta geroarte agur egin bear izan dautsegu. Betiko atsedenean begoz euskal anayok, eta sendikideeri —euren armean AGUR'en irakurleen bat be bai— gizon sartan Agur'aste-roko onen bitartez.

GURARTEAN.—Bere guraso maiteen artean dogu Ibarra'tar Iñaki erri-tar apaiz gazte jatorra. Ainbat urte Amerika'ko Ekuador'en apaiz-irakasle ta misiolari egin ondoren, ilabete bat edo zerbait ge-yago bere erri maitean igaroteko etorrita. Ongi etorria, Iñaki, zeuk ain maite dozuan Galdakano ta Eus-kalerrri'ra, ta, ea berriz, emen indar-barrituta, Ame-rikatako lurralde erdi-basati siriñsina ta jakintza zabalde al izaten dozutan.

OPORRAK.—Atsedenerako urteak daukan al-dirik egokiena il onek osotzen dabe. Beroagaitik-edo, nagitasunik andiena gure soñiak izaten dabelako, ba-dogus erriaren erta ortara, oporrek, jendia ugari. Eta ez dago esan bearrik, bear-bearrekoak dirala atsedend aldi batzuk. Ez soñiketa gogorak jasan bear dabezentzat bakarrik —onik sariago bear leuekez izan— baita salerosketan, jakintza arazoetan eta adimenez lan egin bear daben guztientzat be.

Guk, egia esateko, giltzapean-edo egon giñan al-dian izan ezik, ez dogu atsedend aldi edo oporrik gozatu. Baiña benetan bearrekoak diralakoan gara, batez bere lasterketa uisean bizi garan aldi ontan.

Eta orretara oldoztu dabelako izan, bear-bearre-koak ziritu atsedend aldi gure txadon nagusiko txanburu dan Jon jaun argu-garriak be. Ia urte bete edo geyago erdi bakarrik izan dan ezketiño eleizan, beste bat gaixorik aurkitzen zelako, egin bearrik asko izan dau. Amabost bat egun mugaz andiko Euska-lerria'n igaro ondoren, poz-pezoz erriratu yaku.

Baita txanburua etorriaz batera, Aguirre-malloa tar Xabier apaiz euskeltzalea, Erroñkari aldera joan yaku egin batzuetarako. Kontuz ibilli an Xabier jaun, Erroñkari'ko aitz zorrotzak arrisku andidunak dira, eta tarteren baten geldu nor badi txarren bat egin legike-ta. Ala ta bere, edo ibilli laurien alderdi ortako aitzik-aitz eta belardi zabalak zear!

ZARREN TXANGO.—Azkenengo urteetan bezela, aurtien bein, errian diran zar-saridunak, izango dabe txango bikain bat. Aurreko urteetan lez, erriko Guraso-Erakundeak antolatuta, eta Udala eta landolen laguntzaz.

Urtero alderdi barri batera joaten dira txango onetan. Aurtengoa, Araba'tik Naparroa txaruntz izango ei-dabe, inguru ikusgarri batzuk ezagutuaz. Lerro zalek idaztean, guztiz ebatzi barik dauke antolatzaileak zein bidetatik edo zentzuz toki ikus-katuko dabezan. Aldakuntza andi barik onek izango dira:

Urten Galdakano'n, goizetik, eta Gazteiz'tik Azazeta gaindera, ta emen geldimnetu bat bete on-doren, bertatik ikusten diranak begizatutuko, ama-rritakoa egitera Los Arkos'era. Or meza entzun eta Iratxe'ko apaiztegia ikuskatu ondoren, Lizarru'ra, al ba'da bazkal aurretik or diran ikusgai bikaiñak ikusi ta ezagutzeko.

Eberdian, Naparro'ko uri zar ezaugarri ortan bazkalaz patxadaz, eta arvatsalde erdian edo ber-randugoz ziurki, Zudaire'tik gora, baiña Urbasa'ra igon baiño lenago, Eulate ta Oñakua gainetik, Agurain-salbatierra'ra jatsi. Baiña asieran esan dogunez, ba-litzake aldakuntzaren bat izatea azken orduan. Dana dala, txango polita gure zar-sarituak egingo dabe... eguraldiaz adu ona ba'dabe beintzat. Ea datorren urtean lagun izaten nozuben...

BASA-JAUN

ESNEGAGZ EGINDAKO

ESKATU BASERI

BASERRI

UMETZUNTZAT

ADINKOENTZAT

CHOBIL

ESNEGAGZ EGINDAKO

ERRIALDEA

Arrasate

ZUBIA.—Pantzeskatarren atze aldean dagon zubia barriztu-samar egin dute eta lan-polita eta aguro egin ere. Baiñan askok galdetzen dute, zergaitik ez duten estali ibai guztia, zubi orratik Otolara kalerañoko guztia. Gero egin bear dan gauza izanik ezin ukatu eta zergaitik orain egin barik itxi?

ERIoTZA.—Jaunak Beragana du, Zabalart Patxi euskaltzale zintzua eta errian ezaguna eta maitetua. G. B. Gaurregun osatu eziñeko gaitz txar batek eriotza ekarri dio. Gaztai-saltzaillea zan bera eta amaika janari eder ekarri izan zuan Urbia, Idiazabal eta beste euskal-mendietatik. Jaunak Bere ondoan izango dualakoan, atsekabeen laguntzen dautsat bere emazte ta bere seme Jon Mirena eta Pantzeska Xabier'eri.

Tamal aundia artu da bere lagun izan gintzan eta erri guztian, Arregi eta Garai'tar Narziso'ren eriotzarekin. 82 urte zituan eta oraindik gogor zegoakoan, baiña bat-batera il zaigu. Bere obraltze eta illetara jende asko batu gintzan, onegaz erakutsirik errian oso maite genduala. Goian Bego. Samin nekatsu ontan laguntzen dautsegu bere seme alaba-guztiei, batezere Inoskenti eta Josu Mirena'ri euskaltzale zintzuak eta nola ez? AGUR onen arpededunak bai-dira.

EZBEARRAK.—Mendabia, Naparroa'n oporraldia igaroten zebillela ango igaritoki baten eriotza aurkitu zuan Elkorobarrutia'tar Xabier'ek bere bizitzako 40 urtegeaz. Araoz-tarra zan bera baiña Aretxabaleta'n bizi zan. Neure tamal-agurra bere emazte ta baita bere seme alabeei.

Beste emakume bat, Dolores Pinto, bere etxean aulki batera igo eta an bere sukaldean zerbait garbitu naian zebillela, jausi eta buru-azurra apurtu eta andik laister il zan.

Aor-ba gauzak zelan diran: sarri esan oidugu etxetik oporraldietan alde egitean arriskuan sartzen garala eta etxean geratuta be or nudik ez dakigula eriotza jabe egiten da gurekin. Orrek erakusten digu eriotza geure atzetik noz nai dabilela eta arretaz ibilli bear garala geure eginkizunetan.

JAIOTZAK.—Batzuk il eta beste batzuk euren lekuak betetzen. Orrela dabil mundua. Ara emen euskal-sendi bik izan dute zoria. Bakoitzak seme bana. Bata, Apraiz'dar Josu Mirena eta Gallastegi'tar Ane Miren'ek mutil morrosko eder bat izan dute eta Beñat izen polita esarri. Gure naia izango litzake gurasaok bezin euskaltzale zintzoak izatera el daitela umetxo zoragarri ori. Eta aztutzeke, baita zorianak lenengo aldiz aita eta amama izatera edu diran Manuel eta Kandidate'ri.

Beste seme bat izan dute, Pereda'tar Albertak eta Ibar'dar Karmele, euskaltzale zintzoak. Ugatzarakuan Urtzi izena ezarri diote. Zorionak guraso pozkidatu orrei eta euskal-kutsuz azia izan dedilla.

UDALAITZ

Bilbao

NERBION FILMA

Urte luze bat igaro da onetzaz idazti, ta «Procieta Film-alkarte» bide zala, aurtengorako amaituko ebela esan neuztuenetik. «Nerbion Film»au, dirauskue-nez, egunotan burutu dabe ta lenengoz Bilbo'ko «Vistarama Zinean» lagun miñ eta etxe artekoie eskeini. Oraindik ez dot ikusi, baiña bai lenengo gorantz eta onespenak entzun.

Orain, udaroan murgildurik gagozanez eta uritar geienak etxeetatik urrun ibilli dabilizanez alegia, datorren udagoienerako film onen ikus-jarraipena itxi dauskue, ta Urrillean ikuskatu al izango dogulakoan nago. Ortan dabiliz beintzat zuzendariak.

Nerbion filma bizkaitarra, erritarra ta geure-geurea dogu, ta orrela, lenen eta bein, Bilbo'n Urrillean duan, ezer ordaindu baga emongo dauskue, gero Bizkai guztian, ikastetxeetan, alkarte ta abarretan jarduteko, ta azkenez, gure mugak igaroaz, lurbira barna beste urte bi luzeetan jarraibide alaitua izan dagian, eta euskal-endaren kementa eta eragitearen bilduma ta zabaltzaille lez izan.

Manuel Solorzano jauna dogu filmaren zuzendari azkarra. José García Arias jaunak argazkilarien zuzendaritzan, Jesús Viña jaunak filmaren eginkizunetan, Martín Pardo jaunak eta abar luzetxo batek laguntzen dautse. Danak edo geienak bizkaitarrak edo Bizkai'an bizi diranak ain zuzen. Ondo be ondo gertatu dira, beste film luze ta laburrak tartean erabilliaz, guri, Nerbion film au eskeindu aurretik.

Garrantzitsuena ala ere, igaz Asturias errialdeatza eraturikoa, ta erki ortan, orduan esan neuztuenek, oso goratua

izan zana. Gerotxoago, Bilbo'n ikusteko erea izan genduen eta joan giñan guztiok, bera ikuskatzeaz poztu. Asturiastar film orren izen burua «Ezagutu ezazu beste Asturias'ko Errialdea» zan.

Geurea jarrai bide dogula, «Nerbion Filma» bertako ibaian eta inguru-min-guruko lantegietan tinko erroturik el dago. Joan ziran gizaldietatik asi, oraingo langintza mueta oroetako lanak jaso, ta egin-egiñean, irudi bizi-nabarmenekaz erriari txukunki bat-batean adierazo.

Ikusi al izango doguz gure labegarai ta labetegi txikiak. Galtzairuen egin-moldeen larratz bereziak, tximist-endar lantegiak, kimitar ola-erakiñak eta euren ekarri-sorkarien azalpena, itxas-ontzi-tegiatko ta ur-ontzien egikeraren aurre-rakuntzak, abar t'abar.

Ez dira palta izango gure oituren ezaugarriak, euskal dantzak eta abestiak, dana gure erria ezagunago ta berebat maiteago ludi osoan izan daiten. Ta ortarako ondo ezagutzea baldintz bear-bearrezkoa izan. Alegindu zaitezte ba euskal-film au ikusten, orrela edonun eta edonoiz gure Erria geroago ta areago maitatu ta aldeztuko.

ARREGI'TAR JOSU

Zumarraga

Orain aste batzuek, gure erriko sendi-guraso batzuen kezka ta buruasteak azaldu dira orrialde aueitan. Gure ustez gai egokia da, ta gaur, apur bat sakonago jorratu nai degu.

Udaroko arraste luze baten azken orduan, mai baten inguruan, kideko lagun talde bat, anai-maitasun epelaren babesean.

Gure aurreko lantxoan, gure kide lagun baten iritzia egertu genuen. Gaur beste batzuen iritzia azalduko dira.

Begien aurrean daukagu aitona, buru-zuri ta muxu-gorria. Artzai tankera artzen diot. Arrano pola! Ez ditu bere egunak aizeari begira igaro! Gizon onen jardunaren iturriak liburu sakonetan dauka bere sorburua; egokitasun andienarekin aztertu ditu gurasoen artu-emanak, gizarteak zor dion begirapena, gaurko berrikizalatasunak sortu dituan ostopoak.

Une ontan, gure izlari trebeak, emen batuak gaudenen barriak egosten dituen kezkek jeltitzen ditu, ta aldamenetik sistaka ekiten dio arako aiton ximel sudur-luze zaintsu batek esanaz: —Zer derizkiok ikastetxe ta ikastetxeetako elizatzetean asi berri diran «Misa de Testimonio» delako oieri buruz?—. Adiskide, ni ez nauk nor elizkizun oiek epaitzeko. Nere iritzia erri-irizierekin bat zetorrek: eguneroko elizkizunak parrokian ospatu bear dirala. Alderdikeri guztien gaindik gure gogoa jaso ta ongi begiratzen badiagu munduko ibar illun ontara, gure eliza gaixo ta argaldua dagoala ikusiko diagu, ta gure egitekoa Ama osatu ta sendotzea dek. Zeñen goxo den jaiera biziz lagunarte epellean Jainkoa goratzea! Ez dek naikoa iñoz egin duten lez aldizkarietan argitaratzea «gure parrokiko elizkizunak ganora gabeak dirala, ta».

«Kristau guziok naiz bizar luzea eduki ta berriki-zalea izan, gure amasarekin parrokia berotzera beartuak gaudu. Parrokian sendi bat osatzen degu; sendi au, sukaldean —elizan— batzen da maitasun epellean, Kristo'rekin apaltzeko.

Une zoragarri ortan ez ote da maitasun lertzen, guri oso-osorik ematen? Kristo, apal-

ondo baten Zakeo'ren lagun egin zan. Kristo'k, apal-ondo baten Madala'ko Maria garbitu zuan. Kristo'k, anaiarteko apal-ondo batean, Jainkoak bakarrik egin dezakean mirarien-miraria egin zuan».

AZKARRAGA

Artaun

Aspaldi ez ba'da be, zerbait idatziak gara lenago Dima'k eta Arrati'ko aranak dabenik auzume atsegigarrien onetzaz. Bezaz ez dago esanbear andirik non aurkitzen eta zelango dan arkaitz eta zugaitz ia estal-duta dagon goi-auzune osasungarri au.

Goi-auzunea, ta alantxe da Artaun, laureunen bat neurkin goiti ditu berak, eta intxaur-ondo, lizar eta artez ingurata zoragarri. Bealdeetako pozo ta kirats zikiñetatik azke. Lan-lur gitxi, baiña aitz-arri arteko lur mamintsuz ornituta, ta bearbada, Bizkai'ko indabarrik gozoenak lortutzen diran lurralde bikaiñak dituala.

Ainbat basetxe zabal ditu auzune onek: ogeita bi edo iru. Erdi-edian, Laurentzi deunaren eleizatxo, polita ta ondo apaindua. Bertoko jaiak, urtero, ez dakigu zergaitik, baiña Dagonillaren lenengo igandean ospatzen dira, eta aurtan, ori jakiñik, an izan giñan, ez jantzan egitearren, aixe osasun-tua artuaz, zelango erri-jaiak toloztutzen ebezan jakitearren baino, ta, ez giñan damutu!

Goizean, jaiak asiera ona emoteko, txistulariak. Amaiketan, meza nagusia —ortara izan be izaten da euskal-jai guztien asiereta— bertoko txandontxu apañean, txonitza ta guzti. Au amaitu ondoren, Yurre'ko (Igorre, Iurre, Irure, Landajueta'tar A. adizkide zintzoa?) «Beti-Bizkor» taldeko dantzari bikaiñak, euren izena baizen bizkorak, txiki ta andik, euskal-dantza trebeak dantzatu euskuezan, bertaratu giñan notintza andijaren aurreran. Urren, Alberdi'tar Joseba ta Martegi'tar Julen bertolari azkarak, Artaun'en gorralpen eta jaiari jatorkoan itz-neurtu txalogarriak abestu euskuezan.

Eberdian, jakiña, bazkari onenariok basetxe zabal guztietan... zelango usain ederra urtetan eban etxe-leyo ta ate guztietatik. Eguraldia be egokia izan zan orretarako-ta.

Aratsaldean, bazkari mamintsuak ondo oiñarritu ziranen, bostederdietatik aurrera, ezpata-dantzariak. Nagusiak egin euskuen beste dantzaldi bikain bat. Amaitu ebenean, dantza azkatuko leyaketea: lau bikote aurkeztu ziran. Danak ederki baten dantzatu arren, sariak banandu bear ziran eta Ondarru'ko Etxaburu-Urbe bikoteari emon eutsen lenengo saria. Bigarrena, Portugalet'ko Osorio-Mendiola bikoteari; irugarrena Igorre'ko Bilbao neba-arreba, ta laugarrena Ondarru'ko Badiola-Etxaburu pospolin maitegarriari. Bikotetxuan izan zan txalotsik andienak artu ebazana, ain gaztetxuak izanik, bost urte neskatillatxuak eta sei edo zazpi mutikoak, ikusgarria izan zan ain trebe ta ausartsu jantzan ikustea. Erderazko esakera bat dago: «Olango egurretik, alango ezpala», edo eskeraz: «Zelango ardia, alango bildotsa», ta Etxaburutarren-gandik ezin legikeazan orrelako lora eder dantzari bizkorak baiño sortu. Ederki benetan.

Dantzariok amaitu ebenean, eberdateko bertolari biak barriz. Ederki baiña eberdian baino pisat motelago: ardi-zarran okeleaz larregi bete ziñealako-edo, adizkide Alberdi? Ondoren, erestalde baten ekiñean dantzetakea, jaiari asken alaia emoteko. Itz baten, aspaldian ikusi dogun jairik politena, ta euskal girorik onenentariok Artaun'go gaztedi euskeltzale jatorrak antolatu ebazanak. Gora artaundar gaztedi errizalea!

ALTUNA'TAR JOSU

Arratia

Igorre'ko gazte bik argitaratutako lan batek beraldiko kezka ta marmarrik izango ebala uste genduan. Agertu zan baiña abadeen erantzuna ere, oraiñarte izan daben itxitasun eta utsegiteraren damu-negarrez ausarki ta gizonki egiña. Mañari'ko aitzak, Mugarra'k, iñoz ez utsik arria da-ta; utsegitea, beraz, gizona izatea da. Eta norberaren utsak ezagutu ta erriaren aurrean damu-miñez autortzea, gizontasunezko gizon bete. Ezpairik gabe.

Emen be, marmar ta murmurren ondorio onurakorra. Zentzunaren itxartze, illunaren argitzea.

* * *

Erdel eguneroko baten, Arrati'ko bost erritzako zertzeladetan: «Etxegintza-maiku barriak, katamixar-eiztariak, Joantxu txistularia, Iza txirindularia... amaika betekada sabelari emon eta makiña bat egun on Jaungoikoari osutako «Pijon» entzute aundikoa. Eta endoreen, alkateen ametsak geroaren begira.

«Pijon»eri baiña, nik uste, zilibota edertu ta adimena txatxartu egin yakola. Arantzazu'tik Igorre'raiñoko ariñeketa ezezik, Ubida'nean asi ta Samarro'netik Oba'rako bidera, onenbestean baietz eta orrenbestean ezetz, egin eta irabazi «Pijon»ek. Aurrekugintzan be, prakak eta plazea beteko gizona.

* * *

Eguneroko aretan, Dima'ri zegokion arloan, antxiñako idazkiren batetik edo artutako barriak izan-eta, bederatzik baeliza besterik ez da agiri. Emen, Zamakola'ren barrutian gaur egun diranak: Piedadea, Sanbalentin eta Santiago erbarrenean. Ergoienan, Biteriño'n San Milin'ena; Bikarregi'n, Santaageda; Artaun'en, San Bixente; Oba'n, San Antolin; San Praizku, Indusi'n. Baltzola'n San Lontzo; Aroztegieta'n, Iñaki; Olazabal'en, San Erroke, ta Idurgin, San Mikel txiki. Eta Bargondia'n Santa Mañe ta Santa Poloni.

San Blas eta Santa Madalena albo batera itxirik ere, lau santa ta amar santu... eta Obispoa.

Beste barririk? Biteriño'ko iturria urtsua dala-ta... endore jauna poz-pozik. Ai baiña...! Lemoa'ko ta Igorre'ko begiak, egarriak erasorik, Indusi'rantz begira ari dira, eta egunen batean jabetuko ba'lira jabetu bertako urarekin, Dima'ko errekeari agur egin bearko. Udaldiko legortetean ustela, satsa ta atsik, eta arratotezarririk izango genduke, erreka-zulo ta mun-ertzetan.

Ez da udaldian, Erroixa'ra ta Burgos'era atsedean eta bake ixillaren billa joan bearrik. Ba-dogu, bertan, aize garbi ta iturri gardenik, atxarte zabalak, arrizko tontor zorrotzik. Artaun'dik eta Oba'tik begiak beteko ikuspegi zoragarriak. Eta bakearen ezaugarri ziur eta osoa, Santiago gixajo errugabeari egin eutsoena: Eleizetan eta santuen eskuan ezpatak izkillo egokiak ez ei-dira-ta... kendu eutsoen, eta kitu.

LANDAJUELA'TAR A.



DEPURACION DE AGUAS S. A.

URA EGOKITZEN ETA UR LANETAN BEREZITUAK, EDANGARRIAK - LANTEGIRAKOAK - ZIKINDUAK NAIZ IGERITEGIKOAK ZUZENTZEN

+ 32-37-00 - + 31-00-10 - 32-37-01 Urt.

Gordoniz, 44, 12.^a
BILBAO-2

ZESTUA'N

Aizarna'ren lurraldetan sortu zan Zestua, gaur erdal kutsuz, Zestona.

Eskubide zabalara artu eben aizarnatarrak erri barría nun irasi, fundatu, ebiltzanean. Eurak egokien egongo zala uste eben lekurik onenean. 1383 urtean zan ori.

Eta Zestua sortu zan aizarnatarran aita-tasunetik. Gero zer? Etxe jauntza laga ta askori jazoten yakoena: semeak aizetan ganturatu zan Aizarna, auzo izaten aspertu eta barrío beretzat erri legea lortu. Urte bi laburretan bere gain bizi be bai, erri oso eta bere buru jaube dan baten eskubide guztiek. 1821'n jaiki eta 1823'an gertatu ziran gora-beretan barrío etsi eta lenera etorri. Barrío Zestua'ren batasunean gelditu. Eta gaur be orrela jarraitu.

Arrua, ostera, edo ta nai ba' dozu Arrona, Deba zan. Deba zala ta 1596 urtean, Deba'ko kaia, portua zaintzera beartu nai izaten zituztan arruatar baserri-gizonak, gure itxasertzean sasoi aretan egoten ziran bat-bateko itxas-lapurreten ondorenetakoan bat erago tzi ta erbestetarrekin egozan gerraldietan oñiak inbri emen sartzen ez lagateko. Arruatarrak ukatu, bero eta itsu, eta Deba'ko alkatea zitu erabilli be bai. Nai ta ezean beartu zituen. Ortik, orko miñetik, Arrua gaiztotu eta asarrean zabartu. Eta urteak igarorren, azkenean be gurasokandik etorrar amorruz, Deba'tik aldebanatzea lortu eta Zestua'ren menpera makurtu. Itziar'en egin zan artarako batzarra, 1852 urtean. Alkarren arteko gora-berak konpondu ta kittu. Bakoitza bere aldetik.

* * *

Ezagutzen Endoia auzoa, ballera? Mendi gaina eta bitarte egiten dan leku atsegin bat ikusteko, zoaz bertara.

Zestua bertatik ara, aldatz larri. Bertatik Zestua'ra, gaitz erdi. Itziar gaitzetik bide errezaguan ibilli zineci. Andutz mendiarren gerri-gerritik.

Sartu Itziar'en. Andik Lastur'erako bidea artu baiña bide-kurutzean laga Lastur eta inguruko arri-oletara, kanteretara doana, eskumatatoka. Arantzazu barriztzean emen atara zituen arako arriak.

Ez dauka ze ikusi askorik Lastur'ek. Zokondo baten, Ameriketako Oeste'ko pelikuletan agertzen diran tankerako eleizartxo bat, Nikolas Tolentino zoriordunari eskiñia, eta taberna zar bat. Gertatu lei emendik Mendaro-Garagartza'ra joateko dan bidea ondo amaitzean, bizitasun barri bat artzea.

Goazen lengora. Lastur'erako bidea eskumatara laga ta jarraitu bideari, Endoia'n sartu arte.

Eleiza txukun eta atsegiña billatzen da bat-batean. Gogoz egin eben endoiarrak eta esateko ta erakusteko dauke. Isidro Laborariaren arrizko irudi ikusgarri bat bertan, Oteiza artistaren eskuko. Eskoletxea eta taberna. Ataditik, alde banatan bedar edo pentsu janean dagozan beien artetik sartuko zara tabernan.

Ez da damutzen arako osteran.

Sei baserri bertan, bat utsik: Akain. Beste bostak, Barrensoro, Bisutside, Lakiola, Pagadibeltz eta Uztapide oraindik bizi-lagunekin.

Ez dautzu ezer gogoratzen Uztapide izenak? Ementxe jaio zan, gaur Oiarzun'en bizi dan bertolari ixil bat, berak, berez, danori maite eragiten jakin dabena: «Uztapide». Txapeldun eta umil, bertolari eta ixil. Gizonik andi eta jakintsuenak apal eta umil izaten ei dakie. Gogoratu gaitzean beragaz, eta bere bertsuak entzun:

Guztiak dira maitagarriak
Gipuzkoako eskiñak,
bañan Urola-errekak dauka
intxaurrek eta gaztaiñak,
ni sortu nintzan Zestua'k berriz
oso iturri bikaiñak,
orrek sendatu izan ditu
danen gibelesko miñak.

* * *

Aizarna. Kale bi, plaza bat eta eleiza ederra aurrean.

Linazasoro'ri irakurrita daukat, euskal teatro edo opera andi bat egiteko berezko antzez-tokirik onena emen billatzen dala. Leike. Musika zale da bera eta berak beba da daki Pablo Sorozabal, musikalarri entzutesua, emengo «Sorozabal» baserrik datorrena dala. Eta beste bat, Iruña'ko San Fermin jaietan erabilten dan soñurik ezagunena egin ebana, Pozueta musikalarria, emengo «Potzuea» baserrik etorrira. Auztaz mendira dei egiten dau. Mendi artean musika gogorra asmatzen da.

XVI gizaldian egin zan emen, bakartade onetan, uri andi baten katedralak erakusten daben baiño edertasun eta anditasun geiago agertzen daben eleiza. Irudi bakan eta balioitsu bat bertan: amuma, ama eta semea, Santa Ana, Andra Mari eta Yesus umea, bete-betean esateko.

Gogoratu bertatik datozen beste izen batzuk: Egañatarrak. Eta Bergara'ko Ikastetxean lenengo erretore izana: Odriozola, gerra-gizon, matematiku eta pintatzailea.

Emendik gorago, legua bat ingurura, Xarna'ko Santa Engrazi. Ermita zarra, aitz gaitzean. Mendi-zaleen gogoko. Noizkoa? Adriani, Iruña'ko gotzain edo obispoaren esanetan, bere eleiz barrutiko lenengotako eleiza. Jo, ba, urtetan atzera, bildur barik.

* * *

Goazen aurrera. Iraeta. Zer emen? Lanerako gar eta kemen. Zubitxoa. Bide-kurutzea. Etxe bakarrak eta ia etxeak aiña baster, jan eta edanera deitzen.

Alboan, aldapa ondoren, Aurrua goia. Emen San Estebantxe beti len letxe. Etxe guztien gain, urrunetik ikusteko eran. Askok, Arrua, zementu lekuko auzoari deitzen dautse; oker. Trenetik datorren irizpidea da. Arrua-beia da a. Goian San Estebantxe eta beian Karmen. Inor ez de konturatzen Zestua'n gareanik emen.

Beko autsa goiko aizeak uxatzen ei dau. Edozetara be karmenetan beian ta Santa Anatan goian, autsak kentzeko egunak batzen dira berorik larriengan, Garilla'ren erdian.

Iraeta eta Lasao'n, jaietan, neguko otza maitago. Barruak berotzeko giro obeago. Santa Ines Iraeta'n eta San Martin, Lasao'n. Jan edanakin jai eta gero al danari or dago.

Edozein errik ez dauka Zestua'k aiña tren-geltoki, batetik bastera aukeraz erraz ibilteko. Bost bai beintzat bere lurraldean, Urola eta «Vascongados»en artean. Ala ta be, jentek gaur aukera errezagotz nai dau. Eta trenak erdi utsik dabilzt.

* * *

Erri buruan gara. Zestua'n.

Nun dira lenako atadi edo portale zarrak? Lau kale eta lau portale ei eukazan erri onak. Gaur, etxe artean, arko gaitzean kurutzeta daben atadi edo sarrera bat billatu lei. Besteak... erria zabaltzeko premiñetan galduak.

Kutsu zarreko beste ikusgarri bat: Zubiaurre inguruko iturria.

Beste bat: Kurutzetaga plazan dagon kurutzeta. Ikusgarri baita Lili jauregia. Parrokian, zidar giroko kurutze bat eta aldare barroak. Geiago? Urak dakarrena urak barroa.

Uretik bizi da Zestua. Urak, ain zuzen, ez dira erriaren jaubetasuneko. «Gezalaga»ko iturria, ur epel, gazi eta garrazkia, Lasao'ko markesak bereganatu eban edo bere esku-bideak artu, erriak beretzako alegiñak eginarren.

Ur-etxe edo balneario andiaren egaletan dago «Amabi-iturrieta» be. Aizarnarren esanetan, an batzen diran urak ei dira zulokien bidez onera etorten diranak.

* * *

Zestua'k, danetara be, 4.400 bizi-lagun daukaz. Geitzen, baiña igarri andi barik. Azken urteotan euneko bat eskas.

Bildur naz estadistiketara begiratzen. Aizarna, Arrua eta Iraeta'n % 99 euskaldun dirala irakurri dot. Eta Zestua'n, 2.025 lagunetik, 1.900 euskaldun. Iño! Egia ba'litz, euskerak errialde onetan indar andia artu dabela esango neuke. Eta oraindik 66/67 urtetan, eskolako umien artean, 682 umetatik % 13,2'ek erdera utsa ekien eta beste % 6,4'k erderaz ondo eta euskeraz txarto.

Nunbaiten ba dago okerra, itxura baten.

* * *

Zestua'k, aurren, 5.900.000 pesetako erriko diru gora-bera edo presupuestoa dauka. Baiña kontrabuzio barrin baimena lortuta dago, au da, «urbana» deitzen dana eguneratzeko aukera artuta dago, eta alde onetako erriko zergak gaurko neurrian ipintzeak, «aktualizatzeko», beste iru millo inguru erriari dagon zatian emongo ditula uste da, bat-bateko kontu biribilletan.

Etxe jaubeak eta lur jaubeak kaskarrari atz egin bear eta poltsikoei estualdi ugari, oi diran asarre, beroaldi, destain eta gaitzerakoz beteta. Baiña ori ba dator.

Erri da auzoen mesedean batu eta eralgiko ei da dirutzen orie. Arrua (geltokia) eta beste auzoak diru orren ondoren euren ingurutan ikusteko naia agertzen dabe.

Bitartean, erri eta auzoak, industri eske dagoz. Lana eta bizia eta etorkizuna ziurtatu leiken industri barrin ametsetan. Uren lurrunak baiño laneko izerdiak ontasun geiago lagaten ei dau erri oso baten bizitzan.

A. ZUBIKARAI

AGVR

Apartado n.º 2
BILBAO

FRANQUEO
CONCERTADO
08/55

BELLOK

Urtero legeaz egin dogu gure udako ibillaldia. Guk nai genduan baiño laburragoa, gure eguneroko zeregiñak ez euskuen izten aste osoa artzerik eta. Baiña iru egun ondo pozgarriak igaro doguz, gure Erria ezagutuaz.

BELLOK

Igandez, dagonillaren 4'an, urten giñan Bakio'ko erri politetik. Eguerdia zan. Bakio udazalez beterik eta alai agertzen jakun, baiña beste lurralde polit batzuk ikustera alai urten giñan.

Auto-bide barriak orretarako emoten dauan erreztasunaz, laster eldu giñan Zornotza'tik Irun'era. Gero Azparren'era eta an Bellok'eko bidea artu.


Ez zan guretzat ain erreaz izan baztertxu au aurkitzea. Gaur bide-zabalak asko ugaritu dira eta nora-esaleak beti ez dira gura geunken beste argi izaten.

Azparren ostean bide okerra artu gendu eta gazte bateri euskeraz itandu geuntsan Bellok non zegoan eta arako bidea zein zan. Berak lenengo itzak euskeraz esan euskuzan, baiña laster erderara (prantzerara) jo eban. Baiña alkar ulertu gendun eta Bellok'erako bide zuzena artu gendun.

Urt izena duan erriarria igaro, jaietan egoan berau, eta zugazti ederren gerizperik-gerizpe eldu giñan, lenengo lekaime beneditarren etxera, gero Bellok'eko lekaide-etxe ospetsura.

Bidera urten euskun IRATZEDER ango abatak. Arreta ona egin euskun. Berak billatu euskun ostatu be. Birentzat bertan eta irugarrenarentzat urrean.

Alkar-izketa pozgarria izan gendun beragaz: Bere ta Lertxundi'ren liturji-lanak, *Otoizlari* aldizkaria, *Agur...* Euren ogi-bidea artzaintza zala, guztiak soloetan lan egiten ebela, otoitza, bokaziñoak, Euskalerria...



Baiña IRATZEDER'ek bere zeregiñak eukazan, batzarren bat edo, eta Aita Martin Sein'en ardurapean itzi ginduzan.

Aita Sein euskalzale ta euskal-idazle zintzoa dogu.

Bere euskalkia ta gurea ezberdian ziran, eta ba genduan gaitzetasun pizka bat alkar ulertzeko. Berak be bai. Baiña alegin apur bat egiñik ederki emon geuntsazan barriak alkarrari.

Bellok'eko lekaide-etxean erdiak baiño geiago dira euskaldunak, baiña eleizkizunik geienak erderaz, (prantzeraz) egiten dira. Ba dauke, orregaitiño domeketan meza bat euskeraz. Ango Liturjian euskerea geiago sartuta egongo zala uste gendun, baiña al dana egin bear izaten da, nai dana lortzen ez danean.

Gaur gazteen artean, Euskalerritik bokazio gutxi dauke, elgorri-aldian gagoz, etorriko al dira gizaldi obeak. OTOIZLARI 74-75'ean irakurri dot gai oneri buruz abataren idaz-lan eder bat.

AGUR artzen dabela esan euskun, baiña gure euskerea apur bat zailla zala eurentzat Beste aldizkarietako euskerari euzkera itandu neutsan, arduratik. Eta ariña be ez zala errezagotz euskun. Buruz batua batua baiña, ez dot uste alkar ondo ezagutzea ta alkarregaz artuemetan jartzea baiño beste biderik dagoanik. Bide luzea da ba egin bear doguna.

Lekaideakaz apaldu gendun, eres-klasikuak entzunez, eta gaba an igaro ondoren, urrengo goizean bide zabalera sartu giñan. Agur Bellok (Jarraitzeko).

GAMIZ

AUTOLARI BARRIAK

Asko dira gaur autolaritza edo txofertzea ikasten dabena. Gure gazteak ez dabez ameseta makalak egiten, euren amazortzi urteak bete baino lenago, autolari-ianak egiteko gurariz. Eta urte orreik beteten jakezenan an doaz ariñeketan autolaritza irakasleagana ikas-aldiak artu ta karneta edo agiria aterateko gurari biziak, neskek eta mutilak.

Eta ez ei da lenagoko beste erreza izaten agiri ori ateratea, baiña gaur ez ba'da, biar; bigarrenan ez ba'da irugarrenean, norik ez dau ateraten karnet edo agiri ori!

Agiria eskuratzen dabenean, batez be gazteenak, laster uste izaten dabe munduko autolaririk onenak eurak dirala ta ainbeste mila kilometro egin dabena autolari zarrak ezex be ez dakiela. Eta zelako ariñeketak! Zelako aurreratze bildurgarriak! Zelako ezaugarriak zapalzte zoroak!

Oneik bai ba dirala benetako arriskuak gure bide zabaletan!

Orrexegaitik poztu gaitu urten duan lege barri batek: Autolari barriak ezin izango dabe 90 km. baino ariñago egin —ez da gitxi—, eta gaiñera berebillaren ostean autolari barrien ezaugarri berezia ezarri ta erabili bearko dabe. Egun eta ordu batzuetan ez jake itziko bide zabalean ibiltzen. Ariñegi egitegaitik 500'etik bost mila pezetarako zigorra ezarri leikie; ezaugarri dan makobil baltza zenbaki zurduna ez eroatearren mila pezetako zigorra.

Autolari barriak ez jakez atsegin izango agindu oneik, eta ondo dagozala uste dogu.

Baiña ba dagoz autolari zarrak be, gitxi ibiltzen diralako edo, trebetasun laburra daukenak. Onein artean «domin-gueros» edo igande-zaleak deritzenak. Olakoak goigaiak izaten dira bidean.

Astiro ibiltzea dala ondo ibiltzea uste izaten dabe eta iñok usterik ez dauenean bihurtze arriskugarriak egiten ditue bidean.

Olako baten ostean joan bearra izaten ba'dozu, zure eroapena noraiñokoa dan neurtuteko erak ugari izango dozuz. Geienetan zurea baino berebil indartsuagoa izango da berea eta bideko bihurtan oiñaz baino astiroago egingo dautzue, baiña urrengo bidearen zuzenaldian zeuk baino ariñago egingo dabe eta ez dautzue aurreratzen itziko eta aurreratzea lortzen ba'dozu, euren arinkiña bultzatuko dabe eta barriro aurrean jarriko jatzuz. Gero, esaterako, Lekeitiotik Ondarroa'ra diran 200 bihurtze igaro bear ba'dozuz, berebil eder orren ostean eta oiñazko martxan joan bearko dozuz. Ez pentsau aurreraterik. Ezin izango dozuz.


Eta autolari igande-zale ori, bera txofer ona dalakoan eta zuk bidean ibiltzen ez dakizulakoan, arro-arro joango da.

Ez jat iñoiñ aitzuten egun baten gai oneri buruz telebiziñoan entzun nebana. Gizon batek, gai oneri buruz maixu lez berba egiten ebanari, berak orduko berrogeitik gora ez dauala iñoiñ, bere berebilla sartzen esan eutsan. Eta trebeak auxe erantzun: Orduko berrogeian ibiltetekotan obeto zeure etxean geratzen ba'zara.

Ez da ba, zurtasun bakarria astiro ibiltzea; eta ez da trebetasun bakarria arin egitea be. Asko ibillia izateak balio dau, baiña au be ez da zurtasuna. Autolari ona osotzen dabena gaitasunak asko dira eta gaitasun orreik eurakanduten alegindu beitez gure autolari guztiak.

Asmapen ederra ta pozgarria zan autoa, baiña bear dan eran erabili ezik, baita kaltegarria ta iltzaillea be.

Kontuz ba, autolari barri ta zarrak; arduraz trebeak; udaldian arriskuak geiago dira eta zurtasun geiagaz ibilli bear da.



"KOSMOS" Ikas-Liburuak

Zergatik euskeraz?

Bat baino geiagok galdegin oi du: «Baiña zertarako euskeratu ikas-liburuak? Ez ote litzake naikoa, ikas-gai auek guztiak gaztekeraz ongi ikastea?»

Ikasketa-lana era egokian burutzeko eta, batez ere, bakoitza bere osotasunean lantzeko, garrantzi sakona ta aundia du jatorri-izkuntzak, gaur iñor-iñork burutsuki uka ez lezakeanez.

Eta, ain zuzen, ortatik dator elebitasun edo «bilinguismo»ren garrantzia ere.

Nor-nairen eziketa-bidean, au da noski, urresko oiñarri-araia: dakianetik artu ikaslea, ez dakianera eramateko.

Bide ontan barrena doa AMAYA argitaldariaren ikas-liburuetan ezibidezko irakaskera: bizi dutenetik abiatu, zabalago eta sakonagotara irixteko. Ikasle euskaldunarentzat, berriz, bizi duan inguru-ezagutzea ta darabilkian iztegia, euskerazkoak dira ama-izkuntzaz artu dituan.

Bestalde, gai jakingarriak eta atsegiñez ikastekoak, zeoro ta erabat erderaz bakarrik ematen baldin ba'zaizkio, erren eta alderoka gertatuko da ikasle euskaldunaren eziera: izkuntza baten bidez gauza jakingarri asko ikasiko ditu ta bitartean bestearen bidez eguneroko gai arruntzak soilik.

Ikasle euskaldunari buru-lantze osoagoa erraztu naiak eragin digu KOSMOS liburuak euskeratzera.

Amairu laguneko taldea izan da KOSMOS 3'gnaren euskeratzaile, gero Lekuona, Akasolo ta Gaztañaga (zaarrenetik gaztena esanda) izan dira azken-orratua eman diotenak, Euskalerrri osorako liburu ber-berak izan dituzten, argitalpen bat bera ta bakarria burutuaz.

Eta zer esan, norbaiti bururatuko ba'litzai, euskeralpen oni beste itzulpen bat eman eta liburu ber-berak beste era batera argitaratzeko, aldi berean bigarren argitalpena egin bear dala?

Ezer etzegonean, ezer ez. Zerbait egin danean, itzulpenaren itzulpena egin nai, «ortografiaz» aldatuta. Non bizi ote gara?

Eguzki beroari bildur larregi barik, Dagonillaren erdi inguruan, AGUR'en bildu giñanok, etorkizunera begira bildu giñan. Gure aldizkariaren orainareko aurpegia zertu ondoren, Iraillaren azkeneruntz batzar bat egitea erabaki gendun.

Zer egin dogu? Nora goaz? Zer egingo dogu?

Gure izkuntz-itxaso ekaitzak jota egoan aldirik txarrenean, AGUR, intxaur-oskol txiki baten antzera sortu zan itxaso orren olatu baten bildur barik. Orduko oskol a gaurko itxas-ontzi ederra izatera eldu da; gure kaiak gordetzeko ontzirik egokiena izatera.

Ekaitza ez da oindiño baretu, baiña gaur indar aundia artu dogu agurtarrok eta emen gagoz gure elburueri eusteko gertu: Erri-euskerea zaindu ta euskalduntasuna goraldtu. Egun batetik bestera dana apurtuko ebelaokan jaiki ziranak aurrez-aurre aurkitu ginduezan. Laister sortu ziran, nun nai, gure lagunak; izkuntza arloan, GOIZ-ARGI, PRINCIPE DE VIANA, REDENCION, KARMEL (?) eta abar, betiko euskerearen —besterik ez dago— bideetatik abiatu dira gugaz batera.

Izkuntzagaz nastean dagoan iritzi berru edo norgeiagokoa be, otak eta lorak banantzen alegiñak egin ditugu, gure zelaiak garbituaz eta, aurrera joateko, gure lagunak aukeratuaz. Orain ez dago Euskal-Erria'n, onerako ala txarrerako, AGUR ezagutzen ez dabena, batez be espainarren artean. Ez zaitte ba arritu gure aurka asko dabilzala jakitean, batez be, ardi-narruz jantzirik —ardinarrua antxiñako euskaldunen jantzia bai zan— gure artera etorri barri diranen artean: gorriak, zurizak eta ez dakigu zelako alderdi barrietako diralakoak.

«Jaunak sortu ta eurak alkartu», diño erderazko esaera zarrak, eta olako zerbait jazo da olakoan artean be. Lengo baten, orain arte fazista izan dan «euskaltzain» baten lagunak, iñostan erderaz: «Orain bai, orain «Carlos»ek iñostanez, euskaldunak iritzi zabaleko egin zaree, «buruzagi» barriari esker, Orain albo-erretarrekin artu-emonak izango dozuez, antxiñako «chauvinismo» ari uko egiñaz».

Olako txotxolokeriak entzutean, sutu nintzan benetan, baiña ez nintzan bapera arritu «Hablando con los vascos» dalako liburua irakurri ondoren. Azpikorik ez dakientzat, ez dogu txarto dagonik esango, baiña zerbait dakigumuntzat?... Ba-da abesti bat: «Nik zuri, zuk niri, agur egiñaz alkarri» diñoana... baiña azterketa ori beste leku baterako iztea obe dala deritzagu.

Bitartean, guk, talde txoeri jaramonik egin barik, oiñarrian errizale diran guztiakin bat eginda, aurrera jarraitzeko erabakia artu dogu, buruzagiak aukeratzeko eskubideak ukatzen jakuzan bitartean beintzat. Igo-naia ta demagojia beste orrentzat itxirik, aurrera!

Baiña mundik nora ta zelan?


Bear ba'da AGUR'en alde geure burua erre dogunok, bete dogu gure ekinaldia. Oiñarrietan gugaz bat doazan gazteak, bear ba'da, bide barriak urratu naiko ditue. Gure asterokoa barrizteko oztoporik ez dogu guk ipiñiko, gure batzarrean artuko diran erabakiak ez dira edozelan artuak izango. Aibat alkar-izketa izan dogu uda-buruan eta AGUR'eko atea zabal-zabalik dagoz borondate oneko errizale guztientzat, beste lokarri barik.

Gure elburua? Euskal-Erria'ren onerako lan egiñaz, ixilean naiz egun argiz aurka datorran etsiari aurrea emotea da. Emetik aurrera, euskal jakintza —kultura— arloa ez da epelen edo maltzurren eusketan izango. «Jakintza danona» zala esaten euskuenak, olakoan eusketan itxi ebezan kultura-giltz geienak. Besteen eskuetara jausi diranean, buru-zuritze lotsagarriak ikusi doguz «zaldi gaiñean» jarraitu naian.

Gauzak orrela diralarik, guk, «izeneri» barik, «izeneri» eustea erabaki dogu; iritziari, gure aurretik joan zizan zintzoen iritziari.

Laister ba, irakurle, odol barritua agertuko dan AGUR onek, zure betiko laguntza ona bearko du, baiña laguntzea ez dadin laguntzea bakarrik izan, zuek eta gu sendi aundi batekoak gara-ta, gure aldizkariaren biotzagaz batera taupadak sentitzera eldu bear gara; artu-emon sakonagoak eukitera.

Erri guztietan ereingo doguzan aziak, landara sendoak ekarriko dauskuzalakoan, itxaropentsu, errizalatasunaren aintza ta onerako eskeintzen dautzueguz.



IZATEN IKASI SASI-MAIXUKERIAK

Irakaspen gaiak

«UNESCO»k argitaldurik dauka Eziketari buruz: «Izaten ikasi». Ba dirudi irakaspide auzia ez doala ain zuzen, munduaren zear. Bertan bera gelditu edo bait da. Illotza, esango genuke. Egoera larria eskolari emanak gabiltzanontzat! Nora goazke? Iskanbilla askorik bai, baiña etekiñik gitxi ta, kito.

Arrigarria auxe: Bi milloi umetxo eskolatu gabe urte bakoitzcan. Meta aundiegia deritzait. 1980'garren urtean, zenbat izango dira «analfabetoak»? Zenbat? 800 milloitik gora mundu guzikoak, argitan. Ordurarte bizi nai nuke zer gertatzen dan ikusteko gure Euskalerrri zogagarrian. Gernika'ko arbolaren itzalpean erri bat dagoko bizirik, il nai ez duena.

Iruigarren mallako lurraldeak, pobreak dira; txirotuz dijoaz, gero ta pobreagoak dagoz. Ezjakiñagoak batik bat. Au bai une larria! Ez diruz bakarrik, gizon izaten ere ikasi eziña. Erria dator atzera, gaur eguneko «sistema» geroz, eskola ta unibersidade girotan. Betiko leloa! Unibersidadeak % 50 ikasle biarliko utsa kapnora. Biotz-galdurik eta nora-eziñean arkituko dira aiek. Batxillerato diru erregardatzen zenbat dira gure errian bertan? Ezin aurrerago eraman ikaskizunak. Zergaitik, ba dakigu.

Personari —edozeiñi— begiramena zor zaio jaiotzetik eriotzerañi. Ikasteko eskubide osoa du edozein umetxok, izaten ikasteko eskubidea. Izaten zer esan nai du? Gizonari dagokion dana. Beraz, gazteci nola erakutsi bear zaie? Gurasoek ba dute zer egiñik arazo onetan. Kristau erantzun bat itxaroten dugu. Baiñan, itzetan gelditzen gara, bestetan ez.

Neurriak artu bear omen dira, Ginebra'ko Batzar Nagusian esana zaigu, Irailleko 19-27'ra, 1973'ko aurreko urtean. Urtea joan da. Nazio pobreetako gaztediari nai zuten zerbaiten lagundu, izaten ikasi zezaten. Ez bai da naikoa «tecnica» asko edukitzea. Auxe komeria!

Gu, ordea, euskalerrria gara. Bakoitzak daki bere izkuntzaren berri. Gure ikastolak nolakoak izan bear dute? Lenengo, umearen nortasunari, danen gaitetik, begiratuaz. Bigarren, tokian tokiko, familien giroari so egiñaz. Iruigarren, itzegiten, an tokian, euskeraz itzegin dezan irakatsiaz. Ze demontre!

Laugarren, MAISU-MAIXTREK euskeraz bakarrik egin dezatela alkarren arteko artu emanetan. Bostgarren, aurtxoek era berean beraien artu emanetan euskeraz bakarrik. Seigarren, eskolako gaiak erabili daitezke bai euskeraz bai erderaz, ala dagokietenean. Zazpigarren, guziok bat, alderdikeririk gabe, ibilli bitez.

Pablo VI'ak Irakaspide katoliku Bazkun nagusikoei auxe esan die Garrarillaren 8'an: «Zuek Erroma'ra etorri zerate, milloika ikasleak dituzute zuen gain lur zabalean, katoliku irakaspenearen argitan nai zenuteke eraman eziketaren era-berritzea, gaur eguneko munduan. Ederki! Txalotzen zaituet. Zuen eskolatan nork aukeratu ditzake maisu-maixtrek, irakasle ta andereñoak? Eskola katolikuetan zeroak zarete aukeratzalle bakarrak. Kristau-eskola batean, irakasleak ere kristauak izan bear dute. Aien eginkizuna ere alaxe da, kristau bidezkoa. Nola ez gero? Lotsatu egin bear lukete bai gurasoen aurrean, bai ikasleen aurrean.

«Egun auetan Erroma'n egin duzuten lan ederrak, fruturik onena ekarri dezala».

Gernika'ko arbolak ba du nun frutua zabaldu etxetik asita. *Euskera.*

ARZUAGA'TAR SIXTO

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri asmoen gaitetik daben iritxi-onoak euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egilleak dira. Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M.^a MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guttirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep.Legal: BI. 879-1966

Ondarru ala Ondarroa?

Gaurko onetan eztabaidatxu bat ipiñi naian nator; geure erriaren izenari buruzko geu ondarrutar idazlean arteko eztabaide. Baiña bakezkoa izan daitela gero! Euskeraz ederto idazten dakien asko dagoz Ondarru'n eta eurai zuzentzen daitset dei au: Zubikarai, Atxukale, Azpirtarrak, Arantzamendi, Olea'tar Andoni ta abar. Atxukale jaiotzez ondarrutarra ez izan arren gure erriko arazo ta eztabaidetan sartzeko eskubidea ondo irabazita dauko.

Nik auziari asiera emonagaz neure eretxia agertuko dot; ta besteak be, luzeago edo motzago, zerbait idaztea nai neuke.

Uste dot, España'ko azkenengo gudate arte gure erriko barriak emotean ONDARROA izen burua ipintzen genduala; ONDARRU idaztea, geienbat, gudate ezkerokoa dala esango neuke. Gure erriaren izen jatorra ONDARROA dala ukatu eziñeko kontua da. Jakina denboreagaz, beste edozein izen, izenak be aldatu egiten dira. Gaurko ZARAGOZA jatorriz CESAR AUGUSTA zala iñoiz irakurrita nago. Ta, aspaldiko izen modu orretara biurtu biar litzakela Ebro ondoko uri andi orren izena ez dogu esango. Baiña izenaren aldatzea edo okertzea aspaldikoa ez danean, oraindik oraintsukoa danean, jatorrizkora biurtzea oker bat zuzentzea dala esango neuke.

Polita da gero gure jokabidea! Erderaz diardugunian izen jatorra emon oi dautsagun zenbait errirei, euskeraz izen okertua emoten dautsagu: Erderaz, BILBAO, ZESTONA (CESTONA), ARRONA, ONDARROA ta abar eta euskeraz, BILBO, ZESTUA, ARRUA, ONDARRU ta abar. Nire ustez izenen okertze au asko erabilletik dator, erri berekoak egindako okertzea izaten da. Apur bat urrunekoentzat ARRONA ta ZESTONA diran erriak, bertan ingurukoentzat ARRUA ta ZESTUA dira.

Gure erriaren izena len euskeraz zelau idazten zan jakin nai badogu antxiñan-antxiñara jo biarrik ez daukagu, gure erria aitatzen daben euskerazko antxiñan idazki gitxi arkituko doguzalako. Baiña gizaldi onetara sartu baiño len, Agirre'tar Txomin erritar idazleak ONDARROA idazten eban. Ta alantxe baita be Azkue'k eta ia erritar genduan Izurtegi'tar Juan abadeak bere Jerusalem'go Osterea liburutzuan.

Ta orain irurogetamar-larogei urteko ondarrutar bertsolarien bertsoak irakurtzen badoguz ONDARRU baiño ONDARROA askoz geiago idatzita ikusiko dogu. Geroago 1925-1926'garrenean estropadak ziralata ataratako bertsuetan lenengo esateko era indartu egin dala oartuko edo konturatuko gara; baiña orduan be ONDARROA edo ONDARRUA naikoa idatzi eben.

Ta BOGA-BOGA gure abesti ospetsuan zelan esaten dan ez gara abesti biar. Baiña esaten kontu garrantzitsu bateguz be gogoratu egin biar gara arazo oneri erabagi zuzen bat emoteko.

Gure erritar, au da ondarrutar berba egitean, ONDARROA berbeari egiten dautsagun moztutea beste berbaaskori be egiten dautsagu; O izkiagaz amaitzen diran itz guztiak artikulua artzen dabenian orixe berori, gertaten da:

«Astoa», «artoa», «zuloa» ta abar idatzi biarrian «astu», «artu», «zulu» ta abar idatzi biar al doguz? Ba itz oneik eta beste asko be ONDARRU itzaren kasu bardiñean arkitzen dira. Legea danentzat bardiña izan biar litzakela uste dot.

Nik ementxe amaitzen dot. Neure eretxiaren alde bururatu jatazan errezoirik nagusienak agertu ditut. Nik ONDARROA idatzi biar litzakeala uste dot. Ta besteok, adiskideok, zer esaten dozuen zain gelditzen naz.

KAMIÑAZPI

GORBEA'TIK

Orain dala ainbat denpora, gure asteroko ontan irakurri neban «Gorbeian egun bat» asieraz, «GAMIZ»ek idatzitako atala. Benetan lotsagarria izan be berak ikusia ta guztiok dakiguna, baiña ezin ukatu, ala da-ta.

Gorbei zale naz, eta benetan euskera be maite dot, alan ba, gure mendi au guztiz erdaldundu baiño len, bertoko mendizale guztiok daukagu zertxobait egin-bearra: Edurretako Amaren eleiz ateburuan bere izena ipiñi —ortarako Zeanuri'ko txanburuak, nik uste, baimena emon beariko. Aterpe edo etxetxoak bertan daukiezan jabeai be, erreguz eskatu, euskal-izena ipiñi dagioela etxeai, edo gitxienez be, erderaz eta euskeraz. Ba-dira ontzat artu dabenak eskari au, eta uste doguz, lemoarrak euskeraz, laster jarriko dautsaila eurenari.

Dagonillaren 17 ta 18'ganean be, an izan nintzan. Lanbroa ta lainoa ugari ta lodi, baiña ez da errez izango bertan igarotako egun biak aiztutea.

An ezagutu nebazan trinitario diran Dima'ko anai bi; bata orain denporatxo dala, bere ordenako buru egin eben; alan ba, Erroma'n dau bere tokia, naizta mundu guztian ibilli. Egun batzuk igarotera etorririk jaiotetxean izan dira, Oba'ko auzuean.

Gorbaie'n ez zerala iñoiz izan-eta, pozik egin eben aldatzean gora, eta urrengo goizean goiz, naizta eguraldi oso txarra, gurutzerañi igon ziran. Aita Santi karmeldar beti gazteak igitai barrenerañi lagundu eutsen andik Iriginao'ra jatsi zan mezea emotera.

Geroagoan, jatsi ziran gurutzerañi joan ziranak be, Aldamin-azpe'ra; soiñeko bustiak aldatu eta berton dan karmeldarren baseleizan euskerazko meza ederra esan eben.

Gazterik urrundu ziran etxetik, Euskalerritik, eta mundu guztian ibilli izan dira gure dimatar lekaideak. Baiña zenbat ete doguz Euskalerritik iñoiz urten bakoak, Oba'ko seme biak aiña euskeraz irakurten dakienik?

Aita Bizkarguenaga, anai bietatik bata, Irukoitzarren jenerala dogun ezkerro, komandantea be bear genduala-ta... Aita Santi aukeratu ta izentatu genduan an gongozan guztion oniritziz. Jakin begizue guztiok ba, Larrea'ko nagusia Aldamin-azpe'ko komandante egin dogula.

Ea bada, Aita Santi! Aginpide barri ori eskuian dozularik... gogoan izan baseleiza ta inguruan eta ondoko errekatxoan diran zikin-apurrak. Ez aitzu, arren ANGOITIA'TAR BITOR

GAZTE

IGORRE'TIK

«Intelektualak»

Euskalerrian, zorionez, ainbat gizon eta gazte dago, bakoitza bere arlo berezian, benetako jakintsuak diranak. Oneik, apalez, urte askotan eta ekintza gogorrean ikasia, orain, gizarteari erakusten dautsoe. Benetako jakintsuak dira, benetako «intelektualak».

Baiña ba-dagoz beste asko be, gazteak ere bai, itxura baten benetako jakintsuak dirala esan gura dabenak, edo esaten dabenak. Euren itxurea oso pentsalaria da. Astiro-astiro itz egiten dabe, itzak neurtuta emongo dabez, inoiz be ez dabe izketa bat lenengo asten. Euren aurpegia bizar latzategaz, bekokia illun, kulturazko kofereztirik ba'dago, ez dira joango pentsalari ta jakintsuak diran legez, ez dabe bear, ba-dakie ba an esaten dana. Kaletik ba'zoaz, ez zaitu ezagutzen euren taldekoa ez zarealako.

Baiña ez pentsau, itxuran darabilena, euren buruetan daukenik. Onetariko batez izketan jartzen nazanean, sarri, desengaiñu andia eroan dot, gazte zentzun bako, elburu bako, izakera faltsoategaz, bizitzeari sentidu bat emon nai ez dabenak dira. Asmo bat bakarria dauke, au da: Bizi izatea!

Kendu daiguzan faltsokeri ta lelokeri orreik! Gure jakituririk ba'daukagu, ipiñi daiñu elburu baten serbitzuan.

Ez dakit lan onek ezertarako balioko daben, baiña, uste dot, zelan goazen au, pentsatzekoa dala.

Oarra.—Bizarraren aurka ez daukot ezer, bestela batzik. Moda bat bakarrik ba'da, ederto. Baiña «lider» jarraitzaille lez agertu nai ba'dot bizar orregaitik, jarraitu dagiodan orri bere lanetan, bere izakeran, ez baiña bere bizarrari begira bakarrik.

EUSKAL-ABESLARI BATZURI

Ba-doguz euskaldunen artean benetako artistak, euren doai berezi ori barru-barruan daroenak. Baita abeslari onak be, abestiaren itzakaz pentsatzeko gai asko ematen dautsoe: trixteak, negartsuak, sakonak.

Sarritan joan naz euskal-jaietara, ta ainbat abeslari entzun dodaz. Eta poz-pozik joan izan naz geurea dan aberastasun orreri nire joakeragaz ta nire diruagaz lagundu ta indartutera al dan neurrian. Eta batez be, aberastasun orrek agintarien aldetik ez daukako laguntza aundirik.

Pozik, diñoten legez, joaten naz, eta trixterik urtetan dot.

Abeslariak, abesti ederrak abestutzen dabez, doñua itzela izaten da, itzak be gaurkoak dira: gure erriaren arazoari erantzuten dautse. Baiña... zeozer falta edo sobratzen iako. Ez daukana, falta iakona, abeslariaren ekintzea da, bere bizitzan itz orreri jarraitzeko bear dabezan elburuak, egiteak, orreik falta iakoz. Ta, geiegi, sobra... faltsokeria, «divismoa», lelokeria...

Abeslari, olangoa ba'zara, itxi alde batera uts orreik, abestu zure erriaren arazoa, bere negarra, baiña ori zuzentzeko, jarraitu egiozu zeuk be zeure abestiko esanari. Ez aozabaldu bakarrik; arrantzarik ez egin, piztiak lez; erakutsi zure ekinagaz...

Ez noa abeslariaren aurka, ez. Ba-dakit abeslariari lagundu egin bear iakela, ori bai. Baiña abeslari abeslariari, ta ez guzurrezkoari.

Arrisku au ikusten dot, eta ale onetatik neure iritxia, nik ikusten dodana esaten dot.

Ez daigun jolasik egin erriagaz.

IRRINTZI

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

ZAZPI-KALEAK



CASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIQUEAK

ARRATE

Gaur, igandea dan ezker, Arrate-aldera etorri naz emengo alderdi zoragarriak ikustera. Baiña bidetik nentorralla nere kolokorako esan dot:

—Arrateko apaiz ospetsu batengana joango naz eta bear bada lantxo txiki bat eskuratuko dot, AGUR aldizkarian argitaratzeko.

Esan ta egin, eta apaiz orrek guztiz ondo onartu nau ta ona emen beragaz izan dodan alkarrizketea:

—Zure izena zein da?

—Gorostidi Unzeta'tar Pedro.

—Noiztik zagoz Arraten?

—1940'gn. urtetik.

—Ona etortean ikusi al izan dogu, Arrateko Ama Birjiñaren txadona barriztuten ari zeratela, ori zergaitik?

—Bai ba, ia eroria zegon ba, ta tellatua oso eskas eukan ta, baita ere sapaia ere oso gaizki eta erori baño lenago asi giñan beritzen.

—Ori egiten noiz asi ziñen?

—1970'gn. urtean.

—Diru asko bear da, ezta?

—Bai, bai, amabost milloitan pasau gera, orain arte.

—Diru ori nundik atara dozue, erriak emon dau, ala nork?

—Ba. Erriak iru milloi ta erdi emon dauz ta gero Donostiko Aurrezki Kutzak beste berderatzi ta erdi unci edo milloi, uste det izan dala.

—Lengo egunean entzun neban txadonako bierrak gelditu dirala, zergaitik? Diruaren faltaz ala?

—Bai ba, dirurik ez, ori da.

—Dirua izango ba'litz, noizko amaituko litzake lana?

Ni izan naiz 1970 urte arte, Arrateko egunerako gauzak gertatzen nituana, jolas-ketak eta elizako gauza denak, baiña nola sartu garan orain Arrateko lan onetan, eliz berrixe onetan, ba, ezin izan neban jarraitu, diru asko kostatzen da-ta, eta orduan, igez, udaletxeak ez eban ezertxo egin, da gero aurtent udaletxeakin da nerekin batera, bion artean, zerbait antolatu degu ta gure gauza izango litzake orain meza guztiak euskeraz ematea. Arraten beti mezak euskeraz ematen dira, ezpaldin ba'da ezkontzako mezaren bat edo, olako mezaren bat ezpaldin ba'da ta eurak euskeraz ezpaldin ba'dakie, orduan egiten degu euskeraz dana, eta meza nagusian ere or danak euskeraz egingo dira ta meza-nagusi ontan gauza aundi bat daukagu aurtent: Eibarko seme bat, illean zazpian Eibar-ko San Andres Parrokian apaiza egingo da, ta illan zortzian, Arrate egunean, emango du meza berria ta gero «Oiertorian» eskeintzako denpora ortan, bertsolari batzuk ere abestuko dituzte berito batzuek eta orretara oso euskal jai zoragarria egiten da Arrate egunian. Gero mezak amaitzen diranean, aurrerua ta olako gauzak izango dira, ta arratsaldean, triki-tixa sariketa izango da ta sariketa ortan oso sari aundiak izateko zaratia dago, baita bertsolariak ere parte artuko dute, da txistulariak zer esanikan bez, Arrateko Ama 1927'gn. urtetik ona txistulari guztien zaindaria da, Euskalerrri guztiko zaindaria.

—Ta urrengo igandean, illaren 16'an izango da zerbait?

—Egun orretan, Kofradi eguna egiten da, ta Arrate egunean bezela, izaten dira mezak baiña gitxiago, amarretan asi, amaiketan meza nagusia, amabietan, ordu batian eta arratsaldean zazpitan, ta berriz era egun orretan egiten da beste ibillaldi bat, Arrateko amaren irudiakin.

Eskerrikasko aita zure erantzun guztiegaitik eta Arrate egunean ara bertaraten zeratenoi, eskuzabal izan eta ondo ibilli.

ARRATE'KO IRRATIAK BERRIZ URTENGO DAU?

Nire aurren Arrateko Gorostidi'tar Pedro apaiza irrati oni buruz galdera batzuei erantzuteko.

—Arrateko irrati noiz asi zan bere saioak emoten?

—1959'an eta AM, onda median, eretzen eban.

—Egun osoan emoten eban?

—Gu asten giñan goizeko zazpi ta erdie-tan eta bukatzen genduan, gabian amarrak edo amar ta erdiak aldian.

—Dan-dana euskeraz izaten zan?

—Dan-dana euskeraz, ori bai, zerbait egoten baldin ba'zan esate baterako txirril-durarien Arrateko igoera edo zerbait olakoa, an batzuek ba erderaz egiten eban, baiña bestelan, dan-dana egun osoan euskeraz eten-barik.

—Dirua nundik sortu zan?

—Bertan ataritzen genduan, iragarkietatik baita eskatutako eresmintza edo diskoetatik eta olan.

—Ze urtetan amaitu eban bere saioa?

—1964'an.

—Zer bear da irrati onek barriz urten daian, dirua, baimena ala zer?

—Len esan dizudan lez, diru aldetik ez-togu arazorik, irrati bertan lortzen da iragar-ki ta orrelako gauzakin, beraz, baimena baño ez-togu besterik bear, agintarien baimena.

—Barriri urtetzen ba'dau Frecuencia Modulada izango da ezta?

—Bai, FM askoz obeto entzuten da ta, zaratarik gabe.

—Norentzat izaten ziran zuen saioak?

Ba, euskaldun guztientzat baiña batez be, baseritar eta arrantzaleentzat, onregaitik emengo alderdi guztientzat; geure irrati asko entzuten zan baita itxaso aldetik ere. Ta berriz urtego ba'geunke bardin-bardin egingo geunke.

Eskerrikasko Aita Pedro, zure azalpenakaitik eta ia berriz urtetzen daun Arrateko Irratiak, Jaungoikoak iñok baño obeto daki, gauzarik onena izango litzakela gure Euskalerrri, euskera, euskaldun eta eleizearentzat.



—Beriala, nik uste dot urtebete bat barruan amaituko litzakela.

—Ondiño zenbat diru bear da, bierrak bukatzeko?

—Orixe eztaikit ba, baiña «arkitatu» ibilli zan emen, eta nik uste det, ondiño beste sei edo zazpi unci «millioi» bearko litzakiezela.

—Iraillaren, 8'gn. egunean, Arrateko Ama Birjiñaren eguna ospatzen da, oste andia etortzen da?

—Bai, eguraldia ona izan ezker 20.000 edo 30.000 bat lagun izango dira.

—Zein izango da egun orretan egingo dozuen egitaraua gutxi gora bera?

—Au izaten dogu ia urtero: goizean zazpitan asten gera mezakin eta ordutik ordura arratsaldeko ordu biak arte, ta amaiketan izaten da meza nagusia, ta meza nagusi orren ondoren, Arrateko Ama Birjiñaren irudiakin egiten degu ibillaldi bat. Arrateko Kurutzetik ziari, Arrateko zelaitik ziari atzera barrura ekarriaz.

—Erriko jaiak egiten dira, dantzak, bertsolariak, kirolak eta abar?

—Bai, igez gauza talmagarria gertatu zan:

KONTU KONTARI



AZERIXEK

Bai, nere lagun onok. Azeri zulu, ez makala, baiña eskutaue izan bier dau nire etxe-buruen. Zotin, zaunkak be entzuto'itxuaz gabeko amaikak jo ta gero.

Azeri gastiok, lau edo bost gitxienez, ba-datoz urratzen oiño denporetan. Txakurre batetik, azerixok bestetik, oillar-oilluok erdiz, au dok gure etxe boltako musikie!...

Lion'ek, nire oillar burruklarixon zaintxailiek diñost, goiko txaran lokie bere txitxokiñ ipiñtzeko kontue-edo... Ipiñi leikela trankil, gero gerokuek!...

Lion gixajuek etxakik asko azeri kontuen. Baiña, neu be ziriñe izen ba, ta ezer esan barik iñori, lengo egun baten, eruen dot goiko etxe-buruko txarara kaixolan, txitxen sartu-urtera oneko kaixola ederrien, lokie, amea, bere txitxe aldriaz.

Izengo zien gabeko amaikak terdixek inguru, gure txarie biurtu zenien munduko zaparradusuen «saladefiestas» baten. Orduek, gabeko orduek etorri da juen, da gora erromerixie. Lorik be eziñ, goixeko laurek inguruen, ezin oien egon geixa, da urten dot txara. A zan «kuadrue»!... Lokie, kaixola barruen, lumak arrotute, erpiok alanbran, begixok urten bierrien. Errementau ez beste danak. Txitxak, bere aldamenien dardaran, da iru azeri kanpotik zirt eta zart, zarpio gorrien...

Egune zabaldu dau, da bakie beraz batera etorri jaku. Amalau txitxa eurok zienak, aor dagoz bizi-bizirik. Lokie, amea, trankill euron ganien, luma batzuk gitxia, ori bai. Aldien, luma arrotu batzuk bakarrik, asko palta.

Bardiñ-bardiñe da gure mundue. Euskalerrixe lokatute, kaixolan, sartu-urtera barik. Aldamenien, lau kantotik, azeri zarrak aurka. Baiña gure ama, kalte negargarrixen izen arren, beti-beti prest bere seme-alabok auzpez artzeko, bere lumakiñ, mietzak geratu arren, maitxetasunien, bake santuan erregu.

Ixek eta bera, gure ama, kaixola barrutik urten eziñik egon arren, geuk beintzet, bere seme-alabok, ez, ez alde. Alkartu, eta naitxe luma mietzen epeltasune motel-motela izen, alkarraz, anai-arreben aldran bizi.

JUAN JOXE ARRIZABALAGA «MARKIÑA»

EXERI ZAITE ZEURE LEKUAN

Etxe aretan, auzokide guztiak errukituta egozan Ixabel'egaz. Senarrak, egunero, astinaldi ederrak emoten ei eutsozan. Egiñen orreik debekatu, ta bakeak lortuteko arzkureagaz epai etxera jo eban emazteak.

Egun batez, epailleak, deitu eutsen senar-emazteeri, auzi ori erabagiteko asmoz. Ortarako, lekukoren bat be bear ba, testigoren bat, eta epaikariak, senar-emazteen auzokide zan atsoxtu bati deitu eutsan ortarako.

Eldu zan epai-ordua, asi zan auzia. An egozan, senar-emazte ta lekuan, benben, pekotza baiño serioago. Epaikariak, salakuntza gogorra egin eban senarraren kaltez. Eta jakiña, bere esanak egiztatzeko, esan eutsan lekukotzat deitu eutsan atso zarrari:

—Zutitu zaite andrea, ta esan egidazu: Egia al da gizon onek emaztea egunero makillatzen dabela?

—Bai jauna. Neuk entzuten dodaz egunero Ixabel gaxoaren negar eta intziarik,

biotzik gogorrera be biguntzeko aiña-koak.

—Baiña andrea —yardetsi eutsan epaikariak— esan egidazu argi ta garbi: Zuk, ikusi al dozu iñoiz, senar au, emaztea makillatzen?

—Ikusi ez, baiña entzun bai.
—Ba... ikusi ez badozu, exeri zaite zeure lekuan.

Epaiariaren erantzunak larritsu ebalako-edo, atsoari gibel-aze zaratatsu batek urten eutsan ezarzerakoan.

Epaiaria asarratu zan, eta bere ezarlekutik zutituz esan:

—Andrea! Leku dontsu oneri, bear dauan lotsea galdu dautsozu, kontxo!

—Baiña... ni izan al naz?

—Bai, zeu izan zara!

—Zeuk ikusi al dozu?

—Ikusi ez, baiña entzun bai!

—Ba... ikusi ez badozu, exeri zaite zeure lekuan.

ABELETXE

GIPUZKOA'KO TXAPELKETA

Estropadak

Dagonillaren 15'ean, Andra Mari egun aundi ta zoragarrian, egualdi eder eta notin pilloakin ospatu zan arraunketa. Dagonillak, urte guziko egualdirik onenak damazkigula esan geinke. Ondartzen lekurik ez, guziak bustialdiak egiteko, ta legorretik zer esanik ez, bazter guziak beteta.

Lenengo saioan, Orío, Lasarte, Koxtape (pasaitarrak) eta Ondarribi ziran. Guziak este zuten oriotarrak izango zirala jaun eta jabe... baiñan ez da orrela gertatu, lasartearrak txapeldun izanik. Orrez gain, alde aundiakin bigarrenari, ta au, Koxtape izan zan, eta ez Orío. Arrigarria! Nola leike oriotarrak irugarren ertortzea? Ori, berak jakingo dute, nik baiño obekiago. Españi'ko txapelketara ez da joango beintzat, eta orrek burukomin ederra eman die oriotarrieri. Ez uste izan ordea, gauzak ortan geldituko diranik, datorren illeko saioari begiratuaz. Saio ortan sariak ederra goak izaten dira, eta kontuz ibilli zaitezte, batez ere apustulariak. Beti esan degu, arraunketako apustuak ez dirala piyagarriak.

Ez dira aurtan agertu getariarrak. Zergaitik? Erantzun latsa emen esateko. Estropada kontuetan, aibeste gauza gertatzen dira! Getariarrak, igazko urtean, laugarren gelditu ziranean, zearo txepeldu ziran. Geroztik geiago emen Donosti'n agertzeko, ta geiago egertuko diran usterek ez dute. Arraunlarien artean ezta-baidak sortu ziran eta orren azkena ori izan da, zearo de-seindua gelditzea. Pentsa, zeukaten patroí Etxeberría'tar Kauldi, aurtan Donosti'ko treñeruan dabil patroí. Orrez gain, Getari'ko treñeru ederra, abek erosi dute ta orra ze azken mingarria izan duten getariarrak.

Askotan, patroí on batek asko esan nai du bere artaldia ongi eramateko, baiñan, naizta patroí ona izan, arraunlariak ere onak izan bear dute.

Bigarren saioan, Ernani aurrena; bigarren; Donosti, ta irugarren, Arraun-Lanak. Ernaniarrak egundako estropada egin dute. Arrigarria jaunak! Ernani'n ez daukate itxasorik eta ibaian arraumean ibiltzeko leku gutxi. Ala ere, ortzak erakutsi dizkie besteeri. Bejondeizuela!


Orain irakurri treñeru guzien elduera. Bi saiotakoak batu eta LASARTE lenen; bigarren, ERNANI; irugarren KOXTAPE-BERAUN; laugarren, ORIO; bosgarren ONDARRIBI, seigarren DONOSTI, ta azkena ARRAUN-LAGUNAK.

Zer esango degu orain?... Auxe: LASARTE'k, 24-17-3/10; ERNANI'k, 24-43-6/10; KOXTAPE'k, 24-57-8/10; ORIO'k, 25-10-4/10 eta abar.

Egualdi oso beroa ta izerditan pitsa dariela irtenak dira gizajoak. Itxasoa, aize-olatua. Orra esan guzia, ta laister arte.

E. OZKIN

Arri batekin asi zan



zure aurrezkien banketxea



BANCO DE BILBAO

gizaldiz goiti aurrezkitzan

AGUR AITA PATXI AITA PATXIILDA

Bertso barri batzuek gura neukez jarri, zeruko Aita ona egidazu argi.
«Aita Patxi il yaku» esanaz alkarri, pena aundiagorik ez da artu sarri.

Arrieta'ko Libo'n jaiio ta ezia, beragaz izan eben Jaunaren grazia. Pasiotarren legez ondo ikasia, oraindik ez da galdu santu-errazia.

Irurogeita lau urte kumatik obira, bitartian emon dau milla jira-bira. Ekiñaren ekiñez ez dago begira, jentia diñozanak guzurak ez dira.

Atsedean barik ekin bide gogorrian, zer ete eukan arek biotz-motorrian! Zeruan sartzen bada neke-zigorrian, Aita Patxi an dago goiko tontorrian.

Gauza biren artian beti gogorrena, maitasunez eginda zer aukeramena! Errezena ez ei da geienbat onena, ori da jokatzera kristau-siñismena!

Begiak lurrean ta biotza zeruan, Jaungoikoa besterik ez eukan buruan. Auxe zabaltzen eban bere inguruan, guztiak indartuaz siñismen beruan.

Aita Patxi'ren griña «Errosarioa», nubait ondo ekian bere balioa. Dana zan otoitza ta bedeinkazioa, alper askoren orde z erremedioa...

Beti ebillen Patxi pekatari-billa, beragaz autortuak zenbat, zenbat milla! Ez zan ez jakituna, bai gizon umilla, bere jakituria: Jesus Gurutz-illa:

Gaixo minduak ziran bere urko lagun, euren billa ebillen beti gau ta egun. Ortze galdu ebazan

bizi ta osasun, herbaz barik, egitez maixua nun dogun!

Ez da kalte izango au be esatia, Astero Arrati'ra nai eban joatia. Zenbat izerdi, neke otoitz-zaratia... Ondo bedeinkatuta dago Arratia!

Gerratian gizon bat ei zan il bearra, agur andra, umetxu... ai, aren negarra «Neu nago orren orde» Patxi'ren dearra; otoitz egin ondoren, «Jo neure paparra».

Anai-arteko gudan Patxi zan kapillau, ordun egindakoak dardar ipinten dau. Euskaldun anaiekaz zer negar, alarau... Bere lagun ziranak ez dabe aiztuten au.

Jainkozale izan zan euskaldun gaiñera, biok bene-benetan ta biok batera. Bat edo beste bein be ez eban aukera, onezkeru zeruan ba dakie euskera!

Jokatu dozu, Patxi joko ederrenian, zenbat on egin dozun zeure aberrian! Ez al zendun ereingo leku okerrian, Frutu emongo al dau gaur Euskalerrian!

Ekiñalean ekin al dan dana bota, aste bete baiño-len il-zorian jota. Zure jokabidea agiri dago-ta: Kurutz-bidea egin, ondoren Golgota.

Atzamarrak jasota bidertzian eske, norbaitek eroango arin eta merke. Gaur zuri eske, gagoz txoper eta beste: Orruntz eroan gaizuz, al dozu ainbeste!

Zorionak gaur zuri gure Erriko pitxi! Zeugaz poztuten gara ta ez gero gitxi... Naiko egin dozu ta ortik ondo bizi! Agur ta laster arte GEURE AITA PATXI!

A. MARTZEL

IGORRE'TIK

Gure Aite Patxi'ren omenez Aite Martzel'ek egiñiko bertsoak bialtzen dau-tzedaz. Bertsuok parrokan gura eben guztiak zabaldu geuntzezan, eta Igorretar asko ta asko, gogoz billa etorri ziran.

Egongo dira Aite Patxi'ren goraldia idatziko dabezanak, baña gure kristau-erritarren biotzean bere eriotzeak ipiñi dauan samintasuna, herbaz agertutea, ez da erreza izango.

Aite Patxi'ren bizitzako gora-bera guztiak idatzitxo baten argitaratutea, ta orretarako, erritar guztiak parte artzea ondo egongo litzateke.

Bizkai osoan, eta Igorre'n be, ba-dagoz ugari, Aite Patxi'ren yakingarriak zabaltzeko gertu dagozanak.

Berak zerutik guztioi lagundu daiskula.

BEARI

Bizkai aldeko euskaldun errietatik batez bere, gure Jainkoaren erromes onak, betiko alde egin dau. Erromes ori Nekaldiaren Patxi Aita, pasiotarra, Arrieta'ko semea, aspalditik izan dogu. Bere soñeko urratuakaz, zorro aundi bat esku batean eta makillea bestean; oiñak erdi-billoizik eta urratuta, orra ta ona ibiltzen zan lekaide txiki ta gogor ori, mendirik mendiri ta erririk erri eten bagea.

Ez dogu aurreratzean ikusiko, ez Bilbo'n, ez gaixotegietan, ez baserrietan ezta bideetan auto-stop egiten. Bidean aurkitzen zituan eliza guztietan sartzen zan jaunari ikustalditxo bat egitera, baita bein baiño geiagotan ikusi izan dogu eliza aurrean belauniko, elizako ateak itxita egozalako.

Beribildunak baketu dira, beti auto-stop egiten ebalako lekaide langille onek eta berebildunagaz batera Agurtza deuna eten barik esan, eldu nai eban lekurañe eldu arte. Il iaku, tamalez, erromes au!

Gaztetxotan, bere ikaskideak diñoenez, biurritua izan ei zan, baiña gero, pasiotarren nobizitegian, oso-osorik Jaunagana biurturik, Beragaz biotzez lotu zan. Bein abade egin zanetik, bizitza latza croan izan dau gizon onek. Abade gaztea gure gudatean, izugarriko samiñak iraun zituan, daneri laguntzen. Berak gutxi jan, eta egarri izan arren, ur gutxi egoanean, besteentzako izaten zan dana; bai Euskal-erri'ko mendietan, baita, gero, Madril aldean langille-batailloian zigortua egon zanean.

Bere goi-maitasuna noraiñoa zan jakiteko, au esatea bakarrik naikoa da: Beste gizon bat tiroz iltera epaitua izan zanean, iltaille mordoaren buru zana-gana urreraturik, esan cutsan: «Ni bakarra naz, eta beste gizon orrek emaztea ta seme-alabak ditu. Zergaitik ez, bere orde, neu il?» Eta il-antza egin eutsen, baiña lekaide orren goi-maitasuna ikusirik, tiroak goruntza bota ebezen, eta gizon bieri bizi parkatu ere bai.

Irakurriak ditut Aita Patxi'k idatzitako gudaldeko oroi-idazki edo memori-riak. Ez dakit nun diran orain. Ba'leiteke bere gelan edo ingi artean egotea. Danak dira euskeraz idatziak, Bere Andramaria'ganako maitasuna amai bakoa zan. Bidazti zanean, berebilletan, bakar une guztietan, eta batez bere bateron bat ilten zanean, illaren gaubelan, gau guztia belauniko jarririk, eten bagea Agurtza deuna esaten igaroten eban, etxeko ta sendien aspergarri, baiña bera beti otoilari. Niretzat, Aita Patxi santu ooregarria da, baiña guztiz jarrai al izateko ez.

Euskal zalea be ba'zan Aita Patxi: lenengo beti ta daneri euskeraz egiten eutsen, gero, euskera ez ekienai, erderaz. Bein baiño geiagotan, adar jotearren, nik neuk esaten neutsan: «I, Patxi, inpernura joan bear dok». Berak: «Zer gaitik?» Nik orduan: «Geiegiko euskaltzalea azelako». Berak: «Geruago ta gei-go!» Erri danak eta gizon danak maite ebazan, baiña Kristo'ren antzera, bere erria geien.

Zenbat gaixo, lakame, abade ta enparau, gizon eta andrak ez ete dabe negar egin Aita Patxi iltean! Guztien laguntzaille, zuzendari ta pozgarri izan da, Jainkoaren eta Agurtzaren gizon au!

Goian bego ta egunen baten, elizak orrela nai ba'dau, gure aldareetan ikusi dagigula Jaunaren serbitzari zintzo ta kemetsu ori!

GALLASTEGI'TAR KAULDI

SENDIA

Izen aundia da au benetan. Batzuentzat pozgarri ta maitagarria. Ta beste batzuentzat ikusi eziñekoa ete? Itz onek bere esan-naiaeren goi-maillan iraun al izan dagian, bere barneko zeregiñari, zintzo ta gogoz, erantzun bear dautso. Izena ta izana alkartzen diran bitartean, sendia indartsu biziko da. Gizonen aldetik bendabatak jo arren ta ekaitzak bizia kendu nai ba'leuskio be, bere senian ondo sustraituta dagon sendia, guraso ta semeen arteko giro orretan loratu ta ale osasuntsuak emongo ditu.

Sendiaren izatea ez da edozelako arinkeria. Ori dala-ta, sendi bizia ez dator edozein arinkeritik. Uskeriak izan ba'litaz sendi bizitzaren sustraiak, antxiña ospatuko eben onen eriotzea. Millak urteak daroaz, tinko, lurraren gaiñean. Gazte bik, senar emazte gaiak, barruko izatez asmetan dabe alkarrenganako leia, poztasuna ta etxe baten, alkartasun barri baten bizi izateko gogoia. Buruz eta kalkuluz egiten dan bizikera barria ez da. Biziaeren legeak, alan eskatuta, maitasun garrez sortzen da alkarregazko bizikera estimagarri ori.

Itzungo gizonak ez daki, oraindiño, bizi eskutuaren barririk. Bizitza amaitukerana, estu dabil beti dirutsua, estu beartsua, estu jakintsua, estu guztiak biziari gelditu eragin nairik. Jakituri aundiko gauza da ta ez da munduko gizonik jakintsuenak egiña. Gizona, beti, ikasten ari da. Itzongu sortuko ete dau bizitzarik gizonarena bezelakorik? Gauza bat da egia, gaur arte gizonaren bizia gizonak ez dabela sortu. Ta gizonaren bizia jakituriz beterik dago. Emengo jakitun guztiak erpeka dabiltaiz oraindiño, jakituri ain aundi orren ertzetan. «Billatu egizue» esan eban... ta gizonak billa dabiltaiz. Ia ba mutillak aurrera!...

Egilleak bizia nai eban lez ta nai eban

erarako sortu eban. Biziaeren indarra, jakituria ta jaubetasuna beretzat artu zituan. Bizitza ondasunaren gain eskubiderik iñori ez eutsen emon. Bizionak, ori dala-ta, bizia gozartu egiten dau. Baiña gozamen orrek be bere legeak ditu. Gizonak nai andreak euren izate orretan berezko bear-izanak daroaz, gizonak sortu leikezan baiño askoz gogorragoak. Ortik jatorke alkarrekin bizi bearra, bik bat eginda. Ez edozelako bata-sunean, askatasun, jakituri ta maitasunezko alkartasunean baiño. Sendia, ortxe jaiio da, gizon nai andra bakoitzaren barne-muñeko bear izan ta eskabideetan. Egilleak era ortan sortu zituan, bata besteari begira jarriaz.

Ta bizitzaren oiñarria da sendia. Ez edozelakoa, ez ustela. Bere izatearen bear izenetik jatorke alkarrenganako garra ta bata-bestegandik banatu eziña. Gizon izateari egarri ori emon eutsanak, senar-emazte barriak euren gogoz ta askatasunez alkartukeran, batasun ori sendotuta isten dautse betirako.

Bizitza au egin ta osotukeran, zenbat amets sortzen ete dira... zenbat gauz pozgarri, ta ume barriak... Nai aña bear izan, ardura, esturaldi, pozt agertzen jakoz sendiari. Ta onen guztion artean ta guraso ta seme-alaben artu emonetan bere bizi giroa daroa sendi inguru orrek. Gurasoen zintzotasuna, maitasuna, bear-zalatasuna, siñismena, sendoak ba'dira, txar askok bertan bera iges egingo dau toki orretatik. Etxe guztiari zintzotasunaren kutsua ezarriko jako! Jainkoak bere aulkia, ortxe izango dau; giza legeak, bata besteagazko lotseak, maitasunez alkartuko ditu senditar guraso ta gazteak.

SOLOZABAL'TAR PAULIN

ARRIARRI

BARRIA

Zornotza

IÑAKI DEUNAREN JAIA

Garillaren 31'garrena, Bizkaia'n eta Gipuzkoa'n jai osoa. Geure odolokoa dogu santu au, eta berezkoa da bere eguna ospe aundiz jaitzea. Eta orrela egin da.

Ba da emen, Zornotza'ko alderdian, Belatzikieta deritzan mendi-gaillur zoragarri bat; Dima'ko, Igorre'ko ta Zornotza'ko mugak alkar korapilatzen diran tokian dago. Uda ta negu, mendigoizaleak batez be, guztiz maite dabe gaifialde au. Taberna bi be bertan dagoz, bata Aramotz barrenean eta bestea ementxe Belatzikieta tontorrean, bertora igotean arturiko nekeak pizkat arintzeko zerbait artu nai dabenezat oso egoki dator.

Aurten 25 urte ermita polit bat jaso zan bertan, doguez eta aitez inguratu-tako zokondo pixillean. Eleizatxo onetan, orriletik, urrillera, domeka ta jai guztietan meza egoten da, goizeko amabiamabietan, Larrea'ko Aita karmeldarrak esanda. Era osoa dago, ba, gorpuzari ez-eze arimeari be berea emoteko.

Iñaki deunari, gure patroï aundiari eskeifita dago baseleiza au, orain 25 urte, esan dogenez, Zuloaga zanaren babespean eta Zornotza ta ingurukoen laguntasunez eregia. Eta aurten, jazoera ori obeto ospatzearen, berebiziko jaiak egin izan dira. Egitarau oni jarraituz: Goizeko bederatzietan lenengo meza; amabietan bigarrena, Zornotza'ko txaurburuak esanda, itzaldia A. Jose M. Etxebarria'k, eta abestu Bernagoiti'ko abeslariak A. Eleuterio pasiotarrak zuzenduta. An batu ziran guztiak parte artu eben, eta ederra izan zan benetan.

Meza ostean, erromeria mendigoizale guztien pozaldirako. Zornotza'ko «Udabari» taldeak eta «Gaztedi»k batez be, zelako dantza artziak egin eben!

Gazteak: alaitu gure mendiak. Itunegi daukagu gure euskal lurra, ta geure erruk dalagun nago ni. Eguna roko buruko miñak eta goraberak nauko ezpallira lez, geuk be alegiñak dagiguz gauzak oindiño baltzago jarteko. Au ez da joke-ra zurra, illunetan dabillarena baiño.

Eguraldiak ez eban osoro lagundu: goizean zirimir pizkat, eta ondoren belaiño bustia. Alan be, umore ona ta jolas-zalatasuna ba-zan bazterretan. Dana egin zan baketsu ta alkar-maitatasunean.

ZIO

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Aspaldi egin ez dodazan egote astitsiak auzuneetan, eta bakar-ibilte baketsuenak bidetxiok kerizpetsuetatik egiñik nator. Zeinbat adiskide zar agurtzen, ainbat barriri pultsua artu, aldi ontako griña ta giroa neurtu... Olaxe ibilli nozue.

Egumogundaino aurkitu izan ez dodan egurats zaskeldua, ego-aize itogarria nabaitu izan dot. Gazterik geientsuenak teori ez-bardineko gaztelugintzan, ondartzat bigunaren ganean. Oñarri sendoan tinkotua gitxi batzuk, aizearen putzera egaz dabillan orria lakoxeak ugari.

Ainbat gazteren eritxi ta aburu izan dodaz, zenbaiteri mireak agertu ere bai. Eta zirikalaria naizelarik... zirikalaria be izan naz. Igitai, mailua... ta laia, «h»a ere aitatu-beerrik izan gendun. Ez dogu, norberaren alderdikoak eta besteren alderdiko euskal-aldizkariak, irakurtzen zale dan gazterik. Eta gaixo ori dalarik-edo, oilloa illunean bezela, an jo ta emen jausi gabiltzaz, norantz eta zeinen eskuz nora goazen arduratu ta zertu barik. «Felipe» nor dan ez dakigu; «Fazio» nongo zeraren zalea danik bez. Belarririk belarriraino aza zabaltzen dogu, sama-zintzurra erakutsi... azkatasuna eskatu. Sasiondo bateri loturik dogun auzta zain, soka barriakin beste sasiondo bateri lotzea... len aĩnako lokarripea!

Euskalerrri'ko seme izatea txikitat ba'dogu, ta euskaldun agertzea lotsagarritzat, zer dala-ta orrenbeste ta onenbeste alegin, zozokeri ta erokeri-zorakeri, «batua»ri deika, «h»ak zaparradaka sartzen, «ll»ak eta «ñ»ak kentzen, gangor-azentoa jartzen, euskal-itzak bastertu ta latin-itzak etxeritzen?

«H»dun batua eskatzen dogu... euskera «salbo» ikusi nai ba'dogu. Ikasten alegindu?... Inor ez. Norentzat edo zertarako gura ete dabe ba, «batua jamatua hori», orain «milla urte» inguru jaiotako umetxo azurbiguna, otsoen ortzetan larrilarririk bizi dan «mantxatua»?

* * *

Jeova'rena? Jeova'rena ez da, Kristo'rena izan bearrekoa da, artarako ikasi ta gertu izan zan-eta. Baiña aterik-ate dabilkigu, jeovatarren antzera, «lai-keriak» irakasten, azur-muñetaraino sartuarazoten. Beraren era eta esanetara ezi dauan gazte-taldetxo baten jabea dogu, eta erromeri ta notintza andiak izaten diran lekuetan, azerikeriz, bildotsak artalderatzen zaletua.

* * *

Uda onetako epe labur baten buruan izan dogu ugaritasunik, eta ugaritasun bidea aukeratu izan dabenen ezkontza ta eztegurik.

Manolo ta Kandida aitita-amama barriak doguz. Errekorri urtetsu gaztea beraitea izan da eta Mari Landajo'ri zerutar pospoliña lako illoba zolia ekarri dautsoe.

Badiola ezkondu da, eta Sabin Ibarra'k be itxi dau gurasoen abia, Galdakao'ko Bengoetxe'n biribildu dau barria.

Gazteliturri'k eta Plazida'k alabearen ezkon-etzegu eder-umerotsua izan dabe. Aldekoa-Urkixo'tarren alabea ere ezkon-buztarrian lotu izan da.

AGUR onen bitartekotasunez ZORIONIK goriñak guztioi.

Bolibar

SIMON BOLIBAR'I OMENALDIA

Garillak 24. Omenaldi goxo ta biozkorra Bolibar'ko errian (auzunean?) ospatutakoa. Bertokoa zan jatorriz Ego-Amerika osoan «Az katzailea» «El Libertador» deritxocna. Itz pozgarri au aitatuaz, Simon Bolibar, besterik ez dabe onartzen. Sei laterri, lurrez ia Europa osoa aĩña, askatu ebazan Españia'ren menpetik euskal jatorriko gudalburu argi ta bulartsu onek. Kataiak apurtu ta buztarriak jaurtiaz. Bere buruarentzat ezertariko probetxu barik, bakotxiari berea biurtu.

Iñoz Venezuela'ra naiz Panama'ra, Colombia'ra naiz Ecuador'era, Peru'ra naiz Bolivia'ra joateko erarik ba'dozu kontuz! Ez esan itzerdixorik Simon'en izen garbia zalantzan jarri leikenik. Estu artuko zaitue. Munduan esker onekorik ba'da, sei laterri onetako seme-alabak bai euren ongille nagusia-gaz. Gaiñera, Bolivia'k Simon'en abizena daroa izentzat.

Zer dala-ta, baiña, oraingo omenaldi au? Venezuelatar baten biozkadea izan da; azken urteotan Bilbo'n Venezuela'ko Konsul Nagusi izan dan Julio Felipe Arias jaunarena. Beste nunbaiterako izentatu dabe oraintsu, ta ba-joaku ain sakon maite dauan Euskalerritik. Esker onez zerbait, gomutagarri antzera, itxi nai izan dausku euskaldunoi; Simon Bolibar'en izenean itxi be. Bizkai ta Gipuzkoa'ko ume atzeratuak daukoz biotzean. Euron alde laguntza apur bat lortzearen, futbol-txapelketa bat antolatzea bururatu jako, Euskalerritik futbol-talde nagusi biak tarteko dirala: Bilbo'ko Athletic eta Donostia'ko Real'a.

Trofeo bikain ta baliotsu bat eskeintzen dau saritzat. Trofeo ori Simon'en jatorriko errian bertan aurkeztu ta bedeinaktea nai izan dau, Venezuela'ko Zaindari dan Coromoto'ko Ama Birjiñaren oiñetan. Txadon-txo berezi polit bat dauko euki be Ama Birjiñak Bolibar'ko Parrokiari dautsola, Venezuelatarak jasota.

Futbol-leiaketa ori San Mames'en eta Atotxa'n jokatzekoa da. Ez dakigu noiz, ezta ontzat artu dabeni be Club orreïn zuzendariak. Dana dala, Venezuela'k bere biotz ona ta esku zabala agertu dausku euskal umetxoan alde. Kaxkarragoa izango ete da etxekoan biotza?

Garillak 24. Egun ori aukeratu zan, Trofeoa zala-ta, Simon'i omenaldi bat egiteko. Izan be Garillaren 24'an jaiotako «As katzailea» 1783'garrenean, Caracas'en.

Egitaraua:

- 1.—Euskerazko Meza. Lekeitio'ko Iñax-Soiñua abeslari. Bai abeslari paregabeak Lekeitio'ko txikitxuo!
- 2.—«Simon Bolibar Trofeoa» onestea, Coromoto'ko Amaren oiñetan. Erti-lan bikaĩña benetan.
- 3.—Lora-txorta andi ta eder bat Simon'i eskeintzea, Bolibar'ko enparantzan daukon irudiaren aurrean. Bitartean Markiña'ko An-sola anai txistulariak Venezuela'ko Ereserkiari ekin eutsen, maisuki.
- 4.—Itzaldia. Udaletxea izanaren balkoetik. Aita Batiz karmeldarrak sakon, ozen eta biotzez ekin eutsen Simon'i buruz. Itzaldi biribilla «Xalokin»ena. Luze? Baita zera be! Adi ta gogoz entzuten dana ezin izan luze. Arias jaunak Venezuela'n argitalzeko asmoa dau Aita Batiz'en itzaldi mamitsua.
- 5.—Lekeitio'ko Iñax-Soiñua'ren ekitaldia. Lenen-lenen Simon Bolibar'en Ereserki; itzak «Xalokin»enak eta doiñua, «Uso Zurian» oiñarriturik, Aita Jose Domingo Ugari-

tetxea'rena. Biok karmeldarrak. Ereserki au 1927'garrenean «Askatzailearen» omenez bertan ospatu ziran jaietarako egiña da. Aurten, barriz, egilleak berak, Iñax-Soiñua'koak eskatuta, lau abots bardinetara jarri dau, auspo edo filarmonikaz laguntzeko eran. Txalo beroak amaieran entzun ziranak. Barrio barriri! eskatzen eben entzuleak, eta olan egin bear, 86 urteko musikagillea bera zuzendari zala. Zorionak, Txomin! Jaunak urte askotan jagon dagitsula zaartzaroko gaztetasun ori. Ondoren, Venezuela'ko ta Euskalerriko erri-abesti aukeratu batzuk, entzuleen pezeko txalo arkean.

Entzutekoak dira izan be Lekeitio'ko abeslari txikiok, neska-mutiko zuriz jantziok. Aurtengo negu aldean Erromara'ño joateko dira, Portuondo gazte argia zuzendari dabela. Ondo ibilli! Eman ta zabaldu munduan Euskalerriko frutua.

6.—Euskal-dantzak. Dantza bi eskeini euskuzan Zerutu taldeak: Arretxinaga'ko Mikel Deunarena ta Zintza-dantza. Aspaldion maisu biurtu jakuz Markiña'ko txikiok. Eskerrak buru lez dauken zuzendari jator ta aspertu-zeñari.

7.—Arri-jasotzea. Errez eta putz andirik gabe sorbaldaratu eban, ez dakigu zeinbat aldiz, Beñe gazteak 175 kiloko arria. Ba-dau mutil onek edarria ta jasa.

8.—Jan-ekandari erriko pelota-tokian. Urretatu nai eben guztiak izan eben zeri ekin; duan, Venezuela'ren lepotik. Eskerrak asko!

9.—Illunketan «Bolibar» filma Markiña'n, «Lan-Ikastola»ko aretoan. Au be dian.

Omenaldian izan ziran, Venezuela'ko-gaz gaiñera, Colombia, Panama, Bolivia, Chile, Alemania, Ingalaterra, Portugal eta beste laterri batzuetako Konsul jaunak, euren emazte ta adizkideekin. Baita Ameriketan, batez be Venezuela'n izandako euskaldun asko be. Eta erriaren izenean Markiña'ko Alkate jauna.

An gengoan kirkillok be, naizta inok deitu ez, geure muturtxoak bazter guztietan sartu nairik.

Azkenez, ezin gara egon argi-billa itaun bat egin gabe: Oraĩndik asko ez dala, Markiña ta Bolibar ezkondu ziranen (benetako ezkongaiari, erriari, baietzik eskatu gabe), baldintza batzuk izenpetu ei ziran. Ona emen bat, entzun dogunez: Aurreantzean Simon Bolibar'en omenez ospatuko diran omenaldi guztietan Bolibar'ko udalkide batek izango dau beti erriaren ordezkotza, errepresentaziñoa. Ba-dagoz Markiña'ko Udalean Bolibar'ko udalkide jator bi, erriak berak aukeratuak, ea goitrik ezarriak. Zergaitik, ba, itza jan eta baldintza au ez bete? Ala onetan be euskal esakera zaarrarena? Arraiña burutik asten da usteltzen.

KIRKILLAK

SIMON BOLIBAR'I ERESERKIA

Aintza ta aintza ludi guztian Gudalari ospetsuari; Jaioterria goraltzearen Aĩnbeste jasan ebanari. Nunai dakusguz gudalburuak Begira Simon Bolibar'i, Ba, berak argi-egiten dautse, Eguzkiak lez ludiari.

Bere burua erdikusten da Odei tartian Oiz ganian; Bere begiak jarririk daukoz Bolibar'eko lur maitian. Bere izena idatzik dago Eguzkian ta Illargian; Bolibartarrak be idatzi ta Irarri dabe biotzian.

XALOKIN - 1927

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra
BILBAO - Casco Viejo
Tenderia, 15 eta 16

FERRETERIA UNCETA S.A.

Landola tresnak - Galtzairu neurri zeatzekoak

Langaillu guztietarikoak - Leunketa gaiak

Ibarrekurutz kalea 14

71-10-00 Urrutz.

Apartado 18

E I B A R

ARRIATU

BARRIAK

Altzatu

ARGAZKIEN ERAKUSKETA

«Gure Etxea»ko gazteak gogorakizun ederra izan dabe aurtin: erriko argazki zaarren erakusketa egitea, bide orrez erriaren beraren aspaldiko biziaren ageriketa egitea zala-ta.

Emen eta an etxerik etxe ibilliz, gorderik egoen leenagoko argazkiak batean bildu ta «Baskonia» diruetxearen goiko areto zabalean erakustoki egokia atondu; ta antxe azaldu dabez 122 argazki. Uda osoan egon izan da zabalik, ta Garillean azken aldean itxi egin dabe. 8 sailletan egoen banaturik argazkiak.

Lenengo saillean. Kepa Deunaren yaia, urte batean ta besteetan, darakuskuten argazkiak. Erriko edestian yai ospetsua izan da beti eta da Kepa Deuna. Erriatik bertan, baiña basoan dagoen ermita txikia, baiña kondairea andikoa. Kepa Deunaren egunean, Altzatuarrak (altzatuarrak) egin oi dabe yai; ta urrengo domekan, Urdintarrak; ermita txikiaren zati bat, Altzatu'ko lurretan dagoelako, beste zatitxo, barriz, Urdin'go lurretan.

Kepa Deunaren yaian, Altzatu'ko udalburua, udal osoagaz, ta abadea yoaten dira; ta yendeketa andia egoten dalarik, yai dirdiratsua egin oi dabe. Meza, aurreku, dantzak, bazkariak, erromeria, t. a. t. a. a.

Orra ba, ikuskari orrean argazkiak ei dagoz erakustokian. 1905'etik asi ta guda aurreko urteetakoak; guztiz, sail onetan 15 argazki.

Bigarren saillak, «Altzatu langille» dau izenburu. Argazkiak barriagoak ei dira. Alan da guztiz, ba-dago bat 1901'ekoa: «Abarketerua», abarketak egiten zituzana. Erabilten ebazan tresnak ta guzti, abarketak egiten ei dago argazkian. Baiña abarketerue ez zan naparra, Gipuzkoa'ko Idiazabal'goa baiña.

Ba-dago beste argazkia bazter polit batena, «Dermau» izena ipinten dau-tsoena. Argazki-aspiko idazkunean olan dago «Dermau»; baiña paper zaarretan, «Dermauba» ageri oi da.

Ona ba, bazter polit orretan, etxe bat ikusten da: lenengoz paper-ola izan zana, gero burni-ola ta geroago tximist-indarraren tokia eta baita errota be.

Sail onetan berean ba-dagoz bei eder-eder, ospetsu izan ziranak, t. a. t. a. 20 argazki dakar guztitara.

Irugarren saillean, «Santa Agedak»; baiña emen Altzatu'n, Sakana'ko beste errietan bezela, «Santa Agedak» kinto doazenen yaiagaz batera ospa oi dabez. Guztiz 6 argazki.

Laugarren sailla: Izadi-ikuskariak (paisajeak). Sail onetan ba-dira antxiñagoko argazkiak; 1895'ekoa «Foruen plaza», txistuagaz erromeria ospatzen zan plaza; ta 1901'ekoa, erriko iturriak, bat baiño geiago; eta iturrietan yendetza dagoela; eta 1908'koa, ferriak egiten ziran plaza, t. a. Sail onetan 22 argazki.

Boskarren sailla: kirolak 14 argazki-tan; baiña oneik oraintsugokoak ei dira, 1930-1935 bitartekoak alegia.

Seigarren sailla: «erriko eresbatza», lau argazki; bat 1909'koa. Eresbatz au oraindik ba-dago.

Zazpigarren sailla: «gizarte ta erlijio-argazkiak», esate baterako Aste San-

tuko elizkizunak 1912'koa. Argazki onetan emakume adifitekoak, onelan dagoz yantzirik, gorputz-ganeko gona, atzeko aldetik buelta emonda, bururaino goratua ta burua osoro estaliz bekokiraino. Eta beste argazki bat: Loreilean Andra-Mariri egiten eutsoen loreen eskeintza, 1895'ekoa. Loreen eroale mutikotxoak iñoz ikusi bako yantziz yantziz. Baita beste bat, yende moltzoak dantzan eta ezagun-ezagun izan ziran sendi bat edo beste be bai. Oneitako bat, 1905'ekoa.

Zortzigarren ta azken sailla: 28 argazki dira eta naste-borraste bat bezelakoa da, era askotariko argazkiak dagozalako. Ba-dago bat 1889'koa, «akeita» ta «pattarra» edaten ta «txokorra» erreten; ta beste bat 1909'koa, eskolako mutiko-neskatoak; eta beste bat 1914'ekoa. «Geldi, geldi» izena dauena.

Goikoetxea'tar Patxi gaztea erakusle nebala, Euskalerrri osoko argazki zaar-rak batu ta liburuak egiteko asmoetan dabilzala baten batzuk, esan neutson. Olan «AGUR»eko «Beistegi» yaunak yakitera emon eustala.

Ta orduan neure erakusleak: «ba, emengo argazkiak gura ba'dabez, pozik utziko dautseeguz guk» (1).

Aurtin izan da lenengoz olango erakusketea. Asieran yendeek atzeratu ebiltzan argazkiak utzeko; baiña gero danak pozik gelditu dira; ta utzi nai izan ez ebenak damuturik; ta urrengoan pozik utziko dabezala, diño.

Goazen danok aurrera. Urrerango arte, Yainkoa lagun.

YURRE'TAR YULEN A. k.

(1) Orra ba, «JOLU», ba-dakizu nora jo! B.

Galdakano

URREZKO EZTIAK

Naita berandutxu eldu gure irakurleakana izpar au —AGUR irarriten dan irarkolea oporretan dalako— uste dogu, beti izango dala ajolagarria, ez diralako, egunero ez illero, urrezko eztaiak ospatuzten.

Dagonillaren 10'ganean ospatu ebezan gure erritar eta adizkide zintzoak diran Ibarra'tar Endika ta Aurrekoetxea'tar Miren Josune, senar-emazte azkar alaiak, euren zazpi seme-alaba, ezkon seme-alaba ta illoba mordo ederrakin ingurututa.



Ibarra-Aurrekoetxea sendia.

Ez dago esan bearrik, benetako poztasuna ta alaitasuna ugari izan zala sendi batu ta galdakaoar jator ontan. Gure zorionik be-roenak AGUR onen bitartez, eta orain artean bezela, osasunik onenaz jarraituko al dabe urte askotan.

EZKONTZA

Dagonillaren 17'ganean, ezkontza polit eta anaikor bat izan genduban. Arriandi —Iurre-ta— inguruan, Nekaldi'ko lekaiamek daben txadontxu apain politean. An ezkondu ziran gure erriko, senditarteko, Zarate ta Bengeotxea'tar Joseba-Koldo lantegi-endeñari gazte euskaltzalea ta Basauri'ko Abajo ta Galarreta'tar Zuriñe-Edurne neskatiñ liraiña.

Ezkontza au oso senditartekoa izan zan, beste eleiza askotan jazoten dan ikusle bakoa, ta bertako lekaiame bizkorrak, arrebak onak bezela, ondo gertatutakoa. Oturantzta barriz, Begoña'ko Lasa'ren jatetxean... eta zelango jatea! Orretara jan ezketiño ezin legike iñoiz be il; ala, bear ba'da, lenago, eztanda egin-da-edo!

Bazkaria amaitu ondoren, Euskalerrria zear urten ziran ezkon-barriak, urren Gaztelerrirantzta joateko. Betiko zoriona lortuko al dabe ezkon-barri gazteok.

EUSKAL-JAIA?

Zerbait jakin dogunez, errian Iraillan izango doguzan jai nagusietarako, euskal-jai bat gertutekotan dabil emengo gaztedia, baiña zer gertuko daben eta bear diran baimenak lortuko dabezala ala ez, gero ikusi bear. Aurreko urteetan ospatu ziran euskal jaiak, benetako garaipena izan ziran Galdakano'tantzta. Ea aurtin be bear diran baimenak eskuratu ondoren, beste aibesteko goralpena lortuzten daben.

Urrerango idazlantxu baten, ea argitasun geyago emon al izaten dogun.

JAGO ALA JUGO

Lerro oneik idatzi doguzanean ia irakurria dogu A. Onandia'k idatzitako «Euskal Literatura —Euskal Eleria esango neuke, euskaldunagoa ta beraz, jatorragoa dalako— III atala. Eta bertan, uts edo oker batekin aurkitu gara: Miguel de Unamuno'ren —naita izen-abizenak euskalduta atsegiñago izan-ten jakuzala, Unamuno'k naiago eban erdelkutsuan idatzi dogu— bigarren abizena dalata. Izan be, asko idatziten dabenai akatzak aurkituten errezagoo da. Erdel-idazle jakintsu orren abizena «JUGO» izan bear dau ta ez «Jago», idatzi mamintsu ortan agiri dan bezela. Gure uestez, oker ori, irarkolako izango dalakoa gagoz, Onandia Aitak guk baiño obeki dakialako jaun jakintsu aren barri.

Aipatu dogun uts edo oker orrek ez dau bear ba'da garrantzi andirik, baiña Unamuno'ri berari irakurritta dakigu, Jugo abizen ori Galdakano ontatik sortua dala; erri onen sarkaldean, Bilbo'rantzta Etxebarri'ra goazala, ta erri orren lurraldeaz mugatzen dan muño gaifcan aurkitzen dan basetetik sortua. Basetxe orren izena da Jugo'edo Jugo, bertakoak eta inguruetako euskaldunak —zoriez aibat dira oraindik!— Yugu edo Xugu agoztutzen dabela.

Abizen ori gure erri ontan sortutzeagaitik-edo, aibat diri errian Jugo abizena dabenak, danak sendikideak, eta euron artean, baita ene emaztea be. Orrixegaitik, ondo be ondo ezagutzen dodazan abizen eta sorlekuak, diralako, idatzi dodaz lerro oneik.

ERIoTZA

Luzarotxuan gaixorik egon ondoren, Dagonillaren 23'ganean, Bustintza'tar Sekunde, Llona'tar Imanol erriazale zintzoaren amazte jatorra, Jaunak Bere aldamerera eroan eban, irurogei ta zortzi urtedun zala. Jakiña, Manu benetako adizkide ta euskeltzale zintzoa, ta beraz, AGUR'en irakurlea, samñiez aurkitzen da aldi atsekabetsu ontan, baiña beste eragozpen asko bezela, gizontasunik andiyenaz eroango daben ziurtasuna dogu. Goyan Bego bere emazte maitagarria!

BASA-JAUN

Etxano

Ezagutzen al dozu euskal erriño au? Zornotza'n dago, antxiñako merindade onetan. Ez dira oindiño ogei urte Amorebieta'kin alkartu zala, edo obeto esateko, alkartu-azo ebela, oraintsu Berriatu Ondarrua'gaz legez, indarrez numbait. Erri txikiak, bai-dabez euren istilluak euren arazoak euren zaindu ta aurrera eroan al izateko; baiña guztia galtzen dabe, argi dagoenez, andiago bategaz alkar-izen diranean. Etxano, len udala zana, ta aberatsa, gaur Zornotza'ko auzume bat besterik ez dozu. Larrea'ren pareko, geiago ez.

ETXANO JALETAN

Onela iñoan erri-sarreran jarri eben oialzeko idazkun luze batek, bertokoak eta kanpotarrak ondo elorria emonaz. Eta, izan be, Etxano'ko gazteak ba-dakie jaiak eraten: Andra Mari inguruan aibat jolas, sari ta bestelako egon da-ta. Ona batzuk: Bezperan, au da, il onen 14'an, jaien asiera lez, arratsaldeko zazpiretan txapliuak eta Esturo'ko soñu-jotzaille batek kale-jira zaratatsua. Zortzi-retan, bola-jokua ta zortzi ta erdiatan, mus-parti dak nork-geiagoka; eta azkenez, bederatzietan, bakallaoa nok edertoago ipiñi pil-pillera.

ANDRA MARI EGUNEZ

Goizeko zortziretan kanpaia eta txapliuak; jarraian, txistulariak kalerik kale ta etxerik etxe. Egurdiako amabietan, txirringuts karrera, «I Etxano saria», gaztetxoentzat, Bilbao'ko Udala Aurrezki Kutxak emondako sari ederrakaz; mugara eltzen diran guztiak artuko dabez 150 pezeta.

Ondoren, ordu batelan, pelota-partidua eskuz, Gallardo ta Anpuñias, Atxa ta Petralanda'ren kontra. Arratsaldeko hostetan, bertokoentzat Azpillera tiratzea, Bizkai'ko Bankuak, Berrio erloju-etxeak eta Juan Jose arategiak emoniko sari bikaiñakaz. Zazpiretan, azkenez, X Bolaketa nagusia, banan-banan, Bilbao'ko Bankuak, Politena ta Garamendi akitetxeak eskiñitako sariakaz. Illuntzean, erromeria.

ERROKE DEUNAREN JAIA

Goizeko bederatzietan, kale-jira txistulariak. Meza ostean, umetxoentzat jolasak: lapiko apurtzea, sagar jatea, zaku-lasterketa, ta abar. Amabi ta erdiak inguruan, briska jokuk andra ta gizonen artean. Sari ederrak banatu ziran. Ia ordu biau jentetza aundia, begi-zoli ta urduri, egon zan jokolarien goraberak ezin itxirik.

Arratsaldeko seiretan, «Udabari» taldekoen ekinaldia. Txalagarriak doguz neska-mutillak euren dantza ta ikasteetan daben zintzotasunagaitik. Zazpiretan patata-tortillak nok obeto egin, Gipuzkoa-Bankuak banandutako sari ederrakin. Zortziretan, bola-jokua, biñaka, Donosti'ko Bankuak emoniko sariakaz. Ondoren, erromeri; amaiketan, jantzi merkeko sariketea, ta amaitzeko, txokolatete jatea.

Urrerango egunean be, au da, San Roketxuz, egurdiako amabietan, asto-probak egon ziran: Eustakio Legorburu ta Pedro Arroitujauregi lenengo euren astoagaz, eta Sabin Etxaburu ta Agustín Legorburu eurenakaz. Euria zan arren, jentea polito batu zan, baita ederto barre egin be astodunen lepotik.

ELEIZ-JAIAK

Gure errietako jaiak, ia danak, eleiz-jaiak dira. Egia ete? Len bai; gure asabak erri ta mendi-bazter eleiza andi ta txikerrez bete ebezanean, guztiak ziran eleiz-jaiak. Gaur, osteria, ia tokirik gei-entetan len eben jantzi apaña kendu ta eleiz-sunda bakoa ospatu gurarik dabilkiguz. Beraz, zur ibilli bearra daukagu: jai-eratzailleak batez be. Gure erriak bere onen, zintzotasunean jarraitzen dau oraindiño; baiña ba-dira, ta ez gitxi, euren azpilana aurrera eroan nai debanak. Zur, beraz.

Etxano'k egoki ta zuzen ospatu zituan eleiz-jaiak; au da: Andra Maria'ri bere Jasokunde jai eder onetan zor yakon jaitera bizi emon geuntson.

Bere egunean, 15'an, 11'etan meza nausi ederra euki genduan, erritar guztiak abestua; A. Onorio karmeldarrak itzaldia. Urrerango egunean, arimena, gure artean oitura zarra danez; A. Onandia'k itzaldia. Irugarren egunean be, jentetza aundia batu zan eleizan, ordu batac eta erdiatan: Etxano'ko alaba Ugarrizta'tar Arantzaz ezkondu zan Miralles'ko Barañano'tar Joseba mutillagaz. Zorionak!

OIZ

Sopelana

Gure errian, Larrabasterra deritxon auzoan, Karmen'go jaiak ospatzen dira.

Bertako neska ta mutillak, Alkartasuna taldekoak, meza ostean, gure dantza ederren erakustaldia egin eben.

Gero, amaiketako artzera joateko esan eutsen.

Baita pozik etxera joan be, amaiketako ederra artu ebela-ta, marisko ta alako gauzaz beterik!

Baiña danontzako pozik ez da izaten beti, ta jaiaren arduradunak, larri aurkitu ziran, Beitia gotzaiña ta erriko nagusientzako atondutako amaiketako amaিতuta ikusi ebenean.

Tira ba! Olako jaun aztuneri, egun bateko barauak ez dautse kalterik egingo-ta... On egin, neska-mutillak!

MARKAIDA



eziketa jostailuak eskulanetarakoak irakasketa gaiak

gregorio de la revilla, 1 bilbao - 11

Jolasean ikasi, or zure aurrentzako emoitzarik onena

BARRIKA'N

1936 urtean Barrika'ko emakumeak, euskereari al bestean eutsi eta bere zaletasunari beroaldi bat emoteko asmoz, sari eder bat ipiñi eben alegin ori indartu nairik, erritarren artean orretarako borondate eta ekinia oparoen erakusten ebenentzat.

Bilbo'ko egunkari batetik zorianak emon eta txaloak jo neutsezan. Beriala, karta batez, juradukotzat izentatu ninduen. Gaur olako ardura batek, ez leuskit poz andirik ekarriko. Zetarako eskutatu ogei urtedun bateri aize barriak emoten dautsazala?

Ogeta amazortzi urte igaro dira. Sarike-tarik ez zan egin, gerra sortu eta sartu zalako bitartean. Iraun ete dau gogo arek ibarrikatarren artean?

* * *

Getxo'tik Berango'ra, gero Larrabastera, eta Urduliz alboan lagata, Sopelana'ko ondar egaletik zear, itxas olatuaren apararen mintzoa artzen, Barrika'ra. Elexalde'ra jo baino len, Goierri daukagu. Erdiz erdi banatzen dira ibarrikatar bizi-lagunak Goierri eta Elexalde'n. Danetara be milla inguru. 210 famili. Baserritarrak batzuk eta besteak itxastar? Edozetara be baserri antza emon daigun. Gaur, Barrika'k, itxasoari ez dautsa ezer kentzen. Merkantetan dabilzan lagun batzuen bizibidea eta kittu.

Lengo gizaldiaren asieran ainbat kapitana egozan: Arrarte, iru anai; Amezaga, Arganza, Arana, Larragoiti, Musarieta eta abar.

Itxasontziak be ba egozan. Gaminitz, Plentzikoan artean sartzen ziran. Ala ta be ba dakigu Joan Amezaga batek 20 toneladako txalupa bat eukala; Santi Arrarte'k, 47'ko bat; Anton Arzadun'ek, 8'koa; Gabriel Kukullu'k, 28'koa; Junbaiste Kukulilu'k, 34'ko bat; P. Gondra'k, 10'koa; J. Bta. Larragoiti'k 24'koa eta Juan Libarona'k 20'ko bat.

Geienak merkataritza ibiltzen ziran, Bilbo osteran txikiak eta besteak Baiona'ra edo Galizi alderako osteretan. Legorreko bideak baiño errezago ziran itxasotakuak. Gero, bide barriak zabaldu eta kotxeak agertzean, merkataritza ori galdu egin da. Eta lengo itxastarrak leortar biurtu.

* * *

Erri oneri begiratu, bere itxas ingurua ikusi eta bateri urtetan dautso: Nun ete euken emengoak euren portu edo kaia?

Onetan Gaminitz (Plentzi) ingurura jo bear da. Antxe, egal baten, baster baten, sokondo baten batu eta lotzen zituen ibarrikatarren euren txalupa eta ontziak.

1740 urtean, Bizkai'ko portuetan egozan itxasontzi kontu-errazoa artu ziran, Barrika'n ba egozan zortzi txalupa: 590 kintaleko bat, 420'ko beste bat, 400'ko bi, 360'ko bat, 300'ko bat eta 290 eta 130'ko bana.

Sasoi bardiñean, Plentzi'n bertan ez egozan asko geiagorik. Amaika txalupa danetara be, eta Gorkiz'en geitxuago: amabost.

Plentzi'rako joera, kate biurtu dan joera, berezko eta ia betikoa dau erri onek. Gaur be, urrutizkin edo telefonoetan, plentzitarren artean sartuta billatu bear dira emengoan.

* * *

Irurogetamar baserri-etxe inguru daukaz Barrika'k. Labayru istori-egilleak, bere denporan, 72 etxeren izenak agertu zitun, Elexalde, Goierri eta Musarieta auzoetan.

Izen orrean artean agertzen dira aitatuکو dogunzan Txarta eta baita Barrika be, erriari izena emon eutsana.

Danetara be, lurrez, 7,16 kilometro lautu edo kuadratu daukaz.

Gernika'ko batzarretan, eleixateen artean, 51'garren eukan bere ailkia eta iritzi emotea.

Gaur gaurkoz ze etorkizun emon leiken Ibarrika'ri? Bilbotarren joerei begira bizi bear. Eta bitartean, al dan bestean, eutsi baserriari. Al dan umorez.

Ba dauke umoretsuen fama emengoak.

Ollagorretan errimia zan fama ba eukan emengo eiztari batek. Parrokoak be bai jaten. Oitura danez, eiztariak, kazadoriak, gogo onez edo txarrez, bialdu eutsan lenengotako abadeari. Itxuraz, eskerrik be ez. Oitzakotzat artu ta kittu.

Gure gizonak, andik laster, beste bat artu eta tabernan jan ei eben lagunen artean abadeari deitu barik. Abadeak aitzakiak, patakakin ipiñi ebela geitzearren eta ori ollagorri bere izate gutzia kentzea zala. Alperrik galtzea zala-ta.

Ori entzun eta eiztariak abadeari: Gaurkoa alperrik galdu? Bai zera. Alperrik galdu nebana onen aurrekoa zan. Abadeak ordagoa entzun baiña erantzun ez.

Ibarruri'n be ba dakie beste olako zerbait kontaten.

* * *

Barrika noiz sortu zan? Lenakoana: «Jo urtietan barrena arrika, gaitz joko dozu lepoan Barrika».

Bizkai'ko antxiñako errien artean billaturko dogu istoriaren paper eta agiri zarretan.

Amaikagarren gizaldian ba dago emengo Andra Mari'ren eleizaren barri, Izpea'ko Andra Mari'gaz batean, edo ta Gorkiz'en ezagutzen dan Agirre'koagaz, eta Zamudio'ko San Martin, Igorre'ko Elgezua'ko Andre Mari, Berriz'ko Andikona, Orozko inguruetako lenena zan Mugarraga'ko San Migel, edo ta Kortezubi'n Basondo'ko Santi Mamiñe, edo ta Ozerin-mendiko Lorente donearen eleizak aitatu eta ezagutzen diran denporotan.

Barrika'ko eleizaren zaindaritza, 1388 urtean, Gonzalo Billela'ri emon eutsen. Jauntxo denporak. Patroiak aukeratu eta izentatzeko oitorea egoten zan denporak, beti be dirudunen artean edo ta ingurutako etxe eta lurren jauben artean.

Atzerago jota, 1777 urtean, Errioxa'ko San Millan monastegiari etxe bat eskiñi eutsen Barrika'n. Ala irakurten da ango «Cartulario» dalakoan. Bizilagunak eukazan etxe bat eta, gaiñera, bizitokiak egiteko eragozpenik ez eukan leku bi.

Eta urte batzuk oraindik atzerago jota, 1052 urteko Gabonillean, Gartzia, Naparroako errege batek Naxera'ko Andra Mari eleizaren ardurapean laga nai izan ebala, ikusiko dogu, Barrika'ko au eta orretarako berari eskiñi eutsan emengoaren zaindaritza eta amarrenakaitik eukan irabazia. Bizkaia eta Errioxa'ko kondeak bitartekotasun asko eukiten eben sasoi aretan eta alkar laguntza edo mesedetan egiten zituen onelako tratuak.

Ez gaitezen urteetan galtzen bildurtu. Beste irureun urte atzerago be jo giñei. Orrela, 708 urtean Santxo Diaz batek «Txarta» izeneko etxea emen sortu ebala irakurriko dogu. Eta oraindik be denpora zarretan sakonago sartuta, 496 urtean, Santxo Bela bat irakurri al izango doga Barrika'ko jaun lez izen orretako bere etxea jasoten.

Beraz gaur ingurutako errien anditzeak Barrika au itxas gaiñeko erri txiki eta banandu lez lagaten ba'dau be, sasoi baten bestien parean edo beste batzuk baiño lenago billatu geinke gure erriaren izatean.

* * *

Zenbat euskaldun gaur Barrika'n? Oraindik bizilagunen erdiak baiño geiago. Gaminitz'en (Plentzi'n), esate baterako, bi milla eta zortziruen lagun ingurutik eun bakarrik billatzen ba'dira be euskeraz dakienak, eta Gorkiz'en bi milla eta laurendik, laureun, emen bederatzireun bizilagunetik seireun billatu leikez. Ikusten danez Plentzi eta Gorkiz'en inguruan geitu eta zabalduete mesederik ez dautsa ekarri, euskera kontuan, Barrika'ri.

Beste alderditik, Urduliz eta Sopelana'ren auzo izateak, lagundu leikio oraindik gure berbata au erabili eta zainduten. Kontuan euki Sopelana'n, eunetik ia larogeik ba dakiela euskeraz eta Urduliz'en be euneko irurogei inguruk eusten dautsela.

Merezi dau, ba, Barrika'k gai onetan begiramen eta laguntasun pixkat eta premiñazko da euren aldetik be kontzientziko ardura lez artu eta alegin egitea.

* * *

Barrika'n ba dago premiña asko beteteko sortu zan entzute andiko etxe bat: «Fundación Elorduy».

Inguru oneitako jatorrizko zan andre on batek, Concha Elorduy'k, bere ondasun guttiak laga zitun bost errietako premiñadunen mesederako. Orrela Barrika, Gorkiz, Plentzi, Sopelana eta Urduliz'ek ospitale eder bat eukan emen. 1914'n sortu zan.

Gaur, bizimodua obetuz batera, ospitale onein zeregiñak be aldatu dira. Erruki etxe ordez, egon-leku edo residentzi atsegin biurtu dira. Ala ta be bost erri orreitako beartsuak lengo legetan dauke emen euren etxea. Orain dirurutakoak eta urrunagotik be etorten dira bertara. Gaur, danetara, 110 lagun dagoz bertan, 87 andrazko eta 23 gizonzko. Santa Ana'ren izeneko monja laguntzalleak dauke bertako ardura.

Ogeitamar urte oneitan, bertako batzarreko buru, gizon kezkatu eta biotz oneko bat: Juan Gardoki jauna.

Eskolatxu bat be zabaldu eukan bertan, baiña aurten amaitu dau bere zeregiña.

A. ZUBIKARAI

AGVR

Apartado n.º 2
BILBAO

FRANQUEO
CONCERTADO
08/55

GARIKOITZ

Ba genkian Euskaldunok Mikel Garikoitz izeneko santu bat geunkala. Baserriko semea. Baiña gai oneri buruz zerbait geiago jakin gura genduan. Eta beste jakingura batek be bultzatu ginduzan santu onegana urreretzera.

Bellok'eko lekaideen bide-irakatsiak kontuan arturik, Oskitx gaiñera eldu giñan, eta andik laster Donejuste izena daukan baserri batera. An, semez bertakoa zan apaiz bat aurkitu gendun eta beronek jarri ginduzan Ibarre'rako bidean. Egin geuntsazan itaun batzuk gure jakingureak bultzatuta, baiña ez euskun barri askorik emon. Eldu giñan Ibarre'ra eta andik Garikoitz edo Garakoetxea'ra. Mendiak baiño gorago eta zeru urdiñaren azpian Arrano eder bat ebillan.


«Garakoetxea» Mikel deunaren jaiotetxea da. Beste basetxe batzun antzekoa. Ez da iñor bizi bertan. Ate-alboan egoan etxeko giltza eta itzaltasunez sartu giñan santuaren etxera.

Lenengo atari zabal bat, ezkerrean eskatza eta andik lo-gela bat, eskumara beste gela aundi bat. Etxe guztiaren eskuma-aldean labea, txikia baiña egokia.

Goian ganborea, laba-gaiñea, ta gela bi. Gela bakoitxean oge bat eta kutxa batzuk. Kutxa baten mezea egiteko bear diran tresnak eta besteak utsik.

Atzean kortea ta gaiñean lastategia. Inguruan erri-beiak eta bedarra ugari.

Basetxearen egitureak Bizkai'ko Mungialdean diranen gomutapena sortu eustan: aurrean (goian ta bean) gizakiak, eta atzean (goian eta bean) aberekiak. Arratia'ko basetxeak ez dira orrelan eratuak. Emen goian gizakiak eta bean aberekiak bizi dira. Egitura au txarra dala uste dot.



Garakoetxea baserriatik Ibarre erritxora jatsi giñan. Eleizako atea itxita egoan, baiña goragoko baserrian eskatu genduan giltza eta ango amamak emon euskun. Beronegaz berbetera-aldi bat egin gendun eta naiko errez alkar ulertu giñan.

Erri aretan ez dabe mezarik izaten, baiña ara joaten dira maite-minduak sarritan ezkontzako sakramentua artzera. Liturji-ori erderaz (prantzeraz) izaten da, baiña amamak, eurak euskaldunak zirala esan euskun eta etxean be euskera egiten ebela, naizta umeak erdereana naiago izan. Toki guztietako gataxe au, eta gure Erriarentzat ezaugarri txarra.

Sartu giñan ba Ibarre'ko eleizatxora. Ez dauka zer ikusi aundirik. Baserriko eleiza askoren antzekoa da. Eskuma-aldean Garikoitz'ko Mikel deunaren aldarea dago. Barria. Ondo begiratu gendun aldare ori eta gomutapen sakonak bururatu euskuzan. Zergaitik ete dira gauzak orrelan gizonen artean!

Eleizpean Mikel deunaren biziñea orman idatzita aurkitu genduan. Gure artean iñork ba ekian Deun au Betarrandarren iraslea zana, eta bere gorputza be an, Betarram'en egoala esan euskun.

Itzi genduzan ba Mikel deunaren basetxe ta baserri maitea, bertan itzi genduan gure biotzaren zati bat, eta bidezabala artu genduan.

Eta barriro Oskitx-gaiñera. An aurkitu gendun jate-etxe bat bideertzean. Euskaldunak oneri be. Eta antxe bazkaldu gendun bakez.

Gero, Añamendi-gaiñetan bide galdu batzuk egin ondoren, Donibane Garasi'ra jatsi eta Betarram'erako bidea artu genduan. Gure iparraldeko ordularian bostak inguru ziran. Iparraldekoetan ordu bat gitxiago. Orretan be soka bigaz gora ta bera lotuta gagoz euskaldunok.

GAMIZ

ARRATE'N

Dantzari-eguna

Igaz bezela, Irail onen 22'ganean, jai ikusgarri ori izango dogu Arrate'n. Euskal-erri'ko dantzari taldeen eguna. Ba-zan dantzariarik eta ikuslerik igaz. Aurten be ez gitxiago ziur asko.

Orra ba, igaz joan ziranen artean, lartxo, erdi asarre ebillazan bazkal orduan, nun jan aurkitu ezinda. Aurten, orren jakieñean, auxe esan dauskue. Arrate'n edo inguruko Ixu naiz Uzartza'n jan nai ba'

dozu, ta aurretik zeure izena emoteko gertu ba'zagoz, Eibar'era idatzi, deitu edo joan, gure Pepe Muñoa langilleari jakin arazteko. Onen zuzenbidea: Bidebarrieta 14, Eibar. Urrutizkiña, ostera, 71-13-17, lan orduetan.

Ea ba, zur ibilli, ez da ba egoki, Arrate'ko aize garbia arnastuta, gero barrau egiten ibiltea!

I.

AGVR

V URTEA
152 ZENBAKIA

ASTEROKOA
1974 - IRAILLA - 21

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

SORTU TA JAIO

Gure denporetako ardura aundi bat dogu gizakien zabalteza.

Gizakiak asko ugaritu gara ludian eta ugaritze onek arazo sakonak sortu ditu: janariak, bizilekuak, kutsadurea ta abar.

Araza oneri urtenbide bat emoteko, bideak artu dabez gizonak. Era on bat janariak ugaritutea ta kutsadureari bideak emotea izango zan, baiña gaurko gizonak bide errezago bat artu gura dabe: gizon barriak sortzea ta jalotea galazo, edo bide onetatik ugaritze ori gitxitu.

Eta estualdi baten aurkitzen danean, okerra da gizona! Zelako gauzak egin ditun elburu ori lortzeko, batez be aberri ta gizon txiroen artean! Diruaren edo ondasun txiki batzun truke, gizakiak mutildu eta sortu-barriak il egin dabez!

Zenbat gizaki mundura etorri, ori ez egoala gizonen esku esaten eben gure zarrak, orain ostera gurasoak onetan arduratuak eta arduradunak izan bear dabela irakasten dogu kristiñauen artean. Baiña onetan be ba dago zer kontuan artu. Begira dagigun.

* * *

Iñork ez dauka sortua izateko eskubiderik. Ori argi dago. Sortu baiño len, ez da iñor eta iñor ez dana ezin izan esku-bidedun.

Baiña sendi bat osotzeko asmoz alkar-tu diran senar-emazteak ba ditue euren eskubideak eta eginbearrak. Eurak oldoz-tu bearko dabe ba, zenbat azi legikeezan eta orreixek izan.

Alde batetik alkar-maitetasuna indartu bearko dabe eziketa lan latz oneri aurpegia emateko, eta bestetik sortze barriak neurria ezarri. Ez da erreza ori. Or, batez be, agertzen da guraso askoren kezka eta zetara jokatu jakin ezina: etxeko oztasuna txarra eta ezi al dan baiño sendi ugariagoa be ez ona. Eta alderdi bata edo bestea artu bear. Urtenbide zuzen eta ezagunak ziurtasunik ez, eta errez asmatzen diran beste bideak zuzen eritxi ez. Nora-ez onetan, jakitunai itandu bearra be izango da, eta gero, norberak zuzenen deritxana egin bearko da.

* * *

Baiña gizaki barria sortuta dagoanean, batez be gurasoen gurari barik sortua danean, batzuntzat arazo bildurgarriagoa sortzen da. Zer egin? Zenbat guraso munduan iltzaille lez jokatzen dabenak! Bide ori benetako iltzailleen bidea da eta iñork ezin legike artu. Sortua iñor da eta norkiaren eskubide guztiak ditu. Ez dauke gurasoak beste biderik, sortu-barria biotz onez artea baiño. Ortxe bai benetan esan bearko dogula: «Ez dozu iñor ilgo».

Gai oneri buruz, aspaldion, sarritan entzuten dogu Aita Santuaren berbea, sarritan, baita, gizarteko bazkuenen berbea, eta ez gitxiago guraso arduratuena. Oraindik arazo au ez da argitu. Ba dauke, batez be osagilleak non billatu eta non irakatsi. Ba dauke eleiz-irakasleak non argitasuna emon. Ba dauke guraso gazteak zer pentzau. Baiña ez gaitizan larregi estutu. Gogo onez gabiltzan artean, Jainkoaren aurrean geure arazoak biotz zabalez agertzen doguzan artean, goiko laguntasuna ta argitasuna itxaron geinkez.

Eta ez da arazo makalagoa jaiok bear dan lez azi eta gizadiarentzat onuragarri izatera eroatea. Ori be gurasoak izan daben dei edo bokaziño bereziaren barruan dago. Eurak ugarituko dabe Euskalerrria, baiña benetako gizonak izateko, euskaldun jaiok diranak, euskaldun lez eziketea artzeko eskubidea dauke.



Arraintza Arazoak

JAPONDARRAK KANTAUARI ITXASOAN

Kontuz japonarrekin...! Auek, txindurriak bai lira, bazter guzietan sartzen dira. Soñez txikiak, baiñan jakituriz argiak. Diru kontuetan ostera, azkarrak. Ludi guzian ibilliaz, jo batera ta bestera, iñoren jakituria ikasten eta gero beren lurretara joan eta emengo aurrerapenak «aprobetxatzen».

Albisteak diotenez, España aldean ere ibildu ziran «kitarrak» nola egiten ziran ikasten; erosteko asmoekin zizala aitzekizat arturik. Gero, eurak milloikak egin eta emen eta beste laterrietan saldu. Olakoak dira japondarrak, besteren jakiturea ontzat artu ta gero berak asmatu ba'lute bezela zabaldu.

Zer gertatu da orain? Idazlan onen aurrekoa, ta biak, batean ba'lirake argitaltzea, an esaten nuen —idazlan ori Principe de Viana'ra bialia det— alegia, nola arraintzan zebiltzen Canarias'ko itxasaldietan, dalako palangre oiekin.

Orain, alajaiña, Paris'ko eguneroko dan «L'Aurore» izparringiak dionez, Kantauri'ko itxasora ere etorri dira arraintzara; prantzes arraintzaleak iskan-billak izan dituztela itxasoan japonarrekin, dalako palangre oiek prantzesak ausiaz. Egunerokoak dionez, arraintzale oieri adierazi die, kontuz ibiltzeko, itxas zabala guzientzat dala-ta, alegia, laterri bakoitzan onenbeste milletatik kanpora, arraintzan ibiltzea, ezin lezakela iñori galerazi. Ala ere, naizta urrun ibilli, prantzes eta espñaar itxas arraintz ontzien artean dabiltzala, kalteak ekarri leizke.

Zer egin bear da orain, jaunak? Palangre arraintza egiteak kalte aundia lekarke, ta ondoren, arraintzak gutxitu. Atunentzat ez da gauz txarragorik dalako «salamandra» sare ta «Palangre»z arraintzan egitea baiñon, arraiak uxatzen dualako. Kantauri'ko millaka itxas-ontzien bizi-bidea antxoatik eta atunetik izanik, orain uxatzen ba'dute japondarrak arrai oiek arrapatzea... nola biziko dira gero gure arraintzaleak?

Sarri, barregurea ematen du, jakin eta ikusten deg mean, kontizu, Caracas'en batuak daude ludi guziko jakitunak, alegia, onenbeste milletatik arraiak azke arrapatu, batzuk 200 milla, besteak 12 edo 30, eskatzen dute. Nik galdetuko nieke oieri... «Eta zergatik ez dezute aintzakotzat artzen, zer nolatan arraiak arrapatu...?» Beste bide ortatik ba'dijoaz, arraintzak ezereztuko dira, ta milloikak ezereztu ere bai. Eta beste millaka arraintzale ta beren senideak, nola biziko dira ondoren?

Japondarrak, palangre ori, amabost metro ur bera botatzen dute, ta EUN kilometro luzetan. Atunak, abidan etortzen dira Aprika'tik, Azorez'tik Prantzi'ko lurak jotzeraiño, ta japondarrak ez dira ezjakiñak, aurretik botatzen dituzte palangrak, eta orrela, gero, emengoeri arraintzan egiten galerazi.

Orra esan emen guzia. Idazlan motxa baiñan garrantzi aundia daukana, eta agintariak aztu bear ez duena, ta neurriak artu.

E. OZKIN

ARENAZATAR JOSU

“Archipiélago Gulag”

Etxean pillotuta geunkan idazti mordoia, irakurtzeko astirik barik. Oporreri esker, beste batzuen artean, bi irakurri al izan ditugu: Onaindia'tar Alberto'ren «Gizon baketsu bat gudan», eta Alexandre Soljenitsin'en «Archipiélago Gulag». Don Alberto'rena, arnasea artzeko astirik barik irakurri gendun; egillearen jatorrasuna ta gaiaren garrantzia ez ziran bestetarako-ta. Eredugarri litzake jokabidea, gaurko eleiz-gizon askorentzat, baiña...

Ez goaz, gu, «bainak» aztertzeraz, beste liburuari buruz, «Archipiélago Gulag»en asierari elduta, zerbait esatera baiño:

Lenengo irakurgaia edo kapitulu «el arresto» izenekoa da. Irakurtzen asi nintzanerako, ikaragarriko zirkiña eragin eustan: Stalin'en agintaritzapean, «arrestoak», atzipetzeak zelan egiten ziran erakusten dauskunak.

Gizon, emakume naiz umeen atzipetzeak, idazkera gordin eta berezi baten azaltzen dauskuz egilleak. Atzipetzeak eguzek, gauaz, naiz goizaldian; bakardadean, naiz talde barruan; ixillean, naiz algara artean; geixorik egoana oetik, naiz osasuntsua lantegitik; aurdun zan emakumea erruki barik, naiz ama ona seme-alaben besoetatik; zarrak, naiz gazteak eta abar eta abar.

Bildurgarria ta errebeza larria damoskuna «proletargoaren paradisu»ko giro a!

Eta egilleak diñoenez, atzipetutako giza-joak, beti itxaropentsu egoten ei ziran, laister urtengo ebelakoan: «Itaun bi egiteko bakarrik da». «Ordubete barru etxean izango da». «Garrantzi bako gauzatxo bat da», esaten ei eben erretziñak, atzipetua, ardien antzera, ixil-ixillik eroateko.

«Arrestoak» be, beste onelakoak izan leitezke: Ikastetxetik zatozala, izkilluak aurrean jarrita. Espetxetik urten eta urrengo egunean barriz. Itxas-ertzeo uri batera ibillaldi bat egiten zoazela, edozelako trabena baten. Illabete estalduta egon ondoren, norbera bertara joanda. Seme-txikerrenaren lenengo urteurrena ospatzen zagozala, bazkaria amaitu barik...

Beti edo geienetan, itz samur eta gozoekin, beti etxekoak lasaitzeko, «ordubete barru etorriko da» esanaz.

Azken lerro oneitan azaldutako atzipetzeak, ez dira «Archipiélago Gulag»etik artutakoak. Oneik, Valladolid, Donosti eta Bilbao'n, neuri jazoak baiño. Errudun ala errugabe, sei aldiz kaiolaratua izan nintzanekoak.

Orregaitik, zirkingarria izan da nitzat Soljenitsin'en liburu irakurtea. Zirkingarria ta erakusgarria, lendik artuta neukazan irizietan eta bizi-moldeetan sendotzeko, askatasun egarriko naia neregaz geitzeko.

Zalantza barik, ez dago nitzat egizko paketerik ez egizko atsedenek, benetako askatasunean oiñarrituta ez ba'dago. Ez dago laterri-bizitza zoriontsurik, egizko demokrazia, egizko alkar-izketea ta alkarrenganako lotzea gordetzen ez ba'dira. Ameslariak gerala? Ba-litex!

Baiña azken urte oneitan, zaratsu datorkiguz «teoriko» gazte barriak, eta orrean atzetik pozik dabiltzan eta ain gazte ez diran saguzarrak. Egunerok irakurri daigeguz danetariko «sigla» politekin izenpetutako egitarau edo programa arrigarriak. Giza-osotasun eza nabarmen agertzen dabela askotan; adimeneko eldutasunik eza dariola beste askotan. Danetariko panfletoak irakurri geinkez gure erri eroapentsuari eskeñiak: Abando'ko arranoaren ordez, Marx bizerdoaren bazkide guzitan laburpenak, iraultzatik «proletargoaren diktadurariñokoak, gure gizarte usteldua aldatzeko primerakoak»!


Gauza bik arritu gaitu: Alde batetik, senide artean, lagun artean edo euren aragian gogorkeriaren erpekadak ezagututakoak, biartezirako gogor-zale erpedun agertzeak, eta bestetik, adinekoen artean, teori orreik umeen zaratzat, arinkeri lez artzeak, olgetan dabiltzala dute izateko!

Ez dakigu zelako izango dan gure erriaren etorkizuna, baiña atzipetzearen oiñazea geure buruan sentidu dogunok, ez genduke olakorik iñorentzat nai izan bear...

«Archipiélago Gulag» irakurtzea, ongarria litzake ainbat berbalapikorentzat, batez be, diruz josita dagozan sasi-sozialista «bide-lagun»entzat. Iñoz gizartea aldatzeko ordua elduko ba'litz, eurok izango litzakez atzerakoi aundienak. Baiña «bide-lagun»eri buruz, urrengan idatziko dogu.

Bitartean, guk, gizasemearen askatasun alde jokatuko dogu, naizta «erromantiko»tzat salatuak izan.

AGVR



Liturjia'ko berriak

1975 urtean Erroma'ko Urte Santua dalarik, Pablo VI'ak esku-erakutsi bezala «Jubilate Deo» izeneko liburuxka bat bidali die gotzai guziei, bai erlijioso nagusi guziei ere. Zenbait kantu gergorianoz eratuak dakarzki berak.

Mundu guziko kristauek jakin ditzatela eresi tankeraz Meza'ko eguneroko zatiak, adibidez: «Aintza», «Sinisten det», «Santu» ta abar. Orrela, norberaren izkuntza erabiliaz Liturgian, bidenabar, baderabilkite ere *latin* izkuntza, Kristo'ren Eliza nabari dadin bat sorterrri guzien artean.

«Jubilate Deo» liburuxka orren ainbat kantu biurtu daitezkeela izkuntza bakoitzera, latinez ez dakitenak zer esan nai duten adi dezaten. Bidezko neurria deritzagu. Euskaldunei, euskeraz.

* * *

Gaixoen Igortziko Ritual berri bat argitaldu zaigu oraintsu.

Batikano II Batzarrari jarraituaz, gaur eguneko gaixoen egoerari lots-izanaz, otoitzak eta egin-bideak zuzenagoak, baita errezagoak ere ipiñi ditu Elizak, asi lenen ikustaldietatik eta gaixoreen azken asnasaraiño.

Eriotz-aldi ederrerrako ibilpide apaña.

Ba dirudi azkatasun aundiagoa dutela apaizek Igortziko sakramentu au erabiltzean gaixoeekin.

Ba dira ere otoitzak, letaniak, bibliako irakurgaiak eta salmuak Ritual orretan, edozein gizon edo emakumek zuzendu ditzakenak gaixoen alde.

Baiñan, *arduraz*.

* * *

Liturgiko liburu guzien *bilduma* bat argitaltzera doaz. Beraz, onela etorriko dira baturik Elizako otoitzak.

- A) Mezakoa, Irakurpenak, kantuak.
- B) Sakramentuetakoa (bedeinkapenekin), gotzai esku liburua.
- D) Orduetako liturgia, antifonak, santuen-martiriarena, otoitz-liburua.

Aurrerantzean ez da geiago PONTIFICIAL zeritzaiona (gotzaiak bakarrik zezaketena) izango, ez da ere RITUAL zeritzaiona (apaizek zezaketena), bai apaizek bai gotzaiak erabat darabilzketete rito beraiek.

* * *

Mezatic kanporako Jaunartzeari ta Eukaristiako gurtzeari buruz RITUALA.

Laster argitaltzekotan dira.

—Mezatic kanpora Jauna artu nai dutenentzat, nola egin ospakizuna. Itzaldi luzeagoaz edo laburragoaz osaturik.

—Jauna ta elizakoak eramateko gaixoei nola ta nork.

—Eukaristia gurpenari zenbait bide berri:

- * Jauna agirian egiketa ta bedeikapena.
- * Eukaristiaz ibildeunak edo prozesioak.
- * Eukaristiako batzarrak.

S. A.

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira astero-ko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri asmoen gainetik daben iritxi-oneko euskaldun guztiak Euskeratzeaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egileak dira.

Agur au, bere zuzendaria ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M. MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guttirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

SASI - MAIXUKERIAK

Danak dakigunez, baten izena edo singularraren danean daben artitukua A da ta bat baiño geiagorena danean edo pluralean AK.

Ara intransitiboko esaldi bi:

GizonA etorri da.
GizonAK etorri dira.

Baiña izenaren azkanengo K orrek beste egiteko bat be ba-dauko euskeran; transitiboko esaldiko egille edo sujetu dala agertzeko be izki orixe eroaten da. Ara ondoren transitiboko esaldi bi:

GizonAK ekarri dau.
GizonAK ekarri dabe.

Ikusten denez, bai bakarrekoan eta bai askotakoan, bardin esaten da izena. Jakiña, emen ez dago illuntasunik, izena bietan bardin esan arren esaldiaren esanaia aditzak argitzen dabelako; batekoa danean DAU ta askotakoa danean DABE.

Ala be singularreko ta pluraleko izenak bereizteko legeko jokabide bat ba-dago, askotakoan izenari EK ipiñi azkanean.

GizonAK ekarri dau.
GizonEK ekarri dute.

Bidasoa andiko izkeltzetan olan itz egiten dabela uste dot ta euskera baturako artuko eben kontixu. Ez dakit. Jokabide au biarrekoa ez izan arren ez dago txarto, ondo dago, ta bere aurka ez dago ezer esaterik.

Baiña asko jokabide onen errazoiagaz ez dira konturatu, ta premiña barik be azkena

aldatu egiten dautse intransitiboko askotakoari be. Olakoak nire lenengo esaldi biak olan ipiñiko leukiez:

GizonA etorri da.
GizonEK etorri dira.

Ta emen ez dago A laga ta E artu biarrik, izen bien desbardintasuna K izkia euki edo ez eukitean dagoalako.

Eretxiak laburtuta, zelan idatzi biar dan esan daigun:

GizonA etorri da.
GizonAK etorri dira.
GizonAK ekarri dau.
GizonEK (edo GizonAK) ekarri dabe.

Ara ondoren, AK itz atalagaz izena amaitu biarrian EK idatzitako ainbat esaldi:

«Euskara bat da. EuskalkiEK asko».

«GurasoEK ez ditezela sekula ere irakasten aurka jarri, ez eta irakasleEK gurasoen aurka».

«...eritarrEK gitxien bat izan arren».

«Auteskunde errikoia eta demokratikoa egin ondoren, ez gurasoEK, gurasoen eskubideEK irten da garaille».

«DemokrazialeEK gaurkoz geiago dira Legebiltzarrean».

«Batek ez dauk zer dala-ta, baiña Ipar Amerikara iristen diran sobietar agintariEK pozik eta erdi lilluraturik sumatzen dira».

Nire ustez izen orrcitan E eroatea txarto dago. Ordez A eroan biar leukie.

KAMIÑAZPI

KOSMOS LIBURU - SAILLA

«ANAYA»ren KOSMOS liburu-saillak Oar-ikasiz edo Esperientziz lantzen ditu GIZARTE-ARLOA eta IZADI-ARLOA, Oñarri-Eziera Orokorren bost ikasmailletan barrena.

EZIBIDEZKO IRAKASKERA

Sail onek daraman ezibidezko irakaskera, onelakoa da: ikusitik ikasira ta aldi berean ikasitik ikustera (inductivo-deductivo). Ikasleak bizi duanetik, ikasleak oar-ikasi duanetik du abiera, beti-beti. gai bakoitzaren azalpenak.

Onela, izan ere, ikaslearengan beurez aztertze ta oartzeko aalmena pizten da txikitandik. Aldi berean eta, Izadi ta Gizarte-gaiak landuaz batez ere, gogakera edo jarrera egoki batzuk lortu nai dira ikasleengan: bizi diraneko giza-elkartearen barruan beren buruak ezagutzeko eta elkar-langintza emankorra girotzeko jarrera, alegia.

EGITURA

Ikas-liburu dalarik ere, ikasteko baiño areago da ikaslearentzat, bere erantzun-billaketan, laguntza-liburua.

Onela, zabal eta oparo azaltzen ditu Izadi ta Gizarte-arloak, gaiak egoki neurtuaz, ikastaroaren buruan erraz xurgatu aal izateko.

EGITARAUA

«Eziketarako Bide-arau berriak» jarraituaz egiña da KOSMOS liburu-sailla. Bai, aurrak gertuen duan ingurutik asi, ta ikuspegi zabalagoetara ta jakite sakonagoetara bide emanaz ikasleari.

Gaiñera, Ikastetxe bakoitzak bere inguru berezia oñarritzat ar, eta irakasleak gai guzieren artean bere aukera egin dezan, beti ematen du bide.

Onela, irakasle bakoitzaren asmenari bide zabala eskeintzen dio.

AZKARRAGA'TAR PELI'K

OROIPEN ITUNA

Udaldiko oroipenak ez dira danak alaiak. Egun baten, emazteak, izparringia eskuartean artu ebanerako, esan eustan: «Arriruko zara Josu, ba-dakizu nor il dan?» «Ez», nik... «Ba, Iker Sasieta!»

Benetan arritzeko albistea zan, eta olantxe aurkitu gintzazan eleizkizunetan «erri-lanean» lagunak izan giñanok.

Orain, berraro lanean asi geranean, batez be «erri-lanean» bete eziñeko uts-unea daukagu lagun artean, batez be, Lemona'ko agurtar adiskideen artean.

«Lepoan artu da segi aurrera!»

AGUR'ETIK JOSU'K

ZUBILLAGA ANAIK

ERREMENTARIAK ETA OREXA'KO ORDUKARIA

Errementari langille abek, Oresa'ko kasta dira. Gizon langille ta sendo auen aita, Inazio Zubillaga, Oresa'ko Juandabarrene baserrian, 1869'gn urtean jaio zan. Gure orexatarra, gaztea zalarik, lanean ikastera, Betelu'ra Bonifazio Yeregi errementariarengana joan eta antxe burnilangintza ikasi zuan, baita ordukariak egiten ere.

Errementari trebe aberi, Juan Garmendia Larrañaga'k, lan polit bat eskeintzen die, «Euskal esku-langintza II» liburuan. Ortik artu ditut berri asko.

Betelu'tik, Albistur'era joan zitzaigun bizitzera Inazio Zubillaga, 1889'gn urtean. Lurgintzako tresnak egiten ditu, batez ere, eta abereentzat perrak. Lenengo ordukaria, Oresa'koa egin zuan. Egin ondorean, burnizko bi idazki ipiñi zizkion erderaz egiñak. Batean ala dio: «Oresa'ko alkatea Jose Ramon Mallorra». Besteak berriz: «Saturnino Gastesi Zulaika Oresa'ko erretore dala ordukaria Inazio Zubillaga'k egiña».

Geroztik, erri askotan egin zitun ordukariak, amabi parrokitan: Albistur, Segura, Ormaiztegi, Alzo, Ordizia, Eibar, Andoain, Billabona, Orduña, Aduna, San Inazio Donostia'n, ta Amezketa. Bi, Errikoetxeetan: Ordizia ta Billabona. Eta Tolosa'n Jesus'en alaben etxean eta Justizi enparantzan.

Aizkorak ere egiten zitun eta bestenak baiño obeak zirala azaltzeko, aposturen bat egin eta irabazi zuan. Ortara iritsi bear saldu nai izan ezkerro.

Larogei urtekin il zan.

Sendi guztiantzat etzegoen lanik Albistur'en. Inazio'ren bi semeak, Jose (gaur 76 urte) ta Periko (68 urte), Albistur'en jaioak biyek, amabi urtekin Tolosa'ra bizitzera irten ziran. Inazio, aita, Kalparsoro'n lantegian jarri zuten enkargatu. Bi semak aitakin ikasi dute lanbidea edo ofizioa. 1943'gnean beren kontura asi ziran lanean. Bi semeak, azkeneraño errementari iraun dute, aitak



Periko, Oresa'ko ordukaria zuzentzen («AIDA» argazkia)

bezela. Urteak aurrera dijoaztela, bere garaian lanari utzi diote ta orrela Tolosa'ko lantegia gelditu arazi. Orain lasaiago bizi dira lanaren estutasunik gabe ta patxaran ordukariak emen eta an konpontzen asi dira.

Lenengoa Oresa'koa, aitaren jaioterrikoa ta aitaren lenengo eskulana. Bi errementari abek, Oresa'ra etorri ziranean, erriko gizon batzuek deitu nitun eta Inazio zanaren bi semeak pozik irriparez zeuden aitaren ordukaria begiratuaz. Kontuz ikuitzen zuten. Ala zion Jose'k: «Au dana eskuz egiña dago. Gure aitak, eskolik gabe ba zun burua». Burnizko tresnak eskuan zeuzkala, Periko'k berriz: «Au bai dala erri batentzat musika».

Zenbateraiño igoko zan konponketa, galdetu zieten erriko gizonak. «Au aitaren lenengo lana nola dan, utsean zuzenduko dizuet» erantzuna. Periko' rentzat ordukaria eskuetan artzen zula, jostailu bat zan. Erriak bai beñepein bear ederra. Gurea, aspalditik antxika zegoen. Ordukaria, erri txiki bätentzat laguntza aundia da; eresia, deia, lanaren neurketa, zaindaria, jatorduko neurria, alaitasuna ta bizitzaren ezaugarri. Inazio Zubillaga'k zenbateraiño bizia eman zion etzuan jakingo. Gaur berriz, Jose'k eta Periko'k, bi langille jator, euskeltzale benetakoak eta erri maitale egitazkoak, aitak egindako lana berriztuaz, Oresa'ko aizeak berpiztu dituzte.

Jainkoaren izenean, Legasa'ko aitona, Migel'ek, zenbat esker eman ote dizkie, bere biotz xamurrean? Aralar'ko magalean dauden errikkak Oresa'ko ordukaria entzutean esango dute: «Oresa bizi dek!».

Esku lana, lan soilla askotan deritzau, baiñan eskuen bidez laguntza bikaiñenak zabaltzen dira. Zubillaga'tar anaiok, bi gauza eder egin dituzte; aitaren trebetasuna ospatu ta aren sorterriari arnas berria eman. Orrelako biotzak zorionezkoak dira.

LATXAGA

FERRETERIA UNCETA, S.A.

Landola tresnak - Galtzairu neurri zeatzekoak

Langailu guzietarikoak - Leunketa gaiak

Ibarrekurutz kalea 14

71-10-00 Urrutz.

Apartado 18

E I B A R

Arraintzako

Bertsuak

19'REUN ETA 74'KOAK

Asieratik asi dirade
BEITE'gaz indar jokutzen,
onexegaitik arraintza ederrak
kaietan duz ateratzen;
kostera ontan egoten ba'da
egaluzea segitzen,
diru mordoak egongo dira
beitetarrak pillatutzen.

Asieratik asi diranez
bertsoz nator ni kantari,
bertsuen bidez adierazteko
ulertu nai duanari;
irebazia ona izateko
atune bear ugari,
ugaritzea ez ba'da ikusten
tristezia du agiri.

Lebatz-zaliok entzun dogunez
atune arrapatzeko,
Euskal-Erri'tik ordu galantak
nai duanak in bearko;
egin ondoren eutsi egiñaz
pentsamentun gauz asko,
egualdijekaz ta lagunekaz
sasoietan zer pasako.

Iru-lau bidar urte dirade
lebatz-zale anditarrak,
eta eurretan atun gitxigaz
etxera etor bearrak;
urrengo lekun berriz entzunaz
irebaziak ederrak,
barrivo urtenak dira ontziak
urdaillek saman jarriak.

Urrunegiko egaluzekaz
lagun gitxi dauz gogozko,
zer esan sendo iruzkiñetan
aspaldian daudelako;
batzuk uzteko itsasontziak
beste batzuk aldatzeko,
orreitxik ba-du jabek zer pentsa
ontzin iñor eukitzeko.

Iruzkiñetan lebatz-zaliok
gabiltzez au esatera,
urrun oteko egaluzea
zeozer du agertzera;
agertze ori «lege-apurtze»
dator ziurki bistera,
lege-apurtze ondorengoak
gagozela ikustera.

Igaz ez ba'zun «lege-apurtze»
«malutaz» aurten guztiok,
andi ta erdiko eta txikiak
arraz egaluziok;
sasoein gero irebaziaz
alaitsu arraintzaliok,
apurtzeagaz batzuek pozik
iristetuz lotu bestiok.

Egaluzea falta izan ez deu
aspaldiz guk urtietan,
ordu bin ez da, sei ta zortzin bai
aurki gure inguruetan;
bairna beite'gaz edo zeozergaz
dago orain asauetan,
orreik dirala, egaluzia
dabil urrun lekuetan.

Atune asau egoteagaz
ausartu au esatera,
lebatz-zaliok gure ANAIDI'n
diru gitxi gauz sartzera;
diru gitxigaz zer paga leike
egon bear pentsatzera,
izan ez ba'litz ontzi andirik
ANAIDI'n zer ikustera?

Aitxetu dodan ezkerro ANAIDI
onek ba-dituz gastuak,
arek da orrek, geixo ta zarrak,
arek bear pagatuak;
lebatz-zalion aldetik aurten
diru-kutxan, zer sartuak,
eskerrak sendo ontzi andirik
emoten gauz beartuak.

AZPEITIA'TAR GOTZON

Lebatz-zaliak

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

ZAZPI-KALEAK



CASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

KONTU KONTARI



MIRUAN BEGIXEK

Lion, bai-dala gizon-zarra, baiña gogorra. Bere larogei urte luziok lepoz, ez dabe makaldu edo txikurtu. Tente-tentie, zuzena soin eta arimez. Bixok, bera eta neu, oillar burruka autuetan gabiz batera, alkarraz beti.

Errasa oneteikue benetan bixon tartie daukegun. Lokie dala, txitxe atatzie, gangor ebatie, da abar... oillar gogorrek, sutsuek beintzet etxe azpiko alanbradan.

Lenago be iñoiz esan dotzuet domekero-roko gure oillarren burruka aldixek. Berak, Lion'ek urte asko daroiez onetako jire-biretan, oillarrek diezela edo ez diezela gora-beran.

Lengo baten be, arek esan dosten gauzie, entzutekue dala pentse'tot:

Izengo die ogeta amar urte edo geixa, oillar ingalatierranue, burrukalarie txapeldun bat eixeukan berak. Eibar'en Txopa'n oillarren aurka geixenetan, irebazi be beti, da atzenengo burruka baten, ekinaldi gogor negargarrixen, jakine, irebazi dau, baiña ez errez. Irebaztaille urten arren, bere begi bixon ordez. Itxutute geratu jako...

Añ odol-bizi benetakue izen eran, eziñ ba itxutute geratu arren itxi bakien.

Atxerre'ko, Zapola-gueneko basarriko mutillei bota'otse errekadu pormala: ia miru abixie topau leikeixen-edo... Bai gure mutillok abixa, miru abixa jo be. Iru ume ikusgarrixek, bixkorrek eta argixek barruko diezela, Bedartzaundi'ko tontorreko abixan.

Ekarri'txuez, geldik-geldik, bera, ta Atxerre'ko zarrak, aitxitxek, kuranderue edo sasimedikue izen ba zorixonien, da pentsau dabe miru gaste begixok ezartzie oillar itxu orri.

Arratsalde argi baten, goiko sabaixen, mai aundi gane baten, egiñ dau Atxerre zarrak «trasplantie». Ikusgarri urten be. Andik illebetie edo zozer geixua ingurure, platau be bapo-bapo burruka ekinaldixok asteko prest, miruan begi barri orrekiñ.

Beste bost burruka-aldi gogo-gogorrek egin be, da danok irebazi ganera. Orraitxi-ñoik, azkenengue, azken. Ermu'n garbitxu eixeben, Matio'n oillar batek menperatute...

Ez dozula zinisten...? Nai dana, baiña gure modukuek be, burrukaldi askotan itxutute geratu arren, Atxerre zarra bizi ba'litze, miruan begixok ipiñi ezkerro, izengo gintzake aurrerako.

Ez ete-ga itxutute geure begi zarrokiñ. Neure, beintzet, oillotokire agertzen daniñ mirue, ba-uket beti gogo bero bat: Neure begixok truketzeko beranakiñ, ia gauzak beste era batera ikusten ditxuazan...

Nok daki...! Egun argi baten egin be begi aldatze au, ikusmidan, zozer edo zer ikusteko argi bille...

JUAN JOXE ARRIZABALAGA

«MARKIÑA»

GURE DIRUATZAZKO

ITUNBENA DALA-TA

Izparringi, aldizkari ta abarretan eragin dagioe espaldian arazo orri.

Orexa gipuzkoarra ez da izan makalena. Bere aldun-ordezkaritzaz baliatuaz, astinaldi polita emon cutson gaiari. Berak zuzpurturik, Donostia'ko udalereak ere artu zuan eskubide orreik geureganatzeko eskubide-eskaria.

Ao batez ez zala artu erabagi ori irakurri neban.

Aberats eta beartsu, goiko ta beko, ezker-eskumako, edozein lekutakorentzat onuragarri dan eskari baten kaltez egon al diteke, iñor, gure errialdean?

Baietz? Jakin daigun ba nortzuk diran! Azaldu daiskuezala euren izen-abizenak!

Alako arazo garrantzitsu baten, ez daiteke or-konponik esan.

Erriak jakin egin bear dau, nor nor dan.

Eta Bizkaya'n zer? Galde bearrak berak be min emoten dauskula esango dogu gaurkoz.

Ipar-amerikarrek, Nixon dala-ta esan dabierna datorkit burura: «Lendakariak ez dau agintzen; Erriak agintzen dau».

ABELETXE

JAKINGARRI BATZUK

Datorren Urrillaren 6'ganean, igandez, eta Lapurdi'ko Sara erri zoragarrian, Eskualtzaleen Biltzarrak urteko bere biltzarra izango dau. Ona emen egitaraua: 10'etan Erri-mezea, bersolariek. —12'etan, Meza ondoan, aogozagarriak enparantzean, txistulari ta beste ereslariak lagun. —13'terdietan, bazkaria pilota-lekuan, naiz ostatuetan; or izango dira bertsolari, abeslari ta txistulariak be. —14'terdietan, abestaldia, abesti barri ta zarrekin... jarri ditugun orduok, ango orduak dira. Kontuz!

«Noble Villa de Portugaleta» izeneko abesti ezezagunen azken leiaketa izan dogu erri-orretan, eta azkenera eldu ziran sei abestien artean zeintzuk ziran onenak be erabagi. Maiburuko edo epaikari, Demetrio Garaizabal, Antonio Sarria, José Ignacio Sarria ta Ignacio Salaberria jaunak izan ziran. Irabazle, «Nora goaz» abestia, Patxi Villamor'ena, Gazteiz. —Bigarren, «Zergaitik Maitea», Abostberriak, Eibar. —Irugarren, «Jose Mari», Txomin Bengoa, Otxandio. —Lauugarren, «Gure Griñetan», Patxi Villamor, Gazteiz, eta bostgarren, «Baserri», Kepa Bordagarai, Galdakano. Zorionak danori!

Zarautz'ko Euskel-jaiak, berrogetamargarren urtea bete dabe aurren. Zenbat aiton amek dantzian egin dako egunak aiek! Ez dau baiña entzun aundirik izan 50 urte betetze onek. Zauratzarrak moteldu ete diran bildurrez gara, ala elgorria an be sendatu gabe oindiño?

Urrilleko «aldatza» neketsuenetakoa izango ei-da: Udako oporretan eralgi dan dirutzea, Iraillean ikasketarako erosi bearko diran idaztiak, soiñekoak, ordaindu bearko diran ikas-teetxetako sarrerak eta illekoak... zorrretan gure sendirik geienak. Gero, ekonomia bera ei-doa. Ara negurako izparrik baltzenak!

Aurtengo Dagonillaren 30'gnek International Herald Tribune'ren 28.498'gn alea irakurtzen ba'dozu, irugarren orrialdean, David Burham'ek Washington'etik, il orren 29'ganean emondako Atomik-ladolentzako jakingarri arriskutsuak ikasi daikezuz: «Atomik oletako zingulazateari uts-egite ugari aitatuak» ingalanderaz daroan izenburu pean, zalantza bako gertakizun okerrak agertzen ditu, ta irutik baten baiño olako lantegietan uts-egite kaltegarriak aurkitu al izan ditue orretarako dagon AEC erakunde bereziko aztertzaileak. Baiña luzeegia da or dakarren guztia emen jartzeko. Irakurri ba, zeuk al ba'dozu, ta letorkeguzan gaitzegaz arduratuta dabiltzan ikasiak batez be.

Orrenbeste be jakingo dau Ipar-ameriketa'tik ibilli ta gaur Iberduero'ko Nuklear Ekintzetan zuzendari dan Mikel Barandiaran gizon gazteak. Eta bere lagun zarrak be jakin nai, ziurki, jaun ikasi onen iritzia ta aurrerako bere asmoak eta ekin-bideak.

ASTI

benetako

akeita

CAFFÈ
BAQUÉ

CAFFÈ
BAQUÉ



utsa

soilla

ARDANDEGIAK...?

Gure uri ta erriak ardandegiz beterik dagoz. Eurotan, or sartu ta emen urten, gizon aldra aundiak ikusten doguz. Gauza ona ala txarra? Orretzaz eztabaida gogorak izan dira.

Nirekikotan, txarra ta ona, esango neuke. Txarra, txikerditxo larregi edanda moskor asko ikusten ba' dira; txarra, zakelak utsitu, gibelak gaixotu, etxeetako bakea urratu ta sendiko bizitzea bananduten ba' ditue.

Geiegikeri orreik kendu ezkeru, ta griña orreiri uko egiten jakin, ardandegia onurakor ere ba-dirala esan geinke: Gizona jatorriz, ez da bakar-zalea, sozial-lagun zalea baiño, ta lagun zaletasun ori asetuteko, erri-gizon geienak, tokirik egokienak, ardandegia ditue.

Euren barruko kezak antxe utsituten ditue; antxe euren lagunak geitu ta tankerea alaitu; anai bezela agertzen dira or; ardaua neurritz arturik, atsekabe danak, estalperik бага, zintzotasunean utsituten jakoez; antxe bizitza latzaren mingotstasunak iges egiten dabe.

Baita bertan be, besteen larritasunak ezagutu —edo dirurik-eza, edo lanik-eza, zein emazteagaz, zein seme-alabakaz illun dabilela— ta ostopo orreik zuzenduten eta ebatziten bata-besteari lagunduten dautse.

Gure ardandegietan ba-dira kutxatxu batzuk, edanlari biotz-onekoak diru ondakiñak bertara bota ta urtean azkenerako eundako millaka diruak gaixoi, umezurtzai et. ab. emoteko. Orretan lagunduteko or dira. Txakurtziki deritxon eta beste alkarre batzuk.

Ardandegian aurka sarritan itz egiten da, baiña egin bear dana auxen da: edanlariak neurritz edateko indarra geitu dagiela, ta neurritz edaten dakienak, euren aolku ta beste ekintza batzuk lar edaten dabieneri maitakiro lagundu dagiela, zuzen eta neurrian ibilli daitezkan. Itz baten esateko, ardandegia neurrian erabili ezkeru, onuragarri ta anaitasun sortzaille edo indartzailleak dira.

Urteotan arrisku barri bat sortu jake ardandegiei —geiago, jakiña, akeitetxeei: emakumeak parra-parra eldu dirala bertara, ta euretatik naikoa, entzute badaezpadakoa dabenak. Aldendu ardandegietatik orrelako emakume ganorabakoak, toki alai ta lagunarte onurakorak izan daitezkan, eta ez lizuntoki ta moskortokiak.

Eder eta atsegingarri izango litzake emen, San Anton'go zubi inguruan, eta bardin beste toki askotan, igande goiz aldeetan batez bere, emen jausi ta an jagi, ezorduetan etxe-runtz doazan moskorak betiko alderanduko ba'litzaz. Ori izango litzake eurentzat eta sendientzat onuratsu, ta ardandegieri entzute ona biurtuteko.

GALLASTEGI'TAR KAULDI

OITURA

Pertsona bakoitzak bere pentsa-bide, zeregin ta jokabidea ditu. Emen-txe, sartzen dogu, geien baten, edo-zein lagunem bizikerea, naiz jakituna, naiz ez-jakiña, naiz diruduna, naiz beargiña, naiz zintzoa, naiz alperra... Onetariko edozeinekin, bakoitzak bere erara, bizikera bat sortzen dau. Jaki-tunak argi-erakoa, alperrak alperkerizkoa, zintzoak zintzotasunezkoa. Beti, bakoitzak bere gizakoa, ta jokabide onek euren ezaugarria eroango dabe. Ta iñork ez dau uste, norbere jokabidea txarra danik.

Jokabide onek be ba-dabe onak ala txarrak diran agertzen daben zerbait euren barne-muiñean. Egitada bakoitzaren ontasuna, egite orren elburutik agertuko da. Gauz naiz bear baten, elburuak epaitu bear dau egillearen gogoia. Elburu ona ba'da, onek orraztu ta garbituko dau lan ori egiten dabenaren erantzupena. Norberekeriaren usaiña ba'daroa, nekez, izan daiteke ona, norberekeriak zapaltzearen ats txarra beregan daroata. Egite onak urko-lagunarenganako maitasun usain gozoa daroa. Oitura onak dituanak, jolas, abesti, arte ta edozein lanen bitartez norbere ta beste on, era berean, billatzen ditu. Era ontako lagunak beste ingurukoak poztu egiten ditu. Ta onen egikerak ederrak dira. Egiz esan giñaike oitura onak dituala beregan. Inguruko lagunak epaitu bear dabe, ta guztientzat ongille dan ezkeru, onen jokabidea egokia da ta bere oiturak on jakoz jendeari.

Ba-dira baita oitura txarrak ere. Norbereganako maitasun zuzengabeen dabe onek sustraia. Diru-pillo zalekeria dala-ta, saldu-erosietako ordaiñak emon barik luzatzea, nai il eta urteetan lan gitxiago egitea, nai lan

alogerak urri erabiltea bata beste ta minuagaz, oitura txarra da. Jendeak onaren eskubidea dauka, ta biraoka jende artean ibiltea, nai abesti ezaiñen bidez norbere griña gaizto balzeturara menperatu nai izatea, oitura ezaiña da ta burgezkeri makala ez gaiñera.

Sendiak be euren oiturak ditue. Sendi beartsua, zintzoa, artoa, dirutsua, iñundik iñora be, ez dira bardiñak. Beartsu ta zintzoaren etxea, arro ta dirutsuengandik oso ez-bardiñak dira. Beartsuaren sendi ingurua arrokerizkoa edota apaltasunezkoa izan daiteke. Sendi beartsu arroak burgesekin ze ikusi aundiak euki leikez. Aldun ta altsuarenganako zaletasuna lenengo ta bein, ta ortik datorkiozan goikeriak bere senetik ateraten dabe sendi pobria. Berbeta, jantzi ta ibilkerak aundienak nai ditu. Onak lotsatu egiten dira euren erako bizitza-gaz ta atea isten dautsez beartsuaren bizi bideari. Beartsu apalak ostera, beargiñaren bizi maite dau ta lanari, gogoz ekingo dautso. Berari ez dago-kion nauskeririk ez dau nai. Jokabide zeia dau bearragaz batean. Zintzotasunaren giroa atsegin jako, bizitzako goi-be pozdun ta naigabetuen artean.

Asmo, ezikera, jokabide ez-bardiñak dira, emen ikusi ditugunak. Ta au bitzuok beartsuak izanik. Sendi indartsuetara ba'zoaz, pobriak ez daki angio barririk. Diruak, ta ortik, gizonari ezarten jakozan naikeriak, ta eukiteak, barruan, sortzen dautsezkan griñak bizi apartekoa eraten dabe. Jantziak, janariak, jolasak, bizi-lekuak, itxasoz ta lurrez, ara ta ona, egiten diran ibillaldiak eta jolasak bizi markauta isten dabe oitura bereziz. Zenbat ate isten ete jakoz onari ta zabaltasunari.

SOLOZABAL'TAR PAULIN

SORALUZE


Soraluzetar argiak non-nai ikus litezke. Oietako bat Bolunburu Alois degu. Adina irurogeita lau urteko. Eta ainbeste urte ditunik iñork ez antz-ematen.

Iesulagundiko Nagusiek ere uste ortakoak izan, eta eztarri ederreko soraluzetar au, Cambodia'rako izendatu dute eta dagonillaren boskarrenean egaz alderdi aietarako asmoz irten zitzaigun.

Bolunburu alai bezin alai lurralde berri aietaruntz abittu. Zelai zabalak ikusteko gogoz. Berri-berriro lan aundiei ekiteko biotza zabalduz. Orixe bai gazte izatea eta izerdi eta aldapa gogorren beldurak gogoan ez artzea!

Toki berrian lanak eta artzantzian ibiltzea txinatarrekin izango. Izan ere, Asia ontako egoaldean txinatarrek non-nai sartuak ditugu. Ez bat eta bi. Samaldan baizik. Kistarrak ere bai, eta lurralde aietako siñstunek beren izkeran mintzo litekema nai. Ori bakarrik ez. Ango eskudunekin eta agintariek, bai Erkalakoekin bai Doibatzakoekin pantzeraz ari litekema nai, eta gure Bolunburu'k izketa ori ere ederki ikasi digu. Belgique'n asita, noski! Ekaitzak aruntza ere eraman ginduzen!

Uste dedanez, toki berritik iakitekoak bialiko dizkigu.



Bolunburu'tar Alois sj.

Bitartean, orain arte elkarrekin izan ditugun zertxoen aipamena nik emen egingo.

Eta, lenbiziko oroitzua, alderdi aietara egun berberean irten giñanekoa: 1933'garren urtean dagonillaren amaikagarrenean Marseille'n itxasontzira igo giñan. Guztira zortzi iesulagun. Baita, azpeitiar Gogortza Alois iesulaguna ere gurekin genduan. Anai iesulagun onek ordurako amaikatxo etxe eraiki zituan eta bat Habana'n: eraikuntza onek izen aundia ekarri zion eta geroztik azpeitiar langillearen bearra askok nabaitzen.

Beraz, Wuhu'n ikastetxea eraikiko eta lan oriek bukatuz bai beste bi eliza ere.

Itxasontziko ibillaldia ogeitamabost eguneko. Marseille utzi genduanen arratsalde apala zan eta illuna gañean. Beste laño beltzagoak Europa guztira laister oldartuko ziran, eta gizarteko ezin-egonak zerbait zerakuskigula igarri zitekean. Ordurako neronek auxe idatzia nuan:

«Anai bi ditut, atzo goizean

Gogor burrukan ikusi:

Zakur gaizto bi ote-nituen

Ordun zitzaidan iduri...

Geroz ni beti beldurti!»

Geron ioanean, ontzia lenbizi Port-Said'en gelditu zitzaigun, aurrera iarraitzeko ikatza bear. Ontzira ikatza sartzea langilleak bizkarka egingo... Ua ardalla, eta aiek iskanbillak eta burrukak elkarrekin! Arabetarrak zer ziran iksuten orduantxe asi giñan. Irira irten giñala galiziar seme apaiz pantseskatarrak iriko berri asko eman zizkigun.

Bigarren egona Djibuti'n: garai artan parantzatarren eskuko lurraldea. Mutikoak ontzira igo zitzaizkigun eta txanponak nai zituzten: zillarkia urera bota eta aiek itxasoan murgil. Ederki ikasiak zeuden. Zillarkia ortzetan ateratzen zuten. Errukarri maitagarriak ikastetxera ioatea ez-ote zuten obe izango?

Irugarren txangoa Colombo'n: oraingo Sri Lanka'n. Bazterrak ikusteko asmoz Kandy'ra igo giñan. Zua in arra eta emea antxe ikusi genituan: ordurarte entzun ere ez genduan ipuia zala iruditu zitzaigun.

Laugarren lurreratzea Penang'en: ontziak iri artan uztekerik poxitxo besterik ez eta txaideetara irten giñan arren, ezer gutxi ikusi al izan genduan. Bañan, eguraldia bai ederra! Eguarte polita eta eguzkiaren ikutu maitekorra!

Boskarrena Singapor... eta irira iritxi baño len arratsaldean lañoen sorgin-dantza nabarmen! Bañan, ua zer zan? Urteak ioan dirala ere, nik ezin aztu laño aien kizkurketa: eguzkiak zoragarri apaintzen zituan. Portugaldarren elizara ere agertu giñan, eta angokistarrak egarria asetze-aldera edategira gu eraman. Ontzian gureki zetorren Pekin-izkeraz iaioa zan apaiza... eta Singapor'eko txinatarrek hooloeraz mintzo: iñondik ere ezin elkarri ulertu eta engalanderari ekin zioten! Orretzek bakarrik, gero gertatuko zitzaiguna zerakuskigun! Idatzietan txinatarrek batasuna egiña dute... gero, ordea, izketarako lanak izaten. Izan ere idazkera begientzat. Aoak dasana belarrientzat. Begi uts ba'giña, osoak ez giñake. Belarri uts ba'giña, itsu gu!

Seigarren gelditzea Saigon'en: lau egun! Eta kistarrak elizara oñutsik ioaten. Ni bai arritu! Geroztik, emen bertan, Formosa ontan, tayeldarrak doaz oñutsik elizara eta meza-laguntzaleak ere beren eliz-iantziekin batetxo ez lotsatzen oñutsik. Izan ere liturgia-oituretan olakorik ez aipatzen...

Zazpigarren aldia Hong-Kong'en: egun osoz. Orduan, ordea, nituan-nituanegiz begiak zabaldu arren ezer ezin ikusi. Guztia ain nabarmen. Guztia ain berri! Aurpegiak, gazteetan bereziki, ain tiki! Indiar lodikoteak etxe apañetan ate-zain! Geroago bai, andik ogei urtera Hong-Kong ikusteko aukera izan nuan: lau illabetez.

Azkenean, iraillaren amaboskarrenean Shanghai'n giñan... eta ordutik onera ikusi ditugun aldakuntzak!... Zer? Uxtu bizian gabilta!

Orra: ibilli oietan guztietan Bolunburu lagun izan nuan.

* * *

Geroago, 1953'garreneko ilbeltzaren lenengoan nik Bolunburu'ren bearra izan. Gorriek ez ninduten beren tartean nai, eta Txina'tik alde-egin bear nuala... Shanghai'ra bultziz goizeko iruretan'edo iritxi nintzan: Bolunburu antxe nere zai. Eta, zer egin zezakean?... Ordurako ainbeste eta ainbesteri lagundu izan zien eta gorrasten berri ederkitxo zekian: isillik egon!

Ua izotzaren otza! Ni konkortuta nentorren. Eztarria erdi-itxia eta itza ia ezin oguzi!

Gero, Urte-berri egun osoa lañopean eman ondoren, arratsaldeko zazpiretan'edo irtengo bultzia Hong-Kong alderuntza eta arako Munita'tar Iñake, Andoain'go berrozpetar lekaimea antxe agertu zan neri agur esanez... Ni an nintzanekoa, Bolunburu'k esan zion Iñake'ri!

ETXEBERRIA'TAR P. sj.

ARRIATKO

BARRIK

Markiña

LOIOLA-IRRATIA ENTZUTEN

Ona emen zer ifioskun kirkil batek aurreko batzarrean: «Garagarrillaren 28 zan. Illun-keran, jai-egunetan oi dodanez, gurasoai ikustalditxo bat egitera joan nintzan eta Loiola-Irratia adi-adi entzuten aurkitu neban. Amaitzean, biak pozik, bizi-bizi ta alkarri itza kendu nairik lez ifiosten: *Onek Ondarrutarrak!... Portau dituk! Meza ederra entzun jautsegu, ba. Urtero emoten juek Loiola'tik Iñaki Deunaren bederatziruena, ta aurtun bizkaitarrontzat be egun bat izentau juek. Eta gure Ondarrutarrak enbido jaso ta ordago jo. Ointxe bertan amaitu juek. Euskal Meza ederra, benetan! Lelengo irakurgaixe Ondarru'ko abade batek. Eta bigarrena, nok uste dok? Aleman gazte batek. Aor ba! Euskeriek inorako eztauela balixo, gure kokolo arrosko batzuk diñuenez, eta orra aleman gazte ori euskerie polito ikusite. Ifiuzentiek ete dituk, ba alemanak be? Ala gutariko asko baiño zentzun aundixekuek?*

Ta sermoie?! A ixen dok sermoi ederra Aita Gotkoetxeak bota deuskune! Euskeraz. Azkenien, barriz, erderaz ekin jautsak, andik-ona jatorkuzanak aitu dagixen. Egi galantak bota jozak. Lan-bille datozenok anai lez artu bier doguzala. Bai, baiña aurtetik eurek etorri bier dabela anai lez, gure etxie ta etxeko gauzak, oitura, izkuntza ta abar ontzateko asmoz. Ez kukurrukue ta zaurkaka. Ifioen etxera gixonak etxok olan juen bier; gutxiu ondiño eskien datotrenenak. Errespetue nai deunak errespetetan ikasi daivala lelengo. Ta abar. Ederra sermoie! Bier dan modukue.

Egia. Geienak, edo asko beintzat, olan jatorkuz gurera: kukurrukue. Ta buru-apal datozenak be laster jaso nai izaten dabe etxekoon gainetik euren gangarra, ifiorenean ez ba'legez lez.

Zorionez, danak ez dira olakoak. Egia egi. Ondo dakigu ori Markiña'n bertan be. Ona emen une onetan burura jatorkun bat: Jose Antonio Fundazuri argi-konpontzaille-aren emazte gaztea. *Andik-onakoa* izan arren, alegin guztiak egin dauz euskereagaz jabetzeko; baita polito lortu be. Lenengo umetxoa ebalu, euskerazko gau-ikastaroak emoten zirala jakin ebanean, umetxoa aitagaz itxita, utsik egin gabe joaten zan gure izkuntza ikastera. Umetxu bi ditu orain: Susana ta Dabid. Susana Ikastolara dabil. Andereño onak ditu, baiña onena ama bera. Umetxuoi ez dautse euskeraz baiño egiten. ZORIONAK, Angelita!

Betor alakoak gure artera! (Ta oraindiño, betiko leloa, *arrazakeriz* jota gagozala esango dauko ospatzen daben bakarrak. Or konpon!).

SASKI-NASKI

—Lengo baten izan genduzan euskerazko Batekoak. Kristo'ren taldeko egin dira: Roque, Ainhoa, Iñaki ta *Dantzari'ko* Angel I'aren Angel II'a. Zorionak!

—New York'en urteak emonda etxeratu jaku Marifer Zenarruzabeitia. Welcome!



IKIRIKI gregorio de la revilla, 1 bilbao - 11

eziketa jostailuak eskulanetarakoak irakasketa gaiak

Jolasean ikasi, or zure aurrentzako emoitzarik onena

—Logroño aldean aize garbi osasuntsuak artuta erriratu jakut Andra Mari gabean gure Ikastolako txikitxuek; 120 gurtiz. Urrengo ikastaroan geiago ikasteko gogoz eta datorren urtean be toki ber-bertara joateko asmoz. Ekin, ba, txintxo-txintxo gure itxaropena zareon neska-mutikotxuek!

—Beribil batek takarreko galanta emonda, Cruces'en egin dau aldikadatu bat Egafia'tar Lorenzo mutiko bizkorak. Zeatz osatuta biurtu da etxera. Zorionak! Baiña urrengoan kontuz, txotxo! Bidera urten aurretik begiratu ondo alde bietara, Cruces baiño urriñago joaterik nai ez ba'dok.

ZAAR-SARITUEN EGUNA

Gizonki portau dira erriko Lagunarteak: Zapola, Gure Ametxa, Alperrak, Gure Txoko ta Jai-Alai. Eurok eratuta jai txukun biozkorra Markiña'ko Zaar-Sarituuen omenez Garagarrillaren 21'ean ospatu zana.

Lenen-lenen Meza Deuna Xemein'en, Aitari eskerrak emonaz. Meza bitartean aapaldi ederrak abestu ebezan erriko iru bertolariok, Ibarzabal'dar Juan (Erlax), Ugartetxea'tar Jose Mari eta Mafukorta'ko gazteak. Noiz barrero, ta plazan, bertolari maiteok?

Ondoren «Zerutxu»ren eskualta polita Eleiza aurrean. Gero aurrekua. Zelaia'tar Mertxe aureskulari ta Balentziaga'tar Mari Karmen atzeskulari. Olako neskatilla liraiñen ondoan bereala uxatu jaken gure zaarroi urteen pixua; an ez egoan erreuma-konturik. Gaztaroan lez gora ta bizkor jasoten ebezan oiñak, Ansola anai txistulariak, Jose, Felix, Luis eta Julian'ek doiñu alaiakin lagunduta. Angoak bai txaloak! Euriari emon eutsanean be ez eben dantzaldia bertan-bera utsi nai ta txistulari, albokari, pandero-jotzaille ta bertolariakin naste, Plaza-Barrirpe'ra joan eta an jarraitu eben alai, garbi ta umore ederrez doiñu guztiak azkeneraiñoko koipe-ondarrak agortu arte. Azkenez, or joakuz albokarienginguruan kale-jira alaijan zaar eta gazte, nor-geiagok lez. Ijutiak batzuk egin eta etxera pozik eta bake-bakean.

Baiña aiztuta utzi dogu zerbait. Bazkaria Vera Cruz Ikastetxean egin eben. Eskubidea eukan bakotzak, makulu antzera, nai eban lagun bat eroateko, senitartekoa nai osterantzekoa. Suku, paella, lebatz eta abar polito etorri ta joan ziran, *napar* balizaren txera onak lagunduta. Janari guztion sukaldari aitatu doguzan Lagunartekoak eurak izan ziran: Jesus Egia, Jose Bilbao (Axpe) ta Niko Errasti. Ez dogu sukaldarion eskua goraldtu nai, Benidorm aldeko Hotelak-edo sekuestrau ez daiskuezan. Serbitzari, barriz, lora-loratan dagozan neskatillak.

Neska-mutil gazteok erriko zaarren sukaldari ta serbitzari: orra or etenik bako kate ederra, urrezkoa baiño baliotsuagoa ta estimagarriagoa. Zaarrak eta gazteak ezin dabela alkar artu? Markiña'n bai-zorionez! Gureak lez jokatzen dakiñan erria ez da galduko.

Zorionak erriko Zaar-Sarituoi! Zuok, barriz, Zapola, Gure Ametsa, Alperrak, Gure Txoko ta Jai-Alai, ekin eta jarrai!

KIRKILLAK

Antzuola

GURE TXISTULARIAK DAX'EN

Aurtun ere, mugaz-andiko Dax erri nagusitik deituak izan dira gure txistulariak, beste zenbait errietakoekin batera, ango jaiak alaitzera, eta aurtengoz Antzuola'ko ordezkariak sei izan dira, emen ez degun askatasunean lau egun igaro ondoren, pozez beterik etxeratu diralarik.

Jakin detanez, lengo urteetan bezela, ondo baiño obeto artuak izan omen dira an, gure anaien artean.

Gure txistulariak aitatzean eta ain urrutietatik deituak dirala ikustean, poza ta trixtura biak batera datozkit.

Antzuola'n inork gutxi badaki ere ba dira txistulariak eta ez lau ta sei bakarrik, oraindik urte asko ez dala eta bat batean, ortxe agertu zitzaigun ogei ta amabost neska-mutikok osatutako talde bikaina, ala ere, eta ortarako emen Antzuola'n aspaldiko iturria dagoala eziñ uka, nolaz aaztu Simon Artolazabal, solfeo ta musika irakasle asper-eziña? Eta txistulariak? Txistulariak ere ez ditugu izan, nola naiokak.

Trixtura ere pozarekin naasian datorkidala esan det; izan ere orrelako laborea artzeko lurra, gaita, eukita, beste zenbait gauzetan gertatzen zaigun bezela, ez dakigu probetxurik ateratzen, edo... ez degu nai.

Txistulariak ba ditugula, urteko jaietan bakarrik gogoratzen gera, eta nere ustez, txistulari batek —jaino egiten ez bada beintzat— duan zaletasuna indartzeko ori baiño laguntasun aundiagoa bear duala iruditzen zait. Oker ote nago?

MATXALEN

Berango

Urtero bezela aurtengo dagonillean Makallau-Txapelketea egin da errian. Jaietako egitarau erdera utsezkoan oar batzuk dakarrez parte-artzailleentzako. «Cashuelita» gora ta bera, lerroz lerro. Obe milla «cashuelita» barik «kazue-latxo bat» ipiñi ba'lebe!

Argi dago gure (edo euren) erri onen esangura: Berango: Bera, ango,.. euskalduntasuna. Etimoloji tristeagorik!

II onen laugarrenean, Santo Domingo jaiak dirala-ta, Intxaurraga ta Amuriza bertsolariak jardun eben entzuleen pozgarri.

Zertzuk esan zituen? Ona gogoratzen dodan Intxaurraga'ren esan mamintsu bat: Guk egiten ez doguna besteak ez dauskuela egingo!

Cashuelita, cashuelita... Mierdita!

ETXEBARRIA'TAR JUAN ANJEL

Usansolo

EUSKALDUN EZKONTZAK

Ezkontza bi izan doguz gure auzunean, igaro dan Dagonillean, Oso ezbarriñak, baiña biak euskaldunak. Biakandik ikasi genduan zerbait, ta ori beti da pozgarria. Baten, jaioterrienganako maitasuna; bestean, gure oiturretan sakontzea. Lenengoan, euren euskaltasuna agertzen, biotz askotan galdu dan ordu larri oneitan; bigarrenean, oiñarri sendoagoak ezartzen. Biak, lokari bakarra: Euskaldun izatea.

Baiña jarraitu dagigun norenak, non eta zelan izan ziran ezkontza orreik ikusten. Dagonillaren 10'ganean, Garaizar'tar Fernando ta Sagarminga'tar Mari Eli, betiko baietza alkarri emoten batu ziran. Ta baietz ori ez zan edozelako Txadonean entzun: Zenbat adiskide lekuko Edo testigu lez ezkontza orretara deituak, arrituta gelditu ziran, gure erriko Abdra-Mari'ren Txadona lenengoz ikustean. Bai, lenengoz diñogu, ba tamalez, ori esaten ebenak be ba-ziran tartean.

Bai, an bertan, ainbat gaidakaotar, asaba zar, bateatu, ezkondu ta azken eleizkizunak izandako, toki zoragarri orretan, Fernando'k eta Mari Eli'k lokari sendoenagaz lotu eben euren maitasuna. Abots zoli ta garbian, euren irakurri zituen ezkontza mezako irakurgaiak, erakutsi gurean-edo, argi ta garbi dakiela nora jo bear daben aurreantzean.

Andra-Mari'ko Eleizea ederto apainduta, ta ez gitxiago ara eldu ziranak, bai ezkongai ta ziñaldariak.

Ta asieran esan doguna. Onelako egun aundi baten, batek baiño geiagok, ukatu ez da be, ixildu egingo eben euren jaiotze-azune txilikiko izena, baiña ez Sagarmingatarrak. Euren gurariz, Usansolo'ko euskal-abeñari talde bat, Julien buru ebalu, pozik alegindu zan ezkontzan kide izateko, euskal-abeñi mamintsuen bitartez.

Jaunaren omenez, Agur Jaunak entzun genduan Meza barruan Andra-Mari'ko txistularien doiñuz, eta talde orretako Altuna dantzari ospetsuak, ezkonbarrientzat, aurreku zoragarria, meza ostein.

Zorionak Fernando ta Mari Eli, ta ez galdu bide ona. Eskerrik asko Sagarmingatarrok, oraindik Usansolo biotzean dauka-zuelako.

* * *

Beste Euskal-jaiak, zer beste egokiagorik esan geinke; Zornotza'ko Larrea'n ospatu genduna, Dagonillaren 14'ganean. Jai onetan aurrelari, Zabala'tar Ander; Zornotza'ko gazte zintzo jatorra ta Arana'tar Miren Josune, gure adiskide Arana'tar Jon ta Miren'en alaba kutuna.

Idazlan onetan esan dogu: *Oiturak sakondu*. Ta zelan egin be gure Ander zorioneokak, euskaldun sendi sutsu bi oneik bear izan ebena.

Ezkontza-meza barruan, eta ezkonbarriak Jaunari oparia eskeiñi baiño len, gogoketa otoitz-gai edo meditazio bat. Zornotza'ko dantzari batek, auresku polit bat mardoztu eban altare aurrean, esan gurean-edo: «Ez aitzu orain egingo oparian, euskaldun kristauak zareala, ta egun parebako onetan, zuon gai garrantzitzuena, orrek izan bear dauala».

Euskera garbian buztarri bakarrean lotuta, poz ta alai urten eben Larrea'ko Andra Mari'n txadonetik, Zornotza'ko dantzarien arku ta ezpatapean arturik eleiz aurrean. Jakiña, onen ondoren dantzaldia, ezkonbarrieri eskeiñita. Onela ikusi gura geunke gure gaztedia, baiña ez folklore lez, Ander eta Miren Josune'k artu daben lez baiño: Euskaldun sustraiak sendotzeko, alkar berotzeko, asaba sustrak itxitako lege, oitura ta nortasunean jarraitzeko.

Betiko zorionak biontzat, eta ez gitxiago zuok sortutako sendieri, euren seme-alaberi esne garbia zelan emon jakin dabelako.

ATXUTEGI'TAR BITOR

ERRIATZA

BARRIA

Zornotza

SAN ANTOLIN JAIK EPALTZA'N

Bizkai'ko erri askotan lez, emen Zornotza'n be, San Antolin jaiak ospatu dira. Lekeitio'n beste zarata ez eben aterako, baiña Lemoax-gaiñekoak baiño geiago bai: bakotxari berea. Jai-cratzaillecn trebetasunak asko esan gura dau.

Etxano ta Amorebieta, len bakotxak bere udal-etxea eukeenak, orain ogei bat urte alkartu ziran. Epaltza, Etxano'ko alderdi zoragarri bat dozu; bitxabala dauko, bai Ategorri'tik, bai Etxano'ko parroki ondolik; ezta aldatz bakoa, baiña polito ibilli leiteke bertatik zear. Eta, esan daustienaz, il onen lenengoan, Antolin deunaren bezperan, Bilbao'ko Gran Via'n baiño kotxe geiago bertan egon ei zan. Ezta gitxi, arrano pola!

Toki eder-ederra da. Eta auzune ontako etxeak be, gaur batzuk zartu ta jausi-itxura daben arren, geienak azken urteotan barriztuak izan dira, ta zugatz, solo ta piñu artean olako moltzo ikusgarria osotzen dauskue.

BOLARIEN NOR-GEIAGOKA

Eder izan yaku euskaldunoi indarketa; len eta orain. Beste joko ta kirolketa askoren artean, azken urteotan batez be, bolaketa or dabil bizi-bizi, emen Zornotza aldean beñik-bein.

Epaltza'n be bolalariak zirala-ta batu zan ainbeste jente, gazte ta zar, San Antolin bezperan. Domekea zan, eta ezta arritzekoa. Goizeko amarretan emen ziran bolalaririk onenak, euren eritxiz beintzat. Banan-banango VIII txapelketea ospatu da aurten; eta ondo ospatu be, lenengo egunean; bigarrenan, biñaka. Biotan, ederto: onetan mutillak dira gure gizonak.

Biñaka oneik jokatu eben: Ander Mentxaka ta Josu Arregi'k Bizente Izurtza ta Jorje Goiriaren aurka. Lenengoak irabazi eben.

Sari galantak banandu ziran: Covimar'ek emonda 4.000 pezeta ta trofeua; Makatza'k emonda 2.000 pezeta ta trofeua, ta orrelaxe gaiñerakoak, 12 sari 17 milla pezetaraño.

Bolatoki ederra daukie epaltzatarak; es-talduta euki be, oraintsu egiña. Eta gorputza olako ekinetan nekatu ta izarditu egin oi dan lez, ardanetxe polit bat, len bedar-leku zan tokian. Orretan be mutillak dira gure baserritarak; edaten eta jaten, esan gura dot. San Antolin bezperan batzuk sabaiko bedar artean lo egin eben, andrak esan dabenez, etxean beroegei egiten ebala-ta. Bai, jan-edanak errez jarten dau gizona dantzari.

ELEIZ-JAIA

Il onen 2'an, goizeko amaiketan mezea. Ermita polit jagia dan San Antolin'ek Epaltza'n daukoma; bertokoa arduraz zaindua gaiñera. Onetan txalogarri dituzu epaltzarrak; soin eta arima gara, ta biai emon bear yake dagokiema; gorputzari jana ta atsedena ta arimeari grazia ta otoiitza.

Arimearen txanda zan, batez be, meza-tako ordua. Ermita zabala polito jentez beterik. Aurreko gabaz bero ziranak ez egozan oindiño barru-gauzakaz, epirituari berea emoteko lain zirala. Alan be, alkartu giñanok, meza ederra eskiciñi geuntson geure zerutar zaindariari, epaltzatarrentzat berariz laguntza eskatuaz. Abestua izan zan, jai aundietan lez. Kanta, argi ta lore eleizkizun bikaiña.

Bigarren egunean be, bardin; au da, illaren 3'an, Epaltza auzunean ildako guztien alde meza abestua.

EGITARUA

Ertz guztiak ondo ebagiteko, jai-antolatzailleak San Antolin jaiak iragarriaz, egitarau eder bat atera eben, kolore bitara ta izki andiz atera be. Etzan merkea izango.

Nik uts bat aurkitu neutson. Zornotza Bizkaia'ren biotza dogu; euskeraz egiten dogu, Epaltza'n batez be: emen ez daukagu iñor euskeraz egiten ez dabenik. Eta, alan be, egitarau garesti au dana, goitik bera, erderaz egiña dogu. Au bai dala Epaltza'ri arpegi-arpegian zaplada ederra emotea! Gure erriak eta gure euskerak ez ete dau ori baiño lotsa geiago mercezi?

Ia, ba, Epaltza'ko San Antolin jai-erantzailleok: urrengorako ba-dakizue, iragarri bietara. Zeuok orretarako beste ez ba'zarie, neuk jarriko dautzuet euskeraz. Eta iñok be ez dau zer-esanik izango.

OIZ

Galdakano

MENDI-IBILKETAK

Ba-dira udaldian mendigoizaleak, beroak emoten daben nagikeriagaitik-edo, gitxi batzuk ezik, menditik ez dabiltzanak. Beste asko, itxas-basterretako mendi koskorretan edo inguruko beste batzuetara noizeanbein urtenaz, udea igaroten dogunak. Baiña ba-dira, banaka edo talde txikika, ondo gertuta, mendirik gaitzenetarako ondo trebetuak aurkitzen diran ezketiño, euren lanetik edo ogibidetik azke dabezan egunetan, oporraldietan, goi-mendietan, nekerik aundienan azpian igokerarik arrisksuenak garaituten dabezanak. Zorionez ba-doguz oneitariko mutil eta gazte apal, baiña kementsu batzuk be erri ontako «Ganguren» mendigoizale taldean.

Dagonillaren erdi inguruan, Ruiz'tar Joseba, Irastorza'tar Xabier eta Telleria'tar Joseba-Mirena mutil kementsu jatorrak, Suisse'ko Zermatt uriraño joan ziran, orretarako milla ta bosteun aneurkin euren berebillagaz igaro ondoren, eta bertara eldu ta irugarren egunerako Alpes'etako aitz goiti ta erpiñen artean gaitzena dan «Matterhorn», edo gure artean «Zerbino» izenagaz ezagutzen dan 4.478 neurkin goitiko aitzera igon ziran. Aurreko urtean be, an izan, ziran, edo bere inguruan, baiña eguraldi txarragaitik ezin izan ziran igon; bai ostera Mendi-Zuri'ra; Mont-Blanc.



Matterhorn ori, Dagonillaren 17'ganean igon eben, eta egikizun orreikin pozez ba'egozan be, ez ziran garaitza orreikin naikotu, ta il orren 20'ganean, Errosa-mendi edo Monte Rosa, 4.634 neurkiñeko mendi gaitza igon be bai... ta zelango gaiztasuna mendi orreik daben jakiteko, auxe esango dogu: Lenengoan, Zerbino'n igon-jatsieran amabost ordu igaro ebezan, ondo be ondo ibillita; bigarrenan, amairu ordu. Beraz errez ikusten da benetan ondo trebetuak aurkitzen zirala, ordu guzti orreik, zama gogorra lepoan ebela, aitz arte artan ibilteko.

Ez dira izan iru mutil oneik bakarrik mendigoitze jakingarriak egin dabezanak, orreñan garrantzizkoak izan ez ba'dira be, Dagonillaren 24'ganean, Azpilla'tar Joseba Mirena ta Ereño'tar Errupin gizon gazte azkarrak, Oskako Benaskez'era joan ziran, eta lau egunen barruan, inguru areitan dan 3.308 neurkin goiti daben Bereta aitzetatik igaro ta 3.404'ko Aneto ori igon ondoren, barriz Benaskez'era jatsi ta Ordessa'ra jo eben, inguru artan diran 3.076'ko «Pico del Infierno» ta asko gitxiago ez daben «La Gran Fachá» aitz zorrotzak igoteko. Beraz, txalogarria baita, adizkide zintzo oneik egindakoa be.

Beste galdakanotar kementsu bat, ibilketa aipagarriak egin dituna be izan dogu. Berau, Arrieta'tar Sabin dogu. Padura, Goiko-gane ta Basauri'ko beste mendigoizale batzuk lagun ebazala, ondo gertuta aurkitzen dala erakutsi dausku. Zortziren bat egunetan, Erreimosa'ko «Alto Campoon» urten eta «Peña-Prieta» «San Glorion»tik eta mendirik mendi «Europa'ko Erpiñetara» joan ziran aitz goiti orreik batetik bestera igon eta jatsiaz, Covadonga'ko Apaiztegi'raño eldu ziran. Ibillaldi gogorra ta luzea benetan gure Sabin kementsuak eta bere lagunak egin dabena!

Asko poztu gaitube gazte euskaltzale, ta beraz, AGUR'en irakurleok lortu dabezan garaipenak. Gure zorionik samurrenak danoi.

ERİYOTZA

Erriko igeritegian egoala, igerilari purrukatur zan izan be-ta, gaixo samar sumatu ta bertan il zan Elorriaga'tar Andolin gizon euskaltzale argia, irurogei ta sei urtedun zala. Goyan Bego adizkide ona, eta lagun gaitube atsekabeen bere seme Andoni ta anai-arreba guztiyak.

BASA JAUN

Mendexa

Pelotalekua be konpondu genduan, erritar batzuek borondatez lana eginda. Erriko Etxe edo aiuntamentuak ordaindu zituan bear ziran materialak.

Aurten, erriko jaiak, Lea araneke bost errietako gaztediak eratu ditu. Ikus-kizun politak izan doguz.

Dagonillaren lenengoan izan dogu Mendexa'ko Zaindariaren eguna: San Predo Kataietakoa. San Ignazio bezperan, gau-dantzea edo «verbenea» jarri eben, jaletarako dirua batzeko.

Zaindari egunean, amaiketan, meza nagusia. Meza ostean, pelota jokoa; erriko gazteak jokatu eben. Ondoren, Amoroto'ko ezpatadantzarien saioak.

Arratsaldean, marmitako sariketea. Bost taldek artu eben parte, ta Amoroto'ko Mila ta Paki bikotea gelditu zan irabazle.

Gabean, erromeri alaia.

Illaren bian, meza nagusi ondoren, erriko gaztetxoek pelota jokoak. Arratsaldean, umeen jolasak. Gabaz, erromeria.

Illaren lauean, igandea, amarterdian, meza nagusia. Ostean, Portugalete'ko «Danok Bat» izeneko zortzikotearen abesti ederrak entzun genduzan, eta Amoroto'ko txistulari taldearen saioa.

Arratsaldeko seiretan, zortzikotearen eta txistularien bigarren ekitaldia izan zan, eta ondoren, txirrindularien «Mendexa'ra igoerea».

Gabeko erromeriagaz amaitu ziran jaiak.

ERİYOTZAK

«Gosizkua» baserriko Pedro Mari Juaristi il da, 82 urtegeaz, ta «Aristi»ko Bizenta Agirre, 68 urtegeaz. Goian begoz!

Euren etxeko ta senide guztiei laguntzen dautsegu atsekabeen.

TXAKARTEGI'TAR JOXE

LANDAJUELA'TAR A.

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra
BILBAO - Casco Viejo
Tenderia, 15 eta 16

BIDEGOIAN'EN

Azpeiti inguruko euskera egiten dan lekutara nator gaur. Tolosa egalera. Gipuzko aldean, bere osotasunean, geientsuen egiten dan ingurura.

Leku askotan ez da gertaten emen oi dana.

Erri bi alkartu ondoren, bietara be 740 bizilagun batzen dira. Euskaldunak danak. Bertan jaio ta bertako jatorrikoak. Euskera entzuten jaio, euskal esnea artu, lenengo kutunak euskeraren samurrean sentidu eta gure izkuntza au ikasi ta beragaz jarduten dan tokietara.

Orra, ba, euskaldun erri oso osoko bat. Baiña ementxe be eundik eun euskera egiten dabenik ez. Oraintsu P. Irizar'ek egindako ikasketa baten ala esaten da. Amar lagun, ain zuzen be, euskerarik ez dakienak. Ez edozein, erri txiki bateko artu-emonetan: iru maixu, medikua eta bere sendia.

* * *

Bidegoian erria nun dagon?

Goazen Azpeiti'tik Tolosa aldera. Zezen praxa'ndotik sartu ta bide bi aukeratu leikez: Errexil'ndotik zear Bidani'n sartzen dana, edo kilometroren bat geroago, barrurago, Goiaz'era zuzen doana. Beste euskaldun egiten dan irugarren bat artzen ba'koz, Beizama'tik zear, Bidani eta Albistur bitartean lagako zaitu.

Gaur bide-kurutze ori baiño lenago geratu nai dogu.

Bide bietan be aldatz eder eta gogorra. Ori bai, bietatik be ikuspegi zoragarriak. Bide ibilliagoa, bear ba'da errezagoa, lenengoa. Ni mendizalego sentiduten naz Goiaz'koan. Errezagoa goiak artzen dira, edo ariñago. Bestean luzaro mendi artean ibilli bear dana, emen mendi gaina lenago artzen dala dirudi. Eta aurreko mendiak, Ernio'ren arkaizak, norbere pareago igarten dira. Egia esateko, goi alderdiko bidea bestean zabalago da emen baiño.

Oraintsu batu ziran Bidani eta Goiaz. Ortik, bien artean konpondutako izen barria: Bidegoian. Ara emen erri zabal bat, Ernio eta Urraki mendien maldatan, aize fin eta eguzkiaren galdatan.

* * *

Goiaz'en, baserri-etxeetan, irutik bat galdu dira denpora gixtian. 31 baserri egozan oraintsiarte. Gaur ogei gelditzen dira. Besteak, bederatzu ustu eta iru aldatu. Aldakuntza oneikin jakin dabe aukerako zeregiña emoten. Bi, Etxeberri eta Mizar, eskoletako umeen udako bizitoki edo koloni izateko aldatu. Ondarrabitarrak, emeko etorten dira Etxeberri'ra. Mizar'era, edo toponimi zaleren bat burua apurtzen ibilli ez dedin izen osoa esanda, Mikelandegizar'era, zarauztarrak.

Ikusten danez itxastarrak maite dabe mendietako aize garbia. Eta menditarrak be ba dakie itxasoetako lurrun amets egiten. Ai maite minduen kanta kezkatu eta samurrak!

Itxasoak urak andi, ez da ondorik agiri, pozik igaro nezake nere maitea ikustegaitik.

Irugarren etxea, Lete, zartzaro agurgarria darian euskal Maite, jator baten atsedean toki biurtu da. Lopez Mendizabal'dar Itxaka'ren arnas toki ta bake kabi.

Baserri bitan bakarrik bizi dira emen errenteruaik: Gibitegi eta Iriondo'n. Bestetan, beste ogeitan, etxe jaube dira bertakoak.

Auzoan, Bidani'n, azken urteotan, 22 baserri-etxe gelditu dira surik barik. Ala ta be beste berrogetamar kontatu leikez Elbarren, Eliza, Erloa, Erreka eta Santa Marina balleretan. Erri buruan lau.

Oargarri bat. Geienetan Eliza dagon lekua izaten da erri-burua. Bidani'n, ain zuzen, ba dago Eliza ballerak, baiña ez da egokituena. Origaitik oraindik eun urte ez dirala egin zan barria Erreka balleretan eta 1890 urtean zabaldu zan eleiza au. San Bartolome bertako zaindaria. Goiaz'en, Andra Maria. Origaitik Bidegoian'en, Dagonillean, jaiak ez ei dira il erdi osoan amaitzen.

* * *

Gipuzkoa'ko errietako plazarik gorena, Goiaz'ko plaza dala esaten da.

Egia da Arantzazu itxas-neurritik 720 metroara dagola eta Elosua be 562 metrora. Ala ta be ez bata eta ez beste ez diratsen erri barruko plaza leza. Arantzazu Oñate da eta Elosua Bergara. Goiaz'au 520 metrora egiten da eta Bidani'koa 490'ra.

Udarako erri aukerako da Bidegoian au. Baketsu, garbi, osasuntsu eta giro oneko.

Beste jakingarri bat: ain zuzen be Goiaz' en gertaten da Gipuzkoa'ren erdi erdia. Puntu ori, diñoenez, Izpille baserrian egiten da.

* * *

Bidani'n, Elbarren balleran ba dago gaur etxe-bizitza biko baserri andi bat. Ba dauka bere izena: Usarraga zarra. Ez dakie askok izen ori. Geienak beste deitura errikoago bat emoten dautse: Diputaunekua.

XV gizalditik entzutetsu ziran Basarte eta Usarraga inguruak. Ain zuzen be ementxe egiten ziran Gipuzkoa'ko Batzar Txikiak, 1457 urtean alakoak egitea erabagi zanetik. Ala ta be toki oneitako batzarrak ez ziran ze-esan, azpikeri eta akiakula faltaz gelditu. Ain zuzen be etxe barruan egiten ziran batzarrak bakarrik balio ebela atara eban norbait. Beste batzarrak, atadian, nai elizan, nai zelaian egindakoen erabagiak ez zirala aintzat artzeko. Amarren bat urte iraun eben eztabaida oneik. Azkenean be gauzak argitu ziran. Gero parrokiaren nortasun osoz egiten asi ziran. Orduko parrokiaren. Zegaitik esan ete eban Lope Isasti lezotarrak, 1625 urtean egin eban «Compendio Historial de Guipuzcoa'n», Bidani'ko eleiza zera eta goiztuztako eta batez be eleiza berro gaito asarrekortzako berebizikoa zala?

* * *

Judearrrik edo ta mororik egon ete zan Bidani'n?

Errioxa'ko Naxera'n ezagutu eben Bidani'ko Gartzia Lope. Gerra gizonak ziran abizen eta famili onetakoak. Aita, Alfonso, Domenja G. Andiaren senarra, koronela izan zan. Semea Naxera'ko Gazteluan jaurlari, gobernadore. Geroago Treviño'n, bertako agintari nagusi. Il be emen egin zan.

Azken-nai edo testamentu zabal eta utzu askokoa egin eban Treviño bertan. Bere ondasun eta aberastasun ugariak, Bidani deitzen ziran guztientzat laga zitun. Akats edo kokxa bat: judear edo moro ez ba'ziran. Odol garbiaren maitasuna edo ta siñiste estu eta ertsi baten ondorena?

XVI gizaldian zan ori, ain zuzen 1511 urtean.

* * *

Goiaz'en.

—Andre, ikusi ete neike zuen Andre Mari zaarra?

—Zer ba, Ama Birgiña berrien bat sortu al da?

—Eleizan dozuena baiño beste bat ez al zenduen? Ez al zan beste irudi zaarrago bat? —A! Ba dakit nora zoaren. Torrean gordeten zan a?

—Bai. Alako irudi dotoreen bat autsez beteta, galduta or euki ei zenduen. Ez al zenduen maite?

—Zaude ixilik. Ez jarri ni santu-santen aurrean dudetan. Kontuz geo! Nork esan du guk maite ez genula? Ez etorri geo iñori adarrrik jotzen. Erakutsiko ikizkitu nai baldin ba'zuzu adardunak. Ia, ixo geo!

Olgeta gitxi gure andreak eleiz kontuekin. Zintzoa bera. Bete-beteko.

Eleizako kanpai torrean Andra Mari'ren irudi gotiko crako eder bat billatu eben orain urte batzuk. Noizkoa? Ez jakin. Bai irudi bakan eta ikusgarria zala.

Bildurtu egin ete ziran goiztarrak lengo irudi a, bear ba'da zaarren denporetan ainbat urtetan egin zein kan lekura biurtzen?

Gaur, Aralar mendietako Larrunari eta Auza-Gaztelu'ra joaten diran mendizaleak, Goiaz'tik kilometro askotan, Abalzizketa'tik Zaldib'irako bidean, Larraitz'eko ermita-txoan gelditzen ba'dira, Andra Mari orren begirapen samurra ikusi eta artu al izaten dabe. Orra nun dagon Goiaz'ko irudi zarra, Ernio aldetik Aralar ingurutara aldatuta.

* * *

Baketsu bizi lei Bidegoian'en. Udarako leku bizi eta atsegiña. Baiña biziteko lan egin bear da.

Emen, baserrietan eta kalean, zerbait billatu lei. Danentzat bai? Egunero ogetak lagunek urtetan dabe kalera, Tolosa aldera, industrietako zeregiñetara. Baserri askotako gaitza da gaur ori.

A. ZUBIKARAI

AGVR

Apartado n.º 2
BILBAO

FRANQUEO
CONCERTADO
08/55


BETARRAM

Gure ordularian bederatzirak ziran Betarram'era eldu giñanean.

Ba dauke Betarramitat deritxoek lekaide oneik Euskalerriaz zerikusia. Mikel Garikoitz gure santuak iraxi zituan eta gaur dituen lekaiderik geienak, erdiak baiño geiago, euskaldunak dira. Baiña euren lana amalau laterritan egiten dabe. Euskalerrian ez. Nik uste dodanez, gauza au aztertutera bearturik dagoz betarramdar lekaideak. Mikel Garikoitz euskaldun jatorrak ori eskatzen dautsela uste dot.

Baiña berandu zan lekaideekaz berba egiteko. Ateak itxita egozan. Eta andik Lourdes'erantzta urten gintzazan. Emen betiko eta ezagun diran eleiz-kizunak eta geroago ta jende geiago. Turismoa ta erlejiñoa ondo batzen dira an.

Bertan gaba igaro gendun. Ez zan erreza ostatua arukitzea, baiña azkenean lortu gendun.



Astearte edo martitzen goizean barriro Betarram'era joan giñan eta ango eleizea ikusi gendun. Baita Mikel Garikoitz gure santuaren gorputza be kutxa eder baten sartura.

Gero Betarramdar bigaz berba egin gendun, euskeraz, eta andik Auñamen-dira jo eta bazkaltzeko Pantikosa'ra eldu giñan. Gaberako Zaragoza'ra. Emendik, bazkaltzerako, Errioxa'ra eta Santo Domingo de la Calzada'ra. Gure adiskide min Jose Lasa'gaz egin genduan alkar-izketa luze bat. Jakituna ta euskalzale jatorra dogu Lasa. Bere liburu-denda «Kresala»n liburu irakurgarriak saltzen dira.

Eta arratsaldean etxera.

Iru egun bete-beteko eta pozgarriak oneik. Ba ditu gure Euskalerriak, ibiltaldiak egiteko txoko eder eta ikusgarriak ugari.

GAMIZ

TXABOLAK

Bilbo'ko gerría dagiela, ta beste uri andietan bezela, auzune lander beartsuak aurkitu geinkez inguruetan. Eun milla biztanle euretan bizi edo erdizka bizi dira, ba, bertakoen bizerea ez da ez oso pozgarria. Geinena beste errialdeetakoak, euskal-industri usain aberastuak erakarri ebazanek dira. Ta, bai etxeko baita kanpokoan obekuntzagaitik ere, al dan guztia egin bearrean gagoz.

Gure uri ingurumarietan mendizka ta muiño ezbardinak daurligun ta izugarriko aldatzak geien baten, uraren urritasuna, tximist-indarrarena be bai noizikpein, abar t'abar batetik; ta tama-leiz gogo-biotzen aldetik bestalde, oztasun nabarmentsuagoa oraindikarren jasan bearra dabe eurak.

Enoa baiña emoten luzatzera, ta bai zenbaki batzuek onetera. 900 txabola, or nunbait, ei dagoz Ollargan, Iturrigorri, Peñascal eta Erandio aldeko Arriagas'en kokaturik.

Urte batzuk dirala ta egin bearreko zera zanez, Udalaren agindu zorrotzez, gurain txabola bota ebezan ta Otxarkoaga alderuntz bizi-lagun geienak aldatu. Egikizuntz au txalotua izan zan, baiña orduetik ona gure zelai ta zugaitz-peetan ur zaparranda on baten ostean

perretxikoak ugaritu oi diran lez, bardin samarrean, barriren barri txabolaz inguraturik aurkitzen gara, ta neurri barriak artu bearrean noski.

Oraingoan be, Udaletzeko arduradunak, arazo oni urtenbide txeratsu ta erriko bat emotearren, bizi-leku barriak eregitako asmoetan dabiz. Euren kopurua milla inguruko izango ei da, ta eralke-tena 500 milloi lauerlekorena ain zuzen.

Nun baiña bizi-leku barriak eraiki? Opagarria litzake txabolak aurkitu oi diran lurretan eurak jasotzea, ta olan, 300, Ollargan-Irusta'n eregitako litzakez; 200, Iturrigorri ta Peñascal'en; 150 inguru, Arriagas'en eta beste 250, beste toki batzuetan. Ori ta be, eragozpen ugariak topo gaiten izendatuko lekuetan jende-bizitz barriak jasotzeko, ta lengo baten bezela, Otxarkoaga auzunean jasoko dabezalakoan dagoz. Ortarako, Otxarkoaga auzunea aundiagotu bear ieango dabe, ta olan, auzune onen luze-zabaleran, lur guztiak lautu ta egokitu. Urte batzuen zeregin bearrezkoa.

Bilbo barriztatu bat, gerbiago bat, txukunago bat ikuskatuko al dogu? Bilbotar oroan ardurea ta eginkizuna dogu. Saiatzen ba'gara, lortu al izango dogula deritxat.

ARREGI'TAR JOSU

SENDO

Gizartean eta banazean ezbear eta jazarpn ugari izaten ditu gizonak. Orregeaitik beti izan dau gizonak bere bizitza larrian sendotasunaren bear-izana. Eta gaur Errian eta alkarren artean ditugun arazoai bear dan lez aurpegi emon gura ba'dautsegu, ez gitxiago. Sendoak izan bear dogu ba, eta sendo jokatu.

Egin dagoiugun, gure aurrean, gizon bi, gogorkeriz, alkarren aurka burrukan ikusten doguzala eta indartsuenak bestea oinperatu eta ostikoka, il bearrean daukala. Ez dakigu oraindik zeñiek diarduan zuzentasunaren alde eta jakiteko be ez daukagu era errezik.

Guk, onelan berba egin geinkie: «Ez zaitze ibilli burrukan eta alkar jotn, eta ik indartsuago aizelako irabazle aizan orrek, itzi egioak bakean orreri eta herbaz alkar ulertu zaitze; eta i, oinperatuta agoan ori, eroopen aundikoa izan adi, asarre barik jazan egik jazarpn ori».

Baiña burruka aurrera doa.

Zer egin? Gitxienez joka dabilenari oratu eta alde batera eroan eta zapalduta dagonari be oratu eta jasoten lagundu. Ori al dogun bestean beintzat.

Ez da naikoa ba, gizon bat edo Erri bat zapalduta dagoanean, onulari ona izatea. Ori baiño sendotasun eta adore geiago bear da eta sarritan gogortasun bat erabilli bearko da.

* * *

Baiña orretan be neurri batzuk izan bearko doguz. Sendotasun edo gogortasun ori bear dan baiño geiago ez dogu erabilli bearko.

Len aitatu dogun adibidera biurtuaz, gizon indartsu a alboratuteko ez da bearezko izango berari eriotzea emotea; edo beintzat ez da beti ori bearezko izango. Bear dan neurrian erabilli bearko dogu sendotasun edo gogortasun ori. Eta neurri ori kontuan artu barik ba' diardugu, gogorkerian jausiko gara eta gogorkeri ori ezbear askoren iturri izango da, bai bakoitxaren bizitzan, baita gizartean be.

* * *


Ori bear dan lez ulertzen ba'dogu eta gero gizadira begiratu, zenbat gogorkeri ikusiko dogun!: Giza-mailla txiroak azpiatzen dituenan, Erri txikiak aurrean erabilten dituenan, gizon makalak oinperatuta dagozanean...

Eta zenbat aulkari inguruko zuzengekeriak ikusita, onu onak emon eta laguntasuna ukatzen danean! Orregaitik eta orrelan ainbat enda ezeztuak izan dira eta ainbat errik euren izaera berezia galdu dabe. Eta zenbat eskubide izan diran zapalduak! Batez be, basatien legea erri atzeratuetan izaten da nagusi, baiña iñoiz aurreratuenen artean be bai.

* * *

Ez genduke ikusi gura gizartean erailtzerik, ez eta ezelako gogorkeririk be, baiña orretarako gizonak mai baten inguruan alkartu eta euren arteko goraberak burubide zuzenez bideratzen ikasi bearko dabe. Gogortasunaz erantzun bearko jako gogorkeriarri eta orrelan ba'da, gaitzardi. Txarrena alde bietatik gogorkeria agertzen ba'da. Orduan odola ugari ixuriko da eta beartsuenen negarrak saminduko dau gizadia.

Izan dagigula sendotasuna ugari eta gogorkeria alde batera itzita, gogortasuna here neurrian, mundu onetan bake-egille zuzenak izan gaitezun, egiten diardugun mundu barri au, geroago ta geiago, zuzentasunerako bideetatik eroan dago. Gaurko ta biarko Erri zuzen eta bakezaleak here esker ona erakutsiko dauku.



ZORRETAN GARA

Usansolo'ko irurogeta lau neska-mutil aurten, Kili-Kili'ren laguntzagaz sarituak izan dira, euskera arloan zintzo ikasten ekin dabelako. Ez da talde makala, batez be, erri txiki batekoak izateko, ta ganera, euskerea galtzen egon dan auzune baten bizi diranak izanik.

Ekintzeak, bere saria izan bear dau, ta orrela, euren irakasleakaz batera, gure Bizkai'ko basterrak ikusteko, joan-etorri bat egin dabe, egun alai baten luzeeran.

Ibillaldi onetan kide izateko, deituak izan giñan, ta zeregin ori poz-positik bete be. Baiña geure kolkoari itaunketa bat egin geuntzan, bai Santimamiñe'ko atxzuloan, Lekeitio'ko ondartzan, Mendexa'ko zelaietan, bai Ondarru'ko jolas-tresnen artean gengoala:

Ta, arduradun oneik, nork sarituko ditu?

Etxeko ardurak, batek baiño geiagok lantoki edo ikastaroko zeregiñak, eta oneik gitxi ba'lira, iñoren umeen izkuntzea landuten! Egun bakar bat igaro genduan ume oneikaz, baiña Jaun-andreok, ez da erreza!

Arduratu bear: batek bere eguardirako opiltxoak galdu dauako; besteak, bere alondarea ez dauako aurkitzen ondartzan... umeak egun zoragarria izan dagien, zelan jolasak gertatu, abar eta abar.

Ori jolas arloan, baiña Kili-Kili'ko joan-etorriak ez dira iñoiz be jaiegun utsak, ikasbideak baiño. Ta ikusi bear zenduezan, Santimamiñe'ko atxzuloan ikasgai bat argitzen, gure Erriaren oiñarriak euskaldun umetxo arein buruan ezartzen. Ta gure begiakaz ikusten genduana, egun bakarrekoa zan, ta bera, jolas-ikaste eguna! Baiña aren atzetik, urte osoko ikastaroa egoan.

Bai, ez gagoz zor txikerrean gure Yurrebaso aitzak, Eleni ta beste irakasle guatiakaz, batez be andereiño Julene ta Rementería'tar Pili'gaz. Ez da ikasgaiak arduratzea bakarrik, lenengo ta bein, euskaldun gurasoai euskerearen ardura sartu, neska-mutilen eragozpenak leundu, Kili-Kili'gaz artu-emonak izan, bein baiño geiago etxerik etxe Kili-Kili'ren idazki billa, nagikerian dagozen umetxoan atzetik, orrean lanak aztertu, ta sarri kartillak be bete.

Dana biotz onenagaz, norberaren atsedinari astia kenduta, iñoren saririk itxaron barik. Iñoren esan dogu, baiña ez, oker gagoz. Jaungoikoaren biotza zabala da, ta ziur gagoz, biotz Aretan berezizko tokia dago, Bere Euskal-Erri kutunaren alde onela jokatzen dabenentzat.

Baita ludi onetan be; ainbat guzur eta norberkeri ikusten doguzan gizarte onetan, zenbat biotz sutsu, naizta aurpegiz alkar ezagutu ez; zuon alde, zuon ekiñaldiakaz arrituta.

Ta azken baten, besterik ez ba'da be, emen gagoz ga AGUR'tarrok, zuon lana txalotutzeko, zuon ekintzea eskertzeko gure Ama Euskera'ren izenean.

Eskerrikasko!

ATXUTEGI'TAR BITOR

ARENAZA'TAR JOSU

Ludiko beste erri guztietan antzera, ez gara euskaldun danok iritzi batekoak; ezta urrik be! Baiña bat ez izate ori, ez dogu uste kaltegarri izango litzakenik, bata bestearen iritziak errespetatzen ikasiko ba'gendu; besteari norberana gogorkeriz ezartzeko alegiñik egingo ez ba'genduke... dagigun amets!

Naste-borraste onetan, auzokoaren iritziak epaitzen «maixu» dan «kazetalarri» bat ezagutzen dogu; laprastadetan be txapeldun aterako litzake. Lekeitio'ko jaiak dirala-ta, ez du txirritada makala egin! Euskerazko ta erderazko aldizkarietan irakurri al izan dogunez: «Lenengo euskal kultur aste» bi eratu dira erri orretan, eratzailleak, bietan, bertako gazteak zirala.

Baiña «kazetalarri» orrek betaurreko berezkiekin ikusi ditu «aste» bi orrean zertzeladak, eta eratzailleen azaleko margoak. Adibidez, ona emen orrek idatzitako zerbaite: «Bata egiazko lehena euskara utsean (euskara batuan) izan den artean, bestea, bigarren lehena euskaraz (bizkaiera trakets batez) eta erdaraz». «Bi talde hauen iritzi desberdiñak nabari dira Lekeition eta lekeitiarren artean...» «lehenak hizkuntzari erabateko garrantzia eskeintzen diotelarik, bigarrenen ustetan ordea, hizkuntza eta kultura bi (?) gauza omen dira». «Diogun, esan beharra baitdago, honako honetan tirook ez datozkigula ezkerretik,

Parkatu irakurle AGUR onetan olako atxe-sopa argitaratzea, baiña bearezko zan «erreportero» orren laprastadea neurtzeko. Ain zenbaki zale ta zenbatgeraka agertzen dakian «kazetalarri»ak, ez diñosku oraingo onetan, aste bietatik zein izan zan garrantzitsuen, bai izlarien nortasunari begira, baita entzutera edo liburuak eroatera joan zan erri pilloa kontuan artu ezker.

«Lehenengo» euskera «batuan» izan ei zan... zelan demontres izan leiteke ori? Etzan ba euskera batua euskera idatzirako, dalako «literario»rako? Ala, guk diñogunez, erri euskerearen ordezkoztat sartu nai daukuen amabako bitxikeri bat ete? Alkar-izketarako euskalkiak gordeko zirala iñoenak, nun geratu ete dira?

Baiña goazen aurrera: «Bigarrena», bizkaiera traketsen eta erderaz izan ei zan. Ori bai dala arritzekoa, izlarien artean On Joxe Migel Barandiaran zala dakigula! On Joxe Migel'ek, euskeraz egingo ebalan esan ei eban Lekeitio'n, oitura dauanez beti... baiña euskeraz ez dakientzat BOST minutuko jardun aldia egingo ebalan, olako euskal semeak be sarritan euskerearen alde lanetan jarduten dabela esanaz.


Gero euskeraz jarraitu eban itzaldia. Uste dozu irakurle euskaltzain osoko jakintsua ta gipuzkoarra dan jaun batek bizkaiera traketsa egin legikeanik? Ez ete dituz «kazetalarri» orrek Azpeiti'ko ta Lekeitio'ko euskal asteak nastatu? An bai, Azpeiti'n diñoenaz, Villasantek ta bide-lagunak euskera «trakets» eta erdelzikindua erabilli ei eben!

Beste alde batetik, zer ete da euskal kulturea norbaitzuentzat? Lekeitiar batek iñoenaz, iru badaezbadakoen jardun-aldiak eta dozena bi ulertu eziñeko libururen erakusketea ete dira «euskal kultura»? Ala, beste asteko jakintsuen itzaldiak eta irureundik gorako liburu ta diskoen erakusketea, ta salketa aundia, ez ete da zerbaite geiago?

Lekeitiarren eta irakurleen eskuetan izten dogu azken erabakia, baiña ona emen gure «kazetalarri»aren laprastadarik aundiena: Eskuindartzat salatzen daben Salinas lekeitiar gazte jatorra, «beste aldekoek», beste astearen eratzailleak, euren erakundeko lendakari egin nai ei dabe. Ori orrela ba'da, konturatuko zara irakurle, nun egoan indarra ta nun erriarren erantzun zintzoa.

Danok bat izateko erea ez da erreza izango, ez Lekeitio'n, ezta beste iñun be. Bitartean baiña, nori laguntzen dautsagun ondo aztertu bear dogu. Ez da naikoa euskeraz dalako, beste barik, itsu-itsuan, euskal jantziekin datozen iritzi arrotzeri laguntzea. Sarri entzuten dogu: «zergaitik eztabaidetan asi... ez goaz ba danok elburu batera? Ez jaunak, ez goaz danok eiburu batera, ta ortxe dago kaka!»

«Aurrerakoi» agertzearren, astakeririk aundienak esaten dabezanekin, makiña bat txotxolo ikusten dogu... baiña ori orain «modan» dago. Ez arritu ba «burges» eta burges-kume aberats eta snob'en artean ainbat eta ainbat «bide-lagun» aurkitzean... kazetalarri ta guzti!



Filolojiako jardunak

OTERO PEDRAYO eta GU

Urteetan aurrera goazenok ez dugu aztu Ramon Otero-Pedrayo galizitar idazle jakintsuak gure aspaldiko egunkari-paperetan lanik asko argitaratu zituela. Orain berrogei ta geiago urte aren idaz-lanak sarritan irakurtzen genituan, batik bat «Euzkadi» egunkarian. Eta ain maisu aundi ta galegozale argi ta sutsu izan dan letradun eta irakasle jakitunarengandik gauza asko ikasi genituala aitortu bearrean nago.

Galizitarren esker-ona ezik euskaldunona ere ondo irabazirik daukala esango nuke, larogei-tamar urte inguruan dabillen agure ta humanista ospetsu omegarriak.

Orain urte batzuek «GALAXIA» Vigo'ko argitaldari etxeak omenezko liburu eder bat eskeñi zion Kompostela'ko Unibersidadearen erakusle eta Trasalba'ko seme zintzo ta galego-zaleari.

Ez da goizegi guk ere Otero-Pedrayo'ren omenez euskerazo itz maitekor zenbait opa di-tzaiogun. Ez gaitezen motz eta atzean gelditu, ez gizalege eta ez kultura bidean.

«HOMAXE» liburu oparo artan Marañon, Americo Castro, Damaso Alonso, Lain En-tralgo, Jose Luis Aranguren... besteak beste beren aletxo eskeñi zioten. Nai ez euskaldun izan fuero-zale ta gure karlisten adiskide dugun D. Franzisko Elías Tejada, berez errioxar tradi-ziozale aditua, ez zan gelditu goresmeneik egin gabe.

Eta Otero-Pedrayo Menendez y Pelayo zanarekin alderatzen du, Galiziak katolikotasunari ta lege-zarrei zor diona oroitu araziaz. Otero ez zan karlista izan. Berak ziones: «O carlismo galego ten apenas interese psicologico» Alaz guztiaz euskaldun karlista fuerozaleen alde agertzen da esanez: «mereceiros de respeto por defender una personalidad histórica»...

Ona zergaitik euskal-erriaren eskubideen aldekoa zan. Nola ez, Galizia'rekin beti bat egiñik bait zegoan eta galego izkuntzaren zaindari ta buruzagi gailienena.

Gure artean norbaitekin alderatzekotan Arturo Campion, R. M. Azkue-edo berdindu bearko genduke, xeetasunak bereziaz.

Otero Pedrayo politika gizon baiño idazle ta irakasle jakitun izan dala guztiok dakigu. Eta Galizia'ko kultura-barrutian geien lan egin duan gizona: idazlaririk ugariena eta galego izkuntzaz izlaririk ao-eder eta mintzo trebe eta errezena.

Izkuntza arazo ta izketa-naaskerietan teoriak baztarrean utzi ta zentzuz erriko iturri gar-bitik edaten zekiena.

Gramatikarien burruketatik urrutu, sustrato-zale ta estrukturalisten eztabaidetatik igesi, iritzi ziurren jabe.

Galego-izkelgien joera sakon ezagutu nai lukeanak ongi egingo du M. Rabanal-Alvarez'en lana irakurtzea. Sustrai gai ortaz bait diardu gorago aitaututako «HOMAXE» liburu ortan.

Otero'ren lagintza etengabe idaztea izan da: eleberrri, edo novela, antzerki, saiakera, lurral-detako ikusbegi zoragarriak.

Geografia'ri atxikimendu auto zion eta erderaz idazti zuan «Guia de Galicia» gaur egun ere eredutzat ar diteke.

Otero'ren lan guztiak biotzondoz bleituak daude eta ez dute galdu gazte denborako erro-mantiko kutsua. Bakoitza bere aldiko seme bait-da!

Onela gure gizona biurtu zaigu poligrafo aundi! Amalau ta geiago novela; antzerki bi: Historia, Kritika ta Geografi saikerak ogeitabostik gora. Errebista, aldizkari, ta zer nai mota paperetan 1925'garren urtetik onuntz argitaraturiko idazlanak ezin konta alakoak: Amerika, Portugal, eta Galizia barruan ezik Madrid, Barcelona, Bilbo eta abar agertutakoak. Aleunka!

Eta mota guzietakoak. Arrituta eta txunditurik uzten gaituana.

GALAXIA'k egindako liburu ortan lerroz-lerro geienak izendaturik daude, baiñan on litzake gure Unibersidadeko gazteok jaso ta bil zitazela Otero-Pedrayo'k gure artean argi-taratu zituanak.

Gai egokia Tesis bat borobiltzeko.

Gaur egun Paris edo beste edozein tokitan agertzen diran Errebista-lanak, nabarmenenak, noski euskeratzen ari zaizkigu. Eta agidanean, gazte oriek ez dakite ezer Otero-Pedrayo nor danik. Nik uste, Galizia'ko arazo ta gora-beeratatik zer ikasi aundia daukagula aintzat artzen ba'ditugu.

Otero-Pedrayo kultura maisu aundia dugu. Eta kultura biziaren lore da; bizia bera, obeto esateko. Eta ez norberaren edo bakoitzaren bizia, erri guztiarena baizik.

Gure Euskal-Erria'rena.

Ez dezagun beñere aztu. «AGUR»eko idazle zar onek, beintzat ez luke utsegite ortan erori nai.

ANTONIO M.^a LABAYEN

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira astero-ko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakus-tokia izan nai danetik, Euskerca bera beste edozein, bereko, politiko naiz ondasungarri asmoen gaitetik daben iritxi-oneko euskaldun guz-tiak Euskeratzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabiltea-ren bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idaz-lanen erantzule bakarrak euren egi-leak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M.^a MARTIN DE RE-TANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAI-NA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guz-tirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep.Legal: BI. 879-1966

Irakaspenari buruz

Lanarekiko-Ikasbide erakundea

Gobernu'ko irakaspide gaietaz, Martinez Espereulas ministro jaunaren erabaki bat datorkigu 1974'ko gara-garrillaren 17'an.

Onela:

1'go.—Subnormalen Ikastegietan edo soñi-eskasekoetan edo atzerakoie-tan, Lanarekiko-Ikasbideak, ikasle ba-koitzak dun eskastasunaren araura emango zaizkie.

2'go.—Aurrez, ikaslearen korputz-adimenari neurritz egoki izango dan osagilleagandiko baimena bear izango da.

3'go.—Ikasle auei, ain bereziak diralarik, etzaizkie ikastaroak erabatean emango, al duten orduetan eta egune-tan baizik. Langintza bakoitzerako eta mailla bakoitzerako eratuko dira egi-tarauak.

4'go.—Lanarekiko-ikasbide agiria edo tituloa ukaiñiko zaie.

5'go.—Eziketa bereiziko Ikastegiak, eskubiderik nai ba'lute, eska bezate Ministerio onetara; baita 40 ikasle baiño gutxiago ere izan daitezke talde bakoitzean.

6'go.—Erabaki onek zabaltzeko, «Dirección General de Formación Pro-

fesional» dalakoari damaioigu esku-bidea.

* * *

Ba-ditugu Euskalerrian era berezi onetako umerik aunitz.

Bein baiño geiagotan egona nau-zute eiekin alkar-izketan. Aien ande-reño iraskeleekin ere bai.

Eta zer?

Aurrerapenik asko egin dala gure artean aitortu bear dut. Aurrezki Ku-txaei eskerrak, or dabilta diruz nola-baiten:

Garestia baiño garestiagoo zaigu irakaspide auxe. Gabiltzan eran, diru asko bear da. Beste laterrietan ere ikaragarritzko diru-iraultza darabilte. Baiñan estaduko laguntza aundiagoo artzen dute. Osagilleak edo medikuak dirala, irakasleak dirala, artarako etxeak dirala, abar ta abar».

Erakundea bear degu batez ere. Eta diru laguntza ere bai. Nola? Jaun argiak dabilta lan onetan. Ba dakite beraiek.

Ez aaztu ordea. Euskaldunei, eus-keraz. Sozio-psiko-pedagojiak ala agin-tzen bait du.

S. A.

KOSMOS 3'gna TA BERE GAIAK

KOSMOS 3'gna Ikas-liburuak bi atal nagusi ditu, biak oso berezi ta banatuak: IZADIA ta GIZARTEA.

Ikasgai aukeratu IZADIA atalean:

Izadia ta ura.—Ura, izaki biziengan.—Urpeko arnasa ta aizeko arnasa artzen dutenak: arnasbikoak.—Narraztiak.

Inguratzen gaituan aizea: Eguratsa.—Aizeak saka egiten du.—Lurralde bustietako zugaizak.—Lerkariak.

Abereen zaipideak.—Ura bear dute landareek.—Landareen erna-berritzea. Landare-gerrria ta sustraiak.—Landareak beren etsaien aurrean.

* * *

Amaika ikasgai ditu GIZARTEA atalak: Gizakia lur-lanean.—Giza-lana itsasoan. Meatokietako lana.—Lantegietako lana.

Salerosketa eta dirua.—Adimen-lana.—Erri-serbitzuak.

Bakoitzaren lana, beste guztien onerako.—Urrunerako elkar-bideak.—Gizakiak ibiltari.—Albisteak jakin eta solastu.

* * *

Arlo bietan ditu ikasgaien LABURPENAK, ikasketa erraztutzeko laburki emanak. Eta bietan ditu, iztegitxoak, ITZ ZAILLAK deiturapean emanik, adin ontako ikasleen jakite-neurrira aukeratuak, billaketan eta ikas-lanean lagungarri.

AZKARRAGA'TAR PELI'K

GAZTE

IGORRE'TIK

ARRATPKO JAIK

Arratia'n uda aldean jai asko ospatzen doguz. Erri bakoitzekoak orduan ospatzen dirala esan geinke. Nik lantxu onegaz irakurleori, zelan izan direan jai oneik, ze giro egon dan ta abar esan gura dautsuet. Orretarako orain larregi luzatu barik erri bakoitzeko jaiaren barriak emotera jarriko naz. Uste dot esan bearrik ez daukadala emen esaten dodan guztia neure eretxia dala, beste eretxi ezbaridiñik egongo ba'litzateke pozik artuko neuke.

ANDRA MARI JAIK

Jai oneik bai Arratia'n, bai Euskalerrri guztian, aparteko berezitasun bat daukela esan bear dogu.

Arratia'n erri bik ospatzen dituez, oneik dira: Zeanuri ta Igorre.

Erri bi oneik euren Ayuntamientua dauke, baita bakoitzak bere gaztedia, be... Igorre'k be bai!

Beste puntu bat argitatzeko bearrizenean dagona au da: Zeanuri'n gaztediak antolatu ebazala... Igorre'n Ayuntamientoak ipiñitako komisio batek ta komisio ori erriak ifioiz be ez eban onartu.

Puntu au argitutzea bearrezkoa da gero atarako dodazan konklusioetarako. Jai oneik analisatzeko jarraituko dodan ordea au izango da:

- 1.—Jaietako presupuestoa (Argitu).
- 2.—Antolatzaileak (Nortzuk).
- 3.—Giroa.
- 4.—Jaiaren saritetsia (Ikusi dodazan gauza onak ta ez ain onak).
- 5.—Azkenkuntzak.

Zeanuri

Egunak: 14, 15, 16, 17, 18. Dagonilla.

1.—Presupuestoa: 125.000 pts. (Ikusten dogun lez larregi ez da, baiña aurrera jarraitu eben).

2.—Antolatzaileak: Gaztedi guztia bat eginda.

3.—Giroa: Leku askotan olango euskal-girorik, ain garbia, batua, ederra ez dot larregi ikusi.

4.—Jaiaren saritetsia: Gauza onak: Garrantzitsuena gaztediaren batasuna bear egiteko.

—Gaztediak egindako euskal-giroa. onen arten «BAXATOXAK» «musika»-taldeak (erriko gazteak sortutakoa) ta EGAN euskal konjunto ederrak, zer ikusi aundia eukeen.

Danori ta oneri batez be nire zorion beroena.

—Jente asko jarri zan bearran. Ori garrantzi aundikoa da. An zar, gazte ta ume ikusi genduzan, ta olangorik ez dogu sarritan ikusten.

Beste puntu ez ain ona, egin zan euskal-jai da. Ez dot esaten euskal jaiagaitik, denporeagaitik baiño, uste dot luzeegi egin zala. Ikusten dozuen lez ez da uts andia.

5.—Azkenkuntzak: Ikusten dogu, barriz, zelan gaztedia batutzen danean mirariak egin leikezela. Batasuna, laguntasuna, orreik dira indartu bear doguzan doaiak, gorroto ta ezin ikusiak alde batera itxita.

Zeanuritarrok! Ederto batu zarie erriko jaiak antolatzeko, nik eskatuko neuskizue olan alkartu zarien ezkerro, emendik aurrera bardin alkartu zagiezala zuen erriko ta gure erriaren arazoak konpontzeko. (Jarraitzeko).

IRRINTZI

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

ZAZPI-KALEAK



CASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

ABESLARIEN TXAPELKETE

URRILLAREN 8'GNEAN? BASAURI'N

Bai, naita jente askok uste izan, Basauri'ko erriak edo bertako gaztediak, erriaren nortasuna aitzuta dabela, ez da orretara.

Egun asko ez dirala, «Auspoak» taldekoak alkar-izketa baten egon nintzan, jaiak dirala-ta.

Egitaraua, ondiño egin barik egoala esan eusteen, baiña zeozerba-ekien ordurako, ta orreri buruz zeozertxo idatziteko eskatu eusten.

Azaldutako dodana, bertan izango dan abeslari-txapelketea da. Au da, esan dodan «Auspoak» taldekoak errotutako abesti-txapelketea. Nai daben guztiak parte artu al izango dabe or, bai bakarrean, bikoteetan, bai taldeka. Eskatzen daben auxe da:

a) Txapelketa bi baiño geiago irabaziak ez izatea.

b) Diskorik irarri bakoak izan.

Orrean izan ezkerro, atek zabalik izango dabez danak, eta sariak oneik izango dira:

1: 10.000 lauerleko ta garai ikurra.—2: 7.500.—3: 5.000.—4: 3.000.—5: 2.500, eta 6: 1.500 lauerleko.

Irabazleak izentatzeko autarki emotea, era bi alkartuta osotuko da:

d) Bost izango dira maikoak, eta abeslari bakoitzaren lan oneik jagon bearko dabez itzak, soñua, ta ekitaldia, euren autarkia emoteko.

e) Autarkien bigarren zatia, entzuleak beteko dabe, bakoitzak bere autarkia emonaz.

Sei abeslari edo talde baiño geiago agertzen ba'dira, txapelketeak aldi bi izango ditu: Lenengo aldi danak abestuko dabe, ta an ikusiko da nortzuk izango diran azkenean jokatu bear dabenak. Azkenengo ekinaldira joaten ez diranai, diño, zeozer emongo jakela.

Talde onk ondo pentsau dabela ikusi daiegu, ta uste dogu oso ederra izango dala jaialdi au, jaiñez gaitera, an izango dala Mikel Laboa be, bere abestiakaz.

Lengo baten, «Irrintzi»k izenpetutako idazlantxo bat irakurri neban, eta bertan esaten eban, erria ez dagola ilda, lo baiño. Ta errazoi aundia dauko, ezpabere ikusi emen, oiñarteño beraka egiten izan dau gazteak arlo onetan, baiña apurka-apurka, ba goaz itxartuaz.

Leerro oneitatik, dei bat gure erriko beste taldeeri be, itxartu daitezela eskatuaz, bestela sarritan abestuko dauskue:

Nora zoaz, nora goaz,
bide galdu orretatik.
Nora goaz, nora goaz,
okerreko bidetik!

MAITE

ALDIZKARIEN GAIK DIRELA-TA

Gaur egun euskal-aldizkari batek benetako zeregiña bete nai ba'du, egungo arazoei erantzun bat eman bear dio.

Alegizko eredu bezela esan nai genuke, Erria aurkitzen den egoera larri ontan, ba dagozala garrantzi aundiko gauza asko, idazle batzuk kontatzen ibilli gabe nola jan daben euren tortilla atzenengo mendira ibillaldian, edo zer gerta zaion euren erriko asto zaar bateri.

Ordua dala uste dogu folklorismo uts batetik irtezeko euskaldunok. Ez da mendira joanda bakarrik Erri baten iraultza egiten, joan eta an «pozik eta alai denok» ibilliaz. Jokaera ortan —ona izatez, baiña ez aski, ez gutxiago ere guretzat gaurko garaian— gelditzen bada euskaldunen iraultzailetasuna, 50'garren mendean ere, or jarraituko dugu tenteltzar bezela, «pozik eta alai» gure mendietan.

Arritzekoa da benetan, tratamendu berdin-berdiña emotea, zozter idazterakoan, orain eta orain ogetamar urte. Pentsa liteke idazle batzuentzat debora gelditu egin dala, eta denborakin kondaira.

Nun agertzen da eurentzat gaur ere euskaltasuna, gaur bear dugun euskal-

tasuna?: «Gure alaitasunean, gure jantza ederretan», eta berriz erortzen gera leen esan dugun folklorismoan, inola ere gaindu ezinik leendabiziko aldi ori.

Ez da arritzekoa beste alde batetik, orrelako aldizkariak gaztedi sorta bat ez edukitzea euren irakurleen zerrendan. Kondaira ez da gelditzen, orregaitik, idazle batek, erantzuna eman bear du, «kritiko» izanik alderdi guztietatik.

Nun ikusten dugu gaurko egitura ustel eta iltzaileari kritika garbi eta sakon bat egiten? Aldizkari batzuetan bai, baiña besteetan ez. Eta zer gauza irtetzen da emendik? Gauza bat argi ikusten dugu: euskal-gaztedi mota bi sortzen dira; bakoitza bere pentzakera eta iritxi oso ezbaridiñakin gaurko une historikoari buruz.

Batzuk, gure uste apalez, kondaira doan bezela jarraitzen dute, baiña besteek, uste ezik, XVII mendean jarri genezakez. Au idatzikeran gauza bat eskatzen diogu bakarrik, dagokionari, ezberdintasun ori sustraitik kentzeko, leen bai leen eman dezakela bear diran pasuak. Leen bai leen, gero berandu izango da-ta, eta danontzat mingarri, eta oso kaltegarri.

«ESIÑA»

ESNEAGAZ EGINDAKO

ESKATU BASERRI

BASERRI

UMETXUENTZAT

ADINEKOENTZAT

CHOBIL

ESNEAGAZ EGINDAKO

Ibillera Larrixek

Aren Domeka arratsaldien, etxeratu nitzenien, amak, nire itxura tristie ikusi eran, esan bier: «Baiñe, Juan Joxe, denporie baiño len ill, il bier dozu!»
—Ama, artistiek, nire moduko artiste probiek gosie, gosie pasau bier dau...

* * *

Domeka goiz argi baten, Ondarru're eldu nitzen. Alameda ziñien kantau bierra zala-ta.

Kirru, Urresti, baritonue; Iseta, piano jotaillie. Euroi ba, saldau sasoie etorri jakue, da, ganera, Apirka tokamena. Apurbat baiño geixa euron erruki, pentsau dabe gure artiste aldran, putziño bat emotie, Kirru'n eta Iseta'n soldau poltsak apurbat berotzeko.

Mugerza, motrikuar tenorra; Kirru, bera, baritonue; Bitxor Txakartegi, tenorra, eta neu, bajue. Bajue saill eta era guztieta begitxu ezkeru, bajue...

Onek autuok edo ibillera estu samarrok izen zien oiñ ogeta amabost urtetik gora. Domeka goiza, amaiketan zan gure ekiñaldixoi, Ziñe Alameda'n.

Amarretan, zoritxarrez, suertau de Liebar, ondarrutar maixu onan enterue, de erri guztixe bere laguntza. Amabixetan, prontoien, Etxaniz, elgoibartar indertsue, da, jakiñe, geixenok bera ikusta...!

Gure «negosixue», amaie lagunuen pagamentue izen zan; ogei erriellen bakotxa, amaie ogei errieleko.

«Adio a la vita»...!
Elektrizistiek amar duro..., naitxe de balde emon triatue, gure diru garbixe:
BOST PESETA.

Zeiñ ete-zan geratu zana eurokiñ. Neu, ez beintzet...!

Mugerza'k: «Andre maite zaitut...», «Adio a la vita...», artu dau bere autobuse ta Motriku're, eguerdi inguruen; etxera beintzet, jan orduen. Kirru'k: «Zertarako ikeratu, zerue garbi dago...» Iseta, maixue, bardiñ, bixok ondarrutarrak, Txakartegi lez. Onena, «Eziñ leike izen, eziñ leike izen, ori, andra or ona da...» (Danok erderaz, derrigorra ba). Ba onek iru lagunok, ondarrutarrak, etxien.

Baiñe, bajue, neu, sekulo baiño «bajuau». Arratsaldeko seiretan, seirek arte autobusik ez, da Ondarru'n bakar-bakarrik, gosiek oratute. Alamedako pasiolekuen jarri, da, debillidadiak jota, buruko ulietatik ankako bietz lodixe arte amesetan esnarik:

—Esnatu, baltza,
Zurixe dator,
Bapor bertatik
Begira dago...

Sorozabal'en «Taberna del Puerto». Alamendan, Juan Joxe, «gosiek janda», erdi lo:

—Esnatu, baltza...

Ondarru'ko jende moduek, boltan-boltan, barrez eta jaupan: «Mozkorra...!, mozkorra! Gizona, looo...!»

Neure pentsamentu debillok ekarri'oste munduan, betiko munduan irudi negargarrixe. Au dok ona! Gizona, artistie bere ustez, gosiek jota... beie jota..., da erri guztian paillue: Mozkorra...!

Zenbat olako: Egixe okertzie? guzurre zuzentzie...!

* * *

Arratsaldeko sei eta erdi inguruen, etxeratu nitzen, ordu onien! Amak, nire ama maite samurrek, munduen euki dotenik andra zintzuenak, diñoste, bere arpegi negar-malkoz betiaz:

—Baiñe, Juanjoxe, denporie baiño len ill, ill egingo za. Ori da arpegi era tristie...!

—Ama! Arpegi tristie...?

Ez, ez etena...

ARTISTIE...!

JUAN JOXE ARRIZABALAGA «MARKIÑA»

Gazte gera gazte ta ez gera konforme, zarrak ere oraindik nunbaiten ba'daude. Zarrak gera zarrak ta ez gera konforme, nai deguna gaurkoz, ikusteko gaude.

* * *

—Kaixio, Pello! Zuk... naiko al zenduke zartzarora eldutea?

—Bai kontxo! Poozik atan be!

—Baiña... 90 urtera? 100 urtera?

—Bai gizona!, bai!

—Adin orretan, gizona, aspergarri da ba!

—Besteentzat bai; norberantzat, ez!

* * *

Gaztediari dagokionez, kontuz ibilli bearra dogu; bakotxak bere jokerea, izakerea bai dau. Bakotxak bere oldarra daroa dolean; epelean, beroan naiz bizikero azaltzeko arazo bakotxean.

Itz baten esateko, dan-danok berdingeak garala esan nai dot, diperenteak.

Bakotxa bera, bat bakarra da. Bakotxa, dan lez artu bear da, batez be gaztetan, bere giroan ezitzeko.

Alan egiñaz, gaztea, zerbait izatera elduko da; danok bai daramagu gaia barruan, zerbait izateko, bere izakeraren barrutian irakatsiak emon ezkeru.

Batzuek, arazo baterako balio izaten dabe; beste batzuk beste baterako.

Bakotxari, bere almenak bidez jarri bear jakoz; ezin daben gauzetatik aldenduaz.

Bere jokerea matematikutzarakoa baldin bada, ortara zuzendu.

Zenbakitzarik ikusi ere egin nai ez badau, eroan beste bide batetik, bere gogokotik.

Orixe da bidea, gazteek aurrera eramateko. Edozein izan ei daiteke zerbait, gairen bat, almenen bat, erraetan daramalako.

—Eta... iturrira joan eta ura ekarteko baiño balio ezpadau?

—Orrek ez daukala baliorik uste dozu ala? Arek egin dau bere lana! Zu, geiago balio dozun ori, egarriak itoten zeunden ezer ezin egiñik, eta arek ekarri dautsun pitxarretik ur-dangada ederra egin dozuncan, barriro asi zara zeure lanean. Besteek ere berdin; beraz arek egin du bere lana; ta lan ederra egin ere! Ez al dozue uste?

Or ikusten da, bakotxak bere lana, lan ederra egin daikela, bera baiño geiago diranen alde. Gitxiago danaren laguntzarik bagé, geiago danak, ezin egin ezer.

ABELETXE

OITUREA II

Oitura. Itz onen barruan amaren altsuan baiño gauza geiago gorde leiteke zela dirudi. Itz ederra ta atsegiña da. Norberak geien burutu dituan egintzei, osora bota ta, oitura esaten dautsagu. Barrukoa da ba. Jakituria ta maitasun guztia, ortxe, esi orren barruan pillatuta bezela, amodioz beterik geratzen dira. Norberak egiña, ta sarritan egiña, iñork ez dau alde batera botata isten. Bere eretxiz, zuzen jokatu ebanak burua ondo ba'dauka beintzat, beti onartu ta maitatzen dau bere lengo jokabidea.

Oiturak bizitzaren aro guztietan gizonak izan oi ditu, naiz aldran, naiz bakarrean. Berezko legeak bezela dira. Umeak umeengandik alde aundiak ditue. Mutil kokkor ura egizala aundia da ta onberatsua. Edozeiñek igerten dautso ume aren edertasunari. Ikasten gogotsua, berak artu ditun almenen eran. Beti zintzo ari da liburu artean, egunetik egunera, naiz ta astiro izan, beti ezau-pide geiagogaz burua argitzen dau. Ikasteko lera ederra dau, oitura pozgarria gurasoentzat eta jaiotz orduan, berarentzat seme bezela artu eban erriarentzat.

Ba-dira ostera beste era bateko umeak ere. Bekozko baltz murrurutunek edonun agertzen dira. Lenengo gaztetxo onek gizartean zerbait izatea nai dabe. Ori dala-ta, zerbait egiten ari dira, ta zintzotasunez, lanean jarduteko oiturea maite dabe. Besteak barriz, edu ortako edertasunik ez dabe ikusten; jolasa edo egotea ditue, berez, gogoan. Onen oiturak alperkeriaren aldetikoak dira ta aitaren ta amaren kontura bizi.

Gazteen garaia dator ondoren. Gaur egunean, munduaren jaun eta jabe bezela agertzen jakuz. Aldi ontan karrazi aurkakoa, jazargoa, oitura bezela artuta dauke. Errezena da izan be. Zerbait eginbearra ba-egoan, baiña puntu orretan, zarataka geratuta ere, aurrerapide aundirik egin leitekenik ez dot ikusten.

Beste oitura polit bat be ba-da sasoi onetan. Norbera dala biziaren jaun ta jabe uste izatea. Ta ortik ondoren, datoz jokabide barregarrienak. Miñez alkartasun zintzoak ta on aundiak egin bear direla erabilli, ta egitez, iñoren bear-izan ta ez eskubiderik ez dala ezagutzen dirudi. Gurasoak zartzat ta atzeratutzat botata, berrogetamar urtera orduko, edonun ikusten dira. Ta guzti au aurrerapidearen izenean. Aldi bakoitzak ditu bere ezugarriak eta oiturak. Oraingoak, olakoak izan bearko dabe noski. Eguneko jakituriak ta aurreratzeak be ori eskatuko dau kontizu. Baiña dana dala, aldiak bere sasoi oiturak ditu. Ta batean bestean, ortxe geratuko dira sasoi bakoitzeko lorratzak aldiaren czaugarritzat.

Nagusi aroan be oiturak dagoz. Bizitzaren lenengo sail bietan zer ikasi ta zer jokabide erabilli zan, urteak teillaturantz igokeran be, alantxe jokatzen da. Alper arria, beti, astun izaten da lurraren gaiñean, ta zolia ta langillea izan dan gizona, arduraz eta zintzo, agertzen da bearrean. Euskaldun nausiak ez dau uste, bera bizitzaren jabe danik. Zentzuna bere lekuan dauka, olako barregarrikeriak siñistuta bizi izateko. Era orretan gizon-egin askoren jokabidea, arduratsu agertzen da, gaur, lurreko ta gero, betiko biziaren arlo ta bidetan. Gizona izan ere, gogoz ta gorputzez osaturikoa danez, alderdi bi onen eskabideei erantzunez, osoago agertzen da. Ta gizonari emendik etorri bear jako lurrean erriari on egiteko ardura gartsuagoa. Onek esan nai dau on oitura indartsuagoa.

SOLOZABAL'TAR PAULIN

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra
BILBAO - Casco Viejo
Tenderia, 15 eta 16

AITA PATXI

Aita Patxi'ren oroimenez agertu doguzan lanak irakurrita, batzui onen beste galdetu daukue: nor zan baiña Patxi Aita ori? Ta, guk, lengo lau lanak naiko izan ez ba'dabe argitu, ona emen bostgarrena, ta geiago bear izan ezkeru, beste au ezartzen dogu: Galdetu orduko nekaldian bizi izan ziranet:

* * *

Nork ez dau edo ez eban Euskalerrri'an Patxi Aita ezagutu? Nire ustez, anai arteko guda ikaragarriak asi ta ondorengo ogetamar urte oneik zear, kristuari dagokiozan gauzetan, nortasunik berezietariko ebena izan da Aita Patxi. Ta, ola dala, jakin dagun ba, gure oroigarrietako Patxi Aita il yakula. Jaunak kendu dauku ta Bere gozamen lekura eroan dau, Bere otseñaren eskeintza guztiak bereziz saritzeko. Ta orain, bai, Patxi Aita zanaren eriotz ostean, bere autumautuzko gertariak ago-miñetan dabiliz bala-bala.

Bizkaitar Arrieta erri txoan jayo zan. Pasiotar Anaidi arteko Jesukristo'rena lako bizi-bide latza artu eban, kristau deunbide yarduerazko eskola sakon onetan, bizkaitar euskaldun gogo indartsu a, berariz indartsuago egin eban, eta onela, Aita Patxi'k, oraingo espirituaismo zearrekoari ez eutsan iñoiz emon baiezkorik. Patxi Aitaren Jainkotiar pentsakerea, beti zutuna, goitik berakoa izan da. Bere goiburua: lengo Jaungoikoa, ta Jaungoikoa'gaitik, gizona.

Jaupari egin zala, odol-ixurle anai-guda bidurgarri ta negargarria sortu zan, eta gudarrietara deitu eutsen Bizkai'an. Or, gizeurenzko egite aundiak bete ebazan gudari zauritu ta ilzoriar egonezeri laguntzeko. Eriotzaren aurrean, surizkilluetariko txistu, kanoi durunden artean agertzen zan, daneri laguntzen. Iñoiz, Bure Jauna eskuetan eroiala, guda-amorru ta eriotzak ondamen itzelak egiten ebazan lekutan ikusten eban, eta beti bizirik eta onez urten be. Olan, gudariak pozik egoten ziran bere alboan. Aita Patxi'k guzti-zako parkamena zabalzen ebala ta Gure Jaunagaz danak onetsi.

Mirarizko gertaera onein entzutea laster zabaldu zan, eta Pasiotar Anaidi'ko nagusiak, guda kapellau gazte oneri, bere gertaeren oar-liburutua eukiteko ta bertan gudaroste jaupari ekinetan berari jasoten yakozanak idatziteko eskatu eutsen.

Bere eguneroko au euskeraz idatzi eban. Bein neuk be izan neban aukerea ori irakurtzeko, baiña, jakin ez arren nork, erderara itzulitako atala zan. Eguneroko oar-idaztuko au, Patxi Aitaren ainbeste goreslek filmatuko leukiela uste dot, beste era bateko girorik ba'litz. Egokia da benetan film bat egiteko, ba-dau igikera bizkorra, ustekabez beteriko gertakizunak, baita oraingo yendeari atsegin izaten yakozan piper-min eta gatz ugari be, batez be gudalburuek andereskillekin egindako jai-parrandak gaitzesten. Jakiña, orretarako laburtuko daben «gionista» on bat bear, Patxi Aitaren bizitzako egite arrigarri, neurritz goitikoak, agertzeko.

Eriotzaren aurrean erakutsi ebazan bere adore neurritz gaitzekoa, bere kemen eta urkoaren aldeko eskeintzak neurtzeko, oneik gogoratu bear doguz: 1.—Bere zuzentasuna, gudari arrapatua ala beste aldera igaroa izan zan galdetu eutsenean; 2.—Eriotzari bere burua birritan eskeintzea, bestean ordez, eta; 3.—Lotsagarritzeko zigor a, gudariak guda bukatuta erretzeratzen ebenezan Madril'en ezarri eutsena: kale garbitzaille!

Euskal guda-zailak jausi ziranen italiar indarraren eskuetan, atxillotzetik azke geratu nai ebanak, arrapatua barik beste aldera iges egindakoa zala esan bear izaten eban. Aita Patxi'k egia maiteago eban azke geratzea baiño, ta egun baten eta urrengoan, iru edo lau aldiz galdetu eutsenean ea beste aldera

igaroa zan, «arrapatu egin nabe» erantzuten eban. Epaitu eban ba, beargiñen saillera joateko.

Ta, onein artean egoala, euren egoera gogorra beragan be ba-zala, birritan eskeindu eban bere bizitza. Bein, eurenkin egoan astu-iar gizon bat iltera epaitu eban, an agertu zan epaikarien erdian eta esan; gizon onek andrea ta semeak daukoz bere ardurapean, il naizue ba neu bere ordez.

Beste garai baten, Madril'eko Ikastetxe-Nagusiko alderdian zan burrukatokian jarketa ta ondorengo eriotz ondamen negargarriak sortuzen ziran, beargiñen talde-rik, batzuk, beste aldera iges egiten eban. Onegaitik, gudar-agintariak, eta mutillak bildur-arazteko, taldeko sail oso bat tiroz iltea agindu eban. Agintze lazarri ori beteteko orduetan eta aukeratuak errezkadan zirala izkilluen aurrean, an agertu zan Patxi Aita ta euren lerroan sartu esanaz; gudari oneik erailten ba-dituzuez, neu be eurak lez ilgo naz, aukeratuok errubakoak dira-ta.

Naizta langille sail orretan bera jaupalari lez izentatua izan, eta beste lanetatik azke, alan be eureka egiten eban lana, trintxerak ebaten. Ekandu ona emon eta Kristo'rentzat irabazteko alegiñetan.

Anai-guda iltzaille a amaitu zancan, gudariak, jakiña, etxeratzen asi ziran. Aita Patxi'ri, errazoi argi barik bertan geratu eragin eutsen; sarjento batek Madril'eko kale-garbitzaille izatera beartu eban. Zigortu ta jo be egiten eban, eta soñeko ta oiñetako zarrenak emoten eutsozan. Lekaima batzuk iñoiz ezer oberik emoten eutsonean, beartsuen artean zabal-izen ebazan.

Berak, Patxi Aitak diñosku: «Iñoiz be ez nire bizitza guztian, ez dot izan Madril'eko kaletetan aiña lotsa ta itxuskeri». Ta, ainbeste aldiz eta urte luze aretan, gudea joan da gero be; bururatu ezin leikezan kristau egintza ikusgarri ta irakaspen on-onak emonda mundu guztiari, or biurtu zan barriz lekai-detxera.

Ta, emen lotu zan Pasiotarren lege ta zuzenbide latzak zeoro betetzen, atsedan aldi txikiarik barik, gudara urten aurretik lez. Ainbat otoiitz eta itzaldi egin, gaixoak ikuskatu ta onetsi, ta azkenengo urteetan batez be, apostolukuntzan lotu zan: Orozko, Zeberio ta Arrati guztiko basetxeetan egozan zar et gaixoei ikustaldiak egiten.

Beti izan da Aita Patxi begiko ta agurgarria, ta bere onbearra onartzen eban, bere onspenak eskatzen, bere nekealdiak maitatzen, eta bere euskereaganako maitasun gartsuagaitik goraltzen. Ziñistu ezin aiñakoa eban maitasun au! Ona emen Aita Patxi'ren deuntasunerako ezaubide berezietakoak. Sakon eban buruan sartuta, Euskalerrri'ko zifnesmenaren eusle ta iarun-eragillea Euskerea zala. Orregaitik beti irauñ euskeraz egiten eban baita urrutizkiñera deituzen eutsonean be, ez ekiala euskerarik besteak esaten eutsan arte beintzat. Gitxi maitatu dabe Aita Patxi'k aiña gure Euskerea!

Gudan, eta bearrera zigortuen artean, eta nun ez!, lagun andiak egin ebazan; langintza ta jakin-bide mailla guztietakoak. Sarri etorten yakozan aolku billa. Apostolukuntzeko lanari urduri eta arinketasun andienan iñarduala —zerbait oker ebillela be igarrita egoan— gaixo zital, aspi-suge, osatu-ezifeko, ilkorra bearez dan leukemi ikaragarriak oratu eutsan, ta ustekabean eroan dauku beste ezilkor bizitzara.

An, Jaunak, Bere seme ta otsein kristau zintzoari ta onen ainbesteko ontasun, croapen, maitasun eta egintzakaitik, betirako sari andia emongo dautsa. Ta, andik, be —au bai ziur— egiazko zifnesmena ta euskerea zaindu dagiazan lagunduko dautso Euskal-Erri'ari!

LETONA

DONOSTI UDAN

Donosti udaldeen oso ikusgarria izan oi da. Batez ere kanpotik etortzen diran udazaleekin. Baiñan aurten zer gertatu da? Dagonillean beintzat, ta zer esanik ez onen aurreko illean, euri ta egualdi nazkagarriak ikusi ditugu. Udazaleak, jakiña, eguzkiaren dizdirak nai ditu, bere gorputza beltzitzeko, ta euriakin ezin lortu ori.

Bai, izan da aste batean edo bestean eguzkia, baiñan ill madarikatu ori ez da izan guzian gogoko, ez beintzat ondar-zaleentzat. Ni, auetakoa naiz. Nire kiroltasun aundiena igeri egitea da, arraiak arrapatu ontzi txiki batetik, arraunean joanaz, eta gero soñia belztu alik eta geien. Ez dakit guziak nik bezela pentzatu duten, askori entzun oi diot, berao baiñan obago dala otza. Ala ere, erantzuten diet: aize otzak urtean beazti illetan artzen ditugula, ta udaldian, iru illabetean bederik, beraok naiago ditudala.

Gero, zezenketarik ez degula izan aurten, eta izparringiak astindu dituzte bazterrak. Neretzat, zezenketak ez dira onak, beste dema edo proba oiek bezela, bi beikin arri aundia eramanaz, atzetik akuilluakin bi gizon, abere gizajoseri estualdiak emanaz. Askotan esan oi det, eta esango det, akuillu oiek ez lirake beieri sartu bear, bi gizon oieri baizik. Orregaitik, zezenketak eta demak mingarriak dira neretzat.

Auek orrela dirala, askorentzat pozgarri diran joko oiek: oillar-joku, aari-topka, boxeo-ukabilketa, burrukak eta abar, oiek ez dira kirolak, astakeriak baizik. Eta iñoiz ere ez beste kirolketa garbi ta alai diranekik berdintzeko. Kontzitu, pelota, ostikoketa, arraunketak, itxas oial-ontzi, ardi-zakur jokaerak, dantzak, mendizalatasuna ta abar. Auek bai dirala kirol garbiak!

Emengo alderdi zarrean, apustu bat izan da. Ba al dakigu nolakoa? Ba, gizon bat laisterkan asi Kaia'tik eta Ondarreta'ko ondartzara arte; bestea, txalupa batekin bide berdiñean arraunean. Zer gertatu da? Ba, biak une berean eldu. Diotenez, marea beetik zegolako izan omen da, ta urrengoan, berriz egitekotan dira, izgora danean.

Baita dalako Atomika landola egin bear duala Iber-Duero'k-eta... batuketa bat izan da. Ezta-baidak ugari izan ziran. Zer esango degu ontaz? Gipuzko ta Bizkai ta euskaldun guzien iritziak aurkakoak dirala esan geinke. Zergaitik datoz olako astakeria egitera emen? «Txalintxo»k, GOIZ-ARGI'n, lengo orrian ederki astintzen ditu gauzak. Euskeraz ordea, ta erderazkoak ba-dirudi mingaiña nastuta daukatela, ez dute beintzat gauz aundirik idazten...!

Donosti, udaran, notieñz aunditurik aurkitzen da. Aurten ala ere, ez det uste azken urteetan bezela etorri diranik. Ala ere, bazter guzietara joaten da jentea, batzuk zaldi-laisterketak ikustera Lasarte'n; besteak pelota-lekuetara; aiek, ostera, Txuri-Urdin deitzen diotenera, Edur-patin zaleak, jo batera ta jo bestera, dantzan edo korrika; mendira; Zarautz, Getari, Zumai, Deba edo Naparroa alderuntz, edota Endaia, Donibane Loitzun edo Baiona'ra.

Euskal-pestak ere asiak dira, urtero bezela. Danetariko kirolketak, antzerkiak, dantzaldiak, abestiak, arraunketak eta abar. Pesta auek Donosti'ko alderdi zarrean egiten dira, notin aundiak baturik. Alderdi zaar ortaz, aspaldi idatzi zun Bermeo'ko idazlari «Azpeitia»k, esanaz, ez zuela EUSKERAZ itz bat ere entzun al izan. Arrazoi aundiakin zion. Berak baiño obekiago dakitela uste det emen bizi naizelako, ta sarri joaten naizelako. Sarri diot... eta ez da ala. Noizbeinka baizik.

Erdera nagusi dago or, eta min ematen du. Ez dira, ordea guziak, orrela itz egiten dutenak, noiz beinka euskeraz ere entzuten det. Orratiokan, kanpotarrak edo kanpotik etorri ta emen bizi diranak, ez digute ezer esaten, ta interes aundia jartzen dute. Urteak dijoazten bezela, emen jaiotako umeak euskaldunak izango dirala-ta... orretzen itxaropenakin gaude. Biar edo etzi, beraz, euskaldun jaiño baiñan Euskeraz ez dakiana! Ez al da tamalgarria?

Alderdi zaar ortan goazela, notin aundien artean, eta entzuten ba'zazu alako baten bateonbat euskeraz itz egiten... alako postasuna eman oi digu, pentsaurik oraindik ez dala zeoro galdu. Oraindik okerrago, euskeraz jakin eta erderaz itz egin askok. Ori bai dala mingarria, jaunak!

Aurtengo udazaleen artean, erbestetik etorri diranen artean, Prantzi, Alemani, Suez, Olanda edo Inglatera'tik, «Hippy» ugari ikusi degu. Joaten dira ondartzara ta ogi luze ta aundi bat jantien ikusiko dituzu, seltxitxi edo mortadelakin, ta geienak ezagun dira gose aundiak igarotzen dituztela, beintzat, ain dira argalak...! Olako turismoakin aurrerapen txikia egingo du Donosti'k: Ille luze, bizar aundi, jantzi zikin eta, zertarako geiago esan?

E. OZKIN

Arantzazu'n

Dena dago berdiñ, Arantzazu'n. Igaroa da nagusi! Ebia, lanbrua, misterioa, olerkia... errimiña ta gogoramenak. Ixiltasun aztuna, baiñan apala, goxoa.

Bakardabe... bakarra, zoragarria, antziñekoa. Nunai arkaitz, leize, mendia... Pago basoak, sasiak... Izadi gogor, basatia. Or nunbait zeru illunean, ezkillaren kanta alaia... «Neure amatxo biotzekua...!» Ardi galdu baten negar tristea... zintzarri izkunturen ots sakan, metalikoa.

Denbora txarra, bai. Oso gaitiera. Ala ere, ebi ta lanbrua ba dute beren lillura. Zer gertatu da? Denbora bera aldatzen dala ta ez gu. Ba ote? Ta, beti, ebia, lanbrua... kezka. Zergaitik?

Nere aurrean, txabola zar utsa... an atzean, ez oso urrun, arkaitz zorrotza, gurutzarekin. Gai aparta benetan! Arrigarria... Beerago, leize sakona, bildurgarria! Espantagarria! Oi, leizearen deia! Zorigaitzoko Deia benetan! Ta, ala ere, maitagarria!

Gaztelugaitz ere ez da ez makala! Urrutitik ikusita, arriko buru edo arpegi zakar bat dirudi! Arpegi azti bat!

Bide-txigorak lokatzez beteak daude. Urbia'ko mendiak, laifotan itoak. Emen eta an, nunai, artalde-usai berezia... zelai-usai gozoa... mendi-usai osusungarria. Beorak ez dira bustitzen noski!

Eliza aldera jexi gera kantari... «Arantzazu aldean». Ara or Oteiza aundiaren Apostoluak, otzez, bustita, asarre bizian alkar joka, Euskaldunak bezela... Lan zakar ta gogorra, basatia, baiñan ederra, ikusgarria, paisajea bezela!

Eliza barruan, Eulate'ren berriak. Urdiñ eta berde. Gorri pizkat ere bai. Oso gutxi... Muñoz'en erretabloa, arrigarria. Abstraktoa, uterteko oso zaila... Ama Birjiña'ren irudia, txikia, polita.

Kanpoan, dena dago illun. Ez da ezer ikusten. Ezertxo ere ez. Gure animak ere naiko illun daude: Krisisa dala... krisisa ala nasketa?

Arantzazu aldean, kanta zarrak: Ama Birjiña... Errodrigotxo. Edestia ta Tradizioa «Arantzazu, Pake leku»? Or nunbait, berriz, zintzarriaren ots ezitia?

MATXIN



México 75 Arantzazu aldean

FERRETERIA UNCETA, S.A.

Landola tresnak - Galtzairu neurri zeatzekoak
Langailu guzietarikoak - Leunketa gaiak

Ibarrekurutz kalea 14
71-10-00 Urrutz.
Apartado 18

E I B A R

ARRIETAKO

BARRIAK

Zumarraga

Ondarroa

Zornotza

Olaeta

OPOR EGUNAK NOLA IGARO

Millaka dira opor egunak igarotzeko erak, baiñan ez da nere asmoa arau berriak jartzea. Une ontan, gure lagun aundi ta euskaldun zintzo den arako baten jokaera ta ibillerak agitaratuko ditugu. Ara laburki zer dion:

«Bizkai ta Araba lurraldeetan Gorbea mendí bikaiña degu, mendí onen erraietan Mairuelegorreta ar-zuloa babesten da. Ar-zulo ontan, Iradier bazkunaren gerizpean, Gazteiz'ko euskalzaleak, jai berezi bat ospatzen dute. Ospatu berri dute aurtengoa ere, ta mandatu berezi baten eragiñez, an giñan, eta ona emen an zer ikusi ta ikasi degun:

Goi-argiaren begian, sendian ibilkari uste degun guztiok, Murgia ingurua elburu arturik, eratu gera berebillean. Jai eguna da. Siñismenarekin bat, bide ertzean aurkitu degun erri polit bateko Elizan goraki ospatu degu Eukaristia. Elizkizun onen ederrak indar berriturik, geiagoko ostoporik gabe eldu gera autatua geunkan unera.

Zuzendarien mandatuak jarraituaz, bide baztarrean zokoratu degu berebilla, ta bearren ditugun txalmak arturik, artu degu leza-zulo bidea. Gure begiak ikusten duten ikusgai txoragarriarekin arrituta, txundituak geratu gera, aundi ta txiki, zaar eta gazte, guztien barruan amets bat, oi ta abesti alaien laguntzarekin, al dan lasterren ar-zulo atakara iristea.

Begiratu batean, otza ta illuna da ar-zulo ataka, baiña gai ontan lan egiten duen euskal-erxe bati esker, laster egun argia bezin argi geratu da, ta jende ostearen gogo-berotasunak ar-zuloa ere galdutako du.

Zuzendariak eratu zuten maillan igaro da jai-aldi osoa, azkenik, erromeri zoragarri bat ospatu da, gure antziñako dantza zaarri omen aldi ikusgarria opatuaz. Begien aurrean daukagun edertasunak eraginda, suntzitu da mundua, ta irudimenaren egan, bi gizaki bikain ikusi ditut, jende ostearen erdian jaun eta jabe.

Izaki auek soindunak al dira? Ezin dezaket esan. Bakar-bakarrak au esango det: Kristo'ren ederrak argituko ez ba'lu nere barrua, notin-irudi auek edatzen duten argi ta edertasunarekin, jainko ta jainkosaren aurrean arkitzen naizela. Izan ere ala da, nere irudimenaren begiekin, AITOR, abenda; ta AMAGOIA, euskera, batasunik aundienean ikusten ditut, beren esan nai sendockin euskal-jendea esnatu nairik.

Ta azkenik, gure Aiton-Amona zarren alde, egunetik egunera lan egiteko asmo biziarekin etxeratu giñan».

AZKARRAGA

URRUTIA'TAR LIBORIO



eziketa jostailuak
eskulanetarakoak
irakasketa gaiak

gregorio de la revilla, 1
bilbao - 11

Jolasean ikasi, or zure aurrentzako emoitzarik onena

NIRE ANAIEN EZKONTZAN

Kantuz nai nuke asi lanean

zuek goraldtu naiean,
alako gauza pozgarritxo bat
sentitzen det barrenean,
ikusirikan sendi osoa
bilduta neure aurrean,
nigan gogoa jarrita dago
bertsotarako bidean.

Guraso onak bere umea
biotzetik du maitatzen,
da zuek ere beste ainbeste
ez al dezute pentsatzen,
jaiotzetikan ezkondu arte
beti zuek besarkatzen,
magal berean ikusirikan
errespetuan bizitzen.

Anaiok agur ein diozute
sorleku txoko zarrari,
eta urrena agur gogo bat
zuen aita ta amari,
gero biotzez maite zaituzten
anai arrebatxoari,
beti gogoan izan zenduten
sendi ta familiari.

Zuen emazteak ere berdin
agurtu dute kabia,
gaur arteraño bertan bai dute
eraman euren bizia,
ondo dakite utzi dutela
kabi on zoragarria,
baiña ez aztu zuen guraso
aita ta ama maitea.

Bide berri bat artu dezute
ezkondu ta bizitzeko,
Jaungoikoari errespetu ta
itzala erakusteko,
gero aurtxoak datozalarik
ondo-ondo ezitzeko,
ori egiñaz zeru eder bat
betiko irabazteko.

IZENAK

Izen bat daroagu danok. Eta izen au ez daukagu ezergaitik be, ez ezaindu ez saltzeko; geure-geurea dogu, geure izatean josita biziizaldi osoan daralbiguna. Alan be, ezta jaiots-aurretik edoan dakargun zerbait, jaiotz-ostean ezarten yakuna baiño. Izena ipintek beti izan dau, edestian zear, bere garrantzia, inportantzia: geure bizitza guztian aldean daroagun ezaugarri bat da-ta, ez da arri-tzekoa.

Jaiio-barriari izena ipiñi yako beti, edozein errialdetan, naiz Europa'n, naiz Afrika'n. Baita Euskalerrri'n be, gu be ba ludiko gizadi osoaren zati bat gara-ia. Ez geiago, ez gixiago.

EUSKEL IZENAK

Antxiña-antxiñatik, euskaldun umeai zelako izena ezarten ete yaken? Ez dakigu ziur. Orain bi milla urte ta geiagoko euskal izenak ba-ditugu paper zarretan, gaur berbiztu nai doguzanak batzuku. Baita ba-dira erromatarren garaikoak be, euskal kutsudunak.

Orain bi milla bat urte, kristautasuna, batez be Naparru aldean, sartu zanetik, eleiz-izena ezarri yake gure artean umetxo jaiio-barriari. Orrela ez egiñak etziran ondo ikusiak gurean; Errepublikara garaian, esaterako, Afrika ta olakoak ipintzen yakezan umetxoai, eta etziran ondo ikusiak.

Emeretzigarren gizaldiaren azkeneruntz, Arana-Goiri'k bere ormarako Egutegi ederra argitaratu euskunean, euskal izendegi barria emon euskun, oso zentzuzun egiña. Izan zituan kontrakoak eta alde-zkoak; Eleizeak azkenez ontzat artu eban izendegi ori, ez ostera ainbestean agintariak.

Urteetan, ia euskaldun ume erdiak lez, izendegi ortako izenez ziran bateatuak. Geroago 1937'tik aurrera, istillu gogorak sortu ziran aitaturiko izendegiko izenak ume jaiio-barriari ipinteko. Ordezko itzulpen barik ez ebezan jarri nai errietako auzite-gikoak euren liburuetan.

GAURKO EUSKAL IZENAK

Gaurkoz Eleizeak ez dau eragozpenik ezertan be jarten, jaiio-barriari edozein izen ipinteko. Agintarien zidetik bai, ostera, ba-dira eragozpenak. 1957'ko bagillaren 8'an emondako lege baten bitartez, erdel itzulpena daben euskal izen guztiak bazartu egiten dira.

Au zala-ta edo —beste zeaztasun batzuetan ez sartzearen— J. M. Satrustegui'k, Euskaltzaindi' koen aginduz, aspaldiko idazki zar, kondaira gai ta izkuntzalarien azterketa ugari ikuskatu ondoren, Euskal Izendegi bat osotu ta eskeiñi euskun, itzulpenik ez dauken gizon eta emazteki izenez ormidua. «Erriak du —diño egilleak— ekintza hontan azken hitza, izen batzuk hartu eta beste asko baztertuz».

Izendegi au ezta osoa, inñundik be. Eta ariñegi egiña dirudi... Esate baterako, emakumezko izenai gagokiozala, liburutxo onek, 39'gn orrialdean, au diño: «URITZA, Na. Sa. de (Amorebieta, Vizc.)». Emen dira asiak izen ori jarten. Baita gu be, arrituta, nundik ete datorren eta nun ete dagoan Andra Mari orren izeneko eleiza edo ermita. Ez dogu aurkitu ez eleizarik, ez paper zarrik ori diñoanik.

Ba-dira, ostera, beste zenbait eleizatxo, beren izen ta guzti, Andra Maria'ri eskeiñiak, liburu ortan ez datozanak. Naparru'ko erriko Arromitz'ek ba-dau bere entzutea kondairan, karlista gerratean batez be, an inguruan izan ziran burrukaldiakaitik baiño ezpada be. Erri orrek bere gaiñekaldean, Andra Maria'ri opetsitako santutegi eder bat dauko, «Nuestra Señora de Mendia» esaten dausoena. «Mendia», beraz, «Arrate» baizen legezkoa litzake gure izentegian, eta ez dator Euskaltzaindi'k osotu daukun onetan.

EUSKEL IZENAK LARREA'KO BATEOETAN

Parrokizat daukagu gaur Larrea'ko karmeldar eleiza au. Naiko bateo egiten dira bertan, joan zan jorraiaren 13'an asita. Zelako izenak jarten ete ume jaiio-barriari? Euskerazkoak geienak. Ba-da ortarako griña ta amorroa.

Il onen, ons, irail onen lenengoan sei bateo euki genduzan. Ota umetxoai ipiñi yakezan izenak: «Aintzina», «Asier», «Gaizka», «Mendia», «Urtza», ta «Donato». Alderdi ontatik, bada, ez gabiltz ain txarto. Baiña oneri urrengo baten luze-samarrago ekingo dautsagu.

Eleizate onetako jaiak Doginilleko 15'tean ospatzen dira. Auzune oso alaitsu izan da, baiña emen be jaiak geroago ta otzago doaz. Atzerantza urte askora begiratu barik, gogor-tuko jakuz emen egiten ziran soka-tira keta serra-txapelketak alen be.

Baiña, oraiñ, pagoak aurkitzeko be, eztago era aundirik, eta serra ba sabai zuluetan ugertzen egongo dira baserri gejenetan. Urte gitxi barru, moto-serrakiñ piñuak botateko txapelketak, besterik ezingo de egiñ, ba eleizate onen kondairan ikusi al doguzan lako areitz eta pagadurik barrido ikuste ta ezta erreza izango. Kataluña'ko erri baten egiten asi direna egiten ezik, au da, piñu bat ebagiten dabenak, 20.000 lauerleko emon bear dauz edo beste iru landatu.

Ba-dago eredu oneri jarraitu bearra, baiña areitz eta pagoakiñ.

Aurtengo jaietan ez ei da ezetako kirolik izan: eskerak Otsandixo'ko «Urduri» taldea jo ta su darabilgula.

Ta, oraiñ, eleizate onen kondaira apur bat: Ona «Historia General de Vizcaya»tik euskeratatu. Dn. Juan Ramón de Iturriza y Zabala'k 1787'gn erartekoa, ta orduetik 1885'gn artekoa Dn Manuel de Azcárraga y Régil'ek luzatua, aurrean, eleizate onetzaz irakurri dodana.

Muxika Olaeta eleizatea, Muxika etxearen Ola'k esan gura ei dau, ta ortik ei dator Olaeta izena. Aramaxo'ko Conde-erria osotzen eben bederatzietariko eleizate bat da. Emengo auzotarrak, Otsandixo'ko Santa Mariña aleizatik banandu ziran. Albiña mendiko zelai baten aurkitzen da; toki otza-baiña pago ta aretxakiñ oso aberatsa. Ta izugarriko neurrikoak aukitzen dira edonun.

Goikolea'n dagon aretz batek, 42 oin neurtzen dauz gerrian, eta Aretxandietan dagon beste batek 24 oin, iru besogaz amabi oiñekoak bakotza, ta urtean txondor bat ikatz emoten dau.

Mugak, sartaldetik, Urkiola menditik Otsandixo'ranta beratzen dan errekatxoagaz; ego ta sorkaldetik Villerle'ko baso-mortuakiñ, eta ipar aldetik Anboto'ko aitzagaz. Anboto'n jai ta izentariako zelai erditik beca datorren errekatxo, ezkaillor oso aberatsa da, ta ura be naiko dakar anga olentzat; oneingandik artu ei eban Olaeta izena.

Auzoa osotzen daben baserriak XIV eta XV gizaldietan egiñak dira, ta Mortara markez jaunaren zergapekoak izan ziran zazpi ezik, eta urtean 3.190 marai ordaintzen ebezan.

Urtean eta errekearen eskumako alderdian, Dagonilleko Ama Birjiñaren erri-eleizea dago, 1580'ngo Azillak 7'an, agiriñen baimeñen almenaz, Jauregi'tar Jon agiñ-irakasleak, Aretxeta'tar Txomiñ'i erositako lurretan egiña. An, lenengoz lurra emon jakon gorpua, Miren Ruiz de San Juan'ena izan zan, 1582'ngo Urrillaren 24'an, Otsandixo'n dan Santa Mariña'ko abadien gaitzespenakaz.

Eleizea, 1673'gnean aundiagotu zan, gurutzean itxurakoa da, ta eleiz-barne bakarrekoa. Oneik dira bere neurriak: 80 oin luze ta 24 zabal; eleiz-sapai, iru altara urretatuak, 26 illobi, eleizpe ta arpegian kanpai-ormeagaz osotuta aurkitzen da.

Antxiñetik, Otsandixo'ko abade batek otseinduta eukan. 1736'an eleiztarrak egiñiko abade-etxean, 1755'tik aurrera bere bizitegia izan eban. Ez eben eleiztarrok amarrenakin laguntzen, 1765'gn arte, ez ebelako laboretik jasotzen. Baserriarrak, bakoitzak, lartean duket bi ordaintzen ebezan, artzen ebezan sagarrakaitik. Oraiñ (1787'gnegaitik diño) abade-buru bat dago, ta bere snaria 875 errealeko, da beste 300 apez-ekintzarako, kultotarako.

Oleta'ko eleiz-barrutiak, 44 bizitza, 220 arima ta errota bat dukoz, lenago ol bi eukazan.

OIZ

GOIKOETXEA'TAR KEPA

ERRIARAKO

Galdakano


ZAR-SARIDUNAK

Aurreko idazki baten aurreratutzen genduban bezela, il onen 4'ganean, ia berreun eta berrogei erri ontako zar-saridunak, txango polita ospatu al izan eben, Araba ta Naparroa'ko lurraldetatik zear.

Txangoa, zortzigarrena berau, Galdakano'ko Sendi-buruen Alkarteak antolatua izan da, aurreko urteetan bezela. Eta Udala, Bizkaia'ko Aurrezki-kutxa, «La Dinamita», «Formica», «Firestone» ta abarren laguntzaz.

Goizeko zortzirak lauren gitxiagotan urten ziran Gizarte-etxe aurretik, lau berebil andietan, 240 zar-saridunak barruan ebezela. Lenengo geldi-aldia Dima ganean egin zan; aixe otzkirri pizkat artu ta ezinbesteko bear-kunen bat egiñaz, izterrak luzatzeko.

Urren, Gazteiz igaro ta Azazeta gainetik eta Kanpetzu zear, Los Arcos'era elduteko, amar t'erdiak inguruan. Erri ontan ia ordu bi igaro genduzan. Zabala ez ba'da be, ikusi, zerbait gozalduta abar egiteko. Baiña, lenen, bertako eleiz apaiñera —Naparroa'ko apaiñera bear ba'da— gure txanburu agurgarria, Jon jauna aurrean gendula, berak ospatu eban jaupa gozoa entzuteko. Eta gozoa esan dogu, ta alantxe izan zan, berak zuzendu euskun txonintza egokiagaitik eta Masimo'k organu soñuz lagunduta erestu genduzanaitik: «Gure Aita» euskal abesti txukuna ederra izan zan; lenengo entzun diran euskal-abestiak, bear ba'da, eleiza ortan.



Jaupa amaituaz batera, ango txanburu jaunari eskerrak emon ondoren, txadon ikusgarri orren ukullu guztiak erakutsi euskuzan, eta azalpen argiak emon be tarteko gintzazan guztiok, jakingarriak ziran izan be-ta. Bere egintza, «Gerkar-erromarra» ba'da be, bere mai-deuna, aldare-buru ta orretariko tresna guztiak, «Barroko»ak ditu, baiña oso apaiñak. Txanburu arek esan euskunez, ba ei litzake, lenago, eleiza erromanikuren bat or izatea, bertan agertzen diran aztarren batzuekaitik, baiña ez ei dago ezertako argipenik geiago arazo orreitzaz.

Los Arcos edo bere euskal-izenaz *Uranzia* ortatik, eta laster baten, Iratxeko apaiztegiara eldu giñan. Or dagon txadon erromaniku ta apaiztegiaren edertasunak ikuskatu, baita aldamenen dan ardao-mintegi bikaiña be, ta or dauken ardao gorritzka zorrotza gozatu be. Urten giñan barriz Lizarra zar ikusgarriaruntz. Emen, jateko gogo onakin, eta danok alai, bazkari ederrari «tute» emoteko.

Bazkal-ostean, taldeka banandu giñan errian zear ibilteko, ta ango ikusgarriak arakututeko. Danontzako atsegin, zaletasun guztietarako ikuskaiak dira-ta aintziñako uri ortan. Gure taldean, gure txanburu Jon jauna tartean, uriko Goi-jabole dan Pui'ko Ama Neskutsa ikustera igon giñan; benetan ikusgarria da izan be, ta ez jakun damutu.

Aurretik aukeratuta egoan orduan, barriz bildu ondoren, etxerako bidea artu genduban; bidean geldi aldi bi eginda, Kanpetzu, Azazeta, Gazteiz'tik zear etxeratzeko, zoriontsu ta alai, urrenko urtean beste alderdi batera joateko asmoakin.

Zar-saridun onen artean, ba-ziran larogei urtetik gora diran batzuk be, osasunik onenakin aurkitzen diranak. Txalagarria bera, baiña geien arritu ginduzana, Otxoa aita-semeak gurekin izatea izan zan, ez da ba sarritan ikusi al izaten, aita-semeak txango batean, zar-saridun dirala biyak: Otxoa'tar Errupin jaunak larogei ta zortzi urtetik gora ditu, ta bere seme Joseba'k irurogei ta bost igarota. Gure zorionak zar guztiok, ta zelan ez!, antolatzaillerei, ta ea urte askotan egun ortan bezelako alaitasunaz ikusten doguzan.

Ai!, ta ia aztutzean egon gara: Zugatzaga'tar Iñaki, «Magne»k bere musu-kitarreagaz emon euskuzan eresaldiak, alai ta txalagarriak izan ziran, bai orixe! Urrenko urterako, ea ereskin andijago bat danon artean erositen dautsogun ereslari trebe orri.

BASA-JAUN

Bermeo

ARTZAIN TXAKURREN LEIAKETA

Iralla'ren lenengo igandean, Mañuas ausoko «MONTXURREKUE» landa ederrean, Bizkaia'ko Artzain Txakurren Lenengo Leiaketea ospatu zan. Bermeo'ko Udaldarrak ziran jai onen antolatzaileak.

Goiz atan euri antza zeru goyan egoan, baiña a ta guzti ere, notintza ugariya agertu san bertara Euskal-Erri'ko toki askotatik.

Iru erataro jokatu biar zan leiaketa onetan. Eta lege bidez, iru ekintzako «puntoak» kopuratu biar ziran txapeldun geratzeko artzain txakurrik onena.

Amasei txakurretatik bederatzi geratu ziran sarituak. Ara eurok zeintzuk eta nongoak ziran:

1.^a sariya: «Laster» Abadiño'koa. 3.500 laurleko eta txola.

2.^a sariya: «Mastin» Zeanuri'koa. 3.000 laurleko eta txola.

3.^a sariya: «Juani» Otxandio'koa. 3.000 laurleko eta txola.

4.^a sariya: «Mastin» Zeanuri'koa. 1.500 laurleko eta txola.

5.^a sariya: «Soli» Axpe'koa. 1.000 laurleko eta txola.

6.^a sariya: «Txakur» Yurreta'koa. 700 laurleko eta txola.

7.^a sariya: «Mendi» Artxanda'koa. Txola.

8.^a sariya: «Jai» Mañari'koa. Txola.

9.^a sariya: «Pastora» El Regato'koa. Txola.

Onez ganera, beste zazpi txakur geratu ziran ezelako saririk irabazi ez dabena. Euron izenak obexek dira:

«Lagun» El Regato'koa. «Lagun» Otxandio'koa. «Listo» Bakio'koa. «Ixafer» Dima'koa. «Azken» Mañari'koa. «Pastora» Arbolea'koa eta «Montes» Arbolea'koa. Guztira, 16 txakur ziran txapelketa onetara aurkeztuak. Talde ederra une aretan batzeko.

Irraditza bidez entsun dogunez, Lur-tza eta Oñati'ko leiaketara aurkeztu leizela lenengoko saridun txakur biak atxeritarraren aurka egiteko.

Ia urren be olakorik ikusten dogun Sollube magalean; baiña izan deitela ibiltaldi au zerbait obaturta. Zorionak antolatzaileeri.

JULEN URKIDI

BARRIAK

Gazteiz

RAMON NARBAIZA JAUNA

Gure Ramon jauna, eibartar abade jatorra, Jainkoaren deiari pozez jarraituz joan iaku, betiko bizitz barri batera, Iraillaren 14'ganean, larunbatez, 60'ren bat urtedun zala. Gazteiz'ko nire koñetuaren etxean 25 urte igaro ditu. Bilbo'tik ona nentorrenean ordu alaitsuak euskera mintzaturik igaroten genduzan biok.

Gaitz gogor batek jota, iru illabete igaro ditu gaixotegian, beti arpegi alaiz noiz berentzako azkenaldi zoragarria izango ete zan itxaroten. Bere adizkide miña zan aita Anitua'k esan eutsanean ea azkenengo Ikurton Deunak, Orio Santua ta Jaunartzeak ekarri bear eutsoezan-edo... «Noiz baiña orain baiño obeto?» izan zan bere erantzuna. «Poz-pozik nago, ta iltzer egonarren, eibartar jator bat lez iltea nai dot, ta azken aldiko sakramentuak duintasunez, dotoretasunez artu. Jendeak ez du bildur izan bearrik aulako egoeran, eta bai pozarren artu, gure bizitz aldean kristau onak lez jardun ezkerok».

Au zan bere barne-muñetako kristautasuna, au bere Jainko maite-zaletasuna.

Ta, Euskereari buruz, zer?

Onentzaz be asko idatzi geinke alajaiña! Gazteiz'en Ikastolaren alde berak egiñikoak ezin dira laburpen baten ez idatzi ezta adierazi ere.

Ez eban bere arpegi agertzerik nai, ori ta be, bere lan onuragarria or dirau. Aurtengo udabarrian esaten eustanaz gogoratzen naz: «700'en bat neska-mutil doguz Ikastolan, ta udagoienerako 1.000'ra elduko garalakoan gagoz. Ortarako dana aldiz gertatu bearra dogu. Txindiak be ondo doaz. Ta dana prest daukagu bete-bear barriak alik ondoen antolatzeko».

Beti abade zintzoa, beti euskaldun benetakoa izan dogu bera. Ez du ikuskatu bere ikastol barriaren erabarritzea. Aurtengo izango ete? Jaunaren aburuz bere bizitz aldia onoinenez ta euskal zaletasunez ta arnariz gaitzezka, ganburututa bai egoan.

Ez gara ez bere lagunak aspaldion beragaz aztuko, ezta iñola ere: Ikastolanderiño, umekoizkor eta euren sende maiteak.

Agur Ramon jauna. Biotzez agur. Betiko egun aundiarre. Euskaldun eta ezagun guztion izenean Agur, Agur t'erdí.

ARREGI'TAR JOSU

Arratia

Ibiltadia egitera joan naz; andik nator. Bizi nintzan auzotegian izan naz; gizon gazte barri bat ezagutu dot.

Etxekoan artean:

—Ezetuten dozu gizon au?

—Ez ba, eztot ezetuten.

—Au, ba, urlia dogu. Emengoxe-emen-goxea.

—A! Bai, atxen kontrarioa.

Eta alan bearrik-edo, matasa-pilla eskuratu genduan-da, goruetan asi giñan, aldi ontan ezagunegi dogun «trikitrixa garratza» ren soñuan.

Kaiku-artoberorik asko baiño bide sakonagoetatik dabilkigu nire lagun barria, gaur egungo naspilperiarren ardatzean kulunkan, zalantzan eta noraezean dabilkigun arren.

Euskaldun azi ta ezi nai du bere aurtxoa, ta ekian euskera gutxia aberastu ta edertzen ari da aita bera ere. Euskal-itx jatorrak aldeba-teratu ta erderazkoak parra-parra etxeraten diarduen nastezaleekin ez dator bat, eta bizkaierazko idaz-lanetan gipuzkerazko itzak eta aditzik errezanak, geikeri gabe, begitar-tetsu ikusiko leukez.

Erabagi andiak artu ta aurrera eramateko txiki ta gitxi geran arren, solasketa-izketa polita ta begikoa izan genduan. Agur batekin bi Olabarri agurtu geroz, pozez eta itxaropentsu etxeratu nintzan.

* * *

Arantzazu, Orobio, Laurkin, Sigurdui, Zubikoa, San Gregorio ta Iparrategi'tik nator.

Iparrategi nekazari-etxe au muñotxoaren ganean, basoa alde batetik eta landatzek bestetik, errian dan lugin-etxerik dotoreen apaindua dogu. Atze-bealdean etxe txiki bat.

Etxetxu au ez da bizitokia: esne-beia, txarri lodikote bi, katua ta epertxakur bi ikusi nituan.

Etxejabea, baserri zabalean jaioa, azia ta gogor ezia, asto lan geiegiz nekatua, aspertua ta kalera jatsia. Erbarrenean baiña, eperdi bete leku egokirik ezin ba aurkitu, astialdie-tarako, eta barriro biurtu zan jaiotxe ingurura. Eta antxe bizi da ate-buruan ditun santu-santari otoiika ta abereak zaintzen, egunaren ordurik geienetan.

Ni an nengoala, ala-olako gipuzkeradun azal-baltzizka ijito antzeko kitanuki erosleakin egoan. Asto argal, zar, nekatuak; txakurkatuen narruak, bei-adar ta apatxak, zintzarri ta olakoak nai zituan.

Oarra: Aditzera emon dautzuedan ijito edo kitanua, Zeberio'ko Undarraga'n izan zan lentxoago batez. Santaluzi'ren goialdeko Zuña (Zuria?) deritzon etxe bakarrean ere, gaua illundu ta geroago baten an izan eben. Oraingo ontan, Erruperto Solagun'goakin izan da, iñork ez lakoak erosi gurarik. Kontuz bada, bakar-lekuetan bizi zarienok!

LANDAJUELA'TAR A.



DEPURACION DE AGUAS S. A.

URA EGOKITZEN ETA UR LANETAN BEREZITUAK, EDANGARRIAK - LANTEGIRAKOAK - ZIKINDUAK NAIZ IGERITEGIKOAK ZUZENTZEN

+ 32-37-00 - + 31-00-10 - 32-37-01 Urt.

Gordoniz, 44, 12.^o
BILBAO-2

BEDIA

Gerrak, edonungoak be, garratz eta gordin bizi eragiten dabe.

Gure gerra sortu ta laster, berotu orduko, aita ta ama eta sei seme alabak osotuten gendun sendia bananduta geratu giñan, aldebanatuta. Aita alderdi baten, ama ta alabak bestean, anaioak gudarostietan, bata-lloietan edo kuarteletan. Azkenean be, gerrak be bere tarteak eukiten ditu eta bala galduak be bai usterik gitxiñetan, eta orra gurasoak alkarregaz, Amorebieta eta Galdakano'ren mugan, Kortederra ondoan. Antxe ikasi nebazan bertso oneik:

Mari Kortederrakoak
gabean gabean
errondea darabil
bere portalean.
Ai ene, gabean gabean,
Ai ene, bere portalean.

Gurasoak Kortederra'n eta ni Bilbo'n. Al nebanetan eura ikustera joan bear. Ez genkien sasoi aretan auto-stop'ik egiten, edo atzamarrik erakusten bidea izentatzen. Askotan, al ziran aukerak onartzuz, batetik edo bestetik joan bear izaten zan, al zanik tokirik urrenera. Orduntxe ezagutu neban Bedia. Bein baiño geiagotan egin bear izan neban, oiñez, Bedia'tik Usansolo'rako bidea eta emendik, Ollar bide-kurutzetik Kortederra'ra.

Kanta-kantari beste au be ikasteko era eta eroapena artu bear izan nebazan:

Izerdi patsetan, alboka osketan
zazpi legoa bete dan kalea,
zazpi legoak eginda ba'neukaz
Arrati etxean mando jaubea.

Ni ez nitzan arratiar, ez eta be mando jaube, baiña bai askotan legoa batzuk oiñez egin eziñez izerdi likiñetan ibilli nitzana. Ez daukat damurik. Atsegiñez ikusten dodaz gaur sasoi aretan askotan nekez igaro bear izan nebazan bide eta basterrak. Bedia legez.

* * *

Abizenak, apelliduak, ba dakiez buruko-miñak sortzen.

XVIII gizaldian, 1762 urtean jaiotako Ondarru'n Launeta abizena eukan lenengua. Gizaldi orretan 13 jaiotako abizen bardiñekoak. Urrengoan bi. Ondarru'n jaiotako lenengo Bedialauneta 1806 urtean zan. Eta gizaldi orretan, XIX'can 203 jaiotako bertan abizen ori agertzen dabena. Lenengo abizen lez, gauzak argi esateko.

Nundik agertu ete ziran Bedialauneta orreik? Ba... Launeta'ren odoletik. Launeta'ren seme bateri, Bedialauneta ipintzen asi ziran. Arrezkero Launeta'k galdu edo beintzat abizen ori soil-illok eukela agiritan sartu ez eta Bedialauneta'k ugaritu. Ainbeste, ikusten dan lez. Kolasiño'ko lege berezi edo eskutuen bateri oratu eta eutsi ete eutsen nire erriarrak, abizenari, apelliduari aurretiko Bedia ori geitzeko? Mundaka'tik etorriarren, Bedia'ko jatorrizkoak ete ziran Launeta orreik eta norbaitek eskubide ori eskatu ete eban?

Nire bigarren abizena, amagandik dator-kidana ori denez, gertaera ori ikusi nebanean jakin-nai eta miña sortu yatan. Ez dot aukerarik artu orretan sakontzeko. Ondarroa'n beintzat esandako denporetan galtzen dira azterrenak.

Orra Bedia deitura bere burua agertu nairik.

* * *

Ez dago beste Jaungoikorik, Jaungoikoa baiño. Ala esaten dabe arabitarrak kantu zaar baten: La Ilah, Ila Allah...

Ez dautzu esakera onek, errepika edo estribillo onek beste antzerako zerbait gogora ekarten, edo ez dautzu belarrietara ots egiten? Gogoratu:

Lelo, il lelo, Lelo il lelo,
Leloa, Zarak il leloa.

Euskal literaturan agertzen da. Noiz sartu zan, nundik eta zetatik? Ba dirudi dinbi-danba kumatxoci eragitean burua etortzen dan berezko esan-mesana dala be. Baiña euskaldunak geiago be geitu geuntsan, erromatarrakin gogoratzen eta geure erriagaz pentsatzen:

Octabiano mundu Jauna,
Lekobidi Bizkaikoa.

Jatorra ete da lelo ori, kantu ori? Or kaku. Jatorra edo eratua, konpondua edo moldatua, nire zeregin eta ardura, gaur, Bedia gogoratzea da, Bedia'ri erri izatez edo izenaren erruetatik buztarria billatzea da, ta orra kantu onen «trularien» artean, erabiltzale, nastatzale edo billatzaleen artean, Zornotza'ko eskribadu izan zan Ibargeon' egaz batera, beste izen bat: Bedia'ko Anton.

Askok erabilten dabe aotan edo paperetan izen au, batez be euskal literaturaren sustraiak billatu nairik ibiltzen diran izkuntzalari eta jakintsuen artean.

* * *

Bedia ikusteko ez da zazpi legoako kalerik igaro bear. Euskalerrian gagoz. Gauzak txiki baiña eratsu dagozan tokian.

Ereño auzoa kenduta, erri laua da Bedia. Gaur Ereño'n bizi diran bediatarak, danetara be, eunen erdika dira, berrogetamar inguru. Danetara be milla ta irureun lagun Bedia'n. Milla euskaldun eta besteak erdaldunak. Bizi lagunik geieneko auzoa, Murtaza, eta gero Elexalde. Bestetan, Eroso'n 150 lagun inguru eta Barrueta eta Utxarain'en, bien artean, eun.

Bediatarak, erri lez, nekez lortu zituen euren eskubideak, nai eta errialde edo merindade baten izena eroan. 1858 urtean emon eutsen Gernika'ko Batzarretan, eleizateen artean, 73'garren botoa.

Bardintu ibilli ziran eleizako gora-bere-tan. Gaur, San Juan eleiza, parroki da, abade bigaz, baiña luzaroan bediatarak Galdakano'ko parroki lez egozan, eta orain berreun urte aurretik parrokiak sortzen eta emoten zitezuan artu-emon eta bete-bearretan, espiritu andia bearko eben bediatarak emendik ara joateko.

Oriagatik luzaroko autuak erabili zituen Galdakano'ko parrokiagaz. Ainbat auzi, pleitu, naste eta asarraldi.

Kontuan euki, umeak bataiatzen be, Bedia'tik Galdakano'ra eroan bear izaten zirala jaiotariak. Onetan Eleizeak ba eukan toki batzuetan begirapen pixkat, eta auzo edo errialde txikietan egoten ziran ermita eta baso-eleizetan ba ekian bataiotarako leku eta baimena emoten. Bedia'n ez. San Juan'go parroki barria egiñarte, ez zan ezelako eratasun eta erreztasunik egon. Bidezko zan, ba, bediatarren asarre eta ardura.

Oriagatik, 1742'ko Loreilla'ren 17'an eleiz agintariak emon eben erabagiz, andik aurrera Bedia'ko eleiza onetan oteundegia (sagra-rioa), bataiotarako ur-ontzia, olio santuen krisma-kutxa eta orrelako premiñazkoenak ipinteko baimena emon zan. Ori bakarrik ez. Galdakanotarrak ogei egunen buruan jaramonik ezik, edo orretarako bear zan abadea eskiñi ezik, bediatarak euren bostean izentatu zeinkien eurentzakoa, ordaintzen zituen amarrenak beretzako gordeta.

Orra bediatarak, eleiztar lez nortasun osoko orain 232 urtetik. Eta erri legez, boto osoagaz, orain 116 urtetik.

* * *

Burdiña dago Bedia'ko lurraldetan. Leku askotan errez igarten da nun dagon, busti-unetan. Emen be billatu eben.

Burdin garra egon zan Euskalerrian orain larogetak urtetan, gure gurasoen denporetan. Ainbat lekutan igarten dira onetan asiera eta gertaerak egiñaz zabaldu eta lagatako mendizulo eta bideak. Kostu eta aukera ezak, edo bear aiñako betak ez billatzeak, atzera eragin eta urregorako laga, aukera ohegoen zain.

Emen be San Luis izeneko bat egon zan eta Amerikar izeneko be bai. Abadiño'n, Irmura lez eta Berriz'en Olabari izenez. Eta Ondarru'n, Gorozika gaiñean asi eta Errenderi ingurura jeisten ziran tartetan.

Ez jakin Somorrosto aldekoak amaitu ondoren, lengo burdin meatz-tokiak zelako bizi bidea artu leikien.

Gaur be Bedia'n, bere industri txikian, ba dabil burdin gaia esku-biarretan. Eta oraindik ez jakin Lamin-arrieta eta inguduetan, kurtzallu argiak erabili bearko ete diran mendi barruak arakatzen.

* * *

Bere denporetan Bedia ez da erri aberatsa izan. Kontuan euki orain 350 urte, Bilbo'ko monja batzuk Bedia'ri dirua emonda eukela erriko premiñetarako. Doteagaz sartzen ziran monjak ba ekiezan olako diru zabal-tze eta eskintzak eukiten, erreditutatik bizitako. Abando'ko Sortzez Garbi izeneko mon-jak ziran. Beartsu lez asi ziran Bilbo'n etxea zabaldu eta biziten. Baiña Abendañotar bat sartu zan bertan eta arek estutasun asko nasaitu eragin eutsezan. Bediatarrei eta beste erri batzuei be diru aurrerakuntzak egiteko eran.

Gaur Bedia'k ez dauka olako premiñarik. Eta premiñetan, Artetxe bat zanaren onda-sunen emaitzak be beragandu leikez gauza askori indar barria emon al izateko.

Lemona eta Galdakano'ren Usansolo artean, Mendoia mendiak lepoan eta Ibaizabal errekarren urak bere oiñetan, Bedia'k etor-kizunari neke andi barik begiratu leikio gaur. Eta baketan.

Bedia'k argia emoten ei dau. Bedia abi-zendunak lema ori dauke beintzat: «Luz van dando».

A. ZUBIKARAI

AGVR

Apartado n.º 2
BILBAO

FRANQUEO
CONCERTADO
08/55

DANTZA LEIAKETEAK

BIZKAITAR II LUGINTZ-AZOKA JAIAN

BIZKAPKO AURREZKI KUTXEAREN BABESEAN

1.—Jaialdi onen barruan, dantza azkatuko norgeiako bat eratzen da, mailla bitan bananduta: gaztetxoak batean eta 40 urtetik gorakoak bestean.

2.—Jaldi egunean 14 urte bete ez dabezan gaztetxoek bikoteak sartu ledikez, eta mailla bi orreitan Euskal-erri'ko edozein sasoi orre-itako bikote aurkeztu be.

3.—Urrillaren 4'gnean, ostiralez, izango da leiaketa au, eta Bilbo'ko «Ferial Industrial de Muestras»eko aretoan, arratsaldeko seiretatik aurrera. Dantzariak, ordu erdi aurretik bertaratu bearko dira.

4.—Txistulari talde baten egiñean izango da eres-saila.

5.—Izen emotea: Irail onen 30'gnerarte (barruan dala), eskutitzez bialdu Bizkai'ko Aurrezki Kutxa'ra, azalean auxe geituta: Sección Propaganda, Apartado 238, Bilbao.

6.—Sariak: Nausientzat, 6.000 lauerleko, txapelak eta garai-ikurrak; 5.000; 4.000; 3.000 eta 2.000 lauerleko.

Gaztetxoentzat: 3.000 lauerleko, txapelak eta garai-ikurrak; 2.500; 2.000—1.500 eta 1.000 lauerleko.

Leiaketara aurkezten diran guztiak euren agiria jasoko dabe. Saririk lortu ez dabeneri, 200 laurlekoko laguntza bat emongo yakoe gitxienez.

7.—Mai-buru berezi batek aukeratuko ditu irabazleak, eta ezertariko zalantzarik sortuko ba'litz, Mai-burukoak eta Eratzailleak zuzenduko dabe,

KIPIREN DEUNAREN JAIK

SONDIKA'KO SANGRONIZ'EN

Emen doguz San Cipriano'ren jai ospetsu oneik be. Sangroniz auzoko jentearen alaigarri, ta udazkenaren asierari ondo-etorria emoten. Ara egi-taraua:

IRAIL ONEN 26'GNEAN, EGUENA

Eguerdiko 12'etan.—Jaien asierako su-ziri zaratsua.

Arratsaldeko 5'etan.—Gaztetxoent-zat jolas-aldia.

6'terdietan.—III Arrautz-opil gin-tzako txapelketan sartzea.

7'etan.—Dantzaldia.

9'etan.—Opil orreien erakusketea.

Gabeko 10'etan.—Ordubiak arte-rako dantzaldiak.

28'GNEAN, LARUNBATA

Arratsaldeko 4'etan.—Gaztetxoek ekinaldiak.

5'etan.—Nasapuntako leiaketea ta aate azkatzea.

7'etan.—Dantzaldia.

Gabeko 9'terdietan.—Itsusien ar-teko norgeiagoga.

Ta, ondoren.—Ordubiak arteko dantzaldiak.

29'GNEAN, IGANDEA

Goizeko 9'etan.—Kalez-kalekoa.

10'etan.—V Makailau-pilpillen txapelketan sartzea.

11'terdietan.—Mezea.

12'terdietan.—Euskal - dantzak: Sondika'ko «Goratzailleak» dantzari taldea ta bertako Txistularien Alkar-tekoak.

Onen ondoren.—Pilpil-gintzen era-kusketea.

Arratsaldeko 5'etan.—IV Euskal-Jaialdia. Estitxu, Xeberri, Gontzal, eta Txilibrin-Balbino tarteko dirala.

7'etan.—Asi, ta ordubiak arteko dantzaldiak.

ARDURADUNAK

BARDINGAIK

Dingilizka dagon, edo alde batera naiz bestera jauskerea daukan edozerk, bardingaiak bear dau eta orduan bardintzea edo «ekilibrioa» lortuko dau. Bardintza au iraunkorra izaten da batzutan, beste batzutan aldakorra: berez egotera jotzen dauanean da iraunkorra eta berez jaustea edo aldatzea eskatzen dauanean aldakorra.

Gizarteak be bardingaien eta bardintzen aldakuntzak izaten ditu kondairan.

Erdi-aroen bardintza iraunkorra egoala esaten dabe: gizadia, gora-bera edo ara-ona asko barik, bizi zan. Orrek ez dau esan gura zuzentasuna egoanik, giza-maillak ezbardintasun aundia euken eta. Baiña Jainkoaren bildurragaitik edo erri-kontzientzia erdi-lotan egoalako, dana iraunkor eta geldi egoan.

Gero etorri zan berbikundea edo «ber-jaiotzea» eta bardintza ori laster apurtu zan: Jainkoaren tokian gizona jarri eben, gizonaren barruko asmapenak bizi agertu ziran, agiriko asmakizun izugarriak nunnaitik sortu ziran... Eta bardingaiak aldatuez, bardintza (ekilibrioa) apurtu zan. Zelako samintasunak gero gizonen artean! Eta ain zuzen be, emen aztertuko ditugun gairik geienetan.

Urte batzuk igaro ziran beste bardintza bat sortu zan, baiña ez lengoaren bestean iraunkorra.

Lenagotik asita, gizonen lanak onetarako izaten dira: bardintza bat lortu, bardintza ori apurtu, bardintza barri bat eta beste mailla baten egin. Eta ez uste izan alperreko lana danik. Ez da antxiñako basamortuko otzaragiñen antzeko lana. Ez. Bardintza bat apurtzen danean beste bat billatzen da, baiña beti mailla obeago baten. Eta orrelan doa gizona beti obara eta gizartea obeto osotzera.

* * *

Eta zertan diardu gaur bardintza-lan onek. Iraunkor ala aldakor dago? Zailantza barik bardintza aldakorrean gagoz. Gaurko gure egun oneik, bardintza-arloan, Erroma'ko agintaritzak jausi zan aldiaren edo jaiotza-berri (Renacimiento) baten antza dauke. Egun batetik bestera bardingaiak aldatu dira eta bardintza barri bat lortzeko goragoko mailla batera jo bearrean aurkintzen gara.

Erlejiñoko bardingaiak sendoak ziran orain arte. Gaur bardintza ori apurtu da eta larri-une mingor baten aurkintzen gara.

Erriketa edo politikako azta bardinik ezbardindu dira eta ara nun ainbeste negar, eriotza, guda, alkar-aditu ezin...

Ondasun-bardingaiak antxiña apurtu ziran (ekonomia esaten dautsoe gaur) eta ortik eguneroko eta alde guztietako burrukak eta lan-izteak.

Sendian, batez be guraso ta seme-alaben artean, bardintza apurtu da eta gaurko bardingaiak bardingai ez dabe lortzen bardintza iraunkorrik.

Berba baten esateko, gizarte osoa daukagu bardintza aldakorrean edo bardintza ori guztiz galduta.


* * *

Ba dakigu zerk apurtu eban Erroma' tarren aldiok bardintza: Basatien etortzeak geien bat. Ez jaku osan ezkutatzen zerk ezbardindu zituan Erdi-aroko bardingaiak. Baina nondik sortu da gure aldiok ezbardintza au?

Onetan geroak argiago berba egingo dau, baiña urak goragotik datozala esan beariko dogu, eta gero, gure aldian, uraska bete dabela be bai. Edozelan be gaurko gizadiaren barruan indar barri ta eskari barri batzuk agertzen dira. Eleizan eta errietan irauketa bat gura dabe gaurko gizonak eta ori eskatzen dabenak ez dira talde txikiak, jentetza aundiak baiño: langilleak ta erri zapalduak batez be.

Aldakuntza au osasungarri dala uste dogu, baiña ez gitxiago gizonentzat mingarri: aurra ta ama biak dagoz aurgintzako miñetan?

Eta zer egin?
Aldakuntza zuzenak onartu; ezbeharak eroapenaz artu; zuzentasunari, beti ta sendotasunez, eutsi eta samintasunez bizi diranak poztuten alegindu.



NAPARROA'KO EUSKAL-ESAERA ZARRAK

INSTITUCION PRINCIPE DE VIANA

Liburu baliotsu ta ederra, ziñez, INTZA'R DAMASO AITA kaputxionak oraintsu-orain eskeiñi diguna. Udazken ontan uzta oparoz zitu umotua zuatzetik erortzen dan antzera pozik jaso dugun emaitz bikaiña.

Nork ez du ezagutzen ereille izan dan aspaldiko napar-euskaldun praille bizar zuri onbidetsu ta langillea?...

Entzutez bederik aren izen ospetsua agurgarri da Euskal-Erri guztian. Erlijio ta euskera alorrean nekearen-nekez beti lanean ibillia. Eta irurogeita ta geiagi urteotan kristautasuna emen eta erbestean zabaldu ta sendotzen zebilerarik euskalta na ere ez zeukan inñolaz azturik...

Gaztetandik jende xearen ezpaitatetik jalgitako esaerak biltzen joan zan eta geienetan atsotitz zar oriek kristautasunaz ondurik daudela ezin ukatu. Auek dira liburuan bildurik Aita Damaso'k opa dizkigunak. Argi ta garbi ogeita bi sailletan banatuak baillaraz-baillara, errialdez-errialde Naparroa guztikoak kokatzen ditu. Sakan'etik asi ta Luzaide'raño, Araitz, Larraun, Basaburua, Bortzerriak, Baztan, Ultzama. Iparretik egoaldera, Saraitzu ta Erronkari'koak utzi gabe.


Erri-izen pilla gaitza eta izatez antziñako jakituriaz betea. Esaerak areago: bi milla ta bosteun guztira.

Praille apalak eskerrak ematen dizkie biltzaille-lagun izan dituan jaun-andreoi, tokiz-toki aitatuaz. Baiña bilketa luze ortan langillerik bizkor eta burutsuena bera izan da. Bai, Aita Damaso'ri zor diogu esku-erakutsi jator ori. Lenago, antzeko bildumak argitaratuak izan ziran. Oraingo au Fuegos'ko Napar-Aldundiaren bizkar atera da ta oni eskerrak euskaltzale guztiok, zar eta gazte, nun ikasi izango dugu. Eta bearri aiek darien mendiko-usai gozoa gogoz arnastuko dugu ainbeste sasi-euskerazko kirats artean gabiltzalarik.

Zenbaitek, gure izkuntza murrizten ari dirala, «Naparro'ko euskal-esaera» auetan urre-apurrak arkituko ditugu, gure aurrekoek utzi ziguten aberastasuna...

Aita Polikarpo Iraizoz jakintsuak bere erlijio anai dan Aita Damaso'ren xeetasunak ematen dizkigu, itzaurre gisa.

Eta bukatzeko, ezin laga diteke aipa gabe liburua edergarri ornitua dato-rrera Erentxun senide ta ertilari diran marraski politez eta Iruña'ko Aranzadi etxe-argitaldaria garbi bezin apain gutun zoragarria. Eskuan artu eta begiratu utsak irakurlea lilluratzen duana. Eta biltzaille izan dan Intza'ko seme argido-tarra Jainkoa'k luzaroan onez dezala.



EUSKALERRI'KO LUTELESTIA

Esku-artean dogu, jaso barria, «Esko Lurra» izenakin Agirre' tar Inigo'k egin eta Etor-Kultura-bidean argitaldaria zabaltzen daben Euskalerrri'ko lutelesti zoragarriaren lenengo atala.

1. Mendiak dau bere ezaugarria lenengo atal onek. Ta, alaxe, eretxira zabaltzen asi garanean —zerbait ona izango gendualaren ustean giñan aurretik be— ikuste batean igarri dautsagu zenbaterainoko goi maillara iristen dan.

Egia esateko, ez gendun, urrik be, olako lan sakon eta ederrik inork eskeini eikeanik gure erriari ta gure euskereari; are ta gitxiago gure ustean, gaur agiri dan arinkeria ta zikindubearra ikusirik bazter askotan.

Benetan arrituta geratu gara. Ta, zeuri be, beste orrenbeste jazoko yatzu eskuratzan dozunean. Gure idazti-azoketan zabaltzen danean, eta or ikusien dabenak, erosi bat-batean edo bere jabe egiteko egarritz geratuko dira.


Lenengo atal onetan, gure oiñen azpian darabilgun lur maite onen zerak eta besteak, jakituriz beteta azaltzen dauskuz egille azkarrak.

Jeoloji saillean —orri orri nai geduke atal au zuentzat aztertu, baiña luzeegi izango ez ete-dan bildur— jeoloji saillean, ba, gure lurraren izatea maillaz-mailla ta milloika urteak zear, noiz sortu ta bete zan bakoitza, azaltzen dauskuz garbiri ta zeatz. Mailla bakoitzeko garaia jakin dagigun, 1 orrialdean, beean eta gorritzaz margotutako laukian, ikasi geinke; urrango lau orrialdeetan datozen banaketak noizkoak diran ulertu dagigun.

Ba-da emen, lurpe, lur-ebagi ta leiza aztertzailleentzat gaia, baita jakintza onetan murgiltzeko gogoia zabaldu daitezun jakingurea be.

Bereala jarri naiz begira, 2'gn orrialdean, zein arotako lurrean jaiio ete-nintzan, ta ara, lenen aldi azkeneko «galdar-aitz» baten oiñetan izan zan, Perm eta Trias aroen artean, or nunbait, azaldu ziran «ofita» tatik, arkaitz baten oiñetan; ofita-sube-arrira.

Gero, Lur-egiturea; zelan zimurru zan, tolostu eta erpiñak eta sakonak sortu, tarteka etenak agertu; mundik?: Alpe mendiak goratzean, onein bultzakatik.



Seigarren orrialdean, ona emen gure mendi ta ibarrak, zelai ta ganeko-gortak. Danoren ardatz edo bizkar-azur, Auñamendi luzea. Gure mendiak mundik nora eta beetik gora, baita zearretara be; zeñen senide diran eta noruntz zuzentzen diran adierazoz.

Amaikagarrean, gure lurraren saietzak albo batetik ikusita. Nork asmatu gaur Dima ta Nabarniz gainean egozan mendi tontor aundiak zelakoak ziran. Arrezkero gure ibaien eragiñez ederto beeratu' dira.

Mendien ondoren, aranak; euskaldunen bizi-leku zaar eta betikoak. Tartean gure mendien neurriak; Naparro'ako lur azalaren launak eta mendiak, baita ibaiak be. Gero, Bizkai ta Gipuzko'ako zimurrak, danak lur-irudi polit margoztuetan. Bigarren atalaren zain geratu gara, lenengoa ikusi ondoren, noiz bialduko ete-dauskuen zain, ta urduri.

Onetzkeru jakingo dozu, atal onein erosleen artean, euskal edertilari onenatarikoen lauki margoztu ikusgarriak zozketa baten bidez bananduko dira, orretarako, azalaren atzealdean azpiko ertzean datozen iru-tzurak, lenengo lau aleetatik ebagita, Etor'era bialtzea besterik ez dozu.

Asko geiago esango genduke, ain da ba aundia eragin dauskun zirrara, baiña zeuk be irakurri ta ondo aztertu bear dozu-ta, emen lagatzen dogu azalpen labur au; zeure egarria, euskal ekintza onetarako egarria, ondo zabaldu dogulakoan.

BEIZTEGI'TAR JON

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri asmoen gaiñetik daben iritxi-oneko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxiñen, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egilleak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M. MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guttirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

Irakaspideari Buruz

OIÑARRI EZIKETA ARRUNTA TA BATXILLER IRAKASKINTZA

BATXILLER IRAKASKINTZA

5'go.—Batxillerra.

1974-75 ikastaroan, bai Oiñarri Eziketa Arrunta, bai Batxiler Irakaskintza, neurri batzuen araura erabilili bear izango dira. Gobernuko, 1974'ko Uztailak 5, Batzarraren Erabakiaz.

1'go.—Zortzigarren ikasketa 1974-75 ikastaroan antolatzen da, orrela aspaldiko ume-eskola deseuzturik.

2'go.—Ikaskundeak:

A) Len-lengo guziek edo ortarako eskubidea artuko dutenek, *talde oso bat*, gutxienez, bi epe ikastaro bakoitzeko dutelarik, zortzigarrena irakasteko eskubidea dute.

B) Eskolatu bearrez, irakatsi ere ba-dezakete, onelakoxe ikaskundeak:

a) Ikasle-taldeak eratu daitezketan: bost ikasketa lenen epean eta iru, berezirik, bigarrenetan. Naizta ikas-gelak bi edo etxe geiagotan izan, alkarregandik aldenduak. Etxe oiek neurri ezberdiñekoak izanda ere ez da ajolik.

b) Ikasle talde guziak ez diranetan. Baiñan, orduan, arau bereziak lituzkete beren gain, eta artara egon bearra.

3'go.—**Irakasleak.** Unibersitate eskoletan artarako agiria irabazi dutenek eta leendik bigarren epeko ikasketak zeramazkitenek irakatsi dezakete zortzigarrenetan.

4'go.—Ikasleak. Auetxek:

A) 1974 urte barruan, sei urte bete izango duena, lenbizikoan.

B) Bigarren, irugarren, laugarren, bostgarren, seigarren eta zazpigarren-goan berriz, aurreko urteetan jarraitu dutenek.

Eskola gabe ibilli direnek, nola edo ala, azterketa baten bidez, dagokieten ikasketa-lekura eramana izango dira. Adintsuak ba'lira, ta azterketaz ezer ez edo neurria baiñon gutxiago dakitela, beeragoko ikasketara sartuak izan eta ardura aundiagoa ipiñi bear zaie, goragoketara iritxi daitezken.

1) 1974-75'an, Institutoetan, Kolegioetan edo Akademien bidez, Batxiller arrunteko boskarren eta seigarren ikasketa edo urtea osatu daiteke. Baita Batxiller Tekniko Nagusiko seigarren eta zazpigarrena ere.

2) Akademien bidez edo norberak bere aldetik (au da, «enseñanza libre» deritzaionez) Batxiller Elemental Orobatua izeneko irugarren eta laugarren ikasketa edo urtea egin daiteke. 1975'ean, Iraillean, irugarren urteko batxiller arrunta deseuzturik geldituko da.

3) Batxiller arrunteko laugarren urtean zenbait asignatura egin gabe daudenek edo zintzilik dauzkatenek aurrera ateratzeko ikasketak sortu daitezke, adieraziko zaizkien baldintzetan.

4) Aurtengo Irailleko deituran, Batxiler arrunteko bigarren ikasketa betirako itzalia edo deseuzturik gelditzen da. Bigarren urte onetan asignaturak zintzilik dauzkatenek, azterketa baten bidez, «Certificado de Escolaridad» edo «Graduado Escolar» agiria edo olakoren zerbait eskatu dezakete.

5) Batxiller arrunteko irugarren urteak edo ikasketak deseuzturik gelditu bearra izanik 1974-75'ean, artarako debekaturik dago edozein.

6) 1974-75'ean, saio antzo, Orobateko Batxillerra (berria) antolatua izango da, lenbiziko urteari edo ikasketari ekingo zaio. Ortarako aukeratu diren Ikaskunde edo Zentroetan. «Graduado Escolar» agiriaren jabe diranak aratu daitezke.

Orobateko Batxillerra edo «Bachillerato Unificado» onetan sartuko ez diren ikasleak, Batxiller arrunteko bostgarren urtera joan daitezke, Gobernuak ipiñiriko balditza edo kondizioetan.

S.



MONRAY

ARKONDARA-GINTZA

ANDEREENTZAT AZKEN-JOSKETAK

Bidebarrieta, 2
21 43 46 urrutizkiña

Alderdi-zarra
BILBAO-5

GAZTE

IGORRE'TIK

ARRATPKO JAIK II

IGORRE.—Jai egunak: 14, 15, 16, 17, 18, 19. Dagonilla.

Azkenengo itxi dot nire erriko jaien azalpena. Merezi dabela uste dot, eta ez jai alaitsuak izan direlako, bestela baiño...

Presupuesto: 180 milla pts. Asko da, ikusten dozuen lez, baiña esaten dautsuedanean, musika arloan —konjuntoak, bandak— 110 milla eroan dabela, obeto ikusiko dozue nundik noan, ezta? Orain entzun dot, sano geiago izan dala...

Antolatzaileak: Ayuntamientokoak egindako komisio bat izan da. Komisio orretan ez da gazterik inondik be ikusi, eta ez gazte bat be arduratu bertan sartzeko. Puntu au azaltzea bearrezkoa dala uste dot, datorren puntua ikusteko.

Giroa: Beste itaun batez erantzungo neuke: Izan ete da girorik? Ze berba ete da ori? Igorre'n itz onek ez dauko sentidurik, jai oneitan. Obeto esanda: ez dogu ezagutu. Uste dot uts aundia izan duela agintariak jai oneitan, uste dot Igorre'k beste berigakun bat merezi duela. Uste dot ori ez dala bidea, erriari ezin iako berrerik egin, eta bide ori jarraitzen ba' dozue, arrisku aundiak daukoz. Zeuek ikusi

Jaiaren saritetsia: Gauza onak: Egia esan ez dakit gauza ON BAT ikusi daben pertsonarik dagon Igorre'n.

Gauza utsak: Nire eretxian osoa uts aundia izan da. Gaztediak parte artzen ez daben artean ezin dira jai orreik onartu, sentidurik ez daukaela uste dot. Baiña gauza uts batzuk esatearren emendik asiko naz.

Egitarauan ipiñi zenduezan gauza asko ta asko, non gelditu ziran? Jota txapelketea, zergaitik ez zan egin? Inor ez zala izenpetu esango dozue, baiña... zergaitik ez zan inor izenpetu? Uste dozue gaztediak antolatu izan ba'ebazan, ori izazoko zala?

Beste puntu bat: Zarata aundia atera dau Igorre'n, baita Arrati guztian be, bertako iantza-taldeak dantzarik ez egiteak. Ba dakit, galaso-galaso, ez dautsezuela egin; ba dakit eta ba dakigu Ayuntamientokoak antolatu dabezala jaiak, ta itsua ez ba'da izan, jakin dau errian bertan dantza talde bat dagoela. Orduan, au jakin ba' dozue, zergaitik ez dautsezue ezer esan?

Aaztu orduko, irakurleei esan bear dautset, ez dala jota txapelketea bakarrik izan egin barik itxi dana, ez. Uste dot, pentsatuta egonetik erdia bete barik geratu dala. «Nora zoaz, nora goaz, olango bideetatik?»

Azkenkuntzak: Zeanuri, Igorre. Biak, erritxo bi. Biak Arrati'koak. Bakoitzak bere Ayuntamientoa dau, bakoitza bere gaztediagaz (Igorre'k be ba dauko gaztedia).

Erri baten, konturatu da Ayuntamientoa gaztedi barik ez dagola ezer egiterik, erria illa geratzen dala. Besteak, Igorre'k betiko bidetik jarraitu dau: begiak itxita, ta belarriak gortuta, euren eretxiakaz bakarrik jokatzen beti. Aurtengo jai negargarriak ikusita, uste dot, beste zeozer pentsatuko dozuela, edo pentsau bear zendukeela, bestela, bide ortatik ez zoazie ondo.

* * *

LEMONA.—Jaiak: S. Inazio, S. Lorentzo.

Presupuesto: Ez nago ziur, baiña uste dot gazteak antolatutako zatian, 60.000 pts. zala.

Antolatzaileak: Pentsaten dot danetik izan zirala, baiña alderdi ederrena ta onena, gazteak antolatu ebela.

Giroa: Bear ba'da ez da izan danok gura genduken giro ederrik, uste dot es zala bear zan euskal-girorik izan, baiña ori ez ba'zan agertu, alaitasuna bai. A, ta erdaldun asko, uste dot, egon zala; ain ziran asko, azkenean erdal-giroa sortu ei eben.

Jaiaren saritetsia: Uste dot orain konturatu dala Lemoa gauza askogaz; orain asi da kate asko apurtzen, au garrantzi aundikoa da, Lemoa, orain arte, Arrati guztitik zeozer aldunduta egon da-ta. Orregaitik, benetan da txalogarria gazte batzun alegiña, euren errian euskal-giroa sortu guran. Ba dakie ez dala erreza, baiña aurrera jarraitu dabe. Uste dot, alegin orretarako lenengo mailla ederra lortu dabela egin zirean dantza-erakusketa ta euskal-jai orreigaz, benetan ikaragarria zan ainbeste dantzari an, enparantzean ikustea.

Gauza utsak: Bear ba'da, ezin daiteke esan guztiz utsak izan ziranik, baiña bai, bear dan lekuan ez zireala egon gauza batzuk. Uste dot, euskal-jai bat ezin dala folklore uts lez artu; uste dot, ezin dala jendea joan, ondo-ondo afalduta ta gizonak euren txokor ederra erretzen eta futbolatzaz itz egiten; uste dot, beste begirapen bat merezi duela jai guztiak. Abeslari batek esan eban lez, an, une batzuetan, ezin ei zan abestu, baiña uste dot baita, lenengo urtea zan lez, gauza asko parkatu bear iakezala, ta bitartean, ea azkortutzen garan urrengo urtean obeto urten dagian.

Azkenkuntzak: Benetan, aurtan bear egin dabe Lemoa'n; benetan konturatu dira nortzuk diran, eta benetako euren eginbearra zein dan. Alegindu dira pauzu batzuk emoten, orain, jarraitu dagiela; au bear da. Itxar on daigun (Jarraitzeko).

IRRINTZI

Donibane'ko Portuan

«Uraren gainean, usturik dago Euskal-Erria». Ala dio kantak. Ba ote?

Donibane'n usturik... Donosti'n puskatuba. Askatasuna galdu degu... Bata-sunarekin edo Bitasunarekin, izkuntza, ala, pikotara dijoa. Beraz...

Bai, Donibane'ko portuan... jende gutxi. Bero aundia. Aixé pixkat ere bai. Larun mendi ederra. Itxaso zabal urdiña. Sokoa'ko gaztelua.

Gogoramen eta errimiñak. Oso zarrak —maitagarriak. Ta gogoramenak oso zarrak diranean, ontziak bezeda gelditzen dira baztar batean.

Ta, ortik jan bear. Etorkizuna ilda dago-ta... ilda edo nastua... Euskalerrri'an beintzat.

Donibane'n igaro nuan nere aurtzaro zoriontsua. Nola aaztu? Zortzi urte asko dira... ume batentzat geiegi.

Sta. Barbara'ko tontor politan, kapera txiki bat... Eskubi aldean, alemanak utzi-tako arresi bildurgarriak. Zer denporak!

Beian, beti itxasoa... arkaitzak. Donibane'ko kale xarmentak turistez beteak daude. Ta nolakoak!

Ara or Ste. Marie, nere kolejio zarra! Orain dirala ogeitamairu urte bezela dago. Zer poza! Ste. Marie... nere lenbizko kolejioa ta azkena... Eliza, ederra, ixilla. Nere Jaunartze Aundiaren txokoa.

Zergaitik etorri giñan egoaldera? Euskeragatik, fabrikagatik... Ta, orain, zer? «Agur Donibane, itxaso ta mendia... Agur Sara... bere Plaza xarmentekin...»

Donibane'ko kanposantuan, zenbat eta zenbat tolosar... «Vae Victis» Julius Cesar.



Zorigaitza garaituentzat. Noiz arte? Itxaropenak nai duen arte...

Ducontenia'ko zugaztia asi da gorritzen. Zugaitz bikaiñ oiek ikusi dituzte, ikusi, gure ume-joku errugabeak! Gure joku ta kantak ez ziran ez oraingoak!

Gaur, gogorkeri, maitekeri, folklore ta kirolkerian itoak gaude! Politikan ere bai. Olerkiaren iturria agortu da... Ez al da ala? Teknika aurrera... gizona atzera. Kultura gutxi.

Kontu polita benetan!

MATXIN

Gaztetxoeren Txokoa

UME ITXUSIA, GARBI

Bein batean, urte asko dirala, mutiko zikin bat bizi zan. Inork etzekien itxusia ala polita zan,



betik zikiñik zebillalako. Etzeukan lagunik, zikiña zalako.

Inork etzuan beragaz ibilli nai.

Mutikoa oso artoa zan, baiña buria egin eutsianean arrokeriak kendu zitzaizkion.

Ta oso triste etxera joan zan. Urrerengoko egunean garbi ibiltea erabaki zuen ta lagun asko egin zituen.

Ta alan izan bazan sartu dedilla kalabazan.

LARA'TAR DORLETA

Arrasate'ko Ikastolako. 9 urte.



eziketa jostailluak eskulanetarakoak irakasketa gaiak

gregorio de la revilla, 1 bilbao - 11

Jolasean ikasi, or zure aurrentzako emoitzarik onena

KONTU KONTARI



OLE...!

Bai, olé! Ori errez esat'ok. Gure eguneroko bizi moduen, asko, askotan entsut'ot: olé, gizona sekulo baiño gastia...! Olé, andrie ederra benetan berau...! Olé...!

Baiña, neutset, beintzet, olé orrek rekien musikak daukez.

Kantari edo kantoretzan ikusi nebanien ez enuekela zer egiñik, beste giro batzun bille junitzen. Belarri gogorra, naitxe arpegi gogorra bota: Bapez, prakaso total...!

Neure azkenengo urterie Bilbo'n izen zan. Aixé-onetako tiatruen. Teatro Buenos Aires, naitxe, nitzet, aixe on izeneko orrek ez eban putz ederrik ekarri.

Bilbotar erdaldu batek, jakine, bilbotarra izen zekero, erdaldune geixena izetie, diñoste, neure Bibes'en Maruxa'ko Golondrona amaitxu nebanien, bilbo-andaluz berbetane

—Be, be usté kómo está el público...! Usté sólo tiene dos salidas: La Kasa de Sokorro, o... La Komisaria...!

Zer beintzentze jatzue...? Ba, oixe ber-beroi izen zan...

Orreta ezin jarraitxu, pentsau neban. Andik aurrera artiste bizierie jarraitxuko neban, baiñe iñon lepotik, iñon «baloriaz».

Jaun Goikue, neure ustez, nire moduko buru-alegrien alde dabill beti.

«Joselillo Cruz» izeneko lagun on bat topau dot. Amabost urte inguruko umie. Neuk pe asko geixa ez, ez gero. (Begotxu, begitxu erretrature. Barreik egin barik, e...!).

«Apoderado», erdaldun gogorak esaten daben lez izen nitzen neu pare bat urte motzetan, tororo gaxiaz.

Sekulo-sekularixuen botika usain geixa eztot artu inguruen onek urte bikixetan baiño:

Zestona'n, Lastur'ko ixko txiker batek...!

Esan'otsen, bai alperrik...!


—Ik, Joxelillo, trapue pasau'xok, adarretan asi da buzetan urten arte... Eu, beti, beti, buzetan alderdirutz. Adarretatik kanpora, Joxe.

Nik, neuk, eztakitx gaur be zelan, baiñe Zestona'n Joxelillo'n tripe barrenak ixko aren buzetan edo irugarren adarrak ondo baiño obeto aztertute itxi zeitxun.

Trabanen, arda baso likiñok kendu, ogi txapurrok batu, da nire mutille, ankaz gora, mediku biraneante baten esku artien. Almandorrats uger zikiñ batz josi este sobre koxkuok, eta bizi...! Koiñak botella erdixaz igurtzi, beste erdixe neuk eran, da saniau, gizona...!

Orraitxiñok, urtikarixe negargarrix agertu zan gau aretan. Biñagrie zala ona, bata; gatza, beste batek. Zer da kontue, danok, biñagre, gatz eta abar eñ, da botikene lurrun ganetik a zuan usaiñe, atsa...!

Beste baten, Sandarde'ko erreixa inguruen, «Villaverde de Tructos», izena. Begi bakarra euken zezenak, eta aurreko anka bata «glosopediek» jota...



Urten baiño ez, erriko plazuelan zan, zapaldu, sapuztu dau nire umie, Joxelillo. Jausi de au luze luerrera, auzpez. Zezenak buru ganien ipiñi'otse apatxa... da arpe-gixe arri zeien kontra luzeruen... Aste gustixe naparrai pikauze ba'litze lez...!

Ondamendixe..., gure artistekerixe...! Bosgarren agindue ondo baiño obeto betete gendun ixko txarrikokiñ...!

Jankiñ deizuen, ganera, esango'tsuet. Onek danok pasau, da irebazixe zenbat zan...!

Ayuntamentuek emote zitxun mille ta bostegun peseta inguru. Da alkilerreko torero argi-trajie zortziregun peseta. Tasixe iruregun. Banderilleroak beste iruregin. Ogei ogerleko sobrantie. Erdi bana eñ da amar ogei errieleko bakotxak. Kantore baiño geixa beintzet...!

JUAN JOXE ARRIZABALAGA

«MARKIÑA»

Estropadak Dirala-ta

Aspaldin, itxas-kirol diran arraunketak, asteroko janari bezela dauzkagu. Bateko Kastro-Urdiales'en, beste Koruñia'n, arrungo Santander'ko uretan, gero, bi aldizko saioak Ondarribi'n, ta azkenik Donosti'koak... eta oraindik jokatuko dituztenak batu ezker, ba-da arraunketa ugari, jaunak!

Kastro'n, oriotarrak gelditu ziran aurren, gero, ez ziran joan Koruñia'ra, ezta Santander'era ere. Bai ordea Andre Mari egunean Donosti'ko saiora, ta idatzita det nola laugarren gelditu ziran emen. Esaten nun baita, ez piatzeko apustulariak... ta orain, Ondarribi'n, lenen gelditu dira, lasartearrak bigarren dirala.

Esan geinke, batezere Ondarribi'ko jokaldi oietan, igandekoan eta ostiralekoan, alde gutxikin dirala lenengo biak. Orrek esan nai du, oriotarrak eta lasartearrak, arraunetan eta aurren, berdintu daudela. Orregatik, ba kontuz ibilli bear dute apustulariak, estroposak ikusten ditugulako.

Ala ta guzi, lasartearreri eman bear diegu ongi mrezi duten gorlpena, estropada guziatara joan diralako. Zer esan nai du orrek? Esan nai du, zenbat eta geiago jokat, ordu eta nekatuago gongo dirala, ta oriotarrak lasaia, arranuean noiz beinka agertuaz. Gero, indarrak, besteak baiñon obekiago zaituta.

Amar treiñeruk ekin zioten arranuean Ondarribi'ko Iger muturrean. Asi ondartzatik eta iru milla arte. Bi taldetan jokat zuten, lenengoan, Ernani, Koxtape-Beraun (Sanjuandarrak), Orio ta Donosti. Bigarren saioan oster, Astillero, Kastro, Ondarribi ta Lasarte. Tamalgaria izaten da, bi onenak ez jokatzea talde berean. Orrela, alkarren indarrak obekiago neurtoke lirazke. Bi treiñeru estu-estuan ba'datoz, askoz marka obea egingo dute.

Amar treiñerutik, zortzi, gero, Donosti'ko saiora etorri bear dute, ta begira zeintzuk gelditu diran ortako: Orio, Lasarte, Ernani, Koxtape, Ondarribi, Kastro, Astillero ta Donosti. Kaiku ta Santander ez dira beraz etorriko Donosti'ra, azkena ta azken bigarren gelditu diralako.

Egin dituzten aldiak auker dira: ORIO, 21-26; Lasarte, 21-38; Ernani, 21-51; Koxtape, 21-63; Ondarribi, 21-58; Kastro, 21-58 (bi auker, berdin); Astillero, 21-59; Donosti, 22-08; Kaiku, 22-13; ta Santander, 22-45. Ikusten degunez, lenengo treiñeruek alkarrengandik alde gutxikin eldu dira. Orain ikus dezagun Donosti'ko saioaketa:

* * *

Irailak bat, Donosti'ko estropadak Urgull menditik ikusi ditut. Egualdi kazkar xamarra, aize-olatu ta aize azarnakin. Orratiokan, eguerdirako egualdia ondu zan eta egundako estropada ederra ikusi al izan degu.

Amabiak jota gero txanpan eman zioten asiera; lenengo taldekoak; Orio, Ernani, Koxtape ta Donosti. Bi puntetan, Akuario ta Sta. Klara tarlean, oriotarrak pixkat aurreratu ziran. Beste irurak berdintu zetoztela. Olatu artean, ikusgarria zan, albidade aundia izan bear arraunlariak, itxaso artan, arraunketa ongi eramateko. Olan joan ziran kanpoko balizetara, ta Orio'k eman zun bira lenen. Berealan ernaniarrak, baita Koxtape'k ere. Donostiarrak geroxeago, baiñan laurak alde gutxikin.

Oriotarrak irabaziko zutela ikusten gendun, ortan ez gendun ezpairik, baiñan... barruntzean, bi puntetara urreratzean, jaunak eta!, ernaniarrak oriotarrieri ortzaka zetozten, treiñeru baten aldekin. Baiñan ernaniarrak tamalgarriko «giñada» izan zuten, treiñerua zearo biratuaz, eta orrela, amarren bat segundu galdu.

Barruntzean, patrioak zeukaten garrantzia ikaragarria zan. Olako olatu aundi oietan, kontu aundia bear du izan treiñerua zuzen ekartzeko. Besteak ere izan zituzten bidez oketiek, baiña oriotarrak yayuak diranez, oso ederki zetozten. Gero, barrura sartu ziran, «Txirla», oriotarrak gero'ta aurrerago joan ziran. Ala ere, alde gutxikin eldu zan Ernani bigarren, eta irugarren Koxtape. Gero donostiarrak, naiko atzeratuak.

Bigarren saioan, Lasarte, Ondarribi, Astillero ta Kastro izan ziran. Asierako txanpa oso ona laurak, eta bi puntetan laurak berdin joan ziran. Bereala ikusi gendun estropada ederra izango zala. Kanpuratzean, naiko oker ibilli ziran lasartearrak, «giñadak» egiñaz. Astillero oso ederki ta ondarrabitarrak berdin. Atzerago Kastro. Kanpoko balizan, lasartearrak eta ondarrabitarrak berdin eman zuten bira, ta berdintu Astillero'k. Barruntzean, irurak oso elkarren urte zetozten, ondarrabitarrak pixkat aurretik. Uste gendun lenengo elduko ziral; lasartearrak «giñada» geigikin segundo asko galtzen. Bi puntetara eldu ziran baiñan, lasartearrak aurren. Iru treiñeruek alkarren alde gutxikin zetozten, ez gendun uste Lasarte izango zanik garaille. Ain zetozten estu irurak! Kastrotarrak naiko atzerago. Ta barruko balizetara eltzetakoan, ura ikusgarria! Guziok galdezka zein izango ote zan aurren. Ta... Lasarte lenen, Ernani'k eta Astillero'k biak batera utzi zituzten arraunak.

Estropada ederra bigarrena, ta onela gelditu ziran bi onenak. Orio ta Lasarte, esan geinke bi treiñeru auker berdin eldu ziral, talde bitan jokat arren; pentsa: Orio'k, 23. 16-2/20; Lasarte'k, 23. 16-4/10. Ondarrabitarrak ainbesteko lertzeak erin ondoren, bi puntetara sartzerakoan lasartearrak aurreratu zitzaizen. Beste aldetik, Astillero berdintu zeterren, ta barrukoan egundako arraunketa egin zuten! Uste gendun aurren elduko zala... baiñan zazpi segundo kendu zizkion Lasarte'k. Irugarren Ondarribi, ta Kastro azkena, Gizajo auker naiko atzeratuak.

Idazorik ez lutzetxo dijoa, baiñan estropada saio guziak berri batean idaztearren, beste erremeyan az det izan. Zaitka ta astero bialti gabe, guziak alkartu ditut eta, ona emen Donosti'ko bigarrena ta guziko irabazpenak:

* * *

Irailak 8. Egualdia zein baiño obea, ta ikaragarriko jendetza. Atzo, lanunbata, Atotxa'ko ostilariak ikustera etorri ziran millakak eraginda-edo, beintzet gaur, ba-zan zaragata ugari. Alderdi Zarrean ezin ibiltzeko eran, noski.

Bi taldetan jokat dute, lenengoan, Koxtape, Ondarribi, Donosti ta Kastro-Urdiales. Ta lenen eldu dana Kastro, bigarren Donosti, gero Koxtape ta Ondarribi azken. Auker zearo atzeratuak.

Bigarren ekiñaldean: Orio, Lasarte, Astillero ta Ernani. Jaunak, estropada ederra ikusi deguna! Aurreko jokaldian aize-olaturik izan ba'zan, oraingoan olatu aundiagoak zebiltzan. Baiñan beste mota batekoak, guk BAGA deitzen diogunetakoak. Arraunerako asko obego da, ta ederki balitu dira treiñeruek, batezere oriotarrak.

Asiera ederra laurak; bi puntetara berdintu eldu dira, oriotarrak zerbait aurretik. Kanpuruntzean, betaurrekoekin ikusten gendun, nola Orio beti aurretik zijoala, lasartearrak treiñeru baten aldekin. Baita oso ur ere Astillero. Kanpoko balizetara eldu diranean... Orio'k eman dio bira lenen, berdintu Lasarte, baiña albidadeagatik-edo, oriotarrak azkarrago bukatu beren bira. Ta, berriro asi dira zuzen barreneka. Onuntzean, ura edertasuna! Olatu aundi oiek bi puntetan, bildurgarriak ziran, batezere ugarte aldetik zetozten treiñeruentzat, ta auker lasartearrak ziran.

Aurreko lauren jokaldian, olatu aundi oietako batean, bi puntetan, ikaragarriko abidan zeterrela olatu aundi batekin, donostiarran arraunlari bat itxasora jausi zan, ta atzetik zeterren onzi batekoak jaso zuten. Pentsa ze nolako arrigarria zan, arrigarria ta ikusgarria. Patrioak naiko lan izan dute treiñeruek zaitzen; olatu aundi oiekin artzen dun abidan okerren bat sortu ezker edo «giñada» txarra egin, treiñerua ta arraunlariak itxas ondora jun litezke.

Bi puntetatik azkenarte, «Txirla» barrenean, oriotarrak nagusi, ala ere lasartearrak arrapatu zituzten, ba, olatu aundi batekin, ikaragarriko «giñadak» oriotarren treiñerua zearo biratu zan, ta zearo gelditu. Une ortantxe zegoen Lasarte'n aukera aundia, ta arrapatu ere bai ia, baiñan oriotarren arraunerako yayotasunaz-edo, ez ziran besteak beste aurreratu, berealan zuzendu zuten treiñerua, ta arraunetan ekin oriotarrak, ta orrela, millaka nutrin aien dealdar eta karraxipean, Orio eldu zan aurren, bigarren Lasarte, gero Astillero, ta azkena Ernani.

Azken itzak: Bigarren jokaldi onetan argi ikusi degu ondarrabitarrak zearo makalduta daudela, ta ez dakit zergaitik. Donostiarrak obekiago, baiñan patrioaren akats aundia, «giñadak» ongi zaitu eziñik. Lasarte otea, ezin berdintu Orio'kin, auker bai dira jaun eta jabe. Oriotarrak nai dutenean, aurreko beste alderdietako estropaderi jaramonik egin gabe, irabaztea lortzen dute. Donosti'ko saria aundiña bai da.

Kastro-Urdiales berriz, alajaiña, aurren gaur bere saioan. Oso estropada ederra egin du itxaso latz ortan, ez gendun beintzet aurreko igandean olakorik ikusi, ta, zorionak!

Guziak bukatu ziran, Alderdi Zarrera oster. Jendez beteta Dantzarien Eguna zanez. Ba-zan an zaragata ugari...!

Bi egun zoragarri igaro ditugun. Larunbatean Real'ak Bartzelona'ko jauntxoak menperatu zitut, eta igandean... zer esango det geiago? Ezer ez, ta datorren urterarte, Jaunak lagun.

E. OZKIN

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra
BILBAO - Casco Viejo
Tenderia, 15 eta 16

JESUS'EN LURRALDE ZEAR

1.—ATARIA

Aspaldi baten laztandutako ametsa bete dot. Jesus'en lurraldea ezagutu. Jesus'ek santututako lurra ikutu. 39 bidazti bildu giñan Gazteiz'en. Eibar'tik 9 giñan. 39'tik sei ez besteak euskalerrikoak. Erdiak edo geiago euskaldunak. Apaizak 8, 4 karmeldarrak. Geienak euskaldunak giñan-da, euskerea erabili genduan beti geure artean. Bat baiño geiago arrituta geratu ziran gure izkuntzea entzunda.


Barcelona'n artu genduan egazkiña. Ordubete ta geitxoagoan, Roma'n giñan. 6 ordu egon giñan Atenas'era eroango ginduzan egazkiñaren zain. Egun bi Atenas'en. Uri eder-aundia. Beroa be txikia ez. Jauregi, baratz eta enparantza ederrak daukoz, alan be txirotasun aundia ikusten da. *Akropolis*'a ikusgarriena. Antxiñako Atenas'en errauskiñak. Atenas osoa ikusten da bertatik. Itxasoa be bai. Arria ta aitzia dana. Errauskiñ oneik ikusteak pentsakor jartzen dau bat: Munduko ospea ta aunditasunak non geratzen diran. Zer biurtzen diran. Toki artan egoan Paulo apostolu donearen egunetan «Ignoto Deo» —ezagutzen ez dan Jainkoaren eliza— izeneko eliza.

Korinto be ezagutu genduan. Errauskiñak gaur. Beste toki batera aldatu dabe erria. Atenas'en ikusi genduanik onena: gerkerea dagie danak. Danak ezagutzen dabe ta mintzaten euren izkuntzea. Ikasbide ederra euskaldunontzat. Bai, baiña areik euren buruaren jabe dira. Legeak eurak jartzen dabez.

Iparramerikako TUA bat artu genduan Atenas'en eta 85 minutotan Lod'en giñan: Gabeko amarrak ziran. Israeldarrak oso ondo artu ginduzan eta berandu zalako-edo, ezer ez euskuen arakatu.

Autobusa Melia'k jarrita. Bardin bide-zuzendaria, Israel osoan zuzenduko ginduzana. Lod'etik Jerusalem'era 53 kilometro dagoz. Pilistotarren eta Sanson'en tarteko guda-tokiak izandako lurraldeak ikusi genduzan. Bide ona, Israel'go danak edo geienak lez.

Israel'erako gure egitaraua oso-osoan azaltzeko, idazlan luzea bearko litzake. Gauzarik garrantzitsuenak ikusi genduzan eta oneik bakarrik aitatuکو ditut, labur-labur, urrengo lanetan.



Betleem'go artzaiñak

2.—ISRAEL

Oso aurreratuta egoan Israel, Kristo baiño 15 gizaldi lenagotik. Zubi bezela zan Sorkalde ta Sartalde tartean, Ipar eta Ego tartean. Zapalduta euki eben geienetan bere auzoko Ejitiarrak, Hiitarrak, Asiritarrak eta Babilonitarrak.

Ejitora joan Jose'ren egunetan israeldarrak. 430 urte bizi izan ziran an. Faraontarren menpean egon ziran. Jopu lez. Moise'k azkatu zituan eta euren lurraldera ekarri. Kanandarren eta Pilistotarren lurraldeen jabe egin ziran apurka-apurka. Dabid erregeak batu zituan Kristo baiño 1.000 urte lenago. Jerusalem egin zuan buru. Gora-bera aundiak izan ditu Israel'ek bere edestian. Ezin aitatu danak.

Persatarren menpean, grezitarren menpean, eromatarren menpean, arabertarren menpean, asiritarren menpean, turkotarren menpean, politika aldetik ilda lez egon izan da Israel gizaldi luzeetan. Azkenik, Naziño Alkartuak egin ziran Lur-Santuaren jabe, ta Ingalaterra'ren ardurapean itxi eben Palestina. 1917'gn urtean zan au.

Urte berean, sortu ziran arabe ta judutarren arteko asarre ta burrukak, eta andik urte gitxira, Ingalaterra'k Palestina itxi egin ebanean, Israel eta Arabe tarteko benetako gudea sortu zan, nor lur geiagoren jabe egin. Azkenik itun bat egin eben; alan be ez da egizko bakerik izan arrezkero. Arabetarrek artutako Palestina zatia, Jordania'ko Hashemita Erreiñu egin zan 1950'gn urtean. Erreiñu onek eta Irak'ek erri bat egin eben 1958'gnean, baiña barriro be lurrera jausi zan alkartzeko ori.

Bakerik-ezean bizi izan dira Israel eta Arabe-erriak. Sei egunetako guda egin eban Israel'ek, eta Palestina osoa, Jordan alderaiño; Golan-gaillurrak eta Sinai basamortua artu Suez'eko kanaleraiño. Gauzak olan-da, azalezko bakea dagoala esan daiteke. Igezko udazkenean izan eben barriro be guda antzekoa.

Israel'ek bere azkatasuna 1948'gnean lortu eban, eta arrezkero bere buru jabe da, naizta bake osorik ez bere auzokoekin. 1956'gnean eta 1967'gnean izan zituan gudak.

Asi ta Afrika tartean dago Israel. Itxaso biren artean: Mediterraneo ta Gorria. Iparraldetik asita, zati oneik daukoz Israel'ek: Itxas-ibarra. Galilea'ko mendiak, bardin Judea'ko ta Samaria'koak be. Erdian Jordan ibarra. Israel'go ego aldea geiena basamortua da. Negev deritxo. Aintzira nagusi bi daukoz: Kineret-Galilea'ko Itxasoa ta Itxaso Illa. Au, 392 neurkin-metrora dago itxaso azpian. Munduko toki legorrik sakonena emen. Oso beroa da bere ingurua.

Lurra txiropa ba'dau be, israeldarrak kementsuak, langilleak eta aurrerakoiak dira. Eundik 82, urietan bizi dira; 29 uritan. Uri orreitatik 21 judutarrek

ERRIA

Izen aundia. Mamintsua. Nozik bein, bildurgarria ere bai. Gizona, bakarrik, ezin bizi da. Bere almenak bakarrerakoak ez dira. Buruak argitasuna emon nai dau, biotzak maitasuna ta miñiak gauz bi orreek zabaldu nai leukez. Berezko legea da. Ederra gaiñera. Zer gauza oberik egin leiteke ba, argia ta maitasuna zabaltzea baiño... Era ontan jardukeran, gizonak bere nortasuna osotzen dau.

Almenak, bere izatez, osotasuna eskatzen dau. Ortxe dago bere bizia ta ederra. Ori ez egitea, ezer eitzea da ta utsa. Ta au, azkenean, tristeza biurtzen da. Gure barruak oster, ola korik ez dau nai. Iltea, izan ere, baltza da, ta ezeren itxaropenik gabe izan ezker, mamuak baiño bildurkorrago ta ikusten ez dan samiaño baiño erreago.

Munduaren gora-bera guztia buru ta biotzaren pentsuan dago. Almen bi onek gurpil bi bezela dira ta orreen gain doa aurrera, biziaren ardatza ta gizarteko jokabide guztia. Buruak onez ikusten dabena. biotzak aginpide zuzenez, aurrerantz ba'daroa, gizonak poza lez bakea asmauko dabe. Jokabide onek gizona edertu egiten dau ta edertze ontatik dator bizitzaren osotasuna; batzar on bat sortu ta bizia alkartasunez egitea.

Geure barruko izakereak alkartu gaitu ba erriaren izenagaz. Ta iñoizkorik geien, gaur egunean, erri onen zoriaren billa dabiltz ainbeste gizon lurrean. Zer da zoria? Nun dago? Ondo billatuten ba'dau, aurkituko ete dau? Bear aundiak ditue gizonak galdera onen korapilloak askatu ta bear dan argiagaz argituten. Galdera oneek. ba-ditue euren inguruan beste batzuk be. Gizona zer da, bera, bakarrean, gizona nor da sendian, gizona nor da errian?

Pertsoneak zoriona izan al dagian, lenengo, nor ta zer dan jakin bear dogu. Norberekeriz gizon izatearen nortasuna zer dan onartzen asten ba' gara, utsa, ortxe bertan daukagu; era ortan gizona ez dogu ezagutuko, ta iñundik iñora be ezingo jako emon bearrari zor jakon ondo izaterik. Gizona gogoz, aragiz, bere izatearen atal guztien joskeraz ta almen oneik euren baitan dakarren elburua, ustelkeri gabe ezagutzea, arazo eginbearekkoa da. Ezaupideak emon bear dausku konpontzeko bidea. Baiña guk egiña ez dan lez gizona, sortu ebanak zelako ta zertarako egin eban, ikasi ta jakin bear dogu. Emen, izatearen mamiñera eltzen ez ba'gara, gizonari on askorik ezin egin al izango dautsagu.

Beste jakingarri dan puntu bat au da, gizonaren sendi-familirako alkartasun deia ta ango zeregiñak ezagutzea. Gizonak gizonari eskubide ori ez kendu ta ez emon ezin al izango dautso; bere barruan, zelan izan bear daben, ezarrita dakar-ta. Ta bizitza orretan zer egin bear dan, sendiko bearrak eskatu ta irakasten dabe.

Irugarrenean barriz, erriaren aurrean gagoz. Erria lagunak eta sendiak osotu dabe. Bakarrik ezin bizi, orretarako jaiok ez gara-ta. Sendiak bear izan guztiei ezin erantzun, alkartasun aundiagoa bear zan berezko bear izanez ta or sortu da erria. Ta esakera danez, antzekoak antzekoa billatzen dau. Erriko jendeak be antzekoak izan bear dau era askotara begiraturik, itz, odol, oitura, lagunarteko legez, bestelan burrukea dator ta onek eriotza dakar. Onk eta gaiñerako inguruak, alik ondoen konponduta, ondo egiñaren ondoren, zoria etorri bear dau. Ondo egona, gizonak beregan daroan berezko eskubide ta eginbearrak, zuzen betetuta, aurkitu bear dogu.

SOLOZABAL'TAR PAULIN

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

ZAZPI-KALEAK



CASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

dira, 2 arabetarrek eta 6 danetarikoak. 807 baserri dagoz Israel'en. Azkatasuna lortu ebenetik, 450 erri sortu dabez.

Israel'en, ebreoa ta arabea mintzaten dira. Alan be israeldarrak beste izkuntza batzuk be mintzaten dabez; frantzes, ingles, aleman, ruso, ladino, polako, hungaro, jidish... Ikaste arazoan oso aurreratuta dago Israel. Munduan bigarrena da UNESCO'k diñoanez, batzaz beste biztanleak gogoan eukita, jakiña. Irratia ta Televisiñoa be oso ondo antolatuta dagoz. Beste ainbeste esan deiteke zineaz, teatroaz, dantzaz, kirolez... Asko geiago esan daiteke Israel'tzaz, baiña esandakoak naiko. (Jarraitzeko).

GORIA

ARRIEMAKO

BARRIAK

Arrasate

ETXE BARRIAK

Len zeukatenetik urrun barik, emengo Bizkaiko Bankoak eta Gipuzkoa'ko Aurrezki Kutxak, bere armenetarako, toki barriak zabaldu ditue. Bertan egin diran lanak, ornitu eta apainketak oso egokiak izan dira. Oraingo onetik lengoak baiño egokiagoak dira eta olan bertaritzen diranak samurtasun askiago izango dute. Bein da berriz esan bear dut bertaritzen zedaten guztioi, euskeraz mintza zaitezteela, bertako langille guztiak euskaldunak diralako, bat edo beste kendu ezker.

ARANTZAZU'N

Urteroko ibildeuna izan zan Irailla'ren 15'an. Bertaratu zan jendea aski ugaria baita, igaz baiño geiago or nunbait. Bost berebil aundi eta ezin konta beste txiki, eta beti izaten diran bezela, oiñez joan ziranak naiko ugari. Eguraldi illun samarra baiña otzik ez, eta

giro ederra. Euskal-meza entzungarria eta entzuleak oso pozik izan giñan. Jaungoikoa'ari eskerrak, oraindik ez da larregi otzitu gure esatera zarra «euskaldun fededun».

IKASTOLA

Irailla'ren 16'an emon zioten asiera 1974-75'ko ikastaroari, gure Ikastoletan. Bertan emengo dira E. G. B.'ko zortzi maillaetako ikaskizun guztiak. Beste gela barri batzuk zabaldu dira, onetik Otalora kalean, ume txiki-entzako, eta onela izango dira: lau ikastola sei urterarteentzako, eta beste Gazteluondo'ko Ikastetxe aundian amar gelakin. Guztira 20 gela izango dira eta beste orrenbeste andereño eta maixu. Maixu eta andereño artean aldakuntzarenbat edo beste izan da eta oncin artean aldatu egiten da Jesús Mari Maixua, bere beste lanpetzeak eraginda.

Au dala-ta nire illobatxo Dorleta tamalez geratu da; maixu ori bere irakasle izanik pozik ebilen barakin oso biotz oneko eta erakusle ona zalako.

Bestela uste dugu, gauzak, azkenengo urte bi oncitan bezela, zuzen eta paketsu izango dirala ikastaro barri ontan.

ERIOITZA

Gazteiz'en, emen bizi izan zan ba, il da Narbaiza eta Izurtegi'tar Erramon. Goian Bego. Gure erritar be izan gendun eta urrun urte askoan bizi izan ba'zan be, bera eta bere euskal-sendia oso ezaguna zan. Euren etxean egon zan Batzokia, 1920'garren urte inguruan. Il dan gure lagun onck, dakigunez, beste tolosar andereño bategaz, Gazteiz'ko Ikastolai asiera emon eutsen. Orrez gaiñera Kardaberaz taledekoa zan eta Araba aldean lan asko egiten zuana. Tolosa'tar Pillipa apaiz lagunerrakin batera.

BESAIDE'N

Emen be, urtero bezela, mendigoizale talde eder batu zan Irailla'ren 15'an. Bilkura au aspaldidanik egiten da mendian il diran mendigoizaleen gogo alde eta bertan izaten dira esukal-jaupa, itzalditxoa eta domiña ezartzeak.

UDALAITZ

Basurto

II LUGINTZA-ERAKUSKETEA

Bizkaiko Aurrezki Kutzeak erata, or joango da aurrera erakusketa garrantzitsu au, ta bitartean bertan izango diran jai ederrak.

Aurreko zenbakian, AGUR onen 153' gnean, esaten da zerbait or izango dan dantza-azkatuko nor-geiagoo aipatzen. Ba-dakizu, amalau urtetik berakoak alde batetik eta 40 urtetik gorakoak bestetik, nork nork baiño obeto dantzan egin erakutsi gurako dabe.

Ta elkiñaldi au, Urril onen 4'gnean, arratsaldeko seiretan zala be esaten zan.

Baiña beste geiagorik ez gendun agertu, ez geunkan ba orduan gure eskuetara egitarau osoa. Naizia au zure eskuetara izan, jakin egizu oindiñok be ba-dozula aukerea or diran erakusketa ederrak ikusteko: Baserrietako lanerako makiñak Abere janari ta osakaiak; Ureztutze ta ongarrri zabaltzerakoak; Aztakiñak eta ezne naiz ale batzeko ontziak. Bizkaiko perretxiko, landara, txori, batetik, eta lur ta lurpeen muetak eta izateak erakusten, bestetik.

Ta, danori naiko ez ba'litz-edo nai aiña ta ainbeste ta ainbeste baserritar eta kaletar bertara erakarteko, or izango dituzu gure kirolari, dantzari ta abeslari ikus eta entzungarriak be.

Garaiz zabiltz oindiño, baiña batabatean amaituko da, ta arin baten joan zaite bertara, etzara damutuko, ta aldi alai eta jakingarri bat igaro al izango dozu.

ASTI

Bermeo

NEKATU ARREN ALEGINDU

Euskerea dala-ta, Bermeo'ko «Zukalki» Egunean

Zer esanik ez, aspaldi ontako jairik jatorrenetarikoa dogula Zukalki-Eguna. Ez noa jai ontaz idaztera. Ortarako nik baiño obeto norbaitek idatziko dautsue.

Giro ederra a ikusten ari giñala, Gazte bat azaldu zan berba egitera, ta au esan eban:

—Entzun apur bet, ladrilloak etorri dira.

Au entzutean, uste nun txarto ulertu nebala, edo euskera gitxi dakian nonor izango zala.

Gerotxoago, bikote gazte bat jaialdia aurkezten asi zonan, ta beste baiño askoz be euskera okerragoan itz egiten eban.

Adibidetzaz ezin dodaz au entzuniko guztiak idatzi. Egia esan, sari asko ziran, eta bat be etzuen ondano esan. Orregaitik ba, ez noa nora ipintzera, ezingo nuke amaitu-ta.

Alako jai ederra ta euskera aldetik obeto gertatu ez; eta ain ardura gitxi ikusita, min ematen eusten jaiak.

Danak alegindu bear gara euskerea ondo ta sakon ikasten: asko irakurri ta gure zarrei entzuten; onetik darabille joserka jatorra. Itxi dagiguzan oraingoz erdeldun berbak alde batera, belarrietan min emoten ba'dauskue ere. Baiña... joserka ta adiña...!

Etzuen gaiñera buruz esaten, irakurrita baiño. Nere buruari itauntzen neutsan, Bermeo'n ez ete dago euskerea ondo idazten dakianik?

Iñor izango ba'litz, olakoetan arduratuta, danok beranga jo bear genduke, erriaren aurrean egoki agertzeko, ez da ba polita euskerea edorzetara erabiltzea; entzuleak mindu egin leitekez.

Ez dot bein be entzun, iñongo itzkuntzan diarduenen jendea aurrean, txarto irakurtzen. Naizia erriak berak txarto itz egin, danak ohea erakusten alegintzen dira. Guk be orrenbeste egin bear genduke, nik eta danok, eta ez da gaitza laguntza on bat lortutzea.


Erderaz, emen geien entzuten lanak telebisio, irrati ta abarretan, ondo idatzitako danok irakurtzen dituez. Bear ba'da, aurretik ondo ikasita. Ta izlariak be onak eta oheak aukeratzen dabez. Orduan, euskeraz, zergaitik ez?

Uste dot ulertuko dozuela, bermeotarrok, nere asarre au. Urrengoan ardatu ba, biotzez eskaizen dautzuet, gure euskerea al danik onen irakurtzen alegintzeko, ta ez barregarri.

Danok daukaguz akatsak, danok gara makalak, ta beti ezin ba'da be, al dan guztiak alegintzen egin bear doguz. Ta, euskerea danok maite dogun ezker, euskerea bitartean danean, iñoz baiño alegin aundiagoa egin bear dogu. Nik eta zuk, danok!

Ta, amaitzeko, gaizki esanak parkatu.

Arri batekin asi zan



zure aurrezkien banketxea



BANCO DE BILBAO

gizaldiz goiti aurrezkitzan

EUSKALDUN BATEK

ERRIKO JAYAKO

Azpeiti

Emen izan ditugu egun abetan, bi mutil gazte Ingalaterra'tik Euskalerra ezagutzera etorriak. Nafarroa erdi aldea zearo aztertu dabe, oiñaz dabilta be geienean.

Orain Gipuzkoa ta Bizkaia arakatu nai ditue. Emetik, Izarraitz, Lastur eta orko mendi ta ibarrak zear Deba'raño joatekotan dira; gero, Motriku, Ondarrua ta Lekeitio'tik zear, Gernika ta Bermeo'rako bidean. Au agertzen danerako or'azken uri eder bi oietan ibilliko dira.

Batan izena dakigu, edo gogoratu al dogu: S. Howell, gazte bizardun begi-bigun eta mutil ona. Or ikusten ba'dituzue, ta ingles pixkat jakin, ontartu egizue, oso jatorrak dira-ta.

IZARRA

Galdakano

ERRIKO JAYAK

Jai nagusietan gagoz lerro oneik idatziten doguzanean, baiña argitara urten dabenco amaituak izango dira. Au idatzi arte ospatu dana ez da gauza aundia izan, eta aurrerantz iragarrita dagoana be, ez da beste urtetatik alde andirik daukana. Ori bai! Asierea azkenegoa urteetan baiño alaituagoa izan dala esan geinke, eskerrak aurten sortu edo gertu diran gazte-talde batzuei.

Talde orreik, geyen bat erri-jantziz apainduta, ta erri soñu bikaiñez lagunduta, alaitasun errikoa emon eutsen bertoko giroai, ta batez bere, bigarren egunean txaiderratu zan kartoizko eresbatzak. Talde au, 50'an bat edo geyagoko neska-mutillezo ain gazte ez dan taldea, benetako errizalez orniduta aurkitzen dan ezketiño, ondo trebetuta ta zer egiten dabenco dakiela urten zan txaidera, «Ganguren»en batzartokitik —bertan sortua zan izan be-ta— erriko txaideak zear ibilli ziran, toki guztietan garaipen ikusgarria lortu ebela. Beraz, gure txalorik maitekorrenak eurontzat, baita errizalatasunez dabilzan guztientzat be. Eutsi euskal-oiura garbici, gazte maiteak, geureak dira-ta!

Jai oneik, Iraillaren 13'an, barikuan asi ziran, Gurutza Deunaren Jasokunde aurreko egunean. Eta astelenean, enparantzan, eta Udala'n babezpean, jai polit bat antolatu eban gaztediak: Lenen, «Andra-Mari»ko dantzari txikerrak oso trebe jantzatu eben, ederto egin be! Eta urren, erriko senar-emazterik zarrenak, Otxoa'tar Errupin eta M. Agurtzane, bien tean 190 urtetik gora dabezanak, sarituak izan ziran, Igeki-placa oroigarria ta lora txorta eder batekin. Bardin erriko gizonik zarrena be, larogei ta amasi urtedun dan Irazabal'dar Estanis, baita erriko emakumerik zarrena, Lezeta'tar Julene, Anza'ren alarguna, onek be 86 urte ditu. Zar agurgarri oneik, Otxoatarrak lako oroigarri bardiñekin saritu ebezan.

Eginkizun oneik amaitu ondoren, abopeko bikain betekin izan ziran opalduak erriko zar-saridun guztiak. Eta arratsaldean be bardin, jantzaketa, abesti ta abarrez izan ziran sarituak antziñako «gazteok» eta Galdakao'ko zarrak geyenak egun alai ta zoriontsu bat igaroaz. Zorionak jai au eraldu dabenei.

EZKONTZA

Egiz, ia aztuta euki dogu, ta benetan damu izango yakun: Igaro zan Dagonillaren 7'ganean gure erritar Illardia'tar Joseba mutil sendo euskaltzalea, Aspe'ko erri baketsuan ezkondu zan, emengo Ogiza'tar Miren-Amaya neskatil lirain eta errizale kementsuagaz. Zorionak AGUR onen bitartez, eta osasungarri izango al da zuon bizitza barria, Euskalerra'ren onerako!

JAYOTZA

Igaroaz doyan Iraillaren 11'ganean, alabatu eder batekin saritu ditu Jaunak, ezkontza osteko lenengo loreakin, Uriarte'tar Patxi ta Legarda'tar Ima senar-emazte gazteak. Osasunik sendoena izango al dozue, alaba eder bat azi ta errizale bezela eziteko. Zorionak gure izparringi onen bitartez.

JOLASTOKI BARRIA

Orain egun batzuk, jolastoki barri bat igiri dabe, edo argiago esanda, Erakarpen landa barri bat, Ganguren mendi gaillurra baiño beratxoago, EPER-LANDA izenaz galdakanotar adiñeko guztiyok ezagutzen dogun zelai-unean. Guk, goratxoagotik baiño ez dogu ikusi oraiñ, baita esan legike guztiz apañia dala.

Erakarpen barri ta apañ ori, gure lerro oneitan aitatu ba'dogu, ez da izan bera goraldutearren, gitziago ezeztutearren, ez dagolako gure «eskeintza» bearrean eginkizun eder ori; beste zerbaitegatik baiño.

Erakarpen landa ori egiten asi ziranik ezker, bere egintzaileak eta eginkizun orretaz zerbaite idatzi dabenco guztiyak, zein izen deitu ez dakiela ikusi doguz. Egizko bere izena jakiten alegindu ez diralako, «Complejo de Atracciones Artxanda, junto al Vivero» ta abar deituaz. Eta bein be ez dogu irakurri zelai-une orren benetako izenez idatzita, edo beintzat, galdakanotarrok ezagutzen dogun erara idatzita: **EPER-LANDA**


Ez ete dago izen ori Bizkai'ko Aldundegian idatzita? Ondo egongo litzake orren antolazailleak begirune bat egitea bear dan tokian, jatorrizko ez dan izena jarri baiño lenago inguru apañ eta alai orri.

BASA-JAUN

Deusto'tik

ESKUTITZA

Agur, Jauna: Yurre ala Igorre izena dala eta, gauza bitxiak dakaraz zure Zuzendaritzapeko aldizkariak 150 zenbakian, 10 orrialdean. Bertan Yurretar Yulenek esaten dauen lez, onena Parroikiko liburuetan begiratzea litzake. Nere ustez, menditarren esaera: Igorre/Iborre da esaera jatorra. «Iborra» abizena oraindik bizia da. Nondik datorren iragarrea ez da gauza gatza.



Ara: Ibai-aurre: Azeno aurreko «i» jana izan da: Ibaurre. Bi bokal onen batea/au=0/ etortzen da: Iborre. Iborre/Igorre bitasuna b/g ugaria da euskeran. Ikusi: age/abe, ago/abo, ogena/obena. Baiña etzan gelditu ortan Igorre itzaren ibillaldia. Ondoko «i» orrek «g» busti euan eta Iyorre/Iyurre biurtu, Yurre-raino erakarrit. Ala ta guzti ere, antxe dago oraindiño jatorrizko ibai eta erriaren egoera gure Toponimia argiak diñon lez.

FELIX ZUBIAGA

BARRIAK

Arratia

YURRE, IURRE, IORRE, IGORRE...?

Gure errikide argi «Lasarte»ko seme Yurre'tar Yulen'ek bialdu digu bere eretxia, ta uste du, «Iru-ur-aurre»kin osatua dala, Yurre, gure erriaren izena.

Emen baiña nire kezkatzoa, eta parka begist Aita Yulen adizkide onak galde-egite edo itaun au: Or zear doguzan zenbait Yurre ere iturburu bardiñetik jaitoak ete-doguz? Une onetan eskuan dodan Jose A. Mugika'ren «Los Apellidos de Iberia»n au lako bat aurkitu dot: **IURRE** (Yurre), Yezgo. Iurrebaso, bosque del yezgal.

Dana dala, Yurre jaunak esana, ta J. A. Mugika'k diñoshuna zustrai batekoak ez diran arren, asierako izkia bardiña daukelarik, Iurre'kin jarraitzea erabagi dot beste argibide bat izango dogun arte. Eta eskerrak zuri, Aita Yulen.

* * *

«Irrintzi» gaztearen idazlan kezkatsoak pozarren irakurten doguz, baiña noizik bein baiño, naizta sail-arlo txikiagoak bialdu, sarriagotan entzun gura genduke arratiar irrintzi artegaurduria.

* * *

Golde zarra sagarpean, atxurra erratenean eta beirik ez ikulluetan-kortan... bedar zarra ugari landetan. Izango ete-dogu segalari leiaketarik?

Zengeiagoka sutua ikusia nozue Arantzazu'ko eleizatik errotara bitarteko landan. Emen nik ikusitakoak eta gizon bakoitxaren zerak. Ugari ta gaizkitxarto egiten, Zeberto'ko mutilzarra onena. «Ondo ta urri, errotaria nagusi». Irugarrena erdeliduna, ango bere errian iñoiz on-ona izandakoa.

* * *

Iñon ez ei-dago erririk, ezizenetan, Bermeo aiñako aberatsik. Baiña Iurre'n dogun lako iru ezizen dituan gizonik...? Lepoko jakie kenduta ere, badiu bi ganetik: «Enbalden» dauka lenengoa ta bigarrena «Alberrik». Ez dagozun baiña, barre ta irririk, geuk be izango dogu-ta kontuak norik arturik.

* * *

GOIZ-ARGI

Gipuzkoar aldizkari au arratiarrentzat ezezaguna ziurki. Ikustekoa ta irakurtekoa da 207'gn zenbakia. Baketsuegia oraiñarte, baiña konturatu da orratio, ur geldia usteldu egiten dala, eta iturbegiak zabaldurik bi eratako janariz argitaratua izan da. Batzuentzat azurtsuegia ta narurtsuegia izango dana, bestetzuentzat barea bera baiño be mamintsuagoa.

Intza'tar Damaso'ri norbaitek gezurtia ta ezjakitza dala diñotso, baiña «Arkaitz»en arloan agiri diran Adan eta Eba, gizona ta tximua-tximua, zezena ta beia, ta ume koskorrik eta besterik, gezur txatxalak? Ez ete-dira gero arribian tinkotutako gaztelu zabal, aundi-sendoak?

Berrikari, Gaztañaga, Irulita... ez dira besomotz azaldu. Gerrilari gerra egiteko eguna argitu dala dirudi.

LANDAJUELA'TAR A.

Bilbao

PAKEAREN ERREGIÑA

Gentzaren edo pakearen Erregiña izenagaz, eta Bilbao'ko Aurrezki Kutxa Udaldarran babespean, egunotan, Deusto'ko auzune gizatsuan gure zaar, eta ain adiñekoak izan ez arren, bear-izan garrantzitsuan aurkitu oi diranentzat, Bizit-Etxe apañ, galant, dotorea irasi da. Laureunen bat lagunentzat toki egoki ta aparta benetan.

Asieran 90'cn bat bakarrik izango dira. Geroago baiña, pizkanaka ta astiro samar igoaz ba'da be, laureun giz-emakume beartsu —batzutan senar-emazteak eurak— lasai ta patxadaz bizitzerañño eldu al izateko.

Aurrezki Kutxa udaldarrak —beste Bizkai'ko Aurrezki Kutxatza be bardin desakegu— gizarte eginkizun goragarriak, ondoren ain onuragarriak dakarsenak eurak, berein iraskun bide dirala, Euskal-erri'aren onerako egin dagie. Gure poza euri zintzoki agertu bearrean aurkitu oi gara beraz.

Bizit-Etxe onegaz jarraiturik, bere luze-zabaleran 14.000 neurkin lautuak ditu, ta goiberan 9 etxe-mail, etxe-azpia ta sarrera zenbatu gabe. Dan-danoi, kontixu, gure zaarren erosotasun eta serbitzu onerako ain zuzen. Orrela, gaur egun oso bearrekoak diran berebil-gela, eleizatxo edo otoiz-leku, akeitetxe, bizartegi, egon-gela, batzar-toki zabal eta etxegain begira-tokiekaz ornidurik daukigu bera.

Osasunaren aldetik ere guztiriko serbitzuak ditu. Ots, bertan idoro geinkez osakitegi, saio-tegi, urastegi, soinketa-leku, soingurtzi saioak, X deituriko izpi gelak, sendabide-gelak, gizarte-laguntzaileen idazkaritza, ta azkenik, gaxo-zaiñen lo gelak.

Gaxo-zaiñak 46 izango dira, ta danak, ez zatika edo taldeka soillik, gau ta egun baizik, egoille diranak. Onez gain, lekaimen, laguntzaileen eta bestelango arduratsaileen kopuru nabarmen bat ikuskatu al izango dogu.

Lo-gelak, era bitarikoak dira, danak ori ta be, txukunki apañduak. Txikiak, lagun bantentzakoak, 14,58 neurkin lautu bakotxarentzako gorderik, garbitasun serbitzu ta guzti dabezanak. Ta, aunditxoagoak, senar-emazteentzakoak, alegia. Azken oneik, borobildurik, 25,09 neurkin lautu dituzela.

Aurrezki Kutxa bieri, su ta ke Euskal-erri'aren eta Euskal-erri'ko gizarte bizitzaren laguntasunean jarraitu dagie opa dautsegu. Lan ederra egin daroe. Bizkaitar eta euskaldun oroen eskerrona oraiñarte jaso bai-dabe egiz. Gerokoa be, Jauna lagun, euren gizarte-egintzak txalotzeko gerturik egongo gara. Bai ziurki.

ARREGI'TAR JOSU



DEPURACION DE AGUAS S. A.

URA EGOKITZEN ETA UR LANETAN BEREZITUAK, EDANGARRIAK - LANTEGIRAKOAK - ZIKINDUAK NAIZ IGERITEGIKOAK ZUZENTZEN

+ 32-37-00 - + 31-00-10 - 32-37-01 Urt.

**Gordoniz, 44, 12.º
BILBAO-2**

LEMONA'N

Lemona'n nago. Lemoa'n.
Lemoa, aingeru guztien egoa, da esakera. ez dakit zegaitik.

Beste edozein erriren lako ikusten dot. Keia eta autsa, bestetan baiño geiago. Ortik datorkio bizitza. Erriaren izena daroa etxe-gintza, argintza eta antzerako lanetan erabiltzen dan emengo zementu edo arri-autsak.

Ezagunak izaten dira urrundik be zementuan dabilzten erriak. Tellatu gorriak zuzikin, etxe inguruetak leio, balkoi eta urteerak autsez, ingurutako piñadi eta arboladiak eta ortuak berdetasuna galduta.

Orain 50 urte, 1.600 lagun eukazan erri onek. Gaur iru milla inguru. Euretatik bi milla kalean. Besteak baserrietan.

Kaleko bizi-lagunetan erdiz erdi bertoko jatorrizkoak eta erbestetik etorriak. Izkuntza, berbeta be, era berean. Baserrietan, inguru bananduetan, banakak dira bertako jatorrizko ez diranak. Origaitik eurretan ia danak euskaldunak. Batez beste jota, euneko irurogei ta bost inguruk euskeraz egiten dabe.

Ikusi daigun zerbait. Gaitz da emen kontu zarrei eta antxiñako gaitzei autsa kentzea. Kendu ala batzen da, galtzeko lain dauke-ta.

* * *

Zornotza aldetik nator. Amorebieta'tik, Astepe'tik zear. Txiriboketa'ko bidea deitzen dautse oneri.

Lemoria'ko auzoa daukat lenen. 500 lagun inguru. Lemoa'ko auzoetatik bat.

Aurreratxago, erri burua egiten dana: Arraibi. Askotan deitzen dautse Lemoa berari Arraibi.

Toki edo leku au ikusita, eta nai eta be begien aurretik kendu ezin leiken arriko mendiari begira, itxura baten ez da gaitz Arraibi izen onek zer esan nai daben ataratea. Arraibi = arri abi, edo arri obi? Orrela ba'ltz emen ez legoke buru austerik. Baiña eta Arraibi ori arro edo arrai berbetan sortuten ba'da, baiña guk erderazko «zarzal» erakuspena emon bear dautsagunetik?

Orra betiko eskutuak, abizen edo apelliduetak eta toponimiko esan naiak agertu beartzen.

Goazen aurrera.

* * *

Eta Lemona itzak zer esan nai?
Tokien izenak jakin naian asi orduko, itaun au egin daust adiskide batek. Olakotarako jakin naia, jakin-miña igarten da leku askotan. Nik, onetan, besteak esaten dabena agertzen dakit.

Tokien eta abizen edo apelliduen esan naia agertzen geien alegindu danetako bat Lopez Mendizabal izango da. Beti be mendi edo baserrietara jotzen dabela, ipinten dautse oneri akats lez, bere ikasketa eta lanetan. Dana dala, berak Lemona berbeari erderazko «pastizal» esakera emoten dautsa. Au da, *ema* = *pasto* eta *ona* atzizki edo sufjioa geituta. Eta asierako L ori? Asierako izki edo letra ori protetiko izkeretat erabagiten da. Toponimiko itzetan, berbetan, sarri sartzen da. Orrelako bat.

Beste nunbaiten «ona» atzekoari, toki esan naia emon barik, gaitasun edo kalidadearena emoten dautse, au da, (L) *ema-ona* = erderazko «buen pasto».

Onetan ziurra zein dan... Batak eta besteak ez dauke alde andirik, sustraian beintzat. Esan geinke: Ba'ltz eta ba'zan, biak dakarren kasan.

* * *

Iru torre egon ei ziran emen: Agarre, Atutxa eta Atutxola. Gaurkoak ez ditue ezagutzen. Euren aztarrena aspaldi galdu zan. Nai eta torre itxura andirik gorde ez, or gelditzen da oraindik Aldape. Torre izatea galduta. Leioak arriz itxita, metro bat lodiko ormetan.

Eleiza, parrokia, orain berreun urte inguru barrizatu eta len egoana anditu, zabaldu zan. 1758 urtean.

Amasei kilometro lautu, kuadratu daukaz erri onek lurretan. Auzorik urrutienak, alde batera, Arraño, Menditik datorkio izena auzoari. Eun eta ogetamar bizi lagun, batez beste, bertako baserrietan. Mendiak berak 360 metro daukaz goi-neurrian. Beste alderdian, bere parean, auzorik txikiena eta erriburutik urrutien egiten dana: Gandaria. Eun bizi lagun, danetara be.

Beste auzoak erri-buruaren inguruan egiten dira eta batuago dira.

* * *

Jakingarri geiago:
Errialdez, Bedia'ko merindadean sartu izan da Lemona. Ain zuzen be Bedia'ko San Joan'go Kolasiño eta Lemona, biok bakarrik osotu izan dabe merindade ori.

A. ZUBIKARAI

Burdintegi bat euki eban, Durango'tik datorren erreka egalean. Palaziosarrak izan ziran bertako jaube: Txiriboketa.

Erroten denporetan, bi ezagutu ziran emen.

Parrokia, luzaro, Zamudiotarren zaindaritza edo ardurapean egon zan.

Geroago famili orrean eskubidea Hurtado Amezagatarrak artu eban eta eurekin jarraitu.

Oñaztar eta gamboatarrak erriak eurak nai lez erabiltzen zituenean, gamboatarren alde jokatu eban beti, aldakuntza edo espai barik.

* * *

Lemona'ko aitzei begira nago. Amaika amak negarrez gogoratzen dituen aitzak. Batetik eta bestetik.

1937'ko Maiatzaren azkenak ziran. Bilbo estutzen, gure gerratean. Bigarren Brigadeak Bernagoiti eta Euba artu ondoren, eta geroaga Urrutxutu eta Legoaia, Igorre eta Lemona salduta gelditzen ziran.

Maiatzaren 29'an, Aitzak galdu ziran. Lenegotan errez laga, bertan egozanak inguratuta geldituko ziran bildurrez.

Biamonean, iru batalloek aurrera jo ta artu.

Bagilla'ren l'an, barrero galdu eta irabazi. Biamonean bardin, kontraatake bi egin ondoren, azkenean be gaua soldaduen kontura lagateko.

3'an barrero beragaz jaubetu. Bertan sartuta egozan soldaduak nausi guztiak galdu ondoren atzera jo bear izan eban. Jente barria bialdu eta oneitatik be komandantea galdu eta ofizialik geienak. Bitarte barik jokutzen zan. Gudariak agindu zorrotzak eukezan. Emendik «gerriko»ra bitarte gitxi egoan eta premiazko zan leku oneri eustea.

Azkenean be Bagilla'ren 5'an Aitz onein zoria erabagita gelditu zan.

Bigarren Brigadako agiriak irakurtean igarten da emengo burrukaldien zitaltasuna. Mayatzaren 30'n 125 baja euki zituela agertzen da; Bagilla'ren 3'an, 253 eta 5'an 145.

Bilbo'ko egunerokoak ez eban bertako illen zeaztasunik emon. Baiña bai erakutsi eragin burrukaldi negargarriak izan zirala. Gogoan daukat bertan anai bi billatu zirala, alderdi banatan, bata bestearen aurka, trinxeretatik urten eta gorputzik gorputz egin ziran azken ekifaldi ilkorretan.

Lemona'ren izena odoltsu ibilli zan, gure gerratean, pusillen puntetan ipiñitako kafubeta zorrotzetan.

* * *

Emen nabillala gogoan daukat baita be abade euskaltzale jator bat: Juan Bautista Eguzkitza. 1875'n jaio eta 1939'n il.

Langille amorratu, etenbako, zintzoa. Idazle sakona, kezkatia. Kezka eukalako ainbat eleiz liburutxo idazti ebazan. Kezka erabillalako, «Gizarte auzia» liburua agertu eban. Eta kezka bizi zalako, euskal iztegi edo diccionario bat osotzen asia zan. Alderdi askotako lanak. Batzuk agertu ziran. Besteak, iztegia lez, nun ete dabilte edo ta zeñek ete daukaz?

Garbi-zalegia zala ipinten dautse akats lez garbi batzuk. Idazten be gogorra zala. Errez ezarten yakoe lengoei astuntasun eta garbizalekeriaren akatsa. Gu geu ez ete gara geiegi arindu eta mordollotu eta askotan erretera joatearren edo ez dakigulako gure zeretik eta gure aritik urtenda beste izkuntzen jokoan galdu? «Orixe» maixutat ba'zkaugu, maixu orren esana or geldituko da betiko Eguzkitza'ren gora eta aintzan: «Gai zailletan eta argi euskeraz au baiño obeki mintzatu denik ez dakit ote den Euskalerrian».

* * *

Eta emendik nora?
Ondarru'n, lagun artean edo etxean asarratu eta batak besteari, menderatuta gero, olakoren bat esaten ba'dautso: Ia gero, ixilik egon, bestela... gero! Nor da berau? Ia? Laster daki besteak erantzuten: «Ia? Bedaru'n urrengo Ia».

Emen Lemona'n zarren bateri «emendik nora»? itandu ezker, ba dakizu ze erantzun leiken? «Tutua yo ta gora gora, kaka saltzen Durango'ra» Edo ta «auntzen gorotzak saltzen Durango'ra».

Nundik datozen esakerok, noiz sortu ziran edo ta zegaitik? Ez jakin. Baiña or dabilte aidean. Ba daukez Lemona'n beste iru-lau zitela eta gordiñak be. Onetan euskaldunok, edozein erritan, arantzarik ez dogu euki mingaiean. Pentsa-ala jaurti ta kitu. Ori be betetasun baten erakuspidea izan leike. Osotasunez eta betetasunez kalte gitxiago egiten da azpikeriz baiño. Eta emen Lemona'n, autsak autz, eta aitzak aitz, gizonak jatorrak eta bete-betekoak dirala igartea ez da gaitz.

AGVR

Apartado n.º 2
BILBAO

FRANQUEO
CONCERTADO
08/55

AMSTERDAM

Geicnok, izen ori entzutean, or nunbait dan uri aundiren bat dala gogoratu dozue. Gero, ludian ar-bitxi edo diamanterik geien ebagi ta leuntzen dala emen esaten ba'dautzuet, beste argitasun bat geiago izango dozue, ta azkenez, emengoa dala «Ajax» football taldea jakitean, ia geienok igarri dautsazue zer dan Amsterdam.


Baiña ori ta be, ba-daukaz beste gauza jakingarri asko. Bat, euskaldun batzuk be bizi garala emen, naizta alkar sarri ikusi ez. Gero, Jainkoak lagatako ta gizonak egindako ainbeste ikusgarri be bai. Ta oneitzaz zerbait esateko bultzadea sortu yat.

Orain 700 urte (1275'gnean) sortu zan kay eder au. Obeto esateko, ta alan diñoie eurok be, aspaldi aurretik or zan kay ori, baiña urte osretan Floris V kondeak, inguruko ar-emonetan zergarik ordaindu bear-eza emoten idatzi eban eskutitza, gaur arte eldu dan aintxiñenengo agiria da, ta orregaitik erabaki eban urte ori zala uriaren jaitot-urtea.

Beraz, 1975'gñenaren lenengo ordu-ekizak joten asten diranean, urte osoko jaialdi berezian sartuko gara emen; agertu zanetik Amsterdam'en 700'gn urteurrena. Agertu zanetik diñoigu, ez baiña jaio zaetik, len esan dan lez.

Jai oneik izango doguzala, ta uri eder onek eta bere inguruak daukezan ikusgarriak dirala, baita emen bizi garan euskaldunok be errimiñez josita iraun dagigula, ortik, gure Euskal-erri'tik oporretan Europa zear ibilteko asmoan, dirudun berebildunak naiz oiñazkari jatorrak, uri onetara datozala be gogoratu nai dautsegu, ba:

Ba-gara emen be euskaldunak, ez baiñan Idaho'n, Mexiko'n, Caracas'en edo Argentina'n bezin alkartuak, ezta ainbeste be, urrik be. Zuetariko batzuk onuntz etortekotan izan ezker, ta guk jakin, aukera egokia izango litzake emengo euskalduneri dei egin eta alkartasuneko jai edo bazkariren bat egiteko, ta alan, emengook alkar ezagutu ta batuaz, aurrerako be alkartze bideak zabaldu.



Ba-ditu gaiñera uri onek zer ikusi eder ta nun ibilli bikain. Emen dituzu Hendrick de Keijser'ek marraztutako ta eregitako dorre ederdun erreza politenentariok; Jacob van Campen'ek jasotako udal-etxe ezaguna, gaur erregeen etxea, Dam enparantzean; Hemony anai biak urrutako karrilonetarako ezkil osenak, eta beste ikusgarria askoren artean, gaur erakusketa-etxe biurtuta dagon Jodenbreestraat kalean dan Rembrant van Rijn'ek, bertan bizizala, margoztu ta zizelatu ebazan ainbeste lan eder.

Uri au ludi guztiko igesik ebiltzan giza-seme oinperatuen babesa be izan zan —orra gu be emen aspaldiko urte oneitan— eta judutar gizajoak, len da geroago, Danubio aldetik, Espafi ta Portugal'dik boteak izan ziranean be, pilloka etorri ziran onuntz, baita 1685'gna ondoren ainbeste ta ainbeste «hugonote». Azkenez baiña, gu ona eldu barri, izan zan emen gese, negar eta odolik; 1945'gnerako, emen ziran 80.000 judutaretatik % 90 nazi anker orreik artu, lotu ta zelai-negargarrietan atxilotu ondoren an il ziran geienak.

Negarrik-negar, eta joanak-joan, Amsterdam barriz uri aundi ta langillea izatera eldu da. Ta, izanak gogoan doguzala, pakearen eta askatasunaren jai aundiak osotzeko asmotan gabiltz, 700'gn urte onetarako, «Amstel» —au eban bere lenengo izena— zarraren biotz-biotzean.

Udan baiña, alkar-ikusteko, izaten ditugu geure eragozpentxoak. Neu bat, or joaten naiz ba emengo ur-ebagi edo kanalak zear, ontzi polit batean, baztar izugarri politik ikustera, nere opor-aldietan. Tamala izango litzake oporrok danok aldi batean izatea, ez baiña oso-osoa, elitzakizu gaizki kanal oneik zear ibiltea-ta.

LOUD-ZARRA

AITAKERIA

Alkarregaz izan daitegun artu-emonetan izan daitegun bide oker bat aitakeria dogu. Eta ez da arritzekoa, garanlakoak izanik, gure egiteetan olako bide okerrak ugari izatea.

Eta zer da aitakeria?

Labur-labur esanda, zuzentasun bagako maitetasuna dala ulertu geinke. Baiña esakun au obeto argitzeko, begiratu dagiguzan bizitzako jazoera ta egikera batzuk.

* * *

ERRIAN.—Erri guztietan, eta ugarriago erri txiroetan, jauntxuak izaten dira. Eta ez aitzu erri txiroak eta atzeratuak dirala aitakeria ugari emongo daben lurrak. Jauntxuakaz batera, aitakeri au agertu legikee baita abadeak, osagilleak, albaiterak...

Batzutan aitakeria izaten da eurak egin al dabena norberak egitea. Eurai ardura dautsen gauzetan, jakiña. Au, batez be, giza-maillan gorago dagozarakaz artu-emonetan agertzen da.

Mezedeak egin, ezer artu barik, baiña aitzu barik eta esker ona artzeko asmoz.

Olako egiteakaz erriari bere aurrerapena galazo eta bere buruaren jabe izaten itzi ez. Erritarren eritxiak beti irribarrez eta errukiz artzen dira: Gizajo onek! Geiagotarako bururik ez dauka ta!

Eta erri txiroak geienetan biotz onekoak izaten diran lez, ordaindu ezin dabena zelan edo alan ordaintzeko, emaitz ederrak eroango dautsoez euren «aitearb».

* * *

LANTEGIAN.—Lentegi bat ondo erabilteko erarik onena aitakeria dala esaten eban oraintsu olagizon batek, eta oraintsuago beste batek au esan ei dau: «Guri, zarroi, itzi eiguzue aiteak (aitakeri-zaleak) izaten.

Aberatsak eta oso zurtuak gitxi, eta txiroak edo atzeratuak asko diran lantegiak be lur ona dira olako igaleak emoteko.

Olako ugazaba aita on bat lez agertzen da lantegian eta bere langille guztien ardurea artzen dau aita semeena artzen dauan lez.

Zor dauana zuzentasunaz ordaintzeko ardurea ez da izango beragan ain bizia, baiña «bere» langilleak bear-izanean aurkitzen diranean orduan egingo dautsez al ditun mezedeaguztiak.

Langilleak artzeko orduan, bitartekotasunak ibilliko dira eta artzen dana mezede bat egiñez lez artuko da. Orrelan beti ugazabagaz lotuta lez dago. Beargin guztiak ugazabari esker ona zor izango dautsoe.

* * *

BATA-BESTEAN.—Banaka geure artean doguzan artu-emonetan be sartu leiteke aitakeria. Iñoiz gure auzoan izan leiteke buruz edo gorputzez osotua ez dan bat. Eta berari lagundu-gurea gauza ederra da, baiña kontuz ibilli bearko dogu gure barrura aitakeria sartu ez daiten.

Lenengo, al dan neurrian eurak aurrea egitea billatu bearko dogu. Al daben bestean baliatu daitezela.


Ez dogu esker onik ez eskatu ez itxaron bearko. Mezedeak ez dau artzekorik izaten.

Ez aitzu norberak oratutako arraiñak emotea baiña ohea dala eurai arraiñak oratzen irakastea.

* * *

SENDIAN.—Errez ulertzen da zelako kalteak egin daitekan aitakerizko jokera bigun onek umeak azketa-lanean, eta ez gitxiago sendian bertan be. Au, batez be, onetan agertuko litzake: seme-alabai bear dan bestean ardurea ez emotean. Norberak dana egin, norberak ardura guztiak artu, bigunkeriaz azi, euren buruen jabe ez egin...

Arduraz jardun dagigun gure egiteetan olako aitakeri inguarrietan jausi barik jokatzeko, eta geure inguruan aitakeriak kentzeko.



Gotzon eta Joseba, Jaunaren aurrean, Arkakarats zuri bi, gugaitik eskean...

OPORRAK AZTERKETAN

—Zer dakarkigu gizon orrek, oporrari buruz azterketa bat?

Ba' liteke norbaitek itaunketa ori egitea, orrentzat oporketak ez lirakelako orrela, lokarri guztietatik azkatu, ta bere asmoa soiña asetu arte berak nai dauan lez ibiltzen itxitea dalako.

Ez jaunak, ez! Ez da ori bide zuzena. Bearrezkoa dau gizonak, bai orixe, noizcan bein bere eguneroko zeregiñetatik urtetzea, urtean bein besterik ez ba'da be, baiña ortik dana ankazgora botatzera, alde ederra dago!

Atsedena bai, ordularia apur bat alboratu ta gauzak astitsuago artu; aldi baten eguneroko oiturak aldatu, baiña bizitzak, nortasunak, gizonaren eldutasunak, esangura ta izaera osoan aurrera jo bear dabe. Guretzat, opor-aldiak, aberasteko sasoiak izan dear dabe.

Gure sendiak eguneroko janaria izan dagian, baita beste artu-emon askogaitik, naiko zeregin izaten dogu urte barruan. Ezin izaten dogu gure biotzetan naiko sakondu, nortasun, kristua, euskaldun eta azken baten, gizon legez gabiltzan ikusteak.

Alditxo bat ezkerro, buruera oneik geunkazan gure kolkoan, Santimamiñe'n, erbesteko gazte talde bategaz izketalditxoak izan ondoren. Zer dala-ta egozan areik an, gutarrak ez ba'ziran?

Izkuntzearen erruz eragozpenean egozala-ta, gure ingalanderak laburra eskeiñi geuntzen, laguntzarik ba'zan. Sei neska-mutil, ezkongai, ez dakigu. Lau inglandar eta noruegatar bi. Ingalterra'ko Ikastetxe nagusi batekoak eurak, eta oporretan.

Asmoa, Euskal-Erria ezagutuaz, euren jakiturian sakondu ta aberastu.

—Ikastetxean Arkeoloji edo Antropoloji aldetik zeuen ikasgai ta jokabideak?

—Ez, ez! Entzunda geunkan Euskal-Erria erri zar bat dala, bere izkuntza ta nortasunean beste errietatik oso ezbariña, ta ezagutu gurean, antxiñatik opor-aldi baterako gertautu geunkan joan-etorri bat, eta aurtan bete al izan dogu asmo ori.

Ta ibillaldia eratzeke zelako ardurak! Izparrak batu, zeintzuk toki ikusi barik ezin leitekezela itxi ikasi, ta ainbat aurretik ba-ekien egunero nora jo, illebeteko egun guztiak ondo neurtuta: Getari, Santimamiñe, Gernika, Elorrio ta bere illarriak, Egilaz'ko Illen oroitarrak, Oñati ta Iruña, beste askoren artean, Iparraldeko Euskal-Erri'ra eldu baiño len.

Estu ta larri ibilli giñan, gure erriari buruzko arein jakingura egarria asetuteko. Baiña naita geuk be egun zoragarri a —bai zoragarria onelako talde bat aurkitzea, eguneroko janaria ez dan ezkerro— ondo beteta izan arren, ordu pare baten emon geuntzen al izan gendüana. Ta barrero nator lengo arira.

Gure oporrak, onelakoak izan ez da be, ikasbide zerbait izan ete-dabe? Gure sendiak eta guk, aberastasunen bat izan ete-dogu? Sakondu ete-dogu gure Erriaren aberastasunetan, bai bere erri, baserri, mendi ta oiturretan? Erriren baten egon ba'gara, urreratu ete-gara angoegana euren arduretan kide izetako? Irakurri ete-dogu ezer? Ta, erbestera joan ba'gara, angoa ikasi ta guk gugandik, gure euskaldun eta euskaldun kristautasunetik zerbait emon ete dogu?

Gurasoak garan ezkerro, gure seme-alabak euskaldun eta euskaldun kristau bidean ezi nai doguzelako, itaunketa orreik, igaro doguzan oporreri buruz azterketa bat egiteko izan dira. Zoriontsuak gu, baietz erantzuten ba'dautsegu, ta onela ez ba'litz, pozik izango giñake norbaitentzat eta urrengorako argi-bide izan ba'dira.

Udazkenean, gitxien uste gendüanean, AGUR'ekoentzat udabarriko lora ta lagun euslerik sendoentariako ziran bi joan jakuzan, bete eziñeko utsunea itxita. Orregaitik, urtero ta udazkenean, Urrillera eltzen garanean, gure adiskide zintzo ta errizale bikaiñak izan ziran Garitonandia'tar Gotzon eta Sagartzazu'tar Joseba gogora jatorkuz.

Bete eziñeko utsunea esan dogu ta ez da au oiturazko esatera bat, bene-benetako utsunea baiña. Ara or Matxitxako aldeko itxasertza, ara or be Urola bailladea.

Euskal-Erri'ko gaurko egoera itunari begiratu ezkerro, gure artean sortu dan naste, lorrin eta alkar ikusi-eziñari begiratu ezkerro, ain eredugarri ziran olako gizon gazte biren eriotzea, zelan izan ez bete eziñeko zulogille?

Gizon gazte eredugarri bi esan dogu... ba ete dakizu irakurle, orrek zer esan nai dauan?

Gizonak ziran, bai, biak; goitik beerakoak. Abade zintzo, aurrerakoi, euskeltzale erriko ta errizale amorratua, Kristo'ren benetako ordezkaria bata. Aita zintzo, emazte ta seme-alaben maitale, euskeltzale garbi, argi ta errizale amorratua be, bestea.

Gazteak ziran biak. Alai, beti irriparretsu egoana, olgeta sasoiak olgetan ekiana, aurea emon bear zanean aurreratzen zana, abadea izan bear zanean bere lekuan egoten ekiana, olakotxea gendun Gotzon apaiz gaztea.

Gizon eldua baiña gaztea, guraso bezela apartekoa, alaia, ona, erriaren alde bere bizitza emoteko beti gertu egoana, olakotxea gendun Joseba.

Ez dira, ez, edozer, lerro oneitan esanda-koak; ez dira, ez, ildako laguneri, beste barik, egiten jakezan aipamen loratsu ta usain gozodunak. Ez, irakurle, Lagun bi onein irudiak gure gazteentzat eredugarri ipiñi nai gendukezan irudiak dira.


Gizon, gazte ta euskaldun zirala esan dogu; bakoitza bere arloan aurrerakoi, baiña euskaldun. Asko dira or zear, aurrerakoi izan edo agertu naian, itxura ta bide arrotzetara jo daben gazteak. Asko, gure gizon eredugarriari uko egiñaz, «Mito internazional» en aurrean auzpeztu diranak. Gure erriak lortuko ete dau, iñoiz eta ezer, «mito» orren gurtzaille arrotzengandik? Iñoiz, laguntza antzekorik emongo ba'lebe... ez ete litzake euren oberako izango? Naizta noizik bein laprastada entzuteak egin, ez ete gaitue orreik, gu, amuetan jartzen dan txitaratzat erabiltzen? Itau onen erantzuna etorkizunaren besoetan datza.

Gotzon eta Joseba, gazte aurrerakoi baiña euskaldun esan dogu. Euskal-jakintzeari laguntzeko beti gertu; goren maillako idazleak ziran biak, olerkari kutsuzkoa lenengoa, gizarre arazoetan sakona ta zorrotza bestea; baiña «jakintza» utsean gelditzen ez ziran errizaleak biak.

Iñoiz, gure barruko kondaira txikerrik idatziko ba'litz, an agertuko litzakez Gotzon eta Joseba. Euren bizitzako gora-beeretan alkarregaz sarri ibilli giñanok, bizi-bizi daukaguz euren ainbat ekintza goragarri.

Gure gaztediarentzat eredugarri izan litekezan gizon gazte bi oneik, antxiñako —ta ez ain antxiñako— beste gazte bi artu ebezan euren bizitzarako eredutzat. Ez dogu iñoiz aztuko Gotzon'en gela a. Kristo gurutzeratua- ren irudia orman dingillizka, ta beretzat maitekorren ziran argazki edo irudi bi mai ganean; euskalduntasunaren «gogoa ta soiña» izandakoen irudiak.

Agurtarrok indarbarritzera goazan aldi onetan, ezin doguz aztu gure arteak joandako beste idazle batzuk; Zaldibar'ko Maortua, Valencia'ko «Egileta» zornotzarra ta beste batzuk. Urril onetan baiña, Urola'n eta Bizka'i'ko itxasertzean daukaguzan izar bieri, laguntza ta argia eskatzera beartuta gagoz. Jarrai dagigun areik erakutsi euskuen bidean aurrera...



SASI MAIXUKERIAK

MULTZO ALA TALDE?

Danok dakigu moden indarraren barri. Esate baterako, gaur ipurdiak agirian joateko bildurrik ez daben neska bat urrengo bolaran bere gonak tatarrez dituala joango da. Modak ez dira emakumeen ta jantzi kontuan bakarrik. Danon aulkaria orixe da; oiturai jarraitu biar edozetan. Itzak be bolarak izaten ditue. Askotan, zegatik ez dakigula, alako edo olako itzak indarra artu ta txitean-potean erabiltzen dogu.

Orain modan sartzen diarduan itza, «multzo» edo «moltzo» da. «Artalde» izen zarrari bizia emon eus. «Artalde» itza baztatu ta «multzo» gora ta «moltzo» bera besterik ez dogu irakurten. Baiña askori atsegin jakoela badirudi be nik enparua artu dautsat, begi txarrez ikusten dot. Zegaitik dan ori? Ba, Euskal Erria'n zabalera geiago daben edo ezagunagoa dan itzaren tokia bidebakokeriz artuta dabillelako. Bidebakokeriz diñot, askotan berea ez dan esanaian darabileta.

Erderazko «grupo» edo antzekoak euskeratzeko ainbat eta ainbat itz aitatzen ditu Mujika'k bere iztegian. Ara batzuk: talde, multzo, sail, saldo, andana, sarga, pillo, baltsa, mordoska, aldra...

Itz orreitako batzuen esanaia bardiña izango da kontixu. Esate baterako «talde» ta gu bizkaitarron «aldra» itzak gautza bat esan nai dabe. Baiña, or aitatzen doguzan itz guztien esanaia ez da bardiña. Edozein goraberetan orko edozein itz ezin artu daiteke. Batzuk ba dauke euren esanai berezia, naita gaur guretzat erdi galduta euki.

«Multzo»ren bikia dan «moltzo» itza ezaguna da ondarrutarrontzat. Arildu leiteken edozer, ari, soka, ule, artille ta abar, nastean eta pilloan dagoanean orixe da gutzat «moltzo». Ortik kanpora ez dakit ziur noiz erabilten dogun. Baiña bizidunari buruz, pilloan eta nastean litzak aldara edo talde bat aitatzeke izango da. Erderaz esanda, edozer pillo desordenau aitatzeke izango da «moltzo» itza. Beraz, «grupo» itza euskeratzeko diran

ainbaten artean kapitantzea edo buruzagitzea bereganatzeko duin danik ez deritxot «multzo» orri.

Biar bada euskera batukoen oniritzia izango dau berorrek. Ala balitz orretarako diran errezoien barri jakin nai neuke. Baiña ni beintzat, neure gitxi jakifian aurka nauko. Ta bere aldeko errezoiak jakin arte «talde» itza erabilteko eskatuko neuskioe beste orren orde, alderdikeri barik euskera jatorra egin nai daben guztia.

Goiko letaiña orretan agertu diran itz guztien berezitasuna agertzeko ez naz gauza, baiña asi nazan ezkerro batzukaitik zerbait esango dot.

Talde, aldra: Grupo.

Andana: Lerroan dagoan taldea; itxasoan luzatutako amu askoko lokarriari esaten eutsen ondarrutar arrantzaleak besigutan ibiltzen ziranian.

Sarda: Arrain sarda edo erderazko «banco de peces» Ondarru'ko arrantzaleen esanetan.

Pillo: Montón.

Moltzo: Arildu leiteken edozer nastean pillotuta, talde nastaua.

Baltsa: Bajurako arrantzan irabaziak erdiz bana banatzen ditue ontzi jaubeak eta jaube ez diran arrantzaleak. Ontziak dituan gasturik geinak, sare, gasoil ta abar jaubearen kontura izaten dira. Beste gastu batzuk, amuzko apaxu edo aparejuak, itxasoan gertuten daben jatekoa ta edatekoa ta abar, diru banatzea egin baiño len alderdi biena dan dirutik ordaintzen dira, balztatik. Jaubearen eta arrantzaleena dan diru ori balztakoa dala esaten da. Alderdi bien artean dauken batasun orretxeri deitzen jako «baltsa».

Mordo: Mats-mordoa ta olako itzetan guztiok erabilten dogu.

Sail: Talde edo pillo batetik bat be berezi barik datozen lez artzen badoguz, saillean artu doguz.

KAMIÑAZPI

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira astero-ko onetan agertzen diran lanen jabe oniten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskera bera beste edozein, bereko, politiko naiz ondasungarri asmoen gaiñetik daben irixi-onoeko euskaldun guztiak Euskeratz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'entz agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egilleak dira.

Agur au, bere zuzendaria ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:
JOSE M.^a MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:
LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion gutziratko:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

Ikastetxeen Urritasuna

Burua garai eziñik dakusgu, Europa guzian, mailla-maillaz, irakaspidea. Zer gertatzen da? Aldaketa gaitzak egin oi dira erakundeetaz urtetik urtera. Izurria sarturik daukagu mingaitoz. Ze irtenbide dago?

BAT. Irakasketan, aurrerabidea. Irakasketa bikaiña. Jokabide zintzoa, benetakoa, urduria batez-bat. Nola lortu?

Aitzgogenetik aitzbeeraño erriak azitzen dijoaz. Baserritarrak kalera datoz itsumus-tuka. Ugolde irudira umetxoek erribarrenak bete dituzte. Eun, aleun, zenbat aur etorri zaizkigu urira? Egurasti gaitzez bizi gera gaurgero. Erkintasuna nabari dugu edonun. Ez eliza, ez eskola. Danera ere, bear ainbat ez.

Eskola, ikastola, ikastetxe bearrez gagoz. Euskalerrian ez-ezik, lurbira osoan ere, otzikara damakit eskatasun nabarmenak.

ERAIKI ditazela, ez ordea kazkarrak, zikoitzak. Zabalak, tajuz egiñak baizik. Argiak, alaiak bitez. baita irakastolak ere.

UNESCO'ren zenbatzak arrigarriak zizkigu aur-taldeak iragarritz. 600 milloi eskola-txikirakoak ba omen dira mundu guzian. Eta auetatik 300 milloi eskola-aurrekoa bear lutekenak. Ontarakoak, zenbat dijoaz? Au bai belzkeria! 40 milloi soilki.

Gure artean, 6 urteetatik 14 bitartereaiño ikasleak ditugunez, Oñarri Eziketa Orokorra ikaskaiak, zortzi-arokoak, BITAN bereizten dira. Lenengo bostak eta azkeneko irurak.

«Parvulario» edo Eskola-aurrekoak 3 urteetatik 6 artereaiño. Zenbat?... EUSKALERRI'an gurasoek, irakasleek, gizarte osoak elburu bat dakarte biziro maiteki: irakaspene bikaiña erazi. Nire aburuz bi gauza izango dira elburu eder ori iritxi dagun.

Lenbizi, irakasleak autatu. Gero, egitarau bateratsua egokiro azaldua antolatu, aur euskaldunari begikoena. Emen dago kakoa!

EGOZKORTASUN batetik sortu daiteke eskolen etorkizun illuna... Lopez Medel lendakariak, Sindikatoena buru dagienak, egoera larria aurkeztu du: Eskola pribatuak ba doaz, 574 eta geiagoz aurtengo ikastaroan itxiten.

Dezagun kantari: Illunabarra da. Eguzkia asten da, asten da jetxitzen». LIBURUAK, zer? Laguntzaille bat baiño ez da liburua. Irakaslea izan oi da libururik oherena. Nolakoak ezik bai liburua bai irakaslea?

Euskalerrian beintzat, euskal aurrentzat euskaltzalea ukan bear du irakasleak. Bokazioduna batikpat. Pedagogiaz eta, ongi atondua, euskeraz jatorra. Bestela, edozertaz obe luke irakasletan baiño.

Texto liburua, berriz, nolakoa? Ai ene! Au korapilloa! Auzipean gaude. Amari biurtu zion aurra Salomon'ek. Nun zagoz baiña Ama euskal-erria? Zein duzu seiña?

LABURKIRO

1.—Ikastetxeak eraiki. 2.—Irakasleak autatu. 3.—Egitarauak antolatu. 4.—Liburak argitaldu.

ARZUAGA'TAR SIXTO

Iragarkiak Euskeraz

Lengo egun batean, eguraldi ona zan ezkerro, nire amona ta gurasoak Artxanda'raiño joan giñan, astia emoteko. Ta ango jateke batek kanpoan daukazan maietariko batean, jesarri giñan zerbait edaten egarria itzeke. Bide batez lur-sagar «frijidu» batzuk ere atara genduzan.

Amaitu orduko, gauza batez konturatu nintzan eta poz aundia artu neban. Ona emen lur-sagarrak etorten diran estalkian ikusi ta irakurri nebana:

Beste aldetik, or dogu «BASERRI» txokolatea, amabostero gure aldzikari onetan bere iragarkia ipintzen, eta ikusten dogunez, txokolate orren azalean be, dan-dana euskeraz agertzen da; poegarria benetan!

BAQUE akeitak egiten dauan gozakia —azukre-tontorra— ta ardandegietan akeitagaz batera ematen dabena, lau izkuntzatan idatzita dator, eta euren artean euskeraz irakurri geinke:

Ongi etorri!
Eskerrik asko
zure ikustaldiagaitik.

Eta amaitzeko, Garay aldera joaten ba' gara, onela irakurriko dogu bidezabal ondoan dagon agirian:

Barriro etorri arte
eskerrik-asko!

Gaur, lau ikasbide baiño ez doguz ikusi. Uste dot onelako gauzak ugaritzen asi dirala, baiña ondiño bide luzea dago gure izkuntza maitea, bear dauan lekura, jasotzeko. Nun ete-dagoz euskaldunak? Izparringiak iragarkiz beterik agertzen yakuz, baiña dan-danak erderaz, irratietan ere, lau edo bost izan ezik, beste guztiak erderaz.

Ona emen nere amamak antziñan ikasitako abesti bat:

Gora ta gora beti euskera polita,
egin daigula danok erderaz itzita.
Euskera dogu asaben legea,
euskotarrontzako zorion bidea.
Gora ta gora beti euskera polita,
egin daigula danok erderaz itzita.

Risi
ren beñ berezia?

ORAIN ESKUETARATU LEZAZUKE, NIKI-TXAMBRA EDO ANDAREA 25 THANTHO.

BIALDU ZURE IZEN, URTEAK ETA ARKIBIDEA (MADRID) - APTD. 2 - TORREJON DE ARDOZ (MADRID)

ERA BIALITA IRITXITZEN ZAIZUNEAN AMAR DURO BAKARIK ORDAIDU BEAR DITUZU ERAMANTZALEARI.

BAITA ERE 100 THANTHO BILDU, ETA ZURE DENDARIK EMANGO DIZU, BERTERIKAN GABE, EREGALI OYETAKO BAT.

BACHUCARRO - IARRIGORRIAGA - TEL. 492556

GAZTE

IGORRE'TIK

ARRATPKO JAIK III

AREATZA.—Jaiak: S. Bartolome.

Presupuestoa: 130.000 pts. Baiña uste dot asko geiago izan dala, orkes-teak bakarrik 80.000 pts. eroan ditu-ta, ta beste gauza asko be egon dira.

Antolatzaileak: Danetik izan dira. Baiña entzun dodan lez talde bakoitzak gauza bat antolatzen eban. Arlo onetako alderdi onena, euskal-gazte zintzo batzuk antolatu eban euskaldantza erakusketea izan zan.

Giroa: Euskalerrri'ko erri-jai asko astiro-astiro iltzen doazela esaten ba' dot, uste dot danok dakizuen gauzea esaten dodala, ta danok ikusten doguna da.

Areatza'n zeozer jazo da. Aurten ikusi dodan giroa oso erdibitua zan, bakoitza bere bidetik joanda; ez da egon Zeanuri'n izan daben batasuna ta alkartasuna.

Saritetsia: Guza onak. Jai onetan ikusi dodan gauza ederrena, jaiari euskal-giro bat emoteko gazte batzun alegiña izan da; alaitasuna be egon da, baiña len esan dodan lez, oso erdibitua.

Gauza txarrak. Bear ba'da, Areatza'n, jaietan ezer ez dala jazo pentsatuko dau jente askok, pentsakera au, batez be, edadeko jentearen artean izan daiteke, Nik, astiro-astiro, bateri itaunka, besteagaz izketan, gauza asko ta gora-bera ugari jakin izan dodaz.

Danok dakigu baita, Euskalerrrian, euskal-konjunto bat ez ba'dago jaietan.

tan, giro on bat sortzea oso zaila dala. Emen olango zerbait jazo zan. Arduradunak jakin eban lez, erriak olango talde bat eskatzen eban, baiña areik, euren konture, Jorrallean asita egon dan konjunto ori euren izendatuta, esaten dan lez: «Osatzea negar egitea baiño obe da...» edo olan ei-da.

Beste gauza bat. Ez daukot ezer baltzen aurka, baiña uste dot barre egitea zala an iru baltz zarataka edo obeto esanda, orroaka entzutea. Tristeia zan, an, kanpoko batzuk orroaka ta euskal-abeslari onak... ekarri ez, edo ekarri gura ez. Zetan esan be ez, baltzak txistu artean amaitu ebela euren saioa. Negargarria, tristeia... barrea, ori da barre atzetik egitea! Areatza'ko jenteak ori ez dau merezi!

Azkenkuntzak: Areatza, adi egon! Aurten jazo dana aurreragi joan ez daiten, osatu egizue. Arduraduneri esan bear duatset ori ez dala bidea. Ondo asi zirean erri ortako agintariak, leen ondo asi zirean, baiña gero al-dendu egin dira, Aurten jaiak txarto urten dabe, datorren urtean zer jazoko ete da?

Oarra: Emen ipiñi dodazan puntu edo dato asko, bear ba'da, ez dira «ofizialki» esan eta ez dira esango. Nik jasotako datoak jenteak esandakoak dira, eta askotan jaiak antolatzen ibilli direan gazte batzuk esan dausteez, baiña uste dot, alan da guzti be, erratu naitekela, baiña besteren batek argitzen ba'nau, pozik artuko dodaz berak esandako guztiak. Uste dot au argitzea bearrezkoa dala.

IRRINTZI

JESUS'EN LURRALDE ZEAR

3.—JERUSALEM

Jerusalem, Israel'eko burua da 1948'ngo Orriularen 14'tik. 320.000 biztanle dauko. Len, orain iru milla urte be ba-zan. Dabid'ek egin eban laterri-buru. Jerusalem'en bizi da israel-darren Lendakaria. Jaurbidea be bertan dago, Kneset izenekoa. Bardin eleiz-buru edo Rabinoa. Ikastetxe Nagusia. Israel'eko Museoa ta abar. Sarkaldeko Ormea da judeutarrentzat Jerusalem'ek daukanik otoiz-leku santu ta aundiena. Bigarren elizaren egunetakoa da. Kristautentzat Illobi Santua da tokirik santuena. Musulmantarrentzat Al Aksa eliza-mezkita.


Uri onek alderdi zarra ta barria duko. Zarrean arabetarrak bizi dira geien. 72.000. Barrian judeutarrak. Au oso ederra da kale zabalekin, etxe ta enparantza ta baratz ederrak ditu.

Danetariko erlijioak dagoz. Azkatasun osoakin danak. 1860 arte, zati zarra bakarrik zan Jerusalem. Judeutarrak auzo barri bat egiten ari ziran esi-ormatik kanpora. Arrezkero asko azi da Jerusalem. Judea'ko basamortua dago sorkalderuntz. Sei milla sinagoga dagoz eta 400 rabino. Biblia ta Talmud ikasten dira ikastoletan. 310 yeshiyot ikastetxe dagoz talmudtarrentzat, ogei milla ikaslekin. Musulmandarrak 200 ta geiago apaiz daukez. 90 mezkita. Kristauak 300 eliza eta 2.200 apaiz.

Judutarrentzat larunbata da jai-egun Israel'en. Barikua musulmantarrentzat eta igandea kristautentzat. Zortzi egun egin genduzan Israel barruan eta labur esan eta aitatuiko dot ikusi gendua, bai Jerusalem'en baita beste ainbat tokitan erabili genduan egitama jarraiturik.

Olivet Mendia: Palestina'ko Museo-ondoan Jeriko'ra daroan aotu-bidea itxita, bide barri batetik igoten da Olio Mendira. German Augusta Victoria Stiftung ikusten da gaillurrera eltzean. Gaur gexotegia da. Eskumalderuntz jota Jerusalem osoa agiri da. Beste aldera Juda'ko basamortua, Moab Mendi-oiñetan Itxaso Illa dauala.

Gure Aita Eliza: Eleona doneak jaso eban lenengo Eliza Oliveti Mendian, 326-333 urte barruan. Eleona izena eban —Olibeti basoa— Toki ontan iragarri eutsezan Jesus'ek bere ikasleai ainbat ezkutapen. Persatarrak deuseztutako elizaren gainean Gure Aita Eliza egin eban gurutz-gudariak.



Ba-du indarra onek; Gure Aita otoitza, Mendiko Itzaldiaren zatia da. Itzaldi au Tiberias itxasoaren alboko mendi-koxkor baten gainean egin eban, baiña Lukas'ek diñoanez, emen irakatsi eban ziur asko. Auvergne Dorreko emakume aberats batek erosi eban toki au. Dana deuseztuta egoan. Eliza bat jaso eban 1875'gn urtean. Pater izena ezarri eutsan. Karmeldar mojentzat konbentu bat be egin eban ondoan. Siñiste-Kripta izena jarri eutsoen laugarren gizaldian, Apostoluak Kredoa emen egin ebela esaten zalako.

45 izkuntzetan idatzita dago eliza ontan, obeto esan, sarreran, Gure Aita. Euskeraz be bai. Arana-Goiri Abando'ko Arranoak idatzitakoa da. Danok abestu genduan biotza püpilka ta begiak malkoz bustita genduzala. Ur-ur dago Igokunde Eliza. Ederra da.

Karmeldar monjen konbentutik sorkalde-bidea artuta, Betfag'era eltzen da beingo baten. Eliza bat jaso zan emen laugarren mendean. Jesus'ek Marta ta Maria'gaz euki eban alkartzea dakar gogora. Jeriko'tik etorran Jesus. Batzuen eritxiz asto-gainean jarri zan emen Jesus Erramugunean. Emen asten da gaur be Erramuguneko prozeziñoa.

Olibeti'tik beruntz eginda, «Dominus flevit» izeneko elizara eltzen da. Eliza barria ta oso ederra da. 1955'gn urtean jaso zan bostgarren gizaldiko eliza baten gainean. Gaur be ikusi daiteke eliza zarraren ormak eta. Gauza intersgarri asko agertu zan 1953'gn urtean toki ontan. Ebajelioko itzok datoz gogora toki onatik Jerusalem ikustean: «Urreratzean eta uria ikustean negar egin eban beragaitik esanaz: Ba-zenki zuk be egun ontan bake-mezua. Orain baiña zekutatuta dago zure begientzat. Elduko dira zuretzat be egunak. Orduan etsaiak inguratuko zaitue, ta alde guztietatik estutuko ta lur-kontra ausiko zaitue, orobat zure barruan bizi diran seme-alabak be. Ez dabe itxiko zugar arririk nire etorrerea ikusi ez dozulako». Oso-osoan bete ziran Jesus'en itzok. Tito'k Jerusalem osoa deuseztu eban 70'gn urtean.

Ama Birjiñaren Jasokunde Eliza: Scopus mendi oiñetan da Kederon. Kederon igarota Jasokunde-Elizara daroe zurubi batzuk. Ama Birjiñearen gorpua artu eban illobian gainean eginda dago Eliza au. Bosgarren mendean jaso zan emen lenengo eliza. Persatarrak deuseztu eban eta gurutz-gudariak barriztu. Eskumaldean dago illobia 45 zurubi ondoren. Ezker-aldean Joakin eta Ana doneen kapillatxoa. (Jarraitzeko).

GOIRIA



Jolasean ikasi, or zure aurrentzako emoitzarik onena

ESNEAGAZ EGINDAKO

ESKATU BASTERRI

UMETXUENTZAT

ADIREKENTZAT

CHOBIL

ESNEAGAZ EGINDAKO



BASAURI

ONA ETORRITAKOEI

Gaurko Basauri'n jente asko bizi da, ta leku askotatik etorriak, bai gure Euskalerrri zabaletik, bai bertatik kanporakoak be.

Ba-doguz ikastolak, orreitera danetariko umeak joaten dira. Ez dakigu gero, ortik kanpora, umeak eta gurasoak ere, zer egiten daberen erri-zaletasunagaz. Danetik izango dirala uste dogu, batzuk bizi lasaira egiñak izango dira; beste batzuk, ez dabez aztu izango euren erriak, eta orreitera joango dira al daberen guztian, atsegingarri diralako areik eurentzat; azkenez, beste batzuk, naita euren errietara joan al izan ez, emen egingo dabe euren giroa.

Zelakoa ete da giro ori? Ez dakigu. Or ikusten dira batzuk edan-tokirik edan-tokira taldeetan. Mendirantza doazenak ere ikusten dira, olakoen ondotik igarotzean, guk atsegingarri doguzan abestiak ere sarritan entzuten dira.

Zer jasoten da orduan? Ez gagoz batuta! Danok batuko ba'giñake, uste dot, ondo izango litzakela, beste gauza batzuk egitea pentsatzea, orain egiten diranetatik aparte.

Orreik, esate baterako, oneik izango litzakez; Itzaldi batzuk antolatu, libururen baten idazleagaz alkar-izketa batzarrak egin, euskal-liburutegi bat sortu, edo olako ekintzaren bat. Ta, gero, gurasoekandik asita, semeak be orrela jarraitu dagiela —ta nik es daukat ezer beste onein kontra— kanpoerrietakoekin bat egiten garenean gure euskerea ez aztu, ba gaur lenen-lenen baztarten doguna gure izkuntzea izaten da, naita beste idealismoetan antzera ibilli. Baiña kontu «antzera» diñot, ez bardin!

Askok, iritzi bardiñak dirala esaten dau, ez dot baiña nik guztiz onartzen esakera ori. Orrela jazoko ba'litz gure errietan, arazoei erantzuten ikasiko geunke, ta ez geunke entzun bearko sarritan entzuten dogun abesti arek diñoana: «Gu motoserrak ebagiten daberen aretzaren antzekoak gara».

Emen diñodana, gaur Basauri'ra etorritako jenteai be esaten dautset; beste leku askotako jenteai be bai, bardin jazoten da-ta.

Itxartu gaitazan eta garbitu dagiguzan gure etxeetako baztarrak, gauzak bear diran lez ipinteko.

KANTARI

GOZOTEGIA

ERIKO

Ezkontza ta Jaunartzeetarako opil-gintzan berezituak

Etxera bialtzen da



Kareaga Goikoa, 3

491030 urrutizkiña

Menendez Pelayo, 2

493059 urrutizkiña

BASAURI

MOLDARIZ

Zola ariñak, Sintasol, Azpi-oial osokoak, Orma-ingi margoztuak

Berriotxoa, 18

492396 urrutizkiña

BASAURI

ARDANDEGIA

IPIÑA

JATETXEA

Jateketa gozoen
etxea Basauri'n



Gral. Mola, 29

490064 urrutizkiña

BASAURI

ARIZ

ERREDIZAK

Bizitzak tresnatzeko
neurrira egindakoak



José Antonio, 24

493465 urrutizkiña

PILI MUNDUATE

ULE-APAINKETAK

Ederketa ta argizaiz
uldutze lanetarako
ikas-agiriduna



Jose Garai, bean

490572 urrutizkiña

BASAURI

GOZOTEGIA

TXIKI - POLI

AKEIT-MILLIZKETA



Menendez Pelayo kalean

BASAURI

JAIETAN

BASAURI'TZAZ ZERBAIT

Euskalerrri, ta beraz, euskal-urien edestia, sarritan esan oi dan bezela, emakume garbiena lakoa da: gitxia edo ezerezkoa. Eta orretara izanik, Bizkai'ko Basauri erri lantegitsu onena be laburra izan bear.

Erriko jai nagusiak dirala-ta, zerbait idatziteko eskapidea eginda dauskue, beraz, azalpen batzuk emoten saiatuko gara.

Lenen, jai-nagusiak aitatu doguzan ezkeroz, orreitaz idatzi bearrean gara. Erri ontako jai berezienak Iraillaren 29'gnekoak, Mikel Deunaren omenezkoak izan bear lukee, gure ustez, Elexalde'n —orregaitik daroa izen ori— jaso ebelako erriko lenengo txadona, XV gizaldiko azken aldean edo XVI'goaren lenengo urteetan, eta Mikel Deuna'ri eskiñatakoa. Eta ez il onen 13'gneko Pausta Deunaren omenezkoak, Ariz'eko baseleizea geroagokoa izan bear dabelako, eta azkotzaz geroagokoa, ia gure aldikoa, Arizgoiti'n, gaur erriko enparantza dagon tokian jaso zana. Jakiña, azkenengo urteetan, inguru ontan zabaldu ta azi da gaurko erritzea, ta ortik Pausta Deunaren jabetzea.

Basauri, gure gaztetxu aroan be, basetxe zabal ederrez ornitua aurkitzen zan. Gaur «Basconia» landola ospetsua dagoan inguruan bertan, basetxe ederrak ezagutuak gara-ta. Zetan esan be ez, Arizbarrena, Bizkotxalde, Urtunduaga, Lapatza, Abaroa ta abarren.

Antxiña baten, basetxe orrein artean, ba-ziran jauntxu-etxe antzekoen batzuk be. Gaur erri lez ezagutzen dana, Bilbo'ko uriaren babespean lotu zan erdi-arorarte, baiña aldi ortan, edo Bilbo'tik laguntzarik ez eukalako, edo zerbait ordaindu nai ez ebelako basauritarrak, Arrigorriaga edo orduko Padura'n menpean jartea erabagi ei eben, ta orretara jarraitu be gizaldietan. Aldi artan, izan be, Padura Bizkai'ko erririk zabelenatarikoa ta altsua izan zan-eta.


XVI gizaldian baiña, basauritarrak, azkatasuna, erri-jabetasuna lortuzeko lenengo oinkadak emoten asi ziran; bear ba'da, Abendañotarren eleiza-jabetzeagaz aspertuta egozalako 1551'gneko Orrillean, Eleizate izateko eskapidea agertu eben Gernika'ko Batzarrean; au da, erri-lagia Basauri'rentzat. Baiña orduan be, ba-ziran jauntxokeri batzuk, eta ez eutsen Batzarrak ontzat artu, ezta erri lez, azke ta bere buru-jabe izateko, baimenik emon be. Basauritarrak baiñan, gertu aurkitzen ziran beste errien menpeko edo yopu ez izateko, ta azke geratu ziran, naizta ez jarlekurik ez gitxiago autarkirik izan Gernika'ko Batzarrean, Bizkai'ak bere Jaurlaritzza, bere buru-jabetasuna ta azkatasuna galduko ebanetik urte batzuk, amarren bat, lenagorarte. Au da, 1858'gnerarte.

Egiya da, basauritarrak Abendañotarren zergatxuetatik azkatu arrik, Mikel Deunaren txadoneko amarrenak, Arriz dorre-etxearen jabeari ordaindu bear izanten eutsoen; aldi artan Basauri'n ziran ola, burdin ola askoren antzera. Baiña buru-jabetu ziran, eta orrek izan dau beti garrantzirik aundiena euskal-semeentzat: benetako azkatasunak.

Ez dakigu zelan eta zergaitik, baiña Arrigorriaga'k, gure aldirarte, 1927 edo 28'gnerarte, Basauri'ko lurralde erdi-erdijan dan lur zati bat, auzune bat, berea izan dau, bere ikastola ta guzti, «Venta» izenakin ezagutzen zan, ta orain be izen orrekin ezagutzen dana. Baiña, urte ortan, basauritarrak, bearreko eben batasuna lortu al izan eben.

Basauritarrak! Erriko jai nagusiak, egunotan asita, ospatuko dira. Sendikide lez eta benetako alaitasunean ospatuzeko egunak eurok, baiña gure oiturak goraldtu, ekandu onai eutsi, naizta gure asaba zarrak lez, jarleku ta autarki barik izan, baiña benetako azkatasun egarriz igaroteko, zutunik basauritarrak!

ALTUNA'TAR JOSU



OKINDEGIA

USUBIAGA

Antón Trueba, 3

BASAURI

BURDIN ETA TOPINKI

LANKETAK

GOIKOETXEA

Eraguztiko pertzak.

Askak.

Upelak.

Burduneriak.

Odi-biurriak.

Zokokara ta odien biurtzeak otzean.

Landola:

Arteaga auzoan.

49 32 12 urrutizkiña

BASAURI

BITXITEGIA
ULE-APAINTEA

BEGOÑA

BEZUZA GAIK

Cataluña, 22

49 36 53 urrutizkiña

BASAURI

LEIARRAK ETA

BERIN-ZABALAK

GANDIAGA

LEIARTEGIA



Nabarra, 8

49 17 44 urrutizkiña

BASAURI

ATERKIÑAK

Escudero

Basauri'rako

credu-tankera

bakarrak.



Gral. Mola, 38

49 15 92 urrutizkiña

BASAURI

BASAURI'KO

Gure Gau Txori

ETXEKOENGANDIK

ZORIONA DANORI

ERRIKO JAIETAN

PRIJIDER

JAUNA...!

Urte batzuk. Izen be izengo die berrogei inguru. Ez dalakuen be urtiok etorri ta juen galopan dabiz. Orduen euskerie oiñ baiño mille bider zabala ta sakona zanién, «prijider» deitz'otsen «prigoripikuai, emen nire errixen, señora batek. Beste berba erdal estrankero modukuek be sartzen zitxuan bere eguneroko txillimalan. Beti-beti, aiñdu bierrien. Nausi ta jaube aldameneko langun guztion tarte. Bai zan, bai, señora au, beti gorengo maillan bizi zana. Santulagun sutsue, azalez beintzet, jakiñe: Santuok goi-góixen dagoze'lez, da bera goi zalie...!

Erresu erroxaixue ta bere eten bako jarduna naste, amaibako tartana. Inguruko danok gogai. Jesus'en Biotza miñ gaiñ, da biotz gogorra bere paparrien, naitxe beti agertz zeruko katue ba'litze lez.

Lontzo ta Klemente, bere morroiok, oneneteiko gizon paric zien. Beti bierreko prest, agintz'otsen dana egin ixill-ixillik. Alan da guzti, señora diabru ori beti euron atzetik alarau baten.

Ondrauek eta zintzuek, Lontzo ta Klemente, oraiñ berrogei urteko gizon danak lez.

Barixekue. Bai, barixekue pentse'tot zala, astegun buru zurixe beintzet. Señora orrek, izenez Doña Laurita —obeto deitxu leixixon Doña Lorito, aiñ berba azixe zan lez— urten dau eguerdi ostien goiko balkora, jardín alderdiko balkora, ta lorito bozaz, bota dau betiko txillixue:

—Loren... Klemen...!!!

Jardiñerutzan morroiak ba. Larrosak, klabeiñok, kanpanillok, untz-orrixok eta abar konpontzen...

—Señora, qué pasar pues...?

—Por Dios (jakiñe, Jaun-Goikue agomiñien berbetiai inderra emoteko). Por Dios, jardineros. Dentro de poco viene el Prijider...! Estar preparados aquí mismo!!!

—Ben, señora, estaremos prest...!

—Lontxo, entzun dok ori...?

—Bai, Klemente. Edozer moduta lasterko kontue esan jok. Señor Prijider... nuntarra ete dok. Dana dala, goizan gorutz.

Igon dabe ganbarako euron goiko alkoba, jantzi alondara zurixe, jaixetako kantsontsiluek, domeketako traje, azkenengo ondreta erundeko korbete... zapata baltz lustrauk...

Arratsaldeko lau edo bostak inguruen, burdiñezko ate printzipaletik sartu de kamio galanta, ganién prigoripiko zuri itzel bat daukela. Lontzo'n eta Klemente'n putzek, armatoste ori kamioik bera ekarri naixen... Xemein ganetik gora entzuteko bestekuek zien...

Ori bai, bapo-bapo, traje, korbeta, zapata lustrau ta guzti.

Señor Prijider...!!!

JUAN JOXE ARRIZABALAGA
«MARKIÑA»

Markiña

Meabe auzunea.—Markiña, edonok aurtu bear dau, erri polita ez-ezik, garbia ta ospetsua dozu. Mendi artean dago, zugatzez, erreka ta etxe zuriz dotore inguratua. Ez dau oraindik lan-tegi ta fabrika geiegirik be; ez da, beraz, oraindik diñot barriro be, beste erri askotan ain aspergarri yakun ke, gas ta atsezko kutsadura bildurrik. Au dala-ta, domeka ta jaietan batez be, jente asko doa bertora, bai pelota jokuak ikustera, bai bertoko aize ozkirriz birikiak asetzera.

Ospetsua dala esan dot. Eta orrela da. Antxiña-antxiñatik izan be. Gaur gora andirik emoten ez dautsegun arren, lenago Iruzubieta, Etxebarri ta Urbe-ruaga bitartean, ba-ziran jauregi ta torre-etxe galantak: batzuk zutik daukaguz oindiño: baiña onein garaia joana dala esan daikegu. Orain aukera geiagoko etxeak eregi oi dira gure euskal errian; baita Markiña'n be.

Oso antxiñatik auzune ederrak ditu Markiña'k. Onakoa dozu Meabe. Ezagutzen ete? Nik baietz uste. Zu izan zara Urregarai, Igotz-mendi edo Santa Eufemia mendi-tontor lerdenean: ez aritu, iru oneikaz ezagutzen dogu iraila-ren amaseian ainbat lekutatik ainbat jente batzen dan arkaitz bizkar jagia. Onen azpian dago Meabe, Markiña'tik Aulestia'rako bidean, Erdotza ta Le-koitx bitartean. Len arte, giñarre ta gurbizez ta gaur piñu baltzez beterik daukagun arkaitz-sail ikaragarri baten altxagan, sortaldera begira dago Meabe. Amalau-amabost etxek osotzen dau; solo, atx eta piñuz jantzita dagoz etxeok, batzuk erdi utsik, beste batzuk umetxo begi-zoli ta oin-bizkorrez itxaropentsu.

Kosme ta Damian santuak.—Anaiak ziran santu biok, osagilleak, eta eurok dituzu Meabe aldean zaintzen dabenak. Txaraka'tik gora, ezker-eskuma ainbat arrobi edo kantera eder itxita, lenengo aurkitzen doguna, eskumatara, Santu bi onein baseleiza dotorea da. Bidetik dozena bat metrora; Patroikua deritxon baserriak dau beronen jaubetza ta ardurea. Ni ogetaz urteetan izan naz bertan Santuen mezea ta itzaldia egiten, eta beti aurkitu dot guztiz txukun eta alaitsu.

Eleizeak euron jai illaren 27'an ospatu arren, auzotarren eritxiz'iraila-ren 22'an izan zan. Bezperatik iragarri

zan txapliu otsetan, inguruko txar-kolko ta errakarruetan sekulako durundua aterarik. Egun berean be, goiz-goizetik, bardin; ba-zan zarata ta umore ona.

Gaiñeko urteetan lez, amaiketan meza nagusia abestuta. Iñoizkorik dotoreen egoan ermitatxoa, loraz, argiz eta oin-zapiz. Meza emoteko maitxoa be, aurtén, erriari begira: mibetarrak ez dagoz atzerantzaka, aurrerantzaka baiño. Baita bear be! Barru ta kanpo, ermitea, jentez bete-beteta: mibetarrak ezezik, markiñarrak, ondarrutarrak, goi-llibartarrak eta abar, gaiñezka egozan. Guztion artean abestu genduan meza. Baita nik bertakoen fedea ta Jainkozaletasuna goretsi be! Azkenez, Jainkoari, Santuati eta Andra Mariari esker-erak emoteko, «Agur, Jesus'en Ama» abestu genduan guztiz gogotsu.

Jolasak.—Euskaldunok, joku ta jolasak gara oiñetatik bururaño; arraiña uretan lez, gu orretan ibilli oi gara atsegin bitsetan.

Meza ostean, ba, Meabe'n be, ezarri legor samarrak ardao zuriz zerbat leguntzen ziran bitartean, antxe bertan, ermita aurean, nor-geiagoka batzuk eratu ziran. Esaterako, arri-jasotzea egin zan. Beko-Etxebarri'ko Juan Urbietak 100 kilokoa jaso eban, eta ederto jaso be, gure baserriak guztiak adurra erioela begira euskazalarik; Felipe «Beñe»k, barriz, 175 kilokoagaz ekin outson zaintsu be zaintsu. Ondoren, dantzan egin zan gazteen artean; trikitixan batez be, bakotxak bere bizkortasuna erakutsirik. Ordu bi ta erdietan, gosea erraietan gili-gilika geunkala-ta, etxerantza asi giñan.

Arratsaldean, 5,30'an, beste konkurtsu batzuk; txinga-eroatea, adibidez. Gaur naikoa zabaldurik daukagu gure eritxo ta auzuneetan. Zer dogu berau? «Txinga» ta «txingo» esaten yako. «Txinga», orman asto bat naiz beste abere bat lotuta eukiteko ipinten dan burdiñezko ustai edo obo bat dozu; «txingo», ostera, naiz txingoka ibilli, anka baten gaiñean ibiltea da. Eta gure baserri-erak, olako jokuetan, erdian ustai lodi biribilla dauen 50 kiloko pixu bi eroan oi dabez, ariñeketan naiz txingoka.

IDAZTI

BARRIAK

Izena: EUSKO LURRA. (Euskalerrri'ko lutelestia).

Idazlea: Agirre'tar Iñigo.

Argitaldaria: ETOR-kultura-bidean. Itxaropena S. A.

Bilduma: Erribide-zabalkundea.

Banatzaillea: San Miguel, Prim 41, 3.º Bilbao.

Argazkiak: Agirre'tar Iñigo, Ojanguen'dar Eli, Foat.

Gure Agirre'tar Iñigo'k Euskalerrri'aren Lutelesti eder bat aterateko asmoa dauka eta lenengo atala agertz dausku. Atal onetan mendiak agertzen dira. Bere asmoz, liburu au batxiller nagusia ikasten diarduen gazteentzat ei da, baiña beste alde batetik, utsune aundi bat beteten dau euskal-kulturaren barruan: Euskalerrri'ko lurrari buruzko azterlan sakona egin eta gure Erriaren Lutesleti orokor arloan argitasun barriak emon. Au diño, gitxi gora-bera, itzaurrean Zugaza'tar Leopoldo'k.

Irar-lanari begiratu ezker, oso dotore agertzen jaku atal au. Eta onelakoa izango ei da liburu guztia. Ba'leiteke liburu karua izatea, baiña gure sakelak ituntzen diran neurrian gure biotzak poztuko dira, euskaldunak merezi di-

tugun lako liburu ederretan genre gaiak ikusiaz.

Izkuntzea kontuan artzen ba'dogu, gipuzkoeraz idatzita dago, baiña euskera garbi, eder eta pozgarria dakar, guztientzat ulert-erreza. Itz barriak be iñoiz asmatzen ditu, baiña euskerearen barru-barrutik ateratakoak.

Izki artean agiri diran irudiak ederrak, margotsuak eta argiak dira.

«Lekeitio'ko Eres-mintz eta idaztien azoka»n agertz zan lenengoz, aurtén, liburu eder onen lenengo atal au, eta begira zer diñon, euskeratuta, aurtengo dagonillaren 28'ko «Pueblo» egunkariak: «Beste idazti bat, garrantzi aundi-koa ta Iraolagoitia lankide dala egiña, EUSKO LURRA izen lez daroan Euskalerrri'ko lutelestia da. Donosti'ko ETOR'ek argitaratuko dau eta Bilbao'ko San Miguel'ek zabaldu. Amasei atal izango dira eta atalak illero urtengo dabe, bakoitxa 150 pezetaren orde. Ederto irarrita dago».

Zorionak emon bearko dautseguz egille ta laguntzaille guztiai eta illerik illera ikusi dagiguzala atal barriak ain apin eta eder argitaratuak. Gure jakintza bideetan aurrera-aldi makala ez da izango.

GAMIZ

ARGI-ONTZIAK

EMOITZGARRIAK

EREDU BAKARRAK

ALBERTO URRUTIA GOTI

Ribera, 19 (Pelota, 1'en ertzean) 21 14 89 Urrut.

Carnicería Vieja, 8 - 23 56 25 - Urrutizkiña.

Santuchu, 16 - 339491 - 333123 - Urrutizkiñak

BILBAO

ARRIATIA

Gazteiz

Gazteiz'ko Euskal-umeen eguna ederki benetan ospatu zan. Iraillaren 15'nean, igandez, Euskal-erri osoko dantzari gazteak, goiz eta arratsalde, uri guztia alaitu eben. Danera, euskal-ipparraldekoak zenbatuta, 36 talde bizkor, txairoak batu ziran. Neska-mutikotxoentzientzen ezbardintasan ugariak oraindik bizitasun eta dizdira nabarmen-tsuagoak emoten eutsen ezbaierik gabe. Ikusleak, kanadatar nere loibatxoak euren artean, lilluraturik lez egozan. Euskal txapel bana erosi bear izan dautseguz eurai Ameriketara biurtu aurretik. A zan umeen poza! A txalotu bearra!

Egun or berberan goizetik, On Ramon abade gurgarriaren gorpuari, bertaratu giñan lagun pilloak, illobirarte lagundu geuntzan. Ezin izan eban begiztatu berak egun ortako euskal-jai alaitua, ikuspen zoragarria. Ori ta be, zerutik ikusiko ebazala zinetzen dogu, bere gazteiztar umetxoak beste talde guztiekin bat egiñik.

Eguardian, gure ume ta gazteak, millaka, Gazteiz'ko kaleetatik zear ibilaldi argitsua bezain txalotua bete eben. Kalean otz; biotzetan baiña bero gartsua nabaitzen zan. Ta nola ez nabaitu, geroko baten Euskal-erriaren arnasa bizia izango diran gazteak ikuskatzean!

Astelenean, arratsaldeko seiterdian, On Ramon Narbaiza abadearen illeta Meza-alkartua. Iruroeitabi abade Meza-alkartuan batu ziran, eta jendearen andiz, nire abade ezagun batek beintzat, Elizaren sarreran geratu bear izan eban. Bigen Deunaren Elizeta zan, dan-dana, barrutik eta landatik, urko lagunez gaitzeka. Eibar'tik be, berebil andi bi etorri ei ziran dirauskuenez. Gitxitan, ziur, olakoren bat ikusi oi da.

Amaitzeko, astelenean bertan, goizetik baiña, Ikastola barriaren asiera izan zan. Aita Olabide josulagun ospetsua, gazteiztarra gaitzeka, izan zanaren izena daroa Ikastola onek. Gure On Ramon abadearena bezela, Aita Olabide'ren izena era Erraimun zan. Ez dot eskuratu al izan, On Ramon'ek bere besoetakoa eban Iker umeari euskeraz idatzirik eskutitz samurra. Beste baten, al ba'da, izan leiteke argitaratzea bera.

Aulako abade benetako, zintzo, jator, euskerazaleak bear ditu gure erriak. Alegindu gaitzen gure abadeenganako begirapena gordetzen, ta gure euskal-zaletasunagaz euren indartzen. Eurak, guk eta Euskal-Erri osoak irabaziko du zalantzarik gabe.

ARREGI'TAR JOSU

Arratia

SOLAGUREN

«Goiko, goragoko solo, solo ganeko» edo olakoren bat esan nai dauan auzotegian izan naz. Patxitxu'ren arrera gori-goria izan dot. Mari Goiko'koa, eta txepetxa baiño bizkorrago ta burtaketa lakoxe arteza, oraintsu arte dantzari azkarra ta oraintxe be errian dogun pandero-jotzaille zolia, laregei urtez gora dan Errite, agurtu dodaz.

Geldi-alditxoan egin dot etxera itzultzean, eta errira adi nengoala, illun naigabetsuak inguratu nindun. Bata besteari alboz lotutako etxe andi garaiak dodaz aurrez, begien janari, zelaidietan lantegi barriak ugari.

Bertoko seme-alabantzako baiño bizileku geiago egin dauskuez, eta emengo ama gazteak egiñala sortutako umeentzat baiño etxe ta lantoki geiago doguzalarik, aibat errietatik etortitako atzeritar askoren abi gozo egin da Iurre, gure erri au.

Bat-bateko aunditze zoroegiak eta errikoen eta erbestekoen naste ta moltsotze estutuegiak kendu daroatso erri-izate jatorra. Bizilaguniek erdiak ez gara alkarren ezagun.

URA

Santalutzi'k ba-dauka urik, urteetan erria ornitu ta naikitutekorik. Baiña endore, batek, diruaren kilikiliak eraginda-edo, ta erriaren geroakin geiegian arduratu barik, iturriaren urik erdia Lemoa'ri saldu cutsan alabarrez.

Orain? Etxekoak egarriz, Lemoa'n bear danik ez. Eta iforik ete daki zebat dirutan saildu zanik, diru arekin zer egin zan edo nora joan zanik?

Ori, beste iturri bateko ura dogu.

OSAGILLEA

Dirala berrogetamar urte, osagille baten eskuetan egoan erri guztia, ta orain be, bat besterik ez. Orduko arentzat, orduan gaixo ta osatu-bearrekorik izan ba'zan, oraingoari be, agertuko yako egiñala zeregin.

Eta sator eta azpitikoen ugaritze andia dogun ezker, noiz egitekotan dira, Iurre-bekoa'ko bidegurutz bildurgarrian azpibide egoki bat?

GURUTZ-GORRI

«Cruz Roja»ren antzeko erakundea, Arrati'ko bideetan eta beste lekuetan izaten diran ezbeartuak naiz gaixoi lenen-laguntza eskeintzeko gerturik eta adi izango dogu zuri, au argitaratuko danerako.

Erakunde barri onetan, Iurre'ko ta Arrati'ko aibat semek egin al izango dabe, beste lekuren batzuetan egin bearreko gudari-morroitzak.

Arratia'k baiña, deabruak madarikatutako erria dirudi, eta erakundeekin bat ez datorzan marmarren soñu ta oiartzunak, belarrietan doguz.

LANDAJUELA'TAR A.

BARRIA

Galdakano

JAYOTZA

Poztasunez siñestu ezinda aurkitzen dira, bai Sagardui'tar Josu-Mirena ta De la Mar eta Jauregi'tar Miren-Josune senar-emazte gazteak, baita euron aitita-amama barriak be, lenengo lorea daben mutil eder batekin ugariuta ikusi dabelako euren sendi jatorra, Iraillaren 16'nean.

Sarritan esan oi dan lez, lenengo seiñak mailla edo titulo asko ekarruten ditu sendi batera: aite-ama, aite-ama, osaba-izekoak eta abar. Berezko poztasunaz batera, aibat geyago, aldi ontan bezela guraso gazteak anai-arreba bakoak diranean. Gure zorianik beroenak AGUR onen bitartez, eta ea euskal-seme kementsu bat aziten daben.

JAI-OSTEA

Bai, jai ostea beti be, pizkat motelagoa izaten da-ta, ta aibat geyago ea aste ta erdi luzeko jayen ondoren. Orretara aurkitu izan gara galdakanotarrak, ezer irakatsi ez daukuen erriko jai nagusien osten: erdi konorte barik, edo galdakanotarrak esaten daukuen lez, mozoillotuta, zer edo zer egiteko asmo andi barik. Izan be, gure erriko jaiak luzeak izaten dira.

Txindi ugari euki dabenak, parra-parra eral-giteko zenbat nai egun, eta gitxiago dabenak be, ez gitxi. Orregaitik-edo, idazlantxo au idatziten gagozanean, etxerantz bizkor-bizkor igaroten ikusiten dogu oztetza andia, lauko bat geyago eral-giteko asti barik edo asmo geyago barik.

Aurreko idazlan baten esaten genduban bezela, ez dogu izan jai egoki askorik, batez bere, pizkat adineko garenontzat. Geroago ta jai erkiñagoak doguz errian, ta ori dala bide-edo, urtean baiño urtean, oztetza txikerragoa da bertoratzen dana. Ori, ta geroago ta tramankulo geyago dogula enparantza ta bere inguruetan, zarala geiegi, bertaratzen dan adineko ta gaztedia aspertzeko.

Lerro oneik idatziten doguzanean, beste jai bat geyago ospatuzeko gara: iragarrita dagon lez, Euskal-jaya, Iraillaren azkenengo igandean. Jai au, kirol ta jolasez ornitutako jaialdia izango da, baiña egiz esateko, ez dot gauza bikainik ikusiko dogun itxaropenik. Antolatzea erriko gaztediaren eskuetan itxi ba'lebe, ziurki gozatuko genduban jai ori, baiña gaitz, orain eralduten dabenak izan ezketiño. Edozelan be, eguna igaro ondoren, atsegingarri izan jakun ala ez, esango dogu.

LURPEKO BIDEA

Lenago bein baiño geyagotan esan dogunez, aspaldiko urteetan ardura bizia izan dan, galdakanotarrak askorentzat, erri ontako bitxabal-guruterorik andieneko oin-bidea, au da, bitxabal orren azpitiko bidea, egiten asi ziranean, amets bat bezela artu zan.

Aldi artan esan genduban bezela, bein egiten asi ezketiño, laster amaituko zan itxaropena be ba-gendum, eta alantxe izan da. Au idatziten gagozanean, ia eginda aurkitzen dan ezketiño, urren datorrigun Urrillaren erdi ingururako izango ei da oin bide orren askundea, baita onezpena be.

Amaitu baiño len, jakiña, bera ikusten egon gara, eta benetan bide apaina izango dalakoan gara. Zorianak bide ori izate batera bultzatu dabenai.

BASA-JAUN

Zumarraga

AITONA'REN BURUASTEAK

Gure auzo erri den Urretxu'ko biztanle burlatsuak, aurreko urteetako leloan eratu dute, Irailla'ren 25'ean, Euskal-jai ikusgarria. Soñulari ta dantzari trebeak, ezin ederragoak aurtxo ta aundien euskal jantziak. Zoragarriak benetan, zortzi galdi apaindu, erriko kaleak zear soñu alaiak lagun, millaka gizaki ta emazteki aurtxo oste aundiz lagunduta, ta beren txalo epelez berotuak.

Onenbeste edertasun ikustean begien aurrean, bat eta bi baiño geiago ikusi ditugu, pozaren pozez, begiondoak bustita zidarrezko negar malkoz lurra bustitzen.

Une ontan, itxaropen pozgarri batek betetzen du gure barrua, ikustean liburu ta diska azokan, gure gaztedi trebea ta ain gazte ez direnak, egokien zaiaten liburuak aztertu ta miazten.

Nun naitarako jardun aldi batean entzun degu onoko au: «Abendaren zindotasuna agertzeko, gizon indartsu ta trebeak kirol saillean sortzea egoki da, baiñan pozgarriagoa, jakintza gauzetan buru argiko asko eratzeko». Joka dezagun bada, beti adimen arauz.

Euskaldun berri-emaille maillan, Euskal-jai zoragarri au, gure soñarekin eta txaloeikin berotzera joan giñen, guztion izenean, zuzendari ta mailla guztietako eratzailleei, gure omen eta txalorik suitsuenak eskeintzera. Gaur Urretxu'n jaso ditugun erakutsiak, izan bitez beste urtebetean gure lagun!

Jakin ta ikus-nai miñak zirikatuta, orain bukatu dan udaroan, ibilaldi zoragarri bat egin degu, Euskera galdu berri dan lurraldeak zear. Jende argi ta garbia.

Jakin dutenean Euskaldunak gerala ta Euskal-Erri'ko asterokoetan errietako berriak ematen ditugula, beren barru-alaitasunak etzuan neuririk. Euskera irakasle ta ikasle ugari arkitu degu. Ziur nago, erri auetan berriz sartuko dala gure izkuntza. Urte gutxi barru.

Orain egun batzuek, lagun bati esker, Ipar-Amerika'ko Euskaldunen seme-alaba ikasle batzuekin solasteko zoriona izan degu. Ikasle xalo auen aonetatik irteten dan Euskerak ezta dirudi, ta ain da garbia ta ulert-erreza!

Ez dira gazte auek artzaiak beren gu-raosak lez, auetatik batzuek lege-gizonak, sendagiñak, injeneru, irakasle ta abar dira. Gazte auek inglesa dute erdera, beren artean eta beren gurasoen sukaldeetan Euskera dute txapeldun.

Onen beste gauza eder ikusi ondoren, beren iritzia jakin nairik, izketaldi bat egin nai izan degu gure erriko sasi-jakintsu, berripurdi batekin, ara emen bere erantzuna: «Gaur egun euskera ez dek eteingarri».

Gure erantzuna: «Bear ba'da ez dek izango eteingarri, baiñan ludi zear, kon-turatzan ari dituk Euskaldunak, Euskera dala beren izkuntza bakarra.

AZKARRAGA

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra
BILBAO - Casco Viejo
Tenderia, 15 eta 16

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK
OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

ZAZPI-KALEAK



CASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

BASAURI

Berrogetak milla bizi-lagun gaur. Bi milla inguru euskeraz egiten dabena. Eta Euskalerrian gagoz.

Gizaldi onen asieran, orain 74 urte, bi milla lagun osta-osta bizi ziran emen. Orduko paperei begiratu ezker, 2.056. Lengo bizilagunen semien eta oiñordekuak ete dira ba gaur be bertan euskeraz egiten jarraitzen dabena?

Basauri'ren buruaustea, problema: sei mila lagun kilometro lautu edo kuadratu bakoitzeko. Ia Sestao'k aña. Barakaldo berak baiño geiago. Nora guaz?

Bizkaia'n, aize pozoitua, kontaminasiño giroa igarten dan tokietan sartuta dago errialde au. Sarri agertzen da errialde au gai orretazko neurri auzunean. Urrunetik igarten da bertako keia.

Orra Basauri, Durango'tik Bilbo'ra goazala, Ibaizabal'en ezkerretara, Ibaizabal eta Nerbion bat egiten diran mugetan. Etxadi eta lantegi, ke eta lurrun.

Merkatarien erri be ba da gaur, Ikuste-koa da goizaldetan Merca-Bilbao inguruetakoa joan etorria. Ango tratu eta kontuak. Ango diadar eta ardurak. Danak prisaz. Etengabeko kamioien ibillerak. Bilbo'rako bakarrik ez. Bizkaiko erri askotarako be egunero, batez be ortuarietak, eundak kamioik urtetan dabe bertatik.

* * *

Arizgoiti, Elexalde era Urbi auzoak. Arizgoiti'n erri burua. Auzo erriak: Arrigorriaga, Etxebarri, Galdakano, Zaratamo: Eta Bilbo.

Nun dira lengo baserriak?

Gaur etxe artean galdu dira geienak. Berrogeta iru ba egozala ba dakigu. Labayru'k be, bere Bizkaiko Kondairan, agertu zitun. Erriari bizkaia emoten eutsan baserria be ba egoan. Gerorako be merezi dau erreskada baten euren izenak gogoratu eraztea: Abaroa, Alambreteria, Ariz, Arizbarrena, Arizgoiti, Arizgoiti-bekoa, Ariz-saratsua, Arteaga, Arteaga-goitia, Artunduaga, Artunduaga-goikoa, Atutxa, Atxukarro, Basauri, Basozelai, Bentagoiko, Bidebieta, Briskietia, Errekalde, Etxebarri, Etxezuria, Finaga, Goiri, Goienetxe, Ibarquen, Ibarra, Kanterakoetxea, Kareaga, Kareaga-goikoa, Landa, Lapazondo, Larrazabal, Luzarra, Ollargan, Solokoetxe, Telleria, Torre, Ugarte, Ugartezarra, Uriarte, Uribarri, Zarrate eta Zubialdea.

* * *

Kontu zaarra.

1546 urteko Otsaillean, Martin Goxeas-koetxea, parrokoa, il zan. Eta bere gorputza oraindik epel egoala, bere aurrean, lur-emon aurretik, ogeta amaika etxe buru batu ziran bere inguruan. Eta antxe, bere aurrean, bakoitzaren kontzientziari dei egiñaz, antxiñako oiturei jarraituz, eta eurak be noiztik etorkien ez ekien eskubideari eutsi eta bera zaindu nairik, euren elizarako parroko barria izentatzea erabagi eben. Artunduaga'ko Iñigo aukeratu eben orretarako eta bere laguntzaille lez Ibarra'ko Patxi eta Aperribai'ko Martin.

Danak eritxi bateko agertu ziran eta ao batez egin ebezan izentate oniek. Eta orduko gotzainari, obispoari, eskatu eutsen, izentau zituenak nai ez ba eben be, serbitsu ori egin eta betetera beartuteko, erriaren guraria eta eskabidea ori zalako, eta benetan premiñetan egozalako.

Aukeratze onek ez leuke gaur iñor arrituko, beste zerbait tarteen igarriko ez ba'lituz.

Jakiña da, sasoi aretan, Abendañotarrak inguru onetan eukin indar eta lotsa. Lotsa baiño bildurra geiago. Erri askotako zeregin eta ardurak eurenak lez artuta eukezan. Euren gainetik ezin egian ezer iñork. Ordurarte Basauri au Arrigorriaga'ren auzoalde lez sartu eta etsiten zan beti. Ez bakarrik eleiz legeetan eta zereginetan. Bai errikoetan be.

Baiña basauritarrak euren izatea eta nortasuna zaindu nai izaten zituen. Besteak erabilbi barik, eurak zuzendu nai. Euren buru jaube agertu nai izan eben. Azpalditik ebiltzan onetan. Eta eurenarekin urtetea lortu eben.

1510 urtean egiña zan euren parrokia. Ba dirudi eleiz au egitean Abendañotarrekin eta Arrigorriaga'koekin lotzen zituezan kateak eteteko grazia eskatu eta lortu ebela. Torrea geroago egin eutsen eleizeari, 1771 urtean.

* * *

Erri legetan be Arrigorriaga'gandik banandu eta alde naian ibilli ziran luzaro. Aren menpetasunetik urten naian. Gernika'ko Batzar Nagusietarako eskubide jatorraren billa. Auzoen artean entzuten zituen iñoiz, orduko batzarretan, bere antzera egozan beste erri txiki batzuk be. Baiña ez erri legez eta izatez. Onetan, urteak joan eta urteak etorri, Ba-

sauri'k ez eban lortu Gernika'ko Batzarretan bere aulki eta bere botorik eukiterik. Orretarako egiten zituen eskabidetan, beti euki eben ostoporen bat.

Orrela lagatea gauzak erdizka esatea litzake. Eta birbilidu daigun txostena. Gure Batzarrek ez daiguzan ain gor laga eta basauritarren alegiñak be ez ain utsean.

1858 urtean lortu eben basauritarrak aintzat artzea eta urte orretan emon eutsen jarlekua eta botoa. Azkenengoz emon bearko eben euren erabagia eta euren eritzia, foruak galdu ez ba'ziran. Ain zuzen be urte orretan gure nortasuna meetu eta aldu zan, eta oraindik gelditzen zan ezaugarri berezi baten aia eten. Origaitik Basauri bere izatea eta bere berba entzun eraziteko aukera barik gelditu zan.

Erri iraultzaillea, rebeldea? Nortasuna, aintzakotasuna, eskubidea, bere izatearen kezka eta ardura zale eta keifiati bai. Ortik ba dauka orduko erri txiki onek bere istoria urte luzeetan.

* * *

Erri bakoitzak bere jai egun berezia auke-ratuta eukiten dau. Basauri'k Mikel donea.

Basauri'ko jaiak ba eukin tengadea bilbotarrentzat. Delmas'en esanetan, erromerriakaitik izan ezik Basauri'k ez ei eban izen eta entzuterik lortuko bere inguruetan.

Baiña Irailla'ren 29'an bilbotar gaztedi geiena bertora etorten zan, batez be langille jentia eta serbitsuko neskatillak, soñekorik apain eta txukunenak jantzita. Alako soñeko-koen erakusketa edo feri itxurako eguna izaten ei zan egun ori.

Bilbo'n bete-beteko utsunea igarten ei zan eguerdi osteko ordu batzuetan. Trenak be gainezka eta merke. Eta illuntzean barriro asten ei zan Bilbo bere giro eta itxura artzen, umorez eta alaitasunez beterik Basauri'tik Bilbo'ra gazteak alkarren leian biurtzen ziran.

* * *

Sasoi baten parroki bakar bat. Eta bera be, luzaro beintzat, Arrigorriaga'koaren menpean.

Gaur, lengo parroki zarrean, abade bi. Ariz'en, Edurtzetako Ama eta San Fausto'ren izenekoan parroko bat eta laguntzalle bi. San Pedro izenekoan, bost abade. Eta San Iñaxio'n, bi.

Orra ba, gaur ezin deitu erriari, sasoi baten lez, Basauri'ko San Migel. Besteak iruntsi dabe. Denpora barriak dira. Bizitzan egikeretan erakutsi bear da santutasuna eta ez izenean:

Gaur Basauri ta kittu. Eta ekin lanari gizon arteko premiñei arnasa zabalduz.

* * *

Iru errota, burdintegi bat eta galdarategi bat. Ara, luzaro, Basauri'ko industria. Euretako zeregin batzuk Artunduaga'ko Torrekoen jaubetasuneko ziran.

Gaur, Bizkaiko burdin meatz edo miñeen mugatzat etsiten ba'da be Basauri au, Bizkaia'n Santander aldeko mugan asi eta 24 kilometro luzeen erreskadan igarten dira lurren estratuen bidean, bestelako industria da bere ogi bidea. Ba dira diñoenak Basauri'ko torreak meatz eta miñak be euki zituela euren eutsigarri. Baiña ori beste erri batzuei obeto eta zeatago dagokie.

Ba dator Basauri'tik Bizkaiko industri baten izena eta izana. Ogitintza. Ariz'ko torreak ba eukan bere errota. Torreko arriak kiskaltzen joanarren, errotarria ez zan gelditu. Eta ortik ain ezaguna dan ogikiñen etxearen jatorria. San Fausto'ren ermita be Ariz'ko torre orren ardura eta jaubetasuneko izan zan.

* * *

Bilbo'k jaten dautzas Basauri'ri ezaugarri asko. Bilbo'rentzat, Basauri, industriak zabaldu al izateko lurra da, Galdakano bizitokientzat arnasa izan leiken lez.

Industririk geienak Bilbo'n daukez etxe buruak. Eta industria mordo dago gaur emen. Era guztitakoa. Kimika, burdin, egur, paper, plastikua eta gomaenak eta beste ainbat.

Lana eta izerdia Basauri'n; diruari ugara kendu, Bilbo'n. Bilbo'ko ate edo Bilbo'ren kate da Basauri.

Eta kateak aitatzean, katepean dagozan gogora datorkidaz. Edozeiferi be biotza urratzen dautse katepekuak. Urte batzutatik ona ementxe dago ain zuzen be Bizkaiko espetxe nagusia. Eta ez utsik.

Kultura garra be igarten da emen. Urtero sari bat gertuten dabe, Basauri'ren izenez, gure kondaira, bizibide, oitura eta izatetik zerbait agertu edo zabaldu nairik. Txalogarri.

A. ZUBIKARAI

AGVR

Apartado n.º 2
BILBAO

FRANQUEO
CONCERTADO
08/55

OLERTI EGUNA TA...

Bai, «ta» orrek ba-dau bere esan-naia. Igaz eta egun berean, Azilleko atzen igandean, jai eder aren amaieran, «Zeleta» jaunak itz egin euskun, eta Onaindia Aitaren eten bako lan ederra goraldu ondoren, beste onenbeste esan be:

«Auxe baiño aipamen naigarriarrik eta goralgarriarrik, bati buruz? Urrengo urteko EUSKAL-OLERTI EGUNA, ONAINDIA ABA'REN OMENEZ OSPATZEA, ESKATUKO NUKE NIK...!»

Ta «Zeleta»ren itzak entzunda —esaten eban AGUR'ek bere 114'gn zenbakian— dan-danok ao batez, datorren urteko Olerti Eguna, Santi aitaren omenez, gure goralpenak eskeintzen eratu dadilla, erabaki zan.

* * *

Orra ba, urtea ba-doa aurrera; Olerti Eguna, Azilleko 24'gna aurtan, ez da urrun, eta orretaz igaz arduratu ziranak, ez dagoz lo. Jai ori, Santi aitari eskeiñi nai yakon omenaldia, eratzen asiak dira; astiro baiña ziur. Iñork merezi ba'dau...!

Danon languntzea bearko da, danok nai dogu orretan esku artu, naita bere apaltasunean, gure irakraren beko, olakorik nai izan ez. Zeleta maitasun-endarra izan dagian —oroigarrien bat be emon bearko dautsagu-ta— euskeltzale zintzo guztiak orretan izango dira. Olan ba, zure laguntasuna be eskeiñi nai izango dozu, ta orretan dabilzeneri laguntzeko, esan egizu lenbaitlen, naiz AGUR'ekoeri, naiz GOIZ-ARGI'ra idatzita. Ea zertaraño eltzen garan ba!

* * *

OLERKI JAIA, beti lez, Ta or agertzeko lanik ba'daukazu, bialdu Larra'ko lekaidetxera Urril onen 25'gna baiño ien. Ba-dakizu, lau sail izaten dira: Olerki liri-kuena. Edesti-neurtitza. Amar alegi txiki txorta baten, eta Bertso-sailla, danak sarrituak.

Baiña aurtan, gorenengoa izango dogu. Onaindia Aitak berak, iru idazti barri ta zoragarri agertuko daskuz. Guk, jaiaren eta egunaren izatea berotugo dogu. Orretan lagundu dagiguen, or izango dira Basauri ta beste bertsoleiren batzuk, Orain-txe dabilz egitaraua biribiltzen, ta onenbeste jakin dogu: Itzaldia «Zeleta» jatorrak egingo ei-dau. Etxaniz, Bordari ta Aurraitz, zenbat aldiko jai-berotzaleak, ez ei daskue utsik egingo... «Barbantzo» gozo orreik besterik ez ba'lego be, egun bete-betea, ta aundia...

Laster arte, zerbait geiago ikasi ta zueri jakin-arazi naian.

IBUR

VALLVIDRERA

POZAK ETA NEGARRAK

Udaldiko atsedean egunak igarotzen, Bar-tzelona goikaldean tinkaturik aurkitzen dan Vallvidrera deritzan uritxo osasungarri on-tan egondak izan geran bitartean, gertakun pozgarri baten ondoren, negargarriko gertakun ikaragarri bat ere ikusteko aldia izan degu.

GERTAKUN POZGARRIA

Irailla'ren lenengo egunean, urtero be-zela, aurtan ere, Vallvidrera'ko «Vilajoana» Berdagan eguraztoki ta lorategi zozgarrian, deritzan katalandiar olerkari ospetsua izan zan jauregi-aurrean, aundikari ospatu zan, eguerdiko amabietan, olerkari gortsiaren gomutazko meza-nagusi ederra, «X Dia Internacional del Canto Coral» osatzen zuten Abestaldeak zoragarriro abestua.

Gizon eta emakume, zar eta gazte, zenbat endatoko notik bildu zan leku atsegingarri artan, ez da errez zenbatzekoa: lau mila?, sei mila? Bi millatik gora bait-ziran bertako ta atzerriko abeslaritan bakarrik...

Arratsaldean, «Palacio Municipal de Deportes» deritzan jauregi aundian bildu ziran urteroko ospakunde artarako ainbat alde-

tatik etorritako Abestalde ospetsuenak, lau orduko ekiñaldi luzean txalogarriro abestu zituztelarik aukeratutako abesti-bereziak. Txalotuena, danen gaindik, Zagreb'eko «Yugosiava» izan zalarik. Ikuskizun eta entzun-kizun pozgarria, abesketa auxe, benetan izan zitzaigun.

GERTAKUN NEGARGARRIA

Egualdi onaren ondoren, egualdi txarra sortu oi-da; eta pozaren ondoren, negarra. Ola gertatu zitzaigun: Abesti-egun pozgarriaren urrengo eguna. Benetan negargarria Bartzelona'ko Tapias kalean ikusi gendun eriotzketa ikaragarria: etxeak su arturik, 17 biztanlek, lotan zeudela aurkitu zuten eriotz kiskalgarria.

Ain kiskaliak izan ziran, biztanle errukari aien gorputzak, danetatik bi notin baizik ez ziran izan ezagutuak, irurogeitik gora gizon-emakume gelditu ziralarik, nola edo oia bizirik... baiña, betiko elbarrituak.

Ango estillu, zalaparta, oiur trixte ta negarrak! Ez dira biotza mindu gabe adieraztekoak.

ZELETA

NAPARROA'N

Zelako barri ederrak datorkuzan asaldion Naparroa-aldeak! Guk baiño bildur gitxiagoz eta laguntasun geiagoaz jokatzeko dabe orain, gure anai diran naparrak. Zergaitik ete da aldakuntza au?

Zalantza barik, zusterak sakon ditu, baiña neure ustez zuzen jokatzeko dabenak eta bildur barik dabilzanak agintaritzaren mailla baten dagozanak dira. Zoritxar asko, beste lurralde batzutan, mailla orreitan diranen bildurragaitik edo eutsi-gureagaitik dira.

* * *

Lentxuagotik entzuna dogu zelan indartzen dan Naparroa'n euskerea: Ikastolak, Aldundia, udako ikastaroak eta abar. Ondo genkian, lentxuagotik baita, abadeen artean ba zala Erria kontuan artzen eban talde on bat eta euretatik aibat ezagutzen doguz oraindik euskera egiten dan errixeetan. Ez geunkan aitzuta Iruña'ko gotzaiñak, naizta Gogozaina Andaluzia'tarra izan, zuzen ikusten ebela gure Erriaren arazo larria.

Baiña gure itxaropenak indartu dituna gotzaiñen azkenengo agiria izan da. Amalau arau eder, garbi eta garrantzitsu agertu dira Eleiz-barrutiko aldizkarian. Ona emen labur-labur jarrita:

- 1.—Goterkiko agiri garrantzitsuak euskeraz eta erderaz argitaratuko dira.
- 2.—Eleizetan idazten diran agiriak (dokumentuak), euskeraz egin al izango dira.
- 3.—Goterkiko «LA VERDAD» orriaren zati bat euskeraz idatziko da.
- 4.—Erri euskaldunetan eleizkizunak euskeraz egin bearko dira.
- 5.—Izkuntza biak darabiltzen errietan, geienak euskaldunak ba'dira, eleizkizunik geienak euskeraz egingo dira.
- 6.—Euskerea galduez dauken errietan be, izkuntza oneri eleizkizunetan lekua emongo jake.
- 7.—Iruña'n bertan be eleizkizun batzuk euskeraz egingo dira.
- 8.—Eleiz-batzar aundietan, euskaldunak ba'dagoz, onein izkuntzea ez da aitzuko.
- 9.—Kristiñau ikasbidea irakastean, eleizkizunetan lez erabiliko da euskerea.
- 10.—Eleizearen irakaste-etxeetan, euskaldunak ba'dagoz, eleizkizunetan kontuan artu bearko dira, eta eurak edo gurasoak eskatu ezker, euskal-jakinzea emon bearko jake.
- 11.—Gaizo etxeetan, euskaldunak joaten ba'dira, abade euskaldunak egon bearko dabe.
- 12.—Santutegietan be, euskaldunak joaten ba'dira, abade euskaldunak bearko dira.
- 13.—Olako lanak egiten dabezan lekaidai, euskaldunentzat lekaide euskaldunak eskatzen jakez.
- 14.—Maillaren baten arduradun diran abadeak, arau oneik betetako bideak artu begiez.

* * *

Arau oneik, egia esan, ez dira beste munduko gauzarik. Zer gitxiago egin legike Erri larri bateri laguntzeko? Peillo-kirten'en esakunen antza ez ete dauke? Baiña auxe da ba euskaldunen zoritxarra. Beste edozein tokian egunero ta beti egiten dana egiteko, emen legeak bear! Eta betekoe ete dira lege edo arau orreik? Ez ete dira beko maillan oztopoak agertuko? Betei esanak egiten zintzoak izan diranak, ez ete dira orain atzeratuko? Bildur naz.

Adibide bat: Bein baten, nire lagun bat, euskalduna, England aldera joan zan ibiltaldi bat egin. Berbeak berbea dakar eta, auxe esan eban: Euskalerriko bere errixeetan, umeak euskaldunak zirala eta eskolako maixua euskerarik ez ekiana. Inork ez eutsan ori siñisten ain erokeri aundia da izan be!

Baiña, ez litzakigu onen antzeko lege bat txarto etorriko: «Umeak euskaldunak diran errietan maixuak euskaldunak izango dira, eta umeai euskeraz irakatsiko dautse». Kirtenkeria izango litzake olako lege bat, baiña ondo bearrezko dogun kirtenkeria.

Zori onak naparrai, eta eskerrak euren gotzaiñai.



GERRIKOAK ESTUTZEN

Ta, ez da gitxiagorako. 1974'gn urte au jaio zanean, arrolioa goratzen etorran garaia zan; aurtxo onen amari bularra legortu ba'yakon antzera, soin berogarri ta erabilgarri dan lobel ori barik ia geratu zan.

Ta, urte-kumearen antzera, arrolio goratu egia eragiñez, belbillak eta tarrantak be, geldi une larriak izan ebezan. Gaitz ori danon arpegi aurrean izan da, baiña urte-barri koskor orren bizitza aulduak, bere ezkutuko zeregin galgarria bete dau eta, burpillak ez-ezik, beste ekintza ta lan asko ta asko, puztu bearrean etozanak, olio ezaren ezaz ugarrak oratuta, orra sorrak jota ezin ibillian.

Puztutze edo inplaziño gaitz ori ia % 20'raiño goratu da laterri lantegietan, eta arduradunen kutxa bete areik, zati on baten beeratu.

Aurtengo 1974'gn au, giro orretan, lenengo mutikotu, gero gizon egin eta orain zartzaroen aurrera doala, ez da zero gaizki ibilli; laterriak lenagotik ederto aberastuta-egozan-eta; atera ta sartu ez, sakelak arintzen doazan arren, «ekonomia» deritzen sorgin orri erratz ganean irauan al izan dautse.

Topiñak pertzeari ipur baltz! Ori da orin laterri lantegitsu aberatsak arabitar jauntxuerei ezarri nai dautseena: «Erri txiroaren ganean, ortozik darabilzuezan astolari (ez baiña autolari) orrein ganean, «kapitalista» mamu izugarri biurtzen zoaze». Oneik baiña, ez dira ain erraz ixiltzekoak, eta beste au erantzun: «Zuek ondoegi bizi zaree; jatxi zuen erriarren alperriko eralgitzak eta dana merketuko da».

Baiña, ondo bizi izatera eldu danak, obeto nai bizi. Nork itxi, berez, ordu gitxiagoko astegunak, larunbatetako aparti alaiak, oporraldietako urriñeko ibillaldiak, «prigoripiko»ko garagardao otza, whiskya bera ez danean? Danok nai dogu ondo baiño obeto bizi izatea, nork ordaintzen daben galdetu barik iñori.

Ta, 1975'gn izango dan umekia bere eskola apurtzeko alegiñetan dabillean, jaiotzen danerako etorkizun illuna, baltza aurrean, negargarri.

Zuk neri bai, ta nik zuri barik dabillen sorgiñ aipatua, sutan erreko ete daben be, ba-da zalantzarik, ta au bai dala bildurgarria. Ford jauna —eta beste batzuk azpitik— besterik ezean, tiroka asteko asmoan...

AGUR, AURRERA

Danonillean eta udazkenerako eratu gendun batzarra, ill onen 5'gnean izan dogu. Guztiontzako egoki izan leiteken eguna ta ordua aukeratzea ez da erreza izaten, orre-gaitik «ezin-etorri» batzuk artu genduzan, baiña bizkaitar idazle ta laguntzaille mordo polita bildu giñan, lanerako gertu.

Orain dirala bost urtetik onako AGUR'ek izan dituan gora-beeren azalpenak labur-labur aztertu ondoren indar-barrizteko bearko diran batzordeak osotzeko lenengo oinkadak emon genduzan. Emetik aurrera ba, jo ta ke!, jarraitzeko erabakia artu gendun; iritzien aldetik zabal-zabal jokatu. Euskalduntasuna ta euskera errikoa, orra or gure jomuga bakar-rak, eta ez edozelakoak!

Ez uste izan, irakurle, gure asterokoa egun batetik bestera aldatu leikegunik, eta ez zaitze bildurta —bateron batek idatzi daust, artegaturik— beste alderantz joko dogulakoan, ez. Bear ba'da, geiago izango gara, ta askoren artean, bata bestearen utsak obeto ikusiko doguz. Arrokeri barik, uts orreik zuzentzeko alegiñak egingo ditugu beintzat.

Oiñarrizko baldintzen artean, euskera errikoa ta euskalduntasuna —zuek osotu!— diñogunean, bateron batek esango du: «Nortzuk dozak ba oneik, eurok ete dozak errizale bakarrak? Ez, guk ez diñogu olakorik, ezta urrik be, baiña erriazetasuna iñoz egon danik arriskurik aundiñean dagoala, bai.

Orre-gaitik, euskerearen eta beste euskal-jakintzaren giltzik geienak benetako erriazalen eskuetan ikusi nai gendukez, eta ez «internazionalisten» eskuetan. Zoritxarrez, gaurko giro lorrindu onetan, batez be iritzien aldetik, argia emotea ez da gauza erreza.


Adibidez, umeen eziketari iritzi «zabaleko» izan bear gendukela diñoenak, ikastola edo erakunde baten agintaritzara eltzen diranean... mutillak! Euren bat ez datozeneri, naizta eurak beste bazkide izan, arrazoiak azaltzeko ez-eze, alkartzeko tokia ta eskubidea be ukatzen dautse. Alkar-izketarako gertu ez dagoana, goitik beera bere iritziak sartzen dakiana, ez du beste izenik merezi, ta «fazistea» da, gorrizka naiz zurizka baiña «fazistea».

Eta zelan izan leikezan gauzak, iñoz arritu bear izan gara, olakoen jokabidea aztertzean, bateron baten aotik olako zerbait entzutean: «Zer diñok? Ori eure taldekoa dok-eta!» «Nere taldekoa?, nik... «Bai, ire taldekoa, ori esaten jok berak, beintzat». «Mutill, joan dozan 25 urte onetan, makiña bat ixilleko «pararetoetan» ibillitakoa nok. Daneriko lagunak ezagutu joazat, baiña ez joat «orrelakorik» iñoz aurkitu. Ez, ori ez dok iñoz gutarikoak izan, orren alperriko jarduna, borrontate oneko kokoloren batzuk «sarean» sartzeko dok, ez besterik. Ispixen eta «infiltrauen» kontua zarra dok».

Nundik nora nabillen ez ba'dakizu, irakurle, aolku au artu egizu aintzakotzat, zeure onerako: Iritziak argi azaltzeko erarik ez dagonen, ez jaramonik egin «esaten danari», «egiten danari» baiño. Ba-da, guk, geure burua zuritzeko, irriparez erabiltzen dogun erderazko esatera zar bat: «Abadeak eta osagilleak egiten dabena ez egin, esaten dabena baiño». Orra ba, esanak errez esaten dira, ta onak geienetan; baiña egiteak agertzen dabe gizonaren joera txarra sarri, ona iñoz. Azpjojokoen esanak baiño egiñak argiagot! Eta esatera orrek iñon, iñoz zer ikusirik izan ba' dau, gaur, gure errian dau ososoa, batez be, esandakotzat entzun doguzanak egiak ba' dira... baiña gai ori beste era batera ta ondo ezagutu ondoren erabiltzeko da, naizta nor-baitzuen jokabidea ezagutzeko naiko izan.

Len bere, iñoz esan dogu: Gurasoak itxartzen ez ba'dira, bakoitza bere ikastetxeko umeen eta gazteen giroa aztertzen alegiñak egiten ez ba'baditu, «Buruko» miñak kentzeko ta «bestelako» pildorak laister bearko ditue txean, egon ziur!

Dana dala, AGUR onen sortzaille ta laguntzaille zar eta barrien artean, ez da iñoz «fazistarik» ez sasi-sozialistarik izan. Ez dogu demokrata izaten ez dakianik tartetkotzat onartuko; makillea emoteko izan ezik.



GAUZA NAIGARRIA

Katalaunya ta Mallorca'tik zear ibiltalditxo bat egin barri naz: bertako uri, mendi, zugazti, ondartzak, itxaso ta biztanleak eder ta ikusgarri, ez baiña naigarriak niretzat, ba, gure errian ba-dira ainbeste. Gure mendi ta zugazti urdin-orlegiak, ikusgarriagoak; urregorritzko gure ondartzak, zoragarriagoak, eta gure euskaldunak, bai gizonezko ta bai emakume, angoak bestekoak edo, geien baten, txarmangarriagoak eta atsegingarriagoak.

Erri areitan, niretzat gauza batez bere naigarria dan auxen aurkitu dot: Katalaunya ta Mallorca'ko eliza guztietan, erderaz eta bertako izkuntzan idatzitako liturgi idaztiak aurkitu dodaz. Gure artean ez olakorik; ondiño Bilbo'ko ta Bizkai'ko eliza asko-askotan, ez da agiri euskerazko litugi liburuxta bat ere. Zelan ori?

Esan leiteke, gure eliz-gizon asko, edo erdeldunak diralako, edo euskerarik ez dakielako, euskereaganako maitasuna galduta bizi dirala. Geiago ondiño: Askotan esan leiteke, euskereak euskel gogo-arimentzat daben garrantzia ez ezagaturik, euskerea il daitela nai dabela. Eliz barrutiko agintariak, urte oneitan, euskereari indarra emoten zerbait alegintzen dirala dirudi, baiña, nire ustez, alpertasunagaitik-edo, adimendu bage dagoz: askok goiko aginduai jaramonik be ez. Au tamala!

Esan doguna, eliz-gizonen aldetik dagoan akatsa da. Baiña, esandako nere ibiltaldi orretan, beste gauza naigarri batek ere biotzean zirt eta zart naikoa egin dausta: Erri areitako geienak beintzat, bai aberats, bai txiro, baita erriak, zein jakitun, zein ertzaiñak, beti bertako izkuntza berezia darabillela parra-parra:

Gure artean osterak, aberats goi-goikoetatik gutxiak dakie euskerea, ta ez dabe euskerarik erabilten jakin arren be. Erriak berak be, geienetan, erderaz jarduntzen dau, batez bere emakume ta umeen artean. Euskaltzaleen artean be, euskera au edo bestea egin bear dala-ta, bananduak gara, ta bitartean, dakigun euskerea erabilten ez ba'dogu, betiko il zorian ipinten dogu Jaunak eta gure gurasoak emon euskuen euskera zoragarria. Noiz esnatuko? Noiz itxartuko?

Danon artean darabilgun jokaera galgarria alde batera itxita, arteztu dagiguzan bideak. Dakigun euskerea ez ba'dogu beti erabilten, geu izango gara euskerearen areriorik aundienak.

Katalaunya'an somatu dodazan gauza naigarri biok, ez dagidazala somatugarri izan urrengo ibiltaldi barriren bat egiten dodanean. Ori orrela jazoko da, eliz-gizon guztiak euren elizetan euskereari leku geiago emoten ba'dautse, ta guztiok, euskerea dakigunok, beti ta beti euskerea erabilliaz, erri, baserri, txaide, enparantza, lantoki, jolastoki ta abarretan, euskerea mara-mara ta parra-parra entzuten ba'da.

Gaurtik asita, ekin lanari...!

GALLASTEGI'TAR KAULDI

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, berekoi, politikoa naiz ondasungarri asmoen gaitetik daben iritxi-oneko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egileak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M.^a MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guttirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

AITONA'REN KEZKAK

Irakurle! Emen nazu gaurko ontan, biotza alaitasunez bete, izpar eder bat adierazi naitan. Gaurko berri au Naparro'tik datorkigu.

Joan dan Irailla'ren 26'an, Iruña'ko Eliz-barrutian dan Aldizkari-agimbidezkoak, «Boletín Oficial» deitzen danak, Gotzai-buru ta gotzai-laguntzaille argiak izenpetua, ta auen mandatuz, Naparro'an Euskera izen-buru arturik, eskutitz egoki bat argitaratu du.

Elizgizon argi auk, beren idazkiari, Naparro'ko Kondairari ta Erri-jakintzari buruz Euskerak daukan garrantzia agertuaz, ematen diote asiera, ta azken urte auetan, une batzuetan nabaitu dan atzerakada, ta Euskeraren beerakada eutsi nairik, arau egoki batzuen bidez, esi egoki bat adierazten dute.

Lenen.—Naparro'ko eliztarrek zati aundi baten euskaldunak diran letz, Eliz-barruti ontan agertzen diren eliz-agiri garrantzitsuenak, aurrerakoan, Erderaz eta Euskeraz argitaratuak izango dira.

Bigarren.—Eliz-artuemanetarako, Euskeraz idatzitako agiriak onartuak izango dira.

Iruigarren.—Eliz-barrutian argitaratzen dan «La Verdad» orriaren zati bat Euskeratua izango da.

Laugarren.—Biztanle guztiak euskeraz mintzatzen diren errietan, Elizkizunak euskeraz ospatuko dira zalantza gabe.

Bostgarren.—Bi eledun errietan, geien bat geienak euskaldunak ba-dira, Elizkizunak euskeraz ospatuko dira.

Seigarren.—Euskera atzeraka duen errietan, eleari eusteko, elizkizunetan esi egoki bat jartzea egokia izango da.

Zazpigarren.—Ekintza onen arian, Iruña'n eta beste erri askotan bizi diren Euskal eledun eta euskal-jakintzari lotuak daukan guztien alde Euskal-elizkizunak bearreko dira...

Azkenik, gotzai-eskutitz jator onak, bukatzeko, Kristo'k bere Berri-Onean agintzen duena zuzen bete nai da degu, gure Eliza, Euskaldunei Berri-Ona beren izkuntza edatzera beartua arkitzen dala, adierazten digu.

Ez dakigu, Gipuzkoa ta Bizkai'ko Gotzaiak era ontako araurik argitaratu duten inoiz. Esango det, Gipuzkoa ta Bizkai'ko elizgizon batzuk, aspaldi jarraituztela, beren parroketan, arau auk. Baiñan, gure Euskalerra geienak erantzute ote du Elizak nai duen neurrian?

Beste baten geiago...

AZKARRAGA

OLERTI-EGUNA

Aurten be, beste urteetan lez, Olerti eguna ospatuko dogu. Nui baiña? Beti lez, Zornotza'ko auzune ederra dan Larrea'n, karmeldarren lekaretxean. Noiz? Azillaren 24'an, Kristo Errege'ren egunean. Goizeko amaiketerdian meza nagusia, ta ondoren ondorengoak. Igaz erabag zanez, A. Onaindia'ri omenaldia egingo yako egun orretan.

Olerki-sariketea, onela egingo da:

I.—POESI LIRIKU BAT: Edozein gai ta luzeeran: 1.000 pezeta.

II.—POEMA BAT: Euskal edesti lan bat, neurtitzetan, luze samarra: 1.000 pezeta.

III.—AMAR ALEGI TXIKIZKO TXORTA: Ipuin txikiak, bertotan borobilduta: 500 pezeta.

IV.—BERTSO SAILLA: Bertsolariak oi dabenez osotuak: 500 pezeta.

—Urrillaren 25'rako bialdu lanak, Larrea'ko komentura, A. Onaindia'ri, makiñaz idatzita, Olerti-sariketarako dirala esanik.

—N. Etxaniz, E. Erkiaga ta A. Onaindia'k egingo dabe maiko edipai-emoille.

LARRA

GAZTE

IRITZIAK

Gizona ez omen da bakarrik bizitzeko jaioa. Ala diote beintzat.


Batzuk, emakumezkoa izan oi degu biotzeko lagun miña. Andrazko batzuk ere, gizona bezala bear dituzte alboan, bizitzeko. Ba dira baita ere, lagunarteko txolarteetan bizi diranak.

Gizona, bakarrik bizitzean, gauz aul, txiki ta tristea biurtzen omen da. Gizona zerbaiten bearrean arkitzen da. Zerbait berogarri, bizigarri edo alaigarri bear du bere izakera neketsua suspertzeko.

Ta bai, bai! Ba dira gizon eta emakume ezkonduak; baita gizon-emakume asko ere elkarte edo beste edozein langintzan mogitzen diranak. Baiñan ia geyenon jokatibidea itxurezkoa izan oi da, azalezkoa. Gizona geientan, bere arazo bereziari lotuta bizi da. Orixe da egia.

Askotan gaiñera, gizonak gizona, jostailu bezela biurtzen du

Urrutiegia jun gabe, eta esate baterako, teletistik koñaka edateko eskatzen du, asper-tu gabe. Eta gizonak edan egingo du... maskortu arteraiño. Desodoranteen zabal-kundea eten gabetanik egiten ari da aspaldian, beso azpiko, galtzarpeko izerdiak bastertu eta aaztu arazteko. Edota, telefonikak dirala bide, gizonak nekez irabazitako



txanponak ortan sartzeko egarria sortzen saiatzen da.

Or, or dago nunbait asko ta askoren itxaropena: edarrietan, apainketan, eta, nola ez, ain merke dauden diruetan.

Baiñan, ala ta guztiz ere, gizona, ogeigarren gizaldi ontan, bakarrik dago, tramankulo guzien artean; presaka ta urduri, pentsatzeko minuturik gabe. Bere buruaren jabe nor den, egoki oldoztu gabetanik. Eta burua, berez, altxatzeko kemenik gabe:

Konsumo-gizartea, politikoko talde desberdiñak, erakunde ugari, ekonomi elkar-teak nunnai. Ta, gizona, itzalpean, tunel baten barruan, moskor baldar baten antzera, nora joan eta nori eldu jakin gabe. Triste ta baiñan egia da.

Orrela, begietatik irtetzen diran mal-koen tartetik gauzak alai ikustea, oso zaila da!

RAMON ZAPIRAIN

ERES-MINTZAK

Lamiako-auzotegian, lagunarte batek, abestalde osoa erabagi eban.

Aldi luzea baiño len, BETI LA-GUNAK taldea sortu. Asmoak aurrera eroan dauz, ta aundikiro eroan.

Gaur egunean, Abestalde onen in-guruan, bazkide pilla aundia alkar-tzen da.

Urte barruko lenengo abes-arroan agertu zan. «Bizkai'ko Abestaldean 1.º Astean».

Antolin Zarraga'ren zuzentzapean, bide zuzena artu dau, talderik onen-tarikoa izateko gure errialdean.

Antolin Zarraga'k, Lamiako-elaiz nagosian egin ebazan bere eres-ikas-ketak, Aita Domingo Ugartetxea'ren ardurapean. Portugalete'ko «Danok bat» zortzikotean, eurretari bat izan zan. Eta «Adiskideak» deritxon biga-rreren zortzikotean, zuzendari.

Begoña'ko Andra Mari eleizan talde onek egin eban agerketako eresmintz batekin azaltzen da gaur erriaren aurrean. Abesti oneik entzun daitezuz bertan:

FESTARA (Mokoroa). Illunabarra (Mokoroa). Edurra (Jaroff). Goizeko Izarra (Santesteban). Zuzendari: An-tolin Zarraga Zarraga jauna.

Laster, eresmintz barriak atarako ditu, bere almen eta jatortasuna nora-ñoakoak diran ikusi dagizuen.

Mokoroa'ren ILLUNABARRA, Otxarkoaga'ko taldeak abestua.

Aita Donostia'ren AMA, Orduña'ko taldea abeslari.

Jaroff'ren EDURRA, Tabira'ko tal-deak abestua.

Guridi'ren TXERU, Deusto'ko tal-deak ornitua.

Zapirain'en TXANTON PIPERRI «Jatoriki» taldeak biribildua.

Basauri'ko taldeak, BESERRITA-RRA.

Sarriegi'ren BETI MAITE, Zaldi-bartarrak kantari dirala.

Lesbordes'en EUSKAL-ABESTI BI, emen Galdakaotarrak dagioe.

Santesteban'en GOIZEKO IZA-RRA, Lamiako-taldeak.

José Moises Egaña'ren EUSKA-LERRI POLITA GORA! Lejona-tarrak abesturik.

Dakusuenez, amar talderen ekiñal-diak eres-mintz baten. Mintz ederra benetan.

BIGARREN TXORTA, urten izango zan onezkero. IRUGARRENA urrillean urtengo da. LAUGARRENA Azillean ta BOSGARRENA gabon-illean.

Begoña'ko Amaren aurrean abestu izan ziran abesti guztiok, gogoko izan-go yakoz, eres-zale dan edozeini.

«A»

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra
BILBAO - Casco Viejo
Tenderia, 15 eta 16

IKIRIKI

eziketa jostailuak
eskulanetarakoak
irakasketa gaiak

gregorio de la revilla, 1
bilbao - 11

Jolasean ikasi, or zure aurrentzako emoitzarik onena

OTS BIZI

Ots bizi eta goorak. Non ez? Baiñan, Hongkong ontan ia iñon baiño geiago. Iria txito gizatsu biurtu zaigu. Eta, ipar-aldetik iesi datozenak ez dira gutxitzen. Ieslari oriek noiz asi ziran? Beintzat, 1949'gn urtean nabarmen-nabarmen.

Nolanai ere zerbaiten billa etortzen zaizkigu. Ogia nai ote? Aukera obeak eskuratu nai ote? Or, *zoriona amaigabea* dan lurralde ospetsu ortan eguzkia beti eder ba'litz, guztiek antxe bertan goxo egingo litekela agerian degu. Eta ibaika onuntza datozenak, beti esku utsik agertzen.

Ondoren, orientat etxeak eraiki bear! Beñik-bein beroiek ezin asi. Eta lendik emen geranok eraikitze orri ekin bear. Eta laguntza eske ia ludi guzti-koengana gu abittu... Eskuak luzatuta. Biotzak zabaldua. Itxaropena berotuta.

Iparralde ortatik bestelako ikerleak ere ba-datoz etorri: salerosketan ikasiak eta beren buruak aberasteko asmoz. Oriek ziskua betetxea dakarte. Norbaitek emanda? Maltzurkeriz ieslariet ukatuz? Bai batzuk, bai besteak ez al dira agin-terri batean bizi?

Orrenbeste biztanlez eta oriek bear dituztenez iriko zalapartaren otsa ongitxo goi-gooro goa degu. Gure osasunari ere erasten dio, noski: agiri-agirian dago-ta. Ikasiek eta osalariak diotenez zalapartaren zakarra egoki dan maillatik goora doanean, iasangaitza gertatzen, eta ondoren bai geron kalterako ere.

Tximist-indarrezko zulaizakiz arkaitzetan eta orma gogorretan ari diranean, ondoan dabillenari, luzarora, gorrieria etorriko eta andik alde-egin bear. Bestelako otsak ere emen erruz ditugu: guztiok dakiguna! Ona, beraz, otsaren geiegikeria.

Nolanai ere otsaren geiegikeri au oso errex zuzendu liteke. Basoko isilla irira ezin ekarri! Baiñan, irian bizi geranok ez degu basoko isillaren irriki txororik. Etxaidietan bertan, isillaren alakoxe neurritxo ba genduke. Dagoaneko Hongkong'o Ikastetxe Nagusioek otsari dagokion ainbat arazo arakatuak dizkigute: orobat beste zenbait iakintsuek ere berein idazki, aolku eta oarkizun, gai ontaz zuzendu dizkigute: landolei buruz bezela, iri-bizitzari buruz.

Iriko agintari ta eskudunek, geiegi berandutu eta luzatu gabe; biztanleen alde liraken agindu eta erabakiak atera eziñik ez lukete. Adiburuz: landoletako langaien kurrixkak emegailuz gutxitu eta mailluen tiriki-taukiak orobat arindu eta moteldu. Iriko gurtarin eta orien antzekoen ioan-etorri eta aruntza-onuntzako burrunbak ere esi egokian bil bizazkigute. Laisterregiko uxtuan ibilliz iltzen diranen kopurua beti geituz doala ere, iñor ez estutzen! Egazkiñek gooraka asten diranean isilla era bat aazturik.

Eta, yadresariek saillean sortu eta iaikiko zaizkit!...

Olaiakunek, lenbizi:

—Geron lantegian nagusi eta iabe ez gerala, beraz? Zer zaio iñori guk estalpe orietan gizadiaren onerako egiten ditugun lanak eta asmatzen ditugun aurrerapenak maxiatzen asteko?

Urrena azokariak:

—Iñora irten ez gaitezen geron etxe-zulotan itxi nai al gaituzu? Gurtarintxoan geron puxkak eta salgaiak zure etxe-atariraiño ez al dizkizugu eramaten? Beintzat, etxaidietara irtengo ba'ziña, uxtu bizkorreko tartarren batek uzkailli eta txikitu zinduan! Eta, gero, erosketak egiteko apukoz ain arduratsu zure burua apaintzen ari ondoren, guztia iriko autsak eta bata-bestearekiko bultzak eta tokirik ezin arkituak, zure apainketa-lana ez al zizuen alperrik galduko? Zure senarrak ez al lizuke agirika ekingo? Ala ere, esankizunak dituzu! Isillik egonez ez ote-zenduke obeki asmatuko?

Irakurleak auxe esango berekiko:

—Olako ezezlari oriek eta beste askok, beren zalaparta eta ezin-egonaz ezer irabazi izan ez ba'lute: are! erabat aberastu ez ba'lira, guztiak beste norabait ioanak genituke! Azkar gaiñera! Gizartearen on-billa dabiltzala? Dakiñak ba-daki!

Beraz, geiegizko irabazi oriek ez ote-lirake guztion onerako erabilli bear? Beintzat, zati eder bat bai! Gizartetik irten diran zillar-pillak gizartearentzat lagungarri noiz izango? Ori egin ezik gizarte-maillak eta nonnai nabaitzen ditugun ezin-biziaz geroz eta nabarmenago okertuko zaizkigu! Eta... gure aiotsak entzuteko belarririk ez degun ontan, nortzu gu baiño lander eta txiroago?

Noski baiño noskiago ezezlari eta uko-egileak sortuko dirala! Dakuskunez, alabaiña, ezetz esan utsak ezer ez zuzentzen. Ezetz esatean ere, zio garbi eta zuzeneri dagozkionak azaltzea bai eder!

HONGKONG iria bai ospetsua! Ludian ainbestek eta ainbestek uste, gure iri malkartsu au bizitzarik alaiaren baratza dela! Zumardiak ikusgarri! Bitxabalak leun eta bizi ibilgarri!

Baiñan... emen bertan jaio, emen bizi eta... geronean ere geron azken-arnasa bertan emango degunok... eta, ezurrentzat zuloa ortxe nonbait atxurtuko digutenok... bai! Buruausteak erruz! Samin-uneak ezin zenbatu-ala!

Lerro auk emen Hongkong bertakoentzat idatzi ditut.

Zuek auxe esango:

—Olako arazoak Hongkong'en baiño beste iri azietan garratzagoak izan! Ez al zenekian?

(Euskeratzaille):

ETXEBERRIA'TAR P. s.j.

BATASUNA ta Bakoitztasuna

Igikunde aundi bi dabiltz gaur ludi biribil onetan. Batak batasunera jo nai luke, besteak bakoitztasunera. Alde batetik gizonen batasuna, errien batasuna, uzkuzt-batasuna, kristar-batasuna, bestetik gizonaren nortasun eta bakoitztasuna, errien zeindasun eta bakoitztasuna, aberrien burujabetasuna.

Igikunde biok ondo ulertuak eta ondo erabillak izan ezkeru zuzen dira; baña biok oker, bereziki eta bata besteagandik aldenuta erabiltzen ba' dira.

Batasun-igikundeak bere burua bakarrik maitatuz bakoitztasuna zapaldu ta ezeztu nai ba' du baltsakerira joko du eta ezeztu; bakoitztasun-igikundeak berekoikeriz osotasuna eta berdintasuna alboratzen ba' ditu indarge eta laguntzagabe geldituko da eta il.

Begira ditzagun gaur zaratarik geien egiten duten igikundeak.

Aor U. N. O. edo O. N. U. Bazkuna. Ludiko erri ta laterriak batzeko asmoz eregia eta 1948'gko lotazillaren 10'nean gizon bakoitzaren eskubideak argi ta garbi ospatu zituna. Eleizan ere ba-dira gaur emen eta an batasunari begira egiten diran batzarrak, baña bata ta bestearen eskubideak ontzat artuz. Fundako aldietan ez ziran ontzat artzen orrelako artu-emanak. Irenekei edo pakekeriak zirala esaten zuten; ez zirala irene edo pake-bideak galtzen-bideak baizik.

Gaurko egunetan edonun ditugu orrelako artu-emanak. Aor egun batzuk dirala Cor-doban orokar edo katolikoak eta mahometarrak elkarriketan. Antxiña ori okertzat artzen zan. Gaur ez. Jaungoiko beraxe gurtzen degu guziok, Jaungoikorekiko gauzetan zegatik ez egin bat? Eta bakoitza bere bidez ba'dabil, elkarriketaz aurkitu zein dan Jaungoikoak edegitako bidea.

Aor Tai'zen dagonillaren azkenean 40.000 gastek izan duten batzarra. Eta an izan dira Doipuru edo Aitasantuaren ordezkoa eta Constantinopolis'ko Gongotzainaren ordezkoa eta Caterbury'ko Gongotzainarena eta abar. Elkarrizketa garrantzitsuak euki zituen eta azkenean JAUNGOIKOREN ERRIARI galdera batzuk egin.

Aor Ghana'n «ziñismen eta zuzenttasuna» elpurupean 170 urtizitilarik izan zuten batzarra. Auzi ta gai garrantzitsuak erabilli zituen gizadi osoari ziñismenaren laburpen bat emateko; baña nola bat, gizarte bakoitzak bere izakera ta jakintzabide ez berdinak dauzkanean? Ziñismena erri bakoitzaren izakera ta jakintzeari egokituz, erri bakoitzak bere bidez Jaungoiko bakar beraxegana jo dezan.

Indietan ere onelako batzar eta artu-emanak izan dira Budhatarrakin eta Hindutarrakin. Lan onetan oraintsuko urteetan nagosi izan diranak apaiz pantzetar bi izan dira. Monchanin Abea eta Le Saux lekaide beneditarra. Onak biok beren izena ere aldatu egin zuten izen indietarrak artuz. Monchanin Abeak artu zuan izena au izan zan: Swami Paramarubi Anandam eta Le Saux Abeak beste au: Swami Abhis-hiktananda. Lenengoak Goienengo Go-

goaren izpia esan nai ei-du eta bigarrenak Kristo'ren izpia. Egizko izpi ta izpi indartsuak izan dira. Berai esker aurrerakuntza aundiak egin dira Indietan. Euren batzurretan elkarrekin otoitz egiten dute eta galdera auxe bakoitzak bere buruari: Zer eskatzen dit NIRI neure uzkuztak eta nola begiratu bear dut nerekin elkarriketan dagona? Eta bata besteakin dauzkaten urbiltasunak erkatuz sarritan bata besteakin elkartu.

Gure Xaber'tar Pantzeskak ainbestu maita zuan Japon'en ere orrelako elkarriketa ta artu-emonak dira Zen eta Shinto'ren jarraitzalle ta Kristo'ren belgundarien artean. Onak gogaketa-bidez elkartzen dira; Zen'en jarraitzalleak duten gogaketa-bidea ba-dala ikasgarri-ta. Bakoitza bere bidez baña biok Jaungoikoagana naiz Budha-bidez naiz Kristo-bidez. Gero bideak erkatu ta zen dan egizkoa aurkitu ta jarrai. Onuntzago etorrita aor daukagu Urrillaren 16'rik 25'era egin zan batzarra eta an orokar edo katolikoak eta Billy Graham eta beste orokar ez diran askok egin zuten LAUSANA'ko ELKAR-ARTZEA denak izenpetuz.

Ezin ditugu auztuta utzi Goi Ameriketan eta batez be Ingalterra'n gai orretzat egiten diran lan garrantzitsuak. Roma bruzat daikenak eta Canterbury bere buru bezela artzen dutenak batzar askotxu izan ditue Windsor'en eta azkenez erabagi batera etorri, erabagi ori ondiño Roma'k ez da bayeztu baña. Guztiz beintzat.

Ez det auztuko nola egun baten protestante edo ziñismen-ausleen txadon batera juan nintzan eta atean auxe irakurri. GURE JAUNA OSTENDUTA DAGO AMA NEZKUTZA'ren aldarean. Zedok au? galdetu nion neure buruari. Ziñismen-ausleen txadon edo eliza ta gure Jauna gurtzeko zeukatela Ama Nezkutzaren oindian? Bai; an zegon oindi ori loraz apa-duta, eta argi bat oteundegi aurrean. Eta ori beste eleiz edo txadon batzutan en ikusi nuan. Gero jo nuan potestante-ekin diran lekaime ta lekaide askotxuagana.

Onak ere orrela ziñisten zuten. Nik baña, ez zeukatela uste nuan eta orrela esan nien. Beren tarteko txauburu batek, beren etxean itzaldi bat, an batzen ziran 25'ra bat eliz-gizonai emateko eskatu zidanean. Au Batikano'ko II Batzarra baño lenago izan zan. Nik Leo XIII'gn irakasmenaren eutsiz eta beren jauparitzarekiko eleizkizuna aztertu, esan nien, nire eretziz, ez zirala egizko jaupariak. Eta ez ziran aserratu. Beren jauparitze-eleizkizunak Gotzain jaunak esaten die: Almena ematen zaizu Jaungoikoaren itza zabaltzeko eta Ikur-tonak banantzeko. Baña gure Jauna erriari banantzeko, gure Jauna an egon bear eta nok eta noiz ematen dizue Jauna an jartzeko eskubide ta almena? Batzar ura ez zan auztuzkoa, iru F.'ren batzarra izentatu genuan. Friendly edo adizkidetasunez batu giñan, Friendly edo azkatasun osoz gaiak erabilli genituen eta Fraternally edo anaitasunean banantze giñan.

Gaurko egunez, baña, gauzak beste bide batez aztertu ditue Windsor'eko batzurretan eta azkena ona baño ohea izango dala uste det.

Dana dala batasunera elkartasun-bide jo bear degu bakoitztasuna zainduz.

Batikano'ko II Batzarrak bere Agiritan auxe irakasten digu: Eta Paul deunak argi ta garbi esan zigun: Guziok, judu ta atzerritarrok... soin bat egiteko Au batez ukuziak baikera... atal asko baña soin bat... Jaungoikoak soñia atondu digu atalik narrasenei itzal geiago ezarririk soñean alderdikeriñ izan ez dedin, atalek ostera elkarren ardura dezan. (Korintotarrak, I'gn XII).

Irakasmen edarra guretzat, ezer ikas nai ba' degu.

URRUTIA'TAR GOTZON M. B. S.

DEPURACION DE AGUAS S. A.

URA EGOKITZEN ETA UR LANETAN BEREZITUAK, EDANGARRIAK - LANTEGIRAKOAK - ZIKINDUAK NAIZ IGERITEGIKOAK ZUZENTZEN

+ 32-37-00 - + 31-00-10 - 32-37-01 Urt.

Gordoniz, 44, 12.^a BILBAO-2



JESUS'EN LARRALDE ZEAR

4.—JETSEMANI

Ama Bijiñearen Illobi-Elizatik urtenda Jetsemani aitzuloa dago ezkerrean. Mezea esan gendun zortzi apaizok. Itz oneik irakurtzen doguz Ebangelioan: «Orrela ari oi zan egunez, jauretxean irakasten; gauetz, ordea, urtenik, Oliamendi'ra baztertzen zan. Oneik esandakoan Jesus bere ikasleekin Kederon'aruntz urte zan. An bai bait-zan baratz bat, bere ikasleekin sartu zan. Juda saltzaileak be ezagutzen eban tokia, an Jesus bere irakasleekin askotan biltzen zalako. Ikasleak aitzuloan itxita, Pedro, Santiago ta Juan arturik, esan eutsen: Nere arime itun dago eriotzea eldu arte. Gel emen eta nerekin ernai egon. Ta otoi'tz egiten ari zan zertxobait urrindurik. Eta orrela iru aldiz».

Aitzulo au Kristo'ren egunetan bezelaxe dago. Aldaketarik izan ez dauan toki bakarria izango da bear ba'da. Aita Frantziskotarrak zaintzen dabe 1682'garrenetik. Zeanuri'ko praille batek artu ginduzan. Zortzi olio-zugatx dagoz baratzcan. Bi oso zarrak eta aundiak. Kristo'ren egunetakoak dirala be ba-diñoce, baiña ez dau indar aundirik iritxi onek.

ILTAMU-ELIZA

Teodosio'ren egunetan, laugarren mendean, Jesus'ek santututako tokiontan, Eliza bat jaso zan. Persatarrak deuseztu egin eben eta gurutz-gudariak barrero jaso. Gaurko Eliza Prantziskotarrak bukatu eben 1924'gñean. Oso ederra da. Elizatik eskumara Apostoluen aitzza agiri da. Emen egon ei ziran lo apostoluak.

JOSAFAT IBARRA

Jetsemani'ren oiñetan dago Josafat ibarra. Itxaso Illa'raiño eltzen da. Iltegi bi ikusten dira bertan (Absalom eta Zakarias'cnak). Lau irudi aundi agiri dira an-or bananduta.


Ibarrean beruntz Eskandalu-Mendia, ezkerrean. Atzerriko emakumeen jainkoari Salomon'ek jasotako aldarekaitik dau izen au.

URI-NAGUSIA

Israeldarrak maite-maite dabe euren aberria ta urte gitxitan asko edertu dabe euren erria. Jerusalem'go zati barria osotuz eta apainduz doaz. Ikusgarria da.

Kneset deritxo ebrotarren izkuntzan Batzar Nagusi etxeak. Etxe ederra baratz eta zugatz tartean. 120, aldunak. Oneitatik 6 arabetarrak, eta bi krusotarrak.

Lendakariaren etxea be oso ederra da. Bardin Ikastetxe Nagusia, 18 milla ikaslekin. Bost milla etserritar ikasle dagoz Israel'en.



AIN KAREM

Orain gizaldi ta erdi asi zan Israel geitzen. Jerusalem uri eder aundia da gaur. Uri bariatz idazteko asmorik ez dot. Aitatu bakarrik. Gorago esan denez, Israel'go Museoa, Kneset, Lendakariaren etxea, Ikastetxe Nagusia ta beste jauregi, enparantza ta abar dagoz zati barrian. Ta, urriaren ormetatik aurrez-aur dagoan Barclays Banko'tik asita sarkalderuntz daroa bideak. Musulmantarren iltegia dago emen, gaur Azkatasun Enparantza biurtuta. Ainbat ikusgarri dago bidean. Azkenik Ain Karem'era daroa bideak. Arabatarren erria zan 1948'gñerarte. Edestiak eta arkiolojiak diñoenez, Ikerdundearen eta Juan Bataiatzailea'ren jaiotokia da au. Eliza eder bi dagoz.

JUAN DONEAREN ELIZA

Ardura aundiz ondeatu dabe Juan donearen eliza. Eskumara dago. V mendean jaso da. Deuseztuta geratu zan. Gaurkoa Aita Prantziskotarrak jaso eben 1885'gñean.

Ezkerreko kapillatxoa Juan donea jaiotokia da. Marmol-izar batek agertzen dau tokia.

IKERKUNDE ELIZA

Juan donearen eliza utzi ta gorutz artuta, iturritxo bat dago. Ama Birjiñaren iturria deritxo. Emendik eroan eben ura erri barrura, Ezekias urbidea zear, etsaiak inguratu eben baten. Goratxoago, Ikerkunde Eliza. 1938 eta 1955 tartean barriztu zan.

«Magnificat» dago idatzita 41 izkuntzetan eliza aurrean. Toki ontan aurkitu eban Maria'k Isabel bere lengusiña, aurdun zirala.

AMA BIRJIÑAREN LO-ARTZE ELIZA

Zion mendiruntz doa bidea. An aurkitzen dira Azken-apari gela edo Zenakuloa, Ama Birjiñaren Lo-artze eliza ta Kaifas'en etxea.

Kaiserra toki onen jabe egin zan 1898'gñean turkotarren baimenagaz. Toki ontan jaso zan Ama Birjiñaren Lo-artze eliza. Gaztelu bat dirudi. Ama Birjiñaren irudi eder bat dago elizpean. Luakartzean agertzen da. 1948 ta 1967 urteetan andeatuta geratu zan, baiña barriztuta dago gaur.

KAIFAS ETXEA

Salbatore eliza aurkitzen da ezkereruntz artuta. Uriaren ormetatik ur dago. Emen egon zan Kaifas'en etxea, ta emen epaitu eben Jesus eta emen ukatu be Pedro'k Jesus.

APARI GELA

Ur-ur dago Zenakuloa. Emen egin eban Jesus'ek Azken Aparia bere apostoluekin, eta emen agertu jaken sarri Kristo apostolui. Emen jatzu zan Espiritu Santua.

Gora-bera aundiak izan ditu toki onek. Judeutarrak egin ziran bere jabe 1948'gñean. Sorailu bi daukaz. Eukaristiaren iraspena gogoratzen da goiko sorailuan. Itunben Barriko Yau-paritza be bai. Sorikaldeko bazterrean daroe 8 zurubik. Espiritu Santuaren etorrera gogoratzen dau.

Beko sorailuan Dabid'en illobia dago. Beste toki guztiak Alemani'ko nazistarrak ildako milioiari eskeñia da.

GORIA

ARRAINTZA ARAZOAK

Kantauri itxasoko kofradietako lendakariak eta buru egiten duen besteak urtero biltzen dira: Ze nolako urtea izan dan, antxo kosteraren gora-berak, eta batez ere, aben salmenta edo sal-neurriak aztertzen dituzte. Azken onek ematen die arraintza-leeri buruko min aundia, antxua asko arrapatzen dutenean, salneurriak oso bera jaxten diralako. Ez det uste ona danik arraintzaleak orrela irauan bearra.

Arazo guzietan izaten dituzte eztabaidak, ta sarri berdintasunik ez salmentan. Arraintzaleak bezela, kontizu, baserritarrek ere zerbait esango lukete. Auek saltzen dute, ta gero erosleak garestiagotzen urtegarri. Ba'leike ere irugarren batek bigarren orri erostea. Orrela, azkenik, jan bear degunok garestiagotzen ordaindu bear. Esneakin ere orri gertatzen da. Baserritarrek goitik ezarritako balioan saldu bear, gero, besteak, esne ori nai duten bezela antolatuta ta garesti saldu. Guk, jakiña, esne gabe ezin bizi, ta erosi egin bear, naizta ura izan.

Goazen ba gaira. Urteroko batuketa oiek kai-urrietan egiten dituzte. Aurtengo batuketa, emen, Donosti'n izan da. Guzura, batu diranak, berrogei ta hamarren bat izan dira, naizta geiago izan or-tarakoak, baiñan atunetara joanak ziran beste asko.

Dakigunez, lenago, Epailla zan antxotan as-tekotz izendatua, ta orain erabakita daukate Otsailan ematea asiera. Baiñan aurtan, esan geinke, alperrikoak izan dala aurrezartze ori, antxua be-randuago agertu diralako. Igaz osteran, Otsaillerako bazterra jota zegoan antxua, naizta txikiagoa izan. Baiñan, naizta aurtan kostera beranduago asi, oso ederki arrapatuak dira San Pedro egunerarte. Gero, atunetara joan ziran, eta gai au, urtegarri lan ba-ten idatzi bearro det, onen arrapaketak agertuaz. Gaurko lan au argitaltzerako, atun kostera ere bu-katua izango da, eta bi illabetean antz ekarriak dira arraintzaleak; gu berri orrekin asko posturik. Tamalgarria, asko ekartzen zutenean, merke saldu bearra!

Orain, esan dezagun antxo kosteraren gora-bera, zenbat kilo arrapatu dituzten eta abar. Ezin leike ordea zuzen esan guzia. Gutxi gora-bera esango det; auek dira beraz: Epaillan, 371 milla kilo; igazko il berean, bost milloi kilo. Alde ederra noski! Orrillan, asi ziran aurtan antxua ongi arrapatzen, eta ill ortan, 3 milloi kilotik gora. Kostera bukatzean San Pedro inguru-an, guzura, 10.869.825 kilo.

Irakurleak jakin dezan, ona kai batzuetako arraketak: Ondarrabi, ia milloi ta erdi kilo; Pasai San Pedro, ia orrenbeste; Donosti, milloi ta erdi pasa; Getari, Sei milloitik gora (ikusten degunez, Getari'ra sartzen da antxo geien); Motriko, ia milloi erdi kilo.

Auek dira Gipuzkoa'ko antxo arraintzak. Ez degu Kantauri'ko beste kaltetako berririk. Baiñan esan genezake aurtan antxo kostera ona izan du-tela, ta poztan gera berri on orrekin.

Antxuak geien saltzen diran portuak Pasai, Ondarrabi, Donosti ta Getari izanik, jakin bear degu, kai oietara, bestetakoak ere sartzen dirala saltzera, kontizu, oriotarrak, zumaiarrak, pasai-tarrak eta abar, asko izaten dira Getari'n. Orrek esan nai du, gaur, Getari'ko Kofradia diruz abe-ratsa dala, bertan saltzen dalako arrairik geien. Oriotarrak, getariarrek batera, arrairik geien arrapatzen dutenak dira, eta oriotarrak nola be-ren kaia txarra duten, Getari edo Donosti'ra di-joaz.

Baiñan sal-neurri kontua da emen mingarriena. Urtegarri atun kostera berri ematen ikusiko degu nolako garraztasuna dan.

E. OZKIN

EDERKERIAK

Itz onek, barruan daroan esanaia, ez dakit mamin onezkoa ala azur bigurritz-koa dan. Gizonak egia nai dau, ta sarri, ederkeria darabil miñean, ta beste batzuek egiten dautsezan ederkeriak poz aundiagoz artzen ditu egia bere baiño. Sasi baten sartuta isten nabe. Izan be gizonaren biotzak dituan zulo, erreten ta bide bigurriak nork ulertu!... Ta buru aldera ba'goaz barriz, zenbat zurkeri!... Suge nabarra baiño nabarrago ta maltzurrago agertzen da bizitzako arazo arduratsuen artean. Burua-ren azerikeriak ezagutzea ez da erreza.

Ta olako burua zuzendari dala, zelan ibilliko ete da onen ingurumaria!... No-rantzta joan... Nundik etorri... Zer egin... Nundik agertuko ete da jeurtean... Olako jokabideen barri, iñoz ez da ikusten. Ori dala-ta, beti, saldu antzean aurkitzen zara. Ta euren osteran, goitik eta arro, uso zuriak ba'lira bezela, irri barrez, edonun. Egun-do ez eben plater bat apurtuko irudienez, ta estu ta larritasunik be ez eben ager-tuko.

Berez gizonaren egarria egizaletasunezkoa da. Beste era batera ezin izan. Ez dago norbere eretzian ta ez bestearenean, izatearen barruan baiño. Gogoaren aurka ezaiña, edozein eratakoa, ta gorputzaren gain makillakadea ez ditue nai ez gogoak eta ezta azur-mamiñak ere. Izatea bizia bera da. Ta onek ona ta egia besterik ez dau nai. Guzurren, utsa, maltzurkeria, era guzti onek arerio ditu. Gizon zentzundun egiz-koak, biziak berak nai dabena, ontzat artzen dau.

Barruko naimena ain zuzentasunezkoa dalarik, gizonen artean zelan dabil ain-beste ederkeri ta maltzurkeri?

Gizonaren baitan ba-dira beste indar batzuk ain zuzenak ez direnak. Indar onek zabalkeria, naikeria, erantzupenik eza billakatuten ditue. Onek be euren erara ona nai dabe, guzurrezkoa baiña on ustekoa. Emen datoz oraintxe, ederkeriaren tranpa ta maltzurkeriak, zorrotz nai bigun, ondo komeni dan eran. Gaur eguneari ederkeri asko agiri da. Ta au gizonaren naikeri ta jakituritik dator. Onaren ondorena, iñundik iñora, ez dirudi.

Ezeren bildur gabe, dirudienez, ta arro arro, ez dabela siñistuten esaten dabil-tzez. Siñismena lurrera ekarri ebanak, kateiz lotuta, iñor ez daroa bereganantz. Sor-tzez gizonari, jakituri ta maitasunean oiñarritzen dan askatasuna emon eutsen. Doai eder onek emon ondoren, gizona deduz eta lotsaz artzen dau, kataiz lotuta iñor ez daroa, Kateiak gizon izatearen aurka dagoz. Egilleak, era orretan artzen dau gi-zonaren izatea, berak sorturikoa.

Emen, gaur, osteran, burruka gogorra jarri dautse gizonen Egilleari ta gizon ber-berari. Gizadi ta bere Sorlearen artu-emonu kendu nai dabe. Orretarako baiña, etsai bezela ez dira jarriko. Sugea baizen zur ibilliko dira jendearen gogoaldateko. Bearrezko dogun biziaren edertasuna ta eskabideak, aurrean jarriko dautsez. Baiña zati txiki bat bakarrik, beti. Benetan dira egizkoak, gizonaren izateak, berez, eska-tzen ditu-ta. Itxuraz, bear izan orretan oiñarriturik, laster jarriko dautsoe alboan beste askekeri terri bat, era orretan gizona erreago ta eder itxura geiagoz bere sor-bidetik banatuz, lurra ta lurkeriagaz bakarrik bizi dedin. Au zer da, askatasuna ala kateia?...

SOLOZABAL'TAR PAULIN

ERRI-JAYA

Galdakano

ERRI-JAYA

Aurtengo jai nagusieri, Iraillaren azken igandean, erri-jai bikain batekin emon dutesgu amaia. Beste idazlantzko baten esaten genduban lez, bildur gintzazan iragarrita aurkitzen zan euskal-jai ikusgarri orrek garraipenik lortuko etc eban, au da, igaroko urtean bezela errizaleak uts egingo etc eutsen. Goitik bera antolatzen diran «euskal-jai» batzuk ez dira aintzakotzat artzen-eta. Besterik erakutsiten emoten ez dabean arte beintzat.

Aurtengoan, notintza andiia batu zan erriko enparantzean, naita gaztedia, geyen baten, txaideak zear jolastu ba'zan be, azkenengo ordurarte enparantzaratu barik.

Jaialdi ortan izan gendubazan euskal kirol, erestaldi ta jantzaketak ederrak, benetan bikainak izan gendubazan. Eberdantian, egitarauan iragarrita ez ba'egoan be, amaiketako euskrazko mezan, euskal-jantziz apaindutako gazte betetik ikusi gendubazan txadon nagusia; a zelako poza guretzat! Urren, auspolarien eta txistularien jardunaldiak, soka-tirakak, arri-jatsotzeak, aizkolariak eta abar, sarritan euri-lanpar aspergarriz bustita.

Usotegieta III'a ta Azkurreta izan ziran arri-jasotzaleak, eta egiz, sarritan egon gara gizon indartsu onei adi, baiña ezin legike siñestu orrean indarra ta trebetasuna norberak ikusi ezik. 175 killoko arri zumbilla edo 200 killoko zokoduna edo eun eta geyagoko borobilla, ia guk gure burura txapela jasoten dogun baizen errez, lepora jasoten dabez.

Ez dakit mutil lerden indartsu orreik txindi zaleak diran ala ez, euri adi nengoa-la, ene aldamenekoei esan neutsen: «Zenbat urre-killo jasoko ete-leukeez bakoitzean mutil orreik zama ori eurentzat izatearren?» Ori da indarra ta trebetasuna!

Ondoren, Latasa ta Usotegieta I'ak zortzi ontzako zortzi enbor ebagi ebezan; guk, gizon bateri bizerra ebagiten dautsagun baizen errez ebagiten dabe pago-enbor lodia. Zorionez ba-yagok oraindik euskal-seme kementsurik Euskalerrri'an, bai orixe!

Jarraian, «Galdakano'ko Txikerra»k arri borobilla 25 bidar jaso eban, baita eun killoko arri zumbilla be birritan. Gizon gazte indartsua gure auzokide Garrido, naita luzeraz txaparrotea izan, ba'du indarririk. Gure zorianak adizkide!

Kirolketa oneik amaitu ziran bez batera, txapel-leyaketea edo txapela ondoen erabilleen sariketean ospatu zan, eta ainbat izan ziran leyaketa ortara be aurkeztu ziranak; sariak be ederrak ziran-eta. Azkenez, txistulari talde ugarien erestaldi bikaina, ain ezaguna dogun Moreno jaunaren zuzendaritza pean.

Arratsaldean, euskal-jantzien leyaketea, eta sari politik gozalako-edo, ainbat aurkeztu ziran, eta janzki bikañakaz aurkeztu be. Lenengo saria, Barrenetxea'tar Arantzeta, Zabala'tar Nekane, Perez'dar Mikel Gotzon eta abarrek irabazi eban. Ta, erakusketa au amaitu ondoren, jota-jantza leyaketea asi zan, zortzi bikotean artean. Danak gazteak, ondo baiño obeto dantzatuaz. Maikoak naiko lan izan eban orrean ekintzea neurtuteko. Ona emen eurok: Lenengo, San-Martin-Mugarra, Potugalete'koak; bigarren, Potugalete'koak oneik be, Osorio'tar Iñaki ta Mendiolata'tar Lourdes; irugarren, Erandio'ko Arteagoitia lengusu-lengusufiak, eta abar eta abar zortzi bikoterare. Danak maitekiro txalotuak izan ziran.

Urren, ain aomen audikoa dogun Andra-Mari dantza talde goralgarrikoak dantzatu ziran, ta, zelan ez!, beti baizen ongi edo obeto. Gure jantzari oneik ez dabe aurkezpenik bear Euskalerrri guztian, eta bertatik at be oso ezagunak dira euskal-jantzaketan, beraz, ez dogu gitsi baiño esango: Bai gure errian, zein Prantzi, Belgika, Doizland, zein Inghland'en, ludiko jantzari onen artean gorengo maillan jarri dabe jantzaketak. Ta, zelan ez eban ondo egingo ba, euron gurasa, anai-arreba, senide ta erritarren aurrean, euroi txalotu gurean aurkitzen zirala danok, ikusirik? Obeto ezifitean egin be! Goraldu bearrean gara baita Zamaalloa'tar anai txistulari, dultzaineru ta euron laguntzaille beste txistulari ta danborruak be, Andra-Mari taldearen garraipenaren tarteko diralako. Benetan txalogarriak danok.

ERRIYOTZAK

Asko izan doguz aurtzen, baiña danak izentzen gaitz danetik, ezagun-ezagun batzuk bakarrik aitatuko doguz:

Igaro dogun Iraillaren 25'gnean, Gabika-aldekoa'tar Illare, Pertika zanaren alar-gun argi zintzoa Jaunak Bere aldamenera eroan euskun, irurogei ta zazpi urtedun zala.

Baita, ill orren 29'gnean, errian ain ezagun eta maitagarria zan Depardieu'tar Xabier, ogeita bederatzit urteko gizon gazte errizalea be, gaixo zital batek luzaroan oeratuta euki ondoren, il da, emazte gazte ta alabatu gazte-gaztetxo emen itxia. Goyan Begoz adizkide zintzo biok, eta gure agur saminkorrena euron sendikide guztiak.

BASA-JAUN

Igorre

SENTARTEKO IKASTAROA

Senitarteko alkartasuna egiteko aste beteko beteko Ikastaroa egin dogu. Sei egunean eta illuntzeko 8'tatik 10'tara, Monjen Ikastetxean berrogei lagun baño geyago batuten izan gara. Ta abade, monja, andra-gizon, eta neska-mutilen artean egon dan alkar-izketa sakon eta zabala ikusgarria izan da.

Aite Martzel Ikastaro'ko Zuzendari bete izan da. Euskera garbi ta yatorrean, gaurko Eleiza'ren gai barrizalleenak emon dauskuz.

Eta bere alkarteko neska zintzo ta zabalak, eta euskaldun ezin obeak, batzarretako aingeru-serbitzariak izan doguz.

Egun oneititik argitasuna, poza ta gure arteko alkartasuna sendoagoa ipiñi dogula esan geinke. Ta Eleiza bariaren bideak norantza eroaten gaituan arean ikusi doguz.

EUSKAL UMETXOEN IKASTOLA

Egon zarie Lekaimen Ikastetxean? Ikustekoa da Euskal-katekisis aurrera eroateko, gertautu dagoan ikastola barrie. Igorre'ko gurasoen Batzordea pozik eta arto egon leike.

Baiña lekaimen leku ori atondutearren eroan dabezan buru-auste, langille billa ara-orra ibilte azken-bakoak, euren eskuz eginiko bear asko ta ixillak eta abar... zelan ez doguz aitatuko?

Iñoz iñok Euskalerrri'rentzako gure lekaimen epel dagozala uste izan ba'dau, ori barrutik ezagutu ez egiteagaitik izan da.

Lengo urtean, eta ainbeste urteetan Ama Nausie izan dana, ta orain zoritxarrez guretzako Basauri're yoaan dana, euskaldun yatorra ta benetakoa izan ba'da, zorionez etorri yakun barrie be ez da gitiyago.

Igaro dan urtean 13 umegaz egon giñan, eta eurtan ontxegandik 26 umetxo daukaguz. Eta datorren urterako beste Ikastola bat zabaldu bearko dogu.

Baiña ez da naikoa Ikastolak zabalitzea, gurasoak batez bere ta guztiok, gure umetxuak euskeraz berba egiten leku guztietan aleginduten ez ba'gara.

Emen egon zan anderño zintzo batek entzun ebana lotsagarria da. Umetxoak Ikastola'ko autobusean etxera... ta yatzikeran lastanduz bere amak: «Ya vienes potxolito?»

Euskera eguneroko bizitzan biztuten ez ba' dogu: geure euskerazko Mezak, euskal-yayek eta plazetan eginiko dantzak... alperrikoak ez ba'dira be, indar gitxiok izango dira.

«PUESTO DE SOCORRO DE LA CRUZ ROJA», IGORRE'N

Gure erri ta Arrati'ko gudarimutillak zorionez poztu leikia. Datorren urtearen Loraila'rao Kurutz-Gorria'ren Laguntza-Leku bat gure errian zabalduko da.

Gure D. Anastasio'k eta San Juan'eko Anaitasuna'k sortu ebezan asmoak eta alegin guztiak loratu dira.

Il onetako 5'an, arrastiko 7'tan eta Udaltxean arazo au aurrera eroateko batzar zabal bat egin zan.

Bilbo'tik etorritako Kurutz Gorria'ren Buru egiten dauenak Igorre'rao ta Arrati' osorako Laguntza-Leku onek ekarriko ebezan onurak azaldu ebezan.

Uri-batzarrekoak Zine'ko bere alderdia ta lanak egitea agindu eban. Ekonomi-Batzordeak, Eleiza'ren izenean, Parrokia'ren lekuak: erri guztietan onerako dan elburu au betetako utsean itxi ebezan. Eta erriko Lantegietako Buru diranak «Ambulancia» bat ekarteko beartu ziran.

Laguntza-Leku au bideetan zaurituai mesede egiteko ta errietan premiñean dagozanai utsean lagunduteko ipiñita dago. Bertan, lenengo Igorre'ko ta gero Arrati'ko gazteak soldadiskea beteko dabe, ta erarik onenean euren erritarrai laguntasuna emonaz.

Orregaitik poztasunez gure erriaren alde zintzo ta alkartasunean yokatuten alegindu gaitzean.

BEARI

BARRI

Gazteiz

NARBAIZA'TAR ERRAMUN APAIZ JAUNA IL ZAIGU

Erramun aita... Gazteiz'en ainbeste umetxok orrela deitu zutena... Nor zan Erramun aita? Gorasoak, asko, gazte pillo aundi batek eta aurrak ere, naiz ikastolakoak, naiz amaika ume gaixo gizajoak, eta ezagutu zuten guztiak, bazekiten ongi nor zan, eta nolakoa zan.

Biarko gizonak gertutzea izan zan bere xede aundia, bere lan egokia, xede ta lan egokienetakoak, aipagarrienetakoak. Gaztediaren zuzendaria. Gazteak batez ere, argi ta maitekor, ongienik zekien Yainkoa'ren eta gizonenganako bideak erakusten. Ta euzkerarenganako bere zaletasuna ain aundi zala-ta, zer esanik ere, euzkaltzetasuna ereintzen zuen biziki.

Baiña bere egiteko guziaren gain, apaiza zan, ben-benetako apaiza. Ain biotz onekoa zalarik, danak maite zituen, eta ezagutzen zuten guztiak bera ere. Ona amairu urteko mutil baten itzak: «Nork ezagutu ta maite nazake Erramun aita?»

Arritzeorik ez, beraz, ezagutu genuen guziok, bere eriotzagaitik, atsekabetuta geratu gerala esaten badugu. Geuk ere, mutil orren antzo galdezka ari gaitzke: «Nork jarrai dezake aren lana?» Ta goberaturik gagoz unealdi estu ontan. Alaz ere, arek esango lukena, siñisimenez: «Gora biotzak!», esan nai dugu; Erramun aita baiño beste Aita ohea dugu guziok, gure Yaungoikoa. Berak emango digu aurrera jotzeko Bere laguntza, ta Erramun aitari, onai eskeñitako saria, betiko atsedena. Goyan bego, beraz Narbaiza apaiz ona!

Illobi baten gañean, norbaitek onela idatzi zuen bein: «Oroi, otoi ta jarrai». Itz egokienetakoak guretzat ere estuak ontaroko. Eztugu aitzu bear iñoz Erramun aita; bere bizian guzientzako eredu yaukala izan baitzan; eta bere norabideak, bere aolkuak, Ikastolan batez ere, beti aurrean euki bear-izango ditugu. Orrela berari buruz oroiturik.

Otoi-egin ere, berak erein zuen aziak gero ta zitu ederragoak ekarri ditzan, eta gure Ikastolak batez ere sorrerazi ditzala, zerutiko aren babesaz. Eta jarrai beti arek erakutsitako bide zuzenean. Ikastola bere begininikoa zan eta orain arte eraman duen bide onetan jarrai dedia, orra aren gurari aundienetakoa.

Orregaitik, aurrera danok! Gurasoak, andereñoak...; zaindu egokiro gure umeak, gizon euskaldun zintzoak izan ditezen; zaindu ere, bereziki, gure euzkera; gure artean euzkera ezтана, nagusi, sar eztedin. Edegi ditzagun begiak, ernai egon beti, gure Ikastolan alperriko eztabaidak sor eztezean; euzkaldunen batasunari buruz, zentzunez jokatzan, euzkaltzale guztiak onartzen eta guzian alkartasuna billatzen. Gure Erria, euzkalduna izanez, bizi al-izango da bakarririk; beraz, Erri'aren bizia, bere bizia, euzkeran bertan dagoela esan genezake.

Orrela jokatzan, esan al-izango dugu bakarririk, Erramun aitaren naia ongi betetzen dugula, ta, zalantzik ez, berak zerutik bere irripar gozoaz begiratuko gaitu. Goyan bego, berriz ere, Narbaiza'tar Erramun apaiz jaun ona.

ARMENTI

Arrasate

IBAIK GARBITU

Bai, olan esan dauskue. Gipuzkoa'ko lantegi talde batzuk, eta onein artean, emeno U. Cerrajera ta Nito, erabaki bat aurtu omen dute: lantegietatik ibaira bialtzen diran zakar, azido ta abar, garbitzeko etxe bat eregi dute Aduna'n, Tolosa inguruko errian.

Egunero. 75 milla litro ur, eta bertan nautakoak eta lan berezi batzuk eginda, ur garbia ibairutako dute, ta ondakin zikiña lurrean eortzi. Esaten dutenez, datorren Uda-barri'rao lanean asiako izango dira, ta olan izatera, gure erreketan ur garbia izango da. Ta, guretzat ongarrin, lenengo, emen, gure erri inguruan izango ei-dau asiera. A zelako amorrai, loña ta zarbo-eskeillu jateko izango geran, J. I.!

EUSKAREA SAMURRA

Nere etxetik bi illobatxo darabilzugu Ikastolan: bata 7 urteduna, bestea, 10'ekoa. Azkenengo au, bostgarren saillean asia da, eta elebitza dala-ta, orain erderaz ere ikar bear du. Ori dala-ta, euskeraz idaztea samurragoa dala nabaitzen asi gara. Añau-Goiri asmatzailleai ta aren jarraitzailleai eker, gaur, ondiño darabilgun euskera, esan bezela, samur idazten da. Ara zergaitik:

Erderaz:	Euskeraz:
«b» eta «v»	beti «b»
«c» eta «z»	beti «z»
«c» «k» «q»	beti «k»
«h»	bapez

Onez gañera, beste izki asko dago euzkerak bear ez dituala: oguzkera ikurra (azentoa), excepto, construcción eta beste aldreberkeri batzuk, euzkerak ez dituanak.

Ba-dira, bai, tamalez, batu izenean euzkera idatzia nastuten ari diranak, baiña gaur modan dagoelako-edo, ba-ditu ere jarraitzale batzuk, noizbat konturatuko dira darabilen bide okerrakin.

MIKEL DEUNA

Emen, gure erri inguruetan, erri-jai asko izaten dira egun onetan. Gure auzo dan Garagartza da eurotatik bat. Jai eder asko ospatuak izan dira, batzuk eleiztarrak, besteak euskal-oiutzarakoak, dantzak eta beste antzeko batzuk.

Baita Apotzaga, Eskoriatza'ko auzunean ere, jai ugari izan da. Auzo onetan dago euskal-giroko illerria oso ikertua izan da. Ikusten dutenak arrituta geratzen dira. Izan ere, orrelakorik ez da ikusten gure alderdi onetan, mugaz andiko errietan antzeko zerbait ba-da. Guzti ori, bertako txanburu dan Otadui'tar Anastasi'ri eskerrak izan da.

Oñati'n be, urrean dogu-ta, eta oñati' asko dagoz erri onetan, batzuk bertara lanera etorrita, beste batzuk ezkontza bidez emen geldituak, orregaitik emetik, senideak konbidautu erri ortara joan diranak asko izan dira. Guztiok pozik. Eta pozgarria da gañera, orra joatea, Euskalerrri'ko erri euzkaldunetarikoa izaten jarraitzen du-ta.

UDALAITZ

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK
OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

ZAZPI-KALEAK



CASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

ARRIATIA

BARRIA

Altzatzu

ERRIKO YAIK

«Aurrera goaz». Azkeneko neure kronika-
toan, amaieran, au idatzi neban: «Goazen
danok aurrera». Amaiera arreri erantzunaz,
gaur, «Aurrera goaz au idatzi dot. Leenago
udaletxeak antolatu oi ebazan erriko yaiak.
Aurten barriz, erriko bazkunek antolatu da-
bez, ez udaletxeak.

Eta egin daben lenengo gauza, auxe:
exeko gauzai maitasuna ta garrantzia era-
kutsi. «Banda militarra» ekarri ordez, Gi-
puzkoa'tik, Irun'dik ekarri izan dabe beste
bat, apur bat txikiagoa; baiñan euskal-erri
politik yoten ekiezana. Beste urteetan zeze-
nak be izaten oi ziran. Aurten orreik be ken-
du, diru geiegi eroaten ebela aitzakiz.

Erdal-antzerki taldea be, etorri izan zan
igaz kanpotik, edo Logroño'tik edo Ma-
dril'etik edo dana danetik. Aurten ori be
kendu, ta orren ordez Donosti'ko «ARGIA»
dantzari taldea ekarri izan dabe. Danorregai-
tik diñot: «Aurrera goaz».

IKASTOLEN ALDEZKO YAIALDIA

Iraillaren 13'an, gauean. Ondo oldoztua
egon izan zan, erriko yaien asikekan berean,
yaialdi ori ospatzea. Oraindik yendeak bat
ere nekatu gabeak ta yaien indarra asiberri
ebelarrik, bultzaka sartu ziran ikastolen al-
dezeko yaiera. Zinetxea bete-beterik egoan er-
dian eta bazterretan, goian eta beian.

Olazti'ko Salinas yaunak kitarrarekin bere
alabatxo ta semetxo txikiagoagaz, euskal-
erriak entzutea emon euskuzan. Merezki
eben lez oso txalotuak izan ziran irurak. Gero,
Garay txistulari ospetsuak doinu gozo ta
atsegiñak, txori kantari antzera, bazter guz-
tietara zabaldu ebazan, txalo ta txalo yoten
eusoela yendetza guztiak. Gero, Lertxun-
di'tar Benito abeslariak kantatu ebazan bere
erriak aldameneko kitarragaz. Ez dago esan
bearrik, beti oi dauan lez, orduan be ondo
baiño ondo egon izan zala.

Eta azkenez, bertako seme «Zelaia» aus-
polari ospetsua agertu izan zan. Iñoiz baiño
obeto yo ebala uste dot. Yendetza guztiak,
zutunik, yarratutun eutsun, ta berak be, yen-
detzaren suarrari suaz ta garraz erantzun.
Euskalzale itzela agertu zan ganera ta ori
neuretako gauzarik atsegiñena. Zorionak eta
zorionak AGUR'en bidez. «Zelaia» artista
andiari.

ARGIA DANTZARI TALDEA

Ikastolen yaialdia, bespera gauean izan
zan, baiñan «ARGIA» taldearen dantzak
yaien lenengo egunean, gauean, pillota-le-
kuan. Ederto egon ziran, eta yenden artean
ikuski eitekean lez, zabalkunde eder-ederra
egin eben Euskal'erri'aren alde, euskaldun-
sarenaren alde. Yendetza poz-ozik egoen dan-
tzak ikusten eta aren erriak entzuten. Ea
datorren urtean be, beste olangorik barrero
ikusten dogun, iñoan yendeak.

UMEEN EUSKAL-YAIA

Igandean, Goizeko amaiketari gurdiak
igaro ziran. Ta bertako umeak, kanpotik
etorri ziranakaz batera, kalez-kale yoan zi-
ran elizondoko plazaraiño euren txistuakaz
eta ikurriñakaz eta dantzakaz. Dana margo
ikusgarri ta ezberdiaz beterik. Oso polita
ematen eban! Laiñoen eta curiaren bildurrak
apur bat otzitu egin eban agerkari pozgarri a.
Ta ganera danak plazan egozela, oraindik
plazakoa amaitu barik, curia asi zan ta arra-
palada baten dana itxi egin bear izan eben.

Arratsaldean, mutikoen dantzak eta kan-
tak pillota-lekuan. Estalia da ta orregaitik
curiaren bildurrak ez. Leenengoz, Marki-
ña'koak, «Zeru Txiki» izenekoak. Gero,
Araba «Laguardia»koak; Otxagabia'koak;
Gazteiz'ko «Indar» taldekoak, eta bertakoak
eta ingurumarietakoak. Yendetza andia egoen
ta danei atsegin izan yaken. Alan be, ni neu,
nere aldetik, zer edo zer esatera ausartuko
natzaitzue:

Talde batek edo bestek, erderaz egin
eban iragarpena, erdera utsean, esan gure dot.

Gipuzkoar talde batekoak erdera utsean ira-
garri ebazan euren dantzak. Au miña! Gi-
puzkoa lenengoa izan euskeran eta andik
agertu zan taldearen umeak, erderaz baka-
rrik iragarri. Ta nik uste neban, erri artan
danak, bai zarrak eta gazteak eta umeak,
danak euskeraz egiten dabela!...

Markiñarak oberen. Euskeraz iragarten
eban neska gaztetxoak: lenengo ta luzegao
euskeraz, bigarren eta laburrago erderaz.
Txaloak eta txaloak euri milloika ta ibaika!
Salinas yaunaren umerik txikiñak kantaten
eban lez, «Euskera il ezkeru, ez nuke nai bizi.

ARGAZKI NORGEIAGOKA

Yaiak dirala-ta, udaletxeak, urte oro, argaz-
kien norgeiagoka bat antolatzen dau. Iritzia
ez dau orain azalduten, geroago baiño, ta
sariak be, geroago emon oi dauz.

Barri au dakart emen, Bizkai'ko errietan
be, yaiak dirala-ta, olango zerbait egitea ez
litzakela kaltegarri izango aditzera emoteko.
Alderantziz, onuragarria, yakintzea gorantza
doalako...

Luzatu egin naz, ta agur, urrenge arte,
Yainkoa baitan.

YURRE'TAR YULEN A.k

Arratia

*Deustu'n izan naz, eta esango dautzuedan au
andik dakartzuet.*

*Eserleku luzanga batean eseririk, ezta-baidaka
ta bakoitza bere alderantz tiraka egon diran J. M.
Gutierrez eta Kosme Etxebarria ezagutu ditut.*

*Lenengoa «batua» edo dana dalakoaren zale
dogu, euskaldun barria, Anaitasuna dauka eskuta-
tean. Bigarrena: berezko euskalduna, Onaindia'k
argitara ekarri dauan III Euskal Literatura dauka
altzoan eta ona lagunari dirautsuna: «Onaindia'n
au laiatatik iru batuan egiña dirudi, ta iñoiz ezer
irakurri dauentzat errez aditzekoak».*

*Esukan daukana astinduz, Gutierrez'ek: «Emen
duzu batua konpletua, Euskal Akademiaren man-
datuak eta erregelak errespetaz munduaren enten-
digarri izateko iskribitua».*

*Esanak entzunik, neuk ere musturra luzetu
gura ba-ta, luzetu ezetik sartu ere egin neban,
Gutierrez'i onelaxe esanaz: batu ori zer nolako
dan ez dakit eta irakurriko al zeuskit atalxo bat
edo beste?*

*Irakurri eustan, poliki, baiña emen miraria:
Etxebarria ta nire esan guztiak ondo ulertu zituan
arentzat, batuan «iskribitua» barau egitea la-
kozean zan.*

*Arratia'n be ba-dogu Gutierrez'ik eta gutie-
rrezkeririk: ulertu ez, eta txalotu.*

KONDAIRA

*Italia'n ospatu izan dan munduko ikubilketa-
txapelketari buruz, etorriko diran belaunaldi ba-
rriak, etzeko kondairean, au lako bat aurkituko
dabe; «1974, Italia, Periko Fernandez munduko
txapelidun».*

*Batzuen egiak baiño beste batzuen guzurrea
indartsuagoa izanik, izango da or zear bazterre-
tan guzurrez eta alderdikeriz idatzitako kondai-
rarik.*

*Geure aldi ontan izan diran gudaketa ta beste
zerik asko be, guzurtzarrez beterik eta alderdike-
riz egiñak eskeintzen daukuz-eta, nongo amen
umeak siñistu kondaira zarrrik!*

*Danak doguz geure alderdikeritxoak, baiña al-
derdikeri tamalgarría, nire uste apalean kaltegarria
oso, Eleizaren bururen batzuk azaldu daukuena.
Alderdi indartsuarentzat gorralmen, koipe ta eleiz-
burrun guztiak, eta alderdi makalarentzat ezerik
eza zer dala-ta izan ete dogu?*

LANDAJUELA'TAR A.

Bilbao

BIZKAI'KO II BASERRI AZOKEA

Iru urte igaro dira lenengoz Bizkai'ko
Baserrí Azoka bat izan gendunetik. Poz-
garria izan zan, ta beratzaz orduan Goi-
rigolzarri'tar Xabier'ek batetik, eta nik
bestetik, azalpen batzuk AGUR asteroko
ontan idatzi geuntsuezan. Nire gurari
bizi bat be, ereti artan, agertzen neu-
tsuen: «Kaletarren baserrí zaletasuna
bizu daiten, au lako Euskal-Baserrí
Azoka'ren erakusketa bear-bearrekoa,
urtero izatea, dogu» esaten nebanean. Ez
da ori ta be nere gurari au bete izan. Aur-
ten baiña, eldu iaku ordua ta barrero
be jendea bertatik pozez urtengo dala-
koan nago.

Dakigunez, baserría, ta ortarako erra-
zoi ugariak bai-dagoz, astiro samar ba'da
be, ustuez, galtzen doa. Zer tamalgarría
benetan konturatzen ba'gara geure Eus-
kerearen ta oituren kabi bedegarria dala;
ta origaitik bera Bizkaia'n ez ezik, Eus-
kal-Erri osoan ere, alik ondoen eutsi
bearrean aurkitzen garala.

Aurtengo Bizkai'ko Baserrí Azoka'
rako, Bizkai aldean doguzan iru lurgin-
tzako ta aberedunen Alkarte nabarmen-
tsuak bereziki deituak izan dira: Marki-
ña'ko MIBA da bata. Arrati'ko CAVA
bestea, ta Karrantza'ko GUYA irugarre-
na. Guztiz, iruren artean, 1.700 bazkide
batu oi dabez. Arazo ta buru-auste ugari
ta garrantzitsuek inguraturik dagoz.
Ez da, ori ta be, euren eritxiz dana galdu,
ta bai ostera euren egizko batasunaz be-
rein elburu onuragarri lortu leditekez,
alegia.

ZER LORTU DA?

1.—Bazka ta ale ugariak mueta guz-
tiroko baserrí aberentzat, oillo, aate ta
kuiekaz asi ta ardi, txarri ta abelgo-
rriantzeko, egitea. 2.—Abera kumeen-
tzako esne berezi apartak be lortzea.
3.—Azi garbienetarikoak aukeratzea. 4.—
Txarri-bazka ta bedar igar-onduek ekar-
tzea. 5.—Lurrerako emalgarrí onenak
billatzea ta berebat baserritarrei eskein-
tzea. 6.—Lugintzarako bear dituzcan tres-
nak, lanabesak salneurri egoki-egokian
eurai emotea. Ta, azkenik: 7.—Bazkide
guztioi teknika bide barriak lugintzan
ezeze baserrí-abereen elikatzean ere es-
kuratzea.

ZER LORTZEKO?

Berein gauza oraindikan. Esnearen
salneurria zerbaiten igotea, baiña base-
rritarra izan daiten irabazlea ta ez bi-
tarteke beste bat.

Lugintza-ekarri edo arnari batzuen
balio-galtzea. Izurrien ugaritasunak, glo-
sopeda, bruzelosis ta abarrek dakarre-
zan kalte izugarriak. Onetzaz lentxo
baten zerbait idatzi neutsuen, txarri-
gaixotzaz batez be. Ez da erreza gaitz
orreititik urtetea.

Agintariengandik be laguntasun aun-
diagoa lortzeko lagun, jende egokienak
aurkitu bearra, ta... beste abar luze-luze
bat. Enoa ba luzatzea. Lagundu daigun
baserría. Ez daigun uste izan udaldian
egonalditxo bat bertan izateko bakarrik
danik. Udan eta neguan baserritarra
tinko dabil, beti bearrean, beti bere
izardiak irabazten dauana guri es-

keintzen. Ta ez aaztu asieran esan dau-
tsuedana: «Baserría geure Euskerearen
ta oituren kabi bedegarria dala».

ARREGI'TAR JOSU

Abadiño

Juan dan illaren azkenengo egunetan,
Abadiño'ra jun bearra izan neban. Euria
zan zaparradaz. Egun euritsi, goibel ta go-
zagabea egin arren, erria oberaldiz bidean
agertzen zan. Bidezabal biko oiñartean, orain
arte arriskutsua, iñoiz eriotzaren bat egite-
teraiño, uri andi oartutan lez, zabalde egoki
bat ipinten dabiltz, eta babes oberako, orre-
lango lekuetan jaso oi dan argi-tantaia ipiñiko
dabela uste dot.

Pelota-toki alboko ta eleiz-aurreko en-
parantz andia —orain lengo zugatz-tantai
eder barik— lugui-azpi barri, txarol-baltzez
distiran agertzen da, abade, eleiz-gizon eta
irakaslien etxe aurreko kale egalekin bat, eta
lekune luzea orlegitegi ta loretarako tartean.

Len izan zanagaz berdindutean, bizkai-
tar baserritar sendo, jake zuriz —pelota-tokia
zuri-zuria da-ta— praka baltzez jantziriko
madrilar bat izatera, beingoan biurtuta di-
rudi. Batez be, umiei, ta iñoiz ume ez di-
ranci, erderaz entzuten yakenean. Alan da
be, nire eritxiz, Bizkai-errien artean euskerea
geien eta ondoenarikoen egiten dan erria
izango da Abadiño.

Eta dendetan, eta edandegietan geiago,
geienez euskeraz berba egiten entzuten da.
Egia da, gure asteroko AGUR onek arpie-
dun gitxi dabela emen, baiña gerora, astiro
ta zabalkunde alegintsuz, bere irakurle se-
tatsu ta iraunkor izango diralaren itxaropena
dogu.

Izparringi saltokia daukan Lauzirika'tar
Mari Pelipa'k, berak euskeraz ain ederto
dakianez, Abadiño'n AGUR irakurri dagien
arduratuko da.

Zer jazoten yako erri ain aurreratuta
dagoan Abadiño'ri eskutitzak garaiz ez ar-
tuteko? Ara bialtzen diran kartak eta alkar
idazteak, ezin siñisteko atzerapenez elduten
dira. Nik neuk Letona'tar Aureliano abade
jaunari, Bilboti'k bialdu netson eskutitza za-
patu baten, eta urrenge eguenerarte etxakon
eldu. An egon nintzanean, karta-banatzai-
leari itaundu netson zelan jazoten zan
orrelango araubakokeria... Erantzun eustan,
atzerapen ori, tren-langilleak kanpokoak eta
barriak diralako ta ez ebela Bizkai'ko
erriak ezagutzen, jazoten zala.

Abadiño'k etorkizun ederra dau. Aran
zabal mardulean etzunda, jende alegintsu,
gerokorako biztandurik dirala, ta Durango
uri ondoan izanik, urteak aurrera, bien ar-
tean uri andi bat dagikie.

Emen, Abadiño'n, jarraibide erduzko
lantegia dago. Diruketa ta lankizuna alkar-
tzen dira, ta beargille ta jabe eurak berberak
bat-batera izan be. Orrelango lantegiak erri
guztietan izan bear litzakez, bakea kentzen
daben gizarte mailen betiko burrukak amai-
tzeko.

Baiña Euskerearen emengo etorkizuna,
nok jakin?... Erderaz egiten entzutean mu-
til talde bateri, itaundu neutsen: «Baiña zuek
euskaldunak zarie?» «Bai, Abadiño'koak».
«Euskaldun eta Abadiño'koak izanik, zelan
etzozue euskeraz berrida egiten? Negargarria
litzake euskerea galduten ba'yaku zuen erri
ta jokabidez, Euskal'erri'ak bere izkuntza
eder au galtzen ba'dau, zer bere berarizko-
rik geratuko yako?»

Euskerea dala Euskal'erri'ko altxor obe-
rena siñistu eben neugaz batera.

EGILUZE

AGVR

V URTEA
157 ZENBAKIA

ASTEROKOA
1974 - URRILLA - 26

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

EIZARA

Eiztarientzat egun pozgarriak eldu dira. Eizearen debekaldia amaitu da eta, euren eiz-izkilluak sorbalda gainean dituela, urten dira gure gizonok basorik-baso ta mendirik-mendi. Baserrietan bizi diran gizon baketsuak inoz arduratuta ikusi doguz: andik danba, emendik danba ortik danba... eta etxetik urtetan be bildur berun-kirriren batek joko ete ditun edo. Udaldian basoetan baketsu ta zorionsu ibilli diran basa-piztiak ikaraz eta igesika... Gure eiztariak agertu dira, debekaldia amaitu da.

* * *

Basapiztiak menperatzea gizonaren arrokeria da.

Gizona idarrea ta atzerea zanean, piztiak bera menperatzen ei eben, baiña orain jakintsu ta aurreratzaille biurtu gara eta geuk menperatzen doguz abereak, piztiak eta patariak.

Ez uste izan gero eiztariak esaten daberen guztia egia danik. Noizean bein guzurak be esaten dituela diñoen, batez be edate-etxeetako bazterretan eta olako alkartze-tokietan.

Ba ditue eiztariak euren etxe ta batzarleku bereziak be. Ez gara inoiz olakoetan egon, baiña guzur-tokiak izaten diralako entzutea daukagu.

Ez dot uste diñogun au esan arren eiztariak asarratuko jakuzanik. Guzur orreik ez dautsoe inori kalterik egiten eta sarritan barregaiak be izaten dira. Beti negarrez biziko ete gara ba! Orregaitik eurak be ez beitez asarratu, pizka bat adarra jotearren olakoak esaten doguzalako.

* * *

Jolas bat dogu eiztaritza.

Ez da gosea, gizona eiztaritza bulzutatzen dauana. Antxiña janari-billa joaten ei zan eiztaria, baiña gaurkoak eiza-gaiak jatea baiña naiago izaten dabe egun onak igaro eta alkartze batzuk egitea.

Arrisku bagako eta erru-bagako jokoa izan be.

Or ez da sartzen, beste jolas askotan lez, diru egarririk. Or ez da bidezko gauza alkarri ziriak sartzea. Jolas garbia ta osasuntsua, benetan, eiztaritza.

* * *

Ba ditue, orregaitiño, euren kezkek eta arantzak eiztariak be. Jolas orretan be ba dira aienak eta buruasteak.

Gaurko eiztariak, etxetik pozez eta amestez beterik urten arren, nonnai aurkitzen ditue lurralde dabekatuak edo eizarako esiak. Eta ezin ara sartu. Sartzen ba' dira laster etorriko jake baso-zaiña eta orduan kontuak: zigorra, zizpea kendu... Esi oneik, zori txarrez, larregi ugaritu dira eta gizonen norberekeria agertzen dabe. Ainbesteraño ez doguz onartzen eta orretan eiztariakaz batera gagoz.

Beste buruaste bat edo eiztarien atse-labe bat debekaldiak izaten dira. Eurak ondo dakie debekaldiak bearrezkoak dirala, baiña urtearen zati on baten etxean egon bearra ez da pozbide izaten eurentzat.

Entzuten dabe, baita, beste au be: Eiztariak ugaritu diralako edo, eizagaiak gitxitu egin dirala eta pizti-mota batzuk betiko galtzeko arriskuan aurkitzen dirala.

Baiña ez ikaratu. Ez dago munduan arantza bagako lorarik. Zuen jolasak ba ditue arantzak, baiña pozaldiak be ez gitxi.

Irakurle doguzan eiztari guztiai eizaldi on bat opa dautsegu, egun onak eta pozgarriak igaro dagiezala eta, esaten dabena egia izan daiten, arrapaki ugaria lortuta etxeratu daitezala, etxean edo adiskideakaz jan-aldi ederrak egiteko. Eta lanpetuta bizi diran gizonentzat nasai-aldiak izanik, lanerako barrituta etorri daitezala.



BASERRIA

TXARTO EZ-EZE, OSO TXARTO DABIL BASERRIA

Geuk diñogu, baserrian, baserritik eta baserrientzat bizi garanok. Geuk diñogu; baserriko goraberak egunero ikusten doguzanok.

BAIÑA, ZER JAZOTEN DA? ZER?

Ba, auxe:

Goratu egin dauskuez erosi bear doguzan gauza guztiak. Gure gauzak osterata, bardin ordaintzen dauskuez. Obeto esanda, gitxiago ordaintzen dauskuez; saldu egiten doguzan abereak, esate baterako. Igaz baiño karuago erosten dozuela okelea? Ba, guk, merkeago saltzen dogu. Joan ferietara ta ikusi zenbat ordaintzen dabene!

Beti lez gagoz: zaartzarorako segururik barik; jairik eta oporrik barik; baserri-etxe egoki barik; gure baserri arloa bear dan eran aurrera eroateko laguntasun jator eta zuzenik gabe, eta abar.

EZ, ASIONISTA JAUNA, AU EZ DA NAASTEBORRASTE ZARATATSU BAT SORTZEKO GOGOIA

Baiña, norena da errua? Ez aal daikegu ezerbere egin?

Orretan gagoz ba, baserriar batzuk. Baiña geroago ta pazientzi ta itxaropide gitxiago dogu. Zer egin?

Gure esnea, geiago esan ez daigun, joan Prantzi'ra ta andik ekartzen dabe kamiokadaka. Zoaz gero arantza millikotak, letxugak eta tomateak saltzera... ikusiko dozu zelako arpegiagaz artzen zaituen!

BAIÑA BASERRIAN BIZI GARA ORAINDIÑO; AUXE DA EGIA. NOIZ ARTEAN?

Baserriar gazteak dabe erantzuna. Eta, oneik, ixillik dagoz, eta artaldeka doaz fabriketako lanera.

Laguntasun apur bat ba'leu, dirubidea izan leikela baserria pentsaurik... ba-da ori bere tamalgarria!

Arrautzopil sintetikoak eta txal-txuleta nuklearrak sortuko ba'litue amerikauak... Bestelan, *ixura txarra dauka baserriak, oso txarra.*

* * *

Bizkai'ko II Baserri Azoka onetan ikusi al izan doguna: gure baserrietako gauza ederrak, alderdi guztietatik, bai ortuari, abere ta abar... oso gatx eta luze egingo litzake nerretzat dan ori emen ipintea.

Baiña ipiñi nai izan dodana, aurretik diñodana da. Au, bertan, Azoka orretan azaldu izan dabe, zabaldu dabezan orri batzuetan, baiña nik uste dot, bertan eta egun orreitan benetan argi ikusten ez zana, baserriak daukoan arazoak, izan dala. Ta, jente askok artuko ebezan orri orreik, baiña, uste dot, beste asko izango dala artu barik geratu diranak, eta orregaitik argitaratu dot emen.

Emengo orrialderen baten be, beste olako zerbait ipinten da. Azokan artutako idazki batetik jasota, oso jakingarria guretzat, baserriarrentzat.

IGARLEKE-RIRIK EZ

Oraintzu, Zeruko Argia'n, Martin Ugalde'kin egin daberen alkar-izketari buruz idaztera natorkizu; zorrotz eta zuzen etorri be, irakurle. Egia esan, gaurko giro itunean, lan ori irakurtzen asi mintzanean, bat nentorrela autortuko dautzuet... baiña azkenean, dogmatismoz beterik jauritzen ditun ostikadak ikustean, erantzuteko gogo bizia sortu jatan.

Lenago, «Iltzailleak» elebarrari esker ezagutzen nuen Ugalde, baiña ez aurrez-aurre. Bizkai'ko II Euskal Antropoloji Astearen egindako mai-biribilean, orrela ezagutzeko errea izan nun. Naiko xelebrea izan zan ori, ta esango dautzuet zergaitik:

Eratzailleak, iritzi guztietakoak esku artzea nai izan eben, eta ori zala bide, Mokoroa Aita ta ni be sartu ginduezan. Beste Martin bat egoan mai aretan sartzeko aukeratua, Martin Olazar jauna. Baiña azkenengo egunetan, Mitxelena'k, Olazar'en ordean Ugalde sartu eban. Biak «Martin» izanik izenez, «bere aldera» indar guztia eroateko egokiagoa zan Mitxelena'rentzat Ugalde, bestea baiño.

Arrezkero, egia esan, orrek ain ao batez darabiltzan «irekitasuna ta zabaltasuna» ez ditut inundik inora ikusten. Aipatutako alkar-izketaren aisera diñoenez, batez be gure erriaren etorkizunari begira, ongaria litzake, gure iritzi be, benetako artu-emonen bidez, taldeak edo taldeen buru egiten diranak, «jomuga direnak, bide-uts direnetatik bereiztea».

Baiña orretarako, ez da naiko izango taldeak «non-nolako eta norainokoak» diran jakitea bakarrik, talde orrekin izenean itz egitera ausartzen diranak, bazkide geientzuen iritzia erakusten dabene ala ez, jakitea baiño. Argiago esateko, talde bakoitzak egin bearko leuke lenago bere batasuna, eta olakorik eziñean, bazkide geienak eskatzen dabena aurkeztu bearko leuke ordezkaritza agertuko diranak. Jakiña, demokratik ba' dira beintzat.

Len esan dodanez, Zeruko Argia'ko alkar-izketaren azkenak beartu nau au idaztera. «euskal instituzio» baten —oraingoa ala lengoa?— iritzia artu dabela diño; lenago, «izki bat (h) gora-behera armatzen ari garen itxi luak», aipatzen ba' du ere, argi ta garbi bera «batuen» alde dagoala adierazoz.

Baiña «irikitasuna ta zabaltasuna» bezelako itz politik aon erabiltzea ez da naiko, norberekeria ba'da kolkoan nagusi. Adi bidez, ipuintxo bat azalduko dautzuet: Lafitte jaunak, ipar-aldeko euskaltzain jakintsuak, bein, ego-aldean geien zabaltzen dan aldizkari baterako, lan bat idatzi eban. Aldizkari orretako betiko oiturari jarraituz —dakitenak dakite zergaitik— zoritxarreko «izki» ori ez eban sartu. Baiña olakoak utskeriak dirala esaten dauan zuzendari edo arduradun (?) batek, iriki, zabal eta aurrerakoitasunaren ezaugarritzat, aurki, izki orregaz josita, berak jarrita, argitaratu eban idazlan a. Aurka gengozan guztiontzat «tragala» izan egian.

Ipuin naiz jazoera, olakoak entzutean, ez dakigu dalako «amor propioa» jimmiasa egiten nork jarri bearko dauan; orienbeste diño Ugalde'k bere alkar-izketan.

Dana dala, Ugalde'rentzat Euskaltzain batzuen «iritzia, ez agindua, jomuga nagusi-nagusia», diñoenez, ba'da, naizta gizatalde batekoak giñalakoan egon, alkarrengandik urrun gagoz, ezpairik gabe; oso urrun joan da norbait.

Edozelako kortetan, zimaurren artean «txan-piñoiak» bezela, agintariak ere sortu jakuzan une onetan, ondo letorkiguz gure arteko azterketa eta alkar-izketak etxe barruan astea, «dogmatismoa» ta aurreiritziak alde batera itxita.

Ariari jarraituz, moltzora ta moltzoan korapilloaren muiñera jo ezker, bear ba'da, ustelduta egoala aurkituko genduke, Martin orrentzat «orakulua» «Delfos'ko orakulua» dan euskal «instituzio» ori. Ta, ez ori bakarrik, ortografia naastuaz «batu» ebelakoan aldizkarietan, erria ta herria, artu ta hartu, ta beste olako ezbardintasun asko irakurri al izan ezker, argi agertzen jaku izki ori noizik bein sartzea, ez dala batasunerako, nundik-nora ta nortzukin goazen erakusteko ikurtzkoa baiño.


Alkar-izketarako, gertu gagoz, eta urko lagunari laguntzeko be bai, naizta norbere artaldekoa izan ez. Baiña aon «irikitasuna» ta kolkoan «norberekeria» ba'darogaz, ez da gure artean Kerenski'rik paltako.

Ulertu nai dunak, ulertu beita.

AGVR

ARRATI'KO KANTARI

ARENAZA'TAR JOSU



AITA PATXI

Il onen 27'gnean, goizeko amar ta erdietan eta Deustu'ko pasiotarren San Felicisimo eleizan, Erri-Mezea izango da, ainbestean baiña ez aski aipatu izan dogun Patxi Aita, apaiz, euskelzale ta erri-mindu jatorraren gogo alde.

Bere lagunak dei dagitzue Meza orretan alkartu gadizan, bere alde Jaunari otoiz egiteko. Berak be, an goian, gure alde egin dagian.

ANTOLATZAILLEAK

ERANTZUN BAT

BERMIO'TIK

«Euskaldun batek» izenpeturik aldizkari ontan azaldutako lan bateri buruz.

Iraillak amabost, Bermio'n lenengo Sukalki Eguna. Jai onen antolatzaileon elburua, ez zan besterik, gure erriari jai enskaldun bat eskeintzea baiña, ta uste dogu elburu au oso osorik lortu gendula.

Egun ortan, Bermio'ko «Talan» etzan besterik entzuten, Euskera baiña. Orain jakia, danok nai genduke gure errietan Euskera ohea erabiltea. Au lortzeko lan asko egin bear dogu, eta beintzat, uste dogu, ontaz zerbait egiten diardogula aspalditik. Baiña erri bakoitza ezaguturik, era egokienak aukeratu bear dira lan garrantzitsu au egiteko.

Jaialdi onen bidez, erakutsi nai izan deusagu gure erriari, ez daukagula zertan erderarik erabili bear, bardingabeko jaialdi alai bat lortzeko.

Au kontuan eukirik bere, ziur gagoz, guk aurkezlariok erabili gendun Euskera, ez zala ain oker ta barre-garria. Eta gañera, zuk, andereño, irakurri egiten gendula diñozu, ta ori

GURE ORATXOA

Alegintzen gara bai, bide zabaletan, bakoitzaren azterketa, kezka ta iritziak agertzen. Iñoiz, guk jakin barik —ezin ba beti igarri norek nori diñotsan— batzu-batzuk mindu be egiten dira, ta euren erantzuna al danik ariñen agertu. Ez genduke baiña nai, aserreen zirikalari izan, orregaitik lasaitu, amar kontau, ta paketsu jarraitu dagigun.

Gaur, Mañu ganean izan dan alkartasuna, Gotzon zanaren gogo aldeko Meza ederrean ikusi dana, izan dadilla eguneroko ogia, batez be, a ezagutu ta arekin ibilli ziranen artean. Bide bat erakutsi euskun, jarraitu dagigun ba, bertatik, danok bat, Euskerearen eta beste gauza askoren oberako. A.

ez da egia. Baita esan bearrekoan gagoz, gaur egunean gure errian ba daukaguzala zuk baiña askoz obeto idazten dakienak.

Asarre zarala diñozu, noizik? Aspalditik ezagutzen gara ta beti jakin dozu zenbateraño dakigun Euskera. Ezta lenengoa gu aurkezlari lez edo antzeko lanetan entzun gaizuna. Zergaitik ba, orain arte agertu ez zure asarre ori. Ez ete da beste arazo batzuk agertu gurean zabiltzala Euskerearen bidez?

Beste gauza bat esan bear deusugu. Asko poztu gara, zure idazlana Bizkaieraz idatzita dagola ikusiaz, gure errian Gipuzkeraz bakarrik egiten dozu-ta. Zergaitik au? Guk, Euskera oker ta barre-garria erabilten dogunok, zuk asko ta ondo dakizula ikustearren?

Ez egin ametsik, ori ez da erriari Euskera irakasteko bidea.

Akatsak eta erruak danok daukaguz. Egin dagigun lan, txotxolokerietan ibilli barik.

AMAIA GAZTELU

eta

JOSEBA IÑAKI UNANUE

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri asmoen gaiñetik daben iritxi-oneko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxiñen, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egileak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M.^a MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.

Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA

ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guttirako:

Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep.Legal: BI. 879-1966

Saski-Naski

Idazki batzuekin, arrituta —au askotan esan ba'det ere— suminduta gelditzen naiz. Lasarte-Usurbil'go ikastola dala-ta, idatzi diranetzaz ari natzaizue. Aita Intza'ri, Pako Aizpirtarte jaunak erantzundakoa, ain zeatz.

Itzez itz, idazki au aztertzen ezin asiko naiz, geiegi luzatuko bai litzake lan au, baiña zerbait aitatu nai nuke. Zati batean onela dio Aizpirtarte jaunak: «Sinisgabekeria eta sinistekeria uzartu eziñezkoak baitira».

Ontan oso nastua dagola derizkiot. Sifismena galdu eta «sifisgabekeria» nagusitzen danean, «sifistekeria» indartzen dala esango nuke. Ez al derizkiotuz Aizpirtarte jauna?

Oraindik geiago ere ba-dira. Aitatutako idatzian azaltzen ditun bi aurren idazkitxoak, ez omen dute sifisgabekeririk ageri...! Ezin emen berritu bi idazkiak; irakurri nai ditunak «GOIZ ARGÍ», 207'gn zenbakian arkituko ditu. Ala ere, zatitxoren bat jarriko dizuet.

Idazki oietako baten izen-burua au da: «Nor gera gu?» Emen bere asiera: «Zertarako gaude mundu honetan gu? Hauek eta orrelako galderak, ez al dizkiezue egiten zuen buruei? Honelako galderak ia erantzunik gabeak».

Zer derizkiotuzte? Kristau eziketa dun aurrak, txiki-txikitatik du ikasia, aur onek, itxuraz, ez dakiña: Jaungoikoa'ren seme-alaba gerala ta ludi onetan zertarako jarri gaitun, alegia. Gure sifismen oiñarria, ORAIN ere au da, noski; ala... au ere aldatu egin ote da?

Tximutik gatozen ala ez... arazo onetzaz «GOIZ-ARGÍ», 209'gn zenbakian, Aita Intza berak, Lasarte'ko «bi kristau zintzo» oiei ederki erantzun die.

Beste aurren idazkian, berriz, aitonak eta gero berak, *illargiari bere gauzak esatea*... Jaingo maitasuna sortu ezkerok, Jesukristo, Ama Birjiña, e. a. ezagutzen ikasi ezkerok, etzait iruditzen aurrari illargiarekin itz egitea bururatuko zaionik. Au nunbaitetik edo obeto esanda, *norbaitengandik* ikasi du.

Au, sumiñak eraginda idatzi det. Ezin lasai irakurri, Aita Intza gezurtia, «teologia»ri buruz ez-jakiña dala eta orrelakorik.

Ikastoletara aurrak bialtzen dituzuten gurasoak, KONTUZ! Ez zaitzatez atzipetu! Ondo ikusi, ondo aztertu ikastola oietan zuen aurrak izango duten eziketa.

Idazti berri, ikusgarri bat ba-degu. «Eusko-Lurra» deritzan lutelestia.

Zatitan argitaratzeko asmoa dute. Lenengoa atera da orain arte, eta oso ondo artua izan dala jakiteak poz aundia eman digu. Olenako idazkiak egitea ezpaita txantxetako lana!

Lutelesti onen bidez, gure Erria ondo ezagutzeko era izango degu guztiok; euskaldunok, euskera txukun eta politean, EUSKERAZ. Eta euskaldun izateko zoria ez dutenak, erderaz ere ba-dute berentzat.

Zorionak ba, ETOR argitaldariari ta idaztia egiteko lan onetan zer-ikusia duten guzioi!

Lengo idaz-lan batean, Donosti'ko Gipuzkoa irratiko Euskal irratiasia aipatu zan. Oroibidez bi itz dijoazkizue berriz ere. Tamalgarria baita, onelako irratiasia gutxi entzutea.

Egunero, eguerdiko ordu bata laurden gutxietatik, ordu batera izaten da. Mota askotako gaiak erabiltzen dituzte eta zoragarri.

Orain illabete batzuek, AGUR'en —ez naiz oroitzen zenbakarren zenbakian— Bizkaï'tik (Bermeo edo Ondarru'tik, uste det) ango idazkide jatorrak, bere errian ere irratiasio au pozik entzuten zutela zion. Eskerrikasko adiskide, onekin poz aundia eman bai zenidan!

Onok, gauza bat argi ageri du gañera: Gizpizkoar eta Bizkaitarrak alkar ulertu eziñik ez degula, alegia.

AMALE'K

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

ZAZPI-KALEAK



CASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

GAZTE

ANDRA MARI EGUNA

BAKIO'N

Dagonillako 15'ean Andra Maria'ren Jasokunde eguna zala-ta jai polit bat izan gendun Bakio'n.

Emen izan genduzan sei dantza talde: Busturi'ko «Irrintzi-Alai», Foru'ko «Urdai-Bai», Mundaka'ko «Gazte-zar», Sodupe'ko «Gazte-Berri», Orduña'ko «Itxaropena» eta Olakuaga'ko «Eguzki-Berri».

Izan gendun baita Bermio'ko «Erriko-lagunak», txistulari taldea ta bakio-tarrentzat pozgarriena izan zana; Bakio'ko «Itxas-Alde»ren «aurkezketea».

Guztiz iurreun bat gaztetxu batu ziran, ta euren dantza eta soinuak erri guztia alaitu.

Goizean, kalerik kale atsegingarri batez asi giñan, eleiza nagusian amaitzeko. Emen mezea ondoren, Bakio'ko dantza taldeak egin zuen bere lenengo ekiñaldia. Gero, auzoetatik banandu ziran talde guztiak.

Arratsaldeko 6'etan, pelota-lekuan batu ziran danak; eta danak batera arrandi edo alarde alaiarri bat eskeñi.

Bitartean «Itxas-Alde»ren aurkezketea.

Esan geinke jai onegaz, pozik urten gendula danok, eta euskaltasunez zerbait geiago kutsatu gendula gure erria ere. Erriak ederto erantzun zuen, eta ainbat ikusle izan gendun.



Tamalez gure «Club Kiroleta»koak euren ere egin barik ezin ziran geratuta, futbol partidu bat imiñi euskuen ordu berean. Ba dakigu ba erriko jai, arazo eta abarrek norarte arduratzen daben club au!

«Oneik bere gure oiturak gainduta daukez».

«ITXAS-ALDE»REN AURKEZKETA

Bakio'n izan gendun, leen ere, eleizearen babesean, dantza talde bat. Baiña zorioneko idea barriak direla-ta, eta apurtzea, egitea baiño errezagoa dan ezker, ankar-gora joan jakun talde ori.

Idea barri orrek ez ziran besterik, dantzak folklore utsa direla, ta erria lotan jartzeko biderik egokiena. Orduan, jenteari pentsau erasoteko, saioak eta danak egin al izan ziran, baiña ez egintzarik edo aktuaziorik. Gu, taldetxo bat, ez giñan eritxi bardiñekoak. Guk pentsatsen gendun folklore ori, geure kulturaren lerro bat zala; eta kultura bezela bearrezkoa, gaurko gure erriaren egoeran, bere nortasuna sendotzeko eta ugaritzeko.

Olan ba asi giñan, beste talde barri bat sortzeko asmoan. Asieratik izan gendun Gurasoen Alkartea'ren laguntza, eta ez dago esan bearrik, eleizeana eta erri geienana ere. Joan dan Epaillean asi giñan saioak egiten. Larrinaga'tar Jon'en ardurapean.

Lenengo egunean, ez ziran zortzi mutil baiño etorri, baiña gero, laster batu ziran bear ziran baiño geiago ere. Olan amazortzi mutil eta beste ainbeste neska gaz aurkitzen giñan larunbat guztietan.

Eldu giñan Uztailarraino; ta jantziak egin bear ziran eta saio orreik sarritxoago egin, lan oneitan «Mari» Eleizaldekoa eta Arrugaeta'tar Ana Mari aipatu bear doguz.

Lenengoa, nesken jantzi guztiak bere arduran izan ebazelako, eta bigarrena, bere jarrera onari eskerrak, neskak gertatu al izan genduzelako.

Etorri jakun ba Dagonilla eta ez geuntsan oraindiñokarren izenik jarri taldeari. Izen jator bat billatu bear zan ba, gure gaztetxoentzat. Bakio itxas ertzean dagola-ta, Itxas-Alde izenak gure zarrentzako oroimen bereziak dakarsen ezker, izen ori jartzea erabaki gendun. Azkenez eldu zan «Andra-Mari» eguna, eta kalerik kale atsegingarri baten ondoan; euren jantzi gorri eta zuri, eta eleiz aurreko zugaiz olegien azpian egin eben euren lenengo ekiñalditxoak.

Guztiz txalotuak izan ziran eta ez zan gutxiagorako. Arratsaldean erriko pelota-lekuan eta Gernika'ko eta Nerbion'go ibai ertzetatik etorritako dantzari bikaiñen artean egin eben gure gaztetxuok, euren bigarren egintza eta ederto egin ere.

Gaztetxo onen erantzuna eta ardurea ikusirik, urte batzuk barru gaztedi makala ez dabela izango Bakio'k uste dogu.

BURGOAZPI

Laguntzak aztertzen

Markiña'ko «MIBA», Arrati'ko «CAVA», eta Karrantza'ko «GUVAC» Baserri-Alkartek, zer egiten izan dabe lur-langilleen alde?

Izan bere, auxe esan nai geunskioe:

—Gure lagunei: Dana ez dagola gelduta baserrian, eta alkartuta lan egin ezker, gure arazo asko arindu geinkezala baserriarrok.

—Esan bear jakonari: Guk eta bakarrik, ezin geinkela dana egin. Benetako laguntasuna bear dogula, ez berba onak eta kontsejuak bakarrik, Osterantzean, baserria beera joango da, eta laster gaiñera.

Alegindu gara zoezer egiten, orain artean

Iru alkardeen artean, 1.700 alkartekide gara, baserriarrok danok. Alkarde oneik naita txikiak izan, ta bakoitza bere erara ibilli, gogo ta jokabide bardiñez dabiliz, au da, onuragarriagoa izan daitela lurra landu egiten dabenentzat. Alkarde oneitan auxe egiten dogu:

—Edozein ganadurentzako pentsuak egin.

—Artifizialki egin esnea, ume azten dagozan abereentzat.

—Ereiteko azirik onenak aukeratu.

—Bedar-pentsuak lortu.

—Landara ta azi indargarriak billatu.

—Lurra landuteko makiña ta erremin-tak lortu.

—Lur-lantze ta abere jatekoen teknika bideak erakutsi alkartekideei.

Eta auxe lortu dogu:

—Bitartekoak kendu, salneurriak obetu, ta baserrira zuzenean eroatea abere jatekoak.

—Gaiak obetutea, pentsuak zelan egiten diran ikasiaz gaiñera.

—Bedarleku zelaiak eta soloak be obetu.

—Ortuari, igali-fruta ta abereak obetuteko bideak erakutsi.

—Esne-kontrolen bitartez, beien aukeratzera obeto egiten lagundu.

—Kontrol orrekin geiago ipiñi bearra agertu baserriarrei, onuragarriago izan dakiezan beiak.

—Euren bizitza ta lana obetuteko, baserriarrok bizkortu ta zuzendu.

Baiña... arazo aundi ta astunak dagoz oraindiño baserrian

—Bear ez diran moduko esne-batzeak, baserria ta erosleek geiegikeriak diranean, baserriarrok zigortu orduan.

—Esnea saltzeko eskubide gitxi batzuk bakarrik eukitea ta baserriarrok bear daben lez esnea saltzeko erarik ez eukitea.

—Ferieta kontrolik eza, abereen gaxo-naastatzea dala-ta.

—Beirik onenak aukeratu ta obeto azteko biderik egokienak ez erakustea.

—Gexo larregi abereen artean: apa-txartekoa, txal-illak jaiotea, ta abar. Eta jakiña, baserriarrok txiroenak galtzerik geien.

—Gure abereen endea obetuteko, artifizialki ernaritzeko jokabideen eza.

—Laguntza aldetik, laguntzale batzuk auxe egiten dabe: batzuei lagundu, beste batzuei ez; banatze lotsagarria.

—Laguntzaille taldeetan baserriarrei laguntzeko ta onein lanak zuzetzeko aurretik egin bear litzakezan egitekoen eza; gero, ariñeketan joan bear eurakana.

—Baserriarrei laguntzeko, baserriarrok bear laguntzale taldeetan, euren alde jokatze; bestelana...

Esatekoa, ez dogu esateagaitik bakarrik esaten. Esanak esan, egiteko dira. Bearrezkoa da, entzun eta laguntzea baserriarrei: benetan laguntzea, baserriarrok aurrera dagiala gura ba'da beintzat.

Au be, II Azokan esandakoa da, orrien bitartez. Irakurri ta entzun doguzanok, itxartu ta goiazan danok batera arazook azaldu ta zuzentzen.

ASTONDOA



eziketa jostailuak eskulanetarakoak irakasketa gaiak

IKIRIKI

gregorio de la revilla, 1 bilbao - 11

Jolasean ikasi, or zure aurrentzako emoitzarik onena

ITURRIA

Mendi batean jaiño zīnan, zure abotik irtetzen dan ur garbi ta gozoakin, eztarri legorak asetzeko. Milla eztarik itz egin dezakete, bai, zuregaitik. Zuk, etzenduen politikaz ulertzen. Zuretzako gizon guztiak berdiñak ziran. Zu, ortako jaiño zīnan, egarri zana asetzeko, noski.

Gabaz, eta egunez berdin, beti lanean oitutakoa, lan ixillean jardunaz; egunak joan, egunak etorri, soñu txiki ta alaiakin beste gabe.

Milla uso ta txoriek, zure berri, ondo bezain obeto dakite.


Beti geldi zeuden, zure lekuan, eskuak zabalik, beti ura ematen, beti zai, irriparez eta kantari. Zenbat arkumek eta bil-dotzek, zure garbitasun eta gozotasunatzaz jakinarazo lieken ludi zabalari!

Baiñan zuri ere, besteen serbitzurako jaiño zīnan orri ere, etsaiak sortu zaizkizu: kaltegarri gertatu zaie nunbait zure bizitza, batzun batzueri.

Nork autsi ote zuan zure irudia? Nork urratu zure biotza? Nork legortu zure aboa...? Ganberroren batzuk? Ez dakit. Biotz gabeko, errespeto gabeko, gizatasun gutxiko asto batzuk izango ziran, ziur asko.

Gaur, mendi aldean, milla eztarri gozatu ditun iturria legorturik dago, puskatuta, lurrean autsita.

Gaur edo biar, mendigoizaleak, mendi gaillurrera irixtean, irrintzi egingo du.



Baiñan berakoan, iturri garbiakin ez ba'da topatzen, bere eztarri legortuakin, irrintzi bearrean karraxi egingo du. Bere karraxi ori ordea, iritxiko ote da asto oien belarrietara?

Astoekin, arrazoi guztiak alperrik dirala ez dago esan bearrik, orregaitik eskatzen diogu, dagokionari, astindu dezala makilla. Ea ba orrela mendiak, bere nortasuna tinko iraun al izaten dun.

Mendia zikiña dago, zugaitzak nolanan mozturik; orain, iturriak deseginda. Ordua da zerbait egiteko.

RAMON ZAPIRAIN

Gillermo pelotaria

Euskal kirol ikusgarria, pelota, mundu zear zabaldu daben pelotarien artean asko izan dira ondarrutarrak; ta batzuk punterengoak, Baiña danen artean nagusi, Gillermo. Izen eta deituaz esatekotan, Amutxastegi'tar Gillermo. Ta bere denporetako ondarrutarrontzat, Pasajero, plairako zubia egin aurretik jendea ibai beste aldera ontzitxo baten arraunean eroaten eban bere aitagandik jaso eban ezizena ori eban-da.

Amaika urteko mutiltxua zala Madrid'era eroan eban zestuzko pelotari. Bereala agertu eban orretarako eukan iaiotasuna; ta urte gitxi barru, mutil gazte-gaztea zala, gorengo maillara eldu zan. Pelota zeruan argi dirdaitsuz argi egiten eban izarren artean (Piston ta Patakon mutrikuarrak, Cazalis ta abar) eguzkia zan bera.

Aren bizitasuna ta besoetako indarra! Askotan lagun bat artura iruren aurka jokatzan eban, jokoan egoanean biñaka areri arpegirik emoteko pelotari ez egoalako. Ta origaitik ospetsu izatera eldu zan, batez be pelota-tokiak ziran Ameriketako erri andietan, Mexiko, Miami ta abarretan. Monarka ezizena ipiñi eutsen, benetan zandotako pelotako errege zalako. Era guztietako gizon andiak, artista, kirolzale edo erri agintariak, laguntzat eukan.

Ta nai eban lez bizi izan zan, gitxi ikasita gazterik etxetik urten eta munduko zerua osorik eskura etorten jakoen beste askoren modura.

Idazle baten laguntzaz bere bizitza agertzen eban liburua idatzi eban, NEUK... (TO ACUSO) izenagaz. Baiña erriko jaun andi bategaitik gordiñegi berba egiten ebalako, txarto artua izan zan liburua ta gure artean ez zan zabaldu. Tamalgarría izan zan akats auxe, Ondarru'ganako maitasun andiagaz idatzitako liburua ei zan-da.

Ipinten ete dau bertan, arako. Ondarru'ko musika bandakua zala, oraindik mutiltxua, tronboiaren bokillia balduta bandako zuzendari Izeta'ren bildurrez, pasakallean, al zan modura joaz joan zala?

Len Ameriketara joaten ziran pelotariak, urte pillo bat egin barik, ez ziran errira biurtzen, orduan orretarako oraingo erreztasunik be ez egoan-da. Ta pelotari ona bazan etorten zanean, Ondarru'n musikea jotzen jakon. Etorritako illuntsean, musika taldeak, bere etxe aurrera joan eta musikea jotzen eban jendea dantzatuaz. Jakiña, ori, diru usaiñean edo egingo eban.

Gero erriko alkate izan zan Bikandi'tar Antonio'ri jo eutsela entzunda nago. Urrutia'tar Isidoro'ri jo eutsela neuk ikusita daukat. Ta Guillermo'ri be jo geuntsan Ameriketara aldi bat eginda ospetsu erriratu zanean. Ta eskuan puro kaja andi bat ebalá jatsi zan bandakuo'i emoteko. Ta besarkada ta bizkarran alkar jote naikoa izan zan bera ta beragaz batera musika taldekoak izan ziranen artean!

Geiagotan be etorri zan errira Gillermo. Baiña gero berrogei urte inguruan etorri barik egon da, oraintsu arte. Ta betilakoa etorri da, ondarrutar-ondarrutarra berbetan eta izaeraz, danen laguna.

Ta berak be makiñabat pelotariri egindako omenaldietan lagundu izan dau ta pelotariak aukera au galtzeko ez egoazan: irailaren 20'an, Markiña'ko prontoian egin eutsen berari omenaldia. Arrantzaleak itxasoan ziran arren ondarrutar asko eldu ziran bertara. Guk erritik kanpora bizi garalako, etoni zanik be ez genkian, omenaldiaren barri izparringian irakurri arte. Beraz, orduan ezin txalotu izan gendualako emendixek jotzen dautzaguz.

Zorionak, Gillermo ta urte askotarako osasuna Jaungoikoak emon daizula!

KAMIÑAZPI

benetako

akeita

CAFFÈ
BAQUÉ

CAFFÈ
BAQUÉ



utsa

soilla

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra

BILBAO - Casco Viejo

Tenderia, 15 eta 16

ERRIATIA

BARRIAK

Zornotza

KIROL-ZALETASUNA

Bego lenengo au: *kirol* edo *kirola* euskal itza da, oso antxiñakoa; esakun zarretan aurkitzen dana: «Gorua garrian ta gogoa kirolan» diño oneitariko batek; «Astoagaz adi kirolan, ta deik buztanaz bizarrean» beste batek. Ba-dakizue zer esan nai dauan be: «deporte», «diversión», «regocijo». Dendetan be asiak dira itz onekin eraturakoak jarten: emen Zornotza'n ba-daukagu olako denda bat, jolas, kirol ta deporte gaiak saltzen dauazana; goian, ate-buruan, kolore atsegingarraz «Kirolkiak» diño. Joan dan illaren 17'tik 20'ra Logroño'n nintzan; bertako San Mateo jaietarako gauzarik asko eukezan jarrita zentzun zuzpergarri, ta onein artean bat lora ta landaren erakusketea, guztiz ederra; kirolkiena be ba-zan sail bat eta onela iñoan «Irigoi'en Kirolak». Beraz, euskera sartuaz doa Logroño uriburuan be.

Mundua gaur kirol-zaletu egin yaku itzalean. Zelako burrukak ostikolarien artean, esaterako. Zornotza ez dabil atzenengo grina bizi onetan, dala pelota, dala futbol, dala... zer ez? Oraintxe bertan ormetan jarri dabez iragarki dotore batzuk, laster «judo» klaseak bertan emongo dirala esanaz. Jolas edo burruka onek gizon biurtzen ai dau. Bai ete? Alkar jotea beti dogu arriskutsua ta itxusia. Alan be, barrikeria eder yaku, ta antxiñako txistu, dantza ta kanta-ikasteak albora itxi ta kanpotikoak gura doguz, naizta japonarren «jiu-jitsu» jolasketea izan.

IBILLALDI NEURRITUA

Mendi-zaletasuna, ostera, geure-geurea dogu, edesti aurretik be jolasten zana: ez dakigu gure artxiñak noiztik bizi diran euskal mendietan, eta len lez orin askotxo dira, udaldian batez be, orrei laguntzera doazanak.

Aspaldi ontan ibillaldi neurrituak be ez dira gitxi egiten. Emen Zornotza'n lengo domekan, il onen seian, ospatu zan irugarrenez, «Zornotza» mendigoizale taldeak eratu-ta. Talde onen buru Jose Luis Idigoras izan zan oraintu arte, ille batzuk dirala azidentez il zana, ain zuzen. Aren gomutaz ospatu zan ibillaldi au, umetxoan artean batez be.

Iru talde izan ziran: «urdiñak», 18 urtetik berakoak; «gorriak», 14 urtetik berakoak, eta «baltzak», 10 urtetik berakoak. Gazteak eta neska-mutikoak, «A» taldekoak goizeko zortziretan urten eben; umetxo taldeak, «B»koak, ostera, goizeko bederziretan, ordu bete gerago. Talde biok ez eben ibillaldi bardina egin, ta gaitzera, «A» taldean izena emondako maillako neskatoak be aurtxoan ibillaldia egin bear eben.

Nundik nora ibilli ziran nagusienak? «San Jose Langille» deritxon etxe-mordotik urtenik, Etxano'n gora, Torreburu, Autzagane, Ergoien, Olabari'tik zear, San Pedro eleiza ondora jo bear eben lenengo. Ta orrela egin eben. Emen, au da, San Pedro'n atsedean-aldi pizkat, zerbait jan eta edan, Jose Luis Idigoras zanaren alde meza santuan otoitz egin ondoren, gertu barriro be anka eragiteko. Gane'tik zear —Zelaietan' itxi ez eutselako— Larra'ra jo eben. Eta emen banatu ziran sariak, lau ordu ta erdi ibilli ta ibilli egin ostean.

Sari ederrak banatu ziran. «A» taldean, Bermeo'koak, Eibar'koak eta Zornotza'koak izan ziran txapeldun; «B» taldean, Zornotza'koak. Taldeka geien aurkeztu ziranen artean be kopa bat banatu zan, eta au zornotzarrak eskuratu eben. Naizta eguraldi narras samarra egin, alai ta pozik igaro eben gure gazte ta umetxoak urrillaren seigarrena.

EZKONTZA BAT SAN IXIDRO ELEIZAN

Ba-dakizue nun dagoen Garaitondo, Bizkargi ta Aldana azpian. Ortze daukaze San

Ixidro eleizatxoa, ortxe zeunkien baita oraintzu arte umetxoan auzo-eskolea be.

Eleizatxo onetan ezkontza bat egin zan irailaren 21'ean, euskal erara egin be. Bego ta Xabier alkartu ziran bertan, «kaikuak» soñean eta «abarkak» oiñetan ebezala. Mezea, abestiak eta ezkontzea euskeraz; amabitxik irakurri eban irakurgaia, aitabitxik agurra dantzatuz. Eleizakoa amaitutakoan «Udabarririk bere dantza saioa. Giro ederrean dana. Zorionak ezkonbarriak!

OIZ

Galdakano

BIRRAITITE

Ez dira asko, baiña noizean bein ba-dira mailla ortara elduten diran zarrak be; bat baiño geyago barriz. Oraingoan, gure adizkide ta euskaltzale jatorra dan Totorika'tar Jon izan da birraititea eldu dana, eskerrak bere illoba Totorika'tar Itziar eta Antiñano'tar Jon-Eramun'ek ekarri dautsen birloba ederrari.

Aur orreri, zelan ez!, «Alain» gitxi ezagutzen dan izen bikaiña ipiñi eutsen ugatzakeran. Senar-emazte gazte oneik, Getxo'ko Algortia'n bizi dira; baiña ziur gagoz AGUR au irakurriko dabela, beraz zorionik beroena eroi, ta batez bere, birraitite Jon'eri.

MENDIZALEEN IBILKETAK

Udaldian, danak ez arren, beste lan baten esaten genduban lez, bizkor ta kementsu ibilli diranak be ba-dira-ta, mendigoizalerik geyenak itxas bastarreran edo be-aldeko mendiak zear ibilli dira; moltzoko leyaketak eta, egin barik. Udea baiña, joan da, asko ikusi barik. Baita udazkena etorri be, beraz, asi dira barriz gure «Ganguren»neko neska-mutillak alderdi batera edo bestera urtetan, eta Urril onen lenengo igandean, 6'an, Arantzazu'ra joan ziran, jente-berebil andi baten. Andik, Urbia'ko zelaidi ederra ikusiaz, inguruko aitz erpiñetara igoteko.

Goizean, erritik urten ziranean, eguraldi motela ba'zan be, epel samar egin eutseen, eta pozez itzuli ziran gabeen errira. Gora neska-mutillak! Jarrai Euskalerrri'ko baster guztiyak ezagutzen.

PERRETXIKO LEYAKETEA

Tamala izan da guretat, aurretik ez jakitea noz eta zelan izango zan, il onen 13'an asita, errian ospatuko dan VIII perretxiku azalkuntz-leyaketea. Aspaldiko urteetan lez, bertoko «Peña Santa Cruz» bazkunak gogotsu ta jakituriz antolatuta.

Noiz edo noiz ospatuko zala baiño beste barririk ez genkian, bestela, egunokaz eskuratu daukuen egitarauko gauza eder guztion jakitum izan ba' gña, ziur, egitarau guzti edo geyenaren barri, pozik emongo genduban AGUR'ean, «Santa Cruz»neko ziza-zale jator orreik ondo irabazita dauke-ta, gure irakurleak jakitum ipinteko. Egitarau ori baiña, berandu ekarri daukuen ezketiño, urren, leyaketa ori dala, sortuko diran jazokundeen barri emongo dogu, J. I., AGUR'en irakurleentzako, gure erritarrok, zalantza barik, ziza-arazoetan egingo dabezanak jakingarriak izango diralako. Bai, orixe!

GAIXORIK

Aspalditxóan makal samar aurkitzen dira Irazabal'dar Martin eta bere emazte Loizate'tar Argiñe, senar-emazte euskaltzaleak, beraz, AGUR'en irakurleak. Zorionez baiña, oberantza eginda aurkitzen dira, ta lerro oneik argia ikusi dabeneko, guztiz zendatuta izango dirala uste dogu. Orretara nai genduke, urte mordoa izan arren lefo gaitzean, jator dakielako jokatzen. Ez kikildu Martin eta Argiñe, zuen bearrean da gure Erria-ta.

BASA-JAUN

Zeanuri

BASERRIKO BARRIAK

Udagoinera eldu gara. Orain dogu gure gauzen etxeratutea. Aixepelari itxaroten gagoz, indababak eta artuak elduteko. Ikoak bere eldu dira, batzuk. Aurten patata asko izan da, bai orixe! Gure auzoko Luzia'k asko ta andiak, kilokoak be bai batzuk.

Kipulak bere, ugari izan doguz. Anjelita Altziber'koak, uste dot, andienak. Kalabesak eta erremolatxak, iñon ez lakoak, Gillermo Zuzutze'koak.

Lorak barriz, mota askotakoak, Begoña Altziber'koak; ikustea baiño ez dago San Isidro'ko eleizan egoten diranak.

SAN MIGELAK

Urkiste'n aurreko domekan, amabietan, Mezea bere ermitan, eta ondoren, jantzarien norgeiyagoa, ta sariak irabazleentzat.

Altzuste'n bere, ospatuten daben lez, zapatuan jaien asiera, arratsaldeko seiratan Mezea, ta ondoren, morokil eta taloak nor obeto egin. Guztiak ondo ta gozo ei egozan; an egoan ikusle batek esan euzan: berantzako, arean bere, ez ebela itxi-ta. San Migel egunean, amarderdietan, Mezea ta Itzaldia.

EZKONTZAK

Aldi onetan ainbat ezkontza izan doguz. Gorbeia'ko artzain dogun Enrike bere Josefina yurretarragaz, Yurre'ko eleizan ezkondu zan. Zeanuri'ko Andra Maria'ren eleizan barriz, Mari Tere, Santos'egaz; Txarito, Alfredo'gaz; Estibalitz, Tomas'egaz, baita, egun orretan, euren illobatxoaren bateoa bere. Zorionak danori!

URKIOLA'RA

Urtero egiten dogun ibillaldia egin gendun, geure Urkiola orretara. Egun pozzarria igaro genduan, auzotarrak batera alkartuta Mezea San Antonio'n eleizan. Euskalerrri ta mundu guztiaren alde ototiz egin gendun.

Bazkaldu ta gero, Anboto'ra yoan gintzazan; larogei urtegez Jenerosa, baserritar zintzoa bere, an igon eban, eta ez dot uste nekatu zanik.

ONATPN

Mundu guztiko ardi-txakurren leyaketea Oñati'n izan da, eta «Mastin» Jesus Etxebarria'koaren txakurrak irabazi dau. Beretxikorta'ko mutil yatorra dogu, ta ondo erakutsita euki dau ba, txakur ori. Zorionak!

GORBEITARRA

Donosti

ARRAUNKETAK

Aurtengo arraunketak bukatu dirala esan geinke. Izan da zarata ugari! Asiera Ondarabi'n eman zioten, gero Donosti'n lenengo aldiz, Castro-Urdiales, Santoña, Koruña, Donosti'n berriz, ta azkenez, Bilbo'ko Abra zabalean.

Lasartearrak, Donosti'n jokatu zutenean, dakigunez, bigarren gelditu ziran, aurrena Orio izanik. Orrek zalantzan utzi zituzten, alegia, izango ote ziran oriotarrak baiñon geiago. Geroz, askok esaten zutenez, ea «desafio» bitartez bi onenak alkartu ta jokatu ote zuten. Norgeiago ori, berrito zalantzan dago; miloi batena-edo. Baiñan ez det uste jokatuko danik, ba, denpora aurrera dijoanez, ta negua gaitzean, egualdi kazkarrak nagusituko dituala. Orretxen aitzakia izan leike ez jokatzeke, edo, naiko nekatuak egomgo diralako, guk uste.

Txapela erantzi besterik ez degu egin bear aurtan, arraunlari oien aurrean, eta onen oriotarrak izan dirala ezagutu. Egi onek ez dauka aitzakirik, zalantzarik gutxiago. Orio'ko arraunlariak ortakoak dira, edonun garaille irtetzen dakitenak. Berdin yola-jokaeretan.

Nerbion'en, lenengo saioan, Orio lenen, Lasarte bigarren, segundo batzuk atzerago. Bigarren jokaldian ostera, ain ziran elkar-urre eldu...! Pentsa, Orio, 21/02; Lasarte, 21/02 ta 1/5 segundo. Ikusten dabez, alde txikia benetan, arnasa artzeko une bakoa noski. Baiñan, aurreko jokaldian nola aterazi zioten segundo batzuk geiago, orrekin oriotarrak garaille gelditu dira, lenengoa irabaziaz bietan, eta diruak eta bandera. Ez dakit nun jarriko duten oriotarrak bandera pillo ori, beren pestetan balkoita ateratzen dituztenean... dozenak izanik, balkoian ez dute lekurik.

Estropada ederra izan zan. Lenengo bira lasartearrak ematu zuten —bigarren edo inguruko ekialdian alegia— ta atzetik berealan oriotarrak. Guziak uste zuten lasartearrak izango zirala garaille. Baiñan oriotarrak arrapatu zituzten, ta azkenik iñork etzekian zein izango zan aurren elduko zana. Ortarako dauden epaikariak, beren kronometroekin naiko zalantzan ibilliak omen dira, ta ez nitzan arrituko lasartearreri eman ba'zieten garaipena, oriotarreri eman dieten bezela. Auek, aurreko ekialdian zeukaten aldiakin, bildur gabe zeuden, bi jokaldiak batuta gero, aurrenak zirala. Baiñan dalako kronometro oiek ez dute akatsik erakusten, eta orregaitik, ala izango zalakoan gaude.

Gauza bat dakigu: gipuzkoarrak izan dirala jaun eta jabe arraunketan aurtan. besteak atzetik utzirik. Izan zan aspaldi baten Pedreña jaun ori. Urteak ziran aiek! Gure guda ondorengo urte aiek ta arrezkeroko arraunketak. Emengoak batu gabe, ta goseak eraginda-edo, ez zeuden orain bezela, beintzat.

Astillero'k eta Kastro'k balizarik onenak izan arren, ez zuten ezer egin, ta Astillero irugarren eta Kastro laugarren gelditu. Bostgarren Ernani, ta azkena Kaiku. Kaikutarrak beti atzetik ikustean, alako miña eman oi dit. Oiek dira arraunlari piñak, kirolzale onak eta arraunean beti agertzen diranak.

Besterik ez, eta aurtengo astropaden berriak onekin bukatzen ditut.

EGUZKIZAR

Arratia

II LUGINTZA AZOKA BILBO'N

Esne-bei, zekor, zaldi ta txarri; ardi, oillo, txakur ta untzi (koneju), lugin apala, neke ta izerdi... Eusko Abendearen bizkarrazurra, muiña ta mami. Noiz arte irauango? Geroak esango.

Euskal-ertiliarren antxiñako ta oraingo lanak: zurezko tramankulua euna egiten, txistugille, gorulari, alboka ta buztarri; otzaragille, erremeniari ta zapatarri; barazki, madari, sagar, etzeko ogi, arto ta abar.

Nekazariaren aspaldiko biziera larria ta eziñezkoa (egurrean egiña) egi benetakoz eta ihurri emoituz egindako lugin erreakarriaren irudia zan, geienen ustez, erti-lanetan mamitsuena ta esanarrik beteena agertzen euskuna. Goldea, alde banean baserritarren esku sendoak lurrali atzamarka, zeruwantz begira, aza zabalik, Goikoa'ri errukia ta laguntza eske biotz-biotzetik. Zeaztasun geiago on Paulin'en luma zoliak.

ZEANURI BILBO'N

Artzaintzatik lugintzara, ikazgintzara t'abar, belamaldietan aurrera gaur egunarte euskal sendiaren bizierak izan dauan barritze ta aldakuntzaren irudi bizia eskeindu euskuen.

Artzaiñak, ardi ta txakur; laiak, burdi ta golde. Igitai, gari, ta bedar ebagille; txondorra ketan, ikazgintzak bizarrez, zikin, izerditan. Zoizko bizilekua, lanerako tresnak eta abar. Argiñak, serrariak arigilleak, otzaratxoak eskuan bazkariakin, egumero goizaldeko laurak lauterditan oia itxirik, Bilbo'ra etorten ziran langilleak eta «tranbiario-pamosoak».

Errotara doian astoa, zorroa, umetxo ta ama. Etxerik-etxe ibiltzen zan jostuna, solo-lanean ori ziranai arratsaldeko kopauakin (mokaduakin) neskatil maratzat. Aitita masail gorridunak, azal tximurdun amatuak ta ogia egiten dakian etxe-koandre gaztea; esnea egosteko zurezko ontzia, gaztaina-tambolina ta besterik asko. Eta gizonito lepozabal morroskotzarrak, txistu, dultzaina, alboka ta pandero.

Zeanuri, Zeanuri ta Arratia baiño geiago zan. Zeanuri Euskalerrri osoa zan. Baiña begiraka ta txaloka nengoala ezten zorrotzak zauritu nindun saietsean.

Solo, landak eta etxaldea bertanbera itxirik arrapaladan erriuzuletara datorrenak, egunetik egunera txiki biribillago ta nastuago doanak, euskal abendearen ERRI zarrak noiz arte irauango eta dauku? Txiro naiz aberatsentzat ogia ta bizigaita egiten dauan langillea, noiz jarriko eta da gaur egungo burdian, iza edo itanoka egin al izateko neurri egokian uriburuetako langille ta azal zurizkadunekin?

LANDAJUELA'TAR A.

ARRIATKO

Markiña

OPOR-OSTEAN

Eup! Agur dano! Emen gatorz barriro be kirkillok, opor ondorengo nagi mukerraren ondokiñak oraindiño aldean doguzala. Ezin uxatu, aalak egin arren.—«Zer? Kirkillak be oporretan?»—«Zer ba? Ez ete dozuz ezagutzen, kirkillok baiño alper-ontzi galantagoak, guk baiño oporraldi ederragoak artzen? guk baiño luzeagoak eta urriñago?»

Egia esan, ez gara urrin joan. Orretarako aukera ta aalik be ez dogu izan, geienok beintzat. Baiña pozik gagoz.

Ba-dabil gure inguruan, euren oporrak izan dirala-ta, kontulari ta berba-lapikorik ugari. Langille soil diranen artean be ez gitxi. Bizi-modua gora dagola? Ta zer, arrokeria ta burutxoa agertu-naia merke diran bitartean? Kanarias, Benidorm, Torremolinos ta beste aparajuok edonoren mingaiñean parra-parra dabiltz. Andik eta ortik ibilli ei dira. Ba' liteke. Nok jakin? Baiña ez uste kirkillok ez dakigula ango barri. Aitaturiko bazterretan txera ta abegi onez artuak izateko, katanarrua lodi eukiaz gaiñera, gaztelaraz izan ezik beste edozein izkuntzaz mintzatu bear da. Ezagutzen doguz, zorionez edo zoritxarrez, gure errian beti edo geienetan gaztelera utsez jardun oi diran banaka batzuk, olako tokietan, al dabela, euskeraz bakarrik egiten dabenak; iñok entzuteko lez dagozanean batez be. Ori dok ori! Etxean atzerritar eta kanpoan be atzerritar. Eguzkia nora, zapiak ara. Sakon-sakonean nungotarrak ete doguz eurok?

Ez gara lotsatzen esateaz: berton igaro dogu gure oporralditxoa, urriñerako griña andi barik. Ba-daukaguz euki Markiña'n berton be erriko seme-alaba askok ezagutzen ez dabezan toki ta bazter polit zoragarriak. Oso merkeak, gaiñera. Berton ibilli gara, ba, ara ta ona, gora ta beera, gure txoko maite onen ingurumariak obeto ezagutu nairik.

Bein, taldeko batek ez ebalaz ezagutzen-ta, Kantera-Motx'era igotea otu jakun. (Mendi-tontortxu oni Torremolinos-zaleak Marquina-Vista esaten dautse. Ez dakigu Malaga aldean dabilzanean Torremolinos'i Bolutorre esaten dautsenik. Or konpon!) Zorrotxu baten sartu gure jan-edari gozoak eta an goaz aize osasuntsuaz biziña indarizera, erri maiteari agur egitera, leentxoagoko abesti politak iñoanez.

Ixillik gengoan gaillurrean gure erriari begira-begira, ta orra ustekabean norbaitek atzetik: «Agora sin turut de prabika y nada, sementerio o así parese Markiña». Baserritar jator bat zan. Guk, barriz, irri-barreka: «Gu markiñarrak gara, e!» Poztu ta argitu zan gure euskerea entzuteaz, baiña ez zan ixildu kolko barruan aginka eroian egi au jaurti barik: «Parkatu! Baiña makiña bat etorten da ona kaltetik... Euskeldunek diela esaten dabe arro-arro, baiña euskeraik tutik be eztautset entzuten, ta...»

Gure adiskide barriagaz bedar gaiñean nasai ta patxadaz jarririk, barriketa gozotan iruntsi genduzan gure zorrotxuko jan-edariak, anaitasun ederrean. Pozgarria, benetan, kutsutu bako euskaldun bategaz jardutea. Ba-dago oraindiño Ikastetxe Nagusietan ikasten ez dan jakituririk.

AGURTU DOGUZANAK

Udea zoro ta txepel joan jaku. Udagoienaren atadia, barriz, otz eta euritsu etorri. Dana dala, aspaldian erritik urrin bizi diran batzuk agurtzeko crea izan dogu:

—Alemania'tik etorrita Wolfgang Gorriaran, bere emazte ta alabatxu bigaz.

—Prantzia'tik Jose Antonio Zuberogotia, Anastasio Kamiñero'ren semea, bere sendiagaz.

—Bere senitartekoak Galizia aldean oporrak igaro ondoren erriratu jaku Jesús Noya.

—Arrizabalaga'tar M. Rosario ta Amoro-to'tar Ana Bitori karmeldar lakaimeak be poz-pozik ikusi al izan doguz gure artean. Noiz barriro, Kristo'ren eta gure erri onen alaba maiteok?

—Don Benito be agertu jaku alako baten. Opor antzeko egun batzuk emotera urtena zan, ta ain luzaro palta zala-ta, keskaz gengoan. Aurreko egun baten Meza emoten ikusiaz nasaitu jaku biotza.

GAIXORIK

Olabe baserriko etxekandre zoli ta arduratsua, Paula, ebakuntza bat eginda euki dogu Bilbo'n. Baita Garzia'tar Maite be. Osatuta biurtu dira biok euron kabietara ta pozik gagoz.

ILDAKOAK

Ez-bear andi bat izan eban aurtengo Dagonillaren 13'an, Lariz'ko gizon gazte Urriolabeitia'tar Andres'ek. Sendagilleak alegin guztiak egin arren, Jaunak beragana croan dausku. 47 urte baiño ez ebazan.

Gaixoaldi luze baten ondoren betiko bake ta atsedenera joan jaku Urriaga'tar Feliziana, Sakristaukue.

Goian begoz gure erritar maiteok. Otoitz bat euron alde. Gure samin biozkorra senitarteko ta adiskideai.

KIRKILLAK

BARRIAK

Bermio

ARANTZAZU'RA IBILLALDIA

Arantzazu'ra juen gariez bermiotarrak erromez, Birjiña Amatxo poztu dagigun otoitz ederren bitartez; Arantzazu'ko biden giñala Urkiola'n jatsi lenez, Andoni deunan eleizan danok Jaupa entzuteko ustez.

Deun Andoni'ren eleizan Jaupa Sabin aitak emozkunez, entzule danok, egon garanak entzun dogu gogo onez; abestiak be abestu doguz geijen-geijenok biotzez, eleiz ortatik ta Urkiola'tik urten dogu atsegitez.

Urten ondoren sartu gintzazan belbil edo autotara, barriro asi giñean danok Arantzazu urbiltzera; urretutean jatsi garizen eldutean Oñati'ra, emen bere ba-gendun asmoa jatsi zeozer artzera.

Asmoa etzan txarra iñontzat Oñati'n geldituztea, danok batera jakin gureaz nun dan zozketa-etxea; emen sartuaz ein gendubazan ingi-zozketak artzea, eta batez be egin genduan bakotzak bere ustea.

Oñati'n gora urten ondoren Arantzazu'n sartu gara, belbilletatik jatsiaz danok juen gara Ostatura; itxi giñuzen Ostaturon gauzek urten giñean kanpora, jan-ordurarte ibil gintzazan guztiok egurastera.

Jan-ordu ori eldu egiñaz sartu garizen jatera, jan-edanetan asi baiño len oneik guk bedeinkatzeraz; belaxe asi gintzazan jaten ta alkar izketatzeraz, danon sabelak alaitu ziran egonik auen artzera.

Sabelak alai geratu baiña eskertzen bapuz oroituz, eskertza ona izaten dala ori beti dot pentsatuz; jataldi-edanak egin ondoren emazteari aipatu, ez eskertzeaz gure Jaun onak ez gaizala iñor txartu.

Egun bi egin Arantzazu'n da bietan eleizkizunak, ostiralean, zazpiterditan Agurtza ta Meza deunak; zapatu edo larunbatean beratziterdik izanak, Meza ospatuz, Jauna artuaz amaitu goizeko danak.

Arratsaldeko iruterditan Agurtza deuna ospatu, onen amairan kantu ederraz egon-aldia amaitu; belbil edo autotan sartuaz Bermio'rantz abiatu, baiña onaiño eldu baiño len gure Balendin ikertu.

Berau ikertu egin ondoren barriro Bermio'rantz, ostera bere sartu Durango'n egiten geldi-egontza; emen ein dogun denporie guk ordubeteko alditza, sarrera izan gure Bermio'n bederatziko illuntza.

AZPEITIA'TAR GOTZON Arraintzalie

Usansolo


GAZTEAK LANEAN

Gaztedia dala ta ez dala, ainbat barriketa egiten dogu, ta azterketa batera joten ba'dogu, bein baiño sarriago ikusiko dogu, barriketa areik, ez daukela oiñarririk.

Emen, gure auzune onetantxe, zenbat aldiz esan dogun, gaztedian ezin leikela itxaropenik izan; gaurko gazteak zaletasunik ez daukeela; ezalako ardura barik bizi dirala.

Ta, barriketa orretan gagozala, aurpegiko bat artzen dogu noizean bein, asmatu ez dogun lanean egon dirala jakin dogunean, norbaiten agotik. Erritik urrin edo, ba-liteke, beste zeregin batzuk arduratuta, dana dala, mendi-ibillaldi neurtuko barririk, lengo baterarte, ez genduan ezertxo be jakin.

Ta, ez da atzokoa izan.



Usansolo'ko gaztediak antolatuta, Bagillak 19'an, izan ei zan Usansolo inguruko gaillurretatik, iru orduko neurrian.

Lenengoz egiten zan ekiñaldia zala-ta, ez da arritzeko, «Ganguren»eko mendi-goizaleen laguntzea eskatutzea. Ta, zer besterik nai eben talde jator atakoak!

Neurtu, atalik atal; agiriak ipiñi iñork uts egin ez dagian zuzen-bidetik; laguntza estutasunean dagozeneri, abar eta abar.

Eunen bat ume, txapelketa onetan, eta entzun dogun lez, zaintzailleak estu ta larri ibilli ei ziran, neurri antzeko bat aterateko ekiñaldi atatik, mutillak bata bestea baiño ariñago ikusita; nor lenago elduko arduraz. Txapeldun nor izan zan, ez dogu uste garratzi aundikoa danik.

Gure gaztediaren asmoa —ta euren artean, jakina, gure Julen eta Pili senar-emazteak, euskaldun arazoetan beti aurrelari dagozan ezker— umetxoetan mendi zaletasuna sartzea, ta Erria ezagutuaz, euskaldun nortasuna sendotzea.

Txapelketa zoragarria. Baiña onek eta beste ekiñaldi batzuk jarraipena izan dagien, bearrezkoa izango da, lenengo ta bein, gurasoak kide izatea asmo onetan; azken baten, euren seme-alabak izango dira-ta aberastuko diranak eziketa oneikaz, eta euren aberastasunean Usansolo ta Euskal-Erria txapeldun.

Usansolo'ko gazteok, eskerrik asko ta jarrairu bildur barik; barriketak, ekiñak iziltzen dauz-ta.

ATXUTEGI'TAR BITOR

ESNEAGAZ EGINDAKO

ESKATU BASERRI

UMETZUENTZAT

ADINEKOENTZAT

CHOBIL

ESNEAGAZ EGINDAKO

DIMA'N

Noizko ete da dimatarren umorea?
Jo panderoa eta eragin. Atzaparrei eragin eta gorputzari eta gonaei. Irudimenari eragin eta begiei. Bat ikusi ta a zirikatu. Bateri deitu ta beste loxindu. Bateri begiratu ta besteari kiñu...

Maritxu Petronila
Olabarrikue,
katuak jan dauksola
sutako talue.

Maritxu ez eizazu
katurik mankatu,
saguak kuyetako
katua biogu.

Gaztaña kolorea
daukazu Maritxu
Patxiko Artetxe'kor
zurituko zaitu.

Patxiku Artetxe'ko
tartien tartien
Igorre'ra yoaten da
nobiya eskien.

Eta alaxe, olgeta-benetan, erriaren gatza erakutsiz, umorea agertu eta zabaltzen, biziari irri egiñaz, biziari tartea artuz eta ziria sartuz bizi dira emen.

Ortuen perejille,
saleruen gatza,
faltrikera beruez
tabernan lebatza.

Lebatza ezin bozu
ba dago buzkantza,
pandero yoten nabil
kendu daizun gantza.

* * *

Ba nabil, Dima'n.
Menditarrak dira arratiar erriak. Mendi-tarrak eta menditsuak. Bizi-lagun ez ugari eta andi, baiña lurrez bai. Kontu egin Zea-nuri Bizkai'tik irugarren andiena dala lurrez. Eta bere ondoren Dima dagola. Zea-nuri'k 67,28 kilometro lautu, Dima'k 62,22. 45 kilometroko ingurua osotzen dabe Dima'ko lurak.

Ala ta be 1.500 lagun bakarrik bizi dira Dima'n. Kilometro lautuko 25 lagun inguru. Basauri'n, kilometroko zazpi milla. Alde ederra.

Arostegieta, Bargondia, Bizkarregi, Intxaur-bizkar, Indusi, Lamindako, Oba biak, Olazabal eta Ugarran dira bere errialdeko zatiak.

Erriko dirutzea, presupuestoa, bi milloko peseta.

Irakaskintza: Txikiena, erriko eskoletan. Erdikoa, batxiller eta antzerakoak, Yurre'n, bertotik lau kilometrorra. Langintzaetakoak, laboralak, al dan tokian.

Ogi-bidea, langintza: mendietan eta egur erabilketan. Serra bi dagoz.

* * *

Berrogetamar urte onecitan erdira da Dima. Orain 50 urte, 2.876 bizilagun eukazan. Gaur erdiak. Atzerago jota, orain eun urte be, 2.145 bizi lagun eukazan.

Orain 50 urte, Patxi Zalbidegoitia zan alkate eta Txomin Zarate, parroko. Bera eta beste bost abade laguntzale egoten ziran sasoi aretan erri onetan. Gaur parroko bat eta laguntzale bi. Orduko sei abadeetatik bat bakarra ez da bizi.

Sei taberna egozan orduan. Egia esateko, sei taberna aretatik, lau jateko denda eta taberna batera ziran. Iru serra be bai, ta beste lau arostege eta iru burdintegi, erriari. Eta Dima'n beti egoten ziran egur-ikazgiñak.

Arteagaz egiten dau
Miel'ek ikatza,
kurpittana bizia ei da
ta arteana latza.

* * *

Dima'ko siñiskerak:
Amatasunean bularretara bear aiña esne-rik ez yatorizula? Zoaz Bekorregi'ko Ama' rengana.

Zure neskatok ez dakila berbetan? Edo ta umiak nekez ba'datoz ibiltzen ikasten edo bildurti, zoaz Lamindaño'ko Amagañe.

Ala esaten dakie Dima'n.

Lamindaño'ko parroki au, San Pedro' ren «anejea» da. Arrati'ko parroki eta ermitetan, bigarrena denporetan.

Bertako Ama Birgiña'ren irudia, XV gizaldikoa da. Arteari begira esaten dakie, Ama baiño Semea urduriago dala. Ama gotikoa eta Semea Pizkunde tankeretan sartu nairik. Bikarregi'n dagona oraindik daukan baiño zar itxura geiago daukana ei da. Orduko santugiñak, zaarregi egin nairik, ez ei eban lortu artean zerbait dakienei ziri ori sartzerik. Orra. Lamindano'koak 0,88 daukaz luzeeran, Bekorregi'koak 0,60.

San Pedro'ren parroki, «anejea» eta beste bederatzirmita dagoz Dima'n. Ez, ain zuzen be, Arrati'ko errietatik geien.

Zarra ez ba'da be, oraindik 250 urte inguru, ikusgarri eta zaintzea merezi dabena, Erruki'ko Amaren ermitea da.

Jakingarria: Lamindano'ko eleizan txilin zaar bat dago, brontzezkoa, eta bertan au irakurri lei: Me fecit Johannes de Afinea. 1533.

San Pedro parroki noiz egiña zan ez ba'dakigu be, 1729 urtean erre egin zan eta beriala eleizaren arduradunak artzen ebazan amarrenak barriztatzeko eskiñi ziran.

Luze joan zan barriztatzea. Erremata artu ebenak amaitu ez, eta gero nasteak, asarreak eta zorrak ordaindu ezin. Urteak igaro ziran orretan. Zorrak ordaintzeko, erbestera dirua eskatu eta Durango'ko Santa Susana'ko monjak be emon zati bat, urteko euneko bi korriduan. Danetara, zorrak ordaintzeko, 87 milla errial eskatu ziran.

Aldare nausiko erretablua Pedro Pillan'ek egin eban eta 22.090 errial kostatu zan. Irudia, imagiña, bi milla errial.

1735 urtean egin zan barriztatzeko erremata eta oraindik ogei urte geroago lan asko amaitzeko egozan. Geroago, 1800 urtean, barrio premiña asko konpondu edo barriztatu ziran.

Dima'ko beste imagiña balotsu bat, gaur Bilbo'ko Arkeologi Museoan dago: Oba'ko ermitako Santa Ana, Andra Maria bere Semeagaz eskuetan dabela. Antxiñako esan nai askodun irudien agergerri da.

* * *

Amabi urte neukazan 1926 urtean. Ikasten nebillala, irakasle barri bat etorri yakun Erroma'uk. Markiñarra. Al eban guztian kontseju bat emoten euskun gure bizitarako: Dima'ko Aita Domingo'ren antzeko izaten alegintzeko. Il barri zan dimatar au eta santu entzutea beriala zabaldu zan baster guztietan. Berak be ezagutu ei eban. Sekula ez ei eutsan gauza berezirik igarri, ixil-ixillik, irribarezka une bakoitzean egin bear zana zintzotasunez eta betetasunez egitea besterik. Alakoxe fin-fiña ei zan Domingo Iturrate eta Zuberu, dimatarra, bere gaztearoko sasoirik onenean. Aurten ekarri zituen bere azurrak Bizkai'ra eta Algorta'n gorde, santuen aintzaz gordeteko asmotan.

Irutasuneko Ordenan, Trinidadekoan Dima'k azi ona sartu eban.

1971 urtean Ordena onetako Nagusi izentatu eben bertako beste seme bat. Zortzi izkuntza, berbete ei dakiz. Eta 42 urtegeaz Ordena bateko buru izentatzeko beste zerbait geiago be bear da. Orra Aita Iñaxio Bizkar-guenaga.

* * *

Jarraitu daigun seme jatorrak agertzen.

Bizarrak nok? Laga kaputxinoei. Baiña ara joan egin bear da. Eta an sartu zan bein Bargondia auzoko seme bat: Saturnino So-loeta Iturrondobeitia.

Fraidetu orduko Suiza'ko Friburgo'n Aita Getino'ren ikasle. Euskaldun jator. Maixu orrek be ala deitzen ei eutsan: euskalduna. Andik Argentina'ra joan eta aibat urtetan cuskera zabaldu nairik. euskaldunen artean lanean. Euskerazko liburuak be agertu zitun. Kursu bitarako ikasgaiak. Erderaz eta pran-tzesez.

47 urte eukazala, Bizkai'ra agertu zan etxeok ikusten. Zelan begiratu bear ete da bizitzeari adin orretan?

Bizkaia'n egoala Aita Fernando —ala deitzen zan Ordenan—, mixiolari sentidu zan. Eta Ordurarteko Argentina eta Txile'ko nausikeriak lagata, bakar-bakarrik Txina'ra joan zan. Eta an bereak eta bi ikusi beste 26 urtetan. Ango nastetan estu ibilli ondoren, Manila'ra joatea lortu eban eta antxe il. beste amar urte lanean egin ondoren, 83 urtedun.

Nik, beratzaz, bere auzoko batek idatzi ebana gogoratuko dot: «Burus azkarra, argia eta sakona, gitxi lez. Eta biotzez oraindik aundiago ta goragoa».

Beste dimatar argi bat? Liburtegiatiko saga deitzen dautse: Aita Akesolo. Baiña...

Bilbo'ko «Museo Arqueológico»n, testigantza bakan lez, Dima'n batutako illobietako gorantza edo lauda bat dago. Brontzezkoa. Urizartarena da. Egon zan Dima'n bizitza guztirako Bizkai'ko Foruetako alkate lez izentaturiko Urtuño Urizar bat. Arek ipiñia zan lauda ori bere aurretikoen illobian.

Laga daigun bizi meritu geiago irabazten, brontzezko oroirgarrien orde, biotzen eskar beroa agertu al izateko.

* * *

Lengo gizaldiko bat: Zamakola. 1804 urtean besterik ez zan entzuten Bizkaia'n. Orduko algara eta ekiñei zamakoladea deitu be eutsen. Orduko testigantzak diñoenez, Simon Bernardo Zamakola, Dima'n, siñistu ezin leiken aiñako eran maitatua zala.

* * *

Beste baten sartuko gara Balzoletan, lamiñak endredetan. Gaur, sartu garean lez, urten daigun pandero otsean Dima'ri kantetan:

Antxiñe esan neutsan
dimatar bateri
gorde zakidazala
prenda eder ori.

A. ZUBIKARAI

AGVR

Apartado n.º 2
BILBAO


FRANQUEO
CONCERTADO
08/55

ZUREAN

Berezkoa dauka orrek. Gauza ederrak egiten ditu. Orretarako balio izan bear. Askok nai genduke lan ederrak egitea ta jakituri aundiak zabaltzea, baiña ezin egin. Gure eskuan ez dago. Zerbait egin al izateko, baldintza bi oneik bear bearrekoak izan oi dira; berezko doaia eukitea, ta gero, norberaren lana, Egiña zenbat eta gauza aundiagoa izan, berezkoa ta norbere lana be, era berean, ari erantzun al izateko, indartsu ta zintzoa izan bear dau. Geldi egoteak ez lekarke aurrerapide ta argitasun aundirik.

Ertilari aundia aurkitzeko, uri aundietara joan bearrik ez dago. Lenagoko aundikikerietan, era orretan izan bear ebalu, uste izaten zan. Or, goikeriaren arrokeria ta norbera bizi zala, garbi irudian. Ertilari almenak sortzea gizonena ez dan ezkerok, gizon aundiarentzat lurreko edozein puntu, egoki da bere jaioter-rirako. Bein jaiu, ta toki artan bizi ezkerok, norbere kabi inguruak indar aundia izan bear dau edozein buru-biotzentzat. Baiña almen aundiak dituan gizonarentzat askoz geiago.

Laukariz'en, egun artetsu baten, lurreko argira, Ildepontzo Zarraga eldu zan. Iñork ezin eikion antzik emon ume aren barruari, ez zer ekarren bere baitan, barruan, ta ez iñoz erantzungo ba'eutsen sortzez arturiko almenei. Bere etxe ta ingurua, lenen ezagutu zituan zugatz artean. Zenbat bidar bere begiekin so egin eta eutsen ariztaren enbor sendo ta adar aidetuei. Aita soloan lan egiten bakardadean, ez arrokeri ta ez dirurik gabe, gure baserritarrak, euren kasara, bakar-bakarrik iñungo laguntza gabarik.



Orixe ikusten eben, gaur gizon nagusi diran, orduko umeak. Gurasoak lan ta lan. Nekepean. Begira. Itxaroten. Ta bizitza itzaltsu ta gogor onek, miñak esan ezin aiña gauz agertzen eutsezan aurrera, burura ta biotzera. Ta mutilla, or joian biziaren gogortasunagaz, al zan giñoan eraturten. Bizi bearrez, bizitzaren gogortasunari lan eginbearrez menperatuta. Eskuak lurrean, azterka ta atxurka. Ta neke ta lan orretan artea egoan mutillaren barruan lo-zorroan. Baiña zirika ebilkion aitaren bizia, ain nekepetua, barne-muiñeko sentipen miñetan.

Ume ta gazte aroko erti asmamena, bildurrez bezela, ixillik egoana, oraindik sasoi onean orbiztu ta argitara agertu da. Ume aroko aritz, intxaur ta gastaiñei bere barruan daroan bizi guztia, arte biurturik, ezarriko dautse. Suak erretako Bizkai'ko uri-urian sortu ziran nekeak, kurutzak, samiañak, negarrak olari ezarritu itzi dautsoz betirako egun itzal aren ezaugarri. Ondo landua, egokitasunez ertz guztiak artuta daukoz laukiak. Erriko jendeak eta baita jakitunak arekin batean onartu ta jakiturizko baietza emonda itzi dabe.

Ta baserritarraren irudia, lugiña dan bezela ezarri dautso olari. Gure arbasoak laguntzarik ez eben, iñundik, ezagutu. Gizajoak! Euren erara, ta bakarrik ibilli ziran bearrean. Lurrari ezarritu amabi-amalau orduan. beti nekepean. Zarraga ertilariari lan gogor onek, ainbeste urteen buruan, bere asmamenean egizko miña emon eutsen ta norbere aitaren zorrari erantzun egin bear. Aitaren neke ta ezbearrak agertu gabe ezin egon daiteke semea. Ori dala-ta, eskuak lurrari ezarritu, be-beian, ta burua gorantz adi, zer izango ete dan ez ete dan, begira. Or geratu da artistearen arima osoa, egoki tajutua, oso lortua.

SOLOZABAL'TAR PAULIN

Ezkontzea-Ausi

Ezaguna dogu aspaldion Italia'n egin daben eritxi batze au. Erriari itandu jakon a auxe izan zan: Ezkontza-austea gura ete eban ala ez. Ez zan izan itaun ain bakana, ba eukazan bere baldintzak eta neurriak, eta ezkontza-auste ori noizko eta zelan egin bearrekoa zan agertze batzuk, naikoa estuak.

Itaun au, Eleizearen aldetik eta kristiñauen artean, ezin leikean egin, zalan-tzazko gaia ez zalako. Baiña Laterri edo Aberri baten kristiñau diranak eta ez diranak sartu leitekez eta geienetan sartzen dira. Orregaitik ez da gure asmoa gaur eta emen laterriak egin dauan eritxi-batze ori bidezkoa dan ala ez, aztertzea.

* * *

Kristiñauen artean ezkontzea ausi-eziña da. Zergaitik?

Jesukristo gure irakasleak orrelantxe esan ebalako. Eta Kristo'k argi ta garbi ezarri zituan oinarriak, iñork ezin legikez aldatu edo ezbaian jarri.

Irakurri dagiguzan Liburu Santuaren berbak. (Mt. 19, 3-9):

«Parisai'tarrak, zirikatzeke asmoz, urreratu jakozan Jesus'eri eta esan eutsoen: —Edozeiñek eta edozergaitik itzi ete legike bertanbera bere emaztea? Jesus'ek erantzun eutsoen: Asieratik Egilleak senarra ta emaztea egin ebazala, ez doze irakurri? Eta gaiñera auxe esan eutsela? Orregaitik gizonak bere aita eta ama itziko ditu eta bere emazteagaz alkartuko da eta biak aragi bat egingo dabe. Ez dira bi, orduan, aragi bat baiño. Jainkoak alkatu dauana ez begi gizonak banandu. Eta esan eutsoen: Burugorrrak zarealako emon eutzuen Moises'ek emaztea izteko baimena, baiña asieran ez zan orrelan; ba diñotzuet: bere emaztea itzi (aragikeriagaitik izan ezik) eta beste bategaz ezkontzen danak, ezkontza-nastea egiten dau».

Jaunaren berba oneitan «aragikeriagaitik izan ezik» berbak zer esan gura daben, ez dabe jakitunak ondo ulertzen, baiña argi dago Kristo'k ezelako ezkontza austerik ez daua onartzen, eta zintzotasunik-eza mailla orretara eltzen danean, zer egin bear dan be ez dau argitzen.

* * *

Umeen ezitarako be ezkontza-austea kaltegarria dala, errez eta argi ikusten da. Sendiko maitetasun-giroa umeentzat oso bearra dala, ezin ukatu.

Eta senar-emazteak eurak be, gaztar-roan baiño geiago, ezkontza-austegaz ez leukez kalte makalak euranakutuko.

Izaten dira iñoz, ezkonduen artean, alkar ulertu-ezin sakonak eta asarre bildurgarriak. Zer egin olakoetan?

Alderdi bietatik egin bearko dira alegin sendoak egoera larri ori zuzentzeko, baiña eziña ba'da, alkarragandik banandu egin bearko dabe. Ez iñoiz beste bategaz ezkontzeko eskubidea lortzen dabela.

Egia esan, ezkonduen alkar ulertu-eziña mailla orretara eltzen danean, egoera ori larria ta sendiarentzat guztiz kaltegarria da, baiña gizonen artean jazo leitekena be bai. Aurreragotik bide onak arteko alegiñak egin bearko dira.

Iñoiz entzuten dogu eleizan be, len ezkondu ta agertu diranak, banandu eta barru ezkontzen dirala. Zelan izaten ete da ori?

Lengo ezkontzea, baldintza batzuk bete ez ebezalako, balioko izan ez zanean baiño ezin jazo ledike ori. Eta izaten dira olakoak be naikoa ugari.

Gure Erriaren eta sendiaren onerako, aintzat artu dagun ikurton onen deuntasuna, eta lagundu dagiegun gurasoai euren zeregin ederra betetzen.



IKUSTOKI ALAI TSUAK

Bizkai'ko lurraldeak ba-ditu Ikustoki ta Izpegi zoragarriak. Bai bein. Or doguz Durango inguruetako arkaitz gaillur eta sankon bitarteak. Bardin beste Euskal-erri'ko Eskualdeetaz desakegu. Ori ta be, gaurkoz, Bizkaia'n eta txangozaleen omenez, batez bere, amaseiren bat, danak barriak, apaindu ta eregiteko asmoekaz diarduenaz, onetzaz zertxobait esatera noatzue.

Lendik ba-doguz, bai mendiarte baita itxas-inguruetan, Urkiola, Gorbeia, ta Atxarte'tik asi ta Bakio ta Gaztelugatxe'raiñoko bideetan, gure begien betegarri diran ainbat eta ainbat zoko miragarri, udaldian geien batez jendez beteturik dagozanak.

Orain beste 16 barriak geitzera ei-doaz ta orretarako 1.360.000 lauerleko eragiltzera. Or doatzue toki ta izenen zerrenda bat:

Durango aldean bi izango doguz. Lenen «Artaza» izena izango dauana, ta ondoren «Guyuria» izenegaz ezagutuko doguna.

Inzunza'tik Mendexa'ra doan bidean, Lektio ta Ondarru'n inguruetan, «Mendexa» deituko jakona jasoko ei da, ta bere 120.000 lauerlekoren balioaz, guztion artean, bera izango garestiena.

Beste iru oneik ere, itxas-aldera begira eregiko ei dira, ots: «Bedarona» «Anzaras» eta «Pobeña» izpegiak izentatuko dituenak.

Durango'koen antzera, beste oneik be lur-barrukoak. Gernika'ko alderdian beste iru ikuskatu al izango doguz: bata «Luno»koa; «Bizkaigane»koa beste ta azkendutzeko «Nabarniz»en goratuko dana.

Markiña aldian, «Irurreta»koa jasoko dabe, ta Elorrio'ko ingurumarietan ain zuzen, «Mendrakas» deituko dautsoena.

Pozik egon leitekez gure udatiar eta txangolariak. Aize garbi osasuntsua arteaz ez-eze, ikusmira politenarikeen jabe ere izango diranez. Begira-toki guzti oneik euren poztasun ta onurarako izango bai dira.

Ta, eralketa danak, Bizkai'ko Aldundiak bere-gainduko ditu, alegia. Urren-gorako, 16'arak osotu ondoren, beste bostegaz onituko dira gure alderdi bakte-suak. Onein artean bata «Jainko»n eregitea erabagita dago, Mungi'ko mendiarte-an daurkigu toki au. Asua'ko ibarrean «Gaztelumendi»n ala ere bigarrena. Gaztelumendi au, gure gudaldian, oso nabarmentsua izan zan. Orduña aldean, «La Barrerilla» deitzen iakon lekuan irugarrena. San Salvador del Valle'ko «La Arboleda»n laugarrena. Burutzeko, Sopuerta'ko «Las Muñecas»en; benetako izena, euskalduna, izango dau, ta orrela deitu bear dautsagu beti. Beste biak be izango eban eurenena, ea iñork dakian ta argitzen gaituan. Ta, izena ta izana galtzerakoan, oraindio tamalgarriagoa litzake alajaiña.

Bizkaia'n lautik batek soillik ortxe-ortxe dakie euskeraz. Enkartaziñoetan ia iñork ere ez du euskeraz mintzaten. Zaila da, toki orreitan, euskera biztutzea, Kili-Kili ta ikastolen bitartez zertxobait egin al izango ba'da be. Dogunari baiña, eutsi dagigun. Gaztedia su ta ke euskaldundu. Ba-dogu arlo berezia lan eten bakoan jarduteko. Ez daitela banaka batzuen arazoa izan, ta gutxiago beste asmoen estalpe.

ARREGI'TAR JOSU

Dagigun Amets!

Lanaren lanez burua nekatuta neukala-ta, illuntziko kalerik kale ibillaldia mesedegarria izango jatala uste nuan. Deustu'ko zubitik zear, zarata ta berebillen kedats artean joatea ez da atsegiña, baiña olako ibillaldi batek, Bilbo'n beintzat, beste burutapen sakonagoak ekarri legikez: Eundaka edo millaka bizi-lagun, zar eta gazte, andrazko ta gizezko, langille, ikasle naiz bestetakoak aurkituko nitun bidean, baiña euskerazko jardun aldirik ez-eze, edozelako euskal girorik be ez nuan iñundi iñora nabaritu al izan.

Beste orrenbeste jazo jakun, gaur amabost, Durango'ko Ezkurdi enparantzean; betebeterik egoalarik —larunbat erratsalde zan— gure umeak eta iru agura izan ezik, beste guztiak erdelundak ziran. «Goazen emendik» esan neutsan emazteari, erriminduta.

Enatorkizue illeta-kanpaiekin... azterketa edo gogo-jardunen gaiekin baiño. Olako giroan, izkuntzearen eta inguruko arazoetan, geure artean darabilguzan alkar-joteak, kaltegarri dirala diñoenekin batera etorri neike. Iru edo lau eskutitz artu ditut, alkarizketea bearrezkoa dogula diñoenak. Banan-banan erantzuteko asmoa daukat, baiña ona emen, gitxi gora-bera, oiñarrik euren iritzia: «Naizta izkuntz arazoetan bat izan ez, ezin geinkezala erdibitu; batasuneruntz zintzo goazenak, alkatu egin bear garala; ego-aizeak jota dagozan «txano-gorritxo», mordoillozale ta «snobikeriz» euskerea zikintzen dabenak albo batera jaurtiz»...

Baiña, betikoa! Korapilloa aurrean daukagula, asketzen nundik asi bear dan jakitea, ez da erreza, korapilloa zelan sortu zan ez ba'dakigu... baiña zailagoa oraindik, daki-gunontzat: ari-puntak «ego-aizedun» orrekin eskuetan dagozala dakigulako.

Argiago esanda: Gure arteko nastea sortu ebekin alkar-izketan jartzea, amets utsa da, euren jokabide ta elburueri makutu ezik. Jokabide ta elburu orreik, gutzat, euskaldun geientzat esan nai dot, arrotz izanik, obe izango dogu orain arte bezela, bakoitza bere bidetik joatea.

Eta borondate onez betarik erdi bidean —ez gero, erri-bidean— ibilli nai daben orreik, zer? Ba, bear ba'da, ONU'ko *kasko-urdiñ* orren antzekoak izan leikez, baiña argi ta garbi jokatuaz, argi ta garbi gero!

Aldizkariak, ikastolak, dantzariko alkar-teak, Euskaltzaindia ta antzeko beste erakunde asko, alde batera edo bestera dagoz, norazean edo gogorkeriz artuta ez dagozanean.

«Gogorkeriz artuta» dagozan orretariko batzuk, gure erruz eskeratu zituen, edo obeto esateko, gazte giñala, aolkularizat geunkazan buruzagien aginduak betetzearren: «Euskal jakintza ta inguruko tresna guztiak ikutu eziñak dira; erri osoarenak izanik, ezin leitekez alderdikeri ta taldekerietan nastatu». Guk, agindu orreik ontzat emon genduzan, eta «kasko-urdiñez» bete ziran, aulki ta zulo geienak.

«Baiña «palestinoak, («ego-aizedunak») antzeko iritzi-dunak bai ditugu), zur jokatu eban, eta azpilanean abillak ziralarik, «kasko-urdiñ» guztiok alboratu edo ankar-gora bota ondoren, erakunde, ikastola ta aldizkari batzuen jaube egin ziran.


Eta olantxe eldu gara gaurko egunetara. Guk, «israeldar sabren» antzera, gogorkeriari aurrea emotea erabaki doguean, «ponpidou» asko azaldu jakuz inguruan: «Gogorregiak garala, bakea bear dala, anai arteko burrukea amaitu bear dala...», baiña «palestinoen» jokora itsu-itsuan makurtuaz, izkillaue euren eskuetara! Or dagoz ezaugarritzat, ixilleko lanaren bidez, ikastoletako zuzendaritzak «palestinoz» betetzen. Or, aldizkari ta irrati batzuetan sator-musturak sartu nai izateak.

Bitartean, gure «aolkulari» izan ziranak eta euren kutun barriak, ia zergaitik galtzen laga genduzan erakundeok, itaunka... olakorik! «Infiltradun» erakunde orren esanetara makurtu bear ete gara orain, buruzagi argiok? Ala ortik!

Geurcari eutsiko dautsagu, gure lurraldeetan barriak sortuaz. «Palestinoenok» eurentzat eta bide-lagun kokolentzat. Eta, guri deadarka datoza «kasko-urdiñ» bakezaleak, bitarteko egin dagiela, zintzo jokaturik, eskubideak zapaltzen itxi barik, sator-lana ontzat emon barik eta abar... ez da lan makala izango!

Batasuna urrun ikusten dogularik, lan egin dagigun bakoitzak bere aldetik, erriari igali, zein ederragoak eskeñiaz. Orrela, gure erriaren zentzun onak, aleak eta lastoak galbaituz, ongarrien dagokizanak aukeratuko ditu. Orduan, gure uste apalean, ez da «kasko-urdiñ» bearko. «Ego-aizedunen» joakoaz asperturik, asieran erakutsi dogun giroak beartuta, orko ta emengo errizale guztien alkartasunera etorriko dira... amets dagigun!

ARENAZA'TAR JOSU



Izkelgi Bakotxa Batu

Euskeraren makaltzea desbardin itz egitetik ez dator (au milla bidar esan dot). Orrégaitik, batzeak edo batua egiteak beste barik ez dau indartuko. Baiña bat-batean, gabetik goizerako euskera batu naia onartzen ez badogu be, geuk be bide orretan zer edo zer egiten asi bear giñake.

Geuk, AGUR'en, GOIZ ARGÍ'n eta antzekoetan idazten dogunok desbardin egiten dogu. Oartu gaitzen gipuzkoarrakaz, Batzuek NUEN, ZUEN eta abar, eta beste batzuk NUAN, ZUAN eta abar idazten dabe.

Lekuona, Zatarain, Baztarrika, Etxaniz, Arrinda, Labayen, Uxola ta beste batzuk NUAN idazten dabe ta Akesolo, Oñatibia, Estornes Lasa, Arozamena, J. Lasa, Basarri eta beste batzuk NUEN. Nik, gipuzkeraz egitean NUAN idazten neban Intxausti'tar Joseba'ren EUSKAL ADITZA'ri jarraituaz. Gure taldekoai, batera edo bestera egin bardin bajaku, auzi oneri erabagia emonaz NUEN erabiltea onartu dabena jarraitu naiago dot, Euskaltzaindikoai jarraituaz azkanengo aditz era au erabili. Ta alantxe, len NUAN eta bere saillekoak idatzita neukazanak kendu ta NUEN ta lagunak ipiñi ditut eginda daukadan lan baten. Jakiña, aldaketa au Lekuona'tar Don Manuel'ek gai onetzaz argitaratu dabena irakurri baiño len.

Bizkaitarrok be zer batu edo bardindu ba-daukagu. DAUTSO = DEUTSO, JAT = YAT, DAUZ = DITU ta orren saillekoak asteko.

Bear bada batzutan geure eretxietan amor emoteko ez gara egongo baiña askotan laster batera etorriko giñakela uste dot. Beraz zergaitik desbardintasun txiki oneik kentzen alegindu ez?

Erri euskera darabigula esaten dogu ta arazo au erriak berak denporeagaz zuzenduko dabela, erriari berari laga bear jakola izkelgi bat nagusitzen. Eretxi edo uste au okerra da. Erritar-erritarrez ez dogu idazten; nik neuk ez beintzat. Erritarrez idaztea, ondarrutarrak ondarrutarrez, markinarrak markinarrrez eta bermeotarrak bermeotarrez idaztea da. Geienon jokera ez da ori; gure errietako izkeratik asko urrundu barik bizkaitar osotua deitu leitekiona egiten alegintzen gara. Atsegiñez irakurtzen dira bai, tarteka agertzen diran erritarrez idatzitako Markiña'ko Arrizabalaga'renak lakoak. Baiña idazle guztiok bide orreri ez dautsagu jarraituko. Obe dogu esate baterako Markiña'ko kirkillak egiten dabene euskera ederra bizkaitar idazle guztiok geuretzat artu.

Erri euskera oiñarritzat artzea zabalagoko esanaian ulertu bear da: Berbeta batua nai osotua, erririk geienaren urrekoena, erririk geienak ulertzeko erakoa izan bear dabela. Errazoi au gogoan dogula bizkaitarrok geure izkelgia batu edo bardindu bear genduke ta gipuzkoarrak be bai eurena. Orretara eltzeko gauza andirik laga bearrrik ez genduke izango.

Beste errazoi, denporeagaz erria bera euskera bat itz egitera elduko dala ez dot onartzen. Erriak izkuntza bat laga ta bestea artu egiten dau, baiña, desbardiña dana bardindu edo batu ez. Izkuntza batek bide au edo bestea artzea nai bada eroan egin bear da erria bide orretara. Jakiña, ez itsumustuan, astiro eta arrazoiak kontuan izanik baiño.

Nik uste dot izkelgi bakotxa batze arazoari eldu egin bear geuntsakela, asmorik onenagaz. Gure taldean, au da, AGUR'en, GOIZ ARGÍ'n, DIARIO VASCO'n eta antzekoetan idazten dabenen artean ba-dira euskerea errotik ezagutzen dabena. KARDABERAZ BAZKUNA'k eroan leiteke ederto arazo au. Nik neure aldetik gauza bat bakarrik esango dot: Itz bat era batera edo bestera esan erdi bardin danean, bietara errazoi erdi bardin dagozanean Euskaltzaindiak onartu dabena onik geuk be onartu bear gendukela. Olan, geure borondate ona erakutsiko dogu mundu guztiaren aurrean.

KAMIÑAZPI

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri asmoen gaiñetik dabene indar-onen euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egi-leak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M.^a MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guttirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

Arrate'n Biar Bertan

Bizkai'ko «Bagillean», Gipuzkoa'ko «Garragarrillean», eta bat ez gatzelako tartean sartu dauskuen, ez bateko ez besteko «Ekainillaren» 9'gñean, aurren euskera-jakintzan ikasi dabene nor-geiegoa izango dogu ARRATE'n Jainko-amaren tokirik politenean. Orretarako eratu dabene gitaraua jaso dogu ta emen jartzen dutzuegu jakingarri. Arrate'n ba, alkar ikusi arte:

«ALDAZABAL'DAR PELI ZANAREN GORAZARREA XII'EZ».

10^oetan, Mezea, Peli'ren gogo alde.

11^oetan, Euskera-leiaketa —irakurri ta idatzi— 14 urterarteko umecentzat.

Maiburukoak: Euskeltzaindi ta EUSKERALAGUNAK'ekoak.

Sariak: zabaltzeko talde bitan banantzen dira:

11 urtetik 14 urterartekoentzat (Biak barruan)

- 1.^a TXIRRINGEA, TXAPELA TA KOPEA.
- 2.^a AIZE-IZKILLUA TA TXAPELA.
- 3.^a MILLA LAUERLEKO.

7 urtetik 10 urterartekoentzat

- 1.^a TXIRRINGEA, TXAPELA TA KOPEA.
- 2.^a TXIRRINGEA TA TXAPELA.
- 3.^a BOSTEUN LAUERLEKO.

Eta ondorengoeri, labankiñ-patiñak eta marrazki-kutxatxoak eta beste gauza asko...

Leiaketaren tartetean, Perez Sarasketa jaunak zuzentzen dabene Club Deportivo'ko «KEZKA'KO» dantzaiak ekingo dautse, euren dantza saio politekin.

Oarra.—Euskera leiaketa onetara, Euskalerrietako ume gustiak etorri leitezke euren alegiñak egitera. Ikastoleri eskatzen diegu, ez dagiela mailla bakoitzerako lau ume baiño geiago bidali. Eta ikastola bakoitzak zenbat ume bialtzen dituan leiaketara, jakin arazo bei. Bidali zertzelada guztiok Bagil, Garrill edo Ekainillaren 8'a baiño len, zuzenbide onetara: «EUSKERALAGUNAK», Apartado Correos 321, EIBAR, Gipuzkoa.

Au egingo diguzuten itxaroan, eta alde zuzen aurretik eskerrak emanen, artu izazute nere ta Eibar'ko euskerazalceen agurrik beroenak.

IDOYAGA'TAR ANDONI,
Zubigain, 3, 1.^a Eibar.

"SAN ISIDRO" SARIA

1.—«San Isidro» literatura-saria (1974), Gipuzkoako Cámara Oficial Sindical Agraria Elkarteak antolatzen du, lege ta oiñarri auekin.

2.—Irabazleak, 50.000 pezeta jasoko ditu.

3.—Lanak, euskeraz izango dira; makiñaz idatzita bialduko dira, ta gutxienez eun orri izango dituzte, eun folio alegia.

4.—Lanak, euskal baserriari buruz idatziko dira: lanak, oiturak, bizi-lagunak, kultura, buru-austeak, etorkizuna, ekonomia ta abar.

5.—Berdin da saiakera, bertsoa, nobela, ipuiak, kondaira, teatroa ta abar izatea, edozein literatura-mota alegia, len esan bezela euskal baserriari buruz baldin ba'da.

6.—Bertsoa bada, nai ainbeste bertso-sail bial ditezke, eun folio bete arte; bañan bertsoa erri-literaturaren eskolako izango da, bertsolaritzari dagokiona alegia.

7.—Egilleak iru ale edo kopia bialduko ditu zuzenbide onetara: Cámara Oficial Sindical Agraria, Oquendo, 16, San Sebastián.

8.—Lanak, 1974'eko Dagonillaren 15'garrena arte bial ditezke.

9.—Epailleak, antolatzeleak izendatuko ditu.

10.—Erabakia ta saria, Iraillaren erdi aldera emango dira.

ESNEAGAZ EGINDAKO

ESNEAGAZ EGINDAKO

GAZTE

AIZE KUTSUTUAK


ITOKO ETE GAITU BIZKAIA'N?

Zurumuru txarrak dabiltz errialde onetan, gai orri buruz. Aspalditiko jarduna dogu. Orren ardura dabenen asmoak-eta itxaropentsuak doguz, baiña bitartean, aize ustelduak arnasatzen doguz. Eskualde batzuetan ustelago beste batzuetan baiño.

Giro kutsutuaren kondairea, 1969'garren udagoena ezker, biziago darabilgula esan daikegu. Ain zuzen be, aldi ortan, agerketa bat izan zan Erandio'ko biztanleak sorturik, osasunaren aldeko neurriak artu bear zirala azaldurik, itoko ez ba'ziran.

Agerketa orrek, azken dolugarria izan eban. Aize garbiaren alde kalera urten ziranetariko bi, il egin ebezan...

Arrezkero or dabiltz eranditarrak, bide onez arazo ori atonduteko alegi fietan, baiña agiri danez, ez dabe gauza garbirik lortuten. Bitartean, biztanleak itomustuan dabiltz batez be urtetan gora joanak. Bost urte ez da ba epe txarra zerbait atonduteko, ez deritoxozue?



Diñoenez, batzorderen bat eraldurik dago giro kutsuaren kaltez jarduteko; eurentariko bateri, arazo orretzaz galdetu eutsoenean, auxe esan eban: «Bilbo'ko inguruari dagokienez, arazoa, ardura aundikoa da, aize pozoitua astuna dalako, baiña arindu, garbitu daitekela uste dogu. Ola aundietako ke-bideetatik urtetan dan kutsua garbitzea, ez da merkea izango, baiña berak erriari ekarri daikiozan kalteak, garestiagoak izango lirake».

Jardunak jardun diraue. Egiñenak baiña, geldi dagoz urteak aurrera doazen arren. Ito egingo ete gara ba? Itxasoko uretatik aldunduko gara. Guk barriz, orain, giro kutsu orretatik, alde egin gura. Lortuko ete dogu?

GAZTELU



eziketa jostailuak
eskulanetarakoak
irakasketa gaiak

gregorio de la revilla, 1
bilbao - 11

Jolasean ikasi, or zure aurrentzako emoitzarik onena

AGUR PAVIC



Bai, agur Pavic! Ba-zoaz, utsune bat zabalduaz sendi jator onetan; Athletic'a be sendi andi bat da-ta.

Tamalez beteta zoazena be, badakigu, zearo goibelduta. Ziur gagoz ez dozuzala errez aztuko gure errian eta Athletic onetan igarotako urte biok.

Ez noa emen, or zear izparringietan, kirol eta barriketa antzera idatzi diranak aipatzera, zure joateaz eta zuri-gorri taldeko jolas-tzain izatetik urtetzeaz. Auxe bakarrik nai dot gaurkoz, Bizkai'an egin dozun lan sutsu ori, naizta laburra izan, biotzez eskertzea, eta Athletic'an onerako azaldu dozun maitasuna ta danori emotea be bai; izan be, gure Athletic au, Bizkai'aren agiri bat dogu-ta.

Agur apala dozu au, baiña biotz-biotzekoa. Izan dagizula etorkizun on eta zorionsua!

URIARTE'TAR XABIER

LAU URTE-ARO

1

Gaztetasunak bere bide du udabarriko bultzaka: Aundi egin nai, aurrera jun nai gazte dan zugaitz txertaka.

2

Uzta emaitzik eztu oraindik, bai, ostera, artunaia. Bultz aurrera geroaren pozez. Aixa, gaztearen uaiia.

3

Geroa du gogoan gazteak itxadopenetan ero. Gero ondo izate asmotan... Gero ondo?... gero?... gero?...

4

Eztaki, ez, gaztaroa dala bizitz arorik ederren. Ba'leki ez luke soegingo. gero orrek zer dakarren.

5

Bego gaur aukera duanari, bai soin, bai gogo, bai amets. Aldikoa ikus bait liteke; geroa, berriz, beti beltz.

6

Bide geiena ibil geranok ikusi degu geroa. Ai, nork artu lezaken berrero utzi genun gaztaroa!...

7

Baiño, ezin itzul, ezin itzul; ezta atzera jotarik, eta orru, alakaz, dei-orru; ezin zaarrok besterik.

8

Ezta aski zorion garaian aukeratsu bizitzea. Zorionean zoritsu dedin bearreko ezautzea.

9

Jana izan ta jate ezpada, ezta inor elikatzen. Gazteek ere geroaren zai ez dute uztarik biltzen.

10

Gero, nai luketenean, ezin, ezpaitago itzulpenik. Garaian garaiko dala bide azaldu nai nieke nik.

11

Jolas zaitetze, gazteak, jolas. Udabarrian zaudete. Bildu bidertzeko marrubiak belar-ziri mea bete.

12

Jarri belarrietan zintzilik keixa bikote gorriak. eta, eskein neskaxa lagunei maite-leen ongarriak.


13

Abestu urretxindorrek antzo lore usaia arnastuz; lasai, geroko kezkarik gabe, gaur dezutena onartuz.

14

Gero, neke ta buruaustek... Geroago udazkena... Ondoren negua, eta kito! Aitu zan gure kemena.

GALLASTEGI'TAR MARTIN



AINTZIÑA ez dala, kanpotar batzuk, Durango inguruko aitz-mendi illarea ta zelaia ikusita, automobilla gelditu eben, abo zabalik, ikuspegiari begira egozala. Bertatik joian gizon bateri itaundu eutsoen:

—Ze erri da au? Pririneo'ak eta Suiza bere ikusi doguz, baiña orango inguru zoragarririk ez dogu aurkitu!

Sarri askotan, bertan jaiok, emendik kanpora joan eta beste leku asko ikusi arte, ez gara konturatzen, zenbaterainoko edertasuna daukagun begien aurrean!

Edertasun onek, Durango uria ta Durango aldea, Gerediaga Merindade'arenak batera dira. Durango, len, merindade osoaren izena ei zan; amairu erri inguru, ta Naparroa'ko zatia zan. Leenago, Tabira izenagaz ezagutzen zan uria: Durango'ko Tabira. Bertan, Tabira'n sortu ei zan Durango. San Pedro, Bizkai'ko eleizarik zaarrenetakoa, diñoenez.

Uria, noiz eraldua izan ete zan? Erantzuna ez da erreza: XVI gizaldian, su aundian, artxiboa erre zan eta orregaitik, Erdi-Aro'ko barri barik geratu gara.

Durango'ko Tabira ta Durango-aldea sarritan naastu dira. Olan, 1190' garren inguruan, Eleizbarrutiko sinodo bat egin zan, Orduan, Durango, Kalagorri'ko diozesiskoa zanean.

Aitatu dogun su aundi ori, 1554'garrenean, Epailleko amaikan, domeka goizean izan zan. Sua, Artekale'an, oial denda baten asi ta laister, seireun bat etxe ta Andra Mari eleizearen zati bat be erre ei ziran. Orduko etxeak olezkoak ziran-da, Torre batzuk izan ezik, dana kiskildu zan su-garretan, arresi barruan. Orain, Lariz torrea besterik ez jaku geratzen: Barrenkale'an, erreka ganean.

Egun larri aretan, durangoarrak, guraiña negar eta otoiz egin eutsoen Uribarri'ko

D U R A R B

Andra Mari'ri. Zelan edo alan lagundu eutsela esan geinke, ba, ainbeste zoritxar artean, illik ez ei zan egon, txirotasun osoan geratu arren.

Bizkor, Durango barria egin eben; arrizkoa oraingoan. Lau kale, euren izenak, errekatik asita: Barrenkale (1), Artekale (2), Goienkale (3), Kalebarri (4), eta kale guzti oneik ebagiten dabezan Zear-kalea (5). Ointzurarte ikusi dogunez, lurra arlosa galantakaz estaldua dago.

Andra Mari'ko eleizpe aundia ta txikia, biak, Kanpo-santu ziran; geroago, ildegia, Madalena'ra aldatu eben.

Santa Ana eleizea, dirudienez aurrerago-koa, beratxoago, orain plazea dagon tokian egoan. Bertako arkuagaz batera, benetan toki dotorea! Aintziñako arresien aztarren bakarra; zorionez zerbait geratu jaku orduko gomutagarri!


Andra Mari, Santa Ana eleizak, ta lau kaleok, orixe zan Durango uria. Kurutzia, «Ermondo», Piñondo ta Intxaurrondo ta beste batzuk egiten eben aintziñako Durango'ko inguru.

Zabalarre, Larrasoloeta, Ziermendi ta beste lur batzuk, lur-langitzarako erabilten ziran, naizta etxe ta kortak kale barruan egon.


Gure Durango asko azi jaku lurrez eta biztanlez... Alan da guzti be, Ameriketakoan aldean, Durango'rik txikiena dogu; baiña metroz ez da neurtzen erria! Jakingo al dogu aintziñako lanteagiak, ferreri, errota, ollerri, eule ta beste asko, bear dan eraz gaurkotuten? Eta, gelditzen jakuzan baserriak aurrera ataraten?...

Eta azkenez, guri jagokun euskaldun nortasuna gora jasoten...?

B'tar YOMA



Barrikuntzak
MUNITXA
Azken Joskerak
Montevideo, 4
81 12 95 urrutizkiña
DURANGO (Bizkaia)



BOST URTE inguru izango dira, «GAZTEEN ELKARTEA» sortu zala, Uribarri'ko Andra Mari eleizan. Bitarte onetan, 1.500 gazte inguru bazkidetu dira bertan.

Alkarte au, ogeiren bat gaztek sortu eben. Euren asmoa auxe zan: 14-18 urteko gazteentzat leku egoki bat antolatzea. Ta euren gogoetan, gizarte arazoa ta eziketee suspertzea.

Iriki zanetik, bere barrutian erri-legez jokatu izan da, bost urte onetan, gaztediaren asmoak zintzoki azalduaz. 1969'garrenetik ona, gairik asko erabili al izan dau:

—Eziketan, jakintzan: Itzaldiak, zine ta antzerki arazoak, 1971'gnean, azterketa edo billaketa bat egin eban Durango-erriaren jakintzari dago-kionez; eresi errikioatza eta abar.

—Mendi zaletasuna: Ibillera neurtuak eta osterantzekoak.

—Bizi-laguntza: Noizik-beingo batzarrak gurasoekin batean; urtean bein, baita guraso zarragoekin be, aitita-amonekin; dantzaldiak gaztediarentzat eta abar.

Ardura aundia izan dau baita, erriaren euskal-jakintzan. Arazo onetan, Agate deunaren jai ospatu gendun. Olentzero jai be bai; au, lenbizikoz Durango'n, eta «Toritxu Alai» taldearen laguntza. Jai au urtero egiteko asmoa daukagu.

BITAÑO

Akeit - Etxea

Gorenengo edariak,



Ezkurdi enparantza, 8
81 10 75 urrutizkiña
DURANGO (Bizkaia)

benetako akeita

CAFFÈ BAQUÉ



utsa — soilla



Aro onetan, bost urte oneitan, esan bearrean gara, Durango'k aldakuntza aundia egin dabela, gaztediari buruz. Gaztediak alkar ezagutzeko ta maitatzeko izan dauzan aukerak ez dira izan alperrikoak. Aukerok olan azaldu daikeguz:

a) Eziketarako bitarte egokiak. Ikasketarako zaletasuna sendotu ikastoletan, euskal-giroari eutsiaz.

b) Jolaserako bideak zabaldu. Jolaserako dagozan aretoetan giroa obetu; bardin akeitetxe ta enparau edaritegiatan. Gaztedia zentzun geiagogaz jokatzan da.

Arazo guzti oneik dirala-ta, gure Alkartea bide-gurutza baten aurkitzen da. Aurrera jarraitzekoan, bere elburuaren billa, gazte guztiok alegindu bear gara, zintzotasunean, sortu daitekezan eragozpenei gaiña artuteko. Alkartasun anaikorra lortuteko, alegiñok, gabiltzan deporetan, bear bada, zaillak izango dira, barruan ez dagozanetatik laguntza andirik izango ez dogulako.

Geuk egin bearreko arazoa da, gazteon arazoa. 50 edo 60 bazkide gara alegiñetan gabiltzanak, ta geuk bultzatu bear dogu arazo au. Geuk erabagi bear dogu gure Alkartearen etorkizuna.

Ez aitzu napartar bertsolari baten esana:

«Gizon izaten asi bear da,
gizon izaten emen...»

IÑAKI GORROÑO

AKEIT ETA EDARITEGIA

BIKANDI

Urdai - azpiko ta
itxas - maskorretan
berezitua.



Zumalakarregi, 24
81 10 21 urrutizkiña
DURANGO (Bizkaia)

ANBOTO, Mugarra eta Oiz'ko mendiak eratu eta oratu dabe, euren besoen artean, Durango'ko lurraldea, eta Euskalerrri'ko biotz egin.

Elorrio'tik Euba'raiño, eta Otxandio'tik Andikona'raido luza zabaltzen da Durango'ko ibarra eta merindadea. Au da «Durango» izen orren jatorrizko zernola osoa. Eta Durango'ko Tabira dau bere benetako izena, bertako uri nagusi orrek.

Kondadoa izan zan len, bazter au. Eta or dagoz Elorrio'ko San Aguztin'en arkupean eortzita bertako kondeak. Iru kanazko luzea dau ango konde batek. Soñia aiñakoa izan ba'zan egitez, ez nolanaiko gizona.

Gerediaga'ko ermitatxo aurrean, eta bertako zelaien gaiñean egiten ebezan euren Batzarrak Ibarra'ko eleizaldekoak; eta inguruko Astola'n eben aginte lekua. XIII gizladian jarri zan Bizkai'ko Jau-naren pean, ordurarte bere buruaren jabe izan zan Ibar au.

EUSKAL-KABI dogu bazter berezi au. Koba-leiza zar asko —len-euskaldunen bizitoki izan dira aurki—, inguruko atxetan; amalau, Anboto'n bakarrik. Eta aietan len-euskaldunen aztarnik asko. Mikeldi'ko arri bitxia Tabira'ko urian aurkitu zan. Zezenaren itxura dau arri onek. Eta bere anka artean, obo bi ditu zezenak: Lur eta onen alaba Eguzki eta Illargiaren irudiak, jakintsuek diñoenez. Anboto'ko koban bizi da lur orren ama, Mari, eta andik, zazpi urtetik zazpi urtera, Oiz eta Gorbea'ra aldatu.

ARNAS-LEKU be ba doguz bazter zoragarriok. Leku ederrak dabez. Ortarako, Oiz'ko mendi luzea, Anboto'ko



GURIA

Ekeit - Etxea

Santa Maria, 17
81 10 00 urrutizkiña
DURANGO (Bizkaia)



tontorrak eta Urkiola'ko zabaldiak. Naasmaas ageri dira pagadi zabalak, atx zorrotzak eta larre gizenak. Mundu guztiaren zear ibillitako Humbolt jakintsuak iñoan Urkiola'ko gaiñeetan: «Ez dut nere bizi guzian orrelako ingururik iñun be ikusi».

ERTI-LURRA. Nun emen aiñako argin eta errementari antzetsu? Bertako baserri zabal, jauregi eder, dorre aberats eta eleiz jantziok... lekuko.

EUSKAL-IDAZLEEN LURRA. Emengoak doguz Kirikiño, Arrese-Beitia, ta aita Zirilo. Lengo gizaldiko ogeitamar bizkaitar euskal-idazleetatik, amar doguz emengoak.

GAZTELA-BIDE. Emendi zoan, bai, Bizkai'ko itsaz-ertz eta barne-lurrak alkartzen zitun kaltzada zarra. Eta kate luze orren ale-buru, Bermeo ta Urkiola. Bide au bere, Gaztela'ko be-lurretarako pausoa. Emendik ara zoazten gure merkatarien burdingi ta arrain. Eta andik ona, angoen gari, olio ta artille. Emendik ara be, gure gaztelu-gille: argin, errementari, upagille, ta maats eta gari-batzaille. Emendik be, Indi ta guda-gizonak, arako kai bakar eta bearrezkoa zan Sebilla'runtz. Areikin joan ziran emengo aita Zumarraga, Mexiko'ko len goigotzaiña, eta emengo Zabal gudalburua, Uruguay eta aren Montebideo'ren aita.

OLA-TOKI. Mendiak, meatzak, olak, burdiña, lantegiak, tresnak... ospetsuak izan ziran, Abadiño'ko Lebario ta Otxandixo'ko Olak. Emengo ultze, kate ta burdin-tresnak eroan zitun, diñoenez,

IDAZTEGIA

URTIAGA

Idatz - geletarako gaiak
eta idatz - tresnak.



Montevideo Ibilbidea, 1
82 02 81 urrutizkiña
DURANGO (Bizkaia)

Kristobal Kolon'ek, bere ontzietan, Ameriketarako bere ostera aietan.

EUSKAL-KIROLEN KUTXA. Bertakoak doguz bizkaitar probalari, pillotari ta dantzari trebeenak. Euskalerrri osoan ezaguna zan Urkiola'ko Martin Gaztelu probalaria. Ezagunak be, gure pelotari Azkarate, Gartzia Ariño, Agirre ta Gorostitza. Eta nun ez, Abadiño, Berriz, Yurreta, Izurtza ta Mañari'ko dantzariak? Emengo dantza nagusiak: «Aiko Periko», «Aita San Miel», «Txankurrinka», «Biñakua», «Ezpatak», «Makillak», «Erregela-dandarrasak», «Artokamaran» eta abar.

OTOITZ-LEKU. Emen dagoz Bizkai guztiko eleizarik zarrenak: Abadiño, Yurreta, Elorrio... Emen be, kristau-illarririk zarrenak. Emen ermitak, ugari, polit eta zar. Emen, eleizetako arkupe zabal ederrenak. Au dogu, agian, lenengo kristautu zan Bizkai'ko lurraldea.

URKIOLA. Antxiña, jentillen aroan, emengo artzaiñak Anboto'ko kobara joaten ziran, euren aariak eskutik, bertako Mari'ren mesedeen eske. Kristautu ta gero, eta Urkiola'ko lepoan, lengo jai eta otoitz-lekuan, Santutegi bat jaso eben, eta San Anton bertako altaran jarri. Onen, San Anton'en ardura eta zainpean datzaz arrezkero, len Mari'ren eskupean egozan izadiko aal, indar eta doai guztiak. San Anton da, beraz, artzain eta nekazarien zaindari.

Noiztik? Argiñeta'ko kristau-illarrien arotik, noski. Orain millaren bat urte ezkerotzik. Geroago, beste Antonio bat, Padu'koa, emendik igaro zala-ta —au ezkongai, gauz galdu eta gaixoen zaindari— aren ondoan jarri, ta giza-gaixoen bearrizan guztiak artzen dabez euren egalpean, santu biok era batean.

Arrezkero, Urkiola'ko kaltzada zarra, merkatarien bizi-bidea ez-ezik, erro-mesen kurutze-bidea izatera be biurtu yaku. Gorputzak ez-ezik, arimak be bere bearrak izan!

MANUEL ESTONBA

ANBOTO

Akeit - Etxea

Goienkale, 18
81 10 20 urrutizkiña
DURANGO (Bizkaia)

Nunaiko

Aizeak

Danetarik dakusgu eskualde guztietara begiratzen ba'dugu. Tamalez, ordea, txaretik ugariago onetik baiño.

On litzake, adibidez, Kuba berriro onartua izatea OEA erakundearen altxoan. Leen ere, Kastro'ren jaurpidea ain nabarmen erori izan ba'zan sobietar komunismoaren atzaparretan, gainetako ameriketar laterrieri egotzi bearko genieke errurik geina; Ipar-amerika guztiz altsua lenen mailan ipiñirik.

Begira nundik uneotan Txile duala bere etsairik gogorrena Karibe'ko laterri txikiak... Nork esan zezakean onelakorik orain urtebete? Nolanai ere, txiletar ordezkaria urrunegi joan ba'zan OEA'ko atek Kuba'rentzat itxirik jarrai dezan alegiñak egiterakoan, Txile barruan indarrezko politika ezarri duten gudu-gizon zakarren jokabidetik etzegoan besterik itzaroterik.

Izan ere, Txile'n gaur egunean aski da gizartezale edo komunist —utz ditzagun at talde ertzekoi apurtzailleak— izatea, edozer uskerigatik sekulako zigorrak jasotzeko. Gaiñontzeko politiku alderdiek ere ixillik diraute. Ala ta guztiz ere, poz-pozik azkenean berearekin irten ziran eskuindarrak. Pentsatzen asten ba'gera orain urtebete «terrorista» amorratuak zirala...

Esku gogorrez ixil-erazi ditualako daude ixillik kristau-demokratak eta eleiza. Beren irriatik ixillik, izparringiak nai dutenik esateko eskubideak galdurik —guztia legez ezarria izan zaie, noski—, txiletar demokrazizaleek, naiz kristau edo bestelakoek, etzuten onelako ordaiñik itzarongo gudu-gizonen indarka onartu zutenean; baiña, leku onean gelditu dira. Gudugizon oetako batek, asko lotsatzeke aurreratu zuan lez, «ogei urteko diktadura» aldia igaro bearko omen du Txile'k indar gaiztoak (?) eze-reztu ta demokrazia bir-irabazi aurrez. Ori da, ori, ikuspide argia!

* *

Goazen Argentina'ra. Peron'ek ere ba-du naiko lan, artutako erantzukizuna betetzen. Au lendakari aldarrikatua izan, eta berealaxe artu zuan arako bidea, egonaldi bat emen egindako euskaldun aiton atsegin batek. Peron'en eta bere mugimenduaren etorkizunaz itaundu nionean, onela erantzun zidan: «Leen Peron'ek eta bere morroiek atsa eman zieten argentinar talde ertzekoi gogorzale oeri. Ea orain nor dan baretuerazi ta mutil on biur daitezzen».

Dirudianeaz, erabateko iraultza besterik ez dute onartzen taldeok. Eta Peron'ek ain oinkada ausartik ematerik etzutelarrik —aal ba'lu ere ez luke emango—, laister okertu ziran elkarrekiko artu-emanak. Bere esa-

netara onean etzituala jarriko ikusirik, lege zorrotzak aldarrikatu zituan naasketa ta indarkeria kaletik zuzterkatze arren. Ala ta guztiz ere, orduan-da kementsuago eraso dute aiek, batikpat atzerritar ekintzailleen aurka. Baita ere, noski, gudu-gizon eta peronzale zenbait baitu edo il ere, egin dute aspalditxoan.

Gauzak onela, egunetik egunera biurrutzen ari diralarik, Ford etxeak iges egin du bere milloi guztiekin, eta beste onenbeste egingo dute martxa ontan Arjentina'n etxeak dituzten ameriketar naiz europatar ekintzek, nola-ta jawlaritzaren ertzainek ez duten aguro mozten aien geikeria. Azkenean gudarostea kalera jaurtitzeko agindua ematera beartuko ote du lendakari zaarra?

Kinka ontan aurkituko ba'lit, nola jokatu ote luke Peron'ek?, Batzuk diotenez, au dagoaneko ba'dabil aberria bein betirako utzirik Madrid'eko bidea berriro artzeko asmoak ausnartzen. Ostera, artutako erantzukizunari ez diola ala-ta-ola uko egin nai baizeten dute beste batzuk. Bata ala bestea erabakitzen duala, arjentinatar demokrazia bein eta berriz galzorian dakusgu. Onelakoxe egitekoak egiten ditu eskuindar diktadurak: beste muturrean, iraultzaille askatzaille larruz itxuraldatutako indar gogorzaleak sortzen lagundu. Auxe da, onenean ere, ondorengo demokrazizaleen gain jausi oi dan zama astuna. Nunai ditugu onen argibide edo frogak...

* *

Onelakorik ez dedin gerta, ez dago aundizkien eta altsuen geiegizko leentasanak laburtzen alegintzea bezelakorik. Ortantxe ari omen da jo-ta-ke Venezuela'ko lendakari berri dan Carlos Andres Perez. Laterri aberats ontako ondasun berezkoak —arrolio, meak, etab.— atzerritar ekintzen eskuetatik kentzeko zorian omen da. Zenbait ondartzat antzeko jolasleku bitxiak ere, gutxi batzuenak ziran oraindaiñokoan. Aurrerakoan ez dira izango erritar guztien jostaketarako baizik.

Eta azkenik, kaletik gaiztakeria ta lapurreta zuzterkatzeko neurri gogorrak artzen asia omen da. Nai litzake, goikoen geikerien urrengoz beekoen aieri ere gogor egitea. Auxe omen da CAP kementsuaren leloa: «demokrazia, kemenez». Kemena bearko du, bai, jauntxokeria, indarkeria ta gaiztakeria zuzterkatzeko. Gaiñera, gisa onelako garbitasuna egiteaz arduratzen ez dan demokrazia ez litzake batere jatorra, ez egiazkoa; ustel-ustela baizik.

JOLU'K

BI ALDI, BI ERA, BI GIRO

«Gulak Ugartedia»

Egilea: Alexandr Soljenitsin

Presaka presaka, dakigunez, Plaza y Janes'ek argitara eman du errusian Nobel Sariaren itzulpena, zeñaren izenpurua, irakurle, goian daukazu. Nik eskuetan daukaten liburu au, dotorea da, mardula. Baditu 456 orrialdi.

Egia esateko, ez dut liburu osorik irakurri, ez dut nai ere, aurrera bizitzeko lotsak ez dedin iges egin. Kapitulu edo atal batzuk, orratik, irakurru ditut, asi ta akabo. Errioxa aldean, nagoenez gero, konparazio edo berdintza bat ezarriko dizut emen, irakurle. Ardotegei edo delako «bodega» batean zer nolako ardo dagoen jakiteko ez da bearrezkoa ardo guzia edatea, aski da ardo-txirripa bat dastatzea. Orixe berbera egin dut liburu onekin, ez bestegatik, irakur-erraza delako baizik.

Ez da nobela, historia baiño. Liburu izugarria! Espantagarria! Ta utsa liburu utsa balitz. Kafka'ren nobeletan mugitzen den gizarteak aingeruartea dirudi liburu onek azaltzen digun gizartearen ondoan.

Espero dugu, ainbeste kanpai ots entzun ondoren, noizbait ere elduko dela zorioneko gizarteko Paradisua, gizonek bere buruekin, izadiarekin, beste gizonekin pakeek egin ondoren sortuko duten Paradisu zoragarri ura. Baiñan, gauzak aldatu bearko dute zertxo bat ordurako...

Liburu onek argi ta garbi azaltzen du edo azaldu nai du, gizalege edo zibilizazioari buruz, 1918-1969 une ori beeraka andi bat izan dela Zar aldiarekin berdindu edo konparatuta. Esate baterako presondegiatako bizitzan. Ta ala da. Aski da irakurtzea ortarako Dostoyevski'ren «Humillados y Ofendidos» liburuxka.

Liburu izugarria! Espantagarria! Ta utsa liburu utsa balitz. Arrestoak, zigorrak, presondegiatako bizimoduak, trenetako ibillerak, eriotz-zigorrak, eten gabeko galdekizunak, mamut bihurturiko gizonak edo gizon antzekoak, ezin esan aalako gauzak, guzi guziak bere aurpegi atsietuekin, aurrez aurre dakusku liburu ontan. Nonbait, komunismoaren aurgintza luzea eta mingarria da, odol asko bear isuri. Orixe! Izan ere 1918-1969 une ori komunismoaren historia bait da Errusia'n.

Ah! Baiñan, dio norbaitek, Lenin, Stalin, Nikita K'ren garaikoa, ordea. Geroztik, ezagun da, gauzak asko aldatu dira Errusia'n... Bai noski. Geroztiko agintariak, Breznev eta osterantzekoek ostikoz jo eta mugaz kanpora bota dute egia esatera ausartu den gizona, ta ondatu nai.

Basa-abereek ere ontzat emango ez luketen gizabidea liburu ontan. A. Soljenitsin'ek ematen diguna, ez katamotzek ez leoiak berek ere. Baiñan, azkenik, Errusia'ko kontuk eta komerik, dio beste batek. Bai zera ere. Orrelakorik gertatu da, gure denboran, Alemania'n, Italia'n, eta onuntzeaxego ere.

Suiza, lege nausiz gerrarik ez zeren ez noren kontra egiten ez duen erria, eriotz-zigorrik bere legeetan ez daukan erria, betiko elurraz jantzitako mendiarte, autatu du bere oraingo egoitza ipintzeko. Egurasteko ba ditu ibiltoki ederrak Zurich deritzan iriak. Antxe bizi da gure Alexandr Soljenitsin. Baiñan, zeren bidez eta zertarako bizi, ikusi ditunak ikusi ondoren?

Ausnar eta ikustekoak jasan al izateko bizi nai dut!
Puskin, beste errusiar idazle baten itzak. Beñiola, leenengo aldiz, Londres'ko Parlamentuan izan eta bere errira itzuli zenean, ala galdetu omen zioten Bernardette Devlin'i.—«Ta nola arkitu duzu Londres'go Parlamentua»? Ta neska jatorrak erantzun: —«Urdeak urde dira alde guztietan». Nik ere teillatuz beetiko politikari buruz beste au ezarriko nuke:

«Gizonaren adiskiderik leialena
arbola, bide ertzean zutik dagoena».

Alperrik da, goiko iturri gardenek garbitzen ez badute gizonaren barne likitsa. Ongi esana: —«Urdeak urde beti».

AUZOKO ERRIAK AUTATU DU LENDAKARIA, GISCARD D'ESTAING

Aspaldi ontan gure inguruetan ba dabil iskanbilla ugari. Portugal'en zer gertatu den guziok dakigu. Odolgabeko iraultzak aldakuntza andia ipiñi du agintzaren erpiñean. Leen agintzen zeudenak ugarte batera —delako Isla de la Madera edo— bidali dituzte itsas aize freskoa artzera. An dagoz geroztik orain agintzen dauden bizkar marmar egiñaz.

Andoni Spinola, guda gizon ospatsuak iriki dizkió Portugal'i Europa'rako bide zabalak. Udaberriarekin batera agertu du bere irrifarre gozoa gizalege jatorrak eta, espero dugunez, demokrazia egiazkoak. Erria txalo ta txalo kalera irten zen. Naiz denbora luzean bizi izan libertatearen arbolako fruitutik jan gabe, oraiño ez zen iritxi kateak, esklabotasuneko kateak maitatzera.

Gudagizonen alderantziz jarri dute Portugal ta, mirestekoa den gauza, odol tanto bat isuri gabe, esate baterako. Camoens'en diña den arraza, Portugal'ko arraza. Orrelako aldakuntza sakonik ezin egin emekigo, leunago. Jainkoak lagun deiola artu duen bideetan! Orixe diogu opa.

Portugal ola ta Frantzia ala. Emen ere izan dira naiko gorabeera eta komerik. Azkenean, ba dute gure auzokoek Lendakari berria, Giscard d'Estaing, sasoi-sasoikoa, berrogei ta bederatzi urtekoa.

Frantzia erdibi egiñik arkitu zaigu. Alde batera, Frantzia euskuitarra, liberala, XVIII mendeko iraultza famatu artatik sorturiko Frantzia, V Republika. Beste aldetik, Frantzia ezkertiarra, sozialzalea, bakoitzari baiño gizarteari jaramon geiago egiten diona, beeko langilleen eta gazte ugarien Frantzia berria.

Zer egingo da? Datorrena artu egin bear, beste ark esaten zuen bezala. Frantzia'ko azken gorabeera eta gertakizun oritatik ikasgai batzuk ateratzea komeni da. Garai batean, uste genduen sozialismoa Europa'ko goiko edo ipar aldeko errepublikari zegokiela. Ai! Baiñan, mantxo-mantxo beeruntz dator-kigu, Aurki gure erria ere bihurtuko da giza-erlauntz baten gisa.

Urrengoz txandan, leikena da, Patxi Mitterrand'ek irabaztea, gooraka bai dijoa aldameneko sozialismoa. Esanak esan, ba du naiko lan Giscard d'Estaing'ek ainbeste gazta klase eta bi erdi ain mugatuak dauzkan zorioneko Frantzia ori.

Ta galderatxo bat bukatzean. Nori eman ote diote botoa andik aldeko euskaldunek. Ba dirudi eguerdi aldeko eskualdeak sozialismoa maiteago dutela.

JOXE LASA

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK
OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

ZAZPI-KALEAK



GASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

ARRIATIA

Antzuola

ERIoTZA

Amairu urte emen, Antzuola'n, «maistra» egin ondoren, Joakiña Bidaurre, Iruña'n il zaigu. Azkenengo Eguberrietako oporraldiak igarotzeko zegola, gaitz gogor baten atzaparretan erori zan, azkenean ere, berea egin duan arte, utzi ez diona.

Loraillean, bere ikasleekin batera ainbat bider «eskola»ko leioetatik aurrean duten sagaztiko sagar zugaizak loratzen ikusiko zituan illean il da, baiñan, aiek gero udazkenean bezela, bere frutua eman ondoren.

Naparroa'ko Markalain bere errixa politan ospatu ziran bere illeta eleizkizunak; emen, Antzuola'tik, bertara azken agurra egitera joan ziranak ez ziran gutxi izan. An ikusi zan bere ikasleak zioten maitasuna: ikasleak, maixu lagunak eta amairu urtean zear errian bereganatu zituan ainbat lagunek eskeini nai izan zioten omen ixilla. Goian bego!

BASERRIAK

Loraila aitatu det, urteak duenik illik alaiena noski. Azken urte auctan ordea, ez digu egiten oituak giñuzen egualdi —kanpo egualdi— eder aiek. Noiz nai otza ta bustia nagusi. Eta egualdiak urte-aro onetan, zer-ikusit aundia izan, batez ere lurretik jan bear duanarentzat; eta, zeifiek ez du lurretik jaten?

Esan nai nuen —lurretik bizi bear dutezentzat— baiñan egualdia txarra egin ala ona egin, gaur gaurkoz, emen, ori gizonaren eskuan al da? Bai al litekez? Oraindik siñesten duanak eta baserritarra perira joaten ikustean, «bapo bizi dala» esaten duanak, irakurri beza Iñaki Linazasoro'k atera berria duan «Gipuzkoa'ko Baserriak» izeneko liburua. Ai! eta, ez pentsa ametsetan zegoela idatzi duenik. Ametsetan... liburu au burutzeko, moldatzeko, ainbat eta ainbat arkibide bildu al izateko, igaro bearko zituan baso bide eta bidexiorrak, ez ziran gutxi izango. Lerro auen bidez, bijoazkio zorionik beroenak tolosar egiña dan Linazasoro'ri.

Bere liburuari buruz egindako aitormen batzuetan, zera zion, alegia, baserria utsi eta kalera zetozenak, beren basetxea ez dezatela aaztu, besterik ez ezean, aste bukatetan beren jaitotxera, baserrira, jo dezatela, tellatuari eusteko ez pa'da ere; ala, Euskal-erria'k bere itxura galdu ez dezan. Baiñan ango orma txurien erdian ikasitako Euskera gozo ta garbia galtzen ba'da, zerk balio itxurak?

Baiñan ez, ez! Ori baiño itxaropen aundiagoa ba det; ez naiz ain ezezkor, eta gure baserri utsetara, bertako izakera benetan maite duen enarok etorriko dira berriro: ere, baita Euskera ez dakitenak, ango pakean, kuku otsak bakarrik austen duan ixiltasunean, gogoz ikastera etorriko diranak ere izango dira. Oietako bat, lengo astean jaso nuen

bere eskutitz batean esaten zidanez, aurtentorriko ez pa'da ere...

AGUR onen irakurleak oroituko zerate berarekin, asteroko onek, bere luma txukunaren berri ba dakianez; txukuna diot... lotsagarri ba'da ere, bere idazkiak irakurtzea milla bider errexago zait, emen gure tellatupeko zenbaitenak baiño, eta ez pentsa gero, gure atari aurrekoa danikan. Egun batean, Euskal-erria zeritzan lurralde txiki ontan izkuntzik zaarrentakoa gendula jakin zuen Finlandia'ko puntakoa baiño ez da; eta ez ta ere, ez zazute pentsa, bere izkuntza ta gurea bakarrik dakizkiñik.

Begiak, noiz zabalduko ote ditugu? Ikusteko gauza ez geranean? Auskalo!

MATXALEN

Arratia

ANDIK, ORTIK ETA EMENDIK

On-iritzia baiño zurikeria geiago irudian euskerari buruzko erdel-lan bat argitaratua izan zan, Bilbo'ko eguneroko baten, Bizkaí'ko Gotzain jaunaren beñio-lako auzia, oraindik bizi-bizi ta purrustaka ebillan egun areitan. Eta gure izatearen eta nortasunaren zati eder-ederra dan izkuntzari, berbeteari ikututa ta zirrika au lako batzuk esaten zituan: «Euskaldunok, euskeraz irakurtzeari emonak eta zaleak ba'giña, erdel-izparringietan, euskereak ez leukela zoztorrik eta eragozpenik izango».

Jaun aren iritziak, onak, zuzenak eta argitsuak izango dira ziur asko, bere kolkorako. Baiña arrezkerok entzunak entzun ondoren, eta jazoak jazo, arek esanak eta nire etretzi ta usteak, ezin alkarregaz ezkondu.

Gurasoak berak, bere umearentzat aukeratutako izena, alakoa naiz olakoa, zergaitik galerazo ipintzea? Zergaitik, zergaitik?

Eragozpenik ez. Baiña orrazia buru uletsuan, narru gorrian...

* * *

Alperrak eta nagiak gara, izan be; itsutu-bildurrez-edo, euskeraz irakurtzen. Iru-lau lerro irakurtzeak nekea dakarkioe batzueri. Landa zabaltxoagora zabaltzen diran begiak be. ba-dira. Geientsuenok baiña, irakurle kaskarrak, eta ao bete azurrekin bizi gara, non zer jazoten danik ezer ez dakigula.

BARRIAK

Izaten dogu barririk, batetik eta bestetik, gaur egungo euskal-arazoari dagokion jakingarririk. Ber-ikusit ba, AGUR, 135 zenbakia (alea). Eta irakur leiatsu, Tolosa'ko «sekuestroa».

Irakurri begizue baita, 136 zenbakia ere, «Moderatuei», «UXOLA»k Tolosa'n egindako lana dogu au ere. GOIZ ARGÍ'n, Lasa'k argitaratu dauan «Batasuna ta Euskera Bizia»k bere, mamiñik eta zer ausnarturik ba-dauka, 190 zenbakian.

* * *

Eguna gauari ongi-etorrika, gaua egunari agurka, egozan. Illunabarra zan.

Ainbat errietako 8-10 neska-mutil gazte, arratiar bat arteko, satorrai neurriak artzen, arerioaren ekaitz aldia zelan baretu (batuan: pazifikatu), ta beste egitekorik nola burutu, buru-belarri ari ziran. Euskal aldizkariak be, eskue-tan zituzten, ebezan.

Arteko zan bateri, ezkontzak, jaitzak eta eriotzak agertzea ez yakon atsegin. Zer egin?

Gazteok gazte zaren arte, zabaldu paparra, erakutsi bularra. Eta ez ezetsi (aintzat artu ez) urteen astuntasunez tximel-makurtuta gagozanon lanerako tirria, zaletasuna.

Madrid'en izenean Europa'ko ostikoketa-txapelketeta jokatu ebenak, oraingoan be, irabazte. Utsik joan ziran, laugaz etxeratu. Arrati'koak barriz, mailla bat goragotu.

LANDAJUELA'TAR A.

Galdakano

EZKONTZAK

Ia-ia aztuta euki dogu, ta benetan tamal izango yakun ezer ez aipatzea, gure lerro batzuk baiño geyago merezi dabena dalako, ta oneik zuzenduten dautzaguz.

Orain aste batzuk, Begoña'ko Ama Neskutsa'ren txadonean, gure erritar Totorika'tar Izazkun, osagille-laguntzaille edo gaixo-jabole Bilbo'ko Osatete nagusian izandako neskatilla lirain euskaltzalea, bilbotar Lopez'dar Ixidor mutil azkarrakin ezkondu zan. Azketsi ba Izazkun lenago ezer esan ez dogulako AGUR onetan, eta zoriontsuak izango al zarez, alai ta gogotsu artu dozuben biziera barrian.

Baita, Orrillaren 18'ganean, erriko txadon zar ospetsuan, Miren Deuna'ren txadon erromanikuan, Telleria'tar Koldobika eta Ibarretxe'tar Elixabete, gazte euskaltzale jatorrak ezkondu ziran.

Aspaldiz, «Andra-Mari» dantza taldekoa da, izan be, Koldo mutil kementsu, erri-zale ixil zintzoa, ta ezkonbarri onein omenez, «Andra-Mari» dantzari nagusiak, dantzatu ziran, dantzarik bikaitenak eskeiniñaz, eleiz aurrean, beste askotan eurok dantzatu diran bezin ondo egiñaz. Gure zorionik errikoienak AGUR onen bitartez, Koldo ta Elixabete, ta ezkondu arrik, ez itxi, ez laga dantzaketea ta euskal arloan dozuen beste eginbearrak.

URREZKO EZTEGUAK

Ezkontzako urre-etzeguak ez dira sarritan ikusten, ezkonkide bata edo bestea, geinetan, Jaunak Bere aldamenera eroaten dabelako lenago. Baiña, zorionez, oraingoan be ospatu al izan ditube gure erritar ta auzokide argi ta zintzo diran Sierra ta Oyarzabal'dar Augustin eta Maron eta Alberdi'tar Mataye senar-emazte agurgarriak.

Orrillaren 15'ganean, osotzen ziran berrogei ta amar urte eleizaren magalpean alkar artu ebentik, baiña il orren amazortzian ospatu dabe egun oroigarri ori, euren seme-alaba ta illobaz inguratuta, ta danekin batera. Orretarako, eberdi inguruan, Elxalde'n bildu ziran, eta senar-emazte onein lloba dan Maron'dar Karmel apaiz gazteak eta erriko txanburu dan Jon'ek, alkariteko mezea, euskeraz eta erderaz, emon eben. Mezatan, illobak, euren gurasoak lagun ebezala, eleiz-abesti txukunak

abestu ebezan ta amaierera «Agur Jaunak» abesti goxoaz emon. Urren, bertako «Andra-Mari» jaitetxe ospetsuan, bildu ziran danak, oturantz eder bateri «tute» emoteko.



Azkenez, ainbat omen-sari eskuratu ebezan omenduok, ta onein artean, egunaren gomutagarri dan larruki-agiri apain bat, seme batengandik. Gure zorionik maitekorrera Augustin eta Mataye, ta, ea gutxienez be, arribitxi-etzaietara elduten ikusten zaituegun.

LENENGO JAUN-ARTZEA

Orrillaren 19'ganean, ume euskaldunen lenengo Jaunartzea ospatu zan erriko ertxadon nagusian. Ebertadeko amarretan izan zan eleizkizun oroigarri ori, eta amabiren bat neska-mutilo baiño izan ez arrik, eleiza nagusi guztia notifiz betarik aurkitzen zan. Noz ikusiko eie doguz Galdakano'ko umetxo guztiak lenengo Jaunartzean eta beste egikera guztiat be, EUSKERAZ mintzatzen? Gure ametsa!

BASA-JAUN

Getxo

Urtero lez, aurtentorriko be izan dogu Getxo'ko Asiloaren alde, jaialdia.

Len, San Jose egunean izaten zan baña, askotan, eguraldi txarra egiten eban eta, orrillera aldatu zan. Aurtentorriaren 19'an ospatu dogu. Egutaldia ezin ohea ta danok pozik Fadura'ra joan giñan.

Antolatzailea Arrantzale ta Eiztarien «BIDEBITARTE» Alkartea izaten da.

Goizeko 9'terdietan txistulariak asilotik urten eben eta erriko kaleetatik bira emon ondoren Fadura'ra joan ziran. Amaiketari ostikoketa zelaietan aurrekoa, jaialdiari asiera emoteko.

Gero arrantzale ta eiztari arteko futbol jokaldia. Gauza polita izaten da au, batez be barre egin gura dauanarentzat ta beti lez enpatagaz amaitu eban; aurtentorriaren 2-2.

Onen ondoren 3 taldek dantza egin eben. Tamalgaria izan da 3 talde baiño ez etortea; beste urte batzutan asko geiago izaten ziran eta alarde ederra eskeintzen euskuen. Alan eta guztiz be polito egon zan.

Gero Aretza II'ak, erretiratuko dala-ta, bere errian erakusketa bat egin gura izan eban eta 208 kiloko zilindrikoa bi aldiz jaso eban. Lenengo aldiz ez eban oso garbi jaso baña onartu eban eta bigarrenez ondo baiño obeto. Alan ifioen beintzat.

Aizkolariak be izan ziran an, Arria II ta Yurrebaso. Lenengoak zazpi mukur ebagi bear ebezan eta bigarrenak, zarragoa zan-eta, sei baiño ez. Arria II'ak irabazi eban, baiña ez jakon oso erraza izan.

Aizkolarien ostean, Olazabal arrijasotzaleak 100 kiloko arria esku batez berrogei aldiz jaso bear eban eta bitartean Artagan korrikolariak 100 metroko 40 bira emon, ia nork irabazi. Artagan'ek irabazi eban, baiña ez eutsan aldi andirik atara Olazabal'i.

Amaituteko berri dantzariak eta 2 1/4' etan guztiok aldendu giñan, baiña alai ta pozik alako jaialdirik ez dogu sarritan izaten-eta.

ELIZONDO

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra

BILBAO - Casco Viejo

Tenderia, 15 eta 16

MAÑARI'N

«Mañari'tik asi ta Urkiola'raioño ez da ikusten besterik aldapea baiño».

Ez jakin noiz ikasi neban ori. Txikitan. Geroago, gogoratu, sarritan. Oñez baiño kotxean geiago. Batez be kotxeak indarrak ez euken denporetan.

Oraintsugo beste oneik be irakurri izan dodaz, Karlusten gerratekuak. Orduko gertaera ta burruka baltzen ondorenak gogoratu eraziten dauskuez.

Mañari'tik asi ta Txakurulo'raioño, ez da besteik agiri odol illa baiño.

Geldi. Norberak nai ez da be laster esango dautzue emen: «aurki agiriko da Mari Mañari-riko». Eta areri ezin emon ostiko.

Erri guztietan egoten da grazi berezidun norbait. Eta ez ba da be, erriak miñean eukiten dau. Emen lez. Billatu daigun ba lagunduko daukun Mari ori. Bitartean, kantu zalea ei da Mañari ta jarrai daigun kanta kantari:

Negu goizale batean, albakoaren otsean, eskopeta kargatu neban arri otzaren gainean, bai eta gero deskargau bere apaiz jaunaren aldean.

Ara, ba, aurrean, bete-betea, Mari Mañari-riko.

—Ezagutu zendun «Kirikiño»?
—Besteak txapela ta arek kapela. Iño! Alako gizonik gitxi orraitioño!
—Eta aren illobea, Errose?
—Kostako da beste andre bat bera lakoxe.
—Eta Leonardo Gotti?
—Bai, gure parroko zala il zan. Liburuxoren bat, «Zeruko izarra» edo, ba dauka ortik.

Euskal idazlien billa al zabiltz?
—Il ziranak gaurko gaztiei gogoratu naian nabil.

—Ea ba, ez aztuta iñor laga.
—Danak aitatu nai neukez utzune baga.
—Ez al dakizu emengoa zala Martin Kapanaga?

—Errazoa. Irureun urte il zala ta aren dotriñea gaur be irakurri egiten da orduko joskera ikasi nai-ta.

Ona Mari Mañari-riko. Euskera kontuan jakituri biziko. Ez eta dautsagu alkarri bostekorik eskifiko?

Ba nabil, ibilli, eta ezin Mari albotik biali. Mañari ez da andi. Arri artean bizi da apal eta ixil.

Sarreran arriak tiroka zulatu eben eleiza eta argiñak dotore barriztu eleiz zarren giza.

Aurrerago, bertatik laster, parrokoa. Bere leioak laster eroaten dau begia. Arreak beti dauka tengarria. Mañari'ko eleiza onek, beste nunbaiten ba'lego, ederrago emongo barru eta kanpo.

Ezin esan Mañari'n kalerik dagonik. Igarri barik nabil bidartetan. Bide nausiak, kamiñuak agintzen daben luzerako kalea, andiena. Etxeak alderdi bietan. Ez gora asko jasoak. Atzean pelota plaza eta eskolak. Erri txiki baketsu bat eta kittu. Ez al da ori bera, naiko meritu?

Barriro Mari berba lagun.

—Lagunduko?
—Nik aña lekutan beste iñok ez zaitu sartuko.
—Zenbat bilzilagun emen?
—Zazpireun bat or nunbaiten.
—Kalean?
—Kale ta baserrietan. Ez al dogu danok bardintsu jaten etxetan?

—Txiki, estu lurrez?
—Amazazpi kilometro gureztat doguz, iñor jan barik guzurrez.

—Bizi-bidetzat, arria?
—Ez da emen industri barria.
—Entzutea ba dauka emengo marmolak.
—Madrid'en, Errege jauregixan, tente dagoz emengo bete-beteko armolak.

—Eta argiñak?
—Ingurutako eleizik geienak eura egiñak.

Durango'ko Santa-Ana'n, izena laga eben bik: Ormaetxe'ko Txomin, —aren malluak zenbat ots fin?— eta Martin Larrea, bera bezin ohea.

—Argiñei omen.
—Ari-mataza oneri egin leikio oraindik ten. Mañari'n bertan be ba dago nor altza. Eleiza au landu eben argiñak: Mazaga eta Irabaltza. Jo atzera eura ezagutzeko gizal-

dien mendetan. Or billatuko dozuz eleiza barriztuten 1551 inguruko urtetan.

Goazen geiago jakin miñez.—Urez? Zelan zabiltze urez?

—Erri askotako arduaren parez. Mañari'ko ura famakua da birtutez.

—Andra Mari'k zaindu zaitzala.

—Eta Kristo'ren itzalak gorde naiala. Ez dakizu goietan Dima eta Mañari'k, biok batean dogula ermita bat, alkarregaz erakusteko gure fede apala?

Abizen jatorren sorleku da Mañari. Orrela Bizkarra. Iturriaga, Mañaria eta abar. Aldegoiena auzoan Bizkarratarren etxe bi dagoz.

Gerediaga elkartean batzartuten zan, eta laugarren emoten eban bere erabagia.

Iru errigaz bakarrik daukaz mugak: Abadiño, Dima eta Durango'gaz.

Mendi askoren jaubea. Bere jaubetasunean mendi andiak sartzen dira. Ikusi: Kanaleko, 1.022 metro. Dima eta berea. Bardin Atxarte, 944 metro, erri bien jaubetasuneko. Izurtza, gaur Durango'gaz batean, Mugarra, 964 metro. Sebigin be Abadiño eta Mañari'ren menpeko da; 932 metro daukaz. Eta beste errien parterik barik, Eskubaraitz, 1.001 metro; Artatxagan, 998; Unzilla, 941 metro.

Ainbeste mendik nai ta ez euki bear denpora zarretako kontu eta istori ugari. Ez ete dakiz olakoak esan eta biribiltzen gure Mari'k? Obe berari ez itandu. Kontu kontari ez leuke etengo txikitan. Ezaguna da Azkondo'ko koban gertatu zana. Sorgiñak bizi ziran bertan. Inzuntza baserriko neskatilla egunero joaten ei zan auzora, goruetan ekitera. Illuntzetan etxera bihurtzen ei zan. Ordurako sorgiñak euren zereginetan. Ori gaitik bein esan ei eutsen andik geiago ez agertzeko, beste bideren bat billatzeko. Baiña neskatillak jaramonik ez eta gau baten koba barruan gorde ei eben eta bere barri eta aztarrenik geiago jakin ez.

San Martin'en ermita ondoko jentillariak be berba egingo ba'lebe...

Goazen beste gai batera.

Askok itanduten dabe zer esan ete nai daben Mañari, erriaren izenak. Onetan, bakoitzak zelako jokera alako erantzuna. Ba dira iñaurretik datorrela uste dabenak. Biurrikeriak eta geitu bearrakin. Besteak latifiekto itza dala ta ortik jaten dabenak. Oneik be biurrikeriak egin bear dabez Mañari izena beste latifiekto berbetatik, ur-leku edo balneario antzerako ezaugarri batera eltzeke. Onetan, sarri esan dogun lez, jakintsuak dabe itza. Baiña gaitz izaten da eura be batera etortia.

Mañari'k ez dauka zer ikusirik Urkiola' gaz. Urkiola Abadiño da, erri legez.

Baiña Abadiño berak baiño San Antonioen joera ta zalatesuna, ango eskintza ta promesen barri obeto jakin leiz Mañari'k. Onetan bai ten egin daiogun leiz Mañari'k mingaiñetik.

—San Antoniuak dira laster.
—Asentsioei billatu geuntsan baster.

—Zer daukazue Asentsiotan Mañari'n?

—Berrogei Kredo errezaten naiko zeregin.

—Eta San Antoniotan?

—U! Gaur danak doz autotan. Iñoiz joan izan giñan ba ortozik, eta San Antonio'k lagundu be bai pozik.

—Gaur ez?
—Gaur ez dauka errez. Asko bota bearko leukez tatarrez.

Bideak labean dagozala orio zarren koipez? Bai batzuen mamñak be janda denporak baiño len, lizunez.

—Ai Mari Mañari-riko! Ori entzunda laster zaitue gazteak ezetsiko; ez zaitue bereala ondo ikusiko.

—Lengo San Antoniuak ikusi ta gaurko ainbeste itxusi...! Kontxo! Mañari'ko kanterak, arri-olak, auts biurtu dirala dirudi.

—Ekatzu bostekoa. Ba nua, ba nua arin.

—Zek bildurtuta? Atxuri'ko millagrua barriztu ez dedin?

—Ez al dakizu, dana dakizun orrek, «mutil gazteak oiñak arin Mañari'n»?

Mañari'tik Durango'ra aldatz bera. Sasoi bateko Etxaburu torrea ezkerrean. Izurtza, erri umezurtza. Gaur Durango'n sartuta, aren jaubetasunean.

Tabira zarra alboan, erdi ezkutuka. Goazen. Santa Ana'ko arkupetik zear, Kurutzeaga ikusi, ta Oiz zabalaren kerizpetan, etxe aldera.

San Antonio'ri egin dautsagu promesa. Asko itto izan ditu promesa ezin beteak. Nire promesak ba dauka gaitera beste batzuen interesa. Origaitik, era danean, ni be sentidu bearko naz erromesa.

A. ZUBIKARAI

ZER EDO ZER

Trotxta Kardenalaren eriotzea.—Yorraillak 7'nean, Limorize, Txeko-lobakia'ko Gotzain ospetsu au ilzan. Benetan ziñopea zala esan geinke. Abade zala, «nazien» espetxeetan urteak egiña, eta gero, gotzain zala, ainbeste urte komunistenetan. Azken baten azkatu eben; Limorize'ko gotzaintzan jardun eban. Millaka asko bildu ziran bere illeta-eleizkizunetan, gotzain eleizan eta inguruan, Praga'ko Tomasec agurgarriak Mezea esan eban, eta an ziran txeko gotzain guztiak eta Biena ta Krakobia'ko kardenalak be. Baiña komunista agintarien menpean bizi diran katolikotarrak ze eratako azkatasuna daben yakiteko, auxe da naikoa: Agintariak beste iñongo eleizetan eleizkizunak egitea galerazo dabe eta ildakoen ikurrin baltza ipintea be bai.

Eurok diñoenean.—Mosku'ko izparringi «Pravda»k diño, yainkobako zabalkunde ohea egin bearra dagola. Zer dala-ta? Gaztediak erlijioari, yainkobabekeriari baiño, ardura geyagoz begiratzen dautsolako. Bere tamala agertzen dau gaztediak Eleizeak gizaldiak zear erlitanen alde egin dabena ikusita, Eleizak yakintza arazoetan euki daben eraginpena ikusten dabela-ta.

«Pravda»k, erlijioaren kaltez ekiteko, nastukeriz eta zentzun barik ez dala yokatu bear diño. Lenengo aldietan olan yokatzeak yainkobagekeria zabaltzeari kalte egin eutsola-ta. Izan be, erlijio barik gizonaren biotza uts gelditzen da, eta ez da munduan uts ori bete leiken gauzarik.

Ungria'n be...—Guztiok dakigun gauzea da, Ungria'n, inguruko Txeko-lobakia'n, Polonia'n eta abarretan lez, komunisten menpean indarrez yausi ziralda, eta ardiak otsoaren ardurapean lez bizi dirala. Eta komunisten menpean yausi diran katolikoak, edozein gizonak, izate legez daukozan eskubideak zapalduta bizi dirala. Ez itzez, ez idatziz, bakarrean naiz alkartuta, euren eskubideen alde yokatzea galerazo egiten dautsee. Ungria'n be gorriak ikusiak dira. Ikusten danez, erria eurekautea ez dabe lortu.

Urte askotan komunisten buru dan Janos Kadar'ek, oraintzu egin daben itzaldi baten esan dau: ziñestedun eta ziñestebakoen auziak ebatzi leikezela. Baiña politika arazoetan bakotzak munduagazko dauzan eretxiak garrantzirik ez dabela. Eta Ungria'ko agintariak diño-eginda, Aita Santuak: «Ori esenti kardenalaren ordezkoa izentau dabela diñoenean, erantzunez diño: «Ori esenti kardenal Aita Santua dan baiño gitxiagozat artzen dau». Uste dogu Ungria'ko sei milloi katolikoak, Janos Kadar'en itzoi abegi ona egingo eutsela, baiña zentzunak eskatzen dabenez, ezbayan yokatuko dabela, euren alkar-izketa guraria, komunista benetan artzen dabela ikusi arte.

«Paco Vargas» zala-ta, «ZELETA»ri.—Igaro dan Yorraillako 27'gnoko zenbakian, «GOIZ ARGÍ» asteroko begikoan, zure lantxo bat irakurri neban, «Cristobal Colon»en yayoterría zala-ta. Ara gai orretaz zer edo zertxo geyago. Oin 50 urte inguru, ni Eibar'en bizi nintzala, Isasi'ra etorri yatan aldi bateko Sanchez Gerra'n antzeko bizarragaz, mesede bat eskatzera. Sorluzetarra zala esan eustan, «Paco Vargas» izen orde zaitzen eutsela eta bultzit, trenen ikertzailea —inspector de ferrokarriles— zala. Eta idazti anditxo bat atarata, esan eustan, idazti a «Cristobal Colon» euskelduna zala egiztuteko idazti ebal, eta ea euskerara ta bertsoetan itzuliko ete neban, eskatzen eustan.

Idaztia aztertu ondoren, esan neutson, euskeraz eta bertsoetan ipinteari ondo neritxola, baiña tamalez nik ez neukola gaitasunik ezta astirik be.

Euskeldunak, Tubal'en yatorrikoak ziralda azaldu ondoren, zeaztasun guztiaz azaltzen eban Kolon Elorrio'koa zala. Au egiztuteko Kolon'ek arakatu eban lenengo ugarte «Concepción» zala, ta izen ori ipiñi eutsola, Elorrio'ko Eleiza nagusia, Bizkaia'n izen orregaz lenengoz deitua izan zalako. Kolon'en ikurdia, oingo Colon de Larreategi'ña berbera zala, ta ainbeste ugarteri euskal izena ezarri eutsela, euren artean «Jamaika», berak idoro eban «amaika»garren ugarte izan zalako, ta abar.

Dana dala, benetako euskelzale agertu zan, bere idaztia euskeraz eta bertsoetan atarateko asmoa agertu ebanean. Eta ori berrogetaka urte asko dirala! Gero erderaz argitaldu ebal entzunda neukon, baiña geyago bere barririk ez neban izan.

GAMA

Mendigoizaleen Urrezko Ezteguak

Lenago esan genduz, Orril ontan beteten ziran 50 urte, Euskalerrí'ko Mendizale Bazbatza, Elgeta'n sortu zala, beraz, urrezko ezteguen gogozko mendigoizaleok. Eta ori dala bide, jai ta egikizun batzuk Bazbatzak edo bere bitartez antolatua izango ziran, eta alantxe izan da.

Il orren bigarren igandean, Elgoibar ganeko mendiak zear, 18 urtetik berako gazteen ibilketa neurtua izan zan, bertako «Morkaiko» taldeak antolatuta. Ez zan arazo erreza izan ainbeste neska-mutiltxo zuzendutea, naiña gaztetuok ondo eutsi nagusiagoen irakatsieri. Sarritan esan dogu, mendizaleasuna zelan geitu ta ugartu dan azkenengo urteotan, baiña gaitza da sinestutzea, ezetarik saririk bako kirol garbi ontan, ainbeste neska-mutilko bildu legikenik. 1.600'dik gora, mailla bitan. Batzuk 8 urtetik 14 artekoak; besteak, ortik 18'artekoak.

Leku barañetik urten eben, eta toki batera eldu be. Baiña gazteenak bide laburragoa. Danak ziran ikusgarri. Batzuk gizenxoagoak, asko ibilteko... besteak mirrizkiagoak, baiña guztiak alai ta bizkor. Batzuk zantzok, besteak ixillago, baiña danak irri-barre gozoa ezpain oben-gabestean ebela. Ze ikusgai atsegiña gaztedia bide zuzenetik ikusi nai dogun mendigoizale adinekoenizati! Zorionak «Morkaiko» mendizale taldekoak!

Aleginduz gaitzean, mendigoizaleok, gazte-mintegi eder ori ezi ta jabetan, gure Erria'ren aurrerapenen oiñarri izan daiten.

Iragarrita egoanez, Elgeta'n, Euskalerrí'ko Mendigoizale Bazbatza'ren Urrezko Eztegiak ospatu ziran. Ta, orain 50 urte, ori sortu zanean, Elgeta

ortan izandako ainbat mendigoizalekin aurkitzeko zoria izan genduban, ia-ia orduan baizen gogotsu ta alai.

Amaiketan, Meza eder bat izan genduban, euskeraz eta erderaz, geyen bat euskeraz. Egun ori jatorkon txoritx bikain, abesti ta lau olerki gorlagarri, bertako apaiz gazte batek, obeto eziñean abestuta. Gero, enparantzean, mendigoizaleen omenezko oroit-aria ipiñi ondoren, «Ozkarbi» taldekoen erri-janiza maitagarri batzuk eta Ibañeta arrijasotzailearen agerraldia. Orubietan oturantz pelota-tokian, 200 edo geyagontzai; ondo ornitua ta obeto banatua. Bazkariaren amaieran, agintarien itzaldiak; euri Bazbatza'ko domiñak ipintea ta abar. Azkenez, bertara deitua izan giñan gustioi, egun orren gomutagarritzat, domiña bana emon euskuen.

Ona emen, jakingarri, orain 50 urte Elgeta'n bildurik, Bazbatza au sortu eben bazkunen izenak: Gipuzko'tik; C. D. Fortuna, Union Club, Mendiko-Adizkideak, Donosti F. C., Amaiak bat, Los Amigos de Aralar, C. D. Capu, Club Deportivo, A. G. de Estudiantes Vascos, F. E. Guipuzcoana Deportiva, Euzko-Gaztedi-Kiroltzalea, Ski Club Tolosano, G. A. Txindoki, C. D. Abandotarra F. C. (ez zan izango au beru bilbotarra?), Montañeros Vascos, A. D. Tradición, Cultural Lagun-Artu eta Mondragon F. C. — Bizka'i'tik: G. A. Turista, G. A. Tabira, Aldatz-Gora, Sdad. Montañera, eta Bilbao Alpino C. — Nafarrak: C. D. Larraina eta Montañeros de Nabarra. Eta Araba'tik, Los Amigos de las Cumbres. Oneik danok sortu eben 1924'ngo Orrillaren 18'an, Elgeta'n, Euskal Mendigoizale Bazbatza. Zorionak danai AGUR onen bitartez.

ALTUNA'TAR JOSU

UDALAK

ZIÑEGOTZI-ENDOREAK

Berbaz ondo alkar ulertu gaitzan! Itz oneik gure artean ez doguz erabilten Guk, kontzejalak edo Udaletxe maikoak esaten dogu, baiña Naparroa'n, batez be egoaldekoan, erabilten ei da, eta Euskalerra'n, an or emen, erabilten diran berbak geungandutea ona izango da, errian sartzea erraza izan ez arren be. Erriko buru danari, guk, alkatea esaten dautsagu. Arabiarrengandik artutako berbea berau. Beste lurralde batzutan gure anaiak «endorea» esaten ei dautsoe. Itz au be artzea ez litzake txarto izango.

Ziñegotzien eta endorearen arazoa garrantzi aundikoa da euskaldunontzat. Gure indarra hemaillan dago, eta beti izan da. Oraintzu entzun dogunez, udala baiña be berago egoan antxiña euskaldunen berotasuna: sendian, auzoan, anai-dietan. Baiña gaur, senditik udalera jotzen dogu, eta bitarteko egiturak, zori txarrez, indargetu egin jakuz.

Dana galdu gura ez ba'dogu, dauka-gunari eutsi bear.

* * *

Eta, zergaitik gai au gaur? Udalai buruz agertzeko dan lege bariagaitik Lege onek bere menpean izango gaitu epe baten, eta ainbesteko garrantzia daukan gai baten, eretxi batzuk artu barik, ez dogu jarraitu bear.

Gure guraria, betik gora jokatzea da. Sendiari ta auzoari euren bizikerea itzi, ta errian eldu guztiak arduradun eta autarkidun izatea nai genduke. Auzoak eta sendiak be euren arazoak izango ditue, eta orreik euren artean zuzendu bearko dabez, baiña al dan neurrian erriaren laguntza ukatu barik.

Endorea ta ziñegotziak erriak berak eta lenengo maillako autarkiz aukeratzeta ez da izango, antza, legeak artuko dauan bidea. Erriak len lez, gitxi gorabera, aukeratuko ditu ziñegotziak, eta oneik endorea.

Ziñegotzien aukerapena ondo egin ezkeru, ez litzake txar-txarra be izango bide au, baiña or izango da untzea, orain arte lez.

* * *

Orain artean, gure erriarrak, aukerapen oneik egitean, gitxi arduratu dira. Askok, or sartzea, lagunkeria dala diñoe. Beste askok, etxean ixil-ixillik bizitea naiago dabe.

Sartzen diranak, geienak ostera, ba dakigu zeren billa doazen.

Eta olako ezdabaidetan gabiltzan artean, erriko ardurea geroago ta berago, erria geroago ta illago. Gero baten, zer etorriko da? Zelan jokatu dogu? Nork jaramonik egingo dautse arduratuai? Lagunkeria dala! Beste bide batetik erri-miñari eutsi ezkeru, zergaitik ez Erria bizirik atera?

Baiezterakoan ba'gagoz, zer egin?

Bearrena lenengo. Gure erriai, txikiak ta ez ain txikiak, euren arazoak konturatu ta erantzun egokia emoteko indartu ta lagundu. Inoiz burrukaren batzuk izango dira. Orretara be oituak gara. Inoiz zerbait galdu bearra be izango da, ta Erriaren alde jokatu bear dogunean, galtzaille urtetan be ikasi bear dogu.

Ez daigun aitzu au: Gerorako itzi ezin daikeguzan gauza asko eta asko daukaguzala esku-arte, eta joko asko il edo bizikoak dirala.

Ez dakigu oraindiño lege barri ori zelako zeatztasunakaz etorriko dan, zelako epea izango dauan endoretzeak, baiña gauzak zustraz pentsatu bearrean gagozala ezin daikegu ukatu. Endoreak eta ziñegotziak, beti gura dabena ez ha'dabe egiten be, al dabena egin bearko dabe. Ba leiteke giroa apur bat obetutea. Lana da gurea, ondoren ona ikusteko dago.



EDESTI AURREA

Lawrence Guy Straus, Euskalerra'an aurkitu oi da. Ipar-ameriketa'ko azterkatzaille gazte bat dogu bera. Chicago'ko Goi-ikastetxean, datorren urterako agertu bear dun Edesti-aurreko gorengo mailla Irakazkintzara igoteko, lortu-bearrezkoak jakozan lan berezietan, jo ta ke daragoio. Euskalerra'koak ez eze, Santander eta Asturias'etako arpe ta mendizuloak arakatuko ditu. Laguntzaille azkarrak billatu ditu. Bata, Barandiaran'dar Joseba Mikel jaun ospetsua; bestea, Mario Grande jauna. Edesti-aurreko tolesgune ta lurgeruzetan bulartsu diarduala, azterketa, banaketa ta sailketa baliotsuak bein eta geiagotan egin daraoz.

Straus jaunaren begirapena antropologi edo giza-izti gaietara mugatu oi da, ta berezikiago, jakintsuak «solutrense» (Solutre, Fr., ereiñotz antzeko sukari azkon-buru ebiak) deritxoen giz-arora. Egiñ-egiñean be, aldi-une au, goi-paleolitik aroari dagokio. «Solutrense» garaiaren goiko ta beko mugak, «auriñacense» ta «magdaleniense» izenakaz ezagutu oi doguz.

Ba-dagoz lurbiran barna, arzulo ta leize miragarriak. Ala ere, lendik be beste jakintsu batzuk, gureak aztertzeko asmo biziz etorri ziran, bardin orain ikertzaille gazte au. Barandiaran jaunaren ospe arrigarria, ludi osoan edaturik bai-dago. Emen ibilli diran jakintsuen artean, Freeman irakaslea ta Gonzalez-Etxegaray izan ziran. Giz-iztilari bi onei zor dautsegu antropologian «Marin'go gizasemea» izenagaz dazaugun arkitze aipagarria, ain zuzen. Orra zergaitik datozen besteok ere.

Zazpiren bat illabete igaro dira Straus jauna geugaz dagonetik. Gaztelera alan-olan diardu, ez baiña gure euskera maitean. Datoren urtearen azkeneraino gure lurraldean irauteko asmoak ditu. Ortarako, «National Science Foundation»ek ikaste-sari bat ordaintzen dautso.

Gure alderdi ontan berrogeiren bat arpe aurkitu oi dira, ta azalez ba'da be, ikusiak ditu danak, une saillak eta lur-azalen ezbarditasunak bereala ezarri, mugatu ta berezi bear ditu, ta «solutrense»ko giz-aroa berez txito laburra danez, or dago kozka; or bere lanerako gaiztasuna.

Bizkai'ko leize gorenengoan artean, bi ei dagoz ala ere: Bata, Abadiño'ko «Bolin-koba»; bestea, lurbira osoan ezaguna dogun «Santimamiñe», antza.

Gipuzko'an, «Azpitarte» ezagunena ei-da. Ta Santander'en, «Altamira» ondo ezaguna. Oneik dira garrantzitsuenak.

Amaiera onena opa dautsagu giz-iztilari gazteari. Freeman, Etxegaray, Barandiaran, Mac Collough ta A. Marshack'en urratsak jarraiturik, gure lurraldeko ezkutukiak argitzeko, arlo ontan beintzat, bere are-ondar aletxo a emon eta emoteko bidean dakusgunez.

ARREGI'TAR JOSU

Zulogintzan?

Orain dirala amarren bat urtetik onako giroa guztiz aldatu dala esan geinke. Gudea amaitu zanetik ordurarte, erlijio aldetik esan nai dogu, geiegikerizko, dalako «inflaziño»an bizi giñalakoan nago. Agirian beintzat, ez egoan erlejiñoarentzat kaltegarri izan leikean jokorik: gogo-jardunak nun nai, misioño zaratzuak gabaz nai z goizaldean —derrigor entzun bearrekoak—, aldizkarietan, ondartzetan, ziñectan, belauetik gorako «zensurea». Dantza lotuari «guda santua» ta abar.

Ta, giro onetan, «etsaiantzat lekuri ez egonean, erri guztiak «katoliko» ekintzaillez beterik! A. C., HOAC, JOC, JUMAK, Mariaren alabak, Luistarrak eta zer dakit nik zenbat gazte, abadeen gonapetik urten eziñik ebiltzan ekintzailleak.

Baiña, erlijoarentzat kalterik aundiena giro eroso ortatik etorren: eleiz-buru ziran gizonak erriagintariekin nastean ikusten ziralako alde batetik, eta ekintzaille oien kristau eziketa oiñarri bakoa, «aingurkeri» utsetzkoa zalako bestetik.

Baiña egun batetik bestera, aize-barri boladak sortu ziran gurean; leio ta até iriki guztietatik sartu zan aize barria, ekaitz-aize itxurea ekarren inoiz, eta udazkenean zuzaitzetako orbelak bezela, ekintzaille garbitu zituan gure eleizbarrutiko len esan diran al-karterik geienak.

Eta orain zer? Euskalerra'ko erri fededuna nora ezean, aldatz beera ikaragarrian ez doanean. Gure zeregiñetatik kanpo gabiltzala?, Eleizeari dagokion auzian musturra sartzen dogula? Ba-liteke, baiña, ez gara ba danok eleizea? Eta ez ori bakarrik, gure seme-alaben etorkizunean arduradun eta erantzule. Auzoko lagunentzatean ikusten doguzan ezbearrak, aize bolada orrek ekarri leikezan ondandiak eta kalteak, galbaitu bearreara garoaz, barrizketa orren iturburuak aztertuz, noiz garbi ta noiz pozoituak diran ikustera. Barriztu bear dana barriztatzea ontzat emon daigun, baiña ez itu-itsuan, artaldeko artzainak ondo aukeratuta baiño.

Gaur lizunkerizko giro utsean bizi gara, ta giro onen errudunik aundienak, geu, gurasoak gara. Apur batzuk izan ezik, konsumo gizartearen gozokerian erdi itota gagoz. Orrela ez dago gazte ta umeeri eredu onik emoterik. Baiña giro zikin orri aurrea emoteko, nor? Len esandako ekintzaille «sutsu» aiek, askok, beste aldera jo dabe. Len «dantza lotuari» zaunkaka ebiltzanak, orain buruz eta aburuz «lotuta», baiña txoriburu dantzan, «etsai» aundiagoaren ate zabaltzaille egin jakuz, aurrerakoi agertu naian... morroi!

Zer da ezker-eskumako gogor zaleentzat egoki? Zer errezago erria norberaganatzeko, edo obeto esanda, menperatzeko? Sendiak apurtzea, seme-alaben eta gurasoen arteko burrukea, gaztedia usteltzea, erriaren izakere aldatzeta, siñezmenaren indarra ondatzea, Jokabide oiari aurka egiteko gaur, kristau ekintzaille zintzoak bearko litzakez, baiña orain gitxi dira alakoak; atzerakoi etiketea jarriko ere dautsen bildurrez, ez dago ekintzailerik, eta ez asko geiako, eleiz-gizon jatorrik... ala bai? Poztuko giñakez!


Bitartean, zelan jokatu bear dan dakien beste aldeko «ekintzailleak» lanean. Jo emen eta zulatu an, alkarte, ikastetxe, talde ta sendi asko ta asko arriskuan jarri ditue, euren-ganatu ez dituzenean beintzat.

Deadarka gabiltzanontzat, danetariko ezizen politik zabaldu dituez: atzelari, estuegi, eskubitar eta abar. Olako «lorak» arrera oso ona izaten dabe alperren artean, eta lo dagozan bitartean, «ekintzaille» edo bide-lagun kokoloen lanari esker, alkarte ta ikastetxe geienak «tupamarilloen» eskuetara! Nai-koa da batzorde baten alako bat sartzea, besteak banan-banan sartzeko: «Ez, au, mutil ona da!» Edo, «damututa dago», edo «iritzi guztiak errespetatu bear dira»... Andik ille batzuetara, kristau-eziketarako lekuri ez egoan tokian, euskera «batua» sasi-jaungoiko; gurtzea, atzeratuentzat, eta erri-euskere, euskera bakarra, baserriarrentzat! Bein zuloa zabaldu ezkeru, lagun guztiak barrura, ta oztupo diran gizon edo emakume zuzenak, kanpora...

Gu «sorgin-billa», ez da, lagun? Ea ba, laster arte!

ARENAZA'TAR JOSU

Oarra.—Idazlan au, barri txarrez minduta, amaituta neukala, Corpus-Christi parro-kiko euskaldunen Lenengo-jaunartzean izan gara. Eleizkizun zoragarri a ikusi ondoren, berbiztu da nere itxaropena. Ba-dira oindiño Fernin lako praille jatorrak, orko eratzailleak bezelako emakume zintzoak, ba-dira guraso fededunak, baita seme-alaba garbiak. Ekaitza barretu ondoren, esan al izango dogu: Zuzen Euskal-Erria!



ZER EDO ZER IDAZKI-AGIRI-GAIAK

BAKOTXAK BERE IZKUNTZEA

Batikano,ko II Eleiz-Batzar Nagusian, Mezea ta beste eleizkizunak erri bakotxak bere izkuntzan egitea ontzat emon eban. Ori gauzeak berak eskatzen dabena dala igarteko, zentzunak berak eskatzen dabela esan bearririk ez dago. Egi andia da izan be, XIII Leon Aita Santuak, 1901'goan Boemia'ko gotzaini idatzi eutsena: «Gizonaren izate-mamifian dago asabakandik artutako izkuntzea maitatu ta zaindutea». Zirilo ta Metodio anai deunak, arerio asko izan arren, orixe eslaobaterentzat IX gizaldian lortu eban. Eta alderdi atako errien zaindari maitatuak dira.

Eta Eleizearen izena ezin aiatu leike ba, zuzentasunak eskatzen dabeneri aurka egiteko.

BRETONDARREN APOSTOLU

Be aldeko Bretaña'n lan egin eban Aita J. Maunoir, Yesu'sen lagundikoa benetan ospetsua da. Erri orretan 42 urtetan eten barik Onaren irakatsiak zabaltzen ekin eutsen. Lenegotan, eragozpen andiak izan zituan bretondarren izkuntzea ez ekialako. Eragozpen au azpiratzeko gogo bizia eukon, eta Ti Man Loc Andra Maria'ren elcizara bidezkunde baten, bearrizan andia eukola-ta, izkuntzea al bait lasterren yakiteko guraria agertu eban. Eta beste barik, bretondarren izkuntzea ondo ekiala biurtu zan. Eta 42 urtetan, izkuntza ori ekian erriari, ziñeste egia eta bizitza irakasten yardun eban. Eta egin zituan mirariak ontzat emonda, XII Pio'k, 1949'gean zoriondunen arteko zala iragarri eban. 1606'gean yayo zan.

BESTE EREDU ON BAT

Marsella'ko gongotzain Etchegaray, euskaldunak, iragarri dabenez, uste da, Urte Santua dala-ta, datorren urtean Mazenod gotzain agurgarria zoriondun iragarria izango da: Aix-en-Provence'n 1782'gean yayo Prantzia'ko matxinada aldiari, erbestuta bere sendikoak, Paris'en bizi izan zan, abadegeietxeke zuzendari. Bere erri aldera biurtu zanean, amalau urtean bere osaba gotzain zar baten ordelari izan zan, eta il zanean, bere ondorengo. Parroki-eleiza asko iragi,

abadeak ugaritzeko alegin andiak egin eta Notre Dame-de-la-Garde eta Gotzain-elicz barria be berak egin zituan.

Baiña bere lanik andiena, Probenza'ko izkuntzaren alde egin ebana izan zan. Arles'ko abade lagun bategaz, Probenza'ko Sorkunde Garbiaren Mixiolarien gopatza irasi eban, Mixiolari onein elburua, probentzeraz Ebanjelioko irakatsiak zabaltzea izan zan. Egundoko lan ederra egin ben. Napoleon III'ak «senadore» autu eban eta 1861'goan il zan.

GOGOAN EUKITEKOA DA

Izan be, ainbeste aitatzen dan Aita Karberaz'en esan au: «Gure probetxo on askoren animak salbatzeko, euskarak burua jasotzea Jainkoak nai du».

Eta gai onetzaz ara «Urte Guztiko Meza ta Besperak» idatzi ederraren itz-aurrean «Orix» idazle argi, ospetsuak diñoana: «Aita Kardaberaz'ek akar egin zion bizkai tar apaizei itzaldiak gizpuzkeraz egiten zitutelako».

Eta Mallorka'n gertatua: Jesuita bat gaztelaraz ari zan Jainkoaren izta adierazten, eta berakin eraman zuan laguna, San Alfonso Rodriguez, otoitzean ari zan. Ontan, zeruko mintzo bat entzuten du: Esaiozu Aita orri, Purgatorioan garbitu bearko dula uts ori».

GUZTIOK BATERA TA ETEN BARIK

Euskeltzaleok dana bearrean ondiño bizi gara, baiña apur bat aurreratuez goazala ikusteak, adoretu egin bear gaitu. Oin berrogeta amabi urte sortu zan «Jaungoiko Zale» abade bazkuna, bakotzari bere izkuntzan eta «Eu keldunci Eu keraz» Kristiñau-Ikasbidea irakasteko asmoaz. Eta goitik, betik eta alboetatik zenbat eragozpen azpiratu bearra izan zan bertan sartuta egozanak ondo dakie. Oin berrogei urte yayo ziranak baino obeto!

Gaur zerbait lortu dogula-ta, ernai yarraitu bearra daukogu; ta ezer egin barik, «Geurea da-ta»... abestutea naiko dala uste ba'dogu, ingurazten gaituan erdel-giroak arnasa barik itxiko gaitu.

Amesetan ibilteko aldiatan ez gara bizi. Guztiok batera eta eten barik ekin!

GAMA

GALDAKANO'KO ERES-JAIA

ANDRA-MARI taldekoak eratuta, gaur, Bagil onen 15'gean, gabeko amarretan eta Galdakano'n dan REGIO aretoan, jaialdi polit bat izango dogu J. I.; abestaldi ta dantzaldi jatorrak, «Xeberri»k, Iparragirre andiaren doinuuen edertasuna agertzeko daben ekialdia be entzun al izango dozu. Ona emen zertzeladak:

«AMETS» arabar abesbatzak emongo dautsa asierea. «Xeberri urrengo, ta Bakarne ta Iñaki Maritzalar, «OSKARBID» taldeko bikotea, ondoren.

Gero, ANDRA-MARI'ko dantzariak, eurenko: Bizkaiko soka-dantzea. Irabaz'ko Ingurutxua. Inoz'ko esku-dantzea. Gipuzko'ako dantzak, Erestaldia ta Larrain-dantzak.

ASTI

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskera bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri asmoen gaitetik daben iritxi-onoeko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egileak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M.^a MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokien guztirako:

Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

Nik ez baiña, iñoiz euskalerrriak erabili al izatekoak-edo...

Ezagutzen det idazle kozkor bat, aspaldian alperkeriak lotua, azken aldi ontan zerbait idaztera jo duna.

Euskaltzaindi'ko laguntzaille edo «Academico correspondiente» egin zuten iñoiz, eta «Euskera» aldizkaria txutzen-txutzen irixten zaio etxera.

Ta atzo, bai atzo, Euskaltzaindi'gandik, «Ekin eta jarrai» ikurrin pean, «1947 urteko euskal sariketan bilduma-Certámenes en o sobre la lengua vasca, año 1974», izeneko liburuxka eskuratu zaio. Azalez atsegin-polita, baiña mamiz ez oso adieragarria, ikusiko danez.

Bildumoi aztertzen asi ta lenen-lenengo iragarkia, «Toribio Altzaga» Antzerki Saria 1974'renari begi eman dio. Ta auxe irakurri du:

«Sariketaren oinharriak. 1.—Euskeraz, Euskaltzaindiak Arantzazuko bileran (1968) erabaki zuenaren arabera (Ikusi: 'Euskera', XIII, 1968'koa, 250 orrialdean)».

Jo du bereala, gure idazle kozkorak «Euskera» aldizkariari ta 1968'ko 250'gn orrialdean auxe diola ikusi du: (Izki azpi-marreztutan emango det, ongi ageri dedin).

H-ren hauzian, izan diren iritziak entzun ondoan, erdi-bide bat aukeratu da hasteko: alegia, begi onez ikusi lukela Euskaltzaindiak letra hori bi bokal berdin nahiz ezberdinen artean erabiltzen hastea. Honek ez du esan nahi gorago jo nahi dutenen saioak ez direla ongi ikusiak izango.

Ta, goiburuz bezela, auxe: «Literatura Euskeraren Batasunari Buruz Euskaltzaindiaren Agiria»...

Ta, ortxe degu orain, gure idazle kozkorra, estu eta larri, argibide sakon oiei diridatsu ta adigarri dituzken etekin eta muiñ aberatsenik nondik zupatuko dizkien... ba-du gizaioak lanik aski!

Zuek zupatu al dezue, idazle lagunok?... Nik ere ez!

* * *

Euskaltzaindi agurgarriko euskaltzain osperririk!... zurutuko al diguzue garbi noizpait, orain sei urte Arantzazu'n erabaki zenduten euskeraren batasuna dalako ori nola idazliok eta irakurleok, nola euskaldunok ots, edoski bear ote degun?

* * *

H ta h erruz erabiltzen dezutenok! Nongo Euskaltzaindi'ko gidaritzaz eta laguntzaz ikasi dezute (?) «zorioneko» izki ori erabiltzen? Nongo «hakedemiko»ek irakatsitako «proposamenduz»?

Ez aantzi arako napar-ibar ura; H erabiltzen «gorago jo zuten», aietakoak izanik, H izkia K izkiaz billakatur, «kan», «kola» esatera ipiñiak zuedela eta «Kan» euskera galdua dala batiko!

«Kasu emazute» zuen ori «akademia» ez baiñan «hakedemia»n edo...?n, ez ote zuten billakatu!

ELOSEGI

Gure Idazleeri

Bilbo'n izparringien ardurea daben agintariengandik, dei bat izan dogu AGUR'en, auxe agintzen: «Ez dagigula barriz agertu «eusko» itza «z»az idatzita, «s»kin baiño»; au ei da ba jatorra, «Euskalerrria» itzetik sortua, ta ez bestea, beste itzetik jaioa.

Ba-dakizu ba, idazle, AGUR'en agertuko ba'da, zer egin bear dozun:

Agintarien agindua ta beste batzuen idazteko era bardiñ ori, zeuk be erabili, zure lanak guri bialtzerakoan, AGUR au galdubidean ipiñi nai ez ba'dogu.

Besterik barik, agur.

AGUR'EKOAK

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra

BILBAO - Casco Viejo

Tenderia, 15 eta 16

GAZTE

Illetak

Amezketan

Joandako egun batean, Amezketan izan nintzan; ene adixkidearen aita il zelarik, bere illetara agertzeko asmoakin.

Illunabarreko seiretan bildu giñan ildakoaren etxe aurrean, gizon eta emakume mor doa. Apaiza etorri-zai, itxaroten geunden.

Ildakoa bizi izan zan etxetik eleizara, kilometro inguruko alderdia dago. Bein apaiza etorri, ta asiera eman zitzaion ibillaldiari. Apaiza aurrean, eta ildakoa arkitzen zan kutxaren atzetik jendetza. Lenengo gizonetzkoak eta ondoren emakumezkoak. Danak erroña onenekin zijoazten, pesta batera joango ba'lira bezela. Ta egia esateko... Zer da illeta bat? Zer entierro bat?

Eleiz bidean etxe sakabanatuak arkitzen ziren. Etxe bakoitzera inguratzen giñaeen, gizon eta emakumeak urbiltzen ziren guregana. Len esan degunez, gizonak aurretik eta atzetik emakumeak. Eleizan ere orrela egon gera. Ez da nunbait oraindik aldatu oitura ori Amezketan.

Zerua urdiña zegon, baiña eleiz atarira iritxi geran bezin laister konturatu naiz, Txindoki'ko gaillurrean odeiak zebiltzala ara-oneraka.

Eleiza jendez beterik arkitutzen zan. Ta egia esateko meza oso zoragarria eskeini da ildakoaren omenez. Umetxoak gartsuki abestu zituzten ainsteste kanta xamur. Ona emen kantatutako abesti bat:

Lurra utzirik zerunrantz doa

Gure aita on ta maitea,
Aita zintzoak ideki dio
Bere etxeko atea.

Urratu dezu mundu onetan
Lotzen zinduen katea,
Eta iritxi merezi zedun
Askatasun ta pakea.
Aberri artan sartzerakoan
Gutzaz oroitu zaitea.

Meza amaitu ondoren, Kanposantuko bidera artu zuten apaizak eta zenbait gizon eta emakume ere, Ildakoari orrela emanaz azken-agurra.

Ni eleiz atarian geratu nintzan. Txindoki aldera arriturik begira. Orain ez bai zen lañorik jolasten ikusten goi aldean. Zer uardin bat baizik.

RAMON ZAPIRAIN

Gure aita-onen azken agurrak

Gaur sortzen digun negarra
Izan dedilla maitasunezko
Biotzaren deadarra.

Pentsa dezadan, onek bezela
Dedala joan bearra,
Aita-etxearen jabe egin da
Ni oraindik naiz maizterra.
Arki dezadan zuzen zerura
Naramakean izarra.

Euskal-Abesti

Barrien II Jaialdia

Portugalete'ko «GAURKO GAZTEAK» dantzari taldeak bialduta, aurtan eta bigarrenez izango dan leiaketa orren baldintzak jaso ditugu. Iñoiz agertu bako abestien erakusketa onek, abesti barriak sortu arazteko bultza eraginkorra eskuratu dasku. Orra ba zergaitik, gure eresgille gazte, erdi lotsaz eta norek onartuko ete dautsen kezka, euren alegiñak agertzen ausartu ez diranak, nun dauken aukerarik onena ta errezena. Ona jakingarriak emen azpian:

OIÑARRIAK

- 1.ª—Edozein gaste, neska-mutil, bakarlari, naiz bi, iru edo lau laguneko taldeetan agertu leiz leiaketa onetan, eurak utsik edo ereskiñen laguntzaz.
- 2.ª—Biarrezkoa da, lan danak barriak eta euskeraz abestekoak izatea.
- 3.ª—Lau abesti, euskeraz idatziak agertuko bear dira, iru aldiz bakoitzaren erderara itzulpena ona bialiaz.
- 4.ª—Maiburu egoki batek emongo dau leiaketa onen azken iritzia, ta ez da izango gorago jotetik.

5.ª—Leiketari sartzek berak, oiñarriak ontzat artu dirala esan nai dau.

6.ª—Bagill onen 24'a baiño lenago bialdu barko dira abestiak, Portugalete'ko 9 idazki kutzara «Apartado 9, Portugalete». Batera, taldekoen izen-abizenak, taldearen zuzenbidea ta abestera dakarren izena, baita, bakoitzaren Ezaugarri-txarteleko zertzeladak (Datos del Documento Nacional de Identidad).

7.ª—Eratzailleen esku geratzen da, bear izan ezkerro, oiñarrien aldatzea.

8.ª—Ona emen sariak:

1.ª: Eresmintz baten agertzea, Garai-ikurra ta 1.000 lauerleko.

2.ª: Garai-ikurra ta 3.000 l.

3.ª: Garai-ikurra ta 2.500 l.

4.ª: Garai-ikurra ta 2.000 l.

5.ª: Garai-ikurra ta 1.500 l.

Lenengo ekinaldia, onenak bereziteko, Uztailaren 21'gnean izango da, ta.

Bigarrena, ta azken-autaketea, Dagonillaren 3'gnean. Aurtan, noski.

ASTI

Kristalezko Leiza

Lizaratzu baserri aldean dago. Kanpotik ez da ikusten bere sarrera. Ain da txikia, estu ta makurra! Gaiñera, sasiz betea dago. Zeruko atea ere olakoa ote da? Ala bear... bestela ez gera kabituko...

Barrundik beintzat, oso andi ta zabala da gure koba. Eder eta ikusgarria. Baita naiko argia ere. Emen eta an, erdi illunpean, millamargozko arkaizak... zorrotzak, arrigarriak, gardenak. Kristalezkoak ote dira? Leiarrezko mamuak?

Arkaitzak: misterioa, pakea, bakardadea, ixiltasuna. Bildur pixkat ere bai, zergatik ez? Illunagatik ote da? Kezka ere bai, nola ez? Mendi zuloak, batzuetan, ain dira bildurgarriak!

Kanpoa, berdea, argia, aizea... Txindoki, Leaburu,



Izaskun, Uzturre, basoa... Beotibar'ko zelaia... Lizaratzu, baserri utsa. Ez da bakarra, zoritxarrez!

Koba ontan gorde zuten —esaten dutenez beintzat— Izaskun'go Ama-Birgiña'ren irudia. Karliten gudatean edo. Orduan ere zer goraberrak! Orain bezela! Errimiña ta gogoramenak ere bai... gaur bezela. Itxaropena. Gerrika'n. Itxaropena... gaur? Gogorkeria noski, odola, negarra, gezurra, saltzailleak etxean! Noiz arte? Guk nai dugun arte...

Kobako ezea ez da atsegiña. Bitartean, kanta dezagun J. Catania abeslari ospetsuarekin: «Ez det itxaropenikan, ez daukat pozikan, ezin naiz bizi». «Azalean Pakea, barruan arantza». Illunak goibeldu egiten nau... goazen azkar argira! Zorionera! Bizira! Bakoitzari, berea... Zapaldu? Bai... Makurtu, ez. Giroa illuntzen asi da. Lizaratzuko koban dena dago beltz. Noiz arte? Lenbizi Zuzentasuna, gero Pakea. Bai, baiñan...

MATXIN



eziketa jostailluak
eskulanetarakoak
irakasketa gaiak

gregorio de la revilla, 1
bilbao - 11

Jolasean ikasi, or zure aurrentzako emoitzarik onena

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

DIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

ZAZPI-KALEAK



CASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIQUEAK

KONTU KONTARI

ZALDI-ZURI

Gizonai ipintzeko ez-izena be ba'zan au, bai gero! Pago-goiko basarrixe, mendi ondoko landa erdixen, eguzki begi betetien, da bertan etxe jaun, maixorazkue, Liborio, alper pama galanta artutekue, jendian esanien beintzet. Dana dala, baiñe, beintzet pama eskasa ba-uken gure Liborio'k. Izena be, pama orren «konpormidadien»: «ZALDI-ZURI».

Alperrak zurixek dieziela diñue. Alan ba, Liborio, izen eder ori atzeratu, da geratu jako betiko: Zaldi-zuri. Inoiz entzun eran, au izen txar au, jende okerren agopien, Liborio'n kabriue ezan ez makala. Bera berez barritz, ezne txar-txarreku, da gainera ori!...

Aor, beko auzoko basarrixe, Pago-azpiko'n atie jo dabe lotsa galduko inderraz, da goiko bentanan agertu eran etxeko andrian buru motxa, Premiña'n ule mietzak, motxaila baltzan garrasi-preguntie:

—Zu, ez al dezu emen astorik, zaldirik, edo olako abere modurik, andrea?...

—Ez, eztago emen ezer-ezer be zuentzako, da, alde!...

—Gizonik ez al dezu etxien?...

—Ez, baiña neu naz neikue barrido esateko eztaukezuela emen zer egiñik!...

Gizonik ezeuela entzun eran, motxailak aurrera. Premiña'k ikusi eran motxailok gero eta barrura sartzen, euron terko asmo txarren baten diñotse:

—Zu, ara aor goiko basarrixe, Pago-goiko izenez, Liborio da etxe jaun eta jaube. Berak dauke, bai, zuok bier dozuena. Zaldi zuri eder bat beintzet, bier ba'da, ganera, saltzeko, edo ule mozteko premiñan!...

Ori, entzun eran, aor doiez gorutz motxaila aldrie arrapatata baten.

Danbar-danbar jo beko ate nausixe, da urten dau Liborio'k, sekulo baiño ernegaua:

—Zer karajo nai dozue?...

—Ara, geuk, geure bizi erie ba-dakizu: asto-erosten, saltzen, ule mozten...

—Emen etxak ezer. Olako bier premiñarik pez. Aide, aide emendik!...

Motxailiek, aurrerengo dauenak, diñotse:


—Ba, guk, ondo baiño obeto dakigu emen zaldi zuri eder bat dagola!...

Entzun baiño ez, Liborio'k artu dau akulue, idi probetako akulu zorrotza, da motxailok aurrien diezela, aren erpe jokue beko zelaire arte!

Sabaiko goiko bentanan zulutik dator, kukue baiño txikurra dala, Premiña'n barrie: ji, ji, ji...

JUAN JOXE ARRIZABALAGA «MARKIÑA»

Arri batekin asi zan



zure aurrezkien banketxea



BANCO DE BILBAO

gizaldiz goiti aurrezkitzan

EGUNAK

ZIRAN AIEK...!

Joanak aztu? Ez milla bider! Aiek ez dira aztekoak. Aztu bear gendukau gauzak emen daude, orain pil-pil. Aiek begira daude ta guk ezin kendu biotz erdiko tinkatasunik.

Gizon aundi, ospetsu, garbi aiek, gaur, guziak idazteko zerrenda ederra eramango lukee. Utzi gaurkoz bat edo bestean izenak, auek oraindik min emango dutelakoan nagolako; guretzako txarrak ziranex, besteentzat izan leizkelako txarrak. Egunen batean la-saiago esan lezazke eta bien bitartean itxoïn dezagun pakcan, aurretik Jaungoikoak eramaten ez ba'gaitu...

Aztu ezin zaizkidanak, gorago esaten detan bezela batzuk utzirik, aiek dira: Aita Agirre, San Salbador urian idakoa; Aita Egibar zarautzara; Aita Nikasi Larrea, Kuba'n, il zana; Aita Oyarzabal, Bilbo'n il zana, Aita LABORDA kantaria eta... apaiz ez zan gaur aundi ta argi ura, PIKABEA «ALZIBAR» izenakin idazten zuna.

Arrituta nago ni, ain idazlari yauyak izan asko emen, bateze cuskeraz idazten dutenak, eta nola leiken orren ixil egotea. Beoien berri nik baiñon obekiago jakingo dute, ta ala ere, aztuta daude, bazterrean sartuta, ta txepel. Nik ordea, txirotasun onekin, labaintasunik gabe, ta beste zer esan gabe, emen gaur zerbait idatzi dezadan.

Donosti'ko eguneroko baten, Aznar idazlari jaunak idatzita, irakurri degu egundoko lana, «Alcibar» jauna izandakoan berri ematen. Zenbat urte joan dira gauzak beren lekuan jarri gabe? Zenbat idatzi da ixiltasunean utzirik onen izenak? Ez; txarki diot, ixiltasunean ba'dago, ez da ezer idatzi, ta gaur ixiltasun ori eten du Aznar jaunak.

Gazte nintzan urte aietan. Ala ere zentzuna izan nuanetik, egunerokoak, egunero irakurtzen nitun ta oietako bat Donosti'ko «El Pueblo Vasco» zan. Neri asko gustatzen zizkidan Alcibar'en idazlanak. Neutralidadez beteak zeundelako ta argi ta garbi gauzak astintzen zituelako. Eguneroko ura barkarik bizi zan bitartean, ta geroz, beste bat sortu, ala ere naiko saltzen zan. Españi'n Erkal edo errepublika sortu zanean, irugarren egunerokoak irten zun, «El Dia» zan bera. Ordun, jakina, iru egunerokoentzat eziña zan bizitzea, ta Alcibar'en egunerokoa galdu. Ondamendi ura, esan leike, gure gudagaitik izan zala.

Aznar jaunak, ez du esaten zer nola ta nun il zanik Pikabea jauna. Nik esango det emen berago. Aurretik esan dezadan, emen Donosti'n, adierazi zioten azkar iges egiteko urrun, ta ala egiñik, an Baiona'n azaldu zan, ta bertan il. Ze eriotz minkorra berea! Ni Ameriketara nengola lagun batek idatzi zidan Baiona'tik, eta ez da txantxetako azkena gizon on ta pamatu arena. Buruak artuta bere burua leiotik bera botatzekotan, bein baiñon geiagotan arkitu zan gizajoa. Zeintzuk zuten erru? Errudunik izan al zan? Ez det uste.

Aznar jaunak dionez, orain zazpi urte bete ziran Rafael Pikabea «Alcibar» jaunaren eun urte betetzeak. Urte orretan omen zan egun egokia bere izenez omenaldi aundi bat egiteko, baiñan, emen Donosti'n dauden egunerokoetan, zer esanik ez, gutxiago gogoratu ziran beratzaz. Eta, orain zer? Oinbeste urte ondoren kokodrilloen negar malakoak?... Pokabea bezela, beste zenbait!

Zergaitik ez degu orain egiten beoien oroitz alako omenaldia? «Alcibar» bezela Laborda ere ain sonatuak izan eta emen ez da inor gogoratzen. Zuek ortan ibiltzen zeraten zuzendariok, pentsa ondo, ta gogoan izan urrengo batean. Gu, ain pozik joango giñake omenaldi ortara! Laborda jaunaren oriz muxikalariak. «Alcibar» jaunaren oriz izpar-kalariak eta beste guziok.

Laborda'ren aldetik ostera, berdin esaten det. Ba-dira emen bere lagun aundiak, izanak eta diranak. Zergatik ez dezute ezer egiten? Ori, nik ez dakit, edo geiegi dakit, biotz barrenak gorderik, esan ezin leizken itzik ta berdin idatzirik.

Beste gorago oien zer esan ugari esan leikez. Ortako izparrangi guzia beteko nuke ta emen ez dago lekurik. Utzirik beraz aiek, bukatu dezaten bi auenak: Gu zuekin izan gera, pentsamentuz eta egitez. Ez gera azten ez aztuko. Zuek Euskalerraren alde egin zenituzten lanak ez dira azteko. Naizta orrenbeste urte ondoren, oraindik ezer ez egin, geren baitan zaudete, gauzak beren tokian jarri arte. Ordun bai, ordun bildur gabe esan da idatziko dute guziak, ezer pasa ez ba.litz bezela, ta bizi diranak pozkarriago izango dira gu baiñon. Lerro kazkar auen bitartez, Aznar jaunak, artu beza nere aldetik esker berezia biotz-biotzez.

Nik ez nun inoiz bera alkar ikusi, ta bere izparrangi bitartez ezagutzen nun. Laborda zana bai ostera. Donosti'n lenen, Getari'n gero, larri une aietan igeska, ta azkenik ni Ameriketara'tik etorri ondoren emen berrito Donosti'n. Zenbat itz elkari! An gorten zan beti Bulebard enparantzan muxikalariekin itz egiten ta entzuten, Eskudero jaunaren baita bitartez jotzen zituzten muxikak, ta alai beti. Egun batez, biak joan ziran, beste egunkak bezela, ta arrezkeroz utsune aundia utzi zuten gure artean. Goian begoz bai!

E. OZKIN

Giscard bai

BAIÑA «GISCARDISMOA»...?

Nere prantzitar adiskidearen santuatuak irabazi ditu auteskundeak, alajaina! Berak etzuan asko uste onelakorik gerta zitekeanik. «Onena bai, Giscard. Geiena lezakeana, ordea, Chaban. Eta errikoiena, Mitterrand». Onela itzegin zidan Poupidon il baino bostenbat egun leenagotik.

Izan ere, nere adiskideak etzuan uste Burdeos'ko alkate dotorea beste aukeragairik aurkeztuko zuanik geiengoak. Ostera, bear ainbat babesturik etzuan ikusten Giscard argi ta yayoa. Eta egia esan bear ba'da, naiko beldur ba-zion Mitterrand'i; ain zuzen, egunetik egunera indartsuago dan prantzitar ezkerarren ordezkari bakar bezela aurkeztuko zalako. Ark, ez beste askoz ez genekiena, ordea, gizon altsu ta bizkorrak ba-zeudela «gaullismo»aren altzoan Giscard'ekin lerrokatzeko presturik.

Berauetzek osatuko zuten biurrien, «berrogeita iruren» taldea. Eta mugimendu onen eragillea etzan besterik orduko barru-ministro zan Jacques Chirac gazte ausarta baizik. Itz auen bidez adierazi zien «gaullismo»aren buruzagi zaarrerri bere irizpidea: «Gauzak argi; Chaban aurkezten ba'dugu, Giscard'ek bere aldetik joko du borrokara. Eta ez da izango berari utsiko dionik. Apust! egingo nuke, lenen biran baietz bildu Chaban'ek alako bi autarki pilla».

Onek zorotzat artuko zuan. Eta gainerakoek ere etzioten jaramonik egin. Aurki ikusiko zan, ordea, zein dugun Chirac. Inpernuko etsaia bailitza naastu zuan geiengoaren sailla, berealaxe pitza bezela arrotuaz Giscard adiskidearen almenak. Aldi berean Chaban'i bideak ixten leiaturiko zan. Alde batetik onen erakarpena kaxkarra gertatu ba'zan, alderdiak bearturik pipiak jotako egitaraua eskeñi zualako izan zan. Ostera, iñungo loturetatik aske ta nunaitik autarkiak erakarri nairik, itzean eta ortzean igorri zituan eskeintzak Giscard aundizaleak.

Besterik gabe zeramakion, beraz, aski aurrerapen. Gaiñera, guztiz jatorra ez deritzaigun laguntza emango zioten Chirac jaunak —onek, barru-ministro izateak zemaizkion eginpide oro erabilliko baizuan adiskidearen alde— eta izparringiek. Adibidez, auker, «sondeo» diralakoan bidez. Kalte izugarria egin baizitzaion Chaban'i lendabizikoz Giscard'egaz berdindurik agertzean. Andik aurrerakoan, berriz, egunoro % 1 ari kenduta oni eranstea, piskanaka, zalantza zekarten «gaullismo»aren sailera. Azkenean, legenarra baizukean iges egin zioten autarkiek Chaban jaunari.

Dana dala, irabazle gertatu da Giscard, Jacques Chirac zamorro bezain ausartaren laguntzaz. Onek dagoaneko jaso du bere saria, lendakari berriak jaurleri-buru duan ezker. Ark ere landide kementsu ta leial bat bereganatu du bidenabar. Batak naiz besteak, ala ere,

zama astuna artuko du sorbalda gainean.

Asterako, ezker batuak —galtzaille baino aldiz indartsuago— ez die atsedetik emango, Giscard'ek aoa-betea egin-dako eskeintzak aguro bete ditzaten. Eta ba'litteke batzuentzat il omen dan «gaullismo»ak kemenik eta almenik edukitzea oraindik bere baitan, agintari berrien inguruan sor daitekean «giscardismo»ak aintzakotzat ar desan.

Argatik, estuasunik eta buruausterik gabeko agintaldia ez da izango Giscard'ena. Kezka auxe erakusten zidan nere prantzitar adiskideak arestian. Eskerrak ziur-ziur astinduko ba'du, eskuindarrek ere gogor artuko lukete urrunegi ba'lijoa. Esnatzeko garaia du, beraz, Giscard'ek. Arro azaldu da bere gaztetasunaz: «Ni naiz etorkizuna», zioen bein eta berriz. Onegaz, besteak beste, «giscardismoa» aldarrikatzen zuan iñundik ere, eta «gaullismoa» atzean utzirik noski. Nork jarrai dezaioke, ordea, norberak eta Chirac'ek lur-eman dioten «gaullismo» orretxen kondarrek izan ezik? Agian prantzitar belaualdi gazteek?

Ez du orixe uste Mitterrand'ek: «Atzoko gizona deitzen ba'didate ere, bost ajola zait iraiña. Ongi baidakit gaztediaren eta aurrerapidearen ordezkaria ni naizela».

Auek onela, ezkertiar buruzagiak aipatzen dituan indar gazte ta aurrerazaleen artean arrakasta izango ba'du Giscard'ek, ba-dakike nondik jo bear duan. Jaso beza Mitterrand'en aupada, ots, bereak egin bitza lendakari berriak onek erriari azaldutako asmoak.

Izan ere, Mitterrand'ekiko, prantzitarrek, «aundizkien talde batzuen menpean daude». Taldeok, noski, «multinazional» ekintzak dira. Argatik, Mitterrand, ludiko maratilla guztiak beren esku dituzten ekintza izugarri oien arerio aitortu da. Eta jakina, «Banketxeak dira multinazional» ekintzok gaur egun dituzten zaindaririk nagusienak». Egoera au amaitzeko ordua da prantzitar ezkerarren ustez. Ez ordea indarkeriz, «aldaketa zertzeko tresna ez da gogorkeria, legea baizik». Orrezkero, beste asmo batzuk agertu zituan Mitterrand'ek: «Langilleagan ustea duten aiena da etorkizuna». Eta azkenik, etxeko sukaldetik irtenda, Europa'ra begiratzen du Mitterrand'ek, begi argiz eta erabakitasunez: «Europa bien arteko oreka sortzea bearbearrezkoa da; CEE'ren jaurlaritza sendotzea; Europatar Legebiltzarren almenak geitzea; Bederatziren politika bateratzea, beren gizarte-legeak egokitzea, etab».

Or dauka, norbere asmo berrizaleen aberasgarri, ezker demokrazialeak erakusten dion bidea, urratu nai baldin ba'du Giscard gazteak. Ikusiko dugu adin eta sasoz bezain gazte dan gogoz eta asmoz. Guztia bearko baidu aldarrikatzen duan «geiengo berri» ori bereganatze arren...

JOLU'k

Euskal-Erria eta Errioxa

AGIRIKO LOKARRIZ ELKARTZEN.—

Latxaga idazle bezain ibilkari ezaguna ta biok or gabiltz, alkar asko ikusi gabe, baiñan geienean bide berperatik, leen noizbait gure izan zen eta gaur ere nola edo ala zertxo bat gurea den Errioxa, batipat Garaia, gurenganatu naican. Bai ark eta bai nik, emen, lur ordeka, zelai auetan, gari-leku eta maast-toki auetan, nai genduke ikusi, besterik ez bada, delako «week end» eta oporaldietan Euskal Erri'ko endea.

Orain arte, or ibilli dira zenbait euskaldun eta jakintsu eta dabilz ere gaurregun antziñako toki-izenak eta familien deiturak biltzen, mendiz mendi eta erriz erri, direla Aingeru Irigaray, J. Caro Baroja, Merino Urrutia ta Anguiano'ko errian baita ere Ana Mari Echaide. Latxaga jauna berriz zer esanik ez dago. Oraintxe bertan atera berria du liburuxka apaña «Errioxa'ko San Millan, Euskal iturri» izenpurua duelarik. Arraioa! Ez dugu nagirik oliñetan gure Latxaga'k (Edili'k atera du, On Manuel jaunaren aintzin-solas polit batekin). Baiñan ontaz beste noizbait eta beste nonbait mintzatuko naiz patxaragoan. Beraz, bego ortan bertan gaurko esana.

Imanol Laspiur jaunak ere (barka dezala «jaunaz» tratatzea, sozialzale xamarrek bai dira eibartarrak) egiten ditu, oporraldietan, Ezkaray'n, ikerketa emankorrak. Ea, Imanol, noiz argia ikusten duten.

Emendik mende bat edo geiagora, ziur egon eta izan, Errioxa Garaia euskal izenez josita egongo da. Ba dirudi Euskal Erri atsituaren arnas leku garbia biurtzen ari dela Errioxa Garaia. Oraino mendietako gaillurrek erreka ziztor garbiak bidaltzen dituzte. Oreñak eta oreinkumeak saltoka dabilz Ezkaray'ko inguruetan, erriko baratza txukun guziak lardatzen dituztelarik.

Oreñ eta arkatzen azitegi edo erdaraz «vivero» deritzanak Cameros'go mendi-saldoan dagoz. Nonbait, entzun dugunez, burges edo aristokratarentzat itsitura edo kotoren bat artzeko asmoa dute. Ez du antxe sartzerik izango ozta ozta «salario minimoan» kokatua dagoen langilleak. Ba dirudi geroruntz begira «Euskal Erri» muskerra edo berdea andik aldetik, Pirineos aruntzik eta Errioxa aldetik izango dela.

Bizkaia'k batipat joera andia du lurralde auetara. Ta, laster, emendik iru edo lau urtera, zer esanik ez, delako «autopista del Ebro» orrek lotzen duenean zuzenki Calagorra, Logroño, Haro Bilbo'kin. Gizon jakintziak diotenez, ordubete eta apur bat geixagoan Bilbo'tik irten den kotxea iritxiko da Logroño'ko irira. Zerbait da.

Asi da Errioxa goruntz begiratzen. Il onen 19'an, «Sociedad de Amigos del País» deritzanak deiturik (Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País) munibetarrek in alkartu dira Gernika'n, gure arbolatik ez ain urrun, Logroño'ko Instituto de Estudios Riojanos, jaun Briones, Diputazioko Leendakaria, buru dutelarik.

Urrengo illean, berriz, Euskalzaindiak bere billera San Millan'go Monasterioan izanen du.

J. LASA

Irabazi Bideak

ITXAS ERRIETAN

Jendea gero ta ikasiagoa da, ta orregaitik gizarte arazoagaz be len baino geiago ardurutzen da. An eta emen diardue euren errien ona billatu naian bizibide ta kultura bide barriak sortzen: Lantegi kooperatibak eta ikastolak batez be.

Lengo baten Atxukale idazleak irratiz iñoanez Ondarru'n (gure errian) etorkizunagaz kezkatuta bizibide barriak sortzeko estudioak egiten diardue. Itxasoagaz zer ikusirik ez daukan langintza erriratu nai ei dabe.

Asko poztu ninduan albista onek. Aspalditik ikusten neban onen biarra ta idatzi be egin neban. Ain zuzen, Atxukale'k barri ori emoten eban astean bertan agertu zan GOIZ ARGI'n, orain urte batzuk dirala sariketa baterako idatzitako idaztarian esaldi au:

«Gure arrantza-erriak geienak itxasoari osorik lotuta daude, oso-osorik itxasotik bizi dira. Obe litzake beren onerako arraiarekin zer ikusirik ez duen industria ta bizimoduak erriratu balituzte, arrantza bere neurrian artuta.»

Gero-ta premiñazkoagoa da itxas errietan liorreko langintza, batez be itxasoagaz zer ikusirik ez daukana. Bajurako itxasontziak gitxitzen duaz ta oker au konponduko dan itxuririk ez dago. Irabazia baino kaltea ziurrago ekarriko leuken arrantzako itxasontzi barririk iñok ez dau nai egin.

Beste aldetik, jendea, batez be gazteak, gero ta eskolatuago dira ta liorreko lanbideak ikasten ditue. Beraz guztiak erritik urruneratu biar ez badira errian edo inguruan nun lan egin eratu biarra dago.

Baiña liorreko lana errikoentzat sortu nai izateak, itxasoari lepo edo bizkarra

emou bear dautsagunik ez dau nai esan. Onda rru'ko bizibide nagusia, beti, arrantza izango da. Beraz ardura andiagaz artu biar dogun arazoa da, ezergatik ez gara kikildu biar. Bajurako arrantza ezin ta illunago ikusten da. Okerrena, arrantzaliak nun itxasoratu ez dabela izango, iñok itxasontzirik egin nai ez dabelako. Baiña arazo oneri be erabagia emon biar jako. Iñok egin nai ez badau, kooperatiba modura be itxasontzirik egiteko itxuririk ez bada, urtenbide bakarra Kofradiak dira. Arrantzaleen Kofradiak atzeratuak gelditu dirala esaten dabenak ba dira; arrantzak gaur daukazan problemari urtenbidea billatzen ezer ez dabela egiten, bere egitekoa arraiña saldu ta erderaz «Seguridat Social» esaten jakonaren kontuak eroan bakarrik dala.

Ara ba emen Kofradiak bere gain artu leikean egiteko garrantzitsua: Errietan itxasontzirik ez daiteala gitxitu ta ori lortu al izateko barriak eurak egin. Iñok baino ariñago lortuko leuke Kofradiak orretarako biar diran diru aurreratzeak. Jakiña, eurentzat kalterako izan leiteken garatz edo negoziotetan Kofradiak be ez dabe naiko asi. Baiña, au konpondu leitekeana da. Euneke berrogetamar gitxi badau, itxasontziak bere burua ordaintzeko biar dan aña artu daiala. (Kofradiak egin leitekezen itxasontzi barriatzaz diardut eta ez bestiatzaz) Olan arrantzaleentzat gitxiago gelditzen dala? Egia, baiña bestela itxasontzi barririk ezin egin bada, egin al izateko bideak ipintea da lenengoa; arrantzaleak gitxiago irabazita be nun itxasora juan edo ogia irabazi euki daiala. Gaiñera onek be konponketa izan leiteke; itxasontzi bakoitzean lagunak gitxitu.

KAMIÑAZPI

INSALUS

Urik garbiena ta osasungarriena

ERRIETAKO

BARRIAK

Markiña

ORRILLAREN LENENGOA

Orrilla! Ames-illa. Inguruak loretan, txoriak abeslari, kukua eskolan ondo ikasitakoari ekin ta ekin, eguzkia dizdizka, biotzak pilpil... Orrelakoxeak izan oi dira Orrillari buruzko amesak. Baiña tremesak...

Orrillaren ate-atea, beintzat, Langille-eguna, uretan beratuta agertu ta joan jakun. Eta agur mendirako gure ames gozoak! Goizean lo-gelako leioa edegiaz batera jeurt egin eta izara arteko epeletara barriro, arik eta eguerdi inguruan amak Ondiño be or zagoze, alperrontziok! deadarka deitu arte. Olako eguraldiagaz nun, ba, obeto, merkeago ta osasuntsuago? Mendira ezin; kalean, barriz, naizta egaririk ez, txurrit eta txurrit ekin bear... Zergaitik ez ete dakigu beste ezer egiten?

ISIDRO DEUNA

Eguzkia be baserritar-zalea ete dogu? Egun orretan argi ta arro agertu zan, jantzirik ederren ta dizditsuenekin. Eguzkiaren antzera kaleratu jakuzan alboetako baserritarrek be: alai, nasai, garbi, apain ta patxada aundiz. Euren eguna zan. Soloetako neke ta izerdiak santutu zituan isidro Deunarena.

Amaitetan Meza Nagusia Xemein'go Eleizan, itzaldi eder ta guzti. Ondoren, *Lagunaro*'koak urreratu ziran baserritarren osasunari azterketa bat egitera. Biotza, biriak, odol-sakada ta abar. Asmo txalogarria auxe, benetan! Gaizo-zuztraiak sarritan ixil-ixillik eta miñik emon gabe azpi-lanean jardun oi dirata. Norbera konturatu orduko, barriz, ondo sendatzeko beranduegi askotan.

Egun andietako oitureari jarraituz, bazkaria belu samar; lege-legekoa ta egunari egokona. Arratsaldean edozenbat joku solasgarri pelota-tokian. Eta azken baten, *Beno, mutillak, datorren urtien be alkar ikusteko izan gaitzela* esanda, bakotxa bere auzuneko estalpe gozora. Alkartu, baserritar jatorrok, eta eutsi zeunari al dozuenik ondoen.

DABILTZANAK

Dabillan arriak odolgirik ez. Matute'tar Xabier udalkidea Sevilla aldetik ibilli ondoren erriko kabira biurtu jaku. Arrizabalaga'tar Karlos eta emaztea be gure artean doguz Errroma zear ibillita. Foruria'tar Luis eta emaztea Benidorm'etik ibilli jakuz zortzi egunez, eskerrak Loiola Irratiak bazkideen artean urtero egiten dauan zozketeari.

Ongi etorriak guztiok gure txoko maitera!

BATEO TA ERIOTZAK

Orrillaren 5'ean iru Bateo izan genduzan: Miriam, Sabat eta Unai umetxoena. Sakatu gogoz, txikitxuok, amatxoren bularrari, laster txaka-txaka asteko. Zorionak zuoi ta gurasoai!

Aitarenera joan jakuz Pepita Gomez eta Murga'tar Jose Mari. Murga Jauna sarritan izan zan Bizkia'ko Aldundian Markiña aldeko ordezkari edo diputadu: ta oso gazte zala, Aldundi orren Lendakari. Berari zor dautsaguz Markiña'tik Aulestia'rako ta Larruskain' erako bide barriak. Orrillaren 16'an il da Bidarte jauregian, 97 urtegaz.

Goian begoz gure anai-arreba maiteok! Otoitz bat euron alde. Senitartekoai gure samin-agur zintzoa.

EUSKAL-JAIA

Orrillak 12. Euskal-jai bikaiña erriko pelota-toki ederrean; ago-barrua luzarorako gozotuta utzi dauskuna. Ango jarleku ugariak naiko izan ez ta gaiñetikoak ekarri bear. Badogu inguruetan euskal-egarria!

Sekula iru ordu laburrago ta motxagorik! An ziran Arratia'ko Oiartzunak, an Lertxundi, Zerutxu Dantza-taldea ta Pantxoia ta Pello bikote maitagarria. Guzur-muga osteko abeslariok eskuak txaloka andituta ta biotz-begiak negar-malko gozotan ipiñi euskuezan. Ekin ta aurrera, mutillak! Emendikuok ezin doguna zuok al dozue-ta.

Ikustekoa izan zan Zerutxu'ko gaztetxoek ekinaldia; batez be *Gorulariak* deritxona. Dantza-antzeko au gitxi ezagutzen da, zoritxarrez, gure artean. Izan be ez da ain zarra. Aurreko gizaldian Durango'ko Euskal-jaietarako berein-beregiz asmatua. Bertsoak Mogel'en *Peru Abarka*'tik jasoak eta doiñua Zubiaurre jaunak ezarria, Garai'ko margolari ospetsuen aita zanak. Zoragarria Zerutxu'ko txikiak egindako lana! Zorionak, Amutxastegi'tar Felipe! Zure neke ta izerdiak gozatuak izango ziran, ziur, arratsalde atan, zeure-zeurea dozun talde orrek irabazitako txalo ugari ta beroekin.

Dantzak eta olakoak folkloreakerriak dirala? Ez! Folklore bai, baiña ezetarik *keririk* gabe. Folk-lore = Erri-jakintza. Orixe! Erriaren muiñetik sorturiko kimu jori mardula. Zugatza maite, ta kimuak ez? Guk, beinpein, ez dogu adar bako zugatzik nai Euskalerrian.

Aurkezleriak: Arantzamendi'tar Jon, Ondarru'ko kresal jatorra, ta Zelaia'tar Mertxe neskatiilla lirain argia. AGUR, JAUNAK! ozen ta barru-barrutik abestuz bukatu zan jaia. Noiz beste olako bat?

(Azkenez, eutsi eziñeko kezka ta arantza bat: Olako Euskal-jai eder baten zergaitik ikusle-entzuleen artean, batez be gaztetxoek artean, ainbeste erdera? Orixe bai ba-dala benetako *keri* illuna!)

KIRKILLAK

AZKARRAGA

Zumarraga

AITONA'REN KEZKA; Aste guztia burniola bateko ke beltz eta kirastuen menpean igaro ondoren, gogoko zaio mendizaleari jai eta opor egunak sortzen duten askatasuna. Askatasun onen doñuan or ikusten ditugu jai ta opor egunetan mendi-bideak artzen mendizale taldeak.

Euskalgizartean, aspaldi finkatua degu mendi zaletasuna. Gaur, gure begiz ikusten degu, Euskal-errietan gutxi dira beren mendizale talderik ez daukatenak. Talde auek mendi-tontorren batean ospatzen dute urteoro beren jai-berezia, inguruetako errietako mendizale guztieri deituz.

Benetan ikusgai zoragarria izaten da, zantzu eta irrintzi, aldatzak gora mendizale taldeak, ta talde auek iristen diranean izentatua den unera, angonongi etorriak, itzaldi sakonak, gai denari domiñak paparrean jarri, ta Kristo'ren legean ospatuaz *Meza Deuna*.

Orain egun batzuek ospatu da, arako mendi bizkar-batean, mendizaleen egun zoragarri bat, Euskalerrian lau aizetatik batu da jendea, zer esanik ez dago gure erritar mendizale zaar eta gazteak gailur ortan agertu dute beren nortasuna.

Guk, berri emaille maillan AGUR'eko irakuleentzat izpar batzuek jakin nairik irten gera arratsan ibiltari auen billa.

Topo egiñik bidean gure kideko batzuekin, erregitu diegu, arren, eman dezatela mendi aldean ikusi ta ikasi dutenaren berri.

Onela dio mendizale nere lagun batek; Eguraldi berezia lagun, jende oste polita, alaitasuna ta pakea, gure jaun ta jabe, ta Meza Santua ere bai, baiña, a... nolako meza!!! Meza emaillea mendizale jantzia, Alajaiña!!! Ta, au naikoa ez ba'da, Jaunartzea bi eratan, da oparo, Gure uste apalean Elizak, bi eratan Jaunartzea'ri buruz jarriak ditu oiñarriak.

Mendi gailur ortan Elizkizun au eratu zutenak, asmorik ederrenarekin eratuko zuten, baiña uste degu jakin bear zutela Eliza'ren aginduen berri.

Gogor egiten zaigu aitortzea, baiñan, gure uste zurrin da, gaur-gaurkoz ez, SAGRAMENTUAK eta gure siñismenak, olako elizkizunekin ez dut aintza geiago artuko. Gogoko egiten zaigu izakiaren aurrean Yankoari aintza ematea mezaren bidez, baiña Meza emaillea dagokion eran jantzia, ta Sagramentua zor zaion begiramenarekin. Naigabe aundia sortu du gure eliztarren artean delako Elizkizun onek. Noiz mintzatuko da, Eliza?

Galdakano

Edonork dakian bezela, Bizka'i'ko ibarrik luzeena ta urtuena Ibaizabal ibaia da, naita Garoibel edo Salbada mendilerroaren oiñetan aurkitzen dan Delika erritxuan jayoten dan Nerbio edo Nerba ibaiarekin Basauri'ko Urbi'n bat egiten dabenetik eta Bilbo zear itxasorarte, (ez dakigu noztik eta zegaitik) azkenengo orren izenaz ezagutzen izan.

Esan dogunez, urtzua da eta Anboto, Udalaiz, Oiz eta beste inguruetako mendietan jayoten diran iturburu ta latsetatik jatsiten diran ur gardenekin ornituta diardun ibaia izanik, arraiñez be aberatsa orain urte gitxirarte; bear ba'da Bizka'i'an aberatsena.

Aldi ontan, baiña, kutsapena dala-ta, zinkikeri orreik garbitu bear dirala-ta, ainbeste itz eta idatziten dan aldi ontan, guztiz zikinduta yatorku ibai eder ori, Durango inguruan asi ta Ondarreta ta Portugalete onduan itxasoaz bat egiñarte. Eta, jakiña, zikin orreik dirala bide, ain aberatsa izan ibai ori arrain barik geratu da, edo dagozan gitxiak ezin legikez jan, atsituta dagolako ibai ortako izadi guztia.

Nortzuk diran errudun?, edozeiñek daki: lenen, Lemona'n zan edo dan larrukindegia asi zan bertako ondakiñ zikiñak ibai ortara jaurtizen eta orain askotzaz geyago, Durango'ra eldu baiño lentsuago aurkitzen dan landola andiak jaurtitzen daben loikeria geyen bat.

Gure erri onen erdi-erditik igaroten dan Ibaizabal onek, ia amaika anai-neurkin bustitzen ditu, ta aldi baten bere egal guztiak arraintzalez beterik ikusten ba'ziran be, aldi ontan, bere aldamenetik urrundu bearrean aurkitzen gara, ats naskagarriz eta zinkikeriz edendu nai ez ba'dogu. Noiz arte? Bear ba'da ori galerazoteko eskubidea daukenak nai daben arte.

«PYRENAICA»:

Eskuarteon dogu, ta irakurri be, urte ontako lenengo iru illabeteko «Pyrenai-ca», Euskal Mendigoizale Bazbatza'ren aldizkaria. Eta beste ale askogaitik esan doguna edo antzerakoa esan geinke ale onegaitik be; ingi ona, argazki obaeziñak eta irakurgai bikaiñak, baiña danak gaztelerez, zergaitik ori Bengoetxea'tar Kasimir eta Iriondo'tar Patxi? Euskera iñoiz ilten ba'da, illetak egiteko bakarrik nai dozube?...

Esan dogunez, eta gaztelerez bakarrik idatzita dagozala ontzat artzen ez ba'dugu, irakurgai mamitsuak ditu, baita mendira edo mendiak zear dabilzaneztat ikasgarriak be, «Rafael del Pilar Zufia'k» idatzi daben «Meditaciones» idazlan ikasgarria bezela. Ia nonoz, gure euskera txukuna ugari dakarrela esan al izaten dogun; edo, ez gozela geyago irakurten esaten.

IRIYOTZA:

Igaro dogun Orrillaren 26'gn. Jaunak, Bere aldamenera eroan eban, Ereño'tar Polentzi langille azkarra, 78 urtedun zala. Goyan Bego, ta lagun gaitube atsekabeen bere sendikide guztiyak.

ZAURITUTA:

Ezbeareko laprastada baten jausita, izterra apurtuta aurkitzen da, Larrinaga'tar Saturniñe adiñeko andera argi zintzoa, Zabala'tar Andoni euskaltzale jatorraren amaiñarreba. Laster sendatuko al da emakume bizkor ori!

BASA-JAUN

DEPURACION DE AGUAS S. A.

URA EGOKITZEN ETA UR LANETAN BEREZITUAK, EDANGARRIAK - LANTEGIRAKOAK - ZIKINDUAK NAIZ IGERITEGIKOAK ZUZENTZEN

+ 32-37-00 - + 31-00-10 - 32-37-01 Urt.

Gordoniz, 44, 12.^a
BILBAO-2

ARRATIA

ARRASATE

Ea

Komoda zarrrik ba eite gaur etxeetan?

Paper zarrrik bai. Eta alaxe, denporaz oritutako bat bialdu dauste: An ei dagoz ietarren jakingarriak.

Orra. Paper ori Pascual Madoz'en «Diccionario Geográfico»tik norbaitek maitasunez artu eta kopiaturu da. 1847 urtean agertu zan liburu ori.

Ea'tik zenbat legua dagozan Burgos, Calagorra eta beste errietara esateak, ez dot uste merezi dabenik. Ez al dago lengo tokian gure erri baketsu au?

Aize guztiak joten ei eben bertan eta giro, klima, egokia zala emengua sukar edo kalentura puztugarriak batzeko.

Eun etxe, lau kale eta plaza bat sasoi aretan. Kontseju etxea be bai, nai ta txarra; kartzela bat, eskola bat 70 umegaz. Bosteun errial urteko ordaintzen ziran eskola orretan erakutsi bear ebanari.

Aresti, Allua eta Erdia mendiak gaztaina, aritz eta artaz beteak. Basobarri'n, metal ura.

Erritik urteteko bide bi: Lekeitio'rakua bat eta Gernika'rakoa urte aretan oraindik amaitu barik.

Martitzen eta domeketan etorten ei zan karterua.

Artzen ziran igali edo frutuak: Gari, arto, gaztaina, patata eta babak. Erbi ta eper ugari inguruetan. Arraiña be bai.

Urun errota bi eta burdintegi (ferreria) bat.

Sal-erosketarako, komertziorako: bertan egozan sei txalupatan arrantzaten zan arraiña.

148 etxe-jaun bizi ziran; 756 bizi lagun danetara.

60/70 urte lenago, itxasontziak be egiten ei ziran bertan, baiña liburu au agertu zan sasoiaren arrantzako batelak bakarrik. Arrantzale erria izanarren, gazterik geienak iru edo lau urte Ameriketara egiten ei zituen diru pixkat egin nairik.

Ara, ba, Madoz'ek esandakuak, labur-labur barrizatuta, oraingo paper zurietan.

A. Z.

Madrid

Bai, irakurle, Madrid'en «euskal-aizeak» eta mundik etorriak uste dozue...? Valladolid'etik. «Ederti» abesbatza taldearen eragiñez.

Lorailak 14. Igandez. Pio XII'aren Ikastetxe-nagusiko antzerki-aretoan, euskal-jai atsegiña benetan izan genu, beurai ezker.

Neskatilla gazte polit batek —tamala zait bere izena ez jakitea— euskera garbi-garbian azaldu ziguz, 1920'ganean, aldi artan Valladolid'en ziran euskal-ikasleak sortua. Urteetan iraun zuten, beuren abestiaz alaitasuna ta etxe-kutsua zabaltzen... Baiñan, egun garratzak eldu ziran eta... «Txori abeslariak ixildu, ala bearez.

Zorionez baiñan, orain bost urte dirala, aurre-ragoko bidetik gogotsu ekin diote aldi ontako euskal-ikasleak ere, gazte txorta ederra osoturik. Ez bai da alperrikakoa «ereitea», bakoitzak bere mailan eman al lezaken eredu eta ikasbidea. Pozgarria ogeita amabost inguruko neska-mutil gazte talde eder ura ikustea. Beuren erritik at, etxetik urrun bildu dira, sendi bat bezela sortuaz euskal-ikasle artean. Eresi zaletasunaz batera, euskal-alkartasuna, anaiarte. Ori bai edertasuna!

J. Olaizola, A. Donosti, Guridi, Madina, Mokoroa, Olazarán, Zahirain, Remacha, eta Iparagirre'na amaitzeko, amasei abesti eder eman zituen. «Agur Jaunak» asieran, «Goiko-mendian»,

«Mendigoizaleak», «Ator mutil», «Neure maitena» ta beste ederrik asko. Tartean txistu ta Alboka soinuak.

Oso ederki. Zorionak gustiei, bereziki «Ederti» taldearen zuzendari dan Xabier Busto'ri.

Jai-aldi atsegiña benetan. Pozgarria, baita, birritan nerretzat; aretoa gaztez beterik zegola ikustean. «Gernikako Arbola» entzuterako, bat-batean zutik jarri zan gaztedia. Ereserki oneri zor zaion itzalpen eta oneraspena orrela agertuaz. Orra or, euskal-itxaropena...!

Pozgarriago oraindik, euren artean, geinak euskeraz mintzatzen ziralaz entzutean. Eta neure arteko gogoketan, etorkizunari buruz, baikor, ameslari, jarri nintzan... Ama Euskera, poztu zaitetz! Zurez mintzatzen diran gazteak, ugaritzen bai-dijoaz.

P'TAR JONE

Bermeo

ILLETAK ARANTZALE ITOAREN ALDE

Lengo larunbatez, illaren 18'an, Miren Deuna'ren txadon nagosian, illeta batzuk izan ziran, ontzu, «AIRES DE BERMEO» deritxon ontzitik jauzi eta ito ta estaldu zan ZORION AREGO KALZADA'ren gogo alde.

Elizia bete beterik egoan arrantzale eta erritar gizon-andreakin. Artu beie bere emazte naigabetuak, eta bere seme-alabak, nere agurrik zintzoena.

UGARTE SAL-EROSLEA

Gexo madarikatu batek jota, ogeratuta dago gure adizkide ona dan Ugarte'tar Jose Luis euskaldun jatorra. Osatu edo obatu bedi bere osasuna ainbat lasterren.

ARRAINTZAK

Aspaldion, gure Kantauri itxasoa emonkor dago, eta arrantzale geyenak pozik dabiltzaz bai lebatz, besigu, eta antxoa zaleak ere. Beintzat, euron arpegiatan agiri da alaitasuna. Oba. Olan ez dogu entzungo kezkarik eurekandik, esaten dala: «arrañ geyago ez ba'dator, AGUR GU!» Bai zera!

JULEN KALZADA'REN AMA IL DA

Eguasten arratsean, Loraila'ren 22'an, eta Axpe-Busturi'ko eleizatzu ederrean ospatu zan illeta gomutagarria, Ugalde ta Garay'tar Leone'ren illobiratzean. Doroteo Kalzada'ren alarguna zan, eta Julen Kalzada, Zamora'ko espetxean dagon apaiz kementsuaren ama samindua.

Illeta onetara, Euskal-erriko toki askotatik etorri ziran, eundazka gaste, gizon eta emakume, danak edo geyenak, euren biotz, gogo eta soña minduta daukoenak.

Elizatzu onetan egon ziran askok, biotza erdibituta, negar malkoz, benetako naigabez agertu ebien. Kalzada-Ugalde kistarra, euskal sendi zindua, oso zoritxartua izan san 1936-1939'gko guda odoltsu aretan. Eta gaur ere, bake ez nasaitasun barik bizi dira. Noz arte? Itun eta itzalez beterik, artu egizube euskal sendi maite orrek, nere tamal agurrik benetakoena.

JULEN URKIDI

Arratia

Arrasate

LOIOLA'N

Ango ta emengo barri, zuri arratiar orri. Zurikeria, azalzeria, egiaren itxurazko gurrurra... ta besterik, azur-muñetaraño dogu sarturik. Eta zurikeri egunak, noizik bein, ondo datorriguzala ezin ukatu dogu.

Lengo baten, ba, nire lantokia ikustera aginte andidun jaunen bat etorrela-ta, buru-belarri ari giñan basterrak garbitzen, sagu-abi ta zikiñak kentzen, agiriak txukuntzen... azala apaintzen. Gure lantokiko okolo —ala okolu?— ta jaun a ibilli izan zan bide-ertzetan oraintzu egin diran garbiketak, noiz izango dira barriró?

Betoz, betoz lantegietara, betoz erriak ikustera, noizik noizera, ots andiko gizonak. Laguntzailleak inguru, argazkiñak albo ta aurrean... erakutsi ta ikusi-bearreko askorik izkutan... eder itxurazko azal narrutsua agirian. Guzurrea samur, egia labur, aspaldizko aldietan.

* * *

Orrillak 26, Igandea.

Gizarte artu-emonetan bakoitzak beraren erara tajutu edo eratuta, eguneroko, aldizkari, irrati, teleikuskin eta beste bide batzutatik datorkuzan kalte ta onari buruzko itzaldi mamintua entzun izan dogu. Gizontasunezko azkatasunik ezaren zerak, eta azkatasun neurtuaren azpian ezkututzen daukuezan egi biribillak; eta utsegiteak diran laxe ezin argitaratze t'abarren ondoren txarra noraiño-koa dan, ikasi ta jakin gura ebenentzat; ikasgai oso ederra izan zan.

* * *

Etixerako bidean txori-azoka edo erakusketea. Ordubatak joanik egozan bazkaltzera, ordubiak etozan eguzkia artzera. Umetxo bi, mutilak, eta ume onein aita-amak dodaz aurrean, ondo-ondoan.

Umetxuak, txir-txir eta txor-txor, euskera gozoa, euskera samurrez diardue txori-erosketa egin gura-ta. Adi nago begiz, adi belarriz; eta aita nor zan oartzan, arritu egin nintzan. Euskera barriaren, batuaren edo dana dalakoaren eragile, aurrelari ta buru-belarri langille azkarra danaren zintzurak ez eban, semeentzat, zintzur-ganeko «hi»rik ez «hori»rik. Umetean bere, etzegoan «h»ren lortatzezko itzik.

Norberarentzat eta norberaren etxekoentzatzat janari txarra izanik, auzoko umeari janarozotea... bestearen sabela galtzea...

* * *

Arratiarrak ondo daki, nik baiño obeto ziurki, adimenez atzeratuen alde Iurr'en izan diran jaien barri. Bertaratu ezin nintzanarren, emen dodaz 100 laurlekotxo, itsulapikorako.

LANDAJUELA'TAR A.

UDALAITZ

ARGI-ONTZIAK

EMOITZGARRIAK

EREDU BAKARRAK

ALBERTO URRUTIA GOTI

Ribera, 19 (Pelota, 1'en ertzean) 21 14 89 Urrut.

Carnicería Vieja, 8 - 23 56 25 - Urrutizkiña.

Santuchu, 16 - 339491 - 333123 - Urrutizkiñak

BILBAO

ATXONDO'N

Askoz ez dakie Atxondo nun dagon. Amabi urtedun erri barria. Ume samur, guria, gaurko erri izenen artean, baiña arraza oneko, istorian bizardunak osotua.

1962'ko udazkenean, Azilla'ren 4'n, Apatamonasterio, Axpe eta Arrazola alkarregaz batu ziran. Iruren artean errialde bat osotu eta izen barria artu.

Orra Atxondo. Apatatarrak, inguruetan esaten dauksen lez, apatar «sokagiñak», arrazolatarrak eta axpetarrak, atxondetar biurtu ziran, edo Atxondo'ko. Norberetasuna galduta? Nekez lagaten dau bakoitzak berea. Gaitz da ori. Urtien urtetan be eurenekin jarraituko daben ezparirik ezin euki, tellatu zabal baten azpian bizi-legea betearen.

Zenbateko kondaira galdu etc eben eurak, premiña eta estutasunen mendean, alkarren berotasun eta laguntzan batu eta izen barri baten eskutateko?

* * *

APATAMONASTERIO

Abadeak ei egozan emen eta Etxebarri'ko San Augustin'en fraillak. Ortik emengoan izena: abade-monasterio. Irureun laguneko erria. Lurrez 3,36 kilometro lautu. Gerediaga'ko batzarretan amargarren botoa eukan. Elizaz, luzaro, Elorrio'ko San Augustin'eko. 1857 urtean emon eutsen parroki eskubidea.

Bertan jaso dabe gaur iru erri batuon udaletxea, kontseju-etxea.

ARRAZOLA

Irureun bizilagun. XVI mendeko San Migel'en parrokia. 1510'n sortua. Eleiza polita. Orantzu txukun barriztatua. 9,24 km. lautu lurrez errialdeak. Gerediaga'n zortzigarren botoa. Ermita bi: San Roke eta Santiago'renak.

AXPE

400 lagun inguru, Marzana, Olazabal eta Santiago sartuta. Lurrez zabalena, 10,81 km. lautu. Gerediaga'ko batzarretan, bederatzigarren erizikoa. 1552'n sortutako parrokia. San Joan. Ordurarte etxe batzuk Abadiño'ko parrokiak eleiztar ziran eta besteak Elorrio'ko San Augustin'eko. Iru ermita: Santa Luzia, Aingeru Jagolea eta Kurutzekoa.

Iru erri: milla lagun. Baserrietan danak euskaldunak. Kalean, eunetik ogei inguru batuko dira erdaldunak.

Etxeak, kaletan batzen diranak eta baserrietan zabaldua dagozanak, bizilagunetan erdiz erdi.

* * *

Baten ibilli, bestea ikusi, ez dot uste beste erri baten emen aña mendiaren itzalak bat gauduten dabenik. Ez dakit itxasoaren zabalak bat nasaituten daben; zabalak eta bardin-tasunak izan lei; baiña emen alderdi guztietatik gainean igarten diran arrizko mendien ikuspegi eta aztutasunak, giro orren mende lagaten dabe bat.

Arrazola'ko eleizaren ingurutik begira nago. Ba dirudi bitartek laburtu egiten dirala, baserriak eurak txikitu; soloak, erriberak, muna, bideak, estuago dirala diran baiño.

Etorri izan naizen guztietan sentimen ori artu izan dot, edo pentsakera orrek gaindu nau. Anboto'k azpiratu egiten dau bat eta Udala'k bere itzala barru barrutik sartu.

Aitzate onetan, arriak be aizeak eta urak garbituta lez ikusten dira, eta solo, baso eta arboladien berdetasuna berde illun igarten da.

* * *

Ba dagoz oraindik etxe ondoko askatxoan lizibia egiten dabenak.

Egunon Jainkoak daitzula andratxo gaztea.

—Baita beorri bere galaitxo maitea.

—Senarrrik ba al dozu andratxo gaztea?

—Amerikara joan zan galaitxo maitea.

Kantu zar eta zirikalaz agurtu nik, tentari. Bat batean aria artu eta irri-barrez erantzun berak garbi-garbi.

Laster igarri dot emengo andrak Anboto'ko Mari'k be ez lituzkela gaur asko atzeratuko.

—Agur andrea!

—Kantari bazatoz, jaurti sokea.

—Eta Indietako senarrak?

—Ak berak lengo tokian ez al dau eukiko kaskarra?

* * *

Sartu zaite Arrazola'n!

Bein, mutilxo bateri bixkor itxura artu eutsen. Amalau urte euskazan. Urrun egiten zan sasoi aretan Madrid, baiña bialdu eben. Kobrearen adoretz? Ez jakin. Burdiña saltzen.

Etxe bat beretzat txikiagi eta bestera aldatu. Beti tratu bardiñean, burdinkien ugarrak atzeratu barik. Urtetan koskortzen eta beste tratu bigunagoa: etxeko alabaren biotza irabazi. Tratua eukiten ditue euren estu-unak be. Semerik ekarri ez eta gainera emazte gaztea il. Naigabeak gaindu eta ekin barrirō. Jator eta zintzo, garbi eta berbako, begi onez eta adoretz, tratu-tratuetan ez ei eukan beste bere pareko. Montera kalean, Madrid'en biotzean, banku baten baiño tratu geiago egiten ei ziran egunero bere etxean. Bitartean gerratea, tratu sako-nagoak egiteko aukera ohea. Orrela, Banco de España'ko lenegotako paperdun edo akzionista izatera eldu zan. Il zanean eun milloitik gora errialetan laga eutsezan illobei.

Madrid'etik Arrazola'ra etorten zanetan, zaldi mandoen erremalloak zaintzen jolastuten ei zan.

1809'n jaio eta 1890'n il. Madrid'en, titulu guztiak. Arrazola'n, etxeko lez, Joxe Ortuetak.

* * *

Agure bat daukat aurrean. Lanean igartua. Kaixo gizon! Izenik ez dakit eta arratsaldeon.

—Nire izena? Ipurdi gizona.

—Apellidua?

—Durango'ko barkillerua.

—Ori gizon. Ekatzu bostekua.

—Zuk be emoidazu zigarrortxua.

—Ez dot erreten.

—Axpe'ko abadearena: ain zuzen! Sekula be ez?

—Gaztetan axenak.

—Intxaur orbelak baiño kei oheago egiten dabe. Je, je! Anboto'ko aize mintsu onek ba daki ezterria urratzen. Je, je!

—Nun dagoz emen kobre miñak?

—Zidar asko badaukazu... gorde egizu, kobrea baiño ohea da-ta. Kobrea ez da gero urre gorria. Kobrea billatzen izerdia eta zidarra laga ebienak asko dira gero! Je, je!

—Ba dago ala ez?

—Egon... Ba ei egoan. Edo ba ei dago. Eta ugari, baiña arria baiño gaitzago billatzen. Sasoi baten San Roke inguru ortan, amaikatu batu ta urtuten ei eben ba! Baiña arria nausi ta kiebra egin eta kittu.

—Kontxo!

—Emen eta Axpe'n, Larrano aldean, Urrekazulo'ko miñea aberatsa ei zan.

—Sekula lanik egin zendun orretan?

—Aiten aitak bear bada... Nik kukulumutu bai ugari.

—An?

—Kokuak batzen soluan. Je, je! Lurpean satorrak lan egiten dabe. Nik, bada ezipadan be, naiago dot oillarrak lez argitan.

Ba! Axpe'n kobrearen beta ori agertu zanean, sekulako naste, asarre eta itsukeriak egon zirala ba dakizu? Durango errialdeko korredorea be erdi zoratuta erabili ei eben. Sartu atzamarra bilbotarren artean!

—Zer dauke ze ikusi bilbotarrak?

—Ezetz? Orain berreundak urte, 1741 inguruan, bilbotarrak zoro-zoro asi ei ziran diru batzen. An batu ta emen enterratu. Sartu zaite, sartu lur azpian.

—Zu be sartuko zaitue ba noizbaiten.

—Gizon, mesedez, trumoirik ez jo eguzki galdatan.

—Zer ba, Anboto'ko damiak zainduko zaitulakoan?

—Ixo! Arrazola'n kandela gitxi ipiñi dautsez santa orreri. Iñok ikusi eban bera eguzki galdatan?

Ez diñoe ba emengo andrak ederrak dirala berak aziak diralako?

—Nire andreak itaundu ia zeñen esneak edan zitun umetan. Itaun bat: Zuri min emoteko nor jo bear da?

—Ni.

—Ba dakizu zer esaten daben emen Mari-gaitik? Bere itzala, bere sombrea jo bear zala areri min emoteko. Arrayo a, bera bizi izan balitz... ez ei izango zan oba bera bein arapatu eta azunekin igortzi ta blastiatzea? E?

* * *

Otz dago emen. Aize fiña. Balbuena erdal olerkariaren bertsoak datorkidaz: «Y el valle de Arrazola, en su frescura.

quien goza, puesto en medio, tanta altura.»

Eleiza ikusi dogu. Len be esan dot dotore barriztatua dala. Eta kurutzetakuak be gai?

Ateak zabalik eta sakristian sartu gara. Gaur diru asko balioko leuken irudi txiki bat eskuetan erabili dogu. Ondo egia. Edonok artu eta erateko arriskua ikusi dogu. Euskal-erri'ko eleizetan artearen maitale ugari dabil borondate oneko gizon lez, antxume narrapean. Antxumea noiz akertzen dan jakin bear.

Ez dakit ori emendik Aramaio bitartean dagon Ipistekoarriak erakutsi leikigun. Diñueñez bolibartarrak (Arrio'ren jarraitzaileak?) emen il ei eben kontuak artzen joan yakoen eleiz agintaria. Bolibartarrak be sekula ez ei eben iñor ilterik pentsatu... berotu arte.

A. ZUBIKARAI

AGVR

Apartado n.º 2 BILBAO

FRANQUEO CONCERTADO 08/55

Gaztedia Erromes

Beste urteetan bezela, aurten ere, Uztailean, Bizkai'ko gaztedia Elorrio'ra bidazti biurtuko da, Berriotxo'ar Balendin zorundunaren gorpuzkiñen aurrean otoliri alkartzeko. Beti gauza garrauntzitsua, baiña Ber-Alkartze edo Adizkidetze urte onetan egokiago.

Gazte aldia, amets aldia da; gero gizona zer izango dan erabagiteko aroa. Gazte aroa onuratsu ta emonkor biurtuko ba'da, elburu goi-goiko bat bear dau gazteak. Ba-dira gure artean amets eta elburu aundidun gazte batzuk, baiña geienak, ardi-galduren antzera, nora jo ez dakitela dabiz, ainbat eta ainbat gorabera zikin eta maltzurrekaz ingururik, amets guztiak galdurik, griña txar eta lurreko gai-aldeko biurturik, eta gizona zertarako dan aazturik, zentzun bago bizi dira. Esan geinke gazte zarrak dirala.

Gauza zaila izan bere, gaurko gizarte artu-emonetarako bideak egunero begien aurrean ipinten dautsez izpar eta filosofi galgarriak zintzo ta baitztkor irautea gaztearentzat. Euskal-gaztedia, egoera larri onetan, elburu ta jokabide aundi baten bearrean aurkitzen da. Gazteetan dago gure etorkizuna, aundia da euren indarra, ta aundia ta amaibakoa euren albidea. Gurasoak, agintariak, irakasleak, baita elizak bere, eurai elburu garbi ta biotz zabal bat emoten aleginduten ez ba'gara, gaztedia dan aberastasun aundia galduko dogu, ta... gero?

Urtero-urtero, Elorrio'ko gaztedi erromesean, bertara doazen guztiak, Berriotxo zorundunaren bizitza zintzoa begien aurrean ipinten dautsee. Berriotxo elburu eder batek bultza eginda, goi-goiraño eldu zan: Gazte dantzari ta pelotari azkarra, abadegai, ikas-zalea ta abade sutsua, misiolari kementsua ta 35 urte gaz, ondiño gazterik, martiri indartsua izan zan. Ta, guzti ori, Jauna goraldtu ta gizonai laguntzea ta morroitzea bere elburutzat artu zitalako.

Izan bere, elburu aundi batek bereganatuten gaituanean, bai eliz-gizonak, baita enparau guztiak, bizitza onurakor bat lortu daikugu. Aurtengo urte santuan, zenbatu ezindako beste mendi-zale ta beste gazte askok igongo dabe Urkiola'ko Santutegira, bertan, urte santuko parkamenak irabastera ta Jaunagana biurtzera, gotzaiñak, Antonio deunen santutegi zoragarri ori, orretarako autatu ta izentatu dabelako.

Elorrio'ko gazte-erromesera bere, millaka gazte elduko dira pozez eta zantzoka, eredu ederraren billa. Aurtengo erromes orretan, Berriotxo'k izan eban elburuak berak, sutuko al dauz Bizkai'ko gaztediaren biotzak.

Erromes antolatzailei eskari bat egingo neuskie: Euskalerrian bizi garanez, zuon ibiltaldiari euskal-kutsu geitxoago emon dagiozuela.

Berriotxo Balendin zorun, gure eredu indartsu, ezin ixildu zure eredu, zarelako onuratsu.

Gaztetxo garbi, ikasle bizkor, abadegai kementsua.

Abade gartsu, lekaide apal, gotzain zintzo jakintsua.

Zure adimen ta gaztaroa, zure indar ta odola, emon zinduzan besteentzako, oraindik gazte ziñala. Euskalerrri'ko gaztedi dana, elburu billa zoratuz; argitu eizuz, izan eredu, zure otoiiaz lagunduz,

GALLASTEGI'TAR KAULDI

SENDI-MAITASUNA

Jainkoaren zerbait dau sendiak. Jainkoak Berak egin eban sendia. Berak egin eta batu zituan lenengo gizona ta lenengo emakumea. Jesukristo'k dana barriztu eban. Sendi-bizitza be bai. Ezkontzea jarri eban sendi-oiñarriztat. Gaur egun, sendi-bizitza beruntz egin duala aitortu bear. Etxe-barrutik etorri bear gizartera beroa, ta gaurko gizartea otz da, otz erlijioarekiko. Gauza on asko ikusten dira gaur gizarrean; lan aundia egiten da. Alan be, nasalkeria, lizunkeria ganezka, ta bear ba'da, iñoiz baiño geiago.

Gizarrea sendatzeko, sendia sendatu bear lenengo. Gizarreak erlijio-giroa eukitzea nai ba'dogu erlijioa jarri bear sendian lenengo. Katolikoak eta batez be, sendi-buruak, euren etxea jainkoti egiten alegindu heitez. Orduan, etxe-barruko beroak, gizarrea be berotuko dau.

Aundia da sendia. Sendiak Jainkoaren eskuetatik urten eban, beraz santua da. Kistar sendia, Jainko-sendiaren irudi da. Errietan dabe sortzea ta oiñarria laterriak. Erriak, sendietan. Ondatu sendia ta ondatuta dago gizarrea.

Gizarrea-bakearen billa dabilz gizonak. Alkartek dagiez. Batzarrak. Itunbenak. Sendiak bakarrak ebartz leike auzi aundi au. Sendi-bakarrak gizarrea-bakea ekarriko dau. Nork sendatuko mundu gaxoa? Sendiak!

Etsai asko ta aundiak dauko sendiak. Barrukoak eta atekoak:

NAGUSITASUNIK-EZA

Gaurko gurasoak galdu egin dabe euren nagusitasuna. Gurasoen nagusita-

sunak seme-alaben menpetasuna eskatzen dau. Neurritzkoa. Sendian nagusitasunik ez ba'da, gurasoak agintzen ez ba'dabe, burubiderik ez ba'da, batasunik, bakerik, alkarterik be ez da izango sendian, ezta gizarrean be. Ezin izan leiteke!

MENPETASUNIK-EZA

Gaurko seme-alabak ez dabe menpetasunik nai. Ez dabe artzen ontzat burubiderik. Danak bardiñak dira, baiña iñoiz baiño bardiñ-egago. Ortik naspillak. Ortik zoritxarrak, asarreak, etsai bezela sakabanatzeak.

ATEOAK. OITUREN USTELKERIA. KALE-BIZITZA

Gaurko bizi-erak ostatu biurtu dau sendia. Egunerokoak, aldizkariak, liburuak, gogor dagie sendiaren aurka. Sendiaren batasuna, giroa, ausi nai dabe. Gaurko kale-giroa, sendiaren eta gizarrearen etsairik gogorrena da.

Eleizak, apaizak, gurasoak, irakasle zintzoak, ba-dauke lana sendia bere maillan euki nai ba'dabe. Lan au guztiona da. Danok leporatu bear dogu lan au. Garbitu sendi-barrua norberaren ikasbide onekin, itzekin eta egiteekin. Auzi izango da biderik onena gizarrea zuzentzeko ta sendatzeko. Ta, au, danon arloa da, danon eginbearra.

Ez ba'dagigu, ez gara egizko katolikoak, urko-maitaleak, azalekoak baiño.

GOIRIA

AGVR

V URTEA
142 ZENBAKIA

ASTEROKOA
1974 - BAGILLA - 22

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

Lan - Ikaskintzea

Gure gaztedia gizarterako gertatutea, bai ba dala ardura aundiko lana! Gai asko ta askotarikoak dira gazteak aztertu ta bereganatu bear dituanak, gero gizartean izango dauan ardureari erantzuna emon bear ba'dautso.

Gaia ain zabala izan arren, gaur zaitxu bateri baiño ez dautsagu ikuririk egingo: Gizonak esku-langille izateko bear dauan gertakizunari, ta ez danari, begiratuko dautsagu.

Eta, zergaitik gai au gaur? Oraintxe ikaskintza oneri bideak gertatzen eta zabaltzen diarduelako, eziketa-lege orretan osotzen dabela.

Antxiña esana da «ogi utsez ez da bizi gizona», eta gaur be esan bearko dogu «esku-lan utsez ezin leiteke asetu gizona». Gizonak bere gogoia asetu bear dau, eta orretarako ez da naikoa esku-lanak ondo egiten jakitea.

Gaztea gizarterako gertatu bear dogu ba, ta gizarteko arazo guztiak, edo al ditun guztiak, arakatu bear ditu. Eta ain zuzen be, giza-eziketari garrantzi aundia emoten ei jako araudi barri onetan. Pozgarria da ori benetan, batez be gero irakasleak eta ikastolako araudiak bide onetik ba'doaz. Or sartuko dira, beste-gai batzuen artean, jankintzearen kondairea, eder-lanena, elertiarena, gizartearena, erlijioa...

Gai guzti oneik Oñarriko Eziketari artuta, etorriko dira gazteak, baiña emen ikuspegi barri bat izango dabe: irakatsi orreitatik gaurko bizitzarako ondorenak atera. Geroak esango dautsagu gauzak zel-lan dabiltzan.


Eta emen ez jaku aitzuten ain bearreko dan euskaltasuna. Guk be ba daukagu geure jakintzearen, eder-lanen, elertiare kondairea ta ori jakiteko bidea zabaldu bearko dautsegu gure gaztetxuak, baita ortik gaurko bizitzarako ateraten diran ondorenak ikusten lagundu be. Lan ederra emen egin geinkena!

Ikaskintza barri onetan gauza batek bai arrituta itzi gaitula: Esku-lana bera gixi irakatsi bearko dala. Zergaitik ete da ori? Gero urrengo maileratik itzi? Baiña gazterik geienak mailla onetan geratuko dira. Asko beintzat. Eta berengo mailla izan bearko dabenak, onetan be ondo gertatuak izatea gura geunke. Gauza au ain argi ikusten dan ezker, ez dogu ulertzen zergaitik izan leiteken laburtasun ori.

Ikaskintza onetarako, geienez, urte bi izango dira. Len iru ziran, baiña orain obeto gertatuta etorriko ei dira. Eta urte bi baiño lenango ikaskintza amaitu al ba'da, lenago. Baiña orrenbeste estuten ete gaitu denporeak? Ez ete da ohea, berandago ba'da be, lanerako ondo gertatuta sartzea? Ala nortasun bako bear-giñak, inoren menpean ete ezelako ames barik egotekoak bear ete doguz?

Arazo onek gure gaztetxuak buruko min gixi damotse. Eurak oraindik ez dabe arazo au bear dan argitasunaz ikusten, baiña Erriar arduratuta gogozanok, ondo dakigu garrantzi bildurgarria daukala. Ortze egiten da gure Erriaren zatirik gurena ta beñena, aundiena ta zabalena. Ortze dagoz gure Erriar berengo maillako izango diran erritarrak. Ez aitzu lenengo mailla au guztientzat nai-ta-naiezkoa izango dala. Eta geienak goragoko mailla batera igotetik ez dabela izango, edo ezin dabelako edo gura ez dabelako.

Nik ez dakit onetarako ikastoletan irakasle dan inork idatzi au irakurriko dauan ala ez. Baiña giza-eziketea, euskaltasuna barru dala esan bear, eta eskulanerako trebetasuna, biak, geroago ta egokiago ete sakonago emon bear doguzala ez dau inork ukatuko. Orretarako izango dira gure lanak eta alegiñak.



25 URTE LANEAN

Noizean bein, talde baten alkartzea izan dala entzuten da, lantegian egindako 25 urteak gomutagarritzat artuta. Ez da gai makala, batez be, 25 urte orrei ikustaldi bat egiten ba'dautsegu, ta gizon baten bizitzan zer diran ikusi. Lantegira, gazte edo gizon egiñak elduko ziran, orregaitik ez dogu uste okerregi gogozanik, batz best, 25 urte neurrian ipinten ba'dogu talde orren eldutasuna lanean asikeran. Sail oneri jarraituaz, 50 urtedun saria jasoteko orduan.

Ezkonge geienok orduan, itxaropentsu, euren nortasuna zabaltzen asita lantegian onartuak izan ziran; gizon zentzundunak orain, euren bizitzako arlo sakon bat beteta.

Ta, bitartean? Ainbat artu-emon, bai alkarregaz, baita lantegian izan diran zuzendariak. Gorengo mailletara igon dabenak batzuk, erdira elduak be bai; beste asko, lan berdin samarrean jarraitzen dabenak.

Pozak, kezak, nekaldiak, egun argiak ta mingotsak. Langilleen alde zintzo jokatu dabenak, une garratzak izan dabezanak, batzuetan arazoiz, inoiz gitxiagoz. Euren bizitzeari oñarri sendoak ezarritakoak, ta ainbat urte joan eta gero, oraindik nekaldi ta estutasunean dagozanak be bai.

Talde ederra, asieran geien baten, baiña gitxitua urteen joan-etorrietan. Bide barriak artuta batzuk, ez gixi, urte neurriera elduta merezi daben atsedena izan dabenak, ta azken baten, Aitarek Etxera deituak.

Onelako talde bat, Formika landolan dago. Amasei langillek, mailla guztietakoak, lantegi atako zuzendari diran Barrenetxea'tar Jose ta Zeniga'tar Alberto jaunen eskue-tatik, ekintzan irabazitako saria artu genduan. Jai ederra ta alaia, Bagilla'ren l'ean, Galdakano'ko Andra Mari jantokian izan genduan, alkarren berotasunean.

Erritarrak eta erbestekoak, lokarri bakarragaz lotuta, alkarren laguntzaz gure ogibidea dan Formika goratzeko; geure ekinagaz, eskubideak galdu barik lan orretan. Benetan argi ta garbi azaldu eban gai ori Alberto jaunak bere itzaldi labur eta mamintsuan: «Langilleak bere eskubide osoak izan bear ditu ta, ordezko, ezin dautso bere lanari uts egin. Bat izan bear dabe zuzendari ta aginduak, bai eskubideetan, baita euren arduetan be, alkarren itzal edo errespetuan, bakotxaren nortasuna galdu barik. Gure Erria oitua izan da ekintza onetan, gure «Gernika'ko Arbola» abestiak diñoan lez: «Emon da zabalzazu munduan frutua».

Ez daiogun utsik egin esakera orreri gure ekinakaz, azken baten gure Erria izan daiten goraldia. Eskerrik asko Jose ta Alberto jaunak, langille artean lagille lez ezarri zenduelako zuen zuzendaritza. Ta, zuoi, lankide ta adiskide, Kabo, Basurtu, Bikandi, Goiri, Maria Luisa, Arrausi, Gaztañazatorre, Balle, Kasado, Alonso, Muñoizguren, Billegaz, Asua, Txamon ta Justo, agur bero bat, ta luzaro alkar ikusi gaitetzala Formika'n.

Ortik eta Emendik

Erri txiki ta aundien kondairea osotzen daben gizonak era bitakoak izaten dira; batzuk ospe aundikoak, izen aundikoak; besteak osteraz ez-egunak, inurrien antzera langille ixillak. Lenengoentzat oorezko aipamen guztiak; besteentzat etxeoen esker-ona... zerbait dagonen beintzat.

Bigarren onetarikoa izan da Bilbo'n oraintzu il jakun Genaro Aldekoa taxistea. Gaztetxo giñala gure erriko arazoekin arduratzen asi giñanean ezagutu gendun; ez egoan aldi aretan berebil askorik, «dirugintzan» ebiltzan sasi-errizaleen eskuetan izan ezik. Baiña inoiz, ara ta ona arin joan bear izaten zanean, gertu egoan Genaro langillea, beste irabazbide guztiak itxirik...

Olako gizonen egintzak ez dira idazten, baiña millakak bear gendukez gurean, Euskal-erria'ren onerako. Eskerrik asko Genaro'ri... ta Goyan Bego.

* * *

Bestelakoak dira berbalapikoak. Onen jarduna bai entzuten dala ta denpora asko baiño len, ondorenak igarten. Atzo, barru etorri jakun Enkartzatze aldeko lagun bat, oso arduraturik, baztarrak nastatzen dabiltzan abade antzeko bikote baten «esanak» esatera. Anjo baserriarren aurrean, eurretariok batek, olakoak botatzen ei-ditu: «Kristo aintzakotzat gizon bezela artu bear dogu, ta guk abadeok, gizon orren ordezkariorik, gizontasun osoa erakutsi bear dogu. Orregaitik, noizik bein, nekatiilla bat edo bestegaz oeratzea «normala» da».

Orrenbeste gosc ta egarri ba'dira, ezkondu beitez, eta ezkontzeari «burgeskaria» ba'deritxoc, joan beitez Costa del Sol aldera «eguzki» billa datozen sukeri «kerizpea» esoteria... ez baiña Kristo'ren irudia loituaz, sasi-ordez-kari dirala, gure erritar zintzoen siñismena zikintzera. Berotasun geiago nai ba'lebe, joan beitez Cuba'ko eguzkia artzera. Len bere, inoiz, salatu doguz diralako onen kirtenkeriak, baiña antza dancz, ez dabe oindiño euren neurriko akerrik aurkitu... ta lengoetan diardue.

* * *

Beste berbalapiko baten oiartzunak Napa-rru aldetik jatorruz. Ortu barri diran «ego-azedunak», «txano-gorritxoak» edo «botijeroak» —show celtibericus sendiartekoak bai ditugu— gogor dabilta, jo ta ke, ikastoletan musturra sartu naian. Onetarikoa batek esaten ei-dau: «Euskereagaz ez dago zeregiñik, izkuntz erdibitzaille ta burgesa besterik ez dala». Baiña burua erakusteko ta kokoloak sarean sartzeko, ondo baiño obeto datorio ta amaren bularretik ikasia izanik, ez du lan astunegirik izan...

Baiña olakoak, bere errikide euskaldunak baiño gorago agertzearren, zerbait asmatu bear... zer obarik?, diralako «euskera batuak»: Sortzez euskaldunak, gogoz botijeruak.

* * *

Esan dogunez, olakoak ikastoletan musturra sartu naian dabilta. Emakume jator talde batek ereindako azia erretzen asi danean, betikoa! Satorrak azpitik edo atzeko atetik. Gurasok itxartzen ez ba'dira, igalirik edere-rena usteltzeko arriskuan. Eta orain gure itauna? gogorregiak giñala inoienak, zer diño orain?

Eta zer diño Arrasate'ko gora-beerak izan ziran, «irakasle» baten jokabidea makillatu gendulako gora-goraka jarri ziranak? Zergaitik bota dabe orain?

* * *

Orain dirala iru aste, AGUR onen bigarren orrialdean idatzi ebanagaz, errozia eukan «Goierrialde»k: Xabier Peña'ren omenaldian igaro nuen egun zoragarriak lilluratuta-edo, enehan atezaleen santutegian «ohinik» ez erperik ikusi. Aurrez egin genduzan aipamenak uxatu zitun, aurki. Dana dala, ara doan erri fededunak euskereari eutsiko dautso. Alperrik izango da, inork ulertzen ez dituan asmakizun orreitan jarraitzea. Borondate onagaz ikasten asi ziranak, asperuta dagoz geienak, baiña «modak», noizik bein, aldi luzerakoak izaten dira, ta Arantzazu, euskera nastatzailentzat, Paris dala dirudi...

* * *


Sorgin-billa gabiltzala diñoen txotxoloak, edo «papamoskas»ak eta beldiko txakur zaunkalariak «zer jazoten da» aldizkarikoak garala esango dabe. Baiña guk, bai batzueri ta bai besteeri «or konpon» erantzungo.

Irriparrez jzarri, ta gure begien aurretik, buztana anka artean dabela, belarriak makur, ikusiko doguzalakoan, lasai. Gogorregiak garala uste ba'dozu irakurle... zu zara bigunegia, ziur egon zaitz!

AGVR

ATXUTEGI'TAR BITOR

ARENAZA'TAR JOSU



“JOSE MIGUEL DE BARANDIARAN” KARDABERAZ BAZKUNA

ALA «EL ERMITAÑO» ZANGURRUA EDO «BATUA»?

Amaika ikaskizun eder zor dizkizu onoko onek, don Jos Migel, aspaldiko urteotan. Gudate-aurrean «Eusko-Ikaskuntza»k eráten zizkigun «Udako Ikastaro» bikain aietan irakasle aundien artean antxe zihugun zu beti. Ba-nintzanik ere, ez zekizun, noski, artean.

Zori txarreko gudateak, bai ni ta bai zu, Laburdi xoragarrira baztertu giñun ta orrela elkarregana inguratu. Sara'ko «Bidarte»n, izketaldi ederrik jasoa dizut zure aotik. Oietako bat «El Ermitaño» zangurruaren jokaeraz.


Etixeratu ta gero, Arantzazu'n urtero, oiñez, lage zarrera Andre Mari'ri egiten genion agertuan, bi egun mendiz mendi, zure sendikoen artean ibiltzeko zori ona izan dizut. Bi egun oso don Jose Migel gure artean, elkar-izketa galeraztera iñor agertzeko arrixkurik gabe. Orduntxe, Otzaurte'n gora, ikasi nizun gure Erria'k artzantzatik nekazaritzara aldatzeko izan zitun nekeak. Aldaketa ordez «krixixa» noski, esperantoz.

Ipuin zarren muiña billatu ta azaltzen nagusi zaitugula, ao batez aitortzen, ikasi guziek, bein baiño geiagotan, Ataun-San Gregorio'ko «Sara» izan det nik Betani.

Zor nizun, don Jose Migel, zor nizun ageriko aitorten au. Zor nik, eta zor nire bitartez ondo ezagutzen zaituen nire ikasle txiki ta larri. Ta, zorra kitatu ondoren, goazen idazki onen bigarren eragilleaz jardutera.

* * *

Sara'ko «Bidarte»n, «El Ermitaño» zangurruaz mintza zintzaigunean, ez zan artean zomorro itsusi au gure euskalsorotan egertu. Zu, don Jose Migel, kristau izena azal-barnean zebiltzan jendeaz ari zihan orduan. Azala bakarrik kristau, barrena...



Geroztik ugari bete ditu gure Erri gaixoko bazterrak, euskalikastola batez ere, zangurru kaltegarri orrek. Euskalzaletasuna dizue, ordea, orain azal. Euskalzaletasunaz eta «Batua» jantzi zaigu orain «El Ermitaño» zangurrua.

* * *

Ikastola bati, edozein bazkuni, norbaiten izena ematen zaiogenean, norbait au goratzeko izan oi da, noski.

Donosti'ko «Jose Miguel de Barandiaran» izenez sortzeko zorian dagon ikastola berria, don Jose Migel goratzeko ote, ala izen au bere izaeraz ustuta, izen orren babesean «Batua» «El Ermitaño» zanguru bildurgarriari babes emateko?

«Tus Hijos y el Euskera» (El mito del «Batua») argitara ondoren, gurasoak oraindik ere iñuxente jarrai ote dezateke? Ta euren laguntzaz orrelako ikastola sortu?

«Jose Miguel de Barandiaran» ala «El Ermitaño Zangurrua» izango ote degu, ba, Donosti'ko ikastola barri ori?

IRA'K

Berandu ba'gabiltz be, ez doguz ba, jakingarri oneik, bear daben epean jasotzen, emen jartzen dautzueguz Bazkun onetan batuak izango daben Batzar Nagusi'ko zertzeladak.

Iñoiz, egunerokoak garalakoan-edo, or datoz arin baten agertzeko aginduakin, or-emengo jaialdi, biltze ta barrien agergaiak, baiña geienetan, orreik agertu bearko litzakezan alea, irarkolan sartuta dago eta ezin garaiz emon. Urrengorako ba, danori eskari auxe: aurretik eta garaiz bialdu eskuarteau daukazuezan gaiak, egun bat bera be galdu barik. Ona ba, emen, oraingo au:

* * *

Orrillean izan oi degu urtero gure BATZAR NAGUSI ZABALA. Aurten ordea, ta izan ditugun gora-beragatik, atzeratu bear izan degu Batzar Nagusi Zabal ori, baiñan ez betirako...!

Orrillan 9'an bildu giñan Tolosa'n BATZORDE NAGUSIKOAK, eta auek izan ziran billera ortan artutako erabakiak:

- 1.—Tolosa'n izango genduan aurtengo BATZAR NAGUSI ZABALA. Garagarilla'ren 20'an, (Bagilla'ren, Ekaiña,ren 20'an), eta goizeko amar t'erdietan izango da, J. L. Tolosa'ko Iparragirre zine-aretoan alegia.
- 2.—On Manuel'ek emango digu Ongietorria.
- 3.—Berrondo'tar Pedro'k irakurriko digu (1.73-V-1), Loiola'ko Saindutegian izan genduan BILLERA NAGUSIKO AGIRIA.

4.—Albisu'tar Anastasio'k emango dizkigu laburki geroztiko Bazkunaren gora-bera guztiak. Eta Garmendia'tar Juan Jose'k beste zenbait argibide.

5.—Arrinda'tar Anastasio'k liburu argitaratzeari buruz itz egingo digu.

6.—Idazle-eskolari buruz Berrondo'tar Pedro'k.

7.—Tolosa'tar Felipe'k emango dizkigu Araba'ko berriak; Olazar'tar Martin'ek Bizkai'koak eta Ayerbe'tar Inozentio'k eta Petrirena'tar J'k Naparroa'koak.

8.—Eratu ote genezake bazkide artean sariketa bat? Zertarako? Nola?

Orrigaitik nai zaitugu Tolosa'n, eta gauzak bear-bezela eratu ditzagun gaztigatu mesedez etorriko zeran ala ez. Or dijoakizun or itxoa betetzea, nai-koa dezu ortarako. Bertan dezu, nora bialdu, zuzenbidea ere:

Juan Jose Garmendia Arzelus; Kardaberaz Bazkuna; Apartado 83; Tolosa, Gipuzkoa.

Batzarrean bertan jaso al-izango dituzu ere, orain artean argitaratutako liburu guziak, eta ikuskatu gure liburu biltokia eta lantegi berria. Zure aldetik ordaindu dituzu urteko diru zariak.

* * *

Orrarte, Bazkun onetatik jasoa, berandu dala esan dogu garaiz irakurriko ba'zendun, baiña ez oso-osoan. Or diñotzun lez, ba-daukazu Tolosa'n nora jo naiz idatzi, alkarte onek dagianaren barri jakin eta bertan idatzi ederrak eskuratzea nai dozunean.

UBITZA

MEZEA GORBEIA'N

Il onen amaseitik asi ta aurrera, udaldi guztian, au da, Bagillaren 16'tik Iraillaren 29'rarte, meza bi izango doguz Gorbeia'n. Bata Igeriñao'n ango eleizatxoan, amabi-amabietan; eta bestea Aldamiñape'n, Aita Maurizio Larrakoetxea'ren kapilla dotorean, ordu bat eta erdietan.

Igande ta jai guztietan izango dira meza orreik, Begoña'ko, Markiña'ko ta Zornotza'ko karmeldarrak txandaka emonda.

Mendigoizale onak: ez itxi, al dala, mezarik entzuteko.

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, berekoi, politikoa naiz ondasungarri asmoen gainetik daben iritxi-oneko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egileak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:
JOSE M.^a MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:
LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guttirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

ESNEAGAZ EGINDAKO

BASERRI

ESKATU BASERRI

CHOBIL

BASERRI

ESNEAGAZ EGINDAKO

Gaztetxoan

Txokoa

GU, Bakio'ko amasei mutilko lagun gara, ta beko eleizan zapatu guztietan batzen gara dantzan edo jolasak ikasten. An alegin guztia egiten dogu dantzan ondo ikasteko eta euskaldun sendoak izateko. Irakasle bi daukaguz:

bat gogorra da, ta bestea obatoxogoa, baña orregaitik guztiz ondo konpontzen gara danok.

Ni ARRUGAETA'TAR JON naiz ta 11 urte dodaz.


* * *

NIK igandeetan zer egiten doten esango dot, gozaldutako berealaixe abestiak ikastera joaten naz eleizara neure lagunekaz. Mezea abestu ondoren kristau ikasbidea joaten gara lagun danok, andik urten ta txera joaten naizenean bazkaldu ostean karta jokoan jolasten dot aitagaz nire lagunak deitu arte zinera joateko, an pelikula oso politak ikusten dodaz noizi bein mendira ere joaten gara ta ibillaldi onak emon, egun ederra igaroten dogu baiña bai nekatu ere.

Ni URRUTIA'TAR AITOR naiz ta 9 urte daukoza.

* * *

AURTEN be Bizkai'ko bazter txiki eta polit onetan betiko lez ospatu doguz Jose Deunaren egunez, oiturazko idi pobrak. Iru egunetan izan dira idi leiaketak: zapatuan, igandean eta San Jose egunean. Lenengo egun bietan zoragarriko eguraldia, ezin ohea, euki gendun: udabarriko eguzki gozo eta epela, gizonak ezeze inguruko zorangil guztiak bizkortzeko modukoa, baña azkeneko egunean itxaso aldia ilun, jata mendi beran txapelagaz eta zeru guztia odei baltzakaz agertu iakun, eta onelan curia ziri-ziri dariola egon zan egun guztian. Denbora egokia marraskillo eta barekumeentzat. Alan ta guztiz be, jentia ugari ibilli zan gure frontoi inguruan, eta taberneruak pozik...!



aztea, pentzuak alde batetik eta esneak bestetik daoken prezioa ikusi ezkerro...

Zorionez, igaro dira otzak, eta emendikarren kontuz ibilli bearra izango da gure bide, kale eta ondartzatza inguruan, ze jentia inurriak bezela asiko iaku etortzen igandean gure itxas ertzeko aixe eta eguzki osasungarria artzeko.

MARTIN GOITIA, 11 urte, Bakio

* * *

ERA askotako Igaliak ezagutzen ditugu. Igaliak bi eratakoak dira: urtsuak eta legortutsuak mamia jaten diegu eta legorrei eran azia.

Gizonak arduraz zaintzen dituzte igal-zugaitzak. Igaliak ontzen diranean, eskuz biltzen dira. Gero saskietan sartu eta sal-lekuetara eramaten dira saltzera.



eziketara jostailuak eskulanetarakoak irakasketa gaiak

ikIRIKI

gregorio de la revilla, 1 bilbao - 11

Jolasean ikasi, or zure aurrentzako emoitzarik onena

Beste batzuek lantegira eramaten dira igaliak eraldatzeko, bein eraldatutakoan edariak, mermeladak, goxokik eta abar egiten dira. Gure lurraldeetan udaberrian igal-zugaitzak lorez betetzen dira, udaran azkenean ondu ta gero biltzen dira. Gure errian giro txarra egiten dualako beste toki batzuetatik igaliak ekartzen dira. Urte aro guztietan igaliak ezberdiñak dira.

Igaliak aberastasun handiak ematen dio gizonari.

M.^a Begoña MENDIA, Zumarraga

GURE gorputza estaltzeko jantziak erabiltzen ditugu. Antziñako gizona abereen narruz jantzen zan, eta oraingoak berriz oialez jantzen dira. Jantziak egiteko oial era askotakoak erabiltzen dira: algodoia, seda, nilona eta abar.

Neguan jantzi lodiagoak erabiltzen ditugu eta udaran arriñoagoak. Jantzi ilunak, jantzi argiak baiño bero geiago ematen dute.

Jazteko era egunetik egunera aldatzen dijoo. Jantzi berexiak gizon batzuen langin-

tzaetarako jantzen dira: adibidez gudaritza, ertzaintza eta abar.

Lurralde bakoitzak bere jantzi berexia du. Gure erriko jantzi berexia poxpoliña nesken-tzako eta dantzariarena mutilantzako. Oñiak oñietakoakin estaltzen ditugu, jantziak egiten dituanari jostuna deitzen diogu eta oñietakoak egiten dituanari zapatari.

Aitor BARRENETXEA, Urretxu

MUNDUAN gosea dagola, txoriak esan dausta. Gosea, bere zaldian, gure lurrean kokatzen da. Beti sua edo gaua bezela, gizon batzuri bere eznaiak emoten dautsoz.

Azurak erakusten ta aragia zarrastutakaz, alan bizitzen dira, bere gose handiakaz. Bere gosea ez da bakarrik ogiana. Arek nai dabez pakea, bizi ona, etxea, Jaunari... Arek daukoe gosea. Pakearen gosea, bizi onaren gosea, etxearen gosea, Jaunaren gosea...

Eta guk, zer egiten dogu? Ezer berez. Bai, ba dakigu gosea dagoala, ba dakigu gizonak iltzen dirala, ba dakigu gauza asko, baiña, zer egiten dogu? Gure biotzean, ez dago lekurik oroipu batentzako?

Guk ipiñi dogu gosea, bai, guk. Bekaizkarikaz, gorrotoakaz, gizurrakaz, danakaz, au egiten dogu. Emoten dogu gizon onci maitasun zati bat, edo oroipu bat, edo gure biotzean zati edo leku bat?

Ez, ez ta ez.

ARRASATE'TAR MANU, 13 urte

POZIK artzen ditugu gaztetxoan lanak eta marrazkiak. Al ba'da, ez egiozue «diktaduan» emon idatzi bear dabena. Oba da eurak eurenaz, arestian entzun dabena ipuin bat

idaztea, ta onena, euren burutik zerbait asmatzea ta idaztea.

ASTI

Gazteen Adimena

Ingelanda'n, azkenengo urte oneik ikustatuaz, amar ta amaika urteko ume koskondutxoan arteko azterketa jakingarri bat egin ei dabe. Neurritik gorako jakin-maila garaitsuaz azterkatuak izan ei dira. Ots, adimenaren auzkide edo «koefizientea» 115'etik goitikoa dituen 238 neska-mutikoen artekoaz, ain zuzen. Aurtengo Epaillean, Londres'eko uriburuan ta izenez «Zantzu onaren billaketan» daroan, eta liburutegietan salgai dan idaztiño apain baten, azterketearen ondorengoak, jakinbidez argitaratuak eurak, damoskuez. Or doatzuez euren zertzelada batzuk bereala:

Adimen azkar ta biziagoko neskatil-mutikoak ez ei dagoz ordu luzeetan urrutikusinaren aurrez aurre; ezta ere ain eroso ta pozik tresna au begiratzean, ain burutsuak ez diranen gaztetxoekaz bar-dintzekotan.

Orrez gain. Buru argitasun au geitzeko. euren gurasoak esku garrantzitsua izan bear dabe, gazte-xoen adimen garbi ta argizaleak etengabe ta jakingura aspergaitzez bizkortuazoz.

NORK ETE ADI-ERREZENA?

Bereziago begiztatuz, giza-maila erdikoak, ez aberats ez txiroak, geienbaten burutsuenak ei dira, ta aberatsen semeak ez-eze, langilleenak ere adigogorragokoak.

Arrazoi ta jokabide onen zergaitia, jakiña, ez ei-dago iñola ere gizarte-maila ezberdinean, gizarte-maila bakotzeko gurasoen eguneroko jardunketan, semeen ezibidearen zaletasun bizian baizik.

Errez ikustatu zeinke orrela Erri-maila erdiko gurasoak batik bat, besteak baiño sendi bizitza batuagoa, euren seme-alaben eguneroko lan eta ezieran arduratuago daragiola, ta azle ta eskol-emoilleekaz artuemon garrantzitsuagoak dabezela.

Buru-argiagoren beste zio bat, umetxoak, gazte-gaztetatik, iru-lauren bat urtedun dirala ikastolaratzen aurkitu geinke. Iru-lau urte dituan ume koskorak ikastolaratzean, ta gutxi gora-berako ulermen bardiñez jokatuaz, amaika urte bete orduko —beranduago, zazpi urtege-edo eskolatu diran gero bere adinekoak— errez gainduko ditu.

Azkenez, idaztiño onek beste agerbide batzuk damoskuz, alegia. Telebisatik aldenduaz batera, buru-argidun diran neska-mutikotxoak ipuin, ictori-mixtori ta liburuenganako zaletasuna agertu ez-ezik, alaitsu ere ikastolara bai-doazala dirausku. Ori ta be, mutiko ta neskatillen zaletasun bereizgarri bat dakar. Ots, mutikoetan matematikaren zaletasuna nabariago agertu oi da, ta neskatietan bariz, izkuntzarena.

AZKEN OARRA

Lendik esana egon arren, txosten, liburuxka onek azken oar bat ingelandar gurasoei damotse. Gurasoak, euren semeak ikastolan dagien egipen eta goraberaren zain egon bearra dabe. Anderiño ta irakasleekaz, seme-alaben buruzko artuemonak erruz izan bear ditue, euren eziera ta azieran irakasleekaz bat egiñik eta esku garrantzitsua arturik. Alde bakotxaren eziera ona ba'da, bitzuek alkaturik ezin oheagoa izateraño eldu leiteke.

Zer esan dezakegu gure euskaldun gurasoetaz? Zelan gure umetxoak ezi ta zaindu bear dabez? Batetik euren eziera orokorra begiraturik; bestetik, bereziki euren euskaltasunari orain eta betiko sustrai onenaz. Zugaitza gaztetatik zutitu bear da. Gero, ba'leiteke beranduegi izatea!

ARREGI'TAR JOSU

KONTU KONTARI

SAGAR - ARBOLEN ADARRAK

Bai, sagar-arbola ederren adarrak, ezta-baida itzela ekarri leikela, be ikusitxe da. Nire lagun zar onak, Liborio'k —berari ezin leikixo esan baiña— danok dakigun lez, Zaldi-zuri esat'otsenak, Pago-goiko basarri jaubiek, etxe azpiko solo barrenetik, goitxit bera, karreju edo burdi-bidie dauke zabalduete. Azpigarri-ide burdixe basotik etxera sartzeko, ate aurrera arte, eratu eban.

Aldameneko auzue, Pago-beku'teiko Premiña'n gizona, Joxe, goiko egaletik burdi bide ori jolen-joten dauen zelaizan jaubie izan ba, da oraiñ zapi edo zortzi urte, sagar-arbola landarak sartu, da gaur euron adar-arku ederraz, zoritzarrek burdi-bide orren ganez-gane zabaldu diez, arku zarratu jausi baten. Da, jakiñe, Liborio'n burdixe, ide-matasa galanta ganez dala, lerrak eta lorrak egiñ arren, ezin ba ezelan bez zuzendu etxe aurreko kaltsada arte.

Liborio bera, ezne-tzarrekue berez ba'da, Joxe'k dauken putanu-espirtu barruen be, ez ezta makala. Bakoitzak tripe barruen zapi katu arrabixo gogorakin bizi dizen gizon parie; beti pleitxu burruka zikiñien.

Pleitxu burruka orri Joxe'k emon dotzen amaixe be, jakitzekue dala, pentset'ot. Adarrok ezin geixan zabaldu zien ude guenien. Burdixek ezin gora urten, ezelan bez. Bei-idixe butzarrixen inkesa izerdi utsien. Liborio, barritz, kalendarixoko santu zar eta gazte, erre hier...!

Orretara gauzok, arratsalde baten, eguerdiko ostekuen diezela Premiña, Joxe eta euronok, Liborio'k ikusi dau burdi-bide orren motan, zorroztaillie, Nikanor gallegue lo, zurrutada baten lo, bere burpille da errobedie alderdi batera lagata...

Artu dau, isull-isillik aixkorie, da asi goitxik eta beraiñoik ebagitxuz zietz adar-arkuok saillien.

Nikanor lo... bere artati-kutzillon ametsien...

Liborio, bere isillikeko bierra amaitxu eran, juen da Premiña'na; Joxe eguerdi osteko luan dagola, da deitxu ate aurrera, arpegi azeri illunaz, diñotse:

— Premiña, esan eixozu Joxe'i zer izen dan, ointxe ber-bertan.

— Zer, Liborio?

— Ba, ara, Gallegu zorroztailliek, eguzkixe artzeko kontuen, bide kontrako motan, arbola-adar guzti-guztixok, deusik pe itxi barik, bere matxet zorrotzaz, dan-danok ebagi...

— Jesus, Joxe...!

An egoen Nikanor lo, bere bruse okotz bera ganez, zabal-zabal. Juan jako Joxe atxurraz, da aren esnatzie ezan izen gozo-gozue, ez. Itxi errobera, burpill, brus da danok, esnatze txar-tzarrien, alarau baten, etenak, Joxe atzetik dala, garrazi utsien atzetik, atxurre buruz gafiñ...!

— Qué dise, qué dise...? Nikanor'ek.

— Keizic, keizic oiñ, oiñ diñok txarrixorrek...?

Nikanor, sekulo-sekularixuen ez ezta agertu, eta, zelan diezen autu onek: Pago-goiko eta Pago-beitiko etxietan, ifion lepotik, Nikanor'en lepotik beintzet, bakebakien bizi ei-die...

JUAN JOXE ARRIZABALAGA «MARKIÑA»

UKABILKETEIA

Indar aundia artu dau ukabilketak aspaldion mundu osoan. Iparramerikan kirolak errikoiena dala dasakegu. Jarraille-asko daukoz Euskalerrria'n be. Indarketak beti izan dira ondo artuak gure errian. Arri-jasotzea, idi-probak, aizkolariak, bolariak, eta abar. Euskaldun ospetsuak izan doguz ukabilketan. Ospetsuenak oneik noski: Uz-kudun, Mateo Osa, Gabiola, Gaztaña-ga'tar Isidoro, Alejandro Artetxe, Mariano Etxebarria ta Urtain.

Erlijiño-begiakin begiratuta, ontzat artu ete leieteke ukabilketea? Eleizak ez dau galarazo oraindik. Ez dau debekatu. Ez dau esan pekatu dalarik. Alan be, naizta Eleizak agirian ezer ez esan, debekatu ez, bein eta sarri agertu izan dau etxakola atsegin, ez dauala ontzat artzen. Vatikanon-irratia bein baiño geiagotan esan dau ukabilketa kirol gaiztoa (inmoral) dala. Ona «L'Observatore Romano»k, Vatikanon'ko egunerokoaren itzak: «Boxeo-ukabilketea basatikeria da ta sarritan iltzeko bidea. Nork neurtu ukabil-laren indarra ta azken ondoreak? Burrukalari bakoitza itsuan dago zelan ondatu beste. Zelan deuseztu. Ez da zertan geiago azaldu gauzak argiegi dagoz. Burrukalaria bertan iltzen ezpa' da be, aulduta geratuko dala».

Onela L. Observatore Romano'k.

Zenbat burrukalari il diran. Zenbat guztiz ondatuta ta aulduta geratu bizitza guztirako!

Il diran burrukalariak aitatuko ba' gendukez mordoia litzakez. Batez be azkeneko urteotan burrukalari asko il dira. Batzuk burrukan bertan. Beste batzuk geroago. Ta lelotuta lez eta ezertarako ez dirala geratu diranak asko.

Boxeo-ukabilketea jo barik be badira indar-kirolak.

Maite dagiguzan bai kirolak eta zabaldu batez be geure-geureak diranak. Pelota, estropadak, bola-jokoa, arrijasotzea, aizkora-jokoa, korrikalaritza, txirindularitza, soka-tira, mendigoizaletasuna, eta abar. Ukabilketak antxiñako Erroma'ko Joko-basatiak gogoratzen dauskuez. Erroma'ko Coliseoa Anfiteatroa dakarsku gogora.

Beste ainbeste esan daiteke zezenai buruz, beste mailla baten ba'da be.

Ez, ez, ezin goraldu daukegu boxeo-ukabilketea. Ezin artu daikegu ontzat. Ez da kistarra. Ez da gizonena, piztiena baizik.

GOIRIA

ORBELAK

SAN JUAN'ETAN

«San Juan, artoa ta ogia kanpuan» esaten da. Edo ta «San Juan, zelan etorri ala juan».

Urteko egun guztiak bardin dirala? Ezin ukatu. Baiña egun guztiak dei ta tengada ez bardiña egiten ez dabarik be ezik eskutatu. Bizitza gertaera eta premiña asko be obeto gogoratzen doguz egun batzuk ezaugarri ipiñita.

Amets eta poza dakar San Juan egunak. Beti be giro eder eta zabalaren agerpena da. Udabarri bete-beteko egokera eta gertaera. Bai eta kezka be.

Gure ortuan ginda lorea San Juanetako eldu, San Juanak baiño lenago gure txoriak batu.

Izakien urduritasuna! Larri ibilli bear beti. Ariñegi. Orain eta len. Edo ta gerokoa ariñegi ikusten:

San Juanetatik ille bi negura, agura zarra daukan andra, galdua da.

Gerokoaren bildurra eta kezka dalako ipinten dira atadietan eta leio ta balkoi askotan San Juan bedarrak. Ekaitz egunak, trumoi egunetan etxea zaintzeko edo ta areik bildur barik igaroteko.

Eta bezperako suak. Plazetan, baste-rretan, baserri ondoetan, bide kurutzetan... Piztiak erre, sorgiñak jaurti, guguak biztu, biotzak berotu ta arierioak uxatuteko:

San Juan, San Juan eldu da,

Sorgin begia galdu da.

Galdu bada galdu bedi

sekulan agertu ez ba ledi.

Edo ta beste era baten:

San Juan, San Juan,

nik eztaukat besterik goguan.

Arrautza bi kolkuian, beste bi altzorrean.

Artoak eta gariak gorde, lapurrak eta sorgiñak erre.

Lapurak erre? Gizonkeria! Arrona'n, erri bat aitatzekotan, bezpera gabea, aza, bedar eta arbola adarrak ostutea libre izaten ei da.

Jaia jai. Dantza ta uju, poz eta alai ibilteko. Ez lorik egin. San Juan egunean siesta egiten dabena, ez ei da urte guztian loaz asetuko.

Jaiaren ederrak eta zoroak beste gauza asko gogora dakarkidaz. «Streaking» gaur? Ba! San Juan egunean oiñtsik bedartzen ibiltzen danari, gaixoak osatuten ei yakoz. Geiago. Siñiste ori dala-ta, ba dira Napa-rron goiz onetan bedartzen billotsik ibiltzen diran tokiak, gaixoak uxatzeko.

Oiturretan siñistu ez? Gaurkoak gizarte agerpen batzuen aurkako badira, zegaitik ez lengoak gizona mendetzen eben gaiztakeri baten aurka era batera edo bestera jokatzeari begi onez begiratu ez?

Egun andi da San Juan.

Bear bada oiturarik geien gogoratu egiten dabena. Ondarru'n ba dakie esaten: «San Juan, nekez etorri ta arin juan». Egia da. Ez orraitik estutu. Aste bete baiño len or dator beste jai andi bat. Eta Ondarru bertan oneri be atarako daute berea. Ez dakit zetatik etorri dan, edo ta zegaitik esana, baiña urtero gogoratzen da: «San Pedro, gizonak ardaia edateko».

ZUBEGI

ITXAS ARAZOAK

Ainbeste urteetan bizi izan geran Caracas'en, Venezuela'ko uriburu dan orretan, laterri askotako buruzagiak batzeko dira aurki. UNO'k antolatutako batzarra bera. III batuketa izan bear du. Guzira, izparrak dietenez, irureun jakitun batuko omen dira. Batuketa orretan, itxas zabalaren neurketak aintzat artu nai dituzte. Baiñan, zabalera orrek, millaka buruko min emango ote dien nago. Agirian edo neurritzat dute, alegia, erbestetarrak berruen millatik kanporuntz arraintzan egitea, ta laterrien beste olako eskubideak ontzat artzea.

Irureun oiek, eun eta berrogetamaika laterrien naiak ontzat artu naian dabil-tzala esan leike. Ala ere, nere ustez beintzat, ez dira guzien naiak onartuak izango. Batu ditzagun 151 laterri oiek, eta ludi guztian... ba ote da orrenbeste itxas alde? Esan nai det, nola leiken berreun milletatik kanporuntz arraintzan egin, edo batera ta bestera itxas ontziak ibiltzea.

Laterri askok ordea, ta batzuk esateko, biñakako alkar-konponketak egiñak dauzkate, aurretik erabakiak. Emengoak prantzitarrekin dauzkagun bezelakoak. Nola leike ordun, emen, baldin ontzat artzen ba'dute 200 milletatik kanpora arraintzan ibilli bearra, arraiak arrapatzea...? Ezin leiken erabakia da. Emengo antxualk eta atunak arrapatzeko ez beintzat.

A ze nolako kalte ikaragarriak etorriko lirazken! Bi illabetetan eztabaidan arituko omen dira Caracas'en, ta denpora geiege ote dan nago, edo ta, bestela, gauzak gure arraintzaleen kalterako izango dirala.

Gai auek astintzen dituzten laterriak, geien, Peru, Txile, Kanada, Noruega, Islandia, Ingalterra ta abar dira. Oiek, beren itxas bazterretan arrai ugari daukate-lako, naiago dute 200 milletako legea ontzat artzea. Beste laterri askok, ordea, arraiak arrapatzea urrun joan bearrean dira, ta urrutu oiek besteren inguruan egon, noski... Orra or gaitza!

Pentsa irakurle, Caracas'eko batuketa orretan, 70 milloi dolar deseinduko dira, ta diru ori ez da gero aurtzaren ez-tula...! Lenagotik, Ginebra'n batu ziran eta ez zuten ontzat artu zabalera ori. 1958-1960'urteetan, ain zuzen.

Larogei laterrik, larogei milletakoa eskatzen zuten ordun, eta txis ori doistarrak eskatzen zuten eta Canada'k ere ontzat artzen. Baiñan, or daude txakur amorratuak bezela perutarrak eta txiletarrak... auek, Ipar-amerika'kin burrukan beti. Baita Argentina ere, onek ere 200 milletakoa nai du... ta olantxe gaude bildurrez ez ote duten ontzat artuko erabaki minkor ori.

Oiek orrela dirala, Argentina oso bero dabil arraintza kontuetan. Ekintza berriak egin nai ditu «arrastre» kontuetan. Itxaso ori oso abertasa danez, batez ere antxo, lebatz eta abarrekin, arazo ori aurrera eramateko dira orain. Ala ere, ez dakit ba, peronisten artean dabilzan burrukak erria naska-naska egiñik, eta beste nagabe asko inguruetan... ikusteko gaude nola bukatuko diran ango gora-berak.

E. OZKIN

ESKUGEIKERI

Eskugeikeria mota askotakoa degula, eta oraingoan zabalduxe ditugun batzuek ikutu nai nituzke. Aldi luze ez dala, emakume gazte batek auxe esan zidan: «bere aurrentzat bizi osoa orain inork ez dezake eman». Bienbitartean gaur bertan bizien artean degun Enheita'tar Balendin'ena ikus:

Guraso batek duan guztia
Dauka seme-alabentzat,
Egi aundi au ama izan arte
ez-jakiña zan neretzat.

Baita: ikasle berein elkartu ziran, eta eurai estu ta gertutik zegozkien arazoak astindu-eta aizatu nai zituzten, eta ontan aietako batek: «gurenda osoa gazte-gaztetan iritxi bear degu. Izan ere, bakoitza bere bizitzako azken-egunetan garaitza-erpiñera iristen ziranetako garaia ianok ditugu. Betiko!»

Era ontako esanak gure egun auetan nor ez entzuten?

Eta, iritzien mamia salatzen asiz gero auxe neri gogora etortzen: eskugeikeria bazter eta arlo askotara zabaldurik degula. Arako goien aipaturiko ama gazteak bere buruaren iabe bakarria izan nai: zuzenago'edo esanez: bere buruaren etxekandere ospatsu! Arengana ezere eske inor ez dedilla agertu. Ark bere eskubideak (??!!) beretzat bakarrik nai ditu. Bere soina, bere almenak, bere iritziak, bere ondarea, bere egunak, bere izatea. Agintetza inori ez utzi nai: ez ezergatik ere...

Inori ezer irakasten eta adirazen ez nuke mokolo asi nai: irakasletzarako ere gatz sortzetik bear izaten degu-ta Ala ere, auxe agerian degu, noski: ainbeste eskugeikeri ikustea egokitu zaigunez gero, orain guztiok gero bizi-izatea biguñago nai degu. Eztiago eta erraxago. Guregana ez dedilla inor etorri esiak eraiki bear dizkigula esanez. Gure gurariak: eragozpenak baztertu; aldatz-gorakoak kendu; nekeak arindu; izerdikizunak aldendu; guztia zain-berritu eta aldatu bear au izugarri geriatu zaigu. Iasan-eziña! Eta orain arteko lei eta ikasketak utsal diralakoan gaude: gaur-gaurkoa ederrago eta bikaiñago dalako ez, agian. Baizik eta, lenagoko guztiari zaputuz egin bearrez bakarrik. Eta, eskugeikerian nabarmenezi izan danak berak, orain oldartu zaigun zapalketa aiñakorik ez du egin izan.

Geron osasunari gagozkiola, oraingo osalari berrien iritziak zer ditugu? Gaixo eta zauritu baten ondoan, osalariak lenagoko ez-er ez diruz aintzakotzat artu nai. Eta, buruasterik aundiena damaion zerbaiten aurrean, bere iritzi berriak lenagokoan esanetara makurtu bear litukenean bertan, itsu-itsuan aurrerapenek dadazkion osagietara ioko. Beintzat, zer gertatzen da ikusi... Ikasteko!

Irakasketa arlori abitzen ba'gera, lenagokoak arbutatze ori zitalago iaiki zaigu. Orain arteko irakintza guztia eta gazte-zaintza, ustela! Ikasketarako idaztiak, txarrak! Irakasketa bera, oso nolabaitekoa. Ainbeste irakaste zorrotzen alegiñak, ezertarako ez! Asmatzen zizkiguten nor-geiakokak, umekeri! Azkarrak eta langileek zer-ikasi ba-damaigule, alperrik! Irakaste asegaitzen gizatasuna, aspergarri. Eziketarako aukerak, aulak! Eta, itz-batean esateko: oraindaiño inork inon ezer egin ez!

Sinismenari eusteko alegiñetara so-egiten asten galararik berri alaiagoak izango ote-ditugu? Orain arteko ildoetan zerbait berri eratu bearrean, guztia erro-urrotik eraiki naikeok ez al ditugu ikusten? Olako berri-zaleari nondik datorren ederkitoz antz-ematem zaió. Kale gorriko giro kutsatuan azitakoak bakarrik uste lezake, sua zerabilten, eta beren etxean ez ba'zuten, su billa ere etxekonea oldez zioazen.

Geroaren kolko eta magalera itsu-itsu oldartze ontan, bizitzak berekin zeraman eta daraman zerbait aztu egin zaigu eta baztertu egin degu: eskeintza eta opaltza. Baiñan, eskugeikerian oitua zer eskeiñiko inori?

Bai!

Koska egin degu! Gerok!

Eta emente degu euskeraz itz esku onen zabal: gero bizitzaren eskuak soilik gerontzat nai ditugu. Geron izatea inork ez bekigu ebatsi: ez laburtu, ez morritu, ez ebaki, ez autsi. Ontan, ordea, bizitzarekiko ESKUAK aztu ditugu!

Goi-goian aipaturiko ama gazte panpin arek bere izatea inori zorrik gabeko artzen digu. Bere-bere luken isil-poltza ba'litz bezelaxe. Eta berak derizkion bezela txautzeko... ta alperrik galtzeko! Ain zorritzarrez, gaiñera!

Eta, arako gazte arek ere, oraingo askoren izketa darakusku: ari, garaitzak aldameneko etxe-ertzeri iritxi baiño len itxoin bear lioke. Itz-erdiz esateko: etxe-aurreko atean bertantxe. Lanik gabe. Bere buruari ukatzerik egin gabe.

Eta...

Esan al det?

Bai! Geron buruari ukatze ori erabat baztertu egin degu!

Zergatik ote?

Gure aurrekoek bere buruen ukatzalle aundiak ziralako? Lanerako esparik gabeak. Izerdi minduaren kirats txarrari beldurrik ez ziotenak. Ameriketara ioan aren, angó bertan-goxokeriak arbutatuz berriro beren iaioetxera itzultzeko beldurrik ez lotsik ez zutenak. Baiñan, oraingoentzat, ori guztia ameskeri utsa degu. Inork berriro olakorik ez egingo!

Lana, al dan gutxiena! Ikasi, geiegi ez, beintzat. Izerdia atera... lantegietan makiñak izerdirik ez eskatzen. Aurrak azi... bai ta zera ere! Emakumezkoak lantegira ioan bear du: inoiz izatekotan oraintxe ua isil-poltzaren bear! Amonek azi ditzatela aurrak! Baita: aurtzaindegiak oparo eraiki eta zabaldu! Gure senarrek ere naiago gaituzte apain eta beti gazte ikusi, ez umeak gero gonak puskatu bearrez. Bai! Baiñan aur txikiak lanak izango dituzte zenbaiten gona motzetatik zintzillika ibiltzen...

Ondoren... miñari eta naigabeari ies egiten ezin-asmatu. Ontanixe bai, etsi bearra etorri zaigula. Agian, bein ere baiño geiago. Aurrenapenei ori ere atera nai genieke: miña gutxitu; naigabeak arindu; buruasteak aiñatu; zapalketa giroaren ito larría emetu. Al dakit nik zer getego?

Begiak zabal ibilliz auxe ikusten: alperrik ez dira aberasten. Eskuartetik zerbait bikain atera ez duana, izen ederraren iabe ez izaten. Neska buru-ariñak senar buru-ariñagoa aurkitzen. Beren aurren onerako loa eta atsedena galtzen ez dakiten gurasoek, seme mokolo eta alaba tuntunak izango.

ETXEBERRIA'TAR P., S. J.

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra

BILBAO - Casco Viejo


Tenderia, 15 eta 16

UDABERRIAREN AZKENA

ERRIOXA GARAIAN

«Lurren umea lurra azi daroa»
Esaera zaarra

Goizean gelan, arratscan gelan, beti gelan, au gelaren illuna! Noan egurastera, Arratsalde epela, eztaia, egiten du. Landa-bidetik Bañares deritzan errikaruntz noa. Ez dago ain urrun landetxetik 4 bat kilometrora. Burua ez ezik, oiñak eta itarrak ere astindu bear ditugu, arako ura egia biurtuko bada: «Mens sana in corpore sano». Nik darama bidea zuri zuri dago, eguzki gorriaren menpean. Ez dut arkitzen itzalik ez arbolarik, arte moztakaren bat, lonbardiak makalaren bat, gatzaiña basatiren bat ez bada. An-emenka, kako batzuen antzera makurturik, labora-



riak. Lur ordekak, zelaiak, bide txukunez gurutzatuak. Ipar alderuntz, Tolonio mendia. Orain dela bi milla urte, erromatarrek, emen ibilli ziranean, inork deitu gabe, ipiñi omen zioten izen ori, Tolonium izena alegia. Egoalderuntz La Demanda izeneko mendisaldia. Goian, gaillurrean, elur-marrak nabari dira.

Alorre zabal-luzeetan patata-landarak, berde-berde, zabal-zabal, lerdin-lerdin. Garia

ere burutzen ari da. Zein emakorra den emengo lurra! Zein gozoa bertako ogia! Maastirik inguruan ez da ageri. Laborariek diotenez, maatsondoak maiteago du egutera, mendixkaren egal epela, ipar aietik gordeko duen sakona. Dagoen lekuan, ez ain urrun emendik, Goiak benedikata dezala aienaren ondo, dugun izan, negu otzean, naiko ardoa.

Bidearen ertzean, emalopa (amapola) saila. Gari-tokian sakabanaturik odol tanto mardulak dirudite. Bidearen beste aldetik, mantso-mantso, egoak zabalik, txuri-beltzak egoak, zigoiña dabil, suga billa noski. Ikustekoa da sugearen eta zigoiñaren arteko burruka. Ua zutik jartzen da zigoiñari eraso-tzeko. Onck, ordea, lurtera botatzen du egoaren kolpe azkarrarekin. Ta azkanean zigoiña, garaille, goruntz doa, mokoan suga bildurik daramakiela, ezkil-dorreko apira.

Bidean nijoan eran, galeperra, tarteka tarteka, kantari. Ba dirudi ugari dagocela. Baiña egazi au fidakaitza da. Nijoan, beldurgabe abesten du. Berari entzuteko, gelditzen banaiz, ixildu egiten da. Ezin dut entzun naierara bere kristalezko abotsa. Xerka beza gura duenak gizarteko, iri andietako loria, bizi nedilla ni ibaiak, landak basoak maitatuz! Bakoitza bere atsegiñak bizi du.

Illunabarra. Gaueko amarrak. Izan ere, ordu bat aurreratu digunez, eguna asko luzatu da. Lasterka noan etxera, Urrunean, illargia, zurbilla, menditarra. Baserrietako teillatu gorrietatik ke urdiña irtetzen da. Laborarien afaria prest dago.

Mendiz beera itzalak geroz eta andiagoak datoz. Gaua, gogaieren ama. Izadia, giza-bizitzaren erdia! Gizartean gizonak egunoro jasotzen dituen zaurien sendagilea! Bete aldatzen eta beti bere oiñean dagoena! Gauza guzien sortzaillea! Izkutuketan gizonarekin jostale! Nondik nora etorri zait neri izadiaren zaletasuna? Nonbait ataundarra izaki, artzaiñen, ikazgiñen eta laborarien errikoa. Menditarra iritarra baiño geiago. Bi esaera zaar datorzkit gogora eta lumara: «Lurren umea lurra azi daroa». Ta beste ura: «Eperraren umea mendikari».

JOXE LASA

Kerkrade'n Eresbatzak

Datorren illean, Uztaillaren 5'etik 28'ra, ta zazpigarrenez, Eresbatzen Ludiko Txapelketea deritxon jaialdia izango dogu, Kerkrade, Olanda'ko uri politean.

Lau urtetik bein izaten da leiaketa au. Ta au tamala, gure txistulari talde batek izango leuken arrera ederra ta gairapen aundia lortzeko, beranduegi izango da. Ala ta be, garai orretan andik zear inor oportetan ba'litz, jakin beiz angó zertzeladak eta ia emendik lau urtera euskal-doiñua be entzuten dan neerlandarren erri soiñuzale orretan.

Leiaketara, ortik irabazpiderik ez daben eresbatzak joan leitekez, bitartean baiña, illuntzietan-eta, eresbatz aundi ta ospetsuak euren erestaldia emoten dabez, leiaketatik at, baiña an diran ereszaleen atsegiñerako ta ikasbide be izan daitezcan.

Gaiñera, eresbatzendako bakarrik ez da norgeiango au, «fanfarre» deritxon taldeak be an izaten dira, euren maillan sari ederrak irabazteko. Gero, 250 eresbatz, 26 laterrietatik etortzen diranez, erriko eta auzo errietako sendietan artzen ditue egunok igaroteko; adizkide barriak egiñaz eta luzarorako artu-emon jatorrak olandar zintzo orreikin.

ASTI

Alkar Izketan

—Aspaldian, Peru, gure Erriaren etorkizuna dokala-ta, buru-auste andiak erabilli yoadaz, eta gai oneri alderdi onetik begiratzen alegindu arren, etorkizuna illun ikusten yoa.

—Ez az ba, Manu, illunzale agertu, orain arteko alkar-izketetan eta eure itzok apur bat arritu egiten nabek.

—Etorkizuna illun ikustea, ez dok neu aldatu nokalako, gauzak aldatu dozakalako baiño.

—Gauzak aldatu dozakala egia dok, baiña ez dok uste onerako izan dozakala?

—Batzentzat ba'leitekek olan izatea, baiña erriarentzat ez yoa uste.

—Ezetz diñok? Erriaren onerako ez dozak ba, alde guztietan egin diran ainbeste etxebarrri, ainbeste ola ta lantegi, sendientzako ainbeste aukera, alde guztietara urak eta argia erotea, bizitza eroso ta aukerakoago bat izan dagien, lan sarietan ainbeste diru irabaztea, yoa-erriararako erreztasunak, bizitzarako ta ikasketarako ainbeste egokitasun, mundu guztiko barriak yakin eta ikusteko etxean bertan ainbeste aukera eta abar, ez eta dozak ba'errien onerako?

—Nik ez doat esango ori guztiz ondo ez dagoanik, baiña, ezta errien aurrerapena bakarrik-eta geyen batean yagoanik be. Gizon baten on izatea, aberatz izan, aukeran bizi ta buru-austerik ez eukitean, ta berak nai dabena egitean ez yagok; gizon zintzo, egi-zale, zuzentasuna zaindu, bere eskubideak eta besterenak be zaintzen alegintzen izatean baiño. Erriakaz-be bardin. Erri aberatz, aurrerapen guztiak dituen, etxe ederrak, kale garbiak, soñeko apaiñak, gauza onak dozak, baiña gizonaren eskubiderik aintzat artzen ez ba'dok, maitasunik ez ba'dok, baxotxari zor yakona emoten ez ba'yakok, bere nortasuna eta eskubideak aintzat artzen ez ba'dozak, ezin esan geinkek erri ori aurreratua danik. Yakiña, bai eskubideak eta eginbearrak beti alkartuta yabizek-eta.

—Bai, emen beste gauza batzuetan yazoten dokana; alde batetik begiratu ezker, gauza bat yirudik, eta bestetik begiratu ezker, beste bat. Orixe dokala-ta, esan dokan guztia ontzat emoten yoa, baiña aurrera-bidea ez yagok azalean, barruan baiño.

—Izan be, neu be orretan ñagok; gizon bat nai erri bat aurrerantz ala atzerantz yoyan yakiteko, lenengo zer doan «aurreruntz» ala «atzeruntz» yoaeta yakin bear, eta orretarako, egizko «aurrerapena» zetan yagoan yakin bear, ostean ez yakok alkar aitzerik. Eta orretan, ez yok ñork auxe ukatuko: «Gizona gizonago egiten yoa dana-dok-aurrerapena, eta bardin Euskal-Erriatzaz esan geinkek: geroago ta Euskal-Erriago egiten yokan guztia guretaz «aurrerapen». Orren kaltezko dan guztia «atzerapen» dokala esan bearko».

—Ik diñokana arautzat artu ezker, aspaldi onetan aurrerapen andirik ez yoguk egin.

—Tamalgarria dok baiña egia dokala ezin ukatu. Baserriak utsituez yozak, eta egunero entzuten yoguk, alan dok izan be-ta, baserria gure erriaren oiñarri dokala, antxiñako ekandu onen eutsigarri ta gure euskerearen abi gozoa... Baserria galdu ezker ba, zer geldituko yakuk?

—Ori esaik. Ointxe gomutatzen nok, emengo oiturak ezagutzen etorri zoa alemandar gazte batek, Gipuzkoa'ko erri txiki baten ezagutu yoa oitura bakan bategaz: «Erri aretan baserri bat ustuten zanean, erriko eleizan il-kapayak yoten ebezela».

—Esangura andikoa dok izan be oitura ori. Baiña erri guztietara zabalduko ba'litzok, uste yoa, kanpai yotzailleak lan-sari andiagosa eskatu bearrean aurkituko litzakezela. Egunero ba, ez dok besterik entzuten: «Urtie erosoago biziteko landola ondora biziten, baserria itxita yoa dok, ñork ez yotsak ba bere bizi-bidea indartzen lagundu; berendiek beste ainbeste egin yok, an euren izakerea, izkuntzea ta bizikereagaz zer ikusi ez daukenagaz nasteen biziteko».

Eta orren ostea guztiok yakiguk.

—Egia dok, laterri guztietan bardin yasoten dala, baiña baita egia be, beste guztietan gexo ori zabal egoteak gure gexoa ez yola obetuten. Geure gatxa besteetan be zabal dabilleta-ta, ez erigin barik egotea, lelo izatea izango litzakek.

—Orixe izango litzakek gero ta atzerago yoaeta, eta egunero ikusten yoaguna dala, aurrerantz ez yozan erriak atzerantz eta ondamentirantz yoaen dozakala.


—Alantxe dot, baiña igarri barik astia yoa yakuk eta urrengoan yarraitu bearko.

URIGOITIA

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

ZAZPI-KALEAK



CASCO VIEJO


BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

Mendigoizale Jaya

GORBEYA'N

Mendigoizaleak, orregaitik dira izan be ta, mendi guztiyak dabez atsegin, baiña bizkaitarrak beintzat, benetan maite dogu Gorbeya, ta ez mendi-kiroldar agertzen garanak bakarrik, baita noiz edo noiz bertaratu diran guztiak be, beste gure mendi guztietatik bardingea ta alai egiten dalako mendidi zabal argi ori. Ta orretara izanik, zelan ez, bertan, Gorbeya ortan, mendigoizaleen jairen bat ospatu ezketiño?

Lenagotik euken iragarrita. Guk be zerbait idatzi genduban orretzaz, eta Orrillaren azkenengo igandean ospatu zan, jai eder ori. Basauri'ko



Baskonia taldeak Ibaizabal-Nerbion Alkartearen babezpean eralduta. Sarrri esan dogunez, Alkarte ori osotuzten daben bazkunak, Arrigorriaga'ko Padura, Basauri'ko Baskonia eta Edesa, Galdakano'ko Ganguren, Zamakola (Peña)'ko Osea ta Zornotza'ko Zornotza taldeak dira. Eta seirotatik urtean batek, antolatu bear izaten dau jai ori; euskal-giroko jai alaitsu garbi ori, eta toki bardingean, geyenentzat atsegingarria izan daiten.

Aurten, euskal-mendizaleak bildu ta legepean eraldu zaneko berrogei ta amargarren urtea zala-ta, Euskal Mendigoizale Bazpatza sortu zeneko Urrezko Eztaiak, ta urteurren onen gomutat, Bizkai'ko mendirik goien ortan egin naiaz, Ibaizabal-Nerbion Alkar-teak antolatu eban Gorbeya'n.

Aurreko egunean, eguraldi lanpartsua ta otza agertu zan, baita antzerakoa igande goizean be, baiña benetako mendizalea ez da errez kilduten, eta eberdate erdirako, alderdi guztietatik, Arraba'ko zelaira batu-

tzen asi ziran. Eta amaiketan, jai asi zaneko, eundaka, baita millak neska-mutil, zar eta gazte an ziran, Bazpatzak daben aterpe inguruan; batez bere, erri orreitatik etorriak, baita baiña, Berriz, Eibar, Gernika ta ez dakit beste zenbat tokietatik.

Lenen, txistularien soñu otsaz emon yakon asiera jaiari, ta urren, bazkun bakoitzak bere bazkideei, urtean irabazitako sariak banatu eutsoczen, eta Berriz'tik Basauri'ra arteko egin zan ibilketa neurtean irabazle izan ziranen artean, sari ta ainbeste oroiikur eder banatu ebezana. Ondoren, oneitariko jai guztietan izaten dan bezela, txistu otsean ifun diran aurreku, ezpatadantza, dantzaldi biribilketa mendizale gaztediaren artean. Ez dago esan bearrik, giro atsegiña izan zala an egon giñanak gozatu genduna.

A, a! Ta, esan bearrean gara-ta, eskerrak emon bear mendigoizale bezela, Basauri'ko Udalari, ta batez bere, bertako endore Escribano'tar Emili jaunari, aipatu dogun ibilketa neurte orretarako emon zituan ama-bost milla lauerleko ta oroiarri eder areikaitik. Gaiñera, Udal orrek daben jolaseta apaiña be, bere eralkuntza guztiakin, mendigoizaleen eskuetan ipiñi ebazan, ibiltarien sarrerarako.

Orain geiago. Bagil onetan ospatuko dan bide-asmate ibilketarako be, beste ainbeste oroiikur eta txindi, Edesa, mendizale taldekoai emon dautsez, eta bost milla lauerleko mendizale argazki leyaketea errian antolatzen doazanai. Ori da Eskribano adizkide jauna, erriko oitura garbiei laguntzea! Gure zorionak barriz, eta ea erduztat artzen zaituen gure errietan doguzan beste endore askok.

Egun berean ziran, euren urtereko mendizaleen jai ospatzeko, Enkartzizioeta'ko mendigoizale taldeak alkartuta, baiña lerro oneik idatziten dogazanean, ez dogu orrean barririk; ea beste baten idatzi al izaten dogun zerbait euretaz.

ALTUNA'TAR JOSU

MARKIÑA

BARRENETXEA TA IZARZUGAZA'TAR IONTXU'RI

(Bere Lenengoz-Jaunartze egunean)

Gaurko egunez, YON, zuk dozun poza! Zugaz bat-egin da Jainko aundia... Aingerutxoak lez zagoz jantzia; Jesus'entzat dozu orain biotza.

Emendik aurrera zure bizitza Ibilli bearko bide zuzenez, Aginduta dagon maitasun-legez, Eusteko dozula ortan otoitza.

ZORIONAK, IONTXU, gaur egunean Opa dautsuguz guk biotz-biotzez Guraso, senide, lagun-artean!


Gaurdanik asita, oroi, mesedez, Jesus or barruan dan bakoitzean, Otoitz-egitea guztion alde.

XALOKIN

Eibar

Udabarrian jaiak. Aurten be, gure umeak, eta naiz gitxiago izan oraingoan erbestetik etorritakoak, jai ederra izan dabe. Indarbarrituko dan itxurea be ba-dauka. Eibar'ko jataillen batzokietako arduradunak esnatu jakuz ba: ume geiago nai albo errietatik. Atsegin izaten jakue euren mai apaiñetan ume pilloeri jaten emotea. Ez da ba, umeen jai utsa, nausiak be eurena nai, batera. Urrengoan, orixe bai, erbestetatik ume geiago; gertakizunak eginda euki ba'dozuez be, umeak gitxi izan dira-ta.

Burdi-apainduak be kalarik kale. Or ikusten dozuen mutikoa, argi-mutil orren gainean, benetarari. Ezelan be ez eban nai izan ortik bera jaisterik dana amaitu arte.



Urrengo, ume ta gaztetxoan euskal-leiaketee, euskeraz irakurri ta idatzi, nork obeto, Arrate'n. Aldazabal'dar Peli zanaren oroimez eta bere lengo lagunak eratuta.

Aurten egualdi makala benetan. Ta, Arrate, zoragarria, egualdi on eta epelakin; batez, be egun onetan letxe, umez eta doiñuz eta dantzariz betetzen danean.

Ortze txapeldun izanetatik batzuk, gaur, euskal-idazle bikaiñak doguz!



Eun Urte, laster esaten dira, eta gure urteak zear ikusia, ta gure zarreri entzuna, bizi-bizi daukagu barruan. Eun urte, ta Eibar izatean, lenengo, gorakada aundi bat, gero, aldaketa bildurgarria, ta orain bidebarrian aurrera joteko, pausu onak aukeratu bearra.

Ta, eun urte onen barruan, beste eibartar askoren artean, baiña txikitik aundira etorri ta Eibar'en izatearen gora-bear orren ezau-garri on bat, «Arikitxa»k sortu ta «Arikitxa» ondorengoak indartu al izan daberen saltokia: Eibar'en gorakadak naiz berakadak, etxe onen izatean dagoz ederto lotuta.

Joan zan gizaldiaren atzenetan, eskuz egin bearraren maillu, epaiki, firi-fara ta arrilabanak. Gorakada neketsua.

Lenengo gudaketako lan-ugaritzeak, zortzi-orduak, urrea... ta a joan zanean, Ixu'rako bidea jan-truke, dirurik-eza, zorrak alde guztietan, haba-lapikoak Udaletxean... eibartarrak beia jota.

Bitartean, NICHOLSON lima ederrak «Arikitxa»nean; ez eskeiñi eibartarreri, orduan besterik.

Gero, izkillu ta urre-lanetatik, beste lan-keta barriak sortu: txirriñduak, josteko-makiñak, esku-tresnak, ate-loturak eta giltzak...

Barriz danori ondamedira, gure gudea etxean, Akondia'n... Atzera, utsetik asi bear, baiña «Arikitxa» zar arek letxe, bildurrik ez, ezta lotsarik be, eskuak burdin eta ugarren artean zikindu ta azal-gogortzeko: Biotzean negarra, bekokian izardia, besoak nekepean, boltzikoetan zuloa, baita gerrikoan be barriak egin bear, baiña eibartarrak gora barriz... 100 urte aurten. Unzeta'tar Pedro arek dendia zabaldu ebanetik.



Ta, gaur, ondo bizi izatearen egarri; len be bai. Baiña, ez ete dogu lengo orri begira, lengoeri lotsa pixkat izanda, bizitza oberik asmauko...?

Eibar, Eibar izango ez ba'dok, ta eibartarrentzat barik, inorentzat. Zertan jarduagu? Jardun ba, baiña eibartarrez beti ta danean!

San Juanak be emen, len be bai. Eibar beti Eibar izan dadiñ, egin dagigun al dogun guztia! San Juan suak garbitu dagiala ingurua; orretarako baiña, ixotu egin bear!



Olan izan dedilla. «Arikitxa» ta Eibar gaur eta beti gogoan, beste guzti arek aztu barik, ba-jaukaguk nor gogoratu ta nor goraldu.

Urrindik, ikusten ez danian eta bertan izan ezik, dana dok ba urrin, agur bero bat eibartar danori.

Ariatza'ko Zumaran jauregixa joan ba' zuan be, or ditxuk oindiñok Urko, Galdaramuñio ta Karakate, Eibar nun zan eta nun izango dan ezaugarri!

BEIZTEGI'TAR JON

Antzuola

LENENGO JAUNARTZEA

Urtero bezela, aurten ere, Igokunde egunez aur talde batek lendabizikoz Jauna artu zun, 50 neska-mutikok osatutako taldeak ain zuzen ere. Ezin egun egokiagorik aukeratu, zerura igo arren emen gelditu zanez, pozik ala ere gelditu zan Berak ainbat maite dituan 50 aurren biotz garbitan. Zorionak guziet.

SAN PEDRO

Kalebarreneko zaindari. Gure errian itxura dagoenez ez da inor izan bere izena kale bati ezartze merezi duenik, edo ta orrela «Kalegoi», «Kalebarren» eta abar deituta, inor «despitatu» ez dediñ ote da? Orregaitik izango da, eta noan arira zearo arrastotik irten gabe.

Esan det, kalebarrenekoak San Pedro aundia dutela zaindari, eta beti izan badira ere azken urte auetan, jaiak antolatzen saiatzen dira saiatu. Baiñan nola? Gure errietako jai nagusiak aultzen dijoztenean, indarra galtzen doaztenean, auek, kalenbarrendarrok, ikasbiderik ematen dutela esango nuke. Beren jaiak egitan berenak izaten dira «Sobreko sopa» bezela dena, guztia egiña ematen diguten onetan, otek, asko edo gutxi, baiñan berak egiten dute, beren jaiak alaketxe kutsu berexi bat ematen dielarik.

Diruaren morroi, mende, bizi geran ontan, bera gabe eziñ ordea pauso bakar bat ere eman eta antolaketako koxka berdintzeko, zer asmatuko da, antzerki emanaldi bat; denok irabazita irietzeko, zer zozketa baiñan obeagorik? Orrela, bein da berriz, Urnieta'ko «Egi-billa» antzerkari talde bikaiñ eta ezaguna txalotzeko egokiera eman digute; berak agertu ziguten antzerkia «Lurrun-argia», ez-ezagunagoa ez dan Inaki Begiristain langille porrokatuak euskeratua.

Beste tokirik ez degunez —egiteko asmoa ba-da ere— antzerki areto, maristena izandako elizaxoa biurtu zan, bere barrunbea ez zan geigirik bete: egun eta ordu berean, Bergara gure auzo errian, «Txanton piperrri» euskal-opera ematen zalakoz ote zan? Antzerki zaletasuna gutxitzen dijoanik ez nuke pensatu nai, inolaz ez aztu len garai batean antzezleri trebe ta bikaiñak ezagutua dala Antzuola. Len esan bezela, gauz oiterako antzoki, toki egokirik izan ez ba'da ere; darambilzkiten asmoak, usune ori laister beteko dala adierazten dute.

LAGUNTZA BILLA

Lerro auek argia ikusten dutenerako, ziur asko ospatua izango da izatekoa dan beste jaialditxo bat, erriko eskolekako neska-mutikok gertatzen ari dirana noski. Auek ere betiko teloa, elburu bat: ikastaroaren amaieran ibilladi bat egiteko xox batzuek atera nai. Eta or, danetatik izango da, nola ez!, baita euskal arloan ere. Aipagarria deritzait, gaitzetzeko maixu ta maistrak erdalduan diran eskoletan, nai duten ume guziet euskeraz erakusten saiatzea. Batek, lurra landu duanean mola guzietako aziak ereiten ekin dio, orrela jaialdi ortarako bestiak beste zerbait gertatua du.

Kontuak kontu, orrelako maistra asko ai bagenitu!
Bide orretan Edurne,
aurrera jarraitu.
Naiz amarretik bederatzitan
esker txarra artu.
Inork Zorionak
merezki baditu,
Zuri emateke inolaz
ezin gelditu.

MATXALEN

Galdakano

ERIYOTZAK

Udabarri ontan, ainbat eriyotza izan dogu, ta jakiña, danak naigabegarriak ba'dira be, ainbat geyago adizkide ta errikideenak diranean. Oraingoetan be, orretariko batzuk izan doguz gure erri ontan.

Igaro dogun Orrillaren 25'ganean, Erletxeta'ko auzunean, Leifero'tar Loren gizon errizalea, berrogeita amazortzi urtedun zala, eruan euskun jaunak.

Baita, il orren 29'ganean, Uriarte'tar Joseba euskaltzale zintzoa ta, beraz, gure AGUR onen irakurlea, irurogei ta amairu urtedun zala il da, luzarotxoan Bilbo'ko osatetxe nagusian gaixorik egon ondoren.

Joseba, bere izakeran, gizon apala zan. Langille kementsua ta euskaltzale gorenengoa ta ondo ikasia. Ori dala bide, emen izan genduban gudaketa zitala aurretik, gertuta geunkan erriko ziñe-

gotzi edo baita endore be auteskunde bitartez aukeratua izan edin. Eta ziurki autau be izango zan, iragarrita aurkitzen ziran auteskundeak ospatu izan ba'ziran. Errizale jatorra izanik, adizkide andijak eukazan galdakanotar jatorren artean. Jaunak eratu dautson tokian jaretsiko aal dau Joseba adizkideak, lurralde ontan ain maite eban benetako azkatasuna. Goyan Begoz adizkide bi orreik eta ildako ezagun guztiyak!

GAIXORIK

Aspalditxoan daukagu gaixorik Bilbo'ko osatetxe nagusian, errizale zintzo ta adizkide benetakoa dogun Arrizabalaga'tar Joseba, sasoi oneko gizon azkarra, baita, ta zelan ez!, AGUR'en irakurle ta zabaltzaille jatorra. Ea Joseba, laster baten sendatuta errian ikusten zaitugun, zeregiñik asko daukagu emen, euskal-arloan.

EGURALDIA

Lerro oneik idatziten gagozanean, egiz esan legike, udabarria benetan eldu dala, ta Bagil onen lenengo igandean Bilbo utsitu ba'zan, egunerokoak esan eben bezela, orretara izan zan gure erri ontan be. Gaixoak, eurok yabon bear ebezenak eta zartxoak bakarririk geratu zirala esan geinke.

Ain atsegin zan Urkiola'n —gu aurkitzen giñan eran, ba, zarrago ta atsegiñago yaku izan be— eta Gorbeya'n edo beste asko izan ziranek, itxaso bazterretan! Igandeetan danok aurkitzen dogu alderdi egokiren bat —bakoitzak al daben neurrian— baiña, orain, astegunean, gure lanetik bizi garanok, zer?

Lerro oneik idazten doguzanean, asteartea da, ta... eguraldi ederra! Euskal-erria'k dabezan ainbat toki alai ta osungarrietan, beste zeregiñik izan ezik, aldi ederra igaro legike, baiña, guk, emen jarraitu bear, lanean. Urrengo igandean eguraldi bardiña egiten ba'dau, adi! gure lurraldeetako beste goi-alde zoragarri batera joateko. Ona egingo ba'leu, beti!

BASA-JAUN

Arratia

Erriaren ardurea ta eginkizuna izango da ziñegotzi edo konzejalak aukeratzea ta izentatzea. Ondo etorria ta zuzen burutua izan bedi, gizonak gizonarengana begirunea ta bakoitzak beraren iritziak eta egiazko usteak azaltzeko bide zarra barritzeta. Indarra ta makurkeria alde batera, bide zar-barritze au litzake izateko demokrazia. Demokrazia, agoa beteko itz gozoa, esateko samurra... egitez agertzeko gogortxoa.

Gizonaren andinaikeriak menperaturik dauka, zapaldua gerri-azurra, arnas-ozka ta elbarriturik. Gernika izan zan, aldi baten, demokraziaren abi zabal-beroa. Gure zarrak munduazientz eredu ta jarraibide. Eta batzarretan, lekuko, begiratzaille lez, areitz zarra izaten zan, oraintxe bere zutunik doguna.

Gaitasunik izango ete dogu laugarrenez aitatz daroadan «demokrazia»ri bizirik iraunarazoteko, itzala eta lotsa izateko?

Oloa ala gari, geroak agiri!

* * *

Lemoa, zementoa ta arbela. Arratia ta ostiko-pelota.

Gudaketea izan gendunean bai gorrientzat eta bai zurientzat, gogorra izan zan Lemoaitz. Bertako arriakin, arrezkeroz bere, egin izan da zementon gogorrik. Orain baiña, arbela dauala nasturik... dirudi.

«Lemoaitz» zirala uste eben lemoarrak pramotzez —laburrez— eta arto samar landan agertu ziranean. Andiak eta gogorrik Arratia'n inor ez lakoak. Eta Ibaizabal erriartean sartu ziranean barriz, arroagotu egin ziran.

Orain, baiña, zer da gertatua? Zer jazo da? Aitz-arrian, arbela!

Poto egin daukue Lemoa'ko ostikolariak. Berengo maillara jatsi zarie, ta barriro asi bear, orain, «ARRATIA» taldeagaz buruzburu jokatzin.

Lemoarrak futbol-jakituriz jantzaigo, peloteagaz ere... marrolariago.

«ARRATIA»n mutilak mazalago, dantzatxe bi naizta errian euki. Indarrez zeko-rrak laxoxe... kukurrukuaren gose.

Nor izango garaille? Zein izango irabazle?

Ala kikiñerera, ala kukurruncra. ARRATIA'ko kazkarrenak, pelotea Laurkin'era!

LANDAJUELA'TAR A.

ISABA'N

Artajona ardotako,
Baztan belarditarako,
Tudela oliodontako,
Erronkari neskatako.

P. Gorritz'ek 1885'n erderaz egindako kopia bat irakurri izan dot, ori esanez.

Azken bertsua aldatuta beste nunbaiten. Neskatako orde, emakumetarako orde, bertako beste zeregin bat goratzen: almadiakariena.

Sarri ikusi izan doguz Erronkari'n Auñemenditako baso sakonetan ebagitako egur lodiak pilloetan alkarri batuta, mendi goietatik errekan bera eroaten. Pillo orrekin gaitiatan, makilla luzeekin eureri bidea zaindu eta zabaltzen edo ta ostopoak gainduten joaten diran gizonen almadiakariak deitzen dautse. Gaur, batez be Yesa'ko ur-potzua, pantanoa egin zanetik eta kamioiak ugaritu eta bideak zabaltzea erretzu dabetik, erabiltzeta ori, ezagutuaren, ez da orain urte batzuk aña ikusten.

Emen Erronkari'n, Ezka'ren ur garbietan, eta arutzago Salazar'en, edo egalerago Irati'ren ur bidean, amaika pago eta aritz eder eroan izan dira serretara era orretan.

Guretat ikusgarri. Almadiakerientzat eten-garri. Baiña bakoitzak bere giroan lan egin bear, eta emen, gizonaren eta irabazien mesedean, era ori zan urte luzeetan biderik errez eta egokiena.

* * *

Isaba'n nago. Erronkari ballera au osotuten daben zazpi errietatik andiena. Erronkari ballera deituaren, erri bakoitza bere jaube da, nortasun osoko, agintaritzat beteko.

Emen gareanez, merezi dau ballerari, errialdeari, azal-azaleko ikusaldi bat egitea.

Urzainki da ballerako erririk txikiena. Eun eta berrogei lagun batuko ete? Erromani-ko jokerrako eleiz atadi eta zubi ederra. Ba dago bertako kopia bat:

Urzainkirik Erronkarira
bideak on dira,
Justina eta Maria
ara jinak dira.

Erronkari'rako bidea on. Eta San Migel' erako? Ordu ta erdi bear baso bidez, Santa Barbara mendiaren gibelean, ermita onetara eltzeko. Etxe bakoitzetik gitxienez bat joan bear, urtero, Irutasun egunez. Joan ezik multa ordaindu bear. Danetatik nekea: joateko, gorputzarentzat; joan ezik, sakelarentzat. Oraingoak nasaiago bizi dira. Ermita ori gure denporetan galdu da.

Ba dakizu txakur amorratuiei zer egiten dautsen emen? Santa Kiteri'ren burdiña deitzen dautsen zati bat gordeta eukiten dabe. Txakurren maitale oi zan santa ori. Origaitik bere egunez bedekintzera eroaten ditue. Amorratzen diranean, burdin ori sutan ipinten dabe. Txakurra arrapatu, bere burua sukaldetako atearen bitartean artu ta estutu eta burdin ori goritzen danean, bekokian kurutze bat beragaz egiten dautse. Orrela, uluka ikustean, erri guztiak jakiten dau txakurrak zer daben.

Urzainki'ren ondoren, Bidankotze. Mendiaren gibelean erri guztia. Goientsuen, ormak eteten azitako eleiza zarra, emengo egualdien baltza erakusten. 220 bizilagun.

Garde.—Batez beste lengoaren pare bizi-lagunetan. Ezin eskutatu emengo jakingarri bat. 1838 urtean, aragotiar seme bat izentatu emen bertako abadetzako. Kontuan euki auzoan egiten dala Anso ballera eta angoak ez dirala naparrak. Baiña auzoko izan eta be, erriko gizonak, erriko agintariak ez eutsen sarrerarik emon, erri onetan dotriña eta autortzak euskeraz erakutsi ta entzun bear zirala-ta.

Erri onetan, ordu beteko bidean, antxiñatik datorren ermita ezagun bat dago, Zuberoa'ko Andre Mari izenez. Milla metrotik gora egiten da. Iraileko Andra Mari egunez, guk esaten dogun lez Arrate'ko Andra Mari egunez, nekez lagako dautse erriarrak bertara joateari.

Erronkari. Ballera edo errialdeari izena emoten dautsan erriarri. Gaiyarre'ren sorterri ta illobi. Ikusgarri da iltegan Benlliure'k egindako brontzezko illobi ederra.

Nabarzatu auzoan Donestebe'n ermita. Kondairan esaten da Nabarzatu au Erronkari'ko zortzigarren erria izan zala. Paper zarretan irakurten dabez, XIII gizaldiko lenengo zatian, etxe buru bi eta parrokia eukazan.

Eztakit zegaitik, emen frantzetarrei *autxak* deitzen dautse. Komeni da ori jakitea bertan arto gogoratzen daben kantu zar bat obeto ulertzeko. Napoleon'en denporetako da:

Eun ta berrogeitamar autx
Erronkarieta jin ziren,
eta Yenyari'ko puntan
guziak degollatu ziren.


Aaztu daiguzan gerrak eta gerretako kalte nai garaitzak. Ez gatoz gaur onetan. Erronkari'k ba dau bere izeneko beste zerbait. Zegaitik erri bakoitzean bertakoa aipatu eta goratu ez?

Kantatuaz, kantatuaz
Isaba ta Erronkari,
kedarpean kosk ein diot
ardi zainen gaznari.

Agur Erronkari'ko irureun eta piku lagunoi.

Burgi eta Uztarrotze. Biok, bakoitza laureun lagunetara eldu eziñik. Burgi-aitz-arte luze eta itzal baten sarrerako aize min eta zoliak artzen. 1809 urtean frantzetarrek oso-osoa erre eben. Etxe, eleiza eta inguruak. Baiña erri maitasunez al bestean konpondu eta bertan jarraitu eben. Uztarrotze balleraren goienean egiten da. Aizetsu ta eguzkitsua. Izalzu'ko bidean Andre Mari'ren ermita eder bat. Laguntzaren Ama deitzen dautse. Erri onenak dira Barazea mendia, 1.883 metroduna. Gaztarria, 1.725 metro eta Otsogarrigañe, 1.916 metroduna.

Sartu gaitezen Izaba'n.



Errialdeko erririk andiena. 800 lagunetik gora. Etxe geiago eukiteko gertua. Uda eta neguko atsedentoki lez aukeratu dabe askok. Aparta orretarako.

Auñemenditako kutsuzko erri berezia. Arrizko etxe ederrak, leioak eta tellatuak giro gogorrei eutsi al izateko eratuak. Eleiza eta inguru jatorrak. Igarten da bertakoak kanpotarrei ten egiten jakin dabela erria aukeraz beteta. Erri garbi ta osasuntsua. Jatetxe, egon leku eta jolastoki ta guzti. Laster konturatzen da bat erri onean dagola.

Burutik joan baiña len esan daigun Napparroa'n lektra indarra lenen sartu eban erria berau zala. Ortaz gainera Erronkari'ko errialde oneik euron arteko telefonoa ipiñi eben. Nabarra'koagaz zer ikusi barik. Ezin ukatu aurrerapen kezka odolean daroenik. Denporak igaro ziran Aldundi edo Diputaziñoiak beste telefonoekaz errialde onetako alkartu orduko.

Mendi, baso eta lurrez aberats. Bertan bizita be nekez ikusi eta bear bada sekula ez ezagutzeko mendi eta basoak daukaz. Bertako lurraldean sartzen dira Arlas, 2.062 metroduna; Afilarra, 2.348 metro; Budogia, 2.305 metro; Iror Errege Maia, 2.438 metrokoa, eta Lakartxela, 1.982 duna. Ingurutako beste mendi askoren asiera edo bidea bertan artu bear da. Ardibidegainea, Arrigorrieta, Ezkaurre, Lapazarre, Larraza, Larrondo, Txamantxori eta abar. Gaur, goi mallako mendi-zalatasunean, Izaba da, ezpai barik, tenik geien egiten daben erria Euskalerrri guztian.

* * *

Isaba'ren paradisua deitzen dautse Belaguari. Amar kilometro erri burutik. Bide

GAURKO ELIZA

JUBANY KARDINALA TA ERRI IZKUNTZAK

Jubany Kardinala, Bartzelona'ko Apezpikua, erri izkuntzak liturgi-gintzan daukan egitekoaz mintzatu da oraintsu (Ikus «Vida Nueva», 933 zenb.).

Katalaneraz itz egin zuan, katalandar izkuntzari buruz ari zala. Ta ark Kataluña'ko izkera dala-ta esan zuana gure euskerari ere erantsi dakiok. Jakingarri izango dala uste dut, beraz, euskaldun guzientzat, ango egoera ta emengoa berdintsuak dira-ta. Aitatutako aldizkaritik jasotzen dut ark esana, zerbait laburturik.

Kristo'ren Elizak izkuntza guziak artzen dituala aintzat dio lenengo. Ez bakarrik zuzentasunak orixe eskatzen dualako, pastoralgintzan gizabiotzaren barne-muñiera irixteko ta gure sentipenak agertzeko biderik egokiena gurasoengandiko izkuntza dalako ere bai.

Elizak —dio berak— mesede aundi-aundia egin zion erriari liturji-ospakuntzan katalanera erabiltzeko erabakia artu zuanean. Izan ere, katalaneraz literatura urri xamar gendularik, erria asi zaigu gure elizetan katalaneraz eta abots zoli eta ozenez otoiiz egiten eta kantatzen. Ta ikastetxe askotan gurasoengandiko gure izkera au bazterturik daukagula, Elizak erri izkuntza berau darabil elizkizunetan ta erri izkuntza ontaz baliaturik gurtzen du Jainkoa ta fededunak ezitzen.

Egia da, dio gero, millaka ta millaka gizon beste lurralde batzuetatik etorri zaizkiguna. Apaizak alegintzen dira, ori bai, oiei ere berek darabilten izkuntzaren bidez kristau eziera ematen. Elizak, ala ere, ez du katalanera arbutiatzen, ezta liturgi-gintzatik kentzen. Indartu egiten du, indartu, izkuntza au baita gure errialde onen aberasgarri irtenena ta bikaiñena, ta erakutsi ere, beronek erakusten du erriaren kultur-mailla, ta barren-barreneko sentipenak agertu ere beronek agertzen ditu miragarriro. Elizaren jokabide au ikusita, iñork ez beza, gero, politika egiten duanik esan. Jainkoak gure izakeran agertarazten dituan izatezko giza-ondasunak aintzat artu ta indartu besterik ez du egiten.

Elizak, bide ortatik dabilkigula, erriarentzat onuragarri dan serbitzua egiten du, bai erri maillan, baita eliz maillan ere. Ta Elizaren jokaera oni esker, erri izkuntzak aberastu egin diranik, ezin dezake iñork ezbaian jarri. Guri dago-kigunez —dio Jubany agurgarriak— liturjizko itzulpen berriak katalandar izkuntzaren alorra aunditu egin dute, berez balio aundiko ta beneragarri duguna, liturgi-gintzan onartua izan dalako ta kristau siñismenari serbitzu mesedegarria egiten diolako. Orain arte erri izkuntza soilla genduana liturji-izkuntza gertatu da, erriak izkuntza ortaz baliaturik otoiiz egiten eta kantatzen baitu, gure erlijioaren misteriorik sakonetan esku artuz.

Gertakari au egitan aipagarri ta biotz-ukigarri dugu. Ta Vaticano II'ren emaitzik goresgarrienetakoa ere auxe dugula esan bear.

Jubany Kardinalak katalandar izkuntzari buruz dion guzia, euskaldunok gure euskerari ezarri dezaiokegu. Katalanera dion tokian euskera ipiñi besterik ez duzu.

Elizak katalandar erriari ta izkuntzari ekarri dizkien onura ta mesedea neurri beratan euskerari ere ekarri dizkiola nork uka lezake? Gure artean ere erlijiozko egirik sakonenak eta itzalgarrienak euskera goxoz jakiñarazten dizkio Elizak erriari, ta euskal erri onek beronen luze-zabalera guzian euskeraz otoiiz egiten eta kantatzen du, eta, bide batez, ezin esan alako mesedea egiten dio gaixorik eta elbarriturik daukagun gure izkuntzari.

Euskal erriak zer entzungan ta irakurriko ote zukean euskeraz Elizak gure izkuntza au liturji-ospakuntzan onartu ezpalu? Euskaldun askok beren izkeraz itz egiten entzuten duten apurra elizan entzun oi dute. Orra Elizak euskerari ta euskal erriari egiten dion serbitzu mesedegarria.

AGIRREGABIRIA

zabal ederra. Eta bertan, benetan, atsedentat aitegin leku zabala.

Nora jo Belagua'tik? Obe bertan galdu.

Eta galdu edonun: Arrako'n, Bagomalta'n, Dronda'n, Ibiñe'n, Larraza'n, Sorondo'n, Xankua'n. Edo eta Longa, Uterdiñeta eta Muntxate'ko uren etorrera eta bideetan. Geroago Ezka izenez bera joaten ezagutuko doguzan ur garbi argietan. Edo ta bordak ikusten: Auzaiña, Beltxa, Blaskiz, Intxa, Perena, Sabuki, Txibarro. Zetarako izenak, berrogetamaren bat danak aitatu ezik? Edo ta joan Antxomarro'ra, leiza zuloen aitzakiz eta Sakulo'ra, dolmena ikusten. Edo ta arbola-dieta jo.

Ba dauka emen gizonak nun nasaitu-nun jolastu, nun gogoa ase eta nun atsedent artu.

Basati dira emen txori, ardi, auntz, bei ta milla abere. Eta gizona euren lagun. Eta zelaia, belar eta lore, malluki eta ziza, bata baiño beste oparotsuago.

Arrisku bat dauka toki zoragarri onek: noiz arte lagako ete dautse gaur lez berezko paradisu izaten?

* * *

Ba nua Isaba'tik. Ainbat toki eta jakingarrien aitametik egin barik. Burgi'n ibilli naizenean, esan ete dot ezer Urdaspal'eko monastegi entzutetunik? IX gizaldian emen-txe bizi zan Eulogio lekaide martiria. Euskal-erri guztian ba ekien aren barri.

Eta Arrako'ko Andre Mari? Gogoratu urtero egiten dan iru beien eskintza.

Dan lagata be, gaur Idoia'ko Ama aitatu bear. Roncalesa celestial, deitzen dautse inguruetan. Azken urtetan, euskal izenetan begikoen dala, Euskalerrri osoko fededunen zaindaritza eskiñi leikio berari. XIII-XVI gizaldietako irudi ori ortxe dago, Izaba'ren aurrez aurre, errekatxoaren beste aldean. Burukomindunen laguntzalle ei da. Ainbat joaten dira bere ermita txukunera mesede eske. Isaba'ko erriak, urte asko ez dirala, txukun eta egoki barriztu eban bere ermita. Gaur izan lei Napparroa'ko baselizetan, maitetsu eta gogotsuen zaindutakoa. Eta euskal umeak, izenez beintzat, geien aitatu eta gogoratzen dabena.

A. ZUBIKARAI

OARRA.—Lenago be esan gendun, gaur gogoratzer gatoz. IDOIA izena daben gure noskatza andera guztiok ara joateko deituko izan dira. Datorren 29'an, San Pedro egunez, eta batez be, urrengo egunean, 30'ean, igandez, Idoia Ama'ren jai izango da, ta or izango diran egikizunetara deituko zaree Idoia guztiok. Bertakoak, eta erbestetik letorkezanak al ba'dabe, erriarriko jantziak, emakumeentzako jantzi eder orreik erabilliko dabez egun orretan. Olakorik ez ba'dozu baiña, ez geratu joan barik, zure izena daroan Ama orrek pozik artuko zaitu, baita Isaba'ko erri zintzoak be.

AGVR

V URTEA
143 ZENBAKIA

ASTEROKOA
1974 - BAGILLA - 29

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

KEPA ZARA ZU

Kepa deuna, arrantzaleen artean batez be, abegi onez artu dogu euskaldunok. Bere eguna pozez eta aundikiro ospatzen dogu eta bere babespean jarri diran erriak eta uriak ez dira gitxi gure artean.

Gizon zea zan Kepa deuna. Bere arraintatik bizi zan, eta lan onek ez eutsan astirik emon jakintza gaiak beragan-duteko. Esku-langille askori, gaur be bai oraindiño, jazoten jaken zori txarra au.

Baiña biotz onekoa. Inoz arro samar eta barru-bero agertzen ba'jaku be, beti lagun ona ta adiskide zintzoa. Lanerako ta artzen zituan erabagiak aurrera eroateko biotz sendoa ta adorea be ba eukazan.

Etxe-egille on batentzat oin-arri ona izan zeitekean ba, gure Simon, Jon'en semea. Goiz argitsu baten, Ander bere anaiak Mesias ikusi ebala esan eutsan, eta geiago barik gizon ori ezagutzeko gurari bizi sartu jakon. Alkar ikusi ebenerako alkar maitetu eben Salbagilleak eta berak. Jesus berari begira-begira jarri zan eta bera maitatu eban eta izen-orde bat jarri eutsan: aurre-rantzean ez zan Simon izango, Kepa baiño. Eta Kepa berbeak «Arria» esan gura eban.

Iru urtean alkarregaz bizi izan ziran, eta Salbagilleak ez eban alegin gitxi egin Kepa'ren biotzeko okerrak zuzentzeko. Eta oraindiño azkenengo orduan be gizonaren makalaldia agertu zan.

Pentekostetan sendotasun berezia artuta gero be, inoz izan eban makalaldirik, eta Paulo bere lagun barriak, aurrez-aurre jarrita, egia agertu bear izan eutsan. Eta berak errez onartu eban erazoizko erantzun ori, baita Jerusalem'go Batzar Nagusian arazoa zuzendu be.

Eta gero Erroma'ra.

Eta ez Kaiser'en ondora, ez aundiki artera. Txiroen ondora, orrelan askorentzat eredu agertuez.


Tiber ibai-ertzean bizi ziran Erroma'ko Juda'tarrak. Beste toki askotan lez, baztertuak eta alboratuak, gizarteak onartu bagakoak, gaurko jitanuen antzekoak. Eta antxe areixen artean jarri eban bizilekua gure Kepa'k. Antxe jarri eban Eleiza barriaren oinarria.

Fabiola eleberrian agertzen jaku ango jazoera jakingarri bat. Ba leiteke idazleak asmaurikoa, baiña ondo asmaurikoa, alegiña.

Orduko kristiñauak aurrean erabilten ebezan, eta zelako jazarpenak! Bildurtuta egozan, noiz arerioak etorri ta leoi artera eroango. Eta eurak Jainkoagana biurtzeko, orduko abade batek berbaldi bildurgarri bat egiten ziarduan. Baiña Kepa eltzen da batzarrerara, eta beragaz maitetasuna, poza, errukia, Kristo'ren biotz ona. Beste era batera egiten dautsoe berba berak, eta kristiñau estutuen biotzak nasaitu eta poztu egiten ditu, Jainkoaren biotz ona ta errukia agertuaz.

Baiña Kepa'ri be eldu jakon azken ordua. Gizarte barrizatzeko ta obetuteko gurari bizi eukan berak, baiña gizonak orduan be barrizatzetik nai ez, lengo erokerietan bizi gura. Eta urten-bide erreza aurkitu eben: Gizon on eta zintzoa il. Eta Kepa'k asarre barik, bere biotz emon eban gizartearen onerako. Kurutze baten. Buruz bera eskegita.

Bera dogu ba eredu ta irakasle, bera dogu gizartearen oinarri. Erriaren alde lan egin gura dogunok, ba daukagu non ikasi.



MUNGIA, BURU

Mungia'ko erria, bere jaiak, Kepa deuna zaindari daukalako, ospetzera urreratu da. Erri onek, inguruko errien artean, beti izan dau, eta gaur ez gitxiago, nortasun berezi bat.

Nundik datorko Mungia'ri nortasun berezi au? Zio asko dago orretarako. Batzuk gogoratu dagiguzan: Emengo erri guztietatik Bilbo'rako artzen diran bide guztiak Mungia'tik igarotzen dira. Orrexegaitik, inguruko erri guztien erdi-aldea da Mungia.

Baiña, gizarte arazoai begiratu be, Mungia buru da. Antxe egiten dira illeroko «feria» ta asteroko «plazea» barikuetan. Ori dala ta, feri-egunean gizonak eta plaza-egunean andrak, baserri guztietatik azoka orreitarra joaten dira. Giro oso ederra ta erri-tarra sortzen da, an.

Gaurko gizarte garrantzi aundia dauka jakintzeak. Eta erri guztietako umeak Mungia'ra doaz jakintza bila: Lekaimetara, eskola batura, ikastolara, erdi-maillako ikaste-etxera, Andra-Mari'ko Lan-ikastolara.

Erlejiño-aldetik begituta be, ba dauka Mungia'k buru izate ori. An egiten dira abadeen batzarrak, ara joaten dira mezea entzuteko, feri ta plaza-egunetan, baserritar asko... ango parroikia artu gura izaten dabe beti eredutzat.

ARDUREA TA ERANTZUN-BEARRA.—Mungia'k daukan berezko nortasun eta buru izate onek, aldean daroa ardura aundi bat, eta erantzun bear sakon bat. Inguruko errirentzat eredu izan bear dau Mungia'k. Lenengo, erri lez: alkartua, arduratua, bardintasunean bizi dana. Ta, gero, ez gitxiago eleiza lez: eleizkizunak ondo ta egokiak egiñaz, eleiztar lez arduratuak izanaz...

Beste gai askotan bear dan besteke eredu ez da izango Mungia, baiña emoten dauan irakatsirik txarrena erdera-zale izatea da. Egiten da zerbait, eta ez ain gitxi be, euskeraren alde, baiña kaleetan erdera asko entzuten da. Kanpotar asko dagoala? Egia da. Baiña bertakoak be ez dakit ba...!

Mungia'k gaur daukan erantzun-bearrik aundiena jakintzeari buruzkoa da, goroago ta geiago ara jakintza bila doazenak. Zelako egin-bear astuna irakaskintzan diarduenak. Guztiak dauke eginbear astun ori eta guztiak alkartuta bete bear leuke. Guztiak, jakintzagaitan euskal-kutsua ez baztertzeko alegindu bear leitez. Ez uste izan ikastola bat errian izateak arazo ori bideratzen dauanik. Eta Mungia ingurua oso euskalduna dan ezkerro, lege aldetik be zabaltasun apur bat izango litzakela uste dot.

Guztiak egin bear daben lana izan arren, Larramendi ikastoleak dauka orretan zeregin aundi bat, eta Mungia guztiak lagundu bear dautso ikastola oneri.

Baserri arazoari be, Mungia'k erantzuna emon dear dautso. Erri txikiak geroago ta berago doaz eta ezin dabe bururik jaso, baiña baserritarrek ondo alkartzen ba' dira asko lortu legikee. Ba dago an kooperatiba bat, baiña ez dakit bazkideak oso arduratuak diran, ala gitxi batzuen eskuetan jausita dagon. Eta onetan gure baserritarrek nagiak diralakoan nago.

Baserritarri, oroigailu bat egin dautsoela entzun dot, eta daroan iragarkia erderaz ipiñi dautsoela. Baiña, zergaitik ori? Nortzuk dagoz Mungia'n euskaltasuna kentzeko gurariz? Orretan arduradunak izan diranai eskari au egiten dautset: zuzendu egizue oker ori, ta gitxienez izkuntza bietan idatzi. Uts egitea, gizozena da; baiña utsak zuzendu-eziña, ez da gizonena.

Mungia, erri polita eta inguruko errien buru dana. Mungia, baserri izatetik lan-tegidun erria izatera doana. Mungia, inguruko sal-erosleen, langilleen, ikasleen eta jolastu gura daben batzar-erria! Mungia, izan zaite erri jatorra!

MOKOROA AITA, ZORIONAK!

Aurrean daukazu lan au, Mungia'ko euskal giroari buruz idazten nengoala, urrutizkin otsa: «Arenaza jauna?». «Bai». «Zu zara Aita Justo Mokoroa'ren adiskea?». «Bai, jauna». «Ba, etzi, Bagil onen 16'ganean, bere abadetzaren erre-etzeguak ospatzen ditu, baiña bere asma ixtasun osoan igarotzea da. Dana dala, zuek, bere lagunak zarenek jakitzea nai izan dogu». «Eskerrik asko jauna». Eskerrik asko esanda, nor zan itaundu barik amaitu gendun gure alkar-izketea.

Orain idatziko dodana irakurtzean, pckartarizat artuko nau Justo Aitak... baiña parkatuko daustala uste dot. Sarritan esan dogu, bene-benetako jakintsu diranak apalak izaten dirala geienean, baiña oraingo onetan, Mokoroa Aitak, apaltasunaren neurri guztiak apurtu ditu.

Jainkoaren eta bere erriaren alde, batez be umeen ezketan, bere bizitako berrogeta amar urte bete dituan gizonak, ez du kanpai otsik nai, ez du ezertariko oorezko aipamenik nai; bere lekaide etxeko lagunekin alkarren-arteke meza bat egun bat lenago ta Begoña'ko Amaren aurrean bakar-bakarrik berak emongo daben meza izango dira ospakizun ez-titsuenak.

Lerro oneik agertzen diranerako, Bagillaren 16'gna urrun geratuko da, ta ez dogu bere naia aldatuko, baiña Justo Aitaren jokaera ori bere ezaugarriak aundiena da; jakintsu apala ez-eze... ez noa amaitzera, minduko neuke-ta.

Baiña olako Gizon baten nortasuna aundiegia da izkuntzan gordetzeko, ta orretarako giza-eskubide osorik ez daukala esatera ausartuko nintzake; zati on baten beintzat, Euskal-erri osoarena dalako. Zoritxarrez, ez da gure artean olako larregirik ikusten.



Euskaldunok, sal-erosketan, dirugintzan, abillak gareala diño, baita bizitzako beste arlo askotan bere. Baiña daukaguzan eta euki doguzan gizon ikasi geienak izkuntz arrotzetara, erderetara jo dabe. Orregaitik, euskaldun-euskaldun doguzan apurak, urregorrikoak ba'litzakez bezela gorde bear gendukez. Mokoroa Aita, izkuntz arazoetan gabiltzanok edo bere ikasle izandakoak izan ezik, gitxi ezautzen dabe. Erbestean, etxean baiño obeto...

«Genio y Lengua» ta beste idazlan batzuk ederrak izanik, orain esku-arte darabilena, garrantzi bardin bakoa da euskerearentzat. «Ortik eta emetik» deritzan esatera jatorren bilduma orreri lotuta dago gogoz eta soñez, gure izkuntzalaria. Berak lako jakintza ta eroapena bear dira olako lana osotzeko, ta ez dogu uste beste inork egin legikenik.

Zenbat ordu kentzen ete dautsoz atsendenari? Baiña Euskal-erria'rentzat igali ederra izango dan orrek, ez dautso abade izateari dagokiona kentzen. Gaillur bako oillar asko dagoan euskera arloan, apala ba'da, beste orrenbeste abadetzako zeregiñetan, Kristo'ren ordezkartzan. Orregaitik, bere erre-etzeguak, ixilleen, zarata barik, mundu onetako on-dasun eta aipameneri uko egiñaz ospatu ditu.


Dana dala, zor aundia dauka Euskal-erria'k Mokoroa Aitarekin; apaltasunean mindu barik, ordaindu bear dan zorra. Guk, gure aldetik, aldizkaritxo txiro onen bidez, aipamen obarik izango dalakoan, gure zor-ion eta besarkadarik beroenak bialtzen dautsaguz.

Jainkoak gorde bei euskerearen obarako, ta ORTIK ETA EMETIK amaitu ondoren, bizitz luzean...

AGVR

GAMIZ

ARENAZATAR JOSU



EUSKALERRI'KO LUTELESTIA

Zenbat bidar entzun bear izan dogun egi aundi au: Euskaldunok ez ei-dogu ezagutzen gure Erria! Egia esan, ez euskuen erakutsi. Or ibilli gara danok, gure gaztetako ikasketetan, ez dakit nungo erri, mendi, itxaso ta ibaien izenak, neurriak eta oiturak ikasten, geurerik baiña, zanik bere ez. Izan, ziran bai, banaka batzuk, orretan alegindu ziranak; bakarrik, laguntza barik lenenok urratzak, nundik bideak zabalduko alegindu ziranak. Ona emen gaur, ori guztiori beteko daben lan bikaiña. Ez goaz ezer besterik esatera, berak diño ba, jakin bear dogun guztia:

—EUSKO LURRA zer dan? Euskalerrri'ren Lutelesti berria, gaur gaurkoa.

—Alderdi nagusia auek izango ditu Lutelestiak: LUR-AZALA, GIZAKIA, EKONOMIA ta ESKUALDEAK, ondorengo saillez osatuak: Ludiñti, edo Jeologia, Mendiak, Ibaiak, Abela, Erri ta uriak, Arreman-bideak, Olagintza edo Industria, Salerosketa, Abenda-izti edo Etnologia, Eskualdeen azterketa, eta abar.

—Osagarri aberatsak: Toki-izenen IZENDEGIA, ZENBATZA edo ESTADISTIKA eta LIBURU-ZERRENDA.

—Argazkiak, 300; mapak era irudiak, 80. DANA MARGO GUZTIA; MAPA-bidez adieraziko zaizuna: lur-azalaren berezitasunak, eguraldi ta giroa, Olagintza, Salerosketa, e. a. —Idazle: AGIRRE'ar INIGO, ikasketaz Litzentziadun; lanbidez irakasle ta billaketari. BARANDIARAN' dar JOSE MIGEL jakintsuak ere ba-du lana, Abendaizti, edo Etnologia'ri buruz.

—BI AGERRALDI izango ditu: Euskeraz bata, gatzeleraz bestea.


—EROSTEKO erosoa izan dedin eta IRAKURTZEKO erraza, ATALETAN zatituta argitaratuko da: ILLEAN ATAL BAT, alegia. Guztira 16 atal izango dira beren azal ta guzti, gero liburu egiñik sortazeko. Onela, idazlan bikaiña ipintzen dugu edozeinen eskura edo irixpidean. Atal bakoitzaren salneurria: 150 laurleko.

—UR-TALDEA osatzen duten margolari auen ertaldea ere azalduko dira argiztatuak: AROZENA, BIZKARRONDO, GRAZENA ta TAPIA'renak, alegia. Jakintzaren

argira zeazki aztertutik azalduko dan euskalerrriaren azalpen berezia izango da: ertilarrien ulkerera, alegia.

—OI EZ BEZELAKO OPARIA: Gure EUSKO LURRA erosiko dugutenean artean, beñere ez bezelako zoketa egingo da: UR-TALDE osatzen duten ertilari auen eder-lanak banatuko ditugu zozketaz. Dirutan 250.000 laurleko balio ditu gaur ert-lanen sortak.

—ARGAZKI - LEIAKETA: Euskalerrri'ko mendien argazkiak sarituko ditugu, 25.000 laurleko banatuaz saritan.



Euskeraz bata ta bestea erderaz argitaldutiko dira, or diñoan lez. Zuk euskeraz agertzen dana gurako dozu, eskatu. Zuk, orrela. Bialdu baita zure izen abizenak, zuzenbidea, ta zelan ordaindu gura dozun. Au iru erataria egin daikezu, iruretatik era baten. Naiz osorik ordaindu, 2.400,— laurleko batera; lau iru-illabetekeotan, bakoitzean 600,— laurleko, edo 16 zatitan, 150 laurleko. Naiz zeuk bialduta, naiz «letra» bitartez, naiz errenbolsoz ordainduta. Zertzelada geiago, ETOR, apartado 193, Donostia'n Baita, erreazgo ba' dozu, SAN MIGUEL, Prim, 41-3.º, 23 60 24 urrutizkiña, Bilbo'n.

IBUR

IKASTOLA TA EUSKERA

Duela iru edo lau urte, ikastolaz ikastola, erriz erri eta ibarraz ibar nebillen gara artan noski, gauzatxo batek arritzen ninduen, oartzeak alegia zenbait izketa-mota ageri diren, esate baterako, Gipuzkoa'ko euskalkiaren barruan. Ikastolako ikasgaiak, euskera «batuan» eman edo bertako euskalkian, berdin zait, alako arriko edo ibarreko ikutu bat daramakite.

Aspalditik dakigun gauza da ibaiak zer ikusi andienekoa izan duela ao-izkuntzaren berezitzean. Esate baterako, nortzuk diren Urola baillarakoak ezagun da noiz nai eta nonnai. Ba du baillara ontako izketak alako ikutu berezi bat, nere gogo gogokoa. Bai alako gatz ale mardul edo umore jatorra ere. Ibar bakoitzak ba du berezta edo jaiotzako izketa, baillara artako gramatika bat osatzeko duin dena.

Ibaiek eta ibarrek ez ezik, sal-erosketako artuemanek ere asko edo gutxi berezitzen dute ao-izkuntza. Adibidez, Azkoiti'k naiz ibar eta ibai berberaren ondoan kokatua egon nola Azpeiti, azken erri onek baiño aidetasun andiagoko du, Elgoibar bide dela, Bizkaia'ko euskalkiarekin. Ona bertan gertakizun xume bat. Aur txikia amaren besoetan, Azkoiti'ko Urkixo kalean, negarrez dago. Eneko du izena. Amak dio: «Eneko maitea negarrez dago; ortza ateratzen ari zaio». Ta Mikel'ek: «Ama, ez da ola esaten. Ortza ateratzen ari zako». Ama Goierri'koa izaki ta mutilkia Azkoiti'koa. Berenez, ba dirudi Gipuzkoa'n «zaio» esan bear dala eta ez «zako». Urrengo egunean, Aita Plazido Mujika'rekin negoen solas egiten. Kontatu monean gertakizun ori, erantzun zidan. Delako «zako» ori Bizkaia'ko «iagio», da, garai batean artu-eman ugariak bai ziren Azkoiti eta Elgoibar artean. Bego ortan maisu jakitunaren iritzia.

Esanak esan, ibar bakoitzak, erri bakoitzak, kaleko bizitza eta familia bitarteko direlarik, (baita andereñoa bide delarik ere) apurño bat edo geiagoko berezitzen du Ikastola barneko izkuntza. Bestalde ere egia da, alegia ikastolan ikasle den aurra etxean maisu dela. Ikastolara dijoan aurra bitarteko dela (ta zorionez aurra itz-jario da) zenbait abesti, itz garbi, esaera ez dituzte ikasi aur orien amek naiz amonek.

Elkar-influentzi ori maizenik onerako dela ezin uka. Ez beti-beti orratio. Nik ez dakit nondik nora sortu diren aditz-forma makur batzuk, aurrek naiz gurasoek erabiltzen dituztenak, batipat «ikusiditza». Ona bertan adibide bat. Jon, aurrak, etxeratzean, dio bere amari: «Ama, andereño Nekane ikusi diot», det edo dut esan bearrean. Zoritxarrez, aditz-forma makur au geiegi edatu da. Ez dakit zeren bidez eta nola.

Orain Arrasate'ko Ikastola maitagarria nai nuke egin txango idurizko bat. Emen, nere landa-etxeke baratzen, jostatzen dabil Raul, Arrasate'ko Frantziskotarren Etxean kokatuta dagoen «Aur-Baratza» edo «Jardin de Infancia»ra joaten dana. Euskeraz ederto mintzatzen eta abestzen du. Baiña, baiña...Galdetzen badiozu: «Raul, aita ba dator?», bereala erantzungo dizu: «Aita si dator». «Raul, joan bear dezute Santa Barbara'ra?». «Si joan bear degu». Orrelakorik ez dut santa sekulan entzun.

Raul txikia abizen edo deitura ospatsua du, Beltran de Guevara, alazankoa. Baiña, ez datorkio ortik akets ori. Bere amonak esan didanez, orrela mintzatzen omen dire komunki Ikastola artako aurrak.

Arrasate! Arrasate! Ze arraio zabilzate!

JOXE LASA



eziketa jostailuak
eskulanetarakoak
irakasketa gaiak

gregorio de la revilla, 1
bilbao - 11

Jolasean ikasi, or zure aurrentzako emoitzarik onena

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira astero-ko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri asmoen gaiñetik daben iritxi-onoeko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabiltzearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egiñleak dira.

Agur au, bere zuzendaria ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:
JOSE M.ª MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:
LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALZA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guttirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra

BILBAO - Casco Viejo

Tenderia, 15 eta 16

KONTU KONTARI

EZKONDU TA KITXU

Lenengo gerra-european, kanpotik, gure errixeta agertzen zien mutill sasokuek, euron nasiñotako burruka aldetik ezer ezabela jakiti nai eskapan. Geixenak alemanak zien.

Onako mutill bat, Gunter izenekue, agertu zan gure errixen. Arotza opisio, piñ-piñe za'lez, laster kaitu zan Joxe Joakiñ'en tallerrien. Bai, piñe bene-benetan; bapotic ta gizon ederra bera, gure neska gaztiok begixe bota otsen laster...!

Joxepa, neska eder, biergiñe, arpegi argi ederraz, bere urre koloreko ule luziok kopeta biñ menpe kokotetik bera diezela, errotatik astotxu koskorraz, zorruce onen lepo gain dala, beti, egunero, arratsaldeko zortziretako inguruen, preskuran juen eran etxerutz, tope-tope egite'ban Gunter alemanaz. Au, barritz, bere estudixoko liburu lodixe eskuetan dabela, alkartzet'zien beko erromadan.

Joxepa'k, irribarre; Gunter'ek, bardiñ. Gerotxua, alemanak laguntz'otsen apur baten goiko pagarire arte. Andik gora, orraitxiñok, lotsie galdu barik, Joxepa bakar-bakarrak etxeratze'zan.

Egun onetaiko baten, alemana etxien sartu ei-zan.

Joxepa'k bere aitxari, Ixidro; eta amari, Manuela, diñotse:

—Ara emen, nire betiko izengo dan gizona. Ixidro'k: —Gizon ederra.

Manuela'k: —Itxuran, pormala...

Andik iru edo lau illabetera, alkartu zitxun Don Andres'ek, parrokuak, ezkontza kutun baten.

Laster izen zan Gunter laixetan Ixidro bera baiño geixa. Azpik atetzen be bai. Beixek batzen, «unue». Eta «karniseruai» txala zaltzean. tratante-tratante...

Euskeraz, beti mendi-mendikue izan ba'litze beste.

Egun baten, Pepe, kinkaillerue ta erdal-dune bera, urtien-urtien lez, praka telak, alkondara ta abar eskintzen agertu de basarri ingurure, da entzun dau ezkontzie izen dabela Joxepa'k bere lagun aleman orregaz.

—Pero cómo, Joxepa, tú sabes alemán ó qué...?

—No, Albares, no. Mi marido Gunter casar y no saber nada bascuense ni erderaz... Agora, sabe baskuense...

—Y, cómo os entendisteis para llegar a la boda...?

—Pues, sensillo, sensillo:

«Begitxu, begitxu;
Barretxu, barretxu;
Ezkondu ta kitxu...».

JUAN JOXE ARRIZABALAGA
«MARKIÑA»

benetako

akeita

CAFFÈ
BAQUÉ

CAFFÈ
BAQUÉ



utsa ————— soilla

JAKINGARRIAK

DIABETES GAIXOA.—Urrea bitarteko dogula, ez ei-da gatxa izango gaixo maltzur onen menpean bizi garala ala ez jakitea. Onetzaz ingalanderak berein azterketa zeatz egin ditue. Euren artean, ta dakigunez, 45.000'ren bat lagun gaitz onek menperatuak dituala, bizi ei-dira. Gaixo ontaz, ala ere, an eta edomun ezjakitean dagozanak be, beti asko izan, eta beragaz kutsaturik gagozan ala ez jakiteko bideak, geien baten, neketsuak eta luze samarrak dira. Or dogu kozka, ta asmaketa barri au ingelanderren aburuz, ondo baiño obeto osakintzari jatorko.

Diabetes gaixoagaz kutsaturik dagon norbaiteri, dirauskue, urrea naiz urrezko zeren bat soñean ezarritik izatekotan, narru azalean orbanak, zeta zikiñak sortuko iakoz. Erabili daitekezen urrezko pitxiak... esku-muturrekoak, eskutur-orenak, edozelango oroigailuak, idustunak ta abar izan leditekez alegia.

LADY ROBINSON ANDEREA.—Arkitze au, Lady Robinson'eri zor dautsagu. Bere senarrak, Sir Robert Robinson'ek, Kimika'ko Nobel Saria lortu eban. Urrezko pitxiren bat erabilten eban bakoixean, Robinson andereari beltzaran margozko zeta zikiñak soñ-azalean agertzen iakozan. Bein da birritan arri ta zur gelditu zan bera, jazo oi ikona siñistu ezitnik. Azkenez, odol-azterpidea egin ondoren, diabetes gaixoagaz jota egoala jakin-erazo eutsen. Olan asi ei-zan bera insulina osakai lez neurri egokian kutsatzen. Sendabide au bide zala, bereala diabetes gaitza aldeni iakon, eta era berean, orban beltzaranen kutsutasunagandik ere onez urten zan. Orduan alderantzaz egin bearra eban.

Neurri goitiko «glukosa» artu ondoren, barriro, orban baltzez, urrez ikuturiko soñ atalak, lotu iakozan. Diabetes gaixo agiri-agirian ostera agertu oi zan. Orduetik ona, len esan dodanez, ainbat azterketa ingelanderak egin ditue. Bai ziurki.

HARRY KEEN.—Londres'eko «Guy's Hospital» en irakaslea dogu. Diabetes gaixoatzaiz naiko ikusirik daben saio ainbatetan murgildurik daukigu bera. Urrea, dakigun lez, ez da txindietan ezta urrezko bitxietan ere naastu gabe edo soil-soilik aurkitzen. Bera sendotu ta gogortzeko, aleazioko naasketa baten bearra dau, ta orrela, zidar ta kobre metaliekaz batu oi da.

Nola iatorkez ba, narru-azaleko orban beltzaran oneik? Gure soñ-azalean koipezko edo gantzadun azidu ugariak doguz, eta urrezko zeren baten ikutukeran, kimiar jarkipen-reakzio bat sortu oi da bertan, ta jarkipen onen ondorena lez, orban zikiñ oneik agertu oi dira.

Diabetes gaitza —ta beste gaixo guztietaz ere beste ainbeste esan geinkela deritxat— asieran obeto osatu leitekela oroen jakitean dago. Ori berbera Harry Keen irakasleak dirausku. Ori ta be, gaixo onek narru aziduetan aldaketa-mail ezberdiñaz jokatu oi dau. Gaitza asi-barria danean, makalago ziñez, ta areago ta gogorrago gaixoa goratzen doan araberan.

Orrela ta aulako errazoietan erroturik, diabetes gaixoagaz kutsaturiko guztioi egin iakezan itaun-erantzunen zain Ingelanda'ko osagilleak egunotan daukiguz. Erantzun oneik bearbada, diabetes gaixoatzaiz, argitasun ugariagoak euei emongo dautsiezzelakoan ei-dagoz.

ARREGI'TAR JOSU

AIZEA ZELAIAN

Emen, Gaztelu'n, berriz! Aizea —aize otza ta zakarra— zelaian... Plaza, bakarti ta ixillean.

Umeak ikastolan... erdera ikasten. Zapatari'ko etxeokandre gaztea, soroan, atxurretan... bearko! Nunai, margo illun, otz, sutsuak. Aitona ikulluan... Beiekin.

«Jai» zakur zuria, ganbaran preso... bere etxean. Gu bezela! Astoa arrantzan... ez da bakarra! Arranoa mendian... Erte-txe'ko udarea, loretan... itz egiten asten bada, kontatuko ditu gauza apartak, bai... baiñan ezin...

Ni, patxaran, belarretan exerita, margotzen...

Ta, zer geiago? Ezer ez... ezta bear ere... Munduba, naiko nastua dabil... (Palestinoak egin dute beste astakeria).

Bakoitzak bere lana... ondo ta zintzo... Izadia berdean, Pakea... udaberria. Margo berri alaiak. Itxaropena! Izadian bakarrak, noski.

Aizea zelaian, aize zakar ta zaratatsua! Turmoia bezela. Aizea zelaian eta buructan... biotzean. Oiek dira txarrenak!

Bazterretan, langille gutxi ta naspilzale geiegi, zoritxarrez! Euskera zertarako? Pyrenaica erderaz... ta ola.

Zeru urdiñean, odei puskatuak korrikakorrika, nik ez dakit nora... gu bezela. Pompidou il da. G. B.!

Bai, nora goaz? Utziko al digute pakepakean bizitzen? Ardiak alaxe bizi dira... Jesus piztu da... Alleluia!



Idoia, Ion, Karmele, nere lagun txiki maitteak, sarri arte!
Aragor'ko pagadia —azkena?— asi da oritzen. Zein polita!
Gaztelu... Pake leku... Zorion leku.

MATXIN

UME-MOKO BAT

Ola irakurri dogu beintzat. Ta, or ibilli izan diran ez dakit nungo ta zenbaterainoko jakitunak, Euskereak ez dabela jatorri ezangunik esaten: aizkora ta aitzurra ta aiztoa ta artatiak eta beste orrelako itzak arri-arokoak doguzala esan eta esan, ba ete-ekien ezer?

Ba, ez! Euskaltzaindian sartuta dagozanak, Euskerearen jaiotzatik millagarren urtea ospatu ei-dabe Errioxa'ko maastiren baten. Itxuraz, ango giroak argituta, gizaldiak urteak lez ikusi ditue...

Ezer jaio izan ba'zan an, orain milla urte, gaztelerea izan zan, Euskereak ango bere lurak galtzen asi zan garai aretan!

Ala, euskeranto-mordoilloaren jaiotzea ospatu nai izan ete-dauskue? Onek, baiña, «bi-beroia» artzen asteko garaia be, ez dau irabazi oindiño.

BEIZTEGI'TAR JON

ARDANDEGIA

JATA

BAZKARIAK
AZKARIAK
APARIAK

M. Usandizaga z/g.
715 urrt

MUNGIA

M

KIROL GAIK ETA

JANTZIAK

GOITEGUI

JOSTAILLUAK - IDAZTIAK

Trobika, 21
302 urrutizkiña

MUNGIA

U

JOSTUNDEGIA

UGARTE

Trobika, 16 - 89 urrt.

MUNGIA'N

Cuesta, 18 - 323 urrt.

BERMIO'N

Arranegi, 1 - 234 urrt.

LEKEITIO'N

SUKALKIA

Erri guztiak, geienetan, bakoitzak bere oiturak eta era jatorrak dituez.

Mungi'k be, baseritik sortutako erria danez, ezin ukorik egin egi oni.

Ta, bere erakusgarri bereziak ditu, erritarrak pozik erakutsiko dutzuezenak.

Onetariko bat emen, «sukalkia» dogu, betidanik Mungi inguruan ezagutu dan okela-txopetea; izan be, benetan aberatsa izan da abelgorrietan emengo baserria, ta aukera orri oratuta, ifioiz txastatu daben edozeifien aipapen goragarriak dituan sukalkia biribildu al izan eben mungiarrek.

Zelan gertatzen dan? Ez da ain zailla. Ori bai, bere astia eskatzen dau. Abelgorrien alde samurberak, kipuleakin batera geienetan, laban erre-arin bat emon eta piper gorri legorren mamiña ezartzea dira sukalkiaren ezkutukoak.

Mungitarren artean dagon sabel-lege, tripazaintza ta batez be, sukalkiarenganako zaletasuna ondo ezaguna da, ta urtetik urtera izaten diran norgeiagoko ta nork-obeto sukaldatuaren erakusketak orrenbeste egiztatzen dabe.

Jataille porrokatuak dira Mungi'n, ta orrek eraginda, baita sabel-legalarien alkarreak be ugari. Or, beste janari gozo ta miaztagarrien artean, sukalkiarentzat izaten dira eskari ta goratu-bear orrein aipapen onenak. Ta egon ziur, zure goraltzak benetan andiak ba'dira, laster erakutsiko dautzue zelan gertatzen dan sukalkia.

Sanpedroetan izango dozu nun jan, Mungi-raiño etorten ba'zara!

TROBIKARRA

JAIK

Bagil onen 28'ganean asi ta datorren Uztaillaren 7'gnerarte izango doguz:

Biribilketak eta gau-dantaldiak.
Azpil-apurketak eiztariendako.
Euskal-dantza taldeak, Naparroa, Gipuzkoa ta Bizkai'tik.

Esku-pelotari onenariakoak.
Txistulariak, eta beste eresjotailleak.
Su-txirringa ikusgarriak.
Trikitalarien norgeiagoa.
Txirrindulariak; zaleen arteko I ta II mailakoak.

Umeen-Eguna.
Antzerkiak; Euskal-abestian leiaketea.
Sukaldarien-Eguna...

ARAGITEGIA

URRUTIA

Mungia'n okela ona,

URRUTIA'nean onena



Butron, 11

MUNGIA

Noiz itxartuko Mungi'ko langilleak?

Aspalditxuan, zer esan naikoa emoten dauku Mungi ondora datozen lantoki barriak. Ikusten dogunez, batzuk pozik baiño pozago daukaguz; ori dala-ta, euren eretxia au da: lantokiak dagozan artean, ez ei daukagu larritu bearrik, lantoki orreik sortzen dituen lanbide guztiekaz, danontzako ogia irabazteko modua ei daukagu.

Ara nundik nora zelako eretxiak dagozan. Benetan tamalgarriak gaurko arazoak ikusirik, beintzat, langilleen artean.

Oraintzu ikusi izan doguz Mungi aldeko lantegietan izan diran eztabaidak Euretarik batzuek oneik dira: Ojama deritxen lantegi orretan, egun batzuetako gelditzeak izan zituen, euren sariak geiagotuta ikusteko asmoz. Ta, azkenean, lengoan geratu ziran. Komerzial deritxoena ere, ainbeste egunetan geldirik egon da, eztabaida andiak zirala euren artean. Azkenean, bertako zuzendariak, dardakadan zala, langilleak etsera bialtzeko orriak izenpetu zituan. Azkenean, berak nai izan dauan guztia lortu eban, eta entzun dogunez, beste nagosiren batek emoniko «taktikea» erabili ei dau, eta ondo urten dautse.

Vulcanizadora'n ere, etsera bialduta bete dabez egun batzuk. Ibaiondo'n zertoxo emon dautse, zer letorken ikusirik, ta onela baretu dituez. Olalde ta Artetxe'n ere, onelako zerbait egin dabe, zarataka asi, baiña lengotik apur bat geiago emonaz, poztuta itxi. Ta, orren ostean, ta alan ta guztiz be, pozik geratu ez diranak, apur bat mogitan asi diranean, zemai pean billurtu egin dabez.

Dirudun orreik apur bat mantsotuteko, zer egin bear ete da, ba? Ez dogu beintzat uste, langille askorentzako ogitarako bere elduko danik.

Onelan dagoz Mungi aldeko lan-arazoak. Orain asi ei dira emendik urrun diran beste langille batzun gelditzeak euren lanetan, baiña Mungi inguruan ixillik dagoz, zergaitik ete ori? Naikoa irabazi ta pozik dagozalako ez dot uste. Baiña bestelakoa dok edategirik edategira ibilli, lantzean bein txotxolokeri batzuk esan eta «emendik aurrera ez dogu buruko-miñik bear», aitortu.

Ori da Mungi'ko giroa: goie bera etorrira bere, larritu bere ez, ta pozik. Noiz itxartuko ete gara mungitarrok?

Ta, ez dagigun ezer esan gazteen aldetik. Bat esan eta bere, ez litzake aurkituko lanik txikerrena egiteko asmoan. Euren zaletasun guztia neska-mutillak alkarrekin, txikitoak edan eta, ori bere, iñon kontura al ba'da, ta kale batetik bestera ibilli, sarri askotan, sonanbuloak bezela, erriaren alde ezer ez egiteko asmoan.

Onela dago Mungi, onela, ta tamalgarria benetan, Erradea bete ur bota bearko ete yake ba, mungitarrei?

Noiz itxartuko ete gara, Mungi'ko langille eta ain langille ez diranak?

LANDALUZE'TAR JOSEBA

IBILLI TA

JOAN LASAI

EDONORA

BANCO DE BILBAO

ONEN IBILKETA TXEKEAK

ZEUGAZ DOZUZALA!



Concordia, 6

29 urrutizkiña

MUNGIA

GOIMAR, S. L.

Abereentzako jangai neurridunak

S. P. R. L.

PROTECTOR'en araupean

onduak.

Trobika, 27

111 urrutizkiña

MUNGIA

JAI ALAI

AGIRREBENGOA

A K E I T E T X E A

550 urrutizkiña

MUNGIA

COMERCIAL

TROBICA

«Kelvinator» otzgailluak

«Zenith» urrutikuskiñak

Apal, ontzitegi ta

eskaratzeko tresnak

«Sukalde, S. A.»'k egiñak

«Sol Thermic» berogailluak

«Triton» arasak


Trobika, 8

287 urrut.

MUNGIA



KATEKO SALTOKIA



GURE PETA

Ezpairik barik, mungitarren bizunak in roan ez da makalduko. «DANON» botazale a ñoaren laguntzagaz, pelotan ikastela bat sor

Ekintza onek indar andia arnautiko, s diardue jo ta ke, euskal kirol onerria emo Goroztiza ta Agirre gazteak kend ez da ba Mungi'ko ikastola onek, pelotan bertuko dit egun goralgarriak izatera eltzeke geroak e

Lagun-arte baten sortu zan petarte one gogorra eta eraginkorra doroala dota jokoa urteak etorri, or antolatzen dituganean txap daben gazteak, mailla egokietan dagoz; um eta gazteak, lenengo eta bigarren s

Laster baten gaiñera, Euskalerrialketa bat Naparroa, Errioxa ta Bizkaia bitart.

AKEITETXEA

BARATZ-PE

Chinchilla'ko ardao samurrak
Azoka enparantzean

MUNGIA 16 Urrutizkiña



KATEKO SALTORIA
JOSE MALDALUNIZ

«Philips» Sukalde-tresnak
«Alfa» Joskiñak
«Forlady» Sukaldeak

Concordia, 5 - 33 ta 257 urrt.
MUNGIA




GABEUKATZ - ORDULARI

LARRABE

BITXITEGIA

Fueros enparantza, 1
MUNGIA



PELAZALEAK

aren kirolak indar barria lortu dau, ta luza-
NOK BAI... alkarteak, Bizkaia'ko Federazi-
kasteko... sortu dau Mungi'n.

artu dau, sei urtetik amazortzirartekoak,
oni indar emoteko Bizkaia'n. Ba-zan ordua,
kendu eta barririk agiri aspaldian, baiña
ari ederra ditu, Bizkaia'ko zaleak eta erriak
eko ainalak esango dausku!

n pelotari onegaitik be auxe esan bear: Lan
ala eusko jokoa indartzeko. Urteak joan eta
litu gazte napelketa bereziak. Or jokatzen
an banand; umetxoak, koskorak, gaztetxoak
ren maila

erreitako... izango dabe, Araba, Gipuzkoa,
bitarteko

ETXEGARAI'TAR IXIDOR

GORDEJUELA

ARDANDEGIA

Eguneroko bazkariak
eta lagunartekoak

MUNGIA

ARDANDEGIA

LAU-BIDE

Bere akeite eta etxe-
ko urdaiazpiko ta
lukainken berezita-
sun ezaguna

Zubiaga, 14 - 165 urrutizkiña

MUNGIA

JOSTUNDEGIA

IÑAKI

JANTZIAK

ETA

OIALAK

San Pedro, 4

401 urrutizkiña MUNGIA

GOZOTEGIA

LEKU-ONA

Orezti gozo ta
sagar - opillen
arlo berezia
Jantoki apaiña

Concordia, 14 ta Butron, 2

196 urrutizkiña

MUNGIA

DANTZA - LEKU

ZUBIKOA

AKEITETXEA



Nabarra Ibilbidea, 4

345 ta 346 urrutizkiñak

MUNGIA

TXITULARIAK EMEN

Orain urte gitxi dirala, txistulari
banaka batzuk egozan gure errian,
baiña Jainkoari eskerrak, apur-apurka
ba-doaz ugaritzen.

Lau edo bost urte dirala, Mada-
riaga'tar Gotzon, gazte talde bateri
txistua jotzen irakasten asi zan. Talde
ortatik, batzuk, itxi egin eben, baiña
aurrera doazenak gogor ekiten dautse
txistuari.

Astero egoten dira alkarregaz, eta
olan gauza barriak ikasi ta zarrak
aztu ez daitezkan, gogoratu ta gogor
ekiten dautse. Ez da lan biguna,
baiña zeozer gura dabenak...

Maixu au, Gotzon, ez da or baka-
rrik geratu, orain beste talde bat be
artu dau bere ardurapean, eta or
dabil al daben guztian, bearretik ur-
tenda gero, txistua irakasten. Ez da
au, askok uste dabenez, lan erreza, ez.
Sano gorra da, baiña olan egiten da
bearra erriagaitik, ta ez berba ta
berba ta besteengaitik txarrak esaten
ibilligaz.

Gazte talde oneik, lenengo, Solo-
zaba'tar Paulin'ek gertatu ebazan
apur bat, ta orain be gertatzen ja-
rraituten dau, lan ta lan.

Gero, illean bein, Getxo'n ekiten
dautse ekitaldi ederretan. Txori-Erri'ko
txistulari guztiak edozein lekutara joan
bear dabenean, edozer joteko eran
prest egoteko. Olan da lan egitea,
bear dan lez ta egiten dan lez; miñari
asko eraginda ez da egiten ezer-eta.

Ba-datoz gure erriko jaiak. Kepa
deunarenak. Ta, ea zenbat alaitzen
gaituen gure txistulariok. Aurten be,
beste urteetan lez, jo ta ke ibilliko
dira ziur antzean. Ta olan ibiltzen
danak, orrenbeste ordu txistua jotzen
dabilenak, atsegin jakolako dabil, ta
beste alde batetik, bere erria ta erri
ortako oiturak biotz barruan ondo
sartuta daukazelako, ta oitura orreik
iñoiz ez daitezala il gura dabelako. Ea

begiak zabaltzen dituan zarratuta dau-
kazanak, eta argi ikusten daben gure
erriaren bidea.

Txistulariok, jaietan, astegunean ta
al dozuen guztian, jo egizue txistua,
bai etxean, bai kalean edo atzerrian.
Edozein lekutan, gure doiñu gozo au
daneri atsegin jake-ta. Ea danon artean
laguntzen dautsegun, al dan neurrian,
al danik geien zabaldu daiten, ta al
daben guztiak ezagutu dagien.

Tamalez, etxean joteko bakarrik
dauenak be ba-dagoz gure errian,
zergaitik? Lotsatu egiten ete zarec
txistua kalean jotzen, ala? Olako bat,
beste txistulari batzueri akatsak ata-
rateko prest egoten da beti. Au ete
da orrentzat txistularia izatea? Zer-
gaitik daukazue txistua usteltzen et-
xean? Olan galtzen da txistua, ez
bestera. Lan eta lan egin ezkerro,
txistu ots gozoa geroago ta geiago
entzungo dogu. Ia bein betiko izten
dogun lotsea ate atzean, eta txistuai
ekiten dautsagun.

Mungi'ko txistulariok, ekin gogor
txistua jotzen, sarritan gauza asko
entzun bearra izan arren, berba egiten
dabenai jaramonik be ez egin, beti
dira iñoiz ezer egiten ez dabenak-eta,
berba baiño besterik ez. Ea noiz
alkartzen garan danok, eta geure
erria gogoaritzen dogun txistuaren
ots gozoaren bidez.

Gitxi gara, ta ea danok alkartzen
garan ta jarraitute dautsagun gure
antziñako oiturai, gure Zugaitz mai-
tearen gerizpean.

Aupa Mungi'ko ta ludi guztiok
txistulariak, eta ekin gogor geure
oitura zarreri, ta ez aztu gure aurretik
joan diranak lan andia egin dabela,
ea geu be eurek beste egiteko lain
garan. Jo ta ke, aurrera mutillak,
erria goratu daigun!

ANDONI'K

Udaberrriko

Aldaketak

Urtea joan eta urtea etorri, eguna luzatu ta eguna moztu, argitu ta illundu, eten gabeko joan-etorrian dijoa gure mundu-alditxo.

Neguko izotz eta elurrik zapuzturiko lore ta ostoak eta gaiñerako izadiaren edertasunak, osterata itzuli dizkigu bere garaian udaberriak aurten ere, baiña ba datozkit burura, udaberriak itzuli eziñ dizkigun zenbait gertaera. Ez bai zitun neguko elurteak zapuztu, ezta udazkeneko aize zakar eta izotzak ere. Gutxiago berriz udarako eguzkiaren beroak eta logorteak, gure aurrerapenak edo aurrera naiak baizik.

Urte guzitan zabalik egoten ziran sagardotegiak asko ziran arren, askoz geiago izaten ziran, udaberriaren aldixto bategarri irikitzen ziranak. Legorpea apur bat garbitu, bolatoki zarrak berritu, tokarako burnia agirian ipiñi ta erramu adazka berdea teillatu ertzean josi ta kito, etzen beste zabalkunde bearrik izaten, ingurumai guztian barreatzeko; zai dagonek sumatzen du nunbañt gogozko zaion gauza nun dagon.

Aurrez jakiñean jarrita izan ezik beintzat, sagardoaz gaiñera etzen gauz aundirik izaten, sardiñ zarrak, bakallua ta arrautzak geieneko, baiña gogozko bidean aldaparik ez, alako tokietan jangartxurik ere ez.

Besteak beste, bertsolari ta bertsozaleak gogozko zituzten alako tokiak euren giroan arkitzen bai ziran eta ori guztio gogozko zaigun gauza izaki. Ziran andik eta emendik, artako gogoa izan arren, bildurragaitik edo ez dakit zergaitik, iñoiz ta iñun ausartzen etziranak ere, sagardoaren indarrak edo ango zarataren babesak bildurra uxaturik kantatzen zutenak.

Baita ixillik egongo balira obe izan arren, iñork ixildu eziñ ditun oietakoak ere, danetik izaten zan, onetik eta txarretik, asko diran tokian beti bezela.

Sagardoa beziñ ugari ez, baiña nuncan-nuncan irikitzen ziran txakolindegia ere, batez ere Zarautz inguruan eta aietan ere izaten ziran ixtillu politak. Sagardoa bezela, eratan bai ziran asko gero kontingia. Besteak beste, gogoa izaten det beti, Zarautz'ko «Aillem»ren txakolindegia, baiña joan ziran aiek eta gaitz izango da berriz etortzea.

Ba dauzkagula toki obeak? Bai, bai, ez degu ukatzen, baiña bertan sortu ta ainbeste urtean, belaunez-belaun, gorde diran oiturak galtzeak, ez dit batere pozik ematen.

Urte gutxitan asko aldatu da gure erriaren izaera. Gaur bertan, dagoenerako askok ez ditu siñistu nai, ikusi ta ezagutu ditugunok esandako gauzak eta emendik urte batzuetara, olako ta alako jakintsuak itzegiten duela gauz oietaz eta aoa zabalik egongo da jendea, gaur arlotekerizat artzen diran gauzak arrigarri biurtuko baitira.

Gure esku dauzkagun gauzak aldatzen ditugu, baiña udaberria eziñ aldatu, ez baita guk egiña:

I

Garai bateko sagardotegi eta txakolindegia, gure artetik eraman ditu aurrerapen legiak. Esango dute ba dauzkagula gaur askoz leku obiak, baiña alako jatortasun da euskal-kutsurik gabiak.

II

Aurrerapenak onak dirala ukatu eziñekoa, baiña zergaitik bazterten degu berriagatik lengoa. Gizonak berak aldatutzen du gizonak egindakoa; betikorikan ez baita iñor izan ezikan Jainkoa.

III

Gauza politen zaleak geran guztiontzat pozgarriak, beti bezela bere garaian, dakazki udaberriak. Lora eder bat, txori politen abesti zoragarriak, gozatzeko gure begiak eta gure belarriak.

IV

Zer gertatzen dan begira zazu udaberria elduta, ainbeste gauza ikusten dira dauzkagula aldatuta. Arbolak osto ta loraz jantzi lendik zeudenak soilduta, neskatzak berriz gona-motxetan galtza-luzeak kenduta.

URDANETA

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK
OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

ZAZPI-KALEAK



CASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

ORBELAK

"KILIN KALEA"

Erri atsegin, tokiz polit eta biotzez bondatetsu da Lekeitio. Bere oiturak gorde eta erakusten jator.

San Pedro eguneko jairako ba dauke oitura berezi bat: Santu orren irudia itxas aurrera barrik eta mollak egalean makurtu eragin itxasoan bedekaitzen. Orra «Kilinkalia».

Sasoi baten arrantzalarien kofradiak nortasun bereziz jokatzan ebenean sortutako jai da au. Ondoren «Kaxarranka» dantzatuten da.

Gaur ain atsegiñez ikusten dan dantza onek, antxiñako denporetan asarre, autu, zer-esan, barriketa, ixillu eta exkomuniño asko sortu eragin zitun.

Ez dantzeagaitik, jantziekaitik baiño, eta bear bada jaiaren azken alai eta umoretsuakaitik baiño.

Antxiñako denporetan, kaixa gaiñean, San Pedro iruditzen, kapa andi ta guztiz jantzita, gizon bat joaten zan, aita santu baten irudiko jantziz, eta bere inguruan, lurrean, oiñez, beste apostolu bi, onek be eleiz jantziekaz.

Azku'ren esanetan, erri guztia batzen zan kalean eurak ikusten, eta erritarrak belauinkatu be egiten ziran euren ondorek igaroceran, eta bedekaziñoiak artzen zituztan, bularrak damu ezaugarritz joaz.

Sasoi aretan Calagorra'n egoan emengo gotzaini ta andik, baten baiño geiagotan, ordezkariek bialtzen zituen, jai orraitik ia urtero erakusten ziretan asarre ta ezin-ikusia etan nairik, orretarako jai oneri garbiketaldi bat emonaz. Baiña lekeitiarrak, euren jai zaintzearen, gotzainaren ordezkariek be estu ibiltzen zituen iñoiz. Bein, ordez-kari bat sakristian sartu ta dantzariak eleiz jantziz dantzan billatu ondoren, jantzi orreik kendu eragiten alegituz zanean, erriek geiena batu zan eleizan, itsu-itsu, ordezkar-riari eupada ta zarataka. Eta, diñoenez, erriko agintariak esku artu izan ez balebe, estu erabiliko eben Calagorra'ko ordezkar-ori.

Ala ta be, ekiñaren ekiñez, lortu zan jantziak aldatu erazitea.

1690 urtean gertatu zan ori; orduetik datoz gaurko erako jantziak. Arrezkero odol-lak baretu ta eleiz gizonen zer-esanak kendu ziran eta bakez egiten zan jai, guztien alkar-tasun eta pozean.

Kaxarranka onen asiera, kofradietako bizikera eta izatean sortua da. Egun onetan egiten zan kontularien aldatze edo kargu barriztatetik dator.

Kofradiako kaixa andi baten erotan ebezan paperak eta agiriak eta kontuetako liburuak, batzarrean erakusteko, kontulariak bere garbitasuna emon eta barriari lagateko. Errespetuz eta lotsaz egiten zan kaixa au eroatea, gauza sakratu baten antzera.

Geroago zabartu zan jai. Dantzariak, egunari gitxi begitanduta, gabeko orduetan be jarraitzen eben, soñeko «santuak» kendu barik, bedekaziño zabalagoak botaten, eta bear bada, espiritu biztuagoz. Ortik etorri ziran asarreak eta burukomiñak.

Abadien asarreak biguntzeko kofradiko arraintzaleak esaten eben jantzi orreik ez zirala bedekatuak, ez eleizarenak be, kofra-diarenak baiño. Dantzarien jantziak kon-pondu eta garbitzen zituen emakuriak be onrelako testigantza emon eben. Baiña urteren baten, Lekeitio'n eskutatu eutszala ta Men-dexa'ko eleizara joan eta andik artutakoak jantzi zituen.

1565 urteko agiri batzuetan ba dago kaixa jai onen agerpenen bat. Ortik igarri noizkoa dan.

Bein, dantza lez egiten asi ziranetik, lekeitiarrak entzute andia emon nai izan eutsen egun oneri eta, diñoenez, San Joan eguneko meza nagusi ondoren, agintari guz-tiak kanposantuan batu ta egurrezko kurutze bat egoan leku aukeratu baten egiten eben batzarra. Bertan aukeratu eta izentatzen ziran San Pedro egunez kaxarranka edo kaixa-gaiñekua egingo eben dantzariak.

Laureun urtetik gora bota elikioz ba oitura zaar oneri. Errez.

ZUBEGI

Aurten Ikusia

I

Larunbat Santua.
San Anton'go elizkizunak bukatu ditugu.
Etxaide zarrak igaro ta,
ara ni Eliz Nagusiaren aurrez-aurre.
Ordun bertan asten dira,
Eliz Nagusiaren kanpaiak:
Dilin, dalan... dilin, dalan.
Poztu zaitzete kristauak,
Kristo berpiztu da.
Poztu txiro ta aberatzak:
Poztu zar ta gazteak;
Poztu osasuntsu ta gaixoak;
Poztu gure Euskal-erri lotua;
Poztu bai, poztu danok.
Kristo danentzat piztu bai da.
Danentzat degu Udaberri au.
Udaberri loretsua.
Udaberri usiansua.

II

Oin-wrats batzuk egin ta,
orra «Txakur kalea».
Bere eskiñean andre bat.
Lurrean jazarria.
Bere umetxo besoetan.
Jakiña, limosna eskian.
Zein zan?
Nik ez jakin.
Euskal-erriko alaba ote zan?
Beste errikoa?
ijitua?
Nik ez jakin.
Ez bai nuen begiratu arpegia.
Ta bitartean Eliz Nagusiko kanpaiak:
Dilin, dalan... dilin dalan...
Poztu zaitzete danok,
Poztu berpiztu bai da...

III

Dilin, dalan... dilin, dalan...
Andre gaixoa...
Zuretzat ari da: Poztu zait!
Umetxo pollita...
Zuretzat ari da: dilin, dalan...
Ta amatxok...
«Poztu!!!»
Nola poztu???

Oraindik ez bai-det gozald...
Oraindik ez bai-det bazkald...

Eta... zer apaldu???

Oraindik ez bai-det txanponik bildu.
Ta gelditzen naiz zerbait ematera.
Beste batzuk ere gelditzen dira...
Ala ere gutxi gelditzen dira...
Besteak gabe,
Besteak gabe,
ekin aurrera...

IV

Di... da... Di... da...
Arenal zelaia...
Arriaga'ren aurre-aurrea...
Zer istillu!!!
Zer zarata!!!
Zer zalaparta!!!
Di... da... Di... da...
Ia itoa.
Gizon-andre samalda...
Nexka-mutil moltzoa...
Kristo zuentzat piztu da.
Iriki zuen biotzak Kristo'ren pozara...
Bañan... iskanbil orna,
nola entzun kanpaia???

V

Berebil, autobuz, ugari.
Gaztez beterik.
Mendiko tresnaz,
leporako zamaturik.
Noruntz???... Zerta???

«Aize osasuntsuaz,
bizitza indartzeraz».
Ta gure mendi gallurrak,
gure baso ia orritsuak,
Aleluia irrintziz, durundaz,
oiartzunez betetzera.
Aupa mutillak!!!
Bai aupa! beti gora!
Bete gure Erri maitearen,
gallur, sakon-errekak, bazter danak,
Kristo berpiztuaren pozaz,
Pasko'ko azkatasunez,
Pasko'ko aleluiaz!!!

OLABEAGA'TAR IÑAKI

ERRIETAKO

BARRIAK

Antzuola

BIZKIEN BILLERA

Garagarrillak bi. Egualdi bikaina, etxetik irten arazten duan egualdi alai ta argitsua. Bera lagun genduelarik, arratsalde, Leniz ballaran zear Gatzaga gainari eldu genion. Andik, arratsalde erdi ingururako, Gazteiz'era sartzeko. An, bizkien billera ospatzen bai-zan eta azken ondarreran ez pa'zan ere, parte artu nai. Ni ere sendiarre orretan sartzen bai-naiz.

Oker ez pa'nago 1966'garrengo urtea zan, beste batzuekin batean Sarasua anaiei, bizkiak zergaitik ez ziran alkartzen, bururatu zitzaiena. Ala, lenengo billera Eibar'en egin zan. Gero, urtez urte an or emen ospatzen joan dira, eta aurten ain zuzen, Gazteiz'en.

Beste urteetan bezela, ba-zan jenderik asko eta ez bizkiak bakarrik, tartean baita irukoitzak ere, baiñan esango nuke, bi edo iru izan, bat dirala. Bat, ez geienetan alkarren antz aundia dutelako, ezta ere berdin jantzita doaztelako, berezitasun oiegatik berdiñak eman arren, beren pentsakeran, zaletasunean izan litezke oso ezberdiñak, baiñan ala ta guztiz ere, bat dira. Beren artean alakoxe lotura berexi bat nabari da, bizi diran arte autsiko ez dan lotura. Gaurko munduan eta nola ez, baita euskaldunon mundu txiki onetan ere, gaizki etorriko ez litzaiguen lotura. Toki onean zegok!

Gazteiz'ko kaleetan gora ta beera gelbitzala, oraindik orain AGUR ontan azalduko idazki batekin gogoratu nintzan, eta baita GAROA tabernan sartu-irten bat egin ere; Joxe Lasak, bere idazkian ziona egizatuaz, bertan ez giñan gipuzkoar bakarrik.

Joaterakoan bezin egualdi zoragarria lagun genduela, itzuli giñan. Gazteiz atzera utzirik exeruntz gentozela, burutapen batzuek sortu zitzaizkiten, ainbat eta ainbat bizki oraindik begien aurrean nituela; zera pentsa arazitzen zidaten, alegia, zerk geiago balio ote du, gaurko bizkiera aurrerakoi onek dakarren jaiotz bakanketa, ala sarritan biñaka, baiñan beren artean dan maitasun lokarri orrek, zerk balio ote du geiago?

Eta, Dorleta'ko amaren ondolik pasatzean, gogo bat biotzean, zergaitik ez omen ixil bat, lore bat eskeini ez ama guziei, batez ere bizkion izenean?

MATXALEN

Arratia

Gora Arratia, aupa gaztedia, zentzuz osotua; Erriaren seme zintzo arduratsua.

Goazen ibilliz, mendiz-mendiz tipitapa; baserritik baserrira txiki-txaka, ibarrak arakatuz erri barri bat billatzera.

Euskal aldizkariren batetik-edo, urrutuz kendutako orrialdearen zati batean: «Oinaitia» ta «Oinaitian» irakurri izan dodaz. Eta arrezkeroz, an itaundu ta emen galdetu ibillia nozue, «Oinaitia» nongo zera dan jakin guraz.

Aurkitu al izango ete dogu «Oinaitia» rik eta «Oinaitian»rik? Ez, ezingo dogu, ez dago-ta izen ori daukan erririk. «Oinaitia» au, Oñati berbera dogu. Txantxikuen erria, Oñatiarrai begietan gaixoa ta bertakoak ez diranai esan-eziña sortzen dauskun idazkera barria, biurria. «Batua»ren batukerizko kukurruku erdi-bitzaillea.

Atzorarte Oñati izan dana, gaur «Oinaitia»; biar, «Hoinaitia»; etzi, «Hoinaitia»; etzidamu, «Hoinahitia», ta azkenean, «Hoinahitia» izateko arriskuan dago-ta, zaindu bearko dogu; «ori nai nik jakitia»!

* * *

Orri artan bertan irakurri neban, baita ere, «Iruinea». Iruinea au, nik itaundatakoen batzuen eretziz, andrazkoaren izena dogu.

Laitari solo-munan, artotarako lurrean naiz piperrartean laia sakonduten dakian bategana be, zuzendu nintzan geroago batean. Jakintsu itxurako arek, barre-barreka agertu eustan. Emen beraren erantzuna: «Iruinea ta firu-egilea (aria egiten dauna) bat duzuz. Firu-egilea antzinako itz zaharra dugu. Iruinea, euskara batuakoa».

Iruinea baiña, ez da firu-egilea. Naparroaren erriburua nai dau izan. Lepoa biurru ta saski-naskin sartu nai dauskuen Iruña berbera da.

Eta saltsa ta naste baltz oneri buruz, zer dirausku euskerearen «Bulego Santutegi Protektorak»? Zer diño irakurleak?

Euskalerrri guztian eta mundurik erdian ezagun-ezagunak diran itzak eta izenak, eperdiz gora jartze onetan, nora goaz? Noren eskutik?

* * *

Zeanuri'tik Gorbaie'rako bidean, Iturralde'ko Astondoa morroskoa ikusi izan dogu Riki zaldiaren bizkar ganean. Ederra zan aldapan goraka joain zaldizkoa; indarrez eta soñez, ganekoa be ba-zan azpiko aiñakoa. Etxerantzakoan, mendiko bedarra ekarran, bedar gozotua; artaldeak jan geroztik, gizonaren eragiñez, gaztai biurtua.

On dagizueta Iturralde'n!

LANDAJUELA'TAR A.

Galdakano

NOIZ EDO NOIZ!

Aspaldiz gengoan jakitun, ia urte bat edo geyago Laterri'ko Aldizkari bitartez, zelan erabagitan artuta aurkitzen zan lurpe-bide edo tunela egiteko errian dogun gurutzerotik arrisgutsuanen azpitik; au da, Plazako-etxe izenaz ezagutzen dan gurutzero nagusian azpitik oin-bidea. Urduri gengoan baiña, galdakaotarrok, naita aldi andia izan erabagia ontzat artu zanetik, ez ziralako iñoiz ezer egiten ikusten, ainbeste notin egunoro igaro bear daben toki orretan.

Zorionez, baiña, noiz edo noiz izan bear eban da, asi dira gertakizunak egiten, da dirauskuenez, laster egingo ei-dabe ain bearreko genduban lurpe-bide ori. Eta gu be orretan gagoz, bein asi esketiño, laster amaituko dabela uste dogu-ta, gaur-egun diran langai ta tramankulu azkarrak diralako eginkizun ajolatsu ortarako.

Asieran esan dogunez NOIZ EDO NOIZ asi dira, ta ea laster esan al-dautsuegun amaitu dabela errian genduban lurpe-biderik bearrena.

OPORRAK

Gure lerro oneik argia ikusi dabeneko, ikastola-ume eta ain ume ez diran ikasleak be, udako oporretan aurkituko dira, eta langille asko be bai, onezketiño be txandaka oporak artzen dabean lantegi batzuetan, banaka batzuek opor orreik gozatutzen aurkitzen diralako. Geroago, datorren illean ta bestean, geyen batzuk izango dira oporretan aurkitzen diranak, baiña gure baserritarrok noiz oporrik?, iñoiz bere ez: azokara-edo alde egiten daben egunen baten izan ezik.

Eta, ez dira gure baserritarrok bakarrik oporak artutzen ez dabenezan, ugezaba, otein ta emolle edo langille garenen artean be ez dira gutxi opor-aldixu baten bear garenak atsedean orren bearrian izan arrik, bera barik geratuzten diranak edo geranak, bestela itandu AGUR'eko gure lankide zintzo Beiztegi'tar Jon'ei.

Geure erruz ez-dogule atsedean aldirik?, ba' litzake, ez-doguzalako orretara ezi gure bezeruak.

Zelan diran gauzak, irakurle maitae; izardirik gutxien edo neketik gutxien izan dabean izaten dabez oporraldirik luzeenak: baita eukitsuenak, batez bere iñoren izardirik edo erri xeak esaten daben bezela, iñoren lepotik bizi diranak. Beti izango ete da orretara ludi biribil uler-gaitz au? Ez ete-dogu iñoiz izango bardintasun geyago oraingo eukitsu ta ez-eukitsuen artean? Zar egingo garelakoan gara zuzutza pizkat ikusi baiño len.

BILBO'KO ERRI-IRRATIA

Bagil onen 24'gnetik asita, Bilbo-ko Erri-irratia irrataldi bikain bat emongo dau, goizeko zortziretatik aurrera. Euskal-kutsuzkoa jakitua, ta zelan ez, euskeraz zati on baten. Ba-dakizu, «frecuencia modulada» esaten jakon baztarrean izango da. Irakurle, irratirik entzutekotan, alegindu irrati au entzuten.

BASA-JAUN

Aralar

SANTUTEGTIK

Egun ederra igaro dogu gaur. Egun ederra Jainkoarentzat eta Euskalerrriarentzat!

Aralar'en, Aralar'ko Mikel Goiangeruaren Kofradi-eguna izan dogu. Yai au, Bagillaren lenengo domekan egiten da. Baiñan aurten, lenengo domeka «Pentekoste» yaia izan da. Eta yai orretan, inguru-errietako yendea Aralar'era igoten da, «errogatibak» egitera. Eta errietako oitura zaarra yarraitu bear; ta orregaitik, bigarren domekara atzeratu egin dabe Kofradiko jaia.

Inozentzio yaunagaz ni berbetan. Nik: —Kofradi au noizkoa ete da...?

Eta Inozentzio yaunak: —Amaikagarren cunkian asi zan. Eta, garai batzuetan, entzute andikoa izan da. Millak eta millak, amarka, anaikideak izateraño eldu izan da. Baiñan cunkian yon ta eunkiak etorritz, ezerezer yausia ta lur yota egoen aspalditotik.

—Eta, noz eta zelan biztu izan da, ba?

Inozentzio yaunak: —Orain bost bat urte asi nintzan; baiñan, kontu!, ez irar-paperakaz ta irratiazen bidez. Santutegi'ko adiskide ezagunakaz bakarrik asi nintzan. Nik gura dodana, «berez» sortu ta «berez» azi ta indartu daitela alango Kofradia. «Berez» yaio ta «berez» legez zabaltzen diran bazkunak, areik izaten bai dira, egitan, yatorrak ta areik errian eragiera oi dabena. Dirala bost bat urte asi nintzan bategaz; ta gaur ba dira 400 bezelatsu anaikide.

—Eta, Aralar'ko abade yauna, anaikideok nongoak ta nundarrak ete dira?

Eta Aralar'ko abade yaunak erantzuna: —Leenago naparrak bakarrik oi ziran. Baiñan, oraingo asieratik, Euskalerrri danera zabaldu izan dot. Nor edo nor, goiko maillan dagoena, ibilli ta ibilla yat esaten, Aralar'ko Santutegia Naparra'koa zala ta orregatik, kideak be, naparrak izan bear ebela... baiñan nik, olan esaten eustenai ez dautset yaramonik egin, ta liburu barriaren izen-errenkadea Euskalerrri guztiko izenakaz bete da. Olan asi dodaz Kofradiaren aldi barriak.

Txalo ta txalo Aralar'ko abade bipillari. Barruan euskal sen andia daroa!

Iru meza izan dira: amarretan, amabietan ta ordu bat eta erdietan. Mezak euskeraz ta elizea, danetan, yendez beterik.

Bazkaria, mendigoizaleentzat egifia dagoen arte luze-zabalean egin dogu. Berreun ta berrogei ta amar bazkaldar izan gara. Bazkari ederra...! Kantak, be, ederrak...? Danak euskeraz. Garai, txistulari ospetsuak, bizkaitar-naparra danak, alaitu gaitu bazkari bitartean euskal-eresi eder-ederrakaz. Diotenez, Euskalerrri'ko txistularirik onena ei da. Olan esan dauste.

Bazkari-amaieran «Gernika'ko arbola» yo dau. Ta orduan, danok zutik, ta danok adorez ta indarrez eta biotz-biotzetik abestu izan dogu!

Urtean bein izaten da olango batzarra, aurrean esan dodanez. Urrengo urtekoari begira gelditu gara danok.

Euskalerrri guztiko yendeak agurtu ditut. Bilbo, Durango, Zornotza, Gazteiz eta Donosti'tik ezagun asko, baiña yenderik geiena Iruña'tik zan.

Ea datorren urtean, be, olango yai dirdiraturik egiteko era egokia etorten yakun...

YURRE'TAR YULEN A. K.



DEPURACION DE AGUAS S. A.

URA EGOKITZEN ETA UR LANETAN BEREZITUAK, EDANGARRIAK - LANTEGIRAKOAK - ZIKINDUAK NAIZ IGERITEGIKOAK ZUZENTZEN

+ 32-37-00 - + 31-00-10 - 32-37-01 Urt.

Gordoniz, 44, 12.^a
BILBAO-2

MALLABI'N

Bein baiño geiagotan gertatu yatan trenean, Bilbo'tik Donosti'ra lau ordu luzetan sakilladetan mallatuta ligaten gaitun tren biurri orretan, Zaldibar'agut urten, aldatz txiki bat igo eziñez iru-lau bidar atze aurreraka ibilli, tunela osta-osta igaro, geienetan argi barik «suspense»ari kezka geiagotan sartzeko, ta etxeko bat ikustean, geratuko giñalakoan, jo ta aurrera, Ermu'ko errebueltan oker-oker eginda geratu arte. Orta Mallabi igaro trenez, nekez eldu eta tatarrez, eta erria nun egon leiken be konturatu barik ermu.

Bidez, zuzenen, Gernu'tik sartzen da. Edo ta Zengotita eta Trabakua bitartean, orain bi-iru urte zabaldu zan bidetik. Onetarako, kontuan euki, Mallabi'ko lurretan ordurako sartuta gabiltzala.

Millá ta seireun lagun inguru, bertan, bost auzotan: Areitio, Berano, Gerena, Goitana eta Oma'n. Areitio andien eta Gerena, Geria, txikien.

Danetara ia ogetalau kilometro lautu lurrez.

Mugak: Ermu, Berriz, Jemein eta Zior-tza'gaz len. Gaur, azken biak, gogo onez edo txarrez, Markiña dira erri legez.

Parroki ba ere lurraldean. Erri burukoa eta Geria'koa.

Torre zabala dauka errian dagonak. Zati batio, torrea. Bardiña, zapala azpi edo beko zatio. Goiko zardian lau arku, lau kanpai zulo. Geria'koa txikia da, ermita askoren antzeko. Egaletan, mendi-gaiñetxoetan, edo auzoen ingurutan, aibat ermita. Amairu, or nunbait. Askotan gertaten dana: san Joanetan edo san Pedroan, artu-emonak zelán bete ez jakiteko eran, «konbidatuzak» zaindu bea-rretan.

Siniskeretan ba dago arrera berezi bat Areitio'ko Andre Mari'ri. Gotiko-Pizkunde bitarteko irudia. Esperantza oneko Amaren deitura be emoten dauste berari. Aurra egiteko denporetan ba dakie mallabitarrak eta ingurutakoak beragaz gogoratzen.

Bizi lagunen artean, euskaldun jatorrak milla ta irureun inguru. Erdaldunak besteak.

Joerak: Merkatuetara, etxeko ortuari, frutu, esne, arrautz eta abarregaz, au da, «plazakoagaz», Eibar eta Durango'ra. Erre-mrietarako, Berriz eta Durango'ra. Aukerakoenak.

Len Bizkai'tik garirik onena artzen ei zan emen, Gaur inok ez dau nai garirik erein. Etxean artutako ogia jan bear zala baztertu zan zortion baten. Baiña emengo indiarra, indi-babea, koipetsu, azal bigun eta ihun baiño obeagoa dala-ta, besteak baiño karuago saltzen alegintzen dira Eibar'etan. Urte asko-tako ar edo «amor propixutzat» dauke ori emen.

* * *

Ibilli ta ibilli, ona aurrean, Zengotita'ko goietan, Bizkaia'n ain gitxi ikusten diran garaixetako bat, Erderazko «horreo»ei emen garaixe esaten dautsagu.

Etxean nekez artutako frutu eta emaitzak ziur eta siku gorde al izateko tokia. «Bengokue» baserriaren aurrean dago. Ez da ain zuzen be garbi garbi zaitzen. Alderdi bat berari ezarri dautsen lastoleku edo sabaian sartuta dauka. Zazpi metro inguru daukaz zabalez, eta zerbait gitxiago egalez.

Bere apoak, kolunak, tenteko arriak, ondar arrizkoak dira, piramideen tankerako.

Ez dira alako asko Bizkaia'n. Danetara be berrogetamar inguru ezagutzen ei dira. Geientsuenak inguru oneitan. Berriz'en beiflik-bein, bederlatzi ezagutzen dira. Elorrio'n amar.

Origaitik, inguruotan ezagutu eta emen ez egotea, arrigarri izango zan. Konturatzeta falta askotan.

Ba dira begien aurrean ikusi ordurako ten egiten dabenak. Barinaga inguruko Lomiño' kua lez.

Bengokue'ko au eskutuago dago. Jakin ezik ez igarteko eran.

* * *

Sasoi baten, Euskalerrian, ba ekien erde-raz kantaten:

Mina de mi vida,
don Gaspar de Jauregui
de mi corazón.

Doña: Elizako kantu batena. Irutatik bat mallabiarra zan. Zerbait esatera biartzen gaitu bere izenak.

Errementari ebilan Longa La Puebla de Arganzon'en 1809 urtean. 26 urte eukazan. Frantzetarrek emen sartu ziranean, errietan gizonak gerrarako batu ta urteten asi orduko, talde baten kaporal urten eban lenengotan. Andik laster, gudari-buru edo komandante egin eban. Eta orrelaxe, gora ta gora, mialla rik gorenentara eldu zan gerrate orrek iraun-eban bost urtesen buruan.

Bildurtu, eskas, zatar eta doillorra zala deitzen eutsen lenengotan frantzetarrek. Ezer-

ez ekian berekoi bat zala. Bai? Asi kontatzen: zer gertatu zan-Bilbo'n, zer Gazteiz'en Gama-rra artu ebanean, zer Tolosa'n eta beste ainbat lekutan?.

Edonun ebilan. Gaur Burgos'ko errietan, biar Antzuola gaiñean, Deskarga'n, Pan-korbo'n ikusi ebela ta Portugalete'n andik laster, uste-gabean. Ixilik eskutuan, il zala-kuan, egun luzetan eta arierioa nasaitzen asi orduko, bere gain, tranpan sartu eraziz.

Gizon banaken buru lenengotan; gero zortzi milla oiñezko giarri eta beste zaldiko millaren buru. Jantziak izari eta paparrak domiñaz beteta.

Zein zan Longa generala? Isidro Antxia eta Mari Urkiza'ren semea. Baserriaren izena da Longa. Etxearen izenetik artutako deitura. Mallabi'ko hurren mugan egiten da baserri ori, ia Bolibar'en egalean. Elizaz bai bolibar-tarra. An bataiatu eban jaio zan egun berean, 1783'ko Jorrala'ren 10'n.

Laga alboan, txalo ta guzti, generala. Goratu daigun, bitartean, euskerarentzat bere arrera ona. Bere izkuntzaren maitekor agertzen zan. Praille bat, Pedro Astarloa, Pablo jakintsuaren anaia, estu ebilan liburu agertu, dirurik artu ez eta bigarrenik ezin. Onetan, Longa'k, esku zabal jokatu nai izan eban beragez. Orrela, Longa'ri esker esaltu ziran «Urteko Domeka guztietarako berbaldi ikasbideak».

Ezin laga, ostera, 1816'an emen eutsen zeregin barriaren ondorena bere jokabidea. Bizkai'rako Kontrabandoko epaikari, juez, izentatu eban, gerratea amaituta laster. Geiegikeriz artu eban ardura ori eta euskal legeak kontuan euki barik. Zeregin onetan danakin asarratu zan. Bilbo'ko Udal edo ayuntamiento'tik asi eta Euskalerrir'ko Aldundi edo diputasiñoiekaz. Foruen aurka egiña zan bere izentatzea, agintari onein ustez. Berak danak salutzen bazetan, nai eta foruak legetan euskal jaubetasuneko gora-beraizet askotan. Salakuntza gogorak egin ziran bata bestien artean. Orrela lau urte luzetan alkar ikusi eziñik. Azkenean be Longa'k aldakun-tzea eskatu eban. Edo eskatu eragin. Emengo kuartelen batera bigatu nai izan eban, Ez yakozan biotzak bigundu, izan zabaldu be. Ixilkeko agirietan bere aurka jarraitu eban emengo Diputasiño, Udal, Konsuladu eta bestetako gizonak. Ala Valencia'ra bialdu eban eta ango kapitan generala zala il zan, bere eririk urrun, 1831 urtean, berrogeta zortzi urtedun.

Ziurra da bere erriaren miñez, atsekabez il zala. Batzuen eritiziz, gerrateko ospe eta izenak itsutu eban.

* * *

Mallabi'ren lurretan sortu zan Ermua. Naiz eta agiri ziurrik zoro ez, alaxe uste da. Ermua'ren anditze egon eta larría ikusita, arrigarri ba Mallabi bere izakeran zainduten dan lez zaindu eta irautea. Eta batez be baserriari ain zintzo eustea. Bere oitura, siniste, izakera eta bizikeran.

Euskal kiroletan, deportectan, noz nai billatzen dira bertakoak. Plaza gizonak dirala, esaten da. Jokoa eroaten, jokoa biziten eta jokoari eusten. Baserrietan lurrari begirako giroak nai ta ez eskatzen ei dau plazako errenta.

Pelotari punterengoen artean be ezagutu izan dira emengak.

Gaur, egia esateko, Mallabi baserri erri izan da be, ez da ain neketsu. Ondo dago bidez. Ori esanda, batek crantzun be bai laster: Bai, ondo bidez, baiña ez asi oiñez.

Trabakua aldeia toki alai biurtzen diardue. Bereko ez dana Salamanca'k ez ei dau geitzen. Baiña emen, gain onek, bereko ditu aize ederrak eta ikuspegi zoragarriak. Gipuzkoa'ko mendiak, Aizkorri bera, errez ikusten dira bertatik. Etxeko dira Bizkai'kuak, Anboto aurrez aurre dala. Oiz'eri noz nai kili-kili egin lei.

Aurrean, eskukin ikutu egiteko lez, Geria. 1558 urtean biurtu zan parroki; San Adrian zaindari. Ordurarte, naita eriz Mallabi, eliza legez Bolibar'era joan bear izaten eban bertatuak. Eta ez dago atzamarrean. Zortzi baserri egozan parroki egin zanean. Gitxi izanorren, errezoiz ganezka egozan. Baserri bakoitzak pozik egiñi eutsazan amarren osuak abadeari.

Ez dakit nai ilten naizenean nire etxekoak zer egizko daben. Etxean ilbarri bat gertatzean ifioiz tellatura joan izan dan agure bat eza-gutu dot emen. Tella bat jasoten, arimea mundu onetatik urten ezinda ibilli ez daiten. Lenagoko oiturea. Ba dira leku ittoagoan baiño diranak, emen, Geria'ko inguruetan baiño.

Ba dira emen Mallabi'n jatorrizko abizena zabaldu daben armarridun baserriak: Amendi-bar, Azkaraldea, Urizar, Zelaia eta abar. Ezkutuko istori ixil asko gordetzen da gizaldi luzeetatik lurrari begira bizi diran etxe eder orretan.

A. ZUBIKARAI

AGVR

Apartado n.º 2
BILBAO

FRANQUEO
CONCERTADO
08/55

ODOL GORRIA

Buenos Aires'en txaide luze-luze aiek euskal odol garbiz gorritu. Eta, adiskideak adiskidearentzat auxe idatzi, eta erderazkoa euskeraz ematek gogoratu zait.

«Aurtengo (1974) Asteazken Gurenez, iorraiaren amargarrenean bion adiskide ziranek Carlos Mujika'rengana eraman ninduten. Antxe bildots-erretegian (olako tokiak Argentina'n ia etxez-etxe ikusten), udazkeneko giro epelean, lepo egiñiko arkume-sailak zintzilik genituan aretoan bildu giñan. Mujika, geienetan bezela berandulari, gauerdialder'edo agertuko zitzaigun. Apaiz iaun au sortzez aundizki eta aberatsen sendikoak genduan. Eta, arez txabola kaxkar-zikiñetan bizi ziranekin bere txokoa aukeratu zigun. Bere gogo sutsuz errukizko egiñetan eta zuzentza-lanetan sartu zalarik, egun artan lanak ezin bukatu. Izan ere Berri On'ean ditugun irakatsien arauzko zuzentza-lanak nolatan amaitu?»

Gure Mujika gizon gaztea, aurpegi arrai eta istatsu, eta ikusi nuaneke alakoxe zirrarak inarrosi ninduan. An geundenon artera agertu zaneko izketan asi zan, iario aundiko erausian, gartsu, bere ona galtzeke, ziotsanaz txito jabeturik genduala aixa sinistu genezakean. Esaten zigunetik ordurarteko bizitzaren zatirik ederrera berealaxe igarri genion. Agian, bere gaztaroko oro-zutendu bearrak urrutitxo'edo eraman... Bere apaiz-lagunak irugarren gizatza deritzanera zeramazkian: baiñan uxtu aunditxoan eta orduko gudularien agintzaren aurka (Argentina'ko txiroentzat delako eskugeikeria gogorregia zeritzaiolako), eta bear ba'da Eliz'ako Iauriek ere lartxo maxiatzen zituala. Alaz guztiz ere ez zitzaidan iruditzen itsu-burubero zanik.

Gizon zuan izkillu-azkonak noraino eldu bear zuan zekiana eta iraitzen zuan izkillu-azkonak noraino eldu bear zuan zekiana. Eta, Peru'en gorlpenetan ez zan aspertzen: Argentina zuzenduko duana degula aitortzen zigun... Ni bai arritu!

Bitartean, ordea, auxe zetorkidan burura: arazoa emendik ikusita, erbestetik maxiatzen dutena ez bestelakoa izan, noskiago!

Erroma'ko Aita maitagarri Paul Seigarrena aipatzean, berriz... aren garra! Aren itzen iario bikaña! Izen auxe zemaion: Ego Amerika'ko Aita Santua! Eta Ego Amerika'ko Elizari Paul VI'aren egitazko Doibatza izenez deitzen zion. Azken-aldi onen Doibatzak zabaldu aundi auetako sinistunen alde egindakoak zeatz-zeatz azaltzen zizkigun: eta giza-erakuntza gogorren zama izugarriean emengo txiroek negarrez iasaten dutena inola ezin ixildu.

Mujika'k iarraitzen: zegizkiten alegiñez alakoxe une-neurri egokira iritxi zirala, bai Elizarentzat bai argentinarrentzat. Mujika'k Aita Santuaz mintzo zanean, adiskide ziraneko azaltzen: baiñan ez det uste gizonak Doipurua bere begiz ikusi zuanik ihon. Ala era, euskal iatorriak ezek biotz-biotz gizonak nabaitzen Paul Seigarrenarengan alakoxe artzain-yitea: alegia, ber-berak egunero zekusazkian arazo sumin-mingarrien osaketa, an Erroma'n artez ikusten dutela.

Elkarri agur egiterakoan berandu genbiltzan. Geron berri batak besteari emateko itzak bero esan genituan. Eta gauaren illunean alde-egin zigun. Irriparrez. Bein baiño ere erabakiago bere zuzentza-lanetan ari zedin eta iarraitu. Ezeren beldurrik gabe... Eta, urrean zebilkion gorrotoaren usmorik batetxo ere ez. Bai! Barrandari zekenek aixa ebaki zuten aren arnasa!

Orra!: etoikeriz il dute. Otz-otzean! Gorroto beltzezko ainbeste sakailketen kopurua, bildots otzana eraman dute. Ez! Mujika apalak eskuarteetan lan gaiztorik ez zerabilkian!

Aren oroitza beti garbi. Argentinaz zintzoak biotz-miñez. Sendikoek negarrez. Adiskideak itun. Eginkabeko odol baserrik, Mujika'ren adiskide langabeleok lanak indarberritu ditza! Eta, kinstar-bizitza gerberik ez degu: olakoxe ustegabeleok maiz! Eta, guzti oiek berri lazgarri dirala guk uste. Orixe: Kisto'ren Abe Aundiko izatea oraindik ere ez zaigu bukatu. Eta Erosle Deunak, bere adizkide kutun ditezen aukeratu ditunen aurrean... guk, txapela erantz. Miñez eta malkoz! Bai! Lotsaz! Arrimenez!»

* * *

Gau artan Carlos Mujika'ri, Buenos Aires'ko eliza batetik irten zalarik, inork ez dakizkin batzuek zartakoz eraso zioten. Aiek gizon zintzoa iltzeaz utzi... eta, lenbiziko gaxotegira sartu bezin laister il zan. Aldamenean zuan laguna ere zauritu zuten. Carlos Mujika'k berrogei urte zituan.

Biltzalle: ETXEBERRIA'TAR P., S. J.

ARRATE'KO EUSKAL - LEIAKETE

ALDAZABAL'DAR PELI XII
GORAZARREA

10.—Eguzkitza'tar Joseba, 14 urte, Arrazola.

Eta txikien artean:

- 1.—ERKIAGA'TAR IRUNE, 10 urte, Markiña.
- 2.—Azpiri'tar Ibone, 10 urte, Markiña.
- 3.—Picatoste'tar Ibon, 7 urte, Gazteiz.
- 4.—Zubiaur'tar Miren Begoñe, 10 urte, Gazteiz.
- 5.—Biteri'tar Izaskun, 10 urte, Markiña.
- 6.—Jauregi'tar Elene, 10 urte, Gazteiz.
- 7.—Iriondo'tar Irautzu, 10 urte, Gazteiz.
- 8.—Etxebarria'tar Amaia, 10 urte, Markiña.
- 9.—Alberdi'tar Jon Joseba, 8 urte, Markiña.
- 10.—Olabe'tar Julen, 7 urte, Eibar.

Eun ta berrogetamarrentzako aña sarri izan ziran: txapel, joski, txibirra, aize-izkilla, marrazki-kutxa, oski-goitiberu, ipuñe eta jostailu...

Maikoak: Azpeitia'tar Julene ta Murgitzu'tar Margarite andereak; Erretolatza'tar Joseba Andoni abadea, aita Karmelo ta Baraizarra, aita karmeldarrak; Iraolagoitia'tar Permin aita pasiotarra, eta Larrañaga'tar Imanol eta Eguzkitza'tar Josu jaunak.

I.

Ikasi... Zertarako

Lentxuago, 142^{gn}. zenbakian, lan-ikasketari buruz berba egin gendun. Baiña arrezkero entzun dogun gauza batek gai orreri buruz barriro berba egitera garoaz.

Lantegiak ez ei dabe gura olako ikastoletatik datorren langillerik, lan egiten ez ei dira zaleak izaten eta bai erantzuten edo lantegietan nasteak ateraten, Ori inoskun oraintzu lantegi beteko buru dan adiskide batek.

Ori esan euskunak, izango ditu jakin-garriak, uste dogu, baiña jakin-garri orrei berak emoten dautsen ulerpenaz ez gatorz batera.

Bearrezkoa da ugazaba ta langileen artean ezdabaidak izatea. Baiña geienetan ugazabak jakitunagoak izaten dira eta alkar-izketa orretan ez da izaten bardintasunik. Ikastolearen zeregiña da ba, alkar-izketa orretarako langilleak gertatzea Ori ta guzti be, bardintasunera ez gara elduko, ugazabak ikasketa geiago egiñak dira ta.

Ez litzake naikoa izango ba, langille barriak lan egiten irakastea. Euren esku-bideak zaintzen eta aldezen be ikasi bearko dabe. Euren buruen jabe izaten, al dan neurrian beintzat, ikasi bearko dabe. Eta orretarako sendotasuna ezarri bearko da euren bularretan eta gizotasun zintzoa euren bizikeretan.

Ez dira lan-ikastolak gaurko morroi edo jopuak sorrerazoteko, gizon askeak eta osoak gertatzeko baiño. Lanari zintzo ekiten dautsela, jakiña; baiña nortasuna ta gizotasuna galdu barik.

* * *

Beti izan dira gizonen artean, kondaira kondaira danetik beintzat, txiroen eta ezjakiñen jentetza ugariak.

Gogoratu: Egipto'n, Israel'en, Grezian (ilotak), Erroma'n, erdiaroan...

Kristiñautzea zabaldu baiño lenago, batez be Grezia'n eta Erroma'n, jopuak edo morroiak abere lez artzen ziran eta azoketan saldu ta erosi be bai. Ori, erdiaroa ezker, kendu zan, baiña geroago agertu da jentetza barri bat, langilledia deritxagun jentetza. Oneik ez dira morroiak, baiña sarritan antzera artzen ditue euren ugazabak.

Egia esan, gaur asko aurreratu da langillediari egiten jakon arreran, baiña ez dago oraindik bide-zati makala bardintasunera eltzeko!

Eta lenago, morroitza edo joputza aren aurka jokatu zan antzera, gaur ezbardintasun onen aurka jokatu bear da.

Ez dauke zeregin txikia ori lortu gura ba'dabe, lan-ikastolak eta langilleen alkarreak!

Ikasleak izan eta euren lantegietara doazan gazteak, langillediaren bidea zein dan ondo jakin bearko dabe, eta bapoitxak bere tokian izango dauan erantzupena betetzen be ikasi bearko dabe. Eta ez da ori arrisku bako jokoa. Bide ori artu gura daben langilleak bulartsuak eta arduratsuak izan bearko dabe.

* * *

Lantegietan buru diranak be, askok goi-maillako ikaste-etxeetan ikasi dabe. Zelako ardurea izaten ete da ikaste-etxe orreitan, gizarte-azuari buruz, eritxi zuzenak ezarteko? Ala giza-maillak ontzat artzen ete dira, antxiñako India' tarren kasten antzera?

Ez dagigun aitzu edozelako eziketamailletan, gizon guztiak bardina gara-la, Aita baten semeak. Ez beti bardina osasunez edo indarrez edo zurtasunez edo jakituriz, baiña bai gizonarentzat egiñak diran ondasunai eta beste eskubide guztiak begira.

Ez bedi izan gure artean morroiak, ez ugazabariak; guztiok anai, bakoitza bere tokian langille, eta eskubideetan bardin.



EZKERTIARRAK ETA ESKUITARRAK

Oraindio gizadia itzaren majiaren menpean dago. Esan aal guzien gainekoa da gaurregun ere itzak duen indarra. Egia esan zuen gure garaiko jakintsu batek: «Itzetan nausi dana gizartean ere nausi izanen da». Milla bider nik neronek frogatu dut esaera orren egia. Itzak erabiltzen, bata bestearekin lotzen, noiz, nori, nola zer esaten beste nornai baiño abillago dan gizonarekin kontu izan.

Gure artean ere, askotan entzuten dira orrelako zenbait itz edo esaera: «Zuek ezkertiarak edo eskuitarak zerate». «Gu ezkertiarrok». «Eskumarrak» anderrak, atzerakoiak, leizeko gizon illetsuak». «Ezkertiarrak, irikiak, aldiarekin bat-batera dijoaztenak». Z'ren k. k.

Oraindik orain, gizon gazte batek «Rioja» izeneko aldizkari bat eskaiñi zidan esanaz: «Karlitek egin dugu ale au. Baiña karlista ezkertiarrek, ots, marxistek». Gizon aipatua antuztez beterik mintzatu zen. Ori entzutean zer pentsatu nuen nere baitan, bego aurrera ere nere baitan zazpi giltzaz gorderik.

Ba dirudi gizonak eskuitarra izan bear duela, gauzak berenez zuzenki eta egoki burutzeko. Eskuiko eskuarekin jaten du, normalki beintzat. Eskuiko eskuarekin idazten dugu, idazten dugunean ere. Eskuiko eskua edatzen dugu, inor agurtzean. Mirikuek diotenez, eskuin aldera gorputza ifintzea obe omen da ezker aldera baiño, lo egitean. Edozein batzarretan edo bazkari batean, inor berezitu nai badugu, eskuin aldetik ezarriko dugu. Ez dugu kristauok Kredoan aitortzen Jesu-Kristo zeruko Aitaren eskuin aldetik eseririk dagoela, adiaraziaz bezala bere onorea eta almena zeruko Aitaren pare-parekoa dela? Bear bada, ezkertiarak nausitzen badira, aldatu egin bearko dugu Kredoaren zati ori. Ta Kristo ezkerrean jartzen badugu, nor ifini eskuian? San Joxe edo orrelako gixajoren bat.

Gure iztegiatan, famili aberatseko, emakorreko itza dugu «eskuin» edo «eskuin» itza. Esku, eskubide, eskua eman, eskua kendu, ta milla orrelako. Esku-bidea, euskeraz, derecho, gaztelanaraz; right, ingesez; ercht, alemanez; droit, frantzesez; diritto, italiaraz ta abar.

Gure artean, edo ikastetxean edo otorduan, berenez ezkerre danen bat agertzen bada, arren abiltasuna ikustean, arrimenez gure artean irri-farra egingo dugu. Esku eskuiña denak ez dio inbidirik ezkerre denari. Bestalde, baietz edo esango nuke.

Jakiña, Paul Chacort'ek bere «Le cerveau et la conscience» izenpuruko liburu ain interesgarrian esaten eta frogatzen digunez, ongi baiño obeto dakigu ezkerre edo eskuiña izatea ez dagoela azkenik esku bat bat bestea baiño egokiago erabiltzean, baizik eta berezgo orren sustraia buru-barnean dagoela ain zuzen ere. Eskuñak buruan ezker aldetik ditu zenbait erdi edo zentro; ezkerre denak, eskuin aldetik, ditu bere buruan. Zertarako eta zer nolakoak diren zentro oriek ez noa orain azaltzera.

Zenbait pelotari edo futbol-zale ez ditugu ezagutzen ezkerre diranak? Baiña, ankaz, eskuz, buruz batipat dire ezkerre. Beraz, berenez, izadia eskuin-zale da, ezkerre okerbidez, ezin-beste, saiatsetik irtetzen zaizkio. Beragatik ezin esan aala geiago dira eskuñak ezkerre baiño.

Beste arazo bat da ezkerre eta eskuiña relatiboak izatea. Adibidez, nere eskuin aldetik dagoen gizona beste norbaiten edo zerbaiten ezker aldetik egongo da. Esate baterako, Mitterrand ezker aldetik dago Giscard d'Estaing'ekin berdinduz gero, eskuin aldetik agian, ordea, Kremlin'go gizonekin konparatuz gero.

Ezkerre, eskuiña. Noiz, nori, zeri buruz? Azkenean, itza, errautsa, autsa, utsa, putza.

JOXE LASA

Arazo

Bizi Bi

Ezkontza-auste edo diborzioa ta aur-galtze edo abortoa eztabaida gai bizi-bizial ditugu erdi usteldurik dagoan ludi onetako laterri batzuetan. Ezkontza-austeari buruz, burruka gogorra izan da oraintzu Italia'n. Gure ustez, bear ez ziran gauzak nastatzeak jokoera oker asko ekarri ditu. Ez naiz inor eleiz-burukoen aginduak aztertzeke, baiña nere ustez —uste apalean— siñesten dogunok ez daukagu siñesten ez dabeneri legeak irunsi erazoteko eskubiderik.

Ba-dakit, ezkontza-austearen aurka jokatu daben alderdietako ekintzailleak eta goimailako eleiz-gizonak, euren arrazoak izango zituela, ta ez edozelakoak, artu daben bidea artzeko. Baiña azkena kaltegarria izan dala, argi dago.

Dana dala, erriaren zatirik aundienak, auteskunde bidez, baiezta dauan erabakia gogorra izan da Italia'ko Kristau demotrata alderdiarentzat eta Eleizearentzat.

Ezkontza-auste onek ondoren txarrak daukazanik ezin ukatu lei, batez be seme-alaben eziketa ta sendiaren osotasunarentzat, baiña, gure ustez, alde aundia dauka len aipatu dogun beste arazoagandik, ume-galtzeagandik. Katoliko izeneko —izeneko?— garanok ba-dakigu, naizta legeen aldetik ontzat emonda egon, ez daukagula ezkontza-austerik. Olakorik egingo ba-genduke, gure kontzientziaren kalterako izango litzake, baiña ez dago irugarren batentzat bizi galtzerik, ez dago abortuan egiten dan erailtzarik.

Abortuari buruz, lenago bere inoiz, emon izan dogu gure iritzia. Edozelako guda aldi baten iru edo lau ume iltzen ba'dira, dardaraka jartzen da ludi osoa. Milloika jaiobako ume iltzen dituzenean, izkutuan dagoan izaki bizi bat iltzen dalako, sukaria bezin gogorra agertzen jaku giza-biotza. Eta erailtza legalizatu orretan ikusten da, noraiño ustel du dan, batez be konsumo gizartean, kapitalismo pean, gure izakerea.

Laterri batzuetan, aur-galtze aldekoak euren baimenak lortu ditue. Beste batzuetan, noiz lortuko dabilta, ta negargarriena, jaiotzeko dagoan gizakiari eskubide guztiak ukatu dautsez, eta orretarako, zabalkunderik zikiñena egin... Emen aspian ikusiko dozu, Londres'etik bialduta, osagilleak artu dogun idazkia.

Telefona: LONDON - 7

N. P. A. Service

Prof. H. Lawson

Ez dugu zabalkunderik egin nai! LONDON.

Estimado Doctor:

Nuestra empresa existe para asistir a aquellas pacientes que Usted deseara referencias para terminación de embarazo, para consejo sobre fertilidad y profilaxis, veneciamia o cualquier otra fés del planeo de familia.

Nuestra atención se efectúa siempre dentro de la mayor reserva y nuestro personal múltiple solución toda dificultad de comunicación.

Toda paciente enviada para terminación de embarazo será atendida en clínicas de la más alta calidad, aprobadas por nuestras autoridades estatales, por medios quirúrgicos y personal muy especializado.

Como será de su conocimiento, en el pasado, algunas organizaciones han cobrado tasas punitivas y nuestra política es ofrecer nuestra atención para beneficiar a la paciente con cargo mínimo.

Cualquier paciente que nos informe con anticipación será recibida al arribo por uno de nuestros automóviles limpios y recibirá la más amable atención. Rogamos nos avise el número del vuelo y la hora estimada para llegada. Estamos situados a pocos minutos del aeropuerto Heathrow de Londres.

Nuestra consideración de máxima importancia es el bienestar de las pacientes.

Con sólo suministrar a nuestra paciente con nuestro número telefónico, garantizaré el haberla depositado en manos capaces y amables.

Sinceramente suyas,


J. C. P. Lawson

Diruz ordaindutako erailtzailleak, naizta zuri jantzirik agertu, gertu dagoz, erosoroso, asta-okkerkerik aundiena egiteko. Amaren sabelean dagon aurak, ez ei-dauka, jaiotze aurretik, eskubiderik, amaren gainetik jartzeorik beintzat... ez ezta?

Ba, gizonaren norberekeria argiago ikusi dagigun, jo dagigun Brasil aldera: Dakizueenez, Ronald Biggs ingalander lapurra, Brasil'en geratzeko lokarrikerik aundiena, «brasildar» baten aita izango dala da. Emakume baten sabelean jaioteko dagon ume orrek, ba-ditu, antza, eskubide sendoak. Bere aitaren etorkizunaren jaube izateraiño eldu da-ta... olantze komeni dalako. Ez da ez abortirok eragingo!

Olakoxea dogu mundua, ta zori-txarrez, Euskal-Erri'ko giroa be, aldatz beera ortatik daroe batzuen lotsabakeriz, eta geienek bigunkeriz. Gogor itz egin bear leukeenak, edo geunkeenak, atzerakoi ez agertzearren-edo, ixillik geratzen gara... etxean kaskarrekoa artu arte.

ARENATA' TAR JOSU



IRAUNPENTSU

EUSKEREAREN ALDE

1974'ngongo bagillean arratsalde garbi ederra. Sei ta erdietan, Bilbo'ko San Anton eliz barrua, margodun leiarren zear sartzen dan argi leunagaz, amesgarri agertzen da. Eliza orretako Begoña'ko Ama'ren aldaratxu txukuna, landaraz ta lorez, polit eta eder, eta aldare aurrean, eliz guztia beteten ebela, eundaka euskaldun andra, guztiz argiak. Zer dala-ta?

Sorkunde —Kontxa— Azaola'ri omenalditxo bat eskeintzearen, Bearbearrezkoa omenaldi ori, ba, berak, bere bizitza luzean, maitasun gorengo bi izan ditu: Jaungoikoaganakoa ta Euskalerrriaganakoa.

Umeartotik asita, zintzo ta alai erabilli ditu maitetasun orreik, ixil-ixillik, eta ez zaratatsu, Une guztiak eliza ta euskereagaz bete ditu; bai guda aurretik, baita guda bitartean be; gero, Bartzelona'ko euskaldunen elizan; geroago Biarritz eta Donibane aldean, eta azkenez, azken 30 urte baiño geiagotan, emen, Bilbo'n ostera ere: erle-lantsuaren antzera, beste andra goragarri batzuekaz batera; Errotatxe, Kandina, Irarragarri, Juli, Zabala, Ezpeleta, Bigera, Zearratarrak, Olazabal, Egiduren etabar. Jo ta kee, eragozpen guztiak gaiñeratuaz, euskerazko elizkizunak atonduten. Euskal idazti ta orriak bananduten, ara ta ona ibilliaz, urrutizkiñez, zigorraren bildurrik baga, euskal-elizkizun eta euskal-ekitalde asko atondu euskuzan.

Berari ta bere lagunai eskerrak —oneitan ba-ziran gizonezkoak bere: Arrospide, Arruza, Ereño, Ezpeleta, Zubiri, Abando etabar— euskal-gogoiñarkunak, Sorkunde Garbiaren bederatzi urrenak, Jesus'en Biotzaren omenaldiak... euskal-liturjia baimendu aurretik. Bein liturji onetarako baimena eldu zanean, Kontxa ta bere taldeak, lan ikaragarria egin eben, bai euskal-mezak, batekoak... or emen ipiñi ta zabalduaz, euskal-gizon eta beste kristau askoren lo zorroa biziro astinduta.

Itz baten esateko, maitekiro, guk, «Euskeraren Ama» deituten dautsagun Kontxa Azaola'k, eten baga, eliza ta euskerearen alde naixko ezti bigun emon dau, ta guztia, ixiltasunean, eta bere ezpanetarik barretxu biguna iñoizbere kenduten ez ebala. Bear eban emakume kristau ta abertzale onek, egin jakon omenaldi ori.

San Anton'go mezea oso polita izan zan. Meza emolle bertako txanburua, berberak itzaldia; abesti zuzentzaille Iñaki Olabeaga Anai goragarria; eskariak andre bikain bik egindakoak. Meza ostein, Bilbo uri zarreko jantoki entzutetsu baten, apal-azakari gain-gaiñeko bat opaldu eutsen Kontxa'ri, baita marrazki ederdun txartel bat be emon eutsen lagunen izenean. Antxe bertan abestu zan Iñaki Anaiak egindako olerki eder gorengo bat. Ba-zan, eunetik gora jantokian alkartu ziran emakumeen artean, abestirik eta poztasunik ugari.

Bear baiño omenaldi txikiagoa izan zala, uste dot; baiña bai txukuna, bero ta biotzetikoa. Gure emakume gazteen artetik urten begie Kontxa'ren antzeko emakume askok, gure eliza ta erriaren bizibide ta onerako.

Ixil-ixillik lan egin dozu, Jauna ta Euskalerrri'ntzat, zure kemena, zure iraupen, eredu bikain danontzat. Urte luzeak Jaunak emonik, ez dira izan arpelik, ezin zenbatu zure ekintzak, Jaunak dakiz, ba, bakarrik. Zure ezpanak barretxu bigun, egun alai ta txarretan, bake orrekin lortu dozula poztasun, lagun danetan.

Euskal-kutsuak emakumeetan kutxa eder sortu eban, Euskalerrri'ren ta Jainkoaren maitasun kutxa benetan. Olango andre zintzo apalak, ekin ta ekin etenge, Euskalerrri'ren berbizkundera ziur lortuko ei-dabe. Kontxa maitea, ez, ez kikildu, bizi luzaro bakean, biotza gazte, ekin aurrera, oindiño urte luzetan.

GALLASTEGI'TAR KAULDI

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, berekoi, politikoa naiz ondasungarri asmoen gaiñetik daben iritxi-oneko euskaldun guztiak Euskeratzen dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egilleak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M.^a MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guttirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

Aur-Ikastoletan

Ez ei-da erreza pedagogi onetzaz argi ta garbi idaztea, batez gaur eguneko euskal-ikastolen giroa ta jokabide garratz, minberakoia ikuskatu ezkeroz. Ala ere zertxobait esan bear dautzuedalakoan nago.

Kristau ezieraz asteko, beti gure bitziz-aro guztietan, kristau lez jokatu bearra dogu. Gaztearotzaz, sail ontan alik eta areago esan bear dogulakoan-eta, danok iritxi batekoak izan bear geunke. Or daurkigu baiña, lenenlenengoko eragozpen, oztopo garrantzitsua. Aurtzaroa, gaztaroa be bardiñ baten, berez ezi barik dagoz. Onela, ortan ipiñi bear geunkez bizitz-aro onei eziera egoki bat emoteko gure alegiñ biziñak, beiñenak, gorenengoa.

Zelan ba, ez arritu, jakin-arazoten ba' dauskue Erliñiñozko zerak, jakingarri bereziñak ogei urtedun izan arte-edo... ezin leitekezela gure ume ta gaztetxoei adierazi? Ludi ustelkor onetan darabilguzan jokaeretan, ez dogu ez, inola ere ain erokari zoroki jokutzen.

Yaraunsi bat artutekotan, batez bere gure umetxoak umetzurtz geldituko ba' litzakez, ez genduke ez, ziurkiro, eurak ogeiren bat urte bete arteraiño —edo... itxarongo. Ez bein.

Itaun-erantzun onek, joan dan astean, nire ikastetxean 19'ren bat urteko mungitar neskatil txairo bategaz izan nebazan, Borondate oneko neska kristau ta euskerazalea bera. Ta dan-dana euskera utsean, ori bai, jardun gendun. Baiña... baiña au luzea izan leiteke. Gaur eguneko gaztediaren agergerri bat lez dala deritxat. Ez dogu ala ere gaztediari orkonpon esanaz, lepoa emon bear, eta bai bestalde, euren kezka eta ulertu-eziñak alaikiro adierazi.

Atxe kontuaz be, beste orrelakoren bat alkar-izetala luze mamintsuan izan gendun, ta nik, bereala, nereak eta bat, erantzun. Abade gazteetzaz be, zertxobait, baiña geien baten, eurak aldezen. Bera, neska gaztea, pozik ta baretsu geratu zan, eta gaztediari beti gauzak argi esan bear dautseguzala jakin-erazo eustan.

Gaztediari emon daikegun eredu bikaiñena, gu azle guztiok baturik ikuskatu gaituzela izango litzake. Ontan be, unte zorrotza daurkigula uste dot. Korapilloa askatu bearren gagoz, eta ortarako Arenaza jaunak aspertzeko dirauskun lez, guztion borondate ona bear litzake, ta ez alde naiz alderdi batekoena soillik.

LEN-BATEKO IKASTALDIAK

Orain ikas-gaietara joanaz, lengo ta oraingo ezieren irakaspede ezbarriñak, gotik ba'da be, aztertutetzera noatzue. Lentxo baten, ikasleci erakusteko, zigorrerako irakaspideak geien baten erabilli oi ziran —olan sartu euskuen erdere—, ta noizean bein alderantziz, sari-domiñekaz naiz gozokiñekaz, euren guramenak jakintz-zaletasunerako suspertu. Bestalde, oroimenari lan larregia ezartzen eutsoen eta buruz ikasi bearra astunegia zan, beti ez ba'zan kaltegarria be.

Orain, gauzak, aldatu ta oberatu egin dira. Ikasle bakotzak bere barnera begiratu bearra du, ta bere barne-muñtetatik ikasteko gogo biziñ atara, baietzorra izan, eta orta-

rako, irakaslea beti zain egon. Bide argiagoa ta sarritan errezagoa dala deritxat, gaur erabilli bear doguna beraz.

Jakintsuak aberekin ere, oar-ikasi balioitsuak atara ei-dabez. Kui ta arratoiekin batez bere. Aor dirauskuena: Ez dira abere onek batera naiz bestera igitzen goseak eraginda bakarrik. Beste zio-bultzagaiak be idoro dituez kui orreñ jokaeretan, eta orrela, eurak, ondorengo jakingarriak atara be.

IRAKASLEAREN EGINKIZUNA

Irakasleak bere aldetik, adoretu jokatu bear dau, ta alik ondoen guraso askoren uts ugariak bete. Ez da ez bakarrik ume ta gaztetxo ezieran. Gurasoak ta eleizeak beragaz parte izan bear dabe. Zer gorenengo bat osotu oi dabela iruren artean. Ori ta be, bere eginkizuna oso nabarmentsua da. Erakusten dun guztia, berak izan ez-eze, erabitu be egin bear du, ta ikastaroaren lenengoko egunetan bezela, alaitu ta sutsu urte guztian irauñ. Erakus-gaiekaz batera, bere onimenen ta giza-irudiaren eredu biziñ ume koskartsuei damotsela.

Andereñoetzaz be, ori berbera desakegu. Gogarte onegaz beti jardun bearra, beti jakintzaren eta alaitasunaren iturri garden, poz emollek diran lez, beti gurasoen umeengandiko ezieran betegarri dirala. Olan, iturri onetik eranaz, geroko gaztedia giza ta gizarte bideetarako gertu-azoz, gaurko irakasleak, euskal ta kristau jatorrak, gizon jakintsuak geroko baten izan daitezat.

IKASLEEN AUKERAMENA

Ikasleri aukeramenen emon bear jako. Ez baiña aukeramen osoa. Gauz orotan neurri bat bear dogu, ta gaztetxo ezieran neurri estuago bat oraindiño. Landaratxoak lez dira, ez laster baten izan gura geunken zugaiz lerdena. Umea ez da berez ez ona, ez txarra. Ezta gutxiago ere, Freud'ek esan oi eban lez, beragaz gure erara «gutziz» moldatzeko damoskuen gai aldakor bat. Ume bakotzak ba, jaiotzatik lanadaratxo bat bezela danez, Goiko Jaunak emoniko ezbarriñak dabez. Kimu onek zuzendu, garbitu, loratu bear doguz. Or dogu, azleak garanez, gure lan bedegarra.

ONURAK

Ipar-ameriketako Laterri-Batuetan, Pedagogi aur-irakaste onegaz diardue ta arnari onenariok atara be bai. Nabarmentsuenak, bi ei-dira ala ere: Lenena, umeen buru-argitasuna, adimena geitzea, ta bigarrena, ikastoleta umeak adi ta pozik egon-erazoz, euren aurrerapena berebat areagotzea.

Ea Euskal-Erri'an be, onela danok baturik, jokatu oi dogun. Olan gure Erria biziko da. Bestela, sakabanaturik, gure arerioentzat barregarri izatera elduko giñake.

Ta orain betiko azken-oarpena: Euskal-ezieran, euskerea ardatz sendo bat dogu. Maite dagigun euskerea.

ARMREGITAR JOSU



MONRAY

ARKONDARA-GINTZA

ANDEREENTZAT AZKEN-JOSKETAK

Bidebarrieta, 2

21 43 46 urrutizkiña

Alderdi-zarra

BILBAO-5

GAZTE

“JATA”

Mendizale Taldea

Mungi'n bere, gazteen artean, beste gauza askotarako gogo aundirik ez izan arren, oraindik galduta ez dana, ta geroago ta geiago dagoala ikusten dana, mendi-zaletasuna da. Ta, zaletasun au ikusirik, emengo gazte batzuk, mendi-talde bat osatzeko gertau ziran, ta onen bidez, mendi-zaletasun au aurrera eroan eta ugaritu.



Asmo au aurrera eroan bearra egoala ikusirik, 1973'ngo jorriaren 27'an, batzar nagusi bat egin eben, eta bertan sortu zan talde au, ta an egozan guztiak onartuta «JATA» izena ipintzea erabagi zan. Batzar orretan izentau ziran baita, talde onen arazo aurrera eroateko lendakaria, lendari-ordezkoa, idazkaria, diru-zaiña ta laguntzaille batzuk. Euron eskuetan egon da talde onen zuzendaritza 1974'ngo jorriaren 20'a eldu arte, ta, emen, urteko batzar nagusia egiñik, zuzendari barriak izentauak izan ziran.

Urte barruan, talde onek, arazo asko izan dau, baiña bertoko gazte guztien artean, guzti erabagia emon jake. Batzuentzako ondo, ta bear ba'da, beste batzuentzako ez. Baiña garrantzirik aundiena daukana, talde au aurrera doala, da, ta asierako estualdirik gogorrenak, esan geinke, aztuta dagozala. Orain, asieran talde guztiak izaten daben lez, emengo ardurarik edo arazorik aundiena, dirua da, baiña guztion laguntzeagaz, uste dogu, emendik denpora gitxira, arazo au be apur bat nasatago erabiliko dogula.

Esan bearrekoa da baita, talde onek, Mendigoizale Federaziño'ko legeak on-arten dituala, au da, federatuta dagoala, baita talde onek, 140 bazkide federatu daukazala.

Talde onen egitadari begira, ez dago zer esan aundirik oindiño, baiña nere ustez, urte batean egiteko, naiko da. Egitadak onek izan dirae Gorbea'ra urteera Itxiñ'etik, Orduña, Aralar, Txindoki, Urbasa, Lunada, Urbia ta abar. Oneitatik kanpora, ibillaldi neuritu batzuetan parte artu dau, eta oneitariko baten, 1974'ngo epaillaren 24'an, Bermio'n, «Garbola» taldeak antolatutakoan, lenengo saria lortu eben talde onetako bazkide diran Edurne Uriarte'k eta Ana Lopez'ek.

Aurrera begira, «JATA» talde onen asmoak, Bermio'ko ta Gernika'ko taldeak artu-emonak izatea da, ta, eurekaz batera, urtekari bat egin, talde guztion egitadari begira.



Talde onen «barritasuna» ta asmoak ikusirik, ez jaku beste esanbearrik geratzen, urvera ekin dagiela bertako gazteak, talde onen alde, ta emendik aurrera, sariak be ugari izan daitezela taldearentzat eta bertako bazkide diranentzat.

RIKE'TAR JON



eziketa jostailuak
eskulanetarakoak
irakasketa gaiak

IKIRIKI gregorio de la revilla, 1
bilbao - 11

Jolasean ikasi, or zure aurrentzako emoitzarik onena

IGORRE'TIK

GURE ERRIKO ABADAEK

Gazte batentzat, gure egunetan, abade bat, Jaungoikoari opaldutako gizon bat da. Gizon on bat da, zintzoa ta arazoetan jakituna. Gure errian, arazo orreik, aurre-aurrean dagoz. Ala ta bere, orrean aurrean abadeak artuten daben jokabiea, ezbai ta illa dala, konturatuten gara.

Danok dakigu, gure erriak, euskal-oiurak eta euskerea indartuteko daukan bearrizana. Eredun on bat emon daukue alboko erriak.

Orregaitik, bein, euskal-jai bat eleizan eratutea gure artean pentsatu zan, ustean, abadeen laguntasuna izango gendula, naita Gotaziñana izan ez. Baiña abade oneik, euskal-jaiak izango eben ondorenak-edo kiñatuta —parroko izatera ezin eldu izatea-edo— ez ziran ezetarako nekatu.

Onok, burutasun bat sortzen dauku, ardurabako abadeak ete dagozan-edo gure errian. Eta ez ori bakarrik, ez da pekatu au itxikeria bakarrik, baita, bereziki batena, bear apur bat egitea nai daben batzuri, galerazotea.

Orregaitik, gaur, abade orri eskatu gura geunke, gitxienez, aldendu daitela gure bidetik. Uste dogu ba, batez be gure artean, arrazoiak guztiz argi dagozala.

DIRUDUNEN IZKILLUAK

Aspaldiz eratu ziran Arratia'n futboleko leiaketak, lantokietako langilleen artean. Langille oneik, zortzi edo hamar orduko lana eginda gero, or joaten dira futbolean jokauten. Aztu egiten dira lanagaitik eskuratu daben sari apurragaz. Ta, ez dira konturatzen ori dala garrantzi andikoa «enpresa jaumentzat».

«Jaunok» erosten dautsez oskiak, arkondarak... eta langilleak uste dabe aintzat artuta dagozala, ta zorionsu bizi dira. Ez dira baiña konturetan, oski ta arkondara orreik... euren izerdi, euren lanaren zati bategaz ordainduta dagozala. Au da kapitalismoaren beste izkillu bat.

Ori ikusita, alegiñak egin bear geunkez olako ekintzak ezerezteko. Era bata, orreitara ez joatea izango litzake.

IGORRE'KO LAGUN BI

JAI TA KIROL

BIZKARGI

Santa Kurutz, mendi onetako jai eguna be eldu jakun urte baten geiago. Aurretik, bertaratuteko asmoa artuta geunkagula, aurreko egunean, euria goian eta bean, baiña ez giñan orregaitik atzeratu.

Goizean goiz urten gendun, pozik eta alai, mendi orretara. Larrabetzu'ko eritik urrago dagoala-ta, andik goiazan ba. Or gazte asko, bai bertakoak baita beste erri askotakoak, gorantza igoteko.

Asi giñan ba, gora ta gora, eta ze polita zan, danak batera, kantaka ta kantaka, lupetz artetik lupetz artera, danak betiko ezagunak izan ba'giñan lez.

Asko ibillita gero, eldu giñan mendi tontorreraino, an beste jentetza aundi bategaz bateratuteko: Gernika, Morga, Mungi, Galdakao, Durango eta abar errietakoak, eta beti, alkartasun aundienean. An ibilli giñan danok dantzaka ta saltoka, txistuan soiñuarekin, apur bat berotu naian, aixe freskoa egiten eban-eta.

Eguerdia eldu zanean, bazkaltzera batu giñan. Danak zeozer emoteko prestu egozan, baiña, gu, Dima'ko neska polit eta alai batzukaz jateko egon, eta orrelan, daneri eskerrak emonaz, eurenetik sabela bete gendun.

Ba-egozan beste Arrati'ko taldetxo bateko mutillak be gure ondoan jaten, eta benetan be ondo alaiak. Agur bat euri onen bitartez. Olan jarraitu!




Bazkal ostein, oster a be kantau ta kantau ibilli giñan, gerotxoagoan Zornotza'ra joateko, eta berantza goiazala, gazte talde bat aurkitu gendun, oso alaiak, gizon torre batzuk egiten, eta euren artean gure AGUR'eko Tomas egoan lez, argazki bat artu nai izan geuntsen emen argitaratuteko, eta ondo pozik prestatu ziran zertarako zan esan geuntseenean.

Zer esan asko egun orri buruz, baiña ez dot erreztasun aundirik, orregaitik parkatu: ia ba urregosian obeto egiten dodan. Baiña amaitu nai neuke euxe esanaz: leku gitxi dagozala an lako alkartasunik aurkitzeko, gazteen artean.

JAIK

Bai, Isidro deunaren jaiak gure errian; or gabiltz beti berbetan zer izango ete dogun bertan.

Eldu ziran jaiok, baiña zer izan gendun? Ez beintzat gauza aundirik: Idi-probak eta... esango neuke besterik ezer ez.



Lau egun ziran, Zeanuri'n jai: larunbata, igandea, martitzena ta eguastena. Larunbatean, gabeko amarderdietan, lenengo idi-probak. Axpe, an atean, ea nork ordaindu ete daben sartzeko txartel ori. Ordaindu egin bear, bestela, an kanpoan, Mari Carmen Cruz tonboleari begira, tiroetan iru-lau lelokeri atera, edo egozan berebillak kontatzen jardun bear.

Ikusten gendun zelan jente asko sartzen zan barrura, ikusten gendun beste jente asko be, kanpoan zer egin barik ebillela, sarnurria aundia zala-ta, besterik ez egoalako. Beste ezertarik jairik ez ipinteko, zer uste ete eban komiziñoak? Jente guztia sartuko zala barrura poz-pozik, ala besterik ipiñi ezagaz, joan bearko ebela? An egozan neska gazte asko, Axpe'ri erreguka, barrura sartzen itxiteko, baiña, nora onek itxi?

Nik, larunbateko ta igandeko idipobrak ikusi nebazan, eta dana txarra ez esateko, onok ondo egon zirala esan bearrean nago. Larunbatean txapeldun Urduliz'eko Bilbao' ren idiak, eta igandekoak ez naz gogoratzen.

Beste alderditik berba eginda, barriz, «Los Witch» musika taldea be emen izan zan. Bere izenak zer esan nai daben, ez dakigu geienok, ezta euren abesti askok be. Ingles izkuntzan abestuten eben, eta an ba'egozan izkuntz ori ondo dakienak be, au esaten eben; «nongo Ingalterra'ko izkuntzea ete darabille».

Ez naz ni iñor onak ala txarrak ziran esateko, baiña nere ustez, ez ziran emengoak euren abestiak, askok eskatu utoen «Jota batzuk» baita baten batek «tango batzuk», baiña ez bata ta ez bestea, ez kiezan jotzen, euren eurenara...

Orrela ba, egiten dodan itauna, au da: Zelan ez dira joango ba, gazteak, beste «toki» batzuetara?

Benetan be, tamalgarria da gure plazak gaur olan ikustea, eta geroago ta txarrago. Noiz barriro izango ete doguz lenagoko jaialdien antzekoak?

ASTONDOA'TAR J.

S U A

Mundua mundu danetik gaurdaño gizonak lurrean burutu duazan asmakizunetatik andienetariko bat sua da. Bi asmakizun ei-dera gallenenak. Sua ta txirrinkea edo burpilla. Guazen orain alderdiak ikustera. Sua alderdi oneitatik begiratu geinke Beroa, argia, garra ta ke aldetik.

—Gure berbete edo mintzo-jokeran, naiko asko darabilgu suaren aipamena, geure barren-gogoko gora-berak azalduteko. Ona emen esakera batsuk:

Gizon ori beroa da; beingoan berotzen da; urlia ago berokoa da; suak arturik lez jarri zan; euskal-zale sutsua da; su ta gar aurrera jarraitu eban; garra erion bere begietatik; surteko taloen gozoak; bidean txatarrak atera ebazan; txinpartak botaten ebazan; jo su ta ke!; ura gizon argia; buru argiko emakumea; sumindu zan ama; maitasunaren sua ta garra; ta abar.

—Gomutara ekarri geinkez lurreko sutzar andiak, beñola gure olaetan biztu oi-ziran su bero-goriak. Mea-lurra beroen-beroz galdatu ta lur ori burdin-salda biurtzeraino su beroa. Gaur egun, oster, ikusi egizuz laba autuetako su beroak, burdiña iturri gori jartzen dabenak. Irozima'ko bero-kiskaltzea.

—Su gozoa suiteko sua. Sukaldeko bero bigun samurra. Ilinti ta makurrez egiñiko su beroa. Lapiko egosi, esnea egosi, koipetsu, txi-txi burduntzi gozoa gertateko erabilten dogun sutondoko su maitekorra.

—Su onek alkar izketan diñarduala dirudi bere ingurukoak onela: Kontuz nigaz; ez gezegi urreratu, bestela nik erre egingo zaitut-eta; ez sugarría neurri barik bota surtera, bestela basterrak erreko dodaz eta ondandia sortuko dot; bada ezpada gabaz amatau edo itzali nagizu, auspeko txingarren batek zorixarra zabaldu eztagian.

—Gure erriak bai dau berezikiroko artu-emon bat suagaz. Garrantzi andiko jazokera bat sortuten zanean gure erran, adarra-jo ta sutzarrak ixituten ebazan gure antxiñakuak bost mendietan. Gorbea'n, Oiz'en, Sollube'n, Ganekogorta'n eta Kotisa'n.

Gure baserriko bizi-etxearen ardatza ta onarria, soto, suite edo sukaldetik datorrela esan geinke agian. Suitevan beste bizi-etxe. Suitevan beste etxagun edo ugazaba.

Oraintzu, gure arteko gizon argi batek idatziriko auzo-edestian, onantxe irakurten da: «30 suite egozan Ipiñaburu'n eta 30 etxagunen artean banandu ziran kofradi-basoak». Suiteak zer ikusi andia dauko jaubetasunagaz aurki.

—Domaneetako suak, San Juanetako sañoanek, gaur ta eguna luzeera bardiña dauken udako solstisioan erre daozan suak, gure baserri, ibar, aldapa ta solo bizkarrak ziar, illunabarrean argi dagien suak be, esangura sakona dauke gure erran. Euskaldunak, indoeuropeoen siniskeritik arturik, ainbat siniskeri eukezan. Onetariko bat zan, sua gurtutea, suaren gurtzea, adorazioa, J. M. Barandiaran'ek diñonez, kistar uskuriza edo erlegioa euskal errian auzotu zanean, kistartasunak ez eban sua bastertu, ezetsi ta oinperatu. Beste jokera bat emon baño. Su barria onetsi ta etxietara ekarri oi dau gure erriak.

—Garra. Beti sutan iraun dagian garra. Il obietan, etxe doneetan, jauregietan jauretxietan dirau amatau bako su-garrak. Olinpiadetako su garra edo obeto suzia, eskurik-esku, uri aretatik Kirol zelaira eroan dagianari deritxagu.

—Sua maiz erabili oi da zigortuteko. Lenen aiatu bear da inpernuko sua. Gero gizonak, kondaira zear, aiatu ezin bestean, zigortu dau bere arerioa. Aipagarria da kristau martirien edesti barna. Laurentzi donearen erre-kiskaltzea.

—Garbiketerako be, sua berebizikoa da. Sua dala bide, izaki asko garbitu oi dira. Ara adigarri bat. Bizia, bizi-indarra, berez astiro-astiro, dabillena da. Piñu landara bat, esaterako, apurka-apurka asiaz doya. Ogetamar, berogei urte bear ditu biziak, piñu enbor nasai-mazala edertuteko. Nai dozu baso eder ori bat-batean, otop-otoan garbitu, ondoko arantza, sasitza ta inguruko bedarrakaz? Emoyozu sua ta ordu gutxi barru baso ori, piñadi barria ipiñteko eran laster eratuko dautsu.

—Sua, bear-bearreko gauzia dau gizonak. Gaur egun, gizonik geyenak darabille soñean sua. Nainon entzuten da: Zu, ba al dozu surik? Zigarroa piztutzeko biar dot-eta? Ondiño oraintzu, ikusten ginduzan aitonak, ixua ta su-arriakin pipea biztuten. Ba al dakizu, XVII gizaldiraño sua ixituteko su-arria erabilten zala? Eta lenengo pospoloak sortu ziran urtea 1779'koa zala?

—Kezkarik gabe, suaren alderdirik zoragarriena, bigunena, gozoena ta andiena, argi aldetik dauko. Oi! Argia. Zelako arrera lillurgarria egin oi dautsen lurreko izaki gustiak egun sentiko argiari! Txoritxuak, zorabioz abeslari, erletxuak egazkari, loratxuak politasun erakuslari, mundu dana ameslari. Gure sinismen barna be ba dago ezer ederrik. Jon ebengelariak, Jainkoa argia dala esango dautsu. Jaungoikoa Argia! Gizon gusteri argia emotera etorritako Salbagillea Jesus dala diño. Espiritu Santuak argitu ebazan Belduen buru illunak. Jainkoa, gerizerik bape bako argia da.

Sua! Sua! Erre ta kiskaldu egizuz alderdikeriak, alkar batu ezin, aitu ezin, gure erran. Euskalerra beti zatiturik bere norberekeri ta arrokeiakaitik. Sua! Kiskaldu bedar txarrak. Garra! Ez bedi inoiz amatau ta itzali Erri-maitasuna. Euskal maitasunak gartsu iraun dagiala beti bizi-bizi garretan.

Eta Argia! Zuk argitu euskaldun guztien adimenak, euskal-erria zer dan ondo ezagutu dagien eta erbestekeri ta arrokeiak alde batera utzirik euskaldun gustiak maite dagien euren erria. Eta beti gustien gañetik betorkigula Jainko-argia.

AÑIBARRO'TAR JON

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

ZAZPI-KALEAK



GASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

ORBELAK

Euskaldun Barri Bat

Izenak ez dauka zer ikusirik. Izenak bai. Iruña ondoan, amar kilometro inguru gorago, Uarte dago. Erri txikia. Arrain erria. Bai gizon! Soria'ko Agreda lez. Terranoba'ko edo batek da daki nungo bakallauak antxe sikatu eta saltzeko erutzen dira. Gauza bakoitzak bere tokia bear dau, bere gurpilla eskatzen dau. Zer dauka, esate baterako, Alicante'ko Alcoy erriak, oliba-aran edo azaitunarik geienak beste zerbaitegaz bertan bete eta jateko, andik saldu eta zabaltzeko?

An ez dago ez azaitunarik, ez arraiñik, ez latarik, ez limoirik, ez azido zitrikorik. Eta amar baiño ogei fabrika urrerago dagoz orretara dabilzanak. Urak?

Nabarra'ko Uarte'n ez dago ez arraiñik, ez txaluparik, ez gatzik. Aize ederra bai. Giro ona bai. Eta bakallaua sikatu eta erutzen dabe bertan. Aize oneko erria? Bai, nunbait.

Oraintzu, Bilbo'ko liburitegi baten, sasoi oneko gizon bat billatu neban. Ni baiño zarrago. Irurogetak urte. «Agur» asteroko onen billa ebillan. Sentzu bat micztuta dauka: Gorra. Obeto entzuteko belarrian.

—«Agur»en billa benetan?
—Zegaitik ez?
—Lanen baten zai, bear bada?
—Ez. Berezirik ez. Irakurri nai. Beti eros-tent dot.

—Naparra ta ulertzen dozu?
—Euskaldun barri naz. Iruña'n ikasi arren, danenatik ikasteko gogoz nabil.

—Zek euskaldundu zaitu?
—Nire kontzertziak.
—Nun bizi? Baserriaren baten?
—Santurtze'n, kalean.

Batek ez daki zer esan edo ta zelan eran-

tzun. Es uste gure jardunean erderaz gabiltzanik. Euskeraz diardugu. Ametsa dirudi.

—Zenbat urte?
—Zenbat zeuk?
—Ia irurogei.
—Beste ia amar geiago nik.

—Atsegin yatzu «Agur»?
—Asteroko bezela, gurko sailak falta ditu. Euskeraren aldetik pozik irakurten dot. Lanen bat edo beste gaitz. Beste batzuk benetan atsegin.

Sarri irakurten dot etxe baten aitak eta amak jakiñarren, gursoak ez dakiela euskerarik, biziñaren kalesan egiten ez dalako. Edo ta aitak amari, edo amak aitari aitzakia billatzen dautsala, bietako batek jakin ezean, alkar arteko izkuntzan beste zabalago bat erabilten dabelako, abizenari ondoren onaren emaitzak aaztu eragiñaz. Edo ta euskaldun izanda, beste errialde batekoagaz izketan jarduteko, berba-aldiak eroateko, toki bateko fonetikako ez-bardintasunak aitzaki ipinten dituela. Bakoitzak erantzun bear dau bakoitzaren zeregiñean.

Ala ta be, Santurtze'n bizi dan napar euskaldun barri onek, nik eztaikit ze merezi daben. Txaloak eta zorionak alboan lagata, gure kontzietzira dei egiten dautsunik ezin ukatu.

Malkoak urten dauste berari agur egitean, eta benetako miña daukat bere izena ez eskatua. Egia esateko, nik be ez dautsat berari nor naizen esan. Ba dakit irakurriko nabena. Eta ori be ezin esan beste euskaldun askogaitik.

ZUBEGI

Beitakin ala Kazan

Antxoa kostera joana da. Artuengoa ez da izan aundia. Donosti'n beintzat ez degu geitasunik izan. Bi milla ta geiagoan saltzen dan antxua kajak esaten du gutxi arrapatu dirala. Bai; Getari'n eta Bizka'i'ko beste kai batzuetan, bi astetan, ugari ibilli da. Asieran 60 lauerleko kiloko gero 20'ra ere jexi. Ala ere pentsa, nere emazteak, kostera erdian, antxo bakoitza bi lauerko ordaindu zitun. Auek onela dirala, goazen orain beste gai batera atunak aintzakotzak artuaz:

Igaz, zer-esanak, atunak nola arrapatu, beitakin ala kasan; noiztik asi batakin eta noiz besteakin. Artuko ote dituzte aurten ere aintzakotzat igazko erabakiak? Prantzesak ori nai, emengoak beitakin ez joatea, beranduago, eurak baiñon. Ez dira ontzi guziak beitakin joaten, lebatzetarako dauden ontziak, atun kosteran sartzea, kasan malutakin egiten dute. Auentzat obe beste aundiagoak ere berdin egitea. Baiña prantzitarren ak dute nai, antxo-beita urte guzian dutelako beren uretan.

Gipuzkoa'ko ontzi geienak ere, beitakin arraintza au egitea naiago dute. Baiña emen ere ba-daude, Bizkaia'n bezela, lebatzailleak eta pertxalakin joaten dira, ta naiago dute guziak beak bezela arraintzan egitea. Aurten ere sortuko dira urteroko kezkek eta buruko miñak.

Zergaitik ez utzi antxo ta beste arrai txikien beitakin arraintzea? Kalte aundiak datoztela esaten dutelako. Eta au da galdera, ez al dira ba arraintzaleak arraiak arrapatzeko? Zer ajola beitakin ala kasan arrapatu? Ez al dute kalte aundiagoa egiten Canarias aldean eta, ontzi aundi aiek, «alabarda» deitzen dioten orrekien?

Urtero, gero ta urrutiago joan bearrean izaten dira ontziak; Gran Sol urruti dagola? Urrunago ibilliak ere ba-dira. Ta ortarako, aundiak izan bear ontziak egualdi txarrerri gogor eusteko. Aurten, antxuak zabal ibili dira, Prantzi'ko Pontixe'n Burdeo'en, baita Lekeitio ta Getari'ko bazterretan ere, sareak ondua jotzeraino. Orrela egoki zaie, ontziak sakabanatzen diralako.

Beraz, iritxi askotarikoak izango dira Kantauri'ko kaletan, ontzi aundidun eta txikidunen artean. Txikiak dauzkatenak aundirik egiteko gogo gutxi, Getari'ko «Izazkun» ontzia ogei millo laurleko kosta da... beste berri bat geiago ziur. Auentzat, zer egokiagorik beitakin ibiltzea baiñon? Beste ontzi asko, zaartu ta ondutu dira, ta berriak egiteko asmorik ez. Ala ere, ontziak asko dira, ta ez da denentzat arraintzan egiteko tokirik izaten. Geroztik etorri dira eztabaidak, arrairik ezak sortuak. Arraintzarako baldintzak, urrunago joan bearak, legeak eta zigorrak eta guzientzat kaltegarri diran arazoak. Ontzi gutxiago izan ezker, ez ote litzake arrai geiago arrapatuko, eta oraingo eragozpenak bukatu? Baiñan, ez nago orren aurka, guziak daukate ontzi jabe izateko eskubidea.

Laister ikusiko dira nola moldatzen diran aurtengo atun kontuak. Ba'liteke aurten ere Santander'en edo batzea. Gipuzkoarrak minorian izan, eta orrek ekarri leizke kalte aundiak eta asarreak.

Lanerako ordaindu bearak, aundiagoak dira, nola seguruak, diru banatzeak eta tostarteko eskubideak. Guziak errazoi, eta denak bear diran bezela betetzeko, arraiak ekarri bear, eta ortarako itxasora joan bear trabarik gabe.

E. OZKIN

Atomiko Indar - ola

DEBA'N

Patxi Esnaola, Jesus Altuna, Pablo Areso eta Irigaray jaunak, fisika biologi eta sendagintza gaietan jakintsuak, Zubelzu aretoan estudio-biltzar baten mai-buruko izan ditugu Deba'ko errian.

* * *

Gaia interesgarria, esatekoak ugari, gizonak prestuak... aretoa leporaino bete zan. Biologi aldetik agertzen diran arriskuak maixiatu ziran batik-bat. Atomiko Indar-olaren gibel-erriak ere azaldu zizkiguten.

* * *

Atomiko Indar-olak egin nai dituztenak ikaragarriko negozioa dakarte esku artean. Milaka milioiak, eta asko.

Laterriek tximist-indarra bear omen dute geroz eta geiago. Beste indar-iturriak agortu ez badira, neurrian jartzen asiak omen dira, beintzat. Itur berriak bear eta Atomiko-indarrera jo dute...

Bitartean negozioa neurrigabea.

* * *

Negozioak dirua tartean eta irabazia.

Dirua eta irabazia elburu diranean, indarra dute aundia. Dirua elburu bada, dirua sortzen duten bideak, onak izango dira, diru-billa dabillenezat...

Gizartearen aurrean zer jokabide erakutsiko du diruaren ondoren dijoan gizon edo alkar-teak...? Dirua lortzen duten bideak onak dirala erakutsi eta agertu. Bere burua erabiliko dute bide oiek eragozpenik izan ez dezaten.

Ori ala izaten danean, ez gera egi-billa ibiltzen, gure jokaeraren arrazoi-bidea erakusten baizik. Eta, gure elbururako dauden eragozpenak kentzen.

* * *

Atomiko Indar-ola jartzeko erabili diran arrazoiak, guztiak teknika eta ekonomi arrazoiak izan dira. Beste soziologi aldetik dauden arrazoi-bideak ez dira aztertu eta erakutsi bear bezela... Zergaitik ez? Elburuaren aurka (dirua, irabazia, ekonomia...) dijoaztelako. Eta oiek erakutsi bear dira Atomiko Inadar-olaren auzia ondo erabakiko bada.

Ola orrek okerrak ekarri lezazke bere inguruan? Bai, baiña, orrelakorik sekula gertatuko ez dala esan eta zabaldu...

Eta egunen batean gertatuko balitz, zer...? Guk arrazoi aurretik izanagaitik, orrek ez ditu okerrak zuzenduko, eta orduan okerrak guk ordaindu bear.

Arrixkurik ez dagoela esaten duten oiek, bada-ez-bada ere, Atomiko Indar-olen ingurutik urrutira joango dira bizi izaten. Dudarik ez izan.

Arrixkurik ez dago bat ere, baiña, gu geu ez gera Itziar'era joango bizi izaten...

* * *

Deba'n jendea konturatzen ari da eta kezkatzen (gero kezkatzea alperrik izango da). Mutriku'n oso ederki asi ziran; aspaldian, ordea, moteldu ote diran... Zumaia'n ezer egin dute-nik ez dut entzun. Getari eta Zarautz'en ere. ez. Zergaitik ote? Atomiko Indar-olen azionistak ote dira? Edo ta, etor dezaketen okerrak bildurrik ez?

Deba'k arrixkurik badu, ez pentsa Zumai eta Zarautz'ek izango ez dutenik. Geienetan aizea Deba'tik Zumai'ra dijoa: sartaldetik datorren bende bal aize buztia («gaillegoa», alegia). Zumai, Getari, Zarautz aldera joko dute geienetan kutsuak, aizeak eramanda... Iparrak jotzen duanean, berriz, Zestua, Azpeiti, Azkoiti, Elgoibar, Eibar, Plaentzia eta abarrek sentituko dituzte...

Indar-lertzeren bat izango balitz, ez dakit Gipuzkoa'tik zein erri libratuko litzaken... Ondarrabitarrantzako negozioa. Ura bait da urrutien dagoen erria.

Arrixku aundienean Itziar dago. Kurkuxa — conejo de Indias — papera egin bearko degu guztiok; baiña, batez ere, itziartarrak. Kongsolagarri edo lo-eragille, bitartean Ekaiña'ren 15'an, akelarreak gazteentzako, mendian gau-pasa, «moskor-zelai» eta guzti. Beste zer-egitiki ez...?

* * *

Atomiko Indar-ola kamioi zaar aundi baten antzekoa balitz, gu giñake makillekin kamioia gelditu nai luteken mutill-kokkorak. Kamioiak aspian arrapatu bear bagaitu nai-ta-nai ez, utzi ciguzute karraxi egiten... gure bildurra agertzen... gure protesta egiten...

Baiña, arrixkuan gauden guztiok alkartuko bagiña, oraindik ere egin lezake zer-edo-zer kamioi ori geldi arazteko. Ixillik eta lo egonda, ez beintzat. Areago, akelarretan indarrak gasta-zen bagabiltz.

* * *

Ez gaude «progreso»aren aurka. Baiña edozer progreso-klase ere ez degu onartzen gizonaren eta bere alkar-tearen kontra diranean.

Orrelako tresna ikaragarriak sortzea nai-ta-naizkoa bada, aukeratu basamortuak artarako eta ez biziaren-biziz leertzen dauden bazterrak...

A. ARRINDA

ZER EDO ZER

JEAN DANIELOU
KARDENALAREN GOMUTAZ

Igaro dan Orrilleko 20'ganean, 69 urtedun, babatean il zan ain entzute andiko yakintsu au. G. B.

Gerketar yakintza, Idazti Deun, Eleizaren lenengo edesti gailendu gai orreitzaz, idazti sakon eia ugari idatzi ebazan. Eleizaren barrizkunde aldiatan aita Kongar eta Lubac'egaz batera, aurre-nenetakoa izan zan. XXIII Yo'ek Batikano'ko Eleiz Batzarreko trebe ta ikastunen arteko izentau eban. Geroztik, VI Paul'ek 1969'ganean kardenal egin eban. Eretxietan apur bat bigunago agertu zan, aurreregi yon gura eban Suenens eta Alfrink karde-nalakaz eztabaidak izan zituan.

Toki askotan irakatsi eban, batez be, urte askotan Paris'ko Katoliku-Ikastetxean. 1973'ganean Prantzi'ko Akademia'n artu eban. Baiña, idazle yori ta sakon, eztabaidalari zorrotz, izlari trebe izatez gaiñera, ikasle gazteen suspartzaille bardin bakoa izan zan. Toki askotan gaztedi-bazkunak sort ta eurakaz batera bidezkunde ospetsuak egiten zituan, eta ointxe urte bi be, Xabier'era egin oi daben bidezkundean buru agertu zan.

Aitaren aldetik bretondarra izan zan. Aita erriketan gailendu zan ministro izatera eldu arte. Ama normandarra, ikasten eta irakasten gaitasun andikoa. Danielou gorputz ta gogoz amaren seme izan zan. Wladimir Ormeson'eri esan eutsonez, «kristautasunaren edertasun arrigarriak amak irakatsi eustazan». 1928'ganean abade egin zan eta urrango urtean yesuita sartu. Bere illeletan, Arrupe abak itzaldia egin eban, eta esan, Danielou'k nai izan ebala, bere illeletan Kristo'gan berak eukon zintesta bakarrik aitatzea.

G. K. CHESTERTON'EN EUNGARRENA
(1874-1936)

Gizon bakana, bakanik ba'da. Ingalandar idazle ospetsu onek, luzeran 1'90 zituan, eta astunean 140 kilo. Morrosko itzal onek, gaztetxo baten abotsa eukon. Lenengo begirakadan betozko itzaldun gizona, baiña izakeraz begiko, amultsu ta maile-korra. Gogo arginduna, guzur antzaz egirik sako-nenak esaten ekiana, eztabaidalari yayoa, idazle yori ta trebea. Bere idatziak irakurri dituanen arten ez dot uste bere izena entzunda beste barik irribarre egiten ez dabenik izango dan. Ezkerreko begiaz gauzei ez eutsen begiratzen eta beti baikor agertzen zan.

Mutil baldrasa.—Bere bizitzako idazti andi baten diñoanez, gaztetan argal eta luzea ei-zan. Tanzkeraz eta ibiltetan baldras samarra. Ixil eta bakar zalea. Baiña buruz zer edo zer ba-zala,

laster agertu eban. Bost urtedun zala, bere anai Zezil yayo zanean, etxekoai auxe esan eutsen: «Oin, ba-daukot entzule bat». Entzule bakarrik ez zan izan, erantzule be, ta ez makala. Anai biok, gaztetan, ordu osoak ezlabaida baten igaroten zituzan, egundo be asarretu barik; yatekoa gertu egoala ta etorteko, baiña alperrik, anayok eurenear yarratzen eban ta sarritan yatekoa aurretik kendu bearrean aurkitzen ziran. Tamalez, Zezil, munduko lenengo guda nagusiaren amayeran, bakea eginda gero, uste bako tiro batek zauritu ta il zan.

Mutikotatik bere gogo argia agertzen eban. Gurasoei, ingalanderren artean zeozertzat dagozan sendietan itzak ondo oguztea atsegin izaten yake, Chesterton mutikoak ba-ekian ori, eta berak eskatzen ebana emoten ez ba'eutsoen, txarto oguziko ebala zemaizten zituan.

Oso oargea izan zan.—Ospe apur bat artu ebanean, alde guztietara itzaldia egiteko deitzen eutsen. Egun baten erri batera eldu ta ez ekian norako tren artu bear eban, aztu egin yakon, eta emazteari urrutizkiñez itz egin bear izan eutsen. Bere gogo argia ezagutzeko, auxe bakarrik. Egun baten autobusean yoala, iru andrazko sartu ziran, eta berak zintundu eta iru «Graziak» bai liran, bere yarlekua irurei eskeñi eutsen.

Idazle bakana.—Egi sakonenak guzur antzean eta irribarreka irakasten, gatx andiaz atan be, berak eukon txatata iñork ez langoa izan zan. 1908'ganean, «Ortodoxy» eritxon idazti sakon a atara eban. Eta mamiñez katoliku izan arren, 1922'rate Katoliku Eleizan ez zan sartu. Belloc eta Baring'en adizkide andia izan zan. Oneik katoliku idazlerik onenak ziran, orduan.

Eta Belloc'ek ez eban uste katoliku egingo zanik. Zergaitik? Ain zintzoa zalako ez eban uste zinteste auzian ezpairik izan zeikenik be, eta alan, Belloc'eri Chesterton katoliku biurtu zala esan eutsonean, ez eban zintestu gura izan. Katoliku izan ez arren, Bernard Shaw'en adizkide izan zan. Eztabaida gogorak izan arren, egundo ez ziran asarretzen. Ori dala ta, Bernard Shaw'k esaten eban: «Chesterton adizkide baiño gurago dot arerio euki».

Ego-aprika'ko Boers'ekaz Ingalanda'k izan eban gudan, Boers'en alde yarri zan; areik euren buruyabe izateko, Ingalanda'k aiñako eskubidea eukela aldeztuaz.

Eun idaztitik gora idatzi zituan, baiña ezagu-nenak Aita Brown'en polizi-ipuñak dira. A. Brown, Mons. O'Konnor, bera eleizan artu eban abadea izan zan.

Beste gauza asko esan leike, baiña zer edo zer bat zor yakola uste dot beintzat.

GAMA

IRAIÑA

Gogo-barnera begiratzuz pizkat gogoratu dagigun. Konturatuteke noski, ondorenetan pentsatuteke, norbait il dagigu egunero. Ez darabilgu iskillurik eskuetan. Aitzorik be ez. Darabilguzan iskilluak ez dira ikusten. Ostenduta dagoz. Alan be bildurgarriak dira, zorrotzak, iltekoak. Zeintzuk dira iskilluok? Erdizka esandako itz bat... epai bat... irri-barre bat... Ez da agiri odolik eta alan be, zauriok iltekoak dira.

Batek dauan onean zauritzen dot: bere ospean, bere izen onean, bere osotasunean, bere zintzotasunean, bere zuzentasunean. Irainia iguingarria da. Irainiak bekaitzean edo arrokerian dau beti edo geienetan bere oiñarria. Iraini-kin zauritzen dabenak ez dira kristauak, ez dira Kristo'ren jarraitzaileak. Gizonak be ez.

Iñork ez dau eskubiderik bestea irainduteko, besteari izen ona kentzeko. Ez daukagu eskubiderik geurea ez dana artzeko, iñori dirua kentzeko. Izen ona diruaren ganetik dago. Balio aundiagokoa da.

Izen ona kendu dautsagu urkoari geure itzekin? Bere izena, bere ospea ezbaian jarri dogu? Bere akatzak, bere bizitza, bere ibillerak agertu doguz? Biotz-biotzean zauritu dogu. Naizta ez ikusi agirian odolik, bere biotzak odola dario. Lapurreta aundia da au. Gaiztakeri lotsagarria. Erailtza iguingarria. Gu ez gara iñor, besteari izen ona kentzeko. Gu ez gara iñor, urkoak gizartean dauan ospea ostutzeko.

Irainaren ondorenak kaltegarriak izan oi dira. Sarritan zuzendu eziñak. Irainzaileak gizon zuzena biurri lez agertu oi dau gizartean. Irainzaileak gizon ori betiko ondatu dau bere mingaiñarekin. Ondo ta goruntz yoiazan bere bizi-bideak, irainzaileak bere aurka itz eginda, zalantzan ipiñi dau bere izena. Adiskideak eta bere lanetan laguntzen eutsoneak, bakarrik itxi dabe. Orra lurra jota bere ondasunak.

Ezkontza ona egiteko bidean egoan neskatilla a. Irainzaileak bere mingai-ñaren eragiñez zalantzan ipiñi dau bere izen ona, bere jatorria. Orra lurrean neskatillaren amets eta asmoak.

Eta zenbat onelako ondoren, mingain gaiztoakaitik. Ez gaitean izan iñoiz biotz-gogorak besteakin, biotz zabalak baiño. Ez dagigun iñor iraindu ezer-gaitik. Idazteuneko itzok gogoan euki dagiguzan: «Pekaturik ez daukanak jaurti bei lenengo arria».

Ondo zaindu dagigun mingaiña. Ondo neurtu itzak. Ondo pentsatuta gero itz egin.

GOIRIA

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra

BILBAO - Casco Viejo

Tenderia, 15 eta 16

ERRIARAKO

BARRIAK

Markiña

HERR BRAUN'EN ERITXIA

Europa osoan izen aundia daukan Johann Braun, organugille ta musikalaria Markiña'n izan dogu udabarriz. Aspaldion ia urterio jatorku onantza. Bere 80 urte ondo beteak gora-bera, argi dirau oraindiño, gordin, alai ta umoretsu.

Meza Nagusi baten ondoren (katoliku zintzoa da), ona zer esan eutsen bere albokoai: Nire ustez, Markiña'ko Eleizan Alemania'koetan baiño obeto ta gogotsuago abestuten da. Eskerrik asko, Herr Braun!

Ba-dakigu, ba, markiñarrok: Alemania'ren neurrian edo gorago egon ezker, gertu dago gure erria Europa'ko Mercadon Común edo dalako orretan sartzeko? musika saillean beintzat. Sartzen ez ba'gara, errua beeratxoago billatu.

ABESLARIAK LAN-IKASTOLAN

Jaialdi polit bat izan gendun aurreko illunkera baten Laboral Ikastetxean, bertako ikasleak antolatuta. Antxe izan gendun Jon Enbeita'ri ta Bermeo'ko abestaldari ur-urterik entzuteko era berezia: Ta antxe oartu giñan argi abestiak daben indarragaz? egi biribillak zelan, kanta-kantari, biotz-sakone-raino sartu leitekezan.

Areto nasaia naiko beterik (ez ei zan bear besteko zabalkunderik egin); geienak gazteak, abestien mezuari adi ta zur, ta abesti bakotxa gogoz ixalotzen. Gure Erria ta Euskera ziran mezuaren guna. Jaso ta biotzeratu ete gendun bear ainean? Ijui ta txaloak ez bediz merkeegiak izan, posporoen sugar antzekoak.

Agur, Jaunak, bero ta gogoz abestuz amaitu zan jaialditxo. Zorionak eta eskerrik asko Muxika ta Bermeo'ko abeslari gazteoi.

ZIDAR-EZTEGU TA EZKONTZAK

Ogetabost urte aurtengo udabarrarian Klaudio San Martin eta Maritxu Barrutia'k alkarri baietz gozoa emon eutsela. Arrezkero Jaunak bialdutako lore ta arantzak bat-bat egiñik artu ta eroan dabez, maitasunez ta itxaropenez.

Olako urteurrena, jakiña, ez da geiagoko barik galtzekoa ta, Jaungoikoari eskerrak emon ondoren, Benidorm aldera jo ta andik ibilli jakuz aldika-datxo baten. Gauza eder ta bikain asko ikusi ei dabez? baita itxusi ta ezaiñak be lartxo. Bai ba, iñun egon ez gari utsezko solorik, ezta olo utsezkorik be. Biotatik zein dan nagusi, garia ala oloa, ortxe dago unteza. Pozik biurtu dira euren txokora.

Zugatza zelakoa, ezpala alakoa. Gurasoen zoriak adoretuta, Zidar-eztegu egun berean ezkondu jaken euren seme Xabier, Duraldé'tar Maiteder neska argia bide-laguntzat arturik. Jarraitu zintzo,

ezkonbarriok, gurasoen kristau ta euskal bide jator garbiari. Ez aitzu zuon Zidarrezkoa, gurasoen-tzat Urrezkoa izango dala. Seme-alabatxo ugari ta ederrenguz inguratuta ospatu dagiezuzala danok alkar-alcar egiñik. Zorionak!

URREGARAI'KO JAI-ALAI

Sari-banaketa Urregarai mendian, Artibai-Talde'ko mendigoizaleak erata, ogei mendi-gaillur oinperatu dabezanen artean. Angoa bai izan zala benetako jai-alai! Meza Santua ta domiña-banatzeta amaitu ondoren, an egin ziran egitekoak! Ona gogoan daukaguzan batzuk: arin-arinak, soka-tirak eta... (esango ete dogu?) kirkil-batzea. Txapeldunai berarizko sariak. Dana poz eta alkartasun ederrean. (Esan bearrik ez gu ez ginduzala iñok arrapatu. Bai, edonok edozelan arrapatzekoak gara izan be!)

MENDI-GARBIKETA

Laboral Ikastetxeko mutil talde batek egindako lana ez da ixillik eukitekoa. Erranak eder, egiñak lander. Napar esakera zar orri samea biurturik, Bilbao'tar Migel Angel buru zala, Laboral'eko ikasle aldra batek Urregarai Mendira tapa-tapa igon eta tontorra ta inguruak garbi ta txukun ipiñi euskuzan. Duan, ixil-ixillik eta ezetarik panparroikeri barik. Medio Ambiente dalako ori arduraz artzeko eguna zan.

Mutilok trakeskeri ta barrabaskeriren bat ba' dagie, beingoan zabaltzen da erri osoan. Baiña beste lan eder onen barri zeinbategi jakin ete dabe gure artean? Udaletxean nai gendukez olako gizon-txoak. Urrengo auteskondeetan kirkillok autarkirik ba'dogu, begiz joia daukaguz batzuk.

AGUR, MARIA PILAR!

Sasoirik ederrenean, 22 urtegeaz, geroari amesetz eta itxaropenez begira egoala joan jaku Agirre'tar Maria Pilar neska on eta zindoa. Erritik urrun, Prantzia'ko lurretan. Ustekabean. Ara joan zan illa batzuk dirala, prantzeraz trebeagotzeko asmoz. Baiña Jaunaren bideak...

Erri batetik bestera ango iru adizkideekin beribillez joiala, trailler baten albotik igarotetan burpil astun batzuk, 5.000 kilo inguruak, trailleretik jausi ta egin-egiñean lau adizkide gazteok azpian artu ta bapatean il ebezan.

Andik 15 egunera, Bagillaren lenengoan, ekarri euskuen gorpu gaztea errira. Ikusgarria Xemein'go Eleizan egin jakon illeta-agurra. An batu zan Markiña'ko gaztedirik geiena, ixil, pentsakor ta otoiak. Itxaropenik ez olako gaztedi biotz onekoagan? Ba-dakigu, Mari Pili, nun zagozan. Lagundu, ba, goitik orren maite zinduzala erakutsi daben gazteoi.

Gure samin-agurrik biotzekoena guraso, sendi ta adizkide atsekabetuai!

KIRKILLAK

Boise

Pozik eta urduri gagoz emengo aldeko euskaldunok. Ez da gitxiagorako. Il onetan Sanjuanak inguruan, emen izago ditugu, ortik, gure sorterrik etorrita, euskaldun anai batzuk. Eurak ba, zer ikusiko dabenaren zalantzan etorriko dira, emen garan euren senideok nolako itxurea ete-darabilgun asmau ezinda.

Igaz be olan izan zan, baiña lenengo alkar begirakadan, anaiak anai, odolak dei indart-sua izan, eta beti alkarrekin izan ba'giñan lez, patxadan. Gaiñera, emengook euskeraz artu genduzala, izkuntzea ez jakintzeak emosten esturasuna, laster aztu eben. Izan be, etxean ba'lebilla izan zan euren emengo egoera.

Baiña aurtan, aurretik, geuk be izan dogu zertan poztu, eta zertatik datozenen ongi-etorriko gertau. Emen dogu, gureartean Jorraillaren erditik, Oñatibia'tar Jon jauna. Guretzat, Euskalerraren zati eder bat. Ta bere ekiñean ainbat gauza eder bete dauskuz, emengo euskaldunen oberako.

Jo ta su ibilli da, ta egunak arin joan yakuz, eta uste dogu berari be bai. Orain Nevada'ko gure anaiengana joango da lan bera betetera. Ara zertzuk osotu dituan gure Idaho onetan:



Gaztetxoendako euskal-ikastaroa, astean iru egun eta bakoitzean ordu t'erdi. Orretan aurrera jarraitu al izango daben irakasleak gertatzea be bai beste asteko iru egunetan. Aurrekin «Jolas bide» ikastera erabili dau, nagusiekin «Euskera artez».

«Oinkari» dantzari taldea trebetzen, «Anaiak danok» abeslari bide barriak zabaltzen, or ibilli da eten barik laguntzen. Txistulari barriak be sortu dauskuz, or datoz gora 6 gazte, ta il onen 14'ganean izango dogun jaietan, berari agur egiteko asmau dogun jaietan, gazteok be agertuko dira euren aurrerapenak erakusten.

Ta, ori bakarrik ba'litz; or egin dabena ille bi barruan zifistekoa ez ba'da, zer esan emen eta or emon dauskuzan soñu ta erestaldiegaitik. Ez, ez dau atsedetik izan, baiña ikusi bear, gu pozik ikustean, nolako poza daroan berak be.

Ikastoletan egiña agiri-agirian dago, ta orrek dakarren ondorena garbia ta itxaronez bete da guretzat. Orain, egun oneitan, Jordan Valey'n lenengo, Shoshone'n urrengo eta or aipatu dogun 14'ganean emen Boise'n eres eta dantza aldiak eskeiñiko dauskuz: «The Oinkari Basque Dancers» eta «Anaiak Danok Choral Group», eta txistulari zar eta barriok, zer ikasi daben, eta zertaraino elduko leikezanaren ezaugarriak.

Orain, Nevada'ra beste illebetet t'erdirako doa. An be, erren nekatu zan bardiña betetzera. Ez da ez erren nekatu zan bardiña betetzera. Jon au, ba-dau bai kemena, zaletasuna ta ikasia, ta danoren gainetik, euskaldun anaiari erakutsi naia. Agur Jon, zorionak eta gure eskerrik beroena.

Jakingarri batzuk: AGUR'en lagun ona dozuen Miren Rmenteria ezkondu jaku, bere senarra Joxe Mari Artiatx dozue. Udabari erdian, Orrilleko 25'ean ezkondu da.

Egun batzuk lenago, 18'an Julie Txakartegi ta Francis Lostra ezkondu ziran, len banaka ebillazena, orain biñaka, lan andiagoga egingo dauskue gure euskal-lanetan. Zorionak AGUR'etik bikote bi jator onerri.

Ortik datozen euskaldun orreiri sarrera on bat izan dagien, San Pedro egunez, ongi-etorri jai eder bat eratu dauskue emengo Euskal-Batokian. Illuntziko 8'retan asiko da, eta Jim Jausoro izango dogu ereslari.

Ta, gure anai oneik ona datozelako, il onen 22'an emen izan bear zan dantzaldia, orreik be ezagutu dagien, Garillaren 19'ra aldatu dauskue. Gloria Miller eta Gloria Ganboa dira jai onen arduradunak, eta Jim Jausoro ta bere taldea ereslari emen be.

Mendirako ibillera ta bazkaria be, beste egun batera aldatu ditue, emen be ortik etorritakoak izan daitezkan. Orra ba, Garillaren 21 batean izango da eta Erriko Baratz nagusian alkartuko gara eguerdian.

Garillaren 28'tik Dagonillaren 3'ra arte, EXPO diritxagun ekintza orretan, Euskal-agertze egunak izango dira. Or Oinkari ta beste erakusketa asko izango ditugu euskaldunen alaiagarri. Bertarako barri geiago, USA'ko Euskaldun Batzokien Alkartetik jaso al izango dozuz egun batzuk barru,

Dagonaillaren 17... Reno'n beste euskal-jai eder bat, eta ori dala-ta, emen aipatu dogun Batzokien alkarre orrek bere billera nagusia izango dau.

Udabarriko beste zertzelada batzuk be aipatu bear zuentzat: Igaz, pelota jokoa txapeldun geratu zan Ibarra'tar Andoni'k, aurtengo txapela ezin izan dau jaso izan, Granview'ko Abadiano'k irabazi dau, 22-21, orko Erreteregi ta Goroztitza'ren neurri berean, bost aldiz parrean egonda gero. Larogi lagun izan giñan azken-joko au ikustera joan. Gitxi uste dozue? Guretzat garaipen aundia izan da,

Briskeak be izan dauz bere txapeldunak, Maguregi'tar Joxe Mari ta Ibarra'tar Daniel Zorionak danori!

Gaztetxoak be ba-dauke non eta noekin pelota jokoa ikasi. Talde bitan, 6'tik amabira artekoak, amabi urtetik gorakoak. Joan larunbatetan gure Pelota-tokira, edo aurreik itz-egin Atxabal'tar Julian'i.

Dagonillaren 1'etik 4'ra bitartean, ba-da beste ibilladi eder bat berebil aundi baten. Arduradun Urresti'tar Vicki dozue; ibilli arin. Ez aztu beste jai bi oneik be: Elko'n Garillaren 6'an; Ely'n Garillaren 20'an.

Ta, azkenez mendigoizaleentzat eta batez be, itxas-ertzean eguzkipean luzaro ta geldirik egoten dirantzat: Emetik aurrera, kontuz ibilli, neurketa zeatzak egin izan dira ludi guztian eta iru O'dun ozono ori asko gitxitu dala be jakin. Ori, berez, ez da izpar bildurgarria, baiña ori dala-ta, «ultra-violeta» izpiak ugariago datoz eguratza zear gure narru gaiñera, ta guztiz kaltegarria da. Narruko kanzerra sortu al izateko aiñakoa. Kontuz ba!

Ona emen, al danik laburren, eta iñoz orruntz eta iñoz onuntz begira, batu al izan dodazan barriak. Gorantziak eta ondo izan!

SYLVIA'K

ESNEAGAZ EGINDAKO

ESKATU BARRIARI

UMETKUENTZAT

ADINEKUENTZAT

CHOBIL

ESNEAGAZ EGINDAKO

ARRATIA

Gorbei'tik

Aspaldiz, ez dogu Gorbei aldetik barri askorik izan, baiña an jazo izan diran gauza batzuk, asteroko onen irakurleei esan nai dautsedaz, Udabarria amaituta, an goian euren bizitzea egiteko urtearen arlo luze baten, artzaiñak mendi tontorretarantz egiten ikusi al izan doguz.

Ikusten doguz, baita, egunak igaroten doazan asko be, bidez-bide oiñez, eta beste asko, euren berebilletan, Pagomakurre'arte, gero andik, urrago daukeelako, edo... Ikusi al izan doguz, beste batzuk, sendi osoagaz doazela, ta ze polito ikusten diran. Baiña sarritan, ortik dabizan taldeak, euren txakurrak be eroaten dituez.

Eta ez dakit zelan, sarritan, txakur orreik desiei edo nondik dabizan jakin barik ibiltzen dira, ta ortik sortuten da arazo illun bat: abere orreik nundik dabizan ez ba'dakigu, ez dakigu zer egiten daben. Ontxe denpora asko ez dala, olango txakur batzuk, an trankil ebillazan ardi batzuk aurrean artun eta or eroan ebezan. Gero, urrenge egunetan, aurkurtu ezinda ibilli ta gero, batzuk guztiz apurtuta aurkitu ebezan.

Olangoak, barriz, sarritan jazoten dira, ez dira oraingoak bakarrik. Ta, ori, gauza motsa da, bai mendigoizale, bai, batez bere, bertan abereokaz lan egiten dauanantzat be. Beste barri bat be, ba-daukat emoteko, ta benetan tamalgarria gure arterako. Au be ez da gauza barria, iñoiz geiago be jazo da-ta. Lengo egun baten, Gorbei'ko aterpe bat, ate ta giltz zulo guztiak apurtuta aurkitu eben. Ez dira izan bearrizanean egozanak, ez. Baton bat ondo gogo txarragaz joan zan.

Ate ta arasa guztiak zabalduzik agertu ziran eta or egozan gauza asko saskilduta. Beste zeozer, eroan be egin eben.

Uste dozue, ez dala au gauza tamalgarria ta lotsagarria? Benetako mendigoizalea danak, uste dot, ez dabezala ontzat artuko puntu bi onetik, eta onartzen ez doguzan lez, ea ba danok alkartuta, aurka egiten dautsegun.

Zeozertxo geiago esateko, Elo-iturri'ko ostatuari buruz, auxe ipiñi nai dot: Areatza' tik gora ba'goaz berebillea, etxe aundi batera elduko gara, ori da ostatua. Esan dodanez, berebillea joan al izango dozu bertaraiño, ta oiñarteño mendira, zarateari ta kee txarrei alde egiteko joaten izan ba'gara, zer jazoko da gero...? Mendizaletasuna nun lotuko?

KANTARI'K

Arratia

Pozkor eta asarrekor Arrati'an gora datorkun aste onetako aizea, geinbat, Lemoa'ko ostikolandaatik datorku. Eperdian gindilla dabiltz lemoarrik mailla bat jatsi diralako. «ARRATIA»gaz jokatu bearragaitik eta irabazi... ori gero ikusi.

Baiña ostikolari talde bi onen artean, ikusle ta indor-emoilleetan, ostikada maltzurrik eta ikubiltzarrik ez da izango. Euskaldunak euskal-landan ezin egin izan daben «bake-zubia», egiñik dabe LEMONA'k eta ARRATIA'k.

Zubia egin dauana, Lemoa'ko semea dogu, Bilbo'ko Atleti'n ostikolari izandako Betzuen berbera. Betzuen'ek itunben-kontrato barri bat egiñik izango dau, au argitaratuko danerako. Betzuen ezkontzara doakigu, Iurre'ko neskatil maratzengaz. Oraingo «ekipoko entrenadora» oarkari barriak,

ez dagikiara erakutsi, bizitza guztian, «kasetarako tarjetarrik». Ondo ta pozik izan zaitzeze.

* * *

Lentxoago, Lemoa'n izan zan ziñegotziak aukeratzea zer esantsua zalakotzaz-edo, bastertuak izandako Ereño'k eta Salduegi'k izango dabe aukirik eta non jarririk, Lemoa'ko Udaletxean.

Izan zaitzeze bada, burrukalari gogor, zuzentasunaren ardatz eta zilbor. Erriari ez egin entzungor, ni neu ondo nago ta or konpon. Ez izan indarraren zuzenkeridun, izan zuzentasunaren indardun. Eta bide barriak urratzean, izan erria kontuan.

* * *

Bilbo'ko auzotegi batean izango diran jaietarako —abeslari narturaren batek abestuteko ziur asko— egiñik dagozan bertso antzeko bi, irakurri dodaz. Bermeo'n ere izan zan abes-jaiia, eta abestietan itz traketzik. Bilbo'ko auzotegirako egiñik dagozan bertsoetan, traketzik ezeze, astun, ustel eta usain txarrekorik ere ba-da agiri.

Non dogu lagun urkoarenganako begirapena, «errespetua»? Non errietako endore ta auzunetako endore-ordezkaririk, ats gaitzo ustel-kiratsdun itzak ez galerazoteko?

* * *

Gipuzkoarren «eskumuiñak» gure gorantziak. Eta gorantziak izan dodaz, Iurre'tik Bekoetxe'ko Turrebaso'tarrenak. Zeanuri'tik Patxi Barrene-txearenak. Eskerrik asko!

Emen doakizuez ba, nireak be, mamintsuak eta gozoak.

* * *

Teleikuskiñeko barrietatik jasoa: «Prantzitarak gerrikoa estutu bearko».

Jakin bear doguna: Illunbe'ko atxa laiñoz estaltzean... euria laster izango erbarrenean. Artu aterkia eskuan!

LANDAJUELA'TAR A.

Mendexa

San Isidro eguna zala-ta, jaialdi polit bat euki genduan erriko gazteak antolatuta. Eguardian pelota jokoa, ta arratsaldean, umeen jolasak: saku-karrera, oiñarinketea, sokatira ta euskal-abestien sariketea. Gabean, erromeri alaia, Amoro-to'ko Leon. soñujole zala.

Lorailaren azken igandean, urtero lez, Lekeitio'ko abade Antonio Zamora jaunak, ume talde aundi batez igon eban Mendexa'ra. Umeekin batera, euren guraso asko be bai. Amabietan euki eben mezia. Ondoren, umeen jolasak eta espata-dantzarien saioa. Eguerdi inguru polita eskeiñi euskuen. Zorionak guztioi!

Lea araneke bost erri onetako neska-mutil gazteak, Amoro-to'ko Oleta auzuneko jaietan, jaialdi polita antolatu eben. Baita bertako zelaian estalpe polita jarri ta edari ta txurroak saldu be. An atera eben dirua, bost errietako umeak kolonietara eruateko dabe.

Beste errietan be, bertako jaietan, beste orrenbeste egiteko asmoa dabe. Ba-dauke gazte onek, lenerako gogoa!

Aurrera guztioi!

TXAKARTEGI'TAR JOSE

BARRIAK

Galdakano

ARALAR'EN

Urtean baiño urtean, ospe andiyagoan doia, joan be, Aralar'eko Mikel Deunaren eleizan eta bere ingurutean, Gorputz Deuna'ren egunean egiten diran jayak, eta eunen bat edo geyago, galdakanotar, an izan giñan; batzuk berebil andietan, beste batzuk txikereetan, edo al eben erara.



Ez eban eguraldi guztiz garbia egin. Andik diran ikuskizun zorregarriak nai gendubazan bezela gozatuteko, baiña egotaro ona egoan eta giro ohea, euskal-giro pozgarria bertaratu ziran millaka gazte alai kementsu ta ain gazte ez ziran askoren artean. Ain giro ona eze, beti ikusi nai genduke gure gaztedi ederra, an aurkitzen zana bezela; erri-zaletun sutua euren bularretan ebela. A zan izan be, ikusi nai genduken gaztedia. Ba-du oraindik, zorionez, Euskalerrria'k gaztedi lerden bikaiña. Bear leueguna, azkatasun pizka bat geyago da, gaztedi orreri bide ziorrik zuzenenak zeintzuk izan leitekezan ikusi-arazoteko.

Eberdiko amaiketan, meza nagusia izan zan, baiña eleizak artuko leuskian baiño askotaz notintza andiyagua aurkitzen zan ezketiño, eleiza ondoko goi-zelaikadan ospatu eben alkarrezko meza ederra, txonitza egoki ta guzti. Itz baten, egun zoragarria Mikel Deuna'ren inguran igaro gendubana. Benetan gogoz abestu zan an, «Mikel Deuna, yaboizu Euskalerrria!»

ERES-JAIA

Gure AGUR'en iragarrita egoan bezela, Bagil onen 15'gnek arrats beranduan, erri ontako «Regio» antzokian, emengo Andra-Mari dantza taldeak antolatutako euskal-jaialdi bikaiña ospatu zan, areto guztia ikusle betetarik zala. Ba-litzake, iragarri ebezan «Araba» abesbatza ta Ozkarbi'ko Bakartxo eta Iñaki bikotea, baita Xeberri abeslaria emen Galdakao'n iñoiz entzun bakoak ziran abestiekin eta Andra-Mari'k aurkeztutzen ebazan dantza ikas-barriak ezagutzearren-edo, notintza andi a bildutzea, antzoki guztiya beteteraiño.

Oso atsegin izan ziran abeslari orreik, orregaitik entzun dituez txalo-ots beroak, bertaratu ziran ikusle ugariengandik. Zetan esan bez, Andra-Mari'ko dantzari ta txistulariak entzun ebezanak, gartsuenak. Izan be, gaur egun, Andra-Mari'n diran bezelako dantzari azkarrak dantzatutzen diran baiño obeto, ezin legike jantzan egin.

Eta zer esan geinke Zamalloa anai txistularietzaz? Gorgarriak dira izan be, txistulari gazteok! Ori, euren ikasketatik ateraten daben asti gitxia baiño besterik ezin dabela artu geyago trebetutzeko. Asti andiagooa ba'leukee Zamalloatarrok, ezetariko zalantza barik, gorengo mailletara elduko litzakezala uste dogu.

Benetan jaialdi bikaiña gure errian entzun eta ikusi gendubana. Ea laster baten beste orrelako bat gozatuteko zoriona izaten dogun erriarrok, bearrezkoak be ba-dira gure oitura garbi kementsuak yabon eta indartuko ba' doguz-eta.

BASA-JAUN

Arrasate

LEIAKETA BAT

Ill onen 8'an eta «GUREA» antzokian, Ikastetxe ta Ikastolako abesbatzekin eratutako leiaketa izan zan. Or sartu ziranak auxek izan ziran: Almen, San Viator, Dorleta, Alkar, Arantzazu eta gure erriko Eskarnetarrenak eta Ikastolakoak. Danak saio ederra izan zuten, baiña nere ustez, Arantzazu'koak izan ziran ondoen abestu zutenak.

Ikusten zan, oneik obeto gertatu egozala, eresi-ikasketa barrenduago, noski. Onek ez du esan nai, besteak txarto egon ziranik, ezta gutxiago ere, etziran besteen atzetik gelditu.

Bai abotsez, bai batasunez, goxo-goxo abestu al izan zuten ikastolako ogetamar neska-mutilak. Zorionak euren zuzendari eta irakasle izan duten Martin'dar Joseba maixuari.

Illaren 12'gnean, Ezkoriatzako Parrokian abestuko dute abeslari guztioek.

EUSKERAZ EGIN

Lenago be esanik naiz, baiña atzera be jardun bear gai berberakin. Lengo baten, neure zar-saritu irabaziaz jasotzen joan nintzanean, emengo Aurrezki Kutxa etxean euskera ez dala bear bezin ugari erabiltzen nabaitu nuen.

Etxe orretako langilleak, geienak euskaldunak izanik, bertaraten garanonekin erdera erabiltzen dabe batzuk. Eta ori ez dago ondo. Gure euskerari nortasuna emon bearrean gara, eta euskaldun danok euskera erabili bear dogu. Bai Aurrezki Kutxetan, bai beste Banku-etxetan be. Olan egiten ba'dogu, etxe orreitan langille euskaldunak eukitzera bear-tuko ditugu.

UDALAITZ

Ondarru

«Kitolis»en tirabira a dala ta ez dala, iritxi batzuk agertu ziran gure AGUR'en. Alde bietatik eta luze gaiñera. Orain beste bi jaso doguz, bata Motriko'tik. «Ondarrutarra»ren alde, beste «Kresala» taldetik, «Atxukale'ren alde».

Auxe erabagi dogu: denpora luzea joan da eztabaida a agertu zanetik, orregaitik, ez dogu giroa zorrozteko asmorik, eta guregaitik, ez da barriz biztuko.

Orra ba, zuen idazlan barriok, beste zerbaiteko bear ba'dozuez, or itzuliko dautzueguz, eskatzen ba'dauskuzuez.

AGURREKOAK

FERRETERIA UNCETA, S.A.

Landola tresnak - Galtzairu neurri zeatzekoak
Langailu guzietarikoak - Leunketa gaiak

Ibarrekurutz kalea 14
71-10-00 Urrutz.
Apartado 18

E I B A R

ARIZKUN

Eleizetan gizonci ez eutsen koroetara sartzen lagaten, ez eta emakumiei beste andrazkoen artean jezarten. Kororako eskalleren azpiko egal baten baztertuta egon bear izaten ziran.

Eskintza egitean, ofrendan, abadeak ez eben artzen eurenkandik ogirik. Orren orde argizariak edo korradu eta lobenak eroan bear izaten zituen. Eta beti be azkenengoz egin bear izaten eben eskintza ori.

Bakea opatzeko unean, «pax tecum» a, alboa emonda agertzen eutsen.

Ur bedeinkatua eskintzeko, isopoagaz edo eskuagaz urrundik jaurtiten eutsen.

Gizonak ezin eikien errialdean oi ziran jantziakin ibilli, ez eta emakumeak beste erriarren antzekoekin. Oneik, kolore orietara jo bear eben, edonun be zagonak izan eitezana.

Lurren jabe ziran be ez eutsen lagaten euren ortuariak saltzen. Origaitik bestelako zeregiñak artu bear izaten zituen bizi al izateko: errotari, konpongille, argin, arotz, zestugille...

Errietan euren etxeak besteengandik baztertan egoten ziran, alde baten.

Lagunarteko jardunetan askok ez eutsen berba biderik emoten. Inoiz zerbait esan edo agertu bear ba eben, laster lotsatu eta ixiltzen zituzten esanez: Ixo, agota, ixo, arraza gaiztoko.

Esan dot izena. Bai: agotak. Edo txistronak, edo kristiñauak, edo len-pikoak. Deitura orreik emoten eutsezana. Ezagutzen ez?

Goazen Arizkun'era.

* * *

Elizondo'n egalean dago Arizkun. Baztan balleran. Naparroa'n.

Bide luzetik nator. Danetara be Euskalerri'tik.

Donibane Garazi'n nagola, Baigorri'tik zear, Izpegi aldatza igaro dot. Goain mugako agea luzatuta bidea ebagiten. Beratuago dagon txabolan kontu kontari egozan zaindariatoko bat etorri, zabaldu ta aurrera. Gora ta berako bide onetan, bertatik igarten diran baso-ondoetako bideen ma'asa ta sakonaz konturatzeko erarik ez da artzen. Baso ikaragarriak, bildurgarriak guretzat. Kontrabandistentzako bide oi, errez eta aukerakoak nunbait.

Errazu'n sartu, Maya'ra doan bidea laga, eta Iruña alderakoa artuz, ara Arizkun.

Erri polit, garbi, txarmanta. Etxe dotoreak. Berde ta zuri asko. Armarridun ugari. Bidasoa ibaia, erreka, albotik zear. oraindik kutsu eta usteldu barik.

Ez al da inor bizi etxeetan? Lcioak itxita, geienetan. Ez ete dakie barrukoak kalean inor dabilenik? Bertako kantu bat gogora datorrit: «gure etxea lakarrez, zenbait aldiz bakar ez...»

Begira nabil. Ze ikusi, a ikasi, esaten da. Eta euskaldunok ba daukagu ze ikusi bearra gure izatean. Jauregi jaso bat aurrean. Etxe andi, palazio bat. Ikusgarri. Au al da ainbat aldiz antxiñako kontuetan agertzen dan Ursua'rena? Agoteen adiskide eta laguntzalle on izan ziran Ursua'ren jatorrikoena ete da? Ez. Aruntzago dago a, Ordoki'n.

Baztan errialde ezaguna osotzen daben errietako bat da Arizkun. Ikusten dira bazter eta toki askotan emengo ikurriñaren agerariak. Ikurriña eta eskudoa, dama jokotarako laukien antzera, uts eta bete, urre kolore eta baltzetan. Baztan'goa, era berean agertzen da, baiña angoa baltz eta zidar koloreko lauki edo kuadroetan. Erakusteko dauke inguruotan bertako ezaugarria. Bazter batzutan ba dirudi jaiak gertatzen dabilzala. Bateria itandu dautsat: Noiz dira emengo jaiak? Eta berak, bertsoa osotu nairik: Urtean bein da San Jun, jaietarako aparta Arizkun.

* * *

Agotak dirala ta zer diñodan?

Ia berrogei urte dira, Bilbo'ko egunkari baten, bear bada bilbotar dirudunak leku berezi orretan batuta bizi ziralako, euren interesetatik kanporako guztiari gor eta itu egiñez, «agotek Gran Via» izenpuruz edo deñañez egindako lan bat irakurri neban. Ez nekien nik agoteen barririk. Eta zer ete ziran jakiteko ardura artu neban.

Gaur be asko egon leikez ez jakin orretan. Bein beingoz itandu dagigin: Egon ete ziran agotak?

Maitemintsu dabilzan biri entzun:

Agotak ba diadila ba dizut entzuta: zuk erraiten deitadazut ni ere ba nizala, Egundafio uken banu demendren leiñuria, eninduzun ausarturen begila so eitera.

Jendetan dan ederrena umen duzu Agota: ille ori, larru xuri eta begi fiabarra. Nik ikusi artzaintan zu zira ederrena: eder izateko aments Agot izan bear da?

Ainbesteko maitasun eta ametsez alkarri kantuz diarduen neska mutil oneik, izan ete leiz auzokoen artean arraza madarikatu lez ikusi ezinda bizi ziran gizataldekoak?

* * *

Aurrean Bozate. Arizkun'go auzo. Bertako auzorik andiena. 160 lagun inguru bizi dira emen. Alkarren ondoan, etxeak bata bestearen aurrean pilloan, edozein baserri-errietan egoten diran antzera.



Agoteen bizi lekuri entzuteku eta ezagunena da Bozate. Ez uste emen bakarrik bizi ziralako. 1513 urtean ainbeste irain eta deñañez minduta, Aita Santuarengana jo ebenean, euren eskubideentzat begirapen eta lotsa eskatzen, eurentzako beste gizonen giza legea eskatzen, Baiona, Iruña, Osk, Jaka eta Akitz (Dax)eko obispaduetako leku askotan ezagutzen ziran. Eta leku guztietan bardin. Ikusi eziñak, baztertuak, irainduak.

Zer da gaur gizon bateri esan leikean berbarik garrut, mingarri, laidotsu eta destaintuena? Sasoi baten, segurutik, agota deitza zan. Autu eta juizio asko egin ziran errietan batak besteari ori deitu eutsalako.

Zer eben, baiña, agotak, baztertuta bizi-teko? Ez ete ziran euskaldunak gure errialde onetan? Gaixoren batek mendetutako gizonak ete ziran, lepradunak bear bada?

* * *

XIII gizalditik ba dago agotan barri.

Lepradunak ete ziran?

Gai 121 urte, jaiña da Frantzeko errege batek 302 urtean, kaletan baztertuta ebiltzan gizonen batualdi bat egitea agindu ebala. Sasoi aretan Frantze eta Naparroa'ko erregeak bat ziran. Eta Lizarra'n, Estella'n, 20 lagun sartu zituzten eta giltzapean euki ia urte erdian. Muskaria'n, Tudela'n, ia urte beteana.

Gaizotak ete ziran edo gaixoaren bildurrez baztertu ete zituen? Sasoi aretako kontuak arrigarri dira. Orrelako asko ebiltzan errietan. Tour'en, egun baten, 160 erre zituzten, gaixo egozala-ta. Ibai eta errekek usteldu eta pozoituten zituenak ei ziran.

AGVR

Apartado n.º 2 BILBAO

FRANQUEO CONCERTADO 08/55

Errioxa'ko San Millan

EUSKAL-ITURRI

«EDILI» argitaldariari esker, eskuetan degu gure irakurleak errez eta gozoro irakurri aal-izango duten euskal-liburu berri bat, «ERRIOXA'KO SAN MILLAN, Euskal-iturri» deritxaiona, gure «LATXAGA» ospetsuak dizdiratsu idatzi eta Lekuona'tar Imanol jaunak «Itzaurre» oargarri batez geitu, ta San Millan'go argazki ikusgarri batzuekin apainki jantzi ta osotua.

Lekuona jaunak, inoiz, burutsu ta arrazoitsu oarrarazi izan digunez, «euserkeraz oldoztu edo pentsatuta idatzia izan bear du» euskal-irakurgaiak; ez ordea, «erderaz pentsatu ta euserkeraz idatzia», errez eta gozoro irakurriko ba'du euskaldun irakurleak.

Bearrezko baldintza naigarri onen arauz, jatorri idatzirik datorkigun —bere oraindaiñoko euskal-idazlan guziak bezela— aztertu degun «LATXAGA» ren «ERRIOXA'KO SAN MILLAN» liburu onuragarria.

Larogeta emezortzi orrialde aundi dakarzi, izki argiz irarriak, errez eta atsegiñez irakurri degun liburu aipagarriak; amasei zatitan berexeturik eskeintzen dizkigu gaiak.

Baiña, nolako gaiak? Arlo onetzaz, begira zer digun «Itzaurrean», Lekuona jaunak:

«Irakurleak orain —ba-dakigu— irakurtzen asi baño len, liburuaren garrantzia ta balioa jakin naiko du. Eta nik, pozik emango nere iritzia... eta nere aspaldiko esan-bearrak gañera.»

«Aspaldidanik —darrai Lekuona jaunak— neukan nik, gure gaurko Euskal-errian norbaitek San Millan'en berri bear bezela eman zezan irria. Euskaltzalesunez, Euskal-erri dagokion eskubide jatorrez.»

«Izan ere, Bertzeo'ko San Millan euskalduna zan arren, eta aspaldidanik Euskal-erri osoak Santu zaar oni izan dion debozio-jeiera arren, azken-aldi oetan ostendurik zegon gure artean gauza ori. Azken aldi oetan Santuaren euskalduntasun ori azturik eta ostendurik gendukan. Gaztelerriko Zaindari egin zutenez, Santu erdalduntzat aurkeztu izan bai-digute, San Millan, zenbait idazlek. Gure «Latxaga»ren auspo bizkorrek arrotzen eta astintzen ditu, ederki, gauza onen gañean pillatu diran autsak: «Latxaga»ren liburuak ederki baieztan digu San Millan'en euskalduntasun ezin-ukatua. San Millan sortu eta bizi eta il zan lurraldea, Santuaren garaian —VI-VII gizaldian— Euskal-erria zan, San Millan euskalduna zan; gu bezela, euserkeraz mintzatzen zan, leen jakin ori gure Erriak, gero, idazle batzuen egite okerre, aaztera iritxi bazan ere.»

Eta, Lekuona jaunak, azken-itx oargarri abekin bukatzen du bere «Itzaurre» jakingarria:

«Ixtoria zaarretako kontu zaarrak berritza, oso egoki da beti, eta zer esanik ez gaur bertan ere, gure lagun zaarrak egin duan bezela. Orra, beraz, «Latxaga»tar Jose Maria apaiz jaunaren liburuak „uztiontzat duan garrantzia».

GAIK: San Millan, Euskal-erriko mendietan; San Millan, artzaia eta lekurairean; San Millan'go lekaidetxe zarra ta Euskal-erria; San Millan, euskal-kulturaren iturria; San Millan, Euskal-erriaren sinismenaren iturburu; San Millan'go lekaidetxe berria; San Millan gaur; San Millan'en bizi bertsotan; Bi itz Errioxa'ko euskaldunak; Irakurritako liburuak.

ERASKIÑAK: Silos'ko Santo Domingo (1073-1973). San Millan 1074. Estibalitz. Astigarrabia 1081. Errioxa'ko San Millan.

Irakurgai ezitua ta garrantzitsua, benetan, San Sebastian'dar Jose Mari «LATXAGA» jaun matagarriak liburu goxo onetan eskeintzen diguna. Zorionak! lagun ona.

ZELETA

Ortik, bear bada, jenteen artetik baztertuta bizi eragitea.

Ez ete ziran euskaldunak? Ezin ori ukatu. Ainbat aldiz irakurri lei Arizkun'en, Erronkari'n, Isaba'n, edonun, agotan aurka artzen ziran erabagiak, euserkeraz adierazoten eutsezala, ori zalako euren irakuntza.

Begiratu abizen askori: Agerre, Beñatena, Danborimena, Etxeberria, Ibargoiara, Mugari, Urdax eta abar.

Norbaitek esan izan dau godotarren arte-tik etorritako talderen arraztuak ziralako. Onetan, beti be, eritzi ez bardin ugari.

* * *

Gizaldien mendean gauza ziur bat dago: Erria agotan aurka egon zala. Eleiz-gizonak, errukitsu, baiña arein eskubideak zaintzekotan erriarekin asarretu nai ezta. Erdiz-erdi. Aizekaldetik jokutzen. Erroma'ra be jo eben agotak. Aspertuta egozan eleizetan be baztertuta ikusteagaz. Erriko biraotzallerik andiena be euren aurretik joan bear izaten zan, Kristo berbera gurtuten be. Ori, agotantzat, benetan mingarri zan. Abadeak konturatzen ziran. Erroma'tik ba ekien etorten agindu zorrotzez. Roma locuta, causa finita? Emen ez. Errietako agintariak ba euken zeri eutsi: oiturak, odolezko jatoriasuna, agotan izakera narraza, oraintzuko errikotasuna eta abar.

Urteak igaro zituen agotak euren esku-bideen alde. Oraindik 1827'n, arizkundarrak agoten aurkako kantu barriak atara zituen eta kalez kale kantari ibilli. Bozate'tik Iruña'ko gotzainari dei egin eutsen. Elizondo'n be etxe bateri arrika egin eutsen, agotan aldeko zalako. Nekez galdu da euren aurkako amorrua.

Bozate au ikustean, edonori be gizonen eskubide minduak goitik berako arrada eragiten dautse.

* * *

Milla bizilagunera ez da eltzen gaur Arizkun. Oraintzuko estadistika batzutan 854 bizilagun kontatzen eutsezana. Arizkun bertan, au da, erri buruan, kalean, 506; Bozate'n 152; Ainzioalde'n, 68; Ordoki'n 66 eta Peralas'en 62. Erriburuko 26 lagun kenduta, beste guztiak euskaldunak.

Ikusten denez, agotan oiñordekuak euskaldun jarraitzen dabe.

Euskal-erriaren erri ikusgarri ta ikasgarri asko dagoz. Arizkun onek ots andia' atara eban luzaro. Gaur, nekeak aulduta lez, kontu orreik aaztu ditu zearo. Eta Baztan'go balleran, udabarriko berdetan, bizi-era eratsu bateri lotuta bizi da bakearen ametsetan.

A. ZUBIKARAI

AGVR

V URTEA
145 ZENBAKIA

ASTEROKOA
1974 - GARILLA - 13

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

OMENALDIK

Omenaldiak gizon ospetsu ta jatorrai egiteko oiturea geroago ta zabalagoa da gure artean. Irakastean, billaketan, elertian, aberri-zaletasunean edo olako sailaren baten lan ona egin dabena, lan orregaitik Erriaren izenean eskerrak emoten jakez eta eurakaz jai-aldi bat egiten da.

Omenaldi oneik ez jakez egiten sailla guztietan ospetsuak izan diranai. Ba dagoz sailla batzuk berez madarikatutzat gure gizarteak ditunak. Orduan, omenaldia egitekotan be ixilleen eta etxebarruan egin bear izaten da. Guztion gogoetan dago zeintzuk diran sailla madarikatu oneik.

Inoz, sailleagaitik izan ez arren, bear dan haimena lortzea be ez da erreza izaten eta omenaldia gertatua izan arren, itzi egin bear izaten da.

* * *

Omenaldiak egitea ontzat artu bearko dogu.

Berez, eginbearra beteteak ez leuke bear omenaldirik. Geienetan ori esaten dabe omenaldietan goratuak eurak: «Nik ez dot eginbearra bete baiño besterik egin, eta ori egiteak ez dau omenaldirik bear». Baiña, zori txarrez, eginbearra zeatz eta zintzo beteten dabena ez dira asko izaten; beste batzuk, ostera, ugaritasun aundiaz eta lan sakonaz bateten dabe zeregin ori. Oneik dira txalogarriak eta omenaldia zor jakenak. Sarritan gizarteak berak be asko lagundu dautse lan sakonak egiteko, baiña euren sendotasuna be ez da makala izaten.

* * *

Jai alai oneik, omenaldiak, ospatzean izaten dira eragozpen bereziak.

Lana bera. Geienok sartu barik, bakebakean bizitzea naiago dogu, eta olako jai bat eratzek lana ugari ekarten dau, naizta taldean egin lan ori.

Diru arazo bat be sortzen da geienetan, naizta au gauzarik gaxena ez izan: abeslariak ta bertsolariak... ordaindu, ezer artu nai ba'dabe, bazkaria ordaindu, emaitz txiki edo ez ain txikia egin omen-duari, ibil-bearrak...

Eta, azkenez, bear dan legezko baimena lortzea. Onetan ibiltzen diranak baiño ez dakie zelako goraberak eta kakoak sortzen diran, naizta sarritan entzun euskerearen zabalkunderako ez dagola eragozpenik. Eta zenbatetan ainbeste lan egin eta gero baimena ukatu!

* * *

Baiña lan oneik ez dira inoz alperrekoak. Jai-aldia egiten ez ba'da, lanean ibil diranak ikasi dabe, nondik eta zelan ibilli, non dagozan oztopoak... eta urren-gorako trebeagoak dira.

Lortzen ba'da, ostera, jai-aldi onuragarriak dira:

Erritar nagiak, besteen irakatsia ikusita, adoretu egiten dira.

Erabilten diran gaiakaz erri-kontzientzia sortu ta bizkortu egiten da.

Egun orretan egiten dan alkar-janak anaitasun eta batasun zuzena sortzen dau

* * *

Omenaldi oneek egiteko arau batzuk be kontuan artu bearko doguz.

Larregi ugaritzea ez dot uste ona danik. Egutero ikusten doguzan gauzak ez gaitue ainbestean onera bultzatuten.

Orregaitik omenaldia egitean ondo begiratu bear da nori eta zergaitik egiten jakon eta zor ez ba'jako ez egin, edo lar sarritan bateri ez egin.

Esan barik edozeinek dakian gauzea da omenaldi oneik ondo gertatu bear dirala, gauza on eta onuragarri bat erdiz-erdizka egiteko arriskuan sartu barik.

Eta baimenik emoten ez dabenean, zer egin?

Omenaldia ezin egin. Jakiña. Baiña ezin egin izan dala zabaltzea be ondo izango da, erritarrak zelako egoeran gagozan aitzu barik bizi daitezkan.

Goratu ta omendu dagiguzan ba, gizon ospetsuak, zor jaken neurrian ezin ba'da, al dogun bestean beintzat.



ATSEDEDEN EGUNA

Zazpi egunetatik, seitan lan egin ezker, azkena jai. Jai soñari ta gogoari atsedena emoteko. Geldirik osoan ezin ba egon, eta atsedeen egunean zerbait —ni lantxo au egiten naukazue— bete al izateko, Jaunari eskeiña eukagun. Olan, Berak, erakutsi euskulako.

Bear bezela atsedena lortu ta Jaunaganako gurtzea erakusteko, Eleiza Amak eleizkizunak, jaupa edo mezea-ta, eratu euskuzan. Or, gizaseme batek bete bear ebazan ardura bi: atsedeen izan eta Jauna goraldtu.

Astiro-astiro, asmo ta eginbear oneik, geuk aldatu doguz, atzkura dogunean atzak erabilten doguzan neurrian. Oberako? Ez dogu arrezkero atsedeen Jaunaren egunean. Ondo nekatuta eltzen gara Igande gabeko oera. Astelena, —itz zakarra benetan— lantokian, ala edo ola, atsedeen artu bear, eibatarran «ajea» ez da gaurko gaixoa. Astelena, lan eguna baiño, lanari usaiña artzeko garaia izanten dogu.

Baiña Igandeari begira, atsedeen edo nekegin, Jaunak Bere egun lez eskatu euskuna, onenean be, ordu-erditxo batera laburtu dogu. Mezea entzun, lasterka baten; berandu eldu ta arin urten. Zer jarabik abade onek, ain luze itz-egiten? Zer jifok? Ez dala inoz beartu bear ezertara? Jesukristo'k berak esan ei-juan (VI-30), asarre, bere laguntzaille batek zeruko sua eskatu eutsanean arrerarik izan ez eben erri a erretzeko, olakorik ez dala egin bear? Ta, emen zer? Emen nagok orren berbeta luzea entzuten, eta lagunak onezkero iges egin jeustek!

Ariñeketan bizi gara; ariñeketan atsedeen lortu ezinda; ariñeketa larregi Jaunari Berea emoteko, baita astegunean irabazi al izan dogun diru apurra ondatzeko be.

Ta, gero, lan gitxiago ta jai geiago eskatzen. Ondo pentsautu, danok zoratu garala siñistu bear.

Neuretzako aiña egiten ez ba'dot besteren batek egin bearko dau nere zuloa beteko dabena zati. Bitartean baiña, asarre, ludian dagon bardintasun-eza salatzen. Neu izan arren, orretan, errudun bat geiago!

Ainbeste guzur... zer esan dot?: Ainbeste whisky, esan bear neban.

GURE JAKINTSUAK

Bermeotarrak, itxas-ertzeko erri geienen antzera, goi maillakoak doguz jaiak eta omenaldiak eratzten. Zoragarri antolututa egoan, erriko, Bagillaren 23'nean, Barandiaran'dar On Joxe Migel'eri eskeintzeko zana... baiña azken orduan debekatua izan zan.

Dana dala, mundu guztian maixu bezela ezaguna dan jakintsu bateri, abadea izanik, nor ukatu leiskio kristau izeneko erri baten, mezea emotea? Larogeta bost urteruntz doan jaun agurgarri onek, makiña bat ordu egin ditu aitz-peak aztertzen, baiña, ikusten danez, mezak be, oindiño, orma artean emon bearko ditu.

Ederra izan zan frantziskotarren eleizan, erritarrez bete-beterik egoala, entzun gendun mezea; ederra meza emolle lagunaren itzaldi beroa, ta, bene-benetako maixu jakintsu batenak, azkenean On Joxe Migel'ek esandako itzak.

Meza ondoren, gazte eratzaille taldekoekin batera, Gaztelugatxe itxas inguru bardinbakoa ikustera joan giñan. Olako gizon baten ondoan, orduak labur egiten dira. Ori jazo jakun guri be, bere bizitzako ainbat eta ainbat gertakizun jakingarri entzuten genduzan bitartean. Argi azaldu euskun On Joxe Migel'ek, norbaitzuentzat, bere pekatuak astunena, euskaldunak enda berezi bat garala esatea izan zala... baiña ori ukatzea, izadiaren legeak trukatu nai izatea litzakela, ta berak ez eukala beste era baten itz egiteko asmorik... Danok bardiñak garala esatea, guzurra litzake; gu garala onenak esatea aiñakoa.

Baiña jarraitu dagigun aztu ezineko Igande a azalduaz: Gaztelugatxe'tik Suka-rieta'ra jo gendun, lagun arteko bazkaria egitera. Toki zoragarriak izango dira, baiña gutzat asko ez ango ingurua bestekorik. Gurea, arrazakeri barik, maite dogunok, inoz zapaltzeko asmorik izan ez dogunok, maitasuneko illobiaren oroipenak eraginda-edo, antxiñako ta gaurko ainbat abesti maitekor bota genduzan, On Joxe Migel'entzat zirkingarri izan ziran abestiak.

Maian, gazte inguratutik, zimel baiña gazte egoan gure gizona bere jardunean jakituria eriola. Azkenean, txalo artean egin euskun agurrean, goizeko mezan esan zituan itz ber-berak, euskaldunak fededun jarrai dagigula adierazoz, Gernika'runtz joan jakun On Joxe Migel, bere senideak, euskaldunen ezaugarri dan zugaitza ezagutu eikeen... Egun ederra igaro ondoren, eta berebillen etxeruntz bakarrik nentorrela, ainbat burutapen etozan nigana.

Zergaitik ete-da gaur alako gizonentzat urrezko kaiolak egin nai izatea? Oorezko itz eta idazkien artean, zergaitik ez dira euren esanak ontzat emoten? Gure Ira'k oraintzu inoz bezela, norbaitzuk izena darabille euren ezkutuko asmoak aurrera atarateko bakarrik; izana barriz, maltzurkeriz lurperatu naian dabilzten bitartean.

Beste orrenbeste egingo zan Mokoroa Aitagaz, zur ibilli ez ba'litz, eta beste orrenbeste, Azkue, Alube ta abar luzedun txorta orrekin. Gure artean axerriak, udan euliak bezin arin ugariu jakuz, kanpotik ezarri dauskuezan sasi eta txara zikiñetan sortuak.

Zergaitik ukatzen dauskue guri itz egitea, beste erdeltzain orreiri gorputza, omeleta ta alakoen zale diran orreiri baimenak emoten jakezanean?

Bermeo'n, Azpeiti'n, Bilbo'ko Santiago Apostol'en eta abar, zergaitik dalako «segregaziño» ori?

Amar agindu emon eutsazan Jainkoak Moises'eri. Dakigunez, amar aginduetatik iraulketa aundiena, «askatasun» eruntz alegia, izan dauana, seigarrena izan da. Seigarrenetik aurrera ez ei-dago pekatuak diñoela dirudi.

Orregaitik, ez da arritzeko, gure omenaldiak, jaiak eta abes-sariak debekatuak eta pekatutzat artuak diran bitartean, beste orreñak ontzat emonak dirala ikustea.


Zergaitik? Zure ingurua, zure erria, zure erriko gazte ta ez ain gazteen jokabidea, aztertu ondoren, sakon begiratu ondoren, zeuk erantzun... eta euskaldun jarraitu!

Zorionak Bermeo'ko gazteeri, ta Zorionak On Joxe Migel, gure maixu jakintsuari. Ta al dogun guztian abestu dagigun:

Erri buruak ez,

Erri zintzoak bai.

Maitasunean jai.



AZKUE

Eta Bizkai'ko idazleak

Nonbait esana dut Azkue jaunak iru adur edo doain izan zituela bere egite andia burutzeko, osasun bikaina, bizitza luzea, zaletasun sakona. Ankari edo ibilkari ezinegona. Ez zuen, esate baterako, etxe jakiñik, Euskal-Errietako bideetan etxe-kotua bai zegoen. Amaika otz-bero, otordu xeble edo jator egingo zuen erriz erri ibilli zen garai artan.

Baiña, Azkue, jatorriz, sortze-erriz, ama-euskalkiz, bizkaitarra zen, guziok dakigun bezala. XVIII mendean esan oi zen bezala, Lekaitio'n jaioa. Ez da beraz arritzekoa bere euskalkiko idazleak mai-teago izatea.

Bizkai'ri dagokionez, aditz kontuan batipat, berak jator aitortzen digunez, iru maisu ditu. Bata, Mogel zaarra, bestea, P. A. Añibarro, irugarrena J. M. Zabala. Morfolojiako pasarte batean dionez, iru maisu oriek dira, bere ustez, maisurik seguruena, Bizkai'ko aditza erabiltzean.

Mogel zaarrari buruz ona zer dion: «Peru Abarka, la obra más frecuentemente citada de todas en la Morfología». Beraz, Gora Markiña'ko ibarra! Ez aaztu gaiñera Euskal-Erriak Markiña'ko ibarrari zor diola gaurregun euskera ezaguna bada

mundu guziko itzkuntzalarien artean, Markiña aldean ezagutu bai zuen W. Humboldt jakintsu famatuak gure izkuntza, 1801'an bere maisu zirelarik Astarloa, apezka, eta J. A. Mogel, Markiña'ko erretorea. Nork alde zurretik ipiñi ote zuen Humboldt Markiña'rako bideetan? Jakin nai nuke orixe. Ba zekien zerbait arretzek!

Añibarro praillea ere astiro irakurri zuen Azkue jaunak, batipat bere liburuxka maitagarria, zeinaren izenpurua den Eskuliburua. «Precioso librito» deitzen dio Azkue'k. 102 aldiz jotzen du Azkue'k iturri garden ontara Morfolojian. Ba da zerbait.

Euskal-aditzaren azterketa amaitzean, ezagutzen du Azkue'k ez duela izan bear den astirik aditza ikasteko, ez beintzat J. M. Zabala'k ainbat, zeinak 38 urteren buruan eman zigun bere *El verbo regular vascongado del dialecto vizcatno*. Ogeita emezortzi urte luzeetan zerbait ona egin daiteke besterik ez egitean aditza ikasi baiño.

Ona bada Azkue'ren iru maisu seguruak, Bizkai'ko aditzan. Noiz ikusiko ote ditugu berriz argitaratuak? Guk ere lekaitioar maisuaren ondolik nai bai dugu joan.

JOXE LASA

KOSMOS 3'gna

IKAS-LIBURUAK EUSKERAZ

Iritzi asko dira or-emenka; iritziak ugari ikas-liburuen arazoari buruz. Bat beintzat naiko bitxi ta arrigarri gertatuko zaiena asko-askori; baiña sustraiean arrazoi guztia duana: ikasten dabillen aurrak ez duala ikas-libururik bear eskuetan.

Nola, ordea? Ez duala eskuetan bear, bestek osoki egindako liburutik. Liburua aurrak berak egin bear duala, alegia. Jakiña, ori litzakela gauzarik onena ta eziketarako mesedegarreiena.

Baiña alde guztietatik inguratzen gaituan giroan, ez dezaiekegu uko egin ikas-liburueri. Kalterik gutxien eta mesederik geien egingo duten eran erabiltzen saiatu bearko dugu, baiña naita ez erabilli egin bear liburuak.

Eta geuk egiterik ez dadukagun bitartean, besterenak euskeratu bearko ditugu, gutxienaz ere.

* * *

Irakurgai politik ez-ezik, jakintza-gaiak ere argitaratu bearra dadukagu euskeraz liburuetan. Euskalduna euskaldun landua eta osatua izango baidin ba'da, gai guztietako jakintza aalik geiena euskeraz xurgatu bear du. Bestela, odolez euskaldun litzakelarik ere, buruz arrotza izango da-ta.

Edozein jakintza-gai euskeraz irakurri, ikasi ta bere odol-mamitzen lagundu bear diogu euskaldun ikasleari, bere baitan erdibiturik geldi ez dedin.

* * *

Eta ain zuzen, ortaraxe dator KOSMOS 3'gna, «Izadi-arola» eta «Gizarte-arloa» bi zatitan banandurik dituan liburua.

Oiñarri-Eziera Orokorra edo E. G. B. deritzaion ikasaldi osoaren 3'gn maillakoa da orain argitaratu dana. Jakintza-gaiari dagokionez ta bere jazkera apaiñez, liburu benetan atsegiña ta jakingarria da. Ikastoletarako ez-ezik, beste Ikastetxeetan ere erabilli gaitekera, euskera landutzeko lagungarri.

Aldi berean baita irakurgai atsegintzat ere, ezarian-ezarian gauza jakin garri askoren berri ematen duanez.

Amairu euskal-idazlek zatika euskeratua da. Gero, berriz, Lekuona, Akesolo ta Gaztañaga'k orraztua; bai, bai estuan irazia da itzulpen au, aalik euskaldun geienentzat ulergarri izan dedin eran. Gutxienaz ere beintzat, Bizkaiera ta Gipuzkera elkaturik ematen dizkigu.

* * *

Nola-nai ere, ez da liburu bakarra. Lenengoa bai, argitaratzen dan lenengoa euskeraz. Baiña bereala datoz beste lau maillatakoak ere.

Euskeraturik daude 1'goa, 2'gna, 4'gna ta 5'gna ere. Datorren Ikastaroan eskuetan izan ditzazkegu beste lauok ere. Zer nai duzute, Ikastolentzat eta Euskerari buruz arduratzen dan edozeinentzat, zer nai duzute berri pozgarriariorik?

G. GARMENDIA ESNAOLA'K

FERRETERIA UNCETA, S.A.

Landola tresnak - Galtzairu neurri zeatzekoak

Langaillu guzietarikoak - Leunketa gaiak

Ibarrekurutz kalea 14

71-10-00 Urrutz.

Apartado 18

E I B A R

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri asmoen gaitetik daben iritxi-onoeko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egileak dira.

Agur au, bere zuzendaria ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M.^a MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion gutzirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966



eziketa jostailuak
eskulanetarakoak
irakasketa gaiak

gregorio de la revilla, 1
bilbao - 11


Jolasean ikasi, or zure aurrentzako emoitzarik onena

GAZTE

David Cassidy

Ekiñaldi baten

Erdal aldizkaririk irakurri ba'ozue jakingo dozue Londres'eko White City tokian zer jazo dan.



David Cassidy, 23urte, Gazte askok, Jainko egin-dakoa. Bere ekiñaldietan ez dago besterik, isterismo, negar egin bearrak, eta uletik tirakadak gazteen artean.

Ainbat urte dala, Beatles taldea ondatu zantetik ona, ez da olako gauzarik jazo. David Cassidy, ogeta iru urteko mutilla, ule gorri ta bere lora-txorta guztiakaz, orra joan da abestutera. Gitxi gora-bera, ogeta amar milla lagun joan dira mutil orri entzun, eta ikustera, ta zazpireun eta berrogetamar inguru, osagilleak begiratu bearrean aurkitu dira. Batzuk oiñen artean tarraz ibilli diralako, baita isterismoz buruak galdu ta zentzun-galtzeak izan dabezalako.

Ekiñaldi orrek be, jaso dau bere saria, amalau urteko neska. Bernardette Whelan'en eriotzeagaz. G. B. Onen eriotzea, jente artean tarraz eroan eta zapaldu egin dabelako izan da, orrelan, biotzeko gaitz batek azkena egin eutsen.

Neska onek, White City'ko jaurlekurik aurrenengoa artzearen, amabi ordu egin ebazan itxaroten; ordurako, bere etxeko lo-gelan, mutil onen argazkiak eta posterrak bete-betean jarrita eukazan. Baiña gitxien pensau ebana izan zan, mutil au ikustearren, eskeintza orrekin ordaindu bearko ebala.

Toki orretako langilleak, poliziak, kamilleruak eta abar, lan aundia izan eben egun orretan. Minutorik minutura, isterismoa aundiagoa zan, edadekoak esaten eben, olakorik ez ebela iñoiz ikusi Mundu guztiko II gerratik eta ona.

Nor da errudun? David Cassidy? Neska beraz?

Ez, nere ustez, danok gara errudun, gizarite au osotuten dogunok. Denpora lar emoten dautsegulako gauza orrei, ta lar gitxiegi beste batzuei. Lenago, «Jolas-Gelak» izenpetu neban idazkian esan neban lez.

Emen daukagu argazki bat, gaurko gazteak zelan gabiltzan abeslarien atzetik, futbolisten atzetik, boxeolarien atzetik ta abar eta abar... gero ortik kanpora, pospolo bat emetatzeko aiña ez gara.

Nik egin dodazan idazki txikiagaitik, emen aldizkari onetan, askok, gazteen artean, esan daustee: orrenbesteraño ez dirala gauzak, baiña emen daukazue eredu bat.

Sarritan esan dogu: Guk, geuretzat, eta geuk egin bear geunkela zeozer, jaialdiak ondo igarotzeko, ta beste gauza orreik itxi orreik egiten debezanari.




Bernardette Whelan, 14 use, jentetza batek zapaldua apurtua.

Noiz urtengo ete dogu zulo onetatik? Noiz? Berandu egin barik urten bear geunke ba!

KANTARI'K

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK
OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

ZAZPI-KALEAK



CASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIQUEAK

Arratia aldetik

URKIOLA'ra.—Ekainillaren 22'an, antxiñako oitura zarrari jarraituaz Arrati'ako erri guztiak, eta bai, Miraballes, Orozko, Zollo, Arakaldo ta Zeberio'k, errogatiba bat egin dabe.

Errogatiba au, abadeak organizauta egon zan; eurai zorionak, ain ederto ipiñi ebelako.

Goizean, danak bertaratu ziranean, meza polit bat egin zan, Aita Martzel'ek emonda, ta Aita Juan Jose Arantzazu'koak kantuak zuzentzen.

Zorionak, be bai, bertako abadeai eleizan egin dabən barriztauteagaitik, ze ederto ipiñita dagon, ta uste dogu asko kosta izango zala.

Meza ostean jaialdi txikitxo bat izan gendun bertan, erritarrak parte artzen ebela. Lenengo txistulari gaztetxu bi, euren izenak Jon eta Ruperto (Rupert), Boni txistulari famaduen ikasleak; Bilbo'tarrak dira baiña Arratia atsegin jaken lez, Igorre'n egoten dira larunbat eta igandeetan. Bigarren, Artea'ko Leon Bilbao albokarie izan gendun, bere albokeagaz, baiña gente askori entzun neuntsana da, Maurizia non ete dagon.

Irugarren, Igorre'ko Fasio Soñiularie bere panderetariak lagunduta. Laugarrena, au bai au, mutiko gazte bat amairu urte ingurukoa, Areatza'n orain igande asko ez dala, txapelketa baten, txapeldun urten ebana, Juantxu Urkiaga, Luis Mariano'ren abesti bat abestu euskun oso ederto, ta gentea ikaratuta itxi eban; Ia ba Juantxu, aurrera jarraituten dozun ta Arrati'ak zugaz abeslari on bat eukiten dabən.

Urrango Zeanuri'ko Gontzal'ek bere abesti batzuk abestu euskuzan gitarra ta armonika be berak jota, oso ederto gazte au, ba-doa oberantz; aupa Gontzal! Azkenik amaituteko Areatza'ko bizardun abeslaria, Patxo, Beronck abesti zar batzukaz zarratu eban jaialdi au.

Bazkal ostean barriro, Jon eta Ruperto'k txistuagaz erromeri txiki bat egin eben, ta benetan be gente edadekoa egoan baiña zelango giroa egin eben!

Arratsaldean eleizkizun bat euki gendun, gure Jauna agirian zala ta au amaituta batzuk Durango'tik eta beste batzuk Otxandio'tik etxeratu giñan, baiña ez orreitan leku bietan erromeri alai bat lenengo egin barik.

Zorionak barriro abadeari, ta ea ba azkenengoa ez dan izaten aurtengoa...

San Juan'ak Igor'en

Bai, San Juan deritxon auzounean, santu orreri buruz jaiak egin dira.

Zer ikusi aundirik ez da izan bertan, eta zer ikusirik egon ezik, intxaurrari sagarrak eskatea izango litzake bertan gazte asko egotea.

Baiña ba gagoz ainbat olako jaiak maite doguzanak eta eurakaz bizi nai doguzanak, ta orregaitik bertaratu giñan.

Arrautzopil txapelketa egoala entzun gendun, baiña bertara eldu giñanean iñor ez zan lez egon jakingurarik zelan dan, an egoan orri bat irakurtzera goiazen; Sorpresa aundia eroan gendun egitarau ori erderaz idatzita ikusi gendunean ta alan ta guzti be erdera txarrean ze oker ez banago «su aundia»esateko «Gigantesca hoguera» izango litzake ta ez «Gigantesca hoguera». Zeozer esan gentsen an egozeneri, baiña erantzun gogorrak eukin ebezan, eta esan gendun... Zer egin leikek ba olangoakaz.

Askenean, etorri ziran ORGANIZADO-REAK, ta txapelketa ori eginda, txapeldun Igorre'ko gizon bat «Atucha»; Bigarren, AGUR'tarren opil ori, ta besterik ez dakit seigarrena Zeanuri'tarrak eroan gendule baiño, baiña esan bearrean nago AGUR'tarrak be Zeanuri'koak giñala.

Dantzea izan gendun, txistu ta soiñuagaz, baiña zelango abestiak, bai zelangoak...! lotsa emon bearrekoak auzune orretan.

Non zagoze gazteok? Non zagoze? Zer egin bear dogu gure-gure jaiak aragotik datozenak egin bear ba dauskuez? Ai! olan itxiten ba'yoguk?, gure azkena.

ASTONDOA'TAR JESUS MARI

SEDER JAUNA

IDAZLE OSPETSU ONEN ERANTZUN BI

—Zure emaztea ezan joan Ameriketara?

—Ez; nire emaztea Zamora'n ill eben nazionalak.

—Zergaitik?

—Neure emaztea zalako. Bera, Zamora'ra joan zan eta ni Madrillera etorri nintzan. Portugal aldera pasaukeran, nire emazte bezela agertu zan eta aldi artako ulertu eziñean... ba-dakizu. Tamalgarría izan zan a, danentzako, uts larregi egin ziran, euretariko bat nire emazteagaz egiña izan zan.

Nik, naiz oso gatxa izan parkatzea, parkatu dot. Norberak parkatzen dau. Beti esan doten bezela, parkatzea norberagan dago; baiña aztu, ezin leike egiñ. Aztute ori, Jainkoagan dago-ta.

Gizadiak, aldi artako gora-berak gogoratzera beartzen gaitu, eta uste dot, gogoratze orretatik, urte areitako gauza arrigarri aiek, zerbait erakutsiko euskuela gerorako. Ez dagigula barriz olangorik ikusi!

* * *

Erantzun oneik, Madrilleko «Hoja del Lunes»etik artuak dira, ta gizon ospetsu ta jakintsu baten erantzunak diralako ekarri ditut zuen artera. Era onetara, bere ikuspenagaz eta jokabideagaz konturatu gaitean. Uste dot guretzat be erregarri dirala gizon onen crantzunak.

GOIRIGOLZARRI'TAR XABIER

KONTU KONTARI

PELOTARIXEK

Markiñe, danok dakigun lez, ondo baiño obeto, da eta izango da gero be, zestuko pelotarian kumie. Gaur bertan be, berreundik gora diez gure mutillek pelotatik bizi da jaten dabenok.

Umiek barriz, eskolatik errekreare urten, ordu erdiko denboran, da prontoien sartute dabiz. Prontoie ta eskoliet, jaten-jaten daukeguz, alkarri inkaute gorputz eta baitxe arimez. Oindioñok zenbat denpora da ba, gure gazteiek juten ziena Abana, Mexiko, baitxe Txina bertara be. Xangai, Tientsin'en be prontoie galantak zabalduete eukezan. Orain Indonesia, Yakarta, Makao, Ameriketara, Italia, Phillipinas, makiña bat Markiñe'ko mutillok ortik dabiz jokuen.

Lelengo urten erie, España'ko prontoietara izeten da. Mutil gazte gisajuek ixexie menditxik kalera soltete lez, munduko gora-bera barik aor doiez erri zabal sakoneta.

Bein baten, onako mutill baten amak, Saragosa'ra urten eran, kontseju on-onak emonez, esan otsen: «Kontuz, kontuz ibilli «baulaz»», baul aundixaz, ostu be eñ leikie-ta»...

Saragosa'ko estaziñoen, trenetik beratu eran eta urratu maletarie... emotse poltsikuen euker «bokadillue», eta baul aundixe pelotarixek artu lepo gain, da or doiez, dranba-dranba, kale-kale, ostatu etxeruz... Zer ba...!

Beste baten. Txikago, goiko ameriketako «gasterren» erri sutsure ta entzutsure be eldu diez Markiñe'ko pelotari gazteiek. Sartu otelien, ostatu etxien, da alkoan suertau eran baka-bakarrik, mutil aldrie, alkarri begi-begire, batak bestiarri inotsen:

—I... zer dok au ate zurixau? Zabaldu dabe ta baiñerie barruen.

—I... au dok ontzia, garbitzeko baitxe mux-aldi ederrera ko be izen leikek...!

—Ixidro, zabaldu gripuok eta bete gorainoik erruki barik. Orain neu nok Markiñe'ko «Kondie».

Mortel'ek, bere burue ikusi eran Txikago'ko otel orretan, berotu de, da beste pelotari lagunok krixautzet artuta, aurrera bere asmuetan.

—I, Mortel, diño Ixidro'k, lau itxurri jaukezak onek...

—Ba, zabaldu laurok, batera! Beleten daniñ, «salto-mortala» egiñ bi'juat onen aremaixo ganetik.

Esan da izen. Ixidro'k bete dau goi-gorainoik baiñera eder ori. Mortel'ek igon dau aremaixo nausi ganera kantontzillo usien, da:

—I... aor najoiek. Baiño pa'l konde...!!! Bat, bi, iru eta... lau: PLASSSTTTT...!

Mortel'en eun killo mamiñek sartu eran tiburoi lez ontzi zurixen, alkoba dana plai-plai, eta beko pareko opisiñan tantanak goitxik bera, euri zikiñien asi diez, da dei zorrotza Mortel'en «konde kuarture».

—Aló... aló...!

Mortel'ek:

—Zer alo eta alo, zer nai dok, txarrixorrek...?

—Ixpikiñ, ixpikiñ inglix...?


—Zer zikin inglix. Euskeraz eztakik...? Ba, au, mundu gustixen dok bardiñ, da euk pe jakingo'k aiñ bakue ezaz izengo-ta.

Telefonue eruen dau Mortel'ek bere atze zabal parera, da bota dau... trumoe ederra bene-benetan.

—Entzun dok, txarri inglix zikiñ, au daniñ dok bardiñ...!

JUAN JOXE ARRIZABALAGA «MARKIÑA»

Arri batekin asi zan



zure aurrezkien banketxea



BANCO DE BILBAO

gizaldiz goiti aurrezkitzan

ORBELAK

Automatikoan Burukomiñak

Itxasertzeko erri jator baten, urrutiz-kiñetan, telefonoetan, banakak erabilten dabe euren eskabideetan bakoitzaren zenbaki edo numeroa.

Ia milla telefono dagoz orain. Eta telefonistak buruz dakiez edo jakin bear dabez zenbaki edo numeroen jaubeak eta ezau-garriak.

Gitxik eskatuten dabe bear dan lez zenbakia. Beste batzuk izen abizenak baka-rrik emoten dituez. Beste askok irugarren izena, izen goitia, au da, ez-izena.

Kontuan euki bear da erri orretan milla eta eundik gora dagozala ez-izenak, moteak. Erbestetik joan diranak be obeto dakiez irugarren izen orreik lenengo eta bigarrenak baiño. Orrela; edozein ordu eta unetan entzuten da telefonisteari deia:

—«Lebatz-zumia»gaz ipiñi egidazu.

—«Bizar-kuri»gaz, mesedez.

—Txilibristo'n alabeagaz berba egin nai neuke.

—«Perloi zuria» etxian ete dago?

—Ikusi egizu «Diopila»en bodegan iñok erantzuten ete daben.

Orrela, telefonistak, beste barik, bakoitzari dagokion zenbakiagaz alkartzeko alegiñak egin bear izaten ditue, izen bat edo beste esan.

Goizaldetan konferentzi asko egiten dira erri orretatik Barcelona edo Madrid'era, batez be arrain konturako.

Kamionak urten dabela, onenbeste edo arenbeste arrain sartu dala, arrain zuriak gora egin dabela, gitxi datorrela, eta abar.

Goizeko lauretan dei egin eban batek. Betiko antzera, zenbakia alde batera laga-ta. Prizaz.

Madrid'eko gure saltzalleagaz ipiñi egidazu, arin.

—Zein da?

—Ori be ez dakizu?

Zelan jakingo dot ba, esaten ez ba'daus-tazu?

—Tira, atarra gurarik ez daukat-eta.

—Zein da, baiña, bere zenbakia?

—Ez al dakizu oraindik Perez'en numero-rik?

—Jakizu Madrid'en Perez asko dagozala.

—Ez dakizu Perez gure asentadoriagaz ipinten ala? Zu zeu gaur ez zara ondo egongo orraitio.

—Madrid'en, arrain saltzalletan be, Perez asko dagoz.

—Lotan zagoz zeu edo kinkiñak jota? Esnatu zaitze eta ipiñi egizu. Ez nagizu neu barriketara ipiñi.

—Baiña zeifnegaz edo ze numerokin?

—Ez al dautzut esan? Ala belarriko tutuloak garbitzeko daukazuz? Zeu ez etorri goizeko orduetan niri pandagorik joten. Ez daukat atsgurarik.

—Garbi esan egizu, mesedez. Zeifnegaz ipintea nai dozu?

—Onetan gagoz oraindik be? Olako gano-reagaz emon eutzuen tituloa? Aitearen eta Semearen... naiago neban au jakin ez ba'neu.

—Baiña, andre...

—Ze andra eta ze karajo! Akiliñe beste telefonistea ez dago or?

—Ez. Bere etxean dago, lotan.

Deitu egiozu berari.

—Zetarako?

—Zetarako? Zeure ganora ori bizkortzeko.

—Berari deitzea baiño errezago ez al da zeuk zuzenbidea billatzea?

—Esan dautzut ez daukadala goizaldean mokorra joteko gogorik. Nik «benta»ko or-durik atrapatzen ez ba'dot, zure gain izango dira egurrak. Orrenbestean zoratu zaitu Mundaka'tik etorten yatzun itxura bako tximiño arek? Deitu egiozu Akiliñe'ri eta urregorako apuntatuta euki egizu ondo gure saltzallearen numeroa, iñor geiago berotu barik.

Eta bakea egingo ba'zan, telefonistak ez eban beste erremediorik euki, bere etxean lo egoan beste lagunari deitu eta Tomasa'ren saltzalleak ze zenbaki eukan jakitea baiño.

Erri orretan, laster, automatikoak ipin-teko dira. Ba diardue lanean. Gaur milla urrutizkin dirana, zortzi milla izango ei dira laster.

Goizalderen baten a zelako tirrin otsa entzungo dan basterren baten! Pospora andirik ez da biztu bearkoa utomatiko guztiak erreta lagateko. Berbaz beintzat.

ZUBEGI

Irlanda'n gertatzen diran burrukak ikaragarriak diranez, zeintzuk duten erru, oso argi ta garbi ikusten degu. Ingelesak askatasuna eman ziotenean, erdipurdizka eman zioten, sei probintzi onenen eta aberatsenekin gelditurik. Arrezkero zer gartatu zitzaie? Bi zati etsai. Egoaldekoak Eire izenakin jarraitzen dute, aske, Iparraldekoak, Irlanda'kin, Bretaña Aundia'ri lotuta. Ipar naiz egoaldekoak, ordea, berdin izan irlandesak.

Eunka urteetan, irlandez katolikoak, eta iparraldean oraindik, burua makurtuta bizi izan ziran eta dira. Orratiokan, orain ez dute nai ortan jarraitzerik, eta bost urte auetan or dabiltz alkar tiroka, milla ta geiago biztanle eraillaz.

Irlanda'n, askatasuna lortu zunean, ez zeuden gauzak ongi. Lan gutxi ta gosea besterik ez. Zer egin zun erriak? Millakak artu pardelak, famili osoak, gazte ta zar, eta iges Ipar-ameriketara. Ta, Ipar-irlanda'n bizi ziran antxiñako igelosen guda mutillen eta auen atzetik sartu ziran arrapatarien ondorengoak indartzeko, irlandesak uzten zituzten tokietan, ingeles geiago sartu zan, ta orrela lortu zuten mayoria sei ipar-probintzietan ingelesak.

Auek, ingelesak eta protestanteak siñimenez dirala esaten dute. Besteak ostera, katolikoak, bertan jaiok eta an bizi diranak eta ziranak, irlandesak dirala ta ez ingelesak ezta britanikoak ere. Ainbeste urteetan zer gertatu da arrezkeroz Ulster deitzen dioten lurralde ortan? Millakak izanik bertan jaiok eta auek ingeles aitorzen dirala, naizta Irlanda'n jaiok, Bretaña Aundikoak dirala diote, ortarako daukate bere ikurriña. Katolikoak ordea, ez nai ontzat artu beste oien iritzia, ta orregaitik dabil dabillan burruka. Zeintzuri arrazoa eman? Nere iritziz katolikoeri, gu ere ala geraldako ta ikusten degulako Irlanda'n jaiotzen dan kristau guzia irlandesa dala, ta ez ingelesa.

Gero esango dute, alegia, Konzilio ondoren esan zituztenak eta iñolaz bere ez diran eta ezin beteko diralakoak: protestandak eta katolikoak batu egin bear degula; goxoak zeudek oiek! Presley dalako pastor orrekin, pizti bat baiñon gaiztoago agertzen dan orrekin, itz emen eta an sube baten miztoa baiñon itz zikiñagoak esaten ditun orrekin, nola oiekin katolikoak batu?

Ba al dakizu irakurle, zergaitik ez diran protestanteak katolikoekin batuko or? Ba, oso errez ikusten degu. Batuko ba'ira, ba-dakite berak minori izatera etorriko lirakela, ta ainbeste urteetan sei probintzietako mayoria izanik, ez dute nai pakerik sortu ta or dabiltz arroputs deadarka: «Ni, gu, ingelesak gera». Bai, naizta ez izan egia ori, orain artean ortan daude, ta ori ez da orrela, Irlanda'ko lurretan egonik.

Gertakizun guzi oietan Londres'ko agintariak dituzte erruak. Auek ez die askatasunik eman nai, beren milloika interesak galduko dituztelako. Azkenengo guda nagusia bukatu zanez, ingelesak naiko galdu zutelakoan daude, asi India, Singapoore, Malasia ta abar Asia'n, gero Aprika'ko lur ederrak eta orain Ulster ori nai ez galdu...

Kondaira, ordea, aurreraka dioa, ta ez daukate beste egiterik: eman askatasuna guzieri ta kito. Igelesak, beste erri askok bezela, jakin bezate bizitzen, guzien eta bakoitzaren eskubideak aintzat arturik. Gero, or daukagu dalako ONU ori. Gauzak zuzentzeko, bear diran bezela, sortu zan, ta ogetaka urte auetan, ugari itz egin da bertan, or daude pillo aundi baten denok bilduta, baita gauzak ere or daude zuzendu eziñik. Zergaitik? Arruak diralako, ta indarrez jaun egin ziralako, ta ONU ori ere lepotik elduaz makurtzeraiño beartu dutelako.

Zer egin zuten ingelesak Eskozia'kin? Berdintzu, lenengo zalpaldu ta gero, alako askatsun txepel bat eman, baiñan ingeles ikurra dago an nagusi. Eskozesak ez dira ingelesak ta ori bertako bizi lagunak diote asarre, iñolaz ingelesa deitzen ba'diezu. Orain, izparrak diotenez, Gales eta Eskozia'ri beste askatasun zabalagoa eman nairik ote diran-edo...

Arritzen naiz, orren erraz izanik pakea sortzea, esan bezela, bakoitzari bere askatasuna emanik, zer nola dabilzun burrukan ikusita. Ez da ain zail mundu au zuzentzea, baiñan bazter guzitako kontuak dira oiek. Laterri geienak dituzte beren akatzak, eta akatz oiek, aintziñan besteen lurak gogorkeriz eskuratu zituztelako, dauzkate, baita errespetatu gabe utzi zituztelako minori oien arrazoiak, gero. Indarrez lortzen dan garaipenak ez du tutik ere balio. Ta orain sortu dira eztabaida gogorrak alde guzietan.

Ingelesak, nola Laboristak, naiz konsebadoreak, kontu izanik baita Liberalak, iruretakoak berdintzu dira: arruak eta minoriak menpean beti eduki dituztenak. Kontuz gero! Menperatuak, nagusiak lepotik elduta, karraxika dagonean, onek uste ez dun alako irtenaldia izan lezake, ta orduan, ukabillakin joaz arpegiari, erantzun nagusiari...!

Katolikoak, orain arte, orrela egon dira, menpean beti. Orain, iñungo laguntzakin indarzen asiak, tramankulu ta guzi, eta tiroak aueri ere berdin irtetzen, eta aurrekoa bera jausi bear. Orregaitik eltzen diote protestanteak gogor katolikoeri, ba-dakite ba, baldin Irlanda osoa askatasunean batuko ba'liete, gero berak izango litzazkela minori, ta ez orain arte bezela iñon etxean mayori. Orrek ematen die naiko burukomiñ.

Gauzak bear diran bezela zuzentzeko ordea, bide ori dago ta ez besterik: eman askatasuna arrazoi dunari, la legez-kontra lapurtutako lurak, beren jabeeri eman. Zergaitik uste dezu ez dutela ez Laboristak ez Konsebadoreak ez or ez beste toki askotan askatasunik eman nai? Gaiztoak diralako ta, ez batzuk ez besteak, ez dutelako erabaki ori euren bizkarrean artu nai. Ulster, Eskozi, Gales, ta beste lurralde ta ugarte ugariak galtzen ba'dituzte, nun gelditzen dira ingelesak? Ori izan ordea, egi biribil eta aundia! Baiña, emen ez dago beste biderik: arrazoi dunari, arrazoi eman ta kito.

Ez ote dira laterri arroputs oiek beste laterri txiki oiek bezela biziko?

E. OZKIN

D. ZIPRIANO

Gizon on bategaz aspaldian zorrean nago: Zamalloa'tar Zipriano abade jauna.

Zamalloa jauna —erriarentzat D. Zipriano— nor zan ba ekien Lezama'n, Asua'n, Larrabetzu'n eta abar. Abade zintzo-zintzoa, errizale egiazkoa, euskeltzale sutsua, baña batez bere, Eleiz-gizon osoa-oso.

Lau urte dira beragaz eta beste abade batzukaz Zamora'ko espetxean egon nintzala. Gauza askogaitik, egun arek iñolaz ez dodaz aztuko, baña, batez bere, D. Zipriano aren gomutagaitik.

Orduan ondo ezagutu neban. Bai ona D. Zipriano! Bere arimea, garbi ta gardena, gaztea zan. Bere biotz gaixoa, eriotzak zaurituta eban, baña zimur bat barik, ume baterena legez, asarre barik, gorroto barik, maitasunaz eta umore on eta alaitasunaz bete-betea.

Ni baño urtedunagoa zan, baña bere gogoan ni baño oso gazteagoa.

Gaixo-gelan gengoan, D. Zipriano ta biok, eta orregaitik egun egundik gure adiskidetasun eta barrutasuna geitua izan zan.

Andra Maria'ganako uste, maitasun eta debozio gartsua eukazan. Egutero, agurtza osoa patxada aundiagaz egin genduan —jakiña, euskeraz!

Mezea bere bai egutero, goiz-goizetik, alkar emoten genduan, baña Sevilla'ko abade bategaz, eta orregaitik, erderaz.

Gauza askotan nire irakasle ona izan zan, onen artean, gure euskera maitea ikastean.

—Ia, Tasio, irakurri abots-aundiagaz Ebanjelio zati bat, esaten eustan.

Irakurri ta gero:

—Orain, ori berori beste eraraz, beste berba batzukaz esaizu.

Eta nik, astiro-astiro esaten neban, al neban legez, akats askogaz. D. Zipriano'k eroapen aundiagaz nire errakuntzak zuzenduten eustazan.

—Ia ba, barrero esan...

Eta bere umore onagaz:

—Emendik urten daigunean, erakuste onegaitik diru ederrak jasoko dodaz!

—Bai, D. Zipriano, ondo ordainduko dautzut!

Ainbat alkar-izketa gai askori buruz, erriari, abadetzari, baiña batez bere, Eleizari buruz, Eleizaren etorkizunari buruz.

Eta au gauza miragarria! Gizon urtedun izanik, gauza illunai edo ezezkorrai ez eutsen begiratzen, baiña bai gauza argi ta baiezkorrai. Berarentzat, Eleizearen etorkizuna ez zan baltza, ituna...

—Tasio, uste ona izan! Datorren eleizea, au baño asko obeagoa, ederragoa izango da; askeagoa; Ebanjeliariagoa izango da. Gu ona etortea, grazia aundi-aundi bat izan da.

Au bai itxaropen ta siñimena! Au bai Eleizeaganako maitasuna!

Lau urte guk espetxetik urten genduala, Bagilla'ren 19'an. Urte bat geroago, Aitagana joan zan D. Zipriano. Goian bego! Nik, lur ontatik, gure lurretik diñotsat:

D. Zipriano lagun maitea! Eskerrik asko!

TASIO

Eroapena

Eroapenik-eza asko ikusten da gaur alde guztietan. Eroapenik-ezak ezin ekarri ondoren onik. Danok sartzen gara onetan asko-gitxi. Gauza aundietan eta gauza txikietan agertzen dogu eroapenik-eza. Beingoan asarretzen gara ta sarritan geure buruagaz be bai. Eta zergaitik? Ainbat izkirrimirigaitik. Ezer ezagaitik. Apaiza mezarara berandu urten dalako. Mezea astiroegi esan daualako. Itzaldia luzegegia egin daualako. Ganorabakokeriak esan ditualako. Aserretu trena ordurako eldu ez dalako. Trenean jarlekurik ez dalako. Aserretu bazkaria gogoko ez dalako. Jatekoan euli bat sartu dalako.

Aserretu giltzak atea zabaldu ezin daualako. Aserretu bere ondok joan dan automobillak txipristiñak jaurti dautsazalako. Oskiak lokatzez zikindu jakozalako. Aserretu beroegi edo otzegi ba'da. Aserretu edozer uskerigaitik. Auxe da eroapenik-eza.

Eroapena bear-bearrezkoa dala diñosku Paulo apostoluak. Eta alaxe da. Gauza ederra eroapena. Ta bearrezkoa gizartearentzat. Gizarteak bakea izan dagian, garaipen aundiak lortu leikez gizonak eroapenagaz. Zoritzarrez, gauza barregarriak, siñistu-eziñak ikusten dira egutero eroapenik-ezagaitik. Aserretu egiten dira agintariak eta aserretu menpekoak. Aserretu gurasoak eta aserretu seme-alabak. Zenbat aserre eroapenik-ezagaitik. Eroapena! Ez da eroapena odolik-eza, kemenik-eza.

Eragozpenetan ixildu. Oñaze-uneetan ixildu. Gexo-aldian ixildu. Kezka-orduan ixildu. Apaltasun-orduan ixildu. Jazarpen-orduan ixildu. Zuzengetasun-orduan ixildu. Premiñea, ezbearra, zuzengetasuna, aierkundera, jazarpena, gorrotoa ixillik eroan.

Eroapena ez da makalkeria. Ez da koldalkeria. Eroapenak biotza kemendu dagi. «Eroapena dauan gizona indartsua baiño aundiagoa da», diño Idazteunak.

«Mundu ontan eroapenak izan bear dau egutero oia. Batez be geurtzat bear dogu. Gerok gara izan be aspergarrienak geure buruarentzat», Sales'ko Prantzisko doneak.—«Eroapena gizadiaren indarra da», O. S. Marden.—«Eroapena garratza da, baiña gozoa bere arnaria», Rousseau.—«Eroapena atseginkeri guztien sustraian dago, orobat almen guztienean», Ruskin.—«Eroapena biriki aundidunen onoinena da, orobat biotz txikidun eta emakumeena», Schopenhauer.—«Eroapenak dana iritxi daike», Vauvenargues.—«Oñazea maite-izateak, eroapena sortu oi dau», Nieremberg.

Beraz, eroapena ezbearretan, eroapena oñazetan eta eroapena urkoak zauritzen gaituanean.

Eroapenak aundi egingo gaitu.

GOIRIA

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra

BILBAO - Casco Viejo

Tenderia, 15 eta 16

Idazti Barriak

BILBAO

Izena:
Euskal Literatura (III). Bi menderen artean: 1895-1920.

Egilea:
S. Onaindia.

Urtea:
1974.

Irarlea:
Gráficas Bilbao. Gordóniz, 28. Bilbao.

Argitaldaria:
ETOR. Ap. 193. S. Sebastián.

S. Onaindia bai ba dala langille neketu eziña.

Agertu jaku bere Euskal Literaturaren irugarren alea. Eta ez txikia. Lareun eta amabi orrialde ditu.

Ale onetan gure elertiarren sasoirik onena sartzen da. S. Arana'k bota euskun irrintzi kementsuaren sasoi. Ez dogu aitzu bearko iñoz euskaldunok zelako zorra dautzagun Arana'ri: berak barriztu eta bizirik atera euskun euskerea. Ez berak bakarrik, ba ziranaldi onetan beste euskaltzale adoretu batzuk be, Azkue aitzu barik. Baiñaaldi aretan euskereak berbizkunde zoragarri bat izan eban. Oso ikasgarria dogu ba gure elertiaren kondairan irugarren ale au.

* *

Ez dot liburu guztia irakurri. Luzea be ba da, eta gaiñera asti asko be ez daukat. Beste alde batetik lenengo ale biai egindako aztertzeak kontuan izan ezkeru, onena be zati bat eginda dago.

Poztasunez ikusi dot, baita, S. Onaindia'k nire aztertze apalak kontuan artzen ditula. Ikusi esaterako 67'gn. orrialdean AGUR'en Garoa'ri egindakoaren laburpen bat.

Gure irakurleai barria emoteko, zerbait esan bear dot.

* *

Lenengo, «Len-solasa» izen-burua-gaz, sarrera naikoa luze bat dakar: Bide ibillia, XIX mendearen azkena, irrintzi kementsua, bi langille porrokatu, (Azkue, Arana Goiri), inguruko izarñoak, euskal-irakaskintza eskolatan, alkatte berriak, aldizkariak eta egunerokoak.

Gero liburua lau zatitan dator: Bizkaia (1895-1920), Gipuzkoa (1895-1920), Bidaso'z andikoak (1895-1920) eta Naparroa'n eta Araba'n (1895-1920).

Zer esan zatitze oneri buruz?
Txarto dagonik ez dot esango. Euskalerra beti izan da erriaren berengo maillak onartzekoa eta Literaturan jazoten dana berbera jazoten da Kondairan be. Euskalerraren kondairea zazpi erri banak ba'litzaz lez edestuten dogu. Baiña ez ete leike asmatu beste erakunde bat edestian?

Esaterako, gizaldi edo aldi luze bat artu eta epe orretan agertzen diran idazleek eta liburuen barria emon? Ala ez ete dauke gure idazleak ezelako zer ikusirik alkarrekin? Olako zerbait egiten dau liburuak, ogei ta bost urteko epea konturatzen dau ta. Baiña lurralde zaitu bearrean, idazle taldez edo, ezin leike beste zatiketarik egin?

Ez diñot au zerbait aztertzearen bakarrik. Kondairea ta elertia onelan ikasiaz Erria bat dala aitzuko ete jakun bururatzen jat iñoz.

Liburu onetan, ale onetan esan gura dot, zar-zarrak ez garanok ezagutu doguzan idazleak eta langilleak agertzen jakuz.

Ez da erreza idazle bat bere sasoiaren sartzea. Batzutan aurrekoakaz eskola bat egiten dau eta urrengoakaz be ez zer-ikusit gitxi, eta ez da jakiten non sartu. Esaterako, Bizkaia'n ain adizkide izan genduan Zirilo Arzubiaga agertzen da, eta bere lankideak izan diran idazle ezagunak urrengorako geratzen dira.

Aita Santi'k, euskerearen alde lan egin daben idazle ospetsuak be sartzen ditu, oneik euskerarik jakin ez arren.

Ondo deritxat. Lengo aleetan be ori egin eban eta oraingoan ez gitxiago. Esaterako Unamuno (zerbait idatzi eban esukeraz, baiña ez askorik), Urkixo («irakurri ta ulertzeko beste ikasi ere egin zuen». 139 orr.) Menendez Pidal (euskereari buruz iritxi zuzen batzuk emon zituan)...

Orrez gaiñera, aitzuta egon diran idazle ixillak argitaratzea ez da Onaindia'ren lanik kaxkarrena.

* *

Eta zer esan euskereari buruz?

Ez dabe aitzu bearko AURRAIZ' en antzeko azterlari zeatzak, arin eta ondo egindako lana dala, baiña beti arin eta ondo usoak egiten dauala egaz. Izan bear ba utsak edo irakurleak uts lez artu legikezan gauzak. Gaiñera A. Santi'k darabilen euskerea erritarra dala uste dot, baiña ez erri batekoa, an or emen Euskalerrian artutakoa baiño. Eta orregaitik aberatsa, euskerea ondo norberagandu dauanak errez ulertzekoa, eta ederra da.

Batze-lan goragarri au laster amaituko dau Onaindia'k eta, neure ustez, euskaldunak gaurkoz izango dogun lanik ederrena izango da, euskeraz idatzia gaiñera.

Gero biltze-lan sakonak egin bear leukez A. Santi'k, pizka bat Menendez Pidal'ek gaztelera egin ebanari jarraituz. Orretan sakontasun gitxi daukagula uste dot. Akesolo'k be orretan lagunduko leuskio eta, urteak aurrera doazan ezkeru, asko egin bear dogu epe labur baten barruan.

Zorionak eta eskerrak euskerearen alde egiten dozun lan eder eta sakon onegaitik.

GAMIZ

Bilbo'ko gazte ta sasoidumentzat egurastoki, pasialeku ta jolastoki barri aparta egiz, Mintegia. Gazteraz «El Vivero» deitu oi dautsen, zuzatiz beteturiko toki alaituan, Ganguren mendidi laburaren erdi-erdian kokaturik bera. Jolas-baratz au Garillaren 9'gnea, J. L., eta Bizkaia'ko Aldundiaren babespen irasiko dala dirausku. Idazlantxo au erretan danerako ba'leiteke egunero jendez beteturik aurkitzea ala ere. Uste dan lez, udaldian, ez genduké gura usteak usteldu daitezzenik, 15 milla lagun joango ei-dira egunero.

Artxanda'tik ez urrun, Santo Domingo'tik bertantxe. Bilbo'tik berebil aundiak ipiñiko ei-dabez, eta Galdano inguruan daukigun, eta «El Gallo» izentatu oi daben Urgoiti'ko bidegurutetik be, bide-zabal apaindu bat gertatu dabenez, bertarotzea guztientzat pozgarria izango da ziurkivo. Bilbotarrentzat batez bere, begien berebiziko osagarri, ta asmamen betegarri, biriki zikinduen arnasgarri osasungarria ain zuzen. Amar ektare asiera baten bere luze-zabaleran, geroko baten geitzeko asmoz; eta eralketak 150 milloi laurikotik gorakoak beraz.

Ume-kirolez ornituriko jolas-baratza, erakertze aundikoa izango da. Sarrean langelak, ta berebil txiki-aundien gordeleku apaiñak, jatetxe, edarritoki ta guzti. Zertxobait ordaindu bearko dala dirausku. Batetik bestera joateko, bultzi txiki batek eten gabe notintz guzti au eroateko, gerturik dagola ikusi al izango dogu, ta bein eta geiagotan, bertara igoko garala deritxat.

Ikusgarriak, edonork aukeratzeko eran. Emen Zoo txiki bat, abere mueta politik errez ikustatzeko. Arutzago, ur-jauste ta iturri argidunak, zidarrezko, urrezko ta beste margo politenatariko isla-gardenak ingurumarietan dagiezela. Alde batetik ispillu luze-zabaleran, barregarriak, ta ispillu tarteko bide estuikiak. Bestetik, goi-ameriketarren gualtegi ta inditarren etzauntzak, dana Ameriketara ba'gengoz bezela. Zorabiatzerik gura dabeneztat peitu edo palta ezin leiteken Errusitar Mendizkalk eta beste orrelango zerem bat, abar t'abar. Gubutz 55 jolasbide zenbatzeraino.

Euskal-kiroletzako be, egongo da baratz-arlo egoki bat.

Dan danori, barru aldetik kale zabalez eta lora-baratzez orniturik; eta aldamenetan zuzatiz-bide zaragarriak begiztatu oi doguzala. Txukuntasuna ta garbi-usaiña edonun, biotz barneari alaitasuna ta atseden mesedegarria emoteko eran.

Ba-doguz ba, udarako, bilbotarrok, uritik ez urteketotan, nun birikiak garbitu, nun ikusmira lillurakorrak begitu ta, arnas osasungarriak aurkitu. Landara-tegi edo mintegi ontan ezezik, lengo baten esan neuzuen Unbe Mendi'an be osasuna ta jolasaldia batera billatu zeinkie, orrela, gorputzak zainduaz batera, laterazko esakerak diñoan lez, «Men sana in corpore sano» lortzeko dabiñ izan, eta era egoki baten idoro zaitezen. Ze gogotsu atsedena artzen dan, urtearo osoan eten gabe lana egin ondoren!

ARREGI'TAR JOSU

ZORNOTZA

San Juan jaiak.—San Juan edo Doniane jaiak —Bizkaia'n be orrela esaten zan lenago— Eguzkiak bere urte barruko ibillaldian gaiñgaiña artzen dauan egunetan ospatzen dogu; udaldian sartu ta laster.

Eta zenbat gauza dagiguzan garai ontan: sua bizitu soloetako sorgiñak eta gaizkiñak uxatuteko, aspaldi bateko ekandua danez; leio ta ateegetan lizar-ostoa jarri, eta abar.

Emen, Zornotza'n, iru eleiza doguz San Juan Bateatzailleari eskiñitakoak: bat Larrea'n karmeldarrak berton sartu baiño lendik, santu oni opatua; Ategorri'n bigarrena ta Ergoten'en irugarrena. Eta egunokaz amaika zarata izan da, txapliu, musika ta irrintzi.

Larrea'n eta Ergoten'en eleiz-jaiak izan dira aurrenen. Ategorri edo Ofrendo'n, parte txarrekoak be sartu dau bere eskua edo musturra, eta ez gitxi: eleizakoak baiño naikoa zatara geiago atera dabe «erri» jaiak. Ermitako kanpaitxoak atera dau otsik, baiña eleizarako baiño alboko zelaian egin diran dantza, jolas, jan-edate ta olakoetarako. Iru egunetan, il onen, bagillaren 23, 24 ta 25'an, zar eta gazte, makiñatxo bat jente batu da!

Izan da, bai jolas gurea, boloak, zortzi-koak, ume-jolasak dirala-ta! Txistulariak eta dantzariak, Zornotza'ko «Udabarri» ta «Gaztedi» taldeak, Arrati'ko «Oizartunak», eta gaiñerkoak.

Ori danori ederto. Alan eta guzti be, «baiña» batzuk ondo datorkez emen, jaiak dirala-ta.

Lenengoa.—Ez dakit nik zelan ospatuko ebezan gure aurretikoak jai eder oneik. Orain bi milla urte ta geiago be, zerbait ospatzen zan nunbait. Antxiña-antxiñatik, kristautasuna Euskalerrian sartu aurretik, ots anditan jaitu oi zan eguzkiaren gaiñ-gaiñera eltzea, ta Eusropa osoan ospatu be, indoeuropearren egunetan.

Azken urteotan ez dira gitxi gure jaiak barruan daben geiazko Jainko-kutsua kendu edo moztu ta jentil denporako itxurara bihurtu nairik. Ementxe berton, San Juan dala-ta, San Juan'ek baiño taberberuak zati andiango daroie. Ardao ta edari-saltzailleok dira gaur euskal ermitetako jairik geienak euren gustora erutzen debezanak. Goizeko mezetik aita zurrera; meza au, al dala, goiz-goizean izan bear dau, atxaki orregaz jentea batu dediñean, nai beste denpora izan dagien euren edariak saltzeko. Eguneko orduak eta minutuak ondo neurtuta daukiez.

Bigarrena.—Gaur ez daukagu, santu baten jai dala-ta, edaria, musikea ta aragoz gaiñezka daukaguz. Musikari gagokiozala, zelako musika! Bat bera ba'da euskal kutsudunik, zortzi erbesteoko disku ta abar dituzu bestetik. Edaria, ondoren, ok egin ala! Egiz iñoan Txile'ko olerkari gailen Pablo Neruda'k: «Legeak eta alkolak galdu dau nire erria». Gurea ez ete?

Irugarrena.—Txarto gabizala diñoagu ero! Zelan ez, baiña? Ontzat artuko ete dauz Ofrendo'ko San Juan'ek bertoko egiteko guztiak? Arizti ederra daukazu bere inguruan, goiko aldetik. Ariztok, asko beñik-bein, erdian goitik beera ziriz zulatuta ezagutu nituan nik; gaur gaiñeko azalak orduko zuloak estalduta euki arren. Etenez gaixorik egozan umetxoak erdiko zulo arrakalatu ortatik igaroten ei ebezan lenago.

Baiña sorginkeria ei da au. Gaur ez ei da olako gaixorik osatzen. Ez, ba! Zornotza'n esan oi danez, gaixoa osatuteko, gomutagari lez, aldean daroan alkondarea aritzaren gaiñean dingillizka itxi bear ei da. Zer izten da gaur arizt gaiñean? Edo arizt azpian? Lozea ta mozkorra.

Miñean darabilgu gaur «justizi» itza. Eta justizia bakotxari berea emotea dozu. Ia, ba: emon daiogun San Juan'ia berea. Ta ez ardaia, aragia ta zentzunik-eza...

OIZ



DEPURACION DE AGUAS S. A.

URA EGOKITZEN ETA UR LANETAN BEREZITUAK, EDANGARRIAK - LANTEGIRAKOAK - ZIKINDUAK NAIZ IGERITEGIKOAK ZUZENTZEN

+ 32-37-00 - + 31-00-10 - 32-37-01 Urt.

Gordoniz, 44, 12.^a
BILBAO-2

ERRIATZA

ERRIKO-JAIAK

Zeanuri

URTE SANTUA

Zeanuritarrak gogoz diardue Urte Santua ospatzen. Aurreko iru jaietan, iru azterte egin dabez mezetan. Norberari, sendiari eta erriari begira. Eta Bagillaren 22'an, larogaita amar lagun joango dira Urkiola'ra, beste arratier, Miraballes eta orozkotarrakaz batera. An, Urte Santuko eleizkizuna egin eta Durango ta Zornotza'tik etxeratuko dira.

OIN-BIDEA

Zeanuri'ko erri onduan, arrisku aundiko toki bat dago, bide-zabalaren alboan oinezkoerantzako biderik ez dagoako. Oraintxe diardue alboragotik oin-bidea egiten.

SAN BLASAK

Bagillaren lenengo domekara aldatu dago jai au. Bere egunian, mendi orretan, otz, euri edo edur izaten da geienetan, eta orregaitik, bere ermita onetan, mezea amabietan, eta itzaldia Martin Olazar jaunak. Jente asko bertaratu ei-zan, naizta aldatza egon, eta danak pozik. Meza ondoren, ardao zurie ta gailletak guztientzat. Oitura ori apaldikoa ei-da.

Emengo txistulariak alaitu eben jai au. Itxuna, Orue, Soloeta eta Asterori auzuneak ospatuten dabe, batez be. Ba ei-dabez ermitea konpontzeko asmoak be.

LAN-IKASTOLEA

Zulaibar'ko eskolea, Lan-ikastolea da. Ainbat gazte Arrati ta inguruetatik, euren ikasketak egin eta orain ondo dagoz lantegietan. Onuragarria izan da erri-alde onentzat eskola au, orain bere ainbat dabiz bertan.

Aurrerantzean, inork gura ba'leu bertaratu, Zuzendariagaz egon daitela...

BASERRIKO BARRIAK

Orain bere ainbat lan daukagu baserrian gelditu garean banakok: artoak jorratu, bedarrak siketu ta abar.

Aurien, igaz baiño sagar gitxiago dagoala diñoe. Lora asko ikusi zan eta uste neban sagar asko izango zala. Baiña gure amak esaten eban eskun zar au, sagar lorak dirala-ta: «Martiko lorea, ez ba'litz ohea; Aprilleko lorea, babez baiño ohea; Lorailloko lorea, urregorrie baiño ohea, eta lan izango zan aurten bere.

Agur eta beste bat arte.

GORBEITARRA

Zumarraga

PESTA-BERRI

Illak 13, gaurko egunez, gure Txadon nagusian Parrokia'ren eguna ospatzen degu. Egundon, gure eliz-gizonak, egunari dagokion eran baneatu dituzte entzuleen biotzak, parrokiaren bear eta premiak agertuaz.

Parrokiaren omenez eta parrokiaren bear batzuek zuzentzeko asmo sendoz beterik, arako eliztar guraso batzuek batzarre edo jardun-aldi bat eduki degu geure artean. Ona zer dion geretatik batek: —Orain urte batzuek, atsedengarri egiten ziran gure barru ta begientzat, gure eskola-umeak, goizeko amarretan, igande ta jai, eratzen zuten elizkizun zoragarrian.

Leen maillan, zuzendariak. Txairo ta begiak argi, egun batean ain maitekor jaso zuten jantzia soñean. Ikasleak inguruan leiaz kanta-kantari, urretxindorrek iduri.

Baiña! Egundon negargarri batean, ipar-aize otzak bultzata, gure mendi ta ordeketan laño beltz ta otza sartzen dan lez, gaur, berriki-zaletasunaren aize zakar eta otzak bultzata, oztasunaren laño beltza sartu da Kristau biotzetan.

Esan gantzake Ekaizte onek, babesik bage arkitu duela gure aurren biotza. Aurreko urteetan milla aur inguru batzen ba'ziran igande ta jai egunetan beren elizkizunetara, gaur, barru-asketasunaren babesean, berreundik gora ez dira aurkeztzen.

Gai oni buruz, gaurko apaiz gazte ta egun baten ain maitekiro jantzi zuten soñekoa, jasota daukaten erlijioso batzuek, ez ote zer ikusirik...?

Elizaren ametsa, parrokia indartzea izan da, kristauen jaiotetxea dalako; gaurko teologo berri askorena, parrokia barreatzea.

Ondo ikusia dago, sendiaren zati bat leiatzen ba'da beste zati bat sakabanatzen, sendi onen bakea joan da pikutara. Berdin gerta ditek gazte aukin, gaur, beren begien aurrean —asmo onez— jartzen diran ostopoak, itsutuko ditu, ta beren adimena gortu. Ta biar, ama elizaren deira ez dute aurkeztu naiko beren jaiotetxera Aita'rekin bazkaltzera.

Irakurle biotzekoa, etzaitut nere predikuekin nekatu nai, beste batean gure Yaunak zabalduko du eguna, soro lartzu au ondeatzeko.

Lantxo au bukatzera noala, txartel bat jaso det ta onela dio: Pesta-berri egunean egin zan eskean, eun milla ta zortzireun laurrealeko batu dira.

Eskerrik asko guztiori.

AZKARRAGA

Mundaka

UDA ASIEREA

Donianak dirala-ta, gure erria biztu da benetan. Kanpoan dagoen mundakarrak, biotzeko pozaz batu dira errian bizi diranekin. Udea agiri da. Onela erriko baster gustiak, enparantza ta talak, Txorroko punta edo musturra, Santa Catalina, Laidatxu ta abar, bete dira. Neguko illuntasunak, itxaso ta aixe gorrak, Doniane aurretik igeska «sorgiñekin» batera aldendu ziran. Joxe Gondra ta Joxe Mari Egileor'en eskuz, txistu ta abestiek, umeak kantetan dabe:

Gau dala, biar dala Doniane.

Etzi pasu bijaramone.

Gure kalean sorgiñik ez;

Ba-dagoz bere, erre beitez...

BARRIAK

Txopuetako «Ezekiela»ren bar ospetsua zana, sarratu da. Baiña bere ordez, barriztuta, ta jateko gela ta guztiz, kanpotar batzuk bera igiri dabe. Aurreko ibiltalde politean, barreko maietan jesarrita, ba-dauke udazaleak, nundik ikusi itxas-ontzien etorkerak!

Baita Pilar eta Marina'ren Jatetxe famatua sarratu da. Amaika mundakar ta udazalek jan dogu urte askotan inun lez, gozo ta merke, ta gaiñera ain biotzez artunda, norbere etxean izango zan legez. Agur Pilar eta Marina, merezi dozue benetan biak, oingo atsedean osasungarrija. Deustoar sendi batek artun dau Jatetxe au.

Kurutze kale ondoan agiri da beste bar harri bat. Dotore apainduta dago. Lendik gitxi ezpadira zurrutegiak... kontuz gasteak edariakin! Artun gozoz eta neurritz, burua «alterau» barik...

ERRIKO-JAIAK

Oneik izparrok AGUR'en agertu baiño len, izan leike erdi igarota Kepa Deunaren jaiak egotea. Ziur nago ta olan opa dautsuete, ederto ta alaitasunean igaro daizuzela. Mundakarren inbiditasunean bizi diranak kontakotsue mundakar marino emaztien baten ipuin barregarri bat, baiña nun ikusi ete dabe mundakar neska bat edo andereñoa aif apainkiro jantsita ez dagonik...? «Telebisiño»an izango zan ba... gaurko aperturea dala-ta.

Danori zorianak gure Zaindari'ren jaietan!

ARGIZALE

Arratia

Oraindik oraintsu, txapelik gabeko euskal-jai ospatu izan da Bilbo'ko zezen-plazan: txistulari, dantzari, gizon indartsu, arri astun eta olakoz osatua. Uis-egite banarmen, agiri-agirikoa izan zan, euskal-soñaren gorengo jantziarentzat bururik etzegoalako, ala buruarentzat txapelik eza? Euske-rearenganako itzalik eza ta bastertzearen kakoa non oinarritua izan ete-zan?

Txistulariak, jaiaren biztugarri; dantzariak, azur-giltzetan minik eta nekerik ezaren zerak erakusten; gizonak, indarra ta arri-jasotzeak, guztiak eder eta egoki. Jantzirik gorengoa baiña... Euskearentzat bear eban añaiko agerlekurik ez.

Alako jai naiz olakoa, jai beti jai, eta jai ikustera urbildu, urrevatu ziranentzat, ordu atsegina. Aurpegi mazkalik be ba-zan orratio, baita ere ziorik alan izateko.

* * *

Otxandio'ko Txapel-jai batean ere jazo izan zan, oraintsu, Bilbo'ko jaietan izan dan lakorik. Deiak, oarrak eta azalpen guzti-guztiak erdera utsez, txapela ta Otxandio euskaldunak izanik.

An izan baiña Lezo-Errenderi alde artako «Oskarbi»ren abots ezta, bazkal aurreko bizigarri berezia. Eta aieri esker garbitu zan aize atsitua.

Otxandio'n ezagutu eta Otxandio'n txalotu nituan lendabiziko, lenengo aldiz. Eta alkar ezagutza aren oroitza, orri ontan eskumuin eta gorantziak bjoakiez. Biotzez.

* * *

Bilbo'n eratutako «Euskal-Kirol-Astea»ren urteurrena laster beteko da. Zer jazo zan?

Zer jazoko zan ba! Sarreva-txartelik eskuratzeko dirurik ezagaitik... abarkaduna zalako... baserriko semea izanik, Bilbo'ko aundien artean agertzean itxura egokia, bere bizirik ez ebala izango eta beste zeren bategatik, esia jarri jai-toikiaren inguruan. Eta izkuntza laztanari lekurik ez barruan!

Ba-dogu norbait, euskal-kirolak erdel «kazetetan» erderaz azaldu, eta tartean, «harri», «hori», «haizkora», «hiru», «behera», «zahar» eta sagarkirtenen batzu-batzuk geiago ipintzeak «salbako» dula euskera gaixoa, uste dauana.

* * *

Udaroan gagoz, ango errian eta emengo auzotegian jai-irakiña bizi-bizi. Jai-orrietan, agerkaitan, eta batez bere, jai-zuzentzaile ta buru diranetatik izango dogu ikasirik. Gogoan izatekorik.

LANDAJUELA'TAR A.

Galdakano

TXANGOIA

Azkenengo urteotan lez, ta udarako ikastaroak amaituten dabezanean, euskal-ikasto-

lako umetxu, irakasle ta guraosentzat, oncin batzordiak txango bat antolatzen dau, alderdiren batera joateko, ta aurtengoa, bagil onen 23'gnean. Kuartango'ko Zuazo'ra izan da, ainbat berebilletan bertaratuaz 200'en bat notin, guraso ta umetxu.

Euskal'erri'ko alderdi baketsu ta osasungarri ortan iñoiz egon bakoak ziran txango ortan izan ziran asko, beraz, ez eben ezagutzen inguru ori. Kuartango, Araba'ko Gazteiz uri-burutik ogeiren bat aneinekun sarkaldera aurkitzen dan erridi edo ballera eder bat da.

Bederatzi errizka ditu Kuartango'ko erridiak, Zuazo dabela erri-buru. Emen ditu Udal-etxea ta bultzi-geltokia. Aldi ontan, ainbat etxe txiki baiña apain egiten dabil-tzazan alderdi baketsua. Ez dabe lantegirik, beraz, lurretik bizi dira, gitxituaz doyazen errizka guztijok.

Zuazo errizka, Bayas ibai ur garbidunaren inguruan dago egon be, ta ba-dau atsedean leku ederrik, ta eukrotarik bat, an Salestar lekaideak daben ikastetxea, ibaiaren alderdi bietatik. Bestekaldetik, baratz, pelota-toki ta, alboratxoago, ikasleak jolastuteko ostikoketa ta beste zelaikada ederrak ditu. Inguru bikaina, egun baketsu ta osasungarri batzuk igaroteko, beste ardurarik ez debentzat.

Toki ortara zuzendu giñan galdakaotar txagolariok, eta lekaide orrekin baimen osoaz, bertan inguru genduzan ainbat ordu zoragarri, ume, guraso ta ainbat aitateok be.

Jolasci asiera ona emoteko, lenen, eberdiko amabietan mezea izan genduban, lekaideen txadontxu apainean. Euskeraz jakina. Txangolarion artean genduban Agirre-malloa'tar Xabier jaunak ospatu euskun eta gure umetxu euskal-ikasleak, euren irakasleen zuzentzapean, polito abestuta.

Mezea amaitu ondoren, eta gizonezkoak arin baten zabaldu ba'ziran be, aboak busti guran, emakumeak bazkari gertatzen eta ume pozpoliñak ibai-ertz, pelota-toki ta beste jolastokietan zabaldu ziran, geyen baten euren irakasle ta andereñiñak buru ta jabole ebezela. Urren, sendi-taldeak bazkaria, ta au berantza pizkat jati zanean, gaztetuak eta aundiyaguak euren jolasetara, iñoiz danak batera be bai, arratsaldeko zazpirak edo zortzirak arte, amaibako alaitasun anaikorrean. Itz baten esateko, egun bikaina galdakaotarrok an igaro gendubana, urrengo urtean aundiyagua ta ohea asmatzeko gogoaz. Alan izango al da erriaren onerako.

MENDIAN ILDAKOAREN OMENEZ

Bagil onen 23'gnean, txango gomutagarri bat egin eben Ganguen'go mendigoizaleak. Mena errikan dan Magdalena mendi-lerorra joan ziran, ia urtebete, mendi artan eriyotzea aurkitu eban San Salvador eta Ibarra'tar Errikarta galdakanotar mendigoizale kement-sua zanaren omenez. Bera il zan tokian, illarri apain bat ipiñi zan, adizkideen oroi-garri. Irurogeiren bat edo geyago bertaratu ziran, eta tokian bertan mezea be ospatu nai izan eben, baiña alderdi aldapsua dan ezketiño, beragoko Bigo-Siones errikan ospatu zan, orretarako gure mendigoizaleekin juandako txanburu dogun Onainda'tar Jon jaunak emona. Goyan Bego adizkide zintzoa genduban Errikarta, eta zorientzekoak bera-gaitik zerbait egin daben guztiyak.

ERIYOTZEA

Jon deunaren egunean izan be; Orozko'tar Jon euskaltzale onari, ta irurogei ta amar urtedun zala, Jaunak Bere aldamera deitu utsan. Aspaldiko urteotan, Beke'a'ko auzunean bizi zan adizkide on ori. Goyan Bego, ta lagun gaitube atsekabean bere emazte, alaba ta sendikide guztiak.

BASA-JAUN

AREATZA'N

Barazar'erako bide barriak batekoz bestera aldatu dau Billaro. Gaur, bertara etorri ezik, egalean, ertzean ukusten dogu.

Kamioitakuak prisaz dabiliz. Guk ezin euren antzean ibilli. Gure Euskalerrri bedein-katu onek merzei dau noiz-beinka bidetik aldatu ta gelditzea, autsak kendu, garbitu eta basterrak ikusteko asmoz.

Gaur bide naukien alboan gelditzen da Euskalerrriaren ikusgarriena. Mando eta landoien denporetan errietako etxe-jaube eta agintariak asarretu egingo ziran ala gertatu ezik. Gaur arriskutsu litzake erri barrutik igaro bearra, bai ibilli bear dabeneztat eta bertan bizi diranentzat be.

Billaro'n gagoz.

Areataz'n sortu ei zan eta gero Billaro'n gelditu. Areataz garratza ei zan eta Haro'ko kondean emaztearen ontasuna gozo. Origaitik ontasun onek gaindu eta makurtu zitun ingurutako artzain eta laborariak, eta mesedearen onez, erriari be izena artzen laga: Villa de Haro, Billaro.

Guaizen.

* * *

San Bartolometan jai. Bere aitzo ta guzti, bere kuxillo ta guzti, or egoten da apostolu u aldatu. Umetan zerebaten ez ete eben ikusi, sermolariak azurretaraino bildurra sartzan puztu eta asetzen ziran denporetan, alako didar dardaratsa eta tremolodun a: San Bartolome'k ikara egiten du?

Billaro'n santu au begiko dabe. Askotan santuak ez dauke ze ikusi andirik eurak ezagutzen alegindu ez diran euren goratza-lleekaz. Ba dakie ori bertakoak. Eta eurenari eusten dakie. Alperrik errekaizea gogor jotzen etorri, gizaldien gizaldietako fedea eta oiturak, makurtasun eta barruko sentimenak, ezin leiz bat-batean bertan bera jaurti edo laga.

Billaro'n, parroquia, 1338 urtetik datorrela diñoc. Euskalerrriko beste askorekin batean, XVI gizaldian barrizatu eben bertakoak, izerdi, neke eta diruaren truke. Askotan etxeak eukazan arbola eta emaitzak orretarako emonda.

Eleizako liburuak 1593 urtean asten dira.

Lenengo jaiotzaren barri zeatza Franzisko Ibarra'koarena da. Urte orretako Epailla'ren 3'an dago bere jaiotze eta bataioaren agiria, liburu barriak edo obeto esanda, ortarako lenengo liburuak bere jaiotzeaz asten dira.

Eriotzetako liburuak Ozerin'go Marina'ren eriotzea adierazoteko zabaltzen dira. Eta ezkontzen liburuan lenengoz agertzen dana, Arteaga'ko Pedro eta Asturiazaga'ko Santxa'ren ezkontza da.

Fedea emon leiken liburuetatik orreik dira zeatz agertzen diran billarotar jatorrak. Baiña fedea geiago sifistutea da, ta luzeago joanaz, Billaro aurrez ba zan, naita ei billatu bear istorian lenagoko billarotarrak.

* * *

Zenbat euskaldun gaur Billaro'n? Erdiak bai?

Oraintzuko ikasketa baten, enkueta baten, batez beste 0,35 dirala irakurri dot. Au da, ia irutez bat. 1325 bizilagunetatik 540 inguru euskaldunak. Gerotxuago egin dodazan itaunei erantzunez, batez beste erdiak izango dirala esan dauste.

Dana dala, igaz, 1973 urtean, 22 lagun jaiotze ziran bertan, 20 il eta 6 bikote ezkondu. Jaiotzetan zenbat euskal izen ipinten diran jakin nai ezker, orra igaz ipiñiak: zazpi.

Kalean danetara entzuten da. Eleizkizunetan, eukaristi batzarretan, aukera bi daukez euskaldunak.

* * *

Pedro Antonio Añibarro'ren kezka sortu bear da Billaro'n.

«Arkatz» baserrian jaiotze. Argitasunari begira. Gizon zur, ikasi eta batez be sentzu andikoa.

Praille izan zan: frantziskotarra. Ala ta be... «santu santaren artean, orma lodi bat bitartean», gogoratzen ekian.

Zarautz'ko praille etxean bizi izan zan luzaro. Andik erriz erri sermolari ibilli arren, lunea beti aldian.

1748'n jaiotze zan, 1830'n il. Ikusten danez luzaro bizi, baiña urteak ondo bete be bai. Bete kezka eta gar bategaz: euskera landu ta erakutsi.

Gaitz da gaurko prailleak ezagutzea, baiña orduko ezin kendu leikioen praille kutsurik. Alkanforez betetako etxeetan bizialargunak biziten dakien lez, praille usaiñik ezin uxatu, len, konbentuetatik. Bakoitzak bere zeregiña dogu. Len jatorrago, gaur naastuago. Prailleak, orduan, bereari autsak kenduta be, koroia beti buruan.

Origaitik Añibarro'ren lanik geienak kristau bizitzari begira egiñak dira. Ori bai, bere erriaren izkuntzan, berbetan, eta berbetako modu orri bere birtutea emon nairik.

Arratiarra bera, gaur baiño aldakuntza sakonagoa ezagutuko eban, ezpai barik, orduko errialde bat eta bestearen arteko esakeretan, agerbidetan, erri fonetikan.

Ondoren ori zintzo erabiliz, batean artu eta bestean landu, Bizka'i'ko euskera al zan bestean alkartu eta osotzen ibilli zala lei. Berak egiten daben euskera, non edo non Bizka'i'ko errietan entzuna dala, diño.


Ez da nire zeregiña gaur emen bere lanen izenak agertzea. Asko dira. Bai, orraitik, bere gizontasuna goratzea. Origaitik billarotarren kontzientziari au gogoratu nai neukio:

Ez lotsatu, ez, zure euskereaz. Edonun goratzen da Añibarro. Beraren jaioterri izateaz agertu zaitez, Billaro, arro.

* * *

Billaro, denporetan, ez da izan erri aberatsa.

Sasoi baten eleizaren errentetatik igarten zan ori. Eleizak eukezan sarreretatik. Ia Bizka'i'tik gixien eukan Billaro'ko onek. Garaiak ez dauke ze ikusirik. Beste neurriari begira diñot.



Erriko diru batzalleak be zerbait erakusten dau orretan. Esate baterako, 1707 urtean, Pedro Arredondo zan kargu ori eukana. Amarrenetatik irugarren zatia artzen eban beretzat, zeregine orren ordez. Danetara be irurean errial urtean. Diru orretatik aguazilla ordaindu bear eban, eta kartzela be bere kontura euki. Orrela, artzakoak jakin ta kentzakoak kenduta, 33 errial gelditzen ei yakozan urtean.

Sasoi aretan Billaro'k 71 sutondo eukazan. Eun urte geroago, ia bardin: iru geiago.

Iru ziran errotak be Billaro'n. Ortik izena bera: Iruerrotak. Zeiñetan ete zan errotari Bartolo?

Artoagaz uruna errotako arriak, artoana oria, gaztañena zuria. Bartolo'k ondo daki zeñeri jo begia.

Paper zarrei begira, ona Bartolo bat. Eun dukaten karga eukan errotak, burdin eta pixuen ordez. Eta Deusto'ko alargun batek Mari Bixenta Mendietak auzira eroan eban gure Bartolo Bolibar. Orain 150 urteko autua da ori.

* * *

Sasoi baten ez zan giro Bizkaia'n Zama-kola'ren asarrea zala-ta. Dima'n bizi zan bera. Bidezko zan inguruetan lagun onak eukitea. Aita Pio Bernaola billarotarra bat. Ainbat lagun Bizka'i'tik kanpora atara zituen. Aita Pio'ri konbentuz aldatu eragin eta urte birako kanporako txartela emon eutsen.

* * *

1338 urtetik dauka erri legea Billaro'k. Urte onetako Dagonilla'ren 15'an emon

AGVR

Apartado n.º 2
BILBAO

FRANQUEO
CONCERTADO
08/55

Filolojiako Jardunak

GALEGOERA... TA EUSKERA

Orain iru edo lau bat urte, «Galizia'runtz begira» zeritzan idazlan bat argitaratu nuan, Alvaro Cunqueiro galizitar idazlea gorapaituz.

Aren liburu batetik gaia arturik, «Tesouros Novos e Vellos», orduan Mondoñedo'n gotzai zan D. Jazinto Argaya agurgarriari eskeiñitako itzak azaldu nituan: «O meu bispo e señor quero escribir aqui a más cordial i agradecida das adicatorias».

Ez dala egun asko Cunqueiro'ren beste lan bat irakurria nazute «galego» izkuntzaren etorkizunari buruz gauza jakingarriak esaten dituan.

Ikusten danez, Rodrigues Lapa portugaldar filoloxilari jakintsuak galegoera nola obetu zitekean aolku batzuek ematen ari izana da. Eta aolku orietan galegoerari portugaldar izkuntzaren itxura geiago eman bear zitzaiokela eskatzen omen zuan. Galegoerak, berez nortasun aski ez ba'lu antzo...

Jakiña, galegotar idazleek, ao batez, Rodrigues Lapa'ri ezetz esan diote. Ez ezen... bai Ixtoriak, bai Politikak eta bai urteek ta gizaldiek bi izkuntz ez berdin egin ditualako.

Galegoera apalagoa izanagatik galizitarrok berea dutelako maite dute. Eta Cunqueiro'k dionez orain dagon eran ere ez portugaldar eta ez brasildarrok ez omen dute ortografiaren batasun bearrik galegoera errezi irakur eta ulertu al izateko.

«Li» ordez «L»; «Nh»ren ordez «n»; «Uma»ren tokian «Unha» eta beste antzeko aldaketak dirala-ta.

Galizitarrok ez dute aldaketarik egin nai izan eta Rodrigues Lapa filoloxiari aien izkuntzaganako errespeto ta itzala eskatu diote, berezko joeran jarrai dezan.

Galego izkuntzari zer gertatzen zaion jakitea onuragarri zaigu beti. Orre-gatik aspaldiko nere adiskide ta galizitar idazle dan Ramon Piñeiro'ren «A Linguaxe i as Linguas» itzalditik zati batzuek euskeratu nituan «EGAN» (1968) aldizkarian argitaratuak izan ziranak.

Galego-literatura'ren bizitasuna ederki nabari diteke «Galaxia» argitaldian etxearen liburu zerrenda aztertuaz.

Euskaldunok Galizia'runtz gure begiak zuzentzeko beste zio eta arrazoi ba-dugu. Alegia, galegoerazko literatura geien bat suspertu zuana euskal jatorriko izan zala. D. Manuel M. Murguia ain zuzen, Rosalia de Castro idazle ta olerkari gorengoraren senar eta laguntzaille izan zana.

Itz-lauz eta itz-neurtuz Manuel Murguia'k bultza ta sakatuta sortu ziran 1857'gn urte ezker Rosalia goitarraren lanik ederrenak. Beste idazleen lan arruntak, esateko «Catecismo do Labrego» eta abar ez ziran 1899 urte arte argitaratzen asi.

Beraz D. Manuel Murguia dugu garai artan aurrelari... Eta nork esan bear zigan Murgia ori D. Domingo Murgia Azonbide oyartzuara berez, eta Tolosa'n 1815-44 bitartean organista ta musika maisu izan zanaren biloba zala... Aitonak, biloba ori ukan zuan alaba baten bidez... 1823'garren urtean Galizia'runtz igesi joan zana. Ea gauzak nola diran lotzen... ezkontzaren bitartez...

Urteak joan eta Rosalia'ren illeta aundiak ospatu ziralarik aren gorputza Santiago de Compostela'n illobiratu zutenean Domingo Murgia aitonen illeta-meza abestu orien zuten. Onak adierazten digu bi oien aidetasuna ezaguna zala.

Guk, Galizitar kultura, arretaz eta maitasunez arakatu bear dugu. Gure izkuntzan «Catecismo do Labrego» itzulia dagoala pozik ikusi dut. Nere txikian aspaldi euskeratu nizuten Castelao'ren «Os bellos non deben de Namorarse» antzekia, bear bada noizpait argitaratuko dutena.

Bijoa gure apurtxoa galegoeraren alde, ta galiziar kulturaren onerako. Lenago Gallastegi injeniero bergaratarrek Galizia'ko nekazaritzaren aurrerapena bultza zunez, bizi dira orain ere Galizia'n oso goian jarriak dauden euskaldunak. Ez ditut bi besterik aitatuko: A. Odriozola bibliofilo, liburuzaletan ta musika kritikari ikasia.

Eta azkenik, ez ordea atzen... «the last bet not the least» aurren-aurren baizik, D. Aingeru Sukia, Compostela'ko Goi-Apezpiku txit agurgarria... eta euskeltzalea... Jaun altsu au, agian izan diteke Jainkoa'k lagun eta Elizaren Liturgia'ren indarrez, galego izkuntza sendotu ta goi-maillara igo araziko duana. Alabitz!

ANTONIO M.ª LABAYEN

eutsen nortasun ori Lara'ko Juan Nuñez eta Maria Diaz Haro'koak.

Eta ur garbiak, urteen neurri eta kutsu barik.

Jauntxoan denporetan, erriak be talde bat edo bestearen alde makurtuta jan eta bizi bear eben denporetan, ganboatarren alde ibiltzen zan.

Laster ikusten da Billaro.

9 kilometro lantu daukaz lurrez. Landairu eta Uparan Beko, auzoak. Bien artean be eun lagunik ez.

Illuntzea. Urrun daukadaz erria ta etxea. Arin ibilli bear. Ala esan dautsat andre bateri. Berak erantzun: Bai, eguzki sartue be yoan da bere amagañe. Eta Santisabel'ko monjak aingerukañe.

Kalean, ikusgarri, parrokiaren atadia. Bata bestearen gain iru zati. Zidar girokoa, «plateresco» dalakoa. Ala ta be bertan dagozan irudiak ez dirudate ate onetarako egiñak. Bear bada barriztatzean lengo zarrekoak bertan sartuta.

Kortezubi'ko bertsuak datorkidaz gogora:

Arte zaleentzat ba dago beste etxe ikusgarri bat, zizta-lanez dotoretutako etxea.

Eguzki santu bedeinkatue, zoaz zeure amagana, etorri zaitez bier denpora ona ba'da.

Kalean, goikoa eta bekoa, «susera» eta «yusera» izenekin.

Billaro'n, Euskalerrri bedeinkatuko Arrai baketsu onetan, udabarriko illuntze baten eguzki santuari biar be etorteko eskariz nabil, gabaren sarreran. Eta beragaz lana ekarteko, biarra ekarteko, Billaro'k irauan daian luzaro.

Konbentu bi. Monjaena 1620'n sortua. Praillekan oraintsugokoa.

A. ZUBIKARAI

AGVR

V URTEA
146 ZENBAKIA

ASTEROKOA
1974 - GARILLA - 20

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

IKUSLE

Udako [aldi] pozgarri ta zoragarrian aurkitzen gara.

Guztiok geure barrua ibiltari ta ikusle asmatzen dogu. Oporraldia zelan igaro izaten da gure ardura bat aldi onetan. Izan be, lanaren morroi urtearen egunak igaro ondoren, azkatasunezko egun oneik ba dauke garrantzia gure bizitzan. Urte denporan gure inguruko izakiak konturatzeko astirik izan ez ba'dogu, egun oneitan eurakaz alkar izketa maitagarri bat izan bearko dogu.

Eta lenengo gure kideko diran gizonak. Diruagaz ez lanagaz zer ikusirik ez daukan artu-emona izango da oraingoa. Gure biotzak zabaldu, alkar ezagutu eta enda edo jakintza ezbardindun gizonak solasean bizi. Barruan daroagun ezdabaidarako grina laster urteno dau, baiña, egun oneitan beintzat, alkar-izketa baketsua lortu dagigun, naizta geure anaia-kandik urrin bizi, beste mundu baten ba'gendoz lez.

* * *

Udako ikusleak munduko abere ta piztia be begiratu dautse. Eurak doguz bizilagun munduko ibiltaldi onetan, eurak laguntzaille, eurak janari ta atsegin.

Oianetan bizi diran pizti bildurgarriak, mendi ta zelaletan dakusguzan abereak, etxeko ta kanpokoak, ez ete dabe merezi gure begirakun bat?

Eta zugatzak. Bakarlekuetan bidezabal hiurtuak; pago, aritz, urki, eta ainbeste motetako zugatzaz inguraturik, ibiltaldi atsedengarriak benetan.

Igale-landarak: mastiak, sagardiak, oliadiak eta ez dakit zenbat eratako igaledun landarak alde bietan agertzen dirala laun-aldi ederrak igaroten doguzanean, berezko alkar-izketa bat izaten dogu gure izakide doguzan zugatzakaz.

Solo ta baratz ederrak, apaingarririk ederrenez jantzita; gu onartzeko izadiak bere jantzirik onenak jantzi dituala adierazten daskue.

* * *

Baiña bizibako izakiak be ba dauke sarritan euren edertasun ikusgarria. Euskalerra ikuspegi ederrez beterik daukagu, eta gure Erritik kanpora be edonon aurkitzen doguz olako edertasunak.

Batzutan mendi-arteetan: atxak, erreka-zuloak, mendizorroak, muñoak, zingirak, baserriak, bideak...

Beste batzutan itxas-ertzeko edertasun ikusgarriak: itxasoaren zabalasuna ta urdintasuna, itxas-ontzien ibilketa zurrak, uain indartsuak, ondartzak ederrak, kai lantsuak, bitzez estaldutako atx txikiak...

Eta zelan aitzu ixiltasunean ain eder agertzen jakun zeru urdiña? Izarrez jantzita, illargiaren argi motela agiri dala, gau-ixorien abesti ameslariak entzunez...

* * *

Baiña ez dira bakarrik izadiak sortuzo dituan izakiak.

Gizonak be bere lana egin dau izadiari laguntzeko. Eta ba dira edertasunak gizonak egindako gauzen artean be.


Lantegiak: Ez, bear ba'da, atsegingarri baiña bai bearrezko; Izadiarentzat iñoz kaltegarri ta loitzaille, baiña edertasun utsaz ez da bizi gizona.

Edertia: Ainbeste eleiza ta etxe eder gizonak bere kondairan eroapenez eta trebatasunaz osotuak eta gure aurrekoen pentzakerak gogoratzen daskuezanak. Toki batzuetan millak urteak iraun dituen kulturen ondakiñak, besteetan gaurko gizonaren asmamen eta irudimen ikaragarria agertzen daskuezan lanak.

Ikusle gara gu beti, batez udaldian. Baiña ikusten ikasi bear dogu, edertasuna ta trebatasuna aintzat artzen.

Udaldi zoriontsu bat irakurle guztiak. Ikusi izadia eta entzun bere esan-naia.

AGVR



Zortzi urte Zarautz'ko "Lizardi"ren omenalditik. Erabakiak, baiña, or rumbait...!o!

IKUSI ALA UKUTU

ZER BEAR ETE-DABE?

Guk, AGUR onetan (143 zenb.) aurretik salatu gendun «Gaceta»n (16-VI-74) agertutako alako «konsigna» barri baten usaiña estaldu naian-edo, Z-Argia'ko 592-593'gn zenbakian, Bulego'koen zuzenketea agertu da: Ez zala euskerearen jaiotzatiko millagarren urterik Errioxa'ko billeran ospatu nai izan, gureganaiño eldu diran euskal-idatzi zar arein izatearena baiño.

Ta, ori egia denez, arri aretan be, orrenbesteko zerbait jarri bear eben, eta ez orain agertu daben lez, ez-jakiñen oker-ulertzerako dala.

Baiña Bulego'koen azalpen ori jaio orduko, Villasante aitaren esan-bear batek ondatu dautse. Orri ori zabaldu dan egun onetan bertan, Uztaillaren 6'gnean, Donosti'ko «Diario Vasco» egunerokoan, irugarren orrialdean, Villasante'k berak erbesteko izparlari bati ta beste ezer ez dakien erbestetarrak irakurtzeko egin dautsan autorpena dakar.

Eta or, naiño garbi, beste a, «Gazeta»n agertu euskueña: «Sabemos que el vascuence se hablaba hace un milenio, pero es todo lo que sabemos». Berak berterik ez dakiala esan ba'leu, or konpon! Baiña, itxuraz, danok sartu nai gaitu «sabemos» orretan.

Ondoren, auxe diño: «Nuestro idiona continua sin tener principio» (euskerantogaitik ezin izan beintzat: Baiona, Ermua, Arantzatzu-68). «Nadie ha conseguido descubrir sus origenes». Ta, orrek aurkitu ezin izan ba'dau gure Erriaren benetako itzkuntzea noiz sortu zan, milla urte labor oneik bakarrik emon bear ete-jakoz?

Euskerearen izatea, milla urtetik goragokoa be izan leikela ezin «frogatu» dala zabaldu bearra, beste lagun-lorito orreintzat egin-bear barria ete? Ba, indartu baiño len, moztu dagiogun, oraingoan beintzat, egaztada makurra. Ta, orretan diardut, lagun!

Ez. Jaun orrek ez dau aurreragorik ikusi ez ukutu —Santo Tomas— ta, jakiña, ziñestu nai ez! Naita izkuntza eder onek, euskereak berak, bere zuzarretan gaiñera, edozein asmo onekok ikusi, ukutu ta entzun legikezanak baiño argitasun aundiagoak izan, millakada ori, cunkietan, gizaldietan zenbatu bear dala jakiteko.

Jaun orren milla urteeri, beste millatxo kaskar bat ezarri nai ba'leutsa irakurri begiz erromatar ibiltarienak be.

Gure —danona— dan euskera bardin bakoa, orrenbestean beratu, kaskartu nai izatea, atzo goizeko asmakizun bat dala (ez dabe Bouda ta Dobson jakintsuak irakurri!) zabaldu nai izatea orain. Zergaitik ete? Bai, alperriko galderea, irakurle!

BEIZTEGITAR JON

BETIKO JARDUNAK

Bein baiño sarriago esan dot, iñoiz garratz agertzea, ez dala nitzat atsegin. Errezago ta gozoago litzakela, gai alaiak erabilliaz, oorezko aipamenak egiñaz, gauza argitzea. Baiña, jaiobarriak ez garanik, albora begira ikasi al izan dogu dakigun apurra, ta etxera zer etorri leiteken ikusirik, arretaz ibilli ta gertu egotea erabaki dogu.

Ara. Urte asko ez dira, Mussolini, Italia'ko «diktadorea» izan dakoa, agintaritzatik bota al izan ebela. Agintaritzaz gogor aren aurka ebiltzan azpiko indarrak, danetarikoak ziran, baiña, bai diru laguntzaz, bai «disziplinaz», baita «dialektikaz» obeto ornituak, komunist alderdikoak izan ziran. Zer jazoko ete-zan beste indar guztiak —errian geienak— lo egon izan ba'lira? Zer Dom Sturtzo'ren inguruan ebiltzan De Gasperi ta beste demokrata gazte taldeak zur jokatu ez ba'lebe?

Oraingo kapitalismo pean be, gizonaren eskubide asko zapalduak izaten dirala? Bai, baiña besterik ezean, oneik, orain be, euren batzarretan eta euren izparringietan, deadarrak eta zabalkundea egiteko era daukie; erdiko demokratik ez-eze, baita jaun egin ezker olako baimenak kentzen dakiezan ezker ta eskumatarrak be... baiña Polonia'n, Txekoslovakia'n eta Errusia'n, bai? Zer jazo jake, Nixon'en ikertaldia izan danean, ipar-amerikar telebiziño-artzailleeri?

Ba-dakigu nundik nora goazen; ezker ta eskumatar batzuen esanak aztertzer. Asi baiño len, ea norbaitzuk ikasten daben betiko: «komunismoa ontzat emotea, ezkertiar izatea ba'da, gu, eskumatarrak gara. Mussolini ta antzeko agintaritzak eta kapitalismoaren gizatatan bako zapalkuntzak onartzea, eskumatar izatea ba'da... gu, ezkertiar gartzu». Olan izan be izan da beti gure erria; gure arbasoen jokabidea.

Norbaitak esango leuke... Josu ezkertiar? Lengo baten esan euskun, Begoñazpi'ko ikastolea eskumatarrana dala. «Zeinek esan dautzu ori?» «Ba... ak, lagunarteko batzar baten». «Orrek?... Tira-tira» esanda, naiño barre egin gendun.

Esanak albora lagata, egiteak aztertzen aspalditik ikasi gendun: gizonak, euren jokabidea bitarteko dabela, epaitzen. Ogeitamar urtean, «Euskalduna» lantegian, kapitalismoaren azpian, lagille izan nuen aita, asieran peoitzan ibillia. Olako gizonaren semea, giza-kontzientzi apur baten jaube ba'da beintzat, ezin izan leiteke eskumatarra, baiña, dana dala, olako piztia izatera eldu ba'giña, nerek botako leuskigu lenengo arrikadea?

Arriitu zait ba, irakurle. «Urbanizaziño» barri baten lau milloi inguruko «chalet» baten jaube dan emakume batek. Senar-emazteok, berebil banaren jaube izanik, ainbat «soziedadetan» bazkide, dirugintzea baiño beste elbururik ez daukan senar baten emazte «progresista» orrek. Olako berbalapikoan ixillik egon-eziñak, barre-gurea damosku, baiña erantzuteko gogotxo be berbitzen...

Eundik irurogeitamar, langilleen seme-alabak diran umeen ikastolea, eskuindarra? Beste orren seme-alabak doazan ikastolako gurasoak, zentzun geiago ta zintzoagoak diralako... bestela!, argitasun ederrak emongo gendukez; baiña itxi daiguzan bakean ikastolak, bakoitza bere tokian, eta lan egin dagigun danok, gurasoen eskuetatik galdu barik ugaritu daitezun.

Gure errian, ezker-eskumeri buruz sortu barria dan nastea, ikaragarria da. Bata ala bestea, zelan banandu? Burges eta eskuindar aundienak, miin-gaiñez, ezkertiar agertzen diranean, eta benetako ezkertiar izan bear leukean langille batzuk, burgesen bitziza erosora eltzeke, konsumo-gizartearen ezintza lotsagarrian ikusten doguzanean... zer? Langille zapaldua zan gure aitak, eusko langille alkartean, beste bat bakarrik zanak, kristau eziketea emon euskun, bai etxean, bai eskolan, erriazetasun giroan. Gure umeentzat, beste orrenbeste nai gendukelako, kristau eziketea ta erri euskerea erakusten diran ikastola batera bialtzea ba'da eskumatar izatea... betor ordu onean ez-izen ori!

Baiña, naiña euren buruak ezkertiarizat agertu, gu baiño askoz eskumatarragoak dira len esandakoaren emakume burgesa, eta euren seme-alabato kutunak.

Olako sasi-ekertiz bete jaku inguruak: Adiñeko naiz ume-moko, sapar-luze, praktik zar-itxurazko apropos ondatuak, amaika giza-joren izerdi-emotez «aita»k irabazitako —ala ostutako— diruagaz sakelak bero ta sabelak beroago; mozkorraldi baten, edozein zapaltzeko egokien dan «mini» bat ara ta ona ibiltzeko... olakoak ditugu geienan gure artean sortu barriak diran sasi-ekertiarak, langilleekin zer egin bear dan ala ez dan, esaten ausartzen diranak.

Ez dakigu gure erriaren etorkizunaren barririk, baiña naiño buruaste izango dogu «burges» ezkertiar orren diru metak bardin-tzen eta orreñ seme-alaba alperrok lanera biurtzen.

ARENAZATAR JOSU

AURTEN IKUSIA IZEN ABIZENAK

I

«ONDO ETORRI» irakurtzen det,
 etxe askoen sarrera atectan,
 ate-aurreko oiñ-zamuetan.
 Ori ere modazko jarri zaigu.
 Nere gardiz, nik beñepein,
 ontzat det artu.
 Bai bañan...
 atea jo,
 bereala iriki ta,
 etxean sartu.
 Ta...
 barruan itza ta pitza,
 eten gabeko berriketa,
 jakiña: dana erderaz.
 Bitartean «ONDO ETORRI»
 gure euskera maiteari.
 Ate aurrean,
 zai ta zai,
 ia noiz sartuko ote dan,
 gure etxe barruetan.

II

Bañan...
 ez etxe danetan.
 Ikastolak dirala ta,
 orra etxe-barru batzuetan,
 nexka-mutil naiko bizkorrak,
 eten gabe,
 gure euskera txukun-garbia,
 beren ezpaiñetan...
 Etxe oietan leen,
 etzan euskerarik entzuten.
 Guraso-senide artean,
 galdua bai zen.
 Etxe ortan ez dago
 «ONDO ETORRI» idatzirik.
 Bañan orain arkitzen da,
 ondo sarturik.
 Etxe oietako batean,
 orrela jardun zait nexka pollita:
 «Aitak ez daki euskeraz,
 amak bai bañan,
 gauza batzuk txarto esaten ditu».
 Ta ni galdezka:
 «Zure aizpa onek?»
 Berak:
 «Ez, ez da euskalduna,
 nere anai au ere ez».
 Ama beartuta euskeraz jardutzen da.
 Aita euskera ikasten asi berria da.

III

Lengo astean,
 Donosti'ko etxe batean,
 arki nintzan bazkaltzen.
 Gurasoak orindik gazteak,

andrea euskalduna,
 gizona katalandarra.
 Bi alabatxo txiki;
 zarrena berritxu bizi.
 Bañan dana euskeraz.
 bai amakin, bai aitakin.
 Orra aita jardun ta jardun,
 euskera ikasten.
 Or ere: «ONGI ETORRI»
 etxe barrura,
 gure euskera.

IV

Domeka zan.
 San Anton'go euskal meza bukatu ta,
 etxera nentorren.
 Ta ara ni,
 gazte bizardun batekin,
 topo egiten.
 «Anai Iñaki, ezkontzera noa». Berak.
 Ta nik: «Noiz ba?»
 Berak: «Datorren illean».
 Orrela jardun zan euskeraz.
 Egia esanaz ez errez eta ez garbi.
 Bañan ez zuen erderara jo nai.
 Gazte onek ez du etxean euskerarik entzun,
 gurasoak ez bai ditu euskaldun.
 «Zorionak motel, esan nion,
 ire ezkontzagaitik,
 ta ire euskeragaitik.
 Ta gero ire seme-alaben artean,
 ez utzi baztarrean».
 Ta berak ozengi:
 «Ez bildurru, anai Iñaki,
 nere etxean euskera egingo da».
 ONDO ETORRI euskera,
 etxe barrura.

V

Egun bertan,
 San Anton'go atarian,
 erderaz galdetzen didate.
 «Ba al dago mezarik orain?»
 Nik erantzun:
 «Amabietan dezute meza,
 bañan euskeraz».
 Andreak neri:
 «Ez dakigu euskerarik».
 Ta senarrak:
 «Benetan lotsagarria,
 Gu bilbotarrak izanik
 euskera ez jakiterik».
 Nik erantzun:
 «Lots ori,
 damu asiera dezu.
 Gaur asi ta ia,
 ikasten dezun».
 Or noiz, ONDO ETORRI,
 etxe-barruan?

OLABEAGA'TAR IÑAKI

ZELAN IPIÑI?

Ez dakit beti batean dagoan ezer, munduan ete dagoan. Ezer balego be beintzat izkuntzak ez dira orretarikoak. Bosteun urte buruan ez ezagun izate-raiño izkuntzak aldatzen dirala irakurrita nago, Biar bada a idatzi ebanak geitxo zabaldu eban aoa. Gaiñera, gramatika ta ikastolakaz orain ainbesteko aldaketarik ez izatea ziurragoa da.

Era bitakoak izaten dirala aldaketak esango genduke: alde batetik itz eta erak okertu, ta bestetik, itz eta era batzuk aztu ta barriak sortu. Aldaketa oniek geienetan erriak denboreagaz erin oi ditu; baiña idazleak be zer-ikusia andia izaten dabe arazo onetan sarritan.

Euskeraz be beste gauza barri batzun artean TAR atzizkia abizenari atzean ipinteko oiturea sortu zan mende onen asiera inguruan. Ola: Anakabe'tar Pedro. Bere sortzaillea zein zan ziur ez dakit, baiña Arana Goiri'tar Sabin izan zala uste dot. Era barri au guztiz indartu zan mende onen asieran. Arrezkero euskeraz idazten eben geienak erabili izan dabe; euneko larogetamabostek bai gitxienez. Eta ez lengo denboretan bakarrik, oraintsu arte baiño. Orain zortzi-amar urteko ZERUKO ARGIA ta YAKIN aldizkariak eskuetan artzen badoguz, gaur olakorik entzun be egin nai ez daben gazterik geienak era ortan izenpetuten ebela ikusiko dogu. Len, euskalduntasunak bakarrik eraginda euskal soiora lanera etozen guztien jokabidea orixe zan; euskeraz gure eskutitzak egiteko oiturea dogun ia danok ola izenpetuten genduan.

Baiña orain aldatzen duaz gauzak ta besteak beste gure taldekoen artean be izen abizenak ipinteko euskaldun era au makaldu egin da. Au dala-ta goragoraka ez gara asiko. Nai dabenak nai daben erara izenpetuteko eskubidearen aurka ez gara jagiko. Baiña, geienbat abertzaletasunaren eragiñez zabaldu zan izenpetzeko euskaldun era au txarto dagoala-ta baztatu dabela iñok ez daijala esan. Zer txarto? Garaialde'tar Joxan-da esatea txarto? Zegaitik txarto?

Egia da aldi baten, orain iru-lau mende, ta atzerago be bai biar bada, beste era onetan deitzen zala:

Matxin Ganboako. Andre Otxanda Gabiolako. Peru Abendaño, ta abar. Jakiña, euren jaiotetxeak Ganboa, Gabiola, Abendaño ta abar baziran bidezkoa zan olan deitzea. Gaur be or ziar diran Etxaburu izeneko baserrietan edo torrean jaiotakoen artean Jose Mari izenekorik badago, Jose Mari Etxaburuko Jose Mari axe edo aretxek izango dira. Baiña ni, izenez Jose Mari ta abizenaz Etxaburu nazan au ez naz ezelan be Jose Mari Etxaburuko. Nire aurrekoak Etxaburu izeneko baserriren batekoak izan baziran ni Etxaburutarra izango naz ez Etxaburukoa.

Gaiñera, Matxin Ganboako-ta deitzea erdaldunengandik artutako oiturea dirudi. Daroen joskera edo sintaxis okerrak zillegi egiten dau ola uste izatea; euskal sintaxisez, Ganboako Matxin esan biar litzakelako. Erderan oiñarritutako esakera bat baiño geiago dagoz euskeran; ta au, orretariko bat izan leiteke.

Asko ez bada be askotarakoan edo pluralean TAR ori erabilten dau erriak. Larogei urtetik gorako agure bateri olan entzun neutsan Ondarrabia'n: «Izatarrak, santu emalleak (eramalleak) dira».

EUSKAL PINTURAREN SORRERA TA EBOLUZIOA idaztarian olan diño Ugalde'tar Mikel'ek:

«1913 urtean, euskal artisten erakusketa bat prestatu zuen, Zubiaurretarrak, Zuloaga, Salaberria, Uranga eta, tartean zirelarik».

«Familia bateko batzuk arte eta letra landan ezagunak izatea sarritan gertatzen da, Barojatarrak eta Maeztutarrak, adibidez. Baina lau anaia izanik arte sailean laurak ospetsu izatea, besterik da; nekez eta noiz beinka bakarrik egokitzen den zerbait baita. Hauxe da, bada, Arruetarrekin gertatzen dena».

Ta Euskaltzaindiak berak illero zabaltzen daben orrian olan idatzi eben (1973-XI-11).

«L. Villasante euskaltzainburu juañak agurrezko itzak, Azkuetarrak eta Eusebio Erkiaga lekeitiarren gorasarrez».

Ikusten danez TAR atzizkia askotarakoan edo pluralean ondo badago bakarrekoan erabiltea be ez da txarto egongo. Txarto? !Bai zera! !Ondo-ondo! Ni, esate baterako, Kizkitza baserrian jaioa banintz, Kizkitza'ko Etxaburu'tar Jose Mari izango nintzake. Toki baten jaioa izatea ta bertan jaioa izan barik jatorria an izatea gauza bi dira, ta ori ondo bereizteko lenengoan KO ta bigarrenen TAR erabiltea da zuzenena.

Ez dirudi txarto gabizenik geure izen abizenak TAR ori tartean dala idazten dogunok. Olantxe izenpetzen ditu bere idazkirik geienak Lekuona'tar D. Manuel jaun apaiz agurgarriak be. Orretarako diran errezoiaz konturatzeko ez diranak auxe dabe naikoa errezo. Don Manuel'ek ba-daki esku artean zer darabilen, eta jarraibide ederra emoten dautse modeari jarraituaz batzutan olan ta bestetan bestelan dabizenai.

Ni, oker nabillenean bide okerra laga ta bide zuzenera joteko bildurrik ez daukat, baiña, zuzen nabillenean neure bidean azkenerarte jarraitzeko be ez.

KAMIÑAZPI

FERRETERIA UNCETA, S.A.

Landola tresnak - Galtzairu neurri zeatzekoak

Langaillu guzietarikoak - Leunketa gaiak

Ibarrekurutz kalea 14

71-10-00 Urrutz.

Apartado 18

E I B A R

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira astero-ko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakus-tokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri asmoen gaiñetik daben iritxi-oneko euskaldun guz-tiak Euskeratzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabiltea-ren bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idaz-lanen erantzule bakarrak euren egil-leak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M.^a MARTIN DE RE-TANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAI-NA, S. A.
 Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
 ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guz-tirako:

Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra

BILBAO - Casco Viejo

Tenderia, 15 eta 16

GAZTE

Nacho de Felipe'ri

ADISKIDE

Uztailaren 5'ean, Mungi'n izan zan euskal-jai txikiari entzun neban. An abestu ziran abestieri buruz, ez noia ezer esaten, eretzi au neuretzat gordetan dot.

Baiña neuretzat gorde ezin dodan eretzia, zure abesti baten egin eta esan zenduna da:

«Asto bat eliza'ra sartu da...» uste dot izan zala abesti orren jarduna, ta bertan, abestiaren erdian, zuk esan zendun au: «Paulin ez da egongo emetik ezta...?» Orregaz, Paulin astotzat bota nai ete-dozu? Ori olan ba'da, nor izango ete-da astoagoa? Paulin ala Nacho!



Nere eretziz, biok apur bat ezagutzen zaituet-eta, Paulin ez daukat astotzat, ez da bera iñogaz sartzen, gitxienez nere ustez; eta zuk, entzunda daukat lenago be, iñoiz egin dozu olakorik, iñoiz sartu zara beragaz, esate baterako, lenago, Mungi'ko Billela auzunean abestu zenduanen be.

Parkatu, baiña au da nere eretzia.

YOXA



eziketa jostailuak
eskulanetarakoak
irakasketa gaiak

gregorio de la revilla, 1
bilbao - 11

Jolasean ikasi, or zure aurrentzako emoitzarik onena

BI ONTZI BELTZAK

Larri-larri ibilli dira bai, kai-barrura sartzeko... Ez dira ba txikiak... baiñan, azkenean, sartu dira.

Lenbizikoa, oso da aundia... bestea, ez aibeste. Nundik datoz? Aprika'tik? Ameriketa'tik? Urrutitik beinzat... itxas-aldi luzea benetan... aparta... arriskuz betea. Zoragarria ere bai, zergatik ez?

Kaia, beti bezela, ederra, polita, txukuna, maitagarria. Nere ezkerrean itxaso berdea, nastuba, usai bereziz aberastua. Eskubian, kaiako etxe zarrak, ederki apainduak. Urgull, Santa Maria... Aita Mari'n oroitzarri erromantikoa.

Jende pixkat ere bai... Denetatik, bizitzan bezela.

Donosti, itxaso ta mendi! Aize otza, oso gaiñera. Ugarte txikia, Igeldo aundia, Seminario utsa... Erregeen jauregi gorri-gorria...

Urrunean, mendi grisak, illunak, tristetak.

Itxasoa gaitzotzen asi da. Gu bezela? Zer bildurra! Gauzak okertzen diranean, denak okertzen gera! Ia denak.

Bi ontzi beltzak, lasai-lasai daude kai barruan, egurrez beteta. Beren mastak oriak dira, baita beren tximiñiak ere. MOURON da ontzi aundiaren izena; RAMON VALLE INCLAN, txikiarena.

Asko ta ondo idatzi zun, bai, Valle Inclan'ek. Euskeraz ere asko idazten da... geiegi... ba ote?

Batzuek ondo, besteak ez... Gaurko euskal-literaturan, asarre bizia, etsia, utsa, gogorkeria, margo beltzak. Itxasoan bezela... olatu aundiak... itxaropenik-eza.

Donosti'ko Portuan, uraren gainean, gure bi ontzi beltzak... ala baleak?

Oi, Itxaso berde-berdea! Berdea, Itxaropenaren margo ezilkorra! Itxasoan, itxaropena bezela da urruna, baiñan bizia! Betikoa, ederra!

MATXIN

OTSANDIXO

Erri onetzaz bizpairu gauza esaten dira; egiak, gezurrak? Ez dot uste orrek zer ikusi aundirik daukanik, ba ni neu beñipeñ ez naz asarratzen, esaterako, durengar batek pikua eldu diran galdetu arren, ba, zibalariak (trompo) danak bota dabiezela ta gero durengar edo kunkunak jan dabiezela esanaz, len baiño adiskideago geratzen gara.

Erri otza dala be sarritten entzun dogu, ta, ez da gezurra izan be, baiña egualdi ederrak be egiten dauz, birixek bildur barik zabaltzeko lakoak, ba ondiño emen ez daukagu kutsaduririk.

Sarritten, eta uste'ot gejenetan, erri onen izena «tx»gaz idatzita ikusi dot, eta neuk be gejenetan olan idatzi dot. Baiña erri onen ikurdia gogoratu ezker, «ts»gaz dala esango neuke, ba olan dago osotuta: Otso aundi bat ume bat agoan daroala, atzetik gizon bat zaldi ganean esku-burdiñ bategaz, eta aldemenan emakume bat garrazi ziñuan. Alan ba, neure ustez, otso'aren izenetik dator erri onen izena.

Batenbat nire eretxien aurka ba'lego, pozik irakurriko neukez bere izpideak.

OTSANDIXO TA ERRIKO JAIK

Santa Mañak oso entzute aundiko jaiak izan dira; oraiñ urte batzuk dirala, emen inguruetakoko erriko jairik alaitzuenak izan ziran.

Union'ek Bilbo'tik eta Moreno'k Durengo'tik, Otsandixo'rako berebil-aundi edo autobusak ipintten ebezan.

Baiña oraiñ zer?, esaterako, igezko Santa-Mañetan, erriko gazte askok errittik alde egiñ eben, zergaittik?, emen ezingo litzakez idatzi auren zioak.

Lenauko urtietan gurenai jolas eukitten genduzen: soka-tirak, serra-jokuak, aritto-topekak, asto lasterketak, ezpata-dantzariak, aurrekuak eta abar, eta edonun eta edozeñi orduten txistu ta tamboliñ soiñua, zenbat gure.

Jaien amaieran, zelan ez! Agur Santa Mariña abestu barik ezauen etxera joaterik.

Erriko eresbatza abesti au joten asten zanean, ardantegietatik be urten egiten zan enparatzara, danok, eurekiñ batera abesteko, ikustekoa zan enparantzea bete beterik Agur Santa Mariña abestzen.

Baiña orduko urtietatik ona gauzak asko aldatu dira. Esaterako igez, 40'k abestuko ete eben?, ez dot uste.

Igezko Santa Mariña bezperetan pozik gengoan ezpata-dantzarien eguna ospatuko zala-ta, baiña bezperako illunkeran jakin zan ezala baimenik lortu.

Gaztetxoan dantzari talde bat be ba-daukagu.

Igaroiko urteetan ainbat jaietara eroan dabeez, Oleta, Agurain (Salvatierra), Villerle ta abar. Ba-doaz Otsandixo'ra urreratzen, ba aurtengo San Bernabe egunean Mekoleta'ko enparantzan jantzan egin dabe.

Iru ertzetan jantzan egin dabe, baiña euren errian ez oraindio.

Aurtengo Santa-Mañetan Udaletxe ta Vulkano'n aurrean jantzan ikusiko ete doguz?; or jak ba koska, enparantza baztarrean!

Aurtengo San José egunean be, txistularien eguna ospatuko zala ta pozik gengoan baiña jai egun orretako egunkarian irakurri gendu ezala baimenik lortu.

Otsandixo'ko euskal jaiak ezerezten doaz, nor da errudun?

OTSANDIXAR BAT

Alkar-izketan

GURE ERRIARI BEGIRA-II

—Bakik, Manu, azkenengo alkar-izketan erabili gifoan gaya, nik uste fioan baiño garrantzi andiagokoa dokala-ta, aste guztian burutik kendu eziñik ibilli nintzoala?

—Poztuten nok, Peru, errien benetako aurrerapena buruz zerbait oldoztea, guztioi yoakun gauza dokalako. Ori, erriaganako maitasun zintzoak eskatzen yokana dok.

—Bai, olantxe dok, baiña nik «zintzotasun» gitxi oartzen yoat bazterretan, Len, gure erria, zintzotasunean aurrenengoa zoala ao batez esaten zoan; gaur, ez yoat uste olangorik esan leikenik.

—Zuzen ago, orretan «aurrera» goazanik ez yoat uste, naizta gizon bako-txarentzat eta errientzat «zintzoa» izatea gauzarik txalogarriena izan. Len, aldi bateko esakuna gogoan eukiten zoan: «idia adarretik ta gizona berbatik». Eta Amerika aldean gaur be, zin-egiten dala esateko; «euskaldunen berbea» emon dokala esatea naikotzat artzen dok. Gaur, euskaldun askoren itzak be, axeak eroaten yozak...

—Ez ori bakarrik, len iñoren gauzeari itzalez begiratzean, gure erria lenengo maillan egoten zoan. Au egiztuteko, naiko dok auxe: 1870'gn urtean batzar bat egin zoan Paris'en, ea munduan esku garbikoen erria zein zoan yakiteko. Eta Euskal-erriak lenengo saria irabazi yoan. Yaungoikoaren aginduak naiko zoazan, ortuariari ta bakean isteko. Eta Markiña ta Gernika'ko espetxeetan, lapurretan egitearren, bat bakarrik aurkitzen zoan, eta bera erbestekoa. Ori 50.000 biztanleen artean. Orrek ez yok esan gura orduan emengo guztiak aingeruak zoa-zanik, baiña zerbait esan gura yoala ezin ukatu.

—Bai, zerbait baiño geyago be bai, gaurko guzur eta lapurreteri begiratu ezker. Ainbeste yente ta naste ugaritzeagaz, ez dok arritzeko gauza, baiña argi yagok zintzotasunean atzerantza egin yogula.

—Ba, edozeiñentzat be bai, baiña erri batentzat gexo txarra dok, zintzoa ez izateak, gizarteari kalte asko ekarten yautsozak-eta. Erri zintzoa, erri jatorra dok, eta zintzotasunaren lokarria urratu ezker, erriak bere izatea be galdu egiten yokala esan geinkek.

—Egi andi bat diñok, izan be, gizartean artu-emonetarako zintzotasuna bear-bearrekoa dok, zintzotasun barik ez yagok alkarrenganako usterik, eta alkarrenganako uste barik, erria zetan gelditzen dok? Gizon pillo baten, eta gizon pilloa, edonork yakik, erri ez dokala.

—Orrenbesterañño eldu goazanik ez yoat esango, baiña bidean gaituala bai. Uri andietan yazoten danari begiratzea baiño ez yagok. Kanpantorrea baiño etxe andiagoz bete, an gizatalde pilloak pillatu, alde guztietako sendiak marraskilloen antzera, baxotxa bere bizilekuan sartu, auzokoak ia ezagutu barik, eta bata besteen ardua barik, nork ez yozak ikusten?

—Ori bakarrik ba'litzok! Gaurko bizi-bideak, beste ondorengo bat, txarra-goa atan be, ekarten yok: Sendikoen sakabanatzea. Gaurko egunean, nagusie-ganako itzal eta maitasuna urritu egin dok, biurrieria ugaritu ta gurasoakanako menpetasuna galdu, batasuna ezereztu ta norberekeria ugarituaz, sendiko bata-suna galdu egin dok, eta orregaz beste dana.

—Ez ñok orrek bape arritzen. Len sendiak alkartu ta auzoak osotuten yoezan; auzoak erria osotuten yoen, Erriak ez zoazan sortzen erritar, baxotxa besteakaz alkartzen zoalako, erriko sendien batasunetik baiño, ortik alkarri laguntzeko oiturak: bidegintzak, auzo-lanak eta abar. Gaur olangorik ikustea arritzekoa izaten dok.

—Yatortasuna ta zintzotasuna arritzeko gauzak diran errian, urri dabil-tzala esan gura yok. Eta ori, etorkizunari begiratu ezker, ezaugarri txarra dokala ezin ukatu, gauza orreik lotsearen antzera, baten bakarrik galtzen dozak-eta.

—«Ezpanetakoa» naiko ba'litzok zerbait itxaron leikek, baiña orixe dok gauza bat egitan agertzen ez ba'dok, utsen urrengoa baiño ez dok izaten. Eus-kaldunak antxiña abestuten yoen: «Barriketea ba'litz gorua...»

—Ori be egia dok, baiña alkar-izketa au luzeegi egin baiño len, urrengorako itxi bearko yoaguk.

URIGOITIA

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK
OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERA KOAK

ZAZPI-KALEAK



GASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

ORBELAK

OROMIÑO'KO KREDOAK

—Oromiño Etxano da, ez?
—Batzuntzat bai ta bestentzat ez Erre-keak erabilten gaitu berak nai lez.
—Zer daukazu emen ederrik?
—Ni ikusten ez zagoz, ba, alperrik.
—Zenbat urte, Juanita?
—Ez naz gogoratzen noiz ibiltzen nitzan kanika.
—Zu be astoezin Bilbo'ra joaten ziñan?
—Nire aita ibiltzen zan orduan ikatz-giñan.
—Nora eroateko saltzen?
—Somorrostro'n ez ei zan emengo lako ikatzik sartzen.
—Baiña nok eroan eta nungo bidian?
—Idi ederrak batzen zitun aitak buztar-rian, eta erubera sendoak burdian, berak be aje askorik ez gerrian.
—Kontxo! Oromiño'tik Somorrostro'ra burdi ikatzagaz?
—Baietz ba! Aztuta nagolakoan nire sasoi-ko gauzakaz?
—Zenbat urte ori zala, larogetak?
—Gure gizaldiak ez ditu oraindik ezagutu urtetan lau ogetak.
—Ordago! Onek daukaz urteerak!
—Eta zuk sarrerak.
—Atara zerbait jateko.
—Tabernari naz ni. Zuk eskatu ta ni serbitzeko.
—Jatorra da or daukazu lukainka?
—Orreri erantzuteko egin berari aginka.
—Etxean egiña?
—Etxeko txarriagaz, jakiña.
—Eta gatzairik?
—Aizkorri'n ez dago obeago egingo daben artzainik.
—Ba! Ez egizu iñorentzat destañik.
—Ez al dakizu ango artzainia irurogei urtetan Oromiño'n ezagutzen dodala nik?
—Amen. Kredo.
—Bai gero!

Ene ba! Oraindik amalauan geratuta nago gero!
—Amalau?
—Begira bestela zenbat garau.
—Zertarako ainbeste arrikoskor patri-karan?
—Gaur Asentsio dalako berrogei Kredo erre-zateko illaran.
Bat esan eta arria kendu.
—Emon eta kendu, zapatia kendu.
—Ez egizu burlarik, mesedez. Oiturak ez dira galdu bear ain errez.
—Zer da ba emen Asentsiotako oitura?
—Euskal-erri guztian egiten zan modura. Goizean lenengo arri koskortxuak batu.
—Or kaku.
—Gero sakelean danak sartu.
—Gaurko euna ba'litz laster litzake urratu.
—Al dan bakoitzean kredo bat errezatu.
—Ainbeste siñskeri ez ete da pekatu?
—Mesedez, niri adarrik jotzen ez urreratu.
—Zetako sorginkerietan ainbeste denpora galdu?
—Neska baten atzetik ez al zara zu iñoz astundu?
—Aragiaren biztueran orren erruak billatu.
—Ba nik betiko bizitza nai neuke zaindu.
—Orra biok kredoaren azkena autortu. Bakoitza berean kittu.
—Kittu ez. Lenengo, artutakoa ordaindu.

* * *

Oromiño'ko tabernan, betule ederrak di-tun andre batek, ba daki bakoitzari zer erantzun, bereari eustekotan.

ZUBEGI

Ateak Itxita

Bizitzako bideei ateak itxita dabil, sarri, gizona. Ez-jakintasunez ala txarkeriz ete da? Emen aitaturiko zio guztiak izan daitezke, baiña bat be ez dira gure bizitzarentzat mesedegarri. Ia gizonaren almenak ostera, bizi ta zabaldu egin nai dabe-ta, euri zor jaken egarri ori asetu nairik dabiliz. Gizontasuna osotzeko bidea ba, argiari, naiari ta giza eskubideei ateak zabaltzea da. Argia biziaren zustraria da-ta, onen bidez gizona landu ta gizonago biurtu bear dau.

Ateak txarrari istea egokia da; txarrak ez dauka eskubiderik lurtean. Mendia bomba batez zulaturan, lurra min artzen dau ta ikaraz orroa dagi. Lurra ez eban gaizta-keririk egin. Gogo gaiztoak zauritu eutson biotza, ta barrutik samaiñak urten eutson. Miñaren negarra. Egiz gogorra da txarraren eztenkadea. Lurra ez dau onartzen bera zauritzea. Ezerk eta iñork ez dau nai samintasunik. Txarrari ateak istea, biziari ateak zabaltzea da.

Ateak onari istea ostera, lapurretea da. Bizia ta ona Egilleak, berak sorturikoi emoniko mamaiña da. Onak, bere barruko indarrez ta legez, zabaldu bear dau. Gizonaren eginbearra, artu daben ona ezagutzea da, bai norberengan ta bai besteengan. Gizonaren almen ta aginpideen goitik dago onaren ta izatearen muiña. Ondasun onek, bata besteagan, lotsaz, artu bearrekoak dira ta Jaube nausia bat izanik, gu Aren biziaren menduak gara. Mendu onek ikutuz zauritzeak, bizi Jaubea zabaldu nai leuke. Au benetan, iñoren ondasun barrukoena ostutea da.

Gure bizitzak ba-dau bere baitan beste eskabide ta eskubide sakon bat; egia. Buru-errazoizko sorturik dagoan giza-semeak, argia ta egia eskatzen ditu. Gure izatearen nor-tasuna olantxe da: egizale. Egi-bidean dau bere atsedena giza-gogoak. Egia ta ona zer baten biurtzen dira, biziaren oiñarri izanik. Egiak, aurrera, joan bear dau, mundu ohea ta gizonen zoriontasun bidezkoagoa lortuko ba'da. Baiña egiari sarri, ateak isten jakoz, ta ondoren, gizadia minduta, illun geratzen da. Ta zu, guzurra, gizonen miñean pizti ankerra zaran ori, nungo eskubidez zabiltzaz biziak mindu ta ondutzen...

Guzurra ez dauka gizartean ibilteko eskubiderik. Guzurra bere izatez gaiztoa ta kaltegarria da. Giza-semei min emoten dabil. Ta sarri, gizonari dagokiozan egirik aundie-nak apurtuaz, kalteak be ikaragarriak dagitsoz. Guzurra guzurtiagan bizi da, ta guzur-lariak ortxe aurkitzen ditula bere poza ta atsedena dirudi. Onek egiari ateak isten dautsoz.

Ta egiak gizonagan bizi bear dau, nai dala lurrez, nai dala itxasoan. Itxasora doa jendea bizi bearrak eraginda, ekaitzen artera. Bakaradea gogorra da; itxaso asarre aldiak, ostera, askoz gogorago. Ta arraintzalea neke orreek artzeko gerturik dago biziari begira. Barruko deia da, ta erantzun egin bear bizitzako lanaren legerari. Baiña noizean bein, ezbearrak datoz azurrak apurtzen ta lanari geiago ezin erantzun. Itxasoak gogorkiro, ateak itxi dautsoz betirako gizon saminduari. Geiago ezin joan urrutira.

Ta gero beste giltz batzuk geratzen dira gizonen eskuetan. Zabaldu ala itxi egingo ete ditu ateak? Arraintzalea zain dago; baiña erretiro merke batez betirako lurrean geratzen da. Orainxe ate nausiaren ugerrezko giltz eta morroilloa trabes lotuta geratu dira. Azken urteetako egunei begira egoan ta zaurituta ta bizitzarako ateak itxita geratu da. Ze triste ta dan ateak itxita aurkitzea...

SOLOZABAL'TAR PAULIN

Idazti Barriak

Izena: Aitonaren ipuiak.
Egilea: Ramon Murua.
Bilduma: Kardaberaz-5.
Irarlea: Gráficas Esst. Seminario Vitoria.
Urtea: 1973.

Kardaberaz'tarrak urtero iru liburu argitaratzeko berba emon geuntzen bazkideai eta euskaldunai. Ez dira eragozpen makalak izan, baiña sendotasunak guztiak azpiratu ditu, eta emen daukaguz aurtengo irurak, obeto esateko, igazkoak pizka bat atzeratuta.

Aitonaren ipuiak: Ramon Murua.
Erreka zuloan eta... Albisu ta Ayerdi'tar Anastasio.
Kardaberaz-2: Idazle askoren artekoa.

Gaur «Aitonaren ipuiak» apur bat aztertu doguz, eta urrengo baten besteak.

Gure Ramon Murua apaltasun aundiz baiña ipuinlari trebea agertzen jaku liburu onetan.

Ipuinak euskal-kutsuz beterikoak dira: eritit artuak eta erriarentzat edestuak. Lau eratako ipuina dakarsuz liburu onek: Jentillanak, Abereenak, Sorginkeriak eta gertaerak eta Danetakoa.

Idazleak berak oraintz esan daukunez, ipuina kaz batera kondaira apur bat be agertzen dauku, batez be antxiñako erriaren bizikerea, kristautasunaren sarrerea, nekezaritzaren asiorea, aundikien burrukak... eta antzeko kondaira-gai asko agertzen dira ipuinen artean.

Eta zelako trebetasuna edo teknika? Aitona da beti edeslari. Ori be topiko zarra, baiña egokia.

Baiña aitona gaz batera, eta au bai barritasun ona, beste alkar-izlari batzuk agertzen dira: Malen, Antoni, Maria... Eta oneik euren itaunakaz, ipuina bizitasuna emoten dautsee.

Pozik irakurtzeko liburua da ba, eta ikas-toletarako ta sendietarako oso egokia.

Zelako euskerea? Gipuzkoerea. Oso erriarra, garbia ta ederra.

Baiña eritit artua dan ezker, sarritan aboskeriak edo fonetismoak kendu barik agertzen da.

Ez da au lan erreza izan be. Nork jakin zeintzuk diran aboskeriak eta zeintzuk jatortasunak eta erriko bitxiak.

Parkatu beist Murua abade jaunak, neuk egingo neukaz zuzenketa batzuk emen agertzea. Lenengo, liburuan agertzen dan itza jarriko dot, gero neure ustez agertu bear leukena. Fonetismoak edo aboskeriak kentzea, euskalkiak alkarganatzeko bidea da. Euskera baturako oinkadea ta, guk gizpuzkerea erreza ulertzeko erea be bai.

geyenbat	geienbat
zuaizak	zugaizak
utzetik	utsetik
etzuten	ez zuten
etzan	ez zan
erakuzi	erakutsi
etzegon	ez zegon
etzijoazten	ez zijoazten
zeekin	zerekin
gozua	gozoa
beorrek	berorrek
ipuyak	ipuñiak
goguan	gogoan
ez pa dit esaten	ez ba'dit esaten
T. a.	

Sarritan irarkolearen utsak be izango dira. Arazo au be izaten dogu: erdeldunak irarkoletan eta uts asko egin. Gero zuzendu ta bigarrenez ekartzen daukunean, len baiñu uts geiago. Baiña ba leiteke idazleak txikiikeri onei garrantzi aundirik ez emotea be. Onetan be lan zeatza egin bear dogula uste dot. Ezer be ez idatzi ziur-ziur ondo dagola edo era bitara idatzi leikela jakin barik.

Euskal-ipuinlarien saillean sartu jaku ba gure Murua. Oraintzukoak bakarrik, eta ez danak gogoratzeko, Kirikiño ta Felix Bilbo' ren sailera.

Elerti guztietan izan dira ipuinlariak, areik antxiñako India'tarrak oiñarri dirala. Ba ditu Murua'k ere arein antzeko ipuina, abereenak. Ipuin oneik elerti guztietara andik zabaldu ziran: India'tik Persia'ra, Persia'tik arabiarrengana, arabiarrengandik Alfonso X' agana (gogoratu onen Calila e Dimna). Baita beste bide bat artuaz, India'tik Persia, Grezia ta Erroma'ra be (ez aitzu Aisopo ta Fedro).

Zorionak ba Muru Jauna. Jarrairu.

GAMIZ

Joxe Ezkerra

JOXE ITUARTE ETXEBERRIA

Oporraldiak igarotzen nintzan Plentzi aldean. Noiz beinka Bilbo'ra joaten nintzan nere artu-emanegatik edo beste zereginen bat egitera. Bizkai aldean, jakina, bertako izparringiak irakurtzen nitun, Donosti'koak, geienean, irakurri ez. Orratiokan, Jaunak eraginda-edo, egun batean, Gernika'ra joateko bultzia artzen nijoala, Atxuri geltokian erosi nun «La Voz»a. Bidean goazela... orra nun irakurri nun Joxe «Ezkerra» il zala!

Joxe «Ezkerra» aitatzeta, ez da beste edozeinena bezelakoa. Aibeste gizon ezagun joan diran arren, nik, getariarra naizenez, nola ezagutzen nun! Eta erderazko izparringiak idatzi ba'dituzte ere zekizkiten berriak, batez ere nola agurtu zuten Getari'n. Erri ontako «Txori-tonpe» alkartera joaten ba'ziran, an ikusiko zendun Joxe beti iñori laguntzen, sukalkin yayoa bai zan! Donostiarrak, eibartar, zumarragar eta beste erri askotakoei, onek antolatzen zitun mokari goxoak, zoragarri izaten zitzairen. Ori, beti tinko iñori laguntzen!

Izparrak ordea, ez dituzte guziak al esan edo idatzi, ta emen esango det beonen beste berri jakingarri bat: Gure guda egunetan, gudari izan zan, ez ordea gu bezela mendian, baizik itxasoan. Guztiok jakin bear genituzken egun latzak ziran aiek. Gipuzkoa galdu gendunetik gero, Bizkai aldean geunden. Joxe «Ezkerra» ostera, bere lagunekin, Portugaleteko kaian, ontzi batean. Doiztarrak aurrera ta aurrera. Zeru goian ikusten genitun eundaka egazkin eta beren rru-rrunak ezurretaraño sartu. Jausi bera bonbak eta bazterrak zeoro autsi. Gu, gogor elduaz, al genduna egiten, lagun asko galtzen, eta azkenean beti atzeraka.

Egun oietan, doiztar-gudontziak, Bilbo'ko itxas-aurrea delako «mina» oiekin josi zuten, eta orrela sarrera itxi, barrenera sartzeko. Bilbo ta Bizkai guziko erriak gosez, itxasoari begira, noiz elduko itxas-ontziren bat janariak ekartzen. Nola sartu? Zer egin? Lerkai aiek ateratzen ez ba'ziran, goseak eraginda menperatuko ginuzten, ta areriyua etxean sartu.

Ba-zan ordun, Santxez izeneko itxas-gizon bat, ta onek zekin nola mina aiek atera. Batez ere, lerkai aiek nola ezereztu erakutsi bear zun. Ta ortarako, gizon bikaiñak bear, bildur gabeak. Gizon oietako bat, Joxe «Ezkerra» izan zan, eta bere lagun Urbano Arregi, beste getariarra. Lenen, bi ontzi arrastan zizala, minari eldu bear zien. Ortarako, bildurrik ez zuten gizonak aukeratu zitun, itxas-ontzi aietan itxasora joateko. Baiñan... or zegon koxka: zeintzuk urreratuko ote ziran lerkaiari eltzerat!

Dakigunez, mina, baliza bat ba'litz bezela botatzen da, beetik «karroa» deitzen diotenakin. Onebeste brazako kablea ta lerkai ur gainean, ikusten ez dala gelditzen da. Gero, bi ontziak eltzen ziotenean minari, aurreraka eginaz, lerkai ori azalera igotzen zan. Ordun, bi GIZON bear ziran; artu txanela deitzen dioten ontzi txikia, ta minak zeukan eldu-lekuari eltzerat joateko.

Joxe «Ezkerra» ta Urbano «Kojua», joaten ziran eta minari eldu. Etzan giro an!. Itxasoko olatu artean, mina lertzeko zorian, Joxe'k kentzen zun dalako «pistoia» edo «espoleta». Pistoia nola kendu, legorrean ikasi zun, Santxez ofizialak erakutsita. Kontu egizu irakurle, ze nolako uneak adiskide bi oientzat. Uste gabean lertu, ta biak eta berdin, txanelean zeuden beste biak, autsik aña puzka egin zitezkean...

Olantxe atera zituzten ogetaka mina. Bein baten ikusi nun oietako bat nola lertu zan, baiñan, mina arek ez zitun Joxe ta Urbano il, ez zeudelako lerkaiari elduta. Ala ere, «Goi-zeko Izarra» izena zun itxas-ontzia, zeoro autsi ta zeetu zun, bertan zeuden gizonak illik. Or, Getari'ko bi il ziran, bata nere lagun Urkidi'tar Ongietorri; bestea, Goyaberri'ko semea. Ontzia burnizkoa izan arren zeoro austu zan.

Orrela aritu ziran Joxe «Ezkerra» ta Urbano «Tximista». Banaka-banaka, eldu, ezereztu ta ateratzen, itxaso erdian, olatu artean, pistoiak kendu ta legorrera ateratzen. Nork egin du geiago? Zeintzuk izan dute bi gizon oien bikaintasuna? Inortxok ere ez! Bi orrek bakarrik! Zer eman zieten bikaintasun orregaitik? Ezer ez. Ortako ba zeuden gure Joxe ta Urbano. Aberriari zien maitasun beroak eraginda, ez zuten beste ezer nai. Egunka ziran aiek! Guda ori, batekoz bestera bukatu izan ba'litz... auntzaren gauerdiko eztulak entzungo genitun...!

Bi ontzi aien bitartez, bertako itxas-gizonen bitartez, eta batez ere, Joxe «Ezkerra» ta Urbano «Kojua»ren bitartez, Bilbo'ko sarrera ura ireki zan, eta geroztik, ontziak bildur gabe barrenera sartu, portura, ta janariak ekarri, aibeste gosez zegon erriari.

Arrezkeroz, makiña bat ur jetxi da ibaitik itxasora. Baita bularretan ipiñi ere ezagarririk...! Ala ere, guzia deseginduta gelditu zan guretzat, eta bitartean igaro diran urteak igaro, oraindik ere deseginduta daude; orduko berriak, orduko bikaintasunak, orduko sasoi bildur gabeak, azturik!

Guda bukatu zanean, batzuk beren errietara itzuliaz —naizta gu urrutietara joan eta ibilli— Joxe Ezkerra Getari'n zebillen, or bizi izan da arrezkeroz. Urteak geitu zitzaikionean, utzi itxasoko arraintzari ta legorrera, ta gorago esandako «Txori-Tonpe» alkarite ortan ikusten gendun sarri. Beti izan nun alako adiskidetasun bat Joxe'kin. Edozein nek arkitzen zun bere laguntza mokari eder eta goxoak egiteko. Sukalkin ona zanez, arrain-moldaketari egokiagorik ez zegon, eta zenbat lagun egin zitun Euskalerrri guzian! Millalak, noski.

Gaxo aldia zula entzun nun, eta oso larria bera. Ala ere, ez nun uste orren gazte joango zitzaigunik. Beonen semea, nere illoba batekin ezkondua danez, erdi-senide giñan. Irakurri nunean Bilbo'ko bultzia artan Gernika'ra nijoala, ez nun siñistu. Egun berean bere illetak izanik. eziña izan nun joatea, urrun nengolako, ta orrek miñ eman zidan. Izparrak diotenez, egundako jendetza bildu zan elizan! Ez zun gutxiagorik merezi!

Bai Joxe, zutzaz otoi egingo degu, ta urte gutxi barru, an giñan guziok, alkartuko gera. Beraz, ikusi arte!

E. OZKIN

Udaldirako Aolkuak

Udaldian geien baten toki aldaketak egin oi doguz, batzuk itxaso aldera bestetzuk mendi tarteko erri txikietara, soña baltzaranago ta bularrak garbia-goak dagiguzan. Aulan atsenden orokor bat al ba'litz, gure soñi eta almen nekantentzat lortu oi dogula, Aldaketa oneik, sarritan, arriskuak dakarrez, eta ondo litzakela deritxat eurenetariko batzuk laburkiro gogoratzea.

—Uretara sartzeko oba da lagun bat edo geiagokin joatea.

—Azkeneko janaritik gitxienez —ta astun samarra izan ba'da areago— bi-iru bat ordu igarota gero uretara sartzeta.

—Toki ezagunak izan daitezala be merezi du, ba itxas-erreka zulo ezbar-diñak ugariak izan leditekez ta eurretan sartu ezker gaitz da beti onez ta bizirik urtetea.

—Bestelango gaitzak, ta batzuk eriodunak izan leditekez. Euren artean, aldigaizto ta bereala konorte-galtzea, infartu-auditua, jan-ondo ebagitzea, itxas-barruratu oi gaituen ur-lasterrak ta abar jasatea.

—Egonaldi baten ondoren, uretan otzik nabaitzen ba'da, len-bait-len bertatik urtetea onena.


Larregikeri guztiak kalte dagigue, ta eguzki artzeaz be, naiz itxas ondoan izan, naiz mendian, naiz beste tokiren baten larregian artu, bardin desakegu. Emakumeak batez be, arrisku aundiago dauke onetan. Eurak, berez, narru margotzeagaitik, nekemin nabarmentsuagoak jasan oi dabez. Eguzki galdatan ezin geintez burutzik geratu, batik bat etzunda edo geldirik ba'gagoz. Ibilliaz errezago iaku eguzkitik, garunak gordetzea, ta kaltea elitzake ain iztala izango, naizta arriskoduna izan. Ondartzetan dogu nire ustez gal-zoririk aundiena.

Eguzki erraifruak are gainean etzunda gagozala, bular-birikiak bein eta geiagotan erre ta zauritu oi dabez. Onetan oba litzake alkondara naiz beste eropa meien bategaz bularrak estaldu, agirian eukitea baiño. Bero-sartze edo insolaziño larregian, sena be galdu leiteke. Gaixoa toki ozkirri batera aldatu bearra dogu ta buru-bularrak alik ondoen oial bustiekez batz.

Enoa luzatzera, ori ta be amaitu baiño len, edarrietaz zerbait esan bear dautzuet. Ez da larregi edan bear. Onurak baiño kalte ugariagoak leporatu geinkez. Orrez gain, arik eta geiago edan, izerdia be geitzen doakigu ta edan bear-izana araberan goratu. Edanak ez dira otzegeiak be izan bear. Gozoki bako akeita, beroa oba, naiz beste onelakoren bat be osakai onak izan leditekez egarri aundienak kentzeko. Beste batzuk ur otzari ozpin tanta batzuk bota oi dautsoez.

Udaldi on bat izan dagizuela opa dautzuet, ta oraindiknan zuek AGUR'en bitartez, dagonillararte artu-emonak izango dodazala deritxat. Gero, zuek lez, indartsuago jarraitzeko.

ARREGI'TAR JOSU



ERRIETAKO

BARRIAK

Antzuola

Oitura zarrak, pizten...?

Urte sasoi onetan, jaiak ugaritsu ditugu, eta egutegiari jausten ari zaizkion orrien artean, baita ere jausi da Garagarillaren ogei ta laua, eta egun orrek San Juan ekarri zigun gogora.

Goizean jeikiatzen, eta etxe batzuetako ate guenak lizar adar eta lorez apaindurik ikustean, gabeko amets gozo baten esnatzea ziruditen. Euskal-herri'ko zenbait erritan oitura orrek oraindik bizirik irauten badu ere, emen, galdua bai-zegon, eta aurten berpizten ikustean, alakoxe poz bat eman zidan.

Baterenbategi esango dit, «tonto antzak» izan ere, zertarako? Ez, ez, orrek ze dit ezer «produzitzen».

Aurrera joan bearrean joan bearrean, ez degu atzera begiratzeko astirik, lengo guzia, dena, bazterten sokoratzen giaz. Ai!, baiña moda berriak, alperrik etorriko dira ego aldetik ala sorkaldetik, baiñan laister gureganatzen ditugu eta, zertarako?

Orri etaia ajola; lengoak badira, aiek ipuinak...

Askotan pentsatu izan det atzeratuak zeintzuk ote diran, eta ondoren kontatuko dizuedan zerbaitek lotsatu ere egin ninduan. San Juan egun ortan, len aitatutako oitura galdua bazegon ere, lora sortak elizara bedeinkatzera eramateko oituras zutik irauten du, eta aurten ere usai gozorik asko zabaldu zuten elizan. Ez, ez, orrek ez ninduan lotsatu.

Meza bukatu zanean eta aur guztiak beren lora sortakin kalera urten zutenean —loren tartean igaliren bat ba zeramaten, jateko larri ziur asko— bien bitartean an gelditu zan bat, eta bere lora sorta aldarean utzi, et abere izena jartzera ez noan ori, «aurreratu zintat» aur atzeratua da —itz ori azkenengo aldiz idazten det lotsak inguratutik.

Bein batean, sail orretan lanik asko egiten ari dan eta bere izena aietzera ez noan bergaratar bati entzun niona zetorkidan gogora, alegia, «aur... biotzduentzako eskola berriak dauden bezela, aurreratuentzako, ez guretzako, atzeratuontzako, beste eskola batzuek treki bear lirakela» zion.

Premiariak, bearrik ez degula pentsatzen duana, ori ez da gizona; guren barrura begiratzeko ausardirik ez badegu, guiak egin du!

MATXALEN

Tolosa

SAN JUANAK

Bezperako sua piztu eta itzaltzen dan bezela, erriko jaiak sutsu asi baldin bai ziran, erabat joan dira. Baiñan jai oiek nabarmenkiro eman digutena auxe izan da: Udaletxea'k Egitarau edo programa polit bat eskeñi digula, izkuntzabiduna, euskeraz eta erderaz: Bide-Berria edo Bariantea nola izango dan bertan azaltzen zaigularik. Jaiak motel antzean joan dirala; artean, oporrak oraindik irauten zutelako, patrikarak usturik.

Onegatik, sarrera ordaintzeko jaiak: zenezak eta abar ez dute jende geiegi ikusi.

Aurten lenengo aldiz eratu zan, San Juanetan, «Euskal Liburu eta Diskoen Azoka», gauza ber-beragatik ez zan ibilliko nere uestez diruz ugari, naiz-eta «San Miguel» liburu Banatzaileak liburu ederrik azaldu.

Erbesteko errikoemeei bidali zaizte Jai-Egitaraua, eta dagoneko norbaitek idatzi dit esanaz, guda aurretik ezkeroz euskeraz egin ez zalako programeten, zirraratsua izan zaiela.

PERRETIXIKOEN ARGAZKI ETA DIAPOSITIBAK

Udazkenean izango dan «Nazio-Arteko Perretxioko Zaleen Biltzarrari» aurrea arturik, CIT'ek perretxioko argazki eta diapositiba norgegiagoka bat eratu du.

Agorra'ren 14'garrenerako bidali bearko dira lanak, ortxe 5 x 5 neurrian. Nai-ainbat ale bidali ditezke ta bi sailak izango dira sarituak, bakoitzak onela: 1'ak, 4.000 pezeta eta oparia; 2'nak, 2.500 pta. eta oparia; 3'nak, 1000 eta 4'nak 500 pezeta.

Ba-dute argazkilariak nun saia.

«UDABERRI» DANTZA-TALDEA

Berri auk azaltzerako, Holanda'tik barrera ibilli ondoren, etxeratuak izango ditugu. «Udaberri» taldeak artu duan ospearen ordainia izandu da ibillaldi au egitea. Holanda'k, Donostia'n duan ordezkariaren bitartez, eraman dute berezituta beste amabostbat aberrietako folklore taldeekin trebetasunak neurtzeko. Ez det uste gaizki geldituak izango diranik.

KARDABERAZ BAZKUNA

Garagarilla'ren 20'garrenean, Tolosa'n bildu zan, batzar orokorrean. Irurogeitamarbat batzarkideen artean, Dn. Manuel Lekuona'k zuzendurik, garrantzidun erabakiak artu ziran. Bi liburu berriak ere banandu ziran, ta laister aterako diranen berri adierazi.

Ikusten dezunez, irakurle, kardaberaztarrek bere ixil-bidetik barrera aurrera ba-goaz.

UXOLA

Zornotza

SAN PEDRO JAIK BOROAN

Bizkaia'n, toki askotan ospatzen dira San Pedro jaiak. Zer diñosku onek? Gure aurretikoak, gure euskaldun zintzoak, maite ebela Kristo'k gizonen arrantzele egin eban Apostolu argia. Eleiza ta ermita asko daukaz gure artean berari eskiñitakoak.

Emen, Zornotza deritxogun Bizkaia'aren biotz onetan be bai. Boroa'n, azken urteotan industriz beteaz joakun auzune onetan be, antxiña-antxiñatik eleiza apain bat dauka berari opatua. Ia berrogetamar urtez ezagutu izan dot nik emengo jaiak, urtetik urtera gar geiagogaz ospatua. Boroatarrak, izan be, ba-dabe ortarako jasa ta alkar-berotasuna. Ta, jakiña, gaitasun bi oneik bear dira erri batean, nai auzune batean jaiak ganoraz eratu-teko.

Ortarako San Pedro eleiza ondoan «Anaitasuna» deritxon alkarte bat daukazu, bertakoak zar eta gazte guztiok alkar arturik osotua. Alkarte onek badau etxe eder bat guztion diruz eta eskulanez jasotakoa: bean bar bat, goian saloi dotore bat eta alboan bolatoki zabal argitsua. San Pedro egunez dana egoan eder.

Aurten, beste urteetan baiño be jai ederragoak egin dirala esan bear dogu, zazpi eguneko jaiak egin be.

Bagillaren 22'an asi ta garagarillaren 7'rarte. Ogetabian, zapatuan, bola-saioak; domekaz, meza ederra. San Pedro egunean, kanpai ots eta txapliu artean, meza abestua amaiketean: bertoko arduradun Iñaki Barandika jaunak esan eban, Aita Onandia'k itzaldia egiñik; umetxo bik be meza ontan artu eban lenengo aldiz Gure Jauna. Ondoren, segalariak, Sabin Etxebarria ta Martin Mezo beste beste kontra. Karrera, ta «Udabarri» dantzariak, arratsaldean. Egun ederra.

Urrengoan, San Pedrotxu ta domekea: meza, auresku, albokari, txistu-jote, arri-narrasketa ta bola-joku, jai eder-ederra.

Jaiok, iñoiz esan eta idatzi dogunez, azken urteotan naikoa elizbako egin yakuzan arren, oneik, au da, San Pedro'n, Boroa'n ospatzen diranak ba-dabe euren eleiz-usain berezia be. Au da, Santuari be berea emon bear yakola. Ez taberneruak bakarrik. Gora boroatar jai erantzailleak!

OIZ

Arratia

Berriz

Erlea ta iñurria egiñaletan, zuloak betetan... negurako janari-billaketan. Andra ta gizonetakoak ostera, emen diardugu zoro-zororik jolasean; jaiak jairen ganean, sabel betekadak etxeke maiaren inguruan, makallau sukalkiak erri batean eta beste... edanaren edanaz txurumuskildurik, alboka bideetan... al dan eratan.

Eta, ez ete litzake izango egoki alako... emen aiatu nai dodan lako buru-lan arintxo bat, neke gitxikoa, gura leukien guztiak eskua artzeko, antolatzea?

Oiñak etxean baiña... gogoaren begiakaz Gipuzkoa ta Nafarroa ikusi geroztik, emen naz barrero bere, neure jaioterri Igorre'n Batasun-deia egitera etorria.

Artea ta Arteaga erri-izenari buruz, bein, izen zuzenagoa zein ete zan ez ete zan azaldu esukuen eta, Ateaga'k Arteari irabazi. Arteaga ba, zuzenagoa, egokiagoa ta osotua dalarik, alan esan eta idatzi bearko.

Arteaga ezeze Yurre deritxona be ba-dogu Arrati'ko «ballada» onetan. (Ballada: dantzaldia ete?) Baita Yurrebaso auzotegia, Yurregoikoa ta Yurrebekoa izendun etxe, ta Yurrebaso abizedun sendirik be.

Erderara makurtzen garanean Yurre esaten dogu aoa betean; Arrati'ko euskeran ostera Igorre, eta arratiar ez diran errietako geien-geienak Iurre.

Yurre, Gipuzkoa'n ere ba dute; tolosarrak Yurremendi edo alakoren bat. Durango'n albo baten Yurreta, eta Nafarroa'n Yurre'tar Yulen euskal idazlea.

Dei au irakurle guztiak egiña da-ta, bialdu begi bakoitzak bere eretxi ta erabagia: Yurre, Igorre ala Iurre zentsundunagoa? Erantzunen begira gara.

* * *

Gazte zanean Dima-zale izan zan batek ondoan eukazan lagunai:

—Errian Sanpedro jaiak, eta zuok erbestean gauko egunez!

—Gure Udaletxean jai-dirurik... Erriko-Etxe barriak egiteko asmoz gorderik.

—Erriko-Etxe barriak egiteko diñok?

—Jentearen aoz zabal-zabal egin dok.

—Eta, zarra non dozue ba?

—Betiko lekuan, plazearen ertzean; bigarrena eleizarako bidean, eta irugarrena etxakiguk ba, Bakio'n egingo iauskuen... ala Lekeitio'ko errian.

—Ori dok aurrerakuntzea ta aurrerapena.

—Erritarren izerdizko lana.

* * *

—I, gazte, Arantzazu'tik ezer barririk?

—Jai-besperatan gagoz, eta asten diranean asi... iru astetan izango dogu zer entzun eta zer ikusirik.

—Iru astean jai egiteko... izango dozue amerikanoaren baten laguntzarik.

—Zazpi milla pezeta Erriko-Etxe'ko urrete-gitiik.

—Zazpi milla jaiak egiteko... eta konbideduentzako?

—Bakoitzak beste zazpi milla ta zer janik ekarriko ba'leuz... txarto ez gintzakez ibillikoo.

Onen urrengoan barri ta argi geiogo.

ERROTZAK

Solozabal'dar Paulo abade jauna il yakul Martitzen arratsaldean, Bagillaren 11'n eta Merzedarietako Elizatxo ederrean ospatu ziran illeta gomutagarriak.

D. Paulo'k larogeta amairu urte bete ebazan ille onetako 3'garrenean. Abade guztiz zintzoa zan D. Paulo, baita euskaldun jatorra be; ederto ta garbi egiten eban euskeraz, eta poz-pozik egoten gintzazan bere itzak entzuten.

Argazki onetan ikusten dogu, txapela buruan dauala. Urte batzuk erretirata eroan izan ditu, alde batetik ibilteko gauza ezalako, eta bestetik, gutxi entzuten ebalako; baiña beti eukiten eban ipuiñen bat esateko; beti ikusten genduan bere gelatxoan umore onaz, bere oitizak egiten edo liburumen bat irakurten.

Egun orretan alkartu gintzazan beragaz azkenengo aldiz, azken-agurra emoten geutsala. Elizea guztiz beteta egoan: inguruetako abade, praille, monja eta Berriz'ko ta errietako fededun asko etorri ziran. Meza-emoillea, Bilbo'ko Gotzain jauna izan zan, beste amabi abadegaz batera. Agur, D. Paulo! Geure samin maitekorra Solozabaldar eta Elorriagatar aitzai eta Merzedarietako mojai, batez be Elortza'tar Melitona'ri. Izan dagiala goiko Jaunak bere zorionean!



Bagillaren 11'n, D. Paulo'ri, azkenengo agurra egin dautsagu, baita Berriz'ko beste ezagun bati be: Astegia'tar Emilia'ri, Urtzelai'tar Eduardo'ren amari. Jaunak bere aldamenera eroan eban, 85 urte ebazala.

JAIK

Urreratzen asi yakuz gure erriko jaiak be, San Pedro jaiak. Entzun dodanez, guztiz sututa ei'diardue jai-antolatzaileak, baiña ez daukue agertu euren asmoak; beraz, ezin esan emen gertatzen diarduen egitaraua.

Garillaren 7'an, Ereña'ko auzunan, jai aparteko bat ospatuko da: «Ezpatia-Dantzarien Eguna». Egun onetan, Amezueta'tar Serapin zanari oroigailu edo monumentu bat jarriko dautsoe bere etxe ondoan; eta merzei be bai, bere txistuaz amaika lekutara poza ta adorea eroan ebazan ezker. Jaiak, Gerediaga Alkartea'ren ardurapean dagoz. Egun pozgarria izan daitela guztiontzat.

LANDAJUELA'TAR A.

KARMELE

ERRIETAKO

BARRIAK

Elgoibar

LAN-SARITUAK

Deba'n, Lan-sarrituen jai-aldia zala bide, emengo «Gazte Alai» taldeko txistulariak, jai onen alaiagarri izan ziran, beste askoren artean, eta pozik etxeratu ere, egun ederra igaro ondoren, debarrak ondo artu zituelako.

EZKONTZAK

Jemein'en, Egaña'tar Ana Mari, Mar-kiña'ko Bilbao'tar Juan Mari'kin ezkondu zan.

Itziar'en, Azpeitia'tar Itziar, Arri-xaga'ko Barrenetxea'tar Luis gazteare-kin. Zorionak!

JAIOTZA

Arantzamendi'tar Mari Angeles'ek eta Mugertza'tar Jose Antonio'k, lenengo alabatxua izan dute. Ane izen politarekin ugatzatua izan da. Zorionak guraso ta Aiton-Amona danori.

ERIoTZA

Osoro'tar Libe, 38 urteko emakume zintzoa, Jaunak Bereganatu digu. Eman zaiozu, Jauna, betiko atsedena! Gure samiti agurra bere senar Arrizabalaga'tar Francisco'ri ta sendi guzti orri.

JAIK

San Pedro jaiak aundikiro ospatu dituzte gure auzune edo Artetxe barruan.

EUSKERA

Pozik irakurtzen degu «La Voz» egunerokoa igandeetan ekartzen duan «Euskal Orria». Eskerrak eta zorionak, «Basarri», Zurututza ta Aizarna jauneri, jarrai orrelaxe!

MIREN

Madrid

EUSKALDUNAK

Irakurleak ondo dakizuen lez, Madrid'en, Pio XII Ikastetxe-nagusian, igande ta jaiero, euskerazko meza bat izaten da, eguerdiko amabietan, udan izan ezik.

Joan dan igandean, ekainillaren 23'ganean, 1973-74 ikastaroaren azkena izan zan. Urrengoa, urtilaren lenengo igandean, illaren 6'an, izango da.

Meza au guztiz polita izaten da. Eun da ogei bat notin biltzen gara, Jaungoikoaren berbea entzuteko, baita giro euskaldun baten une batzuk igaruteko ere.

Madrid onetan, berrogei anei, 40.000 bat euskaldun ei-dagoz, baiña udan, geienak Euskal-leri aldera joaten dira.

Orregaitik, datorren urrilla arte! Ta, ea datorren urtean, udan be meza polit ori izaten dogun.

ZUGAITZAK

Erri-buru onek, ain aundia izan arren, kale arko, oso politikak ditu, ta zugaitzez beterik dagoz. Au gauza polita ba'da, ona ta osasungarria be bai.

Emengo kaleak ikustean, gure Bilbo'koak burura etortien yataz: zugaitzik gabe, bi edo iru izan ezik.

Sarritan esaten da gaur egunean, zugaitzak bearezkoak dirala, baiña, guk bitartean, ipiñi bearean kendu egiten doguz.

Zugaitza zein gauza apala dan, baiña zein elerra!

UME

Galdakano

DAMOKLE'REN EZPATEA

Galdakano'k benetan Damokle aren ez-pata a gaiñetik ete-dau? Bai! Lenago be bai, ta orain, il onen 2'ganean, egun baltza izan dogu emen. Galdakanotarrak eta bertan bizi garan naita galdakanoar izan ez, egun tamal-garria ezagutu dogu, ta au da nere galdera:

Zer dala-ta ezpata ori gure gaiñean egunak joan eta egunak etorri? Zergaitik ez dautse urten-bideren bat aurkitzen ganora gaizto oni? Or, egunen baten entzungo

Zergaitik irauñ bear dogu lerkifuez bete-tako upel baten gaiñean? Ez ete dira bazte-rretan toki egokiak landola ori nora aldatu?

Au ez da ifloren aurkako esanaldia, ez agintari ez ifloren aurka, egi utsa da.

Izango dira, izan bear, arazo onekin arduratzen diranak edo orretarako izenda-tuak. Nortzuk dira orreik? Orreinu esku dago ta orreik egin bear dabe zuzenketa au, Gal-dakano erri baketsu ta langillea —Erri apain-keretan lenengo saria lortu dabena— ez dedin Hiroshima ta Nagasika'ren «ospera» eldu.



Garil onen 2'gneo illuntziko 8,10 (eguz-kiko 6,10) inguruan sortu zan ondamedia: ormak dardaraz, ate ta etxebitarteak apurtu, leio, leiar eta estalkiak egan, errez apurtzeko gauza guztiak zaitu, ta ori ez Arkotxa'n, landolatik urreko auzunean, Elexalde'n, emen bertan be bai.

Nere saltokia, dantzari urdiri bat lez dardaratu zan, Jaunari eskerrak, alde guztiak zabalik geunkazan eta ez zan ezer apurtu, bezero batek eskuetan eukan edontzia jausi ta apurtzea izan ezik, baiña sartu yakun bildurra, zer letorkenaren ez-jakiñean, ezin neurtukoa izan zan.

Erri guztia izutu zan, erribarruko biztan-leak igesik, Elexalde'runtz jo eben, bildurra orpoetan bultzaka, begietan malkoak eta aienaka baten, danok daukaguz ba senideak edo adiskideak Dinamita orretan lanean. Baita, zergaitik ez? olakorik izan ez arren, euren biziaren arduraz negarrez be.

Negargarria benetan or ikusi genduna. Lagun arte baten olako izualdia sortzen danean, ori eragin legikean edozer, alden du egin bear da. Olan ba, ea lerkai-lantoki ori beste toki batera, basamorturen batera eroaten daben. Egia, ez dautsegu inbidi aundirik atomiko-landolen jabe egitera edo eragitera doazan errieri. Geure soñean ikasi dogu gaitz onen okerra!

GALTZAGORRI

ESTANDA IKERAGARRIA

Ez bear negargarria izan dogu errian Garil onen 2'ganean. Dinamita'ko landolan izan dan estanda bildurgarria bide zala. Lendik be, tamalez, estanda bat baiño geiago ikusiak gara or, baiña oraingoan iñork ez daki, edo dakitenak ez dabe esan nai, onda-kiñen artean zenbat gizon galdu diran. Oraingoa lakorik ez dogu iñoz ikusi!

Gure lantegitxua, etxe-barri baten azpian aurkitzen da, baiña ori ta guztiz be, dana gaiñera etorrela esan legikean, dana zan leyar-otsa, apurtzea ta odola. Eta ondoren, dana ariñeketea ta negarra, igesa ta etxekoeri deadarka deitzea.

Ez diñoe ziur zenbat ildako diran, zauritu ta guzti orraititio, eunetik gora ei-dira, bertan eta inguruetako etxetan. Illak, ogeitik gor-edo, baiña ez dago oindioñik zeaztasunik. Ez dago esan bearrik, lerro oneik idazten doguzanean. Garillaren 3'ganean, erria itun eta oraindik dardaraka, lorik ezin eginda aurkitzen dala. Lagun gaitube atsekabeen ildakoen sendikide guztiyak. Goyan Begoz langille zintzoak, eta zaurituak, laster baten sendatuko al dira. Jaunari ori eskatzen dautsagu!

MENDIGOIZALEEN IBILLERAK

Ez-bear onen aurretik idatzita geunkagun urrengoa. Ez egizue ba uste izan, arin baten aztu dogunik gure erriak jazan dabena. Baiña egiña zanetik, AGUR'era bilatzen dogu au be.

Jai bi, edo astegun bat bitartean dabe-nean, beti be notintza andiak urtetan dabe erritik al daberen tokietara, batez be orain, udaldian. Ta, erria utsik geratu zan igaro dogun illaren azkenegun egun bi edo irutan.

Asko, udako oporrekin aurkitzen dira, beste asko jai bi orreitan, ondartzara edo mendira ta barru-errietara joan jakuz, aixe garbiagoa artzera. Ori ola dala, gure mendigoiz-aleak, euren zorroak lepoan dabezala, men-dira joaten ikusi doguz. Eun eta berrogetamar izan ziran egun orretan bide ori artu ebenak. Baiña, Ganguren'goen talderik andiena, Ara-go aldeko Auñamendietan izan dira.

Berebil andi baten, Kepa deunaren au-rreko egunean erritik urtenda, illun abarre-rako Jaka'ra eldu ziran eta andik Sallen de Gallego'ra jo. Urrengo egunetan aren ingu-ruan diran mendi zorrotz eta aitz erpiñak zear ibilteko. Eguraldiak be lagundu eutsen, eta pozez sinistu ezinda itzuli dira etxera. Aurrera mendigoizaleak!

GAIXORIK

Aspalditxuan makal aurkitzen da, Ma-drid'en, ango osatetxe baten osatebakuntza eginda, Depardieu'tar Xabier gizon gazte euskaltzalea. Zorionez, ondo urten dabela esan daukue, ta benetan poztu gara. Ea ba Xabier, laster baten zure jayoterri maite ontan, guztiz sendatuta ikusten zaitugun.

Baita gaixo gaizto baten pean, Bilbo'ko osatetxe baten aurkitzen da Artetxe'tar Kepa gizon adinekoa. Urre'ta'ko auzunean bizi da, ta bere urterik geyenak an igaro ditu. Oso ezaguna dogu auzokide on ori. Ea Kepa, urteeri jaramon egin barik, laster osatutzen zarean.

ERIoTZAK

Azken aldi ontan, ainbat erritar jator joan yakuz betiko. Igaro dogun Bagilleen be, orretariko zintzo bat Jaunak eroan dauku, Balle ta Basaldua'tar Kandi, euskaltzale jatorra, irurogei ta amazapi urtedun zala.

Kandi, gaztetan, Bengoetxe'n bizi izan zan, beraz, oso zan ezaguna errian, bai gizon apala ta argia zalako, baita beti errizale zintzoa izan zalako be. Baiña eriotzeak daneri eskatzen bere ordaiña ta erioan dauku gure Jaunak, jaiotzatik zorretan daukagun tokira. Goyan Bego, eta laguntzen dautsegu atseka-bean bere senide guztieri, batez be bere emazte argiari!

BASA-JAUN

Zumarraga

PESTABURU

Urteoro, udaroaren sarrera, pesta-giro egiten degu Urretxu ta Zumarraga auzo errietan.

Urretxutarrak, aurrekoen bideak urratuaz, bederatzirren ospatsu baten bidez, Irimo mendiaren egalean dagoen Santa Barbara baseliza zaarrean ospatzen dute Joan Bataiatzailea'ren eguna.

Meza nagusi errikoia, antziñeko dan-tza saioak eta bertsolariak, erri zuzenda-riak, eta urte guztian gertu dauzkaten maietan, elkarteak eta sendiak erri-otordua, ta dena pake onean bukatzeko, gazte ta ain gazte ez diranentzat, erro-meria.

Azken urte auetan, Zumarraga'ko gizarte talde batzuek, egun gitzi barru ospatuko diren pesta-buruen aitzakia-rekin noski, aurtxoan eguna ospatzen dute, ta beti gertatzen dana, aurtxoan aitzakian, ain aur ez direnak ere ederki olgatu.

Beloki mendiaren egalean arkitzen da antziñeko Parrokia. Gaur baseliz ederra, erritik kanpora, Santa Isabel deituraz ezagutua, kondairaren orrietan Zumarraga'ko Andre-Mari.

Zumarraga Zumarraga danetik, gure erriak beti izan du zaletasuna, Eliza ortan gurtzen den Andre Mari'ren iduri bikainari.

Orain lareun urte inguru, zabaltzen zijoan errian, eliz parroki berria iriki zanean, baztertua geratu zan. Baiña Zumarraga'ko seme onak, etzuten aztu Beloki barreneko bere Ama, ta erria batzarrean baturik erabaki zuten, ur-teoro, Andre Maria'k bere lengusu Elisa-bet'i ikertaldia egin zion egunean, Zuma-rraga'ko erri guztia bere Ama'ren au-rrean auspezteko.

Urteak joan ta urteak etorri, gaurko egunez ere or jarraitzen du erromeri ospatsu onek. Gaur, oraindik jende naastua ta kultura ezberdinekoak bertan batu arren, eliza inguruan errespeto edo begiraman aundia gordetzen da. Euskal-dun maillan, asko pozten gera, gure antziñeko dantzak bakarrik dirala ingu-ru ortan jaun da jabe ikustean.

AZKARRAGA

Arrasate

TOLOSA'N

Kardaberaz Bazkunekoak dei egin da, juan zan illaren 20'an, batu giñan bazkide eta idazle mor-doxka bat. Bertaratu gintzaren artean, euskal-idazle iaioak ziran eta euren artean, Lekuona'tar Imanol buru zala, onexek izan ziran: Akesolo, Etxaniz, Larrañaga, Aita Yurre, Gama, Aita Intza, Uxola, Labaien, Arrinda, Olazar'tar Martin, Oteiza, Zaitegi, abar eta abar.

Lau urte oraindik ez Bazkun onek, baiña lan-sail ugariak egiñak ditu. Batezere liburuk irarten; 15 baiño geiago irarriak ditu eta beste asko txandari itxaroten. Orrez gaiñera, euskera arloan, lanik asko egiñak dira, eta aurrerantzean ere gogor jarrai-tzeko asmoa dute.

Guretzako be, idazten, zenbat erakusgarri izan leitekez eta beste Euskaltzaindia'ren ordeko bezela ezagutu dogu, eta bere bere erakutsi eta argiak bete-betean ontzat artzeko, asmo ona gertu, egon giñake. Ez gera juango beste Euskaltzaindia'ren aurka errazoi barik, bada arek ematen dituen errazoi zuzenak, geure ustetan ondo dagozanak ontzat artzeko gertu egongo gera, baiña ostantzean Kar-saberaz Bazkuna'ren erabakia ontzat emango dogu.

Bazkun onek, gaur egun, 150 bazkide ditu eta beste illabete barru 200'era elduteko itxaropen osoa dago. Elburua MILLA'ra eltzea da eta au onela izanik, gure euskera batuak asko irabaziko duala, sinismen osoa daukagu. Orrela izanik, euskal-idazle argiak lan asko egingo dute eta liburu asko eta gai askotakoak izango genituke. Gure «Kami-nazpi»k esaten zuana, euskeraren batasuna lor-tzeko erarik egokiena ortxe izango degu.

Bazkun onen bazkide maillara eltzeko euskera zerbait maite dogu guztiok eman bear degu geure izena eta ortarako zuzen onaxe: Juan Jose Gar-mendia, Kardaberaz Bazkuna, Apartado 83, Tolosa.

JAIK

Au idazten nagon garai ontan, gure Erri-jaiak ospatzen ari dira. Orain arte egin diranen artean garrantzitsuenetakoa Euskal-Eresi-Astea izan da, eta onetan, Ballet Olaeta delakoa. Bera ikusten aunitz jande batu zan eta txalo ugariak berekin izan zitun.

Aste barru ortan beste egintza batzuk ere izan ziran eta auen artean Ansorena'ren txistu irakasketa eta ereskin orren saioa. Baita atsegin izan zan Durago'ko Abesbatzaren ekinaldi ederra ere. Tamala oneitan etzan bear zan beste jende bildu. Itxuraz ez izan ordu egokietan.

Gure Parrokian ere, urtero bezela, Sanjuan besperako Salbea oso ederra izan zan, eta Sanjuan eguneko Meza Nagusia be, aundikiro ospatu zan. Bertan iz egin zuan gure erritar Aita Arregi'k eta gaurkotatuean oñarrituta egi biribilak esa zituan. An ziran guztiak pozez beterik urten ziran.

ERIoTZA

Gure artetik alde egin du Zerura bidea arturik, Agiriano'tar Moises'ek, bere 80 urtegeaz. Semez, Ezkoria'ta'koa zan, baiña erri onetan urte asko zeraman eta oso ezaguna zan eta maitatua. Samin-tasun onetan laguntzen dautsegu bere senide guztiai, eta batez ere, bere emazte naigabetuari. G. B.

UDALAITZ

ERRENDERI'N

Amaitu kalte egindako naparreria! Gipuzkoa'ko erri askotan beste deitura bat emoten dautse erderazko «viruela»ri: baztanga.

Ez jakin nundik sartu zan urte aretan. Itxasotik? Dana dala, Errenderi'n, 1869 urtearen azkenetan, ogetak lagun il ziran gaixo onen ondorenez. Euren artean, 34 urtedun, Juan Frantzisko Petriarena Berrondo, Gabon-illaren 8'an. Il zan egunean bertan, bere arreba Maria Luisa'k umetxo bat ekarri eban mundura. Bederatzi egun bakarrik egin zitun bizirik; amargarrenean il zan eta biaramonean ama berbera. Ille ta erdi lenago, Juan Frantzisko'ren emaztea gaixo berberaz il zan, Urrilla'ren 25'an.

Nor zan Juan Frantzisko Petriarena?

* * *

Gure gerra aurretxoan, 1931 urtean, Errenderi'ko erriak «Xenpelar» bertsolariaren omenez egindako jai gogoangarrian, Jose Cruz Urrutia'k egiñiko bertsoak onela asten ziran:

Malen-kalian jarriya dago Xenpelar jaunak izena, oroipenak aztuko ziran ez bazan izan zuzena, leiala eta iztun garbiya, denak maitatzen zutena, euskaldun bakar bat ezta erriyan gogoratutzen ez dana, bertsolariaren Errenderi'yan izandu danik onena.



Urrutia ondarrabitarra zan jaiotzez, nai eta umetatik Errenderi'n bizi eta origaitik emengo bertsolariaren artean asko etsi.

Eta «Xenpelar»? Ara ain zuzen Juan Frantzisko Petriarena. Bere izen jatorragaz, ez ezaguna. Baserriaren izenetik, Senperelari'rik datorkio erri deiturazko «Xenpelar» ori, Euskalerrri guztian ain zabal eta ezagun geratu zan izena.

* * *

Bidezko da Errenderi'n sartzean bertsolariak gogoratzea. Zenbat? Ez da errez danak agertzea.

«Xenpelar» aitatu dogu. Erritik urtenena, ezpai barik. Bere bertso asko gaur be zabal dabiliz.

Eta besteak? Zeiñek ez ditu erabili Brabante'ko Genobeba'ren bizitzakoak? Juan Cruz Zapirain'enak dira. Biotz andiko gizon onek ez ekian irakurten ez idazten. Eta kanta ala, bere emaztea ibiltzen zan santa orren bizitza luzea sentimentu andiko bertsoetan artzen.

Beste bat: Zapirain orren anaia, Joxe. Andrearen eriotzeari egiñak, amaika negar atara izan dabe bazterretan. Ez daigun aztu Salbador, euron illoba.

Geiago: Saiburua anaia.

Zarren artean, gogoratu Jauregi bat:

Gizon fiñak il eta faltsuakin bizi, ni ere ba nua emendik igesi.

Euren artean baita Salaberria; Iñarra «Txintxua»; «Telleri Txiki»; Zabaleta anaia, Juan eta Pedro; Aranberri...

Beste bat: Taberna. Zein gure denporetakok gogoratu ez Taberna au, «Estatutua» erabagietako aurretxoan Jaungoiko bakoa zala ta ainbat tokitan bertsoetan bere aurka zital ibilli zana?

Errikoa izan zan Elizegi be, «Frailia» izenagaz ezagunagoa. Bereak dira:

Irtetzen geranian mundu onetatik izango ote degu geiago bueltik? Mandatari joanak ba dira aurretik, alerikan bialtzen ez tute orretik; au bera esango dute oraindik gugatik.

Eta «Txirrita»? To! Geldi. Ez nua esaten Errenderi'n jaiotzean. Ez kendu ezer Ernani'ri. Baiña irurogetak urtetan Errenderi'n bizi izan zan. Urte askotxo, lorrik ez lagateko.

* * *

Domeka, igande illuntzea. Gaitz billatuko da erriko plaza baten Errenderi'n aña lagun dantza eta jolasean. Plazetako dantzaldiak galdu egin dirala? Emen bete-betean egoten da plaza, alkarren gainean, ezetarikoki eta zabaltasun barik dantzariak ibiltzen dirala. Ikusteko izaten da emengo jentetza.

Karriketara nua. Euskeraz dauke kaleak izena. Gamon Karrika, Zalakain, Gazkue, Elizegi, Urdaburu, Malen, Santxo Enea. Karrikak, au da, kaleak. Erri askotan oraindik ez dautse gure izkuntzari eskifii kaleak izentzeko duintasunik be. Azaleko gauza, baiña berezko lez etsi bear litzakena.

Kaletan zelan itz egiten dan? Gaur Errenderi'n 36.000 lagun inguru bizi dira. Orain eun urte iru millarik ez. Orain amalau urte be, gaurko erdiak.

Orrela, ez arritu % 77,9'k umeen artean euskerarik ez dakiela esaten badogu. Erriaren anditze eta ugartize ori euskaldunen kontura egin dala esatea, burubagakeria izango litzake, gaurko gizonen ibillera eta joan-etorriak ezagututa. Mingarri, baiña egia.

Ontaz, Errenderi'n bertsolariak aitatu-tzera preminiatu garean ezker, beste txapel-dun batek orain amalau urte «Oarso» aldizkarian agertutako bertsoak gogoratzea egoki da, gure sentimen berbera dakarrelako. Ara «Basarri»ren bertsoak:

Gaur Errenderi'k Gipuzkoa'n aitormen on bat bear du, urte gutxitan arrigarrik aurrerakoa eman du. Lanetik dago etorkizuna ta lantokiak ugaldu, baiñan izate jatorrizkua arren, etzazula galdu!

* * *

Jakingarriak: Erri-etxea, ederra, 1603-1607 bitartean egiña. Aurrerago parrokian egiten ziran erriko batzarrik. Fraille bat izan zan etxe onen planoak egin zituna: Fray Migel Aranburu. Garaiburu eta Ondartza argiñak jasotzaleak.

Parrokia, Andra Mariaren parrokia, XVI gizaldikoa da. Zein urtetan? Ez jakin. Asiera eta amaiera ez dira jokera bardiñeko. Or ikusten da urte askotako lanak dirala. Euskal artea? Edo ta euskaldun erako gotikoa? Ba dira ori diñoenak. Eleiza egin eta berrogetamar urte geroago egin zan sakristia. Torre barriak oraindik 75 urte ez daukaz. Ez da ba gaitz ainbeste zatitan egindako etxe baten, denpora ez bardiñetako jokera agergerriak billatzea.

* * *

Itxastar izateko jaiotze eze zan Errenderi'?

Ba daukaz istorian orrelako jokabideak. Kaia, portua, gaur Lege-Zarraren plaza

AGVR

Apartado n.º 2 BILBAO

FRANQUEO CONCERTADO 08/55

Gogo-gaixodunak

Oraintzu arte, gogo-gaixoduneri «zoroak» deitzen yaken, eta gizarte tartetik giltzapetu bearreko arriskutzat artuten ziran. Gizatalde geienak, euren-ganatzeko bildurrez izaten ziran eta orain be olan dira. Olango gaixoentzat aukerata egon diran gaixotegiei be, bereziko izenez deitzen yaken: Zoro-etxeak. Gizarteko zenbaketak diñoenez baiña, uste dan baiño indartsuago aienatzen, aldenduten oi doa gizartean izan dan onenganako bildurra. Albatesareak, indarrezko atorrak, ate itxiak-eta, ez ei dira barriz ikusiko.

Eunetik gizaseme bat, gogo-gaixoduna ei-da. Orrela, mundu zabalean, milloi luze batzuk ei dira eurentarikoak, eta España'n 340.000'raiño izango ei-dira.

Gogo-sendagintzaren, psikiatriaren elburua, gogoko goi-berak lenengotik aztertu ta sendatzea da. Antxiñatik ezagutzen izan ziran goi-beraldi gaitz-aldiok. Hipokrate, Galeno ta beste antxiñako osagille ospetsuak gogo-gaixoaren atzalpenak emon eta muetak banatu egin al izan ebezan.

Lenengo zoro-etxeak, XVIII mendeko azkenetan irasi ziran: zoroak ondo artu, abegi ona egin eta arduraz zainduteko asmoaz. Ordutik, gogo-gaixodunak, lekaidetxe baten lez edo espetxeetan giltzapetuta lez bizi oi ziran, ta iñoiz, gaizkille bat lez arturik, gogor zigortuta be bai.

Naiz zoroetxeak gogo-gaixodunen onerako egiñak, zoro-jokadak agertzean, zigor itzelak emoten eutseezan. Ba-egozan besterako arauak: abegi ona, giza-bidea ta onez gaixook artzeko, baiña orduko gizartea, itxuraz, ardura aundiagoz izaten zan, osasuntsua ta sendoa zoroen begitartetik zaintzeko, gaixook sendaketa egokiz osatu bearrean. Alan eta guzti be, XVIII eunkian bertan, zoroai gizabide osea emoten asi ziran, eta ez ebezan, lenago zan lez, presondegi illunetan lotuten.

Psikiatri jakintzaren aurrerakuntzea oargarria ta andia izan da 180 urte onecitan. Gogo-gaixoduneri, ez yake orain deitzen izen a: «zoroa», ezta eurak dagozan tokiei «Zoroetxea» be. Gaur, beste itz-berba gizatasunekoagoak darabilguz eta zoroetasunari buruz, gaixotasun bat, gogo-gaixo bat, ta ez besterik, dala diñuskue.

Ikusi daigun zelango dan gaur, gogo-sendakintza gaixotegi bateko bizi-tzea. Geienetan, kaleko beste gizaldreen antzekoa da:

Zortzi terdietan jagi ta gozaria artzen dabe. Gero, bakoitza bere lanera doa. Amabi terdietan bazkaldu. Ondoren, atsedean aldia, akeita artzeko-edo. Gero, beste ordu batzuk lanean, eta barriro asti-ordu, aparti ta amarretan geraldia.

Zertan egiten ete dabe lan? Baratz, lorategi ta lantegietan. Gogo-gaixodunetarik % 75'ek, lan egiten dabe, Bakoitxak berari agindutakoa. Eritasuna arindu ta gero osatzeko, gauzarik onenetarikoak, bear egitea izaten da. Olan euren buruarentzat onuratsuak dirala gogoan darabille, ta gizarte ta erkidetasunari laguntzea emoteko aña dirala be igarri. Eguneroko bost orduen alogerea jasoten dabe astero. Lantegian, ainbatek lo-egiteko lastai bigungarriak dagiez. Beste batzuk, arotzkintzan edo gaixotxeetako zegegiñetan diardue.

Irabazi oi daben diruakin —geienak aurrezki-gutuna daukie— norberaren eralketak ordaintzen ditue, ta batzuk, euren sendeei dirua bialdu be bai.

Batzuentzat, gogo-gaixodunok lagun galbidetsuak dira, olan uste dabe beintzat, eta eurekandik urrinduten dira. Sarri, sendiarretekoak be, orreik baztertu edo alderatzeko alegiñeten ibiltzen dira. Senean dagozanak baiño asarrekorrak dirala uste dabelako geienetan, eta bildurra izaten dautsee. Baiña sentzundunak baiño benetan asarrekorrak eta gogorkeriagoak ete-dira gaixook...? Au beintzat ikusi dogu: Gaixotegiko irureun gogo-gaixodun dabiliz etxe a dator uriko biztanleekaz nasturik, eta iñork ezin al izango leukez berezitu.

Latteri baten, orain amar urte ezkerotzik, nortzuk, gogo-gaixodunak ala zentzundunak, gogorkerietara emonagoak diran jakiteko, aztertze-billaketak antolatuten diardue. Batz beste edo eunekoan, ez dagola ezertariko alderik agertu dabe ikerle ikasiok; osasundunak eta gaixook, gogorkeriak egiteko zale edo ez, bardiñean ei-dira.

Sarri entzuten da, guztiok gareala apurtxo bat zoroetxoak. Egia et-da? Dana dala, ziur dakiagu: Gogo-gaixotegietan, gaur, alegiñez eta arduraz dabil-tzala, gizadia aiñako zarra ta, zoritxarrez, gero eta geiagotzen doan gaixo tamal-garri au osatu edo arindu naian.

LETONA

egiten dan toki ber-bertan euki eban. Itxasontziak egiteko ola edo astilleruak be egon ziran bertan. Ezagunak izan ziran beintzat Arrabalekoa, Basanoga, Madalena eta Ugarriztan egiten ziran ontziak.

Baiña auzo erriak itto egin eban. Bera baiño erri andiagoko lenago lortu eban erri-nortasuna, erri-legea, eta bera basterrean egotera beartu. Auzoak kendu eta galdu eragin eutsen ortarako eskubidea, batez be Oiarzun Donosti'n alde jokatzen agertu zanean.

Errenderi'ren izen jatorra Orereta izan zan. Baiña erri-legea emon eutsenean «Villanueva de Oiarso» ezarri. Alperrik. Orereta inguruko burdintegi eta sal-erogartien zergak emen kobraten ziralako, Errenderi izenez ezagutzen zan. Ortik izen au betiko geratu.

Gaur itxas lurruna artuarren, ezin esan Errenderi itxas erri danik.

* * *

Berreun urte inguru eukiko ditu emengo fanderiak. Gaur, bere zeregiñean, izena baka-rrik.

Simon Aragoiri'rena zan emengo burdintegi bat. Egon ziran beste batzuk be: Gabiola, Suerrin, Gabiriola eta Pontika, Aragoiri'rena Errenderi-ola zan. Erriak zati bat kendu eta bertan ipiñi zan fanderia. Bere sasoiaren burdiña gertatzen aurreratuenetakoa. Urtetan erabilten ziran errubera bik erabilten eban makiña eta burdiña ebaki, okertu, zuluatu, zabaldu, estutu eta tenean ipinteko bere parekorik ez ei egoan. Irurogei kintal eratzen ei zitun egunean, danctara be zazpi gizonen erabillita. Sutegi bi, bat beti garretan. Ora luzaro Errenderi'ren izena goratu eban indus-tri bat.

Fanderiak euki eban bere alderdi illuna be. Orain eun eta bat urte, ain zuzen be, liberalak fanderi onetan erosten zituelako gerrarako armak, karlistak ondatu eta erre egin eban. Asko garratzu ziran inguru onetako egoera eta jokabidea. Eta egon ziran asarre eta burruketan, ainbat baserri etxek artu eban kalterik andiena. 41 baserriaren suaren ondandemia ikusi eban.

Gaur, Errenderi'k beste burruka bat darabil: Lanaren etorkizunak dakarrena. Eta emen, lanik jatorrenak bertan bera galdu baziran be, gaur gaurko esku biarrak eta buruzkoak ba dauke oraindik aukera.

A. ZUBIKARAI

Lerkaiak... non?

Galdakano'n izan dan dunbadeak edo lerpenak zurt eginda itzi gaitu. Eta ez da au lenengoa izan.

Artu doguz Agur'en gai oneri buruz itz egiteko eskatuaz eskutitz batzuk. Geuk bere, egia esan, ez geunkan ixilik egoteko ametsik.

Lerkaiak, gitxienez era bitakoak izan leitezke: lerrauts edo polborazkoak eta kizi edo atomo-idarretikoak. Lerrautsezkoak indar aundia dauke, Galdakano'ko jazoera negargarrian ikusi dogun lez, baiña indar ori ezer be ez da kizikoenez alderatu ezker. Onen indarra zelakoa dan Hiroshima'n eta Nasasaki'h agertu zan, zori txarrez, baiña gaurko lerkaiak areik baiño askoz indartsuagoak dira.

* * *

Gizadiak era guztietako indarra bear dau. Gaur, tximist-indarra naikoa ez dala izango ta, kizi indarra bearrezko dala diñoce jakitunak, eta orretarako erabili ezker kizi-lertzea oso onurgarria dala.

Lerrautsezko indarra be, berez, kaltegarria ez da; dinamitea bera be lan asko egiteko aurrerapena da. Ez dogu ukatu bearko ba, gauza oneik lortzeko eregiten diran lantegiak bearrezkoak eta onuragarriak diranik. Geiago, olako lanetan diarduen langilleak benetako serbitzailleak dirala, esan bear dogu. Arrisku ori kendu edo gitxitu ezin dan artean, beste bide batzuk artu bearko dira gizonen biziak eta osasuna salbatzeko.

* * *

Baiña olako jazoeren aurrean itaun au egin barik ezin geratu izango gara: Non jaso olako lantegiak?

Galdakano'n jazo dana erri onentzat eta inguruarentzat negargarria da benetan! Eta olako uste bako lertzeren bat izango ba'litiz Armintza'n (Lemoniz'en) egiten diarduen kizi-lantegian? Bear ba'da Bizkai guztian nork negar eginik be ez litzake geratuko. Eta, oraintzu. A. Arrinda'k AGUR'ean agertu zuan lez, Deba'n beste olako indar-ola bat egiten ba'da, beti ikaraz bizi bearko dogu. Orrez galiñera, lertzerik izan ez da be, kutsadura ta beste kalterik etorri leitezke (Ik. AGUR, 144).

Iñoz gizadia zoratu egin ete jakun bururutzen jat.

* * *

Bearrezkoak dirala olako indar-olak eta lantegiak? Bai.

Arrisku aundikoak dirala? Baita ori be.

Zer egin orduan?

Ezin leitezke olako lantegian, gizonak bizi diran tokietatik urrin egin?

Lau-une aundiak bear dirala? Ba dira neurribako lau-uneak Gaztela'n.

Mendiartean izan bear dauala? Ba dira menditzar ederrak Leon eta Galizia'ren bitartean, iñor edo oso gitxi bizi diran menditzarrak.

Ikas-ertzean izan bear dauala? Gurea baiño itxas-ertz utsagoak makiña bat dagoz bazterretan.


Ementxe izan bear ete dabe ba, nai ta ez, biztanle asko ta estu-estu bizi garan toki onetan? Ala ori be Euskalerrria zigortzeko era barri bat izango ete da?

Galdakano'tarrai auxe entzuten dau-tsegu: Zergaitik ez dabe lantegi au arriskurik ez dagon toki batera eroaten?

Beste egunen baten, esateko iñor geratzen ba'da, orixe entzun bearko dau-tsegu Lemoniz'tarrai ta Deba'tarrai edo bear ba'da Bizkai ta Euskalerrri guztian.

Lantegiak bakarlekuan egin arren, jentea ara joaten dala biziten? Orrek urtenbide ona dauko: Ez itzi.

Guk emen egingo doguzan deadarrak eta ezarriko doguzan zioak alperrekoak izango dirala uste dot. Goliat aundiaren aurrean Dabid txikiaren antzeko gara ta. Baiña irakurri nai dauanarentzat or dago gure eritxia eta jaramonik egiten ez ba'dauskue ez da izango gure errua.



Mairuelegorreta Ar-zuloa

Igaz lez, eta aurreragokoetan be bai, oraingo au bederatzigarrena dala, il onen 28'garrenean, biar bertan, eta goizeko amaiketean asita, IX EUSKAL-JAIA izango da, leiza orretan eta bere inguruetan.

Aurtengo jai onek, ba-ditu bere berezitasun bi: Iradier Alkartea'ren sortzetik 25'gn urtea ospatzea, bez, zidarrezko ezteguak aundikiro, ta Everest'en izan diran euskal-mendigoizaleak be, or izango dirala; egintza aren oroigarri, Alkarte onen urrezko lenengo sariak ezarriko dauseez.

Berez, jai ederra ba'da, ba-daukazu zertan joan Gorbeapeko ar-zulora!

EGITARAU

Abeslariak:

OIARTZUNAK

LUPE

BENITO LERTXUNDI

PANTXOA ETA PEIO

IBAI REKONDO

Eres-trasnak:

IRU-BAT, dultzaiña

ENDIKA-XABIER, txalaparta

JENTILLAK, muxu-kitarra

TXISTULARIAK, nai aiña

Bertsolariak:

IPARRAGIRRE, BEITIA

Dantzariak:

«AMAYA» Espata-dantzea

TRIKITIXA, ta

DATOZAN ZAAR ETA GAZTEAK

Azkena ta ez txarrena:

MANUEL IRADIER, abesbatzaren:

«Goiko mendian»

«Gorbeia tontorrean»

«Gernika'ko Arbola»

Zertan Dabiltza?

Aste batzuk dirala, Errioxa'ko San Millan'en egindako batzarraren albisteak irakurri genduzanean, arrituta geratu giñan: Izparlari arek euskerearen sortzetik millagarren urteurrena ospatzen zala iñoan. Olako astakaria, agirian beintzat, zuzentzeko, egun batzuk garrenean, oar bat argitaratu euskuen, idatziak agertu ziraneko lenengo itzen urteurrena zala esanaz.

Baiña aspalditik kezkatzen gaitun «arra» aundiago egiten datorrela, ona emen Donosti'ko «Diario Vasco» (6-VII-74) dalakotik zerbait: «La batalla de un monje para salvar la lengua vasca» izenburua dabela, Villasante jaunak erbesteko «International Herald Tribune» aldizkariko izparlari bateri emondako erantzunen laburpenak dakarkiguz. Alkar-izketa ori «New York Times» eta «Washington Post»-en be agertu ei da.

Villasante jaunaren itzak: «Sabemos que el vascuence se hablaba hace un milenio, explica el P. Villasante, pero es todo lo que sabemos. Nuestro idioma continúa sin tener un principio. Nadie ha conseguido descubrir sus orígenes». Besterik ez?, «milenioa» bakarrik? Caceres'en ez, bear ba'da, baiña Allusti'ko aitz artean ebiltzenen aocetan lenagotik, ziur gagoz. Ezin ulertu geinke erantzun orren esan naia... ala bai? Bota an eta bota emen, gaur baietz eta biar ezetz, ez ete daralbigu erriaren ulermena nastatzeko asmorik?

Ezagunak dira Villasante'n eta gaur «dizdiratsun» erakusten daukuezan euskaltzain batzuen erdal-saletasuna ta euskal-itz jatorriari begi-txarra; Latin zaletasuna, noski.

Itz bardin antzeko bi, beste batzuen artean, ba'daukaguz aukera-gai, «soiña ta gorputza»edo, orreik, latin-jatorrizkoa onartuko dabe, beste arrazoierri jaramonik egin gabe. Euskal-jatorrizkotzat uste izan dogun itzen bat, latinetik sortua dala jakitera eltzen diranean, eupadaka, zaratatu jatorkuz euskaltzain saritu oneik.

Itz gutxitan esanda: Garratz natorrela ba'deritzazu ere, pozik adierazoko leuke orreik, al ba'lebe, Lazio izkuntz-ama bardiñetik sortuak dirala, gure euskerea, gaztelerea ta beste inguruko izkuntza guztiak. Orrentzat, zoritxarrez, Plinio erromatar kondairagilleak, gizaldi batzuk lenago aipatu eban «lingua navarrorum» a... baiña, doroagun abiadan, ez nitzake bapere arrituko, norbaitek, Plinio'ren arazo guztiak «errizale arrazista»ren batek amatutako ipuiña dala esateagaz.

Zer nai da? Euskerearen bizitza moztu? Ezereztu? Izkuntza burgesa dala diñoeneri, bidea leundu? Iru edo lau sasi-izkuntzalarien jostailu ta tresnatat bakarrik izan? Es dogu besterik ikusten, erakusten daben «romanizatze» gogo bizi orretatik.

Jarrai dagigun baiña, Villasante'k, erbeste-kontzat esandakoak azterten: «estos últimos años se han traducido obras clásicas y modernas y así por ejemplo se pueden leer en vascuence (benetan?) a Huxley, a Marx («El Capital»), Voltaire («Candide»), «La Isla del Tesoro», de Stevenson, «Las Aventuras de Tom Sawyer», de Mark Twain o títulos de Walt Disney. Explica el monje de Aranzazu que la traducción es sólo un paso. Tiene que haber estudiantes que lean esos libros.

Ikusten dogunez, Villasante'k euskerantz egindako itzulpenak bakarrik artzen ditu aintzakotzat, eta «ikasleak» bear ditu Huxley edo Marx'en textoak irakutzeko. Zaitegi, La rraoetxea, Etxebarria, Egia, Urruzola ta beste pillo aundi baten itzulpen ederrak aztu egin ditu Euskaltzaindiko buruzagiak. Eta Biblia'renak?

Goazen baiña aurrera. «Sin una vigilancia el idioma se siluie en diferencias regionales y en el argot y finalmente después de generaciones de mala utilización cae en el olvido». Ta, oneri indarra emoteko, diño: «En las provincias vascas de España verá usted como el pueblo usa la palabra 'esan' por el verbo decir. En las provincias vascas de Francia diran 'erran' y nadie sabe por qué».

Oiako gauzak izkuntzalarri baten aotik entzutean, arrituko giñakez, lendik gogortuta ez ba'gengoz. Ba ete dakie norbaizuk izkuntza bat zer dan? Bein, «tuerka-saltzaille» dan sasi-izkuntzalarri batek, «emplastero» deitu eustan, aztu dodan aldizkari batetik: izkuntza arazoetan ez nintzala iñor esan naian. «Emplasto»-gintzatik goragoko «titulo» baten jaube naiz, gitxienez, nere zeregiñean... baiña «torlojo-saltzaille» orrek eta bere kide kutunak erakusten daukuen aurgegi gogorra ta lotsarik-eza, ez dira ixiltzekoak. Izkuntzearen lepotik barre egiñaz, euskerearen kalterako dabiltzalako, besterik ezean.

Ta, «borondate-onekoak» ez ete dira konturatzen, oreik azkenez, arri-aroko lau garrazi izan ezik, beste guztia —euskera izkuntza bezela— latiniaren alabea dala esaten ausartuko diranik? Batzuk, burgesa dalako; besteak, euskaldunen berezitasuna dalako, ez ete dabiltz burdi bardiñetik tiraka?

Bada-ez-bada, ezjakiñentzako zabalkunde onegaitik, Akesolo, Barandiaran, Labayen, Lef. fite, Mokoroa, Onandia, Zaitegi, Zatarain eta abar eta... Mitxelena (bai, Mitxelena, diñoena ba'da), oartzen dituguz, asmo zital orreri aurrea artzeko gertatu daitezcan.


ARENAZA'TAR JOSU

GAZTE

Ikasle Baten Otoia

Itxi bear dodaz, Jauna, orain arteko liburuak. Tresna batzuk artu bearko dodaz orain nire eskuetan, eta ez dakit zelan erabili. Oraindik, ez dot orainarteko lagunik izango, ez. Oraingo lagunak gogorraok dira, itz garratzak erabilten dituez, baita oso gogorrak be.

Emendik aurrera, ez naz lengoa izango, Jauna. Orain danak esango daustee; «Mutil, ekarrrik ori ona; eroaik au ara» eta abar... Ume bat lez eukiko nabe.



Orregaitik, Jauna, gogortasun apur bat emon daitzazula eskatzen dautzut, oneri, gizon lez erantzuteko. Ta, Jauna, lenengo irabazten dazzen lauerlekoak, ez dira asko baiña nire eskuakaz irabazita dagoz, neure-neureak dira, neuk bakarrik dakit zein gogor egin jatazan egunak diru au irabazteko.

Ba-dakit, Jauna, danak barre egiten dausteela, baiña ez jat ardura, ni pozik naz, bai irabazten dodanagaz, naita gitxi izan, baita ume lez erabillita be konforme. Ba-dakit, onen begietan olan izan arren, zuk gizon lez maite nauzula.

Parkatu, Jauna, nire eguneroko okerrak, baita nire gizarteak egiten dituezanak be. Olan, ea zure erreñu zabalean, batera sartu, ta bardiñak noiz edo noiz izaten garan.

ASTONDOA'TAR J. M.'k



eziketa jostailuak
eskulanetarakoak
irakasketa gaiak

gregorio de la revilla, 1
bilbao - 11

Jolasean ikasi, or zure aurrentzako emoitzarik onena

Everest

Everest'era urreratu ta an gora joatea ez dira txantxetako ekintzak. Orretarako mendizaleak izan eta bene-benetako kiroltzale gartsuak gaiñera, ezer onik egingo ba'da. Ta ez da dana ari goia artea, arako bidean ibilli ta ango arrisku ta nekeak gaiñeratzea be, ia orrenbesteko da, gaxena eginda dago-ta. Beste aldetik, orretan urte asko daroien errietako mendigoizaleak joaten dira ara atzetik, bultzada andia daukenak; olan ikusi ezker, ez da edozein ara gora eltzeko alegiñetan dabilena.


Orregaitik, «TXIMIST» Euskal-ekialdiak egin dabena be, beste guzti orrean artean sartu dala esan bear. Or, euskal mendizaletasuna, beste guztion artean goigoian geratu da, naita garaitza osoa lortu ez oraingoan.

Orrez gaiñera, gure mendizale orreik, emen gure alkarteetan bildu ta trebetu izan dira; gure mendietan ikasi dabe zer dan mendi andi bateri neurriak artea. Gizon orreik, or eta emen, gure burdibide, bidezior, ardi-bide ta auntz-erpiñetan ikusi dabe kirioak eta nekeak menperatzeko bide bakarra, zaletasuna ta ekeñian ekitea dala onena. Orra ba, gure mendi oneitako semeak dira.

Iru dira ba, ospatu ta txalotu bear doguzan gaiak. Lenengo, Ibillaldia bera. Bigarren, «TXIMIST» langintza orren lako bat izatea, bene-benetan lagundu dautseta. Irugarren, Ibillaldi onek erakusten daben euskal-mendizaleatasunaren indarra.

Au da guk uste doguna, orreik ikusi, jasan eta lortu dabena, danok nai izango dogula entzun eta ikasi, batez be, gure mendizaleen alkarteak. Oneik gaiñera, gizon jator orreik ospatu ta goraltzeko gertu dagozela dakigu. Ez dira ba gitxi izango, an izan diran danekin eta banaka ta bi-

ñaka ekartzeakin, gure alkarteetan egingo diran batzar, itzaldi ta ospe-eskeintzak.



Onelako zerbait, eta ez makala, ta lenengoa danez, besteentzako ikasbide, or izango zan il onen 14'gñean eta Itxogana azpian diran Guana'ko San Bitor'en muiñoetan. An, Everest'era joan ziran guztiak izango dira J. l., eta ara doazeneri aurkeztuak, alkar ezagutu dagien.

Urrengoa, naitza biar bertan izan eta zu ara joatea erreza ez, beste eginbearren bat aurretik artuta eukiko dozu-ta, Gorbea'ko maldan, Mairuelegorreta'n izango da, ta or, Everest'eko mutillari, urrezko oroigailuak eskeiñiko dautseez.

Onelako beste batzuk izango doguzalakoan uda onetan, emen geratzen gara zain, zueri esan eta danok joan al izan dagigun.

AILLUITZ

SALNEURRIAK

Egun asko ez dala, edabeak gure edan-tokietan zelako igocrea izan daben ikusi al izan dogu.

Esate baterako, arda. Lenengo, lauerleko baten egoten zan txikitoa, gero lauerleko bitan, eta gero iru lauerlekon, eta orain ikusten dogu, zelan toki askotan, bost lauerlekoraiño igon daben. Entzun dot baita, zortzi lauerlekoraiño igon leikeala be.

Txikito ori ez da gauza asko, min punta bustiteko beste.

Gaurko egunetan, gure artean asko edaten diran beste edabe asko be badaukaguz (kuba-libre, jim-kas eta abar). Ez dakit orreik zenbateraiño igon izan daben, baiña uste dot labor ez zirala geratuko. Errefreskoak be, euren neurria gorantza daroe, eta olan jarraituten ba'dau, ez dakit zer izan bear dauan.

Baiña, pentsetan gelditen ba'gara, ba-daukagu langilleak oso errez edan leikeen edabe bat, au da, esnea. Joan baserrietara ta edan esnea. Ikusiko dozu zelako edabea dan, au da edaberik onena. Baiña merke edan nai ba'dozu, joan baserrietara, ori be beste leku batzuetan ez da guztiz merkea-ta.

Nik neuk ulertu ezin dodana, au da: zelan esneak, erosi bear dauanarentzat salneurria ain goien izatea, eta ain labor, saldu bear dauenentzat. Uste dot, 9,50 lauerleko izan bear daula baserrietan, eta 16 lauerleko inguruko saltokietan, ez nago ziur, baiña, zelan ez-bardin ori?

Ikusi al doguna be, au da: baserrietan erosteko salneurriak goraka doazela, pentsuetan, bai beiak zekorra bear dabenean indeseñoetan be, dana esateko... orregaitik ez jata txoketan baserriarrak kakituta egotea.

Baiña, au diñot nik, emendik aurrera ezer merke edan gure ba'dogu, baserrietara joan bearko dogu esnea edaten, edo ango iturrietako ura edaten, ori be ez dago merke erosi bear dauenentzat-eta.

KANTARI'K

Nun Daude Akatsak

Nere lagun eta ain ezagun dan KAMIÑAZPI idazle argiak, GOIZ-ARGI asterokoan, bizpauru idazlan agertu ditu, «Bajurako Arrantza» izen-buruarekin. Zer esanik ez, zein nolako egiak esaten ditun. Aintzat artzen ditut zuk esaten dituzunak, eta ez da oraingo kontua, askotan nik ere idatzi detelako, alegia, Kantauri itxasoan bajurako itxas-ontzi geiegi daudela.

Kantauri itxasoan ez da ain txikia. Txikitzen duna, antxuak arrapatzeko tokia txikiagotu dala da. Zuk eta nik bai dakigu, antxua, onelako ta alakotokietan azaltzen dala, ez danean. Leku ori txikia izanik beraz, ezin ontzi guztiak arraintzan egin.

Antxuak, dakigunez, ur aundietatik etorri oi dira, bazterra jotzeraino, ta bazter ori Prantzi aldekoa ba'da, zedin or sartu, besteren uretan arraintzan egitea galerazia dagolako. Zein da zigorren bildur ez dana? Antxua ez da atuna bezelakoa. Onek, asi Afrika'ko alderdietatik eta onerarte igerian eta ur gañetik etortzen daki. Bien bitartean, orren bide luzean, arrapatu ere.

Zer gertatu da orain? Zuk diozun bezela, ta nik esaten detanez beti, ontzi geiegi dabil. Zerk sortu du ori? Orain, ontziak egiteko erreztasunak daukatelako, Aurrezki Kutzaren eta gobernuaren bitartez, dirutzak ematen dituztelako ontzi berriak egiteko.

Gure gazte denporan, eta zuk ongi dakizu, ez zegoen olako erreztasunik, eta ontzi txiki ta zarrekin aritu bearrean izaten giñan. Ordun, ez zan oraingo aurre-
rapenik, batez ere dirua lortzeko. Urteak aurrera dijoazten bezela, aurre-
rapenak eta erreztasunak ere errax lortzen dira.

Legorrean, kontizu, lenen txirringa ba'daukazu, alageiñak egingo dituzu gero motoa erosteko, urrengo berriz, utzi ori eta berebil bat. Berdin gertatzen da itxasoan, arraintzalien artean: baldin txalupa ba'daukazu, gero motorra nai degu, ta al ba'da laister egin ontzi aundiagoa. Tostarteko ba'zera, nagusi izateko griña samatzen da, ta orrela, oraingo erreztasun auekin, millaka arraintza ontzi sortu dira. Ori orrela dala, Kantauri itxasoan zer gertatu dan, ongi ikusten degu.

Gero diozu zere idazkietan, nola gero eta ontzi gutxiago izaten dirala kaialdietan. Ez naiz arritzen. Orrez gain, dozenaka artu zituzten konpromisoak ere, deseindu egin dira, ezin zituztelako ordaindu, ta ori arrairik-eza zalako gertatu da.

Diozunean... «Itxasontziak gutxitu ezin ba'dira ere, alegiñak egin bear dira geitu ez ditezen. Ta ortarako lenbiziko neurria, arrantzalea ez dan iñork bajurako ontzi berririk ezin egin dezakela, agindua ematea izan bear luke... «Oso errexa da ori esatea, baiñan latza. Ba al dakizu zergaitik?»

Ba, gobernuak eta bardin Aurrezki Kutzak orain arteko erreztasunak kentzen ez dituzten bitartean, ez da ezer lortuko. Bi laguntzaille oiek emantza oiek ukatuko ba'lituzkete, ordun ikusiko genduke itxas arraintza ontziak gero ta gutxiago izaten; zaartuak gelditzen diranean, bazterreratuta geldituko diralako. Arraintzalea ordea, or bizi bear, ta legorrerako lanak ez ditu ezagutzen, peontzara joaten ez ba'da beintzat... ta ori, ez du iñork nai!

Ala ere, ba-dakit, Getari'n, denporaz ontziak gitxituko dirala. Zergaitik? Ontzi jabe batak edo bestek beren semeak legorrean ikaskintzetan darabiltzalako, ta auen aitak zaartzen diranean, semeak ez dute lan ori artu nai izango, ta beste erremeriyorik ez daukate: deseindu guzia. Ori ta ere, Getari'n, «Garmendia» ontzia saldu zuten, baiñan ontzi ori bera, emen Donosti'n erosi, eta arraintzan dabil. Orrez gain, «Izazkun» ontzia, izugarritzko ederra ta berria egiña da, ta au ere arraintzan dabil. Ogei milloi laurleko kosta da. Beste bati makiña jartzen ari dira, ta au aundiagoa oraindik, dozena ta geiago «biberokin». Zenbat kosta ote da?

Orain, kontu egin dezagun, ontzi aundi oiek antxotako baiñon atunetako egiñak dira, ta atunak arrapatzeko, antxo beita bear edo txitxarro txikia. Nola orain, dalako lege edo erabaki oiek artuta, alegia, onelako illetik asi beitaikin eta alako illerarte ezin ba'da arraintzan egin?

Itxasontzi aundientzat oso kezagarri izango da. Txikientzat kaltegarri, auek urrutietara ezin joan diralako ta aiek bai. Beraz, KAMIÑAZPI lagun zar, zuk eta guk, edo ik eta nik obeto esateko, legorretik obekiago ikusten diagu arazo ori. Itxasotik bizi diranak ez ordea. Zenbatek iges egingo likeken? Bai makiña batek, guk iges egin genian bezela, ta igeska ura gure gudeak beartuta izan zalako... Arraintzale batentzako, legorreraten ba'da, nola ogia irabaziko dun pentsatzea baiñon txarragorik ez zegok, eta buruko min orrekin bere baitan esan bear: «Nere bizibidea emen zegok, itxasoan».

Gauz auek guziak ez dituk ezer. Gure zer esan auek ez ditek tutik ere balio, iritzi batzuk besterik ez diralako, ta ontzi geitze ori geienen kalterako izanik, beste akats txarragoak etorriko dituk oraindik, tamalgarriena arrolioana izanik. Naizta gaurkoz bere balioketa ortan egon, uste gutxienean geitu egingo dalako ordain bearra. Or, arabiatarrak izango diteku erru... to ori besterik ez ba'dek gaitzerdi, gauzak gero ta gorago zijuaztek: sareak, sokak, janariak eta abar.

Dana dala, oso ederki idatzi dek, eta jarrai, motel, ortan.

E. OZKIN

ORBELAK

Arraintzaliak eta Baserritarrak

Arraintzaliak eta baserritarrak, naita erri ber-bertan bizi, izakera, bizikera, jakera ta esakera ez-bardiñak daukez.

Edozeiñek ezagutzen dau bat-batean zein dan baserritarra eta zein arraintzalea.

Bata besteagaz ez dira alkartzen. Bakoitzak berean jarraitzen dabe, ez bakarrik euren tokietan, au da, bakoitza bere txoko

Ara, erakuspide baterako, mamin bardiña daukan kantu baten, zelako aldia dagon arrantzale batek irudia billatu edo baserritarrak egin (Itzak ez berresatekotan, B ta A ipiñiko doguz asieran, baserritarra edo arraintzalea adierazteko):

B. Ikusi nebanian nik zure begia iruditu yatan, maitea, anpolai gorria.



Aginaga'n baiña, baserritarrak arraintzale ta... arrainlari!

ta auzoetan, baita gaurko bizibidearen premiñaz nastuta bizi diran lekuetan be.

Ba dirudi, bide batera be, bide bitatik jo nai dabela.

Egia da euren zeregiñak alkarregaz zer ikusirik ez daukela: Batak lurraren sakonetan sartzen dau atxurra eta besteak itxasoaren ondoetan bere sarea erabilli.

Baiña erri baten, jolasean edo atsegin aldietan alkarregaz gertaten diranetan be, bakoitzak bere berezitasuna atarako dau nunbaitetik, bere gurrilla agertu.

Alkarregaz konpontzeko jardun eta irudiak be, bakoitzak bere tajuzkoak erabilliko ditu. Euskera bardiña erabilli arren, esan naiak bakoitzaren bizibidetik doaz. Esakerak, batez be, berezi-bereziak dituez.

A. Ikusi nebanian nik zure begia. iruditu yatan, maitea, aingira bizia.

B. Ikusi nebanian nik zure okotza, iruditu yatan, maitea, gaztaña lokotza.

A. Ikusi nebanian nik zure okotza iruditu yatan, maitea, atunan mokotza.

B. Ikusi nebanian nik zure sudurra, iruditu yatan, maitea, txorixo muzturra.

A. Ikusi nebanian nik zure sudurra, iruditu yatan, maitea, akulan azurra.

B. Ikusi nebanian nik zure aua, iruditu yatan, maitea, karabi zuluua.

A. Ikusi nebanian nik zure aua, iruditu yatan, maitea, gosedun sapua.

B. Ikusi nebanian nik zure belarria, iruditu yatan, maitea, azaren orria.

A. Ikusi nebanian nik zure belarria iruditu yatan, maitea, izurde egatia.

Danetara be, euskera egiten dogunean, ezin ukatu anaiak gareanik, eta gure loren usaiñak eta eztitasunak irriparre bardintsua atarako daukunik.

ZUBEGI



DEPURACION DE AGUAS S. A.

URA EGOKITZEN ETA UR LANETAN BEREZITUAK,
EDANGARRIAK - LANTEGIRAKOAK - ZIKINDUAK NAIZ
IGERITEGIKOAK ZUZENTZEN

+ 32-37-00 - + 31-00-10 - 32-37-01 Urt.

Gordoniz, 44, 12.^a
BILBAO-2

IDAZTI BARRIAK

Izena: Erreka zuloan eta...
Egilea: Albisu ta Ayerdi'tar Anastasio
Bilduma: Kardaberaz 6.
Irarlea ta Argitaldaria: Esct. Seminario Vitoria.

Urtea: 1973.
Liburu onetan Albisu'tar Anastasio'k sei gai ezberdiñak dakar. Lenengoa, **Erreka zuloan**. Au gero astiroago aztertuko dot. Bigarrena, **Moskorra parregarri**. Au «Auspoa»k 1965'ean argitaratu eban. «Teatro Zaarra» liburutik artua da.

Francisco Xabier María de Munibe e Idiáquez'ek —Peñaflorida jauna berau— 1764'an argitaratu eban «El borracho bur-lado» antzerkia, baiña, erderaz, abesti guz-tiak euskeraz zituala. Ori zergaitik egin eban berak diñosku sarrean, eta jakingarria da.

Gure Albisu'k antzerki guztia, abesti ta bitarteko, euskeraz dakar.

Iruigarrena: **Jerusalem'era erromes**. Idazleak Lur-Santu'ra egin eban joan-etorri bateko gomutakiak dira. 1968'ko dagonillaren batean asi eta amaseira arte, egunerik egu-nera jazoerak eta ikuspegiak zcaztuten ditu.

Laugarrena: **Nekaldia**. Izenak diñon lez, Jesukristo'ren nekaldiaren antzerkia da. Ma-teo'ren edestia jarraitzen dau.

Antxiñako ezkutukien antzera, eta ondo eginda dago, gaurkotasunez beterik. Irakur-teko ta aretoetan antzeztuteko egokia.

Bostgarrena: **IPUIAK**. Bost ipuin polit eta barre-eragille dira. Ba dauka gatza Albisu'k: Kristo Gurutzekoaren itzak, alkate ta abadearen arteko artuemonak...

Seigarrena: **IPUI-ANTZERKITXOAK**. Beste bost antzerkitxo.

Zazpigarrena: **OROIGARRI**. Mixio-an-terki polit bat au be, 1935'ean Gazteiz'ko abadegai etxean idatzia.

Baiña guztietan Albisu'k zelán jokutzen dauan jakiteko aztertu dagigun lenengo gaia, **Erreka-zuloan**, izena daroana.

Ez da ipuin bat, eleberri laburra baiño. Gauza bi oneik antzezoak izan arren ez dira bardin-bardiñak.

Eleberriaren tokiak bi dira batez be: Urrategi Naparroa'ko erritxo, muga-ingur-uan, bertan Alzagorta baserria; eta Doni-bane Loitzun'en Lekaime-etxea ta Polizi-etxea. Eleberriaren toki batetik bestera aldatzea

arin egiten da eta orrelan igidura edo ritmoa-ren bizkortasuna lortzen dau egille trebeak.

Aldia beti aurrera doa, iñoiz ordularia atzeratu barik. Ori be trebetasun ona da. Gai onetan be bizkortasuna agertzen jako irakurleari eta bein irakurten asi ezker, iztea aldatz-gora egiten jako.

Notiñak naikoa ondo zeatztuak dira, eleberri labur baten zeatztu legikezan neu-rrian. Miel: gizon ona, zuzena, sendi-zalea, baiña bildurtia ta estua. Bere emaztea ta Oion'go Mari baserriko andra jatorrak.

Eta zein eleberri motatan sartu au? Oituzakoa ba da, artzain giro polita agertzen da, ertzain-usaiña ba dauka —neskea nork il eban jakin bear danean. Gai oneik sakon-tasun aundi barik baiña ondo agertzen dira. Ez aitzu eleberri laburra dala.

Erliño-giro gozo bat dario eleberriari: abade on eta mezedegillea, lekaimeen eta euren morroiaren arteko giro baketsua, le-kaime izateko deia... Baiña erliñoaren aur-kaiko gogortasuna bere, agertzen da pizka bat neska illaren aitagan, gero biurtu ta damutu egiten ba'da be.

Maitemiña agertzen da eleberriaren, baiña, euskaldunen artean sarritan jazoten dan lez, garbia ta lotsorra. Eta maitemiña baiño beñago agertzen dira sendimiña ta erliño-miña.

Alkar-izketak ugari datorz, geienak zoliak, ariñak eta ondo ebagiak.

Idazlearen irudimena ta biotz ona nonnai agertzen dira.

Eleberriaren aria ederto eroan dau egi-lleak, noiz bein irakurlearen asmamenari tokia itzia, eta arazo lar sakonik be sortuazo barik. Antzezlari be ba dogu idazle au, eta argi-argi agertzen dira iru betiko zatiak: aurkeztea, korapilloa ta azkatzea. Aurkeztea bera berenberegí egiña ta argiegia da.

Izkuntzea, ederra, Bizia ta garbia da. Ortografi-aldetik ona. Tamala aibeste irar-uts izan bearra!

Eleberri labur au txalogarria da benetan eta Albisu, edeslari lez, benetako maixua. Ipuñak, antzerkiak eta eleberriak saila baten sartu legikez eta saila orretan dauka trebe-tasuna Albisu'k: edeslari-sailean.

Aurrera ba Anastasio, ta idatzi asko.

GAMIZ

EGUZKI-INDAR GARBIA

Gai onetzaz, oraintzu idatzi dau labur eta eder, Arregi'tar Josu'k, eta AGUR onetan agertu be. Gai au, aldi baten beintzat, ezin ustua izango danez, neuk be nire lan apal au dakart ona.

Eguzkia, atzo, ipuin jakintzan ebillen obeto. Gaur, gizadiaren itxaropena izatera eldu da. Langitzeak ez dau orain arte ardura andirik izan, eguzki-endar ugari orretik beretzako indarra ateraten.

Arritutako edo arri-biur diran fosil errekiñak, geroago ta goragoko gorakadea dabe, ta agortzera elduko dirana be, ikusten da. Ortik, zein etorkizun ete dau eguzki-endarrak, esate baterako, 2.000 garren urtean? Edo beste eretako indar sortzaille gaien ondoan, batez be nuklear-guneko indarraren ondoan?

Arri edo olio biurtu ziran errekiñak, ez dira aitu oindiño, barriak be aurki-tzen dira egun oneitan, eta ez dira agortuko ain arin. Ugari dira oraingo aldian; arrikatza adibidez. Baiña ezaugarri bi agertzen yakuz: lenengoa, fosil-errekiñak gero ta garestiago egiten dirala, ta 2.000'gn urterako ustuko yakuzela kontura-tzea bestea, batez be urturik agertzen dan arrolioa. Gero, nuklear-gunetako in-darra, esaterako, azunbre erdi uretik eun arrolio itxasonuzi bete añañakoa; urgai edo idrojenetik itxasoko ur-lurruntetik lortzean, indar merke ta ugaria. Baiña indar-lortze garbia izateko, kutsu bako landolak lortzeko, jakitunak uste izan daben baiño urte geiago bearko ei dira. Eguzki indarra bearko dogu ba erabilli.

Baiña ameskerietan ez ibilteko, esan daigun, gaurkoz, eguzki indarra, beste indarrok baiño garestiagoa da, iñoiz bost, zazpi baita amar bidar be. Alan da guzti be, beste orreñ salneurria gorantz doala, eguzki-endarra geroago ta errezago lotzen dogula, merkeago, batatz beste neurtzean; merketu ez da ba ezer merkatzen gaurko gizartean.

Gaurkoz au jakintzea naiko izango dogu: Eguzkitik lortu dogun indar batze ikusgarriena Eguzki-etxea deitzen yakona dala. Bai, uste ona izan daikegu etxe-endar onen etorkizunean, Orain amalau urte, Israel'go bost lantegi indar orrekin erabillaztan, eta ango aurrerapenaz, bertako girogaitik ixillik gor-detzen ba'dira be, asko geitu ei dira. Ludian zear, 100'tik 30'eko gorakadea izan dabe, len beste indarrekin ebillaztan artean.

Urte batzuk dira, arterketa-ikasi naian, Odeillo'n-eta jaso zirala. An egin ziran orretarako etxeak, uste baiño irabazpide andiagoa izan dabe. Lortu daben orduko kilowatia, askoz be merkeagoa, beste oituzarko errekiñekaz lortzen zana baiño, izan da. Gaur, Odeillo'n, iru eguzki-etxe dagoz orain, eta urteak aurrera, 31 egiteko asmoa dabe.

Sahara'ko eremuan be, ostal-etxe bat egitekotan dira, eguzki-endarra izango dala orko bearkizun guztiak erabilteko indarra. Eta Arregi'tar Josu'k diñoanez, Prantzi aldeko Auñamendietan, Mont-Louis deritxoan alderdian, eta beste inguruko toki egokietan, beste eguzki-etxe batzuk egiteko asmoan dabiltz.

Oba izango litzake, Euskal-erri'ko Auñamendietan be, eguzki-endar lan-dolak egingo ba'leuskiguz, orain gertatzen diarduezan nuklear-gun indarrolok baiño.

Uzbekistan'en, Errusia'ri ezarrita dagon laterri orretan, 4.000 litro edateko ur lortzen dabez eguzkiaren indarrez. Turkemani'n, eguzki-endarrez dabillen uaga edo bonba bat, erabatera ura garbitzen dabena, darabille. Karakoun'go eremuan bertan, 3.000 litro ur aterata ur-gazi au edetako eran jartzen dabe, jakin baiña, orko urak berez litroko 36 gramu gatz daukala. Eguzki-uaga bidez, laster, basamortuak be lur biziak izatera elduko dira.

Eguzkiaren indarrez Txile'n lortzen daben ur-lurrundua, % 40'raiño merkeagoa da fuel-oilakin garbitua baiño. Ta orrenbeste jaso da beste laterri askoetan be, batez be, arrolio barik, au crosteko diru andiak emon bear izaten dituenen errietan.

Ala ta be, oindiño, eguzki-uagaren garesti izatea, larregia da. Baiña esan dogunez, Errusia'n geiago ta geiago egiten dabiltz. Aprika'ko Niger'en, Giradier jaunak egindako uaga ori darabille, eta orri esker ango legorteari, zati baten neurria artu al izan dautse, ta eremu alde bat lur bizira aldatu.

Onen arazoa emen dago, aurreko indar-gaiekin erabilteko dagozan landolak, ez dirala errez aldatuko, agortu edo salneurria goi-gora igon arte. Bitartean, ez da aurrerakuntza andirik egingo, ez da ba eguzki-endarra bear dan lez zabal-duko oraindik, eta orretara arduratuak asko ez diralako, ez beintzat bear añaña. Nire ustez, orraitioño, erri aurreratu ta biribilduak, arazo oni ardura andiagoa emon bear leukioe, gizadi osoaren onerako.

Jatorriz, egur edo ikantz bidez berotu izan doguz gure etxe ta egonlekuak. Gaur, errekin urtu edo gasdunekaz gabiltz, egurra ta ikatza ugari dagon lekuetan be bai. Gizadiak beti izan dau, ala edo ola, eguzkiaren beroa bereganatu ta erabiltzeko asmoa, gogoratu leiarrezko egotokiak eta landara azketak. Noiz baliatuko ete gara indar garbi au alde guztietan erabilliaz? Noiz ikusiko ete doguz eguzki-etxeak gure inguruetan?

Etorkizuna, bai, jakitun, esku-trebe ta adimen oneko gizasemeen eskuetan izango da!

LETONA

ALBIZTUR'KO ITURRIA

Benetan ederra, ta apaiña ere bai... oso zarra gaiñera. Ta gauza zarrak kutsu berezi bat dute...

Iturri aundiá, aparta —bi tutu sendoak ditu, burnizkoak. Ura ezin ohea. Gozo-gozoa, frexkoa... mendikoa. Betiko gazte-izatearena? Nork daki!

Giro polita. Aizea, Arbi oriak. Neska-mutillak jostaketan. Pakea, ixiltasuna... Joan zan gizaldikoa. Ba ote? Ordun ere... naiko lan pakean bizitzen.

Txoko zoragarri ontan, ez da ezer entzuten, iturriko uraren kanta ez ba'da... Nere ezkerrean, Gebara, antxiñeko Etxe-Zarra. Jauntxo batena noski... Jauntxoak, ugari izan dira an eta emen. Nunnai. Orain ere... pluralismoa dala... ta jaunt-xokeria ugari... gogorkeria nunnai...

Urrun urdiñean, Arrospe... Gaztelu... Leaburu, Tolosa, Benta-Aundi... leku tris-tea, ituna... Ba-dakit zergaitik. Berritu egin bear gerala esaten dute... ta ala ere, gauza askotan beintzat, atzera goaz... Diru asko... ondasun geiago, ta Pakarik ez. Barrungoa noski: ezin-egona ta Fede gutxi.

Gure munduba ez da ez bakarrik sortu. Iturria ez da berritzen, ez da aldatzen. Zertarako? Berritzea txarrerako baldin ba' da... utsa.

Juan Simon eta Francisco Labayen esku-zabalak izan ziran noski. Berak, Cuba'tik bialdutako diruarekin egin zan iturri dotore au: «Obras son amores»...

Gizajoak gu, ago-luze petralak! Geie-rietan errexera jotzen degu.

Or nunbait sagastiak loretan... «Sagar lore» - «Lizardi». Zer denborak! Iturriko



ura, argia da, grixá, fiña, Patxi Elozegi'ren kuadroak bezela! Noiz arte?

Maritxu nora zoaz eder galant ori. Iturrira Bartolo nai ba' dezú etorri.

Albiztur, txoko zoragarria benetan! Jendea ere ala bear. Euskaldunak ez du oraindik galdu bere gogo ume, tolesgabea. Ez noski! Noiz arte?, berriz ere. Modernismoa ainda zapaltzaille!

MATXIN

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra
BILBAO - Casco Viejo
Tenderia, 15 eta 16

GOIZALDI TALDEA

Ale au argira urteteko dala, or joango ziran alai ta itxaropentsu, Donosti'ko GOIZALDI taldeko dantzari, soñulari ta laguntzailleak, Prantzi ta Italia zear, Kroazi'ko uri nagusia dan Zagreb ederrera. Ongi ibilli!

An, beste egoslabar 76 taldekin eta Europa ta Asia aldetik datozen beste 15 tartean dirala, Zagreb'eko Erriarteko IX Folklore Jaialdian sartuko da gure talde bikain au. Euskal-erri'ko dantza, abesti ta izatearen ikusgarriak ango erriari ta an bilduko diraneri eskeintzera doakigu.

Il onen 16'gnean urten dira, ta gaur Zagreb'era eltzeko asmoa eben. An, lau ekiñaldi bete bearko ditue, 20 minutuko bi ta beste ordubeteko bi. Zagreb'en dan bitartean, beste lau bilkeretara be joan bearko dira, Jaialdiaren Lendakariak emoten dabenera lenengo, gero, Jaialdian Zuzendari egiten dabenera ta, Zabreg'eko Endoreak batetik eta Belgrado'ko Jaurlaritzatik etorriko danarenara bestetik.




Ostatua, bertako Ikastola Nagusian diran ikasleentzako aretoetan izango dabe, ta ekiñaldiak eta bilkerak bete-bitarteko utsuneetan, Kroazi ta Slovenia zear ibilladiak be izango ditue.

Kroazia'ko erriak, gizaldi onetan, beste askotan lez, aldi txarrak igaro bear izan ditu. Azkenengo guda-orrokor orretan, euren azkatasuna lortzeko bide bakarra zala-ta, euskaldunok aukera bera izan arren ezetu gendun amildegian sartu ziran, au da, hitlertarren erasoaldian, onein alde jarri ziran, beste egoslabarrendandik alde egin eta, alakoetan jazo oi danakin, langun barrien pilosofia onartu ta beste slabarren aurka burulatu be. Urteak joan arren, besteok ez dautse ori parkatu, ta, gaur be, euren askatazunaren alde edozer egiten asten diranean, aren kutsua dabela botatzen dautse arpegira.

Olan ba, gureak, egizale, iges egin eben arriskuan jausi ziran, eta beste gizaldiren bat bearko dabe olakorik aztuteko.

Zabreg, Bilbo baiño aundiagoa da, Bilbo ta Barakaldo batean, or nunbait, eta bigarrena aundietan Egoslabi Laterri Alkartuetan, Serbi'ko Belgrado dala bakarrik andiagoa. Lenago, AGUR onen 30'gn zenbakian, itz egin gendun Zabreg onen eta bere, ingura dan Kroazi erriaren barri emoten. Or, argazkian ikusi daikezue bere alderdi polit bat.



Europa, ta Asia zati bateko, ekintza ikusgarriak izango dira ba, il onetan, Zabreg'en, eta euren artean Euskal-oitura eder batzuk be bai. Jakitekoa izango da, ango ta beste errietako gizasemeak eta izparringiak orretzaz diñoena. Ea ba izaten dogun orrean barri emoteko aukerarik.

ASTI

IGORRE'TIK

GURE ERRIKO ABADAK

Gure erriko lagun bik abadeatzaz daukien eretxiagaz asko poztu gara.

Gure erriko arazoan aurrean, gure yokabidea ez bai ta illa izan ba'da be, Jaungoikoa ta gazteak lagun, zintzoak eta arazoetan jakitunak izaten aleginduko gara.

Egia da, gure erriak, euskal-oiturak eta euskerea indartuteko daukan bearritzana. Ta onartuten doguz gure alboko erriak emon dauskuen eredu ona.

Ta euskal-jaiak gure errian eratuteko beti abadeen laguntasuna izango dau. Ta gure Gotzaiña'rena be bai, ze Artzain-lanerako Eleiz-barrutiko egin-bidearen laugarren elburuan Euskal-erria'ren nortasuna geituteko bideak indartzea eskatuten dausku.

Orregaitik euskal-jaiak izango daben ondorenai edo parroko izatera ezin eldu izateari begitu barik, guztiok zintzotasunez oso-osoa arlo onetan nekatu bear gara.

Ez euki ba burutasunik, ardurabako abadeak ete dagozan-edo gure errian. Itxikeria euki ba'dogu: parkatu, ta bear egiteko gertu dagozanai, ez bakarrik bideak zabaldu, baita be al dogun neurrian biotz-biotzez lagunduko dautsegu.

Orregaitik, bide bardiñetik ibilli gura dogun ezkerro, alkartasun estuan yokatuko dogula uste dogu.

Kristo'k eta gure Andra Maria'k bide barri ta jatorrak urratuten lagundu daiskuela.

Auxe da gure Eleiza Amak fededun guztioi eskatzen dauskuna.

IGORRE'KO ABADAK

OARRA: Irakaste bi jaso doguz goiko berba oneitatik: apaltasuna ta asmorik onena. Ea ba, gazteok, ona emen eskeintza ederra, ta beneran nai ba'dogu gure erriaren alde zerbait egin, goazen, danok alkartuta, lanera. Beste zerbait be esan bear, olako euskera polita irakurtzean, onenbeste gure burura: pozik ikusiko gendukez orren lanak gure orrietan naiz besteren batzuetan. A.

LARRA'TIK

Amalau lagun ziran —eta dira gaur be— orain berrogetamar urte, euren osoa Jaunari eskeintzean. Zazpi bildu dira egun orren urrezko ezteguak ospatzera Larra'n bertan. Beste bostek Ego-ameriketara diardue; batek, Portugal'en. Besteak, urrean zan, Gazteiz'en, baiña erdi makalik.

Erdiak bildu dira ba, baiña beste erdiak antxe, euren erdian ba'legoz, ondo gogoratuak be. Ta geienok AGUR au irakurten dabela jakiñean, emen agertzen ditugu, gure «Xalokin» azkarrak, emengo zazpiretatik bata, angoeri ta bertan ziranei eskeiñatiko itz-neurtu biotzkorrak. A.

Lagun oneikaz gaur bat-eginda
Emen natortzu, Jainkoa.
Berrogetamar urte luzeetan
Izan nozu etxekoa...
Ementxe bertan eskeiñi geuntzun
Biotz, izate osoa...
Berton amatzat artu genduan
Karmen'go Ama gozoa...

Anai maiteok, toki onetan
Gelditu giñan lotuak;
Lokarri areik, guk ezin uka
Izan zirala sendoak...
Eten, austeko alegin asko
Egin ditu deabruak,
Baiña guztiok zintzo darraigu,
Ez gaitu galdu munduak.

Zenbat eraso, jazarpen, neke...
Guk geienok zenbat negar...
Atsegiñai ta pozei jarraika
Ainbat samin ta deadar
Entzun ditugu, lagun maiteok,

Bizitzan, urteok zear,
Baiña Jainkoak eutsi gaitu ta
Oin eskerrak emon bear.

Gaur emen batu garan anaiak,
Gora daiguzan biotzak!
Karmen'go Ama'k emongo al dauz
Guretzat zorion, pozak!
Ta urteotan egin ditugun
Pekatu larri, mingotsak,
Ken daiguzala bere odolaz
Jaungoikoaren Bildotsak!

Eskerrak, Jauna, damotzudaz ba,
Anai danen izenean.
Zuk, barriz, Ama, zaindu gagizuz
Beti zeure babespean
Azkenerraiño jarraitu daigun
Alkar maitatzen lurrean;
Gero guztiok batu gaitezen
Zeruko zorionean!

XALOKIN (1974-VII-8)

ERRIAMAKO

BARRIAK

Galdakano

TAMALGARRIA

Garil onen lenengo astea, aste ituna, tamalgarría izan dogu gure errian eta alboerrietan be. Gure erri ontan dogun landolarik andiyen orretan izan genduban estanda ikeragarría bitartez jazo ziran eriotz eta ezbear orreik baiño garrantzi gitxiago izan da be, izugarriko kalteak egin dauz etxeetan eta inguruko lantegietan.

Kalteak andiyak izan dira, baiña kalte orreitatik txindi asko eralgi bearko ba'da be, barriztuak izango dira. Ez baiña, lerro oneik idatziten gagozan arte illak izan diran ogeita bi orreik —euren artean euskaltzale jator bat, Aretxaga'tar Peli— ez txindiz ez beste ezertara ezin izango dira barriz ludi nastu ontara biurtu.

Zelan izan dan lertze ori? Iñoiz be ez da jakingo, edo bertako jakitunen batzuk argitasunen bat ateraten ba'dabe be, bear ba'da, erriak ez du jakingo.

Ez dogu lantegi ori ezagutzen, barrura sartzen ez dabelako itxiten, eta nairik be ez dogulako iñoiz, izan «Dinamita»ren izena bera bakarrik naskagarría izan yakulako beti. Baiña, lantegi ortan lan egiten daben batzuk diraskuenez, estanda ikeragarrí orrek sortuak arazo bat baiño geyago dirala. Lenena, lertze-toki ortan lan egiten daben lagille geyenak, Bizkai'ratu arte lanabes edo makiña bat ikusi be ez dabenak ei-dira, edo langai batzuk, barriak izanik eta ondo ezagutu ez arren, ekinalean, gau ta egun, lan-sari pizkat geyago eskuratzearen erabilten ebezan. Baiña kontu! Ez dogu onekin esan nai, ez-jakiñak ala azkarrek diranik, zertara beartu dabezana azaldu baizik.

Urren, txandaka, batzuk urten eta beste batzuk sartu, langai edo tramankulu orreik geratu barik diardue, al daben guztia edo geyago atarazoaz, langai orreik bear leukeen garbitasun bage. Eta azkenez, orren arriskua dagon toki ortan, lerrauts zuri ori egiten daben toki ortan, euki bear zanaren gafiñetik beteak aurkintzen zala. Egunerokotan, iru bat tona edo tonelada lerrauts aurkitzen zala esan dabe, baiña, bertan lan egiten dabenak esan daukuenez, ogeita amar edo berrogei tona baiño geyago aurkitzen ei-ziran egun orretan. Eta ortarako eskubiderik ez leuke eukin bear landola ortako zuzendariak, ez bestek. Gitxiago arean, erri-barruan aurkitzen dan arriskodun landola baten. Noiz arte?

Esan dogunez, errian egin dituan kalteak andiyak izan dira, baiña tamalgarría benetan ainbeste eriotz eta zauritu izatea, baita erriarren artean itxi daben negarra ta samiña. Ba'iteitek, zaurituen artean beste batzuk be iltea, gure lerro oneik argia ikusi dabeneko, batzuk ba, oso zaurituak dagoz-eta. Goyan Begoz illak, eta laster baten sendatuko al dira zaurituak!

EZKONTZEA

Garil onen 5'ganean, erriko txadon zar ospetsuan, Andra-Mari'ren eleiza erromani-kuan, Ugarte'tar Anc-Errose neskatilla liraiña, ta Gernika'ko Euba'tar Joseba mutil azkarra ezkondu ziran.

Ezkontza orreri ospe andiya emotekotan egon ziran eta «Andra-Mari»ko dantzari ta txistulariak be etortekotan. Baiña aste orretan errian izan genduban ezbear ortatik sortu zan dogu-min edo lutoagaitik, ez eben ezertariko jairik egin nai izan, ezta oturantzta aldian be alaitasunik izan; alan bear be ba-ta. Ala ta be, sendi barri bat sortu da, ta gure zori-riak AGUR onen bitartez, eta betik izango al dabe eurekin ezti-aldi zorionsua!

EZBEARRAREN ONDOREN BAT

Ganguren mendiaren barrenean, zugaitz batetik eskegita, bere burua urkatuta, jakina!, «Dinamita»n izan genduban estanda osteko egunetan, etxetik aldentuta egoan Pikero'tar Joseba-Kodobika, ogeita sei urteko mutil jator kioldarra aurkitueben. Zein buru-bidek emon ete-etsuan erabagi negargarrí ori artuzteko? Ez da iñoiz jakingo, baiña ba' litzake urrengo jazokunok izatea.

Aspalditik ebillan, mutil apal au, kirio edo zainetatik txarto samar, naita bere guraso ta adizkideak alaitu ta baretutzen alegindu. Mutil ona zan eta lagun onak eukazan. Baiña «Dinamita»ko lertzea izan zan garaian, bere aita, landolara sartu barria zan, eta etxean, bere amak eta berak eroan eben estu-aldiagaitik eta ainbeste illeta ikusi ondo-

ren, bere burua guztiz zorabiatu jakola esan legike. Illeta orrean urrengo egunetan aldentu zan bere etxetik-eta. Lokarri baten utsa susmatu ebenean, guraso ta adizkide, asi ziran bere billa, baiña alperrik! Astelen arratsalde berandurarte ez eben aurkitu. Oneik dira «Dinamita»ko ezbearreran ondorenak. Goyan Bego mutil jatorra.

BASA-JAUN

Arratia

Urteokaz izan ez dogun bizigo barriztea izan dogu Arantzazu'ko Sanpedro jaietan. Jai-antolatzaille, kintopeko gaztedi barria. Kintoz gorakaok, 23-24-25 urte ederrean jabe diran Elias, Ipiña, Lekue, Jontxu ta besterik, zebieriarren «kofradi»ko egin dira.

Xeberri izan genduan jaiak ate-zabaltzaille, eta futbol landan oiñarrituriko abesti batean «futbol-partidu geiegi eta osterantzeko partidurik eza»ren zerak abestu euskuzan.

Durangoarrak bere zeregiña bete ondoren, ezkodu ta ezkongaien soka-tireta. Joko bizia. Agiriko ta izkutuko indarrak sokaren musur banatan, Salbide'ko Buztari zuzenlari, eta... Bizkai'ko Aurrezki Kutxa'ren Txola, ta Juli tarbernakoaeren edari eder-gozaok ezkonduen eskuetara poliki-poliki.

Arratsaldez be izan genduan abeslaririk eta abeste gogoangarririk. Urtebeteren buruan euskera berarenganatu dauan Patxi gazteizarrak «Erria ebegi, zaitu ta ondamera daroaskun motoseraren zerak» agertu zituan. Emen zan Ander erdi artzaiña, erdi baserritarra, erdi kaletarra, plaza-gizon prakak betekoa, abeslaritzan gorengoa, sermoagintzan berebizikoa. Lotsatia?

Emen Gontzal, «Abra» zaria Portugalete'tik Zeanuri'ra ekarri ebana, eta Txomin otzandiarra «Euskalduna izatea, pekatua ba'da, pekatu ori ez autortu obe da» abestu euskuna.

Oraingo giro ta arazo, neu ondo ta bestea or konpon; nagusia, langillea, nekazaría, lokarria, Erria ta olakoak entzuten guztiok gengozan adi-adi.

Gabeko amabirik aldera, suak eta kea plaza-buruan. Erriko tabernako Juli'k eraturako makaillo-txapelketea orain.

Lenengo ta irugarren saria, erriko gizon-zkoentzat; bigarrena, Zeanuri'ko neska-mutilentzat eta etxeokandretzat utsa ta putza. Porrot egin eben. Etxiran baiña gogo-ustu ez tximurtu, an iji ta emen uju... saguzarren orduetan etxeratu.

Argitu ta egun barria, biaramona. «Jagi adi alper nagí ori» txistulariak deika. Eta erria, begiak-bete logurakin barriro ere enparantzara, plazara umeen jolasketak ikustera.

Bazkalorduan, bengantzea... makailloketta tran-paz irabazi yakela-ta, etxeokandrak suminduta, etxeren batean kazuelak gatzik gabe... bestean erreta.

Barriro goaz erriko zelaira ume abeslariak entzutera.

Lenengo abeslaria, pospolinkuma —galeper-txoa-lakoxe txiki-bizkorra, dirala lau-bost urte, zarzaroko zoroaldiren baten-edo, Manu'k eta Paulatu'k Paris'dik ekarria. «Sanitar» utsa.

Egileortarrak eta besterik Lemoa'tik, Bedia'tik, Aldapetarrak eta Urkiaga Jon Igorre'tik, abar t'abar. Urkiaga Jon, abeslarietan oillasko; soiñuz laguntzaille Joanpe'ren alabea ta Patxo.

Astelena, astekoren egunik gorriena, soiñean nagia... buruan astuna. Etxekoandren eguna. Illuntzerarte jai geldia, baketsua.

Illunabarra, txokolatzeko betekadea. Soka-tirak asko, alde batetik etxeokandrak, bestetik gizon-zko. Aurrean Maxima miña aginartean, atzean Juli dogu soka-musturra.

Egin dabe eupada, jo dabe tirakadea, ta morrosko panparroi andiak, orpoak gogortzeko astirik barik, tataraz doakiguz Olarra'raño, te emendik, Eguzkietxe'ra.

Oraingoan, Paulina ta Maxima, Jose Bizkar eta Urtain emengoagaz buruz-buru. Prakatunak porrot, galdu. J. Bizkar'en txanpan eta etxeokandrak aurreagoko jokaldian irabazitako uiskiz jaiak agur. AGUR ba.

Arantzazu'n izan ziran Lexona'ko gazteak agur t'erdí ta gorantzi.

LANDAJUELA'TAR A.

Arrasate

OPORKETA

Itzal audiko emengo lantegi baten, oporketa txiki bat izan da. Or lanean dabilzanak 2.800 langille inguru dira, ta eurotatik euneko amarren bat izan da iru egunetan opor egin dutenak. Ez det opor ori errazoizkoa izan dan ala ez esango. Baiña, tamalez, oporketa ortan ibilli diranak, geienak, gure euskal-neskatillak izan dirala ikusi dogu.

Ondo dago, eta bear-bearrezkoa da, bakotzak bere eskubideak zaintzea. Orretan, emakumeak gizonak bezin gogor egin bear dutela be, egia da. Ez dago lengo konturik: emakumea etxe-zuloan sartuta bizi bear zuela ta orregaz bere bearkizuna bete, ta kito. Baiña, gure emakumetxoek esan gura neuskeena auxe da: Kontu euki dezazute nortzuk eta zertzuk diran atzetik bultza egiten dau-tzenak!

Guzti onen ondorenak, auexek izan dira: 20'ren bat langille kalera boteak izan dirala. Au, tamal aundia izan da, eta negargarríena, eurotatik geienak, neskakta euskaldunak. Beste arrisku bat ere ba-dago. Lantegi onetan, erbestetik etorriak be ba-dagoz, eta aben artetik, nik dakidala beintzat, ez da iñor kalera boteaz zigortua izan. Euskal-gaztedia, kontuz eta argi ibilli!

DIABETES GAIXOA

Gure AGUR onen 143'gn zenbakian, gaitotasun onetzaz, Arregi'tar Josu idiazle argiak idatzi zuan, eta onenbeste esan ere: gaixo ori dutenak, urrezko domiña edo orrelako gairen bat beren soiñean ezarri ezkerro, soiñaren atal ori baltzitu egiten dala. Eta nik esango neuke; domiña edo katea zidarrezkoa baldin ba'da, soiña ez da baltzitu, baiña bai zidarra bera baltzitzen da. Nire ustez, au be izan leike erakusgarri, gaixo ori euki ta ez-jakiñean daudentzako. (Zidarra, «Udalaitz» adizkide, izerdian datorran edozein «azidu»k baltzituko dau. Ag.).

EZKONTZA

III onen 6'an, gure lagun on eta euskaltzale zintzuak diran Arana'tar Josebe ta Zeziaga'tar Imanol ezkondu ziran. Zorion ugariak opa dautsat bikote oni ta urte askotan!

EZ-BERRA

Lentxo baten, Oñati'tik etozela, bakotza bere motoan, Larrea'tar Andoni, 65 urteko oñatiarra, ta gure erriar dan Gara'tar Danel, 20 urteduna, alkar jo ta zauri gogor samarrekin jaso zituen. Lenengo umeetan itxura txarra zeukaten, baiña laster onerutzen asi ziran eta, uste degu, onezkeru osatuak izango dirala, Auxe opa dautset biotz-biotzez.

ERRIGINTZA'KO ASMO-AGIRIAK

Edo Plano de Ordenacion Urbana, berria eratu du gure Udalatxeak, eta ille-beteko epea jarri dute, nai dabenak, asmo berri orri jazargarririk ipiñi bear izan ezkerro, aurrez egin dezan. Iñor, etxe-jabe edo lur zatiren batean izan, aztertu ta egin beza ori lenbat-len. Epea, Dagoni-laren 6'an bukatzen da.

UDALAITZ

PERU GIXON

FERRETERIA UNCEIA S.A.

Landola tresnak - Galtzairu neurri zeatzekoak
Langailu guzietarikoak - Leunketa gaiak

Ibarrekurutz kalea 14
71-10-00 Urrutz.
Apartado 18

E I B A R

AZPEITI

Orain urte bete, aste onetan, beste lantxo bat eskini neutsan Azpeiti'ri. Sartu gaitazan barriro bertara. Azpeiti'k merezi dau bein eta geiagotan be ikuste.

Alderdi bat edo besterik begiratuta, inguruko mendietatik ikusita, zoragarri da Azpeiti'ko baserrien ikuskizuna. Baserriari eta baserriarrei omenaldi bat egitea eskatzen dau Azpeiti'k. Eta ain zuzen be bertan.

Emen, Azpeiti'n ete dago Gipuzkoa'tik baserriak zarrena?

Ba dira Urrestilla ballerako Eizagirre izan leikela diñoenak. An dago beintzat, bere ormetan, 1090 urtean Pedro I erregeak baserri onen sortzalle izan zan Pedro Eizagirre'ri emondako arma-arria, eskudoa. Etxe jaun au, beste euskaldun batzuen buru lez, moreen aurka joan zan Nabarra eta Aragoi'ko lurrenara eta an, Alkoraz'en, il ei eben moreen buruzagia.

Beraz Azpeiti'n, San Iñaxio baiño laureun urte inguru aurretik kantatu zeinkean azpeitiar bategaitik: «armetan jarria dauka konpania...»

Eizagirre au eta Antxieta baserriak, biak Urrestilla'ko ballerak, ain zuzen be, emen arma-arria dauken baserri etxe bakarrak dira. Beraz laborari ixillak, etxeari lotuak dira azpeitiarrak.

Orrez gafiñera, azpeitiarrak dira gaur gaurkoz baserriari geien eusten diarduenak, baserriari lotuenak, tradizionalistenak. Baserriarik gitxien emen usu dira.

Gaur, Azpeiti'n, 355 famili bizi dira baserriar lez. Gipuzkoa'tik geien? Ez.

Donosti lagata, Donosti'n ingurutako erri txiki asko sartzen diralako gaur, Astigarraga, Alza, Igeldo, Ibaeta, Loiola, Zubietta eta abar, baserri etxerik geien daukan erria Oartzun da. Baiña Oartzun'en Azpeiti'n lako iru bidar geiago usu dira baserriak azken urteetan, eta Oñate eta Bergara'n be geiago.

Azpeiti'n, ba, goratu daigun baserria. Enbeitaren bertsuak datorkidaz burura:

Uzparitxa'ko auzunetxua,
neure jaiotza lekua,
amaika aldiz zure altzuan
egin dot amets gozua;
geruago ta geiau maite dot
neu jai nintzan txokua,
maiteko ez banau izango nintzan
zentzunik bako burua.

* * *

Arotzaren etxean mallua falta.

Abeslari gara euskaldunak. Kalean eta eleizetan. Zegaitik ez ete gendun aintzat artu Joanen Antxieta bat gure eleizetan, kantaetarako, eta bai, esate baterako, Palestrina, Victoria eta beste polifoniko maixuak?

Len esandakoak baiño aurretiagoko zan Antxieta. Eta maixu ona. Irudimen oneko musikalaria. Loiola'ko Iñaxio'ren osaba, gafiñera. Aita Donosti batek esaten ekian Antxieta'ren musikaren esan naia, erakutsia, lege oneko eta oargarria zala, interresgarria. Baiña euskal organistak eta koroetako zuzendariak toki gitxi emon eutsen. Zegaitik?

Ba dira esaten dakienak, euskal musikalaria, euren ama-lurretik urtenda, ezabela jakiten emengo kutsurik zaindu eta jarraitzen.

Barbieri'ren «Cancionero»an ezagutzen diran Antxieta'ren lau euskal melodiakaitik, Gaskue'k esaten ekian, baten be ez ebalu igarten gure kantuen aztarrenik, Bardintzu esaten da Eslava'gaitik be. Ez ete egoan euren garaian gure musika berezirik eta jatorrik, edo ta ez ete eben eurak ezagutzen?

Gaur azpeitiarrak bere izena goratu naian dabiliz. Altuna musikalaria urduria or ikusten da, soñu eta kantu, azpeitiar jator aren izena goratu eta zabaltzen.

* * *

Artea Azpeiti'n?

Beobide zumaiarrak bere kutsua laga eban, ezpai barik, erriko parrokiako aldaire nagusiko Done-Sebasten'en irudian. Aldare barrokoak irudien kutsu eta nortasuna galitzen dabela? Artista andi zan Beobide bere eskurik ez igarteko. Marigorta baten lanak be ikusten dira burdiña landuan. Eta Larrea'ren irudiak ezagutu.

Kanpotik, aurrean, Iberotarren lana zabal dago. Loyola'ko eleizan lez. Eta etxe doneko barrua, loiolarren etxeko barrua?

Adiskide batek esaten ekian nobizio baten goitik berako izakerak, espirituak, arte geiago erakusten eutsala, etxe santuko kapilletako aberastunak baiño.

Kalean or dago Antxieta berberak egiteko agindu eban etxea be, gaur barrizuta.

Beste arte bat, jatunena. Ortega y Gasset zanek esaten ekian, araguneri onen eta obetoen erretakoa emen jaten dala. Filosofo ona baizen aragi zale amorratua ei zan jakintsu ori.

* * *

Azpeiti'n, gain gafiñetik, Loiola'ren itzala igarten da; Loiola ikusten da. Eta Loiola'n, etxea, gizona eta fedea.

Euskaldunen txikikeriak geintsu, zabal eta gordiñen, torre zarretan ezagutzen ei ziran, jauntxo denporetan, ofiartzar eta gantboatarrak euki zituen itsukerietan. Origaitik eskutatu ete eben jesuitak loiolarren etxe moztu, eratsi eta iraundua, etxe zabalago baten barruan?

Gizonak, Loiola eta loiolararrak, etxe onen zoritxarretan ez ete ziran gizondu eta bere nabarmentasunetan naskatu?

Jakiña da Loiola'k, munduz zear, eritzi asko sortu eragin ditula. Alde eta aurka. Askok esaten dakie Loiola'k ez dabela paper onik euki munduz zear. Loiola'ko gogo eta espirituaren sortzallea, Iñaki, nai Eneko, nai Iñaxio edo Iñigo deitu, gogorra ei zan. Beretar itsua. Ardauari ardau eta urari ur.

Maite ete eben azpeitiarrak Loiola'ren izena inok baiño zabalago erakutsi nai ebanaren izakera? Sasoian sasoiko, ez dira danak zuri ez eta urdin be gai onetan.

Goazen bestera. Maite ete eban Eneko'k, edo ta begi onez ikusten Azpeiti?

Artetxe azpeitiarraren esanetan, asko. Erritar baten lore eta esakera argalegiak? Artetxe gizon osotzat daukat. Ba ekian enbido zitalak jaurtitzen. Bere esanetan, Loiola'k ba ei ekian lagunak egiten. Gizona ei zan orretan, Berak aña eta obeagoak gitxik euki ei ditue.



Guk, euskaldunok, fede bateri lotuta, bere jokabideak alboan lagaten jakin gendun. Bere lurreko naikeri eta jokabideak basterrean lagaten ikasi gendun, eta espirituari begiratuta, fedearen sentimentera, ez geuntsan ukatu gure omenik, biotz onez eta ugaritasunez eta makurtasun betez oparo eskini baiño. Luzaro kantatu izan dogu arrokeriz, eta oraindik be setatsu jarraitzen dogu kantatzen: «Gure patroia aundia...»

* * *

Zelan deitu ete zan erri au gizaldien gizaldietan? Lenegotan Garmendia; geroago Iraurgi'ko Salvatierra; geroago Urazbeitia eta azkenez Azpeiti. Bai eta Aizpeitia edo ta Azpeitia be. Cervantes'en Quijote sarri billatu zan bere bidean Azpeiti'ko Sancho'gaz. Eta azpeitiar Santxo a zelako unore eta giroz ibiltzen zan ikusteko, irakurri «El Quijote»: «...decía el vizcaíno en sus mal trabadas razones, que si no le dejaba acabar su batalla, que él mismo había de matar a su ama y a toda la gente que se lo estorbaba».

Ikusten da, azpeitiarrak era batera nai bestera deitu, ba eukela bereziki erakusten ekian izakera edo nortasun betea be, jenio bizia be.

Azpeiti baserriari lotuta bizi arren, ez uste oiturretan eta bizikeran aldatu ez danik. Inguru guztietan lantegi barriak igarten dira. Lantegi egoki eta zabalak. Len, Azpeiti'n, Gipuzkoa'tik burdintegirik geien batzen ziran, batez be Urrestilla inguruan.

1766 urteko matxiñada sortu zanean, ango matxiñoi erru asko emon eutsen. Naste-zale ei ziran, biurri, gaizto. Baiña orduko krisisa be gogorra izan zala ba dakigu, XVI eta XVII gizaldiak urretsu edo aberats izan baziran be. «Komunista» areik, lanak estutzen zituen denporetan, goizeko ordu bietarako asten ziran lanean, egun guztian jarraitzeko. Eta a ta guzti be, barruko bakea eukiten ei eben tartetan eta goizaldean nai eguerdian oitotzean jarduteko. Ori bai, jai erdikak be jai, eta inoiz, askotan, astelen luzea. Lanaren astuntasunak jota, atsedena luzatu bear sarri.

Gaur? Burdinkiak laga eta egurrari eutsi ta etxe-tresnetan diardu erri onek.

Eta beste oiturak? Ortan beste edozein erriren parean, gaurko legean. Etxeetako oiturak, kalekoak, lanekoak eta jolasekoak gaurko giroan.

Nai neuke jakin, gaur, jaietan, erromeria amaitzean an gertatu leiken poetaren batek, bertso au izenpetu edo firmatuko ete leuken:

Azken pirulira jo du danboliñak;
dantza aurrera lekura beaute neskatxak.
Mutillak Auzetxera berriz esku sokan,
etorri legez doaz soñu jakin ontan.

Erri zar eta geldi, lotu eta norbaitzuei makurtua, Azpeiti?
Ken zaitez, «kapu» ori!

A. ZUBIKARAI

AGVR

Apartado n.º 2
BILBAO

FRANQUEO
CONCERTADO
08/55

JAKINGARRIAK

«C» BITAMIÑA

Edesti luze samarra du «C» deiturako bitamiñ onuragarriak. XVI gizaldiraño gitxienez atzeratu oi ba'gara, ta itxas-gizon ausartiei euren ibillaldietan lagundu, bein eta geiagotan ikusi geinke gaitz galgarri bategaz jota aurkitu oi ziral. Gaixo onek «skorbut» izena du, ta geien baten ta asieran beintzat, ortz-erro edo aoko obietan kokaturik, itxastar artean zauri ikaragarrikoak egin oi ebazan.

Laster, osakai bezela, janari garbi egin-barriak, sasoiko ortuariak eta batik bat limoi eta laranja bezelako igali bedegarrak erabili zituen. Onela eriotzak urritu ziran, ala ere, belaunaldi batzuetan ez ei zan aurrerapen nabarmen surik nabaitu.

XX eunkira eldu oi gara ta 1933'gnengo urte gogoangarrian, azterketa askoren ondoren, saio-tegi baten, bein eta betikoz, «C» bitamiñ au bat-eginiñ, guztiz bildu al izan eben. Orduetik ona bide erreza izan du beraz. Berein gaixo ta soin-urritasunak arindu ditu.

ONURAK

Mueta askotarikoak diranez, garrantzitsuenak esatera noatzue. Bitamiña onen jakintz-izena «azid askorbikarra» ei da. Ogia giteko erabili oi da, bardin zauriak itxi edo osatuzko gure soñi-eunak, atetiko naiz barneko, kutsapenez gaitz-arazi oi diranean; gaixotasunei jarkipena indartzeko; gripe, arnas-estu, otzeri ta abarrak osatzeko, ta... lerrokada luzetxoa onez gain. Ba-ditu beste eginkizun arrigarri bi, ala ere. Bata, odolean daroagun kolesterolaren neurri mailla geiegia gitxitu, ta bigarrena, gure gogoramen bizitasuna nabarmendu. Bigarren au txito baliotsua dala ezin ukatu, ta lengo baten «Zaarren adimenez» esan nebanai geitu bearra dogu.

LONDRES'KO BATZARRA

Janarien Teknikoloji Ikastetxean, oraindik orain, ludi guztiko jakintsuak batu ei-ziran. Euren jakintz berezietan eta bakotzak bere beretasuneko arloan mintzatu eben, ta onela, kimika, biokimika, azkunde ta elika bideak zearo aztertu.

Ondoren, au lako erabaki giarduna atara eben. «C» izenezko bitamiñ au neurritik gona artu arren, ez ei-da inola ere osasunerako kaltegarria. Osagilleen aburuz, egunero artu lediteken neurria, 31'tek 200 miligramoraño eldu oi da. Olan, «skorbut» gaitzetik urrutera gintekez ziur, baiña beste onurarik atara gabe. Onura geiagorik lortzea gura ba'dogu, ia gramo bateko «C» bitamiña egunero artu bearra dogu. Au da gorengo maillea. Onurak len esandakoak, ots, Kolesterol batetik gutxitu, ta buru argitasuna ta bizitasuna bestetik, geitu.

JAKINTZ-EGIZTAPENA

Londres'ko Batzar ontan, Emil Ginter txekotar jakintsuak, «Skorbikar azid eta arteroesklerosis edo zain-gogortzea» izen-burua dun idazlan argitsu bat aurkeztu eban. Bertan, India'ko kui zuriekaz egin zituan azterketa batzuk agertu oi ditu, ta kui zuriei ezarriko askorbikar azid onen neurkaia txikia zanean, odolean eben kolesterol batzuk geitu oi zala dirausku, Bardin samar, baiña alde-rantziz jazoten zan, kopuru nabarmen suagoak eurak ezartzen eutsenean.

Jakiña da jakintsuen artean, «C» izeneko bitamiñ au gizonetakoak batera inditar untxi zuri oneik ta mueta guztiriko tximiñoak bakarrik artu bearra dabela. Beste abere orok berezkoa dabe euren barnean «C» bitamiña biltzea. Gure gizadiaren beste zer arrigarri bat ziurki! Ezkutapenez beterik daukigu bera!

Berrogei urtetik gorako gizonetakoak be, ta eten gabeko berrogeta zazpi egunetan, egin zituan azterpen batzuk berak. Gizon onei, «C» bitamiñan egunero ezarriko neurkia, ia gramo batekoa zala dirausku, au da ezarri lediteken gorenengoa noski. Ta epea igaro ondoren, eurak, dan-danok, odolean eben kolesterol —kui zuriekaz gertatu zan bezela— ein berberan beeratu iaken beraz.

Orrela ba, ta azterkaldi oneik bitarteko, Emil Ginter jakintsuak, «C» bitamiñez gafiñezka doguzan janariak artzera beartzen gaitu. Ots, limoi ta laranja amariak, sasoiko barazki garbiak, lur-sagarrak, arbiak eta abar.

Ikasi dagigun gure osasuna zaintzen, ta geigikeriak baztertzen. Gure etxeandren arazoa batez bere dala deritxat. Ori ta be, gure eritxien laguntasuna derrigorrezkoa iakela uste dot. Areago oraindik, tripazaiak-edo... ba'gara.

ARREGI'TAR JOSU

AGVR

V URTEA
148 ZENBAKIA

ASTEROKOA
1974 - DAGONILLA - 3

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

AINEÑAK

Gure artean oitura lotsagarri asko sartzen dira gaur, eta oitura orreik onartzea gizontasun lez artzen da. Ez dakit zergaitik, baiña gauza onek izango dau gogoiztarian edo psikologian bere azalpena.

Oneitariko bat gogoratu dagigun gaur. Ainenak edo berba zikiñak esatea.

Ez da gure arteko gauzea bakarrik. Egun oneitan irakurri dogu izparringietan zelakoa dan egunoro Nixon'ek erabilten dauan iztegia. Lendakari izatera eldu zanean, iztegi ori garbituko ebala agindu ei eban, baiña, agiriko berbal-dietan kontuz ibilli arren, etxe-bizitzan eta adiskideen artean bardin jarraitu eban. Eta gaur dana jakin eta agertzen dan lez, ortik sortu jako lotsakuntza aundi bat eta, beste zio batzun artean ori be jartzen dau bere «zinta» ospetsuak epailariari ez agertzeko.

Baiña es da Nixon bakarria onetan, gaur asko zabaldu da eta oraindik zabalitzen doa ainenak esateko oitura lotsagarri au. Lotsagarria diñogu, edonork, berak esandako berba orreik barrero eta jende-aurrean entzuten dituanen, Nixon'en antzeko lotsakuntzea izaten daualako.

Izkuntza guztietan eta gizon guztiak daukez «tabu» diran eta ondo ezia dan gizon batek inoz be erabilten ez ditun berbak.

Zergaitik ez diran erabilli bear?

Ez dira izango sendoak orretarako agertzen diran zioak, baiña ez dira erabilli bear, erabiltea gizarteak onartzen ez daualako.

Erlejiño'ko «tabu»ak izaten dira batzuk. Esaterako aginduetan dagoz: «Ez dozu Jainkoaren izena alperrik agotan artuko». Jainkoaren izena eta persona edo gauza santuana itzaltasun barik erabiltea da «tabu» bat. Eta ainbat txarago biraokak ba'dira.

Inoiz sorginkeritik sortzen da berba orreik ez erabiltea. Esaterako: suge bat ez dogu «ilten» «galdu» baiño; edo «sinistra» esan bearrean, euskeratik edo zelten herbetatik artutako «ezkerra» esan bear ko da. Eta olako asko.

Beste batzuetan berba loiak edo gauza loia agertzen dabenak ez esateko eskatzen dauku gizarteak. Gauza loi edo zikiñaren izena entzuteak be gure ingurukoai, azpergarri jakelako.

Antzera, soñaren edo gogoaren barrubizitza agertzen daben berbak «tabu» dira, batez be gorputzaren atal batzun izenak.

Izkuntzetan, ixildu bearreko berba oneik beti ez dira batzuk izaten, aldaturaz jotzen dira. Berba loien ondoan garbi barriak, «eufemismo»ak agertzen dira, baiña esangurea bera dan lez olakoa, oneik bere, loitu egiten dira, eta barriak sortu bear.

Olako «tabu» itzak izkuntza guztiak daukez, ez ainbeste euskereak, baiña gizon ondo ezia ez ditu erabilli bear. Onetan gizonen artean diran ixilleko itunak onartu bear dira.

Gaurkokeri lotsagarri bat dala esan bear dogu, batzuk, askok, erabilten daben iztegia. Ago loidun noriak dira. Goiz da arratsalde, gau ta egun, beti gauza bardiñak esaten; berbako ainen bat, berbako loikeri bat. Eta ori dala uste izaten dabe gizon sendoa izatea. Orretan ba'lego sendotasuna ta gizatasuna, onak gagoz?

Pozgarria da oster gizon ondo ezien berbeta garbia entzutea. Gizonak eta sendoak izan arren, olako erdelkeri lotsagarririk ez dabe esaten.

Ba daukagu gaur gure artean onetan zabalduen bat egin bearra.



Maitasunari Oroitarria

Ludi zabaletik zear, ainbat oroitarri ikusi doguz, gai ezbaridiñak dirala-ta. Gizona, bere ereintza edo agiriren bat bere ondoren izteko, zalea izan da beti. Geien baten, bide ortatik ikasi al izan doguz Erri baten nortasuna ta bere oiturak. Ez gara gu be, esukaldunok, ezbaridiñak izan arlo onetan.

Arraintzalearen arriskua ikusita, eurok eskertu gurean-edo, or ekin dautsagu liortarrok, oroitarri bat itxas-ertzean jasoten. Baserritarragandik eguneroko janaria artzen dogula-ta, beste oroitarri bat oneri be. Langilleak, euren izerdiagaz Erria aberasten dabela jakin da... ea ba, ez dagiguzan aiztu oneik be, ta egin dagigun zerbait poztu daitezcan.

Zenbat oroitarri, gogo garbienagaz jasotakoak! Baiña inoiz, sustrairarte sakontzen ba'dogu, ez ete dogu, azken baten, norberekeria aurkituko? «Zerbait egin dagigun eurakaitik be, merezi dabe-ta; arrotasun zintzo bat izan dagien, eurekan gogoratu gareala ikustean. Baiña izerdia, arriskua ta nekea, eurentzat!»

Ortik gure arritasuna, Maitasunari oregitako eroitarria ikusi genduanen.

Zeregin bat geunkan Gipuzko aldean, eta Getari'ra jo genduan bazkari orduan. Onen ondoren, lanean jarraitu baiño len, Arraintzale-erri onen kai aldera eldu giñan, ta an non ikusten dogun, nasa edo muelle ganean, arriz egindako irudi bat.

Urreratu ta non agertzen jakun andrazko bat umetxoa besoetan dabela, beste aurtxo bat bere gonari elduta, itxasora begira.

Arritu esan dogu, ta geiago esan bear geunke, gure biotzaren taupadak entzunda, oroitarri aren esanguruagaz.

Guk, galdakanotarrak, ba-dakigu zerbait gai orreri buruz. Erritar guztien oroimenean izango da oraindik, emen izandako egun illuna, 18 langille galdutako gaba: Dinamita'ko zartadean edo explosiñoan.

Lantegi orretan senitartekoren bat euken sendiak, an ikusten ziran begiak zabalik eta biotza estu ebela. Zer ete zan jakin ez, eta urduri, nora jo ez ekiela. Guraso edo seme-alaba edo neba-arrebak an lanean, eta euren barririk ez. Une larriak benetan, inoiz ba'dira.

Oldozmen edo pentsamentu oneik eldu ziran gure burura. Une larri areik gogoratu genduzan ba, Getari'ko oroitarria ikusiaz. An egoan, estu ta larri, ekaitzari adi, noiz txalupak agerttuko, Erri baten Biotza!

Bai, Erriaren biotza, zer besterik ete dira ba, gure emazte ta seme-alaba kutunak? An, maitasun garbia, norberekeri bakoa, aitaren aurpegia, itxaso gogorreko erpetik iges eginda, noiz ikusiko. Otoitza agoan, estutasuna biotzean, baiña tente, gure ondarrutar arraintzaleak diñoen lez.

Bai poztu ta arrotu giñala, irudi a ikusiaz; onelako oroitarria erakiten dauan Erriak, ez dau aiztu, MAITASUNA dala gizonaren oiñarria.

BARRIKETAK

Gutzaz zerbait idatzi dala ikusten dogu-nean, euskaldunok, arrain gosetienak baiño ariñoago iruntsiko gendukez amuak. Oraintzu, «Cuadernos para el diálogo» dalakoan, euskal-jantziakin apaindutako erdel-zale ezagun-ezagun batzuen erakuskelea izan gendun: euren ikuspegi berezitik euskal-jakintzari —kulturari?— buruzko agerpen lotsagarri bat eskeini euskuen.

Erantzun geuntzen atal onen bidez, baita angozuzendariari, eskutitzez, argitaratzeko eskatuz, zerbait bialdu be... baiña, bai zera! Ez daukagu, guk, ego alde orretan arrera onik, eta «Cuadernos»ko demokrata izenekoak ez dabe gure arrazoirik aintzakotzat artu... Or be, diñoenez, «dialogoa» monologorantza daroc, «betiko» orreri esker, baiña guri zer?

Orain, «Indice» dalako eskuma aldeko ezkertiarren aldizkarian (Uztaila l'gokoan), naiko zikinkerik botatzen daukue lepora. «Los Vascos» edo olako zerbait azalean jartzea naiko da, guk, gizajuok, blasta-blasta ale oliet erosteko.

Neuk be, inoiz, iruntsi izan ditut olako amuak, baiña oraingo au, beste arrain kokoloago batengandik jaso al izan dot. Naizta naskagarria zala beste orrek esan, ertz batetik bestera, oso-osorik irakurri be bai, ta, zelan ez!, nere irizietan geroago ta sendoago nagoala ezin ukatu. Naiz gorriak naiz zuriak izan, sasi-intelektualak ba'dira, are ta nabarmenago, argiago erakusten daukue gureganako «maitasuna». Jakiturik-eza, sarritan, ongaria izan leikela deritzat, batez be Ramos Oliveira ori lako intelektualiak ez eza-gutzeko: «Notable historiador exilado, murió hace un poco tiempo» inoanetik, gorri-keia izango zala igerri geuntzan, baiña onek idatzi zituan astakeriak, beste ertzekoentzat be egi biribillak dirala ikusteko, ez dago «Indice» ori irakurtzea baiño.

Gurealako «txoko» onetan, ezin dogu, gorrotoz eta guzurrez beterik datorran astakeri bilduma ori aztertu osorik, baiña, noizik bein, olakoak argitaratzea ondo jatorku, kanpora begira dagozan txotxoloak, egozaleak zelako «opariak» ekarri legikeguzan ikusi dagine; bai alde batetik eta bai bestetik...

Deustu'ko zubi zar orren konponketeak dakarguzan buruko miñak ikustean, barregarria benetan, laguntzarik aundienak artu doguzanak garala irakurri bear izatea. Nun ete dago, erdi itota dagoan Bilbo onetan, laguntza orren erakusgarririk? Nun dagoz zubi barriak? Nun ainbat eta ainbat bide zabal eta estu barri?

Lotsa gitxi bear dabe, emendik eroandakoagaz bizi diranak, erantzuteko erarik emoten ez danean —Gazeta eta Correo'ko editorialak gogorrik izan ba'dira be— euren buruak intelektualtzat erakutsi nai leukeen batzuk, olako astakeriak idazten ausartzeko: gorrotoak be, bere neurriak ditu, baiña...

Dana dala, izparringi orren aipamenik egin ba'dogu, argi ta garbi azaltzen dan okerkeri bat salatzeko izan da: Euskaldunari buruz gorrotoz idazten danean, geienetan beintzat, izen-buruak estaldu ezker, ezin leikela zein ertzetako aldizkaria dan igerri...


Gazteto giñala, kaiolan, gure lepotik eta gure errizaleasunagaitik naiko barre egindako ezkertiar «ertilarri ospetsu» bat, orain, euskalduntasunean epaile egin jakula jakiteak, naiko «negargure» damosku.

Baiña gure erritarren artean, txotxolokeria ta ganorarik-eza, bete-betean sartuta dagoz, eta ezin orregaitik arritu. Norberaren teillatura arrika dabilzan ume-moko batzueri parkatu leizkiegu olakorik, ez baiña, igo-nairia, zabal-kunde billa dabilzan «lehendakari» antzekoeri.

Olakoeri, gitxienez, agoa zabaldu baiño lenago, arazoaren aizea nundik nora dabilen jakitea eskatu bear jake, anka-sartzerik egin ez dagien. Guraso ta arduradun zintzoen aurka, aolkulari txar agertzea, naiko litzake, borondate onekoa izan ezker, airtortza on bat egiteko. Baiña oraingo giroan ezin olakorik.

Borondate onekoa, esan dogu, baiña «satorreri» zuloak zabaltzen laguntzea, ez ete da gero salduta egotea? Ezagun-ezagun daben joeradan aldizkari batetik oorezko aipamenak eta hurrun boladak eskeintzea, ez ete da gero, ordainketa merkea? Biotzez poz-tuko giñake orrela ez ba'litz, baiña intelektu-aien artean, edozer!...

Bilbo inguruko ba'zara, irakule, oraintzu emengo ikastetxe baten jazo danari buruz diardugula igerriko eutsazun. Urrunagokoa ba'zara, itaundu zure emengo laguneri ta, entzunak-entzun, ez zaitetz bapere arritu.



Euskera naparroa'n

Bere pizkudea

Ben-benetan izan zaigu pozgarri, «PRINCIPE DE VIANA» deritzan napa-aldizkari ederra, bere 100'gn zenbakian, Napparroa'ko Euskal-pizkudeari buruz, euskera jatorrean dizdiragarri idatzirik dakarzkien berri arrigarriak irakurtzea.

Onela dio bere leen-orrian:

«Biana'tik asita Muskaria'raño, Ebro Ibaia Napparroa'ko lurak bustitzen ditu. Lur zabal oiek, Napparroa'ko Erribera osatzen dute: lur gozoak, ederrak, aberasak dire. Ortzen ditugu, Monkaio mendiaren aurrean, izan ditezaten baratzerik zoragarriak, eguzki beroa, aize osasuntsua, zeru garbia».

«Garai batean, or, Euskeraz egiten zan. Napparroa, len, orobat euskalduna zan. Azkenengo gizaldi abetan aldatu dituzte bazterrak. Ortzen dago, ordea, Toponimia. Lurraren mullaka izenak, euskaldunak dira. Euskera naiz galdu, euskal-izenak ezin dituzte aztu. Toponimia ta fonetikaren bitartez ditugu bizirik, oraindik, euskeraren aztarrak, Ebro ibaiaren inguruan».

«Erribera'ko erri aundi oietan, EUSKERA, gaur maite dute. Ortze ikusi ditugu, Murtxante'ko gizon gazte bat, euskeraz egiten, Lodosa'ko bizpauru mutil gazte, euskera ikasten, Biana'ko sendiak Ikastola bat eskatzen, Muskaria'n euskerazko ikasaldiak egiten».

«EUSKERA, Napparroa'ko izkuntza da. Ezin dogu esan Erribera'n arrotza dala. Gure gurazo zarren izkuntza, gurea da. Erribera'n euskera zabaltzea, bidezkoa da. Gaur, txistua, nunai entzuten da; gure dantzak eta txistuak, euskerari bidea irakiten diote. Gaur, lantegi berriak, Ebro ibai inguruan nunai sortzen dijoazte. Lantegi oietara euskaldun auzit dotoz lanera. Auen umeentzat Ikastolak irrikiko dituzte; eta... Umeentzako Navarra'ko egunkarian egun baten «Iñarbe» izparrinlariak erratan zuen bezala: «Euskera Ebro'raño zabaltzen delarik, Napparroa euskalduna bihurtuko zaigun».

Jainkoak dezala, ola gertatzea!

* * *

Aipagarri dala derizkiogu, baita ere, napa-aldizkari berean, seigarren orrialdean, M. Izeta euskal-idazle ospetsuak adierazten digun berri alaigarri au ere:

«Nafar Izkuntzaren EGUNA —dio— oore aundiarekin ospatu da Elizondo'n. Egun goangarria igaroa dugu nafatar euskaltzarien artean eta Nafarroa'ko Ikastolekako aurrekin, denak alkartasun zoragarrian nararren egiazko mintzaira goretu dugularik».

«Nafarroa'ko Diputazioko Euskeraren Laguntzako Elkargoak antolatutako jai onek, oroitzapen eder bat utzi digu gure biotzetan».

«Eguna, olaxe joan zan: Erri-meza, elizkizun zoragarria, euskerazko eliz-kantak Ikastolekako aurren agcetan biotza ikutzen zutelarik. Meza ondoren, txistulariak, Ikastolekako aur guziak beren guraso eta andereñoekin eta nafatar euskaltzaleak denak erriko plazan bildurik, euskerari gorasarrea egin bearrez mintzatu ziren Julio Iturralde jauna, Ballerako Alkateta eta Diputazioko Alduna, eta Inozentzio Aierbe ta Izeta jaunak. Iru izlariek denei Ongi-Etorria emanik, Nafar Izkuntzaren Egunaren sustraiak ongi azterturik, euskera gorapaitu zuten, denbora berean Nafarroa'ko Diputazioak ematen duen laguntza osoa erakutsiaz».

Araba, Bizkaia ta Gipuzkoa'ko Aldundi edo Diputazioak, noiz beste orrenbeste egingo?

* * *

Eskuetan degun aupaturiko napa-aldizkariak, bere bigarren orrialdean adierazten digun beste berri jakingarri au ere, ez da ixilean uztekoa:

«Erri baten batasuna ta euskalduntasuna. —Aurten ere —dio— Garagarrilla'ren 5'ean berpizte ta berrizte bat ezagutu du ARBIZU euskaldun erriak. Ongi merezia du «Euskaldun Erria» esatea, bertako umeak kalean ere euskeraz mintzaten bait-dire, ta umeak ezetik eunetik larogeita amarrek ezañetan dute gure izkuntza».

«Iruña Merindadeko Aldun edo Diputadu den Iturralde jaunak, Diputazioak egiten duen bere errien aldeko lana, Napparroa'n ditugun iritzi eta ikur auetan oiñarritu zuen: «Kristautasuna, Foruen maitasuna eta azkenik erri askototako euskalzaletasuna».

«Eta esaldi ori egiztatzeko-edo, On J. Rz. de Gordo, Gobernadore jaunak, Euskeraz egiten zuan bere itzalditxoak. Anitz poztu gaitu gure izkuntzaganako naitasunaren ezaugarri orrek; eta askorentzat ikasbide ta jarraibide ederra izango dan erraite orrek. Ona emen gure gobernadore jaunaren itzak:

«Alkate jauna; Diputazioko Agintari jaunak; Abade jauna; lagun guztiak: Asko poz-tutzen nau gaur zuekin aurkitzeak, Emen aurkitzen naiz danori Agur bat egiteko nere desco guziakin. Danok elkarrekin egindako lana, probetxuzko lana izango da, orregaitik, ederragoak, politagoak dirala ikusten ditut, gure aurrean, gaurko egun ontan irikitzen diran etxe berriak. Zorionak, eta bejundai-zuela danori. Anaitasuna, Anaitasun aundiena eta beti Aurrera!»

Noiz, beste orrenbeste entzungo, Euskeraz, Araba, Bizkaia ta Gipuzkoa'ko Agintari nagusiengandik?

Gure zorionik biozkoiak, napa-erri anaiari!

ZELETA

SASKI NASKI

Idaz-lan au asterakoan, nere buruari galdera au egin diot: Zertarako... noren-tzat ari gera idazten? Ezer lortuko ote degu gure idazki auekin? Iñor, bere lozorroti aterako ote degu?

Gaur bezela nere kemenak urri arkitzen ditudanean, gure Lendakari izan gennun gizon aundi arrek, onulatsuko galdera egin zion adiskide bati erantzon ziona oroitzeko, on aundia egiten dit, piztu egiten nau. Onela esan zun, gutxi gora-bera:

«Ez dakit gure Erria'rentzat ezer lortuko degun. Ezin jakin. Baiña Jauna'ren aurrera agertzeko garaia irixtean, gure alegintxoia egin degula jakiteak emango digun lasaitasuna, ez al da aundia izango?»

Gure arbasoak ere izango dituzte galdera batzuk. Aurrera beraz!

* * *

Kamaraka'ren idaz-lanari jarraituz, zatitxo bat doakizute:

«Bere batasun lanari jarraituz, Azkue'tar R. M. Euskaltzaindi'ko lendakari jakintsu neka-eziñak, «Gipuzkera osotua» zeritzan idaztia argitaratu zun. Au, Gipuzkeraz, beste euskalkiz osatuta egiña zan.

Lan onetan, batasun lanean alegia, ziardutenai, izatasunak —egitako izateak— erakusten dun bidea ikuserazi zien, ta au zion:

Izkuntza, sustraitik sakonki ikasi; aldaketak edo berrikuntzak neurritasunez egin eta asti luzea utzi erriak onartzen dun ikusteko». Ez da au, orain, itsumustuan eta izkuntza ondo ezagutu gabe batzuek egin nai dutena».

Kamaraka oneraiño. Bein da berriz esanda ere, irakurri ezazute ARREN, Kamaraka'k idatzi ta emen zatika agertzen ari natzaizuen idaz-lan ori. Garrantzi aundia du-ta, oraingo gertakizunak ondo ulertzeko, benetan ulertu nai ba'dituzte beñepein.

* * *

Martin Ugalde'k, bere «Hablando con los vascos» idaztarian, Mitxelena jaunak, Artzelus'tar Ander «Luzear» zana aitatzten du. Au nere aita zanez, zerbait esan nai nuke ontaz. Onela dio, erderaz, zati batean.

«Uste det, au degula aztuta utzi degun giza-jatorretatik bat, larregian aztuta. Ez gizatasunean soilik, egokia zan ba, baita izparlari ta idazlari bezela ere. Giza-jator oiek aztu ditugu, ta ez dira gutxi, batzuk oso baliotsuak. Orduan argitaratu zituzten lanak aztertu lezazken edonork —Erekala aurretiko eta tarteko aldiatiaz ari naiz— zenbat balio zuten igartzeko aña zeaztasun izango luke. Garai artan, jende oso balio aundikoa zegoen, Euskal-idazte ta izparlartzaren aintzindari».

Bejoindeizula, Mitxelena! Gizon aietzaz iritzi ori ba'dezu, nola zabilta, Gizon aien lan guzia ezereztu, zapaldu, aztuerazi nai dutenekin? Lenago, beste idaz-lan batean egin nizun galdera bera doakizu: «LUZEAR»ek bizi ba'litz, zure oraingo jokabidea ikusita, zer esango luke?

Gizon aiek aztu ditugula? Bai orixe! Zergaitik ote baiñan?... Oraingo «euskeltzale» izeneko askoen lanari esker ote?... Gero, jantziak urratzen?...

Zure eskutan indar aundia dezula derizkiot, OSO OKER dabilzan gure arazoak, pixka bat bederik, zuzentzen asteko.

«...Naizta «integrata» ere zerbait, dena esan bear ba'degu, siñismen eta ongi-jokatzearen aldetilo, diozu beste zati baten. «Integrata» itzak zer esan nai ote du zuretzat? Neretzat, gutxi gora-bera, au da: Besteren iritzirik entzun ere nai ez duna. Bere-berean itxia. Ori onela ba'da, ondoren diozunakin ez dator ondo, iñola ere.

«Alan eta ere, Zumarraga'n, 1933'gn inguruan, Euskal-idazleen Alkateta sortu zutenean, beste iritzi onen alde gogor jokatu zun: Alkatete orretan izateko ez zirala bearrezkoak politika ta siñismen berezitasunak, bearrezkoa bai, baita naikoa ere izenak zeramatenetik, euskeraz idaztea».

«Integrata» esan dezunean «integro» esan nai ote zenun? Alaxe bai-zan gure aita: ZUZENA, GIZON OSOA!

Zuk esan dezun bezela: Garai artan, jende oso balio aundikoa genuen, Euskal-idazte ta izparlartzaren aintzindari».

Benetan au ola ba'dirudizu, oraingo bideak eta adiskideak utzi ta AIEK erakutsitako bidetik jarraitzeko garaia zenuke!

AMALE'K

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkatete-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, bereko, politiko naiz ondasungarri asmoen gainetik daben iritzi-onoeko euskaldun guztiak Euskeratzat dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idaz-lanen erantzule bakarrak euren egilleak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M.^a MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guturirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra

BILBAO - Casco Viejo

Tenderia, 15 eta 16

GAZTE

ADISKIDE ONA...?

Gaurko gizartean, gure lan, ikas-taro ta jolasetan... estualdietatik urte-tako, iñoiz baiño laguntasun aundia-goia bear izaten da sarri askotan.

Izango dozuz batzuetan, baiña beste askotan uts egingo dautzue.

Gauzak ondo darabilguzanean, lagun asko doguzala ikusi al izan dogu, baiña arazoren bat agertuten ba'dautsazue, or konpon, esan eta or itxiten zaitue, zeureak zeuk konpontzeko.



Zer da ori? Laguna? Adiskidea? Ori ez da ez lagun eta ez ezer. Ori, «aprobetxategi» zaletsu bat da. Ta olango bat gure artean izan ezkerro, ez da ezer ondo izango.

Lagunak, zuzena izan bear dau bere artekoakaz, bai zorionetan baita zoritxarretan be; norberetzat artuaz, bata zein bestea. Oker aundiak ekarten ditu baita, talde baten, askok, zeresanagaitik bakarrik gauzak egiten dituezanean, «konpromiso» utsagaitik. Ez dabe erakusten benetako lagunak edo adiskideak diranik, ta olan izan ezkerro oba da ezer ez egita.

Olako jentea barriz, beatz puntetara begira egoten da beti, arpegira begiratuteko ez daualako balio. Berba baten esateko, gizonak ez diralako. Orregaz be, arrazoirik ez dabela erakutsiten dabe, arrazoirik ba'leukie, arpegira begira botako leukiez eurenak.

Gazteok, izan gaitezkan zintzoak; gure famelian, lanean, kalean eta gizarteak eskatzen dituzkan toki guzteitan, gure lagun urkoakaz. Izan gaitezkan baita, biotz zabalekoak danentzat be. Arazoak ez gaituala bildurtzen erakutsi, gure bidean ezer nai ba'dogu, geuk egin bearko dogu-ta, bearrizanean dagon lagunari lagun-tzea be bai.

Azkenik, egi aundi bat esan nai neuke: ez dabela gauzak astea bakarrik balio, ezbabere amaitu be egin bear dirala. Bide erdian erre barik. Aspaldiz ikusten dot ba, jentea erre egiten dala artu daben bideren baten edo aurreragotik artuta eukenen baten. Olan itxitekotan, lenengoan itxi bear zendun, ba-ekizun ba gogorra izango zala. Ta, gaiñera, zenbat obeto ixillik egon ba'ziñan.

Neure ustez, gauza baten, mailla batera igoten danean, ez da atzera egin bear, eta al danik eta azkarren jarraitu, alpertu baiño len.

Ia, gure artean, gazteen artean, itxurakeria, «hipocresia», kanpora bota ta egiagaz bat egiten garan aurrera jarraitzeko.

KANTARI'K

Zugarramurdi

1974-UZTAILAK-10

Zugarramurdi'ko edangela batean gengozan. Imanol Uranga, amabi urtekoa; Margarita Etxenike, amar urteko neskatosa; Kepa Agerralde, zazpi urteko mutiko atsegiña; lan onen idazlea; Asun Balzola, andre gazte alai, ta Gerardo Lopez Moral, argazkilaria.



Donibane'n eta Belok'en aita Iratzeder'ekin egonda gero, aurrera jarraitu baiño len, Zugarramurdi erritxo zoragarrian egonaldi luze bat egin genduan, bazkaltzeko ta atsedean artzeko.

Bazkaria agindu ondoren, neska-mutiko ederrok arkitu ta adiskide andi egiñik, izketaratu giñan. Bein Zugarramurdi'ko leizetan, Asun Balzola, bilbotarra, galde-erantzunetan asi zan erriko gaztetxo orreikin. Ta, aiek kontatutako sorgiñ-ipuñ ordaiñez, poza ematearren, ipuñ batzuk entzunerazi geuntzezan magnetofoiñan.

A zan poza umiena, euskaldun jatorren gertaerak entzutean! Ipuñok, laster agertuko dira, erdera euskeraz, ediziño banatan. Ipuñak ederra ba'dira, Asun'ek egindako irudi-marrazkiakaitik ez dakit zer esango neukan.

Ango erritarren izkera zabala ta jatorra ikusi ondoren, pozez gaiñezka, Bilbo'ratu giñan. Ezin aztuko eguna!

Gure Asun'en irudi politak eta gure lagunnen argazki ta idazkiak ikusi gura ba'dituzue, Bilbo'ko Galeria Arteta'n izango dituzue datorren Gabonillean, erakusketa baten.

ETXEBARRIA'TAR JUAN ANJEL

Gartzia'ri Mezu Bat

Munduan zarata aundia atera eban liburu txiki bat dogu «GARCIA MEZU BAT» deritxoña.

Irizar'tar Sabin'ek euskeratuta, Venezuelako ELE'k atera dau liburutxu au.

Zergaitik atera ete eban orrenbesteko zaratea liburu onek? Nire ustez, gai garrantzitsua ta agerbide egokiz agertzen dalako.

Gaia auxe dala uste dot: Gizonak, eskatzen jakon lana egiteko, gertu ta gogo onez egon bear dauala.

Ori adierazteko, Cuba'ko gudan, Garcia izeneko gizon ospetsu bat ebillan eta beragaz artu-emonean sartzea nai eban Ipar-Ameriketako lendakariak. Zer egin?

Eskutizik ezin bialdu, telegramarik gitxiago... Rowan izeneko gizon bat aurkitzen dabe, ta onek eroango dautso mezua Garcia'ri...

Rowan'ek eskutitza artu ebanean ez eban itandu Garcia a mun aurkitzen zan... Ona emen gizon bat, bere irudiaren bidez aberriko ikastola guztietan zabaldu bear litzakena.

Errez ikusten danez, garrantzia daukana, ez da jazoorea, irakatsia baiño: Gazteak, itaun gitxi eginda, lanerako gertu egon bear dabela.

Baiña ez ete da olako langillea kapitalisten morroi izango dan gizona? Ori be kontuan artu dau idazleak: Kapitalismoaren barruan norberarentzat lan egiteko gai ez dana, gitxiago izango da sozialismoaren barruan gizartearentzat lan ori egiteko.

Helbert Hubbard'ena da liburuska au eta Irizar'tar Sabin'ek ederto euskeratua dator.

GAMIZ

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

ZAZPI-KALEAK



CASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

ESNEAGAZ EGINDAKO

ESKATU BASTERI

BASTERI

UMETXUENTZAT

ADIREKOENTZAT

CHOBIL

ESNEAGAZ EGINDAKO

OILLAR BURRUKIE

Aitxe eta ama, oillar ederra benetan a, eta oillo «elegantie» au; euron lau semiokin bizi diez gure etxe azpizen. Pamilli burrukalarixe inun ba'da. Errasa inglesa, odol bizixe...

Apur bat mardotu eran, gangorak ebagi, eta bakoitxan kaixola aldatu gier. Alan da guzti, urriñetik be, beirakuna gozuek ezte ikusten baten etxe azpizen.

Kukurrukue, egaztie, arrabixue..., desapixo osuen dabiz beti. Jaten emon, arta garau apurtue, eraten ornidu, kaixolak garbitxu takien takien, eguzki urtera plantau, da poz-pezik bizi birrien, beti aurka, beti zer jo eta zer alkar jan pentsetan. Sekulo-sekularixuen konporme ez, oillar madarikatuok!... Au dok mundue!...

Nire lagunak, Lione'k pe, olakoxe «ganaderixe» dauke. Domeka goizetan ekiñ aldi beruek eta ederrak egin'oguz bere oillarrokien eta neuriokien...

Oiñgo ill beruokin bapez. Luma barriztetan be dabiz, beruek pe maxkaltze'itxue... Alan ba, derrigorreko bakie daukegu gure etxe azpizen udeguena arte.

Orraitxiñok, lengo baten, ekiñ aldi zorrotza eta negargarrixe euki dabe gure oillar gaste bik. Domeka goixa, da pentsau neban

neurtzie euron odol bero ori. Oillar gaste orrek, anaixak eurok, egiñ eben burruka ondamenixe. Ill arte, bata ill eñ zan, pauso bat atzera emon barik. Bestiek pe ez eban ondo urten. Begi bata galdu, samie zulotu, paparra arrotu... Trixkantz itzela!...

Nire semiek, Juanjoxetxu'k, bere amar urtekin, burruka aldi au ikusi eran, diño:

—Aitxe, euskaldun errasakuek diez oillar onek?...

—Inglesak diñue diezela. Euskaldunek?... Nundik nora atera'ozu izen leikezela?...

—Ba... anaixak eta olan burruke!...

Ezer, ezer be esateko inderrik barik geratu nitzen. Negar gurie galanta, bai. Gure euskal-errixen, umiek, bakarrik umiek, dakixe gausak ikusten bier dan moduz. Eurok, gure nausixon lotsagaldue ikusi eran, bauket, bai, itxaropen osue, gaurko umiok asi eta gizondu eran, anai artien ezabela egingo burruka aldik.

Guretzat negargarrixe, eta kanpotik begire daukeguzenentzat, poza eta barregarrixe...

JUAN JOXE ARRIZABALAGA «MARKIÑA»

Arri batekin asi zan



zure aurrezkien banketxea



BANCO DE BILBAO

gizaldiz goiti aurrezkitzan

BERRIZ'TIK

Ereña jaietan

Ez dakit dakizun: Ereña, Berriz'ko auzune polit bat da, Matiena ta Aitu bitartean ezkerretik. Gaur, autopistea dala-ta, bertatik doa, edo ondok beintzat, Gara'tik gora Oiz'era doan bidea; domeka ta jai, atertu eziñeko astrapalada darabille kotxeak. Beste aldetik, Ereña'n zear joan, eta dca, Durango'tik Markiña'ra ta Eibar'erako bide zarra, Olakueta'koa ta Zaldibar'koa egin aurretik, jakiña.

Antxiña samarretik taberna bat dozu Ereña'n, naikoa billatua; eibartarrak, bertara dabe joera bizia; baita inguruko gizon zartxo askok be, ortxe dabe sekulako biltokia.

Auzune ontan daukagu baita, leku aize-tsu ta jagian, sagasti, solo ta errekaz inguratuko zabal dotorea: San Pedro Txiki. Amaika bider izana naz bertan mezea emon eta itzaldia egiten. Bost-sei urte dirala, alan be, neskarar-mutilzarrai gogortxo egin neutsielako edo, ez daustie geiago deitu. Gaurkoz gogor egitea, naita, errazoia euki, norberak egitea bai, baiña besteak egiterik ezin dogu ezelan be eroan.

Ezpatadantzarien VIII eguna

San Pedro Txiki'ko jaiak, aurten, beste urtetan baiño ospe ta zarata geiago jaituak izan dira. Urtero jai orrez gaiñera, ezpatadantzari Eguna ta Serafin Ametzua txistulariari egiñko omenaldia ospatu diralako. Guzti au Berriz'ko Udalaren babesaz eta Ereña'ko gaztediaren laguntasunaz. Oso jai ederrak burutu ziran.

Ezpatadantzari nagusi ta txikiak esku artu eben. Nagusiak oneik izan ziran: «Nagusiak», «Zortzi elduak», «San Lorentzo», eta «Iremiñe», Iurreta'ko «Mikel Deuna»; Durango'ko «Tronperri»; Mañari'ko «Mañari»; Izurtza'ko «Izurtza» eta Abadiño'ko «Abadiño». Txikiak: Durango'ko «Txoritxu alai», Berriz'ko «Izarra», Otxandio'ko «Urduri», Berna'ko «Ariñ-arin», Abadiño'ko «Abadiño», Elorrio'ko «Besaide», Iurreta'ko «Lagun onak», Mallabi'ko «Mallabi» eta Zaldibar'ko «Korala». Guztiok txalogarri egin ebezan: «Banango», «Biñango», «Launango», «Zortziñango», «Agintariena», «Ezpatata txikiak», «Ezpatata nagusia», «Makil jokua», «Gernika'ko Arbola» ta «Txotxongillo».

San Pedro Txiki jaiak

Eleizako ta abar, jaiak ederto. Egitarauak onela: zapatu gabeen, auzuneko gazteak, oitura dancz, Deunaren Aretxa —Doniane-atxa esaten yako— jasotea egin eben, txapligo ta zarata otsetan.

Domekan, garagarillaren 7'an, goizean, amarretan batu ziran ezpatadantzari talde guztiak. Ikusgarria benetan! Amaiketan, meza abestu ederra ermitako zelaian. Oso ederto! Zelako durundua ateraten eban eleiztar guztiak abestutako «Gure Aita» bikaiñak! Ondoren argazki sariketara aurkeztu ziran lanen erakusketea bertan.

Onen ostean kale-jira ederra. Jente ta dantzari-talde guztiak Ereña'ko bidera. An dago Serafin Ametzua zanaren omenez jasotako orotarria. Auxe onetsi ta estalgetu bear zan. Poza ta alaitasuna bazterretan, eta koloreak eta ikurriñak, eta ariñeketea ta ikusi-naia. Zeremoni onen ondoren, barriro ermita ondoko zelaira, ta zelako agerketa zoragarria dantzari talde guztiak emon euskuena! Gero bazkaria.

Serafin «Txanbolin»

Ezagunak ditugu euskal erri osoan gure txanbolin jotzailleak. Zelako poza ta biotz-zirrara zabaltzen daben jente artean! Berriz, jatorra dogu dantzarietan eta txanbolin jotzailleetan. Ametzuarrek, Ereña'n biziak, guztiak opetsuak izan dira danboliña jotzen. Amaikatu aldiz jotakoa dogu igaz il yakun Serafin.

Serafin, Ipolito'ren semea, txistulari-sendi batekoa, sortzi urte zituala asi zan txistua ta txanbolin erriz-erri jotzen, bere aitari lagunduaz. Gero urte mordo ederrez zenbat doñu gozo! Onako gizonai, beraz, txaloak jo bear. Eta orrela egin eban gure erriak. Baita, zorra ordainduz, samurki abestu be:

Euskal oitura zarren seme indartzaille erri kutsu garbi ta sendoaren zale. Guk zeu izan zaitugu dantza irakasle, Serafin Ametzua gizon abertzale.

Arraintzale

Zarrak

Urtero bezela, Donosti'n batuko dira Gipuzko'ko portu guzietako arraintzale zaartuak. Zaar oiek, zenbat urte dituzte? Irurugeita amartik asi ta aurrera dijoaztenak dira.

Batutze ortan, alkar besarkatzen dira guziak. Batzuk ez dira azalduko, il diralako. Zeintzuk ote dira aurtengo Karmen'go Andra Mari egunean etorriko diranak? Baiñan ez dira gutxitzen, litzen ba'dira ere, berriak agertzen dira.

Aurrezki Kutxa'k ematen die laguntza, ta lenengo zeregiña, meza entzun. Gero, bazkaldu alik eta ondoen. Aurtengo janariak auck izango dira: Arrai sopa, Lebatza xaltsan, oillaskoa, gozoak, akeita ta abar. Ikusten degunez, janari ain gozoak, zartzaroaren erakoak, tenzioak indarrik artu gabe.


Maian dauden bitartean, jakiña, lenen jan eta edan ere bai, beste egunetan egiten ez duten bezela: Urtean bein dek-eta!... Ondoren, guziak abeslari agertzen dira, alako bertso eder zaarrak, eta «soloak» ere bai.

Sabelak janariz ta ardoz ongi betetzen dituztenean, itz eta pitz, alkarri: alako ura il dala, beste ura oyezan dagola azkenetan, beren gaztetako itxas-ibillera gogoratu, arraintzan igarotako gora-berak, nola arraunecan, «kaleuan» atunak arrapatzen, zapiak zabalik zituztela aizerik ba'zan, ta ez ba'zan, arraunecan izerdi ederrik atereaz... eguneroko ogia etxera ekartzeko.

Bat baiño geiago, belarriak gogortuta, eta ondoan daudenak deadarka oieri. Oiez gain, ematen dizkiete baita, alako erregaluak, alkandora, jertsei, txapel, barruko elastiko edo franelak eta abar.

Aurtengo urte onekin, berrogei ta bederatzi aldiz batuko dira. Ez da oraingo batuketa! Aurtengo ontan, Leandro Amunarriz jauna ere beyekin izango dute, 70 urte betetzen ditualako. Au, Bajurako Konfederazio Kofradien lendakaria da, ta ongi ezaguntzen degu. Zorionak zuri! Askok esaten diote, «Zaartu aiz!», ta, onek, erantzun, «Bai, ala dek. Ikusiko diat, ia ik betetzen dituken 70 urte!...»

Motriku'tik, urtero etortzen dira. Bai abeslari ederrak ere. Motriku'k, beti izan du fama aundia abes kontuetan, ta gainontzekoentzat pozgarri izango da. Getariarrak ere bai. Nere aita izana lau edo bost aldiz etorria zan. Geigao ezin, 74 urterekin il zalako. Nere osaba oster, emen Donosti'n bizi da, ta aurtun 84 urte beteko ditu. Ala ere, ez dakit joango dan, aspaldian etxeratua bai dago.



Bi anai auek, aita ta osaba, gazteak zirala, beren aita ta anai bat galdu zituzten Donosti'ko Zurriola'n. Udara zan, ta aita-semeak itxasoan txalupa txiki batekin txipiroi ta arrai txikiak arrapatzen. Alakoi baten, aize bildurgarria sortu omen zan, galerna deitzen dioguna, ta bidean igeska zetostela, txalupak bira egin ta biak ito ziran. Baiñan, lenbizi, semea ondartzara eldu omen zan, eta bere aita eziñean zebillela igerian ikusirik, berriro joan zan aitaren billa, eta gero, biak ito. Ta, ori, donostiar egunkak begira zirala. Makiña aldiz entzun genion aitari gertakizun ura! Oroimenez, nere izena aitaita arena daramat, ezagutu ez nuan urarena.

Zenbat onelako gertaeren berri esango dien maian, zaar oiek, alkarri! Zenbat lan eta neke semeak aurrera ekartzeko! Askotan mixeri latzak igaroaz, ogia erosteko ere txindirik gabe! Ala ere, portu oietako dendariak, urtean ematen zizkien janariak, udaberriko antxo ta atunetan irabazten zutenakin ordainduko ziotela zorra-ta, eman eta eman. Bai ordaindu ere azkar, lenengo arrai arrapatzearen diruarekin! Ortan, arraintzaleak, jatorrak dira.

Zaar auek, zertzuk esango dituzte, orain, guziak, dirua eskuan, janariak erosten dituztelako. Ta, orrez gain, bakoitzak bere etxe-bizitza dutela, jaiero jai egiñaz, ta ez gure urte aietan bezela, gau ta egun, jai ta aste, lanean. Eta zenbat alargun geldituak diran, ta beren gizonak, senarrak, itxasoan betiko izkutatatu ziralako! Gure aita zanak, makiña aldiz esaten zun: «Oyezan il nai det, eta ez itxasoan!» Itxasoari beti bildur izan bai-zion. Ta arrazoi paltik ez zun.

Itxasoak, urte aietan beintzat, millaka sendiri ezbear aundiak ekartzen zizkien. Orduko itxas arraintza ontziak, ez bai-ziran oraingoak bezelakoak. Ordun, ekaitz gaiztoak menderatuta ibiltzen ziran, ta orain, ontzi aundiak, makiña-indarrakin eta beste aurrerapen askok, ez da ezbear aundirik gertatzen, naizta noiz beinka, negarrak sortu.

Ezagutu nun Getari'n, Lekeitiu'ko bat, Duke Tarifa izeneko kanoa artako patroia. Au, bere ontzia ondora joan ekaitz artean, eta lau egunetan egur bateri elduta egon ondoren, jaso zuten, eta bizirik! Beste urte gaizto artan oster, galerna gogor arekin, Bermio, Lekeitiu, Ondarru, Mundaka ta abarreko ainbeste itxas-lagun ito ziran Kantauri'ko portu askotakoak... ez dira aztekoak! Gogoratzen naiz bai, ordun sei-zazpi urte bai-nitun. Baita gogoratzen naiz ere, nola Bizkai aldeko une ontan gogoratzen ez detan portu batetik, nola urtero andre bat etortzen zan Getari'ra ta arralde bazterrean joan, bere senarra itota arkitu zuten bazterrean, ta ototz eta ototz nola egoten zan. Meza ordaindu apaizari, ta illobian gero, berriro ototz.

Olako gertakizunen berriak, batzen diran zaar oiek esango dituzten maian. Alako arraintzak, besteko baliaketak, guda... Italianoak antxuak crostera kaietara zetostenekoak. Pentsa, arrai geiegi ekartzen ba'zuten, gainontzeko sorora, artuak, lekak eta lur-sagarrak indar aundiagoa ekarri zezaketen. Orain oster, «Alfa»ko iriña egiteko. Munduaren aurrerapenak, noski.

Zaarrok, igaro egun eder ta zoragarria Karmen'go egun ortan! Joanak joan, bizi zeratenak poztu zaitzete, biotz-indartu ta aundi dezuten lagunekin. Jan eta abestu lasai ta alai, edan eta erre, ta ondoren, berriro joan zeren errietara, ta datorren urtean etorri berriz!

E. OZKIN

Japondar Kementsuak

Mundu zabal onetan, aldakuntza bizkorrena lortu daben gizartea, Japon'en da. Baita ekonomi-ala be, bere langintza ezetzta yakon ezkerotik, urte gitxi barruan, gorakada andiena egin dabena.

Bere kondairea zear, bere izate ta kultura giroarentzat asmamen barriak ziranak be, egokitu ta beretutzeko almen berezia agertu dau. Gaitasun onek, erri-jakintzeagaz alkarturik, azkenengo eun urte bitartean, aldaketa garrantzitsu bi egitera lagundu dautso: XIX mendearen azkenetan, barrikutzearen bidea artuteko, feudal-eraketea garaitu ebanean bata, ta barrero, XX gizaldiaren erdian, bigarren ludiko gudatiko oar-ikasi ikaragarriak zuzenduta, lanari lotutako gizarte barria irasi al izan eban; laguntza baketsu ta erri-demokrazizko biziera barria antolatu al izateko. Aldi bi orreik iraulketa gogor eta bildurgarriak eragin arren, jatorrizko zuztraiak eta euren gizartearen jarraitasuna apartu barik, gaurkotasuna lortu dabe.

Japondar aldaketearen argibide ikusgarriena, gizaldi onen azken zatirako, ekonomizko gorapenez, ludiko laterri langintzan lenengotariko maila goienera biurtzea da.

Japon, ugartedun lurralde naiko txikia da. Lau ugarte nagusi, ainbat kate-ugar-te ta milla ugarteñok osotua. Bizibidez ain labur daben bere lur ori, eun milloio biztanlek baiño geiagok betea dago.

Eragozpen guztiok izanda be, ta guda ondoko bere industri egituren ondame-nagaz aurkitu arren, aberriak, bere ekonomia geiagotu ez bakarrik, baita aunditze onen neurritz, ludiko ekonomi mailan irugarrena izateraiño eldu da: Burdin-lantegi, tresna-gintza, eun-oiaketa, elektronika, berebilgintza, itxasontzi-langintza eta abar luze bat. Bere salgai-ontzidia ludiko bigarrena dau.

Eta jakintza gaietan, gaurko japondar idazkintza-literatura lanak, sartaldeko joereagaz abesturik, beste errietan be asi dira agertzen: «Etixeruntz itzulbidea», Jiro Osaragi'rena; Yukio Mishima'ren «Uiñen otsa» ta beste eleberripuiñak; Junichiro Tanizaki'ren «Batzuk asunak gura dabez...» 1969'an, Yasunari Kavabata'k Nobel-literatur saria irabazi eban. Arlo onetan, sari irritsu au lenengo emoten jakon japondar bateri, jakintza arloan iru Nobel sari jaso dabez japondarrak.

Ertiarentzat eta izadiari begira japondarrak daben leia ta biotz-berrea, egu-

neroko bizieran eta egiñetan sarri agertzen dabe; etxegintzan, lora-apainketetan, gauza txikien zeatzasunetan...

Teia gertatzea, Japon'en, «txanoyu» deituten yakon ori, ango ertieder, estetika berezi bat da. Au da bere zeregin nagusia: Auts egindako «mattxa» gordiña maira eroan eta or edatea, ta maijabe nor dan, ainbat era dira gertaera ori egitekoak. Benetan, ikusi ta ezagutzeko. Garai ta aldiaren giroan be badaukoz bere aldaketak. Geienetan, ertibaliotsudun ontziak eta tresnari orren gai diran jantzi bereziak bear izaten dira, ta japondar aolku batek diñoanez, teegela edo etxe bat be bai.

Japon'etzaz diardutenean, beste zerbait, bear-bearrez datorkit lumara. Loren gertuerak, «ikebana» deituriko egiñtzea. Ludi guztiak ezagutzen ditun oiñarriak ditu, sorkaldeko erti itxuretan be berarizkoa dalarik. Orain iru mende asitako «ikebana» au, an, japondar budismoaren filosofi-gogamen adierazte bat lez sortu zan. Baiña aldia aurrera, japondarren loren gertuerak, bereziz errikoia izan zanak, erlijio adikizun ori galdu dau, ta izamenaren estetika baten agernaia artu.

Amaituteko, Kaiser sendiatzaz be berba batzuk. Niponen Kaiser jauna, Hiro Hito, 1901'goan jayo zan. Itxasizadi jakintzan ikasle andia danez, muenta barrien agerketeari buruz, liburu batzuk argitaratu dauz.

Kaiser anderea, Nagako, japondar egikeraz, eresi ertian diardu; olerki zalea da, ta orain ia azturik dagon erti baten, kaligrafiaren jarraitzale. Ez aztu japondarren idazkerea orretarako berezia danik.

Bakalseme oiñordekoa, Aki Hito, 1933'an jayo zan. Aita lez, itxas-bizitzian ikasla da, eta tennis eta zaldizketan be jardun oi dagi. Michiki Shoda andereñoagaz, lantegi-buruzagi baten alabeagaz, ezkondu zan. Alaba bat eta seme bi dabez.

Ainbeste urtean lenengoz, gora-egin-bear orren ondorena lez, alako neurri galtze bat agertu da azkenengo auteskunde bultzadaz. Japondarrak baiña, barritasunak eta aldaketak, jaso, artu ta eurenganatzten jakin izan dabe beti. Oraingoan be, olakoren bat izango da.

LETONA



MONRAY

ARKONDARA-GINTZA

ANDEREENTZAT AZKEN-JOSKETAK

Bidebarrieta, 2 **Alderdi-zarra**
21 43 46 urrutizkiña **BILBAO-5**

ARRATZAKO

BARRIAK

Urkiola

RENE TA BAKARNE

Gizarteko alkar-bizitza beti gatza izan ba'da be, gure aldi onetan arazo ori zuzentzeko oiñarri batzuk jarri dira ta jartzen dira, erlejiñoz bera aurretik dala.

Uztail edo garagarillaren amairuan gauza barri bat ikusi genduan Urkiola'n: René ta Bakarne'ren ezkontzea. René, suizatarra zan, erlejiñoz Luter' tarra. Barkarne, euskalduna ta kato-likua.

Luis Alberdi jauna izan zan abade ezkontza aretan eta oi dan lez, berak esan eban mezea.

Luter'tarren artzaiña, euren erako abadea esan geinke, an egoan D. Luis' egaz batera altaran: Au eleiz-jazki bari-rik, soiñeko baltzagaz. Berak esan euskunez, euren eleizkizunetarako soingaiñeko baltza ta bular-gaiñeko zuria —gure Lasaille'tarren antzera— erabilten ei dabez, baiña berak ez eban jantzi ori ekarri: hideoan etorralla lapurren batzuk kendu ei eutsolen.

Ezkontza-eleizkizunean abadea ta artzaiña, biak izan ziran eleiz-gizon: Irakurriak prantzeraz eta euskeraz irakurri zituen; artzaiñak prantzeraz eta abadeak euskeraz. Mezea baiña dana euskeraz izan zan eta artzaiña ez egoan altarean, alboan eta erritarren ondo artzaiño.

Ezkontzea egiterakoan, itaunak, abadeak eta artzaiñak, biak, egin zituen. Jauna-artzeko orduan, tamalez, urten bearra izan neban eta ez dakkt zelán izan zan.

* * *

Eleizkizun onek, erlejiñora ekarri dauken banaketea agertzen dauku. Egun illun eta negargarri baten kristiñau askok Kristo'ren artaldetik alde egin eban eta gaur, gogo onez bear ba'da, banatuta gagoz.

Geroago ta sakonagoa ta sendoagoa da orregaitiño, alkartasunera eltzeko gogo.

Eta zer esan eleizkizun areri buruz?

An argi agertu zan hananduta bizitearen tamala, samñagoa sendi bat osotzeko alkartu bear daben norki biren artean.

Agiru zan, baita, batasunera eltzeko gurari bizia be, Mai baten inguran hatuta, besterik ezinean, Jainkoaren berbea batera entzun ebelako.

Eta dodaz barru-barrutik ezagutzen onetarako gaur-egun agertu diran eleiz-legeak, baiña auxe bururatu jatan: olako ezkontzak meza bako aleizkizun baten egin bear litzakezala: An abadea agertzen zan buru ta nagusi; artzaiña ostera laguntzaille lez. Berbearen eleizkizuna egin izan ba'litz, biak antzera jantzita ta bata ez bestea nagusi lez agertu barik eikean. Ori batasunerako bide ohea izango zan. Eta alkarregaz, Mai Santuan ezin izanik, zergaitik egin mezea? Alkarren arteko jana zertarako, orretarako bear dan alkartasunik ez ba' daukagu?

Ba nituan nere zalantzak lantxu au idaztea bururatu jatanean, baiña nire asmoa ona izan da: Irakurleai pentsau-az.

Ondo dakit, eta gure irakurle guztiak nire bestean jakingo dabe, Urkiola'ko abadeak, eleiz-gizon zintzoak eta jatorrak dirala eta Urkiola'ri benetako euskalkutsua emon dautsoela. Ziur nago: eleizkizun au ondo egia da. Ez beist ba iñork txarto ulertu.

Amaitu baiño len, zorionak ezkonbarriari. Orretarako etorri jakezan eurak be bazkal-orduan an ziran gure taldeko ezkonbarriari. Eta irakurleentzat, kristiñauen artean daukagun banatze ta zaitze onek emoten dauan samintasuna konturaturik, alkartzearen alde otoiñtz eta lan egin dagiela.

GAMIZ

Zarautz

Turismotik bizi ez geranok ere, kezkatuta gabilta Zarautz'ko kaleetan. Azken urte abetan asarri xamar ibilli bear izaten genun. Etzan inun tokirik, alkarri bultzaka ara ta ona. Urrengo egunean lanera jun bear eta goizeko ordubiak arte loak ezin artuta: moskor-abesti, ganora gabeko eztabaida, motorrak abian jartzeko burrundarak... gure aspian.

Aurten, egualdiak ere makalak bai ditugu, kaleak utsik, edandegietan nai aña toki, amibietarako ixiltasun bildurgarria: erria lo. Ta, gure artean: i au ez det udarako Zarautz ura!

Bilbao'n jai izan zuten San Pelayo orreratoko egun artan, emen izan genitun angu biztanle erdiak, autopestetik etorriak; ordun jarri genion izen berria «Avenida de Bilbao». Baiñan, ark zarautz tar turista-artzaillei eman zien itxaropen aundia, ez da berriñtz; udaberriko bukaeraren egun epel artakoa bein bakarrrik izan degu, orduntxe. Arrezkero: «setzegok emen ez prantzes, ez ingles, ez... bilbotarrrik». Ori degu eguneroko ta jaietako jarduna.

«Dirua urri omen zebillek», esaten zidan emen go tabernari batek. Ta, egualdiana bakarrrik ez dala, gure ere igarri diogu.

Ala ere, ez dakit nungo gaztedi ugaria nabaitzen degu emen. Beren ikastaroak bukatu ta onera etorriak, noski. Papar gaiñean, agiri-agirian, nun eta zertan ikasten ibilli dirala erakusten: University of Oregon, French College of Miami, University of Wisconsin, Nevada, Idaho. Olako iru gazte gure alboan kale nagusiko edandegi baten. Alegindu giñuztan gure «inglish» apurrean alkar-izketa bat irakurri, alperrik baiñan.

Jakin ere ba-zekigun, oiei, ongi-ongi ez egitekotan, ez dutela ulertzen edo ulertu nai ez izaten. Azkenerako, euskeraz asi ta, bai, ba-zekiten... «Idaho'koak al zereta ba zuek?», gure. «Ez, ez. Gu, Urola baltzarakoak gure!»

Etzan gure artean iñor ausartu «University» elastiko oiek, soiñean zeuzkaten oiek, nun lortu zituzten galdetzer.

Samñazioak ere emen, ea ba egualdi obetxoagorik izaten degun!

EXTEBAN

Markiña'tik

JAIOTZAK

Ugarituz doakigu gure erriko baratza. Bertoko landarakin, ez urriñetik ekarritakoakin. Oraintsu, gure dakigula (kirkillok ezin sartu muturra maite-kabi guztietan), iru lotatxuok agertu jakuz Markiña'ko iru lotategiotan:

1.—Dantzari'ko Angel eta Laka'tar Tere'nean. Morroskotxu ederra, buskantza baiño biribillagoa. Amatearen bularrari sakaka danga-danga ekin, loaldi galantak egin, nausituen ardura ta zorakeria or konpon esan eta gurasoai al dan zeregiñik gitxien emon... Orixe da jaiotzatik zentzun andikoa berez-berez izatea. Susmo on bat daukagu: sasoida eltzean, aitarene kideko dantzari-txapeldun eta amaren antzeko akeitagitza trepea izango dogula. Gure beintzat orixe nai, Dantzari lako txoko goxoan, txurritada atxakiaz, jardunaldi pozgarrietan jarraitu al izateko, gure eta gerokoak.

2.—Eibar'tar peto-peto batez ezkontuta dagon Zabala'tar Ana Mari'nean. Mutiko kuntzun zuri-gorritzak polita. Kiputx azitik Bizkai'ko lurtean erein, erne ta sortua. Kontuak atara! Ez da edozer eta edozelakoa izango gurasoen euskal odol bikotxari jator erantzuten ba'dautso. Egin alegiñak!

3.—Mentxaka'tar Pepita ta Mallagarai'tar Felix'nean. Aspaldion ertzain dogu Mallagarai jauna, leen pelotari izana. Kale-ertzetan beronen ardurarik beñenatarikoa umetxoena dala esan geinke; biotzak aginduta, ez beste iñok, ikustekoa izaten da gure ertzain aundi ta sendoa, umetxuak, batez be Ikastolatik urten-orduetan, begi zoli ta esku bigunez zaintzen, ainbat beribil artean ezbehar bat jazo ez daki. Iñorenak ain samur jagenen dakianak, zer ez ete dau egingo bere odoleko lenengo loratxuagaz?

Iru umetxuok ez dabe oraindiño izenik. Aitor'en lexe utsean bizi dira. Laster, bear bada barriok AGUR'en agertu baiño leen, Kristo'ren taldean izango doguz; jakiña, Aitor'enari uko egin gabe. Zorionak zuzatzi ta euron landaratu barriai!

OXILLAIN'EN BARRI ONA

Gure arteko kirkillen batek ondo daki Oxillain'go barri. Eredut dogu izan be baserri orretako sendia, zaar eta gazte. Jainko ta euskal zaletasunetan. Angotarren antzeko geitxoago ba'genduz gure errietan... Ez da arrizteko basetxe orretara ezbeharren bat jausten danean, bat baiño geiago artega samar ikustea gure errian.

Kirrikolo ebillan aspaldion Oxillain'go Zelai'tar Begoña neska gaztea, Jaunari eskerrak, ebaketa edo operaziño bat egin ondoren, udako eguzkia baiño argiago ta osasuntsuago geratu jaku. Aurrera, ba, Oxillaindarrok! Gau illun luzeegiaren ondoren, egun argi ta pozgarriak ikusteko zagoze-ta. Zorionak, Begoña!

URBIA'N

Bagillak 29 ta 30. Omenaldi-jai Urbia mendian, ondo baiño jobeto irabazita eukun Aita Lasa'ri. An izan baiño ziberoz bat Markiñar be. Aurretik joanda _egozan_ _egun_ ba-

tzuetarako, oial-txabola ta guzti, Arrate'tar Xabier, Maguregi'tar Arantza ta Ibar-luzea'tar Kontxi dozena bat inguru mutikogidari lez. Kirkillok be arako aizeagaz genozan, baiña ezin. Artu, ba, Ierro onein bidez, Aita Lasa begikoa, orko gain-zelaian ezin opa izan geuntsuna: ZORIONAK! Eta urte askotan emon daitzula Arantzazu'ko Amak Aizkorri inguruetako artzain eta mendizalei laguntzeko indarra ta maitasuna.

ATZOKO ATSOAK

Neska-mutil aldra batek Barinaga'ko auzune baketsu jatorrera jo gendun aurreko jai-egun baten. Ikustekoak ikusi oi dira us-terik gitxien dan tokian. Beribilletik jatsiaz batera, nok uste Markiña'ko emakume talde batez tope egingo gendunik? An egozan, ba, gure erriko andratxuok umorea begietatik, ezpantetik eta oiñetatik erioela. Gaurko gazteok, areina ikusita, jakin be ez dakegen bitako umorea zer dan. Gastelearen betegon illun astur-nak jo ete gaitue, zoritzarrez? Atsegin billa gabiltz ibilli, baiña egiazko euskal gatza antxe, atsegin uretan urtu jaku. Ta kito!

Erri osasuntsua, erri umoretsua, esan oi da, norbere lepotik be barre egiten dakiana.

Nortzuk ete dituk atsuok? bata-besteari esanda urreratu giñakezan. Ta orra Xemein'go eleiz-garbitetaren arduradunak. Lan ori duan dagio astero-astero, iñori ezertxo eskatu gabe, Jainko ta erriaren maitasunez. Bazkari eder bat emoten dautse Parrokiak urtean egin, eta orregaz zeruko atecetan baiño pozago geratzen ei dira.

Egin-egiñean olako bazkal-ostean arrapatu genduzan. Arein abesti, dantza ta inguruetako autsak astindu bearra! Iñogaz barriketan jarduteko astirik ez eban, eta bazter batera joan giñan pentsakor. Gure barruak gauza ber-bera iñoskun guztioi: Zera gaituk gu, zera ta zera bakarrrik. Eta zera lez geldi-geldi egoten baiño etxakiau.

Illunkeran barriro urreratu ta ba-diñotse-gu: Markiña'ra jun nai dozuenien, esan geuri ta pozik egingo doguz oster batzuk. Eta eurak, demontriok: Zeer? Emetik Markiña'ra beribillet? Eskerrik asko! Oiñez etorri gaituk eta oiñez jungo. Txirringa ganien zaarrak.

Eta agur egitean beste au entzun bear oraindiño: Gero arte, gaituk! Naroki'n ixarongo dautsuegu azken txipladarako.

Esan eta egin. Illundu zanean, irrintzi zoli batzuk inguruak ikaratu ta an doaz gure atsotxu gasteok, txoriak egaz baiño bizkorrago ta txairoago, umore onez ijuika ta ixildu eziñik. Bide egaletako sasiak be jakitun el dagoz. Txakurrak zetan esanik ez.

Atzoko atsook eta gaurko gasteok... Zeintzuk gazteago?

ESKERRIK ASKO!

Nori? Ta Kamiñazpi'ri. Berak daki zergaitik; baita gure AGUR arretaz irakurten dabenak be. Ba-dakizu zuk. Probintzian txertatutako bizkaitar orrek, iñongo kir-killek ezin daikela gauza andirik egin. Olan ta guzti be al doguntxuoa al dogunik ondoren betetzen saiatzen gara, euskerari dautsegun itzal eta maitasunez, erri-erria begien aurrean dogula. Or zegok koxka! Dana dala, eskerrik asko biotzez!

KIRKILLAK



eziketa jostailluak eskulanetarakoak irakasketa gaiak

gregorio de la revilla, 1 bilbao - 11

Jolasean ikasi, or zure aurrentzako emoitzarrik onena

ERRIZALE

BARRIAK

Galdakano

Bilbao

Arratia

Oñati

ENE LANTEGITIK

Izpar-argitaratzean azkatasuna dagola ala ez dagola aztertzen aibat mintzatu da, baita idatzi be, bildurka-bildurka izan arrik. Gu, baiña, sarritan egon gara oldoztuten, eta aibat geyago, ezbear edo jazokun negar-garriren bat izaten danean, geuk nai genduken azkatasuna edo azkatasun zintzoa eukiko ba'genduke, ausartuko ete litzake gaurko izparkari asko ondo aztertu ta egi-egiya idatziten? Ez ete litzake aldi ontan beste zuri-keri idatziko egunerokoetan?

Ez dakit zer esan, orain aste bi errian izan dogun estanda ikeragarriak egin dauskuzen kalte ta erioyatzak dirala-ta, ikusi edo irakurri dona ondoren. Esan dogunez, asko idatzi dabe, ezbear ori dala-ta, zeinek geyagoka-edo. Baiña izparkari gitxi edo inork ez dau azterketa sakonik egin, edo idatzi beintzat, zergaitik sortu diran estanda orreik jakiteko. Eta «orreik» diñogu, asko izan diralako azkenengo amazortzi urte oneitan.



Ik uste izan ez arren be, Aitor, ba-dok izpar-laritzan azkatasunik: nai dokan izparringia erosi eikek ba; au, a ta bestea... baita AGUR be!

Azterketa sakon eta zuzena egiteko baiña, ez da naikoa zuzendaritzako arduraduneri galdetzea, txaidean aurkitzen dan edozein langilleri itandu barik, lantoki ortan bertan lan egiten dabenakin itz egiñaz aurrez-aurre. Ez dago esan bearrik, arduradunak eta oncin urregoa, euri ondoen jatorkiezan erantzunak emongo dabezala, eginkizun eta ondoren-goetatik euren izen ona ta agintzaritza garbi agertzeko.

Ez dabez agintari orreik esango landola ortan diran arrisku ikeragarriak eta gure erri onentzat zenbateraino diran kaltegarri. Nire ustez, ba-dago aldi ontako lagi barruan orren-beste argitaratzeko azkatasunik; agerketa sakon bat egiteko beste azkatasun, zurikeri barik.

ERİYOTZA

Ill onen 12'gnean, Muñozguren'dar Jone, Egiluz'tar Peli'ren emazte argi euskaltzalea, Jaunak Bere aldamera eroan euskun, irurogei ta bi urtedun zala. Emakume zintzo au, osasunik sendoenakin aurkitzen zala esan legikean, eta orretara zalakoan gara, baiña usterik gitxi genduanean, gurartetik betiko eruan dauskue. Goyan Bego andera jatorra, eta lagun gaitube aldi samin ontan senar, aizta, neba ta sendikide guztiyak.

EZKONTZEA

Garil onen 13'gnean, aspalditxuko urteotan aurkitzen zan Suiza'tik orretarako etorrira, Buskets eta Urrutikoetxea'tar Bakarne, erriko neskatil lirain baizen azkarra, suisatar Vauthey'tar Rene mutil sendo azkarrik ezkondu zan, Urkiola'ko Andoni deunaren txadon ospatsuan.

EURIA!

Gozokiak ume giñanean artutzen genduzen baizen alai artu zan Garil edo uztaill onen erdi inguruan jausi zan euriya. Ez gure baretetar gitxi ta lur pizkaten jaube diranen artean bakarrik, baita gure erribarruan edo «kaleatarran» artean be. Lurrarentzat ona izan ba'da be, ez dago zalantzarik, guztiz bikaiña ta egokia gure txaideak zear ikusten eta iruntsiten izan doguzan auts eta zikinkerriak kentzeko.

Zergaitik ez ete dira pizkat garbitu ta bustitzen gure txaideak, luzaroan euririk egin barik aurkitzen dan garaian, edonon ura daukagun erria izanik? Ala, beti egon bear ete gara berez jatorkunari adi?

BASA-JAUN

DEUSTO'KO ZUBIA

Ba-darabilgu egunotan zaratarik ugari Deusto'ko zubiaren konponketak dirala ta ez dirala. Ordua zan benetan. Orain-goan eginkizun oneik ber-bertatik asi bearrean dagoz. Garillaren amaieran asiko ziran eta gitxienez iru illibetako luzeerea izango dabe. Gero gauzak ondo burutzeko, zertzeladakaz jarraitu bear, eta erro-errotik doazanez, dan-donori ondo joatekotan, beste seiren bat illebetekote lana.

Bear du bai zubi onek bein da betikoz ez ba'da —gu bere ez bai gara ludi ontan betiko— lan onuragarri bat bertan zintzoki egitea. Ezin geinke lau-bostparen urte bakoitxetan, soñieko zaarrei txatal-ipinkiak ezarri oi dautseezan bezela, antolapen eta apainketa aldizkorrekaz soillik, bere biziera luzatu. Ez ziurki.

Udaldia aukeratu dabe lanai asierea emoteko, ta askorentzat nekegarria izango ba'da be, ondo asmatutako zera dala uste dogu. Berebil eta tarranten eguneroko joan-etorriak ia 60.000'ra eldu oi dira. Urte-aro onetan zubi gaitieko ibilkuntza au, asko be asko gitxitu oi danez, eta egunez, ala ere, ordu batzuetan bakarrik ta gabaz lasaiago, baiña, bai batean naiz bestean, berebil-bide batetik soillik igarotzea al izango danez, oztopoak zertxobait arinduko dirala deritxat.

LORATEGITXOAK

Bilbo'ko kirol-jauregiaren aurrez, gaztelaz «La Casilla» deritxogun tokian, azkenengo urte bi edo irutan ikastola txilik luze motz batzuk izan doguz. Pre-miñazko zera bai-zan orreik ortxe kokatzea sasoi artan, Errekaldeberri'ko ume koskorrik kalean jolas utsean egun osoan ibilli ez eitezan.

Orain, ikastola barri ta duiñak egin ondoren, txabola antzeko ikastol serbitzari oneik bota dituez, guztion postasunaz gaitiera, ta euren ordez, lore-baratz txilik batzuk, jarleku apainkiaz orni-duak eura, toki berberan jarri.

Olan, batasun bat kirol-jauregiak dagiela, beste itxura pozgarriagoa alderdi osoari damotse.

BASARRATE'KO ZELAIA

Santutxu'n, Bilbo'ko ausune gizatsuan, Basarrate deituriko zelaiak tril dagigu. Emen be, lora-baratz egoki bat egin eta laster baten amaitzeko bidean dagoz. Lenen, lur-zola egoki bat ipinten diardue. Dagozen zuzaitzak zaintzen eta barriak aldatzen toki egokienetara. Gaitierazko beste lanak... iturri polita ezartzea, 17 jarleku luze berebat ipintzea, ta bederatz argi nabarmentsu, 25.000 lumens edo argi-neurri guztiz, antolatzea. Eralketen balioa iru milloi t'erdi laurleko or nunbait.

Eguratzeko be bedar xe bide ugariak albo ta aldamenetan. Dana, Bilbo garbiago bat, osasuntsuago bat egiteko asmo biziz. Asko ez da baiña baliatu gaitzean alik ondoen, ta gizadiez maitemintzen be alegindu, Bilbo txukunagoa guztion artean dagigula.

ARREGI'TAR JOSU

Amaitu ziran ba Arantzazu'ko jai nagusiak, baiña jai-buztana oraindiño be dantzari.

Dagonillaren lenengo igandean, San Adrian jai izango dogu Argiñao'ko bizkarrean, eta etxe-koandrak antolatutako arrautzopil leiketea izango bertan. Zortzi arrautza bearko, gitxienez, opillik txikianak, eta epaikaritzan eskua artuko dabenak, «Kirikiño» zanaren loba Miren eta Troka'ko Begoña. Meza ostean, Zeberio'rantz begira; andra ezkonduen euf eta irrintziak, ango mutil garatuai soka-tirara deika.

Biaramon arratsalde, Jose Bizkarra'ren landan, sardin-jana. Goiri'ko txakolin zarrrik eta Jose Bizkarra'en «bizkarretik» txanpan gozorik izango dabe, bertaratuko diran guztiak.

* * *

Aurtengo Lerkai Nobel-saria, Galdakano'k eta Bizka'ak irabazi. Ogei-ogetairu kilometroko bidea bai Galdakano'tik ni nengoa tokira; bitarte guztian basoa ta mendia iontortsuak.

Zeru asarretuaren erraieratik etorrela irudian daumbada bildurgarriak, Bizka' guztia, alderik alde, dadar-ikaratu eban. Ate ta leioak krak-krak, biotzak taupada larrian. Kedar, auts eta zugatz-orriak egazlari aizeetan... Eriotza, negarra ta egoneziña Galdakao ta ingurumarietan. Azkena izan ete da oraingo negar-aldi au?

* * *

«Alemania aurrera olandarren lurraldean». «Etsaia zapaldu ta aurrera doa». «Olandarrak eutsi ta aurrera dagie...» Eta olako edo antzeko zerak entzun nebazan-eta, aguro jagi nintzan erdi lotan, erdi amesetan nengoa oetik..., gudaketa barriren bat ete jatorrigun, Alemani'tik! Baiña, bai zera! Etzan olakorik. Langille di ta nagusien arteko konpondu-eziña, arraintzaleen bizi-eziña, lugiñen bururik jaso-eziña ta beste «eziniñ» askoren «tapal-piko, dana aiztu-arazo ta baketu, ta artalde egin gaitun futbol-otsak besterik ez ziran: Be! Bee!!!

* * *

Aurtengo Sankristobal jaiak, Aramotz'etik etorkigun lanbro-euritan beratuak. Igande arratsalde, orraitio, izan genduan ordu atsegiñik: bertsolari, abeslari ta txaloko jo bearrik. Emen baiña nire kezka ta «aitarenak», abestiaren mamiani ala abeslariaren abots onari eskeintzen ete dautsaguz gure txaloketa beroak?

Abeslarien atzetik gabiltzazenon artean, nik uste, garia baiño pauza geiago dogu. Biztu ta sutu egiten gara «gure Lurra, izketa, azkatasuna, baserria...» ta olako itz samur eztiak abeslarien ezpanetan azaltzean Baiña abesti-saioa bukatzen danekoz, gure Lur gaixoa gaixoa egiten diardugu, euskerea erdel-osiñean ito, azkatasuna atzerri lizun-kerizko katez lotu... gari utsa zala uste genduan pauza ta putza besterik ez.

Makalak eta aulak gara egiz eta benetan ere, eta makalkeririk burua jaso al izateko alegin gitxi egin ere bai. Pautsa, utsa, putza; pipia ta sitsa.

LANDAJUELA'TAR A.

ERRIZALE



DEPURACION DE AGUAS S. A.

URA EGOKITZEN ETA UR LANETAN BEREZITUAK, EDANGARRIAK - LANTEGIRAKOAK - ZIKINDUAK NAIZ IGERITEGIKOAK ZUZENTZEN

+ 32-37-00 - + 31-00-10 - 32-37-01 Urt.

Gordoniz, 44, 12.^a
BILBAO-2

GAZTEIZ'EN

Zuluetarren etxean gordeten dabe J. Saez'en litografi jakingarri eta ikusgarri bat. 1841 urtean egiña da.

Arabar aldun bat, diputadu nausi bat, bere zeregiña artzerakoan, zin egiten ikusten da, bere eskumako eskua Gazteiz'ko Matxetaren gainean ipiñita daukala.

—Jaungoiko gure Jaunari eta Andre Mari bere Amari, lau Ebangelio santuen itzen esanetan, eta eskumako eskua bere gainean ipiñita daukazun Gazteiz'ko Matxetaren lotsa eta bildurrez, zin egiten dozu aldun nausi lez bete-betea eta zintzotasun osoz aldeztu eta zainduko dozuzala erri onek daukazan eskubide, azkatasun, zergarik-ez eta bereizkuntzak?

—Zin egiten dot.
—Orrela egin ezik Jaungoikoak kontua eskatu eta zure burua ebagi daitzula, zure eskua bere gainean ipiñi dozun Matxetaren antzeko galtzairuzko txarrantzak.

—Zin egiten dot.
Olaxe jokatzan eben arabarrak euren eskubideak zaindu eragiten, gizonaren kontzientziari deika fedearen maitasunez eta zigorraren bildurrez.

Gazteiz zarrean an dago Matxetaren plaza.

Kondaira luze eta bizia. Istori zar eta garrantza. Danen gain, gizonaren eta erriaren eskubideak.

* * *

Gogora dakarkit onek XII gizaldian arabar Errioxa'ko foruen zerbit. 1165'eko Laguardia'koa gogorra da eta zeatza. Gaurko pentsakera eta bizikeran ez siñistutetkoa. Gogorak diran lez gure errien iraspen edo fundasiñotetan agertu, erakutsi, emon eta artzen ziran eskubide, nortasun, jabetasun eta altasunak. Bakoitza bere etxean jaun eta jabe zan. Bete-beteko nortasunez. Inor ezin sartu zeinkean bestearen etxean indarrez, edo maltzurkeriz. Sartzen zana illagaitik, etxeko jaunak ez eban bere gain artzen gizon aren eriotzik. Gizonaren eskubideak zaindu erazitako baimen gogorra, zabal.

Olakoetatik etorri zeinkean gazteiztarrak geroago matxetaren bidez eskubideak zaindu eragiteko agertu nai izaten eben pentsakera eta bildur sartzea.

* * *

Gazteiz euskalduntzen?
Joxe Lasa'ren lan polit bat irakurri neban oraintzu asteroko onetan. Itxuraz, ango bar edo edango baten, itxaropen oneko ardaia artu al izan eban berak.

Baiña noiztik ez dagoz Gazteiz'en euskaldunen bar eta edagoak?

Eskoritz, Aretxabaleta, Aramaio, Otxandio, Arrasate, Gatzaga eta inguruetakoa gizonak dira ango edari-etxe eta jatetxe askoren jaubeak eta arduradunak. Ba dogu euskaldunok era orretako bizi-modua aurreratzeko zaletasun eta oitura. Gaztelarrak «kolonialen» dendari izateko jokera daben lez.

Gazteiz'en euskeraz egitea ez da ain gaitza. Esan nai dodana, euskeraz jarduteko laguna billatzea ez da ain zaila. Ni-neuk, asko ibilli ez-arren, ainbat ezagutzen dodaz erri aretan euskeraz dakienak, olako tokietan. Baiña norberak ten egin bear, norberak beartu bear askotan.

Lasa'ren lanak beste zerbaite esan leike. Mostradore atzean gorde barik, gaur jaubeak eurak dei egiten dabela edo ta laguntzen dabela an euskeraz egitera, edo ta erakutsi nai dabela an euskeraz egin leikela. Ala dala, nai eta bereziren batek erregelarik egin, ez poztutzekoa da.

Lengo matxeta baiño atsegiñago da Errioxa'ko mustua gizona makurtzeko eta menderatzeko. Eta guk, onetan, makurtu bearra dogunik ezin ukatu.

* * *

Gazteiz'en sartu, euskera aitatu eta Olabide bat izentatu barik basterrean lagatea ez, litzake egoki.

Orra arabar jator bat. Arabarren osotasun eta beretasunez. Jaio zanean, ez ekian euskerarik.

1959 urteko udabari aurretikoan, Olabide'ren omenaldi bat egin zan Gazteiz'en. Ondarrutarrak an izan giñan teatro jai bat emoten, jai bateten. Euskeraz, jakia. Antzokia, teatro-lekua, bete.

Gogoan daukat Aita Goenaga'ren itzaldiko zati bat. Iru jesuita Orduña'n ibiltzan. Ibilli, atsedan orduan. Euskeraz berbetan. Emakume batek entzun eta arrituta:

- Euskeraz berbetan?
- Zegaitik ez?, erantzun Olabide'k.
- Eman Orduña'n, sekula egiten al da ba?
- Eman eta nun-nai. Jakin egin bear orretarako.

A. ZUBIKARAI

—Jakin! Emengoa ez da izango ta, ala bai.

—Ez. Gazteiztarra naz.

—Gazteiz'koa eta euskeraz? Ba! An ikasita ez beintzat.

—Egia. Ba dakizu nun asi nitzan euskeraz ikasten? Valladolid'en. Eta gero Salamanca'n sakondu eta Galicia'n geitu.

Andrea «sursunkordan» geratu ei zan, entzuten ebana siñistu ez nairik, baiña ori zan egia.

Eta gero, ikusi bere lanak:
«Giza-soña».

«Loyola'tar Eneko deunaren gogo inar-kunak».

«Kisto'ren antz bidea».

«Itun barria».

«Itun zar eta berria».

Ez joan urrun bere billa. Gaur bizi balitz, edo obeto esanda, gaur bizi izan bazan, 105 urte eukiko zitun.

Bizi bazan. Ori egia. Bizi leikean. Ez arritu. Araba'n bizi leiz urte orreik eta geiago be. «Memorial Histórico Español» en irakurrita daukat: «En el puerto de San Joan, como vas de Salvatierra para Victoria, se hallan yerbas salutíferas... En este puerto hay un lugar donde los hombres viven mucho y algunos llegan a ciento veinticinco años». Orra Arabarrak. Eta Olabide arabarra zan.

«Orrixe» bera be beragaz geratu zan urte batzutan Lagundian, jesuitetan. Eta arek esaten ekian, Olabide onek Azkue'ren iztegi osua iruntsi ebalu bere ikastaroetan, dana buruz jakiteko bestean.

Merezi ete eban gazteiztar onek gaur gure oroitzu au berari eskintzea?

* * *

Bizet'ek musika ipiñi eta opera entzutetsu biurtu eban «Carmen», Merimée paristar nobela egilleak idatzi eban. Idazle onek euskeraz ba ete ekian? Ala dirudi. Baiña nun ikasita?

Atsegin izaten eban berak ijito arrazokoak agertzeko. Bere «Carmen»ek be ba ekian euskeraz. Euskeraz ekialako mendetu eban Joxe, elizondotarra, Sevilla'n soldatu egoala. Bera, Carmen, Etxalar'koa ei zan.

Gazteiz'ko oroitzu onak daukaz Merimée'k eta ain zuzen be euskera kontuan.

Egun baten Montijo andre andiari idatzi eutsan: Atzo, Gazteiz'ko kotxea, menditar eta Bizkai aldeko emakumez beteta etorran. Bata bestea baiño emakumez. Euskeraz arinkeri batzuk esanez, eurekin artu-emon on eta atsegiña euki neban.

Oraindik aste bete geroago be, Baiona'tik egindako karta baten: Gazteiz'en dagozan neskatilla serbitsariekin euskeraz polito ikasi dot.

Orra nun ikasi eban euskera erbestetar batek, beste askok aaztu edo baztertu eben lekuan.

* * *

Gazteiz'en barruan egiten da gaur Armentia. Iñoz Armentegi. Burdeos'tik Astorga' rako erromatarren bidea emendik igaroten ei zan. Araba'ko lenengo obispoak emendik datoz. Ustez IX gizalditik asita. Bertako eleiza, XII'ekoa. Eder eta ikusgarri. Arabarren zaindaria, Prudentzio deuna, goratzen da bertan.

—Estibaliz ete da Araba'ko monastegirik zarrena?

Araba'n, zarrago, Añes, Ayala'ko lurraldean. Bere denporetan San Millan'go fraileak serbitzen eben. 804 urtetik ezagutzen zan.

Estibaliz X gizaldikoa da.

Bi atzerago sortuak. Alborniz, Aperregi, Barika, Bolibar, Madaria, Mañarieta, Zuya'ko Oro eta abar. Euskal izenak, istorirako.

—Oraintzu Gazteiz inguruko Aberasturi'n nitzan. Erriaren izena, etxetako bizilagunen izana? Laike. Bertan be euskal izeneko etxe eta tokiak. Euskera garbian ipiñiak. Ai, onetan, izenekin izana txalotzeko bagengokez!

Zein gogoratzen da gaur Abendango, Adurzana, Arrarain, Zarriko-urri, Sansoeta eta beste erri txikiak? Gazteiz'ek iruntsu zitun. Gazteiz bera, gaur, Vitoria'k aztu eragin dauku. Bizi legea? Niretzat mingarriena irakurle askori esan bearra ni ikusten nabillen Gazteiz au euren Bitorixa dala. Askotan izenik be ez dogu gorde.

—Gazteiz'tik Miranda'rako bidean, Castilla kalean, etxe zabal bat dago. Euskal izena dauka orman: Etxezarra, Iru balkoi. Egaleko baten: Hic Napoleo I Imperator habitavit. Anno MDCCCVIII.

Ala ta be Napoleon'ek emengo oroitzu onik ez eban eroan. Ain zuzen be inguru oneitan, Errekalegor'ko zubian laga eban errege kotxea bere anai Jose'k, eta zaldi gainean al ebanik ariñen igesi.

Gazteiz'ko kontu barriak beste baten esatea leike. Gaur, arin-arin, gure oroipen batzuk esateko estu ibilli gara.

AGVR

Apartado n.º 2
BILBAO

FRANQUEO
CONCERTADO
08/55

Erantzun Bat?

Sarri askotan, bai aoz, baita idatziz ere, zein eliz-kutsu gutxi dabenak, zein urbedeinkatuan murgilduta dagozala iruditzen jatazan emakumeak, itaun au egiten dauste: Zergaitik AGUR asteroko idazle bat edo bestek beti ta beti burruka gaiak darabillez? Zergaitik besteen zapi-loiak kakoan aixetuten ditue? Ez ete da ori geiegikeri bat?

Ni ez naz iñor galdera orreri ebatzi bat emoteko. Ba'leiteke gizon jakitun eta zintzoen arteko alkarrizketa sakon batek itaun ori ebatzitea. Dana dala, eurak diñoen bezela geiegikeri bat ba'da, ez dago ondo. Siñesdunok beti egiagaz, zuzentasunagaz eta maitasunagaz jokatu bear dogulako.

Baiña geiegikeria ete da ala ez ete? Bearrezkoa da ala ez, burrukalarien jokera ori? Ez dakit zer esan. Nik argi ta garbi dakidana, auxen da: Norbaitek zerbaite esan bearra egoala, bada, asko ta asko, leengo gauza guztiak ukatuaz eta sasi-jakitun edo giza-azkar baiña Jainko-bakoen eritxi ta asmoak ontzat artuaz, Euskal-erriaren izatea bera, ta kristautasunaren mamin eta muiña birrinduterañño doazela.

Tamalez, ziraunaren eta satorraren antzera, idazti, izparringi, itzaldi ta zabalkundearen bitartez, siñesdun asko ta asko lilluraturik izan dira; elizgandik guztiz aldenduak, jakituri ta aurrerakuntza guzurrezko baten izenean, eta gaitz orren aurka zerbaite esan bearrean gengoan. Orregaitik, AGUR'eko idazle batek edo bestek, uste onagaz deadar eta eup egin dabe, uste onagaz eta onerako izan daiten.

Geiegi izan dala? Ez dakit. Alkartu beitez, argi jokatu beie danak, nor zer dan eta nundagoan jakin dagigun, erria ez naastauteko ta siñesdunok nogaz ta nundik joan jakin dagigun.

Biotzetik urtenda esango dautsuet, batez bere irakurle siñesdunoi, zuen bakerako ta ziurtasunerako: Jainkoa ontasuna bera dala, ta Bere izaki ta seme dan gizonari argi ziur bat, bide bat emonez ba'leutso ez litzakela izango guztiz ona. Baiña bide ori, argi ori emon dautso: Bere Seme Jesus bialduaz elizea sortzeko.

Eliza ori apostolu ta batez ere Pedro'ren gain ipiñi eban. Orixe da gizon guztientzat argi ta bide, eliza katolikua bere akatzakaz, bere utsunakaz, baiña eliza onek egiaren muiña iñoz bere ez dau galdu ta ez dau galduko...

Beragaz gagoz eta egongo gara baietzkor. Bere, gizonakandik datorkiazan, akatzak garbituten aleginduko gara beragaz batera; elizatik urten бага. Batikano Batzar nagusia ezkerotzik, asko edertu da elizaren arpegia, lagundu dagiogun guztiok indartsu ta maitasunez.

Noiz, gure artean, «Euskaldun Kristauen» alkarte iraultzaille bat, zuzentasun eta gizarte-sozial gaietan ere, alkarte aurrerakoi bat? Izan bedi, arren, ainbat lasterren!

GALLASTEGI'TAR KAULDI

OARRA

Oporraldiak be ba-dira-ta, lan gitxi naiz asko egin, ikastarokoa ondo naiz txarto bukatu, eguneroko zeregiñak utzi ta or joaten gara inguru barrien billa. Sarri, jateko txarrak, logela kaskar eta oe labor ta gogorak, edo bero izugarri naiz euri lanburutzu, neke, asperraldi, eltxu, euli, ume negarti, txoper asarre, bide galtze ta etxean ederki gaintzen doguzan beste naskagarri txiki izan arren, pozik...

Guk be, igaz eta aurrerago lez, AGUR onetan, gure gaizki irabazitako oporrak izango ditugu. Bakizu ba, irarkolakoak be, euren oporraldiak izan bear izaten dabez-eta.

Orra ba, Dagonil onetan, zenbaki bi bakarrik aterako doguz, au ta urrengoa, ez zaite ba urduritu besterik ez ba'dozu jasoten Iraitllera arte. Ta, ez uste izan, or joan garala ankaz-gora, euskaldun-gaizto batzuk nai leuken bezela. Gure ososana ez da ona, ezta zuetariko askoren laguntzea be bear aiñakoa, baiña zuen biarko utzite ori, ta gure neke gaindu eziñak eta zor izugarriak gora-bera, emen jarraituko dogu, guk be, saguzarren aiñako bizia dogu-ta.

Opor oneitan indartu, aztu bearrrak aztu, ta or izango gaituzu Irallean, indar barriturik. Ondo ibilli!

AGURREKOAK

AGVR

V URTEA
149 ZENBAKIA

ASTEROKOA
1974 - DAGONILLA - 10

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

Deustu'n Ikasi

Barri pozgarri bat irakurri dogu oraintzu izparringietan: Deustu'ko ikas-tetxe Nagusian, baimendun izateko egiten diran azken-azterpenetan, 220 ikasletatik 186'k ondo urten dabela.

Ainbeste ikaslek txarto urteten daben aldi oneitan, zenbaki orreik poza dakarskue. Jakite ta elerti-zaleen artean 104 baimendu barri daukaguz eta kondairazaleen artean 53 baimendun barri eta legegizon barrien artean 82.

Zergaitik ete da orrenbeste ikaslek ondo urtetea? Ikasle onak diralako? Irakasle onak diralako? Onenak baiño joaten ez diralako? Ondo urtetea erreza dalako?

Deustu'n asko ikasten da. Ori egia da, naizta beti izan gogo aundi barik joaten diran batzuk. Eta irakasleen artean be, guztiak goi-maillakoak ez ba'dira be, asko dira guztiz onak. Jakitunak eta irakasten trebeak diralako.

Ara sarreran, orain arte beintzat, ez da izan eskabide gogorrik, orretan ara doazan ikasle arruntak izan leitekez.

Ez dogu ukatu bearko ba, ikastetxe onak, gure errian lan ederra egiten dauanik.

Iñoz entzun dogu, an, maillakeria edo klasismua onartzen dala, baiña bertan barruan bizi izan garanok, eta onetan jakite ta elerti-zaleen barriak baiño ez dakidaz, ez dogu ikusi olako maillakeririk. Ezin neinke ezer esan lege-gizon eta ekonomista edo domu-ikasleai buruz. Gu izan giñan arloan, mailla guztieta-koak egozan eta ezelako maillakeririk ez genduan ikusi. Alkarren itzaltasun eta maitetasun ederrean igaro genduan ango aldia. Eta gaur, an ditugun adiskideak be, orixe diñoskue.

Eta zelako jokabidea dago an erri-arazoai begira?

Gai onetan gure ametsak eta gurariak aundiak dira, gaur daukaguzan ondoren lortuak, osterako oso makalak.

Baiña egiten da zerbait Deustu'n Erriari begira eta al dan bestean.

Jakite ta elerti-zaleen artean: urte bitan eta astero iru ikas-aldi dirala ikasten da euskerea, «Lingüística Regional» izenarekin.

Kondaira-ikasleen artean: Euskal-erriaren kondairea naikoa astiro eta ondo ikasten ei da.

Lege-zaleen artean: Euskal-erri'ko lege zarrak kontuan artu eta ikasten ei dira.

Ikasleen arteko giroa, gure aldiaren beintzat (eta iru urte baiño ez dira andik urten gintzazela), ez egoan erri-kontzientzi asko eta ez erriaren arerio agirikorik be. Eundik gora giñan ikasleak eta neu bakarri nintzan euskera berba egiteko erretasuna neukana. Beste bi edo iru apur bat ekienak.

Irakasleen artean, beste arazoak ez ziran konturatzen, guztiak ziran euskeraren lagun onak. Gaiñera ez neuke ulertuko zelan izkuntzalari bat euskeraren arerio izan leiteken. Irakasle bi ziran euskera ondo ekienak eta beste guztiak sarri esaten eskuen euskera jakiteko gurari bizia enkela.


Baimena lortzeko maixu-lan txikia euskeraz, eta erderara itzulita, agertu neban, eta orretarako be ezelako eragozpenik ez neban aurkitu. Euskera utsean ezin eikuan aurkeztu, aztertzaileak erdeldunak ziran eta.

Oraintxe diardut maixu-lan nagusia egiten eta euskeraz aurkeztu gura neuke. Ez dot uste eragozpenik izango danik.

Esandako guzti ori eta esan daikezan beste gauza asko, ederrak dira eta poza artzeko bide dirala esan bearko dogu. Baiña ez da naiko. Gure kultura-bidean, lenengo oinkada bildurti batzuk baiño ez dira.

Eta noizko goi-maillako ikastetxe euskalduna? Euskerea gai lez eta gai guztiak euskeraz irakatsiko dituna? Ori izango ete da gure Deustu'ko Ikastetxeak Erriaren kondairan izango dauan elburua?

Geroa illuna da eta nork igarri nondik etorriko dan gure jakintzearen salbapena?



Andra-Mari Jaiak

ONDARRU'N

Egin daigun kontu kanpaiak eta su-ziriak (bolanderak) aidean dabiltzala. Sakristau eta aguazillen jaiak.

Lenakoak esaten eben:

Kanpai eta txipli-txaplak jaietako ozpalak.

Orreik kenduta, ara aurtengo Dagonilla'ko Andra-Mari jaiak:

10'n.—Gabeko bederatzietan: UMIEN TANBORRADEA

11'n.—(Igandea)

Goizeko 9'tan.—Erriko umien rondalla ibilliko da kalez kale.

10,30'tan.—Erraldoi eta buru-andiak kalez kale.

12,00'tan.—Umen kirol barregarriak.

Arratsaldeko 5,00'tan.—Igari, estropada eta beste agergerriak, umeak eginda

8,00'tan.—Erbesteko ume-abestaldi baten agerpena, Donosti'ko Giñola eta ume bertsolariak.

14'n

Arratsaldeko 5,00'tan.—Eskuzko pelota jokuak.

7,30'tan.—AGURRA, Antigua'n.

9,00'tan.—Orkesta-txiki batek eta txistulariak lagunduta, erromeria.

15'n.—Andra Mari eguna

8,00'tan.—Kalez kalezkoak.

9,00'tan.—Kresala'ko txistulariak.

10,00'tan.—Erri-meza, Antigua'n.

Eguerdian: Txanpa taldearen dantzak.

4,30'tan.—Eskuzko pelota-jokuak.

9,30'tik aurrera.—Erromeria. Enkartsañoetako Musika-taldeak eta orkesta txikiak lagunduta.

11,00'tan.—Gau-suak.

16'n.—(San Roke egunez)

12,00'tan.—Yurrebaso 180 kiloko arriagaz eta Olazabal, 132'koagaz, pelota tokian, indar-agerpenak erakusten.

Jai ber-bertan: Yurrebaso (aizkolari) eta Aretxa (arri-jasoten), Ayerbe (aizkolari) eta Aretxa II (arri-jasotzaile) alkarren aurka. Azkenetan, Yurrebaso'k 113 kiloko arri biribillagaz erakustaldi batzuk.

4,30'tan.—Pelota jokuak.

Gabean: Erromeria, Enkartsañoetako Musika taldearen gain.

17'n.—Arrantza eguna

Goizeko 9,00'tan.—Kalez kalezkoak.

10,30'tan.—«Saliña Saliña» dantzaldiak, kaletatik zear.

12,00'tan.—Euskal dantzen bosgarren sariketean. Jai berean, Lasarte eta Etxaburu'ren ekitaldiak.

Ordu berean: Marmitako eta atun errearen sariketean.

Arratsaldean, 4,00'tan.—Treñeru txikien estropadak.

Gabean: Lekeitio'ko Musika taldea, erromeria alaituten.

11,00'tan.—Gau-suak.

Agur Ondarrua'ko

Udearen berotasunean sartuta gagozala, ona emen Portugal eta Grezia'ko erriak udabarri giroan, demokrati bideetatik bakarrik lortu legiken zorioneruntz abiatu.

Ainbat neke, lan eta buru-auste izan doguzanok, atsedean labor apur bat irabazi dogulakoan gagoz, baiña ezin asteroko lan oneri uko egin; euskerearentzat udabarririk ikusten ez dogun bitartean beintzat.

Dagonillean gagoz, Andra-Marietan. Euskal-erri'ko beste toki askoren antzera, Ondarru'ko jaiak. Ondarru'n baiña, bai ete udabarririk?

Ondarru, lendik, aspalditik maite dogu. Ondarru, negurik baltzenean ezagutu gendun orain dirala ogetaren bat urtetik gora. Baiña neguan, sukaldeko berotasunaren inguruan pillotuta, alkartuta, batuta egoten dira sendiko seme-alabak be. Alantxe ezagutu gendun orduko ondarrutar erri-errizalea.

Gipuzkoa ta Bizkaia'ren mugan dagoan erri orren giza-bizitz bereziak, euskal-kutsuzko kabi ederra irudian; euskerearen gordelekurik egokiena. Makiña bat joan-etorri egin gendun itxas-ertz orretara. «lenengo ekaitz» a erdi bareturik egoala, ta bigarren «ekaitz» sortu baiño len. Onerako? Txarrerako? Aurrerako giñala? Ez dakit nik zelan eta zertarako, baiña bai erriazetasun garbienak bultzaturik, ameslari ta girorik paketsunean.

Olako baten, menditik ibillaldi luzea egin ondoren —ez egoan orduan berebillik alkarikustek aukeratzeko— «Gelaxio» nean marmitakoa artu bear gendula-ta, aurretik eskatu zan, eguerdian etorriko giñala esanaz. Janari eder orregaz betekada galanta egin ondoren, txipiroiak jan genduzan. Bertako neskatil dotore batek, ea akeitik artuko gendun, itaundu euskunean, gugaz egoan bat benetan asarretu zan, marmitakoa noiz atera bear eben galdetuaz. Neska aren eta gure barreak ez dira aztutekoak. Gure lagun a, «marmitakoa» señoirituen jatekoa zalakoan egoan, eta txipiroien ostan aren zain!...

Gauzak zelan diran, lagun a ta ni, gaur, iritzietan aldenuta gagoz, eta irugarren maikedea an, derrigorrean erberteratuta. Mai inguru aretan, bat giñan iru lagunok eta erri-zale ziran ondarrutar besteak... Gaur, Euskal-erri'ko irudi negarriak izatera eldu gara.

Zer nai dozu, irakurle? Ez nai gauzak kolkoan gordetzearen zale, ta orregaitik, argi esango dautzuet, orduko gure alkartasuna ta ondarrutarren orduko batasuna, pozgarriak zirala nitzako. Baiña, bein baten, «bigarren ekaitza» sortu eben, eta gaurko girora eldu gara. Nor errudun? Nor gorrotoaren sumoille?

Ez dot inoiz nere iritzia agertzeko bildurrik izan. Orain zortzi bat urte ezagutu nebazan gazteekin, ez dot inoiz eztabaidarik izan. Adiskide jarraitu dabe batzuk, arrezkero baiña, sakabanatuta aurkitu nuen Ondarru'ko erria. Ille para bat dirala, areitari-ko gazte bat, aurrez-aurrez nerekin ez topatzearen, alborra begiratzen ikusi neban. Gero beste batek inostanez, euren seme-alabak guztiz ondatu baiño len, gazte aren eta antzekoen eskuetatik kendu bear izan dituela... Gaur, Euskal-erria ta euskaltasuna txikitat daukeen artekoa da nere antxiñako lagun gaztea.

Gitxi gara ta amar milla zati egin gaitue euskaldun gijazo edo ganorabakoak. Barrio bere, nor errudun? Bear ba'da, bakoitza nor zelakoa dan agertzeko erarik-eza. Baiña sarritan, eta ez Ondarru'n bakarrik, erriak geinetan baiño, dozenerdi bat sasi-intelektual edo diralako gizon «irakurriak».


Gizon «irakurria» bide zuzenetik ba'doa, eredugarria izan leiteke erriarentzat, baiña gizon «ikasi» ori, enpatxuz, arrokeriz edo konplejoz josita, bide orretik abiatzen ba'da, kaltegarriena ta erdibitzaillerik aundiena izatera eldu leiteke. Iriztiak eta «teoriak» zelakoak diran jakiteko, itzeri ta jarduneri barik, ondoreneri begiratzen aspalditik ikasi gendun. Maitasunaren ordez, gorrotoa; batasunaren ordez, erdibitza; alkartasunaren ordez, ikusi-eziña zabaltzen daben igarlerik ez da gure begiko izango.

Olako asko dagoz baztarrak zear sakabanatuta, baiña ez dogu itxaropenik galdu. Portugal, Grezia ta beste jazoereri begiratu ezker, argi agertzen da gure alkartu bearra. Ezin jarraitu izango dogu banantze onetan sakontzen. Bitartean baiña, erriaren zentzun onak galbaituko ditu igarleak eta sasi-igarleak; erriazaleak eta erdelzale ixillekoak.

Ez dakit zelan, baiña Ondarru'tik asi ta urrunera joan nai. So dagigun barriro be, Txomin Agurre'ren jaioterria, gutzat zoragarria dan itxas-ertza; maitasuna, batasuna, zuzentasuna, paketa, ta gure abeslari gazteak opa daukuezan «tasun» guztiak bertarako eskatuaz.

Eskerrik beroenak Ondarru'ko gure lagun guztieri —zenbat diran jakiteko ez dago orri onetara begiratzea baiño— ta cuneko «zenbat gera»n ikusita, erbesteko aize orreiri bizkarra emongo dautselakoan, gure bosteko anaikorrean, gure iritziekin bat ez dotozan guztieri be.

ARENAZA'TAR JOSU



Oñati'ko Batzarrak

(Garillaren 8'an asi ta 13'an amaitu)

Sei egunez egon izan da baturik Oñati'ko Beneditar lekaiemen komentuan abade ta erlijiosoen moltzo andi bat.

Erabili izan daben gaia, auxe: «Eliz-otoitza gaurko Euskalerrian». «Eliz-otoitza»k, Elizaren otoiitz ofiziala esan gura dau, au da Salmotegia ta abar.

Batu izan gintzazanok, 90 bezelatsu: 25 bat abade; 35 erlijioso, or nonbait; ta 30 bat lekaieme (monja). Ori, egun oro, biltzen gintzazanok; ortik ganera, emendik edo andik, beste batzu, be, etorten ei ziran; ta noz edo noz, eun baiño geiago be, izan gintzazan.

Bertako Beneditar lekaiemeak, 30 bezelatsu dira ta danak euskaldunak; eta, au da andia!, dana euskeraz egin oi dabe beti, koruko otoiitzetatik asi ta yan tokiko lekuraño. Ez nekien ori ta orain yakin dot. Zorionak Beneditar lekaiemeai!...

Oñati'n ba ei dagoz beste komentu andi bi lekaiemeenak; bata, «Garoa» eleberriko Malentxu, monja sartu zana; bestea Santa Ana'ko komentua. Komentu orreitan, be, euskaldunak dira; ta orreitatik, be, etorriko ziran lekaieme batzu batzarretara; baiñan euren Ikerleak (Bisitadoreak), zoritxarrez!, ez eutsen itxi, etxetik urteten.

Orregatik, egun batean komentu batera ta bestean bestera, gu danok, abade, fraide ta monjak, areikaz ta arein elizetan otoiitza ta Eukaristiaren liturgi osoa ospatzera yoan gintzazan. Eta zein ederto ospatu gero danok batean!...

Izlariak ta itzaldiak.—Entzute andiko izlariak etorri yakuzan, etorri be, irakaspenak emotera. «Bellok»etik «Iratzeder» euskal olerkari gorenetakoa, ango Beneditarren Abata dana; Gazteiz'tik Oñatibia'tar Iñaki, ango Mintegian (Abadegaietxean) irakasle dagoena; Donosti'ko Mintegi'tik Lekuona'tar Yon Mari, abade gazte, yakintsua; Bilbo'tik Deustu'ko goi-ikastolan irakasle dan Nuñez'tar Pedro eta baita Otaegi'tar Yon, Sakramentinoen Nagusi Probintziala; Markiña'tik Akesolo'tar Lino yakintsua, ango Karmeldarren Nagusia; Erroma'tik Agirrebaltzategi'tar Paulo frantziskar gaztea; Estibaliz'tik, ango Nagusi Baztarrrika'tar Isidro ta Ozaeta'tar Emiliano A.; Lazkau'tik barriz, Muxika'tar Errupin ta Apaolaza'tar Agustín Beneditarrak.

Agirretxe A., ain erritar danak, egun bat, osoa, euki eban bere ardura. Lekaieme bat, be, izan zan bere mintzaldia irakurri euskuna, Egileor'tar Karmele, Bilbo'tik etorria. Ta ganera egunkaridazle bat, be, agertu yakun egun batez; ta au, be, emakumea, Oñati'ko Arrazozola anderea. Euskera ba ekiala, baiña ez egoela oituraturik olango batzarretan egitera; ta onek bakarrik egin euskun erderaz: labur, labur.

Muxikak ta abestiak, egun oro, zuzendu euskuzena muxikari ospetsu ta yayoa: «Barturen» Pasiotar A. gaztea.

Ta zer gaiak azaldu euskuezan izlariok ba.—Asieran esan dodan lez, gaindizozko gaia, «Eliz-otoitza gaurko Euskalerrian» izan zan; ta orren inguru bakoitzaren mintzaldiak.

Batek «Eliz-otoitza» berriztatzeko erabili izan daban burubideak; besteak salmoen azterketa olerki aldetik edo otoiitza euskal-literaturan edo salmoen kondaira zaarra edo euskerazko «Salmutegi» barriaren agertzea ta erakustea ta eliz-otoitzaren teologi barria; edo Eliz-otoitza ta euskal-pastoralta, ta abar, ta abar...

Izlari guztiok zein baiño obeto egon ziran; ta gogorakizunak, be, ondo baiño obeto agertu euskuezan.

Eztakit, zer edo zer isillean izkutu yoan yatan. Egunguztiak bete-beteak izan genduzan; ta daitekena da, zer edo zer aztuta yoatea. Barkatuko al daust dala danak.

Nondik eta zelan sortu ete zan batzar andi au.—

Ba dira iru edo lau urte, «euskal erlijiosoen biltzarra» Bazkundera yaio zala; ta ordutik, urte oro, bi edo iru eguneko batzak egin izan dauz Loiola'n.

«Euskal erlijiosoen biltzar» au, sailletan, zatitua dago; ta sail bat «Etxea» edo «Etxeko bizitza» deritxona da.

«Etxeko bizitza» sail onetan, yoan-etorri andi-andia dauan gauza bat, «Eliz-otoitza» erlijiosoak batean egiten dabena da. Orren adar bat Oñati'n ospatu dogun astea: «Eliz-otoitza gaurko Euskalerrian».

«SETIEN» gotzai yauna.—Azken eguna, au da seigarrena, Arantzazu'ko Santutegian egin genduan. «Setien» gotzai yauna, be, etortzekoa zan egun orretarako, amabietako meza berak emoteko buru bezela, mezakide guztiokin batera Arantzazu'ko Andre Mari'ren oiñetan. Baiñan, azkenean, uste gabeko eginkizun bearrezkoa etorri yakola-ta, bere ordezkari «Zunzunegi» yaunak abestu eban mezea.

Eta itzaldian iru puntu irakurri euskuzan, «Setien» yaunak esanak:

Lenengo, Lekaidiak gaurkotu bear dabela, au da gaurko aldien azi-orrazietara egokitzea, bear-bearrezko dabela.

Bigarren, eliz-barrutian oso mendau (txertatatu) bear dabela, au da ez bakarrik lagundu alik eta geien eliz-barrutian; baita danean, eliz-barrutikoak egin bear dirala.

Irugarren, lekaideak ta lekaiemeak Euskera biztu ta bizitu ta indartu bear dabela Euskalerrian.

Neure belarri murriak olan entzun eben beintzat. Eta an danak esaten ei eben: noz izan dogu olango gotzairik Euskalerrian?... Iñoz be ez!...

Baiña ordu bietarako eldu zan ta orduan beragaz batera bazkaldu genduan danok Santutegiko ostatuan.

Bazkal-bitartean, umorea ta poza ikusi oi zan danetan. Alkiza'ko ta Belauntza'ko abade, «Agirre» ta «Garmendia» yaunak bertsoak ta kontuak ta «Ataungo ebangelioa» entzuteran emon euskuezan. Baita «Toledo» A. lekaiemeak, olerkia irakurri eban, antxe bertan orduan asmatua; eta bardin, Logroño'ko Mintegitik etorria zan «Zerio» abade euskaldun barri ta olerkariak; baita «Salaberri» abade gazteak. Beste egun batez, Tolosa'ko lekaieme bat, be, bertsoan yardun izan zan guztien aurrean ta erraztasunez ganera. Pena dot emen ipinteko aren izena ez yakitea... Izan ziran benetan parreak ta algarak ta bullak...

Azkenean danok zutunik «Agur yaunak» abestu genduan, olan amaituz «Eliz-otoitza gaurko Euskalerrian» gai ederrari eskeiñitako astea.

Alkartasuna, batasuna ta umorea izan zan egun orotan. Euskal-giro ederra!

Batek «santua» esaten ebal, besteak barriz «deuna», etzan iñor kezkatzen; ontzat emoten eban.

Urliak «lekaieme» esaten ebal, sandiak barriz «monja», ori be ondo. Danok bake-bakean orregaitik, guda aurrean lez.

Baiñan geroago, guda galdu ta gero... egun batez «diktadura» yarri euskuen baten batzuk Euskeraren baitan. Ta orduan zatitu eben Euskalerrian.

Batzuk ezinbestean «diktadurara» menperatu ziran; beste batzuk barriz menpera gura ez, iñolaz be ez.

Batzuk «diktadurari» amor egin cutsoen; besteak barriz ezin amor egin. Ta orra burrukea sortu euskaldunen artean; ta burrukan darraigu oraindik. Ai! zer pena!...

Baiñan amor egitea gura ez dabena, dagoz izbidetan ene iritziz...

YURRE'TAR YULEN A.k

Non serviam

Diru gutxi ta buruauste asko ematen dituan izkuntzari.

Osperik bat ere ta naigabe andiek sortzen dituan izkuntzari.

Nagusieri koipea emateko balio ez duan izkuntzari.

Udaldia Ameriketara dolar-billa igaroteko gauza ez dan izkuntzari.

Aberatsei Jainko-izenean dirua ateratzeko bide ez dan izkuntzari.

Eliztarrereri siñistea ta agintarrieri oiñazea dakartsen izkuntzari.

Neke-izerdiz ixillean ikasi bear dan izkuntzari.

Gizarterako dotore ez dan izkuntzari.

Txaloak eta zorionak irabasteko duin ez dan izkuntzari.

Salerosketan, etxegintzan - eta sartuta ibiltzeko lagungarri ez dan izkuntzari.

Goi maillara eltzeko laster-bide ez dan izkuntzari.

Agintea eskuratzeko gai ez dan izkuntzari.

Berengoen lepotik barre egiteko ez dan izkuntzari.

Gaur egunean izana bai ta izena ez dakarren izkuntzari.

Lotsagaldukoeri atsegin ez yaken izkuntzari.

Siñestun epelen andra buru-eritxieri gogoko ez yaken izkuntzari.

Nere arropuzkeriarekin bat ez datorren izkuntzari.

Ta nere burua zuritzeko ta jendaurrean andi agertzeko, politikan ez sartzeko ta orokorra izateko olan naizela aldarrikatuko dot.

Deus meus, da mihi nóminas cetera tolle!

ETXEBARRIA'TAR

JUAN ANGEL

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira astero-ko onetan agertzen diran lanra jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskera bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri asmoen gaiñetik daben iritxi-onen euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen crantzule bakarrak euren egilleak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M.^a MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion gutzirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

ESNEAGAZ EGINDAKO

ESKATU **BASERRI**

UMETZUNTZAT

ADINEKOENTZAT

CHOBIL

ESNEAGAZ EGINDAKO

Ondarru'ko Jaietako Deia

Miren de Ituarte

JANGAIK
ONDARROA

GAZTEDE Akeitetxea

Alameda
ONDARROA

IXIDOR IZAGUIRRE

ITXAS-TRESNAK
Darsena-D Egidazu
830 urrutizkiña
ONDARROA

TORREPE

Akeit eta Ardao onenak
S. Ignacio, 12 ONDARROA

BIKIXAK

ULE-APAINKETAK
Primo de Rivera, 11
ONDARROA

GURE TXOKO

TXARRIKI TA IGALIAK
Velarde, 7 ONDARROA

Bar Mariñela

Ao-gozagarri ta mokauak
Akeita ta edariak
Gra. Franco, 4 ONDARROA

Francisco Rodríguez

Margoketak-Apainketak
Primo de Rivera, 29
ONDARROA

ROKE LARRAÑAGA'REN ALARGUNA

Janariak, ekarri-eroateak
830753 urrutizkiña
ONDARROA

Imanol Aremayo

Estalkiak eta aize-oialak
Kaia ONDARROA

Itxastarrak ondo jan eta ondo biziten dakien entzutea dauke. Baiña ba dakie inkesaka jarduten be. Bide ez-egunak, ibillera astun, bildurgarri eta neketsuak, eta ez beti nai ta ezko liorreratzeak, baiña bai kezkaiz beteak.

Arrantzalea ez ei da oso osoan itxastarra. Ala esaten da. Erdi itxastar eta erdi baserritar ei da. Itxastarren ibillera eta ardurak daukaz. Eta baserritarren lurrari begira egon bearra (txalupari) eta nai ta ez, egunero, eguzkitik eguzkira, edo obeto esanda, egun sentitik gau-lenera eten barik egin bear dan lana.

Ez dauka arrantzaleak «mariñuen» alderdi onik, eta bai baserritarren alderdi txar asko.

Ondarru'n —izatez eta jatorriz arrantzale erri— itxas bideak aitatzen dira, askotan itxastarrak egiten dituezanak baiño ez-egunagoak. Eta nekearen keza agertzen da, andaluzitarren mendi-arte batzutan baiño geiago.

Gaur, ondarrutarrentzat, Azores'era joatea Arrigorri osterera joatea lez da. Jaiak datoz eta etorteko mifiik ez da egon. Erririk onena: Ondarru. Auxe da naiño edozer onirizteko.

Kaletan gabiltz. Egal, kantoi, kaleertz bakoitzak arpegi ezagunak. Besarkadak. Lenakoak esaten ebana, besakadak lepoan.

—Oraindik be Grand Soole'ra joaten zarie?

—Nora ba?

—Lotsarik ba dozue zeuek? Zelako txalopea daukazu? Beti etxe aurrean?

—Eta zuek Terranoba aldean?

—Angoa, egin zan! An ez dago tokirik. A ikusita dago, txo. Gaiñera, berreun millako orrek...

—Beste egalean, Ondarra'ko kale-egal estuan, ixurde bi. Igartuta eta egarrituta. Kendu eziñiko egarria. Kaletik eskatzen dabe txikitua tabernara. Arabeen Kolkotik etorri dira. Ango goraberak alkarri kontaten diardue. Itxas ondokiñak, mariakoak. Euren billa erabilli bear dan lana, gerra. Ba al dakigu

Ondarru'n bestelako gerrean barririk? Ez ete da arako naiño gerra txikitorik-eza Arabitarren izenak tarteka. Eta esakerak: «La Ilah, Illa Allah». Ez dago beste Jaungoikorik, Jaungoikoa baiño. Mariskoa, peseta zalea izanarren, gizonaren argalkeri askoren gaiñetik pentsatzera beartuten dabena da. Gaiñera, angio itxaso bero ta irakiñetan, arabitarren Keli-mad'en gogoratzen dabena siñistutera beartzen gara, guk ikasia ondo ikasia dagola ziurtatzen: «La Charik, L'Allah». Jaungoikoak ez dauka gaiñekorik. Orra

Orralakoxea da Ondarru. Atzo, lainoz heteriko erria. Gaur arrenkuria sortu eraziten dabena erria.

Jaietan dana aztuten da. Danok dauka gu atsedean eta egun nasai batzuk artzeko eskubidea. Ondarrutarrak geiago. Ikas daigun biziten. Egun batzuk barru bits-apar barriak zabaldu bearko doguz edo ibillera barriak artu. Gure azken ibillera ez daitela izan beintzat ietar «mariñu» aren antzerakoa. Porturik portu ibilli zan eta biziten jakin be bai. Txinar bat gaz ezkondu zan. Bere «merkante»ko kamorotian euki eban lenengotan etxea. Gero Rotterdam'en, etxe baten: Baiña an eukan beti bere Ea tengadaka eta lortu eban bertara joatea. An lotu zan betiko. Egunero, eguna egiñagaz batean, etxegoietako ke-zuloetara begira asten zan, nundik keiak urtengo. Igarri orduko, etxe aretako ate-aurrea joan eta barrua berotzeko zerbait nairik kantaten asten ei zan:

Kape apurtxu bat
nok emon haneko,
amabi Agur Mari
errezako nekox.

Markiñ aldea argi-argi egon ez da be, ez gaitzean itzal agertu.

Jaietan gagoz. Jolastu gaitzean. Lenengo bizi, gero gerokuak. Eta jaietarako, praillearen agur bigun eta mistikua goratu daigun: Bake eta zorian. Eta gure Andra Mari kutunak zaindu gaitzala.

(Jaietako egitarautik artua)

BONI BERISTAIN

ETXEGINTZA

Tutor, 9 214 urrutizkiña
ONDARROA

USANDIZAGA

Sukalde tximist-tresnak
KELVINATOR'en zabaltzaillea
P. de Rivera, 10 80 urrut
ONDARROA

BAR KABIA

MARCELINO ALKORTA

G. Franco, 1 ONDARROA

Luciano Ibaibarriaga'ren Alarguna

JANGAIK

Garramiola, 5 ONDARROA

Sabas Rementeria

JOSTUNA

ONDARROA

ARRATE

ARDAOTEGIA

ONDARROA

MIGUEL

oiñetakoak zure oiñetan

Av. Antigua 926 urrutizkiña
ONDARROA

Aldazabal Aiztak

ARAGITEGIA ta JANARIAK

Kruzeño ONDARROA

AROTZ LANAK

Zubigarai'tar Salvador'en

Ondorengoak

ONDARROA

LEOR-GARBIKETAK

ETA ZURIKETAK

JUDITH

Garramiola, 38 ONDARROA



Zelan Baltzu bati igarri Bancaya taldekoa dan

Ba-da azterrenik:
Gaur-gaurko ekintzaren baten diardun egiztatu egizu lenengo.
Diru-urreratzen, Epetakoan, Arau-babesketan, Langai-erantketan.
Aztertu baita, bere saillean eta arin baten, aurrena izatera eldu dan.
Gaiñera, asmo barridun antolapenez indartutako Baltzu ekintzale ta aurrerakoi bat danez ere jabetu bearko zara.
Ba-da ortik beste azterrenik. Baiña billaketea erretzeko, ea Baltzu ori zerrenda onetan dagon ba.

INDUBAN
Lanketa Diruetxea
FINSA
Lainduntza Alkartea
EUROCARD ESPAÑOLA, S. A.
Epetarako txartela
GESBANCA
Lainduntza Banakola
SOVAC-BANCA
Lanabesketa-laguntza
COFINCAYA
Diru-urreratze Alkartea
LISCAYA
Langai-erantketa Alkartea
PLUS ULTRA
Arau-babes Etxea

GRUPO DE EMPRESAS BANCO DE VIZCAYA

**Jose
Markuerkiaga**

ITXAS GAIK ETA
TRESNAK

KAIA
22 urrutizkiña

ONDARROA

B
A
R

ONDARRERA

Ao-gozagarrietan bereiztua

Kruzeño, 18

ONDARROA

**MARINEZ DE LUKO'REN
SEMEEN ALKARTEA**



ARRAIN
UMAOTU
TA
GAZITZE
LANDOLEA

6 urrut
ONDARROA

ULE-APAINKETAK

MARIAN



Tutor txaidean

ONDARROA

TXIMIST-INDAR GAIK

ARRIOLA

Irrati, Urrutikuskiñ,
sukalde tximist-tresnak

Eskuerakutsiak

ONDARROA

**ANAKABE
AIZTAK**



Kruzeño, 17

ONDARROA

ANTIGUA'KO AMARI

*Ondarru nere sorterriari
zerbait nai diot agertu,
pozaren pozez zureganantza
nai det besua luzatu;*

*Antigua'ko Ama onari
urren laguntza eskatu,
zeuk maite dezun erria iñoiz
Zutzaz ez dedilla aztu.*

*Ama Zu zera egun sentiko
eguneroko izarra,
zure bitartez Jaunagandikan
datorkigula indarra,*

*Zugana beti degularikan
gure itxaropen bakarra,
goimaitasunez daukagu Zuri
otoitza egin bearra.*

*Itxas baltzean arrantzalia
dabil triste ta negarrez
ikusirikan ekaitz gaiztoak*

*nola daukaten indarrez,
une berean Antigua'ra
dago Amari didarrez,
lagun zaidazu, Ama gozua,
ni nago zure bearrez.*

*Zenbat naigabe eta tristura
beti uraren gainean,
gizon gaiztuak igarotzen du
Kantauri'ko itxasuan,*



*etengabeko lan gogorretan
udaran eta neguan,
gogor saiatu bearra dute
daukaten bizimoduan.*

*Lur legortuak udan euria
eskatzen duan bezela,
Zeruko Amak eskatzen digu
pake txit maitagarria,
guretzat utzi zendun betiko
Ama, zeure irudia,
arrezkerortik Zu izan zera
ondarrutarren argia.*

URRUTIA'TAR LIBORIO'K

"AGUR" EN LAGUNAK

ONDARROA'N

EROAN-EKARRIAK

FERNANDEZ

Bilbo'n:

Pl. Encarnación, 3
33 07 95 urrutizkiña

Ondarru'n:

Gral. Mola, 5, 1.^a
83 02 53 urrutizkiña

Lagun Artea

Etorri akeita,
txola, ta txokorra
artzera.

Gral. Franco, 3

ONDARROA

JUAN LAZKANO

JANGAIK - ZUBI BARRI

Marcl. Oreja, 5
179 urrutizkiña

ONDARROA

LAVIN

USAIN ET DROGATEGIA

S. Ignacio, 26

504 urrutizkiña

ONDARROA

**MARTIN
CAMPOS
LADARIBAR**

Arrain erosketak ta bialtzeak

475 urrutizkiña

ONDARROA

**GARRIDO
ARDOTEGIA**

S. Ignacio, 14

83 07 96 urrutizkiña

ONDARROA

**EIZAGUIRRE
LOKARRITEGIA**

ONDARROA

ETXABURU

ETXE-APAINKETAK
Orma ta azpietarako azalak

Zubi-barri, 4

83 11 48 urrutizkiña

ONDARROA

AURRERA

LANABES-LANDOLA

Itxas-igikiñen antolaketak

83 03 25 urrutizkiña

ONDARROA

Iñaki Ugartetxea

OGIGINTZA

Primo de Rivera, 12

129 urrutizkiña

ONDARROA

GOZOTEGIA-AKEITETXEA

GUREA

Aretxabala'tar Jose-Agustin

Primo de Rivera

292 urrutizkiña

ONDARROA

«ZARAUZ» ERREDIZAK

Juan Gerenabarrena

San Ignacio, 33

378 urrutizkiña

ONDARROA

Florencio Urkiri ta Lagunak

Itxas eta lantegi indargailuak

Kaia, 2

83 05 17 urrutizkiña

ONDARROA

GELASIO

AKEITETXEA

Ondarru'ko
edantegirik
gogokoena.

Kirol-barriak

Lenako Itxasontziak

Oitura bat galdu dogu Ondarru'n. Itxasontzi barriak astilleruetatik uretara jaurtiten ikusteak.

Beti egin izan dira gure errian itxasontzi asko. Ontzi egille onak be eza-gutu izan dira. Orain eun urte ingurutan eta geroago be, 1870-1900 bitartean, benetako maixu izan ziran ontzigiñan oraindik gogoratzen diran batzuk: Jose Mari eta Genaro Agirre; Jose Mari eta Txomin Aranbarri; Pedro, Anton eta Candido Arriola; Agustin Egurrola; Jose Mari Garli; Tomas Ikaran; Agustin Legarda; Genaro Osa; Bitor Urresti eta Jose Zumeta.

Belako barku, txalopandi, treiñeru eta balandren denporak ziran. Sasoi aretan egin ziran Angelita (J. M. Uribe); Agustina (Genaro Osa); Bayonesa (Pablo Ibaseta); Paulita (A. Otamendi); Nueva Unión (Blas Urrosolo); Union 2 (B. Urresti); San Pedro (Pantaleon Egurrola); Vizcaya (Sebero Markue) eta abar.

Geroago baporak etorri ziran.

Urte batzuetan egin ziranak ba dakiguz:

1906'n: Ur Txoria.

1907'n: Stma. Trinidad eta Aranzamendi.

1908'n: Bombita, Buenos Aires.

1909'n: Concepción; San Pelayo, Reyes, San Jose, Almirante, Ganorabako, Pepita, Bigarrena, Dolores, Flor de Mayo eta Gloria.

1910'n: San Antonio, Angel de la Guarda, Begoñako Ama, Maitena, Urtxoria, Markuerkiaga bigarrena, Etxaburu, Begoñako Ama II; San Lorenzo, Bengochea, Maria Luisa.

1911'n: Dolores, San Antonio, Elena, Unquera, Miren, Tubal, San Jose, Anaxu, Markuerkiaga, San Andres, San Jose, Ena.

1912'n: Carmen, Virginia, Markue, Covadonga, Alfonso XIII, Ondarroa, Concepción, Isabelita, San Antonio.

1913'n: Dos Hermanas, Euzkadi, San Juan.

1914'n: Maritxu, N. S. Coro, Irutxulo, Reinda de los Angeles, Zaldupe.

Ezin geinke luzatu. Errirako eta kanporako txalupak ziran. Euskalerrri'ko itxasertzean ebiltzan treiñeru eta txaluparik geienak Ondarru'n egiñak izaten ziran.

«Estropadak» liburua artzen dabenak argi irakurri leikie bertan esaten dana: 1916 urterarte arrantzarako egiten ziran ontzien egitura Ondarru'k «kopaten» ebala.

Orra, beti be, jakingarri izaten diran kontu zar batzuk.

USTIN

CLUB 34

Discoteca

Eresmintztegia

San Ignacio, 34
ONDARROA

Talleres Laye. S. L.

Ezarketak, antolaketak
eta ontzietarako langailuak.

83 08 43

83 16 68 urrutizkiña

83 03 30

ONDARROA

ametsa

JATETXEA

P. Rivera, 24

ONDARROA

«BERTAN»

LANDOLA

Langaillu barrizteak

Kaia,

83 04 53 urrutizkiña

ONDARROA

Burgoa

GOZO TA IZOZKIAK

Etxera bialtzen da.

Magdalen

739 urrutizkiña

ONDARROA

Fermín Martínez

«FRIAS» itxas-tresnak

Egidazu'ren kaian

83 01 10 urrutizkiña

ONDARROA

Bar Boga-Boga

JANARI TA AKEIT

ONETAN BEREZITUAK

Antigua'ko ibilb, 10

83 00 14 urrutizkiña

ONDARROA

ITXAS-TXALOPAK

«ARTAPE ALKARTEA»

A Z P I R I A N A I A K

ONDARROA

JESUS M.^a ETXEBARRIA IDOATE

ARRAIN AMAOTU TA GAZITZE LANDOLA

Iturribarri-83 04 47 urrutizkiña

ONDARROA

Urrosolo Anayak

BITXITEGI TA ORDULARIAK

Mola, 17

ONDARROA

83 07 96 urrut

VEGA Jatetxea

KANTAURI'RA BEGIRA

SUKALDE BEREZIA

79 urrutizkiña

ONDARROA

CAJA LABORAL POPULAR
**LANKIDEN AVZO-
 AVPREZKI ONTZIA**
 SOCIEDAD COOPERATIVA DE CREDITO

Zorionak

GERTAERA

Ondarru'n, Felipe Kaltzakorta Imaz zein dan galdetzen datorrenari ez dautse argibide aundirik emongo, baiña ia Txordo ezagutzen dabon itaunduten badabe laster erakutsiko dautse bai nun bizi dan eta baita nun egon leiteken be, erlojuari begiratu ezkerro, jakiña dalako ziur-ziur nun dagoan.

Irurogeita amairu urte leporatu ditun gizon buru biribill, begi argiko eta gorputz trapalotedun Ondarru'tar ernai eta alaia dogu gure txordo. Erri guztiak maite dabena. Bizi esan, urtien eta lanaren kargan narra eragin dautsela, baiña beti pozik bizi dana. Iñoi zein eta iñogaz benetan asarratzen eztaikiana. Gaurko gure gazte askok ez-jakiñarren, bere gazte denporan edozetan abilla be abilla izana. Pelotan bazan onena, lasterketa edo ariñ-aringa onena, erriko jai edo jolasetan, au edo a izan, onena. Eta zertan ez? Baita, berak esaten ekian lez, jaten eta ka egiten be onena. Oneik onela dirala, gaur ez goaz denpora areitan gure Txordo'k egindako gauza danak agertzera, asko eta luzeak izango litza-kez-da, baiña bai gertaera polit bat kontatzera.

1936'ko urte latz artan kasik Ondarru guztia ustuzan gizonik geienak Bilbo'runtz joanik eta, jakiña, txordo ere arein artean aurkitzen zala bere 35 urtekin. Bilbo'ra eldu ta bereala izan zan gizon sakabanatzea, batzuk guda oiñera eta besteak gudarako gordeleku edo trintxerak egitera. Txordo oneitarikoa izan zan, kañoi zulo guztiak egiten parte artuaz, Bilbo'ko burdiñesi edo cintura de hierro izenekoan. Egun batez, soñean jazteko erropa barik gelditzen joiala-ta Bilbo'ra juateko guraria agertu eban bere lagunaren artean; soñean ipintzeko zeozer eroatera. Baiña bera bakarrik etzan ausartzen ez Bilbo'rik ezagutu ta erdera tautik be etzekialako. Au ikusirik beragaz lanean ebillen bere erritar 18 urteko gazte batek ez dedilla keixa esaten eutsan, eretia etorreanean berak lagunduko eutsala-ta. Alako batean, eldu-da zapatu goiz bat ta goizean listeruak lista pasatu-ta bereala, euren atxur eta palak ezkutuz diran egiten kaltetara ta ezer ezin billatu, «bale» barik ez eben ezer emoten-da. Azkenian jotan dabe denda bat, gizona, jabea, euskalduna zana eta gaiñera Ondarrutarra e-rak etzekiela. Onek Arriola eban abizena eta berbetatik bereala ezagutu areik gixajo biak bere erritarrak zirala. Eta errukituta-edo, iñori ez esateko esanda, denda barrutik edo atzetik ixil-ixillik atara-ta emoten dautse naruzko edo kar-toizko jaka mei bana eta zeozelako praka bana. Axe zan gure txordo ta bere lagunaren poza zeozeren jabe bada be egin ziralako! Pagatu, ez aifñ karu be, ta an doaz erri barruruntz edo kanporuntz, biak ere lekuri ez eben ezagutzen-da. Goseak arrakalata, noruntz joiazan etzekiela, orra or nun topo egiten da-ben bezperan menditik jetxi-ta egozan Ondarru'tar gudari ezagun bigaz.

—Kaixo Txordo?, nundik nora zabize?

—Nundik gabizen? Geuk ba'aldakigu? Mendiko lana lagata etorri gara soñean jazteko zeozer eroatera. Auxe jaka au eta oneitxek prakok.

—Eta oraiñ ze asmo daukazue ba?

—Asmu? zeozer jateko, iñun ezer topa al ba'gendu beintzat. Au da gogorra, dirua patrikaran eta jatekorik ez!

—Ze?, bazkaldu barik al zagoze?

—Bazkaldu barik? Eta armozau barik, atzo gabian jandako oiliorik bagako lentejakin oindiño.

—Orrenbesterañ? Txo, guazen geure kuarterera ia zeozer gelditu dan ikustera, koziñero biak Ondarrutarrak dira-ta. Eta abiatzen dira «La Salve'n» egoan Larrazabal batalloiko kuarterera buruz, sabelak kuxkurtuta ebezela, Arenal'eko egaletik pasatzean txordo konturatzen-da pixu edo baskula bat da-gola ondo artan eta bere lagunari esan be bai pixatu gura leukela, bere burua argal be argal topaten daualako.

—Ori nai bo'zu jarri gaiñean segi-segixan, ontxe gagoz urreren-da. Eta pixuak agintzen eban inzirrikaturatik sartu errial biko zuloduna eta «dranga» egiñaz an urtetan dau beko zulotik alako kartoi edo txarteltxu batek.

—Zer da au? —diño txordo'k.

—Au zer dan? zeure pixua. Irurogeta bederatzi kilo daukazuz.

—Errekontxo! Oiñ dala lau illabete, etxetik urtetean, 84 kilo neukazan eta orain 69 bakarrik? Martxa ontan eztaikit zer izango dan gerotxuago!

Laga orreri ta guazen aurrera —diñotse gudariak— eta aldapatxo bat igaro ta eltzen dira euren kuarterera.

ONDARRU'KO

ELEIZ IKAKTOLEA

POLIT BAT

—Kaixo txordo, nun demoniñotik zatoze arropa ariñ eta txapel txiki orreikaz dagoan otzakiñ? diñotse koziñeruak.

—Nundik gatozen? Geuk ba dakigu ala? Goseakiñ begiak be lausotuta eta anak dardaraka daukadaz. Egizu kontu zeñ zareañ be ozta-oztan ezagutzen zaitudala. Ezelako jateko sobranterik ba'daukazu ekarri ardura barik. Arriak izanda be ekarri! Bazenki nundik eta zelan gabizen jatekorik iñun eziñ topata!

—Emen eztago arririk, benetako jatekoa baiño —diñotze koziñeruak—. Opizialen bat edo bat beti etorten dala berandutxuago-ta ementxe eukitten dot zeozer baezpadan be. Jarri emen sukaldeko mai ontan, zuentzat laiñ eta geiago be ba dago-ta. Arriak, berandu etorten diran opizialek jan dagiezela.

Jartzen dira maian, eta sukaldariak ondo egositako lapiko aundi bat, leporaño beteta, ipintzen dautse aurrean bildur barik jateko esanaz.

—Auxe da gauza ederra, diño txordo'k, platerkada baten atzetik bestea iruntsiaz! Olako barbantzo ta arrozik ez dot egundo jan! Ekarri ardura barik edatekoa be, naizta ura izan! Eta ekarten dautse pitxar aundi bat bete ur bostetik barik katillu batetik dzanga-dzanga edateko! Bost edo sei katillukada ur edan ebazan txordo'k berak bakarrik eta zenbat barbantzo ta arroz iruntsi eban, prijidutako leatz-erdiko bat gaiñetik ebal, Jaungoikoak jakiñ! —Auntxe bai nagola ondo-be-ondo, diño txordo'k. Koziñerua ta lagun gudariak eskertu ta agurtu. Ea guda ontatik danok ondo urten eta geure etxetan laster ikusten garan esan be bai, eta kuartela lagata abiatzen dira gure lagun biok euren to-kira buruz, illuntzerako Unbe mendi puntan izateko, listeruak barriz lista pasatzean palta ez eitezan, Baiña Txordo'k, tripakada aundiegia eukala sumaten ebalako-edo, lengo pixu ondolik barriz pasatzean, ain auzen andixeik pasatu bear ziran-da, lengo baskularen aurrean geldituta diñotse bere lagunari: Ai ene! Eztakit ementxe barruan gauzak zelan dagoen. Gerrikuak be zart egin bear daustala uste dot. Ostera be pixatu egiñ bear naz.

—Ostera be pixatu? Burutik ondo zagoz zeu?

—Bai, pixatu nai dot ostera be!

—Txo, ori nai bo'zu jarri zeinkez gaiñean. Eta ordubete lenago legezt sartu goiko zulotik errial bikoa ta «drangada» bat egiñaz an urteten dau beste txarteltxu batek azpiko zulotik.

—Zenbat markatsen dau? txordo'k.

—Zenbat?, ikusi zeuk ondo. 75 kilo.

—Zelan esazu? 75 kilo?

—Orixe berori, lendik pixua aldatu ezpada beintzat.

—Ze?, len baiño sei kilo aundi geixa? Zelan izan leike au? ia, jarri, ia zeu, alderik dagon ikusteko? Eta jartenda bestea be pixuaren gaiñean, urteten dau geure txarteltxu-orrek eta 64 kilo. Len baiño bi geiago.

—Olako markarik! diño txordo'k, Txo! guazen emendik aguro geure to-kiruntz! Lenago be entzunda nengoan uretan ondo beratutako arroza astuna izaten zala, baiña, auntxe bai siñisten dodala benetan. Ezta berunak jan izan ba'genduz be! Olakorik! Ordubete gora-beran sei kilo aundi irabazi janaz? Aldabatera ez leukie siñistuko au neuk dakidazan batzuk! Txo! Unbe'n trinxeragiñan dabizen Ondarrutarreri au ez esan gero, zorotzat artuko gaitue-ta.

—Ez esateko? Esan edo ez esan, au agirian dagona da, Makiñia aberixa ezpada, oneitxek dira zure pixuak: Bazkaldu aurreko txartelean 69 kilo eta bazkal ondokoan 75. Len baiño 6 geiago.

—Edozemodutan be ederto da! Guazen, guazen ariñ-arin geure bidetik, illuntzerako an izateko, au siñistekoa be ez da-ta.

Eta olaxen, Bilbo'tik Plentzi'ra joaten zan trenean sartu, bear zan lekuan gelditu, eta tapa-tapa mendian gora igoaz, Unbe tontorreraiño eldu ziran illuntzerako, listerua konturatu barik. Bazkari a, iñoiz aztuko ez jakona izan zala daki esaten txordo'k, eta gaur be, oindiñok, ondo baiño obeto gogoratzen dala, biaramon goizean, amabost egunez gitxienez izan barik egoan don Jun'en ortuan laga eban erregalo ederragaz.

Emen aitatzen diran Ondarrutarrak oneitxek izan ei ziran:

Gudariak: Antonio Badiola (panadero) eta Sabino Badiola (Andixe).

Sukaldariak: Felix Otxoantesana (Mariñela) eta Ignacio Arakistain.

Txordoren laguna: Joaquín Azpiri. Danak, bizi diranak gaur arte.

Guztieri zorionak eta Andramari alaiak Agur'en bidez, eta Txordo'ri, beste aparteko au be bai: Erriko jaietan, usarioan baiño kuartillotxu bat ardau geiago be edan leikela Boga-Bogan, baiña tartean atun erre tato bat edo bi janda, gero illuntzean, goiko kalean goruntz joaten, «txurla» aundiegirik egiñ ez dagian.

KATANARRA



BIZKAI'KO AURREZKI KUTXEAK, naiz Bilbo'n bertan edo gure eskualde osoan, erri-ongintzan eta jakintzazko arloan egiketa zabalena betetzen diardu, ta osagarrietan be garrantzi ta eragin aundienetarikoak

CAJA DE AHORROS VIZCAINA

—zure aurrezki kutxea—

ONDARRU'KO ETXE - ORDEZKOA

Nueva España, 14 - 29 urrutizkiña



Arraintza Ikastolea

(ESCUELA PROFESIONAL

NAUTICO PESQUERA)

ONDARROA

ORTIZ - EL VELERO

BOKARTAK ETA EGALUZEAK

ONDARROA (Bizkaia)

Ituarte Oskitegia'k

Urteetan lortu daben ikasia ta ikusiakin, gaur salgai diran oiñetakorik onenak eskeintzen dautsez bere bezeroeri:

LOTUSSE - YANKO - KURHAPIES - GORILA - UNIROYAL

83 04 23 urrutizkiña

ONDARROA

CINE PESCA

ONDARROA

LUIS ETXEBERRIA

ITXAS TRESNAK

83 08 02

83 02 03 urrutizkiña

ONDARROA

Ugalde Anayak

Itxas naiz arraintza ontzien era guztietako garbiketak eta margoketak, itxas-burdietan legorreatuta

Kaia

ONDARROA

Aretxaga ta Etxebarria'tar Joakin

83 01 69 - 83 08 77 urrutizkiña

ONDARROA

BASTERRETxea'tar JOSE MARI

«FRANTZESA»

Arrain erosteak era bialtzeak

83 08 30 urrutizkiña

ONDARROA

EKIN, S. A.

SUKALDE TXIMIST TRESNAK

General Mola, 7

208 urrutizkiña

ONDARROA

NABERAN'tar IMANOL

ZAREGILLEA

K A I A

83 06 25 urrutizkiña

ONDARROA

EGUNEROKO ARRAIÑAK

RAMONA MEJIAS

ONDARROA

«LA ESPERANZA»

OIAL MARGOKETAK

LEGOR-GARBIKETAN BEREZITUAK

Alameda

ONDARROA

ONDARRU'RI ONDARRU'TIK

(1974'ko, ANDRAMARI'TAN)

Agur Ondarru zoragarria zuri gatoz kantatzera, Esker onez ta maitasun gogoz biotz batez esatera. Ume batentzat bere amaren altzoa oi dan antzera, Pitzirik kutun ta ederrena guretzat beti zu zera.

Zure oiñetan beso zabalik aintxiñako zubi zarra; Portu bat ere aberastasun dariola parra-parra. Bien erdian erri on baten bizi naiaren indarra, Danen gainetik zaindari degun Antigua'ko izarra.

O, Kantauri'ko bazter mamintsu arrantzalien arraza! Eguneroko zure ogia itxaso latz ta narrasa. Jarraitzen dezun aiten bidea naizta ez izan erreza, Kikolis'tarren odolak ba-du oraingik bizi-arnasa.

Azken arnasa eman artean Ondarru'n nai degu bizi; Aitamak legez emen jaio ta ementxe bai-giñan azi, Kanpotik sartu diran daneri bulartsu jakiñ-arazi: Gu ez gerala arrotzen morroi baizik, erriko nagusi.

Ai, baiña, galdu ezpadegu nai geure nagusitasuna, Euskaldun geran erritar danok bear alkar-maitasuna Alderdikeri zitalak utzi betor danon batasuna. Au ezpadegu egiten «agur» erriko gozotasuna.

Arranondoko'ko gaztediari dei zoli bat biotzetik: Erria dala alkar-arteko gerra guztien gainetik Aurrez joan ziran gure zarreri goian esategaitik; Guk utzi gendun mundua baiña Ondarru, an dago zutik!

ARRANONDO

ETXE

ZORAGARRI BAT

Gizonak, bere buru-barruan, mota guztietako asmo batzuk erabilten dauz, sarritan guztiz onak izaten dira baiña getenetan ezin betekoak.

Lengo egunean aspaldian izan neban asmo eder bat, barriz, bururatu yatan, eta ba-dakizue zein izan zan? Exe bat, euskeraren etxe bat. Ori baiño ezta, baiña zelako etxea! Etxe berri bat, kare-bel-tzez egindakoa ta Bilbo-erdian. (Gazteiz'en, Donosti'n edo Iruña'n ba'da, bardin daust).

Etxe orren bean, euskal-liburutegi aundi bat, biltoki edo «almacen» baregaz, baita aldizkari baten irarkolea, adibidez AGUR'ena, orduan jakina ez litzake asteroko bat izango, egunerokoa baiño.

Lenengo bizitokian, Euskerazaleak eta Kili-kili'ren idazgelak eta ikastola guztien burua (ordezkaritza) ere bai.

Bigarren bizitokian, euskal-irradi bat eta areto eroso bat, batzarrak eta itzaldiak egiteko edo irudibil batzuk ikusteko.

Irugarren bizitokian, «biblioteca» on bat norberak gura dauzan idaztiak ikusi, aztertu edo irakurtzeko. Baita txistua jotzen eta dantzaren ikasteko gela batzuk ere.

Laugarren eta bosgarrenean, gela batzuk euskerazaleko.

Asmo ona, ezta? Nik uste dot guztiz ona dala, bear ba'da on larregi. Baiña au pentsatu ondoren, betiko arazoa eldu yat, zelan asi ta amaitu onelako gauza bai? Askotan ikusi dogu, ikastola txiki bat, txadon baten ikastola esate baterako, zelan ibilli bear dan, lurreratu ez daiten, oztopoak alde guztietatik eta laguntzea inundik ez.

Zenbat euskaldun ete gara? Unei (milloi) bat edo?... Bakoitzak bosteun lauerleko, batz beste, emongo ba'geunkez urtean bein, ez ete lortuko etxe eder au, euskeraren santutegia? Beste gauza batzuk egiteko prest egoten gara, gure aurkakoak izan arren.

Ia egun on batean eta Jaungoikoak gura ba'dau, asmo au betetzen dan.

Urrengoarte.

UME

ZUBI-MENDI

TXIMIST-TRESNEN
ANTOLAKETAK
SALKETAK ETA
EZARTZEAK

Tximist-indar gaiak

S. Ignacio, 2

83 15 23 urrutizkiña

ONDARROA

BAR ARRIETA

AO-GOZAGARRI BEROAK

Nueva España txaidean

720 urrutizkiña

ONDARROA

MARI-VI

ULE-APAINKETAK

Tutor, 1

ONDARROA

LEON LEKUE

ERREDIZAK

Arostegia ta zurlanketak

Pr. Rivera, 22 ta 28

341 urrutizkiña

ONDARROA

SOKOA

AKEITETXEA

ONDARROA

Azpillaga Landolea

ANTOLAPENAK

Kaia, 8

83 05 60 urrutizkiña

ONDARROA

KONTU KONTARI



ITXURRIE

Urzulo, izenez. Abeletxe basarri inguru-
ruen, izetex, bai benetan ur gozue eta ederra.
Bilbo'ko osagilleak, gerra aurretik da
ostetik, aurrez ikusi eran markinarrak es-
tomangoko miñakin, beti esant'eben.

—Goiko portaleko ure euki errixen da
estomangue makal?... Eran eran, Ume Je-
sus'en itxurriko ure, ez da gauza oberik
gure barruko bideetako da.

Gure urek, gaur, geixorik dagoz. As-
paldi gora-bera aundixek eta negargarririk
izen diez, eurok diezela eta ez diezela.
Ezdabaida trixtie...

Markinarrak, benetako markinarrak, on-
do baiño obeto dakigu saniau leikezela
onek ur ikusgarririk, lengo era, orain
amar urte inguru lez itxi ezkeron euron jun
etorrixok...

Baiña, «kanpotarrak barruko, azaldu
trabuko». Erbesteko teniko baten eritxera,
neuri egindako berbete suman, zarratu itxu-
rrixe da kitxu...!

Au dok ona!... Kanpotarren eritxera,
Euskal-erri'ko geixuok sanotu edo indertu

bierrien, ill, zarratu, apurtu, trixkau... da
kitxu. Markiñe'ko itxurrixe, ur eder ede-
rraz, zaindu da saniau bierrien, zarratu...

Zenbat itxurri eder, millak urtietan
ur eta gauza eder askon emotailiok zarratu
diezen Euskal-erri gure minberatuen.
Eta, ez ba'ga alkartzen bene-benetan, gure
txotxolokerixak alderdi batera bota, ez
ba'ga benetan alkartzen danok anaiok,
zenbat itxurri eder illgo diezan Jaungoi-
kuek berak bakarrik daki.

Olan edo alan gauzak, egune, egun
baltza etorriko da: Euskaldunen egarrixe,
jakiñ gurak edo ur gozo berbera erateko
guran, tantanik pe ez dogule eukiko.

Itxurrixe zarratu...
Basarrixe utsik...

I, txo: arnasa paltan, euskaldunek
itxo!...

JUAN JOXE ARRIZABALAGA
«MARKIÑA»

Alkar-Izketan

Gure Erriari begira-3

Lengoa, Peru, euskaldunak zintzotasun ta yatoritasunean entzute onekoak izan zoazala
esan giñoan, baiña ori egia izan arren, lelokeri bat izango litzakek, zintzo izateko euskaldun
izatea naiko dala izango litzakela esatea.

—Ori, Manu, esan bearrik be ez yagok, beste edozein lekutan lez, arbasoen ikasi galtzen
danean, emen be ardi zurien artean baltzak be beti egin dozak, eta ez gitxi be. Naizta aoin ta-
malez, ugaritzen yoan.

—Ortik ikusi geinkek, antxiñako esanak: «Euskaldun fededudun» eta prantzesak esaten
ekiena: «Qui dit basque, dit catholique» batasun aren esanak besterik ez yok esan gura, geyen
baten olan izaten dokala baiño. Zentzuna yaukanak beintzat olatxe aitu bear yozak.

—Ziñestea aitatu dokan ezkeron, ez dok uste gure errian ziñistek berantza egin yokala?

—Ori, mutil, ezin ukatu leikek, begi aurean agertzen dokan gauzea dok-eta.

—Eta gaitz ori nondik sortu dokala uste dok ik?

—Orren barri Yainkoak bakarrik yakik, Yainkoak eta orretan dabilzan salduak, zoritxar
orrek zuster asko yaukezak-eta. Baiña ainbeste guda, asarre ta ondorengo ekandu txarrak, au-
kera zalekeriak, erbesteko oitura okerrak, ziñeste gayetan yakin-eza ta yakin gura-eza, ta no-
bere buruagaz ibilli bearrean, iñoren «adarreri» dabilzan ez-ikasiaz, itz baten, giro epelean
bizi ta batpatean lillurutzen yokanari gertatzen yakona lez, gaixoak arrapau...

—Baiña ez dok uste au nasakeria zabaldu dokalako izan dokala? Sarritan oldozten ego-
ten nok, oitura alper txarretatik ziñeste epelkeria sortzen ete dokan, ala ziñeste-epelkeritik oi-
tura lasai-txarrak.

—Batzuetan ziñeste galtzea, alperkeritik, oitura txarretatik, eta beste batzuetan alderan-
tzira yaso leitekek.

—Bitzuetan, erusitarrak esaten yabeken lez, arraiña burutik galtzen asten dokala, baiña
nire ustez, gizona geienean biotetik asten dok galtzen. Zintzotasuna ta zuzentasuna galtzen
asten dokanean, burua illundu egiten dok, eta begiateko gaixoari lez yazoten yakok, min emon-
ten yatsoen argitik iges... ta, iñoren lanetik bizi.

—Zoritxar onen zusterak asko ta sakonak dozak, eta ezin geinkezak aztertu, baiña ikusten
doguna auxe dok: Eleizak utsago ikusten dozakala, gaztediak eleizarako oztasun andia ager-
tzen yokala, oiturak nasaitu egin dozakala, ta... iñork ez yokala bizi-nekerik nai.

—Orren orde, alde guztietan, «yolas etxeak» ugaritu, nire lagun batek esaten yokanez:
«gazteen burua illundu, biotzak usteldu ta sakelak ustuteko» aukerakoak.

—Orren barri, bertean egon diranakandik entzunda bakarrik yakiat, baiña esan yauste-
nez negargaria dok. Izparringiak be, nozik bein, zerbait esaten yabek, baiña iñork ezer ez yok
egiten gaztediaren ekandu garbiak zaintzeko. Lengoa baten, ama batek idatzi yoan bere sena-
ragaz, ikusguraz, zer yazoten zoan olango toki batera yoan zoala, ta ikusi yoanagaz saminta-
sunez beterik urte yoala, bere bost semcetarik bat edo beste olango tokietara yoan leitekela ol-
doztuta bakarrik.

—Olan ba'gozazak esku onetan geratukok erriaren etorkizuna!

—Ez dok ori txarrena. Gaitz orren aurka ezer ez egitea ta orren inguru oartzten dokan
ixiltasuna baiño. Gero, bizianaren antzera osagaitz agertzean, zarata egiteak, tamala agertzeak,
ez yok balioko.

—Gaurko egoerari begiratuta, sarritan gomutatzen nok, beñolako idazle ospetsu T.
Mann'ek idatzi yoana: «Etrorkizuna, erri gabiena izango da», ala izan be izan dok edestia zear.
Au olan dala, ze etorkizun itxaron geinkek?

—Munduko giroa olantxe dokala, alperkeria nagusi, ta ezer egiten ez ba'yoguk, etorkizun
onik ez. Alperkekoa dokala ta ezer egin barik egotea gitxiago... Alperarentzat dana dok eziña,
zintzoak barriz eziñik ez yok ezagutzen.

—Orduan ez yagok bide bat baiño, guztiok eta bakoitzak, gure izkuntzea, ekandu garbiak,
yatoritasuna ta erriaren onerako dokan guztian alde jokatu.

—Orretan ñagok neu be, ori egin ezik, gitarrea artuta «geurea da-ta» abestuagaz bakarrik
urrian ez gozak elduko. Alperkeria, gaurkoen Jainko barria!

—Uste yoat gaurko naiko izango dokala, agur urrenerarte.

URIGOITIA

EUROPA,

ABERATS-BEARTSUA

Garai dizdiratsua izan zituan Europa'k antziñan. Lurbiraren zatirik aundie-
nak emengo erregeen menpean zeuden aldi aiek. Lur oetako jaun lez, berauen erraie-
tan zegozkean ondasun jabe ere ba-ziran. Gaur egun beñeri baiño ballotsuagoak dira
ondasunok, baiña Europa'k aspaldi galdu zuan beraiekiko jabetasuna.

Nolanai ere, urte onak izan dira iragan berriak Europa'rentzat; askatasun, pake,
joritasun eta aurrerapidean biribilduak. Beraz, Europa aberats etzanik iñork ezken-
duan uste. Bear bada, ezda onen aberastan guztia ere ari batetik zintzilik zegoanik.
Eta orra or norbere lurraldeak leengai eta indargaietz ia billutsik dituan Europa abe-
ratsa batpatean txiro ezerez bat biurturik litzakeala, baldin bere oraingo ornitzallek
bizkarra emango ba'liote.

Okerrenean ere zerbait egiten du Europatar Ekonomi-Elkarte'ak, kosta-ala-
kosta lurgintza zaintzen duanean. Izan ere, zertarako litzute Europa'k bere aurrera-
pide arrigarria ta bere oletako makiña-kate izugarriak, baldin indargai eragingarri-
rik edo lantzeko gairik ez ba'lu eskuartean? Eta zer, arranpolak ez ba'lu!, ola oien
barnean eta kanpo ekonomiaz mirariak egiten dituan europatar gizarte langillea
egunero zer-jana izateko iñungo ornitzailleen peskitzan ba'lego?

Dana dala, ez dira txantxetakoak Europa'k gaur dituan buruasteak eta gaintu
bear dituan esiak. Azkundera ta irabazien ugaltzen txit onuragarriak izan oi dira sal-
neurriek leenean darraiten bitartean. Nai ta ez, ordea, bein gure batera irixtean, sal-
neurriek beti irabazten diote lasterka jokua egintzeri, ots, ekonomiari. Eta ordutik
izaten dira komeriak; batez ere, joraldian gutxientzat etekin bereganatu aal izan
duan multzorik zabalen arentzat; arrunki esan oi dugun lez, erri xearentzat.

Asteko, 22.000 millo dolarren akatsa utziko omen du Europa'n, emen aurten
aituko dan ar-olioaren ordainketak. Atzerriekiko zor ikaragarri oneri aurpegia ema-
te arren, Europa'k bere atzerri-salmentak geituko bearko litzuke. Bestaldekik, indar-
gai eta leengaiak ez gaitzontzeko atzerri-erosketak aalik geienen laburtu. Eta zer esa-
nik ez guzti au elkartasunik zintzoenean egin, bazkideak elkar izorratzen jarraitu
ordez.

Agerian dago, noski, une ontan Italia, Ingalaterra, Frantzia, Irlanda ta Dinama-
ka dirala larrien dabilzanak, bai bizimoduaren garestitzeaz, bai txanpon arazoa
dala-ta. Beraz, zenbaitez osasuntsuago aurkitzen diran Alemania, Belgika, Luxenbur-
go ta Bee-Laterriek irekiko aal dituzte euren aterak aien salgaiak emen auetan era-
gozpenik gabe sar ditezen. Eta orobat atzerri-salmenteri aal duten neurrian uko
egin, aien mesedetan. Onela, beintzat, oreka piskabat geiago sumatuko litzake elkar-
ekonomiekiko. Eta auxe bai dala bear-bearrezkoa batasun bidean aurrera jarrai de-
zaten.

Bestela, europatar laterriotako batek baiño geiagok gorriak eta bi ikusi bearko
ditu. Eta leengo bultzada. Marshal jaunaren eskutik etorritako dolarrek eragin zie-
tena, garesti ordaindu bear izan ba'du Europa'k, urrengo bultzada, arabitar ar-olio
jabeen dolarrek eragingo lioketena ere ez litzake utsaren truke izango. Guztira, eko-
nomi aurreratu baten jabe aberats uste dalakoan, aurki litzake maizter txiro biur-
turik. Orain bertan, persiatarrak, Krupp ekintzaren % 25'en jabe egin dira, arroi-
liotik jaso ditusten dolarrei esker.

Beraz, garaia da europatar elkarteak batasuna egizta dezan. Orrez gainera, erri-
tako bakoitzak indarka aundiak egin bearko ditu egoera gaintitze arren. Ziur aski,
jaurlaritzek erabakitzen dituzten neurri oro ez dira guztiz onartuak izango erriki-
deen aldetik. Erri zeak ez du usteko indarka guztia bere bizkar ez dijoanik. Orixe
dirudi, beintzat, Italia'ko Legebiltzarrak eta Langille-Elkarteek gobernuaren asmo-
ri eman dioten ezezkoa ikusirik.

Bein biziera erosora egokitu dan gizarteari ez eskatu batpatean gauza geiegiri
uko egitea. Orrez gainera, lan-ezaren arriskua dago. Guztira, europatar gizartearen
altzora ondorez eta egon-eziña datozke. Okerrenean, borrokarik gabe ez da libratuko.
Argatik sartu beldurra ezurretarañio europatar jaurlarieri ekonomiaren egoera gaiz-
toak, edo dalako inflazioak». Gizaldiak eta urteak zear jaurogo galduaz dijoan Euro-
pa onek, ez dezala beintzat burujabetasunik galdu. Eta denaren gainetik, askatasun
eta demokraziaren gordailu izaten jarrai dezala...

JOLUK

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK



ZAZPI-KALEAK

GASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

ARRIENAKO

BARRIAK

Zornotza

LARREA-KO KARMEN-GO AMA

Gutziz ezaguna dozu Bizkai osoan. Amaikatu auzpaztu izan da bizkaitar errietatik, 1712'tik aurrera Larrea'ko muiño zoragarri onetan eleizta irudi bikaina daukan Karmen'go Amaren oiñetan! Bazter orlegitsu au tokiz zoragarria ba'da, ezta gitxiago berton zeru-bizitza daroen karmeldar lekaidekaitik. Prailleok, gizaldiz gizaldi ta urtez urte, ifioiz be aspertu barik, lan ederra burutu dabe Bizkai osoan.

Orixegaitik edo, eta Karmen'go Amak eragin ikaragarria daualako euskaldunon biotzetan, jentetza aundia eldu oi da bertora, igandero; baiña batez be berton, garillaren 7'tik 15'era ospatu oi dogun bederatz-urrunera; eta gero, bere egunean, Karmen'go Amaren egunean, eta urrengo domekan. Konta ezin ala dira bertoratzen diranak: Gernika aldetik, Larrabetzu, Galdakano, Usansolo, Kolaziño, Lemoa, Igorre, Zeanuri, Durango, Abadiño, Berriz eta ingurutatik.

KARMEN-GO AMAREN EGUNA

Aurten, beste urteetan baiño be itzal eta begirune geiagoz ospatu dogula esan bearrean gagoz. Bai bederatz-urrunera, bai bere egunez eta urrengo domekaz, jentetza kezkatu ta benetakoa eldu da Larrea'ra. Urte santuaren fruitua dogu bear ba'da.

Bederatz-urruna besteetan lez osotu da: aste-gunez, goizetan, errosario santua plazan asita. Bazterretan nagi asko dira, baiña baita onetaiko erietian logura asintzen dakien asko be. Zazpiteran, taldeko meza itzaldiagaz; zortziretan eta bederatzietan be, mezak eta bederatz-urruna.

Arratsaldeetan, barriz, zazpi ta erdietan eleiz-kizun ederra, errosario ta meza itzaldiagaz. 14'an, Irugarren ordenakoak urteroko elizkizuna egin eben; eta 15'an, «Karmen'go Ama» taldeko gaur-gurtzailleak gau-belia euki eben.

Illaren 16'an, martitzena, Karmen'go Amaren eguna. Goizeko seioretatik asita, mezak orduerdi. Goiz-goizetik etorri zan jentetza ugaria, meza nagustrako eleiz-aurreko zelaia lagunez beterik.

Amar eta erdietan ospatu zan euskal meza nagusia, Zornotza'ko ildako guztien alde esana. Zornotza'ko txanburu jaunak esan eban, beste sei lekaide pasiotar eta karmeldarrek lagunduta; berberak egin eban itzaldia be. Meza aurretik Balentin Enbeita'k abestu zituan bertso bi, giroa gurituteko; meza ostean be, ekitaldi ederra egin euskun Muxika'ko Urretxindor aundi zanaren seme jator onek.

Amabietan meza ixilla. Arratsaldean, laurutan, errosarioa, itzaldia eta eliz-birea Karmen'go Amaren irudi apaiñagaz. Azkenez, seiuran meza. Illaren 21'an be, domekaz, bardin egin zan, aurretik iragarrita egoanez.

DANTZARI TA KANTARIAK

Zornotza ez da urria dantzari ta kantarietan. Eta onek be esku artu nai izan eben Karmen'go

Amaren jaietan. Illaren 16'an, euskal meza ondoren, bertso sentikor mamintsuak abestu ebezana Zornotza'ko neska-mutil azarri batzuk. Makiñatsu bat txalo artu eben gazte onek, ainbat jente poz-etzitan euki ebelako.

Ostean «Udabari»ko dantzariak, neska ta mutil, zoli ta zintzoak, milla kolorez zoragarri iantzita, ordu luzeetan euki ginduezan aozabalik, euren dantzaldi bakotxa guk pozez eskerturik, esku-zarta biziakaz jakiña.

Illaren 21'an, ostera, domeka arratsaldean, beste euskal jai eder bat eratu euskuen. Zortziretatik aurrera zenbat kanta eder, bizi-biziak eta oraingoak entzun genduzan!

Abeslariak etziran edonor. «Pantxo ta Peillo» agertu ziran lenengo, aurreko zelaiko jentetza aundiari biotza dardarazirik; «Lube» gero, bere gitarra zarrari, Iparragirre'k lez, ainbat eresoiñu atera ta bere abots indartsuz abesturik; «Bakartxo ta Maritxalar» irugarren, euskal-erri osoko kanta zarrak oiukatu euskuen, euren doñu sentikorrez gure biotz-azpiak oso samurtuaz; eta azkenez, Arratia'ko «Oiarzunak», bederatz neska-mutil abots ederdu. Ordu bi ta geiago egon giñan guztioi entzuten; gazte ta zar, guztioi txalotu genduzan gar biziñan ain egun ederra igaro eragin euskuen abeslari taldeok. Segi, zuok, gazteok, euskal-erri'ari, naigabe aldiñan be, poza emoten.

OIZ

Berriz

AGUR aldaizkari onen bidez ainbat barri jakiten ditugu, bedorri ba gure eskerrak emon bearreian gagoz.

JAIK

Murgoitio'ko auzunean igaro izan ditugu San Juan jaiak, 23'gna domeka, ainbat jentek igon eban. Bertan izan gendun «Izarrak» dantzatuko euskal dantza aldia, baita «Auresku» sariketea be, aspaldian lenengo aldiz. Amalau urtetik berako zeila txapeldun, bigarren Jon Aldekoa, biok berriztarrak. Zorionak!

Murgoitio gogoratzen dodan ezker, berbakizun bat, argi ta garbi agertzea gura neuke. Murgoitio auzuneko sendi batzuek diñoste, berbakizun au AGUR asterokoan agertzeko:

Murgoitio'ko biztanleak, auzoko zaindari Joan Bateatzaillea dabe, oso ermita polita barriz. Au da agertu gura dana: Murgoitio'ko San Joan'en ermitarik ez dala saldu bear iflori be, eta diñoen lez saldu ba'da, ez da Murgoitio'n txakur txiki bat be ikusi. Auzunetarrak daroetz lenengo eskubideak, lengo bideak euren eskuetan dagoz, baita lengo

oiturak eta abar. Itxaropentsu dagoz Parroko sekularen aldetik laguntasuna dabelako.

Sarritan jazoten dana, guzurak, jentean ziñesmenean, indar andiagoa, egiak baiño, errez ziñesten dau jentek guzurra, egi baiño, onek zuzen eta zur jokatzera eskatzen dautso alperriari be, baiña au da egi, ez dala Berriz'en ermitarik saldu. Adizkide, gura ba' dozu onartu daikezu, ala ez ba' dozu, ez. Gu ez gara errudun.

IBILLIALDIA

Miota'ko eskoletako mezatara joaten diran umeak, Murgoitio'tik, urteroko ibillaldi bat izango dabe. Aralar'eko Mikel deunarenera izango da au. Benetan pozik eta itxaropentsu izaten gara urtean bein egiten dogun danak alkartutako oni itxaroten. Aurten Uztaillaren 14'ganean izango dogu. Jarraitu daigun olantxe alakartuta gazteok, urte luzeetan, ta ez bananduta lagunen artetik.

Dagonillaren 4'ganean, Murgoitio'ko Kofradi eguna ospatuko da, ta egun orretan esango dan meza, Amezua'tar Serafin'en alde izango da. «Txanbolin» Euskal-erri guztian zan ezaguna, orain baiña Ametzuatarrak doñulariak Serafin'gaz amaitu dira.

Miota'ko San Lorentzoak be urreratzen doaz, ea ba gazteok, ez aztu zuen auzo-une orregaz, batez be egun eder orretan.

SAN PEDRO TXIKI


Uztaillaren 7'ganean ospatu gendun jai au Berriz'en, Ereña'ko auzuneko jaiak.

Ori zala-ta, Gerediaga alkarteak anatulutako «Ezpatadantzari Eguna» ta Ametzua'tar Serapin eta ametzuatarrak guztieri eskeiñita omenaldia ospatu ziran. Azkenengo ametzuatarrak gendun gure «Txanbolin» edo Serapin zintzoa, emen amaitu dira sendi orreko berreun urte zear ezagutu izan dan soñularien jatorria. Makiñatxo bati dantzari eragiñekoak gure Euskal-Erri'an.

Orregaitik, Ereña'ko zelai ederretan, ogeta bi dantzat-talde batu ziran, baiña berriztarrak pozgarriena, «Berriz'ko Nagusiak» taldearen eta «zortzi Elduak» orreina benetan.

«Berriz'ko Nagusiak» 408 urte osotzen dabez, zortzi gizonen artean, ez da neurri txarra; urte orreik lepuan daroetzla ain ondo dantzatuko gazte agertzen dira-ta. Eta «Zortzi Elduak» beste 320 urte daukez alkartuta. Oso talde ederra. Onetariko bati, galderatxo bat egin neutsan. «Zenbat urtetan zagoze dantzatu barik, Juanito? Bere, erantzuna au izan zan: «Amaidu urte, orain dirala amidu urte».

Serafin eta ametzuatarrak, oroitarri bat jaso dautse, Udaletxearen hurrealde baten. Serafin zanaren etxe aurrian. Oroitarri orri auxe jarri dautse: «Berriz erriak, Durango



eskualdeak eta Euskal-erri'ko Dantzari ta Txistulariak Ametzuatarreri. Ereña 1974-VII-7. Ta alboetan beste abesti zaar bi. Zeru goitik, Serapiñ'ek, h batzuk gora-bera, ondo ulertuko dabela ueste dogu euskaldunok, eta batez be, berriztarrak dautso lagun maitasun garbia.

Berriz'ko erriak, udalak, dantzari zaar eta gazteok esku artu gendun. Berriz'tik agertu ziran taldeak, «Berriz'ko Nagusiak», «Zortzi Elduak», «San Lorentzo», «Iremiñe» eta «Izarrak» izan ziran. Onetariko batzuk, emen AGUR'en agertzen dogun argazkian dagoz, Aldekoa'tar Alejandro lagun dabela, au be beste ezagunetarik txistulari jatorri bat, laguntzaillea benetan. «Amaidu» urte ebazala asi zan txistularitzan, Zengoiti'ko auzunean joaz lenengo aldiz, eta amabost urte bete orduko, Madrillera joan zan, ango txistulari batzuentzako jotera.

Zorionak dantzari ta Alejandro, danori, ainbat on egiten diarduzue-ta. Zirikadak izango dozuez, ori bai... baiña danak dakie Alejandro zelako gizona zaraan. Aurrera ta agur.

KARMELE

Elgoibar

ZOKKETA

Emengo Lan-kide Aurrezki Kutxa'k egin zuan zoketan sarituak izan ziran Igartua eta Alonso'tar Paco ta Joxe-Mari anaiak, pozik etxeratu dira Alemani, Poloni ta Suiza aldean egin duten ibillaldiakin. Izan ere, utsaren truke egiteko, ba da zerbait.

ZILLAR-EZTIAK

Gure erriko Sanpedro ta Arozena'tar On Antonio apaiz jaun agurgarriak, apal-apalik, bere lenbiziko mezaren zillar-eztaiak ospatu berriak ditu.

Gure zorionik gartsuenak eta Goiko Jaunak nai dezala osasuna ta kemenarekin urrezko-eztaietaraifio ere irixtea.

SANCRISTOBAL

Aundikiro ospatu zuten emengo txoper jentek, beren zaindari dan San Cristobal eguna. Arratsaldeko zortziretan, meza izan zuten beren lagun ildakoen alde. Ondoren Barrutia jatetxean, anaiarteko aparta.

JAIOTZA

Semetxo bat izan dute Riaño'tar Joxe Angel eta Sanchez'tar Aintzane'k. Gari-koitz izenarekin kristautu dute. Zorionak guraso ta aiton-amonei.

MIREN

DEPURACION DE AGUAS S. A.

URA EGOKITZEN ETA UR LANETAN BEREZITUAK, EDANGARRIAK - LANTEGIRAKOAK - ZIKINDUAK NAIZ IGERITEGIKOAK ZUZENTZEN

+ 32-37-00 - + 31-00-10 - 32-37-01 Urt.

Gordoniz, 44, 12.º
BILBAO-2



ARRATIA

Akorda

Izango da bear ba'da, irakurleren bat, zein dan edo nun legoken erri ori itanduko dabena. Naita orain ain beste urte, euskal-aldizkarietan, baten baiño geyagotan argitaldia izan bere izena.

Ez da Akorda uri baten izena; au esan nai dogu, ez dala erri-lage jabea. Errizka bat da, Bizkai'ko itxas basterreko erri zabalá dan Ibarrangelu'ren antxiñako auzune baketsu ta osasungarri bat baiño. Amabi-amalau basetxe zabal eta eder ditu auzune onek, Mariñe doncari zuzendutako txadon apaña erdi-erdian dabela. Goragotxuago, Atxerre'ko aitzen aldera, erriko ildegi txiki baiña apain eta baketsua; ederto ornitutako il-arriz apainduta dagoala.

Berrogei ta iru edo lau biztanle izaten ditu negu aldian, udan baiña, askotaz geyago, bertan diran basetxe utsetara, nai aiña udalari ertorten diralako.

Atxerre'ko aitzen artean aurkitzen dan zelai-une mamintsua da auzune au berau. Zugaitz eta txara sarratuz esita aurkitzen dana. Aspaldiko urteetan, basabererik ez dagolako or, basamortua. Lenagoko auntz, ardi, basa-bei ta abarrak galdu ziran.

Ipar aldetik, Ogoño aitz biribilla dau; onen aldamenean, Elantxobe ta pizka bat sartaldera, auzune onen uri-burua dan Ibarangelu. Sorkaldera, beste mendizka batzuk eta egoaldera 347 neurkin gora ditun Morua izeneko mendi txaratsua; eta zerbait sartaldera, Atxerre, Kepa deunaren baseleiza apaindu barria goiko gaillurrean dabela. Eskumarago, Laida'ko ondartzea, baiña onen gaithean diran aitzak, oneik be txaratsuak, estalduten dabela. Au dogu Akorda'ko errizka baketsua ta osasungarria.

Garil onen amazortzian, auzune ontako erri-jaiak izan ziran, eta antxiñakoak bezelakoak izan ez ba'ziran be, politik benetan. Goizean, jakiña, meza nagusia, erri-burutik ortarako etorten dan apaiz jaunak ospatu ebana. Urren, euskal-dantzari txikitxu alaien dantzaketak, ugariak eta bikaiñak, baita beste jolas batzuk be, gaztediaren alaigarri.

Eberdian barriz, zelan ez, bazkari edo oturantz ederrak etxe guztietan, eta arratsaldean, txistulari talde biren kalez kalekoak, gero eres-talde baten eragiñez dantzaketak. Ez gendun jakin noiz artekoa zan, arratsalde beranduan alde egin bear izan gendubalako; erri-burutik zear, itxas-basterraren ondolik, Laga ta Laida'ren ganetik, gaberako etxeratzeko.

Atsegin, yakuz, izan be, euskal-erri txu garbi ta osasungarri orreik. Orreik lakoetan ordu eder batzuk igaroten doguzalako; kre-

sal usaindun aize garbiagaz gure birrikak asetu ta erri-euskera betikoa, txukuna, entzun eta erabilliaz gure biotza betetzen dogulako. Gora akordatarrak!

ALTUNA'TAR JOSU

Arratia

Garillaren 3'gnean, lenengo atal onen asiera. Eta beñolako 18 ari aipamenak eta gorespenak egiten aurrean dodan itz-ontzia entzuten aspertuta ok-egin ondoren, emen nik ere, neure aletxo. Edesti zati txiki bat andi-andika.

18 goiz artan, orduko kamioi kaskarzarren kurrunka soñuetan, an eroan ginduezan Iruña'tik Zaragoza'ra, bideak betean. Gauerdi-goizaldera barriz Iruña'n gengoan. Eltzea, lapikoa ganez egiñik egoan, eta gizona gizona ilten, kale-etxartetan, amorrutako arrapaladan.

Santiago aurregunean, goizean goizik, Bidasoa'ko Bera'n, Enderlatza ala Ondarlatza'ko zubitik urbil, ur. Jo-ta-ke, ez aurrera ez atzera, egun guztian. Gana errian. Eguna argitu baiño len, mendiz mendi, nik dakit norako bideetan! Basetxeak arakatu, an lapurtu ta emen ostu, Donestebe besterik ez dot buruan.

Egun batzuk geroagorik, Oiartzun'era, andik Pikoketa'ra: 13-15 gizon nola il zituezan ikusi, ta Erlaitz'era. Ordu gixitan zaurituak, asko, odola gorri... gabaz igesi. Urruña, Endaia, Baiona, Irun, Arratia, gudaritzara. Santofia, Dueso, Larrinaga, Burgos, zazpi urtetan alalola, biziari eutsi, ta barriz ere Arrati'ra. Eta emen naz. Eup!

IL-ATSA.—Nor da il dana? Olabarri'ko umeetan ezta Santaluzi'ko bidean, Egi'n eta Urretxa'n, ez neban, ez, ez neban euskeraren arnas-otsik entzun. Nor errudun? Umeak, ikusi ta entzuna ikasi, gurasoak onetsi... Geu gara errudun: edan-beroa «Gora» ta «Eup», edan-otzean oilloa ta putza... korotza besterik ez gozak, ez gaituk.

Naikotan esanik eta aitaturik doguz gudaldi-egunak. Joan zan urari arresirik asko egiñak gara, baiña orain... geldi ta mokor. Neguko katakumak dirudigu.

MAITEMIN - AZKONA.—Arrati'ko erriren bateko atsoak, txutxu-mutxuka ta murmuur, ogei urte luzeetan nobio diran «teruelarrentzat» izaten dabe astiñaldirik. Emen baiña neskatil bat, biotzaldi beroa izan dauana, ta egun bateko bere lana:

Goizean, Arantzazu'n, eguerdiko bazkaria Elizondo'n, Naparroa'n. Bazkaldien artean legazpiarrak eta durangoarrak.

BARRIA

ONDO ETORRIAK

Arratiarra ta legazpiarra sakon maitemindu, apaiza bertan, durangoarrak lekuko, eta eleizea ere urbil, ur. Baiña bai bata ta bai bestea, gaztetxoegiak izan ba-ta, gurasoen baimena bear. Ez ziran ezkondu.

An egin ez zana, Arteaga'ko Elexaberti'n izango dogu, Mikel Deunaren egunez. Eta bertan izango dira Legazpi, Arantzazu, Durango ta Elizondo. Eta Olarre'ko larrosa maratz ezkongai.

San Cristobal'en izaniko lazkaotar abeslari bikoteari, arratiarren gorantziak, eskumuiñak.

LANDAJUELA'TAR A.

Galdakano

ERIYOTZA

Gizadiaren burpillak geratu barik diardu, ta batzuk ekarri ta besteak eroan dagiz gelditu barik. Eta ori dala-ta, sendi askotan aldi alaiak izaien dira; gizaki barri bat ludiratu dalako, sendiko gazte baten ezkontza bitarteko, biziera barria artu dabelako aur politikak. Baiña, baita sarri, aldi estuak be izaten dira, samitñak, guraso edo seme-alaba edo beste sendieren bat bizi ontatik joan, edo eroan dabelako. Azken aldi ontan, ainbat galdakoa sendi euskaltzale aurkitu da samin orren pean, eta onetariko bat, Arribaltzaga-Elortza sendi jatorra izan da.

Garil onen 21'gnean, Jaunak Bere aldamenara eroan eban. Arribaltzaga'tar Joseba, luzaroan gaxorik txarto izan ondoren; 69 urtedun zala il da. Joseba euskaltzale jatorra zan, inor izan ba'da, ta, beraz, AGUR onen arpeduduna. Adinekoen artean batez bere, ezaguna zan «Jose Malo» gaitz-izenakin. Baiña kontuz, gaitz izen ori ez zan gaitz-izena edo okerra zalako, urrik emon bere ez, kementsua, adoretua, benetalaria ta arteza izanik, gaztea zanean indartsuago, bai esku-pelotan, ezpatadantzan, lanean, zein beste arazo guztietan, eta zetan esan bere ez, euskal gaitetan, zirt edo zart egitekoa zalako, amatu eutsen izen ori. Ain zan zuzena, berakin ebilenen bat nagikeriz edo mal-tzurkeriz ebilela ikusten ba'eban, ez eban nagirik izaten zartada batzuk emonaz, bere aldamenetik bialtzeko. Itz baten, gizon langille ta zuzena ta abertzale kementsua zan! Goyan Bego adizkide zintzo ta jatorra. Goitik lagunduko al dauku berak ai maite izan eban Erri'ren ona lortuten. Laguntzen dausegu atsekabeen bere emazte ta seme-alabai.

LURPEKO OINBIDEA

Aldi antirik ez dala, zelan gertakizunak egiten asi barriak ziran, errian dogun gurutzerorik arris-kutsunean azpitik lurpeko oinbidea egiteko, esaten genduan. Eta bein gertakizunak egiten asi ezkerro, laster zerbait osotzen ikusiko genduzala, ta alantxe izan da.

Lenengo, bitxabala ebagi ondoren or sartzeko burdindun saltsarri mokorrek gertatu ebezan, ta eginkizun ori beteaz batera, bitxabal ori ebagiten asiak dira. Ez dago zalantzarik, egun gixi barri langintza ori amaituta ikusiko dogu. Ta zelango poztasuna izango dan ortik egunero igaro bear izaten dabenezat, ainbeste langille ta ikastolako umetxu ta onein gurasoentzat. Sarritan esan oi dana: inoiz bere ez da berandu!

BASA-JAUN

Antzuola

Uztailaren 13'an eta iragarrita zegon bezela, emen, Antzuola'n ikastolaren alde jaialdi bat izan genduan. Iragarri papalak zion bezela, «Berto ta kopia zar eta berrien erakusketa». Beste zenbait erritan egin duten bezela, erakusketa ori, Xabier Lete, Julen Lekuona eta Antxon Valverde'k osotutako irukoteak egin zuan.

Jendearen aldetik izandako erantzuna onegia izan zanik ezin esan, erritarrei zegokienez beintzat. Onekin esan nai det, kanpoko, erbesteko jendea ere etorri zala.

Emengo jendea geiegi ez joatea, saio ura bera beste nunbait ikusia zuelako ote zan? Ba liteke. Ala ere, ez det itxu-itxuan siñisten. Alaxe izan da ere, beste toki batzuetara beti gauz berdiña ikustera joan izan gera, eta poltzikoari asko begiratu gabe.

Dana dala, eserak dion bezela, asko ta txarrak baiño, gutxi ta onak, obe da, eta ango txalo-otsa entzun edo ikusi ondoren jaialdia gustatu zala esan bear.

Zorionez, bertsoak gustatuaz jarraitzen dute; eta zorionez diot, izan ere Euskera bizi dan arte, bertsoak ere izango dira, baiñan emen dator nere kezka; gaurko bertsolariak ez dutela ezer esaten; diotenak ba'dira, nere galdera au izango litzake: zer esaten die berai Euskerak? Bi orduan itz jario baten ari ondoren eta gaitz-izena gai guziak erabillita, gero ikastola ikutuaz, bera, ikastola, penagarri dala uste baiño motzago gelditu dala esaten zuten aiek bezela. A!, baiña dena erderaz! Obeto «expresatzegatik»edo...

Euskera...! Kultura... ez det ulertzen, dena ote da gezurra?

MATXALEN

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra
BILBAO - Casco Viejo
Tenderia, 15 eta 16

eziketa jostailuak
eskulanetarakoak
irakasketa gaiak

gregorio de la revilla, 1
bilbao - 11

Jolasean ikasi, or zure aurrentzako emoitzarik onena

ONDARRUTI'K

IBASETA JAKINTSUA

Labayru'k, bere «Historia de Bizcaya»n (VI liburuan, 425 orrialdean) au diño: «1774 urte onetan, Ondarroa'n, Ilario Ibaseta doktora jaiotako «fisiko» lez ibilli zan frantzesen aurka eta gerra orretan geien zabaldua egozan gaixoztasaz lan eder bat egin eban».

Ara aurrean ondarrutar jator bat. Baiña jatorrickin bildur eukiteko da. Azkue zanak, Itza eta Agirre'tar Luis Cirilo ondarrutarra zala esaten ekian eta idatzi be bai. 1837'n jaiotako eta 1892'n il zan. Santurtze eta Bilbo'n maixu izan zan eta urte baten Calderon de la Barca'ren «El alcalde de Zalamea» teatroa euskeraz ipiñi eban Bilbo'ko Ayuntamentuak sarituta.

Unamuno, Arana, Madina eta Azkue'gaz batean, Aldundi edo Diputasiñoiak gertu eban euskera erakusteko katedrarako eskabidea egin eban.

Ainbeste urte aztertu nitun jaiotzetako paperetan bere jatorriaren billa. Alperrik. Azkenean be Aita Akesolo'k Bilbo'ko Jon deunen eleizan batiatua zala billatu eban. Senitartekoan jatorritik emongo eutsan, bear ba da, Azkue zanak ondarrutar jatorria Itza'ri.

Ibaseta onen gora-beran be ibilli naz. Ez bakarrik urte bat ikusten, olakoetan gerta lei urteen akatsa egotea be-ta.

1755'tik 1798 bitartean, amar Ibaseta-Aranzamendi jaiotako ziran Ondarru'n. Bat be ez Ilario izendunik.

bere eskabide, agerpen eta lanak euskeraz agertzen: «en memorial que presentó y se leió en dialecto bascongado» irakurten da. 1829'ko gure erriko agiri baten. Bera eta Lekue bat, osagilleak biak eta osaba-illobak, alkarren aurkako autuetan ibiltzen ziran batek baiño besteak eskubide geiago eukazala Ondarru serbitseko-ta.

Sasoi aretan ayuntamentuak izentatzen zituezan erriko osagilleak. Eta 1829 urtean eskatzen ziran baldintzak oneik ziran: gaitasuna, duintasuna, eta soñiez, ekanduz, politikaz eta erlegiñozko bizibide agiriak.

Bein osagillekaz sartuta, beste zerbait esan daigun.

1837'ko Mayatzean egin zan batzar baten agertu zan, Migel Zigarán Mutriku'ko osagillea gertu egoala Ondarru serbitseko. Urtean 150 dukat'en ordainez, bear zan guztietan etortea agintzen eban, gabetan izan ezik eta baserriak lagata, oneik etxeko peseta bat ordaindu ezik. Abadeak duban.

Erriko ordezkariak erabagi eben obe zala 150 dukaten orde, 160 ordaindu eta egunez edo gabez be etortekotan. Kofradikoak ez ziran or sartzen. Au be jakingarria da: agintzen yakozan 160 dukatak, «orain daukagun gerra amaitu ondoren ordainduko dira» esaten da erritarrak eta bere artean egindako artu-emonetan. Ikusten da sasoi aretako gerrak erri guztiak ondatuta eukazala. Orrez gañera, iñoiz deitu eta etorten ez ba'zan, deia premiñazkoa izanda, 40 errial kenduko yakozan urteko emon-bearretik.

Laga daiguzan kontu zarrak. Ain zuzen be aurtan dira 200 urte Labayru'ren esanetan Ilario Ibaseta jaiotako zala. Ondarru'n? Zelan emon eikeazan berak ain ziur urtea eta jatorria?



1764'tik 1767 bitartean, Ibaseta-Amallobiata'k jaiotako ziran. Mutilla bat eta beste biak neska eta bikiki ain zuzen be.

1766'tik 1799 bitartean bost Ibaseta-Anzubiza. Emen be ez izen orretakorik.

Geroago asi ziran Ibaseta-Txakartegi'tarrak. 1781'n. Zazpi billatzen dira abizen orretakoak.

Ibaseta-Garramiola be egon ziran, oneik 1785'tik aurrera. 6 jaiotza.

1788'n Ibaseta-Lekuena bat dago. Neska. Ez ete zan ondarrutarra Labayru'k ain ziur ondarrutartzat agertzen daben jakintsu ori? Kontuz. Ezin gifiei ezetzik esan.

Sasoi aretan, askotan ikusten doguz emen jaiotako umeak edo Mutriku, Markiña nai Lekeitio'ra bataiatzera edo konfirmatzera eroaten. Calagorra'ko gotzaiña etortea gertatzen zanetan, erri guztietara etorri barik, toki baten geratu eta eleiztarrak ara joateko oiturea sartuta eukelako. Olakoetan pilloka agertzen dira bataioak, nai sendatzetako agiriak.

Edo ta gertatu zeinkean gurasoak ondarrutarrak izan eta jaiotako eginbeurrak inguruko erriren baten euzen be.

Ain zuzen be 1774 urtean, Labayru'k aitatzen daben urtean, Ibaseta-Aranzamendi baten jaiotza dago, baiña Pedro ipiñi eutsen izenez eta ez Ilario. Ala dala dirudi beintzat.

Mereziko dau, gure ondarrutar zaletasuna asc nairik jarraitza, eta alegin egingo dogu zerbait agertzen.

Gerotxuago, 1825-30 bitartean bai billatzen dogu Berritu eta Ondarru'ko osagille lez Manuel Andres Ibaseta bat. Onek ba kiazan

«PERNANDO AMEZKETARRA»

Ipuiña dirudi eta egi garratza da. Fernando Bengoetxea «Amezketarra»ren ipuin asko lez.

Ipuin lez agertu bizitzako gertaerarik gogorrenak batzutan, eta bestetan gure bizitzan igarri eta konturatu barik gertatzen diran asko be, ipuin biurtu.

Ondarru'ko kaian, portuan, oraindik minioa bakarrik emonda, burdiñazko itxasontzi andi baten gorputza, kroskoa (kaskoa) dago. Ba dauka izena: «Pernando Amezketarra».

Urte bete inguru bearko dau bere gertaera osotzen, bere montajea amaitzen. Motorrak, laguntzalleak, lema eta gidaritzako tresna eta tokiak, izozkiñak, arram gordelekuak, tankeak eta abar.

Kaskoa Zumaia'n egin eta Ondarru'n biziarta sartu ondoren, milla ta seireun zaldiren indarrez or ikusiko da noizbaiten, itxaso andietan.

Orra txalopa andi bat.

Lenakoak, bale arrantzara edo bakallautara joateko, itxas agintean geldiren baten denpora luzeak sakon ezunez, gertu orduko. Orduan be gertaerak luze eta nekez. Beste onek be gure kaian egingo ditu gertaerak, eta bear ba'da, sasoi aretan nekezen egiten ziranak, gaur erreen.

Ez guaz orretan. Beste onetan bai.

Ayamontetik Ondarru'ra, larogetak osteria egin egi ditur batek ango gizonak emengo «ur aberatsetara» ekarten.

Ondarru'tik, batek ba daki nora, emengo gizonak urten egin bear izaten dabe, beste ur

AGVR

Apartado n.º 2
BILBAO

FRANQUEO
CONCERTADO
08/55

ABESTIAK

Abestiaren soiñu ederra barruan daroagu. Geure nortasunean daroagun almen bat da. Batzuegan indartsuago, beste batzuegan ez ain indartsu. Batzuk soiñuak sortzeko doaria izango dabe ta beste batzuk ez osteria, baiña onek be negarraren soiñua baiño plazako dantzaren soiñua naiago dabe. Guztiok daroagu geure baitan musikaren sentzuna. Ta guk geure bizitzaren gora-berak agertzeko soiñua bear etxean, eskolan, plazan, batzarretan, jaietan...

Musikaren indarra berezkoa jakun ezkeru, guk musika artean bizi bear dogu jaiotzatik azkeneraño. Baiña musikak ez-bardiñak dira bizitzan: ariñak, astunak, indartsuak, egizkoak, guzurrezkoak, errikoak... Gizonak soiñurik onen ta indartsuenak aukeratu bear leukez bere bizitzaren pozgarriztat, baita bere nortasunaren ezaugarritzat. Norbere nortasuna zergaitik ez dogu agertu bear, berez, bizitzan daukagun arterik ederrenetariko bateren bidez?

Musika egizko ta guzurrezkoak be ba ete diran da nago. Pertsonen griña onek ta errien eskubide, aurrerapide ta onak eta bear izanak aitatu ta eskatzen dituen abestiak egiazkoak eta ederrak dira... Abesti onak gizon egiazkoa, osoosoan artu ta poztuko dau. Orren begira dago gizon egizkoa. Zuzena dana abestuta, asetu nai dau barrua, zuzena dana abestu nai dautso urko-lagunari be. Abestiak egi ta onaren agerpena izan bear dau, ta au da izan be, mundua irabazi bear dabena.

Ba-dira osteria bestetarikoak be gizartean. Ta ez da arritzekoa. Lagunen griñak, beti, ez dira onak izaten. Griña onek onak bezela txarrak eta aldrebesak izan leitekez, ta baita gaiztoak be. Gizonen ontasun ta maltzurkerietan sortu daitekezan erakoak izango dira. Egia da, bere eden miñaren puntatik ezer txarrik urtengo dabenik iñork ez dau esango. Baiña, sarri, ikusi oi ditugu besten jokabide ta siñismen santua zapaltzen dabiltezenak, poz-pozik dabiltezelak.

Era ontan jardutea errezena ta ustelkorrena da. Griña txar txar eta bajuek daukazanari, berez urtetan dautse jokabide orrek. Beti berakuek. Beti besteak iraintzekuek. Beti besteak zapaltzen ibilteko erakuek. Zelango sagar zugatza, alango garauek. Ta olan dabiltezenean, griña gaiztoak janarituta, jendeak ondartzan edo usteltzen, mundua euregenatuz salbatzen dabiltezelak uste dabe. Alan-txe esan eban Kristo'k be: «Besteak ilten dabezenean, on egiten dabela uste izango dabe». Zegaz il ez eban esan: ala gosez, ala abestiz, ala iraiñez, ala zuzengabekeriz, ala... Guzti ori da iltea.

Erri ontan be San Pedro jaietan, abeslariak izan dira. Entzuteko aukerarik ez neban izan. Ori dala-ta, entzunikoak bakarrik aditzen emon neike. Gizon eta mutil gazteen aldran. San Pedro jaietako abeslari kontua atera eben. Onen eritxiz kantu gaizto ta bajuek be abestu ziran beste batzuen artean, eta ez jakezan atsegin izan. Au olan dalarik, era ontan erririk ez dogu ez ezi ta ez onerako askatuko. Azkenengo urteotan, urten daben kantu-era barria lurpean sartu ta betirako aztu dedin biderik egokiena be orixe izango ete dan diñue. Era ortako abeslariak eroan dituen erriko gazteak be portau zirela entzun neban! Aurreko egiteetatik ikasi daigun, ondoren, zer egin bear dan.

SOLOZABAL'TAR PAULIN

batzuetara, emen eurentzat ur gordin eta meiak dagozalako.

Gure aittiten aitak Terranoba eta Groenlandi inguruetara joaten ziran ogi billa. Gure semien semeak Arabitarren kolkora edo urrunago joango dira, orreik be ogi billa.

Bizia guzurra dala edo ta ipuiña?

Ayamenditarrak emen billatzen dabe bizia, Ipar-aldeko itxaso otzetan. Emengoak bero galdatuko uren amets ez dabilte, andik ogiari errezagot jagi eragiteko asmotan.

Etxe eta maitteak lur eta atsegiñak, abesti edo kantuetarako ondo dira. Baiña gaurko biziak geiago eskatzen dau. Gure bizikera asko eten egin dira, igarri barik. Eta eten bearko. Eta gu bizi geinken larogetak urtetan egin daiegun amets eta kontuak, ardura eta kezka, oraindik be beste zerbait eskatzen dabela agertzen or joango da aparra eta bitsa zabaltzen «Pernando Amezketarra», gaur

bere sortzailleak be ziurtasunez amets egiten ez daben itxas basterrak aztertzen.

Orra, gure amets eta bizi-modu ez jakinaren testigu eta pregoilari izango dan kontulari eta kantari bat, oraingotan itxasontzi baten itxura artuta: «Pernando Amezketarra».

Bizitza ametsa dala, ipuiña dala?

«Pernando Amezketarra» kontu kontari asi daitenian, itxasoetan zear, kontu alai eta irri-barretsuz ikusi nai genduke. Ala ta be ba dakigu ziur gaitz izango dabela itxas-bizitzaren garratza eta mingoztasuna aztu eragiten.

Len Fernando baserritarra agertzen zan bere izate eta egitetan. Laster «Pernando» itxastarra ezagutzen asi bearko gara, au be bere izate eta egitetan. Lenengo kontua jakina da ezpai barik: «Joan bear dogu urrutira».

A. ZUBIKARAI

DROGAK

Droga-arazoa, zori txarrez, zabalduz doa gure gizartean, batez be gazteen artean. Auxe bai ba dogula gaurko arazo bildurgarri bat: Gizartearen itxaropena izan bear lukeen zenbat gazte alperrik galduta, ezertarako ez dirala!

Batzutan gorputza biziegi asmetan dalako, bigungarri lez, artzen dira osakai oneik, beste batzutan, ostera, gorputza makalegi dagolako, indar barriak barrutik ateratzeko. Baiña bata nai bestea gorputzarentzat kaltegarri dira eta, neurritz-goitik erabili ezker ondandendi osoa ekarri dagikee.

Naigabe edo atsekabe aundiak izan, edo egun illunak aitzu gura, edo oitura txarra artu dabelako beste barik, galbide orretara jotzen dau gure aldiko gizakiak.

Guztiok dogu maite, uste dot, Kennedy'ren sendia, John zana gizon azkarra ta zurra zalako edo. Baiña sendi orretan naigabe itzalak izan dira, eta olako gaizorik be sartu ete dan diño.

Antxiña arda ta edariak, errebedarra ta olakoak izaten ziran elburu orreik lortzeko, eta ez dogu esan bearko kalte txikiak diranik ortik sortu jakuzanak. Baiña gaurko droga oneik ez dira areikaz bardintzekoak. Oneik egin leikezan eta egiten dabean kalteak negar-garriagoak dira. Gizontasuna galtzeko eta gizartearentzat astuntasuna izateko eran geratzen diran gazteen kalterako dira hide samin oneik.

* * *

Orretarako be ba dira sal-erosleak, laterririk laterri eta muga-austea bide dala zabaltzen dira lo-bedar kaltegarriok. Gizonak diruagaitik dana egingo leuke.

Euskalerrian ez dot uste oraindik ain zabal dabillanik oitura au eta beroneri aurka egiteko bide guztiak artu bear gendukez.

Ardaua ugari, larregi edaten da gure artean. Arda ta beste edari-mota asko. Ortik gure ondorengoentzat kalte asko etorriko dala uste dot. Zenbat txikito ezelako bear-izan barik! Adiskedeak artu-emona izatearren bakar-bakarrik. Eta zenbat txola, egun aundia dalako beste barik!

Ez dira mozkorra artzen dabenaik ainbeste be izango. Baiña mozkorra artu barik bere, ez jakoz gorputzari kalte makalak egiten.

Len, gizonak ziran olakoetan sartzen ziranak. Gaur emakumeak be ez dira atzean geratzen.

Edarien ondoan ipiñi bearko dogu tabako-orria be. Gorputzarentzat kaltegarri edo, beintzat, mezederik aundiena kalterik ez egitea.

Gure aurretikoak odol garbia eta sendoa itzi euskuen, baiña gaurko, gure oiturai begiratu ezker, ezin jakin zelako gorputza itziko dautsegun urrengoai.

* * *


Lengoak lengo, droga barri oneik sartzen ba'jakuz, eta asi ei dira, ondandendirako bidea zuzenagoa ta ziurragoa da.

Ez ete litzake Erriarentzat mezedegarri izango olako esan-gaiak ugariago erabiltea eta oitura txar oneik izan dagineen kalte sarriago begien aurrean jartzea?

Onetarako egin bear luke lan sako-nagoa ta argi-goa Eleizeak, eta ez gitxiago aldizkariak, liburuak eta beste barri-bideak.

Erri bat gaizkatu edo salbau bear danean askotariko arerioak kontuan artu bear doguz, eta erbestetik datorkuzan pozoi oneik ez dira aitzu bearrekoak. Ba leiteke Kizi-indarraren lantegiak baiña kaltegarriagoak izatea.

Osagilleak be orretan ez dabe lan makala egin bearko.



AGEA, INDARRA TA ORPOA

IZTEGI OSOTUA

Iñoiz irakurri izango zendun au: ingalanderaz, ango erriak aon darabillan iztegia, bi milla inguru itzek betetzen dabela. Idazle arruntak ostera, ia sei milla itz darabillez. Idazle onak, amarren bat milla itz or nunbait. Baiña, Shakespeare aundiak, ogei millara aiñako itz pillo ederra erabilten eban. Gizon burutsua benetan izan bear, ez zan ba garai aretan gaur aiñako iztegirik.

Euskaldunak, gizaldi onen asierara arte beintzat, buruz, iztegi zabala erabilten ekien, batez be baserrietan; bost-sei bat milla itz bai gitxienez. An, or eta aruntzago bilduta, Azkue gizandiak, bere iztegi zoragarria eskuratu euskun.

Sabin'ek, galduta ebillan indar kementsu a ezarri al izan eban gure biotzetan. Baita esku-lana leuntzeko, idazkera zeatz, jakintsu ta erreza emon be. Sabin'ek ba, indarra ta giroa; Azkue'k, agea, ta orra gizaldi onetan euskera jakintzan egin al izan dan gorakadea.

Ona emen orain, indarrak eta ageak, obeto ekiteko, bear izaten daberen orpo egokia: «Emoidazue orpo bat eta ludiari erango dautsat». Ixillik, naizta batzu-batzuk zerbait jakin, Sota'tar Imanol'ek, urte luzeetako lan neketsua burutu al izan dau: Azkue'ren iztegitik aurrera, beste bilduma eder bat osotzea. Onek emon euskunaren bi aiñakoa.

Ta, lan onen «jaiotzako» aintzindari, Basauri'ko urian urtero emoten dan sari berezia irabazi dauskunaren barria izan dogu. Amar lan izan dira leiaketa orretara sartu diranak; geienak gorenengoak. Diñoenez, bigarren geratu dana be ederra. Baiña, gorenengo ta, maikoen ao batez, irabazle danen artean, Sota jaunarena.

Jakin be jakin izan dogu, iztegi onen lenengo alea irarkolako lana osotuta, aukeran daukagula. Laster baten, Shakespeare arek erabillan aiñako aberatasuna izango dogu euskeraz, gure artean.

Zorionak eta eskerrak Manu'ri, baita oni lagundu dautsan Akesolo Aita langille sutuari. Ta zorionak euskaldun guztiori, maitasunetik sortzen dan lana emen dogu-ta.

Ezker- Eskuinka

Ainbat eta ainbat gure erritarren gaurko neke ta oiñazaldieri begira, burrukearen ordezkartasuna egokiago litzakigula uste dogu, baiña olako ametsak ezinhekoak diralarik, ondo letorkeguz alkar-izketa zintzoak; demokratziaren arauak betetzen ikasi ta demokratzen antzera jokatu nai dogunen artean beintzat.

Baiña onela jokatu nai izateak, ez du esan nai, ostikoka datorrenaren aurrean, entzungor egiñik, ixillik geratu bear dogunik, ez orixe.

Orregaitik, eta denporea galtzea izan arren eta txotxoloak aintzakotzat artzea be, nunbaiten argitaratu diran lerro batzueri ikutuxo bat egitera natorkizue. Egilea ausarta izan arren, «korrektorea»ren lanari esker, ulertu-edo al izateko euskeran... olako zerbait irakurri al izan dogu: «Politikan eskuindarra dena, eskuindarra da beste zertan ere: musikan, literaturan, hizkuntzan (euskera batuaren burruka, lekuko) eta ezkertiarra berdin».

Ikusten dozuenez, irakurleok, etiketa bantazaille au ez da edozelakoa, jakintsu baiño. Poztu geinkez gaurko lorriñean olako gizon «argiak» ikustean.

Gure uste apalean, dana dala, eskuindar izeneko geienak fazista tankerakoak dira, baiña fazistak ez dira eskuindarrak bakarrik, oneik eta indarkeriz euren iritziak iruntsi-erazo nai dituezan sasi-ekzertiak be bai.

Gure errian, gaur, demagogiaren urre-aroan bizi garala esango genduke. Bide ertzetan millaka ezkertiar il ebzenak, ezkertiarak ziralako, marxistarik aurrerakoiak bezela agertzen jakuz, kolore guztietako orri ta aldizkarietan. Nork ulertu gaurko mundu au? Ez da baiña arritzekoa, kondaira zear, beti izan dira ertz batetik bestera saltoka dabilzan gizasemeak.

Okerrena, beste au da: gaztedirik kementsuena, biotz onenekoa, sarri, olako demagogoen eskuetan eta euren probetxurako, batetik bestera ikustea.

Itsu-itsuan «ego-aizedunen» morroitzan dabilzanak, euren bizitzakin bat ez dotozan amaika astakeri esaten dabe, aurpegiko mar-goak bapere aldatu barik. Ogeta amar urte eukezanean, dantza-lotuari, «inperuko auspoa» jotzen ebeneri ta edozelako utskerieri «guda santua» egindakoak, orain sexu-askatasunaren alde, hippien uler-giña luzean alde agertuko jatzuz. Gabonaren esan naia irauliaz, oitura egin diran jan-edanen aurka idatziko dautzue, naizta euren etxeetan, sarrera bete-beteko piñua, argiz eta pitxiz gainezka euki.


Ori, jaunak, demagogo izatea da, ta sasi-ekzerti demagogoz beterik daukagu gure lurralde makillatua. Ez dira makalenaik konbentuan askea, berebiltzua atean, euren zeregiñetarako gogorik eza, politikari —ez euskerazale— trebe ta «ezkertiar» egin jakuzanak.

Baiña, lengo ariari barriro oraturik, fazista barri onengandik eskuindar garala entzuten dogunok, noizik bein, eurak nai leuken baiño sarriago, erriarentzat aurrerabide diranak eskeintzen doguz. Azkenetarikoa bat, Erribide'koak argitaratu daberen KOSKOS 3'gn ikas-liburua izan da. Euskera bateratuan, osotuan, errikoian, danok ulertzeko erakoan egiña... ta Lekuona'tar Imanol'ek eta Akesolo'tar Lin'ek orraztua; ezin izan ba, edozelakoa.

Eta zelan diran gauzak, eskuindartzat salatuak izan arren —egileak— Europa'ko laterrietan, pedagogo eta irakaslerik aurrerakoiak emoten dabean arauri lotuak: burgesentzat bakarrik mesedegarri litzakezan oztoporik gabe, idazkera errezean, euskera-euskeran.

Baiña olako emaitzari be, bizkarra emoten jake noizik bein; setakeri utsean, guri «ipur-baltz» esaten dauskuen «soso-listoak» errudun... Obe izango dogu baiña, aurrerantzean, alde batetik edo bestetik datorkiguzan oiueri jaramonik egin barik, errigintzan jarraitzea. Naizta aldi labur batzuetan naste aundiak izan, ez dogu gure erriaren zentzu onaganako itxaropenik galdu bear.

Emetik aurrera ba, ezker-eskuinka jolasean dabilzan «señorituari» entzungor egingo dautsegu; ara baiña neri gertatu bearra: eskuz eskumatia naizen onek, oiñetatik ezkertiarra nauzeu. Beraz, eskuinaren idazten dodan bitartean, gertu euki bearko ezkerreko oiña, besterik ezean, oztopoak eta noizbeinka adarra jotzen dotozan sasi-aurrerakoi orreri «lepondo» ostikoka berotzeko.



Gatzik gabeko erantzuna

(Mitxelena yaunari).

Azkeneko «Zeruko Argia»n, 605 zenbakian, 3'garren orrialdean onako au idatzi du «Mitxelena» yaunak:

«Honi datzikola, hitz bi eskaini nizkioke, guztizko begiramenez, Aita Yurreri, «guda galdu ta gero» gertatuei buruz. Gerra galdu zutenak, baldin itzek indarrrik badute, galduan gerra egin zutenak dira. Bestela esan, galduan gerra egin genuenok eta ez... bestetara yo zutenak, Bizkaira beharrean».

«Erantzun behar hori, oso-osorik, gure bizkar dago eta gure bizkarrean nahi degu eduki, ez beste inorenean».

Ori da «Mitxelena» yaunak idatzi duana, neri esanez, goian aipatu dedan «Zeruko Argia»n.

* * *

«AGUR»en, 149 zenbakian ta aren 2'garren orrialdean, lantxo idatzi nuen euskal erlijiosoan Oñati'ko batzarrari buruz; ta artan yarraian datorren auxe esan nuen:

«Alkartasuna, batasuna ta umorea izan zan egun orotan. Euskal giro ederra!». «Batek «santua» esaten ebala, besteak barriz «deuna» etzan inor kezkatzen, ontzat emoten eban».

«Urliak «lekai» esaten ebala, sandiak barriz «monja», ori be ondo». «Danok bake-bakean orregaitik, guda aurrean lez».

«Baiñan geroago, guda galdu ta gero... egun batez «diktadura» yarri euskuen baten batzuk Euskeraren baitan».

«Ta orduan zatitu eben Euskalerria?»

* * *

Nere zatitxo orretan, «Mitxelena» yaunak, «guda galdu ta gero» esanaz, aipatzen duan orretan, ez det nik ezer ere esaten «guda galdu ta geroko» aziorrazietaz ta intzulingurueta; Euskeratik lekorera gertatu-koetaz.

Zatitxo orren erdileku osoa, Euskera da; ez ordea «guda galdu ta gero» yazo bide ziran beste ainbat eta ainbat gertakari. Euskerari buruz bakarrik diardu nere zatitxo orrek.

Ta adiarazi nai zuen, guda aurrean Euskerari buruzko arazoetan, etzegoela «diktadurarik» euskaldunen artean. Ta baietz ori, bein edo beste baiño geiagotan, idatzi ere egin det.

Guda ondoan berriz, «guda galdu ta gero», alegia, egun batez «diktadura» yarri zutela baten batzuk Euskeraren baitan. Ta orduan zatitu zutela Euskalerria».

Arako «AGUR»en ori esan nuen; ta ori bera esango nuke berriz, egun ere. Eztakit ordea ta orain konturatzen naiz, irakurleen batek zu ere, «Mitxelena» yauna, ipiñi zintzazkela nere «baten batzuk» arein barnean.

Neri orduan etzitzaidan gogoratu olako oldozpenik; ta gero ere, ez det burutan era ibilli olako gogoetarik, zu norbaitek diktadoreen artean ipiñi zintzazkelako gogoetarik. Etorri ere ez burura olakorik...? Beste gertatu bat nuan nik orduan buruan:

Uste det au, dana dalako edozeiñek sinistuko didala.

* * *

Zillegi bekik onela amaitzea ene lantxo au: «Umorea ta urte asko ta asko-tako bizitze osasuntsua ta ekartsua opa dizut, Mitxelena yauna, biotzaren erditik, Euskalerraren onerako ta Yainkoaren aintzarako».

YURRE'TAR YULEN A. k.

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskera bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri asmoen gainetik daben iritxi-onoeko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egileak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M. MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guturako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

BERMEO'TIK

«Nekatu arren alegindu» izenburuagaz, Urrillak 5'eko zenbakian idazlan bat agertu da, Bermio'ko jaietan egin dogun sukalkitzaz. Ni bazkide naizen LAGUN ARTEA alkar-teak antolatu zun Sukalki ori, ez lan gutxi eginda, eta jakiña, ango guztiok gera langileak, gure asmo guztia euskal-giro bat emotea zan jai orreri, eta olan izan da, aspaldiko urteetan ez da ikusi euskal giro ederragorik.

Idazlan ortan, jai ortan esandako itz batzuk salatzen ditu «euskaldun batek» izenpetuta. Esate baterako: «Entzun apur bet, ladrilloak etorri dira». Egia esan. neska gazte batek esan zitun itz oiek, baña ez arritu euskerazaleok, neska ori gure erritik kanpo bizikoa da urte batzuetan eta goi mallako ikaskizunak egiten dabil andereño izateko asmoagaz.

Neska onen euskal zaletasuna zalantzan ipinteko ez gagoz, ala bai salatari? Zure esanari jarraituta, zelan esan zein, gero-txoago bikote gazte bat agertu zala eta orain-diño lenengoak baño euskera okerragoan itz egiten ebiela. Bikote ori gure artean ezagun eta atsegin diren neska-mutillak dira. Enoa izendatzen, baña Bermio'tik kanpo ere guztiz

ondo ikusiak dira, jatorrak eta euskerazale borrokatuak (ezin dezake onen euskera okerra izan). Erriari begira egin dute itz, gure Bermio'ri begira.

Euskaldun salatari, zuk nai dezun bezala itz egin izan ba'zuen, askok ulertu ez. Orain-dikan, ori da gure erria eta berari begira jarraitu eta jokatu bear dogu.

Zuri jarraituta, au diñozu, ea Bermio'n ez ete dagon euskera ondo idazten dakianik, aurkezlariak irakurritakoa obeto idazteko. Lenengo esan bear dautsut gure aurkezlariak ez eukiela ezer idatzita, talde sarituen izenak eta zenbakiak izan ezik. Bigarrenez, Bermio'n beste Euskal-erri'ko erri guztietan bezala, zarrak eta gazteak dagoz idazten dakienak, naizta gure alkartean, aurtan, erriari begira itz egin, baña ez ain txarto, zuk, salatari, esaten dozun bezala. Urrengoan zerbait egiten ba'dogu, zigur egon, salatari, zugana joan bearrik ez dogula izango.

OARRA: Ezda-baida sortzeko asmo barik idatzi dot, olantxe ba, amaitu dot gai oni burutzaz. AGUR.

RENTERIA'TAR JOSEBA ANDOI

GAZTELU'TIK ILLARGIRA

Bai, zergaitik ez?

Gaztelu'n, beti bezela, pakea, ixiltasuna. Basoan, itzala, txorien kanta ezta.

Giro kazkarra... Atzo, kixkaltzen; gaur otzez.

«Erregiñe» aldean, Apolo XII'a edo Agur VII'a, gertu dago. Illargira joateko. Tramankulu aparta benetan!

Goazen, bai, illargira edo izarretara... berdiñ da. Goazen, bai, urrutira... eguzkiriñe. Euskalerrri berri bat sortzera.

Euskalerrri zarra il da... industriak il du —Euskera ere bai... taldekeri utsa izatera biurtu, dute—.

Aizea, ura, itxaso... pozoiuak daude. Lurra ere bai. Gizonak erotu dira.

Ba-dijoa, bai, gure Agur VII'a aldean, tximista bezela... nun geldituko ote da?

Or beian, Gaztelu; bakar-bakarrik eta triste gelditu da. Gaztelu eta munduba... Emen eta an, zenbat buru bero! Zenbat! Eta denak mutur joka!

Gizonak al gera? Nun dago gure anima? Nun gure biotza?

Matxin 6-74. Enegitea bostari. GAZTELU



Il egin da, izoztu, ainbeste teknikarekin! Ainbeste...

Sendimena galdu degu, zorritzarrez!... Gorgokeri zitala! Ara or gure gaitza! Baiñan...

Au dena ipuia da... beraz, gezurra —eguneroko ogia.

Julio Verne ospetsuaren nobelak ere, ipuiak omen ziran. Ta, gero, ara gizona illargira iritxi...

Beraz, kontuz ibilli... ipui au egi biurtu ez dedin.

Udaran idazten det, eta egunak oso dira luzeak. Bero egiten du. Laister iritxiko da gure Agur VII'a Illargia...

Barruan dijoazten senar-emazte gazteak, Euskalerrri berri bat sortuko al dute?

EUSKERA gaxoa: batasunak illa... itxaropenak piztua!

Zeru goietan illargi eder...

MATXIN

BASAURI'KO JAIAK

Aurtengo jaiak ikusirik, *Ebagillean* gagozala esan leike. Jai oso otzak, bai egualdiz, baita biotzez bere.

Lengo baten, Altuna'tar Josu'k, erri onetako jaiak Irailaren 29'an egin bear litzakezela esaten eban; Mikel Deunaren eleizatea lenengoa zalako. Aldi onetan, egualdi obeak eta otz txikiagoa egiten dauz, baiña biotz barrutik datorkun otzaren aurka, zer egin?

Jaien asieran, jai alaituak izango zirala esan eikean, baiña egunean baiño egunean, alaitasun makalagoa ikusten dogu. Etxeko bat edo lagunen bat goibel, elbarrituta edo lan barik kalean ba'dabil, etxe orreitan ez dogu alaitasunik ikusiko.

Dozena bat inguru gazte-talde, kalerik kale, «bat, bi, iru, lau; bat, bi, iru, lau» ta «gora, gora, Euskalerrria... ez zan beste abestirik entzuten. Zergaitik? *Ebagillean* ete daukagu erantzuna?

Zubero aldeko euskalkitik arturiko izena erabili nai ba'dozue, or konpon Marianon, baiña nire ustez, «Hauspoak», «s»gaz idatzita, obeto egongo litzake.

Donosti'ko «Ponpoxo»ak, «Majorettes» eta Ariz, Arrigorriaga ta Indartsu'tar txistulariak, ikus eta entzungarriak izan ziran. Eskerrik asko danori.

Urrillaren 8'a.—65 urtetik gorako «gaztetxo» eguna ospatu zan. Beste gazte taldeok, aurreko urtean bezela, Batzordera jo eban, areikin Artxanda'ra joateko asmoaz. Erantzuna: «Aurten, zuentzat berebil aundirik ez ipintzea erabagi da». Alan da guztiz, gazte taldeok, bakoitzak al eban bezela, Artxanda'ra jo eban, beste 65 urtetik gorako «gazteorrei» eguna alaitzeko asmoagaz.

Urrillaren 13'a, igandea.—Eguerdiko 12'etan, Cinema Social aretoan, «Festival Artístico Local» ori.

Asi: iru ordulauren beranduago. Agertu ziran danak egin eban lana ikusgarizkoa izan zan; nire ustez baina, antolapena ta apainketak, lotsagarrikoak. Bere ardura guztiaz lan egiten dabena, edo jaiari laguntzearren sarrera ordaintzen dabena, begirune geiagogaz artu bear dala uste dot.

Ozenkiñetatik etorrana ez zan soñua, asto arantzaren durundua zala esan leikean. Ana'k, bere «Barcarola», barrien barriz asi bear izan eban, dantza erdirako durundurik be ez zan entzuten-eta.

Beste soñu bat be entzuten gendun: mantarretako umeen negarra.

Lenengo zatia amaitu zalakoan, asko kanpora urten ziran; anak luzatzen edo beste zereginetara. Alan gagozala, batzuk kanpoan eta beste batzuk urtetan, txistulari taldea agertu zan. Ori baiño begirune aundiagaz artzeko gizonak dirala, uste dot, txistulari orreik.

Bigarren zatia, erdia bakarrik emon al izan eban, eta Gernika'ko Arbola, ta Agur Jauna'gaz bazkaltzera.

Urrillaren 14'an, «Euskal-abestien Jai». An agertu ziran Lupe, Enbeita, Gotzon eta Areta'ko txistularia —ez dot izena gogoratzen, parkatu. Zeregin lar zan laurentzat bakarrik, baiña al zan guztia egin eban, eta ederto egin be.

Xabier Lete, Lourdes Iriondo ta Oskarbi etorriko zirelakoan gengoan, baiña ez ziran agertu. Zergaitik?

Gotzon'ek, bakea gogoratu euskun:

Areitza, piñua,
zuzentasuna, zitakeria,
azkatu, menpetu,
bakea, burrukea...

Danak itzak, batzuk iztegiatan aurkituko doguz, besteak edonum.

Zelako alaitasunaz amaituko ete dira jaiok?

KONDAIRA ZATI BAT

Eremua, Mugak, Biztanleak eta Itz-sorkundea.

Erri onetzaz zerbait idazteko asmoagaz, Izagirre'tar Xabier'en etxera jo gendun Koldo'k eta biok. Etxe onetan, euskera usa besterik ez da entzuten, Urko semetxoak be, ibiltzen bestean euskeraz berbetan dakiela esango neuke. Jarraitu bide orretatik Xabier.

AGUR'ean agertzeko zerbait eskatu neutsen, eta eskiñi eustan lana oraintzu idatzikua izan ez arren, uste'ot atsegiñekua izango dala.

EREMUA: Udaletxe onen eremua, gitxi gora bera 7 ta lauren km. lautu dira.

MUGAK: Ego ta sartaldetik Arrigorriaga'gaz, sortaldetik Zaratamo ta Galdako'gaz eta Ipar aldetik Bolueta auzoagaz.

BIZTANLEAK: 1971'gn. Abenduko 31'an egiñiko giza-zenbaketan ikusten zan 42.246, biztanle aterpetzen zirala erri onetan. 1976'reko, 53.694 izango ei gara Jaungoikuak lagun, eta 1986'an, 86.739 biztanle aterpetuko ei dira.

Orañi urte bi, lan arazoetan % 51 genbizen, onela bananduta:

Arraiñtza, Eizari ta Nekazari-tzan	% 1,01
Meatzetan eta arrobotzan . . .	% 0,57
Lantegi beargintzan	% 71,18
Etxe gintzan	% 10,07
Tximist, ur eta osagintzan . . .	% 0,88
Salerosketan	% 7,27
Ekarralditzan, biltokitzan eta ibilbidetzan	% 4,09
Aginbidetzan, erri-lanetan eta abar	% 4,93

ITZ-SORKUNDEA: Muxika ta Azkue'n iztegiatan eta 1787'ko Iturriza'tar Juan Ramon'en «Historia General de Vizcaya'an», Basauri izena basoko uria esan gure dabela diñue.

Jatorria ta geitza: Basauri orain zer dan argi ikusten dogu, baiña erri onen jatorria ez dago aifñ argi.

Izan-leiteke oker-iritzian egotea, baiña alan da guzti uste izan-geinke, Basauri, Arrigorriaga'ko magaletik sortu zala.

1510'an Mikel Deunaren eleizatea egin zan, Arrigorriaga'ko Santa Maria Magdalena'ren menpean. Eleizate onen magalpean, batuago edo nasaiago, baserri batzuk sortu dira, ta alan sorturiko auzo edo uriak, Basauri izena artzen dau.

Basoko uri au, astiro-astiro bere inguruok zabaltzen doa, ta orregaitik aldemeneko baserri ta auzo txikerragoak beregintzen dauz.

Oneik, auren jatorriko izena gorde arren Basauri izenagaz ezagutzen asten dira.

Utsune luze bat igaro ondoren 1703'ra eltzen gara, ta urte onetan Marques de Guadalcazar e Hinojares'ek auzia ipiñi eutsen Marquesa de Mejorada'ri, Mikel Deunaren eleizako irabazia zala ta ezala.

Gertaera onen argibide ta zertzeladak Udaletxeo agiritegian aurkitzen dira ta egiztazten dabe erri onen azkatasuna, landaxkea bananduta ta Arrigorriaga'ko mugapeko lurak inguratuta egon arren.

Ordutik, arrezkero, Basauri, agirien bidez argi aurkitzen da.

1771'ean, Mikel Deunaren eleizateari kanpantorrea egiten jako ta 1892'an Iturralde'tar Angel lan-maixuak, Arizgoiti aldean, eleizate bat egiteko erabagia artzen dau.

Eleizate au egitea 1894'an amaitzen da, ta gixaldi asieran eleiz-nagusi izentatzen da Fausto Deunaren babespean.

Andik 40 urtera ta urigintzaren bearrez, lurreratu ta Kepa Deunarenagaz ordeztu zan 1944'an.

Ariz aldean XVII gixaldian egiñiko eleizate bat dago.

1955'an beste eleiz-nagusi bat egiten da Ariz aldean, Edurtzetako Ama ta Fausto Deunaren izenean.

El Calero, 1966'an, eta Pozokoetxean, 1971'an, beste eleize bi egiten dira.

GOIKOETXEA'TAR KEPA

Abesbatzen Leiaketea

TOLOSA'N


Aurten, eta seigarren aldiz, Euskal-Abestien saillean, Abesbatzentzat eratzten dan leiaketa ospetsu au izango dogu, Azil onen 1, 2 eta 3'gn egunetan. Nun, da Tolosa'n, Leidor antzokian.

Datozen abesbatzak. Ezingo ditugu danok aipatu, naita alegiñak egin:

Alemanit'ik —eldu!— Städtischer Kammerchor Marktoberdorf, (52 abots). Bulgari'tik, Gizasemeen GUSLA abesbatza (105). Asturia'tik, Noreña'ko Orfeon Condal (54). Barzelona'tik, Villafranca'ko Agrupación Polifónica (40); Grup Llevant, Sant Jordi (48); Grup Sinera (46); Igualada'ko Schola Cantorum (25). Cáceres'tik, Orfeon Provincial (40). Oskat'ik, Orfeón Jacetano (36). Madrid'etik, Coral Santo Tomás de Aquí-

dualako, ain zuzen, berezieta ABESBATZENTZAT EUSKAL ABESTIAREN LEIAKETA da. Urteroz aunditzen bai-dijoa LEIAKETA oni abestaldeek eskeintzen dioten ardura. Aurtengo seigarren Leiaketa au dezute, noski, agerkairik onena. Tolosa'n bilduko bai-dira Euskalerrri'ko Araba, Gipuzko, Nafarro, Bizkai eta Lapurdi'ko abesbatzaz gaiñera, Madrid, Huesca, Asturias, Cáceres, Zaragoza, Barcelona eta Valladolid'koak (emen dauden euskal ikasleak).

Eta Leiaketa onek nazio-artean artzen ari dan ospe ta izenaren agerpenik bikaiñena, Alemania, Bulgai, Italia eta Hungria'ko abestaldeak gurekin izango ditugula jakitea da. Abestuaz batera, entzuterik eta azterterik izango bai-degu, orpoz-orpo konparturik, erakusgarri izango zaizkigun abesteko erak eta teknika—jokoak.



no (55). Valladolid'tik, Coro Ederki (50) (euskal-ikasleak). Zaragoza'tik Coral Polifónica Ejea (40). Hungria'tik, Coro Vándor (65 ta 35). Italia'tik, Coro Femminele da Camara, Romana (35). Ta azkenez, Euskalerrri'tik: Tolosa'ko Leidor (40); Oñati'ko Oñati (34); Etxarri-Aranaz'ko Abesbatza (49); Billaba'ko Santa Cecilia (57); Uarte'ko Virgen Blanca (50); Deustu'ko Deustoa'arak (30); Alonsotegi'ko Gure Ametsa (62), eta Bilbo'ko Jatorki (47).

Egitarau luzea ta argazkiz bete —euskera gitxitxo— atara dabe. Ta bertatik jasoko dogu urrengoa, geu asmatzen ibiltzea, ez litzake ona izango:

«Aurten ere, Tolosa bete-betea ari da bizitzen, aurrean jartzen dizuegun egitarau ontan eskeintzen zaizkitzen musika aundiederrak. Jai oietan, erriaren gogoia eragiten

Bijoakie, beraz, abestalde auei guztiak gure esker ona. Baita ere, «Abestaldeentzat Euskal abesti-berri sortzaillentzat irugarren sariketa»rako euskal abesti berriak sortu eta bidali dizkigutenei, eta, bereziki, «Dotación de Arte CASTELL-BLANCH»i ain garrantziko bere laguntza bein da berriro opa digulako. «Mai inguruan» izlari-zuzendari izango direnei, auen laguntzari esker lortzen ditugulako CIT'ek burututako asmo eta elburuak...».

Orra ba, gure irakurleok. Ortze-ortze baten jasoko dozue izpar au gugandik; abestaldi ori amaitu baiño len elduko al da zure eusketara, jakin dagizun eta al ba'dozu ta eres-zalea izan, joan zaiten arin baten Tolosa'ra.

ASTI

FERRETERIA UNCETA, S.A.

Landola tresnak - Galtzairu neurri zeatzekoak
Langailu guztietarikoak - Leunketa gaiak

Ibarrekurutz kalea 14
71-10-00 Urrutz.
Apartado 18

E I B A R

IÑON LEPOTIK!

Arkimedes zanak, gizon argixe ta garbixe iñon izan ba'da, esat'eban: «Emon daizue palanka bat eta munduko pixu gutxiori erain baietz...».

Gaurko gizon askok, geixenok, danok, neu be tartien, esan ez arren egiñ bai: «Oratzen b'ot ondo iñon lepue, biziko naiz zabal eta nasai...».

Gure aitxe zanak kontu poli bat esaten ekixen. Ber-berari pasaixe.

Egun baltz baten, negu egun illun baten, Etxebarri'ko, bere erri maiteko etxera, Bolante izenez, ate aurrera, edurrek zuritxute, eta otzak jota... eskeku zaartxu bat agertu de. Amamak, nire aitxan amak, Juana'k, emon dotse erriek bikue. Orduen, oiñ irurogei edo urte geixa, diru ederra.

Aitxe Juan, atzeko atetik urten, da bere biotz samur bigunan erreguz, tope egin dau eskeku orrekiñ.

—Zu, gizon, etorri neugaz. Egueldi txakurré be ba-da, da eziñ zeike urriña juen zure taixue ikusitxe...

Pentsau da ekiñ. Sorbaldatik oratu, gizon eskeku orri, da solo-solo, eruen dau Joxe Ramon Peru'n temajana. Lastu siku tartien, ego-egoki, ipiñi dau politxo. Da gure aitxan kunplimentuko zabaltasuna ez, ez ei-zan makala.

—Zu, ementxe, geldik eta epeletan egon. Zer ba...! Gizonak gizonantzat izen biar dau beti...!

Eskekuan begi lanbrauek eskerrak emot'otsen gure aitxari. Berbetako be inderririk barik. Etxun de laster geratu de lo, zurrustada gozo baten.

Aitxe, burutik berako edur zeie kendu, zapuztu trakadan, da ba-dator etxerutz.

Joxe Ramon Peru'k urten dotse aurrez da, diño:

—I, Juan, zer dabik...?

—Ba, Joxe Ramon, eskekue otzak eta dardaran ikusi eran, ba, karidadian bidez, zeure temajanan sartu dot.

—Ori'ok ona...! Ederto, Juan...! Etxak Bolante'neko etxien lekuri edo aterperik edo... karidadie iñon lepotik eitxeko ustien abill?

Andik aurrera, gure aitxe zanak, beti-beti esate'ban:

—Iñon lepotik abilladie...! Merkie, erreza ta balixo txikikue!

JUAN JOXE ARRIZABALAGA
«MARKIÑA»

MENPEKERIA

Beti, gaur bezelaxe, itz onek etsai asko izan ditu. Zer dauka ba itz onek bere muin barrenean? Menpekeria gizonaren aurka dago, noski, jakituri ta gorroto guztiagaz. Ori dala-ta, gizonaren izatea be egia guzurraren aurka bezela, menpekeriari jarki egiten jako. Gizonak ez dau nai erazotzaille ta menperatzaile gaiztorik. Ta, bidezko dan nai izate orren zioak, zeintzuk ete dira?

Gizona lurreko zer guztien artean zer-bait berezia da. Arri, burdiña, landara naiz pizti bezelako bardiña ez da. Onak guztiok daben zer-bait ba-dau beregan. Alderdi orretatik begiraturik, lurra janda bizi dira landara, pizti ta gizonak eurak ere. Orra ba gauz orreen ta gizonaren alkarkidetasuna. Lurreko gauza guztiak gizonak menperatu egiten ditu, berarentzat sortuak dira-ta. Landara, arri burdiña bidez etxeak, egazkiñak, makiñak, izontziak egiten ditu. Ta urrearen bidez, gaur egunear biziaren ardatz bezela jarririk dagoan ezkeroz, gizadiaren bizitza zuzentzen dabilatz. Gizonak gauz onek menperatu egiten ditu bere oiseintzarako. Ta aurkako karrazi txitirik ere ez dabe egiten. Egiz ortarako egiñak dira ta gauza oiek santu batzuk dira gizonaren oiseintzarako.

Baiña gizonak gizona bere naikerietarako zapaldukeran, bigarren gizon onek karrazi egiten dau: «Ta, zu nor zara, ni zure azpira, bidegabekeriz, jarteko?». Emen, sortzen da gizonaren arazo aundia. Gizonak, nautsikeriz, urko lagunak, bereak ba'litu bezela, agindu ta azpiratu nai ditu, ta munduko gizonak, ifundik iñora, ori ez dau ontzat artzen. Izan ere, gizona ez da nolabaitan gizonaren erara erabilteko egiña. Ta egi orren giltzarria pertsonaren sorkeran dago.

Giza semeak iru gauz berezi ta arrigarririk ditu: bere adimena, bere naimena ta bere askatasuna. Ontariko doai bakoitzak bere nortasuna dauka, zapaldu eziñeko. Adimenak jakituriaren bideak atxurtu ta

atxurtu egin bear ditu ta egaz jo aurrera. Bere eginbear ori zuzen betetukeran, iñork ezin leikio egorik ausi, sortzetiko arazoa osotuten dabil-ta. Naimenak, buruak argi agertu dautsona, bete eragiten dau. Zuzena dana egikeran, iñori ez jako zillegi kalte egiterik, zuzeneko egintzei eskurik ezin leikio aurka bota. Gizontasunaren aurka jokatzera litzake, ta errezi beste askoren eskubideak zapaltzea.

Baiña alan da be, giza-griñak, euren itsumustoko indarrekaz, pizti gaiztoak dira egarri okerra asetu eziñik. Ta egia ta maitasunak zuzendu gabe, arro-arro dabiltezan indar orreek doillorkeri nabarmenak egiten ditue. Dirukeriak, adibidez, gizon baten burua itsutu ta biotza zanpatuten dabenean, askatasun guztia kenduta isten dau. Aundi egin dala deritxo bere buruari. Oitura bariak artu nai leukez aunditasun orren erdian: jauregi barria, belbil izugarria, aundikien lagun artea, diruagaz inguruak astindu ta menperatzea, baiña beti, norberaren erretxiak ta metalaren indarrak eraginda eta goituta.

Baiña au ez da egi, zuzentasun ta maitasunaren ondoren bidezkoa. Egiak ez dau nai goikeririk, ez eta ere gizon zapalduaren oju larri ta negarrik.

Jakituriak be ba-ditu bere arrokeri ta goikeria. Ta orduan, gizonaren ikaste barriak, sarri, bere atzeko dan laguna zapaltzera doaz. Kontu-kontu gabe ala jakituri maltzurrez, gaur eguneko aunitz makiña, pelota bonba, enuklear inder toki, Jaungoikoak egiñiko gizon bizi ederra ondatzera ete doaz? Ta Jaungoiko berberaren gogoari ez ete dautsagu begiratu bear, berarizko legez norbere bizi kentezko eskubide ta eginbear daben erri zei guztiari entzunda? Biziak dei egiten dautso barru-barrutik bakoitzari.

SOLOZABAL'DAR PAULIN

Izena: Kosmos 3gna. (Izadi ta gizarte-arloa)

Idazlea: Anaya.

Argitaratzailea: Anaya.

Irarlea: Artes Gráficas Ibarra.—Madrid.

Itzultzaileak: Erri-bideko talde bat.

Oiñarri eziketa orokorrerako E. G. B. esku-liburua dogu au.

Ikas-urtea asi dogu eta geure lan-ikastolan lenengo urtekoentzat ezarri be bai liburu au.

Liburu dotorea da, eta ikasleak pozik artu dabe.

Salneurria be, ikas-liburuai dagokienez,

bera ikastea ta irakastea ez dala naikoa, gaiak eurak irakatsi bear dirala izkuntza orretan, gaiak ikasi barik artzen dan izkuntzea il egingo dala.

Eta orixe da gure izkuntzeak daukan zori txarra: Asi gara izkuntza bera gure ikastoletan eta ikaste-etxeetan irakasten, baiña gaiak erderaz irakasten doguz. Beste oinkada au be, emon bearrekoa zan.

Esaterako, irakurle, zenbakien erabilketak zelán egiten dozuz? Zeuretzat naiz besteen aurrean batuketa (suma) bat egiten dozunean, zelán egiten dozu? Geienak erderaz egiten dabela uste dot, orrelan txikitan ikasi ebelako. Ori, ta olakoak, gure izkuntzearen zori txarra dira. Ikas-liburuak eus-

Urrerik berezko egoera, xurgailu batek da onelakoa da sdaten duguna.

Beraz, utseraillo josten ba'da graduz edo utseraillo oztuzten ba'da, orduen izotz-gogortu egiten da ura. Eta 100 graduara iristen ba'da, irakiten asi da eta lurra bihurtzen.

Utseraillo oztuzten, elurdirak izotzu egiten dira mendiko gorrietan eta bizuetan izotz-ibaiegiñak labaritzen dira beetara.

Lurpean berotu eta zirkuitatik indarrean irten oi dan ur-zirrikari, "geiser" izena ematen zaio (jako).

eginkizunak

Zuretz gogoratu. Artu bere neurria bat eta ikusi zenbat gradu dauzkan urak irakitean eta zenbat izotz-puska bategi idazti sendu edo ur-gogortuz dituan satorri onaregarriak zeintzuk diran.

ez da aundia (136 pta.), erderaz liburu berak daukana. Gure liburuak erderazkoen aldean oso gitxi saltzen diran ezkeror, nondik lortu ete daike ain merke ateratzea?

Mirari onek ba dauka bere azalbidea: Anaya'k berak egin dau argitalpen au eta erderazko esku-liburuak izan ditun margozkiak eurak ditu eta orrek asko merkatu dau liburuau.

Oso apaña ta polita da ba liburuau: margozki ederrak, izki argia ta irakurteko erreza, ingia lodia ta sendoa.

Ezi-bidea konturatzen ba'dogu, orri ba-koitxaren azkenean ditu lagungarri batzuk, eta fitxak ateratzea be, erreze-erreza da.

Esku-liburu au itzulpena da eta darabilen gaia, izadia.

Egokia ete da olako liburuak ateratzea?

Izkuntzalariak esana eta aitzu bear ez dogun izkuntza-legea, auxe da: Izkuntza

keraz ateratzea bearrekoa da: orrelan iztegi bat artzen dogu, berba egiteko erreztasuna lortzen dogu, euskaldunen pentzakerea ez dogu galtzen, geure kultura edo jakintza zabaltzen dogu, e. a.

Jarraitu begie itzultzaileak asi daben lan onetan.

Erreza ete da liburu onen euskerea?

Euskera osotua da. Gipuzkoa'koa ta Bizkaia'koa batez be. Aditza gipuzkoeraz dakar, baiña bizkaieraz makó artean.

Nik daukadazan ikasleak euskera gitxi ikasiak dira geienak, eta batzuk liburu au dabe lenengoa, izkuntza bera be beste ikasaldi batzuetan ikasten dabela. Eta ez diñoe euskera gatxa danik. Amabost urte inguruakoak dira.

Zorionak eta eskerrak itzultzaileai.

GAMIZ

IKIRIKI

eziketa jostailuak eskulanetarakoak irakasketa gaiak

gregorio de la revilla, 1 bilbao - 11

Jolasean ikasi, or zure aurrentzako emoitzarik onena

JESUS'EN LARRALDE ZEAR

VI.—EPAI-ETXEA, PRETORIOA

Babilonia'ra joan aurretik eta gero, ba-zan Hanaeel izeneko gaztelu bat. Makabeotarrak barriztu egin eben eta Baris izena jarri. Herodes Aundiak geitu ta edertu egin eban eta Antonia izena jarri, Marko Antonio bere adiskideari omenaldi bezela. Ona ekarri eben Jesus epaitua izan zedin, emen bizi zan ba Roma'ko Ordezkarria. Pilato zan orduan. Epaia jauregian egin zan, ixillean lenengo.

Omarieyek Ikastetxea dago bertan gaur. Epaia agiria larrenean (patioan). Lithostrotos deritxo gerkeraz, au da, arrizko bea, ta arameoz Gabbatha, au da, goitiko tokia. Kale-eskuma da orain. Sion'go lekaidak eta Prantziskotarrak dagoz gaur. Lurreratu egin eben. Gaztelua Kristo'ren 70 urtean.

Iru elizatu jaso ebezan gurutz-gudariak: Zigorraldi, Arantzazko Koroi ta Gaitzeste elizak. Prantziskotarrak egin ziran Zigorraldi Elizaren jabe. Sion izeneko mojak dauke gaur. Eliza onen barruan dago Lithostrotos geiena.

Gaitzeste-Kapilla dago ezkerrean. Zigorraldi Kapilla'tik eskuma-aldera. Barriztu egin eben 1929'garrenean. Gudarien larrenean ikusi ta egin ziranak gogoratzeke dira iru leioetako irudiak.

LITHOSTROTOS

Dana erakusten dabe lekaimak. Oroiz beterik dago dana an. Ostiral Gurena dator, berez, gogora. Ura artzeko zulo aundi bat dago barruan. Kristo'rekin gudariak egin ebezan basatikeriak dakarrez gogora bean agiri diran ikurak. Eliza, ezker-aldera dago. Bera ioian orma ikusten da. Kalearen alderdi ortatik jazten dan orma ikusten da elizaren azkenean. Beerago jendea zaintzeko egoan gela.

AL'OMARYYEH IKASTETXEA

Eskolea da, baiña Elizara begira dagoan aitz aundi baten gainean dagozan etxeak ez dira aldi batekoak. Gazteluko tokirik goiena zan. An bizi zan Erroma'ko Ordezkarria. Ara eroan eben Jesus, Pilato'k epaitu gura izan eban.

GURUTZ-BIDEA

Jesus'ek Pretorio'tik Kalbario'ra egin eban bidea da. 14 dira egotaldiak. Aita Prantziskotarrak ostiralero egin daroe Gurutz-Bidea erriarekin. Jesus'ek epaia Lithostrotos'en artu eban arren, Al'Omariyeh Ikastetxean asten da Gurutz-Bidea. Arratsaldeko iruretan.



Egongu batzuk kalean dagoz agirian, ikur batzuekin eta izkiekin markatuta. Batzuk, Ama Birjiñaren irudia daroe. Beste batzuk barriz, eliza ta kapillatxo-barruetan dagoz. Kale estuak ezeze zikiñak be ba-dira. Jendea bardin. Zortzigarren eta bederatzigarren egonguak alkarren ondoan dagoz. Bederatzigarrenaren inguruan etxeak egin dabez eta okertu egin bear da ta asko okertu be. Abc-mukur batek markatzen dau egongua. Ezker-aldetik Illobi Santuko Eliza ikus daiteke. Egongua Kalbario-goian dagola esan daiteke.

Azkeneko bost egonguak Illobi Santuaren Elizaren barruan dagoz.

ILLOBI SANTUA

Gurutzea lepo-gaiñean ebaldu zan Jesus gurutzaldi-tokira. Gareb gaillurreko aitz-lepoa da. Emen ipiñi eben gurutzea ta bertan jarri zintzilik Jainko-semea.

Uritik zerbait kanpora egoan gurutzaldi-tokia, baiña uriko-ormatik ur-ur.

Arrobi bat izan zala bide. Itxi egin eben seguru asko ta baratz biurtu. Adriano Kaiserrak itxi egin eban 135'gn urtean eta xapalda aundi baten gainean eliza bat jaso eutsen Jupiter eta Venus'i. Onela jarraitu eban 326'rarte. Urte ontan Elena doneak, Makarios Gotzaiarekin aituta, lurreratu egin eban. Gauza arrigarria: toki guztiak len ziran lez agertu ziran. Konstantino'k elizea lurreratu egiela agindu eban. Arrobi-ingurua luzatu egin eben, Gareb gaillurra zerbait moztu ta iru etxe jaso.

Lenengo etxeak Illobia eukan barruan. Bigarrenak Baratz Donea. Irugarrena Eliza Aundia zan. Martyrion izena be ba-eban. Baratz Santutik Kardo Maximus'erañño eltzen zan. Gaur lenengo etxea bakarrik dago orduko eran. Anastasis, au da, Bepizkunde dau izena. Eliza Aundia sekula ez da barriztu. Atadi-zati bat ikusi daiteke «Ruso» izeneko konbentutik. Eliza Aundia barriztutzen diardue gaur erlijio-mota danak. Iru erlijiook, oneik dira: Latino-tarrak (sartaldeko katolikoak), Grezitar Ortodoxoak eta Armenio Ortodoxoak. Beste iru erlijioak be ba-dabez eskubide batzuk: Koptoak, Siritar Ortodoxoak eta Abisiniatarrak.

Atadian kapillak eta illobiak agiri dira. Atadi-azpian, Ur-leze bat dago.

Antxiñako erromatarren eliza-zati bat be agiri da.

Elizaren ezkerrean musulmatar atezaiñen etzan-aulki bat dago. Ate-aurrean Igurtzi-Arria. Marmore gorrizko arlosa bategaz markatu eben tokia 1810'ganean. Jesus'en eriotza ta gurutzaldia ikusten egon ziran emakumeen oroiz egindako irudi bat dago ezkereruntz. Armeniatarrak dauke euren ardurapean.

Ezkerretik aurrera eginda Rotonda'ra eltzen da. Erdian Illobi Santuaren aldea. Ementxe esan genduan meza zortzi apaizak. Kupulak 32 neurkin dauko goruntz eta 25 zabalera. 18 abc izugarri pillarriai eutsiteko.

(Jarraitzeko).

GOIRIA

BERBIZKUNDE BARATZAK

Pasiotarren Anaidian bizi dan Mar-kiña'ko Gerrikabeitia'tar Onori Aita burutsuak, «REDENCION» aldizkarian beregizko idazlan bat argitaratu eban, izenpuru onegaz: «Jardines de Resurrección».

Ain jatorra danez, or datozan go-goeta garaienak euskeraz esan gura neukez gure AGUR'ean:

Ilten diranetatik asmakizun arazo andiak datorkiguz beti. Batzuentzat ezin-aldenduko min-atsekabeak; beste batzuentzat, errebeskeriak. Urrengoak, lenbailen erre ta auts biurtzea gura leukee. Areik osterera, usain-gozoz igurtzita bizirik lez irauaraztea. Geienak baiña, oitza egokietan edo atxurdiñezko illobi apainduetan gordetea. Ez erre, ez illondu, ez atxurdirin aberatsetan estali... erdi-bidean izaten da egia; onetan be bai, nire ustez.

Ez erretze ez errauts biurzerik. —Gaurko uri andietan, lur-neurkin bakoitza diru-sari andiagokoa izatera dator. Origaitik, itokiak laburtu egin bear. Beartasuna agertzean, esaterako gudatokitako gorpitzillen ugaritze tamalgarrian, edo uriola, lur-ikara, izurrite andien ondoren egiten izan dana, danean eta beti izan daitela gura dabe batzuk.

Baiña erretze orreik, alde askotatik, ainbat kalte sortzen ditu. Ona emen banakaren batzuk: Gure egunotan, edozelako biotz-gogorkeria aldendu bear dogu. Ta, gorputzillak erretzeza, gizadi geienarentzat, ez ete da latzgarri, basakeri ta biotzbako ankerkeria izango? Gutariko geienak, beintzat, aita-amare gorpuzkondoak ez leuegu su-garretara botatzea gura.

Aurrekoen gauzen gomuta, oroipen guztiak ezeresteko ardura dauan orain-go gizaldiak, erreketari ori zirikatzendau. Baita iñoz esan, gorpuen aberastasuna dan kimika-indarra gizadiari itzuli bear ei yako. Erretzeak, utsetik - utsaren, nihilismo orren gogapenak bururatzen dauz. Baiña munduak, oldozpen illezkor eta Jainkotiarrak bear ditu.

Azkenez, geroko paleontolji, etnografi ta aurreko errien kultura, bioloji, eri-aldi ta jakintza askori dagokiezan jakintza-langaia eta azterketak kenduten dautsaz erretzeak.

Eta zer esan orain arteko edo oituzko iltegiari buruz?... Ez dira egokiak! Bear ba'da, baserrietako lengo apal eta arrokeri bako iltegiak onartu geinkez. Baiña gaurko gure iltegiak, Txadon eta eleiza-nagusietan dagozanak be, irudiz ez ba'da be, gizarteko injustizi zuzenbagekeria luzatzen dabe. Izenbako gizatalde ugaria, andikien arrotasunaren inguruan makurtuta age-

ri da. Ta, oneik, euren eziñezko baiña iraingarri daben asmoz, illen betiko bardintasunari irri eginda, besteak isekatu naian-edo, euren sendien andikeria illarri garai, idazpuruz beteriko jaun-obi atxurdirin arroetan eortziten dabez.

Ez, ez dabe zuzen ziñesten betikotasunean, oraingoago egikeran, orma luze muga bakoak arasaz bete, ildakoen «erlauntz» aurreak argibide-txar-telez beteta ipinten dabezanak. Obitegiak, gizonari, betikotasunean sakonkiro gogoratzen lagundu bear dautso. Baiña gure oiturazko iltegiok ez dabe egikizun au ondo betetzen. Ainbeste atxurdirin, jaun-obi dirdiratsuak, aberatsen eta andikien arrokeria deadarka adierazten dabe. Giro baketsu ta gozotsuak, argi epel kerizpetsua bear doguz sakon ausnartu al izateko.

Or baiña, Berbizkunde Lorategiak, orretarako egoki diranak. Ildakoen gorpuk, euren kimi-ongarri, edozein muetako lora usaintsu ederrak ernearazten inguruan. Aberats eta txiro, olan dan bitartean, baita jakintsu ta ez jakin, edo errege, lendakari naiz mentpeko, jaun eta oitsein, guzti-guztiok bardintasunez apaindurik lora berekin, Kristo'ren Gurutza tolesgabea ta idazpuruz laburra euren ganean dabezala, Berbizkunde Eguna itxaroten. Oldozpen au ez ete da maigarria, zoragarria?

Emen, baratzak, bedartzeak eta lorak berba egiten daskue ixillean. Emen dagoz illak loren margo ta usain artean, eta zogi-orlegiz estalduta, barruraino goi-argituz gu danok, eta maitasuna, biotz-bera samurra, alkartasuna ta parkamena irakasten. Illak eta erailak ixillik dagoz, ez dabe deadarka ordainkeririk eskatzen, ondo dakielako Juangoikoak bakarrik epaitu leikela, osatzen dauan epai-auzian.

Orrelango iltegiak eziñezkoak dirala...? Ez ori, aalezkoak dira, egiten dira-ta.

Kolonbia'ko uri-nagusietan, Bogota'n eta Kali'n ikusi geinkez. Baita euskeratu au izenpetzen daunak be ikusi dau New-York'en Pasiotar Anaidiaren lekadetzeko albo-ortuan dagon ereduako Berbizkunde Lorategi ederra. Gurutzea, ta onen azpian idazkun au latinez: «Hic milites Christi sub Crucis vexillo spectantes Resurrecciones Diem». Euskeratuaz diño: Emen Kristo'ren gudariak Berbizkundearen Eguna itxaroten.

Ikustekoak dira baita, Ipar-ameriketako il-baratz politikak, batez be erri txikiak, ormarik bako zugazti orlegi ondo zainduak.

LETONA

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra

BILBAO - Casco Viejo

Tenderia, 15 eta 16

ARRIATZA

Arrasate

Galdakano

UDALAITZ

Beste urteetan bezela, Urrilla-ren 12'an egin zan Udalaitez zaleak eratuta mendi orretara igotzea. Egun legorra baiña oso otza. Esan dutenez mendi orretan or-emenka edurra be ba-egola. Jaiak ospatu ziran, esan bezela, oso baketsu eta ifiora miñik artu barik. Jendea, ez beste urtetan bezin asko ez, nubait egualdi otzagaitik-edo, baiña an izan ziranak pozik eta alai etorri ziran, itxaroten urrengo urteai

BESTE IBILLALDI BAT

Joan zan Orril eta Ekainilletan egin zan Euskal-abesti leiaketa bat Lenitz ballarako Ikastetxe batzuen artean. Abesti talde orreik onexek izan ziran: Ezkoria'tza'ko San Viator eta'ko Almen; Aretxabaleta'ko Dorleta; Arrasate'ko Eskarnetarra eta'ko Ikastola. Arrasate'ko Ikasleak ere izan ziran.

Billera ortan etziran izan San Viator eta Arantzazu'koak, beste eginkizun batzuk lanperatura egozelako edo. Ibiliialdi izan zan Naparrua alderuntz, eta ikustekoak Urbasa, Iratxe'ko komentua zarra, bateze. Egoaldi otz samarra baiño legorra. Ba-zuten zer konta an ikusitako gauzetaz. Iratxe konbentuek daukan zirkin-zuloak, ango eskaillera gora-berak, barne-bideak, arri eta zurezko abe zarrak eta kondairra zarra. Benediktarrak ei-dira ango prailleak eta onein laguntza izan ei-zuten eleiza ikusteko. Bazkaldu ere bertan egin zuten, baiña etxean baiño gozogoia ei-zan. Antxe bertan ikusi zuten urpotsu garbia amorraiz biterik, aundi-txiki, eta ikusgarria. Batek baiño geiagok ames egin ei-zuten: Ai!, emetik zerbait etxera eroan al ba'lit, ze poza gure aitariantzako izango litzakean. Au dana eta geiago ikusita gero, etxeruntz abiatu ziran abesti ederrak abestuaz.

LARRA

Gure Etxandiz'dar Nemesi asper-eziñeko langille purrukata, oraingo be goiz agertu zaigu Donosti'ko Diario Vasco'n, Azilla'ren 24'an Larrea'n izango diran Olerti-Eguna eta bide batez Aita Onaindia'ri Omenaldia'tzaz. Iru aldiz izan naiz egun orretan, eta guztietatik pozik etxeratu nintzan. Lenengo izan nintzanean jende gutxi batu giñan, bigarreanean zerbait geiago eta igaz asko.

Ori ikustean aurri zenbat? An izango ei-ditugu gure «Basarri» eta Enbeita bertsoariak. Eta izango ote dogu aako eresjotale aintzatsua meza garaian? Eta Aurre-Aspraiz Abosolia bere abesti litzeagan? Abesti zuzen ango prailleen «bijilli» bazkariatzaz? Ara juateko era izaten dutenak edo dogunak, praille-bijilli ori, «restaurant»etan 500 edo geiago kostatzen dan onena baiño obiagoagoa izan oi da. Ez noa luzatzen, bestela gure Xanti asarratu egingo zait, curak gertatu al-dutena baiño eskabide geiago izango ditualata, aintbeste goratzen ba'dit garbantzo eta bakaillau gozoak. Larrea'n ikusiko al-gera ainbat euskaltzale Azilla'n 24'an, Kistro Erregeren eguncan.

UDALAITZ

ZIZA-SUKALKINTZEA

Urterik urtera, «Peña Santa Cruz» ekoak, are ta sartuago dabiltz ziza arazoetan. Urtean baiño urtean, jai obe ta ugarriagoak antolatzen dituez. Aurten, ziza-sukalkintza leyaketa bikain bat gertu dabe, Urril onen 13'ganean eta erriko enparantzean. Bizkai'ko lenegoa gai onetan. Beraz, zerbait bildur ziran, gure adizkide oneik, aurreko ziza-leyaketa guztietan lortu al izan eben lako garaipenik ez ete-eben izango. Baiña eurok dakien lez, ondo atolatu ezkerro, naita-ez, orrela urten bear eban, eta garaipen bat geyago etxeratu al izan dabe.

Amabi bikote —bikotea zan ba sukalkaritzan— aurkeztu ziran: gipuzkoarrak, bilbotarrak, zornotzarrak, eta geyen, galdakanotarrak; baiña katalandar bikote bat be. Batak baiño besteak obeto ziza orreik sukaldatzen dakiten gazte ta ain gazte ez diranak. Maiko, barrik, iru bizkaitar sukaldari onenetarikoak. Ondo gertatutako lur-ontzi orreir artean, zeintzuk izan onenak, ebanlu bear bere, eta egiz, ziran andia izan, eban lu sari bereziak merezi ebanak zeintzuk izango ziran aukeratzan. Eta, norbaitek izan bear eban-eta, ara sari berezi orreik irabazi ebanak:

Ziza-utsezko azpillagaitik, Galdakano'ko Bernaola'tar Begoña'ri ta bere lagunari, bi milla lauerleko, garaikurra ta agerkai dedugarria. «Etxekoandre» izenez aurkeztua.

Ziza-arrantz nastaketagaitik, bilbotar «Artxanda»koak, bi milla lauerleko, garaikurra ta agerkai dedugarria. «Iñaki» izenez aurkeztua.

Erbesteko zizadun azpillagaitik, Galdakano'ko Agirre'tar Miren-Koldobike ta bere lagunak, bi milla lauerleko, garaikurra ta agerkai dedugarria.

Ziza-azpil itxura onenekoagaitik, Tolosa'ka «Ardo-on-zaleak»eri, milla ta bostean lauerleko, garaikarra ta agerkai dedugarria.

Bikote orreir gainerakoak be, amabi bikoteak, sukalkintza bikaiñak agertu ebezan, eta danak izango ei-dabe saria. Eban bearrean gara baita, amabi bikoteetatik, zortzi, «Ganguren» taldekoak izan zirala, beraz, mendiko aitz-erpiñak igon, zizak billatu, ta eurok agoki ta gozo ipinten ba-dakiela erakutsi eben. Aupa, Ganguren!

Ez dago esan bearrik, antolatzaile diran «Peña Santa Cruz»ekoak ederto baiño obeto agertu eben dana, eskerrak «Berberena» arandegiak eskeiñitako ardao gorrizka onenetarikoaz ondo bustita, ta Bazeta ta Altuna'ren ogitegi bion ogi zuri bigunakaz txukunduta txastatu al izan ziralak. Ai! Ta, zelan ez? Bizkai'ko

Aurrezki Kutxa'koen babezpean eta erriko Udala'ren laguntzaz. EZKONTZEA

Ia aztuta euki dot, ta benetan samin-garri izango yatan, ezer esan barik geratu ba'nintzan: Igaro dan Iraillaren azkenean, erriko txadon zar ospetsuan, emengo Olabarrieta'tar Miren-Karmeles neskatilla Larra'errizale jatorra, ta Zaratama'tar Larraga'tar Joseba - Mirena, baita mutil euskaltzale sutsum, ezkondu ziran. Zorionik beroenak AGUR onen bitartez, eta ea seme-alaba zintzo ta errizale kementsuak ekarriten dabezan.

BASA - JAUN

Zornotza

Zornotza'k, beste edozein errik lez, bere auzunak dauka: Euba, Montorra, Astepe, Aldana, Boroa ta abar. Zornotza'ko kaletik bide zabalez Bilbo'rantza goazala, ezker-eskuma daukazu Boroa auzunea, Lemona, Galdakano ta Larrabetzu'gaz muga egiten dauala. Auzotegi zabala dozu, lenago etxe zuriz jasia. Ta gaur, fabrika ta salgei-bilokiz ormidu: Sarrió, Bil-Bu, BBT, Finanzau ta beste gordailu edo almazen batzuk bertan daukazuz. Bilbao'tik Beobia'rako autopista egin-barria bertotik, auzune onen erdi-erdi-tatik doa, Boroa zati bi egiñik itxita. Ba-dituzu bertan arandegia, jatetxe ta jolaslekuak, «Restop» esaterako. Boroa, ba, sugearren antzera, lengo jantzi zarra bota, ta barriaz apaintzen doakigu.

Mendirantza, leku zoragarrian dago San Pedro eleizea, basetxez, eskolaz eta atsedan-leku batez inguratuta. Kepa deunari eskeiñitako eleiza onetan, domeka ta jai guztietan esaten da mezea, ordu batetan. Eleizea barru ta kanpo oraintzu dotoretu zan, baiña ba-dau oraindiño zer-edo-zeren paltea: apañketa sendoago baten premiñan dago eleizatxo au, gaurko izakerak eskatzen dauan maillara eltzeko. Ondoan dauko aozo-eskolea, aurten arte bertan egin izan dabez emen inguruko neska-mutikoak euren ikasketak, Ereño'ko alabea dan maistra argi baten ardurapean; aurtendik Larra'raiño etorri bear dabe ango umetxoak. Baita bertan dabe, boroatarrak alkar artuta, urte batzuk dirala jaso eben jolas-etxe bat, «Anaitasuna» deritxoana, bolalekua ta pixu biko arandegiaz ormiduta.

San Pedro eleizea. — Antxiñakoa dozu Boroa'ko San Pedro eleizea; boroarrak diñoenez, Zornotza'ko Andra Mari parroikia baiño be lenago-koa; ta ba'leiteke orrela izatea. Dana dala, zarra da; barrutik naikoa zabala, ta kanpotik eleiz-jira guztia estalita. Ikuspegi bikaiña bertatik. Kanpai bat dauko, ta joteñ danean inguru guztietatik entzuten da.

Nik, eleizkoi ezagutu ditut boroatarrak, naizta min txarrak ainteste ez dala or-emen zabaldu. Urte askotan, askotan, itzaldia egin dot bertan San Pedro egunez, baita loraillaren azkenengo igandez be: lenago guztiz aundikiro egin oi eben boroatarrak maizatze il osoa.

Ezkontzak San Pedro eleizan. — Ezkontzarik ez dot ezagutu igaz arte. Igaz, alan be, ume-umetatik eleiza onen ardurea izan dauan —gaur be berak jarraitzen dau egikizun orretan— Maritxu ezkondu zan bertan. Eta ospe aundian egin eben ezkontza ori, urteentan aurreratuakin egin oi danez. Baiña nok esan orrenbeste merezi ez ebanik?

Arrezkerro, Boroa'ko neskatillak batez be, Zornotza'ko Andra Mari ta Larra'ra barik, euraña daben eleizatxora dabe joerea. Ederto eginda! Orrela, oiura barri oni eldurik, Maribi Etxebarria, bertoko alabea ta Gernika'ko seme Jesus Mari D. Insausti be ementxe ezkondu ziran, aurtengo garagarriaren 30'ean, eleizea txukundu-txukun apañdurik eta jentzez biterik aurkitzen zala.

Lengo astean, urril onen 12'an, eguerdiko ordu batetan, irugarren ezkontzea ospatu zan San Pedro eleizan. Aurreko egunean euriari ekin eutsun gogotik;

BARRIAK

baiña egun onetan, arratsalderantza batez be, eguzkiak polito argitu ta berotu ebazan bazterrak. Edu ontako egunetan ez dogu illunik nai izaten, ez arimetan ez odeietan, eta bear ba'da orixegaitik, Eguzkiak gogor egin eutsun Euriaren aita dogun Neptuno'ri. Eskerrak emon bear ko.

Nortzuk ezkondu ziran egun orretan? San Pedro baiño beeratxoago dagon baserriko Miren Jasone Amorebieta, Bibiano ta Felipa Garkeloren alabea, ta Jon Koldobike Artiañano, Markeloren eta Maria Aldekoa'ren semea, zeberiotarra. Eleizea dotore ta gustotsu jantzia; argi ta lorak, bizi-bizi; Kepa deuna, irribarretsu; kanpaia, durundutsu; eleizea senitartekoz, adiskidez ta ezagunez beteta. Zeremoni zoragarria, batak besteari itzok esatean batez be: «Nik... artzen zaitut... ta neure berbea emotin dot zugaz leial izango nazala, zorionean eta txarrean, osasunean eta gaixo-aldian, maitatu zaidazan eta errespetatu neure bizi guztian».

Aita Onaindia'k euki zituan mezea, irakurgaiak, itzaldia ta gainerakoak. «Agur, Jesus'en Ama» abestuaz amaitu zan liturji-zeremonia.

Bazkaria, Sukarieta'ko «Itxasbegi» jatetxean izan zan; mutillaren osaba ta lengusuak daukie aren ardurea.

OIZ

Antzuola

MARRAZKI LEIAKETA

Urrillaren 12'an, Pillarika egunez eta «Arrola» mendizale bazkunak antolatuta, 15 urteraiñoko gaztetxoentzat jarria zegoen marrazki leiaketa ospatu zan. Lizarraga auzoko San Marzial'en ospatu ere. Margoztu bear zutena San Marzial'go ermitatxo bera zutelarik.

Eta, zer uste dezute? Bere jira-biran larrogei ta amalau neska-mutiko baiño ez ziran bildu! Denak nor baiño nor aritu ondoren eta iru taldetan banaturik zaudela, lenengo maillan Santos Zubillaga izan zan irabazle. Bigarren maillan Alexander Mugika eta irugarren maillan Yosu Zabalo, auek irurok aitatu arren, berdin dijoazkie zorionak beste larrogei ta amaikari, eta, nola ez! «Arrola» mendizale bazkun gazte baiñan kementsuari, mendi ibilleretako anka nekatuak arindu orduko beste zenbait sailletan lanean ekiteko prest daudelako, leiaketa au antolatu duten bezela.

Eta erri baten amasa billatzeko biderik egokiena dala iruditzen zait; nor daki larrogei ta amalau auen tartetik, biar edo etzi, beste Zuloaga'ren bat agertzen dan?

Marrazki bidea bezela, beste zenbat bide urratzeke! Zenbait gaztek dituzten zenbat doai ezkutuan, eta zerbait bear deguncan besteren morroi; beti orrela jarraitu bear ote degu?

«Segi zure bidetik, obe da orrela.

Gauza denen gaiñetik aizea bezela».

Bai, «Arrola» mendizaleak segi aurrera eta zorionik beroenak izan dezuten arrera ezin obeagoagaitik.

MATXALEN

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

ZAZPI-KALEAK



CASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

ARRIATIA

Bermeo

GOTZON GARITAONANDIA

Lau urte dira apaiz ospatsu au il zala. Urduliz'ko «ZABALE» basetxean zan azken arnasa emon eban tokia: Kabitxu maitea! Lau urte, apaiz onen eriotzeak ekarri euskun ituntasuna!

Bere lana ta zeregiñak, erri onetan, zabal eta luzeak. Zoritxarrez goizegi il zan bera. Eta bere eriotzeagaz batera emeko gastediya ere erdi illean geratu zan.

«SUKARRI», Gotzon'ek irasitako bazkuna zan. Eta bere bazkide jatorrak, langille onak ziran, bai antzerki; abesti; ikastola eta mendi ibilte kirolak antolatuten.

Ezer egiten ba'zan gure errian, «SUKARRI»tarrak izaten ziran geyenetan. Eziran aspertuten lan eta egiñetan. Bai ba, ekintza gustiyetan Gotzon izaten zan errotia erabilte eban erreka ura.

Gotzon, ezan nekatuten bere eguneroko lanagaz. Edozein gizon lez alogerea irabaztera arraiñ-ola batera yuaten zan. Eta onez ganera txauburu on ta umilla zan Mañuas ausoko Karmel eliza politean.

Igande eta jai egunetan, elizaxo aretan, ezan oiñ bat ipinteko lekorik egoten. Lau zokondoak bete-beterik ikusten ziran, bai eguraldi onean, zein eguraldi txarretan ere. Ango abesti gozoak; angotxontz edo sermoi sakon ikasgarriak, biotzerarte sartuten ziran.

Bere eliz lan gustiyak gizonaren eta senide aldekoak ziran lenago. Esaten eban, Kurutzean eskegi ebiena ere gure-lako gizona zala: Kristo. Gizadiaren lagunik onena. Batez ere txiro eta zapalduena. Berantz, Kristo'rentzako, Gotzon'ek esaten eban, ez egoala ezkerrik ez eskoirik: danon adiskide ona zala inor bastertu barik. Gaurko gizon eta agintari askontzako eredu edo ejemplo ederra gure ba'dabe egizko zintzotasunik ikasi!

Egizalea zan Gotzon. Eta aingeruren batek zainduten eban, ostantzean, bere bizitza, baten baiño geyagotan, ikusi eban illunpean, «samaritanoaren» ekin-tza onak egiteagaitik.

Bear larregi eginda edo, 34 urteagaz il zan. Gaste benetan. Eta bizitakotan bera gaurko egunez, zenbat lan eta ikasgarri egingo ebazan. Orretarako jayo zala esaten eban: Lanerako; eta osasunak ardura andirik ez eutsan emoten. Guk, beintzat, olako apaizik, Bermeo'ko errian, ez dogu inoz ezagutu, alper lengo apaiz batzuk onak izan.

Agur Gotzon, apaiz euskaldun belgundaria, laugarren urteurren aldiyan! Ortik, Goi Aberri Baketsutik, zaindu egizu aiñ Maite izan dozun EUSKALERRIA, bere gaurko zoritxar gustieta-tik.

JULEN URKIDI

Arratia

LABEA SUTAN

Eleizalde'tik Lasarte'ra bitarte Andra Mari'ren eleiza, Andoni deunaren baseleizatxo, udaletxea, enparantza, frontoia, ikastolak, lekaike irakasleak, gizairudi bi. Burua, giltzak, gurpil-txirrinka, akulua ta besterik, emen ditu lurre'k aspalditik.

Aize zakarrak jo dau buruan... txapela larri. Giltzazuloa be nasaitu edo-ta... barruko izkutuak agirian. Txirrinkak lupetzez, burzilla txirrikoa... gurdia kili-koloka.

Labea sutan dogu, mokotsak erre-baltziturik... aizean dabilkigun keak ez dauka Abel'enaren antz andirik.

Gure aldetik or konpon, Mari Anton; atorra zikiña agirian don.

* * *

ARANTZAZU'KO ZALBIDE'N

Iru nekazari-erxe, iru sendi ta arrik gabeko sagar gorriak lakoxe aizta bi, baserrirako naiz kalerako ondo aziak. Etxezarragarriak.

Zugin zintzo, neskatil maratz eta beste esate-korrik, be, artoak burutu ziranetik, ba-dogu Zalbide'tik: azkonar pizti madarikatu artojaleak.

Pizti arloetok kaltegarriak diralarik, zalbidea-rrak, batez be Frutoso ia-ia buruti egiñik. Izaten da bertan suziri, txapliigorik; zintzarri, arran-ots, txolet eta lapiko zarren kankarranik. Piztiak baiña, artoari gauero krau ta karrau. Frutoso'k aurtan txarri txikiagoa il bearko dau.

* * *

Nasaitu gaitzean gizonak. Ez larritu zuok, etxeokandreak, oraingo auker egi-egiak dira-ta: Petroleoa ta bere errapetik ateraten diran gasolina ia beste sugarriak ez dabe goratzerik izango. Gozaki ta orio naikorik izango dogu. Matsondoak naizta danak igartu, arduagaz ornituak izango ei-gara. Lastategian zarraparra... sagua edo katu zarra.

* * *

YURRE

Arriati'ko erriaren izenari buruz, Yurre'tar Yulen'ek, bere etelziak agertu euskuzan lantxoago batean, eta oraintzago, 154 zenbakian, Felix Zubiaga'renak izan doguz, Deusto'tik.

Izenak izan dituan aldakuntzak, argibide ta zeaztasunak azaltzean garbiturik damoskuz, eta, Yurre, Iurre, Igorre ta besterik baiño jatorragoa. «IBORRE» litzake Zubiaga jaunaren ustez.

Sua bizturik dago, aize-emoilleak izan doguz... zeihen urakin amatau edo itzaliko dogu? Gagozan geldirik oraingoz, Gipuzkoa'tik-edo argibideren bat ea izaten dogun. Geroztik, Iurre'ko gastediari etelziak eskatu, eta esango daukuena ontzat artu.

Eta Zubiaga jaunari esker sutsuak ikaskizun eta azalpenagaiti.

LANDAJUELA'TAR ANTON

BARRIA

Urgoiti

OIN - BIDEAK

Urgoiti'tik (au dau ain zabalduta dagon «El Gallo» orrek bere benetako izena) asi ta Olabarri zear Abusu'rako oin-bideak!

Seneka jakintsu arek esan ei-eban: «Eriotza ez da gaitz bat», eta bere alboan egon batek erantzun eutsan; janaldi baten gozoena mai-azkena izaten dala, orregaitik da izan be azkena; orra ba, eriotzea be bardin. Berandua-go ta obeago!

Olabarri'ko auzotarrak lanerakoan, euren emazteeri agur egitean, onebesteko bat esaten dautse: «Gero arte... bitxabalak gura ba'dau». Tamala, benetan tamala, etxera itzuliko dan ezin jakin izatea; etxera itzuli ala zalidakaxkoka jasoko ete-dituen bide ertzean bere ondakiñak.

Aukera bi daukaguz: egunero autortu ta barru-arazoak garbi erabili datorrenaren zain, edo Urgoiti'tik Abusu bitartean ertzeke oin-bideak egin, naita estutxoak izan. Orrela, lasai joango dira umeak ikastolara, eta gurasoak lasaigo, alkar-maitasuna berotzeko, pitxi-lorak zuritzen: «Maite nau? Ez nau maite?» ta ez gaur lez «Etorriko da? Ez da itzuliko?».

Ba-dira urte batzuk, Galdakao'ko Udaletxera eskabidea bialdu zala; izenpentzen ebena, morokil andi bat egiteko aiña. Itxura osooak ziran, oin-bide orreik laster baten egingo zirana, baiña ametsetatik be bizi lei, naita sarri ta askok bestera esan, eta ametsutsean geratu zan.



Enbeita bersolari trebeak bere an izan doguz, batak baiño besteak obeto, jai orreri datorkion legez, jardun dabe. Nork jakin gura leuken bertsoetan eurek lez!

Izlarria, Aita Martzel, onek bere egin dau berea, bear dan lez eskar oneko izan bear dogula esanez. Eskeintza aldian, Beretxikorta'ko neba-arrebak artzain eta baserriartren izenean, gaztala ta ogia opari ebezela. Meza erdian umetxo bik, gure Jaunari yantza alditxo bat, txisturaen otsean. Ondoren, D. Pedro'k danori eskerrak emonez, berbalditxo bat, eta danok Agur-Jaunak abestuta amaitu.

Ondoren, eleiz ondoan, ostera be, aita-semeak bertsolari, eta gero, txistulariak eta jentea yantzari.

Mezea esan zenduala berrogetamar urte,

Zeure erritar eta lagun askok artu dogu parte.

Eta Undurra'ko eleizea egin dogu bete.

Zeure bizitza igaro dozu on egiten danori;

Eleizan eta kanpoan be lan egin dozu ugari,

Eta jarraitu urte askotan bide zintzo orreri.

Jainkoak emongo Zeruan betiko sari.

Zorionak D. Pedro geure abade ononari!

GORBEITARRA

Mendexa

DANTZAK

Mendexa, erri txikia izan arren, ba-dau bere dantza bat: «Mai-gaiñeko dantza».

Dantza au, erriko jaietan, gizonetako dantzatzen ei eben. Geienetan gabaz, erromeria amaitu ondoren. Lenengo, Aurrekua egiten ei eben, eta gero, mai-gaiñeko dantzea.

Udaletxean egoan aparteko gela bat, eta bertan, mai sendo bat; dantzarien maia esaten iakona. Mai-buruan, alkatea jartzen ei zan, pitxar bat ardogaz. Txistularia, txistu jotek asten zanean, dantzariak, mai-gaiñera igoten ei eban eta «Alkatearen Aurrekoa» esaten eutsen dantzea dantzatu.

Bigarren joaldian, beste batek urleten ei eban, eta biak dantzatu. Au amaitzen zanean, lenengo igon ebana jexi, ta Alkateak ardua emoten ei eutsan, eta besteak, «Alkatearen Aurrekoa» dantzatu. Gero beste batek igon eta, olan, dantzari guztiak, edo nai eben guztiak, egiten ei eben.

Guda denporarte dantzatuten ei zan dantza au.

Gure gurasoak ikusi eben. Oraindik asko bizi dira aietatik. Baiña dantzan egindakorik ez da bizi, edo ez dogu aurkitzen beintzat.

Ba-dabiz gazte batzuk dantza au berpiztu nairik. Lengo egun batean etorri zitzaidan bilbotar gazte bat, dantza onen aztarranak jakin nairik. Poztuko giñake berpiztuta ikusteagaz.

Iñoz entzun dogu, «Kaixarranka» dantzea onetatik sortua dala. Au, eztakigu ziur.

ERIOITZA

Irailaren 24'an, «Loikiz» baserriko Erremuela, 67 urteagaz il zan. Goian bego!

EZKONTZA

Irailaren 15'ean, gure lagun aundi, Ander Iturraspe, Bilbao'ko Angelez Diez'egaz ezkondu zan. Zorionak!

TXAKARTEGI'TAR JOSE



MONRAY

ARKONDARA-GINTZA

ANDEREENTZAT AZKEN-JOSKETAK

Bidebarrieta, 2

21 43 46 urrutizkiña

Alderdi-zarra

BILBAO-5

LAZKAO

Esakerak: Ataundarrak, otsoak; idiazabal-darrak, azeriak; alegitarrak, txintxarriak; zegamatarrak, belak; oreindandarrak eltxoak eta lazkaotarrak, antzarrak.

Abere edo animalien deitura oneik zegaitik jokoetan ataratako deiturak dirala; erri arte-tako jolasetan. Baiña or dagoz.

Lazkao'ko zarrak ba dakiez deiturak. Lazkao'ko barriak, antz-eman be ez.

Eta barri eta zarrak, bertakoak eta etorriak, lengoak eta oraingoak, euskaldunak eta erdaldunak, erdiz-erdizean dabiz gaur emen.

* * *

Bilbo'tik Donosti'ra goazela, Beasain'en aurrez aurre, Naparroa alderako bidea, Etxarri-Aranaz'era duan bidea artu eta orra bidean bertan, bide orretatik asi ta laster, ia kilometro bira, Lazkao.

Beasain eta Ordizia Iparraldetik, Atuan Ego aldetik; Zaldibi sorkaldean eta Olaberria sarkaldean.

Lau milla eta bosteun lagun inguru, bertan bizi diranetan. Orain eun urte, milla lagunik ez.

Sasoi aurretan, Lazkao baserri-erria zan. Gaur, industriak iruntsi dau. Geitu diran bizi-lagunak ez dira etorri baserrietara. Or dagoz kalean. Gaur talde bitan bananduta dagon kale-aldean, au da, San Jose Langillea eta San Inaxio izeneko blokeetan, orain egiten diran etxe standarreketan pillotuta.

Danetara be 70 famili dira baserriek eta baserri bizitzari lotuta irauten dabena eta baserri lanetatik erdiz ba'da be ogia irabazten dabena.

Besteak industrian. Bertan eta inguruetan sortu diran lantegi andietan.

Ikusteko etxeak: Infatado'ko dukien etxea, eta gaur konbentuan diranak. Erriko-etxea, bere arkupe ta aurreko plazagaz, egaletan zugatz illarak dituala.

* * *

Beneditarrak. Benediktinoak. Belloke, Lazkao, Estibaliz eta Leire. Orra Euskalerrian beneditar prailleen tokiak. Euskal arnasa. Batez be gure euskerari liturgirako bideak zabaldu edo ta erraztu eta egokitzen jakin dabe. Edo ta alegiñak egin bai beintzat.

—Gure gazteak gaur onelako edo onetarako deiei erantzuten ba al dakie, Aita Mauro?

—Eurei kezka ori suspertu eta bizitu nairik nabil egun eta gauero.

Euskaldunen txaloak merezi ditue beneditarrak. Egia esateko, salmoak kantatuaz, kantu orrean esane biotzagaz erantzutea baiño ez dabe egin.

Gogoratu 136 salmoa. «Euskalerriko Liturgi Batzordea»ren izenez agertu barri dan «Salmutegia»n datorren eran agertuko dot: «Atzillo eraman gindutenak otoi zegiguten abesteko,

naigabetzen gindutenak, alai egoteko: Emaizue Sion'go eresi batzuk guk entzuteko».

1902 urtean Frantzia'ko gobernuak beneditarrak sakabanatu zituanen, Belloke'ko prailleak Naparroa'ko Alza'n eta Idiazabal'era zabaldu ziran lenengo. Gero emen Lazkao'n alkartu 1916 inguruan. Amabi urte geroago barru ara biurtu ziranen, emen frailetu ziran ingurutako gazteak bertan geratzea nai izan eben.

Eurak dauken etxea, konbentua, 1800 ingururarte karmeldar monjak euki eben etxea da, 1640 urte ezkerotzik.

Ez da eurena konbentu bakarra Lazkao'n. Santa Ana izeneko monastegian or bizi dira ixilik bernardar monjak. 1650 urtean Mari Lazkao andreak sortu eben etxe au. Konbentua maitale izan zan andre au. 1640'an karmeldarrentzat; amar urte geroago, bes-teontzat.

* * *

Lazkao'ko jaunen entzutea Elorrio'ko San Agustin monastegiari egindako eskintza bateko paperetan billatzen da lenengoz. 1053 urtean. Gero... Ondarrabi'ko estualdi baten, erri a inguratuta egoan baten, an agertzen da Lazkao bat. Orduko bertsoak irakurri ta ara:

Juan Lazkao Beltzarrana,
Gipuzkoa'ko kapitana...

Gipuzkoa'ko kapitana izango zan, baiña eriotz onik ez eban berak euki. Gebara eta Ayala'ko kondeen morroi eta soldaduak il eben Contrasta'n, 1479 urtean. Eta bere goputza erre. Orra jauntxoan denporetan, oñaztar eta ganboatarren naste, asarre, burruka eta estuntzetan, oñaztarren azken buru edo

nausietakoa. Oñaztarren nausitza Gipuzkoa'n, emen, Lazkao'n egon zala gogoan euki dai-gun.

Geroago, bere semien semeak be gerraetan billatzen dira. Eurretariko bat, Felipe, Donibane Loitzun erre eta lapurtzen ezagutu zan. Felipe au Aitzgorri'ko San Adrian ermitan bataiatua izan zan.

Ondoren, Felipe izeneko Lazkao'ko jaun geiago ezagutu ziran eta izenari, erregeen antzera, lenengo, bigarren, irugarren eta abar geitzen eutsen andinaikeriz izena goratu eta zabaldu naiean.

* * *

San Juan ante porta-letañan,
zapatu arratsaldian
amalau atso tronpeta jotzen
matrallo baten gafian...

Ba daukaz «ante portam latinam»go santu onek bere santutegiak Euskalerrian.

Emengoak, lazkaotarrak, izena erreztuz, San Juan Txiki deituten dautse.

Jorrailla'ren azkenetan edo Maiatza'ren lenengotan jai. San Prudentzio eguna zelau jausi, jai ala jantzi.

San Prudentziotan, jai egiten dau erriak, eta urrengo domekan, ermita onetan.

Antxiñako jai. XV gizaldi edo atzerago-koa ei da santu onen irudia. 700 urte be emoten dautse batzuk.

Jezarrita dago, au da, aulki baten, liburu bat altzoan eta ezker-eskuan kaliz andi bat.

Erri burutik iru kilometro inguru dagoz bertara, Lazkao-mendi onetara. Ez da bakar-tadeko ermita. Bide erreza, egokia; leku politik, baserri ederrak, eskoletxe, pelota-toki eta «bentak» inguruan.

Begien aurrean Larrunari (Txindoki), erritarren deituraz «Nauñarri», Murumendi, Ernio eta Aitzgorri...

Ez da au Lazkao'ko ermita bakarra. Beste San Juan bat be ba dago. Barri-on erakuslearena. Eta ermitetatik jatorrena, lenengo parrokiaren tokian dagona, San Prudentzio.

Eleizetan asi gareanez, parrokiagaz amaitu daigun. XVI gizaldian barriztatua. Gotiko erako Ama Birginiaren irudi ikusgarri bat ba dauka bertan.

* * *

Lazkao'k benetako erri adiskide bat dauka; anai erri bat: Olaberria. Doktorren erria.

Elciz gizonak euki izan dabe euren partetxo-a errien eta gizonen deitura askotan.

Gure ibildeunak, prozesioñoiak, erririk geie-netan bardintsu egiten ziran. Aurretik gizonak, illaretan. Atzetik, pilloka, emakumeak. Zain-dari bat, sakristaua edo abaderen bat joan bear izaten eban andrak baketan eroaten.

Erri baten, abade batek artzen eban ardura ori. Eta andrak errez inguruzten eben eta danen artean sakadaka erabili. Origaitik Agur Maria errezatzen «andre guztien artean» esaten zanean, beste abadeak atzera begira-tzen eben sarri, euren lagun a nun ete ebilen. Ori ikusita, «andre guztien artean» izen-goiti be ipifii eutsen berari.

Emen, Olaberria'n, letani egunetan oi-turea ei eukan abadeak azken arrentza edo letania, «omnes sancti doctores» esatean, esatean, erriko agintarici burua makurtu eta erreberentzi antzeko bat egitea. Origaitik Lazkaotarrak «dotoreak» deitzen dautse ola-berritarrei.

Azeria'ko alkatetza nausian alkartuta egon ziran erri batzuk. Beti Lazkao eta Olaberria. Lenengotan Itxaso eta Arriaran be bai. Baita Gabiri, Zumarraga eta Ezkioga be, baiña oneik 1661 urtean banatu ziran. Azkenean be Olaberri eta Lazkao gelditu.

Erri zuzentzarako erri bien lurraldea bat lez etsiten eben. Sei urtetatik bostetan Lazkao'k izentatzen eban alkatea eta bestean Olaberria'k. Orrela eundak urtetan.

1884 urtean adiskidetasunez banatu ziran erri biok, baiña gaur be anai lez jokutzen dabe.

Eta biok erri langilleak dira. Lan ugari dabe. Eta lantegi barriak sortu dira eta sor-tzeko dira. Ori da batez be Lazkao'ren itxaro-pena.

Lenengotan Lazkao'n euskaldunak sartu ziran lanera. Ingurutako euskaldunak. Ortik ez eban igarri ainbestean geitzearen ondore-netan, erri izkuntza eta izatearen be bardin-tasunik. Gaur extremeñoak dabe bertarako joera.

Gizaldiaren asieratik gure egunetara egin daben gorakadea baiño andiagoa egingo ei dau beste ogetabots urtetan. Orretarako erra-zoi bat erabilten da: Lurralde egoki eta eratsuak daukazala lantegi barriak jaso al izateko. Eta orrek aidean lagaten dau Lazkao'ren izatea. Gaurkoa beintzat.

A. ZUBIKARAI

AGVR

Apartado n.º 2
BILBAO

FRANQUEO
CONCERTADO
08/55

BESTE BAT JOAN ZAIGU

Gure guda ezkerotzik ainbeste urteetan, zenbat joan diran! Bai ugari! Joandakoren bat ordea, gizon ezagun ospetsua danean, egundako tinkada ematen oi digu biotzak. Ez gera betiko sortu ludian. Emen irurogei edo larogei urte bete-tzen ba'ditugu, pozten gera eta dira. Urteak ez dute «errespetorik» ta banaka-banaka joaten gera; urrengoa, guziok pentsaturik, gurea izango ote dan.

Iltzea, ez da gaur askorentzat ain samifia, baldin bizi izan dan bitartean gogozko bizibidea izan ba'du. Okerragoa da, beti illunpean bizi, ifioren menpean, biotz minduakin, eta azkenik, itun eman arnasa. Ala ere, oraindik bizi geranok, onelako edo alako, il dala jakitzen degunean, berealan dardarka gelditzen gera, ta ifiork esaten ba'dizu berri itun ori, azkar erantzun ere: «Baiñan, nola leike?

Orain joan zaiguna beraz, gure ain maite gendun Joseba Andoni'n anai Teodoro izan da. Onen sendi jator au, urte askotan bizi zan Donosti'n. Sarritan ikusten gendun bera, kalean zear edo bere lantokian. Urtero ere, an ikusten gendun, elizan, bere anaiaaren mezetan. Ainbeste seme-alaba zitularik, g uziak beti euskeraz itz egiten; sendi jatorra benetan!

Aspaldiko berriak nitun ez zebillela ondo; azken aldian, egia esateko, ez nun bere berririk; sendatu zalakoan geunden. Ez zan beintzat ezer besterik entzuten. Ta, orra orain, Andra Mari egunean, nola irakurri detan bere erio-tzaren berri. Zer esanik ez, ze nolako jendetza izan giñan bere illetetan. Antigua'ko eliza, txiki zan guziak artzeko. Negar malkoak ixuri genitun, gure orduko azken ura gogoraturik, eta ondoren gelditu giñan bizierakin. Eliz barrutia bezelakorik ez da olako itumenak gogoratzeko, baita beste egunka aietzaz egiteko: Larrea'tar Nikasi Aita, Egibar Aita jesuita, Agirre Aita, an urrutietan, San Salvador urian illa. Lazkibar Aita, eta beste dozenaka apaiz. Leon Barre-netxea «Leobar», Ziarriz, «Don Poli» Larrañaga Aita, Laborda apaiz abes-laria, Oiarzabal'dar Martin apaiza, Jesukristo'ren bizitza euskeraz idatzi zuna... zenbat geiago? Guziak ezin esan emen.

Nola ez gogoratu ere, orain iru urte joan zitzaigun Artetxe'tar Joxe, edo aurrez joanak, Eliodoro, Rezola, ta Gernika'ko ainbeste? Zer esanik ez gure gudari jatorrak eta abar.

«Barkatu bai, aztu ez!» Ze itz gogoangarriak Joseba Andonik'k esan zitunak. Ainbeste urte joan ondoren, neri beintzat, ez zaizkit oraindik azten. Ez aztekoak bai ziran gertaera aiek!

Ia berrogei urte joan dira ordutik... ta gaur, ba-dirudi besteak obetago begiratzen digutela. Bai gera elkar ezagutzen. Ikusi bai dute gure portamena, ordukoa alegia. Gure itxaroponik aundiena ori da, naizta emen ez lortu nai izan gendunik. Oraindik ba-degu bizi izatea, ta ori ez da gutxi. Zenbat joan diran gu geran baiño piñagoak ziralako. Gure biotzak baiñon minduagoak zeuzkatelako. Gure lasaitasuna baiñon aien estutasunak gogorragoak ziralako. Gu, oraindik bizi geranok, arren, gogoratu aietzaz!

* * *

Teodoro, ongi dakigu, an Goian dagola, ta bere anaia, bere arreba, Beljika'n egazkin baten lerkaiak il zuna. Beren ama, lagunak eta, zertarako geiago esan? Orren pizti txarrak ote giñan. Bateko ta besteko alderdiak, nai zituztenak egin eta bazterrak zikindu zituzten; gureak ez ziran oiek bezelakoak. Gure jokaera garbia, sonatua da alde guztietan, eta orretxen poza ba-degu beintzat. Biotzaren lasaitasuna aundia danez, biar edo etzi, lasai ta pakean ilgo gera, Teodoro ta beste esaten ditudan aiek bezela. Ta oiek, millaka, guziak pake santuan eta gure zai.

Orduko siñismena edo fedea ez da gaurkoena. Ordun, bata besteanganako errespetak, gaur ez dira ezer. Ordun, Apaizgai lekuak zearo beteta, gaur utsik. Ordun, millaka mixiolari bazter guztietan, gaur gutxi. Ordun, elizak beteak, gaur zer? Ordun, apaizak sendo eta gogor, gaur?... Ordun erriak euskeraz; gaur, nola? Ordun zaarrek ain maita, gaur irainduak. Ordun euskaldun guziak elkar maitatzen, gaur bananduta. Gaur, elkar burrukan eta ez da arritzekoa, esango ba'gendu bezela: «Gu bizi geran bitartean emen ez dago ezer egiterik!» Datoze-nak, nola konponduko ote dira?

Besterik zer? Ixildu naiten, jaunak! Zueri, il zeraten guziori, arren, eskari bat, ta bera auxe: Ez aztu gutzaz!

E. OZKIN

AGUR

V URTEA
159 ZENBAKIA

ASTEROKOA
1974 - AZILLA - 9

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

GURE BASERRIA

Euskalerrriaren kondairan, orain bi milla urtetik onantza beintzat, berezitasun zurrak ta argia izan da baserria. Eta gaur be, euskaldunen oitura zurrak, izaera jatorra, enda garbia, benetako izkuntzea ta olakoak baserrietan aurkitzen dira geien. Au esanaz ez doguz alde batera itzi gura arrantzaleak eta beste lan-era batzutan bizi diran asko.

Orregaitik ete da gure gizarteak baserria bertanbera itzita, ezelako laguntza barik eukitea? Ez ete dabez bide batez elburu bi billatzen: baserria ta euskal-erria iltea? Nik ez neuke errezezi ezetz esango.

Dana dala, gure baserria atzera doa eta ba leiteke laster il-bearrekoa izatea. Orixe herori jazo zan antxiña baten gure olakaz. Olagizon areik be euskaldun jatorrak ziran, baiña joan ziran. Ete dauke gaurko lantegietako gizonik geienak arein lako euskal-kutsurik? Ez dot uste. Gainera, geienak atzerritik etorriak doguz.

Egia esan, gure baserrietarrik geienak lantegietara sartu dira, baiña an jentetza aundiaren artean banaka batzuk izan dira, erri-kontzientzi larregirik ez dabe eroan, eta ez dabe izan atzerritarrak euskalduntzeko beste indar.

Baserrria galduarren, Euskalerrria galdu ez daiten, euskerea il ez daiten, zer egin?

Lenengo, uriak eta erri aundiak euskaldundu. Ez dot uste ortik asko aterako dogunik, baiña bide guztiak artu bear doguz. Eta ez dot uste onexegaitik: Senditrik euskaldun ez diranak, edo jaiotzaz erritarrak ez diranak, gitxitan ikusi dodaz euskera ondo egiten eta Erria zuzentasunez maitatuten. Ba dagoz batzuk, baiña nik txikitatik euskera jakin dauan bagetandik asko geiago itxaroten dot.

Gero, gure erri txikitako arazoa konuratu bear dogu. Baserrriko lana amaituko da geiena, baiña erri txikiak izango dira. Emen jokatu bearko dogu, lantegietara joateak euskaltasuna kendu edo gitxitu ez dagien eta baserrietan geratzen diranak euraik izan daitezcan, eta ez kanpotik etorten diran euskaldun galduak edo erdeldunak.

Ez genduke gura baserrriko lana osoan galtzerik be. Baserriarentzat antxiñako ojentzat baiño gero obera nai genduke. Orretarako bide bakarra, baserriak alkartzea dala uste dot.

Alkartu beitez baserrietarrak, lan-era au aurrera ateratea nai ba'dabe.

Eta izkuntzeari buruz, baserria izan ba'dogu gaur arte Ikastetxe nagusia, Peru Abarka liburuan Mastel egitea esan euskun lez, baserrietik jatorrasuna artu eta beste ikastetxe ederrago ta gaurkoago bat egin bearko dogu. Benetako Euskal-ikastetxe Nagusi baterantza jo bear dogu, erdeldunak daukezanen antzeko «Unibersidade» bat bear dogu. Eziña dala? Emen be egiteak erantzun bearko dabe: «Eziña egiña»; «Imposible Vencido» izan daiten, lenago Larramendi'k egin ebaren antzera.

Ikastolelatik asi, Oñarri-Eziketa Orokorretik (O. E. O.) igaro, gero Batxiller maillako ikastetxeak (guzti oneitan zerbait egiten da) eta azkenez gorengo maillara eldu. Ori izan bedi gure ametsa ta elburua.

Baserrriagaz batera, gure Erri osoa daukagu ba egoera larrian. Eta, naiña gaur indar barriak agiri, urtenbide errezi ez da ikusten. Gure erriak seme guztien indar alkartua bear dau, eta errietarrak ez diranen aldetik be, askatasuna ta laguntasuna. Gura ete dau iñork Erri zar eta zintzo bat ilterik? Ez dot uste, eta iñork nai ba'dau, astakeri ori esaten lotsa izango da.

Jakintza-aldeetik ba daukagu ba lan ikaragarri bat egiteko eta Erria aurrera atera gura ba'dogu, gaur egin leiken ederrera da jakintza edo kultura-lana.

Bakoitzak bere tokian eta al dauan neurrian lagundu dagoiun jakintza-lan oneri. Urten bedi bizirik gure baserriak, baiña, galtzekoa ba'da be, gure Erriak izan begi bizi luzea ta indartsua.



Jeurt lana, in corpore sano!

IGESBIDEAK

Bein, gure erriko baten, lenagokoak jasotako arlanduzko «Euzki-zar» jauregitxoan, bere atzeko baratz, baso ta tarteko lats urtzua etxe-lagun ebazala, lau mutikote, Martin, Ujenio, Pillipe ta Sixto; morroi bat, Jelorimo; eta Matspe agura jauna bizi ziran. Agurea ez zan mutillen aita, ama zanaren nebea baiño. Aita, txikiak zirala, Urkarai'n beste aldeko bala batek erail eutsen.

Ondorengoan, lengoaren erantzun bearrez, ondasun geienak galdu ebezan. Amak baiña, apurtxoak batu ta etxe, baratz eta basoari eutsi al izan eutsen. Baita lau semeok aurrera egien, ikasketak egiteko aiña, orretarako diran etxe baten, sartu, «aseguruan»-edo. Neke, min, negar eta esturasunak gazterik eroan eben au be senarraren ondora.

Martin, semerik zarrena, Idazlaritzan zerbait izan naian, izparlari edo elebarrigille, orretarako ikastaroak artzen asi zan. Baiña «z»k eta «h»ak nun jarri asmatzeko aiña ez zala, ara or barriz etxera biurtu, amak jarritako zati a ondo janda.

Ujenio, azkarra, prailletzarakotan ebillen. Bein baiña, komentuko eskillarak garbitzen ebazan andrea makurtuta ikusi ebala-ta, bokaziñoa bat-batean galdu ta etxeratu zan.

Pillipe, granuja drogosuena errian, diru-arazoetako ikasketak egitera joan zan, baiña munduko ondasunetatik ezer beregananduko ba'leu, asko ikasi ta lan geiago egin bearko ebala igarri eutsanean, au be «Euzki-zar»era.

Gazteena izan zan amaren kutuna, baiña osabearen buruko min: «Nundik lortzen jok orrek sakelean darabillan dirua?». Sixto au ba, egoaldeko Ikastetxeetan sendagilletzarakoan ebillan. Bostgarren ikastarora be eldu ei-zan, berak iñoanez; ekienak baiña lenengoko «anatomia»n pot eginda geratu zala iñoen. Au be etxera. Anatomia askorik ez ei-ekian, bai baiña soin-lirandun neskatilla politak aukeratzen.

Bostok, etxean; berandu jaiki, neke gogorretatik iges, jente artean ibilli euren jakiturea erre zabalitzen, ea bitartean iñork «diru zikiñ» orretatik zerbait emoten eutsen. Ta, euren gabeko asmakizun eta amesak Jelorimo gaixuari eragin naian: «latsetik ura pertzakadaka ekarri barik, egik or urbide bat, orretarako Orinoko'n egin dabarenen barri emongo dauat»; edo besteak, «tximist indarrik iñori ordaindu barik, jasoik aize-errota bat baratzean, Bolga'ko ibarretan egiten dabena erakutsiko dauat»...

Jelorimo baiña, benetako langillea izan, eta besteak lotan ziran tartean, barazkiak landu, oillotegia zaindu ta pagaditik sutarako egurra ekartzen ibiltzen zan. Beste langille zintzo bat eban lagun, baratz-ertzean zan gaztain-ondo zarra, gau ta egun lanean. Negua aurrera, barazkiak amaituaz, gaztaiña egosi naiz erre orreigaz bete al izaten ebazan urdail nagi baiña jataille areik. Zenbat gaztaiña bero sutatik ataratakua!

Uda baten, sorkaldean dan uri aundi bateko gizon txokortzu, kapeladun bat eldu, ta Jelorimo eruan eban berakin. Langillea ta bost etxekeon oskiak garbitzen aitua zala entzun ei-eban. «Kraj» ostikolari ospetsu baten joko-oskiak garbitzeko ei-eroan!

Andik urte bira, or da barriz Jelorimo uritxoan, ostikolari arek ekarri eban, bere jaioterria ezagutzea nai ebala-ta. Lenengo ikerketea «Euzki-zar»ekoengana. Etxea itxita, leiatillak aizeak apurtuta, baratza sasi-tegi, a zan negarguria! Auzoko bati galdetu ta: Agurea «Miserikordixen» ei-zan, Martin, Ameriketara joana, arrezkero barri barik. Ujenio bera baiño zarragoa zan alargun batetik ezkondata, Suiza'n eta Itali'n aren maletak zaintzen. Pillipe, loteri-txartelak zaltzen uri-nagusian. Sixto, balet baten «masajista».

Erriko ardangelan sartu, ta «Kraj»en oskiak garbitu ondoren, erriko lokatzatan zikinduak, onek bere emazteari txartel-margoztu bat idazten eban tartean, erriko ikuspegi polit bat ebana, Agure-etxera joan eta Matspe gixajoari eskupeko urdin bat emoteko epea izan eban Jelorimo'k; taakorritarako!

Baiña agur, ez

Ille bitik ona gure aldizkaria indar-barritzeko asmotan genbiltzala adierazo dautzuet. Arrezkero eskutitz pilloa jaso dogu elburuetan aldatuko ete giñarakin kezkatuta.

Ara adiskideok, giroak eragiñik sortzen dira aldizkariak, bakoitzak bere iritzien ikusmenetik gizarteari erantzun bat emoteko. Lendik erdi kili-kolo ebillan gure izkuntzeari, arnasa biderik geienak kentzen asiak zirala ikustean, alde batetik, eta izkuntza iraulteta utsa ez zala jakitean, bestetik, jaiki giñan AGUR onen sortzailleak.

Argi egoan gutzat, izkuntzeagaz batera «buru biko» atzerritar otsoen indarkeria etorrela, eta arein morrointzan eta sasi-euskaldunen bideetatik abiatzeko arriskuan aurkitzen giñala.

Orregaitik sortu zan AGUR; egia iraultzaille zala erakutsirik, otsoak kabietan eta baztarretan makillatzeko; errizaleak lozortotik itxarteko. Ez zan, ez, lan gozoa eskuartean artu genduna. Egia berez iraultzaille ba'da be, mingorra be ba-da askorentzat. Orregaitik laguntzat geunkazan asko, kopeta illunekin ikusi genduzan.

Barriketa ganorabako askoren durundua ta oiartzunak be, eldu ziran gure belarrietarriño. Beiztegi'k eta nik, geure nortasunaren zati on bat erreko gendula jakin arren, ez gendun atzerako oinkadarik emon, eta emen gagoz burua lengo lepotik dogula.

Zer lortu dogun? Itsu ez danak edo izan nai ez dauanak ikusi bei: «batzuk» besteengandik bereziturik, izkuntzearen iturri ta giltzik geienak esku jatorretara dakarrez, naiña oso-osoan gugaz bat egon ez. «Sancta Sanctorum» dalakoa, geroago ta bakardade aundiagoan ikusten dogu, beste bidetik doala; baiña ango oillarrak ez dira orain bost urte ingurukoak, gangorra asko moztu jake, kiki-rikiak txakurren zaunken antzekoak entzuten doguz. Aldizkari geienak, irriatik, itzaldiak, jakintza saioak, mailla guztiak erakusketak, ikastetxeak eta abar, lenengo bultzakada zirkingarri arei eutsi ondoren, erotik jator ziran bideetara datozela esan geinke.

Gure elburuak bete doguzala? Dana lortu dogula? Bai zera! Emetik aurrera be, ez da paltako ego-aizeak ekarri daukun lorrinaren ondakiñik. Ba-daki etsaiak nun eta zelan zulotu. Izkuntzea dogu gure berezitasunik erakusgarriena. Berezitasun ori apurtzeko, nor obarik enbor beraren ozpala baiño? Ez da munduan Judas'ik bako erririk. Izkuntzea bananduta egoala aitzakiz, batzuk; arbasoengandiko giza-katea ausi naian, beste batzuk; borondate onenarekin, beste asko, orra or ekintza bardiñean. Euskalkiak bateratu bearrean, izkuntzearen sasi-kume baten sortzean lagun.

Baiña, goazen arira. Giroa aldatu da, giroa argitu da, ta orain, bakoitzak aukeratu lei bere iritziz bide egokiena izan leitekena. Burrukan jarraitu arren, ez genduke asko geiagorik aurreratuko; batzuk gure alde, besteak bestera. Bitartean, asko, nora-zean eta gaurko burrukearekin minduta, euskalduntasunean otzituta.

Gaurko giroak, eta sorkaldetik agiri dan argi gozo bigunak, batasuna eskatzen dau. Iñoiz zorrotzegi ibilli ba'gara be, pakerean alde oinkadak emoteko gertu gagoz. Ertzean dabiltzanak, batez be, elgorriak jotakoak ez jakuz urreratuko, baiña ez dauku ardura aundirik emoten. Nora-zean dagoan erri zentzunduna, geiena, bide jatorretik eroatea da gure elburua, eta ori opari-bidez lortuko dogu: lan eginda, gure arpegia garbi erakutsita, beste orrekin garrazieri entzungor eginda... naiña noizik bein...

Orregaitik AGUR onek beste itxura bat artuko du, azalez eta mamifitez. Azalez itxuran aldatzean, nere idaz-lanak beste toki batzuetan aurkituko dozuz, utsik gabe baiña. Aldizkariaren iritzia agertzea, «editorialari» dagokio, zabaltasunean euskaldun izanik.


Beste guztiok, bakoitza bere «parapeto»tik eta norberaren ardurapean, errigintza jator baten jarraituko dogu. Orregaitik, orri-alde zati onen irakurle izan zarenok, jarraitu aldizkari osoa irakurtzen; guztion ekintza ta alegiña, gure elburuen serbitzuan ipiñi dagigun: euskal-errigintzan.

Emetik ba-noa, baiña or nago, nunbait, orregaitik, agurrik ez.

AGUR

BEIZTEGI'TAR JON

ARENAZA'TAR JOSU



Euskera Ikastera Ameriketatik

OÑATPN

Egun auetan, Oñati'ko erria esperientzi berri bat nabaitzen aisa da, orain arte Euskal-herria'n inoiz izan ez degun esperientzi bat, Ameriketatik etorri berriak baitira 76 (irurogei ta amasei) ikasle beren irakasleekin ikastaro oso bat (Mayatza arte) Oñati'n bertan egiteko asmoetan. Asmo ori, Boise (Idaho)'ko Unibersidadearena izan da, ta zuzendari lez, ango irakasle dan Dr. Pat Bieter ekarri dute. Eta ikasle bakoitzak aukera eder bat izango du, bada atzerriara etorri al izatez gañera, Oñati'n egingo dun ikastaro onek Ameriketara egiña izan ba-lu bezela balio izango diolako.

Ikasle oyetatik 30 (ogeitamar) dira euskal jatorrikoak eta euskera ikastera datoz; gañerakoak erdera ikastera etorriak dira. Bañan euren ikastaro ori Euskal-Ikastaro bat dan ezker, euskeraz egunero erabili oi ditugun itz eta esaldiak, gure abesti sail bat ta euskal dantza batzuek ikasteko itz emana dute Oñati'n bildu diran ikasle danak.

Ikastaroa asia da ta dagonerako illabete t'erdi daramate ikasten. Euskerazko ikasgayak egunero eukitzen dituzte, eta goiz guztian jarduten dira gure izkuntza ikasten. Ikasbide bezela, nere metodoa dirabilte, eta ortaz gañera, abestien bitartez igaritzen dute euskal itzegia. Boise'tik etorritako Joe Eiguren jauna ta ni gera euskera irakasle.

Agustinoen (Canonigos Regulares'en) ikastetxe berrian jarri dira bizitzen eta bertan egiten dituzte ikasketa guztiak ere. Bat-batean ainbeste lagun alik ondoen artzoko aletin aundiak egin dituzte Agustinoak. Bizileku ta ikasgela asko egokitu bear izan dira, eta bai ederki aski antolatu ere etxe osoa eraberriko lekuz prestatuak.

Iya ikasle danak 18'tik 21 urte bitartekoak dira. Ikasle jatorrak eta gazte urduriak. Benetako ikasleak diran ezker, gogotik eta zintzo asi dira beren ikaskizunetan. Ongi dakite izkuntza berri bat ikastea ez dala uskeri bat, lan sakon bat baizik. Eta ba-dakite ez daudela ikastaro labur batean itxurak egiteko bakarrik, bai ordea, zortzi-bedetatzi illabeteko ikastaldi luze ta emankor batean sartuko.

Gazte urduriak dirala esan dugu, eta oyetxek bai dirala inor izatekotan! Ikasgai orduetatik kanpora gelditzen zayen denbora ez dute alperrik galtzekoa. Ekintza-talde bereziak sortzen asiak dira. Batetik musika, bestetik dantza ta kirolak dirala, beren sayoak gogotik egiten ari zaizkigu. Ikasle pizkorak, gazte urduriak orrelako ekiñean ikusteak, ze poza ematen dun!

Euskalherri'ko jende asko arriturik gelditu da ikastaro onekin eta nunai galdera berdiña entzuten degu: «Nolatan ainbeste ikasle, denbora luzerako eta ain urrundik euskera ikastera etortze ori?». Danok dakigunez, orain dala lau urte Landagoyen'en (Uztaritz'en) eta orain bi urte Uztaritz eta Arantzazu'n, Nevada'ko Ikastetxe Nagusiak eratuta bi uda-ikastaro egin ziran, eta Oñati'ko au ez da ayen ondoren bat besterik.

Arrigarria, bañan egia, Ameriketako euskaldunen artean gertatzen ari dana. Eta auxe da dana. Ameriketara joan ziran lenengo euskaldun geyenak artzaintzan sartu ziran. Ayen arteko gutxi izan ziran ingles-izkuntza ongi ikasi zutenak. Euren seme-alabak berriz, inglesaz gañera euskera ikasi zuten, bañan gauz aundirik edo jakintzarik ez zuten jaso Euskalherria'ri buruz eta oso gutxiri sortu zitzaizen Euskalherria ezagutzeko gogoia. Eta orain dator miraria! Ipar-ameriketako euskaldunen irugarren belaunaldi edo gizaldiak ez du iya batere euskerarik ikasi, euren ezkontzak dirala-ta beste abendatakoekin nasten asiak dira, eta une ortan, euskaltasuna berez galtzeko garayan arkitu danean, kulturari esker, erba-aldi bizkor bat jekidi da euren artean, eta gaurko erreztasunak bereganatuz, susperraldi pozgarri bat nabaitzen ari dira. Orixe da, bada, miraria, eta arrazoi ori bera gaur Oñati'n ainbeste Ipar-ameriketako gazte euskal-yakintzaren egarria bilduta arkitzea.

Zer esanik ez dago, alegia, Ipar-ameriketako euskaldunen seme oyeri mesederik aundiena egingo diela Euskalherria'n egote onek. Gure izkuntza ikasteko aukeran daude eta ortako gai, bañan ez da ori bakarria emen jasoko duten aberastasuna. Batetik gure kulturaren ateka asko ikusi ta ikasiko dituzte, eta bestetik euren arbasoen erri ta baserriak ikuskatuz, emengo kutsu bizi ta jatorra bereganatu al izango dute, eta orrela beren gogo ta biotzak txertu berri batez indarturik, ezin esan alako ats sendo bat etxera eramateko egokieran arkituko dira. Nork neurtu dezake mesede ori?

Gazte oyen etorrera aurretik, berri illunskoto bete zuten norbaitzuek Oñati'ko erria. Arrazoirik gabeko estorren ziran banatuak bertako jendeen artean, eta dudarik gabe, ez-jakiñaren gusmo txarrak asmatutako iritzi okerrak. Bañan, zorionez, oñatiarren nortasunak uko egin die asmo txarrai, eta lenengo orduetik, erri osoak arrerarik biozkorrena egin dio Ipar-ameriketako ikasle ta irakasle taldeari, Oñati'n zeñen biotz zabalekoak diran erakutsiaz.

Argi dago Ameriketako gazte oyeak (eta batez ere euskaldun jatorrikoak) gure erri-yakintzaz orniturik, asko irabazian irtingo dirala, bañan besterik ere egia da, alegia, talde onen jakin-miña zenbatekoa dan eta ikasteko nolako erabakiz sayatu bear dan ederki erakutsiko digutela.

OÑATIBIA'TAR YON

TXORITXOAK ARRANTZAKA?

Amaika gauza entzuteko jaiok gaituzu, irakurle, ta ona bat:

Joan dan udaran ez, aurrekoan zan. Goierri'ko auzo maite batean, lagun bi jolasean ari zituzun. Bospasai urteko nexka pospoliña ta euskalirakasle au.

Abesti-leiaketa zenun jolasbide: Txandaka txandaka, besteak ez zekin abestia, zeñek abestu. Patxadan ari zitzaizun nexka, laguna euskalirakasle izateak ez zun ezertxo estutzen. Egia, neronek ematen nion bide orretarako. Txanda irixtean abesti ezaguna aukeratu.

Nexkak ekin zion aurrea: «Mokoa galdu du zozoak». Irakasleak ere jakin abestia, biok abestu genizun alkarrekin.

Urrena irakasleak aldi:

«Baratzako pikua iru txorten ditu, (bitan)

iru txorten oietan iru milla pikua...».

Berriz ere bi jokalaria abeslari. Aspergarri litzake leieketako abesti guziak emen agertzea.

Alako batean, irakasleak ulertzen ez, nexkak ziona. Berriz abesarazi ta berdin. —Nexka ez dezu mingain motela. Belarritz ere euskaldun jator. Diotenez ez gera, ba, euskaldunak belarri-bizkor? Irugarrenez poliki-poliki abestu erazi urrena ta itzez itz jaso nizun nexkak ziona. Or dezu bera, irakurle; abestia noski, ez nexka:



«Arritxo bat bota nion txori txiki bateri abesten asi zan-eta txiru liru liru li!

Ez, ez, ez gaude oso konforme txiru liru li orrekin, gazte gera ta txiru liru liru li!».

Txoritxoak bere-bereko dun izkeran ekin diolako arrika eman gazteok? Arrantzaka jardutea nai ote dezute? Ta beiak bi anketan zutik txiruliruka?

* * *

Bertan bera amaitu zan gure jolasa. Une batean arri ta zur txunditua egon nintzan. Nexka begi-begira, adi-adi, nire ixiltasunaz arritua.

—Zeñek irakatsi dizu abesti ori, maite?, galde egin nion.

—Olako ta alakok Zumaia'n ikasi zuten oportetetan eta orain ikastolan abesten degu.

Bospasei urteko aur bati, abesti ori buruz dagozkion azalpen batzuk egin eta lagunetara bializ nizun nexka.

Nik neronek gurasoetara jo nun. Adizkide aundi ditut. Jator aitortu zuten bein baiño geiagotan egonak dirala patxadan abesti ori alabari entzuten.

Nire jarduna entzun ondoren, errez antz eman zioten abesti orren muñia gogorken gorria dala. Ta orrelakoetan guraso geinak esaten didatena erantsi aiek ere: «Zu entzun ta bai, oartzen gera gure txikien buruan, ez arian, ez arian sartzen ari diran gogaik. Baiña gerez, buruak eman ere ez. Gure Erria'n orrelakorik eman zitelenik ere...».

Zenbait irakasle, guraso orick bezela pikutan, «El Ermitaño» zangurruari lagun egiten. Beste batzuk, zer ari diran garbi dakitela.

Biarko gizon ta emakumeen etorkizuna gaur zuen eskutan dezute, aien eziera. Bidezute ba, esnagaraia; esnatu ta zuen txikien alde lanean gogor ari diranen ondoan, lanari gogoz ekiteko. Bakoitzak al dantxoan. Orrela, orain arte bezela, aurrak, txoriak eta lorak gure Ludi au alaitzen jarrai dezaten.

* * *

Donosti'ko Ibiltoki Berria'n, an urrutian Matxitxako aurrez-aurre ta urte muga onetan, ez da, noski, arrigarri «gogorkeria» ari naizela, GURE ABADAREN azken idazgaia gogora etortzea:

EZI MAITASUNEAN MAITASUNERAKO.

IRA'k

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskera bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri asmoen gaiñetik daben iritzi-oneko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egileak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskaintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M.^a MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Carretera a Galdácano, 32-Bilbao-4

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokien guturako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

ESNEAGAZ EGINDAKO

ESKATU BASERRI

BASERRI

UMETMUNIZAT

ADINEKOINTZAT

CHOBIL

ESNEAGAZ EGINDAKO

Euskal Jaiak

Galderak

ABESLARIEN TXAPELKETEA

Basauri'n zan. Abeslari asko izentatuta, nortzuk azkenera joango ziran jakiteko ixilleko beste txapelketa bat egin bear izan zan.

Emendik, sei lotu ziran, Urrillaren 8'ganean, txapelketa nagusian parte artzeko. Ordua eldu zan. Giro ederra Sozial Zineman. Txanda onetan argertu ziran abeslariak:

1.—**Kepa Bordegarai**, Galdakano'koa. Polito bere saioa ta bere abestiak: «Baserria» ta «Aupa gazteak». Gitxi entzundakoak; abesti barriak bertaratu zan jentearentzat.

2.—**Amaya**, Etxebarritarra berau. Ezaguna zan entzule askoren artean. Bere abestiak, oso entzunak, ez eban gauza barririk ekarri euskal jai onetara. Iparragirre ta «Zure Begiak» abestu ebazan. Makaltxo egon zan nire ustez, naita gero irugarren lotu.

3.—**Txomin Bengoa**, Otxandiotarra. Onek abestu zituan: «Joxe Mari», abesti barria an giñan geienontzat, ta ez dakit bigarreneran izena, baiña abesti polita izan zan, naita soñua entzunekoa euki. Abotsz ederto egoan Txomin, eta ez dakit zer jaso zan laugarren geratzeko: Otsandiotarrak eukin ez-edo... Obeto lotu bear ebala uste dot.

4.—**Orio'ko bikotea**. Ez naiz gogoratzen euren izenakaz. Abestu ebazan biak: «Prima Exerra» ta «Atarratze'eko Jauna». Ikusi daiken lez ezer be ez barririk. Oneri be lagunak falta jakezan...

5.—**Yon eta Arantza**, Galdakanotarrak oneik be. Abestiak: «Xoxoa» ta «Atxean Motxean». Abesti barririk, ikusi al dogunez, bata be ez. Ekiñean makaltxo, baiña ori ta guzti be, uste dot, ba-ekiala Yon'ek nor eroan languntzaille, jentearen begien aurrera!

6.—**Santos Ariño**, Algortarra. Bere abestiak: «Nere amak baleki» bata, ta besteaz ez naz gogoratzen. Abotzes ederto egoan, baiña barririk, beste askok lez, bata be ez.

Jenteari entzun dausat, ori ez zala txapelketa onetara sartu bear, koral edo olakoren batekoa izan bear dau-ta. Uste dogu baldintzak bete ebazala.

Onan lotu ziran epaiketearen ondoren; entzuleen autarkiak batetik eta maikoen iritxia ondoren.

Lenen, Santos Ariño; Bigarren, Yon eta Arantza; Irugarren, Amaya; Laugarren, Txomin Bengoa; Bostgarren, Oriotarrak, ta Seigarren, Kepa Bordegarai.

Olan egin zan eta olan izan bearko dau. Baiña uste dot, ta abeslari askori entzun dautseet oin baiño lenago be, autarki-emote modu orreik kendu egin bear litzakezala, ta mai-epaikari batek aukeratu.

Erabakia emonda gero «Oiantzunak» taldeak bere saioa egin eban; ederto benetan arratiar talde au, bere aurkezketalari onagaz.

Beste barik, Zorionak «Auspoak» taldekoeri, jaialdi au antulatu dabelako; ta naita uts batzuk euki, oso ederto egin eben.

* * *

BIZIBIDE DABENEN JAJA

Emen agertzekotan ziran, «Oskarbi», Lete ta Iriondo, baiña galaso egin eutsen. Orregaitik, Xabier de la Torre, txistularia; Lupe; Yon Enbeita ta Gontzal etorri ziran.

Bakotzak bost edo sei abestigaz bete eben euren saioa. Lenengo Xabier de la Torre, txistulari ona benetan. Bigarren Yon Enbeita, abesti politakaz baiña ainbat bidar entzunda dagozanak. Jarraieran Lupe'k abesti politak, baiña oneik be entzunak, Azkenez Gontzal. Gripegaz-edo dabilleta-ta, ezala etorriko esan eben batzuk, baiña, an, urteeran entzun neutsan, bateri esaten: «Ez ba'neu griperik izan...!».

Onen abestiak be ainbatetan entzundakoak batzuentzat. Baiña barri bat be agertu eban, au zan: «Bakea, Bakea», Abesti orretan iñoan, ba-daukagula bakea, baiña zelako bakea? Kaiñoien bakea, armen bakea... ta ori ba'da bakea, ni zer ete-naiz? Justizia gura dogula, egizko justizia, zuzentasuna ez da alkar iltzea, alkar zapaltzea... gorrotoa ere ez.

Jente asko batu zan jai onetan; giro ederra. Ta, «Agur Jaunak» danak batera abestuta amaitu zan. Zorionak «Laguntasuna» taldeari be.

KANTARI



eziketa jostailuak
eskulanetarakoak
irakasketa gaiak

IKIRIKI

gregorio de la revilla, 1
bilbao - 11

Jolasean ikasi, or zure aurrentzako emoitzarik onena

- 1.—Futbol presupuestoagaz, zenbat Ikastola egin ete leitez Bizkaia'n?
- 2.—Zergaitik Zeanuri'ko errian Udaletxea idazkari barik egon lei?
- 3.—Euskaldunok, zergaitik galtzen ete-dogu ainbeste denpora alkar burrukan?
- 4.—Bedia'ko arazo ori, zergaitik ain aitakeri aundiakin konpondu gura izan da?
- 5.—Zergaitik, gizonak, kalunia bateri ainbeste kasu egin eta egiari ain gitxi?
- 6.—Erabagi bat artu baiño lenago, zergaitik ez dogu gizon lez berba egiten?
- 7.—Zergaitik, Bedia'n, bota ditue euskaldun zintzoak bertako taldetik?
- 8.—Arrazoiak eta berba egiteak zergaitik balio izan dabe ain gitxi?
- 9.—Arrati'ko eleiza batzuk zergaitik ez dabe onartzen besta batzuk egiten dabena?
- 10.—Zergaitik daugaku ainbeste maltzurkeri?

Urrego egun baten, beste alderdi ezbardin batetzaz izango dira galderak. Bakotzak erantzun dagiela goiko galdera oneri. Pozik artuko gendukez zuen iritxiak.

TXALAPARTA

EUSKAL NORTASUNA

EZ GAGOZ LOTAN

Beti egon izan da gure Euskalerrria mundu guztian ondo izendatuta, baita euskalduna be Euskalerrri'tik kanpora, beti izan da ondo artua: bere izategaitik, bere egiñegaitik, bere jatorriagaitik eta abar...

Gaur, zaar askoren agoetan auxe entzuten dogu: Lendik, gauzak asko aldatu dirazela, ta orain, galduta dagola izate ori.

Gazte bat naiz ni, eta ba-dakit gauzak aldatu egingo zireala lengo denporetatik, batez be norberaren izatea. Baiña ba-dakit, oraindik be euskaldun zintzo asko dagola, eta gure buruko gogapenak bardin jarraitzen dabela.

Orain, mundu guztiak daki erri bat garala. Baiña oindiño oraintzu batek esan eustan: «Gurea joan da. Gurea apurtu da. Orain, ez gara ezer». Au entzutea oso penagarria zan, baita jakiñik ere oraindiño borondate aundia geratzen dala, gure erria zerbait argiago ta jakintsuago ipinteko.

«Baiña, egia, bakarra da». Egoera onetan, apurka-apurka ito bear gaituela.

Orduan ba, erabagi bat bakarrik dago: Lan egin eta ez itxi geurea danari. Jarraitu, nekatu arren; jarraitu ostikadak artu arren... gure nortasunagaz.

Apurtu daigun ba, egazkada au.

BAIÑA ZER EGIN GEINKE?

Sarritan entzuten da galdera au; ta geienetan, erabagi bat artu barik urteten gara izketaldi askotatik.

Erantzun bat be egon leike. Baiña une gutzietarako balio ete dau erantzun orrek?

Olan ba, erantzun asko daukaz galdera onek, eta egin geinke zeozer gure erria

maitatzeko. Galdera au zerbaiten aztertzeko laburpen baten alegia egingo dot. Ez gaitzela jausi alperkerian, ta esan: «Ba... nik egin daikedanagaitik Euskalerrriak ez dau gorakadarik izango, ez dira gauzak aldatuko-ta».

Gauzak, danok aldatu geinkez apurbat. Jakin bear doguna Aurrerapena'k danontzat izan bear dabela, ta danon zeregiña izan be. Olan ba, danok sartu bear dogu aurrera bidean, eta ez esan: «Nik ez dot mundurik konponduko».

Bizi garan artegatasunak berak, lanean indartu bear gaitu, ta bide barriak aurkitzera bultzatu: lengo bideak eta oingo bideak.

Sarritan gogoratzen gara, lengoari begira, len jazo zan guztia gogoratuz, baiña begiratu ta... or gelditzen da. Onekin ez dot esan gura, lengo gauzak, len ikasiak alde batera itxi eta beste alde batzuetatik joan bear dogunik. Baiña, bai, esan gura dot, ez garala jarri bear beti atzoko gauzeri begira. Goazan ba, gauzak argitaratzera, gaurkoari, aldi onetarikoeri begira.

Ez gaitzean lotu antxiñako liburu zarretan. Zer balio dau atzo izan zanak; gerokoa izango da, geuk lortu gura doguna. Itxi daiogun, batez be une onetan, erosotasunean, lasakerian bizi izateari. Ori ez da erria maitatzeko bidea. Aundikerian lasai bizi gura dabena, orreik dira Erriaren etsairik txarrenak.

Ez neuke nai itz oneik aizean galtzeko bakarrik esan. Eginbear bat daukagu ta Euskalerrria begira dago, egin bear dogun lanaren zain. Zuzendu dagiguzan ba, jarraibideok, oraindik Euskalerrria bizirik dago-ta. Jakin daigun, gurea, geurea izango dala... geuk gura ba'dogu, ta Euskalerrria geu gara.

TXINDOR

Jokue Errenta?...Oba Oillue Erreta!

Probak, pelota-partiduek, bola-tokixok. Bai, euskaldunen tarte beti izen da eta izengo da trabesa, drogie eta etxe inguruko aldrebesa.

Lepue okertu, gerrixe makurtu, gorputze zigortu birrien lanien egunero, ordu luzietan... zertarako? Atzamar bat, amarretik atzamar bat bakarraz, jarritze, nasai, prontoien peloten edo plazan idi-bei buztarrixon aurien, errez-errez irabazteko dirue, neurri barik.

Gero, jarraitxu musien edo julepien, kopa petrala barrurutz, zierro txokorra ezpanien, eta aurrera mutillak!

Artietan, andra koitxadue etxien. Umiek oeratu, libxie ekiñ, anak aunditxute, begi-barrenok illundute, ule-tximak bigurtute, deskanie buru boltan, errementau ez beste danok.

Andra orren aurrera, gabeko irurek jota gero, aor dator bere gizona, Joxe, irribarrez, aepegi lustrauaz, zierro puruan lurrunaz. Binbilli-bonbolo mozkorraz. Eta esku artien mille pezetako «berde» izera bategaz.

—Joxepa, Joxepa! Neure andra maite ederrori —diño paltso-kerixan— ara emen mille pezetako paper barri-barrixe. Bixer...

Eziñ amaitu bere berbetie. Joxepa'k artu dau paper «berde» ori. Zabaldutako burdiña tapie, gori-gorixe, umien praka-alkondarak

siketzen daukena, bero-berotasunaz, eta sartu dau suten diru eder ori. Joxe'k, mozkorran lainu ostien, ikusi eran au, diño ulua baten:

—Zoratu, zoratu jatzu, Joxepa...?

—Ez, ez, Joxe. Au, diru diabru au jokotik dator. Eta, gutzet irabazirik ederrena, bedorri sue emonda dator. Onako dirurik eztoz nai. Bierretik datorrena, diru ederra, naitxe txikixauc eta urrixauc izen, ori bai Joxe. Zeutzet, neutzet eta oien dagozan gure aingeruentzat, ori, eguneroko bierretik datorren dirue, bai ederra...!

Negar-malkoz beteta arpegixe, eskuek amantalien kirimillate, Joxepa dadar-dardar dago negarrez. Eskatzien negar zotiñean ama; mozkor inkesan aitxe... Umiek oien, lo, iribarrez, aingeruekiñ amesetan.

Geixa, orraitxiñoik, Joxe ezta juen atzamar txikiñan bier-lekura. Gorputz guztixaz, izerdi ederraz, lepo-gerriko nekiaz dakar bere diru garbixe etxera, arratsaldeko ordu illuntzien.


Joxe'k, Joxepa'k eta euron iru umiok, gabaz lo, lo poz-pozik egiten dabe.

Gorputzan kantsurie, arimian deskantsue...!

JUAN JOXE ARRIZABALAGA «MARKIÑA»

ASTI

Arri batekin asi zan



zure aurrezkien banketxea



BANCO DE BILBAO

gizaldiz goiti aurrezkitzan

IDAZTIÑOAK

Euskuartearen darabilgu, pozik eta arituta gaiñera, San Anton Txando'eko «Publicaciones Vascas»ek zabaldutako berak argitaratutako ainbat idaztiñoren, zerrenda luzea... ta merkea: amar lauerlekotik irurogeiraiñoko ikasgai, irakurgai eta aztergai politak.

Or dituzu euskera ikasteko aletxoak, iztegia, idazle jatorren idazlan onenak, eleizgaiak, liturji ta Doipuruen eskutitzak, latin eta gerkarretik itzulpenak, Kikero, Esopo ta abarrenak, ipuiñak, abestiak, olerkiak, eta olerki itzulpenak...

Ixil-ixillik, San Anton'go talde onek, lan gogorra bete dau. Ez ez dau zarata aundirik atera nai izan, ezta oore gorengorik jasotze. Apaltasunean, erriaren erosteka neurri merkeanean, zintzo, benetan, or euskeldun zar eta euskeldun barri batzuen lan ederra.

Berrogetaka idaztiño, danak artzekoan be, zer?, lau milla errial, edo milla lauerleko, edo berreun ogerleko, ortxe-ortxe. Baiña orrenbesteko «ildurarik» zeure buruari ez ba'dautsazu ezarri nai be, amar lauerlekoko Phredo'ren Alegiak I, II, III, edo Fatima'ko Ama Birjiña ta Umeak, edo 12 lauerleko Esopo'ren Alegiak euskeraz irakurtzeak ez ete-dau merezi zure neke izugarri ori!

Eskatu ba agerbidea besterik ezean, zuzenbidea erreza dozu: Publicaciones Vascas, Parroquia de San Antón, Plaza de los Santos Juanes, Bilbao-5.

LABUR BAIÑA ZORROTZ

ITZALDIAK

Euskaltzaindikoak, or dabilta ara ta ona, itzaldiak eskeintzen, danak ez baiña «suerte» bardiñakin:

Urrillaren 22'gnean

Gernika'n, Aita Santi Onaindia'rena euken aukeratuta. Azken orduan baiña, debekatua izan da.

Urrilaren 22'gnean

Egun berean, Juan San Martin'ek Tolosa'n itz egin eban.

Azillean

Bilbo'ko Liburu Azokea dala-ta, Joxe Migel Barandiaran jauna ekartzeko asmoetan ebiltzan eratzailleak. Lenago Bermeo'n lez, emen be ezezkoa artu dabe aginteriengandik, eta bere ordez, Mitxelena ekarriko dabe.

ZALANTZAK?

Ea nork erantzun al izaten daukun:

Nor da euskaldun? Gure ustez «euskera-duna», euskera izkuntzearen jabe dana, euskeraz itz egiten dakiana.

Baiña euskerarik ez dakian Euskalerrri'ko semeari zelan deitu?

Ba-dakigu, baiña ezin emen erabili, orrelako agindua be artu gendun-eta. Amen!

Baiña zelan arritu ez? Or zear zabaldut dabezan orri batzuetan, taldearen izena ondo ikasi ez, eta «vasco»ren itzulpena ez jakitea, nabarmen... ala betiko maltzurkeriz, aldatzea?

Beste au be ausnartzekoa:

Otsok jaten ete dau otsokirik?

ZORROZKILLO

JESUS'EN LURRALDE ZEAR

VI-2.—ILLOBIA

Amalagarren egongua; Jesus'en illetea. Illobi kapillea 1810'gn urtean egin eben gaur agartzen danez. Sartuta, Aingeruaren Kapillea dator. Diñoenez, emen egoan aingerua jarrira Pasko-egunean, eta au esan eban: «Berpiztu da. Ez dago emen». Illobia isten eban arri biribillaren zatitxo bat dauko erdiko idulkiak. Beko ate batek Illobira daroa. Marmorezko arri batek itxita dauko Illobia. Irudiaren atzetik ikusi ta ukutu daiteke aitz. Biotza pilpilka genduala egin genduan. Laztandu be bai.

KATHOLIKON

Illobiaren aurrez-aur dago Katholikon. Zati aundia artzen dau elizan. Grezitar Orotodoxoen ardurapean dago.

MARIA MADALENA' REN KAPILLEA

«Rotonda» itxita ta eskumaruntz, Maria Madalena donearen Kapillea dago.


tinotarrak dauke. Amabi ur-leze dagoz gaur be eliz inguruan. Bi, Kalbario aitzean. Orain be ura emoten dabe.

Aapaldi-Kapillara elizen da ibiltoki zear igonda. Irain pillarra dago aldara barruan. Gudariak iseka egin eutsonean, Jesus jarrira egon ei zan. Koluna ori ei da aulki ura. Ezkerrera Kalbario'ko aitz zati bat agiri da. Ukutu be egin genduan eskuekin eta mosu emon gogo-gogoz.

KALBARIOA

Zurubi batzuk dagoz aurrerago. Golgota'ra daroa. Eliza baiño 5 neurkin gorago dago Golgota. Zati bat latinotarrak dauke, bestea grezitarra. 1937'nean barriztu eben latinotarrena. Aldara ederra dauko.

Latinotarren Kapillan egiten dira azkenengo lau egonguak. Jesus billoizik agertzen dau amargarren egonguak. Amaikagarrenak Jesus'en Gurutzaldia gogoratzen dau. Grezitarrena da. Gurutzea euki eban aitzaren gainean dago aldarea. Erdetik eskua sartuta aitz berbera ukutu daiteke.



Abitzak diñoenez, Madalena'k Illobia usik aurkitu eban eta urtetzean Gure Jauna ikusi. Baraz-zaiña zala uste izan eban. Barriztu egin dabe.

Lau zurubi igonda, beste Kapilla bat. Maria Bere Amari emen agertu jakon Jesus. Ebanjelioak ez dau aitatzuten, baiña abitzean dau indarra onek. Alkartze au gogoratzeke egin zan Kapillea. Au be barriztuta dago.

Eskumara, Zigorraldi-mukur zati bat dago. Apaltasunez eta biotz-beroz emon geuntsan mosu.

IBILTOKIA

Kapilla mordo dago. Kristo'ren Espete Kapillea. Aurrerago Longinos donearena. Longinos au Kristo'ren saietsa zauritu eban erromatar gudaria da. Kapillea grezitarrena da.

Aruntzago, jantzien Banakuntza-Kapillea. Kristo'ren jantziak nork eroan zotzak egin zituen. Au gogoratzen dau Kapilla onek. Armenitarrek dauke. Zurubi batek Elena donearen Kapillara jaisten dau. La-

Zorion aundi au izan eban lerrook idazten dituanak. Metal zati batek estaltzen dau Kristo'ren eriotzeak aitzean egindako zuloa.

Amabigarren egonguak Jesus'en Eriotzea dakar gogora. «Stabat Mater» latinotarren aldarea dago Kapilla bien artean. Aldara gainean Neketako Amaren irudi eder bat.

Maria'k Jesus bere Semearen Gorputz Illa artu eban bere besoetan. Egite au gogoratzen dau amairugarren egonguak. Kalbario'tik jatsita Adan'en Kapillan sartzen da. Godofredo Buillon'en illobia dago eskuma aldean eta Balduino bere anaiarena ezkerrean. Berezko aitzulo bat dago Kalbario azpian eta onen atzean Melkisedek'eri jasotako aldara bat. Grezitarren sakristia dago eskuma aldean.

Goizeko 4/30'etan zabaltzen da elizea la zabalik egon oi da eguzkia sartu arte. Grezitarrek goizaldeko 7'etan esaten dabe mezea; Armenitarrek goizaldeko 2/30'etan; Latinotarrak goizeko 4/30'etatik 7'etara. Egunero, meza abestua euki oi dabe 7'etan.

(Jarraitzeko)

GOIRIA

FERRETERIA UNCETA S.A.

Landola tresnak - Galtzairu neurri zeatzekoak

Langaillu guzietarikoak - Leunketa gaiak

Ibarrekurutz kalea 14

71-10-00 Urrutz.

Apartado 18

E I B A R

ABADEAK, LANGILLE?

Lenago ere, gai onetzaz, zerbait esana naiz AGUR'en, baiña ostera bere esan bearra dago. Nire ustez, abadeen entzute ona naspilduten eten бага diardue, bai siñesgabeak eta txarrago dana, euren burua kristautzat agertzen daben ainbat eta ainbatek.

Abadeen entzute ona zikinduten daben esaera bat, eta parra-parra ortik zear zabaldurik dagona, auxe da: «Abadeak euren eliz arloan zeregiñik ez dauke, erriaren lepotik jaten daben batzuk dira. Abadea izatea alperkerian bizitea da, ta besteen antzera, langille-obreru bezela lan egitera beartuak izan bear dira». Orrelakoak esaten dituenak, edo ez dakie abadetzea zer da, edo ta asmo txardun gizonak dira.

Ez nago abade langilleen aurka. Urte onak eta osasun ohea dauken abade batzuk langille lanetan ibiltea txarra danik ez neuke esango, bai baiña orretarako bear dan baimena euki eta bear diran neurriak ondo artu bear dituela, lan orrek bere arriskuak ditualako abadearentzat.

Abade langilleak gogo-artzaintzea egiteko sartu bear dau langilletzan, ta batez bere, alde gustietan eliz-gizon usain ona zaindu bear dau. Ezagututen ditut lan ederra ta eredu on diran abade langille batzuk; baita lanean, abadetzako bideetan otzitu diranak be, tamalez.

Ori orrela izanik, diñodana au da: abadeak euren eliz arloan zeregiñik ez daukela esatea arinkeri ta zorakeri benetakoa dala. Nik, esate baterako, ezaguten dot abade bat —bere izena esateko baimenik ez dot— erabagi au artu ebana antxiña ta arduraz beteten dabena: otoi, autortza, meza ta beste elizkizunetan, egunean iru ordu; irakurten ta ikasten, egunean ordu bi; gaixoak ikustaldu, katekesia emon eta eliztarren beste batzar batzuk zuzentzen, egunean iru ordu; idazten eta eliz-lantegiko lanetan, egunean ordubete. Bederatzi orduko lan ederra. Ori da bere eguneroko eginkizuna.

Ez ete da naikoa? Ba ete dauke abadeak zeregiñik euren eliz arloan? Batzuentzat, ez dago beste lan-egiterik langilletzan baiña, baiña guztiok dakigu ba-dirala beste zeregin bear-bearrezkoak eta on-onak ludi onetan. Abadetzan, zuzentasunaren alde, askatasunaren alde, egiaren alde ta maitasunaren alde, zeregin ikaragarria dago, baita, esango neuke, abade zintzoak, berari dagokion lana ondo egiten aleginduten ba'da, beste iñork baiña lan onurakorragoa egiten dabela gizaldiaren alde.

Siñesgabeak, abadeak ez dabela zeregiñik euren arloan, esateak, ez nau arrituten; baiña gauza orreik siñestudunak esatea, ori bai gauza galgarria. Siñesgabeak, ez Jaungoiko, ez Elizarik ta ez betiko bizitzarik ontzat artuten ez dabelako, azpikeriz beti esan ditue olako gauzak. Egunotan, siñestudunak bere, lilluratuak dagoz besteen azpijokoagaz. Gabiltzan zurt eta ernai, eta ao-zabalak izan barik, eutsin dagoiugun abadeen izen onari, geure onerako, ta lagundu elizari abadeak agintarien diru barik bizi daitezcan, eliztarren laguntzagaz eta, geienak beintzat, langille izan бага. Etxean dauke zenbat nai lan.

GALLASTEGI'TAR KAULDI

Menpetasuna

Itz onen esanaia polita dala dirudi. Iñoren esana entzun. Onartu. Aren naia egin. Beste baten agindua betetu. Jokabide au betikoa da gizartean. Baiña menpetasuna egizkoa, maitasuneko ala gogorkerizkoa izan bear dau? Gogorkerizkoa ba'da, bataren aldetik menpekerian jausten da. Ta gizonen artean ori ez da zillegi. Menpetasunaren oiñarria beste puntu batzuetan aurkitu bear da. Giza-izatearen almenei, berez ondo, jatorkean oiñarrietara begiratu, ta antxe, sus-traitu bear dogu itz onen mamin guztia.

Gogorkeriz nai ankerkeriz, besteci norbere agindua bete erazi nai izatea oiñarri ustelagaz, guzurragaz gizona menperatu nai izatea da. Ta gizonaren bizia oster, guzurragaz esana eragitekoa ez da. Guzurra gizona barregarritu ta zapaltzera doa. Ez guzurrezko egintzarik, ez guzurrezko iraultzarik biak doaz gizonaren egizatasuna ta bizitza ondatzera. Ori kaltekoa izanik, esan egitearen oiñarritzat, iñundik iñora, ezin jarri giñaike. On egite guztiak, oiñarriak be, egizkoak eta sendoak bear ditu. Gizonak nai erriak, bera dan guztia, izate, lan egite ta askatasun, iñoren azpian jarteko jakituriz ta maitasunez jokatu bear dau. Ta era berean, beste orrenbeste eskatzen dau beste alderditik.

Ara, gure artu-emonen oiñarriak, berezko legez, argi argi, agertu dira; egia, zuzentasun, maitasuna. Doai oneek gure lan ta artu-emonetan ba'darabilguz, alik eta ondoen, on egitearen gogoa agertuko dogu ta besteak azpiratzeko grifa gaiztorik ez dogu ez izan ta ez agertuko. Ondoren, gizonen arteko uste ona sortuko dogu. Orduan gizarteko jokabidea maite izango dogu. Baiña onen guttion oiñarri berezi berezia iñori ezer ez ostutea da; ez bere entzute onean, ez bere lurrean. Mugarriak kendu ba'dira, atzera bere tokian, lur gainean, agirian, jarri bear dira, bai, zelaian, mendian ta errian. Bakoitzari bai gizon bezela ta bai aldra bezela zor jakozan tokian.

Era ontan jokatu ezker, gizon nai talde zuzena dana, onerako gertu dago. Orduan gizonak legeri men egingo dautso, legea jakituri zuzeneko da-ta. Legez zuzentasuna bere baitan daroanean, norberekeriz ta aundikeriz ez dau jokatu. Bakarriz eta beti, ona billatu bear dau, ta iñoz ezer zapaldu ba'dau, kateiak ausi ta atek zapaldu etxeko ugezabari. Emendik dator elkar ulertuteko era ta ona dana egiteko sortzen dan maitasuneko jokabide barria.

Jakituri zuzenak, maitasunez irabiatu, ume txiki ta seme leiala daroaz gurasoengana. Umea, bere indarrez ezer ezin egin ta gurasoengana doa. Aita ta ama baiña gizon eta andre oberik ez dau aurkitzen ta barruko indarrez ta gogo onez menpetasuna damotse gurasoci. Egia ta maitasuna ikusten dituen tokira doaz. Pertsona aldrebesak badirela munduan, egia da, ta onek burua galduta ta biotza aldrebestuta daukezalako, menpetasunik, iñoz, ez dabe onartzen. Euren soroak eraginda, beti, guztia nastauta bota, kendu egin nai dabe. Zabarkarizko naste-borrastea da euren elburu.

Baiña giro biurri ta gaizto ortako jokabidearen, aurrez aurre, ba-da beste giza-seme askoren egikerea. Zuzentasuna, egiz, maite, dabenak, zuzena dana ikusikeran, arteztasun osoagaz doaz aren ondoren. Umeak, ikastolan ikusi eban zuzenbidea, egundo ez dau, bertan bera, itzi ta zapalduko. Gazte artez ta arduratsuak, maisu zuzen ta gizon artezak eguneroko lanak, zuzen eroaten, dakusanean, masioketa biderik ez dau sortuko, ta bai oster, ondo egiaren aurrean burua makurtuko dau. Berez. Beste biderik ez dau ikusten. Bear izan ori asmetan dau onaren izenean. Lenengo zuzentasuna, ondoren menpetasuna.

SOLOZABAL'TAR PAULIN

Aztergarriak

INDARRA

«Nuklear-landola» bako ludia, ondamen-dizkoa izango litzakela esan dauskue emengo egunerokoak, batek idazpuruaren orrenbeste jartzen eban. Eta «nuklear-landola» asko-dun mundua, ez ete litzake ondamen-dizkoa izango? Ba yñoat, nik, nere kolkorako.

ARRISKUA

Berrogeitamar olako olak itxi bear ei-ditue USA'n, zartadaz eta zirrikutz etenda agertzen diralako, ta inguruak ondartzeko arrisku bizian. Ala ta bere, egintzak obeto antolatu, ziurtasunak obeto ikasi, ta gizaldi onen azkeneko atom-indar ori bearrezkoa izango ei dogu. Gauzak ondo antolatuta baiña.

BAKEA EI-EBEN

Ego-Vietnam'engo ledakariaren, Van Thieu'ren aurkakoak gorago ta geiago ei-dira. Orren aurkako agerpen aundiak egin ditu erriak, ta azken aldi onetan, naiko lan izan dabe ango ertziñiak kaleak baketzeko. Orain arte lendakari orren lagun izan diran asko, euren arte katolikoak be, lendakariaren egintzak jorratzen asiak dira, esanaz, Paris'en izenpetutako bakearen bidean ez dabela ezer onik egin: Bakea paperetan baiña alkar-iltzea nagusi!

ATZETZKOZ AUERRERA

Willian Colby jaunak, CIA'ko zuzendaria, USA'k Txile'ko itzultzaileeri zortzi milioi dolarren laguntza emon ei-eutsen, Allende'ren jaurlaritza ondartzeko. USA, munduko laterri demokratikoa, demokraziaren aurka. Zenbat ezezkerei!

ZUZPERKUNDE

Britania'ko azken-auteskundeetan, Eskosiar eta Galetar errizaleak aurrera jo dabe, lengo 7 ta 2 aldun areitatik, 11 ta 3 aukuratza eldu dira, datorren Westminster'eko batzarrerako. Erri txikiak ez dira, antza denez, murgilduta geratzen. Ez laterri gangarrak batasun santurako itz-mitzetan be, ezta ainbat «proge»k egiñiko «proletargo» batasun ospetsuaren teorian be. Benetan poztu gara erriar orreikin. Aurrera beti!

ZABALKUNDEA?

Aldizkari ospetsu baten irakurri izan dogunez, Monseñor Guerra Campos'ek abade gazteeri Trento'ko kristau-ikasbidea bide, azterketak egitea erabaki dau. Eta Pio V'aren kristau-ikasbidea ez ba'dakie, ezingo ei dabe ez autortu ez beste eginkizunetan jarraitu. Ikusten denez, ba-dira oraindik Eleizan «zabalketea» egiteko euren eragozpenak daukazanak be.

NUN BA?

Azkenengo eleiz-barruetan lotutzeen ondoren, Madril'go «Gotzaintza Batzarrak» esan daukunez: «Ez ei leuke langilleak eleizetan batzarrik egingo... beste nunbaiten batzeko eskubiderik ba'leuke». Egi biribillagorik, egundaino, entzun be!

LAN NEKETSUAK NORK?

Auteskude baten agerpenez, Suiza'n, erbesteko langillerik euren errietara ez itzul-

tzeta erabagi dabe. Ala ta be, askok baietza emon eban, ta auziak aurrera jarraituko daben bildurra. Emendik ogetamar urtera, uste dogu, ez ba'da konpotzen, Suiza'k arazo gogor bat izango dau, baiña orain egin nai izan dabena, bildurtuta bizi diran batzuk, ez da onena.

LENGO BIDETIK

Gaur Arjentina'n lendakari dan Peron'en alarguna, Pinochet'ek deituta, Txile'ra ei-doa ikertalditxo bat egitera, ta onek asko ta asko arrituta laga ditu. Joan zan urteko, igazko, zaratak, batzuk atzipetu zituen, Peron ezkertiar antzeko zerbait zala uste izateraño, baiña, lenagoko egintzak aurrean, eskumatiar osoa zala be gogoratu bear.

ZAINDARI

Gudaritza-buruak esan dabenez Lisboa'n, laster sartuko ei dira barriz euren kapardegiatan Portugal'eko iraultza lortu eban indarrak. Baiña ernai, ez ei-dira geldirik gertuko jaurlaritza indarkari ta gogorren bat sortzen ba'da. Ez ei-dabe onartuko gogortasunik ez ezker, ez eskuma, ez gudaritzaren aldetik.

ERAILTZAK

Eun eta ogeta lau gizaseme erail ditue Arjentina'n, Peron il ondoren gaur arte, Urrillaren 25'erarte. Ez da oindiño urten-biderik aurkitzen. Txarrena, entzun dogunez, emendik iges egindako euskaldunen seme-alaben artean, batekoak eta besteokoak eginda, burruka gogorra batzu-batzuk.

OKERRA OKER

Grezitarrak zuzenbide billa. Lenago pot egin eban indarzaleak, ostera be eurenetan. Papadopoulos lengo lendaria ta jaurlaritzako bere lau lagun Kea ugartearen lotu ditue. Lotze onen arrazoi sakonena, auteskunderik izan ez dadin «jaiki» ta jaurlaritzan jabe egitea barriz. Turko'en biboteak billurto ebezanak, ausarti erriaren aurka.

ARTUAK ITZULI?

Lenago euren lurak ziranak, baiña gero luzaroan bestean bizileku, israelarren artean «Haaretz» egunerokoak egin daben azterketa baten, % 48,9'k itzultzea ontzat artu dabe; % 43,9'ik ezetza erakutsi dabe; % 7,2'ik ez dabe iritxirik. Ez dira baiña Jerusalem uria eta beste guda-euskarri toki batzuk orretan sartzen.

BAT GORA

Arafat buruzagiak, ONU'ra joan, an ondo artua izan, Prantzesak be arrera onena egin dautse, Palestinar guztien arazoa bere eskuan dagola autortuaz. ONU'n esan dabenez, erbestean, Palestinar jaurlaritza bat osotuko ei-dau. Palestinarren iritzi, eguntasia urbil dago, ta laster irriparrez ikusiko ei-doguz.

BESTEIA ESTU

Arabitarak, edo euren buruak, Rabat'en batu dira, ea beingoan alkartzen diran, baiña aurreko egunetan, amalau palestinar giltzapetu dabez uri ortan, Jordani'ko Husein iltzoko asmoan etozan. Siria'ko ordezkari batzuk be barruratu geroago, oneik ostera Batzar ori ondartzeko asmoetan ei-etozan.

Deboraren

Makiña

Etxe ederra, Jauregi bikaina, «Ertetze» baserria... kanpotik beintzat. Barruan ordea, denboraren makiñak —erio-tresnak— egin ditu egin, bereak.

Dena dago ankar-gora, ondatuba, puskatuta, deseginda. Eta nola gaiñera! Negar egiteko gogo ematen du. Sukaldeak, gelak —apaizaren bizi-lekuak— galdu dute antziñeko jatortasuna.

Ganbaran, or ikusten det nere «dekoraduba», apurtuta. Orain 15 urte dirala, ganbara ontan, bai ondo antzeztu zutela Gaztelu'ko «Gazte Alaiak», Kataliña Eleizegi' ren antzerki aparta, «Garbiñe».

Erdi-aroko drama illun, aztun bat. Odola, gorrotoa, atsoak, gudar bularituak, bengantzak, gezurra ta neskatxa errugabea —bai ederra benetan. Orain bezela, beti bezela. Antzoki kazkarra —dekoraduba, nola ez? Ta jendea, xelebrea:

Orain parrez eta gero ere bai. Ta azkenean, neskatxa il egiten da... beraz? Bizian ere askotan ez al da ori bera gertatzen? Bizia ere naiko antzerki...

Ganbara bakarti, illun, zikin ontan... zenbat eta zenbat erriñ ta gogoramen! Joanak-joan, ta betiko gaiñera! Zertarako ne-

Martín 74. GARZELU zuletik iturra



gar egin? Kanpoan, mendi aldean, arratse apala iltzen dijoa, pixkanaka-pixkanaka... gu bezela, bazter guziak urdiñ ta berdez tintatuaz...

Amabost urte igaro al dira, alageiago? Ain gauza arrigarriak gertatu dira... arrigarriak eta bildurgarriak! Bai, Denboraren Makiñak dena ondutzen du, errukirik gabe... Gizona, baserria, oiturak, Pakea... Maitasuna.

Ez betiko, noski! Bizia berriz sortzen da... ez berdiña. Gaur ondo, biar gaizki, etzi ola-ola... kezka ta itxaropenez bete... parrez eta negarrez ornitua...

Bai, lauki polita egin du Manolo Ugarte'k... nere pinturakin.

Ezer gabe etorri da-ta... Arotzaren etxan txotxa gerren! Lauki fiña, apala, sakona. Zelaiak, baserria, mendia.

Berde asko, itxaropen. Ba ote? Eleizaren babesean ain gauda ondo! Ta alde egin bear... Baiña nora?

Bai, ola de BIZIA... gaur uts, biar ondore on... etzi errugabe edo errudun, amodio edo gorroto...

Dn. Lukas'ek sortu zuan antzerki talde bikaina, nola aztu? Egiten dana, or gelditzen da!

MATXIN

Husein'en gogo aurka, Arafat'i emon nai izan dautse palestinarren arazo guztia beste arabitar agintariak. Orain auziak! Libia ta Irak'eko nagusirik ez da agertu, beko ordezkariak baiño.

SOIN ALDAKETAK

Kromosomak zertzuk diran jakin bear aurretik. Izaki guztiak daroaguzan orratzi txiki antzeko zerbaitzuk (AGUR, 32'gn zenbakia, 8'gn orrialdea). Oneik dira gure soifiko, azur, kirio, okela ta zaiñen egilleak, mezulariak. Bata edo beste aldatu ezker, ez da izakia ondo aziko: bosten lekuan sei atzamar, belarrik ez, edo txarragoak. Orain, jakiturak, aldatu al izan dautsez izaki txiki-eteriko batzueri; bakterita ta mikrobi tartean. Baiña ez dakie zein ondoren lortuko daben aldaketa bakoitzean, onerakoa ala txarrerako. Benetan bildurtuta, amerikar jakintsu batek, bere azterketa gelditu, ta orain arte lortuko ikasiak eskutatzea erabagi dau. Bildur da, biru edo bakterita gaizkilleren bat sortu ta gizadiak orri aurre egiteko indarrik izan ez eta gizasemeak betiko galduko ete-diran.

ONA TXARTU

Eguzki aita ona, gure biziaren euskarri, izugarrizko etsai biurtu leikegu. Boise'tik esan euskuen joan zan udan: O₃ ozono ori galitzen doala, goi-goiko egazkiñak erreta. Orain ostera, onebeste igarri dabe; uleak apaintzeko, edo pizti iltzailleak zabaltzeko edo beste gauza askotarako erabilten diran «spray» orreitako laspel edo gasak, neurri barrik aizean zabaltzen dagigun orrek, ozono ori puskatu ta oxijeno izatera biurtzen ei dau, neurri aundian. Ortik, eguzkiaren indarrak gure narruan min-bizia sortzeko arrisku izugarria.

ODOL BULTZADA

Aundia danean, tensiñoa gora joan dala esaten dogu. Ori burrukatzeko «Reserpina»

ori erabilten da. Geinetan ona da, baiña ikasi da ez dala aibesteetan berrogetamar urtetik gorako emakumeentzat, jario-geldipen ondorengoentzat. Ez da bildurtzekoa be, zerbait oso gitxi, bularreko minbizia sortu legike emakume orreitan, baiña tabakoak gizasemeen birikietan baiño asko gitxiago. Baiña au da, arritu dituana. Emakume orrei bai, ta ezer ez beste emakume gazte ta edozelako gizoneri.

NEKATU ALA ASPERTU

Gaur bertan diñoenez Londo'en, Wilson'ek bere alderdiko buru izatea urtebete barru utzioko ei-dau. Nekatuta ta bere emazteak eskatzen dautsalako. Callaghan, erbeste ardura daroan batzarkidea izango ei-da urrengo buruzagia. Auteskudeen aurretik norbaitek esan ei-eban: «Ez dakit nork irabaziko daben, baiña bai, irabazten dabenak laster damutuko dirala, darabilgun giro onek eraginda».

ARDAOA

Ez ei da ardao txarrik, ona ta ohea baiño. Baiña, gaur nork igarri ardoari matsak ezer ikusirik ete-daukan bere egitean! Borden, amazortzi ardaogille epaietara daroaz, eurak dagien ardao orrek matsetik zerbait ba'dau be, beste kimi kutsuzko nastaketa asko be bai, gradu geiago emon eta garestiago saltzeko. Mozkor oitorea sortuko ez daben zerbait ipiñiko ba'leuskioe beintzat!

ALEMANI

Sartaldekoan, eta bertako Babiera ta Hessen lurraldeetan, auteskudeak izan ditue Urrillaren 27'gnean. Babiera'n kristau sozialak % 5'a irabazita, geienak dira, danera % 61,6 autarki lortu dabezala. Hessen'en be % 7,4'ko gorakadea egin dabe, baiña naizta besteak zerbait galdu, sozial demokrata ta liberalen alkartzea garaille jarraitzen dau % 51,1'ekin.

DANOK

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK
OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK



ZAZPI-KALEAK

CASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIQUEAK

ERRIA

BARRIA

Arratia

Aspalditxo onetan ba-doguz ospe ta entzutez zabal egin diran izenak. Abeslaritzan, «Oartzunak»; bakarka, Gontzal Mendibil eta Ander Gorospe (Zeanuri ta Iurre). Alboka ta narruzkin soinueta, Leon-Maurizia bikotea (Arteaga), eta gure oiturazko dantza azkatatua, Bilbao Zautua, Garakoi'ko nebarrebak (Iurre).

Elizearen barrutian, Zeberio'ko seme Etxebarria gotzain jauna. Idazlarien landan, Irrintzi gaztearen luma kezkatu zolia (Iurre) ta Astondoa morroskoa (Zeanuri); eta indartzetan Yurrebaso (Dima).

Txalak azi ta loditzen, J. Burgoa; bertso-burbullezko esaretan, P. L. Esparta (Iurre'koak), eta soka-tiran, Maxima ta Juli (Arantzazu). Leorpeko tomate-barazketan, Ugarte'ko Karmen Madariaga (Arteaga).

Gau beranduan, otz-otzoko azkonar-jaiak antolatzen, Arantzazu'ko Zalbidearrak, eta makailau-saltsak egiten, Iturralde'ko Astondoa ta bere taldea (Zeanuri barriz). Mendian tipi-tapa ibiltzen, Lemoa'ko itsua, Arrese.

Euskal-izate jator eta langintza zarren gordeleku, Zeanuri. Talo ta morokil guira aña jan eta sabela osatzeko, Olabari'ko errota uruna (Zeanuri). Eta artzainora edo arditxakurretan, Zeanuri'ko J. Etxebarria'ren txakurra, Mastin.

Ez gatzik eta ez piperrik izaten ez daben jai epelak antolatzen, Iurre ta Arteaga'ko Batzordeak. Oraintzitik oraintzera, bat-batean, perretxikoak izen aundia eskuratu dauan bat be ba-dago, batzuek osagille billa, bestetarik abadeari deika eta ondasuntsuak legegizonaren premiñan egozala-ta, dardarka ta bideak betean auzokideak jarri zituana: Artetxe Eleizabete'koa (Arteaga).

Emen ba, umetatik perretxikoxale itsua dan batek, Artetxe'ri: «Garbitu eta legortu. Esne gordinean ondo beratu, atera, berakatz atalak txiki zeetu ta nastu, eta barru legortuko diranean Sartaineyatu. Jan aurretik eta ostean, ordu biren buruan, ez urik edan, eta urdaillean eio eta berregosi daitezkan, katu-narrua goitik bera amorruez estutu». Jakin garri oneik egin geroztik, ez ei-dago fozoi eta lupudun perretxikorik!

* * *

«Batuen» zale baten irakatsietatik ikasia: «Txakur 'au', gizon 'au' ta abar esan bearrean: txakur «haur», gizon «haur» esaten ikasi bearko ei-dogu. Bearko ala ez bearko, gizonetako a ez egoan bere senean gaizki ta txarto. Salgai dagon idaztiño batek be, azalean, onela diño: «Zer da haur?» «Etxea da haur!»

LANDAJUELA'TAR A.

Galdakano

BI ZIZA-ASTEIA

«Peña Santa Cruz» jolas bazkunekoak, sarri esan dogunez, ziza-jakintza aurreatuaz, azalkuntza-leyaketa bikaiñak, ziza-sukalkintzak eta jakintza zabala aukeratu dauskuez aurten be.

Aurreko igandean, lenago esan genduz, Urrillaren 2'ganean, garaipen andia izan eban ziza-sukalkintza arek. Gero, aste barruan, Ziza edo Mikologi jakintzan azkarrak diran Lotina ta Zugaza jaunen itzaldi jakingarriak izan doguz. Baita arazo orretzako argazki leyaketa apaña be, ta abar. Laureunen bat mendiz zear batutako perretxikoen erakusketea egiteko ziran, baiña eguraldi euritzua gaiti k, ezin egin izan eban.

Igandean. Ori bai! Azalkuntza leyaketa ikusgarria erriko enparantzean. Euria gorgor zan, estalpeak ondo ipiñita baiña. Ogei leyaketari aurkeztu ziran, eta gainera, Bizka'ko Ikastolekoez ziza-leyaketea be ba-zalako, beste zortzi ikastolatalde. Ona emen irabazleak:



«Busti ala Legor», norek lenen jan; eztagok ba emen Ganguren'gorik ona ala txarra dan esateko!

Ikastola-tartekoak: 1.—Galdakano'ko «Zabalea» taldea, 135 koska. 2.—Portugalete'ko «Colegio San Maria», 115 koska, ta abar, zortzi taldeak bete arte. Talde guztiok izan eban euren garaikurra ta Bizka'ko Aurrezki Kutxa'k emondako agerkai dedugarria.

Andien edo guztirakoen artean: 1.—Etxarri-Aranaz'eko «Gure-Etxea» taldea, 407 motako zizakin eta 1.695 koska, Galdakano'ko Udalarren garaikurra, Bizka'ko Aurrezki Kutxa'koen agerkai dedugarria. 2.—Gazteiz'ko «Iradier» txangolari bazkuna, 393 motako perretxiko sailla ta 1.661 koska. 3.—Galdakano'ko «Ganguren» mendizale taldea, 278 motako zizatzaikin eta 1.296 koska. Eta orretara ogei taldeak, danentzat izan zan saria.

Olan ba, Bizka'ko txapeldun «Ganguren». 2.—Madina'tar Edorta. Eta, erribarruko txapeldun, «Ganguren», eta bigarren Madina bera.

Azalkuntza onenagaitik, garaikur berezia, «Ganguren»ek au be. Moltzorik onenetan lenengo saria, Somorrostro'ko Lejarza'tar Inaki'k. «Amanita» ziza motarik geyanaren saria, Etxarri-Aranaz'eko «Gure-Etxea»k. «Entoloma Lividum» motakoetan be eurok gure naparrok. Moltzorik berezieta, Orozko'ko «Ben-goetxea» taldekoak.

Aurreko igandean, sukalkintzan irabazitako sariak be, egun ontan banandu ziran. Eta irabazleak ez-eze, aurkeztu ziran guztiak izan eban euren zeozertxu, bai ziza-sukalkintzakoak, baita gaurko aurkezleriak be. Eskerrak inguruetako ta erriko landola, seguru-etxe ta salerosketak emondakoari. Ta Bizka'ko Aurrezki Kutxa'k, «Berberana» ardau biltegiak eta... zelan ez!, erriko Udalarren laguntzea. «Peña Santa Cruz» bazkunekoak, diru laguntza orreikin, galdakaotarra jaialdi polita erakutsi al izan dautse. Garaipen bat geiego erriak eta erriko bazkun langille onek.

Gure zorionak AGUR onen bitartez.

BASA-JAUN

Danetik labur

MAÑU TA URDULITZ

Urrillaren 13'ganean, Garitaonandia'tar Gutzon abade jatorra ta guztion lagun zanaren gogo alde Mezea izan gendun. Bermeotar pilloa, mañutarrak, eta bilbotar banaka batzuk, gazte eta zar, bete eban eleizea, Mañu'n.

Urrillaren 20'ganean, Urdulitz'en, bere jaioterrian, berbera jazo zan. Bai batean naiz bestean, uts aundiak ikusi genduzan. Asko ez ziran etorri, eta biotzean min emon euskun gauzak ain azkar aztu legikezala ikusteak. Utsik mingarriena, abade bere lagunena izan zan, bat bera be ez zan azaldu... nun ete-ziran?

OÑATI

Jaurlaritzako aztartzailleak, txokolate landola bateri 75 milla ta 500 milla lauerlekoko zigorrak ipiñi dautsaz, txokolate naastua egi-teagaitik.

Akeita aurtu bearko, ala, esnea oba?

BILBO

Diru-arazo ta irabazpideen egoera ez da baikorra. Berantza josten dauala Bizka'ko lan-ekintzaren mailleak, Bilbo'ko «Cámara de Comercio»koak diñokue. 1974 Dagonilleko agerbideeri begira.

ESPETXEETAN

Ogeita amazpi atzilotuak Zaragoza'n, amazortzik Basauri'n, eta beste mordozka batek an eta aruntzago, jan-uzteko oporretan izan dira, euren barruko egoera gaizkille arruntengadik ez bardiña izan dagian eskapidean. Goseak jota, batzuk, osategietara eroan bear izan dabez. Zerbait lortu dabela-ta, oporketak amaitu dira geienetan.

LANTEGIETAN

Lan-uzteak edo oporraldi gogorrak izan doguz, batez be, Bilbo onen inguruetako landoletan. Batzuek irabazpide oreak lortuteko izan dira. Beste batzuk osterara, azkatasun eta gizarte arazoak eragindakoak izan dirala siñesten dabe. Lengoa «Euskalduna», Fabrelec'en, Tacño ta Cia'n, General Eléctrica'n ta abarren, kalera urtetze ta batzartze aundiak izan dira. Ertzainak be or ibilli dira

baztarrak astintzen. Erria, bitartean, begira-begira ta zain!

TUDELA

Uri onetan jasotzeko dan «Nuklear Landola'ren aurkako ezetz andi bat jaurti dau Naparroa'ko Aldundiak. Gipuzkoa'n be, Aldundikoak, Udaletxeak eta Bazkun batzuk (Arantzadi ta), ozen eta garbi erantzun dabe. Bizkaia'n osterara, iñork ez dau tautik be esan.

ILLARGIAN

Euskalerrria'n diran egunerokoak aitatzean, danon ao-miñetan erdal-izparringiak erabiltzen dogu. «Erdal» ori geigarri dago, euskerazkorik ez dago-ta. Mundu zital onetatik urruneko zeru lilluragarri baten dabilzala, ares-tian, batek, Marte ta Jupiter eta izarretan garabiltz. Aulan, laster esan al izango dogu, emengo izparringiak ez dagozala zeruan, lurrean bere ez, «illargian» baiño.

OÑATI

Barriz be. Larogeitak Ipar-amerikar ikasle dagoz uri onetan. Ara joan ziran euskal-artzainen ondorengoak geienak. Or urtebeteko ikastaroa beteko dabe. Euskereia, gaztelerea, ta euskal-jakintzan jardungo dabe.

Talde au, Idaho'ko Boise Ikastetxe Nagusitik ei-dator, eta emengo eralgitza guztiak Ikastetxe orrek ordainduko dauz. Ameriketatik gure jakintza ikastera dotoz eta guk, ba ete daukagun be ez dakigu!

SONDIKA

Andrak be kale-jiretan, kaleak zear asarre. Ur ezagaz, andra mordotxo batek, agerpen bat egin dau erri onetan. Ogei minutu luzatu ei-zan aurkezpen ori: «Dana euria, dana ura, ta etxeetan arpegiak garbitzeko lain urik be ez».

IBAIK

Zikiñak ei-doguz. Ederto garbitu dira egon onetan! Olioia gora doiala, arrolioa goian geratu dala, zergaitik «bidoi» kadaka gure ura saldu ez? Or nunbait, urik barik, gizasemeak, abereak eta lurak egarri gorrian ei-dagoz! Merke saldu ta ara gizarteari ta geuri laguntzen.

MALLABI

Ta Mallabi ez diran toki askotan, jaialdiak edo izlariak ezin bete edo agertu. Gale-rasotzeak ugaritu jakuz Bizkaia'n, zergaitik izaten diranak ezin izaten dabe etorri, beste batzuk osterara, bai. Zein eratako «zabalkundea» asmatu bear dauskue?

ELEIZAN

Gaur, jaupa entzutean, «Zergaitik...» izenburua daben iru toloskerako orri bat emon dauskue. Bizka'ko Jaungoikoaren Erria'ren erantzun billaketa bat: Zergaitik zoaz eleizara? Zergaitik eroaten dozuz zure seme-alabak? Zergaitik emoten dozuz zure dirua?... datorren eginbidearen laburpena. Ordua be ba-da, ludi onetako arazorik garratzitsuena aztertetzeko. Or, ondo ibilli, ta ta orretan zintzoa dana, beste guztietan be zintzoa izan bearko.

ARROKERIRIK?

Gabonak laster. Txanpanik, turroirik eta piñurik erosiko ete-dozu? Oba, sendi arteko alkartasun alai eta apalean, gure Jaunaren jaiotzea ospatu. Apari ona bai, bestetan baiño ohea, ez baiña zorakeririk, diru erretzerik eta etxetik kanporakorik. Bakea lurrean gogo oneko gizoneri!

BERBERAK

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra
BILBAO - Casco Viejo
Tenderia, 15 eta 16

ANDOAIN

Geitu eta ugaritzen, anditu eta zabaltzen, goratu eta luzatzen. Orra Andoain, Donosti-tik Tolosa'rako bide erdian, Buruntza, Belabi, Belkoain eta Ondo mendien barruan eta kerizpean.

Era askotako industriren leku da gaur: Metalgintza, eungintza, plastiku, paper, elektra, konpongintza eta abar. Bere mendietako arri ederren lanketa bastertu barik.

Emendik urten eben sasoi baten Arizmendi, Atorrasagasti, Berrospe, Galarraga, Garagorri, Larramendi, Ubillotz eta ainbat abizen jator. Gaur bertako aña ezagutzen dira arrotzak.

Lengo amar urtetan % 5,09 batez beste urterto geitzen ezagutu izan da.

Adiñean aurrera gatozanontzat aldakuntza andia egin dau erri onek.

Gaur, esate baterako, ia igarri be ez da egiten nun batzen diran Oria eta Leizaran ibaiak, errekek. Eta ain zuzen be ortxe dago bikain, Andoain. Geroago inok ez daki nun doan Leizaran. Oria bai, auts eta bits, pozoi eta zikin, ba doa likin Orio erriaren gibelatik, euskaldunen itxasora.

* * *

Erri bi batzen ete ziran antxiñetan gaur Andoain lez ezagutzen dogun toki onetan?

Andoain'en sortzea dauken abizen artean, Leizaur izentatu dot. Oñaztarren jarraitzele itsuen artean famili au agertzen da, Azelain'goa, Sorabilla'n, beste aldean, ganboatarrekin agertzen zan lez. Leizaur izen orretako erria be egon zala diñoenak ba dira. Orrela, Leizaur erria gaur kaletzat daukagun alderdian egon zala eta Andoain Buruntza'ren magalean. Beste batzuen eritzi. Leizaur izango zan lenengo erria. Baiña Gipuzkoa'ko batzarretan Andoain ezagutzen da. Eta izen orregaz billatzen dira emengo ordezkariak 1397 urtean Getari'n batu ziran Batzar Nagusietan.

Orain eun urte, batzar orreitan, 30 surren eskubidez emoten eben emengoak euren erabagia.

Kalean, erri bizitzaren iru puntu billatzen doguz alkarren urrean: Erriko Etxea, Pelota tokia eta Eleiza. Ederra au, Patxi Ibero eleiz egille ospatsu eta ezagunak iruditu eta jaso. Elgoibar'koaren itxurako.

* * *

Andoain'en ezagunak diran kanta batzuk, karlisten lenengo gerrateko gertaera bat gogoratzen dabe:

Andoain'go elizan olio ugari, aisa kendu zioten karlistak beltzari, karlistak a cuchillo, an ziran kontuak, milagroak egin ditu Gurutze santuak. Dakigunez, 1837'ko Iralla'ren 14'an, Gurutze Santu egunean, alkar arteko joaldi eta indarketa gogorra egin zan.

Liberalak erri barruan egozan, eleiz inguruak be gogortuta eukezala. Karlisten iru batalloi Leizaran ibaiaren egalean gertu, beste iru Zumea auzoan eta bost konpañi Sorabilla eta Bazkardo'tik zear, Lasarte inguruetan.

Liberalak Donosti'rako bide nausia zaindu eta garbi eukitearren sartu ziran Andoain'en. Karlistak, egun orretan, errian eta eleizan sartzea lortu eben. Batetik eta bestetik ainbat eriotzak egin ziran. Ez zan errikerik egon ez zaindu. Su ematen duentzatz ez da kuartelik, didar egiten ei eben soldaduak.

126 baserri etxe erre zituen karlistak ibenguru onetan, Andoain'en sartzea lortu eben. Aurrerago, besteak, ogetamar inguru.

* * *

Andoain'en, oraindik, ba dagoz baserri etxeak. 146 famili kontatan dira baserrietan edo baserri lanetan diarduenak. Baiña gaur, errian, indar gitxi dauka baserri bizitzak.

Buruntza, Goiburu, Leizotz eta Sorabilla auzoak or dagoz, Andoain'go gaurko bizibidean erromantukuen jokabidean. Batzuk erri buruak noiz iruntsiko.

Sorabilla'ren jokaerea kontuan eukitekoa da. Sasoi baten, luzaro, erri lez ezagutu zan. Aiztondo'ko alkatetza nausian sartzen zan, Asteasu'go batean. Eta 1843'n banandu zan eta Andoain'en sartu. Ikusgarri bertako San Martin eleizea, bere atadi eta aterpe zabalarekin.

* * *

Andoain'en San Joanetan ospatzen dira erriko jaiak.

Eta Maiatzean, Kurutzeko egunez. Eta San Roketan, Buruntza'n. Eta neguko San Estebantxe, neguan ordez, Dagonilla'ren iruan Santa Luzia egunean be asko joaten dira ermita onetara, santa orrek plater baten daukazan begieci ikutu eta gero bakoitzarenak

igortziten, begiko miñak uxatzeko asmoz. Lortzen daben ala ez... Emengo esakera gogoratu: Egia ba'da, sar sakelan; guzurra ba'da, ez deilla atera.

Beste jai bat, Irailla'ko Andra Mari egunez, Sorabilla'n.

Jaietan ete dabiltz beti Andoain'en? Ba dirudi. Eta aztuta neukan, San Pedroan Kale-Txiki'ko jaiak.

Bein, Pedro Santa Cruz bertako bertsolariak, jai oneitako sermoi bat entzun ondoren, bertso paperak atara zitun. Eta bere anaia bi mila saldu. Ikus bertso bat:

Gure Aita San Pedro galileatarra, arrantzale pobrea, ez duke erreala; Jesus topo egin du kostan datorrela, eskama bat aña're txalupan etzuela. Esan zigun sareak zabaldu zitza...

Ez zan bertsolari ugaria izan andoaindar ori, baiña bai gogotsu entzuten zana.

Bertsoak sortzeko burukomin asko bear ez ba'eban be, bertsoen ondorenez euki zitun ugari. Mutilzar baten bertsoak atara ta zabaldu zitun bein. Eta ondoren gogorra. Bere etxe jaubeak, ain zuzen be, iru anai mutilzar izan. Areik eurentzako artu bertsoak. Zitaldu eta bizia garraztu eragin, etxeko lurretan artzen zituen erabagiekin. Origaitik etxea laga ta beste erri batera aldatu bearrean gertatu zan bertsolari ori.

* * *

Orain urte batzuk Bilbo'n bazkaltzen genozan, Bilbaina soziedadean. Aurrez, eguerdi inguruan, Euskaltzaindiko batzarra euki gendun. Eta antxe, bazkari eder bat asita laster, barri itzal eta negargarri bat artu gendun: Rikardo Arregi gaztea il zala, ko-txeko ez bearrez. Euskal-idazlea, euskal alfabetatzeko ekiñaldi eta gertaeren buru lez ebillan. Ain zuen be, bazkari aretan, mai-buru, on Manuel Lekuona gertatu zan, Euskaltzaindiko lendakari lez, Arregi'ren etxean bizi zana.

1969'ko Garilla'ren 10'en zan ori.

* * *

Andoain'en euskaltzale aurreratu bat jaijo zan. Garagorri baserrian jaijo eta abizen edo apellidu bardiñeko. Baiña inok ez eban ezagutu Aita Garagorri'rik. Zer gertatu ete zan, euskal literaturan ain entzutetsu dan Aita Larramendi'k bere aitaren abizenik ez erabilteko? Bere aita izan zana bigarrenez ez-kondu zalako?

Dana dala Aita Larramendi izenez ezagutu zan eta ezagutzen da. Eta orain zortzi urte, 1966 urtean Andoain'go erriak eskiñi eutsan oroitariak, au diño soil-soilik: Andoain'go erriak Aita Larramendi'ri. 1966. Goian, jakintsuaren soñekoan, «El imposible vencido». Eta gerrian, jaiotza eta eriotzako urteak: 1690-1766.

Euskeraz baiño erderaz geiago idatzi eban, baiña euskerari buruz. Zegaitik? Bere esaera batetik igarri: Nire liburuak euskeraz idatziko nituzke, sakelari beroaldi batzuk emongo ba'zeunkioz eurak atara al izateko.

Berea da lenengo Euskal gramatika, 1729'n Salamanca'n agertua. Beste liburu bat, Gipuzkoa'ko Corografia eta abar.

Larramendi ez zan bakarrik literaturari buruz ibilli. Bere sasoi aretan Gipuzkoa'n buruauzte asko ebiltzan aingura-gintzan. Eta Larramendi'k gogor jardun eban gai onetan. Baserriarren aldele kementsu be izan zan. Eta sasoi aretako gizartea nai lez erabillan oligarki baten arerrio zital be bai. Origaitik bere liburuak ez eben laguntasun egokirik artu bere sasoiaren.

* * *

Andoaindar gizon geiago billatu geinkez euskal arloan.

Gaur bizi da ta laga daigun Frantzisko Etxeberria bat.

Baiña merezi dau Orkaiztegi bat aitatutzea. 1840'n jaijo eta 1924'n il. Eta bitartean, euskal tematikan, etenbarik lanean. Abade gaitan, siñismenaren bideetan, olertian eta bertsoetan, teatroan... Erbesteko itzala be ezagutu eban Santa Cruz abade gerralariaren lagun zalako.

Merezi dau Andoain'dik pozez urtetea. Origaitik Orkaiztegi onen Euskal-Dantzak laneko azken kantua gogoratzen urten daigun:

Egiz kantatu genezake euskaldunak gerala dantzik onenen jabe...

A. ZUBIKARAI

AGVR

Apartado n.º 2 BILBAO

FRANQUEO CONCERTADO 08/55

EUSKAL LITERATURA (III)

Irakurri dot S. Onaindia'ren Euskal Literatura'ren irugarren iekia; eta, idazle aundien lanak irakurri daroadazanez, zeatz, goznartuz, eta, arkatza eskuan dodala, irakurri be. Geroago ta ederrago deritxat, ba, idazle garbal onen idazkerei. Inun direan itz eta esakerak darabiz, ibilli be, eskeintzen daukun gipuzkera osotuan. Iztegi ugaria, inok baldin ba'dau. Bardin erabili daroaz Bizkai'ko erri-alde batzuetako asage naiz Bizkai-Naparroa-Lapudi'ko urrun zein giputzen uruti. Onezkero ez dauka, euki be, ezetarik ezkuturik, idazle bikain onentzat, euskereak. Dakusgunez ondo ituinu (aprobetxau) izan ditu sermoe-giñan-da or zear ibilli izan yakun egunak, an, or eta emengo itz, esakera ta abar eskuratzeko. Ez dot uste, ba, laboratorio'ko euskerea darabillala inok esan dagikeanik.

Gipuzkoar aditzen egitamuan ederto biribiltzen daukuz, ba, euskalki guztietako itz, esakera ta edertasunak. Ez dau izaten ingerarik ez zer-esangoen ardurarik itz barriak, barriztauak, erdi galduan, zein, erdal-jatorrikoak izan-arren be, erriak aspalditik onartuak erabilteko, Eta orixe egin bere egin bear, euskerea zuzpertz ta indar-barritu daiten.

Kezka bagarik darabiz, ba, kistar zein kristau, abestu naiz kantau, deitura zein abizen eta abar. Ez doguz, aurrez, idazle langille onen negurrian gure izkuntzea erabilteko gei direanak.

Or dozu, ba, irakurle, euskera batua. Naasia esan daike norbaitek. Nastau egin bear, ba, osotzeko. Iribiau ez, gero, irakule, nastau baiño. Or zear ba-yabilkuz iribiatzaille ugari...

Eretxi bere onuragarri ta bearrezko deritxat, nik neuk, beintzat, darabillan gipuzkera osotuari. Ez dot esan gura, gero, bakoitzak bere euskalkia itxi bear dogunik. Olakorik ez!

Gipuzkoar utsakaz ibilli bagarik geixuago, bai, begiratu bear geunkioe Lapudi ta Bizkai'ko aditzeri, batasunerako. Eta, itz batzukaz zain ibilli bearra bere bai, arean: Esaterako, bizitu berbeak Bizkai'an gogo-berotu, gora-goraka jarri, adirazten dauku eta gure bizi izan'en ordeko erabili daroe, giputzak. Bizitu'ri itxi bizkaieraz dauan adirazpena ta bizi-izan erabili bear litzake, ba, bizi izatea adirazteko, euskera jatorrean. Ille bagarik ule erabili bear genduke Naparren billo adierazteko be, urtearen amabi ataletariko bakoitzaren izena adierazteko ille itxita. «Ura'ren billa joan da ura» esan edo idatzi ba'dagigu, barriz, naiz-eta bigarren ura h-az idatzi, Bizkai'ko euskalkikoentzatzat ulergaitz ezeze barreikarri bere ba-litzake. Bizkai'ko a izen-ordea erabili bear, ba, olako nasterik sortu ez daiten. Ala, ua idatzi, Orixe'k egianez? Nor eta zein berezi bearra be ba-dogu, bizkaieraz dagiguzanez. Aukerea dogunean, egokien diran itzak eta esakera artu bear, ba.

Eta, akatzik?... Erdal-aro onetako idazleen artean ez da erreza, izan, akatzik bagako lanak aurkitzea. Eta, idazle argi onek bere izan dagikez, arean, banakaren batzuk. Baiña, daitkezan akatzak, dituan lakatz ugarien artean estaltzen dira, ta, ikusgaitz egiten, «Aurratiz'en antzeko erisle zorrotzen batentzat izan ezik...»

Euskera osotu-zaleak asko ikasi geinke, ba, Onaindia Abagandik. Au zein bestea esan, euskera ugaria, ederra ta ulerterreza eskeintzen daukuz, beintzat, Euskal Literaturan onetan, gure karmeldar nekegaitzak. Edonungo euskaldunek uler dagikeen erakoa. Auxe dogu, izan bere, idazle onaren izan-izangoa: Illuntasunik eta mordoillukeirik bage, guztientzat, ulerterrez idaztea.

Arana-Goiri ta Azku'e'ren aldiaren ingurua azaltzen daukuz, batez bere, Aita Santik, oraingo iekian. Geure Erri ta izkuntzearen pizkunde-aroa, arean. Gizon gailien bi oneixek doguz, izan be, gero, gure berbizkundearen bultzalari, eragille ta benetako arnasa-emotileak: Euskal-pizkundeari dagokiozan arlo guztietan lenengoa, ta, bestea euskal-imatzean. Besteak beste, merezi dabeen lekuan jartzen ditu, ba, gizuren bi onein izenak, Euskal Literatura'ren egilleak. Izar argi bi onein inguruan ba-dira, beste asko bere, dizdira dagienak eta baita, argi gitxikoak bere. Txiki zein andi, era guztietakoak jarr izan dabe, baiña, bakoitzak aal dauantxua, euskerea zoritxarretik atera aal izateko. Inor bere ez dogu, ba, arbuigarri, gure eleder-arloan.

Naiz-eta euskereari buruz izan, erderaz utsik idatzi izan dabeenak, euskal-elerrian aitatzerik ez dabeala merezi, esango neuke. Euskal-aditzaren zustrarriak erderaz aztertzeak ez euskerearen jatorrasuna, erderaz, edoietaragiño jasoteak be ez dauku, ba, gure izkuntzea zoritxarretik aterako. Bai, zera!

Bear izan dogu gure eiertiaren oiako azalpen zeatz eta egokia, zatika ta potrilka, beti, ibilli bagarik.

Idazle argi onek ondo irabazita dauka, ba, egin dagikeogun gorazarrea. Ba-da gitxiago merezi dauanik! Euskal-aro utsezko ta umore oneko egun zoragarriarik ospatu gura ba'dozu, eldu zaitte, ba, irakurle, Kristo-egunean; ba-da, Azilla'ren 24'garrenean, Lareta'ko lekaretxera. Osasunez baldin ba'gara, an alkar ikusiko dogu. Bai, arean!

AURRE-APARAIZ

BATASUNA AITA SANTI

MAILLA BAT

Gizon guztiok geure artean anaiak garan ezkerok, alkartasunerako edo batasunerako bideak artu bear gendukez, baiña orretarako elburu bakar bat bear-ko genduke, esaterako gizadiaren ona edo giza-eskubideak betetea.

ZEIN MAILLA?

Batasuna edo alkartasuna, sarritan, beragoko maillaren baten jarri bear izaten dogu. Sendiaren ardurea artu bear dogunean, etxe-barruan bizi garanok alkartu bear-ko dogu, or izango da gure batasunaren maillea. Gure erriaren ona billatu gura ba'dogu, or jarri bear-ko dogu beste mailla bat. Bardin, Aberriaren naiz Europa'ren batasuna ta alkartasuna bear-ko dira, onein arazoak zuzendu gura doguzanean.

Batasuna egin bear dogula esaten dogunean ba, zein maillatan egin bear dogun ez dogu aitzu bear-ko.

ELBURU BAT

Alkartzen diranak, batasuna egin bear dabenak, elburu bat jarri bear-ko dabe lenengo, eta elburu orrek esango dasku nortzuk alkartu eta zeintzuk ezin alkartu izango garan. Langilledia aurreratu, aberriari nortasuna emon edo jakintza zabaldu, ba'dira elburuak, bazkideak guztiok ezin izango gara.

NORTZUKAZ?

Mailleak eta elburuak eskatzen eta agertzen dabe nortzuk alkartu, eta eskari ta agerpen ori kontuan izan bear-ko doguz. Orrelan izan ezik, gero sortuko diran goraberak eta ezdabaidak, garritzak izango dira.

Jakintza zabaldu gura dogunean, ez da naikoa izango gure sendia, eta Aberriaren arazoak aztertze-ko ordua danean, gure batasuna ez da izango arerioak, Aberriko semeakaz baiña. Ba leiteke iñoz arerioakaz be alkartasun bat egin bearra izatea, baiña baldintza argiak eta ziurrak jarri bear-ko dira. Bestela geure lankideak izango dira aurrera egitea galarazoko daskuenak.

TALDE-ARTEAN

Taldeko batasuna ondoen eratu arren be, beti izango dira ezdabaidak.

Alkar ulertu eziñak errez sortzen dira, batez be taldeak euren elburutik urtetan ba'dira. Esaterako, erlejiñoi-ikuspegi estu bat, aberri-arazoari erantzuteko kaltegarri izan leiteke edo ekonomi utsa begiratzen dauanak Aberria azpiratu legike edo aberri ezbaridiñak alkartzeak, gizonen artean gorrotoa sorrerazko legike.

BATASUNA BAI

Ezin ukatu gaur batasunerako jokera berezi bat agiri dala, gure egunak be ori eskatzen dabe ta. Baiña geure maillea ta geure elburua ez dagiguzan aitzu. Gero, goragoko maila batzutan, beste batzuk alkartu ta batu geintez, nor garan, zer garan eta zer bear dogun aitzu barik. Ez ete gara orain artean iñoz atzipetuak izan? Ez dagiguzan kondairearen irakatsiak aitzu. Pentzau dagigun zeren billa gabiltzan eta ortik aterako dogu nortzukaz alkartu geintezkan.

Iribarrez.

Noiz egoten da umore txarrez Aita Santi?

Ez dirudi zaartzen danik. Amoroto'ko esneak osasuntsu dira. 65 urte ete daukaz beraz?

Gerra aurrean idazten asi zanean lakoxe gaztetasunez igarten da gaur be.

Ez dakit prioretza gustaten yakon ala ez. Ori prailleak dakie. Ni laikoa naz.

Ez dakit prailleak ekipoko lanik maite daben be. Gaurko giroan ongarririk litzake. Euskal lanetan lez. Baiña, zoritxarrez, euskal lanetan iñok ez dau ekipuan lanik egin nai.


Euskal arnasa darabil Aita Santi'k.

Siñistu be ezin lei bere makiña txiki zarretik ainbeste lan atara leikenik. Baiña lanak agirian dagoz. Or dabil bera lanean. Batzutan bere kaskarrez edo bere jakituriz, bestetan liburuak erabiltzeko jakiñez, liburu eta aldizkari zarrak irakurten eta komeni dana barriztatzen.

Larrea'ko gelan, mai gaiñean, paperak eta paperak. Irakurteko denpora barik gain-gaiñetik aztertu iñoz, garrantzia dabenari usaiña artu arte. Bereak eta iñorenak.

Zenbat idazle ixil edo erdi aztuak bizi-barritu daskuzan Aita Santi'k! Betiko amatau bear ziran neke ta lanak, agirian barriz. Idazle apalekin bat eginda, eskutik oratuta, jakingarriak barriztatzen.

—Aita Santi. Zer da zure birtute?



—Jaunak emondakoari erantzuteagaz ez nago damutute.

—Eta zure pekatu?

—Ez cidazu kontzientzirik zirikatu.

—Noiz asten zara lanean?

—Azpaldi asi nitzan. Orain jarraitu egiten dot.

—Eta laga?

—Eriotzeagaz batean, Jaunaren borondatean.

—Zenbat ordu daukaz zuretzat egunak lanerako?

—Daukazanak eta bat falta.

—Noiz beste liburu bat?

—Nire makiña zarrak nai dabenean.

—Liburuekin irabazten da?

—Konbentuko potajerik ez da ordaintzen liburuekaz.

—Benetan, zure lanagaz pozik?

—Niretzat euskal literatura etengabeko egarria da.

Ezin ase.

—Buruasterik?

—Zer da nire lana buruaustea besterik?

—Literaturan, laster, biziakaz, bizi-diranekaz asiko zara. Zer daukazu geiago, lorak ala arantzak?

—Iñoz arantzak ez dira akulu makalak izaten esnatu eragiteko.

—Zer deritxazu gaurko idazleiei?

—Praille kontseju bat nai? Pazientzi pixkat artu egizu, ta Literatura IV'a agertzen danean, erosi, irakurri ta eritxirik ez ukatu.


Parkatu. Ez cidazu aririk galdu eragin.

—Fitxarik zailena?

—Aita Santirena.

—Ondarru'n esaten dana: Siñistu kredoa!

Iribarrezka agurtu gara. Aita Santi'k lanaren astuntasunari be irri egiten daki.



IKASTOLEN TXOKOA

UMEEN EZIKETEA

Umearen eziketeak, len orain eta gero, iru oiñarri izan eta izango ditu: sendia, ikastolea ta inguruko gizarte-giroa. Onerako edo txarrerako, irukote ortatik datorkiozan irakaskintzekin biribildu ta osotuko dira umearen adimena ta nortasuna.

Nun dagon indar geiago? Ez da beti bardin izaten eta erantzun ezinekoa dala uste dogu. Abididez, etxeko giro onean azi ta ezi arren, eskolako edo inguruko kaltegarri izan ezker, ankazgora joan leiteke sendi arteko alegin on guztia. Ez ete doguz ba ezagutzen, or gurasorik onenengadik sortzen diran pello-kirtenak?

Txikitatik gertatu bear doguz umeak munduko lorriñari aurea emoten jakin dagien, ta biderik onena eziketa on bat emotea da.

Zelan? Sendiko giroagaz batera, beste oiñarri biak ondo aukeratuta. Batak naiz besteak pot egin erren lotudia, ikastolea

tekin batera erakutsi bear jakoz umeari norbere siñesmenak egitzat daukazenak.

Ez da egia ta bai maltzurkeri okerra, amalau-amabost urteraiño berez ikasi leikezan gauzak bakarrik ikasi bear ditula, esatea. Gizarte arazoetan, umearen eguneroko arazo txikitian, kristau ikuspen aurrerakoi batetik zear landu bear dogu umearen adimena.

Alperrikoa izan leike —ez beti bear ba'da— etxean kristau giro baten aztea, ikastolan oztasuna, humanismo utsa, kaltegarriariorik ez danean, ikusten ba'ditu. Ez da, ez, antxiñako otoi-otsean, naitazeko mezak entzun bearra ta abar, gaurko kristau-eziketeak eskatzen dauana, naita areik be, neurritz, onak izan.

Gure benaunaldian, uts aundiak izan ditugu, azaleko eziketea izan gendulako, bear ba'da. Ez dago gaurko ondoren negargarria ikuste baiño.

Orregaitik, Ikastetxe-nagusietara doan-rako, bere buruaren jaube egin bear dogu gure gaztea. Bilbo'ko ikastetxe baten dagoan irakasle ezagun-ezagun batek diñoanez, iru illebete bakarrik bear ei ditu gazte bat siñesmen barik izteko, señismena galdu erazteko. Euskalzalea izan ba'litz jaurtiko ei eben, baiña «erdibitu ta irabaziko dozu», esan ei eban norbaitek.

Naizta urrengoan luzeago ikutu zorioneko sexu-ezibidea be, makiña bat buru-auste emoten dautse norbaizueri. Ez dakigu kezka ori beti-beti zuzenega dan ala ez. Lenagoko tentelkeritik gaur batzuk eskatzen daben sexu-askatasunera, bide luzea ta okerra dago, gaztedia loakartzeko kapitalismoak be ondo ezagutzen daben bidea. Baiña giza-gogoaren almenak biguntzeko —eurak atziperetako laterrietan galerazo arren— komunismoak be zabaltzen daben bidea da. Elburuak ezbar-diñak izan arren margoz, jokabide bardiñetik jatorkuz indar bi orreik.

Zelako izkuntzea irakatsi bear dan, irugarren itzillua dogu. Ez goaz emen sakontzera, luzeegi joan ez gaitzezan.

Idazlan onen esan-naia auxe izan da: Gure umeen eziketeagaz, geu, gurasook arduratu bear garala. Ez da naikoa toki er-rerra bialtzea, al danik denpora luzeenean umeak anka artetik kentzea, illerokoa al danik gitxien ordaintzea, ez. Gurasook, nagikeri barik, ikastolako giroa aztertu, obetzen lagundu ta okertzen ba'loia, ainbat ariñen zuzentzen alegindu bear gara.

Besteen iritziak errespetatzeak, ez du gurea bazterteza eskatzen. Pozik erantzungo genduke, txoko onetatik, iñork zeartasun aundiagoak jakin nai ba'leukez.

ARENAZA'TAR JOSU

NOLA!

Tamalez, gurean ez genkian iñok euskera, emengoak izan arren. Norbaitek jakin bagendu! Alan izan balitz, etxean guztiok euskeldun izango gintzazan.

Gurean jazoten dana, sendi askotan jazoten da. Bai tamalgarria! Euskera maitea il-zorian dago-ta. Zelan osatu gure izkuntza zarra? Baiña urteak joan, urteak etorri, gure aitita zar eta onak euskera ikasi dau. Pozgarria benetan gure sendiarentzat eta Euskalerriko sendi guztientzat! Pozgarria, bai!

Orain, gure aitona, gure kutuna ta eredia izango da ta berari jarraituko dautsugu; ta bera euskaldun-barri bada, geu be bere kutunok euskaldun barri izango gara.

Neba-arrebarik zarrena naz ni. Ez ain zarra. Amar urte dodaz-eta. Nik zerbait ikasi dot, lenengoa nazalako ta idazle izan nai neuke. Nire neba-arrebak, ikasiko dabe. Nire lengusu-lengusiñak, bardin. Danok, euskaldunbarri izango gara.

Eskerrikasko gure ereduari, aitita zar orri, biotzez. Zure illoba guztien izenean, mosu asko bialtzen dautsugu.

GARBINE, 10 urte



KANPEZU'KO ERRIARI

Toki ederra bai dala auxe, ixilla ta menditsua.

Leku ontantxe gagozelako gure zoriontsuak.

Emengo eguzki ta landa aundiak, eder eta zoragarriak, ez neban uste egon ziranik gure Euskalerrri guztian, ikaratuta gelditzen naiz ni emengo edertasunian.

Agur Kanpezu, ikusi arte, ba goaz emendik etxera. Gure Jainkoak gura nai badu barriz ikusiko gera. Emengo eguzki dizdiratsua ezin ikusiko degu, orregaitikan biotz-biotzez agur esaten dautsugu, emen alai egon naizelako agur Kanpezu, agur, agur.

ARISTONDO'TAR IÑAKI 10 urte. Begoñazpi'ko Ikastolan.



umearen eziketea. Orregaitik, aukeratzen jakin bear, umea landara biguna dan bitartean beintzat: ikastokia ta lagunartea.

Gure erriarren artean zalantzan dagozan eziketa-gai garrantzitsuenak iru dira: erlijioari, sexu-ezibideari ta euskera bereziari buruzkoak.

Erljioari buruz, ba-dabilta or zear teori barragarriak, maltzurak ez esatearren. Erljio gaiak sendirako ta eleiz batzarretarako itxi bear dirala diñoenak, oker dagoz. «Okerrak» ez ba'dira beintzat. Beste edozelako ikaske-

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, bereki, politiko naiz ondasungarri asmoen gaiñetik daben iritxi-oneko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egilleak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskaintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M.^a MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Carretera a Galdácano, 32-Bilbao-4

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guttirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep.Legal: BI. 879-1966

IDAZLEERI GARREZ

Gure egiturea barrizatzean, bigarren orrialde au euskerea ardatzat daukeen gaiak erabilteko geratuko da. Beraz, izkuntzalarien lanak, euskereari buruzko eztabaidak, alkar-izketak, aldizkariaren gora-berak, ikastoletako barri ta arazoak, noizin bein aurren lanak eta abar eta abar, emen agertuko dira.

Orrialde au, gatz eta piper bakoa izaterik ez genduke nai. Emen gagoz ba, zuen idaz-lanen zain.

ARDURADUNA

JAKINTZA ARLOA

EDESTI-AURREA

I.—ZER DAN

Kondaira aurea aztertzen daben jakintzeari «preistoria» izena emoten dautsagu. Preistoriaren lana, idazkuntza sortu aurretiko leen gizartearen agerpenak ezagutzeko da, batez bere.

Naiz eta antxiñako gaiak izan, preistoria jakintza bezela erabiltea, oso beranduko elburua da.

Boucher de Perthes (1788-1868) dogu jakintza-ikasketa onen sortzailea.

Bera izan zan 1863'gn urtean, leengizaki baten matrail-azur bat, Moulin Quignon'go arrobian, aurkitu ebana.

Boucher de Perthes'en aurretik, Dinamarca'ko arkeologo batzuek, iru sailletan


danak ikasbide eta teknika bardin samarrak erabiltzen dabez.

AZTERKETA BIDEAK:

ARKEOLOGIA.—(Gr. archaios = zaar, arche = asiera + logos = itza). Antxiñako gizakien istoria, areik itxi dauskuezan oroit-arri (monumento), erti-lan (trabajos de arte), lanabes eta gaiñerako idatzi bako kondarren bitartez aztertu ta ikasten dabena da arkeologia.

Preistolariak orain artean, euren lanetarako erabili dabezantetik biderik nagusiena izan da arkeologia. Ez daigun baiña uste izan arkeologi au preistorian bakarrik erabilia izan danik. Zenbait istori lanetarako be, naitaezko laguntzea da.

Alan be, kondairea ta preistoria gauza batek banantzen ditu: istoriak, arkeologiaren



banantzen asi ziran arkeologi kondarrak: Arrizko lanabesak; burdiñorizkoak; eta burdiñazkoak. Gero, Paleolitos (Gr. palaios = antxiñako + litos = arria, aitz) eta Neolitos (Gr. Neos = barri) aroetan bereiztu ziran: Arri zaarraren aroa (koskaz landutako arriarena) eta Arri barriarena (leundutako arriarena); gizasemcak egiten zituen arri-lanabesak bereizten. Geroago, Paleolitos eta Neolitos aroen bitartean, beste aro bat bereiztu dabe preistorilariak: Mesolitos (Gr. mesos = erdi) garaia; landara ta abere batzuk lençgoz ezitzen asi ziran aroa.

Baiña preistoriaren alorrean eretxi ta eskola ezbardin asko dagoz, naita danak danetik zerbait egin: Frantzia'n tipologi aldetik jarraitzen dabe. Rusia'n, preistoriako gizartearen soziologia aztertzen ostera. Alan da guztiz ere, preistoriko lanak egiterakoan,

eta idatzitako agirien argitasunez egin leike lan; preistoriak ez dau idatzitako ezer erabiltzen, ezin dabe, orduan ez zalako oindiñok idazten ikasi.

Orain arte, uste gabeen lortuak izan dira preistori aurkikunderik nagusienak. Altxerri'n arria bear zala-ta, dinamita zama batzuk lertu ta agertu eben Leiza-zuloa.

Gaur, aurkikuntza geienak ez dira uste-gabeak, lan aundia ta tekniku batzuen azterketaren ondorenak baiño. Orregaitik, preistori-gune edo obiak aurkitu ta aztertzeko erabiltzen diran teknikak eta erak zelakoak diran jakitea bidezkoa da. (Jarraitze-ko).

ARRATI'KO IKASLE TALDE BATEK



eziketa jostailuak
eskulanetarakoak
irakasketa gaiak

IKIRIKI

gregorio de la revilla, 1
bilbao - 11

Jolasean ikasi, or zure aurrentzako emoitzarik onena

GALDERAK

- 1.—Zergaitik ainbeste Nuklear Landola Euskalerra'n?
- 2.—Landola orreik jartzekotan, agertu ete dabez daukezan arrisku guztiak?
- 3.—Zergaitik ez dabez Bizkai'n egin Gipuzkoa'n aiñako azterketak?
- 4.—Ez ete leuke Aldundiak geiago arduratu bear, ala naikoa egin ete dau?
- 5.—Orain, gaia aldatuta. Ez dozu uste gure izkuntzeari garrantzi aundiago emon bear leuskioela, gaur emoten jakona baiño?
- 6.—Ba-dakizu, euskera eskualde izkuntza lez (lengua regional) onartua dagoela?
- 7.—Ori jakinda, zergaitik eskola ta instututoetan ez jake euskera geiago ipinten euskaldun ikasleeri?
- 8.—Zergaitik dagoz erdeldun maixuak euskaldun umeeri irakasten?
- 9.—Ez dozu uste, euskal irakasleak euskal umeen sikologia obeto ezagutzen dabela?
- 10.—Txikitatik euskeraz egiten daben umeeri, bat batean erdere jartzea, ez ete da euren izakeran trauma bat sortzea?

Galdera oneri erantzun bat emotea nai ba'dautsezu, pozik artuko gendukez zure lanak, bialdu egizuz zuzenbide onetara: AGUR, Apartado, 2: Bilbao.

TXALAPARTA

GOGORKERIA?

Gaur egunean, gizon askoren artean, eretxi ezbarriñeko gaiegaitik, eztabaida gogorrak izaten dira, ta gazteak aspertuta alkar-izketarako bideak apurtu egiten dabez. Sarritan be, zarrak izaten dira errudun, ez dabezelako alkar-izketa orretarako bide argi batzuk ipintzen. Orregaitik, gazteak ezin izaten dabe itxaron, eta askok eta askok, bide gogorrera jotzen dabe: Gogorkeri bidera.

Bide onegaz, apurtu, aldatu ta zaitu egiten da. Iraultza da. Baiña ez dogu ikusten, iraultza bat egiteko, eragille aundi bat daukagula gizonak, au da, kulturea.

Nortasuna, erriaren jakintzea ta aberastasuna, orreik dira landu ta indartu bera diran bideak.

Bide au, luzea ta latza izaten da, eskeintza osoa eskatzen dau, denpora laburrean ezin leitekena egin. Aldaketa naia ta itxaropen bat bear daben bidea.

Jazo leiteke, erri baten egoerea erreza ez izatea, eskubideak eta aberastasunak zapaltzen direlako. Orduan aztertu egin bearko litzake, eta ondurarte erabili dan bidea ta sortu dan egoerea ikusita, bide orretatik



jarraitu ala beste gogorragoren bat artu bear dan erabagi.

Ba-dakigu, gogorkeritik letorken elburuak arriskua, etorkizunari begira, daukala. Baiña eskubideak zapaltzen diranean eta jausita dagozanen protesta-deadarrak entzuteko bideak ez ba'dagoz zabalik... Zer egin bear da?

IRRINTZI'k



Landola tresnak - Galtzairu neurri zeatzeak
Langailu guzietarikoak - Leunketa gaiak

Ibarrekurutz kalea 14

71-10-00 Urrutz.

Apartado 18

E I B A R

AMA JARLEKUAN EXERI ZAN

EUSKEREA DALA-TA

Ba'zan andra bat, sei semeren jaube.
Basetxe baten bizi ziran. Mutikotxoan aitak, urruti joan bear izaten eban lanera.

Orregaitik, amak zaindu bear izaten ebazan umeok eta orrez ganera, lan oneik egin: Umeok loituten ebezan zolairuak igurtzi.

Lo-egiten eben ogeak aldatu.

Bizi ziran etxea astindu.

Oloeri jaten emon; tomate, lusagar eta perejillarekin arduratu.

Eurak euren egiteko gai ez ziran seme txikienei mosua garbitu ta jantzi. Orrez ganera, gabero idatzi oi eutsen bere semeen aita zanari. Kurtzulo baten argiagaz idatzi be, tximist-argirik ez eukoen-eta.

Egun batez, sukaldean batu ebazan umeok, ain zuzen be, egunero gozald, bazkaldu ta afaldu oi eben lekuan, esanaz:

—Maiteok; aundi egin zarien ezker, dan-danok joaten zarie ikastolara, baiña lagundu egin bearko daustazue, etxe ta baratzeko lanetan.

—Ene bada; amatxo! —erantzun eutsen sei mutikuok, izekaz eta barre-algaraz—.

Urrango egunean, basetxeko atadian, ama jarleku baten exeri zan, eta ez zan igitu bertatik, ezetarako be. Umeok berandu eldu ziran ikastolara, ta jakiña, andereñoak asarre egin eutsen.

Eguerdiaren, umeok etxeratu ziranean, ama, bere jarlekuan exerita egoan, ogibitarteko bat janaz, geldi!

—Aaama!! Baazkaria!? —galdetu eutsen semetxuok—.

Baiña amak, ez eutsen jaramonik egin eta al zan lez atondu bearra izan eben mutikuok, baratzeko tomate gordiñak janaz... arazan txokolatea arrapatuaz... tarraz-narraz.

Ala ta be, barrerik asko egin eben ganora barik. Eta lotarako ordua eldu yakenean be, ganora barik lotaratu bear, ogeak astindu barik egozalako. Gau artan amari, negarmalkotxoren batek urten eutsola uste dot.

Andik egun bira, mosu ta belarri zikiñekaz agertzen ziran; orraztu bageko ule igarragaz eta egosi bageko janariekaz sortutako tripako miñekaz.

OARRA:

Agur Mirentxu. AGUR'ek agur egiten alako ipuintxoak, polito egiten dozu-ta.

Ikastolako beste mutiko guztiak barre ta izeka egiten eutsen euren mosu zikiñei. Eta lotsaturik, Aitor, mutiko nausiak esan eutsen bere anaixoeri:

—Oba izango dogu amatxorengana joan eta berarekin bakeak egitea.

Alan pentsaturik, bata-bestearen atzean joan ziran, ama basetxe aurrean exerita egoan jarlekuraño.

Unai'k esan eutsan:

—Amatxo; laguntzera gatoz.



Amatxo zutitu zan jarlekutik esanaz:

—Unai, zure lana auxe izango da: Ollotokia garbitu ta oloeri jaten emon, ikastolara joan aurretik.

Zuk, Yosu —esan eutsen oni—; anai txikienean ardurea izango dozu, argi ta garbi egon daitezkan, ikastolarako urten baiño len.

Iker'eri esan eutsan: Zuk, pendizekan dagozan lora-mota guztiak ureztu edo bustiko dozuz.

Boskarrenari, Kepatxu'ri: Zuk, loituta dagozan oski guztiak batu ta sukaldeko atondoan lagako daustazuz, garbitu dagidazan.

Eta seigarrenari, Martin eban izena; oni auxe esan eutsan: Lotaratu baiño len, danok alkartuko zarie Goiko Jaunari otoitza egiteko. Otoitz au izango da, zeuen gurasoen alde, aitita-amumaren alde, eta zeuen alde.

Gau artan amak, kurtzuluaren argipean, idazki alai egin eutsan, ain urruti bizi zan aitaxuri.

MIREN ELORZA

ZORRAK

Lengo oiturei ezer zor ete jake? Len, aurrekoen egitei, asko begiratzen jaken, gaur oster lengo jokabideak norberarentzat ondo datozenean aintzat artzen dira. Gure asabeen jokabidea ta areen ondorengo tegi batena ez da bardiña. Bitzuok dabe baiña oiturekin zer ikusia. Nork ikusi, artu ta zaintzen dituan, berez zor jaken eran, ikusi al izatea, gauza ederra litzake. Gatz piskat bear da orretarako, ta norberekeriak alde batera istea ere bai. Norberekeriak ba, argia kendu ta askatasuna il egiten ditu. Ta bide ortatik iñora ez goaz.

Orain bosteun nai larogei urte gizon adoretuak ba-ziran. Aldi aretan ere gizonak jakituria erabillen euren arazoetan. Batzuk on egiten saiatzen ziran, beste batzuk lapurretan be bai. Onerakoak nai txarrerakoak, zuurtasuna batzuk ta zurkeria bes-

teak erabillen, bizitzako gora-berak konpondu ta aurrera eroakeran. Burua, iñoz, ezin itzi alde batera. Buruak argitasuna damosku, ta argi barik oinkada aundirik ezin emon dogu illunean. Or dago ba, gure bizitzako sustrai on bat.

Bigarren, gizonak zentzuna ere bear dau. Zentzun bako buru aundizat artzen da. Ta izan ere, alantxe ikusten dira bideetan zear, takian-takian, begirada kaxkarra ta ibillera ganora gabetan. Gizonaren zentzuna bizitzako jakituri ardatza bezelako zerbait dala dirudi. Zentzundunari entzun egiten jake ta bere eretxia jarraigari izaten da. Bere jokabideak ziurtasun pozgarria emoten dau, ta ondoren doakioz, on egiten, bizi urratu nai daben guztiak.

Egite guztien barne-muiñetan gizonaren biotza doa. Ez dago egiterik gogo, izerdi

GAZTELU'TAR AMAIA TA UNANUE'TAR JOSEBA IÑAKPRI

AGUR'en azken alean, 154.gna, Urri-llaren 26'koan. Euskerea dala-ta, Bermeo'ko «Sukalki» Egunean.

Zuen erantzuna irakurri ta gero, gauza batzuk argitu bearrean arkitzen naiz. «Sukalki» jaiatzaz ez naiz iñola ere ezertxotan sartu. Nere idazlanean, jai ura gorago ezin ipiñi. Garbi esan neban Bermio'n aspaldiko jairik onena. Au esatean Euskal jai esan nai dot, noski.

Nere asarrea, izkutzaren utsari begiratuaz izan zan. Nik lez, an egon ziranak be, paper bat eskuetan ikusi eben. Buruz nola esan ba, larogei sari luze, nork emondakoak ziran? Benetan buru azkarrekoak zarie... ta irakurri edo paperari begiratu ondoren, onela esaten zunden: «Au oparije emon dau ola ta olakok!». Gaztelatik zuzen itzulita: «Este regalo ha dado tal y tal». Nun dago emen joskerea? Zazpi probintzietako joskerea ez al da bardiña?

Mindu zarie bai, ez euskereagaitik —au da benetan mingarria— zuen buruagaitik baiño. Orregaitik, Joseba Iñaki, batari ta besteari itauntzen ibilli ziñan, nork idatzi eban jakiteko azmos. Nork idatzi eban errian jakin arren, ala ta guztiz be, erantzunik emon ez eutzuenean, or joan ziñan AGUR'eko batzordera ia nork idatzi eban galdetzera. Ustez zure jokabide garbiari begira, ni nintzala esan eutzuen, eta zure erantzun gogorra auxe izan zan: «Ondo dago, artuko dau erantzuna». Baiña nori, idazlanari ala neri?

Nigaz sartu zarie, ta ezin dot amaitu gauza batzuk esan barik. «Gipuzkoeraz egiten dotela». Andereño izateko jardunak Donosti'ko Lizeoan egin nebazan. Gero, donostiar bategaz ezkondu nintzan, zelan nai

dozu berba egitea. Ez al da Euskera, ala pekatu ete da?

«Beste arazo batzuk agertu gurean nabilela euskerearen bidez? Arren, Joseba Iñaki eta Amaya, arazo ontan emon dozen erantzunagaitik, ez al zagoze alde batera bazartuta? Arlo ontan isildu bear asko dagola nik uste.

«Asko poztutzen zariela bizkaieraz idatzi dotelako», esaten daustazue. Nik ezetz uste dot; uts bat egin dot emen. Ez naiz zu lez Amaia «Batua Alfabetizaziora» ikastera joan, ori da ikasi ez dotena, bai baiña Oñatibia'tar Jon'en «Euskera Artez» ikastoletako ume-txoen gurasoeri euskerea irakasteko.

Nere berbak ez dira, Joseba Iñaki: «Emen ez dogu ezer egiten. Ikusi, «besteak» zelan mobiten diran alfabetatzean» ere; ara eura zelan antolatzen daben, eta gu lo...». Onelako berbak entzun izan dira zure aotik. Ta, itauntzen dautzut: Nun zagoz orain ba? Bein eukin bear erri bat, erri oso bat zeuri entzuten, or eukin dozu ba, erriari zor jakon errespetoakaz berba egiteko ere, «Euskerea» altsatuaz. Or alfabetatu» bear zundun, edo obeto esateko, Euskera garbituaz eta aberastuaz osotu bear zundun. Bestela zure jokabide au, zelan nai dozu ulertzea?

Nere errian, nik baiño Euskera geiago dakienak dagozala jakiteak, ez daust miñik emoten, poztu baiño. Ortarako Mañu'n irakasle ona eukin gendun, eta berak erakutsia ez zan erabat alperrik izan. Ez dot ametsik egiten, orain arteko gauza guztietan pott egin dozue.

Egin dagigun lan «txotxolokerietan» ibilli barik. Ez daukazue neri lan egiteko esan bearrik, nere erria ikusita ba-dakit nundik ibilli, ez baiña denporea alperrik galtzen, ortaz egon ziur.

MARISA

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK



ZAZPI-KALEAK

CASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

ta neke gaberik. Beti, indarrak gitxitzen doaz, norbere gogoz artu dan lanaren eragigieñ, ta maitasuna be, ortxe urtuko da lan eta izerdiagaz batera. Maitasunaren giroa, bizi-bizi geratu da gure egite ta oiturezko jokabideetan. Bizi bera be, maitasun garrantan, opari bihurturik, arazoan artean, betirako landuta geratu da. Gizonak daben zer kutunena, or geratzen da aragi egiñik bizien bizirako. Maitasuneko izatea ta otseintzea itzi dautsoz gaurko inguruari ta geroari.

Onex gaiñera, ardurearen ondasuna emon dautso gizaritari. Egiz eta zuzen jokatzan dabenak, ba-daki arduraz bear egiteak zenbat buru-auste dituan. Arduradun zintzoaren bizi urtu egiten da lanaren alde ta lanak gizartea otseinduten dau. Arduraz jokatzeko oiturea gizona goratzen dago beti, bere gogoa on egitea da-ta.

Emen aitaturiko jokabideak, oitura onex egindakoak, argitu ta indarra damoskue. Egite guztiak berezko bultzada ezarten dautse gizonen gogoei. Oituraz langille errimeak izan diranak beste askori dardar eragin dautse, lanbideratu daitezkan. Ona, izan ere, bere ontasunaren zabaltzailea da. Ta ori ikusteko ere guztion aurrean dago. Gure asabak aurretikoan on egin guztian, abegi onex artu, ta esker aundia izaten eutsen. Argia, beti, sorkaldetik dator, bere kabitik. Gizarteko biziaren gora-bera ta aurrerapidea, lurrean izan diran ta gaur diran gizonen jakituri, zentzun, maitasun, ardura ta oituretatik. Gaurkoa ta lena egiteen kateiz alkartatu dagoz. Gizon zintzoak berak al dabena egin dau. Ta zentzunez arek egin dabenari, guk gaurko biziaren etorrera zor dautsagu.

SOLOZABAL'TAR PAULIN

Jesus'en Lurralde Zear

VII.—GALLIKANTU

Mogrebinos Atetik urten eta eskuiko bidea artuta, Pedro Donearen Gallikantu elizara eltzzen da. Toki ederra. Ikusgarria. Aita Asunzionistak dauke gaur euren ardurapean. Judeutarren eta kristauen bizi-era asko agiri da. Zulaketa batzuk egin dabez eta Zenakulo'tik Siloe'ra doan ikuztegi bat agertu da. Bide ontatik ibilli zan ziur aski Jesus Eguen-Guren gabaz. Bizantitarren kale bat, Nekropolis bat eta bostgarren mendeko etxe bat be agertu dira. Antxina baten egindako aitzulo baten gainean dago eliza au. Emen, Kaifas'en jauregiko ormazar baten gainean egoan Pedro donearen eliza, Aita Asunzionarren eritxiz. Euren ustez, emen egon zan Jesus espetxeratua Nekaldi-gabaz. Ez dau baiña indar aundirik eritxi onek.

Apaz nagusiaren jauregia gorago egoan, Eliza Aundia ikusteko eran. Gaiñera, oso zailla izango jakon iltegi gainean etxea egitea. Bizantitarren eliza baten ormazarrak eta konbetu baten besteak, eliza bat egoala emen esan nai dabela dirudi.


Pedro donearen Damu-eliza. Gurutz gudariak Pedro in Gallikantu izena jarri cutsoen. Aitzulo bat dago elizpean. Ba-leiteke, toki ontan ostenduta egotea apostoluak. Eliz alboko bide ertzean, arri baten idatzita, au: «Emen ukatu eban Pedro'k Jesus eta emen jo eban kukurrua oillarrak».

ODOL-ZELAIA

Gorago, eskuma aldera dago Haceldama au. Etxe zar aundi bat. Onofrio donearen grezitar konbetua da. Aitzulo buruko illobi batzuen gainean egiña da. Gaur be azurrez beterik dago. Haceldama deritxo, au da, Eltzegillearen zelaiak. Odol-zelaiak. Judas'ek 30 zidar-diru artu zituan Jesus saltzearren. Diru onegaz erosi eban zelai au.

SILOE URTEGIA

Laster, sortaldera, egiten da Siloe urtegia Silwan ibarra bustitzen dabe onen urak. Toki ontara bialdu eban Jesus'ek itsua, ta itsua ikusten asi zan. Eliza bat jaso zan emen bostgarren mendean. Persatarrak deuseztu eban. Gaur be ikusten dira ormazarrak eta errauskiñak.



Siloe urtegitik ur dago Hinnom ibarra. Urtegi onetan batzen dira Hinnom eta Kedron ibarrak. AOLKU-TXARRA izena daroan muiño-bizkarra dago Hinnom ibarraren ertzean. Kaifas Apaiz-nagusiak etxe bat eukan emen, abitzak diñoanez. Etxe ontan egindako batzarrean artu ei zan Jesus ilteko erabagia.

AMA BIRJIÑAREN ITURRIA

Wadi zear jatsita, Ofel gaillurraren oinetan dago Jerusalem'go iturri bakarra. Ama Birjiñaren iturria deritxoe. «Umm Daraj» be ba-deritxoe batzuk, Zuri-bi-Ama. Bertaratzeko 32 zuri-bi daukazalako. Bibliako «Gion» iturria da au. Goian egoan urirako eroein antxina ura emendik. Ortik sartu ziran Dabid'en gudarosteak Jerusalem'en. Bide bat egin eban lurpetik Ezekia erregeak aginduta Jesukristo baiño 700 urte lenago, Siloe urtegiara ura eroateko. Orain be ba-dakar ura. Artu be egin leiteke. Urbideak 533 neurkin ditu luzeeran.

OFEL MUIÑO

Len aitaturako tokietatik iparralderuntz ta goruntz artu bear ba bidea. Ofel muiñoa agiri da ezkerrean. Ementxe egoan antxiña Dabid'en uria. Inguratzen daben auto-bidea Siloe urtegiaraino doa. Iturri bakarra dau. Ez dauke beste urik. Urusalim izeneko uri artan kanaeotarrak eta jebuseotarrak bizi izan ziran.

Dabid, bere jabe egin zan eta erri-buru egin. Orregaitik Dabid'en Uria izena jarri eutsen. Gazteluak izena artu eban. Berak aginduta egindako illobi baten lurperatu eban Dabid, il zanean. Orobat bere ondorengoak. Dabid'en illobi au Zenakuloan dagoala esaten dabe askok, baiña ez dau indarririk eritxi onek. Dabid'en Uria txikia zan. Lau bat ektare. Jesukristo baiño 1.800 urte aurretik egindako urian, gauza gitxi geratzen da gaur. Alan be ormazar batzuk ikusten dira. Akra egoan tokian erregeen jauregia jaso eban. Herodes'ek be bere jauregia uriaren ertz baten jaso eban. Gaztelua dago gaur toki ortan.

GAZTELUA

Sion Atetik sartuta uri zarrean, eta atzera eginda, Armenitarren uri zatira eltzen da. Or dago Santiago'ren Eliz-nagusia be. Armenitar Ortodoxoen Elizea XII gizaldean egiña da. Santiago Aundiaren eriotzea gogoratzen dau. Txintxillin bat dago elizatik kanpora. Aulki aundi bat koruan, Santiago donearen aulkia ei da. Ipar aldean kapilla bat. Apostoluaren martiritzea gogoratzen dau. Ego aldera, Etximiasin kapilla. Sina'ko, Tabor'eko ta Jordan'go arriak dagoz bertan.

Armenitarren alde au itxita, Gaztelura eltzen da. Dorre batzuk daukaz. Ipar aldekoak Dabid'en dorrea dau izena. Iru dorren ingurua artzen dau Gazteluak: Hippikus, Phasael eta Mariamne'rena. Herodes'ek jaso zituan bere jauregiaren ipar aldean, Kristo baiño 24 urte lenago. Protestanten eliza bat dago Gazteluaren aurrez aurre. Ondoa Jaffa Atea. Gaztelutik illobi Santura ta beste ainbat tokitara oiñez joan daiteke.

Jarusalem'en ikusi daitekezan gauzarik garrantzitsuenak aitatuta dagoz emen, naiza labor.

ANTZA-ILLETA ALAIA

AGUR onen 157'gn zenbakian agertu zan lez, baita Bilbo'ko egunerokoetan bere argazki ta guzti, Aita Patxi'ren gogo aldeko illetea Erri-meza bategaz bete zan Deustu'ko pasio-tarren San Felizisimo eleizan Urrillaren 27'gnean eta goizeko amaika terdietan.

AGUR'en Aita Patxi'ri buruz, idazlan ainbat agertu da, baiña ez dot uste bere irudia agertu danik. Egokia izango da ba, lan labor onen alboan argazkitxo bat erakustea.

Illeta omenaldi au, ospatu zan ta, illetea izan arren, jai-aldiz eta berezitasunez beterik izan zan. Gizatalde andia eleizaratu zan. Naiza txadon au neurritz andia izan, beterik egoan.

Aita Patxi'ren ainbeste ta ainbeste ordain-bako erri-otseintza, oneraspen gartsu, batez be gaixoen alde, bere euskeltasun biotzkorra ezagutzen eban Bizkai'ko errietatik etorri ziran. Orozko bertatik amalaren bat-edo. Dima, Zeberio, Yurre ta Arrati'ko baserrietatik aldra batzuk be. Ba eukazan Aita Patxi'k Euskalerrri guztian goresle ta ainbat adizkide, guldadian beragaz ibillitako bilbotarrak be ugari. Aitatu daigun bat beintzat. Osagille ospatsu bat berau. Onek Aita Patxi'ren jainkotiar bizieraren barri izan ebanetik, onen gertakizun guztiak jakinguruz jarraitzea sartu yakon buruan. Aspaldi baten esan eustan, bildur zala Aita Patxi ez ete zan ezkereruntz iges egindakoen adizkide izatera elduko, ori bai, orreik Kristo'ganatu ta siñestedun egiteko asmoz.

Ara baiña, ba-ebala itxaropena Mosku uriko Kremlin'en, igitai ta mailu ordez, Kristo-Jainkoa'ren gurutzeta iñoiz agertuko zala, entuzten geuntzan praille abade gartsu oneri...

Aita Patxi'ren gogo-alde mezak ateraten etorten ziranak iñoen, ez eukala meza-bearrik, ziur zeruan egoalako, ta ori egiten ba'eben, beraren laguntzea lortzeko zala. Euskaldun kutsuzkoa benetan izan zan Erri-meza eder ori. Euba'tik etorritako pasiotar ikasle batek,



abots lodi ederrakin, abestiak zuzendu ebazan, baita Barturen Aita'ren taldeak, emakume ta andereño abeslariak asko jantzi eban abes-taldia. Ta Argintxona'tar Mateo Aitak igandero daukan amar terdietako euskal meza au, oraingoa Fermin Aitak, esan eban, gaurko euskal-elizti egilleak. Eta berezitasunez beterik egin be.

Ebanjelio ostean, atzalpen edo il sermoiarren ordez, euskal-bertsoak abestu euskuzan, oiturazko melodi eresiz, azkenengo esaera bakotxa erriak be abesten ezazala.

EGILUZE

EMAZTEKIEK AURRERAKUNTZA

1975, LATERRI-ARTEKO URTEA

Ba dakizute onezkerok, emakumeek burua altxa gogo dutelarrik, datorren urtea izango dela orretarako, aien eskubidea ezagutzuz, autatua, nazio-artean.

Nondik asi ere ez dakiela, or dabilta, goi eta be astindu naiez, Gobernuak eta Elizak. Agintariak, esate baterako, oso begiko zaie, emaztekiek aurrerakuntza-gai ori, alik sakonen erabiltzea. Ala ere, ez da aski izango, mintzaldiak eta azterketa aundiak egitea gaiari buruz, bertan bera geldituko ba'da guztia gero.

Zertan ari diran erakustea obe gobernuek naiz elizek. Nik emen teologia aldetik jo bear izango ba'nu emakumeen alde, lan erreza litzaidake. Bestalde, irakurleentzat aspergarria.

Munduko Gobernuak eta Elizak aitatu ditut arestian. Zenbat dira? Askotxo, guztien jokabideak aztertzeko emaztekiei buruz. Gu geu, Euskalerrria gara, alde onetatik ikusi gura genituke goieneko maillan. Euskaltzalasunean, gizonen aurretik beti!

Bai eta ere, besteak beste, Eliza gara, Kredoan nabari zaigun bezela: Bat, santu, katolikua. Aitasantuen zuzendaritzapean, Elizaren ministerioetan laguntzailleak, eskubide aundi batez. Ona, zenbait aipagarri munduaren zear:

IPAR-AMERIKETAKO SAN FRANZISKO'N

Ekumenikoi Batzar batean «Birjiña Maria» ari izan dira. Bera bai da, gure eritxiz, Eba berria. Danon begietarako, bakarra. Ederrena, apalena, sortzez garbia, Jesus'en Ama eta zeruko gure Ama maitagarria. Emakumeetan aipagarriena. Ereditu eta gidaria.

Urte santu onetan, orrilkeko 13-18'gnetan, San Franzisko irian, Luteran protestanteek, anglikanoek, ortodoxoek eta erromatar katolikoek (kristau eliza guzti auek), Birjiña Maria'ren-ganako jaiaraz, berbaldi luze bat ukan zuten, eztabaika jardukiaz.

Kristau eliza guztien batasunerako zelan joka daiteken Birjiña Maria'ganako arrera onak, aztertua izan zen zabalkiro. Gauza jakia da, urteetan zear, protestante elizek alde batetik eta ortodoxoen, zein katolikoek elizek bestaldez, bereizkeri gogor batean ibilliak direla, MARIA bai ala ez, jarduki biurrian.

Orain, oster, zenbait eliza protestanteak (guztiak ezgaitz baita) Andre Mari'ren irudiko Jesus aurraren orpotan, sagrario ezkutu bat ipiña omen dute.

LEKAIMEEN EKUMENIKOI BAZKUN BAT

Addis-Abeba'n. Besterik ez, auxe izango da bakarrik, izan ere, munduan sorturiko Bazkuna, elkarrengaz bat egiñik bizi eta lan ari diren erlijio ezberdiñetako emakumeek.

Sabbata deritzan errixa zaizue, Addis-Abeba Etiopia'ko iri-buru artatik sei kilometrorra dagoena. Antxe batu dira gaixoci lagun dizeaten Gexo-etxe batean, bi etiopar-kopto erligiosak, bi anglikano misiolari erligiosak, bi Verona'ko Combodien katoliko erligiosak. Auek bereizki deitua izan dira etiopar lekaiame aieri medikuntza ariketak irakatsi dizeazkien.

Banakarritza edo administrazioa etiopar lekaiameek darabilte. Baiñan, komunitate bat bera dute. Konbentu bat esango nuke. Ikasbide ederra!

EMAKUME BAT ERE EZ

Franzia'ko izkuntza Akademia'n 40 batzarkide argi. Oraintsu agertu zaie emazteki-aurrerakuntzaz su eta gar dabillen Weiss Louise izeneko madame bat. Izen aundiako idazlea zaigu. Zenbat liburu ditun egiñak andre onek prantzaz izkeraz? Ezin bat-banatu aala. 81 urte ditu, gaiñera. Zerbait ba da. Ala guztiz ere lotarako ez jaiño nonbait eta eraso ditu 40 batzarkideok.

«Zapaldiaren aurka jaiñi naiz» oiuka. «Emakumeak burua jasotzea, zillegi du». Akademiako atectan dago, jo ta jo kirisketa. «Munduko opresio guztien aurka nabillizue. Batez ere, emaztekiak ari zaretin diskriminazioaz. Zergaitik baztertu gu?».

«Etsi erazi nai zaituzte gizonok, emakumearen kreatibitateaz. Ai! zuek zapaltzailleok! Zer uste dezute? Aur-egiteko soilik gaudela munduan. Ez eta ez».

Baiñan, alperrik ibilli da.

SUENENS, BELJIKA'KO KARDINALA

Sinodoan, Erroma'n, emakume-aurrerakuntzaren alde. 1975 Nazio-Arteko Urtean, emazteki aurrerakuntzaz ba du artezkeri ospetu bat. Suens gizon argia eta apaiz zintzoa. Aurtengo Erroma'ko Sinodoan, beste gotzai askoren artean, iñork baiño ozenago itz egin du arazo onetzaz.

Emakumeek leku bat eman bear zaie Elizaren ministerioetan, esan du. Edesti aldetik, zein Teologi aldetik ez bai da oztoporik. Beraz, sakramentuar konsagrazio bat eskatzen da emakumeari buruz.

Ba dirudi antziñako diakonetza ez ezen, gizonen bezela, berdin-berdiñekoa nai dutela gaurko emakumeak.

Zer gertatuko da 1975 urbilleko urtean? Ez dakigu.

AZTERGARRIAK

ANDESTARREN ITUNA

Andes mendi-lerroan kokatuta dagozan bost laterrik sortu eben alkarte au. Igaz, Venezuela sartzeakin sei laterri alkartzea lortu zan. Orain, eta al ba'da Gabonetarako, Arjentinak'k be nai leuke sartu. Au baiña, besteak baiño asko be lantegitzaugoa dogu, bere arenganako salketak aundiak izango litzakez, eta azterketa ta baldintza gogorak bearko ci-dabez aurretik.

* * *

OGIBITARTEAN ESTU

Portugal'en ezkertera jo dabe, ezin daieke ukatu. Komunistak lengo indarkeriaren azpian —oituak izan-edo— talde indartsua gertatu al izan dabe. Spinolaren erdi-zaletasunakin bat ez etozela, au ankar-gora botatzea be lortu, lengo gogorkeria apurtzeko bearezkoa izan ba'da be. Orain, ezker-demokraten saillean sartu dira, onen autarkiekin baliatzeko, baiña, euren be beste alderdi baten izenean, or agertako dira bereiztuta dotozan auteskudeetan, ia batzuen eta besteakaz, jaur-laritzaz jabetzen diran. Eskumatik, goitik berakoa; ezkerretik goitik berakoa, tartean, opil orren erdian estu, demokrazia.

* * *

KANKAILLUAK ERNAI

Portugal'en bertan, nora-ezean askotxo. Costa Gomez, len Spinola zan lez, gaur aurrerakoen buruzagi, asi da bereak be entzuten: Ford lendakariakin izan dituan arremanak, ezker-ezkertiarrak kezkatu ditu. «Ipar-amerikak eskua sartu ba'du, gaizki joango zaio auzia Portugal'i... Ikasbide ederrak ba-dauzkagu USA'ren azpian erori diran nazioekin». Bai baiña, danon gogoan Ungri, Txekoslovakia, Lituani, Tibet eta abar, be.

* * *

TO, BAIÑA EKAK!

Britani Aundian auteskunde ondoan, ez da osorik bete jaur-laritzea laboristek nai eban naguzitza. Beste guztiak baiño iru auldi geyago atara dabez bakarrik. Urri danez, beste alderdi txikien laguntza bear. Skozi ta Gales'ko errizaleak gerturik dagoz langutza ori emoteko, baiña balditza bat aurretik: Len bai len Skozi'n eta Gales'en, euren Batzarrek sortu; norbere jabetasuna lortzeko lenengo urratzak.

* * *

URA BE EZ DA TXARRA

Suiza ta Prantzi'ko jaur-laritzak, arrolio urritasuna dala-ta, alkool eta urak erabillitako motor baten egitearen zain-zain dagoz. Ia aulan, guk artzen ditugun txikitook, motorrak eta berebillak eragiteko gai diran, gure urdail gaixoak zulatu bearrean.

* * *

URRIÑEKO INTXAURRAK

Igarlea berau. Rafael Lafuente jaunak, gizarte onen kinka larria arin datorrela iragarri dauku. Gure bizi-mailea berantza joango dala esanda gero, kapitalismoa ondatzea urrean dagola jakinarazo dau. Guk uste, ori aspalditik entzun dogula, baiña gurekiko, ez dauksagula eutsiko, diñotsogu Lafuente jaunari.

IZKUNTZEN ALDEA?

Ba-dakigu bai, prantzesa ta ebreua ez dirala oiñarri bateko izkuntzak. Orain, urte askotxoren ondoren, Israel'era joan dan prantzese minitrua eta ango agintariak, gauza baten bakarrik dotoz bat: ezertan be ez dirala bat, esatean. Israeldarrak euki be ez dauke prantzesa leuntzeko aiña arrolio!

* * *


ITXURAK ATZIPEGARRI

Iraillean asi zan Sinodoan, Ulster'en bizi dan Willian Conway kardenalak, or dan guda ta politika nastea dala-ta, au esan ci-dau: Talde batek Bretaña'gaz batuta, ta beste batek, egunen baten Irlanda'gaz batuta ikusi gura dabelako, iñoiz erlejiño auzia dala uste da, baiña gizarte auzia da oso-osorik. Edestian yazo dan gauza bat da, Irlanda'gaz batzearen alde diranak katolikoak izatea, ta proptestanteak Ingalanda'gaz batuta jarraitzearen alde. Azkenengo auteskudeetan, laboristak eta konserbadoreak, biak, auzi ori erabagiten aleginduko dirala, aurrez esaten eben.

* * *

TXIPIROIENAK

Igaz Txile'n izan ziran naste negargarriak zirala-ta, izparringietan eta, «txipiroienak» egiten alegindu dira. Batez be Eleizearen yokabideari buruz, naizta garbi jokatu. Au egiztuteko, auxe naiko: Ango eleizako agintariak erabagita, gudalburuak indarrez agintaritze artu eben urteurrena betetzean, ez dabe egin ospakizunik. Orrez gaitera, Gotzain-



batzordeak, luterotarrak, metodistak eta an bizi diran israeldar zineskerakoak, Piñotxet gudalburuari agiri bat zuzendu dautsoe, oindiño an yarraitzen daben guda-egoera amaitu daitela, ta arrezkeru gizarte auzi ta politikea zala-ta, zigortu naiz lotuta dagozenen egorrea bigundu daitela.

Irrati, izparringi ta urrutikuskiez, kardenalaren aurka esan diranak gora-bera, goztaiñak erantzun dabe kurutzera igon bear ba'dabe be, Txile'ko egizko bake, maitasun eta azkatasunaren alde yokatuko dabela.

* * *

NUN ETZAN EZ

Txile'tik iges egin ebenetik ogeitamabi lagunek, Ungria'ra jo eben. Emen baiña, ez dira onartuak izan eta Suiza'ra joatea eskatu ta lortu eben. Suiza'n dira gaur, baiña bertan sartzeko baimenik barik eldu diranez, suizar agintariak be ez dabez euren etxean onartu nai: Ungri'n lenengo iges-lurra izan ebelako ara biurtu bear ci-dira. Igeslarien lege-gizonak baiña, beste au: Ungri'ak ez daukala igeslariak onartzeko Laterri arteko erabagia izenpetuta, ta ezin dala a lenengo iges-lur bezela izentatu,

ERRI-JAKINTZAN

AZIL onetan, 11'tik 25'era, Euskal Jakintzaren amabostekoa Gazteiz'en. Antolatzaile, «Manuel Iradier» ibiltari taldekoak. Itzaldiak egunero, igandeak ezik. Barandiaran, Onaindia, Agirre'tar Iñigo, Eskudero, Larrañaga jaunak eta beste asko. Gaiak, Lutelestia, Elertia, Nuklear Landolak, Eresia, Etnolojia ta abar. Tarteka, abestaldi bat eta antzerkia.

* * *

IKASTARO osoan, Lourdes'ko Ama ta Adrian deunaren eleizan, Bilbo'n, iru urtetik bost urterainoko aurrentzat, Kristau irakasketak euskeraz eta goiz eta arratsalde. Argitasunak, lan orduetan, 31 52 40; 32 88 48; 32 70 13 eta 32 95 35 urrutiz-kiñetara eskatu.

* * *

LOTAZILLAREN, 1, 2 ta 3'gnetan, Zarautz'en eta Euskera-eguna ospatzeko, jaialdiak eta itzaldiak. Euskerazale'koak eratzaille.

* * *

LOTAZILLEAN bertan, Euskal Jakintzaren amabostekoa Bergara'n. Ez dogu oindiño egitaraurik jaso. Baiña indazti azokea be izango dala esan daukue.

* * *

EUSKO LURRA 2. Agertu barria da bigarren ale au. Gaiak, Ibaiak, urbideak, ibaien onurak eta eguraldi aldaketetan dauken eragitea...

* * *

BIZKAPKO Aldundiaren babespean, «El Abra Ayer», J. D. Etxebarria'k eta D. de Zubimendi'k egiña. Bere garrantzia: Getxo, Portugalete ta Santurtze'ko argazki zarren pillo ederra dakarrela.

* * *

ALDIA be aurrera doa-ta, «Joxe Miguel Barandiaran» sarirako ezer gertatzen ba'zabilz, gogoratu datorren urteko Jorralaren 15'erako, Caja Laboral Popular. Ladera de Olandiano, s/n. Mondragon, zuzenbidera bialdu bear dozula. Antolatzaile Atau'ngo Guraso Elkarte. Lanak euskeraz, iru ber-idatzietan. Gaia, Euskalerrri'ko Etnolojia ta Edesti-aurrea.

* * *

ZABREG, Kroazi'ko uri-nagusian bizi dan Emil Kosepto jaunak, Azil onen lenengo egunetan Tolosa'n dan eres-jaietako Euskal-abestiaren saria irabazi dau gure napartar Ondarroa'tar Lorentzo'kin erdibana. Au idaztean, abes-batzen azken saioa azteko izango da. Ez dakigu ba nork irabazi daben.

BEKOKA

Suiza baiño. Eztabaidea aurrera doa, bitartean igesiak larri.

ARRISKU ORIA

Europa ta Amerka alkarrengandik urrinduko diran neurrian, Atlantik itxasoa aunditzen doala, azpitik sortzen diran lur barren eraginez, Japon'eko ugarteak Txina'runtz ei doaz, antzeko bultzada batez. Zer gertatuko ete-da alkar bat egiten dabenean? Oindiño ez estutu, milloikada urteak bearko ei-dira ori beteko ba'da. Bitartean, nork igarri, nor norekin dabilen! Txinak', Japon'ek bear daben arriolioaren zati on bat salduko ei-dautsa.

* * *

NORBERE ETXEA

Rodesia, azkenean be, igali elduak lez, eskura; baltzen eskura. Ez da luze joango, diñoenez, alde guztietatik zartatuta, Ian Smith'en jaur-laritzea ankar-gora ikustea. Angola batetik, Mozambike bestetik, ta orain Rodesia iparraldetik, baltz jazten ba'dira, Ego-aprika'ko zuriak benetan zuri-zuri ta estu. ONU'tik ez dabez hota, beste okerrik be ba-da an barruan, baiña Batzar orrek daben indarraren azpian, Ego-aprika'ko auzia laster zuzenduko da, edo benetan ondatu zurientzat.

* * *

ZERBAIT BEAR GENDUN

Dmokrata izatearen «bigunkeria», gorgokeririk ez onartzea, ez eskuman, ez ezkerrean, ez iñun, zerbaiten ba-da egoki: Orrei danori miñia erakutsi ta makilla emoteko aukerea izatean. Gizartea baketsu ta zuzentasunean bizi daiten alegintzen diranentzat izaten dira beste aldebetako gogorkeriak; sarri, txandaka, ta bardin samar. Baiña gizona gizon danean, zuzen aurrera egiakin! Au ez diñogu guk bakarrik, erriaren abots ozenak baiño.

* * *

AZKEN ORDUAN

«Ogi bitartean estu» esan dogu or goro, ta ona emen azken barria, Portugal'en, sozialistak, Ezker-batuen alkartetik urten dira. Zergaitik? Komunistak eurenak barruan sartuaz, ea osorik jabetu diralako alkartze onekin. Betikoa!

DANOK

DEPURACION DE AGUAS S. A.

URA EGOKITZEN ETA UR LANETAN BEREZITUAK, EDANGARRIAK - LANTEGIRAKOAK - ZIKINDUAK NAIZ IGERITEGIKOAK ZUZENTZEN

+ 32-37-00 - + 31-00-10 - 32-37-01 Urt.

Gordoniz, 44, 12.^o
BILBAO-2



ARRIATIA

Oñati

Igaro zaigun uda ontan, euskera-buruz egin diran zenbait billera irakurri ditugu gure egunkari eta asterokoetan. Eta oietako bat, aste osokoa, Oñati'n ere bai. Oso atsegin izan zitzaigun, ainbeste apaiz, lekaide eta bereziki, ainbeste lekaime euskera-buruz arduratuta ikusteaz.

Lenago ere zerbait irakurriak gera, baiña oraingo aldi ontan, gure Onaindia Aitak argitaltzen ari dan EUSKAL ELERTI EDO LITERATURA liburuetan, argi agertzen digu. Orain artean beintzat, euskeraren alde lanik geien egin dutenak, Eliz-gizonak dirala. Ala ez danik, ifork ezin ukatu. Egintzak erakusten digute-ta.

Bestaldera ere esan bearra dago. Euskal-erriak, Eleiz-emakumeetan, euskeraren etsai gogorak izan dituala: Lekaimien Ikastolak. Noizbait bear ba'da, gogortxo masiatuak izan ditugula ere bai. «Lekaimen madirikatuak» edo orrelako edo beste izenarekin bataiatu izan ditugulako? Eta, ez ote dute irabazia izan, euren Ikastoletan euskerari eman dioten tratu txarragatik?

Baiña aldi danak ere ez dira izaten berdiñak. Gaur, zenbat lekaimeren biotzetan beste girorik ere nabaitzen da euskeraren alde lana egiteko. Len txarrerako izan ba'zan ere, beste alde onek, onerako ere ekarri lezakiguke. Gure aldiko giro au masiatzeko izan ba'da ere. Ondoren datozen gizaldikoak. Izan ditezela diña au esateko: «Lekaimeri eskerrak Euskerak burua jaso du».

ILLETAK

Urte ontako lenengo amar illebetetan, Oñati'ko Eleiz-Nagusian zenbat illeta euskeraz ete erderaz, ondorengo zenbakiak esango dute. Urtearen lenengo iru illebetetan: Eme-zazpi euskeraz eta lau erderaz. Bigarren iru illebetetan, emeretz euskeraz eta lau erderaz. Eta amargarren illebetetan, zortzi euskeraz eta bat elebitzan.

Euskel-izenak

Aurtengo udan, udazkeneño iru illebetetan, berrogeta zortzi jaiotza izan dira. Oietatik ogeta amabost euskel-izenarekin bataiatuak.

Entzunak gera: matxinada ondorengo urtietan, Madrid'eko Ertzain-Zaigoak, Oñati'n orduan txauburu zegoen Garmendia'tar Balentin, jaiotzez eibartarra zana, Eleiz-Nagusitik euskera aienatu zualako, Zoriondu egin zuala.

Gaur, beste girorik dago gure Eliz-Nagusian. Izan ere garai artan, kinka larrian egon zan euskera kontu ori. Bein betiko, ez ote zan aienatuko. Gaur, oñatiarrok, gure Eleiz-Nagusian ditugun apaizak, txalotu eta zorintzeko zorretan gaudela esango nuke. Eleizan, euskerari bere tokia eman diotelako.

Ikastolak

Euskel ikastolak udazkenean, bere garaian, asiak dira. Sei andereño, bi irakasle eta Anduaga'tar Paulo, Agustindar lekaidea, zuzendari dutela.

Igazko ikastaroan ibilli ziranetatik, iru irten dira. Aurtengo ikastaro berrirako berrogeta amabost berriak sartu dira. Gaur ia berreunera eltzen dira. Euren ikastaroan KOSMOS metodoa erabiliko dute.

ERRIZALE

Arratia

LOTSAGARRIA

Gaztarorik ederrenean itxasoz bestalderatu, ta belarrietatik gora urtez beterik eta biotzez gazte aberriaruriko Permin Larrazabal jaunaren, Barazar'go seme zintzoaren bosteko beroa estutzeko zoria izan dot.

Larrazabal adiskideak irurogeiren bat urte luze emon ditu Euskal-erri'tik urrutian, erdelduen artean; eta etxetik eroandako euskereagaz erriratu da Barazar'go garrazta zindoa.

Iurre dogu gaur egun Arratia'ren ardatza, eta Irrubekoa'tik Garbe'raiñoko bidearen alde bietako ateburuetan erderaren gatza, perejilla ta saltsea da agiri! «Carniceria», «Bebidas», «Farmacia», «Libreria» ta olako izen arrotzak ikustean, goibeldurik eta arriturik dago gure gizona, eta diño: «Euskaldun jatorragoak eta osoagoak dira Gipuzkoa'ko dendariak, bizkatarrak baiño».

Olaxe da izan be. Lotsagarria! Atzeritar aizez aundituriko burua dogu, eta biotza tximeldurik. Gaur egun euskeraz idazteko azkatasuna dogularik, doguna ta garena erderaz azaldu bearra, zeren zera ete dogu? Umeen euskal-izenetan bakarrik aultu bear ete doguz gure izate ta indar ausduak, makalduak? Zaputza gara!

ZORION, Ander Gorospe'ri, eta bizilaguntzat bereganatu dauan Bedia'ko neskatil zoli ulegorrikerari.

Ainbat erri ta zenbait tokitan Ander'en abesti ta euskal-gatzezko esakerak txalotu izan doguz. Baiña ezkondu da-ta... bein ezkondu ezkerok, andrea izango sukaldian «abotsdun» eta «ñarradun». Eta Zuñá'ko birigarroa... Udabarrian ikusi bearko.

Ondo izan zaitez bizibide barrian eta besakarik ez egin bidean.

EUBA, urrutikoa beti oba. Eta obe billa arto-arrorik Soria'ra joateko txakurrak orraztu, janaritu eta gertakizunak egiten gure eiztari zur-zurrak ari izan ziran egun areitako gauetan, basurdak kurrun-kurrunka arto-soloan. Artoz beteta gero, etxondoko ikopean, jolasean. Etxebarri'ko gizonak eta txakurrak lo egozan tartean.

LANDAJUELA'TAR A.

Sopelana

IKASTALDIA AURRERA DOA

Ikastaro onetan, ikastetxe barria dauke gure umetxoak. Mendi biren erdian, leku zabal, argi ta garbian.

Lan andia egin bearra dago oraindiño. Lenengoa, urrun dagolako erriatik, jatekoak atondu ta oneik emoteko lekuak be bai. Baita berebil andi bat be, umeak eroan-ekarrirako ipiñi.

Gero pelota tokia, ugertegia eta abar. Emen ikusi dira aita-amak, aittak, eta neska-mutil gazteak. Eta txalogarrienak, Jaungoikoak umerik emon ez dautsen asko bere bai.

Zergaitik? Norgaitik? Euskereagaitik. Baiña gaur gaillurrera ingurutetan ba'dago be, Ikastola au, ez dogu aztu bear ez dagola gaillurik oñarri barik. Eta nok aztu oñarriok?

BARRIA

Nikola jauna, urrun eroan eta lotuta ba'dago be, ez dauka aztuta Sopelana'ko erriak, eta bere ondoan asi ziran iru edo lau gizon adoretzu, aterik ate, diru ta umetxoan eske. Oneik bere ez doguz aztuko. Danori ba, Jaun-andreak, zorionak eta aurrera!

MARKAIDA

DANETIK LABUR

DONOSTI

Il onen 17'gnean, omenaldi berezi bat eskeñiko jake Donosti'n, Euskal-erri'ko amabost bertsolari zaareri. Bertsolari onen jaia, Balda pelota-lekuan izango da, ta anai arteko bazkaria Anoeta'n ospatu. Igandea denez omenaldi eguna, pelota-jokaldiak aurreko egunean izango dira.

ZEBERIO

Erri onetako Eleiza nagusian, Azillaren 9'gnean, Euskal-jai polit bat izan da, Abesti saio onetan esku artu daben abeslariak oneik izan ziran: Xabier Lete, Lourdes Iriondo, Oihartzunak, Antxon Aranburu ta Gontzal, baita bertsolariak be.

Jai onetan batutakoa, Arrati'ko ikastole-tarako izango da.

IKASTOLA - NAGUSIA

Gutziz poztutzen gaitun barri bat eldu jaku, Filogi bereiztasunean, «Hispanicas» artzen dabenak, astero lau orduan, euskerea izango dabe, ikasgai.

Asko ez da baiña bai zeozer, asteko garrantzi andiko barria au.



ERBESTEAN-EDO

Bilbo'ko eguneroko batek, seme-alaba biko sendi batentzako, eguneroko eraldi bear apalena —gasto minimo— uriburuetan zenbatekoa dan esan dausku: Barcelona'n 264 lauerleko; Madril'en 238; Valencia'n 235, eta abar.

Bilbo naiz Euskal-erri'ko uribururik ez dau aitatu. Emen ereraldi bear dan jakiteko Barcelona'ko izparringiak irakurri bearko doguz, edo lan barik edo oporretan dagozeneri galdetu.

IRUÑA

Intza Aitaren «Naparroa'ko Euskal-esaera Zarrak», izugarriko arrera ona izan dau, Lenago be egin ziran bildutze oneik edo antzekoak. Lenengoa bizkaieraz 1596'gnean. Gerroztik, Garibai ta Oihenart'etak ezagun dira. Ez diñogu «Anbiolako supitak, egiak» guztiz egiak izango diranik, batzuetan erdi-egi baiño ez, baiña bai gure aurrekoen yakituria agertzen dabela. Askok uste dabenez, ez doguz izarrak geuk lenengoz ikusi. Gure asabak ez ziran leloak. Aita Intza'ri be esan eutsen: «Esaera zarrak zertako dituzu?». Berak erantzun: «Aizu, urre-apurrak an-emenka lurrean ikusten bazenitu, bilduko al zenituzke?»...

ARRASATE

Urtero bezela, 38'gn urteurrena zala-ta, or Oiartzun'en eta Ernani'n, 35 gure erriar edo emen bizi ziranak eriotza aurkitu zutelako, illaren 27'gnean Meza bat izan degu. Beti bezela, eliza bete-beterik, erriarrez eta erbestetik etorritakoz.

ELEIZAN

«Amagandik ikasitako izkuntzea, gizonak bere burua ezagutu ta besteakaz artu-emonak eukiteko gai izan ba'da, zuzena da baita, Yaungoikoagaz anaitasun artu-emonetan erabiltea, ta beraz, eleizkizunetan berari dago-kion tokia eukitea». Euskaldunok or ibilli gara bizitza guztian ori esaten, eta zearretara baiño geitxoago begiratuak izan gara. Gaur, nonbait, bazter guztietan aintzat artu da bertako izkuntzea. Goiko esaldi ori, Tuy-Vigo gotzainak, galizieraz egin daben itzaldi baten esan dau.

EIBAR

Bearra egiteko sasoi joan jakola-ta, langille bezin gudari ona izan zan Jauregi'tar Fako'k, zar-sarrituen artean sartu dausku bere burua. Euskaldun utsa, abeslari fiña, izango dabe Untzaga'ko bankuntan batzen diran «zarrak», zer entzun eta zer ikasi. Goi aldean dan Barrenkale'ko «Uso-Bide»n izan dabe lagunarteko janaldia.

EMAKUMEAK

Tuy'ko gorago aipatu dogun gai orri oratuta, Arrasate'ko emakume batzuk, gazteak geienak, 6, 7 ta 8 urteko umeci kistar-ikasbidea erakusten asi dira. Gurasoei eskatu zaie ea euskeraz ala erderaz nai duten. Gutxi ba'dira be, batzuk, euskaldun utsak izanik, erdera aukeratu dute. Baiña kistar-ikasbidea ta berakin Jauna'kin euskeraz itz egitea, alperrikoa ote da? Geienak baiña, euskerea aukeratu dute, ta besteok be orren-beste ikusiko dutelaren itzaropenean gaude.

BILBO

«Test» orreitakoak zeure buruari eragiten zalea ba'zara, eta zeure eroapena noraiñokoa dan jakin nai ba'dozu, atoz Bilbo'ra, ordu batzuk galtzeko ba'dozuz, eta sendagilleak esango leuskizunak baiño zeaztasun aundia-goak izango dozuz zeure zer orren barri jakiteko. Baldintza bakarra, zeuk dakarzula zeure berebillean sartu gure kaleetan. Etxeraztean, ormetan gora ez ba'zabiltz, edo zeure berebil ori erre ez, sendo ta zindoa zara zu benetan.

LAINOPEAN

Ez dago esan bearrik, udazken ontan eguraldi txarra daukagu. Baiña ostetza andia artaga ikusiten dogun esketiño, au esan bear: Negu-oñietako sendo ta aterkin on bat erosi ez dabenik ba'da, oñietako orrekin eta ezalpe-garri on batena jabe egin daitela, diñoskue Galdakao'tik, Lotazillaren lenengoa inguru-rarte beintzat, ez dogulako eguraldi onik izango, egun bat edo beste izan ezik. Eguraldi txarra ba, neguko urte-aroak edo, beste era batera esanda, urrengo lau-aroetako edo arte.

IKASTAROA

Aurrak eta gaztetxoak ez eze, geuk be euskera asko ikasi bearra ei-dogu, olan diñoskue beintzat gure irakurle batzuk, ta orretara dakianari entzun sarri, ta besterik ezean gelditu barik irakurri. Irakurri daiguzan ba, ondo idatzitako lanak eta idaztiak. Ta ez esan ez dogunik.

LISTOPASAUAK?

Tximist-indar, Urrutizkin eta abarren jabe diranak esaten ebenez, gure ordaindu bearrik Banketxeen eskutik egiten ba'genduzan, errez-tasun aundiak izango ei-genduzan. Ba-zirudin, eta olan egin dabe geienak. Jabe orreik, diru-batzaillak kendu ta diru pilloa aurreratu al izan dabe. Orain baiña, ordaintza era oni, zerga bat ipiñi dautse. Nork ordaindu bear ete-dau? Orretatik dirua aurreratu dabenak, jakina! Baiña bestera nai ete dan bildur.

BERBERAK

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra
BILBAO - Casco Viejo
Tenderia, 15 eta 16

IZPAZTER

Sakramentuak zazpi dira ta oraintxe noia kantatzen, neure kristauak egon zakidaz atentziñoiaz entzuten.

Nai neukez nik be Izpazter'eri begira zazpi gauzatu esan. Eta gorago aiatu dodan abestiak bere jarraian esaten daben lez, Lenengotako sakramentua, batiatzen garencan, erejiatik sartu oi gara Jaungoikoaren legean, nik be «erejiatik» sartu nai neuke Izpazter garbi eta aizetsu onetan.

«Ereji» dira ta, euskal hurrarentzat beintzat, gaurko keiak, zikinkeriak, loikeriak, gaurko kimikak eta indar barriak...

Baiña Izpazter bera ain garbia ete da? Ez ete leikiok berari gogoratu bertakoak len sarri erabilten ekiezan kantak?

Ezpan koral ederrak ondo lur egiñik, begi zuri ederrak guztiz ezaindurik.

* * *

Ingargintza sartu da Izpazter'en. Ereji?

Ingarrak, kartoiak dira. Iztegi batzuk ala diño: Ingarr (cartón).

Ingia papela da. «Eun-gi» tik dator. Eun (egu-un), erderazko lienzo, tela, esanguraz.

Gaur Izpazter'en kartoiak egiteko ez darabille eungik, telarik. Lengo zarrak bai, arek ba ekien erabilten euna papela egiteko. Areña, bai, eungia zan. Gaur egurra da gai nausia, «materia prima» esaten dana. Egurra edo zura.

Gaur kartoiak egiteko oi diran gaiak kontuan eukita, ortarako izen berezi bat egitea edo sortzea ba'litz, zer izango ete litzake egoki?

Erejiatik sartu naiz Izpazter'en. Kartona-jea, kartoi-fabrika eta antzerako berbak entzuten diran errietatik nator. Eta ara emen ingargintza billatu.

Lengo abestia gogora datorkit: Erejiatik sartu oi gara Jaungoikoaren legean... Gure inguruetako erejiatik sartuko ete gara ba Izpazter'en euskeraren garbi-gintzan?

«Aiz, aiz orreri, Lekeitiarrak Earrari». Ala esaten dabe inguruetan. Eta Izpazter erdian dago. Zer ete diñosku erri onek?

* * *

Bein, Jose Antonio Uriarte frantziskotar praileea Bilbo'ko San Nikolas'en sermoi egiten inarduala, entzuleen artean Luis Luziano Bonaparte printzipea gertatu zan. 1856 urte inguruan. Eta aren euskera ederra entzunda, Biblia euskeratzeko eskatu eutsan. Eskatu, agindu eta egin. Iru zati agertu ziran beintzat. Uriarte bera ez ei zan ausartu berak bakarrik gipuzkoerara itzultzen eta beste batek lagundu eutsan orretan.

Nuntarra zan Aita Uriarte?

Arrigorriaga'ko seme lez agertzen dabe danak Bai? Geldi. «Añamendi, Enciclopedia General del País Vasco, Diccionario», V liburuan, 52 orrialdean, au irakurri lei: «A pesar de ser natural de Ispaster y por lo tanto vizcaino, Uriarte tradujo toda la Vulgata en dialecto guipuzcoano».

Liburuen «erejiak» garbitzen sartu bear ete gara ba Izpazter'en?

* * *

Izpaztertarra bai Aita Agustin Basterretxea. Jesuita. 274 urte jaio zala eta 213 il zala. Eta oraindik aren bertsoak abestu egiten dira. Ez bat eta bi bakarrik, irurogetak baiño: Jesukristori kendu ezkerro pekatuagaz bizieta, baldin ezipadot negar egiten arrizkoa dot biotza. Guztiok lagun kantatu daigun bere penazko eriotza.

Orrrela asten dira.

Nire errian, Ondarru'n, aste santuan, Kristo iruditzen dabenak abestu eta erriak erantzunez, bertsook izaten dira elizkizun nausien aurretik jentea eleizan batzen dabenak. Origaitik, eta orretarako, Ondarru'n «Kristo»k abots ederra eta garbia bear izaten dau.

Emen be ba dago «ereji» txiki bat garbitu bearra Izpazter'en omenez. Aita Villasante'k bere «Historia de la Literatura Vasca» liburuan lekeitiartzat agertzen dau Basterretxea, bertso oncin egillea.

Eta Añamendi saillean, «Literatura I», bardin. Eta Aita Santi Onaindia'k, «Milla Euskal-Olerki eder»en. Egia esateko, azken onek oraintzu agertu daben «Euskal Literatura»n oker ori zuzenduta dakar.

Pasiñoiko bertso onek zabalera andia euki eben Euskalerrri guztian. Ainbat ediziño edo argitaltze egin ziran eurenak. Aita Galdos' ek, bere denporetan, 21 argitaltzeetako agiriak billatu zitun. Ediziño askotan be irakurten da egillea nungoa zan. Ala, 1832 urtean Tolosa'n egin zanean, garbi esaten da: «Yesucristo gure Jaunaren pasifio santua Aita Basterretxea izpaztertarra ta Jesueteac Giputz euscuerazco

bertsoetan imini ebana. Orain urtetan da Bizcaicoetan garbiago, neurtuago eta bizcorsheago. Tolosa 1832».

Beste liburuxko batzuk be egin ebazan Aita Basterretxea onek; bat Aita Cardaberaz' ek gipuzkeratu eban.

Bere liburuok bertsoetan egiten ebazan. Bear ba'da sasoi aretako giroan errezago izango zan gure gurasoei egi biribillak bertsoetan sartu eraztea, eura kantatuaz sarri gogoratu egiezan.

* * *

Izpazter, Amoroto eta Gizaburuaga'k luzaro euki zituen asarreak, eta ez txikiak, Lekeiti'ko parrokiagaz.

Erri onetako parrokiak, Lekeiti'k bere menpeko lez, bere ermita lez eukiten zitun. Sasoi baten 18 abade be egon ziran Lekeiti'o'n, parrokiak. Amar eskubide osoko, eta besteak eskubide erdiko edo laurdeneko. Eskubide osoko amarrak San Juan bezperan batu eta euren artean izentatzen zituen erri aretako serbitsariak. Izpazter'erako bi.

Berrogetamar urte inguru egin zituen erri onek Lekeiti'gaz asarretan. Azkenean be, 1519 urteko Epalla'n lortu eben jaubetasun osoko parroki lez ezagutzea, ortarako bataio-tarako ur-bedeinkatu ontzia, illobi edo sepul-turak eta abar eleizetan ipinteko eskubidea lortu ondoren. Leon X'a izan zan Aita Santu. Eta gauzak baketan egiteko, Salamanca eta Leon'go obispoak eta Calahorra'ko dean'ak artu eben banaketako agindua.

Asarre oneitan inarduela izpaztertarra esaten ekien parroki bat eukiteko aiña jente ba eukela, sasoi aretan 70 etxe eta autortzako premiñetan egoten ziran 270 bizilagun batzen ziralako bertan.

* * *

Euskalerrriko eleiza asko XVI gizaldiko lenengo zatian egin, barriztu edo zabaldu-takoak izan ziran. Amoroto eta Izpazter'ekoa eleiza, Begoña'koagaz batean, 1519 urtean egindako lez agertzen da.

112 oin luz eta 57 zabal.

Ikusgarria aldare nausiko erretablua. Be aldean, apostoluen irudiak, lau zatiko predela baten. Eta gorago, illara baten lau, gorago beste lau eta gorencan biko illaretan sartutako plafioetan, Martin deunaren bizitzako irudiak. Irudietatik jatorrena, zaindariaren irudi berbera. Inguruetan taillugille onak zirala igarten da. Ala ta be zatika egiñak dira plafioak, edo beintzat ala dirudie, eura alkartzeko egurrak bestelako dotoretasun bakoak diralako.

Koroa eta torrea geroago egiñak dira. Orain eun urte inguru.

* * *

Ba zenkian edo ba dakizu perrotxikoen artean arrak eta emeak egoten dirala?

Agustin Zabala mediku jakintsua Izpazter'en osagille lez egoala, ikasketa sakonak egin zitun zugatz edo arbola ostro eta adarretan urtetan daben ondo ardai, ondo agarrikoen bertuteetaz, osakuntza eta ebakuntzetan batez be.

Arrak eta emeak egoten ei dira. Ondo arrak ez ei dabe balio, emeak bai osakuntzetarako, operasiñotarako. Eta emien artean be iru mota edo klase ei dagoz, Ebakuntzak egin ondoren odola barrizatzeko berebizi-koak ei dira.

Eta bere esanetan, errialde batzuetan ondo egokiak billatzen ba dira be, berak Izpazter'en billatutakoak ez ei eukan inñungo aitzakirik.

* * *

Izpazter gaur: 900 bizilagun. 22,68 kilometro lautu lurretan. Berak eta Mendexa'k tartean estutzen dabe Lekeiti. Kontuan euki Lekeiti'o'k, bere lurretan, km. kuadratu bi ez daukazala.

Auzoak: Arropain, Artika, Barainka, Kortazar, Kurtzia, Gallete, Gardata, Larrinaga, Mendazona, Solarte eta Solaun.

Bertako seme ospatsuak: Jazinto Arana. Inksidorea. 1727'n Zamora'ko gotzain izentatu eben.

Beste bat: Joanes Amiax. Naparroa'n abade egoala, Codes'ko Ama Birgiña'ren edestia egin eban 1608 urtean. Bere liburuan Bizka'i'ko Ama Birgiñen irudien gorabera asko agertzen dira.

Beste bat: Antonio Atxabal eta Olabe. Santiago'ko zaldun izentatu eben 1700 urtean.

Eta Domingo Atxia. Colon'egaz Ameriketara joan zana eta antxe Navidad «fuer-tean» il.

Orra, azal-azaletik, Izpazter. Itxas ertzean, itxasoan muga dabela, baiña barrantze bako erria. Bere auzorik gorenak, Arrainka eta Solarte, itxasotik 140 metro gorago egiten dira.

Izpazter, kai barik, portu barik, eta itxasoari musuka. Eta laster... indartegi barriak bere izena zabalduko ete dabe?

A. ZUBIKARAI

AGVR

Apartado n.º 2
BILBAO

FRANQUEO
CONCERTADO
08/55

ETXANO'KO MARIA BITORIA

ERRI POLITA

Gure erriak zein baiño zein politagoak diranik ezin dau inñok ukatu, eta ez gero geureak diralako, egiaz eder zoragarriak diralako baiño. Zoaz erririk erri ta mendirik mendi, ta ezar begiak aurrean daukazunari. Ez daustazu esango, ez, gure lurra itsusia danik.

Era orretakoa dozu Etxano, Zornotza gaiñean, edo obeto Zornotza barruan dan erria. Jentez eta baserriz dotore ta apaiña da; bidez be ez dago txarto, Amorebieta'tik gora bertara doana, ta Epaltza'tik bera Ategorri'ra datorrena, eguraldi onez batez be, eguratoki aukerakoak dituzu; muñoz ta landaz inguratutako basetxe zuriak be, bakotzak dau berea. Gaurko barrikeriari jarraiturik, Etxano'tik be beerantza datozenak ez dira gitxi; baiña bertoko aize garbia baiño ederragorik nekez aurkitu leiteke osasunerako. Arrigarria: bertokoak itxi ta bilbotarrak erosi daroetz gure baserriak.

Etxano'ko eleizea gainxo baten dago, guztiz lerdin eta pertxeta. Urte batzuk dirala barriztatu eben, eta barru ta kanpo dotore daukagu gaur; egunokaz, alan be, ogetakaz euritan daroaguz eta, itogin batzuk agertu dira. Baiña bertoko seme zintzo ta borondate oneko batzuk gertu dagoz itogiñoi negargurea kentzeko, eta orrelaxe egingo dabe abagune ona etortean.

Eleizearen biran, goitik eta betik, etxe mordoak daukazu. Eta generatxoago iltegia, naiko dotorea: etxanotarrak, eta zornotzarrak be bai, maite dabe bazter apain au il-ondorengo atsedeen-aldirako; ba-dira Aldana'tik eta Kortederra'tik bertora gorpuak dakazenak. Toki loratsua ta zarata bakoa dozu, izan be, bakartegi au. Eta, naiz atxurdiñez jantzi-entzatz, naiz lur soillean etzunentzatz, guztientzako dozu bardiña, bake leunaren zoko ixilla.

Eleiza ta kanposantu tartean daukazu erriko eskolea, aurtengo ikastarorarte beintzat; aurten ba, bertoko neska-mutillak Larrea'ko eskola barrietan asi dira G. B'koa ikasten. Obaririk ba ete dau eskola txikiak itxi ta aziagoetan umetxo danak batzeak? Zein ertze-tatik begiratzen yakon. Etxano'ko auzo eskolea Bizka'i'ko Aldundegiak egiña da; oraintxe be ate-aurrean dauka: «Bizkaia'ren Auzo eskola». Gerra ostein be ez eben apurtu emen idazkun au, beste leku askotan egin eben lez. Berrogetamar urteotan, ementxe ikasi izan dabe Etxano'ko neska - mutillak.

OMENALDI BAT

Ain zuzen be, eskola onetan irakasle —maistra— jator bat euki izan dabe 33 azken urteotan: Maria Bitoria N. Ibañez, Bilbao'ko alabea, ikastaro bitartean Etxano'ra osterea egin oi ebana; goizero, Zornotza'raiño trenez eta andik gora oiñez egiten eban etxetik eskolarakoa. Txikia zan, bizi-bizia; neska-mutillak oso maite eben. Eta erritarrak, zelan ez? Orixegaitik, oraintsu oiñdiño, omenaldia egin eutsuen etxanotarrak, Maria Bitoria'ren ikasle izanetatik, neska ta mutil, irureunetik gora izanik. Bizka'i'ko Diputazi-ñoan be bardin egin eutsuen, bere izenean eta berari ikur berezi bat opatuz Bizka'i'ko auzo ikastoletako irakasle guztiak omendurik.

Etxano'n egin yakon omenaldian, eleizakoan jakiña, zortzi abade ta praillek meza emon eben, geienak aren ikasle izanak. Igaz gaxorik ebillela ta, erakusteari itxi eutsen eta bere etxean, Bilbao'n, bizi zan; baiña aurten, urrillaren bederatzian Jaunak bere atsedenera eroan euskun. Bilbao'ko San Bizente parrokiak ospatu ziran aren omenezko illetak.

ETXANO'KO ILLETAK

Gure erriak be, irakasle zintzoagaz eukan zorra ordaindu gura. Baita ordaindu be. Zelan? Gaur modan daukaguz illetak, eta olakoetan eleizak bete-bete egiten yakuz: au edo origaitik mezatarra ez doazanak be, illeta bat danean, eleizara doaz, eta ez ziur asko bertan tente egotera bakarrik: errezatzerá joan oi gara eleizara. Etxanotarrak, ba, otoi egiñaz kitutu eben euren maistregaz eukien zorra.

Lengo zapatuan, urrillaren 26'an, arratsaldeko bostetan meza eder bat euki genduan Etxano'ko eleiza zabalean. Jentez heterik, goi ta be, au da, koru ta eleiz-barrunbe. Zazpi apaiz altaran, meza eskeintzen erritarrakaz korapillo estuan. Zornotza'ko Koralak ederto lagunduta, erri-mezearen nota ozen-biziak gartsu abestu ziran. Jesus Zalbidea, bertoko semeak —gaur Jainko'n txanburu danak— egin euskun itzaldi samur, sakon, entzungarria. Erri osoak abestuta, «Agur, Jesus'en Ama»gaz amaitu genduan eleizkizuna.

Zorrak ordaintzea beti dozu eginkizun bikaiña. Baita arturiko mesedeakaitik esker beroak emotea be. Orrrela egiña dabe etxanotarrak euren maistra zintzo, jarraiki ta lan-gilleagaz.

AITA ONAINDIA

DIRUKETEA TA BILBO'KO ERRI-IRRATIA

BATASUNA

LARRIALDIA

Diruketearen larrialdi gogor baten aurkitzen gara. Nork ez daki au? Eta larrialdi onek, gura geunken baiño sendoago oratuko dausku gutariko askori. Ez dogu olakorik sarri ikusi, eta iñoz jazo ez danik, orain be ez dala jazoko uste izaten dogu. Baiña eldu jaku gure artera larrialdi ori eta bere ondorenak laster ikutuko gaitue.

URTENBIDERIK?

Diruketearen larrialdia urtenbidea billatzeko, or dagoz gizon trebeak, baiña ez dira naikoa. Ogeita bederatzigarren urtekoari, aldakuntza aundi barik ez eutsoen billatu urten bide ori. Orretarako sartalde guztiak demokrazia jo bear izan eban. Ori ikusi nai ez dauana, ondo buru-gogorra eta ariña da.

Ez dagigun uste izan ba, gaurko larrialdi oneri bidea aurkitzeko trebeen lan zurra naikoa izango danik. Gaur larriuneak bide-kurutze argi onetan jarten gaitu: demokrazi-bidean aurrera egin edo gogorkeria onartu.

Beste laterri batzuetatik datorkuzan usaiñak konturatu ezker, lenengoa izango da bide jatorra, antza. Sartaldeko laterriak geienak, urtenbide ori billatzeko demokraziara jo dabe.

GURE INGURUAN

Ori orrelan ba'da, ez da izango arri-tzekoa daukagun estadu onetan be aldakuntza aundiak egin bearra izatea, eta orretarako gertatuta egon bearko gara.

Larri-unea gainean daukagu eta laterriarteke giroa oso ona izango da demokrazi-bidea artzeko, erri guztiaren errixiak kontuan dirala.

Baiña ez pentzatu ori berez etorriko danik. Erreztasun orreik ondoren ona ekarteai nai ba'dogu, gogotsu jokatu eta bear dan lez era guztiak geuretu bearko doguz.

Lenengo, eta au sarri esan bearko da, alkartasuna egin bear da: epe labur baterako elburu bat artu eta guztiok bearu lortzeko alegindu.

Banutzen gaituana aiztuteko eta baten gaituana gogoratzeko ordua eldu da. Or agertuko dautsagu gure Erriari barruko benetako maitetasuna. Or ikusiko da nortzuk garan erriaren ona zintzo billatzen dogunak. Orrelan jokatu eben, sarritan beintzat, gure aurretikoak.

Ez da erreza bide au. Ondo dakigu. Asmo onak bearrezkoak dira onetarako, baiña ez dira naikoa.

Jatortasuna, alkar-izketa zabala, guztiok bearren doguna billatzea eta Erri-zaletasun benetako izango dira oiñarri lan ori egiteko, eta alkartasun orretatik sortuko da gerorako bear dogun batasuna.

Ez gara igarle, baiña, ortik etorriko dirala uste dogu gaurko giro onak ekarri legikezan frutu obeak.

Astiro-astiro baiña ondo oiñarrituta, euskerea ederto zabaltzen da gaur Bizkaia'n. Geiago bear litzakela? Orixe bai, baiña egin al izan daben aurrerakadea ez da izan txikia, ta goragoka datorrela ikustean, itxaropenez bete gaitu. Lan ori beteteko or dabiltz jaun-andera apal baiña sutuak. Euren gora-berren barri zueri emotearren, bertara jo dogu, galdera batzuk galtzarpean geunkazala, ta ara zer jakin dogun:

—Noiz sortu zan Erri-Irrati au, ta noiz euskerazko saioa?

—1962'ganean sortu zan irrati au. Gu, euskera saio onetan orain urtebete asi giñan.

Aurrez be, aldi batzuetan izan zan zerbait euskeraz. Orain urtebete, eguerdian ordubeteko saioa egiñaz asi giñan: errietako albista saioagaz. Aurtengo udan beste ordu t'erdi geiagogaz ekin geuntson. Eta urrillaren lenengoetatik geitu egin ditugu euskal irratsaioak.

—Nor izan zan lenengo arduraduna?

—Eduardo Barreda jauna. Arduradun edo zuzendari.

—Nortzuk dira gaurko arduradun?

—Jose Migel Azpiroz jauna.

—Zenbat ordu betetzen dozuez euskera utsean eta zenbat izkuntz bietan?

—Euskera utsean, bataz-beste, iru bat ordu. Beste orrenbeste inguru, izkuntza bietara. Gaiñontzekoa, goizeko 8,30'etatik illuntziko 8'arak arte, musikea, Radio Nacional eta erdal saio batzuegaz.

—Uste dogu, jente askok ez dakiala oindiño ze orduetik ze ordutara agertzen dan saio au. Zeintzuk dira orduok?

—Askok ez dakie, eta gauza askogaitik: Batetik F. M.'n egiten dogulako. Bestetik F. M. bako irrati-tresna asko dagolako, Baita Bilbo'ko Erri-Irratiak F. M.'rik dauan be ez dakielako, etabar... Eta azkenez, Bizkaia'n leku askotara ezin delako eldu gure F. M. au.

Orduak? leen esan dautzudan lez, goizeko 8,30'etatik illuntziko 8'arak arte. Euskeraz geien egiten diran orduak, oneik:

8,30 - 9,30: «Egunon, legunok».

9,30 - «Gure errietatik» (egun bitik bein).

10,30 - 11,00: Azoketako barri.

12,30 - 13,30: Eguneke eta errietako barriak.

13,30 - 14,30: «Lagun artean».

15,30 - 16,00: «Andrazkoentzat jakingarri».

19,00 - 19,30: Kultur gaia eta azken albistak.

Laster, euskal ikastaro bategaz asiko gara.

—Egun osoa betetzeko baimenik bai ete?

—Baimena gauza askok osotzen dabe.

—Zer bearko litzake?

—Danon ardurea eta erantzuna, egun guztiko programaziño batek bear-izan aundiak ditu alderdi guztietatik-eta.

—Zenbat entzule daukazuez?

—Nork jakin? Toki batzuetan asko, baiña larregirik ez. Kontuan euki bearra dago leen esan dautsudana: F. M.'tik egiten dogula eta gure probintzi menditsu onetan ezin dala toki askotan artu.

—Bizkai guztitik entzun al leiteke? Bai? Ez? Zergaitik?

—Bizkai guztitik? Ez, ez. Ez eta pentsau be. Itxas-ertz alde guztira ez gara eltzen. Bai, entzuten dabe goi samarrean aurkitzen diran auzoetan. Baiña errietan bertan ez.



—Eta Gipuzkoa, Araba edo olakoetara eltzen ete da?

—Ezetz esan geinke bete-bete. Kasu berezi batzuk jazo dira, leen aitatu dautsudana gaitik, alegia, goialdeetan edo zuzenean arrapatu dabelako. Beizama'tik, Gazteiz aldetik, alegia, goialdeetan edo zuzenean arrapatu dabelako. Beizama'tik, Gazteiz aldetik eta Leiza bertatik idatzi dauskue F. M. entzuten dabela esanaz. Orain, gauza jakingarri bat esan bearra dago: 1975'ganean F. M. Bizkaia soan entzutea lortuko dogu.

—Diru laguntzarik?

—Ortik beti gabiz makal euskal-arloan lan egiten dogunok.

—Zer bearko zenduke ia egun guztia betetzeko?

—Aurreko itaunean agertu dozuna bai beintzat.

—Zergaitik F. M.'en saio oneik? Ez litzake oba izango O. M.'an botatzea jente geiagok entzun dagian eta urriñago joan daiten?

—Oba? Une onetan, dudarik ez. Baiña erabagi ori gu emen sartu aurretik artuta egoan.

—Laguntzarik bear dozue? Diru-laguntzea emoteko AGUR gaizki, baiña zabalkunderako gertu!

—Jentea, orain arte, laguntasun aldetik ondo prestau jakula esan bearra dogu. Gugaz lana egiten dabenei eta lanerako prestu jakuzenei eskerrak emon bearrean gagoz.

Laguntasuna atsegiñez artzen dogu; naiz zuena, naiz edozeiñena. Diru kontuari itxi egingo dautsagu.

—Nundik bialtzen dautsuez albisteak?

—Batez be Bizkaia'n irrati entzuten dan euskaldun erri nagusienetatik.

—Jende jatorra dozue errietan, ala iñoiz uts be egiten dautzue?

—Jatorra, benetan.

—Zelako euskerea erabilten dozue?

—Bizkaitarrei itz egiten dautsuegu-ta, jakiña, bizkaieraz. Aal dala Bizkaiera osotu baten, edo osotuzako baten.

—Lanak etorten jatzuezenean, bertan datozen lez irakurten dozuez ala iñoiz apur bat orraztu be egiten ete dozuez euskera aldetik?

—Bai, orraztu be bai. Baiña guri albistak bialtzen dauskuezan geienak naiko ondo dabiz euskera aldetik.

—Iñoiz —danon antzera— ta joskera aldetik batez be, uts batzuk izaten dozuez, ezin ete legike zuzendu ori?


—Zuzendu leike, eta zuzendu bear. Ez joskera aldetik bakarrik... gai alde, teknika... etab, be bai.


Onetan geu gara alegindu bearrean aurkitzen gareala konturaturik gagozenak. Dudarik barik mikroaren aurrean jartzen gareanok dogu bereiziki premiña ori; baiña gure entzuleak be gure utsak, edo euren gurariak agertuaz, laguntasuna eskeiñi aal daiskue.

* * *

Pozik entzun genduzan jakingarriok, eta aukera ona izan dogu etxea goitik bera ikusteko, ango lan-gela, tresna, ereskin eta abar. Eskerrak benetan, orretan lagundu euskuen Iraolagoitia, Uriarte, Egileor eta Muñoyerro gazteari. Zuen lanekin eta erriaren bultzadeekin ea irrati indartsu bat lortzen dogun, egun osoko euskerea izan dagigun.

ASTONDOA





Benetakoak!

Guda aurrean, Gallastegi'tar Eli izan zan «Los agotes de la Gran Vía» izenburudun idazlan bat argitaratu ebana. Ez dakit noiz eta nun, idazlan au irakurtzeko aukera izan neban. Ez naiz ondo gogorutzen, baiña gaia, gitxi gora-beera, au zan: Euskaldunak, Bilbo'ko kale nagusian zear ibillaldi erakusgarri bat egiteko ere izan ebenean, ango biztanlerik geienak, olakorik ez ikustearren, leio ta ateak itxirik, alde egin ebela... Ori zala bide, Eli'k adarra ederto jotzen eutsen.

Ona emen urte askogarrenean, eta ibillaldiak egiteko aukerarik ez dagonean, ni be «agote» aginda; kale onetan bizi naiz-eta. Naizta batzuentzat «burgeskari txiki itxurazkoa» izan, etorri nintzanetik, orain bete al izan dodan asmoa, euki dot: nere umeekin euskerazko alkar-izketa zaratatsuenen kale onetatik ibiltzea.

Olantxe urten nintzan lengo igande baten nere alabatxo zarrenagaz. Kalean gora gentozela, Mokoroa Aita topa gendun. Olakoan ba-dakigu, euskerearen egoreatzaz itz egin bear. Ain ondo ezagutzen eta maite dauan Bizkai'ko euskalkia galduko ete dalakoaren kezka dago Mokoroa Aita; olako aberastasuna galtzeak min aundia damotso.

Gero, «Ortik eta Emendik» bere lanari buruz ekin geuntsan, asko aurreratu arren, beste urte pare bateko lana, gitxienez, ba-daukala esan eustan. Eta lendik lanaren lanez erdi gaintuta dagoan gizonak, beste lan batzuk be esku-artean artzen ditu. Oraingoan, argitarailleak eskatuta, Manu Sota'k osotutako itze-giaren zati bat be, iritzia emoteko, iruntsi bear izan dau. Esan eustanez, lan sakona ta mardula da, ikaragarrikoa. Ez da ba arritzekoa Basauri'ko sariketan, oraintzu, lenengo saria ateratzea... eta oindiño ez ei dago lenengo alea baiño argitaratzeko gertu!

Sari ori ondo irabazita dagola ikusteko, ez dago epaimaikoen nortasuna aztertzea baiño: Manterola'tar Gabirel oorezko euskaltzaiña; Kerexeta'tar Jaime euskaltzaiña, aztertzaile ta langille purrukata, ta Oleaga'tar Jesus, euskaltzaiña ta Euskerazaleak Alkarteko lendakaria, bazkide guztien artean auteskunde bidez izandutua. Maikoen iritzia naiko izanik be, Mokoroa Aita lako izkuntzalari ospetsu batek lan au onela goraltzeak, poztu ginduzan.

Jardunaldia bete ondoren, aldendu giñanean, nere alabatxoak itaundu eustan: «Aitatxu, nor izan da bizkaierea euskalkirik aberatsena dala esan dauan abade ori?». «Ori, laztana, Mokoroa Aita izan da, Euskal-Erria'k eta euskereak daukan jakintsurik aundienetarik bat».

* * *

Eliz-gizon eta jakintsu au aipatu dodan ezkerro, beste aipamen bat egin barik ezin ixildu. Ez nai neuken aiña bider, baiña noizik bein, Donosti'ko «Diario Vasco» izparringiak argitaratzen dauan euskerazko orri-aldea eskuratu al izaten dot. Ez da makala Pedro Berrondo abade adiskideak daraman lana!

Dirala urte asko, Don Pedro, Arantzazu'ko batzar paketsu areitako baten ezagutu nun. Arrezkerro; Euskaltzaindiaren Gipuzkoa'ko ordezkari zana, batzar eta euskerazko jaialdi geienetan ikusten neban.

Bein baiña, «spanish-show»a asi jakun, «nobillero —toriadore be egin da— banderillero» ta guzti. Zezenak adarka asi ziranean, Lekuona'tar Imanol jaun agurgarriarentzat izan zan adarkadarik okerrrena, baiña ez zezenak oi dabon bezela, aurrez-aurre; akarren antzera baiño, atzetik.

Olakoak ikusirik, Berrondo Jaunak ez eban orreigaz geiago artu-emonik izan nai. Ekaitza baretu arte obeto gagozala kaiaren babesean eta galdu gendun alkar-ikusteko erea.

Orregaitik poztu giñan bene-benetan, Don Pedro euskal «asteroko» zabalduenean zuzendari dala jakitean. Bai jaunak, zabalduenean! Zenbat ale zabalitzen ete ditu Diario Vasco'k? Noiz lortuko ete dogu Bilbo'ko egunerokoetan beste orrenbeste? Dagigun amets! Baiña bitartean bego Berrondo jaunarentzat nere agurrik eta zorionik beroena.

«Ekin eta yarra»... baiña gure nortasunaren «ekin eta yarra»ari. Besteari? Or konpon!

ARENAZA'TAR JOSU

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, bereko, politiko naiz ondasungarri asmoen gaietiek dabon iritxi-onoeko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxi, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egileak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M.^a MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Carretera a Galdácano, 32-Bilbao-4

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guttirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

ORBELAK

IRUROGEI URTE

Bizitzako azken zatira eldu naz. Igarri barik.

Irutik bi egin dodaz beintzat. Bear ba'da lautik iru be bai.

Oraindik lanerako gogoz, ori bai. Aldantxo egiteko asmoz.

Irurogei ez dira 47 ez 53. Ba dirudi aro barri baten sartzen dala bat, etapa barri baten.

Egia. Beste urtetan baiño ardura geiagoz begiratu dautsat egunari. Azken izki edo letrara ba noa: Z'ra. Zartzarora zegaitik asten ete da z'gaz?

Tolosa'n, adiskide baten etxean, ikasteko eta atsedean egiteko gela alai eta zabal baten, beko suaren irudiz egifiko tximiniari ezarrita, iru berba oneik irakurten dira: Pozten. Bil-tzen. Berotzen.

Ori da patxadaz bizitzea suaren laguntzaz!

Baiña konturatu. Berba bakoitzari letra bat bakarria kendu. Ain zuzen be asierako letra bakarria kendu, eta orra: Ozten, Iltzen, Erotzen (zorutzen). Ain zuzen be iru berba pozkorren esan naia, biztueratik amatatzera aldatu.

Guzurra dirudi letra bakar batek ainbestean aldatzea berben esan naia eta tximini orretako gaia, lema.

Ez dakit zegaitik gogora etorri yatan tximini a. Une batetik bestera euki neiken aldakuntzagaitik?

Nire buruagaz berbetan diardut:
—Pozik?

—Ainbestean.
—Ametsik bete dautzu bizitzak?
—Ametsetan asi orduko egi gordiñen batek itxartuten nau.

—Gaztetasun ona igarota?
—Sekula ez dot maitatu gerrarik ez aren ondoren. Eta kontuan euki europar gerran jao eta gure gerran urteko kintoa nitzala.

—Zeuk nai zenduna izatera eldu zara bizitzan?

—Ez. Bete-bete, ez.
—Pot egindakotzat zagoz?

—Beste zerbaitetan gogotsuago ekingo neutsan.

—Bat aukeratzekotan, zein erritan biziko ziñan pozkiroen?

—Edozein erri baketsutan. Lenengo, ni-rean.

—Atsegin bat?
—Toki barriak ikustea.

—Beste bat?
—Euskeraz idaztea.

—Noiz arte?
—Norbaitek adiskidetasunez esan arte txotxatuta nagola. Bitartean al bestean ekin.

—Zaartu zareaala konturatuta be bai?
—Zaarrak ez al dauke munduan euren zeregiñik?

—Orretara, zer da zuretzat zartzarora?

—Bizitzako orbel bat.

ZUBEGI

AURTEN IKUSIA

Berandu natorkizute...

Ez da oso-osorik nere errua.

Izan ditut bai eragozpen uste gabeak;
aitzekiak ez, egitan dizuet,
atzerapen-aldian jarri nautenak.

* * *

Ala izanik ba noa nere arira.

Joandan Udara kaxkar asieran,
Oñati'n, Euskal-liturgiko astean,
uts bat egin gabe izan nintzan.

Batu giñanok?... Asko.

Apaiz, lekaide, baita lekaima.
Azken auetatik, konbentu itxietako batzuk,
bear ziran baimenak lortu bai zituzten.

Gaur arte sarri idatzi degu lekaimen aurka.
Ez ziran palta zio-arrazoiak noski.

Ala ere egia, aitortu bear,

Oñati'n ikusi detena ondoren.

Aurrerakoan zuurki jokatu bearko degu
nere uste-gardiz beintzat.

* * *

Gure batzar danak,

Beneditar lekaimen etxe alai, izan ziran.

Lenengo egunetik nolako arrera!

Etxeko danak, Abadesatik asita,

bai danak,

irripar goxo ezpañetan,

gure serbitzari-mirabe egiñak.

Arritu zaite irakurle,

dan-danak euskeraz mintzatzen.

* * *

Euskeraz... bai alaxe da.

Ta arritzekoa degu, noski,

ez bai degu monjetan ori sarri ikusi.

Ba-da geio oraindik.

Konbentu ortan,

elizkizun ta otoi danak,

euskera utsian dirala egiñak.

Ta nolako biotz-gar ta jaierez!

Salmo abestiak, zalaparta gabe,

abots leun-garbiz xamurki,

danok bat egiñik.

Nai al dezu jakin, nola otoitz egin?

Or dezu etxe-egoki bat Oñati'n.

* * *

Benito Deunaren egunian,

egoki zaen bezla,

bazkai goxoa noski.

Jai... Meza ta Maian.

Ta bai ondo maneatua!

Bazkaiaren bukaeran,

bertso saioak izan genitun.

Asko gai-parragarri dun.

Bertsolari batzuk,

monja itxietakoak,

nolako ganora, gañera!

Teresa Deuna, ez al zan orrelakoa?

bañan euskeraz, bai al da lenago ikusitakoa?

* * *

Gu, Gizasemeak,

Arantzazu'ra jotzen genun lotara.

Euskal giro garbiz, biotza poztu naita,

goiz jeikitzen giñan,

koruko salmo-kanta arrapatu naitan.

Bañan, oi naigabe ta biotz miña!

Ez genuen giro ori arkitu.

Egia, aldare nagusian, meza ixilla euskeraz,

Aita Villasante'k ematen zula.

Zerbait zan...

Ez genuen uste Arantzazu'n orrelakorik

ikusi bear gendunik.

Egun oietan,

beste Euskal-erriko Ama Birjiñari,

eskeñi nion olerki baten bukaera,

etorri zitzaidan burura:

Bañan Ama maite kutuna,

Biotza det txit samindua.

Euskaldun,

ziñan len...

Gaur egun,

erdaldun.

OLABEAGA'TAR IÑAKI

JAKINTZA ARLOA GALDERAK

EDESTI-AURRERA (Jarraipena)

A.—Goitik, aidetik egiten dan azterketa

Egazkiñetik egiten da, ta orreitatik ataritzen diran argazkiak giza-begitze soillak baiño askoz ezaupide geiago erakusten dabe.

Itzaluneak.—Garrantzi aundia dabe illunabarrean egiten diran aideko azterketak. Egurenaren amaierako eguzkitan, lurraren urten-guneak daukeen kerizpea egun sentiko argipean baiño geiago luzatzen da-ta.

Era onetako ikasiak ondo emon dira Afrika'ko eta Amerika'ko eremu ta ordeketan.

Landaren mardultasuna.—Landaraz eta zugaitzez estalitako tokietan erabilli dan azterkera da au. Illobi, bizitoki edo potzuak egon diran tokietan zugaitz-landarak oso mardul etortzen dira. Galtzada, orma naiz onelako kondar gogorak lurpean dagozan lekuetan oster, zugaitz-landara makalagoak agertzen dira.



Gorripeko margodun argazkia, tamalez ez dogu margoz atarateko biderik.

Esan danez, azterketa au egazkiñetik egiten da. Arzuloak dagozan bizkarretan be, inguruko tokietan baiño zugaitz-landara mardoagoak azten dira. Euskal-erri'ko leiza edo ar-zulo askoren gainean agiri da bereiztasun ori.

Margoen agerbidea.—Leku batean ala bestean izan, margo ezbaridiak erakusten ditu lurak. Bardin bedarrak eta landarak be. Lur-landu batzuk margo illuna dabenean, bertan usteldutako zenbait organiku gordetan dabezala adierazten dabe.

Galtzada, orma edo onelakorik ba'dabe azpian, legorak jota, landarak zimeldu egiten dira. Olako barik azpian, lur bardiña daben landarek ez jake onelalorik jazotzen.

Goitik egindako azterketa oneitan batutako aztergai guztiak, estereoskopi izeneko tresneagaz aztertzen dira. (Gr. estereos=sendo, gogor + scope; scopein = ikusi).

Zertzelada guzti oneikaz topografi bat emoten dautse arkeologoeri.

B.—Urpeko azterketa

Azken izotz-aldian, Europa'ko itxas-ertzetan, 100 m. beeratu zan itxasoa. Orreexgaitik, ziur esan legike, Goi-Paleolitos aroko zenbait preistoriko bizitza leku itxaspean gordeta dagozala gaur.

Ikasketa onen aurrerapenari esker, mundu barri bat aurkitu al izango da itxaspean.

D.—Tximist-ekarpenez azterketak

Onelako tresnak zeregin askotarako erabilliak izan dira azkenengo urte oneitan. Gaur eguneko arkeologoak azterketarako darabiltzen tresnen artean, tximist-indarkin bat eta lurrean sartzeko elektrodo bi daukiez.

Azterketa oneitan batutako jakingarrien bidez lurraren irudiak eratzen dabez arkeologoak bearrean asi baiño leen. (Jarraitzeko).

ARRATIKO IKASLE TALDE BATEK

- 1.—Langilleak euren eskubide guztietan ondo dagozala uste al dozu?
 - 2.—Ez dozu uste lantegia langillearentzat askoz zabalagoa izan bear litzakela?
 - 3.—Ez dozu uste lantegiak langillearentzat formaziño aundiago bat osotu bear dabela?
 - 4.—Zuk lan egiten dozun orrek, lantegietako «kontrolak» bearrezkoak dirala uste ete dozu?
 - 5.—Ta, ez dozu uste, langilleak jasoten dabezan «primak» giza-izakerearen aurka agiri dirala?
 - 6.—Zergaitik ez dauko lantegi bakoitzak bere «ekonomato» bat?
 - 7.—Ez ete dau lantegiak langillearen seme-alaben eziketegaz arduratuta, orretan lagundu bear?
 - 8.—Ta, ez ete dau langilleak lantegiko irabazkiñak zelan dabizan jakin bear?
 - 9.—Zergaitik ez daki langilleak iñoiz zeintzuk diran berarentzat arazo garrantzitsuak?
 - 10.—Kooperatibak Euskalerra'n etorkizun aundia izango dabela, ez ete dozu uste?
- Zure iritxia bear dogu, langille ta jakintsu. Erantzuterik nai ba'dozu, bialdu zure lana zuzenbide onetara: AGUR, Apartado 2, Bilbao.

TXALAPARTA

BATZARRAK DIRALA-TA

Euskaldunak ixilla dan entzuna daukala esaten dabe: berba gitxikoa, serioa. Ez dakit egia dan ala ez, baiña esaten dabenean zeozer izango da.

Ez da baiña nire gogoa euskal-sikologia aztertzea, orretarako ba-dagoz ni baiño ikasiagoak. Emen, arlo onetan, moda bat baiño ez dot aztertuko: moda au batzarrak egitea da.

Aldi onetan, au, emen eta egun askotan zelango-alango batzartxo bat dogula esaten dogu. Beste munduko gauzarik ez litzake izango batzar orreik zelangoak direan aztertzean.

Batzarretan jente bereziak egoten dira, ta bereiztasun orretik taldetxo batzuk sortzen dira.

Jente klase bat edo bateronbat berba asko egiten dabena izaten da; onek, bere berbeagaz beste guztien biotzak biztu ta berotzen dauz.

Beste taldetxo bat, berba gitxiago egin, baiña itxura baten asko pentzatzen dabena izaten da. Azkenez, ez pentsa ez berba «egiten» dabena; antxe egon bakarrik. Zetan esan be ez, beti agertzen da katuari bost anka aurkitzen alegintzen dakiana be.

Azalpen oneigaz, asko itaunduko da: «Orduan zu batzarren aurka zagoz!» Ez, ez nago batzarren kontra, berbatsuen ta lerdoen aurka baizik.

Batzarrak, elburu argi barik egiten diranak, kendu egin bear dira. Batzar bakoitxean lau edo bost azkenkuntz atera bear dira, eta *norizuk* —eta au da garrantzizkoa— elburu orretarako edo bide orreitatik jarraituko daben azaldu.

Orduan, argi dago gai au: Azaleko batzarrak, elburu bakoak, ez. Besteeri, bai.

Argitu nai dodan beste puntu bat: Berba bat be ez daben asko egoten da, agorik ez dabe zabaltzen, iñork be ez daki zer asmatzen daben. Au, batzarrean.



Baiña batzarra amaituten danean eta ondoren jentea tabernara zeozer artzera-edo joaten danean, orduan, an batzarrean ixillik egon diranak —au izugarria!— «pote» baten aurrean berbatsu, ideatsu ta beste gauza batzuk, leen pentsa be egingo ez gendukezanak, azaltzeko izlari biurtzen dira. Olan-gorik...! Au, ikusten dozuen lez, ez da leiala izatea. Pertsonak, bakoitzak bere iritxia mintzatzen eta besteena, bear ba'da, argitu ta laguntzen alegindu bear dira. Ez bakoitzaren kolkoan, dirua bankuan gordetzen dan lez, lotu ta ixiltzen.

IRRINTZI

eziketa jostailluak
eskulanetarakoak
irakasketa gaiak

gregorio de la revilla, 1
bilbao - 11

Jolasean ikasi, or zure aurrentzako emoitzarik onena

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra
BILBAO - Casco Viejo
Tenderia, 15 eta 16

DURANGO'KO EUSKAL-JAIALDIA

Etxe onetako adizkide bi izan ziran jaialdi orretan, eta biak bota dauskuez euren eritxiak, ta zer esanik ez, biak pozik agertzen doguz gure irakurleen jakingarri izan daitezcan. Bi ikuspegi ta batuz besteagandik urrin. Olan ba, an izan ziran entzuleen eskuetara jo bearko dogu azken eritxi osotu bat lortu nai ba'dogu. Emon zurea be, arren.

JAIALDI POLITA

Azil onen 2'gnean, Durango'n, euskal-jai bat izan gendun. Egitarauan oneik agertzen ziran: Mikel Laboa, Arza anaiak, Lupe, Xeberri, Pantxoa ta Pello, Gontzal eta «Oihartzunak».

Oso ona izan zan jaialdi au, batez be gauza barriak agertu ziralako. Baiña dana esan bear danez, entzun ziranetatik gauza barri batzuk jente askok ez ebazan ulertu. Ala ta be, Durango'k eta batez be «Gerediaga» taldeak, euren jakintza ona argitaratu al izan eben euskal-jai onekin.

Onan bete zan jaialdi ori, baiña aurretik esan bear dodana, auxe da; Pantxoa ta Pello'k ez ebela abestu al izan, debekatuak izan ziran-eta:


Asteko, Arza anaiak. Txlaparteakin ziran. Benetan gitxi izalagotera Euskalerrria'n, euron antzera joten dakiennak. Olerki batzuk be irakurri euskuezan; txarrena jenteak gitxi ulertu berez gatzak ziralako-edo...

Gero, beste giputz bat, oso ezaguna berau Euskalerrri guztian; Mikel Laboa. Ez da asko aldatu, baiña bai aldatu dirala bere abestiak, bai. Oso gatz egiten da abeslari oneri ulertzea.

Irugarrenez, eta lenengo aldia edo zatia amaitzeko, bertako erritar bat; au Xeberri. Antxiñako bertsolarien abesti batzuk eta barriren bat be eskeñi euskuzan. Onenbeste esaten zala be entzun neban: Xeberri'k eta bere abestiak sakondu bearra dabela oin-diño.

Gontzal'ek emon eutsan asierea bigarren zatiari. Mutil au ba-doa ikasiaz, eta bere abesti bat gogoratzen dot ederki: «Bat arratsean amets egin dut erriko buru nintzala...» zuzentzuna ba-zala; danok aske giñala...

Bermeo'ko neskatilleak, au da, Lupe'k, bere abots ederrakin bost edo sei abesti azaldu euskuzan. Asko ikasi



dabela uste dot, eta ondo gaiñera. Baiña bere abestietan garraztasun apur bat falta jakola uste dot.

Azkenez, eta jaialdi au hukatzeko, Arrati'ko «Oihartzunak» taldea. Luzea izan zan oncin saioa, baiña jakin izan eben jentea pozik itxiten, aspertu barik gaiñera.

Zorionak daneri ba, eta batez be Gerediaga taldeari.

TXINDOR

JAIALDI MAKALA

ABESLARIAK ZERTARAKO, EDO ZAPATU GAU BATEKO TRIPAKOMIÑAK

Durango'ko abesti-jaialdi inguruan, gure aragoak astintzeko euskaldunok daukagun eskubide eskasari oratuz —nik neuk arrotzeri ez bai neuskie olango grazirik egingo— eta onuragarri izango dalakoan, neu bere AGUR'eko plaza barritu onetara jalgitzen naz.

Berba gitxitan esan da, Durango'ko jaialdia aspergarria iruditu jatan. Musika aldetik traketsa, itzen aldtik penagarria.

Au be esan bearra dago: millatik gorako jentetza a txaloka gogor aritu zala. Beraz, oneri azaletik begiratu ezker, nere eretxi oneigaz bat ez letorkezala dirudi.

Baiña emen, gau artako nere tripakomiñak asten dira. Nere ustez musika oso eskasa ta letra ezin ergelagoa entzutean, jenteak zeri egiten eutsan txalo? Ala jenteak edozer txalotzen ete dau? Eta ez dot uste au egia danik. Ala nere musika gustoa bakarti geratu ete da? Ala, —eta au bai egia— jenteak euskal-giroa txalotzen al dau, batez bere?

Baiña, jente ori gustora geratu al zan? Zelan urten eben jaialditik, atsedean aldi bat igarota geroko irriparreakin ala betebear bat egin ondorengo arpegi mosoloakin?

Ba, emen, eta beti iñor mindu gura barik, gauza bat esan bear dot argi: ni neu, abesti-jaialdietara ondo pasatzera joaten naz, bai orixe. Euskaldun lege, nere gogoak, miñak, amodioak eta abar, kantuz bustitzeko ta azaltzeko eskubidea praktikatzera; baiña ondo pasatoa, ori bai.

Durango'ko abesti saioa oster, tostonada izugarria iruditu jatan. Bai, berba lodi asko ta burutapen gitxi; ala, bear ba'da, artista izan ez-eta sermolari izan nai?

Izan bere, gure eguneroko bearretan, ordurik ordura eta bakotxa bere saillean Euskalerrria jasoten eta bere buruaren jabeagotzan diardugunok, ez al dogu merezi sermoi kazkar batzuk baiño geiago?

Aztertu bearra auxe, euskal-musikea —beste arazoak lez— naiko makal bai dabil. Eta ganera, batzuk, euren iñozentzi edo azpijoko maltzurragaz, arlo onetan be, subdesarrollo jakintza batera eroan gura gaitue. Irakurri osterantzean Zeruko Argia'ko 605 zenbakian, Ataundar gazteeri zuzendutako idazkia.


Euskaldunok antza, ez dogu jolasteko eskubiderik; euskaldun semeak, langilleak tartean, ez dogu antza artistarik merezi. Nere ustez, ordea, abeslariak ba-dauko bere zeregiña; bere tokitxo gure errigintzan. Danok ezin garanez ortara lotu, eurak sortu bear leukeez gure gaurko Euskalerrria'k bear dituan abestiak: Gai zabal bategaz, poesia egiten aleginduz, eta eguneroko gizarte-errotan eiotzen diran arazoak norberaren lanaz edertuz, barriz bere gure erriko plazara jaurti al izateko.

Gure mai inguruetan eta sabelari berea emonda gero, gustora kantatuko doguzan abestiak bear doguz gaur bere; gure nortasuna azaltzeko eta indartzeko, eta ez «kontzientziatuta» saiorik edo panfletada merkerik.

Egunero aurrera egin naian bizi dan Euskalerrri onek, noizean bein abesti atsegin-garri batzuk entzun al izatea eskertuko leuke. Ni neu eta beste asko eta asko bere, ondo «kontzientziatuta» gagoz, eta interesgarriago dan beste zeozer itxaron dogu gure artistengandik.

MAMATXA

Euskaldunak LO!!



Aurtengo txartel onetan Kili - Kili'k zirikadea (botaten dautse gure errietako umeen erresponsabilidade dauken guraso, irakasle, abade ta erriko gazteai.

Bai. Kili - Kili minduta (dago: Erria makal, euskerea il (zorian... ta euskaldunak LO! Umeen alfabetatzea ara- (zorik beiñena izanik, umeak eurak prestegon... ta euskaldunak LO!

Kili-Kili'k aurrerapide guztiak emon (narren «Lan ta Lan» kuaderno ikasbide erre- (zak, eskursiño ta sariak, danetariko laguntasunak... guraso, irakasle, abade ta erriko gazteak zirkiñik bez!

Kili-Kili onelan umezurtz izten (dabena) egingo ete dabe besterik? Al doguna egiten ez ba'dogu, zetan gabiltz askatasun geiagoren eske, zetarako bear askatasun ori?

ZUZENDARITZA

FERRETERIA UNCETA, S.A.

Landola tresnak - Galtzairu neurri zeatzekoak

Langailu guzietarikoak - Leunketa gaiak

Ibarrekurutz kalea 14

71-10-00 Urrutz.

Apartado 18

E I B A R

Aztergarriak

ALARGUNA

ILDA GERO BE

Arjentina'n, urrilaren 16'nean, gazte talde batek, Aranburu'tar Pedro Eugenio'ren gorpua bere illobitik atara ta ixillean eroan dau. Aranburu, lendakari izanikoa, «Montoneros» taldeak atxilotu lenengo ta gero erailla izan zan. Talde onek orain, Eva Peron'en gorpua barriz aberriratu izaten ez dan bitartean, Aranburu zanaren gorpua ez dabela biurtuko diñoe.

Illak be ez ete dagoz ziur!

* * *

TA, SENIDEAK?

Salvador Allende zanaren arrebea espetxeratu izan da Txile'n. Laura Allende au, sozial diputadua izan zan, «Unidad Popular» ekoen jaurlaritza aldian. Lotutzean, ertzainak indarkeriz jokatu dabe.

An beintzat, indarkeria aurrera ta aurrera doa.

* * *

SARIAK

Au irakurten dogu aldizkari baten: Arjentina'ko lendakaria dan Peron'en alargunari, «Ameriketako Anderea» saria emon dautsoe. Emazteki aurrerakuntzarako eredu ederra. «Erriarteko Askatasuna»ri eskeiñia, Pinochet gudalburuen batzarreko lendariari ostera. Amaika ikusteko jaio giñoazen-eta.

Ta, «Erriarteko Bake»rena, Paraguay'ko lendakari dan Stroessner'eri. «Zorionak»!

* * *

DIRUA ETE-DA DANA

Prantzi'ko jaurlaritzak, erbesterako irratsoiak bazartu egin nai ditu, orretan eraligite dana aurreratzearren. Aulan, 500 izparlari lan barik geratuko dira, baita egunero izaten diran gaztelarazkoak be xildu. Asmo orren aurka, irratikoak, lanari uzte luzeak egiten diardue. Tamal andia izango litzaike gure aspaldiko Paris irratiko lagunei agur egin bearra, ainbat aldiz arretaz entzunda gero.

* * *

TXIKIAK TXIKI

Rin ibai andia, zinkin dabil aspaldi, kalterik andienak ur-beera bizi diranak. Oneik, Beneluxtar iru laterrak, beste lagun aundi bieri, Alemani ta Prantzi'ri, ibaia danen artean garbitzea eskatu dautse. Andiak, oraingoz beintzat, ezetz; txikiak, Nerderland, Beljika ta Luxenburg, asarre benetan.

* * *

JOANAK JOAN?

Il onen 4'gnerarte, Ulster'eko burrukan il diranak, 1.100 izan dira, egun orretan biribildu da zenbaki ori. Arrezkero be joan dira beste batzuk. Ta azkenik ez da ikusten, ez da iñundik agiri ori zuzenduko daben erabagi, alkar-izketa edo olakorik.

* * *

BERA NAI TA GORA

Brasil'ek, baita Colombia'k, alegin gogorak egiten diardue salneurriak gora ez dagien egin. Bide bat, salgaien zerga jasotzea izan da, baiña alperrik. Ez ei dau erriak alperriko edo lujoko gauzarik erostea laga, bestera, len

lez erosi ta alogera andiagoo eskatu, erosi nai dabena garestiagoo dagolako.

* * *

ZUR BAIÑA

Era berean, Israel'en be, zergak gora, diruaren balioa % 40 bera, atzerriko jangai ta edergarriak sartu ez. Bizi-naiaren alegiñak. Etxekoandrak asarre!

* * *

EMEN DITUGU

Iparraldekoak eguzkia maite dabela ta egoaldera al daben guztian ei-datoz. Orain, jakintsuak diñoenez, biotzak uko egitean, bizitza-larri, tabakorri, arnasa-zikin eta abarrek ez eze, zein lurraldetan bizi izateak be ba ei-dau berea: Iparraldekoetan ugariago agertzen ei-da, egoaldekotan askoz be gixiagoo: Geien, Helsinki'n; gero, Turku'n, au be Finlandia'n, urrango London, Stokolm eta Dublin'en. Helsinki'n, azalpen lez, Sofia'n baiño bost bidar geiagoo, batatz beste...!

* * *

ARROLIOA

Itxaspean eskutatuta dagoana, seireun milla milloi upel aiñakoa ei da. Eta gaurko erreketa neurrian beste 30 urterako aiña bai beintzat. Baiña, ludi onek ipar aldean daben txapel-zuripeko itxaso azpian ei dago izugarriko arrolio pilloa. Ea ba!

* * *

ZORATU

Errusitar sendagille jakintsua dan Ivan Okorol'ek diñoenez, gaur darabilguzan geldirik egon eziña, ainbeste gauza barriren azterketa egin bearra, ludiko aldaketa ta aurrerapenen jakingarriak ezagutu bearra, benetan kaltegarri dirala, eta onela jarraitzekotan, giza-garun «konputadorak» zearo ondatuko dirala, ludi au zoro betetik. Aspaldi ez ete garan orretara eldu be!

* * *

LO DAGONA EZ OBETO

Gogoratu nai dautsegu Mungi, Bakio ta onen aldeko lagun guztiei, Lemonitz'ko indar-ete atomikoa aurrera doala, ta Euskalerrri guztian eurok bakarrik dirala lasai ta loak artuta dagozanak, arriskua orren ondoan izanda. Zer uste ete dozue, lagunok, ortik tximist-indarra duan izango dozuela ala?

* * *

GORDE TA IRABAZI

Olio urritzeagaz, dendari batzuk gorde egin dabe, salneurria goratu ta irabaziak jaso arte beintzat. Negozio errez au salatu dabe batzuk, ortik; Madril'en bertan —zoli-zoli iragarri dasku iratiak— diru-zigor eder batzuk jaso dabez oliodunak. Bilbo'n salatuak izan arren be, ez da zigorrik izan, ziorik ez dala izan-eta. Jakin miñean geratu gara ea zeintzuk izan diran ain onak: dendariak, aztertzailleak ala bezeruak.

* * *

Aita ta amaren ardurea, emakumearen ekintzea seme alaben eziketan, orain baiño lenago bere azaldu dogu.

Baiña naita ekintza ori beti arduratsua izan, ama alarguna danean, orduan bai bere garaira eltzen dala.

Ori dala-ta, ta euren itxaropena galdu ez dagien, Jaungoikoaren laguntzaz zintzo jarraitu dagien, ama alargun gazteentzat eredu antzeko bat ezarri nai genduke lerro oneitan.

Billaro'ko Eleizan asi giñan lan ori asmatsen, Larrea ta Yurrebaso'tar Jon Ander, gure Yurrebaso'tar Libe'ren seme kutuna ezkondu zanean Eleiza atan, joan jakun Orrilla'ren 26'an.

Ama-semeak ikusirik aldare aurrean. Libe, ama ta amabitxi bat-baten eginda, gogoratzen asi giñan emakume kementsu onen lanak bere seme biak al izan eban onduen ezitzeko, bai gizon ta kristau lez, baiña baita euskaldun garbi bezela be.

Ainbat urte dira, Libe zenbat? amabost, amasei? Bere Larrea'tar Tomas senar zintzo ta apala, Aitaren etxera deitua izan zala, ta zelako une larrian: Jon Ander ume koskor bat. Ta Jagoba bere sabelean. Arritzekoa ete da ba gure Libe erdi zoraturik ibiltea une atan?

Baiña beste asko euren samintasan ta atsekabeen lokarri bategaz lotuta gelditzen diran lez barik, gure Libe apurka-apurka, ta batez be Jagoba'ren jaiotza ondoren, bera zala aita ta ama ikusirik, ta Tomas'ek asitako lanak jarraitpena bear ebala, Bilbo'n eukan etxe ederra zarratu, bere ordurartiñoko bizi modu lasai edo astuntasun andi bakoari beintzat lepoa emon, ta bere ama maite zan Filomena'ren eskuetan umeak zaintzeko itxiaz, eurentzat ogi billa asi zan.

Baiña ez gorputzak bear dauan ogia bakarrik, naiña bearrezkoa izan a bere, bere ardurarik aundiena: gizon euskaldun kristautasunean seme biak zelau ezi.

Berak iñork baiño obeto, baiña baita guk bere, bere auzunean bizi gareanok, zer bait ba dakigu bere ekiñak eta ardurak zelakoak izan diran. Bai bear dala benetako siñismena Jaungoiko ta Euskal-Erriko legetan, Libe'k ekin dautsan lez jokatzeko.

Ta onela ikusi genduan Billaro'ko Eleizan, Jon Ander ta Santa Maria'tar Edurne, Billaro'ko neska liraiña, buztartutako mezan, zelau emakume kementsu onek gertau eban jai eder bat.

Eleizara eldukeran txistulariak agurtu ginduzan bere doñu alaiagaz, ta bere Agur Jaunak gure biotzak zilikilitu ebazan, Jauna guganatu zanean meza emoillean deira, beste agur zoli bategaz amaitzeko ezkonbarrien goratzarrez, Eleizatik bat eginda urten ebenean.

Ta mezea bera... Aita Juan Jose (nork ez dau ezagutzen Arrati'ko abesbatzaren zaindaria) organuan, andra euskalzale aren eskariz, gure belarriak laztandu ebazan bere euskal-eresi ederrenakaz.

Bai amaiera ederra emon dautsazula Libe, zure seme zarraren eziketari. Zuk ezarritako oiñarrietan jarraitzen ba'dabe (ta onen itxaropenean gagoz) gure Euskal-Erriak adar barri loratsuak laster izango ditu.

ATXUTEGITAR BITOR

ERRENKADAK

Len gozokiña izan zan. Oraingoan olio edo gaimela. Guda osteko aldi lez, «jente-errenkadak» ikusi al izan doguz azoketan, ta artegaz ibilli jakuz andrak ain bearrezko diran elikari bion billa. Arrigarria, erbesteko gasolina garesti ori ugari ikustea, urrialdi onetan, eta bertako olio-gozakiñak bakan. Geigarria errezago or be, bearreakoa baiño.

* * *

OITU BAKOAK

Azkenengo euriakaz, lurrak bera jo ta Ibarsusi'ko bidekurutze ondoan trafikoa eten-da geratu zan. Andik ordu batzuetara, Bitxabalak erakundeko arduradunak bialduta-edo, langille bakar bat baiño ez egoan bidea garbitzeko jardunean. Agirian da, egoaldean ez dabela izan orrenbesteko euririk.

* * *

JAKINGUREA

Bilbo'n, urrilaren 14'nean, emengo Goztain jaunak eta Madril'eko jaurlaritzako nagusiak, alkar ikuste bat izan dabe. Epailleko auzi aretatik lenengoa gure jakiñean. Zer esan ete da?

* * *

INDAR BARRIA

Itsasoan ontzi andi bat; onen barruan tximist-indargille diran turbinak; onen eragingarri «amoniako»a lurrunduko dangaldara batzuk; azaleko beroak laster lurrunduko dau, lurrin orren sakaren eragiñez turbinak erabili, gero, upera, bee-beera, odietan eroan, oztu ta barriz amoiako ori urtuta atzera lurruntzeko erabili. Orrenbeste aztertzen ei dabiz Ipar-ameriketean, eta lortuko ei da. Uñen gora ta beerako indarrekoa be asko aztertzen, dabiz.

* * *

MARGOLARIAK

Euskal margolarien erakusketa bat izan da Bilbo'ko Sala Arte aretoan, il onen 8'parte, amar eguneko epean. Gure margolari andien margoketa txikien bilduma bat agertu da, euren-gintzaren ezaugarri. Ez da izan sarri Bilbo'n olako aukerarik. Or ikusi al izan doguz Zubiaurre'ren ur-margozketak, Arrue'ren errikutsuzko azalpenak, Aranoa'ren lerro-kadazko eraketak, eta beste abar eder bat, sarriago erakutsi bearrekoak.

Poztu gaitu erakusketa onek, beragaitik eta beste euskal-lanederren erakusketa barriak izango diralako be.

* * *

ARGAZKIAK

Beste erakusketa au Gran Via, 19'an izan da, eta Bizkai'ko Ertularien Bazkunak, Bizkai'ko Aurrezki Kutxa'ren babespean antolatua. XI Argazki lanederren Aurkeztea izan da. Ta lenengo ta bigarren sariak, Emilio García Erguín jaunak irabazi ditu: «Artaldea» ta «2 Argazkia» lanekaz.

* * *

GONAK

London'en izan dan azken jantzi barrien erakusketan, gonak, danak, belau burutik beera amar zentimetro. London'etik etorri zan gona motza, orain luzea nai dabe zabaldu. Naiko ete-dabe gure neskatoak?

* * *


AZKEN ORDUKOA

Il onen 24'nean, biar, Bilbo'ko Coliseo Albia'n, Auspo-jotzailleen urteurrena. Goizeko amaika terdietan, Josu ta Asier Loroño'ren bikondean jotaldia. Aspolarin eresbatza, Boni txistularia ta Biotz-Alai abesbatza. Jaialdi ederra benetan!

DANOK

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK


OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK



ZAZPI-KALEAK

CASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIQUEAK



Altzatzu

ERIOZ MINGARRIA OLAZTAN

Urrillaren 24'an zerhait izugarria yazo izan da Olazti'ko «Cementos Portland» landola ospetsuan.

45 urteko gizona, delinanteetan onena, ormaren neurriak artuten egoen; eta egun euritsuak, lurra busti-bustirik, ormea bat-batean ganera yauzi yakon ta antxe gelditu zan illik gure gizon trebe, yatorra ta euskaltzale fiña: Mazkianan ta Agirre'tar Kayo yauna.

Lenengo unean, oraindik agian ez egoela illik uste izan eben; ta arin-arinka Iruña'ra eroien.

Baiña Altzatzu'ra orduko, «ez yoateko aurrera, illik egoela-ta», esan eutsen.

Au tamala! Alako gizona, euskaldun yatorra, bat-batean, gorpu izatea...!

Bere etxean euskerazko idazkunak bai sarreran, bai etxe-barruan, be.

Lau umetxo utzi dauz; andienak 10 urte, mutikoa.

Eta bere andrea, Milagros Lopez de Goikoetxea ta Eskisabel, euskal ikastoletan irakasleme, lan eder-ederra egiten dauena; umetxoai euskera irakasteko trebetasun andia dauena; «AGUR» asteroko au, be, beti irakurtzen dauena.

Atsekabe samiñena darakutsot sendi guztiari, batez be andre naigabetuari ta lau umetxoei. Yendetza andia izan zan Olazti'ko elizan egin ziran illetetan.

Eta ba dabiltz oraindik beste erri batzuetan, be, illetak ospatzen, adiskideak antolatu-ta.

Goian bego gure adiskidea...!

YURRE'TAR YULEN A. K.

Bermeo

MENDIRANTZA GAZTE

«GIZ ZALE» gernikarra: «JATA» mungitarra eta «GARBOLA» bermeotarra dozuz «ITXAS ALDE MENDIGOIZALE ALKARTE»aren irasleak. Iru talde gazte itxasotik urre-urrian bizi diranak. Benetan mendigoizale bizkorrak.

Alkarte oneri bizitzeko emeteko asmoz, lengo igandean, Urrilla'ren 27'an, eta Gernika'ko «GOI ZALE» bazkunekoak antolatuta, ospatu eben «LENENGO NEURRIDUN IBILLALDIA» itxas ertzeko mendi tontoretatik. Egun latza bera bidaztiarentzako. Baiña ze arrayo? Tiki-taka, geldigeldika, mendi ziar neska-mutil ugariyak yuan ziran, alper basa eta ur-ozinatan indunerarte sartuta ibilli euron gorputz eta jantziyak. A ta guzti ere, ondo baño obiago betetu eben euron juan-etorria.

Eguerdiko jatordurako Gernika'ratu ziran, talde-taldea, gaztedi eta zaaragoak ere, euron arpegi eta biotzetan poza ta alaitasunagaz.

Bazkaritara gazte-zaar aldra ugariya batu zan Mungia, Gernika eta Bermeo bitarteko errietatik.

Bermeo'ko txistulari txikiak, eta irraditz bide trikiritxak, poztu eben arkupeko elburu polita, mendigoizaleen etorreran, euron eresi alaitsuakaz.

Mendi kirola biar-biarrezkoa da gaurko gaztediyarentzako, erudutat be artuta: Gizona, ludi ibillaldi latzetan, eraturten da bizitza burrukarako. Eta ganera, mendi goian, erri beeko usteltasunak alde batera itxita, agertuten da gizonaren zintzotasuna. Oldozpen garbi eta ekintza onak dira benetako gizonak opauten dautsana, mendi erpinetan, Egille Altsuari. Batera, sendotu bere osasuna, eta baketu, biotz barreneko asmo eta griñ gaiztoak.

Onelako ibilkerak sarriagotan izan biar litzakez gure gazteen artean. Ikurtzat artuta antxiñako esaeira batek diñolez: Sendotu soiña eta argitu adimena.

«GOI ZALE»: «JATA»: «GARBOLA»: jaitxu onegaitik, zorionak zuberi. Eta Euskal-Erri'ko Mendigoizaleen ordelari dan Lafuentes Ibarrola'ri, eskerrik asko gaztedi aldeko lanagaitik.

JULEN URKIDI



Markiña

JAIOTZA TA BATEKOAK

Lengoai gitxi eretxita, beste gudaritxo bat, bosgarrena, ekarri daukue Jose Antonio Ansola'k eta Tere Kareaga'k. Ansola-batalloia osotuz doa, zere zionez. Ziur gagoz ez dala edozelako batalloia izango; ezta azken geratuko dana be Jainko ta Erriaren alde arpegia emotorduan. Gudaritxo barri oni izena be kiputx-bizkaitar odoleko Kapitán nagusiarena ipiñi dautse: Iñigo. Eta bateatu, zeru-lurretako Gudalburu gorengoenaren egun eta babespean: Mikel gure Zaindarienaren. Etorbizunari begira gaukozuz, ba, itxaropenez, Iñigotxu.

Egun berean bateatuak izan ziran Kristo'ren beste gudaritxuok be: Ivan, Ainhoa eta Maite.

Zorionak biotzez lau umetxuoi! Eta zuok, guraso ta besoetan artu dozuezanok, zur ibilli otso artean, eta alegindu ondo azi ta ezten, benetako euskaldun fededun, Jainko ta erri-zale egiten.

TXUTXO'RI OMENALDIA

Gorengo maillako pelotaria izan dogu Jesus Larrañaiga, Txutxo. Ainbat eta ainbat urtetan aparteko plaza-gizona; pelota-tokiak bete ta ikusleak irakitan gora-goraka jarten ebazana. Pelotari gazte askok euren eredu ta aitatzat euken. Iraillaren 22'an jokatu eban bere azken partidua. Markiña'n asi ta Markiña'n egin dautso agur pelotaritari. Malkoak ikusten ziran askoren begietan.

Andik egun batzuetara, Urrillaren 4'an, omenaldi gozo ta biozkor bat egin jakon ain maite izan dauan Markiña'ko pelota-tokian. Erri osoak parte artu nai, baiña guztientzat tokirik ez. Frontoia gainezka. An ziran Ansola anaia euren txistu-soiñu eztiakin Txutxo'ren eta beste guztion biotzak jaso ta alaitu nairik. Txutxo'ren ereserkia, «Guazen frontoira», jo eben asieran eta amaitzeko «Agur-jaunak», jendetza osoak sendo ta ozen abesturik, Txutxo'ri begira, zutunik eta txapelak erantzita. Ango txalo-zaparradea! Agur, ba, Markiña-Etxebarri'ko pelotari Jauna! Ondo izan Miami aldetik eta ez aitzu zure txoko ta Euskalerriaz. Al dozunean egin onantza ostera batzuk zure bostekoa estutuz poztu gaitazan.

JAI BI LURPERA?

Erri-errikoak izan doguz Markiña ta inguruetan, Jainkoak daki noiztik ona, Irailleko jai bi: Urregarai tontorrean dagon Santapiñe'rena (Santa Eufemia) leengo zarrak esaten eben lez, eta Arretxiñaga'ko Mikel Deunarena. Erri-errikoak izan doguz... baiña aurten biok uretan joan jakuzala esan bear. Ez batean ez bestean ez da izan jai kutsu ta usaiñik. Zergaitik?

Gure Mikel aundiari ikustalditxo bat bere egunean egin gabe ezin egon, eta Arretxiñaga'ra jo gendun arratsaldean kirkil batzuk, kirkil-kuma aldra galanta inguruan gendula. An ez egoan ezer; astegun zuri irudian; dana ixillik. —Ze arraxo pasetan dok emen? alkarri esan ta ermita barrura goaz. Gizon banaka batzuk egozan bertan, baiña ez ekien gure itaunai zer erantzun. —Eztakigu, ba, zer esan... Bazkaixe be ezta betiko lekuen, Xemeu'go Kontseju zarrien ixen, Vega'renien baiño...

Zer dala-ta erriko jai ta oitura zar ederrak lurperatu? Ta abar luze bat. Batek bakarrik ei dauko erantzuna. Erantzun orren zain daukozu, ba, erria, Alkate jauna.

BERTSOLARIEN EGUNA

Urrillak 12. Pilar'eko Amaren eguna. Bertsolarien anaitasun-jai. Markiña'ko karmeldarrenean. Amabi urte izan dira aurten Aita Migel Mari'k jai oni asiera emon eutsala. Eta amabi urteotan aurtengoan bakarrik uts egin dauku sortzailleak. Euskalerritik urrin aurkitzen ei zan, Katalunya aldean, oso lanpetuta.

Amaitetan Meza Santua Aita Akesolo'k, ildako bertsolarien alde. Itzaldi txukuna Meza bitartean egin euskuna, Dextepare, lenengo euskal liburuaren egilleak Ama Birjiñari egindako olerkia oiñarriztat artuta. Egia esan,

ez da Akesolo Aba Euskaltzaindian atzeka atekatik sartu jakuzanetakoa. Iru bertsolarik abestu eben Meza bitartean: Enbeita'tar Balendin'ek, asieran; beronen seme Jon'ek, sagara ondoren, eta Uranga Azpeitiarrak, jaunartze ostean. Fedetsu ta egoki irurok.

Meza ondoren Lekuona'tar Juan Mari'ren solas-aldi ederra leengo ta oraingo bertsolarizari buruz. Adi ta pozez entzun genduzan apaiz gazte onen itzak. An agertu ziran ainbat bertsolari gorengoan izenak, jokera ta bertso-puskak: Otaño, Xenpelar, Txirrita, Xalbador, Basarri, Uztapide...

Gerotxoago norbaitek, kezkaminduta, onan iñoan: Zergaitik ez ete daukue kiputxak iñoiz aitatzen Euskalerririk izan dauan bertsolaririk gorengoenetikoa. Enbeita Jauna, Muxika'ko Urretxindorra? Ez ete zan egiazko plaza-gizon oso ori guda aurretiko Euskalerria zutunik eta irakitan ezarten ebana bere aapaldi sakon eta euskera garbi ederragaz? Nok bete ete dau arek baiño obeto euskal bertsolarien egitekoa? Gure erriaren kezkarik aundiari emonda eukan bere izate osoa... Bestalde, ez da erreza aren bertsoetan akasturik aurkitzea.

Ea, ba, kiputxok, ez aitzu Euskalerria ta Euskerea ez dirala Eibar'ko mugetan amaitzen.

Ordu batak jota, bazkaria praillen jatoki luzean. Kirkillok ez geunkan orretarako deirik eta, lotsa-galdukoak ez garanez, geure zuloxtotara ezkutatu giñan.

Makallau ta napar-gorritz berotu ziranean nok ixildu gure bertsolariok? Abestu ei zan an bertso ederrik! An ei egoan, urtero lez, Pedro Azkoitia jauna, Zeuta'tik berein-beregiz ekarritako txokor luze lodiakin. Entzun bear izan ebazan arek be bereak eta bost! Jakiña, maitasuneko gatz-ospinietan beratutako bertsoak. Azkoitia jauna dogu euskaldunok Aprika aldean gure Enbajadore, eta euskal guda-mutillak euren aitabitxi.

Ekerrak Joxe Mari Iriondo'ren magnetontziari, Loliola Irratitxik entzun al izan gendun urrengo egun baten praileen jotokian abestutako bertso mordo bat. Unkigarriak, benetan, Juan Txikia, il barri gendun apaiz langilleari abestutakoak!

Urrengo urterarte gure Erriaren amasa zarez bertsolariok!

ERIOZTA

Bat-batean, usterik gitxien gendula eroan dauku Jaunak beragana Errekalde'tar Rogelio. Otoitz bat bere alde. Gure samin-agur beroa sendiko ta adiskideai. Goian bego!

URRE-EZTEGUAK

Prailleak be euren ezteguak ospatzen ei dabez; urrezkoak eta guzti. Profesa egitean, Jainkoaren Eleizegaz alkartzan ei dira, ta orra...

Oraintsu, Urrillaren 13'an, ospatu ebazan urrezkoak emengo praille potolo batek. Berrogetamar urte Eleizearen serbitzuan. Ipar-Ameriketan asi ta Ego-Ameriketako barren-txuntxurreraiño bazter gitxi izango dira praille ibiltari onen sermo mardulak entzun eta bere egite onak ikusi bakoak. Jaiotzez Arbazegi-Gerriko'ko semea. Txikitán Markiña'ko eskolan ikasi, kale-bazterretan bereak egin eta gero praille artean ixil-ixillik ezkutatu. Amaika euskal idazlan eta olerki goxo idatzia guda-aurreko, guda-bitarteko ta guda-osteko egunkari ta aldizkarietan. Danetik jakitearren, espetzeko kerizpetan, Besteiro jaunaren ondoan, urte mordotxua emona. Prailletegiko koruan naiz sukaldean, erriko kaleetan naiz frontoian bardin-bardin ikusten dana. Danen adiskidea, goikoena, bekoena ta erdikoena. Txakurrak bakarrik ei dautse benetako gorroto ta ikusi-eziña. Orra gure Batiz'tar Nikolax, Xalokin edo Landaburu.

Zarata ta arro-puzkeri barik ospatu dauz prefesako bere Urre-ezteguak, alkar-meza eder baten benitez Jainkoari eskerrak emonaz, praille, benitarteko ta adiskidez inguratuta. Zorionak, Xalokin! Eta aurrera! Iñoiz barriro keizpetan egon bearrik ba'dozu, ondoan izango gaituzu.

KIRKILLAK

benetako

akeita

CAFFÈ BAQUÉ

CAFFÈ BAQUÉ



utsa

soilla

ARRIATIA

BARRIA

Markiña II

AITA BATIZ'EN URREZKO
EZTEGUETAN
(MEZATAN ABESTUAK)

I

Igande ontan kantari nator
pozez gainezka biotza,
bertso ta doiñuz moldatu nai dot
mezako erri-otoitza;
gure anai dan onen omenez
nire bertsoen eskeintza
zure pozgarri izan nai eta
Jaunari erreguz gabiltza.

II

Gazte gaztetatik asi ziñan
gure Jainkoa serbitzen,
Aren deiarri leial ta pozez
karmeldarretan segitzen;
lenengoetan zeure burua
laiñoz zenduan arkitzen,
gero anaien maitetasunez
zerua asi zan argitzen.

III

Zoriona ta atsekabea,
pozak eta erneguak,
loraz jantzirik udabarrak
ta trixturazko neguak;
zure begien ispillutikan
ango eta emenguak,
atseden antzo ospatzen dozuz
orain urrezko ezteguak.

IV

Zure munduko ibillaldia
ez da izan ez laburra,
zeure Erriari gaztetatikan
egin zeuntsan zuk agurra;
Erritik urrun ibilli arren
gogoan txoko xamurra,
ainbat osteria egin ondoren
barriz laztandu Ama Lurra.

V

Zuri laguntzen etorri diran
ainbat senide onduran
guztionez ardatz bezela zara
Eukaristiko orduan;
Jainkoarekin jarrai daizula
maitasunezko tratuan,
Bere graziaz bete zaizala
eskatzen nago kantuan.

LUIS

Bilbo

UTIKAN!

Separata bezela, «Programa Pastoral para el Curso 1974-1975» ikusi dugu ta eskuetan erabili. Bilbo'ko Elizbarrutirako egitaraua, alegia.

Anexo II-garrenean auxe diño: «Ayudar a implantar la enseñanza del idioma y de los contenidos vascos en las instituciones docentes de la Iglesia».

Amar orridun idaztiñoak erderaz diñosku zer egin bear dugun euskaldunok. Edo zer egin bear daben gurekin. Erdera utsean, tamalez, agintzen dauskue.

Betikoa: morroitzat, morroi merketzat gaitue, antza danez. Eskerrik asko, jaunak! Zergaitik ez dozue lana euskeraz ere eman oso-osorik?

Ori bai, itxurak egiteko ta guri belarrira txisa egiteko, len orrialdearen gainaldean «Vizcaya-Bizkaia» ipiñi dute.

Nire negargura ta samiña arean arintzeko, Labaien'ek «Domejón de Andia» antzerkian diona gogora nai dot: «Batzuk izerdi, beste batzuk marabedi».

ETXEBARRIA'TAR JUAN ANJEL

Arratia

URRILLAREN 27'GNA

Arratia'n ezaugun, etseko ta maite genduan Aita Patxi'ri erri-mezazko gorazarrea Deusto'ko S. Felizisimo Txadonean. Eleiza bete-beterik. Egun zatarra, ibilteko baiño etseko epelaren egoteko ohea zalako-edo, arratiar banaka batzuk besterik ez: P. Berasaluze emaztearekin, Iurre'ko Plaza-zarra'tik; Zalduegi ta Lekue Urkizu'tik, eta gitxi batzuk geiago erri betetik eta bestetik.

Erririk-erri, baserririk-baserririk ta aterik-ate, ibilliaren ibilliz oinpeak arrankaldurik eukazan Patxi biotzbera utsak gure Erri kiskitu onentzako itxi zituaren irakaskizun ederrenak: gaxorik, gosez naiz egarrik, aragi gorrian, ezbear zoritxarrak inguruturiko lagun urkoa egiteko ekinizakin maitatzen. Eta euskereari ta Erriari itzala ta begirapena izaten.

Bide bazterreko iturrietan zintzurra busti, ta ango edo emengo baserriren baten emoten eutsien janariz gosea samurturik bizi izan zanak, ba-eukan ondasmik ere: bide-laguntzat erabilten eban esku-makillatxoak, Makillaren jabe barria, Zornotza'n bizi dan Goyoaga'tar Txomin zeberiotarra.

Patxi zanaren eskumakillatxoak bear leuke, nire ustez, leku egoki bat, erakustegi edo museoren batean.

BALLARA

Erri-irratian, Arrati'ko barrietan, «ballara» itza entzuten dogu, pitean-mitean.

Itz ori, nik neuk beintzat, ez dot iñoiz entzun, oraintsu arte, gure menditarte sakonean. Adin andiko ainbati be, itaundu dautset izen orretzaz, eta, kili-kolozko erantzunik besterik ez dot jaso al izan.

Itz ori, ba, euskal-iturbegiko, ala tutu edo odi zuloz erbestetik ekarritako ura dan jakitea nai genduke, edo-ta, antxiña baten etorria ta etseko egiña dogun beste itzik ugari lez.

Usaiñez, jakitun gixaxo txepel onen ustez, arrotza dirudi, eta geiegi azi, loditu ta zabaldu baiño len, ez al litzakigu obe izango Aran, Ibar, Erridi'ari buruz —polit-politak dira-ta— azter-ketea egin, egokiena zein dan ikusi, ikasi, ta bere-bizikoena aintzakotzat artzea?

Nire ta nire lagun batzuen uste apala azaldu-rik, eta J. Jose ta R. Mari'ri aurretiz eskerririk beroenak agerturik, erantzunaren begira gaitue.

UDALDIA

Zoro ta txepel. Udagoiena euritsu, indabak usteldu... negu gogorraren arran-otsak or zear. Gaixo zarra, ala izkutuan izkutuegi gorderik izan doguzan uts eta utsegiteen etena ete dogu?

Estutu, gerrikoa estutu, dirauskue. Erdi billoizik, eta naru gorrian be bai, moda egin daroagularik... orrenbeste bildur prakak gaitzeko? Prakakaz edo praka barik, negu onetan izango dogu narruan pipil eta zuldarrik.

LANDAJUELA'TAR A.

Galdakano

APAIZ GITXIAGO

Apaiz gitxiagokin geratu gara emen. Bata, Markaida'tar Josu, Erletxe'etan ainbat urtean egona, Arrieta ta Gamiz'eko eleizen arduradun jarritako, bertaratu dalako. Zorioneko izango al zara Josu adizkidea, errialde orreitatik.

Bigarrena, Aburto'tar Koldobika, Ben-goetxe'ko txadontxoan aspalditxotik daukagun abade argi euskaltzale jatorra, lendik be ainbat urtean ibillitako Amerika aldera, ille bat edo besterako, joan dalako. Eta irugarrena, ta au da txarrena, Agirre-malloa'tar Xabier, gaixo'gorogor batek oratuta, luzarorako bear ba'da, etxean ondo estalduta geratu bear izan dabelako.

Beraz, iru apaiz gitxiagokin ez dakit zelan beteko dabezan txadon orreitatiko zeregiñak, gure txanburu Jon eta Joseba abade langilleak. Ea barria ta bestea Ameriketarik etorriten diran bitartean, Xabier agurgarria be, guztiz sendatuta, barriz ikusten dogun gure artean.

ZULO IKARAGARRIAK

Orain egun batzuk, liburu batzuk erositen, Bilbo'ko Prim txaidean, 41 zenbakiraino joan bearra izan neban, «San Miguele» euskal-idazti biltokira. Txaide ortan diran zulo bi edo iru ikusita, «Hoja de Lunes»en ain txairo idazten daben «Olmo»kin gogoratu nintzan. Beste egi biribil askoren artean, zulo orreik dirala-ta, bein baiño geyagotan idatzi daualako. Baiña beste zerbait be bururatu yatan: gure errira etorriko ba'litz, zer esango ete leuke emengo txaide ta txaide antzeko batzuk ezagutu ondoren?

Esate baterako, emen dogu txaide izateko asitako bat, Lenengotan «Josefina Arroyo» izena ipiñi eutsena —naita galdakaotar jatorrentzat «Urreta-bekoa» izan— eta geroago, erriko agintariak, «Batalla de Lepanto», izen ikaragarria izan be, ipiñi eutsen, naita ez bata ez besteak erritarroi ezer esan ez.

Lenengo etxe taldea egin ebenean or, etxe orrean aurre alde egilleak apaindu eban, baiña bestea, oraindik etxerik egin bago dagona, noiz egingo diran ez dakigula, guztiz zulatuta, berebilletan gaitz eta oiñez be ia iñor igarotzen ez dala aurkitzen da, batez bere curi pizkat egiten dabenean.

Orretzaz erriko ziñegotzi bateri be zerbait esanak gara, baiña bere erantzuna: «Ertzetan etxeak egiten diranean barriztuko da». Gu be orretan gara, baiña nork daki noiz egingo diran etseok? Inork bere ez. Orduban, zergaitik ez Udalak berak apaindu, ta iñoiz etxerik egiten ba'da, egilleari ordainduazo, bear ba'da, muzkin eta guzti? Ta, ez aldi ontan dagoan bezela, dana apurututa euki. Bertoko auzokideentzat pozgarri izango litzakela, esan bearrik ez dago.

MENDIGOIZALEAK

Udazken askotan bezela, aurten be igande eberdetarako txango laburrak gertutzen asiak dira «Ganguren»go mendigoizaleak. Baiña eguraldi euritsu oneikaz ez dira atsegintsu. Bustitza ta basatza ugari ibilli bear izaten dabez mendirantz urtetan daben bakoitzean. Eurok dirauskuenez, edurra egingo ba'leu, besterik izango ei litzake, euren ol edo edurretarako beste tresnak artuaz mendiratuete. Nasai egon, adizkideak, ori be egingo dau-ta, negu au igaro baiño len!

Zornotza

UDABARRI

Onezkero mundu guztiak daki —edo-ta jakin bear leuke beintzat— Zornotza'n dantzari talde eder bat dagoala. Ba-dira beste talde txikiago batzuk be, baiña nik diñodanari «Udabarrri» deritxo. Eta zar-samarra dozu urteak dirala ezaguna da-ta. Talde ontakoak, aundi ta txiki, eunetik gora dira.

Dantzari talde onek urteagaz egin oi dau bere ekintza-legea, au da, urte barruan zer egingo dauan aurretik atonduta, eratura eukiten dau. Aurtengo egitarauan 15 kultura egun eukiezan; ain zuzen be, orra ta ara joan eta dantzaldiak egiteko egunak. Ederto eginda, mutillak eta neskek!

Dantzaldi orrean azken eguna joandako illaren, urrillaren 27'an, ospatu eban. Tolosa'ko kultur aste barruan ospatu be. Egun orretan, euren kontura artu ta ordaindutako mikrobus baten, zortzi ta erdietan Zornotza'n urten eta Durango, Berriz, Maltzaga, Bergara, Zumarraga, Beasain'dik zear, Tolosa'ratu ziran, poz alaitasunik gozoenean.

Zer egin eban Tolosa'n? Amabietan, Tolosa'ko kaleetan zear martxa-ibillaldi dizditsua lenengo, plaza nagusian amaiturik; ondoren, txistularien ekinialdia entzun eban. Jarraian, biñango ta txotongilloa dantzatu ebezan, txalo galantak irabazirik. Bardin egin eban an-emengo kaleetan be, dantza ta dantza talde txoetan bananduaz. A bai poza ta biotz-dardarea, dantzariak eta ikusleak!

Ordu bietan, bazkaria. Eguraldi ona egin ba'leu, agirian izango ei zan; baiña curia egin eban ezkerre, aterpean ospatu eban bazkari ederra jai-eratzailleak eta kanpotik ara joanak. Jaki-txartela: salda-gozua, piper gorriak, baztandarrak gertaturiko zikiro-aariaren aragia ugari, ta gainekoak.

Arratsaldeko bostetan, Beotibar frontoian, dantzari taldeen ekinialdi ederra. Eguraldi txarragaitik egin zan frontoian, bestelan kallean, edozeinek ikusteko moduan, ospatuko zan Euskal probintziatoko jolasaldi ikusgarri au. Baiña gizonak ez dau oinidño asmu zelan denpora ona ekarri. Iñoiz asmauko ete? Jakituri aundia ta tramankulu asko bearko ditu.

Euri naiz aterri, jaialdi bikaiña. Pozik gelditu zan jentea. Baita gure «Udabarrri»koak be. Zortzi ta erdietan, joan ziran bidetik, etxera biurtu ziran, egun eder orretan biotz-barru sentidu ebezan zer guztiak, lenengo alkarri ta errian, kontatuaz. Jarrai ortik, neska-mutil argiok!

ARIMEN EGUNA ETXANO'N

Kontsumo gizartearen esku artean erdi lauskituta gagozala, sarri entzun dogu. Orrela danik ezin ukatu. Baiña ba-da olako beste zerbait be azken urteotan: arimakiko moda barri bat esan geinke. Zer ete dogu berau? Ona, labur:

Barru-arazoetarako eleizara zetan joanik ez daukagula diñoenak naikoa dira, ezta? Ez dakigu nun ikasi daben dotriña barri ori; baiña ba-dira olakoak, mezara ez doazanak, gure artean be, ta ez gitxi. Beste batzuk diñoe: euren uste, fede segurua orixe dala-ta, izteko bakean; eurok egunen baten, praka ta guzti, zerura joango ei dira, ta lurrean be, ba-leitekela, Eleiz Ama Deunak erontzat be altara barri batzuk jaso bear izatea. Oba ez!

Zer ete dau onek arimen egunaz? Zer-ikusirik bai ete? Bai, ba-da. Onetan be moda barria ez yaku sartu ba!... Norbait ilten danean, eleizak bete-bete egin oi yakuz. Ederto! Txalagarri dogu. Domeketan eta jaietan be, orraituño, ardura bardiña ipiñi bear genduke geure arima arazoak zeatz betetako.

Arira joaz esan dagigu: Etxano erri txuan ondo ospatu zan Domu Santu, eta urungo egunean Arimena. Domu Santuz eleiza barrua jentez gainezka ta inguru guztiak kotxez pillotuta agertu ziran; baita arimen egunean be. Egun onetan, Garbitokiko arimen alde meza ederra abestu ondoren, kanposantura joan giñean guztiok illen kantak abeska, azken otoiña kanposantu barruko kapillatxoan esanik.

Eskerrak emon euskuzan bertoko parroku jaunak, Aita Santi'k, bai eleizkizunera etorri giñalako, baita iltegia loraz ta argiz ederto apainduta ikusten ebalako. Olantxe egoan egon be, ikusgarria!

Ez dagoz txarto illen obi-gaiñetan jarritako lorak. Ezta negar-malkoak be. Baiña obeak dira oinidño illen alde egiten diran meza ta otoiñak. Jarrai, etxanotarrok, zentzunak diñoskun bide artezetik!

ESNEAGAZ EGINDAKO

ESKATU BARRI

UMETXUENTZAT

ADINEKOENTZAT

CHOBIL

ESNEAGAZ EGINDAKO

AIZARNAZABAL

Ibiltari izan ziran gure aurretikoak. Inor ez da ibiltzen, zerbait jakin, nai edo bear barik. Sinisteak edo diruak, ametsak edo naigabeak, bizi-naia edo premiña. Edo beste zerbait.

Bein, «Etxabe» jauregian andre bat erditu zan eta mutil bat jaio. Errege deitura ipiñi eutsen izentzat: Baltasar. Urteak dira ori zala. Gure denporetako milla eta seireunak baiño lenago.

Aurrean, Zumai aldean, itxasoa, euskaldunen itxasoa, tentolari.

Urrumean, erregeen izarra: Ameriketako lurra, Indiak.

Eta umea, bizarrak urtetean, Indietara joan zan: Mexiko'ra. Bai an urrungaizak, urrutimiñak jo be. Euskaldun askoren bigunkeria izan da urrutimiña, urrungaiz ori.

Salbatore Mitxelena'ren poema bat irakurten nago:

Ai urruti miña,
gaitz senda ezina,
baiña ala ere
ondo atsegiña...
Min izkutu onetxek
beti eragiña
euskal kondaira doa
aitziña ta aitzina...
Egonak pozik ez da
Boga alegiña!

Eta Etxabe'k, Mexiko'n, gure izkuntzaren antxiñatasunez agertu eban liburu bat. Miñez, atsekabez, urrungaizteaz. España'n lenengoz berba egin zan izkuntza zala ta, askok albo-ratu edo aztu ebelako.

Mexiko'n ango pintura klasiku baten sartzalle lez be ba dauke. Etxabe zarra deitzen eutsen. Lege gizon argia be izan zan, bere denporetan entzun eragiten zana.

Zumaiarra? Aizarnazabal'koa?
«Etxabe» jauregian sortu zan. Eta nun dago «Etxabe»? Aizarnazabal'en.

Aizarnazabal eta Zumai sarri ibilli ziran erri legean konpondu ezirik. Batzutan alkarregaz, bestetan bakoitzaren jaubetasun osoaren bila.

Fausto Arozena, gipuzkoar kondairako «sagua», diplomatiku billatzen dot gai onetan. Berak esan eustan bein gaitz zala sasoi bateko jatorri zeatzak agertzea, nai eta liburu askotan batera edo bestera agertu. Berak, gipuzkoar gizon jatorren biografian, Baltasar Etxabe oneri buruz, au diñi: Oikina auzoan jai'ala, sasoi aretan Aizarnazabal, eta au Zumai. Erdiko bidetik.

Etxabe zarrak beste Etxabe «gatzte» bateri odola emon eutsen. Mexiko'n eleiza askotako pintorea. Ango San Carlos akademian agertzen dira bere kuadro ugari.

Emen, Urola'ren ibarretan, egaletan, eza-gutu izan zan sasoi aretan Etxabe «zarraren» beste anai bat. Itxasontziak egiten entzute andikoa.

* * *

Aizarnazabal'ko sakristau batek be bere entzute eta famatxoa euki eban oraintsuago, batez be bertsolarien artean, obeto esanda, bertsolariatzako gaitetan.

Bein Billabona'ko plazan Erroizena ernaniarrak (Txabalategi deituraz ezagutuagoak) eta Zabala Amezketa'koak desafio bat euken bertsoetan. Ontzako urreak bitarteko, ordu biko ekiñaldi ondoren garaille, irabazle agertzen zanarentzat.

Lau milla lagunetatik gora batu ei ziran egun aretan Billabona'n. Eta juradutzat Fernando Bengoetxea, au da, «Fernando Amezketa'ra», on Jose Mendizabal, Tolosa'ko abadea, eta Aizarnazabal'ko sakristaua aukeratu zituen.

Urduria, gizon keixua ete zan sakristau au? Ordu bi bertsoetan ekin eutsenaz batera, entzuleak txaloka eta goraka ari zirala, juradua bera batu baiño len berak urten ei eban bertsoetan kantari, erremataz au esaten: Bata ainbat egin bear dogu bestea.

Ori ikusita Fernando Amezketa'ra be bertsoetan ekin ei eutsan, esanez, biak laga bear zirala bardin, Gipuzko guztiak artu egian atsegin. Eta jakiña, abadeak bere oniritzia, bere bedeinkasiñoia bieri.

1801 urtean zan ori.
Ez dakit sakristaua eskolaua izango zan ala ez. Baiña orrela aukeratzeko ba eukan zerbaiten fama eta nortasuna.

* * *

Etxe jaubeak ala maizterrak, erreteruak ete dira geiako Gipuzkoa'ko baserrietan?

Ba dira erri bi erreteruak geiako diranak: Zestua'n, 201 baserri etxetatik 79 bakarrik dira etxe jaube. Arama'n, 16'tik, zazpi jaube eta bederatzi erreteruak.

Geienetan etxe jaube diranak geiako dira. Euneko 77.
Aizarnazabal'en 41 baserri etxe dagoz gaur. Iru utsik: Azpiazu, Larrasko eta Txon-txor. Orra 38 gelditu. Oneitatik 18 erreteru eta beste ogeirak etxe jaube.

Baiña iru baserri etxe bikotxak dira: Atristain, Etxezarreta eta Errezusta goikoa. Lenengo bietan erreteruak, bestean ugazabak.

Orrela, gaurko baserrietan 41 famili bizi dira. Eta eurretatik 21 jaubeak.

Zein obeto bizi dan... ez jakin. Baiña etxea be gizontasuna osorik zaindu al izateko premiñazko izaten da.

Orain eun urte Aizarnazabal'ek 79 etxe-jaun edo buru eukazan. Danetara be, orduan, 474 bizilagun.

Orduko agiri eta ezaugarriak parrokietatik egiten ziran lez, onelako jakingarri batzuk agertzen dira:

Parrokitik ordu laurdenera 14 etxe egozan; ordu erdira sei; iru ordulaudenetara 12; ordu betera 13 eta geiagara 6.

Ortik ikusi eta igarri, falta diranak plazan lagata, Aizarnazabal zer zan sasoi aretan eta zer dan gaur be.

Nun dagon esan daigun: Urola ibai edo errekearen egalean, itxasotik 45 metro gorago, Zumai iparraldetik, Aya sorkaldetik eta beste inguruetan Zestua daukala.

Azpeiti aldetik Donosti'ra doan bidearen egalean: Emendik Azpeiti'ra, 11 km; Donosti'ra 37; Zumai'ra 4.

* * *

Erri euskalduna da bete-betean. Errialde onetan oraindik zintzo gordetzen da euskera. 551 lagunetik 545 euskaldun agertzen ziran oraintsu.

Parrokia: San Migel.
Eleizak ez dauka ze ikusi andirik. Eleizetako oituri lotua jarraitzen dabela esan dauste. Ez da ikusten emen, beste askotan lez, argi-zari olik; soil-soilik ipinten dabe argizaria zati biribilletan, rolloetan, famili bakoitzaren «sepulturetan». Zenbatuta dagozan lez, 68 ba dagoz beintzat. Ortik igarten da sasoi baten, etxe bakoitzeko, bat emon eutsela.

Eleizako pitxi lez dauke XVI gizaldiko kistoria eder bat, tenplete antzera egiña.

Iru ermita: San Cristobal, San Lorentzo eta Ibiñarrieta'ko Santa-Kutz. Azken biak, bere lurretan egozalako, Joakin Uriarte Zumai'koak zaindu zitun luzaro. Origaitik inguru orreitan egozan baserrien amarrenak berak artzen zituen. Ikusgarria da Ibiñarrietako Kristo'ren irudia. San Cristobal, bere aldetik, parrokiak zainduta egoten zan. Eta parroki bera etxe jaubeen ardurapeko zan.

Inguru guztietan ezaguna da San Cristobal'en ermita. Noizkoa dan? Ez jakin. Lenengo parroki au izan ei zan. Aldareko irudiari tankera artzekotan, zarra dala esan eta kittu. Ori da onena. Zaarrei, batetik edo bestetik, balioa billatu eta emoten yakoe.

Ermita onetako kanpaiak bildurra sartzen ekian. Ekaitz egunetan kanpai ori jotzen zan. «Trumoi kanpata» deitzen eutsen. Elkano' rako bidean dago ermitatxo au.

Parrokian euskeraz egiten dira eleizkizun guztiak.

* * *

1845 urte ezkerotzik bere nortasun osoz bizi da Aizarnazabal. Ordurarte luzaro ibilli ziran emengoak Zumai'gaz autu eta asarretan, erri lege apartekoa lortu ezirik. Iñoiz Zumai laga eta Zestua'gaz batzeko alegiñak egiten be bai, Oikina eta bera alkatu eta erri bat osotzea be pentsatu eben. Baiña aukerarik ez orretarako. Eta iñogaz batzekotan, oikinatarrak naiago Zumai'ren aita-tasuna.

1944 urtean erre egin zan Erriko etxea eta su orretan galdu bere Artxiboa. 1954'n kontseju etxea eta eskola bi bedeinkatu ziran.

Parrokian 1637'n zabaldua dagoz jaiotzetako eleiz liburuak. Lenengoa, Frantziska batena da, baiña ezin lei irakurri abizenik. Bigarrena Dorotea Ugana'rena da, 4-X-1637'n jaiola.

Ezkontzetan, lenengoz agertzen dana Joanez Urbietta, zarauzitarra eta Maria Zinkunegi'rena da. 1633-XI-6'n.

Eta lenengo eriotza, Mikaela Amilibia, 2-VII-1625'n. Bere etxeko sepulturetan sartu ebela, irakurten da.


Aurten esperantza oneko urtea dauke Aizarnazabal'en. Igaz, 7 jai'oz ziran, 9 il eta 5 ezkondu. Aurten, Urrilla'ren 26'rako, 11 jaiotza egon dira.

Eleiz eta anai arteko oituretaren, Ama Birgiña'ren Kofradi zar bat dago. Ez jakin noiztik. Bat iltzen danean, illetea etxekoen kontura egiten da, baiña urrengo domekan Kofradi onetako meza eskintzen da. Iru gomuta edo oroitza kate daukaz eriotzak erritarrentzat. Esandako biak eta urtera egiten dana. Eta erria, anaitasun betean batzen da eurretan.

Orra Aizarnazabal, azal-azal, bere bizitza eta bere semien eriotzetan.

Erri txiki, baiña gaur erri txikiak andien problemak dauke. Gero ta geiako.

A. ZUBIKARAI



ZER EDO ZER

«ARTOA» DALA-TA

Gizaldi onen asierararte urrean au zan baserriar askoren eguneroko ogia, gaur gitxi ikusten dana. Orren orde zari-ogia yaten dogu, ta egin-egiñean be guk yaten dogun ogiari gerkeraz artos deitzen yako. Diez'ek gerkerazko ogiaren izena euskerazko artos'etik datorrela diño. Dana dala, or-emen artotza ederrak ondiño ikusten dira, naizta, tamalez, gitxiagotuez yonan.

Artoa ez da antxiñakoa emen. Ameriketatik ekarri zan, baiña izen ori lenago be ezaguna zala dakigu, Azkue yaunak diñoanez, oin *artatxiki* deitzen dautsogun «*mijoari*» esaten yakon-eta.

Emen noiz erein zan? Ara zer iñoan Errotaetxe'tar Iñaki'k, ain ospetsu egin dan Deustu'ko zubiaren egille, Zeanuri'ko udaletxean egin eban itzaldi baten: «1768'gn urtean, Bizka'i'ko baserrietan eta Zeanuri'n be bai «txargiñarto» deitzen yakon arto klasearen ereitea egin zan. Gogoan euki bear da, ondiño urte gitxi zala. Lenago ez zan ezagutzen artoa, ba, Amerika'tik ekarria da».

Era edo mota askotakoak izan ziran ezkeror ikusi egin bear zan aretatik Bizka'i'rako onena zein zan yakiteko, izan be berrogei klase arto baiño geyago dagoz ta onena zein dan yakitea ez da errez. «Txargiñartoa» zein dan askori itandu dautsiet, baiña iñok ez daki erantzuten.

ZEANURPTAR GIZON OSPETSU BATEN GOMUTAZ

Errotaetxe'ren itzaldia bere senitarteko Zulaibar'tar Yoane Antonio'ren gomutaz izan zan. Nor zan? Manila'ko Gongotzain edo Artzobispo izan eta 1826'gnean il zana. Ara udaletxean ipiñi eben gomutakiak diñoana: «Zeanuri'ko seme Domingo Santuaren Anadi edo Ordeneko ZULAIBA'TAR YOANE ANTONIO, gizaldi onen asieran, erlejiño zabaltzalle, yakitun, biozpera ta esku zabala zala, ta txalo asko irabaziz, Filipina Ugartearen Manila'ko Gongotzaino edo artzobizpadura eroan eta bere yayotzako irurogeta amaikagarren urtean, milla zortzireun eta ogetaseigarren urtean il zanaren gomuta ta goral-benez».

Ain bikain, argi ta errikideen gorabidearen gomuteak, ondorengoegan irauñ dagian Zeanuri'ko Udalak, Kristo'ren milla zortzirein ta larogeta sei-garren urtean auxe deduzko ezaugarri au ezarri dautso». Auxe diño lateraztik euskerara bihurtu. Gaur, erri guztietan, gitxi-asko izan diran gizon ospetsuena tamalgarriko galduez doa ta zer edo zer esatea otu yaku.

ERROMA'KO GOTZAIN BATZARRA

Illabete osoan irauñ daben batzar au, illa onen 26'ean amaitu da Aita Santuaren itzaldiagaz. Laterri guztietako ordelari lez berreun batu dira gaurko munduan Barri Ona zelan zabaldu adiraltzeko. Bear izan au guztiak autortzen dabena da. Zelan?, ortxe dago untzea. Gauza bardiña, ertz bardiñetik ezkeror, gauza erreza izango litzake batera yotea. Baiña ortxe dago lorra. Bakoitzak bere lurraldeetako bear-izana ta egoera ederto aztertu dauz, eta azkenean erabagi, iru urterik iru urtera batzar oneik egitea. Bitartean, bakoitzak itzez eta egitez al dabena *egitea*, gaurko mundu nastu onetan ba-dago bearrizana be-ta. Suenenns kardenalak oraintsu idatzi dabenez, «gure mixiñoen alde yokatzeko erantzupenak Eleizaren lenengo orduan lez irauten dau».

GOTZAÑEN AGIRI BI

Azkenego illa bi oneitan gotzaiñen Batzordeak agiri garrantzitsu bi argitandu ditu. Batak gaurko diru arazo edo ekonomiko gayetan, kristiñauak yokatu bear daben erea erakusten dau; bigarrenak, «Giza-bizitzaren alde», yayoteko dagozan ume-galtze edo abortoarean aurka kristiñau irakatsia azaltzen dau. Azkenengo onetan. Lenen eta bein bizitza gizonaren ondasunik aundiena eta bere yabetasuna Yaungoikoarena bakarrik da. Gizonaren duintasun eta nortasuna ezin neurtu leike berak egin eta irabazten dabenetik. Alan da be, gudarik aundienetan, geyagori era orretan bizi kentzen yake. Ainbeste aurrerapiden gizaldian benetan tamalgarri ta lotsagarri. Toki batzuetan legeak ez dabela zigortzen? Orrek ez dau esangure besteari bizi kentzea zigorgarri ez danik eta txarto ez dagoanik. Kristiñauen artean ez litzake aitatu be egin bear... baiña...

Ekonomi gayetan aspaldiko urteetan aurrerapide andia egin dala, begien aurrean dago. Baiña ondo banandu barik, zuzentasunak eskatzen dabenez. Izan be batzuk ogetamarregaz eta beste batzuk bategaz bakarrik gelditzea, edonok daki zuzen ez dagoala, Gitxi daukanak geyago eskatzeaz ez gara arriu bear. Gaitzak zusterak sakon ditu eta zuzentzeko aldakuntza asko egin bearko dira, mundu onetako betiko gauzea da-ta.

GAMA

DIRUKETEA TA JAKINTZEA

SAN MIGEL'EKOEKIN ALKAR-IZKETAN

Zorionez, azken aldi onetan entzun al izan dogun zerbaitek poztuten gaitu. Goi-maillako politikariak tartean dirala, ba dira gaur onako zerbaitek eskatzen daben gizonak: Laterriaren erditik atera ta erri bakoitzari bere barruan ezarri bear jakola kultura edo jakintzearen ardurea ta aurrerapidea.

Onetan aldizkari batzuk guzurrezko aurreratzaille agertzen dira, eta idazlan luze ta ameslarietan, «mechero» edo «quinqui»en eta «egiptanu»en jakintza-balioak galtzeak ekarri legikezan kalte-kaitik negarti agertzen dira. Baiña, eta nork ulertu au, garrantzi aundiago daukan euskal-jakintzearen «agonia» —Unamuno'ren berba bat artuaz— edo burrukea zearo ixiltzen dabe. Garrantzi au, kontuan artu bearrekoa zan gure ustez, geiagoe jakintzea dalako, gitxienez.

Baiñan guzurrezko aurrera-zale onengandik alhora, beste jokabide batzuk be agertu dira. Oneik bai benetako politikalaritza eta gure jakintzeaganako maitetasuna erakusten dabela, begiratze baten beintzat.

Adibide lez, gogoratu dagiguzan Añoberos Gotzaiñaren itzaldi ezbaitea eta bide orretatik joiazan Martzeliño Oreja'ren esanak. Onen iritziak labur jakin gura ba'ozuz, irakurri berak oraintsu Durango'n izan dan idaztien eta eresmintzen azokarako eratzailleen batzordeari egin eutsan eskutitza.

Ez dakigu zeintzuk izan ziran Añoberos Gotzaiñaren eta Martzeliño Oreja'ren asmo sakonak. Itzi dagigun ori alde batera. Baiña au bai esan geinke: Bata-sunaren barruan ugaritasuna bear dala adierazo ebela, ta gizadia, askotarikoa izanik, jakintzarako batzen danean, margo batekoa eta batarikoa danean baiño maitagarriagoa dala ugaritasunen, irakatsi ebela.

Baiña gizon ospetsu onein esaldietan gauza batek bai arritu gaitula, bear ba'da, esaldiak ostein dauken esan-nai osoa ulertzen trebeak ez garalako. Eta auxe da gauzea: Jakintza ardatz-zulo bakarretik ateratze onek, politika ta diruketa gaitan be antzeko ateratzea eskatzen dauala, ez esatea.

Jakintza arazoa bideratzeko, ardura ori artu bear daben erritarren artean, indarra, zabalasuna eta barritzea sortu bear dira, eta orretarako, gizarte ta politika auzian be, baldintza batzuk sorre-razo. Ori lortzeko, naiko dan beste diru eusku-artean eukitea bear-bearrezkoa da.

Labur-labur esanez: Kultura arazoa ardatz bakarretik atera bear ba'da, eta orretarako gurari bizia ba'dago, ta ez zabalkunde errez eta utsa, diruketa arazoa be ardatz orretatik atera bearko da (orretarako diruketa-bide bat artu bearko litzake, baiña ezin atariko labur onetan adi-azo zeintzuk izan leitekezan arauak).

Iñork ez dagiala uste izan, orregaitiño, giza-talde baten jakintzea aurrera atera bear dabenak, talde orretako ez diranen batzuk izan leitekezenik. Giza-talde bertakoak, euren jakintzea aurreratu bearko dabe, eta eurak euki be orretarako bear dabezan esku-artekoak eta erri-ondasun guztiak. Ori gauza argia da.

Diruketea ta jakintzea banatze ori, guzurrezkoa da, eta geienetan asmo illunak eta okerrak izaten ditu barruan. Gure aldiak, beste arlo batzutan lez emen be, argia ta jatortasuna eskatzen ditu, edo gaur esaten dan lez, «argia ta litagrafoak». Ori izango da, nor nolako dan jakiteko bide bakarra.

Azken urte onein buruan, euskal idazti ta eresmintzak egin daben gorakadea arrigarria da. Euskal-jakintzari buruz, euskeraz eta erderaz argitaratu diran idaztiak asko ugaritu dira. Naizta argitaratzen dan guztia ona izan ez, egiten dana or dago erriaren eskuetara eltzeke gertu. Erria izango da, zentzuz jokaturik, egokienak edo atsegiñenak aukeratuko dituana.
Ta, aukeratze bide onetako lanetan diarduen artean, nortzuk obarik itaun batzuk egiteko, «Distribuidora San Migel»ekoak baiño? Euskal-Erri'ko erderazko izparringi geienetan be aipamen bereziak izan ditue, gazte talde jator onetakoak, batez be, Durango'ko azokearen ondoren.
Eresmintz batzuk erostea atxahitzat arturik, eurgana jo dogu, AGUR'eko irakurleentzat itaunka.



—Zer esan nai du zuentzat lortu dozuen izen onak eta zuen «stand» diralakoak beti ikertzaillaz beterik ikusteak?

—Ba, poztu egiten gaitu, zelan ez! Eta gure lan eta nekeak alperrikoak izan ez dirala jakiteak be bai. Erriak, gure lana onartuz, eskertzen gaituala ikustean, aurrera jarraitzeko gogoa berotzen dausku.

—Zuek, zeuek argitaratzen dozuena saltzen ete dozue bakarrik?

—Ez, gu, zabaltzaillak gara, argital-dari guztien zabaltzaillak, danenak zabaltzen doguz. Adi bidez, Durango'ko azokan, Añamendi garrantzi aundiko ta antxiñako argitarailleak, bere ordezkari-tza emon euskun; bardin Iruña'ko Gomez'ek, Txertoa'k, Euskerazaleak eta beste batzuk. Euskal-Erri'ko argitaratzaillak bakoitzak bere jokabide bereziak ditu. Asko dira baiña, euren kontura argitaratzen dituen idazle ta egilleak be. Olakoen lanak, gure jakintzarentzat garrantzi aundikoak dirala, gure bidez azaldu al izan dira azoka onetan eta beste batzuetan.

—Ikertzaillak asko izaten dozue azoketan?

—Bai, eta ori oso ona da gure erriaren jakintzarako. Olako azoketara joaten dan notintzea ikusirik, garrantzi aundiagoa emoten jake euskal liburuari, bai argitaratzaillan aldetik, bai idazleen aldetik, baita saltzaillak edo idaztieri dagokien guztia-ri be. Adi bidez, Bilbo'n izaten dan dalako «Liburu Azoka»n, ikertzaillak edo ikusle geien izaten daben erakustokiak beti gurek izan dira, euskal-arloa «ikurtzen» gendualako.

—Dirudianez, laster aberastuko zaree, ezta?—Barrez diñosku:

—Bai zera! Ez dogu esango diruak garrantzirik ez daukanik, ez. Saldu egin bear, ortxe-ortxe biziko ba'gara. Baiña geien poztutzen gaituna beste au da: euskal jakintza idaztiari emoten jakon bultzakadea lortzea, gure nortasun berezia ezagutu eratzeko. Gure erakusto-

kietan pillotzen dan notintzea, saltzaillak askok aintzakotzat artuko ba'lebe, euskal-idaztiak beterik ikusiko gendukez dendarik geienak.

—Irabazten ez ba'da, zergaitik dira ain garesti euskal-liburuak?

—Euskal-liburua, geienean beintzat, ez da ain garesti izaten. Baiña iñoz, garesti argitaratzen ba'da, «tiradak» labur-rrak, txikiak, ale gitxiakoak diralako izaten da. Zenbat eta ale geiago argitaratu, ainbat eta merkeago... ta guk oindiño ez dogu bear dan lain erosle. Gure edito-
torak sarri, naita esames luzeak zabaltzen ba'dira be or zear, ausartak dira benetan, eta diru pillo galantak daukeez, erdi-dingillizka denpora luzean.

—Zein da zuen iritzi azokarrik garrantzitsuena?

—Danak dira garrantzi aundikoak, erriaren egarria erakusten dabelako. Baiña urteak sendotuta-edo —bederatzit urte— Durango'ko onek ospe aundia lortu dau. Naizta, guretzat beintzat, «stand»en ordain-saria oso garestia izan, batez be argitaratzaillak ez garanontzat, pozik joaten gara erriaren arrera onagaitik. Arre-
ra bardiña izan gendun Gorbea'n, Gernika'n, Motriku'n, Lekeitio'n eta beste leku askotan. Uda-giroko berotasunak eraginda-edo, boikot antzeko alegintxo arek zirkin txikerra egiten euskularik. Toki guztietan, erri ososoa gugana etorri da.

—Zer saltzen da geiago, erderazko ala euskerazko euskal-liburua?

—Zoritzarrez erderazkoa. Baiña ez gaiaren edo egillearen erruz, gure erri-

tarren artean euskerarik ez dakitenay geiago diralako baiño.

—Azoketara erderazko liburu geiago daroazuez?


—Ez. Toki batzuetara bertako eratzailleak eskatzen dabezanak daroaguz. Beste batzuetara, gure iritzi garrantzitsu-
tsuen diranak. Adi bidez, Lekeitio'n norbaitzuk, ez genduzala bear ziran beste euskerazko eroan, esan dabe. Erriak eskatzen dabena daroago ta zer-
bait geiago. Auzi onetan, apal-apalik, Barandiaran lako jakintsu batek Lekei-
tio'n bertan esan ebana esango dauzuet: «Eusko nortasuna ez du izkuntza jakiteak bakarrik emoten, naizta iz-
kuntza zati on bat izan». Ori argi dago, ta Lekeitio'ko batzu orreik izan ezik, ez dogu iñun, iñor gugaz minduta da-
gola entzun, euskal-jakintzako gaiak er-
derazko liburuetan dagozanean, oneik be eroan doguzalako.

—Zeintzuk izan dira eskabide aundi-
ena izan daben liburuak?

—Gure neurketaz, Añamendi'ko En-
ziklopediaren IV aleak; Literatura aleak, 150 idazleren aipamena dakarrenak. Er-
derazko «Decenio crítico» Mugerza jau-
narenak, gure guda aurreko gauzak zen-
tuzenez ikutzen ditularik. Euskerazkoan
arte, elorriotar Agirre'tar Iñigo'ren
«Eusko Lurra»k eta Auspoa'k argitara-
tutako «Ustapide»renak.


—Etorkizunari begira, zeintzuk dira zuen
elburuak?

—Gure mailla apalean, lanean ja-
rraitzea euskal-jakintzaren alde. Ori da-
non lana da!



Luzeagoa izan zan gure alkar-izketea, baiña bear ba'da, urrengo baterako itxiko dogu. «Distribuidora» onetako mutillak lanean diardue, diruari larregi begiratu barik, euskal-jakintza idatzia zabaltzen.

*Guk, agur esatean, pozik idazten dogu auxe: Emetik bost-sei urtera, gure ikastoleto-
umeak irakurtzen asten diranean, gure erritarrak jabetzen diranean, euskerazko idaztiak besteak beste edo geiago saldu dai-
tezela. Dagigun lan!*



EUSKO LURRA EUSKALDUN GOTZAIN BAT

Euskalerriko Lutelestia

Egilea: Agirre'tar Iñigo

Aspalditxo Etor'go zuzendari dan nere adiskide maite E. Ayerbe'k eman zidan aditzera nola laster iritezkeoa zan Eusko Geografia baten leenengo atala edo zatia. Esan eta izan. Ez dago lo zurrunka Erribideko sailla. Agidanez, oraingoz leenengo eta bigarren atala azaldu dira, eusko mendiei eta ibaiak dagokiona eta Durango'ko azokazaleak oso arrera ona, guziz ona, egin omen diote. Pozten naiz eta ez gutxi ere. Palastaka, ezin buruturik, saltzen ari omen dire argitarazailleek, nik zuzenki, iturri-onetik, dakidanez. Izan ere ezer maite badu euskaldunak bere ama-lurra maite du, azken aldi ontan ain ondatu duten amalurra ain zuzen ere.

Onek edo arek naiago zuten «Eusko Lurra»ren ordez «Euskal Lurra» izen burutzarako. Gure ustez, bego dagoenean dakarkin izenburua, ots, «Eusko Lurra», tradizio jatorraren ariari atxikiaz. Gogoan ditugu ainbat aldizkari, gaur izkutatuak, Eusko-Gogoa, Eusko-jakintza, Eusko-Folklore t. a. Entzule onari itz gutxi eta bide jatorretik dijoanari ez, arren, oztoporik ipiñi. Bestela ere ba ditugu naikok eta geiegi.

Euskerazko argitaraldia Andoni Azkue'k, Lino Akesolo eta Jesus Gaztañaga'ren ardurapean burutu du. Zorionak!

Etnolojiako gaietan, Joxe Miel Barandiaran'en maisutza ageri da. Beraz, iturburu gardenetatik datorkio ura. Ori ola, edan dezakegu bildur gabe.

Kritika pixka bat

Leenengo libururuzkaren azken atala «Aranak» izentatzen da, ibaien azalpena eman ondoren. Uste det «aran» gauza bat dala, «ibar» beste bat, «baillare» oso basterik. Azken itz ori, au da, «bailara» Ikastoletako Batzar Nausietan asko erabiltzen da, olako edo alako eskualdeko ikastolak adiarazteko, esate baterako, Urola'ko baillarako Ikastolak. Baiña, zuzen edo oker erabiltzen dan, ori beste auzi bat da, Azkue'ri jarraiki beñiñein.

Ibaiak azaldu ondoren, nola izentatu bear zan urrengo atala, «Aranak» ala «Ibarrak»? Egin begio argi itsuari itsuarrekoren batek, ni izanik itsua puntu ontan. Aintziñako Bizkai'n «ibar-jaun» erabiltzen zan delako «merino» agintaria izentatzeko eta «ibar-jauntza» nai bazan «merindad» adiarazi.

Gasteiz toki-izena pasa bedi, baiña Agurain (Salvatierra) ez dago ondo. Bakoitziari berea zor zaio.

Ta beste zertxo bat bukatu baiña leen. Ebro ibaia eusko ibaia da? Zerk edo nundik datorkio ibaiari angoa edo emengoa izatea? Emen ere ilunpean nabil, jator aitor dezan. Egia da Ebro'k urestatzen duela Araba'ko parterik jorienean, emankorrena, au da, Araba'ko Errioxa. Egia da, baita ere, beñiola. Prontxio olerkariak, duela zenbait gizaldi, «vasconum flumen» edo orrelako zerbait deitu ziola. Baiña izena bat da, izana beste bat.

J. J. Landazuri, XVIII gizaldiko arabar historigilleak, «Historia General de Alava» izeneko obra famatuan, Araba'ko ibaiez ari danean, ez dut uste Ebro'z txintik ateratzen duanik. Ta, nik uste, iñork itzegitekotan, ark egin bear zuela, Ebro ibaia Araba ikutzen bai du geien edo. Nere Errioxa'ko etxetik urrun nabillenez, ez daukat nerekin obra izentatua. Beraz oker banago, barka.

Eusko-lurraren argitaratzaillea Itxaropena degu ta, oi duenez, emen ere guziz eder-zale ageri zaigu.

Amasei atalek osatuko dute Eusko Lurra edo Euskalerriko lutelestia.

Amaitzeko

Egun bakoitzak ba dakarkio gizonari jakite-izpi bat, ona edo txarra. An, Durango'ko azokan azaltoki edo dendatxok, liburu-dendatxok, nik, aingerutxo onek, uste oraindeño, musu-truk ipintzen zirala. Bai zera. Ba dakit norbaitek, iru azaltoki edo dendatxogatik, ia 40.000 lauerleko ordaindu diola delako Sociedad Guerediaga'ri. Beajondeiola!

JOXE LASA

BARBASTRO'TIK

Bai omenaldi ederra euskerearentzat, jende askoren aurrean, Euskalerritik urru-urrundik! Nun ba, ta nork egin eban, eta noiz?

Noiz? Aurtengo Arimen egunean, arratsaldeko lauretan.

Nun? Aragoi'ko lurrian, Hueska-errialde probintzian, Barbastro urian.

Nork? Zeberio'ko seme batek, gudarosteetako abade batek, Barbastro'rako Gotzain izentatutako Etxebarria ta Arroita'tar Anbrozio'k.

Barbastro'k, uri txikitxo izan arren, Eleiz-nagusi edo Katedral eder eta aundi-aundia dauka. Uria baiña ia aundiagoa dala esan geinke; baiña arimen egun arratsaldean, bete-beterik egoan, lekuri ere ez danentzat. Gotzain barriaren Sagaratzea zan. Amasei Gotzain eta Gongotzainek eta abadek, guztiz berrogetamarrek, Gotzain barriagaz alkar-meza bat emon eben.

Eleizan ziran, Gudarosteen Ministroa, gudaiburu batzuk, agintari asko, ta jendetza neurri bakoa. Euren artean, Zeberio'ko talde bat, baita Euskalerriko abade batzuk be.

Ba-ioian Anbrozio Gotzain barria lenengo itzaldia emotera lagun talde aundi aren aurreran, eta orduan gure gotzain bigundu ziran eta gure begiak malko bigunez bete, gure euskera entzutean. An, Barbastro'ko eleiz-nagusian!

Goztain barriak bere aurtzaroari buruz gauza bigun eta goxo-goxoak esan euskuzan, baita bere errioxan dan-danak euskeraz itz egiten ebela be. Ta bere erriko batzuk eta beste euskaldun aldra bat elizan egozalako, euskeraz jardun eban zatitxo baten, antxiñetan euskalduna izan zan Barbastro'n, orain guztiz erdeliduna dan uri aretan.

Euskeraz egin eban, argi ta garbi: siñismenaren oiñarriak, kristau ikasbide ta oitotzak, euskeraz artu zituala bere baxetxe ta baserrian; elizaren eta erriaren maitasunean euskereagaz bizi izan zala; baita erriaren alde bizitza emoten euskereagaz ikasi ebala, ta bere goi-deitura edo bokazioaren iturria euskereagaz alkarturik etorri jakola.

Guzti ori ta geiago euskera ederrean adierazo euskun. Bai testiguntza ederra Anbrozio gotzainak emon ebana ango danon aurrean! Gure erriaren eta gure euskerearen testiguntza! Edesti-istori guztian olako gauzarik ez dala jazo uste dot. Orregaitik esker eta txalorik aundienak Anbrozio Gotzainari.

Arren, Jaunak onetsi dagiala bere gotzaintzea, eleizaren eta erriaren onerako!

TASIO OLABARRIA

ZEBERIO'N

Ille onen lenego zapatuan beste jente ez dot iñoz ikusi erri onetan. Eleizea, beste iñon ezin izan zan ba jaita egin, Euskal-jai'ra etorriako gure gaztedi danaz beterik egoan.

Gaztedi ederra daukagu benetan!

Urrengo egunean, igandez, gure lagun andia ta maite-maitea dogun Etxebarria'tar Anbrozio gotzain barri jaunaren lenengo mezea, gotzain lez, gure errian emoten ebala, an ikusi gendun.

An giñan zar, gazte ta ume, eleizea goraiño beietá. Ta, ikusi ebanean zenbat maite dogun errian, bera be poz-pozik egoan.

Lenengo mezea, Barbastro'n emon eban, eta Zeberio onetatik be jente asko joan giñan.

LARRAGOTI



ETXEKOEN ARTEAN

Etxebarria ta Arroita'tar Anbrozio gotzain eginbarria dala, Zeberio'ko semea berau, asteroko onen irakurleak jakingo dabe onezkerok. Azil onetako 10'gnean, erriko eleiz-nagusian bere agertzea egin eban euskaldun argitsu onek. Lenago, gotzain izentatu ebeneokoxe, Barbastro'n, zainduko dau Eleiz-barrutian, senitarte ta zeberriorrak artu ebazan, eta mezzatan, eurok an ziralako, euskeraz berbalditxo bat be pozik egin. Enintzan an egon, baiña bai Zeberio'n, eta emen izan zana, euskal kutsuzkoa, euskotasun heterikoa izan zala esateko bearrean nago. Itzela da orraitio, Bilbao'ko izparringiak orretzaz tautik be ez esatea!

Jazokun ori izango zanik, eneban aurreko gaberarte jakin. Gotzain barriagaz aide-oraturik dagozan Basauri'ko nire llobak, AGUR'en arpidedun zintzoak, ots egin eusten. Eroan naguela eurekin, nire eskaria; baiña, ezetz, erantzuna, ez eukiela niretzat tokirik euren berebilletan. Nire lagun, orain Deustu'n bizi dan Gorririxu'tar Iñaki'k, gurari au beteteko lagundu eustan. Bera ta biok, bere berebillean, joan giñan.

Zeberio'rako bidean zear giñoyazala, bide zatar, estu, zuloz beterikoa ikusirik, alkarri esaten gengoan: Baiña gure Bizkai, ainbeste lantokien jabe, beti arduratsu, eten barik diru egiten dagoanak, zelan eta zergaitik bide oberik egin ez bere errietarako?

Eldu giñan eta astia izan gendun berebilla bastertzeko, leku estu, laprasgarri ta lupetzu baten, inguru guztia belbillez beterik egoan. Danean jendea ta danak euskeraz egiten. Ezkenduan entzuten erderarik, eta Euskal-erri erdian gengozla-ta, gu be pozaren pozez.

Txadona, benetan aundia izanik be, bete-betez zan. Itxi neban nire laguna eleiza barruan, eta apaiz-gelara sartu nintzan, gotzainagaz ta beste amaika abadeakaz Mezea batera esateko. Jesukristo'k Eukaristia irasi ebanean lez, gotzain barriakin, amairu mezaemoille izan gintzazan. Zoragarria zan erri gustiaren alaitasun gartsua, ta egizko poza eurentariko baserriko bat jauparitzaren goren go maillara igon eta bere ontasun, jakituri, onoiñen bereizgarriagaitik orretara eldu zala ikustean.

Meza erdian ta azkenean bertsolari on batek, abots zoli ta gozoz eta eres-melodi ederraz, aitamen gogoratsuak esan euskuzan; Intxaurraga'k, Zeberio'ko seme gaste txairoak, bertsolarien euskaldun abizena daroanak. Tamalez, ezin ekarri orain ona gotzain barriaren omenez eleizan abestu ebazan bertsook. Aurrera ekin zeure bertsolari zeregin orretan, gaste Intxaurraga. Eta zeberiotar gustiei, batez be Gotzain barriari ta bere senideei, gure zorionik gartsuena.

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri asmoen gainetik daben iritxi-oneko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egileak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M.^a MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.

Carretera a Galdácano, 32-Bilbao-4

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA

ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:

Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep.Legal: BI. 879-1966

JAKINTZA ARLOA

EDESTI AUREA (Jarraipena)

3.—LUR-AZTERTZE LANAK

Jorratze edo eskabaketa lanetan gauza bik dabe garratzirik aundiena: —Aurkitu diran kondar guztiak ondo batu ta idatziz-jartzeak. —Batutako gauza orreik nungo maillan eta erreskadan aurkitu diran sailkatzeak.

Aurkitzen dan arkeologi kondarra, era bitara bereiztu ta neurtu bear da: —Zer zelako loturea eta zer-ikusia dauan kondar orrek bere lur maillan aurkitu diran beste kondar eta antolaketa guztiekaz: Sinkronia = aldi berekoak. —Zein eratara bananduta ta bereiztuta dagoan bere gaineko eta azpiko lur-atal edo estratoakaz: Diakronia = aldiaren ibillera.

Baiña jorratze edo eskabatze batean ez da garrantzirik aundienakoa, lurretik kodarrak atara ta ontziren batzuetan erakustokietara eroatea, bestela, ezaupide orreik euren artean daben zer-ikusia ikasi ta jakitea baiño.

Gaur, arkeologo bakar batek ezin daiké preistori azterketa ziur eta egoki bat egin. Ondakin edo sedimentoak, lore-atsak, abere azurrak... zeatz aztertuten dira, eta gai bakoitzerako jakitun berezia bear dogu.

KRONOLOGI: Aldia edo noizkoak diran aztertzea.

Ikusten dogunez, arkeologi azterketa batzuk lan-geletan be egiten dira. Lan-era bi bereizten dira:

Alkarrekiko noizkotasuna edo kronologi erlatiboa; zein baiño zein zarragoa dan ikastea. Arkeologi jakintzea onetan dago oñarrirituta: lur-maillen edo estratoen arazoan. Lan-era onen bitartez, lur-maillak euren artean dabezan ezbardintasunak aztertzen dira.

Azterketa oneik, X-izpiak, metalografi ta espektografiak eskeintzen dauskuezan zeaztasunakaz osotu bear dira.

Fluor'aren azterketea. Azurrak, aldiaren joanakin, geroago ta fluor geiago biltzen doaz. Orregaitik azurrik zarrenak besteak baiño fluor geiago izaten dabe.

Berezko noizkotasuna edo kronologi absolutoa; zugaitz enborren eraztunak aztertzea-ta. Itzak eurak adierazten dauenez, zugaitz enbor eta adarretan, urtero, alako eraztun batzuk sortzen dira. Eraztun oneik zugaitzaren urteak adierazten dauskuez. Ba-dira iru milla eraztun dabezan Kaliporni'ko «sekuoia» zugaitzak.

14 Ikatzgaia edo Karbono 14 esaten jakon ikatz izpi-jaurtzailleak be, eguratzeko oxijenoarekin naastatzean, anhidrido carbonico'a sortzen dau. Arna-sea arte dogunean au be gure odolakin naasten da. Bizidun guztiak dabe karbono-14'a euren soñean, azur, mamin eta odoletan. Olan, bizidun bat ilten danean, aldean daben ikatzgai radioaktibo ori ezerezen asten da ta gitxitzen.

Ezerezeratze au mailla baten gertatzen da. Moteltze onen neurkidea edo koefizientea 5.570 urtean ezarrita dago. Onek izpi-jaurtiketa edo radioaktibidadea erdira jaisteko igaroten daben aldia adierazi nai dau.

II. EUSKAL-ERRIKO KONDAIRA AURREAZ LANAK

Gure erriko preistoriatzaz itz egiten asi baiño len, arlo onetan egin diran lanak eta gertakizunak adieraztea garrantzi aundikoa dala uste dogu. Euskal-preistoria gizon bateri lotuta dago geien baten: Barandiaran'dar J. M.'i. Preistorilari taldea, onek sortu eban gure Errian.

Lau zatitan banatzen doguz preistori lan oneik: —Asieratik 1915'gn arte. —1916'gnetik 1936'gneraño. —1937'gnetik 1962'gn arte, eta 1953'gnetik gaur arte.

1.^a—**Asieratik 1915'gn urterainokoa:** 1871'gnean, artzen azur arrizkotuak aurkitzen dira Aizkorri'ko leiza baten, Oñati aldean. Zerbait egiten da baiña jakintza bidetik barik, Aranzadi jaunak izan ezik.

2.^a—**1916-1936'gn arteko tartea:** 1916'gnean, Aralar mendiko dolmen edo jentil-arrien barri emoten dausku Barandiaran jaunak. Barri au zala-ta, talde bat sortzen da: Aranzadi, Barandiaran eta Eguren'ek osotua. —1918'gn urtean, Santimamiñe'ko lurgorritze edo jorratze lanak. —1921'gnean, «Anuario de Eusko-Folklore» eta «Ikuska» preistori bazkuna sortzen dira. 1934'gnean, Barandiaran'ek «Euskal-erri'ko leen gizona» argitaratzen dau. Gure preistoriaz lenengo bilketea.

3.^a—**1937'gnetik 1952'gnera:** Barandiaran Sara'n bizi da erbesteratua, eta an Ipar Euskalerrria'n egiten ditu bere azterketak. —1947'gnean, bere «Prehistoria de Vizcaya, 1/4 de siglo de investigación» agertzen da. —1948'gnean, Aranzadi Alkatea sortzen da. Gure erriaren preistori ta etnologi laneri lotuta doa. —1949'gnean, «Munibe» aldizkaria agertzen da.

4.^a—**1953'gnetik gaur arte:** Irakasle barriak sortzen dira: Altuna, Ape-laniz, Merino, I, Barandiaran... —1953'gnean, «El hombre prehistórico en el País Vasco» argitaratzen dau Barandiaran jaunak berak.

ARRATI'KO IKASLE TALDE BATEK

ARGI-ONTZIAK

EMOITZGARRIAK

EREDU BAKARRAK

ALBERTO URRUTIA GOTI

Ribera, 19 (Pelota, 1'en ertzean) 21 14 89 Urrut.

Carniceria Vieja, 8 - 23 56 25 - Urrutizkiña.

Santuchu, 16 - 339491 - 333123 - Urrutizkiñak

BILBAO

GALDERAK

1.—Oartzen zara zenbateko garrantzia daukeen euskal-ableslariak erriarentzat?

2.—Ta, oartu zara gure abeslariak eragozpen aundiak izaten dabezela?

3.—Ez dozu uste, euskal-jaiak, geureak, erriarenak izan ezker, erriko plazan egin bear litzakezala? Zergaitik ez?

4.—Ba ete dakizu abesti onietan gure erri-izakerearen berezitasuna dogula?

5.—Zelan jokatu bear leukeela uste dozu euskal-ableslariak?

6.—Euskal abeslari-ableslariak, dirugaitik diarduela uste dozu?

7.—Ez ete jako abeslariari txaloakin baiño geiagogaz lagundu bear?

8.—Gure abeslarien ekintzea, zelan dagola iruditzen jatzu?

9.—Ta, zer deritxozu abeslariok euren saioetan euskeraz abestu, ta amaitu ondoren erderaz jardutzeari?

10.—Ez jai, ez dantza! Ala, jai ta dantzea, biak?

Eretxiak berrezkoak dira, bialdu izenpetuta, naita izen-ordezko batekin agertzeko: AGUR, Apartado 2, Bilbao.

TXALAPARTA

GURE GALDERAK

AGUR'eko azkenengo zenbakian agertu ditu Txalapartak galdera batzuk. Pozik artuko leukezala gure iritxiak be, ba-diño.

Guk iritxirik ez daukagu, baiña bai, keska, zalantza eta buruko min asko. Orregaitik, geure iritxi antzekoa, galderaren bitartez erakutsiko dogu. Uste dogu Txalapartak be, belarria erakusten dabela.

TXALAPARTAK (4): diño: «Bedia'ko arazo ori, zergaitik ain aitakeri aundiakin konpondu gura izan da?»

GUK: Konpondu da? Nok konpondu gura izan dau? Ez daukie Bedia'ko guraso eta umeak eskubiderik, ori jakiteko? Ala, jokatu lei gure umeekaz eta geugaz, guk ezer jakin barik?

TXALAPARTAK (5): «Kalunia bateri ainbeste kasu eta egiari ain gitxi?»

GUK: Non dago egia? Ala, nik egia diñot eta zu, guzurti?

TXALAPARTAK (6): «Zergaitik ez dogu gizon lez berba egiten?»

ETA GUK: Zergaitik, zergaitik ez?

TXALAPARTAK (7): «Zergaitik, Bedia'n bota ditue euskaldun zintzoak bertako taldetik?»

GUK: Nok bota ditu euskaldun zintzoak? Zer da euskaldun zintzoa izatea? Neiko ete da euskera batua ikasten ibiltea? Al da batera izan, euskaldun zintzoa eta kristau? Euskaldun zintzoa izateko, Eleiza ofisialetik kanpora urten bear da? Guraso batek —euskaldun zintzoa nai izan da— galaso lei bere umeari, mezatan ikusten ez dan «katekistakin» ibiltea? Euskaldun usaiñegaz dabizdan danak, nai ta abade bat lagun eukin lagun, Kristanak ete-dira?

TXALAPARTAK (8): «Arrazoiak eta berba egiteak, zergaitik balio izan dabe ain gitxi?»

ETA GUK: Zergaitik, zergaitik?

TXALAPARTAK (9): «Arrati'ko eleiza batzuk, zergaitik ez dabe onartzen beste batzuk egiten dabena?»

GUK: Eleiza bakoitzak ikusiko dau zer jazoten dan bere «etxean». Baiña, ez ete dabiz Arrati'ko eleiz-toki batzuetan, Eleizako batzarretan ikusten ez diranak? Ez ete da egiten berba, Eleizearen aurka, eleiz-tokietan? Zintzoa ete da Eleizea norbere elburuetarako erabiltea?

Zergaitik, Arrati'ko Euskal-jaietan —danak Eleizetan egiten dira— batzuk lagun-asun aundiak eukiten dituez eta beste batzuk (Bedia'koak) izugarrizko oztopoak? Zergaitik joan txistulariagana, abeslariakana eta ez etorteko esan?

Galdera batzuk geuk be egin doguz. Eta beste milla egingo geunkez. Bedia'ko arazoak azterketa sakon bat bear leuke, Euskalerrria zelan dabillen jakiteko.

Guk euskaldunak izan gura dogu. Eta zintzoak. Baiña era batera gurasoekandik artu gendun sinismena be, zaindu gura geunke. Orregaitik gagoz artega eta buruko-miñegaz.

Barrero jatorruz galderak, zergaitik euskaldunen artean, beti alkar burrukan gabiz? Len gitxi eta bananduta. Baten batek ez ete dauz eskuak igurtziko? Ateratako «kuartillue» amaitu jaku. Gure alkar-izketea be bai.

MENDI

FERRETERIA UNCETA, S.A.

Landola tresnak - Galtzairu neurri zeatzekoak

Languillu guzietarikoak - Leunketa gaiak

Ibarrekurutz kalea 14

71-10-00 Urrutz.

Apartado 18

E I B A R

EUSKAL-JAIA

ABESLARIAK ZERTARAKO

ZEBERIO'N

Asteroko onek, 160^{gn} zenbakian zeozer ba'diño be jai onetzaz, nere ustez geiago esatea merezi dau. Ba-diño zein izan zan egitaraua: Lete, Iriondo, Ohiartzunak, Miren Aranburu, Gontzal eta bertsolariak.

Eldu giñan ba Zeberio'ra, ta zein ez zan izango gure poza bertako giroa ikusita! Daneko jendea ikusten gendun, Arrati guztikoak, Ugao alderdikoak, Arrigorriaga, Basauri ta Bilbo'koak be, abar eta abar. Zelako gaba ederra izan zan Azillaren 9'gnekoa!

Bertsolarien saioagaz asi zan jai, eta ederto benetan euren ekiñaldia. Txalo beroakaz izan ziran txalotuak. An esaten zan lez, ba-dabaz lagunak gaur be gure bertsolariok, bai orxite!

Bigarren, Gontzal zeanuritarra izan zan, aspaldi ikusi ta entzun barik geunkala, oso atsegin izan jatazan bere abestiak. Asko ikasi ta sakondu dabela uste dot. Galdetu neban, eta esan eustien, abesti barri bat izan zala bere azkenengoa, ta besteak be ointzu egindakoak. Bere abesti batzun itzak eta doiñua be berak egiten ditula jakin neban. Ori dala uste dot, benetan garrantzitsua abeslari batentzat.

Miren Aranburu, barria zan neretzat, lenengoz entzuten neban, eta onek be berak egindako abestiak daukazala jakin neban. Saio onetako abestiak, ez dakit egokiak izan ziran jai orretarako, bat edo bi izan ezik. Jarraitu Miren, baiña abestietan sakondu apur bat geiago, gaurko Euskalerra'ren egoereatzaz.

Euren saioan, Ohiartzunak, euren abesti-txorrea erakutsi euskuen, baiña gero esan eusteenez abesti bi barriak izan ei ziran. Ori bear da. Ederra izan zan aurtxoeri egindako abestia, aurtxoeri ta andereñoeri. Baiña nere ustez, talde onek asko geiago be egin dagike.

Lete ta Iriondo bikoteak be edertasun aundian abestu eban, gau oneri giro eta emonik. Lenengo bakarrean, gero alkantuta abestu eban. Nere ustez, gaur egun abeslari onenatarikoak dira. Euren ekiñaldian, abesti barriak eta olerki zarrak entzun al izan genduzen.

Azkenez eta barriro, bertsolariak, jendeari agur egiten, eta ondo egin be, barriz.

Esan dodan lez, euskal-jai au atsegin izan jatan, baiña artalde guztietan ardi baltzen bat izaten dan lez, emen be ba-egon lar guzitu ez jatan zeozer. Lenengo esan bear dodana da, ez naizela argazkitua izatearen zalea izan, eta argazkiak egiten ikusi dodazanean, jendeak ezenarioan dagozenai egiten ikusi dodaz, orreik atsegin jakezelako-edo, ta gero, bear ba'da, jenteari be egiten dautsez, baiña abeslariari geiago beti. Emen ez zan izan olan, jenteari asko ta agertoki gaitzekoeri gitxi... Zelako zaletasunak dagozan ezta? Ez nintzan arritu jenteari txistu ta zarata arekin.

Beste gauza batek be arritu nindun, an, jaiaren ostean ikusi ta entzun nebanak; abeslariak, euskal-jaitik urtenda gero batetik bestera egin ebezan ibilaldietan, erderaz berba egiteak. Zer jazoten da?...

GAUR-TXORI

ZER GERTATZEN DA?

Bai, zer gertatzen da agintaritzan? Jende askok nai leuke galderra oneri, ziur, erantzun bat emotea, baiña ez da erreza.

Joan dan astean, zuzmur astunak erabili dira jendeen artean, eta gauza larriak —edo ez ain larriak— susmatzen dauz jenteak.

Agintaritzako arduradun bik ministeriak utzita gero, sorta guztietako zuzmurrak asi ziran, eta asteartean eta asteazkenean gorenge mailletaraño igon eban.

Dana dala, gauza batzuk argi ikusten dira:

Lendakariak, agindutako irekitasunean oztupo latzak billatuko ditu, gertaerak be onela joango dira-ta.

Eskumatarrak, zalantzarik gabe, alderdi gogor eta indartsu bat osatzen dabe orain, eta danak gobernukoak diranez, edo izan diranez, euren aurka jartzeko ez dago iñor.

Garbi ikusten da, baita, orreirritziak dabela indar, naizta erretzeko eskumatarrak oso gitxi izan irekitasun zaleekin bardinduta.

Jendeak, borondate on guztia-kin legeetako zabalkuntza apur bat itxaroten izan dau. Egarriz dagoz benetan danak irekitasun ori noiz elduko, baiña ikusten dogun

legez, barriz be beste modu batera doaz gauzak uri-nagusian.

Orain, Laterri-Batzarrean, lege-gizonak eztabaida gogorrean asi dira alkarte askatasunaz. Ertzeko eskumatarrak ikerea sartzen jake demokrazi itza entzunaz bakarrik. Bai, ba, olakoa ez naizelako ta euskalduna naizelako —naste izugarria!— ezin dot iñola be buruan sartu, olako iritziak nola gizon batetik etorri leitekezan.

Orregaitik, asko ba'lira be, abar eta abar... parkatu naguela, ezin dot ba iñola be lortu zueri ulertzea... ni euskalduna naiz.

ERRIGIZA

Azkenengo zenbakian esandakoari jarraituz, zeozertxu sakonagora jo gura neuke oraingoan.

Esana legez, ez nozue kaleko entzule ximple bat baiño, baiña nere ateraldiok parkagarri litzatekez ni baiño jakintsu eta ontaz jarriaguen lumak korapillo onetara era-karriko ba'noez.

Izan bere, bear bada, abeslariak eurak dira zertan eta zertarako ari diran argitu bear leuskiguenak. Dana dala, entzuleok bere geure eskubiderik ba daukagulakoan, arazoari lotuko natxako.

Orra ba, abeslari izateko —dexte samarra izatekotan beintzat— naiko al dira iru-lau kitarra-akorde, abots zolia, zerbaite esateko gogoa, kultura pixka bat eta aursardi aundia? Egia da, erri ta gizarte batetik, merezi dituan agintariak izaten di tuala; abeslariak bere, merezi dituanak izango dira, ez?

Eskerrak onetako batzuk areik baiño geutarragoak ditugula! Ala bere, konparaketa ori, norbaiteri penagarria irudituko jakon arren, azterketa mailla batera ekartzen gaitula deritxot. Ain zuzen, gizek abeslari bikote onen arazora, au da, euskaldun gizarteak eta euskaldun abeslariak daben zer-ikusia aztertzer.

Alperrikako berba merkerik ez esatekotan, arazoaren alderdi orixe aztertu bearko genduke, lenengoz eta bein. Izan be, euskaldun abeslariak nortzuk diran, bere zertarako ordua da! Guk, euskaldun entzuleok, ontan bere azkarrago eta jakitunago (konzientea-go esaten da?) izan bear dogu, edonungo erri-soberanoek baiño. Orreik, nonbait, «inkonziente» izateko aukerea izateagaz emen ez, ba nonbait pasaportearen nori batera ez eron erabaki leikeanik! (Erdel aldizkari progreetan irrakurri, eta irrati ofiziale-tan entzun leitekez ingles eta amerikanoen kolonialismo-doiñuaren kontrako eupada burukalariak!)

Baiña ikuspegi au nik baiño egokiago besteren batek jorratuko daualakoan, beste ildo batetik abiatuko naz. Ain zuzen, bere burua abeslariatzat daukanaren eziketa ildotik.

Aurrekoan esan neban, abeslariak era berezi bateko artegintzan diardu, edo jardu bearko leuke beintzat. Gurea baiño erri

zoriontsuagoetan, artistak, artegintza ori ogibide dabe, eta era berean, euren ontasunaren neurri. Beraz, gure belarri eta urdail-len kalterako oraindik aldarrika ari diran abeslari panfletario eta sermoilarien desbiazioak alde batera itxita, eldu dagoigun eziketa arazo orri.

Nik neuk, eta bein-beingo begirada batetik, oiñarrizko lau ikas eta bizigai bereiztuko neukez, euskaldun abeslari jator batek landu eta mamindu bear leukezanak.

Lenengo, eta kaletarteko beste edonork lez, baiña, bear bada bere pulpitoak emoten dautsan zabalkundeaz oartzeko, euskaldun izan eta izan nai dauanaren gizekari buruzko ikuspen zabal bezin eraginkor baten jabetzea. Artegintza ori guretzako denez, euskaldun azterketa politikoa oiñarritu bearko da, edo ta ez da euskaldun izango.

Bigarren, era bateko edo besteko musikalaria ere izan bearko du. Orreian, al dauan musika-ikasketa luzean eta sakonenak egiñaz batera, gure musika errikoia ezagutu bakarrik ez, baita arakatu, aztertu, bizitu eta ezagutiarazi egin bearko du. Kitxarra, naiz, erabili leikean beste edozein instrumentu, zer edo zertan erabilteko eskuale baiño, musika egitearen aldera menderatzen saiatu bearko litzake.

Irugarrenez, aozko gure tradizioan, bertso, koplak, poesi eta literaturan, sano murgildu bako euskaldun izena mereziko leukean abeslariak, ezin dogu bereziki emen ere ba dauka zere aztertu, berekutu eta zabaldu.

Eta azkenez, gatxena litzaken ikaske-tea da au, sormenaren, asmamenaren erabilte. Esandako iru ikuspegi orreitan bazkatutako mamiña bere, gaurko artisten erroto eio eta erdimeñez sortutako frutua, euskal gizartearen plazara jaurtitzea. Izan bere, samurtasun eta gozotasun antena orreik aurkitu eta izan ez dabezan abeslari arloterik ezin dogu onartu, atzeritarrak eurak be, erri-ableslariatzat gaituezanok.

Onenbestez, euskaldun abeslari jator eta alegintsuen aldeko eupada bero bategaz amaitu gura neuke. Euren alegiñak, entzuleen arrera kritikoa bezin baikorra merezi dabe-ta.

MAMATXA



eziketa jostailuak eskulanetarakoak irakasketa gaiak

gregorio de la revilla, 1 bilbao - 11

Jolasean ikasi, or zure aurrentzako emoitzarik onena



DEPURACION DE AGUAS S. A.

URA EGOKITZEN ETA UR LANETAN BEREZITUAK, EDANGARRIAK - LANTEGIRAKOAK - ZIKINDUAK NAIZ IGERITEGIKOAK ZUZENTZEN

+ 32-37-00 - + 31-00-10 - 32-37-01 Urt.

Gordoniz, 44, 12.^a BILBAO-2

Aztergarriak

TXORIAK

Eiztariak ernai baiña asarre: txoriak gixtizten ei-doz. Itali'n «pase» aldian milioiak iltzen ei-dituez, bost tiroko izkilluak be ugaritu ei-dira. Len, txorien ugaritasun gorabeerak ez eben alde aundirik izaten; azken urte oneitan baiña, % 6'tik % 22'ra aiñako berakadea nabaitzen ei-da urtero. Laster, mamorro ta eltxuak ugarituz, zugaitz eta landarak galduko ei-dira. Lenengo Aprika'n, gero Europa'n...

BOSTGARRENEZ

Israel eta arabiatarren arteko bostgarren gudea sortuko ete dan arriskua dago. Or dabiltz Arafat ONU'n eta israeldarrak al daben tokitan, bakea eskatzen, baiña alkarrekin aitu ezinda. Arabiatarrak ba-dakite, gaur arrolioa dabela izkillurik onena, baiña ez luzerorako. Guda barri au laster sortzen ba'da, arabiatarrak arrolioagaz jokatu dabe, etsai naizioeri ez emonaz. Kissinger aingeru-txoaren mirariren bat itxaron dagigun!

IGANDERIK EZ?

Pearson izeneko amerikar batek idatzi dabenez, 8 eguneko asteak antolatu bear ei-doguz. Gizasemeak iru edo lau saillean banandu eta erreskadan, egun baten aldekin, lanean jarri; lau egun lan, ta lau egun jai bakoitzak, talde bi edo iru beti lanean, txandaka, izango dirala. Orrela, urte erdi lan ta beste erdi jai. Baiña talde batekoak besteekin artu-emonik izateko aukera gixti.

BATA ALA BESTEA?

Dakigunez, Palestinar Alkarte bat deitua izan da ONU'ra, lurralde orren arazoa aztertzeko. Itxaroten zan lez, judutarrak, Israel' goak eta Ameriketakoak (New York'en etxean baiño geiago ei-dira) aurrez jarri dira. Arafat' en etortzerako ikaragarritzko ertzaintza neurriak zabaldu dira.

Ala be, judutar talde batek garbi esan ei-dau: Ez dala Arafat New York'etik bizirik aterako.

—Auxe bakarrik nai genduke, izen buruan jarri dogun, bata ala bestea, edo Israel ala Palestina, bata edo bestea galdu bear ori, ez dedilla jazo.

ERDIKORIK EZ?

Arjentina'n ikaragarritzko gogorkeria gora doa. Guda-gizon eta ertzain agintari batzuk be il dituez. Sandler'en, diputau onen etxean, su-emetaille batek lerkai bat ezereztan inarduala, eriotzea aurkitu dau. Mendoza'n be, irakaste bat artu ta atxillotuta eskutau dabe. Erri au une larrian dago, ezkerrek indartsu, eskumak gogortuta, nun ete dira erdikoak?

DIRUA ALA...

Uganda'ko amabost gudarik, Amin lendakariaren mutillen eskuetan bizia galdu dabe: Gudari ziran orreik iru illebeteko soldatea jaso barik eukelako jausi dira.

—Ikusten denez, Amin ori ez dabil doi-ñuakaz, jo ta ke egiten be ikasi dau!

LAPIKOTIK SUTARA

Ginea, emendik zibilizatu zan lurralde orretan be, une txarrak erriarentzat. Azurre-taraiño bildurtuta bizi dira, ta ekonomia

ankaz gora joan da. Batzar nagusiko lendakaria ta zortzi aldun zigortuak izan dira. Len txarto ta orain txarrago ete?

SALNEURRIAK

Lengo baten, txixardiñak garesti egozala esan gendun, angulak. Ara beste zerbait be: London'eko banketxe baten, gizon bat sartu zan eskuan zorro aundi bat ebala, ta esan, «Ekatzuez 30.000 libera (bosten bat milloi laurleko) edo danok lertuko gara emen daroaten lerkai onegaz. Emon eutsoezan baita laster iges be diruarekin. Zorroa an geratu zan eta norbaitek zabaldu be bai, Barruan patatak, lur-sagarrak edo errabunak. Iru kilo errabun bost milloi laurleko!

BAKEZALE

Ogei itxasontzietan, errusitarrek sirtarrei izkillu barri-barriak emoten. Iparramerikatarrek, israeldarreik nai aiña. Artza ta arranoa nola ba bakezale?

MUÑAREN UNA

Iparramerikarrak gaiaren ale txikiago bat aurkitu ei-dabe. Izadi guztieren aua litzaken zerbait. Ain ei-da txikia, ezin orainartean nabaitu al izan. Aurkitze onekin, gaur arte ulertzen ez ziran ainbat gertakizun ezagutuko ei-dira. Gaur dakiguna biar ezertarako be ez!

GELTOKIA

Sodika'n dogun egazkin-geltokia, benetan geltoki. Andik urten bearra ba'zeunka, sarri, bertan geratu bear, urtetzerik ez dagolako. Orra ba benetan geltoki!

NOLA JAKIN

Bizkai'ko, ta alboko lantegiak une makal eta gax baten dagozala ezin ukatu. Baiña arrituta lotuten gara, emengo egunerokoak esaten dabenez, edo ez dabenez. Ikusten dozu, or, orri baten, beerengo alderdian, zati txiker baten, iru edo lau barri labor ipintzen dabezala? Lau berbatxogaz azaltzen daskuez lantegietako auziak. Jakinaraztea bakarrik dala esango dabe. Baiña ori ba'da izapalaritza, zer ete-da ixillik egotea?

ZORRIAK

Urik-ezak-edo (?), garbiketea gaiztotu ete-dau ba? Bilbo'n zorritsu asko ei-dabil, batez bere eskolako ta uletsuen artean. Bi eratako zorriak dira gixtienez: soñean, jantzietan eta, bizi diranak batzuk; besteak buru gaiñeko basoetan eiztari odol-zaleak, azken oneik okerrenak: sukar-eri gaiztoa sortzen dakie-ta. Ura bai, larregi; baiña busti nai ez!

NUNDIK BEGIRATZEN DAN

Agindu barri bat Ikastola-nagusietarako. Agintari batek diño: «Ondoren baikorrak emongo dituala». Beste batek, «Bearrezko agindua dala». Baiña ikasleak zer ete-diño? Ikazleak ez datoz bat orreigaz. Alderdi illun eta traketsak ikusten ei-dituez; euren ordezkariari ez ei-jakoe garantirik emoten, ezta ori egiteko alkar-izketarik be izan. Baiña, goitik datorrena beti garaille?

DANOK

ORBELAK

Perretxikoak

Nire hobby: perretxikotan ibiltea. Ibilteak batzea dakar eta ondoren, jatea. Ez daukat jateko zaletasun andirik. Bildurti naz. Zenbat eta liburu geiago irakurri, bildurtiago. Egia.

Askotan mendietan batzalleak ikusi eta otzaran daubezanak onak ala txarrak diran itanduten etorten diranen gibelak arrituta lagaten nau.

Bestetan, etxera biiltzen daustez ikusteko-ta. Ikara sartzen yat. Perretxikoak ezagutu barik euren jateko garra ikusita. Emen ez dago «dudakoak dudako lez»-ik.

Iñoiz perretxiko ontzakoak batu, lagunei eskiñi, liburuei begira jarri, ezpaia sortu eta mesedez atzera ekarteko eske biiltzea gertatu yat. Batez be norberak jakinda, bateri edo besteren bateri itanduten ibilli dirala, bete-beteko bildurrez.

Perretxiko batzuk gibealeko daukenei kalte egiten dautsela, besteak diabetis'egaz ez dirala ondo konpontzen, besteak rizino orioak baiño indar geiago daukela, besteak garagardoa edan ezkerro kaltegarri dirala, edo ta bero diran artean ontsu baiña bein otzitu ezkerro pozoia batzen dabela...

Bein, exkursiño baten, gure kotxean etorran txoperrak eta nik, biok, Gazteiz'en alkarregaz jan gendun perretxiko tortilla bat. Bera izan zan ori eskatu ebana. Gabean, San Joan eguna zalako, Arrasate'n geratu giñan. Gabeko amabiak ipiñi gendun batzako ordutzat. Ordu berean, adiskide baten etxetik kotxera niñoiala, kalean billatu nebazan lagunak, kezka, nun eta nebillen eta zelan ete nengoan bildurrez.

Nire laguna bere ezagun batzuen etxean estu egoan, abade eta osagilleagaz. Onen esanetan, ezpai barik, perretxikoen gaitza eukan. Eta an geratu zan amabost egunetan, gaixo, berera ekarri eiznik. Ni, ori jakitean, orduntxe asi nitzan urdallean aizeak iruditzen.

Beste bein... Nik nun egozan esanda, adiskide batek etxera ekarri eustazan batzuk. Bakar bat jan neban, txapa gañean erreta. Gure etxeko guztiak, bardin.

Apal ostean, itxasertzean osteratxo bat eginda etxeratu nitzanean, nun diñosten oera ez joateko, benenodunak zirala-ta.

Kontxo! Ez neban sinistuten, Baiña liburuen indarra! Ekarki zituna an ebillan Buesa'ren liburua erakusten: jan eta 10 edo 20 ordutara agertzen zirala kaltearen ezaugarriak.

Gaberdia igarota, osagille adiskide baten etxera joan giñan. Aren diamostikua: Liburuak esaten eban lakoak baziran, iru ordu baiño geiago zirala jan genduzala ta alperrik zala urdail garbiketa eta antzerakoak egitea. Baiña ez ebala uste kaltegarri ziranik. 30 urte lenago bera, gazte zala, arein itxurakoak batzen zirala Gernika'n. Baiña, liburuak esaten eban lakoak baziran... itxaroteko.

Ez egoan laguna itxaroteko. Taxi bat artu, perretxiko geiago batu, bide egalean egozan-eta, lengo tokian, eta goizeko ordu bietan, Bilbo'rako bidean gebiltzan. Goizeko irurak inguruan Ospitalean gongozan. An, gabean egoten diranetako mediku bat agertu zan.

Zer gendun, zelako ondorenak genduzan, miñik, larririk, bultzadarik euki ete gendun... Nire lagunak ez eban urtetan bere liburutik. Osagillea asarretu zan eta liburuak nai ebana esango ebala, baiña berak... Nai ba gendun oea emongo euskula ta an itxaroteko.

Telefonoa artu, bateri eta besteari deitu eta azkenean be, goizeko bostetan, Bilbo'ko beterinarioen buru egiten ebanaren etxean gongozan, gure perretxikoak erakutsi eta erantzunaren zain.

Pijaman etorri yakun. Asarre. Perretxiko areik zeñek batu eta zelan jan genduzan. Nire lagunak, izerdi likiñetan, berak batu eta niri emonak zirala ta... Irribarrak urten eutsan albaiteruari gure egoera ikusita. Perretxiko areik ez ziran benenodunak. Oraindik itxurarik artu barik, gazte eta zimaurtzan euria eginda batera urten ebela, baiña ez gendula ondoren txarrak eukiko, bustiegi ziralako, ezietako irristaden bat ezik.

Ospitalera joan giñan, aginduta lez, beterinarioak zer esan euskun jakin eraziten. Niretzako, adar jozalle batzuk giñalakoan geratu zan. Aidean baldu giñuzen ospitaletik.

Egun sentia bidean igarri gendun. Sekula ez da, egun aretan goizeko bederatziatarako, baserriar batek perretxikoak ekarri eustazan etxera. Gu aidean erabili genduzanen antzeakoak!

Beste bein, goizeko ordu bietan, telefonoz deitu eustan batek, ia bizi ete nitzan. Alkarregaz ibilli giñan mendian eta bera an ebillan leku berezi batetik urten ezinda. Lo egiteko pastilla ederra!

Perretxikoak! Izerdia jaurti eragiteko bete-betekoak. Bai, iñoiz, izerdi otza atara eragiteko be!

Baiña bizia orrelaxe da. Azaletik artuta, era-erako. Sakontzen asi ezkerro... Perretxikoak lez.

ZUBEGI

BASERRIKO ESKU-LANAK

Etxerantza nentorrela, lengo egun baten, beñola nere auzoko aizkide zan gizon bategaz, aurrez-aur topau nintzan.

—Ola, zeu, egun on!
—Egunon zeuri be!

—Nora zoyaz? zeure bizkar-gañeko zorro orregaz?

—Egur batzuk darodaz nire aizkide dan arotz lagun bategana. Lantegitxo bat dauka berak eta araxe lan bat egitera.

—Zeeee...?
—Esango dautsut. Lengo zapatu ta igandean, nere jayotetsian izan nintzan. Asko atsegin yat txikitako gure bizimodua ikustea. Gaur, nire loba bat dago berton ezkondurik, baserriari jarraituz.

Eta an ikusi nituan eskutilla baldar motzolloak. Nire lobak ekartzan lepoan edo bizkarrean eta nik ari onela:

—Lobatxo, ze eskutilla modu dozu ori? Ez dago politagorik, txairoagorik edo jasezkoagorik egiteko egurrik ala?

—Egurrik bai baiña...
—Baña zer? Ondo egiteko moldariki eta tayurik ez?

—Lana buruz gora ta astirik ez osaba. Gañera mordolka be eskutilla traketsak izan arren, euren zeregiña egin daroen artean, besterik bear ez.

Osabak, urrengo astelenian, egur eder batzuk begiztau, autu, artu lepoan eta Bilbo'ra, Bere aizkide baten arotz-lan-

tegira eskutilla apañak ta yasekoak egiteko asmoz.

Eta onela yardetsi eustan gizonak. Gure aitak orretarako eukan berezko jasa gixtik euki daroe. Erositakoak baiño be apain-ederragoak. Askok esan be bai: «tresna orreik erositakoak izango dituk aurki?»

Arotz bez areri urrik emotekorik. Eta aren esku-tresnak munduko ederrenari be zorrik ez.

Ikusi ba'zinduzan arek egiñiko abarkak... Astegunetarako, elizarako, gizon-nezkoentzat, andrazkoentzat, neskatillentzat... Areik etziran abarkak areik ziran, abarka-pitxiak.

Orain oster, gure erriko esku-lanak bastertuaz doyaz, galduaz, ondatuaz, beste kiretsa daben bizi-jokerak. Eskulanakaz batera, galduaz doyaz baserria, euskal-oiutarak, ekandu onak, euskera berbera. Gaur egun, jauregietan, andiki-etxeetan, kaleko etxeetan ikusi dakusguz buztarriak, argizaiolak, aurkiak, kaxak, otzarak, kurtsuluak, pitxarrak, goruak, kirru ta ardatzak, eta abar, igarotako kondaira zaararren oroigarri.

Tresna zaarren museo birtu dira esku-lanok. Euskera be museorako bastertuko ete-dogu? Ori jazo ez dedin bizi-bizirik irauten beti bera erabilliaz. Iraun eta bizi beti eta ilten ez itxi gure izake-reari.

AÑIBARRO'TAR JON

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK



ZAZPI-KALEAK

CASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

ARRATIA

BARRIA

Lekeitio

Zuzendari jauna:

Euskeraz datozen aldizkari geienak irakurtzen dodaz, eta orregaitik ikusi al izan dot Amatiño'k eta Erri-gazte taldeak Zeruko-Argia'n, eta Arenaza jaunak, AGUR'en idatzi daben guztia.

Ni be lekeitiarra naz, eta ara emen nere iritxia: Arenaza jaunak errezoia eukan zati on baten, dudarik barik. Don Isidro'ren semeak eta Bilbo'ko Distribuidora San Migel'ekoak antolatu eben euskal-astia, ederra izan zalako benetan. Erderaz izan zirala itzaldi batzuk? Izen aundiko gizonak izan ziran danak, eta dana euskeraz izan ez arren, gure kulturria, eukaldun kulturria geitzeko on-onak izan ziran.

Zelan esan leike, Barandiaran jaunaren itzaldia «bizkaiera trakets batez» izan zala? Antolatzaleeri «eskuindar eta kazike» nola deitu? Alperrik da gero Arenaza jaunak guztiztat itxi gura izatia, baiña Amatiño'k idatzia au da: «Diogun esan beharra bait dago, honako honetan tiroak ez datozkigula ezkerretik, eskuin-eskuinetik baizik. Lekeition hamarretik bederatzik euskeraz daki, baina, antza, «kazikadak eta hego haizeak gogotik jotzen dute».

Atxez josita dagoana irakurtzeko txarto ibiltzen ba'naz be, argi dago idazliaren asmua: antolatzaliak iraindu!

Pozik joan giñan lekeitiarrok itzaldi arek entzuten eta idazliak erostera. Itzaldi-tokia bete-beterik egoten zan egunero, ta eleiza azpiko maietan be, beti ikusi genduzan ikusle ta erosle asko; «bestiagaz» konparaziorik bez.

Buru gogorrekuia izango naz, baiña naiago dot erderazko itzaldi bat, Euskal-erri'aren gauzetaz ba'da, Arana-Gori eta Agirre gaitik irain lotsagarriak bota dabezanaren bada-ez-badazko —ta neuk be ba diñot— baten euskerazko edo antzeko barriketia baiño.

Zorionak ba, aste bien antolatzalieri, baiña norberana goraltzeko, ez egoan zetan bestiena menperatu bearrik.

Lekeitiarrok, azoka bixok ikusi genduzenok, azkenengo berbiaren jabe gara; geul «Batasuna» orruka darabilzuen gaztiok, ez zendukie banatzale lez jokatu biar, bai baiña, zuen «balioa» gauza obiak eginda erakutsi.

Or diñozenagaz konforme egon ez arren' poztuko giñake, Arenaza jaunari egin deutasuen erantzunian darabilzuen añaño euskerria egiteko gauza izango ba'ziniakiez zue-tariko batzuk. Zoritxarrez, emengo kaleetan entzuten dana entzunda, gatx egiten yat ori siñistia.

LEKEITIA BAT

Arantzazu

Iru eguneko ibillaldi batera, Bizkaia'ko ikastola betetik, 16 ume etorri jakuzan. Itz egiten asi ziran-nean arrituta gelditu nintzan. Ez noa adibiderik ipintzen, umeak errubako miña artuko leikee-ta.

Baiña bai ontaz idazten. Urbi azpiko zelaian gengoazala ta euren idazlanak ikusi ondoren, txikiak itaundu nebazan:—Zuek, ikastolan, olan idatzi ta itz egiten dozue? —Bai, erantzun eustien. —Ta, irakasleak ez dautzue joskerarik-eta erakusten, transitiboa ta intrasitiboa nolan esan?

Ez dakit itauna ulertu eustien ala ez, erantzuna auxe izan zan-da: —Guk, batua ikasten dogu, ta H'a nun ipiñi biar dan. Esate baterako astelehena, hau...

Ezin izan neban geiogo entzun, eta auxe esan neutsien: —Esayozue zuen irakasleari, arren, joskera, «ni ta nik» bereizten erakusteko. —Bai, zuk ez dozu h'a ta batua erabiltzen, baiña guk h'a ez ba'dogu ipintzen «utsa» ipintzen dausku. Au izan zan txikien erantzuna.

Bazkaltzerakoan, Villasante gaitik itandu neban, lan arek ta arein itz-egiteko erea entzun egian, baiña kanpoan egola erantzun eustan korista batek. Txikiak esan neutsien: —Zuen gurasoak euskera arloan, ardura geiagorik ez? —Gure gurasoak, geienak ez dakie euskeraz.

Ola ulertuten da, itxuen errian «batua» errege! Onelako «soloetan» errez erein leike azia, Villasante. Errazoiagaz esan eustan korista arek, oso azkarra ziñala. Ez al da zure ardura «batua» erakusten daben irakasleen joskera aztertzea? Ala «batuak» ez ete dau joskerarik? Ze egoera negar-garria gure erriarena!

Magisterio dauken guztiak andereño biurtzen jakuz; gurasoak, izen orregaz pozik geratu be. Zenbat guraso arduratzen ele gara andereñoak aukeratzean, aurreko euren eziketeagaz? Euskera ta Euskal-erria'ri buruz zenbat dakien? Ikastola baten sartzeko azterketarik egiten al dautse inork? Gero agertzen dira «pastel» ederrak gure ikastolan!

Kontuz ibilli ba guraso batzordekoak andereñoak aukeratzean. Gilxienez, euskera ondo erakutsi dagiela eskatu. Orretarako bialtzen doguz gure txikiak; gurasoak baiño obeto ikasi dagien.

IBILLALDIKO BATEK

Zumarraga

AITONA'REN KEZKAK

Irakurle; gaur, nere zeregiña izango da, Euskera'ren etorkizunari buruz, nere barrua erretzen duen kezka bizia jorratzea.

Ondo dakit, or, ta, emen, luma eder ugari ba-dagola gure errian, gai au egoki garatuko dutenak. Gaur, nere luma baldarraren arian nai nuke idazle trebe oietara iristeko jende xeari bideak iriki.

Gizadia'ren udaberriko goiz epel batean, Auña-mendi maldetan, arkitzen degu gure aberriaren sustraia, Aitor ta Amagoia, seme-alaba ugariz inguratuak. Euskera da beren mintzoa, Euskeraz ele egiten dute. Ukatu ezin diteke gizaldiak zear maixu egoki ugari izan dute beren artean, basoon perretxikuak lez, ez da sortzen orrain izkuntz bete ta aberatsa. Egun lañotsu batean kanpotar erriak, batzuek «Basokoak erritar egiteko aitzakian» ta besteak «Basokoak Kristau egiteko aitzakian», ta beste obeago ez diran batzuek, oñperatuko dituzte gure erri-mugak, Mahoma'ren siñismena edatzeko aitzakiz. Oinbeste naste-borrastek sortzen duen naspillan geien bat noztizen du gure ama Euskerak.

XIX gizaldiaren azken urtetan ikuste degu, amona gaxoa!, bere etxean illotzik jausteko zorian. Bañan egun argi ta zoragarri batean, biotz garbiko gizon bulartsu batek, deadar batean, oiu egin zuen esanaz: «Jainkoak Euskerak burua altxatzea nai du» ta dei onen oiartzunera orr ta emen, jeikiko dira gizon bulartsu eta Euskal-maitale sutsuak, batzuek abes-tiekin ta beste batzuek itzarekin eta egintzak. gure AMA, suspertuko dutenak. Adifnean sartuak geranok, ba-dakigu nolako ondamentiak ikusi ditugun.

Poz-pozik gaur, gure inguruan ikusten degu udaberri baten sorrera. Idazle taldeak, or, ta emen ederkik apañduta, eparantzara ateratzen dute gure nortasunaren ezaugarri berezia. Biotz aundiko irakasle taldei esker, millaka aurtxok gaur beren ezañetan darabilte, aitorren elea.

Ikastolei esker, baztertua zegoen sendi askotan ikusten degu berriz zor zaion lekua artzen ari dela. Azken aldian ontan, Euskal-erria taldeari esker, ardingale ta artu-emaneko leku guztietan or ikusten dira erbestetuta dauden itzak, Euskera jatorrean, eta izparringietan egunetik-egunera sail aindiagoak. Jaungoikoak Euskerak burua altxatzea nai du!

AZKARRAGA

Sara

LUR GUZIAK DU IKUSIA...

Salbamenduko Eguzkia. Ala kantatu genduen denok Sara'ko Eliza politean. «Sansi» zanaren illetak ziran-ta. Sansi nere osaba zan; nere aita artistikoa. Gizon alai ta artista. Esku-zabala, gure «Sansi»... Biotz onekoa, kezksua. Or egongo da Artisten Zeruan, margotzen-edo...

«Sansi»k amaitu du bere ametsa... or dezute «Bidartea» bere etxe ederra. Ta, gero, Zerura joan zaigu... ola gertatzen da beti, ametsak mamitzen diranean. Ta, gero, beste ametsak sortu bear dira.

Sara'ko Elizan egin nuen nik, lenbiziko Jaunartzea. Nola aaztu? Orduan, Euskal-erria gudan zegoen —anai-guda izugarria— ta orain ere bai. Gudak, guda dakar... Zertarako jarraitu?

Bai gauza ederra dala bakardadea, ixiltasuna, baiñan ez beti. Kanpoan, zera urdintzen ari da... Urrunean, Larrun, gorri-gorria dago... Sara'ko plaza xarmant, jendea, kotxeak... Ma Pax, Ma Asen, Gabriel... nere lengusu jatorrak. Nere aita ta ama... denak parrez eta negarrez... Dn Bernardo apaiz xelebrea, musikari trebea...



San Martin eguna ere iritxi da, gauza guztiak bezela. Giro aparta, bikaiña, argia... San Martin'go udaratxoia noski. Gudan ildakoen eguna... emen. Ugariak dira, zoritxarrez, or nunbait ildako saratarrak. Denak Euskaldunak... Prantzi'gatik illak, Edo besteren bategatik —bardin da. Baiñan noiz Euskal-erria'gatik?

Ille Oroit-aria lorez josia dago. Sara'ko Kanposantua baratz margotsu bat dirudi... Paradisu berezia. Ba-dator lagun taldea, bere ikurrindunarekin ta guzi. Gauza ikaragarria benetan!

Gero, berriz Bidartea'ra. Gauean bakarrik. Bildurra? Otza? Nik zer dakit! Potxo, zakur gizajoa, alemanak «garbitua». Denbora baten, zenbat jende jan-gela aundi ontan! Ai, zer zarata! Ai, zer parrak! Ai, zer alkar-izketa sutsuak! Kantak ere bai, pianoan... Su ondoan, amets beroak. Orain ezer ez... ildakoen itzalak bakarrik... ikus-eziñak, biziak.

Bai, Jainkoak ondo egiten ditu gauzak... guk ez. Negarra, samiña, malkoak onak dira, bearrak, gure animak, gure okerrak garbitzeko. Emen, ondo ta ondo, ezin da... Bestela irakurri Ebanjelioa... gauza serioa benetan!

«Eman eta emango zaizue...» «Sansi»k asko eman du... ta asko artuko du. Bai, Gaztelu, Uliá, Ekaitza. Azken kuadroa... Euskalduna izatea, euskeraz egitea da... beste guzia, utsa.

Sta. Barbara'ko pagadia oria dago... «Aitz-txuri» mendia, beltza. Nun nere aurrazoa, an nere Aberria... Sara, Donibane, Bidartea, Prefetenea... angoa naiz ni.

Asko zor diot nere osabari... Lenbizi, Bizia, gero, Artea. Eskerrikasko «Sansi», ta gero arte!

Ez dago atsedunik. Odei gabeko egunik. Zeruetan baizik... Bai, Lapurdi'ko lurralde ta etxeak... baita ango euskerak, beste grazia daukate!

MATXIN

Arratia

UDAGOIENA

Udabarriz zugatzen jantzia ta txorien ezkutak izandako orritza arek oritu, beillegitu ziran; eia lurrera datoz, mara-mara.

Beste udagoienik be ba-dogu, beillegituzan —ala beillegikeri?— aundia azaltzen dauskuna: gaztediaren itsukeria!

Pelipitoen itz-samur eta koipetsuak, samazintzurreen beera errez daroaz, eta barruratu ezker bein, naizia naskagarri izan eia ok-egitea nai, «txaketero» agertzearen lotsakizunak eragitiñ-edo... gurago dabe akerren artean amorrus bizi, aitarren artaldera anaiakana biurtzea baiño.

Indarra ta osasuna, asko ikasiak eta jakitun aundizat burua daukienak dira, lenen tximeldu, beillegitu, igartu ta Pelipe'ren su-egur egiten diranak: proletalگو, kapitalistalگو, sozialtalگو, comunistalگو... Tranpatalgoz beteko «auto flamanean» ara ta orra ibiliz bizi diranen morroi gixajok.

Izan daiteke bakoitza gorri naiz zuri, edo orlegi; beti be, baiña, Erriaren burpillean, txirrinkan loturik. Izan gaitzean ba, aurrerakoiak, baiña iñongo erbesteko buztarriari lotu gabeak, gure soloarentzat ongari eia norbera baiño beragoko otseintzatik bizi dan anai apalarentzat ekintzetan azkarak.

Mendiak, sakonak, tontorrak eta makurrak lurraren azalean, eia gizasemeetan ezbardintasuna beti izan da, eta izango, baiña jo dagigun aurrera al doguna eskuratzeko, iñongo arrotz erbestekoari norberaren burua ta Erria saldu barik. Kontuz bada, ezti-ontzian ozpiña damoskunakaz.

ARGAZKIA

Orain 53-54 bat urte Iurre izan zan aldi artako umeak agiri dira bertan. 74 guztira, eta Olabari'ko «maixua» erdian. Izango eban zeregiñik!

Ume arreetatik oraingoetara ba-da zulo ta tarterik. Izenez, danok giñan... erdelund; izatez ostera erderaren kutsurik gabeko euskaldun utsak. Oraingoak izenez aundi... izanez txiki. Amaren gona zarrez egiñiko karteratxo sorbaldatik dindilliz, ikastekorik esku barruan eta sudurreko dindirriak kentzeko eskuko eskumuturra ta ezkerreko eskulepoa besterik ez. Oraingoak baiño aundikeri gitxiagoz bizi giñan, baita azkeago be.

Emen argazkiko batzuen izenak: Jose Zubiate, Gezala'koa. J. Txirri, Pedrin Txato ta Luziano, Plaza Zarra'koak. Anton eta Antxio Iriando, Zakari, Jose M. Zestero, Floren Egia, B. Ansoa ta P. Antonio —Mimintze—. T. Mukurre, B. Urkijo, Olabari'tik Bustintza iru anai. P. Larrinaga, Txutxurri ta abar.

LANDAJUELA'TAR A

ARRILLAKO

Arrasate

ABESBATZA

Emengo «DANOK» Abesbatza eraberritu bearren zala-ta, batzar batzuk egin dira, bazkideen artean eta abeslariakin. Ori dala-ta batzorde barri bat jarri da eta Lendakari, autatu dute Arzamendi'tar Dabi, ereslari iaia eta zaletasun asko duna. Beragandik eta bere anai Jon, Zuzendari dala, gauza eder asko itxaroten dogu, gure erriko kultur bidean.

ERIOZAK

Jaunak Beraganatu du erritar ezagun eta osagille ospatsua izan zan Azabal'dar Errigoberto. Goian Bego. Euskaldun-euskalduna izan zan bere bizi guztian eta bere izkuntza bakarra gure euskera, euskaldunen artean beintzat. Urte askotan emengo Santaageda'ko Geixo Etxean izan zuan bere lanbidea eta diñoenez ondo ikusia geixoengandik. Bere sendeici neure atsekabea.

Baita ere il, bat-batekoz, gure lagun izan zan Otxoa'tar Ander, bere bizitzako 53 urtegeaz. Aretxabaleta'koa zan jaiotzez baiña urte askoan gure artean bizi izan zan. Artu beza, bere emazte Ugaldet'ar Kontxi'k eta seme alabak neure samin-agurra. Goian Bego.

BARATZA

Gipuzkoa'ko Aldundiak esker, or, Ezkorniatza'ko auzo Mendiola inguruan, Zugazti-Baratz eder bat jolastoki antzera egiteko asmoz ei dabiliz. Gure erritik gertu dago eta solaztoki egitea ba'litza, emetik jaiogunetan eta abar jende aundia juango litzake. Auzo ortan toki ederrak dagoz eta esaten duten bezela ormitzen ba'dute, ikusgarri geratuko litzake; or bertan, urrean dagoz Degurixa'ko zelaia, Kurtzebarri eta Andarto mendiak eta beste ikusgarri asko. Orduan zertarako juan beste lurralde batzuetara, emen gure Euskalerrri maite onetan ain leku ederrak izan ezker?

AZOKA

Durango'ko Azokara juateko era izan nuan eta an ikusitako gauza batzuekin poztuta etorri nintzan. Bateon-batzuk arro ibilli dira euren aldekoak liburu geien irartzen dutelata, baiña erosleak eta irakurleak bestaldekoak izaten geien bat. An ikusi ziran, Añamendi, Auspoa, San Miguel, Etor, euren liburu sailletan jendez inguratuta eta erosleak ez gutxi. Ikusi nituan erosle asko Uztapide'ren «Lengo Egunak Gogoan», Iñaki Agirre'ren «Eusko Lurra», Aita Intza'ren «Naparroa'ko Esatera Zarrak» Onaindia'ren «III, Euskal Literatura», «Kosmos» Ikastoletako euskerazko liburu ederrak euki zitun erosle asko. Orrez gairera saritua izan ziran Aita Intza'ren eta Uztapide'n liburuak. Beste batek baiño geiagok merezi zuten saria, baiña irabazi barik geratu ziran, eta danok dakigu zergaitik.

UDALAITZ

Galdakano

KIROLAK

Oraino egun baten aurkitu nintzan «Club Deportivo Galdakano»ko batzordeko batekin eta, bere lenengo itzak oneik izan ziran: «nai-ta aurten gure Galdakano»ekipoa»ongi ta beren taldean aurretik ibilli, ez dozu ezer berataz idatziten» eta alantxe da. Aurten aspaldiko urteetan dabiliztazenik ongien dabiliztazena jokatu den dirautsie. Eta-erriko gauza on guztiyak poztutzen nabean lez ori jakiteak be poztu egiten nau, baiña aspaldiko iru urte edo geyagotan ez ba'dot ikusten, zelan berataz ezer idatzi neike?

Ba'litzake gogoratuzten naizen egunen baten, igande baten, zelan jokatu den ikusten joatea, dirauskuenez ikustea merezi ei-dabe-ta. Orain arte jokatu dabezan jokaldirik geyenak be irebazi dabez, eta orduan, ikusian gairera, esango dautsuegu eurenkandi zer itxaron gintzaken. Bienbitartean, euren jarraitzaileak esaten daben lez «Aupa Galdakano!» ta ea euren taldeko edo Bizkai'ko txapelidun urtean daben.

—Lerro oneik idatziten doguzan egunotan Ganguren mendigoizale taldekoak eritutako «diaposetiba» ta mintsa batzuk ikusten izan gara, geyen bat Europa'ko Musturrak edo Picos de Europa aitz erpin da beren inguruetan lortutakoak, gure mendigoizale kementsuak.

Ez dago esan bearrik, atsegin izaten yakuzala mintsa ta argazki orreik, batetik mustur zorrotz oriatik ibilliak garelako eta beste, aitz erpin da aitzarte ikeragari asko benetan ezaugarriak izan ez diralako gure ez beste askorentzat eta, ez dago zalantzarik, mendigoizaleentzat benetan dira ikusgarriak, baiña bertatik ibilteko ondo gertuta egon bear diranak. Beraz, egoki dala uste dot mendi-zale askorentzat ta batezbera mendizear ibiliten asiharri diran gazte askorentzat, azalpen sakon batzuren bitartez aibat ikasi leikeelako eurotaikoak. Eta zenbat geyago idazitegi eder baten bitartez?, berau be ondo izango da gure batzordekoai gogoratu azotea, aspaldiz gagozalako bere eske.

IKASTOLA BARRIAK

Laster baten izango ei-dira jasoak ikastola barriak, Udala ta Laterian bitartez, jakina; Tximelarre'n iparraldean, bere barrenian «Señorio de Bizkaya» izen barri xamarraz ezagutzen danan aldamenian.

Bearrezkoan zan izan be ikastol au, neguak gairatu ta barri batzuk be egiñak izan diran arrik, azkenengo urteotan, erriaren ugarikera izugarriak onetariko arazorik asko sortu dabelako gure errit ontan. Eta ori dala bide, pitien-pitien aurkitzen dira umeak lengo ikastoletan tokirik ez dabela. Ea beste egun baten emon al dogun argi geyago ikastola barri onetaz.

EZKONTZEA LARREA'N

Azil onen 9'nean, Iurreta'ko Sagastabeitia ta Amezu'tar Miren-Agurizane, ta Galdakano'ko Basakina-barrena etxealde apaitheko Abasolo ta Altuna'tar Gotzon ezkondu ziran, eta an izan geu be taldeko. Josu-lagundiko Aita Zabaleta'k eroan eban ezkontza arloa. Irakurgaita senar barriaren osabeak irakurri eban. Ta bazlaktzera, Goiuria'n dan «Ikuspegi» izena daben jatetzera.

Basetxeko ume, ta basetxe zaleak diranez, benetan poztu gaitu ezkontza onek. Zorioneko izango al dira euren bizitza barrian!

BASA-JAUN

BARRIAK

Basauri

Urrilla'ren 20'an amaitu ziran erri onetako jaiak. Egualdi zatarras asi ta zatarragoagaz amaitu ziran, eta egualdiagaitik eta beste gauza batzukaitik, alaitasun gitxiko jaiak euk idoguz.

Orain arte beintzat, askok euki dozue, nozean-beiñ bestaldeko anajongana joateko zoria edo al-izatea, baiña danok eztaukagu al-izate ori, ta orregaitik, zorrak erabagia zan Basauri'ko agintariak artu ebena, Euskalerriko Dantza Agerketa Nagusia egitea erri onetako jaietan. A bai izan zala «guraso» zuzen eta zintzo batzuen maitasuna euren erritareruntz.

Pozek beterik gendozan aurten be; erriko «guraso» zintzuok, gure ametsa zeñi dan aztu barik, anajok alkatzeoko era eskintzen dauskuela ikusirik, ba, jaietako egitarauan, Urrilla'ren 20'an, Euskalerriko 3'gn. Dantza Agerketa Nagusian, Laburdi, Be-Nabarra, Zuberoa, Nabarra, Araba, Gipuzkoa eta Bizkai'ko taldeak, emen Soloarten ikusiko genduzela ipintzen eban.



Ta pozik egotekoa dala usteot, ba bearrezkoak izaten da noizean-beiñ, bananduta aurkitzen diran anai-arrebak alkatzea; ori bai izaten dala alaitasuna ta zori osoa, baiña bateronbat ez bada agertu, zori ori txatal bat gabe geratzen da.

Ori jazo zan Basauri'n be egun orretan, bat ez, iru anai eziran agertu, Laburdi Be-Nabarra eta Zuberoa'tarrak.

Ori jakin gendunean goibeldurik gelditu giñan, ta zintzuko talde ikusiko genduzan jakiteko antolatzaile bateri eskatu neutsan egitaraua.

Talde oneik ikusi genduzen: Berriz'ko Nagusiak eta Zortzi Elduak. Otsagi'ko dantzariak.—Gazteiz'ko Indarra.—Donosti'ko Goizaldi.—Aurtiz'ko Yoaldunak.—Baztan'go dantzariak.—Bilbo'ko Bizkai.

Talde oneik, su ta gar alegindu arren, alako egualdi ezin zaiken ez oba-gorik eskiñi. Ezta ikuzgarrizko jolaz asko izan, baiña batzuk bai zikeran.

Onetariko bat Urrillaren 6'an izan zan; Euskalerriko Bertzolari ta Ereskiñen jai-aldia. Bertsolariak, Lazkano ta Gorrotxategi. Aurkezlea Enbeitia'tar Jon. Ereskiñen aurkezlea, Arrieta.

Ea datorren urtean zori ohea eukiten dogun eta igaro zan urtean bezela, anai danok alkatzeoko baimena lortzen dan.

GOIKOETXEA'TAR KEPA

Altzatzu

ONDARRA A. KAPUTXINOAK LENENGO SARIA TOLOSA'KO MUXIKARESKI SARIKETAN

Tolosa, euskaldun uri politean, badakite benetan gauzarik ondo egiten...! Dala cler-tian, dala edertian, dala muxikan, ta abar aurretatua dago; ta burututen dauan edozein asmoari, giro ederra emoten dautso. Batez be euskal gaietan, Euskalerrri osoan lenengoa dala nik uste ta esatera, be, asurtu naz.

Oraindik oraintsu be, zertu dauzan muxikari buruzko leiaketak ederto egiñak egon dira egon...

Leiaketak bi izan dira: bata Abesbatzena; bestea abesbatzentzat ereskiak egitea. Lenengo a, aurten seigarren aldiz; eta bigarrena, aurten irugarren aldiz.

Abesbatzen leiaketan, atzerrikoak irabazi izan dabez sariak; Etxarri-Aranaz'koak bakarrik merezi izan dau saririk, atzerriko ez diranen artean.

Baiña muxikari ereskiarrien leiaketan, lenengo saria, 100.000 laurlekoa zana, bateri bakarrik emon barik, biri emon izan dautse: bata Ondarra Aita Kaputxinoari: 50.000 laurleko ta Tolosa'ko udaletxeoko plaka ederra ta txapel eder-eder bat be bai. Txapelak ganean, kanpotik, izki ederrez idatzirik daroa, zergaitik eta non emon izan dautsoen alango txapel andi, ederra.

Beste sari erdia, barriz, au be 50.000 laurlekoa, yugoslavo bateri emon dautsoe.

Leiaketak bietara, Abesbatzetara ta ereskiar, atzeritar asko izan dira aurreratu diranak. Ortik ageri da, Tolosa'ko muxikareskiak, errietako mugak eta mugak gainditu dituzala; ta ospetsu egin dala. Zorionak orregaitik danoi...!

Yugoslavo eztaik, argi ta oso, nor dan, zer edo zer yakitnik be. Orregaitik oraingoan «Ondarra» Aitaren barria bakarrik dakart «AGUR»era.

NOR DAN ONDARRA'TAR LORENTZO AITA

Bakaiku'n (Naparroa'n) yaioa 1931'n, Azil onetan berean 43 urte betetan dauz. Tinko ta gazte-gazte dago. Bizitza guztian muxikarako zaletasun ta erreztasun itzela, ola beti muxika ikasten ibilli oi dala ibilli, esan geinke...

Donosti'ko Konserbatorioan ikastaro osoa zazpi edo zortzi urtekoa. Organoa «Garbitzu» yaunarekin ta muxika-ereskia (composición) Eskudero yaunakin. Gero «Gregoriano-eresia» deitutun yakona, gure adiskide «Manzarraga» Aitagaz Madrillen; ta ortik gero Montserrat'en, be, egonaldi luzea «Gregoriano-eresiaren» yakintza osotzen.

Atzerrian, Italia'ko «Siena» urian ikastaro osoa eta bardin Alemani'ko «Darmstadt» urian be. Beraz labor esateko; berez zaletasun andia ekarri ta kanpotik ditekten gertuarik onena artu.

Emen dapindaz irabazi dauzan sariak, zer edo zer azalduz:

1) 1963'an, Iruña'ko Belenzaleak «Eguberri-abestien» txapelketa antolatu ta Ondarra A. izan irabazle. Eta «Gaiarre» antzokian lenaldiz abestua izan ziran.

2) 1965'an, Bartzelona'ko «Orfeo Catalá'k egin norgeiagoka dirdiratsua; ta Ondarra Aitaru saritu bost eresi kataluñekoak eta «Palau de la Muxika» dalakoan izan ziran aurrenik entzuterara emonak.

3) 1968'an Gabonetako saria «S'Agaró'k emon eutsun eta Bartzelona'ko «SER» irratia zabaldu eban lenengoz.

4) 1969'an Leterrri-saria, leterriko «Eder-tien» bazkunak egindako norgeiagokan irabazia eta «Eziketaren Zaingoko» saritu ebana. Au be 100.000 laurlekoena; baiña bien artean erdibanatu eban. Sari oneri buruz ba dauka zer edo esateko: lan andia, izugarrikoa, alan eskatuten ebalako norgeiagokak; ta gero alango saria besterik ez, Gobernuaren Zaingo batek emona izanik.

5) Orain Tolosa'n; leterrri-sariketan baiño ohea; eta ganera, diñost berak, «Tolosa'ko sariketarako egin bear izan dodan ereskia, euskal eresi errazakaz ta pollitakaz egin izan dot. Bi ereski aurkeztu dodaz: bata, Naparroa'ko Baraibar errian bilduriko eresi batekin egiña ta bestea Gipuzkoa'n bilduriko batekin. Eta oraino pozik dago.

GEIAGO BE BAI...

Yurki Aita, Donosti Aitaren muxikak argitaratzen dabilleta, Ondarra A. dau muxikarako laguntzaile ta lankide, Yurki Aitak berak muxika-liburu bakoitzean erakarten dauan lez. Eskudero yaunari, be, lagundu eutsun «Zigor»eko orkestra ereskiak pianorako aldatatuten, Eskudero yaunak berak eskatuta.

Ba dituz Abasbatzentzat ereskiak be: a) Eguberrietako bost eresi, ar-emeen abotsetarako. b) Set cancons popular catalanes. d) Jai-abestik (5 euskal-eresi). e) Alkidantzan. g) Dos poemas vascos. i) Salmodia pascual. Baita orkestarako be badituz: a) Pascua Gregoriana (orkestra). b) Asitar Prantzisko Deunaren eresia (orkestra, taldea eta bat bakarra). Eta beste saioak be ugari komen-tuetarako, elizetarako, arek edo onek eskatua, ta abar. Azken onecatik geienak oraindik argitara bakoak.

ITAUN BATERI ERANTZUNA

Itaun bat egin dautsot onelan ta onelan erantzun daut:

Ondarra Aita, zuk ondo dakizunez, orain emen gure Euskalerrri maite onetan, «kantaitaldeak» asko sortu da, kitarakaz edo beste tresnakaz kanta-kantari dabiliztanak. Zer uste dozu zuk kantari-talde orreitaz...?

Erantzuna: dana oso ondo dagoela derit-zait. Aldez, ortik erria bizirik dagoela ageri dalako: aldez, ortik, be, muxika erri-erriari geiago sartuten yako barru-barruraino; ta olan erria, oraindik, lenagotik zana baiño be muxikalariago egiten dalako; eta azkenez ona zertan oartu nazan: abestia zaarra izan da be, sarritan igikera (ritmoa) barriagoa emoten dautsoe. Ta alan abesti zaarak kendu barik ta utzi barik, erabarritu egiten dabez.

Edestiak ekarri dauskuzan bide zaarak ez utzi edo kendu, obetu ta edertu baiño; baita barriak be zabaldu. Ori egitea da gauzarik onena.

Eta amaitu dot. Zorionak, Ondarra A.; eta urte askoz...

YURRE'TAR YULEN A.

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra

BILBAO - Casco Viejo

Tenderia, 15 eta 16

GALDAKANO

1741 urtean zan. Urrilla'ren 26'n. Andra Mari'ko eleizan organu jotzallea falta eben.

Organu jotzalle izateko, siñismena bear zan lenengo. Gain gaiñetik. Eta umorea eta gogoa gero. Orrez gañera beste zeregin asko egiten jakin edo artara makurtu.

Domingo Sebastian Eizaga eskribaduren etxean egin ziran kargu ori beteteko baldintza eta itunak, au da, kapitulaziñoiak.

Euretan agintzen zan lez, organu jotzalleak sakristautza be egin bear eban eta umien eskolan irakatsi. Baiña mamiña eta kakua emen dagoz: umiei erderaz erakutsi, euskeraz egitea galarazota.

Ardura ori Migel Ugalde bilbotarrak artu eban.

Ikusten denez Galdakano'n antxiña asi ziran gure berbetea zokondoan laga nairik. Eskerrak bera bitu erazi edo beintzat berari eusten laguntzeko, len eta orain «baso-jaunak» gogoz eta jator jardun izan dabela.

* * *

Galdakano'ri gain gaiñetik begiratu eta laster ten egiten dau irudi bakan batek. Andra Mari eleizearen torre eta ormak, eleizak berak, bere egituraz. Bizkai'ko pitxi deitu izan dautse kritiko batzuk.

Ezin ukatu ala danik. Galdakano'ra sartu eta bidezko zan ba orrelako pitxiak ikusi nai izatea. Ikusi, atsegin artu eta goratu. Zoritxarre. Bizkaia'n, erromaniku jokeretan, orrelako edergarri banakak geratzen dira. Bakio'ko San Pelayo eta Mungia'ko Zumetxaga'ko San Migel kenduta, nun?

XIII gizaldiaren azkenetan jasoa dala uste da eleiza au. XVI'ean barriztatu eta zabaldu edo anditu zana, jakifia da.

Irudi zoragarriak aldareko erretabloan. Zidar giroko edo tankerako da. Erdi-mendean, orduko eran, garbi-garbi, kutsu barik, jator egiñak dirala igarten da.

Andra Mari'ren irudi bi ikusten dira bertan. Bigarren gorputzaldean bat. Au ete da aldare au egin aurretik bertan egoan Andra Mari'ren irudi jatorra? Orrela pentsatu eta agertu dabe onetan jakintsu diranak.

Beste itaun bat orain: Euki ete eban Andra Mari'ko eleiza onek, erriarren artean, bete-beteko begirapenik?

Egia: Gizaldi batzuetan bertako eleiztar izan ziran ingurutako erriarik ez. Asarrez bizi ziran urte luzetan.

Eleiza onek inguru andia artzen eban eta origaitik inguru orreitako fededunak nekez eta lorrez bete.

Jakin bear da, Lemoa eta Bedia'tik zear, Etxebarri eta Ganguren'go Santa Marina be, parroki onetako eleiztarrak zirala. Santa Marina onek, bataiotarako ur-ontzia eukiarren be, ez eban parroki izaterik euki. Ez beintzat Andra Mari'ko au parroki egin zanetik. Ba dira diñoenak, aurrez, Ganguren'go eleiza au izan zala ingurutako parroki.

Bidezko zan ainbeste neke eskatzen eutsen ingurutakoak, parrokiagaz bete-arren, beragaz atsegiñez ez gotea.

Orduko gora-berak irakurtean laster billatzen dira orretara makurtu eragiten daben zeaugarriak.

1509 urtean Andra Mari'ko eleiz gizonak eta Etxebarri'ko eleiztarrak, San Esteban izeneko parroki barria egiteko erabagia artu eban. Bete be lokarriak Galdakano'ren gain lagata. Au da, lenengotan beintzat, serbitsurako Andra Mari'ko abadeak eurerariko bat bialtzea eurentzat artuta.

Etxebarri bere jaube gelditu zan eta Bedia be bai.

Eta galdakanotarrak? Zer gertatzen da gaur bertan eleiz onen alboan egiña dan bigarren irakaskintzako eskolteke edo institutuagaz? Galdakanotar batzuk errezago billatzen dabela Basauri'ra joatea, ara baiño.

Erritik urrun egiten ei da. Ibilpide neke-tua, penaza.

Parroki barria egitea pentsatu zanean olako zerbait egongo zan.

Bost gizaldi iraun eban Andra Mari'k parroki lez. Napparro'ko erregearen senide zan Galdakano'ko Santxo'k egin ebanetik.

* * *

1782'ko Jorralla'ren 30'n, baimena lortu eta Santa Marina'ko ermitea beratzen asi ziran, erasten. Eta bertako irudia Kurutzeko eleizara, ermitara eroan zan, ibildeun edo prozesiño andi baten.

Amalau idi pare erabilli ziran bertako tresnak kendu eta erabilten.

360 kana arri Bilbo'ko Sorkunde'ko monjak erosi zituztan. Beste arri zabalak, arlosak, Larrabetzu'ko eleiz barrira eroan ziran. Amaika milla tella saldu ziran, 3.300 errialetan.

Parrokira jota, 1792'an eskatu zan Galdakano'n parroki barria egitea. Aurrez Kapelestegi elorriotarrari eskatu eutsen Andra Mari konpontzea ze kostako ete zan: 70 milla errial, eta ala ta be ez zala ondo geratuko, erakutsi eban berak.

Parroki barria 209.465 errial kostatu zan. Parroki barria egiteko eskabidea egin zanean, bere aldeko agiri edo informe batek esaten eban bestea, toki bakarti, menditsu aizzen

mendeko, neketsu eta erritik aldeta egoala. Ala zan bikario baten agiria. Eta orrez gañera, txiki, otz eta arriskuz betea zala, bere beko arlosak etenda eta zaitututa eukazala, eta bertan illobiratutakoan azurrak be agirian agertu eta ikusten zirala.

Igarten da, ba, zerbaitegaitik, parroki ori bere berotasun eta maitasuna galtzen cioiala.

* * *

Odol beruak. Bai. 1719 urtean, erri eta toki batzutan Aduanak ipiñi ziralako, benetako asarreak eta nasteak sortu ziran errietan.

Otxandio'n Rocaverde'ko markesa eta Antonio Errekalde il zituen. Bergararrak ziran biak eta aduanen aldeko. Origaitik sei otxandiotar eriotzara epaitu eta il zituen.

Bilbo eta inguruetan be gorabera larriak ezagutu ziran. Eta beste sei eriotzara kondenuatu zituen. Bat galdakanotarra zan, Juan Errekalde. Bilbo'ko kartzelan garrotez il ondoren, Plaza zarrean buruak ebaki eutsezan eta erri batzuetako sarreteran dindilizka ipiñi bildurra sartu eragiteko.

* * *

Premiñak istoria galdu eragiten dabela? Or Galdakano'ko lurretan, Urgoiti jauregia. Istoriz betea. Baiña autopistaren premiña agertu zan, istori barria zabaldu bearrez. Eta Pizkunde giroko jauregi edo palazio eder a, beratu zan, bide barrien berbikundeari tokia lagateko, asfaltoari leku egiteko.

Lenagoko gerrate baten odolez gorritu ei zan jauregi a.

Torre bat izentatu dogunez, geiago be ba ziran eta gogoratu daiguzan.

Oikina. Gaur Oikina baserria dagon tokian egon zan izen bardiñoeko torrea. Sartu zaite bertan odolaren iturrian. Areizagatarrak ikusiko dozuz dantzan, politikan, legeetan eta gerretan.

Torre.—Guazen berago. Urgoiti eta Usansolo bitartean, or dago Torre. Zornotza'ko Larreatarren urratsak billatuko doguz eta geroago Lekeitio'ko Zubietatarrak.

Isasi. Au be Usansolo'n. Eta bardin Lekue. Ondarroa'n be sartu eben eztena Lekue'tar oneik, Antxiko baserriko etxeoandregaz ezkontzean.

Emengo jaunak, bere sepultura zala ta asarraldi luzea eta gogorra euki eban eleizeagaz 1640'n. Obispaduko begiralea etorri zanean, illobi edo sepultura ori bestien gain egoalako, bardintzeko agindu eban.

Torrekoak, euren eskubideak edo euren arrotasuna zaindu nairik, eleiza zarrean be alaxe egoten zala adierazi eban eta oraingo parrokiaren be, azkenengo 110 urtetan alaxe egoala. Gañera beste eskubide bateri ikutu nai izan eutsen. Santxo Galdakano eta Torre-zabal izan zala eleiza a eta torrea bera egin ebazana. Alaxe zala ezteutea eta sifistea. Orrela, urte batzuk ondoren, bere errazoia ontzat artzea lortu eban eta asarreak bertan bera laga.

* * *

Galdakanotar batzuk ez ziran beti erriar eskubide osodun izan. Jauntxo'en mende eta areik zapalduta bai. Origaitik bilbotar legean sartzeko askabidea egin eban.

Gurari ori lortu eta urte askotan bilbotar lez eitsen zirala ba dakigu. Ala ikusten da don Juan errege eta Bizkai'ko jaunak 1435 urtean zabalduzako agiri baten.

«Galdakano, Zaratamo eta Arrigorriaga'ko eleizatetako baserriar zintzoak, miñez eta kezaz joan yakozala Bizkai'ko jauntxu batzuek kalte eta indarkeri asko egiten eutsezala ta bilbotar bizilagunen legedian artzeko eskatzen...»

Lotsagarri? Or dagoz agiriak.

* * *

Galdakano, indarra daukak eta geldirik ago! Ala da esakera bat.

Baiña gaur ezin leikio iñori geldi egoteko esan. Gixxiago erri bateri.

Orain 100 urte 1.400 lagunik ez eukan Galdakano'k. 1.303, Delmas'en esanetan. Gaur? Illetik illera geitzen. Eta geitzeko. Ogei millatik gora bizi dira Agirre, Arteta, Ben-goetxea, Elexalde, Gomuzio, Urgoiti, Usansolo eta Zuazo'n.

Erri barriak istoria bete barik agertzen dira. Lengo zarrak eukiten daben alako ardura, lotsa, errespetu eta ezagutu naia lortzea asko kostaten da.

Gaurko etxeak, gaurko plazak, gaurko jokerak eta alegiñak, istori biurtu arte, asko igaro bear. Erri barriak nekez lortzen dabe nortasun berezi bat.

Ezagutu daigun erri askok baiño arteari eta egokitasunari geiago begiratzen dautsala. Premiñazko da ori be. Errien ardura da ori. Eta bere semeena erria goratzen alegintzea. Onetan galdakanotarrak eredu agertzen yakuz Bizkaia'n. Andra Mari eleiza goratzen asi gara eta ezin geinke amaitu «Andra Mari» taldea txalotu barik. Or dabil munduz mundu gure izatearen agergerri bat arakusten. Galdakano'ren izenean eta Euskalerrriaren mendeanean.

A. ZUBIKARAI

AGVR

Apartado n.º 2
BILBAO

FRANQUEO
CONCERTADO
08/55

UMETXOEN ESKOLAK

3-6 URTE ARTE... BEARREZKOAK?

Makiña bat berba egiñak dira, alperrik ala ez, gai onetzaz, nazioarteko batzarretan. Oraintsu bukatu da munduko amalaugarrena, izen burutzat artu dudun itaun edo galderari erantzun nai ez, nola edo ala.

Nola edo ala diot, teori aldetik ez, ekintza aldetik baizik. Artarako arrazoibideak, ujoldeak ura baiño areago dakarzkigute-ta jakintsuek. Alegia, umearen 3-6 urte adiñ ori, kinka aundikoa dela, aien barne-barneari eta soiñari buruz. Burubiotzari, esate baterako. Korputz eta arimearentzat bearrekoa botatzen bait-dute mailla orretako Eziketa.

«Mens sana in corpore sano» aspaldiko esaera. Gauza biok, jakitez eta osasunez, zaindu bear ditugu aro ortatik asita, gutxienez. Amaren aur-petik asi, obe, diote. Noraiño, gero?

Beraz, munduak bear dituen gizonak, ez dira nolanaikoak, aurrerantz, sendoak eta zintzoak baizik. Ala guztiz ere larriegi biziko ote...?

Amalaugarren nazioarteko Batzar onetan, 50 erri-aldeetakoak, irakasleak batzuk, medikuak ere, soziologia eta abar gaietaz berariz ikasiak elkartu ziren. Zenbat? 1.300'ren bat.

* * *

UMETXOAREN ezibideaz, ikuspegi asko baitira. An erabilli zuten eztabaida, an asmakizunak, an bideak urratu naiak, an konpondu eziñak, an batez ere diru aldeko gorabeerak. Azkenik, gaur eta biarko aterapenak. Nondik jo? Nondik jarrai? Elburuak eta mugak, nola azpimarkatu? Aunitz buruauste izan ziran batzarra amaitzerakoan. Irugarren munduko umeezaz izan oi da zalantza eta borrokaldirik. Zer, gero? Irureun milloi ume billuzi eta gosebera, nola eskolatu daitezke?

* * *

Betiko leloa da auxe. Ez eskolik, ez irakaslerik, ez dirurik eta ez gogorik ere nabari dugu an eta emen eta bazter guztietan.

Aldundiak, udaletxeak, elizbarrutiak, nazioetako gobernuak, nola ardura erazi betebear orretara? Nola biotz berotu gurasoak batez ere? Begien aurrean ipiñi dizaizkiegun eskola artakoen egikizun ziurrak. Bearrezkoak al dira? Bai, alegia. Zergaitik? Iru gauza jakin dezatela.

* * *

BAT. Edozein tokitako umetxoak, azierako eta ezierako umetandik bear duen giroa, famili berean ez ezik, non idoro dezake?

Geroztik, bein iru urtetara, familiako moltzoa etzaio aski umetxoari. An sukaldean, biribilka, beti bat ikusiaz, ez daukake argiune aundirik adimenari buruz. Zentzuz ere lo-zaku bat biurturik dakusguke gure umetxoa. Gizagaixoa alena!

Zer egin bear litzake? Eskolara eramán dagigun umetxo ori, an ezagutuko ditu bere antzeko beste umetxoak, aiekin ibilli, elkar maitatzen ikasiko dute. (ai, alako bat), etxean erakutsi diotena aztertuko du beste etxeetako laguntxoegaz, nor den oartuko da.

Emen arrisku bat sortu oi da gure artean. Familietatik datorren pekatua, albokoa gutxiastea, pobrea dala, alegia. Arraiopola! Ez dezagun alako lirdingarik eroin eskoletan. Su ta gar jo bear dugu kastatxarkeri beltz au gure artetik uxatzen. Bein betiko! Pobrea dela, aberatsa dela, azkarra edo motela. Ez da eskolan umetxoa artzeko ajolik izan bear.

* * *

BI. Ara ezkerre, eskola barruan, irakasleak du itza, gurasoen arabera. Baiñan, umetxoaren moldatzea miragarrizko lana baita, maisuek eta maistrek dakite.

Adin onetan eziketa, bilduma bat izaten da, umetxoaren eginkizunen zuzentzea, nora jo jakin dezan, aren animako indarrak galdu ez-baiñan, gizartearen murgil daitezen.

Auxe da eziketa on bat ematea, ingurukoekin ar-emanetan jarri gure umetxoa, itxartu dadin, lo baitago bestela, ezer asmatu eziñik, ezertara baliatutzeko baliatutzeko iragarkizunik eza, bere esku-oñak bide batean erabilli ditzan, gogamena ariarazi bear zaio. Nola baiñan?

* * *

IRU. Bere oldez dabil iru urtekoa. Basoan kantari txoria bezela. Kaskaillua ager oi da gurasoentzat, kazkarroan baitabil beti, iñorengana makurtzke. Jakin ere, ez daki.

Berarenganako dituen joerak, besteentzat ere, edo okerrekorik dituenak nabarmen-nabarmen berari eta iñori buruz, zuaitz landare koskor bat bezela da zuzen-bearrez.

Umetxoaren berrezia, andereñoen eta maisuen gain gelditzen da. A, zelako arazo-neke. Ariketa onetan batipat eska oi zaie gurasoei babesa. Batera jo bear dute eskolek eta famili etxeok. Elkartasunez balebiltzate, lan erdi litzake. Itz polita auxe. Elkartasuna.

* * *

Euskalerrria'n, ordea, noiz lortuko dugu euskaltzale gerenok? Gabiltzan bidetik, iñoiz ez. Zu eta ni. Ni eta zu. Gu eta zuek eta gu. Zein geiagoketan gabiltzan artean, ez dugu gauza onik aterako euskeraren zabalkuntzan. Asarretik asarrera. Oñaztarrak eta ganboatarrak. Arantzazu'koak eta Gernika'koak aurrez aurre gaude. Il ala bizi dago euskera. Ba dakigu.

ARZUAGA'TAR SIXTO

JAKIN - BEARRA

ALKARREN ARDUREA

Gizonok, alkarragandik urrin naiz ur bizi, alkarren barria jakin-bearra dauka. Alkarren barriak ziur eta argi jakiteak, alkar ezagutzera garoaz, eta alkar ondo ezagutu ezker, maitetasunerako ta batasunerako oinkada ederra emon dogu.

Ludi guztiko gizonen jazoerak arduratu bear gaitue, baiña geure inguruan bizi diranenak lenengo. Gizadi osoak baiño geiago arduratu bear gaitu Europa'k, eta, jakiña, Europa'k baiño geiago geure Erriak.

ERREZAGO ALA GAITXAGO GAUR?

Alde batetik barri-bideak artu daberen indar aundia ikusi ezker, gaur alkarren barria jakitea errezago dala esan bear. Irratiak, urrutikuskiñak, eta izparringiak, eta orreien laguntzarako sortu diran berri-batzak, indar aundia dauke gaur.

Baiña, beste alde batetik, lurralde batzutan geiago, beste batzutan gitxiago, barri-bide indartsu oneik «kontrol» izaten dabe, eta etxe inguruan sortzen diran barriak jakitea izaten da sarritan gaitxena, eta urreko barriak urrietik jakin bearra tamalgarriena. Legeak es-tuak ba'dira, barri-zabaltzea asko gaiz-tuten da.

Izparlariak eurak be ba'dauke gaur trebetasun berezia. Ondo gertatzen dira, orretarako ikasketa sakon eta zabalak egiñaz.

GU, EUSKALDUNOK ZELAN?

Euskalerrriaren zabaltasuna ez da aundia. Gure uriburua guztiak egun baten berebil bat az ikertu ledikez.

Alkarren barriak jakiteak erreza izan bear leukela esan geinke ba. Eta ez de orrelan. Gaitxa da.

Or daukagu, lenengo, mugearen arzoa eta bear diran agiri guztiakaz orniduta joan bearra.

Or daukagu, euskalkien ezbardintasuna. Pizka bat alegindu ezker eta oi-turea artu ezker, errez alkar ulertu geintez, baiña sortzen da ortik be gaiztasuna.

Eta ezin ukatu irakurteko, batez be euskeraz idatziak irakurteko, daukagun nagikeria. Amar bat aldizkari izan ledikez gaur euskera utsean idazten diranak, mugaz andik eta emendik. Baiña ori ta guzti be alkarren barriak jakiteko ez daukagu era larregirik?

GURE IZPARLARIEN ARDUREA

Izparlariaren trebetasuna oso gitxi geuretu dogula uste dogu. Ba ditugu izparlari batzuk euskera dakienak, baiña euskalgaitan oso gitxi sartzen dira. Ba ditugu Euskalerrri'ko barriak batu eta zabaldu gura dituenak, baiña trebetasun aldetik makalak. Noiz alkartuko ete dira alderdi bi oneik?

Gure ikasle gazteen artean, ez dira gitxi benetako euskalzaleak. Orain, batez be, C. O. U. deritxon ikas-urte ori daukat gogoan. Zergaitik ez ete dabe izparlartzea ikasten gazte oneik, eta batek eta bik baiño geiagok?

Izparlariak bear doguz, eta gure Erria ondo ulertu eta bertan jazoten diranai bear dan sakontasuna ta garrantzia emongo dautsen izparlariak. Benetako trebetasuna eta benetako Erri-zaletasuna izan bearko dabez izparlari orreik.

IRRATIA TA URRUTIKUSKIÑA

Barri-bide oneitan lan egitea, benetako trebetasunaz egin bear ba'da, gaitxago da. Baiña mailla orretara be eldu bearko dabe gure izparlariak.

Alkarren barria jakin bear ba'dogu, Euskalerrri guztian, Europa'n eta gizarte guztian, eta barri orreik geuretasunez beterikoak izan bear ba'dabe, arduratu gaitzen: gazteak gertatuaz, elduak hide ori erakutsiaz.

ONAINDIA AITARI OMENALDIA

San Martiñetako udaratxoa polito joian aurrera, atzo, larunbatera arte. Gaur, baiña, igande euritsua agertu jaku. An goiazan Zornotza'runtz potzurik potzu, nun pot egingo gendun bildurrez, eta nortzuk izango ziran naikoa ausarti araiño joteko.

Amaiketarako eldu giñan beintzat. Ta an ziran izena emon ebenak eta beste asko. Santi aita ta lagunak kezkatu; izango ete dogu batzar-lekurik eta bazkaririk danontzat! Alegiña egin eta dana bete al izan zan naikoa egoki.

Amaikaterdian Mezea sei abadek Santi Aita erdian ebela. Itzaldia Nemexio Aita jatorrak, ainbeste urtetan lez. Eleizea atetik be atzerago bete-betea, euritan asko. Abeslari onak goian, sutsuak eta benetaliariak errian. Doñuak zein baiño zein biotz-ikutu-garriagoak.


Ondoren espatadantzariak, zornotzarrak, nun eta, lekaideen jantokian, ez egoan ba beste iñun egiterik; oba errekan bestela. Busti, ederto busti giñan ara ta ona ibilli bear izan gendunok.

Ordubetetan, ikastolako gelan, olerki sariak banatzea. Irabazleak... pozik ikusi gendun Paulin Aita berea irakurten, saria erdi-bana ebla Zarautz'en bizi dan bergarar Gallastegi jaunarekin. Onak be irakurri euskun berea. Biak zoragarriak, erdibanatzea bearezkoa zan. Aurkeztea Erkiaga jaunak egin euskun bere olerki labor baiña mamintu bat irakurriaz. Basarri'k... tira, ez da olako olerkaririk, berezko ta entzungarrik, gaur, iñun. Bazkaritan be, aapaldi bikaz dana esan euskun.

Maira ondoren, ordubete lenago esan ba'yaken be jan-une geiago ipintzeko, danontzako tokirik ez. Ogeiren bat alboko tabernara joan bear izan ziran. Jarri al izan gendunok, estu samar; 142 izan giñan, ta Santi Aitak 110'entzat eskatuta bakarrik. Urrengoan, orra ba, emon zeure izena aurretik; gaur, eurena emonda euren gazte batzuk bestera joan bear izan dabe, ta naita borondate osoakin egin, ez dago ondo.

Bazkaria luzea. An baztar batetik ozpinkadea be izan gendun. Erderaz egin bear ei gendun. Baiña alperrik; arein alegiñak, an giñanok batzeko, alkartuta aurrera jarraiteko onenak izan ziran.

Ez giñan an, guztiok, era bateko euskaldunak, ba-ziran bestelako batzuk be, baiña etsaiaren, euskaldunon etsaiari aurpegi emoteko, an batu giñan danok. Ea olakoak sariago izaten ditugun, etxe barruan barik, auzokoari begira jokatze.



Bordari izan gendun lenengo bultzalaria, ta orduan sortu zan ozpindaka arro a. Loidi jaunak urrengo bere bertsoak. Basarri'k len esan dogun lez, labor ta sutsu. Zeleta jaunak, Santi Aitaren goraltzea ta opariaren ezkeintzea. Aurraitz'ek bere zirikada barregilleak eta zorrotzak. Ez zan iñor aspertzen, seiretan be maiak beteta. Onaindia Aita, arro-arro, batakin ta besteakin, danori entzun bearrean! Tartean, bere gaztetako lagun dan Goiria Aitak, bere omenalditxo, karmeldarren izenean. Ta, gaurkoz, orixe aukeratu dogu emen agertzeko, ia umetatik nor izan dan gure Santi Aita agertzen dausku-ta:



Goiria Aita'k: «Iru itz esan barik eneuke nai egon, urte askotan adiskidetasunak batzen bai nau Aita Santi'rekin. 1922'ngo Iraillean agertu zan Larrea'ko ikastetxean gure Aita Santi, 12'ren bat urte zituala. Mutiko zaparrote, zabalkote, mardul, lerdan, mardo... kirikiñoen antzeko uledun. Mutiko zurra ta bizkorra. Egunerok burrukan eta geienetan aundiagoekin. Ederrak artu, baiña urrengo egunean be bardin.

Gaztetxo zalarik, maite-minduta egoan Aberriarekin eta Euskerearekin. Bera baiño urte bi aurreragoak giñanokin ebillan beti, aitatutako maitasun biok genduzanokin.

Larrean bertan, gaztetxo zala, Aita Akesolo'rekin batera, lenengo saria, euskal idazlan bategaz lortu eban. Gazteiz'en, pilosopo zala, Lisieux'eko Teresatxo'ren bitzta euskeratu eban. Lan au be Akesolo'kin egin ete eban nago.

Gero... ba, gero guda madarikatua. Atzerri... kerizpera. Akesolo bera ta beste asko ta asko Carmona'n-da... An be euskera lanean. Beti euskera lanean. Izan be, euskereza izan da gure Aita Santi'ren leloa, ametsa, griña.

1951'ganean Hoz de Anero'ko gure konbentuku nagusi zala, gogo-jardunak egiteko asmoz, neu be bertaratu nintzan. Antxe erabagi gendun, biok, Karmen'go Argia barriro ateratzea. Izen au egoki ez zala izango-ta, «Karmen'go Amaren Egutegia» izena jarri geuntsan eta biok egin eta osotu lanak, lenengo urte bietan beintzat. Karmel izena dau gaur eta or dabil aspaldi baten, jori ta mardul eta aberats izkuntzaz eta mamiz, baiña txiro ta beratsu bazkidez eta ondasunez.

Aita Santi'k, urte luzeetan zuzendu izan dau Karmel, eta berak egin idazlanik geie-

na. Aimbati lagundu izan dautso Aita Santi'k, euren lan-argitalpenetan. Bera izan dot nik be laguntzaillerik onena argitaldu ditudan idaztietan.

Bere lan gustiak gogora ekartzea ta euren iritxia agertzea ez da nire gogo asmoa. Zeleta jaunak ondo baiño obeto egin dausku au. Bere lan bi aitatuko ditut: Milla Euskal Olerki Eder eta Euskal Literatura. Naikoa biok egillea goiengo mailletan jartzeko.

Lan izugarria egin dau Aita Santi Onaindia'k euskal literaturarekin. Zenbat irakurri bear izan dauan. Zenbat zorrotzu adimena iritxia emoteko. Asieratik azkeneko lerroraiño irakurri dot irugarren alea. Au lan ede-

rra: Arrese ta Beitia, Txomin Agirre, Azkue, Kirikiño-Bustintza, Arana-Goiri, Arturo Kampion, Karmelo Etxegaray, Toribio Alzaga, Martin Landerretxe'ri ta buruzkoak aipagarriak dira egitan. Arana-Goiri ta Azkue'ren tarteko eztabaidak be, aitatutzen ditu, eztabaidok euskereari buruz zirala, baiña ez aserre antzo, adiskide onak bait ziran biok.

Arana-Goiri'ren lanak oso-osoan irakurri dodaz eta ainbat oar artu. Begirunez mintzatzen da beti Ara-Goiri Azkue'tzaz. Asko goraltzen dau lekeitiar gizon argia.


Astero ikusten neban Azkue, Ribera'n, bere azkeneko iru urtetan. «Azkue jaunna —esan neutsan bein— lan aundi-txalagarria egin dozu euskera arloan. Zu ta Arana-Goiri izan zarie, neure iritxiz, euskereari bultzadarik eta indarrik aundiena emon dautsazuenak».

«Ara, Aita. Al dodana egin dot. Ez dot izan nagikeririk orretarako. Arana-Goiri'k be lan aundia egin eban, eta ona. Asko zor dautsoe berari Euskereak eta Euskalerrriak».

Baiña bukatu dagidan, arituk urten ete nazan be ba-nago-ta. Lan ederra, aundia, sakona, mardula egin dau Aita Santi'k. Idazti mamintuak argitaratu ditu. Ainbat bere lan an-or zabalduta ikusten dira. Zordun jakoz Euskerea ta euskaldunak. Eskerron-agerpen bekio gaurko omenaldi au».

Ta, gure aldetik, amaitzeko geuk be, guk omentu bear gendun orrek, bere omenaldia eskeini dausku, gaur bertan agertu bai dituste beste idazti barri bi: Lauaxeta zanaren lan osoa; len agertutakoak eta ezkutukoak, bata. Bestea, «Eskutitzak», eundik gora idazten berak jasotako idazkiak. Ia-ia, autortzako ixillikeok; Aita bipil oni idaztean ba, geienok, olako ixillikeo batzuk esan dautsaguz-eta.

IBUR



NOR A GOAZ?

Euskaltzaindia, euskera-zaindaria —orain Akademia erderatarrentzat— gaur daukagun euskal-orokor alkarte bakarra dala-ta, ez dogu matrailleko gitxi aztu, aurka jagi giñalako. Ipar eta ago aldeko euskaldunok daukagun alkarte bakarra ei-da... Banan-banan, bakoitzaren nortasuna azaldu al izango dogunaren itxaropenean, emon daigun ontzat olantxe dala... naizta goragokoren bat aztu. Dan dala, gure burrukearen ardatza, literaturarako, euskera idatzirako erabaki —edo dana dalako— ziran arauak dira. Ori argi egoan Euskaltzaindiak jaurti zituen oarrik geienetan.

Geure iritziak bota genduzanean, Villasante ta bere mutillak gora-goraka jarri jakuzan, eurak be euskalkien bizitza sendotzeko alegiñetan ebiltzala esanaz, alkar-izketetarako erriaren izkuntzea erabiliko ebela esanaz...

Ez orduan bakarrik, Donibane'ko aurtengo «Euskal Unibersitate» dala-koan, pasiotar batek esan euskunez, euskalkiak gogortzeko «plan» bat egin bear zala esan ei eben... Zelan? Nork? Nun eta noizko?

Ezaguna da Euskaltzaindiko idazkariak, Gaztañaga jaunagaz «GOIZ-ARGI» asterokoan izan dabenean eztabaidea. Gaztañaga'k euskera geiago ta landuago eukitea ez ei da arritzeko, bera —idazkaria— Eibar'en jaioa dalako. Zer esan bear ete dogu Bilbo'n edo Santurtze'n jaioa garanok? Gitxienez, idazkaritza geien dakianari izteko. Baiña, bai zera!

Jo dagigun arira: goiko au argitaratu ba'dogu, beste onegaitik izan da. Gure umeak euskera jatorra ikasi ta euskaldun egitea nai ba'dogu, ez da naikoa ikastolara bialtzea. Etxean be eten gabe ekin bear ko dautsegu, ta ez dakien guraosak euskal auzoetara edo senide artera bialdu.

Eta ez ori bakarrik, euskerea ikasteko, prantzesez, inglesez edo txino ikasteko be bai. Au, amar milla bider idatzi doguna da, ta pedagogi araurik errenak eskatzen dauana. Baiña pedagogi arauak buruko min gitxi damotse euskerea iraultza gaitzat artu dabeneri.

Literaturarako «zana» oguzten be asi jakuz iraultzaille oneik, eta atxakitzat egiten dabean ikastaroetan irakasten. Ondorena? Zeozer ikasi dabela-koan, senide artera doazanean, antzeko beste izkuntza bat ikasten dabilzala ikustean, otzitura, arrituta geratzen dira ikaslerik geienak.

Ori, adinekoen artean jazoko ba'litz bakarrik... Orain, ikastoletan sartzen asi dira. «Indarra» lortzeko be batzarrak egin dira, gero, guri, «preziñoa» egiteko... leku onera datoz!

Euskera tantik be ez dakien gurasoen artean erreza da ori. Lengo astean, AGUR'en irakurri al izan dogunez, Bizkai'ko ikastola bateko umeak «siux»en izkuntza ala euskerea egiten dabenean bereiztea ez ei da gauza erreza. Ori dala-ta, minduta ei dagoz guraso asko ta asko. Zer gaitik ez ete dira apur bat ardurazten, ez euskereatzaz bakarrik, eziketa arazoatzaz baiño?

Euskerea orrela ondantez dabilzan irakasleak, Villasante dabe buru ta Mitxelena'ren «jakituria» atxaki. Nor izango da, biar edo etzi, triskantza onen erantzule? Itzak erderatik errezkadan artzen ba'dira, jaskerea ankazgora erabiltzen ba'da, nun dagoz Euskaltzaindiaren «tituloen» jaube egin diran irakasleentz jakituria ta aurrerapenak?

Izkuntzalariak diñoenez, izkuntza idatzia, oguzten dan izkuntzeagandik al dan urren izan bear dau... Gure iraultzailleok bestera jokatu dabe: eurak asmatu dabenean «literarioa» oiñarritzat artuta, «arabe» antzeko soñia daukan zerbait irakasten asi jakuz...

Ondorena? Ikastola batzuetako umeak ez dabela euskerarik ikasiko, gurasoak oartzan ez ba'doguz. Lengo baten, «olako» ikastola batera umea bialtzen dabenean guraso bateri itaundu neutsan: «Zer, txo, egia da olan egiten dabela». «Ixillik egon zaitetz Josu, emen bizi naiz eta ez dekote beste urtenbiderik. Esker-rrak etxean euskerea egiten dogula, bestela... Emengo gurasoak ez dakie ezer eta lau abesti entzuteagaz poztuten dira, baiña emen irakasten dabena ez da euskerea, beste zerbait baiño».

Eskerrik asko spanish show'ko laguneri!...

ARENAZA'TAR JOSU

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, bereko, politiko naiz ondasungarri asmoen gaiñetik dabenean iritxi-oneko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritziak, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egilleak dira. Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:
JOSE M. MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:
LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Carretera a Galdácano, 32-Bilbao-4

ARGITALDARIA:
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion gutxirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

Filolojiako jardunak

ERRI... ta ERDIBIDEAN, BAI!

«La Academia no debe intervenir violenta y abusivamente en la evolución normal del lenguaje».

(Julio Casares)

Euskera «batuaren» naspilla ta zoritzarreko «h» makarraren «auzia» erabaki ta gaiditurik daudela esatea amets txoroa egitea da. Arantzazu'ko batzarrean sortutako auzia ta naspilla gerotik gazitu ta okertu dirala ikusteko ez dago gure ingurura begiratzea besterik.

Osatu gabeko batzar artan auzi guztia erabaki ta «hatxezaleok» betiko irabazi zutela uste dutenok oker dabilzala laister ikusiko dugu. Zergatik ordea? Arantzazu'ko batzar artan erabakiak zuzen artu ez ziralako. Eztabaida naspillatu baten ondoren ez zegoan agindurik ematerik; ta batzuek artutako baez-pako erabaki ark ez zuan inor beartzen.

Zer bada?... zer bada... ura izan zalako inglesak «hold-up» eta gaztelerez «atrac» deritzaen jokoa. Burrundaran bukatutako joku zikiña. «Lantoreen irabazleak» azpi-lana estali naiez itxoin gabe, biaramonean asita bazterrak liburu, paper-sail, aldizkari ta gaizki ego-sitako ta «hatxez» betetako euskera mordollo «batuan» estali zituzten, «gurea da garaipena» esanez. Asmo aiek orbela bezela aizeak eraman ditu. Inor gutxi irakurtzen ditu egilleak ezik. Gero ta geiago idazle zentzuzkoek euskera erriko, errez, garbi ta «hatxerik» gabekoan idazten jarraitzen dute. Or dira lekuko «AGUR, GOIZ-ARGI, PRINCIPE DE VIANA, Prantziskotarren Irugarren ANAITASUNA, REDENCION, KARMEL, KILI-KILI ta DIARIO VASCO eta LA VOZ DE ESPAÑA»ren orrialdeak aztu gabe... guztiok erri-bidetik dijoazena irakurleen gogoa betetzen. Au, egitazko «plebiscitoa» da. Ez da nere irudipena.

Edozeinen eskutan dogo egunkarientan agertzen diran «il txartelak» eske-lak irakurtzea. Amarretik bederatzi terdi «hatxerik» gabe ta euskera arruntan datoz. Onen jendearen iritzia erakusten digu, Arantzazu'n artutako erabakiak baiño geiago balio duana. Ez al gera beti ari bada «demokrazia» aitatzen? Ustez «jakintsu» diranok erantzungo dute gai oriek ez dituztela jende xee ta arruntak erabaki bear, «akademikuek» baizik... Nik esango diet, alabainan... erriak duala «azken itza» bere... Emen eta nun nai. Gaiñera, «euskaltzain» geien iritzia jakiteko gaude. Asko eta asko «pakearengatik» isildu egin diralako.

Auzia txartu ta euskeraren ondama-na gerta ez dedin, garaia dala esango nuke bakoitzak bere iritzia argi ta garbi eman dezan; ta nai ta naiezkoa Euskaltzaindiarentzat aiei galdegitea.

Oiu ta zalaparta ta gogorkeria diardutenok ez dira beti arrazoiaren jabe. Ta asarre ta iskanbilla zale ez diranok batzarretara joateari utzi dutela ba-

dakigu. Ez bait da giro! Ikastoletan gertatzen ari dana ere zerbait antzeko da. Lotsagarrigo oraindik, alegia gurasoen iritzien aurka jaun eta andereño ausarta batzuek beren asmoak guztien gaiñetik jarri nai izatea. Ez bakarrik izkuntza ta ortografia gaietan, baita erlijio arazoetan ere. Ez gaitu batere arritu ori ontzat artu baiño lenago guraso askok beren aurrak andik atera eta auzoko erdal eskolara eraman ba'dituzte.

Jakintsuok eta ez gure euskaltzainok ez aburu batekoak izatea bidezkoa da. Correa, Unamuno, Galves eta abar gaztelarazko ortografian «h»ren etsai dirala jakina da.

Pompeu Fabra katalan filologo mañsua orobat. Ona emen aren itzaki «Bandejament de la «h». Au da, kendu «hatxe». «No sólo por gusto o afinidad arbitraria sino por razones de orden técnico. Todos los modernos lingüistas han consultado al italiano cuando han querido inquirir la forma más adecuada en determinados problemas de la lengua». Gure Azkue aundiak ere «h» alperizat zeukan. Orrengaitik Euskaltzaindiak anka sartu zuan Arantzazu'ko batzarrean lenago jarritako bidetik ateratzean. «Lemazai» berriak agerturiko arrazoiak, «biolojiarenak» eta ez «filolojiarenak» naski oso ziran «utsalak»: «siguiendo los vaivenes de la moda».


Auzia erabaki ta irabazirik dagoala esatea amets gaizto bat besterik ez da. Adimen argi ta itxuturik ez dauden guztiok ikusten dutena. Eta baita ere euskerari egiten ari zaizkion kaltea.

Ontz ikaraturik, ba-ditugu gure artean, okerra antolatatu nai lutekean «zubi-gille» paketsuak. Zeren zai daude? Ez da goizegi lanean abiatzeko. Norbaitek aitatu du batzorde bat izendatu bear litzakeala, ez ugarietza, bost bat geienean Euskaltzain-laguntzaille diran artean aukeratu. Batzorde orrek Euskaltzaindiari eskabidea egingo likena Arantzazu'n ondo tinkatu gabeko asmoak baztertu ditzaen.

Orrelako zerbait egin bear litzakeala esaten isilka dabilzanak asko dituz. Bearrezkoena ordea da jardutea, ekitea. Laister, aguro. Bestela liskar, asarre ta naspillak aunditzen joango zaizkigu. Eta bai Euskaltzaindi, bai Ikastolak eta bai euskera gainbera amilduko dira ez beñiere bururik altxatzeko. Utz itzagun norberak geren arrokeriak. Bestelaz gurek egin du. Ez dute etsaiak gure bizkar par gutxi egingo.

Azken-itza: Nere ustez euskerari «h» alperra itsastea ez da «bizanziokeri» ergela besterik.

ANTONIO M. LABAYEN



Jolasean ikasi, or zure aurrentzako emoitzarik onena

EZIKETA JOSTAILLUAK
ESKULANETARAKOAK
IRAKASKETA GAIK

Doctor Areilza, 55
31-72-93 urrutizkiña
BILBAO-10

JAKINTZA ARLOA GALDERAK

EDESTE AURREA (Jarraipena)

III. LEEN-KONDAIRA EZGUTZEKO OIÑARRIZKO LAGUNTZAK

Lurrak, leen-gizakientzat, neurtu eziñeko garrantzia eban; lurra zan dana. Lurralde bat, geologi, egurasti, aberedi ta zugaitz-ladare azterketak egitegaz zeatzago ezagutzen dogu.

Geologia.—Ezagutzen dogun lur au ez da errez bete. Batez be, lau aro bereizten doguz, ta aro bakoitza zenbait alditan banandu.

a) **Leen-aroa edo Paleozoiko** = Abeldi zaar aroa.—Garai onetan ez zan Euskal-Erri izenaz ezagutzen dogun lurrik agiri legorrean. Europa geiena ura zan.

b) **Bigarren aroa edo Mesozoiko** = Abeldi erdikoa.—Gure zenbait mendietan eta ibarretan, Triasiko-Irukoitz aldia ageri da. Era onetako lurrak, Baztan'go ibar guztian agertzen dira. Gipuzkoa'n, Urdaburu ta Adarra mendietan, Berastegi'ko inguruetan. Aro onen azken aldia Kretaziko-Kareaitzdu-na dogu. Aldi onetan euskal-lurrik geienak itxazpean ziran. Bitartean, kareaitz edo «kreta» ondakin maillak pillatzen doaz itxas azpian. Kreta edo kareaitz au, itxas-abereen maskor eta txirla txikiak osotzen dabe. Onerarako garbia izan bear. Kareaitzak ugari dira Euskal-Erri'an: Auñamendiak, Aralar,

Izarraitz, Anboto, Udalaiz, kareaitzeakoak dira guztiak. Onetik osotzeko milloika urte igaro bear izan ziran.

d) **Irugarren aroa edo Kenozoiko** = Abeldi arrunta.—(70-3 milloi urte K. aurrez). Aro onen asieran, Gizpuzkoa'ko ta Bizka'i'ko lurraldeak legor izatera etorri ziran. Naparroa'ko ta Araba'ko aldeak, urpean egozan oraindik, Mediterraneo itxasoakin bat zirala. Eozeno edo Barrizka gardiaren azkeneruntz, mendi goratze aundiak jazo ziran. Garai onetako da Auñamendien goratzea be. Sumendi orrean ondakiñak doguz «ofita» arkaitzak.

Euskal-Erri'ko lurraldeak zearo legortu ziran gizakiak bertan oiñak jarri ta bizi izaten asi aurretik. Au, azken aldiand gertatu zan.

e) **Laugarren aroa edo Kenozoiko** = Abeldi arrunta (Iru milloi urte ezker).—Pleistozeno edo Garai Barriena, K.a'ko 3 milloi urtetik orain 10 bat milloi urterartekoa. Olozeno edo Oraingo Garaia, K.a'ko 8.000 urtetik gaur artekoa. Garai onetan asiko da gizakia Euskal-lurrean bizitzen. Ordurako, curiteak, sumendiak, izozketak eta beste zenbait egurasti eragingarriak be, gure lurren aldaketa gogorra emongo eutsen. Batez bere baiña, curi-jasak eta itxas-jazarrak ganean izateak sortuko dautsoz lugorritze ta itxura aldaketak. Onela, gure lurraldea mendiz, erreka eta ibarrez inguratuta gertatzen da.

LUR-JARRINTAKO EPEAK

AROA	ALDIAK	GARAIK
ABELDI ARRUNTA	LAUGARR. ALDIA	Oraingoa 12.000 (*)
		Barriena 600.000
	IRUGARREN ALDIA	Barriagoa 10.000.000
		Barritxoa 25.000.000
		Barrizkoa 35.000.000
		Barrizarra 65.000.000
ABELDI ERDIA	KAREAITZDUNA 135.000.000	
	JURASTARRA 180.000.000	
	IRUKOITZA 230.000.000	

AROA	ALDIAK
ABELDI ZAARRA	PERMDARRA 280.000.000
	IKATZALDIA 655.000.000
	DEVONDARRA 405.000.000
	SILURETARRA 425.000.000
	ORDOBIKARRA 500.000.000
	KANBIRITARRA 600.000.000
KANBIRITAR AURREA	KANBIRI-AURRE AZKENA 2.000.000.000
	KANBIRI-AURRE ASIERA 4.500.000.000

* Epe bakoitzaren urteak or nunbait.

Auxe dogu euskal-preistoriko leen-kulturrea eta gizartea eraraziko dauan baratza.

Geologiaren garrantzia.—Lutelestiaren eta geologiaren garrantzia geroago eta aundiago da, batez be leen-gizakien nortasuna ezagutzeko.

Sarri entzun dogu, Euskal-erri lurralde basatia eta bakartia dala. Baiña ez da egia osorik. Gure lurraldeak, ego alderuntz batez be, bide ta mendi-ate oso egokiak dituz gizarako artu-emonak sortzeko.

Aspalditik, Euskal-Erri'ko toki batzuk, indarketa-sarrera bide izan ebezan. Orreitatik igaro ziran zeltak, erromarrak, bisigodo, franko ta arabeak... gogoratu Orreaga. Beste aldetik, Euskal-Erri'ko mendi asko kareaitzeakoak dira. Ba-dakigu kareaitza, nekez, baiña urak urtutzen dabela, ta aldaketa aundiak gertatu. Onela, kareaitza dan tokietan sortzen dira arpe edo leizak. Leizetan bizi izan zan leen-gizakia. Beraz, iñon ez diran aiñako kondar eta lanabes obiak, kobetan izaten dira, geienetan.

Ur-bide mugak garratzi aundia izan dabe euskal-geologi ta kondaira zear. Ur-muga oneik, Auñamendien luzapena dira: Iru-errege maia, Ori, Altabizkar, Aralar, Aizkorri, Anboto, Gorbea, Orduña...

Egurastiak, aberedia eta zugaitziak bereizten ditu.

ARRATZKO IKASLE TALDE BATEK

GALDERAK

- 1.—Zuretzat, euskaldun izatea zer da?
- 2.—Euskalzaletasuna, zer da?
- 3.—Ez dozu uste izkuntzea jakitea erriaren bearrezko berezitasun bat dala?
- 4.—Gaur egun nor da euskalduna?
- 5.—Zuretzat, zer da erria?
- 6.—Zuretzat, ona bizitzen datozen guztiak euskaldunak ete dira?
- 7.—Askok esaten dabe: ona etorri diranak euskerea ikasi, ta idea ta oitura batzuk onartu dabezalako euskaldun onak dirala, emeko asko baiño obeagoak bear ba'da. Zer uste dozu?
- 8.—Zer bear da, zure ustez, euskaldun izateko?
- 9.—Zeintzuk dira euskaldun izateko puntu bearrezkoenak?
- 10.—Nortzuk ete gara gaur euskaldunak Euskal-erria'n?

TXALAPARTA

NERE AMAMA ZANARI

Azillaren bosgarren eguna zan, berri txarra nigana eldu zanean—Amama il da—esan eusten urrutizkiñez.

Ba-dakit, aiton-amon asko iltzen dirala egunero gure Euskal-errian, baiña eztozue uste euren eriotzagaz bat-batera zerbaiz geiago galtzen dogula? Esate baterako:

Euskerea, zugatz bat bezela dogu ta zugatz orren abar eta orriak euskaldunak gara ta guretariko batek alde egiten dau-nean, orri bat igartu ta lurrera jausten da.

Zenbat eta zenbat ipuin, gertakera, esakera ta abestiak jakin ete dakiez gure aiton-amon maiteak? Orregegaitik amama edo aitaren bat iltzen danean, abar berezi bat galtzen dau euskeraren zugaitzak.

Ondiño gogoratzen naz zein pozik irakurtzen ebazan nik bialtzen neutsozan AGUR eta GOIZ-ARGI aldizkariak. Egun batean esan neutson:

—Amama, irakurtzen dozuna ondo ulertzen dozu?

—Bai, bai, guztiz ondo, zeozer ondo ulertzen ez pa'dot, barriz irakurri ta kito.

Udazkeneko orbelak bezela berak be Done-tokira igon dau ta datorren udaberrian kimu barri batek urtengo dau berak itxi eban lekutik, euskaldun-barri jator bat izango da.

Guk, Euskal-erri'ko gazteok, gure euskeraren zugaitza igartu ez daiten bear doguzan indar eta izerdia.

Agur amama, nire gogoan izango zara betiko, laisterarte.

UME

IZKI NASTUAK

- IÑAKARA
- DARRUBEIA
- URTEGOL
- TARGUI
- ATORRA
- IKASAS
- LARRU
- EDAMIN
- ATXASIO
- ABOSA

Egizu alengitxoa; irarkolan, irarki bildumak laban egin eta danak nastatu yakuz. Zuzendu ete-daikezuz? Lenengo bostak ikusi-ikusiak dira egun oneitan Gipuzko'an. Alegintxo ori egin ondoren, ezin ba'dozuz zuzendu, begiratu emen azpian:

Arakina, udaberria, legortu, dila, itxasoa, osaba. igartu, otarra, saskia, lurra, men- PAUL



TXORIKI

Jolasean ikasi, or zure aurrentzako emoitzarik onena

eziketa jostailuak eskulanetarakoak irakasketa gaiak

Avda. del Generalísimo, 65 24-19-16 urrutizkiña

GAZTEIZ

Txagorritxu au zoan

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra
BILBAO - Casco Viejo
Tenderia, 15 eta 16

BIZKAI'KO ERMITAK

ARRAZOLA

Gure arbasoen kristau-sifismenak ermitaz josi daskue Euskalerrria. Baso ta landetan, us-terik gitxien lan txokoan perretxikuak, sortzen diran lez, orretaraixe aurkitzen doguz ermitak gure euskal lur gainean. Edonun. Mendi-gaillurretan, troka-barrenetan, baso-barruetan, bide-egaletan... Nun ez? Baita uri ta errietako kaleetan be, etxez inguratutik eta erdi-ekzutautea

Era guztietako ermitak. Banaka batzuk, oso gitxi, aundi ta dotore samarrak. Baiña gein-ak ezetarik arrokeri ta apaindura bakoak, txikiak eta apalak. Ta ortxe datza, arrokeririk-ezean, gure ermitok ain zoragarri ta maitagarri izatea. Ez dautse inori ta ezeri goitik beera begiratzen. Adiskide doguz, ez jauntxo. Irri-barreka ta adiskide leial lez, geure tarteko lez agur-zen gaitue: apal ta txeratsu. Baserri ta auzunetan, basetxe batzuk dirudie; baso ta mendietan, barriz, artzain-txabolak. Eleiza aundi ta jauntxo-itxurakoak baiño poz eta konpianza sako-nagoa sortzen dabela esan geinke gure biotz eta arimetan. Orreixetan bai, egiz, Jainkoa ta bere Santuak bertokotu jakuzala: Euskalerrria euskaldundu. Gure euskal familian, familikotu. Biotzez zaindu ta jagon bear gendukez gure errietako pitxi maitagarriok; barru ta kanpotik txukun, garbi ta alai.

* * *

Zeinbat ete dira guztiz Euskalerrriko ermitok? Jakingarri litzakigu. Millakak dirala ziur esan geinke, Bizkai'koak bakarrik seireundik gora bai-dira, edo bai-ziran.

Bizkai'koai lotuko naiake lantxu onetan. Bizkai'ri buruzko argibide ta zeaztasunen barri jakiteko, Juan Ramon Iturriza lakorik ez dago. Berau dogu, bere akats eta guzti, iturririk uga-riena ta garbiena. Esker onak zor dautsoguz bizkaitarrok Berriz'ko seme argi ta ezin-aspertu oni. Olakueta'n jaio zan 1741'garren urtean, eta Mundiitibar'en il 1812'garrenean. Bitartean zeinbat lan! Arrezkero Bizkai'ri buruz idatzi daben guztiak Iturriza'ren arrobira doaz, agirian edo ezkutuan.

Iturriza jaunaren lanik ospetsuena ta jakingarriena *Historia General de Vizcaya* da. Ez eban argitaldu, baiña bai 28 kopia, bere eskuz egiñak, an-or-emen sakabanatuta itzi. Bat Madrid'eko *Real Academia de la Historia*'n dago. Auxe da A. Fidel Fita'k 1884'an argitara emon eta geien ezagutu izan doguna. Beste kopia bat, 25'garrena, Madrid'ekoa baiño osotuagoa, Bilbo'ko *Biblioteca de la Diputación Provincial*'ean daukogu, oraintsu, 1967'an Angel R. Herrero'k argi-taratua.

Liburur orreitan Bizkai'ko erri guztiak banan-banan eta zearo aztertzen dauz Iturriza jau-nak, jakingarri deritxon guztia jasoaz, naiz ta inoiz ipuin eta ipuin-antzekoak izan. Bilbo'koa, Madrid'ekoa baiño osotuagoa dala esan dogu. Madrid'ekoak, adibidez, ez dakar *Epitome de las Encartaciones* deritxon zatia; Bilbo'koak bai. Beraz, Bilbo'ko onek Bizkai osoa artu ta azter-tzen dau. Orraixe joko dogu, ba.

* * *

Pazientzia apur bat leporatu, eskuan otartxo artu ta Iturriza begikoa gidari dogula, Biz-kai zear erri, mendi ta basorik-baso urten dogu perretxiku-billa, ermita-billa. Etxera biurtzean, gainezka daukagu, utsik eroan dogun otartxo. Ona emen gure ibiltaldiaren ondorio ta uzta jori ederra:

1.—Bizkai'ko ermitak, guztiz: 609 (seireun ta bederatziz).

2.—Ibarrik-ibar:

Busturia Ibarrean, 26 erri ta 6 uri-barri (villa)	144 ermita
Markiña Ibarrean, 2 erri ta 6 uri-barri	15 »
Zornotza Ibarrean, 4 erri ta 0 uri-barri	27 »
Uribe Ibarrean, 32 erri ta 5 uri-barri	129 »
Arratia-Bedia Ibarrean, 8 erri ta 1 uri-barri	66 »
Gerediaga Ibarrean, 12 erri ta 4 uri-barri	122 »
Orozko Ibarrean, 1 erri ta 0 uri-barri	13 »
Enkartaldean, 9 Aran eta 3 uri-barri	83 »
Orduña'n	10 »

3.—Ermitarik geien dabezan erri ta uri-barriak:

1.—Abadiano 20 ermita	6.—Zeberio 14 ermita	11.—Galdames 11 ermita
2.—Berriz 13 »	7.—Amorebieta 13 »	12.—Durango 10 »
3.—Elorrio 15 »	8.—Orozko 13 »	13.—Murélagua 10 »
4.—Mallabia 14 »	9.—Karrantza 12 »	14.—Orduña 10 »
5.—Zeanuri 14 »	10.—Dima 11 »	

4.—Bizkaitarren biotzetan sakonen sartu diran Santuak? (Ona emen bakotxaren ermitak:

1.—Jesu-Kristo 59	11.—Luzia 17	21.—Katalina 9
2.—Ama Birjiña 56	12.—Marina 15	22.—Kristobal 9
3.—Martin 41	13.—Aingeru Jag 14	23.—Ana 8
4.—Jon Batista 32	14.—Anton Abata 14	24.—Esteban 8
5.—Mikel Aingerua 30	15.—Bizente 13	25.—Mames 7
6.—Lorentzo 27	16.—Santiago Ap. 13	26.—Tomas Apost. 7
7.—Pedro Apost. 26	17.—Antolin 12	27.—Sebastian 6
8.—Mari Madalen 19	18.—Ant. Padua'koa 10	28.—Ageda 5
9.—Roke 18	19.—Andres Apost. 9	29.—Gregorio 5
10.—Bartolome 17	20.—Fausto 9	30.—Jorje 5

Launa ermita: Adrian, Domingo, Justo ta Pastor, Nikolas, Paulo.

Iruna ermita: Emeterio ta Zeledonio, Irutasun Deuna, Eufemia, Kosme ta Damian, Roman, Silbestre, Urbano.

Biña ermita: Bernabe, Elena, Fabian, Frantzisko Asis'koa, Iñaki, Jose, Jon Apostolua, Klara, Klemente, Markos, Pelaijo, Polonia.

Bana ermita: Barbara, Bernardo, Bitoria, Blas, Engrazia, Fermiña, Frantzisko Paula'koa, Isabel, Isidro, Jazinto, Juakin, Julian, Kolumba, Kristina, Lazaro, Millan, Pantaleon, Prudentzio, Telmo, Teresa, Tomas Kantorbery'koa, Torkuato Ursula, Zeferiño.

* * *

Gidari ona, Iturriza jauna eroan dogu bide-lagun. Olan ta guzti be okerren batzuk egitea ez litzake arrigarri. Perretxiku-biltzailerik azkarrenak be, naiz ta begi zoliz jardun, ez dabez danak ikusten. Berandutxoago atzetik datozenentzat be beti geratu oi dira banaka batzuk. Baita gibel-urdintzat, urretxen bat jaso izatea be ez litzake miresteko.


Ikusi dogunez, Iturriza'ren egunetan, 1793'an (laster berreun urte) 609 ermita genduzan Bizkai'a'n. Zeinbat ete doguz gaur?

ARTEAGA'TAR L.

Arrazola'ko seme argi Buruaga iesu-lagunari gorasarre guk egin: 1974-garren urte ontako urrillaren 30-garrenean. Ain zuzen, egun ortan Rodriguez Albontsa Deunaren eguna ere ospatu genduan, eta batez ere beste iesulagunok iesulagun ANAIEI geron esker-ona agertu nai genien. Urteoro olaxe gure oitura. Aur-ten, ala ere, geron gogoan batez ere Buruaga genduan.

Buruaga alderdi auctara belgundari-lanetarako etorri zala berrogeitamar urte. Urtetxo-sail aundia eta omenaldia eskeintzeko ereti ona.

Eta, egun oietantxe neri Bilbo'tik as-teroko AGUR eldu: 134'garren zenbakia. Iru illabetez itxasoko gezala ederki iren-tsi ondoren iritxi zait. Sudur onekoak, gezalaren usaia errex artuko.



AGUR'en zenbaki ortan Arrate'ko Euskal-Leiaketan irabazle izandakoen izenak nik ikusi. Beroien artean ARRA-ZOLA'ko Eguzkitza'tar Joseba'ren izena ere bai. Buruaga'ren berrogeitamar ur-teak gogoan ditudala, EGUZKITZA gaz-teari berrogeitamar urtez euskal-leiake-tetan beti garaille izatea opa nik.

* * *

Lenbizi artan Buruaga iesulagun gaz-tea Txina zabaleko ANHWEI erkian ibilli zitzaigun. Egun aietan txinatarrak etxeko sasi-gudua zuten. Bizi-bizi. Inork ez iakin zergaitik, gudumutitxo aietako batek Buruaga'ri eraso zion, eta izkillu-alea soñean batetik bestera ioan zitzaio-larik, xuxen-xuxen atera saietetik. Ikara bai!, eta aundia! Ber-berak baiño, Burua-ga'rekin estalpe bearean zan belgundari apaizak aundiagoa! Arrazolatarrari oke-rragorik ez zitzaion gertatu, eta delako berun-alea, orduan WUHU'ko Gotzai zan Huarte iaunak iaso nai izan zuan. Oroi-gallu polita, arean! Orain, aletxo non gelditu zan ez dakigu.

Andik irten giñanean, ia geienok esku-utsik bialti ginduzen, eta izkillu-alea Buruaga Anaia berekin artu izan ba' zuan ere, artarako zeuden barrandariak alea ikusi-utsez erabat sutuko zitza-kion, eta galdeka itoko zuten ua, alakoxe alea zertarako zuan iakin naiez. Bestalde, zelan esan txinatar batek ekin eta eraso ziola... Ori entzunik zauri-ondoa nun zeraman ere Buruaga'ri ikusi naiko zio-ten!

Sasi-gudu ua egoalde eta iparralde-koek, zuten nor nagusi irten. Gurenda, orain Formosa ontan nagusi bakar degu-narrentzat izan zan. Gerorago, nippon-darrak etorri zitzaizkigun eta orduan ere eramankizunak obeki izan genitun. Ni-ppondar-rekiko aserrealdi ontan, Burua-ga txito txinatar egiñik genduan, eta inori beldur txororik ez izaten ongi ikasia. Baita: alako gizasema ikusi ta besterik gabe, nippondar indartsuenak ere atzera egin zezakean: izkilluak es-kuetan izateak bakarrik eskubide bete-beterik inori ez ematen. Leku batean baiño geiagotan etxeak ustu-erazi nai zitzaigun, eta Buruaga an zebillen errian zer-ianik otezan begiak argi eta batez ere geron arteko adifiekoren bat geiegi auldu ez zedin, arentzat alakoxe guxia goxoak biltzen. Txinatarren izkera, berriz, ez idaztietatik... baizik erri-erritik ikasi zigan, eta noranai zioalarik ere izkutuko esanik ari ezin asma ze-

zaioketen. Erriak beti dizkizu alakoxe esan tximenak eta zearkako adirapzen peto-petoak. Buruaga azkarrak oriek guztiak ederki ikasi zitzaigun. Gerok, apaiz ikintsu omen geranok, oraindik ere, anai arrazolatarraren txiñera entzunez, zer ikasia sarri izaten degu.

Urteen gupillak bein ere ez atzera egiten. Izatekotan ere, gizonok gerok gera alakoxe baldarrak eta errenak. Atzoko eguna berrito gure artera ez agertzen... eta, Txina'n aldaketak izan ziran. Izan ere, ainbesteren artean eta alako zabaldi izugarrietan edonongo aizee berealaxe indar artzen. Nipponda-rreekiko gudua zortzi urte, illabete bat eta bederatziz egunez izan genduan. Andik laister, —andik berealaxe idatziz okerrik ez nesake— nippondarrekin al-biraka ibilliz bezela izkutan indartu ziran gorrastak palast egin zuten eta bazter guztietara zabaldu. Plast-egin aurretik, ordea, Buruaga bizi zan alderdi aietan gorrastazaleak inongo bildotsik otzanenak antzo agertzen zitzaizkigun eta bein aginte-aulkietara igoaz, orduan-txe biotzetan zeramatena bai arin era-kutsi.

Eta, txinatar ez giñanok eralgi bai eta sortu ez. Orrela, ez giñan gizarterako on! Egin ez genitun okerrak ere gotzi zitzaigun... amaikatxori, bai beintzat! eta gorrastek gu andik iraitzi arteko onik ez zuten izan. Irteterakoan, uste gabe Buruaga'rekin bat egin nuen. Shan-ghai'ko bultzi-geltokian eta 1953'garrene-ko ilbeltzaren lenengoan: egun ontan illuntzera bultziak artu ginduzen Hong-kong'era eramateko. Neroni erabat aul-dua nentorren eta oñez ibiltzeko ere ez nintzala: gure Anai onen laguntza bai ederki etorri zitzaidala.

Bein Formosa'ra iritxiz, lenbizi-len-bizi artan alogeran artutako etxetan biltzen giñan eta txoko orietatik lanari ekin.

Geron lanetarako etxe egokiak bear genituan, bai txadonak ere. Buruaga Anaia CHUTUNG irian oso eliza polita eraiki zuen, eta lanak bukatu zituzanean, an lenengo meza ematerakoan ospakizun berezia eratu genduan, eta erriko cresa-batzari artarako abestiak neronek irakatsi nizkion, eta Letamendia'ren Arantzazu'ko Ama Birjiñaren ereserkia ere bai. Aukera-tutako goiz artan abesti orren otsak entzun zituaneko orduan Chutung'en zan MUNITA'tar Iñake Iesu'ren alaba, alai bezin alai eta zer ote zan ezin asmatuz kalera irten zan. Neroni eresbatzaren aldamenean ikusi ninduanen, arek:

—Bañan, zer erakutsi diezu?

—Zu emen ziñala nik iakin, eta zuri malkoak aterako zitzaizunik nik asmatu ez?

Egun artan Buruaga Anaia ere poz-pozik. Bañan, zorionak emanez eta aupa esanez eta txaloak ioaz arengana ez agertu. Bear zuena besterik egin zizunik arek ez uste. Txadona, Sortzez Garbi'ko Ama Mari'ri eskeiñi genion. Ordurako Buruaga'k beñola ikasiak zintzo mamit-urik zeramazkian, eta goizero lauter-ditan leikitzen eta bere otoitzak zintzo egin! Illuntzean Agurtza deuna utsik gabe oguzi. Olako iesulagunek irauñ ez beraz? Eta, tarteka-tarteka eraso zimu-rrez naiz geron buruak, naiz txerrenak zirikatzen gaitunean zer egin, otoitzera ioan besterik?

Berrogeitamar urte ementxe osatu dituala —orain urte batzuk iaioiterra itzulitxo egiñez, aberrian eman zituan illabetetxoak izan ezik— geron poza agertu diogu. Ordañez, Anai Buruaga'k bazkari eder-oparoa guri eman. Orits aundi-aundia!

Olakoetan oi degunez, euskal-abe-tiak ere eskeiñi dizkiogu: 1) Boga-Boga; 2) Bertso-kutsuzko zertxoak; 3) Loiola'ko Iñaki deunaren ereserkia. Bazkari aurretik, ama-ika iesulagunek alkar-meza.

Ospakizunera bilduak ia irurogei iesulagun: amerikar; ungariar, iapandar, txinatar, formosar bat, italiar, euskal-dun, espanyar, kanadatar, parantzetar. Formosar gaztea iesulagundian sartu berria.

ARRAZOLA'ren izena edertu degu!

Anai Buruaga'k inondik ez digu bere urteak zeinbat dituan esan nai. Artarako danak igarri dezakiola, nai ba'du. Nor-baitek esan zion, emendik ogeitabost urtera, ikatzarri ospakizunak egin bear zitzaizkiola. Ori ongi! Alabiz!

Bañan, egia erabaki dezagun ikatzak zer arri damaigu? Nik uste ikatzaren malkoa txirlarri biurtzen dala.

ETXEBERRIA'TAR P. SJ.

AZTERGARRIAK

AZPILBETE TILLISTA

Judutarrenganako hitlertarrak zabaldu eben gorrotoa, ona emen barrizten. Azpil bete arroligaitik, norpere zuzentasuna ta nortasuna eskutatzen. Or UNO'n or UNESCO'n, zuriak, europarrak, Chamberlain'en aterkia zabaltzen; erdi-ganorako erriak, daladierkerietan zer egiten daben ez dakiela. Besteak edozein erailtzen, etsaiari arpegi emon ezinda. —Ez da bardin eiztari ta gudari: txoriak ez dau izkillurik!

LENERA EZIN

Bota eben, otarra larregian bete nai izan ebenak. Baiña or da barriz Makarios jauna bere errirako bidean. Au irakurtzen dozunerako an izango ei-da. Olan beintzat onartu dabe turkarrak eta gerkarak, ezinbestean. —Lenera dana, baiña erraiñetan, danok, gorroto-sukarra sutautspear.

BERANDU?

Lurrarteko-itxasoa edo Mediterraneo zikin-potoa izatera eldu da. Erroma'n Alvaro Galindo jaunak esan dabenez, gaur dagon ganorarik garbitzeko, inguruko laterri guztiak alkatu, ta zikiñak orra bota barik, alegiñetan asteko ordua dala. Ala ta be, berera etorriko ba'da, 80 urteko lan neketsu ta zurra bearko ei-da. —Ez 80 ez ezer, gerokoak gerorako, eurak konpondu daitezala, au da gaurkoon pilosopia.

JAKINGUREA

350 museo ei-daukez olandarrak euren aberrian. 13 eskualde, 27'ña museo; danetarikoa. Ertilan, giza-neke-lan, jakingarri. Bat bereizten dabe oraingoz, Amsterdam'en dan «Beroalde edo Tropical» Erakustokia. Ikusgarria ei-da, txikian, lurralde orreitako oitura, lan eta jakingarriak, bizirik ba'litz bezela. —Ikasi nai izan zekero, jakingarriak be- eskuratzen dira.

DAUKANAK DAUKANARI

Beti ezgutu izan dogu, edo entzun izan dogu, UNESCO ori, beartsu ta atzeratuen jakintzearen alde jokatzin dabilela. Orain bertan, izkuntzeri laguntzea be erabaki dabe. Ederki!

Orretarako, batzar bereziak osotzen diardu. Bat gaztelaren alde be bai. Ez dabe baiña oindiño jakin al-izan, cuspera izeneko izkuntza zar eta garrantzi aundiko bat be ba-dagola, Euskal-erria izenako lurralde baten. —Ea ba, laster baten, FAO'koak be, txuletak jan al-dabezanak, txuleta geiago jan dagien, batzorderen bat eratzen daben.

URRENGOAN ONDORENGO

Gudea, arrika, ez ei-da ba ezer osorik geratuko. Orain, Walheim jaunak, onenbeste esan dau: arabiatar eta judutarren artean beste gudaaketa bat sortzen ba'da, lengoak baiña askoz negargarriagoa izango da. —Bakerako gogoa bai, baiña baietz ori esan bear dabenak, eta indartu ta onartuko leu-keenak, beste batzuk dira.

NIK NEREA

Tupinkiña edo kobrea ez da errez aukitzen edonun. Ori aukeran dauken laterriak

naizta etsai agertu tartean, alkartu ta euren ondasunaren alde jokatzin dakie. Peru, Zaire, Txile ta besteak, aurrerantzean % 10 gitxiago saltzea erabagi dabe, salneurriak jasotzeko. —Arrolioarena ordaintzeko izango da.

JOXE SALDU

Ta kitxo! Benetan kezkatu dagoz Jerusalem'en; artza ta arranoa Vladivostok orretan batu dira, azak eta porruak alkarri eskeintzen. Ba'litzake tartean anai txikiren bat saltzea be. —Arrolio-zain, gari-zain egiten ez daben artean, ez dau itxaropen aundirik Joxe gazteak.

TXAPEL BAT, BURU BI

Euren aberria osotu ta azkatuko ba'dabe, palestinarak, naiz judutarrek, lurralde bertan izan bear, edo bata naiz beste etxetik alde. —Ea agertzen jakun beste Salomon'en bat, erdibiketa ori zuzenduko dabenik.

ERREZ PIZTU

Erri-auzo biri su emotearren 37 lagun iltzera epaituak izan dira Phillipinas laterri ugartetsuan. Erri orretan gogorkeria goraka doa. 1972, Crisologo politikariaren semeari, bizi guztirako espetxeratzea ezarri eutsuan. —Suagaz dabilenak atzamarrak erre!

JAIALDIAK

Euskal-erri'ko esku-pilota txapelketak izan dira Zubero'ko Garindein'en, azken-jokaldiak jokatzin ziral. Mailla bitan izan dira: gazteak eta nagusiak. Gazteen mailla, Escande ta Urruty mauleondarrak, Baigorri'ko Dendaiette ta Mendibil'i 22-12 aldeakin irabazi dautse. Nagusien maillan, Baiona'ko Nautika taldekoak —Duffourcq eta Etceverry'k— 22-12'kin biarritzar Arendia ta Mutuberria'ri. Azken-aurreko jokaldietan: Zubiezereta endaiarrak 22-9'gaitik Housset biarritzarrai. Eta Donibane-Garazi'ko Caracotche'k, Villefranche'ko Lanure'i 22-14 gaitik. —Au da berezia, biñakoetan, biñako bi ei-dira txapel-duñ, eta banakakoan, beste banaka bi; ez da azken jokorik izaten azken-aurreko garai-leen artean...

ANTZARRAK

Martin donearenak zirala-ta, beti lez, Lapurdi'ko erri onetan, Biriatu'n, jaiak eratzerakoan ez eben antzar-jokoa aztu. Antzar-joko au, leenako urteetan antzar biziek izaten zan, orain barriz antzar (antzara) illekin. —Martin donearen jaiak antxinatik ospatzen dira erri onetan, baiña mende erdi dala, egun orretan guda latz baten amaiera be ospetzen dabe.

BELOK

Belok'eko beneditar-etxeak, illebe batzuk barru, eun urte beteko ditu. Euskal alorrean ain jator diarduen beneditarrok zerbaiz merezi dabe. —Emen bada, gure oroitapena ta milla-eskerrak cureri.

DANOK

INDAR-ETXEAK

Deba'n Itziar'ko lurrean, jarri asmo duten atomika indar-etxeak zer-esana ipiñi du baztarretan. Ontzat ematen ez duten iritziak sortu dira Gipuzko'n jakintza sallean (Aranzadi-taldea), Ayuntementu eta errietan.

Ori dala-ta Zumaya'ko lagunartetan ezin-egon aundia somatu da, gure erriak zer-ikusi aundia bai-dauka, urre gaudelako: BOST kilometrorra. Eta batzorde bat sortu da —«nuklear arriskuaren Zumaya'ko batzordea»— Zertarako? Erriko guziak gauza ontan jakiñaren gañean jartzeko, eta denok alkar-turik, indar-etxe ori jaso ez dezaten al degun guzia egiteko.

Gero itzaldi batzuen bidez, argibide geiago emateko asmoz; oraingoz agiri laburtxo batzuek eman nai ditugu, indar-etxe orrek ekarriko lituzken ondoren batzuek aitatz.

1.^a Indar-etxe ortatik radioeragiñak zabalduko lirake egurats eta itsasoa zear aize, ur eta lurra kutsutuz eta arrai, landare eta abere-egaztien kaltean.

2.^a Tokia ez da egokia, inguruan jende asko bizi dalako: 20 kilometro barruan 154.411 biztanle.

3.^a Ezbear eta okerrak gertatu litezke ustekabez edo gaiztakeriz, ondamen izugarriakin.

4.^a Osasunaren kaltegarri litzake. Esate baterako, minbizia, Gofman eta Tamplin jakintsuak diotenez, % 10 ugaldtu ditekete, indar-etxe oiek dauden tokietan ikusten danez. Odoleko minbiziz (leucemia) ildakoak geiagotu dira % 600 Garfield'n —Montana— USA. Aur-galtzeak ere geiago dira % 230 uri ortan bertan.

5.^a Giza-soñari dagokionez, enda, giza-azia, jatorria ta abar aldatu ditezke. Bear bezela osotu gabe jaiok % 210 geiago dira Shermann'en —Oregon— USA.

6.^a Indar-etxe dirala-ta, oraindik ikusteko dauden beste zenbait ondoren txar gertatu litezke.

7.^a Indar-etxe oiek jasotzeko dirutza izugarriak bearko dira. Amerikanoak aurreratuko dute, noski, gero ordaintzekotan; baiña atzanean erriko jendeak nozi bear, argi-indarraren prezioa igotzen juango da-ta.

8.^a Mendetasun osoa, teknikaldeetik bezela; errekaiaari dagokionez; bere eskuetan bildu-ta daukaten Estaduetatik etorri bear bai-du.

9.^a Indar-etxeak denbora gutxiko bizia dauka; alde batetik, erabiliko duan uranio-mota (U 235) urri dagolako; eta bestetik, indar-iturri au baztartuta geldituko dalako, egiten ari diran aurrerapenai esker, beste indar-iturri oieak eta seguruguak arkituta. Esate baterako, fusio-indarra, eguzki-indarra.

10.^a Indar-etxeak izkutatu arren, radioeragin ondarrak millaka urtetan irauñ dezake, oiek desegintzeko bideren bat arkitzen az ba'da. Oraindik ez da asmatu.

Argibide auek emanez, guziok jakiñaren gañean jarri nai zaituztegu, ba-koitzak ikusi dezan, nolako arrera egin orrelako ondorenak lekarzkgukuen erregaloei. Leendik naikoa kutsututa dago gure bizileku au ainbeste ondakin ziki-ñekin!

BATZORDEA

ESNEAGAZ EGINDAKO

ESKATU **BASERRI**

UMETXUENTZAT

ADIREKOENTZAT

CHOBIL

ESNEAGAZ EGINDAKO

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK
OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK



ZAZPI-KALEAK

CASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK



MONRAY

ARKONDARA-GINTZA

ANDEREENTZAT AZKEN-JOSKETAK

Bidebarrieta, 2

21 43 46 urrutizkiña

Alderdi-zarra

BILBAO-5

ERRI JAKINTZEA BASERRITAR AZKARRA


Gai ederra benetan Azilleko 9'ganean, eta bere atadian AGUR'en irakurri genduna. Bai zor dautsegula ainbat gauza eder gure basarri zarreri, or diñoan lez. Baiña oitura, izaera, enda ta benetako izkuntzea aitatu ondoren, gure ustez, beste gai bat ezarriko genduke: «Erri-jakintzea».

Gu geu, gure burua euskalduntzat daukagunok, zenbat aldiz baserritarri sorbalda ganetik begiratu dautsogunak gara. Diñogu sarri: «Eurogandik ze itxaropen izan geinke, ez dira erriko ikastetxera baiño joan, gaurko gizartearen barririk ez dakie, izkuntzea bera be zaindu ba'dabe, besterik ez dakielako...» ta abar.

Baiña euren artean sartzen garanean, zelako aberastasuna nabaitzen dogun. Guk, ardatz bezela daukagun gure azaleko jakituria, zer ikasi dogun arrokeri aundienagaz argituta gero, euren esakera zarrak ta ainbeste ez diranak entzuten ba'doguz, bein baiño sarriago gorrituko jaku aurpegia.

Gure asaba zarren basetxean, «Eguskitza»n gengoan bein baten. Gure osaba Jose zana, be-su ondoan, nondik eta zelan ibilliak izan garean luditik zear, entzuten. Gure esanari amaiera emon ondoren, gure osabak diñosku: «Loba, ondo ezagutzen dozu gizona, baiña, bai ete Matxa'ko gure adiskideak baiño obeto? Onek es dau iñoiz baserritik urten, baiña bai daukala jakituria, sikolojiari (zelan esan dozu?) edo buruz. Ezkontzeko eukan bere alaba bat, eta azken barriak argitzeko, aren senargaiari deitu eutsan alaba bat, eta be-su aurrean, zelako ezkon-saria bear eban neskatilleak mutillaren basetxean etxeokandre izateko ta abar. Patxadaz sutondoan jesarrita, mutil gazte a, misto kajea atara ta zigarroa ixetan aitagiñarrea izango ebanaren aurrean.

—Txingarra aurrez aurre euki ta posporoa alperrik galtzen? Ez beintzat nire alabearen senarra izango danak. Joan zaite etorritako bidetik, gizon ardu-ratsugoren bat izango da beretzat-eta.



Loba, ba ete daukazu arek eukan beste sikoloji edo demontre ori?»
Zer erantzun?

Ez dira egun asko, gure Seminario Ikastetxean gengoala —an toki zora-garri aretan, gure euskaldun usaiña ta zaletasuna iñon zaintzen ba'da, ondo zaintzen dan Etxe bedeinkatuan— alkar-izketa bat gure adiskide ta gure semeen irakasle edo obeto esanda, ezitzaille diran Andoni Erretore Jauna, Erramon eta Mikel idazlariakaz.

Gure gaia, jakiña, semeen ezikuntzea ta benetako jakituria nondik eta zein eratara artu bear daben. Ta garbi ikusten genduan, urduri ta artega ibilli barik, gauzak astiro ta ondo ausnartzea bear-bearrezkoa zala, gure semeak ondo eziak izango ba'ziran. Gure baserrietan egiten dan lez, gaurko gizartearen lotu-eziñari barre eginda. Onetan genbiltzala, gure Mikel'ek:

—Ba ete dakizue Ander'ek (ezitzaille jatorrak) esan daustana?»

—I, Mikel, (arratiarra dogu Ander) ba-dakik zer ikasi joatan orain nabillen ikastaroan? Ire amama zarrak guk baiño jakituri aundiagoa ekiala arlo orretan.

Gure Mikel'en «Haurgintza miñetan» irakurri ba'dozue, an agertzen dira Eskolastika zanaren agoan (Eskolastika'ren esieran bere amamanak zirala ba ete ekizuen?) gaurko gaztediaren asmoak. Ikusi, baserritik iñoiz urten bakoaren berbak: «Eskola andia, dirua parra-parra, lujua ta banketa banketaren gainean...»

«Oreixek izan dozak barrizat ezarri jakuzan oiñarriak, gure gaztedia ezagutzeko». Ander'ek Mikel'i.

Ez dogu uste jarraitzea bearrezkoa izango danik. Ausnartzen ba'doguz oneik eta onein antzeko izakera batzuk, later ikusiko dogu benetako jakituria non dagon. Gure baserritarrek, gure erri txikiakoa, ez egizue galdu zuen bakea, ta bai ekin astitsu, jarraitu gizona sakon ezagutzen, benetako jakitunik iñon ba'dago, zuokan dago-ta. Ta guk ikasi dagigula!

ATXUTEGI'TAR BITOR

Edozeinek dakian lez, gure baserritarra beti bizi izanda neketsu. Zerbaitegaitik dauka antxiñatik nekazari izena, beste edozein baiño neketsuago, beti lan asko eginda, eta ez gitxi alperrik, geien baten ez jakiteagaitik, ikasteko erarik izan ez dabelako. Eta iñoiz zerbaite ikasteko aukerea izan ba'dabe be, ezin izan dabelako ziñestu lugintzan lan egiaz dabenak, ezkerengosi leuskionik. Ori ta geiag dala-ta, azkenengo urteotan, Bizkaï'an bakarrik utsitu diran basetxe zabal ederrak eundaka izan dira.

Ba-dira orraitio, Bizkaï ontan bertan —ezin daikegu beste ainbeste esan beste euskal eskualde-tzaz, ez dogulako orko lugin arazoa ezagutzen— arazoak ondo aditaldu ta azkar eta burutsu lugin-tzari diarduen baserritar banaka batzuk. Nekazari-tzari muzkin ona ataritzen dakienak, ez baiña laietan edo atxurretan astoa lez ekinda; traman-kuluz eta beste era egokiago batzuk erabillita baiño, baita zein lurrek zein barazki edo landara obeto emon legikean jakinda baiño. Benetan! Onetariko nekazari bat ikusiten dogun bakoitzean, pozaldia sortzen jaku gure barrenean.

Aspalditxoan gengoan jakitun, nekazari zintzo ta azkar bat egoala Boroa auzunean, Zornotza'n, eta nor zan jakin gendubanean, bertara zuzendu giñan, Apraiz'tar Eusebi euskaltzale jatorra ta bere emazte langilleekin izkeltadi labor baiña jakin-garria egitera.

Basetxe au ez da lurralde zabaldua, ezta lur mamintsurik dabena be. Boroa'n ainbat basetxe dira onek baiño inguru oreak daukezanak. Ainbeste-raiño, antxiñatik basetxe onetan bizi izaten ezaguien gendubazan sendiak, ozta-oztan, beste lantegi ba-tzuetan lan eginda bizi ziran-eta.

Orain baiña, gure adizkide Apraiz au ederki bizi da. Lan aundia baiña buruz egindakoa, ta ba'litzake ainbat laukoren jabe izatea be.

Basetxea, Boroa'ra sarrean, Kortederra igaro ta lasterrean dago, Olabarri-gane —bere aldamenean, antxiña, bolu bat egona zalako-edo— izena dau, baiña «Matxin'en etxetxia» izenaz obeto ezagutzen dana. Urte mordo bat dala, Apraiz'ek erosi eban, ta pizka bat edertu, bere emazte ta seme-alaba

kementsuekin bertan zitibzeko. Senar-emazteak aguru ondoren, esan geuntzan Eusebi'ri:

—Adizkidea, esan dagidazu, etxealde au zuk artu baiño lenago beste iru sendi gitxienez ezagutu dodaz emen, eta basetxe onek daukan lurrazak bakarrik estu-estu bizi ziran. Zu barriz, zorionez, ederki bizi zarala ikusten zaitut, zelan da ori?

—Ba, lan asko eginda, baiña buruba soña beste edo geyago nekata.

—Ederto! Ikusten dodanez barazki artzan zabiltz geyen baten, bear ba'da, barazkia izango da asko emoten dabena?

—Ezetariko zalantza barik, barazkia da gaur egun beintzat, lurretik ondasunik geyen emoten dabena. Ori bai, zein lurrek zein barazki obeto emon-legiken aditalduta.

—Baita ikusten dot ba-dozula negukari edo inbernadero orreitakoak be. Zein da estalpe orren eginbearra?

—Geyen baten, bestela lortu ezin legikezan eta lenago-landarak aukeratzea. Esate baterako, bestek soloan landarak sartzen dabiltzazenerako, tomate ta porru barriak salitzen aurkitzen naz.

—Iñoiz esan dauste, igaliak, fruituak geyago emoten dabela. Zer dirastazu orretaz?

—Igaliak be, egixa da, emoten dau, baiña eguraldiaz be adu orea bear da, barazkiakaz baiño, baita non dan be.

—Beste itaun bat, eta au izango da gaurko azkena. Zenbat gizalan inguru bear dira, zuk bezela ekin ezketiño, sendi bat luguntzatik bakarrik ondo biziteko?

—Ektare bat (eun are) inguru, au da, ogei ta zortzi gizelur, eta gitxiago be bai, lur mamintsurak ba'dira.

—Ta, agurtzeko, esango ete zeuzkie beste baserritarrai zure lan bideak zeintzuk diran?

—Baita pozik be, euskal baserritar guztiak aberastuta ikustea izango litzake nire atseginiñ andiena.

—Orretara esango dautseegu AGUR onen bitartez.

ALTUNA'TAR JOSU

benetako

akeita

CAFFÈ
BAQUÉ

CAFFÈ
BAQUÉ



utsa

soilla

ARRATIA

Galdakano

TXIMIÑO-KERIAK:

Azken aldian Intza'r Damas napartar lekaide jakitun agurgarriak, Gipuzkoa'ko eskal ikastola bateko zuzendari egiten dabena batzukin «Goiz-Argi»n darabilen auzian, —nire eretxi apalean arrazoi guztiya dau Damas Aitak— dirauskunean bertako umetxu orren idazkituetan argi ikusiten dala irakasle aien Jainko-gabekeria umetxu orrei sartu naia, gogora dakarzu aldi ontako gazte ta ain gazte ez diran gizonetzko askoren jokatibideak.

Umetxu aietako batek, Bengoetxea'tar Arantza'k idatzi ei-eben: «lehen, antzina, ximu (tximio) antzeko abere batzuk zitakeen gure aurrekuak.» (Darwin zanaren ikasbidea). Eta idazlantxu orretaz «Goi-Argi»n 217'gn zehabian dirasku, «Onintze» idazle argiak, «Bost urteko aur batek ez lezake idatzi onela, inondik inora, bere adimen garbia loitzen lagutzen ez badiote», eta abar.

Ez dago esan bearrrik, ni be orretan nagola; bost edo sei urteko, edo zerbat geyagoko umeak naita azkarrena ta adimenik argienekoa izan, ez dau almenik orren gai sakonak idazteko, bere aldamenian ez ba' du gotzon-hiyotz zuria uzteleduten lagunduko dabenen bat. Orretan ziur garala uste dogu.

Baiña, tira, goazen arazo onek gogoratu daukuzan oldozmenetara, naita bear ba'da garrantzi gitxiagokuak izan:

Zerbait irakurri dabene edozeinek daki, Darwin jakintsuak bizitz-ezti edo bizi-jakintza bidez irakatsiten emon nai ebela gizona tximiñoagandik datorrela, gizonen arbasoa tximio dala. Ustari ori baiña, argi ta garbi ezetu eben Darwin baizen jakitunaguak, tximiñoa orain milioyak urte be orain lez zala eta gizona atzeratuagua, ez jakinagua ba'zan be gizona orain lez izan zala. Orretara izan ez ba'zan be, siñiskera sakonagua, goitarra dogunok, euskaldunon Jaun-Goiakuak, Urtzi Deunak edo Alguzi Deunak Bere antzekuak egiñak garala ziur gara, beste abenda ta ikuntzetakuak beste erabatera ezagutzen ba'dabe be, eta, orretara jarraituko dogula uste dot euskal-semerik geyenok.

Gure oldozmenak baiña, beste galdera batzuetara daruasku, aldi ontako gizaseme askoren jokabidea ikusita, egiz, ez ete dira Darwin'ek esan ebanez tximotik datorzenak ule luze, katabixer zikin ta janzi barregarriz (obeto esanda negargarriz) tximiokerietan dabilzan asko? Edo gizonetik etorriak izan arrik, tximotuten dabilzanak? Nik bayetz esango neuke. Dakigun lez tximiñoak gizonari ikusten dautsona egin nai izaten dau, naita ezin egin gizonak lez. Bestera bai, gizaseme askok polito egiten dabez, tximiokeriak ezetarik ondasun barik.

Emakume antza emoten dautsen uille-luzedun, katabixer eta janzi barregarriz dabilzan bateri baiño geyagori itanduak gara: —Zer egokitasun lortuten dozu gizon-tasuna kentzen dautzuen gauza orreikaz?— Bat be ez: lan geyago baiño ez: garbi ibilli nai ba'dot, baiña oitura da-ta!... Ori da gaurko nortasun-eza.

Orduban, zergaitik ez dozubez euskal oitura garbi gizonkorrek kementsu «oiturago» egiten, atzerritik etorritako oitura petral zikiñak zeuztat artu barik? Orretariko askorentzat ez dauko erantzunik. Euskal-semeak, itxi daiguzan alde batera tximiokeriak eta jokatu daigun gizonkiro ekandu txar guztietatik gure ERRIA azkatuten.

BATZUEN OLDOZKERA

Lerro oneik idatziten doguzan egumontan, ulea ebagiteko agindu dause irakasleak erri ontako ikastola-umeai, zorri zikiñ nastetzallen

bat sartu dalako umeen artean. Ondo ikusten dogu garbitasunerako agindu ori. Baiña, ara non, onetariko egun baten, erriko ikastola ondotik igarokeran, irakasle sasoi oneko bat, mutikorik nagusituena soinketa irakasten, polito erakutsi be, baiña uletsu ta bizerrakin arpegia estalduta ebala. Zein irakaspen emon leiken irakasle gazte arek antz arekin! Zuk erantzun irakurle.

BASA-JAUN

Arratia

Ibilli, arakatu, eta azterketa sakonak zeatz egiñok, Inaki Linazatoroko'k argitaratara ekarritako «Los Caserios de Guipúzcoa» idazkera samur eta gozoz egiña, pozarren irakurten doguzan orriktakoa izanik, barru-barrena garrastu daust.

Konturik egin izan eztoan arren... % 20'en bat nekazari-etez gitxiago ditu Gipuzkoa'k gudaldia izan gerotzik. Ez dago Bizkaia'ri buruzko barririk, baiña emen ere, ango gaixo berbera izango, ezpairik gabe.

Bertanbera laga ta itzitako euskal-sendien aterpe ta bizilekuetan, eguno geiagotan, ez dogu gurazo gazte, ume barri ta gaztain-zimitzezko seaskarik ikusi al izango; sudur me ta makurdun aitunik, aititarrak, okotz luzedun amonik, amamarrik, labeko surik...

Buztin-lurrak an; elkorrak, legorrek eta gogorrek emen. Aldapatsuak, erriburutik urrun, bide egokirik eza, etxe zartuan maizter... eta bizibide eroasooren egarriak eragiñik-edo, illuna da basarriaren etorkizuna, eta euskal-kabi, abiaren geroa, baltza.

Tamalgarría benetan, egi-egitan, goialdeak eta ain goi ez diran baso-magaleto biztanleak arralapanan jatsirik erriburuetan moltzotzera. Gure arbaso edo aurretikoen izerdi ta ogi izaniko solo, landa ta baratz, baso ta oian biurtzen ikustea.

Berezkoa dau gizonak, edozein abere naiz piztik, txarretik onera ta onetik oheagora garoazan burpil-txirrikariari jarraitzea, baiña bizikera ona ta erotsua bittatze ta aurkitubear onetan, ez ete-dogu gero, gure buruarentzat urkamentia egingo?

Ba-dira baiña, nekazariak, oiñetako dizdiratsu ta samatik arranakin uri ta erri aundietako txindurri-bizikera baiño sorlekuko abarkak oiñetan naiago dabezanak.

Egin begiratu bat Zeberio'ko Undarraa auzuneari, eta ikusi. Goitik bera ta betik gora barriztutako etxeak, inguruak lorategiz apainduak. Buztarri, arran, zintzarri ta besterik, orma ta sapaian pitxitat dindilliz, egunean egungo alogera fabrikaren batean, baiña esne, barazki, kukumixo, oillo, arrautz eta bizileku baketsua Undurraga'n. Gorbaie'ko beleak Gorbaie maite!

Beste begiraka bat Artaun'erantz, eta antxe izango jildo beargin zolia, etxe zarra ipurdiz gora lurrera eratsi dauan leku artan bertan, bizileku barria eragi edo jasoten. Eta Linatz emazte onak zartzarorako pozgarrizat ekarriko dautson ume barriagaz, goi aretako intzaurpeetan emongo ditu, nasai eta baketsu, Gorbaie'ko gurutzea beti agirian eta Dima'ri goitik bera begiraturik, bizitza ontako egunak. Atzarte'ko auzarentzat erbarrena arrotz!

LANDAJUELA'TAR A.

BARRIA

Markiña

BEGIAK ARGI

Begi-lainoen osakuntza eginda, pozik etxeratu jakuz, oraindiño gauza asko ta ederrak ikusteko dagozalata, Ugarte'tar Jeronimo, Barrutia'tar Felix eta Ibarzabal'dar Joxe gure adiskide on eta begikoak. Asko poztu gara geu be. Zorionak iruroi! Eta begiok zoli ta zur erabili, premiña ba-dago-ta.

ILDAKOA

Mundu onetako egitekoa kristau-zintzotasunez bete ondoren, bake-bakean eroan dauku Jaunak beragana Bauskain baserriko Arrieta'tar Karmen etxekandre maraiza. Agur, Karmen! Eta ez aitzu gugaz or goian Aitaren ondoan. Otoitz bat bere alde, ta gure samin-agur zintzoa bere senitartekoai. Goian bego!

EZKONTZAK

Bizi-modua odeietan eta sakelak urduri. Baiña gure erriko gazte ausartak bildutzeorik ez da oraindiño agertu. Euren buruak eta ondoren etorriko dirantxoena janarizteko lain eta geago egiteko kapaz ba-diralata, alkarri baitetz gozoa emon eta gure erriari bultzada bat eragiteko asmo ta bidetan sartu jakuz Arrate'tar Ester Ezenarro'tar Juan Luis'egaz. eta Gerenabarrena'tar Ines Aulestia'ko Martiartu'gaz. Zorionak bikote eder bioi! Eta ekin adoretu gure lorategiak ugartzen; baiña benetako euskal landarakaz, e!

JAKARTA'TIK ETXERA

Munduko edozein bazterretan pelota-tokirik ba-dago, an izango da Markiña'ko pelotararen bat, dozena-erdi bat ez ba'da. Eskerrak euron gizon-tasun eta jatoriasunari, beste enbajadore ta konsulak baiño izen ohea damotse pelotari geienok gure Euskalerrinari. Orainsu erriratu jaku bat, nundik? eta Jakarta'tik, Asia-barreneko ugarteetatik. An emon dauz urte bi inguru Ugarte'tar Patxi, gure pelotari gazteak.

Egia esan, mundua zabala ta nasai da, ta urriñetako intzaurrak zarala aundikoak. Baiña gure txoko au lako polit eta maiztagarrik iñun be ez; ezta bertoko intzaurrak baiño gozago ta mamitsuagorik be. Ez da olan, Patxi?

BESTE BAT MEXIKO'TIK

Euria ta lainoa ugari ta merke aurten. Eguzkia, barriz, urri. Karutu egingo ete dauskue ori be? Orduantxe bai kirkillan azkena!

Lengo baten, eguzkiak bere arpegi eder-biribilla erakutsi ta epeltasuna duan eskeintzen euskalata, erriko zelaietan gongozan nasai ta patxadaz jarrita, barriketian, AGUR'erako zer bialdu ez genkiala. Entzun dogunez, errian eta erbestean be gure ganora andi bako zirri-borrotxoak pozez irakurten ei dabez batek baiño geiagok; eta guk inoren pozari esirik ipiñi nai ez. Bai ba, erria maite dauanak, erriko edozer jakin nai. Benetako maitasuna beti gose ta egarri.

Olan gongozala, gu konturatu gabe urreratu ta —Kaixo, mutillak! oi u egiñaz sorbaldakoak emoten asi jakun mutil gazte bat. —Enc! Joxe Mari Txatuan semie! Aspaldiko! Nundik eta nora?

Bai, ber-bera zan, Mexiko'tik etorri-barria, ango neskatilla lirain bategaz ezkondu. Eta arrigarrina ta pozgarrina: euskerea parra-parra eriola. Buruak emon be ez bere errian erderaz egiterik; biotzak gitxiago. Prisz ebillan eta barriketalditxo bat egin ondoren —Egongo gaituk alkarregaz esanda aldendu jakun. Eta guk geure artean: —Au be ba-dok ba. Urriñien erriko izkuntza maite, ta errixen zorri ta zorritzuek nauti. Ta geienak lotsatu bez. Au dok ganorie! Guri'ek egin ete jok?...

DOMUSANTU TA PARROKIAKO BATZAR NAGUSIA

Bizirik dirau oraindiño Markiña'n oitura zar eder batek: Domusantugintzak. Gure aurretikoak gogoan arturik, sendikoen alkartzeguna izaten da. Ori dala-ta, adiskide ta lagun asko agurtu al izan doguz. Ez daigun eten kate eder au, gure ildakoak, edo obeto, zeruan bizi jakuzanakaz alkartzan gaitun maitasunezko kate gozoa. Olakoak ba'lira aspaldian daroaguzan kate guztiak...!

Egun orretan izan zan gure Parrokiako Batzar Nagusia be, urterokoa. Berein-bereiz etorri jakun Bilbo'ko Gotzaina. Berak emon euskun 12'etako Meza Nagusia. Bietara egin eban itzaldia, euskeraz eta gaztelezaz, jator eta mamitsu. Mezatan jendetza aundia; baiña Batzarerako oso gitxi geratu ziran. Zer dala-ta? Arduwarik eza? Ala errezago dalako gauzak argi ta garbi jakin barik mormorka jar-dutea?

Dana dala, an geratu ziranak jakitun dagoz, eta ezin izango dabe esan praille-abadeak zetan erailigen dabezan erriak emondako txanponak. Eritxiak eritxi, baiña, gauzak garbi. Villanueva jaunak zeatz azaldu euskun diru-kontua. Baita Arrate'tar Xabier gazte jatorrak be urte-barruan egindako lanak eta laguntza-egaitik egin barik geratu diranak. Ondorioa: miñagaz mormoxketa gitxiago ta eskuakaz lan eta laguntza geiago.

IGALITEGI BARRIA

Kale Okerrean igalitegi barri polit bat agiri da aspaldion. Ansola'tar Mari Tere'k zabaldua. Ziur gagoz zintzo ta garbi jokatuko dauala ta erosleak ugari izango dauzala. Benetan poztuko gintzateke!

ARGAZKI-LEIAKETA

Aasko ez dala, argazki-leiaketa bat izan zan Eibar'en. Arro ta pozik gagoz benetako markinarrak, gure erriko gazte batek, Maguregi'tar Xabier'ek irabazi ebalako bigarren saria. Zorionak, Xabier! Ekin eta jarrai! Urrengoa baitetz ekarri lenengoa.

KIRKILLAK

Antzuola

ERIOZTAK

Azken aldi onetan, eriozt bi izan ditugu gure errian: Bata Urrillaren 26'an, eta uste gabean joan zitzaigu Zubillaga'tar Julien bere emazte eta bost seme-alaba negar-malkotan utzirik. Eta bere sendiaz gainera, zenbat lagun zituan, bere illeta eleizkizunetan nabarmen ikusi zitekan, ala ta guztiz ere, beste asko etorriko zirakean —uste gabean, bat-batean joan zanez— ez jakinagatik etortze deldituko ziralako, ziur nago. Izan ere, Julien'ek zenbat lagun, zenbat lagun zar ote zituan! An, or, emen alkarrekin ibilliak, alkarrekin lo egiñak, alkarrekin amets berdinaik, eta ez amets bakarrik, baita alegiñak ere, gaurko askok aitortu nai ez ba'dute ere.

Bizitz ontako azkeneko burrukan, amets ura loratzeko, betetzeke joan da, baiñan ez det uste, an, goitik ez ba'da ere, egi biurtuta ikusteko itzaropena iñoz galduko zuenik. Goian Bego!

Bi eriozt izan ditugula esan det, eta besteak ez ditu umezitat gutxiago utzi; Azillaren 3'an, Artzai Nagusiarengana alde egin zigun Kortaberria'tar Marzelino apaiz on eta jatorrak. Beste zenbait baserri sukaldetik irtendako apaiz jatorra eta apala. Ala ere ez ditu bere gain «kargu» gutxi eramane. An, Donosti'n etzuten gutxi ezagutuko, eta berdin berak, gure uri-burua ondotoxo ezagutuko zuan, baiñan ala ta guztiz ere, bere txoko Antzuola' kin etzan aazten, bere egin bearrak uzten zioten bakoitzean an artuko zuan goierriko trena bere erria etortzeko, bere liburua bere esku zabaletan artuta, an joango zan bataioko urak artu zituan eleiz barrutira, zelako itzala! Aundia zan, baiña biotz aundiagoa zuan, zenbat zulo estali ote ditu, zenbat kokxa berdinu, eta gauzak argi ta garbi azaldu.

Bere aldezko illeta eleizkizunetan aldare inguruan 19 apaiz bildu ziran, Gotzai jaunak eziñ izan ba'zuan etorri ere, an arkitzen ziran erriko seme diran apaiz geientzuenak, eta nola ez!, erri guzia. Sakabanatuta utzi duan artalde biltzen lagundu beigu, bere alde otoi bat zeruruntz jasotzen degun bitartean.

MATXALEN



DEPURACION DE AGUAS S. A.

URA EGOKITZEN ETA UR LANETAN BEREZITUAK, EDANGARRIAK - LANTEGIRAKOAK - ZIKINDUAK NAIZ IGERITEGIKOAK ZUZENTZEN

+ 32-37-00 - + 31-00-10 - 32-37-01 Urt.

Gordoniz, 44, 12.^a
BILBAO-2

BERASTEGI

Bein, «Etsoinberri»ren alaba bere zaldi baltzaren billa joan zan. Berea zalakoan zelaian ikusi eban bat artu eta bere gañera igo. Zaldiak bere bide bat artu eban. Leiza-zulo baten aurrera eldu eta neskatilleari jeitxiteko aukerarik emon barik, kueba barrura sartu zan. An geratu ei ziran betiko zaldia eta neskatilla.

Kontu ori gogoan dodala sartu naz Berastegi'n.

* * *

Tolosa'tik, Ibarra'tik zear, Leiza'rako bidean dago Berastegi. Mendi eta egi.

Organu jotzalle besamotz bat, mantxu bat, ezagutu neban nire gazte denporetan. Askok amar atzamarregaz baiño orru geiago ataraten ekian organoari.

Errian sartu orduko, Kontseju etxeak, etxe eder, zabal, lautuak, begiratzeara eskatzen dau. Bertako eskudoan, erriarena dan eskudoan, San Lorentzo, edo emen esaten daben lez, Salontxo eta ermita bat igarten dira. Eta egi sakonen miña suspertuten daben esaera bat: Nobleza con libertad. Bizi bide jator baten jokera zuzena.

Aurreko mendiei begira nago: Ipoliño, Larte, Urdelar... Mendiak be pentsatu eragiten dabe.

Ennatu nadin, nira etorri. Beste izen bat: «Kako». Ze kaku ete dakar «Kako» orrek? Ba dakie gure errietan taberna eta jatetxeen izen politikak ipinten.

* * *

Ederra da Berastegi'ko parrokia. Erromaniku ate batek, oraingoa baiño beste bat egon ete zeinkean ezpaian lagaten dau bat. Erriko etxea, ayuntamiento etxea baiño goratxoago. Itoki txiki bat bere ondoan.

Eleiza onek be ba dauka bere entzutea. «Jaulci» etxeke alabak iru buelta emon ei eutsazan bein eta sorgin biurtu.

San Martin. Aldare nausia, A. Bengoe-txea'k egiña.

Ba dakie emen illen oroitzak, gomutak gordeten. Argi-zari gorria, illobietan, il-barri diranetan mankal baltz baten gañean. Zegaitik ain gorri? Goierri'ko argizaria Beterrri'koa baiña gorriago ei da beti be, erantzun dauste. Emen «bildumena» deitzen dautse. Guk, txarto esanda «rolloa».

Parroki onetan gertatu ei zan.

Abadeak, erritarrei lotsa eta bildurra sartu nai. Oiturretan pixka bat zuzendu nai. Gabeko parrandak eta andrazkoak. Orreik ei ziran berastegitarren pekatuak. Origaitik ez ei eban zeruan emengo iñor billatu. Garbitokian bat bakarra: Pedro Joxe. Berakats atala baiño fiñagua, gixajoa, eta bera be...

Eta besteak? Ez asko nekatu igarten.

Jaungoikoaren zigorra eskatzen eban abadeak. Ekanduak bildurrez garbitzeko zigorra. Origaitik, azalpen txiki bat egin ondoren, Sua, Sua!, goiko sua eskatzen orruka asi zan. Eta sua jausi zan bobedetako zulotik.

Dardaraka egozan danak.

Su geiago!, abadeak. Eta bigarrenez be sua.

Ango ikara, bildur eta larrialdia!

Su geiago! Geiago! Alaxe ebillan abadea. Eta alako baten goitik abots dardarati bat entzun zan: Amalua, estopea amaitu da, jausa!

Eleiz ondoko atadian erriko jaunak batu ei ziran berialako baten. Abadeari berari purgatorioa eskintzea erabagi ei eben.

* * *

Berastegi, gure gizaldian, bardintsu dabil bere bizilagunetan.

Gizaldiaren asieran, 1.173 lagun. Orain eun gitxiago.

Berastegi eta Eldua kontuan eukitzeko dira. Erri bat, baiña parroki bi. Nai eta berastegitarrek izan, elduarrok ba dauke euren nortasuna zaintzeko garrak. Ez dira danetara be berreun lagunera eltzen. 170 inguru. Baiña eskubideak ez dauke ze ikusirik moltso eta pilloekaz. 16 baserri-etxe eta kalean beste batzuk. Kale zabala.

Arro dira elduarrek euren eleizako taillu edo arteko olekaz.

Parroki au III Paulo'k 1548 urtean baimendua zan. Ala ta be ia berreun urte dira

jaubetasun osoko parroki lez geratu zala: 1782 urtean.

Koro azpian dagoz baserri bakoitzari oi yakozan il-toki edo sepulturak.

Berastegi'ko kaletik ia bost kilometrorra egiten da auzo au.

Beragoko zulo baten Beotibar ikusten da. 1321'n gipuzkoarrak Naparroa'n sartu eta Gorriti'ko jauregia artu eben. Naparrak, ordez, Berastegi'n sartu ziran. Baiña giputzak nausi.

Orduko napartar eta gipuzkoarrak egiñiko burruka negargarrien kantua oraindik gogoratzen da:

Millu urte igarota
ura bere bidean,
gipuzkoarrak sartu dira
Gaztelu'ko etxean,
naparrokin batu dira
Beotibarren pelean...

* * *

Errian zer dagon itandu dot.

Baserriak eta basoak. Aurrean dagoz beintzat piñadiak. Baserri lanak, serra lanak eta papeleratik datorren ogi-bidea.

Eta beste berezirik... norbera osasunez joan ezker, sano joan ezker, ez. Odol txarrez edo odolaren goraberetan, zaldarrak eta antzerako min sornatuekaz joan ezker... erremedio erreza: Zaldar bakoitzeko bost zatiko burudun ultza artu, Larre-mendiko San Lorentzo'ren ermitara joan, an zaldar aiña ultza laga, bertako argi-ontziko orioagaz zaldarrak igortzi ta itxaron odol garbitzeari.

* * *

Berastegi'ren izena, izen bardiñeko bertako jaunei lotuta billatzen dogu istorian. 1027 urtean, Naparroa'ko Santxo Erregearen agiri baten billatzen da erri onen izen au.

Gipuzkoa'ko eskudoan agertzen diran kañoiak be (ez dira euskaldun danak kañoi oneik ikurdian ikusteko zale), Berastegi etxe onetako Gartziz Martinez koronel zala bere gudariak artutakoak dirala esaten da.

Baiña Berastegi'ko jaunak eta erritarrak ez ziran alkarregaz ondo konpondu izan.

Gertaera bat: 1533 urtean, erritarrak, gabaz, kanpai torretik sartu ziran parrokiaren. Berastegi'ko jaunen illobia zatartu eta eleizan eukan jarlekua apurtu eutsen.

Sutu eta asarretu zan jauna eta gora jo, erriarengana. Erritarrak, batzarrean batuta, ez eben txarto ikusi eleizan sartu ziranen jokabide ori, eta euren alde agertu ziran:

Gauzak garratu ziran. Errentak ipinten asi zan jauna. Bere lurretakoei eta Leizaran mendietan janaritzen ziran abere eta andik ataraten ziran basokiñei. Berea ete zan Leizaran ori? Eun urtetik gora igaro ziran burruka eta eztabaidetan.

Jauntxoaren eritziz, erritarrak, eta Eldua-yendarrak eurekin batuta, arro, basati, eta biurriak ziran.

Erritarrak, bere errotei boikot egin eutsen eta errentak galdu egragin. Ortik miña. Bera, barriz, gizon baketsu, artu-oneko eta danen maitale zala esaten ekian. Eta erritarrei, euren arrotasunaren ordez, beregana makurtu eraziteko, ogei florin dirutan, pitxar bi ardu erralde bat okela, amabi koipe eta Maiatzeko Santa Kutz egunean asi eta Andra Mari bitarteko zapatuetan egiten ziran gaztaiak berari eroatera beartu zitun.

Orra jaunen eta erritarren artu-emon.

* * *

Ikurdi edo eskudodun zazpi baserri etxe dagoz Berastegi'n: Antzone, Ermentero berri, Jaundegi edo Jaulci, Juanso, Lizarraga, Sagastiberri eta Dendalegi (Gaztelunea). Eta 29 baserri etxe utsik, eteten, galtzen. Euren artean «Juanso» eskudoduna.

Onek, eta erri onetako eskudoko esakerea artuta, libertade jatorrez, esatera ausartuten nabe: Zetarako eskudoak, ikurdiak, bizirik ez ba'da?

Gaba egin baiño len ba nua. Sorgiñen aotan ipinten dabe emen esakera au: Gaba gabekoantzat eta eguna egunakoantzat. Elaunde'ko Katalin gutzat. Nik geitu neike: Berastegi berastegitarrentzat. Eta bake galdua, billatu nai dabenentzat, or, Berastegi'n. Eldua.

A. ZUBIKARAI

AGVR

Apartado n.º 2
BILBAO

FRANQUEO
CONCERTADO
08/55

EUNATE


ERROMANIKU ELEIZA NAPAR BAT DALA-TA

Erromaniku eraiketa ori erabilli eban gizarte aren ederti-lankera berezia.

Eleiztarrak izan eben gizarte gorakadeak eta aberastasunak eraginda, erromaniku ertulariak, geienak lekaidetxeren bateri lotuta, etxe aundi baita ikaragarriak be egin al izan ebezan, geienetan, erromesak eta salerosleak ebillazan bideetatik urbil.

Erromaniku agerpen asko doguz Euskal-Erri'an, tamalez baiña, gitxi ezagunak. Orretariko batetzaz ikasleren bati geldetu ezker, ea zein ezagutzen daben, ezinbestean, Konpostela'ko Santiago'rena edo Silos'ko S. Domingo'rena, naiz prantzitar tankerako beste erromanikuren bat izandatu baietz. Nork baiña Leire'ko Monastegia edo Sango's'ko Miren deunarena ezagutu? Naizta oneik, izate ta urbiltasunagaitik, ezagunago izan bear.

Naparro'ak, bere lur-egoeraz —iparraldetik Gaztelerrri ta Konpostela'ra bideak, eta egoaldean, lur-galduen ber-azkatzea asterakoan, mauruengandik igesi etozan kistarrak, eleizgizonak bereziki, sartzen zirala— erromaniku etxegintza ugaria dau. Ta, guzti orrean artetik, bere apaltasun eta jatortasunagaitik, EUNATE eleizea dakartzet aurrera.



Izarbe ibarreko Auriz'en dago. Bere izena, Eun-ate, inguruko makodia osotzen daben ate ugarietatik letorkio. Zortzi-zokodun tankerakoa, tenpeldarrak jaso ebezan eleiza guztien itxurakoa; orreiña izan be izango zan-eta. XII gizaldian eraikia, sapai-kirio ta uztai-zorrotzak erabilten asi ziran garaikoa. Bietarikoak ditu barru aldean; atadian baiña, erromaniku uts-utsa daroa.

Alkartzen ez diran zortzi-zokodi bi dira, bata bestearren barruan. Atadi-koaren alboak neurri askotako; gain-apainketa edestisu edo landaratsua daroezan arbil aldun eta obo-erdi makoz jasotua dago bere iru albotan. Beste bostak, arbil leun eta obo-erdidun makoak dituz, gerora egiñak izan diarala deadarka.

Atadi onen izan bearra, asmo bitan legoke. Edo eleizari batuta egoan, sakape bat osotzen —ez da baiña aztarranik— edo kanporago legoken beste ormarren bati lotua, gaur eskera bat agertzen dan lekuan legokena. Ez da baiña, au be, argitu al izan.

Barruko zortziko bardintsuak eleizearen irudia osotzen dau. Alde batera, obo-erdidun albo-belarria. Sapaiaren euskarri diran arbil lodizko ostikoak, 8 zokoetan dagoz, beste txikiago batzuk alboetan dabezala.

Iru leio ta ate bi. Beste iru leio eleiz-belarrian. Ateon eta leioen kapelak eta makurrak, erromaniku agergeraz apainduta dagoz.

Barrualdea, sapai arek damotson itzal-pean agertzen yaku, ori dau bere eragingarri. Eleiz-belarria, alkarren gaineko makodi bigaz, berebizikoz apaindua dago, barreneko makoak, erromaniku apaltasuna alboratzen, geroago gotikarra izango zan irudia daroe.

Apainketa aberats orren gainetik, Eunate'ko etxaundi onek, sendotasun eta indarrez ikutzen daki ikerlea. Apainketetako irudiak, barriz eta barriz, or-emen argetzean, argin gitxi izan zirala emen agertzen dauskue.

Osoatasun egoki ta egitura jator orreitatik, eleiza txiki au, erromaniku lanketa ikusgarrietakoa dogu.

ATXARTE

ASKATZE-GIROA KOMUNIST-AURKAKO

PORTUGAL'DIK

Ludian askatze-giro gozo bat sortu jaku. Eta Portugal'go agintari barriak zor dautsegu. Bertan sortu bear zan lenen giro ori, eta gaiztasun aundi barik ziran lurraldeak be askatasun bardiña zor jaken. Eta or egoan untzea! Pozez ikusten dogu askatze ori zabalduz doala eta Portugal'en menpeko koloniak euren buruen jabetasuna lortuz doazala.

Giro ederra benetan! Zenbat laterrik eta bakoitzak zenbat aldetan sortu bear leukeen! Baiña ez da erreza izango.

SANTO TOME TA PRINCIPE

Ugarte bi oneik, eta inguruan diran beste txiki batzuk lortu dabe askatze au. Ikusi dagigun zelakoak diran ugartetxu oneik.

Santo Tome: Ginea ondoan, 836 Km. lantu, 8.000 biztanle, Kakaoa ta akeita bertako lurraren emonik ugariak.

Principe: au be Ginea ondoan, 59.000 biztanle, eta bere lurraren frutuak: akeita, kakaoa, kanelea ta gozokia, baita zur baliotsuak be. Lur aberatsa da.

Ikusten danez, ugarte txikiak eta biztanlez larregi bete bakoak dira (Km'ko 62).

NOIZ ASKE?

Ugartegi onen askatzea izenpetuta dago. Portugal'en izenean Almeida Santos'ek eta Ugartegiaren izenean Mikel Touvoada'k izenpetu dabe eta munduaren aurrean askatasun ori agertzeko eguna datorren urteko uztaillaren barruan izango da.

Izango ditue euren goraberak eta eragozpenak, baiña jabetasuna lortzeak ez dautse pozaldi makala emongo, eta pozaldi ori iraunkorra izan daitela opa dautsegu.

TXIKIEGIAK?

Gure mundua laterri aundiz osotuta ikusten oitu gara. Eta laterri aundi oneik, euren kondairan alkarragaz bakean bizi izan diranik ezin esan izango dogu. Aundia izatea ez da naikoa ba, baketsua ta ona izateko.

Eta ori ikusi dogulako, laterri aundiak aurrean izan doguzalako, enderri txikiak euren buruen jabe izateko eskubiderik ez daukela bururatu jaku. Esaterako Alpe-mendien artean bizi diran Retia' tarrak.

Gure Europa ez ete litzake zuzenagoa eta baketsuagoa izango, enderri bakoitza bere buruaren jabe ba'litz?

Bear ba'da, txikiak dirala esatean, aundiak asmau daben zabalkunde bat agertzen da.

TA BATASUNA?

Gaurko giroa ta bearra batasuna ei da, eta txikiak askatzea batasunaren aurka ei da. Sarri entzun dogu ori.

Baiña batasuna zelan egin bear da? Ez ete da gizonen, sendien eta erri edo enderri txikien nortasuna kontuan dala egin bear?

Bai orixe.

Bearrezkoa da batasuna eta ludi osoko laterriak batzeko alegin guztiak egin bear doguz. ONU edo olako erakundeen bidez.

Baiña guztien izakerea, izkuntzak, jakintzea, oiturak, eta abar... ez doguz aitzu bear. Izakera onei indarra emonez, osotu ta edertuko dogu gure ludi ta gizarte au.

Indartuko al da ba, Europa guztian askatze-giroa giza ta gozo au.

Eta Europa'n diran antzeko arazoak izango dirala uste dogu beste lurralde askotan be. Eta ez gitxiago. Europa baiño txarrantago egoan, orain urte batzuk Aprika, eta aitzu barik daukago oraindiño Biafra errukarria. Eta zenbat olako ete dira? Ameriketako... Asia'n...

Zabalduko al da ludira, Portugal aldean emonkorra izan dan askatze-giroa.

Komunisten alderdi eraturen baten sartuta ez dagoen ezkerzaleen arazoa «puzzle» nastaketa baten aiñakoa da.

Egin dagigun, komunisten alderdikoak, edo alderdiak berak, naiz izen ori bere buruari ezarten dautsan laterri batek egiña, edo loa dalako (au berba biguntxo da), edo onurarik ez dakarrelako, edo gogorkerizkoa dalako, edo gizarte-nagusikeria dalako aztertzen asten ba'dira, laster urtengo dabe orrekin aurka izparlari komunistak, eta komunismoaren aurka diarduela esango dabe. Ta ori, gauza itzala ei da!



Ezetzik ezetz!

Norberaren burua zaintzeko bidea da ori, baiña ondorenak be izaten ditu: Askok, ez dirala gauza edo errudun dirala, buruan sartuta dauke. Taldeei ta erakundeei be, mundu guztian nagusi izango diralakoan artzen diran komunistak alderdien aurrean, orrenbeste jazoten jake.

Guri, ezarte dauskuezan antzak ardura izaten jakuz; baiña ezarte orrekin mundik datorzan ba dakigu, eta goitik zuzendutako komunismotik datorzanak gitxi arduratzen gaitue. Onein laterrikeria antxiñatik ezagutzen dogu.

Entzun gura ba'dauskue, orregatiño, onutxo bat emongo dautsegu.

Gu, geurez ta aurretiz komunismoaren aurkari ez garanok, aurka izatea gura ez ba'dabe, auxe da bidea: Gure egoerea urduritasunetik larritasunera daren egiteak, ez dagiezala egin. Euskaldun lez lendik be naikoa larritasun eta urduritasun daukagu. Antzeko egoeran aurkitzen dira sartaldeko ezkerzale lotu-bariko geienak. Itzi dagiguzan oraingoz baiña, Ungari, Txekoslovakia, URSS'eko aberri zapalduak eta abar.

Adibidez, Slansky'ren epaiketarik izan ez ba'zan —zalantza barik esan legike— Arthur London'ek «Autor-tza» deritxon idatzia ez eban iñoiz idatziko. Liburu onek —zinean be agertua uste dot— dakigunez, amalau txekar agintari, euren artean amaika judutar, epaitu ebezala agertzen dau. Judutar ez ziran iruri bakarrik, txekar edo

eslabar erritasunaren izena ezarri legikeen. «Judutar, aberrikeri, sionzaletza, agintzakeri»zko azpilanean alkar-tuak zirala-ta, salatuak izan eta euretatik amaika eriotza-rako epaituak izan ziran, eta gero il be egin ebezan. Beste irurak, bizitza guztirako kateatu. Iru oneitatik bat, Arthur London zan, España'n laterri-arteko gudarien artean ibillia, Prantzi'ko ixilpeko gudari ta Txekoslovakia'n kanpoko ministroaren ordezkari izana. Arrezkero, amaika eriotza-ratuak onartuak izan dira —berandu be oba, iñoiz ez baiño— eta iru kateatuak askatasuna lortu dabe.

Arthur London'ek, bere idatzian, komunismoaren aurka jokatu dabela diño besteok, naizta berak argi-argi esan komunista dala.

Antzera, beste erakusgarri bat gogoratuaz, 1970'ko Lotazillean, sobietarren arteko amar judutar epaitzeko bidea artu ebenean jazo zana aurrera dakargu: Egazkin bat bere bidetik atera nai izan ebela, izan zan salakun-tzea, eta egazkin-zelai inguruan baitu ebezan. Orduan Paris'en, judutar ez-ezagunaren oroitarriaren aurrean ager-kunde bat egin zan. Emen be, L'Humanité'k, agerkunde au komunismoaren aurkakeri barregarria izatera jausi zala iñoan. Bear ba'da, sobietarren aldeko agerkunde izatera jausiko zala uste izango eben, eta ori bai izango zala bene-tako «jauste» bat.




Azkatasunetik aunditasuna

Orrek beste onen antza dauka: Vietnam'go gudearen aurka dan agerkunde bat, amerikatarren aurkari izatera jausteakin asarratzearen antza.

Ara ba, lerro idatzi oneikaz, komunistak gure onua onartu ta euren jarrerea aldatzea lortu (ta ez larregian alan be) al ba'dabez, geurez gizarteazale utsak, erri-agin-tzeazale, ta aundikerizko agintzearen aurkariak bakarrik garanok, ez gaitzezala geiago barik komunisten aurkari amorratu biurtu. Onetarako egin dogun bidea ez da laburra izan, luzea baiño; eta ain luzea, eurak emon dauskuezan zioak eskatzen daben bestekoa ba-dala uste dogu-ta.

ITZAGA



GATZ ETA PIPER

EUSKALDUNA TA GIZONA

Egun batzuk dirala, aldizkari geienen azalean aurpegi bat ikusi al izan dogu: Joxe Anjel Iribar'ena.

Ez goaz lendik naskagarri ta erriaren logaillu dan «futbol»atzaz idaztera, alperriko naiko orri betetzen dira zonioneko kirol ori dala ta ez dala. Baiña gaur, orain lau bat urte AGUR onetan esan genduna barriro esan nai dogu. Orrenbeste zalaparta barik ezagutu dogula Joxe Anjel, eta gutzat, bere izakerearen gauzarik ederrenak oneik dirala: apaltasuna, gizontasuna ta euskalduntasuna.

Bere umetxoekin, Joxe Anjel, Markel eta Jon'ekin gurera datorrenean, euskera uts-utsean egiten dogu danok, eta ori pellokirtan arroentzat erakusgarria dala deritzagu... ta ezaugarria.

ERBESTEKOA BAIÑA EUSKALDUNA

Lendik, idazki bidez, ezagutzen gendun Kiristi finlandar andereiño gaztea. Baiña, orain egun batzuk, alkar agurtzeka ere izan dogu. Bere umetxoak ondoezik egozala-ta, etxera etorri jakun. Arrituta geratu nintzan bere euskera ederra entzutean, eta arrituago erabat, berak dakian izkuntza pilloa azaldu eustanean.

Ori naikoa ez ba'litz... ba-dakizue zertara etorri dan barriro Euskal-Erri'ra? Ba, bere umetxoak euskerea ikasi dagien, Finlandia'tik Bilbo'ko ikastola batera ekartera.

Ziur gagoz, Elkano'ko ikastolan dabilizan umetxook, bertako askok baiño ariñago ikasiko dabela. Oroigarri eder bat merezi dau andra jator onek, gutzat ereduigarri dan erbesteko emakume onek. Baiña, «erbestekoa» barik zergaitik ez geure-geurea?

GUZURREAN MAIXU

Dalako «Feria del Libro» ori eratu da dalako «Galeria del Libro»n. Lengo baten, andik zear igaro bearra izan gendun eta txartel bat zan agirian, baita irakurri be: «Libros vascos más vendidos» iñoan buruan. Geienetarik saldu dan bat, ondo dakigunez, nere «Tus hijos y el Euskera» izan da, baiña dalako «galeriakoentzat» ez da atsegin aurki ori autortzea, ta ez egoan arein artean.

Arritzekoa da «aperturismo»a oiuka eskatzen dabilizan liburu-saltzaille batzuk, guzurrezko oarrak erakusgarritzat jartzea... guri baiña, zer?

Nere idaztia erosi nai daben irakurle ta arpidedunak, Bilbo'n, beste libututegi asko dauke, eta bide batez, nere baiño obarik erosi al izango dabe. Dana dala, arrigarriagoa litzake Enciclopedia Vasca ta Distribuidora San Miguel'en lépotik diru laguntza artu ta gero eurok nai dabena egitea. «Aurrerakoentzat», len, orain eta beti, «burgesen» txanponak gozoak dirala ez ba'genkigu...

UNESKO

Beste mailla baten, an be olako zerbait gertatu da. Agintaritzat atzerakoiena daben laterri barriak, lau ganbelu erriarentzat eta «petrodolarak» jauntxoentzat gordetzen dakien laterriak, asko ugaritu jakuz azken urte oneitan.

Euren errietan demokraziarik ezarri ez arren, auteskundeen eragiñez jokatu nai dabe iñorenean, ONU'n eta UNESCO'n be bai.

Lotsagarria izan da, gogorkeriz, Israel lan-sail batzuetatik kanpora botatzea, ta lotsagarriagoa, iparramerrikarrak euren laguntza diruak ukatuko dabezala esatean, gora-goraka jartzea: iñoren sakeletik, iñoren izerditik baliatu norperaren burukeriak ordaintzeko. Or be, aurki, inperialisten dirua ez da baztarrean lagatzeko.

Aita Santuak be, Israel ortik jaurtitzeko eskubiderik ez dagola esan dau. Baiña Paul VI'aren «itzak» baiño, amerikarren eta beste batzuen «utsak» min aundiagoa emongo dautsee.

Ba-dakigu ango ta emengo sasi-aurrerakoiaren esana ta izana: «Gurea guretzat eta zuena erdi bana...» tontorik dagon bitartean beintzat!

ARENAZA'TAR JOSU

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, bereko, politiko naiz ondasungarri asmoen gaiñetik daben iritxi-oneko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egileak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:
JOSE M.^a MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:
LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Carretera a Galdácano, 32-Bilbao-4

ARGITALDARIA:
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guttirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

GABONETAKO IKASTAROA

«IRAUN GURA DAUAN IZKUNTZEAK, GAI GUZTIAK ERABILTEKO ALMENA BEAR DAU»

Adiskideok.

Udazkenean, Elustondo adiskideagaz egin genduzan gogo-jardunetan, gabon inguruan ikastaro bat egiteko erabagia artu genduan.

1.ª Zertarako?—Oinarrirak irakaskintzako maillan, gai batzuk euskeraz argituteko.

2.ª Nortuk?—An izan giñan abade ta lekaideak. Nai leukeen beste abade ta lekaideak, tokia dagon bestean. Lekameak be, artuko doguz, tokia dagon bestean.

3.ª Non?—Euba'ko Pasiotarren Ikaste-etxean.

4.ª Noz?—Lotazil onen 23, 26, 27 eta 30'ean. Urtarrillaren 2'an eta 3'an.

5.ª Zertzeladak.—10'etan, Euskerea, Aita Fermin'ek. 11'tan, Elertia, Aita Onaindia'k. 12 ½'etan, Edestia, Manuel Estomba'k. 1 ½'etan, Bazkaria ta atsedena. 4'etan, Zebakiztia ta Neurritzia, Luis Egi'a'k. 5'etan, Kosmos 3'gna, Jesus Gaztañaga'k. 6'etan, Lutelestia, Inigo Agirre'k.

GAIEN ZATIKETEA

1.—Euskerea: Eliztia, Esanera idazteak. Idazlanketak. Azterpenak.

2.—Elertia: Idazle zarrak (Etxepare, Oihenart, Axular). Laramendi'ren aldia. Barrizkundera (Arana ta Azkue'ren

aldia). Guda aurea. Guda ostea. Gaurko giroa.

3.—Edestia: Leizak, eiztariak, artzainak, lugiñak. Euskal-leiñuak, erromatarrak, Eleiza. Basatiak (germandarrak), arabiarak, euskaldunak erdi-aroan. Lege zarrak eta karlatarren gudea. Ondorenak. Barrizkundera ta azkenengo gudea. Gaurko giroa.

4.—Zebakiztia ta: Zebakien erabilketak. Zebaki arauak. Lerroa ta zokoa. Irukiak, laukiak, zokodiak, makobillak... Irudi txapalak. Iztegia.

5.—Kosmos 3'gna: Izadia ta ura. Abereak, arnasa bikoak, narratziak. Egu-ratsa. zugaitzak, landarak... Gizakia, lana, dirua... Alkar-bideak. Gizakia ibiltari.

OARRAK

1.—Eziñak orretara beartu ezker, gaiak eta irakasleak aldatzeko eskubidea eratzailleak dauke.

2.—Euba'n, bazkaria, 125 lauerleko izango da, ta orrez gaiñera, gaba bertan igaro gura dabenak, 50 lauerleko geiago ordainduko dabez. Ortik gorako eralgi bearrak bertan neurtuko dira.

3.—Bear izango diran idaztiak: Euskeraz egin, Aita Fermin'ena. Neurritzia, Luis Egi'a'rena. Kosmos 3'gna, Anaya'nekoa. —Bertan izango dira salgai.

4.—Izena emon gura dabenak, bialdu begiz izen-abizen eta zuzenbidea, eskutitz azal baten barruan: Martin Olazar, Alakoa, Zeanuri, Bizkaia, zuzenbidera.

ERATZAILLEAK

"IBERIA EXPRESS"



HIZTEGIA

7
10

Esker aldetik eskuin... logura handiaz dagoena (artikulu)... pertsonala (alderantziz).—3: Eri... Oihanetak... animalia adardun...—5: Urts... duena. Konta... Nora joate...? (alderantziz).—7: Kr... tzia... kontsonantia... (alderantziz).
...tik behera... (alderantziz). Kont... dena. (alderantziz). Opa... (alderantziz). Nehia (al... digute. Ezkutatu... leku...—8: Bokala. Eroan (alder...—9: Etxeak zuritzeko balietzen da. Zenbakia (alderantziz). Bokala.—11: (alderantziz).



Españiar TBO'rik motelena

EUSKALERRI'KO ARAZOAK

DIRUKETEA


Bizkai'ko diruketearen neurriak

Lan onetan, Bizkai'ko langintza, laterri barruan, aztertuko dogu, eta batez bere, Europa'ko industriagaz zerbaiten berdinduta.

Emen erabiliko doguzan zenbakiak, 1973'gn urtekoak dira, baiña ia urte biko atzerakuntza izan arren, gaur be baliodunak.

Ikasketa onetan, 50 langilletik gorako ekintzak baiño ez doguz kontuan izango, ta berdinketarako neurritzat, ekintza bera ta ez langilledi osoa edo olako beste zerbait.

Ikuspegi onetatik begiraturik, 1972'gn urtean, iru sailletakoak batera, 50 langilletik gorako ekintzak, 807 izan ziran. Oneitatik 100 langille arterakoak, 432 ekintza, au da % 50 ekintza inguru. 100 eta 200 langille tartekoetan, 254 ekintza. Orrela, 50'tik 250 arterakoen tartean % 85. 250'tik 500'era, 121 ekintza, eta 500'tik gorakoak 54.



Orain, Bizkaia'n garrantzirik aundiena dakona dalako, idustri saila astirogotxuago aztertuko dogu. Sail onek, bigarren edo «secundario» izena be artzen dau. «Tximist-indarketea, lurrun naiz gasa edo ura, ezta jangarriketea ta edarigintza, ez doguz kontuan izango.

Orrela, 50 langilletik gorako ekintzetatik % 67'5 sartzen dira gure azterketan, eta onein sail-adarrak oneik izango dira: Metalak, etxegintza ta kimia. Metal sail-adarra, zazpi egikizunetan zatitu legike: Meatz-lanketea; Albolaguntza, au da, gargara edo trokelgintza, torlojogintza ta abar; Tximist-tresnagintza; Bestelako lanabesgintza; zeatz-neurkiak, lugintza gaiak, zapagarriak eta abar. Burdiñezkoak ez diranak; topinkiña edo kobrea, aluminiuna, zingea eta alkarnastuak. Burdingintza; galtzairu, arrabio, ijeza edo burdin-orria...; Danetariko tresnagintza; sukalde, berebil, eskuarte ta abarrerako metal tresnagintza.

Bereizketa au antxiñakoa izan arren, salerosketa-batzak egiten daben banaketeagaz bat dator. II sail-adar au, ekintzetan zenbatzean, besteak baiño ugariagoa agertzen jaku, baiña ez dabillean langilleenetan.

Bizkai'ko lantegitza, ekintza txikietan norarte bananduta dagon emen ikusten dogu: 50 langille baiño geiagoko ekintzak, metal, etxegintza ta kimia sail-adarrean, 564 dira. Oneitatik 387 metal sail-adarrekoak dira; 121 etxegintzakoak eta 50 kimiakoak.

Argi ikusten da ba, Bizkai'ko langintza, metal sail-adarrak daben garrantzia. 50 langille baiño geiagoko aipatu doguzan ekintzetan, erdia inguru sail-adar onek osotzen dau. Ta, beronek daukan garrantzia ikusteko, lanera bakoitzeko 100 ekintzetatik, iru sail-adar oneitan zenbat diran aztertuko dogu:

Berrogetamarretik eun langille bitarteko ekintzak:

Metalgintzan, % 49; Kimian, % 42'8; Etxegintzan, % 57.

100 eta 250 langille bitarteko ekintzetan:

Metalgintzan, % 34'4; Kimian, % 35'7; Etxegintzan, % 39'9.

250'etik 500 arteko ekintzetan:

Metalgintzan, % 10'4; Kimian, % 7'2; Etxegintzan, % 3'5.

500 langilletik gorakoetan:

Metalgintzan, % 6'2; Kimian, % 14'3, Etxegintzan, ekintza bakarra.

Etxegintza ba, ekintza bakarra agertzen da. Neurri aundienetarikoak kimia arloan dirala argi ikusten da, ta onein ondoren metal arlokoak. Gai onetzaz zerbait geiago sakonduko dogu. Batez bere ekintza zenbaki ta neurriegaitik, len esandako metal lerroetatik, zeintzuk garrantzitsuen diran azalduaz.

Eunetik 22 dira burdingintzako ekintzak. Beste lerroekadakoak, eroankarketarako gaiak, tximist-tresnagintza, ta burdiña ezik metalgintzak.

Orain 17 urte, Prantzi'n, Metal-adarreko eun ekintzetatik, 50 langilletik 250'era artekoak 42 ziran, eta bosteunetik gorakoak, 40 inguru, au da, % 40.

Neurketa zabalago baterako, 1972'ngno Europa'ko jardunean, Bizkai'ko salketa zenbakiak agertuko doguz:

Salketea: Itxas-ontzigintzan, an geien saldu daben ekintzearenak, 37.225 milloi lauerlekoren saltzeak izan ziran. Emen, A. E. bere ekintza biekaz eta egoaldetik dituan besteakaz batera, 16.122 milloi lauerlekotara baiño ez zan eldu. Gaiñera, Bizkai'ko ekintza bi onein indarra makaltzen doa.

Tximist-indar, lurrun eta ura. Europa'ko lenengo ekintzak 256.500 milloi lauerleko. Bizkaia'n, Iberduero'k, 10.583 milloi. Emen esan bear dogu baita, Iberduero au, laterri barruan bertan, eta tximist-indar arloan, bigarren aurkitzen dala, ta Europa'n 17'gn.

Tximist-indar gai tresnak. Europa'ko lenengoak, 377.011 milloi; Bizkaia'n, G.E.E.'k, 4.042 milloi.

Burdiña ez diran metalgintzetan, Europa'ko lenengoak, 169.763 milloi; Bizkaia'n Aluminios de Galicia'k, 3.008 milloi. Ekintza bi oneik, A. de G. eta G. E. E., Europa'ko eun lenengoen artean be ez dira agertzen.

Meagintza.—Emen ez dau garrantzi aundirik.

Kimia.—Europa'ko lenengoak, 254.000 milloi; Bizkaia'n, U.E.R.T.'k 20.650 milloi, ta beste ekintzaren bat be izan bear dau egoaldean, eta geroago ta indar gitxiagotz agertzen jaku.

AMAITZEKO

Neurriok eta salketa jakingarriok ganorazkoak ez izan arren, zenbaki oneikaz Bilbo'ko ekintzak daben egoeratzaz, itxura bat biribildu daikugu: oindiñokarren, Bizkaia'k laterri barruan, zer-esan aundia jaso arren, tarteko izate ori geroago ta urriago dala ikusten dogu.

Bere egituregaitik ba, Bizkai'ko langintzaren indarra metalean agertzen jaku, eta kimia arloa urritzen doakun bitartean, goragoko maillan, au da, egazkingintza, eta abarretan, ezertxo bere ez daukagu. Elektronika arloan oso, gitxi.

Beste alde batetik, garrantzirik aundieneko sailak, azken oneik dira. Baiña oneitariko ekintza guztiak laterri erdi inguruan jartzen dabez, guri antxiñako langitza bakarrik itxita.

Bide onetatik, teknika arloan, etorkizun on bat lortzea, oso zaila izango da.

IKASLE ARDURATU BATZUK

LARROSEAK ARANTZAK DITU

Bai, udara-azken onetan, euri arte onetan, udaberriko margo apañi eta usain goxoko larrosarekin aazturik gauda, baita berak bere trukuts edo zortenean arantzak ditula ere. Gaur egun, tamalez, bear-bearrezkoa lora oien arantzakin oroitzea.

Adieraziko degu. Atzo azillak 24, Aita Xanti Onaindia'ri Euskal idazleak eta beste adizkide batzuk, omenaldi bat eskiñi zioten, Euskal-arloan egin duan lanagaitik. Amaika terdietan Meza Santu ederra, geroztik Olerki-sariak, urtero lez garai ontan karmeldarrak ipintzen duena. Bertan sarituak, euren olerki ede-

rrak irakurri zituen, Gallastegi'tar Martin eta Solozabal'dar Paulin'ek, eta azken bazkaria; bitartean dantzaldi politak, zornotzar «Udabarri» taldeak.

Bazkaria ordu bi terdietan. Ordu au luzatua izan zan, ainbat lagun giñan-eta, denontzako lekua aukeratzen luzatu egin zan. Bazkari ona ta ugaria, ta alkarrizketarako gogoia.

Orra or, jaiki da Bordari jauna ta... larrosaren arantzak eztenkadaka: «Oiga señor, hable usted en castellano, que los que estamos en esta mesa no entendemos eso que usted habla», an ertz baten zan mai batetik.

Arranoa! Nundik nora gure lorategi onetan azaldu zaigu ez larrosaren arantzak, sasi moltzo ura baizik? Eurok gu baiño leenago an zirala ta flamenko abesten, ta zirri-zarra matraka dariola ekin zioten, ta... isteriko aiek nok artegatu?

Gure errian ta gure jaialdi batean, berreun adizkide bildutako leku baten, auzoan amar arrotz, euren kontura bazkaria dutela-ta... guk, gure izkuntza utzi bear? Zer ote da ba, ainbat eta ainbat bidar entzuten degun itza, «integración», zer itz da ori? Arrotzak gure izkuntza ta oiturak zapaltzea, ala gureganatu ta adoretu ikastea?

Onela ba'da, besarkada artuko ditugu, baiña aretara ba'da, antxiñako abesti batek diñuanez... naita era au kristañauena izan ez. Norena baiña errua?

Ez goaz ezer geiago esatera, bakoitzak bere erara ulertuko du, bestela, buru au beroturik, lar esan genezake. Buraeran, Agur Jaunak abesturik, urrango arte gelditu giñan. Eta bai zueri ere.

ZIÑUA

DEPURACION DE AGUAS S. A.



URA EGOKITZEN ETA UR LANETAN BEREZITUAK, EDANGARRIAK - LANTEGIRAKOAK - ZIKINDUAK NAIZ IGERITEGIKOAK ZUZENTZEN

+ 32-37-00 - + 31-00-10 - 32-37-01 Urt.

Gordoniz, 44, 12.^a
BILBAO-2

EDESTI-AURREA (Jarraipena)

Euskal-erri'ko egurastia: Leen gizakia-
ren bizikerea ondo aztertzeke gure lurreko
egurastia aztertu bear dogu. Ez gara antxiñako
garaietatik asiko; gaurkoa ezagutu ta gero
antxiñako garaietakoa aztertuko dogu.

a) **Gaurko egurastia:** Oso ezbaridña
da. Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Benaparroa,
Goi-Naparroa, eta Zuberoa Kantauri itxasoar-
ren ozeaniku egurastia dabe.

Laburrean gure lurraldeko egurastia otz-
bero aldaketa gitxiagokoa dala garbi ager-
tzen da. Udazkena epela dogu. Udabarria be
bigunagoa, eta negua bera be, otza baiño
bustia dala esan geinke.

Otz-beroa urte oneitan Euskal-Erri'ko
urietan:

Otz-beroaen neurriak zelan banatzen
diran ikusirik, euriarena aztertuko dogu.

Euskal-Erria bere ipar aldean oso euri-
tsua da.

Urte oneitako euri-neurriak:

Endai	1.780,00 litro m'ko
Donosti	1.506,00 » »
Bilbo	1.249,00 » »
Miarriz	1.200,00 » »
Iruña	1.077,00 » »
Gazteiz	844,00 » »

	Neguan	Udabarran	Udan	Udazken	Urtekoa
Bilbo	9'1 °	12'4 °	19'6 °	15'4 °	14'4 °
Donosti	8'6 °	12'2 °	18'9 °	15'1 °	13'7 °
Biarriz	8'4 °	12'6 °	19'8 °	14'5 °	13'9 °
Iruña	7'0 °	13'6 °	21'9 °	14'8 °	13'1 °
Gazteiz	5'9 °	10'4 °	18'4 °	12'4 °	11'6 °

Eurite oneik batez be mendabal euriak
ekartzen dauz.

Ezaugarri guzti oneik gaurko egurastiaren
ezaugarriak doguz. Baiña zelako egurastia
izango ete zan leen-gizakia bizi zan garaian?

b) **Kondaira-aurreko egurastia:** Kua-
ternario aldiko egurastiaren ezaugarriak agi-
rienerariokoa izozteak dira. Izozte baten eta
besteaeren artean «interglaciari» deitzen jakon
egurasti biguneko aldiak gertatzen ziran.
Beste batzuetan izozte beraren barruan
«interestaldial» egurasti epeleko aldi laburrak
be gertatzen ziran. Izozte oneik Europa'ko
ipar-alde guztia Ingalaterra'ko lurralde geienak
edurrez estalita izxiten ebezan.

Lau izozte ezagutu izan dira gaur arte:
Guz, Mindel, Riss eta Wurm izenez eza-
gutzen diranak.

Gaur egun beste bi geiago be bereizten
dira: Biber eta Danubio.

Interesgarriena guretzat Wurm izoztea da.
Aldi onetan sortu zan Paleolitico aroko
eiztari gizartea. 90.000-70.000 urteen bitar-
tean asi zan eta K. a. 9.000 urteetan amaitu.

Itxas aldean udan 8 gradu, eta neguan
5 gradu egiten zituan.

Euria: 300'tik 500 litroa m²'ko.

Otz-beroa

0°tik —10°ra, Urtarrillean

17°tik —25°ra, Uztailletan

5°tik gorakoa, urtearen 160 egunetan

10°tik gorakoa urtearen 125-150 egunetan.

Gaur baiño egualdi otzagoak eta gogorra-
goak izaten zirala garbi ikusten da. Euria
barriz orain baiño gitxiago egiten eban.

Zenbait geologok Euskal-Erri'ko Wurm
aldiko egurastia Alaska'ko gaurko eguras-
tiagaz bardindu nai izan dabe.

5.000'garrenetik 3.000'garrenera bitartean,
egurasti bero bat zabaldu zan Europa guztian.

Pagodiak, ariztiak, urriztiak eta abar
ugaritu egin ziran Europa'n zear. Euskal-
Erri'ko lurraldeak be garai onetan asko
aberastutzen dira. Mendia eta basoa larre
gizenezko jartzen dira. Artzaintzea sortzeko
giro egokia dago. K. a. 3000 garrena inguruan
gertatzen dira guztiok.

Euskal-erri'ko abereak.—Leen-gizakia-
ren bizikeraz argi bat izan nai ba'dogu,
bearrezkoa dogu gizaki orren ingurua eza-
gutzea.

Gizonak abereak bat egiten dau bere
bizitzan.

Alde batetik gizakiaren ogibide dira abe-
reak. Beste aldetik gizakiaren azpiratzaile
izatea be gertau leike Paleolitico aroko zenbait
basa-pizti bezala.

a) **Paleolitico aroko abereak:** Preis-
torian zear gertatutako abereen joan-etorriak,
egurastari zor jakoz. Egurasti gogor batek
lurralde bateko bedarrak eta larreak galdu
leikez.

Ugazdun abereak ezin dabe jasan otz-
bero aldaketa aundirik.

Wurm izozte aldiko abere-ugaritasuna
arrigarria da gure lurraldeetan.

Baiña arrigarriagoa da beste gertakizun
au: Ipar eta ego Euskal-erria'n abere sailketa
bardiña ez izatea. Ikusi dagigun zein neurritan
banatzen diran Euskal-erri'an aurkitutako
preistoriku abereak.


Moustier garaia: Goi-Moustier garaiko
Wurm izoztearen asierako abereidiaren barri
Ola'n, Isturitz'en eta Lezetxiki'n jasotako
ondakiñari esker dakigu.

Era onetan, koba oneitan aurkitu doguz
mamuta, edur-oreña, oreña eta zaldia.
Zaldia ugari agertzen da Isturitz'en.

Aitzbitarte'n eta Lezetxiki'n doguz Auri-
giñak garaiko lur-maillak. Aitz-bitarte'n oreña
da ugariena. (Jarraitzeko).

ARRATI'KO IKASLE TALDE BATEK

Arri batekin asi zan



zure aurrezkien banketxea



BANCO DE BILBAO

gizaldiz goiti aurrezkitzan

MINTZOA

ITZEZ ITZ, mintzoa da
alkartzen gaituana gogoz
anaitasunezko erabidez,
lurraren maitetasunean;
mendiak, ibarrak, itxasoak;
amaren, aitaren, arbasoen
anots bizi, gure oin-bidez
aintziñatar abots sendoaren
oñarri biziak pilpiltzen
diralarik biotz barruan.

EUSKAL gogoaren menduz
edertutako itz bioztuak:
«Ama», «Aita», «Biotza», «Maitea»,
gure bizia etorbideetzen
eta, betikotzen diguten
izkuntza zar maitagarriaren
odolbide betiraungarria;
alkar-bizitzaz ondutako
itzal argidoi, gaurkotua.

MUNIATEGI'TAR SABIN

Aztergarriak

Laterri-Arteko Auziak

ASTUNEN TXAPELKETEA

Azkenaldiko izparringiak Ford eta Bersnev'en ikusartez idatzi dabe. Alkar-izketa orretan erabili diran gaiak ez dira asko zabaldu, ez! Danetan ikusi dogu, sakelak beterik, irripar zorionsua eta... emen ez da ezer jazoten, bakean gagoz, lasai...!

—Ai! Israeldar eta Palestinatar arazoa or konponduko ei-zan... ori bakarrik?

NORAEZEAN

Gogor dabilz Etiopia'n, iraultza sakon bat egiteko asmoan. Gudaroztekoak jabetu ziran, orain tarteko burruka. Orretan lagundu dautsen Aman Añom gudalburua be erail dabe, berea bete dabelako-edo. Eritrea'ko erriak bere buru-jabetza nai. Diru pillo ederra bitarteko, danori berotzeko.

—Luzarogei urak lotuten diranean, ujolak ondoren.

GOGORKERIAK...

Mindu egin dira ingalandarrak Birmingham'eko eriotzekaz. Urrinekoak ez dau min aundirik emoten: etxe barruan jasan ezker bestelakoa da. Lege barri bat onartu dabe, ertzaineri eskubide gogorak emonaz. Gogortxo ango legedi errikoian oiututa dagozantzat. Bestalakoentzat epela ta makala, gogorragorik ezagutzen dogu.

—Tartean irlandarren eskubideak, jabe-suna ta izatea lurpean.

ERAILKETAK

«Lege» barruan, prazitarrak gizakiak iltzeko baimena lortu dabe. Berenez ezer ezin dagien sortu-barriak il dagikeez; sendagileak eiztariak izaten daben agiri antzeko bat lortu dabe, gizasemeak erailtzeko... ondo bizi diran giza-egiañak obeto bizi daitezat.

—«Aurrera-bidean» odol asko zapaldu bear.

GARRATZA NAUGUSI

Gozokingille indartsuen diran amerikar ogei laterri, azukar ori salneurrietan ondo izan dadin eurentzat, alkartu dira. Emendik aurrera ondo neurtuta salduko dabe, al dan garestien; akeita guri garratzeko eran.

—Len arrolioa, orain gozokiña, baita tupinkiña ta bauxitea be; dirua baztatu ta gai-trukean jardun bearko dogu.

ZARKERIAK

Naikoa barre egin izan dautsegu eskumurturrean tupinkin edo kobrezko estuna erabili dabeneri, euren «erre-umea» sendatzeko asmoan. Orra ba, zuzen ebiltzan; orain or zearko jakitunak ikasi dabenez, tupinkiña ei-da eri ori osatuko daben gaia. Berez, tupinkiña, edena da, baiña ba-ditu bere azidozko naste batzuk, gure soñean onartuak. Orain «aspirina-kuprikar» bat sortu ei-dabe, ta ondoren onenegaz.

—Antxiñakoak oiuturaz ikasia, sarri edo geienetak, egi.

BESTERIK EZ-EDO

Itxuraz, Bilbo'n eleiza bat bakarrik dogu, ta urteko igandeak be gitxi batzuk, urteurre-

nen bat diranekoak-edo. Eleiza ori ondatu, ta urteurrenok ezerezteko zer obarik, orretarako mezea danean eleiza orretan sartu, ziñesgabekeriz beteta, ta zalapartea sortu beste orrein abestiak abestuta. Atxikiak billatzea ez da zailla, naizta ulestatik tiraka atera.

—Tokiak eta egunak aldatuta, ea oiutara daben euren gurasoen dirutxoak whisky'tan urtuzten dituzan «kafeterietan» egiten dabazan. Laikoago be ba-da-ta.

NORBERAREN BEGIAN...

Nola mintzatu bear gara norberaren gai bati buruz diardugunean? Zer esanik ez, gertatzen dan gaia erdereari dogokionean: sekula ere ez dabe euskerarik erabilten. Ezta pentsau be!

Oraintzu, Aita Villasante'ri entzutera Bilbo'ko Ekonomikas Ikastetxera joan nintzan. Gaia, «Euskerearen batasuna eta Unibersitate» izan eta erderaz mintzatu zan. Atzenez azalpen oso labur bat euskeraz.

Gutziz bat gara an jaiki zan betekin, itzaldi a euskeraz izan bear ebala esanaz, eta azalpen laburtxo bat, bear ba'zan, erderaz atzenez. Onez gainera, an ikusi zanez, % larogeita bost inguru, euskerea ulertzen dabena ziran.

—Zertara jokutzen dogu? Izkuntza bat azpiratzeko biderik zuzenena da ori.

OMENALDIA

Lotazillean, «Itz neurtuetan» izena daraan antzerkia lenengoz agertuko dabe Zestua'n. Iru zatitan izango da: Lenengoan, Fernando Amezketarra, Bilintx, Iztueta, Etxaun, P. M. Otaño ta Iparragirre'k jokatu dabe. Bigarrenean, Txirrita, Pello Errota, Gaztelu ta Xenpelar agertuko dauskuez. Irugarrenean, Basarri, Zepai, Kortatxo, Xalbador eta Uztapide'ren zenbait bertso eta kopia antzetzuko dabez.

Ekiñaldi au, zestuar Uztapide bertsolariaren omenez izango da. Zestua'ko erriak, onez gainera, kale bat eskeini nai dautsa, ta oorezko semetzat izentatu.

—Baiña onenbeste egiteko be, Madril'etik ekarri bear baimenak.

BERTSOLARITZEA GORA

Azillaren 22'ganean, jaialdi bat izan dogu Deustu'n. Xabier Lete, Antxon Valverde eta Julen Lekuona'k eraruta «Bertso eta kopia zaarren azalpena» entzun al izan gendun. Bertsolari onen musikaturiko bertsoak entzun be: Xenpelar eta Txirrita'nak lenengo atalean. Gero, Pello Errota, Zepai, Xalbador eta abarrenak bigarren zatian, baita Lete beraren kopia batzuk be. Entzuleak atsegin-atsegiñez entzun ebezan. Jaialdia amaitzeko, abeslari ta entzuleen artean, Motriko'ko Iturriño'ren «Markesaren Alaba» abestu gendun. Eta onela amaitu zan.

—Bertsolarietan murgiltzen dakianak, euskal-sena beretzat.

OTZA


Ludiko izotz-aldiak luzeak izaten ei-dira. Epeladiak laburrak, 10 millaren bat urtekoak-edo. Gure epelaldia laster amaituko ei da, ta izotz aro barria sortu. Ori gertatzen danean, eunen bat urte barruan izaten ei-da.

—Gure illobezat berogarri-gertatzen asi bearko gara; ala or konpon?

DANOK

JAKIN EZ DIRANAK, SARRI

1969'gn urtean «Julliard» argitaldaria, René Neher-Bernhein jaunaren «La Déclaration Balfour» agertu eban idaztia, ber-irakurten izan gara. Ez da gure asmoa an diñoanagaz bat garala ezta aretzazko gure iritzia emen azaltzea, arabitar eta israeldarren amaibako burruka onetan bide bat artzeko, asti aundiagoa eta irakurketa ugariagoa bearko genduke-ta. Gure asmo bakarra, irakurle askorentzat ez ezagun diran joera ta aldeak agirian jartzea da, aipatutako idazti orretan agertzen diranez.



Jakiña da geientzat, urtero, Azillaren 2'ganean, Urreko Sorkalde orretako erriak agerketa aurkalaririk egiten dakiezela. Egun baltza da arabitar errentzat. Egun orretan, 1917'gn urtean, Foreign Office'ko nagusi zan Arthur J. Balfour jaunak, gaur zabalik ezaguna dan idazki bat Lord W. Rothschild'i bialdu eutsan eta onenbeste iñoan mamian: «Erregearen Jaurlaritzek Palestina'n judutarrentzat enderri bizilekua jartzea begi onez onartzen dau».

Ogeitamar urte geroago, «Balfour Agiria» deritxon onen oiñerrietan, ONU'koen aginduz Israel Laterria sortua izan zan. Eta arrigarria ba'dirudi be zati baten, arabitarrek, Britain Jaurlaritzaren asmoa, «Balfour Agiria»n etorrana, onartu ta bere alde jarri ziran, eta USA'ko judutar diru-etxe jabeak asmo orren aurkalaririk amorratu agertu.

Gaur bertan, ezin asmatugarria dirudi, Neher-Bernhein'en idaztian irakurtzen danez bene-benetako alkar-ikuste onek: Alde batetik Weizmann, errusitarren artean jaio zan judutar jakintsua, baiña ingelesa bere laterriatsunez, gazte zala Errusi'tik urten bearra izan ebana, ango legeen pean ezin eban judutar lez Ikastola-Nagusian ikasi-ta; beste aldetik, Faisal emirra, Ala'ren seme argitsuena eta arabitarren jasarketan ibilli zan Edward Lawrence'en adizkide aundi ta laguna. Ara ba, turkoen aurkako burruka zuzendu eban gizon orrek, Faisal emirrak, ez bat eta ez bi, onenbeste esan eutsan siondarren ordezkari orri: «Guk, arabitarrok, batez be gure arteko jakitunak begi onez ikusten dogu judutarren joera».

1918'ganean, Faisal'ek berak, London'eko Siondar Alkartzeko Lendakariari auxe idatzi eutsan: «Jauna, tamalez ezin izango naiz joan, zure ontasunean deitu nozun «Balfour Agiria»ren bigarren urteurrenoko agertaldira. Ala ta be, nere oparirik onenak eskeintzeko aukera onek asko poztutzen nau, gure erri biok gure arteko asmo orren alde alkartuta lanean ikusteko, Sorkaldearen berbizkunderako». Ta, au, azterlari batek esan dabenez, ez da polizi-eleberri bat. Faisal'en benetasuna, zirrara biozkorra be bai, idazki orretan agiri dana, orain arte agertu barik euki dabe. Beste antzeko ta garrintzi aundiko beste iritzi batzuek, aipatu dogun idaztian agertzen dira.

Zer jazo zan ondoren? Urrengo zebakian jarraituko dogu, idazti au aztertuz, azaltze batzuk egiten.

AGARITZ

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

ZAZPI-KALEAK



CASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK



eziketa jostailuak
eskulanetarakoak
irakasketa gaiak

gregorio de la revilla, 1
bilbo-11

Jolasean ikasi, or zure aurrentzako emoitzarik onena

ZERBAIT ARGITZEKO

Zuen asteroko eder AGUR delakoan eta azkenengo Irailleko zazpian ateratako alean, irakorri dut atal bat YURRE'ri buruz, nai duela Yurre' tar Yulen A.k zerbait jakin erri polit orren izenari buruz.

Alako batean, Herminio Madinabeitia zanaren lan batean billatu nuan zati au erderaz: «el vado de Yurregutxi». Jakiña da toki-izenak,, ondo jarriak daudenean, izketa batzuetan gauza bera adierazten dutela. Ortan igarri nion YURRE dala erderazko «vado», edo erreka errez edo oñez alde batetik bestera pasatzen dan lekua. Ori bera gertatzen da Durango eta YURRETA tartean eta Idiazabal aldean.

Nere ustez, itz ori IBI-URRE'tik dator, adierazten pausu ondoko toki edo etxeren baten izenagaitik. IBI ba dakizute ederki, ABI eta UBI bezela, erreka pausua dala.

Ondoan dihoazten itzeri begiratu bear diegu sarritan zerbait argitzeko. Ala iru «estrada de Trauko» Bilbo'n, Orduña'n eta Algorta'n billatu ditut eta orrekin argi dago TRAUKO lenago ESTRADUKO izango zala.

Ori bera peña de ARNO, itz onek aitza edo atxa adierazten digulako. Azkenengo au nik baño lenago idatzi zuten direla 175 urte Ramond de Carbonnières'ek Biarno eskualdean eta Juan Antonio Mogel'ek Mar-kiña'n. Orregaitik Aiz-arna, Arn-aiz eta Ernaiz, gauza bera bi bidar ematen digute.

JUSTO GARATE

NOIZ GARBITUKO ETE?

Esan daustenez, irakurri dogunez eta antxiñako argazki ta margazkietan agiri danez, Bilbo, San Anton'go zubitik asi ta Ibaizabal —Peña— zelaiaren inguruetaraiño, oso garbia ta polita zan. «16 de Agosto» kalean asi ta Atxuri geltokiraiño dagozan etxeak, ez egozan antxiñetan. Lurralde guztiori ondartzea zan.

Losada, bilbotar margolariak, baditu margazki politikak. Or, ondartzea garbi orretan, udaldean, ugartzaille asko agiri da. Nerbion erreka ez egoan ondiño ugaska-kanalizatuta, ta errekeak itxas-goran ekarren ur gargiagaz ondartzea garbi-garbi egoan. Nerbion erreka garbia zan, eta San Anton elizako abadeak, eliz ormako leiotxo batetik arrantzale biurtuten ziran, askotan, itxas aldetik etorzan arrain gozoak artuaz.

Aldi aretan, errekonduak lore ta zugatz aundiz bete-beterik egozan, eta bertan ainbat zozo, birigarro, kardantxillo, urretxindor eta abarrek, euren kabi ta abesti zoragarriak. Antxiñako Bilbo'ko ezkurdi ederra bere, bitarte orretan egoan; lore, zugatz eta jarleku ederrez beteak. Baita alboetako mendizkak bere, zugatzez beteak. Inguru zoragarri ori, zelan aldatu dan!

Errekako urak geiago eziñeraiño zikin ta loiak; zugatzak galdu ziran; erreka basterreko arresi-maillak, etxeetako ondakin-zikiñez beterik, estalduta dagoz; txori abeslariak iges egin dabe; angula goxo ta beste arraiñak ez datoz itxaso aldetik; alboetako mendizkak narrugorrian agiri dira.

Beste errietakoak, Bilbo'ra lenen-goz datozanean, ta alde au ikustean, dardaraz iguindurik, ao batez diño: «Au da entzute aundiko Bilbo? Bai benetan itxusi ta zatarra!»

Nun ete dira emengo diru ugariak? Noiz arte jarraituko dogu geure

erria garbitu baga? Berez ain polit eta eder izan diran Bilbo inguruak, geure ardurabagakeiagaitik eta gure itxitasunagaitik, loi ta zatar eta gure lotsagarri izaten zergaitik itxi?

Egia da, alde onetan, geien baten, langille txiroak bizi dirala, ta dirudunak eta errigintzan diarduenak alegin gutxi egiten oi dabela txiroen etxe ta inguruak goratu ta edertuten. Urte luzeetan ikusi dogu txaide zar eta etxe zatar ta erdi arrakalduetan bizi diranak iguinduta bizi dirala, baita biziera ori ekundu txar, oitura ez kristau ta odol-txar ta gorrotoa geituteko salda ederra dala. Txaide garbiak, bizi-leku barri ta patxadazkoagoak, gizonak poztu, baitzkortu ta eziagotu egiten dituala.

Orregaitik, errigintzan diarduenak, elizeak, dirudunak etaba, alegindu bear genduke geitxoago Bilbao inguruko loi ta zatarkeria ta itxusikeriak uxatuten, jakiñik orrela gizon eziagoak, alaiagoak eta kristauagoak izango diugula.

Noiz garbituko ete, ta noiz antxiñako antzera biurtu, batez bere San Anton zubitik asi ta Ibaizabal zelairaiño dagoan erreka alde biak? Orduan bai ostera be erreka garbi-garbian itxasotiko arrain «preskuak»! Orduan, erreka ertzetan ta inguruko mendizketan, zugazti mardulak; txori abeslarien toki ta udatarren kerizpe! Orduan baita bilbotarrak arro ta pozik uri inguru politagaz arroturik!

Noiz garbituko ete? Ainbat lasterren lantxo ori egitea ta diru mordotxo bat zeregin bearrezko orretan eralgitea, gauzarik lenena ta onuratsuenak dira gaurko Bilbo kutsudun onetan.

GALLASTEGI'TAR KAULDI

Aurten Ikusia

Bigarren Euskal Irakasleen Ikastaroa izan genuen Iruña'n, Irallaren lenengo egunetan. Euskal izparringiak ia ixildu dute, gure Erriko gertakizun garrantzitsu ori. Berri aundirik ez dute beintzat eman. «Diputación Foral de Navarra» bere «Príncipe de Viana»ren bidez eratua izan zan. Ta etzan izan txantxetakoak!!! Amabost egun lanpeta ta ajolaskoak.

* * *

Irakasle jakintsuak, beren gaietan oso ikasiak. Euskal Morfologia, Aditza, Joskera. Euskera artez, jolabidez egunero. Euskal elerti, Lutelesti, Euskal ikastola nolakoa izan bear dun. Gaur eguneko arazo garrantzitsuenak: Aur-galtzea, Errien gosetea, ta abar.

* * *

Ikasleak eun ta geio. Geienak andereñoak eta naparrak; Auentzat berezeki antolatua bai zan. Zintzo jokatu zutela esan bear. Nik beñepein «pipen» gutxi oartu nitun. Ikasgaiak arreta aundiz entzunak. Gizabide jatorra nagusi egun oietan. Elkar-izketa batzuk ere euki genitun. itzal-begirapen aundikoak noski.

* * *

Baiñan neretzat atsegiñ aundiena, gure artean euskera zala nagusi. Itzaldi batzuk erderaz noski, izlariak kanpotarrak izanik. Baiñan gutxienak izan ziran. Gure artean ba-zegon gizon bat, urtetsua izanik arritzekoa, ainbeste gazte artean ikustea. Nik.—Zertara etorri zera onera? Berak:—Euskal giro billa nauzu etorria. Benetan pozik nago, atsegiñez betia. Ainbeste andereño euskeraren zabaltzalle, barruko illuna, argi gozoz bete naute. Nere anima naigabez beteak, orra pozez gañezka ta asea!

* * *

Danen nagusi Yon Oñatibia izan genuan. Lan oietan danok dakigu zer trebea dan. Baiñan berak asmatutako euskal-kantetan, eta daramaten dantzetan, Oñatibia Jauna ikusi bear... Ariñ, bizkor, bizi, mutil gazte dirudi.

* * *

Azken eguna eldu zaigu. Amaira ondo eratua izan genun.

Iturralde Jauna, Naparroa'ko alduna lendakari. Inguruan Jaun batzuk, danak ospedun ta agurgarri. Esker ona agertzen, Oñatibia Jauna izlari. Biotzetan itxaropena ereiten, Garde Jauna sutu, iztun ta mintzolari. Ondoren andereño bakoitzak eskuan zuen bere txartel agiria. Ta janari ta edari gozo artean, egin genuen agurra azkenean, biotzez esanaz: «Ikusiko gera urrengo urtean».

* * *

Baiñan ezin det ixillik gorde. Gardetart Martzelin Jauna, Erbiti'tar Bakarne Andrea, Ara bi, benetan langilleak. Biok eraman zuten, adore ta kementsu, ikastaroak sortzen dituzten arazo, kezka, nekeak ugaritsu. Izan ziralda? Ezin ukatu. Noiz ikusiko ote degu, Euskal arloetan jorratzen, bestek egiten duten lan txalogarria, ontzat arizen? Danok ari gera Euskera berpiztutzen. Norbait zuzen ari ba'da, utzi langillea bere lanean ekiten. Ez oztoporik jarri; batez ere ez amarru, azpikeririk asmatu. Garde Jauna ta Bakarne Andrea, Biotz-biotzez «ZORIONAK» Ekin aurreara, ez kokildu. Artu Euskal-erri'ko leial semeen, esker bero ta on-onena.

* * *

Bukaeran Oñatibia'k asmatu ta, berak txiztuz lagunduz, abestu genuen bere eresia: Naparroa'k iraundu sendo eta azkarra, bere semeak dute sortzetik, bai, indarra; euskera auldu zen, baiñan, uxatuz nigarra, eman dio betiko arnasa ta garra.

Udaberria dugu Naparro zarrean, mendi gain zabal ta ibarretan, gazteen biotzetan. Yakintzaren adarrak agertzen loretan, ETXE-ANDIA'K, gaur egunean arturik itzalpean.

OLABEAGA'TAR IÑAKI

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra
BILBAO - Casco Viejo
Tenderia, 15 eta 16

ARRIENAKO

Zollo

Martin deunaren jaiak eta Etxebarria tar Eduardo'ri omenaldia.

(«Piti» bedekin jotzaillea).

Leenengoz azalduko dautsuet AGUR'eko irakurle guztiori, nun dagon Zollo, gure Euskalerrri'ko erritxu au. Bilbo'tik Orduña' rako berebil-bidea artu eta Ugao'n (Miravallés) errian artzen da eskumara. Lau km dagoz erriko enparantzara eta aintxe dago Martin deunaren txadona.

Menditik joan ezker, Bilbo'tik Pagasarri'ra, emendik Zollo'ra ordu bi inguruan sartzen da, oiñez aize gozoa artuaz eta Euskalerrri'ko baserri ta mendi ederrak ikusiaz.

Azilla'en 17'an ospatu giñun jai aldi polit bat erri onetan. 11'tan erri-mezea, ondoren, abeslariak eta dantzariak, geienak gazteak, (parkatu egidazue euren izenak emen ez azaltzea). Dantzarien leiaketan zortzi bikotek dantzatu eben, eta benetan alaitu be erriko eta inguru guztietatik etorri ziranak.

Gure «Piti» bedekin-jotzailleari omenalditxu bat eskeñi geuntzan, erriko eta adizkide guztiok.

Mutlil gazte batek aurkeztu eban jaiak eta dantzarien sariak olan izan ziran: 1.ª 2.000; 2.ª 1.000; 3.ª 700 lauerleko.

Azkenez esango-dautsuet emen Zollo'n jaietarako odoloste eta buzkentz bikaiñak egiten dirala, sabelak berotu ta jaiak ederti ospatzeko.

ETXEBARRIA'TAR SIMON

Zumarraga

AITONA'REN KEZKAK

Orain egun batzuek, gure zuzendariak bidalita jaso degu gaztigu bat, labur adirazten ziguna, Euskal-idazle Batzak eta A. Xanti Onaindia'ren lagunak-gerlatzen zutela Karmeldar argi oni omenaldi ospetsu bat. Gure zuzendarien naia, guretzat une ontan mandatu da.

Gaur goizean goiz, beribillaren gurpillen arian, jarri gera bidean ain maite degun Zornotza'ko Larrea'n dagoen etxe aundira. Azkarraga (Deskarga) ta Elgeta'ko mendi arteko aldatzak laño illunez itxutuak arkitu ditugu, bañan gure barruan damakigun karobi bizizko mañtasunak argituta, laster iritxi gera Elorrio aldera.

Egun batean ba-zen erri ontan gaztelari sutu bat egia gordetzeagatik bere bizia eman zuena, Balentin Berriotxoak, gaur, bizi-bizirik lez, bere soñta emen arkitzen da. Eziera onak eskatzen du, zerbait eskatzera benik, gure lankide oni ikertaldi bat egitea. Ikertaldi onen ondoren, gure barruak itxaropen aundiz beterik, bide-zabal berria alde bat utzirik, jarraitu degu bide zaarretik. Uste gabean Larre'ko etxe atarian. Emen arkitzen dira ia danok, AGUR'eko zuzendari trebeak, eta GOIZ-ARGI'koak, eta Euskalerrri guztian Euskeraz argitaratzen diren aldizkari guztiak. Emen arkitu ditugu Naparroa'ko «Principe de Viana'ko zuzendari argiak».

Jai-aldiari asiera ematera goaz, Aldare nagusian, A. Xanti buru bere zuzendari kutumekin, Kristo'ren bidez Aitari Semea'ren oparia eskeintzen. Etxaniz'tar Nemesio Izlari, bere etorri ederraren arian jelki digu, Kristo'ren gudarien egitekoa. Erri-Otoitzetan, oroitu gera, emen gauden, eta emen ez dauden guztiak, bizi ta illekin, ta egia zaimtzearen asketasuna galdu dutenekin.

Poz-pozik ikusi ditugu gure asteroko ta aldizkarien ardura dunak, idazle ta berri emalle taldeen artean, Jaunartzerakoan mai santura urreratzen. Alaiagarri benetan gure barruarentzat, idazle adinekoen artean, ikusi degun gaztedi berria, au da gure ustez Euskeraren kimu berria.

Otordu orokor ta alai anaitasun aundian, ta bazkaloste luze baten ondoren, biotza alaitasunez beteta etxeratu giñan. Jaiakok nai ba'du datorren urterarte.

AZKARRAGA

Galdakano

LANDAJUELA'TAR ANTON'I

Adizkide zintzo au, itaunka datorkigu «baillara» itzak, bere ustez, arrotz dirudialako —niretzat be bai, zalantza barik— ta geiege azi baiño len, oba izango litzakigu «aran», «ibar» eta «erridi» itzeri buruz azterketea egin, egokiena zein dan ikusi ta ikasita aintzat artzea.

Ta, or doatzu nire eretxia: Muxika jaunaren iztegi, itz oneik datoz: Arana, Ibarra, Mendiarte, tabar, zortzi itz arte, ez darabil baiña «erridi», barria dalako edo. Itz orreik onetara darabiltzadaz: «Galdakano'ko ibarrak mamintsu ta sakonak... Otsandio'ko aranak bedar gozoak emoten... Mañari (Ernu ta Eibar lez) menditarte bat da». (Agur'etik oarra: Eibar'en «Ibargain eta Ibarbe» etxe ezagunak izan doguz). Arratia, erridia ostera —erri bat baiño geyago diralako bertan.

Nire eretxiz, erri bat baiño geyago diranean ibar baten, erridia esan bear geuntsake, beean naiz goi-aranetan aurkitu. Baiña entzun!: Iñoiz bere ez «baillara», ez dalako euskalduna, ta mordoillo-zaleak asi arte, emen iñoiz entzun ez dana.

ABESTI JAIA

Andra-Mari'ko dantza-talde ta Abesbatzari esker, baita erri-poztasuna lortutzeko beti gertu izaten dan Jon txanburu jaunari, Azillaren 23'gnean euskal abestaldi bikaiña izan dogu eleizan.

Iru zatitan izan zan. Lenengo, Abesbatzak bakarrik abesti bi-edo, ta txistulariakin batera, beste abesti batzuk. Bigarren zatian, txistulari taldeak bakarrik, eta euron zuzendari dan Zamalloa'tar Jon'ek bakarreko bat. Irugarren zatian, Abesbatza ta txistulariak barriz.

Entzun barik geukazan Abestaldeak aspalditxoan, eta pozgarria benetan orren apain eta trebe ikusi doguzanean: baita txistulariak be. Gure zorionik beroenak AGUR onen bitartez, danori!

OMENALDIA

Larrea'n izan giñan, beste euskaltzale ta euskal-idazle askoren artean. Or, Onaindia'tar Jagoba Aita'ri, euskera arloan aspalditik darabillan lan aspergabe ta garrantzitsuagaitik, omenaldi bero bat eskiñi yakon. Benetan izan zan bikaiña!

Asko idatzi legike orretaz, baiña or izango dozuez idazle bizkorrak AGUR onetan.

BASA-JAUN

Arratia

BAKEA

Barruko barren sakona nasaitzen dauskun ao-beteko itz samurra. Otoitza, biotzberea, ederra, mazala... Egunero esan eta entzuten dogun itz gozo au, lau aietara zabaldua izatez, zer nolakoak danik bein bere jakingo ete dogu? Berak dauan esanaia osotutik eta gizondurik iñoizkoen baten bai? Bake-kukurururik aundienak entzunik doguzala diñosku aizearen txistuak.

BARRIAK

Bermeo II

Seme-alabak azirik, irabazte aundiak, bakoitza bere lekura aundiki ezkondurik, eskuartean diru beroa, osasunez ondo... Au dok, au bake santua!, iñoenak, ez ete-dabe otz-otzko besterantzakoen bat izango?

Zorroztu entzumen. Zabaldur begiak eta ikusmena luzetu Asia'raino, Arika'ra, aruntzago naiz onuntzago... edonungo lekura; eta erriak alkar ilten ikusi al izango doguz. Dirundun gizon eta alkarteak, eta diruz eta ondasunez bete ezin diran laterri indartsuak izkiligintzan, bakearen izenean. Erri goseti ta atzeratuai saltzen. Iñoren lepotik norbera ondo biziteko errialde urrutietan guda-suak biztu, txingarrak berotu ta abar.

An Jerkaiak eta emen tiro. Maltzurkeri edo tranpazko, baita indarrezko lapurretak be egunetik egunera ugartzen... gosea ta ezin-egona egoak zabalduragotzen. Politikazko arazodun gizakiz espetxeak samaraiño bete-bañoik. Langille apal eta nagusi altsuen arteko aditu eziñak arantz-onantz, eperdizorrotz.

Aburu edo eritxiak, entzunak eta ikusikorik asko, eskubiderik ez esateko indarrezko arrazoiak burua jasorik daukan errialdeetan. Geikerizko tripekadaz itorik eta edariz erreta, batzuk; beste batzuk oster, gosearen gosez sayestarteak ikol, belarriak zurizka ta buru makur, beti bean.

Eleizkizunetan be, eskubide ezberdiñak: batzuntzat aundi ta zabalak, bestentzat txiki mirrikak. Odolaren gorritz eta eriotzaren baltzez illunduak izandako garaipen-urteurrenetan, indardun baldin ba'gara, turutasoiñuzko mezea izango dogu eleizarik, txadonik ospetsuenean. Indarge ta azpiratuak barriz, naiko oztopo ta zeregin korupeko izkutuan be, zeruari otoiak egitean.

Guda-gertakizunetarako kolkokada dirutzak. Ikastola, ikasketa ta umea gizontzeko...

Lurraren zilborra sutan dogu. Bake «santua» azken-arnasetan. Gizona gizonari banderilla sartzen, Euskerea, batu bearraren bearez, zeinbat zatitan? Bakea non?

LANDAJUELA'TAR A.

Bermeo I

Azillaren 16'an, gure erriko Andra Mari'ren eleizan, Aita Adrian prantziskotarrak ezkondu eban, Erremenderia'tar Joseba etxagillea ta Eroa'tar Itziar neskatilla argia. Mutilla, elantxobetarra, ta neskatilla, bermiotarra. Bikote bikaiña! Biak euskaltzale zintzoak.

Eleizkizuna, euri yagokoen lez, jatorretariko izan zan. Dan-dana euskeraz; ezkontza; mintzaldi; eresi ta abesti. Guztiak, biotz-ikuigarria.

Adizkide ta euskaltzale ugari agurtuteko aukerea izan gendun bertan. Euren artean, gure astekari onen irakurke ta idazle pilla. Au, pozgarri izan yakun bene-benetan. Miren Natxitube ta nik jardun luzea izan geban gure astekariatzaz eta abar. Bere neba Mikel'eri be egin geuntson eupada bat. Eta, nori ez!

Eleizkizun ostean, Kasino-edo deritxoan etxean, bazkari aundia izan gendun, eundazak lagun, mai luzeetan alkarturik. Agirre jatetxeak ondo bete eban bere lana.

Anaitasun aundian igaro gendun eguna ta guztiok pozez beterik etxeratu gintzazan illuntzean. Ezkonberriak ez; oneik euren ezkon ibillia egitera joan ziran, or-zear.

Zorionak opa dautsieguz euren bizitza barrian. Kanta daioegun, bazkal-orduan talde batek poliki abesti eutsena:

Ezkon-berriak pozkiro daude.
egin diradelako alkarren jaube,
eleizan.
Gauza ederragorik ezin izan.
Oi neu ere ba'nengo oien gizan!

TORRONTERUE

«KIROL ETA JAKINTZA.—Pozik esan lei egon biar litzakela Bermeo'ko itxas-erria gaztediyaren itxarkundea ikusirik. Bentzat, poliki-poliki duaz aurrera euron egitaraua eruaten ekintzatar.

«GARBOLA» mendigoizale taldea dozu bizkor eta kementsu dabilizaziena erriari bizitasuna emoten. Euron asmo eta itxaropena, an eta or, itxas-ortza zabalera begiratuta, oldozpen batzuk gure dabez eruan gaztediyaren biotzetara. Eta asmo oneik, diñoec, benetan zabaldur arte ez dabiela itxiko. Oba.

«LAGUN ARTEA» gaztedi txokoa: benetan maite dabiene erri onetako gatz ondakiñak eta ekandu zaar ta barriak; onu polita, lengo irallaren 15'ean, gure TALA zoragarriko egurastokian eratu ebien 1.º Sukalki Eguna. Jai ederra benetan bera.

ABESBATZA. — Alegintzen dabilizaz aspaldiz abesti gozoz eta antzerki ikasbidez talde onetako neska-mutil jatorrak erriari poz ta alaitasuna emoteko. Eder-to.

JAN TXOKOAK.—Berrogeitik gora dira gure errian bazkun oneik. Euron artean lan ugariak egin leiz joko eta kirol bide txapelketa batzuk irasita. Bentzat «LAGUN ARTEA» txokokoak asiera ona emon dabe «Sukalki» leiaketa egunagaz igazko irallean.

Len ere, bai egozan Bermeo'n pelotari ospatsuak entzute andia emon eutsoenak erriari, txapeldun garalle urtenda, Nabarra, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaia'n. Euron izenak ez aztutekoak dira: Patxiko Ormaetxea; Anton Goitia; Gumer eta Mateo eta abar.

AFRIKATARRAK. — Gure atunero arrantzaleak, baltz itxas bastarretan arrantza ugariak egiten dabez. Eta entzun dogunetik, salneurri beekoa dabillela ta Bermeo'rarte ekarri dabe emeko arraiñ-ol jaubeak atuntza mordoak. Bear be bai, laster Gabonak ere ganean doguz ta etxerantza ontziak etorteko.

Arrantzaleak barau-ausita,
kanpora duaz zintzorik;
betoz guztiyak osasunagaz
eta iñor bez gexorik.

JULEN URKIDI

Arrasate

LARREA'N

Juan zan illaren, 24'an Larrea'n izan zan jai-aldi politakin oso gozatuta geratu giñan an izan gintzan guztiok. Idazle eta beste askok ain maite dugun Aita Onaindia'ri egin zaion omenaldi merezia zala-ta. Ni ez nua ango zertzela guztien barririk emoten, izango dira «Goiz-Argi» eta «Agur»ekoak esango dituenak.

KOKILLE DEUNA

Egun berean eta emengo Parrokian, abeslari eta ereslariak ospatu zuten euren Zaindari eguna, Parrokian, lengo «Danok» abesbatzakoak eta Parroki bertako abeslariakin batera osatuta Jaupa eder bat abestu zuten eta beste abesti batzuk ere bai eta onein artean Aita Madina'ren «Aita Gurea». Eleiza betebeterik eta jendetza guztia pozik.

ERIoTZA

Jaunak dei egin da, Zeru bidea artu du, Muxika'tar Nekane emakume euskaldunak. 49 urte zituan eta atsekabez beterik utzi du bere senar Zubia'tar Alexander, gure lagun ona. G. B.

UDALAITZ

LEIRE

Leire'n nago. Naparroa'n.

Ez da lenen ez bigarren aldiz. Maite dot Leire'ko monastegia. Ezagun dodaz bertako prailleak.

Bein, bertan nengoala, alako poci naikoak idatzi nebazan:

Erregien arrizko arkak.
Arriak eta abarkak.

Naparroa'ko erregeak
ezin zeinkeen lo
zipres itzalei so.

Arangoiti'ko aitz azpian.
Goiko Jaunak,
Dena aldunak,
Ixilla
ta
Itzala
ezkondu zitun tokian,
arranoak eteten dabe beka
ta prailleak kanta.

Antxe,
loari
ames eragiteko asmoz,
ta eriotzari
berpizte itxaropena sartzeko gogoz,
jentillen pazientziak
eta argiñen jakiñak
landutako arrien azpian,
zeenak jango ez daben tokian,
Istori zaarra
gordeta dago,
—noiz arte lo?—
abarkadun erregetan.

Ta Leyre,
Naparroa'ko bakearen kerizpe,
barriztu egin da
bere zartzaroan,
Istori zaarren loa
zaindu nairik ametsez,
itxaropenez esnatuko dan
kuttun kuttunaren seaskatxoa
kimatzen dan bezela
kuttunetz
eta
samurrez.

Leyre!
Erregien esperantzazko kanta zaarrak.
Frailien esperantzazko kanta barriak.
Eta bitartean,
Naparroa'ren istoria
lo, baketan.

* * *

Euskal gerra bizi neban. Origaitik nik bizi neban gerra baten barruko muiña eza-gutzea atsegin izaten yat. Eta atsegin, batez be, guk biziarren, besteak zelan ikusten genduzan jakitea. Eta guk garaizta uste genduna, besteak zelan ikusten eben gogoratzea; eta guk illeta josten gendunetan, besteak zelako pozez illeta ori kantaten eben ikasi eta gogoratzea.


Gure gerrako liburutegirik onena, gaur gaurkoz, Leire'n dago. Bateko ta besteko liburuak; erriko ta erbesteko agiriak, liburuak, idazkiak, eta beste askotan gure jokatibidearen pentsakerazko agerpenak.

Lojendio batek bere zaletasunetan gerrako istori bat egitea edo gure gerrako pentsakera jator bat ezagutzea nai izan eban. Beste askok ezin eikiena, berak, sasoi aretan eukan bizi-bidetik, erreze izan eban. Origaitik mundu zear gure gerrateatzaz agertu ziran libururik geienak, danak batzea gaitz, bereganatzea lortu eban. Eta frailletu zanean, nai eta gaur beste toki baten egon, Leire aukeratu eban bere bizitokitatz eta or dagoz Leire'n liburu orreik, gerrako liburuak, bazez ikasi eta aztertu nai dabenen aukeran.

Origaitik, Leire'n, liburu orreik ikustean, alako arrada berezi bat igarten dot nire barruan. Nik bizi izan neban zati bat bertan dagolako.

* * *

Iruña'tik Oska'ra doan bidez, Sangotsa eskumatara laga, Ledia (Liédena) ardau erria igaro eta Gisa'n (Yesa) sartzean ezkerretako bidea artu ta mendirantz jo ta ara, aldatz biurri baten ondoren, Leire.



Gisa (Yesa)'ko urak lañoa zabaltzen dabe sarri beietan. Baiña bein gora elduta, argia zabal igarten da.

Monastegia Arangoiti mendien giblean dago. Beian, Aragoi ibaia, ormaz mugatzean, itxaso antzera zabal eta luze Berdun ingururaino. Atzerago, Oroel mendia.

Iñoiz Jabier'eko gaztelutik Leire'ko prailleak agurtzen zituela esaten da, torre gaiñetik. Leike. Beietan Jabier'en tarte bat ikusten da. Beste aldera Utsue, napar mendietan.

Leire ikusi egin bear da. Eta ikasi. Artean ikusi eta bere bidez gure izatea ezagutu. Kondairan, istorian ikusi, sartu eta ikasi.

Kluny'ko monjeak bizi ziran antxiñetan. Gogoz eta izatez, espirituz eta soñiez, gerralari mistikuak. Santxo Andia'k sartu zitun bertan. Orduko giroa ezagututa, bearrezko ziran orrelako bizilagunak. Almanzor batek bere denporetan su emon eutsan monastegi oneri. Santxo Andia'k barriztu. Geroago, urte asko geroago, zister'eko fraileak egon ziran. Naparroa'ri begira, baiña Aragoi'ko kutsuz. Batak ten eta besteak ziri.

Gaurko ordenakoak, beneditarrak, gure denporetan sartu ziran, azken gerra ostean, 1954'ko Azilla'ren 10'ean, zeatz esateko.

Jaunari kantuz egin nai dautse, Naparroa'ko erregeen gain. Luze nua. Aritzta eta Andia, Gartztez eta Toda, Eneko eta Abarkak... Ezin ete leikie Leire'ko prailleak errege arein arlosa astunik zabaldu, euskeraren errazturik billatzen ete dabent?

* * *

Urtetara ba goaz, 848 urtean Eulogio doneak Iruña'ko Gotzainari egindako karta baten irakurri lei monastegi onen barri. Ba egozan geiago be: Urdaspal Erronkari'n, Igal'eko San Pedro eta abar.

Goiko eleiza 1059'n bedeinkatu zan. Bear ba'da Leire erregeen bizi-toki eta Napar erriko obispoaren etxe zanean. Jakiña da

AGVR

Apartado n.º 2
BILBAO

FRANQUEO
CONCERTADO
08/55

ERETXIAK

PREMIÑA BAKO EZTABAIDARIK EZ

Gitxitan izaten dira gizonak eretxi batekoak. Nai erlejiñoi, nai politika, nai erti, nai jolasetan, biren eretxiak bardiañak badira, irugarrenaren eretxia guztiz desbardiaña izango da. Milla arazotan eretxi desbardiañak ez dakarre okerrik txikiñenik, baiña beste batzutan ezin-da andiangoak ekarri izan dautsaz gizadiari. Zenbat asarre, iskamilla ta guda mende ziar gizonen eretxi desbardiañagaitik!

Baiña danok beti ta danean eretxi batekoak izatea be ez dakit ona izango litzaken. Dana dala, orra bein be ez gara elduko. Iñun erri osoa eretxi batekoa lez agertzen bada, batasun ori ez da berezkoa, ori ditadura batek ipiñitakoa izango da. Ta orrelako batasunak on gitxi ekarri dau iñora. Gu beintzat ez gara olako batasunaren zale.

Baiña eztabaida ta asarre zale be ez gara. Egia, egundokorik zaillena da gaur euskaldunok bakean bizitea. Ardura andia daukuen arazoen etorkizuna jokutzen da gaur: erlejiñoia, askatasuna, euskerea ta abar. Ain garrantzitsu diran arazoetan eretxi guztiz desbardiañak daukaguz euskaldunok. Orregaitik, zuzenean nai ziarka arazo onei ikutu egiten dautsen kontuetan eztabaida ta asarreak izatea ez da arritzekoa.

Anai arteko asarreak min emoten daukue; baiña asarrerik ez izateagaitik beti ixillik egotea ez da bidezkoa; batzutan arpegia emon biarra be izaten da. Olakoetan, arazo garrantzitsuetan, kezkatu auzia mai gaiñerutzen dabena txalogarri dira. Orregaitik, emendixek txalotuten dot aita Intza agurgarria, urte pillo andiaren zama aztuna bizkar gaiñean izan arren, Lasarte'ko ikastolari buruz erakutsi dabene erlejiñoiaren kezka ta aldeztuteko adoreagaitik, (onegaz ez diñot Lasarte'ko ikastola erlejiñoiaren aurka dagoanik).

Baiña gure eztabaida asko premiña bakoak dira. Uskeriak askotan. Uskeriagaitik gizonen jakitea beeratu naian eta txarragoa dana, iñoiz, uskeriagaitik baita be, bata besteari gizontasuna ukatzen. Onetan alderdi guztietakoak gara errudun. Gure taldekoak be bai. Gure taldeari aintza gitxi ekarriko dautsen eztabaida bat baiño geiago sortu izan da gure asterokoetan, ta gero larri norbere errezoiak zutunik ezin eukita.

Erlejiñoiaren, askatasunaren, euskerearen eta abarren etorkizuna jokutzen dan aldi onetan uskeriagaitik eztabaidan asi barik be, ba-dauko zer astindu orretarako gogoa ta ausardia dabena.

KAPIÑAZPI

Iruña'ko gotzain asko, sasoi aretan, Leire'n aukeratzen zirala, bertako fraillen artean. Eta Armentia'ko batzuk be bai.

Gero, giroaren aizetan, batzutan sendo, bestetan al bestean, baiña beti etxea aberasten, Leire'k monastegi jator irauñ eban, Mendizabal'en legea agertu arte.

Ondoren, bakartadea. Etxe utsa. Istori andi bat arrakalatzan, eteten, galtzen.

Norbaitek esana da Leire'n egin dabene lana izan dala azken urtetan Naparroa'ko Aldundi edo Diputasiñoiak egin dabene lanik andi eta baliotsuena.

Orretan bakoitzaren pentsakerak tanto erdi.

Baiña Diputasiño berberak esan eban, Leire egon ez ba'litz, bear ba'da Naparroa bera ez zala egongo. Origaitik Leire Naparroa'ren erlekirik andiena dala.

* * *

Gaitz da onelako lan arin baten Leire agertzea eta erakustea. Bertako atadi eta kapillak, emengo illobi eta kriptak, emengo arko eta arron-gaiñak, kapitelak, leioak eta

sapaiak. Erromaniku eta gotikoa. Gizaldiak eta gizaldiak.

Leire'n arriak be itz egiten dabe. Ilak be berba egiten dabene lez. Eta ormetako esacrak kontzientzira deitu.

Bein, lengo gizaldian, prailien kantauk ixildu ziran. Ez bein. Irutan be bai. 1809, 1820 eta 1836'n. Orra iru urte larri Leire'n. Lenengo bietan urten eta barrero sartu. Azkenengoan luzarorako mutu gelditu. Ia aztuta lagateko aiña denporan.

Ixiltasun luzeegia, bakartade gogorregia. 1836'tik 1954'ra. Ez zan bake santua. Origaitik amaika errege eta printzipé eta zazpi erregeñen autsak Gisa'ko eleiza txikira eroan ziran.

Baiña istoririk ezin zeinkean aldatu. Eta barrero Leire'ko ateak zabaldu ziran. Kezka aztun eta larriegi zan istoria galtzea. Bere «porta speciosa» zabaldu zan. Erregeen autsak biurtu ziran eta prailien kantak euren ingurutan erlearen durundi lez samurki zabaldu.

Ara emen Leire, Naparroa'ko istori zana eta izango dana, oraindik testigantza asko emon bearrean Naparroa eta Euskalernia'ren arduetan.

A. ZUBIKARAI

GABONAK TXARRAK, BETI BESTEAK

Gabon astean sartzen gara.

Igarri barik neguan sartu gara. Eta neguak, bere egun itzal eta illunen artean, ba daukaz egun berezi-bereziak, danok poztu eta bigunduten gaituen egunak; erri ta alderdi guztietan kantuz eta pozez edo ametsez igaroten diran egun zoragarriak: Gabonak, Eguberriak.

Gabonak, batez be, maite egunak dira.

Sendi edo familien batasuna dakarre; ume ta gurasoen maitasun biztutzea.

Udabarri eta udan sendi asko banatu egiten dira. Osasun aitzakiz, ikastaroak dirala-ta, sendi asko zatitu egiten dira, zabaldu, banandu, Gabonak, barriz, batasuna dakarre etxeko beroaren aitzakiz.

Gaur, pentza ez arren eta kaleko giroari jarraituz ala agertu ez-arren, iñoiz baiño egarri biziagoz eskatzen dogu etxeko maitasuna, familiko berotasuna.

Galdu arte ez da igarten osasunaren indarrik; loitu edo balzitu arte ez da maitatzen zuriaren garbitasunik; ezin danean baiño geiago ez da amets egiten aberastasunik.

Orrelaxe da sendi edo familiko izatea. Banandu arte ez da sortzen kezkarik; ez da igarten utsunerik eta ez gara konuratuten sendiaren izateagaz.

Origaitik gabonak batasuna dakarrelako, maitasuna biztuten dabelako, familietako izatea gordin-gordin erakusten dabelako, egunik maitekorrenak doguz.

Gaztañak erre artean... Su ondoan ez gaitzen lotu. Gure ama eta amumak naiko dira orretarako. Sua ta koipea erabiliko dabez bai iñundik al ba dabe.

Sagar saltsa nai gaztañak, hexigu erre nai orio aza, marraskillu ta bakallauak, laga eurei. Topiñak ez dira erreko ez egun orretan.

Kalera begiratu daigun, gure ingurura.

Etxietan izango doguzan poza, batasuna, maitasuna, kalera eruan daiguzan.

Kantu zar polit eta txukunez alaitu daiguzan kaliak eta atadiak; antxiñako gabon kanta fiñez ase daigun gure errietako kutsua egun orreitan.

Erri askotako soiñua da: aspaldi galtzen duazela oitura garbi alaiak.

Berbiztuten alegindu bear genduke. Jan edanari bakarrik ez gaitzen lotu. Atsegin geiago billatu daigun gure Eroslearen jaiotza gogoratzeko ospatuten doguzan egunetan.

Etxeko poza eta maitasuna kalera luzatu daiguzan eta kaleak gabon abesti gozo, samur eta eztitsuz bete daiguzan, gabon kantu, soñu ta dantza bixkorrez Jainko Umetxoari agurrik beroenak bialdu eta borondate oneko gizonen, gizon guztien, bakea, bake azkatzallea, biotzetako bake osasuntsua eskiñiaz.

Jan da lo totolo egitea baiño asmo geitxuago, goragoko ametsak loratu daiguzan egun oneitan.

AZPIRATZEKERIA

Amaika idazti agertu dira amerikatarren agintekeria edo kaiserkeria guri azaltzeko eta, politikaz naiz barrucritxiz, agintekeri orren aurka jarri gaitzan! Laterri Batuak ei dira munduan jazoten diran txarkeri guztien errudun eta agintekerizko zapaltze-egoera guztiak andik etorriak dirala.

Lenago, agintekeri au, lurralde zabalen jabetzan eza gutzen zan. Ba dira oraindiño olako kaiserkeriak. Baiña, agintekeriaren aurkari gaur agertzen diranentzat, lurralde azpiratuak ez dauke garrantzi aundirik. Oneik diñoenez, gaur, lege-erri baten jabetasuna ta jakintzea aintzat artuak izan arren be, ekonomi-aldeetik menperatzen ei dira.

Amerikatarren agintekeria da ba, kontuan artzen dan bakarra, eta urrago dagozan kaiserkeri zarrak, arduraz estalduko dauskuez.

Orregaitik, sobietar idazleak alde batera itzita, prantzitar eta espaniatarrek batez be, euren zabalkundea bide dala, auxe lortu dabe: pekatu guztiak bere gain daroazan aker-ordainlaria, Ipar-Amerika izatea. Orra josten dabe euren burruka guztiak. Baiña eraso oneik, aginte-bidezkoengandik ez dira iñoiz izaten; ori ango dirua etorri daiten kaltegarri litzake-ta. Ezkerrekoak, etxeko agintarien aurrez dagozanak, beteten dabe zeregin ori. Orrelan, erri-zapalduen begirapena «yankeen kaiserkerira» biurtzen da, eta ezkeri orrein agintekeria bera izillean geratuazo (gogoratu Arjelia) edo eusten alegindu dira (emen ez dago ezer gogoratu bearrik). Ba dira gizatsu irakurten diran P. C. F'k Arjelia'n egin ebana argitzen daben F. Feunan'en idazlan batzuk.


Azkenengo urte oneitan, gai oneri buruz, geien irakurri dan liburu bat, Claude Julien'ena izan da. «Le Monde»ko idazlaria da berau eta bere liburuaren izen burua «Amerikatarren kaiserkeria». Or diñozan gauza asko ukatzerik ez jaku bururatzen, baiña gai batzuk obeto argitzea ez da txarto izango.

Egia da, amerikatarrek diruaren indarrez, munduko gizonik zurrenak eurakanduten dabezela. Au be gaurko kaiserkerien artean dago. Baiña eurak ete dira errudun? Beste laterri askok be, beste bide batzuk itziko ba'leukeez eta onetan euren dirua eralgi, billatzaileak ugariago izango leukeaz.

Eta orrez gaiñera, Ikastetxe Nagusi bateko lantokiak, Europa'ko billatzaile edo trebe bateri, berean aurkitu ezin ditun lako erak eskeintzen ba'dautsoz, zer egin? «Joaten itzi ez, edo laterri artzaileari ez artzeko esan». Guzurrean bizi diran batzuk, orixe egin bear litzakela diño.

Eta gaiñera oraindiño, esandako beste kaiserkeri zar eta arriskugarriak be, orixe berori egiten dabe beragoko mailletan, ta ez azkatasunaren bidean.

Laburrean, auxe esan gura dogu: Laterri onetan, gizon azkar eta zurren igesia ikusten asi garala, gitxiagoan ba'da be, eta bear dan bestean lan egiteko erreztasuna emoten ez jakelako izaten dala.



Aztertzen dogun liburu onetatik, beste au be atera geinke: Agintekeri onek kanporantza egiten daben eragiñak, barrurantz be bere ondorenak dakartzela. Orrexegaitik jausi zan Prantzi'ko IV Erkala edo Errepublikoa, eta orrelan azaltzen dabe kondairazale askok, erromatarren agintaritzearen jaustea: Agintaritzaren bear-izanak erakundearen guzurrezko ibil-bideak sortu ebazan, eta Erroma'ko politika oiturak usteldu.

Orrenbeste jazo leiteke Laterri Batuetan be —eta tamalgarria izango litzake— baiña ez da ain errez izango Oraintzuko Nixon kentzeak ori adierazoten dau, barriz be.


Laterri Batuetan, barri ta izpar-bideak iñon baiño garbiagoak dira, eta iñon diran sakakadak artu arren, beste leku batzutan baiño obeto dabilz. Amerikatarren artean, edozelako eritxi-zabalkunderik ez da errez sartuko. Orrexegaitik, ez iñon ez iñoz erritarren eritxia ez da egon ain argi ta garbi gobernuaren aurka, kanporako politikearen auzian. Egia esateko, izan dira euren gobernuaren aurka berba egin daben erriak, baiña erritar euren kalterako izan diranean. Iñoiz be ez baiña, beste erri batzuen kalterako jokatu dabenean. —Marx'ek berak be olako egoera bat ikusten eban, England'eko langilleak, euren gobernuak irlandarrak izan eban politikea aztertu ebe-nean.

Baiña Ameriketa'ko Gobernuaren bertako aurkariak, ikusi dogunez, Vietnam itziazoteko indar aundia izan eban. Eta, ori ez zala izan erabagi aurrerazoteko bultzadarik gogorrena, iñork uste ba'dau be, ezin ukatu izango dau aurkari oneik alkartu eta gogor ezetsi dabezala euren Gobernuaren okerkeriak. Olakorik ez zan jazo, dakigunez, URSS'en Errusia'ko gudariak Hungria edo Txekoslovakia indarrez artu ebenean.

Laterri Batuetatik iges egin eban millaka gazteak (eta ez bildurkeriz gero); danen agirian, gudari-agiriak erre zituenak; gudearen aurka ikasleak eta gazteak egin zituen agerkundeak... gauza barria ta pozgarria izan dira, eta itxaropen au sortzen dau gudan: Aurrerapenik aundiena lortu daben laterrian, diruketan eta trebetasunean daukan aunditasun ori munduaren bakerako ta alkartasunerako erabiliki legiken demokratik geintasun bat sortu legikela. Ori orrelan izango dalakoan, zati on baten, gure itxaropenaren oiñarriak dagoz.

Eta ordura artean, Ameriketa'ko erri demokrateak ditun elburuen alde jokatu degigun geuk be geure lekuan. Eurakaz batera lan egin dagigun, euren politikeak dituan okerbide zarrak kendu dagiezan, esaterako, antxiñako ta atzerazale diran agintekeriei, guda baterako ziurtasunagaitik, emoten dautsen laguntzea. Oneik antxiñako laterrikerietan oiñarritzen dira, eta gugandik urrago dagoz, amerikatarren agintekeri ori baiño.

Asieran esan dogun lez, gure artean egiten dan amerikatarren aurkako zabalkundeak, politikakeri ziur bat daroa barruan, eta zein dan jakitea be, ez da gaitxa.



ERESA ADIERAZPEN

GATZ ETA PIPER

IKASTOLA AURREKO ALDIAN

OARRA: EUSKERA izenburua daroan orrialde onetan, irakasleentzat gogoangarriak diran idazlan batzuk agertuko dira noizean bein. Ikastola euskaldunetarako ta irakaskintzaren maila berezietarako izango dira.

* * *

Eresa (musikea), adierazpen bat da, norberaren izakerea agertzeko era bat.

Gizonaren izakerearen barru-barruan eta bere almen bat lez, dago eresa edo musikea.

Len-gizonak, soiñu gozo lez, ibilte neurtu lez, artzen zituan bere barruan aizearen boladak, uraren mur-mur zaratea eta pistien abotsak.

Izadian bertan dago ba, eresa, musikea. Eta bertan izadiko dan bes-tean da eres-zale be. Gizonari eres-zaletasuna kentzea, bere adierazme-naren zati on bat kentzea litzake.

Gure Erriak beti izan dau, bere-bere lez, zaletasun au. Baiña gaur, urietako bizikerea agertu dan ezker-o, mundu zaratatsa au sortu danean, gizonaren zentzunak legortuta gera-tzeko arriskuan gagoz.

Eresa, geroko gizonaren adieraz-pena izatea nai ba' dogu, gaurengandik eta ikastola-aurreko umetxoengandik asita, lan egin bearko dogu. Orrelan azten ba' doguz umeak, ez da izango bearrezko gero beste eziketa bat, gaur eldu askok bear laukeen eziketea.

Lengo eziketea, eresari begira, ez zan ona eta ondorenak orain ager-tzen jakuz.

Irakasleak, txiki-txikitatik, irakatsi bear dabe eresa, ikastola aurreko den-poran asita, umearen barruan eres-aren bear-izana sortzen dala. Musikea, ezibide bat izango da eta bide orreta-tik umeak adierazpen edo barrua agertzeko bide bat aurkituko dau. Ira-kaste au egitezkoa izango da eta umeak berak beti parte artuko dau; umea ez da izango entzule utsa. Adierazteko era au erabiliat, umea zurtu ta argitu egingo da: bere gomutamena, bere adimena, bere gogoan artzea, bere ibilte neurtua, bere irudimena t. a. indartuko dira, eta alkar-elburua lor-tzeko, alkar-lana egiten ikasiko dau.

Eresa deritxogun adierazpide au, besteak artuemonetan sartzeko bide bat eta izkuntza baten sartzeko da. Ikastola aurreko denporan, eres-egite onek beste elburu bat be ba daukala errez ikusten dogu: Umeak bere sendi-giro laburretik urtetea da au (orain arte beste girorik ez dau

ezagutu) eta arago dagon beste mundu batera sartzeko bidea: askatasunaz bere barrua agertzen dau, entzumena osotzen dau, gomutamena indartzen dau... eta guzti ori jolas bat lez.

Gaurko eziketan, gaurko ezibide barrietan, adierazpen eraginkorrari (Expresión dinámica) garrantzi aundia emoten jako. Ibilte neurtu onek ezike-tarako balio aundia dauka umea osotu daiten. Ibilte bardiñak ikaste oneixek daukaz beragan: lekutasuna, egokita-suna, eratasuna, alkartzee-bidea. Ibilte bardiña ikastea ta lekutasuna ta era-tasuna ikastea bat dira.

Zer egin ikastola aurreko denporan:

1) Soiña edo gorputza ibilte bar-diñerako egokia dala irakatsi (bere gorputzagaz adierazo egiten dau umeak olgau, beste batzun antzera jokatu, gauza barriak asmu be bai. Bere barruan oiñarriko diran almen batzuk aurkituko ditu: jabetasuna, nora-esku-bidea, bardintzea, arnasea, t. a. Mar-goak, zabalera, denporea, t. a. bere-ganduko ditu). Eta egite onek banaka ta alkarka.

Almen onek agertzea, ikas-urte bateko lana ba dira eta ez lan makala.

2) Ibilte bardiña edo ritmoa nor-beragantzeko, geroago beste era au artu bearko da: eresgailluak. Onekiz gorputzaren ibilte bardiña edo ritmoa zabaldu egingo da, eresgaillu baten bidez norberaren ibilte bardiña za-baldu egiten da. Tanboliñaren bidez eskua luzatzen da, txistuaren edo txi-libituaren bidez abotsa zabaltzen da, txalapartearen bidez besoak luzatzen dira... Zaratea ta dardarea ateraten daben eresgailluak ezagutzea garrantzi aundiko gauzea da aurrarentzat edo umearentzat.

3) Eta ez aitzu abotsa. Abotsa ezi ezker-o, abestea dator eta abestea adie-razpena eta izkuntzea da. Beste lurr-alde batzutan nekez aurkitzen dabe umeai zer irakatsirik gai onetan. (Abes-tiak aukeratukeran umea euki bear da kontuan, eta beretzat gurari bizia diran gaiak agertu: siñuakaz, jolasa-kaz, dantzeagaz, abestiagaz, antzer-kitxoakaz, t. a.).

Gure artean baiña ugariak dira abestiak, baita umeentzakoak be, eta oraintxe diardue umearoko aldi ba-koitxerako abesti egokiak aukeratzen.

Ez dagigun aitzu ba, eresak ezi-kearako daukan balio aundia: iñoz eginbear bakarra izango da, iñoz ma-rraztuten edo jolasean dabilzanean entzungo dabe, t. a. Eta umea abesten zalea dan ezker-o, bere munduaren barruan, balio aundia dauka eresak.

MAITANE

AGUR

Ez Agur au beratu, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira astero-ko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartzee-bide baten erakus-tokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, bereko, politiko naiz ondasungarri asmoen gaiñetik daben iritxi-oneko euskaldun guz-tiak Euskeratzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabiltea-ren bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idaz-lanen erantzule bakarrak euren egi-lleak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M.^a MARTIN DE RE-TANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAI-NA, S. A.

Carretera a Galdácano, 32-Bilbao 4

ARGITALDARIA:

LAL GRAN ENCICLOPEDIA VASCA

ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guz-tirako:

Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

Gaur ikastoleri buruz natorkizue. Ikastolak, gure izkuntzearentzat sortu diran igalirik eta sendagairik ederrenak doguz; itxaropentsuenak. Olakoak, guztiz eldu baiño len usteltzen asi ez daitezcan, guk, gurasook, baratz-jagolerik langilleenak bezela jokatu bear dogu.

Guraso izateak, eskubidegag batera, erantzule izatea dakar, gure umeen eziketaren erantzule. Gaurko eziketa orokorrean, eta ludi osoko laterrietan, askatasun apur bat dagonetan beintzat, gurasoak geroago ta sakonago euren seme-alaben eziketan esku artzea eskatzen da.

Lenago, umeak eskolara bialdu ezker-o, dana eginda egoalakoan bizi ziran... gaur ez!

Gaur, gorasoak, irakasleekin batera, umeen nortasuna biribiltzen alegindu bear dogu, ta eziketa orretan esku artu nai ez dauan gurasoak ez dauka, gauzak okertzen diranean, oiuka ta aienaka asteko eskubiderik.

Baiña, zer dira ikastolak? Euskerea ikasteko bakar-bakarrik ba'litzakez, ez genduke, bear ba'da, gure umerik bialduko. Euskerea, Jaungoikoari esker, etxean irakasteko era ta adorea izan dogu, baiña ori ez da naikoa. Ikastolea izan leiteke izkuntzeagaz batera, umeari euskal-kutsuzko nortasuna emon legikeona... ta orren billa bialdu doguz ikastolara gure umeak.

Ikastoleak beste alderdi on bat be ba-dauka, berezko bardintasunaren oiñarria izan leiteke. Ikastolara maila guztietatik sortutako senar-emazteen umeak doazelako, egizko demokraziaren lokarriak sendoena izatera eldu leitekela.

Baiña demokraziaren eskolea diñogunean, dardakada zirkingarri bat datorkigu. Gure umeak demokrata izatea nai ba'dogu, geuk irakatsi bearko dautsegu ta orretarako demokrata bezela lenengo-lenengotik jokatu bearko dogu.

Ba ete dakigu baiña, demokrata izatea zer dan? Askatasun eske diarduen aobero batzuk nai ete dabe gure alkarteetan demokrazi jokorik sartzerik?

Demokrazia ez da geientsuen edo indartsuen diranak nai daben guztia egitea, egite orretan gitxien diranen iritzia be kontuan artzea baiño. Zoritxarrez, ikastola batzuetan, azpikeriz eta sasilegez eldu dira agintaritzara norbaitzuk. Gurasoen iritzia kontuan artu barik, umeekin jolasean asi dira. Argitasunik eskatu jakenean, ikastolearen etorkizuna arriskioan jartzea litzake-la-ta, «kee estalgarria» dariela dabilta... noiz arte?

Eta ez da ori negargarriena: norbere jokoa, azpijokoa ukatzeko, auzoko teilletura arrika asi jakuz sasi-aurrearokoi eta ekintzaile bildurti orreik.

Emetik aurrera doan guztia astiro ta arretaz irakurri egizue sasi-iraultzaille labanok: «Gure lapikoetan zer egosten dan ikustera etorri baiño len, konpondu zeuen sukaldea, bestela gertu gagoz, goitik beera ta ezkeratik eskumara, dakigun guzti-guztia argitaratzeko».

Uste dogu, itz orreik naiko izango dirala, euren ikastolea erdi ondatuta dagonen, gurera ate joka datozenak uxatzeko. Ez dogu sator-jokoan dabilzaneekin artu-emonik nai, «Bakean dagonari bakean itxi», bestela euskeraz, erderaz naiz txinoz, dakigun guztia jaurtiko dogu. Ulertu dozue «txori-erri»ko muiñean dagoan ikastolako jauntxo gogorzaleok?

Euskerea ikasteko gauza izan ez ba'zarie oindiño —dirugintzan ibilli zaree-ta— norbaitek argituko dautzue len esandako guztia... ta al ba'dozue beintzat, aztu zaitezze nun garan. Artu-emonetan gurasoekin asi geintekoz, ez zuekin.

Bestela, AGUR oso-oso bat eskeiñiko dautzuegu. Ala ortik!

ARENATA' TAR JOSU

IKASTOLETAKO UMETXOENTZAT

GABON ABESTIA

Poztu gaitazan ume guztiok,
gaur dogu Gabon Eguna;
Belen urian estalpe baten
yayo da Jesus kutuna.

Inguru danak argitasunez
artzaintxoak ikusita,
alkar begira gelditu ziran,
itaundurik arrituta:
—Gaba onetan zer gertatzen da,
illuntasunen erdian,
olan argiak diz-diz eiteko
Belen inguru guztian?
—Ez bildur izan— diño gotzonak—
Barri On au, ara emen:

Gaizkatzaillea yayo yatzue
okoillu baten Belen'en.
Era berean, gotzonak auxe
ezaugarritzat damotse:
—Yayoparri bat oyal artean
askan aurkituko' zue.
Ta bapatean gotzon taldea
eldu zan goyan kantari:

—Aintza ta aintza, goyan Yauari,
bake maitatzen daunari.

Maitte gaituzan ume guztiok
goazen pozez Belen'era,
Guretzat maitte yayo dan Jesus
biotz guztiz gurtutera.

GABON

Oi! Gabon zorionsua,
goiko Argiz betea,
Belen'en yayo zalako
gure Jesus maittea.
Gizonaren maitasunez
aska baten etzunik,
Yaungoikoaren Semea...
nok ames olakorik?
Ezkutapen arrigarri,
ulerkatz gizonontzat:
«gauza danen Egillea
gizon egin guretzat».
Guk zelan ordaindu geinke
ain maitasun ezia,
Berari eskeiñi andia,
Berari biotz guztia?
Esker onez goazen danok
Jesus maitte gurtuten,
artzaintxo onen antzera
geu-biotzok eskintzen.

GABIREL

EUSKALERRI'KO ARAZOAK


JAKINTZA GAIAK

Nuklear-landolak dirala-ta, burutapen batzuk

Azken illabete onetan, eztabaida jakiniako bat zabaldu da gure errian. Ain zuzen, tximist-indarra lortzeko diran nuklear-landolei buruzko eztabaidea. Onetaz ainbat gauza esan eta idatzita gero, atomik-landolen aurkako giro bat sortu dala dirudi.

Nere ustez, oster, ta egia esateko, gure errian orain arte beintzat, ez da azalpen argi ta benetakoa emon.

Agintarien aldetik, ez da batbere arritzeko gauzea, erabaki guztiak era onetara artzen dabez-eta. Beraz oiturazko jokabide au ezin izango dogu aztu, gure aldetik arazo onetan esku artu nai dogunean.



London'eko Unibersidadetik Bilbo'ra etorri zan John Shaw'k onela esaten euskun bere itzaldian: «Nuklear landolen gora-beeran, garrantzikoena, lantegiok zein lekutan jaso bear diran erabagitea da».

Onela ba'da, gure auzian zeintzuk izan dira elburu nagusiak? Nor izan da Nuklear-landolok non jarri erabaki dauana? Nori eskatu jako eretxia? Zebate-raiñokoa ete da Euskalerrria'n bear izango dogun atomik indar ori?

Onelako ta beste amaikatxu galdera gorde bear doguz kolkoan, nork erantzun arkitu al izan arte...

GOZOTEGIA

E R I K O

Ezkontza ta Jaunartzeetarako opil-gintzan berezituak

Etxera bialtzen da


Kareaga Goikoa, 15

491030 urrutizkiña

Menendez Pelayo, 2

493059 urrutizkiña

B A S A U R I



Doctor Areilza, 55
31-72-93 urrutizkiña
BILBAO-10

Jolasean ikasi, or zure aurrentzako emoitzarik onena

EZIKETA JOSTAILLUAK
ESKULANETARAKOAK
IRAKASKETA GAIAK

Ala bere, esan bearra dago, Atomik-landolak non ezarri, onein ondakiñak nora jaurti ta abar, jo ta ke eztabaidan darabilguzala, zergaitik ez dogu piska bat zabaltzen eztabaidagarri au? Izan bere, gure langintzeari ta azpi-egitureari (infraestructura) buruz jarri geinkezan beste milla galdera bere, aidean geratuko litzakez.

Jakintzearen argia ta ordaintza-irabaziak (coste-beneficio) deritxon teknika barriak erabiltzen ete dira lantegiak, zentralak eta olakoak jasotzeari buruzko azterketa eta ikasketetan? Teknika onein bidez ezagutzen ditugu zenbat eta zelangoa izan leitekezan diruketa, gizarte ta jakintza eralgi bearrak. Gero, eralgarriak eta irabaziak konparatuaz, erabagi egokiena artu al izango dogu.

Gauzak onela, landola onein inguruko eztabaidan, zenbaitzuk, aurre-erretxekin asi dirala dirudi. Puntuz puntu azaldu dagiguzan:

1.—Nuklear-landolen gorabeera au gai edo arazo oskor baten lotuta lez artu izan dabe. Gure egoera berezia, gure oraingo ta emengo egoera ez dabe gogoan izan. Esate baterako, sarri, gure errian jasotzeko diran landolok eta antzeko beste lurraldekoak —Japoi, USA ta abar— maila berean ezarriak izan dira, arein eta gure egoeren arteko izugarritzko bardintasun-eza gogoan izan barik.

2.—Ez dira auzi onen alde guztiak ondo ikusi ezta aztertu be, bakar-bakarrik, gizadi-inguru fisikoari letorkiozan ostopak eta eragozpenak zeintzuk izango diran aztertu dira. Kutsutze-kontamiñasiñoa gora ta bera besterik ez da entzun izan kalean.

3.—Nuklear-landolen aurka agertu diranak, iñoiz moralista eta izadi-salbatzaille lez agertzen jakuz, emen gertatuko dana Hiroshima'n gertatu zana-gaz neurtu izan dabela.

4.—Jendea, zelan edo alan, arazo onen jakitun dago, eta jakingureak berak bultzatu dau ekintzak eratutera. Orma-agiriak eta bestelakoak ere ugari zalbadu dira. Ala bere, jendeak ez dauka elburu argirik. Alako edo olako eretxia jarraitzeko gertu dago, egia, baiña jokabide zeintzuk artu bear litzakezan orduan, ez daki zeintzuk onartu edo ez dauka nondik jo.

Gure uztez, bide onetatik ez gara urrun joango, edo arin baten erreko gara. Goikoak erabagiak artu dabez, guri ez dauskue eretxirik eskatuko, eta gu danok naiko arrituta gagoz. Auxe da gure egoera! Emendik aurrera naste-borraste au astindu bearrerako daukaguzan eragingarrien artean, zeintzuk diran guretzako egokienak jakin eta orreixek aztertu ta jarraitu bear ditugu.

Beraz, ez gaitezala bide amesgarri edo utopikoetatik ibilli, bestera baiño: lurrean oiñak ondo tinkaturik, ekintza bideak ondo aztertu ondoren, obeto aukeratuta.

YARTZA'TAR ADAN'EK

BASERRIA

TXARTO

Gure baserritar eta aberezaleentzat ez dago giro onik.

Aspaldiko ille oneitan egin ditun euriak, soloariak (babak, piper gorriak e. a.) alperrik galdu dabez, eta galdu barik geratu diranak, esaterako landaren frutuak, tomateak eta olakoak, eguzkirik ezagaz galdu dira.

Oilloen, aateen eta untzien lanketea, etxe-ingurukoa, gaur ez da irabazbide lez artzen, apainkeri edo aundikeri lez baiño.

Eta beste gauza bat. Mundu guztian agiri dan larruine au dala ta, gure abere-dunak estualdi aundiagoan dagoz, aspaldion agertzen diran gaizoak eta ondamendiak ez ba'litzaz be.

Esnearen arazoa or dago, urtenbide barik.

Abereen jakiak, ezelako neurri barik, karutuez doaz. Eta okelea, erosi bear dauanarentzat geroago ta karuagoa izan arren, saltzen dauanari len baiño be gitxiago ordaintzen jako.

Gure baserritarrek jarraitzeko dauken bide bakarra, zura da, eta au be aurten asko merkatu da eta igazko salneurri inguruan dago.

Baserrria ez da errenta. Eta, noiz arte jarraituko dau onelan? Ikusten doguna ikusirik, argi dago onelan ezin leikela jarraitu.

Gure soloak emoten dabena eta merkatuak eskatzen dauana bateratu bear dira eta orretarako baserriko langillea ta bere

frutuen eroslea alkarregana urreratu beariko dira. Ori izango da bide bat bitarteko diranen aurrez indar bat izateko gaur berton, eta geroago bitarteko orreik kendu egin beariko dira.

Gure baserritarrek beko maillan ego-teak, bitartekoai indar aundia emoten dautse eta bitarteko oneik dira azoka edo merkatuko goraberen jakitun, oneik dira saldu al izaten dabena.

Eta zer esan bitarteko barik, baserritik plazara astero edo... gauzak eroan eta an egiten diran saltzeai buruz? Ori be ondo neurtuta dago eta azkenetarantza doa. Janariak osasunerako kaltegarri izan ez daitezkan arduradunak bear dabez, erabillikeran garbitasun geiago bear dabe, bear dan lakoak ez diran saltokiak kendu egin bear dira, eta baldintza oneik bete bear ba'dira, gaurko saltzeko era au laster galduko da. Ori jazo jaken okeleari ta antzeko salgaiari.

Nire ustez, uts aundirik ez neuke egingo, arazoaren iturria baserriak eta kortak txikiagiak izatea dala esanaz.

Baserritarrek alkarrean, euren artean alkarrean sortzeko, lanbide au indartu egingo leuke eta soloariak beste batzuen salneurrian aterateko erak sortuko leukez eta arazo sakon oneri urtenbide ziurrago bat emongo leukioe.

Baserrria eraberritu egin bear da eta solo-lanak eta abere-lanak alkarrean.

ORTZE

EDESTI AURREA

(JARRAIPENA)

Solutre-garaia.—Ereñotz-orri antzeko azkon-buruak agertzen dira. Garai onetan, Ola'n eta Isturitz'en zaldi azurra geroago ta gitxiago ikusten da. Edur-oreña be asko gitxitu da. Mamuta ta rinokeros uletsua artean agiri dira. Urtiaga'n zaldia, oreña, basa-beia, basauntza, adardunak, eta artza agertzen dira geienbaten.

Aitzbitarte'n, geien ikusten dana oreña da, ta onen ondoren sarrioa.

Madelein-garaia.—Leiza-marrazkiak, azur-zirizatuak eta arri ta azur leunduzko tresnak ezaugarri. Isturitz'en geien agiri diran kondarrak otsoarenak be ba-dira. Polo'koa deritxon aizeriarenak be aurkitu dira. Aitzbitarte'n geien agiri dana oreña da, ondoren sarrioa. Zaldia gitxitzen doa. Urtiaga'n ba-da garai onetako abere-kondar ugaririk. Ermita'n geien agertzen dana basauntza dogu. Lezetxiki'n beste kondar arrigarri bat dogu garai onetan: azkonarra. Ugaritasun aundia da aberedian Paleolitos aroan. Gizonarentzat jakirik gozoenak ugazdunak dira: Edur-oreña, sarrioa, basauntza...

Bestalde, abere onein azur-adarrak, eizarako ta beste zeregiñetarako tresnak egiteko guztiz egokiak ziran. Narrua be kentzen eutsen.



b) **Paleolitos aroa ezkeroko basa-abereak.**—Izozketak amaitzean, egurasti otzeko ugazdun guztiak, ipar-aldera egin eben iges. Eta egurasti epeleko zenbait ugazdun bakarrik emen geratu: oneitatik ezagunena oreña bera dogu.

Abereak ezitza noiz lortu zan Euskal-Erria'n, ziur ez dakigun gauzea da. J. M. Barandiaran'ek diñoanez, Bizkaia'n ezaguna zan ardia Neolitos aroan, Santimamiñe'n agertu diran kondarrak erakusten dauskuenez.

Gaur egun, leengo basati areitatik ezer gitxi geratu da gure lurraldeetan. Artz bat edo beste agertu izan da iñoiz Belagua ibarreko mendietan. Antxiñan, oso ugaria zan abere au Irati'ko basoetan.

Gelditzen diran basa-abereak, ez dogu uste bizitza luzerik izango dabarik emen. Irautekotan be, aizeriak iraungo dabe.

IV. LURRAREN SORREREA EDO OSOKUNTZEA

Bost milla milloi urte dira, gitxi gora bera, lur au osotzen asi edo egin zane-tik ona. Osotuko gai bat bezela, nebulosa aundi batetik aldendurik, eguzkiak, bere lurrunaren lertzetik sortu zituan izar-baltzok. Suzko gaiak oztutzean lurraren azala osotuko eben. Eguratsa oztutzean lurruna urtuta itxasoak eta abaiak sortu ziran. Su-aitzak, gero, sedimentuzko aitzak izatera jalgi ziran. (Jarratze-ko).

ARRATI'KO IKASLE TALDE BATEK

URA BUSTITZEN

EUSKALDUN FEDEDUN

Zenbat aldiz entzun dogun esakera au, ta zein zabal egon dan ludian zear. Orain-tzurarte, naiko zan norbait euskaldun zala jakitea, gizon siñesmendun baten irudia gogoratzeke. Ta, esan dogunez, ez emen bakarrik, ludi osoan baiño.

Ainbat urte dira, gure Zalloetxebarria' tar Pedro (G. B.) eta Juan jaunak, Erroma'n egon zirala, Aita Santua ikusi ta Uri atan dagozan Kristau-oiñatzetan, euren arimak indartzeri joanda. Azken ekintza onetan, Koliseo'ra jo ta beste asko- ren artean, Kanada'tar apaiz batzukaz alkartu ziran, danak asmo bardiñagaz.

Alkar ezketan asi, ta euskaldun ager- tuleran euren burua, beste barik eta besar- kada bero baten ondoren, onela entzun eben: —Ainbat gai pozzgarri bete doguz joan-etorri onetan, baiña euren artean, eta ez makalena, euskaldun apaiz batzuen besarkadea ta agurra. Ezin geiago eskatu!

Gaur be, bardin esango ete leukee?

Zer jazo ete da, eta zer jazoko, gaur gabiltzazen zurrumbillo onen ondoren? Orain arte oiñarritat izan doguzan gai guztiak, galduko ete doguz? Ain sakonak izan doguzan oiturak, ekaitzak eroango ete ditu?

Adizkide baten amaren eleizkizunetan gengozala, Jon jaunari, Galdakano'ko apaiz ospetsuari entzundakoa: —Ez daigun aitzu gure Erriak, kristau egin baiño len, auzo- koari laguntzea agindutzat eukala.

Beti jakin gurean, meza ostean bera- ganatu giñan, eta itaundu beste barik: —Zu, Jon, esakera ori nondik atara dozu? —Mutil, oraindik orretan gagoz? berak, Ez da atzokoa ba! Ez ete dakizu gure Erriak, kristautasunera eldu baiño len, bost agindu eukazala? Ez? Ea ba esaten dautzudazan, ikasteko ordua be ba-da-ta:

Lenengoa.—Juangoikoa (edo orretzat eukezanak) goraldtu. Bigarrenena.—Iñori kal- terik ez egin. Irugarrena.—Guzurrik ez esan. Laugarrena.—Emondako berbea zain- du. Bostgarrena.—Auzoari lagundu.

Euskal-Erria'n, kristautasunak be ez dau besterik egin, Erri barruan izan diran oiñarriak sendotu ta indartu baiño.

Baiña, gaur, ainsteste aurrerapide dau- kaguzan une onetan, sartu jakuzan nasteak ez dira makalak. Dana barriztu gurean gabiltzala esan legike. Lengo iturrietan bi- llatu barik, edo obeto esanda, lengoari lepoa emonda, non zer barririk aurkitu naian

gabiltz. Marx, Lenin, Mao... orreik dira gaurko bide-erakusleak, gure gaztediaren- tzat batez be.

Agoa zabalik iruntsi ta egi osotzat artu arein esanak, iñoiz esan bakoak ba'litzakez bezela. Gizon onei daukegutsan itzala, benetan aundia. Ez diñoenagaitik, euren asmoak aurrera zelan eroan dabezalako baiño, Arlo askotan aurrez aurre gagoz, baiña Jaungoikoa epaile bakarra.

Goazen lengo arira.

Begira, euren ikasbide barriekaz itzu- tuta dagozan gazte bik, amaren agotik —baserritar zintzo ta garbia bera— entzun- dakoa: Auzune txiki bat gure uri aundi ez dan baten. Amak ba-diñoito semeari: —Zu, joan auzokoegana ta atxur bat artu solora joan bear gara-ta.

Lan ori ainbat aldiz egindakoa izango zan, eta euren a zana bein baiño sarriago emon be bai. Len esan dogun lez, Euskal- Erria'n auzokoari laguntzea agindua izan dan ezkerero, Juan jaunak diñoan bezela. Ta, gure izakerea idatzita egon izan ba'zan, «euskalduntasuna» bardintasunaren eta anai- tasunaren ezaugarri-izena izango zan gaur.

Baiña Marx, Lenin eta Mao'ren ikas- gaiak ausnartu bear kontuan jausteko, arein gaiak eta asmoak antxiñatik emen betetzen zirala, maitasunean, anaitasunean eta ba- kean.

Seme batak besteari, bere anaiari di- ñito: I kontuan jausiaz ementxe bertan, gure auzune txiki onetan komunismo baten barruan bizi gareala? Ta, amak, maitekor baiña sendo: —Txo-txo, seme, etxakial komunismo baten bizi ete garean ala ez, orreik niretzat gauza barriak dozak. Baiña bai beti auzune onetan kristautasun lokarri batek alkartu gaituala.

Alkarri begitu, gorritu, ta Ikastetxe Nagusian dabilazanak, «jakintza» bako amari erantzunik ezin emon.

Irakurten gaituzuen gazteok, ikasi, ira- kurri gizon ospetsu orreik diñoituzena, baiña zergaitik orregaz batera gure oituretan sa- kondu ez, Kristo'ren izakerea ta esakerak ausnartu ez, ea nor dan eurekandik bide egokiena eskeintzen dauskuana?

Amaitzera noa. Ez dakigu nora elduko garan, baiña «Euskaldun Fededun» izatea galtzean, ez dogu uste Euskal-Erria'rentzat onuragarri izango danik.

Gabon zoriontsu batzuk ospatu dagi- zuezala!

ATXUTEGI'TAR BITOR



eziketa jostailuak
eskulanetarakoak
irakasketa gaiak

Avda. del Generalísimo, 65
24-19-16 urrutizkiña
GAZTEIZ

TXORIKI

Txagorritxu auzoan

Jolasean ikasi, or zure aurrentzako emoitzarik onena

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra
BILBAO - Casco Viejo
Tenderia, 15 eta 16

AZTERGARRIAK EZTABAIDARA, NORK

ESAN GENDUN

Ta ara nun miraria. Ian Smith'ek, giltzpetuta eukazan baltz buruzagi bi azkatu ta erbestera euren lagunekin batzera joaten itzi, ta birritan, eta baltzok, berriz atzilloteigira be itzuli. Izan da lendik alkar-ulertzeren bat. Naizta azken orduan, norbaitek eraginda, oso-osorik ezer erabagi ez. Baiña, asi dan ezker, aurrera egingo dabelakoan gara.

—Azken-orduko nastatzaileak, nortzuk ete? Izkillu zaltzailleak-edo!

* * *

ILLAK BAKEAN?

U Thant zana il da, (1909-1974), ta bere sendiak eta lagunak, Rangun bere aberriko uriburura eroan dabe bere gorpua. Onein asmoa euren siñesmeneko illetak egitea. Baiña ango ikasleak, ezetz, eta gorpua ostu dabe, ta orain amabi urte euren lagun batzuk erail ebezan tokian obiratu.

—U Thant berak izan eban gogorik bete nai izan ete dau iñork.

* * *

AZPIKOZ GORA

Makarios barriz be bere aberrian. Arrera izugarri beroa izan dau. Baiña gerkar jatorrikoen aldetik bakarrik. Besteak, kezka bezetarik. Ez dira ba makalak izan bitarteko aldakuntzak: Illak, sakabanatzeak, lur-erdibitzeak, gorrotoak...

—Erri biren nasketatiko gogorkeriak, ezin, ez bata ez besteak, zuzendu!

* * *

ERRIZ-ALDAKETAK

Gure gizarteak daukon arazo audiene-takoa, errikatu edo emigrante diranena da. Gure ondoan be ikusten doguna: baserriak utsiten dirala eta erri-buruetako lantegi aundietara joaten dirala. Gure Euskalerrri onek, zorionez, lantegi ugari dauko eta, zoritxarrez, mendi-gorriak izaten ditu bere azalean. Lantegiak dagoz, baita lanen ondoren dirua be ugari. Ortik, ikusten ete dozu Euskalerrria, beste bide batetik, gaztelerrriari deika dagola? Eguneroko batek diñoanez, Bizkaia'n diranetatik % 60 bakarrik jaio dira bertan.

—Ausnartu dagigun eta sakon!

* * *

BIBLIKO EMAKUMEAK

Israel'en emakume jatorrak ei-doguz. Onak ez dau esan gura onein ala besteen alde nagonik. Izparringi baten irakurri dogu: «Israel'go emakumeak gudarako gertu».

—Eta Ginebra orretan bakeatzaz itz egiteko zain.

* * *

UJOLA BARETU BEAR

Aurrerago esaten genduan. Andikeri pean bizi izan dan Etiopia, orain egunsenti itxaropentsu baiña margo gorritsu baten jarri da. Guda-gizonak adoretu dabilz, itxuraz beintzat. Orretarako bat-batean irurogei lengo agintari fusillatuak izan dira. Orain, beste batzuk epaituak izango dirala aurretik, diñoan, baita agintari nausi izan ebena be. Bide txarretik ibilli diranak euren saria jasoko dabe.

—Baiña ez dagiela aztu gaurkook be, erria gozez ilten dagola.

* * *

IXILLEAN LAN

Etsaiak eta mundu guztia arduratzeko beste nuklear-almen ei dauz Israel'ek, Efrain Katzir lendakariak esan dabenez. Orain amar urtetik gixienez, atomik reactor bi ei dabez an. Bata Negev basamortuan, bestea uri txiki baten ondoan. Orra seigarren edo zazpigarren laterria izkillu izugarri orren jabe, onerako edo txarrerako bardin jokatu legikenaren jabe.

—Arritzen gaituana, olako ekintzak gudarako ala bakerako egiñak diran ez jakitea da.

* * *

EGON-EZIÑAK

Portugal'en lendakari izan zan Americo Thomas ori, Brasil'era erbesteratuta bizi da, ta beste batzuk esan ba'da be, ez ei-da Madrid'era bizi izaten etorriko esan dau.

—Lotu zaitetz zagozan tokian, zenbat eta urriñago ta oba!

* * *

AMABOST

Neskati polita deritxoe zenbaki orri. Orregaitik ete ba? Zelan edo alan, nozegaz kontatu daben ez dakigula, or dagoz Politiko Alkartek. Osotzeko, lege orren barruan, or arauak: ogetabost milla lagun eta amabost erkitan zabaldua izan bear.

Galdera batzuk dakorkidaz burura. Ba ete dakizu zenbat erkik osotzen daben Ego-Euskalerrria? Zenbatek beste lurralde ezagun batzuk?

—Amabost polita dalako bakarrik ez da izango. Zuk be ba-dakizu.

* * *

ITZEN ALDEA

Ara ba, denporatxo bat dala, izparlariak laterriko egoera politikoa azaltzen alegindu dira. Zalantza barik, erriak izan daben aldakuntzea ikusirik, eta albo laterrietan doan bidetik alboratzea ez dala ona igarriarik, Politiko Alkartek sortuteko bidea zabaltea agindu eben. Beste laterri orretan «Alderdi» izena daren antzekoak ba'dira be, bardiñak ez ei-dira izango.

—Alkartetatik Alderdiatara ze alde ete dago? Laster jakingo dogu.

* * *

ERRIAREN NAI

Aldaketa sakon eta ziur baten sartzeko, bearrezkoa dala usten dogu, erriagaz be artu-emonetan jartzea. Artu-emon ori demokrazia lez ulertzen dogu. Ba, erria ez ba'da aldaketa orretaz konturatzan, bear ba'da, ankaz gora jarriko da. Zaila erria goitik-berako bide batekin bat izatea.

—Demokrazia itza kokatuko al dogu, bein betikoz, bere esangureak diñoan tokian!

* * *

GURE LOTSEA

Tamal aundiaz esan bearra da, Euskalerrria dala bere jakintzearen etsai. Danak ez, baiña bai asko ardurabako egin dirala. Euren

LENIZ-ibarreko Alkargoak (kooperatibak), lan-arazoak izan dituela-ta, ez dabe naaspil makala atera. Atzenengo uda-arroan izan da. Eta esames orreik ibar aretatik urten eta gure mugak baiña arago be, joan dira.

Eta ez gara zeatztasunetara sartuko. Jazoera orren zeatztasunak ba-dabe garrantzirik, baiña au lako lan labor baten aztertzeke geiegi dira. Jazoak eta esanak, irakurleak ba-dakiazalakoan idazten dogu gaurko au. Gure eginbearra, idatzi onetan labor eta argi, iritzi bat agertzea da.

Orixe egingo dogu, beinen diran gai batzuk aztertuaz.

* * *

1.^a Alkargotasuna edo kooperatibismoa, gure ekonomia-indarra al dogun neurrian zabaltzeko gaur, gure artean, onenatariko bide bat dogu.

2.^a Alkargotasun ori —batzuk ezarten dautsean elburuak alde batera utzirik— zeregin ori betetzen daben neurrian, kritikatu izango da, ta burutapen ori egingo dautsenak, ala-olako izena daroan laterrikeri-zaleak izango dira. Aitzakia... edozer.

Izan leiteke, ta zergaitik ez, iñoiz, aitzaki ori ondo oiñarritua izatea be, baiña agintekeri-zaleak, edozelakoak, aitzaki ori erabiltean, ba-dau elburu ezaguna.

3.^a Baiña esan dogun ori, alkargotasunak bere lana eskintzen dautsan laterri-lanaren barrura, batera edo bestera, sartzean, alkargotasunaren barru-barrukoa ondatzen dauana ba'da be, ez da «materialismo» edo «moralista» baten erako aztertzerik egin bear. Ez beintzat alkargotasuna burgeskeri ta langillediaren arteko aurkatzaren urtenbide bat dala uste izanaz —sail orreik marxdarren aurkakoan erara ulertuta; bakoitzak daroan sakelaren neurria edo langintzan daben maillara begira ez beintzat. Ori, egia dan berbera estaltzea da, eta azpikeriz erabiltzen dakie laterrikeri zar-zaleok. Orreik, iritzi oneik oiñarritzeke, zarraren zarrez aztuta dagozan buru-utsezko iritziak edo une bateko aukera nabarmenak eraginda, katolikuen moral-zuzenbidez jantzitako erretasunak eta erak artzen ditue.

Argi ta garbi esan bear dogu: «Cuadernos para el Diálogo» aldizkarian agertu dan idatzia ta Donosti'ko Goterkian dan Gizarte-idazkaritzak agertu daben azalpena ditugu begien aurrean.

4.^a Esan dogunaren arauz, alkarren antzeko ta bata bestearen osogari diran laterrikeri ezbaridiñak batzen dirala egiztatzen da. Ba-dira or nunbait, aldatu dirala siñestuauo nai dauskuen alderdiak, baiña kanokiku edozelako zarzale bat eleiz-legez zigortzea, edo iñoiz, keto batzuk iruzurtzeko, faszismoaren aurka jotzea, ez dira naiko zorionez ondo ezituta, —bakunatuta— dagon gure Erria, orrein itxaropenean bizitzeke.

Eta beste ondoren bat. Uts barri bat be sortuko litzake, eta uts ori ez dogu barriro egin bear, gutxiago gaurko egoera onetan, talde orrean elburua guztiz garbi ta argi ezagutzen dogula, jartzen dauskuen sarera sartu nai ez ba'dogu beintzat, gai onetan eztabaidan sartzean.

Zergaitik sartu ez eztabaida onetan? Lenengo, alkargotasunaren aldeko ekitea, oso-osoa, ezin agertu daiekgulako legearen bidetik; bestalde, gure aurrez dabilzananak, euren burutapen guztiak sakon eta ausarti ta iritzietan tentagarri agertu daiekgulako. Bigarren, etsaiak nai dabezan izkilluekin eta eurak nai daben tokian burrutatzea arrisku aundiko joko dalako. Orrela jokatu ezker, oiñarririk beñena alde batera utzi bear dogu, ta orixe da, ain zuzen be, arazoaren giltza, agertzeko erreza, baiña urtenbidez benetan zaila.

Alkargoai buruz bearrezkoak dira eztabaidak. Eztabaida zabal eta edegia, argiaren sorburua izaten da. Goraberarik gogorrenak, demokrazi-bidez argitzen diranean, ezelako eragozpen barik, alkarrekin bizitzeke zuzendu legikez, eta eragozpena au izaten da: bizitasun barrizalerik ez dalako, geldirik egotea.

Baiña au bai ongi argitu bear dogula: Gai oneri buruz, ezelako bildurrik ez lotsarik bage, itz egin al dabenen eta egin bear dabenen iritzia entzun bear dogula.

Alkargoak eztabaidara bai, baiña nork?

AGARITZ

ardura bakarra: «zenbat eta diru geiago egin, oba». Gure gogo ezin osotu leiteke futbolera joateagaz, txikiok artzeagaz, etxebizitzak erosi ta saltzeakaz, joera onek galtzen dau Euskalerrria. Ta, iñor ez da bikaiña, ta geienak or jausten dira. Oberako atea itxita eidaukaguz, baiña kontuan izan, geuk zabaldu bear doguzala.

—Gure etorkizunerako, erriagaz batera, jakintzea aurrera eroatea da, ta batasuna bear orretarako.

* * *

ABESTIA

Bertsolaitzak aspaldi erakutsi euskun, abesten danak erriakin zer-ikusit argi bat izan bear dabela, abestu ba erriarentzat. Olan, abeslariak be erriarekin artu-emon lotu bat izan bear.

Abeslariarentzat garrantzi aundikoa da olerkia bera aurkitzea. Zein izan leiteke abeslari baten eginbearra? Lan-bide asko daukaz abeslariak eginkizun onetan. Ta izate egoki batera eldu bear dau beti; bere lana, billatze bat da.

Billaketa orretan oneik izango litzakez bearrezkoak: —Nundik nora ibilli dan Euskal-musikea ikasi.

—Gaur egunean zelan dagon aztertu. —Nora jo edo nondik ibilli bear dan gure abestia zuzen asmatu.

—Erriaren egoera ezagutu ta berak abeslariak zer eskeñi daiekon jakin. —Zelako erabarritzeak egin legikeozan erri-abestiari igarri.

Bai, oneik eta beste batzuk izango litzakez euskal-abeslarien lanak eta ikasketak. Onek ba, bere nortasunagaz zerbait eragin-garri emon bear dautsa erriari. Erriak be era askotara lagundu leio abeslariari.

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK



ZAZPI-KALEAK

CASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

Ez da guretzat naikoa jaialdi polit bat ikusi, or doñu eder batzuk entzun eta «Aurrera»!, danok pozik. Ala folklore uts geiago gura eta bizitasun gixiagokin lasai ete gabiltz? Non gagoz baiña?

Batzuk, benetan baikor edo optimista diranak, esaten dabe: «Or goien itz ederrak esan, eta zer? Oba ezer ez esate! Bai, oba da, ta oba da sarritan ezer ez ulertzea, ta oba ezer ez egitea...» eta abar.

Erreztasunean ibiltzea gauza egokiena ei-da.

—Baiña lagun, zer gura dogu benetan? Edo zelan jokatu bear da erriaren onerako?

* * *

ERABAGI DA

Azken orduan entzuna. Gerkarrak erkala naiago dabe. Gaurko auteskundetan izugarriko alde agertu da gerkar antxiñakoak asmatu eben erka-agintza bidearen alde. Lenago erregezale ziran erkieta be, erkalaren alde agertu dira. Ta, oraingoan, auteskundeok «benetakoak» izan dirala ezin iñork ukatu. —Erriaren aukerea, erriaren naia, orixe da «errege».

* * *

BILDURTU ALA OITU

Gaur bertan au be. Hussein nagusiak diñoanez, urrango euren eta israeldarren arteko gudarik ba'da, odoltsua, nuerri ta ludi guztirakoa izango ei-da, bitartean palestinarren auzia zuzentzen ez ba'da.

—Zuzentzen ba'da be, danen gogoko izango ete-da?

DANOK

IDAZTI BARRIAK

ORBELAK

GABONETAKO TXARTELXOA

Izena: Deika.
Egilea: Solozabal'tar Paulin.
Irarlea: Gráficas Bilbao-Gordóniz 28.
Bilbao.
Urtea: 1974.

Ezaguna dogu AGUR'eko idazleok Paulin. Sarritan idazten dau AGUR'en eta liburua be ugari argitaratzen ditu, Bostgarrena dala uste dot DEIKA au. Orrez gaiñera, aurtengo Olerki egunean, Larra'n, lenengo saria berretzat eta beste batzertzat izan zan. Naikoa ziorik eukan gure Paulin'ek egun aretan pozik egoteko. An irakurri eban bere olerki saritua eta nik entzun ditudan eritxi guztiak goratzailleak izan dira.

Eta zelakoa da DEIKA liburua?
Ez da liburu aundia, baiña bai dotorea ta argia 220 orrialde dira guztiz eta orrialde guzti orreitan 205 olerki dakar.

Zelako olerkiak ete dakar oraingoan gure Paulin'ek?

Antxiña baten, izadia eban gai. Gogoratu Urre-bitza.

Gero Gizartea artu eban gai. Olerkia igesikeria barik gizadian sartzea zala artu eban kontuan. Beste izkuntza batzutako olerkariak be izan ditue orrelako aldakuntzak euren bizitzan. Ez da arritzekoa. Gizona aldakorra da.

Baiña oraingoan nora jotzen ete dau gure Paulin'ek?

Neure eritxia agertu baiño len, gogoratu dagiguzan Santi Onaindia Aitak sarrean dakarzenak. Santi berau, ain zuzen be, gaur aztertzaileen eta billatzaileen artean punterengo lez agertzen jaku. Zalantza barik, bere sei aledun izango dan Euskal-literaturak emoten daurto ospe aundi au.

Itzaurrearen laburpen bat egingo dot ba lenengo?

Eritxiak: —Kalamu azpiko olerkari onek ba dau oparotasun sotilla.

—Solozabal txalogarri danik, ezingo dau ifnok ezpaian jarri.

—Olerki danak dituzu, azaletik beintzat, taiu berdin samarrean osotuak: bost aapaldiko lanak nunbait, aapaldi bakoitzak sei edo lau bertso dituala. Onela: 7/7/6/7/7/6; 7/7/5/7/7/5; 7/5/7/7/3; 8/8/8/8, eta zortiko nagusi bat.

—Eta mamiñari zelakoa deritxadan? Eder lanak dituzu, berak argira ekarriak, bere pentsamentu ta sentierak, bere oiñaze ta neketan sortutakoak.

—Euskerea jator darabil.

—Amari ta neurriak naikoa landuak, bertsolari zarren doñutik zerbaite alenduta.

—Irudimen zolia dau geienetan.

—Barrizale agertzen da ta lugiña goratzen dau.

—Izadia ta gizartea alkartzen ditu.

—Onak deritxe aurrerakuntzai.

—Azkatasuna kantatzen dau, baiña berekeriaren arriskua agertuez.

Zer geiago esan neinke nik, ain maixuki eginda dagon aztertze onen aurrean?

Lenago izadia izan ba'eban gai, eta gero gizartea, emen biak alkartzen ditula esan dauksu Santi'k, eta au ez dogu aitzu bearko. Azkenengo maillea ete da au? Ez dot uste. Oraindiño Paulin'gandik gauza aundiagoak eta barriak itxaron geinkez.

Parnaso'rako bidean, maillaka-maillaka, gora doala Paulin izan bearko dogu. Liburu au, ene ustez, aurrekoak baiño asko ohea da: irudimena zoliago, neurria ziurrago, amai bardiñak egokiago, pentsakerea zabalago.

Antxiñatik esana da «izlaria egin, olerkaria jai», baiña olerkariak be obetuez joaten dira eta Paulin be egiñez doa. Ibilten ibilliez ikasten dan lez, olerkiak egiten be egiñez ikasten dau.

Zorionak eta eskerrak Paulin'eri.

GAMIZ

GABONETAN

Agur-zorionak bialdu ta artuten gabiliz. Aingeru eder, ume alai ta zaratsatu, arpegi biribildun bidai-txartelak agertzen oi dira gure etxe ta erakustokietan. Baiña, zentzudun eldu-nordanak ez dau geienez poztasun aundirik erakusten: Barregarria litzakela; umekeria dala ardura barik poztasuna agertzea erabagi dogu antza. Bizitzako buruaste ta arazoetan murgildueri poztasun gitxi, diñogu.

Alan da be, danok poztu bear gara Gabonetan. Ori diñosku Idazteunak: «Poztu zaitze gaur; poztu zaitze diñotzuet barrero. Ez artegatu ezergaiti be».

Gure arazo guztien Azkatzaillea dana, gure Salbatzaillea jatorku. Bere Belen'en jayotzea gogoratu ta ospatzen gagoz egun oneitan. Berak dakargu alaitasuna.

Gizonak baiña, bere poztasunaren egille izan gura dau. Ezin ukatu asko lortu dauanik. Jakin-eza, atzerapena alenduten ibilli dabil. Ainbestentzat ikaste nagusiak; sendakuntza, psikologi, gizartezaren aurrerakuntzak, guztiok onuratzten gaituez.

Langintza, teknika ta biziera-maillak aurreratuz doaz. Irrati, urrutikuskin eta egunerokoak, mundu osoan jasotzen dana jakinazoten dauksue. Amesetan be asmatu ezin geinkezanak, saleroste aundiok emoten dauksuezan erreztasun eta nasaitasunak. Txangolari ta ikustezale izatera eldu gara, an-or bidegiñez... oporraldiak, gizarte-babesak be ba-dagoz... Ondo etorria aurrerapen guzti au!

Baiña gogotsu ta losoturik ete gagoz? Gure poz eta alaitasunak ez ete dau tartean ardurarik...?

Egia esan, ez dabilte ondo gauzak; zeozer txarto dabil. Ara or nunai laterri guztietan gazteen zalapartak; ludiko bakea etenik barik zemaitea; ainbeste ta ainbeste eguneroko oratze, kale-lapurketa ta gogorkeri dirala-ta, norbaiten babes, zaintza bagarik gabiltz.

Politikaria ta dirukeriaren elburuak, bakoitzaren tankera, naimen eta nortasuna ondo ezi бага doazenean, gizarte-aurrerakuntzea txarto ibilli bear. Erri bertako ta beste laterrietako gizonen artean ikusten doguzan ezbardintasunak, txarrak dira, eta etorkizun illun eta zemaitez betetakoak.

Ez da izaki oroen Egilleen siñesmenik eta itxaropenik ipinten. Jainkoa'ren laguntzean ez daukagu ustebiderik, batez be Aita baten semeak alkar maitatzen bear dogun maitasunik ez dogu ikusten.

Gabonetako jaiak, iñoiz zaartuten ez garean aldia izan bear dabe. Jai oneik beti dauke guretzat lilluragarri zozagarria dan biotz-ukutua. Ospatzen dogun ezkutukiak —Jaunaren Giza-izatea ta Belen'en Jaiotzea— irakaspide aundia dabe. Orretan onurarik ez egitea tamalgarria litzakigu.

Gizonaganazko Jainkoa'ren maitasuna da irakaspide ori. Baita gizonaren eta Jaunaren adiskidetasuna be. Gizonok anai gareala, Jainkoaren maitasuna alkarrenean ikusi daigun, Jainkoaren maitasunean, gizonak alendu daigun gorrotoa ta alkar parkatzen jakin biotzez.

Burrukazale ta norberekerizko ludi au, bake, anaitasun eta maitasunaren paradisu bat izatera biurtu bear dogu. Olan, zeruko abindu ta nai a beteko dira:

«Bakea lurrean gogo oneko gizonai».

LETONA

AURTEN IKUSIA

Biar illebet bi,
«kifofano» deitzen duten gelan,
ocean luzu-luze nintzala,
sartu ninduten.
Gela ilhuna, zuri-zuria, bildurgarria.
Erdian ebaketako maia prest jarria.
Goian argi-ontzi borobil aundia,
oraindik itzalia.
Ortik gelako illun-aldia.
Inguruan gizon ta andra bat.
Danak zutik,
zuriz jantziak,
beren zudur-ago ondo estaliak.
Danok zutik eta ixil-ixillik,
manu, iratxo, zomorro iduri.
Luzatu diet nere besoa...
ta zait...
Agur ni beste mundura...

Ordu ta laurden,
egon omen nintzan orrela.
Bitartean, gorputzaren jaun ta jabe ziranez,
berak egin zuten,
nere belaurian, beren lana

Gela eder, argitsu barruan,
munduratu nintzan bat-batean.
Nun ibilli nintzan ba-ni?
Nere gorputza ebaketako mai gañean, noski.
Baiñan nere gogo-almenak?
Jardun al zuten beren lanetan?
Nere ustez, iduripena nagusi jardun oietan.
Gaixoak itz-ontzi egiten omen dira zori ortan.
Ni berritxu izan ote nintzan?
Jardun ni... zer gaietan?
Iñork ez dit txintik esan.

Gero... zortzi egun,
oe gañian, luze ta biguñ.
Ori bai, geldi-geldi egoteko,
alegiñak egin nitu.
Baiñan eri-zain aldetik,
ondo zaindua,
ta begiratua.
An egun luzeetan, iñoiz bakarrik egon.
Nerekin beti nere illoba Itziar,
Laguntzeko emai, biotzez on.
Goiz, arratsalde,
utsik egin gabe,
adizkidean arpegi alaiak,
jardunketa goxoak,
baikortasunez betiak.
Biotzez mil esker danori.

Izan nitun beraz,
egun oñasetsu oietan,
alditxo naretsu batzuk irakurtzeko.
Norbaitek ekarrita,
olako batean,
eskuratu zitzaidan,
«Ez det iñori utziko, nere eriotza lapurtzen»,
izeneko, idaz-lan mardula.
Laterri askotan aur-galtzea,
legezkoa egin dutela ta,
ara... bizitzaren asieran,
bitzitz lapurketa,
legezko egiña.
Baiñan ortan geldituko ote dira?
Bai zera...
Orain «Eutanasia»
eriotz gozo,
eriotz ezti,
urtetsu ta gaixoentzat,
eskatzen omen ari dira.
Lapurketa berria.
Gure-guria dan eriotzaren lapurketa.
Nobel sarituen itzak dakarzkite,
berri iritziari indar emateko.
«Oñazea gaitza da.
Erri «zibilizatuak» ezereztu bear dute».
Baiñan nola oñaze danak ezereztu?
Ara or kakoa.

Ordun guri, urtetsu ta gaixoeri,
«Eutanasia» eskemintzen digute.
Lapurketa naskagarri, gorrotagarria,
legezkoa lortu nai.
Baiñan orrekin asetuko ote dira?
Ume gutxituen txanda,
ez al da izango gero?
Laterri askotan ikusten degu,
politikan etsai diranen txanda.
Erri batzuetan kristauak diralako.
Bestetan, Jainkogabeok, «gorriak» diralako.

Oñazea... Eriotza...
Biotz estura bildurgarria.
Kristo gurutziltzatua dut,
aurrez-aurre orna txurian zintzillik.
Berari so egin...
Maitasunez begiratu Berari,
ta ara... kemen-indarren iturri.
Beragan pake ta atseden arki.
Adizkide, zure oñazetan
orra zer egin.

ZUBEGI

OLABEAGA'TAR IÑAKI

ARRATIA

Arratia

Udarao joan zan, udagoiena uretan ito-baiñik, ate-joten dogun negua aspaldikoetan gorriena izango ete-danaren zurrumurru baltzak edonundik. Baltza dan guztia baiña, ez da illuna, ituna, negar-bide ta begi-tanta.

Odoloste, estebeltza izenez eta izatez baltza dan arren, zibor ikolduentzat bai, bera lakorik, alai eta pozgarririk, besterik zer? Bi aldizko odolostegintzan agertu dauskun esku ona, egingo dituanetan galduko ez ba'leu, Artxanda'ko Anton Tartzan'ek, Bizkaï'ko txapela buruan izango dau.

Itxi daiguzan baiña, oraingoz, odolostelurrinak alde batera, eta ekin dagiodan mataza barri batetik aria egiten. Lentxoagoan izan genduan solas-izketa edo barriketalditik bidea urratu, eta etorriko dan udarako lanak garbitzea egiten.

Makallo, sukalki, arrautzopil, marmitako, talogintzak... sabel-jaiak!

Arantzazu'n, San Justo'n eta Iurre'ko makallo-leiaketa jaietan, alderdikeri ta tranparik ikusiak gozuez.

Arantzazu'ko leiaketan gizon ezkonduak bakarrik izan ziran txastatzaille, probatzaille. Etxean aginpide gitxidun senarrakaz, aurretiz erabagirik egoan tranpa egitea. Eta egin zan, etxeoandrak esku... utsik itzirik. Gure etxeoandre kiriotsuak arraioka, zentallaka ta... kabuenka asarez barriro ikusi ta entzutea baiño, txastakerea erabarritzea guztiontzat obe.

Zeanuri'ko Ozerin-mendi inguruan, San Justo'n, esturik eta larririk ibilli zan Maskillu adiskidea be, eskuan cukan etxean erreko ogi ederra ixil-mixilka txastatzailleari zelan deabru emon etzekialarik. Irugarren saridun egin zan. Ogirik izan ez ba'zan... zer?

Aldi baten S. Arana, ta aspaldiz M. Oreja izena daroan Iurre'ko plaza zarrean bai ikusi genduala unteza ondo jo ta sartzen, gure adiskide zar Landajo.

Landajo'k, begi askoren aurrean egin ebana guztiz ondo egiña ez egoala eritxita edo, zelan edo alan, berak jakin nolan, goizean gertaturik etxean eukan erratillukada ederra maiaren ganean jarri... ta lenengo saria!

Aspalditxo onetan lau aizeak dabilkiguz artegarik eta ipur-dantzari. Pipertuta. Ez uste ba, baratz gaiztotuko piperrak piperrago egin-asmotan ari naizala.

Egiñak egiñik dagoz, esanak parkatu; eta i, Landajo, guzur ta egi nasturik ikustean ez adi larritu.

LANDAJUELA'TAR A.

Galdakano


USANSOLO JAYETAN

Erririk geyenak izaten dabe euren-eurena dan zerbait berezi, ta zabalak diranean baita euren auzuneak be. Galdakano'n ba-dogu onetariko auzotegi andi bat, errian zabalena ta bizilaguntsuena dogun Usansolo.

Onek, beste auzoak baiño zabalagoa izan be-ta, besteak baiño jai ugariagoak ospatzen ditu, naita geien baten euritsuak izan. Ander deunaren omenez, bere egunean eta urrenge igandean izaten dira. Aurten, mailla guztietako lasterkarien leiaketea izan ezik, ez dabe berizitasun aundirik izan, bear ba'da, ez eben izango erri agintariengandiko la-guntza andirik-eta. Dana dala, notintza andia ikusi zan.

Usansolo, lauren bat milla biztanle edo geiegoren jabe izango da, Labeaga'ko auzune euskeltzalea tartean zenbatu barik. Ez da baiña ori gaur aipatu nai dogun berezitasuna, beste zerbait da.

Lenengoa, naita atzerritar asko sartu izan, erriko auzuneetatik euskera geien entzuten dana da. Or darabilen euskerea, euskera txukuna benetan, Arrati'ko euskereagaz zer-ikusirik geyen dabena da, beste galdakaotarren gandik zerbait bardingea.



Baiña, «beste galdakaotarren gandik...» esan dot, eta ez dakit zelan artuko daustezan itz orreik usansolotar azke-zaleak, naizta adizkide onak izan orko euskeltzaleen artean. Oraindik be, usansolotar asko dira, erri barrura au da, erriko udaltxera, enparantzara, eleizara edo beste zerbaitera etorri ta etxeratzen diranean: «Galdakao'ra joan naz; Galdakao'tik etorri naz» eta abar esaten dabena.

Baita, lengo Galdakano zarretik alde egin bear ebela sarritan esanak ziran. Eta Primo de Rivera' ren aginte aldiaren, usansolotarren urduritasuna ikusi-eta, bertoko jauntxu batzuk lenengo onkadak emon be, Galdakano'tik azkatuteko... baiña ikusi zanez, ez bere buru-jabe izateko. Bedia'gaz bat egiñik, jauntxo orreik Galdakano'n lortu ezin eben agintaritzaren jaube egiteko baiño. Beraz, usansolotar jatorrok, orain be ba-dozuez euren agintaritzaz lortzearren auzotegi eder ori atzerritarrai be salduko

BARRIAK

leuskienak, lendik be ba-ziran orreitarikoak. Zur ibilli ba, «azkezale» barriekin be.

ELEIZPE BARRIA

Bear-bearrezkoa izan be-ta, asi barri dira erriko txadon nagusiaren aterpe edo eleizpe zarra barriktuten, lengo zar itxusia kendu ondoren, bere tokian andiyagoa ta zabalagoa egiten. Ba-genkian orretarako eratuta egoala eleiz barruan batzorde bat, eta gure txanburu gertua be, aspaldiz, batera jo ta bestera etorri, gelditu barik ebillana, bearrezkoa gendun aterpe ori osotzeko. Ea ba laster baten ikusten dogun guztiz amaituta ta apain.

BASA-JAUN

Bilbo

KATHE KOLLWITZ

Erakusketa bat antolatu da Bilbo'ko Museoan, Kathe Kollowitz'en gorazarrez.

Kataliñ edo Katalintxu esango genioko euskeraz Kollwitz germaniar andra ertilari oneri.

Bizitasun ikaragarriaz egin zituan bere dibujo, grabadu ta eskulturak. Marrazki, xixel-lan eta taillubierrak.

Bere bizitzako gertakizun lazgarriak eman zioten gaia erti-egintzarako. Gerrateak il zionean bere seme maitea, erdibiturik geratu zan Kathe Kollwitz'en biotz sentikorra. Bere bizitza guztirako gelditu jakon zoritxarra, eta ertilanetarako iturri ta mugida etorria.

Ikaragarriak dira izan ere Kollwitz'en lanik geienak. Barru-barrenetaraiñoiko zirrara samingarria ematen diote biotzari.

Beti agertzen da amaren oiñaze aundia ertilan orreitan. Irriparredun arpegietan ere, samiña eta atsekabea barruan.

Erakusketa-gelatik irtetze ordua da. Udazken orri batzuk oraindik lorategi-basoko zugaitz neguetan. Erortzen daude azkenengo orriak, gorri-ori orriak.

Tchaikousky'ren patetika biotz-eragille doiñuaren antza dakarte itxasoko aizeak eta basoko zugaitzen artean sortzen duten melodiak.

Gure gerratean, eta joan dan gizaldiko gerrateetan, ainbeste gazte il ziran mendi-basoan, an goian. Mendi orreitan il ziran gazte aien amaen samiña, oroi-garri. Kathe Kollwitz eta beste kontau ezin diran munduko ama saminduen biotza ikusi dugu erakusketa onetako ertilan izugarrietan.

IKER

Igorre

GARAKOIKO «TXATO» IL JAKU

Abenduko l'an arratsaldeko 7'etan, bere auzunean, ez bear batean, gizon, lagun ta euskaldun zintzo bat il jaku.

Danok dakizuen lez, Bilbao'tar Pedro edo obeto aituko dozue, Garakoi'ko TXATO, esanda.

Une onetan ixillik egotea obeto dala esaten dabe, baiña nik aldizkari onetan azken agurra emotea nai neuke.

Gure «TXATO». Nok ez eban ezagutu?

Bere irripar bero ta zintzo bategaz ezpanetan, alaitasun eder bat biotzean eta bere panderoa eskuetan, ainbat erromeri alaitu, ainbat poztasun emon zituan.

Ez, Txato, zu ez ziñan jakintsua, baiña bai zintzoa, zure biotzak, laguneri kalte egitea, ez eban onartuten.

Zure bizitzea, euskaldun zintzoena izan zan.

Naizta jakintsua ez izan. Zuk gauza bat ikasi zendun, zure alaitasun bero ori, beste batzueri, esku betean emotea.

Nik ezagutu zaitudan denporan, zure arpegia ez zan polita, baiña danok, jakin gendun zergaitik ez bear ori izan zan, eta zuk eroaten zendun arro, burgoi, lotsa barik, (izan bear eban lez), jakin gendulako zuri ori orain ogeita amazapi urte dirala, zure erriari, zure Euskalerrri'ri erantzun zintzo bat emoteko izan zalako. Ikasi daigun gazteak!

Agur «TXATO», emen idazten ta idazten egongo nintzake, baiña zuk ba-dakizu gauza guztiak asiera ta azken bat daukiela.

Itxi baño ariñago eskari bat:

Emen izan zendun umore ona, kendu bako irriparra; bardin jarraitu dagiela or, gure goiko zeruan eta Jainkoaren onduan. G. B. Agur.

IRRINTZI

Sopelana

Egun batzuk dirala, Bilbo'ko eguneroko baten igurraztitxo irakurri gendun. Bertan, Sopelana'ko erria, argazki ederretan agerten zan, eta erriko barri batzuk be emoten ziran.

Baiña leku txiki orretan uts bi, eta aundiak, aurkitu genduzan.

Lenengoa, San Andres baseleizearen argazki alboan, orain urte batzuk jausita egon zala ez azaldutea, ta Nikola jaunak, errian dirua ta laguntzea eskatuta, bera peoi bearretan aurrenengoa zala, barritu ta altxa ebala.

Lan orreik amaitukeran, Zamora'ra eroan eben —errudun edo errubako, Jaunak esango dau azkenengo itza— eta baseleiz ori zabaldu barik dago berari begira.

Beste utsa, gure ustez, «personaje popular»ren ipinten dabena da. «Popular» errikoa ez da ba? Errikoak ezagutu ta maite izatea, ori dala errikoa izatea uste dogu.

Andra ori, «diru-emoitzaille» dan ala ez, nik ez dakit. Baiña errian berrogei urtetik bera gareanok, gitxi ezagutzen dabe. Eta berak geu, gitxiago. Zelan ba maitatu alkar? Ez dago ba Sopelana'ko errian «personaje popular»ori.

Bai, esango neukez batzuk neuk be. Bestela etorri, jaunak, eta itaundu Sertutxa'tar Batxi nun dagon, umetxo, gazte edo zaar bateri, eta laster emongo dautzue bere barri. Bertokoak gareanok ziur, eta erbestetik etorrikoak, naizta asko izan, orreik bere geienak. Oneik be, arpegia irribarrez dabela, bere barri, euzkeraz zein gaztelesez, emongo dautzue.

Emen ba Nikola ta Batxi, Gabonetako nere omenalditxo au. Txikia ba'da be, biotzekoa da, ta ez bakarra bere, ziur asko.

MARKAIDA

ESNEAGAZ EGINDAKO

ESKATU BASELARI

UMETXUENTZAT

ADINEKOENTZAT

CHOBIL

ESNEAGAZ EGINDAKO

IURRE'N

Ez dakit gogoko izango dan ala ez. Par-katu. Iurre izena erabiliko dot. Ezagunena dalako. Igorre, Iborre... eta besteak ba daki-daz. Baiña iurretarrei edo igorretarrei laga daioguzan eztabaidak. Onetan etxe beteko zer-esana ezta leike. Eta ni erriz erri nabil gain-gaiñetik, pasadatxoan, azal-azalek ager-izen. Ikusi ala esaten, jakin ala agertzen, maixu irakaskintzarik artu barik. Norbaitek esan eustan, akulari, kanpaitoretatik nabillera Iurre'nik ikusten. Ordago.

Iurre'n nago. Barriro Arratia'n. Ba daukat beste erriren bat be oraindik agertzeko errialde onetan.

* * *

Bost milloz pesetako erri dirutza edo presupuestoa euki dau aurten Iurre'k.

Urak batu ezinik, eta urak jaurti ezinik. Zeatzago. Ur garbiak ekarri ezinik eta ur zikiñak euren bidetatik bialdu ezinik. Errientzako buruaustek izaten dira orreik. Problema.

Bigarren mallako irakaskintzako kaiola bai, Institutua bai, eta txoriak falta. Azken kursoetarako bear aña ikaslerik ez, kurso osoak emon al izateko. Eta etxea eukita, batzuk erbestera urten bear. Ori be mingarri da. Ala aurten.

Bi milla eta zortzireun bizi-lagun inguru. Irutik bi euskaldunak.

Onela dira nire oarrak.

Albokarien erria. Ba dakiez emen albokeagaz kantu garratzak jo eta kanta eragiten be:

Mari Trapuzar, iñarteko sasi artean jaoa, egundo bere ez don ikusi eure gerrian gorua. Aita ta semea tabernan dagoz, ama ta alaba yokuan, ostera bere egongo ditun abarka zarrak kakuan.

* * *

Urtearen azkenean san Silbestre. To! Ba goaz azkenetara. Ba dator san Txilibristo. Esakera da: san Txilibristo, besigua ezpanetatik dingilizka. Ez dakit arrantzaleak be gaur aimbesterik esan leiken. Iurre'n beintzat olakorik ezin esan. Baiña emen be ezagutu izan ben Txilibristo bat. Garamendi'n bizi ei zan. Indartsua. Beste bat ez lakoxe. Burdia lepoan artu eta Urkusu'n gora eroaten ei eban Garamendi'ra.

Bera zala ta lamiñak galdu eta amaitu ziran Iurre eta inguruetan.

Bein bidera urten ei eutsan lamiña batek. Berak indarrez artu eta bere etxera croan. Bai estu artu be an. Eta lamiñak zelan il eikezan bein da betiko atara. San Joan goizean jaiotako txekor nabar bi itilleaz, goldeagaz, errekarre inguruetan ibilli ezkerro galduko ziralta, autortu eutsan.

Ori entzunaz batera iurretarrak auzorik auzo ibilli ei ziran txekor orreik aurkitu arte. Eta gero erreka eta errekoedoetan itillea erabili ebenean, benetan be betiko bakea lortu. Arrezkerro ez ei da lamiñik Iurre eta inguruetan agertu ei ezagutu be.

Ipuña? Egia? Ala ba'zan edo ez ba'zan, sartu dedilla kalabazan.

* * *

Kalean nabillera gazte batek itaundu daust: Zer esan nai dau erderaz iurrek?

Ez onetan jakitun, baiña pixkat gogoratuz erantzun dautsat: iur, iurre, erderazko «yezgo» izango da.

—Eta zer da yezgo ori?

—Zer izango dok, ba, mutil: iurre.

Eta or geratu da mutilla, katea nun eten ez ekiala.

* * *

Antxiñako erria da Iurre.

785 urtean jaso ei zan zumeltzutarren etxe indartsua. Indartsuago bat agertu yakon andik urtetara, eta 1055 inguruan, abendafiotarrak deuseztu eben. Eta ordez, bere aurrean, ibaiaren beste aldean, Urkizu torreati atek ezaldu 1085 urtean.

Beste etxe jator bat: Iurre. Napar erregeen odoloko zan Zelinoz bat bertan bizi ei

zan. Ba dira diñoenak erriak etxe onetatik artu ebala bere izena, au, da, ortik datorkiola erriari izena. 1198 urtean gertatu zan ori, batzuen eritiziz.

Beste etxe jatorrak, abizen askori jatorria emon eutsenak: Ubiritxaga, Egia, Irazabal, Iurrebaso, Zuriaga.

Zumeltzu'ko San Andres, sasoi baten parroki izana be, urtien urtetan galtzen da. San Andres onen eleizpean ba egoan illobi zaar bat, azur zaaragoen arka.

Delmas'ek egiña da Zumeltzu'ko ermita onen monografi bat. Eta au diño: 17 etxe jaun eukazala auzoan. Ermitak 42 oin kanpotik eta 36 barruz, 17 zabal eta 17 luze. Ez torrerik, ez bobedarik. Aldare zar eta apurtua, eta iru imagiña itxurabakoak. Ez sakristirik, ez pulpitorik. Bataiotaroko ponte koru azpian bastertuta. 9 illobi edo sepultura bere barruan, zazpi oin eta erdiko koroa eta bertarako eskillara okerra. Parrokiko abade batek serbitzen ebala.

Elgezua'ko Andre Mari Bizkai'ko eleiza zarrenetarikoan artean agertzen da beti.

Ermitetara ba'goaz letani luzea bearko genduke. Bederatzi bai beintzat. Auzoak baiño geiago, auzo lez Basautz, Garbe, Loiate, San Juan, Santa Luzi eta Urkizu kontatu ezkeroz. Santa Luzi'ko ermita be, sasoi baten parroki izan zan eta inguruko ei eleizan bertan emoten eutsoen lurra.

Andra Mari'ko parroki 1787 urtean anditu eta barriztu zanean, jaunartzeko adifean egozan 650 eleiztar batzen ziran bertan.

* * *

Amarren bat urte dira. Trenean niñoian. Gizon andi bat sartu zan Burgos'en. Sotanea euki ez ba'leu, baserritar traketzen bat zala esango neban. Sartu ta laster, agur jatorra egin ondoren, idazteko makiñatxo bat atara, bere belaur gañean ipiñi eta antxe asi zan zerbait idazten. Lo gurea eltzen ba'yakun, adierazteko, esan euskun, makiñaren tak-tak zarata etzala ain zuzen be lo kanta-ta.

Geroago asi giñan kontu kontari, ta bere umorezko esanekin, uste baiño len eldu giñan Madrid'era.

Sagarminaga jauna zan. Iurretarra jaiotzez. 1890'n. Mundu zabalekoa bizikeraz, mundu guztiko ametsez. Mixiolarien arnasa. Obispo egin bear ebela ta zabaldu zan bein. Berak, ameslari zan arek, orretantxe ez-e beste edozetan amets egiten ei eban.

Kristau fedeaz zabaltzeko garra erabillan berak. Gizon jatorra, akularia, zorrotza, edozeiñen lagun izan eta egiteko gitxik aiñako zerbait eukana.

Gau baten trenean il zan, erreta. Bost urte diralata nago ori zala. Tren bat lez izan zan bere bizia. Ameslarien tren. Eta orra trenak su artu eta bertan erre ta il.

Euskalerri'tik kanpo ibilli bear izan eban bere denpora luzetan. Baiña edozeiñek ekian nungoa zan: iurretarra.

* * *

Goazen barriro kontu zarretara. Zar eta barriak.

Gernika'ko batzarretan 65'garren emoten eban, eleixatean artean, bere erabagi eta botoa.

Iru burdintegi euki zitun eta amairu errota. Ortik igarri, baserriak kenduta, zelako langintza eta bearra egongo zan emen.

Urteera bat eukiten ekien arratiarrak azken urteetan. Bilbo'ko kaira, portura. Ango nasa eta molletako langille. Esku beartetara geienak. Pioitzara. Ango ontzintzako lan-tegietan be, astilleruetan be, lekua billatzen eben. Gaur be ezagutzen dodaz bide ori jarraitzen dabenak.

* * *

Iurre.

Zornotza'tik Lemona'ra jo eta Arrati'ko ibarreat, lenena. Erri txiki, jator, zintzoa.

Ingurutako errien artean, eguneratzen, gaurko erako ogi-bidea billatzen, geientsu alegindu dana.

Norbaitek esaten ekian: Iurre, Arrati'ko uurre. Guk be eritzi ori dogu.

A. ZUBIKARAI

AGVR

Apartado n.º 2
BILBAO

FRANQUEO
CONCERTADO
08/55

GIZONA

LENENGO MAILLAN

Lurbira onetako izaki guztien artean lenengo maillan agertzen dana gizona da. Yainkoak «Bere antz eta irudira» egiteaz adimen eta aukerarena emon eutsazan eta beste gauza guztiak bereizatz egin. Gizonaren nortasun eta duintasunaren oinarria orixe datza.

Orregaitik gizonari «gizon» dalako, beste barik, itzal eta begirune andia zor yakoi. Zor yakon itzal onen zusteria yakitun, aberatz naiz indartsu izatean ez dago, beraz, gazte naiz zar, yakitun ala ezyakin, aberatz naiz beartsu, baltz naiz zuri, bardin da, Beintzat alan izan bear leuke.

Tamalgarria da, len eta oindiño be gauzak besterantz gertatzen dirala aibeste bider ikusiaz, oitutea, ta alan izan bear dabela uste izatea.

AITA BATEN SEME

Guztiok gareala irakatsi euskun Yaumak, gizonaren duintasuna gorengo maillara yasoaz. Eta anayak legez guztiok alkar maitatu bear gareala.

Alan da guzti be, edestian atzeruntz begiratu ezkerro, guda, asarre, alkar aitu ezina ta iskanbilla ta indarkeri ugari gaztietan agertzen dira. Gizona, gizonarentzat kendu ezkerro gizona ondatuta gelditzen dala.

Gaur guk ezin dogu ulertu be, gizon bat bestearen yopu izan litekenik. Gizon batek uskeri bategaitik, bestea il eta saltzeko eskubidea aurrez ontzat emoten zan, eta eririk aurreratuetan be, legez galerazo ebela, ez dira oindiño eun eta berrogetamar urte.

Eta ointxe Apirka aldean eta ixillean baiño ez ba'da be, txalok saltzen diran lez, azoka edo ferietan saltzen dira. Gaur aibeste buruauste emoten daben Ipar-Amerika'ko baltzak, olantxe eroandakoen semeak dira.

GIZONAREN ESKUBIDEAK

Gaur egunean, besterik ez da aitatzen gizonaren eskubideak baiño. Onak gauza bat esan gura dau: orain arte benetan ez dirala aintzat artu. Ta, oin be, ONU ta «Pacem in Terris»ek aitatzen dituezan erdiak alde guztietan beteko ba'lira, asko portuko giñake. Izenbetu laterri guztiak egiten dabez, baiña betetea auzozretzat sarritan izten da.

Baiña eskubideak eskubide dira, naizta iñork aintzat artu ez. Eta gizon eta erriak, gizonaren eskubideak aintzat artzen dabezan neurritz, aurreratuak izango dira. Au arautzat artu ezkerro, gaurko gizartea aurrera doala esan ete geinke? Gauza askotan, bai, baiña onetan...!



BIZITEKO ESKUBIDEA

Gizonaren eskubideen artean lenena biziteko eskubidea da. Ori iñork ez dau ukatuko. Alan da guzti be, gaur ikusten danak ez dauko izenik. Su-izkillua eskuetan artu, eriotzaz zemaitu eta egun argiz lapurretan egiten da, ta bear ba'da, gizonari bizi kendu be bai ezertarako begirapen barik; lerkia yaurti eta errubatuak il: gizonak eta egazkiñak be baituran artu eta eskatzen daben emon ezik, errubakoa izan arren, bizi kendu... Orixe da izparringi ta irrati-urrukusiñak begien aurrean ipinten daukun eguneroko ogia.

Eta epai ala epai barik illen diranak, egunokaz Etiopia'n yazo dan lez? Orrez gaiñera, «legez» ontzat emoten daben, munduratzeko umeak, abortu bidez erailtea? Ba, Prantzia'n be ontzat emon, edo beintzat zigorgarritzat ez dabe etsi lenengo amar asteetan erailtea abortu bidez. Eta ori eriotza bat dala ikusteko u da zentun andirik bear. Non da ba biziteko eskubidea?

Ta gaiztakeri ori aurrerapenaren izenean egiten dabela esango dautzue oindiño!

ANTXIÑAKO GOGORKERIA

Ba-dakit lenagoko gizaldietan, epai gogorak, garrantzibako okerrak emoten ziralta. Baiña orri ez dau esan gura, gaurko gogorkeria txikiagoak diranik. Esaterako erru txiki bategaitik eriotza epaya emon. Ara olango bat. Erbestean nintzala Cobemartin deritxon erri batera igandez yoaen nintzan. Lenengo egunean, an begien aurrean agertzen zan mendizkea zelan eritxon itandu neban: «Hangman» erantzun eusta. —Eta, an gogoko mendiri? —«Great-hangman». Ta, esan neutsen, —Orrek urkamendi usaiña dauka. —Bai, orixe esan gura dau; or mendi txiki orretan, arkume bat ostuten ebana urkatuten eben, eta ardi ta ostu ezkerro, an goiko mendian.

Orduan be ba-zan gogorkeria, baiña oin gertatzen dana ez da txikiagoa. Eta ori gu «zibilizeuta» gatzala! Basatiak ba'giña, zer yazoko ete litzake?

Gizonaren eskubideen alde zintzo yokatu bearra dogu ba, benetako «gizon» izatea gura ba'dogu.

GAMA

LATERRIKERIA

GAURKO GAIZOA

Oraintzu, AGUR aldizkari onen atariko idazki baten auxe irakurri legikean: Diruketearen larriuneak, trebetasunaren utsak beste barik ez dirala izaten eta orregaitik izan dagikeen urtenbidea be trebetasun utsetik ez dala etorriko, politika ta gizarte aldetik baiño.

Marx'ek, bere aldiko kapitalista gizarteari egin eutsan aztertze zorrotzetik atera eban ondoren au. Eta gero, emeretzigarren gizaldiaren azkenean eta ogeigarrenaren asieran izan ziran larriuneetan (1929'koa barru dala) olantxe bete zan, batzum erlejiñokeria kontuan artu arren be.

Gizarte domu-zalea asko aldatu zan. Alde batetik langillediak, bestetik politikarizurruak, orretarako lan egin eben. Aldakuntza orreik bearrezkoak ziran, agintaritzan jarraitu gura ba'eben. Eta ortik sortu zan, sartaldeko gizarte demokrati-zale barria. Au batez be 1945'etik gaur arte agiri da.

Baiña gaur larriune barri bat etorri jaku mundura, eta larriune onen izakerea ta iturria ez dira Marx'ek aztertukoan antzekoak.

Indar-iturrien, janarien eta diruaren larriunea edo krisisa batera dabilte eta nastatuta dator gaur, eta ortik sortzen dira gaurko munduaren korapilloak.

Baiña korapillo onen askabidea agiri dala esan lei.

AGUR'eko idazlan aretan esaten zan lez, demokrazia sakontzea, gizarteratze aundiagoa eta ondasunak obeto banatzea, ta batez be, alkartasunerako sartaldeko gizonen eragozpen diran laterrikeri zar-tuak iztea da bide zuzena.

Laterrikerian geien sartuta dagozan Europa'ko laterrikeriak (Frantzia'k esatera-ko) ikasgai au ikasi dabela esan lei. De Gaulle'ren ondorengoak, arek zabaltzen eban laterrikeria apurtzen diardue.

Aditu eziñekoa izan arren, beste au be esan bear dogu —Ai Marx zutunduko ba'litzakegu!—: Komunistak eurak dira, emen be, De Gaulle'tarren ametsai lagun-zen dautsenak!

Ez dakigu oraindik, Frantzia'ko gizarte-zaleen egoerea zein dan, naizta gizarte-zaleak (sozialistak) geroago ta ugaria-goak izan bertan.

P. C.'gaz egin daben alkartasunak, alde batetik, esan dogun politika zarraren ondoan ezarten ditu.

Europa'ko beste sozialista-alderdiak, ostera, aurrerabidetik geiago ibilli dira.

Oraintxe dago ezbaian, Frantzia'ko sozialista edo gizarte-zaleen artean, zein bide artu: ala Giscard'egaz eta kapitalismo bizi ta aurrerazaleagaz alkartu, ala P. C.'ren ardurapean, ezkerrekoakaz batera, laterrikeri geldituan iraun.

Lenengo bidea, laterri - artearen eta demokrazi zabalaren bideak bakarrik izango dira Sartaldea demokrazia ta sozialismora eroango dituenak. Ez aitzu laterriarte ta demokrazi zabala alkarren aurka ez dagozala eta batera ibilli leitezala.

Eta ba dakigu zein izan leiteken beste ertza: Basakeria, aldi bakoitxean era batekoa izan leiteken basakeria.

Gauza bat bai ba dagola argi: Gaur ezagutzen doguzen laterrikeriak, ez diruketa arloan, ezta politikan, ez dirala gaurko indar barriak eskatzen daben neurrikoak.

Aundiegiak be da dira eta ezin dabe euren diruketea zuzendu arrisku barik eta burokrazi astuna dabe galga (au argien URSS'en bertan agiri da). Eta txiki-geiak be bai gaurko mundu guztiko sal-erosteak daukezan eskabideai ta azoka zabalagoai erantzuteko. Europa bera, batu baiño be lenago, zar eginda geratu da.

ZELAKO JOSTAILLUAK?

Guztiok dakigu umeen eziketarako indar aundia daukela jostailuak. Baiña Umeentzat jolasgai oneik erosterakoan, kontuan artzen ete dogu garrantzi aundi au?

Gure adiskide ta lankide dogun Maitane, eziketa-gaietan aitua dogu, eta Erregeen egunaren aurrean itaun batzuk egitea asmatu dogu, gure irakurleei eta geuri argi apur bat egiteko ustez.

—Maitane! Guraso ta ezizaille asko dagoz arduraz egun onen aurrean. Umeai erosten jakezan jostailuak, euren eziketarako ete dauke garrantzirik?

—Bai, ziur. Eta garrantzi aundia euki be. Umeentzat kaltegarriak edo oso mezedegarriak izan leitezke jostailuak.

—Orduan, jostailuak jolastuteko, beste barik, dirala ez dogu esan bearko?

—Jolastuteko dira, lenengo ta beñen. Ori bai. Baiña ez orretarako bakarrik. Gogo-iztia dakien guztiak diño olako zerbaite: Umearen jolasa, bere lana dala eta jolas ori, elduen lana artzen dan besteko ardureaz artu bear dala, esaten dabe.

—Egia esan, margolari edo irudigille bateg, sarritan, ez dogu jakiten, eldua izan arren be, lan egiten ala jolastuten diarduan. Olako zerbaite?

—Bai, umearen jolasa erdi-lanaren antzekoa da: egilea da umea bere jolasean, maitetasunez beterik eta pozez beterik egiten dauan lan bat da. Eta orretarako alegin aundiak be egiten ditu.

—Jostailuak erosikeran ori kontuan izan bearko dogu, ez?

—Umearen alegiña eskatu bear leukenak, bere irudimena bizkortzen dabenak, bere egille-lana indartuko dabenak erosi bearko doguz.

—Ez da erreza guretzat, olako jostailuak zeintzuk diran jakitea. Zer artu bear dogu kontuan?

—Umearen urteak zenbat diran, bere gorputzaren aurrerapena zelan doan eta ze almen daukan.

—Umea bere jolasetan egille dala esan dozu. Egille izate ori zelan indartu ta poztu?

—Jostailu batzutan umeak ez dau almen asko agertzen. Orreik ez dira onenak. Beste batzutan, zenbat eta geiago erabili almen aundiagoak agertzen ditu umeak, eta orren pozez aurrera egiten dau. Oneik dira obeak. Umearen lana eskatu eta beroneri poza emon dagiola.

—Eta ez dozu uste, onenean be, egun gitxirako izango dirala jostailu oneik? Aurrrak ez dira makalak izaten jostailuak apurtzen. Eta gero negarra.

—Ori be kontuan artu bearreko alderdia da. Jostailuak al danik sendoenak izan bear dabe. Jostailu-egilleak uste daben baiño be, gogorrago artzen tzen ditue umeak euren jostailuak. Ez dira umeak onetan, elduen antzeko. Eta uste dogun baiño indartsuagoak izaten dira. Oba da jostailu gitxi ta sendoak, asko ta erre apurtzekoak baiño.

—Len esan dozu, jostailuak umeentzat kaltegarri be izan leitezala. Eta ori ez dabe gura gurasoak eta ezizailleak. Ori lortzeko ezer esan zeinke?

—Iñoz jostailuak ain ondo egiñak, osotuak eta zeaztuak izan diran lez, umeak eurai oratzen be bildur izaten dira. Begiratu baiño ez dautse egiten. Edo apaingarriak izaten dira. Olakoak izaten dira mekanika aldetik trebetasun asko daukanak. Eta ez dira ain egokiak.

—Eta aukarapen on bat egiteko, zer esango zeunkie umeai ta ezizailleai?

—Gaurko zabalkundeak dakarskun itsukeria ta nortasunik-eza alde batera



izteko. Saltzailleak zabalkunde asko egiten dabe, era askotara, urrutikuskiña (TV) alde batera itzi barik. Orreik gurgan egiten daben indarra ikaragarria da, baiña geure nortasunaz, aurka egiten ikasi bear dogu. Eta geuk egin ondo dago gogigun aukerapena.

—Eta umeen eskariak beti kontuan artu bear ete doguz?

—Ez beti. Sarritan umeak «au gura dot», esaten dauanean, ez da bere berbea, panpin edo kopin baten antzera berba egiten dau, eta alde guztietatik entzuna eta edonon ikusia agertzen dau. Orretan umeai jaramon egitea, ingurutik daukan zapalketa bateri laguntzea da. Orrelan bere benetako gurariak eta ametsak indartu bearrean, kendu egiten dautzaguz.

—Maitane! Jostailu asko ala gitxi erosi bear dautseguz umeai?

—Asko ez. Asko erosi ezkeru euren jolasa, apurtzea izaten da, eta jolastuteko bear-izantik ez dau asmetan umeak.

—Azkenengo itauna, Maitane. Ume euskaldunak jostailu bereziak bear leukeez?

—Orixe bai. Besteak be onak izango jakez, ume guztiak zerbaite bardiña dauken bestean. Baiña oso egoki dala uste dot ume euskaldunak jostailu bereziak izatea. Zerbaite egin da onetan, baiña gure asmamena laburra izan dala uste dot. Askoz geiago egin bear genduke. Eta eginda dagoana, obeto geuganatu.


—Laster goaz jostailuak erostera. Zabalkundeak egiteko gogo larregi barik, jostailu egokiak ditun etxe bat esango zenduke?

—IKIRIKI etxe egokia dala uste dot. AGUR'en egiten dauan zabalkundeak be emen esan ditugun gaiak gogoratzen ditu: «Eziketa-jostailuak, eskulanetarakoak, irakasketa-gaiak. Jolasean ikasi, or zure aurrentzako emoitzi onena».

Guda-izkilluen antza daukan jostailuak alde batera itzi, eta bide au artzeko ordua dala uste dot. Baiña beste etxe askoten be, burubide onak eroan ezkeru, zer aukeratu izango dabe guraso ta ezizailleak.

—Milla esker, Maitane. Eta zure onuak ez doguz aitzuko aukerapena egikeran. Agur.





GATZ ETA PIPER

IKASTOLETAKO AIZEAK

Beti bat esaten, aspergarri be egingo gara, bear ba'da, baiña aari-topeka bezela ormen aurka ibiltzea baiño, buruz jokatzeari oba dala deritzagu, orregaitik ikastola bakan izteko eskaria egitera barriro ausartzen gara.

Baiña, ta or dago kakoa, ez gara danok auzi onetan iritzi batekoak. Adibidez, euskerre ta ikastolak iraultza izkilla dirala diñoenekin ezingo dogu batera etorri. Arrazola nun? Ondorenak eta etorkizunak erantzun bear.

A) **Bide txarra.**—Ez dira «gure asma-kizunak, ezta gure sorgin-billaketak» be. Orra or lanaren lanez eta guraso talde jator baten kemenez lortutako ikastola bat, Bizkaiko itxas-ertzean. Amaikaxo oztopo, neke ta naigabe gaindu ondoren lortua atan be... lan au idazten dogunean, zalantzean.

Zer dala-ta? Ba, Gabonil onen 12'gnean «opor-eguna» egin bear zala-ta, umeeri ez etortzeko agindu ei eutsen andereñoak. Lendik begiz jota egoan aurki, ta, zein gal-zorian jartzeko atxaki obarik? Ez dakigu zer jazoko dan, baiña odei baltzak zeru-ertzean.

Jainkoak lagundu bekiu, batzueri ta besteiri... ta ikastola orreiri!

Zertarako agertzen doguzan olakoak? Oker doazanak oartuaz, zuzendu daitezkan, eta erdi-lo dagozan gurasoak itxartuaz, arduratu daitezkan.

B) **Bide ona.**—Lengoaren beste aurpegi, edo Karmelo, Lauro, Begoñazpi ta beste ikastola batzuetan jai aldiak izan dira, Gabon jaialdiak.

Gabon inguruko jaialdi oneik ez dira, ezinbestean, poztasuna erakusteko; ez dira lagun urkoa aztuaz, jolasen ibiltzeko. Jaialdi oneik, diruz urri dabilzkan ikastoleri laguntzeko dira alde batetik. Gabon jaiari dagokien benetako kristau giroa emoteko bestetik. Eta bide batez, umeen biotzetan euskal-kutsuzko garra sortzeko biderik egokienak.

Ez dogu ba, ezelan be onartzen, barruko samiña erakusteko olako jairik ez dogula egin bear diñoenen barriketean. Jai oneiri uko egitekotan, zergaitik ez lenago oitura arrotzekin nastean datozeren? Ez ete dago laguntzeko bide obarik?

ARROLIOAN LAPRASTADAKA

Komunist-alderdiak lenengo kiñua egin ebenetik, palestinarren aldeko giroa sortu zan gure erritar gazte askoren artean. «Exodus» lenengo idazteuna aztu ondoren, arabitarren alde asi jakuz jo ta ke! Baiña nere begiko ez diran arabe orreiri «lau juantxo» arrolioaren jaun eta jaube egin jakuz. Mundua ankar-gora doa orren gorakadearen erruz, eta joko arriskugarri orretan asi ziranen, «irriparretsu» agertu jakuzan urko gizaseme batzuk, «jke» orreiri lagunak ginala esanaz. Orduan esan gendun, laprastadarak aundiena «lagunentzat» izango zala: Pompidou'k illordurako egin eban berea; bestearena, aundikienena beintzat, ikusteko gagoz.

ORAIN, PRAILLEARENA!

Gure arteko eztabaidak amaitzeko ordua eldu dala diñoenekin bat gatoz. Orretarako baiña, norbera besteiri indarkeriz sartzeko griñak alde batera itzi bear. Eztabaida orreik, sukalde barrukoak izanik, kanpora ateratzen ba'dira... kaltegarriago, eta konturatu ez ba'zara, irakurle, oraintzuko bermeotar batzuen lekuko.

Marisa, Joseba Iñaki, Amaia, ta Joxe Anton gure lagun onak zaree. Zenbat eta eskutiz geiago agertu, asarrea aundiagoa ta konpon-biderik bakoa nabarmenagoa. Orre-gaitik, agertu ez diranak gorderik, amaiera emotea erabagi dogu, idatz-batzordean.

Ba-dakit, langille amorratuak zarenok, batak bestearena aintzakotzat artzen dozuela, baiña itzak geroago ta zorrotzago doaz: ez dago salatariarik ezta euskaldun motelirik. Errudunik ba'dago auzi onetan, neu! Lenengo «posporuari» lekua emon neutsolako... gero, aririk kanpora joan dira, geinbaten. «Posporua» eskuan nebala, SUA biztu neban, emoidazue ba, danok, amatatzeko eskubidea.

Lortuko ete dot? «AGUR» onen oberako, ta gure arteko alkatasuna berotzeko, aztu dagigun auzi au, eta artu egizue nere bostekorik anaikorrena. Urte barri on danoril...

ARENAZATAR JOSU

UMEAK

Gizarteko aurrerapenaren neurri

Laterriak aurreratuen taldera sartuz doazala, aurrerapen orren maillea zein dan jakiteko, euren jakiturari begiratzean, umeak gizarteko bizitzan dauken garrantzia agertzen da.

Umea, oraindik ezagutu barik daukagu. Osagilleak, ezitzaileak eta gogo-ikasleak ba leiteke ezagutzea, baiña erri-maillan ez dogu ezagutzen umea. Nork daki zelakoa dan umearen gogamena, edo bere adimena, edo zeintzuk diran bere ametsak eta bildurrak, edo, berba baten esateko, nork daki umearen buruan dabilzen goraberen barri?

Gure errietan jaiak egiten doguz, baiña zer egiten dogu jai orreitan umeentzat? Erantzuna erreza da eta geure burua zurrutzea be ez gaitza: Jaiak elduak eratzen ditue eta, konturatu barik, euren jolasa billatzen dabe. Baiña pozik aundienaz jaiak itxaroten egoten diranak umeak izaten dira.

Nor egon leiteke gau oso baten lorik egin barik Errege Magoai itxaroten, edo nor da begiak zabalik amets egiteko gai zerbaiten poza daukanen?

Baiña, beste alde batetik gauza ikusi ezker, ze argi ikusten doguzan beste ondoren oneik be: Jakin-gurea ez asetuteak, bere poza, ametsak, egin-gurea, beste batzuk baiño geiago izan-gurea, ta olakoak, beteten ez jakozanean, umea beratu egiten dala eta denporea baiño len, zar izatera biurtu. Ez ilusiñorik, ez irudimenik, ez bera dana besteen alde eskintzeko laintasunik bako gizaki eldu egiten dala.

Pentzau-azo bear daukuan jazoera bat: Erririk aurreratuenak (Islandia, Finlandia, Suezia, Dinamarka), aurreratuenak ez trebetasun (teknika) aldetik, gizarteko gaietan baiño, gizon-talde bi, batez be, kontuan artzen dituela: zarrak eta umeak.

Eurak dira etxeko ta kanpoko erabagietan gixien sartzen diranak eta eurak, sarritan beintzat, egin diran utsak eta ondorenak leporatzen dituenak, eta ori eurak ezelako erririk izan barik. Oraindiño, ori orrelan izan arren, nork dauko guzti ori estutu barik artzeko, umeen beste adore?

Asko ikasi bear dogu umeakandik. Geu be iñoz izango giñan umeak, bear ba'da, baiña gaur ez gara.

Ikasi dagigun umeakandik, begira daukanaren arpegian asmoak ikusten, ikasi dagigun beragandik maitekiro begiratzen dautsanari, ezelako bildur barik, oso-osoa biotza zabaltzen. Aurrian daukanaren arpegian aldakuntza bat ikustea naikoa da beretzat iñoz, negar eragiteko. Umea ez dago txararen ordea emoteko itxaroten, ez dago txarra pentzaten; uste onagaz, itxaroten egoten da. Pozik egoten da, barrekaria da, sarri bildurtu egiten da, iñoz estutu be bai egoera zein dan ulertu ezin dauanean. Beste batzutan bere barretxua bearrezkoa dala igarten dau eta bere itaun ganorabakoak edo bere maitekeriak edo bildurra, bearrezkoak dirala jakiten dau eta bide orreitatik, gu zurrago egotea edo arduratzen gaituna aitzutea lortzen dau.

Eta zelan ordaintzen dautsaguz bere laguntze oneik? Gozoki edo jostailu batzuk emonaz. Ori ete da umeak bear dauana?

Au bai ba dala arazo guztia bertanbera iztea. Umeari zerbait geigo emon bearrean aurkitzen gara, esaterako gure biotz ona edo, bera geugana etorten dan lez, norberekeri barik geu beragana urreratzea. Eta eginbear oneri okerreko erantzuna emoten dautsagu.

ORTZE

1974 URTEKO A

Legeak agintzen dauan bideari jarraitzen, eta zuzendaritzari buruz diarduanen, asteroko onen zuzendaria ta jaubea Jose Maria Martin de Retana dala jakin arazoten dogu.

Ere berean, gure irakurleak jakin dagien, 1974'gneko artu-emonetan millo bat irureun eta zortzi mila ta berreun eta berrogeitabost lauerleko jaso ditugula, onela zantitza: arpidedunetatik, 959.375,—; aleka salduta, 18.926,—; arpidedun languntzailleengandik, 117.550,—; iragarpenetatik, 201.446,—; arpidetzatik oraindik jasoteko, 10.948,—. Danera, 1.308.245,— lauerleko.

Eta eralketetan emona: irarkolakoan, ingitan 188.349,—; irarlanetan, 941.875,—; klitxetan, 93.680,—; gero, ale-igorriketan, 35.449,—; zabalkundeetan, 5.122,—; adreman, 2.425,—; etxe-sarian, 27.600,—; eta danetarikoe-tan, 17.587,—. Danera, 1.312.087,— lauerleko au da, millo bat irureun eta amabi mila ta larogaita zazpi lauerleko, Ortik, urte onen amaieran, 3.842,—, iru mila zortzireun eta berrogeita bi lauerlekoren galtzea izan dogu.

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozcin, berekoi, politiko naiz ondasungarri asmoen gainetik daben iritzi-oneko euskaldun guztiak Euskeratza dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egileak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M.^a MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.

Carretera a Galdácano, 32 - Bilbao-4

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guttirako:

Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

II OLERKI SARIKETE A

15 urtetik beerako gaztetxoentzat

Igaz ospatu zan lenengoz euskal sariketa au. Elburu bat dauka: ume ta gaztetxoak be, neskato ta mutiko, bertso-zaletu. Gaur ba-dira bertsolariak eta olerkariak gurean. Alan be, sarri itandu oi dogu: «Zelan sortu ta ugarituko doguz bertsolari ta olerkari barriak?» Ortarako era bat beintzat, auxe: gaztetxoentzako be, bertso-batzaldi ta konkurtsoak ipiñiaz. Igaz asi zan ortan Zornotza'ko Erti-kultura Alkartea; egitaraua iragarri ta pilloka eldu yakozan umetxo ta gazteen neurtitzak, eta sariak banatzea, jente askoren aurrean oso polito egin zan. Eredugarri bedi ortik zear, beste batzuk be bizkortu daitezkan, Zornotza'ko Alkartea txalogarri au.

Batzaldiarako oiñarriak

- 1.—Batzaldi au iragartean 15 urte bete ez dabezan gaztetxoak eta Euskalerrria'n bizi diranak, bialdu al izango dabez euren lanak.
- 2.—Olerkiak, euskeraz idatziak izango dira.
- 3.—Gaiak: «Euskaldun baserria». Egillearen beraren lanak izan-

go dira. Itzulpenak ez dira onartuak izango.

- 4.—Luzeerea: 20 aapaldi edo estrofa geien be, al dala makiñiaz lerro tarte bika idatzita.
 - 5.—Lanak bialtzeko epea: 1974'ko abendu edo lotazillaren 31'a Zuzenbide onetara bialdu: «Sociedad Artística Cultural Zornotza». Juan Altzaga kalea, 4'garrena. Amorebieta (Bizkaia).
 - 6.—Zelan bialdu: Lema batekin izenpetuta; estalki baten barruan lema ori sartu, egillearen izen-abizenakaz, zein erri ta kaletan bizi dan adierazorik.
 - 7.—Epai-maia «Sociedad Zornotza»k berak izentatuko dau, ta bere erabagia gorago ezin-jokoa izango da.
 - 8.—Sariak banatzea, 1975'ko Urte-tarrillaren 6'an, Erregeen egunez, goizeko amabiak inguruan, Alkartearen batzartokian, ospatuko da.
- SARIAK: 1'goa.—«La Gran Enciclopedia»ren Trofeo 2'na.—«La Gran Enciclopedia»ren Trofeo 3'na.—«La Gran Enciclopedia»ren Trofeo 4'garrena.
- Eratu: Zornotza'ko Erti-Kultura Alkartea.

Bestso Zarrak eta Abesti Barriak

Deusto'ko jesuiten Ikastetxe Nagusiko Euskal Kultur Mintegiak eraturta, Azillaren 22'nean, bertso erritarrei buruz jai bat egin zan ikastetxe orretan.

Sarrerea merkea zan, 50 lauerleko, ta origaitik betien bete egoan tokia, Julen Lekuona eta mikrofonoen zain. Baiña oneik

eta arratsaldez jantziak aldatu, etxeko egin-bearrak bete ez, eta abar.

Erlejiñoa be bertsolari askok erabilli eben gaitzat. Orrela, Lekuona'k, Xenpelar'en bertso batzuetan aren siñismenaren sakontasuna erakutsi nai izan eban. Otoitz sakona dirudie bertsook.

Txirrita'ren bertsoarik onenatarikoak Lete'k abestu euskuzan; gaia, baserrietan gertatzen dana. Baserri bateko gazteak, baserria laga nai ta anai zarra zuritzen asten da saltzeko. Zarrak, bere ondasunen baserria laga bearrean aurkitzen danean, bertso itzal batzuk abesten ditu; jaioterria lagatzea baiño, Jaungoikoagaz adiskide izatea lenago dala.

Gizon lodia izan zan Txirrita (136 kilo), eta Pello Errota barriz, argala (61 kilo). Alkarregaz egin eben bazkari bateko bertsoetan, Pello'k jaten ebanari buruz bertso barregarriak bota zitun, bere pixu mirrin aregaz ainbeste jateko zelan iruntsi eikean ezin ulertuz.

Beste bein, asarre eta zitala zan frantzetar bategaz itz egin eta beriala aren kontrako bertsoak atara, aren jokabidez irabazi eikean inpernua gogoratuz. Valverde ta Lekuona'k abestu ebezan bertso oneik. Eta oraindik be, Valverde'k, Txirrita mutilzar lez agertzen daben bertso on eta barregarriak agertu zitun, batez be nesken lizunkeria ta zapuzkeriak gogoratuz.

Txirrita'ren aldikoa izan zan len aitatu dogun Pello Errota. Errotaria izan zan eta langillea izan arren, diru barik ibilten zan sarri. Bertsolari leiaketarik geienetan agertzen zan. Bere alaba Mikaela'k lagunduta, bertso paperak be atara zitun. Bere alabeak oraintzuarde kantatzen ebazan aitaren bertsoak.

Sariketa orreitako baten, Txirrita dotore jantzita ara agertzen ikusi eban. Ikusi or-

duko, bertso batzuk egin eutsazan eta Valverde'k agertu zitun. Txirrita'ren erantzunak, Lekuona'k abestu zitun.

Bein Azpeiti'n, baserriar batek bertso makalak atara zitulako, Zapai'k, orreik entzun ondoren, bertso batzuekin erantzun eutsan, moroen antzera agertzen zala arpegi jaurtiz. Valverde'k abestu zitun.

Ameriketara joandako gazte batek, Antonio Urbietak, sei bertsoetan agertu eban angio bizibide latza; beretzat beintzat. Euskalerrria gogoratzen dau maite-miñez eta an eroian bizi-moduaz neurtu. Lete, Lekuona ta Valverde'k iru abotsetara agertu zituen bertso oneik.

Mendaro'ko José Larreña ta Lazkao-txiki'ren bertsoak be entzun genduzan, Lete'k gure bizitzako edozein gizoni ataratako bertsoak entzun erazi aurretik.

Lete'ren abots indartsua entzun, Lekuona'ren gozotasuna ezagutu ta Antxon Valverde'ren esateko modua eta kitarra soñu onaz konturatu ondoren, betsoetzaz Oteiza'k esana gogora etortzen da: «Artearen begiz, naaste andiko kuadru baten antzekoa da, betetasun zintzo bat zainduz eta txukuntasun eratsuz alaitasuna erakusten daben jokera azke batena».

Amaitzeko, jai on bat, eta batez be, Bertsolariaren izatea obeto ikusten erakutsi daukun jai.

ZORU



berandu etorri ziran eta jai be berandu asi bear.

Lete asi zan bertsolarietzaz itz egiten; bertsolarietan berezko etorriak daukan garrantzia ta abar gogoratuz, eta gaurko gai asko, bai gizarte gai, eleiztar, politiku ta abar ikututeko, bertsolariak dauken egokitasunaz.

Lete'k garbi esan eban, gaurko jai au erätzen, ez eukala bertsolaritza jatorraren aurka egiteko asmorik. Bakar-bakarrik bertso zarrei umore barri bat sartu nai eutsela, eta Lete, Lekuona ta Valverde lako abeslarikaz bertso orrei atara leikioren gurpilla ikusi ta erakutsi nai ebal.

Orrela, bertsolaritza ezagutzen ez ebenen aurrean, asiera onen ondoren, Antxon Valverde, bertso asarreak erakusten asi zan: «Au da komedia, nere Jaungoikoa» esan eta gaurko epaia artu bearrean, nai ta nai ez, aurkitzen diran errizaleei, euren egoera erakutsi be. Onetan Oiarzun ipiñi eban injustizi pean jausitako gizaki lez, Goizueta'n Trabuko'k jasan eban dramearen ondorenez.

Xenpelar'en bertsoak be entzun ziran gau gogoangarri onetan, Xenpelar ezaguna izan zan, bere bertsoen bidez kritika zorrotza egiten oitua zalako. Onen bertsoak burdiñoletan saltzen asi ziran 1883'gn urtean.

Lete'k, berak dakian lez, beste bertso batzuk abestu zitun; gaia, trenetako teknikoan emazte batzuk Frantze aldetik sartu ebezan oitura eta jokerak eta emengo emazteetan zabaldu eben irakatsien ondorena. Xenpelar'ek bertso oneitan, gogor jote dituz frantzetar emakumeen oiturok, orrela euskal-andrearen nortasuna galtzea eragotzi nairik. Frantzetarrei arpegira jaurtzen eutsezan gauzak oneik ziran: eguerdirarte jagi ez, goiz

Antxon Valverde'k bere aldetik eta bere egite bereziz, «Iya guriak egin du» bertsoak samurki abestu zitun, eta orreitan igarri nai dan sentimentua ta irakatsiaz zorrotz eragin euskun. Aapaldi au gogoratzen eben askok:

«Gu gera iru probintzi/ lengo legerik ez utzi./ Oieri firme eutsi/ naiz anka bana autsi,/ jaioko dira berriyak,/ gu gera Euskal-erriyak».

Iru abeslariak, Lete, Lekuona ta Valverde'k, iru abotsetara abestu eben bertso ori, eta danori beroaldi ederra sortu be bai.

Xenpelar'etzaz amaitzeko, auxe esan nai dot: gizon fiña ta sutua zala, ez ebal bere bizitzan dirurik euki, eta 34 urtedun il zala, napar-eriz, 1869'gn urtean.

Ta or, beste bertsolari on bat agertu be: Txirrita. Umoretsua benetan (1860-1936). Alperera Askok uste izan dabe ori, bere zeregiñetan ezagutu ondoren. Baiña bere benetako lanean, au da, bertsolaritzan, ugaria ta langillea izan zan. Idazten be, bertsoak idazten be, ugaria.

Taberna zalea zan, eta alako baten egoala, gerrako kontu bat entzun eta barrutik artu eban: Karliten gerratean, gizon batek artzain bateri, billa ebillan bidearen barri eskatu ei eutsan. Artzainiak erantzun ez eta origaitik besteak pusillagaz estutu. Ori ikustean artzainiak erantzun eban eta andik laster il egin eben. Gertarea onek asko mindu eban Txirrita eta origaitik artzainiak bere eraltzaillea gaiztetsiten, bertsoak egin zitun. Lekuona'k emon euskuzan bertso orreik.

Gero Valverde'k, euskal-foruetzazko bertso batzuk agertu zitun. Danak, Canovas'en aurka, eta origaitik gertaera ori agertzen eben bertsoak atara zitun.



eziketa jostailuak eskulanetarakoak irakasketa gaiak

gregorio de la revilla, 1 bilbo-11

Txagorritxu auzoan

Jolasean ikasi, or zure aurrentzako emoitzarik onena

JAKINZA BIDEAK

Gaur eguneko esku-lanak eta jakintza-lanak, euren arteko artu-emonetan tinkatzera doakiguz.

Izadi-jakintzeak eta gizarte-jakintzeak, edestia zear, alkarren artean izan dituen zer-ikusiak oso garrantzitsuak iruditzen jakuz.

Gizarte arazoak aztertzen dituenen aldetik, izadiko jakintzea eta onen ondorenak errezgi baztertuak izan dira. Inoiz zerbaiten aitatu ba'dabez bere, gutxietsiak bere bai sarri.

Onez ganera, izadia aztertzen dabenen aldetik be, gizarteko jakintzak ez dira aintzakotzat artuak izan. Burruka au agirian dago gure errian.

Gizarte arazoan, gaur egun, izadiko jakintzearen ondorenak zer-ikusia aundia dabelako, alkar-jokatu ezin au negargarria jaku. Au dala-ta, bearrezkoa litzakigu izadiko jakintzearen erabagiak neurtu ta zuzentzea, gizartearentzat onuragarri izan daitezkan.

Erri zapalduen artean, jokera au, garrantzi aundikoa da. Zergaitik? Teknikeak azkatzaille lez jokatu bear dabelako. Bide batez, politika ta gizarteko era estu ta ganorabakoak gaitzertzeko, aurrerakizun oneik ohera-biderako oiñarri zabal bat sortu bear dabe.

Euskal-gazteak eta batez bere unibersitarioak, erriaren aurrerapen eta gizarte arazoak kezkatu jarri bear leuke. Gizarte ta ekonomi-obetzearen oiñarrian agertzen dira izadiko jakintzearen aurrerapenak; oneik ukatu ta ez erabillerakoan txirotasunera ta menpetasunera garaioez.

Aurrerakizun oneik arin be arin goruntz doazela jakitunik, alait arinen onartu bear gendukez.

IRUSTA

EDESTI - AURRERA

V.—LEEN-GIZAKIAREN KONDARRAK EUSKAL-ERRIA'N

a) **Bee-Paleotitos aroan:** Garai onetako gizakien kondarrak ez da oraindik gure lurraldeetan aurkitu. Ba-doguz baiña berak itxitako su-arritzko lanabes batzuk.

b) **Erdi-paleotitos aroan.**—Aldi onetako lanabes eta kondar geiago daukaguz. Emen, kultura eta gizaki bat agiri jakuz: Neanderthal'eko gizakia ta Moustier kulturea.

Orain arteko aurkitzerik garrantzitsuenak, J. M. Barandiaran eta J. Altuna'k Lezetxiki'n lortu eben, eta Moustier garaiko lur-maillaren azpian egoan. 30 urtetik 35'era zituan gizaki batena zan.

Jakite-arauzko neurketea eginda, 7.000 urtetik gora daukez kondar oneik. Ba-ditugu beste kondar batzuk be: Isturitz'en aurkitutako matrail-azur bat eta Axlor'eko agin batzuk.

d) **Goi-Paleolitots eta Mesolitots aroetan.**—Ipar-Euskal-Erria'n ez da aldi oneitako kondar askorik aurkitu, baiña Ego-Euskal-Erria'n ba-doguz zenbait aztarran garrantzitsu.

1928'gn urtean, J. M. Barandiaran'ek, garai onetako zenbait kondar aurkitu ebazan Urtiaga'ko ar-zuloan. Urtiaga'n sei buru-azur agertu ziran. Ez dira danak garai batekoak. Zortzi urte luzetan, 1928-1936 tar-tean egidako lanen frutua doguz.

1936'gnean aurkitutakoa gizon eldu baten buru-azurra dogu. Barandiaran'en ustez Madalein garaiko azken aldikoa da.

1935'gn urtean aurkitutakoak, zeaztasun jakingarriak agertzen dauskuz. Goi-mailla atzeratu dabena. Bere sudur-azurrak gaurko euskaldunaren azurren antz aundia dabe. Matrail-azurra estua da.

Barandiaran'en eretxiz Azil (Añamendietako leiza baten izena) Madalein ondorengo garaikoa dogu. Arazo oni buruz auxe diño: «Ez dogu uste emen aztertu doguzan edesti-aurreko buru-azurrak dituen aldeak kanpotik etorritako endekin naastatzetik datozenik. Emen bertan gertatu dan aldaketa bat dala uste-izatea askoz be ziurragoa deritxagu.

e) **Neolitots eta Eneo (tupiki) aroetan.**—Neolitots garaian abereen eziketia ta buztin-ontzigitza asi zirana da.

Eneo aroa oster, Euskal-Erria'n batez be, tupikizko eta burdiñazko lan-tresnak erabiltzen ziran garaia deitzen jako.

Santimamiñe'n, neolitots garaiko buru-azur bat aurkitu da. Eneo garaiko giza-azur eta kondar batzuk, dolmen (Kelt: taol = mai; men = arri) deritxon trego-arri peetan aurkituak izan dira. Mai oneik Eneo garaiko artzain-erriak jasotako oroit-arriak ditugu. Trego-arri peetan aurkitu diran giza-kondarrak euskaldun endearen zeaztasun asko emon dauskuez.

Giza-kondar oncitatik geienak Aralar'eko zenbait trego-arrietan aurkitu dira. Aizko-



rria ta Urbia'koetan be, batu al izan dira kondar batzuk.

Aranzadi, Barandiaran eta Eguren jaunak izan ziran trego-arrietako lur-aztertzearan lenengoz asi ziranak. Orregaitik, indar aundi-aundikoa da, Aranzadi'k, Ansolega'gaz batera, Aralar'eko trego-arrietan aurkitu ziran giza-kondarretzaz diñoskuena:

«Oraindik alperrik galdu barik aurkitu doguzan giza-azurrak agertzen dabenez, Trego-arri orreitan illobiratutako gizakiak, Naparroa lurraldeetako gaurko gizakien antzekoak dira. Gaiñera, Aranzadi'k Gipuzkoa, Bizkaia ta Naparroa'ko zenbait tokietan aztertu dituan buru-azurren antzekoak dira. Gauza baten dabe alde bakarrik: gaurko gizaki euskaldunak baiño ortz-agin askoz obeak eukezela.»

Ar-zuloetan aurkitu diran giza-kondarrak be ba-ditugu garai onetakoak: Gipuzkoa'n Unietako Marizulo'n ia oso-osorik egoan giza-azurtza bat aurkitu zan. Ogetabost urteko gizonezko batena dogu. Buru-azurraren neurria, 1.500 zentimetro² aiñakoa da.

Urtiaga'n be, Eneo garaiko zenbait buru-azur aurkitu al izan dira. Bizakia'n be, giza-kondarrak ugari: Kobeaga'n, Jentilkoba'n, Lumentxa'n eta Arezti'n batez bere.

Araba'ko Errioxa'n diran trego-arrietan oster, giza-kondarrak ez dabe euskaldun endearen ezaugarriarik agiri. Buru-azur guztiak Mediterraneo arrazakoak dira. Errioxa'ko eta Euskal-Erri'ko beste trego-arrietan be, orrelako ezbardintasunak izatea ez da arritzekoa. Bai geografian eta bai jakintzan, Errioxa'ko lurralde oneik gaurko Gaztel-erri'ko artzain-izateari lotuta egon ziran antxiña-antxiñatik.

Eneo garaiko gure lurraldeetan eta ibarretan bizi ziran gizakiak, Añamendi sortalde izeneko endakoak, euskal-endakoak doguz. Garai aretako jakintzea, Europa'ko beste lurraldeetakoak ez dator batera. Ez dira bardiñak.

ARRATT'KO IKASLE TALDE BATEK

«Karmen» Saria Dala-ta

«Amatiño»ri

Adiskide:

Abendua'ren 8'ko «Zeruko Argia»n irakurri dot zure asteroko orria. Gaur euskal idazleok ez ei gara alkar irakurten, baiña onetan zabala naz, jokerak eta irizpideak alboan lagata. Niri dagokidan ataltxo be irakurri dot.

Bertan diñozunez, aurtengo «Karmel» saria niri emon dauste, «Euri eta txingor nobelagaitik. Egia. Eta zuk diñozunez, nobela labor onetan «gerra denporako zenbait gertaera kontatzen ditu Zubikaray'ek, Frantzia aldean bere bizitza eta ibilaldiak aipatuz».

Ori orrela irakurrita norbaiten esan lei nobela ori ango kontuetan oiñarritzen dala, eta, jakiña, orretarako, gerra denporea nasai eta patxadaz an igaroko nebala.

Gauzak garbi lagateko au esan bear dot.

Nobela ori, nobela labor ori, ainbat atalburu edo kapituloetan egiña da, eta kapitulo orreik, asieratik azkenera, oneik dira:

Sarrerako oroitzapena.—Egun larriak.—Agur Ondarroa'ko itxaso basterra.—Erbes-tetarren leorreratzea.—Ez diplomatiko eta ez jan txakur.—Barrio be itxas bidean.—Nai-gabeak astuteko agurra.—Lenengo zeregiña.—Etxekoek billa.—Gerrateko ostata.—Biar-te sakona.—Indar erakusketa.—Aparia galdu.—«Eguna».—Agindua barriztatzen.—Egun larria.—Betiko txikikeriak.—Barruko ondarrak.—Reportajeak egiten ikasten.—Gerrateko arrautsak.—Durango'n illobien barruan.—Zirikalarriak.—Gernika.—Nora zoaz, amona, nora?—Gazteak jokatu eta zarrak galdu.—Etsipenaren oiñarriak.—Gau bal-tzak.—Bilbo galdu ondoren.—Zalla eta Karrantza bitartean.—Bideko aldeak, kontras-teak.—Santoña'n.—Santoña'ko bizar kentzallea.—Asturias aldean.—Escudo'n egazkiñen mende.—Laredo'n, iges egin naiaren psikosis.—Ots, ots, bizion oiñok.—Castro'ko ope-rrak.—Arerioak?

Kapitulo oncitatik igarri leikenez, Frantzi aldeko nire bizitzaren gora berak zuk esaten dozun lez, edo mugaz beste aldekoak, bakar baten datoz osoan, eta erdizka beste bitan, au da, arako sarrean eta urteeran. Zeaztuteko, laugarren eta seigarrenean erdizka eta boskarrena da bakarrik osoa. Beste guztia nik alderdi onetan bizi eta ikusia da.

Zure zati ori irakurrita edozeiñek pentsateko da gerra denporea erbestean igaro ne-bala. Eta nik dakidanez, gogoratzen naizenez beintzat, 36'ko gabonak Bilbo'n igaro ne-bezan; 37'koak Naparroan, Teiza de la Solana'n, atxurrean ikasten; 38'kuak Gipuz-koa'n, espertxean; 39'koak Tarbes'en, Zaragoza'ko izparkari bategaitik kanjeatua izan nitzalako, eta 40'koak Algeiras'en aurrean, barrio be atxurrean.

Ortik igarri ziñei «Euri eta Txingor» ori Castro'ko oporteretan amaitzen ba'da —nik «Lenengo negutea» be ipiñi neutsan izen-azpiko edo subtitulotzat— oraindik bigarren ne-gutea eta irugarrena be idazteko gaia euki neikeala erbestera joan aurretik edo bialdu aurretik.

Gauzak berean laga nairik, nire agerpen au egin nai izan dautzut.

Tori nire bostekoa.

A. ZUBIKARAI

benetako

akeita

CAFFÈ BAQUÉ

CAFFÈ BAQUÉ



utsa ————— soilla

ARGI-ONTZIAK

EMOITZGARRIAK

EREDU BAKARRAK

ALBERTO URRUTIA GOTI

Ribera, 19 (Pelota, l'en ertzean) 21 14 89 Urrut.

Carniceria Vieja, 8 - 23 56 25 - Urrutizkiña.

Santuchu, 16 - 339491 - 333123 - Urrutizkiñak

BILBAO

Aztergarriak

Laterri-Arteko Auziak

ETSAIARI SALDUAK

Orain aste bi be esan gendun: Eleiza ta meza bat bakarrak dira Bilbo onetan, ondatu ta ankaz-gora bota bear diranak. Orra joaten asi yakuz aberats-seme alper «aurrelariak». Meza orretara bakarrak, ea noiz besteak (ala euren lagunak) isten daukuen, alegiñak egitera. Ezugutzen ditugu batzuk, euren gurasoak baiña lo, edo ederto itxas-ertzetako aste-amaitzerako etxetxoetan.

—Nundik ete datorkioe zabalkunde orretarako bear dabena?

* * *

ASKO BEAR

Arroloia barriz gora. Itxuraz, asko irabazi ta ainbat geiago bear. Batez be Ipar-ameriketako jokoetxeetan, juantxo orreine semeak, laterri txiro batek urtean batu ezin daben aiñako dirutzak egun pare baten erretzera joateko.

—Ori ete-da, esku batekin jaso ta besteakin itzulitea?

* * *

BAKERIK NAI?

Sinai'ko basamortuak atzera Egipto'ri itzultzeko gertu ei-dago diño Israel'ek. Itxuraz, Vladivostok'en amerikarrak eta erusitarrek erabagia litzake. Areik judutarrak bear-tuko ei-ditue; oneik arabitarren bultzak. Baiña, bitartean, egiptoarrak beste au sartu ostopogarrri: Israeldarrak ez dagiela ifiori orra sartzen itzi urrengo 50 urtetan.

—Au ez ba'da ori. Bakea ez an, ez or, ez emen!

* * *

TXANDAKA

Azkenengo auteskundeetan, grezitar geienak erkalaren alde jarri dira, eta orretan jarraitzea erabagi dabe. Dakizuen, lenago erregetzea izan zan, baiña jagi ziran guralburuen aurka erregea agertu zalako, naita makala izan onen bultzadea, erbestera jaurti ta erkala onartu eben.

Baiña, demokraziaren aita dan Grezia'k, ez dau aztu antxiñakoen demokrazi kutsu a. Orain, Txipre'ko auzia, gudalburu areik sortu ta ezinean kalekoen eskuan itzi bear izan ebena, dauke aurrean. Giro onetan, erkala indartu bear, Karamanlis'en zuzentza pean, grezitar erri makillatuak.

—Erri batzuk erregea kendu, besteak jarri nai... Olaxe da bizitzako katea.

* * *

BATEN BI

Gizonen artean eziñekoa. Edo danak bat, edo erdi bi. Txipre ugarte txikia baiña zaratsatsa dogu. Biztanleak, batzuk gerkar-txipretarrak, turkar-txipretarrak besteak. Naste aundi bat eta aberastasun aundiagoak tartean; itxasoko arroloia-ta. Olako arazoren bategaitik erbestera bota eben Makarios. Baiña orain, ango gizarte aldaketaren bultzadaz, ara birutu da barriz. Lenengo erabagia, ONU'ko gudariak an jarraitu dagiela.

—Eutsi beintzat, gero konponduko ete-dira?

* * *

URREA

Dollarrak maite izan doguz, guk edo dirugintzan dabilleenak beintzat. Dollarrak

urrea balio eben, gaur ez baiña. Orain, atxiñakoen eta gaurko prantzitarren oiturea barriz nagusi: urrea gorde, al ba'da. Barregarria ei zan benetan; Aprika egoaldeko lurpetik atara, eta Ipar-ameriketako banketxearen lurpeko leizetan barriz gordetzea.

—Batzuk diñoenez, oba oe barruan edo etxeko orma-zuloetan gorde!

* * *

ELDUAK EZETU

Olakorik! Orrenbeste erakutsi dauku yankeen ordezkari danak ONU'ko batzarran Txiki-zaratatsuak autarkien jabe egin diranetik, ez ei-dau Batzar orrek ezertariko ziurtasunik, zintzotasunik eta ez dakit zelako bearrizantik, esan dauku bertan, jaun orrek.

—Bai-baika dabilzanak, beti izan dira gogoko zuzendarientzat!

* * *

ALDATZGORA BAIÑA

Europa be batuaz doa. Eztabaida ta alkar jazartzeak agertu ba'dauskuez be, batez be prantzi ta engalandarrak, bideko koska latz bat igaro al izan dabe. Urrengoan be izango dira ostopoa, baiña bidea, okerra ta traketsa, aurrera doana da.

—Emen gu lasai begira, laster ain urriñeraturako dira, ez doguz ikusi be egingo.

* * *

BIDE-ERIA

Gaixorik txarrena! Bideetan gudetan aiña edo geiago iltzen dira gizasemeak, euren artean. 110 milioi berebil ei dabiz USA'n; 9 milioi alkoolliku euren gaiñean; 55.000 ez-bear bitxabaletan; eurotarik 28.000 alkoollak eragina. Ba-da zuzendu bearreko arazoa, beste askoren gaiñetikoa.

—Ala ta be, batzaz beste, %'ekoetan, orkoa ei-da munduan ariñena!

* * *

BALTZAK ETA ZURIAK

Ba-da olako abesti bat. Baiña oraingo au Rodesi'koena da. Bost milioi baltz eta 240 mila zuri bizi ei-dira laterri orretan. Bultzaka besterik ezean, laster zuzenduko da auzi ori, ta orretara be eldu dirala ikusten dogu.

—Baltzak eta zuriak beste nunbaiten be izan dira, or baiña etxekoak lo!

* * *

GIZONAREN INDARRA

Antxiña, garmendietatik sortutako errautsak aizea zikintzen ebanean, ludiak biraka dabillega igartzen dautsagun ardatza, zirkin gogorrigoan jartzen ei eban eta lur-ikara gogorrak sortu. Gaur gizonok zikintzen dogu eguratsa, orra ba laster baten, ikaragarriko lur-ikarak etorriko ei-dira.

—Benetan, jakintsu batzuk, biztanleok billurtzeko alegiñetan dabilz, ea esnatzen garan, baiña alpernik.

* * *

EGUTEGIA

Emen dogu salgai, Bai AGUR'en, bai idaztegiatan, bai San Miguel'en, eskal egutegi garbi ta egokia. Bere izena ERRI-EGUTEGIA. 1975.

—Erosi ba, baiña irakurri be bai!

DANOK

JAKIN EZ DIRANAK, SARRI (Jarraipena)

Zer jazo zan ondoren? Or, gure lenengo agerpenaren amaieran galdetzen genduna. Bai, zer jazo zan arabitar eta judutarren arteko adizkidetasun samur eta zabal a, ainbeste aurreragarri baikorren itzaropena zan Alkarte a, bat-batean eta gaur arte dan ler-ontzi bildurgarri orretara aldatzeko? Europar laterrien diru eta aundiki berekoitasunak, judu ta arabitarren arteko susmo-txar eta utsegiteak albora itxita, bultzatu ebezala bata bestea burrukatzera esan daiegu. Gero, gaurko aundiki mamutzar bi orreine arteko zeingeiagooa nastean sartu da.

Neher-Bernheim'en aitatutako idaztiari jarraituz, or jazo, zati on baten beintzat, ber-ikusi daiegu. Turkar eta doistar gudarosteak, 1914'gnean, Siria'n sartu (ba-zan emen, 1908'gnean, Paris Arabiar Gudarostea sortu zanetik, otomanen kaisarkeriaren aurka jokatzan eban Alderdi abertzale bat) eta 1915'gnean turkarren indarrak Suez urbiderantz zuzendu ziranean, arabitarrek otomandarren kaisarkeritik azkatu ta Persiar Kolko'tik asi ta Itxaso Gorria bitarteko lurraldean Arabiar Laterri osotu bat sortzea bururatu jakoen ingalandarrei.

Garai aretan, arabitarrek jokera bi agertzen ebezen nabarmen: Ibn Saud, Nefd'en emir zanarena bata; eta Hussein, Meka'ko kalifearena bestea. A, geldirik egoan, ernai, aizea nora, ara joteko asmoan. Beste au ostera, 1915'gn urtetik aurrera ingalandarrekin artu-emonetan ibilli zan, eta bere elburua arabitar erresuma orokor eta bakar bat eraiketean izan zan, gaur Sortalde Erdia deritxon lurralde osoan.

1915'gnean, MacMahon'ek —britaniar gudar-ordezkari gurenak an— idazki bat eskuratu eutsan Hussein ari, Engalanda'k, arabitarren azkatasuna ta batasuna, lurralde txikitxo batzuk ezik, onartu ta orretara eltzeko lagun izango ebalan esaten eutsena izan zan.

1916'gnean, Hussein ori turkarren aurka jagi zan, eta eraberean, gudan ebiltzan laterri-alkartuak, arabitar guztien errege lez onartu eben. Hussein'en ondoren, Faisal onen semeak, eta esan gendun lez, Arabi'ko Laurence izenekoaren lagun aundiak, engalandarenganako adizkidetasuna berakin erabillala beti, bere aitaren urratzetatik jarraitu eban.

Batasun aren barrurako, Faisal'en jokabideak, lurralde zabal areitan bizi ziranen enda, ziñesmen eta gizarte eretxiak gogoan izango ebazala agertzen eban. Eta Persi Kolko'tik Alepo'ra arteko arabitar aberri bakar baten egituran, Faisal'entzat, Haifa'tik Gaza'ra tarteko itxas-ertzean judutar erriarentzat lurralde txiki bat aukeratzeak, ez eban ezertariko garrantzirik. Ona ezker, idazleak diñoan au be gogoratu bear: Poloni ta Errusi'tik gogorkeriz eta eraiketzaz birdurtuta igesik joiazan judutar ez-euki batzuk besterik ez zirala an agertzen ziranak.

Eta lurralde aren egokitasun-eza gogora ekarteko, Allenby engalantar gudarburuak 1919'gnean esan ebana jakitea da naikoa: «Erbestetiko etorrera zabal bat eziñezkoa da gaurko giroan, edo datozen aiña zerraldo ekarri daiekez». Itz garrantz oneik argi diñoskue zein agor eta kaltegarritzat eban lurralde a orduan; ez zan ba luzeera osoan, ugari beintzat, malari-sukarra ta... area baiño!

Orretara ez da arritzekoa, Faisal'ek, judutarrak arabitarren ber-izatea indartzeko lekarkien laguntasuna, lur txiro apur aren emoitzaikin ordaindu bearra eukala uste izatea.

Eta ikuspegi ori gogoan, Faisal'ek Weizmann'i esana ta aurreko lanean agertu gendun London'eko Sionist Alkarteko Batzorde Lendakariari zuzendu eutsan idazkia, erreze ulertu daiegu.

Engalandarrei baiña, arabitarrekin eukezan betebearrak prantzetarrei esatea aztu jakoen. Ori ta beste au be bai: prantzetar eta erusitarrekin ixilliko erabagietan lotutzean, lengo arekin eukezenagaz alkartu-eziñak izan ziran. Eta 1916'gn urtea ezker, London'en prantzetarrekin artu-emon oneitan asi ta, 1916'gnean, erusitarrek be tarteko zirala, Petrogrado'n izenpetu ebezan: Turkoarrak lagatzen ebezan lurraldeetan, bakoitzak bere zainpeko zati bana eskuratuko ebela.

Ez goaz ixilleko itun orren zeatasunak emen azaltzera, auxe bakarrik nai dogu agertu. Itaun ori eta MacMahon'ek Hussein ari emoniko idazkikoa ezin dirala inundik be alkar-batu. Ortik ba, jakin dakigu, Hussein a ta bere ondorengo Faisal seme burrukalaria ta arabitar gudariak, laterri arteko nor-geiago aretan, ez zirala morroi gaixo batzuk baiño izan, eta turkarrak burrukatu ta beste orrei kaisarkerirako bideak erreztutzeko aleginduko ziran aukerakoak.

Orrela, 1914'tik 1918'ra tarteko guda a amaitu zanean, Siria prantzetarren azpian eta Palestina engalandarren babespean jarri ebezan. «Kitugarri» lez, Jordania izeneko laterria sortu eben engalandarrak eta Faisal'en anaia zan Abdallah'i emon; besteak, Iraq izeneko beste erresuma bat Faisal ari berari emoteko. Banaketa onek ez eban arabitarren alkartze-batze lenengo asmo aren antz aundirik izan. Ta zatitze ori ondo indartzeko, Faisal orri atzea erakutsi ta Ibn Saud'en alde jarri ziran. Ta, bat-batean, sionist-aurkako agertzen zirala, arabitar aurkakoa be ondo erakutsi.

Laburrean: Gaur, an bizi diranen gaiñetik, aundiki-maundiki bi orreine arteko erabagi batek bakarrik Sortalde Erdi'ko auzi ori zezendu legikeala entzutean, politikar alagararik ulertu ba'legike, auxe izango litzake erantzun egokiena.

AGARITZ

Zezendu Bearra

Ez dedilla edestizalerik, gero, gure okerregaitik, okerrago ibilli. AGUR onen 163'gn zenbakian, 4'gn orrialdean, BIZKAPKO ERMITAK lantxoan irar-uts bi datorz, zuzendu bearrekoak:

Lenengoa.—Markiña Ibarrean, 2 erri ta 6 uribarri = oker.
Markiña Ibarrean, 2 erri ta 1 uribarri = zuzen.

Bestea.— Berriz 13 ermita = oker.
Berriz 15 ermita = zuzen.

A.

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

ZAZPI-KALEAK



GASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

Zartzaroan

1
Ona, irurogei ta bost urte.
Zartzaroko oportua.
Nork uste orren azkarra zanik
ibil-lagun nik artua?
Oñazkarra da bizitz-zaldia.
Geldigaitz amorratua.
Azken urteetan batez ere,
txanpa egiten oitua.

2
Aurrenean moteltzat neukana,
orain, orde, azkarregi.
Gaztarroan, arre!, orain izo!...
Aldiak berean segi...
Ta, ona, ni, illunabarrean
izu, gaba ikuspegi.
Bizitz-bidea laburra baita,
etsieziña larregi.

3
Beti, geroa obe ustean
dijoakigu bizitza.
Gure geroa negu izanik
murri arkitzen zugaizta.
Uztaroan du bizitzak ere
uzta gordinen emaitza.
Gero, oi danez gertatzen dana:
negu beltzeko ekaitza!

4
Bitartean, aitzen eman nai, nik,
bertso labur auen bidez.
Zer egin genezake besterik
gure izate zaarrez?
Galduz ikasia irakatsi
beste gauzarik ezer ez:
Garavan garaiko bear dala,
noski, ez gero, ez aurrez.

5
Amil gaiñeko pinpilinpauxen
ondoren dabillen aurra
besterik ezta gaurko gizona.
Gogoko baitu gaitzurra,
eta, askotan, goranai utsez
ontzat artzen du gezurra.
Droga ta abar... norbere kaltez
lanean aidan aitzurra.

6
Lo egiteko botika artu,
ta, alaitzeko «alkola»,
bide galduan sartuak dabiltz,
eztaude onik iñola:

Ez soin, ez anima ta ez buru;
erre bait zuten odola.
Ortik susper nai nik, gazteei,
garaiz bear dan ajola.

7
Egiari jarraitzea da, bai,
egizko gizatasuna.
Ez bear bakarrari jarraituz
arkitzen dan ederkuna.
Egiak asko dira, itxuraz,
bat bakarra egi-jauna.
Intxaur aleak bezela dira:
balekoa, mamiduna.

8
Ona dala uste dun gizona
txarra oi da geienetan,
eta, txartzat dagona, ostera,
apal ta ona benetan.
Gizon zintzoak ardura baitu,
gaitz egin ote... kezketan.
Bestea, berriz, beraren naia
onik aski dalakotan!...

9
Iñoren aurrean on azaldu,
ostean ajolakabe...
ezta ontzat artu litekena;
ezta zeaztasun jabe.
Opari on egintza txikitian,
baiño, sarri, etengabe.
Noizipeingoa ta ikuskizun,
arrokeriren mirabe.

10
Gure naikeririk gogokoen,
zoriontsu izatea.
Ortarako biderik errazen,
besteri on egitea.
Iñoren pozak ureztuko du
gure nairen legortea.
Eskerronaren legea baita
ordain-sari ematea.

11
Ots, berriz ere, gazteei:
(Jakintsu baten esana:)
«Maitasunari ez eskatzeko
eman lezaken dana.
Ez, noski, eman ere berari,
sarri eskatzen duana.
Maitasuna ezta gosez ilten,
bai, orde, geiegi jana...»

GALLASTEGI TAR MARTIN

Orbelak

IÑUZENTE EGUNA

Amets eta pozez itxaroten gendun eguna.
Gabon egunez bigunkerira josten gendun, samurkerira. Egun egoki eta bere-
bizikoa da orretarako.

Iñuzente eguna, geuk igarri barik, bestiei muturretan emotea izaten zan.
Ume errugabien bekaizkeri bat, bengantzaxo bat, baiña jolasean.

Herodes'en istoria gogoratzea, aitatu barik. Umeak il zitula? Emen gagoz.
Arek ildako umeak osasuntsu gabiltz. Eta errurik bagako ume bizi be!

Aza sustar bat soka egal bateri lotu, beste egalean amu edo garranga txiki
bat ezarri eta jaia egiña. Eta egunagaz konturatu edo gogoratu barik eioan bat
ikus, eskutuka atzetik beragana urreratu eta berak igarri baiño len, zast!, orra
aza sustarra bere jantzietatik dindilizka.

Pozik gu! «Iñuzente potente, biar san Bixente», dei eta kantuz edo ta
«Iñuzente potente, txakurran buztana tente».

Eta zoriontsu giñan! Egun alai eta irritsu bat igaroten gendun. Iñuzenteak
giñan zarren begirako. Bekaitz bako iñuzenteak, inbiri bakoak.

Guretat ez egoan jai obeagorik. Ariñago aztuten gendunik be ez. Egun
berean amaitzen gendun dana.

Gero gabonzar eguna etorriko zan. Urteari ipurdia erre ta kittu. Gaur be,
euskera galdu daben Araba'ko erri batzutan, olako esan nai batez amaitzen
dabe urtea. «Erre pui erre» didarrez.

Gaztetu giñan. Eta marduldu.

Egi garratzak ikasten eta ikusten asi be bai. Eta okerrena, Herodes'en
antzera arrokeriz itsutu.

Aurrerapenetan sartu eta indartu orde, kateak ezagutu doguz eta estun-
tzak; gerraetan ez dauzagu bakeari argi izpirik zabaltzen lekurik ez tartetik
emon; garrazkeria, gordinkeria eta zitalkeria zabaldu doguz; gure bizitza geiago
laburtu eta lotu. Giza eskubideak... paperetarako laga doguz. Eta beste era
bateko iñuzentez bete doguz alderdiak.

Urte barrian sartuko gara. Urte barri bizitz barri? Ipuña. Iñuzentekeririk
andiena! Eta, zoritxarrez, ez konturako bakoa.

Egutegiaren azken orriari, aza sustarra ipiñi geinkio eta burla egin. Baiña
negarrez be ixeka edo burla egiten da iñoiz, amorrutaz eta zitalkeriz eta bekaiz-
keriz.

Aurtengo azken orbela illun dator. Negua. Ala ta be udabarri aurreko aize
brastaden zai egon gaitezen. Udabarriak beti eukiten dau olako garbitze bat.

Eta iñuzenteak be eukiten dabe euren eguna. Urteari begira, jaiki, jaiki
etxeokak, argia da zabala. Gaur zimaurrezagaz be argia egiten da eta orbela jausiak
ba dakie zimaurre biurtzen.

ZUBEGI

SENDOA

Ots au ederra da. Barru barruraino sartzen
jakuna. Ta gogo onez barne muiñean sartu,
ta atsegiñez, jarlekua artzen dabena dirudi.
Itz asko botako gendukez gure miñaren
puntatik utikan, baiña aurrean daukagun au
ez. Sendotasunak betiko indarra dau ta
bizitzaren indarra betikoa dan bezela, gizo-
nak, nai-ta ere, ezin kendu, ezin il berezkoa
dan leia. Gure gurariak baiño sakon ta
gogorragoa dan ezkeroz, izate berberagaz
bat eginda daroagu. Makaltasunik ez dogu
nai, ta alan be, gizona, sarri askotan, zertan
ari da...?

Orain gauz sendo batzuk gogoratu dagi-
guzan: Esaterako; Aritza, arria, itxasoa.
Aritz sendoak bere bizi dau. Bere enbor
aundia ta adar luzeak baizen ederra. Aritz
zugatz eder bateri begira zer asmetan dan,
bakoitzak daki. Baiña guztiok aritz baten
enborrean mai bikaiñak egiteko ondasunaren
ol-giar berezia ikusten dogu. Gure bizitzari
laguntzeko gai maiteena. Or ez dago erkin-
keririk; lur osasuntsuan gorputz sendoa egin
dau.

Arria. Gizonak berez, bera jagoteko lur
gaiñean aurkitu daben gaia da. Gauz ederrak
egin nai diranean, arrobira doa gizona arlandu
billa. Markiña'n mibeko arrobiaren aurrean
nagola dirudit. Mendia bera arri ederrez
josita dago. Aren barrua bai gogorra, indar-
tsua, sendoa. Zenbat kamio aundi ete doaz
mendiko arrobira... Atxurdiña millak urteetan
sorturikoa. Ainbeste bendabalen gogorkeriz
indartuta. Eta gizonak, gaur, gauzarik balio-
tsu ta ederrenetarikoak arriz egiten ditu.
Arkaitz gaiñean arriz egindako etxea tinko
egongo da. Gizonarentzat orixe da maita-
garriena.

Itxasoa, benetan, zabal, sakon, luzea,
arrigarria bere indarrez. Arrain pizti gogo-

rrenak eta antxo txikiak, langosta pin ta
txitxardin mairatsiak, or emen, an, dabiltzaz
ur-amaren sabelean. Arrain aundiak txikia
jan eta aurrera. Gizonaren begia, iñoiz, ezin
aspertu da urtegi itzal orren ondoan. Itxasoa,
zer adu daukazu zure baitan? Ni ez naz
igeltxo, ni ez naz eulia. Ni sendoa nak.
Pizirik ankerrenak alikatu ta ikaritzen dira
nire barruan ta gizon buru argitsuak ika-
ratzen dira nire kemenagaz.

Gizonak maite ditu aritz, arri ta itxasoaren
sendotasuna. Gauz orreen indar ta edertasuna
izan be, guzurrean ez dagoz, euren izate
egizko sendoan baiño. Gauzen sendotasuna
ain ederra dalarik, gizonak norbere nortasuna
eder biziz sendotu bear dau gure izate
estimagarri izan dedin. Orretarako on gauza
batzuk bear dira gizartean, ta onen egon
lekua buru ta biotzean dago. Buruak argiaren
bideaz egi billa ibilli bear dau norbere sorrera
ta ingurua ezagutzen. Ta egia, sarri, garratza
izan arren, zuzentasunaren izenean ez dau
zapaldu edota baztertzen.

Era orretan jokutzen daben gizonak, argi
indartsuagaz argitzen ditu bizitzaren ingu-
ruak. Gizartean nai-ta indarkeri ta zorakeriak
izan, gizon egizkoak zuzenbide ona agertuko
dautse. Ta ementxe oiñarritu bear dau bizi-
aren ardatzak, bizi egitu, zuzendu ta ona
dana maitatu. Gizarteko griña txarrak dago-
zen tokitik sustraiz atera ezkerok, bizi zabalago
ta maitagarriago biurtzen da. Ta onek frutu
on bat dau ondoren, egi ta zuzentasunetik
etorri daiteken maitasuneko bakea. Auxe
da itz sendoa, gizon zuzen ta egizkoak maite
dabena.

SOLOZABAL TAR PAULIN

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra
BILBAO - Casco Viejo
Tenderia, 15 eta 16

ERRIBARRA

BARRIA

Orozko-Ibarra


MONJAETXEA

Argazkian daukazu kanpai-torre alboko etxe ori, orain iru-lau eunkada, etxe txiki bat izan zan, ortu ta sagastia alboan ebazala. «Kristo-Jainkoak — edestilari batek diño — berebiziko jarraile batzuk batzeko, ta bere egite au asteko, iru neskatil gazte aukeratu ebazan». Bat, Sologuti'tar Katarine, Orozko-San Martin parrokiako eleiztarra. Beste bat, Ugarte'tar Klara, lizenzidun Jon abade txanburuaren arreba. Eta irugarrena, Orozko-Murueta parrokiako Saenz'dar Miren. Irurok, euren asmoaren aurka aurkitzen ebezan eragozpen guztiak garaituz, Kristo ta Onen Ama'ren oteintzarako eskeini ziran.

1573'ngno Urtarrillaren 5'ean, Katarine Burzeña'ra, Mesedetako lekaimetxera joan zan. Alonsotegi'n bere aitaren eskuetatik monja-jantzia artu ta txirotasun, garbitasun eta menpetasunaren aitopen-zifia egin eban, baita Mesedetakoen berarizko dan atxillotuen eroskunda be. Geroago, aitopen bardiñak egin ebezan beste neskatil biak eta beste batzuk be.

Ta, Jaunaren oteintzan lotu diranak toki barik ezin iñoz izan, laster idoro eben etxea. Aitatu dogun Ugarte'tar Jon txanburuak, bere Klara arrebeari, etxetxo bat barat, sagasti ta guzti, doai lez emon eutsan, orain mojaetxea dagon tokian bertan. Orain lau-ruen urte inguru.

Ora Orozko-Ibarra'ko monjaetxearen asierea. Errikoak beti pozik izan dira, euren ziran moja oneik, Goiko-Jauna goresten eta Bere onepenak erakarten jardun ebelako, eta



euren kapellau eta Olatre'ko txanburua dan Jose Luis jaunak diñostanez, pozago izango litzakez, gaurko Euskal-Erri'ko izatea arturik, Ibarra'ko monjaetxeak aleginduko ba'lira euskereari, begi-onez ikusita, indarra emoten.

Edestiari jarraituz. Lenengo moja Burzeña'ra joan izan ba'zan, bere jantzia artu ta aitopenak osotzera, Olatre'n, Ibarra'ko parrokiaren egin eben beste guztiak. Orduan, lekaimetxeari «serorategia» deitzen ei eutsen, erderazko «beaterio». Etxe bakarrean bizi ziran, baiñan bananduta, koru-otoitz eta eleiz egikizunetan izan ezik. Euren bizierean, esku-lan, penitenti ta otoiak egitea zan. Trebe ziranak, idazlanak be egiten ebezan. Arlo onetan, bat beintzat nabaritu zan emen: Ortiz Zaratre'tar Graziane, Zaloa baserriko alabea ta Olatre parrokiako eleiztarra.

Amabost urte ebazala sartu zan serorategian, monja-jantzia artu ta nobizi-ikastaroa igaro ondoren aingeru, lakoxea agertzen zan. 1647'gnean, aitopena egin ondoren, Bagillaren 11'gnean zan ori, zuzendari lez iñardun. Eta 1652'ngno Lotazillaren 12'gnean, bere monjen leialtasuna ikusirik, laugarren zifia be egin eben, geiagooan beartuten ebezala. Danak pozik bizi ziran, baiña pozak ez ei dau

luzaro irauten lur onetan. Amabigarren egunean etxeak su artu eban, eta arrisku aretan, jakiña, kanpora urten bear izan eben. Danak? Ez, Graziane geratu zan bakar-bakarrik bere gelan Jaunari otoiitzean itxaropen aundiz, bere monja izena Kristo'en Madalen. Eta ara miraria, etxe dana erre, ez baiña Madalen'en gelea. An agertu zan argi ta zorionek Jaunari eskerrak gartsuz emoten.

Bere inguruan batu ta etxe barria egiten asi ziran. Lan orretan beste ongilleen artean orozkotarrak be ederto lagundu eutsen, gaur ikusten dan lekaidetxea, alboko eleizea ta ortuko eskerea egiten.

Karlista ta baltzen arteko gudan, diru-estualdi, larritasun eta zemaikuntza ezinbestekoak igaro ebezan. Janari apur batzuk lortzeko, gudarrien soñekoak garbitu ta josi egiten ebezan. Geroago, ondasunak, moja bakoitzak ekarritakoak be, kendu eutsen.

Gudea bukatzean, lekaide-ekaimen etxeak itxi ta kanporatzeko lege bat jarri eben agintariak. Zuzenik bako erabagi orretatik askatzeko, ikastola bat eratu eben etxean, neska-toeri irakurten, idazten, zenbatzen, josten eta etxeoandrea lanak duan erakusteko ikastolea. Mueta biko ikastaroak ziran: umetxoena, neskatotxo-mutikotzontzat, lenengo Jaun-artzerañokoentzat; neskatilla azientzat bestea. Pianoa ta goi-ikasialak izan ezik dana duan.

Alen ta be, orain amaika urte, Jesus-Maria izena daraan ikastetxe onek, neskatil atzera-tuentzat ikastaroa jarri dau. Onetan mojak eurak egiten dabe lan, eta ondo egin be. Bete lez. Ta, leikameak diranez, egunero irulau ordu otoiitari be emoten dautsez benetan arduratsu. Ori bear dau, nai ta nai ez, gaurko mundu onek!

LETONA

Galdakano

EUSKALDUNA NOR?

Sarri galdetzen da euskaldun nor dan. Orren-besteri erantzun yakon AGUR onen zortzigarren zenbakian, auxe esan gendun: «Ez da euskalduna euskeraz ez dakianik» eta barriz aleginduko gara emen, gure eretxia al danik argien emoten.

Euskalduna izatea, euskeraz jakin eta euskeraz mintzatzea da, aukerea daben aldi ta toki guztietan. Euskalzaletasuna ostera —itz au sarri erabiltzen dogu euskal-idazleok, beste egoki bat erabiltzeko azke ez garalako— beste euskal-oi'ura guztiak maite izatea, maiteen euskerea izanik, ez dakianok ikasi, dakianok landu, ta toki guztietan lotsa ta bildur barik mintzatu ta era guztietara aldeztuten dakianak, artu bei izen ori.

Euskerea gure erriaren berezitasun ezaugarriena ta indartsuena da. Bera jakitea be bearrezkoa, noritasun ori emoten dousku-ta. Euskaldun izatea ta emen bizi izatea ez dira beti bardiñak, ez da urrik emon dabe! Euskeraz dakiana da euskalduna, naita odolez gaztelarra, prantzesa naiz txinarra izan. Emen bizi diranak naita euskaldunak izan ez, onak ez diranik ez daike esan; emengo asko baiño obeagoak dirala bai, euskerea ikasi ta mintzatzera eltzen ba'dira. Emengo asko euskera ikastan aleginduko ez diranetik edo jakin arren erabilten ez dabenak diralako, besteok askoz obeak izan bear.

Ora ba, Euskalduna, euskeraz mintzatu ta euskerea maite dabena da. Euskaltzalea, ori ta emengo oiturak eta izateak ontzat artu ta beretzako ta zabaltzeko darabillazana. Besteak emen bizi diranak bakarrik.

JAYOTZEA

Lotzil onen lenengoan, seme eder bat, ezkon-barrietako lenengoa euki dabe Altuna'tar Joseba-

Mirena'k eta Ana'k senar-emazte euskaltzaleak. Basakiña-barrena exxealdean ba, mutiko barri bat jai da, ta euskaldunok ain maite dogun Iñaki izen oroiagarria ipiñi dautse. Zinestu ezin aiñako pozez aurkitzen dira, urteetan be zerbait gorantz egiñak diralako-edo. Zorionik maitekorrena loba maiteok.

GABON ETA URTE-BARRI

Gure idazlantxo onek argia ikusi dabeneko, Gabon jayetan aurkituko gara, ta jai bikain batzuk opa dautzueguz irakurle guztiok, baiña arrokeri gabako jaiak izan beitez. Jaunaren jaiotzeari dagokiozanak olan izan bear dira-ta. Gaurko giroa be orrenbesterakoa dogu.

BASA-JAUN

UDALAITZ

Arrasate

EZKONTZA

Illaren 8'an, Sorkunde Ama Nesku-tzaren egunean eta emengo Parrokian, ezkondu ziran, nire senide dan eta euskaltzale zintzua. Garai'tar Danel eta onatiar neskatilla ona dan Zabaleta'tar Arantza. Neure zorionik opariena bikote oneri eta asko maite izan zaitezela alkar eta jarrai gure Euskalerrri eta euskera maitatzen eta izango diran ondorengoak ere kristau eta euskaldun izaten ea saiatzen zeraten. Olaxen itxaroten dut egingo dezutela.

ERIoTZA

Sarrastada aundia egin du errian gure lagun on izan zan, Larrañaga'tar Iñaki'ren eriotzak. 39 zeuskun eta ez-bearrez il da Gazteiz'en. Txarreña, eriotz ori mingarria izanaz gafiñera, berebillak azpian artuta il zan-eta, berebil orren jaubea bere lagun bat izatea, erri onetako au ere. Neure samin agurrik aundiena bere emazte, Palacios eta Arregi'tar Eskarne'ri eta beste senide guztiei. Goian Bego eta irakurleci otoi bat Iñaki zanaren gogo alde.

JAIK

Ikastolako aurrak euren Irakasleekin batera igaro zuten Xabier'ko Pantzesa Deunaren jai eguna, Ikastolako Zaindaria dala-ta. Goizean Euskal-meza izan zuten San Biator'ko Ikastexean eta kirol-joku ugari eta atsegingarriak. Egun alai benetan eta ume eta Irakasleak ederto ospatu zuten euren Zaindari eguna.

Beste jaitxo polit bat ere ospatu zuten. Ikastolako ume ooiek: au da; San Nikolas eguna. Erri onetan, beste Euskalerrri'ko erri askotan bezela usadioari jarraituz, ospatzen dute umeak, etxerik-etxe egun orri dagokionez, euskal-erdel abestiak abestuz ibiltzen dira. Talde batzutan bananduaz kale geienak ibiltzen dituz eta diru, igali, gozoki eta abar euraganatuaz pozik ibilli ere. Abesti onegaz bukatzen ditue:

Neskai bapez
Mutillai dana.

Jarrai gure oitura zaarrei eusten, batzundako ximplekeriak ba'dira be, iñori kalterik ez egitekotan eutsi bear diegu gure arbasoen oitureei.

EGUTEGIA

Illaren 4'an «GOIZ-ARGI»n irakurri nuen Erri-Bide'k egiñiko Egutegia agertu dala. Ez nekien ezer ori irakurri aurretik, eta au idazten dodan une onetan bere ez. Igaz ain abegi onez ikusi zan antzekoren bat izango dalakoan nago eta au irakurtzen dozen guztiok egon zaitezte arretaz, batezere igaz erosi zenutenok, bada neuk zuzenduko ditut ale batzuk eta baita ere zabaldu, nai dezuten guztiontzat. Bitartean, ez ba erosi besterik. Eskatu bada, Paulo Kerexeta'ri edo bestela ULGOR'en lana egiten dezutenok Jaione Bengoa'ri.

Arratia

BEKAITZA TA EKAITZA

Erdera-euskerazko oreka egin, eta erdi-errerrik erdi-gordin, amaikatxo itz ganorabako esan ta entzuten dogu egun bakoitzaren buran. Pitean-mitean.

Erdel-iturriko itz ugaritasun aindi-andiegian, gure itxitasun eta oillo izateagatik betirako itorik ondatu ez dagiguzan Aitor'en izkuntzaren itzik asko, gipuzkoar euskerazale jatorrak illean sei itz ez dakinari iraksti eta dakiana esatera oiturazoten asirik doguz. Ba-dogu Arratia'n be garbitasun, oituratze ta ikas-bear gorririk.

Arlo onen asieran ikusten doguzan «bekaitza» ta «ekaitza»ren esangurea dakienak zenbat oillasko arrotxo Arratia'n? Eta erderaz jari izan ba'genduzan —envidia, temporal— zenbat oillanda dotore euskerara biurtzeko gai?

Aiduratu gaitezkan bada, ez dakiguna ikasten eta dakiguna oiturara ekarten.

«PROLETARGO»

Gizon eta senitarte beartsuen, ez eukien, ondasun gabeen gizearta. «Kapitalgoa»; diru ta ondasun upel zibor-andia, langille apalaren izerdi-ontzia; oben, lotsabakokeri ta makurkeri nagusien jabetza madarikatua. Eta «kapitalgoa»tzaz aitatu ditudan itzak esaten eta entzuten oituak, zer ete gara? Nolakoak?

Gora begiratu, aoa zabaldu, arrantza dagigu. Eta egin bear doguzanak dira, izan be. Baiña bein da bider, milla bider madarikatu izan dogun «kapitalgoaren» burdira igon gurarik gabiltzaz. Madarikatu ta gorrotatuen maian ezarri nai dogu. Dirurik asko ta ondasun andidunen andikerian bizi gura dogu. Zerk damosku egarri au? Bekaitzetik ziur asko.

Bagiratu, ezipabere, narrugorri atzo, ta gaur lantokixoren bateko jabe ta langilleren batzun nagusi izatea eskuratu dabena. Atzo, eukidunari gorroto; ezeukiari gaur, orkonpon!

Eta umetatik gizonduartean ikasketa andiak egin, mingain luzeakin ondasungabeak goraldun... eta ikastekoak ikasi, zuurtu, gizondu, ta aitaxo ondasuntsuaren lantokian naiz ogibidean aitaren kide edo beralako nagusi egin izan dan señoitoak, zer dirausku? Or konpon, onek ere. Eta emen dogu egon-eziña, dantza-pipertua, bekaitzaren seme ekaitza.

Bekaitza itsutu eta ekaitza baretuteko, zer egin?

Goi-mailetako eukidunai begira marru ta amorru-negar gutxiago. Aurrera begira jokatu. Obearen bila jarraitu. Eta amestuten doguzan ondasuntza zabal eta dirutza andiak eskuratzetik izango ba'gendu, bean eta atzean eziñak jota gelditu diranai, beatzak zapaldu bearrean, eskua luzetu.

ERIoTZA

Gaur egungo aurrerapenaren aurrerapenez eta obeto bizibearrez bildurgarri biurtu doguzan bideetan, bereak eta bost egiten diartu eriotzaren ayotz makur zorrotzak.

Makiña batz danta, eta laiketetan ainbat garaiur irabazia, eta amaikatxo jairi bizi alaitasun eskeindutakoa pandero-otsez, bizi izan dan inguru-urbillean jo-ta-eroan dausku bideetan dogun aizkora anker biotzgabeak. Garakoi'ko P., Txato. (G. b.).

Illeta-cleizkizunera ta azkenagurra egitera joaterik izan ez genduan lankide zar eta aunitz adiskide, AGUR onen bitartekotasunez, Bilbao-Zautoa'tarren atsekabe baltzean lagun gara.

LANDAJUELA'TAR A.

DEPURACION DE AGUAS S. A.

URA EGOKITZEN ETA UR LANETAN BEREZITUAK, EDANGARRIAK - LANTEGIRAKOAK - ZIKINDUAK NAIZ IGERITEGIKOAK ZUZENTZEN

+ 32-37-00 - + 31-00-10 - 32-37-01 Urt.

Gordoniz, 44, 12.^a
BILBAO-2



BEASAIN

Baserriari lotuta bizi ziran beti. Baserrian baiño ez eben pentsatu. Antxe, «Alta-mira'n», alkarrekin baketsu bizi ziran. Alkarrekin lan eta alkarrekin jan. Alkarrekin soloak landatu eta alkarrekin jorratu.

Erramona eta Dolores ziran gonadunak, Joxe Mari eta Joxe Austin prakadunak. Lau anai-arreba.

Urteetan aurrera eta gero ta etxeari lotuago. Bizitzan ere norberekeriari geroago lotuago. Eleizegi Uberetagoiena ziran.

Madrid'en, Museo del Prado'n, edozeinek ikusi leikez euskal sukalde dotore eta jator bateko argazkian, erretratuan.

Baiña sukaldeak aldatu ziran eta barrizatu. Eurak joan ziran eta ondoren ez, nai eta Beasain euskal-odol garbi barrien utsunean egon.

Eurak Museo bateko argazkian gelditu ziran...

* * *

Sarri joan izan naiz Beasain aldera, Azpeiti'n sartu, Errexil'erako edo ta Goiaz'erako bideak ezkerretara laga, eta zuzen Urrestilla eta Nuarbe'tik zear, Matxinbenta ikutuz. Emen asten da Beasain, baiña oraindik amalau kilometro dagoz erri bururako, Mandubio'tik zear.

Beasain'eko bost baserri dagoz Matxinbenta'n. Enrio eta Igarzola eta iru Otolak (barrena, erdikoa eta goena). Beste bat, Erripa, bertan bera galtzen dago.

Emen asten dira beasaindarrak San Martin gogoratzen eta goratzen. Japondar ikuspegi ikusten egon bear da gaztelu zarra dirudin euskal eliza onetan.

Matxinbenta'n eleztarrak bat dira, baiña kaletar lez, erriar lez, Beasain, Itxaso, Azpeiti eta Beizama'ko alkate bastoiak zuzentzen dituez bertakoak.

Alkaterik onena eta eurenkin batuena, parrokoa. Egon zan gerra min eta garretan sartu zituna be. Napoleon'en denporetan, gogor agertu zan emengo orduko parrokoa. Frantzestarrak artu eta euren lurraldera eroan eben, lotuta, preso. Baiña biotz sutsu eta beroko zan gure gizona eta irudimen askoko. Eta andik iges egitea lortu eban.

Matxinbenta'n oraindik zestu-giñan jarraitzen dabe, antxiñakoen bizi bidean, eskulanean. Bost-sei etxe ba dira onetan dakienak. Gaur Nuarbe'n geiago egiten da, baiña emengoak ba dakie esaten angoak eurokandik ikasi ebela.

Zestu-giñan esan dot. Itxas errietan arraiñekin erabilten zituen otzarei, emen millo-tarrak deitzen dautse. Eta beste batzuk be ba dira izen berezia daukenak: asto-otarrak, lepo-otarrak, esku-otarrak eta abar.

Arrantzaleak laga eutsen otarra oneik erabilteari, bastertu zituen, ol zabalekoen aukeran edo ta plastikoen mesedean. Origaitik emen gero ta geiago pentsatu bear ogi zuria zelan eta mundik jan.

* * *

Matxinbenta'n bertsolari baten irudia datorkit. Eta bertsolariaren bidez gizonak, zoritxarretan be, gainduteko eta jaiki al izateko daben barruko indarrak gogoratu.

Bertsoak berak, berba gitxitan, ba daki asko esaten. Ez gaitzen beti zorrotz agertu bertsolarietak. Askotan, esanak eta izanak, poto baten akatsa aaztu eragiten dabe.

«Auspoa»tik artzen dodaz bertso oneik. Zeiñenak eta zer diran esan bearrak ez dago, eurentan dana esaten dalako:

Apellidua Lasa det eta
Jose Maria izena,
Matxinbentako barriotikan
soldau atera nintzana;
suertosua etzan izandun
nere gerraren azkena:
bala txar batek begik kenduta
itxu gelditu nintzana.

Gizon au, binboliñagaz bere abots ederrari lagunduz, erriz erri ibiltzen ei zan, bertso paperak saltzen, anai arteko gerra askoren itsukeria erakusten, berak, itsu, lotan egozaneik begiak argitzen.

* * *

«Xalbatore»n kamiñeruen etxea ikusten neban nire ibilleretan, baiña eleizarik ez.

«Xalbatore»k ba eukan gaiñera bere istori zarra: templarioen monastegi bat emen egona zala XIII gizaldi inguruan.

Xalbatore Arriaran'en mendean jausi zan, bere egaltxo baten geldituz.

Bear ba'da Arriaran'en entzuterik be ez dauke askok. Bide nausitik igarten ez dalako.

Gerra aurretikoak gogoratu leikie, bear ba da, 1932 inguruan emen ebagoi eben in-txaur arbola baten kontua. Lau metro baiño geitxuago eukazan oiñean. Zabalera ederra. 4,20 zeatz esateko. Eta egurretan 13,660 metro kubiko.

Arriaran'en istoria, ama askok, umietatik dakie. Ume negartiak, amets gaizto eta esna-garridunen mende bizi diran umeak burukomin asko emoten dabe, batez be gau luzee-

tan. Andrak, amak, gau larri asko igaroten ditue eurekaitik, eta gizonak, aitak, komedianteenak egin bear sarri. Egunez, tentien tente ibiltzen dakien askok, gabaz lau ankatan ibiltzen ei dakie umeak ezin baretu eta alaituz.

Emen, Arriaran'en, kandela argitan, par-rokoak ainbat umeri irakurten dautsez lau ebangelioak, edo obeto esanda, euretako zatiak, amets gaiztoak baketu eta baretzeko. Toki askotatik dakie orretara umiekin etortzen, eta ez inguruetatik bakarrik.

Xalbatore'ko eleizea galdu zan eta emen, Arriaran'go onetan dagon atadia ango eleizatik kendu eta ekarria dala diñoe. Gotiko loretsu eta dotorea da.

* * *

Arriarandarrak, denporetan, berba leku asko emon eben istorian. Itxaso'gaz batuta egon zanean, sei urtetik bein Itxaso'k aukeraten eban alkatea eta zazpigarrenean Arriaran'ek. Zegaitik pentsatu Itxaso au ur-andien itxasotik datorrela edo antzerako esan naikoa dala? Zegaitik Itxaso'rako bidea erakusteko, batel baten irudia bertan ipiñi? Onetan euskaldunok ez jakin lez agertzen gara. Itxaso ala Itxaso deitu bear ete da erri orrieri? Laga daigun autu au beste baterako.

Esan dogun lez, Arriaran auzoa Itxaso'gaz batuta egon zanean, sei urtetik bein Itxaso'k aukeraten eban bien alkatea eta zazpigarrenean Arriaran'ek. Baiña kontuz, ez arriarandarrak, bertako etxe batek, famili batek baiño, bera zalako emengo baserri guztien jaube eta origaitik ortarako eskubidea artuta eukan bakarria. Auzoak asarre eta etxeokak be asarre. Ori zan emengo buruauste eta emengo jokabide larria.

Orrelaxe urtien urtetan. Azkenean be, 1927 urtean Arriaran eta Itxaso banandu ziran, egia esateko, Arriaran'ek Itxaso'tik urten, baiña ez bere jaube izateko, ez nortasun osoko erri bat osotzen gelditzeko, Beasain'en erri legean sartzeko baiño. Orduarte arriarandarrak Arabaka'ko markesaren agindu, erabagi, esan, gurari eta zorpean bizi ziran. Ortik len esan doguna, famili baten soñuan dantzan egitea.

* * *

Mandubio gaiñetik errez sartzen da Astigarreta'ra.

Sasoi baten, bete-betea ez ba'zan be, Segura erriarekin batuta bizi izan zan. Aren mendean.

Baiña arekin biziten aspertu edo ta norbere jaube izateko kezka, diruz erosi eban eskubide ori. Amazortzi milla errial ordaindu zitun 1615 urtean bere jaubetasuna lortzeko. Eta «erri leial eta zintzoa» deitu eta erabilizteko aukerea be emon eutsen.

Baserri erria. Eleiza, plaza eta taberna. Erri txikia, danetara be, kale eta baserri, ogetamar etxe ozta-ozta. Mendi-mendian, ikuspegi ederren jaube.

Emengo San Martin ez da Asentsiokoa, Euskalerrri'ko ainbat tokietan Azillea'n ospatu edo gogoratzen dana baiño. San Martin bearrak bear eragin, nai eta euria egin. Esakera da. Edo ta San Martin, txarriak il eta lukainkak egin.

Beasain'dik etortzen dira orain pralleak eta euren kontuan dauke gaur emengo eleizea. Orra ordena bateko pralleak San Martin bigaz jokatzen.

Ba dago emen beste ermita zaar bat be: San Gregorio. Berriatu'n lez, emen be argontziko orioak belarriko miña kentzeko fama-txoa dauka. Ingurutako erromeririk andien egiten ei da santu orren izenez, baiña ez ain zuzen be bere egunean, Berriatu'n lez. Emen Pentekostes edo Etor-aldiko paskutako astelenez egiten da.

* * *

Beasain'go beste auzo bat: Gudugarreta. Ba da esakera polit bat auzo oneri buruz: Gudugarreta, ez eliza ez errota.

Erriak «kanpaitoretik» begira nabillen onentzako, ara berebiziko auzoa. Gaia aldatzeko bada be...

Baiña... zer esan bederatzi etxeko auzo batetzaz? Or dago kakua. Bide nausian dagon señaile batagandik igarten da au. Bestela... zein konturatu gure errian ez eliza eta ez errotarik daukan'auzo bategaz?

1882 urtean batu zan Beasain'egaz. Orduarte erri lez. Alkatea be ba eukan beintzat. Eta alkatea bera karlisten gerratean konturatu ei zan erri' bako alkatea zala. Arein soldaduak emen gelditu eta erri legez janariak eskatu eutsezanean, alkatea estu eta larri ibilli ei zan jateko orreik billatu eziñik eta ainbesterako duin ez zirala siñistu crazy ebanean be, pozik. Il egingo ebela be pentsatu ei eban, arerio lez etsiko ebela.

Orra, gaur, ni konturatu barik, Beasain inguruetan galduta ibilli naz. Izan be Beasain'ek inguru asko daukaz eta erraz galtzeko modukoak. Beste baten jetxi bearko gara erri barrura.

A. ZUBIKARAI

AGVR

Apartado n.º 2
BILBAO

FRANQUEO
CONCERTADO
08/55

GEURETASUNAK ETA GEUREKERIAK

Geuretasunak eta geurekeriak. Geure geureak direlako; bai geuretasunak eta bai geurekeriak; biak. Izan ere, geuretasun asko daukagu, an or emen, asko, bai; uste izan geinken baiño geiago. Baiña geurekeriak ere bai, gitxi asko. Biak: geuretasunak eta geurekeriak.

Itz joko bat dirudi onek; eta alantxe da izan ere. Baiña esan-nai andiko itz joko. Gure erriak asmatuak; ez nik. «Santukeriak ugari zuk, baiña santutasun gitxi», «gizonkeri eskasak dozak orrek», «maitekerietan ibiliko gara beti ala?», «ikusi non gelditu den orren gizontasuna» eta olako esaldiak sarri entzuten duguz erriarren artean. Gauza ona ta txarra, gauza baten alderdi ona ta txarra bereiztuteko, bananduteko, erabilten ditu gure erriak —tasun eta —keria atzizkiak. Eta nik ere orretarakoxe darabildaz: gure geuretasunak eta gure geurekeriak agertzeko, erakusteko.

Ain zuzen ere, gure geurekeriak kendu, baztertu, aldendu eta, aal izanik, ezereztu egin bear doguz. Eta gure geuretasunak ezagutu, ugaritu, geuregandu ta geuretu. Bearrezkoa dogu au benetako geu izateko, gure nortasuna, zertasuna ta zeintasuna zaindu ta sendotzeko. Egin egin bear dana egin ezkerro, bere izatea bere izatetasunean zaindu ezkerro, ez da iñoiz iñor endekatzen, eta endekatzen ez dan erria, beti izango da erri, nai ta aurrean erabili.

Gure geuretasunak eta gure geurekeriak agertzera nator, ba, AGUR onetara. Astiro astiro, kontuz kontuz nator, estropezurik izan ez dagidan. Naiko estropezurik eta nasteborrasterik izan dogu aspaldion! «Tasun» ta «keria» ta batasuna ta bitasuna, euskera ta euskerantza, bada ta ezta, erlejiñoa, politika, gazteak, zaarrak... Ikusteko ere andiagorik! Mozkortu egin garala dirudi... Mozkortu? Mozkorrak mozkortia dakar burura. Bai, Txomin Goitizurikoa izan zan. Bein baten, mozkor itzela artu eban (noiz ez?) eta bideak bete joian bere etxerantz auzoko Santiagaz. «Neuk lagunduko deusut, Txomin», esan eutsen Santik besotik elduten eutsolarik. Baiña Txominek: «Ez, ez, ez; ondo najoak; ondo, bai, ondo...». Etxe ondoko errekatxora eldu ziranean, joan bajoian, baiña oso txarto joian Txomin, bein batera ta bein bestera, noiz jausiko beera. Alan ta guzti ere: «Ondo najoak, ondo..., ondo...», esaten eban. Baiña, alako baten, plaut!, errekarra jausi zan. Eta orduan: «...ondo najoak..., ondo... on..., «ointxe» txarto, i; «ointxe» txarto...», esan eban Txomin mozkortiak uretan aratinik egialarik.

Neuk ere esan dot iñoiz ori: «Ointxe txarto». Nok ez? Bota dagiala arria neure burura. Nok ez dauka «keriarik»? Datorrela neugana ta neuk erakutsiko dautsada. Beñola «Haurgintza minetan» idatzi nuenez: «Izugarrizko burrukaldi bat egin dugu mozkortik guztiok. Eta negar ta parre, adiskide ta haserre, errebasatzen, gonbitatzen, goitika, goraka, okeka, hondatu hondatu egin dugu elkar. Azkenean, zorionez, burrukaldia besarkaldi bihurtu da. Eta, kanta kantari, etxerantz jo dugu. Zein etxerantz? Ez dakit.

Bazter guztiak inguruka,
bideak ere inarroska.

Munduak zer du? Hau da hinka?
Goazen etxerantz andarkoka...

Mutiko gazte bat ikusi dugu bidean (bat ala bi izan dira?), eta ez du parrerik egin gu ikusi gaituenean. Harriturik gelditu da. Hauxe abestu diot nik, orduan, hari:

Mutiko gazte ta leiala:
konseju onak ar zaitzula;

otoi, bizian ez zaitela
sekulan mozkor ni bezala».

Kontuz kontuz nator, ba, AGUR onetara. Baiña irribarreka, umoretsu, nire Maisuaren esanari jarraituz: «Mutikotxoak lakoak izaten ez bazaree, ez zara sartuko zeruko erreñuan». Mutikotxoak legez, uste osoz ta irribarreka nator. Ez dot iñor minduterik nai, naiko mindurik neu egon arren. Ez dot iñor minduterik nai; ezta umorerik galtzerik ere. Eta nire neuretasunak eta neurekeriak Bizkaitan sustraiturik dagozan ezkerro, bizkaieraz nator, bizkaieratik baturantz joteko asmotan; obeto esanda, batutik batuagorantz. Izan ere, bizkaiera euskera da, euskera jatorra, betiko euskera osoan biotzean dagoan euskera. Baiña bizkaieraz nator onexegaitik batez ere: bizkaitarrentzat idazten dodalako eta bizkaitarrak ere bizkaieratik baturantz, batutik batuagorantz, euskera osorantz eroan gura ditudalako.

Geuretasunak eta geurekeriak agertuz, euskeratik euskerara eroan gura ditut bizkaitarrak berez berez, errez errez, igarri barik, poztasunez. Nai ta nai ez, derrigorrean, eta beingo baten izkera ta idazkera aldatzea eziña da. Egia esan, gogorkeriaren bitartez, zelako edo alako gogorkeriaren bitartez, ari aldatu daitezke gauzak. Baiña indar andia bear da orretarako eta, gaiñera, gogorkeriak gogorkeria dakar.

Geldiro geldiro, poliki poliki, bizkaieratik baturantz. Gurean, oraingoz beintzat, ez dago beste biderik ez zeregiñik eskolarik eta aginpiderik eta telebisinorik... eta zerik barik. Daunanean dauantxo, ene enetxoa!

Urrengora arte.

LEJARRENEKO MIKELEK

«T
traka
Siñist
Ez da

Erreg
lurraldet

Or ko

Ondar
nean tar
bazkarit
Kontsesi
ordu ber
gaur gize
nortzuk

Orain
ten-eta!

Itandu
deko etxe

«Nesk
dakien i
tua, mod
izatea. T
ta dantz
likinduta
bagakoak
modestia
legiue, eg
ren» izen
izena. Ez
bada belli

Goazer
zon ondr
nak, edo
izaten zir
eskupekot
asarrerik
baiño gei
tean, eura

Oituzer
riak orko
ala norba
edo ta eu
neskatil et
igarri.

Oitura
zan. Oituz
dago larro

Eta bes
eragitea?

Benetan
dautse um
bitarte orr

Ni ez n
niztan. Ba
nebala euk
tzan egi bi

Gaurko
amets ez
«errege-ur
ala ez? Ede
gara bene-l
ta guraso e
umiei ilusi
umeak eur
orretan?

Bizitza g
ez dan zer
gazteetan. E
egin eta a
kantari ost
Edo ta um
eroan, eusk
berak, eusk
dunetan ba
urtean bein

Erregetal
tzake izang
taratean eus
gero...

ERREGEAK AGUR ZURI, GERO ARTE!

«Trakatan trakatan iru Errege, trakatan trakatan Belen'era...»
Siñistuten al dogu Erregetan?
Ez da fedeko siñiskaia.

Erregeak zirala, errietako agintariak, lurraldetako ordezkariak?

Or konpon.

Ondarroa'n, oraintsurarte, Errege egunean tamboliña jotzen eutsen, eguerdian, bazkaritarako orduan, «gizon onraduei». Kontsesiño egunean jotzen eutsen lez, ordu berean, neskatillei. Baiña nok daki gaur gizon onraduak zeintzuk diran eta nortzuk neskatil!

Orain berreundak urte ez eben jakiten-eta!

Itandu fray Bartolome, Markiña aldeko etxebarriatarrari.

«Neskatillaren izenak, guztiak ondo dakien legez, beragaz dauka errespetua, modestia, onestidada eta lotsorria izatea. Ta modu atan piestarik piestara ta dantzarik dantzara gizon esku artean likinduta dabillan emakume ezkondu bagakoak ez dauken legez ez lotsarik, ez modestiarik, ez onestidaderik, ezin emon legiue, egiako errazoiak «neskatillaren» izen ondrea, ez bada neskearen izena. Ez jako beliar usoa esaten, ez bada belia».

Goazen erregetara. Ondarroa'ko gizon onraduak, agintariak, edo dirudunak, edo gizon ikasiak eta antzerakoak izaten ziran. Tambolin soiñuaren ordez eskupekotxu bat emongo ebenak. Ez zan asarrerik egoten. Oiturea. Baiña batek baiño geiagok esango eben euren hostean, eurak ez ete ziran gizon onradu.

Oiturea galdu zan. Ez jakin txistulariak orko eskupekoen premiña galdu, ala norbaitek zerbait esango eutsen, edo ta euren kontzientzian norbaitez, neskatil eta gizonak, euki leikien ardura igarri.

Oitura bat, tradizio bat jarraitzen zan. Oitura lez polita zan, baiña... ez dago larrosarik arantza barik.

Eta bestea? Umiei erregetan siñistu eragitea?

Benetan be zotin andia eragiten ete dautse umiei erregetatik gurasoetarako bitarte orrek?

Ni ez naz gogoratzen noiz konturatu nitzan. Ba dakit esaten dan txokerik ez nebala euki. Miñik artu barik sartu nitzan egi bidean.

Gaurko itauna au izan lei: Umeak ametsez eta ilusiñoz igaroten dituen «errege-urteak» biziteak merezi al dau ala ez? Edo ta umetatik sartu bear ete gara bene-benetako bizi gordiñean? Edo ta guraso eta erregeen artean, zek emon umiei ilusiño geiago, ume aro orretan, umeak euren munduan bizi diran aro orretan?

Bizitza guztian billatuko dogu ondo ez dan zerbait. Umeetan, zarretan eta gazteetan. Egun baten iraultzako oporra egin eta amalau ordu geroago kantakantari ostiko jokoa ikusten joatea lez. Edo ta umeak ikastoletara arrotasunez eroan, euskera pixkat ikasi dagien, norberak, euskalduna izanda, etxeko jardumetan bastartzuz. Zenbat olako! Ez urtean bein, eguneroko bizitzan baiño.

Erregetako erregalu txarra ez litake izango norbere bizitzeari tarrean-tarte euskal txeko bat egitea, eta gero...

«Erregiak zerate,
ezagun dezute
zuen jantzian
eta prezantzian...»

Artetxe ta Arana'tar Luki il jaku, ta bere eleizkizunetik gatoz Karmen'go Amaren eleizatik. Gure asteroko au ez da New York Times bat, eta urren-go zenbakian zerbait argitatzeari izan ezker ez dago biamonerako izterik, berealaxe idazten asi bear...

Gaur baiña, gure lana ez da erreza, oiñazea ta itxaropena nastean daukaguzala, biotzak nai leuken guttia esaterik ez dago, ain zuzen be.

Zenbat oroipen, zenbat jazoera, danak batera urten naian, gure eskuari eragiñez... Geienak baiña, aldi obe baterako geratzen jakuz, geuretzako bakarrik.

Guda aurreko ta guda aldiko euskaldunentzat oso ezaguna izan da Luki'ren irudia; gure belaualdikoentzat ez orrenbeste; gazteagoentzat gitxi. Ta auxe da gure samiñik aundiena: olako gizonen jokabidea, eguzki argidun izpiekin azaltzeko eskubiderik ez izatea.

Nor eta zelakoa izan da Artetxe'tar Luki? Ez goaz gaurko gazteentzat gizon jator onen bizitza aztertzer. Izango da idazle oberik eta aldizkari egokiagorik gure lurralde onetako baztarretan zear. Gure erriaren ikuspen berezia eukitzera eldu nintzaneko iru-lau bat txinparta azaltzera natorkizue.

Guda garaian, ume-moko bat nintzalarik, arrezkero esku-artera etorri jatan liburu baten irakurri neban lenengoz Luki'ren izena. Santoña'ko jazoera ezaguna irakurri ondoren, erri-maitasunean gurasoengandik azia nintzan onegan, olako gizon bat ezagutzeko gogo bizi laister sortu zan.

Baiña gazte biotzean zerk sortu legikean olako gogo bizi?: Gizontasunak eta zintzotasunak!

Agintari edo buruzagi ona danak, arrisku aldirik ba'letor, aurrera jotzen jakin bear dau. Bere jarraitzaileekin batera, nekealdi ta oiñazeak igarotzen, eta eriotzea ba'letor, norbere burua lenen eskeintzen jakin bear dau...

Luki olakoa zala jakiteak, nere biotz gaztean lenengo sua biztu eban; bera ezagutzeko gogo. Nun-nai ikusten gendunean, ikur antzeko zerbait zan guretzat aren irudia: beti lenengo maillan bere nortasun lasaigarria. Bera lako gizonak izan genduzan erri-maitasunean, lenengo oinkadak emoten asi giñanean, aolkulari zintzoenak. Urteak joan, urteak etorri, ainbat jazoera, ainbat pozaldi ta ainbat nekealdi geiago izan doguz gure benaualdiko errizaleok.

Baiña Luki'ren nortasun osoa azaltzerik ez dago gure lerro oneitan. Karmen'go eleizan, gaur, Lotazillaren 21' gnean izan garanok, bardin bako dan Kauldi jaunaren aotik entzun al izan doguz egirik biribillenak. Olan entzun al izan dogu, kristau batentzat norbere erria maitatzea dala lenengotariko agindua, Kristo'k be negar egin



ebala Jerusalem apurtuko ebela iragarri ebanean; ez dala kristau ona, Euskal-Erria maite ez dauan euskalduna.

Errizale ona ta kristau ohea izan zan gure Luki. «Maite ba'nozue, itxi zuen ondasunak, itxi zuen sendia ta lagunak, eta zatoze nigaz» esan ei-eban Kristo'k... Luki'k bere bizitza osoa eskeiñi eban erriaren alde. Erriagandik artu eban agintaritzeari; autarkiz izendatua izan zan bere alderdian. Gudea etorri zanean, bere agindua ondo betetzeko, bere sendiagandik aldentzeko adorea izan eban. Biotza apurtuta euko eban, zelan ez!, bere emaztea ta seme-alabak erbesteratuta egozala jakitean, baiña bera, bere lagunekin, bere kide menpekoe-kin, zigor-bideetan zear abiatu zan.

Gero, ixilleko beste guda luzeago bat etorri zan. Orduan izan gendun bera ezagutzeko era. Zenbat aolku eder, zentzunezko zenbat oar artu doguzan bere ezpanetatik. Su ta gar egoanean gure biotza, beti izan gendun Luki'ren aolku-iritzi sakona... Gaur ikusten dogunez, ez dago olako gizonik edo olako agintaririk.

Kauldi jaunak iñoskunez, gizon eta kristau on bat galdu du Eleizeak, eta gizon on eta agintari on bat Euskal-Erria'k. Gizon onak eta agintari onak izango dira ludi zabala zear, baiña obarik ez.

Ez goaz geiago luzetzera, iru edo lau lerrokin amaitzera baiño: Aita ta senar on bat galdu du sendi batek. Buruzagi on bat erri batek. Kristau on bat gure siñesterrak. Toki barri bat irabazi du, zeruan, Euskal-Erria'k.


Eta azkenez, apal-apalik aitortu bear dogu, lagunik zintzoenatariko bat galdu dogula, oraingoz beintzat, AGUR asteroko onetakoak.

Zure alde zerbait egitekotan, zer egin bearko? Ala, zure bitartez, Jainkoari, zer ekastu bear? Gure asteroko onentzat laguntzea, zuk irakatsitako elburuen billa, gogoz eta kemenez jarraitu dagigun.

Jainkoaren eta Lege-zarren bideetatik, agur egun aundira arte.

AGUR'ekoen izenean,

JOSU'K



GABON JAIALDIAK

Pozik ikusi doguz Gabon aurrean egin diran jaialdia. Lengo baten esaten genduz, bearrezkoak doguz gure umeeri euskal-kutsua sorterazteko. Datorren zenbaki argitaratuko doguz, bear ba' da, beste argazkiren batzuk, baiña gaurko onetan, BEGOÑAZPI'ko ikastoleak, Santiago Apostol Antzokian eratu eban jaialdiko bariak emotera gatoz.

Gure esker onagaz batera, aparteko aipamena merezi dabe Gontzal Mendibil eta Joseba Zarraga gure adiskide ta abeslari bardin bakoak. Txalo artean agurturik, egarriz itxi ebezan entzuleak. Zer esango «JATORRI» abesbatzari buruz? Ba, gure jaialdia ez ebala merezi olako abesbatz baten ekinialdirik. Baiña, guk, gurea obe-



Lenengo ekinialdian, Inigo Ordozgoiti ta Inaki Markinez'en bertsoak entzun ondoren, gure ereslari txikien ekinialdia izan gendun. Ederto Idoya Arrola, Itziar Aristondo, Jayone Aburto, Itziar Elkoro, Ana Ramos eta Victor De Diego, euren soñuekin, Kepa txikia tarteko ebela.

Zoragarri Goiri-Arkaute neba-arreben abesti saioa. Ederto irugarren maillako dantzari taldearen sagar-dantzea. Ikustekoa Heidi Moragues eta Ibone Goiri'k egin eben ageraldia; jantzi dotoreak eta abots obeak.

Polita benetan «Gabonak gaur» antzerkitxoa, margoz bete ta ederto antzeztua Inaki Aristondo ta Inaki Murua'k lanik gogorrena ebelarik. Danak ondo, bakoitza bere antz-irudia betetzean. Ederto D. Eleuterio'k gertatu eban abes-taldetxoa.

Ta azken-azkenarako itxi dogu aurkeztzailearen aipamena. Karmen andereñoak, benetako euskera jatorrean, zoragarri biribildu eban jaialdi osoa. Azkenean, ikastolako ikurrintxo bana, Zarraga, Mendibil eta «Jatorri»koeri emonaz, amaitu zan jaialdia.

Olako asko bear dira, ortik eta emendik.

MUNEGAIN



tzeko, ikastolearentzat diru apur bat lortzeko zala esan geuntsenean. bereala baietzemon euskuen. Abestu eben bai eta zelan! Arregi'ar Andoni zuzendari jatorrean talde onek, ego luzeak izango ditu laister, gorengo maillara igoteko aiñakoak. Zorionak eta milla esker guztiori.

Azkenarako itxi doguz gure umetxoak. Gure ustez, ikastolearen izen ona, leku onean itxi eben.



AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira astero onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskera bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri asmoen gaiñetik daben iritxi-onoeko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxi, baita onen zabalkunde ta erabiltear on bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egileak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M.^a MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.

Carretera a Galdácano, 32-Bilbao-4

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA

ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guturako:

Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

IKASKETA GAIEN AUZIA

GAURKO AURRERAPEN ETA ALDAKETEN NEURRIAN

Gizarteak, erri aurreratueta batez be, daroan eten bako barrizkundeari begiratu ezker, ikasketa auziak, naiz eralguntza naiz teknika aldetik ikusi, berarizko garrantzia dauala uste izateak bidezkoa dirudi. Eta gizonak euren buruei ta inguratzen dituan giroari egiten dautsezan itaunak eraginda, garrantzi ori geiagotu egiten da; zelako ta zenbateraiñoko indarragaz egiten diran neurrian.

Irakaskintza edestia zerbait arakatu ezker, auxe ikusten dogu: elerti-ikasketa guztitarikoa edo «enziklopediko» oiñarrizat artuta euken aretatik, egiterazko ikasketa berezitueta aldatu dala. Gure errian, alan eta be, era bi oneitako ikasketak izaten dira, naizta alkar ez aurkitu.

Lenago, teknika gitxi bear izaten zala ta urteak zear lan-erak be asko ez zirala aldatuko uste izanik, orduko berarizko ikasketen asmoa orretarako aiña izango ziran gizonak trebetzea bakarrik izaten zan. Arrezkero, jakintza arloan ikusten diran izugarrizko aldakuntza geldi-eziñak aurrean doguzala, gaurko gizonak eta teknikeak eskatzen dabenerako gauza ez dirala, ezpai barik esan geinke.

Langille berezituak gaur, eten barik ikasi bear dau, eta jakintza ta teknika arloan diran aldakuntzekin batera albaite ondoen aurrera egiten aleginduko da. Au da, asierako bere ikasketak lortzetik, urrengo erabiltze ta barriagoak diran jakin-bearrakaz bat-egitera aldatzean, eten bako aurrera-ekintzea erabilli bearko dau. Eta gizon «eragilleak», gizarte mailla guztietara elduko dan izate-neurri barri bat lortuko dau. Ta ortik, onuragarri izango ba'yako ondo erabilli ta zaindu bearko daben aldaketa baten bultzalari ta ardatz izatera, ara ta geiago, eldu.

Ezin geinke gaur, osorik eskiñi ikasleari gizonak egin eta asmatu al izan daben guztia. Beraz, ezin daiteke «enziklopedik» ar ikasketea yakintza jatorra izan; bestalde, yakintzako oiñarri zabal bat lortzeko aiñakoa izan bearko dau, batez be, irakas-erak osotzen daben arloan. Onetara, bakoitzak bere egiñetarako bear izango daben jakituriko mailletara jo al izango dau. Era berean, bere nortasuna osotu ta gizartearen oberako, bere asmamena erabilten be aleginduko da. Orretarako baiña, irakaskintzaren ardurea dauken eralguntzak eta ikasketa-erak eurak be, zearo erabarrituak izan bearko dabe.

ITZAGA

Ikastoleetako Jaiak

EUSKERA BITARTE

Gabonil onen 18'an, Santiago Apostol'eko Antzokian, euskal-jai polit bat eskiñi euskuen Begoñazpi'ko Ikastolakoak. Nork idatzi onetzaz izango dala uste dot?

Beste au aipatzera nator. Il onen 20'an, Ariz'eko Ikastolan be, jai eder bat ospatu eben. Oso ederto egon zan, eta ikusgarria ango andereñoak deituta etorri zan sendi-txiro arena.

Sendi ori ekarteak elburu eder bat eukan, «or ikasten daben umeak, bakoitzak, sendi orrentzat zerbait ekarri ta euri eskintzea». Ederto benetan umetxoak, danerik ekarri eben, ez dot uste ezer falta zanik.

Esan bearrekoa da ganera, sendi orrek oso eskertu ebala umeen borondatea; euren arpegia ikustea zan naiko.

Ori bete ondoren, umeak beste zerbait egiteko gertatu ziran. Egin

eben dana, ezin esan onelako lan txiki baten. Zeozer esango dot baiña:

Mailla guztietako umeak abestu euskuezan euskal abesti batzuk; beste askoren artean, onetik: «Amets, Salbatzailea, Gorbea'ko mendian». Ipuñ barregarriak be esan euskezan euskeraz, eta txalogarria zala uste izan neban, ume orrek, etxean, erdera utsa entzuten ebala jakin neban.

Andereño batek esan eustan, Ikastolea bera be txiroa dala, baiña alan izan arren, ez dira bertako gogoa ta kemena txiroak; euskera utsa bakarrik entzun al izan gendun jai guztian, ume arein aotan.

Zorionak andereño guztioi. Zuek lanaren frutu ederra ikusi al izan dogu, ta ez lotsatu ikastolea txiroa izan arren, umeak euskera ain ederto egiten daben arte. Ikusten dogu Ikastola ospetsu batzuetako frutal be-ta. Zorionak barriro.

ASTONDOA'TAR JOSU M.

EUSKALERRI'KO ARAZOAK

IZADI-INGURUKO GAIAK

Kutsadura zuzentzeko burrukan, Europa'ko Merkatu Batuak, errialdeak eta naziñoak bere kontuan artu bear ditu

Joan zan illean, Izadi-inguruari buruzko batzar bat ospatu eben Europa'ko bederatziak, Bruselas'en.

Mai ganean, garrantziko arazo nagusi bi eukezan. Batetik, ibai eta zingiretako uren kalidadea edo zelakotasuna, gero geuk eran oi dogun urarena. Bestetik, orio ta koipe ondakiñak zelan suntzitu edo ezereztu. Izan be, lantegietako urak daben kutsadura edo kontamiñasiñoa, % 20'an, orio orrexetatik dator-eta.

Arazo bi oneek garrantzi aundikoak ditugu duda barik, ganera, Europa'ko Estatu bakotxaren mugaz ganetiko zabaleraoak. Europa'ko ibai nagusiak, Laterri batenak ezeze, Estatu askoren lurak igaroten ditue. Beraz, ibai oneetako uren kutsadura pillotzen doa Estatu bakotxetik igaro ala. Gauzak onela, ta arazoaren zabalereak eraginda, erabakiak, Laterri bakotxaren ganetiko mailla onetan artu bearko dirala argi dago.

Emen dator korapilloa, zoritxarrez. Alan da ze, izadi-inguruko arazoetan zein jokabide jarraitu bear daben erabakitzean, ez datoz bat Europa'ko Alkarkideak.

Izan bere, Izadi-inguruari buruzko edozein politika oiñarri, ekonomiaz buztartuta doa. Alan da ere, Estatu bakotxak, aurrerabide maillan be, gizarte-koste ta eralgiberreri neurri bat ipinten dautse. Au da, bere ekonomia-aren araberan kutsadura kendu al izateko, gastuak neurri bateraiñoakoak baka-

rrik izango dira. Gauzak orrela, geiago edo gitxiago, kutsadura zuzentzea Estatu danak onartu bearra dauke.

One emen ba untzea: Eusropa'ko Laterri bakotxak, bere aurrerabiderako, gizarte-koste ezbaridiñak ditu, beraz, ez dautse danak jaramon bardiaña egiten kontamiñaziño neurriari.

Ala bere, eragozpen guzti oneek izan arren, bederatzi Estatuok, izadi-in-



Azkeneko Albisteak

Napoleon eta Josefina, televistan azaldu berriak dira. Biak, eta Peret'en astoa izan dira antzerki baten protagonistak. Gaia: Desodorantea. Napoleon'ek eta zer esanik ez Josefina'k, biak, astoari desodorantea saldu naiean dabilte; onuragarria izango lukelako eta abar.

Astoa buru gogor azaltzen da asieran baiñan gerora eta pixkana-pixkana, badirudi bikotean esanetara errenditzen ari dala. Une ortantxe emisioa moztu egiten dute. Arrazoiak: Indarra aurreratzea dala. Beraz ari-arian utzi giñuzten, televistako nagusiek, abo zabalik. Azkenean menderatuko ote du bikoteak astoa? Ez galdu jaunak inolaz ere, urrango kapituloa.

* * *

Sara Montiel'en jarraitzailei: Ez bildurtu, gezurra da ta oso gusto txarreko broma gaiñera, ludi zabalean azaldu dan albisteak. Sarita gabero il egiten dala alegia. Guk berri ori gezurtu ez ezik arrazoi bat emango dizuegu lasai geratu zaitezten. Goizero, goizero, Cola Cao gozaltzen duela indartsu egon dedin. Prueba aundiagorik bai ote danon aurrean zabaltzeko, beste albiste ori petrala ez ezik gezur aundi bat dala adierazteko?

Lasaiago egon nai ba'dezute deitu zenbaki onetara 0000000. Ezergaitik.

* * *

Nixon lendakari zanak, mus'eko txapelketa bat antolatu du. Bertan parte hartzeko, aski da izen abizenak ematia sobre

itxi batian, eta beste sobre batian, milla duroko bat korreoko gastuak ordaintzeko.

Sariak onelaxe banatuko dira: Lenengoari: Magnetofoi bat.—Bigarrenari: Casset bi, iru edo lau.—Irugarrena.—Laugarrena.—Bostgarrena.—Eta azkenekoari: Esker milla.

* * *

Aurrezki-kutxak eta Banku-etxeak, diru laguntza oso urri ematen dutenez, ene lagun bateri ofizina bat irekitzea gogoratu zaio diru prestaketa bat antolatzeko.

Oraindik tarjetak, irarkolan dauzka eta oraingoz ezin eman dizutet bere izen, abizen eta zuzenbideak. Baiñan bai gauz bat aurreratu: diru prestaketa ori jasotzea irixteko, bereziki, bi baldintza bete bearko dirala:

Bat: Eun urte bete dutenezako bakkarik izango dala.

Bi: Abek, beren gurasoekin etorri bearko dutela, nai ta naiez.

* * *

Abek dire beste batzuen artean gaurko azkeneko albisteak. Oeratu baiñon lenagotik, Agurmari bat errezatu purgatorioko animen alde, eta batez ere oian azpira begiratu, Testigo de Jehova delakoren bat ba ote dagon ikustearren, edozein lekutan sartzen asiak dirala entzuna bai dut. Eta azkenik ori bai, ez aaztu lo artu baiñon lenagotik argia itzaltzea. Ondo lo egin.

RAMON ZAPIRAIN

guruaren gora-beeran, politika ta jokabide alkartu bat egiteko gertu dagoz. Kontuan artu bearrekoa da, Erroma'ko itun edo trataduan oneri buruz, berba erdirik be ez zala esan, eta orduan ixildutakoak orain konpondu gura dirala Merkatu osoaren maillan.

Baiña leen esan dogunagaitik, Merkatu Batua bera bere, estu ta motz gertatu da arazo oneri arpegi emoteko. Erakunde osoa bera da antza egokia ez dana.

Izan bere —eta au guretat arduragarria da— Europa'ko Merkatu Batuan eraketa barri baten auzia beste alde batetik ikutu daiteke: Laterri bakotxaren barruan dagozan errialde ta naziñoen problematika aldetik.


Artean, empresa multinacional deritxoena, aberri bako ekintza orreen lantegiak eta, ba-dakie non jarri. Europa Osoak izadi-inguruari buruzko jokabide alkartu bat ez daukan ezker, multinazionalok, kutsadura arazoan non erreztasun aundien emoten dautsen tokira, araxe doiaz.

Eta Laterri baten barruan arduradunen aldetik babesik gitxien dauken errialde ta etnia zapalduen lurretara.

Orregaitik, Bretaña'n, Kotzega'n, Sizilia'n, Eskozia'n, Irlanda'n, Gales'en eta baita gure Errian bere, gure lurak zimauregiak izatera biurtzeko arriskua dago.

Esandako guzti orrek, politika ta administraziño egiturak barriro aztertzea eskatzen dautso Europa'ko Merkatu Batuari, oraingo Laterrien barruan dagozan naziño ta errialdeak kontuan arturik esandako politika barri bat sortu. Orixe da gure eskaria ta jomugea.

YARTZA'TAR ADAN'EK



EZIKETA JOSTAILLUAK
ESKULANETARAKOAK
IRAKASKETA GAIK

Doctor Areilza, 55
31-72-93 urrutizkiña
BILBAO-10

Jolasean ikasi, or zure aurrentzako emoitzarik onena

EDESTI AURREA

(JARRAIPENA)

VI.—PALEOLITOS GARAIA GIZONAREN SORKUNDEA

Denporeagaz, abereen artean gizona sortzen da. Ta abereekandiko alderik nagusienak oneik dira:

- 1) Oin biren ganean dabil; ibilkera onek aldaketa agiriak eragiten ditu buru-azurrean.
- 2) Eskuen askatasuna, mustur urtena laburtzen doa, eta buru-azurraren neurria aunditzen.
- 3) Adimena ta eragingarri oarkor batzuk nabari dira. Itzak asmatzen be asiko zan.
- 4) Osotu bako jaiotzea izaten dau.
- 5) Jaiotzatik ez dakar ezetariko ondorenik, dana ikasi egin bearko dau; jakintzea, oiturak eta abar. Aberca ostera, senagaz mugatuta geratzen da, jaiotzatik datorkiotz bizitzarako jokabideak, baiña aberearen garunetan ez da itz egiteko gizonak dauken egiturea lortzeko ezetariko aztaranik ez albo-biderik agertzen.

* * *

Baiña, zein bidetik eldu da gizona gaur dana izatera?

Abereen aldaketatik datorrela uste dabena, «Prokonsul» dalako tximiño batetik adar bi bereizten ditue:

Bata, ta au naiko ziur agertzen da, Aprika aldeko gorila ta txinpazee tximiñoak izatera eltze bidean abiatu ei zan. Beste, gaur eguneko gizona sortzeko adarra.

RAMAPITHECUS: Gizonaren asierakoa ei zam. 1924'ganean aurkitzen dira leen-australopithecus (Ego-aprikako tximiñoa) orren kondarrak. Pobble jakintzeagaz zer-ikusia aundia dauka.

Dr. Louis S. B. Leakey jakintsuak, Olduvai'n, Tanzania'ko mendartean, Homo-habilis deritxon leen-gizonaren kondarrak aurkitu ebazan, ia milloi bi urte lenago bizi izan zan lanabes-egile lenengoaren aztarranak. Arri koskorak erabilten ekian bere zerregiñetak, batzuk landuta be bai. Homo-habilis au da ba, leen-jakintzaren sortzaillea.

Aldi aretan, Australopithecusak be bizi ziran, onein agiñak aragi jataleak zirala erakusten dauskue. Olduvai'n bertan Zinjantropus izeneko orretariko be aurkitu eben 1959'ganean, batzuk landara jataleak eta besteak danetariko jataleak izan ziran. Batzuen iritziz, Homo-habilisa, oneingandik ei dator, naizta aurkitu diran Homo-habilisaren kondarrak beste oneiñak baiño zarragoak izan.

VII.—BEE-PALEOLITOS AROA

a) **Olduvai jakintzea.**—Paleolitos aroan eta gizonaren aztarranak diranetik ezaugutzen dan kulturarik ziran dogu au. 1931'ganean, Tanzania'ko Olduvai mendia birtartean aurkitu zan.

Jakintza onetako lanabesik garrantzitsuenak oneik dira: ebaketariko alde bakar batetik koskatutako arrikoskorak. Lanabes oneik, leen-gizaki orrean bizi-toki batzuetan aurkitu ziran Olduvai'n.

Homo-habilisen azur-kondarrak aurkitu diran lekuetan, Olduvai izeneko arri landuek inguratutako aurkitu izan dira geienetan. Homo-habilis au, Olduvai'ko jakintzaren sortzaillea izan zan. Bere garaian, Australopithecusak be bizi izan ziran eta arrikoskorak tresna lez erabilten be ba-ekien.

Kenia, Transvaal, Cape Town, Marruekos eta Arjelia'ko kondar-obietan be, Olduvai kulturaren antzeko kondarrak aurkitu dira.

b) **Abbeville jakintzea.**—Prantzi iparraldeko Somme ibai-ertzean dan Abbeville uriaren izena daroa. Or agertu dan kondarobiak izen ori damotso. Lanabes berezienak, alde bietatik landutako ebaketariko esku-aizkorak doguz. Aizkora oneik sukarri-koskor bateri ezipal naiko aundiak kenduta egiñak ziran. Abbeville lanketak Ingalaterra'n be ba-dira.

d) **Acheul jakintzea.**—St. Acheul, Prantzi aldean numbait dan kondar-obiko lanabesak damotso izan au. Acheul kulturea iru alditan bereiztu dabe: Bee-Acheul, Erdi-Acheul eta Goi-Acheul jakintzak.

Zein garaiko ta zein izozketakoan diran jakiteko ona emen agerkai bat:

Jakintzea	Aldia	Izozketa
GOI-ACHEUL	ERDI-PLEISTOZEN	RISS-WURM izozte tartea.
ERDI-ACHEUL	»	RISS izoztean, 200 milla urte.
BEE-ACHEUL	»	MINDEL-RISS izozte tartea.
ABBEVILLE	»	MINDEL izoztea, 500 milla urte.
OLDUVAI	BEE-PLEISTOZEN	GUZ izoztea.
VILLAFRANCA	»	Lenengo izoztearen aurretik.

ARRATI'KO IKASLE TALDE BATEK

GABON INGURUA

Gure gazte arotik gaur arteraiño, gabon inguruko jokerea asko aldatu da benetan. Lenago, Gabon eta Urtebarri jaiak, nire eritxiz, gaurkoak baiño txiroagoak eta aberatza- goak ziran. Txiroagoak jan-edanetan; aberatza- goak Kristau giroan.

Errietako etxerik geienetan, gaur beste diru ez egoan, ta gabon-gabonzar apariak jan-edanetan urriagoak: olio-aza, bixigu, intxaur-saltsa, gaztaiña, sagar eta orrekaz gona, geien be, gozozko suberen bat. Janari oneik, gaurkoak baiño merke ta urriagoak izan arren, gaur baiño amets aundiagoak jaten ziran. Izan bere, urteko egunik geienetan jan-edan tropirik ez zan egiten. Oandiagoak, jaitz-nai izan eta edaten dabelako, amets gutxiago dabe egun aundietako jan-edan ederretarako.

Antxiñako Gabonetan, sendi guztia, paldo ederrak egindako su-ondoan alkartuten zan, ta antxe, ametsagaz apalduaz, gabon abestiak abestuaz, aitaran eta amaren gabon ihuin goxoak entzunaz, zar eta gazteak, arin-arin abestuz dantzatuaz, eta batez bere, Jesus umearan jaiotzea gogoratuaz, goiz-aldeak artzen zituan, bakez eta zorionez betirik, lo egitera joan arte.

Urrengo astegunak bere, erdi-jai ziran. Lantegirik ere ez egoan-eta. Inork bei edo ardirik ba'eukan, eurentzako edurtzan egozan arbien billa joan barik, etxeko sabaian edo garaian eukan bedar zimela jaten emon eta kitu. Urte barri egunean, umeak etxerik etxe, gabon sari billa, abesti tenteltxo au abestuten ebela:

Urte barri, urte barri,
daukanak ez daukanari,
nik ez daukat eta niri,
bestela txarri belarri...

Aste osoan, alkarrenganako maitasuna berotuten zan, Ume Jesus'en maitasuna eredu zalarik. Gaurko Gabonak aberatza- goak dira, jan-edanetan, lizunkerietan etb. Ostera be Gabonok Kristautu bearrean dagoz.

Urte Santua, adizkidetze urtea dogu. Gabon ingurua aro ederra orretariko. Jesus Umea eredu dogula, sendi barruko ta sendi guztien arteko benetako maitasuna indartutako, batak besteenganako maitasuna ta laguntzea izan bediz gure elburu ta jokerea. Jesus bakkarik dogu gaizkatzaille ta askatzaille. 1975'gn urte au izango ete da maitasunaren berotasunak kateak urtu, mugak zabaldu, begiak argitu, ezpanak barre-samurtu ta biotzak alkartu dituan urte zoragarria? Jesus baka ezin. Berakin, samur ta errez!

Orretariko, gure erritarrak antxiñako Gabonetan bezela, biur gaitzean, Jesus'eguz apal, bigun eta bakan!

Geitu bei gure artean, txiro, langille ta bastertuenganako maitasuna, ori dalak zailena.

Oarra: Txiro bat ikustean, olerkitxo onek urten daust:

Sartu naiz etxe batean, etxe zar txikia.
Gabon gaba aurretikan, a bizi larría.
Estu-estu eskaratza, ormak loi ta illun;
Kilikolo aulkitxoak, kee baltz eta lurrun.
Sua eiteko besterik ez, ezipal txorta txiki
Lurrez beteak ta eze. Umeak negarti;
Aita bekoki illunaz, oldospen baltzakin.
Ama begal ta negarti, danon zuriakin.
Ume txikia seaskan, gaixoa dirudi.
Emen ez dago dirurik, ez jantzi ta ez ontzi.
Aita lan barik zoratuz, ez daki zer egin.
Au da bizitz garratza, zer egin oneikin.
Biar da Gabon eguna: estalpetxo baten,
Jesus Ume jaioko da, gauaren erdien.
Gizonak itxartzera dator, Askataille;
Ikas gizadi zoro, sakar, zapaltzaille,
Danontzat Jesus Ume, danok gara anai.
Aldatu gaurko era, ekin eta jarrai.
Gizadi banandua, gogor ta errudun,
Aldatu danon arte, gorrotoak urrun.

GALLASTEGI'TAR KAULDI



TXORIKI

Jolasean ikasi, or zure aurrentzako emoitzarik onena

eziketa jostailuak
eskulanetarakoak
irakasketa gaiak

Avda. del Generalísimo, 65
24-19-16 urrutizkiña

GAZTEIZ

Txagorritxu auzoan

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra
BILBAO - Casco Viejo
Tenderia, 15 eta 16

Aztergarriak

LAZARO'RENA

Baiña beste aldera. Betania'n, erbestetik etorrita Gabon jaiak Kristo'ren lurraldeetan igaro nai leukeezeneri, lerkai-bonbak jaurti dautsez, eta neskatilla gazte bat zauritu. Arrezkero, aruntz ez joateko agintzen daskuc palestinarrek, edo letorkena jaso.

—Ara barriz be, izkillu bako usocri tiroka egitea erreza nunbait!

* * *

EZ DA TXIKIEGIRIK

Sao Tomé ta Pricipe ugarteak eurentzako jaurlaritzaz ordezko bat lortu dabe, Portugal'eko agintariak orrenbeste emon dautsee beintzat. Datorren udan, azkatasun osoa izango ei-dabe. Ara dana erabagita.

—Merezi be merezi eben balzak orrenbeste, zuriak baiña...

* * *

LAN URRITZE

Gabon aldiko oporrak luzeagoak izango ditue Italia'n, lantegietan baiña. Batzuetan erregen ondoren be beste amar egunekoak be bai. Lan egin eta saldu ezin, eta saldu barik dirurik ez.

—Eskatu bako oporrak ez dira atsegin izaten.

* * *

UGARITZEA

Burua nekatzen daben batzuk diñoenez, 2050'garren urterako 50 milla milloi biztanle izango ei ditu ludi onek. Izugarritzko goratzea. Ez ei-da baiña jaiotza larregiagaitik bakarrik baita askoz gitxiago gazterik il eta zartzaroan be urriñago goazelako baiño. Asarre samar, itz gogorak darabillez, eta egiñak egin ez ei-da ezer lortuko, gizascemearn «erostismoa» gogorregia ei-da esi baten sartzeko. Lurak berak, ezin geiago emonik, lortuko ei-dau garbiketa izugarri bat.

—Lengoa beti oba, ta gerokoa ain illun, au dok aukera-bidea!

* * *

MALTHUS

Jakintsu aren asmakizunak, ez ziran egi izatera etorri, ez orain arte beintzat, baiña or gorago aipatu doguzan buru-nekatuak, aldian okerra bakarrik izan ei-eban, laster baten izango zala uste izatean. Baiña arek erakutsia, or ei-dator; ur-urtean; gosca, guda, zikinkeria, ta eri-izugarriak...

—Txapela jantzi ta goazen ar-zulo billa!

* * *

OSASUNA

Ez dira baiña jakintsu danak datorren txarri begira bizi, ona zer diñoskun gaurko arazoeri begira bizi dan batek: Goizean lenengoa, edontzi bi ur eratea da onena, eta eguna zear 6 edo 8'ren bat, tarteen dutxaren bat artzen ba'da oba. Eguzkia be ondo artu, baiña neurrian; eguzkiak eraginda «D» bitamiña sortzen ei da gure soñean. Aize garbia amasatu, soñia lerdan eta tente daroagula. Soinketa-gimnasia, ta oiñez al dan geien ibilli. Jateko, igali ta barazki barriak, goziña neurri baten. Ta, danean, neurria, geiegikeririk egin gabe.

—Onak beintzat, luzeroago bizi ta geitzea aolkuak damoskuz.

* * *

KIROL GARESTIAK

Kanada'n negu-joko edo olinpiadea izango ei-da. Urrutikuskiñez artzeko, ez dabe diru gitxi eskatzen. Europa'ko lasterriak, ikusi nai ba'dabe, 20 millo dolar ordaindu bearko ei-ditue. Neurri bat artzeko, Mexiko'koak izan ziranean, 4 millo bakarrik ordaindu ei-ziran.

—Kirol polita, baiña ba'ete-dau orrenbesteko garrantzirik... ikusteko?

* * *

JAKINTSUAK

Ei-gara gaur ludiko geienok, lengoa baiño asko geiago ei-dakigu. Baiña, or zear diñoenez, ainbeste jakinbearrek zapalduta, lengoak baiño astakilloagoak ei-gara. Ganera, gaur, irakurtean be, ganeko izki aundiak irakurri ta dana dakigulakoan edozetaz eztabaida ta itz-mitz egiten dakigu.

—Antxiñakoak iñoena; listo-pasauak ete?

* * *

ASMATZEKO BE!

Ba-dakizu onezkero, odolean zelula asko darabilguzala, bakoitzak bere lana ta ardurea beteten beti. Zuriak ei-dira gure gudariak, soñiera sartzan dan edozein «erbestetar» burrutatuzten aleginduko diranak. Ara baiña, zuri oneitako mueta bat, aurretik joaten dana, gidaria da, ta bere oskolean dituan zuloetatik etsaiaren usaiña jaso ta beste gudariak aren aurka zuzentzen ditu. Min-bizia edo kanzerra sortzen daben zelula gaixoak be % 90 bidar ezerezen daki. Baiña oneik asko ba'dira, sudur-zulo orreik zikindu ta itxotu egiten dira botatzen dautsen bestean zikiñakin, eta ezin ditu bereiztu izaten. Orain, era bitara, zelula oneik garbitzen asiak dira...

—Ulea moztu, agiñak garbitu, jantziak aldatu... ta orain, lantzean bein, odola be garbitu egin bearko du.

* * *

AMERIKARRAK

Giza taldeetan gazteenak amerikar jatorrak zirala uste zan. Beste ludi alde guttia bete ondoren, azkenengo izoketa aldian Bering itxasarte izoztuaren ganetik zear ara joanak. Orretarako an aurkitu diran ondaren ikatzgai neurriak onartzen ziran, baiña bein 40 milla urtetik gorako olako neurketak ez dira garbiak. Orain, protein-elen aldaketea ziurragoa dalarik, 70 milla urtetik gorako giza-ondarrak be aurkitu dabez. Orretara, aurrerako izoztean joanak dirala jakin da.

—Ameriketatar jatorrak baiña, euren etxean, jopu.

* * *

SARIKETEIA

Tolosa'n, «Antxon Elozegi» Aur-antzerkientzat I Sariketean, Labaien, Elozegi ta Peña jaunak maiko zirala, onela banandu dira sariak: 1.—«Lapur eta Maltzur» antzerkiari, 6.000 lauerleko. 2.—«Lapur bat ikastolan» antzerkiari, 2.000 lauerleko. 3.—«Euskeraren lapurra». 4.—«Ikastolako Mendigoizaleak», eta 5.—«On egitegatik... irakasle». Oneik euskeraz. Erderazkoetan ez da iñor izan duin sarien jabe izateko, ala ta be, orreitako biri sari txiki bana emon yakoe.

—Ederto, baiña, lapur-kontu ori ez ete da larregian zabaldu gure artean?

DANOK

KIZI-INDARRA

EUSKALERRIAN

Asko dirala, uste dogu, jakitun, Euskalerrian kizi-olak ezarteko artu diran erabagiai buruz; baiña labur-laburrean aztertzen dogu gai au, ezjakin diranak argitasun bat izan dagien.

«Iberduero»k gaur arte onartuta daukazan kizi-olentzat tokiak oneixek dira:

—Lemoniz, Bizkaia'n. —Punta Endala, Gipuzkoa'ko Deba'n. —Ogeilla, Bizkaia'ko Izpazter'en. —Bergara, Nafarroa'ko Tudela'n.

Lemoniz'ko kizi-olea, antxiñatik asia dogu eta laster amaitzeko eran dago.

Urren asiko dana, erabagia artuta dagoanez, Deba'koa izango da.

Kizi-ola bakoitzak, tximist-indarra sortzeko lantegi bat edo geiago izan leikez.

Esaterako, Lemoniz'en eta Deba'n, bakoitzean lantegi bi izango dira eta alkarren atzean, aldirik bitarte ez dala, egingo dira.

Baiña gaur lantegi bi izateko erabagia izan arren, gero geiago be egin leikez.

Lantegi edo «reactor» bakoitzak, bakarra ba'da, iru ektare lur bear ditu gitxi gorabera. Bi bardinak, eta denpora gitxi bitarte dala egiten ba'dira, lau ektaretan sartzan dira. Orregegaitik diñogu, Lemoniz'en esaterako, dagoan lekuan dagoalako, gero baten beste lantegi bi egin leitekezala, gaurkoen antzekoak. Eta Deba'n be bardin.

Lemoniz'ko kizi-olea, 1977'an asiko ei da lanean, eta 1978'aren azkenerrantz edo 1979'aren asiera inguruan asiko ei da bigarren lantegia. Lantegi bakoitzak 930.000 kilobatioko indarra izango dau. Indar onen aunditasuna zelakoa dan jakin gura ba'dogu, auxe kontuan artu bear dogu: Lemoniz'ko lantegietatik bat, Santurtze'ko bero-llantegi guztia beste dala. Orduan, 1979'an, Lemoniz'ko lantegi biak lanean diarduela, Bizkaia'n izango dogun tximist-indarra gaur daukagun lako iru izango da.

Lemoniz'en eralgiko dan dirutzea, 35.000 millo pezeta inguru izango da.

Deba'n izango diran kizi-lantegi bakoitzak 1.000.000 kilobatioko indarra izango dau. Lenengoa 1980'aren azkenerrako asiko ei da lanean eta bigarrena 1982'an. Baiña kizi-ola egitea erabagiten danetik eta indarra salgai jarten danera, zortzi edo amar urteko epea izaten dala jakiñik, «Iberduero»k ezarri ditun epeak bete bear ba'dira, ainbat lasterren asi bear dabe olea egiten.

Ogeilla, Izpazter edo Lekeitio'ko kizi-olea (iru izen oneikaz ezagutzen dogu), lantegi bikoia izango da, Deba'koaren antzekoa. Baiña gero baten sei lantegi izan leikez, biñaka egiñak. Kizi-ola au, 1982 baiño lenago ez da lanean asiko, eta antzera Tudela'koa be.

Gitxi gorabera, auxe esan geinke ba: «Iberduero»k ezarriko ditun kizi-ola barriak, 1977'tik urte batzutan —larogetik gorako amar urteetan—, batatz beste, urtean lantegi bat izango dirala.

Urrengo zenbakietan, kizi-olai buruz, barri geiago emongo doguz, eta, laburrean, zenbat tximist-indar emongo daben aztertuko dogu, baita indar barri ori zertarako izango dan, gure industri-erakundeari zelako eragiña emongo dautson, eta euren lan-egiteak gure giroan sortuko dauan aldakuntzea be.

AGARITZ

EUROPA ATZERAKA?

Europa zarrak oraindik era ba du alako zerbait berezia, batezere kultura aldetik, eta andik datozkigun zenbait berri aipatu nai ginduzke gaur.

Egun gutziz onuztik entzun degunez, Prantzi'ko agintariak erabaki artzera omen dijoaz, euren izkuntzari buruz.

Alperrikako izki geiegi daukala eta aietako asko soilduaz, idazkera erreztara dijoaztela diote.

Oraindik asko ez dala, orixe bera entzun genduan Alemani ta Errusi'ri buruz eta Bretaña Aundian era ortarako bearrezko diran azterketak egiten ari dirala diote.

Italiarrak berriz lendik egiña daukate, berebiziko «arto-bakantzea» eta oso pozik omen daude, besteak-beste, atxe alperra bear ez dan tokietatik kendu zutelako.

Alaz ta gutziz ere, bai ote dakite zer egin duten eta zertara dijoazten?

Ez al dakite guk euskaldunok, «soiñu bak oitzak bere makilla eta makilla bakoitzak bere soiñua» araupean aspalditik egiña genduala ori guztia eta orain apurtu eziñik ler-gaizto egi bearrean gabiltzala?

Ez al dakite, belar-gaizto oien jorrazaille ta iñausketa orren egille ta eragille izan ziranak madarikatuak dirala gaur emengo «abademikoentzat»?

Ez al dakite erreztasan oien jarraitzai-

lle izatea, itxia, burgesa, retrogradoa, reaktionarioa, integrista, razista eta azkenik «kabernikola» ere ba dala, emengo zenbait jauntxo «aitzindarien» iritzi «tentelkeria bat» besterik ez dalako?

Jakin ez, ala jaramonik ez ote diote egiten, euren buruak orren aurrerakotzat daukaten jauntxo oiei?

Alakorik balitz, nortzuk atzerakoia?

Arritzeko gauza, au da; lasterrik aurreratuenetan egin nai lutekena egiña daukagun tokian, len aitatu ditugun «doraxoaz» gaiñera «banatzailea» izatea, bide orri jarraitzen diona.

Zerbait geiago ere esango genduke, baiña bada-espada ere, naiago degu ixildu, gauzak nola diran azaldu ondoren, irakurleak eurak eman ditzatela euren iritziak.

Iritzia edo kasketa, auxe esan gabe ezin bukatu dedanez, ba dijoa: Besteri itxia, atze rakoia, banatzailea ta olakoak esaten errezoa dala, mundu zabalaren jokabideai begiratuaz norbera irikia, aurrerakoia ta eragille jatorra izaten baiño.


Baita mundua arritzen duten lanak egin zituztenak madarikatzen ere, norberak obeak egiten baiño.

Eta zuk, zer doizu, irakurle?

URDANETA

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAOKOAK



ZAZPI-KALEAK

CASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

DURANGO

Urruti auetatik era askotako berriak aberrira bialtzen. Oraingoan Atxa'tar Gotzone lekameak agur egin digula esan bear: 1974'garren urte ontako udan, urtzizti-ikasketak izan ginduzenean gurekin genduan. Argazkia ere orduantxe ateratzen zuten. Eta, bai arin!!!, azillaren ogeitaseigarreneko illuntzean, lurrera erori zalarik, buruan min artu eta artatitxek il. Bere irurogeitazortzi urteak ifork igarri ezin zizkiola, oraindik txito langille zebillen.

Gotzone, Durango'ko alaba. Gotzone'n gurasoek arategia izan zuten.

Gotzone'ren ama ikusten bein bakarrik izan nintzan. Formosa ontatik aberrira ioan nintzalarik, bai emengo lekaike euskaldunak, bai lekameak beraien etxeok ikertzeria ioan nendineko guraria agertu zidaten. Eta 1956'garreneko ilbeltzean Gotzone'ren amatxoren etxean nintzan. Ama onak, ordurako urte asko eta oetik iekitzerik ez. Urrutiko alabaren berri eman niolarik, ua bai poztu!!! Ez det uste alabaren egintzak batetxo puztu nizekionik eta geiegizko ezer adirazi nionik. Bañan, ama argiak bai antz-eman neri, ikusitakoak eta ongi nekizkianak esaten nizekion. Ama xarrak, berriz, bere Anjelita neska zanekoa esaten zizkidan: izan ere, Gotzone ogeitalau urteko zala'edo Txina'ra abitu: 1930'garren urtean.

Ama iztunarentzat, bere alaba ua Anjelita nuen, eta ez Gotzone asieran aipatu dedanez. Ala ere, Gotzone'k berak Anjelita izena ez zidan geiegi maite. Bein edo beste bere amak bezela deitu niolarik, ederki antz-eman zezaiokean Atxa Lekame deitzea naiago zuela. Il-berri degun lekame gartsuaren adineko duran-garrek ere Anjelita gogoanago izango noski.

Irakasletza ikasi zualarik, Anjelita irakasle agiriaren iabe Txina'ra etorri eta gazteekin izan zituan bere artu-emanak estuanak. Baita, gazteak bereganatzeko izugarriko esku ona zigan. Txeratsua. Maitatia. Bizkorra. Beraganatu bakarrik, ez bai laungoikoarenganatzeko ere. Anjelita'k bein oratzen zuen gaztea kistar izateko zidorretan sartu naiko zuan, eta izketaldi bi aski ba'ziran iomugara eldu arte ark ez amor emango.

Asiera artan, izkera ikasi. Anjelita'k ere beste guztiok igo degun aldapan goraka ekin bear. Umetan ikasitako izkuntzak lauroñez ibilliz bezela geronganatu guk: —1) aoz; —2) belarriz; —3) begiz; —4) eskuz. Txinera ikasten asi giñanean, aoa eta belarriak bakarrik genituen. Aoa esateko. Belarriak entzuteko. Begiak eta eskua alperrik bezela. Txina-marrakziak ikusi bai: zer esan nai zuten iakin ez. Idazten asi nai genduelarik eskua ere lanik gabe. Ari eta ari aoa eta belarriak zabaltzen. Begiak ez aibeste. Eskua barea baño motelago.

Txina-izkeraren sasi zakarrak garbitu zituean Anjelita'k irakasletza arloari ekin zion. Batetxo izer-dirik ateratzen gabe. Gero, 1937'garrenean gudua piztu zuten, eta niondaren igesi lekaimiengana asko bildu ziran: guztiotzat lana buruz gora izan genduen.

Zortzi urte luze ondoren eta gudua ia aztu genduean, Txina'ko zabaldietan bertako aizeek erasoak sortu eta geroenean erbestetik ere zerbait agertu zitzailearik, gorriek erabat indartu zitzaizkigun.

Errian ez-beharrek asko eta iasankizunak ezi - esan - ala, lekame Berriztarrek, beren etxera aurtxoak artzeari ere ekin zioten. Ama gertatzen ziran neska gazteak sarritan atean antxe isilka uzten zituzten aurrak.



ATXA'TAR GOTZONE (X).

Beste zenbaitetan, berriz, goseak ezaindutakoek ere etortzen ziran. Azkeneko auetatik zenbaitzu il-egiten: zearo aulduta ekartzen zituztelarik, ez osagairik ez beste alegitxik ifon alako errukarriak bizian irauin zezaten.

Beraz...

Gorriek ildako txiki errukarrien OGENA nonbait aurkitu nai. Aurtxo aien eriotza lekameak nozitu bear ote? Bai ta: onex ala txarrez gorriek lekameak bialdu egin nai. Eta, erriaren aurrean zuzen zebiltzala erakustearren, alaxoxe ez bategz Wuhu'ko irian barna bialdu asmatu zuten: berein egin eta aien gañean lekameak erail zituzten aurren ezurrak batera eta bestera erabili. Gorriek esaten:

—Nondik uste bear genduen lekame burugorrek gure aurrak zainduko zizkigutenik? Or, ba: Berriztar lekameak ogendun genituen eta ogenari genion zor auxe:

Txina'tik alde!!!

Anjelita Japon'era ioan zan. Geroago, 1953'garrenean udagoenilleko egun kiskalian Formosa'ra etorri zitzaigun. Geroztik, izartxo ontantxe lan eta lan.

Aberrira ere agertuaitxoa egin zigan. Laburra! Anjelita'k ere DURANGO erabat aldatua eta bestelakotua aurkitu zuan. An osasuna indartu zitzaiozlarik, berriko liralde epel auetara.

Ikastaroaren azken-aldera Gotzone'k jai-alditxoa eratzen zuen. Urtea zear aurrei zerbait berri irakatsi zietela eta aurren gurasoei orixe adirazi nai. Ortarako buru asmagiña bear eta bein Euskalerrri'ko zerbait irakatsi nai izan zien. Ortarako nere laguntza nai zuen. Izketaldi luze ondoren Makil-dantza erakutsiko niela esan nion. Zortzi ikasleto aukeratu zitzaala eta makillak egin... ez, noski lizar-makillak, ez ere urritz-makillak... baizik eta zeskabiak aukeratu zitzaizkidan. Olako eralgizumetan gu ez eskuzabalak!

Ospakizumetan zortzi ikasleto aientzat txaloak erruz izan ziran, Eta, makil-dantza ori ia zortzi urtez'edo berritu izan zuten... eta, azkenean, beste berrikutsuko zerbaitet baztertu zigan.

Anjelita'ren bizitza geldituerik gabekoa. Eta, Berriz'tar lekaimien buru abadiñotar Begoña Al-bert'i nih:

—Zer nai dituzu? Itz samitiak, ala itz alaiak?

—Alaiak! Alaiak! Gotzone aizpa zintzo izan degu, eta azken-azkena arte lanean aspertu eziñik. Alaiak ere batetxo ez zaigu gogaikarri izan. Isil-isilik eta lankizunik eman gabe utzi gaitu. Ber-berak besterik ez zuan opa, noski!!!

Illetak azillaren 29'garrenean. Eliza leporaño bete zuten. Ederki bezin ederki ikusi genduan Anjelita'k maitale asko zituela eta adiskideak zenbatu ezin-ala.

Elkar-meza TU Gotzai iauna buru genduela: apaizak, berriz, españarrak, parantzetarrik, amerikarrak, italiarrak, txinatarrak, kanadatarrak eta euskaldunak. Alderdia SUN txinatarrak: Anjelita'ren zertxoak eta bizitzako berein-gora-bera garbi esan zizkigun: alderdi auetara etorrit, bere burua zapaldu eta ukatu zuanekoa. Emen bertan, arra baño geiago gelditu gabe, beti formosaren onari so ibilli zitzaigula, lanik ederretan buru-belarri. Berriztar lekameak, emen bertan bildu dituzten lekame gazteentzat Anjelita'k zerkasi utzi diela. Durango'ko alaba gartsuaren oroitzak irauin dezala!!!

Biotz-ondoko larriaz, begiak puzturik, gizaseme bat edo beste ikusi nuen. Negar-malkoei ezin eutsiz emakume gazte eta neskatxa asko. Guztiok ere, Atxa'tar Gotzone'k Iainkoaren ondolik asko lagunduko dien itxaropenez gelditu zaizkigu.

ETXEBERRIA'TAR P., s. j.

Jakintza-Asteak

ZORNOTZA'N

Erriko alkarteak antolatuturik ZORNOTZA'N kultura-aste bat ospatzeko asmoa dago:

Ona emen egitaraua:

Urtarrilaren 2'garrenean, eguena BERBALDIA

Karmelitetakolejioan eta arratsaldeko sortziretan Carlos Caballero Basañez jaunaren berbaldia: «EZIKETA edo edukazioa GAUR».

Urtarrilaren 3'garrenean, barikua ABESBATZAK

Celayeta Zine-tokian eta gabeko zortzi eta erdian abesbatzen saioa: Bilbo'ko SAN ANTON eta Alonso-tegui'ko GURE AMETSA abesbatzak edo orfeoia.

Urtarrilaren 4'garrenean, zapatua GAURKO EUSKAL-MUSIKA

Celayeta Zine-tokian eta gabeko amarretan gaur egungo euskal-abesti ekitaldia:

- OSKARBI
- MANEX PAGOLA
- IBAI REKONDO
- GORKA KNORR

Urtarrilaren 5'garrenean, domekea BERTSOLARIAK eta abar

Karmelitetakolejioan. liburu eta eziketa-jostalluen erakusketa.

Toki berean eta amabi ta erdian, bertsolarien saioa:

- AREITIO
- INTXAURRAGA
- AMURIZA

Arratsaldeko seiretan, erriko UDA-BARRI kanta-taldearen jardunaldia.

Urtarrilaren 6'garrenean, astelena Musika tresnak eta ANTZERKIA

Liburu, disko eta eziketa-jostalluen erakusketaren jarraipena.

Eguerdiko amabietan euskal-musika tresnen asalketa: TRIKI - TRIXA, PANDERETA, ALBOKA, TXIRULA, TXISTU.

Arratsaldeko seiretan, Intxitxu'koak bere «ORRIA 778» teatroa antzertuko dabe.

Urtarrilaren 7'garrenean, martitzena EUSKAL-FILMA

Celayeta Zine-tokian eta gabeko sortziretan «Nafarroa lau aroak» pelikula ikusi al izango da.

* * *

BERMEOTIK Oartxo bat

Urtarrilaren 5'garrenean eta erriko frontoian aspaldian izan ez dogulako euskal jaialdi bat izango dogu Bermeotar jator batzuk antolatuturik.

Azkenengo orduan kontrako agindurik jazotzen ez ba'da, abeslari onenek jardungo dira:

- XABIER LETE
- JON BERGARTXE
- LOURDES IRIONDO
- LUPE

Jainkoa lagun, urrengoan an jazo takoaren barria emongo jatzue.

MAMATXA



MONRAY

ARKONDARA-GINTZA

ANDEREENTZAT AZKEN-JOSKETAK

Bidebarrieta, 2
21 43 46 urrutizkiña

Alderdi-zarra
BILBAO-5

ERRI

BARRIA

Lemona

EURIA DALA-TA

Aspaldian zeruko andaparak zabalik dagozala, esan leike. Zenbat ur jausi jakun! Ganbareta itogiñak (ituxurak) be berbistu dira. Gure baserri zarretan, edo jaramon gixi egin jakienetan, danborrada bat dagoala dirudi, itogin bakotzak bere lapiko edo tiñako zarra dauko, ba, jausten dan ur tantakadea artzeko.

Gure auzune-bidectan be, beste aldetik, nai dan beste lupetz eta loi. Ez da arritzekoa ainbeste eurigaz. Eta bideak dirala-ta, auxe jazo jaku Lemoa'ko Arantxe'n.

Arantxe'ko auzuneak ba-dauka bere bidea. Guztiz ondo egon ez arren, naikoa polito ibilli gara bertatik bai oinez eta bai berebillez. Oraindikio geiago. Bide ortatik, baso andiko pitxak be ateraten diardue kamioi itzalak. Eta etorri da etorri bear ebana: bidea austuta gelditu da, ifior ibilteko gauza ez dala. Zelan eskolara joan umetxoak? Ez ete da bateren bat itoko, bideak daukazan osinetara jausita?

Bertako gurasoak arminduta, lenengo kamioi-txoperrakaz erdi asarratu ta gero erdi batzar bat euki ondoren, Udaletxera joatea erabagi dabe. Udaletxean onela berba dagie: «Gure bidea konpondu egin bear da; an arri txikerra bota bearra dago; ta apurtu dabena ordaindu dagiela». Orrela zarata egin da.

Zer ondoren? Gurasoen eskatima ontzat artzea. Lemoa'n arri ugari dago, ta laster zabaltzen dira Arantxe'ko bidean kamioikada batzuk arri. Ederto gelditu ba bidea, itxura baten. Baiña ez danentzat.

Zeruko andaparak zabalik dirae; goitik behera, beti lez, euria jausten, eta jausten dan urak, bota zan arriagaz, ozpotoak aurkitzen. Bai ta bide barriak sortu be.

Eta emen datorkigu beste eztabaida bat: «Len urak ez eukan nire lurretatik biderik. Orain bai».

Urrengo eguncan, egindako arri moltzoakaz, len baiño txarrago egoan bidea; ta, gainera, auzoak be alkar asarratuta.

Gauza bi gogoratu jatazan: lenengoa, gauzak egitekotan ondo egin bear dirala, edo bape egin ez. Eta bigarren, danen gustora, ifioz be euririk ez.

ARANTXE

Orozko

Orozko'n, bertakoak egiteko argi-endarra dabe. Ilhanduten danean, etxeetan, argi-giltza biratuten da. Baiña Orozko'n ez dabe olakorik egiten, kate batetik tira bakarrik. Izan be, auxe jazoten da Manzarbeitiatarren etxean, tximist-endar lantoki txiki bat daukeeta.

Argi-endar au zelau sortuazoten daben adierazoko bat:

Orozko'tik urteetan, Gazteiz'eruntz, erreka ondoan urtegi edo osin bat dago. Etxetik kateari eragiten dautsanean, albatea jasotzen da eta dinamotasna txiki batera sartzen dan urak, oni eragin eta tximist-endarra soritzen dau, etxeko gela ta zereginetarako erabiliko dana. Auzoko etxeetara be zabaltzen dabe.

Egia esan, antolaketa oneik baserri askotan berritu leitekez. Merke ta errezak izanez, argi-endar ona dabelako ondoren. Asmaketa barririk ez dala izaten ba-dakigu, baiña Euskalerrri'ko baserrietan ondo ikusi ta artua izango da. Bertako gizonak, illaren azkenengo zenbaketan, diru-aurreretetik egiten jakin be ba-daki; eta etxeoandreak, argi-agiri ordaina datorrenean, ez dauz eskuak burra jasoko, ordaindu bearrak arrituta.

Orain diran argi-endar alkarte aberats bat baiño giagok, orrelango asierea izango eben ziur, eta egundoko ekonomi-almen izugarrien jabe ikusten doguz.

EGILUZE

Galdakano

ELORTZA'TAR TXOMIN AITA

Orain alditxo bat, Ego-ameriketako Lima uritik, Elortza Aita euskaltzale jatorraren eskutitza eskuratu neban. Ez neban aita agurgarri ori ezagutzen —ezta orain be— baiña bere idazkeraz, atsegin izan yatan-eta, bai biyotzez.

Txartel aretan, gure AGUR onen irakurlea zala esaten eustan, eta onen bitartez emengo izparrak be ba-ekizalako, gure adizkide zintzo ta euskal-idazle jatorra dan Arenaza'ren «Tus Hijos y el Euskera» idazti barria bialdu al ba'neutson eskatzen eustan, eta bai pozik bialdu be.

Arrezkero baiña, ez neukan bere barrik, beraz ez nekian eskuratu al izan eban ala ez. Ara non baiña, egunotan, Lima'n Azillaren 25'ganean idatzitako eskutitza, eskerrak emonaz, bialdu dautan, gure ta AGUR'eko beste izparrak atsegiñez irakurtzen dituala esanaz.



Bertan diñoskunez: «Ni giputxa naiz, ANTZUOLA da nere jaioterria. Ogeita zortzi urte joan dira Euskal-Erri'tik urrutiti bizi naizela, Peru'ko basamorduan zifingabekoen mixiolari bezela. Euskeraz mintzatzeko motelduta arkitzen naiz. Eta idazteko zer esanik ez...»

Jakiña, eskutitzez erantzuteko gengan, baiña berak diñoskunez, urte guzti orreik Euskal-Erri'tik urrin izan dala, il onetan bertan onutz etorteko asmoa eida. Bear ba'da, Antzuola bere jaioterria, ta ori izan da aldizkari onen bitartez erantzun nai izatea, ziurrago gagozalako gure erantzun au irakurriko dabela.

Urteak moteldu ba'dautzue mintzatea ta idaztea, Antzuola'n zeuren artean laster bizkortuko zara. Jarrai bildur barik euskeraz idazten ta Peru'ko barriak AGUR'erako idatziko ba-zeunkez, ainbat obeto. Agur eta laster arte.

MEZAK

Txanburu jaunak esan dauskunez, Gabon jayetan asita, Txadon nagusiko jauapak edo mezak, ebartatekoak jakiña, ordu erdi beranduago izango dira, datorren neguan beintzat. Orretara, badakie gure irakurleak; orain arte goizeko zortzirak eta amaiketari ospatzen ziran euskerazko jauapak, zortzi ta erdietan eta amaikak eta erdietan ospatuko dira.

ERLETXETA'N

Leenago esan genduan lez, antxiñako Gumuzio eta gaurko Erletxeta'ko apaiza, beste erri batera aldatua izan zan. Beraz, auzotegi ori apaiz barik geratu zan. Baiña gomuziotar jatorrak, ez dira orregaitik kikildu, ez orixe! Eta erriko Txadon-nagusiko txanburu jaunakin batu ziran auzotegiko gizonak, eta batzorde bat gertatu dabe, Zamalloa'tar Sabin euskaltzale zintzoa ta kistar benetakoa lendakari dabela, txadontxo orren ardura osoa euren eskuan artzeko. Ta orretarako, Euba'ko lekaideak ekartzen dabez astero-astero, meza ta eleizkizun guztiak egiteko ta beste apaizen bat orretarako izentatuten ez daben artean.

Erletxetatarrak, naita asko lortu izan, ez dira eleizkizun bikaiñakaz bakarrik geratuko. Beste zerbait geyago egiteko asmoakin be izan bear dabe: erri-arloan, jakiña. Ta orretara jarten ba'dira, onda-

sungarri diran gauzak egingo dabezala ziur gagoz. Eleiz barriren bat euren lan ez eta txindiz egin dabena, ori ta geyago egiteko almena izan bear. Ea beste baten zerbait geyago esan daikegun.

EGUTEGIA

Bai irakurle, argitaldu da 1975'ngongo **ERRI - EGUTEGIA**, igarotakoa baizen txukun egindakoa. Euskera ulerkor garbia. Salgai, nire etxean be bai!

BASA-JAUN

Arratia

GABON - ZUGATZA

Susterrez sakondu, errez ugaritu, Europa'ko ipartarren oiurea etxe-apaingarriztat ariturik dogu.

Euskaldunen asmakizuneko oiura ez dan arren, polita dalako-edo, ate nagusia alderik alde zabaldu dautsagu. Etxeko egin dogu.

Oraindik oraintsu, Eguberri-gabon aizea pozka asirik egoala, sendi ezagun baten etxean nintzan. Etxeko-andre amak eta bi seme morroskotek abegi onez artu ninduen.

Izketa barritsuaren ekiñean, aspalditik datorkigun bizi-garstizteari ikutuka ta Erria'ren egoera sakondu eroanez, eguberri-gabon zugatza ikustera eroan ninduen. Zugatza ez zan a, pitxia baiño pitxiagoa irudian. Mutillak gaur-gaurkoak, «progre-modakoak», ezeukia- ren gose ta Erria'ren negarra itzean-mitzean aitatzen daben misiolarien artekoak. Ainbat etxe, lutu baltz-baltzez dirala-ta, eleizetan, auzotegietan, plaza naiz beste lekuren batzuetan artarako naiz ortarako egiten doguzan jaien arterio zorrotzak.

Gabon-zugatza pitxiak baiña, ez eukan argi illunik, dindilli-zapi baltzik... orri artean negar malkorik, Belen'go Ume ta sorkaldeko izarrak. Arasa aundia oster, jatekoz eta edatekoz samaraino bete-beterik. Gabon-jaietan izango ete da, etxe orretan, gose diranakaz gogoratzerik, lutu ta negar girorik? Eta urte-zararen azken orduak eta barriaren jayotzea ospatzera kitarradun lagunak datorkioezanean, zer izango?

Lendik be ezagutzen doguz txistu, alboka, abesti, dantzaketak eta euskal-jaiak ezereztuten alak eta bost egin geroztik, beste jai batzuetara esku-artzera arro-arrorik joan diranak. Gureak diran jaiak makillatu bearrean, zergaitik ez ete dira txirindulari, ostikolari ta ukabilketa jaiak uts egiten arduratzen?

Dirala 35'en bat urtez onantz, gure soiñu, dantzak, kirol ta abarrik izan ez ba'gendu, Erria'ren illun baltza andiagoga izango genduan, ziur askorik.

* * *

Arratia'n, zer barri? Taloak, morokilla ta odolosteak ugari!
Eta YURRE'ri nondik datorkio bere izena? Justo Garate jaunaren esanetik: IBI ta URRE'tik.

* * *

Gabon ZORIONTSUA irakurle danoi. Eta sorkaldetik agiri dan argi gozo, bigun,

itxaronpentsuak lagun begioe samin astunaren nekepean bizi diran Erri ta sendiai.

LANDAJUELA'TAR A.

Arjentina'tik

Illa onen zazpigarrenean, Buenos Aires'en bizi garan euskeldunok, **EUSKERAREN-EGUNA** ospatu gendun.

EUSKALTZALEAK'EN urteko Batzar Nagosia, euskel-ikasleen tarteko iaia, ikastaroari bukaera emanaz, egitarau onekin:

LAURAK-BAT'eko Areto Nagosian, Leopoldo Lugones, emeko olerkari aundiaren iaio zanetiko eungarren urtea betatzean eta berak Enbeita'tar Kepa olerkariarentzako egin zun olerkia irakurri zan, ta baiña Enbeita'ren erantzuna ere. Lugones'en olerkia oso ederra da, Euskalerrria ondo ezagutzeneko esangarri, bere izakerarik urtenenak goralduz. Lugones'ek maite zun Euskalerrria, orrelako olerki bat berari eskeintzeko. Olerkiaren azkena au da: «**PEDRO DE ENBEITA EL VASCO, VIVA LA LIBERTAD!**»...

Enbeita'ren erantzuna ere, berak alan egiten zekien lakoa, samurtasuna ta esker ona erakusten du. Bai Lugones'en olerkia eta baiña Enbeita'ren erantzuna «**GURE URRETXINDORRA**», Enbeita'tar Kepa'ren Bertso-Lanak Osorik, Aita Onaindiak bildu eta Buenos-Aires'eko «**EKIN**» Euskal-argitaldaria argitaratutako liburuan daude.

Omenaldi orren ondoren, Agote'tar Jon Joseba iaunaren itzaldia, Euskalerrri'tik etorri berria dan ezker, Euskalerrria'tzaz itz egin zigun, euskeraz eta erderaz. Oso ongi egon zan, ta bere iritxiak eta ikusmenak argi erakutsi zitun.

Gero, dantzariak eta abeslariak izan ditugu. Auek ere ederto. Eusko-dantzak eta abestiak beti izaten dute arrera ona, batez ere ondo egitak ba'dira ta alan izan zan, oso ondo egitak.

Euskeldun talde bat biltzen garanean, sabela ere kontuan eukiz, apari eder batekin bukatu gendun illaren zazpigarreneko egun au.

Illa ber-beronen 8'garrenean Euskeldunen-Meza. Au illero egiten da Buenos Aires'en, Garikoitzarren elizan. An ere mordo ederra bildu giñan. Meza orretan, beste batzuen artean, orain il berri dan Gurrutzaga'tar Ildepona gogoan izan gendun. Il ere, Pantzeska Xabier deunaren egunean il zan, au da «**Euskeraren-Egunean**». Emen Buenos Aires'en gure artean urte askotan bizi izan zan, eta emeko euskaldunak asko ezagutzen zuten. **LAURAK-BAT'eko** Lendakari ere izan zan gurekin bizi izan zan artean.

Au izan da gure aurtengo **EUSKERAREN-EGUNA**.

TORKATIKO

FERRETERIA UNCETA S.A.

Landola tresnak - Galtzairu neurri zeatzekoak
Langailu guzietarikoak - Leunketa gaiak

Ibarrekurutz kalea 14
71-10-00 Urrutz.
Apartado 18

E I B A R

BUSTURI

Gernika'tik Bermeo'rako bidean, gainetxo baten, Amunategi baten kontura egindako torre zapal bat eta orduari bat bertan. Ara Busturi. Gelditu bertan, alboetara begiratu eta erraz sartu leike bertatik bere inguruetara.

Altamira, Axpe, San Bartolome eta San Kristobal, auzoak.

Bidean, egaletan, etxe bizitza dotoreak. Gero ta geiago. Udazaleentzat toki atsegin eta alai da, ondare eta ur, aukeran daukazalako.

Jente atsegina. Asko ikusi eta asko bizia. Edozein baserrian billatzen da merkantetan, galoidun edo serbitzari, itxas zabaletan ibillitakoren bat. Eta gero, erriko miñak jota, arrenkuriak eraginda, ementxe ondo artu.

Izan be Busturi polita eta jatorra da orretarako.

Zenbat bidar kantatu ete dabe busturitarak itxasoetan, erriko miñez, kantu ezagun a:

Madalen Busturi'ko
gabian gabian
errondian dabilta
zure portalian.
Ai Madalen, Madalen,
ai Madalen,
zure billa nebillen
orain baiño len.

* * *

Itxas gainean, itxas bistan eta itxas egalean dago Busturi. Danctara esan lei. Eta ez dauka kairik, porturik. Baiña Mundaka'ko itxasontzien erroletan sarri billatzen dira, lengo gizaldietan, busturitarren itxasontziak. Jose Arrospide, Antonio Albina, Juan Atxirika eta abarrek euki zituen eurenak eta ingurutako komertzioan ibiltzen ziran. Ontzigitzan be ezagunak izan ziran Busturia abizendunak. Kapitanak billatzeko, ez da asko nekatu bear. Baiña lengo gizaldiaren asieran entzute ona euki eben Txomin Uriarte eta Andres Ibaizabal batek.

Itxasoak, laiño eta bits, bere arnasa emoten daki inguruetakoei, ezaugarri berezi bat.

* * *

Errioxa'ko San Millan'go kartularioan billatuko dogu:

Iñigo Lopez eta Toda bere emazteak Armentia'ko Gartzia obispoari Axpe'ko Santa Mari'ren ardura eta Busturi'ko errian artzen ziran amarrenak eskini eutsezala, gero, bera il ondoren, San Millan'go monastegiari lagateko ardura ori, bai eta amarrenen jaubetasuna be. 1051 urtean zan ori.

Geroago, obispo a il ondoren, bere ondoren, bere ondorengoiari, Fortunio'ri, eskintza bardiña egin yakon.

Izpea'ko Santa Mari lez ezagutzen zan sasoi aretan cleiza au. Gaur Aizpea, Axpe.

Eleiza ederra da bera eta urteen luzeeran emaitz edo eskintza asko artua. Orrela, erri gitsik dauken lako custodia eder baten jaube da. Apaingarriz betea, barrokierian jausteko eran. Parrokiko kurutzeta be aberatsa da.

Nun dago bertarako egiña izango zan Andra Mari'ren irudia? Egon bear zan tokian, bear ba'da ongilleren bateri ederkatura egitearren, Guadalupe'ko irudia dakarren pañu eder bat dago.

San Cristobal'en dagon Andra Mari ete da parroki onetarako egiña? Ala dirudi.

Beste Andre Mari irudia, Bareizi'koa da. Batzuk italiar itxura emon nairik, Parezi edo Parezi deitzen dautse, baiña antxiñako agiritan Bareizi agertzen da. Berezi, itxuraz.

Jakingarri polit bat billatzen dogu parrokiko agiritan.

1616 urtean cleizan zer egoan eta zelako premiñak egozan jakiteko, abade, erritar eta eskribadu batzuek ikusketa bat egin zan. Eta cleizako pitxi eta edergarriak agertzean, an agertzen da organu bat be. Baiña bertan esaten da, ez zala jotun organurik, jotzalle bat ordaintzeko aiañ dirurik ez egolako.

* * *

Busturik'k, bere dotoretasuna kenduta, eta bere bake giroa artuta, merezi dau pixkat kontu zarretan sakontzea.

Egia ete?

Pedro Barcelos portugaldarrak, bere Livro dos Linhagens'en au diño: Munio, Asturias'ko kondeak Bizkai'ko semeak estututa eukazan. Bei, idi eta zaldi zuri bat eskini bear izaten eutsezan bizkaitarrak. Baiña bein, Froom, Inglaterra'ko errege baten anaia, andik bialduta, Bizkai aldera etorri zan itxasoz, lur barrien billa. Eta bizkaitarrak Munio'gaz erabilen asarrea jakinda, euren alde jokatzera eskini zan, emengoak Jauntzat ezagutzen ba' eben. Alaxe agindu be.

Agertu zan Munio berari ordaindu bearrak eskatzen. Froom'ek ukatu.

Origaitik Munio bere soldaduek agertu zan eta «Vuzturi» baso erriaren inguruan alkar billatu ondoren, gudaketa zital bat egin eben. Emengoak irabazi.

Orra Busturi, istori zarrean.

Gudaketa onek beste irizpide batzuk be ba daukaz. Guk, irakurri ala, or lagaten dogu.

* * *

Kontu zarrez jarrai daigun.

1475 urtean, bizkaitar asko batu ziran Toro eta Tordesillas inguruetan, Portugal'en aurkako gerrarako egin zan deiar erantzunez.

An ez egoan giro onik.

Gosea, dirurik eza, euskaldunen eskubideak... danak batu eta birbildu ziran.

Jakiña da sasoi aretan euskaldunak euren lurraldeetatik gerraren baterako urtetan be' eben, aurrez dirua kobratuta urtetan ebela. Ori zan oitura, lege egiñiko oitura. Baiña sasoi aretan erregeak ez euken dirurik eta karta bat emon eben esanez zeatz ordainduko zituela egun batzuk barru angolgerak.

Eguna eldu eta ordaindu ez. Talde batek etxeratzeko asmoa artu eban eta Rodrigo Albiz, Axpetarrari, eskatu eutsen errege karta a emoteko, edozein erakusteko be. Asarreak, gogorkeriak eta odola bitartean. Axpetarrak ilda an jausi zan Marzana'ko Otxoa bat.

Rodrigo Albiz'ek parkamena eskatu eban erregeengandik eta ala lortu be, 1475'ko Dagomilla'ren 4'n emondako agiri baten irakurten dan lez. Beragaz batera parkatua izan zan beste anai bat: Sagarminaga'ko Martin.

* * *

Busturi'n sasoi baten baten ezagutzen zan ogibide edo ofizixua: burdiñazko sare egilleena, errejalariena.

Euskal-erria'n, zidargiñen artean, errementari on eta jatorrak be ezagutu ziran. Eta euren artean konbentu eta cleizetan, edo ta etxeetan ainbat burdiñazko ate-sare dotore, txukun eta baliotsu egiñak. Zobaran bat, Martin Agirre, Juan Allika, Rodrigo Apraiz eta beste batzuk agertzen dira liburuetan, zeregin orretako artista lez, busturitarren artean. Gorago aitaturakoak ba ekiezan irulau illebetarako lanak artu eta erbesteke errietan jarduten. Len aitaturako danak 1600 urtekoak ziran.

* * *

Izen andiko busturitar bat: Jose Apraiz eta Arrospide. San Carlos izeneko Legiñoiko kapitan izan zan Potosi'n. Itxuraz ondasun asko egin edo lortu zitun an. Bere erriaren alde egin eban azken-nai edo testamentuan alaxe igarten da: Bere etxean gordeta eukan custodia ederra, Axpe'ko cleizeari. Bai eta zidarrezko kopoi andi bat, eta zortzi kandelari, eta beste ainbat pitxi.

Osagillearentzat diru pilla bat laga eban, Apraiz-erdikoa, Ariznaga-erdikoa eta Txirapotsu'koei duban laguntzeko, premiña agertzen zanetan, eta erriko beartsuak be zaintzeko.

Dotriña, irakurten, idazten, josten eta kaltzetagiñan ekian sentu eta fama oneko andra batentzat lau milla dukat, neskatilei ekiana erakusteko. Eta dirutza bardiña maixu batentzat, mutillei erakusteko. Ortaz gañera, beste ainbeste laguntza erri eta ingurutako cleiz gizonen.

Busturitarrek izan ziran baita Jaun Antonio Madariaga Arostegi eta bere anai Juan Iñaxio. Bata Cadiz eta inguruetako Korreotako zuzendari nagusi izan zan bere denpo-

AGVR

Apartado n.º 2
BILBAO
FRANQUEO
CONCERTADO
08/55

HUMBOLDT ETA MARKIÑA

XVIII GIZALDIAN

Euskerak, gaurko izkuntzalarien artean ezaguna bada mundu guzian, asko ta asko zor dio Humboldt prusiar jakitun ain famatuari. Justo Garate'k (Bergara'ko mirrikua, gerraz gero deserrian bizi dana), gu orain ari geran garaiatz eta ariatz amaika berri eder emaitz dizkigu. Humboldt jaunak, Guillermo'k esan nai da (—bazuen beste anaia bat ere be bezain ospatsua jakintzako gaietan, ots, Alejandro—) ibiltaldi bi egin zituen Euskalerrira bata 1799'ko urtean, bestea, berriz, 1801'garren udalenean. Azken ibiltaldi beajez mirrikatuko naiz emen. Ez dakigu nundik nora bururatu zitzaion Markiñara'ko bidea artzea, mandok zeramikien organ, kostaldetik, Deba, Getari, Motriko, Ondarru atzera utzirik. Dudarik gabe, orga-bideak txukunagoak ziran orduan gaurkoak baiño, erri bakoitzeko alkardade jatorrean, bideen zaintzaille zen aldi zoragarri artan. Udaberria zen bete betean. Markiña'ko ibarra, berriz, ikusgarria zegoen, zuaizak kimu berrietan, errekatxo lasterrak ur garbiz gainezka, an emen murkolorez apaindua. Humboldt berak dionez bere egunkarian, ba zen baztar aietan bolu edo errota eta burdin-ola ugari. Ua ibarreko ixillura? Izan eta egazkoñik, kotxerik, trenik ez zen aldi artan, zer besterik etzuen zuen ibarra zear ziren Humboldt bidezkeriak errotaren doiñu berdiña, olagizonen mallukadak eta gurdi nagin baten negarra baiño?

Markiña erria polita,
ai! baiño arlotea.

Humboldt prusiarra zen eta bere izatez ez zen inora joaten aize-belatz, aldearri bideetako eta ostatueta gora-beerak ondo zuzenduaz baizik. Markiña'rako ibiltaldian berdin jokatu zuen. Beraz, Munibe'k, Peñafordako Konde deritzanak gomendiozko gutunak eman zizkion bere eskuetan Markiña'n zeukan Jauregian egon zedin zernai denboran bertako ostatu arlote xamarra zela ta. Lenengo ibiltaldian, Humboldt bere sendi edo familiar osoarekin etorri zen. Bigarreno ontan ez zuen familiarik bere ondoan, bai ordea bidelaguna edo elaide bat zeñaren izena zen Bockelmann. Markiña'ko ostatu arlotea omen zan. Izango zen, eiz dugu ukatuko. Baiña, Kondearen jauregia ere ez zen beste munduko. Jauregiak geienik izan oi direnez, aundia eta zabala bai; baiña utsal, otza, bakartia eta Humboldt berak dionez. Basoz inguraturik egon bear zuen, erritik ordulaurden baten bidean. Sorgiñentzat eta gauekoentzat toki aparta! Baiña, nola mundu ontan ez den gauz txarrik alderdi onen bat ez duenik, Kondearen jauregi zakarrean Humboldt eta Bockelmann jaun ta jabe arkitu ziran, bertako sukaldaria eta zaldizaina lagun zituzte larik. Ta, geroztik, or dabilte kale eta landa zear Humboldt eta bere bidelaguna, Bockelmann. Maizenik ordea Humboldt bakarrik, soro ertzetik aitzurrean edo goldaketan ari zen gizonari galdezka zerbait edo askotxo ikasia baizuen euskera, lenengo ibiltaldiaz gero. Izan ere, esku artan dakargun zerbait burutuko badugu, askotan bakarrik ibiltzea obe lagun artean baiño. Ba euskeraz itz zuurra: —«Nor bere tokian Jaungoikoa».

Zergaitik Markiña'ko ibarra
autatu ote zuen eta ez beste
edozein erri?

Begien aurrean dauzkat Humboldt'ek, udaberri artan, bere emazte Karolina'ri zuzendutako gutun maitagarriak. Gutun oietako batean, arrazoi bi ipintzen ditu Humboldt'ek. Markiña'runtz eragin zituen arrazoiak ain zuzen ere. Alde batetik, dio, Markiña'ko ibarrean egiten da euskerarik jatorrena eta ederrera ta bestetik inun baiño aberzalegoa emengo jendea. Azkenik, guk diogu, bizirik eta zutunik zegozten oraiño gure lege-zerarik erakundeak. Oraindeño Markiña'ko ibarraz gure Humboldt illezkorra. Antxe ezagutu zan Mogel apaiza, Peru Abarka'ren egillea, laster bere maisu izango zena. Beste bein, Gaztezik zetorrela, astiro-astiro Urkiola'ko aldapa jexiaz, Durango'ra eldu zen, nun bizi zen apaiz jakintsu bat, P. P. Astarloa. Urkiola'tik beeruntz zetorrela, zoramen zurgarritz zoratut geratu zen gure Humboldt aundia, balbatean ikustean-arkaitz artean arranoaren apaiz —Mañari izeneko errixka. Gutxi gora-beera, bere itzak dituzu, irakurle: —«Ain da polita non ez dagoen gizonaren itzik azaltzeko bear den diña».

Azken puntu au ez dakiten edo jakiterik nai ez duten karmeldarrak ba dira gure ere Markiña'ko konbentuan, liburuzaña aparte.

JOXE LASA

retan eta bestea Armada'ko buruzagi. Biak Santiago'ko zaldunen jantzia artu eben XVIII gizaldian.

Bolukua ori, jatorriz, gizaburutarra izan bear zan.

* * *

* * *

Euskalerrira'n izen andiko sasi-mediku ugari ezagutu izan dira denporetan. Laster zabaltzen zan olakoen entzutea eta toki askotara urten bear izaten eben eurak. Emen, Busturi'n, orain eun eta ogei urte, Gaspar Bolukua bizi zan. Erriko osagillea zan, erriko ebaketaria. Baiña toki askotatik etorten yakozan bertara gaixoak. Ez bakarrik Euskalerriti'k. Mirariak egiten ei zitun berak gertatzen ekiazan botika eta enplastuekuz.

Kontu zarrak esaten, barritzen datorren erri bat ikusi dogu. Emen egon ei zan Alemaniara'ko torrea eta bertan bizi Eskoziarra erregin bat, Jaun Zuria'ren ama.

Euskal-istorian entzute andiko erria. Urte eta beronen artean, euron errialdeetan, Bizkai'ko cleiz aterik geienak sartzen ziran. Busturik'k, izen utsean, ia Bizkai erdiaren kondan ixilla eskutatzen dau.

Sasoi aretan, ingurutako etxerik geienak alkilatuta eukiten zituzten euren gelak bereganatzen ziran gaixoentzat.

A. ZUBIKARAI

Aurten Zer?

PAULIN OLERKARIA, TXAPELDUN

Asi barria dogu 1975 urtea. Euskaldunen begi ametslariakin begiratzen dautsagu urte barri oneri, baiña barruan josita daroaguzan kezkek ezin doguz aitzu. Zer ete dakarsku urte barri onek? Zorion-bidea ala negar-bidea? Askatze ala obeto lotze-bidea? Aurretze ala atzeratze jokerea? Begi zurrak eta ametslariak izan arren, geroa illuna ta bildurgarria, gaur beintzat.

DIRUKETA-ARAZOAK

Diruketeak, ekonomiak, beti izan dau garrantzi aundia gizonaren bizitzan, baiña gaur garrantzi ori asko azi jaku. Ekonomi-arazoan aldia da gurea, eta urte barri au be diruketearen urtea izango dala uste dogu. Joan dan urtearen azkenak, garratzak, illunak eta gogorak izan dira. Gogoratu izan diran lan-izteak, arrorioaren arazo latza, Europa'ko laterririk geienak arduratuta, salneurriak egin daben gorakada ikaragarria, t. a. Eta arazo au asi baiño ez da egin. Urte barria ezaugarri bardiñakaz agertu jaku eta igarleak obearen itxaropenik ez dabe agertzen. Arazo au sakondu egingo dala diñoskue urte barri onetan.

ERRI-ARAZOAK


Igaz ainbat aldakuntza sortu ziran laterrietan. Gogoratu oraintzu atariko idaz-lan baten AGUR'en esaten zana: Askatze-giro gozo bat sortu dala, batez be Portugal aldeko jazoaren ondoren lez. Norantza joko ete dau urte asi-barri onetan giro onek? Gogortasunerantza? Demokrazirantza? Zabalpenerantza? Olako giro pozgarri bat sortzen danean, laster agertzen dira aurkalariek. Olakoxea da gizona. Aurkalarie onekandik on asko ezin geinke itxaron. Itxaropena, izatekotan, beste alde hatetik sortu leiteke, baiña ba dago onetan be zalantza bildurgarri bat.

URTE SANTUA

Erroma'ko Urte Santua ospatzen dogu kristiñauok urte asi-barri onetan. Eta izenburu lez «Alkartzearen Urtea», adiskidetzeta ta onezkoak emotearen urtea. Baiña nogaz adiskidetu? Gura ez dabenakaz zer egin? Zeintzuk adiskidetzeko baldintzak? Eta baldintza oneik beteten ez ba'dira, zer egin? Nor errudun? Zelan zuzendu gauza ori? Guztiok gura genduke adiskidetzeta ta alkartze ori. Zer gauza oberik? Baiña guztiok gura dogu, baita, bake zuzena ta artesa be. Baiña bidea zein?

ITXAROPENA TA LANA

Ez dogu itxaropena galdu bear. Agertzen diran gaiztasunak, banakabanaka, azpiratuko doguz eta urte barruan bake barri baterako bidean oinkada batzuk emongo doguz. Baiña lanari ekin bear orretarako. Lana Erriaren alde, lana Erriko jakintzeari eusteko, lana Erri-kontzientzia sortzeko edo geitzeko, lana mundua obetuteko, lana... lana... eta itxaropena.



Orain iruregeta bi urte, gure baztarrak, ososoan oindiño, euskaldun garbiak ziranean, Etxabarria'n, Ander deunaren zainpean dagon Kalamu peko Etxebarria'n jaiou zan Solozalbal'dar Paulin.

Azibar, Saratziabar, Agarre ta Lejardi'ko pagadi, irategi ta Legarrei'ko erreka zuloan ondo jolastua bere ume aroan.

An bai ikasi ebalu euskera garbia, ta izadiaren indarra igarri: Basarriko lan eta oiturak, baserriaren siñismen sendoa, udabarrietako berbizeak, abiak eta txoriak, Korputzetako bedar batzeak, sorgin kontu, keixa ta sagarrak. Ez benetan, ez izan ikastaro txarrenak.

Gandixa ta Altxolazar'eko ur garbietan igari edo busti beintzat, eta gaztaiñak erre, ta erdi-erreta jan be. Ez dakigu Paulin'ek umetaroan pipazotzik erreten ikasi eban ala ez, baiña or izaten ziran gaztetxoan lenengo «okerkeriak» egiteko aukerea ta tentaldiak.

Umetaroan ikasia sakon darabilgu geure gizon-egiteetan, belaunaldi aretako mutiko aske ta urduritsuak batez be. Eskolako maixu erdeldunak baiño ikasi ohea emon cutzen gure Paulin'i, Aulesti ta Urkarei'ko baserri ta basoak, eta an bizi ziran gizaseme langille, euskaldun eta kristau jatorrak.

Orra ba, olerkari baten sena nundik edertu yakun, baso eze ta urtsu arein artean, ezin besterik sortu. Arrezkeru ikusiak, entzunak eta jasanak, sen edertu aren inguruan loratu yakoz, eta ona emen gaurko olerkaria.

* * *

Joan dan azillaren 24'an, Solozalbal'tar Paulin izan dogu txapeldun Martin Gaillastegi'kin batean. Ori dala-ta, alkar izketako asmoz eldu gara berarengana. Orrelan ba asi giñan galdera batzuk egiten.

1.—Zer esan nai dau zuretzat olerkariaren txapeldun izateak?

Gizonak indar piskat nunbaiten edo zerbaiten bidez artzen dabenean, norbere erriaren alde lan geiago egitera beartuta dagola. Semeak aitaren ta amaren etxea landu ta joritu egin bear dau.

2.—Noiz ta zelan asi ziñan olerkiak egiten?

Gudan giñalarik, Izarra'n egin nituan lenengo lerro negurtuak. Zelakoak izango ete ziran... gaur ez dakit. Antziña galdu nituan. Ez negarrik egin.

3.—Euskalerrri'ko jakitunak indar aundia ematen dautse olerkiari, batez be Aita Onaindia'k Zer dala-ta ori?

Aita Onaindia'k poesiaren barri badaki, olerkia bere dala-ta, ta olerkiz inguratuta bizi da. Poesi izkuntza, biziaren egia, naiz dala mamin poezkoak, naiz dala atsekabezkoa, aurrean dagonari agertzea dala deritxot, ta urko-lagunari bere barruen daroan poesi edo olermen garra pozez edota samintasunez biztuerazo ta berarekin bat egin.

4.—Orain artean iñoiz aurkeztu al zara onelako sariketara?

Bai ziurki. Ainbat bidar aurkeztu naz, ta «ORIXE» maisuak esango eukeanez, jainko txiki artean ibilli naz. Geiago ezin ta, bigarren sariak izan nituan, baiña besterik ez.

5.—Orain arte, olerki libururik atara al dozu?

Liburuxka batzuk, bost noski, gure lur gainean ta bere maitasunez egiñak, or, dira. Orreetako gai ta izkuntza ulerkizkoak diran ala ez, zure ta beste euskaldun egi ta eder-zaleen eretxipean iztea erabagi dot.

6.—Euskalerrrian eta euskerarentzat zer da olerkia ta olerkari izatea?

Euskalerrrian eta euskerarentzat olerkia, erri onen egia jakituriz, maitasunez ta edertasunez agertzea dala asmetan dot ene barru txiki onetan. Ta gizon nai andrea, ori egikeran, euskal olerkaria da.

7.—Eguneko zenbat ordu egiten dozuz euskal arazoko lanetan?

Eguneko zenbat ordu egiten ditudan euskal arazo lanetan, zer esan ez dakit. Nire bizi, berez doa gure erriarengana. Nire bizi, al dodan guztian, uskerietan ba'da ere, urtzen-urtzen doa erriaren alde izkuntza bidean.

8.—Gaur egunean, euskal izkuntzan sortuta dagon burruka au «one-rako» ala «txarrerako» izango ete da?

Erriaren alde, sendo, ots egitean, gaur egunean. Egiz, ori dala-ta, gora berea sortu ba'da, bidea argi dago. Euskal iturrira goazen, erri sena, geien, beregan daroan kale ta batez ere baserrira, ta antxe, aurkituko dogu gure izkuntzearen muin ta bizi. Orduan, gure arteko arazo au argia ta bizi izango da jakintzaz beteriko euskal izkuntza onentzat.

9.—Ta amaitzeko: Zelan ikusten dozu Euskalerrri'ko etorkizuna?

Lan asko egiten da. Egiz ta zuzentasunez, etxeko bezela, gure arlo ontako gora beran satatzen ba'gara, gure soloan landara ederrak loratuko dira, ta ondoren, arnari ederrak mamitu ere bai.

Ondoren au esan bear; Paulin Etxebarri'ko San Andres'en azi ta ezi ondoren, 1939'an apaiz egin zan. Orain Mungi'ko ta Laukariz'ko erri ta auzunako ardura dago apaiz bezela.

Onak dira ba gizon ospetsu onen eretxiak eta agertuera batzuk. Apaiz diran askok eta ez direnak ba-dabe emen, jarraibidetzat gizon bat. Berau izan dogu Mungi ta auzunetako gaurko euskal giroa, geienbat, lortu dauana, batez be, gaztien artean.

Jarraitu ba, Paulin, zeurea dozun bide orretatik. Beste askok ere, orrelan, egin ba'lebe, gurea dogun Euskal-erri onek beste giro bat izango eban.


Eta, orain, amaitzeko, bere olerki zati bat, orra or, zuretzat.

«Askatu, diño, askatu»
eta itzez, baita egitez,
besteak zapaltzen ditu
berekeriak egiñez.

Auxe da gure Paulin'ek eskeintzen dauskun euskera «goxoa» ta garbia.

LANDALUZE'TAR JOSEBA





GATZ ETA PIPER SASI-MAIXUKERIAK

San Anton'go eleizkizunak

Orain dirala amar urte inguru, liturgi barrizatzea izan zanean, gure izkuntzarentzat, eta batez be Bilbo'ko euskaldunentzat San Anton'go mezea izan zan igalirik ederrena ta, uste dogunez, lenengoa. Ango parrokoa dan Kauldi jaun bardin bakoari esker, sortu zan eta bere egopean, arrezkero, ainbat eta ainbat ekintza ta alegin, erriarentzat amasa diranak, ezagutu ditugu. Ta asko geiago izango dira ezagutzen ez doguzanak.

Baiña urte batzuk dirala, kirtenkerietan jausi ez ete garan nago. Ondo dago gure illen —eta «gure» diñogunean «danak» ditugu gogoan— alde, eleizkizunak San Anton'en egitea. Iñoiz onartzekoak izan leitezke baita, liturjirik kanporako «gonaldiak» be, ta abar ta abar. Baiña gure uste apalean onartzekoak ez dana, beste au da: beti-beti, Kauldi jaunaren lepotik dingillizka erantzun-bearrak jartzea. Olangoak egin bear ba'ltzakez, ta guk ez diñogu ezetzirik, zergaitik ez dira beste Eleiza edo toki bereziagoak aukeratzeko?

Norbaitzuentzat San Anton'go mezea —euskerazkoa— «burgesenentzat» sortutako logailua ei da, ez besterik... Zertarako ba ainbeste «show» burges-kumeak tarteko dirala? Norbere guraso ta senideen aurrean ausartatzat agertzeko? Ala gure umeekin mezea entzuteri goazanak noiz edo noiz makillakadaren bat artu dagigun?

Olako lekuetara, arriskua dagonean esan nai dogu, gizonki deituak izaten giñan eta aurrez-aurre ta geure borondatez joaten ikasi gendun. Ez diñogu gaur txarto ezer dagoanik, asmo onakin danean, ez. Baiña ez dago pakazan dagoazan andra, zar eta umeak arriskuan ipiñi bearrik.

Bateron batek, meza ori «sobran» dagola be esan ei da. Kenduko ba'ltzake, zer irabaziko ta nun egin bearko litzakez emetik aurrera sendiarteko show orreik? Iñoiz «gonaldiak» eta olakoak egin bearko ba'dira, sinesgabeak tarteko dirala, zergaitik ez errespetatu meza entzuten doazanen fedea ta oiturak, abesti aurrerakoiak eta olakoak amaitzen danerako itxiaz?

Jatorrago jokatuaz entzuleak be obeto eureganutuko leukiez, naizta beti bardiñak izateari ganorabakokeria ba'deritzagu be.

Ezpeleta'tar Sabiñe

San Anton'go mezea aipatu dogun ez-kero, ezin aztu andra jator onen izena. Gixien uste genduanen joan jaku. Euskal-eleizkizunetara iñoiz utsik egin ez daben Sabiñe zeruratu da. Baiña Sabiñe ez zan eleizan bakarrrik ikusten, euskal-kutsuzko ager-keta guztietan eta ixilliko eguneroko lanean lenengo maillako emakumea gendun.

Bere gogoaren aldeko eleizkizunaren betekadea lekuko. Ondo irabazita daukan zerutik, Euskal-erria'rentzat laguntzaille izango



dalakoan, itxaropentsu gelditzen gara ezagutzen gendun errizale guztiok. Goian Bego.

Naste-borraste

San Anton'go eleiza ondoan, lagun batek: —Josu, ba-dakizu zer esan eustan len-goan «jaun» arek? —Zer?, nik. —Zu ta zula-lakoak karlatarrak zariela». —Tira ba!, nik... Eta bera? —Orain marxistea ei da. Olakorik!

Arrezkero kalatarren aldizkaritxo bat jaso dogu etxean. An ikusten dogunez karlatarren buru dan Hugo printzea, Txina'ra joan da ango agintariak deituta, ikertaldi bat egitera. Bere jarratzaile zintzoentzat gitxienez «lenengo eskuko» albisteak ekarriko ditu, jakin-garriak beti.

Gutzat errespetagarria dan jaun orrek emengo «txoriburua» batzuk baiño zurrago jokutzen du, naizta gu aren kide iñoiz, orainarte beintzat, izan ez. Emengoak Krutwig'en morroituak ditugu. Ni karlatarra nintzala iñoianaren antzeko sasi-marxistak asko ugaritu dira gure inguruan. Mingaiñez marxistak, sakelez kapitalistak. Ta len aipatutako ori txarragoa oarindik: langilleari zelan izerdi geiago atera, kapitalisten liburu baltzak zelan estaldu bear diran erakusten dauan aolkularia da-ta.

Ezin aztu izan nebazan, «oporrean» egoazan langilleak Derio'ko eleizaruntz ioiazala ikustean, orrean lepotik bizi diranen sasi-aurrekoikeriak. Zerga gitxiago zelan ordainduko litzakeneren ordez, zergaitik «orreiri» geiago ordaindu bear jakokela eskutu ez?

Gizon jokatzeko gauza ez ba'gara, ixillik egoten ikasi dagigun gitxienez. Urrengoan geiago.

ARENAZA'TAR JOSU

Itaunaren erantzun bikotxa

Gure taldekuon idazkera bardiñagoa izan daitean, Idazle Bazkuna'ko Idazkaritza-tik aztertzeko artu dogun itz zerrendan lendik be noizbait jarduteko ustez nengoan gai bat aitatzen dau: Itaunari erantzuteko era bikotxa.

Zein nai dozu?	Edozein, zein-nai
Nor nai dozu?	Edonor, nor nai
Nun nai dozu?	Edonun, nun-nai
Noiz nai dozu?	Edonoiz, noiz-nai
Nola nai dozu?	nola-nai
Zelan nai dozu?	Edozelan
Zer nai dozu?	Edozer, zer-nai

Zein da era biotatik jatorrago edo bat erabiltekoan artu biar litzakena? Nik liburu zar gitxi irakurri dot. Eurretan «edozein» itza irakurri izan dot baiña bere aitzak diran «edonun», «edonoiz» ta abar ez. Ordez beste saillekoak irakurri izan ditut, «nun-nai», «noiz-nai» ta abar. Gaur be bizkaieratik kanpora azkenengo oneik indar aundiagona dauka besteak baiño.

Arrazoi au bakarrrik kontuan artuta arabagia emon biar bagendu «nun-nai» ta bere saillekoen alde geienok emongo gendukela ez daukat ezpairik. Baiña arazoak beste alderdi bat be ba dauko ta ondo kontuan artzekoa gainera. Sail bietatik zein da erdel usain gitxiago dabena? Ezpai barik lenengo zailla. «Edozein» ta lagunak erderatik artutako ezer ez dauke. Oстера, bigarren saillekoak itzez-itz erderatik artutakoak dirudie; diñoguna itsuak be ikusi daiteke:

Nornai	=	Quienquiera
Nun-nai	=	Dondequiera
Zein-nai	=	Cualquiera
Noiz-nai	=	Cuandoquiera
Nola-nai	=	Comoquiera

Ta oneik, itzetan soillik ez dira bardiñez erderazkoak, baita joskeran be, sintaxean be bai. Bai euskeraz ta bai erderaz toki bardiñean dagoz itzak.

Ez dakit antxiñakoak diran al ez guk bizkaitarrok geienretan erabilten doguzan «edozein», «edonun» ta lagunak. Baiña besteak baiño barriagoak edo ontzuragokoak baiña be, erriak sortutakoak dirana ez dago ukatzerik. Beraz edozer modutara be euron jatorri jatorra ikusirik, besteen gain ipintekoak dirala bildur barik esan daitekegu.

Besteren batek gure esanen aurkako errazoirik ekarten badausku orduantxe burua murtuko dogu.

KAMIÑAZPI

GABON EGUNA

Zeanuri'ko «Zulaibar» ikastolako mutillen artean eratutako idaz-leiaketan sarritua.

Atzera be eldu da Gabon eguna. Urteko egunik zoragarriena au da, baiña batzuntzat ez da jai egun bat baiño.

Lenagoko denporetan Gabon egunean sendiko guztiak etorten ziran oterara egun au ospatzeko, baiña orain olangorik ez dago. Orain ez dauka ardurara Gabonak izan arren. Bai, Gabonak etxoten gauz, baiña bakaziñoak eta jai asko dagozalako.

Orain mille bederetziureun eta irurogeta amalau urte gure jaun Jesukristo jaijo zan gu salbatzeko, gu betiko galtzetik aterateko eta gu orain egunerik eguneru gure erlijioa geiago gaitzean goaz eta osoan galduko dan egun bat etorriko da.

Len esan dodan lez Jesukristo gure jauna jaijo zan gugaitik eta ogeta amairu urte neke artean eginda gurutzetan il zan.

Gu danok izango ba'geintez antxiñako abade bat zan lez, bat salbatzeraren bizia emon ebanaren beste! Ez dot ulertzen orain zelango aldea dagon gizon batzukandik beste batzukana. Goazen ba abade onen istoria idaztera:

Mundu guztiko 2'garren gerran izan zan. Alemanak kartzela bearren ta atxillotu askogaz. Amar'eko bat iltea erabagi eben. Onelan ba, lerroetan ipini ta gero kontetan asi ziran.

Batzuk aterata ta gero, tokau jakon andrea ta semeak eukazan bateri. Soldadu artean egon zan abadea, ta au entzund ebanen bera joan zan aren ordez.

Lenengotan alemanak ez eben gura baiña gero onartu eben ta olan gizon or a salbau zan abade aren biotz onagaitik.

Gizon arek ez dau aitzuko egun ta ba gerra azkenen bere andreagaz eta umeak atzera be an egon zan eskerrak abade aren biotz onari.

Atzera be goazen gure Jaunaren biotz tзара.

Jesu gure jauna, geugaitiño jaijo zan lastategi batean, Belen'go errian. Dan heterik egon zan kanpoko genteaz, di etxe bat ez zan libre egon. Gau otx bater jaijo zan eta gure Ama deunak oial botean batu eban.

Herodes'ek, errege barria jaijo zan jakin ebanen ilteko agindu eban. Egu asko igaro ziran, baiña Herodes'ek eban jakin non bizi zan Errege barria eta azkenean urte bitik berako gure guztiak ilteko agindu eban.

Jose deunak orduko gaubean amestan egin eban aingeru bategaz. Ono Egipto'ranta urtetako esan eutsun. Herodes'ek umea iltea gura dabela ta.

Jose deunak urrengo goizean artu eban andrea ta umea, ta Egipto'ranta joan zan, eta Herodes il arte ez zan etorri.

Zelango nekeak gu salbatzeko! Baiñaguk zer egiten dogu beragaitiño?

Ezer be ez, guk gure onerako baki rrik pentzetan dogu, orregaitiño gu bereko andiak gara.

Ea ba, apur bat artestuten garan.

ZORIONAK DANORI.

JUSTO ARRIORTUA

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartz-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, bereko, politiko naiz ondasungarri asmoen gainetik daben iritxi-oneko euskaldun guztiak Euskeratzat dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egileak dira.

Agur au, bere zuzendaria ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M. MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Carretera a Galdácano, 32- Bilbao 4

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion gutziratiko:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

EUSKALERRI'KO ARAZOAK

IRABAZI AUNDIAK

Goenaga gazte zintzoak ogei urte ditu. Aita ez ezik, semea ere txito asmotsua. Zerbait egin nai eta etxe aundi bat erosteko txanponak iesan dizkigu. Ordaindu bearrentzat, ia oraintxe arte, egunero amasei ordu lanean ibilli zaigu. Askotxo iesan eta ezin lo egon... Zer amets? Etxeak emango dionetik, ogeitamar urte dituanerako zillar-pillatxo polita osatuko duala eta lana alde batera utzi al izango duala. Noski, ez amets txarra!...

Azpillaga ezkondu zala lau urte. Bi ume ba-dizkigu. Onak ere, zur ibilliz etxea erosi du: oraingo berri-berri orietako aska-etxea... Ez, ezer irabazteko, baizik-eta ber-bera antxe bizitzeko. Larri-larri! Bañan, zuloak estaltzeko aña osatzen! Zirikatzailek ez al du? Bere buruari diotsa:

—Ortxe ate-ondoan alakoxe gurtarintxo politak ederki emango luke!...

Ondoren, berriz, auzoko Otermin'ek ere ez al du bere gurditxoa? Eta, besteak baño

Bearrena zer?

Goenaga'ren arikoak asko ditugu. Sailka. Azpillaga'k non-nai arkitzen. Eskarne maratzak ere adiskideak eta aizpak ia ateantean aurkituko. Onako au, bere buruari inork galdetzen ote-dio?:

—Nere bizitza zer det? Orrenbeste lan eta izerdi zertarako? Burruka auek guztiak ezer onik ekarriko-ote?

Eta, bakoitzak bere buruari, isillean eta aopean'edo yardesten:

—Buruasteak eta ardallak zertarako ditudan? Diru geiago izateko. Aberasteko. Zartzaro onari begira...

Iakiñean edo iakin-gabe. Ernai edo lo... gutzaz alakoxe erokeri izugarria iabetu. Laister, guztiok auxe besterik ez iakingo eta ez egingo: Irabazi! Aberastu! Zillarza bu-

genduken aña. Batzutan, ordea, bai iauntxo izaten ere laguntzen digu. Eta Shakespeare'k ziona:

*Txintxinka zillarza aurrelari:
Ateak neretzat laister zabali!*

Alabañan, zillarza nolabaitetxoa degu: batzuri ematen ba'die kezka eta buru-auste geiegirok gabe izatea, zillarzak ba-du bere alderdi makurra. Auxe: iaun altsu orrek, txanpon zar bi irabazteko aña ez dana, oso bazerrean uzten du. Alegia: Umea ezertarako ez dala. Umea eskale aundia, eta eskaleak inork ez ditu maite. Aurrik ez nai izatea, oso maiz gero!, ortatitxek degu. Bein emakume ezkonberri batek auxe zion:

—Orain ume batek 200.000 txanponez bere lanik ez amaituko. Orrenbesteko zillar-pilla nik noiz izango?

Orobat: zillar-goseak gaixoa eta makala erkalaren mende utzi nai ditu. Eta, adiñeko zarra beti bazerrean. Guzti au geiegi ikusten degu!

Bonbonean bizi geran aldietan, guztiortzat egoki litzake bizi-malla ohera iritxi al izatea. Bitartean, alde-erantzikoak maizago ikusten ditugu, zillarzak nagusitza esan nai digu, al-izate txalogarria.

Nai dedana erosi al-izatea. Gogoko dedana ni aupa eragitea. Eta... nai dedana zapaltzea.

Zabalkunde mukerrak, egunero gose berriak pizten dizkigu, eta zabalgintzan zillar-keta izugarriak eralditzen dizkigute. Nere

izena guztiok iakin dezatela. Nik dagitziadana egunerokoetan aizatu ditzatela. Ondoren, besteak ere auxe gañeratzten:

—Alakoek eta olakoek eskeintzen dutena oro, GUK asko ere era obean damaizukegu.

Nori siñistu? Nora ioan? Begiak itxi-itxita ibili beti, ala?

Neurriak gaindu!

Gerok gerongan, izkutuan, izatearen giar-giarrean, ainbeste indar eta almen ditugularik, atarian, inorenan eta gizartearen alakoxe iaikotxoa eraikitzen degu.


Iakintzu eta ikasiek, toki batean baño geiagotan, berein azterketa egin dizkigute. Alegia: ezertarako almenik ez zuten gurasoengandiko aurrak txito atzeratuak etorri. Ondoren, gurasoen baimenez, aur oriek sendi zintzoetara eraman zituzten eta ikasketak egiteko aukera izan zizuten. Illabete asko baño len, delako ume atzeratuak, asko igo ziran. Ikasle on zitezkelakoa erakutsi zuten.

Zillarza Iainko biurtze orde, gizonok geron kidekoa ondu eta goratuko ba'gendu, guztiok ez ote-giñake zorionsuagoak izango?

Zillarza nagusigora iaso orde, geron izatea egoki dan mallan iarriko ba'gendu, ez al giñake gizonago izango?

Bestalde, txanpon ugerra ez-bañia, gurtzat egizko aberastasun, argi eta zidor Iainko aundia litzake.

ETXEBERRIA'TAR P. s. j.



gutxiago ez izatearren Azpillaga'k azken-azkena irten dan aundi orietakoa erosi...

Eskarne gaxo-zaintzalle degu. Ez zarra eta ez gaztea... ogeitabederatzi urte. Bakarrik bizi eta amabost eta ogei ordu ere sar-tzen dizkizu alakoxe estuasunik izanez gero. Ordezkoak aurki lezazke... bañan, bere lanak poliki ematen diola, sari ederra, alegia... eta, bai zera! Ain zillar-keta opagarria besterentzat utzi? Bai ta: bazterrak arakatu eta ikusten maite... iri aundiak ikerri... Paris... Bordele... eta, ibilliek gora jotzen. Asko bear! Arritzeko ez izan: bere buruari izugarriko auleria nabaitzen eta ezer egiteko indarrik gabe, bi illabetez, izebaren etxera bildu zaigu.

ruan. Urrea ezañetan! Txanpona ametsetan... Arro-uts biurtu! Laister guztiok lan-saririk aundinera ioan naiko degu. Beti gei-go! Beti eskuak bete txanpon! Atsedetik ar-tzen ba'degu ere, biaramunean are irabazteko asmoz ibiliko gu.

Noski! Zillarza ere Iainkoak egiña! Zillarza txarra danik nork esango? Soña azi eta etxekoentzat maia ondu bear. Soñeko-taz ere ezin aztu. Noizik bein txolartetxoak atsedetik artzeko.

Orix! Zillarzak, beti eskale ez izatetik gu iagoten. Bai ta: zillarzak nolabait ere geron buruen iabe biurtzen gaitu: beti ez, nai

ZINEA TA ZABALPENEA

Brando kapitaiaren maite-miñak

Segovia'ko Trescabañas'en, «España'ko erritxu bat» da au, gauza arrigarriak jazoten dira: Eskolako irakasle dan neska batek bere ikasleai andra-gizonen artu-emon bereziak argitzeko ikastaro bat damotse. Amar urtetik amairurakoak dira ikasleak. Irakasle aurrerakoi au kendu egiten dabe eta umeak, euren adi-eziña agertzeko, eskola-aurrean jesartaldi bat egiten dabe. Agertzen dan maitemiña irukoitza da: eskolako ume-ikasle bat, neska irakaslea ta bere errira etorri dan erkal-zale (errepublika-zale) zar bat dira maitale (erkal-zale zarra Fernando Fernán Gómez da).

Jaime de Armiñan, zine-bideetan asko ibillia dogu. Bere «Ene andereño maitea» edo «Mi querida señorita», bere betiko maite-min-ardurearen agerpen bat da, eta azkenengo pelikula onetan be agertzen da maite-min ori.

Zabalpenaren aize bigunak eldu dira antxiñatik urrutikiskinean (TV) laburgogille edo gion-egille dan onegana be. Amairu urteko mutiko batek bere irakasleagaz ditun maiteteki debekatuak agertzen dira pelikula onetan eta maitemiñaren naste guztiaz agertu be.

Zabalpenari Armiñan'ek ezarri dautson neurria, irakaslearen eta ikaslearen arteko eziñeko maitemiñean ez da amaitzen. Gizaldien arteko burrukea sartzen da maitemin irukoitz orretan ete politika-arazoa be ez dago urrin: Erbestetaria, gizon naikotua da eta bere bizitzako eguerdia izan dan gudadik dator, eta bere geroa Gaztelako zelai ixil eta itunetan txoritxuen abestiak entzunez amaitzen da.

Neska irakaslea (Ana Belén) oparoa ta gaztea da, baiña gizon aren geldia ta bizitz-berea ezin ditu astindu. Umea aurrean ikusteak enpagua emoten dautso eta bigunkeriz eta len-miñez beterik atzera begira geratzen da. (Umearena ederto egiten dau Jaime Ganboa'k).

Jaime de Armiñan'ek aria trebetasun aundiaz eta asko ibilli danaren jakituriaz, ederto daroa, baiña jazoera batzuk arinkeri larregi agertzen dabe. Esaterako: Neska irakaslearen eta alkatearen (endorearen) arteko goraberak, enparantzan batu dan erriaren aurrean endoreak egiten dauan berbaldia... txingoteak (karikaturak) izan gure dabe, baiña edestiarren barruan ez dira ondo sartzen eta ipuñia zatituta geratzen da. Armiñan'entzat bide ezaguna, artu-emonak dira eta bide ori izten dauanean galdu egiten da.

«Brando kapitaiaren maite-miñak», berrito be illuntasunak eta biderik-ezak agertzen ditu. Eta ori sarriten jazoten jake España'ko zine-egilleai; oneintzat zabalpena ez da izan emakumeen gorputza geiago agertzea, beste barik. Neska irakasle aurrerakoa, edo atzerakoa, edo biak batean bitarte barik eta erbestetik nekatuta etorria, irudiak eta len-ereduak dira eta eurai begira ikuslea poztu leiteke, baiña laster aitzuko ditu.

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LAMPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK



ZAZPI-KALEAK

CASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

EDESTI-AURREA

(ARRAIPENA)

Bee-Acheul Jakintzea.—Ez da jakintza onetako langintzarik aurkitu emen. Garai onetako lanabesik geienak ezpaltutako arriekin eginak dira. Kultura au, Mindel eta Riss izoztean bitartekoa da.

Erdi-Acheul Jakintzea.—Bee-Acheul kultura zarragoa dan ori baiño askoz obeto ezagutzen da. Cagni'n, Frantzi-iparraldeko Abbeville'tik urrin ez dan Amiens inguruko auzo onetan, Erdi-Acheul garaiko kondartegirik aberatsena aurkitu da.

Cagni'n, alde bietatik landutako aizkorak eta arri-espalduek egindako lanabes mordo eder bat aurkitu da.

Langintza au Riss izozte aldikoa dogu. Garai onetako kondarrak, ibai ertzetan eta arzuloetan batuak izan dira batez be.

Goi-Acheul Jakintzea.—Riss izoztearen amaieran sortzen da kultura au. Garai onetako eskulan kondarrak ibai, itxas-ertz ta leiza zuloetan aurkitzen dira.

Goi-Acheul onetako jakintzearen azaugarriarik nabariena alde bietatik landutako aizkorak daben egokitasuna da. Oso zorrotza dabe musturra, ta ertzak be zuzenak.

Ingalaterra'n Belgika'n España'n eta Portugal'en aurkitu izan dira garai onetako langintzak.

VIII.—BEE-PALEOLITOS AROA EUSKAL-ERRIA'N

Naparroa'n, Urbasa mendian, Acheul itxurea daben lanabes kondartegi bat aurkitu zan 1968'gn urtean. Onetaz ganera, Euskal-errria'n, Bee-Paleolitos aroko kondarrak, Kantauri itxas-ertzean eta Ebro ibai-ertzean aurkitu izan dira.

Gaur arte aurkituetan, amaika bakarrik dira, Euskal-Errria'n, Bee-Paleolitos aroko kondar-obiak.

Bee-Paleolitos aroko eiztarien gizartea.—Aldi onetako kondartegi geienak izarpean aurkitu dira, ibai eta itxas-ertzetan batez be. Baiña aldi onen azkeneantza, eiztariak, leiza-zuloetan bizi izaten asten dira.



Leizetan bizi izatera jotzea, suaren aurkikundeari lotuta dago. Leenengo gizakiok, suaren eraginez uxatzen ebezan piztiak leiza-zuloetatik.

Garai areitako gizakiak erabilten eben sua, ez dakigu eurak sortua izaten zan ala nunbaitetik artu ta gordeta eukiten ebena.

Aldi orretako gizakiok eiztariak ziran. Bizona, zaldia ta oreña ziran, geien baten, eiztatzen ebezan abereak. Abere oneik baiño pizti basati ta aundiagoak be, eiztatzen ebezala dirudi. Torralba'ko kondar-obiak erakusten daukunez, rinokeros eta elefantes be bai.

Pizti onen eizea tranpaz egiten zan, eta alkartean egin bear. Orretarako alkar-ulertu bearko ziran eta izkuntza bardin bat euki bear. Erljio ezaugarriarik ez da aurkitu oindiño.

IX.—PALEOLITOS AROA EUROPA'N

Erdi-Paleolitos Aroko Jakintzak.—Garai au 120.000 urte ingurutik 4.000 urterarteko aldia dogu, Moustier garaia be deitzen jako. Neandertal izeneko gizakien garaia geien bat.

Aro onen leenen aldia Riss eta Wurm izoztean bitartean igaro zan. Urrenko aldiak, aro au osotzen dabenak, Wurm izoztearen erdi inguru arte eltzen dira.

Erdi-Paleolitos onetako jakintzak, oneiek dira: Acheul jarraitzako Moustier kulturea.—Moustier jakintza berezia.—La Quina'ko Moustier jakintza.—Agiñak dabezan lanabesen kulturea.

ARRATI'KO IKASLE TALDE BATEK

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra
BILBAO - Casco Viejo
Tenderia, 15 eta 16

AZTIKERIA ETA JESUS

Ekain, Santimamiñe, Altxerri eta beste zenbait kobeetan ba ditugu marrazki eder-ugariak. Bisonte, zezen, zaldi, artza, basantz, basurde eta abar... gizonentzako janari.

Oietako irudi batzuetan (arrak badira, bakarrik) arrastoak ikusten ditugu biotzaren gainean, zaurien antzera. Baita arma-arrastoak ere.

Toki illunetan daude eta ez dira jarri, ikusiak izateko.

Zertarako, bada?

Aztikerirako.

* * *

Aztikerietan siñisten duanak usten du, gauza baten eta bere irudiaren artean ba dala indar bereizi bat...

Indar orreri eskerrak, zezena basoan arrapatzeko, seguruena da, leendik zezenaren irudiari azkona sartzea; orrela, irudia menperatzean, menperatuta daukagu basoan dabilen zezena ere...

Ala siñisten zuten gure aurrekoak eta azi- tiak zituzten aztikeriak egiteko, eizara irten aurretik.

* * *

«Ogeita laugarrena
negu-abenduak...
gure Salbadorea
jaio da munduan...»

Ala dio kanta zaarrak. «Salbatore» izena oso zabaldua dago Euskalerrian.

«Salbatore» latinezko itza da; oraindik erdera sortzeko zegoan itz ori euskal errietan zabaldu zan garaian... Salbatore, askatzaille...

«Alaitu ta postu gaitzen
gaurko Gabarekin,
gure Jesus onaren
etorerarekin...»

Jesus askatzaille zan gure aurrekoentzako. Askatu, lotuta dagoena egiten da askatu. Zer lotura zeuzkaten euskaldunek Jesus etorri aurretik?...

* * *

Aztikeria gezurrezko lotura da.

Baiña, aztikeriakin naasian, ba zitun beste loturarik ere euskaldun zaarrak: mundu onetako indar guztiak (eguzkiak, illargiak, suak, tximistak, itxasoak, ibaiak, iturriak eta abarrek) anima zeukaten barnean... Indar oiek ez zuten bere jokaeran lege bat betetzen, beuren zutoa baizik.

Orduan zer egin indar oiek menperatze-ko? Indar oien gogoia eta naia irabazi eskein- tzeen bitartez...

Lotura aundia au ere.

Jakintzarako ateak itxita zeuden.

* * *

«Belen'en sortu zaigu Jainkoa
arratseko gau-erdian...»

Berak erakutsi zigun irudia eta gauzaren artean ez dagoela indar berezirik. Aztikerie- tatik askatuta gelditu giñan...

Munduko indarrak ez dutela animarik ere Berak erakutsi zigun. Legeak dirala. Iza- kiaren lege iraunkorak, alegia... Berez nola jokatu duen ba dakigu, legea ezagutzen degun ordu artatik aurrera: illargiari otoi- z egitea alperrikako lana dala, alegia.

Ba dala indar-lege eta araudi orren gai- fietik eta azpitik, indar guzi oien eragile bakar bat.

Indar guztien Sortzaille eta Eusle...

* * *

Berak eman dizkio gizonari burua eta eskuak.

Zertarako?

Bere izenpean errege izateko. Izaki oso beren menpean jartzen alegindu zediñ.

Buru ortatik sortzen zaio gizonari aska- tasuna eta erantzunkizuna. Orra gizona bu- rudan eta erantzukizundun. Bera da, eta bera bakarrik, jakintzuzundun.

Bere buru-eskuekin alegindu bear du mun- dua bere menpean jartzen. Eziñ duanean, eskubidea dauka Jainkoa'ri otoi- z egiteko. Ez dedilla, ordea, otoi- zta alperkeriaren estal- pe biurtu.

Otoi- z eta lan.

Biak alkartu bear ditu Jesus'en jarraitza- lleak.

Erantzunkizuna duen aldetik, berriz, gi- zona zuzen jokatzeko saiatu bear du eta oker- bideetik alde egin. Esate baterako, gizonak atomiko-indarra ezagutu du; ez da, ordea, oso-osoa indar ori menperatzeko aña; bai- ña, diruzaleatasunagaitik atomiko-indar-olak jasotzea erabakitzen du, naiz eta gizartea arriskuan jarri... Erantzunkizuna izango du- aundia, ola oien erailleak.

Orretan bezela beste gauza geiagoetas ere gizonaren jokabidea okerretik dijoa, mun- du osoaren kaltean: kutsadura lurtean, ure- tan eta aidean. Kanpotik agertzen dan kutsadura, barrukoaren frutua degu. Kutsua barruan daukagu, gauza askoetan oker ga- biltzaren diruaren, atsegiñaren eta aundi- naiaren ondoren.

A. ARRINDA

GIZON BAT

Bernard Bududira, Tutsi arrazakoa, gotzain bat da, oso gizona bera, goitik be- rako gizona, alajaiña.

Bere eleiztarreri egindako eskutitz batetik atal oneik aukeratu ditugu:

«Gezurrezko salakuntzak etekin bikaiña ematen duten jokabideak billakatu dira gurean...» «Emendik aurrera olakoetan errudun dana, ez da bataiatua izango kristau-gai ba'da, ezta eleiz-ezkontzara onartua ere. Era berean euren seme-alabak ez dira kristau-sendien sartuko, arik eta euren salakuntzen ordainbidea eman ar- tean».

«Iñoren ondasunak eskuratzea eguneroko gauzea da, 1972'ko gertaeren ondoren. Kristau batzan onartuak izan baiño len, ostutakoa atzera emon bearko dute».

«Izkilluz, gabaz, iñoren abereak ostutea... Lapurretak itxi ta beiak atzera eman artean, lapurrek ezin izango dute semerik bataiatu, ezta eurok bataioa edo ezkon- tzea artu ere, eleizan jakiña».

Komentariorik?

Gotzainak asko dirala, ortako «eleizak» aukeratutakoak. Gizonak, barriz, iñoren atzera ematen eta salakuntza eta lapurretearen bidez lortutakoa euren jauben- biurtzen dakien... atzerrian edo eurenaz murriztuta bizi dirala. Orix ikusi dugu- guk. Aprika'ra joan gabe, jakiña...

OARRA: Ez dakigu Gotzain au gerratean noren batalloian egon zan.

ETXEBARRIA'TAR JUAN ANJEL

(Goztain-idazki onen textoa: Misioneros Javierinos, Nov. 1974).

AZTERGARRIAK

FRANTZIA 'TARREN POLITIKEA (1)

BAKE AROA

Itzuzente Eguna dogu gaur, bilduma au biribiltzen garanean. Aur errubako areik lez, asmorik onenakin gatz zuengana, «ituzente» egiterik ez genduke nai, geuri egin ez ba'dauske beintzat, izpar bialtzailleak. Bake aldi au, aurtzen, naiko baketsu doa, Jaunari eskerrak. Bakea ba, asmo oneko gizoneri.

—Asmo onaren iraupena, aurreko urteetan ikusi danez, laburra benetan.

* * *

JAIOTZEA

Gabon gaberdian, Israel'go irratieri esker, Betleem'go Katarine deunaren Eleizatik emon eben Mezea entzuteko aukera izan gendun. Ipar-amerikako Allegheny Ikastolako abesbatzak eta mezaentzule erriak zoragarri abestu eben. Irrati orduetatik beranduago izan arren be, besteak naiko zarata sartu eutsen gainera; ososoa gozatzerik ez gendula izan.

—Alkar-maitatuko dogu bai, egunen baten.

* * *

URTEKOA

Igaro dan urte onetan, ainbat gauza jakingarri, itxaropentsu naiz bildurgarri, izan dogu. Nixon joatea, Portugal eta Grezi'ko aldaketak, lenengo onenak daukan garrantzia Aprika'n, Txipre, Palestina, Israel bai ala bapez... ta beste naiko azalgarri. Baiña europatar aztertzaileen eritxiz, Arabitarren aberastasun izugarria, ta URSS'ek yankeeri atomic izkilluetan artu dautsan aurreak izango ei-dabe urrengorako eragingarri aundiena.

—Arrolioa ta izkilluak, gaur, zalantzarriena.

* * *

SUTAN

Bata, Vietnam; ur-olo edo arrozaren jabe nor egiten dan jakin arte. Erein, jorrau, uretu ta batu dabenarentzat geratuko ete-da ezer? Besteak, Eritrea'n; azkatasuna nai; emon nai ez baiña. Taratean erailketak.

—Guda txikiak dirala-ta, besteok lasai...

* * *

URREA

Amerikarrak, bat-batean, urrea erosi ta etxean gordetzeko baimena jaso dabe. Orre-lako oiturak ba'dira beste toki askotan be. Orra ba, urrea gordetzen asiko dira, al-dabena, diru-papera ostera, ormak apaintzeko-edo.

—Eskerrak agin-ordezkoak plastikoz egiña dirala, bestela...

* * *

ESKUBIDEAK

James Finemore Cooper'en elebarri a irakurri zendun: «Mohicanar azkena», ta or ezagutu Mohawk indiar azkena. Onen ondorengoak, gizaldi onen asieran New York'eko etxe-zar orren gintzan trebe agertu ziranen illobak, gaur, zurien aurrerabide ta arinketa bizitza gaitzetsi ta lengo euren lurraldeetara, New York errialdearen iparrera dagozan Adirondack mendarteetara joan dira. Aberri bat osotu ta erri azke ta lengoari jarraitzaile izango dana eratzera.

—Nork jakin zein dan obeto bizi izatea!

* * *

MUTUTU

Egingo ei-da egun gitxi barru Paris'tik illuntzietan etorran gaztelazko irratsaioa. Emen be, dirurik-eza; ori da ba agertzen dabena. Orretan eralgiten dana, ta —au bai kontuan artzekoa— orretatik Prantzi'ri daktorkion onurea, ez dirala neurri egokikoak, ta beste zerbaiten oba izango ei-dabe irratik botatzen daben dirutza ori erabiltea.

—Orra ba, ainbeste atzerakada ikusita, zer asmatu? Oera ariñago joango garala.

* * *

ZARRAGOA

Atsegiñez irakurtzen doguz asteroko onetan arratiarrak leen-gizonatzaz diñoskuezan ainbat jakingarri. Baiña ara zer entzun dogun: Abisim'ko Wallo eskualdean dan Awash ibaiaren ibarretan, giza-semeen aztarnak aurkitu dabez. Irutik lau milloi urte dirala bizi izan ziranen, goi-matrail-azur bat agintza osoakin eta be-matrail-azur erdi bi oneik be agin eta guzti. Atzean geratu da ba Oldu-vai'ko gizon-azkarra, ta arrezkeroko asma-ketak edo terioriak be ondatuta.

—Aititatzat genkauan tximiño asko baiño zarragoa da gizona! Oraingo. Txarrena baiña —edo onena— ez ei-dira bertan sortuak... Izarretakoak ete ba?

* * *

IZOTZA TA

Ainbeste erataria idatzi da-ta, iñoiz entzun-gozenduan Spitzberg, Spitsbergen edo Svalbard ugartearen izena. Or nunbait Noruega'tik iparrera dagon lur zati ori, noruegarren agindupean egon da gizaldi onetan: izotza, otza ta ezin bizi izatea ziran orko aberastasunak. Baiña, erusitarrak iparraldean dauken eta urtearen zati on baten izozten ez dan Mursmank kaiarako bidean dago; guda baten, esate baterako, garrantzi aundia leukena. Orain, bere inguruko itxaspean arrolioa ei-dago. Ta, artzak makiailaulegortzaileeri mai batera deitu dautse, ea norena dan erabagiteko.

—Arren jauna, ez dedilla arroliorik agertu maite doguzanen inguruan!

* * *

EROSKETAK

Pan-Am, egazkin alkarteak ez ei dabil ondo dirukontuan, ta erdi-salgai be izan eileike. Ara azkenengo barria, Arabitar arrolioz aberastuak eroatera ei-doaz... Len, Krupp'en zatia, gero Mercedes'ena, orain ori. Orreik beintzat agerian.

—Laneratzen garanean, egunen baten, ara nun nagusi barria!

* * *

OLIOA

Au baiña, jatekoa. Eguzki-lora edo girasol azietatik ateratzen dan olioak ba ei-dau bere garrantzia, ta ez edozelakoa. Ingeles batek igarri ta doistarrak aztertuta onenbeste jakin da. Zan eta bilgunetako gogorketea edo era askotako esklerosia daukeneri ta izateko bidean dagoeneri izarteko, olio ori berezia. Orretarako, atera odola ta onekin nastatuta olioak izaten daben «dinoleik azidu» orrekin igartzen ei-da guzti ori. Igarri ez eze, neurrian artuta umetatik, gurasoengandik edo beste zerbaitagaitik orretara doan gizasemea, osatu be bai.

—Olioak modan daukaguz!

DANOK

GISCARD'EN ETXE-BIZITZEA

Giscard Lendakariaren etxe-bizitzako barriak ugari entzuten dira. Aspaldion Frantzia'ko ta Europa guztiko izparringiak ara ta ona darabillez barri oneik eta guretzat be, Frantzia'ko politikearen goraberak jakiteko bide izan leitekez.

Ba dauka Giscard d'Estaing Lendakariak politikea ulertzeko era barri bat, bere etxe-bizitzan be. Era onek eskoiko De Gaulle'tarrak eta ezkerrean geldituta dagozanak, guztiak, batera, artega jartzen ditu.

Lendakariaren bizikerak, «Grandeur de la France» edo Frantzia'ren aunditasunak eskatzen dauan tajurik ez ei dauke.

Ondo esan eban Servan-Schreiber'ek, Lendakaria ministro nagusi bat lez dala eta Chirac ministrorik gurena, Poneatowski'gan bere uste ona dauala.

ELISEE'N ZERGAITIK EZ?

Eta geiago diñoc oraindik.

Giscard'ek, bere sendia Elisee'ra biziten eroan ez daualako, lendakaritzeari bere antxiña aunditasun-usaia kendu ei dautso eta «gau-txori» bat dala be aurpegira jaurtiten jako.

Eta zergaitik itzi jauntxoan bizikereak emon leikiozan bigunkeriak, ekonomi-bizitzaiek olako estutasunik eskatzen ez dauan aldi onetan?

Baiña salakuntza oneik aurrerago doaz eta politikan esangura sakonagoa dauke: bere gabeko ibilketa oneitan, iñoiz, Mitterand'egaz batera ibiltzen ei da.

Ortik ateraten dabe batzuk, urrengo lendakariaren lenengo ministroa, gizarte-zaleen aurrelari au (Mitterand) izango dala.

Ez da errez izango gizon bi oneik alkartzea, nire ustez. Beti be, baserriarrak esango leuken lez, izparringian ba'dator zerbait izango da.

Eta dagoana, au bai gauza ziurra, Frantzia'tarren politikan aldakuntza aundia. Antzeko aldakuntzak ikusten doguz Frantzia'ko agintaritzan eta laterri-arteke giroan.

DE GAULLE'TARRAK ETA KOMUNISTAK LEN

Igarotako urteetan De Gaulle'tarren eta Komunisten alderdiak izan dira Frantzia'ko politikearen ardatz. Alderdi bi oneik, biak lenari begira, alkarren aurkako izan dira, baiña alkar osotu be egin dabe.

De Gaulle'tarrak ziran nagusi autarki-kutxetan soloetako langilleen autarkiak edo botoak lagun ziralta, eta komunisten alderdiak beragaz eukazan lantegietako langille atzeratuen % 20 edo 25 autarki.

De Gaulle'tarren alderdia komunisten aurkalaria zan, baiña itzaltasuna eutsan. Komunisten alderdiak, bere iraulketea gogo dauala, politika zar eta eutsia egiten eban.

GAURKOA, BESTE BIDE BAT

De Gaulle'tarren eta komunisten arteko joko au, azkenengo Lendakari-uteskudean apurtu zan, antza.

Eta aldakuntzea ez da etorri ezker-aldetik, De Gaulle'tarren osteak ekarri dau eta eskoiki aldetik etorri da, orrelan ulertu gura ba'da. Orain, egia esan, ezkerre ta erdia ta eskoia ez dira esangura argiak gaurko politikea adierazteko.

Gizarte-zaleen edo sozialisten eta komunisten arteko batasuna galdu da orain be, eta lendakaritza lortzeko aia indar ez dau izan, De Gaulle'tarrak makal-aldian egon arren.

Ezker-alde alkartuaren indarrak ez leuke iñor bildurto bear, une baterako baiño ez dirala alkartu ondo dakigu-ta.

Auteskunde aretara, talde oso ezbardin bi urreratu ziran.

Gizarte-zale (sozialista) asko komunistakandik baiño urrago dagoz Giscard'en politika barrizailletik.

Lendakari aukeratua bera be, gizarte-zaleen eritxi batzutatik urrago egon leiteke De Gaulle'tarren barru-barruko eritxietatik baiño.

GERORAKO ZER?

Gerorantza, bear ba'da, erdizaleen barruan aldakuntzea egin gura dabenak agertu leitekez. Orrelan, len izan diran ardatz biak, alkarren aurkakoak eta alkarren osotzaileak, baztertu egingo leukeez.

Geroari begira jarri doguzan uste oneik, Valery Giscard d'Estaing'en gabeko ibilketai politika-aldeko esangura bat dakartse.

Pompidou Lendakari zala be, Mitterand'ek ezkerreko gobernu bat jartzeko guraria agertu eban.

Orduan, gizarte-zaleen aurrelari onek, ezkerre alkartuen izenean berba egiten eban eta komunisten alderdia be ezkerre orrean artekoa zan.

Agertzen eban bide ori jardun-bide edo taktika bat zan, zalantza barik. Ez eukan nai eban ondorena lortzeko itxaropenik.

Orain Mitterand'ek gauza bera eskatu dautsa Giscard'eri, baiña komunisten alderdiak laster agertu dau agiri bat eta olako gobernu baten ez dala parte izango esan dau.

BASABITXI

PORTUGAL

Portugal'go gudaroztearen aurka-jagiteak erriaren eta ekonomiaren egoera osoan aldatu dau. Salazar'en aldietatik, ba dira herrogei urte baiño geiago, «Estado Novo» joian bere bidez eta aldatu eziña lez agertzen zan egoera ori.

Agiriko bizitzaiek urten eta ostendu zan Salazar, eta M. Gaetano irakasleak ez eban izan alako agintaritzea eguneratzeko indarrak eta ez eutsan aginpe areri bere ardatz neurri-bardiña billatu.

Ba ditu Portugal'go gizarteak bere arazo gogorrak, eta agintaritzea barriak epe labur baten emon bearko dautse erantzuna, eroan gitekoak poza galtzea gura ez ba'dau beintzat. Gaurkoz, agiriko gauzak estaltzen dabe barrua eta pozak aztu eragiten ditu begien aurrean dagozan laztasunak. Eta poza berezkoa zan, diktadura bat amaitu eta erri-agintearen askatasuna sortu zan ezkerre.

Eta arazorik sakonena, itxasoz andiko koloniena da eta bideratzen dala esan lei. Gaur arte koloni orrei eutsi egin jake eta euste orrek laterriaren dirubearretik % 45 eroan ditu. Gainera gudaritze lau urtekoa izan da, 19 urtetik 23'ra arte gazteak izkilluak lepoan dituela erabiliak.

Portugal'darren barruko diruketea bizi-bizi dago, eta gorabera areik erantzun bizkorra eskatzen dabe. Esaterako: industriak sortu bearra, salneurrien gorakada, eta lan-billa kanpora urten bearra.

Ekonomi-zaleen alkarteak, ille batzuk dirala, diru-etxeak laterriko egitea eskatu dau. Txaboletan bizi izan diranak, bizi-leku egokiak eskatu eta utsik egon diranak eurentzat artu dabez. Lantegietako ta baserrietako langilleak lan-sari oheak eta lan-era egokiagoak eskatzen dabez... Asierea or agiri da, baiña nork igarri elburua zein izango dan?

Diktaduratik demokrazia joteak, ondoren onek ekarri ditula, errez ikusten da. Baiña diruketearen eta gizarte-ara-zoen aldakuntzak ez dira euren elburura elduko edo ez dira jausita ikusiko, ille batzuk igaro barik.

Gaurkoz, eta au gauza ona da, Portugal'en arpegia barrituta agiri da eta Europa'ko erri-agintaritzak (demokrasiak) ori ontzat artu dabe.

ORTZE



eziketa jostailuak
eskulanetarakoak
irakasketa gaiak

gregorio de la revilla, 1
bilbo-11

Jolasean ikasi, or zure aurrentzako emoitzarik onena

ARRIAGA

Zornotza

Luzia Deuna.—Euskaldunaren sinismena ezta gaurkoa, antxiñatik izate gunean ondo sustraituta daroana baiño. Gaur ba-dabiltz arerio zitalak fede orren aurka: umeai ez ei yake fede-konturik aiatu bear amazapi-amazortzi urterarte, bitartean doazala or zear gure etxetako txakurtxuen antzera, an zaunka ta emen zaunka; gero ikasitako dabe zaunkarik ez egiten. Bai ete? Ez ete? Gaiztakeri baltza umetxoai ta erriari, batez be, poza dakartsen zeruko argia kendu ta illunpe zear botatea. Argia bear dau erriak, eta ez naste ta illuna.

Gure aurretikoen fedeak zenbat eleiz eder eta ermita zabal jasoak dituan! Or dozeuz eundaka, Bizkaia'e bakarrik, mendi-tontor, bide-kurutze naiz errekondoetan olako ermitak, gure asaben fedearen lekuko ta testigu. 609 ermita ei genduzan Bizkaia'n, Iturriza'ren egunetan, au da, 1793'rantza, AGUR ontan oraintsu Arteaga'tar L'ek esaten euskunetz. Kristo ta Andrea Maria' albora itxirik, Martin, Juan Bautista, Mikel Aingerua, Lorentzo, Pedro Apostolua, Mari Madalen, Roke ta Bartolome deunaren urrengo, Luzia deuna dogu geien daukazana: 17 ermita.

Luzia au, Agate deuna Katania'koa lez, Sirakusa'koa dozu; Sizilia'n dago errialde au. Ango famili on eta aberats bateko neskatillea zan; kristaua zalako, oiñaze ta samintasun ikaragarriak artu-azo eutsoczan, orioz, pikez eta erretxiñez biztutako sutan eukirik; baiña suak ez eutsola kalterik egiten ikusiaz, Paskasi agintari biurriak burua ezpataz ebagi egioela agindu eban. 304'garren urtean zan.

Ogei urteko neska onen erian etzan ixillik gelditu. Bertatik erliki asko zabaldu ziran, baita eleiza ederrak jaso be. Samea ezpataz moztu eutsocelako, samako miñez egozanak berari laguntasun eske yoakoan. Baita, Luzia —argia— dalako, begietako miñak osatu ta indar galduek barrizatzeke kementa dauala-ta, Santa onengana jo oi dabe gure artean askok, begiak sarri gauza bat-berean tinko euki bear dabezanak batez be: jostunak, esate baterako.

Luzia deuna ta Etxano'ko ermita.—Santa onek Bizkaia'n daukazan 17 ermitetatik bat Etxano'n daukagu. Alaka auzunea polita da, ikuspegi ederrez josita. Zornotza'tik bide zabalez Etxano'ranta goazala, lenago baiñu-etea egoan gainekaldean oker-une bat dauka bideak ezkerantz; zuzendu pizkat eskumarentza begiak eta aurrez aurre daukazu Alaka, etxe mordoia aldoz aurre daukanez. Udan zoragarri, ta neguan be naikoa eder.

Ortxe, goiko etxeak baiño beeratxoago, solo artean daukazu Luzia deunari eskiñitako eleizatxoak; gaur bertaraiño doia, Pagai'tarrak eginda, berebil-bide naiko aukerakoa be. Lur-sail galanta da ermitak daukana, gaztaiña, aretx ganta ta urretx landara biurri batea. Bertotik ego-alderantz begitu ezkerre, Larrabe, Zornotza ta Etxano'ko eleizaldea daukazuz begipean; onein gainetik, osterre, Lemoatx, Belatxikieta, Mugarra, Untzillaitz eta Anboto eder be eder agertzen yatzuz. Aize ozkirria be or dozu, bealdean kutsutu yatzuzan birikiak osasunez barriztau dagizuzan. Laster, leku lilluragarri onetan, jolastoki bat egiteko as-

motan dabiltz eiza ta arrantzukoak. Ez legoke txarto.

Landa, lur-zati edo beresi onen erdian, pago adarrean txori abia irudi, eleizatxo daukagu. Ez dakigu noiztikoa dan. Antxiñako emoten dau, dudarik bage. Sarreran aterpe zabal samarra dauka, ta ondoren sortaldera begira ermitea; ezta aundia, baiña larogei bat pertsona leizen ditu barrukaz. Orma zementoz daukaz, leio medar batzuk; azpia zendoz apaiundua, jarleku batzuk; erdiko altarea, ta ezkerretik jantziak izteto beste mai zabal bat. Irudi bat erdiko altaran, Santa Luzia'rena; naikoa polita, bere ezpata ta begidun azpilagaz.

Lotazillaren amairua.—Euria zan sano, atertu barik. Inguruko lurak be ondo urez beteta, bideak loi basaz ta lokatzez. Ezkereskuma lañoa, mendi-buruai negar eragiten lez. Lotazil edo abenduaren 13'an ospatu oi dogu Luzia deunaren eguna. Etxano'n daukagun onena be bai. Bertokoak jai artu eben egun osoa.

Etzan su-zirik bota, ez kanpairik jo. Alan be inguruko baserrietatik, eta eleizaldetik, jenteak ederto jo eban bertara: amaikak orduko eleizatxo bete-beterik geunkan. Meza ederra, Aita Santi'k, bertoko txauburu dan gotsu jarraituta. «Agur, Jesus'en Ama» abesturik amaitu gendun. Gaiñera, datorren urterako barriztauta aurkituko ei da gaillur aldean itogin batzuk daukazan ermita eder au.

Jostunenza indaria.—Luzi, Lutz, Luzia'k, argia esan nai dau, latinetiko lux, lucis' etik bai dator. Zeregin baten buru-belarri sarturik gogozanean, argia gura izaten dogu, zein buruan, adimenekoa, zein begi aurrean, begietakoa, gauzak errez ulertu naiz garbi ikusi daiguzan. Au iñok bear izatekotan jostunak bear dabe: argia begi aurrean, jostorraz zulutik zear ari sartu bear dabenean, argia edozein soiñekori albainduz, josi-askatuz naiz egoki arilduz ziztaka jardun bearra daukenean. Gaur, egia esan, jostunak, joskilleak —bardin da gizonezkoak ala andrazkoak, gazteak nai zarrak— gitxitu egin yakuz, gure mendietako pago-tantaiak lez. Gaur, aulkitxoan jarri ta bizkarra makurturik josten ekitea baiño gurago dogu jantzi barria eroste. Nekerik nai ez, gazteak, nekerik nai ez!

Dana dalarik, jostunen zaindai be Luzia dozu. Ez dakit nundik norakoa dan eraspen au, baiña jostun begi-nekatu guztiak Sirakusa' ko martiri gaztetxo onengana jo oi dabe, euren begi lausotuetarako osakai billa. Artez jokatzea! Aukerako betaurrekoak ez datoz txarto; baiña ez aizu itoiñoz be begiak gora jasoteaz. Jainkoak emondako trebetasunaz baliatzea, guztiz ondo; goiko zaindariak artu-emonan izanik, alan be.

Zornotza'ko joskilleak, mordo batzuk beintzat, gogotan izan eben euren zaindari Lutz deuna. Larrea'ko ebentuan, iragarri egoanez, amabietan euki eben meza. Polito batu ziran. Aita Jenaro'k, Markiña'n bizi danak eta egunokaz Gogo-jardunak egiten komentu otan aurkitzen danak, esan eutsen mezea; itzaldi mamintsuaz piperminduta. Orren ostean, ormen bazkaldu eben alkar-giro gozoan.

OIZ

Markiña

EZKONTZAK

Gauza alaiak asi nai dogu oraingo au. Azkenaraiño eldu orduko ospin apurren bat ixurtzea izan lei.

Gure gazteak kementsu dabilkiguz; ez dabe nai erri au agertu dabilkiguz; euren erruz ez beintzat. Bestera, aal guztiak egingo ei dabez ugariagotzeko, ta ugaritu be bertoko kimuakaz. Poztuten gara. Etxeko mintegiak dirauan artean, ez dogu andik-onakoen premiñarik izango.

Ona emen oraintsu ezkondu jakuzanak: Salazar'tar Maria Asun eta Bilbao'tar Juan Ilario; Ikarand'ar Izaskun eta Gerrikabeitia'tar Juan; Ibarluzea'tar Maria Jesus eta Kubillos'tar Iñigo; Ansola'tar Mari Karmen eta Landibar'tar Joxe Mari; Etxebarria'tar Eusebio ta Etxebarria'tar Mari Karmen. Zorionak bost bikoteoi! Zuen zugatzai sortuko jakazan kimutxu barriak ez begie iñoz uko egin benetako euskaldun izateari. Segi, segi geure bizi-monduari!

Ansola-Landibar bikotea Miami aldetik izango da onekero. Ondo ibilli ta biotzean eroan beti zuon txoko maitea.

BATEOA

Urkiñi'tar Mariano eta Urbietar Anparo senar-emazteak oraintsu euki daben loratzua Gorka izen politagaz bateatu dabe. Gurasok nortzuk diran jakitunik, ba-dakigu loratzua zelakoa izango dan. Zorionak eta azi ta ezi goxo-goxo Jaungoikoak emon dautsuentxu ori!

ERIoTZA

Batzuk onantza ta besteak arantza. Orra bizitzako legea. Altxalegi baserriko Arriaga'tar Mikaela etxekandre zoli zintzoa Zerura joan jaku Gabonak ospatzea, iñoz amaituko ez diran Gabonak. Agur, Mikela! Ez aizu erbestean jarraitzen dogunakaz; laster gozuz or.

Otoiñoz bat bere alde. Sendikoak lagun gaitue itzi dauan samitñezko utsunean. Goian begoi!

ETXEBARRI'N

Ander Deuna. Gure alboko erri jatorraren Zaindaria. Etxebarri'k, zorionez, tinko eutsi dautso orain arte bere nortasun eta buru-jabetasunari; ez baiña burrukarik egin gabe. Betiko leloa: andiak andiango izateko gosea, ta ingurueta-ko arrain txikiak iruntsi nai. Andia-asetu eziñago. Baiña Etxebarri'k ez dau iñoren sabelerako janari izan gura. Ondo daki erri izatekiko auzo izatera zelako alde dagon; ugazaba izatekiko morroi izatera añañako. Argi dakus ori inguru-inguruan jazo danetik. Eta jakitua...

Politak eta errikoiak, benetan, Etxebarri'ko neska-mutillak eratutako jaiak. Ganau neska dira eurrek olakotetan! Ez dagokigu kirkilloi iñoren etxeko barri emoterik, baiña ezin itzi txalotu barik gure ate-ateetan dogun erriko gazteen jokabide zuten jatorra. Eurrean izan giñan eta poz-egitan biurtu giñan geurera. Oso atsegin izan jakun, batez, be, Motriku'ko Egurtza-Taldearen ekitaldia.

Zorionak Etxebarri'ko jaien antolatzaille gazteoi! Baita zuon eskuak aske izten dautsuezan agintari erri-zaleai be. Eta noiz beste antzerki bat?

AITA BERNAOLA'RI OMENALDIA

Omenaldi-girotan bizi gara aspaldion. Egoki deritzagu zor dautsegunai esker onak agertzea omenaldi-bidez. Oraingoan Aita Bernaola'ren txanda izan dogu. Baiña, egia esan, kirkillok ez dakigu aintzat urtetan Deustu'ko Ikastetxe Nagusiaren Buru izan danagaz zorretan gogozan Markiña ta markinarrak. Dana dala, Bilbo'n eta inguruetan ogi-dana ta abar zor dautsenak, bere jaioterrian be omenaldia egin nai izan dautse. Sorkundeguneguz. Omenaldi au geienbat erriko pelota-tokian izan zan: pelota-jokuak, Zerutxu taldearen dantzaldi ikusgarriak, Ansola anaian txistu-soiñu gozoak eta bazkaria Urberuaga'n.

Gauza batek itzi ginduzan erriko semeok txundituta ta alkarri begira: amabi-amabietan, euskal oitura zarrari jarraituz, jokua geratu ta Aingeru-otoitza, baiña ez oitura zarrean. Orra nun asten jakun Aita Bernaola ber-bera pronto erdian: El Angel del Señor anunció a María... Eta ori bere jaioterrian bertan. Alboan geunkan erriar batek onan erantzun eutsan ixil samar: Euskalerriko Unibersidadiek geure aitzu ta bestiena ikesteko? Santa Maria, Jaungoikoaren Ama...

Kirkill gixajuok, erriko eskolatxuan baiño ikasi ez gendunok, —eta ori be leengo goko zarra, E. G. B. ta koplarik bakoa—, ba-dakigu, zorionez, gaurko Ikastetxe Nagusiak, antza, ez dakien zertxobait: Erri bakotxean bertako izkuntzari itzal andia zor jakola.

Dana dala, Zorionak, Aita Bernaola, zure erriarren izenean! Eta egin alegiñak, orain astia be eukiko dozu-ta, antzaroko euskerea biotz-erpanetan berbiztuten.

GURE ERRIKO TXISTULARIAK

Aspalditik (noiztik?) belaunik-belanda dator Ansolatarraren txistularitza. Gipuzkoa'ko lurraldean dabe euren jatorriak, baiña Markiña'n sakon erroterru daukaguz txiki-txikitatik. Gaur-egun, zailantzarik gabe, Euskalerriko txistularirik ospetsuen eta txalotuenetarikoak doguz lau Ansola anaioak: Joxe, Felix, Koldo ta Julian. Berebiziko laukotea osotzen dabe, bat-bat egitnik beti. Txistu ta dan-baiña galtzarpean ebela agertu ei ziran munduan eta olan jarraitu dabe, txistularitza goratu ta aintzat euskal-jai orndi ta alaituz. Baita edozeinbat txapelketetan lenengo sari ederrak jasoz be.

Azkenaldi onetan jaiak, omenaldiak eta abar dirala-ta, amaikatxu bidar euki gaitue poz-egitan euren soiñu gozo bikaitakin. Baiña bezkako itauntxo bat datorrigu orain kiutzera: Euren amaituko ete jaku Ansolatarraren txistularitza-leiñu luze ta argia? Tamalgarri litzake!

BASERRITARREN EGUNA

Obe ez aiatu ta ixillik pasa, Baiña. Abenduak 14; larunbata. Azken urte-tako oitura ederrari jarraituz, Baserritarren Eguna antolatu eben gure erriko pelota-tokian Bizka'ko Aurrezki-Kutxa eta bertoko MIBA'k, Markiña, Etxebarri, Berriatu, Bolibar, Maillabi, Amoroto ta abar sartzen ziran aurtengo erakusketan ta leiaketan. Iñoz baiño orndiango ikuten izan Markiña'ko pelota-toki nasai. Ba-zan ango mai eta kaiotetan igali, otuari egaiti ta etxe-abetetxo ederririk jentea, berriz, geiago eziñean; gainezka Jakiña, baserritarrak geienak.

Sariak banatzeko ordua eldu zanean, orra nun diñoskuen mikrotik pronto ustokote mesedez, zerbaiten arrisku egoala-ta. Ez eban iñok sinistu. Baiña tiro ta nasai-nasai kanporako bidea artu gendun guztiok. Gizonki portau zan erria. Baiña nor ete ebillan an ume-jokuak? Agindua, goitik etorri ei zan. Gure agintariena bai baserritarrak ta besteoi b guntzeko ardurea!

EUSKAL-JAIA

Urrengo egunean, Abenduak 15, Euskal-Jai bikain alaia pelota-toki berea Zerutxu'k eratuta. Bear añañako bete-darrik ez zan izan. Aurreko eguneko puzurrak zerbait lortu eban. Orra tin bategaz txori bat ilda ta beste bat zar ritua.

Abeslariak: Ozkarbi, Ibai Rekondo, Joxe Mari ta Mikel, Gontzal Mendibil ta Azpeitia'ko Trikitilariak, Iturbe ta Maitzeta. Danok egoki ta jator. Premiñakoko eta mesedegarri doguz olan jaiak aldika-aldika, auspeko txingarrak itzali ez daitzan. Zorionak!

Dana dala, an agertu zan abeslari bati zerbait esan nai dautsogu: Benetako jaiardun ba'az, ba-daukuk nori antz jaurdi, Eleiza Amari ekin barik be. Amonek, lurreko dokanez, beste edozein amak lez bere uts eta akatsak jina. Baiña zer deritxok seme batek be amaren akatsak plazan kantuka zabal-tzeari?

KIRKILLAK

FERRETERIA UNCETA S.A.

Landola tresnak - Galtzairu neurri zeatzekoak
Langailu guzietarikoak - Leunketa gaiak

Ibarrekurutz kalea 14
71-10-00 Urrutz.
Apartado 18

E I B A R

ERRIETAKO

BARRIAK

Donosti

Gure egutegia

Goiz Argi'k eta Agur'ek argitaratutako orma-egutegi trinkoa, azalez beintzat oso nabarmen eta erakargarria aurkezten zaigu. Tamalez, azalean agertzen dan Euskal armari ederra eratzen zuten sei sail edo erkimarrakiaz, itxuragabe eta eragabe ezarriak ikusten ditugu. Gure erkien lenengo izkiari begira jarri bear genituzke, abede-arauz eta urrenez-urrien alegia. Araba lenengoz, Bizkaia urren, e. a. Auxe da Abando'ko maixuak erakutsi ziguna, ondo erakutsi ere, eta oni jarraitzea dagokigu, orain ikusten diran armari bitxiak bazartuaz. Gauzak galdetuaz egin bear dira, txikitandik ikasi genuanari eutsiaz, gainera datorkigun ugolde zakar onek gure ikur eta agirizkoak aienarazi ez ditzan, zenbaiten sasi-erriazetasunak gure bide jatorretik saiestarazi ez gaitzan.

Barruko mamiari begiratuaz etzait ongi iruditzen Urtarrilla soilki ipiñi bear danik. Gipuzkoarri Ilbeltza-izenak (bestearren azpian bederen) bere tokia bear du, Hakademioak bezela bakarka edo taldeka erabaki artzen oitu ez gaitzen.

Donosti'ko Lizeo Berria

Zorionean gera donostiarrak. Ba'degu birgarren Lizeoa: Barandiaran'dar Joxe Migel. Adelu-jaiera erruz bildu zan jendea illaren 8'an. Jaialdi ederra izan genuan. Nagusituko al zaigu bertan gure euskera? Erderari beintzat ez dezaiozula gure atea neurritz gora zabaldu. Eta bertako zuzendaria azaldu bedi euskaltzaleago. Itz bi esateko zer dalata mikrofonora agertu orduko esango zizkigun erderaz bere lenengo itz aiek? Lenengoz, beti eta beti euskeraz egitea dagokigu eta gero... batzutan, erderaz eta motz. Bañan ez alde-rantziz! Esango nuke irabazpiderako bakariak zaigula baliokoa euskera eta orregatik erabiltzen degula. Bañan, ez! Euskera nai degu nausiki erabili eta ez irabazpide zaigulako, euskaltzale ta abertzale generalako baizik. Gauza txikitant nabarmentzen da gizona, euskaltzalea eta... zuzendaria.

Karmen aldizkaria

Jasoa degu aldizkari au. Ba'du zer-irakurria. Bañan sudur-zulotik ez digute sarraziko nai ez deguna; eta jasotzeari uko egitea erabaki degu.

Euskerazaleak

Ongi ari zaizkigu Euskerazaleak lanean. Iragarki deigarriak ipiñi dizkigute agirian zenbait denda, ardanegi eta saltokitan. Santo Tomaseta ere ongi nabarmendu zitzaigun Bazkun au gure plaza zarrean eta erruz saldu omen-ziguten danetatik.

Bat egiñik ditugun «Euskerazaleak» eta «Erribide» Bazkuna, eragille izango degulokan gaude. Goi-maillako bazkunez zurtz arkitzen geran euskaltzaleok ba'degu onelako Bazkun lebar baten bearra. Euskaltzaindia, askatasun-gero berri batean, txatxukeririk gabe eta jakintsuki bere eginkizuna betetzen asten etzaigun bitartean, «Euskerazaleak-Erribide» Bazkuna euskaltzale guztion aurretik ikusi nai genuke: bidea urratzen, argi-bideak ematen, euskal itzak gure arrago edo su-katillutik pasa-erazten, e. a.

Elizkizun berezi bat

Donosti'ko Miren Deuna'ren Eliz Nagusia'n illaren 20'an. Sakaildua il zan mutil gazte baten aldeko meza. Eta nolako meza! Eta ua jendetza! Ateak diran bestean zabaldu bear izan ziran. Entzungarria benetan, semea galdu zuanaren amak mikrofonoan irakurri ziguna. Zirragarria ere bertan irakurri ziguten olerkia. Eta zer-esanik ez bertako abestiak, orain arte eliz barruan beñere entzun ez genituanak eta seriotasun amundiz abestuak izan ziranak. Bañan, bu-lazeran, zer? Ba, betikoa! Alu batzuen paper zikin zabalketa! Euskalerrriaren egoerarik aipatzen ez. Gure erri-nortasuna ixiltzen digutenarena. Eta «barrioretako komisioak» izenpeturik. Auena au, besteak landutako burretan lan-egin bearra, gezurti, sator eta susartak! Eta gero izan zan ikustekoa! Eliz-atarikoa ez dago emen kontatzerik. Makil-ladak. Irurugeiren bat atxilotuak. Zortzi ospitaleratuak.

Gotzaia etzan emen. Artzai Onaren elizan zan, urtemuga batean. Eta alako illeta-meza ederrean bai croso egon ere! Agintariak inguruan zituan. Etzeukan arrixkurik.

Miren Deuna'ren elizan etzan gotzairik izan, bañan bi dira. Eta erria EMEN zan, BERTAKO erria beintzat. Nun zan bigarren gotzai au? Artzai Onaren elizian bai eta Miren Deuna'renean ez? Lotsagarria!

Egun batzuk lenago barau-egiten ari ziranen alde itzik esateko moduan etzeudela esan ziguten bi gotzai oiek. Bearbada arrazoi zuten. Bañan itzik egin ezin danean, zer egin diteke? Norbere presentziarekin adoretu larrialdian bazi diranak. Bañan barau-egunean etziran azaldu eta ba'dakigu zer gertatu zan. Danak dakigu nola atera zituzten derriorean eta ondorengo isunak.

Eta oraingo ontan ara egin digutena! Jolasean al gabiltza ala gizontasuna falta zaigu?

E. E.

Arratia

GUDAKETEA.—Erri biren edo geiagoren arteko amorruko eraso noiz amaitzen dan? Egunen joanean eta urteen etorriz, alde batekoen eta beste-koen indar eta eraso-aldiak bardo samarrak izatean, itunbenik berdin egi-ten dabe, eta alan amaitu izan dira ainbat guda.

Beste batzuek osteria, ez dira bukaera edo azken bardiñekoak izaten. Indartsua ta indargea erasoan dabiltzazanean, aundiak ez dau itunbenik nai izaten. Su-tagar aurrera jotzen dau. Txikia barriz igeska, atzeraka, ezetarik eskubideen itzaropen barik; lurra jo ta zoritxarreko ekaitz gordiñen morroi errukaria izateraño.

Indarra indarkeri biurtzen dan errian, txiki indargeak belarriak apaldu, ixillik egon eta ganera datorkion guztiari amen egin bearra izango dau.

Era onetan, itunbenik barik amaitzen diran gudaldiak, egunen baten barrero asteko itxoiñaldi ta arnasa artzea besterik ez da izaten. Eta bakea barriz... azal ederdun sagar barruz usteldua lakoxea. Eleiz-dorreetako ezkillen, kanpainen dinbilin-daunbalanak, irabazleai omenaldi ta gorazarreak, jabe barruen ikurriñak, gorak eta txaloak... azpiratuen negar-malko mingotsak. Guda ez dago amaiturik. Bake itxurazko loan dago, ta autspeko txingarra barriz, belaulandi barriai zirika ta burrukara deika.

Auzokoaren maltzurkeri makurrez etzeko nagusitasuna galdu daben errialdeetan, azkatasunerako bide ertzetan, aberri-illintiak su-ta-keetan.

Ez daukanak daukanari, eta berea galdu dauanak aurkitu dauanari bein eta bider egindako eskariak ukatzetik biztuten dira, itxoiñaldi nekutsuan bake itxuraz autspean izan diran guda-txingar eta aberri-illintiak.

Buruan sortu geroztik, biotzean azi ta gizentzen diran asmo ta eritziak lagunarteetan azaltzeko eskubiderik ez daben errialdean, txingar edo illinti, beti izango armin eta kezkatu, keetan.

Ba-dogu erririk, arrotzaren eskuetan antxiña batetik. Or, adibidez, Irlanda, erbestekoan ezpatak ainbat bider zultua, gurasoen suakin barrero biztuta. An doguz Israel eta bere auzokoan arteko itxoin-aldi ta arnas-barrizak, baiña ez barrien barriz barria asteko, beñola-koari ekiteko baiño.

Noiz amaitu ta bukatuten ete dira gudak? Erriaren barruakin edo kontzientziakin erbestekoa jabetzean.

LANDAJUELA'TAR A.

Galdakano

URTEBARRI.—Bai irakurle, gure lerrotxu oneik argia ikusi dabeneko, ainbeste buru-auste emondauskun urte zarra, 1974'gko urtea, amaitu ondoren Urte-barria, 1975'gn urtea asita aurkituko gara, J. L. Geyenok arduratsu, urren ikusten dogun giroa itzaropen gutxioko dalako, bai barruan, gura nai edo ez, garen laterrian, ta bai ludi guztian be. Eta orretara izanik, ainbat geyago erritasuna geure barrenean dogunok, ez dogulako aurrerapen andirik ikusten gizakien benetako azkatasunean eta, beraz, Euskalerrri'ren buru-jabetasunean. Izango ete dogu urte au gizonak eta Enderriak bearren dabezan eskubide ta benetako azkatasuna guztiz edo geyen bat lortuko dabezan urtea? Ez daigun itzaropena guztiz galdu eta, jarraitu daigun iñoz baiño adoretuago Abando'ko Aarnook igiri euskun bide zuzenetik, nai dogunik lortuzten ez ba'dogu be, Jaun-Goikua'k Bere aldamera deituten dauskunean, nasai aurkitu gaitzean geure Erria'gaitik zerbait egin dogula jakitean. Urte-barri, ongi etorri!

OLENTZERO.—Jai polit batzuk antolatu ebezan Ikastola'ko irakasle ta euskal-ikastolan laguntzalle diran gaztedi jatorraren laguntzaz Gabon egunan. Arratsaldean, erriko antzoki ederrean antzezkiuz polit bat antzeztu eben euskal-ikastolako umetzuak, polito baten anderañu ta irakasleen trabetasunez gertutako ikasle-umetzuak. Gu, geure lanagaitik, ezin bertaratu izan giñan, baiña, esan daukenez bertaratu ziran askok, ikusgarria ta beraz barregarria izan zan gure umetxu bizkorren trabetasuna. Eta ori ikusirik, txalo-otsik ugari entzun ei-eben antzokia guztiz bete eban ostetzagandik.

Berandutxuago, arrats-illunabarran, bertoko gaztediak, len esan dogun ikastolan laguntzalle gaztediak, Olentzero edo Olantzero gertu eben da, euskal-ikastolatik urten da erriko txaidetik eta alderdirik zintzoenak zear ziran, txistulari, auzpolari ta euskal abesti goxoz alaituaz lozorroan aurkitzen dan erriau.

Baita beste Zuazo'ko talde andi batek, «Jayotza» bizi bat gertu eban erriko alderdi rik saratatsunen, polito bera. Baiña ez ain bikain gurtutzeko bertaratu zan aldrea edo talde ugaria, naita euskeraz da gaztelezaz azalduten emona izan talde orren gurtuerea, pizkat barregarri lez iruditatu yakun, euren jantzierak eta jokabidea; bearbada ez-gagozalako oitura orreik ikusten oituta?, ba-litzake orretara izatea, olan ba'da, argiyago ta garbiyago antolatu daiela urrengo urtean, itzal-txuago, iduritsuago edo benetakoago izan daiten, adierazo nai dabena.

ERIYOTZA.—Asko izan dira aurtengo udazken da negu-sarrreran il diranak gure erri zabal ontan, baiña, zelan danak gogoratu. Ez da errez, urrengo baten orraitio azalduko doguz (J. L.) zenbat izan diran aurtan il diranak erri ontan; gaur, lerro oneik idatziten gagozala jakin doguna bakarririk aitatuko dogu, au izan da bera:

Lotazilla'n 25'gn Jaunak Beragandu eban Amundarain'dar Errupñe, Langara'tar Dunixi zanaren alargun zintzoa ta, Serapin Aita lekaide agurgarriaren arrea euskaltzalea, irugei urtedun zala.

Jayotzez orozkotarra zan emakume zintzo au, baiña, ezkontzatik geyago Arratia'ko Lapatza auzunean bizia ta azkenengo urteotan, gure erri ontan bizi izan dana, bere seme-alabekin. Goyan Bego emakume jatorra eta gure agur samin baiña anaikor bat bere seme-alaba, aizte-neba ta sendiki guztiei.

BASA JAUN

AZKARRAGA

GOZOTEGIA

E R I K O

Ezkontza ta Jaunartzeetarako opil-gintzan berezituak

Etxera bialtzen da

Kareaga Goikoa, 15
Menendez Pelayo, 2

491030 urrutizkiña
493059 urrutizkiña

BASAURI

SORALUZE

Soraluze, bai. Gaur Plazentzi izenagaz ezagunago.

Txofei eta ibiltari gitxi egongo dira Malzaga'tik Bergara aldera doazala, emendik igarotean, erri illun, estu eta apurtu baten itxura artu eta asarre eta keixaz urtetan ez dabenak.

Nekez igaroten da bide ori eta egalak igortziteko bildurrez.

Urte batzuk dirala zementoz egin eutsen bide oneri bere kalearen beia. Alperrik.

Gaur, bear ba da, egiteko asmotan diran autopista barriaren ondorenak ikusi arte, lengo au bastertuta, lagata dagola dirudi, bide nausietako jaunen asmoetan. Jaungoikoaren grazirik ez, esaten dan lez? Ba dauke, ba, emengoak gizon izatean grazi eta gatza eta gizon jator eta yazeakoak diranik ezin ukatu.

Goazen barrura. Bideak ez dau erakusten ezer. Igaro daigun Deba ibai ganeko zubia. Ba ete dago beste ifun zubian kotxeak lagateko baimenik, emengo antzera?

Aurrera. Emen dago Plaentxi'ko biotza. Emen egiten da erriko bizitza.

Nun ete dago emen «gaztokia»? Nun plaentxiarrei gizon alai eta akulari izatea sortzen dausñan leku eta giro berezia?

Kendu txapela. Aizea bera be, umorea ei da emen.

* * *

«Trapu» izena ipiñi eutsen kalean, nai eta eleizan Erramun'egaz bataiatu.

«Gila»nean, betiko antzera, batek ziri eta besteak tirri, berotu ziran lagunak.

Iñazio tabernariak baketu nai, baiña ezin. Gero ta zarata geiago, gangartsuago, itsuago.

Iñaxio'k, pazientzirik galduko ez ba'eban bertan bera laga eutsen. Eta eurak gero ta biziago jo. Alkarri zirti zartaka ederrak emoteko aña.

Astinaldi ederra artuta etxera joan zan «Trapu» matrailla anditu eta baltzitura. Orrela ikusi eta andreak errukiz: Zer dozu, Erroman? Koitadua! Zu ez zagoz ondo!

—Agiñeko miña. Izarrak ikusten nago miñez.

—Ara ba! Ori orrela ezin lei laga. Eta ain zuzen be, ez daukat etxean ezer. Botikarako be ordu ederra ez da ba ointxe. Ba dakizu zer egin? Joan zaitze salto baten «Gila»nera eta artu egizu, antxe, kofiak kopa on bat, ia berotuta kentzen yatzun.

* * *

Goazen goiak ikustera.

Aldatz txiki bat eta eleiza. Noizkoa ete da egur lodi, luze eta dotoredunekin egiñiko eleiz nagusiko atadi edo portiku ikusgarri au?

Laster jakin lei zenbat urte daukazan. Bertan irakurten da egin zaneko urtea: 1666. Beraz 309 urte aurtan.

Gaitz billatu leike beste atadi bat bere tentekoetan ainbeste esku-biar dotore eta ondo egindunik.

Egurari berari ataratako biurrikeri eta tailletatik gain, egurrean bertan iruditutako lore eta izar, edergailu eta apaundurak ugari dira bertan. Benetan be ikusgarri eta arri-garri egiten da.

Dotoretasunez, Euskalerri'ko onena dala diñoe. Ezpai barik. Eta gure errialdean ba dira eleiz atadi edo portiku ondo egin eta ikusgarriak.

* * *

Bost milla lagun osta osta ibilliko da erriko jentetza. Baiña kaletan ba dirudi amar bizi dirala. Kale estuak, batez be lanetik urtadako orduetan, betien bete ikusten dira.

Zazpi laguneko, telefono bat. Ia zazpi-reun dagoz gaur.

Amar milloe eta berreun milla pesetako presupuestoa erriak, azken urtean.

Irakaskintzan, zortzigarren mallararteko talde bi. Euskal ikastolak be bai.

Ortik gora, Eibar edo Bergara'rako bideak zabal.

Lana, batera edo bestera, burdingintzako.

Bertatik urtetan dabe batzuk Elgoibar, Eibar eta Bergara'ko lantegietara. Eibar eta Malzaga aldetik bertara etorten dira beste batzuk.

* * *

Ezoz. Edo Etzoz. Izen ori dauka emengo Ama Birgiña, erriko zaindaritzakoaren ermiteak.


Zarra. Azpaldietakoa. 1500 urteko kontu liburu bat ba ei dago bertan, eta galdu edo erre zanaren jarraikoa dala ei diño.

Emen be, beste ermita eta eleiz askotako antzera, ba dago itzez etorri dan kontu zarra. Arrieta'n egiteko ei zan ermita au; egunez egiten zana gabeen aldatu, eta gaitzera, lan ori egin eikeana nor ete zan zaintzen ibili zan Irigoien'go etxe jaunari begia galdu eragin eta bere ondorengoak be begietatik makal laga.

* * *

Ezin eskutatu izkillurik; armarik, Soraluze'n, bere izena geitu dautsenetik gitxiago.

Garibai'ren liburuetan irakurri lei: Arrasate eta Bergara'n era guztietako izkilluak, armak, egiten zirala, arkabuz, mosketoi eta beste suzko asko, baiña ifun baiño geiago, emen.



1803 urtean, Erriko Etxe edo Ayuntamiento'koak bertakoei deitu eutsenean arma fabrika barrizatzeko eta aukera egokian ipinteko, esaten zan, irureun urte baiño geiago eukazala lengo lantegi edo fabrikak.

Ezin zeaztu edo mugatu ete lei erri onetan lantegi orreñ asiera?

Bateri itandu dautsat: Plaentxi Plaentxi lez ezagutzen danetik, berak erantzun. Eta... atxurrean or goiko milla solotan jardutea baiño ez al da ba lan egokitsuago?

Beste batek: Gerrak ezagutu ziranetik, suzko armak nai bestelakoak izan.

Oliver'en «Nuestras fábricas» liburuan, gogoratu ezin leiken denporetatik dagozala, irakurten da. Eta Arantegi'k beste liburu baten diñoanez, XV gizaldiko gerraetan Euskalerri'tik zabalduetako lombarda eta burdiñazko tiroak erabilten ziran. Lepanto eta San Kintin'en be emengo armak ezagutzen ei ziran.

Gauza ziur bat billatu leike. Alkartasunean sortutako lenengo fabrikea, era onetako beintzat, erri onetan sortu zala 1573 urtean. Unamuno batek 1526 urte inguruan emen arkabuzak moldatzeko burdintegi bat eukala be jakia da. Eta atzerago jota, ba dira diñoenak 1343 urteko Algeciras'ko gudaketan, emengo soraluzetarrak eurak egiñiko armakin ibilli zirala.

Orreik orrela dirala, kanta ezagun baten baiño lenago abestuko eben emen «armetan jarria daukagu erria».

Napoleon'en denporetan euki edo ezagutu ei zan beraldien bat. Sasoi aretan plaentxiar askok iges egin eben, batzuk frantzetarrentzat lanik egin nai-ezta eta besteak bildurrez. Ala ta be emengoak Napoleon'eri ederkatuta egin nairik ezagutu ziran eta Errege Fabrika eskifñi eutsen.

Jakia da baita be lenengo egin ziran 50 sable, errian kontura egin eta eskifñi eutsezala.

Olako eskintzak zegaitik eta zelan egiten diran, sasoiñ sasoiakoak kontuan eukita erabagi bear.

* * *

Eriotzan be umorea.

* * *

AGVR

Apartado n.º 2
BILBAO

FRANQUEO
CONCERTADO
08/55

Urtearen Amaieran

GOSE DIRANEN ALDE.—Batikano'ko irriak oraintzu dei bat egin dan Sahara ego aldean gosez dagozanentzat laguntzea eskatzeko. Egunero 500 ume gosez ilten dirala diño eta zaspitik bost gosez ilten dagoz. Eta diño, izkilluetan erri aberatzak eralgiten dabena, gosez dagozaneñ laguntzen eralgitea obeto izango litzakela. Erri aberatzak egiten diarduen izkilluak gizona birritan ilten dabe. Lenengo erri atzeratuetan, eta gero guda tokietan. Eta lotsagarrikeri ori ainbeste aurrerapen eta asmakizunez arrotutako XX gizaldian eta gizonaren eskubideak agoa betean aitatzen diran aldian.

Ori baiño, gizonai, biziteko yanaria ez ete yake zor? Ointzu amaitu dan Erroma'ko Gotzaiñen Batzarrak bere azkénengo agirian; barriro autatzen dau, gizonak «bizi ta alikatuteko daukon eskubideak». Eta izan be bizitza ta mundu onetan, itargira yon daitenerako itxi barik...

«LABORISTA» KATOLIKUTARRAK.—Lenago be aiatu nebala uste dot, «laboristak» emengo «sozialisten» antzekoak ez dirala. Erlejiño arazoan zintzo diranak «laborista» onak be izan daitezke. Ingalanda'n egin ziran autokundeetan, eurak urten eben nagusi. Eta danen artean katoliku diranak 39 izan dira; «laboristak» 22 ta «konserbadoreak» 13. Enparauak beste alderdi batzuetakoak dira.

YATEKOA URRI TA NORK YAN ASKO.—Ori adierazoten dabe, lur-alde batzuetan egiten diran batzarrak. Alde batetik, Ungaria'n laterri-arteko gizon ospetsuak batu ziran. Batzuk agoak gitxitu egin bear zirala aldeztan eben, erri aberatzetakoak; baiña erri beartsuak, «irugarren mundukoak», besoak ugaritu bear zirala; berrak landu ta yanaria ugaritzeko. Ta gauza bakana, Errusitar eta Batikano'ko ordelariak, batera yo eben erri beartsuen alde. Orixe berberori agertu dabe Erroma'n «FAO»k eraldu daben yanaria ugaritzeko egin dan batzarrean.

Euren irabaziei bakarrik begiraten dautsen erri-aberatzik ez ba'lego, uste izan lei, yanariak ugaritu ta obeto banandutakoak izango litzakezala.

URTEURREN GOMUTAGARRIAK.—Gozain-batzarra egin za ezkerre. Eleiza ta munduarentzat urteurren gomutagarri bi ospatu dira. Bata «Pacem in Terris»en X urteurrena ta bestea Laterri-Alkartuak gizonaren eskubideak iragarri ebazanetik XX urtea.

Biok, gizonaren duintasuna ta eskubideak azaldu ta goraltzen ditue, margoari begiratu barik gizon guztiok bardinak gareala azalduaz. Guztiok dakigu gizonaren duintasunaren zusterre Yaunak Bere antz eta irudiko egiña izatetik datorkiola. Gaur Goizparki edo Ebanjelioaren argiz, eskubide oneik aintzat artu ta garrantzi andiagoa emoten yake, eta zeatzago ta sakonago azaltzen dira. Baiña egitez bete ta zaintzetik ondiño urrin bizi gara.

Izan be indarkeri zaleak aitatzerik ez dabe gura! Gizonaren izatetik sortzen diran eskubideak izan arren, ifun, bear diran lez, ez dira zaintzen.

ESKUBIDERIK LENENAK ZAPALDUAK.—Erroma'ko gotzain batzarrak, azkenengo emon daben agirian garbi esan dabenez, «gai onetan inongo laterri ez da errubako». Izan be gizabidea ta kistartasuna aitatzea ta agiria izenbetetzea ez dira naiko zintzo yokatzeko. Gizaki biziak bizirik irauteko eskubidea dabela esan bearrik be ez litzake izan bear. Eta ikusten dana ikusita, aurreratutzat ta «zibilizauta» dagozala diñoen errietan sarritan esan bearra dagola ikusten dogu.

Mundura etorteko bidean dagozan umeai bizia kentzea zigorgarritzat emoten ez dabenean «legeak» be ugaritzen doaz. «Legezko» izatea ez da naikoa «ona» izateko, ainbeste on ez diran lege, lurbiran zear ontzat emonak dira-ta. Baiña on ez dana, au ala ori dala aitzakitatzat artuta zigorgarritzat legeak artzen ez dabenean, asko nastuta gelditzen dira, legeak txartzat emoten ez dabenean ontzat artzen dabelako. Bidean diran umeen galtze edo abotoagaz orixe gertatzen da, eta giza-erailte garbia izan arren, ez yako bear dan garrantzia emoten.

Urrengo baten, osatu-eziña daben gaxoi be, bizitza laburtzea ontzat emongo ba'litz, bardin gertatuko litzake. Orixe dala, Eleizeak gizon-iltze orre aurka gogor egiten dau, eta eten barik diardu «abortoa» gaiztakeri andia dala irakasten. Legekoa izan ez arren, lotsagarria, kistartat dagozan errietan be eundaka milla asko yazoten dirala yakitea. Negargarria!

GAMA

Euki izan doguz Euskalerrian burutik biatzetara bildurra sartu nai izan dauskuen abadeak.

Olako bat sartu zan bein etxeko jauna gaixo egoan baserri baten. Dana erreta, kixkaltzen laga ei eban arek, dana inperniko sudan.

Dardaraka geratu zan etxeko jauna. Abadeak urten ebanean, aita dardaraka ikustean, alabak:

—Aita, esku otzak daukazuz?

—Ez bildurru alaba, orren esanak egiak ba'dira, laster berotuko dira-ta.

* * *

Betik gora begira, dindillizkako etxeak dirudie azkenengo egiñak. Ba dua erria zabaltzen, mendien pendizean, sasoi baten etxeak egiteko ango lurragaz dirurik artzerik pentsatuko ez zan tokietan.

Orain 140 urte, 109 etxe egozan erri barruan eta beste 94 baserri ziranak.

Gaur etxeak ugaritu egin dira kalean. Baiña baserriak bera datoz. Txurruka, Etzo-

zi, Irure eta San Andres'en 80 baserri ko-taten dira eta euretatik 17 laster galtze-eran.

Lengo pentsakera eta jokeretan jarraitzen ete dau erriak?

Orain 130 urte batek emendik urte ebaniñan, esan ei eban: Emen, plaentxiar jatorra izateko, eliztarra eta edatzallia izan bear da. Elizako klientea eta ardangeletak bezerrua.

Gaur? Lengo eleizak jarraitzen dau, anditu ta ez txikititu barik. Lengo eleiz atadia zeeñan be jan barik. Erria lengo mendien erdian luzatzen dua, emen zabaltzen duan ezin esan leikelako. Irukurutzeta eta Sabatore'n erdian, errekearen alde bidean luzatzen. Eta kaletan, toki bat uztu ordina ardangela barriren bat zabalduko ete da guraria igarten da. Bardin da kalearen izena Santa Ana izan edo Etxaburueta, Errekale edo Gabolas.

Eta eleiztarra eta edatzallia izan ez, umorea, umorea, umorea. Plaentxiar nortasuna.

A. ZUBIKARAI

ERRIRAKO EZI

Arazo aundiak ditu gure erriak, baiña sakonenetarikoa bat politikarako ezitea da.

Erriaren gaurko politika-barrua aldatu egin bear dogu; barru ori oso malkuduta ta iñoren izakerara joanda dago-ta. Errez ulertzeko gauzea da ori. Ez aztu olako pentzakera bat inguruko erri-mailetan barruraino sartuta dagoala.

Gure Erriaren alderdi asko ta zabaletan, politika ardura au, jentetza aundien ardureagaz batera ez doa, naizta ori izan arduraz dabilzaneen guraria.

Orrexagaitik, erri-barrutik urten diran indar asko, alperrik galdu dira, elburu ori kontuan artu ez dalako.

Olako jazoerak milla datorruz burura. Kondaira-zaleak gure Erriaren nai ez au argi ikusi dabe, naita beti ondo ulertu ez (begiratu Martin Ugalde'ren oraintzuko liburuko erantzunak, esaterako). Goi-maillako errilariak gitxi batzuk bakarrik izan dira gure artean, eta Erriak indartsu jarraitu dautse olakoeri.

Adoretsua da Erria bera, baiña bere adorea bideratu al izango daben errilariak bear ditu, ta errilari edo politikari oneik ez izatea izango da laster arrisku aundi bat gure artean.

Arazo oneri erantzuteko egingo dogun guztia, bearrezkoa ta ondo egiña izango da, iñoiz be ez larregia.

Sarritan jausi gara arerioak zabaldu-tako sarean eta arazo orretan okerreko bideak artu doguz, gure burua gaitzecoak ain zuzen be. Gure egoera, galzailleen artean sartuta geure burua ikustea izan da, naizta geienetan erra-zoiz beterik ibilli.

Geure errilari-bidea argituko dauan eretxi-sorta bat atera bear dogu ba. Eta au azkar egin bearreko gauzea da. Sorta orrek gaurkotatua ta trebetasuna bear ditu ta gure Erria noraino eldu leiteken euki bear dau kontuan, orretarako ingurua ta gaurko laterrien jokarak zelakoak diran aitzu barik.

Diñoguna, burutasun utsa dala esan leike, baiña ain da gauza bearrezkoa ta garrantzi aundikoa! Gaur bertan egiten asi bear dogun gauzea da. Orregaitik arduratu bear gaitu ainstean. Orretarako jokatu bear dogu AGUR onetan almen osoz eta alegin guztiak egiñaz.

Errilartza onetan oker edo atzeratuta egotea, beti da kaltegarri, ta orrelan begirutzen dautsoe gaurko talde askok. Batzuk, gaurko arazoak neurtzeko joan dan gizaldiko pentzakerak artzen ditue oiñarri, edo moralkeri uts-utsa dabe bide, edo ta errilari lez aurrera egiteko kemenik barik, literatura arloan aundi-nai bidea artzeko erabilten dakie.

Ez dogu ezer besterik azaldu, gaurko egoera larriaren ezaugarri batzuk izan ezik. Gitxi dira gure artean errilari edo politikari izateak jakituri berezi bat bear dauala uste dabenak; politikeak bere ibil-bidea ta bere trebetasuna daukazala uste dabenak, eta beste au ez dabe kontuan artzen: Trebetasun eta jakituri ori eurekandu dabenak baiño ez dirala agintzeko duin, orreiña dala, erriaren berezko indarra ta ugaritasuna, garaitzarako bideetatik erabiltzea.

Eta auxe izan leiteke gutzat oiñarriak ziurrena: Erria bera, berez dagoala erri-arazoai buruz arduratuta ta elburu batzuk lortzekotan burrukarako gertu.

Gure kondairearen bide-kurutze askotan ikusi dogun lez, politikarako ibil-bide au zuzena da.

Agintaritzarako eritzi-sorta ori agertzen eta zabaltzen ba'da, buru argiko gizon arduratuak osotzen ba'dabe, Erriak bide ori ikusi ta berengandu egin bear-ko dau.

Buru argiko gizonen eta Erriaren arteko alkatze au be, berez ez da egingo. Bide-erakusteak bearko ditu. Dana, erri-rako eziketa-lan bat izango da.

ZEANURI'KO LAN-IKASTOLEA

Zeanuri'n Lan-Ikastola bat dago eta berak egiten dauan jakintza-lana ta eziketa-ekintzea oso onak eta goragarriak dirala uste dogu. Orregaitik, bertan zuzendari dan P. Urraza'tar Jabier Jaunari egin dautsaguz itaun oneik.

—Egun on Jabier. AGUR'eko irakurleak, zuek egiten dozuen lanaren barria izan dagien, itaun batzui erantzuteko gertu ete zagoz?

—Bai, gitxi edo asko, ondo edo txarto, lan apur bat egiten dogu eta barria dan lakoa emoteko gertu nago.

—Zenbat ikasle daukazue Lan-Ikastola onetan?

—Eun eta irurogei ta zazpi.

—Nondik etorten dira?

—Bedia, Lemona, Dima, Igorre, Zoberio, Areatza, Artea, Aranzazu, Zeanuri, Otxandiano, ta Legutiano dira ikasleak bialtzen daukuezanak. Orozko'tik be ba dago bat eta Ubide'tik aurtan ez dator iñor.

—Noren ardurapean dago Lan-Ikastolea?

—Zeanuri'ko parroki biena da, eta Eleizearen ardurapean dago. Lege-aldetik onartua da.

—Eta ikasleen gurasoak ba ete dauke irakaste-bideetan zer-ikusirik?

—Gurasoen batzarra iru illebetarik bein egiten dogu. Batzorde bat aukeraten dabe, erri bakoitzetik ordezkari bat artzen dabela. Batzorde onak iru ordezkari aukeraten ditu ta oneik Zuzendaritzako bazkide izaten dira.


—Eta, nortzuk osotzen dabe Zuzendaritza-bazkun ori?

—Iru gurasok, iru irakaslek, iru Gotzainak izendatuk, Zeanuri'ko parroki biak eta neuk. Bazkun onen zuzendari Zeanuri'ko parrokoetatik bat izaten da. Gotzainaren ordezkari bat be sartu leiteke. Geroago, iru ikasle be sartu gura gendukez.

—Zer irakasten dozue?

—Gargara-aotzea edo matriz-ajustea, bilgintzea edo tornularitza, marrazlaritza edo delinante ta banakaritza edo adminiztrati-bilaguntzailletza. Ikasketak guzti onetan giza-eziketari garrantzi aundia emoten dautsagu.

—Lan-irakaskintzako bigarren mailara eltzeko ametsik ba daukazue?



—Ametsak eta gurariak ez daukazue makalak, baiña almenak ez dira eltzen neurri orretara.

—Erdeldunak ala euskaldunak dira zuen ikasleak?

—Geinak euskaldunak.

—Euskera-arloan, ze lan egiten dozue?

—Ikasle guztiak astean ikas-aldi bi daukeez. Ez dakienak irakaste bategaz eta dakienak beste bategaz.

—Euskerea dakienai zer irakasten dautsezue?

—Euskerearen azterpena, itzulpena, idazkerea, idazkaiak eta lutelestia, kondairea, elertia, Kosmos edo izadiko jakingarriak.

—Erlejiño aldetik, zelan jokatuten dozue?

—Abade bat da irakasle, ta ikasleen barru-miñai erantzuten alegintzen da ta kristautasuna sakontzeko erak billatzen ditu, Ebanjelioa argitzaile dala, ta Eleizearen eritxien barruan. Jeobatarren bat be izan da gure artean, eta onak bere erlejiño-eretxia sakontzen eban.

—Garrantzi aundia ete dauka Lan-Ikastola onak Arratitarren aurrerapenerako?

—Gure ustez guztiz aundia. Orregaitik gogo guztiaz egiten dogu gure lana.

—Gerorako ametsik?

—Ameslariak ba gara. Esan dogu. Lenen egin gura doguzanek jan-tokia ta jolas-zelaia dira. Ondo bearrezkoak biak. Liburutegia be obeto eratu bear dogu. Eta bigarren mailarantz joan dogu, baiña amets larregi barik.

Datorren urtean, Oiñarriko Eziketaren (E. G. B.) lenengo urtea amaitzen da, ta ikasleak ugariago izango doguz. Ori orrelan ba'da, amets geiago egin al izango dogu.

—Eskarrik asko, Jabier, eta agur.

—Agur.


Gabon aldiko oporraldi udabarritsu onetan, pozik entzun doguz Arrati'ko Lan-Ikastola onen barriak eta lan egiteak. Aurrerako itxaropenak be ez dira makalak.

Ikastola atetik urten eta aurrean daukagun Arrati'ko ikuspegi berezia neguko lo baketsuan ikusten dogu, alan eta be eder eta zoragarri, Lo, azaletik, bizi ta enai etxe-barru ta biotz-suak. Euskalerrriak' iraungo ba'dau, Arratia'k be iraungo dau!

Neska-mutil ikasiak, lan-zaleak eta bizkorak edozein erri bear izaten ditu, gureak be bai, ikasle onein antzekoak. Ikasi, lan-egin eta zintzo jokatuta, or gure eginbearrik jatorrenak.



Jaiegunetan be, ikasi nairik, erriz erri!



Sakondu Bearra GATZ ETA PIPER

Idurre ala Yurre? Arno ala Arrano? Aspaldi gertatua da. Ez du beraz, emen argitaratzen diran lanegaz zer-ikusirik. Alare zerbait argibide ba-duala uste dut.

Aur jaiobeherrari Idurre izena ipiñi nai zion aurraren aitak. Izena ipiñi bear zionak, baiñan, eragozpen jartzen zion, Idurre izena ez ezagun bai zitzaion. Mutriko'ko istoria zekarkin liburuan ere, ez-paizun aurkitu Idurre izeneko basetxerik. An, Yurre aurkitu zun.

Aurraren aita ta onen gurasoak ere, mutrikutarrak izaki, ta gogor berenean. Urrutizkiñez Mutriku'ra dei egin zuten eta, baitz andik, basetxearen izena Idurre zala ta arek zun ermitatxoan Idurre'ko Andra Mari.

Aurrari M.^a Idurre izena jarri zioten. Etzan guziz ortan bukatu baiñan. Udaldi batez, Saturrararen Antonio Urruzuno, nire adiskide miñaz aurkitu nintzan, eta gertatuaren berria adierazi nionean, onek erantzun zidan:

«Ez da ez Idurre, ezta Yurre Mutriku'ko basetxearen izena. IDDURRE da». Berak ain goxo esaten zun txapeldun «d»az. Eta Bizkai'ko Yurre ta Yurreta

ere etzirala ala: IDDURRE ta IDURR-RETA baizik. Liburuetan naiz paper zaarretan idatzitakoaz ziñetsi gabe. Berak IGOTZ abizena, HIGOS, bere «h» ta guzi aurkitu bai zun barregarri.

* * *

Ikasleen artean gertatua zan bestea, Arno ta Arrano'kikoa. Batek Arno, Mutriku'ko mendi goituaren izena, Arrano'tik zetorkiola zion. Beste batek, berriz, Arno mendian sortzen zan zerbait izango zala, Arnotegi izenez toki asko zirala Euskalerrria'n-da Beste irugarrengo batek, berriz, Arno ta Arrano zebilzkilli ta, nolana ere, adierazpen ez bardiña zutela.

Lenengoa, ordea, gogor zegon: Arno-mendi arranotik zetorkiola, Miru = aitz mirutik zijoakion bezela «Kresala»n Arranobate aitatzen ba'zun ere, bere erriak ARNOBATE'z ezagutzen zula: Arrano, Arno biurtuz Eta Mutriku'n ba-zala Arrnondo basetxea ta, bear ba'da, Arranondo zala, Arrano-mendi inguruan zezolako.

Argibiderik?

AMITX-ZAARRA

Euskaldunen Gabon Jaiak

Eldu da negua, eta beronegaz batera Gabon Jai zoriontsuak. Zoriontsuak etxeko fameliko berotasunean igaro aal doguzanentzat, baiña otzak eta tristuraz beteak atzerrian, espetxean, gaizorik eta fameliko batasun barik igaro bear dabezan guztientzat.

Berez, Gabon-jai oneik guztiz alaiak eta pozgarriak dira, batez bere kristau izena daroagun guztiontzat, Jesus umetxoaren jaiotzea ospatzen dogu-eta. Baita bizi gartzen gizarte ontako anaien bakea be, Belen'go portalean agertu zan aingeruak ondo erakusten dauskun lez: «Aintza zeruan eta bakea lurrean gogo oneko gizon guztiai».

Tamalez, gure erri onetan, azken urteetako Gabonak ezin doguz ozpatu bear daben poz eta alaitasunagaz, zoritxarrez gure senide eta lagun asko etsaien eskuetan daukaguz-eta, zigor aundiak igarotzen, eta benetan be guri biotz-min aundia emoten dausku onela ikusteak gure anaiak.

Orregatik euskaldun garean guztiok, ezin doguz igaro Gabon zoriontsuak.

Une onetan, gure zeregiñik aundiena, euskaldun guztiok anaitasun batean baturik, erriaren alde gogor burrukatzea da. Eta guztiok batera jokatzin ba'dogu, etsaiaren atzamarretatik azkatuak izango gara.

Orduan bai egongo gara benetako Gabon zoriontsuak ospatuteko, eta baita alaitasun bategaz be, «Ator, ator mutil etxera» abestuteko gertautu.

URIASTE-TAR ARANTZA
Zulaibar Ikastolako

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, bereko, politiko naiz ondasungarri asmoen gainetik daben iritxi-oneko euskaldun guztiak Euskeratzak dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egileak dira.

Agur au, bere zuzendaria ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M.^a MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.

Carretera a Galdácano, 32 - Bilbao 4

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion gutiritako:

Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

Ez da erregeen ipuiña

Il onen 5'gnean, arratsaldez, Bakio'tik etxera gentozala, aspaldian ikusten gagozan langille talde negargarria ikusi dogu. Joan diran ille bi oneitan lanetik kanpora dagozan gizajook, Derio'ko eleizan batzen izan dira. Gaur ertzainak be bertan egozan. Ez dakigu zer jazo dan, baiña itaun batzuk datorkiguz burura.

Aurtengo maitasun jaietan, Gabon jaietan izan ete da maitasunik? Umetxoak etxean turroia eskatzean, zelako erantzuna euki ete dabe giroak garaztutako gurasoengandik? Eta biar, eukiko ete dabe jostaillurik? Gaur, emakumeak eta umeak be batzarreruntz joaten ikusi doguz, baiña erregeen orde bezelako guda-mutillak egozan itxaroten.

Zer jazo ete da? Gauza aundirik ez dogu uste, baiña umeen biotzetan, maitasunaren orde... gorrotoa!

Guzurra, guzurra, guzurra

Bitartean beste oroipen bat datorkit burura. Gaur zazpi egun dirala, ta ortik iru bat kilometrora, Landatueta jolas-tokian bazkaria euki dogu, senide arteko bazkaria. Aspalditik ikusi barik gengoan bazkal-tokira sartu giñanera-ko, arrituga geratu nintzan. Orman dingillizka Ibarrola margolariaren lauki eder bat egoan, nere uste orpean bere onenatarria, zirkingarria ta esana aundikoa. Gaia? Lantegi bateko langileen «plante» bat dirudi. Eundaka edo millaka bekoki illundun kirats eta lurrun artean azaltzen dira, lantegi bateko tximiñi edo kezuloeri begira ta inguruan jesarrita.

Margozki eder ura ikustean, ainbat burutapen etorri jatazan, batez be, gure zintzotasunik-eza aurrengo zala. Langille zapalduen irudiekin ez dago jolas-ean ibiltzerik... eta ez ete da olako zerbait, margozki eder aren azpiko maitan, «ostra», «lagosta», gozoki ta edaririk garestienekin betekadak egitea?

Iritziak alde batera, margolari bakoitza bere lanetik bizi da, naizta ertilana zerbait ederragoa izan. Baiña dalako sozial-margolaritza orrek ba-ditu bere mugak edo bestela zintzotasunik bakoa da.

Norbaitek itanduko daust: Orduan ez dauka gure soziedade onek olako ertilan bat erosterik? Bai, baiña beste toki bereziago baten eskegita eukiteko: itzaldi gela baten, gure barruarentzat aztergarri izan leiteken toki baten. Zer esango genduka eleizako orma baten, Ama Birjiñaren irudiaren ondoan, Goya'ren dalako emakume jantzirik bakoa edo antzeko zerbait ikusiko ba'gendu?



Gure zintzotasunik-eza edonun da nabari: Mingaiñez sozialista asko agur da or zear; sakelez eta bizitzaz baiña, zelakoak ete gara? Zelakoak gara osagillerik geienak, eta injenieruak, eta salerosleak, eta abar eta abar?... margolari ospetsuak be alboratzen ez doguzala onetan. Ta, zelakoak noizik bein azararatsatu egertzen jakuzan ikasle gazteak?

Aztertu dagigun gure barrua eta itandu: nun egon giñan Urte-barri gualdean? Gure «ustek» sarritan ustel usaiña daroe...

Itxaropenez

Or esandako guztia gozotzeko ba-ditugu erriarentzat itxaropen diran euskaldun umeak. Argi pixkat ikusten dan aldi onetan, gure ikastoletako umeak dira izar itxaropentsuak.

Ez dagiguzan nastatu geure ikusiezifetan; ez dagiguzan ezi zintzotasunik ezean; ez dagiguzan, ikutuaz, usteldu.

Alboko argazkian, San Anton euskal-katekesiseko umetxo ta irakasle taldea. Olako talde ederrak ikusteak aurrera jarraitzeko gogoia damosku... Ugari beitez!

Ondo esanak onartu ta gaizki esanak parkatu!
Orrialde onen arlotik kanpora ibilli naiz-eta...

ARENAZA-TAR JOSU

EUSKALERRI'KO ARAZOAK

ARRASATE, ZER

Orain dela denpora gutxi, Gipuzkoa'ko eliza-batzorde batek, idazki-zabala kaleratu izan zuan. Bertan, kooperatiba lantegiak izan duten edo beren ustez daukaten langille lanuztea epaikatuz jardun dute.

Itxura danez, oien ustez, langille taldeen arteko eragozpen bat zan, eta jakiña, eliza bezela, kristauari argia eman gurean zabaldu dituzte beren iritzia.

Baiñan, galdetuko nuke: argiratzeko ala illuntzeko izan ote dira? Nere iritziz beintzat, pentsamentu au gogoratu zitzaidan irakurri nituanean. Azterketa ura baliotsua izan liteke —eurak ukusiko dute— inguruetakoren baten, baiñan ez erri ontan.

Emen barruan dagon «kako» ez da langille talde batek —txikia naiz aundia, ez du ajolik— daukan pentsamoldea bakarrik, baizik erri baten azterketaren bidea aurrera eramane ala zapaltzaillari laguntzea baiño.

Aspaldiko urteotan, asi Gipuzkoa'ko langille «alkarteak», jarrai Arrasate'ko «izketaldiaz», eta ikastolako iskanbillak izan dira. Sasi-naskikoak, arpegi desbardiñaz jokatu duten satorkeria. Baiñan orain arte ondo ostikadatuak izan ere.

Eta jakiña, elizako orri ontan ez dute jaramonik egin, Euskalerrria'k daraman burruka garratzaren zatia dala igarrita bezela. Ta, ori da emen jokatzen dana.

Uste det, argi eta garbi dagola nai dutenak ikusi dezaten. Ordua degu lo-zorroan dagozenak esnatzeko.

«KULTURA ASTEA»

Aretxabaleta'n eta Arrasate'n.—Izen-buru onegaz zabaldu dute «Sasi-Naski»koak, kale bazter eta tabernetan, berri-agiriak bananduta.

Baiñan, uste det, obeto «ulertuko» dela, «Semana Cultural» darabilen beste izena.

Zergaitik —galdetuko nuke, neretzako garbi ba'da ere— eta nungo kultura edo jakintza nai ote dute zabaldu erri oneitan —eta Euskalerrria'n— «La fabulilla con burro» eta «Grupo Palo de Madrid» deretzaien ekintzekin?

Gure errikoa ez beintzat, noski. Baiñan zoritxarrez, Udaletxeak ere bere gelak zabalik dauzka oneintzako, baita lekaimen antzoki-aretoa ere, Arrasate'n.

ALAN

Ugezaba itzak ba-dau, bere baitan, zer esana ta azpijana. Azkenengo puntu onetatik etorriko jako, bear ba'da, bere barruan daroan griña ori: ugazabakeria. Gizona ain txikia da izan ere. Zerbaiten jaubetasunera eldu ezker, ta batez be, lagunei agindutera, buruko argiak ta biotzeko negurriak illundu ta galdu egiten dira noski. Berezko birlorakerren bat ba-dau, jaubetasuna jaubekeria, errez biurtzen dabena. Adur gaizto ori, lapea ar-kaitzari bezela, gizonari ezarten jako. Ta atsegin jako gizonari. Bereala doa bide or-tatik, gainbera, bizikletan, pozik doan mutilla bezela.

Ugezaba-zaletasun au erti bearraren antzeko zerbait dala dirudit. Berau buru-duna ba'litz bezela, jendeari, ondo esaten daki. Zariatarik gabe edonor bereganatzen dau. Ondasunen kili-kilia ta egarria, berez asmetan dira. Nausikeria ta aberaske-ria, lurreko jauntxo bezela, nastean dabil-tzaz, ta alkarrekin, ondo konponitzen dira. Betei arpegi eder, beti barrekari, eskeintza-rik pozgarrienak egiten dautsez edonori. Inoz ez dautsa inori aurrean jarriko ez nekerik ta ez samintasunik.

Onak bai direla eskeintzari amesga-riak... Guztia, zuri zuri, ta eder agertzen dabe aurraldean, nekerik inoz izan bear ez ba'leu antzean. Ta gizona, orduan, kaxak betetan doa, ta betiez betiez, kaxa barriak egiten. Artu alan. Etxeen lekuri-rik, ta Quizara bear ba'da. Munduan, bere inguruan, inoz inoz gosez egon lei-tenik, ez da konturatzen. Ta alan da guzti ere, ezin asetu. Barruak geroago ta eskabide aundiagoak, geiago pillatzeko. Ta era berean, eralgi ere geiago. Nun? Nor-berak adiskideekin sortzen dituan arako tokietan. Ba-daki.

Baiña aberaskeria okerra da. Edozein gizoni dei egiten dautso. Pobre, beartsuak izan arren, buruz zurrak izan direlako,

edota euren ogibide nai bizitzako ardureak lagundu dautselako, pobrezako oialok bota zituen. Ta orain, ez dago lengo usaiñik. Antxiña ez dala, beartsuen aldeko zara-tak oiukatzen zituen, baiña orreek joan zi-ran. Gaur beste giro baten sartuta bizi dira, ta diruak kili-kili eragiten asita bear ba'da. Pobreen alde oiuka dabilte-zan asko ta asko ere, dukeen antzera ikus-ten dira koparik baliotsuenak mizkatzen, orreen eskubidea ba-dabela-ta.

Eskubidea dauka ontarako, baita or-tarako ere... Zergaitik ori ez dau egingo? Au da gaurko jokabidea. Alderdi guztie-tatik nausi izatearen garra. Goikeriaren larregikeria nai nausikeriaren zapalkeria kentzeko garra egoala irudian, baiña joka-bide barriak be adarrak berez dituanak, laster agertu ditu. Zuzentasun egizkoa ez doa, inor zapaltzera. Edozeinen eskubide ta eginbearrak onartu nai ditu ta bakoitza-ri bere eginbearra zein dan agertu. Orre-tarako ez dau inor ezertan ta bere eskubi-dezko sinismenean zapaldu bearrak aur-kitzen.

Gaur egunean, asmetan dan giroa au da. Erantzupenaren eginbearrik, gizarte-ko sail batzuetan, ez da sentitzen eta ager-izen. Norbere erara jokatzen ez ba'dau besteak, zigorgarri da. Nai orkoa izan, nai emengoa izan, nire asmoekin uste bar-diñean ez ba'dago, nai miñez nai egitez, baztertu edota egurra izango dau. Joka-bide au nundik eta zertatik ete datorren ari naz pentsetan. Gizonak, txikia ta zekena danez, urko laguna norbere burua bezela ezin maitatu, ta ortik datoz, noski, gizarte zepaltzea ta gora-bera negargarriak. Gizo-nak euren egitez or-emengo arazoak kon-pondu ezin ba'dituez, betiko zuzentzaren azpian jarri bearko dabez.

SOLOZABAL'TAR PAULIN

Eta jakiña, 15-16 urteko neska-mutillak, or pikatzen dute, uste izanik bide orreik erri-jakintza bidezkoak dirala.

Baiña erru osoa ez da sasikoena, baizik gurea ere. Nun gagoz euskaltzale «irautzailleok» gazteari janari garbia ez emateko?



Ta, emen, gurasoak ere ba-dute lan-bide zintzoa errua zuzentzeko. Ta, ez au ta ori be ez, esan bakarrik. Ordua degu, bildurrak galduaz, ba-dirala bide zuzen eta aurrerakoia esaten asteko.

Ea ba bideak azertzen asten geran, lur osoa sasitza biurtu baiño lenago.

SAGAR USTELAK

Azken urteotan, gure erri kozkor au Euskalerrri'ko ao geienetan barra-barra darabilgu.

Emen sortzen edo gertatzen diran iskanbillak ba-dute garrantzirik.

Gogoratzen zerate Lan-ikastola, eskola-profesional edo eskola-sozial ize-neko itzaldietzaz, aizeriak-bildots-narruz jantziak agertu ziranean, nola izan ziran mututuak?

Geroago, Almen'en, sasi-naskikoak gertatuta, beste iskanbilla bat sortu zan, eta zorionez denporaz garbitua izan ere.

Ta, nola ez gogoratu Ikastoletako gertakizun garratzak? Emen ere sasia mostu bearrean arkitu giñan, eta Euskalerrri guztian balio izan du emen eman zan pausoak, sasi-naskiko «politikoak» sasipetik ateratzeko.

Garrantzi aundia du orregaitik, Euskalerrri guztian, emengo egoera onak, eta batez ere, emengo egiñak.

Alkarte-kooperatibak daramaten industri-zabalkundea alde batetik, eta Irakas-Politekniko ikasketak bestetik, amorro bizia ematen die sasi-zozolisto erri-zapaltzailleri.

Baiña, nai dunak, ordua du konturatzeko: gure artean ez dela naiko abi-zen euskalduna eukitea, bere erantzunak faszisten laguntzaille diran artean.

Sagar-ustelak errez sartuak izan dira koopedatiban, batez ere zuzendariak —asmo onez— lo-zorroan egon diralako edo dagozelako. Ea ba mutillak, ain-geru zuritasun ori galtzen dozuen eta esnatzen zeraten.

Oraindik emen ba-zeok lurra, eta ez egoaldeko eguzki peetan!

MIKEL

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK



ZAZPI-KALEAK

CASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

EDESTI- AURREA

(Jarraipena)

a) **Acheul jatorriko Moustier jakintzea.**—Acheul langintzearen luzepen bat da jakintza aldi au.

—Moustier langintzetatik aberatzena ta aurreratuena dogu berau.

—Industri onen ezaugarririk garrantzitsuenak, iruki edo triangulo erako alde bietatik landutako aizkorea ta koskadun langaiak dira.

b) **Moustier jakintza berezia.**—Langintza txiroa da kultura onetakoa. Azkon edo gezi musturrak eta karrakailluak dira geien agiri diran langaiak. Karrakailluak narruak ontzeko erabiltzen ziran.

d) **La Quiña'ko Moustier jakintzea.**—Erdi-Paleolitos aldian geien zabaldu zan langintzea dogu au. Neandertal gizakien illobi geienak jakintza onetakoak dira. Ta, orpo-zabaldun arri-ezpalak ugariak izan be.

Baiña karrakailluak dira geien agertzen diran lanabesak. Karrakaillu onein artean, % 80 lodikoteak eta ganbillak edo konbex-erakoak dira. Oneik, narruak garbitu ta zura lantzeko erabiltzen ziran.

La Ferrasie ta Euskal-moustier jakintzak, La Quiña'ko kulturearen alderdi ezbardin bi dira.

ERDI PALEOLITOS AROA

Moustier jakintza oneitako era biko kondartegiak doguz Euskal-Erria'n:


—Aitz-legor eta arzuolotakoak batzuk = Axlor, Lezetxiki, Izturitze.

—Ibai eta itxas-ertzean arkitzen diranak besteak = Baiona, Bidart, Miarritz.

Bee-Paleolitos'eko kondar-obiak baiño askoz be aztergarri ugariago ta aberatsagoak eskeintzen daukuz Moustier garaikoak.

Gaur arte agertu ziran dan Moustier arri-lantzerik geiena, La Quiña'ko langitza inguruan lortu legike. Acheul kulturakorik be ba-dago zerbait.

Izturitze'n Ola eta Lezetxiki'n, Euskal-Erria'n doguzan Moustier garaiko kondartegi aberatsenak daukaguz.



Izturitze'n bertan, Moustier garaiko lur-mailla bi dagoz. Batean, karrakaillu ugaritasun aundia dago. Egurasti bero edo epelekoa da aberedia. Riss-Würm izozteen arteko epelaldikoa. Bigarren maillea Goi-moustier garaikoa dogu. La Quiña erako karrakaillu asko agiri da, otzak eraginda-edo narru asko ondu bear; ta egurasti otzeko abereen kondarrak aurkitu dira. Würm izozte barruko garaia izan be da au-ta.

Ola'ko kondartegia Passemard'ek aztertu eban. Bertako aberedia talde bitan banatu geinke: egutasti otzekoa ta egurasti epelekoa, au zarragoa. Emen be epelaldi ori Riss-Würm izozteen artekoa da; otzaldia oster, Würm izoztekoa.

Ola'n, azpiko edo beeko maillan kuartzitaz egindako aizkorak agertu dira. Erdian eta goi-maillakoan aurkitzen diran lanabesak karrakailluak dira geienez.

Lezetxiki, Justo Jauregi'k aurkitu eban 1928'gn urtean. Arri-ezpalak baiño lantresna geiago agertu dira. Neandertal gizonak ez eban lanabesik egingo Lezetxiki'n, beste nunbaiten landu ta ekarriko ebazan orra. J. Altuna'ren eretziz, ez dirudi bizi-tokia izan zanik, ez dalako sutegirik aurkitu. Eize-lekua izango zan.

Moustier garaiko jakintzea, Neandertal gizakiak sortua da. Oneik, eza-gutzen eben sua be. Eiztaritzatik bizi ziran geien baten.

ARRATI'KO IKASLE TALDE BATEK

ABOTSA

Maitasunezko oiartzunaren
Aralar, Auñamendi, Gorbeatan,
Euskalerriko lur, ibar gañez,
bizi edadura sakonaren
azkatasun oi, irrintziñez
(abots biurri askoren artean)
sendoro, ezti, aberri miñez,
bere abots gorakor, sutsua,
oñarri sustartsuz gallurtu zan
erriaren gogo eta odolez.

Biotzaren, gogoaren, erriaren
gizaldietako illun-loturaz
urteak-zear, buru-gaindutako
itxitasunaren, gelkeriaren
laño aztun, nagia baztertuz
arru, landa, ibarretan gora,
euskal gogo makala sendatuz,
bere abotsa goituz zetorren
erria itzartu, biziratuz
egun berri baten arnasaz.

Betikoz, egian sustraitua,
iru margoren ikur, oialpez,
uriz-uri, baserrietaraño,
gogoz erein eta zabaldua...
Lenean, iñoiz entzun ezlako
goidura, berri on bat zekarren
lo zegoana ere itzar-aziz,
bere deadar zoli, argikorrez.

Zai gengoanaren abotsa zan
beren mindura ta atsegiñez;
abandotar aundiaren abotsa,
biziro sakon zabaldu zana
arru, landa, ibarretan gora,
aritzaren itzal-ondo maitez
Euskalerriko arima billa,
iñoizko biotztasunik sendoenaz.

MUNIATEGI'TAR SABIN



TXORIKI

Jolasean ikasi, or zure aurrentzako emoitzarik onena

eziketa jostailluak
eskulanetarakoak
irakasketa gaiak

Avda. del Generalísimo, 65
24-19-16 urrutizkifia
GAZTEIZ

Txagorritxu auzoan

AZTERGARRIAK

HONG-KONG

TXARRI BELARRI

Urte-barri ta txarri belarri. Zer ikusi ete- dauke alkarrekin azken bardintzetik izan ezik. Eibar'en, txarri-buru gaineko ezpal bi orreiri ez-eze, tresna txarrez zapalduko burdin-zapaleri etarutzen jakezan alperriko ertzeri be, esaten jakoen. Beti kaltegarri.

—Urte-barriak ba, aurrekoan gaizki erabiliko ekintzetatik, txarri-belarriak ugari!

* * *

BARRIRIK

Jakingarri barririk ba-da alan be. Arrolioa bera, zarra be zarra dogu. Gizonak ezer egin barik aspaldi sortu zan errekin berezi bat. Gaur, batzuen eskuetan bere izatea. Saldu ala saldu ez. Merke ala garesti.

—Garestitu euskuen, baiña zerbait erosteko beste zerbaitgez ordaindu bear, eta dana gora.

* * *

ULTZE GORITUA

Ito baiño len, edozerri elduko dauzagu, barruan daroagun zerbait eraginda. Orrenbestekoren bat esan dausku Kissinger jaunak urte au asterakoan. Ez ei-dabe indarrez arroliorik artzeko asmorik, baiña erri aurreratuen izan-bearra estutzen ba'da, baita izkilluz joanda be.

—Bildurtzeko itzak bakarrik izango aldira.

* * *

AO

Bada ez bada, aurretik esan ebalu diñoen, naizta arrezkero agertu ba'dira be Kuwait'eko arduradun batek: «Ez dala egoki arrolioa ateratzea gutxitzea, edo salneurri larregikoan saltzea Langintza aundidunen errien ondamentirako izan legikela ori, ta onein asarrea sutu ta euren guda izugarri bat erakartzeko bidea litzakela.

—Or ba, Kissinger eta arabitarak, kezka berakin. Edo konpondu, edo su!

* * *

DIRUA BE TARTEKO

Arrolioaren salketea, edo obeto esateko, erosten dabenen erretzea, asko gitxitu da, eta sortzailleen gordelekuetan larregian ugari, saldu ezinda. Onek be bildurtu ditu batzuk. Batek, bi milloi upel saltzen ebazan batek, egunero, 800 milla besterik ez ditu saltzen gaur: 1,2 milloi upel gitxiago egunero. Estututa, edozeini saltzeko agindua emon dabe arduradunak, saltzeak geitzeko.

—Erostea gitxitu dabena, erosiko ete-dautse?

* * *

BATZARRAK

Laster baten, Arjelia'n alkartuko dira arrolio saltzailleak, ea zer egin eta zelan alkartuta jokatu erabagitzeko. Orrenbeste erabagita egoala iñoen, baiña ez da dana ondo joan. Batzuk gainera, Iran, Libia..., euren erara jokatzeko asmoak izan bear ditue.

—Diru aundiak tarteko, alkar-aitzeak zailak!

* * *

BATA NAIZ BESTEA

Arrolio asko gitxiago bear dabe, fosfatoen jabe diran erriak. Azken onetatik lortzen ditue euren lurretarako bear izaten diran ongariak, zimaurrak. Baiña olakorik ez dabena arrolioa bear orrelakoak eskuratze, arroliotik ba, ongari onak lortzen dira-ta, baiña asko bear, bear aiña izateko.

—Orra nundik posporo gatz orrek daukan garrantzia.

* * *

URREA

Au ez da erretzen, bai baiña ondo gorde ta beti zerbaiten truk erabilteko gai izan. Asi dira, esan gendun lez, amerikar iparraldekoak be erosten. Asmo bi ei-darabilte arduradunak. Batetik, erbestera dollarrak

bialdu ta diru etxeetan edo ekintzetan sartu bearrean, bertan geratu daitezkan. Bestea, urrea merkatzeko asmoan.

—Saldu bear dan zerbait gero merkeago izango dala esaten ba'da, ez da asko erosiko.

* * *

IRABAZIAK BANANDU

Orrenbeste be igarri dautse Ego-aprikako lurpe-langilleak, eta 24 milla orreitariko oportetara joan dira, lurpetik etarutzen dabena urreak asko geiago balio ta eurak be zerbait oberik irabazi bear dabela-ta.

—Dirua, batzuentzat lan-saria, beste askorentzat lanik ez egiteko aukerea. Or nun dagon ludi onetako auzia!


* * *

AIZEA

Onek be emongo leusku indarrik. Erabilten jakin bear, edo orretarako be nekatu egin bear. Australia iparraldean dan Darwin urian, egin ditu bereak. Aziearen abiadea birritan igotzen ba'da, bere indarra 4 bidar gorago; baiña irubidar azkartzen ba'da, indarra amar bidar aundiagoa. An, Darwin'en, 150 km'ko abiadea artu eban, eta etxerik gogorrena be ondatu, ez aizeak berak bakarrik, bultzaka goitik beera bota eutsan bi milla kiloko berebil batek jota baiño. Beste ainbeste, zementozko argimutil batek, jo ormea ta bera eratsi.

—Kontuz ba aize preskua artzera zoazanean.

* * *



TA URAK

Hobart, Tasmania ugarteko uriburua dogu. Argazkian ikusi daitezenez, kilometro t'erdiko zubi luze bat dauka. Urak bultzatu ta itxasontzi batek orren erdiko euskari bat jo ta bera bota eban. Lau berebil goitik bera, lagun batzuk barruan ebezela. Bost itxas mutil illak ontzian, Ta zubi zatipean, ontzia bera be urpera. Ito diran danak ez dira oindiño aurkitu ta ez dakie zenbat izan leikezan. Zaurituak ogetamarren bat.

—Ba-da indarrik azke gure inguruan; bideratu, neurtu ta erabili, orra gizasemearen naitanaiezko eginbearra.

* * *

GAIXORIK

Ei-dabil Brezniew jauna, ta ez ei-doa arabitarrik ikertzera. Egiptoarrek be asarretu ete-dan. Zerbait ba-dabil: Israel'ek Sinai'ko Sudr, Asl eta Ras Matarma'ko arrolio obiok Egipto'ri itzuliko ei-leuskioz, onek gudarik ez egitea agintzen ba'dau. Ta

Hong-Kong iri ontako zertxoak, or, izparringietan maiz aizatzen dizkigute. Agian idazleei auxe iduritzen: iria ospetsua dala, eta irian gertatzen diranak guztientzat iakingarri bear dutela. Neroni, iri garratz ortan lau aldiz izana nauzu. Bigarren aldi artan lau illabetez. Iriko txokorik geienak oso gogoan iosi zitzaizkidan.

Hong-Kong asko aldatu zaigu! Oituraz biurritu. Gizakiz eta bizilagunez puztu. Asmoz berein gotortu, berein milindu.

Hong-Kong'en lobelarkien arazoa bai gogaikarri ta gaizto. Orainago irian zuten lobelarki saltzallerik makurrena atxi dizute. Gizona, lenengo ikaraz makalik gaxotegian. Gaxotegiaren izena Queen Elisabeth. Eta, etxe ori zaintzeko eun gizon: eun orietatik ogeitamar begi-zorrotzeka izkillu-sutzalle.

Salketariaren izena Ng Sik-ho. Berrogeita bost urteko gizasemea. Izengoitiz Erren, Salketari makurra atxi zutenean, arekin beste bost «langille» larri, eta oien artean emakume bat. Bostak ertzañen aretoetara eraman! Guztiek izenez Chiu Chow. Izen ontakoek Hong-Kong'en bost iruko osatzen. Atxi zutenean Ng errenari eziaña egin zitzaion: biotzekoa'edo, eta esan dedanez osatetxera eraman zuten.

Ondoren, ertzañen ustez Ng Sik-ho ori iruko delakoaren buru degu.

Hong-Kong'en Henry Rumbelow iauna eta ertzain-nagusia lobelarkien aurka darabilkiten burrukaren buru: ertzain-nagusi onek dionez, oraingo ontan Ng Sik-ho'rekin batera bildu dituztenak asko ditugu. Batak bestea salatzeari ekin izan diotelako. Delako irukoek oraingoan gaizki bearko dute, estu. Bai delako aitaxi izeneko irukoa ere. IRUKO itz au, txinatarrek beren izena iru izkiz idazten dutelako degu: alegia, Ng izki bat, Sik beste izki bat eta ho bestea. Iruko eta sendi, oraingoan orobat.

Hong-Kong'o ertzañetzat Chiu Chow irukoa edo sendia beti illunpean'edo ibilli izana Ng Sik-ho atxi arte.

Ia geienetan, ertzañek alakoxe salketari txiki eta izenik gabekoak espetxeratzen zituzten. Eta, lobelarkien arazo beltza beti indarrean eta goraka. Izan ere Hong-Kong'en ortxe-ortxe 100.000 lobelarkizale ba-dituzu. Gero, berriz, iri garratzetik ludi gutzira or doa lobelarkien ibai loa beti kuin-kuin eta gizasasun-ondatzalle.

Ng Sik-ho amorrai zarra genduan. Gizona, buru argikoa. Salketari zurra eta asko ikusia. Baita: ezkutuan kux-kux ibiltzen ikasia. Bañan! Auxe baiñaren-bañan! Etsairik gabekorik ludian oso gutxi izaten eta Ng Sik-ho'k ere izterbegi gabe egun alaiak askoz geiago izango! Izterbegi onen izena Ah Bing. Eta A Bing'ek ertzañekin izketatxoak izan ditu. Zenbait erdaratan diotenez A Bing'ek isilpekoak esateari ekin. Eta, ia oraintxe arte Ah Bing au Ng Sik-ho'ren esku eskuia genduan.

Ah Bing bere aldetik «lanean» asiz bat, orra bertantxe lenagoko nagusiaren kin gudua eta lipizta piztu! Bientzako irabazi egokirik ez-ote? Ain zuzen ere, bi alderdikoentzat gaua gudurako eta burrukarako aldirik bereziena izan. Talde bietakoek, illunaren magalean an zebiltzan alegiñik aundienetan liskarra andik eta ezin-ikusia emendik. Nork geiago salduko... Nork besteak egiten ez zuena burutuko... Nork ertzain sail aundiagoari ies-egingo... Azkenean, Ah Bing aspertu egin zan, eta zerabilkien zikinkeria salatzean makurtu zitzaigan.

Or ba: ertzañek asko ikasi dute. Alderdi bietako burruken berri izan digute. Liskar-zipriztiñak azaldu diranean, alderdi batekoak besteakoari egotzi dizkien tximenkeriak argira azaldu. Esakunak diona: Artzaiak akartu, gaztaiak agertu. Ongi ala ere: beñola talde bakarra eta nai bezela, eta ondoren erdibitu ziralarik batekoak besteakoak ezin egari. Beste esakunak diona Azkarate ta Bedaio, elkar ezin eraio. Eta ertzañek ongi dakite: salaketak are izango dirala.

Eta, lobelarkia askotxok dakiten zidorretan zear dabil. Beldur geiegirik gabe. Inork sumatu ez lezazken biurgunerik biurrietan korapillaturik. Lenbizi mandoz abitzen, arako beñolako Siam'go mendi garaietatik, delako mandazai ikasien eta iruzurtien zidor mearretan aurrera eta aurrera. Indotxina deritzan ortan ortxe dezu. IRUKI deitzen dioten iru zidorreko urre iruki... Gero, itxasora ieisten, eta aspaldiko itxasontzi zarpalletan Hong-Kong'era. Bein Hong-Kong'o barrutietako itsasertz bakartietara orduko, arrantzale izenekoek bilduko lobelar sortatxoak, eta gorago aipatutako IRUKO aien eskuetara.

Hong-Kong'en gertatzen diran zertxoak, asko geiago idatzi liteke.

Urrangoan geiago.

ETXEBERRIA'TAR P., S. J.

onek, baiezkoa emon ete-daben, ipar-amerikarrak tarteko dirala. Ortik artzaren asarrea.

—Bakea lortuko ba'da, aurretik nai izan bear.

* * *

BAINA

Bat-batean, millaka egiptiar kalerik-kale agintarien aurka. Onek diñoenez, komunist talde barri batek eraginda urten ei-dabe. Orra ba, lengo asarrea ez ete dabil tarrean. Egipto'n beintzat, laureun espetxeratuak izan dira.

—Tiraka ta bultzaka, norgeiagoko sokatirea, baiña bakea urrin.

* * *

ASKOTXO

Israeldarrak diñoenez, bost milloi judutar bizi ei-dira Errusi'n eta onek azpiratuta daukazan errietan: Bigarren judutza aundiena ludian. Lenena Ipar-ameriketara, sei milloi ei-dira or. Israel'en bertan iru milloira ez dira eltzen.

—Euskaldunak be ba-dira or zear, baiña nun?

* * *

OBEA NUNBAIT

Urte-barrira gatoz barriz. Obea izango ei-dogu, ori beintzat opa izan dautsegu alkarri, bai guk, bai besteak. Obea! Bilbo'ko zazpi-kaleetan dan dendari batena datorkit burura: Eguraldi-igargailu bat dauka atean, an irakurri izan dogu sarri, edo «Opera doa» naiz «Txarrera doa». Lenengoa egualdi txarra danean beti; bigarrena bardin, baiña egualdi ona danean. Orra ba, 1974'gna txarra izan ba'da, «Opera doa» la esan bearko dogu aurtent.

—Txarretik txarrera joatekotan, nora ete-gindioiaz?

* * *

ERREGENAK

Etxeko txikien zoriona ta alaitasuna, zarra-goak ia pozago! Zifosten dogunori beintzat zerbait ekarri dauskue. Niri galtzerdi bikote bat eta sudur-zapi polit bi,onek andragairi emoteko. Eskerrik asko.

—Ametsik barik bizi dana, arri-koskorra antzera, ala arrolio? Erre berez ta kito!

DANOK

I

Euskaldun jator eta karmeldar txintxo oni esker. ETOR argitalzen ari dan EUSKAL LITERATURA liburuen mami, osotasun, ele- edertasun eta beste doaei buruz ezertxo esateko ere ez naiz ni inortxo, ez dala euskal elerti alorrean, egillearen oiñetako lokarriak azkatzeko ere. Au argi geratu daitela. Baiña euskalduna ta euskerazalea naizenez, euskal lorategiko usai goxo edo garratza, puskaren bat artu nezakela- koan nago. Eta oraingotan usai goxodun lore ederrenetarikoen bat azten, guri-gizentzen eta loratzen ari dala gure baratzean, surrera ematen dit.

Bestarik ez balu, ta orrexegaitik bakarrik ez balitz ere, artu beza A. Xanti'k, bere baimenarekin, ene zorion-agurra. Orretarako, tori, Aita, basalore eskutatatxo auxe.

II

**Ixil-ixillik dagi
Larra'ko etxean
gela baztertxo baten
—lan eta lanean—
euskal lorategia
ondu ta jorratzen,
lorerik ederrenez
apaindu ta jazten.**

**Zergaitik, zergaitik, zergaitik
ainbesteko lan-nai?
Euskerak du eskatzen,
biotzak ere bai.
Zergaitik, zergaitik, zergaitik
loak galtzen ari?
Ama bearrez dago
euskera ere bai.**

**«Euskal Literatura»
euskeraz eitian
tantai andi dirudi
gure zugaztien;
norkeri ta marmarrak
utzirik albora
irten dezan panpoxa
euskerak plazara.**

**Zergaitik, zergaitik, zergaitik
euskera negar egin?
euskera biziko bai da
olango lanakin.
Zergaitik, zergaitik, zergaitik,
zergaitik negar egin?
Zeruak izarrak dagoz,
euskeran be bardin.**

ARTETXE'TAR EULOGI

AMAIRU PAGO...

Amairu pago aundi ditu Sta Barbara'ko pagadi zoragarriak. Amairu pago lodi, zaar, agurgarri... ta aritz bat urrezko osto txikiz ornitua.

Sta. Barbara'ko Pagadia tontor batean dago ta andik ikusten dana ez da inñundik ikusten. Txoko polit paregabea benetan. Udazkenean.

Emen, nere aurean, Larrun mendi aundia, gorri-gorria... An, urrunean, Sara'ko eritxo txuria... Jaiotza dirudi. Ezkerrean, Zugarramurdi, sorgiñen lekua; Naparro'ko mendi zakarrak... eta ibar.


Ibanteli, Etxalar'eko usotegiak, Lapurdi'ko larre goxoak... Baserri zuri-zuriak, «Bidartea» nere bigarren etxea. Gauean ebia egin du... orain zerua urdiñ-urdiña arkitzen da. Or bean, ara nun ikusten dan Aranburu'ko Gaztelu aparta. Oso dago zarra ta erro- ria... noiz barrituko ote dute?

«SANSI» nere osaba zanak —gizon jakinnaia zan ura, denetik zekiena— egingo zuan zerbait, baiñan... erioak ez du itxoiten. Ez daki itxoiten. Biziak bai.

Emen pagadi more ontan, zer pakea, zer zoriona! «Si vis pacem para bellum» —Pakea nai ba'duzu, guda prestatu— ala zion Julius Caesar gizon ospetsuak. Ba ote? Leen dena ongi, ta orain dena gaizki. Ala orain dena ondo ta leen dena gaizki? Beti berdiñ! Sara, Axular'en bizi-lekua! Batzuetan ondo, besteetan gaizki. C'est la Vie!

Aal deguna egin degu, edo uzten digutena. Askatasuna zertarako? Naspilla sortzeko! Alkar-muturjoka ibiltzeko! Egizko askatasun zintzoa gure barruan dago! Animan. Gogoan.

Berriz gau beltz geltsua. Berriz goiza. Oillarrak asi dira kantatzen. «Bidartea»n bakaradaba. Or, orma zurian, Zem txinatar margolari ospetsuaren ixtorio laburra. Ixtorio laburra baiñan mamitsua, zoragarria. Nere osabak idatzia... neretzat: —A mi sobrino Matxin, Sara, Septbre 1967— egur puska batean, ona euskeraz jarrita:



«Margozketan asi aurretik, bere gogoia lasaitzen aleginduko zan, ta orrenbeste lortu ondoren bakarrik asiko zan lanean. Orrela, bere barrengo Pakea, margo-lanean agertuko zan». «Au izan bear genuke gure maixu».

Baita Euskaldunena ere... Lenbizi, gure gogoia baketu... Pakea arkitzeko. Besteek emateko.

Aranburu'ko baso illun eta erreka garbia... Mari Bolibar, nere «Sansi»k oroit-arri bat egin nai izan zion Larrun'en Artetxe jatorrari... Amets bat? Nork daki... Aita Donosti'ri egin zion beintzat Agiña mendian. Bai ederra gaiñera! Gizon aparta zan «Sansi», artista, alaia, sendikorra. Jainkoak ez ditu ez aztuko bere egintza onak!

Donibane'n, ebia, ekaitza, itxaso ezea! URA! Ur, nere osaba zanaren jainko-txikia!

Maite dut nik sorlekua, naiz ez izan gaztelua, aiten aita autatua. (Elissanburu).

MATXIN

BIZIA ZER DA

Itaun oneri garbi erantzun leikionik, yakitunen artean be, ez dogu aurkituko. Inñon diran azalbenak, gizaldiak zear, emon ditue, baiña azken baten len ez itxiten gaitue. Ori, landara ta aberreen bizitza danean. Azalben guztiak emonda gero, gauza bat da ziur, bizia ezkutapena dala. Eta giza-bizia danean, andiago.

Odolaren eta gorputzeko atalen eragiña baiño bizia goragokoa da, gurasoen bidez semeakana eldu arren, eurak ez dira egille, goitiko emoitz bat baiño. Gizonaren adimena ta azkamena ez dira begiz ikusi ta eskuz ikutu geinkezanak. Gaitasun orreik, beste gauza askon antzera, «sentidu» obeto egiten doguz aitu baiño.

Orregaitik norbaitek bizia zer dan itanduten ba'dausku, erantzunik onena auxe izango litzake: «Nik, bizia zer ez dan ba-dakit, baiña zer dan, ez». Eta es da arritzeko gauzea. Begien aurrean daukogun argia ta esku artean darabilgun «denporea» be zer diran ez dakigu-ta. Eta ori ainbeste aurrerapen egin dituan gizaldian. Gizona ba, asko ezin daiteke arrotu!

ONDASUNIK ANDIENA

Gizonaren bizia gizonaren ondasunik andiena dala ezin ukatu, berau barik beste ondasun guztiak ezertarako ez yakoz-eta. Gizona bere nortasun, adimen eta azkamenagaz, lurreko izaki guztien gaiñetik agertzen da, «pentsetan» dabena bera bakarrik dalako.

Mendi erpiñera igoten danean, bere aurrean agertzen yakozan zelai, ibar eta basoai begiratuta esan daiteke: «oneik guztiok ni baiño gitxiago dira, ez dabe «pentsetan» eta. Orregaitik esaten eban Paskal'ek, «Gizona inge edo kaiñabera bat da (au da, argala, aizeak batera ta bestera darabillana) baiña «pentsau» daiken inge bat».

Gizonaren biziari itzal andia zor yako, lur onetako ondasunik andiena da-ta.

ITZAL ANDIA ZOR

Orixe dala-ta, biziari itzal andiena zor dautsagu. Geure biziari ta besteenari Gai onetzaz lengo idazkian zerbait esan gendun, barriro zerbait esatea egoki izango da, eretxi zuzen eta sakonak izan dagiguzan. Gizona eraitzea, norbere bizia zuzenean zaintzeko izan ezik, inñork be ontzat ez dau emoten; gaizkillea epaituta eriotz-zigorragaz iltzearen aurka be asko agertzen dira. Ta, au be, zuzentasunaren aurka, bizia kendu gura daukunean.

Gizon bat beste barik erail dabela entzuteaz bakarrik alango «zarrada» bat biotzean eragiten dausku. Orregaitik lenengo gizon-eraille, Kain'ek bere anai Abel erail ebala ikasi genduncan, alango «zer» bat sumau gendun eta bere gomuta ezezgarri egiten yaku. Giza-biziari itzalik ez dautsen erriek, orixe dala-ta, «basati» deitzen yake. Eta erri gizonari itzalik ez dautsen erriek, orixe dala-ta, itzaletik neurtzen dogu. Ori gizon lez begiratuta bakarrik.

KRISTIÑAU GAREANEZ

Alkar maitatzeko agindua dogu ta geidiari, edozein dala, maitasuna zor dautsagu. Ori dala-ta, «inñor ez dozu ilgo», gogoan eukiaz Eleizeak, beti irakatsi dau, gizonari bizia zedzea, naizta yayoteko egon, gaiztakeri andi bat dala. Au egiztuteko or dogu *Didaje* deritxon lenengo gizaldiko idaztitzoa, 80'tik 100'era bitarteko urteetan idatzia.

Ara zer diñan: «Ez dozu semerik aren amaren sabelean ilgo, ez sein barriari bizia kenduku be» (II, 11'gn ing.). Eta orixe berori diño Batikano'ko II Eleiz Batzarrak: «Aborto ta ume-galtzea gaiztakeri iguingarriak dira» (G. s. 51). Yakituri'ko idaztiak diñonez: «Yaunak ez dau eriotzarik sortu» (Yak. 1,13).

IRAKATSI TA IKASBIDE TXARRA

Gizonak eta laterriak, besteak egiten dabelako, egoki ala txar diran gauzak egiten zaleak dira. Zergaitik ori egin dozu?, itaunari, «besteak be egiten dabe» erantzuten zaleak dira. Eta egunokaz Prantzi'ko agintariak, amar aste barruan, ume-galtzea ez dala zigorgarri artu daben erabagiak, gure eretxian, kalte andia egin leike. «Atzeratuak» deituko ete dautsien bildurrak eragin ete dautse? Eta bai-pen ori emoteko gai izango ete ziran, eurak ontzat emoten dabena *eurakaz* egin izan ba'eben?

Bizitza osaren yaube ez da Yainkoa baiño. Gizonak, zaintzeko eginbearra dau, eta naizta esagille izan, ez dauko laburtzeko eskubiderik gizona erailteko, iltea izango litzake-ta. Bat edo batek esan leike, gai oneri zergaitik ainbestean ekiten dautsodan. Ba, gaiztakeri dalako, eta gaiztakeri au «euskerazko» idazti baten, oin urte batzuk, aldeztuta ikusi nebalako, eta gaiztakeri au zabal dabillelako.

Kristiñauak orretan eretxi zuzenak euki bear ditu.

GAMA



Landola tresnak - Galtzairu neurri zeatzekoak

Langailu guztietarikoak - Leunketa gaiak

Ibarrekurutz kalea 14

71-10-00 Urrutz.

Apartado 18

E I B A R

ARRIZABALAGO

BARRIAK

Arrasate

ZIDAR-EZTALAK

Juan zan illaren 29'an ospatu zuten euren 25'garren urtearen eguna, gure lagun eta euskaltzale gartsuak diran Arrizabalaga'ar Jon eta onen emazte Arrizabalaga'ar Luke'k. Igande ortako eguerdian batu giñan euren senide eta lagunak. Jauba izan zan emengo Urizarri auzoko eleiz politean. Meza emaille gure Aita Onaindia. Dagon bezela, meza eta abesti guztiak euskeraz. Itzaldia be Onaindia jaunak. Ala bearrez, egun ori Senti Deunaren ospatzea izanda, gai artuta mintzatu zan. Euskeraz goxo, errikoa ederto erabiltzen ba-daki Aita Karmeldar orrek, naizta bizkaitera geinbat, guk arrasatetarrok ez gendun ulert-ezizirik izan, geuok be, geinbat, bizkai azia bai-dogu-ta.

Meza ostein bazkaria auzo bertoko Batzokian eta bazkari ostein an etzan falta alaitasunik. Artu bezate, gure lagun bi oneik neure goramenik aundiena eta urte askotan izan dezatela osasuna ugari eta bake-santua Jaungoiko eta Euskalerrri alde bizi izaten.

BIDE BARRIA

Au argitaratzen danerako, nonbait zabaldua izango da Mala'ko zubian asita Zarugalde'ko zubira bitartean egin duten bide-zabala. Bearrizan aundia nabaitzen zan bide orrena; bestela ostopo aundia izaten zan Portaloia esaten dautsogun tokitik berebillak igarotzerakoan, leku onetan batzen gara arrasatetar asko edozein ordutan eta arrixku aundiak izaten dira. Orain barriz, Elorrio'tik Bergara'ra edo bestalde doazan berebillak bide au eroango dute. Esan bezela lan ederra egin du gure Udaletxeak eta orregaitik eskerrak emon bearrean gara.

URTEBARRI

Sartuak gara 1975'garren urtebarrian. Bildur gara urte onen asieran; esaten dutenez, eta emen ere asiak gara nabaitzen, lantegietan lan gutxi izango dogula-ta. Auxe izango litzake txarrena: lan-eza. Lan geienak juxtu samar gebiltzen eldu ezirik bizi geranok. Izan be ainbeste goraka doazen jangaiak ordaindu bearrean, ez dakigu norantz joan bear dogun. Ba-dago munduan bizi-ezina ugari. Zer-besten aldatu bearra nabaitzen da alde guztietan. Baiña aldaketa orreik guztira begiratura egin bearoko dira. Bestela orain bezela jarraitzekotan, norbere-koeri begiratura bakarrik jarraitzen ba'dogu eta besteek makilla ezarri, ez dago munduan bakerik. Jaunak ondo autortuta artuko al-gaitu. Dana dala «AGUR» onen idazle, irakurle eta lagun guztiei, opa dautseet osasuna ugari eta bakea urte guztirako. Agur.

UDALAITZ

Usansolo

ESKUAK ZELAN?

Gizonaren eskuak bere agiriak dirala, erakandik aren egikerea ta nortasuna ikasten dogula, ez dogu uste argitu bea-rekoa izango danik. Danok dakigu, bere

burutasun, jakituri, bere izate osoa ta oiñatzak, azken baten, bere eskueri esker ezagutzen doguzala. Bai idatzi ditualako, naiz eskuak egindakoak izan diralako beragandik daukaguzan oroitarri ta abar.

Ori dala-ta, norbaitek diñoanean: «ori esku utsez dago beti», ezer egin bako gizona dala ulertzea ez da gatxa izango. Baita iñoiz entzun dogunean Eleizan bere: «ez gaitazan Jaungoikoarengana esku utsez joan», esakera onen esan naia danok aitu izan dogu, geiago argitu barik.

Ta, gure eskuak zelan egongo ete dira gure azken-epaikuntza egunean? Arduratu ete gara gure Erriaren eragozpenak, gure auzokoaren ezbearrakaz? Jokatu ete dogu Erriaren alde, gure gaztedi, sendi eiztearen alde? Aberastu ete gara gure oitura ta izakera zarretan, guk geuk bere, oiñatzen bat itxiko ete dautsegu gure ondorengoeri?

Bai ederto betetzen dabela ori Usansolo'ko talde batek. Azken orduan ze pozik Jaungoikoarengana aurreratuko diran maitasun beteko eskuak, Erria ta erritarren alde egindako lanak erakutsiaz.

Beti arduratsu ba'dagoz, Gabon jaiak eltzen diranean, or ikusten dozuez gaixorik dagozanen etxeetan, txiroen ondoan euren maitasuna agertzen. Erria egiten, euren euskal-zaletasuna agertzen. Baiña iñor mindu barik, erritar naiz atzerritar diran begitu barik, euren artean batutako diruakaz poztasun apur bat sartzen.

Ekintza onetan ez dabez agura ta atso zartxuak aitzuten, ta ara joateko oiturea izan ba'dozue, Atxuri'ko zarren etxe edo asiloan ikusiko zenduezan an dagozan erritar zarreri alaitasuna ta poztasuna erotan. Baiña onein ekintza au, naita zeregin ori zoragarria izan, ez da atal bat baiño. Erria aberastu naian, gure auzunean ezagutzen ez zan oitura bateri oiñarriak ezarri dautseez.

Aurten lenengoz, Usansolo'ko kaleak ikusi ta entzun dabe Olentzero, baiña Olentzero kristaua.

Erriak ikasi dagian, ona agerpen bat: Olentzero mendian egoala, jentil jaija ospatzen bere taldeagaz —Olentzero dantzian, jan-edanagaz asetuta, mozkortuta, eta lagunak beragandik barre egiten— laiño baten barruan KISMI, Kristo aurtxoa nolan etorran ikusi eben. Ta beste jentillak bezela, iges egin barik, gure Olentzero nolan errira eldu zan barria emotera, bera izanaz gure lenengo kristaua.

Au bai dala Erria egitea! Oneik bai, azken-epaikuntzara pozik joan leitekezala, naita ana erakutsiko dabezan esku-beteetakoak danak garbiak izan ez, giza-semeak ain laburraz garean ezkerre, bai pozik eta irribarrez onartuak izango dirala.

Ekin eta jarrai usansolotar jatorrak!

ATXUTEGITAR BITOR

Galdakano

MENDIAK

Sarritan esan da, mediaren edertasuna ez dagola bere goitieran, berak dituan ikusgarri eta ezaugarrietan baiño. Ta ba-dira, txikiak izan arren, ikuspegi ederrak daukezanak, gu baiño mendi-egituretan jakitunagoak diranak arakatu ta ezagutzea merezi dabenak gaiñera. Ez ete-dogu onetariko bat Santurtze ta Zierbana gaiñean aurkitzen dan Serantes?

Ainbat urte dira, danerako jakintzazko azterketa bat bete bearra izan nebana. Beste gaien artean, su-mendietazko azalpen bat emon bearra izan neban, eta orrean irudia argiagi adierazoteko, geyen baten, erpiñak izaten zirala eta batzuek itxaso azpitik urtendakoak be bai. Maiko batek irri-barreka lez, esan eustan: «Santurtze'ko Serantes lakoak?» Jauna, erantzun neutsan, bein baiño sarriago egon naz Serantes ortan, baiña ez dot sumendiaren aztarrekin ikusi an.



Arrezkero sarri izan naz mendi orretan, azkenengoz joan dan udan nere illobatxoeri bertoko jakingarriak erakutsi nairik. Bein eta barriz arakatu dot, baiña ez da su-mendi antzik agertzen. Tolostukerako mendia dala dirudi, bere leiza ta arzuloak be ba-dituala, toles-mailla bigunagoak urak janda sortzen diran leizak.

Aztertu gura izan zekero, baiña batez bere, andik ikusten diran edertasunak gozatu nai duenak, asi Santurtze'ko enparantzan eta Udaletxearen ondokit, era oneko bidea doa, nai izan ezkerre gorarte ia berebillean joateko aiñakoa.

Bide-ertzean aurkitzen da lenengo ar-zuloa, sakona. Goiko gailurretik Zierbana aldera, zarpireunen bat neurkin beerago, beste zulo sakon eta zabal bat dago, erdi leza erdi arrobi antzekoa ta gaiñetik jausitako lur asko dabena. Beste txikiagorik be ba-da.

Ba-dau ba, Serantes mendiak zer ikusi ta zer aztertu. Mendigoizale, ikusgarrizale ta aztertzailcentzat egokia benetan.

ERRIKO GORA-BERAK

Gure biziterri au, bizitalez goraka andian dauala azkenengo urteotan, ezin legike iñor ukatu, geruago ikusiko dogunez asko diran arrik ilten diranak, baiña, geyago diralako jayoten dirak eta askotaz geyago atzerritik eta beste euskal-erri batzuetatik bertoratutzen diranak. Esate baterako, mille ta ogeita amasei' garren asieran gure erri onek zortzi mila bizitalerik ez eukan, gaur osterre ogei ta lau mila inguruan dabil.

Daukaguzan argibideetatik, errian garan ogeita lau mila ortatik, euneko irurogei ta sei inguru gara euskal odolekoak; beste ogei ta amalauak atzerritarrek, eta jakiña! guztijak, edo geyen-geyenak euskeraz ez dakitenak.

Igaro barri dogun urtean, 1974'garrenekoan, eunda irurogei ta iru (163) izan dira Jaunak ludi ontatik betiko eruan daituzanak; euron artean Dinamita landolan ezbearrez il ziran ogetak. Askotaz geyago izan dira baiña urte-barruan jaiyo diranak, naita danaren argi-biderik ezin izan dogu lortu, Bilbo ta Barakaldo'ko osatetxeetan jaiok izan diran ainbatenak ez dakiguzalako. Edozelan be erriko txadonatan ugatzau diranak irureun da larogei ta amarretik gora dira ziurki. Ia lauren ugatzau tako umetxu orren tartean da erriko txadon nagusian bakarrik, berrogei ta amairu euskal-ixen ipiñi ziran da beste txadonetan be ba-dakigu baton-batzuk ipiñi dirala.

Baten baiño sarriago esanak gara, guraso euskaldunan lenego bearkuna beren seme-alabai euskal izena jarritea dala, baiña, urren,

zetan esan bez, seme-alabatxu orrei gure izkuntza, euskeraz, irakatsitea dala. Eta, beraz, ia irurogei euskal izendun umetxu orreititik zenbat euskaldun izango dira? Erdiyak bai? Danak izan bear litzakez, biar litzaken bestean maiteko ba'gendu EUSKEREA, baiña, bildur naiz, ez dalakuan orretara izango.

Aldi berean, eun da irurogeitik gora ezkontza izan dira erriko txadonatan, baiña, gai orretan be ez dogu ziurtazunik zenbat izan diran erri ontako ezkon-barriak, zergaitik ze ezkontza onetan beste erri batzuetatik bertora ezkontzen etorrikoak be ba-diralako eta gure erri ontako batzuk Larrea'n, Urkiola'n da beste erri batzuetan be ezkontu diralako. Dana dala, ikusten danez nai-ta asko izan errian il diranak, askotaz geyago dira jayo diranak eta barriak jayoteko gertu diran bideak.

Aldi andirik ez dala esaten genduban, zelan ia amaitua aurkitzen zan ain bearreko genduban erriko gurutzetarik arrisksuena, azpitiko oinbidea ta, zelan pozez ikusten genduban egunaro bertatik igaro bear eban notin asko. Ba, lerro oneik idatzi doguzan arte bide orren askunde egiña izan ez ba'da be, ederto amaitua izan da-ta, bertatik ostetza igaroten asita dago Gabon-jaietan. Ordua be ba'zan, baiña, zorianak emon bearrean gara bitxabal azpiko oinbide eder ori egiztatu dabena.

LAU-AROA

Nai-ta ziñezkera ba-dogula eurokan, ez dautsegu begiratu neguko lau-oro edo gartadenporari, baiña orretan zintzoak diranak esan dauskuenez, eguraldi otza baiña legorrera emon ei dabe ta, beraz, gabaz otz egiñaren euriutsak ez dira izango neguko iru illa-beteok... Eta, edurra? Gero ikusi bear.

BASA-JAUN

Bermeo

«ORFEON BERMEANO'KOAK»

Gabon illaren 24'an, aperi aurrean, abesbatz ospatu onetako abeslari trebiak aspaldiko poztasuna emon eutsen bermeotarrari. Larogieren bat, gazte-zar abeslari, kalerik kale ibilli ziran euron abesti eder samurakaz bateri baño geyagori biotzak alaituten. Talde onek, geyagotan abestu biar leuke euron eta erriaren onerako. Eresi yakintzak erriari askotan aupagarria emoten dautso.

«AUSPU-SOÑULARIA'K»

Josu'ren jayotz eguna ospatuteko asmoz-edo, emeko auspu-soñu eta gitxarra ikasle txikitxoak, euron irakasle-edo maestrar buru zirala, Bermeo'ko kale eta meza amaitukeratan egozan jentetzari, poz ta alaitasuna, auspu-soñuz, emon eutsen Gabon abesti batzuk erestuta; euron artean. Gau Baketsu eta erri Gabon kantak. Biozkor ta samur benetan.

Ogetaamarrenbat neska-mutikotxoak ziran; eurok zazpi urtetik amairura; baiña nongo erreztasuna soñua yoten? Loroño maixuaren taldea zala uste eben askok ikusirik euron «seriotasuna»; aiñ ederto yoten dabe auspu soñua!

Bai «ORFEON BERMEANO'koak» eta bai Gaztetxu oneik, oso txalotzak izan ziran euron abesti eta eresian.

TALA'KO OSATEGIKOAK

Ilonen 28'an, osategi onetako gexo eta yagoliak, zerikusizko jaitxu batzuk eratu dabez, eta zirri eta mirri, euron artean ainbeste barre eragin dautse ikusleari. Bai ba, eurotako askok ez dabe yakin zeñ egun zan gaurko eguna: «iñusente koitaduak». Barre be, noiztik beñ egin dagigun, osasunantzako beintzat biarrezkua dala esaten dabe-ta.

JULEN URKIDI


Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra
BILBAO - Casco Viejo
Tenderia, 15 eta 16

DONOSTI



Ba gara.
Gure bai.
Kalera!
Nora nai.
Beti pozez,
beti alai.
Sebastian bakar bat da
zeruban
ta Donosti bakar bat
munduban.
Zer sartuta
ta zer gaur egun guziko
alegría.

Adiskide maiteak,
au da Donostiya,
orain sei urte t'erdí
erretako erriya;
polita zan lenago,
gaur ederregiya,
beti paregabea
ta maitagarriya.

* * *

Ez dot nai inor aztu. Gogoan daukat
Arzak bat. Beste batenak ekarriko ditudaz.
Zein zan? Berak, beragaitik, au esaten ekian:
«Ni naiz don Pe, geratu nuzalako begi-pe».
Au da, erdal tituloagaz, don Pepe. Pepe
Artola. Euskal antzezleri errikoiena. Onak ba
ekian, bere ugaritasunez, poesi ederrak egiten.
Il zanean, bere ondasun bakartzat, 580 orrial-
dedun kuadernu bat laga eban, bere bertso
eta lanekin:

Zeñien ederra agertzen zeran
Donostiya'ko uriya,
ba dirudizu ego zabalik
dagon egazti txuriya,

* * *

Dontsu, liraña, polita, fiña,
gozoa ta eztiya,
bedeinkatua izan dedilla
beti-beti Donostiya.

Eta zeñiek aaztu Donosti zarreko abadea,
apaiz koxkeroa, arrantzalien aita, arrain
saltzalleen adiskidea, Donosti jatorreko etxerik
geienetako maietan leku egiten eutsen abade
zintzo eta euskaltzale sutsua? Donosti'ko alder-
dirik geienak agertzen dira bere abestietan.
Alderdi bakoitzarentzat puntu egoki bat.
Irakurri «Bretxa»ri egiñak:

* * *

Asto kaletik sar liteke
errex-errex,
Alper askoren atariya;
zalantzan beti dendariya;
andre kaitarrak oyuka berriz:
«Oraingo bokarta biziya!...»

* * *

Santo Tomas eta San Sebastian dira do-
nostiaren erri kaiak. Soñu eta musika, euskal
antzerki-teatroa... Eta famili askok ostatu
jatorren baten ari bat egiteko egun
izentatuak. Iluntzeko euskal antzerkia aitzak-
kitzat artzen dabe askok onetarako. «Teatro
zarrera» joateko aukera artu, eta gero aurrez
erdi gertutako menu berogarri bat, eguna
goratzeko, ostatu jatorretan.

Egun onak donosti antzertiliarik be
gogoratu eragiten daukuez: Orta bat: Mar-
celino Soroa. Koldo Mitxelena'ren esanetan
«euskal teatro barriaren aita». Zeñiek gogoratu
ez «Gorgonio'ren estutasunak»; Gimón'en
musikaz dotoretuak? Mingarri da izen utsak
aitztea, baiña zelan laga Toribio Alzaga,
Barriola, Usandizaga eta abar, idazle edo
musikalari, donostiar jator beti?

* * *

Donostiar jatorren begiz begira nabil ni
be Donosti oneri, tanborrada asi aurretik.
Niri be ba datorkidaz biotzera esan naiak:

Rau, rau, rau!
Tanborradak ots egin dau.

Biotz alai,
begi ernai,
gazte aldrak
kaletan jai.

Arin orain,
gero lasai,
tanborrak orru,
biotzak tuku.

Or aitona negarrez
ta illoba irriparez...
Donosti oso garrez
tanborraren indarrez.

Tanborrada kalean,
Donosti guztian jai,
gar baten min-mifetan
Amara, Bretxa ta Kai.

Bereak ditu Donostik
edertasun parra-parra,
baiña biotzak batzeko
bego tanborrada!

A. ZUBIKARAI

GEURETASUNAK ETA GEUREKERIAK

Jo ta ke ibili gara aspaldion euskera batua dala ta ez dala. Jo ta ke, au da:
ekñalean eta alkar joka..., eta ketan. Ekiñalean eta alkar joka (gora gu ta gutar-
rak: geu nausi edo musturrak ausi; gu asarre, erbestetarrak barre) inon diranak
egin doguz. Leena gitxi bazan..., orain dago egoteko naastea plazan. Eta, jakina,
geuretasunak eta geurekeriak ugari ta edonon agertu dira batasun arazo orretan
egin dogun ekitaldian ere.

Euskera batu bat egitekotan egiñalak egitea, geuretasun bat ontzat eta
aintzat artzea da; euskera batuago baterantz joteko bideak zabaltzen aalen-
gintzea, bearrezko ekintza baten esku artzea da. Ain zuzen ere, batasunik bako
izkuntza bat endekatu egiten da. *Oraintxe egin bear dogu, oraintxe egin bear dogu,*
oraintxe egin bear dogu, ointxe ein bia dogu, ointxe ein bear deu, bintxe in bi u, eta abar eta
abar, batasunik gabeko izkuntza bat, milla zatitan birrindu ondoren, ulertu
eziñaren ulertu eziñaz, auztu eta ezereztu egiten da. Orrexegaitik, *Elaiak* abeslari
taldeak kantatzen dauanez:

- | | |
|---|---|
| 1) Hil egiten zaigu,
hil egin dugu,
hil gure herri.
Gure euskera
egin da
milla zati,
euskaldun gazteen
lotsagarri. | 2) Bat euskal herriak,
bat euskalkiak,
bat danok beti.
Batu dezagun
euskera
ta ikasi.
Berritu dezagun
Euskalerrri. |
|---|---|
- Herri bat, izkuntza bat, euskera batua...»

«*Batu dezagun euskera...*» Baiña zelan? Geuk geuretara, geuk gura dogun erara,
edozein modutara? Ez orixe. Geuk geuretara («Nik neuretara, ik euretara, atso
zaarrak atso zaarretara»), olan ezin daiegeu, ez urte bitan ez ogeitan, euskera
baturik egin. Urrik emon ere ez. Geuk geuretara egindako euskera batu bari
ori (garbi garbia izan ezin mordoillo mordoilloa izan; zeatz zeatza izan zein
zeaztu gabea izan) geure batua izango da, baiña ez benetako batu jatorra.

Batu dagigun euskera, baiña berez baturik daukaguna ezagutu ta batua-
gotuz, leenengo ta bein. Izan ere, euskalkiak euskera diran ezker, bizkaiera,
gipuzkoera, naparrera, lapurdiera, zuberuera..., euskera diran ezker, egiña
dago euskera batu bat. *Aita eta ama* esaten dogu euskaldun guztiok; *gizon, ogi,*
mendi, ni, zu, lur, su, ur... esaten dogu; *leen etorri da zure etxera orren semea* esaten dogu
euskaldun guztiok. Euskeraren sustriaian, oiñarrian, biotzean dago euskera batua.
Eta orixe ezagutu bear dogu leenengo ta bat, batutik batuago baterantz joteko,
erdi euskera batua ere batzeko, batu barik dogoana ere, azkenez joteko.

«*Batu dezagun euskera ta ikasi*». Ikasi? Nork ikasi dau euskera? Ikasten asi bai
baiña... Nork ikasi dau gure erriaren eta gure idazleen euskera? Nor aalegindu
da euskeraren izatezko batasun ori ezagutzen? Batzuk bai baiña... geienok...
Ez dot uste euskerarik ikasi dogunik (ez itzik, ez aditzik, ez deklinabiderik, ez
joskerarik, ez...). Ez dogu berotu osarlekurik euskera ikasten. Eta, asto ezjakituen
antzera, arrantza egin dogu eta estrikadak bota. Eta arrantzaka ta ostikadaka,
euskera, arrantzeborrastetu, lorrindu.

«Hiruogeiren bat urte daramazkigu batasunera bidean eta badirudi, fru-
tuei bagagozkie, batasun hori uxatzen aritu garela eginahalean, bai Gipuzkoan,
bai Bizkaian, bai orain Lapurdin, Baxenabarren eta Zuberoan. Euskalkiak nahas-
bai egin ditugu, Pasaiako ardogileek kolore bateko eta besteko isurkariak nahas-
ten omen dituzten eran; baina nahastea ez da batzea eta ez da behin ere izango.
Ondorea: «euskeraren» legeak, dakizkigulakoan, inor gutxiak dakizki gaur bere
euskalkia: «euskerak; are geiago, ez dakigu gehienek zein euskalkitan ari garen ere.
Oraingo pintatzaile askoren kontua da ori: bere lanbidearen abeiza ikasi baimo
lehen, aspergarri xamarra izaten baita egiteko hori, bide berriak zabaltzen hasi
beharra». (L. Mitxelena, *Mitxelena'ren idazlan hautatuak*, Bilbo, 1972, 79. orr.)

Orrexegaitik, aspaldion agertu diran «euskera» batzuk «batzuen euskerak»
baiño besterik ez dira; aurrerakeriaren aurrerakeriaz edo atzakeriaren atzera-
keriaz egindako erdera-merdera edo euskera-meuskerak edo euskalkeriaren er-
tarkeriaz josiriko «euskeratxoak». Labur labur esanda: «euren euskerak»
Ezkundu arte larri, ta gero barregarri..., edo negargarri.

Baiña, alan ta guztiz ere (zana zala eta dana dala), ez uste ezer ere egi-
ez danik. Euskera batuago baterantz joteko egin diran bideak alperrekoak izan
dirala uste izatea geurekeriaren geurekeria litzake. Askok ere asko egin da, askok
uste dauan baiño geiago, borondate oneko jakintsu langille jatorrak ere baditugu
gure artean eta. Gaiñera, burrukan diarduenak besarkatu ere egiten dira; baina
bestea azpiratu gurarik, besarkatu egiten dira.

Naasteborrasteok dirala ta, beñiola batek esandakoa jatort gogora: «Beste
lan..., ondo baiña! Ez?» Alkar izketa baten izan zan.

- Kaixo, Santi, aspaldiko!
- Kaixo, Patxi!
- Zelan?
- Ba... emaztea il jatan leengo astean. Seme biak ere oso txarto daukadan
gaisorik. Neuk ere biziena edo daukadala esan deust medikuak. Dirurik ere
daukat, SOFICON euki ditut euki ditudan apurrok eta, badakizu zer jazo dan
Autobide barri ori dala ta ez dala ere, etxea botako ete deusten edo...
- Bestelan..., ondo baiña! Ez?
- Bai, bai, bai.

Egiñak egin, onak on direlarik, obeak obe.
Urrengora arte.

LEJARRENEKO MIKELEK

Eun urte baiño geiago daukaz kantu eban.
Raimundo Sarrigi'k egin nai izan eban
musika bat Donosti'ko martxa izateko asmo-
tan. Lesakarra zan Sarrigi, nai eta donostiar
asko baiño jatorrago bizi, agertu eta sentidu.
Sarrigi'k ez eban pentsatu bere eresiaren-
tzat, musikearentzat berbarik Zarata atara ta
kittu. Soñu eta ereskiñekin burrunbara, orru
eta arrara atara ta aurrera.

Baiña donostiarrak euren eban poztuta zer-
bait abestu be nai eban. Sarrigi'ren musika
bizi, zarata eta durundi ori berbetan agertu.
Ortik asi ziran batzuk «Gaur degu bai, bai
bai...» berari ipinten. Besteak «Au poza, bai,
bai bai...» Edo ta antzerakoak, zer esan andi
barik, sakondu barik, jostallu bat bakarrik
egin nairik. Zerbait dotoreago egin nairik
Serafin Baroja izan zan asieran agertu dogu-
zan bertsoak atara zituana.

1861 urtean emoten dautse asiera. Sarrigi-
reñ sasoirik onena: 21 urte.

Iru urte geroago martxa jator lez, erri-
martxa lez, ofizial lez aukeratu eban Donosti'
ko Udalak.

Gitxi dira gaur berbak, itzak, dakiezanak.
Baiña tanborrada, donostiarentzat, jairik
errikoiena da, poz eta alaitasunez beteten
dituana.

Jaiak egiten diranean tanborrada izaten
da donostiaren asierako jai, festa. Eta orre-
tara jota, ba dakigu Donosti zer dan:

Festarik ber bada
Bego Donostiya,
betikoa du fama,
ondo mereziya.

* * *

Ez gara sartuko gaur kondairaren sako-
netan. Alai eta arin, azal-azaletik, Donosti'ren
kantariekin ibilliko gara.

Ara bat: «Bilintx». Izen orregaz ezagunago
zan Indalezio Bizkarrondo. Donosti'ren abes-
laririk erromantikuena. Miñez bizitako jai
zala, esaten ekian beragaitik Mourlane Mi-
txelena'k. Il be miñez egin zan karlistak Mendi-
zorrotz gaiñetik jaurtitako obus baten zaurien
ondorenetik, 45 urte betetzeko. Bere bertso-
geienak gaixo batenak dira:

Triste bizi naiz eta
ilko banitz obe,
ba daukat biyotzian
zeinbat atsekabe;
dama bat maitatzen det
bañan... aren jabe
sekula izateko
esperantzik gabe.

Baiña bera Donosti'rentzat zer izango zan
jakiteko, gogoratu bere plakan ipiñitako
esakera au: «Bilintx! Donosti maite ontan
zere bertsoak entzuten genituenok esan gene-
zake Jaunaren miseriordia kantatzera joan
zifan» ezkerotzik zerua bera gozoagoa izango
dala».

* * *

Goazen atzerago urteetan. Itxasotik begi-
ratu, nai mendi gaiñetik, laster billatuko doguz
danetako goratzalleak. Juan Bixente Etxegarai
renak doguz beste onetik eta 1816'en egiñak
dira:

Donostiya'ko alkate jaunak
emanikan lizentziya,
goizetatik datoz jardiferuak
kantatzen martxa berriya;
konpasa artubaz umore onez
alegratzeko erriya,
soñuba dute guztiz ederra
berri urte jartziya.

Kontuan euki iru urte lenago Etxegarai
onen etxea erreta gelditu zala. Ala ta be bere
kantu gogorik ez zan itzaldtu. Larogei ta bat
urtetan bizi zan: erriko langillea, enpladua
izan zan, baiña erriak sekula ez eutsan ordain-
du berak kantu eta bertsoan egindako zabal-
kudea. Bera zan «Festara» abesti ezagunaren
egilea. Bera baita beste onetik egin zituana:

GOSEA AUZIETAN

BIAR EDO ETZI, BAI ETE
DANONTZAKO JAKIRIK!

Jakingo dozuenez, joandako Azillean, 50 erriarteko ordezkari batu ziran Erroma'n, janari arazoa eztabaidatzeko. Ain zuzen, mundu osoko maillan janari-azuzian zein jokabide jarraitu erabakitzeke. Izan be, ta ontaz jende asko ez da oraindik oartu, gaur egunean, benetan gogorra ta larria da janari arazoa.

—Ludiko jendetzeak izugarritzko gorakada egin dau, ta daroa.

—Izadiko ondasunak eta eskuarte-koak, euren neurriak daukezala ikusten dogu.

—Munduko errialdeen artean dagozan aurrerapenen aldeak aunditzen doaz.

Oñarrizko arrazoi onetatik ganera, aspaldion gertatukoak, larritu baiño ez dabe egiten arazo guztia.

—1972'gn urteko uzta makala.

—Aleak edo zerealak emoten dabezan lurraldeetako legor-aldia.

—Orain arte batzaille aundi izan diran errialde batzuen etekiñen gitxitzea.

—Lan-indarren garestitze ta une larria eta onetatik ongarrien salneurriak artu daben gorakada.

Guzti onek, janaritzako jokabidea, Ludi osoaren maillan barriz aztertu bearra eskatzen dau. Eta ez uste izan gero, abagune edo aldi labur baterako arazoa izango danik, zati baterakoa baiño. Ez da gaurko une gatzaren erruz bakarrik, egiturak txarto eratuta dagozalako be bai, zati on baten.

Auxe izan zan ba, Erroma'n batu zan Ludiko Janaritzako Batzarrekoak aztertu eben auzia; au da, mundu osoaren maillako konponbideak billatzea. Aste bitan eztabaidatu ondoren, onexek dira artu dituen erabakiak:

1.—Janaritzako arazorako, laterriagandiko mundu osorako alkarte nagusi bat sortzea: «Janaritzako Jokabiderako Ludiko Batzardea». Aurrerantzean batzorde onek bateratu bearko ditu nazio arteko janaritzako obetzeko jokabideak.

2.—Janaritzea ta Nekazaritzea indartzeko bost mila millo dolarreko baltsua sortu Alkarte barri orren eskuetan izan dadin.

3.—Janari-bear edo gose gorriean dagozan laterri ta errialdeeri, irureun millo dolarreko diru-laguntzea emotea.

4.—Ango ta emengo errialdeen artu-emonak-obetu ta barriak sortzea, janari gaien salerosketeari buruzko eginbide zabal bat osotuz.

Erabaki onek oster, egiteetara eroatea ez da bat bere erreza izango. Izan bere, laterri bakoitzak Erroma'n artutako arabaki orreeri berak gura dauan jaramona egingo dautse, gaur gaurkoz beintzat. Oraingoz, mundu maillako bearra ikusita bere, gatxa izango da aurrerago jotea.

Orrela ba, laterri bakoitza ari da bere eginbideak asmatzen. Esate baterako, Txina'k berrogei millo tonelada ainalko zereal-ale geroa aurreratu al izan dau, ta URSS'ek, Iparramerikako Laterri Batuegandiko, beste zerbaitei trukean, «adiskide» txartela lortu al izan dau, bere janari arazoa ziurtzeko asmoan. Gertaketa bietan, bai Txina'k eta bai Errusia'k, jokabide sendoa daroe, egoerari dagokiona ta eurentzako onena.

Baiña Laterri guztiak ez daroe benetako bide ori; bestera, euren naziotasun estu baten lotuta, arazoak mundu maillara jasotzeari oztipoak ipinten dautse; bai laterri barruko demokrazia indarrak galeraziaz, baita barruko jokabideak aldatzea eskatzen daben laterri arteko artu-emoneri atzea emonaz.

Gure erriaren muga barruetara ba' gatz, janaritzako jokabiderik ez dogula, ikusten dogu, ta etorkizuna bera be, ilun, ez gara ba janari sortzailleak.

BIZKAI'KO BERSOLARIEN «AITITA»

Anoeta pelotalekuan eta Azillaren 17'gnean, Euskalerrri'ko 70'etik gorako bertsolari zarreri omenaldia ospatu zan. Eurretari bat dogu «Sollubepe», bizkaitar bertsolaririk zarrena. AGUR asteroko onek be, bere lekutxo eskitiñ gura dautso Bizkai'ko bertsolarien Aitita oneri.

Izan be, etorkizunari begira bizi garanok, ez doguz aaztu nai, euskaldun izan eta Euskalerrria egin daben gizon jatorrak. Gazteok ba-dogu zer eta non ikasi ta nori eskerrak emon. Alaxe joan be joan gara Gabonetako goiz baten bere erri politera, eta zuentzako antxe jardun be, «Sollubepe» agure alaiakin.

—Mesedez, izena, non jaio zaran eta olakoak esango dautzazuz?

—Juan Ormaetxea, Meñaka'n jaioa, 1896' gngo Iraillaren 14'gnean.

—Ba-dira urteak!

—Bai, ogetamar baiño geiago bai beintzat.

Ta parrez, bada-ozpada, bere karneta erakusten dautsku.

—Zergaitik ezagutzen zaitugu «Sollubepe» lez?

—Guda aurreko Euzkadi aldizkarian, batek, «Ogoño» izenagaz izenpetzen ebazan bere biarrak. Orduan asi nintzan ni be, neurriak «Sollubepe» izen ordeagaz izenpetzen. Eta izen orregaz urten izan dot plazara be.

—Sollubepe'koa izan zalarako ala?

—Orixe ba, or jaio ta bizi izan nintzan 60 urte bete arte, ardiak zaintzen urte osoan.

—Artzain orduan?

—Bai, bai. Gero Mungia'ra joan nintzan bizi izatera, ta egunero Bilbo'ra biarrera, kotxe zaintzale.

—Giro orretan, esan egiguzu, zelan egin ziñan bertsolari?

—Berez, erantzuten dautsku bat-batean. Beno, bere aita zana be, zelan edo alan, ba-zan bertsolaria, etxean eta tabernak bakarrik, ori bai. Begira baiña —diñosku— eskolako ume-lagunak «bertsolari, bertsolari» deitzen eusten, eta nik, buria moduan arturik, ez neban kanta gura izaten. Orrela ba, amasei urtege-edo asi nintzan kantatzen.

—Ori, ori! Azaldu egiguzuz mesedez zure bertsolari ibilkerak!

—Ba, gazte sasoi, kuadrillan eta ardauxuaren inguruan eta, abestuten neban. Geienetan domeketan, astegunetan etzan, gure sasoi, tabernetara joaten-eta. Orduan, alkarri burlatan, uler artzen jarduten gendun batez be. Inguruko erromerietara joaten nintzazanean eta ola.

—Izaten zendun nork bertsotetan erantzun?

—Ez, gazteen artean iñork bere ez. Danak nere inguruan adi-adi batzen ziran, baiña nork erantzun gitxi edo bapez. Baiña lantzean bein, zarren artean «afizionadu» batzuk bai urtetan ebela. Etxebarria Mungia'koaz gogoratuten naz.

—Noiz asi ziñan ba jente aurrera urtetan?

—Batek ba-daki! Enaz gogoratzen. Baiña esango dautzuz, gure inguruko Batzoki zabal-kunde danetan izan nintzala abestuten: Bermio, Bakio, Sopolana, Derio, Urduliz, Lejona ta abar. Esteban Uriarte'k be abesten eban. Biok batera, batzokirik batzokira ibiltzen gintzazan, batez bere zabalkundeetan, baita mitifetan be. Eta dana duan, gero! Egurditxo emoten euskuen, baiña txakurrandi bat bere ez. Aberriagaitik ez gendun orduan dirurik kobretan. Orrek gauzok orain egiten



dira. (Gu, oraindiño ez gara aberastu, baiña ia-ia! Dana dala, ez dautsagu ezer esaten eta berak aria galdu barik aurrera jarraitzen dau). Gogoratzen naz, bein, bestetako moduan, zaldi ganean joan nintzan Meñaka'tik Urduliz'era. Mitifetan bat edo olako zeozer izango zan. Nik bere neure bertsoak kanta nebazan. Amaituta gero, batzokiko lendakaria etorri jatan eta esan eustan: «Zenbat zor dautzugu?» Eta nik: «Ezer bere ez». Eta berak: «Baiña gizona, zeozer bai». Orduan nik: «Zaldiari perra barriak ipiñi bear dautsadan, eta orixe gustoen artuko neuke». Baiezkoan gelditu giñan, baiña gaur arte.

Eta barre egiten dau gustora. Geu be, bera ikustean, irriparez gagoz.

—Eta, zein gai erabilten zendun zure bertsotetan?

—Pentsa zeinke, olakoetan beti aberriaren alde. Baita erri bakoitzean erriko arazoak astindu ta gure arerioen kontra be zeozertxo esan.

—Eta ori zelan egiten zendun, edo zelan jakin erri bakoitzeko barri?

—Bertsotan egin baiño lenago, batzokian eta, aurretik ibiltzen ziranakaz egoten gintzazan, erriko gora-berak jakiteko. Bein, Maruri'n esan euskuen, alkatea «eurretari» zala ta ala guk bertsotetan alkatearen kontra jardun gendun. Andik egunetara, Mungia'n ikusi ninduan eta nigana etorriaz, non diñostan: «Zergaitik abestu zendun nere kontra?» Eta nik erantzun: «Begira, nik alkatearen kontra egin neban, onegaitik eta onegaitik, baiña ortik kanpora, zeu ba'zara alkatea, ori ez da nire errua izango...»

Eta barriz bere, barreka, baiña oraingoan biok batera!

—Orduko sasoietako beste gomutasunik edo?

—Bai. Zeozer esatekotan, azkenengo auteskunderen kanpañan be parte artu neban. Erriz-erri izlariakaz batera ibilli nintzan, bertsoak be jentea gaureganatuteko alegiñetan. Gero pasa ziran pasatzekoak geure zoritzarrerako, eta gauza orreikaitik Puerto Sta. Maria'ra croan ninduen lau urterako...

—Eta andik etorrita, bertsotetarako adorerik bai?

—Bai orixe! Baiña beti bildurrez beteta. Asikeran tabernako zuloetan bakarrik abestu

al izaten gendun, eta geroago, gitxi-gitxika, jenteaurreko txapelketa ta erriko jaietan, arik eta ostera bere dabekua etorri.

—Gerra osteko sasoi orretan, nortzukaz abesten zendun?

—Ba, Bizkai'ko bertsolari geienekaz. Ba-lendin Enbeita, Sardui, Lopategi, Azpillaga, Iturri eta abar. Bizkai'ko azkenengo txapelketa, Lopategi geratu zan txapelidun.

Arrezkero —eta urteak dira— jaialdian presentadore be egin dot. Iñoiz elcizetan abestu be izan dot. Eta alan jarraitu bear.

—Zelan ikusten dozu gaurko bertsolaritza?

—Bizkaia'n amaituz doa. Ara, bertsolari onak urteteko gaia ba-dago Bizkaia'n. Nire ibilkeretan, gazte batzuk, polito erantzun izan dautse, baiña gauzea zarratuta dagoan bitartean, txapelketak eta egiteko askatasunik ez dagon bitartean, gatx izango da bertsolaritza aurrera egitea.


—Beste arazo batera jota, gaurko euskerearen egoeraz, zer deritxazu?

—Amak. Amak dira emen garrantzi andikoak. Alper da umeak ikastolara eroatea, gero etxean erderaz berba egiten ba'jake. Eta orixe gertatzen da. Len, nere gazte denporan, erdeldunak eurak be, euskerea ikasi bear izaten eben gure artean bizitzeko, orain barriz pentsa lei, euskaldunok erdera egiten beartuta gagozala. Baiña ondiño emen gagoz, eta bizi-bizirik ganera. Ea zuek gazteok, lengoari jarraituz, aurrera egiten dozun.

Baietz agindu dautsagu «Sollubepe» jaunari; gure erriak izan dituan eta oraindik daukazan ainbat errizale oietako, kaleko edo baserriko, «jaun» bat bai dogu «Sollubepe» bertsolaria.

Amaitzeko eta esandakoaren adierazgarri, ona Anoeta'n jendeari egindako agurra:

Agur gozo bat Bizkaia'k dautsa
Giputz anai ta arrebari,
Nagon tokitik pozez beterik
Naparra ta Araba'ri.
Maitasunean bizi gaitzan,
Eskatu Goiko-Jaunari.
Nola utzi nik au esan gabe
Frantzi'ko anaiari.



GATZ ETA PIPER UMEEN JOLASAK

EGILUZ'TAR KONSTANZIA. G. B.

Eriotz albiste askotxo emon bearraren aurkitzen gara oraingoan gure sail barri onetan. Azken au baiña, Astondoa'tar Josu, AGUR'eko arduradun eta lankide jatorraren amarena da.

Amar seme-alaba eder mundura ekarriaz, azi ta ezitzea ez da edozer, baiña bere eleizkizunean maitasuna ta fedea ikusten diranean, eziketa orren sakontasuna agertzen da. Olako emakume batek ondo irabazita dauka betiko poztasuna, gulako ezjakiñen begien aurrean be. AGUR'eko lankide guztien izenean gure samin-agurrik beroena zuri, Josu, ta Astondoatar sendi osoari.

GORKA KNORR

Eskutitz bidez baiño ezagutzen ez dogun adiskide onen «disco» barria erosi dogu oraintzu. Lendik be jator etorran Araba-berbizkundearen abotsa dirudi. Zorionak.

Eres-mintz orregaz batera, «Jose Mari ta Mikel» abeslariena be erosi dogu. Antzifiako abesti ta eresi eder orreik entzuten, orduak igaro ditugu Or bai or, euskal kutsua!... ta goi aldekoetan izan ezik, «azalean» sartu dautsezan alperriko izkiak oguzten ez dirala obeto oraindik. Zorionak zueri be.

EUSKERA EZ DA ATZO

GOIZEKOA

Naizta «akademiko» batzuk ori zabaldu...

Pozik irakurri dogu ba, Urtarril onen 5'gnean, Donosti'ko Diario Vasco'n dan euskal orria. Oraingoan batez be, Akesolo'tar Lin aztertzaile jakintsuaren lana.

Liño'k diñoskunez, orain dirala 54 urte asi ei ziran Madrille'ko Ate-neoan euskal ikastaroak. Oraintzu il dan Zaragueta ta Allende Salazar

jaunaren eragitez. Lenengo irakaslea Eskalera-Maidagan jauna zala.

Idazlan onen mamiña Zaragueta izan zanaren «euskal alderdia» erakustea da. Olako ta antzeko gauzetan, azterkari jakintsuenetarikoa Liño dala edozeiñek daki. Edozeiñek? Akademiko batzuk izan ezik, jakiña. Ez zan azpijoko ta erpa-ots makala izan euskaltzain osoko aulkia bete ez egian. Orretarako, gudarien kapellau izandako batena baiño, beste edozeiñena ohea itxuraz.

BA-DOK AMAIRU

Cambio 16, espaiar aldizkarian irakurri dogunez, bazkari politiko bat eratu zan Donosti'n. Ez dok amairukoak, ez. Baiña amairu izan ei dira maikoak. Jatorriz geienak euskaldunak, iritziz banaka batzuk izan ezik, ez dakigu.

Dana dala, «tute» jokorik egiteko erarik ba'letor, «euskalduntasuna» eskuko izango dala jakitea ez da gitxi. Ori dirudi beintzat «karta» ori lortu naian orrenbeste jaun ospetsu ikustean.

Diñoenez, bazkalondoa ez zan ixillik egotekoa izan, eta dirudiane, aldizkari barri-emoille orretakoak, orain ikusten dogunez beintzat, guk baiño bide errezagoetatik dabilta. Aldizkariak eta bazkaltzailleak erabili dabezan itzak erabiltzerik ez daukagu emen; euskaldun itzaren ordezkioak esaterik be ez daukagu-ta. Zergaitik ete? Igarri baietz!

IZTEGI BARRIA OSOTZEKO

Len esandakoengandik urrun ez dagozan eta laprastadaka dabilzan kazetalaria ta lagunak, «kausitze» aundiagoa izan dagien, ona emen «euskera(?)» baturako itz barri bat: «ekuanimitatea».

ARENAZA'TAR JOSU

JOSTAILLUEN GARRANTZIA, EUSKAL-JOLASEN BEARRA

Ikastaro-aurreko umeen jolasa, aztertu bearreko gai jakingarria da benetan, irakaslearentzat. Eta, erakusle, edo sikologo, naiz erriajakintzan arduratzen diranak izan, bakoitzak bere ikuspegitik, ondo aztertu dabe.

Zergaitik ete-da umea jolastari? Zeatz erantzun ezin dan galderea dogu au. Asmaketa asko agertu da orretaz, baiña orrean unetan arakatzan ibilli barik, onenbeste esan daikegu: Aurraren azitza ta aldaketea jolasean indartzen dirala, ta jolaserako joera indartsua izaten dabela. Bere burua nekatuta dabela oartu arren, umeak jolasean irauñ nai izaten dabenean, bere barrutik datorkion betebeer orren indar urduri ta ezin lotuzko bultzada gogor batek eraginda dabillega igartzen da.

Eretxiak asko ba'dira be, gauza baten datoz bat orretan arduratuak: Jolasa azibearrentzat eragingarria dala; ortik datorkio aurrari, berea dan eta taldea be biribiltzen daben nortasunak ba-dirala asmatzea; jolasaren jolasez giza-izatearen ondasunak nabaitu ta beregan lotzen jakoz.



Aurrak, bere lenengo negar-aldietan asita, ingurokoen erantzuna oartzen daben lez, berantzako esker-ona lortuko daben jokabide orretan jarraituko dau, baiña alde txiki batekin jakiñago dala ta bere gogoz diarduala. Txikitxo batek ezin besterik egin, ingurua aztertu, zelan edo alan; eta lurrera zerbait jaurtitzeak be, egikerea dan berezitasuna bururatu dautsa. Erantzun atsegin edo bildurgarriaren ikuspegia, ostera bere ber-bera egiteko naia, etenik bako jakinbidea jako. Egite baten eragille bere burua ikustean, aziketarako ekintza pillo baten sortubidea dau.

Bere soñaren igikeratik, lenengo jolasetan, bere beragandik, eta inguruaren artean dagon aldea igartzera doa. Bere atz-lodiak bereak dirala eta ez inguruarenak nabaitzen dabenean, une garrantzitsua umearentzat.

Ta, ondoren, bere erabilkeraren jabe egin eta jolasten diarduean, ludian, garbi ta eragingarri, osotu daikegun ikasketarik sakonenerako idaztirik ederrena dan bizia bere dogu erakusle.

Onetara, jolasa deritxogun ekintza orretan, naita zer ete-danaren jakin-egarriak eragiña izan, umea, bere barruko teinkadetatik azkatu, gauzen izatea ikasten asi, inguruaren itxureari igarri, ta amets-asmaketetara be elduko da.

Besteekiko artu-emonak be, jolasaren jolasez, zeatzasunik biribillena jasoko dabe, ta aurraren taldeko izatean sartzea ta azitzearen aurrerakuntzak erakusten daukuz. Piaget'ek diñonez, urte bitik zazpita tartean, jolaserako iru maila zear ei-doa azten umea: bakar-jolasak; albokoaren jolasak, eta azkenez, taldeko jolasak. Bataz beste, onenbeste esan lei: Urte biko aurrak, bakarrik jolasten daki; iru urtekoak, albokoaren ondoan; lauakoak, beste lagun batekin, bakar batekin; baiña bein bost urtera eldu ezkeru, gitxi izango dira baiña beste lagun batzuekin jolastu nai izango dau.

Jolasetik ba, aziketea indartzen eta bere nortasunari igartzen asten da umea Norber burua inguruagandik bereizteak; eragille izateak eta orrenbesteri igartzeak dakarren atz-agiña; ondore barruen jakin-miña; ta ikutugarrietan baiño bere gogo barruko atsegin barria, jolasetik datorkioz, baita eginbide zailagoak aurkitzeko naia be...

Jaioaz batera, aziketea indartzen eta bere nortasunari igartzen asten da aurtzoo; laster baten baiña, eta danorren un lez, garaille izatearen alaitasuna nabaitu al-izango dau; onetan edo orretan, garaipena lortu bear dabela daki. Albide au lortzeko, jostailuak berak edo eskuartearen darabillan edozerk ezartzen dautsan ikasi-bearraren neurriak makurtuko da; gero, bereala baten, bere buruari ezarriko dautsan esi-maillan, neurri zeatz baita on-utsera arteko bide baten diardu; bere burua, gauzak egin eta zuzentzeko, ta bere nortasun al barria, norainokoak diran jakin eta besteak ikusi dagien, zailtasunera be joko dau.

Ona emen, gizasemeak dabezan eta abereak ez daukezan eragingarri batzuk. Baita, jolasak eta jostailuak lekarkeen ondorena. Euskal-Erria'n, euskal kutsuzkoak izan bear.

M.

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira astero-ko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskera bera beste edozein, bereko, politiko naiz ondasungarri asmoen gaiñetik daben iritxi-onoeko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxi, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egileak dira.

Agur au, bere zuzendaria ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M.^a MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.

Carretera a Galdácano, 32-Bilbao-4

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA

ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guttirako:

Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

EUSKALERRI'KO ARAZOAK

LANGILLEDIA, LAN-MAILAK ETA GIZARTEKOAK

Era bitakoak

Langilledia, berez, langille guztiak osotzen daben alkartea da. Baiña izen au erabilten dogunean, esku-lanetakoak eta lantegietakoak gogoratzen doguz batez be. Bestelako langilleak ez dira langillediare barruan sartu izaten. Euskalerra' ren barruan, langilledi au era bitan bereiztuta aurkitzen dogu batez be. Batzuk erri txikietan bizi dira, eta an daukez euren lantegietxoak. Oneik langillediare barruan dagoz eta eurentzat ez da gauza gatxa erri-kontzientzia artzea. Geienak bertan jaio ta aziak izaten dira. Beste batzuk erri edo uri aundietan bizi dira eta lantegi aundietan lan egiten dabe. Geienak erbestetik etorriak izaten dira. Oneik langille-kontzientzia bizia izaten dabe, baiña eurentzat erri-kontzientzia artzea oso gatxa izaten da, eta inoiz erriaren arerio be izaten dira.

* * *

Langille ta erritar

Alde batetik erri-kontzientzia izan eta langille-kontzientziarik ez, eta beste alde batetik langilleena bai eta erriaren ez, egoera onek erriaren banaketa bildurgarri bat sortzen dau eta emendik datorru arrisku ikaragarria. Langilleak erriratu, eta erri-zaleak lengillekanatu, ara gure eginbear garratza ta gaitxa.

LEGE BI

EZKONTZA-AUSTEA TA UME GALTZEA

Katoliko edo eskumako lez agertzen diran alderdietako jendeagaz egindako Gobernua daben Laterri bitan katoliko erakutsien aurkako lege bi oraintsu onartu dituela danok dakigu: Ezkontza austea Italia'n eta jaio bako ume galtzea edo abortoa Prantzia'n. Italia'n lenengo alduen edo diputadu batzarrak onartu eban dibortzio lege ori; ta itxuraz katoliko dan erriak legea txartzat emongo ebalakoan erreferenduna eskatu eban katoliko buruzagiak.

Baiña gauzak bestera urten eban. Italia'n Batikano'ren usaiñean eliza ta elizgizon asko egon arren be, gu lez, katoliko otzak izan kontixu. Gaiñera, Jaungoikoagan siñisten ez daben elizgizon batzuk (teologu ta abar euren abadetza zuritu edo justifikatu naian, soillik, gizonaren lurreko bizitzea obeitzea elburu egin dabenak) dibortzioaren alde berba egiñagaz katoliko asko euren hibe okerrera eroango zituen. Bada, berez danok errezer ta nasakerira josten dogu.

Galtze oneri aitxakiak atara naian-edo, arazoa politikatzek kalte egin ebala izparkariak esan dabe. AGUR onetan be orixe irakurri neban. Orrek kalte ekarri? Bai zera! Arazoa politikatu ez balitz be ondoren bardiña izango zan.

Gaiñera zeri esaten dautsagu «politikatzek»? Alderdi politikoak euren zeregintzat artu ebela arazoa? Gauza jakiña! Erriak ain ardura andiz artu eban kontua alderdi politikoak ezin eikeen alboan laga.

Ez, dibortzio kontuan Italia'n jazo danagaitik katoliko buruak txarto jokatuta ebela ezin esan daiegegu. Ta katolikotasunak ezer ez dabela galdu esaten ausartzen naz. Katolikotasunak galtzea, berak lege txarra ontzat emotea izango litzake. Ta ori ez dau egin.

Ta onetzaz amaitzeko: Ijiturkeri ori nai izan daben erriari on dakiola lege aurreratu (progresista) orrek. Guk geure lege zarrean naiago dogu.

Baiña Italia'ko katoliku buruei zer esanik ez badago be, Prantzia'koagaitik zerbait esan daiteke. Prantzia'n, Gobernuak, alan nai-ta, abortoa onartu da. Amaren sabelcan ez dakit zenbat denbora baiño geiago ez daben umeak jaurti edo il al izateko eskubidea.

Mundu guztira zabaldu nai dabe orain jaio bakoen birrintze au. Aitxakia zer dan ba-dakigu. Munduko bizilagunak asko ugaritzen dirala, ta abiada onetan urte asko baiño len geiegi izango dirala, eurentzat zer janik ezingo dala sortu-ta. Ez dakit arazo au zelan dan; jakintsu askok diñuen ori egia bada Eleiziak berak be zerbait aldatu biarra izango dau gauza oni buruz.

Baiña Prantzia'ko gaurko agintariak geroko munduaren kezka ez dabe artu erabagi au. Prantzia'ko agintarien mundua, De Gaulle ta arrezkerokoena beiñepein, Prantzia da bakarrik. Gogoratu bestela, besteak beste Europa zaintzeko sortu zan O. T. A. N. etik zelan alde egin eban. Ta Prantzia'n bizilagun asko izateko bildur andirik ez dago. Jaiotzak urritze orretan aspalditik dira maixu prantzesak. Azkenengo gudan Prantzia'ko agintari buru Petain mariskalak alemandarrei burua makurtu biar izan eutsanean, guda galtzearen errua, besteak beste, ume gitxi jaiotzea zala esan eban.

Ez dakit Prantzia'ko gaurko jaiotzen zenbakirik, baiña arrezkero be gorakada andirik egin dabenik ez neuke esango. Zer dala-ta, beraz, lege ori? Ez dakit. Beti be olako lege bat emotea, irabazi bideak anditza baiño errezagoa da-ta, zerbaitetan nabarmendu nai. Baiña olako legeak sortzeko gizon andia izan biarririk ez dago. Ori neu lako ez jakiñak be egin gein-kena da.

Ta amaitzeko. Ez dakit jaiotzak gaurko abiadan joanda zer etorkizun dan munduarentzat. Baiña, orratio, Ipar Amerika'n lako aurrerapenez danean lurak lantzen ikasiko balebe makiñatxobat janari geiago izango litzake. Ta ori ez da ezin leiteken kontua.

Beraz elburu orren atzetik jo biar leuke gizadiak eta ez bizitzen asi diran izakiari eriotza emoten.


KAMIÑAZPI

Ez da gure erriaren bakerik, ez alkartasunik, ez adorerik izango, langilleak erri-zale ez diran edo gure erri-zaleak langillediare eskubideak aldeztuten ez dabezan artean. Gaur, alde guztietan, gauza bi oneik batzera josten da, eta guk be orrelan jokatu bear dogu: Gizarte-arazoa ta erri-arazoa bateratu bear doguz.

* * *

Jentetza aundiak

Gure erriaren diran jentetza aundiak erri-zale egitea da gure lanik gaitxena. Batzuk kanpotik etorriak doguz eta, beren-beregi, erri-kontzientzia galazoteko eka-riak sarritan. Orrelan, eurak be zapalduak izanik, zapaltzaille biurtzen dira.



Langille orreik, euren alkarteak izaten ditue, sindikatuak edo. Onein elburua, berez, langilleen eskubideak zaintzea izaten da. Ez dakit lortzen daben. Baiña inoz alkarte orreik izan bear daben lakoak izatera eltzen ba' dira, euskaltasuna barru-barruam sartu bearko dabe, eta beste jentetza ori Euskalerra'ko arazoetan arduratzeko lan gogorra egin.

* * *

Jentetzak erriratu

Euskaldun guztiok lan egiñez, etorriok erriratzek lortu bear dogu. Ezina dala? Ba leiteke. Oso gaitxa beintzat. Baiña gure Erriarentzat il edo biziko gauzea da ta orretarako alegindu bear gara.

Nortzuk? Lenengo, bertoko garan guztiok: Euren arazoak konturatu eta euren eskari zuzenak aldeztu bear doguz, eta geure diruagaz euren ekintzeri lagundu be bai. Baiña ez taktika lez, zuzentasunak eskatzen daualako baiño.

Baita, euren aurrean, gure erri-izaerea agertu be. Au, esukaldun guztiok, baiña lenen, jentetza orren barruan bizi diran euskaldunak. Orretarako, berbaldiak, ikastaroak, erri-oturen erakusketak eta abar, eratuko dira. Sarritan, jakiña, erderaz izan bearko dabe ikastarook, baiña ikastolak eurak be, ez dauke lan makala egiteko olako jentetzearen artean.

Ez da gauza erreza arazo gogor eta sakon onen aurrean baiezkorra izatea, baiña gure Erriaren geroa ortxe dago, eta or egin bear dogu lanik sendoena: Bertokoak eta etorriak, jentetza aundiak eta erriak, erdera egiten dabenak eta gure izkuntzea darabilenak... guztiok bat egin bear dogu eta guztiok geure Erria maitetu eta geugan erri-miña sortu, Erriaren izaerea geuganatu eta Erria aldeztu.

Eta orduan guztiok izango gara Euskalerra'ko erritarrak, zuzentasunaren eta bakearen alde ekiteko eta geure artean bakea lortzeko.

GAMIZ



eziketa jostailuak
eskulanetarakoak
irakasketa gaiak

gregorio de la revilla, 1
bilbo-11

Jolasean ikasi, or zure aurrentzako emoitzarik onena

EDESTI-AURREA

(Jarraipena)

X.—GOI-PALEOLITOS AROA

Paleolitos aroa, edo arri-lanabes zaarrenena, aro onek osotzen dau, gaurko au da ba, antxiñan-antxiñako arri edo aitz tresnagintzaren azken aldia. Oso gatxa da Paleolitos-Goi au noiz eta zelan sortu zan jakitea. Aurreko Moustier langintza nun amaitze dan eta emengo Aurigna edo Gravette'koa nun asten dan bereiztea. Dana dala, jakin al izan dira GOI-PALEOLITOS onetako jakintzearen zeaztasunak: azur lantzearen egokitasuna, ta batez be erti-lanak dira kontuan artu bearrekoak.

Goi-Paleolitos aroko jakintza saila: Garai onek, Kristo aurretiko 40/35 millagarren urteen artean asi ta 9/8 milla urterarte irauten dau. Lau kultura mailla bereizten dabez orretan ikasiak:

—Perigord jakintzea. —Aurignak jakintzea. —Solutre jakintzea, ta Madelein jakintzea. Europa'ko sartaldean (Prantzi'n, or agertu dira ba aztarnarik ugarienak), barrienetatik zaarrena goazala, urrengo aldietan agertzen dira:

Urtea beti K. a.	Jakintzea lanabes-gintza	Izozte-aldiak edo tartek
9.100	Azil	Würm ondorena
9.500	Goi-Madalein VI Goi-Madalein V Goi-Madalein IV	IV Würm izoztea
15.000	Bee-Madalein III Bee-Madalein II Bee-Madalein I	IV ta III Würm tarte epelekoa
17.000	Goi eta azken Solutre	
19.000	Solutre erdia ta beea	III Würm izoztea
29.000	Perigord ta Aurignac	
32.000	Perigord ta Aurignac beak	II ta III Würm tarte epelekoa
36.000	Moustier azkena	
37.000	Moustier jakintzea bera	II Würm izoztea

(F. Bordes'en «El mundo del hombre cuaternario»tik eratua).

a) **Perigord jakintzea.**—Perigord, Bordele'tik 200 kilometro sortaldera dagon eskualde baten izena da. Les Eyzies (izen berezia!) inguruan alkartzten dira Vezere ta Dordogne ibaiak. Aldakuntza tarte baten sortzen da kultura au, asieran Acheul jatorriko Moustier lanabesak agiri dira, gero lanabes beriziak, Goi-Paleolitos'a bereizituko dituen lanabesak: Musturretik zorrozitutako tresnak. Zulakaitzak be asko agiri dira garai onetan.

Garai onetako lanabesik nabarmenena Chatelperron'eko labaiñea dogu. Aizto au, arri bateri ertza jan eta bizkar okerrunedunaz osotuta dago.

Perigord aldi aurreratuari Gravette jakintzea deritxo. Zulakaitzak oso ugari dira garai onetan. Ta, lanabesik bereziena Gravette'ko askon-musturra dogu. Onentzaz gaiñera, bizkarra zanpatuta daben gezi-musturrak be ba-dira.

Bee-Perigord jakintzako aztarnak Prantzi'n bakarrik aurkitu izan dira. Ta, Perigord-Goiko ta Perigord aldatukeraren aztarna ugarienak Prantzi'ko egoaldean aurkitu dira. Garai onetan agertzen da Homo-sapiens'a Europa'ko sartaldean.

b) **Aurignac jakintzea.**—Perigord jakintzeagaz batera edo apur bat beranduago asten da kultura au. III Würm izoztearen asieran zabalkunde aundia izan eban. Jakintza onen ezaugarriarik nagusienak onetik dira:

—Aiotz lodiak, ertz bakarretik edo bietatik landutako aiotzak.

—Azur landuak. Perigord kulturen baiño indar aundiagoa dabe emen. Azurrezko askon-musturrak be aurkitu dira.

Aurignac garai onen azkenaldira zulakaitzak be asko ugaritzen dira. Langintza au Beljika'n eta Prantzi'n zabaldua dago geienbaten.

d) **Solutre jakintzea.**—Kultura au Europa'n sortutakoa dogu. Prantzi'ko ego sorkaldean zan Moustier jakintzatik urtendakoa. Iru maillatan banatzen dabe aztertzailleak:

—Bee-Solutre aldia. —Erdi-Solutre aldia, ta Goi-Solutre aldia.

BEE-SOLUTRE aldia.—Garai onetako tresnarik bereziena alde batetik landutako orri itxurako askon-musturrak dira. Karraskailuak eta aiotzak be oso ugari agertzen dira.

ERDI-SOLUTRE aldia.—Ereñotz orriaren itxurako askon-musturrak agertzen dira, ta garai onetako arri-lantzearen ezaugarriarik bikaiñenak dira. Arrigarria da arri-lantze onen egokitasuna.

GOI-SOLUTRE aldia.—Ereñotz-orri ta Sarats-orri izeneko askon-musturrak doguz emen, baita koskaz landutako askon-musturrak be. Garai onetako gizasemeak, arrietan, azurretan eta arpeetako labarri eskutuetan marraz eta irudiz euren asmapenak ezarri ebezan.

Solutre garai onetan, arri-lantzea, gorenengo maillan dago, Urrango garaian ostera, Bee-Madalein'en arri lantze oso arlotea darabille. Ba-litzake gaixo-izurrite aundiren batek edo alkar-arteko gudak eraginda Solutre jakintza goratu au ondatzea.

e) **Madalein jakintzea.**—Kultura au indartsu agertzen da Dordogne'ko lurraldeetan. Jakintza onek, Kristo aurretiko 15.000'gn urtean asita, 9.000'gn urtera bitartean iraun eban. Garai onetako ezaugarri nagusienak ertilan erabilkorak eta arkaitzetan lotuak ditugu. Geien baten Prantzi'ko lurraldeetan kokatua izan ba'zan be, Suiza, Beljika, Alemani eta Auñamendi mendien egoaldetik be zabaldu zan.

Aztertzaille geienak sei alditan banatzen dabe garai au:

Madalein I.—Ezpal txikietan landutako sukarrri karraskailuak agiri dira.

Madalein II.—Aizto txikiak agertzen dira.

Madalein III.—Sarda antzeko askon-musturrak dira berezienak emen. Karraskailuak be asko batu dira.

Madalein IV.—Kako makurrak dabezan sastakaiak dira aldi onen ezaugarri, jaurtikiaik be agiri dira.

Madalein V.—Kako-lerro bakarra daben sastakaiak eta buru-motzeko aizto koskatuak aldi onen ezaugarri.

Madalein VI.—Koska lerro bi daukezan sastakaiak ostera aldi onetako lanabesik eza-gunena. Eiztaritza aldi onetan, askon-etxeak edo uztaiak erabiltzen asi zirala dirudi.

ARRATI'KO IKASLE TALDE BATEK

JOANAK JOAN

LASARTE ALDUN ZANARI, GOIAN BEGO!

Bai jaunak. Laister aazten gera besteekin, Bat il dala edo bestea il dala, zeintzuk gogoratzen dira? Ez asko beintzat izparringietan irakurrita. Illetetan bai, eundakak bilduaz. Orrekin ordea, ez da ezer betetzen. Gero idatzi egin bear genituzke bere berriak. Ortako bai daude asteroko ta eguneroko euskal-orriak.

Zer esan da? Deusik ez, eta orrek ematen dit biotzeko miña. Ni baiñon idazlari yayoagoak millaka daude emen; nere idazlanak, amarretik bat bazarrean gordetzen dituzte, eta ez dakit zer esan.

Gu zarragoak, gure guda aurreko urteak ezagutu ditugunok, orduko eztabaidak, burrukak gogoraturik gaur... aizkurea ematen dit bizkarrean. Egiten ditut nere alegiñak, joandako oien oroigarri zerbait idazten, gaurko gazteak jakin dezaten zer egin zuten aiek, zer lan, zenbat maitatu erria, ta gaiñontzeko gora-berak aztertuaz.

Ongi dakit ez naizela lumalari yayoa, gauz eta gertakizunak bear diran bezela idazteko. Ala ere, ez da gutxi zerbait idaztea, izandako gizon aundi ta on oien berri ematen.

AGUR au, bide barriak artuta dijoala bai dakigu, ez du beintzat lengo antzik... eta guretzat ba-dirudi txokoak ezereztu dirala argitaltze kontuan. Oiek orrela, alako batean gogaituko ote dira zuzendariak. Euskeraz ongi idazteko ez gera akademikoak, ortan bai daude yayoak, baiñan aiek zer egiten dute? Txepel-txepel iraun, jaramonik egin gabe.

Lasarte zana, dakigunez, errizale izenakin aldun izan zan Madrid'eko

kortietan. Gizon on eta argia, ta emengo Diario Vasco egunerokoak argitaldu zun nola il zan eta zer izan zan. Naizta izparringi au izan ez gure eretxietakoa, oso ongi goraldtu du bere izena, ta biotzez eskertzen diogu. AGUR'ek ez du ezer esan, ez dakit Argia'k esan dunik ala ez, ez detelako irakurtzen, eta orain orra emen ni, trakets au, bere oroiz zerbait idatzi naian.

Lenen Donosti'n ezagutu nun, geroz Karakas urian. Karakas'en beragana joaten giñan arazoak zuzenduz naian edo diru Kontuetan boltza zala. Urteetara, ni bezela, Donosti'ra etorri zan, eta arrezkero noiz beinka ikusi ere kalean zear. Agirre'tar Teodoro il zanean, berebil-aundi oietako baten, bere illetara bidean, atzetik zetorren ezagun bati entzun genion, alegia, nola Lasarte ere aurki joango zala tabar. Urteak nunbait bizkarrean izan, naizta oraindik ez orren zaarra. Orra azkenik bere azkena.

Ontara eldu gera gu ta guretarrak gaur. Joanak joan eta zearo aaztu, gogoraturik gabe zeintzuk izan ziran Euskalerria'n, zenbat lan egin zuten bere alde, batez ere, ze nolako maitasun aundia zioten euskaldunei. Poeta ba'nintz, idazlari ba'nintz, akademiko ba'nintz, a ze nolako izpiak idatziko nituzken! Baiñan, ez naiz ezer. Ni, alegiñak egiten ditun idazlari txiro bat baiñon ez naiz.

Zer geiago esan? Ez gauz aundirik. Ola gijoaz mundu ontatik jatorrak, azkarrak, gizon aundiak eta beste gauz asko zituztenak. Nik ala ere, gogoratuazi nai beren izatea ta azkena.

Lasarte jauna, Egun aundirarte!

E. OZKIN

FERRETERIA UNCETA, S.A.

Landola tresnak - Galtzairu neurri zeatzekoak
Langailu guzietarikoak - Leunketa gaiak

Ibarrekurutz kalea 14
71-10-00 Urrutz.
Apartado 18

E I B A R

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra
BILBAO - Casco Viejo
Tenderia, 15 eta 16

AZTERGARRIAK EGIN KIZUNA K

OITUREA BE BA-DA

Ur-olo edo arrozaren jabe nor egin, ei-zan Vietnam'go dudurunda au, esan euskuen. Baiña ego-aldekoen makaltasuna agertu denez, bein-betikoz azpiratzeko guraria esnatu da iparraldekoen artean. Gudea ba lengora. Orain baiña, USA arduratuta, Txina ta URSS'koeri, izkullu saltzea beratu bear dabela eskatzen. Nork baiña Txina ta artza, batera ekarri? Kissinger orrek?

—Goizean jaiki, ta, —nora gozak gaur tiroak egitera? — vietnamtarren oiturazko galderea.

* * *

TORLOJOREN BAT

Boby Fisher txapelduna, ezaguna dozu. Ludiko ajedres txapelketa a irabazi ebana. Orain errusitar orrekin barriz nor-obeja jokatu bearrean dabil. Bere-bereak izaten diran eskaera batzuk egin dauz: Joko bakoitza ez dedilla atzeratu ta jarrialdi baten amaitu bearko dala, batako edo besteak irabazita; bardiñean bukatzen diranen alerik ez dedilla kontuan artua izan...

—Antxiñako ikubilkarien anatzera, bata edo bestea lurrera lo jausi arte, ekin!

* * *

ATERKIÑAK NUN?

Asi jakuz goitik bera, geuk goraka egindako arrikadak gainera etorten. Saturno V, or etorri da. Gibraltar'etik 1.700 km. sartaldera jausi ei-da zati nagusia; txikiagoak Sahara basamortuan.

—Junkerrak gainian ebillazenean baiño bildur gitxiago ikusi dogu gure inguruan.

* * *

ZERGAK

Bataz beste ludian zergarik aundienak ordaintzen dabezanak, suezitarrak dira; late-riak, batu, ondo erabili, ta erriari itzultzeko batzen daben ori, larregikoa ei-da, diñoce, ta aurrerantzean, errenta edo bakoitzaren irabazieri jarritakoa % batetik asi ta 28'raiño jaxkio ei-dabe, nork zenbat irabazten daben neurrian. Or galtzen dana, gaixo ta zartzarorako lantegiak eurak ordaintzen dabena goratuta, bardindu.

—Oberako dabilzala arduradunak, erriak be igarri... or beintzat.

* * *

DIRUKONTUAN

Asi gara-ta, ara Laterri-arteko diru Batzak edo Fondo Monetario orrek darabillan arazoa ba-dakizu, zenbat eta diru geiago bertan jarri —besteeri zorretan emoteko— ainbat eta autarki geiago azken erabakiak zuzentzeko. Orain arte, USA'k jartzen eban dirutza aundiena, eta % 23 aiñako autarki eskubidea eukan. Orain, arabitarak dirutu dirala arrollo salneurri orregaz, euren dirua emoteko gertu dagoz, baita autarkien jabe egiteko be, ta erabakiak euren gurara zuzendu.

—Arrapaik ori, ea nola ateratzen diran azkenean. Diruak ez dau aberririk, ez biotzik!

* * *

BEREBILLAK

Salketea urrituta dabil. Itxuraz oiñez obeto ibiltzen-edo. Ludi guztiko auzia au, baiña batzuentzat gogorrakoa. Volkswagen landolakoak, millaka langille kaleratu dabez, eta salketetarako zuzendari barria izentatu be. Bost urte, ondo joanda ori, bearko ei-ditue gauzak zuzentzeko.

—Arrolio garestiaren ondorenak ei-dira orreik eta beste asko.

* * *

LURRA, LANTZEN DABENANTZAT

Orrenbeste beintzat erabagi dabe Bulgariako arduradunak, lur-sail txikiak lantzen dabezeneri, euren jabetzea itzuli, atsegiñago ta gogotsuago lan egin dagien.

—Nerea neretzat eta zurea erdibana orrek ba-ditu itxogiñak!

* * *

AUZOKOA MAITE

Gitxitan. Berorregaitik, auzoan dalako; ta alkar ezagutzen garalako, bekaizkeriak, asarre txikiak eta ezin-ikusiak sortzen dira eguneroko bizi-bearrean. Orregaitik, askoren ustez, Txina ta USA, lagun aundi izateko bidean doaz, auzoko diran Japon eta URSS'ekin dituen eztabaidatxoak eraginda. Bestera, URSS'a ta Japon'en arteko adizkidetasuna barriztuko e-te-dan. Orrenbestekoren bat ger

tatzen da Sortalde-erdian; Iran'ek saldu izan dautsa arrolioa Israel'i Iraq'ekin daben ezin-ikusiak eraginda. Orain baiña, ta ba'litzake USA'ren eragiñez, artzaren ordez Iran'ek lagunduko dautsa Egipto'ri, baiña orretarako, israelita ta egiptoarren arteko bakea ta bear ba'da alkar ondo konpontzea lortu bear. Orretan dabil Sha entzutetsu ori, errusitarren asarrea berotzen dan neurrian.

—Etsaia, ez da beti arerioa, alboan kili-kili egiten dauskuna be ez da lagun ona izaten.

* * *

OKERTZEN LAGA EZKERO

Ta zearo okertu ziran Ego-aprika'ko auziak lengo portugaldarren jaurlarizta pean. Angola'n iru eratako azke-zale gudarosteak sortu ziran. Orain, ango auzia zuzentzeko, irurok bat egin eta batasunean jokatu bear, eta ori ei-da zailena, Portugal'eko arduradunak diñoenez.

—Aizeak zabaldu ezker, gero nork baretu ekaitza, eta nola?

* * *

ASPERTUTA?

Lenago esan gendun, besteeri entzuna: Wilson engalandar zuzendaria, bere lan ori utzi ta irakasletzara biurtuko ei-da. Oxford'eko University College'n dan zuzendariak datorren urteko ikastarorako bere lana amaituko ei-dau. Au da Wilson'ek artuko leukean lan-bidea. Oxford'en beintzat, ez baietzik ez ezetzik ez dabe nai esan. Callaham ori izango ei-da lendakari barria.

—Erriaren alde lan egin dabenik ezin ukatu; erriak baiña lagundu e-te-dautsa, batez bere, estualdietan?

* * *

JAKINGARRI BATZUK

Satsa, etxeetako ondakiñak, nora bota jakin eziñean dabilzta uri aundietako ardura-dunik geienak. Baiña sats orrek ba-dau bere aberastasunik. Batu, albora croan, imanen bidez burdi-gaiak etara, moltotu, busti sarritan eta seigarren illabeterako ongari zee aberatsa eginda aurkitzen da, solotarako ta iñoiz kimi-aldaketetarako egoki benetan.

—Asko bear dogu, gitxi egin nai dogu, azkenengo ondakiñak be balioa aundia!

* * *

GUDARIAK

Bigarrenez aitatzen ditugu gure odoleko zelula zuri burrukaliak, erbestetik letorkiguzan bakterii ta izaki gaiztoak erailtzen dakiezan zuriok. Oneitako mueta batzuk kimi-gai bidez erailtzen ditue arrotzok, baiña mueta batek beste au egiten dabela ikasi da: Urreratu birus gaizto orrengana, azala ari ezarri, ta zelulen artean dan «deia» egin ta bitarteko artuemonetan erabilten dakien odi edo zuloa zabaltzeko eskatu, birus'ak orrenbeste egiten dabenean, gure burrukaliak, zulo ori ondatu, ez barriz izteko neurrian eta iges egiten dautso. Alan birus'a urez betetzen da ta lertu.

—Nok erakutsi e-te dautsa gauza txiki orri jokabide ziur au?

* * *

BETIKOTU IA

Zura, etxebarruan, baiña atetik at batez bere, laster usteltzen da. Ori gertatu ez dadin, asmaketa aundiak egin izan dira: kreosota, arsenik eta kromik gatzak erabili izan dira, sarritan edentsuegiak bizi-duntzat. Orain, beste zerbaiterako asmatuta egoan gai batek askoz obeto gordetzen ei dau egurra. Ludia zear engalandarrek daukezan illobietako gudari-illen zuzeko «illariak», naiko burukomin emoten ei-eutsen, baiña gai barri onekin zearo biribildu dabe orrekin zaintzea. Gaia, butiliko bikoitza dan ziraida edo eztañuaren ugartu bat da.

—Zur-jatailleak be laster gose-aldi negar-garria, sitsak eta!

* * *

JANARI BARRIAK

Irurogei millo ardi ei-daukez New Zealand'an, baiña ardiulea askoz gitxiago erabili ta saltzen ei-da. Ez estutu; ule orrek, % 60 bere gai, proteinak edo jan gaiak ei ditu, bataz beste, okeleak berak baiño geiago. Orra ba, orretan dabilzkanak diñoenez 2000'gn urterako, proteina orreik atera, urunakin nastatu, ta ederto jango ei-dabez, orduan biziko diranak.

—Bildots saiets gozoaren ordez; ea ona ulcki aspilkada bat!

DANOK

LENGOAREN INDARRA GAUR

Ludi onetan eten barik eta sakon egiten diran aldakuntzetaz ez da ardura garbirik agertu oraintzurarte. Aldakuntza orreik izaten dirala-ta, ainbeste auzi, era-barri edo aaztuetan gauzen ikuste, bearrizan barri ta artegatasunak be sortu dira. Ortik eta gaurko auziak ikusita, igaro danari begiratzea dator, au da, gaurko era onetara ekarri gaituan edestiari begira jartzea.

Ikasi dogunez eta oar-irakaspenez ikusi dogunez begiratuta, ba-dakigu, ortik ataritzen doguzan ondorengo guztiak munduatzaz doguzan eretxiak eta izan doguzan artu-emonak eraginda, zuztarretiko aldakuntzea izango dabela.

Baiña ziur egon gintekez, gaur, gure gizarte egoeren ta esku-artean darabilguzan bideen eragiñez, gizonak bere buruari eta berak egiten dabeneri begiratzen dautsola, beste aldi guzti areitako *geikeri ta notintasuna galdutako* ta abar, batzuk deitzen dautsenei baiño yoran andiangoaz begiratu be.

Erezipide onen aurrez-aur, edestia gizonak berak egiten dabela konturatuko da, ta onek nai ez da bere, era batera edo bestera, etorkizunean bere eraginpena izango dau.

Au alan egin ezker, orain artean «azken asmoak» deitzen izan diranak, alde batera itxiten doguzala dirudi, ta ekitea bera, ta munduatzazko eretxiak eta bertan sortzen ziran asmoak aurretik etozan lez, gizona naiz gizartea leneratutera jotzen dabeneri ekingo da munduaren barrizkunde bakotza. Era onetan, buruzko «begiratze eratik», «guztiz ekiteari» dagokion izate batera igaroten gara ludiaren aurrez. Eta era berean itanduten dogu, eragozpenez ikusi daikegun geroari, ea argi apur bat egin geinkean.

Gizona beraz, edesti-izaki bat da, au da, errien etorkizuna, berak aukeratu ez dituan baldintzetan lotuta, egiten dabena. Baldintza oneik beste batzuk egin ebenaren ondorenak dira, baiña gure bizitzan be eraginpen aundia dabeneri; ziur egon, geuk uste dogun baiño aundiagoa.

Errien artean lendik izan diran artu-emonak gogoan artu ezker, geure erriari gizaldiak zear yaso yakona bakarrik edo euskaldunok geure erri barruan eta besteetan egin doguna yakintza eretxibide lez izan ezker, batzuk euren barruan lotzeko eretxia aterako dabe, beste batzuk oster, gaur egunean iñongo mugarik ez dala aintzat artu bear, naizta ludi guztikoa izan.

Orduan, bai orain arte ta bai gaur beteten diran egiteetatik atera geinkez irakatsiak ta ez inguratzen gaituan mundutik bakarrik. Guzti au gerora zuzentzeko gai izan bear gara, erri guztiak eta gizon guztiak azi ta osotu al izan dai-tezan euren bearrizan eskatuko dautsen neurrian, eta zeinki bereziak aintzat artuta.

Emendik, erri guztien arteko artu-emonak eta zergaitik izaten diranak zaindu bearra atara geinkela dirudi. Ta gogoan ondo artu bear dirala izan diran aurrerapenak eta lengo gizarte aldakuntzak edestia zear, izan be orretxe-gaitik dagoz edestian-eta. Eta guk asmatu bear dogun gizartean, onek be, bere eraginpena izan lei.

LEIZARRETA

Langille Arrotzak Auzian

EUROPA'N

Azken denpora abetan, Europa'ko laterri batzuetan, langille arrotzen arazoa garratz sortu da. Alde batetik, langileak geiagotu egin dira, ta kompetentzi gogorra aurkezten zaió eitxeko langilleari. Bestaldetik eta zalantzerik gabe, zenbait errian, batez ere txikiak eta lantegitsuak, beren oiturak, izkuntzak eta kultur-egiturak, arrotz geigien eragiñez, nabarmen eta kaltebidean dijoaz, otz, Suisse, Belgie, Nederland, Louxemburg...

Belgie'n, Lovaina'ko Ikastola Nagusian dan Gizarte-jakintzako Irakasketa saillekoak azterketa sakon bat gertatzen ari dira, arlo oni buruz. Ango irakasle batek, Albert Martens jaunak, «Reflects et Perspectives de la Vie Economique» aldizkariaren zenbaki bakarka baten, leengo ondorioak azaldu ditu. Langitza Eraketa, Dirutzaren Politika, ta Lantokien Jokabideetako arremanak eta aurkaldiak nabarmentzen ditu.

Lendabizi, langille arrotzegandik datorren arazo garrantzitsuena, ez omen da lantegi barrengoa, olatik kanporakoa baizik, diñoisku: (Bizi dan tokia, irakaskuntza, olgetarako lekuak etab.)

Orain arte, naizta gogo txarrez izan, Langille alkatetik edo sindikatoak ere onartu bearrean izan dira gaurko jokabi au. Batez ere, —Martens'ek esana— «erbestera saldu bearra, azikundea ta langintza indartu bearra» makaldu leitezkel, salaketaren bildurrez.

Baiñan langilleen eraketak, gero ta estutasun aundiagoan daut, batez ere arrotzen eta bertakoen arteko kompetentzi ori alboratzeko. Asieran, arrotzen etortzea, bertako langilleeri ere ongi zetorkien, lansari gutxidun lanbideetatik irten al izan zutelako. Baiña langille-indar merke oriatik, ekintza atzera-

tuenak bizirik jarraitzea lortzen zutela ikusi dute. Langintza auk ez dituzte diru berri ezartze edo inbersio berri batzuk egin bear izaten, eta eunetiko langilletza aundia bear dutela beren lanetan ezaugarri nagusi bezela agertu da. Olan, lanabes-eraketak zaartu ta makaltzeko arrisku aundi samarra daukatela jakin ere.

Egia esan, Lagilledi Alkatetik nagusi guztiak, arrisku ori ez dute ikusi al izan. Sindikato batzuen jomuga, % ainbeste geiago irabaztea bakarrik da, ekintza oien luzaro-ondorioetatik kezkatu gabe, eta gizarteko zuzenbideak aldatzeko aalegiñik egin nai ere ez.

Emen ere, itxurak okertzen dute begien aurrean dagona, ta gizarteko beste talde batzuk gogoan artu bear izan dute arazo au, ta besteok, talde «liberalak» batez ere, benetako aurrerakoiak biurtzen dijoaz.

Txosten onek, «klase-alkartasunean» eta «nazio-alkartasunean» dagozen utsune ta kontrakeriak sakonak dirala adierazten digu, baita bakoitzaren barrengoak ere.

Arazo au daukaten errietan, Langille Alkatetik eta gizarteko beste talde denak, kontrakeri auk gaintzea nai baldi ba'dute, baita «nazioal-sozial» zatibitze edo dikotomi entzun ori ere, auzi ontan, jakina, langintza zaarren barriztatzea lortzeko jokabide bat aldeztu bearko dute. «Labour saving» langille gitxiitzean oiñarrituta dagozan lan-era zaarren ordez, «Capital saving» edo dirutza neurtua erabilten dakien langintza berriak eraturik.

Olan bakarrik, zatibitze demagogikoak garaitu leitezke, ta erri auen nortasuna bide onera erakarri, ta iraunerazi ere bai, gaurko bizitzaren bearrizan eskatzen duan neurrian.

ARRASATE'KO OLANDOTZO'K

IDAZTI BARRIAK

Izenpurua: CAMINOS DE VIZCAYA EN LA SEGUNDA MITAD DEL SIGLO XVIII.

Egilea: M. Angeles Larrea Sagarminaga.
Argitaratzailea: La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao, 1974.

Maria Angeles Larrea oso ezaguna da irakasle bezela Deusto'ko Ikastetxe Nagusian. Gau ta egun, or dabil zer argi izpi idoroko ote duen gure Erdi Aroko illunpetan. Goti sendagile famatuaren emaztea da eta bere leen frutu bikaina senarrai eskeintzen dio, bidezko denez gero, J. L. Goti, sendagillea, jaiotzez Zeberio'koa dugu, euskaldun plazagizon jatorra, izan ere Zeberio'koa izaki, andizuren (garai bateko «infanzones») ta mutil zaar aberatsen errikoa. Benetan euskaldun jatorra eta eragillea.

Liburua aldi artako dokumentuetan oso finkatua datorkigu. Alkala'ko Unibersidadeko irakasle den Bixente Palacio Atard'ek ezarri dio aurre-solasa. Elebitzan itz bi ere ipiñi dizkio. On Manuel Lekuona'k. Onela bukatzen du Lekuona jaunak bere lantxoak: «Asiera-asieran, bazan Bidea». Kristo bada Bide ori, gagoz ixilik. Baiña, besterik esan nai badu Lekuona maisuak, jator aitortu bear dut ez nagola bat. Asiera-asieran gizona zan, kaxkarra eta setatsua eta gero bidea, laster ikusiko dugun bezela.

Itz-aurre bi orien ondoren zer nolako iturri gardenetan edan duen bere jakintza, berri oparoa ematen digu M. A. Larrea'k. Besteak beste, saiets oni bakarrik begira, liburuak ez du gutxi balio. Alor ontan lanik egin nai dutenentzako, ba dago or bertan biderik asko.

Lenengo atalean zer nolako zen Bizkai'ko erakunde agiria XVIII gizaldian, itx gutxitan, azaltzen digu Deusto'ko irakasleak, Atal ontan arkitu dut zer edo zer ilun antxe. Esate baterako, auxe: «El cuadro institucional vizcaíno, en el siglo XVIII, se nos aparece como el resultado de un equilibrio o compromiso, de un lado, entre las distintas unidades políticas y administrativas de base de Vizcaya —anteiglesias y villas— y, de otro, por las tres demarcaciones territoriales constitutivas del Señorío —Tierra Llana, Duranguesado, Encartaciones— y, por último, el Señor, poder residente, en este momento, en los Reyes de Castilla». (Leen atala, 53'gn. orrialdea). Ontaz, aurrez aurre, partikularki, naiago dut berba egin egille berarekin. Nere kezka edo duda funtsean utsaren kontua izango ote dan, nago neroni ere.

Liburu aipatuari buruz, zer esaten «duen» gauza bat da eta zer esan «nai duen» edo «esan lezaken» oso besterik. Bideak, nundik nora dijoazten, errigintza edo politikaren oinarri nagusienetako bat direla, ezin inoiz ere uka. Berebiziko eztabaidak sortu ziren, argi ta garbi dionez liburuak, XVIII mendeko bigarren partean. Orduña'ko Bide Berriaren bidez Ifar-Kastillakin Bilbo lotu edo bide ori bera Kastilla'runtz zuzendu, leenengo Gazteiz'tik pasatuaz. Aisa iderriko dio irakurle ez-ikasiak ere, ez dela gauza berdiña bat edo beste izan. Bide berriak bidenabar Gazteiz artzen bazuen, Gazteiz'ek arnasbide ederra izango zuen bere lurralde idorretarako Bilbo'ko itsas-ate nagusian. Bi aldetatik, burni-bide aldetik eta Orduña'ko Bide berria egiñaz geroztik, Gasteiz baztertua, alboratua geratu zen itsas-ertzetik, ots, Bilbo'tik. Izan ere, tren-bidea egiteko artan ere, au dala edo ura dala, Bilbo'k naiago izan zuen Miranda'tik pasa eta ez Gazteiz'tik. Mundu ontan, gizon naiz erri bakoitzak zer gura duen azkenik ura bera izaten da. Ta orixe gertatu zaio Bizkai'ri. Kastilla aukeratu zuen ta Kastilla bihurtu da, Bilbo beinpein. «Bilbo! Bilbo! Katillu baten eske joan ziñan Kastilla'ko atetara ta torizu orain katillu ta erdi, ez duzu besterik merezi ta».

Nere iritziak, Euskalerrria'ren onerako, obe zuen Bilbo'k Ebro'ren joerari jarraituaz, Gazteiz bitarteko dela. Errioxa'ren, Aragoi'en, Kataluñia'ren billa joan izan bazen. Ta zer esker on izan du geroztik? Or dabiltz beti Santander ta Bizkai atzaparka, burruka bizian, zakurra ta katua bezela. Burgos'ek ezin du ez da ikusi ere ondoko auzo aberatsa. Esaera zaarrak dion bezela: «Ondo egiñen pagua ate ondoan palua». Euskaldunok, eguzki aldera begira, bear dugu bizi. Ez datorkigu ezer, eskea, esker gaiztoa ta zigorra baiño mendebaletik. Alaz guztiz ere, bilbotarrak udea-etxe apañak jasotzen ari dire Burgos'ko Ifar aldean, Villarcayo'n ta a. b.

Nere iritziak alboratu utziaz, M. A. Larreak eman digun liburu agitz interesgarria da, irakurlea gogoetatu ipintzen duen liburu bakan orietakoa. Ziur ziur nago, liburu au orain dela gizaldi bat argitara emana izan bazen, Abando'ko Xabiñ'ek bein eta berriz ere irakurriko zuela. !Ain da, izan ere, gaua bezela, gogai sakona ama! Zorionak bere egileari!

JOXE LASA

Orbelak

Lenengo Astelena

Astelen andi izan da, aurten, urteko lenengo astelena. Errege egunez. Olakoan astelen ederrak egoten ei dira urtearen buruan. Egutegiari gain-gaitetik begirakada bat: Astelenez, Donosti'n san Sebastian. Astelenez san Blasak Abadiño'n. Astelenez Emeterio eta Zeledonio santuen jaia Larrabetzu'n. Astelenez San Prudentzio Armentia'koa, Gazteiz'en; san Fermiñak Iruña'n; Arrateak Eibar'en; Kontsesiñoiak... Eta astelenez, jakiña, Pasku astelena Oleta'n, San Gregorio Astigarreta'n. Gernika'ko astelena aitatu bearrik ez.

Egun orren zabaltzea Mallabi'ko lurretan igarri neban. Eta ez errege lez.

Bilbo'ra eldu ta, esateko, arimarik ez kalean. Tirriñak jota be, tinbrezi bultz eginda be, kontuak. Gure gabon kantuagaz gogoratzen nitzan:

Or goian etxera, jo daigun atea.
Gizonak leiora nekez irtetzea!

Laiño eta illun, otz eta uts, Bilbo'k erri txikia dirudi. Nun sartzen dira astegunez egal guztiak betien bete iñor igaro eziñen lagaten dituen kotxeak?

Urtain'en jaia dago gaur Bilbo'n. Onera ekarri nabeneri itandu dautsat:

—Joango gara ikusten?
—Ezta pentsatu be!

—Ortaz, etxera.

Alaxe, geiago barik, barriro etxerako bidean sartu gara.

Eguerdia. Tanboliñik ez errian. Oitura bat gitxiago. Umeak, aurrak, jostallu ta erregaluak erakutsi eziñik.

Zeñek andi eta ederrago. Aoa neurri gaur erregaloetan be.

Norbaitek zabaldu dau Urtain Cruces'era eroan dabela. Akulariak. Daretan dagoz zirikalariek. Esakera: Erri onetako zenbait atso, gaur bezela atzo. Betikoa.

Urtain'egaz pentsaten nago. Eskallu jaten alkarregaz giñan bein Etxebarri'n. Tripazai eta jokolari neban. Egun aretan «kantidadea» barik «kalidadea» naiago.

Bilbo'ko durungo ete da nire belarrietara datorrena?

Tongo! Kanpora! Kartzelara! Itzik, barbarik bigunenak aukeratzeko. Zegaitik batek irabazten dabenean txalo bedeinkatu eta zuri-zuriak entzuten ditu eta galtzean, jaustean, iztegi bat gitxiegi izaten da beretzat, eta bera gitxi balitz bezela, bere aitari be bizarrak erre eta amari gonak jaso, bere emazteari amatasuna loitu eta seme bortak ugaritu?

Azkue datorkit gogora. Azkue garbiaren iztegia, diksionarixua. Itz, berba loti baten esan jaia erakusteko, lutsatuta bezela, latiñera na: «verenda, mulieris». Eta guk sarri erabili baiña eraldunei eurekanatzen dautsagun lau berbakoa, Astarloa'k esaten dabela sortzez euskalduna dala ta ainbestean laga.

Orra, urteko lenengo astelenez, Errege margoak, laiñoepan otzaren dardarez etxetan eskutatutako Bilbo uri-buruak eta Urtain errege jausiak nora eroan nabeneri.

ZUBEGI

INGURUAN

Munduko gizonen kontuak ipuin antze-koak dira sarri askotan. Baiña kontu minbereak. Ori ikusirik burruka negargarria sortzen datokione ta zor jakon gauza berbera, zelan izan daiteke niretzat ona ta eskubidezkoa ta beste arentzat txarra ta eskubidegabekoa? Jokabide au, sarri ikusten dogu gizartean, ta batez ere, bata bestearen zapailtzaille izaten danean. Gauzen gaitate, jazoeren gora-berak ta gizonen eskubide ta eginbeirak nausikeri ta maltzurkeriaren menpean egotekoak ete dira?

Gizona errezozi aundiko astotxo bat bezela da. Itxura baten, lurreko artu-emon guztiak buru argiz ikusi ta arteztasunez zuzendu nai ditu. Sama gaitateko txabola orren negurti barruan sartzen ez danik, ontzat ez dau artu nai. Bere buruz ta gizon-tasunez ezagutu nai leuke guztia. Ta ori olan izan ezik, gizon jokabidea dala be, ez dirudio. Ta era ortan, egiten ez dabena, totoa edota makalkeriz edozer, ariñegi, ontzat artzen dabena da.

Emen ba-da gizonkeriren bat. Aunditasuna ta txartzakeria, zuzentasuna ta maltzurkeria, zabaltasuna ta zekenkeria nastean agiri dira ezereen lotsa gabe. Au ere kontuan artu ta euki bear da. Gizon ezberdiñak, zurrak ta maltzurak ezagutzeak ez nau arritzen, baiña gizon berbera gora-bera bardiñaren aurrean, batean zurtasunez ta bestean maltzurkeriz norbere alde dala-ta, jokatzen ikusten dodazanean, au ez dot aituten. Or, gizonik ez dot ikusten. Ta gitxiago, guztia jakituriz, aurrera eroan nai

izaterik. Emen, astoren bat dagoala dirudiz, inguru guztia zapaltzen.

Gizadian, urtean joan etorrian, gauza asko sortu ta artu ta bide asko zabaldu dira. Giza-bizitzaren gora-bera, geldi geldi eratu da. Beti, izatearen legeak parte aundia arturik. Gizon jakitunaren aldetik guztia ta maltzurkeria ta giro orretan, nozua, burruka. Baiña alan da guzti ere, munduko arazotek aundietan, lurreko legeak ta zarteko arazoak euren kerizea egin dabe. Ta buru ta biotz lotsagabekoei zuzenbidea zein dan irakatsi.

Gizadia millak urteen gora-beran, geldi-geldi eratzten joan da. Ta eratzte onen inguruan, otzak, beroak, inguruak, jazoerak, zapaltzen bizi diran lurak eta bizitzako arazoak erantzuten egin dituen alegiñak, ez dabe erri baten bizia ta erakundea sortzeko bear dan añaño indar ta argibiderik. Bizitzako jokatuera luzeak sortu ditu giza-taldeak odolez, izakeraz, tankeraz, izkurtaz era bardiñekoak. Ori dala-ta, euren artean batasuna sortzen dabe.

Ortik dator jende talde batzuk, euren artean, obeto alkar artzea. Aldra egokiagoak eratutea. Ta denporaren joan etorrian aunditasun barria ere sortzen dabe. Onelan eratutako jende taldeak elkarkidetasunez bizi al izateko erreztasun geiago dabela ezin ukatu leiteke. Ta onetarako dituzk dira gaitate, ez norberekeriz, berezko legaren indar barruko ezilkorrak eraginda baiña. Talde orreek ez dira iñungo gizonen lotsa edota askatu egitekoak. Eurak eskatzen dabe euri dagokien bizikeria berezia.

PAULIN

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERA KOAK



ZAZPI-KALEAK

CASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIQUEAK

ARRIARRIAKO

BARRIAK

Arratia

Egun on zuri irakurle, erriari zuzentasunezko egoera ohea lekarkin izatearen billa lanean diarduzum orri. Bizkortu bitez lozorroan zurrunka dagozanak. Itxartu, jagi, azkartu begi bere burua, Erria'ren gogorrima, etxeko ta erbesteko aize nastuaren zurrunbilloan arantz-onantz, noraezan da-billanak.

Urte barriaren gagoz, arri labanaren ganean ditu oñak, arria bera bere aldatz erripatsuan, zeartsuan. Baiña bizi gara oraindik. Zarraren asieran lagun ginduzan zenbaitek ezin esan aibesterik.

Urte zarraren azken mailletan galditu jakuzan, arnasik gabe, Luki Artetxe, Ezpeleta Sabiñe, Nieves Edurne Beobide. Lenengo biak bilbotarrak, edo an bizi izan ziranak beintzat. Artetxe, Erria'ren alderik alderako zotaska zabalean, izan dauan izate gutzian, euskal-goldeari indarka, larre sasitsuak garhur biurtzen, gaixoarentzat osaki billa... eginalean.

Sabiñe'ren lanik bereziena, euskera indarbarritzea. Euskaldun txepelai euskal-baratzera deitu, ekarri, zaletasuna txertatzea. Abar igartuak agiri ditun zugatzari kimu barria, azal ta mamin, bat egitea.

Nieves Edurne Beobide, Bilbo'n bizi izan dan zeanuritar andratxo zolia. Latseko baserriko —Arteaga'n— Martin zanaren alarguna, bost seme-alabaren ama arduratsua. Erri-bidetik dabilkigun AGUR onen arpidun zarrenetarikoa, euskal-irakurle gogotsua. Gaztaroan askorik ikasia ez, baiña Erria'ren bizkarrean aspaldiz dogun zuldar minberearen zerakaz sakonki arduratzen zana bai. Bai orixe!

Goian begoz, zarretik barrirako zubia igaroterik izan ez dabene iru aberkideak, goizago joan ziranen baratz zoriontsuan. Artetxe'tar, Ezpeleta'tar eta bost anai-arreba umezurtzai samin-agurrik biotzetikoena.

* * *

Gabon-Eguberri auzora urreratzean, amaita urtetan ikusi izan dogu negua, Iparretik Egorutz bideak betean. Eta txori egaberak landetan. Gau ilunean galdurrik, ega nekez, pio errukitsuzko negarretan, argiaren billa ta lurreratu guran ibiltzen diran txori orreitakorik ikusi ez entzun ez doguzan arren, negu ondakifia gogorra izan daiteke; baiña bildurra, ikarazko bildurra, jai-o-barria dan urte onek damosku.

Eta oillo amalokeak klu-ta-ko, larrialdi urdurian, kezka dirause txita umeai, garria estutu ta gertu egoteko.

Garriz estuak garenontzat, burua makur eta belarriak apal aspaldiz doguzanontzat, zelako ta nolako urtea izango ete-da? Baikor eta itxaropentsu, sorkaldeko eguzkiaren begira, su-ta-gar aurrera!

* * *

Txarria ala zekorra? Azi, il, apatxak kendu, azala garbitu, barrua ustu, 28 arroa emon ditun txarritzarragaz Bizkaia ez ezik, Gipuzkoa ta Euskalerrri osoa ere kildu. Ilunbe'ko basetxe zarra urdai, urdazpiko ta lukainkaz goraiño beterik dagon arren, oraingo neskatillak txarrikia baiño txixardiña-angulak naiago; labeko suaren kea baiño, kebelanarena; ur gardena baiño, uiski gogorra... Eta antxe dagoz, basetxea utsik eta Uria mutilzar kirten egiñik.

LANDAJUELA'TAR A.

Zumarraga

AITONA'REN KEZKAK

Eginoroko kezka ta naigabeen artean, gaur dierazi nai ditut, Gabon ta Eguberri aroak, gure baitan sortu duen poz iturria.

Urteoroko martxan, gure erriko gizon Jainkotiar batek, jaurti zuen goi-gotik, erriarrak errez utzitzen duten irrintzi bat, eta irrintzi onen oiartzunera, irten dira aurtxoak eta ain aur ez direnak beren sukaldeetatik, eta aldatza gora artu dute bidea Erriko Erruki-Etxera, eskaintzera aitona-amonatzeri opari ta biotz eder bana.

Bestalde jakin degu, gure erriko sendi askok egun auztan bereziki eskua luzatu dutela bearrean arkitzen dien sendieri buruz, ta ez erri esparruan daudenei bakarrik, gaixotegi ta abar arkitzen diren guztieri. Gure eskerrik beronenak, ezingabeko ongille aueri.

Galdakano

AZTI BAKALDUNEN

Zaldiketa bikain bat egin zan gure errian be Azti Bakaldunen egun aurreko arratsberanduan, Zuazo auzunetik erriko emperantzaraño, batez bere erriko gaztediak, apaizaren laguntzaz antolatuta. Guk, beste zeregin batzuk zirala bide, ezin ikusi izan genduban baiña, zaldiketa polit ori ikusteko adua izan ebenak esan daukuenez, ederto gertuta eiegen. Gaztetxuen postzunerako, ainbat gozoki ta jostallu zabaldu ei-ebezan umetxu orreiri artian. Eta seme-alabatuak pozez ikustean, gurasoak be atsegiñez.

Gure illobatxurik txikerrenak be pozez etxeratu ziran, Azti Bakaldunen gozokiak zabaldu ondoren eskua be emon eutsela-ta. Erru-gabetasuna zelango bikaiña dan!

AZKARRAGA

Altzatu

ALTZATZU'TIK BARRIRIK... EZ...!

Ai! bai; barriak ba egozan, egon; ta ez gitxi... baiña «barri-emollea» gaxorik egon da, «gripe»tzar batek yota...

Gabon aurreko asteetan izan dira, beste urteetan lez, euskal idazleen itzaldiak ta kantarien kantak...

Xabier'eko Patsi Deunaren egunean, euskal-kirolak pillota-tokian: soka-tira, arri-jasotzea ta abar. Arri-jasotzearen artean, an «Mallabi»ko «Txikito», oraindik sasoi ederrean. Plazako yendetzari gustau yakon ta txaloak yo eutsoezan. Ez bakarrik gustau ta txaloak yo; baita sari ederrak emon be... Urte askoz, Bizkaiko morrosko adoretuari...

«Gabon» gaeuan urten eban «Olen-tzeron»; ta onegaz txistulariek ta dantzariak; ta «Seintxuaren ta Andra Mariaren ta Jose Tutuluren» inguruan dantzak eta kantak egin ebezan. Ta au onena: dana euskeraz ta euskera utsean...

Barriak egon dira egon; baiña barri-emollea gripetzar batek yota, oian gaxorik...

AINGERU BAT LEZ

Olan oian nengoela, «Gabon» Egunean berean, atea aingeru batek zabalduen ebara, irudi yatan; ta gazte liraiña sartu zan barrura. Euskeraz egon eustan bereala; ta nik, gaxorik egonda be, ezagutu be bai.

Donosti'ko Kaputxinoetan egoen, Narparroa-Ergoiena'ko Lasat'ar Yon Aita gaztea zan. Espetxean egon izan da erru barik; ta egun batzuetarako askatasuna emon dautsoela-ta, bere etxera etorri; ta gero andik ni ikustera... Milla ta milla esker bero-beroa. Lenbaiño-len oso azke gera zaitzeza ta zeruak indarra emon dagizula, gure Erriaren alde lan egiteko. Zorionak ta Urte-Barri on-ona ta zeure espetxea labur dadilla lenbaiño-len...!

GRIFE GOGORRA izan da omen Altzatzu'n. Osalari biak, Perez de Oribe'tar Jose Luis ta Ayerdi'tar Pedro Bizente, biak arin-arinka ibilli izan dira gaxo batetik besteagana, errian gaxo asko egoelako gripek artuta. Ni sendatu izan nauena Perez de Oribe'tar Jose Luis osalari gazte ta yakintsua izan da. «AGUR»en bidez neure bioz-biotzetiko eskerrona...!

AZKENEAN

Lenagoko kronikatxo batean idatzi izan neban, «erriko argazkien sariketa» egin oi dabela urte oro ta udalak emon oi dabela saria.

Aurtengo sariaren irabazle Sayas'tar Fernando yauna izan da; ta oraintxe, Urte Barrietan, emon izan dautsoe saria.

Eta onegaz gaur neuk be amaituten dot. «Urte Barri» on-ona ta zorion andiak opa dautseedaz «AGUR»eko adiskideai ta irakurle guztiei. Urte askoz...!

YURRE'TAR YULEN A. K.

Zornotza

BIGARREN OLERKI SARIKETA

Amabost urtetik beerako ume ta gaztetxoentzako poesi-sariketa au indartzen asiabz doa, lur onean landatu dan zugatz baten antzera edo. Igaz egin genduan lenengo aldiz, ainbat lantxo sariturik. Aurten be era berean egin dogu Erregeen egunean. Aurretik iragarrita egoan noz eta zelan egingo zan; baita olerkiak zertaz osatu bear ziran be: gure baserria, auzo izan da aurtengo gai berezia. Eta gai begiko au oñarritzat arturik, gaztetxo pilloa bizkortu yaku idazkortzari oratu ta euren burubiotzeko lora pitxiakaz bertso-mordoak egiten. Ederto! Guztiz txalogarri zarie, gaztetxuok!

ITZALDIK

Erregeen egunez, amabi-amabietan, Zornotza'ko Erti-kulturazko Alkarteko sailoa jentez beterik egoan; gazte ta zar eta garerriko, naikoa giñan. Sariak banantzerako, mai buruan jarri ziran oneik: Fede Intxausti, Alkarteko buru lez, Aita Onaindia, Serapio Ugarte ta Ander Etxebarria, poesi-lanak aztertuta ta sariak nori emon ta gaitzerako zeaztasunak eratu dabezanak.

Egitiko oni asiera emon aurretik, Intxausti jauna mintzatu da lenengo, sariak banantzearen ederra goratuaz. Beste zer askoren artean au diñosku: «Onako gauzak txalotu ta indartu bear doguz; ez da naikoa diru apurrez laguntzea, geiago egin bear da, guztiok esku artu bear dogu olako ekintzetan, batez be geure euskal erria poezis, artez eta geure-geure dan zer guztiakaz zaletu daigun. Urteetan aurrera goazenok gazteentzat erudagarri izaten saiatu bearra daukagu». Txaloak eta argazki-flaxak.

Aita Onaindia'k dau berbe ondoren. Olerkia zetan datzan eta zelan landu bear dan adierazten dauku, itz lau ta errezean. Gtxi-asko guztiok dogu barruan poesi-sena; baita ezker-eskuma dogun ederraren begi-kixka gozoa danok sentitzen dogu. Baiña danok ez gara gai eder ori, ez barrukoak, ez kanpora, itzez azaltzeko. Zek uts-egiten ete dau emen? Lurra ez dago frutua ekarteko girotan. Lagun bi Bizkargi'ra doaz: bata ba-daki ederra sentiduta ta jasoten, bestea bidez ta mendiz dabil baiña ederraren zauskadarik bage. Olerkariak, arima sentikor baten jabe baita, benetako poezialdiak ditu; baita illumaldi ta atsekabeak be.

Azkenik, Ander Etxebarria'ren txanda. Onako jai antolatzaileek, geinez, berandu samar ibilli oi gara. Erregeen eguna sasoi ona da sariak banantzeko; olerki sariak emoteko be bai. Garai onen amusez gaitzeka dabilz umetxoak. Denda guztiak jostailu ta andrakillaz beterik, eta umetxoak begi-zorrotz zer aukeratuko. Zenbat bada-epadako tresna ta tramankulu! Aitzok, bultziak, izkiliak, kotxeak... Guk, umetxoan pozgarri, kultura bizituko idaztiak, arima edertuteko poesi liburuak zabaldu dagiguzan. Datorren urtean aurrerago asiko gara zabalkunde egiten; iraillean ikastaroa asten danetik, gaztetxoak bizkortu daitezcan.

SARI IRABAZLEAK

Nortzuk jo dabe, euren lantxoekin, aurtengo batzaldira? Ona lanak eta egileak: 1 «Euskal baserria» (Lourdes Arrillaga, Bilbao); 2 «Baserria eta negua» (Julen Sanz Ugarte, Bilbao); 3 «Euskal baserria» (Olatz Larrauri Arregi, Bilbao); 4 «Baserriko polita» (Begoña Bustinza, Bilbao); 5 «Azkatasun sortze» (Jon Mariano Egizazu, Zornotza); 6 «Euskaldun baserria» (Amaia Goitia Sanz Buruaga, Bilbao); 7 «Baserriko etxea» (Klaudio Salzedo Uriarte, Zornotza); 8 «Mendiko baserri etxea» (Jose Antonio Goitia, Zornotza); 9 «Baserria» (Julen Petralanda, Bilbao); 10 «Euskal-erriko baserriak» (Juan Mari Uriarte, Mallabia); 11 «Baserriko pozak eta miñak» (Miren Biotza Erzila, Durango); 12 «Baserri maittea» (Koldo Maillukikoa, Zornotza); 13 «Gora baserria beti» (Kolkol Tremeskoa, Zornotza), eta abar.

Dirurik ez da emon sarizat, gaztetxoan biotzak goizegitik diru-zaletzea pekatu dala diñoe ta. Poesia ezta lurra, ezta satsa, ezpituaren arnas beroa baiño. Beraz, kulturazko liburuak banatu genduzan. Iru sari nagusi geunkazan, iru olerkari txiki onenentzat, Bilbao'ko «La Gran Enciclopedia Vasca» emonda. Nortzuk irabazi dabez iru sariok? Maiko jaunen eritxiz, oneik sarigarri: 1'go, Juan Mari Uriarte, Mallabi'koa —Azku'ren «Cancionero popular vasco»—; 2'garren, Begoña Bustintza, Bilbao'koa —Kardaberatz Aitaren «Euskerazko Lanak osorik»—; eta 3'garren, Amaia Goitia —Bilbao'koa —Athletic ostikolari taldearen edestea—. Saria jaso eban bakotzak bere olerkia irakurri eban. Beste olerkari txikiak be zerbait izan eben: P. Loti'ren «Ramuntxu», Aita P. Lhande'ren «Mirentxu», N. Villoslada'ren «Amaya», Aita Onaindia'ren «Eskutitza» eta abar.

Nun-naikit begiratuta ekiñaldi ederra. Gaztetxo ta enparauen poezia, ta ekitaldiak izan ziran guztiak. Beto onako jaiak ugari.

BARRIAK

APAINKETAK

Ainbat apainketa egiñak dira azkenengo urteotan gure erri onan, baiña ez danak bear-bearreko diran alderdian eta, beraz, apaikeri lez artutzen dira erriar jator askoren tartean. Ez guaz zeintzuk diran bearrekoak edo zeintzuk barik errian ederto bizi litzakenak; ori irakurleak berak esango dau ikusi ondoren.

Azkenengo urteotan Andra Mari eleiza zar erromaniku ospetsuaren inguruan, aurreko aldean egiña dan zeleikadan, kare-beltz edo saltsarrizko zeleikada zabalaren erdi-erdian, margozko iturri apain garesti bat, lau edo bost millo lauerleko eralgiko ei-dira iturri ori egiten, adi irakurle, ez da bertan ura erateko, orretarako goratuago, Uraburu barrenera juan bearko da, edo inguruartan diran arangelara apañatara jo, bertora datorzan txangolari ta ikusleentzat au. Ori bai, apaña ta polita izango ei da. A! ta gaitzera, eurija sendotxu egiten dabenean, merkiago izango dalakoan gagoz, errian edateko daukagun urari baiño irazki (filtro) oheagorik ipintzen ez ba'dautse iturri ortara juango dan urari, lur-margozko margo gorrikakin urtengo dabelako bertako urak. Aldia da lekukorik onena.

Errian dogun Endore jauna, azkenengo urteetan errian egin diran apainketatan jaun da buru izan da eta ibiltari onenatarikoa be bai, orregaitik izan da mendigozale kementsua ta, beraz, dei-egingo leskigu (inbitatu esan nai dgo) geurekin ibiltaldi laburtxu bat egiten, baiña ez bere berebil ederrean edo gure txatxarragoan, oiñez baiño curia sendotxu egiten dabenean, eta badezpadan arraintzalean oski andiyakin, erriko txaide oneik zear:

ERIYOTZA

Urtarrilla onen zazpigarrenan Jaunak Bera-ganatu euskun euskaldun kementsua zan Garai eta Bilbao'tar Andoni, berrogei ta bederatzit urtedun zala, «Vasco» izenordez ezagunau zana. Goyan Bego adizkide ona eta, lagun gaitube aldi samin ontan bere emazte, seme-alaba ta sendikide guztuyak.

BASA-JAUN

OIZ

ETXEBARRIA

Domingo Maiztegi Salogoen soralezaterra, plaentxiarra zan. Gizon gogor, zital, gaiztoa, bere denporetakoen eritiz. Ganboatarren aldeko.

Euskaldunen foruak eta legeak ba eukun euren alderdi on asko.

Gizonaren nortasuna ezagutu eta duintasuna maitatzea eskatu eta agintzen eben. Eta bear ba da ontasun ori aintzat artu eta lotsaz eroaten jakin ez ebalako, Etxebarria'n il eben.

Onelako eriotza bakar batek ez leuke munduan zarata askorik atarako. Baiña Txomin Maiztegi Salogoen ori Cristobal Colon Ameriketen billatzalle berberaren aita ba'zan?

1936 urtean liburu bat agertu zan Salamanca'n «Colon Vizcaino» deitureagaz. Bere egilea: Francisco Melendez, iñoiz Paco Vargas izen-ordeagaz ezaguna.

Aren eritzi eta esanetan, eta ariari bere erara ten egiñagaz, Colon euskalduna izan zan, len esandakoaren eta Juana Larreategi Laskurain'en semea. Eta bere aita era orretan il ebelako lotsatuta, gaizto edo gogorra zalako il ebelako minduta, Salogoen etxeari egokion antzerako deitura artu ei eban, bere abizen edo apellidu on eta jatorrizkoa eskutatuta.

Irakurten dodana esaten dakit. Eta ori idatzita dago.

Etxebarria'n ildako baten semea Colon?

* * *

Oiturak esakera bat erabiltera eroaten dabe. Origaitik erri oneri Markiña-Etxebarria deitzen dautse. Baiña bakoitza bere tokian lagata, bakoitzari berea emonaz, emen Etxebarria bakarrik esatea eta deitzea nai dabe. Etxebarria'ko San Andres. Alaxe da. Oraindik bere jaube.

Ez dauke emengoak zer ikusirik Bilbo ondoko Etxebarria'gaz. Arek, Bilbo ondoan egotearen mesedeaz, ezaupide geiago euki lei gaur. Ez eta sasoi baten bere jaube eta gaur Elorrio'n sartuta dagon Etxebarria'gaz be. Baiña ezaupide gitxi edo geiago, emen dago Markiña ondoko au. Zeatz-zeatz bere ize-nagaz deitzeko eskubidez.

Egia da, antxiñako denporetan, toki onei, inguru guzti oneri, Markiña deitzen eutsela orduko agiritan. Eta izen orretan sartzen ziran Elgoibar, Soraluez edo Plasentzi eta Eibar bera be. Markiña goiko eta Markiña bekoa edo ta suso eta yuso deiturekin, orduko erdal agiritan.

Don Tello Bizkai'ko Jaunak Markiña bereiztu eban eta beste erriak be euren ize-nekin gelditu ziran. Orra ba, Etxebarria, soil-soillik erabillita egokien, bein besteak mugatu eta bereiztu ezkeru.

Ezin esan Markiña irazi edo fundatu ondoren mugen gora-bera beti garbi egon zanik. Munibe zala ta ez zala Markiña eta Etxebarria asarre ibilli ziran. Ala, bein esateko, 1611 urtean, Munibe'ko Juan il zanean, Munibe'tik eta Xemein'go eleizara aginpideko makillak erakusteari laga barik markinarrak joan ziralak.

* * *

Markiña'tik urten, Bariña'ko bide kurutze ingurutan, Elgoibar'erako aldatza asi baiño lentxoagoko lautadan ikusten dogu errialde onetako kalea deitu leikion ingurua.

Lurrez, 17,74 kilometro lautu daukaz eleixate onek.

Esandako lautada au kenduta, leku menditsuua. Alzaa, Aulesti, Galartza eta Unamuntzaga auzoak.

Mendietatik datozen urak, errekatxo garbian, Artibai ibaira doaz, Ondarroa'n itxasoan sartzeko.

Ur garbiak errekan eta eskalluak. Ba dauke entzutea emengoak.

Pelota toki polita. Joko lekua deitu daiogun, idi proba, gizon proba eta antzerakoetarako egoki gertua dalako.

Eskillara taldea igo bear da eleizarako. San Andres.

XIII gizaldian egiña. Barroetatarrak bertako patro.

1570 urtean egindako agiri baten, Txomin Arostegi bertako argiñak bere kontura artu eban eleiza au barrizatzeko zeregiña. Lengo zarra txikiago zan eta 110 oin luze ta 41 zabaleran emoteko neurrietan.

Amazazpi urte geroago beste agiri baten irakurten da lanak aurrera eioazala eta gitxi falta zala eleiza zabaltzeko.

Geroago, Longa arkitektoak egindako tankera eta planoekin, beste argin batek, Martin Lexardi'k barrero barriztu eban. Longa arkitekto bi ezagutu ziran, biak izen bardiñekoak: Lukas. Aita eta semea. Orduña'ko bidea egiten ezagutu zan aita. Semea zan eleiza onetan esku artu ebana.

Sasoi baten lau abade eukitera eldu zan. Antxiñako ermita bat: Etxarte'n, Santa Kutz.

Erri legetan, Gernika'n Bizkai'ko beste erriekin batzean, 28'garren jarlekua eukan.

Baserrietako bizi bidea errian. Origaitik baserri lanak eta Markiña aldeko lantegieta-kuak dira bertako irabazi.

Pelotari entzutetsuen jaioterria.

Oraindik industriak zikindu bagako aize eta giroa.

Bizilagunak millako bat osotzen dabe.

Urte luzeetan bardintsu.

* * *

Etxebarria'ko gertaera bat. Juan Antonio Mogel, «Peru Abarka»ren egille jator eta egokia, ementxe egon zan abade lez 1775'tik Xemein'go parroko egin arte. Emengo euskerea eta bizibidea ikasteko aukerea euki eban. Ez jakin beste aldetik bera ondo ezagutu eben. Emen bizi zan neskazar batek, 1777 urtean Inkisisiñoira salatu eban beintzat, aztikeri, fanatikeri eta sorginkeriz.

Elgoibartarra zan bera jaiotez, Mari Garate, baiña emen bizi zana eta Mogel'ekin autortu edo konpesaten zana. Ez al zitun Mogel'ek ondo ezagutzen orduko beatak? Urte batzuk geroagoko izan zan Bartolome Madariaga, karmeldar frailea, etxebarritarra jaiotez, konbentuko bizimoduan Fray B. Santa Teresa deitureagaz ezagunagoa. «Euskal errietako olgeta eta dantzaen neurrizko gatz ozipindua» idatzi eban. Neskak eta neskatillak zer diran edo zelan bereiztu bear diran eta abar agertzen ditu bertan. Eta erretratu zeatz eta egoki au be egin eban: «Atsoak ba dira ta endemas seme alabak an daukeezanak, azeria oiloa jaten baiño pozagorik dagoz, plaza bazter bateti edo bentana zulo bateti dantzeari begira arrastegi guztian kansau bagarik».

Ziri ederra, Markiña'ko konbentutik karmelita onek.

Argi zalea praille au. Eskutukeriaren arerio zitala. Berak idatzita laga eban: «Obe da alkarregaz plazan, edo sarauban edo bidian olgetia ezkutubetan gauza txarraguk egitea baiño».

Fray Bartolome onen sermoiak gogorrak, zitalak eta zorrotzak izaten ei ziran, Gelditu barik ibilli zan eliza eta ermitetan sermolari. Etorri oneko, erraz eta ugaria ei zan bere jardueran.

Bere liburuaren artean ba dira iru «Ikasikizunak» deiturazkoak. Eta sakramentu eta Jaungoikoaren amar agindueri buruz egiñak. Erderaz be idatzi eban.

* * *

Etxebarria gizon jakintsu eta jator askoren sorleku izan da. Elziztarrak geienak.

Balentin Zubizarreta, karmelita, Cuba'ko Santiago'ko artzobispo izatera eldu zan. Gure denporetan il zan. Teologiko lau liburu idatzi zitun.

Mañozkatarrak be ezagunak izan ziran. 1643 urtean Mexiko'ko artzobispo izan zan bat eta bestea, gerotxuago, Cuba'ko gotzain zala, angoak il eben.

Eta Urrosolo?

Au ez zan Etxebarria'n jai. Aita zan emengoa. Eskribadua. Bere sasoiok bost Aita Santu'k beragaz artu emon asko euki eben, eta begi onez ikusi be.

Santu fama euki eban bizitzan. Mirariak be egin ei zitun. Origaitik, il zanekoxe santu paperak egiten asi ziran. Berak, Santa Teresa zoriondunen artean sartzeko alegin eta eskabide ugari egin zitun.

Gizakeraz galanta, besoen betekoz gizona zala esaten da eta origaitik neskatilletatik iges egin ezinda ibiltzen zala. Burukomiñak emoten ei ditu olako izateak be.

Ez dakit toki batzuetan ba ete dakien Aita Txomin Urrosolo onen abizenik be. Bere arduragabekeriz edo bestien ulertu eziñez, abizena aldatu egin eutsen, italiaratu: Urrosolo zana Ruzzola ipiñi, liburu batzuetan be bai.

Arrigarri ete da besteak guri aldatzea, guk geureak jatoritasunez esan eta idazten ez dakigunean?

* * *

Bakearen pozez ba noa Etxebarria'tik. Laster ikusten da au bete-betean. Burdiñola zarrak, errotak, izatea galdu eben. Gauza bakan lez emengo inguruetan ikusten diran garaixak beriala ten eragiten dautse bateri: Irunbeñe, Iburguen, Lomiño gafiñe... Besterik?

Markiñalde au polita da. Guk, Ondarrru'tik begiratuta, bertako zerua gorri ikusi nai izaten dogu. Ala danetan, errekaizeak brix.

A. ZUBIKARAI

AGVR

Apartado n.º 2
BILBAO

FRANQUEO
CONCERTADO
08/55

GUZTIENTZAT OGIA

Gabon, Eguberri ta Errege egunetako inguruetan, ta egun eurentan batez be, euskaldun danok, Jaunari eskerrak, janari eder eta ugaritsuak izango genduzan. Lebatz, bisigu, turroi, intxaursaltza gozo tabar, geure atsegin eta gozamententzat agertuko ziran andik eta ortik.

Gizataldean ainbeste ta ainbeste dirala janari apur edo ogi zati bago, gosez ilten, guretariko zenbatzuk gomutatuko ete genduan? Alan da be, au egi ikaragarria da.

Joan dan azillaren 5'etik 16'rarte, Ludi zabaleko Janaritzaz Batzar-Autueta bat ospatu zan Erroma'n. 130 ordezkari, buruzagi ta ikasik, laterri guztietatik, gizona añaiko buruauste zar bildurgarri ori aurkeztu ta arduratzeko azterketak izan ebezan. «Laterri aberats eta txiroen artean dagon zulgune ori kenduteko, al bestean beintzat, erabakiak artu bear doguz», autuetaren asieran Itali'ko lendakari dan Leone'k iñoan lez.

Ludi guztiak bear dauan janariari buruz, eta onetatik jasoten diran arazoak zuzentzeko, iru munduetako legegizonak arduratsu saiaturko dira. Ogia bai ei-dago ludian-eta, baiña zuzenbidezko joko obeagaz banandu bear dogu.

Janaritzaren autueta au, aurreratu ta atzeratu diran laterrietako jakitunak askoz lenago itxaro eben. Orra ba, garaia be ba'zan batzar ori egiteko. Laterri batuetako idazkariak ber-berak auxe diño: «Amarreko-urte azken onetan, mundu zabaleko janariak eldu diran maillea baiño berago, ez dira iñoiz izan» Irugarren ludiko lurgintza arazoetan bereiztu dan prantzitar lugin-irakaste dan René Dumont'ek tinko diño beste au: «Edestiko goserik zabalena asi da, baiña aunditza geldiazko legike oindiño».

Zelan geiagok ernarazi? Zelan egin eta sortuazo bear diran ez-usteetarako erabilli daikezan naiko gordetze? Zein bide artu? Zer egin gaurko larruene au zuzentzeko?

Ona emen, laburrez, lengo azillean 130 laterrietako mila buruzagi, arduradun eta ikasiak Erroma'n egin daben galdera-itauna. Baiña, zelagoa da ludiko egoera au? 1972'ngoko alegintza, mundu guztian, 33 milloi upel toneladaraño gitxitu da. Gari ta ur-olo edo arrozari dagokienez, euren urritasuna nabarmen ikusten da. Elikatze larruene onen sorburua zein izan dan erakustea ez da gauza erreza.

Batetik, bere egoera astundu ta gaiztotu dauazan ainbat ondamenti ta oker jasan bear izan ditu gizadiak. Azkenengo urte bi oneitan, uriolak, legoretak eta ekaitzak aundiak izan dira. India, Aprika, Amerika erdikoa ta egoaldekua, Laterri Alkartuak eta Errusi'ko uztak ondatu egin dabez. Gero, arabitarren jokoak sortu daben larruinetik, dirutza aundiak orretan erabilli bearraren ganetik, ongarrak edo kimi-zimaurrak lortzea okertu da. Ta, azkenez, dirutzearen puztu bearrak, erri-arteko arazoan aldakuntzak eta Vietnam eta Sor-kalde-erdiko gudak be kalte aundiak egin ondoren, beste buruaste ta eginbea garrantzitsu onetatik gizadiaren ardurea eruan dabe.

Janari arazoa or agertzen da: Bangladesh'eko Dacca uriburutik, azkenengo ille oneitan, laureun mila gizasemek, gosez, iges egin bear izan dabe, uzta landetara joan eta aorako zerbait batu nai. Dacca orretako kale-garbitzailleak baztarretan itxitako amabikada gorpu-il batu bear izaten ditue goizero. Etiopia'n, azkenengo urte bi oneitan, eun mila baiño geiago goseak il dira, geienak umeak eta zarrak. Datorren urtebete onetan, amar milloi gizaseme gosez ilgo ei-dira, ezinbestean.

Ta geienak, bost urtera eldu ez diran umeak. Bitartean, salneurrieri eusteko, geiegi dabenak erre edo lurperatzen, edo diru asko daukenak alkarri merke saltzen, Europa Baturako Alkartek bere gurin larregia URSS'eri saldu eutsan lez, edo Ameriketako abere-jaubeak, txal eta bigantxak lurperatzen, merkeegi saldu nai ez da. Baiña alderdi atzeratu lan-oiura gitxidunetan, giza-notin baktaxarentzat berreunen bat ale kilo urteko, bizi izateko bearezkoak dan gitxiena kalorietan. Ta, gure artean, uritar bakoitzak upelkada janari ez eze, baita gari, urun, okela, arrautz, arrain, igali ta esneak aukeran.

Giza-zenbaketa oneik baiña, ez daukue gizadiko atal beartsu andiaren ezbearra osorik emoten. Asia'n eta Aprika'n, 2.700 milloek bizi izateko bear diran bero-jaki edo kaloriarik ezin izaten dabe lortu. India-ipparaldeko lurralde batzuetan, giza-aldra gosetiak zugaitzetako orriak batu ta jan egiten dabez, euren gosea asetu ezin eta urrengorako izugarriko txirotasuna sortuaz, eta izparringiak diñoenez, ainbat sendik, eriotzako azken-nekeak ez jasan izatearren, alkatu ta euren buruak ilten ei-dabez.

Bakarta beintzan ezin dogu onetan askorik egin, zerbait, ala ta be, bai. Bata, Jaunari otoi egin, gose diran gaixo orrekin alde. Bestea, larregikeririk ei egin, beste onentzat zerbait geratu dadin, eta iñoiz geure atsegiñekoak ez diranean, uste onez artu beste orrekin gosea gogoan daukagula. Azkenez, Gosetien-Eguna ospatuko laster, urtero lez, eta biotz-andiz, esku-zabalak izan gaitetzat garai orretan beintzat, naita urte osoan be orrenbestekoak egin bear.

Euskal-esakera onek diñoana: «Beartsuari emon zeure ogitik, eta sari ona jasoko dozu goitik».

LETONA

ERRI TA GIZARTE BILBO'KO IKASTOLAK

Oraintsu izan da oraindiño, AGUR'eko atariko lan baten auxe irakurri gendun: Atzo lez gaur be, munduak gizarte-zaletasunera (sozialismora) deia dauka eta dei orreri erantzuten ez ba'dautso, bere galbidea artuko dau.

Urtenbide bikoitz au, Engels'ek agertu eban, orain urte asko.

Irakatsi sakon ederrak alde batera itzi bearra dago, ezin geintekoz orrean gomupen gozoan, beste barik bizi. Sakontasun orreik, geiago barik, ez dabe sortuko gizarte barririk, ez dabe ekarriko mundu azke, hardin ta anaikorrik.

Olako gizartea sortzeko, gizonen benetako alegiña bear da.

Itzi dagiguzan alde batera talde txiki batzuk, baitzokorrak naiz ezetzokorrak izan. Besteok ondo dakigu munduaren geroa geure eskuetan dagoala, geure inguru kontuan dogula eta inguru orretatik urtetan daben eragozpenak aitzu barik. Politikea, al danaren bidea dala, oraindiño inork ez dau ukatu.

Elburuak eta almenak zeintzuk diran ba dakigu, aundi-aundi bat beintzat. Baiña zeintzuk dira bideak eta ekialdiak? Ori da gaurko eztabaidea. Ori argitu gura leukee gizartelariak, ekonomilariak eta errilariak mundu guztian. Len artu ziran bideak eta ekialdiak ez dira balioko. Zergaitik izan dan uts ori ez da argi agertzen.

Baiña ekitaldi oneik eta eurak beteteko daukaguzan erak ba dauke zer-ikusia, eta ez makala, esandako elburuakaz. Beste alde batetik, guri geien ardura daukuna, urren daukagun maillea da.

Guk sinisten dogu gizarte-zaletasuna bearrezkoa dala, eta etorriko dala. Baiña orretarako erri-agintaritzea, demokrazia bear da sortaldeko erririk aurreratuenetan. Hegel'ek irakatsi eban ibilkerari jarraituz, esku-zurien edo jaun-txoen irauketeak eskatzen ebana baiño gorago jo bear da, erri-agintaritzaren bidean, baiña ez ori kendu eta gogorkerizko agintaritzea ezarteko.

Argi dago: Buru-beroa izan bear da, URRS'ko errialdeak gizarte-zaletasunaren barruan dagozala sinisteko. Ez doguz aitzu bearko an lortu ziran ondoren on batzuk, naizta inoz esku-zuriak egin eben lanaren ondorenak izan. Esaterako euren aldi berba-azkatasuna, alkar-tze-azkatasuna, epaile-azkatasuna, t. a. URRS'en, gai orrei begira, atzera egin da eta kondairearen bide onari ez jako jarraitu.

Gizarte-zaletasuna ta galbidea alkarren aurrez ipinteak, beste lenagoko maila batera gakarz. Aurreragoko maila, au, erri-agintaritzaren eta gogorkerri-agintaritzaren artekoa, demokrazia-ren eta totalitarismoaren artekoa da.

Erri-agintaritzea herba onek be gaur ez dauku bere esangurea argi agertzen. Ezin doguz agintarien bideak ondo berezitu, guztiak demokrazia izen eder ori artzen dabe ta: Azke-demokrazia, erri-demokrazia, goitiko demokrazia, erakunde-demokrazia, t. a.

Irakurleak argi ikusi dagian, argitze bat egin bearrean gagoz.

Zer da arri-agintaritzea edo demokrazia gutzat?

Zeatztasun batzuk agertu dagiguzan eta ortik etorriko da argia, or ikusiko dogu erri-bide aurrerakoia zein dan, or ikasiko nor dagon gizarteratze bidean, or agertuko da gogorkeri-zaleak zeintzuk diran eta agintari bakarri nortzuk gura daben, naiz ta sarritan eurak euren buruai «gizarte-zale» esan.

Urrengo idaz-lanetan asiko dogu bide au.

Gaur gauzatu bat esatea naikoa izango dogu, orri oneitan len be esana bera: Diru edo ondasun-arazoa ta Erriaren erabilketea ardatz bakar batetik ateratu egin bear dirala. Orixe da zeatztasun on bat benetako erri-zalea, demokratea nor dan jakiteko eta erri bat noraino erri-agintaritzan dagon ikusteko.

Beste zeatztasun asko be ba dagoz, eta banaka izendatuko doguz urrengoetan.

Euskalerrri'n zear sakabanatuta dagozan ikastolak gure baratzik ederrak doguz, baiña gaur ugaritzen doazen landara ta lorategiak ez dira berez sortuak; erri-zale jator taldeak izan dira, ortik eta emendik, sasiak kendu ta lurrak landu ondoren, azi ernekor au erein dabenak.

Bilbo'ri dagokionean, aspaldiko argazki bat ikusteak, emeko ikastolen sortzeari buruz zerbait idazteko gogoia emon dauku. Emen be guraso talde jator bat izan zan aziereinlle. Inork oorezko aipamenik merezi ba'du, onek dira. Biotza ta gogoia, euskal gogoia, bear dira norbere umeen eziketa-etorkizun obe baten alde eskeintzeko ta ori izan zan orduko gurasoak egin ebena.

Baiña gauzak zeatzago jakiteko, eurretari batzuegan jo dogu. Josune Zearra, Zubiri'ren emaztea, izan dogu bitarteko, Juli Berrojalbiz, Tere Rotaetxe ta beste emakume kementsu batzuk tarteko dirala. Batak eta besteak, telefono-otsean ekin ondoren, ona emen lortu dogun alkar-izketea:

—Josune, noiz eta num sortu zan Bilbo'ko lelengo ikastolea?

—San Nicolas parrokian, Jesús González abade jaunak José Iraragorri'ren eskariari erantzunez, emondako tokian. Andereño bi ta bederatzu ume asi ziran 1957-58'garren ikastaroan. Amaitu zenerako 26 izan ziran.

—Nortzuk dira argazkian agertzen diranak?

—Argazki ori Iraragorri Jaunaren klinikako baratzean egiña da, Jasone bere alabaren urteurren ospatzeko egin zan azkarian. Argazkian ume bat palta da geixorik egoalako ta andik egun batzuetara danak asta naparreriaragaz gaixotu ziran. (Izenak argazkipean).

Barre egin dogu gertaera orregaz eta jarraitzen dogu:

—Zuek, emazteok izan ziñien sortzailleak?

—Ez, nik, gure senarrak izan zirala esango neuke, naizta gero geu geien arduratu.

—Euskalerrri'n ba ete egoan beste ikastolarik?

—Nik dakidenez bat bai beintzat. Urte batzuk lenago Elbira Zipitria'rena, bere etxean, Donostia'n.

—Bai, ori lendik entzunda neukan, barri pozgarria da. Arrezkero San Nicolas'en jarraitu zenduen?

—Ez, urrengo urtean, Agirretxe Aitarren bitartez, Iralabari'ko pranzikotarren lekaidetxean tokia lortu gendun. 40 ume izan genduzan, iru andereño ta laguntzaille baten ardurapean. Berebil bat erosi gendun umeak eroateko; umeak «el inglés» izen-ordeagaz «bateatu» eben eta amaika barre egin gendun «trasto zar a» zala ta etzala.

—Ordutik ona gauzak ondo ezta?

—Bai zera! Ikastolea debekatua izan zan eta neure senarra atzitu, erantzule urten ebalako, baiña gauzak geiago barik konpondu ziran.

—Eta urrengo urteak?

—Urrengo urteak aztu eziñekoak izan ziran; umeak etxerik-etxe erabilli gen-



Umeak: Arantza Foruria Atxabal, Jasone Iraragorri Bigera, Xabier Ximenez Nicholson, Patrik Markoartu Rotaetxe, Mikel Rotaetxe Galiano, Ane Miren Zubiri Zearra, Ander Andia Berrojalbiz, Isabel Andia Berrojalbiz, Nerea Gandariasbeitia Zubizarreta, Itziar Oxenbarrena, Matxalen Fuldain Iturri, Mikol Nicholson Solano, Nerea Gandariasbeitia, Iñigo Muñozerro, Jon Bilbao, Paul Muñozerro, Itziar Mesanza eta Josu Markiegi.

Andereñoak: Maria Angeles Garay eta Agurtzane Alberdi.

duzan, taldeka 6 andereñoren ardura-pean. Juli Berrojalbiz'eri esker lortu genduzan baimenak.

—R. M. Azkue ikastolea izan zan lenengo, legez osotua, ezta?

—Bai, olantxe da; len esan dautzudan lez, Juli'k lortu ebazan baimen orrek eta 1965-66'garren ikastaroa Elkano kalean asi zan; Ia 200 ume, eurretarik 94 «basika» deritxonekoak.

—Bueno, Josune, amaitzera noa, ez zarie makalak izan!

—Ez, ni ez, nik ez dot ezer egin.


—Ezetz? Bai zuk, eta bai argazkian agertzen diran guraso, senide, andereño ta laguntzailleak, talde eder ori osotu dozuen errizateak, gure esker onik beroena merezi dozue, inoiz, zoritxarrez eta lotsa gitxiz, ukatzen jatzuen esker ona. Emetik doatzue baiña, idatzita, erriaren kondairarako.

Arrezkero 3.000 ume inguru dabilta Bilbo ikastoletan, baiña ona emen Juli Berrojal-

biz'ek egindako oartxo ezaugarria: «Bizkai'ko leenengo ikastola ernamin, aretatik gaurko egunetara 17 urte igaro dira, gaur 3.000 baiño geiago Bilbo'n bakarrik. Gure ustez gitxi dira, Zenbat ume ete dago Bilbo'n bertan bakarrik 4 urtetik 14'ra bitartean? Alan da be, guk uste, diru arazoa dala oztoporik andiena, Ikastetxe andiak, onak eta guztiz garesti- ezak ba'legoz, ikasle geiago izango genduke. Baiña orain artekoak aurrera aterateko zenbat neke eta buruaste izan dan, Jainkoak bakarrik daki».

Bai Jainkoak bakarrik eta zuek. Begira orain zuen urratseri esker zer dagoan: Lau-ro'n 830 ume, Santutxu'n 660, Deustu'n 290, Begoñazpi'n 435, Aixerroan 160, San Adrian'en 30, Karmen'en 200, Elkano'n 58.

Zenbaki onek gitxi gora-beerakoak dira. Gitxi dira baiña zeezer bai, ez dozu uste irakurle? Aztertu dagigun guztiok arazo au, ia batasunaren bidetik, ugaritze eder batera joateko almenik erakusten dogun.



KARDABERAZ' TARRAK Euskera il da Erronkari'n

BATZARRA

Aurtengo urtarrillaren 16'an, goizeko amar eta erdietan, izan eben *Kardaberaz'tarrak*, Tolosa'n, euren batzarra.

Iruregei inguru bazkide batu giñan, eurentatik asko euskal-literaturan ondo ezagunak eta ospetsuak, sei Euskaltzaindiek be bai, bakoitza bere maillan. Beste batzuk ara urreratu eziañaren tamala eta gulguz biotzez bat izatea agertu euskuen idatziz.

Pozgarria izaten da gutzat ainbeste adiskide ta lankide an alkartzea eta olako egunetan lanerako indar barria ta adorea artzen doguz.

NORTZUK GARA?

Orain artean be baten baiño geiagotan emon dogu aldizkari onetan *Kardaberaz'tarren* barria, baiña aztukorrak barriro gogoratu dagien eta iñoz barririk artu ez dabena jakitun izan daitezana, zerbait esatea ondo izango da.

Igaz bete ziran berrogei ta amar urte *Kardaberaz-Bazkuna* sortu zala. Gazteiz'ko abade-gai etxean izan zan, eta orduan be gaur Lendakari doguna bera izan zan irasle ta Lendakari: gure D. Manuel Lekuona jakintsua ta apala.

Berrogei ta amar urte oneitan, gorabera asko ta mingarriak izan ditu gure giroak, erri-giroak esan gura dot, eta, jakina, *Kardaberaz-Bazkuna* be izan ditu bere illun-aldiak. Baiña gogoaren indarrak eraginda berbiro berbiro da eta bizi barri au indarra artuaz dabillala ikusten dogu. Berreun eta berrogeita amar bazkide inguru gara, eta ugaritzen diardue bazkideak.

GAURKO GIROA

Tolosa'ko Iparragirre aretoan ondo agertu zala uste dot gaurko giroa. Bide-zabaletako ibilli-bearrak ez euskuen itzi ordurako eltzen eta pizka bat berandu eldu giñean gure berebiltxuan giñozanok. Aita Santi onaindia, Pedro Atutxa ta Garibel Mantrola Zeanuri'koak eta neu. Bidean, arantzean eta onaindia, anantzean gai sakonak eta gogoangarriak aztertu genduzan, jakitunakaz ibilli ezker, beti zerbait ikasten da.

Gu eldu aurretik, D. Manuel Lekuona Lendakariak asiera emon eutsan batzarrari, eta argitaratzeko bere lanak agertu be bai.

Gero Anastasio Albizu'k, Idazkaria berau, Bazkunaren gorabera zertan diran agertu eban. Gipuzkoa'ko Lendakari dan Anastasio Arrinda'k, ango barriak emon zituan, urren nik Bizkaia'koak, gero Tolosa'tar Felipe'k, Araba'koak, eta Ayerbe'tar Inozentziok Naparroa'koak.

Gauzak nai dan beste ondo erata ez dagozalako, kezka pizka bat agertu zan. Beti obetogurean gabiltz, jakina, baiña erakundeak egiten dauan lan txalogarria argi ikusten da, naiz ta iñoz, ain oztopo aundiak diran ezker, esandako egunerako lana ezin gertatu.

Egoaldeko lau eskualdetakoak berba egin ondoren, Berrondo'tar Pedro'k, Gipuzkoa'ko idazle-eskola'ren barria emon eban, Lino Akesolo'k gaurko euskeraren giroa aztertu euskun maixukeri barik eta apaltasunez, Aita Onaindia'k bere lanak eta lanbideak apal-apal erakutsi zituan eta Jesus Gaztañaga'k ikastolen giroa jakin-azo euskun. Itzaldi laburtxuak baiña mamintsuak guztiak.

Gure Juan Jose Garmendia, Bazkunaren diru-zaiak egin eban berba urren. Juan Jose'k benetan maite dau *Kardaberaz-Bazkuna* eta alegin guztiak egiten ditu *Bazkunaren* alde. Editorial'aren barria emon eban berak: amabi liburu dira orain arte argitaratuak, eta urtero ateratzen dira, iñoiz pizka bat atzeratzea izaten ba'da be, bazkideai zor jakezanak. Orainxe artu doguz «*Kardaberaz 3*» eta Arrinda'ren «*Euskalerra ta Eriotza*». Shakespeare'n antzerkien lenengo alea eginda dago eta bigarrena zuzentzen diardu itzultzaile dan Larrakoetxea Aitak. Zeintzuk liburu argitaratu erabagiteko batzorde bat bearrezkoa dala ikusten dogu, eta batzorde orrek bere lana egingo dau.

«San Migel» Liburu-Banatzaillearen izenean egin eban berba, Bazkun onen ordezkariak, eta itaun batzuk egin geuntozan alkarregaz doguzan artu emonak obeto zuzentzeko.

Garmendia'tar Martin'ek *Kardaberaz*'ko ofiziñearen barria emon eban. Liburuak bazkideai korreoz eta ordain ordez bialtzea erabagi genduan Zornotza'n igazko batzar baten, eta orrelantxe egin dau Martin'ek, baiña batzuk itzuli egin dautsoez. Betiko gaitxa da, baiña ori ta guzti be, zertan garan jakiteko bide bat da.

Eta geiago barik amaitu genduan batzarra. Gero geienok alkarregaz bazkaldu gendun eta barriro etxerako bidean.

BAZKIDE GEIAGO BEAR

Kardaberaz'ek, euskerearen alde lan ederra egiten dau eta geroago ta ohea egingo dau: Idazle-ikastolea, urtero argitaratzen diran lau liburu, berbaldiak... eta, batez be, lan egiñaz giroa berotu.

Baiña *Idazle-ikastolara* ikasleak joan bear dabe eta gitxi joaten dira; liburuak argitaratzeko gaur diru esko bear da, eta orretarako bazkideak ugaritu bear dira; berbaldiak egiteko, entzu leak ugaritu bear dira, ez aitzu Luis Egi'a'k esaten eustana: guztiz pozik nengoan Euba'ko berbaldiak emoteko eta ikastaro ori kentzea mingarri izan jatan. Eratu bearko dogu olako ikastaro bat.

Ez ete dago irakurleen artean bazkide izan gura dauanik? Era guztietako bazkideak artzen doguz: euskaldunak, erderdunak, laikoak, abadeak, prailleak, monjak... Gure oiñarriak Euskalerra ta kristautasuna dira eta euskera erritarra indartzen alegintzen gara. Urtero lau liburu inguru ateratzen doguz, aundiak ba'dira gitxiago. Orretarako sarreran milla pezeta eta gero urtero beste milla ordantzen doguz. Liburuen balioa baiño geigo ez da izaten diru au. Iñork gura ba'dau idatzi GAMIZ'eri AGUR'era, eta nik pozik ipiñiko dot Bazkunagaz artuemonetan, eta illero Zornotza'n egiten dogun batzarrerako deia be pozik bialduko dautsagu etorri gura daunari.

GAMIZ

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira astero onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, berekoi, politik naiz ondasungarri, asmoen gainetik daben iritxi-onoeko euskaldun guztiak Euskerazak dituen iritxien, baita onen zerabazkude ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren gilleak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M.^a MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Carretera a Galdácano, 32 - Bilbao-4


ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion gutzirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

Egun auetan, arratsean, lanetik etxeratzean, nolabait ere egun bakoitzak dakarkigun trixturak uxatu naiean, liburu polit bat irakurtzen ari naiz, «El oro del Ezka», Mariano Estornes Lasa'k egiña. Goiko ibar aietako bizi-moldearen berri oparo eta zeazki ematen digu liburu onek, nobelazaleari baiño etnografoari zuzenago dagokion liburu onek, ain zuzen ere.



Askotan biotzak dei egin arren, bein ere ez naiz izan Auñamendi onuntzko ibar maitagarri aietan. Alaz guziz ere, il berria dugun ango euskalki zailla bezain ederra maite-maite izan dut. Eskerrak, mugonez, garaiz, mugitu zela gure L. L. Bonaparte printzea gaur illa datzaren urre pikor ugariak, bere begiz, belarri eta eskuz, jasotzeko. Aintza berari! Gizon ikasi onek belarriak ain fiñak, ain sentikorak izan bear zituen nun bigarren egunerako bertan jaioa balitz bezela mintzatzen zen Erronkari'ko jendeekin. Bere lagunak, berriz, Zegama'ko seme zen K. Otaegi euskalzale jakintsuak, tutik ere ez zuen jasotzen ango izkeratik. Joan den gizaldiaren azken aldera —1865'garren urtean?— antxe ibilli zen, bertako mando baten gainean, elurte andian, otsoak eta artz belarjaleak inguru

ruan zituela, mundu osoa bildurrez dar-dar jarri zuen Napoleon andiaren illoba. Bizitza obegorik eraman zezaken, baiña... Gerroztik ere ibilliak dira zenbait langille il zorian zegoen euskalki bereziaren ondarrak biltzen, Azkue, A. Irigaray, J. Elosegi, K. Mitxelena ta beste asko. Ta norik ez du gogoan M. Mendigatza, Azkue'k ainbat zor dion Erronkari'ko seme jatorra?

Erronkari, artzain-erri! Negu beltza, elurrez xuria, etortzen denean, aruntz eta onuntz dabiltzen artzaien erria! Udazkenean, egurgilleek aitzkora zorrotzekin piñu edo lerrak, dinbi-danba, erruki gabe, lurreratzen dituzten erria! Ta gero erreka lasterren bidez, or daramazkite Zangotza runtz, salmentarako.

Erronkari! Aspalditik, «kainari» edo inguma baten gisa, nere gogoaren inguruan egaka ibilli izandu da alako amets arin, urdiñ, jostalari bat bein edo bein zu ikustatzeko. Orain amets ori itzali da betiko eta ez dut gogorik zure zazpi erri zera egurasteko, ez baidut zure «k-dun» izkera geiago entzungo artzai eta egurgilleen zapaiñetatik. Goian bego! edo Lurpean datza! edo Piztu bedi! Zer opa ere ba dakigu?

Agur Erronkari, Izaba, Uztarrotze ta Garde! Bego il-onean Kattaliñ gaixoa! Benuen asmoa, zu ikustatzean, Erronkari, zure artzai ikasiek eskuz egin eta ormitzen dituzten adarrezko edontzi edo «koporro» bat edo beste erosteko, nere etxeñoaren edergaillu izateko, edo «dantzakorda» edo orrelako beste pitxiren bat. Nere ametsak, ordea, zure izkuntzarekin batera erori dira betiko.

Nere etxeko lan-gelan daukat, ormatik zintzillik, goian aipatu dugun L. L. Bonaparte'k moldaturiko izkuntz-mapa. Orain, Erronkari, bizi zen euskera zuga. Gaur gurutze beltz bat ezarri diot alboan ta letra auk.—«Il da. 1974».

JOXE LASA



eziketa jostailuak eskulanetarakoak irakasketa gaiak

gregorio de la revilla, 1 bilbo-11

Jolasean ikasi, or zure aurrentzako emoitzarik onena

Iñioz deitu izan dautsegu, baiña garai aretan ez ekien eta ez euken etxe-eder izateko aukerarik. Anai nagusia etxe-jabe, ta gazteak al eben bizi-bidea aurkitu bear. Orretan be baiña, zintzo ta kementsu jokutzen ekien.

Ameriketako ogei uri, bat bere ez gitxiago, euskaldunak irasi ebezala, iñioz entzun dozu? Ba ori, egia da. Geienok entzun izan dogu, Durango gainetan dagon Garai erritxoko seme Garai'tar Juan arek irasi ebalá gaur uri aundia dan Arjentina'ko Buenos Aires, 1580'gn urtean, batzun iritxiz Orduña'n jaioa zala uste da.

Ona besteak errezkadan, urteeri jarraituaz:
1529'gnean, Oaxaca uria Mexiko'n, Elorrio'ko semea zan P. de Berrio'tar Juan'ek, Antequera izenagaz.

1541'gnean, Paraguay'ko uri-nagusia dan La Asunción, Irala'tar Domingo bergararrak.

1545'gnean irasi, ta araukarrak jagi ta erre ondoren, barriz 1549'gnean jaso eban, Agirre'tar Francisco euskaldunak, Chile'n dan La Serena uria.

Aldi orretan eta Agirre beronek, Chile'ko Tucuman'en dan Snta. M.ª de Talavera be irasi eban.

1550'gn urtean, Ecuador'en Loyola edo Cumbiana izenak daroazan uria, Loiola'tar Iñaki deunaren senide zan Salinas Loiola'tar Juan batek irasi eban.

1551'gnean, Colombia'n, baiña orduan Nueva Granada izena eban lurraldean, Ibagué uria, Leniz ibarreko semea zan L. de Galartza'tar Andres'ek erasi eban.

Bertan, Colombia'n, 1554'gn urtean, Pamplona uria, Ursua ta Armendariz'dar Pedro'k jaso. Jaun au geroago, Jerena'ko Conde ta Arizkun-Agoste'tarren babesle izendatua izan zan.

Ona emen, Bizkai barria edo Nueva Vizcaya eskualdea sortu ta iru uri irasi ebazana; eibartarra zan au, Elorrio'ko jatorritik sortua: Ibarra'tar Francisco, gudalburu azkarra, ta erakunde barriak sortu ta indartzen berebizikoa. Ona emen iru uriok; Mexico'ko iparraldean ibilli zala erakusten dauskuenak: Durango, gaur be uri aundia; Llerena uria ta San Martin, eta Sombrerete meategiak lanean jarri; 1554'gnean. Gero, 1558'gnean San Sebastian eta 1560'gnean San Juan de Sinaloa uriak irasi ebazan.

1556'gnean, Arabatar Bartolome batek, Colombia'ko La Ramada beste ogetabost auzokidekin irasi eban.

1563'gn urtean or nunbait, Iñaki deunaren loba batek, G. de Loiola'tar Martin'ek, Santa Cruz de Loyola uria jaso eban Chile'n. Gudalburua izan zan, eta Chile'n be agintari. Au be araukarrak il eben.

1560'gnean, Colombia'ko itxas inguruan bizi ziran Caribe indiarren Muzo errialdean, La Trinidad uria irasi eban Landetxo'tar Luis gudalariak, larogei auzokidekin.

1563'gn urtean, aialatarra zan Ozpiña'tar Francisco'k, Colombia'n bertan, N. S. de los Remedios izeneko uria, ogetamar auzokide lagun ebazala jaso eban.

Txile'ra barriz, 1567'gnean, Castro de la Nueva Galicia izena emon eutsan uria, Araba'ko ta Gipuzkoa'ko Abendaiño etxeen jaubetza eukan Ruiz eta Abendaiño'tar Martin'ek irasi eban.

1572'gnean, orduñatar Hurtado de Abeito'tar Martin'ek, Peru'n, San Francisco de la Victoria uria.

Ta azkenez, 1722'gnean, Brasil'en ziran portugaldarren burrukeak eraginda, Zabala'tar Bruno Mauricio ango agintariak Montevideo uria jaso eban. Baiña Uruguai'ren lenengo oiñarriak Ortiz de Zarate batek jarri ebazan 1574'gnean San Salvador izeneko guda-gaztelu bat jaso ebanean, eta onen inguruan izen bereko uria sortu.

Lur-jabetze aren lenengo gizaldian, gure erritarrak sortu ebezan uri oneiz gainera, Ipar, Erdi ta Ego ameriketako erakundean eta Siñismen zabalketan, egin eben lana. Ta, zerbait geiagotu nai dogu.

Venezuela'ko lurraldeak zabaltzeko bear izan zan kemena, indarra ta eroapena, XVIII gizaldian, Aristides Rojas'ek idatzitako idaztiaren izenburuak erakusten dasku: «El elemento vasco en Venezuela».

Ameriketa guztian nabarmendu ziran, eta ango ondasunak, onurak eta bi-ziak zaintzeko, itxas-lapur, edo erri etsaiekin burruka gogorrek egin ebezan. Onetarikoak izan ziran Blas de Lezo, Mateo de la Haya, Eslava, Munibe, Al tzarbar, Zengotita, Bengoa, Zabala, Ganboa ta, beste ainbeste aundi bat.

Ebanjeliketan edo Jesukristo'ren ikazkizunak irakasten ta zabaltzen, ara Gongotzaiña izan zan Zumarraga'tar Juan, Mexico'n, Asteasu'ko Lizardi ta Mungi'ko Ugalde lagun ebazala. Asko izan dira Jainkoaren bidea erakutsi dabenak Ameriketako alde orreitan, abade ta mixiolari, gaur be bai. Baiña lengoeri lotuta, ona emen beste gitxi batuk: Mendiola Gotzaiña, Aburtu'tar Francisco aita jakintsua, ta Cuzco'ko Lartaun'dar Sebastian oiartzundarra.

Lan andia egin izan eben gure eleizgizonok, bertako izkuntzak ikasi ta onein eleztia ta izkera jokoak idaztietan jartzen alegindu ziran. Ta orreian lan onek, Hervás'ek diñoanez, gaurko filoloji lanetarako ta ikuntza arein jakintzarako laguntasun andia emon dabe. Esaterako, Antxieta urrestillarrak, Brasil'en, angoen eleztia ta itzegia batu ta irakatsi ebazan. Nicaragua'n, bertan Gotzain zan Marroquin'ek, Amerika-erdiko izkuntzen batz-beste aldeak aztertu ta agertu ebazan.

LETONA

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

ZAZPI-KALEAK



CASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

Diru-arintzeak edo inflazikoak ba dauka zer-ikusia, eta ez makala, lantegietako diruketeagaz. Iru lekutan batez be agertzen da zer-ikusia au: Dirutzearen larriuneetan, diru-sartzeetan eta «stock» etan.

Gaur gaurkoa dogu arazo au. Orregaitik azterpentxu bat egitea, ondo izango dala uste dot, labur-laburrean baiño ez ba'da be.

Lantegiko dirutzearen larriunea, ordaintzeak egiteko gaiztasuna izaten da.

Diru-arintze edo inflazioa agertzen danean, agintariak lenengo egiten dabena auxe izaten da: Diruaren obaria (interesa) goratu. Orreian eskatzen dan diruak karuago urteten dau.

Baiña ori baiño be estutasun geiago ekarten dauana beste gauza bat izaten da: gizarteko eskuartearen dabilen diru gitxituteko, kreditu-diru gitxiago emotea. Ori ona da diru-arintzea beratuteko, baiña lantegi txikiak edo erdi-maillakoentzat oso kaltegarria izaten da. Onein ordaintzetarako dirua geienetan kreditukoa izaten da, gure artean beintzat, eta kreditu orreik ez emotea, galbide izaten da. Gainera, olako egoeretan zordunak ere nekezago ordaintzen dautse, saltzeak urriago egiten dira batzutan, eta or agertzen da dana batera estualdi guztia.

Lantegi aundiak zeri oratu geiago izaten dabe, gaurko egoeran «zer» ori ain argi ikusi ez arren be. Zor-agiriak (obligazioak), zabaltzea, obariak aundiak diran lez, eziña izaten da. Obari orreik, legezkoak edo legetik kanporakoak, aundiak izaten dira epe laburrerako artzen diran diruetan eta diru-oiñak irabazpide gitxi izaten dau. Beste bide bat diru-oiña aunditzea izango li-

tzake, baiña azkeneko ille oneitan bol-tzearen beratzea oso aundia izan da (orrilletik urrillaren erdira % 25 beratu da); orregaitik aunditze orreik galbide izango litzakez.

Ori gauza ziurra da eta orrexegaitik, urtearen azkenerako irabazte aundiak iragarri ebezan lantegi aundi batzuk, ez ordaintzea edo beste sasoi obe baterako atzeratutea erabagi dabe.

Ba dira lantegi aundi batzuk Euro-diruen azokara urreratzeko almena izan dabena, orreian ordaintzeak egiteko, naizta diru-billatze ori oso karua izan.

Egoera onetan, lantegi askok arrisku aundiko bide bat artzen dabe: Artzeakoak arin eskatu eta ordaintzeak al dan bestean atzeratu edo ez egin. Au, ekarleen eta erosleen lepotik ordaintzeak egin eta gaiztasunen katea luzatzeko bidea da. Onelan, indartsuenak irauten dabe, artu-emon edo sal-eroste asko daukenak ondo dabilte, ordaintzeko era geiago dauke eta erreztasun eta aurrerapen geiago datorke.

Azkenengo au, garrantzi aundiko gau-zea da. Ez aitzu lantegi askok euren diruak obari asko emoten daben azoketan ipinten dabezala, eta euren lanagaz zer-ikusirik ez dauala izaten diru orrek.

Beste lantegi batzuk, osterá, al izan daben kreditu guztia lortu dabe eta ordaintzen daben baiño obari txikiagoaz ipiñi dabez, eta orreian geroko arazoai erantzuteko bidea artu dabe.

Baletzokorrak izatea ez da ba gaurko gauzea, ikusten danez. Diru-arintzeak lantegietan egin dauan eraginía kontuan artzekoa da eta beronak dakarzan ondo-renakaitik, arrisku aundikoa

ORTZE

“SERPICO”

Antxiñan Hollywood'ekoen gai izan zan bat daukagu begien aurrean. Baiña goitik bera gaurkotuta ta barrituta datorgu: Bere eginbearrak betetan estua ta zintzoa dan ertzain bat, usteltasunaren gaizo biziak oratuta dagozan bere lagun eta agintarien aurrean.

Beste au be, bide batez, esan bear ko dogu: Watergate'n naste orrek olako zineak egiteko era ona emon dau, ta usteltasun ori agertzen daben pelikulak ondo saltzeko aldia izan dabe.

Baiña «Serpico», bere ari guztia usteltasunari lotuta euki arren be, atxaki bat baiño sakonago da, ori baiño gorago dago, eta beronen irakatsia azkeneraño eltzen da, eta usteltasun ori baiño barrurago dago, naizta azkena arrigarria izan.

Sydney Lumet'ek daukan pelikula onen egikerea, agirian baiño ez da barria. Oraintxe emoten dabe Bilbo'n bere beste bat: «Orient-Express'ko erailtzea» izen burua daukana, antxiñako ertzain-pelikula barriztu bat au.

«Serpico»ko jazoerak, gogorkeri astunaren menpean dagon New York'en dira beti, betiko ametsik-eza ta apaingarriak Bronx'en, Harlem'en. Uri aundiaren barru-ustelak betikoak dira, Amerika'tarren zerrrenda baltzeko ainbeste «thriller»etan agertzen diranak.

Gizarte ingurua ezaguna da ba, baiña daroan bizitasunagaitik baiño ez ba'da be, gauza balioko lez artu bear dogu.

«Serpico»n, betiko gaia edo antzekoa izan arren be, indar barri bat agiri da: Ikuslea otz geratzen da ta uriko apaingarriak ikustera oitu egiten da. Txarkeria eguneroko gauzea dala, ta garrantzi aundi bakoa, esan gura dasku Lumet'ek. Eta orreri jagokon berezko ta eguneroko gauzea, gizarte guztiak onartzen ditun balioen artean, ustelkeria da.

Alde batean, gitxi batzuk ipiñitako arauak zapaltzen dituenak; beste aldean, beti jazoten dan lez, arau orreik dirala-ta, euren ona billatzen dabilzanak. Erakunde onetan ez dago ezelan be era bietakoen-tzat lekurik: irabaziak geien atereaz besteak atzipetuten dituenak, eta legeak bete-bearrekoak dirala uste dabena, ezin batera ibilli.

Pelikula onetako norki nagusia legearen aldekoa da eta Al Pacino da norki orren egitekoa daukana eta zineko bizidun nagusi onek «Aitabitxia» deritxon pelikulan bere aurre-lanak egin zituan. Gizon onek batzuen eta besteen aurka joan gura dau eta ezelan be ez da sartuko urietako giza-diaren azpi loa loditzera. Urteerea ez da izango ba betikoa, orain arteko erearen aurkakoa baiño. Bide bi geratzen jakoz: Beste batzun antzeko ertzaiña (polizia) izateko, onein bideak artu, ustelkeri ain zabalduan sartu, edo erakundeak ditun era askotatik bat artu eta barrero erakun-dera jo: bere azkeneko egunak, bakez, uri aundiko politika-erakundearen barruan igaroko ditu (onu ori bere ertzain lagun batek emoten dautso).

Eta ementxe dago, ain zuzen be, Frank Sérpico'k eta pelikuleak dakarren barritasun guztia: Polizi lez zoriontsu izateko bide guztiak itxita daukazan lez (iñoz agertzen da pelikula onetan elburu au lortzea galazoten dabenen aurkako salakuntzaren bat), iñor ez lako polizia ezin izan dan ezkeru, «Hippien» izakeraz ta jazkeraz agertzen da, bere bizitza eratu bakoa ta baztertua da, argitasun aundi bat barik auxe erabagiten dau: Pelikula guztian lagun dauan txakur aundi bat artu eta Suiza'ra joan an bere egunak amaitzeko.

Ta auxe da pelikuleak daukan aitu eziñeko azkena: Asieratik gizon baztertugarria izan, bere eritxi gogorraitik onartua ez izateko gizona izan, aurretik bakoitzak bere bideak ain argi izendatuta daukazan gizartekoa izan... eta zelan agertu daikez ain gogo sendoa ta gizonen gainetikoin ainbesteko indarra, jakingarri orreikaz eziña dirudin toki bat gizartean billatzeko alegiñetan?

ZATIKA

EDESTI-AURREA

(JARRAIPENA)

GOI-PALEOLITOS AROA EUSKAL-ERRIA'N

Aldi onetan, jankitza bi bereizten dira Europa'n. Bata, Europa'ko ego-sartaldean kokatuta egoana. Mediterranea itxas ertzean gertatu zana bestea.

Ego-sartaldeko jakintza ori, Franco-kantauri izenez deitua izan da. Dordogne'ko lurraldea da kondartegi ta aztarna aberatsenak dituana. Perigord eta Aurignac'eko kultura-kondarrak oso nastuta aurkitzen dira Euskal-Erri'ko kondartegietan. Beste garaietako jakintzak askoz be garbiago berezituak agiri dira.

Euskal-erri'ko kondartegien artean bat bakarra aipatzekotan, Izturitze'koa aipatu bear. Izturitze'n aurkitu diran arri-langintzak eta azur-lantuak, ia inon be ezin legitez aurkitu.

Esate baterako: Perigord aldatutako edo Gravette izeneko lur-mailletan, amaika milla landutako lanabes batu dira. Oinez gainera, iru millatik gora dira batutako arri-zapalak, eta landu bako arri-epalak ostera, berrogeta amar millatik gora.

Agergarri guzti oneik garbi erakusten dabe zelango garrantzia izan eban Izturitze'k Goi-paleolitos aldian.

Arri-langintzarako gai ofita edo sub-arria, kaurzita ta kalzedonia izenekoak erabiltzen ebezan. Azur-langintzan ez duako hardiñik Europa guztian. Lanabes oneik egiteko gai egokia gertatzen eutseen edur-oreñen adarrak.

Baiña Izturitze'koa ez da bakar gure inguruan. Or doguz Bizkaia'n, Santimamiñe, Lumetza ta Bolinkoba. Gipuzkoa'ko kondartegirik aberatsenak: Aitzbitarte, Lezetxiki eta Urtiaga dira. Ba-dira baiña orraztubarik daukaguzan obiak be: Ekain eta Torre. Altxerri nork aztertuko zain dago. Oneik orrela dirala, uste gabeko barriak asko izan daiegunz laster baten, Euskal-estiaturreatzaz.

Gizakia


Europa'ko alderdi onetan eta garai orretan, Neandertal gizakiaren ondoren, beste gizaki batzuk be agertzen jakuz: Homo sapiens dalakoaren kimua, Cro-magnon izena daroana batez bere. Soñia naiko laburra, aurpegi zabala, bekoki urtena, eta okotztuturra ondo nabari. Gizaki au zabaldu zan Euskal-Erria'n, olan diñosku Urtiaga'ko kondartegiak. Goi-paleolitos onen azken aldikoak dira, eta orren bidez ikasi al izan dogu, Cro-magnon gizakia euskal-aurpegi-kerara joten ebal: betertzaren zuzentzea ta luzetzea, ta matrail-azurren ezutzea.

a) **Bizitokiak.**—Garai onetan gizona arzuolatan bizi izan zan geienetan, ur-ibarretatik ipar-aldera egozanetan edo itxas ertzean. Aukera oneik egitean, egurastiarren gora-berak zer ikusi aundia izan eban. Leen eiztari areik eguzki begia maite ziur. Euskal-Erri'ko arzuol egokienak aipatuko ditugu: «Polvorin», «Venta de la

Perra», Bolinkoba, Santimamiñe, Atxuri, Atxuri, Ermittia, Aizkaltxo, Urtiaga, Aitzlutarte, Ekain eta abar. Leiza oneik mendixketan eta mendi-ibarretan dagoz, eta bizi-toki oneitatik abereen joan etorriak obeto zelatu al izaten ebezan.

Aizi-legorretan be bizi izan zan gizona. Arkaitz gaiñeko urtungunean, zugaitz enbor, adar, abar eta abere-narruak jarrita, dana inguratu ta txabola antzeko bizitokiak egiten ebezan. Onela egindako «etxeak» epelak eta babestuak izaten ziran.

b) **Eiztaritza.**—Goi-paleolitos aldiko giza-semeen ogi-biderik nagusia eizea zan. Abere txikiak eskuratzeko, izkilluakaz jokaten eban; baiña abereak aundiak ziranen, atzipegailuak egiten ebezan: edur-oreña, basa-bei bisontea, mamuta ta abar. Basoetako igali ta landara batzuk be jaten ebezan.



d) **Lan-erak.**—Goi-paleolitosoko gizonak, bere lanak egiteko erabiltzen ebezan gaiak oneik izaten ziran: zura, arria, abereen azurrak eta adarrak. Gai oneik lan-tzeko ebaketa-era berezien jabe egin zan. Arriaren berezitasunak oso ondo ezagutzera eldu zan. Ainbat lanabes ezbardin egin al izaten ebezan arriekin eta azurrekin. Larogeta amasei tresna ezbardin aurkitu dira arriekin egiñak. Azurrezkoak eun eta berrogetamar. Zurrezkoak aspaldi ustelduko ziran. Lanabes oneik aztertuta garbi ikusten da lan-era aurreratu baten jabe egitera eldu zivala. Euren artean beintzat, benebenetako trebeak eta ertiliarriak egozala be esan daiegunz.

e) **Izkuntzea.**—Zein izkuntza erabili ete-eben jakitea ezinezkoa da. Idatzirik ez daukagunean, izkuntzaren kondarrak uts egiten dausku. Aurreragoko gizakiak kiñuka eta orroen bidez adituko zivala uste dogu. Ez da uste itz aozkatirik osotzen ikasiko ebenik oindio.

ARRATI'KO IKASLE TALDE
BATEK

ARGI-ONTZIAK

EMOITZGARRIAK

EREDU BAKARRAK

ALBERTO URRUTIA GOTI

Ribera, 19 (Pelota, 1'en ertzean) 21 14 89 Urrut.

Carniceria Vieja, 8 - 23 56 25 - Urrutizkiña.

Santuchu, 16 - 339491 - 333123 - Urrutizkiñak

BILBAO

MITXELENA'RI

«Zeruko-Argia»n, 705^{gn} zenbakian, Mitxelena'k, «Dama batek jartzea orrenbeste lege» izenburuaz neri zuzendutako idaz-lanari, berandu xamar ba'da ere, erantzuerako dijoakio.

Izen-buru au, «bertso» batetik aterea omen da. Ala ere, izen-buru au ikusita, irrikitzen irakurri nun idazkia; jakin nai bai nun, nik jarritako lege oien berri. Ni legeak jartzen? Iñoi zer orrelakorik!...

Irakurtzen asi nintzan ba, asi... jarraitu... amaitu... ta lengo lekuan gelditu. Ez bai nun lege oien aztarnik ere arkitu! Antxe gelditu nintzan ba, izen-buru orrek nere idaz-lanarekin zer ikusirik dun jakin gabe.

Erderazko oraingo egunkariak etorri zaizkit burura gertaera onekin. Auekin, askotan gertatzen bai zaigu orixe. Izen-buruak irakurri eta idaz-lanak onekin ia zer ikusirik ez dutela arkitu. Kutsukorra ote da gaitz au?

«Ba dirudi kargu hartzen datorikidala Amale, non eta Agur-en (au oben ikaragarria da noski Mitxelena'rentzat) bere aitaz esan nituen zenbait gauza dirala medio», dio Mitxelena'k. Ez det uste nik «kargurik» artu nionik, esan zitunagatik eskerrak eman baizik. Ez da noski gauza berdiña.

Eskerrak benetan eman ere. Egia bai da gure aita eta Erri alde beren bizi guzia eman zuten asko aztuta ditugula! Baiña au zergaitik? Norbaitzuk ala nai dutelako ez al da?

Argi gelditu dedilla ba, Mitxelena'k gure aitarengatik esan zitunez ez niola iñori «kargurik» artu. Erderazko idaztarian egiña izateagatik ere ez, bai baitakit orain, zoritxarrez, asko ulertzeko egin bearra izaten dala au ere.

Egia da bai, h'dun euskera oso gutxi irakurtzen dedala. Min ematen bai dit. H'a erderan naiago dedala; au beti orrela irakurtzen ikasiak gera, eta erdel-idazkeraren arazoa «berena» denez, ez degu ortan zer ikusirik. Baiña nik h'dunak baiño, gutxiago irakurtzen ditu, itxuraz, Mitxelena'k h gabekoak. Len berak idatzi zitunak irakurri nitun, baita artaz idatzi ere. Mitxelena'k ez du itxuraz nik idatzitakoaren berri!

Ariari jarraituz, lengo nere idaz-lanean Mitxelena'ri au nion: «Gizon aietzaz iritzi ori ba'da, nola zabilta gizon aien lan guzia ezereztu, zapaldu, aztuerazi nai dutenekin?» Idatzi zuna ez, geroko jokabidea da beraz, oso gaizki ikusten dedana.

«Integrismo» arazoan diona berriz, ez dakit «iñoxoa» ote naizen, baiña ez det ulertu. Onela dio:

«Ezin erantzun dezaket, gertakizun zitezkeen ezaguerarik ez dudanez geroz.»

Zer gertakizun gero? «Integrismo»arekin bat ez datorren nere aitaren jokabidea, BERAK aitatu zun eta. Ona emen:

«Euskal idazleen Alkartea sortu zutenean, geienen iritzien aurka, bere iritzi onen alde gogor jokatu zun: Alkarte orretan izateko «politiko» ta sinismen berezitasunak ez zivala bearrezkoak; Euskera idaztea naikoa zala.»

Len ere auxe aitatu nion eta len aitatu dedan «celebrekeria» erantzun du...

«Lagun» eta «adiskide» itzen berezitasuna oso ondo ezagutzen det. Izkuntza eta Erri baten alde lanean ari diranak, lagun ez baiña adiskide dirala uste nun dik. Mitxelena'k berak jakingo du «berekin» lanean ari diran oiek, beretzat zer diran! Aitazten ditun «Paulino Gómez», «Astigarribia» eta aien kidekoak? Or konpon!

Argitasun bat: Bere erderazko «behar bezain zehazki» euskeratu ez ditudan zenbait idatzi, ez dira nik itzuliak. AGUR'era erderaz bialdu nitun, ala argitaratzeko asmoz. AGUR'en arduradunei, euskeraz argitaratzea obeto iruditu zitzaizen nunbait, eta euskeratu egin zuten. Ala ere zeaztasun eza nun datzan galdetuko nioke Mitxelena'ri.

Geure arteko «nahastekariak», ez dakit zeatz au nortzungatik esaten dun. Baiña gauzak nastutzen —h gabe— mutilla degu ba bera, bai orixe! «Pintar como querer», auxe ber-bera bai da bera ari dana.

Jainkoa'ri esker, Mitxelena'k dion bezela, «Luzear'ek eta Luzear'en aldamenekoeak, eta beste askoek (baita Mitxelena'k ere) egin zuten kondaira, ez dago aldatzerik. Gertatu dena desgertaraziko duen mutillik naiz neskarik ez baita jai». Mitxelena'ren itzak auk. Jainkoa'ri eskerrak! diot berriz ere. Eskerrak «kondaira aldatuko dun mutillik eta neskarik ez dala jai». «Kondaira aldatu naien» dabiltzanak ba-ditugu-ta! Eta auk ez ote dira Mitxelena beraren adiskide... edo lagunak beintzat? Eta bera?...

«Artetxe eta Artetxe'ren lagunak» etzutela kondaira egin... Ontan zearo bat gatoz. Baiñan orduan «beste bidea» artu zuten askok, ba-zuten, nere ustez, aitzekia: koldarkeria alegia. Baiña, orain, Euskera, Erri maitasuna... aitzeki artu eta «kondaira» ura egin zuten aien lana... izenak... eta guzia aztuerazi... zapaldu... nastu nai duten oien jokabidea, zein aitzeki du?... (AGUR'eko oarra, euskerantorik irakurtzen ez dabeneztat: Amale zintzoak emen aipatzen dabent Artetxe ori ez da iñundik be, il barria dogun Luki aundia. G. B.)

Mitxelena'k, len «kondaira» egin zutenean artean sartzen du bere burua. Nola jardun diteke orain, «beste aukerak?» ZERGATIK?

AMALE'K

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra

BILBAO - Casco Viejo

Tenderia, 15 eta 16

Aztergarriak

ERRIA AGINTARI

Leen Watergate zala, orain CIA'koen jobabide batzuk argituaz, jauntxokeri aundiak agertu dira. Leengo izkanbillak eraginda Nixon'en «burua» jausten ikusi zan. Oraingo onegaz, zenbat jausiko ete-dira?
—Ez da olakorik beste iñun entzuten...

OKERRAK

Bere arauetatik urtenda, Ciatarrak, erribarruko lugun baten joan-etorriak zaintzen ibilli dira. Legetik kanpora. Ta ori ezin onartu errotarren ordezkari diran aldunak.
—Oindioño beintzat, erria nagusi, an.

ONDO ATSEDENDUTA

Amar urteko oporrak lasai igaro ondoren, txinatar «erri» ordezkariak, Batzar Nagusian batu dira, ango gora-berak aztertu ta zuzentzeko.
—Besterik ezean, alkarri naiko zer-esan izango eben ainbeste urteko auzietzaz.

OINARRIAK

Iru angolatar taldeak alde baten alkartuta, ta portugaldarrak beste aldean, artu-emonak izan dabez Portugal'en. Batzar orreatatik aterako danatzaz eretxi ona dago, portugaldar agintariak bide bigun eta zabala artu dabelako.
—Eredu bat ikusi daigun emen. Azkatasuna beti bideak zabaltzen, ekintzeagaz laguntzen ba'jako.

DIRU USAIÑA

Jakintsuak diñoenez, Angola'ko lurraldeak zearo aberatsak dira. Laster baten Aprika'ko errietan aberatsena izateko aiñakoak, baita ludi guztikoen gaitetik be. Burrukan ibilli diran iru talde orrean atzetik, bakoitzaren atzetik, erbeste ko arropalari lartxo. Or dabilte euren eta nainan Europa, Ipar-amerika, URSS eta Txina, beste txikiagoak tar-tean dirala. Baiña Brasil da gogorren dabilena: Portugal'en ondorengoak eta onen izkuntza erabilteak batzen dituala-ta, Angola'kin alkatere berezi bat lortzeko alegitetan.
—Geroak esango dausku, diruok eta asarreak, noraiño joan daitezkan.

BAPEREZ AIÑA

Paris'en orain urte bi Vietnam'go bakea izenpetu zanetik, autsean lotu da. Ipar Vietnam eta Vietkong'gu gudariak Puoc Binh erki osoaren jabe egin dira. Ego aldean Thieu ta onen lagunak arritu jakuz, indar-suago agertu dan gudaketeagaitik. Orretan jakintsuak diñoenez, Thieu orrek eta bere jarraitzaileak ezer ezingo dau egin USA'ren laguntza barik, ortik ameriketarrek gudaketa orretan aritzeko ariskua barriz.
—Kissinger jaunak egin eban bakea zaita jausten doa, orain zer egingo ete?

ALPERRIK

Alperrik izan ziran asmo onak eta berba bigunak: Vietnam'en izkillu bako epea lortzen zala, iparramerikarrar andik joaten ba'ziran. Ta, joan ziran. Joan ez diranak baiña besteak izan dira. Urte bi onetan 11 uri azpiratu dabez izkillu bidez, eta txarragoa dana, 130 mila lagun il dira guda ez dan guda onetan.
—Batzuen berbea, auztaren eztula.

ZATIKETAN

Zortzi mila turki-txipritarrak egozan lotuta engalandarrak dauken Akrotidi guda urrian, eta arat-onantz askoren ondoan, Turki'ra biladuak izango dira. Onaiño gauza zuzena. Ondorena, Turki'tik, illabete barru, atzera Txipre'ra eroango ei-ditue, oraingoan baiña, turkotarren azpian dagon zatira. Au indartu ta eurenz beteteko. Grezi-turkitar arteko burrukea ortik sutu da; grezi-txipritar ba, orretan euren kalterako jokatzen dala diñoeta.
—Makilladak baiña, engalandarrak jaso dabez.

GORROTOAK

Burrutatik sortzen dira, ta burukeri txarrenezag egin be. Bost mila judutar bizi dira Siria'n, zati on bat Damasko'n bertan. Onen bizikerea ez da iñor poztutetkoa. Guda ori dala tarteko, euren getto orreatatik ezin dabe urten, ez dauke urrutizkiñik erabilteko baimenik, ezta egiten dituezan ondasunak besteeri saltzeko be. Ikastola Nagusietara be ezin dira joan. Iges egin nai dabe, baiña zaila nunbait. Orrenbeste diño beintzat israeldarrak, eta Urte-barri asikera kale agertzeak egin ditue mundua zear, or diranen alde.

—Errubakoak geienetan galtzaillerik aundienak.

ERDIKOAK

Zenbat eta uri aundi geiago, ainbat eta txiro geiago laterrian. Lurralde aberatsetako uri aundiak iraungo ei-dabe zati baten, baiña lurralde makalagoetakoak, txirotasunak eraginda laster ondatuta galduko ei-dira. Ala ta be, laterri geienetan, erdi-maillakoak edo «clase media» orretakoak ei-dira geien, irutik bi aiña, ta onen eskuan bear ei-lizake erri-arazoan zuzentzea.
—Erdikotasuna beti da zuzenbidea, baiña indarra beste gitxi batzuk izaten dabe.

JABETZEA

Ba-dau bere garrantzia portugaldarrak darabilen eztabaideak. Langille-alkarte bakar bat ala askotarikoak. Bakarria maite dabenak, ondo dakie, gaitetik oratu ta erri osoa euren jostailu; lau katuren kasketakerien azpian. Orregaitik gizarte-zaleak ez dira bakarraren alde. Obe bai ba-da zuzen jokatu ezker, baiña ba-dakie beste orrean jokabidea ta orrek dakarren arriskua...
—Edena be ona, ondo erabilten jakin ezker edo nai izan ezker.

ZEMAIK

Ipar-ameriketa Laterri-batuen lendakari dan Ford jauna gogor jarri da. Dana konpontzen daben Kissinger jaunak arabitarretz esan ebazan itz gogor batzuk onartu ta bere alde jarriaz. Itz orreik esan nai dabe, arabitarrek arrolioa politiko-izkillu lez erabilten gogor jarraitzen ba'dabe, indarra jarriko dala nagusi arrolio ori lortzeko.
—Au politikea erabilteko beste era bat da, aintziñatik datorkigun «makil-demokrazia» ren umea.

ARI GAIÑEAN

Ari baten gaiñean bizi gara, naizta kon-turatu ez. Ala ta be, alegin guztiak egiten dakigu ari ori meetu ta laster baten eten dadin. Gizonak asmatutakoak geure esku dagoz. Ara baiña: Joan zan Dagonillaren 10'ganean, USA'ko Utah lurraldean eta ondoren Canada'ko Alberta'n, arinketa baten joian sibillo aundi bat ikusi eben. Gero jakinda zer dan. Milla toncladako meteorito edo ortze-arru aundi bat, 15 km segundoko abiadan igaro zana, eta... 58 km bakarrik lur-azaletik gora. Joten ba'gaitu an edo emen, Hiroshima'ko lerkaiak baino kalte aundiagoak.
—Artzen dabenarentzat ez da ohea egoaizeak botatuko teillea burugaiñean. Dana ba, bakoitzaren neurrirakoa.

ERAGIÑA

Austria'n ikasi dabenez, erlak, tximist-indar aundi pean, olako ariak euren gaitetik igarotzen ba'dira. Magnetismoak eraginda zoro antzera jokatzen dabe. Alkarrekin burrukan eta alkar-erailtzen, erregiña bera be erail itoiz.
—Ainbeste tximis-indar artean bizi gara, azterketaren bat egin bearko dogu guk be.

TANGO?

«Goierri bailara...» irakurri dabe batzuk or zear.
—Nork joko ete-dautsa soñua?

EGUALDIA

Legorreta izugarriak ego-aldean Udabarrri goiztarra Europa erdian. Iñoiz ez lako edurtzak, etxeetako sapaia estali artekoak, Islandia'n.
—Laiñoak iparraldean goian geratu dira aurtan.

ZUGATZAK

Eta ingia, batak besteagaz zer-ikusi aundia. Batzuk, iparraldeko erriak, ebagi ala barriak landaratzen, eta ez ei-dabe utsunerik izango. Besteak, ebagi ta dirua jaso ta orkonpon. Itxuraz baiña oneik zuzen. Laster baten zuretik barik, ain garesti dan lau ekifaldi neketsu bear izaten daben zur-morokilletik barik, plastikozko zerbaitetik lortuko ei-da idazti ta izparringietarako ingia.
—Lenago be auzt-narrutik ingira igarotzen, izango ziran txarragoa zala iñoenak; oraingoan be, gai barri onetara oitu bearko gara. Naita oraiñarte betetzen ebazan zeregin guztietarako gai izango ez ba'da be...

DANOK

GOSEA EZEREZTEKO EKINTZA

Dau bere izena, ta 1955'ganean, UMOFC, Ludiko Emakume Katolikoan Erakundeak, zabaldu eban dei baten dau bere sortura. Ogetamasei millo emakume ditu bere barruan, eta onen indarra ez da edozelakoa. Gosea, gaur gure artean dan okerririk gogorrena ta maitasun-ezaren erakusgarririk lotsagarriena, ezereztu, betiko bazartu, or andera oneik artu daben bidea.

Erakusgarri, au diñoskue: «Posporo bat 30 segunduan erreten da. Gure munduan, 30 segundoko, 20 ume gosez ilten dira». Ala ta be, posporo baten bristadan ainbeste ilten dirala entzutean, konturatzen ete-gara larregikeri onen sakotasunez. Ala, beste orreitakoak ete-gara: Jaiotzeko diranak ilteko gertu ba'gagoz, zertan arduratu beste orrean eriotzagaz?

Aztertu daigun ba nun gagozan; ainbestean —aaz— darabilgun gizarte-maitasuna, zenbateraiño ete-da benetakoa gure biotzetan?



Ba-dakizu, Otsail onen 7'gnerako, Ostirala, norperaren aukeraz egingo dogun barau eguna dogu, gose diranen laguntasuna erakutsi, euren egoera negargarriaz gogoratu, ta laguntasun berezi bat eskeintzeko.

Gosea kentzeko, jaten emon, esango leuke edozeiñek. Ez da baiña ori naikoa. Guk emongo dogun laguntasunagaz, zati edo aldi txiki baterako gosea bigundu lei, ez baiña betiko ezereztu.

Aspalditik orretan dabilte emakume jator oneik, ori ta geiago ikasi dabe. Orra ba, zure laguntza au ez da janari utsak areri bialtzeko bakarrik batzen. Ori be bai, etualdi gogorren dagozeneri laguntzeko, baiña beste au da aukeratu nai daben garaipena, txiro ta ezjakin orrei, euren lanetik eta euren eskuz janariok lortzeko irakatsiak eta lanabesak, eta aziak eta ongariak erreztasun aundienaz jabetzeko bideak zabaldu. Ta ona emen eruen ekintzak lerroka:

- 1.—**Laguntza-ekintza:** Ureztatzeko osiñak, kunboak eta albatak; gari, errabun eta beste ale ta barazkietarako azi-bildumak sortu euren inguruan; lanerako abereak, etxerako oillasko, oste-baratzak; golda, traktore, jeep eta tarranta txikiak lurra obeto lantzeko, zimaaur-ongarriak...
 - 2.—**Janari-langintzak:** Arraintza, sare, ontzitxo, tresnak... esate baterako.
 - 3.—**Emakumearen goratzea:** Ikastolak, etxe-lantegitxoak, josteko tresnak, aur-biltokiak, eungintza, galtzetorrazeko lanak, bizi-lekuak, eralgitzen-zaintzeak, babes eta jolas tokiak...
 - 4.—**Osasunekoak:** Azterketa-gelak, gaixotegiak, ezbeartuak-eta indarbarritzeko soinketa lekuak, belbiletako lenengo laguntzak, aurgintza-etxeak, sendagaiak, laguntzaileentzat ikastaroak...
 - 5.—**Gizarte goratzea:** Adiñekoentzat ikastaroak, bizitokiak, agure-atsoentzat babes-tokiak, epetako dirutzak lanbide barriak sortu al dagiezan, ama diranentzat oporraldiak, ur-ekartzeak, tximist-indar aukerak, irakur-batzokiak...
- Orra ba, ez da dana urdailla bete ta orkopon esatea. Ba-da beste onik be ekintza onetan. Zure ta danon laguntasuna bear dabe orretarako. Emon ba zeuretxoa, il onen 7'ganean eta urte guztian eta beti. Orretarako, zeure inguruan dan Banketxe batera joan zaita, ta emon zeure ori Gosea Ezerezteko Ekintzarako dala esanaz.*
- Errez jarri dauskue ba, laguntza bidea; geure alperkeria neurri, ezertako maitasunik dogun erakusteko...*

UBITZA

MONRAY
ARKONDARA-GINTZA
ANDEREENTZAT AZKEN-JOSKETAK

Bidebarrieta, 2
21 43 46 urrutizkiña

Alderdi-zarra
BILBAO-5

E U P I

Aintzaldur daigun Agate deuna, biar da ba deun Agate, etxe onetan zorian utsa beti eukiko al dabe.

Arrigarri dira euskaldunen oitura batzuk. Ez jakin gure menpetasuna erakusten daben edo ta gure orokortasuna.

Kristautasuneko lenengo gizaldietako urratsak barru barruan doguz. Jakiña da, edo siñistea da beintzat, Agate neskatilla Sizilia'n jαιο zala 230 urtean, eta 251'n Catania'n kartzelan il, 21 urtedun, bere gorputzaren duintasuna eta bere nortasunaren azkatasuna zaindu nairik.

Eta guk, euskaldunok, gure fedearen aginduetan, bere betetasunari eta bere zintzotasunari omen egin dauzagu. Bera goratzeko edozenbat toki, eleiz eta ermita jaso doguz gure erri eta basoetan.

Bizkaia'n, esateko, Abadiño, Barakaldo, Gordexola, Natxitu eta Zea-nuri'n ba doguz bere eleiza edo ermitak. Gipuzkoa'n, Antzuola'n asi eta Zegama artean, beste ainbeste agertu leikez. Bardintzu beste errialdeetan. Santa Ageda, Santa Agata, Santabata, Sant'Ibate deituraz.

Lengo zarrak zintzo zainduten eben jai. Ba dira gure siñiskeretan eta gure mitologian egun oneri buruzko gertaerak.

Santa onen espiritua aidean be ikusi izan dogu. Azkue'k diño: Santa Agata egunez, etxeoandrea labakoa egiten ari zala gatu bat agertu ta zati bat jan eutsan. Etxekoandreak uxatu eban esanez: gat ortik. Eta gatuak erantzun: Ez naiz gat, bai Santa Gata. Begira bestela atzera. Eta alaxe,

etxea sutan ikusi eban. Origaitik egun onetan ez zan egiten etxe aretan ez surik ez lixibarik.

San Juan bezperan toki askotan ibiltzen dira errondariak eskean. Egun onetan be bai. Sakristau eta serorentzako eskea egiten zan leku batzutan. Illuntzetik gaberdirarte kanpaiak josten euki eta bitartean kanpai jotzallientzat eskean urten.

Geroago beste oitura sortu zan. Etxerik etxe ta baserrik baserri, lora kantari taldeetan ibilli eta urrengo igandean anaitasuneko jana egin bertan batutakoaren neurrian.

Iñor mindu ez, poztu baiño, aldrak etxe aurrera joategaz eta pozik emon eskupekoa:

Eskaleak jo beza
atea gurean,
sakua beteko du
daukagun artean.

Onelako giroan zer egin ez? Lorak eta loxintzak, adarrak eta ziriak, jolasean lez urtetan dautse bertsolari.

* * *

Etxeko jaunari lotsazko agurra lenengo:

Eder zeruan izarra,
errekaldean lizarra,
etxe ontako nagusi jaunak
urre gorritzko bizarra.


* * *

Etxeko andreari koipea gero, gantzak atarateko:

Etxean eder gerrena,
etxeoandere lerdena,
bidean esanaz etorri gera
esku zabala zerala.

Jatorki Abesbatza

BILBO'N



Eta maitasunari zabaltzen asia dan neskatilleari... jostorratza.

Zapata txuri paperez,
euria jota bat ere ez,
errian damak ba dira baiña
zu bezelakorikan ez.

* * *

Etxeko guztiak artuko dabe zerbait, taldeko buruaren ataraldietan.

Gaur kontzientziak geiago zirikatu gaitu. Premiña geiago. Zabalago gara. Eta origaitik erri askotan bakoitzarekikoa bastertu egiten da, erriko gaixo, estutasun edo zoritxarrekoekin gogoratzeko. Edo ta aurrera eroan nai dan ekintzaren baterako.

* * *

Ba dira oitura politikak Euskalerrian. Errikoiak eta erriarenak. Eta urtean bein aizetara atara eta astiñaldi bat emotea komeni diranak. Askotan, azala kenduta, irakaspide andi diralako.



Oitura onek jarraitutzen dau oso denpora luzian, gure aita ta aitonak ere onela ibiltzen ziran.

ZUBEGI

Otsaillaren 2 garrenean, goizeko 11,15 etan, JATORKIK eta ANDRA MARI dantza taldeak ekiñaldi bat eratu dabe, Buenos Aires deritzan antzokiak betekada galanta izango dabela uste dogu. Ona emen AGIÑA abestiarentzat Andoni Arregi zuzendari jatorrak asmatutako olerkia.

Amiltoki izugarrian
an, goi goien, bakarrik
orri txiki, itxura zatar,
adarrak okerturik,
etsasiaren aurka ernai
aspaldi antxiñatik,
zuk, agiña, zuk daukazu
guretzat zer esanik.
Makur
zagoz
baña
zutik.

Beste zugatzen aldean
ez dozu edertasunik,
zure itxura makalean
ez zer erakutsirik.
Indartasun sakonagaz
erraietan bizirik,
zure iraukera luzean
bai, zer irakatsirik.
Ixil
apal
baña
zutik.



Erosi gure diruakin (1857)



BANCO DE BILBAO

Bai, esana aldatu egin dogu.

Eun urtean bizi-izatek ikasgarriakaz jabetzeko aukerea izan dogu ta Banketxe batetik itxaron daikezuna be askoz obeto igarri.

Gure errialdean norpere dirua lenengoz agertu al-izan eben Bankeetxeen artean ezagun gara.

Erosi diru barik (1972)

Eta erritarren jokaeran, gure Epedun-Txartel onek, aldaketa aundiak sortu ditu.

Bizitza jatorragoa ta errezagoa zuri eskeintzeko eten barik diardugu.

Gure bezeroak aurrengoak izango ez ba'dira, zertarako gagoz gu emen?

ARRIENAKO

BARRIAK

Antzaola

ERIOITZA

Urtearen azken aurreko egunean, aua da, abenduaren 30'ean, agur egin zigun bere irurogei ta amasei urterekin Jaurregi'tar Antonio euskal-zale jator eta sutsuak, denpora luzian geixorik egon ondoren agur egin ere.

Gaixotasun makur aren mende zala ikusirik, esan oi zuan: «dein bi bider espetxetik irtena naiz, baiñan oraingoan ez naiz irtengo». Baiñan ala ta guztiz ere ez zenioten arpegi illunik ikusiko, ez orixe! beti irripartsu, itxaropenaren irri-parra noski. Bein da barrero esptxeratu arren, bere aberriaren itxaropena ifioiz galdu etzuan bezela, orain ere naizda geiago ez zala irtengo uste, bazekian ordea aberri guztien aberria irabazia zuela.

Gabon-zar egunez ospatu ziran bere illeta elizkizunak eta bertan ba zan jenderik asko, lagunak nun nai bai-zituan. GOIAN BEGO!, eta bere emazte Larri-naga'tar Simona eta bi semei nere samin-agurra berritzen diet.

EUSKAL JAIALDIA

Bein da berriro «ARROLA» mendizale bazkuna aitatu bearrean arkitzen naiz, bere ekintzak aurrera eramateko —eta ekintz oiek ez dira mendian mugatzen— alakoxe euskal jaialdi bat antolatatu zuten. Ilbeltzaren 4'an ospatu zan eta maristena izandako elizatzuan ospatu ere. Bertan parte artu zutenak Xabier eta Lurdes, Pantxoa eta Pello, Yon Bergaretxe eta Oiarzunak taldea. Jendea, ez zan nekatu, jaialdia erabat, osorik gustatu zala esan bear. Xabier eta Lurdes'ek aspaldiko lanaren ondorioa eraraktusi zuten, Pantxoa ta Pello berriz asko gustatu zirala esan bear, beren abesti gogor eta batera goxoak diranak jendearen artean berriz entzuteko egarria sortu zuten, eta Yon Bergaretxe?, gazte onek duen etorkizuna argi ta zabal dala esatean ez det uste oker ibiliko naizenik, azkenik Oiarzunak bizkaitar taldeak alakoxe abesti zar eta berriak tartean ziralarik, txalo ugarien artean, jaialdiari bukaera eman zioten.

Bein da berriz «ARROLA»koak erakutsi digute zeintzuk diran, jaialdi bat antolatzerakoan ere ez dirala motz gelditzen eta ba dakitela jakin gauzak antolatzen. Bejondaizutela! eta jarrai aurrera, zer egiñik arkituko dezute-ta.

MATXALEN

Elorrio

GAZETA'KO JAIK

Erregeak ospatzen dira Elorrio'ko auzuna jator onetan, eta aurtan Urtarrillaren lautik zazpira izan dira benetan alaitsu eta euskal giro ederrez ospatu duguz.

Illen 4'an (larunbata) gabeko bederatziretan asi ziran, musularien txapelketeagaz, 44 bikotek jokatu giñun. Sariak olan ziran:

- 1.^a—3.000 lauerleko ta txapela.
 - 2.^a—1.500 lauerleko ta txapela.
 - 3.^a—700 lauerleko ta txapela.
- Zorionak irabazleeri.

Illen 5'an (igandea) amarretan mezea, eta ondoren «moto-cross». Auxe kirol au ez da neure begirako, eta uste dot euskaldun geienori ez jakula ondo jartzen, motor'en zarata gogorra inguruan ez dalako ez atsedengarri, ta gitxiago osasungarri. Onegaz ez neuke gura ifior salatu antolatzaillen artean, baiña baserri ingurua oba da zaindu, aldantik ondoen, eta ez landa, solo ta bideak lupetzez bete, itxura txarrean ipiñi. Ez ete daukagu neikua aize-garratz edo «kontaminaziño» Gazeta'ra eldu baiño len?

Gabeen, bederlatzi terdietan, euskal jai eder bat izan zan txadonatxu barruan. Abeslariak Gontzal Mendibil, Saberrri ta Oiarzunak taldea. Gontzal'ek «Nora goaz» eta beste abesti eder batzuk abestu ebazan.

Saberrri'k, abesti zar bat, «Zibillak esan daude»; beste bat, Gernika'n gudaaroen jaso zan gertaera bat. Azkenean beste abesti bi (parkatu egidazue euren izenak emen ez azaltzea). Oiarzun'en abestiak: bat, «Ikastola»; bi, Zubero'ko abesti zarrak, eta azkenez, «Mari Migel» abestia, izan ziran.

Erregeen egunean, an bildu giñan jaiari bere gatza emoteko, ta poliki emon geuntsan otz aundia egin arren. Amabietan meza ederra, Gallastegi'tar on Felix'ek emon eban, Berrio-Otxoa abesbatzakoak abestu eben, benetan euren trebetasuna azalduaz, abesti ederrak. Abots soliak eskeñi euskuezan Anzola'tar Sabin'en zuzendaritzapean. Meza erdian Mazorriaga'tar Koldo'k bere bertso polit batzuk abestu ebazan, eskariak egiñaz Gazeta'ko ildakoen alde. Meza amaitu ondoren, Elorrio'ko iru txistularik (Txomin, Ane Maite ta Itziar'ek) ekin alde bat egin eben euren kemen guztiagaz ta neska-mutil gaztetxoak dantzatu. Arratsaldean umeen jolasak, ta askari-aparia.

Neretzaoko poztasunik aundiena, ango euskal giroa izan zan, danok euskeraz argi ta garbi geure itzkuntz ederrak bere bidetik jarraitu daien.

ETXEBARRIA'TAR ANE TA SIMON

Arratia

IURRE

Andra Mari'ren txadon edo eleizeak berokia, jesarleku barriak eta beste zeren batzuen barritzte bearra izanik, araso zereginisau au buruturik ikusi al izateko, ortarako osotu izan dan bartzordearen idazkiak, errian bizi ez diran aibat seme-alaben etxeetara eldu dira, iritxi dira, diru-laguntasuna eskatzera.

Bear daunak bear dau-ta, batzordearen asmon eta eskari apalari uko egingo dautsan Iurre'ko semerik, izango danik ez dogu uste.

Andra Mari'ren eleizan bateatu ta bere itzalean azi giñanok, eleizearenak ba'gara, eta bertan bateatuak izan giñanona txadona, at'pe artan guztiok izan bear genduke, eskubidez, bardintsu.

Gure mendietan naiz aruntzago, alde batean naiz bestean il ziranen oroimenez burua itzalez makurturik, ildakoen anai-arreba, sendiko ta errikideren batzukaz izan dodan izketak eragiñiko biotz-bultzadaz eta gogo onez, erriarren eta batzordearen barren-arari —kontzientziari— zuzentasunaren eskea egitera natorkizue.

Egin ziranak egiñik dagoz-eta, begoz aspaldiz dagozan lekuan. Baiña, jaunok!, ez al ziran ba, Atutxa, Soloeta, Urkidi, Ogarrá, Alzibar, Zautua, Urkijo... Iurre'ko txadonean bateatuak, kristautuak, Jainkoa'ren semeak?

Ipiñi daigun bada bularrean eskua, aztertu barrua; eta biotzak taupadaz dirauskun erantzuna ekarri argitara. Batzorde, eleiztar eta erriaren erantzunaren begira gara.

* * *

Astegun bakoitzaren zortzi lan-orduak geienentzat luzeak eta astunak. Jai egun eta udako oporraldiak laburrak. Urtearen amabi zankadak motzak, batez bere adin batera iritxi edo eldu geroztik. Barearen ibilkeraz leunki, bigun-bigunik datorkiguzan urteak, uso egazlaria baiño aisago, erreago, azkarrago doakiguz gu oartu, konturatu gabe. Oraingo asi-barri omi be, jan dausagu amabi zatietatik bat; berak bere, egin dausku olakoren bat. Eta motz-laburra izango dalarik, sagarretik eta matsetik adata ateraten dogun neurrian, zozzer onurakor arera ta kendu bear geusko, gure izatea berbiztu ta erriaren odola barritzatzeko.

Nondik eta zerekin asi: Sukaldetik! Erri-egutegi atseginkorakin sukaldia edertu, egunean eguneroko orria irakurtzez ez asperu, neketu. Ezpantetan bits eta andur erriko gartsu agertu, euskal aldizkari ta beste zerik larritasun larrian bizi dirala jakin eta erdera osasuntsuari bi-iru milla lauerleko emotea... bits eta andurrezko lozorroan bizi diranen zentzuna. Ea ba, begietan dogun lausoa osatuten dogun, urte ontan.

Gudaritzan, ezkontzaz naiz beste zereginen batzuekatik etxetik eta erriatik urrutian diran semide ta aizkideai Aitor'en izkuntzan idatzi. Eta euskal-jaietan entzutez, ikustez, egitez esku ar-

tzen dogunean, «entrada, billetea, comisiñoa, publikua, boz-artifiziala, espetakuloa, manifestaziño inportantea...» euskeraz esaten ikasi. Itz zatarrak jaia atsiu besterik ez dogu egiten.

LANDAJUELA'TAR A.

BASA-JAUN

Galdakano

IRAKURGARRIA

Aldi andirik ez dala, Onaindia aita agurgarriak argitaldu barri daben «Eskutitzak» idazti bikaiña irakurri dogu astiro-astiro. Berak idatzitako idazti guztiyak lez, astiro ta arretaz ausnartzea ondo irabazita dabelako idazti onek.

Ez dakit Jakoba aita idazle gongo orrek artu dituan eskutitzatik onenak aukeratuta argitaldu dituan ala ez, baiña dakidana au da, nire ustez beintzat, euskera garbi ta ulerkor txukunean idatzitakoak dirala, jakitunago zein gitxiago dakigunok atsegiñez irakurteko tanke-rakoak. Eta jakaiña, eskutiz orreik irakurri ondoren, gure barrutik sarritan bultzatu gaituan kezka sortuzan da: Orren ondo idatziten dakien idazle batzuk, zelan izan ete lekikez ain aldakorrak irakurlearentzat... orain idatzite-rakoan! Baiña ez onerako.

Gizona, gitxi edo asko, beti ikasten dagoanez, ez litzake arritzekoa izango, idazle orreik, lenago ondo egin dabena be, aurrerantzean obeto idatziten ikustea. Baiña eurotariko batzuk, urtean baiño urtean, euskera mordoilloagoa, makalagoa ta beraz, euskera-antz gitxiago daben zerbait idazten ikusteak tamalez betetan gaitu.

Gitxi dakienak, euren neurrian idatzitea, gogo onez eta gure euskeregaitik zerbait egitearren... gure agurrik samurrena merezi dabe. Baiña ondo idatziten jakin eta atzerri-zuriketegaitik, edo benetako erri-zaletasunik nabaitu ezin dabelako, izkuntza gaizto ta mordoilloan jokatzen dabilzanakaitik, zer esan?

Baton batzuen artean jokabide igarri erreza ikusten da, euskera garbia zergaitik nai ez daben —nik, oiek, katalajoakin bere ezin ditut ikusi— euskera danean, izkuntza garbiko Sabindar lana ikustean, ezin dabe onartu orren usaiñik daukan ezer, naita maitasunetik datorren euskera izan. Orrenbeste, il baiño lenago, argi ta garbi esan eban Azkue euskaltzale gorenengoak: Euskal idazle guztijok batera baiño Sabin'ek, berak bakarrik, geyago egin eban euskeregaitik, eta danok dakigu zergaitik.

«PRINCIPE DE VIANA»

Guztiz euskeraz idatziten asi ziranetik geyago, napartar aldizkari bikain au, al neban guztietan eskuratzen neban, baiña ez illero edo ille-biero, ezin zalako nai gendubanean Bilbo'n erosi. Gaur, eskerrak «Principe de Viana» onen arduradun dan Garde'tar Markelin euskal idazle trebe ta apaiz jatorrari, igaro diran Azil eta Dagonilleko aleak eskuratu dogul.

Azkenengo urte onetan bezela, erribideko euskera garbi ulerkorrean idatzita yatorkigu, gure izkuntzea benetan maite daben edozeini atsegingarri izateko eran. Benetan txalogarria izparrin-gi onek Naparroa zabalean euskera-alde egiten diardun lana! Zenbat ikasi bear daben Araba, Bizka ta Gipuzko'ko Aldundegikoak euron anai naparrakangik! Sarritan esan da, ez dago itsu itsuagorik ikusi nai ez dabena baiño, ta alantxe dala esan geinke, guk dakigunez, lenengo aipatu doguzan iru Aldundegiak euskereregaitik egiten daben lana, oso urriya iduritzen yaku-ta.

Aspaldiz ezagutzen ba'gendun be, Garde jaunak darabilen lan bikaiña, ez genduban arpegiz ezagutzen bera, igaro dan Azillean Zornotza'ko Larrea'n, Onaindia aitaren omenez batzartu gintzazan arte. A zelako poztasuna artu genduban, beste askok lez, bera besarkatuzan! Baita, benetan pozgarria izan zan guretzat, batzar ortan, Intza'tar Damaso lekaide urtetsua ta idazle goren-goaz egutu ta agurtzea! Ene besarkada

anaikor bana, batez be bi orrei, ta bertan agurtu genduzan guztiei, orain artean bezela, edo geyagoan, lanean iraundera dagiyen.

Getaria

Urte-Berri egunean, Getari'n, erriko erre-tore Telesforo Epelde jaunari agur egin diote. Ogeita sei urtean bertan, zenbat lan egin dun. Zenbat itzaldi? Zenbat aitorketa? Erri guziak oso maitekiro ezagutzen zun, eta orra orain zartsaria el zaionean Getari'ko erre-toretza nola utzi bear izan dun. Egun zoragarria, egualdi ederra ta bildu ziran erriarrak eliz barrutian, negar malloko ixuriaz agur egin diote.

Getari'n bataitu nintzan. Getari'n bizi ogei urtean, eta guda madarikatu arek eraginda irten gendun. Arrezkeroz, urteak ugari joan dira, ta makiña bat ur jetxi ibaietatik itxasora.

Nere ezaugarritz, lenengo erre-torea Don Ramon izan zan. Ni ain gazte izanik orduan, amari entzun geniona jarriko det, nola Don Ramon arek pulpitotik esaten omen zun: «oraindik munduan ikusiko da, zugaitz baten tontorrera igeska joan gizona, ta emakumea bera arrapatza igo...» Gaur ikusi ikusialakoak eta arrzoi eman bearrean gera.

Gero, amasei-amazazpi urte genduela, erre-tore berria azaldu zan, Don Nikasio Larrea, Azkoiti'ko semea. Gaztea ta argia. Onk errian egin zitun lan ikaragarriak ez dira ifiorekin berdintzekoak. Errepublikan denporan gauzak estu ibilli ziran bazter auetan eta eztabaidak nagusi amaien artean. Gertakizun minkorrek guztiztat eta geroztik ordainak guda batekin jokatu ziran, batzuk garaille eta besteak gaitzaille. Kristauok, gezurra dirudi, izanik, nola leiken beti alkar ezin-ikusirik bizitzea. Bekaitzkeri-inbiria omen da gaitzik okerrera, eta ez da gezurra.

Azkenik, erria utzi bearrean izan giñanean, ta urrutietara joan, erre-tore ura Kuba'n il zan 49 urtekin eta an dago Habana'ko iltegi-an, Aldasoro Tolosa'ko gizon aundi ta jator aren alboan.

Urrengo erre-torea, Ameriketan nengoala jakin nun, beste Azkoiti'ko seme bat izan zan. Onen izena Sodupe aita, gaur Donosti'ko Eliz-nagusian dagona. Baiñan, onk denpora gutxi egin zuala esan zidaten eta ondoren, beste bat jarri zuten. Une ontan ez det gogoratzen beste onen izenik. Baiñan onen azkena tamalgarria izan zan: Bein, altare nagusia apaiztzen ari zala, lurrera erori zan eta ondoren il.

Azkenengoa Telesforo aita, ta gorago esaten detan bezela, 26 urte ondoren, orain utzi dio erre-toretzati Getari'n.

Goiseko amaiketari, Urte-Berri egunean, eliza bete-beterik, alkate jauna Bazterretxea bere lagunekin, berdin Kofradi'ko lendakari Eutimio Alberdi ta lagunak, meza ematen Gotzai jauna, alboan Emeterio Isasti apaiza erriko semea ta Bikario-nagusia, Telesforo Epelde bera une ortan erre-tore oraindik. Ta meza erdian dantzariak agurra Jaunari.

Emeterio jaunak, besteak bezela, ikaskizunak Baiona ta Paris'ko apaiztegi-tan bukatu zitun. Orduko apaiz ikasle askok, utzi egin zioten, gero, apaiz izateari, baiñan gure erri-tar onk, jaramonik egin gabe alkar-buruketel, aurrera jarrai zun, eta apaiz izatera eldu. Arrezkeroz, ze argi ta ezaguna dan! Izan ditu etsaiak ugari... baiñan guztiak txepeldu ziran...

Ez du Telesforo jauna Getari'ko erriak aztuko, ta gaur bere errian, Zarautz'en bizi danez, ez zaizkio getariarrik noiz-beinka ikustaldiak egin gabe geldituko. Ifioentzat baiño gogoangarriago neretzat gertakizun auk. Getari'ko erre-tore jaun guziak gure etxean gaithean bizi izan ziran. Oraingo erre-tore berria, Eizmendi aita degu. Bertoko organista, ez det ezagutzen, naita alkarrengandik, urtean bizi. Urte askotarako, jauna!

Orrela ba, agur egin zioten zarautzar gizon aundi ta jatorrari, ta onk errian egin dun ona ordaintzea ez da erreza izango getariarrentzat. Artu bitza nere eskerrik be-roenak.

E. OZKIN

URRETXU'N

Bergara eta Azkarraga'tik nator Urretxu'ra.

Azkarraga? Bai. Zegaitik Descarga deitu Azkarraga danari! Ain zuzen be antxe asten da Urretxu. Urretxu edo Urretzu. Urratoki esan gura ei dau. Orrela obe litzake bigarren deitura. Baiña, gelditu yakonagaz jarraitu daigun.

Erri otza neguan. Urola'k lañoa sarri. Urola onek oztuten ditu, ain zuzen be, Zumarraga eta Urretxu'k euki leikezan beroaldiak.

Komeni ete da erri biok alkartu edo batzea? Baiña eta zeñen mesedean? Betiko akatsa. Gaitz bata bestearen bardintasunez batzea. Gaitz erdiz erdi osotzea. Erdian, len esan dogun lez, ibaia lañoitsu. Kontuan euki tren bidea egin zanean, Urola orren bidea aldatu egin bear izan zala eta Zumarraga'ren mesedean ain zuzen be. Orra asiera min-kor bat.

Gaur, jatorrak ez diranak, bertakoak ez diranak ezin sifistu dabe zelan Zumarraga'n lan egin eta Urretxu'n lo egiten daben, txiki-toan bietan ibillita.

Santa Luzia'k eltzen diranean be, ezin dira konturatu Urretxu'k baimena euki eta zelan egiten dan Zumarraga'n peri ori, nai eta Urretxu'ko eskubidean garbi esan diruz zigortua izango dala Zumarraga'n saltzen dabena.

Zumarraga'k lanaren indarra dauka bere alde ten egiteko, indar barria. Urretxu'k jaubetasunaren legezkoa, indar zarra. Gogoiatu Urretxu azpaldietatik datorrela erri nor-tasunez. XV gizaldi aurretik Gipuzkoa'n egozan 26 errietako bat dala.

* * *

Ba nabil oargarriak artzen. Sei milla ta erdi lagunetan. Bizibideko urteerak: Milla ta berreun lagun langille Zumarraga eta Legazpi'ra.

Etxeak: Barri batzuk egin arren, oraindik premiñak. Errosteko alik ez da igarten.

Ura: Denporetan neuruta.

Eskolak: Ume txikiak, oraindik larri. Bigarren mailako irakaskintzan Institutua dago.

Bertan, ia bosteun ikasle Legazpi, Zumarraga eta bertakoen artean.

Baseri etxeak: 32.

Lurrez, 15,34 km.² 7,87 mendi eta solotan.

27 lantegi. Euren artean 700 langilledun bat. Beste bat 240'koa eta irugarren bat 170'gaz. Besteak eundik berakoak dira. Euron artean bederatz lantegi amar langillera eltzen ez diranak. Burdingintza dabe geienak oiñari.

Eleizaz, parroki bat eta pasiotarren eleiza.

Iru-lau bidar barriztatua da parrokia. XVI'eko kutsua. Mendiaraz'ek egiñiko erre-tabloa. Torrea geroago egiña. Barrokoa, Lenizera azpeitiarraren egikerako.

Pasiotarrena, Pagota'n, oraintsukoa da. 21 urte egin edo zabaldu zala.

Ermitek: Santa Barbara, emen be Mendiaraz'en aldarea, eta Kurutzekoa, kanpo-santu egalean

* * *

Arlote bat: bera ta andia.

Maitasun bi: ama ta Euskalerria.

Iru kurutze: amarena, erriarena eta berea.

Ez ezagun bat: dirua.

Pentsamentu gustiok datorkidaz, Urrutxu'ko plazan, Iparragirre'ri begira. Jose Mari Iparragirre eta Balardi, jakina.

Arlotea deitzen dautsagu gure berbetan ibiltari setatsu eta ardura bakoari.

Borondatez ibilli ete zan Iparragirre?

Amalau urtedun zala Madrid'en egoan, ikasle, eta andik iges eginda Zerain'en agertu zan. Beriala karlatar gudari, eta zauri ugari.

Emeretzi urtedun, Frantze'n egoan. Ogetak urteaz Itali'n, geroago Austri, Alemani eta Suiza'n.

Naiz dala Italia orobat Frantzia bietan billatu det anitz malizia.

Ikusten ba det ere nik mundu guzia, beti maitatuko det nik Euskalerria.

Ogeta-amaika urte eta Londres'en ikusten da. Andik Bilbo'ra dator eta emendik Madrid'era.

Ezin bere lurretik kanpora bizi. Tarte bat billatu orduko keixu igarten da, urduri, emen zerbait billatu edo ta zerbaitetan arduratuz bizi nai izateko. Baiña...

Kartzelatik atera, fiskalen etxera, abisatu ziraten joateko beriala.

Kartzelatik atera, fiskalen etxera, abisatu ziraten joateko beriala.

Kartzelatik atera, fiskalen etxera, abisatu ziraten joateko beriala.

Kartzelatik atera, fiskalen etxera, abisatu ziraten joateko beriala.

Kartzelatik atera, fiskalen etxera, abisatu ziraten joateko beriala.

Ez etorteko geiago probintzi onetara, orduban artu nuen Santander aldera

Orra barriro bidean, ibiltari Santiago'ko erromes ba'litzan lez, Santander, Asturias, Galizi eta Portugal zear dua Eta gero Ameriketara.

Urrungaitza an. Erri-miña. Ezin arnasa-rik artu erbetean. Ezin bizi. Alegiñak an irabazpide bat billatzeko. Alperrik. Ez dauka kemenik orretarako. Arlotea da. Eta bere lagunak ordaintzen dautse etorrerako bidekoa.

* * *

Pobreak ifioik baiño sakonago sentiduten dakie zoritzardunen ondua. Ameriketa'tik etorri ta laster Madrid'en agertzen da. Gure itxasoan irureundak lagun itto ziran 1878'n. Madrid'en euren alargun eta umezurtzen alde egindako jai baten ara bera «Agur Euskalerriri» kantatuz angu euskaldunei biotzetan ikutu eta negar eragiten.

Bizitzako gora berak. Erbesteant bizitera beartutako arloteak, Alfonso XII erregearen besarkada artzen dau teatro aretan.

1881. Irurogei urte eta oraingoan bai, benetan, azken arnasa. Bere guraria beteta gaiñera:

Jaunari eskatzen diot grazia emateko nere lur maite ontan ezurrak uzteko.

Bere jaioterritik laster, Itxaso erriko Zozabarro baserrian, orra bera illotzik.

Jakin orduko Bilbo'tik deika illetak egiteko bear zan dirutza euren kontura atarateko.

Berak ez ezagun bat euki eban: dirua. Baiña ba eukan diruz ordaintzen ez dana: erri maitasunaren garra.

* * *

1950, 1960 bitartean euneko 73,93 ugaritu zan Urretxu. Urrango beste amar urtetan, % 25,74.

Euneko larogeik ez dakie euskerarik. Amabi ta erdik euskera gixi dakie. Euneko zortzi ta erdi ondo dakiñak.

Barriro Iparragirre'ri begira nago. Bere inguruan jolasean dabilzan umeak zuzendu eragiten dauste beragana. Gogoratzen? Zureak dira bertso oniek:

Arren... Ez, bada, galdu euskera neure anaia maiteak, Galtzen ba dogu, galduak gera gu eta gure semeak.

Beti euskeraz itz egin, bada oro zar eta gazteak, esan ez dedin danok gerala euskaldun biotz gabeak.

Eztaikit gaur zure biotzak zer esango leuken. Otz? Carrara'ko marmolaren barruan eskutatut eutzen biotza eta Mañari'ko arriaren gañean zeure oiña ipiñi. Irakurten nago: «Euskalerrri guztiak, baita ere erbeteetan sakabanatutako euskaldunak eskeintzen diote oropen au».

Ai gure kitarreak zureak lez biotzaren esan naiari jator laguntzen ba'leki!

* * *

Frantzetarrak emen egon ziranean, erri guztietan gizon baten izena entzuten zan, bildurrez edo ta garrez. Artzaia. Jauregi artzaia. Ala 1809'tik 1823 bitartean.

Arrigarri da gizon onen bizitza. Artzai uts zala, militar altsu izatera eldu zan bizibidean artutako erakuspidez.

Gaur baten, biar bestean, bildurra eusen frantzetarrak. Erriak zaintzeko eukezan ordezkariak laster jausten ziran bere mende. Azkenean be Coruña'n jausi zan eta Frantze'ra eroan eben.

Txapelgorriak sortzen alegindu zan andik geroago Isabel II'aren eskabidez. Liberala zan bera. Orduan karlistak txapel zuria erabilten eben.

Beste jakingarri bat: Frantzetarren aurka Zumalakarregi eta bera alkarregaz ibilli ziran. Gero, karlisten gerran, alde banatan eta alkarren aurka itu. Ala Ormaiztegi'ko lurrak bata bestearen aurka odolotan gorri laga zituen 1835 urtearen asierako burru-kaldian. 47 urte eukazan sasoi aretan Zumalakarregi'k eta 44 Jauregi'k.

Gorri eta zuri ziran. Eta biak, eriotz ondoren, eleiza banatan billatu eben euren azurren gordelekua. Zegama'ko parroki dago Zumalakarregi'renak. 47 urtez il zan. Urretxu'n Jauregi'renak. Au 53 urtedun il zan.

Urretxu'k bere gizonen oroitza zaintzen ba daki.

A. ZUBIKARAI

AGVR

Apartado n.º 2 BILBAO

FRANQUEO CONCERTADO 08/55

TXITIBAR

Bialtzen didate. Maitasunez.

Eta onerako iristen. Asteroko AGUR poz-ozik nik irakurtzen.

Berandutxo eltzen. Ala ere, utsa baño ohea dedalako, oso-osorik arakutzen det. Ezer ez etortzea, neretzat beltza eta iasan-gaitz litzake.

Orain aipatu nai dedan zenbakia 150'garrena det: 1974'garreneko Iraillaren zaz-pigarrenekoa. Iru illabete baño geiago itxasoak zear ez laisterregi ibilli, eta ezurrak austeko beldurrik ez.

Markiña'ko berriak damazkigunak orain eun urteko zertxoak ere sartu dizkigu: alegia 1874'garren urtean Markiña'n Euskal-Jaiak izan zirala eta beste ikuskizunen artean pelotariak ere bai.

Eta txapeldun TXITIBAR eta Bega bikotea.

Markiña'ko ori irakurtzean Txitibar itzak biotzean neri kilima egin. Alegia irabazleak donostiar iotzen, baiñan Txitibar Andoain'en ere izan, eta... beste Txitibar'ik bai al da Donostia'n. Ala Txitibar'ko seme pelotariak bere burua donostiar egin, andoaindarra zala aitoruz ifiorik aintzat artuko etzualako?

Orain gorri dan Txina aundian giñala, Shanghai iritik Le Journal de Shanghai etortzen zitzaigun, pantzeraz, eta antxe sarri pelotarien izenak. Iri azi artan HAI-ALAI ba-zan, eta alderdi artakoek JAI-ALAI irakurriz, itzaren otsa egoki esango ez, eta «j», euskerazkoa, alegia: «h» biurtu ziguten.



Bakar bat edo beste kenduz, pelotari guztien abizenak eusko-izenez genituan. Besteen artean bai Txitibar ere, eta pelotari ori Txitibar'ko semea genduan: andoaindarra.

Garra artan beste giroan bizi giñan, eta indar aundiak atereaz Shanghai'ra ioango nintzan nere erritarra ikustera, eta bientzat poz aundia izango zan. Alde batera, elkarrengandik ain urruti ere ez giñan. Ezik, giroaren otza txito beldurgarria.

* * *

Euskaldunok oso gure egin degun kiroletatik ederrenetakoa: pelota. Diodan au, orain arte ageri-agerian izan degu. Ezik, gerok pelota, guztiok beintzat, ez aintz-kotzat artzen. Kirol arrigarriari eskerrik ez ematen. Ume utsak gerralako. Umeek aita eta ama eta irakasleak esango dionari begira ditugu: aien txaloak entzunez, ta txito alai izaten.

Baiñan, umetatik irteten ikasi bearrean gera. Eta, oraindik ez da berandu. Geron arazoak gerok goraiatzea batetxo ez lotsagarri. Geron, zertxoak ikasi. Sakonda. Ederragotu. Gaurkotu. Ezña ote-degu? Ez, noski! Nai izan bear! Ai! NAI'AREN indarra! Nai duenak, al du!

Orixe'k bere EUSKALDUNAK Olerki Nagusian apaizak bakarrik atera zizkigun pelotan. Apaizak, ordea, erriko semeak izan eta aiek erriarena maite. Neronek, le-nengo txatal Pesta-Buru artan ere pelotariak maiteko nituan. Orixe'ri puxka luzeegi irtengo zitzaioala? Ori oker tikia gendukean.

Beintzat, erriko jaietan pelotariak ikusitakoa nauzute. Zelai zabalean, pelotari-erriko guztien alaitasuna asko berotzen dute. Apañagotzen. Esango nuke!

Orain ere, onera agertzen zaizkidan asteroko eta beste orrietan ere, erriko jaietan pelotariak izan dirala ikastea ni giro obean izaten. Oraindik ere bizi gerala iruditzen zait. Bestera, berriz, erriko gazteak agintari-erriko ezertara deitu ez dituztelako, aldarmeneko mendira trilitizun doazela irakurtzeak atsekabetu egiten nau. Delako errian etena sortu zaietela, eta oartzeke ere eten ori areagetu egiten dutela.

* * *

Bein irudidun egutegi apain-ederra iritsi zitzaidan.

Egutegia irarkolan ondu zutenek bialita ez-baiña... (ez zidaten ezer zor)... beste belgundari baten maitasunak neretzat iaso zidalarik. Urtea 1971'garrena. Donosti'ko Udal-Aurrezki-Kutzak atera zigun.

Benetan egutegi polita!

Oraindik ere nerekin det, eta egutegi orri begira askotan egon izan naiz. Gure endaren biguintasun eta indar guztiak antxe ageri dira. Mutil gazte iaioak. Giza seme bikaiñak. Adifnean sartzen asitako norbait ere bai. Guztiak txalogarri.

Emengoek... (alegia, Formosa ontakoek) olako irudiak ikusiz ezañetatik iario izaten. Bertako kirolarien artean antzekorik ezertxo ere ez dute-ta.

* * *

Auxe ere gogoan det.

Arako iesulagun apaiz Zapelena, napar argi eta zintzoa pelotazale itsua genduan. Gazte zala ere, ikasi eta txolarteetan pelotan ibilli besterik ez omen zuan egiten. Bein ere ez zitzaigun osasun txarreko eta makal ibilli. Pelotan izerditzen zala —benetan izerditu ere— soin osoa giar-giar zuan.

Geroago irakasle Erroma'ra deitu zioten. GREGORIANA deritzan Ikastetxe Nagusira. Ainbat euskaldun irakasle izandako Ikastetxea!

An ere, Zapelena aundia pelotarien atzetik genduan. Alegia gazte eder oien a-gin guztiak iakin nai izaten zituala. Zapelena'rekin adiskide mami izan nai zuanak pelotariak nai-ta-nai-ez aipatu bear.

Eta noizik bein, osasuna indarragotzeko Euskalerrri'ra etortzen zanean, aren egi-tekori berezieta pelotariak ikustea izaten zan.

* * *

Esan dedana.

Len Txitibar'dik Andoain'en pelotari onak irteten.

Orain?

Ez dakit!

Baiñan, gaur ere Andoain'en pelotariak lotsik gabe dabilzala esango ba'lidate ke... idaztillu onen aurrean irrintzika asi nindeke!

Orrela, gure kirola beti gora-goraka doala ikusiko nuke.

Ai! Ala ba'litz!

ETXEBERRIA'TAR P. S. J.

LANGILLEAK ALKARTU?

Pentzakera batzuk luzaroan irauten dabe. Inoiz, jazoerak, bein eta barriz, eritxi orreik guzurrezkoak dirala agertu arren be bai. Eta au arritzeko gauzea da.

Zabalkundea «bear dan lez» egin eta norberaren bidetik gogor eroan ezker, eta jentetza aundiak jazoerak jakin barik egon, ondoren «ikusgarriak» lortzen dira; eta au, jazoerak eurak, argi-argi, aurka-koak izan da be bai. Emen adibide bat au agertzeko:

Lurralde askotako langilleak elburu bakar bat eta ardura bardiñak izan bear dituela, aspaldi onetan guztiz ontzat artua izan dan pentzakerea da.

Baiña azken eun urte baiño geiagotan, kondaireak berak ori orrelan ez dala argiro agertu dau. Marx'ek eta Engels'ek be, olako arazorik aztertu eben: Irlanda' rrak Bretaiña'ko Agintaritza zabalaren aurka izan eben burrukan, Ingalaterra'ko langilleak, burges edo esku-zuriak eta Lur-zabalen jaunak (land-lords) ebezan gurari biziak bardiñak zirala konturatu be bai. Bardiñak gitxienez bizitzako bidean, eta orretan agertzen dira benetako gurariak.

Ori orrelan izan arren be, gizarte-zaleen alkarteak (sozialismoak) mundu guztiko langilleen laterri-arteke batasunari emoten eutsan indarra. Baiña gurari onek laster jo eban lurra.

Mundu guztiko izan zan lenengo guda aretan, laterri guztietako langilleak, alemanak, prantzesak, inglesak ta abar, bakoitzak bere laterriaren alde jokatu eban, eta orretarako laterri bakoitzean errazoi bereziak atera ebezan, euren buruak zuritzeko asmoan.

Esaterako: «Legien» alemanen sindikal-zuzendariak, 1915'ean onela iñoan: «Guda onen ondorenak kaltegarri ba' jakuz, beste edozein laterrik baiño min aundiagoa artuko dogu guk, Alemania onetan langilleen jakintza berezia sortu dogu ta. Beste lurralde ta laterrietan ez da olakorik egin izan».

Berba oneitan, laterriko esku-zuri edo burgesakaz bat egiten da eta gizarte-zaleen arteke dan «chauvinismo» bakan baten izenean egin be.

Prantzi'ko sindikal-zuzendariak beste zio batzuk atera zituen: Merrhein'ek, 1919'an, guda-aldiko bere ixiltasunaren salatzailleak auxe erantzun eutsen: «Une aretan (mundu guztiko lenengo gudaldian) langillediak —laterrikeri bizi baten sartuta egoan ezker— ez eutsan agintariak gu iltea eskatuko, ez. Eurak euren eskuz tirokatuko ginduezan».

Inglesak, egite aldetik, beti lez, onak emen be, ez ziran olako zioen billa ibilli. Geiago barik, gudearen asieratik artu eben jokabide ori. 1914'ko dagonillaren 24'an «inglesen langille-alkargoak edo sindikatoak, asita egoan lan-izte guztiak amaitzeko eta eskuarteke edo gerorako goraberak adiskide lez aterateko agindua emon eben». (Georges Lefranc, «Le syndicalisme dans le monde»).

Laterri laguntzea ta giza-maillak orretarako alkartzea, aurrean agiri dan gauzea da, baiña ori entzunaz beste barik, pentzalari gizarte-zale batzuk berotu egiten dira, ori iñoz ez zala jazoko uste eben eurak eta.

Langilleen laterri-artekeotasuna ba, geien be, amets eder eta gurari bat baiño ez da; ez dau indarririk artzen.

Onetan Franz Fanon'egaz batera gator: «Kolonikeri pean bizi izan diran erriak egin ditue euren azkatze-gudak, baiña olako gudetan, erri zapalduaren gurariak eta zapaltzailleen errietako langillediarenak ez dira sekula bat izan». (Ik. «Por la revolución africana». Edit. F. de C. E.).

Gu, antza, jazoak jazota be, olako ipuin zarrak siñisten ditun erria gara. Eta, txarrago oraindiño, geure kondairea bera be, diñogunaren agertzaille garbia dogula.

Geure kondairea geitxoago kontuan artu bearko dogu ba, jazoerak ez doguz aitzu bearko, lengoak eta oraingoak. Ortik atera bearko dogu argitasuna, beti okerreko bidetik ibilli ez gaitzean. Guk bear dogun bide argi ori, ez daigun billatu erriaren arerioak euren zabalkundera ateraten dituen idatzi barragarrietan. Orreik, alkar-izketara, aldakuntzara ta olakoetara deitzen dauskue, baiña beste joko bat dabil azpi-azpitik.

Aurtzaro-ertia ta eziketea

Ez da ertia bakarra, ez da era berekoa aurrarentzat eta adiñekoarentzat. Adiñeko edozeinertzat ertiare esan-gurea zein dan zeatz agertzea benetan zailla da. «Erti» edo arte itzagaz geienetan, erakustoki, lauki esegi, margolari bizardun, ber-margotu bizi-biziak eta, datorkiguz burura... Ertia, adiñekoarentzat, inguruko eragiñari ta edertasunari buztarrituta dagoana da sarritan. Aurrarentzat, ertia, beste era bateko zerbait da.

Aurren ertigintzako jakintzea, garai oneitan egin dan aurren giza-nortasun aurkitzea aiñako barria dogu. Onein gogapenak, erantzunketak eta egin-bearrak adiñekoengandik alde aundia dauke; bereiztasun aundiak bitarte. Zerbait sortu ta burutapen geldieziñak erabiltea berez datorkio umeari, ta bere indarrerik ekin-arazi, batez bere, bere esan-naiari ta asmenari eragitea naita-naiezkoa dau.

Zortzi-amar urterarte bere senetik datorkio, aurrari, sortu-bear au. Aurretik erakutsi ez ba'jako be, beretik jardungo da, ta ez dau zuzentzaillerik bear izango orretan asi ta jarraitzeko. Arazoenganako bildur barik, errez ekin eta azkar baten sortuko ditu lanak, eta apaltasun zintzoan osotuko ditu, alperriko betegarririk ez dabela bear be, ba-dakiala agertuz.

Gaiñezkako almen onek, sortu ta egin-bear oneik, etengabeko ekintzea eskatzen dabe. Lan aspergarriak eta oiturakoak bakarrik egitera beartzen ba'dogu, edo geldirik ba'dago luzaroan, sorrak jota, sen ori be galdu egingo dau.

Aurrak, bere barru-indarren eta erakusgarrien eten bariko erabiltea bearrezkoa dau, eta egite orren ondoren beteko dabenak baiño jarduteak berak ardura aundiagoa emongo dautso. Marrazki naiz margo-lan bat egitean, bere asmo bakarra, eginkizun orretan aurrera jotea da; egitean lortuko dabenaren zeatzasunari ta edertasunari baiño, darabillan nekeari askoz be garrantzi ta begirapen aundiagoak damotsoz; ez dau elburu aurre-asmoren bat an ezarri ta osotzea, bere asmamena ta bere atzamarrak nai ditu erabilli.

Jakintza bideak utzi ta arauetatik iges egitea, batzbesteko neurriak eskatzen daben duintasuna ez ezartzea, margo arruntak eta alkar-betetzen ez dabenak erabiltea bere asmamenaren umeak dira, eta gure ustez oker dan, agirian dagona dan lez azaltzen ez arduratzea, jokabide dabela be, agertzen dausku. Oker orreik ba, bere sort-alme-



naren eta bereiztasunaren agergerriak ditugu; benetasun eta ezetasun orreik gure irudimenari eragiten dakie.


Aurren almen onek baiña, eziketa jator bat eta eratze zuzena eskatzen ditu. Ta ara nundik, gaurko aurrerapenak, batez bere jakintza bidetik egin diranak, era batzuetan, gure bidezta aberastu egin dauskue; beste batzuetan baiña, gure oarmenak eta gogoak bear dituen eragingarri ta ondatsun askotatik aldendu egin gaitue.


Gizartean agertzen dan batzuen sortzaille izate ta oarkor agertzearen eta beste batzuen orretarako gauza ez izatearen tartean dagon aldearen erantzule, erti-eziketa au —jakintzarako bide lez— izan lei. Azken onek ezin izan ditu lortu, beste arek eskuratu al izan dituan gogojokabideak, eta orregaitik inguruakin euki bear leukeezan artu-emonetan nekez dabil.

Ta erti-eziketarako alderdirik garrantzitsuenetako bat, nola ikusi ta nola gogoratu erakustea izan bear. Ikusi, ukutu, entzun eta usain egiteko almenak, gizasemearen eta bere inguruaren arteke eragitea lortzeko bear izaten diran bideak aukeratzen dauskuez. Orregaitik oarmenaren zorrotzutea, eziketa aldi guztietan garrantzirik aundiena izango daben betebearra izatera ekarri bear da.

Aurrak, iñoiz, ezin izaten dau aurretik ikusia gogoratu, ez dago ba ikuskera gogoragarriak egitera oituta, baiña euren gogamena aberasten eta nola «ikusit» maillaka ikasten joan leitekez. Ona emen irakaslearen egin-bear bat nun agertzen dan. Onek, aurrak berenez oartu al izaten ez dituan oarpen esnatzaille lirakiozan ikuspegi zabal, aberats eta ugaritsuak berengatuaz, inguruakin eten bako bat-egitera zuzenduko dau. Oarmena zeatzagotzeko aukerak zenbat eta aundiagoak izan, ainbat eta obeak ikasteko ta bere barrutikoak erakusteko almenak.

Gai oni buruz, urrengo idatzi au irakurri begie irakasleak; orrenbeste esatera ausartzen gara: «Desarrollo de la capacidad creadora». Viktor Lowenfeld. W. Lambert Brittain. Editorial Kapeluz.





Filolojiako jardunak

NUN DAGO ERDI-BIDEA...?

Orain azkena idazten joan naizen izkuntzarekiko jardunak dirala-ta, nere lantxoengatik zorianak emanez gai ortan jarraitzeko eskea egin didate.

Txaloak artuak ditut eta baita ere «purrustadaren» bat edo beste... Isiltzen diranak ugarriago dira. Baiñan geienik poztu nauena euskera-batuzale eta pakezale dan jaun baten eskutitza izan da. Azkenik aitortzen bait du Euskaltzaindia'k euskera «batu» ta ortografiaren aldaketan ariñegi jokatu duala... «Damua garaiz, adizkide!»... Asarrerik gabe «Erdi-bidea» aukeratu bear omen dugu. Nun dago. ordea Erdi-bidea, galdegiten diet?...

Ene ustez, eta nere irudiko, ERDI-BIDEA, Euskaltzaindia'k 1920 urtean sortu ta bereala artutako erabakietan dago.

Eta bide ortatik zijoazen poliki-poliki euskal-idazlerik geienak. Astiro... ezteki, bai batasun bidean ez bait diteke laisterka ibilli, oztipo eginez ankar gora erori gabe. Au gertatu zaio 1968 geroztik Euskaltzaindia'ri; eta euskera «batu» ta «atxez» gañezka bete duten gizontxuei... Erri izkuntza ez bait diteke mania sukalde jakia bezela. «Sukaldari» koitaduok uste izan zuten «Akademiaz» atzeko atetik jabetuta gero, aginduak eman, bortxaz eta indarrean, eta itsu-itsuan guztiok men egingo genduala. Ezti, jaunak, ezti...!

Esan zagan egia! Egi guztia. Asieran Euskaltzaindia'k eskea apal egin zuan: au soillik: «Begi onez ikusiko lukeala «H» izkia bokal artean sartzea». «Begiko miña» gero itsasi zigun isatsa: «gorago jo nahi dutenen saioak ez direla ongi ikusiak izango» etzula esan nai. Au erdibidea ezik okerbidea da, azpi lana.

Au ikusirik, euskaltzain askok eta erri idazle arruntek «H»ren makar orri gorrotoa artu diote. Nola ez?... Asiak bait dira gañera, emen beti ezagutu ta esan ditugun itz oso ta jatorrak: «Begaratu, Igesi, Igaz, Igarri», «G» ots sendoaren ordez «H» mutua sartzen: «Behitu, Ihes, Ithaz, Iherri» bihurturik.

Antzeko beste zerbait egiten dute beren euskera «batuan» zer nai itz mordollo sartuaz. Erderatik datozen kultura itz asko artu bear ditugula ez du iñork ukatzen, besterik eziñean. Garbizalekeria «mordollokeria» baño kaltegarriago gerta bait liteke. Baiñan ortatik EUSKERA «Euskeranta» murrizta billakatzea gure izkuntza galduko luke amildegira eramanez. Ori ez da Erdi-bidea.

Nere iritzi apalean arautzat lege au artuko nuke: Kultura-itx, Itz berri, modernoetan Europa'ko lau izkuntz nagusiak, ingles, prantzes, aleman eta epañolez itz bardiña erabiltzen ba'dute, guk ere ar dezakegu guretzat. Adibiez: «Filosofia, Arkeologia, Zibilizazioa, koyuntura... eta abar.

Baiñan zergaitik «greba» euskeraz «Oporra» itz jatorra dugunean? Prantzesez ere «Greve»: Ondar-lekua da. Eta gero Paris'eko plaza bat lanik gabekoak biltzen ziran lekua. Aleman eta Inglesez bestela esaten dute: «Streik, Strike»... eta beste erderetan «huelga» ta abar. Euskeraz «Oporra» itza erabilliaz esaera bera ederki adierazten du ta ez dugu erderakadik sartu bearrik. Orobat esan genezake «gara, bulego, puxanta»... eta beste «gaskoikeri» askorengatik.

Euskera, txukundu, indartu ta aberastu, erdibidean dagon gipuzkera osotuz... Azkue jauna buru izan zan denboran Euskaltzaindia bide ortatik zijoan eta ala jarraitu zuan D. Manuel Lekuona lendakaritzatik kendu zuten arteraño.

Ordurako iraultzailleok asiak ziran Euskaltzaindia'ren legeak eta arauak austen... Krutvig su-emaille zala. «Heterodoxo» izatea zillegi zitzairen, bai aren atzetik zebillen, «fraticello» bati. Au Akademia'ko mai-buru alkian jarri zutelarik zer gertatu zan, urrengo jardunean azalduko dugu J. L.

ANTONIO M. LABAYEN

GOZOTEGIA

E R R I K O

Ezkontza ta Jaunartzeetarako opil-gintzan berezituak

Etxera bialtzen da

Kareaga Goikoa, 15

491030 urrutizkiña

Menendez Pelayo, 2

493059 urrutizkiña

B A S A U R I

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartzee-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri asmoen gañetik daben iritxi-onko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egi-leak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M. MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.

Carretera a Galdácano, 32-Bilbao-4

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA

ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guttirako:

Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

URRUTIKUSKIÑA

Gizaldi onen lenengo maillan daukagun aurrerapiderik aundienetarikoa, telebisiñoa.

Urte asko ez dala, arduradun batzuk, Bizkaia'n ikasle egozan mutillen eretxia jakin naian, sariketa bat gertatu eben gai oneri buruz. Sariketa orretara bialduko lan batzuk ikusteko erea izan genduan, ta erantzun batzuk poztu ba'ginduezan, ainbatek bai barruak itundu bere:

«Ikasbide ederra benetan. Bere bitartez edonun sortzen diran barri edo izparrak, egun berean ezagutzen doguz eta zelan gañera! Entzunez eta ikusiaz zelakoak izan diran».

«Iñoiz ez nuan ikasiko, urrutikuskiñagaitik izan ez ba'litz, ludiko piztiak zelakoak diran».

«Bere bitartez, luditik zear dagoan gosea ikusi dot, eta onek egingo dau, orain darabiltzadazan ikaskaiak amaituta gero, eurakana eltzea neu be, daukadan jakituria eureri itzuliteko».

«Urrutikuskiña dala-ta, beste laiterri ta endako mutillen oitura ta izakerak dakidaz gaur, ta au oso pozgarri da niretzat, aberastasun ederra gizon, egiten nazanerako».

Erantzun ederrak, asmo garbiak eta txalogarriak, baiña entzun beste oneik:

«Urrutikuskiña gure ama da. Ez dot besterik bear, bere aurrean eguneroko ordu guztiak emongo neukez. Ez dot lagunik bear bera eukin ezker».

«Jolas-nai guztiak joaten jataz bein telebisiñoa biztu ezker».

«Umetan amaren titia bear nuan beste, gaur telebisia bear dot. Ez dakit bera barik zer egin. Nire ikaste lanak amaitzen arduratzen naiz ainbat ariñen urrutikuskiñaren aurrean ezarriteko».

Tamalez, onelako erantzunak irakurri genduzan euren sariketa lanetan. erantzun orreitatik ainbat ikasgai artu geinkez. Lenengo ta bein, ta gurasoak euren lenengo ezitzaileak garean ezker, arduratzea, zer ikusi leikean ta zer ez.

Erantzun ederrak be ikusi doguz, baiña arriskuak bere ez dira makalak, beste gazte batzuk diñoenetatik. Urrutikuskiñaren bitartez ludi osoko goraberak sartzen dira gure etxeetan, baiña euren artean zenbat gauza onartu ez geinkezenak gure umeentzat eta baten baiño sarriago geuretzat bere onak ez diranak.

Neurtu barik biztuten ba'da urrutikuskiña gure etxean, laster agertuko dira aren utsak. Gure gaztetxoan nor-tasuna zirinduko da, begi ta belarrietatik sartuak euren jabe egingo dira, ta biar-etzien ez gaitezela arritu nora jo ez dakiela ikustean, eta txarrena izan leitekena, ez nora jo, ardurabakoak eginda ikusten ba'doguz. Ori gizon lez, bai andaluz, gaztelar, katalan, prantzes edo italiar bezela.

Baiña, ta guretzat lenengo maillan egon bear dauan arduran, zer? Zer, euskaldun eta euskaldun kristau gizon bezela? Uste dozue, neurri barik sartzen ba'da telebisiñoa gure etxeetan, gure neska-mutillak euskaldundu egingi dirala? Erdera utsa baiño ez ba'dabe entzuten, batek diñoan lez, urrutikuskiña euren ama ba'da, noren seme-alabak izango dira?

Erdera-giro baten barruan eziten ba'dira —gure itzalik aundiena berretzat, ez daigun ori aitzu-zer eskatu geinkio biar? Jarraitzea, ez dogu uste bearrezkoa izango danik.

Emon dagiegun telebisiñoa gure aurtxoeri, baiña neurri baten barruan. Gaur, aurrerakuntza ori bearrezkoa egin jake, baiña jolas egitea bearrezkoagoa, sendi barruko euskal-giroa garrantzitsuagoa, bai eurentzat, eta ez gitxiago biar biziko diran gizarterako onuragarri izateko.

Gure esakera zarra ez iñoiz aitzu: «Umearen zentzuna, amari entzuna». Ta, ama, telebisiñoa ba'da?

Ausnartu dagigun emen esan dana, ta bakotxak bere bidea artu dagiala.

ATXUTEGI'TAR BITOR

Bilbo'ko

erri-irratia

Euskerearen aldeko lan onuragarriak ba'dago, bat erri-irratikoena da. Zoragarria gazte talde orrena, ta bear ba'da, askok uste daben baiño garrantzi aundiagokoa.

Egun batzuetan ez gendula entzuten-eta, kezkatu gintzazan. Gero jakin gendun indar aundiagoa emoteko konponketak egiten egon zirala.

Doñu alaiak, jakingarri ugari, barriak eta alkar-izketak, berezko gatza emoten dautsoe euskal saio orreri. Lagunkiro ta borondate onagaz, ezten eskatzekotan, iñoiz joserria obeto gordetzeko eskatuko neuskie. Ba-dakigu erderaz eta euskeraz era batera egiten diranean ez dala ori gauza erreza izaten, baiña beste alde batetik, oldoztu bear dogu millaka belarrietara sartzen dan saioak al danik egokiena izan bear dabela.

Irakasleak zaree Irratiko lagunok eta ba-dakigu zuen kemenak oztipo guztiak gainduko dituala.

Gure irakurleok, ba-dakizue: Zuen eskuetan ba'lego languntzeko erarik, ez itxi biarko!


MUNEGAIN

EUSKALERRI'KO ARAZOAK

Gure demokrata izateari buruz

Lengo zenbaki baten, «Bai dok amairu» izenburutzat eukala, Donosti'n bazkaltzen bildu zirentzat zirikadea bota gendun. Arrezkero be, Bruxelles'en beste batzar bat egin ei da euskaldunen sasi-ordezkariz ornitua. Oraingo egunetan ainbat eta ainbat jira-bira gure buruari emon ondoren, iru edo lau gauza geratzen dira gutzat argi ta garbi:

Lenengoa, naizta kolore guztietako «ego-zaleak», aurrez-aurre edo azpikeriz, beste gauza bat adierazo, euskaldunok demokrata nortasun berezia erakutsi dogula kondairan zear. Barruan ar on ori eukiteak ez dauala esan nai besteak baiño obeak garanik, ezta antzik be. Kirtenkerietan be kirtenenak izaten dakigu ta euskaldun kirtenez bete-beterik daukaguz munduko kondairaren ainbat eta ainbat orrialde... baiña beti kutsu bereziz josiak.



Bigarren, demokrata duintasun ori iñoiz arriskuan egotekotan ointxe da-goala. Zer dala ta? Ba demokrazia bako giroan jaió garan gazte ta ez ain gazteak,

DANETIK ZERBAIT

Donosti'n, orain egun batzuk, politika (?) bazkari bat ospatu zan. Aldizkari batek erata, amairu euskaldun (?) batuz, eta «Problema vasco»ri buruz (?) itz egin omen zan. Emandako eritzien naaskeriak, «problema» ori leen baiño gaizkiago utziten du, noski.

Bi elburu bete ziran: bazkaltzea eta argazkietan agertu, emandako iritzi kirtenekin.

«Problema» orri buruz datorren politika-bazkaria, aldizkari orrek eraturik, egazkin batean ospa dezatela proposatzen diegu. Onelan, gizonak beren ideietatik urbillago arkituko dira, odeietan alegia...

Berrogeita bost mineru Naparroa'ko Potasas lurpeko ekintzan la egiten ebanak, euren oporra amaitu dabe. Dakizuen lez, langille oneik, euren eskabideak lortzeko lurpean lotu ziran eta an jarraitu euren oporra. Uste dot, lan-uzte au ez dala langille batzuenak bakarrik, guztiena baiño. Garestiegi dago dana, ta ez da zuzen alogerak itotea.

Bizi-izateraren garestia gorantz doa, ta alogerak geldi edo berantza, batzaz beste diruaren indarra auldu dan neurrian. Au ez du iñork ukatzen, eta bai argi esan. Bizkai'ko lantegietan ikusten dana orrela ulertuko dozu. Lantegi gel-dituak oneik izan dira: Altos Hornos, Minsa, IMI, Ebay, Olabeaga'ko Ontzizintza, Faes, Corilsa, Cadagua...

Langille-alkarteak obarik egiten ez ba'dau, langilleak eurak ekin bear.

Errekalde-barri'ko Guraso Alkarteak, Bizkai'ko arduradun nagusiari ikaragarriko eskari bat egin dautso: joan dan urtarrillaren 26'ganean, igandez, amabietatik ordubatera, Udaletxe aurrean giza-agerpe bat egiteko baimena, Bilbo'ko auzo onen arazoak zuzentzea eskatzeko asmoan. Baiña, ezetza jaso dabe. Orain, eurereriko batzuk endore andereagaz izketaldi bat izatea nai leuke.

Otsail onen 2'ganean, Bilbo'n, Buenos Aires antzokian, euskal-jai apain bat izango zan. Bertan agertuko ziranak: «JATORKI» abesbatza euren zuzendari Arregi'tar Andoni dala, eta Galdakano'ko «ANDRA-MARI» dantza taldea. Ordua: 11,30.

Gaztelu-Elexabeiti'ko eleizan be, beste euskal-jai bat izango dogu, Otsail onen 15'ean. Egitaraua: «OZKARBI» taldea, Mikel Laboa, Arza anaiak eta Arrati'ko Abesbatza.

Udabarria ta doiñua, bat. Bai. or agertu dira guretzat eres-mintz edo disko barri batzuk; aspaldirik ona ez da izan euskal-mintzarentzat egoera onik, naizta Gabonillean naiko ondo salduak izan. Ba-litzake barririk ez zalako sortzen izatea. Orain baiña, esan daikegu disko barri batzuk urten dirala; ona ba batzuk: Mikel Laboa, Benito Lertxundi, Xabier Lete, Gorka Knorr, Lourdes Iriondo, Lupe...

BERBERAK

albo errietako oitura eta iritziekin nastatuz, gure nortasuna lorrindu dogulako, ain zuzen be.

Euskalduna beti izan da eraginkorra; beste guztiak ixillik egon diran bitartean gu ez gara ixildu, baiña ate ertza zabaltzen asi danerako, ez dakit zenbat ikurriñ barri sartu jakuzan, euskaldun izabekin, asmo arrotzak estaldu naian. Gizarte edo sozial arazoak erri arazoagandik bananduz, arek lenengo maillan, mailla ezbaridinean ipiñiaz, ausitze ikaragarriko baten amua iruntsi eragin nai dauskuela esango neuke nik. Sozial arazoak erri osoarenak ez ba'lira bezela dikotomi bildurgarrienera bultzatzen gaituela.

Gauzak orrela direlarik, ez da aritzekoa ortik eta emetik mota guztietako «arrantzaleak» ugaritzea. Erri maitasun txinpartarik txikiena iñoiz erakutsi bakoak orain euskalduntasunaren aitzindari ta ordezkariatzat agertzen jakuz etxe barruko ta erbesteko batzarretan. Baiña kaltegarriena ez da ori bakarrik; erbesteko izparringi ta aldizkari sasi-aurrerakoiak irakurriaz, igeri barik, gure pentza-moldeak aldatzen goazela baiño. Nai ta nai ez, gure jokera ta egiteak fazista kutsua daroe, gorritzeka ala zurizkea baiña fazistea.

Lengo guztiari indarra emetoko gaiñera beste zerbait datorkigu: Ara, euskaldunen artean asko izan dira gudea amaitu zanetik ona, «zorionean» bizi izan diranak. Euren iritzi-kideak lanari oratu eutsen artean, eurak, patxadaz, dirugintza bigunean. Guda-aldian, diñoenez, motelak izandakoak, euren guda morroiak mendian itxita iges egindakoak, burges konplejo pean arrezkero «gaztaiña» billa iñoiz etorri bakoak, askatasun eguzkiaren izpiren bat odei artean sartu danerako, kukurruka jatorkuz bularra puzturik. Eta emen dago txarrena, euren buruak ausartatatzat erakutsi nairik, euren seme-alaben iritzi okertueri makurtuaz, zabalkunde gordiñean asi dirala. Ondo legoke odolaren deiak eragiñik euren umeak defenditzea, baiña ortik iritziak bedeinkatuaz ate zabaltzaille egitera, ikaragarriko aldea dago. Gure esaera zarrak diñoena egiztatzera datoz: «umearen zentzuna, etxean entzuna». Etxean ezer entzun ez ba'da gero... edozer!

Lotsatu berik demokraziagan siñetzten dogunok Portugal'era begira gagoz. Demokrata izatea eguneroko ekintzan, landuaz, osotzen da. Eziketa orretarako ez dira gauza, len aipatutako lo-zorroan egonak. Ikusten da Portugal'en be Cunhal ta bere lagunak jokabide maltzurra, eta benetako demokrazia zaleen berbizkundera. Orregaitik margo guztietako gogorzaleeri gorrotoa dautsegunok aspaldiko matrakan diardugu: Gauzak eta gizonak bere izenekin bateatuaz etorkizunari aurea artu dagozun.

ARENAZA'TAR JOSU

ONDARROA'KO KAI BARRIA

Bai? Ez?

Eritzi ez bardiñak batu eta asarrez alkar jo eta berotu eben orain urte batzuk. Portua bai, baiña ondartzat, plaia galdu barik. Ondartzat galtzekotan, ez. Ori batzuk. Besteak, edozetara be, kaia, portua garrantzirik andieneko zala Ondarru'k itxasotik bizitekotan.

Asarreak, nasteak, odol beroak eta subastara atarata egoan asmoa bertan bera laga eragin.

Odolei baretzen laga, premiñen bidea erakusteko denporei argi egin, norberarena lez bestean eskubideak mintzea be, al dan bestean uxatu, eta ara barrero ekin.

Saturraran ez ei dago urrun ondarrerako. Arrigorri'ko ondartzat be zati baten ezik, ez ei da galduko. Ortarako...

Lengo eran portua eginda, lenengotatik Arrigorri'ko ondartzat ezerezuta lagaten zan.

Era ori, asmo ori, atzekoz aurrera aldatu da orain. Au da, danok dakigun

lez, iru zatitan egiteko zan era, len azkeneko lagaten zan ekinalditik asi.

Oraingotan, ustez eta asmoz, lenengotatik barria, musturra, 150 metrotan luzatu nai da, lengoari jarraituz. Teknikoen ustez, ori egiteak, ondar barria eroango dau Arbide ingurura, eta uste asko baiño len Arbide'ko arritzea ondartzat biurtzeko aukerea egongo da. Beraz Saturraran'go ondartzat eta Arrigorri, len arri bidez etenda geratzen dirana, gero, teknikeak akatsik erakutsi ezik, ondar bidez alkartuta geldituko ei dira, kontxa bat osotuz.

Gauzak orrela, itxaropentsu dira portuko arduradunak, gure kaia anditu eta zabaltzea ondar-zaletasunaren kalte barik egin leikeala-ta.

Seireun bat milloekostako ei da gaurko dirutan, gure kaia edo portu onen barriztatzea.

Ikusteko bizi egin bear. Eta ez asko be, diñoenez.

Z.

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK
DIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK



ZAZPI-KALEAK

CASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

E D E S T I - A U R R E A

(Jarraipena)

GOI-PALEOLITOS AROKO ERTILANAK

A) ERTILANA TA ERTIGAIK

Gizona, txiki-txikitatik ederraren zalea da. Atsegin jakoz itxasoaren zabala, mendiaren gaillurra. Lilluragarri jako baza-abere batzuen ibilkera ariña ta egokia. Zoragarri edertasuna daukan edozer eta edonor.

Ez dira baiña gizaki guztiak edertasuna sortzeko ta adierazteko gai izaten. Euskaldunen artean asko dira euskera ondo dakienak eta biotzez maite dabenak; bertsolariak osterata gitxi batzuk. Gaurko gure gizartean, ertilarideitza merezi dabenak oso gitxi dira. Ertilari



ez da gauza ederrak nabaitu al eta bizi dabena bakarrik. Ertilari deitu leio edozer gauza, egokia ala ez, ona ala txarra, edertasun idekutu baten adierazteko gai danari.

Ertilangintza, Homo-sapiens'en gizarteak sortutakoa da. Artegitza lenengoz zabaldu zan lurraldea oneik osotzen dabe: Dordogna Auñamendi ingurua ta Kantauri'ko itxas ertzaren zear diranak. Goi-paleolitos aroko ertilangintza aztertzerakoan, sail nagusi bitan banandu da:

—Erti-lan erabilkorra.

—Arkaitzetako erti-lana.

B) ERTILAN ERABILKORRA

Taillugintzak: Erti-erabilkorrean agiri diran lenengo erti-lanak, emakume irudiak doguz. «Venus»ak deituak izan dira. Prantzia dogu orrelako irudi ederrenak emon dabena. Irudi oneitako bat, Lourdes'etik urrean dagon Les Purges'eko leizan aurkitu da. Emetasunaren ikur bat dogu.

Landes'etako lurraldean be aurkitu dira orrelako «Venus» irudiak, Brasspouy'koak

dira ezagunenak. Boli-lanak dira marfillean egiñak, eta Prantzia'n aurkitu diranetatik, Willandorf'eko «Venus»ak dau garrantzirik aundiena.

Emakume lodi baten irudia da. Onelako irudiak, Itali, Txekoslovakia ta Errusi'n be batu izan dira.

Giza-taillugintzaz gaitia, ba-dira beste batzuk be aro onetan: abere-irudiak. Euskal-Ertia'n, Izturitze'n bakarrik aurkitu al izan dira. Izturitze'n diran geienak azurrezko edo adarrezko lanabasen edertzerako egiñak dira.

Taillu-langitza lez artu legikez, naizta bardiñak ez izan, zaldiaren miinpeko azurrean egindako zaldi buruak be.

Auñamendi inguruan, aurkitu izan dira abere taillulanak buztinean egiñak: Audoubert'eko bison arra ta emea ta Montspan'eko artza.

Zizel-lanak: Gure lurraldeetan ezagutzen diran erti-lan onetarikoak era bikoak dira:

—Arrian ebagitakoak.

—Azur edo adarretan egindakoak.

1) **Arrietakoak:** Urtiaga'n, sakagaillu baten egindako abere-buru bereizgarritu bat agiri da. Bolinkoba'n, auntz bi. Ermitia'n zaldi bat. Eta Satimamiñe'n axeri bakarra. Lumetxa'n eta Urtiaga'n lur-gorrian egindako zaldi bi Madalein garaikoak dira. Urtiaga'n, auntz, zaldi ta oreñen marrazkiak be ba' dira, ibai-arrietan zizelatuak. Aizbitarte'n osterata orein irudi bat.

2) **Azur eta adarretakoak:** Santimamiñe'n batutako jaurtiki baten agertzen danak abere-buruaren itxurea dau. Alan eta guztiz be, Izturitze'n doguz zizel-lanik onenak eta ugarienak. Zaldienak eta bisonenak dira, edur-oreñaren bi be aurkitu dira.

Giza-irudi zizelatuak be ba-dira Izturitze'n. Arrigarriena gizona ta emakumea dituana da. Biak, lepo-ustai bana daroc paparran eta besoak-goraka dagoz. Lumetxa'tik jasotako ezten batek abere bi ditu zizelatuak. Azurrean egindako lan oneik, Izturitze'n jaso diranok, Madalein-erdikoak doguz.

Ego Euskal-Ertia'n aurkitu dan Torre'ko azur zizelatu zoragarria dogu. Emen, gizonak, abere narraz dauka estalita bere soñia ta abereki begira dago. Torre'ko azur zizelatu onetan agertzen diran abereak oneik dira: oreña, zaldia, basauntza ta basabeia.

Egunetik egunera, azterketa zeatzagoak eta tresna obeagaz egiten dirala, uste ta jakingarri barriak agertzen dira. Antxin-edesti onetan arduratzen diranei, oraintxe eldu dan «National Geographic»-en Vol. 157. No. 1 irakurri dagiela eskatzen dautsegu. Or, Alexander Marshack jakintza azken amar urte oneitan egin dituan azterketen barri irakurri daikezu. Benetan ausartu bearrak. Cro-Magnon gizonak ez-eze, Neandertalekoak be bai ei-ekian aldia, sasoiñ —udabarri, udazken— eta illargiaren ibillera neurtzen eta adierazten, eta zizelanetatik eta marrazkietatik bere iritxiz igartzen dana, Cro-Magnon gizasemeak gitxienez, itz egiten ekiala be.

ARRATI'KO IKASLE TALDE BATEK

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra
BILBAO - Casco Viejo
Tenderia, 15 eta 16

Eztabaidak

Zer gai artuko ote degun, bildur izaten naiz, ontzat artuko ez ote duten nabaiturik, orain AGUR'ek artu ditun bide berrien arduradunak. Nere utez, orain arteko irakurgaiak obeagoak ziran, eta azken aldiko idazlanak otzagoak ez ote diran-edo. Nere ustez, diot berriro, xalxa gozagoak ziran len, batez ere idazlari sonatuak emen idazten zutelako. Orain, galdetzen diet, nun dira oiek? Baztertuta ote daude, ala beren idazlanak otarrara botatzen ote dituzte? Edota, ez al dute idazten? Dana dala, euskeraz idazteko gogo bizia daukagunontzat, beti onetan jarrai bear, idatzi ta idatzi, noiz beinka ea orrela jaramon egiten diguten.

Itxasoko arazoak idatzi, iñoren eriotza gogoratu, errietako zer esanak naspildu, eztabaidak agertu «h»a dala-ta..., ta beste gai oiek irakurri aldizkarietan, alkarri erantzun, makilla eman, eta auker al dira argitalgarriak egokienak?

Burrukan beti euskaldunok. Eztabaidetan ibaia igarotzeko zubirik gabe. Oiek al dira gaur, euskal izparringietan, gairik onenak? Xalxa ortan ez gera iñora elduko, ta ontzia arroliorik gabe joan-ezinean gelditzen dan bezela, gu ere geldituko gera. Tamalgarria! Gure izkuntzak naiko gaixokeri izan arren gai, auekin, eztabaida auekin, zearo ilko degu. Zeintzuri eman erru? Norberak pentsa ditzala. Ez det onekin esan nai, gurea danik, baizik besteena, berriztu nai izan dutelako, atxe ori zirt eta pitz sartuta.

Donosti'n bizi geranok, erri txiki baten baiñon berri geiago sumatzen ditugu, gero emen idazteko. Zer-esan asko orde ezin beti esan. Gertaerak alaiak bai lira, bai: Danborrada igaro dala, zarata aundia ibilli zala Alderdi-zar'eko enparantzian gaueko amabietan ikurriña igotzeko unean, urrango eguneko umetxoan ibilketa jantzi apañekin eta danborrada joaz kale zear...

Gero esango degu bizimodu latsa dagola... ta ala ere ez da sumatzen olakorik. Zer dala-ta? Bazter guzietan ondo jan, ondo jantzi, jo batera ta bestera berebillakin... abar eta abar.

* * *

Jaunak eta, zer dabilz jesuitak? Dakigunez, Diaz-Alegria jesuita izanak, apaiz bezela irauten du. Orain osterata, lagundiak emandako zigorra betetzerakoan, berriro barrura joango ote dan-edo... ala diote albisteak, eta berak ez dakit zer bideri jarraituko dion. Beonek idatzitako liburua irakurri gendunok, eta aspaldi bere berri emen AGUR'en idatzi nuanean, neretzat ez zala «nifunifa» esan nun.

Orain aldaketa bidea artu bear ote du? Lagundira sartuko ote? Ez dakit, bakoitzak bere pentsakerak aintzat artu ditzala ta naizta bien bitartean ainbeste kalte egin zer-esan oiekian kristau geranoi, dena utziko degu alde batera, aztu ta kito. Artaldera sartzen dana, edo sartu nai duana barriro, ongi-etorria izan dedilla.

Eta, Amerika'ko Kolonia'n gertatu dana...? Eztabaida bat dala-ta? Alegia, Karlos Bravo jesuitak «deabrurik ez dagola» esan du. Ta, apaiz dan P. Ferreira jaunak, lagundiko zuzendariari eskutitz bat bialdi dio, esanaz: «Deabrua bai da. Ebanjeliok berak esaten duna ta egizatzen duna da».

Estabaida auek guziak izan omen dira, dalako zine «Exorcista» origatik. Zuek jakitunok, orrela, ta guk zeintzuri arrazoi eman?

E. OZKIN

MADRIL'GO BARRIAK

Urte bete batean Madril'en izan ondoren, «soldadizkan», etxeratzeko ordua eldu yat, baña abiatu baño len, emen dozue nere idazlan au.

Azkenengo il oneitan alkarte berri bat jaiio da Madril'go euskaldunen artean, eta alkarte orren buruz zeetasun batzuk izan daizuezan, ordezkeri jaunagaz itz batzuk izan dodaz, ona emen gure alkarrizketea:

—Zu «Sekretario» jauna nungoa zara?

—Donosti'koa naiz.

—Noiztik zagoz erri-buru onetan?

—Orain amar urte dirala.

—Nor da alkarte onen buru-nagusia (lendakaria)?

—Zigorraga'tar Jose Mari, Busturi'koa.

—Alkarte onek zer izen dau?

—Aralar'ko Mikel Deunaren Anaitasuna dau izena (Hermandad de San Miguel de Aralar) eta, Madril'go, Aranzazu'ko Ama Birgiñaren «parrokiako» babespean dago.

—Erri-buru onetan berrogei bat anei euskaldun ei dagoz, egia ete?

—Bai, bai, ta bear ba'da geiago ere bai. Esate baterako emen egiten dogun euskerazko mezetara oste andia etorten da, baña ba-dagoz ondiño euskaldun asko, ezta kiela meza au emoten danik. Gaur, berrogei bat urte dala Madril'en bizi dan Azpeiti'ko emakume bat, lenengoz etorri da meza onetara, eta orrelakoak asko dagoz.

—Zuen artean, zer-nolako gauzak egiten dozue?

—Dakizunez, igande ta jaiero, euskerazko meza bat egiten dogu, bestealdetik eta

mutillentzat «escout» talde bat sortu dogu. Emengo Ateneoan itzaldi batzuk emoten doguz astelenero. Noizean bein euskal-jaialdi batzuk antolatzen doguz, eta baita euskerazko ikastaro batzuk ere.

—Zeintzuk dira zuen asmoak?

—Lenengoa, toki berri bat aurkitzea, ta Madrid-aldera etorten diran euskaldun guztiak, zeozer bear ba'dute, laguntzea.

—Bazkide asko zarie?

—Une onetan, eun da bost gara, baña ondiño batzuk ez daukue izenik emon.

—Len, meza aitatu dodan ezkerro, beste itaun bat egingo dautzut: Zenbat urte dira, meza au lenengoz emon zanetik?

—Zazpi urte gutxi gora bera, ikasle talde batek antolatu eban, eta lenengo meza-emoillea Odriozola'tar Manuel apaiza izan zan.

—Antolatzen dozuezan jaialdiak, zela-koak izaten dira?

—Azkenengo jaialdian, Lertxundi ta Lete abeslariak izan genduazan. Ama-Lin «pelikulea» be emon dogu.

—Jaialdi oneik egiteko, baimenazelan dabil?

—Batzutan eztozu eragozpenik izaten, baña beste batzutan galerazoak izaten dira.

—Orduan eguraldia bezela, gaur bai ta biar ez, ezta?

—Bai bai, olatxen izaten da.

—Eskerrikasko.

Poz-pozik abiatzen naz nire etxera, baña alan da guztiz zerbait gelditzen zait emen, ezta kit zer dan. Laister arte.

UME

AZTERGARRIAK

TA, GU LASAI

Txina'ko arduradunak uste dabenez, USA diru-zalearen eta URSS lur-arapatariaren arteko guda makurra laster izango ei-da. Orren egiztatzean oiñarrizten ei-ditue euren urrengo jokabideak.

—Ezagutzen dot ar-zulo polit bat, baiña bildur naiz beste askok be ba-dakiela.

* * *

EA BA MUTILLAK

Ea zuzentzen dozuezan auziok! Alde bietatik, sorkaldetik eta sartaldetik, Europa osorako ziurtasun batzarra egiteko gertu ei-dagoz. Or, orain artean besteak ontzat emoten ez ebezan erusitarren lur-jabetzeak, ontartuak izan eta luzerorako bakea egingo ei-da.

—Txikiak, azkenean, aztuta. Biafra be aspaldi aztu gendun!

* * *

SAKONAGOA

Ez ei-da errusi ta yanki arteko salerosketa ituna judutarren auziagaitik bakarrik ondatu. Ezta gitxiagorik be. Amerikarrak eskeintzen ebena, janaria ta laguntza arruntak bakarrik ei-ziran. Ta, erusitarrek gura dabena ostera, teknika ta aurrerapen gaurkotuen laguntza izan, bere ekintzak atzeratuta geratu ez daitezkan.

—Dirua tarteko, bake-zaletasunak baiño indar geiago izango dau kankailu bi orreik alkartzeko.

* * *

DANAK IRABAZTERA

USA'ko lendakari dan Ford jauna ez dabil lasai. Arrolioa goian, eta arabitarren eskuetan zatirik onena. Ouek barriz gertu gai orren bitartez euren elburuak lortzeko. Orain, Ford jaunak 3 dolar upeleko sarrerazerga bat jarri dautsa, erriarrak beste erregaren baten billa joan daitezkan.

—Bitartean, aberatsak aberatsago.

* * *

ESTU

Paris'ko Orly egazkin tokian, arabitar batzuk izugarritzko jazarra egin dabe, eta eskuartean jende mordo bat artuta, iges egin al izan dabe. Batera jo ta bestera jo, iñun ez ziran onartuak izan, eta azkenean, besterik ezean, nai ez eben Iraq'era jo bear izan dabe. Epaituak eta zigortuak izango ei-dira.

—Batzuk laguntasuna izaten dabe, baiña zein negargarria bakarrik burrukan dabilenantzat.

* * *

OKERRAK ORDAINDU

Papadopoulos Grezi'ko leen lendakari guda-gizon zarra, erriak aukeratutako jaurlaritzak atxillotua eukan bere lagun batzuekin. Dakizenez, gizon ori guda-indarketa baten bidez jabetu zan agintaritzarekin; arazo aundiak izan zituan, baiña azkenengoa, Txipre'koa, bera baiño indartsuagoa ta iges egin bear izan eban.

—Orain epaiketa zuzena izango dau, ta egiñaren ondorenak eskatzen dautsez.

* * *

NORK ULERTU

Azken berrogetamar aurte oneitan, Bagdad, Iraq'eko urinagusia, Kalifa orreitako barik izan da. Ouek, Mahoma beraren jatorriko gizonak izaten dira, errege ta apaiz nagusi nasteko zerbait. Orra ba, laster baten Kalifa barria izentatuko ei-dabe orrako, ta esamesak Faisal erregea bera izango ete-dan zabaltzen dabiltz.

—Gure asmenak ezin ulertu olako aldaketarik.

* * *

NORA?

Madagaskar, Bangla-Desh eta ez dakit beste zenbat laterrietan, agintari bakar indartsuaren azpian lotzen diarduez erriak. Gosea, alperkeria, dirurik-eza... arrolioaren garesitza ta, ei-dira bide oker orreik artzeko atzakiak.

—Benetan, ludi au, nora ete-doa?

* * *

GAIZORIK

Gaizorik eta beste zerbait. Brezniev agintari bakar ori makalduta ei-dago, baiña erriak baiño bere erri barruko etsaiak txarrago ei-darabille. Arpegira botatzen ei-dautsez, Egipto'n, Txipre'n, Israel'en eta amerikatarrekin izan dabezan artu-emonen ankasartzeak.

—Zerbait ba-dabil, baiña angorik jakiteko itxoin egin bear.

* * *

EMAKUMEAK

Emakumeen eskubide urtea dogu aurten. Somalia'n, beste oitura batzuk ditue, andrak ondo gorde, arpegiak estalita ta abar. Baiña an dan jaurlaritza barriak, oker orreik zuzendu ta emakumea bere maillara jaso nai. Gizonak, arrak izan-eta, ezetzka baztarretan. Amalaurren bat su-izkilloz erail bear izan ditue, ixillarratzeko.

—Alargun pilloa bat batean, ez dira ba bakar batekin etsi izaten.

* * *

EZ-BEARRAK

Esaten dabenez, egazkiñetako ezbeurrak, beste erabilgarri guztietan baiño gitxiago izaten ei-dira. Ala ta be, ba-doa goruntz. 1974'ganean, % 50 geiago il dira olako okerretan. Milla ta bosteun lagunetik gora urte orretan.

—Berebil, bultzi, itxas-ontzi ta egazkiñetan illak, edozein gudatan baiño geiago. Goseak erailak bakarrik dira ugariagoak, berez izlzen garaneok gogoan izan barik.

* * *

GUDAK

Gizonak bakarrik giñala uste gendun astakeri onen zaleak. Orra baiña, Olanda'n be izan dabe lentxoago izugarri bat. Erlamiñoak, jateko barik itxuraz negurako, erlak batua arrapatza jo dabe, ouek ezetz, eta alkar arteko erailta bildurgarriak. Eun milla baiño geiago moltzotuta lurtean, amar zentimetro gorako lerro luzeetan batuta.

—Gizasemea, erlen alde jarri da, ta erlamiñoak erailten asi. Zuzentasunari begira? Ez, arek berarentzat jana ta argizaia emoten dutsoezalako bakarrik.

* * *

BARETU EZIN

Ludi onek ezin dau bide ziurrik aurkitu, an eta emen, egun gitxirako bakealdiak lortzen dira, baiña bat-batean eztabaidak ta makilladak. Portugaldarren egoera ezaugarri lez agertuko dogu. Demokraziara ei-doa, baiña alkarri itz egiten ezin laga; zaldigaiñekoak ezkertarrak makillatzen, oiñezko guda-riak, zaldikoeri ez lagatzen, egazkiñetakoak etorri ta etxe-barruan lotuta eukezan erdikoak azkatu. Mozanbiki'ko portugaldarrak iges egin nai ta naiko tokirik ez egazkiñetan. Angola'ko gudalburu batek, Zaire'tik jarzartzen asi jakoezala salatu.

—Urak berera egin arte, izango da nekerik eta zigorrik.

* * *

ALEGIÑETAN

Italia'n bertan, urte gitxi barru, eurentzako lain arrolio izango ei-dabe. Aurten zazpi milloetoneko geiago lortu ei-dabez, eta dauken dirutza urriarentzat, laguntza aundia izan ei-da, ta izango dala, askoz be geiago aterateko bidean dagoz-eta.

—Esan dagigun barriz, lanetik dator ondorezate ta bakka, alperren errietan nastea ta erailteak.

* * *

ZELAN

Ba-dakigu, Ipar itxasoan, Engalanda ta Noruega bitartean, arrolio ta gas asko aurkitu dira. Gas au eroateko, oztu, urtu ta itsas-ontzietan sartu izan dabe. Orain baiña asmakizun barria; plastikozko puxiga aundietan sartu ta bere gorakada berezkoaz, egazkiñak aurretik daroiala eroango ei dabe. Puxigok baiña ez edozelakoak, bosteun metro luze ta eun zabal, gitxi gorabera.

—Ainbestean burua nekutzen dabilzen langille jakitun orrentzat be, posporo geiago barko da garunak indartzeko.

* * *

KEZKATI

London'eko agintariak, estu. Datorren Bagillaren azkeneko, erriak esan barko dau Europa'n jarraritu ala ez. Orrenbestekoa izan zan ba auteskudeen aurrean agindutakoa. Biotzetik, Wilson'ek eta bereak, Europa'n jarraritzea nai dabe, baiña eurak jarri ebentik zalantzan, estu orain. Txarrena, langilleen alderdi ori erdi-bituta geratu leitekela.

—Beste aldean be, ez da erriari laguntzeko duin dan ezer ez iñor, konserbadorenean.

DANOK

ORBELAK

ILLUNPEAN

Obeto biziteko garretan gabiltz. Bizitzako legea da. Legea bakarrik ez, eskubidea be bai.

Baiña bizi ete lei iñoren kontura? Or dago kakua.

Aldizkariak irakurten nabil. Europarrak ez ei gara len lez biziko. Arabitarren kontura bizi ei giñan. Obeto esanda, arein lepotik. Orain arein biurrikeria artu bear ei dogu. Olioaren igortzia, baiña zikiña. Maillarik gorena artu ei gendun. Gaur arein araberan bizi bear ei gara. To! Itza bera, berba berbera egoki ete da? Arabera? Ba dirudi arabitarrekin olgetan ibilli giñala itz ori kontontzean be. Une baten ikututen gaituna ez ei da ezer, nai eta okertuta laga. Luzera etorkizun illuna, baltza ei daukagu.

Estutasunak irabazpideetan, burukomiñak negoziotan. Argirik ez. Amar milla milloet irabazietan, sekula baiño geiago, biribildu ei ditu elektra-indar, S. A. batek, eta indarra goratzeko premiñan agertzen dala autortu. Beste batek irabazirik geien eskintzean, porrot egin.

Diru-etxeak, bankoak, nai daben lez darabille industri txiki eta andia. Estu ibilli dirala, baiña ez da euren irabazietan beraterik igarten. Bankoak ez ei dabe gaur pentsaten klientien kontura bizi diranik eta oneitatik datorkiela euren irabazia.

Sal-erosketan esateko oitura da: klienteak beti daukala errazoa. Baiña erregela ori bankoetan apurtzen ei da.

Langilleok be ba darabilgu gure kurutzera. Janariak gora, eroskiak be bai. Ezin ukatu irabaziaz be gora joan diranik. Baiña bizi-modu alaiago batek iruntsiten dau bitartea. Eta aurrean, gero ta baltzago, lan bidea. Lanik ezaren itzala gafiñean. Ori be ez da barri alai, urteen urteetako kittatu beurrak lepoan artuta dagozanean, gaur langillerik geienak aurkitzen diran lez, etxe berak edo ta etzeko ondasun eta aurrerapideak beartuta.

Urte barria illun asi dogu. Boltsako jokatzalleak zurbil, langilleak kezkatu, ola-gizonak, fabrikanteak buruko miñez. Eta oraindik arri-olioa ez ei da bere neurrirra eldu.

Bizia ez da ekonomia bakarrik. Gizonaren bizitzak ba dauka beste alderdi baliotsuagoa. Bere izatea, bere eskubide, pentsakera eta maitasunetan.

Gure kaskarrak be nai leuke arindu eta barruak nasaitu. Eta maitasunak musu bigunak emoten baretu.

Urtea, fedearen eratik, alkartasun miña sartu nairik asi da. Ori eskatzen daukue gure konteintziaren gidariak. Zeiñek makurtu nai?

Danok ei gabiltz alkartu nairik, baiña makillea tente erabillita, zumitza eta gorostiz egiñiko makillea, apurtzen ez dana. Ezin ukatu zerbaiten premiña ba dagonik eta ortarako alegiñean batu bear gareanik.

Baiña... txapel bategaz buru bi estali nai izatea ei da ori, esan eustan adiskide batek. Eta beste batek, apaldu nai ez dabenarentzat maia prestatia lez dala.

Illun sartu gara urtean.

ZUBEGI

FRANTZIA

Franzia'n gaurko lan elkarteek berekin dituan eskakizunak oso sakon eta kezkatu aztertzen ari dira eta «Empresa y Progreso» taldearen iritziz era-berritze au zazpi adierazpen oetan datza:

1.—Lan-elkarte mailla guztietan langillediaren erantzukizunak ernarazi eta ugaltzean oiñarrituta tinkatu bear du bereziki eraberritzeak. Eta onek lan-tokietako arazo eta erabakiak lan-mailla bakoitzari dagozkienetan banatzea eskatzen du.

2.—Aginpidea dutenen jokabidea, elkarte lan-era bakoitza kontuan izanez, langilledia osatzen duten guztien arazo eta nairak elkarte jatorrean aztertuz, beti ere era onetan, aurrera egingo duana bear du izan.

3.—Lan orduetan, iru illabetez bein egingo diran aldarrekiko billeren bidez, bakoitzak bere lan-sailean gertatzen danen berri izateko, eskubidea du langilleak.

4.—Anonima (izen-gorde) izeneko lan-elkarteetan zuzendaritza eta zaipen jokabideak ez ditezke bateratu. Famili-tarteriko lan-elkarte txikiak berriz, beren ondasun

eta gizarte egokera kontuan izanez, fiskal eta legekiko araudi berri batzuek egingo dira.

5.—Langilleak, lan-elkarteko jokaerak sakonago bizi eta ezagutu al-ditzan, danentzako zabal eta irikia dan jokabide bat eraberritzea, Zaintza Biltzar edo Consejo de Administración osatuko dutenak 100'tik 25 beintzat lan-toki bertako gizakien artean aukeratuak izatea alegia.

6.—Lan-elkarte bat estutasunetan arki ba'ledi berriz aurrera jarrai al-izateko egin ditzazken aldakizun eta joka-bideetan, langillediaren irabaz-pide eta gizatuzuna ziur babesten ditularik, ekin barko dio.

7.—Lan-elkarte berriak sortu erazi eta trebe diralarik, aurrera begira berritzen saiatzen diranei laguntzea da langilledi osoak arduraz sentitu bear duan ikuspegia.

—Lan-sari eta irabazpide eskakizunetza gafiñera, oek eta beste onelako arazo batzuek dira langille artean ondo ausnartu beurrak.

IÑAZPI

IDAZTI BARRIAK

Izena: ESKUTITZAK.

Idazlea: Aita Onaindia.

Urtea: 1974.

Irarlea: Gráficas Bilbao, Gordóniz, 28 Bilbao.

Igaz Aita Santi'ri omenaldi bat egin eutsagun. AGUR'en irakurleak jakitun dira, ainbeste idazlanetan aita-tu da gai ori ta.

Aita Santi'k ondo irabazi eban omenaldi ori. Zenbat izan ete dira Euskalerrri'n gizon ospetsu onek beste idatzi dabenak? Asko ez. Batzutan idatziak batu, sarritan itzulpenak, iñoiz azterpenak, beste iñoiz berak asmauriko gaiak, itz-lauz eta itz-neurtuz, liburuetan eta aldizkarietan... Zenbat lan!

Eta ez berak lan egin bakarrik, beste batzuri laguntasuna eskatu ta lan eragin be bai; beste asko, bizitzako goraberak dirala ta, itun aurkitu ditunean, bere eskuaz jaso eta bere aolkuakaz indartu.

Orrez gaiñera, lekaide bateri jago-kozan lanetan nekatu eziña izan da, bai lekaide-etxean, baita Gotzaiñaren ardurapean ezarri jakozan artzain-lan askotan be.

Omenaldi orretarako, Aita Santi'k, liburu barriak agertu euskuzan, bata emen aipatzen dogun au. Oso baliosua ta interesgarria berau. Eta omenaldiagaz ondo alkartzen dana. «Eskutitzak» ezarri dautso izenburua. «Emen dau edozein idazlek jaondako ogetamar urteotako literatura ta sozial-kezka askoren guna», diñosku berak.

Eskutitzetan agertzen da garden-garden bakoitxaren izaerea, ezelako agertu-gura guzurrezko barik: «Eskutitzak, noski, iruzur bageko idatziak izan».

Eta beste ondoren on bat be ba dauka liburu onek. «Ondorengo gure elerti-zaleentzat be ez da arrobi makala liburu au». Zenbat jakingarri galduko litzakezan olako txorta ederretan agertuko: ez ba'lira!

Bat baiño geiago arrituta geratuko da berak antxiña baten idatzi eban eskutitz bat irakurriaz; iñor, bear ba'da, pizkaren bat mindu be egingo zan, agertzea nai ez dauan gairen bat agertu dalako, baiña berak ixillekorik ez dauala agertzen diño.

Eun eta amar idazle ta 257 esku-titz dira guztiz. Idazleak batzuk bizi diranak, besteak joan ziran. Batzuk guztiz ospetsuak gure elertian, besteak ez ainbeste. Geienak, oraintzu sortutako euskerearen burrukan, erribidean diardue, baiña ba dira ugari beste alderdikoena be. Euskalerrri'ko



bazter guztietatik eta mundu zabale-tik etorriak dira eskutitzok eta irakurleak gauza guztiz jakingarriak aurkituko ditu liburu onetan. Gizonen aldakuntzak be bai.

Ezelako aldakuntzarik ez zuzen-ketarik bage agertu ditu, eta ori jakiñik, euskal-idazle onak naikoa ugari dirala gaur, iruditzen jat. «Diñodan au siñistu nai ezta, iñor ba'lego, diño berak, betor ona ta ikusi begiz orijinalak».

GAMIZ

eziketa jostailuak
eskulanetarakoak
irakasketa gaiak

gregorio de la revilla, 1
bilbo-11

IKIRIKI

Jolasean ikasi, or zure aurrentzako emoitzarik onena

ZORNOTZA

GABONAK ETA «UDABARRI»

Talde bizkorra. Dantzari taldea! Joandako Gabon, Urte Barri ta Erregenetan ez dira, ez, lo egon. Gorputz osasuntsuz ta arima zintzo, zindo ta azkarrez, or ibilli yakuz urduri, an eta emen barruan daukan eder-miña zabaldu ta erein nairik. Lo-garaia ez dala-ta, dantzarik naiko egin dabe; baita kantari, birigarro lez, ezarri leuna erakutsi be.

Gazte onein asmo ta egiñak beti ditugu eder. Txalotu ta iragarri bearrezkoak, gaiñera, euron irakatsiz beste asko be bizkortu dedin. Taldearen buru dan J. M. Agirre'gaz autua, alkar-izketa izan dot oraintsu. Berak jarri nau jakiñean, berak esan daust zer burutu daben garai onetan, urte zarra amaitu ta barria dogun sasoi amesgarri onetan. Auxe dozu autortu daustana:

GABONILLAK, 21

Berriz'en izan giñean, ango eleizan urtero ospatzen dan jaialdian. An ba-da «Izarrak» dantza-taldea; arexek eratzen dau jai ori. Ogei izan giñean guztiz. Arratsaldeko bostetan jaialdia. Gabon eta Eguberri kantak abestu genduzan guk. Entzuleak pozik geratu ziralakoan nago. Gu beintzat alai biurtu giñean etxera.

GABONILLAK, 22

Barrero be Gabon kanta jaia, Durango'ko «Txoritxu alai» taldeak antolatuta. Ordua: 11.30. Tokia: Astarloa saloian. Bost talde joan giñean, eta talde bakotzak ogei ume eroiazan. Abestu genduzan kantak aurretik, saio edo ensaio askoren ostean, ondo ikasita geunkazalako, polito urten euskuen. Txalo-zaparrada bikaiñez saritu ginduezala, ez dago zetan esanik.

GABONILLAK, 24

Olentzero! Aspaldi danik Euskalerrri an ezagutu izan dogun irudizko gizaseme traukil bat, gaur galtzuz, lastoz eta trapu zarrez ondotoxo beteriko txorimalo bat, aurki baten ezarria kalerik kale erabilli oi dana. Garai ontarako, egia esan, ez da ain egokia. Baiña, tirai, azken urteotan Euskalerrri jentilla zan denporetako zer zarrak, trapu zarrak lez edo, eguzkitara atera nairik askotxo dabilzan ezker, betoz plazara olentzero ta gaiñetikoak be. Alan eta guzti be, jentil zerok baiño askoz bizi ta ederragoak ziran eta ditugu, garai ontarako batez be, Gernika'ko Mari-Jesak eta Gabon, Urte Barri ta Erregen kantak, eta kalez kale neska-mutil eta umetxoak eskan ibilteak. Zornotza'n lenengo aldiz atera dabe Olentzero. «Udabarrri»koak, zoli trebeak dirala be, iru egun bear izan zituen txorimutil edo belakuso ori atonduteko. Arratsaldeko lau ta erdietan asi ta zazpirak arte ibilli yakuzan, naiz-ta danak ontarako umorerik izan ez, kantaka ta txistu-tanboril otsean. Gero, Gabon aparti gozoa. Ta amabi-amabietan, Larra'ra, gaberiko oillar meza abestuten. Meza bitartean, korutik, billantzioko anek abestu genduzan: «Arin, arin, kristauak», «Jeiki gaiten kristauak», «Aur eder baten billa», «Gabeko izar», eta gaiñerakoak.

GABONILLAK, 28

Urtearen amaia zala-ta, jaialdia. 1974'garren urtea ixilik joan yaku, ezertxo be esan barik. Zartu egin zan urtean, eta agure edo atso igar baten antzera, itzali yaku betiko: ez da geiago biurtuko, ez onerako be txarrerako. Guk agur egin nai izan geuntson, jolasaldi bat eskiñiaz. Kalbariko Ikastetxean izan zan. Lenengo plastikozko laukiak: «Egipto'ra igesa» ta «Erodes erregearen jazarpena». Ondoren bertsolariak, dantzariak, albokariak, akordeoi-jotzailleak, abestiak eta teatro-lan bat, «Sagar erdia» taldeko bertsoak abestutua. Gauza oneitatik bakotxo aurkeztu edo aurrean jarteko, neskamutiko bik bertsoak abestuten ebezan, Aita Onaindia'k ontarokoxe egindako bertsoak. Guzti au, oso polita izan zan. Ikusle-entzuleak be, nik ute dot, pozik etxeratu zirala urte-azkeneneko ekintza onen ondoren. Ba-ditu istilluak onako jaiak gertatzeak, umetxoakaz batez be. Baiña gero lan orrek dakarskun poza, arturiko neke ta atsekabe guztiak baiño askoz zoragarriagoa dozu.

URTARRILLAK, 5

Aurten, aspaldi an egin eztana, Euskal Jakintza Astea izan dogu Zornotza'n, 1975'ko urtar-rillaren 2, 3, 4, 5, 6 eta 7'an. Bertoko gazte bizkor batzuk eta legez jarrita daukaguzan Alkarte batzuk izan dira eratzaille. Guztiz goresmengarri ditugu. Ona egitaraua: Eguna, 2: Karmel-darren Ikastetxean gaueko 8,30'etan, Karlos Caballero mintzatu zan. Gaia: «Eziketa gaur». Eguna, 3: Euskal Abesbatzak Zelaietan zinean gaueko 8,30'etan; Bilbo'ko «San Anton» taldea ta Alonsotegi'ko «Gure Ametsa» taldea. Eguna, 4: Euskal abesti saio Zelaieta zinean gaueko 10'etan; «Oskarbi» taldea, Ibai Rekondo, Manex Pagola ta Gorka Knorr. Eguna, 5: Euskal liburu, disko ta Eziketa jostailuen azoka, Karmeldarren frontoian; 21, 30'etan, Amuriza, Areñio ta Intxaurraga bertsolarien ekitaldia; arratsaldeko 6'etan, «Udabarrri» taldearen dantza saioa. Eguna, 6: Euskal liburu, disko ta Eziketa jostailuen azoka, karmeldarren frontoian; 12,30'etan Euskal Tresna ta Doñu Eraskusteak: Trikiñia, pandereta, alboka, txistu ta txirula. Gaueko 8'etan, Oiarzun'go «Intxixu» taldea «Orria 778» Zuberu'ko Pastoral gisako antzerkia emon eban. Eguna, 7: Zelaieta zinean gaueko 8'etan, «Nafarroa'ko Lau Aroak» filma erakutsi zan.

Berez ikusten danak ez dau azalpenik bear.

OIZ

Gizaburuaga

Beti lez gabiltz emen.
Geitu ez; pixkat ba'da be, gitxitzen.
Baserrietarako borondaterik ez dago eta kaleko biarrik ez da agertzen.

Piñuak be bajatu egin dira. Ori bai, sagar arbolak ugaritu.

Ez da errez emen iñok zerbait ipintea pentsaten be. Batetik erri txikia, Bestetik aukera asko be ez. Elektra indarraz, beinik-bein, txarto gabiltz. Iberduero'k ez dauka erri onentzat begirapen andirik. Makiña txiki bat erabilteko be argi bardiñik ezin. Gora ta bera, begietan be min emoteko eran. Neurri barik.

Olaxe sartu gara urte barrian.
Gure bizitokiak eta etxeak, lengoak.
Ogetamar famili inguru bizi gara.
Ogetamarrak osotuko ete doguz?

Bizi garian etxeen izenak? Ara: Agarre, Akiuola, bizitza bi; Andramari-lai-zoleta; Arrangiz; Bengola-torre; Berezikua; Eguren bide; Eguren beko (bi); Ezurieta; Erreka; Eretza; Errotabarri; Goikoetxe (bizitza bi); Goitizko (bi); Iruarritza; Laiz; Laiz-oleta; Landeta; Leizardi; Okamika (iru); Urkietxe eta taberna biak.

Len geiagotan bizi giñan, baiña etxe batzuk uztu egin ziran. Gaur bear ba da

udazale edo beste norbaizuk pozik artuko leukezan etxe utsak oneik dira: Arrangiz; Beketxe; Bengola-torre; Bengola-errotia; Bizkua (bizitza bi); Goiztu (bi); Lazier bekoa (bi); Lazier goikua (bi); Okamika goikua; Txopene.

Joan dan urtean baserri inguru batzuetarako bideak ederto ipiñi izan dira. Ori, erritarrentzat, mesede da, beti be; eta auzo alde guztietan egin ba'litx obe. Norbere lurra maitatzeko egokitasunak bear dira eta orretan al dogun guztia eginda be gitxi izango da.

Kalean, pelota-tokia, erbestetarrak gei-go erabilten dabe bertakoak baiño.
Eleizara Murelaga'tik etorten yakuz abadeak, emengoaren ordez.

Eskolara, maistrea, Gernika'tik, angoa ez ba'da be.

Emen bertan gauza bat daukagu ona: Jaungoikuaren grazia. Orretxegaz bizi gara, al dana egiten. Gorutz baiño berutz geiago, Lea'ko urak lez. Baiña illetarik ez daigun jo. Gauza batzuk geitzen be igarten dirata. Bat esateko: azeriak. Eta jakiña, azeriak ugaritzeko, basoetako zakarrak be ugarituko ziran.

TXOPE BARRIE

ERRIARRA

BARRIAK

Bermeo

Gabon jaietako barriakaz nator. Urtero lez, Gabon jaietan kalez-kale abestutzen ibiltzeko oiturreak jarraitzen du. Aurten ere, gure erriko kaleetan naiko euskal abesti entzun doguz zar eta gazteen artean. Bermio'ko abesbatz barriak ere, lenengo aldiz urten du kalera abestuz. Txalo bat eurentzako. Ez dira neiko lagun baña ederto abestutzen dabe. Euren zuzendaria oso ona da, Joseba Andoni Egia jauna, eta astiro-astiro zerbait lortuko da. Ea abesbatz zarraren mallara elduten zeraten.

Gabonillaren 29'an Karmelitaren ikastetxean, Ikastolako umeak jai bat eskeini dauskue. Urtero lez, antzerki bat egin zuen, eta ederto adierazi ere euren euskal nortasuna. Gure Ikastolako umetxoengandik etorri bear da gure erriaren ona. Euskal eziketa barik, ez dago Euskalerririk. Gurasoak zentzundunak bagera, ezi dagiguzen ba gure umetxoak euskal nortasunean, gure erriaren etorkizuna uren eskutan dagoan ezker.

Urtarrillaren 5'ean, gure erriko pelota tokian, Euskal Jai bat euki dogu. Lagun-Artea batzokiak eratuta. Onexek dira parte artu dutenak: Lupe, Bergaretxe, Xabier Lete, Lurdes Iriondo, Pantxoia ta Pello, Oskarbi taldea eta Jon Lopategi bertsoalaria. Jaialdi onek ez du atxikirik euki, otza izan ezik. Igande ortan gure erriko pelotategia otztegi bat iruditu jatan. A ta guztiz ere naiku lagun zegoen bertan.

Abeslarien eginkizuna ederto. Konturatu bear gera Lete'k, Iriondo'k eta beste batzuk, «Ez dok Amairu» taldea sortzean aterako abestiak, urte ixil askotako garra, indarra ta adorea euki ebiela, eta mallia ortan irautzea ez dala erraza. Beste alde batetik, abesti onenak debekatuak izan dira. Abesti saioa amaitu ondoren, alkarregaz bazkaldu gendun guztiok, eta zorionez, nire aldamenen Oskar-biko zuzendaria eta aurrez aurre Xabier Lete euki nituzten.

Egia esan bear ixiltzekoa ez naz-eta, antxe agertu genduzan gure iritxi eta zalantzak. Batez ere ez nintzan aspertu Xabier'ekin izketan. Pozik gelditu nintzan bere buru jatorra eta euskalduntasun zintzoa ikusiaz. H'dun idazle guztiak, zure iritxi eta asmokoak izango balitzaz Xabier, zigur nago burrukarik ez litzakela izango. Iraun ba bide ortatik Xabier, biotz onagaz jokatu ezker, lortuko dogu zerbait.

Eskerrik asko «Lagun Artea»ko bazkide guztiai eta laguntzalleai. Zorionak danori.

RENTERIA'TAR JOSEBA ANDONI

Zeanuri

Aspaldiko urteotan, erri onetan oitura egin jaku, jai bat edo... antolatzea Gabon jai inguruan.

Irakurle askok gogoratuko dau joan zan urtean egin zan euskal abeslari jai; oso ederra benetan. Aurtengoa ez zan izango are beste garrantziko askorentzat, baiña uste dot onek be garrantzi aundia izan dabeta beste bi alderditik: bata, erri onetan urtero gauza barriak egiten dirala ikusi al geinkelako; eta bestea, aurtien umeak izan dirala jai onetan parte artu egin dabenak.

«Umeak», gai artuta, euren arduradunak antolatu eban jai au, eta egitaraua au izan zan:

Asi zan lenengo zatia, erriko bi ume bertsoariakaz; eurrak, Larrakoetxea'tar Joseba ta Angoitia'tar Garbiñe'k, abestu euskuzen bertso batzuk, gaurko euskera geixoaen buruz... Bigarren Igorre'ko Juantxu'k iru abesti eskini ebazan eta onen jarraian Gonzal erritarrak bere saioagaz lenengo zatiari amaiera emon eutsen. Bigarren zatian San Anton'go Abesbatzak bederatsi abestigaz egin eban bere saioa.

Baita ere jenteak ikusi al izan ebezan umeak egindako Dibujo eta Pintura lanak, eta irakurriak izan ziran ere iru umeen idazki, beste askoren artekik artute, benetan oso politak izan ziran idazki oniek.

Jai au amaitu zan umeari sariak bananduaz eta Agur Jaunak abestuaz.

Lerro onein bitartez Zorionak emon nai neukez Zeanuri'ko umeari eta batez be Ipiñaburu'koai eta Altxuste'koai parte artu dabelako eta olan jarraitzeko prest dagozalako.

Beste barik, Zorionak antolatzaileai be eta jarrairu aurrera lan orretan.

Aspaldion jaiak bakarrik ez dira ikusten erri onetan. Beste erri askotan lez eriotzak be ugari izan dira. Askori entzuten dautsegu urteak dirala ainbeste eriotz ezagutu ez dala urte baten barruan.

Lagun asko eta onak joan jakuz, euren artean Urtarrillaren 18'gan. Etxezarraga'tar Mariña'k itxi dausku. Bera izan da Ipiñaburu auzumeko AMOMA, Euskalduna, Ona eta Alaia zan bera, eta orrelan izaten irakatsi dautsie bere ingurukoai, orregaitik ba, Jaiakoak bere alboan ipiñite eukiko dau dudarik gabe.

G. B. eta lagun gaitube samin aldiaren bere sendiak, AGUR onetan lan egiten dogunok.

J. M. ASTONDOA'K

Arratia

Onen aurrekoan esateko neukazan zozokeri danak esateko bear neban lekurik ezagaitik, emen naz barriro ere lengo aritik.

Lantegi ta saltoki-dendetako ateburuetan «hortaliza, pescaderia, libreria, farmacia, carniceria, almacén, joyeria» ta alakoak, bakoitzak bere ogiaren izena, noiz arte? Asi gaitzean oraintxe, ainbat lenen obe, «Barazkiak, Arrainduna, Idaztitegia, Osakaiak, Aragitegia, Biltegia, Bitxitegia» ta abar, euskerarenganako begiramenez euskal-sena agertzen.

* * *

Lenengo entzun eta esaten dogun izenak, itzak eta zerak, aguro beragantzen gaitu, ta gure zentzuna beragana lotu. Ekubilletan asi zanean Urtain, morrosko andik eta morrosko emendik, esaten asi ziran egunerokoak ere. Morrosko itzak ba, aurrea artu eutsan «Chicarron» edo olakoren bateri, eta morrosko itza Madrid'en ere, gaur egun, parra-parra ta zabal dabil. «Chicarron» esateari emon ba'leutse... euskaldun askorentzat «txikarroya» izango zan ziurki. Oiturak eta ekanduak lege biurtzen dira. Eta legea, gogo onez edo txarrez, bete egiten dogu, geienok.

* * *

Lorketan, eraman-ekarrian dabilkiguzan gurdien atean, kamioietan, ere ba-dogu zer nora aldaturik. Bidez bide, erriz, batetik bestera burdi ibiltarrietan euskerarik izango ete dogu ikusterik? Noiz? Baiña, NOIZ?

Erderea baiña euskerea astunago? Euskeragaz gasolina geiago erre-bearra? Olan ba'da... emon laztan kutunak erde-reari ta gorantzak arabitarrai. Bete gaitzean ardauz, «Euskara jalgi adi plazara» abestu, indartsu, ta goazen aingerutzuakaz lotara.

* * *

Eta udaldiagaz batean erriburuetako jai-nagusiak urbiltzean, urreratzean, zelako iragarkietan agertuko ete dira arratzi abertzaleak, itzontzi buruarriak? Itzez eta hitsez, berbaz eta lerdez... erri-zaletasunik aundienak. Baiña iragarkiak egiteko garaia, ordua datorrigunean... gutar eta bestetar, ango ta emengo, polito alkartzen gara idaztiño, liburu-txo batean, daukaguna azaldu ta eskeintzen gaztelarazko izkuntz maitagarrian. Gora «gure gutarrak»... eta bestetarrak!

Urte, au oiñetatik burura, eskeindu euskerari, oso-osorik.

* * *

Odolosteak. Odolki-txapelketea antolatu ta egiten asi giñanetik, negu onetan, irugarren urtea bete da. Bost erritako atxekoandre langille apal izan dira oraingoan esku artu dabenak. Maiko eta dastari-porbatzaile, gizonetako bi ta emakume bi: Zornotza, Dima, Iurre ta Bilbo'ko.

Usterik aundien eta osoena Artxanda'ko Tartzan'en geunkan. Azken orduan baiña, otoz-otoan, Zeberio'tik bialduri-koak jaso genduzan, eta negu onetako

estebaltzen, odolosteen txapela Zeberio'k etxeratu.

Maiko ziranen erabagiak emen: 1. Zeberio'ko Leonor Undarraga'koa.—2. Artxanda'ko Tartzan.—3. Zornotza'ko Euba'n Etxebarri baserrian bizi dan Juli, dimatarra.

Saritu ta saritu gabei eskerrik bioz-korrenak AGUR onetatik.

LANDAJUELA'TAR A.

Markiña

ILDAKOAK

Gripe edo dalako onek bereak eta bost egiten diardu gure errian be. Gabon-jaietan sendi bat baiño geiago, oso-osoa, ogeratuta. Urteetan aurrera doazanak, ostera, parra-parra jausi dira; edo obeto, Goiko Jaunak bere altzora batu dauskuz, sagar umotuak lez.

Abenduaren 27'an il jakun Adolfo Laka, eta arrezker, Urtarrilla onetan beste bost onek: Leopoldo Kastro, Dolores Bru, Juan Barruetabeña, Leokadio Soraluze eta Teodora Erkiaga.

Goian begoz gure anai-arreba maiteok. Lagun daiskuela andik erbeste onetako gure ibiltaldi laburrean. Otoitz bat euron alde, eta gure samin-agur beoa senitarteko ta adiskideai. Alkar ikusi arte, agur!

BATEOAK

Joan jakuzanen utsunea betetzeko loratxu politak bialdu dauskuz Jaunak erriko baratzera. Abenduko azken igandean zapzi izan ziran onartuak Kristo'ren lorategian, zein baiño zein muñuñuagoak, izanez eta izenez: Urzi, Aitziber, Goreti, Alain, Jose Angel, Mikel eta Eider.

Azkeneko au gure aspaldiko andereño zintzo Arrate'tar Garbiñe'ren lenengo loratxua. Txikitxu onek ba-dauko nok ondo irakatsi Markiña-aldeko euskera sendo biribilla. Ea, ba, Garbiñe, besteenakaz egiten dozuna ta geitxoago egin zeuretxu orregaz. Ez jatzu iñoz damutuko. Ez orixe!

Alain, barriz, Ondarres pelotariaren bigarren frutua. Lenengoa, alabatxoa zan: Irune. Oraingo au, mutikotxua. Ameriketarra dau Ondarres'ek emaztea, baiña euskeraz eta euskal-izenakaz bateatu nai dabez euren lorategiko landara guztiak. Alain'en aita-ama besoetakoak, Gaitan'darrak izan dira: Enrike ta Maria Biktoria. Oniek be ez eban euren besoetakoak erderaz eta erdal-izenez bateatzerik nai. Geiago: erderara itzuli-eziñeko izena ezarri gura eutsen. Azken baten urak euren bide jatorrera? Orra, ba, gure Alaintxu betiko euskaldun eginda. Aitaren kideko pelotari fiña izango ete dogu?

ESTUALDI ESTUA

Estualdi estu ta larria Agustina'k eroan eta croanazo euskuna. Nor dan Agustina? Beste ezer aitatu ezik, Iturraran'go alabea da markiñarontzat Agustina, Gandiaga'tar Agustina.

Biotzekoak emon ete eutsen susmo ta bildurrez, goizalde baten estu ta prisaz Kruzes'era eroan euskuen, konorte barik. An igaro dauz egun batzuk, ondoeza zer izan eitekean jakin arte. Osagilleen eritxiz butanolurrunaren ondorioa izan ei zan.

Osasuntsu, argi ta zoli biurtu jaku etxera, ta naisatu jakuz barruak geuri be. Pozik dago ta pozik gagoz. Baiña kontuz, Agustina, olako lurrun eta aizeakaz! Zure antzeko emakume egille, eragille ta umore onekoen premiña andia dago errian-ta. Guk ez daigula ezagutu zure urrengo osterarik Kruzes aldera.

«ITXAS-SOIÑUA»

«Itxas-Soiñua». Lekeitio'ko Ume-Abeslariaren Taldea. Naiz ta oraintsu sortua izan, ospe ta entzute andia lortu dau Ortuondo gazte kementsuaren ardurapean diardun talde zoragarri onek. Gabon-ostean Erroma'tik

ibilli-barri doguz umetxuok, Europa'ko talderik onenen artean. Guztiz amar mulla ume-abeslari alkartu ziran Erroma'n, aurtengo Urte Santuari asiera egokia emoteko asmoz; errudunok errubakoengandik alkar-bakeak egin eta alkar maitatzen ikasi daigun.

«Itxas-Soiñua»ko umetxuuri buruz emengo izparringiak be esan eban zerbait, eukok dakien-antzer, egiak eta erdi-egiak naaste. Guk dakigunez, eta iturri garbitik jakin be, pozik eta oso ondo ibilli ei ziran. Nai ebanek egunero itz egiten ei eban gurasoakaz urrutiz-kiñez.

Euskalerrria'ren izen ona oso goi itzi dauskue Erroma ta Europa'ren begietan. Europa'ko beste taldeen zuzendari ta arduradun bat baiño geiago ezin sifisturik egoan «Itxas-Soiñua» oraintsu sortu-barria dala. Zorionak umetxuoi ta euron zuzendari ta laguntzailleai!

Barri pozgarri bat daukagu orain Markiña'rako: Erroma'tik itzuli ondoren, «Itxas-Soiñua»ren lenengo ekitaldia geure errian, Markiña'n izango ei da; datorren illaren, Otsailaren 8'an, arratsaldeko zortziretan, Karmen'go Eleizan. Norbaiti omenalditxo bat egin gura ei dautsoe esker-enez, zorrak-edo ordaindu nairik. Maitasunari maitasunez. Ordu ta erdi inguruan ogei abesti baiño geitxoago abestuko ei dauskuez. Eskerrik asko, aurretiaz!

Ziur gagoz Karmen'go Eleiza ederrak betekada bete baño beteagoa izango dauala gau orretan. Olakoetan ondo dakie markiñarrak bear dan lez erantzuten.

KIRKILLAK

Basauri

Urtarrill'en 4'an eta arratsaldeko meza ostein, jai eder bat eskeini euskuen Arizgo ikastolako gurasoak, adiskide ta juen nai eban guztientzat.

Jai au jakintza (kultura) aldetik zerbait egiñaz, ikastolako gurasoen zama astuna arintzeko asmoagaz egin zan.

Egitarau eder bat apaindu eban Ariztarrok.

An ikusi genduzen:

Basauri'ko abesbatza, Enbeitia anaiak, Andra Mari'ko Txistulariak (Galdako), Iñaki ta Bakartxu ta Lertxundi.

Izenok emon ezker, uste'ot neiku dala, ba jaun oniek ez dabe aurkeztzerik bear, ta onen soiñu, abesti ta olerkiak azzertzeko, arlo onetan, ni baiño gejago dakiena izan bear da.

Ainbat lagun batu giñen, eleizea andia izan arren, jarlekuetan ez euen danentzat lekurik. Atzean eta aldemenetan ainbat zutik ikusten zan.

Ikusten da ba-daukagula «geure iturriko ura» edateko egarria. Zori-txarrez iturri bati baiño gejagori ezartzen dautse «contaminado» txartela ta bere ura edan barik geratzen gara.

Lan garbi ta eder baten sartuta dagozanen kerizpean, beste amets batzuetarako orriak zabal-tzeak ez dot uste ikastolari mesede aundirik egingo dautsoanik.

Mesedez utzi ikastolak bakean, neiku buru-auste dauke lendik be-ta.

Utsune bat oartu gendun, makal antzean dabil-gun Jabier'ena, baiña laster ikusiko dogu sendatuta ta len baiño amets gejagogaz ikastolako lanetan.

GOIKOETXEA'TAR KEPA

MENDEXA

Mendexa'ko jaiak San Pedroan izaten dira. Ez Bagillean, Dagonillean baiño, il orren lenengoan, San Pedro ad Vincula jaiak ospatzen dan egunean.

Eta orduan kanta kantari joan bear da ara, Lekeitio'n zubi ondolik bidea artu, Santa Luzia alboan lagata, aldatz goran:

Ni Mendexa'ra, san Pedroetan
ba noa zezenetara.
Arek bai neskatxak
ederrak, galantak,
lekeitiarren aldean,
Mendexa'n eleizaldean!

Bigarren bertsoaz be jarraitu leike. Ez ain ziur eta bete, kezkatu eta akulari baiño, edo ta ez jakin arduratsu ala ule artzalle:

Igaztik ona urte bete da,
denpora orren luzea!
Arik onako
gau egunetan
marastu leike gaztea,
aldatu leike gaztea!

Eta orrelaxe, umorez, itxas aizeak artzen, sartu gaitetzen Mendexa'n.

* * *

Lekeitio eta inguru oneitan berebiziko oguzkera dauke, berbak aoz agertzeko era jator bat. Euskaldun beteak dira. Asko kostaten yake erderazko berbei erdaldunen esateko moduzko era eta gurgilla emotea. Asko edo gitxi euskal kutsua sartu barik ezin esan. Erri batzuetan erraz esaten dogu jaboia. An txaboia. Erraz Gibaja. An Ikipaka. Guk erraz Benjamin, emen Inkamin. Esan lei oraindik kutsutu bakago esakera daukela.

Inkamin bat, abade jatorra ezagutu gendun Mendexa'n. Kataluniarra sortzez edo jatorriz. Pelotari errimia, nai eta mendexarrak esan abade zalako irabazten lagaten eutsela. Bete-beteko -lagun zalia. San Pedroarako lapa salda lodia gertuten ekian eta kabra saltza ederra. Edozenbat bilbotar eukiten zitun mailkide. Lapa saldaren errezetarik ez eban emon nai izaten; ez orrek eskutuko andirik eukiko ebalako, urrengotan be alako lagunen artu-emona eukitearren baiño.

Bakoitzak berea eukiten dau, baiña arek benetan maite eban Mendexa.

* * *

Mendexa, txiki dalakoan, beretzat aiña lur ba dauka. Gaur baiño ezagutuago litzake, esaten dan lez, Ondarroa'tik Lekeitio'rako bidean, Saustan itxas sakonaren aurrean, Baurdo ingurutik bide barria zabaltzen ba' dautse.

Ia zazpi kilometro daukaz. Eta ez mendiz. Lekeitio'ko ondartzat deitzen dana, Mendexa da, bai eta Lea ibaiaren egalerarte dagozan etxe, jauregi eta inguruak.

Amoroto eta Mendexa alkarren antzeko erri dira. Alkarren parean ikusten dira mendi gaitetik. Aurrez aurre. Amoroto'tik tartetan ikusten da itxasoa eta urrun. Or dago alde, Mendexa'tik aurre-aurrean dagolako. Bere etxeak eta eleizaren ormak itxas bustiaren brastadez garrastu eta gazituta daukaz.

Laurean lagun. Eleiz inguruan eun inguru. Beste aibeste Iturrate'n. Erdiak Leaegi'n eta emengo iru Likoa'n.

Inguru guztiak, piñuz beteta. Eleiz inguruan etxe barriak. Eurak baka- rrik dotore izango litzakez, bear ba'da, baiña emengo ikuspegi eta giroan, arrotz.

* * *

Mendexarren nortasun eta gatzat igarteko, berebizikoa da Azkue'k izentatzen daben gertaera bat.

Bein, emengo alkatea, Gernika'ko batzar nagusietara joan zan. Amairugarren aulkia eukan. Bere txanda eldu yakonean, idazkariak esan eutsan: Ia Mendexa, erakutsi zure agiriak. Kolkotik ataraten asi zanean, arto zati bat eta iru sagar gaza-min jausi ei yakozani. Berak, origaitik moteldu eta lotsatu barik:

Emen da Mari gureak
niri gerturiko gosaria:
iru sagar gazamin
eta arto zatia.

Bere patxada ikusi eta besteak adarra jo nairik ibilli yakozan batzarrak irauten eban egunetan.

Bein ostatuan esan eutsen: A zelako eskupekoa emongo dautsazun zuk oneri, azken egunean.

—Ai ene, bakoitzak al dabena, ori da lege. Beste batek: Bilbo'n gatzari arrak egiten ei yakoz eta ez al dakizue Mendexa'n zegaz kendu leikiozan?

—Jakín ez? Sekula umerik egin bagako mando emearen esneagaz.

—Mendexa, zuen baserrian ez al dago zu baiño burutsuagorik?

—Orixe bai. Arek beste arazo andiagok daukez. Zuentzat ni be naiko nazalakoan bialdu nabe.

Eta orrelaxe, adarra jo nai batzuk eta berak danei ulea artu.

Azken eguna orduko, ostalariari esan eutsan: Ekatzu biar arte amaseiko urre bat, zure mesedean izango da-ta.

Azken egunean an egozan danak Mendexa arrakeroa zalakoan, arek ze eskupeko emon eikean begira.

Kontua eskatu, zeatz ordaindu eta gero bere amaseikoa danen aurrean emon eta esan eutsan:

Orra nire eskupekotxua. Parkatu, erri pobreakoa naz-eta. Oneik aberatsok obeto portatuko yatzuz.

Eta... lotsaz geratuko ez ba'ziran, besteak be berak aiña emon bear beintzat.

* * *

Lekeitio'ko abadeak andik serbidu nai izaten eban Mendexa, gaur baiño erreztasun geiago ez egoan denporetan.

Mendexarrak asarre ebiltzan. Inñor ilten zanean, batzutan, gorpurik be ezin eroan izaten ebela Lekeitio'ra, Lea ibaia igaroteko zubia egurrezkoa zalako eta askotan ujolak eroaten ebalako. Eta bardin beste premiña askotarako. Orreik entzun eta Calahorra'ko ordezkariek agindu eutsen, 1545 urtean, ordurarte ermita zan San Pedro'ren eleizatoa parroki biurtzeko, eta lekeitiarrei jakin erazi agindu ori artu eta bederatzu egun barru arako abade bat izentatzen ez ba'eben, amar dukat urretan emon bearko zituela zigortzat eta gañera mendexarrak eurak aukeratuko ebela nai eban abadea. Orduetik sortu zan Mendexa'ko parrokia.

Gero inñoz lekeitiarrak Mendexa'ko parroki onetan sartu ziran kaxarrankia eta San Pedro jaia egiteko abade jantziak eskutuan artzen, Lekeitio'n lagaten ez eutselako. Eta egun baten, Calahorra'ko ordezkariek ain zuzen be lekeitiarrei eleiz jantziak kale kale erdi moskortuta ibiltzen galerazo nairik etorri zan baten, etxe aurrean agertu yakozan dantzariak ordezkarierri, Mendexa'ko eleiz jantziak eroiezala.

* * *

Aurrean eta egalean dauka itxasoa Mendexa'k. Baiña ez da arrantzale erri. Bai ta ez. Ala agertzen zan lengo denporetan. Arrantzan ibilli nai izaten eban itxasoan, lekeitiarrek in batean. Baiña orduko gerratan ortarako itxasontzietarako lagunak eskatzen zituenean, ez eban nai izaten arrantzale erri lez agertu, soldadurik ez emotearren. Lekeitiarrak, euren aldetik, euren txalupetan ebiltzala-ta, mutil eskabidea egiten zanean, bertako arrantzalierri arteko zozketan sartu nai izaten zituen.

Etxe beteko asarreak ortik. Ukutzen zirakako, lekeitiarrak euren txalupetik kanpora atara zituen mendexarrak. Oneik, urte bi geroago, euren txalupak egin eta eukitera eldu ziran. Arrantzara joan, Lekeitio'ko korfradiatik kanpora arriña saldu. Mendexa'ko aldean, eta kittu. Itxasoa danena zala ta onetan eragozpenik ezin eikioela ipiñi. Baiña lekeitiarrak ez eutsen txalupa onei portuko molla galetan lotuten lagaten.

Bein berrogei dozena besigu be kendu eutsezan lekeitiarrak, indarrez, Zubieta aurrean lotuta eukiten zituen txalupetik txikotak eten ondoren. Kontuan euki Zubieta ez zala Lekeitio'ko erri-lurraldean sartzen, eleixateen jaubetasunean baiño.

Ori dala ta korrexidoreak be mendexarrei emon eutsen bere abegi on edo erraioia. Baiña asarreak urte batzutan be jarraitu eban. 1664 urte inguruan zan ori.

* * *

Gaur, Lekeitio'tik Mendexa'rako, begi bateko zubi ederra igaro bear da, nai eta estua. Ez dauka ujolak eroateko arriskurik, begiratu baten.

Lekeitio eta Mendexa adiskide dira bakoitzaren berean. Gaitz litzake lengo itsukerietan jarraitzea.

Lekeitio lurrez estua dala? Ez al dakigu lapa-sopia alkarregaz baketan eta umorez jaten?

Baiña kontuz. Ez judeatarrekaz. Bein Nieto lizenziadua Mendexa'ra joan zan an biziteko asmoz. Mendexarrak ez eban abegi onez ikusi, judearren odolekoa zalako. Origaitik Eleixateen Batzarrekoak agindu eban kanpora bialtzeko eta Bizkaia'ko beste eleixateetan biziten be ez lagateko.

Orra, 1575 urtean, mendexarrak judearren aurka.

Itanduko ete dautsagu gaurko arabitar eta israeldarren arteko gerran, zeñen alde edo zeñen aurka ete dagozan?

A. ZUBIKARAI

AGVR

Apartado n.º 2
BILBAO

FRANQUEO
CONCERTADO
08/55

GEURETASUNAK ETA GEUREKERIAK

Udako egun zoragarri bat. Eta San Bartolome eguna. Eta domekaz. Bosteun lagun bazkaltzen untzorritz jantzitako ermitatxoaren ondoko aretxen gerizpetan. Adarrik adar, saltuka ta kantuka, kardantxilloak. Erle ta mitxeletak basolara artean balet bat dantzatzten.

Lagunen berba zurrumurrutsuak eta kardantxilloen abesti ori-gorriak transistoren abotsetan itotzen dira.

«IRIBURU IRRATIA, erri irratia. IRIURU IRRATIA entzuleekin beti barri barriak sortubarri emoten.

Gure Benardo
beti mardo

edan ezkeru
GARAGARDO!

GARAGARDO! GARAGARDO! GARAGARDO! Au eguzkiaren beroa! Au zerbezearen gozoa! GARAGARDO! GARAGARDO! GAEAGARDO!»

Irratiaren dei zoliak entzun arren, uretan doaz pitxar banagaz gizon bi, uretan aitzarteko iturrira.

—Egun ederra, e?

—Bai, benetan!

—Ura ere ederra emen.

—Bai orixe.

—Kontuz...! Busti egiten nozu ta... Ez dozu ikusten ala?

—Jesus! Txipristin batzukaitik ez zaitez... epe! Parkatu.

—Parkatu diñozu orain? Esan arren, alperrik. Busti-busti egin nozu. Jakiña: ibili ere astoekin nabil ni ta...

—Zagoz isilik, mesedez, aibesteraiñoeko ez da izan eta.

—Isilik? Neu isilik oraindiño? Auxe ederra! Bai ba, astoekin ibili ezkeru...

—Txo! Astoekin zeu ibiliko zara, zeu. Entzun dozu?

Ona emen, erri-erritik jasoriko jazoera. Besteari *astoa* esan nai, ta norbere buruari esan. Jazoera gongoangarria. Ain zuzen ere, orren antzeko astakeriak bein baiño sarriagotan esan doguz aspaldion euskeraren iturrian, euskera batua dala ta ez dala, euskalkiak dirala ta ez dirala, «euskera batua» sortu ondoren euskalkiak alperrekoak dirala ta ez dirala. Konturatuta edo konturatu barik, gura dala edo gura ez dala, alkar txipristindu edo busti-busti egin dogu *euskaluz*; alkar ondatu egin dogu *euskalkasez*, *euskalfantaz*, *euskalkolez*, *erdairazcoilez* edo *euzkollez*.

Alkar busti edo ondatu egin, ta inñon diranak esan ondoren..., zer aldatu euki dauanak, aldatu egin ditu erropak. Zer aldatu euki ez dauanak, erdi billoizik gelditu ta eguzkitan ipiñi ditu erropak, sikatu dakiozan. Betikoa: pobreaken oiñean beti arantzzea; modua daukanak jan dagiala oilloa, ez daukanak, arto; jente pobreak neke doblea; pobreak dirudi intxausti, beti arrika danak ari. Betikoa: bardin-bardiñak garala guztiok esan, baiña batzuk beste batzuk baiño bardiñagoak izan. Ai, bardiñtasun bardiñean bardiñagoaren bardinkeriaren menpean dagoanaren errukarria!

Zer aldatu euki dauanak aldatu egin ditu erropak. Batzuk, goimailako aberatsen jai egunetako frak barri ederra jantzi dabe. Beste batzuk, beimailako beartsuen astegunetako fraka zaar kutxilotuak. Erriko jaietan, ezkontzetan edo olako egun aundietan jantzeko eukiten izan daben traje txukun dotorea ere jantzi dau talde batek. Zezen-narrutarren traje ispanionare ere aibatek jantzi dau. Eta, azkenez, buzo antzeko traje txatxar merke nabarmen bardiñak jantzi dimu taldetxo batek, kartzeletan egoten diranak jantzi oi dituen lakoak.

Neu ere ez naz billoizik geratu, astegun buru zurietan erabiltzen ditudan erropak euki ditut aldatzeko ta, zorionez. Buzo antzeko traje txatxar merke nabarmen bardin ori ere emon deuste jantzeko. Baiña jazkeran amar tarratada egin ondoren, sorki biurtu jat, eta autoa garbitzeko erabiltzen dot orain. Izan ere, aundia naz ta (eta aundia izate au ez da nire erruagaitik), oiñetakoak eta soiñekoak neure nerriari dagokionez egin bear izaten deustez zapatarriak eta jostunak.

Ondo deritxat, oso ondo, geure geutasunean irauteko, bardin antzeko traje dotore bat erabiltzeari, traje eder sendo zeatz eta argi bat jantzeari. Oso ondo deritxat, bai. Bearrezkoa dogu jai egunetarako, urira joateko, unibersidadera sartzeko, gure nortasuna goimailaratzeko. Baiña buzorik ez. Abarka ta pekorotz usainik ez; baiña buzorik ere ez.

Batzuk frak ederrez jantzirik ibiltzeari ere ez deritxat txarto. Bearrezkoak doguz frakdun batzuk ere, jakituriaren ta maisutasunaren ezaugarri bezela. Abarkaz edo buzoaz, itxura txarra emoten dau batek ango edo orko enbajadore batzuen aurrean.

Astegunetako erropak ere premiñazkoak doguz, gitxi izaten dira jai egunak eta. Ai, ai, ai! Egunkak guztiak balira jai; astelentxoak ere bai! Alperrik orixe nai! Auxe litzake onena izan ere, egun guztiak jai izatea, jai eguneko ibiliko gintzakez orduan beti, ta; jai egunetako soiñekoak erabiliko geunkez egunero orduan, orain astegunetakoak erabiltzen doguzan legez. Baiña (zoritzarreko *baiña*) lan asko egin bear orretarako, ezin alper egon. Bestelan, abarkaz edo buzoaz edo billoizik ibili bear..., edo zezen-narrutarren trajea jantzi bear... Ta orixe ez.

Aintzat eta ontzat artzen dot, orrexegaitik, gaurko jokabidea, iturri ondoan asarratu ondoren artu dogun jokabidea, azteguneko eta jai eguneko jantzirik eta buzoak sorkiturik. Eta orrexegaitik kantatzen dot egunotan neure lagun batek irakatsi eustan igarkizun-abesti au:

«Agur, erria,
astegun buru zuriz
etor dakigun goiz argiz
udabarria!
Orain ta gero,
ondo anaitasuna
zuk trajeaz dakizuna
jakín ezkeru.

Zeruko argia,
astegun ta jaregun
agertzen jakula nainun,
au pozgarria!
Zenbat aukera!
Ez egon lurra jota,
ez inñori urik bota...,
eta aurrera!»

Ulertu nai dagianak, ulertu dagiala. Urrengora arte.

LEJARRENEKO MIKELEK

Zur Errian

Erri-aldeko lanik ez egitea ta ezinetik ondoren onik ez izatea, begien aurrean argi ta garbi agiri jakuzan gauza bi dira Euskalerrria'n. Eta akats bi orreik estaldu nairik, gure eginbideai «iraultza» izena ezarten dautsegu.

Ba dira gure artean, au be bai, mai baten inguruan ainbeste alkar-izketa egiten eta alperreko nekeak jazaten nekata dagozanak be. Eta norik egiztatu, politikarako biderik eginkorrena nekeak jazatetik datorrela?

Ta, egoera aspergarri orrek eraginda, batzuk, al dan maillara eldu al-izateko gurari biziaz, zerbaiten billa ta zerbait lortzeko bide zabalagoak artzen asi dira. Onei, aldatzailleak dirala edo erakundeen leguntzaille dirala esaten jake. Arerioak ipiñitako arauak onartu bear izaten dituelako, jakiña.

Orain eta emen es dogu esan bearrik izango zer dan berez argitu-gaitza dan gauza ori. Aurre-ereti bat politikagaitan ez da iñoiz aldatu eziña ta betirako balio dauana.

Politikarako trebetasun eta jokabide batzuk, beste batzuk baiño eginkorragoak izan leitekez, gaur eta emen; inguru onetan aurrera egin bear ba'da, bide egokiagoa dalako. Atzo ona izan zan bidea, gaur txarra izan leiteke, baita biarko barru on biurtu be.

Baiña gu, lurralde baten eta aldi berezi baten bizi gara, eta inguru onetatik urten ezinda ez dogu alperrik ekin bear-ko. Gizarte-giro onen barruan, ereti au be agertu bear dogu: gure artean artzen diran bide batzuk sarri, itxuraz ondoren onenaren billa jardun arren be, norberarentzat errezak diralako artzen dira —agoz ori autortzen ez ba'da be— edo gitxienez, gaurko egoerari ondoren aterateko almenik ez izatearen ezaugarri dira.

Olako ereti baten barruan, gaurko era bereziak zeintzuk diran ez jakite bat, eta iñoiz, arerioaren aurrean izaten daben ezer-eziñaren agerpen bat, estaltzen dira. Politikako burrukearen ondoren on bat eskuratzeke ta elburu bearrezko batzuetara eltzeke, bide argirik, sasoz, ez dabe ikusi al izaten-eta.

Zurtasuna ta adimen argia bear dan maillara eltzen ez diranean, indarkeri utsa baiño beste biderik ez da geratzen —onetarako sendotasunik ba'dago beintzat. Edo bestela arerioagandik iges egin bear. Bide onetatik, bata be ez da egokia euskaldunak nai doguna lortzeko.

Lenengoa, ezin esan erreza danik, eta zoritxarrez, norberaren burua galtzera baiño ez daroa. Bigarrena, beronek dakarren argitasunetik, berez ondatzen dala dakigu.

Irujarren bide bat artu bearrean gagoz ba, eta au, eskuartearen doguzan erak be, al dogun bestean, geure onerako erabiltea da. Era oneik, geienetan, ez dira berez etorriak izaten. Erri guztiak eguneroko burruka gogor eta iraunkorrean lortuak baiño.

Gure ustez, ketokeria izango litzake, legetik kanpora lortzen doguna, lege barruan lortu al ba'gendu, lan ori legepean ez egitea. Ta, ez da bide erreza au. Ondo dakigu.


Danaren edo al danik geienaren billa dabilzanean bidea baiño askoz gatzagoa da. Bide au artzeko, politikagiroa ondo aztertzen jakin bear da, aldaketak lortzeko burrukearen trebetasuna ta zurtasuna bear dira, ta guzti ori politikaaurrerapena kentzeko asmoan eginda dagozan arau batzun barruan. Baiña politikea, jakituri bat da, eta ez errezena be.

Erti-lana be ba da politikea, arte bat. Eta berba onen jatorriak esan gura dauanez izan be. Orregaitik, gaurtik, eta geroago ta geiago, politikalarri benetakoak bear doguz. Oneik politikearen jakituri ta trebetasuna alkatu bearko dabez.

Orrean gure Erriak ditun indarretatik ondoren onenak aterako doguz. Olako indarrak ugari ditu oraindiño gure Erriak, baiña alperrik erabili ta joko zoroetan galtzen ete diran gagoz. Edo, txarrago oraindiño, Erri beraren kalterako diran bideetan galtzen dirala uste dogu.

AGVR

ANDRA-MARI



Euskal-Erri'ko jakintza-alkarteen arazo ta izatea beti izan dira jakingarri. Baiña sarritan, euren agerpen batzuk ikusi, ta olan dalakoan beste barik, ez gara beste ezergaitik arduratzen. Ordua da ba, geureak diran ekintza oneitatik zerbait ikasteko.

Orra ba, Artetxe'tar Kepa jaunarengana jo dogu. Galdakano'ko ANDRA-MARI alkarte ezagunaren lendaria dan gizon langille oni, galdera batzuk egin eta erantzunetatik zertzelada erakusgarriak lortu zueri jakinarazteko.

Asterakoan, talde onen sortburua ta ondorengo ibillerak zeintzun izan ziran aztertu bear izan doguz.

Jaiotzerako, sortu eban galdakanotar gazte ta zearo euskaldun ziran talde aretakoeri eragin eutseenak, eguneroko zereginetatik at izaten dan asti utsari osogarri bat emotea, alkar-ezagutzea zabaldu ta indartzea eta Galdakano'n ezagutzen ez ziran ekintza barrietan jardutea, izan ziran.

Asiera-asieratik dantzara lotu ziran, batez bere giputz dantzak ondo ikasita. Gero, dantza arloan bertan, napar eta zuberotarrak bere ikasi ta erabilten asi ziran, ta orrela jarraitu eben urte batzuk zear. Aurrerago joan eta zabalago jokatzeke, Euskal-Erria'n beste talde askoren artean sortu zan folkloreaken edo erri-jakintzearen esangurea zeaztu eziñagaitik, ezin izan eben biderik aurkitu. Aldi aretan, dantzan eta dantzan egin bear zala iñoen, naizta gitxik jakin dantzan zelan egin bear zan.

Ba-dira baiña urte batzuk, talde onek, gure erriko ta ludi guztiko dantza-senak daroan mamiñari igarrita, jakintza jatorrean zentzunez zelan jokatu ikasi ebal. Onezkerok, galderak egiten asiko gara:

—Zeintzuk izan dira, Kepa, ANDRA-MARI'koak aztertu ta erabili dituan erri-jakintza ta jakintza utseko maillak?

—ANDRA-MARI gure talde au, jakintza ta jolas izeneko alkarte orretariko bat da. Ezin izan ditugu baiña, berez bereak diran ekintza guztiak erabili al izan; oztopoak ez dira izaten txikiak.

Garai onetan, or gabiltz erririk erri dantza, doiñu, ereskin, jantzi ta abar luze bat aztertu ta jasoten. Ba-dira gure Erria'n benetan ederrak, eta batuta zuentzako agertuko ditugu. Onegaitik edo orregaitik, zentzunez lan eginda batzen ez ba'dira ta urrengoeri emoten jakin ez, betiko galduko lirakez. Ortik, goazan eskualdera goazala, gure aolkuetan betiko lelo au darabilgu: «zaindu ta gorde ondo zeunetik eta al dozuen neurrian indartu ta zabaldu zuenak eta gureak ditugun jakintza-era maitagarriok; euren artean

diran berezitasunak, eskualdetik eskualdera ez-eze, ibarretik ibar-rrera, ta alboerrietakoan artean diranak, benetan aztergarriak eta gure aberastasunaren ezaugarri doguz.

Gain-begirada baten, ez dirudi ain zaila, baiña erri askotan eta sarri, orretariko dantzarik gaur egiten ez dala, adin andidun erriko seme-alabakaz aztertu bear izaten doguz: batak eta besteak, au edo ori gogoratzen dabela, dantza oinkadak batu; abotsez edo txistuka entzun jakezanak solfeoan jarri; jantziak, arrezkerok ganora barik aldatuak, lengoratu, ta azterketa zeatz eta zintzo baten ondoren, dantza mueta bakoitza osotu... astiro egiteko lana, baiña neketsua.

Zabalkunde onen billa, or izan gara ibillaldi, jai-agerpen, nor-obeito egin... eta iñoiz gorengo mailletara eldu bere, Langollen'en lortu gendun lez, baiña ibilli ta ibilli, gurelurralde guztietan nai izan dogu zabaldu geuretxoa.

—Zein da gaur, lortuta daukazuen erakus-sortea?

—Bizkai, Gipuzko, Nafarroa ta Zubero'ko dantzetan berezitu dogu gure lana; bakoitzak berari dagokiozan ereskin, doiñu ta jantziak tarteko dituala. Egoki agertu nai izatera, bilduma au naitanaiezkua dala uste dogu, erria bera oso-osorik darabilgu gure gogoan, ekintzan eta oin-ariñetan, bere esangura guztiakaz.

—Eta egin-bear guzti orreik beteteko, zenbatekoa da zuen eskuartekoa?

—Doiñu, dantza ta jantziak lanetara lotuta, berrogeiren bat lagun daukaguz, eta etorkizunari begerira, Txikien talde bat sortu dogu, doiñuan eta dantzan arduratuak batez bere. Ez da baiña gure elburu osoa; bestera, zarragook darabilguzan ikasketak eta ardurea eureri eskuratzea da gure asmorik nagusia. Orrela, gaurko gure alegiñera, eurak jo ta eurenaz dantzatzean, zaletasuna zabalteke erarik onena ezarri, ori da beintzat zifnesten doguna. Onezkerok beste au bere esan bear: Gatzetxo guztieri, batez bere galdakanotarrerri, datozala gure ekintzara dei dagitsegu.

—Eta, ondasunen aldetik, zeintzuk dira, lan orri eusteko daukazuezanak?

—Asteko, ez da ba oindiño bide osoa ibilli, bear-bearrezkoa gendun, lan on bateri ekiteko, biltoki egoki bat. Or bilduko ziran jakintza arloan arduratuak, batez bere galdakanotarrak. Orretarakoa, gure ekiñaldietatik eta laureun aiñako gure bazkide lagunak emoten daukuenetik osotu al izan dogu.

Ala ta bere, zorretan bizi gara, baiña Galdakano'ko erriak lagunduta, laster biribildu al izango dogu. Onetatik gainera, galdakanotarrak, geiago ta geiago, gure ekintza guztietan eskuartuko dabela itxaroten dogu.

—Ta, etorkizuna aurrean dogula, zeintzuk dira zuen ikuspegiak?

—Darabilguzan jakintza-mailla oneintzat lan izugarria izango dogula ba-dakigu. Adibidez, aor naparrak, uste danez, eundaka agertu bako dantza-era daukeez, ta orreik aztertu nai leukeazanari emoteko zain; beste eskualdetakoak aztu barik. Gipuzkoa'ko dantza ugariak izan ezik, besteak ez dira bear aiñan aztertuak izan, eta onek be urte mordoia eskatzen dau.


Ala ta bere, ainbeste jakintza-mailla eder ez daukaguz aztuta: antzertia, eleberra ta abar, baiña emen diñoguna ikustean, gaurkoz eziñezkoa, danori aurrera eroatea.

* * *

Orra ba, talde baten kezka eta ardurak eta lanak. Orrenbeste ikasita, eurok eurenan ikustera joan gara. Gaur, Otsaillak bi, JATORKI abesbatza lagun ebal, jai-aldi zoragarria ikusi dogu Bilbo'n. Orren abestiak eta ANDRA-MARI'koen dantzaketak, bete-beterik zan antzokia txaloka ta goraka jarri dabez.

Barruko egiñetatik eta jendaurreko erakusketatik, zein baiño zein ohea ta erritasunez bete.

LEIZARRETA



Filolojiako jardunak

Nun dago erdi-bidea...?

(II)

Lenengo lantxoan Euskaltzaindia'k 1968 aurretik ibillitako jokabidea aztertu genduen. Geroztik iraultzailleok, gaña artu zutela usterik an, arterañoiko arau ta legeak baztertzen asi zirala ikus dezagun. Griña ori aspaldidanik zetorkien.

Orrela, 1959-1952 «Gernika» aldizkarian onelako idazkerak irakurtzen ditugu: «laphur, erhaile, behatze, khendu, jatorrizko hizkuntza vernakula...» abar eta abar. Eta V...tar Koldobika izenpetzen duan batek, euskera kulturalez, onela idazten du: «Assumpziozko Doktrina, Scriptura saindua, Magisteriak Santuaria revelatua». Orduan, jaun orrek, libertade sainduaren izenean ez zion jaramonik egiten Euskaltzaindia'ren arauai... Zergatik eskatzen digute esaneko izan gaitezen... Euskaltzaindia erdibide ta «zentzunbide»tik baztertu ta amildu dan ezkerok?

Gure erantzupena garbia da: erdibidera itzul ditezela eta elkarrekin joango gaituzu... Bestela ez!

1968 arteraño aski elkartuak genbiltzan, asko kostarik. «Kommitern eta fraticelli» sasi-eskola barrikoak izan dira «batasun» aren ausle. Gaitza goiz ikusirik, «ORIXE» zorrotzak ederki salatu zituan «Gernika» aldizkari artan bertan, esanaz: «Or etorri zaizkigu jakintza usteko gazte batzuek gure gauzeri muzin egiñez bazterrak nastera. Alperrik ari dirala esan bear diegu»...

Eta orain, nereko euskeraren erdibidea nun dagon adierazten jarrai dezadan. Erdibidea ez da naski «h» batzuek ar eta besteak ken ibiltzea. Erdibana amore eman? ...Ez! Naspilla ta zailtasuna besterik ez duala sortzen argi eta garbi ikusia dago. Arrotz itzetan ezik, beste guztietan erabat kentzea, errez-tasunaren legeak eskatzen duanez. Eta ere gaigo «iraultzaille batek» esana bait da, ez guk: «H»a euskal erreboluzioaren sinboloa da».

Au oraingoz. Euskeraren etorkizunari buruz, berriz beste zernait erantsi nai nuke: alegia, ERDIBIDEA, R. M. Azkue argidotarrak sumatutako «Gipuzkera Osotuan» dagola. Ez gipuzkera euskerarik ederren eta aberatsena dalako «erdikoena» dalako baizik; eta mintzabidez euskaldun geienak, oro ar, elkarrekin errezenik ulertu ta aditzen dugun euskera. Ez da beste arrazoirik, baiñan au nagusi-nagusiena da.

Ez giñake orain istillu ta liskar artean ibilliko, Euskaltzaindia'k erduztat artu ba'lu. «Bautua» izeneko «sasi-euskera» ez dute onartzen ez Bidaso'z onuzko eta arunzko euskaldun jatorrenak. Uzkur egiten diote. Barragarri, ez ba'litz ain negargarri. Norentzat ari dira sasi-izkuntza ori sortzen?...

Azkue'k esandako asmoan, ots, gipuzkera oñarri artuaz, ez zan auzirik. Eta bidezkoena izanez gañera, euskaltzale ospetsuena izan dugun gizonari zor zaion begirune eta omena egingo genioke. Bizkaitar izanik «Gipuzkera Osotua» ren alde agertu zanean, biotz-zabala ezik buru argitasuna azaldu zizkigun. Eta gai berari gagozkiola, Azkue'rekin batera Txomin Agirre ta Andima Ibiñagabeitia idazle omengarriak goretsi nai ditut. «Garoa» eta «Añamendi» eleberrien egillea bat, eta Virjilio'ren «Artzai-Kantak» eta ainbat beste lan eder gipuzkera osotuan onduak eman zizkigunak, ERDIBIDEA nun dagon ederki erakutsi ziguten. Aintza ta oles, bizkaitar ospetsuei! Bide erakusle bikaiñak!

Azkenik, gure iritzia borobiltzeko beste onoko au: Izkuntza kontuan ez dugula izan bear ez prantzeko ezta gaztelakoi, euskerakoi baizik. Kale-jakin-tsuak baño baserritarrek maiz geiago erakusten digutela, Mogel'ek «Peru Abarka'n azaldu zuan. Geo-linguistak baño Basarte'ko maisuak geiago dakitela. Onuzkero, ez «honez gero» pedantetxo batek «hizkiriatzen» duan arebera, aspertu zaituztet, eta amaitzera noa. «Kultur-Kampf» ontan nik ere itza atera dut, ez al zaizkigu bada esaten «dialogoa» bear dugula? Emen dijoakizute nere jarduna: gaizki esanak barka eta gañerakoak «on ar», itzak borobildu gabe gogoko ba' dituzute.

ANTONIO M.^a LABAYEN

AGUR

Ez Agur au beratu, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri asmoen gaiñetik daben iritxi-onoeko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritzien, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idaz-lanen erantzule bakarrak euren egilleak dira.

Agur au, bere zuzendaria ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M.^a MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.

Carretera a Galdácano, 32-Bilbao-4

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA

ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guttirako:

Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

GAZ ETA PIPER

JATORKI ABESBATZA, BILBO'N

«Buenos Aires» antzokian izan gara gaur goizean eta ez jaku damutu. Jai aldi zora-garria ikusi dogu, urtero egiteko asmoz, abesbatz barri onek eratu dauan lenengoa. «Andra Mari» dantza taldearen ekinñaldia, oitura dabenez, ederra izan da, batezbe txistularien saioa. Zorionak eurari eta zelari ez, ezin etorri izan dan Arantza, bikotearen ama barriari.

JATORKI abesbatzaren mugak zeintzuk izan leikezan jakiteko gaurko saioa entzutea naiko da. Andoni Arregi adiskidearen zuzendaritza bardin bakoa bidezko dala, gorengo maillara elduko dirala ziur gagoz. Aparteko aipamena merezi du gaur txalo artean lenengoz entzun dogun AGINA edo ZUTIK abestiak; euskal kutsuz bete, sakona, zirkingarria! Ertilarri on baten biotzak bakarrik, oiñaze aldikadean, sortu leikena. Barruan eukan ekaitzaren durundadea «pentagramara» ekarri dausku gure Andoni'k. Laister entzungo dira Euskal-errian zear abesti orren oiartzunak. ZORIONAK JATORKI'KO ADISKIDE JATORROK!

SAN ANTON, SAN ANTON!

San Anton'go eleizkizunari buruz idatzi genduna atzekoz aurre ulertu dabe edo ulertu nai izan dabe norbaitzuk. Argi egoala esandako guztia uste dogu, baiña burua lorrinean daukagunean ez dago gauza onik. Dana dala len esandakoak zutik gelditzen dira, ta oker gagozala uste dabenak jo begie bertako txanburuagana... argi dago ezta?

Beste zeezer be argi gelditzea nai genduke: Guk a idatzi genduean ez gendula San Anton abesbatza ezertarako nastean sartu. Lagun onak daukaguz an be ta ez dogu barruko eztabaidetan sartzeko eskubiderik ez

gogorik euki. Gure arteko satiketak mingorak izan dira beti gutzat eta angoak geiago bear bada. Zergaitik? Ba abesbatz ori sortu zanean tarteko giñalako besterik ezan eta zelako giroan, zertarako ta zelari sortu zan dakigulako ain zuzen be.

Belarri onik ez eta Valladolid'en urterik geiena igarotzeak ez euskun abestutzen asteko erarik isten, baiña gure kondaira txikerrarentzat zerbait azaltzera goaz: Mendirik mendi ta erririk erri gaur baiño giro illunagoan asi giñanok, aterpetzat erakunde bat bear gendula erabaki gendun; Gaur Azkatagi librerikoekin (orduan Verdes'eneko arduradunak) izketan gongozala zuzendari bat bear gendula adierazo geuntzen; eurekin Burgos'en egondako Bengoa Jaunaren aipamena egin euskuen eta neu izan nintzan taldekoen aurrean aurkeztu nebana. Gero izan ziran geroakoak, baiña ori izan zan asierea. Orregaitik orduko euskal gogoak gordetzea opa dautsegu oraingoz entzuteko erarik izan ez dogun San Anton'go abesbatz barritzauari. Ortik kanpokoentzat itz eta pitz.

CIA ALA KLB?

Sator jokoa ta azpi jana nagusi diran aldi txar onetan ez da asko gaur bertan irakurri al izan doguna. Oñiñati'ra euskera ta euskal nortasunagaz jabetzera etorri diran amerikar gazteak, geure anaien seme-alaba ta biloba jatorrak, CIA'koak dirala salatu ei dau norbait. Olako kirtenkeriak ez dabe jaramonik egiterik merezi, baiña olakoan beste zerbait jatorku burura: Ez ete da gero beste aldekoan lana, au da, KLB edo antzekoen morroiña? Ziur egon zaitez irakurle: bai emen eta bai Portugal'en ta beste laterri askotan, geiago dira olakoak CIA entzutetsukoak baiño... gure artean sortu dan alkar ikusi eziña lekuko.

ARENAZA'TAR JOSU

Erakusbearra ta sortzegintza aurretan

Aurrak ingi baten marraztu edo margoztuko dituan irudiak zirriborro utsak baiño obeagoak dira. Umetasun oso-osoon dagian berezko agerpen bat da; diarduan unearen araberan. Irudigintzaren berezko agerpen onek, barne-eraginientzat, biotzketentzat eta gizaseme batek, legoken adiñean legokela, izan legikezan oldozpenen erakusgarria izango dan urteera eskuratzen dautsa. Ta bere maillan agertzeko lain dan aurra, bere gogamen azkatuan ausartiagoa biurtzen da, ta asmoak eta gogoetak bere era jatorrean azaldu al izango ditu.

Erakusbearrak, adierazpen orrek, edozein eginkizunetan, sortze-ekintza guztietan, naiz jolasa, zirriborroa, esku-lana edo beste erti-lan bat izan, beretik sortua ba'da beintzat, aurraren nortasuna dan lez agertu al izango dau. Zabaldubear onek, barru-azkatse onek, sarri, bere sena bidekatu legikeon barruz-itxitze kaltegarritik iges egiten lagunduko dautsa, ta orretatik, eziketaleriak be, aurraren benetako bearrizanak zeatzago neurtu al izango ditu.

Barru-erakuste onen ondasunak agertzeko, esames arruntetan sartuta jardun barik, baiña azalpen zabal batetik begiratuta, aur bakoitzaren nortasun-aberastearen ezaugarri dala esan bear, eta irakasleak gogoan izan bearko dituan eginbearrak nabarmentzen dituala be bai.

Ona bat: Aurraren beraren eskabideeri, eta ez lan-erak eskatzen daben bearreri, begira izanik jokatuko dau. Ukutze, birrintze, apurtze, erabiltze, ozkatze, zikintze, urratze ta bata bestearen ondoren ipintzearen bearrizanari begira. Eginketa guzti oniek aurtzoaren esan-naia osotzen dabe, ta aldiaren joanean obetza be aurrera doala, ekintza orreik sortzaille izatera eroango dabe.

Zirriborroka dabillenean, ez dau gauza zeatz bat agertzeko asmorik izaten; esangura bat edo jokera bat osotzen dabil. Ala edo ola, jolasean diardu. Gauzeri oratuta jolasten danean be, ez dau ezer eregitzeko asmorik izango, gai orren izatekin jolas dagiala esan legike. Aur txikerrenak bere, arkatze-erabiltearen barri izan ez arren, ezta idaztarriaren gogortasunak dituan aldeak nabaitu al izan, poztasun aundia erakutsiko dau arkatze bigun batekin marrazten diarduananean.

Orrela, ta egoki dagokion eragiñez, berea daben garrantziaren esanbearra agertuko dautsa, ta orretatik datorkion atsegiña bere, argi ikusiko dogu.

Ekintza orrek, bigarren mailla batera daroa, sortzegintzara, ta orrela ez ba'litz, ez leuke luzaro iraungo. Baiña bere jakin-naia almena dago ernemiñetan; berak egin daben zerbaiten, aur-ikuspegi maillatik ikusten daben orretan ereinda. Ortik, bere gogoaren ta inguruaren jabe-izatea sendotuko dau.

Mailla onetan lotuta gelditzea baiña, arriskutsua litzake ziurki. Nausiak, irakasleak, bera dala eratzaillea egite orretan erakutsiko dautsa; orretan jardungo dala agertu bakarrik, eta ez besterik, ta ori be; aurrak bere sortzaille-egiteak azkatasun osoan bete ondoren eta eginbear orren zailtasuna nabari jakonean, eta ez lenago. Bestera, lan-erak bere berezkoa indartu ta erabili baiño len ikasiazte, burdia idien aurretik lotzea litzake.

Lan-erak ez diru beso-betea irakasi bear irakasleak, onen eginbearra aurraren berezko ekin-naia zabalitzea da, ta orretarako aurrak oartu al-izango dituan lan-erak bakarrik eskuratuko dautsa, au da, barruko eginbearren iturritik datorkiozan egin-naieri begira asi. Bide onetatik, sortze-lan gaitzenak be, bero-beroan beteko ditu; berezko daben almenean oiñarituak izan, eta bere bearrizanak bete al-izango leukez-eta.

Irakurri arren: «La conquista de la dimensión». Stern-Duquet. Edit. Kapelusz.

M.

EUSKALERRIKO ARAZOAK

BIZKAIKO LANGINTZAREN ZEINTASUNA

Nor nolakoa dan langintza mailletan eta zenbat diran ekintza bakoitzean

Gure langintzearen neurri batzuk agertu genduzan aurreko lan baten (Ik. 164^{gn} zenbakia). Orain, lan a zerbaiten betetzeko, lanean diarduen zeintasuna, nor nolakoa dan aldetik ikusketa bat egitea jakingarria iruditzen jaku.

Lengo lan aretan bezela, gure gaurko ikasketa gaia, langintza saila izango da, eta sail onen barruan, etxegintzea, kimia ta metala. Metal sail-adar au, beraz, zazpi ekintza-lerrotan banatuta erabilliko dogu. Sail onetan Bizkai'ko langillerik geienak sartzen dirala, ez dago esan bearrik.

Gure langilledi guztia, urrengo mailla oneitan bereizten dogu: Zuzendariak, injineru edo lizentzidunak, tekniku aurreratuak, tekniku utsak, banakariak, langille landuak eta langille utsak.

Osoan aurturiko azterketea

Sail osoa aztertzean: % 44,8 langille utsak ditugu; % 33 langille landuak; % 19 tekniku utsak, eta % 3 bakarrik, gitxi gora-bera, zuzendari, injineru, lizentzidun eta tekniku aurreratuak.

Eunetik iru bakar orretatik erdiak, tekniku aurreratuak dira. Orretara, zeintasan aundidun langilleak, % 1,5 besterik ez. Ori, zuzendari batzuk erdi-maillako ikasketak bakarrik daukezela, ta inoiz, berenez ikasiak dirala batzuk kontuan izan barik.

Langintza baten zeintasuna edo kualifikazioa, lenengo lau mailla orreik, au da, zuzendaritzakoak, injineruak, lizentzidunak eta tekniku aurreratuak, emoten daben ezkerro, zeatzago aztertuko doguz. Baiña azterketea asi baiño len, izen bakoitzagaz zer ulertzen dan azalduko dogu:

1.—Zuzendariak eta nagusiak: Goi-maillako ikasketak daukezenak, eta ikasketa oneik beteta euki ez arren, alako arduetan ari diranak.

2.—Injineruak: Ikasketa oneik artzen dituen arlo guztiak sartzen dira emen. Bizkai'ko langintzan dabilzan injineru geienak; «industrialak» dira.

3.—Lizentzidunak: Emen, arkitetoak, jakintzetan lizentzidunak, legezizonak, ekonomilariak eta abar, sartzen dira.

4.—Tekniku aurreratuak: Au da, peritoak, injeneru teknikoak, aparejadore, meagintzako maisuak, itxas-ontzietako makiñ-zaiñak eta abar.


Esan dogunez, lan-era oneik danera, % 3 inguru dira sail osoan. Ona zelan banantzen diran: Zuzendariak % 0,35; injineruak % 0,90; lizentzidunak % 0,27 eta tekniku aurreratuak % 1,48.

Ekintza-lerro bakoitzaren barruan

Lan-era oneik ez dira bardiñean zabaldua ekintzen artean, mailla onetan ba, aztertuko doguz orain.

Tximist-indar lanabesgintzan laurok batera % 5,32 dira; Kimian % 5,85, Meagintzan % 4,02 eta Burdingintzan % 3,10. Oneik, % 3 a baiño gorago dagoz. Beste batzuk dagoz azpitik: Etxegintzea ta Metalezko mozkingintzea dira apalenak.

Lau lan-era oneik, bakoitza berean, aztertuko doguz orain:



Tekniku aurreratuen sailak % 1,48 osotzen dabela esan da. Meagintzan % 2,60; Tximist-lanabesgintzan 2,94 eta Kimian % 2,78, gorengo agertzen dira; azpitik beste guztiak, burdingintzea izan ezik: Etxegintzan % 0,87, Burdiñezkoak ez diran langintzetan % 1,05 ta abar.

Injineruak: % 0,90 dirala, Kimian % 2,19; Tximist-lanabesgintzan % 1,86, guztirako zenbaki orren gaitetik dagoz. Burdingintzea (% 0,86) ta Eroan-ekarri gaiena dabilza neurri erdiko orren inguruan. Beste guztiak azpitik, batez be etxegintzea % 0,32 ta tximistar ez diran tresnagintzea % 0,37.

Lizentzidunak: % 0,27 dirala esan dogu. Budiñezko ez diran gaigintzan % 0,61 daukez, eta danetariko zenbakitik gora dagoz; Etxegintzakoak ostera, guztiz azpian, % 0,08 orregaz bakarrik.

Zuzendariak

Onetariko geien daukana Tximist-indar ez diran tresnagintzea da, % 1,01, urrengo Kikimia % 0,64 eta Meagintzea % 0,53. Erdi-neurrian (0,35) inguruan, Etxegintzea % 0,45, Burdiñezkoak ez diran gaienak % 0,47. Burdin-mozkingintzan % 0,41. Beste guztiak onen azpitik aurkitzen dira.

Ikusten denez, lau lan-era oneik gogoan, Kimia ta Tximist-indar tresnagintzearenak dira zeintasan aundiagoa agertzen daben lan-lerroak. Tekniku aurreratuena kenduta, beste iru lan-erakaz, lenengo lerrokoa, au da Kimiako dago gaitetik % 3,07 aiñara eltzen dala. Gero bigarrenkoa, % 2,38 gaz, eta irugarren tximistar ez diran tresnagintzea, % 1,59 bakarrik dituala, ainbat berago beintzat.

Orain arte jaso doguzan zenbakiakaz, eta lenago batu, baita erbestetik daukaguzanakaz alkartuta, bardinketa bat egingo dogu urrengo zenbakian, J. I.

IKASLE URDURI BATZUK

BATASUNA

Gai onetzaz idatziteko asko dagola, ezin ukatu idatzi leitekela. Asko pentsa dot onetzaz, nire gogoak ez dau euskaldumentzat bide egoki bat aurkitzen, illunean gagoz eta argi bat zabalduen inor ez gara alegintzen.

Gizartea doa, erri guztiak batutera doaz bestela ikusi Europa'n dagozan elkarteak (Benelux, C. E. E. etab.), au ikusirik galdera bat iatoria, zergaitik baituen dira? Ezin ukatu idealismo bateri erantzutearren ez dirala batzen, askotan arrazoi sakonak izaten dituez, norbereki bateri erantzutearren etab. nazio onetako arduradunen fenomeno onen azpian arrazoi sakon bat ikusten dabe, au da: Batuta zerbait egin leikeela eta batzea danentzat komenigarri dala.

EUSKALDUNAK

Au ikusita, euskaldunak zelan gabiltz? Nik, gure erria, ez dot ulertzen edo laburra naiz au ulertzeko. Baiña goazen alderdietatik. Euskaldunak realidad bat daukagula ezin ukatu, gure izakera, izkuntzea, kulturea zapaldua dagoala ezin ukatu. Au realidade bat, da, orduan galdera bat gogoan, zer egiten dogu au borrokatuteko? Erantzun bat daukagu: au burrukatzeo, anai arteko burruka baten asi gara.

Nik zuria ba'diñot, zuk iluntxuagoa dala; gorria ba'da, zuk ez ain gorria; nik erria ba'diñot besteak herria esango dau; baltza ba'diñot, ango batek zuritsuago dala; baiña nora goaz? Niri biotzetik urtetzen iatan deadarra au da NORA GOAZ, NORAAAAA...?

Gure erriak daukon nastea argitzen ta konpontzen aleginduko ba'gñakez eta ez ezta-baida lerdoak eta amaitubakoetan ibilli, obeto egingo geunke.

Erriak naste aundia dauko ezin ukatu, ez dakit leku ain txikian ta ainbeste gente gitxi artean, orrenbeste talde edo ideologi.

Au ikusirik galdera bat gogoan, noiz jarriko da ideologi bat-bakarra, noz lider bakar bat areri jarraitzeko? Ikusi daigun zelan dagoan erria batu daiguzan indarrak, mesedez batu, batu... Deabrua izan bear naste au sortu dauskuna!

Batua itzari jarraitzeko euskera batua ezin falta. Gure burruka sustraituagoa eta sakonagoa, arerio ari mesede aundiago bat egiteko gure izkuntza'taz be burrukan gagoz.

Ez dakit konturatzen garan zelango kaltea egiten gabiltzan. Nire iritzia au da eta asko pentsa dot, oker ala zuzen nagoan ez dakit, baiña nik pentzatu dodanada. BAI. Euskal-lerriak euskera batu bat bear dau, danontzat bardiña. Uste dot izkuntzak erria alkartuteko izan bear dabela eta ez zatiteko. Batasun ori zelan izan bear daben, ni baiño jakintsuagoak ba-dagoz orretarako. Nik orain ikusten dodana au da, batzuk lan egin eben eta dabe, ondo ala txarto baiña lan.

Beste batzuk batasun bat ondo ikusten dabe eta bearrezkoa dala esaten dabe baiña areik egin eben lana txartzat eta kaltegarritzat artzen dabe.

Euskalerrian, euskerearen izkuntz batu bat bear dogu. IRRINTZI

ALEGINDU ONERAKO

«Arrogeta» izango dot nire izena, izan be, gure aitita bizi izan zan baserriaren izena da. Nire ardurea, emen, gure Erri'ko eresa, doiñua aztertzea izango da.

Doiñuketea erti bat dala danok dakigu, gaur baiña, beste zerbaiterako tresna lez erabiltea be agertu da.

Edertasunari begira gaur bizi izatea ez da erreza; ainbeste sats eta zikin leioetatik zear sartzen jakuz etxean. Ez da baiña gure gaitetik dabillan dana sats utsa.

Gaur askok —oker nire ustez— ez dau ertieren aurpegia onartu gura izaten, azpiko esan-naia bakarrik darabille buruan. Ezin nik ulertu alderdi biok batera ez erabiltearen zergaitia.

Or entzungo dozuz, entzuten doguz ba, benetako doiñurik ez daben abestiak. Ta; itzak eurak bere, ardangeletako jardunen antz andiagoa dabe, ta ez erti-lan batek eskatzen daben neurrik.

Ezin nik ziñistu, ganora ta indar bako urteekin gauza andiak esan gura dirala. Beste au bai dala ziñesgarria, ederra dan zerbait, bere aurpegia be ederra ba'da, ainbat eta ederragoa izango da.

Ona beste zerbait, eta nire ustez garrantzi andikoa: Entzuleak, eresleriak nola abesten dabenari baiño, bere itxureari ta abestiari berari begirapen andiagoa dautse.

Onenbestez be oartu naz, abestia bera bere esangurean aztertzen dala, baiña abeslariaren ekinaren ona ala txarra ez.

Gauza zoragarria eresa neretzat; doiñuak maite-minduta nauka, eta ezin dot buruan sartu, gure Euskalerrian, dantzetan ain zabala, igikeran eta gaietan ain aberatsa, bere mendiarte jauzkalari ta alaien jabe izanda, eres-jaietara doanean orrenbesteko tankaradak jasan bearra.

Gure inguruak, gure ikuspegia ondutzen diarduela egia da, ego aldera begira jarriko gaituela atomik kutsuzko arnasarik artuko ez ba'dogu be bai; egia be bai baiña, guzti ori beste era baten esan leikeela, ez beintzat gaur emoten dauskuezan izugarrikeri orreitan.

Ta, ezer lortuko ez dala uste danean... askoz be oba polito esatea.

Sarri ibilli bearko dot arrenka, parka eskean eta buru-zuritzen nire esangura onekaitik, baiña doiñua tarteko, nire osoak nire arimatik urten nai, eta gaztea nazanez, gogo gaztearen jabe izan be, ba'litzake nire asibarritasuna larregian agertzea.

Ala ta be, neure iritzi-osotzea lortuta daukadala uste dot, ez ditut ba doiñu ikasketak alperrikoak izan.

Arrokeri baga, esan dagidan: solfeo, aozketa, gergoriarra, polifonia, abestea, zaparta, kitarra, auspo, txistu ta ikastaroan onartzen ez diran ainbat gauza be ikasi ditudala, ta zerbait geratuko zan emen barruan.

Abeslaria be izan naz eta erresmintzetan be izan. Ea zerbait onerako izaten dan.

ARROGETA

E D E S T I - A U R R E A

(Jarraipena)

d) **Arkaitzeko ertia:** Aztertzen ibilli garan erti-lanak, erabilkor izena daroenetakoak izan dira, esku-lanabesetan eta egiñak. Orain aztertuko doguzanak ostera, egin ziran toki berean dagozanak doguz: leiza-ormetan eta arkaitzetan egiñak.

Aurkitzeen kondairea: Arkaitzeko ertilanen lenen aurkitzea 1878'gn urtean lortu zan. Marzelino Santuola pre-istorilaria, Santillana del Mar'eko Altamira arzuloa aztertzen ebillala, bost urteko bere alabatxoak, arkaitzean margoztuta egozan bisonak, zaldiak, oreiñak eta basurdeak ikusi ebazan. 1895'gñean Riviere'k, prantzés pre-istoriliaria, Dordogne'n dan La Mouthe leizan beste arkaitz-marrakzi batzuk aurkitu zituan.

1901'gñean, Les Combareles'ko eta Font-de-Gaume'ko marrakziak eta grabadoak edo erbil-lanak aurkitu ziran. 1902'gñean, Carthailac'ek «Mea Culpa d'une Sceptique» lana argitaratu eban, ordurarte aurkitutako marrakzi ta erbil-lanak Peleolitos edo Antxin-arri lanetako garaikoa zirala autortuz.

Arrezkero beste aurkitze asko egin da baztarretan. Lascaux'koak 1940'gñean aurkitu ziran.

Euskal-Erria'n be, Venta de la Perra'n, Izturitze'n eta Santimamiñe'n, aurkitu ziran, oneik izan ziran emen lenengoak. Gero, garrantzi aundiko beste bi be lortu dira: Altxe-ri'n 1962'gñean eta 1969'gñean Ekain'en.

Ezaugarriak nabarmenenak: Erti onen ezaugarriak nabarmenena au da: aberearen irudia osotuta dagoa geien baten. Abere mota asko agiri dira. Zaldiriarena da, zalantza gabe, arkaitz-lanetan geien agertzen dana. Bisnarena be, ia zaldiriarena aiña.

Edur-oreiña, ostera, oso gitxitan. Basazezenak eta basa-beiak, ugariak dira. Mamuta, Frantzi'ko leizetan batez be. Auñamendi'tik ego aldera elefanteak be aurkitu dira.

Aragi-jale diran abereen irudiak be agertzen dira. Ori bai, bedar-jaleenak baiño gitxiago, asko gitxiago. Leoia ta otsoa marrakzi gitxitan agertzen dira. Artza geiagotan. Euskal-Erria'n, Ekain'en artz bi daukaguz, Santimamiñe'n, Venta de la Perra'n eta Izturitze'n, bana.

Gizasemeen irudi batzuk be ba-dira arzu-letako arkaitzetan, baiña itxura illunean geienetan.

Aztergarririk arrigarrietakoa, mota askotako abereak moltzotuta margozte da. Iru-dien nastaketa au, zaldi ta bisonakaz gertatzen da sarri.

Arkaitzetan egindako irudi geienak, aldameneka agiri dira. Irudi bakar batzuek besterik, burua aurpez-aurre dabela marguztuak aurkitu dira.


Arkaitzen urte-uneakaz baliatzen be badakie erti-lan oneik egiterakoan. Ekain'en olan egindako bison bat ikusten da.

Noizkoan diran: Margozketa oneik, ormetan dagozala, ez dabe gainetik lur-mailla ezagunik euren aldia zeazteko. Orretarako beste bide batzuk erabilten dira. Ezagunenak bakarrik aipatuko ditugu emen:

Lur-maillak: Arkaitzetako marrakziak eta lur-mailetan edo estratoetan estalduta aurkitu diran lanabesetakoakaz bardintzea.

Lan-erak: Erti-lanok egiteko aldi bakoitzeko creari begira aztertzea. Venta de la Perra, Altxe-ri ta Santimamiñe'ko arkaitz-irudiak noizkoak diran erabagitzeko azterteta onegaz baliatu dira.

Arkaitzetako kizkor-lanak: Arkaitzetako erti-lanetan, iru lan mota bereizten dira: bee-reliebe edo kizkor-lana, grabadu edo erbil-lanak, eta marrakziak.



Paleolitos-goiko erti-lanen artean gitxi dira kizkor-ketakoa. Ezagutzen diranak baiña, benetan egokiak eta ederrak dira.

Garai onetako kizkor-lanik onenak urrengo oneik doguz: Laussel'eko giza irudiak. La Madeleine ta Angles-sur-l'Anglin'eko emakume irudiak; oso onak.

Kizkor-lan edo bee-reliebe oneitan ez dira giza-irudiak bakarrik agiri, abereak be ikusten dira. Les Trois Freres'ko leoi emea, Conibarralles'ko leoia, ta Le Cap Blanc'eko zaldiak.

Euskal-Erria'n aurkitu diran bee-reliebeak Izturitze'koak bakarrik doguz, zazpi abere irudi berezitu legikez kizkor-lan onetan.

ARRATI'KO IKASLE TALDE BATEK

GUDA BILDURRA

Azkanengo gudea amaituta laster, ordukoan alkarren lagun izan ziran Errusi ta Ipar-Amerika, bakotxa bere naiera jokatzan asi ziranetik len baiño andiago baten bildur bizi gara mundu guztia.

Izan be bildur izatekoa da, gaur egunean olako guda batek ekarriko leukean zoritxarrak ikaratzekoak izango litzakez-ta!

Baiña, mailla orretariko gudarik iñok biztu ete leiteke? Munduko gudea sortzeko al eta nai izan biar da. Ta gaur laterri bi dira bakarrik munduan ori al dabenak. Biar edo etzi Txina'k be orrenbeste indar euki leiteke, baiña orain Errusi ta Ipar-Amerika'k dauke indar euki leiteke, baiña orain Errusi ta Ipar-Amerika'k dauke bakarrik. Errusi'k eta Ipar-Amerika'k benetan nai ez badabe ez da munduko gudarik. Ta an ta emen sortzen diran guda txikiagoak be luzaro baiño len amaituko litzakez andiok nai izan zekero.

Ta, Errusi'k eta Ipar-Amerika'k gudarik nai ete dabe? Munduko irugarren gudea sortzeko errezo'i andiak euki biarko leukeez. Etxe barruan edo kanpoan larri egon eta, euren buruari kalte andirik ekarri barik arerioa menderatzeko ziurtasuna. Ta olako errezoirik ez dago. Bai batak eta bai besteak izango ditue kontuak euren etxe barruan, baiña edozelan be munduko jaunak dira; ta guda andi baten batak bestea errez azpiratzerik ez dago. Iñok baiño obeto dakie, euren artean gudea sortu ezkeru bientzat zelako ondamendia izango litzaken.

Euren ziurtasunagaitik inguruko lurraldeak zaindu biarra dabe laterri andiak. Muga arein barruan iñor ezin sartu daiteke edo sartzan bada urten egin biarko dau gudarik nai ez badau. Hungria ta Checoeslovaquia'n izan ziran matxinadetan Ipar-Amerika ango komunisten arerioai laguntzera ez joateak arritu egin zituan esko. Baiña an ez egoan ezer arritzekorik. Ipar-Amerika'k ango matxinadan musturra sartzeta, bera ta Errusi'ren artean gudea astea izango zan-ta. Ostera, Kruschef Kuba'n misillak sartzan asi zanean Kennedy'k gogor itz egitea naikoa izan zan, errusitarrai etorri ziran bidetik joan eragiteko.

Euren babesa diran lurraldeetatik kanpora al dabenak al dabena egingo dau; alkarrei tantoak irabazi naian aleginduko dira, baiña bien artean gudarik ez izateko modura. Iñungo gudaren baten bat sartzan bada bestea aurka ez jako gogortuko.

Errusi'k eta Ipar-Amerika'k alkarregaz gudatu nai ez badabe beste txikiagoak sortutakoagaitik ez dira auskan asiko.

Gaur egunean Israel eta arabeen arteko eztabaida ta asarreak dira munduko kezka. Ta arrolioaren arazoa tartekoa dala ikusita geiago oraindik. Ipar-Amerika arrolioagaitik gudan sartzan bada Errusi'k bere lagun arabeen alde amerikarrai izkilluz arpegi emotera joango al da? Ez nire ustez. Errusi'k or ez dau ezer galtzen. Ez da beraz, Amerika'gaz gudea egitera biartuko leuken errezoia. Ezta urrik emon be!

Gudea gainean dogula diñoenak euren eretxiari indarra emoteko, azkanengo guda aurreko antza daukala gaurko munduko egoerak, diño. Ta beste errezoia beste, Paulo VI aita santuak oraintsu gudea dala-ta egin daben berbal-dia orduko aita santu Pio XI'ak egin ebanagaz bardindu dabe.

Bai, mundua larri dago batez, be arrolioaren gorakadearen ondorenagaitik, baiña orduko arriskurik ez dago orain. Orduan, aurreko gudan ondatuta gelditu zan Alemania'ko buruzagi gizon arro bat, Hitler, zan, eta beste laterriai arma-mentuan aurrea arturik, gudeak euren aldera joko eban ziurtasunagaz Europa guztiari ikara sartu eutsan bidea artu eban. Gudea galdu ebanetik gudarostea eukitea debekauta eukan Prantzia'gaz mugan egiten daben alderdira, Sarre'ra, gudariak baldu zituan asteke. Gero, bere erri Austria (alemandarra izkuntzaz) azpiratu eban. Urrengo Checoeslovaquia erdia artu eban, an be berbetaz alemandarrak ba-egoazan aitzakiagaz. Egia, guztiak tiro bat jaurti barik artu zituan, Ingalterra'k eta Prantzia'k, gudarik ez izatearren, amore emoten eutsenta. Alemania'ren geiago naiak ez eukan mugarik. Lengoa ozta-ozta iruntsi orduko beste barriari erpeak jaurtiteko gertuketak egiten ikusten zan. Hitler'en jokabide arei langoa ipintea nai ta nai ezkoa zan.

Gaurko laterri andien jokabidea ta orduko alemandarrena ezertan ez dira bardintzen.

Ez, gudarik ezin leitekenik ez diñoagu, olakorik ez dogu esan nai. Suagaz diardue ta erretia izan leiteke. Baiña lojikaz ez.


Ez genduke nai!

KAMIÑAZPI

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

ZAZPI-KALEAK



GASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK



eziketa jostailuak
eskulanetarakoak
irakasketa gaiak

TXORIKI

Avda. del Generalísimo, 65
24-19-16 urrutizkiña
GAZTEIZ

Txagorritxu auzoan

Jolasean ikasi, or zure aurrentzako emoitzarik onena

AZTERGARRIAK

SUSPERTUTA

Negusa zan bitartean, Erritea'ko auzia ez zan asko entzuten ezta gogorregi agertzen be. Ala ta be, amabi urte dira angoak azkatasunaren alde burrukan dabilzala. Orain, geldidiro lortutako izkiltuz ta indarrez, estu darabillez abisinar agintari barriak. Uribuaren jabe ezik, ia lurralde guztian jaun. Asmara ori be, estu, inguruan ditu ba errizaleak.

—Irualtza egin ebenak, eurentzat bakarrik nai «azkatasuna».

* * *

MUSEAN

Gromiko, Egipto'ra, baiña zuzenago Siria'ra. Kissinger be atzetik joatekotan. Ba-da or, txikira eta aundira jokaterik, eta pareak eta dupleak be nasteen. Noren onerako ete-dabilz? Bakea?

—Bitartean, israeldarrak ikusle ta entzule, bestean utsetatik indartzen.

* * *

ARROLIOA

Boomerang egaztari orren barri izango dozu. Polita da orren egaztadea ikustea. Jaurti, ta zenbat diru daukazu sakelean aztertzen asten ba'zara. onekin ez dago kukuarena, or dator ixillik eta kaskarreko bat artu daitezke. Orrenbestekoa arriolioan jabe diran jauntxoak be. Pozik ziran euren izkiltutxo orrekin, baiña erosi bear ebenak gitxiago erretzen, 1979'gnerako, galtze aundiak izango ei-dabez.

—Txanponak nun eragi jakin ez, eta laster-baten danak bear aldean.

* * *

ERRUBAKOAK?

Sal-erosketerako lege barri bat onartu dabe USA'ko erri-ordezkariek, tartean arrioliodunen kalterako be bai zerbait. Ez ei-ditue adizkide-maillan artuko zergak ezartzen. Bereiztasun lez, oneik, OPEC, arrolio sal-tzaillen bazkun orretan diranak dira. Onein artean baiña, Ecuador eta Venezuela, ta laterri bi oneik ez ei-eben onartu, ez bete, besteak erabagitako «boiko» a.

—Batzuk erantzun daben lez, ez, ez ei-eben «boiko» egin, baiña bai salneurriak gogotsu jaso.

* * *

GOSEA

Argi ibilli. Olakorik ez izateko, edo letorrrena makaltzeko, Txina'k millo bat tonelada ale, gari ta beste, erosi dautsaz Australi'ri. Orrenbesteko ituna izenpetu dabe beintzat.

—Baiña, nola legike? Batzuk etekiñak nai aiña ta geiago, besteak urri. Ez ete-da batzuk lan egiten dakielako!

* * *

INDARRA

Asmatu be asmatu bear. Japon'en, erri-urrukuskin talde batek, mendi-tontor goitu baten daukan lan-etxerako indarra, ari bitartez tximist-indarra eroan barik, iru aize-errota jarri ditu an goian, ta ortik naikoa ateratzen ei-dabe.

—Indar garbiagorik ezta jaboi-oletan be.

* * *

IXILLIK BAIÑA

Suriname, gure ikasketan Guayana olandarra zana be, azkatasun osora doa. Oraintzu batu dira olandar arduradunekin, orretarako erabagiak zuzentzeko. Baiña, betikoa, azkatasuna artu ta gaiñera diru laguntza izugarria eskatzen dautse gaztaigilleen, olan diño beintzat oneik.

—Egin lan mutillak, bestela zuen azkatasuna ta zubi-pean lo egitea bardin.

* * *

GOZOA

Irugarren ludiko gaien jabeak eta Europa batuko arduradunak, batzar onurakor bat egin dabe, ta dana zuzenean atera dala diñoakue. Dan-dana ez, gozokiñaren salneurria oztupo bakarra. Areik goratu nai, diruaren balioa beratzeaz batera; oneik olakorik agindu nai ez, bestela europar arbi-goza lugintzakoak be beste orrenbeste eskatuko.

—Bizitza gozotua baiño bizitza aberastua naiago alde bietatik.

* * *

ABI ASKO

Dirutik ondo dabilzanak ba-dakie au esaten: «Ez gorde dana abi bakar baten». Iran'eko Sha ori be or dabil, baita beste batzuk be, an eta or zer orosiko billa. Azkenean baiña ez ei-dau erosi nai, dirua zorretan emon eta ekingiza onetan gorde baiño. PANAM ori erosi barik, diru pilloa emongo ei-dautsa zorretan, baldintza bi gitxienez bitarteko; Iran'ek erosiko dabezan Concord egazkiñak alkarte orrek erabili bearko dituala, onenbesteko bat ordainduta; bigarrena, PANAM'ek ludi zabalean ditun ostatuak dirutzan bere zati on bat be sartzea.

—Dirua, dirua, dirua! Baton batek kanzer-bizieria sortzen dabela-edo esaten ez daben artean, danok aupez.

* * *

ALATZA

Olan esan jakon doistarren guda ondorengo gorakadeari. Alatz aren eragingarri, izkiltutan eta gudalmutilletan eragiltzea debakatu eutsenik sortu zan. Ara baiña, aurtzen be (1974'gneran) izugarriko aberastasuna jaso dabe laterri arteko sal-erosketetan. Ori, markoa gora joan eta saltzeak okertu legikezala, arrolioa gora ta Europa'n geien erosi bear dana izan, lana urritu ta milloetik gora geldirik daukazala etxean...

—Ea, jakitunok, igarri orri be! Erbestera-salketa alatza, deitzen asi dira.

* * *

LAGUN OBA

Baiña, au be esan bear, onegaitik esukekorik jaso ezin izango ba'dogu be jaun altsu orregandik. Iran'eko Sha orren urteko irabaziak zaapi milla milloetik gora ei-dira, engalanderren Librak gero. Bildurtu be egiten gara lauerlekoetan zenbatzen. Orretara, ta ainbestegaz nastatu ez ba'gara, eguneko ogei millo libra...

—Argazki berizi bat etara ei-eutsen London'en, or galdu ebazan bost-sei minutuetan larogeiaren bat milla libra sterlinga irabazten ei-egoan: Amarren bat millo lauerleko. Ta, guretzat, kiñela on bat bez, jokatzan ez dogulako.

DANOK

Europa Batua

EUROPA'KO BILTZAR NAGUSIA

1978'gn urtean Europa'ko Ekonomi Bazkuna (C. E. E.) osatzen duten erriak beren Biltzar-Nagusia aukeratzeko, autarki-orokor eraz antolatutako auteskundeak ospatzekoetan dira, agian. Europa-Biltzar-Nagusi ori osatuko duten 350 ordezkariak, berriz, laterri bakoitzeko arden onela banatuko dituzte: 71 doixtar; 67 britaniar; 66 italiar; 65 prantziar; 27 holandatar; 23 beljikatar; 17 dinarmarkatar; 13 irlandatar eta 6 luxenburgotar.

Europa-Biltzar-Nagusia, Bazkuna osatzen duten laterrietako biltzarrak aukera oi dute oraingoz, baiñan ez daude ortan uztekoetan, adi danez, eta 1978'rako eratu duten aukera-bide au jatorrago eta bidezko izateaz gaiñera, erriak berak, ondorenari begira, bere politika arazoetan kezkatu eta adoretuago ekin dezaion jokabiderik onena daiteke.

—Euskal-erria, Europar erriak bat ba da, gaindik ezartzen dizkioten jokera batzuek oztupo ditualarik, laterri bilduma onetatik at arkitzen da gaurkoz, zoritxarrez.

ALSASIA

Alsazia'n (Prantzi ipar-ekaldean) kultur multzo batzuek orain dala gutxi Alsazia'ko Fronte Kulturala egin dute.

Fronte Kultural onek Prantzi'ko gobernuri galdekatzan dio:

—Alsazia'ko kondaira ta kulturaren onartze onepen ofiziala.

—Eskoletan izkera-biko irakaspena (prantzeaz eta alemanaz) eta Alsazia'ko elkia, ere bai.

—Alsazia'ko kondairaren-iraskapena dan bezela, aldatu gabe, egitazko kondaira.

—Estrasburgo'ko irrati eta telebisioak Alsazia'ko jendeentzat, bere izkuntzan itzein bear dute.

—Alsazia'ko multzo denak irrati ta telebisiotik itzein dezakete azkatasun guztiakin.

Europa'n eztago Alsazia'ko auzia bakarrik. Beste batzuek ere ori bezela bai daude.

Europa'ko laterriak erriak deia entzun bear dute eta beren arrausiak aditu.

GRAN BRETAÑA

Gran Bretaña'ko Camara de los Comunes deritzaion batzordeak egin duan asmo-agertze batek dionez, Diputadu guztiak beren Lege-etxe edo Parlamentuko lanetatik kanpora egiten dituzten beste lan eta eginkizun, eta era berean nungo Administrazio Kontseiluan bazkide diran, erri-aurrean agertza beartuak izango lirazke zeaztasun oek, liburu baten idatziaz.

Lege-gizon, giza artu-emanetako zuzendari, edo kondugille trebeak izanik eginkizun oetan jarduten diranak, deituak izango dira beren erosle edo klienteen izenak argitaratzea, baldin erosle oek arrazoirik izan badute diputadu oengana zuzentzeko.

«Liburu interesdun» onek aitatu bearko ditu baita ere, diputadu bakoitzaren eta bere emazte eta seme-alaben izenean arkitzen diran ondasun nagusienak.

Baita ere azaldu bearko ditu diputaduak, berak, ordaindu gabe, erbestera egin dituan joan-etorriak.

Neurri oen bitartez alegindu nai da lege-etxe erabakiak ez ditezela bakar batzuen onerako bakarrik izan, baizik, Erri guztiaren onerako.

IÑAZPI

Aprika'ko Lurraldeak

Basamortu bildurgarria Sahara! Ez eukan garrantzi aundirik len. Begi guztiak begira-begira gaur. Ta, zer dala-ta? Bere lurra oso aberatsa dalako. Oraintzu arte Prantzi'ren menpean izan da, Argelia lez. Argelia azke da gaur, bere lurra- ren jabe.

Eztabaida aundiak, gogorak, sortu-erazoko ditu Sahara'k ludiko ta batez bere Aprika'ko erriaren artean, bere aberastasanak dirala-ta. Ta nor da, obeto esanda, nor izan bear legike Sahara'ren jabe? Egia esan, are-itxaso izugarri onen jabe, osoan ez diran, argelitarak, ez marrokitarak, ez tinezitarak. Nortzuk ba? Bertan bizi diran milloa bi orreik.

Lau enda berezietakoak dira, antxiñako etiopetarretatik dotoz batzuk, oroba Sudan'etik. Orraitio, europarrak eta batez be prantziarrak eta inglandarrak emon dautsoe bizitza barria Sahara'ri, batez be lurra ikastera bertaratu ziranak. Oneik egin dabe zorionsu ta onurakor lurralde ori.

Munduko zabaltoki-laurik aberatsena izango da laster. Diru asko sartu dau Prantzi'k Sahara'n. Milloak. 60.000 milloa ta geiago. Bide barriak zabaldu ditu an Ukatu-eziña au. Alan be, ezer egin ez bazan be, aberastasan aundiak izango zituan gaur Sahara'k bere erraietan.

Gauza txar asko negartu bear, Prantzi ta Argeli arteko guda gogoratuaz. Eta nor ukatu guda au, geien baten, Sahara' gaitik, Sahara'ko aberastasanagaitik izan zala? Iru milla eriotz eta 2.000 milloa dirutan. Ganera zenbat kalte ta galkuntza Argelia'n.

Gaur zorionez, bakea egin da. Bakez dago Sahara. Prantzi pozik egon leiteke Argeli'ri azkatasuna emonda be, biertzat izango bai dira Sahara'ko aberastasanak. Sahara dala-ta, aurrerantzean batuta biziko dira.

Ona Prantzi'ren zeregiña ta elburua batez be oraingo urteetan: esku-zabal agertu ta izan Argeli'gaz. Lagundu, Argeli'k ixuritako odola aztu dagian.

Milloa bi kilometro lautu ditu Argeli'ren zati dan Sahara'k. Oraindik aurrerapide gitxi ikusten da an. Itxaso diran ur-goza ibaiak daukaz bere erraietan. Meatzak be asko ta garrantzitsuak. Marroki ta Mauritani'gaz mugak dituan Gara Djebilt'en 2.000 milloa tonelada menasta ei-ditu. Euneke 50'a burdiña ei-da. Djebel Guettara'ko magnesiak milloa ta erdi tonelada. Ganera beduna, estañoa, zinka ta uranioa be ugari ei dauz.

Alan be Sahara'ko aberastasan aundienak arrolioa ta gasa dira. Gaz au berezkoa da, lur-gasa. Esan be ezin Sahara'k dauan aberastasan. Ta zenbat ete dau oraindik gizonen begiak ikusi ez dabela!

Misterioz beterik dago Sahara. Ta erlijioa? Eleiza ez da lo egongo. An bizi diranentzat be izan zan Kristo'ren agindua: «Zabaldur barri-ona mundu osoan». Ta zer deritxazue apaiz euskaldunak, bai abadeak eta bai lekaideak, Sahara Kristo'gana eroaten?

GOIRIA

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra

BILBAO - Casco Viejo

Tenderia, 15 eta 16

ERRIATZAKO

BARRIAK

Ibaizabal

GOTZON ZANAREN ABADE-LAGUN BATEK

Moruen lurraldeetatik Euskalerrira eldu nintzaneko, gabonak igarotera, lagun bat, «Agur» aldizkaria eskuetan ebala, urreratu jatan esanaz: «irakurri egik au... iretzat ziri bat...»

Artu neban «Agur» ori (159 zenbakia-1974-azillak) baita irakurri be «Danetik labur» agertzen dan orrian «Mañu ta Urdulitz». Gure Gotzon zanaren urtebetetzeko mezaren barri emon ondoren, ziri edo ostikada au: «Utsik mingarriena, abade bere lagunena izan zan, bat bera be ez zan azaldu... nun ete ziran?»

Bear dan lez erantzuteko, lenengo: zenbat abaderi jaurtzen jake ziri ori? «abade bere lagunena», au da, bat bakarra. Baiña gero diño: «mun ete ziran», au da, bat baiño geiago...

Nire erantzuna, ba, lenengo nire ize-nean. Zegaitik?

Ez dakit lagunena nintzan ala ez. Ori berak esan bearko leuke eta ez beste iñork. Baiña bai lagun aundia.

Nun ete nintzan...? Ba... Granada'n, moruen lurraldean...

Zer egiten neban...? Ba... Gotzon zanaren eriotz urtebetetze egunean (urri-llaren 15-ean) Urkijo'tar Nike, bere emaztegeia, Calvo Rojas'tar Mertxe —euskera ikasten alegin gogorrean diardu onek— eta irurok batu giñan «La Chana'n» —Granada'ko ijito auzotegian— Gotzon'en gomutaz Meza bat ospatzera: dana euskeraz, dana kantuz esan genduan irurok Meza ori.

Urreratu jakun lekaime bat gure Mezara —erdalduna bera— eta esan neutsan erderaz: «Meza au euskaldun jator baten gomutaz ospatu nai dogu. Abadea zan bera. Euskerea alegin guztiaz landu eban berak. Abade orrek ain maite eban euskeran esango dogu ba Meza au. Gure artu-emonetan euskerea zan izkera bakarra, Jainkoagana be esu-

keraz berbetan urreratuko gara Gotzon zanaren omenez...»

Orain ba-dakizu nun nintzan ni, baita zetan nintzan be.

Eta bigarren: «mun ete ziran...» besteak? Ni ez naz iñor orreri erantzuteko. Baiña «besteak» ni aña lagun zintzo baziran, eta egon ez ba-dira, bakotzak bere errazoiak eukiko dabez. Ziur nago.

Ziri orreik azpi-jan narrazak eta zio bageak iruditzen jataz.

URGOITI.

Arrasate

URA

Egunokaz gure etxeokandreak asarre samar agertzen dira. Etxeko iturrietan ur-gutxiketa dala-ta. Usterik gutxienean moztu egiten da eta onek maiz okerra ekartzen du. Udazken aldean euri asko izan zan, baiña ez orrenbeste Gabon ostean, eta onek ekarri du gure ur-putzu txikitian ur asko ezin artu eta orrela ustu egiten dira bereala. Or dabiltz gure Udala eta beste batzuk Urkulu delakoan putzu

aundi bat egin nairik eta ortarako asi-lanak egiñak dagoz eta diru-arazoa be erabakita, baiña zer falta da? Betiko leloa; Madrid'etik ez ei-dago baimenik oraindik. Noiz arte Egoaldekoen esanetara jarrai bear dugu?

BATZARRA

Urtarrilla'ren 26'an ospatu zan San Felipe Elkartearen urteroko Batzar Orokorra. Bazkide asko batu zan bertan. Bazkuntza au oso aspaldikoa dugu; ez dakit ziur baiña 100 urte edo geiagokoa izango da. 1.850 bazkide inguru daukaz eta sendikoa beste 5.000, guztira 6.850 Bere eginkizuna da; bazkide edo sendikoen bat iltzen danean eriotz-osteko diru laguntza ematea. Batzar orrean lendar-kari Iturbe eta Bergaretxe'tar Jon Andoni autatu zan.

BIDE-BARRIA

Zabaldu da. Bide au da Zarugalde'tik asita Mala'ko zubirartekoa. Orain Eloorri'tik Bergara edo Oñati'ra edo bestalde, ortik egingo dute juan-eltorra eta orrela bide zuzenagoa izanaz gainera, ez dute berebillak Agirre eta Magdalena'tik igaro bear izango eta gutxiago Portaloia deritzon tokitik. Lan onragarria auxe gure Udala'ak egin duena eta ea noiz egiten dan Pantzeskatarren Eleiz ostean dagon ibai zatia estaltzea, gaur dagon bezela arriskutsua dago-ta.

ERIOITZA

Bere bizatzako 80 urtegez il da Leibar eta Iñurategi'tar Fernanda, Aranburuzabala'tar Julio («Gomix») aren alarguna. Oso ezaguna genduen errian eta lagun asko zituan. Erriko dendari zarr-netakoa zan eta saltzalle ospatzuenetakoa.

Neure samin-agurrik biotzkorrena bere alaba Errosario eta Esperantza'ri eta suin Mendizabal' dar Josu eta Azua'tar Jaime'ri, gure lagun onak eta beste senide guztiai. Goian Bego.

UDALAITZ

Bermio

LEBATZ-ZALEEN NEGUA

Nire erri onetan, ez dauka negu au, negu ona, ez arraiñagaz, ez itxas eguraldiakaz, nire ustez. Aste bitan irabazi dute zoezer, mota biko arraiñagaz. Lenengo astea, Azilleko San Martin aurrekoa zan. Arruselagaz, beseguagaz egindakoa; bestea, Gabon barri aurreko astea, lebatzagaz. Aste bi oncin tartekoetan, eta onunzko egunetan gaur arte (27-1-75), amar egun segituen kaiaitik urten barik, eguraldi txarrikaz.

Notiñak, diruegaz txarto ez dagozenak, ez dabe sentituko sendian ituntasun andirik, baiña besteak, au da, eguneroko OGIA jateko oza-oza dagozenak, onek bai sentituko dabeela ituntasuna, nik uste.

Irratiaren bidez entzun neban, eskariak egin dituela lurrak legortuta edo busti-bustita arkitzen diranentzat, or nozpaitzera. Ederto egiñak dirala nik uste, esaera bat ba-dago gure artean-eta. Esaera ori au da: «Daukanak ez daukanari, nik ez daukat eta niri»... Esaera au ba-dakije gure erriko arrantzaliak, baiña ez dut entzun eskaririk iñori edo iñora egin danik. Eurokaz —ozta-ozta ogia daukanakaz, iñor gogoratuko al da edo errukituko al da, esaera arek diñoan lez. Arratzalien «legortetik» andiena, danok dakiguna, arrain-eza da. Au berau gertatzen da gure erriko arratzalien artean, eta au dala bitarte, itun dagoz arraintzale geienak.

Bateron batzuk esango dabe nozpaitxen: Zozketako dirutza ez al da sartu igaz eta aurtan Bermio'ra ba? Dirutza ori sartuta itun dagoz arrantzaliok? Bai itun dagoz, euron artean bakarrik ez bait da sartu zozketako dirutza a. Dirutza a, arrantzale batzuen artean jausi zana, txikijen alderdia izan da, au da, dirutzako zatirik txikiena. Geiena, ligortarren artean jausi da, euron artean, kanpotik etortitakoak eta ijitoak tartean dirala, entzun dudā-netik. Onexegaitik, ituntasuna dauka, lebatz-zale arraintzale geienak.

Urtarril onen 5'ien gure erriko pelotalekuan-abestiaren jaiā ospatu zan. Txaloak ugari jaso zituzten guztion aldetik, abeslari guztiak. Onelako jaiak sarrigo eduki bear gendukez gure errian. Onela, erria bizkortuago eta ikasiago egongo litzake nik uste. Bizkortuago gure jaiak ikusirik eta ikasiago abestiakaz ikasiago dago, euzkal-abestiakaz baiño. Au zergaitik dan ez da uler-eziña nire ustez.

Uler-eziña esan dodan ezkeru, onek esango ditut: Ez daukagu irratirik erdal-irratijen aña diranik, ez daukagu urrutikuskiñik, eta orreik dirala bide-edo, es daukagu erri-esangura mardulik. Au edukitzeko erdal-tresnen aurrean denpora gutxiago egin bear dugu. bestela erdal-kutsukeri larregi sartzen jaku barrura, oker ez ba'nago. Oker ba'nago, parkatu egidazue!

AZPEITIA'TAR GOTZON



Zuri zerbait eskeintzean gaur, biarko emakumeari be, zerbait eskeintzen dautsagu.

Ardurak kenduko dautzuezan egokiera aundiagoko laguntza barriak eskeintzean.

Gaur iñoiz, eta barriak diralako, zaillagoak iruditen jakuzan asmo barriak zuri agertzean.

Aurre-oinkada bakoitza neketsua ba'da gaur, etorkizun erosoago bat izateko dala uste izatea ederra da.

BANCO DE BILBAO



Emakumearen Banketxea. Gaur eta biar.

ARRIETAKO

BARRIAK

Ondarroa

ZABALDU NAI TA...

San Inazio'n obría baiño gaxago dirudi gure erriko molla zabaltzea. Ba dakigu alegiñak egin barik ez dagola, baiña...

Iru lau aldiz ikusi izan doguz antxiñetako tramankulu batzuk beko oiñarriak nun dagozan igarteko zulo-giñan. Apari eta janak be egiñak dira urte barruan asi baietz eta ezetz. Eta ulea zuritu be egin yakoe askori.

Molla, gure erribera, or dago, esateko, egin zanean lez. Gaur Ondarru'k daukan ibilbidean, estuntza bat, korapillo bat. Besterik ezik lengo eskillaren bitartea bete eta zerbait egingo zala... Arria geldí.

Beste batzuk asmotxago dira. Ibairen bidea gaiñetik zementoz bete bear litzakela. Ori, teknikoan erizietan, Ondarru'n ezíña da, ujalderen baten edozer negargarri gertatu leikelako.

Azkenengo asmoa?

Urari bide edo kanal estu eta batuago bat egin. Orrela, alboak zabaldu eta gaurko burukomiña arindu. Baiña onek beste burukomin bat dakar: dirua. Portuetako arduradun andien batek oraintsu esana da, berak egin-bide edo proiektua gertuko dabela... baiña dirua beste nunbaiten billatzeko, an ez dagola orretarako-ta.

Orra, gaurkoz, gure mollan, txanda bateko Nasa kalia, gaur Mola kalia, kaskarrak arintzeko burukomin bat: dirua. Eta bitartean, kotxeak eta gizonak, oiñezkoak eta motordunak, alkarri tarterik laga nai-ezta, alkarri biderik zabaldu nai-ezta. Beste burutasun bat.

Z.

Markiña

GABON-ABESTI JAIALDIA

Abenduak 22. Gabon-abesti Jaialdi polita ta ondo eratua erriko pelota-tokian. Irugarrena aurtengoagaz. Baiña oraingoa ez da izan, aurreko urte bietan lez, nor-geiagoka. Gabon-aurreapen bat izan zan, Gabon-giroa sortu ta erritarren biotzak pozetan murgiltzeko.

Markiña'ko ta ingurutako ikastola, eskola ta ikastetxeetako ume ta neska-mutikoak sartzen ziran jaialdi onetan. Guztiz, amasei taldeetan bananduta, bost-eundik gora abeslari agertu ziran. Danak amalau urtetik be-rakoak. Talde bakotzak abesti bi aukeratu, gertatu ta abestu bear ebazan. Beraz, ogetamabi Gabon-abesti gozo entzuteko erea izan gendun. Eurotatik ogetamaika euskeraz, eta bat bakarrik erderaz, gazteleraz.

Bostean eta ogetazapí umetxo ta neska-mutiko kanta-kantari... Kirkilkuma aldrazoragarria! A zan udabarria negu-neguan!... Pelota-tokian barik, eguzkiak galdaturiko landa bedartu baten gengoza irudian. Ekitaldiari azkena emoteko, talde guztiak bat egiñik, Aita J. Domingo'ren «Aintza ta aintza» abestu euskuen. Aintza, ba, abeslari txiki ta euron zuzendariai be!

Bidezko deritxagu taldeok gertatu ta zuzendu ebezanen izenak aitatzea. Merezi dabe. Ona emen: Egaña'tar Mari Karmen (talde bi), Arrizabalaga'tar Mari Jesus (talde bi), Iturriaga'tar Begoña, Aretxabaleta'tar Imanol, Oar-Arteta'tar Irene, Arrillaga'tar Mari Tere, Baraiazarra'tar Luis, Ugartetxea'tar Pakita, Gallastegi'tar, J. Bingen, Maiztegi'tar Tere, Arzuaga'tar Ikerne, Salaberria'tar Beatriz, Urresti'tar Arantza eta Goigana'tar Anparo. Markiñan guztion txalo bero ta esker-onak irabazi douez. Zorionak eta urrengo Gabonak arte!

Onako jaialdien asmo ta elburu nagusia, Kristo'ren mezua iragarriaz batera, Jainkoak gure Aberriari emon dautson izate berezi bakanari eutsi ta indarra emotea da; batez be Aberri onen ezaugarri jatorren eta bikai-

ñenari: Euskereari. Orrenbesterik guztiok genkiala uste gendun. Baiña oker genbiltzan, antza. Ama bati baiño geiagori entzun geun-tsan urteeran bata-besteari bizi-bizi esaten: *Ha esau muy bien ee? Ya tenía miedo, pues; la niña estaba muy fastidiada con gripe y... Menos mal que ha podido tomar parte! Éneee!!*

—Ene! baiño obeto Ai ene!!!

Eta orri euren umetxuen aurrean, Ikastolara-ta bialtzen dabezan umetxuen aurrean. Bide egokiagorik ezin aukeratu andereiño ta irakaste zintzoen lana lurreratu ta izerdiak mingostuteko. Batzuk noiz konturatuko ete dira bene-benetan gabiltzala, ta ez folklorekeri antzu utsean?

ONDARRU'N

Egun berean, 22'an, Ume-Abeslarien txapelketa ikusgarri ta entzungarria Ondarru'n. Leiaketa orretan Ondarru bera, Lekeitio, Motriku, Deba, Itziar eta Markiña sartzen ziran.

Talde guztiak, zeñiek baiño zeñiek obeto abestu ondoren, ona emen epai-maikoen erabagia, danak ontzat artua: *Markiña txapeldun!* Txalo-zaparrada luzea. Markiña'ko talde au, goizean gure erriko pelota-tokian abestu ebenerariko bat zan, Aretxabaleta'tar Imanol'ek arduraz eta maitasun andiz gertatu ta zuzendutakoa. Goizean pozik, baiña gabean lapikotxuak gaiñezka. Ba-dogu oraindiño Markiña'n benetako txapeldunik! Zorionak, Imanol, zuri ta zure talde bitxiari!

KALERIK-KALE

Gabon illunkeran, lau mutil gaztek Belen'go estalpetxo sorbaldan artuta, kalerik-kale ta etxerik-etxe ibilli jakuzan, txiki ta naustu aldra galanta inguruan ebela, argiak eskuetan eta abestiak ezipanetan. Erria benetan pozta ta alaitu euskuen. Gripegaz erdi-ogeratuta egozanak be leio-zuloetan agiri ziran, pozaren pozak sendatu bearrean.

Batu zana gaixo-etxeetan dagozan erriko seme-alabai Gabon-pozalditxo bat eroateko izan zan, erriak ez daukazala aitzuta erakutsiaz. Portau zaree, mutillak!

ERREGEAK

Egia esan, kirkillok ez gara errege-zaleak. Izango gintzatekez, bear ba'da, Sortaldetik Belen'eraíño etorri ziranen kidekoak ba'lira besteok. Baiña, bai zera! Areik, bakotzak eukanetik onena emotera etorri ziran; besteok, barriz, daukogenik onena eroatera.

Iru areik bai portau zirala Belen'go etxe-txoan! Eurak edo antzekoak izan ziran, ba, Errege-bezperaz gure errian kalerik-kale ibilli ziranak, txistulariz, dantzari eta abeslariz inguratuta. Kale-ertzak jentez beterik, eta leio bakotxean iru-lau buru. Urrerik ez euskuen ekarri, baiña bai urrea baiño geiago estimatzen dogun poz eta alaitasun garbia.

ARGAZKIAK

Gabon-inguruko jaialdi ta kale-jirak zirala-ta, amaika argazki eder artu zan! Askotxo dira eurok ikusi ta lortu nairik dabiltzanak. JOSUNE liburutegian daukouez salgai.

KIRKILLAK

Galdakano

MUS TXAPELKETEA

Ba-dakigu mus txapelketa batek ez dabela garrantzirik AGUR onen irakurle askorentzat, bai baiña errian doguzan irakurleentzat. Besteak ba, azketsi daizkuela, erritarontzat idazten bai dogu geien bai.

Orain ille bi, «Peña Santa Cruz» bazkun ezagunak, mus-txapelketa bat gertu eban, beti lez, zeaztasunik andienaz. Emengo bazkun guztietakoak, eta orrela izan ez da be, errian bizi diranak izan ezketiño, jokatu leikeen, erriko txapelketa bat bezala izan da-ta.

Bikoteak 48 izan dira, sei taldeetan osotuta. Jokaldi burrukatsuak; lenengo, taldeko buru izatera eltzeko; gero, txapeldun jasoteko. Urtarrillaren 24'gnean, arratsalde beranduan, jokatu eban amaya, eta burruka gogor baten ondoren, Fernandez' dar Imanol eta Edorta, aita-semeak, urten ziran txapeldun. Ealo'tar Pelipe ta Izagirre'tar Joseba-Andoni «Atomo», bigarren.

Azken ona emoteko, txapeldunak eta taldeetan buru urten ziran bikoteak, apari eder batekin, bazkunekuak eurak gertu —sukaldari onak be badira-ta— sarituak izan ziran, baiña oroi-ikur ederrek be. Ikusten danez, «Peña Santa Cruz»neko galdakaotarrak edozein gauzatarako jatortasun andia dabe. Gure zorionak AGUR onen bitartez. Txapeldun barri ta adizkide zintzo orrei be bai.

«GANGUREN» KOEN BATZARRA

Urte-asieretan, Mendigoizale-Alkarteen urteroko batzarrak izaten dira. Gure «Ganguren» onek be, igaro dan Urtarrillaren azkenengo igandean, 26'an, euki eban urteroko batzar orokor ori.

Mendigoizale guxtientzat ajolagarriak izaten dira geien baten, baiña aurtengo onek ba-eukan garrantzirik. Batzar orretan, txidi-eralgizta andia egin ala ez, erabagi bear zan-eta. Au da, Gorbeya'n daben estalpea obetu ala ohea egingo ete zan. Alde onak eta txarrak ondo aztertu ondoren, oraingo ori pizkat barriztu ta lur zati bat erostea erabagi zan, emendik urte batzuetara beste andiango bat egiteko asmoan, Gorbeya zoragarri orren ingururen baten.

Beste batzarretan antzera, urtean zer egin dan, zein txindi-eralgite izan dan, zelako ibilketak egin dabezan, bazkideetza ta abar eta asi barri dogun urteroko asmatzen diranak be argi adirazi ebezan. Azkenez, Batzordea pizkat barriziatu zan, Ruiz' dar Joseba, Gabiria'tar Julen eta Oruetxebarria'tar P. Jabier, urten daben beste iru-en tokian sarturik.

TXADONEAN

Ez dakigu zein erataro yagon-bidez tuten diran txamburutzak, parrokiak or zear, baiña gure txadon-nagusian beintzat, eleiztarren artean aututako yaur-bide batzorde batek betelen dau lan ori. Urtero adierazten dauiso erriari, zelango txindi sarrevak eta ordainduak izan diran, zer egin daben eta zer dan egiteko ta abar. Danori argi ta garbi, aztertu nai daben guztiak ondo ta errez ulertuteko eran. Txalagarria benetan gure txanburu ta apaizen jokabidea.

Aurtengo azalpenak be, orri mardul batzuetan —euskeraz eta gazteleraz idatzita— agertu dabez. Ori da digitasuna ta benetako azkatasuna, ta ez izetan bakarrik arduradun askok darabillena! Ederki, Jon.

BASA-JAUN

Mendexa

URA

Aspaldion itxaroten izan dogun ura be etorri yaku.

Ur ona ta asko daukagu orain. Oleta autotegiko Trakamaille deritxon mendibarenneko ura da; len Lekeitio'k eukan ura.

Lekeitio'k, beretzako gutxi zalako utri egin eban, eta orain Lea ibaitik aruta dauko nai aiña ur.

Trakamaille'ko ur au Mendexa'rako naokoa diño, baiña beetik gora jaso bear dan ura da ta motorrak ondo dabiltzan bitartean izango dogu. Onak kilikoka asten diranean izango dira kontuak.

GABON EGUNEZ

Gabon egunez gure erriko abadea erritar neska-mutil gazte taldeagaz Gabon abestiak abestuten ibilli zan etxerik-etxe.

Oso ondo abestuten eban. Lengo oitura zarreko jantziekin ibilli ziran, itzal aundiz. Zorionak!

IRABAZLE

«Goiko» baserriko Jose Mari Urkiaga'ren zaldia irabazle gertatu zan Amoroto'n, Markiña'ko Jose Mari Fundazuri'n zaldiaren aurka.

Urtarrillaren amabian izan zan jokoa, Amoroto'ko probalekuan.

Mendaxatarrari tokatu yakon lenengo lanean astea. 44 plaza ezetz, ots egiten eban korredoreak, eta 68 plaza egin zituan, laguntzailleak «Goiko» Alberto ta «Enpan» zituala.

Marrkiñatarrak, jaubea ta «Beñe» arrijasotzaillea lagun zituala, 55 plaza egin zituan.

Biak egin ebezan alegiñak. Jentea gustora gelditu zan.

GAIXOTETXEAN

Zazpi urtean Mendexa'n abade egon zan Jose Sagarna Bilbao'ko gaixotexean urdailleko ebakuntza eginda dagola jakin dogu.

Ainbat lasterren osatu daitela opa dautsagu ain maite dogun Jose Sagarna'ri.

Erritik Elorrio'ra etzan joan erriaren borondatez; ezta bere borondatez be. Goitik euki eban, guztiok saminduz ginduzan agindua.

TXAKARTEGI'TAR JOSE

Arratia

ZENTZUNA

Ura ta lurra, bakoitza bere lekuan jarri ziranean, gaur egungo itxaso zabala lur-arte estuagun bizi ei-zan gazte ta azkerik, zoro-ero ta indartsu... ezkongai. Ez eukan egite biurrien kontuak nok arturik ez nori emonik, eta gau ta egunezko geldieziñean eta ekiñean, bein zoro, bein moskor, bere abi-orma zan lurrari azpi-janean eragoín, bor-bor. Alan jarraitu ba'leu, jarraitu... gure Erri au ondaturik orain ezker. Egun batez baiña, Barea izeneko neskatil maratza ezagutu... ta ezkondu, eta Barea emazte onaren ondotoxan burua ikusirik, baretu, «pazifikatu» egin zan bera ere. Noiz-ziñ beñera asarre ta kirtenkeriren batzuk izaten ditu, baiña, Barea iso! dirautsanean... itxasoak amen. Ezkontzeak ba, itxaso gazte arroputza ere baretu.

Eta, amazapí-amazortzi urtetatik noiz arte irauten ete dau, bizi izaten ete da, gizonaren dana apurtu ta birrindu bearra? Zutik dagoan guztia buruzberatu, egiñik aurkiturikoak zaitu, euskera erdeldundu, maitakeri ta sasi-ezkontza «propagatzen»... «erreboluzioaren» ardatz eta «errebuoloaren» txirrin-ka, burpilla izaten? Ezkondu arte! Ezkonbuztarria lepoan, oillar buruigoa oilloraren ondoan. Mokokada ta eztenkadarik aundienak emonik ditu eta... aita izatean barriz, agur gaztaro-putz, indarkeri, marxistakeri ta kerri guztiak.

Gabon, Egubari ta Errege egunetako ingurutetan, begi onez ikusi nituan emaztearen besoari loturik, edo-ta umetxoak esku-tik eleizkizunetan, esanak eta egiñak aztu guraz, aberrikoi bihurturik.

Ongi etorriak izan bitez okerreko bideetan ibilliaren damuz barrien barriz Erriaren artaldera datozenak.

* * *

ZER IKUSI BEAR ETE DOGU!...

Bilbo'ko Bidebarrieta etxartetik, kaletik niñoian lagunak ikustera. Kalea beteko no-tintza, jendetza aundia aruntz-onuntz zer ikusi-erosiko. Urtarrillak 23, ostirala, barikua, illunabarreko 6 t'erdiak. Euri-tantak ziran.

Gizonetako zoro (?), lotsagabe(?), moskor(?) batek andra ezkondu gazte bateri besondotik taka eldu eutsan eta, zu nerekin!, zu nigaz!, gogorkeriz esanik, gizonak aurre-runtz, andreak atzerantz, iztanak egin zituzten bakoitzak bere alderuntz tiraka. Ba-da Bilbo'n ertzain eta txiñelik ugari, une artan baiña bat bera bez agiri.

Arnas-estu larrian eta konorta galdubaiñik, Bernagoiti'ko andratxoa alan ikusirik, azkatu-bearrean nintzan gizonetakoaren eskuetatik. Andrazkoaren lagunak, neskatilleak, esker onez mosu bi emon eustazan.

Gau artan, Euba'ko Etxebarri'n, izango zan zer esanik.

LANDAJUELA'TAR A.

ZEGAMA

Tomas Zumalakarregi buru gogorra zala esaten da. Zein ez da buru gogor bereari eusten? Zein ez, batez be berak lez, gerra egin eta erabiltzen onentzako entzutea ukita?

Buru gogor agertu ei zan Begoña'n, 1835'ko Bagillean. Bere inguruan balak txistuka ebiltzala, alde egiteko dei egiten eutsen, eta berak, Elliot'ek eskiñitako katalajoak laga barik, ezetz. Bala batek jakin erazi eutsan itsukeriz inok ez eutsela eurei onetan irabazten.

Sasoiko medikurik onenak ikustea nai izan eban bere Erregeak. Baiña Zerain'go Jose Patxi Telleria'ren entzuteak itsututa eukan. «Petrikillo» sasi medikuaren ospea andia zan izan be, batez be azurrak konpontzen. Origaitik berak inori laga nai ez ikututen, areri ezik, nai eta arek aragi gordinean sentsurik kendu barik bere konponketak benetako miñetan eta larrialdietan egin, il arteraño.

Bilbo'n jausi zanean, bere ingurukoak atsedena agindu eutsen, geldi egiteko. Berak, danen gainetik, mendi eta basobideetatik zear Zegama'ra eroateko agindu, aren ardurapean jarteko.

Emen, Zegama'n il zan, Mazkieran Barrera etxean, zauritu eta bederatzi egun geroago, San Juan eguncan.

Zegamarrak aterpe ta guztiko kanposantua eskiñi eutsen: eleiza. Eleizak toki egoki bat aukeratu beretzat: koro azpia.

Bera buru gogor ba'zan zegamarrak ez dabe txapelik erosten origaitik bere aurrean.

On Karlos Erregearen aginduei jarraitzekotan, bake aldi baten bere jaioterrira, Ormaiztegui'ra eroan bear ziran Zumalakarregi'ren azurrak. Orrin orde, zegamarrak koro-azpitik atara ta aldara andiagora eta ikusiagora eroan zituen. Eleizan ate nausitik sartu eta aurrez-aurre, or dago bere irudia, eta ez txikia.

Euskal eleizak ba dakiez inoiz Erroma'k baiño lenago bere semici aldaretan leku egiten: Jauregi Urretxu'n, Zumalakarregi emen. Eta martiriak sakristietan gordeten be bai, Astearu'n Julian Lizardi lez.

* * *

Gipuzkoa'ko eleizen arteko torreric onena emengoa zala esaten ekien.

Ederrak ez dau onena esan nai. Ba dagoz Gipuzkoa'n ainbat torre berau baiño ederragoak.

Santiago'ren zaldia dala uste dabe askok, cleiza onek, kanpoan, sarrerako ate gainean, arrian atarata daukan zaldi gaineko santua. Ez da orrela. Parrokiko zaindariari dagokio, San Martin gotzainari. Ala ta be erriko jaiak San Bartolomez egiten dira. Bear ba'da, lenagoko denporetan, santu onen ermitea izango zalako bertako parrokia.

Gaurko parrokian, aldare nausia Berastegi'k egiña da. Arantzazu'ko parroki zarrean be laga zitun taillugille onek bere esku-lanak.

* * *

Eleiz aurrean, plazarotan, beste erriko seme baten oroitza bat ikusten da: Juan Telleria eta Arrizabalaga'ri eskiña.

Ba dakie musikariak izar bideetan alondara barri, gorri bordatuekin ibiltzen. Alaxe Telleria au. Eguzkiari begira. Amets egin eban lez.

Telleria onek egin eban Ondarroa'n ain gogotsu eta txairo kantaten dan «sari egiñagaitik itxasoak orru, pakean zainduko du Jesus'ek Ondarroa'ren musika.

Igeldo'n, Loidi oriotarrak asmatu, zegamar Telleria'k erestu, eta nire errian, Leikuona'k esango leuken lez, «itxaso gatzetan garraztutako eztauri bortitzak abestu, alako burrundara ikaragarri batean».

Kale bat be eskiñi eutsan Zegama'k «Aitzgorri'ko dama» sinfonia, «Aizean barnan» lied, «El joven piloto» eta abar egin zitunari. Orain 25 urte il zan, 54 urtedun.

* * *

1384 urtetik ba dago Zegama'ren izen barri paperetan, erri nortasuna erakusten.

Erri euskalduna. Oraindik ez dira euneko zazpi euskeraz ez dakienak. Goierri, errialde onetako oitura, bizikera, esakera, siñiskera, eta abarrez.

Erri legez ez dauka ze ikusi andirik.

Eun urrutizkin. Zerbait geitxuago.

Papergintzako industria. Emen dauka Oria erreka bere asiera eta ain zuzen be emen, itxasoan sartu aurretik bere bidean erabiltzen dituan paper-lantegietako lenena.

Baserrietan zabaldua da. Arrieta, Barrenalde, Goialde eta Olabarri auzoetan.

Kale eta baserri bardintsu bizilagunez. Danetara be gaur milla ta zortzireun lagun inguru. Kendu batzuk.

Sasoi baten 178 baserri-etxe eukitera eldu zan. Geienak kaletik ordu erdi baiño urrunagoko bidean. Ogetak, ordu batetik geiagoko bidean be. Gaur 130 baserri-etxe bizi lagunak dituezanak. Besteak galtzen, jausten edo ta aldatuta.

Naparroagaz mugatzen da Zegama San Adrian'en. Bai eta Araba'gaz be Oltza'ko zelaietan. Baiña ez uste lurrez Gipuzkoa'tik andiena danik. 60 km² daukaz. Gipuzkoa'n beste zortzi ba dira beintzat berau baiño geiagokoak.

Andre bateri itandu dausat San Bartolome'ko bidean emengo barri onik ba ete dakian. Ba ete dakian zerbait bein bergaratar batek bere galtzak bei baten adarretan eskegi eta sorgindua zalako bei ori gizon biurtu zanaren barririk. Barrezka asi da. Bere alboan beste andre batek:

—Zein dire ok?

—Periodista otakok.

—Ok emen? Gure ollok laister eingo due kok.

Ori entzunda nik:

—Edo ta gorringo bikok eiten asi. Eta Villafrañka'n urretan saldu, inun ez dala ok aiñakok esanez.

—Koxk eiteko atzamarra sartu oi, berak.

Arratsaldeon Jainkok, esan eta barrezka agurtu gara.

* * *

Len, gure zarrak, Gipuzkoa'tik Araba aldera joteko, edo ta Naparroa'ra joateko, San Adrian'go aldatza igaro bear izaten eban, Zegama'n indarrak artuta.

Gaur, Segura eta Zegama, bertara joan ezik, bide nausietatik bastertuta gelditzen dira, betiko antzera alkarri tirrika, auzo erriak beste edonun lez, zuk ura Segura'k eta nik fama, Zegama'k.

Ba dira San Adrian'go aldatzaren ainbat kontu. Kamiferuen izatea or ei zan sortu. Gatzaga'ko bidea baiño lenagokoa zala au kontuan euki.

Mikeleteen premiña be ortik ei zan agertu.

1787 urtean Gipuzkoa'ko baserri errenta, gaur esaten dan lez, renta per cápita, 120 errial ziralda esaten da. Eta Zegama'k ozta-ozta loituten ei eban errenta ori ikatiz-giñan, zugaiz edo arbolan mesedez eta bidearen onuretatik.

Bide-au dala-ta, mandazaiñak be eukiko eban inguruetan euen izerdiak nun legortu.

Emendik, San Adrian gainetik, Kantauri itxaso eta Mediterraneo ikustea eratsu zala esaten ekien.

Guk baiño ikuste luzeago eukan, dirudiane, zegamar jentillak, Aita Larramendi zana asi mendi gainera igoten eta bidean, nekataki aspertu. Zartzaroan be egongo zala adarra nok jo eta laga eutsan ikuskizun ori artzeari.

Ortaz gañera, Aizkorri, Gipuzkoa'ren mendirik altsuena gorago dago, eta ain zuzen be zegamar lurrei goi-bidea eta luzetasuna emoten.

* * *

Orra Zegama. Gaui gaukoz, ez aurrera ta ez atzera. Nai eta esakera zarrak esan, eta onetan, esakerak aitatutzean ez dogu zitalkeriz jokatzeko, gure aurretikoen esakerak gogoratu erazi naiez baiño, «Zegama, deabruak ba darama».

Gaur bere izateari eutsi nairik igarten da. Menditar izatea zainduz, ogibide on bat billatu nairik.

Ba dago beste esakera bat be: Zegamarrak, belaak. Zegaitik? Errien arteko txiki-keriak.

Gaur lanaren premiñan dagola igarri dot. Ia irureun lagunek urtetan dabe egunero, ogi bidean, Beasain, Legazpi, Lazkano eta Zumarraga'ra, eta jakiña, orreik naiago leuke errian lan eratsu bat. Ordez, 20 lagun inguru etorten dira egunero Segura'tik.

Ba goaz emendik, etxe aldera, Segura'ik zear bide nausira urtenaz. Segura'k ba dauka gozo-zaleentzat tengada bat: almendrakin egindako tartak. Emengoak ez ei dira inoiz sikatzen, esaten dakie. Zaarontzako tentasiño, zitzaldi bat: Gizendu bear.

A. ZUBIKARAI

AGVR

ZABALA, Fernando

C. Aguirre, 17

Apartado n.º 2
BILBAO

FRANQUEO
CONCERTADO
08/55

BILBAO - 11

EUSKERAREN IBILLALDIAK

GIZALDIAK JOAN, GIZALDIAK ETORRI

Andereño Marichu Ezkurra'ri geiegi ez dedin kezkatu puntu oni buruz.

Euskeraz mintzatu ziren Euskalerrri'ko leen gizonak seguroasko eiztariak eta artzaiak izango ziren. Auñamendi, Aralar Alzania, Aitzgorri, Entzia (Araba) ta Gorbea'ko goietan. Usategiak izango ziren, bear bada, eta eizteriak saiika ibilliko ziren elur-oreñaren atzetik. Sortze-sortzetik, ba du euskerak alako gaztai usaia artzai-zakur bustiaren usaiarekin naastuta.

Agian, aldi artan, gure arbasoek jaungoikotzat zeukaten Illargia, zeñari, L. L. Bonaparte'k dionez, Erronkari'n «Goiko» deitzen zioten. Beraz, euskerak jaiotzeki duen usaia ez da garo edo iratze-usaia, gaztaiarena eta goiko mendietako belar gozoen usaia, izatekotan ere.

Orduan, lizar arbolaren gerizpean egin oi zituzten artzaiak beren batzarre edo biltzarreak, Gorbea'n eta Xubero'ko mendietan. Lizarra artzaingoaren sinbolo eta ezaugarri da. On Manuel Lekuona'ri ala esan omen zion bein baserriar batek: —«Lizarrak ez dauka bedekatu bearrik, berez da bedekatua».

Oraín dela milla bat urte, «lizar» (sic) ageri da latinezko itz artean S. Millan'go (Errioxa Garaia) paper zaarretan, baita Lizarraga ere. Benetan guziz zaarra ote den gure goiko mendietako lizarra. Ataun'en ere bada baserri bat Lisarburu izenekoa: portu bat Lizarrusti deritzana; portua pasa ondoren, Naparroa'ko Sakan edo Barranka aldean, Lizarraga Bengoa, Lizarraga Goikoa ta Lizarra (Estella). Azken napar iri au ez ote zen gero Lizarraga? Nik ala uste.

Kanta dezagun: —«Goiko zeruan izarra-erreakaldian lizarra-euskera salbo...» Agian lizarra bera bezain edo oraindik zaaragoa ote den esaten dute «uritze», zeren ba dirudi urra izan zela leen gizonen azkurria, aztarnategietan argitu edo idoro dituzten ondakiñetatik. Izan ere puntu ontaz ez dago geiegi baietzterik, aletxo oiek, ots, urrak auts biurturik azaldu dire ta.

Lizarpetan eta artzaien ao-epaiñetan irriparez, jolasean zebillen euskerari, belar gozo eta gaztaiaren usai miña zeukan euskerari il berria den Boch Gimperak «fondo primitivo de la lengua vasca» deitzen dio nonbait.

Gero iraultza aundi bati arpegia eman bearrean izan zen euskera. Artzaintzak gutxi edo asko bere bidean jarraitzen zuela, lurgintzari ekin zion gizon euskaldunak. Ogibide edo lanbide berri onen asiera Ebro'ren ertzetan ipiñi zuen B. Gimpera'k. Iztegi berri baten bearrean argitu zen orduntxe gure euskera, lurklase asko, lurra lantzeko lanabesak, uzta-aroak, abere etxekotuak, abere auen etekiñak adiarazi naiean. Ordurako beste errietan, auzoko errietan alegia, lurgintza martxan zegoen eta auzoetara jo bear izan zuen lurgintzarako naiz gauzen naiz gauza oriek adiarazteko izenen billa. Amaika izen jaso zituen latinetik! Esate baterako «golde» izena, «culter», latinez eta ola beste asko. Baiña, euskaldun gizonak kanpotik artu zituen lanabesak «euskotatu» zituen bezela, izenak ere euskaldundu egin zituen. Arrezkerø lanabesak gure gureak dira, «golde» ta «gurdi» gureak diren bezela.

Amargarren gizaldian, Elizarekin topo egin zuen. «Eliza» itza geroztik gure gurea dugu. Seguroasko «agur» itza bera ere latinetik datorkigu, «buena suerte» edo «zori ona» adiaraziaz agurtzen dugunari. Latinezko «augurium», latijn ustaldian «augurum», ola nolabait datorkigu punpaka, antxintxikan mendiz-mendiz, muñoz-muñoz gure «agur» itz maite ta txanbeliña.

Gaur bertan ere, Italia'n, inor agurtzean !Auguri! esan oi da. Nik neronek ere bein baiño geiagotan erabili nuen diosal-mota ori an negoela, Erroma'n, 1954-1956 tarte ortan. Loradun «kimonoa»ren izena Japon'dik eldu zaigu aizearen egoetan. Beraz, Ongi etorria! izan dedilla. Ta ez aaztu gero mairuk luzaro egon zirela Euskalerrriaren inguruetan. Soñgaiñean daramakigun «alkandora» izena naiz «atorra» izena (Levy-provenzali jarraituaz) arabear-izkuntzatik datoz, diotenez. Lurgintza bezain zaarra dugula euskaldunok burdingintza, esan oi da askotan. Dana dala, burdingintzak itz asko eskatu zion latiniari edo eskatu gabe esku betean artu: orrela «maillu», «ingude» (G. yunque) ta ab.

Ta zer eman zion geiago burdingintzak euskerari? Gaztaiak ontzeko kea.

Ta lurgintzak zer eman zion euskerari? Garo, arto bero ta gorotz-usaia. Gaur berebiziko burrukan buru-belarri sarturik dabil euskera: zibilizazio berri ta landa arteko burrukan, ain zuzen ere. Oraingo ontan ez nuke besterik nai alako Helena Rubistein izeneko kolorez naiz usaietaz apaintzea, Ala bedi!

JOXE LASA

BATASUNAZ BARRIZ

Azkenaldi onetan, batu egin bear dogula euskaldunok esaka, sarritan diardugu.

Batasuna bearrezkoa izan ba'da beti bere, apurtu zanetik, azkatasunik lortu nai ba'dogu beintzat, naitanaiezkoa biur-tu jaku orain.

Ez da baiña gaurko au amesetan ibilteko giroa. Batasunaren alde lebilkena ez dabil norberekeri baten billa, bata bestearen aurka datorz-eta.

Bardintasuna eskatzen dabenak ez dau batasunik gura, ori argi ta garbi ikusten da. Batasunean lenengo eskatzen dana, euskaltasun txikiena tarteko izan da be ta orretan gabiltzan bitartean beinipein, inoren iritziak ontzat artzea da.

Zabaltasun edo irikitasan aundiena agertzen dakienak, batasunaren alde gogorren jokatzan dabillazanak izaten dira. Ta, bestera, bardintasuna ta batasuna bat dirala uste legikeenak ez dira gaur erritarrok naitaez bear dogun batasuna lortzeko gauza, ezta ori aurrera eroateko be.

Jacob Burckhardt kondairalariak esan dabenez: «Indarkeriaren muiña, askotasuna ezereztean datza». Gaur eta beti ba, ontzat artu legiken batasun bakarra, askotasuna morokilduko ez daben orretan dago.

Olan ba, asteroko onetatik azken illabete oneitan, errien arteko artu-emon zabal eta oso baten eta erri guztien askatasunaren alde; al danik eta dirutza batasun aundiena egin eta eskualdeak euren dirutzak zaintzeko ekubidearen alde; luditarron artean al danik eta alkar-aitze aundiena, baiña eskualde ta errien euren agintzearen alde jokatu dogu. Au da, bizi garan gizarte onen muiñak berak, batasuna ta askotasuna alkarrekin, eta batean ta bein, izan daitezala eskatzen dabenez jokatu nai izan dogu.

Gure erri au zuzenean aipatuko ba'dogu, onenbeste be barriz esango dogu, bein eta barriz: Bakoitzkeri guztien azkena eldu dala. Bardintasun utsa ta bakoitzak bere asmaketa bakarra garaille ateratzeko, batasunerako jokereakin nastatu nai izatearen azkena eldu dala.

Batasuna bai, eta geien bear izango dogun neurrian. Baiña bakoitzaren naiz taldeko iritziak neurri barik irikitza inor beartzeke. Bakoitzaren iritzien eta bestearen arteko oiñarri zabal baten billa aurrera goazala baiña.

Oiñarri alkargarri au aurkitzeak garrantzi aundia dau, eta erriaren etorkizunetik kezkatuak dabiltzan guztien alegin-alkartua merezi dau benetan. Garrantzi bako diran ainbeste zirikatatxo zaar eta alperrikoak alborra utzita.

Alkar-adizkidetzeko ordua eldu da. Baiña benetako adizkidetzea izango ba'da, ez da inor minduta ez makalduta aurkituko, danok bai zerbait lotsati agertu bearko garala.

Ta, euskaldun adizkidetze-lan au, berealako bat dogu. Ez da astia luze joango, eta ez gabiltz urrengo urrin baterako asmaketak egiten. Oraintxe asi ta gainean dogun aldiaren zati on baten erriak jarraituko daben bidea, zabal eta argi azaltzera beartuta gagoz.

Ta lenago be esan gendunez, orren zain dago erria, ea noiz asten yakozan bidea zein dan erakusten. Aurrera jokatu dagigun danon adizkidetasun aundienean.

Gure erriak, orain eta len, bere bizierrari ain lotua darabillan askatasunaren alde jokatu bear dabenean, euskaldun danez, bere eutsinaiaren indar euskorra erakutsi izan dau beti. Ez dau ba, politiku zuzendaritza egoki bat baiña bear.

GIZARTEA ALDABIDEAN

GAUR ARTEKO LAN-ERAK AUZIAN

Gaurko artu-emonen larri-unea aipatzean, nora zeaztu bako esamesak darabilguz, eta zeaztu bako itz oneik entzutean, gizonak, bere barruan lotuta, oker aundiren bat etorri legikeola uste izaten dau.

Ta egoera onetan, gure izate nastu ta benetako au ezagutzea bear-bearezkoa dogu. Begira lenengoa, J. D. Bernal'ek «jakintza-teknikar gizartea» deritzan izate barri orretara aldatzeko bultzaka dabiltzan gertakizunen barruan murgilduta gagoz. Gero, dirutza-almena be, erri batzuetatik beste aberats-okitu batzuen eskuetara aldatzen doan unean gara; gure ekintzak bear daben indarretik geiena saltzen dauskuen arrolio-jabeen eskuetara doa joan be.

Jakintza-teknikar gizartea


Bernal'en zati ori aztertzean, batez be erri aurreratuetan erne ta gora dotorran gizarte barri orren ezaugarriak alde betetik, eta gaurko langintza-gizarte zar au bereiztu daben ezaugarriak bestetik, alde aundia dabela ikasten da. Ala ta be ez da erreza banantzea, bata-bestearen alboan bizi-lagun dira ba oraingoz.

Baiña gizarte barri orren ezaugarrien artean, oneik aipatu daikeguz: giza-asmamen sortzaillea zabalean erabiltea; etekin-langintzan jakintzearen eragin sakona; lanaren izaerea bera aldatzen joatea; lan-bideak alkartuaz bazkun azke ta zabaletan batura ikustea; lengo lan-arruntak teknikearen aurrean lurra-jotera joatea...

Gizona gizandi

Orrebestegaz, aldakuntza orrean zuzendari nabaitzean bere burua, edestian inoiz izan ez daben neurri iri go da gizona. Baiña gizarte barri ori indartuko ba'da, gizonatzaz arduratzea ta bere nortasuna lantzea danoren oiñarri izango dira, ta orretarako, politiku ta gizarte aldaketa izugarriak ikusiko ditugu.

Aurrera bultzatuko diran eragingarrien artean, eziketaren alda-bearra dogu bata. Gaur batera ezin ekarri diran ikastetxeetan lortzen dan jakintzea, ta gero, lan-inguruan ikasiko dana aurre-azterketa batetik ez zuzentzea emen etengo da. Ona argiago: gaur dogun gizarte-lantegitsuan ikastaro gertakizunak zerbaiten lan egingo dabelakoari begira izan dira, sarritan baiña, gero artuko daben lanakin zer-ikusit aundirik izaten ez dabela. Au da, eskeintzen dan lana artuko dau, ta ez bera gertatu dan erakoa. Lanean asterakoan ba, ikasketa barriak, labur edo luze, bete bearko ditu.



Jakintzearen aldakuntzea

Oker ori gainduko ba'da, lan-aukerak eta eziketa-egitamuak argi ta batera aurrean dirala jokatu bear, aurre-neurketa zeatzena egin ondoren. Edozeiñek daki, gaur lanean asi ta aurrera ondo jarduteko, pisi ta teknika jakintzakoak obeto jabetuta izango dala, ta ori, jakintzeak daroan aldarritu joko a noraiñokoa dan asma-tzea erreza ez ba'yaku be.

Gure bizitzako auzien aurrean, edestiko aldaketak eraginda eldu garan maillan izanik, jokera orokor bat onartu bearrean gagoz. Ta orretarako izparlaritzeak eta onek adarabillazan lan-kerak zearo aldatuko dira. Gaur arteko argibideak aldekeriz era zatibatekoz emoten yakuz eta egia estalduta gertzen da. Lazgarriak ditu agergarri zabalenak —giza-lotzeak, egazkin-lapurketak eta abar— baiña azterketa jakingarri ta erakusketa sakonik ez da indartzen.

Argibide litzakena, milla izpar eta iritxietan laifotzen da; egunero barriak baiña betikoak, ez da jarraipen bidezkorik ezta bereizte egoki antolatuturik gogoan izaten. Orra ba, argibiderik aundiena bear dogun aldi onetan, ainbeste ganorabako zatitxoren artean «galduta» lez gabiltz, eta egunetik egunera ludiko auzietan alkar-eragingarri litzakezeneri igartzea zaillagoa danontzat.

Aldakuntzak

Beste alde batetik, salneurrien puztutzea, dirugintzaren beera-aldia, lan urritzea, etekin lortzean gorakadearen makaltzea urte batzuetarako, lan-erabari aukeratzea ta abar luze bat dator gure belarrietara. Gero, dirutza aundidun laterri barriak gora datozalata, beste guzti ori gordindu egingo dala be, entzun dogu.

Egiz, beste au be ziñestu bear: urte gitxi barru «irugarren-ludiko» laterri orreik, langilledi merke ta utsaren-truk bizi izaten oituak etxean dituez, eta dirutza barri orrekin, burdin langitza arruntak baiña bultzakorak jostzera ei-doz; zeintasan beeko lan-erea dabenetakoak, aurrerapenetan gure lurraldean eta Europa'ko zati on baten gaur daukaguzanen antzekoak. Eta saltzean ezin izango dogu neurtu gure etekin garestiagoa orrenakin.

Erdimaillakoak lortu ta indartu


Ta, zeintasan aundiko langintzearen jabe erri gitxi batzuk dirala, onein artean USA nagusi, ta egunetik egunera gorago doazala gogoraturik, ez dago guretzat erdi-maillako langintzara igotzen alegintzea besterik; gaur dogun maillatik igo ez eze, guzti ori galduko ez ba'dogu beintzat. Orra ba, zeintasan eta trebetasun oneko langilleak lortzea bearrezkoa da, gaur dogun lanbide maillatik goragoko teknika aldakuntzak eta lan-erak eskuratu al izango dituan langilledia.

Mailla guztietako aldaketak

Azterketa onen ondoren, gero baterako gizarte-aldakuntzea lagata, dirutza erabilte barriak jokoan jarrita bakarrik gaurko egoera au zuzendu legikela uste izan daikegu, baiña oker be oker gengokez. Len aipatu dogun eta or aurrean datorrela ikusten dogun gizarte barri orretara gure atzeratu au elduko ba'da, gizarte, politiku ta dirutza erakundeen aldatzetik bakarrik lortuko da.

Gizonak eta erriak elburu oso ta baketsu orretara elduko al dira, guztiok nai doguna beteten.

LEIZARRETA



GATZ ETA PIPER

«Erribidekoen» bidea

Ikastolen arteko artu-emonak

Azkatasun bako giroak dakarren kalterik aundiena zintzotasunik eza da. Lerro bitartean irakurtzen ikasi dogu komeni jakunean, baiña atzekoz-aurre erara datorrenean. Orain dirala zenbaki batzuk zirikadea bota gendun, edo obeto esateko, «naiko da» garrazia. Ordua eldu zanean, euskalduntasuna ta kristau eziketea gogoko nitula. Begoñazpi'ko ikastolea aukeratu neban nere umeentzat. Beste gurasoak euren umetxuentzat eskubide bardina daukiela ta ez dot inogaz eztabaidarik nai izan, or konpon bakoitza bere iritziekin.

Baiña etxea ankaz-gora dagoala lorriña auzora zabaltzen datozenekin ez dago gauza onik eta lenengotik uxotzea erabaki neban: orregaitik idatzi nuan lapiko kontu a.

Guk, auteskunde bidez aukeratu doguz gurasoen ordezkariak; demokrazia giro garbienean egin nai gendukez gauza guztiak, baiña gaurko bizitzak erakusgarri asko damoskuz: Lotan egoteko egunak joan zirala eta arduraz aztertu bear doguzala gure umeen eziketari buruzko alderdi guztiak.

Orregaitik guk ez dauzagu, borondate onez datorren inori, gure laguntzea ukatuko, gertu gagoz alkarizketa eraginkorrerako, gertu ikastolen etorkizuna sendotzeko, baiña ez azpilangilleen txoriburu izateko. Itzultzaillan artean egongo dira bi ta bi lau direla dakienak, bost eta sei baiño gutxiago dirala dakienak. Orain badakizue ba, Konjuntioak be modan dagoz-eta.

Nundik-nora?

Asto makillatutzat norbait bear, eta neu izan naiz aukeratua.

Lengoak naiko ez dirala beste bat asmatu dabe orain: ez dakit nik zelako lekutik edo alderditik jaurtiak izan garala. Mutillak, Santa Luzia'k gorde dagitzuezala zuen begiok!

Erakundeak erriarenak diranean danetariko aldikadak izaten ditue, inoiz edozelako eskuetan be jausi leitekez... ez baiña betiko. Esamez zabaltzailleak baiña, konsignerri lotuegiak izanik, naruru-gorrian geratzen dira lenengo aize garbi boladeagaz, eta gure artean asko dira naruru-utsean ikusiko doguzanak... etorkizuna lekuko!

Ez estutu adiskide jator, gu lengo lekuan gagoz, eta inor «sobran» ba' lego, zeuek atarako dozue auteskunde garaian.

Teoloji barridunak

Zelan asiko gu Jaungoikoa iru notieñk osotzen daben ala ez aztertzen? Orretarako dagoz eleiz gizon jakintsuak. Baiña azken egun oneitan gure belarrietara datozen «berriak» ez dira edozer. Sexu gora-beeretan len zigor banatzaillan zaratatsuen izandakoak, gaur «dana libre» alderdikoak egin jakuz. Ainbat eta ainbat buru austekin kezkatuta dagozan guraso aurrerakoienak be ikaratuta dagoz oraingoan. Len aolkutzat amaika astakeri emondakoan artean, orain len baiño laprastada aundiagoak ikusten doguz. Lengo baten, ginekologo batek inostanez «neurosis eklesiogenikas» deritzanak ondaturakoak, orain sexu azkatasun osoaren alde diardue... zer ikusi bearko ete dogu?

Ez ete litzake obe olakoetarako, egun batetik besterako aldakuntzak zabaltzea baiño zerbait, dakien iritzia entzutea?

ARENAZATAR JOSU

BIDERIK ERRAZENA TA LASTERRENA BIDE ORTATIK ELDU GAITEZKE BATASUNERA

«Bizkaiera»ren eta «gipuzkera»ren yakitea, batasunerako biderik egokiena da. Bide ortatik ibilliz ta ibilliz bagoaz, noizpait beintzat batasunera elduko gara: au da, danok danena irakurri aal izango dogu; edo bestela esanaz, danok edozein euskalkitan idatzitakoa irakurri ta aditu aal izango dogula: euskaldun guztiok euskalki guztietan irakurri aal izango dogula.

Ta ona ba, orduan litzakela garaia, Euskeraren batasunari zeatz-zeatz elduteko. Baiñan orain, batzuek diñoen bezela, teknikoek euren ikasgeletan, au da laboratoriotan, euskalkien batasuna egin dagiela ta ganerakook arein usteak geuretzat artu.

Bide au ezta zuzen ta egoki. Teknikoek laboratoriotan asmatutakoa erriak ez dau gura, erriak ez dau artuten, erriarenizat ez dau baliorik.

Orregatik guk egin bear geunkena, teknikoan asmakariak alde bat utzi, narzta yakin-garriak izan, eta «erribidekoek» erakusten daukuen bidea artu, ta aurrera egin ortik.

Ortze daukagu, gaur bertan, ikaspede bizi bat: Bizkaiko bertsolariak dagitena. Bizkaiko bertsolariak Gipuzkoa'ra doazenean, giputz-aditzerea erabili oi dabe, esaterako «dautso»ren orde «dio»; «euton»ren orde «zion», ta a.

Ta egikera orren aurka inork be ez dau ezer esaten: atseginetan entzuten oi dabe entzule guztiak.

Urteak dira ni ortan nengoela ta nagoela; ta orain poz-ozten naz, tankera ori gorantza doala, tokiak eta, lekuak eta batez be, idazle euskaltzaleak irabaziz doala, ikusten dodanean.

Ona, esate baterako, adibide batzu: 1) «Kili-Kili» umeen paper zoragarriak, olan «bizkaiera» ta «gipuzkera» irakasten dautseez, oraindik kanpora barik, etxean oi dagozan umetxoek.

2) Fermin Aita Pasiotarrak, be, Oñarri-Eziera Orokarrerako egin izan dauan maila guztietako «gramatika» xarmangarriak olan «bizkaiera» ta «gipuzkera» dakarzkuz, euskaldi biak erraz-erraz ikasteko eran.

3) Eta «Erribidekoek» egin izan dabezan testo-liburuak, be, olan dagoz-eginak, aditza bietara ipiñiz «gipuzkeraz» ta «bizkaieraz», euskalki biak, emeki-emeki, erraz ikasteko eran.

Eta abar, eta abar. Ez dot esan gura, beste liburuetan, elebarrietan, elerti-liburuetan t. a. olan egin bear danik, ikastolako ta orrean antzeko liburuetan bakarrik baiño...

Ortik, berez bezela, bizkaia-umeek ta ikasleek, txiki-txikitik, «gipuzkera»gaz adiskide egingo dira; eta giputz-umeek ta ikasleek, be, «bizkaiera» euren etxeko izketa lez artuko ei dabe.

Orra bada-ta, era orretan bizkaia-irakurleek ez bakarrik «gipuzkoera» irakurri aal izango dabe, baita iparraldeko euskalkiak be, oneik gipuzkeragaz antz-antzekoak diralako.

Eta bardin, giputz-irakurleek be, ez bakarrik antzekoak dituzan iparraldeko euskalkiak irakurri oi dabez, baita «bizkaiera» be, onegaz umetandik adiskide ta ezagun andiak egin ziralako.

Orra euskaldun guztiok euskalki guztietan irakurtzen ta atsegin artzen; ta ganera laboratoriotako ezer be sartu barik gure Euskeran. Dana erriaren Euskeran.

Ori guztia etorriko ei da oraingo ikastoletan ikasi oi daben «erribideko» euskeragaz, ori dana ta geiago be bai.

YURRE'TAR YULEN A. K.

SAN ISIDRO SARIA. 1975

«Cámara Oficial Sindical Agraria» deritzaion alkarreak, bigarren San Isidro Saria antolatu, du onako lege auekin:

1/. Iru sari izango dira: lenengoak 50.000 pezeta jasoku ditu; bigarrenak, 30.000 pta.; irugarrenak, 20.000 pta.

2/. Idazlanak euskeraz izango dira.

3/. Gaia baserria izango da; baserria ta baserriarren oitura ta lan gauzak. Orregatik, nekazaritza ezik, baita artzaintza, basolana, ikazkintza, mandazaiak eta abar ere.

4/. Gai ori nai dan bezela erabili diteke: saiakera, nobela, eko-

nomia azterketa, teatroa, bertsoa ta abar. Bertsoa bada, bertsolari-tzari dagokiona izango da.

5/. Idazlanak, gutxienez eun folio izango ditu, ta iru kopia bialduko dira.

6/. Juraduko edo maiko jaunak, antolatzaillak aukeratuko ditu.

7/. Idazlanak «Cámara Oficial Sindical Agraria» ontara bialduko dira: Oquendo, 16-18, Donosti: 1975'eko jorrailaren 30'era-ko bialdu ere.

8/. Erabakia, orrillaren azken aldera edo garagarriaren aurren aldera emango da.

B.

AGUR

Ez Agur au beratu, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira astero-ko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri asmoen gainetik daben iritzi-onoeko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxiak, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egileak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:
JOSE M. MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:
LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Carretera a Galdacano, 32-Bilbao-4

ARGITALDARIA:
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guturako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

EUSKALERRI'KO ARAZOAK

BIZKAI'KO LANGINTZEAREN ZEINTASUNA MAILLETAN JARRI TA ERBESTEKOekin NEURTUTA


Lenengo zatiaren amaieran esaten zenez, gaur emen, orain arteko zenbakiak artuta, beste teori baten bidez lortutakoekin alkar bardintze bat egingo dogu.

Teorizko jokabide au Richter'ek erabilitako bide bat da. Ikasketa ori metal arloan egiña da, ta emen barruan izaten diran langintzak bardiñak ez izan arren, danori Prantzi'ko ikasbidera aldatzea errez eratu geinke.

Au be gogoan izan bear, ikasbide onetan darabilguzan urrengo zenbakietan, tekniku aurreratuen sailla ez da agertzen. Orretara, euneko onetan agertuko dana zuzendariak, injineruak eta lizentzidunak osotzen daben maillea izango da:

Ekintza lerroak	Prantzi'n	Bizkaia'n
Meagintzan	% 1,90	0,90
Burdintzan	% 1,95	1,10
Lorreta gaiak.	% 2,60	0,95
Tximist gaiak.	% 6,00	1,90
Metalgintzan	% 3,50	1,80
Mekanikan.	% 3,60	1,95

Amabi urteen aldia izan arren be, emen ikusten dogu Prantzi'ko zenbakiak Bizkaia'koak baiño ainbat gorago agertzen dirala, ta burdingintzan bakarrik zerbait urreratzen garala.



Richter'en teorizko jokabidean, langilleen zeintasuna edo kualifikaziñoa, teknikaren aurrerabideen egoeran edo aldi ezbaridietan zelakoa dan agertzen da. Emen aztertzen diran maillak oneik dira: zeaztugabeak, lanaratuak, zeaztuak, bigarren maillako ikasketak egindakoak eta goi-maillakoak egindakoak. Tekniku aurreratuak ere azkenengo onetan sartzen dira.

Lan-erak, aldiari jarraituz, mailla bitan bananduko doguz: 1) lanabesketea edo mekanizaziñoa, 2) berezkinketea edo automatizaziñoa.

Lanabesketeak oneik artzen ditu: 3) langaillu orokorra; 4) erdi-berezkoi langaillua; 5) lanabesketeako mozkingintzea, ta 6) langaillu berezkoa edo automatikoa.

Berezkinketeak, beste oneik: 7) berezkin-ezarketea; 8) ezarketa au baiña bere berezko arautzeagaz; 9) lan-era onetako mozkingintzea aurrerabide ezauzgarrian; 10) lan-era orretan eta mozkingintzea obetzeko berezkin geiago duna; 11) mozkingintzea oso-osoan berezkinketatik lortzean.

Emen berago daroagun bardinketa ori egiteko, goi-maillako ikasketadunak sartzen dira. Lenengo lerroko zenbakiak, or goian bakoitzak daroana agertzen dabe, au da, lan-erak daroan gorakadearen ezaugarria 3'tik 11'ra. Azpiko eunekoak ostera, gaiñean daben zenbakiko lan-eran izaten diran goi-maillako ikastarodunen neurriak dira.

Lan-erako aurrerabideen tenikazko gorakadak:										
3)	4)	5)	6)	—	7)	8)	9)	10)	11)	
1) lanabesketea.				—	2) berezkinketea.					
% 1	1,5	2	4		7	10	17	25	34	

Ikusi gendun lez, Bizkaia'ko langintzarako tekniku banaketan % 3 bakarrik emoten euskun, au da, 5) eta 6) orrean artean aurkitzen da, lanabesketeako mozkingintzatik langaillu automatikora bidean. Or iksuten da ba, berezkinketea edo automatizaziñoa bultzatera beartuta gagozala, ta lanabesketea edo mekanizaziñoa atzean utzi. Baiña ori lortzeko, billaketa sakon bat bearezkoa dogu.

Begiratu dagigun orain, gure ekintzako lerro bakoitza zein alditan aurkitzen dan:

Kimia, osorik artuta, 6) eta 7) bitartean, au da berezkin ezarketara sartzen. Baiña bere lau zatietan banantzen ba'dogu, beste au ikusiko dogu: Oñarrizko kimi-langintzea 7) aldian dabil; Erdiko kimi-langintzea, 8) eta 9) aldien artean, automatizaziño bidean ederto; Kimi-mozkingintzako azken lanak 6) eta 7) aldian; eta Kimi sorkunde barriak darabillezanak 6) aldian.

Tximis-gaiak, 6) eta 7) aren artean. Au da, berezkin-ezarketan asita, ta naiko garrantzi dauko egoera onek.

Tximist-langintzak ez diranak, 5) eta 6) aren artean.

Meagintzea, 5) eta 6) artean, au be.

Burdiñezkoak ez diran metaletakoak, 5) eta 6) aren artean. Bizkaia'ko langintzaren erdi-neurriaren azpitik aurkitzen da.

Metalezko mozkingintzea, 5) garrenean.

Burdintzea, 5) gnean au be.

Etxegintzea, 5) gnean. Zeintasun onen txirotasuna baiño tamalgarriagoa sarritan, ekintza audienak euren banaketarako lan-gelak eta etxe-nagusiak gure erritik urrin izatea da.

Eroan-ekarri edo lorreta gai-gintzea, 4) eta 5) bitartean dago.

Zeinsatun audiena daben lerroak, kimia ta tximist-langaillugintzea dira biok, berezkinketea edo automatizaziño bidean aurrera asten doazela aurkitzen dira bakarrik.

IKASLE URDURI BATZUK

Arraintza Arazoak

TAMALGARRIA KAIAN

Ikusi ez ba'nu ez nun siñistuko Donosti'ko kaian gertatutakoa, txardiñak zirala-ta. Azkenengo atunak arrapatu zituztenetik, illetan arrairik gabe egon dira Kantauri'ko kai guzietan. Bajurako itxas ontzietan esan nai det.

Bigarren urtez, antxuen aztarnik ez da oraindik, beste urteetan azaltzen zan oraingoz. Txardiñak ostera, illetan urtero. Txixarroak, bogak, berdelak aundiak eta txikiak bai. Arrai auk ordea ez dira ain gozoak eta orregatik arraintzaleak gogo gutxikin begiratzen die. Baiñan zerbait arrapatu bear, ta orrela joaten dira itxasora, antxua agertu bitarteko arraintzak egitera, bien bitarteko ogia jateko eta ordaintzak, atzeratuak daudenak, berdintzeko.

Orra ba gorago diotana. Txardiñak agertu dira iru orduko bidean eta gure alderdiko uretan. Diotenez, arrai au ur-ertz zalea da beti, ta ortarako ondartzak naiago. Orregatik Prantzi'ko bazterrak, emen ingurukoak beintzat, oso ondartzuak dira, eta bertan dago beti txardiña.

Eun ortan, amabost ontzi-edo eldu ziran txardiñaz beteak. Asieran, sei laurlekotan saldu ere bai. Erosle oiek baiña ez dira burumakalak, tontoak, aixxa ematen diote antz berentzat arrai geiegi etorriko dala kaira, eta orrela jeisten da txardiñen salneurria, iru laurleko arte...

Arraintzaleak berealan asten dira marmarka, ta arrazoi aundiz. Zer esan geinke guk? Zer gertatzen da emen urtero? Ortarako egin diran itxas-ontziak zertarako daude? Nola ordainduko dituzte artu dituzte eman-

bearrak ontzi oiek ordaintzeko, naiz gobernuari, naiz banku-aurrezki kutxeri?

Garratzak dira galdera auk, eta zerrendaz idatzi leizke. Erosle oiek, preskurako, tonela gutxi erosten dute, dauzkaten berebilletan barrutietara eramateko aña betetzen diranean, ezin geiago erosi. Zer egin? Nun daude salazoi-erosleak? Atxakia, ta ba leike errazoi izatea, txardin aundi orrek eskama geiegi duala eta jaten motelak dirala. Bai a ze aitzakia!

Gero erosleak betetzen diranean, or etortzen da Alfa'koa, ta auker merke-merke erosi ta eraman iriña egiteko. Auek ere ordea, ezin guzia erosi, ta or dago beste kokka.

Ta ori, antxoik-ez garai ontan. Auek agertuko ba'lira kaian! A ze nolako baliaketa izango luken! Eta gero zer? Ontzi guziak arrapatzen dutenean? Orduan, jakiña, merkatu: Txardin ori, zergaitik ez dute laterako erosten? Guk erosten ditugu ta ederrak daude. Or dago beraz kokka, salazotat oiena. Auek antxua nai dute, besterik ez, eta itxas-ontziak ez daude antxu bakarrik arrapatzeko egiñak, baizik sarean sartzen dan guzia.

Urteroko arazoak dira auk eta ez du antzik zuzenduko danik. Okerrago oraindik, sei ta iru laurlekotan saldu kaian txardiña, eta guk gero erosterakoan BERROGEI laurlekoan egin bear! Eskubiderik bai al dago? Ni beti arraintzaleen alde nago, eta berrogei laurlekotan saltzen dituzten oien aurka.

Igazko urtean esan nun. Idatzi nun, eta barriro idatziko det auxe esanaz: Zergaitik ez dira KOFADRI guziak alkartzen eta olako arraintzak ekartzen diranean, ONENBES-TETIK BERA EZ SALDU?

E. OZKIN

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

ZAZPI-KALEAK



CASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

E D E S T I A U R R E A

(JARRAIPENA)

ARKAITZETAKO ERBIL-LANAK ETA MARRAZKIAK

Paleolitos goiko ertilan guztietatik, arkaizetan egindako marrazkiak ezagunenak eta maitagarrien izaten ditugu:

Naizta Paleolitos aroko lan guztietatik aipatuena Altamira'koak izan, gara ori bereizteko arkaizetan egindako marrazkiak izan ziran onartuak. Font-de-Gaume, Dordogne'ko Les Eyzies'en dagon kondartegian, 80 bison, 40 zaldi, 23 mamut eta orein eta edur-oreinen irudiak Brenil'ek aurkitu ebazan.

Ala ta be, or aurkitu diranetatik leizerik aberatsena, onelako ertilanetan, Lescaux'koa da. Leiza onetan dagozan zenbait irudik bizitasun arrigarria dabe. Añamendi erdi-iparraldean bertan be, leiza-zulo sail aundi bat dago, ta olako ertilan ederregaz ornituak. Niaux, Le Portel, Trois Freres...

Añamendien egoaldetik be, orrelako ertilanak aurkitu dira. Zalaniza barik Altamira agertu da aberatsena. Gero, Covalanas, Castillo, La Pastiega, Chimeneas, eta Monedas'eko arzuloak be Goi-Paleolitos aro onetako ertilan ederrak gordetzen dabez.

Euskal-Erria'k ere ba-ditu ertilan aundiak dituzten arzuloak. Santimamiñe'ko irudiak abereenak dira; ugarien, bisona da, 26 irudi gaz; zaldiarenak 6; auintza 3 bider; zezena bein; ez dira danak era berekoak ezta edertasun bardiñekoak be. Zulo onetan bertan, alkartatu lez, gizaki arein bizitokia ta lantegia or agertzen dira.

Altxerri, bizitokia izan eta arkaizetan irudiak daukazen leizetatik lenengoa au izan zan Gipuzkoa'koen artean arkitua. Marrazkiak eta erbil-lanak dira emen aurkitu ziranak; 81 bison irudi; zezenak bi; 12 abelgorri; 8 zaldi. Altxerri onetan, giza-antzeko erbil-lan bi ere aurkitu dira. Marrazki geienak margo batzuez egiñak dira.

OARRA

Paleolitos aro ori zoragarria da, ta egarriz geratu gara. Galdera batzuk egingo geunkez, ea erantzuten dakizuen, geuk be zerbait geiago jakin nai.

Cro-magnon jakintzea Europa sartalde-egoan bat-batera sortu ta danean zabalduta agertzen da ala sort-leku berezi bat ete dauka ta gero astiro zabaldu bestetara? Lenengoa ba'litz, eiztari a ez zan geldirik bizi, ibiltari baiño eizearen atzetik. Bigarrena izan ezker, bere leküari lotuta biziko zan, eta orrela auzotik auzora zabaldu jakintzea.

Aipatu zenduen Alexander Marshack jaunarena irukurri dogu, ta ortik bururatu jaku galdera au be: Artzuloetan be barruan egiten ei-ebazan sarri abere irudi orreik, leiza-aotik bosteun eta millatik gora neurkin barruruntz joanda. Baiña irudiak ain ondo egiñak izanik, aberea alboan eskatzen dabela dirudi. Eziña baiña, an barruan ez zan alako abererik izaten.

Galderea: Ez ete-ebazan negurako an barruan atxillotzen bizirik arrapatzen ebezan piztiak udazkenean baturako bedar, ezkur, sagar, osto... janarizat gordeta negu zati baten beintzat abere biziak izateko eskuan?

Ta an barruan, esku-zuzi peko argian areik zaintzen egoten zanen bat inoiz, ez ete zan ertilaria agertzen? Ez da basauntzik sarri agertzen, ez da erreza be lotubarik gordetzen, leiza ormetan koskor bi naikoa edozeinen gainetik iges egiteko. Basauntza ba, udabarrirarte ez zan arrapetan, ta udabarriaren ezau-garri bat lez euken.

Ta azkenez, ain aberats dan euskereari zenbat urte emon? Aditz eta izen jokoan, itanoan, alkartzean, ez da aldi labur baten osotutako izkuntzea. Dobson'i jarraian, jakintza aundi dun erri batetik dator. Baiña zenbat urte ete dauz, ogei ogetamar milla? Gaztelarak milla besterik ez ei-daukaz ta gureak be ez asko geiago esango dautzu norbaitek; gaztelerea beste izkuntza batetik sortu da, latinetik; au beran beste batetik, italik deitzen dan batetik, eta au an gorago beste batetik, hittitetik, onek be urrengo bat dau gainetik, gitxienez, eta gaur Indo-europear izkuntza teoriko bat asmatu da ari igarri naian. Orrék danok baiño zarragoa gure euskerea. (AGUR'etik)

Ekain, Deba-Zestua tarteko lurretan dagon leiza bat da. Asko dira emen aurkitu diran marrazkiak eta erbil-lanak.

Euskal-Erri'ko beste zenbait leiza, ertilanez ornituak, oneik dira:

Bizkaia'n, Venta de la Perra, Polvorin eta Goikolau.

Naparroa'n, Alkerdi ta Aristoy.

Lapurdi'n, Uriogaiña.

Zuberoa'n, Etxeberri'koa ta Xaxiolaga.



Antxin-arri aroa emen amaitzen da. Urren-go azeituko doguna, Mesolitos edo Arri-lan-duaren erdiko garaia izango da. Emensortu zan gizadiak izan daben iraultza aundienetako; astiro baiña ziur, eiztarizatuk luginzara itzuli zan gizona, aleak ezi, erein ta jasotzera...

ARRATI'KO IKASLE TALDE BATEK

JAIALDIK ETA ENTZULEAK

Arratsalde on, eta emen goaz aurrera... Ezertara be ez dogu aitzu bear ertia ta ekiña ez dirala bardiñak. Sortze bat ertia, beste egintza bat betetzea ekiña.

Ekiña, gai oni lotuta, oituraz diardugun zerbaiten lortzen dan erreztasuna da. Ertiak ostera, oraingo onetan doiñua lagun dogula, gizasemea bera, edo ukutagarri naiz ukutuezi-ñezko zerbait agertu edo iruditu dagi, ta itxurak emoten diarduala, naiz asmakizun utsen biribiltzea izan, inguruan dan zerbait sortzen dau.

Nire-ustez, egin-nai bi orrein alde garbi agertzen da. Bai, arotz batek, orrela, zizelari batek aña edo obeto erabilten jakingo dauz bere tresnak, baiña onek dagi ertia ta arek ez.

Garbi azaltzen dala esan bear, ez dala edozein ertilaria; oni ba, jaiotzatik datorrio berea. Egia, bizitzan aurrera, alde andiak izan legikez, ala ta be, jaiotzatik da.

Abesti arloan, ertilaria alde bitatik agertu lei ertilaria. Alderdi bi oneik, zelan edo alan, alkartuta agertzen dira. Bata, abesti-gintzea da; olerki bat egin eta beronentzat doiñua sortzea. Bestea, nire ustez len au bezin garrantziduna, jendaurreko esakerea da.

Ez jaku ezertarako abesgilla-abeslaria, bere nekeak esateko aña ez ba da. Ezertarako ez jakuz ba izaten gauza andiak nabaitu al-izan eta besteeri esan ezinean geratzen diranak.

Baiña zalantza barik egi, inoren aurrean abestu gura ba da, esakera on baten jabe izan bearra. Dana dalakoa, baiña ona; abestia, berak egiña ala inork sortua dan jakitea, alboratuta.

Abes-jaialdi batera goazanean, abeste-erak entzuteria goaz, aztertzeria, erabagi bat artzera, geure nortasuna indartzera, eta atsegin-alditxo bat izatera be bai, orretarako girorik ba'lego. Ta, ez da bidezkoa, urteeran olakorik entzun bearra: Orra ba, ez da txarra izan abestia! Itzak beintzat egi biribillak esaten ebezan!

Eres-mailla goragoko bat eskatu bear dau entzuleak, ta ez gatz bako doiñu, ganorabako itz eta beretik iges eginda inoiz agertzen daukuezan esan-aldi lotsagarri, dangil eta zakarrak onaru.

* * *

Goazan beste alde batetik:

Ander deumaren egunean, Agate deumaren aurre-arratsean, Arrati'ko abesbatzekoen ekinaldi batzuk entzun al izan nebazan. Bata Zazpi-kaleetan, bestea S. Anton'go eleizan.

Batean ala bestean izan, ba-zan alde. Izarpean izan ala sapaipan izan; or tartea. Jakiña, S. Anton barruan asko obeto etorran, oiartzunak eraginda oretuago etorten da, eta oker txikiak ez dira ain oagarri izaten.

Izarpekoan osteria, asikera garbi-etzak, doiñuketa utsak eta abois makalduak errezago igartzen dira. Uts-txiki oneik, eres-aldi-itxi baten igarri ezinak geienentzat, azpiratuta geratzen dira-ta. Ta Arrati'ko abeslariok, ordu orretarako, beste mordotxo bat eragoien iztarrietan, goizeko zortziretatik etozan eten barik abesten. Renata Tebaldi edo Carlo Bergonzi'rik ikusi bear olakoan, beste oneik erriko seme-alabak, geu lako notinak.

Urtero lez, datorren urtean be zain izango gara noiz Arrati'ko abesbatzari entzungo. Zueri entzutean narrua zimurtu ta otzikarea sortzen jaku bizkar-azurrean, onebeste esaleraño. Au da Erria! Ea datorren urteko Agate daunarena beste aldera izaten dan; aurten entzule aña abeslari izaten garan.

* * *

Beste alderdi gogoangarri bat:

Gure abestia erri-tartekotu egin bear dogu, au be bearrezkoa dogu, ta ez daukagu rock & roll'ik ingeles abestu bearrik, ezta ortz-rock'a ikasteko India'ra joan bearrik be.

Ugari dira aztergaiak, abeslariak beste ainbeste; onartzen ez dituan Erria bera ete-da?

ARROGETA

EUSKAL ABESTIEN ERAKUSKETA

ABESTI TXAPELDUNA: «EUSKAL-ERRI POLITA GORA», San Juan Bautista abesbatzaren abotsean.

Au da amar lenengoen zerrenda:

- 1.ª EUSKAL ERRI POLITA GORA; San Juan Bautista abesbatzak abestua.
- 2.ª OI GURE LURRA; Benito Lertxundi' ren abotsean.
- 3.ª TXINAURRIA; Mikel Laboa'rena.
- 4.ª SINISTEN DUT; Xabier Lete'ren esanean.
- 5.ª AMAYA; Josu Loroño'ren eresbatzak.
- 6.ª HITZAK DIRA; Lourdes Iriondo'rena.
- 7.ª ARABA; Gorka Knorr abeslari.
- 8.ª BERTSO ZAHARRAK; Lete-Valverde eta Lekuona irukoteak.
- 9.ª ZUGANA MANUELA; Xeberri'ren abotsean.
- 10.ª EUSKALDUN KANTARIAK; Danok Bat zortzikotearena.

Bai, donostiarrak gogor datozala uste dogu, ikusi leikenez. Lau izenburukin sartu jakuz goiko zerredan. Aurretik ere ikusten zan olako zeezer jaso bear ebal.

San Juan Bautista Abesbatzak, estualdi-txoak igaro bear izan ditu lenengo mailleari eutsiteko. Lertxundi'ren diskoak indar aundia dakar. Lenengo agerraldia agortua izan da, ta bigarrena aurrera doa.

Gogor jokutzen dau Mikel Laboa'k ere, baiña izen-buruak barrero erabilteak ezbar-dintasun bat emoten dautso, uste dogu jentea apur bat oartzan danean gorakada aundia egingo dabela disko onegaz.

Xabier Lete'renean, lengoetako ezaugarriak aurkitu doguz; ez dogu aztu bearko olerkari au; emendik aurrera ba, au izango da lenengoetariko mailletan egongo dana.

Josu Loroño bere taldeakin, atzera joan da, ta uste dogu, asko jokatu bearko dabela lenengoetariko mailletan irauteko.

Lourdes Iriondo, au ere gogor dator; naita abesti askoren jabe izan.

Gorka Knorr'i buruz, bere gazteitar entzuleeri itxaroten gagozala esan bear, andik zer diñoen jakin eta gero ondorenak atera.

Bai, Valverde, Lekuona ta Lete'renak bere lekua itxi du, baiña ez litzake bestelakorik izango barrero gorenko mailletara itzulitza.

Xeberri, onek izan dau geien baten kalterik aundiena diskografi onen barrizatze onetan. Or daukagu bederatzigarren mailan agur esaten lez zerrenda oneri.

«Danok Bat» zortzikoteak bere jarra-tzaillen gora-berak eraginda dabil. Ez dabe gogoko «izenbururik» aurkitzen, eta beste bi ibilli dira-sartu-ez-sartuko; beste oneri puntuak kenduaz.

Dana dala, disko arloan beste era batera eldu gara. Bakarko abeslariak jabetu dira oraingoz gorenko maillakaz, San Juan bakarririk zutunik. Ta emendik aurrera, taldeak eta abesbatzak, euren ontasuna, indarra, ta jendeaurreko giro ona erakutsi bearko dabez, nai ez ba'dabe beintzat hit onetatik kanpora geratu.

Itxaron urrengo barrieri, burruka aundia dator nor-goragoko neurketan, baiña ori bai, Euskal-eresmintzentzat oba izango da.

J. M. ASTONDOA

AZTERGARRIAK

SUA

Arabitarren lurraldeak zabalak dira. Orain goan baiña sutan jartzen doaz norbaiten eraginez. Iran eta Iraq; Eritrea ta Abisinia; Sudan iparra ta egoa, ta abartxo luze bat...

—Are aundien jabe dira, baiña ez da ori bakarrik.

ZABALAGO

Ta, Maomatarrak be orrenbaten. Pakistan betiko Katxemir eder orren auzia saietsean sartuta. Kurdoak euren na. Somalitarrek emakumeak azkatzten...

—Ez da sartaldekoen ezin-egona bakarrik auzitegian.

NEURE DA

Diñoe biak, eritrearrak eta abisiniarrak. Lenengoen alde arabitarrek, eskumakoak eta ezkertiarrek anaiak bai dira. Bigarrenak bakarrik, Negusa kendu orduko lengo lagunik barik. Baiña ez dautse azkatasunik emongo; ori euren a da, UNO'an be orrenbeste erabaki zala-ta.

—Arrazoa ala indarra, ala biak bear norberana norberarenganatzeko.

TA EMON EZKERO?

Bildur dira Adis-Ababa'n orrei azkatasuna emon ezkerro, Abisini'ko beste zati eder batzuk be orrenbeste nai izango dabela-ta. Ta emon ez ba'yakoe ezer orregaitik ei-da. Baiña gudea indartzen ba'da, besteak bere, erdikeri orren aurka jaso, legikezala.

—Iraualtzatik gudaroztea makaldu egin zan, orain besteak indartsuago.

BAKEA?

Ez eta bai. Bai eta ez. Or dabilz-inguru gordin orretan, gaur bakera joteko itxurea daben biak. Israel'ek or eskeintzen dautsaz barriz Egipto'ri arrolio obiok eta Mitla ta Gifgafa arriateak, aoa aginez betetzen dautsola. Baiña, inoiz barriz gudarik ez sortzeko alkar-erabagiak izenpetu ondoren.

—Geiago emongo ez daben itxurea be ba'dau Israel'ek, eta or bestean zalantzak; txori bat eskuian eun txori egaka baiño oba ez ete dan asmatu ezinda.

ARROLIOA

Aurten, japonarrak diñoenez, % 10 arrolio gitxiago erreko ei dabe, beraz erosi. Gogoratu daigun, alemandarrak eta oneik dirala arabitarretatik arrolio geien erosten dabenak. Orrela ba, egunotan esan denez, salketak urritu ta larriuneak arrolio-obien jabeentzat.

—Benetan, arduratsu dabil ludia beste errekin batzuen-billa, ta lortzen ganera.

MERKATU TA EUTSI

Orrenbeste eskatzen dautse ta eskeintzen Ipar-amerikarrak arrolio-saltzaillei, orain merkatu zati baten, baiña neurri ori betiko izan dadilla gero arrolio ugari salgai agertzen danean be, ortik bera ez saltzeko erabagiak artuta.

—Orain gitxitxoago irabazi, gero galdu ez.

BA-DATOR

Emen dogu Kissinger jauna, bere odol-anai israeldarren eta bere lengusu arabitarren

arteko bakea egiteko asmoan; edo gudarik-ez onek iraun dagian. Baiña ez dau itxuraz au, ez ei-doa ba ain txarto, beste arrolio orren auzia aiñako. Bereala Persi Kolko'ko errietara doa. Olio-bakea lortzeko asmoan.

—Lenago be Olio-orria izaten zan bakea erakusteko ikur berezia!

EZ BAIÑA ESTUTU

Olandar izarlari jakintsu batek diñonez, laster baten, an goian izarren artean sortzen diran indarren bideak ikasi, txikian jokatu, ta nai aiña ta geiago indar izango ei dogu luditarrok; ainstestean, arrikoskorak baiño be merkeago. Gas beroak alkarrekin topeka-ta, azelako indarketak lortzen ei-ditue...

—Dana merkatzen danean, lanetik alogerarik ez, eta goseak orduan be...

GAXOAK

Naparreria betiko galduko ei-da ludian, Milla ta bosteun urte zear gizasemeak jasan izan bear izan daben eri zulkokari ta erailtzaillea-oraintxe galduko da. Iru lau toki bakarrik geratzen ei-dira garbitzeko, bata Abisinia bera, ta guda au sortu baiño len iñoenetik Epailera'ko dana garbituta.

—Orain ikusi bear, naparreria ala gudea zein dan okerragoa an.

AU EZ

Legenarduna edo lepra dunak, oindiño askotxo. Txarrena, ez dirala danak sendagilleen eskuetara lotzen. Ego-ameriketean, irutik bi bakarrik ei-dira sendagilleak ikusitakoak, besteak euren kontura edo txarragoa jendar-tean nastatuta.

—Ardura gitxi izaten dau gizasemeak bere eriak beretzat gordetzen eta ez zabaltzen. Lagun-urkoa? Or konpon...

IPURRIKAREA

Txori bat da, geldi-eziña, gizon asko bezela. Ba-dira unetxo baten geldirik egongo ez diranak, ba au be osatzen ei dabe, baiña ez betiko, janari garbiak artzen jarraitzen dan aldirako baiño. Janariak ez dabe «saponijeno» izan bear, oneik bako janariak artuta astiro baiña ziur «ipurloka» ori baretuko da, baiña gitxi ba'da be, «saponijeno» orretakorik artzen ba'dau, or doa barriz lengo dantzara.

—Gelduegiak ba-ete-leukee obarik orrietatik janda?

LEIZETAKOAK

Krimea'n barriz, leiza zulo baten, arkaitz-marrazkiak aurkitu ditue. Orain 10.000'tik 13.000 urte lenagoak. Kultura ori andik etorria ala emendik eroana ete? Leiza-artzak, zaldiak, bisonak, arraiñak eta mamutak marraztatuta agertu dira. Baita eguzki-izpitsu bat be.

—Arkeoloji au eguneko egin jaku, emen eta an.

ESTE-GARBITZE

Lenago atzetik, gaur aotik. Ori diñoekue beintzat engalandar jakintsu batzuk. Tutu baten bidez ura urdaillera, edo tuturik maite ez dabenak, azunber-terdi ur orduko iru ordutan, ta urdail-esteak garbi-garbi. Ez ei da baiña ur utsa...

—Ba da ez ba'da, ardao gitxitxoagokiñ asi nai neuke...

DANOK

BAT ETA BI EZ DIRA LAU

Bardintasuna? Ez bardintasuna?

Bakoitzaren etxean zer gertaten dan norberak daki obetoen. Baiña inoiz komeni izaten da auzoak zer diñoen jakitea be.

1974 urtea joan zan pikotara.

Diñoskuenez, 17,82 igo da bizitza. Aurreko urtean baiño geiago. Orduan 14,2 igo zan. Aurten 3,62 geiago.

Bizitzaren karutzea irabaziekin neurtuta, zelan goaz?

Ara «Die Welt» en agerpenak.

1973 urtea oiñarri lez artuta España guztian % 18 karutu da bizimodua eta irabaziak % 26 geitu.

Japon'ek gaindu dautsa España'ri: % 25 karutu eta 27 geitu.

Suiza agertzen da bardintasan eredu: % 10 karutu eta bardin irabaziak geitu. Kittu. Ipar Ameriketean % 11,5 karutu eta 11 geitu. Galtzen.

Irakurri-ala esan dogu.

Bizimoduaren karutzea arriolioari ezarri dautse. Eta beste olioia?

España eta Itali dira olio artzen geienak. Bien artean munduko % 58. Aurten 410 milla tonelada artzeko asmoa dago España'n eta 400 Italia'n. Eta geroari begira erriak geitu, bizilagunak ugaritu eta konsumoa anditzen dala ikusiarren, beste amar urtetan % 0,7 bakarrik geitzeko asmoa dago España'n eta Itali'n 1,84. Argelia, Argentina eta Marruekos dira ugaritzeko alegiñik geien agertzen dabenak. Iurak euneko lautik gora jo nai dabe.

Ori ikusita C. O. I.'ko agintariak geitze gitxi dala uste dabe, eta orrek, ugaritasuna eskastuta, salneurria be astundu egingo dabela.

Donosti'n diru-etxe edo banku barri bat zabaltzeko baimena emon da: Banco Industrial de Guipúzcoa izenez. Asierako 700 milloe pesetako dirutzaz.

Beste banku bat: Hispanorte, S. A. Lurrak erosi, etxeak egin eta saltzeko asmoz. 100 milloeko kapitala. % 65 Banco Hispano'k eta % 35 San Sebastian'ek.

Bilbo'ko portuan 21,5 milloer toneladako sartu-urtena egon zan 1974'n. Eta lanetan, obretan, 1.277,5 milloer eraldi ziran.

Irureun milla milloen balioa ukatu zan, protestatu zan, letretan, igaro dan urtean España'n.

Bakea aizetu eta sua?

1973'ko Bagilletik 1974'koa bitartean, urte betean, Ipar Ameriketean, 8,3 milla milloer dolarren izkilluak, armak saldu zituen. Urte bete aurrerago 3,9 milla milloer.

Amar erostallerik andienak, igaz, oneik izan ziran: Beti be milla milloer dolarretan.

Iran 3.800.—Israel 2.100.—Arabi Saudita 588.—Grezi 435.—Alemani 219.—España 148.—Canada 94.—Corea 81.—Formosa 68.—Txile 68.

Arri-olioaren erreserbak, gaurkoz, larogetamar milla milloer tonelada dirala esaten da eta ogetamar urteraño aiña ba dagola.

Eta armak?

BRAS

ANGOLA

Datorren Azaroaren 11'an erri batek lenengo-aldiz jabetasuna iritxiko du: Angola'k. Egun au eldu bitartean, Ordezkarri edo Comisario nagusi batek izango du aginpi-dea. Angola'ko mugimentu politikoak eta Portugal'ko nagusitasunen tartetik osatutako kontseilu bat laguntzaille duala.

Angola'k 5.500.000 bizi-lagun ditu 1.246.000 km.² etan banatuak Geien erabiltzen dan izkuntza, Bantu deritzaiona da, naiz ta Portugal'ko nagusitasunak diralarik, ofizialki mintzaten dana Portugal'ko izkuntza. izan.

Bere meatztoki edo minatatik ateratzen dituzte diamante, kobrea, burnia, petroleoa eta abar; aberastasun aundiak ditu bei-abereetan; bere lurra artoa eta kafe-toa sortzen ditu eta arrantza ere bai liteke ugarria dala.

Angola'k iritxi duan jabetasun au oso atsegin zaigu, baiñan ala ta guztiz-ere oso kezkatuak gaude, urrutira joan gabe, munduan zear erri asko bai daude oraindik, bere azkatasun egarria ase ezin dutelarik.

IÑAZPI

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra

BILBAO - Casco Viejo

Tenderia, 15 eta 16

G U D A

1
Eguzki-uso txuri sartzen zan errira.
Bularpe epel arek, gozamen, kabira.
Pake-arnas lasaia biozpean pil-pil...
Irri-jolastik ez zun atean maratil.

2
Betiko pakarik ez... Eguzkia jun zan.
Bele beltzen illuna gauak ekar zuan.
Illunak kezka dama kolkoan zer ote...
Beleak maite bait du aragi zarkote.

3
Elkar artu ezin eta odolak irak,
guda zitala sutuz. Beleen jaiegun!...
Aien jolas bearra odoletan mozkor!...
Gizonek elkar erailten, tiroka, gogor.

4
Ama baten seme on, guda izenean,
beste amaren kutun odoldu naiean...
Etorkizun oneko zugaitz loretsua,
ametsen zitu gabe suak suntzitua!...

5
Gudaren izate, goranai ta gorroto.
Giza adimeneko almenaren pota...
Nork ezi, indartzean, guda pizti ori?
Burnizko ortzak ditu, biotza su-gori.

6
Burni-piztiek orru ta orru eun aldiz.
Mendi berdetzan su-zauri gorriek diz-diz.
Bitartean, loreak, aoxabal irri...
Zer dakite loreak gorrotoren berri?

7
Maitasun ta gorroto senide bikiak.
Bata On'ek emana, bestea Txar'kiak.
Biak ezin, kolkoan, elika batera...
Zein gizontzen dun, gizonak aren jokera...

8
Goi aizetan egazkiñak burrun ta burrun.
Aien itzala bean eriotz itaidun...
Zenbat asmakizun griña txarren bidez!...
Zenbat alargun!... Zenbat maitale negarrez!...

9
Aldenik alden dunba ots, bazterrak sutuz.
Mendi bizkarrak ere aragi urratuz!...
Giza-soiñak odolez, barrunbe agiri...
Pakezale gaixoez, aulkeriz, intziri.

10
Bitartean, ingumak, jolas, jira-bira.
Pake deunaren argi-izpi-bait lira.
Lore aoxabalek maitasunera dei...
Maitasunik ez-eta, ats-gozo ildakoei.

GALLASTEGI TAR MARTIN



eziketa jostailuak
eskulanetarakoak
irakasketa gaiak

gregorio de la revilla, 1
bilbo-11

Jolasean ikasi, or zure aurrentzako emoitzarik onena

Ibillaldia Erroma'ra

Urte Deuna be ba-dogu 1975'gn au.
Doipuruak be, bere seme-alaben berotasu-
naren barri izan bear dau. Eleizea alde
guztietatik zirikatua, Erroma'n dau bere
oiñarria, ta an bear dogu, zinesmena erakutsi.
Uda erdian, oporraldietan, ona ba, Erroma'ra
joan etorri zoragarri bat, beti lez, beste edo-
zein asmo barik sortua.

Dagonillaren 8'gnean, Ostirala, Eibar'tik
urten eta Laburdi'tik zear Carcassone'ra apal-
tzera ta lo egitera.

9'gnean, Larunbata, Carcassone'tik Lyon'
dik zear, Ginebra'ra, apaltzera ta lotara.

10'gnean, Igandea, Ginebra'n goizea.
Arratsaldean Lausana'tik zear Berna'ra apaldu
ta lotara.

11'gnean, Astelena, Berna'tik Olten zear
Zurich'era, bazkaldu ta arratsaldea emen,
gero, Cham'etik zear Luzerna'ra, ta emen
aparia ta loaldia.

12'gnean, Asteartea, Interlaken'era, gura
dabenak Jungfrau, 3.000 neurkin goitik dan
mendira kate-bultzian gora. Bazkaria saka-
letan, illuntzean Luzerna'ra barriz, aparia ta
lo.

13'gnean, Asteazkena, Lugano'ra, emen
bazkaldu. Milan'era Como osinaren albotik,
Milan'en aparia ta lo-gelak.

14'gnean, Osteguna, Milan'en goizea, baz-
kaldu ta Verona ta Padua'tik zear Venezia'ra.
Garda osinean geldialdi bat eginda, Venzia'n
aparia ta loa.

15'gnean, Ostirala, Venezia'n egun osoa.
16'gnean, Larunbata, Florenzia'ra, Pa-
dua'n geldialdi txiki bat egin ondoren. Flo-
renzia'n bazkaria, aparai ta loa.

17'gnean, Igandea, Goizean goiz, gozaria
saketan dogula, Erroma'ra, Kepa Deunaren
Eleiz-nagusian Doipuruak bere lagunekin
batera emonga daben mezea eta bere itzaldia
entzun ta Onespen Orokorra jasotzera. Erro-
ma'n bertan bazkaldu, apaldu ta lo.

18-19-20, Astelen-asteazken, Erroma'n, lau
Basilika Nagusiak ikertu, ta Urte Deuneko
Parkapena irabazi. Iru egunotan inguruak
ikusita eta batean Napoli, Vesubio, Pompeya ta
Capri ikusi, Oneik ikustera «Aliscajo» baten
joango gara.

21'gnean, Osteguna, Grosseto'ra Civita-
veicchia'n geldialdi bat egin ondoren. Bazkaria
ta Pisa'ra ondoren. Emen aparia ta loaldia.

22'gnean, Ostirala, Porto Fino'ra, baz-
kaldu ta La Spezia'tik zear Niza'ra, emen
apaltzeko ta lotaratzeko.

23'gnean, Larunbata, Arles'era bazkal-
tzera, ta arratsaldean Carcassone'ra, apaldu
ta lotara.

24'gnean, Igandea, Lourdes'era goizago,
emen bazkaldu ta uria ikusi ondoren, Bayona'
tik zear Eibar'era.

Autopulman eder baten joango gara.
Logelak bikoitzak garbitoki ta guzti.

SALNEURRIA: 24.500 LAUERLEKO

Laguntzaille bat izango da bidean, eta
ibillaldi onen antolatzaile dan karmeldar
aitak eleizkizunen ardura izango dau. Muga-
igaro txartela ta egunerokoa ondo izatea
bearrezkoa dozu.

Garillaren (Uztailaren) 20'gnerarte onar-
tuak izango dira eskariak.

Barri geiago:

Goiria'tar Txanton Aitak

Carmen, 2, 71 79 43 urrt.

Eibar.

Izenak emotea:

Viajes Lugar (Gat-20)

Donosti'n eta Eibar'en.



ELEIZEA JAZARPEAN

Elizak beti izan ditu jazarpenak. Sortu zanetik eta gizaldi guztietan.
Gaur be ba-ditu. Eta zergaitik? Zergaitik Elizaren aurkako jazarpenak?
Eliza gizonen eskubideen alde agertzen dalako. Eskubide onein kaltez
doazan guztien aurka doa beti Eliza. Gizona Jainkoaren izaki izanik
azkatasuna daukala diño Elizak. Zuzengetasunaren aurka dago Eliza.
Errian ainbat gauza ta era aldatu egin bear dirala diño Elizak. Egi
betikorrak gogoratuaz munduan Ebanjelioa jarri bear dala irakasten
dau Elizak.

Askok eta askok ezin ontzat artu guzti au. Ortik Elizari eginten
jakon gudea.

Ainbat gizonen erabilli dabe Eliza euren asmoak lortzeko. Baiña
ezin atzipetu leiteke Eliza. Elizak ez dauka kaiñoirik, ez megatonik,
ez beste iskillurik. Beste eratakok dira bere iskilluak. Neron'ek be
gogor jazartu eban Eliza ta beste askok be bai. Eliza zutiñik dago.
Beste askok euren lumak eta itza erabilli ebezan Eliza ondartzeko.
Eliza iñoiz baiño indartsuago agiri da gaur. Gure egunetan be ainbat
agintarik gogor artu izan dabe Eliza. Batzuk agirian, beste batzuk ixi-
llean. Zer lortu dabe?

Beti izango egia Kristo'ren esana: «leizetako indarrak ez dabe
ondatuko Eliza».

Jazarpenok ez dira bukatuko. Aurrera egingo dabe, baiña jazartuko
dabenak lurpean estalduko dira ta Elizak orain arte lez aurrera egingo
dau. Jaungoikoa da beragaz.

GOIRIA

ARRIOLA

Ondarroa

«Altura» eta «bajura» izenak geratu ziran erriaren aotan, era bateko eta besteko itxasontziak, euren arrantzako eretatik ezagutzeko. Arrasteruak eta bestelako ontziak bereiztuteko.

Gaur, Ondarroa'ren entzutea, arrasteroetan dago. «Bajura» koak, au da, lengo arrantza jatorretan jarraitzen dabena, makaldu egin dira urte onetan. Irabazpide gitxiago, nunbait, zeregin orietan.

Azken oneik, kofradian sartzen dira. Besteak, arrasteruak, euren alkartasuna dauke. Era bidea be, bakoitzak bere alderditik.

Urtearen asieran arrasteruen artean egotan txalopen izen, ala eta indarra agertuko doguz gaur.

85 itxasontzi, danetara 17.450 tonelada eta 60.695 zaldi indarrez.

Ara bakoitzarenak: Izenak daukezan lez agertuko doguz.

IZENA	TN.	HP.
Acondo	254	1.200
Akilla-mendi	223	700
Ama-lur	203	700
Andra-Maixa	286	1.000
Aralarko Mikel deuna	286	1.000
Arbelaitz	237	1.000
Arranondo	230	800
Arretxinagako Mikel deuna	286	1.000
Artabide	232	800
Artadi	106	300
Asmor	251	800
Azcarate Bengoechea	128	430
Azkarate Berria	228	600
Bahía de Vizcaya	153	450
Beti Gure Javier	154	850
Dantzari	499	1.420
De Antigua	127	240
Endai	233	800
Franper	164	425
Galgoi iparra	240	800
Gaztelutarrak	187	600
Goizalde eder	260	1.000
Gran Boga Boga	228	800
Hermanos Solabarrieta	170	400
Ibai ederra	272	1.160
Idurre	153	560
Iparralde	158	350
Ipartzar	158	350
Itxas-ondo	285	1.250
Itxas-orratz	223	900
Jerusalen Argia	251	680
Jerusalen Argitasuna	272	900
Julian Portuondo	127	330
Katetxe	285	1.500
Landaberde	184	750
Larandagoitia	240	900
Larrauri Hnos.	242	800
Leizarre	246	1.000
Luna Nueva	158	450
Luna y Sol	188	600
Luz Boreal	232	800
Madre Arriotoquieta	76	200
Madre del Consuelo	235	680
Madre Venerada	110	240
Maria Gema	145	400
Monte Carrandi	300	900
Nautica	127	240
Nuestra Madre	178	700
Ntra. Sra. Bivarte	145	400
Ntra. Sra. Covadonga	145	400
Ntra. Sra. de los Remedios	240	950
Ntra. Sra. de Ziarrotza	110	330
Nuevo Aurtenechea	162	420
Nuevo Jesús de Belén	202	510
N. Luz del Cantábrico	162	420
N. Niño de Belén	115	330
N. Santa Ana	180	900
N. Tontorramendi	202	510
N. Luz de Gascaña	271	1.000
Ondar Eder	184	750
Ondarrutarra	292	1.200
Ormaza	228	800
Plai Ederra	106	300
Playa de Arrigorri	83	200
Polo Norte	351	1.320
Río Itxas-ertz	200	900
Río Kresala	249	1.000
San Eduardo	237	1.000
Saturran zar	230	1.500
Sesermendi barri	240	900
Solabarrieta Anaiak	155	660
Sukarri	220	800
Talai-mendi	219	800
Txanka	352	1.200
Tiri	260	1.200
Toki alai	225	900
Uranondo	200	600
Ur gain bat	200	600
Ur gain bi	127	330
Uribarri	242	800
Urondo	272	1.160
Ur-txoria	250	800
Zabaleta anaiak	97	240
Zaldupe	251	680
Zorionak		

Arratia

Egunak ziran areik: Sayetsartea ikol, agin-ortzak zorrotz eta zer emonik ez; lana urri, dirua gitxi. Jai-igandez lan egitea, baserri-lana batez be, debekaturik, galerazola. Buztari, idi ta beyentzat zeatz bete-bearrezko geldi-egunak ziran; eta lantresmentzat bake osokoak!

Biraoak ezeukan inon aterperik, eta Jagoba-Santaigo egunean gari-ebaketa laguntzeagatik... diruz zigorpelutak izan gihan. Señismendun eta siñis-gabe, prakak beteko kristau katolikuak egin ginduzan... katolikukeri geiegiaz inguraturik. Aldi artako apaiz batzuen joerak, nik uste, on gitxi Eleizeari... sudurra politikan sarturik eukeelako geiegi.

Aldi ta egunen etorri-joanean mugarte zabalgoak, eta ibil-bide leun-bigunagoak eskeindu daukuz Kristo'ren Eleizak. Ala ta be, «Ez gaude conforme» dirauskue barrutian doguzun ainbat «pinto» xelebrak.

Bakoitza da bere buruaren jabea-ta, egin bedi bere naia; baiña agirian bide batetik, eta ezkutuan bestetik dabilkuzan tupamaroak, azaldu zergaitik ez orain arteko kristau-siñismenaren zerak, eta erdi besarkatu daroen barriaren lerak?

Ausartu zaitze jaunok, biotzean daukazuen «desconformidate» aitortu ta azaltzen. Azeriak ba'zare, azeriak lez sartu oilloteigira, ule gorritzka ta buzlan arroa erakutziz, eta ez oillo-lumazko jantziz. Eta Erria, oitura, ekandu, izkuntza ta guztia salgai ipiñirik dozueta ba-dakigu, baiña... zeren ordainez eta nori, eta zertarako? Kokomarrozko «disfraxia» alboratuz, gizonen artean gizonki agertzeko ordua etorririk dogu.

Atxak ura, erroteak urun, aurtan Kandelarioz txitxiburduntzi-egun!

Zugazten kimu bigunak azala barritzen, pipillak aunditurik, udabarri au lore-jantziz azaltzen asirik. Ijito la motzaila, kaleko ta baserriarrak, ezta eta tujudunik ez, Sanblasetan Abadiño'n osasun onez alkartuak.

Eta, Arratia? Au egiten ari naizanean, udabarriari bizigogoz atea irikia, ta argitaratuko danerako, Agate deunaren abesbatzak zentzuz, txepel diranen alde, eskebatzea eginik izango.

«Norbera gaiztakerian zelako, bestea ere alako» uste daberen txar makur batzuek, abesbatzaren politika-lurrunak sudurrean jotzen ditu; baiña, nik ikusi bez olako lurrun eta politika-girorik. Gorri-ori, zuri-gorri, naiz orlegi, ekandu oneko oitura zarrari eutsi, errukarrienganako errukia egiñetan erakutsi, noiztik beieñera alaitasuna eskeñi... an ez da beste elburu ta xederik agiri.

LANDAJUELA'TAR A.

Galdakano

ALTZATZU

Ala Altzatzu? Ez genduke ezetan be mindu nai Yurre'tar Yulen aita agurgarria, euskal idazle jakintsu ta adizkide zintzoa. Baiña berari itaun bat egin naian gara aspalditxoan, bere idazki txukunetan darabilian Altzatzu izen dala-ta.

Ez dago esan bearrik, Aita Julen jakituna dala euskera gaietan, zetan esan bez, gu baino anei aldiz jakitunagoa, baiña jakitunak be giza-semeak dira-ta, akatzen bat edo beste izateak be, leikeana da. Gure uste apalean, oker ba'nago azketsi, Altzatzu ez dago ondo idatzita, Altzalis, tsu (abundancia), baiña tzu?, (grande).

N. Nabarte Iraola jaunak, bere «Diccionario Etimológico de Apellidos Vascos» idatzian, onetara diño; «Alzazua, Alsasua = El mirador del alisal». Sarritan igaro ba'nai be Altzatzu edo Altzatzu'tik, ez dot ezagutzen Napparroa'ko erri zabal eder ori, heraz ez nago ziur-samar eretik bat emoteko tankeran, baiña ez deritzat egoki Nabarte jaunaren erderara itzulpena. Zer dirausku Julen aita agurgarriak? Gure besarkada anai-ko bat berari.

(Ta beste bat Basa-Jaun urduriari, AGUR'etik, Ba-genduan aspalditik onetan musturra sartzeko gogorik. Yurre aita ondo dabil, «tzu» ori abundanzial benetakoa, sagartzatzu, arantzatzu, pagotzu, nortzuk, batzuk... Beste tsu ori osteragogok, bioszeko almenak neurtzeko izen-lagunak osotzen daukuz, gartsu, sutsu, odoltsu — ez odol geiago dabelako, beroagoa dalako baiña... Ea ba, zer diñoskun Yurre aita ospetsuak).

MENDIGOIZALEAK

Erri ontako «Ganguren» bazkunekoak, beste askoren artean gauza on bat egiten ikusi doguz; gatzetxoentzako txango ego-kiak antolatutzen.

BARRIAK

Umetxoak, jolasa bear dau; euren soiña ezi ta adimena argituaz, ikasketak sakonduko ba'ditue. Erri andi samarretan bizi diran gatzetxo orreik, ez dabe izaten errian nun jolastuko toki egokirik. Kee ta sarritan loikeriz beterik diran ukulluetan edo asko dabiltan ardingela ondoetan.

Gure ustez, neska-mutil orreik mendirantz, gorantz, al dogun guztijan ontatik aldendutera egin bear dogu, irakasleen eta mendizale bazkun bitartez.

Ta ori gogoan dabelako-edo, «Ganguren» batzordekoak, Otsail onen lenengo iganderako Galdakano-Zaratamo mugatzen dagon Upo mendira zuzendu ebezan, gazte euskaltzale jator bi ta andeiriño batzuk lagun, ia berrogei bat bederatzit urtetik amalau urterarteko neska-mutil alaiak.

Gure illobatxoak be, umetxo orrein artean izan ziran-eta, geu be euren aldamean gintzazan, eta atsegin izan yakun «Ganguren»go zuzendari orrein jokabidea: Gatzetxo orrein adimena biztuteko, jolas egokiak irakatsiz, euskal-lutelestia be polito adierazoten dautselako, ta bearbearrekoa dabelako. Egiz, atsegin izan yakun umetxo orrein ibilketea.

AGATE DEUNA

Azkenengo urteetan antzera, aurre be urten ziran gure txaideak zear ainbat talde, Agate deunaren omenezko abes-tiak abestuten. Iru edo lau talde izan ziran; mutikoak eberdatian, arratsaldean bigarren ikastarokoak, eta gabian nagusiak. Andra-Mari ta Ganguren taldeen artean osotu eban aldra arek abestu eban zoragarri, beste biak be ederto, eta nagusiengandik zer ikasi be izango eban. Usansolo ta Erletxeta zear be abestu eban eurok. Zorionak ain abesti ederrekin erria alaituaz, gure oitura bikainak goralduten saiatu diran guztioi AGUR onen bitartez.

BASA-JAUN

Berriatua

JOXE DOMINGO ARRIOLA'RI BERE 82'GN. URTEURRENEAN

Ara emen ni, JOXE DOMINGO, Asmatu nairik bertsoak, Zure larogei ta bi urteak Goraltzeko aiñakoak; Baiña burutik igesi jataz Nitun argi apurtxoak, Eta orain gatz jat egitea Len oi nebazan lakoak.

Parkatu, bada, lagun guztiok, Gaurko bertso txortatxoak, Ondo baidakit benetan dala Gatzbako ta moteltxoak; Neure aldetik ipiñi arren Indar, alegin osoa, Oingoan beintzat ez dot merezi Txapeldunaren txaloa.

Neure aita lez, zu be bide-zain Len izandakoa zera; Bere antzera lan-sarritxoak Ekarten zendun etxera; Zeure sendia eroateko Bizitzan zear aurrera, Ori lortzeko begiraturik Zuk beti Nazaret'era.

Eta olantxe jaso zenduan, Jainkoa lagun zendula, Bere legean, praille ta guzti, Sendi eder ta mardula. Lan bikain ortan ematze onak. Maitero eusten eutsula... Au ikusirik guk, bai, zugandik Zer ikasi ba dogula!

Ardura eta bearrok Jaunak Bertan be saritzen ditu; Orregaitik zu oin zartzaroon Pozez bete gura zaitu... Zure biotza gaurko egunez Atsegiñez dau alaitu... Sarritan jai au ospatutako BERAK batuko al gaitu!

ZORIONAK, ba, JOXE DOMINGO Zuri gaurko egunean! Bizitza luze ta baketsua Izan daizula lurrean, Zeure sende on guztiekin Maitasun gozo, betean... Azkenez danok alkartuteko Goiko Aitaren etxean.

XALOKIN

Begoña

BIZKAI'KO ABESBATZEN II ASTEA

Begoña'ko Ama Neskutsaren Eleiza Ederrean, astebe zear, abesbatz ezagun eta gorengoen ekiñaldiak izango ditugu, emen bean jartzen diran egunetan, eta beti, illuntziko 8'etan asita, 1975'gn Otsail onetan:

20'gnean, Arrati'ko abesbatza; Danok Bat zortzikotea Portugalete'tik; Itxas Soiñua Lekeitio'tik, eta Bermeo'ko abesbatza.

21'gnean, Miravalles abesbatza; Bilbo'ko Lagundi abesbatza; Ermu'ko Abeslariak, eta Jatorki abesbatza.

24'gnean, Basauri abesbatza; Portugalete'ko Lora-Barri; Sestao'ko abesbatza, eta San Anton'goa.



25'gnean, Arenas'etako Ondarreta abesbatza; Llaudio'ko Santa Lucia; Deustu'ko Ikas Ama, eta Orduña'ko abesbatza.

26'gnean, Otxarkoaga'ko abesbatza; Algorta'ko Biotz Alai; Uribarri'ko eskolani bilbotarra, eta Durangoar abesbatza.

27'gnean, Alonsotegi'ko Gure Ametsa; Deustotarrak abestalde; Alonsotegi'ko Gure Ametsa'ko txikiak. eta Zaldibar'eko abesbatza.

28'gnean, Galdakao'ko abesbatza; Lamia-ko'ko Beti Lagunak; Bilbo'ko Abeslari txikien abesbatza, eta Lexona'ko San Juan Bautista abesbatza.

Laguntzaille jator, Basurto'ko Txindor dantza taldea.

Abesbatz bakoitzaren etxean lortu daitezuz jaialdi onetarako sarrerak, baita Bilbo'ko Sociedad Coral'en arratsaldeetan, alameda de Urquijo 13-2.º, Bilbao.

Jakingarri politik daukazuz aukeran, zabal-kunderako orri ederrak atera dabez, talde bakoitzak zer abestuko ta norek egiña dan agertuaz. Eskatu egizuz zeure erriko edo inguru abesbatz oneitariko baten.

ASTI

GOROZIKA TA IBARRURI

Gorozika'n nabil. Gabon eguna baiño zapatu bi lenago.

Egal banatan, garbi-garbi, baiña neguko berde illunez, Oiz eta Bizkargi.

Gorozika'k ez dauka ze ikusi andirik. Parroki txikia. 1526 urtean egiña. Ordurarte Etxano'ra joaten ziran emengoak, premiña guztietan eta fedeko egunetan. Barrokoa. Garbi. «Kristo altara da» esaten dau meza eskintzeko arrizko maiak, errez ikusi eta irakurteko eran.

Aldaretako maiak, gaurko erara erriari begira egitean, leku askotan ez dabe jakin lengoa aldarea eta gaurkoa tankera baten buztartzen.

Erria ukabil baten sartzekoa da. «Norte» eta «Sur» egalak, biak be metro gitxitara. Bien erdian eleiza. Eta bietan, batagandik bestera neke barik, tabernak. Ez batak eta ez besteak ez dauke, kanpotik beintzat, izenik.

Eleizpe aurrean, ebagitako bedarra daroan andre sasoiako bateri, zerbait itandutearren, diñotsat:

—Mesedez, gabonetan zelako aparta egi ten da emen, oituraz?

—Al dabenak, al dabena.

—Ez al dago zerbait berezirik, egun orre tarako aukeratzan danik?

—Orain ez. Bear ba da angulak.

—Ez da aparti ozkilla!

—Inoiz jatekotan noiz Gabon gabean baiño obeto?

—Orio-aza eta abar?

—O! Orreik gure gurasoenak ziran.

—Eta sagar saltsa, intxaurre saltsa edo olakorik?

—Or beko andreak (besteak baiño bera txuago egiten dan etxea izentatuz), arek ba daki egiten intxaurre saltsa. Baiña besteok... al dantxua.

Barrezka geratu da andrea, nire itaunak arrituta.

Eleiz aurrean dagon baserri baten egurrezko «fatxadeak» begiratu eragiten daust. Baserri etxe batzuk, euren egituran, beti dauke ikusgarri zerbait.

* * *

Gaur Bizkargi errez ikusteko eran dago. Negua da eta herandu nabil. Baiña goiz lena izan ba' litz. pozik joango nitzan, «letañi» bideik zear.

Ez da ain zuzen be mendi goi-goia, «altua». 563 metro. Etxano, Larabetzu, Morga eta Muxika'koak alkarregaz batzen ziran, letanien egunetan. Eta Etxano'ko alka teak bere aiztamakilla lurrean sartu eta bere agindupean zainduten eban erromeria.

Bizkargi mendi au, 1937'ko Maiatzean, itargiko lurraldearen irudian geratu zan, il guztian jo ta jo eten barik gure «gerrikitik» eta al zan tokietatik bertara bialtzen ziran obusak egindako zuloen zuloz.

Maiatzaren 11'an, bat batean, uste gabean sartu ziran nazionalak goi-alde onetan. Bezperan Errigoiti ingurua artu eta Zarragoikoa baserriaren egalera eldu. Gero, urrengo egu netan, egunean bost-sei bidar egiten ziran alegin bizi eta kementsuak, batzuk eusteko eta besteak barriz artzeko.

Egunaren lenengo ordutan kañoien indar eta suz gertaerak egin eta gero soldadu eta gudariak alkarren aurrez aurre gordin-gordin saiatu, gerrako zeregiñetan, alkar ilten.

Il orren amabosta izan zan egunik garratz, odoltsu eta izentauena. Emen, Bizkargi'ko Kurutzearen itzalean, ez jakin zenbat gaztek biziaren aria eteten sentidu eban, alde batetik eta bestetik. Barzuk eta besteak etenda, indar getuta, odoluztuta, zatituta, zirkiñik egin ezinda gelditzen ziralako, indar barriak agertu arte, eta oraindik aienaka eta intzirika senti duten ziran mutillen gorputz zatiak batu ezinda ebiltzan artean, eurei laguntzarik txikiena ezin eskiñita, barriro alkar jo eta ilten.

Onen ondoren, Arrati aldea, gerrako zeregiñetan, zabal geratzen zan, errezago.

* * *

Muxika da gaur Gorozika, Ibaruri eta bere artean egindako erri-batasunaren buru. Iru errialde onen artean, lurralde zabala artzen dabe. Menditsua.

Gorozika'k bereak eukazan 9 kilometro lautu eta 300 lagun inguru. Gernika'ko batzarretan, 32 jarlekua.

Ibaruri'k ia 21 km lautu eta 700 lagun. 31'garren jarlekua.

Muxika'k, 20 km. lautu eta 1.400 lagun. 7'garren jarlekua.

Gaur, danetara be, iruron artean bi mila lagun 50 km. lautuetan.

Danen adiskidetasunean egin ete zan batasun au, askon ardurabakotasunez, edo ta konturatze barik?

Batari itandu eta bestea zirikatatu, Ibaruri'n eta Gorozika'n ez da giro onik igarten; miña bai.

Nai eta txikia izan, nai eta estu ibilli, norbere etxeko aukera beti be maitagarri izaten da.

Gaur Muxika ikusteari laga egin dautsat. Sartu ta urten. Erri entzutetsua zan istorian eta geroago egingo dautsat ikusaldi astiro txoagoko bat.

Ez dakit etxeetan, baiña oraindik talo ta esnea artu leikez emen tabernan. Guraria, kapritxoa.

Ba nua. Ain zuzen be tokirik beekonean, «Vista Alegre de Mugica» irakurten dot.

Gernika'tik Zornotza'rako bidean sartzan naz eta Gernika eskumatara laga ta ezkerre tara jo.

* * *

Eremitatxo bat igaro dot laster bidean. Oka.

Enbeita zarraren bertsoak, «Urretxindora» ren bertsoak gogoratu eta ekarri neikez:

Esango dau norbaitek, nun da, baiña Oka?

Ara: esango yatzu: ez jarri ain loka.

Iru sarrera daukoz, antxiña irazita,

Ibaruri, Muxika eta Gorozika;

Iru mendi biribil andiren erdijan dago antzoki eder baten irudijan.

Erreka eder batek, gurturik gautegun,

Itxasorantza duala egiten dauso mun;

Basabide, bitxabal, eta burdinbide,

poz-pozik daukoz beti onduan begire.

Ementxe dago ermita zar bat. Txikia. 1496 urtekoa dala diñoce. Edurretako Andra Mari. Inguruetan maitasunez ikusia.

* * *

Aurreratxua, Zornotza'tik Bermeo'rako trenaren bidea ezkerretara igaro ta bide kurutzea.

Ibaruri'ko bideetan nabil. Errialdea ikusteko, emendik Ajuri'tik Urrutxu'ra doan bidea laga bear dot. Jarrai aurrera eta gero «Monte Calvo»tik zear Durango'ra doana laga ta errian sartu.

Eleiz barri bat egal baten. Gaurko parrokia. Polita. Oraintsukoa da. Gure denpo retan egiña: Lengoa erre egin zan.

Unda'etara doan bidea laga; taberna bar segi aurrera eta len erri burua zana aurrean.

Ikurdidun etxe bat aurrean. Merzedeko monjak egon ziran bertan. Iru lau etxe inguru an, beste taberna bat eta eskolak, eta pelota toki.

Auxe da Ibaruri'ko erri burua, sokondo baten. Inguru guztietan, piñadiak.

* * *

Undaeta'ko bidetxoa artu eta ba nua gora. Asieran sokondo batetik doa bidea. Estua, auzokoena da. Baserri ikusgarriak. Politak ez, ederrak. Unda onetan dagozanak. Artista askok pozik ikusiko leukez.

Goian, bide nausira eldu ta Maume lagatera nua. Mendata'ko nire ibillera agertu nebanean, zerbait esan neban Maume'ri buruz. Ba dakit nire eritziko ez zirala danak, baiña nik nire irizpidea agertzen dot. Maume'ko baserriaren alegiñak txalotzen dodaz, batez be auzoa, bere ikastola ta guzi zaindu nairik. Ez neban esan len emen gaztai ederrak egiten diranik be. Bilbo'ko perietan lenengo sariak irabazteko dauñak, irabazi eban lez. Eta soñu jotzalle onak dagozanik be ez. Baiña nai ta ezko da erri ta auzo bakoitzean gauza asko lagatea.

Urrutxu aldera nua. An beian Ajuria ikusten dot. Pillotuta, eleiza eta pelotatoki ta eskola inguruan.

* * *

Ibaruri'tik urteeran, gogoan dodaz bertako gizonak. Gogoan daukat emengoak izan zirala, Patxi Arandia buru zala, Gernika'ko Batzarretan Diputasiñoaren kontura Astarloa'ren «Discursos filosóficos de la lengua bascongada» argitaratzeko eskatu ebenak. Euskeraren kezka.

Eta Durango'ko istorietan irakurri lei emengo Santa Ana eleiza egin eban argiñak, lenagoko eleiza, au da, 1723 urtean beratu zana, ibarruritar argiñak izan zirala. Ala Juan Barandika, Martin Barrenetxea, Martin Basantxa, Txomin Elgezabal, Muxika eta abar. Euren maixu lez Errodrigo Albiz. Argin maixua zan au, neurrietan teknikoa. Bilbo'ko Santiago'ko eleizpea beronek laga eban irudituta.

Beste bat. Arteari buruz. Ajuri'ko parro kian, flamenko erako erretablu pintatu bat egoan eta Gazteiz'ko Museo'ra eroan eban. Itxuraz, bilbotar merkatarik entzutetsu bat emen obriratu eban, emen lurra emon, eta origaitik egiña zan.

Zegaitik lagaten dabe erri txikiak eureta ko artea galtzen?

A. ZUBIKARAI

AGVR

ZABALA, Fernando
C. Aguirre, 17

Apartado n.º 2
BILBAO

FRANQUEO
CONCERTADO
08/55

BILBAO - 11


LARRAURI

ELEJALDE TA ANDIRENGO-ETXE

Bilbo zearo atsitua dago. Ai zer pena! Ain erri txanbeliña, txukuna ta garbia zana XVIII gizaldian, zerak dionez, G. Bowles ek. (Ikus bere Introducción a la Historia Natural y Geografía Física de España). Nik delako «week-end» ori Bilbo'tik kanpora egiten dut. Mendi eta itsasoaren artean, itsas-piñuek eta eukalitusen biziro usaintzen duten eguratsan. Emen, Bakio'n, giro epela egiten du beti. Beragatik eta itsasoaren arnasari esker, lurra bedeinkatua da. Baserrik naiz kaleko etxek ba dute alboan limoi edo laranja-zugatza. Frutu ura, limoia, ondo dator; laranja ez ain ondo.

Izadiaren seme naiz, ezin dezaket ukatu. Gaur, domeka, goizean goiz jeikita oñez Larroi-runtz abiatu naiz orga edo kotxe-bidetik. Bertakoak Larrauri ri Larroi deitzen diote. Ortik bertatik ikusi zenbat aldatzen dan euskera itzegiña euskera idatzitik. Elejalde deritzan «elizatea» (Anteiglesia) ikustatu naican joan naiz, baiña, au dala edo ura dala, nere egitekoa egiteke utzi bear izan du badakizu, irakurle, apaizak ere ez dire beti errian izaten da.

Beste elizpe asko bezela, Elejalde'ko elizpea ere aski luzea eta zabala da. Eskuin aldetik ageri da mai patxarakoa, arri beltzakan eta labaiñean egiña, zeñaren gainean eskribauak jasotzen zituen iskrubuz erri nagusiaren erabakiak gure erria orain baiño nagusiago zen zoragarriko aldi aietan. Zorioneko lekuak auek eta denbora aiexek! Ortik dator erderazko izena «anteiglesia» ta euskarazkoa «elizate», elizaren aurrean egin oi ziren batzarrik eta gero agiriak elizako ateetan ipiñi denentzat jakingarri izan zitezten.



Aita Larramendi'k ba dakar «Eliz-aurre» erri batzartua adiarazteko. Baiña, nere ustez, «Elizalde», «Elejalde» itzak ere ori bera esan nai digu, askotan beintzat. Ta ez dut esana buru kaskariñaz baieztan, dokumentuetan oiñarriturik baizik. Ara bada, irakurle, besterik gabe, zergaitik eldu naizen, eguzkiaren berorik beroenean (gaur aski berotzen du) ibilliaren ibilliaz «Elejalde» izeneko elizalde edo elizatera.

ANDIRENGO-ETXE

Bide zabaletik, landako ixillunean, begira nago baserri txuri eder baten deiturari. Goian ala jartzen du: «ANDIRENGO-ETXE». Ta erromatar lumeroetan noiz egiña izan zen. Oraindik berria da gure denborakoa. Andirengo-etxe! deitura onek zer esan gura ote duen, suma ta suma nago, bidearen erdian. Neskato bi segaz belarra eta sasiak moztan ari dire bidearen ertzean. Bietatik zaarrenak ikusi nau ta bereala esan dit zer gura duen esan «Andirengo-Etxe» deiturak, «azkenengo etxea», alegia. Nik, ameslari onek, oso besterik uste nuen. «Preguntau» ere preguntatu diot ea etxean, ganbaran edo, badituzten euskal liburu zaarrik. Izan zituztela, esan dit, baiña noizbait erre egin zituztela. Baiña, oraindik izango direla ondarren batzuk. Ekartzeko, erregutzen diot. Besarkada bat nere aurrean utzi dit. Kardaberaz'en liburuxka bat, Argi-Done Laburra eta ola. Benjamin eta Joseba guri begira daude, begi aundiz eta ao-zabalik. Nere kotxe-laguna, Martzeliño zai daukat, tuturu joka. Liburuak ekarri didan neskatoa ikasia eta zuura dirudi. Agur! Beste egun bat arte.

Markaide'runtz noa, errota eta ur txirripa bat pasatuaz, lorra edo mando-bideari nere burua lotzera. Abiatu baiño leen, baserriko etxeko-andere gazteak, sei umeen amak, eskaiñi dit zerbait, «txurixko» bat. Ez diot artu, ez bai dut oiturarik. Aldats gora naizela, zakurra zaunka, katea eten naican. Prakaurdindun gizona portalian agur egiñaz. Bazkaltzen ari zen gizona, atera egin da ea nor den jakiteko.

Bakar bakarrik, basatan bota illedunak sartuaz, piñu eta eukalitus artean, Samiel baselizaruntz noa. Aizeak dar-dar dabiltzki otalora eziñegonak. Maite dut otaren lore txikia, itxaropenaren itxaropena, udaberriaren aintzindaria.

JOXE LASA

Geu Lenengo

ETXEKOAK ASTEKO

Aspergarri agertzeko arriskuan izan arren be, euskaldunen alkar-batzeak daukan garrantzia nabaiturik, barriz eta ekin baten gatoz orretaz, alkartzeaz, zerbait geiago esatera.

Ala ta be, ez da aurrerabide aundirik egin, gure ustez, arlo onetan. Ta ori, erria, osorik eta ia etsita geratzen doala, txatxarkeriak utzi ta benetako eginbearretara lotuta, aurrera jo dagigun eske baten izan.

Orregaitik, inor ba'litiz bere buruaren izen aundia erriaren bear-izanen gainetik dabela uste dabarik, edo gainera datorkigun laterrikeri baten kalteaz baiño bere dizdirea illunduko ete litzakenaz bildur dan politikorik ez da guretzat egoki.

Noiz-bait, eta olako gizonak uste al izaten daben baiño arinago, edestiak epaituten ditu, ta argi agertu onenbestekoa: Errudun! Oztopoz atzeratu ez eze, baita gure erriaren azkatasuna arrisku gorrian jarri dabelako errudun; erriaren otseintzea beranganatu bearrean, agergura-arrokeriak naiz neurritik gorako jauntxo-aitakeriak eraginda bakarrik, politikan sartzearen errudun.

Ta edesti-epaiketa zorrotz onetatik azke izatea nai leukeanak, bide bakar bat besterik ez dau: alkar-izketea, eztabaida argigarriak naizta latzak izan inoiz, ta danau zintzo, erriari begira, lenari ta geroari, ezer esateko leukeanari entzun ta erantzunda, ta danon artean billatu ta onartuta, gaur jarrai bear dan politika jokerea aukeratuten alegindu.

Gerorako ni pekatariak baiño bide egokiago da agertzen dogun au. Ain egoki ez darabilguna, politika jakintzea da, ta gure urritasun onetan zerbait ikasiko ba'dogu, albokoari be entzun bear, ez da ba alperrikoa izango biotz eta ezpan euskaldunetatik ba'letor.

Bestela, betiko lengoan jarraitzen ba'dogu, gure ia ume-izate-politikalarritan, sarritan barregarri ortxe-ortxe izaten garala, bakoitzkeri edo talde txikiikerietan ederto dakigu gure ekintzea lotzen, eta batasuna gure zilborretik zear doala ziñestu. Zertarako ba besteen illetarik entzun?

Orretara jokatzean, gure kalterako erbestean osotu dauskuezan ekintza lilluragarri baiña kaltegarrien azpian gabiltz. Gure edestia onelakoz beteta egon da eta dago.

Ta ara barriz esan gura doguna. Or uringo margo politidun edozeinekin eta arutzagoekin artu-emonetan asi ta itunetara eldu baiño len, geure artean erdibide bat aurkitu bear dogu, zein bide jarraitu erabagi bear dogu, danok aurpegi bakar bat beste orreri erakusteko aña lan egin bear dogu. Au, jakin ziur, erriak nai dau! Deadarka dago eske, alde ta mailla guztietatik. Au berau agertzen dabe erriaren obeagaz benetan ardurata, estu-aldi oni igarrita, nundik edo andik zerbait egin bear dogula diñoenak be.

Batukeri bako batasun au lortzen ez ba'dogu, gainera datorkigun «azkatz» garaia ta giroa, beste batzuen eskuetara joango da, gure ondamedia nai dabenen eskuetara; erriak berak saltzailleak nun diran igarriko dautsan artean beintzat.

ITXASOA TARTEKO

EUSKALDUN GUZTIOK BATU GAITEZAN

Ogetazazpi urte dirala, eta ogetairu zituala, Luzarraga ta Legarreta'tar Joseba Andoni Bermio'tik atera zan.

Azkenengo lau urte onetan, Argentina'ko La Plata urian, ango euskaldunei ta euskaldunen seme ta illobai Euskerea irakasten ari da.

Onexegaitik berakin alkar-izketa bat egitea bearrezkoa dala uste izan dogu.

EGO-AMERIKETAKO EUSKALDUNAK

—Ameriketara eldu ta zelan joan ziñean ango euskaldun jentea ezagututen?

—Orretarako bide bat nere osabea izan zan. Ango Batzoki'ko sortzaillea izateak asko lagundu eustan, an Euskaldun asko biltzen giñan-eta.

—Ego-ameriketara zabaldurik dagozan euskaldunak eta onen jatorrikoak alkartzeko, zein gauzatzuk daukazuezan?

—Erri bakoitzekoak Batzokietan batzen gara; gero Euskal-argentina alkar-izketeak antolatzen duten Euskal-astea'n ere bai, Ori ulertzeko esan bearra dago, ogetamasei Batzoki' gareala Argentina'n. Alkartzeko beste bide ta jai batzuk ere egiten dira. Ospetsuenak, San Permin, Iñaki Deuna, Mikel Deuna, ta Aberri-Eguna izaten dira.

—Eta Argentina'n, gitxi gora-bera, zenbat euskaldun zaree? Zebatek eta nortzuk jotzen dute euren burua euskalduntzat?

—Esaten dutenez, jatorrikoak eta gudatik ona joanikoak batera % 20 or numbait izango gareala. Jatorrikoak denak aitortzen dira euskaldun asmoz eta gogoz.

—Zergaitik orrela?

—Euskaldun izatea arrotasun aundia dalako eurentzat.

—Argentina ete ba euskaldunen bigarren aberria?

—Dudarik gabe; olan diñosku ango giroak eta batez be ango jentearen nortasunak.


PLATA'KO EUSKALDUNEN TALDEA

—Zelako erria da La Plata?

—La Plata, Buenos Aires'eko erriburua da. Orain irurogei urte gitxi gora-bera sortu zan. Garrantzi aundiko erria da, Argentina'ko Ikastola Nagusi ospetsuenak or aurkitzen dira-ta. Argentina'ko «Salamanca» dala esaten dute. Uri bezela oso polita ta ederra, bere kale guztiak neurri bardiñekoak dira, eta erri-gintzea be oso ona izan dau.

—Or bizi zareanok, noiz eta zelan batu zaree talde moduan?

—Gauz zoriontsu ori orain bost urte dirala gertatu zan, eta bere jaiotzea izparringiko amunzio bateri zor dautsagu. Anunzio bidez zabalkunde bat egitea buruatu jakun, ta urrango egunean ainbat lagun batu giñan. Gañera danak goimaillakoak izan ziran: lege-gizon, osagille, injinieru ta abar. Au be esan bear, danak an jaiotak ziral.



—Ta, zer egiten dozue, edo zer egin dozue orainarte?

—Nik, euskal-errikeri diardut. Euskera saioak eta Euskal-erri-jakintzea ematen.

EUSKALERRIARA ITZULITA

—Emen egin dozun aldi onetan, zelan aurkitzen dozu Euskal-erria ta Bermio?

—Egia esanda, uste nuen baño obeto. Poz aundia emon dost euskaldun nortasunak irauten dula ikusteak, ta Euskerea orain ezker ez dala galduko. Gaur eguneko erri-giroa ona da nere ustez, abertzaletasun sakon bat ikusten dot-eta.

—Ai, nere Bermio! Lenengo ta bein esan bearra daukot, ez dagoala ludi osoan nere erria lakorik. Bermiotarren nortasuna ta izakerea ez ditut aurkitzen aldatuta. Beti izan dan lez baizik. Ta aundiagoa gañera, ez dot uste inoiz aldatuko danik.

—Aldakuntza bat esateko, antziñeko probiek aberastuta; baita kaleak txikitute ta illun.

—Nortzukaz egon zara?

—Nere antziñeko lagun guztiekin, ta Bilbo'n AGUR'eko arduradunekin ere bai. Orain gure neuke Barandiaran'dar Joxe Mikel'ekin egotea. Nere ustez Euskal-erri'ko gizonik aundienetakoa da.

—Zer daroazu arantzaz?

—Lenengoz, barriro etortzeko amesa. Bigarren, ituntasun aundia barriro arantzaz joan bearregaitik. Irugarren, poz aundi bat erria olan ikustegaitik, ta laugarren, euskal-literatura ta irakaskintzarako gaiak.

AMERIKETARA BARRIZ

—«Enbajadore» jauna, zure asmo barriak?


—Barriak eta zaarrak; lan egitea gure erriaren alde, len baño gogo ta poz aundiagoekin.

—Munduko Euskaldun guztiak batuteko, zelango tronpetea jo bearko dogu?

—Tronpetarik egokiena lana dala uste dot. Lan egin ezker, aren zarateak batuko gaitu.

—Besterik?

—Bai, eskerrak lagundu daustazuen danori, ta nere aberrira etortze onek balio dagidala emengo barri egoki ta osotu bat lortzeko ameriketako euskaldun guztientzat.



GATZ ETA PIPER

OITURAK ETA ITXURAK

Gure oiturak ondo gordetzeak ez dakar erriarentzat kalterik, bai osterak gaitzeak. Orregaitik, ganorabako «chauvismoan» jausi barik, euskal kutsuzko jai aldi, dantza, abesti, oitura ta jantzierra geitu ta sendotu bear gendukez.

Euskal izeneko aldizkarietan idazten dabean espainiar ezagun-ezagun batek, gure lepotik barre agiteko asmoz, txapelekin jantzten ditu bere marrazkietan euskaldun erriazaleak ezpanetatik tentelkeria darioela. Gogoz eta odolez arrotz dan orrentzat obeak dira aurki diru galantak ordaindutako zar itxurazko jantzi ganora bakoak.

Baiña gure asmoa ez da izan «modak» aztertzea, ezta len esandako orreri jaramon txikienik egitea be, ez, gure asmoa Santa Ageda abes-taldeeri buruz zerbait esatea izan da:

Urtero Otsail onen 4 garrenean millaka dira baserririk baserri ta urietako kalerik-kale dabilzan gazte ta ez ain gazteak. Euskal kutsua euren burueri emoteko baserriar edo arrantzale jantzirik, karkuekin eta txapelekin ikusi geinkez.

Gure izkuntza «atzerakoiak» gitxienez egun batez, lenengo maillako tokia izate du.

Egun baterako ondo ba' deritzagu, euskalduntasuna konpleju barik erakusteari, zergaitik ez euskera ikasiaz eta baserriar jantzi barik, urte osoko euskaldun izatera eldu?

Alboko argazkian ikusten doguzan Begoiñazpi'ko ume taldeen antzekoak, itxuraz eta izkuntzaz euskaldun izango diranak, gure itxaropenik sendoena dira.

BEGOÑA'KO REFUGIO IKASTOLEA

Oraintzu argitaratu gendun «Bilbo'ko Ikastolak» izen-burudun lanean, ainbat uts txiki egin genduzan. Ona emen artu dogun eskutitz jatorra:

«Begoña'tik 1975'gn Otsailak 8 gn. Arenaza'tar Josu Jauna.

Bakea ta Ona: Agur Arenaza Jauna ta adizkidia, zeure asteroko Agur izparringian idazten douzan barrijak poz-pozik irakurten dodaz. Atsegigarriak eta irakurgajak diralako. 171'gn «Agur'en eta Bilbo'ko ikastolak izenburuakin idatzi zenduban, eta Lauro, Santutxu, Deustu, Begoñazpi, Aixerrrota, San Adrian, Karmen eta Elkano'ko barrijak bertan emoten dozuz baiña Begoña'ko ikastolatza izparrik bat bere ez. Ba, guk, Begoña'n eta «Refugio» Lekaemetxian, Begoña'ko Ikastola izenarekin daukagu, eta bertara 52 mutikotxo-neskato

3 eta 5 urte bitartekoak dojaz Andereño bik euren ardurie daukie.

Azketsi eta aurrera orainarte lez zeure barrijak agertzen, geure euskera maitiaren onerako Agur sutzuba... Jose M.^a Urdanpilleta.

Eskerrik asko zuri irakurle ta azketsi zuk be nere uts egite ori. Aurrera zuen ikastola ori ta ba dakizuen nun gagozan laguntzeko gertu... eta zergaitik ez zuk, ain euskera ederrean, sabindar tankeraz idazten dozun orrek, gutzat zerbait geiago idatzi ez?



AGUSTIN ZUBIKARAI

Aspaldiko gogoa betetzera gatoz gaur. Orrenbeste usain gozo ta lurrin banantzen dan aldi onetan, ez da gauza aundirik esan (zirikadaren bat izan ezik) ondarrutar jator oneri buruz. Bear bada lan ta lan ikustean, orrela izan bearko dabelakoan, ez dautsagu bear aiña garrantzirik emon. Ea egunero Erri Irratik saiioak entzuten doguzanentzat, astero gure aldiskaria irakurtzen dogunontzat, bere antzerkiak entzun eta ikusi doguzanentzat ez dago beste biderik: Eroateko lotsarik izango ez genduenok bere aurrean txapela kentzea.

JESUKRISTO SUPER-STAR

Bart ikusi dogu emazteak eta biok. Ederra da benetan pelikula ori eta akatzik bakoa teknika eta «esanaia» aldetik. Ez dago Jesus'en irudiarentzat ezertariko begirune paltarik, bestera baiña. Gazte aren giroan, amerikar show baten giroan, oso goi maillan, gogotsu agertzen jaku Jesus. Gure iritzi oso baikorra izango da, batez be, gaztediarentzat. Bear bada oztikadarik aundiena lizunker billa doazenentzat izango da... eta ez dabiltzaz euskaldun jantzita amerikar gazte areik.

ARENAZA'TAR JOSU

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri asmoen gainetik dabean iritxi-onoeko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritziak, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egilleak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M.^a MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.

Carretera a Galdácano, 32-Bilbao-4

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA

ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guttirako:

Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

IL EDO BIZI

HUGO SCHUCHART'EK ESANA—

Ezaguna eta maite-maitea dut H. Schuchardt, Graz'go irakaslea (Austri'n) joan zen gizaldiaren azken aldera, izkuntzalari guziz famatua. Amaika lan eder egin zitun euskeraren alorrean, beste izkuntza askotan bezela! Irurogei ta amar urte bete zituenan, Graz'ko Unibersidadean berebiziko omenaldia prestatu zioten. Ola edo ala, mundu guziko izkuntzalariak parte artu zuten. Izan ere ain zen ezaguna eta langillea. Latiñiak eta latiñaren alaba diren izkuntzak zer nolako ukituak eta arrastoak utzi ote dituzten euskeran nai izan zuen bere begiz aztertu. Ortarako, lenbiziko gauza egin zuena, auxe izan zen: Sara'n egonaldi bat egin, 1887'garren urtean. Lapurtar izkeltzia ikasi zun, mintzatzen naiz idazten. Geroztik, urte bat bakarrik ez zen pasatu. H. Schuchardt'ek argitaratu gabe lanen bat edo beste. Izkuntzalartizan erraldoi bat zen.

1893'garren urtean, euskal-aditziari ekin zion, au izanik bere neurri eta maillako etsaia, ordurako L. L. Bonaparte'k eta beste zenbaitek egiñiko lanez bailiatuaz. Lizarra'garren Testamentu Berria argitaratzean M. Linschmann'ekin batera, itz-aurre paregabe, klasiko bat ezarri zion. Nere iritziak zerbait balio badu, gure artean ibilli diren izkuntzalarien artean, kanpokoak naiz etxeakoak, longissime princeps H. Schuchardt da. H. Schuchardt maisuen maisu izan zen bere aldian.

H. SCHUCHARDT ETA EUSKERAREN ETORKIZUNA

H. Schuchardt'ek sakonki ikusten zun euskeraren il edo biziko arazo larria. Bein baiño geiagotan, urduri, gogoetatsu agertu zun Hugo jauna arazo oni buruz. Esan ere esan zun nonbait eta noizbait ez ziola ikusten irtenbiderik euskeraren bizitza berezi eta bakartiari. Puntu ontan, gerora zerbait kanbiatu egin zen, alegia, baikorrago azaltzen zen. Azaldu beintzat ala azaltzen zen. An, barruko barruan zer zenkan ez iñork jakin.

Larramendi eta Astarloa'ren aldian, ez zen besterik galdetzen ea euskera izkuntza aberatsa ala pobria den. Ortarako zenbait eta zaaragoa izen gure izkuntza orduan ta aberatsagoa. Ba zirudin or, gaurko mundutik iges, jauregi dotoretan bizi diren kondesa ximur eta zaar orietako bat. H. Schuchardt'ek agian ortxe bertan ikusten zun euskeraren bagenza eta gaurko munduan mugitzeko nagitasuna.

Orain duela millaka urte sortu zen izkuntzak, eiztari eta artzairen mintzabide izateko sortu zen izkuntzak balio ote du gero XX gizaldiko gizonaren gogoeta eta sentimendu korapillosoak adiarazteko? Bi izkuntza indartsuen artean dagon izaro edo ugartetxo ori ez ote dute gero irentsiko olatuek? Orra Hugo jaunaren kezka. Biziki opa zion bizitza luzea gure euskera maiteari, guretzat bezain maitea bertzat. Artarako eman zigun, eman ere, aolku edo konseilu bikaina. Ez dugu beste biderik ori jarraitu baiño, euskerak iraungo badu, alegia, euskera gaurkotu, barne barneko aberastasanak kanpora ateraz eta esku sotillaz gaurko gizonagan txertatuaz. Azkenik, funtsean guztia txertu-kontua da. Ala bedi! Ta milla esker, Hugo!

Ta ontaz, euskeraren gaurkotzeaz ari geranez, egia, oi duen bezela, erdi-bidetik doa. Ez da sekula euskera izango gaurko jakintza osoaren mintzabide. Baiña gaurko jakintza-etxean bizi-leku asko daude ta ez danak prezio berdiñekoak. Beraz, zer egin bear dugu etxe ortan sartzeko? Lenbizi gure poltxa berdean zenbait ontza-urre dauzkagun arretaz kontatu eta gero guri dagokigun bizilekua erosi.

Ez dezagun beraz aize-belatx joka. Konforma gaitezen.

JOXE LASA

ERDI-BIDEA

Labayen Jaunari:
Zure idazlana «NUN DAGO ERDI-BIDEA» irakurri dut, baita pozik irakurri ere.

Bai, erdi-bide ori aukeratu bear dugu, baiña zentzunez eta burrukarik gabe Geroago eta geiago gara, zorionez, erdi-bide ori maite dugunak, eta bide ortatik ibilli nai dugunak.

Zuk diozu: «Garbizalekeria «mordolokeria» baiño kaltegarriago izan liteke». Egia da. Orregatik, ez bata ez bestea. Erdi-bidea.

Baiña ez gaitezen geldi egon. Ibilten asi gaitezen.

Zuk, Labayen Jauna, lege bat emen duzu: «Kultura itz-berri bat... ingles, prantzes, aleman eta españolez erabiltzen ba'dute, guk ere ar dezakegu». Lege ederra eta aberatsa. Nik, beintzat, ala uste dut.

Lege, edo zure iritxi eder ori, eman duzun bezela, zergatik ez eman beste lege edo arau batzuk?

Nik batasuna egiteko, oiñarriko lege batzuk artu bear ditugula, uste dut

Euskera batua egiteko nik, soziologiari, gramatika-filologiari eta itzaren erretzasun edo txukuntasunari begiratu bear diegula, sinisten dut.

Itzik zabalenak, geien edaturik aurkitzen diranak, guk erabilli bear ditugu. Amar euskaldunetik zortzik «txoria» esaten ba'dute, zergatik «txoria» artu bear dugu, batasuna egiteko? Filologia bakarrik ezin diteke artu metrotzat batasuna egiteko. Izkuntza ez da arri zati bat.

Iru oiñarri auek: zabaltasuna, filologia eta erretzasuna artu ezkeror erdi-bide bat egiten asiko garala, uste dut.

Azkenez, lan guzti au euskaldunen artean asarrerik eta jauntxokeririk gabe egin bear dugu. Bakoitzak bere iritxia eman dezala, zentzunez, apaltasunez, eta zabaltasunez.

Onela jokaten duanak gai ontan «ordagoa» irabaziko du.

GOITARKI

EUSKALERRI'KO ARAZOAK

Deustu'ko E. K. M.'tik

Ondo jakitun gagoz onezkero guztiok, euskal kulturaren alorrean utsunetzar itzelezko bat dagoela Unibertsidadean. Euskal gaiak, guri dagokiguzan arloak inondik ez dira ikutzen, ez susmatzen; eta noizean bein zeozetxo egiten bada, irakasleren batek orren ardurea izan daudelako; baiña osterantzean —au argiro esan bearra dago— ez dago bear besteko ardurarik.

Utsune oneik zeozelan betetu asmoz-edo, ikasleen arten alkarte batzuk sortu dira. Eta era askotako ekintzak antolatzen ditue ikasleok: kanta jaialdiak, itzaldiak, euskerazko klaseak, mintegi-taldeak, erakusketak eta abar.

Alkarte ta kultur talde onein elbururik beinekotzat euskal kulturaren agerpena eta lantzea ezarri oi da, dudarik barik, baiña, egia esan, euskalduntasun sunda urria susmatu dogu egitarau batzuetan; geiago oraindiño, beste kultura baten —español kulturaren— eragille direla esango genduke, naiz eta izenburua euskeraz egon txukun-txukun.

Gai au, berez, amaikatxo orrialde betetzeko aiñakoa da eta urrengokoan ekingo dautsagu zeatzago arlo oneri, gauzak argiago izan daitezten.

Gaur, talde oneitariko bat aztertuko dogu: Deustu'ko Unibertsidadean lanean diarduan Euskal Kultur Mintegia. Berau dogu, izan be, Unibertsidade maillan ekintzarik geienak antolaten dituana, eta gaiñera Unibertsidadeko erakunde zaarrentariko bat delako —zaarrena ez ba'litz, gero!

Taldea, izatez ez da erakunde bat, Deustu'ko Unibertsidadeko Mintegi bat baiño.

Euskal Kultur Mintegiak aurten eratu dituan ekintzak ugariak izan dira gaur arte, beintzat. Garrantzikoena baiño ez ditugu aipatuko:

—Nuklear indarretxeai buruz itzaldiak.

—Iñigo Agirre'k emon zituen Geografiari buruzko jardun egunak.

—Julen Lekuona'k, Antton Valverde'k eta Xabier Lete'k eskeiñi eben «Kopla ta Bertso Zaar eta Berriak» saioa.

—Orainsu oraindiño Bertsolarien saioa.

(II onetako Euskal Historiaz itzaldi entzungarri batzuk antolatu ei ditue: Xabier Arzalluz, Carlos Caballero ta Mikel Ugalde ei dira etortekoak). Ekintza onei azterketa labor bat egitera goaz.

NUKLEAR INDARRETXEAI BURUZ ITZALDIK

Oso-osoan antolaketari begiratzen ba'dautsagu, izan ziran itzaldiak oso txarrak izan zirala esan bear: bai erabillitako gaia, baita itzaldiak eurak ere.

Leenengo egunean J. R. Etxebarria eta Deba'tik etorritako batzuk jardun eben. Azken biek azaldu euskuen, gaiñe-gaiñetik, nuklear indarretxeak Europa'n zear daben egoera; baiña ez zan sakontasunik izan.

Bigarren egunean, R. Salcedo mintzatu zan. Bere gaia: «Iono erradioindarrak dauen eragiña». Iñon ba'da, itzaldi aspergarria auxe: luzeegia. Gero, alkarrizketa bitartean izlariak bota zituen iritzi batzuk ez ziran arrazoi sakonetan sustraituak, inondik ere. Esterako, norbaitek itaun au egin eutsonean, ea energia xauketa zeren pentzuan egoan, gizon onen erantzuna auxe izan zan: «Kontsumo gizartean» barruan bizi garen ezkerro, gero ta berebil edo telebista geiago erosten dau jendeak, beraz energia geiago doa.

Eta gure ustez arrazoi simpleegia da ori, USA'n, esaterako, «konsumo gizartean» dagoeniketa erririk kontsumozaletuenean, enerji indarren xauketa gitxitu egin da. Enerjia xauketeak industriagintzarekin dau zerikusi andia —eta ez «kontsumo gizarte» izateaz—, eta industriagintza ori teknologiaz ainbat aurreratuago ta elduago izan, enerjia xautzea motxagoa; ez oster industriagintza zaarra ba'da.

Auxe da guk galdetu bearko gendukena: nuklear indarretxeak emen jartzeak, industria molde zaarra jarriko dala esan gura ete dau?, eta emen, gurean, industria aurreratuenerarikorik ez dogula gerora izango? Or jagok untzea!

Irugarren egunean, Salcedo berririo izan genduen maai aurean, oraingoan moderadore, edo inork ez daki zertan! J. R. Rekalde'k itz egin eban. Gaia: «Nuklear arazoaren lege alde». Esan ebanak ez eban zerikusirik andirik gaiagaz. Nuklear arazo ta bere eritzi ta usteak bai parraparra, baiña lumero ta datorik arean ere erabilli barik.

Ori ez zan izan txarrena: entzuleen artean itaunak egin eta alkarrizketea sortzeko gogoa egon zan, baiña berak, astirik barik egoala esanaz, egundoko sermoia bota ondoren alde egin eban; eta arpegi illunen bat edo beste ere ikusi genduan jende artean, ori zala-ta.


Egun beratán Gonzalez jaunak ere egin eban berba: zientifikotasunik batere bageko itzaldi merke bat, benetan.

Eta, itzaldia gora ta itzaldia beera, oraingoan ere ez da arazo au bear bestean argitu.

EUSKAL GEOGRAFIKAZ ITZALDIK

Iñigo Agirre'k emon zituen. Ain zuzen be, berau dogu «Eusko Lurra» faszikulo sorta berraren egilea. Baiña Unibertsidadean emon zituen itzaldietan beste arlorik jorratu eban: gai berezi bat, atan be: oraintxe bere doturutza lana burutu asmoz esku artean darabillen gaia: «Deba artoa» (ibarra).

Itzaldiotara ez zan jende askorik joan, gaztelaniaz izan arren, baiña egon ziranak pozarren urten ebela ere ba dakigu. Izlariak ederto eta trebe azaldu eban Deba arroko geografia, ekonomia etabar, bertan dato ugari erabilli eban, eta batez ere mapak eta grafikoak, dana argi-argi, filmetxoetan.



JAIALDIK

Azaroaren 23'an, illundian ainbat ikasle batu zan Deustu'ko Unibertsidadeko paraninfoan, eta ez bertako ikasleak bakarrik, Bilbo'ko eta inguruetakoz gazteak bere bai.

Antton Valverde'k, Julen Lekuona'k eta Xabier Lete'k «Bertso ta Kopla zaar eta berri» erakusketa eskeiñi euskuen.

Jaialdi au Bilbo'n lenengoz entzuten zala uste dogu, eta benetan entzungarria. Xenpelar, Bilintx, Zabaleta, Uztagi, Otaño, Yanzi eta Zapirain'en bertsoak gitarraz lagunduak.

Gure erriaren kondaira, gertaerak, eginkizunak eta egoerak, polito azaldu zituan irukote onek

Julen Lekuona, Antton Valverde ta Xabier Lete'ren lana aundia izan dala esango genduke erakusketa au prestatzeko, eta benetan jaialdi eder bat lortu dabe. Or dagoz txalo beroak eta entzuleen poza ta zoriona. Saioa, ederra bera; tamala ainbat lagun, lekurik etzegola, kanpoan gelditu bearra.

BERTSOLARIK

Bertsolaritza gaur egunean indarrean dagoela argi ikusten da. Igaz bezela, aurten be etorri dira Unibertsidadera bertsolariak; Bilbotarrak ez dogu sarritan olakorik ikusten, erriren baten ez ba'da. Eta orrexegaitik poz-ozirik onartzen doguz bertsolarien jai-aldiak.

Oraingoan izan dira gure artean Azpillaga, Arregi, Lopategi, Lazkaotiki eta Martin, (Xalbador be etortzeko zan, baiña azken orduan agertu). Bertsolariak guretzako gure arbasoen arnasa ta izkera bizi dira, gaur eguneko egoeran. Beti legez, ederto onartuak izan ziran eta asko txalotuak.

Guzti au ikusita, gure egoera larrian gogor ekin bear dala esango genduke, ta naizta ikasle guztiak eritzi batean ez egon, guk, euskaldunok, «geu ta geurea» beti aurretik ezarri bear dogula.

URREXOLA

SENAR-EMAZTEAK

Ludi ontako maitasunik aundiena, estuena ta zintzoena senar-emazteena. Bein ezkondu ezkerro batu diranen maitasun au austeko ezer elegoke. Alan be, zoritxarrez ainbat eztabaida, matraka, burruka ta bereizte ikusten dira gaur senar-emazteen artean.

Entzun antxiña baten zer egin eben emakume batzuk euren senarrekano maitasuna agertzean. 1140'gn urtean izan zan. Guda gogorra euken euren artean leterrik bik. Atzera ta atzera egin ondoren, Veissberg'en geratu zan alderdi bata. Besteak inguratuta euken uri au. Geiago ezinda uriko atek arerioari zabaldu eutsonean, dana arrapatu ta iges egienak ilteko agindua emon eban kaiserrak.

Gauza bat bakarrik itxi eutsen azke: emakumeak, euren semeak eta lepo ganean eroan al ebena bakarrik eroan eikeela. Vuttemberg dukearen emazteak bere senarra artu eban lepo ganean eta orretara agertu zan uri atetan. Au ikusita, beste ainbeste egin eben beste emakume batzuk be, eurentzat senarra baiño pitxi oberik ez egoala erakutsirik.

Au ikustean, kaisarraren anaiak danei parkatu eutsen.

Emakumeak ezkontza bizitzako eredu ederrak dira. Ikasi begie gaurko ainbat eta ainbat emakumek. Izan be emaztearentzat ez dago bere senarra baiño pitxi ta ondasun oberik.

GOIRIA

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK



ZAZPI-KALEAK

CASGO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIQUEAK

ZIRRI-BORRO GARAIA

URTE BITIK LAURA ARTEKOA

Aurreko idazlanetan, umearen nor-tasuna indartzeko bide diran aurtzaro erti-sortzaille ta erakusbearratzaz ifiar-dugun, mailla osoan aztertuta. An agertu ziran oiñarrietatik, gerta-aldi berezi bata darabilgu gaur emen: urte bitik laura arteko aurtzaro «zirri-borrotsua».

Sikologo ta ezilarien ustez, aurrak izango dabena azketarako, bere bizitzako lenengo urteok garrantzi aundikoak dira. Garai onetan ba, bere bizi osoa nabarmunduko dabena itxuraketa joko, naiz ikasketen arauak edo izatearen esan-nai berekoia oiñarritu al izateko maillak jartzen asten da. Bere buruaganazko jarkerak indartuko jakoz, eta ludi au toki deigarri ta atsegiña, dala ingurten asiko da.

Ta ertiak leragoio orretara. Aurrak bere erakusbearrak indartzeko, erti-lanetik sortu al izango dituan gaitasunak eskuratuko ba'ditu, guraso ta ezilarien garrantzi aundia garai onetan nabari da. Erabil-gai ugari ta egoki, baita inguru eragingarriak eskuan izanda, marraztu naiz margoztuteko izango dabena aukeratik, bere buruatzeko uste jakingarria eza-gutzeko oiñarriak be lortuko ditu.

Bere oarmenakin inguruari igarri ta ondoren orri erantzutera lenengoz eltzen danean, aur orrentzat sortu da ertia. Ukutu, oar, erabilli, ikusi, txas-tatu, entzun naiz edozein oarmen eta onen erantzun inguruakin alkar neur-tu al izaten dituanetik datorkio aurrari, baita ertilarri egiñari be, erti-irudi-gintzarako bultzadea. Ora ba, orri-gain baten dagian lenengo marra orrek garrantzi aundia dau, ori dau izan be bere esanbideen asierea, ta marrazketa ta margoztetara deroan bidea ez eze, baita itz idatzia eragi-tera corango dabena be. Lenengo zirri-borro orreik aundiengandik izan-go dabena arrereak be, maillakadako aurrera-azibearrean eragin aundia izan go dau. Tamalez, «zirri-borro» itza erabiltean, gogapen okerrak datoz adiñeko entzunmenera...

Bataz beste, urte biko dala asiko da aurrta zirri-borro oneik egiten eta

Iau bat urte arte orretan jarraitu. Lenengo zirri-zartok ez dabe ezetariko esangurarik izaten eurenaz, eta itxuraz aurrak, ez dakit ortik ezer lortu dai-kenik. Ez dira marra bardinik izaten, ezta bide bakarretik jarraituak. Iñoz antzekorik egiten ba'dau, aruntz-onuz-ko bere eragiñetik zortzen dalako da. Sarri, beste alde batera begira dagi, edo orretan jarraitu. Joan-etorri «aun-diekin» diardu, «ibillaldi» luzeakaz, adiñekoen «neurrietarako» txikiak ba'dirudie be. Marrazki orreik ez dabe inguruko ezer agertzen, bere soin edo gogo edo bietako azibearrean ezaug-erriak dira. Arat-onat zabaldu di-tuan lerro orreik atsegiñarri jakoz, eta bere poztasuna ibillereagaz dau-kan alkar-ikusit orretatik datorkio.

Orra gerotxoago, zirri-borroka asi ta seiren bat illabete ondoren, bere esku-erabiltearen eta marrazkiaren ar-tean zerbait alkarigarri dagola igarri al izango dau. Lenago, ingia bera erabiltea be neketsua jakon; orain lerro luzeagoak egin, ingi osoa bete ta margoak nastean erabiltea be naiko dau.

Iru urte t'erdirako, bere marraz-kieri izenak jartzen asiko da, ta ona emen bere oldozmena irudi-oargarri izaten asi danaren lenengo ezaugarria. Oraingo onetan, guraso ta ezitzaillen garrantzia gora ta gora doa; aurrta, sortu al-izatearen bere poztasunean, or datorkio, bere zirri-borro orrekin dabena atsegiñaren lagun, aundia be egitera. Ekintza baten alkatu al-izate onek dau garrantzia, ta ez marrazkiak berak.

Erti-gaiak edo jolas gaiak, euren eskuetarako egokiak izan bear, lana erreztu ta alperriko nekerik sortuko ez dautsenak. Ur-margoak, esaterako, ez dira egoki sasoi orretarako, mar-goak labandu ta errezegei alkar-nas-tatzen diralako. Argizai-margo edo zulgi zati bat askoz be oba. Buztiña bera, eskuartean erabilteko, gai egokia da, iru-neurriko zerbait darabil atza-marren artean, eta beste zain eta kirio batzuk jarriko yakoz bearrean, sakatzen, luzatzen, batzen, apurtzen... Buztiña jo ta zapaltzea, zirri-borroka jardutzea aña dira.

M.

ORBELAK

IL-MEZUAK

Eriotzeagaz be pentsatu egin bear izaten da... obeto biziteko. Gure baserri askotan, bat ilten zanean, erlei adierazoten ekien: Gaur etxeko jauna il da, ba. Eta erleak ulertzen egiten ei eben. Ala diñoe askotan. Bizkaia'n beintzat Aulesti, Ea eta Ibarrangelu'n siñiste eta oitura ori egon zan.

Beste agiri asko agertzen dira gure siñiskeretan eriotzeari buruz. Txakur-oren intziri tristea, oillarraren kukurrukua, beien marrua, aizearen bultzad-ak, eta abar.

Ez nator oiturak gogoratzen. Ainbat batu ditu oraintsu agertu barri dan «Euskalerra eta Eriotza». liburu irakurgarrian Anes Arrinda, Deba'ko pa-rrokoak.

Jakingarri eta kontu artzeko dira Euskalerrian giro orretako oiturak. Nik, nireei, oraindik kontseju bat emon nai dautset. Oiturekin jarraitzeko nire gertaeran. Ba dakit tellatura ez dirala joango, tella bat jasoten, nire ari-meak baketsuago etxeko ormen artetik urten dagian, nai eta ori be gure zar-rak siñistua izan. Baiña oitura eder eta biozkor asko dagoz zaindu bearreko, batez be kristiñau anaitasunez erabillita.

Ori laga ta lengora noa. Len, gure zarrak, erleei be jakin eraziten ekien etxeko eriotzea eta erleak be ulertzeko eran.

Gaur, askok, atsegin, begiko eta oiturazko dabe egunerokoetan eriotzea iragarrea. Au da, il-mezuak, il-txartelak edo ta nai bada, eskelak agertzea. Gizarteko lege da. Eta or ikusten dira egunerokoak olako agiritz beteta. Ba dogu euskaldunok ortxe be, orretan be, euskaldun izatearen akats bat: izkun-tza bitan agertu naia, kosta alak kosta.

Baiña... Il-mezu asko, eskela asko, sarri, mingarri dira. Anaitasunez ya-torkun miñez, samiñez, dolu-miñez. Eta mingarri baita... eskela askok daka-rren euskal joskera eta esateko era edo moduagaitik. Negargarri. Erderaz olako eskelak agertuko balira, euskeraz agertzen dituezan aña uts eta akatsez ager-tuko balira, ordaindu be ez litukez eltingen eskok. Betetan. Ando esan naiez, gaituzko egiten dogun. Eta erleak ulertzen eben eriotz-agerpena, gaur, gaurko erreztasun guztiekaz, askotan ulertu barik, igarri egin bear izaten dogu. Ori, igarri.

Ba guaz euskeraz gauza batzuk zabaltzen, baiña erderazko egunkarietan euskera naiez agertzen diran eskela asko barregarri izan ez daitezkan, euskera lotsaz erabilten ikasi bearrean gara, eriotzari lotsa artu al izateko.

Onetan, iru edo lau era txukun, jator, loma eta sentzuzko artu bear gen-dukez erredutzat, geiagorik ez dakigun artean. Ez nabil onetan alderdi bateko edo besteko izkelgei begira. Batera nai bestera, esateko era jatorrez adiera-ziten ikasi bear dogula deika nator, besterik ezean, gure izkuntza erabilten ardura pixkat erakusteko be. Ez al dau eriotzak, gure oituretan, erleen argi-zaria eskatzen? Guk be euskeraz jator dakiñen argia eskatu daigun.

Eriotzan pentsaten nabil gaur... biziari poz geiagoz begiratzeko. Gizo naren biziari eta euskeraren biziari.

ZUBEGI

Äzken-Ägurra

Geratzeka darabil sorbatza Eriok, eta naiz-ta siñismenaren begiakaz argi ikusi geroko bizitzea, atsekabez geratu oi gara geure etxeko, aide edo adiskide miñen bat, betiko, joaten ekigunean.

Mingarria izan bere izan oi da, luzaro-rako baldin bada, beintzat, aldekerako agu-rrak ezarri daroaskun atsekabea eta, arata-be, mingarriagoa, geuk maite dogunen batek au, mundu au, betiko itxita aldetzean ezarri daroaskun atsekabea.

Eriotzea jaio garean guztiok zor dogun ezkerro, bizitzako lege onek ez gindukez larregi atsekabetu bear, baiña, nozik-bein, negar-empuluz biotzeko samintasunak asazkatzea be bearrezko dau gizasemeak. Negar eta barre, atsekabe ta poztasun dogu, ba, bizitzea ta izakera au aldatzea ezin-eziñekoa gen-duke, arean.

Aldi onetan leenagoko beste garrantzi ez dakioe emoten illeri... Elizako kantuak bere biotz-ikutu gitxiago egin daroenak-edo... (Gergoritar (gregorianu) eresiak bai gen-duzala biotz-zirradagarriak!). Obiratzeetara doiazenak be leen lez bentasunez baga-rik nabarmen jantzita ta abar... (Orain urte batzuk ementxe, Aiengiz'en, izan gen-duan egitar (kittano) baten obiratzearen antza artzen dautset oraingo illeta ta obi-ratze askori, nik neuk: Arkondara gorriak eta jantzi fiabar eta kikirikiak ugari...). Baiña, naiz-ta obiratzeeri garrantzia kendu guraz jardun eta illetak legundu guraz alegiñak egin, eriotza beti ta beti izango dogu itzela, zirkingarria ta illuna, arean, betiraunerako urratsa dogu ba-ta: Egille Gurenari geure bizitzako argibidea (kon-tua) aurkeztu bearra. Ai, geroa...! Amai-katxu pentzamentu ekarri oi daustazuz neure kautara!

Eta, atsekabez naukazu, irakurle, adis-kide on baten illetetatik biurkeran.

Erri guztiak genduan maite, Jose Go-rrio, geure abade jauna. Izan bere maite-maite izaten izan ditugu, oraiñarte beintzat, baserrietan abadeak. Aretarik batekoa gen-duan izan be, baiña, D. Jose: Mazala, la-gungiña, gizarte-zalea ta abar. Ainbat urte egin zituan, ba, gure errian, eta gero, gu-datean, Mendata'ra, bere jaioterrira, eroan euskuen, tamal aundiz.

Gaztea zan Aiengiz'en egoanean, eta geu be, orduan, mutil gazte-gazteak. Onexei, abade zintzo ta euskaltzale onexek, bultzan ninduan EKIN'era, neure leenengo lan-txuak, erriko barriak eta abar, idatzen bai-ta adoretu be idatzen jarraitu negian. Esker txarrekoa nintzake, ba, adiskide zintzo aren gomutaz lerro maitekor batzuk idatzi ez banegiz.

Zintzo egiten zituan elizkizunak eta sarri laguntzen euskun, batean errekeru arraiñak atzematen, bestean pelotaka ta abar. Musean egitea eban gogoko jolasa, baiña. Aregaz musean egin eben agure ta mutil guztiak «Geure Aita» bana otoiñtz egin ba-dagitsoe, laster dogu zeruetan, zorren batzuk ordaidu-bearrak garbitokira eroan izan ba-dau be.

Gernika'n aurkitu neban il baiño ille-bete ariñago ta luzaro jardun genduan, biok-biotara, berbetan. Beste zer askoren artean auxe be esan eustan: «Oraingo abade gazteak otoiñtzik etxuek egiten, Balendin, eta otoiñtz egin ezik etxagok zuzen ibiliterik». Ondto ekian, ba, arek, larogei urteko abade zintzo arek, otoiñtzak Jainkoagandik ur ibil-ten laguntzen dauala, ta otoiñtzik ez da-giana zintzo bizi ezin daitekeala.

Agur, ba, D. Jose, geure abade zintzo ori, betikotasunean alkatu gaitezkan arte.

AURRE-APRAIZ

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra
BILBAO - Casco Viejo
Tenderia, 15 eta 16

AZTERGARRIAK

ERRE-USAIÑA

Arabitarren eta musulmandarren muga inguruetan guda txikiak geitzen doaz, garbiki ta lotsa barik. Aspaldi, beti ez esateko, ez da gudarik bat-batean sortzen, norbait, zerbait dabil aurretik giroa sortu, asarrea berotu ta atzera egin ez dagien zubiak erreten.

—Arroloa erregarria danez, ez artu jolasgaillutzat, bestela ocratzean busti!

NUNDIK BEGIRA

Basoak ez ei-dau zugatzik igartzen lagatzen, ezta zugatzak be bere osteko basorik ikusten. Orrenbeste esan bear gaur entzuten ditugun ainbeste abarrots, osto ta orbelen doinu ta andik eta emendik, guzurrez, erdiguzurrez eta txarrena erdi-egiz emoten daukuezan izpar orregaitik be. Basamortuan ezer entzun barik dagon jakituaren ezaugarrik bear...

—Baiña, orrela bizi danak ez dau arkon-dararik erabilten...

ETSITAKOAK

Guda aundi barri batera ete doa gizartea? Bai, ez dau beste urten biderik, edestiak erakusten daben antzera, erromarren azken ganorabako aldian bezela bizi gara, nekariiges eta ifloren lepotik lasai. Erri atzeratu erdigosetiak gainduko gaitue, ez izkilluz, bulzaka baiño.

—Gero, dana baretu ta bizitza barri bat sortuko ei-da, bizi diranentzat; urrengo baten danori barriz ondartzeko.

BAIKORRAK

Ez dozu guda usaiñik nabaitzen zure inguruan? Bai zera, asarre txiki batsuk kendu ezker ez dator olakorik. Gizona ondoegi bizi da, indarrak aundiegiak lortu ditu ta bildur da erabilten. Kintelatxo bat aterako ba'neuke, orra dana eginda.

—Berebil batek azpiratu eban kalera urte ebanean...

BAINA

Ez da dana txarra. Igaz jaso daben akeite aletzea ifloiz ez lakoa izan ei-da. Ainbestekoa, salneurriak goitik beera etorriko ei-dira bildurgarri. Orra ba, txintxonean diarduela olakorik maite dabenentzat izpar ona.

—Okerrik? Kirio ibiltariñik ba'daukazu orduantxe gaizki. Okerrago akeite-ale saltzaillea ba'ziña.

ORDEZKOA

Bata merkatzen ba'da bestea gitxiago salduko. Ai egia ba'litz, akeitea merkatzen danean droga gitxiago saltzen ei-da! Drogak, Europa'n, Amsterdam dabe saltoki egokia, orko agintariak ez ei-ditu orretara oituak gaizkille lez artzen, gaixo gixajo lez baiño. Ortik saltzailleen eta erosleen erretasunak. Asteko, florin bat edo bi eskatzen ei-dautsee gramoko; oitutean baiña, eunetik berreunera florin neurri berarentzat, eta or irabazi ederrak.

—Vietman'dik amerikarrak joan ziranetik, bezero barriak bear eta Europa'ra etorri ei-jakuz ango saltzailleak.


NORA JO?

Okitu diran arabitarrek, euren diru barri ori zorretan emoteko gertu, baiña judutarrek zuzentzen dituen bankuekin art-emonik ezin izan arrezkero. Judutarrek asarratu dira, ta bereei ta laguneri, orrelakorik egingo leukean banketxetik euren diruak aterateko esaten dautse.

—Oraingoan, erdian, alde biatetik artzen, banketxeak. Artzen beti lez, baiña ez dirurik, belarriondokoak!!

TXUNTXURRAK

Kupu, seigarren belaunaldiko paraon arek, txuntxur lauzabal nagusia, edo «piramide tetraedro» nagusia besteori ulertzeko aña ez ba'zara, jaso eban illobitzarako. Onek, erditik gora nunbait, gela bat dauka. Aztertu ta aztertu, onebeste igarri ei dautsee: ilak legortu ta zimelduta usteldu barik geratzen ei-dira berez. Neurri antzekoetan, batuz



besteko maillan txikituta egin dituen txuntxurretan be bardin gertzatzen ei-da, baita ondo erabillitako labaiña zarra barriz zorrotzuta atera be. Doistarrak orrelako txuntxur txikiak salgai ipiñi ei-ditue...

—Ziñesgarriak ziñeskeri utsak dirala esatera eltzen garanean, edozer ziñesteko gertu gizaseme alprojea!

BAKEA

Au izan dadilla Sinai'ko azken aztergarria. Guk ziñesten dogu; Egipto'k eta Israel'ek bakea egingo dabe. Bakean geldituko dira. Ta aztergarri oneitan esan dogunetik orrenbeste be igarri legikean. Mitla ta beste arriate ori itzultzea ez da txantxetako gauzea, eta ori egitera doazela ia ziur esan daikugu. «Ze alde dauko ba, galdetu dautse israeldar gudar-arduradun bateri, Mitla eta, eskuan izateak ala ez?». Erantzuna: «Edozeinek ulertzeko auxe esango dautzuet. Mitla eskuan dogula, gaurko guradozte profesional au naiko dogu orreri eusteko burrukan ba'letoz. Mitla barik ostera, ori gertatu ezker, erri guztia gudaratu bearko genduke».

—Gauza garrantzitsuak alkarri emotera-koan, ezkontzea be or urrean!

EGURRA

Zura, ola ta serrautsa. Azkotarako erabilten da zura, baiña papalgintzan ez gixien. New York Times'ek, astebetean, bere izparringi ori aterateko 70 ektare baso bear izaten ditu. Ezebez paperian batuta, ark esango leukean lez. Basoak gaiñera, lurrak ontzen dakiez. Gero gizonak, zugatzak ebagi ta aletarako lur barriak sortu, guztiz erre arte geienetan. Orain basoak bera doaz ludi guztian, eta basmortuak eta legor-aldiak zabaltzen.

—Gosea, gosea, gosea, or laster baterako arrisku negargarria.

EKAITZAK

Baretzeko, edo diarduanean kalterik egin ez dagien kai edo itxas-ertzean, moilla barri bat asmatu daukue. Belbillen burpil-oskol edo pneumatiko zarrak alkarri ondo lotuta jarri leoretik aurreratxoago; amarretik bat, ondora lotuta geratzen dala. % 70'ean ekaitza baretzen ei-dau.

—Arri aundidun orma zarrak baiño errezago nunbait.

DANOK

ETIOPIA

Abisinia be esaten yako. Bere izena, Negus orrek agindu daben garaian beintzat, Yatyopya Nigusa Nagast Manguist izan dau. Gaur, ez jakin.

Alde aundiak izan ditu, ta jentetza aundia ibilli be ortik zear, Aprika ta Asi tarteko —baita Europa'rako be— zubi bat dirudi. Ortze bertan, ez dira iru illabete, iru milloie urtetik gora bizi izan zan giza-semearen aztarranak be aurkitu dira.


Ezagutzen diran lenengo etioparrak, kamitak ziur asko, naiko burruka, ifloiz otsein ifloiz jaun izatera elduaz, izan ebezan Paraon aundi areikaz. Baiña gaur or nagusi ta nabarpen agertzen diran abisiniatarrek, geroago etorriak dira. Milla bat urte Kristo aurretik, arabiar-lurradarretik etorri zan erri baten jatorrikoak, semitak oneik, judutarren eta arabitarren lengusu, eta Amara izeneko enda bateko semeak. Oneik izan dira nagusi arrezkero, ta Mahomatarren zabalkude aurretik kristiñau egin ziranenez, orretan jarraitu dabe? estu, larri ta burruka gogorren ondoren.

Ez dira baiña amaratar oneik orko biztanle bakarrak, ezta danetarik geienak be. Ego-sartaldera Gaya orreitakoak bizi dira, ta kamitak edo balzak dira. Iparraldean Eritrea, gaurko burukomin aundiena Addis-Ababa —lora barria, bere itzulpena— uri nagusian diran iraultzaille barri orreintzat. Eta somaliak sorkalde-ego aldetik, amara orrein betiko etsai amorratuak. Ba-dira beste iru-lau jatorriko errialdeak be.

Biztanleetatik erdiak Kopto edo kistarrak dira, beste erdiak musulmanak. Mahomatarrek itxasotik zabaldu ziran geien, ordurako baiña, menditarrek kristiñau ziran, eta ingurututa geratu ba'ziran be, gogor eutsi al izan eutsen. Gaur, iraultza onen ondoren, jaurlaritza barrikoak, kristiñautasunaren aurkako neurri arin batzuk artzen aisak dira, batzuen jaiak kendu ta besteenak onartzen-eta.

Ziñismen auzia be ba-da, baiña oraingoan beste arazo batzuk dabilte tartean. Dakigunez, Etiopia europarren ardurapean izan da beti, italiarrak edo engalandarrak, edo antxiña baten portugaldarrak, oneik zuzendu edo okertu dabez ango arazoak. Gaur, ziñesmenagaz lez, inguratuta bizi da: arabitarrek Eritrea'n eta Sudan'en sartuta, Errusia ostera Somali orreiri laguntzen. Ta Abisinia'n bertan, iraultza ondoren, txinarrak agertzen asi dira nabarpen.

Etiopi'ko batasun goiti-beerakoa apurtu dala esan bear. Negustarren erakundea oso-osorik ondatu da, ta gaur, atzera egin guraz-edo, barriz eratzea nai izan ezker, izenekoia izango litzakela diñoie dakienak. Europarrak aspertu edo bildurtuta igesik doaz. Eta zatitze aundia izango dan ziurtasuna agertzen da edonun.



Eritrea'n auzia gogorra ba'da, ez dau gitxiagorako Somali'ri sartuta daukon ukolondo orrena be. Artu egizu lur-irudi edo mapa bat. Etiopi sorkalde-egoan Ogaden lurralde zorrotza Somalitarren saietsen sartuta ikusiko dozu, ta lur zati ori euren ei-da diñoie oneik.

Betikoa, basamortua zan neurrian ez zan gauza gogorrik sortzen, baiña gaur gas orreitakoa ateraten dabe or, eta arroloa be ba-dagola esaten aztertzaileak. Orra ba, ikustekoak ikusteko gara, Txino, Errusiar eta enparauen artean. Ez eroan pospororik Ogaden orretara.

Etiopi'k milloie ta laurden kilometro lautu ditu gaur. Ogeitamarren bat milloie biztanle. Danetariko lurrak: txiroak eta aberatsak, lau-lauak eta menditsuak, epelak beroak eta otsak, bustiegiak eta legorak. Ez dakie baiña lanik egiten, eta edozer ezbearrek jota, goseak iltzen dira lotsagarri. Ba-da zer-egin, zer-erakutsi ta zertan lagundu, baiña ara doazenak, danak, angoak eta emengoa, arrapatariak!

IBUR



MONRAY

ARKONDARA-GINTZA

ANDEREENTZAT AZKEN-JOSKETAK

Bidebarrieta, 2

21 43 46 urrutizkiña

Alderdi-zarra

BILBAO-5

PERRETERIA UNCETA, S.A.

Landola tresnak - Galtzairu neurri zeatzekoak

Langailu guzietarikoak - Leunketa gaiak

Ibarrekurutz kalea 14

71-10-00 Urrutz.

Apartado 18

E I B A R

Arraintza

AURTENGO ANTROBATEA ESTUA IZANGO DA


Urtero udabarria urreratzean antxobiaondo ez dala salduko esaten asten da jendea itxas errietan. Ta dana ez da guzurra izaten. Azken urteotan bada, gatzituta edo salazioan egindako antxobak ezin salduta ibiltzen dira urte guztian arrain lantegi jaubeak. Arrain barria datorrenarako aurreko urtekoa ezin saldurik. Ta egoera orren barri jakiten danez ortik zabaltzen da antxobia merke salduko dan zurrumurrua.

Baiña antxobia etorten da ta beti ondo saltzen da. Amabost egun atzerago etortea naikua izaten da, arraiñik izango ez dan bildurrez fabrikantia keku-keku jarteko. Ta alan antxobia agertzean, batak nai ta besteak be bai, goruntz juaten da bere saneurria.

Bizimodua ta beste arraiñak goruntz juan arren antxobiaren saneurria beti-baten egon zan ainbat urtean. Baiña 1960'garren urte ingurutik asita antxobia aiña ezer ez da garestitu, ez dago berak aiñako gorakadarik egin daben arraiñik. Orain emen esango ez dodan itxas erri baten 1961'garren urtean 2,65 balio izan eban kilo antxobak eta 1971'garrenean 31,77 laurleko. Ta arrezkero be goruntz egin dabela uste dot, saneurriak zelan izan diran ziur ez jakin arren.

Onera arte esan doguzan kontuak lengoak dira, baiña orain benetan arduratzen gaituana aurtengo antxobatea da.

Ta aurtengo antxobatea sekulakorik baltzena ikusten dogu. Igazko antxobak geienak saldu barik dagoz arrain lantegietan. Antxoba gatzitua geiena Italia'rako izaten da, ta laterri au diru krisis andian arkituten da ta gosea ken-



tzeko ez dan arrain au eroatera ezin da eldu. Filetean egindako antxobia be galduaz ez bada ez dago saltzerik; ez etxean eta ez atzerrian.

Au zegaitik dan argi dago: antxoba kontserbia garesti jarri da ta mizikiñakeria dan janaritarako iñun ez dago dirurik. Len antxobia merkeago erosi ta emakumien alogerak be urriak ziranean merke urtetan eban eta edonun saltzen zan; atzerrian be ederto, baiña orain daben saneurrian iñun be ez.

Bai, gauzak asko aldatzen ez badira aurtengo antxobatea estua izango da. Len, beti, arraiña etorriko zan edo ez zan kezka egoten zan. Saltzeak ez eban kezkarik sortzen. Biar bada arrantzaliak aurten be beti lez arazoa ikusten dabe. Baiña guk, arazo onen barri dakigu arrain lantegiakaz zer ikusi daukagunok baltz ikusten dogu datorren udabarriko antxoba arraintzea.

Beraz, beranduegi izan baiño len arrantzaliak arazoa zelan dagoan jakitun ipiñi biarran gagoz. Aurten gauzak beste urtietatik guztiz bestera dartzela ta datorrenari besoak gurutzatuta ezin itxaron daitekeala.

Egia, arazoak ez dauko urten-bide onik edo errezik. Baiña, edozelan be etorri leitekean gatxa alik-eta ariñena izan daitean gogotsu alegindu biarran dagoz arrantzaliak. Oraingoz ikusten dan urten-bide bakarra, alik-eta geien freskoan saltzea da. Ta olan izan daitean bideak iragi biar dira; len eltzen ez dan tokietara be eldu daiteala. Ta al bada atzerrira be eroan daiteala. Elburu onetara zuzendu biar dira arrantzalien alegiñak, Sindikatua ta janari arazoa daroenen laguntzarekin.

Biar bada on andirik ez da atarako, baiña al dana aurretiaz egiten alegindu biar da. Ezer egin ez dalako okerrrik ez daitela izan!

KAMIÑAZPI

KAIALDEAN

Onen aurretiko idazlanean, Donosti'ko kaialdean a zelako zaragatak erabilli zituztela esaten nun. Dalako txardin aundi ori erosi nai ez eta beste zertzeladak nola zeuden pil-pilka arraintzaleen artean.

Arraintzaleak pozteko, ordea, ez dago arraiak arrapatu al izatea bezelakorik, eta orain igaro dan astean, uste gabean, orra nola azaldu dan antxua, bokarta. Ta txardiñak eman zieten burukomiña ezereztuta gelditu.

Aste betean izan dute poztasun ori, bitartean ontzi bakoitzak dalako antxua «tasa» orren barruan arraia ekarriaz. Neurri orrek sei milla kilo ditu, ta kajak 26 kilo bakoitzak. Lenengo egunean 800 eta 600 laurlekora arte jexita saldu zan. Urrengo egunean oster, milla laurlekotan kajea, gutxiago ekarri zutelako.

Guziak arrapatu izan ba'lute... argi dago, bera jexiko zan salneurria. Ta, zegaitik ote ori? Ba, diotenez, salazoigilleak ez dutelako oraindik erosi nai, aurten bildur omen dira, ta antxua gutxi ordaintzeko asmotan... aurreko urtekoa saltzeko daukatelako. Ori diote beintzat.

Orrez gain, kanpotik ere ekartzen dute antxua: Prantzi, Arjentina, Itali ta bai al dakit zenbat beste lekutatik! Oiek orrela dirala, emengoak nola saldu ongi?

Bilbo'n batu ziran, igarotako astean, Kofradietako zuzendariak. Oien artean, zer esanik ez, Amunarriz jauna. Ta, zer egin dute? Deusik ez! Ala ere batuketa oiek orerako izaten omen dira ta alkarren batasuna sendotzeko. Diotenez, diru-laguntza eskatu naiean omen dira... orrekin, eurak antxua ta beste arraiak erosi ta gero tajuzko balioan saldu al izateko.

Baiñan begira igazko olako baten zer esan zieten, Ondarru'n batu ziranean, «Instituto Social»eko lendakariak: «Arraintzaleok zeren buruak goitu. Zuek zerate arazo oietan zebiltzatenak. Arraia, arrapatu bezin laister, zuek maniatu bear dan bezela azkenerarte».

Ori erreza da esatea, gero izaten dira ordea akatsak. Ez ote du naiko lan arraintzaleak, arrapatzean? Gero, legorrekoak egin bear dute gaiñontzekoa. Neri beintzat orrela dala iruditzen zait. Bai zan itxas arazoak zuzentzeko ordurik berrogei urte auetan.

Urteroko berriketak dira, urteroko batuketak, urteroko itz eta pitzak, eta beti lengo lepotik burua, ezer zuzendu gabe. Ta oiek orrela dirala, arrolioa, orain 3,85 laurleko ordaintzen dute litroko, ta diotenez, aurki lau. Onek, Kofradi guzietako arraintzaleak neurriak artu bear dituztela esan nai du. Tasa ura jarri zuten bezela, arrai geiegi ez ekartzeko ta salneurria ez jexiteko, berdin egin bear dutela prezioa aurretik jarrita onenbetetik bera iñoiz ez saltzeko.

Dana dala, oso alai dabil kaialdea, arraintza ontziz beteta. Donosti, Pasai ta Getari'n asiak dira saltzen eta aurten ba-dirudi antxo-kostera berri au igazkoa baiño obeago izango dutela, ta orrek poza ematen digu.

Guziak ez ordea arrapatzen, eta batzuk txitxarroak, besteak txardiñak, baiña arraiak, antxua ekartzen dutenean, iñork erosi nai ez, eta orduan Alfa'koak. Ta, tamalagarria. Ba-dakizu zegaitik? Ba, arrai ori berori, kalean saltzean, txitxarroak 25 eta txardin aundi ori 40 laurleko ordaintzen diralako. Nola ulertu orduan?

Egualdiak ez dira ain txarrak, eta orrela irauten dun bitartean ekarriko dute arraiak. Ala izan bedi!

E. OZKIN



eziketa jostailuak
eskulanetarakoak
irakasketa gaiak

Avda. del Generalísimo, 65
24-19-16 urrutizkiña
GAZTEIZ

Jolasean ikasi, or zure aurrentzako emoitzarik onena

ARRIATIA

BARRIA

Zornotza

GURE GOTZIÑA LARREA'N

Iragarrita egoanez, il onen 2'an Larrea'ko karmeldarren komentuan izan genduan gure eleiz-barrutiko Gotzain Antonio Añoveros jauna. Sor-barria dan Juan Bateatzaillearen parrokia ta bertako eleiztarrak ikustea eban elburu. Ori dala-ta, jai ederra ospatu zan. Larrea inguru guztia jentez bete zan Gotzainari arrera txeratsua egin nairik. Benenetan, ederto!

PARROKI BARRIA

Toki zoragarria aukeratu eban Larrea jaunak, an amabostgarren gizaldirantza, euren jauregia ta eleizea jasoteko; jauregi ori, nik eta beste askok geure ikasketak osatu genduzana, eraxia izan zan gerra ostean; eleizeak, oster, eder ta lerdan, zutik dirau bazter lilluragarri onetan. Eleiza au 1711'garren urtean artu eban karmeldarrak, eta arrezkero guztian amaika euskaldun auzpazu karmen'go Amaren oiñetan, naiz gorputzeko naiz arimako neke-oiñaze Andra Mariari laguntasuna eskatzen ona etorrita.

Komentua karmeldarrak egiña da amabostgarren gizaldiaren lenengoetan. Zein larreatarrak jasotako eleizaa, zein karmeldarren komentua, beti izan ditugu, biak buztarturik, santutegi bikain. Aurreratzean, santutegi ta parroki izango dogu Larrea'ko txoko txairo au.

Zornotza, azken urteotan batez be, asko be asko azi da, etxex da arimaz. Origaitik ondo etorren parroki barri bat alderdi onetan, bertoko ta inguruetakoz guztiak arima zeregiñetan obeto eta zainduak izan daitezkan. Emendik aurrera, ba, bertontxe egingo dira beste edozein parrokian egin oi diran zer guztiak, au da, bateatu, ezkondu, gaixoai lagundu, eleizakoak emon, cortzi ta abar. Lurrez naikoa zabal da alderdi au, arimaz ez ainbeste. Katia, Arazosa, Ergoien, Aldana, Boroa, Larrea... lurralde edatuak dira.

Parroki barri onen asi-goraberakaitik etorri yaku Gotzain jauna. Ta batez be bertoko eleiztarrak artu-emonen astearren. Eta Artzain bati dagokion arrera egin geuntson gustiok.

MEZA NAGUSIA

Ordua ordu da-ta, goizeko amabi ta erdiak baiño len emen zan Gotzaina. Eleiza jentez beterik. Inguruak bardin. Seiren artean esan zan mezea; Gotzain jaunak, emengo parroki ta laguntzailleak ezker-eskuma zituala. Sarreran «Kanta Jaunari» abots batean abestu gendun guztiok, meza-emoilleak loraz ta argiz ederto apainduta egoan altarara urreratzen ziran bitartean. Intzentsua ipiñi, emon eta meza asi aurretik bertsolari zoli Balendin Enbeita'k iru bertso abestu euskuzan anbotiok. Ona:

Txori txiki bat emen pozez da kantari...
Lenengo neure agurra
Karmen'go Amari,
eta ondo etorri
gure Gotzainari,
bardin adi zagozen
anai-arrebari,
eta besarkada bat
Euskaldun onari.
Esan naia ba-daukat
Añobero'ntzako,
Goztzen ta Artzaina dogu
erriarentzako,
bere eskubide-oirurak
arduraz zaintzeko,
barditasun batean
danoi laguntzeko:
Artaldien arnasa
Artzaina dalako.
Errien Artzain zara:
erriari eutsi,
ardiak ondo artu,
bakarrak ez itxi,
kanpoko otso gaiztoak
ez daizan irutsi;
damu izan ez daizun
biar edo etzi,
kontzentzizko Artzaina
zarala erakutsi.

Erri osoak ondoren «Erruki», «Aintza zeruetan» eta gainerakoak abestu zitun, korutik be organuz ta abots zolitan lagunduta. Dana izan zan euskeraz. Irakurgaien ostean, Gotzain jaunaren itzaldia: iru berbaz erria erderan agurturik, beste guztia euskera garbi errezean egin euskun. Erri otoiñen ondoren, «Udabari» taldeko batek bere dantzaldia

burutu eban altara aurrean; Gotzainak azkenez eskertu eutsun, «eskerrik asko!» esanik. Meza erdian «Gure Aita» durundutsua, Jauna emotea ta azkena. Eleizkizuna amaitzerakoan, «Agur Jaunak» abesten zalarik, erri osoak, txeratsua ta maitekor, Gotzainaren eskua estutu ta ertestuna munkatu eban.

Ondoren, eleiz aurreko zelaian, eguzki ederrez, tanboliña ta dantzariak: «Udabari-koak» iru dantzaldi eskeini dautsoez Gotzainari. Ezpan artean loratzen yako oni barruko poza; baita erriari be, Gotzaina agurtu ta beronegaz itz-egin nairik. Artzaina ta ardiak artu-emon beroan. Gauza ederra, ezta? Ordu bietan, bazkaria. Bazkal ostean, Gotzaina agurtzeko, barrero be Enbeita'ren bertso sentikorak, esangarritsuak!

OIZ

Arratia

GIROA (aroa).—Euskal-abetesien batzuk bazkal-bazarren bat izan ebela (zutela)-ta, mai aren inguruan izan zan euskal-giroari buruz, goramen aundiak entzun nituan orain ainbat egun.

Otza, beroa naiz legorra; bustia, alakoa naiz olakoa, giroa beti izango giro (aro), eta bazkal-aldi aretan izan zana, eusko-muñetan errotua ziurrik asko. Baiña eguzkiaren argitan didiz dagian zer guztia urrea ez dalarik, gora ta txalo egin baiño len, giro-neurkiñari begiratzek eleuskigu kalterik ekarriko.

* * *

Lezama'tik gora Bilbo'ko Santo Domingo mendiruntz niñoiñala, euskal-abeti, txistu, irrintziak eta ijaiak entzun nintuan goiko landa batean. Urreratu nintzan bertaraiño... eta bi margo (kolore) dun ikurrin aundia taketeen gora jasoten ari ziran. GIROA zan a ere, Non ete-ziran baiña, an ziranen gogo eta biotzak?

* * *

Oiz menditik nentorran, Ajuria'tik bera. Bitxabalaren bazterrean berebiltxo, eta berebillean gure lur onen zappi errialdeetako ikurrak eta EUSKERAZ EGIN eukan txapela, dindillizka. Euskal-giroz ganezka zegoan berebiltxo aren jabea, zamoratar txapelokerra zan.

* * *

Beste bein (Bilbo'n) txakurren aurrean estu ta larritasunez dabilian erbia lez, marro bat edo beste egiñik, Arriaga'n aterpetu nintzan makil-zaparradari igesegiñik. Inguru aretako makil-ots eta iskanbillari begira ziranen artean, neu bete leku egin eta, ondoen neukan morroskoak eskuan eukan giltza-txortan «zappiak bat» ikusi geroz arnasaldi barri bat izan neban. Baiña laster estu-armindu nintzan, eta aguro anka-egin ere bai. Erritar soñekoz jantzirik ibiltzen diran ertzain bi ziran.

Didiz dagian guztia ez da urrea ta ikatzarria.

* * *

Abadiño'ko Sanblasak, Agate deuna, txitxiburduntzi ta basokoipetsu, Aratuste edo Inauteri eta otsail onen gaurik luzeenak joan dira. Eta udaberri-lore goiztarrak edonon azaldu.

Txitxiburduntzi edo basokoipetsu egi-teko arrautz, urdai, urdazpiko ta lukainak izan dira, orain arte, janaririk berezienak. Baiña Arantzazu'ko lau-bost andrak, ixil-mixilka, etxekoipetsu egin dabe: urdai ordez oillasko erreza, eta ardauren lekuan txanpana. Edanontziari eperdian muin egin eta... kardan-txoria baiño kantariago. On dagoela!

* * *

Bilbo'ko etxarteetan Agate-abetes-tzak ugari. On-onak ziran batzuk, obeak beste batzuk. Baiña obeenen artean onenak, eta begikoenak, oillandaz eta morroskoz osaturiko Arratiaz Abesbatza. Ikuskizun eta entzungarrik ederrena San Anton'en eskeindu euskuen jaupa

(mesa) ta Atxuri'ko dantzaldi bizi-alai, «Agur Jaunak» abestu ondoren egin ebena (zutena). Gora Arrati'ko zekor txikia! Eta 140 kiloko Joanpe andia.

LANDAJUELA'TAR A.

Abadiño

ABADIÑO'KO SEME AGURGARRI BAT

Ilbarri da, Urtarrillaren 27,garrenez il be, Burgos'ko San Pedro de Cardena deritxon lekaretxe entzutetsuan.

Ixil eta bakar bizitzia daroe ango lekaide trapatarrak bizitzik latz eta gogorrena, esaten dabenez, bada goizeko iruretan tagi eta euren otoi eta biar-bizitzia asten dabe, ie eten bako otoi eta biar-bizitzia ganera. Gexorik ez badauz, ez dabe ez okelik, ez arraiñik eta ez arrautzik yaten. Egundo bez.

Antxe, bada, irurogetabi urte egin dauz abadiñoar Aita Karlos Azkarate Agurgarriak eta antxe Yaungoikuaren bakean il be egin da.

Naz eta bakar bizitzia eroan, Aita Karlos guztiz ezaguna eta maitatua zan, bai Burgos bertan, baita lekaretxe inguru guztian be. Izan be, bertan Nagosi izan zan-da, bertoko gorabera eta artuemon guztietan, gurazegura, sartu biarrekua, danak ezagututen eban, ezagutu ezeze, biotzez maite be bai, bere irribarre samurrak eta biotz andiak edonor irebazten ekian-da.

Orregatik, ez da bape arrituteko bere illeta mezatan ikusi zana: eleiza bete-betia eta amaikaren begietan negar-ampulu mingotzak, meza emolliak eurak negarrak galazota eziñ aurrera yarraituteragiño! Neronek ikusi ixan dot, amaika bidar, xaar-xaarturik, eta apur bat makurtuta, bere biarretara Burgos'era etorten zan bakotxian zelan ie danak urerututen yakozan agur egitera, zeozer esatera, euren alde otoi egiala eskatzera... maitasuna agertzera. Maitagarria zan izan be Aita Karlos! Otzari, edurrari, arorik txarrenari bildur barik, naz eta zaartxua eta osasun biguna ixan, bere egun eta orduetan zintzuen etorriko zan bai bere biar-rak betetera.

Auxe dana eta askoz geiago argitaldu dabe egun oneitan Burgos'ko egunkariak eta bertan idazlerik argienak.

Batek idazten ebana euskeraldu barik eziñ amaitu dot, ordia. «Diario de Burgos» egunkariak Urtarrillaren 29'garrenez auxe diñosku: «Euskalduna yayotzez, ez eban egundo aitzu bere erria eta nik dakit zelango poza ixaten eban euskaldunen berbetia egin al ixateko zoriona ixaten eban bakotxian, bada naz eta gazterik trapatar egin, eta artarako Euskalerria itxi, ez eutsan euskeriari aitzuten itxi...». Eta nik esango neuke, egi-egia da eta zelan egin be gero euskeraz! Erritik urten eta andik bost-sei astera-edo «aitzu egin yat» diñoenak letxe...

Izenez eziñ bera baiño euskaldunagorik: Azkarate, Ezenarro, Eguren eta Otalora zan abizenez. Izatez, barriz, beragaz artuemon ixtuenak izan genduzenok ondo baiño obeto dakigu.

Amaikatxu euskaldun agurtu genduan obitegitik urteyeran, emen bizi diran euskaldun geimak: Aita Iraburu, Urdangarin, Etxebarrieta, Inbuluzketa, Areitio, Agerrebere eta abar, baita bertan lekaretxekeoi egun areitan Gogo-Yardunak emoten eban Aita Zubiaga yesulagun benetakua be. Ikusi bai, baiña ez genduan agurtzerik ixan an lekaide trapatar dagoan Aita Barruetabeña mallabiarra...

Zeruan bego Aita Karlos gure aizkide biotzekua.

Galdakano

ERIYOTZEA

Betiko be ez gara-ta, il onen bostgarrenean, bizitza guztian gizon argi ta langillea izan zan Barrenetxea'tar Anastasi, irurogei ta amazazpi urtedun zala, Jaunak Bere aldamera eroan eban.

Jayotzaz bediatarra ba'zan be, aspaldiko urteetan C. Aldekoa auzunean bizi izan zan. Goyan Bego adizkide ona, ta lagun gaitube atsekabeen bere sendikide guztiak.

GOSEA

Otsail onen 2'gn igandean ospatu zan edo iragarri zan gure eleizetan, gosedunai laguntzeko eguna. Eta guk dakigunez, erri ontako txadonetan polito bildu zan txindi mardozekea, eleizyarren borondaterik onenaz emona.

Janariak emen, alde onetan dauken salneurrian, amabost-ogei bat gosedunei astebete edo bian gosea erdi asetuteko beste bai? Eta genetiko egunetan, zer?

Ludian diran gosetiak dirala-ta, asko idatzi da. Irratiz eta urrutikuskinez be asko esan da. Margodun ingi apañez be zabalkundea egin da. Eta nozean bein eukitsu batek, biotzez baiño arrokeriz obeto, txindi mardozearen barzuk emon be bai. Baiña eginkizun orreikaz, egun batzuetan goseti batzuei zerbaiten gosea arinduteaz, bete ete da al-dabenen bearkun guztija? Ezta gutxiagorik be!

Gure Eleizea ez da izango gutxi egin dabena arazo negargarri ori zuzentzeko, baiña bere alegiñak ez dira naiko; gutxiago laterri altsuenak, menpeko izan dabezan lurraldeetan, lurretik eta bertako aberastasunetatik bear litzakezan mozkiñak lorizen irakatsiten baiño guda-mutillak gertutzen geyego sayatu diralako.

Ludian diran gosakil guztiak inoiz bere ez dira asetuko, baiña orain arteko egipenak baiño jokabide zuzenagoak lortuten ez ba'kira, lanetik bizi garenen laguntzea alper-alperrekoa izango dabe: etxe aurrean geyen baten loturik aurkitzen dan txakurrari emoten yakon azur eta ogi-koskorra lez dira, eta ez berak aurkitzen erakutsi yakon txakur azkea lez.

Gu baiño ikasiagoak esan dabe, eta orretan gagoz: goseti orrei luginizan, abere-erziten, tramankuluak erabilten —euren eskuetan ipiñi ondoren— lurralde goseti orreitan diran ibaietako urak ondasun bidean ipintzen eta abar irakatsi bear jakoe, ori izango litzake bearrizan gogorretatik gizaki asko azkatuko leuken erarik egokiena, ta ez langilleok emon geinken bost edo ogei-ogerekoa.

Guda tramankuluetan eralgiten dan txinditzaeren lauren bat bakarrak, arazo orretan sartuko ba'litzake, zenbat lan eder egin ete legiken lurbira osaan!

TXANGO

Lenago be esanak gara, egurwaldiak lagundu ezketiño, igandero urtetan dirala mendigoizaleak. Batzuk etxetik oiñez, beste asko berebil txiki naiz andietan. Eta gure «Ganguren» taldekoak be, txango luzetxo bat gertatu eban Otsail onen bigarren igandarako: Errioxa'ko Demanda mendidian dan «San Lorenzo» tontorrik goitienera. 2.262 neurkin goiti ditu berak.

Danak dakigun lez, aurtan ez da ikusi edurrik Bizkai aldean, eta Ortze'ko mezu garbi eder ori ikustearren Errioxa'ko Ezkarai'ra zuzendu ziran, yende-berebil andi bi ta txiki batzuetan eum eta ogeiren bat galdakanotar gogotsu. Emen batek edo geyagok igon be bai goiko gaillurrerarte. Eguraldia ona izan eban, ta pozez ibilli ei-ziran edur zurri artean. Barriz beste orretariko mendi batzuetara igoteko asmo biziz etxeratu ziran.

Zorioneko zare neska-mutil eta bertaratu ziran guztiyok.

BASA-JAUN

A'TAR Y. M.

A YA A

—Ondu baietz!
 —Zortzi amarri, ezetz!
 —Ogetamar uzta baietz!
 —Ogetamabi ezetz!
 —Atzoko onena baiño iru geiago baietz, eun parrean!
 —Larogei euni, ezetz!

Idi dema eguna. Proba eguna. Obeto esateko, egunak. Gaur, egun bakarreko jokoak baiño geiago erabilten dabe bi-iru egunekoak, jai bat baiño geiago barruan artzen dabenak.

Kalean, tabernetan, inguruetan, bideetan, igarri-igarrian ikusten da Aya'ko errian probak dagozala. Oi ez dan joan etorri eta eroan-ekarria igarten da.

Giro beroa errian. Jokolarien geldi ezina: Norberagaz kontu esaten eta belarria zorrotz besteen esanei adi. Zigarro txokorrari ten, aotik kei eta begiak nerbioen kiñuz. Akuluak eskuan eta tartetan, txistuz bustitako atzaparrek in estena igortzi, puntako ultzea busti. Berezko jokera. Kirten luzedun sartainduna ikusten da irritsuen. Zeregin asko bete bear izaten ditu gizonak. Etxean egingo ez leukezan asko. Bizitzako jokoak.

Ez nabe erakarten probak. Asko dira galerazi bear litzakezala diñoenak. Ez dakit. Nire auzoan, Berriatu'n, sasoi baten, «Perran» denporetan, iru abade egozan bertako parrokiaren eta orduko bikarioaren esanetan, iruren mezak baiño proba geiago egoten ziran errian. Auzoan eskola ona eukia naz, ikusten danez.

Goazen, ba, beste zerbaiz ikusten.

* * *

Burdinille, artzain eta ikatz-giñen erria, sasoi baten. Amazortzi errota kontaten ziran emengo lurretan. Bai lau burdinola be. Gero, zeregin orreik galdu ala, baserriko beste lanei lotuago. Gaur 223 baserriak sendi, famili, ba dagoz emen, 204 baserri etxeetan. Erriko irutik bi. Emen ukatu gaur euretako askok kaleko langintza eta baserriko bizitza naastuten dituenik. Tartetan, gaurko gaixua: Ustu diran baserriak, berrogetak. Gaurko baserri bizitzaren asarre ixilla.

Aya, bere mendi, baso, sokondo eta erre-karte, andia da. Luzeta eta zabal, 80 km².

Orio'ko erriaren aurrean, Oria erre-karen egaletan asten da. Aya-Orio dauka izentzat trenaren geltokiak. Orio'rako geltokia. Lurrez Aya. Be alde onetan ba dira gaur oraingo erako jatetxe-erretokiak, lengo baserrietan egoki gertuak. Be alde onetatik erri burura ba dagoz sei kilometrotik gora.

Erri jatorra da Aya. Alaieta eta ugaria. Borondatetsu ta esku zabal ba bai. Aspaldi esaten ekian emengo Izuela Artzaia bertolariak, edo berari esaten eutsen lez, Pastor Izuela'k:

Aia'ko erri noblea pasatu orduko prunki emen ezkerro pranko du bilduko; gaztain edo arraultzak, txanpon eta kuarto, aurtengo bastimentua ba dauka zierto.

Berreun urte laster dira bertsolari au jaijo zala. Bere kontu irritsu asko esan eta irakurten dira.

Garizuma denporan, orduan, eta gure ume denporetan oi zan lez, sakristira txar-teletara joan eta abadeari erantzuna, argia da.

Abadeak berari: Ia, utzi bertsoak eta artu birtuteak. Ba al dakizu zein diran teologalak?

Berak erantzun:

Bizi bagera ere nekez, erantzuna ba dator berez: Lenengoa fedea, bigarren esperantza, irugarrengo onek ba du mulla bat mudantza: il da karidadea, bizi da mengantza.

* * *

Bertsolari bat aitatu dogun ezkerro, Aya'ko beste fin bat gogoratzea bidezko da. Uztaeta-buru baserrian jaijo zan 1829 urtean. «Udarregi». Juan J. Alkain. Irakurri bein bere emaztea aurrean zala adiskide bateri bere bizimodua zala ta emondako erantzuna:

Bi alaba daduzkat oraindik gaztiak, amazapzi urte batek, amabost bestiak; seme bat nai zuban nere emaztiak, amaika lan alperrik egin du tristiak.

Beste bein, Donosti'ra joan ei zan eta ango Udaletxetik paperen bat atarateko asmotan. Ango langilleak ziria sartu nairik bertso bat eskatu. Bai belarriak laster berotu be berak.

Kontsejura etorri naiz paper baten billa, pentsatzen jarrita ere au dek alper pilla. Pluma eta tintero bastoi ta makilla, pobreak altxatzeko a ze kuadrilla!

Jakingarri bat. «Udarregi»k ez ekian irakurten, eta bertso paperak atarateko, Usurbil'era joaten ei zan ango organista Jose Txiki'ri kopiatzeko mesedea eskatzen.

* * *

Aya'ko gizon biargin bat: Juan Gilisasti. Bere abizeneko etxean jaijo zan. Eta itxasora begira artu eban bere ogibidea. Ainguragillea izan zan, arlanka egillea. Orain 200 urte ba ziran Gipuzkoa'n ogeiren bat olakoen egilleak. Ernani'n geienak.

Gilisasti onek ikusi eban sasoi aretan aingura andiak Olanda'tik ekarten zirala. Ara joan zan lanera, ixillean ikastera. Igeska urten bear izan eban andik, baiña berea lortuta. Santixo auzoko Arrazubi baserrietako baten gelditu zan. Eta inguru aretan egoan ola baten lanean asi. 72 kintalekoak egiteko eran gertu eban lantegia. Origaitik, Larramendi'ren esanetan, munduan egiten ziran aingurarik gogor eta eratsuenak emen egiten zirala. Len erbestetik ekarten zana, berari esker emendik erbestera bialtzen asi ziran. Gilisasti onek Okendo almirantearen begirapean egiten eban bere lana eta sarri agertzen ei ziran etzabaidan, baiña Okendo'k sekula ez ei eban ukatu eta beratu be Gilisasti'ren al eta abillidaderik.

* * *

2.550 bizi-lagun. Eun langilla egunero Zarautz, Orio eta Usurbil'era.

30 ektarea industriaren aukeran. Ura bai, baiña batu eta zabaltzeko os-topoak.

Erri luzea. Auzo ugari: Alzola, Andatza, Elkano, Irureta, Laurgain, Olaskoegi, Urdaneta eta Ibaionda.

340 famili biribillan. Euneke amar erdaldunak. 200 gizonetako, emakumeak baiño geiago.

40 telefono. Pelota toki aterpeduna. Dagonilla'ren 7^otik 10^oera jaiak. Beste entzutetsu bat: Asentsio egunez egiten dana.

Erri buruan, plaza txukuna. Izenak diñoan lez, «errekreorako». Egal baten udal-txea. Danen gainetik, parrokiak: San Esteban. Andia. Gotiko erako ate eder bat torre azpian.

Esakera da Olaskoegi'n, Goikoetxea baserria dagon Lurretan asi zirala eleiz au jasoten. Egin ala, gabero arriak aldatu. Ayaldeburu'ko atsoa gauero zelatari, zeinek aldatzen ete eban jakin nairik. Ori igarri ta idiakin ebillenak esan ei eban: «Aida zuri, aida gorri, ate zuloan dagon orri, atara bere begi».

Esanaz batera akulo estena ete zulotik sartu ta begia atara ei eutsan atsoari.

Balitz eta ba zan... Ez da parroki bakarra. Alzola, Laurgain eta Urdaneta'n be ba dagoz. Laurgain'goak torre ederra. Emen dago antxiñako jauregi zar bat be, bide egalean.

Orra, aidean, Aya, aizetan. Erri buru egiten danean, kale bat Ama Andre Aizpe'koaren kalea deritza. Ermita polita kalean bertan.

Ikusgarri da, bide zarrean, «Etxetxo», kalbarioetako arizku kurutze ederrez.

Aya'k ba daukaz gizon entzutetsu batzuk bere semien artean: Joan Aranburu, Soraluze'ko Arma-olako kontularia izana, orain 400 urte; Gorostiola jakintsua, Napoles'en errege ordeko izana; Martin Arana, sasoi baten erriko gerra mutilen burua; Rufino Aldabaldetrekua, gure denporetan fede eta kezka andiko abadea... Eta erri jokoaetan, ainbat jokolari eta kirol-zale: korrikalari, indartsu, segalari, erramulari eta abar.

* * *

Barrero plaza ingurura etortean, gero ta deadar estu eta kezkatia goak entzuten dira. Akularien deadarrak, karreteroan, arriaren txirri-ots eta txinpartak itzalduten ditue. Jokolariak gero ta estuago.

Bakar bakarrik eleizaren ormak, orma lodi eta zabalak, betiko itzala emoten dagoz, estutu barik, Aya'ko bizi bidearen begirale zintzo, Pagoeta mendiaren aurrean.

A. ZUBIKARAI

AGVR

Apartado n.º 2
BILBAO

FRANQUEO
CONCERTADO
08/55

Geuretasunak eta Geurekeriak

Zidar zuriaren bide barriak arrats-beeraren urre gorriak.

Leenaren garrak barnean leer: barritu zaarrak, barriak eder.

Barri eta eder, orain zaarra poeten pioner laukiniztarra.

Barri, eder, zaar, beti gurekin; aren urre-zidar gure atsegin.

«Ele lander baten seme jaijo nintzan» esan arren, goi maillako olerki lanak egin ebazan Lauaxetak, leenaren garrak bere barruan leer egin ondoren. «Ele onen iruleak geu gara» ta, gure izkuntzaren gorulari biurtu zan, zaarbarritzaile, barriedertzaille.

«Bide barriak» egin ebazan olerki lorategian, zidarrezko bide barriak, eta urre gorritz jantzirik itxi euskuzan olerki lorak bere bizitzako arrats-beeran.

Leenaren orain barri ta eder izan zana, zaarra dogu orainaren orainean. Baiña barri, eder, zaar, beti gugaz; aren urre eta zidar gure atsegin. Eta Lauaxetak berak egin eban antzera, batu egin bear doguz leenaren frutuak leena geuregandu ta geuretzeko, barriztatu ta edertzeko; batu egin bear dogu Lauaxeta bera ere, leena da ta orain; batu egin bear dogu oraingo eta geroko geroaren gerorako olerki lan ederrak egiteko guk ere, bere antzera. «Pioner gazte gara» gu ere; baiña, leenengo, zer ikasirik asko dogu aurrekoengandik.

Lauaxetaren beretasun guztiak batu bear doguz, olerki lora guztiak, geuretasun biurtu daitezkan. Beretasun guztiak batu bear doguz lau aizetara erieteko eta frutua ugari emon dagien. Ori ez egitea geurekeria litzake.

ETOR argitaldaria argitaratu ditu Lauaxetaren olerkiak. Oraintsu egin ere. Baiña ez danak. Ez. Argitaratu barik, ilunetan, itxi ditu lora batzuk. Ez dira izango, bearbada, olerkirik onenariok; baiña gaur gure aldizkarietan eta liburuetan agertzen diran olerkitxo edo sasi-olerki asko baiño sakonagoak eta ederragoak bai, beinik bein.

Ona emen, adibidez, JAUNGOIKO-ZALE aldizkarian lo dagoen bat; 370 zenbakian agertu zan, 1930eko jorrailaren lean, 110. orrialdean.

GORANTZA

«Izar liraiñez urretsuzeru ori dan polita! Lorategia dirudi larrosa gorritz josita.

Noz lortuko ete zaitut atsegin danen tokia? Ludi au jatan illuna beiturik zeure argia!

Intziri nok ez egingo izar ederoi begira? Mitxeletaren antzera begiok doaz argira.

Neure lei bizi samurrok, ortzia zuen atzena! Argi-seme biurtzea zuen elburu guena.

Zerurantz joan gaitzean, bidean piztuko izarrak zuek poztuten dozuez bidazti onen negarrak.

Neure samiiñen koroia izpi legumok balira! Ludiko neke artetik beti nago orrantz begira.

Izarrok ete zarie gotzon egoen auts zea? Zueri mosu egiten digaro neure zalea.

Illuna oker-laguna izaten ei da ludian; orregaitik argi-zear jarraitu nai dot ontzian.

Begiok gorantz daroetz goiko disdira lagunak; neure biotza, ostera, katigu daukost illunak.

Egaz egin nai zerura; al ezin, barriz, txiroak! Jaun orrek, kendu zaleok, edo eratu egoak!».

Ortografia ta erritarkeria aldetik gaurkotu egin dot apur bat; baiña olerkiaren osotasuna aldatu barik, ezertxo ere aldatu barik, geuretasuna neurekeria biurtu ez daiten.

Ikusi eta ikasi; ez baztertu... ta aztertu.

Urrengora arte.

LEJARRENEKO MIKELEK

BIKOITZKERIA LANA TA GIZONA

Gizarte nagi bateko auziak, neke gixienera iges egin bearretik, bikoitzkerira jotzen dabe.

Geure gaiñetik ardurak kendu guran, inork, erakunderen batek, laterriak berak zuzendu bear dituala eskatzen dogu.

Aulkeri orri igarrita, arrapatariak, alde guztietako jauntxoak, euren oberako erabilten dakie.

Orre in aonan, beti beste ertzeko okerra nabarmen dabil ta aurrera-bidean oztopo litzakion obeari be ezarriko dautso. Orrek zabalduko dabena, ta biotzez nai dabena, bikoitzkeri gogorrena da: Bere «ona» ta beste ertzean dabillanaren okerra. Erdian, erdibidean, ez dago urtenbiderik; eta ba'lego, benetako etsaia baiño, ta onekin bat eginda sarri, erdibideko urtenbide jator ori ondatzen aleginduko da.

Eskumarrak, erdibideko ori ondatu naian, komunisten lagun edo oneri atek zabaltzen alegintzen dana dala esango dabe. Ezkertarrak oster, erdiko berberori, fatxistakumea dala esan. Ta erdian, bere gain ardurarik maite ez daberen ori, noraezean.

Ta, ala ta bere, geienak dira erdibidekoak, onenak, zintzoenak, eta jendea biziko ba'da, lan egiten dabena; eurentzako ogia ta beste orreik arrapatuko dabena, euren izerditik sortzen alegintzen diranak.

Au be, nekez, baiña inoiz asarretzen da. Ta orduan beste demagogo orren estualdiak. Bitartean baiña, esamesak, teoriak, nasketak, sakabanetzeak euskaldunon artean, eta geienetan geureak ez diran auziak zuzendu naian, edo maite ez ditugun giza-bide aldrebesak erabilten.

Langilledi ta dirujabetza — kapitalismo ta proletario — arteko burrukea be, bikoitzkeri osoan erabiltea da gaur Euskalerrria'n ezarri dauskuen burrukea. Ertz bidun auzia bakarrik ba'litz.


Ez dau inork galdetu nai, euskaldunaren izatetik eta nortasunetik sortu dan maillaketa ori ala atzeritik ekarritako joko negargarria ez ete dan.

Gaur bertan, euskaldun asko lizunkeri agirian murgilduta daukaguz, emen be ez da galdetzen ea orren zale berez dan gure erria ala erbesteko girotik dartzokigun itxukeriren bat ez ete dan.

Aukeran jarri dautso norbaitek errez irabazi ta errez andrakatutzeko bidea, ta besteak dagi-elako berak be ez gitxiago. Ez da izan euskalduna inoren lepotik bizi izaten zale, ezta laterriak bear izaten ditun morrointzakoen artean jarduten be. Jokera biok inungo nunbaitetik ekarri daukuez, ortxe, olaxek bear litzakela-ta, etxean sartuta; ta bere izatean gure erriak ez ditu maite.

Gaur bertan, demagojitik bizi dan euskaldun alperrenak be, inoren kontura bizi dala entzuterik, ez dau maite, naita orrela izan tamalez.

Orra ba, ez dago asko esan bearrik: Geurera itzultzen ba'gara, geurea lortzen ba'dogu, ez da gizarte mailla lotsagarrik gure artean izango, ezta aberekeri nasagarrik be.



Egunero ta beti, gure bizitzearen txoko guztietan, sortzen dira aldakuntzak aspaldion. Orixe esan eban batek gure AGUR onetan lentxuago.

Gizadi guztiak beretzat artu dauan egoera au geuretutea bear-bearrekoa dogula esaten eban idaz-lan arek. Eta, jakiña, orrelantxe izan bear. Laster jausi bear dabe aldakuntza onen aurkako diran oztopo guztiak. Lenago edo geroago, gizarteak artu dauan aurrera-bide onek eskatzen daualako, ori orrelantxe jazoko da.

Gizarteak ezarten daukuzan estutasunak aspiratzeko, gaur baiño gurari geiago ez da inoiz izan. Estutasun orreik ba dakigu nondik etorten diran, geienak beintzat: Agintari diran talde batzuk goitik bera arrerazo gura dituen laterrikeri batzutatik.

Gaur laterri-mugak estu geratu dira, eta aberrien izakereari eutsita be, laterrien artean artu-emon geiago bear da, bai diru-arloetan, baita politika edo erlilaritza-arloetan be.

Ori baietzeko, gauzatxu bat kontuan artzea naikoa izango da: Lurrealde bateko jazoera batek zelako zirkiña eragiten dauan mundu guztian.

Eta ori ontzat artzeko, zenbat barri-billaketa, jakin-bear eta, oiñarritu-bear egunero munduan!

Eta gizarteko lengo lanari eutsi bear ba'jako, gizonaren esku-lanak eta buru-lanak lengoak ba'dira, gaurkoak lako aldakuntzak sarri etorriko dirala erakutsiko dauku geroak.

Gizonak geroago ta langilleagoak izan bear dauala esan gura dauku egoera onek. Artzen diran lan-arloak be geroago ta zabalagoak dira. Baiña orrelan gizonak ditun almenak zabaltze aundiago izango dabe.

Arazo onein aurrean aurkitzen gara gaurko gizonak, gizartearen bidean aurkitzen doguz eta aurrerapenaren ekitaldi barri baten ezaugarriak doguz. Lengo ekitaldiak ez eukan antzeko ezaugarriak, eta inoz lengo ezaugarriak gaur alderantziz agertzen jakuz, esaterako langintza edo industriko alkartetan.

Esan dogun au obeto argitzeko, adibide lez, gaurko gizarteari begiratzeko ikuspegi batzuk aztertu dagiguzan.

Esaterako, gizonak lanaren frutuen aurrean daukan egoera.

Lanak eta lanaren frutuak billatzeak daroasku gure denporarik geiena, orretarako darabilguz gure indarrak onenak. Orrexe gaitik datorkuz ekonomi ta gizarte-arazorik

geienak eta ortixek sortzen da, zati on bat beintzat, politika-talde bat guk aukeratzea eta orrek bideratzen ditu gure egiteak eta gure bizitza guztia.

Langintza onen aurrerapenak mekanizatzea eskatu eban eta mekanizatze onek etzeko esku-lanak baztertu zituan. Langilleak bear errezagoak egitera eta lanaren zeregiña arintzera beartu zituan.

Millakak dira, ezelako gertakizun barik, langintzara sartzen diran esku-langilleak, eta orreik menperatuta geratzen dira euren agintari, makiñak eurak dirala. Makiñak ezin dabena egingo dabe.

Egoera onetan, lana zigorra da eta gizona osotu gura ba'dogu, lanetik kanpora beste bide batzuk artu bearko doguz. Baiña ez aitzu gure indarrak geienak lanerako izaten dirala.

Egoera ori gaur asko aldatu da, gaur alderantziz jokutzen da:

Be-maillako lan bardin orreik gaur kendu egin gura ditu gizarteak. Laterri aurreratuetan, lan barik aurkitzen diran geienak, olako maillan lan egiten ebenak dira eta aurkitu legikeen bide bakar, mekaniku edo doitzaille edo tximist-lan ikasia izango da. Olakoetan norberaren gizontasuna geiago agertu legike langilleak.

Baiña lan orreik be bide-erdiko mailla bat baiño ez dira. Laster giza-lana geiago aldatuko da eta trebetasuna ta smakizuna ugariago izango dira: gertakizunak, asmakizunak ta olakoak bearko dira, eta olako lanetan gizonaren jakituriak agerpen geiago dau. Gaur arte inoiz ezagutu ez dan lako aurrerapena ekarriko dau lan-orrek gizonarentzat. Lanak berak indartuko dau gizonaren aurrerapena.

Batera agertu leitekez, baita, atzeratzaille izan leitekezan indarrak be, aldakuntza au bizkorregi be egiten da ta... Sortzen diran arazoai bereala erantzun bearko jake.


Esaterako, gizonak esanak egitean ez dau bere uste guztia ezarri bearko; guztuz aztertzaille biurtu bearko dau.

Une onetan, gizonarentzat aurrerapide izan diran erlejiñoa ta morala ta olakoak pentzakera barri baten aurrez aurkitzen dira eta balio barri batzuk aurkitu ditue. Ortik sortzen da gure artean larrione bat eta jente askok euren barrua utsik aurkitzen dabe. Euren itauna ez da «nora goaz?» «zertarako goaz?» baiño.

Egoera oneri bidea aurkitzeko, nire ustez ez dago urteera bat baiño: Jakituria ta zarrakandik artua alkartu, baiña alderdi bi oneitatik bakoitxak daukan zabalerea aintzat artu eta biakaz geure bizitza osotu.

LEIZARRETA





OBAEZ! IRITZIAK

Beste izkuntzen antzean, euskerak be ba-ditu bere esakera jatorrak, eta ez gitxi be.

Atsegingarria da euskera baiño beste izkuntzarik ez ekien gure gurasoeri berbetan entzutea: Areña itz egiteko, berbetako, taiua joskera zuzenez, aditz egokiz eta itz eta esakera ugariz orniduta. Ganorabagakoa ta mengala da izan be esakera bagako autua. Esakera jatorrak apaindu ta edertu egiten dabe, ba, berbetea.

Belaunaldirik-belaunaldi esakera asko izan dira geuganagiño be, baiña asko galdu bere egin ekiguz, geure ardurabakotasunez eta aldameneko erderen sakakadea dala-ta. Baiña, bakotzak bere esakizuneri gatza ta berakotza ezarteko, gura zein gura ez bear, ba, esakuneak.

Oraingo euskaldun askok, euskeraz diarduenean bere, esakune egokien bat esan gura dabenean, erderara jo oi dabe esakizuna atontzeko. Euskaldun osoak ez izatea dogu, ba, ori.

Esakuneak direala, izan bere, uste dot, nik neuk, naiz-ta euskeraz esan, geienetan erderakadaz esan daroaguzanak. Sarritan entzun oi doguz: «Ze ume polita!» «Ze egun ederra!» «Ze otz dago!» ta abar. Euskera apur bat dakigunok guztiok dakigu, baia, jakin, ze ori zuzendu bearreko erderakada itxusia dogula.

Euskaldunok era asko doguz, ba, ze arrotz ori baztertu ta euskal-era jatorrez esakerak-eta esan aal izateko.

Aulan esango leukez, aitatu dodazan esakerak, euskaldun-euskaldunak: «Au ume popolita!» «Au umearen polita!» «Ume au bai polita!» «Au bai egunaren ederra!» «Egun au bai dala ederra!» «Egun onen ederra!» «Egun au baiño ederragorik!» «Au da otza!» «Gaur dagoan otz!» «Egundo olako otzik!» eta abar eta abar.

Euskera ikasten diarduenez garrantzi edo gora aundia dabe, ba,

esakerak. Euskeraz birrikasten jardun izan nebanean (eliztiz edo gramatikaz ikasten esan nai dot) garrantzi aundia euken, beintzat, niretzat neuretzat, esakerak. Aditzak eta jostereak eurak baizen garrantzi aundia.

Beingoan zalbaldu oi dira, gure artean, zalbaldu be, gero, euskereari ez dagokiozan esakera ganorabagakoak.

Aalspdion askok idatzi daroe, Benetzuela'tik-edo, gasteleraz izan ekigun (an ugari erabili daroe, beintzat) esakune bat: «Zelan ez!» Eta, «zelan ez!» erderazko «cómo no!» zuzen-zuzen itzuli daroe idazle askok, guk, geuk, orren ordezkorik ez daukagulakoan, urrean.

Nik neuk, ez dakit, idazleok, zelangorri etan euskeraz ikasi izan dabenean, «cómo no!» ori euskaldunok zetarik esaten dogun ez jakiteko.

«Cómo no!» ori adirazteko guk geuk, euskaldun jatorrok, beti esan izan dogu auxe: «Oba ez!» Zarritan destaiña-antzean, eta, beste askotan, benetasunez. Ederto diño, ba, Kere-xeta jaunak, geure olerkari ta itzultzaile bikaiñak, *Orbelak* liburutzuko *Negurarako-deia* deritxon olerki biotz-ikugarriaren seigarren aapaldi dotorean:

Egingo doguz —oba ez!—
Txirristak edur-gaiñean,
Gizonkil bildurgarriak
Eta «gurutzak» edurtzan.

Euskereak daukazanetz jakin bagarik ez gaitez an ibilli, arren, geure esakera ta esakune jatorrak, benetakoak, itxi ta itxusikeri arrotzak geure berbeteari ezarten. Lotsagarria genduke, ba, geure «oba ez!» etxekoa baztertu ta «zelan ez!» sasikoa onartzea. Oiakorik egundo bere ez!

Maitetasunez eta zintzo jokatu badadigu, indarbarritu dagikegu, ba, euskera, —oba ez!— naiz-ta arerioak beredin marrokeriz agertu.

AURRE - APRAIZ

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira astero-ko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartzetxe baten erakustokia izan nai danetik, Euskera bera beste edozein, bereko, politiko naiz ondasungarri asmoen gaiñetik daben iritzi-ongeri euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritzien, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egileak dira.

Agur au, bere zuzendaria ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M.^a MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.

Carretera a Galdácano, 32-Bilbao-4

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA

ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guttirako:

Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

E. Ozkin idazteaz bakarrik ezaguna, irakurri ditut zure bi atalak AGUR'en, eta zuk or diozunaz zurekin bat natorrela nai dizut esan.

Zuk aña ez det idatzi AGUR'era, baiña tarteka apurtxo bat bai, baiña zuk diozun bezela, saskira, txokora botako zituzten. Nerea ez argitaratzea ez da arritzekoa; zu baiño askoz ezjakiñagoa naizelako ta jakitzeko era gutxi izan dedalako.

AGUR'i esaten diozuna, nere uestez, ez dago txarto. Begi aurrean dago bide barria artu duela. Bide barria artzea onerako ba'da, ez dago gaizki. Baiña ondo aztertu bear da nortara geitu ta ugaritu eta atsegin izan jendearentzat. Bestela aurreratu bearrean atzera egitea sinale txarra.

Nere ataltxo, Eguarri aurretik bialdua etzaratzen argitaratu, eta an ipiñi nuan esanaz, ea nun diran orain iru urte AGUR'en idazten zuten gipuzkoarrak. Atzeraka egin al dute ala ez al dira argitaratzen?

Entzuna det, lanak aukeratu ta garbian jartzeko lagun bat bakarrik dutela, ta egun guztian lan egin eta illuntzi-gabetan egiten dula lan ori. Nik eskuz idatzita bialtzen ditut, eta ez da erreza izango orrela bialtzea irarkolara.

Dira laguntzarik be ez dutela izaten, ez beintzat bear dan neurrian, jakin det. Eta ortan dabilten iru-lau oiek asper-asper eginda, laister utziko omen dute guzia.

Ala ere, ta aurrera dijoan artean, nere iritziak eman nai ditut Bi urte inguru idatzi nun, Nere uestez askoz obe dala atal motxak, laburrak eta jakingarri geiago ipiñi, jendeak gogo obez eta errezagorri irakurtzen ditualako. Gaiñera, atzerriko zertxo batzuk ipiñi arren, aurrera Euskalerr'i ari leku eman eta errietako gora-berak eta gertakizunak eta berriak agertu bear dirala, ta gero, lekua zelan dagon kanpokoak ipiñi. Eta ez kanpokoak orri alde bat oso bete, ta etxekoak edo errietako berriak otarrara, saskira bota.

GOIZ-ARGI'n gertatzen dana, gauza bera itxuraz Nere lagun jator batek esan dit: GOIZ-ARGI'ra bere lana bialdu eta ez tutela argitaratzen eta asko sentitzen duala, jakiña.

Aldizkariari maitasunez idatzi eta txokorako, zer gogo euki leike bai idatzi eta arpidedun berriak egiteko. Nere uestez martxa jokabide traketsa, iru-lau idazlek orri alde osoak bete eta idazle apalenzat lekuri ez izatea. Eta jakiña, ustsean lana egin eta ez argitaratu, nork izango du gogo aurrera jarraitzeko?

Baiña askotan baserriko batek idatziatiko kontutxoak, idazlari sonatuaren atal sakonak baiño obeto ulertu ta ontzat artzen dira.

Begira Baserri jaunak idazten duan euskera baserritarra, zeñen samurra ta ulertu erreza izaten dan. Ori da bearrezkoa, erreza ta garbia izatea.

Amaitzeko, AGUR'en Antonio M.^a Labayen'ek idatzi ditun atal bi irakurri ditudala esan nai det. Zorion eta txaloak berari. Erdi bidea dio. Nun dago ordea erdi bidea? Ez alitzegon ondo baiño obeto aurreko Euskaltzaindian ipiñi zan euskera idazkera? Ondo eztagona zuzendu ta erreztutzea ondo litzake, baiña ondo dagona okertu ta traketsago ipiñi, nola ori? Egundo ez orrelakorik! Ondo dagonak ez du erdi bide ez zubirik bear.

Irakurri nitun GOIZ-ARGI'n Aurre Apraiz'ek eta besten batzuk esaten dituztenak, gure artean ere ba-dirala aibat erdibide ta batasuna nai dutenak. Nortzuk ote dira or, saltsa mikatza eta gozoa nastatu nai dutenak? Ez ote litzake askoz okerrago geldituko? Arritu nau «h» sartuaz euskera batua dala deitzea, «h»ak ezpaitu koma bat ere batzen, bertan dagon itza tutik ezpadut ulertzen.

Euskera batua, alkarren itz egiteaz danok ulertu al izango deguna, ori onena nere uestez.

SOIÑU - ZALE

ERES-MINTZAK

(Diskoak)

L. P. bi dakadaz gaur neure aurrean. Bata Portugalete'ko DANOK BAT Zortziko Taldearena da, C. B. S.'k mintzeratua. Beste, Columbia'k mintzeratua, eta onen izenburua Donostia'ko aratusteak (Carnaval de San Sebastián).

Ondo esana emen karea bata ta area beste, erdeldunak esaten daben lez. Gaiñean Juan M. Ares'en sarrera bat dakar eta onek baiño asko geiago esan bearrik ez dago.

Nik neuk izan dot Zortziko-talde oneri entzuteko zoria eta kideko diran batzukaz berba be egin dot inoz eta daukadan tamal bakarra olako zortziko-talde geiago ez izatea da.

Eres-mintza bera bear leiteken beste ondo mintzeratuta ez dagoala esan bearrean nago. Zortziko-talde au goratzen dogunok, mintzeratze oba, eskatuko geunke, baiña orrelan dala be, eres-aguri eder bat da eta gure etxe guztietan euki bear genduke.

* * *

Baiña bigarren L. P. sekua entzun ezarren tamalik txikienik be ez neuke izango. Donostia'ko aratusteak ala eres-mintza bera, zein dan atsegin ez jatana, ezpaian gelditu naz. Arrokeri usain bat artzen dautsat, aratusteak euren daben poza alde batera dala.

Aratuste onek gauza on bat bai ba dakarskula: atsedenera garoaz. Lenengo

ekiñaldia (diana) logurea emetoko lakoa da eta gure besoak, eres-jotzaillea ez geldituzko, geldiazotzen daukuz.

Lenengo mintz-aldea dana lo-eragi-ilea da eta azkenerako logura ori astun biurtzen da.

Baiña, lenengo mintz-aldea amaitzeran egiten dan ixil-uneagaitik edo, nagia kentzen jaku eta, «bigarren aldeak inoz ez dirala onak izaten» arren izan arren, legeak be beti ez dirala betetan eta, eresmintzaren beste aldea entzuten asten gara.

Oge-burukoa geure erara ipinten dogun artean, «polka» batek, itxarrik irau-nazoten dauku eta olako zerbait esanazo be bai: «Au beste gauza bat dok!»

Baiña ez. Barioo datorku logurea. Bereala begiak zabaltzen doguz eta euren lekuetatik urten bearrean jarten jakuz. Siniistu ezinikoa, baiña egia! P. Ugalde'zen «habanera» bat! Gure ikararak eta zirkiñak! Bizirik urtergo ete dogu!

Eskerrak, ain luzea izan arren be zati ori, «Ama-ordeen moztzoa» eltzen dala gure neke arintzera.

Labur-labur esanda, Donostia'ri zor jakon besteko aintza emoten ez dautsan errikeriz heteriko eta gudarozte-usaiña daroan eres-mintz baragarri bat, eta jai bat zer dan dakian edozein urirentzat be lotsagarri litzakena.

ARROGETA

EUSKALERRI'KO ARAZOAK

BERBALAPIKOAK ETA JESUKRISTO

Ez uste izan irakurle barrero zifcagaz matrakea emoten natorkizunik, ez. Orretarako egongo da ni baiño aztertzaile obeagorik; gaurko zirriborroaren gaia GOIZ ARGI aldizkari jatorretik artu dot, Agirretxe Aitak «Bilbo'n Aste zuri-gorri bat» izenburuagaz idatzi dauskunetik ain zuzen be.

Aspaldiko adiskideak gara gu biok eta ez gara asarratuko gauza askotan ikuspen ezbaridiak euki arren, baiña benetan kezkatuta agertzen jaku gure laguna len esandako lan orretan eta ez da arritzekoa diñozenak entzun ba'ditu.

Dana dala olakoak bera ta bere antzekoen erruz jazoten dira, batezbe, zubirik nai ez dabenekin zubigintzan dabiltzalako; olakoetan kaskarreko galantak artzen ditue, baiña ez dira azkenengoak izango.

Eleiz gizon naiz laiko, Nazareth'eko Jesus'eri buruz itz egiteko olako izlariak dakarreenak, ez dira linboan dagozan orretarikoak, ez; euren ezkertitazuna ta guzti, ganorabako batzuk dira onenean, eta gaizto aundi batzuk geienean.

Eratzailleen artean «unibersalistak» ikusten dodazenean enaiz ezergaitik be urreratzen olako lekuetara. Norbere burua erakusten datozenen artean euskal kutsuzko izpirik txikiena ikusi nai izateko, zelako amesetan zabiltz Eugenio adiskide?




Eleizako atek eta tellatu peak beartsuari edo igeska doanari zabaltzea ondo deritzagu, baiña barrutik satorrarena egiñaz, Ebro'tik aruntzko iritziak zabaltziak datorrenari bardiñ egitean... mutillak!

Barrero mamiñari oratuz ona emen Karmen'go Parrokian, Agirretxe'k diñonez, mai biribillean parte artu ebenak: A. C. Comin, Ag. Ibarrola, J. A. Pagola, Miret Magdalena eta M. Sacristan eta ba-dakizue olako bostekoa zertarako? Ba, Nazareth'eko Jesus'eri buruz euren «jakituria» erakusteko; Institutoan siñezmen ondatzaille dan «Pepon» eta basteren bat palta ziran tartean! Masokismoan eta sadismoan jausi zirala diñozu kristau izenekoak...

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

ZAZPI-KALEAK



CASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

ba, erderakadari esku emonaz, kijotismoa erabiliko neuke nik zuentzat entzuleen artean atzipetu zaituezenontzat.

Eleiza Instituzionalari egurra emotea erreza da gaur; errundun izanik arrazoizkoa dalako zati on baten, baiña etxe barrua garbitu bear ba'da etxekoan arteko auzia litzake ta ez auzoko etsai ezagun-ezagunena. Onartuko ete leukie maiko izan ziran bateon batzuk Praga edo Riga'ko Instituto baten, adi bidez, komunist agintaritzak aztertzer joango ba'giña? Stalin'en denporako astakeriak eta arrezkeroko askatasunik-eza adierazoten itxiko ete leizkigue?

Eugenio adiskide, errezen lilluratzan diran unbersitario gazteak be astoari belarriak ikusten asi diran une larri onetan, eleiz gizon batzuk, ez dakit zelako konplejuak jota, ago zabalik zagoze. Txapela buruan eta kurutzua izkutuan eroateko garaia joan dala esango neuke, biak agirian ondo eroan leitezke-eta.

Ondo esanak onartu eta gaizki esanak parkatu.

ARENAZATAR JOSU

AZKAZIA PIKUTARA

—EUSKAL BURGUESIA TA EUSKAL ERRIA—

Leenbizi, filosofiako ikasleari irakatsi oi diogunez, zertaz ari geran zeazki mugatu egin bear dugu: gure—naiz gureak ez izan—gure lantegietako «patroiez» «nagusiez» edo «ugazabaz» nai dugu mintzatu, ain zuzen ere. «Ugazaba» itzak funtsean ba du edo izan dezake zer ikusia «lord» ingeles itzarekin, bada, jakitunek diotenez, «lord» itza zeratik etor daiteke, alegia, «hlaf-weard» tik au da, «ogi-emaillea», ingelesez. Ugazabak, berriz, ezneemaillea edo iñori azkurria ematen diona. Nik neronez ez dakit «ugazabak» ezne-emailleak ote diraden edo «ezne gaiztoaren» eragilleak.—Ikus Azkue'n Iztégian «ugazaba» itza.

Euskal ugazabak, oro ar, zeero gaizki jokatu dutela euskal Erriaren arazoetan ezin iñolaz ere uka, batipat 1936-1939'tik gaurdeño. Guzion ama dan eta izan bear luken erria iru saietsetatik jo du ugazaba ankerrak.

1.^a—Azkaziaren aldetik. Joxe Migel Barandiaran'ek esaten zidanez orain dela zenbait illabete, Atauñ'en asko erabiltzen zen «azkazia» itza «enda» «abenda» edo «arraz» adiarazteko, gizaldi onen asieran. Gaur ez da erabiltzen. Bada gure lantegiak—gureak balirade utsa litzake—ugaritzen eta azitzen asi zirenean Madril'go gubenuaren estalpean eta beroan, leen asko «abarkadun» ziraden ugazabak goizetik gauera agitz dirudun gertatu ziraden, alde batetik, eta bestetik eun eta berealdiko arrotz--jendetza erakarri digute barruko errietatik.

Oraindik ez da illabete galdetu niola nere etxeko sukaldean Joxemiel Barandiaran'i ea egia ote den nik nonbait irakurri nuena, alegia, % 75 arrotzak direla egun Euskal Errian bizi diradenak, Naparro berezian utzirik. Ontzat edo eman zuen nik aurkeztutako lumeroa.

Ori ola bada, joan da, gaizki esan da, pikutara euskal arraza edo azkazia, Bergara'ko Teles Aranzadi'k ain maitekiro eta ain sakonki aztertu zuen azkazia. Gu, euskaldunok, ez gera gaur lau katu baizik Euskal Errian. Ez dut puntu ontan txeetasun geiago ezarri nai, izan dezan irakurleak astia naiz gaia bere buruz pentsatzeko.

2.^a—Ama-lurraren aldetik. Beste ua gutxi balitz bezela, «ama-lurra» zeero izurratu, bai, berresaten dut, izurratu digute. Gaur lotsa ematen du Euskal Erri zear ibiltzeak ere. Ibaiak eta erreka-ertzak zimaurtegiak dirudite. Baserriak, botatzen ez badituzte, ustutzen eta izkututzen doaz. Arnas garbirik ezin daiteke ar, leku askotan. Zer bizi-maña da au gero?

Ama Euskal Erria osotzen duten alderdietarik nagusiena lurra, ama - lurra da, ta jakitunek diotenez, zailena indarberitzen, gero bere onera etorzen.

3.^a—Ta, ori guzia ola delarik, gaurko euskal kultur-arazoei bizkarra eman dio euskal izatea ere merezi ez duen ugazaba biotzgabeak. Zenbait eta zenbait asmo eder bete al izango ziren, gure ugazabak beste era batera jokatu bazuten! Baiña, kultura zertarako? Izan ere, ugazaba oriek poltsak, patrikak eta kutzak diruz gainezka bete dituzte, doi-doi egunerokoa irakurtzen jakituz, gutun edo karta bat idazteko gauza ez direlarik, ez euskeraz ez erdaraz. Ogipeko, mendeko dugu gaur Euskal Erria, andik eta emendik.

Beñola, Bernardiña Devlin'i, leenengo aldiz Londres'ko Parlamentuan izan ta bere errira itzuli zenean, ala galdegin omen zioten bere erritarrak: —«Ta, zer moduz Londres'ko Parlamentuan? —Ta ark erantzun batbatean: —«Urdeak urde beti eta nonnai».

JOXE LASA

DIRUAREN MORROIA

Zuri idazten dizut. Zure bizitza guztia dirua dala uste dezun orri idazten dizut. Berarekin amets, berarekin lo, berarekin gose eta egarri, beraren atzetik zebiltzan orri, zuri, idazten dizut.

Dirua dela zoriona uste dezulako, diruarekin dana lortu leikela uste dezulako idazten dizut.

Zure elburua orixe baita: dirua egin; diru asko, montoi aundia.

Beste ezertxok ez zaitu ajolatzen.

Diruaren morroi biurtu zera. Morroi bizitzekotan, obe zenduan jaio gabetanik gelditzea.

Asarreak sortzen dira noiz nai zure etxean, zure lagunarteko txolartetan, zure lantokian.

Zu zauden lekuan an dira, inbiria, norgeiagokeria ta ezinikusia.

Ez diozu oraindik diruari bere neurria artu. Diruak zuri ordea, baietz esango nuke.

Zuk agindu bearrean, berak agintzen dizu.

Ta ara or ene kezka.

Itxuturik bizi zera. Zure aldamenean ez dituzu, goseak, egarriak, eriotzak, nekeak ikusten. Ezin dezu beatz bat ere mogitu besteen alde. Biotza legorturik, ta burua itxirik daukazulako.

Ta alare zure diru guztiakin, morroi bizi zera, gorrotoz, beterik bizi zera, inbiriz bizi zera.

Ta orrela ilko zerala garbi dago.

Baldin eta berriz jaiotzen ez bazera beintzat. Ta ori, oraindik, zaillagoa dala uste det.

Zu bezelako morroi izan ziranak ezagutu nitun, eta ezin zitekean agur tristeagoa eman ludi oneri.

Diruz beterik, baiña ekintza on bat gabetanik.

Zertarako dirua, zertarako?

RAMON ZAPIRAIN

IDA ZTI BARRIAK

GARATE, G.
MARX Y LOS NACIONALISMOS
SEPARATISTAS

Arrazoiak esaten dabe, gaur egun marxismoa modan dagoala. Baztar guztietan eta batez bere gazteen aotan Marx'en, Lenin'en eta Mao'ren izena geratu barik entzuten doguz.

Neste-borraste aundia sortu dau marxismoak euskaldunen artean. Lenago bat gñinok orain sakabanatuta eta alkarren aurka diardugu.

Marxistak ao betean esaten dabe munduko gauzarik garrantzitsuena gizarteko mallen edo klaseen borrokak dirala eta beste arazo guztiak orren aldean ezer gutxi balio dabela.

Baña askotan gertatzen dan lez, emen bere oso bana dira esatea eta izatea. Gotzon Garate'ren liburua irakurrita, neuk lenagotik susmatzen nebana argi azalduta ikusi dot. Au da: nazio guztietan jendeak askoz jaramon aundiagoa egiten dautsola askatasun arazoari, klase borrokari baño.

Garate'k ondo dion lez, alperrik izan ziran 1870'an Marx'ek eta Engels'ek Frantzia'ko eta Alemania'ko biargiñai egin eutsizan deadarrak alkarri gerrarik ez egiteko. Biargiñak lenengo lenengotik beren aberria defenditu gura eben eta gogor borrokatu ziran, nor bere erriaren alde.

Onengatik Marx'ek sortu eban Internazionala bera bere pikutara joan zan langilleen alkarri ulertu eziña zala-ta.

1914'an bere, bardin-bardin gertatu zan. Lenin biziro asarratu bazan bere, biargiñak alkarrekin ukabilka asi ziran. Bigarren Internazionalak bere, porrot egin eban, len bezela.

Gauza bera jazo zan 1939'an. Aberriaren indarra alderdi guztietan zelakoa zan agiri agirian jarri zan.

Au mundua mundu dan ezker gertatu da eta marxisten teoria guztiak makal agertzen dira abertzaletasunaren aldean. Eta alperrikan da esatea aberzaletasuna burguesen ipuñ bat dala. Errusia'ko biargiñak eta Txina'ko biargiñak ez dot uste burguesak diranik, baña or dabiz alkarri muturra jotzen, Usuri aldeko lurralde batzuek diralata.

Neuk Garate'n liburuan akats bat ikusten dot. Liburu amaieran «conclusio» edo ondorio batzuek jarri bear ebazala, orrela liburu osoa irakurteko astirik ez dabenak bere, liburuaren mamia jaso dagian.

Dana dala, euskaldun guztiak irakuri bearko leukien liburua da. Marxistekin berbetan egiterakoan, ezin leike argumentorik barik jardun. Marxistak ba dakigu zelakoak diran. Aginpidea zelan edo ala iritsi gura dabenak. Baña ez dira kokolaok.

Geienetan erdi-egiagaz etortzen yakuz. Beraz, egi osoagaz erantzun bear daufegu. Orretarako bada, Garate'ren liburua egokia baño egokiago begitatzten yat, iñoiz Marx geiegi goratu arren nere eritxiz.

Sakon eta buruagaz jardun bear dogu gauza auetan. Izan bere, askotan gertatzen yakun gauzia da, argumento barik gaudean, asarratu egiten garala, berotzeagaz arrazoiak bagendun lez.

Askoz ohea da astiro-astiro liburu egokiak irakurri eta gero patxaran patxaran argibide askoagaz erantzutea. Abididez, internazionalista izateko lenengoz norberak bere erria, bere izkuntzea eta ekanduak maite bear dauzala danok dakigu.

Baña irakurri barik zelan erakutsi bestiai?

GARMENDIA'TAR MIKEL



Zuri zerbait eskeintzean gaur, biarko emakumeare, zerbait eskeintzen dautsagu.

Ardurak kenduko dautzuezan egokiera aundiagoko laguntza barriak eskeintzean.

Gaur iñoiz, eta barriak diralako, zaillagoak iruditen jakuzan asmo barriak zuri agertzean.

Aurre-oinkada bakoitza neketsua ba'da gaur, etorkizun erosoago bat izateko dala uste izatea ederra da.

BANCO DE BILBAO



Emakumearen Banketxea. Gaur eta biar.


EGITAMU - AURREKOA

LAU URTEK SEIRA ARTEKO IKASTAROA

Benetako ikastolea, ume guztientzat, sei urteko diranean eta lenengo maillara sartzean asten da. Aurreragokoa, «Egitamu-aurrea» deritzagun aldia, umeen zaintzetokian edo «aur-baratzean» asi ta lenengo mailla aretara eldu artekoa da; lau urtetik sei urte ingurura.

Ez dira urte orreik dituen ume guztiak bardina. Bakoitza bere giroaren edo inguruaren seme edo alaba da. Ta gurasoak eta giroak ezberdina izaten diran lez, umeak be ezberdina agertzen dira.

Ala ta be ba-da bardintasunik; guztiak nun-zer-barri billa ibiltzen zaleak izaten dira, jakingura zorrotzduak, barruko bizitasunez beteak, ekintzetan sartzen zaleak, batez be gauzak eskuartean erabilteko ba'dira ekintza orreik. Esaten be zaleak ditugu, naizta beti esan ez buru-bide zuzenetik.



Zaintze-toki ikastoletara joaten asten diran adin onetako umerik geienak agertu-bearraren lenengo alegiñetan aurkitzen dira. Orregaitik, esangurea daben arti-lanak bearrezkoak dira adin onetan, eta maixuen eta irakasleen zeregiña, umeen erti-lan eta aurrerapenetan, oso ederra ta berarrezkoa da.

Erti-lanaren zergaitiak oldozmena bizkortu ta umearen asmatena ta adimena astinduko ditu. Orretan ondoren ona lortu gura ba'dau, egiten diran lan orreik garrantzizkoak dirala irakasleak berak sinistu bear lenengo. Zergaitiak jakin bear ditu, bera arduratuaz umeak be arduratu daitezcan.

Umeak inguruari begira oartzaille izatera eltzeko, irakasle laguntzaille, bultzalari ta umeakaz pentzakera trukalari zalea lortzea baiño beste biderik ez dago. Norberaren buruari ta erti-lanari begira erantzum onak eukitea, ez da berez sortzen dan gauza. Umearen egille-izate gogoa indartu egin bear jako, ta orretarako giroa irakasleak baiño obeto beste inork ezin legike sortu: Esaten jakon gauzeak berak baiño esateko darabilgun ereak indar aundiagoa dauka.

Umearen adin-aldi au, zirriborroak egiten ibilli dan denporearen urrengoa da. Marrazkiak lengoen antzekoak dira elduen begien aurrean, baiña umearentzat adin-aldi au ga-

rrantzi aundikoa da: len zirriborro utsak ziran, orain ba daki zer egiten dauan eta bere marrazkiak inguruko gauzakaz ba dauke zer-ikusia: idatziz bera barrua agertzen asi da.

Marrak eta zirriborroak geroago ta zer-ikusia gitxiago dauke gorputzaren berezko zirkiñegaz. Orain berak nai dauan tokirantz josten dau eta ikusten dauana besteai ikusi-azoten dautse. Berak gura dauan gauzeari antza emoten dautso. Eta ez da makala izaten ori igarten dauan umearen poza.

Geienetan, lau urte-ingurukoak danean asten da umea zer diran jakiteko lako marrazkiak egiten, sarritan zer diran jakitea erreza izaten ez ba'da be.

Bost urte inguru dituanen, ia beti, eza-gutu ledikez bere noriak (personak), etxeak, zuzagatzak... eta sei urte dituanerako marrazkiak gaia dauke eta esangurea argi agertzen dabe.

Aurrerapide onetan, umeak beti diardu barri-billa eta len erabillitako ezaugarriak sarri aldatzen ditu: Atzo marraztu eban gizona ta gaur marraztuten dauana ez dira antzekoak, eta gaur egiten dauana be ez da biarkoalako. Antzera esan bear zugatzai eta etxeai buruz be.

Baiña sei urtera altzen danean, eskema ziur bat artzen dau. Lenengo maillako umeen marrazkiak ondo begiratu ezker, baten eta sarritan gauza bardina zelan marraztuten dauan konturatuaz ezagutzen dira.

Eta margoa kontuan artzen ba'dogu, eskema-aurreko umeak ez dabe margorik kontuan artzen; curak gura dabezan gauzak egiteko trebetasuna, euren pentzakeraz agertzen dabe. Baiña margoak erabilte atsegin jake. Margo orrek ez dauka ezezagaz zer-ikusirik, baiña margoak asko atsegin jakoz, eta bere aukeran erabilte gura dau. Ume bateri margo (kolore) bat txarto erabili daua edo marrazki aretan zein margo erabili bear dauan esaten ba'jako, bere esangureari kalte egiten jake.

Umeari era guztiak emon bear jakoz, berak margoagaz ditun artuemonak askatasun osoaz izan dagizan. Koloreak erabilliaz, berak ikusiko dau marrazki bakoitzarentzat onena zein dan.

Adin-aldi onetan umearen poza, gauzai antza emotea eta berak ezgutzen dauana agertzea da. Erti-lan guztiak, gai orreik askatasunez erabilteko era emon bear dautsoe.

Egiteetarako bear dauan askatasuna sortzeko, auxe da era on bat: margo latsunura artu eta orri zurgari aundietan zabaldu zurdaki batekin. Ore edo argizai antzeko margoak be onak dira, ta ume batzuk, egunero erabilten daben arkatz beragaz be margazki zeatzak egiten dakie. Len-gai orreiz gaiñera ba-dira beste asko be. Ez aitzu buztiña, aurrera-bide aldi onetarako oso egokia da. Arbela edo tiza naiz arkatz kiriotuak edo ingi margotuak be oso egokiak dira.

Baiña kontuz ibilli gaiak larregian aldatu barik, ori galgarria litzake umearentzat. Ez dau gai asko erabilten ikastea maite, bere barrua, oldozpenak eta ardurak agertzea baiño, beretzako esangurea izango duan neurrian.

M.

ARROL - DOLARRAK

Arrolioak emoten dautsezan ondasunak, zein bidetik joango ete dira arabitarren aurrerapenerako? Atera daben naste ori aterateko, izango ete eben arabitarrek aurre pentzabide sakonik arrolioa dala-ta? Ez da baiña erreza zein izan dan jakitea.

Batzuk diñoe, laterri aberatsak asmatu daben gauzea dala, orrelan atzeratuta dagozanean diruketeari astinaldi on bat emoteko. Besteak, erlejiño antzeko errazioak ateraten dabez. Beste batzuk oster, urrezko arrautzak egiten dituen oilloak betiko ez dirala ikusi al izan ei dabe arabiarrek, eta indarraldi aundia eginez, laterri aundien maillara igo gura ei dabe laster baten. Baiña guda-izkilla lez darabilleta da eurak eta askok diñoena. Askotarikoak dira ba eretziak.

Auxe bai naiko argi ikusten dala: Arabitarrek alde batera itzi ezker, gora-bera oniek kalterik gitxien egin dautsen laterriak, URSS, USA ta Israel izan dira —kalterik gitxien baiño obeto esana litzake, mesederik geien artu dabenak dirala esatea.

Baiña larruone onetatik letorkezan ondoren guztiak ezin izango doguz aztertu emen. Orretarako jakin bear geunkezan agauza asko ez dakiguz-eta. Gaiñera arlo oso nastatuan sartu geintkez.

Baiña azterketa argi bat daukagu begien aurrean: Arrolioaren salneurri goratze onetako irabaziak, zetan eta zenbaten sartze ete dituz arabiarrek? Nire ustez, auxe ikusi bear ko da; onura izugarri onetatik zatitxo bat beintzat arabitarren aurrerapenerako erabilten dala; erria, larregian ez ba'da be, len baiño obeto bizi dala, batez bere gudaritzara sartzen diranak; goiko agintaritzak indartsuago eratu dirala; beko egiturak edo erakundeak, itxuretan beintzat, obetu dirala; diruketeak aurrerapena izan daua; urterako kontu-aurre orreitan ezketarako diru geiago izendatzen dala, eta guztiok buruan daukaguzan olako beste ainbat gauza.

Carlos Gutierrez Diezquijada jaunak izenpetutako idazlan eder bat irakurri dot «Contrapunto» aldizkarian. Jakingurri asko aztertzen ditu gai oneri buruz. Orren laburpen bat euskeratuko dot irakurleentzat: —Arrolioaren salneurria goratzeak, sartaldeko laterri langintsuen diru-almenetan ur-zulo arrisksuak zulatu ditu.

—Ondorenok eldu jakezan laterrietako diruketa makaldia bideratzeko neurriak, urtenbide argi ta epe luzean barruan billatu bear ko dira.

—Urtenbiderik bear ba'da, ulertzeko erreza ez ba'da be, arrol-dolarrak eurak izan bear ko dabe. Orrelan, kaltea etorri zan bide beratik etorriko litzake osabidea be.

—Arrolioaren irabazirik geiena, Ipar-amerika'ko ta Europa'ko diru-etxeetara doa, batez be Kuwait'eko jaunaren irabaziak Ingalterra'ko diru-etxeetara. Izkilluak erosteko, amabost milla millo dolar baiño geiago...

—Diruzatik geratzen dana, betiko bideetatik zabaldu da ba; esaterako epe laburrerako emonaz; atzerrietako dirutan ezarriaz; Euro-diruen tarteko izanaz. Baiña azken urteotan sortu diran goraberak eraginda, Erdi-sartaldeko ta Europa'ko laterrien artean izaten diran artu-emonak asko aldatu dira. Orre-gaitik, arabitarren lengo politika egonlaria, inoren kontura bizi izan dana, itzi dabe. Arrolioaren emote ikaragarriak ainbestean eragin daben diru-arintze edo putzutea ta laterri askotan diruak egin dauan berakadea, euren irabizientzat beste gordebide ziurragoak billatzera beartu ditu arabitarrek.

—Iran'ek be, arrituta itzi ditu munduko ekonomilariak, Krupp —ta beste batzuk gero— ospetsuaren diru biziit % 25,04'a artu ebanen.

—Beste laterrietako agintariak be antzeko bideak artu dabez: Kuwait eta Abu Dhabi'k Londres'ko Etxegiñen diru azokan; Qatar'ek Paris'en; Saudi-arabia'k USA'n...

—Beraz, laterri orreitatako biztanleak munduko aberatsenen artean egon bear litzakez, baiña ez dagoz. Euren gizarte arazoetan atzeratuak dagoz, eta askoren atzerakuntza ori gitxiaren aberastasunagaz alkatzea oso gaitza da. Orduan, eurentzat ardurarik aundiena etzeko aurrerakuntzeak izan bear ko leike.

—Eta datorkezan irabazietatik zenbat erabiliko ete dabe euren aurrerakuntza ori lortzeko? Laterri guzti orreitarako erantzum bardina ezin emon; euren ekonomi, erri-ugaritze ta politika naiz erlejiño erakundeak be ez dira bardina, antzekoak ba'dira be.



—Gai oneri buruz, laterri orrein artean iru eratakoak aurkitzen doguz:

1) Biztanle gitxi daukezanak, esaterako Kuwait, Persi itxas-kolko inguruan diran emir-erriak, Oman eta Libia. Oneik ez dauke politika ta agintaritzak erakunde eraginkor edo gaurkoturik. Ainbat diru erabilten dabe etxeok onerako, baiña ez gitxiago kanporako.

2) Lendik aurrerabidean sartu naian ebillazan laterriak. Onein erakundeak be ez dira osoak, esaterako Arjeli, Iran eta Iran'en. Arrolioaren irabaziak etxean bear ko leukez.

3) Saudi-arabia'k zortzi millo biztanle ditu, baiña gizon-indar, trebetasun, adore ta politika ta gizarte erakundeak atzeratuak ditu eta aurrerapenean lan gogorra egin bear ko leuke.

—Europatarren eritxiz, lenengo taldekoak % 15'an geituko ei dabez kanpoko erosketak; bigarrenkoak % 40'an edo geiagoan, eta Sauditarrek % 40'an. Guztira euren erosketak 1978'gn urtean, 54.250 millo dolarrekoak izango ei-dira, eta ori orrela izanik, euren irabazi barrietatik % 30'a izango da eroste orreitarako, eta 61.400 millo dolar geratuko jakez euren eskuetan.

* * *

Argi agiri da ba or, diru erabilketa barri bat datorrela, ta erabilketa orretan geien irabaziko dabenak ez dirala arabitarren erriarrak izango. Irabazle aundien urtego dabenak «Arrolio-erregeak» izango dira ta euren ez da zati makala izango. Or agertu doguzan diru erabilketa naikoa izango dira, bear ba'da, Urreko Sorkaldean bearrezko diran aldakuntzak egiteko, baiña...

Gutierrez'tar Karlos'ek be ba-diño bere idazlan orretan, zelako industria berenganatuko daben, bere ustez, laterri orreitariko bakoitzak. Urrengo baten ori aztertu bear ko dogu.

Edozelan, ez dira naiko arabitarren diruk, laterri orreitan naiz atzerrian bear diran aiñako aurrerapenak eragiteko. Europatarren eta amerikarren trebetasuna, lan-oiñurea ta laguntasuna bear ko dira, ta ez gitxiagoan sartaldeko dirubide eunduen joko.

Beste au be ez dogu aitzu bear ko, ta kaleko esan «bakoitzak urrezko arrautzak egiten ditun bere oilloa dauka» esan bear ko dogu. 1975'gn urte onetan ez da ona izango inoren oilloa jatea geurea be barru-miñez edo ilgo litzake-ta. Zenbakiak or dagoz. Ez daukat eritxirik emon bearrik, gaurkoz.

ORTZE

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra
BILBAO - Casco Viejo
Tenderia, 15 eta 16

FERRETERIA UNCETA, S.A.

Landola tresnak - Galtzairu neurri zeatzekoak

Langailu guzietarikoak - Leunketa gaiak

Ibarrekurutz kalea 14

71-10-00 Urrutz.

Apartado 18

E I B A R

AUPA "ITURRI"!

Gernika'tik Amorebieta'ra duan bidean, Oka baiño lentxuago, eskumatarara «pista» bat artu, tren bide azpitik igaro, aldapatxoa igo ta ezkerretara baserri bat agertzen da.

Txakurra zaunkaka.
Kotxetik ba nua saltaka.
—Nun da emen Iturri bertsolariaren etxea?
—Ez iñora joan. Sartu aurrera. Zabalik da atea.

72 urtedun amanotxoa izan da atadira urten dabena. Florentina. Igarra baiña fiña.

Sukaldean, mutikotxu bat: Iñigo. Bertan Pedro Ortuzar, «Iturri», kotxe baten exerita eta emaztea otz daukazan eskuetan masajeak emoten.

—Arratsaldeon. Zelan gagoz azpaldiko «Iturri»?

—Ala ekarri. Karrotxu onetan nai-ko biurri.

Berrogetabi urte daukaz bertsolariak. Gaur aidean dago, «notizia» da. Igandean, Otsailaren 16'an, Euskalerriko bertsolariak omenaldi bat eskiñi eutsen Donosti'ko Astoria'n. Iturri ez da, berak be ba daki, Euskalerriko bertsolariarik onena. Bai, gaur, zoritxarrean jausita dagon errukarriena.

«Iturri», bertsolari lez, amalau urtegaz asi zan plazetan. Gogoan dauka berak. San Estebantxe beti len letxe esaten da, baiña orain 28 urte, orrelako egun baten bizi barria asi eban beretzako. Denpora illunak ziran, gaitzak, baiña Euskalerrira bertsotan kantaten asi zan. Gerekiz'en zan ain zuzen be. Auzoan. Enbeita «Urretxindorra» eta Patxi Madariaga izan ziran, esateko, bere aita besutakuak. Irurak kantatu eban eta berak gogoan daukaz orduko txaloak.

Gero, Euskalerrira maitasunez, Bizkaia guztian ibilli zan. Bateko premiña ta besteko alegiña, bateko laguntza ta besteko estuntza bitarteko zirala, erri bat eta beste, erriz erri ezagutu eban bertsolari txikia. Sekula ukatzen jakin barik. Bere sasoi bertsolariak ez eukan oraindik gaurko nortasun eta eratasunik, alegiña diruz ordainduta artzeleri.

Bertsolari eguneroko bizia eukan, eguneroko biarra: baserrikoa.

Bein ordaindu eutsen ondo. Esateko dauka. Izpaster'en. Andre eder bat eskiñi eutsen, etxerako andra jator bat: Pilar Arrizubieta. «Iturri»n abi barri bat sortu zan. Iru neska mutil etorri ziran bien maitasunetik. Irri-barrezka bizia.

Eta egun baten, kamioi baten ioiala, ez bear negargarri bat. Ara ametsak, alegiñak etenda. Bizia urratuta. 1970'ko Azillean zan. Geroztik etxean, sukaldean, gaixo eta ez-beartuen kotxe bat ikusten da. Bertsolaria, indar barik, etendako gorputzez, etxeari begira bizi da, ama zarrak, emazte borrodatetsuak eta oraindiki eskolan dabizen umien laguntasunari begira.

Euskalerriko bertsolariak, denpora barrietan, lege zarreko oiturak gogoratu dituzte. Amarrenak eta azikiñak, primiziak, eskintzen ziran legea ez al eban ezagutu gure erriak? Berbiztu daigun, esan eban norbaitek. Eta laguntasun ori oparo eskintzeko, orra Donosti'n, teatro baten, zoritxarrean jausitako anai bateri gizotasunez, maitasunez eta anaitasuneko zorrez laguntasun bero bat eskintzen.

Kepa Enbeita'k emon eutsan asiera jaiari, «auzoko ta anaiari» eskiñitako jai oneri. Ala jarraitu Kosme Lizaso'k Gipuzkoa'ko anaien izenean. Eta orrela, Balentin eta Kepa Enbeita, Kosme Lizaso, Lasarte, Azpillaga, Lazkao-txiki, Mattin, Arozamena, Lazkano,

Agirre, Lopategi, Joxe Lizaso, Gorrotxategi, Larrañaga, Garmendia, Mitxelena, Egileor, Arregi, Ibarzabal, Etxebarria, Jon Enbeita, urten alako erreskadan.

Bertsolari geiegi, jai bete ta egoki bat osotzeko, baiña zeñiek ukatu bere eskintza biotzez lagundu nai ebenei?

Iturri, esan benetan: psik?
—Gaur ikusten ba nazu be otzez, Donosti'n biotza saltoka nebilen-esker onez.



Danentzako eskerra agertu nai dau berak. Eta ez dauka aztuta, nai eta orduan eratzallien alegiñak probetxurik atara ez, aurreko urtean Zarautz'en egin eutsen jaia.

Kontu kontari gabiz. Barriro gatzetako kontuak. Aldama'k erabilten eban «Garreko» taldea, bilbotarren «Dindirri», txapelketak, —Mungia'n bigarren geratu zan bein—, eta abar.

Mesede bat: Kantatuko al zenduke bertso bat nik idatzi daidan? Ez dauka ukatzerik. Orra:

Silla onatik mugitu barik daroadaz lau bat urte, baiña euskaldun aingeru batzuk oraindik laguntzen dauste; pozaren pozez zuen aurrean zoratuta naukazute, txiki nengoa baiña gaur zuek andi biurtu nazute.

Barriro kontu zarrak. Bizitzako orritzak. Eskolan dabizen neska mutillak, iru seme-alabak, gogoan daukaz. Emazteari diñotso: Ekatzu, Pilar, kuadernotxu ori. Bere alaba Aintzane'rena da. Gernika'n dabil eskolan. Eta aitari poza sartzeko berak be bertsolari izateko gogoak erakusten dau. Kuadernoan idazten ditu. Ara bere zortziko txiki bat:

Euskera maite ba'litz gaztien artien, obeto biziko giña jaioko lurrien, Euskera galdu zaigu gaur zoritxarrien, penaz bizi bearra gure Euskalerrien.

Ederto. Txalo Aintzane'ri. Egunen baten, aita bere kotxean eta alaba sutondoan, laster asiko diramaitasun bertsotan, anai arteko laguntasuna gogoratzen. Zoritxarrik ikututako familiak maitasuna biziago sentiduten dabelako.

Besarkada bat, «Iturri», ta eutsi, eutsi biziari.

ZUBEGI

MARKIÑA

AITA ERRAPEL

Jaunagana joan-barri dogu, otsailak 11, larogetalau urtegaz Aita Rafael, edo berak geienetan izenpetu oi ebanez Errapel Abak karmeldarra. Ziur gagoz, onezkeru sari bikain ederra izango dautsala Jaunak bere morroi zintzo oni. Labur jardun nai dogu; Errapel bera be ez bait-zan zarata ta zarraparra-zale, eta bere on-egiteen turuta-jotzaille be. Itzak baiño maiteago jakozan egiteak. Ez egokion gure napar-esara zarrarena: Erranak eder, egiñak lander. Bai bestetara.

Naizta prailleen nagusi (Altzo, Donostia, Eibar, Larrea...) sarritan izan, eta bere sasoi onenean eleiz-izlari trebe ta biozti, bere egiterik ederrenak ez ziran agirikoak, ixillekoak eta apalak baiño; txalo bakoak eta konbentu-barrukoak: gelan, eleizan, sukaldean, baratzean... edonari edozetan laguntzeko beti gertu, esku-zabalez ta irri-barreka. Adimen-gaietan baiño areago aolku zur eta esku-lanetan. Bakotxak bakotxaren doaia. Danen gaiñetik bere tokirik maiteena autor-lekua eban, Kristo'ren ordezkoren tokirik aukerakoena. Zutunik ibilteko aala izan eban bitartean, nekéz uts-egingo eban prailleen eguneroko otoitz eta beste egin-bearretan. Azken urteotan narras samar eta tirri-tarraka, baiña tinko.

Otoitz-zalea, apala, zentzun andikoa ta ixilla. Ta ixil-ixillik agur egin dausku geixoa'di labur baten ondorren. Lourdes'ko Amak bere egunsentian eroan dausku goxo-goxo jaia beragaz zeruan ospatzera. Berarizko zaletasuna eutsan izan be Ama Birjiñari, batez be Karmen'go ta Lourdes'koaren izenean.

Bolibar'tarra zan seme; 1890'garrengo jorraillaren 22'an jaioa. Emeretzi urte bete ebazan egunean berean, Urionaguena eta Garro'tar Joxe Sotero mutil gazteak Larrea'ko Amaren oiñetan egin eban profesia, bere izate osoaren eskeintza gozoa, Joseba Deunaren Errapel izenagaz. Eta 26 urtegaz mezkotu Gazteiz'en 1916'garrenean. Urrengo ogei urteetan asko ibilli zan Bizkaia'ko ta Gipuzkoa'ko erriak zeak mixiño ta apaiz-jardunetan.

Bein Lezo'ko errian iru karmeldar mixiñoak emoten. Entzuleen artean Lexoti bertsolaria. Mixiñoak buruz zerbait kantatu gabe ezin egon gure bertsolaria ta ona emen orduko bere aapaldi batzuk:

1.—Milla urte ta bederatzieun da gañera ogei ta bestian, ditxa eder bat izandu degu aurtan Lezo'ko partian. Ejenplu au nik zabaldu bai det jende guztien tartian, iru Karmentar erri onetan nola izandu baitian, gustu ederra emanak dira bederatzieun batian.

2.—Aita prai Tirso omen degu bat, Aita Rafael bestia, irugarrena agintaria, etzan kuadrilla tristia. Pensatu dute salbazioko bidia erakustia, Jesusi zenbat kosta zitzaion arimak irabaztia, orain zer pena izango luken galduta bage uztia!

10.—Onenbestekin akabatzen da misioko asuntua, pekatariak konbertitzeko ba dadukate kontua. Irakurrioka ekarri dute erlijiojo puntua, askok bezela baldin banu nik interesaz aumetua, Lezo'ko errian egingo nuke orientzat konbentua.

(AUSPOA 115 zkia. 78 or.)

Ogei urte egin-egiñean apaiz-lanetan ziarduala... ta orra nun datorkingun etxera, guk deitu gabe, egoaldetik, ez dakigu Kurutze-gerra zanik, baiña bai amaikaxorentzat benetako Kurutze-bide latz eta luzeegia. Larrea'ko nagusi Aita Errapel. Beste mutillak, deitu bakuok, eldu arte ez eban ango prailleak gora-bera andi ta estualdirik ezagutu; gerratean nai-ta-ez oi diranak bakarrik. Gudariakaz artu-emon ta adiskidetasun ederrean bizi ziran.

Besteok sartuaz batera, Zornotza'ko nagusia, Aita Roman Zaldibar'tarra, Larrea'ko baratzen orma-kontra garbitu eban ezetarikoz auzi koplarik gabe. Ez ziran nasai egoteko orduak. Olan ta guzti be Larrea'ko konbentuaren zain geratu zan Aita Errapel beste praille batzukin. Laster jausi ziran militarren atzaparretan. Larrea'tik Durango'ra (bidean garbitzeko asmoz? beñiñepein ormara begira ezarriak izan ziran). Durango'tik Gazteiz'era ta ille bi barru Bilbo'ko militar-epaitegira. Erabagia: amasei uterako espetxea. Ez zan sari makala, naizta geroago iru urtera jatsia izan. Andaluzia'ko Carmona'n emon ebazan geienbat iru urteok beste praille ta abade talde andi batagaz. Ara eroan eutsen Besteiro jauna be ta adiskide miñak egin ziran. Praille-abadeon besoetan emon eban Besteiro siñisbakoak bere azken arnasa.

Zigorra bete ondoren, ez eban Errapel Abak ezer aldatu bearrik ikusten beragan, eta lengo bide jator zuzenari jarraitu eutsen azkenertate. Eta izkenean Aitaren eta Amaren. Itzaldi bero bioztia egin eutsun. Ogetamar praille-abadeok lagundu eutsun alkarr-meza ederrean. Itzaldi bero bioztia egin eutsun Aita Akesolo'k, ildakoaren espetxe-lagunak.

Agur, ba, Errapel Aba zintzo ta ona! Lagundu goitik ain maite dozun eta ain illun agiri jakun Euskalerrira'ri!

Bertoko prailleekandik jaso doguz barriok, batari ta besteari itaunka. Onez gañera, ba-dakigu papelmordo galanta itzi dauala guda ta espetxeko gora-berai buruz egunetik egunera idatziak. Bear ba'da, kir-killok baiño egokio ta zeatzago emongo dauskuz nunbaiten bertoko prailleen batek jakingarri litzakiguzan barri geiago. Bedi!

KIRKILLAK

ARRIETA

Galdakano

ESPETXEAN EZKONDU

Aspalditxoan aurkitzen dira espetxean, beste askoren antzera, Azpuru ta Bikandi'tar Ester eta Etxebarria eta Goenetxe'tar Xabier euskaltzale gazte kementsuak. Basauri'ko espetxean jakia.

Atzillotuak izan baiño lenagotik ziran alkar maiteminduak, eta jakin ez arren azkatasun bage noiz arte eukiko dabezan, Otsail onen 14'ganean ezkondu dira espetxean, zuzendariagandiko baimena lortu ondoren. Ezkontzaille Arrasate'ko Sagazta'tar Tiburtzi apaiz jatorra izan zan, espetxeko apaiz dan Prieto'tar Andres jaunak bikainki lagunduta.

Ester, galdakanotarra, emakume lirain euskaltzale au bai dala jatorra biotzez eta kemenez. Xabier, zornotzarra, soñez eta egitez andi ta zintzoa. Zoriontsuak izango al dira, orain ez ba'da be, laster baten, azkatasuna lortu ondoren euren buru-jabe izaten diranean.

GURE ARTEAN

Opor-aldiko egunak igaroten etorrita, Erlexteta'ko Basakiña-barrena etxealdean dogu egun oneitan umetxotatik Valenzia'n aurkitzen dan Arrieta'tar Sabin mutil gazte euskaltzalea. Osaba-izekoak ikustatuaz amaren inguruan egotaldi bat egiten etorri dala esan dauskun arrik, ez ete da emengo neskatil lirain euskaldun batekin itz egi-tearren etorri? Ba-litzake, lenago be inoiz esana da-ta, bere biyotza euskaldun neskatilla batentzat izan bear dabela. Valenzi'ra eroeteko ala bera barriz Bizkai'ra itzulitako ete? Naiago genduke onetara ba'litz, Sabin!

OPORRETAN

Naitanaiezko oporretan aurkitzen dira Firestone'ko bi anai ta geyago langille, ta landola orren lantegi bata gure erriko Usansolo'n ba-dala-ta —bestea be erri aldamenean— orreitatik lauren bat beintzat galdakanotarrak edo emen bizi diranak diran ezketiño, urduri-izate andija dago errian, eta giro txarra suzmetan dogu gure langilleen artean. Lerro oneik idatzi daguzanean beintzat, ez da auzi ori tolostuko dan izpirik ikusten.

Gure irakurleak jakingo dabenez, opor ori ez da gitxiago edo geyago irabaztearren, ez da ba txindi arazoa, naita danok nai izan txindi geyago irabaztea. Barruko, landolako araudiatzako eztabaide da. Langilleen erretxiz araudi ori naiko gogorra izan arrik, estuago bat jarri naita suzmatu dabe. Orregaitik urten ziran lenengo, ta amabost egun lan barik egon ondoren, barriz sartuten asiak ziran, baiña langille batzuk ez zirala deituak izan ikusi ebenean, barriz geratu ziran, eta bereala landolatik atereak izan, noz barriz sartuko diran ez dakiela.

Lantegietan izan be, agindutako danak edo askotxo izaten dira. Ugazabak edo agintariak beintzat. Baiña oraingo auzi onetan lez, zerbait erabagi bear danean, agintari orreitatik inork ez daki edo ez dau jakin nai ezer, langilleei erabagi ziur bat emetoko beintzat. Eta ori dala-ta, langillea bide zuzen bat idoro ezinda dabil, naita errazoi guztija eurok izan, ez dabe languntza zintzorik ifondik aurkitzen.

Erabaki emoikor bat opa duatsegu biyotzez langille nekatu orrei.

BASA-JAUN

Txori-Erri

GARITONAINDIA'TAR GOTZON'EN ADISKIDEARI

Pozik irakurri dogu Gotzon'en lagun batek emon dauskun erantzuna, batezbe, bere eriotz urtegarrenean, urrun egon arren, gogoratu zala jakitean.

Azkenengo lerroa baiña zirikada antzekoa da, gureari erantzuteko jaurtia gure erretxiz.

Ba, ez lagun, guk albiste a argitaratzeko bota gendunean minduta, oso minduta bota gendun eta ez bestelako asmo txarrez. Minduta zergaitik? Ba ainbeste lagun eukazan abade jator aren mezea ezagutzen ez eban batek emon bear izan ebalako Mañu'n eta orrez gaiñera erdia baiño geiago erderaz entzun gendulako Urduliz'en...

Ez dozu uste itxitasun ori kopetaraño betetzeko bestekoa izan zanik?

Zorionak eta eskerririk asko zuri, argi bide orregaz emon dauskun pozagaitik.

BERBERAK

Arratia

Joan ziran, ba doakuz... urrango gu, azken-ondakiñok.

Orain ogeitamarren bat urte Bilbo'ko nasa (portuan) ezagutu nituan arratiar, txorierritar, mungitar eta zeinbat lekutako besolangille, areitz-garrastak lakoxe gizontoak, datorkidaz gogora. Morrosko ederrak, jan-edanera oitua, indarra tuterrez, lan gogorrera eziak, lanaren lanez zailduak.

Aldi motz (labur) baten buruan, areitako iru arratiar joan iakuz, borbor irakiten ari dan lur iztillutsu onetatik, betikotasun baketsura: Artaratz, Garakoi'ko txatua, G. Urkidi oraintsuen (G. Bz.).

Eguzkitan naiz eurtan gizonak ziran aiek lanean, ez azken urte oneitan andik, ortik, edonondik azaldutako, agertutako garrime, atzez estu, ule-bizar usak.

Bizkarra uraturik, aragi bizian, eundik gora kilotako zorroa ganean maillatan bera ta gora egun guztian, bizitako urterik geienak.

Lengoen indarra garri-besoetan. Oraingoena bizarrean, ulean... mingaiñean eta belarri zuloetako zimaurtegi edo sastegian.

Mungi-Arrati-Txorierrit'ko morroskodia igartu zan, arein neke-lagunak azken-lorean... 70-80 kiloko zorroari bizkarra eskeintzeko gai dan gizonik ez da agiri Bilbo'ko ibai zikiñaren ertzean. Zarrak zartzarogatik, eta gazte barri «protestalariak» bigun eta samurrak diralarik... bearko dogu tramakulurik, makiñarik, lanerako erretzasunik, («fazilitaterik»).

Erriketarik (politikarik) inoiz eta inon eze-goala usterik-edo... ala usteazo nairik?, aspalditxo ontan ba-dogu, erriarazoari buruz, zirimirrizko esanbearrik. Ezkertar eta eskunatar katoliku. Batzuek txinatarren ugoloa (arroz) nai, bestetzuek ukrainatar menperatuen lurretik Rusia'k etxeratzen dauan garia. Erri-zaleak eta erri-saltzalek. Alako ta olako karlatar eta bestetariko besterik.

Itxi daigun baiña, gaurkoarren, erriarazo politikua alde batera, eta jo dezagun (daigun) zerrako bideetan gora.

BARRIAK

Kristau-erlejiñoak, gaur-egun, zenbat doguz?

Egun gitxi batzuen buruan (barruan) biltotar goizollanda bi lenengo, eta muxikar gizon-zeko bat urrango, izan dira gure artean. Mingaiñak koipetsu ta laban, Biblia eskuan, bakoitza bere erako Kristo'rentzat arima barriak erosten. Itzontzia bete-beterik eta eskutsik agertu ziran.

Egun batzuk geroago erriz erri dabilkigun ondarrutar bat, euskaldun gartsua. Iizetan txiki ta emoten aundi. Eskerrak, ondarrutar eskuzabal orri. Gogoa izango dozunean barriro ere etorri.

LANDAJUELA'TAR A.

Arrasate

AGATE DEUNA

Aurten be urten dira Santageda mutillak. Taldeko izan ziran eta gaur Juangoikaren deiari erantzunaz, Bere ondora eroanak izan diran arima alde, goizean meza entzunaz, asiera eman zioten. Azkenengo il dana Larrañaga'tar Inaki izan da, gizon gazte eta osasuntsua, baiña ez-biarrez illa. G. B.

Gero talde bitan eratuta baserri eta auzoetara urten ziran eta eldu ziran etxeetan oso ondo arturik izan ziran, eta ez da gutxiagorako be, ainbeste abesti gozo eta ain ondo egokituekin. Gure etxe inguruan be talde orretako batek abots-bakar ospetsu eta alkar batuta, ezin baiño obeto abestu zigun, Barrutia'tar Josu zuzendari zala.

Abestalde onen asmoan (orain dala 27 urte inguru agertu ziran-eta) biltzen zan guztia Gaxo-Etxeko txiro eta gaxoai laguntzeko, bere egiteko urrena izan zan. Igaz 55.000 pezeta inguru batu zan eta orrez gaiñera beste jangai batzuk: arraultza, txistor eta abar. Ba-dira talde orretan 25 urte daroezanak urtez-urtez abesten. Zorionak guztioi ta jarrai bide ortatik, gaxo eta beartsuei laguntzen eta bide-batez euskal oiturari eutsiaz.

ERIoTZA

Aurtengo neguau, otzez ez ba'da izan ain gogorra be, zaar asko joan zaigu tamalez. Oraingo ontan bere txanda izan du guren lagun izan zan Olabe'tar Jon, bere bizitzako 84 urtegar. Ola-gizon ospetsua izan zan eta bere langilletasunak eraginda lantegi polit bat daukagu errian, untze eta olako lanak egiten dituala. G. B.

UDALAITZ

GORBEITARRA

Zeanuri

Txitxi-burruntzi edo kanpora-martxo eguna izan barri dogu. Ainbat jente ibilli zan alaikiro ortik eta emendik lukainkakaz koipetsua egiten. Batzuk urreko atx aldera, beste batzuk Santa Ageda'ra ta geienbat Pagomakurre'ra.

Guk baserri zar onetan egin gendun, auzotar batzuk etorri yakuzan lagun egiten, baita Jenerosa'k peilla apitzek ekarri bere, ta antxiñeko barriek kontua.

Santa Ageda aurreko egunean, Euskalerrit'ko oiturari jarraituz, Arrati'ko Abesbatz entzutetsua ibilli zan, batez bere Bilbo'ko aldean kantari. Eurok batu ebena atzeratuen alde izan zan. San Anton'go eleizan mezea entzun eta Agur Jaunak abestuta amaiera emon eutseen.

Emen bere ibilli ziran beste talde bi, bata Zulaibar'eko eskolakoak, bestea Ikastolearen aldekoak. Aurrera ta jarritu orrelan!

Santa Ageda'ren ermitea Ipiñaburu'n dago, ta Altzua'n eta Undarra'n bere ospatuen dabe. Bere egunean, amarderdietan izan zan mezea, ta ondoren ardauri zuri ta gailletak edan eta yan ziran, guztiei bertoko mariordomak zabalduta.

Baita Ubide'ko Engrazi'k —emen bere ezagun aundikoa dogu— eta Isabel Agirrezabala Arjentina'tik etorritako monjatxoak —bere etxean egun batzuetarako dago— Santa Ageda'ren abestiak ederto abestu ebezan. Euskalerrit'k urrin egon arren, ez da emengoakaz aiztu. Zorionak eta txalorik beroenak eurentzat!

San Balendin.—Emen, Elizondo inguruko auzuneak ospatuten dogu. Andra Mari'ren eleiza ondoan dago bere ermita. Aurten erreteillau barri dago, Andres Artoraz arotzak eginda. Eta bere inguruko landea bere polito loraz apainduta, Petra Albako'koak ipiñita. Amarderdietan mezea; urrango domekan izango da au, Otsaillaren 16'ganean.

Euskal-kanta zarren abeslari Kamiño'ko Bitoria dogu. Nok ez dau ezagututen berau ba emen? Ba-dakizue ba, guztiz ederto abestuten ditu antxiñeko kantak, erriko edo emengo diranak. Ainbat etorten yakoz entzutera. Noiz gure Bilbo'ko Erri-Irrati'an entzungo ete-doguz?

Garizumea bere, ba-datorku eta domeka guztietan arrastiko lauretan, parrokiko batzordearen eskariz, Andra-Mari'ren omenez herbaldia ta ondorengo mezea izango dira.

eziketa jostailuak
eskulanetarakoak
irakasketa gaiak

gregorio de la revilla, 1
bilbo-11

IKIRIKI

Jolasean ikasi, or zure aurrentzako emoitzarik onena

PORTUGALETE

Zenbat balio dau izki edo letra batek?

Bilbo'k ez dauka bere deituran ez enerik eta ez iverik. Portugalete'k be ez. Baiña «v» bat edo «n» bat gora bera portu andi bat, portugalete'arren ustez euren zana eta izan bear ebana, Bilbo'rentzat geratu zan.

Don Tello'k, Bilbo irazi edo fundatu ebanean, beste erriei legez, bere berezitasunak emon eta mesedeak eskintzean, auxe ipinten eutsan: «mostro porto de Portugalete». Ordez, agiria egin ebanak, ez jakin konturako bagako utsez edo erruz, nostro ordez vostro ipiñi ei eban.

Ordurarte Bilbo'ren eskubideko ur zatia, Zorroza'ko basatzetan amaitzen zan.

Urte bi geroago, Bizkai'ko andre Mari «Ona»k Portugalete'ri erri legea emotean, beretzat laga eutsan portugalete'arrak bizi guztian eurentzat euren portua Lutxana inguru arteraño'ko jaubetasunez.

Ortik sortu ziran asarreak, nastreak, ezin ikusiak, burrukak, eskubi zapaltzeak eta abar.

Ortik aurrera, bilbotarren aldeko agiriak irakurri edo ta portugalete'koenak, eritzi ez bardiñen jaube egiten da bat.

Gaur ez da iñor gogoratzen asarre oneikaz. Egña egintzat lagaten da, batez be onelako erri baten urte gitxitan bertako bakoitzeko bost erbestetar sartu ezkerre. Eta Santurtzi eta Zierbana'k eta abarrek bide bardiña daroc.

* * *

Ementxe il zan Lope Gartzia Salazar, 1485 urtean, 86 urte lepoan euskazala. Bizkai'ko kronikalari urtelepoan eta giartsua. Jauntxoetako bat. Oñaztarra.

Bere sasoiko egoera eta jokabide askoren urratsak jarraitu giñeikez bere eriotzatik.

Gaur «Petronor»en sarreran ikusten dan Muñatones torrea bizi zan bere zartzaroon. Bere neska lagun eta guzti. Odol bero eta lizun.

Bere maiteetako neska lagunik onena bere seme nagusienaren begiko biurtu zan. Or asiera. Aitak semea ondoretik kendu eban, eskubideak galduta laga. Semeak, sututa, lagunak batu eta torrea inguratu. Aitak iges, eta Portugalete'n beste seme baten etxean ostatu eskatu, baiña semeak, beste anaiazag bat eginda ebillalako, ostatu ordez bere etxea kartzela biurtu.

Zaarren entzuteak beti eukiten dau bizi guztiko otsein eta serbitsarientzako makurtasun eta lotsa pixkat. Ala, orreitako batek, etxeko atak zabaldu eta iges egiten lagundu.

Gaitz zaarrei oillar kaldorra kendu eta galdu eragitea. Ala aitak, eleizara joan, torrea igo, kanpaiak jo eta erriarrak zer ete zan jakin nairik inguruan batu ziranean, berak bere semien etoikeri eta egikera biurria erriari agertu. Erriarrak aitaren eta semien erdian, zeñen alde jo ausartu nai-etzta.

Alako baten, menderatu ebanean, egarria kentzeko ura eskatu ebanean, pozoi edo benenoa emon eta intziri eta uluka iltzen ikusi eban. «...fezieron dar yerbas... e le veyeron meter las manos en la garganta...». Alaxe irakurten da Martin Alzedo'ren testigantza baten. Eta onek garbi esan eban, jakiña eta zabal zala Katalin Ginea eta Mencia Avellaneda'gaz lo egiten ebala.

Pozoitutako urazag bera eta bere alabatzako bat il ziran. Alaxe, «Bienandanzas e Fortunas» idatzi eban jaun arro eta aizeitsuak, oraindik be bere larogetak urtetan gizon gordin igarten zala, bere zorritzarra, bere «malandanza» idazteko tarterik ez eban artu ez euki.

Portugalete'ko torrea egin eban bere kronikarik garratzena.

Salazar'darren torrea da gaur Portugalete'n, ezagutu ziran iru edo lau torretatik, itxura orregaz zainduten dan bakarra.

* * *

Gure erriak, euren legeetan zeatzak izaten ziran. Lege orreitatik igarten dira sasoi bateko ekandu, oitura eta bizibideko zer-tzeladak.

Agindurik gogorrenak erriko bakea zaindu nairik ipinten ziran. Orrela armak erabilteziari eta batez be nasteean izkilluekin urte-tza zigortuta egoten zan. Gure legeak gogorrak izan baita be deitua mingarri buruz.

Gero, janari eta jantziei egokiezanak, batez be diru eta pixu kontuan, arrain saltzetako baldintzat, okelakiak eta abar. Portugalete'n andrazkoak, nai eta arakiñaren emaztea izan, edo serbitsaria, nai beste edozeñiek, galerazota euken okelea ebagitea. Orduko odol-ustaille edo zain ebagitzalleak be lege zorrotzak eukezan. Bai amatasunean laguntzen eban andrazkoak be; ezin eikien janaldi bat baiño geiago egin orretan egoazanen etxeetan, ez eta izentatuta egoana baiño geiago ez gitxiago ko-bratu be.

Portua etorten ziran merkatarien txalupak, bederatzi egunetan egon bear izaten ziran plantxan lotuta, erriarrak zatika eta banaka erosi bear izaten zituen gauzak ikusiarte eta egun orreik beteta gero asten ziran osoka saltzen.



Orrez gaiñera eleizetako lotsa be sartzen eban arauak. Eta domeka eta jaietako meza nagusitan ixillik egotea agintzen eban, edo ototzean. Eta ala ez egozanei, zigorra ipiñita egoten zan.

Orrelaxe ziran Portugalete'ko erri arauak, legeak, 1459 urtean.

* * *

Portugalete'k, gaztien artean ba dauka entzute eta fama bat. Ementxe batzen dira jaietan, dantzarako, Erandio, Barakaldo, Zorroza, Sestao, Getxo eta inguruko gazte asko.

Itxas aurreko dantzeak, bere zarata ta guzti, laño eta bits, maitasun askoren musika ixilla sortu eraziten ei dau.

Erri andia dala uste dabe askok Portugalete. Eta Elantxobe txiki eta mendian dingillizka dagoanaren bira ez da eltzen lurrez. Ia berrogetamar milla lagunetara elduta dago bizilagunez eta 3 km2 lautu bakarrik lurrez. Eskerrak itxasoaren aize ta zabaltasunari.

Eta zubia? Ez al dago munduan emen lako zubi ezkegirik? Ixo! Askok pentsaten dabe ori esaten daben erderazko abestia, «no hay en el mundo puente colgante» Portugalete'ko zubiari dagokiola. Eta ez. Bilbo'n, Merzedo'ko nasa onduan egon zan zubi bateri ataratako kantua da. Portugalete'ko au baiño zaarraguá. 1893 urtean zabaldu zan au. Alberto Palacios arkitektoak iruditu eta Arnodin inkiñeruak egin eban. 39 urte eukazan Palacios'ek bera iruditu ebanean. Egin zanean, baperezko indarrez erabilten zan; geroago sartu eutsen elektra indarra.

Palacios il zanean, 1939'n, bere zubi orretan ametsetan eta beragaitik berbetan il ei zan.

* * *

Eleiza ederra. Gotikoa. XVI'an egña. Torrea geroago, loto jokera barik. Karlisten gerratean, bota ebanean, aukera egon zan eleizari egokion torre bat egiteko, baiña lengo tankeran barriztu eban.

Aldare, nausi ederra, barruan. Ez jakin ziur nok egña. Ustez, Guiot Beaugrant'ek asi eta bere eriotzean bere anai Juan eta J. Ayala'k amaitua. Bilbo'ko Santiago'n

AGVR

Apartado n.º 2
BILBAO

FRANQUEO
CONCERTADO
08/55

INDARTUAZ

Bilbo'ko Sananton'go euskal-katekesian, bere barrenerako dan euskal aldizkari barri bat sortu da, geien baten katekesiko umiak eurak idazten dabe aldizkari ori; bertan agiri da baita Eskauriaza'tar Xabier be, Deustu'ko ikas-tetxe nagusian «pilosofi» ikasle danaren esku langillea.

«Indartuaz» izen ori benetan egokia dala uste dot, ez bakarrik umeen euskal-katekesi orri buruz baita parroki ontan, euskal kutsugaz sortu diran beste ainbat ekintzari buruz be.

Umeen euskal katekesia ume aldra txiki-txiki bategaz asi zan, eta ekin eta ekin iraupen baietzkorragaz, asko geitu ta indartu da urteotan.

Apal ta txiki asi zan euskal-abetesbatza ta orain indartsu dago ta bere alde edesti eder ta aundia dauko, bertatik urten dau «JATORKI» deritxon beste abesbatz eder, garbi txukunak ere.

Ostopo artean, guda ostean, asi ziran eliza onetan elizkizun batzuk eta orain or doguz euskal-meza, gazteen euskal-meza ta beste elizkizun ugari ta ederrak.

Bertan apal-apal jaio zan KILI-KILI TA ERRETOLAZA'TAR JOSEBA ANDONI'REN LAN TA IRAUPENAGAZ AUNDI ta eder egin da; or doguz 12.000 ume baiño geiago Euskal-erri guztian euskeraz idatzi ta irakurten ikasi dabenak, euskal-dantza taldeak bere, txiki ta makal asi ziran baiña or doguz talde bi parroki ta beste talde asko emendik urtenak.

Emen baita be, Etxebarria'tar Juan Angel'en zuzendaritzaz, makal sortu zan «Euskal argitalpenak», eta orain or dagoz 50 liburu txiki edo aundi. Diru ederrak eralgi doguz arazo orretan, baiña pozik, dana euskeraren alde dalako.

Bardin beste euskal-arlo asko, apal sortu dira parroki onen gerizpean, baiña euskaldun zintzo batzuen lan eta iraupenagaz indartuaz joan dira egunetik egunera ta urte batetik bestera. Lortu dan guztia iraupenagaz eta baietz-kortasunagaz lortu da.

Ekintza oneitan lan dagien danai esker beroenak emon bearrean gagoz euskaldun guztiok, baita esaten dautsegu Jainkoaren laguntasunagaz eta baietz-kortasunagaz eziñik ez dagola.

Bilbo oso erdaldunduta dago, parroki danetan aldratxo bat sortzen ba'da laster euskalusain geiago izango da gure artean, bada, euskaldunak erdalduntuta egon arren azalpean antxiñako gurasoen euskalduntasuna lo zorroan bezela dauke ta gure laguntasun pizka bategaz, autspean dagon txingarra aize apur bategaz beriala biztuten dan bezela, biztuko da euskal-kutsu ori...

Bai eliz gizonok, bai kristau ezkonduak zein eta siñesdun gazteak (ba ditugu zorionez gazte batzuk zintzoak eta beste gazte batzuek bezela arinkeriz elizatik urten ez dabenak) ekin bearrean kristau ta euskaldun izan zan em au berbiztuten. Ez galdu itxaropena; ez galdu baietzkortasuna ta indartuaz geure arloan jarriko dogu.

Askotan geure lanaren garaipena ta ondoren onak arin-arin ikusi nai izaten ditugu ta orrela ez ba'da gogaitu, aspertu ta garbatu egiten gara ta gure lana alperrekoa dala usteagaz, dana bertan bera itxiten dogu. Ez olakorik! Iraupenean dago gure garaitza.

GALLASTEGI'TAR KAULDI

egon zanaren kideko dala esaten da, itxura eta neurrietan. Baiña Bilbo'ko au be galdu zan eta gaitz da gaur aren urratsak artzea. Santiago'ko kapillea be, ederra. Ate nausiko burdiñak Murrieta'k egiñak, 1580 urtean.

Ez da gaur Portugalete'n parroki bakarra. Ba dira beste batzuk: Nazaret izenekoa, San Kristobal, Sendi deunarena, Abatxolo'n eta beste barri bat egiteko Abaro'n.

Emengo gizabideak ala eskatzen dau.

Zortzi milla lagun orain 50 urte. Gaur sei bidar geiago.

Jakingarri bat: Emengo hotela, erriaren izena daroana, aberats baten ondasunekin erriarena lez zabaldu zan, bertako irabazpi-deagaz erriko gaixo-etxeei laguntzeko.

* * *

Portugalete'k, itxas aurrean dagola, ez dau arrantza bizirik euki. Nai eta XVI gi-zaldian Bilbo'ko errekan batzen ziran txalupen artean, irutik bi emongoak izan.

Arrantzalien Kofradi bat egon zan emen. 1951 urtean sortu zan eta San Nikolas eta San Telmo'ren izenpean. «Cofradía de Maestres, lemanes y gentes de mar» eukan izentzat.

1800 urtean 35 bazkide edo lagun eukazan. Zazpi, ontzietako lemazain ebiltzan eta besteak erbesteko itxas-ontzietan. Gaur, arrantzale bizitza, Santurtzi'n batzen da.

Sasoi baten piloto nausi bat izentatzen zan. Egunero begiratu eta neurtu bear izaten eban portu sarreran aldatzen zan ondartzaren neurria. Eta txalupa bat agertu orduko, toki orretan egon bear izaten zan bera, amabi lagunek erramutan erabilten eban txalupa bategaz, ibaian gora sartu bear edo itxasora urten bear eban txalupei ondartzaren ingurutik zuzen joaten laguntzeko.

Ara, errez igarri, gaurko erremolkadoreak eta gaurko praktikoak asiera nun eta zetatik artu eban.

Gaur Bilbo'ko portua errez ikusten da eta aukeraz, gero ta zabal eta sakonago, baiña 150 urte ez dirala Portugalete'k eban iñok baiño obeto ibai onetako edo itxas sarrera onetako barri.

Ala ta be, len eta orain, Portugalete au lañoan gelditzen da gure izkuntzan, esan nai ia igarri bai baiña zeatz erabagi ezinda.

A. ZUBIKARAI

Makalkeriak

Bildurrak eraginda, zer izango ete danaren asmatu ezinak lekarken bildur ikutugarriak eraginda, buru-makur jarzten dala gizasemea, inoren menpekerietara lotzen danean, errukigarria!

Bildur utsak baiño ondo izatearen eta neke barik bizi naiaren bigunkeriz, zuzentasun bako inoren menpetasunera belaunikatzea, lotsagarri!

Baiña, bildur gitxi ta ondo izateko aiña indarren jabe izanda, obeto neuritutako gerorako kalterik ez izatearren, barru-barruko norbere zifnesteen etsai dan edozein edo izatea eskuratzeko alegiñetan, ixilliko eskupekoak eta laguntzak emotea etsai orri, gizontasunik-eza!

* * *

Donosti'n bizi izan dan eta an il dan bizkaitar batek, amabi millo lauerleko beintzat, iru lekaide lagundietakoeri utzi daustez. Launa millo!

Oneitariko batek, or zear nunbait daben irakastola bateri laguntzeko zerbait gordeta, beste zati on bat Jaungoikoa baztertu ta Marx'en bizarrak aizeratzen dakian aldizkari bati emon dautso.

Ixillian eukitekotan izan ei-da. Tamalez, norbaitzuentzat tamalez, emen jakin dogu, ta bizar orreik aizetzera gatoz gaur.

* * *

Galderatxo bat be egin nai ba. Gero besterakorik gertatzen ba'da inor ez dadin izutu: Diru «apur» orregaitik, konbentuzaintzen asi bearko ete-dabe noizpait? Orrenbeste egin izan za inoiz, zifnesmenak berak eraginda ta inungo esker onik ez eskatu ez jaso barik.

Ba-dakizue; «Areik mutil on-on batzuk ituan, oietatik etzetorrek inoiz kalterik, eta inoiz laguntzarik bear izaten ba'diagu, baita ori ere. Obe ba gure apurtzook beste aldeko oiei eman, alde guzietatik, gu beintzat, ondo izango gaituk, datorrena datorrela!»

Zuzentasuna? Jaungoikoaren legea? Kepa deuna, buruz bera josi eben; gu ez beintzat!

Ipernurako bidea makalkerizko asmo onenegaz kozka-bardinduta ei-dago? Inpernurik ez dagola esan eta kittu!

* * *

Ixillik egiña izan ba'da be, lotsa pizkat geratzen dala-ta, laster jakin izan da. Esker-ona ta lekaide orreintzat gerorako babesa ta parkamena erakutsi bear leukan orreitariko diru-artzaille bat, ariñeketan etorri jaku barri au emotera.

Koitadu onek uste ebanetik, orrekin zeoro arrituta, goiari ta beiari deika jarriko giñala, soñekoak urratu ondoren, itzaroten eban. Baiña arrituena bera izan da, entzun eta lasai asko geratu garala ikustean.

Gaurko makalkeria ta bigunkeria ondo ezagutzen doguz, orreilako labankadaxtoekin astoraku barik.

Gero, noizpait, garbatuta, or agertuko jakuz negarrez, su emon eta etxeetatik atera dituela esaka. Orduan bai arrituko garala, barruan dirala erre ez dituela ikustean. Lanerako-edo, bizirik lagako ebezan.

GIZARTE BABESAK

Gizarte-babesak (edo gizarte seguroak), Alemania'n beñen, eta Europa'ko laterri askotan be bai, XIX gizaldian jaiio ziran.

Agintaritzak bakarzaleak ez zituan konturatzen lanaren arazoak eta askekeriaren (liberalismo) pentzakerak be antzekoak ziran orretan. Ortik sortu zan, lanarentzat edo langilleentzat babes baten bearkizuna. Sasoi aretan sortu ziran baita sindikato edo langilleen alkarteak be.

Inglatera'n, 1871'an; Frantzia'n, 1884'an; Suezia'n, 1898'an sortu zan L. O. edo Langilleen Alkarte Nagusia (C. G. T.).

Alkarteren onartzea ta legetzea astiro-astiro egin zan Europa'n. Alkarteak asieratik, langilleen babesai buruz arduratzeko, bultz egin eutsen agintariak. Eta orrexegaitik babes ori agintarien begiko izatera eldu zan.

Gizarteko babesketeak eta babesak eurak (seguroak) asieratik eta aurrera-bide guztian gorabera asko izan ditue. Agintariak zelakoak, alan ibilli izan dira. Ez da ba arritzekoa, Alemania'n, 1883'an, gaizobabesa sortu izatea, bertan 1884'an lanmiñarena, t. a. An gizarte-zaleen ekinaldi gogorak eta ugariak ziran orduan.

Baiña itzi dagigun alde batera babes onein aurrera-bidea; eta beste ikuspegi bitatik begiratu dagigun babesen arazo au:

1.—Diru-ordaintze aldetik.

2.—Babesketa onen diru-oinaren arduratze ta zaintze aldetik.

Diru-ordaintzeari begira, diru-oinera laterritik datorrena oso gitxi izaten da Esaterako, 1971'n, sartzen zan diru guztitik % 6,6 baiño ez zan laterritik etorria. Eta etorri au, oso-osoan, baserritarren babeserako izan zan. Orrelan langintza aldearentzat astunegiak ziran babesak, batez bat lantegi asko egozan errietarako.

Europa'ri begiratu ezker, laterritik datorrena asko geiago da, eta urtearen azkenean galtzerik ba'da, laterriak ordaintzen dau.

Orregaitik, Gizarte-babesak bear dauanari laguntzea ta ondasunak obeto banatzea lortzen, ez dau asko laguntzen. Errez ikusten da zergaitik. Langintza-aldeak diru-bearrai erantzuten ba'dautsoe, eurak dira gizarte-babesa ordaintzen dabenak (eta orrelan esaterako gure Errian), eta ez dabe laguntzarik inondik artzen, laguntza orreik baserritarren babeserako diran ezker. Baiña gure Errian, beste aldeetan baiño baserritar gutxiago dago.


Guzti onek zer esan gura dauan zenbakiz obetu adiazko geinke, baiña ez aitzu zertxu bat: Jakingarri oneik I. N. P.'ek emonak dirala eta siñistu baiño basterik ezin geinkela egin. Onenean be, jakingarri orreik esan dogunaren alde datorz oso-osoan eta gai onen izatea bera argi dago geure alde.

1968'an; gizarte babeserako batuak:

Araba'n	587.607.049 Pta.
Gipuzkoa'n	2.005.269.841 Pta.
Naparroa'n	916.460.886 Pta.
Bizkaia'n	3.250.675.164 Pta.

1968'an, gizarte-babesak ordainduak:

Araba'n	473.184.587 Pta.
Gipuzkoa'n	1.808.150.161 Pta.



Naparroa'n	703.400.009 Pta.
Bizkaia'n	2.999.277.160 Pta.

Ordaintzeak asko berago dagoz ba, batuak baiño. Or dagon galtzea 776.001.023 pezetakoa da.

1969'an, gizarte-babeserako batuak:

Araba'n	682.739.249 Pta.
Gipuzkoa'n	2.296.476.531 Pta.
Naparroa'n	1.095.473.772 Pta.
Bizkaia'n	3.683.622.338 Pta.

1969'an gizarte-babesak ordainduak:

Araba'n	522.999.850 Pta.
Gipuzkoa'n	1.940.211.750 Pta.
Naparroa'n	800.321.034 Pta.
Bizkaia'n	3.277.954.919 Pta.

Urteten dauan galtzea, 1.217.824.337 pezetakoa da.

Eta dan au, geienen aldetik batzen eta ordaintzen dana baiño ez da. Besta bide batzuk daukez itxas-gizonak, baiña onein artean be bardin urtetan dau. Esaterako: 1963 ta 1964'an Bizkaia'n batuak 5.724.163'76 geiago izan ziran, eta ordaintzeak 728.718'34 baiño ez ziran geiagotu; lugiñen babesetan dago irabazte apur bat, baiña gitxi.

Gizarte-babesen jakingarri oneik aurrean doguzala, euren gizarte-lana zein dan agiri da: Ez irabazteak bardintzea, alde dirugiñai indarra kentzea baiño; batez be inguru onetan.

Eta, gaiñera, inguru onetatik ateraten daben diru ez doa atzeratuta dagozen aldeetara. Ez. Diru ori zabaldukeran, politika-joko bat artzen da kontuan. Esaterako, zati on bat Madrid'erako izaten da.

Europa'ko beste aldeetan, ain indartsu ez da agiri arazo au. Emengo laterrian, Laterria bera da I. N. P.'en bidez diru guztia bere eskuetan daukana, eta erdiratzea oso-oso da.

Alemania'n, esaterako, Gizarte-babesen ardurea onelantxe daroe:

1.—Lander bakoitzean, Gizarte-gaietarako ministroaren ardurapean dago gizarte-babesen erakundea.

2.—Laterri-alkartuen erakundeak, Gizarte-babeserako arduradunen bidez, Lanerako ta Gizarte-gaietarako dan ministroaren ardurapean.

Alderik aundiena auxa da. An, Gizarte-arazoak Lander bakoitzaren ardurapean dagoz. Laterriak ez dau besterik egiten, Lander bakoitzetik kanpokoak diran gauzen ardurea artu baiño.

Frantzia'ko Laterrian zabaltasun gutxiago dago. Lurralde bakoitzak ez dauko gaizo-babesaren ordaintzeak egiteko esku-bidea baiño, eta toki bakoitzean, sendi-laguntzak baiño ezin leitekez egin.

Baiña alderik aundiena, Alemania ta gure artean, ez da arduradun nor dan. Alderik aundiena, emen dagon kontrol edo esku-arte aundiegia ta erdikogea da.


Ara egikera onen ondorenak:

Diru-oinak beratu al izateko indar aundi bat da, eta ortik zer datorren ba dakigu. Zenbakiak argi diño. Nire ustez, gure inguruaren galtzea zenbaki orreitan, dan baiño be txikiagoa agertzen da.

—Gizarte-babes onek ez dabe beteten ba euren elburu bat: irabaziak beargiñai obeto banatzea. Ordaintzeak, dirua batzen dan lekurako ez diran lez, ori ezin lortu.

—Batzuk, galtze au zuritzeko, irabaziak lurralde guztian obeto banatzen dirala esaten dabe. Eta ori orrelan izango litzake, lurralde txikiak bear dan lez kontuan artuko ba'litzakez. Eta gure artean ez dago olakorik. Ordaintzeak egikeran, gai onetan eta besteetan be, Laterriak eskua sartzen dau, aurretik edo albotik, eta bere bideak politika-bideak dira.

Gaizotegietako be-maillako erakundeak ba dauka naikoa estutasunik gure artean, Madrid'eko edo beste lurralde batzuetako bearrizana erantzuteko, eta au, bai gizarte-babesen arazoan, baita beste arazo askotan be.



GATZ ETA PIPER

IKASTOLAK BURGES KABIAK?

Esan dauskuenez, egilleak besteko ganorabako orriak zabaldu dira Bilbo'ko auzo batzuetan. Ez dogu orain arte irakurtzeko erarik izan baiña onelako zerbait ei dakarre: «umeeri lantegietako arazo garratzak ez erakustekotan alperrikoak dira ikastolak eta alperrikoa euskera bera, langilleen artean obeto alkar ulertzeko erdereau daukagun bitartean; burges kume kabiak ei dira ikastolak eta ez besterik».

Olako kirtenkeriak idatzi dirala jakin dogunean asarratu garala ba'diñogu... guzurra diñogu. Min artu dogula? Ori bai, miñ artu dogu ainbat euskaldun gazte, olakoak erakusten dabezan «maixu arrotz edo arrotz ikustean, baiña jarraitzaile egin dirala ikustean, baiña asarratu?, ez. Eta ez gara asarratzen guk aspaldin esan genduna egiztatzen datorelako, alde batetik, eta egia jakitea erriarentzat ongarri izan leikelako bestetik.

Baiña, egia zein da? Ba tamalez gure artean talde batzuk artu daben bidea euskalduntasun bakoa dala onenean eta etsai tankerakoa geienean, erbestera-tzailea.

Burgesak ikastolak? Burgesa euskera? Etzan olakorik esaten orain dirala iru edo lau urte ixillean izan ezik, baiña orain jokia erakutsi dauskue; orregaitik egi mingorra izan arren ez gara asarratu. Orregaitik, olako orrien agerketak lo zorroan dagozan erriarrak itxartzeko egokienak dirala uste dogu.

OSPE AUNDIKO TA EZ AUNDIKO BERBALAPIKOAK

Gorago esan dogunaren ariari oraturik talde arrotz orreri buruz zerbait geiago azaldu nai genduke.

Ikastolak eta batezbe euskera euren probetxurako artu ebezanean, euskeltzale sutsu bezela agertu jakuzan. Baiña berezitzeko zerbait asmau bear eta «erri bat izkuntza bat» garratzika «euskera batuen» mito barria sortu euskuen jakintzaren zilla ba'lira bezela; amaitatxo errizale lilluratu eben lenengo bultzakadan. Baiña eurak, eurenara 'zijoiazan, lendik egindako guztia austu naian.

Abando'koaren jarraitzaileak errikoitasunik bako euskera ebillela esanaz, dan-dana ankaz gora eskeñi euskuen...

Zer lortu dabe? Erdibitzeagaz batera euskalki erderatu, gatz bako, jatorri bako zerbait, Martxoan, Apirilan edo Abustuan erne leikean landara sasitsu arrotz bat.

Eta emen dator negargarriena: Apaltasun bako jakintsu izeneko batzuk, maltzurkeria igerrita edo igerrri barik baiezkoa emon ebela ta orain sasi artetik urten eziñik ibilli arren ez dabela burua makurtuko, ez dabela euren utsa aitortuko. Ba-dira olakoen lagunen artean erdereau naiko dala uste dabenak edo ba'litzake bezela dabilzanak! Jakiña Gil, Rodrigez, Jimenez eta olakoekin apaltzeko besterik bear ez! eta itsutsuan besteen jokoan jausi diranak.

ALKARTASUNERUNTZ?

Dana dala bizitzak danori erakutsiko dausku zerbait, eta naizta azaleko gauza askotan oker egon, ordua datorenean konturatuko garala uste dogu. Orregaitik euskera, ikastolak, gure oiturak, gure izakerea, ona ala txarra baiña geurea, maite dogunok, iñoiz alkarren aurka agertu ba'gara be, etsaien jokia ikusirik, alkartzeko bidea artuko dogu denpora asko igaro baiño lenago.

Gaur derrigorrezkoa dogu iritziak galbaitzea ta naizta danak bardiañak izan ez, alkartzea. Niri batasuna baiño atsegiñagoa egiten jat alkartasuna itza. Iritziak danak bat egin barik alkartzea lortzen ba'dogu, ez dogu bide zati makala bete!

Egun asko ez dirala, Tel Aviv'etik, ara joan diran lagun batzuen eskutitza ardu dot. Israeldarrerri buruz diñoe: «zenbat atzekabe ta oiñaze izan daben erritar oneik eta ez da makala euren meritua, bata-besteagaz alkartzean ainbeste laterrietako ta ainbeste oitura ezbardiañeko gizasemeak izanik...» «baiña garrantzi aundiko gauza batek alkartzen ditu».

Ez ete gara gu euskaldun errizaleok, errezagoo daukagun alkartasun bat lortzeko gauza?

ARENAZATAR JOSU

AGUR

Ez Agur au berau. ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskera bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri asmoen gaiñetik daben iritxi-oneko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egilleak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M.^a MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.

Carretera a Galdácano, 32-Bilbao-4

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guttirako:

Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

IKASTOLAK AZTERGARRI

Ba-da aspaldi onetan —olan dirudi beintzat— euskaldunen arteko ikastolen izateatzaz goraka datorren ardurea. Asierako garra ta baikortasuna igaro ondoren, bertako oiñarridun garaipenak eta iñoiz gaintzen zaillak izaten diran uts-aldiak ezagutu ta lasaiago aztertzeo aukeran gagoz.

Ez gara atzerantz goazela ziñesten daben orreitarikoak. Lenengo beroaldi a, asiera guztietan agertzen dana, atzipegarria izaten da. Ezin legike oiñarri bako samurketa utsean kokatuta sortuari eusten jarraitu; beroaldi aretatik asmakeri aundiak datorkiguz; gure ikastolak erakusketa barri ta gaurkotuaren aitzindari izango ei-ziran; gure irakasleak eurak be, bake-gotzonak; gure aurrak, argienak eta egokituenak.

Baiña, beste aldera, benetan berezitutako irakasletzaren urritasuna geinetan, irakasgai ta idaztiak gitxi izatea, diru-laguntza makala, gurasoen naia ta irakasleen jokabideen tarteko eztabaidak, barrutiko naiz kanpotiko iritxien jazarpenak eta ainbeste arazo agertu yakuz.

Ala ta be, benetasunean oiñarritutako baikorrak garala uste dogu ta atzerapenik ez dogula izan autortzen dogu. Gure ikastolak gaur darabillezan arazoak, lenagotik igarri al izatekoak zirala ez-eze —argi begiok bestera uste legikenak— aurrera be sortuko dirala uste dogu. Ta orreiri arpegi emoteko, auxe izan be da lenengo egin bear doguna; *orrenbeste izango dala ziñestu.*

Batez be gurasook jakin bekigu, geu izan gara ba, lenengotasunak damoskun eragiñez, zein nolakoa izango dan gure seme-alaben ezikerea aukeratu dogunak, eta aurrera be orrenbeste eskatuko dogunak.

MAITANE

GARBANTZUAK

Ez uste, gero, izen orrekin adarra joten natortzuenik. Benetara ari naz. Zeuon alde.

Lengo Zeruko Argia batean, Amatiño giputz idazleak parre egin nai eban zuen leptik. Bilbo'n, Parte Zarreko iragarkietan, «Grandes rebajas» eta «Beratzeak» ipiñi dozuclata. Berak, beratu aitu orduko, garbantzuak ote ziran pentsetan asi zala. Beratu, bai egia da, zerbait uretan biguntzeko ipintzea da. Baiña ez orixe soillik. Besterik ere adierazo nai dau euskera jatorrean: Goitik egoana beitura ekarri, alegia. Orrelaxe dakar Azkue'ren iztegiak, Añibarro'ren «Voces Bascongadas» idaztiak eta, Amatiño eibartarra da-ta, Toribio Etxebarria'ren «Lexicon del euskera dialectal de Eibar» liburu mardu-

lak. Langilleen irabaziei buruzko adibidea, ain zuzen ere, Toribio erdugarriak.

Zeruko Argia'ko adar-jotzaileak Euskaltzaindira galdezka joateko di-notzue, bertan daukazue-ta. Gure lurraldeetan guztiak gaituzu garbantzuzale. Alabaiña, batzuk ondo beratu barik irunsi ba'ditue, botikara joatea dauke. Lotina jaunarena Euskaltzaindi-etxetik ain urrun ez dago-ta! Bikarbonato, mutilla!

Oarra: Anaitasuna'k nai dauan «Beherapen» orrek, Lhande'ren iztegian, développement esangurea ezartzen dautso.

ETXEBARRIA'TAR JUAN ANJEL

BAKEAGAITIK...


Gure izakerearen barru-barruenean aurrez aurre diran gauza asko izaten doguz, eta ez dakit konturatzen garan askotan. Bakoitzak beretzako bizi era bat egin dau ta era au bera dan lez agertzea gatx egiten iaku. Ez da erreza kotxea, diru ugaria alde batera iztea.

Orregaitik, sarritan arazo bateri erantzun bear dautsagunean, gure erantzuna jatorra izan bearrean, okerrezkoa izaten da. Eta «bakeagaitik», gizon jator eta zintzo baten jokoa egin bearrean, beste edozein eratarata erantzuten dogu.

Zer da baiña bakea? Erantzutea nai neuke, baiña naste aundi bat sortzen iat buruan.

Bakea dala-ta, gure eritxi bereziaren aurka joaten gara. «Bakeagaitik» gure anaien negarrak ez dau erantzunik izaten. Lantegian sari barregarri bat eskeintzen dauskuenean, eta illaren azkenean barregarritzko saria jasotzen dogunean, «bakeagaitik» ez dogu aurkarik egingo.

Gure anaia bear gorrian aurkitzen danean eta laguntasun billa etorri, «bakeagaitik» belarriak gortu egingo doguz. Auzokoa gosez dagonean eta ogi zati baten bearrez, gure sabel lodikotera begiraturik ez dogu erantzunik izango, ta «bakeagaitik» begiak be itxi egingo doguz.



«Bakeagaitik» ez naz arazoetan sartuko, ezta arduratuko be. Ez dau nagusiak ori ondo ikusten-eta. Orregaitik, tarbenan jesarrita tabernariari akeit bat eskatzen dautsadanean, zergaitik ardaduratu nire alboan dagonagaitik?

Sabela beterik, aupatsak botatzen, ondo nago ni, ondo bizi naz ni, ni, ni... eta beti ni.

Sarri jartzen naz pentsatzen eta beti ondoren batera eldutzen naz, eta gure erriaren etorkizuna ta osasuna NI'keri ori albora izten dogunean eta anaiari geiago zabaltzen garanean onduko dira. Mai baten aurrean ez ba'gara jesarriten, erri bat antolatzea nai ete dogu olan? Ori olan nai ba'dogu, barre egitekoa dala esan bear.

Burruka batetik sortzen dan erria ez da urrin joango, anai arteko burreka beti nastagarri ta kalterako.


Baiña «bakeagaitik» atzera egitea be ez da ohea. Ea ba, «bake» paltso ori bota albo batera, ta arri baten kontra zapaltzen gaituenean, ez itzi! Jaso burua ta jagi kanpora!

IRRINTZI

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

ZAZPI-KALEAK



CASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

SANJOSEETAKO X SARIKETA NAGUSIA

BAKIO'N

Idi-demak izango doguz aurten be. Epail onen 15, 16 eta 19'an, eguerdiko ama-bietan, arratsaldeko bostetan eta gabeko amarretan, eguneroko iru txandetan izango dira.

Txanda bakoitxerako baiño buztarri geiago ba'letor, 18'an bere izango dira ekiñaldiak.

Izenpeizea ta zozketea, Epailleko 9'an, goizeko 12'30etan, eta «Egia» jatetxean izango dira. Bertoko urrutizkiña, 71.

Amabost sari izango dira:

Lenengoari, 24.000 lauerleko, Bakio'ko Udaletxeak jarritako abel-estalgaiak eta Bizkai'ko Alkarteko garai-ikurra.

Bigarrenari, 20.000 lauerleko, eta Abakiño'ko «San Blas» jatetxeko garai-ikurra.

Irugarrenari, 17.000 lauerleko, eta «Gaceta del Norte»ko garai-ikurra.

Ta onelaxe amabost sari osotu arte, guztira 150.000 lauerlekoren sariak bananduko dirala.

Amabost onen artean geratzen ez diranentzat, baiña amabost untzetik gora bete ezker, 3.500 lauerlekona izango dabe; ez da ba dirutza makala.

Beti bezela, idi-dema oneik Muruaga'tar Sabiñ'en ardurapean izango dira. Ta aurten, laguntzale izango diranak, Gotzon, Bolibar, Lasgarai, Bakiense ta Maritxu jatetxeak eta Txomin eta Julian edangelak agertzen jakuz.

Asko poztu gara laguntzale mordo au ikustean, eta ea emendik aurrerantzean bere, gure erriaren alde zerbait egin bear danean, olako laguntzale txorta eder bat egaz aurkitzen garan.

BURGOAZPI

«LUCKY LUZIANO»

Bilbotarrak ikusten oituta dagozan edesti-pelikulen artean, Francesco Rosi'ren pelikula onek aldakuntza aundi bat dakar.

Egilerik geienak, zine arduratu ta aztertzailearen barruan, kondairea artzen dabe oiñarritzat, edesti bat bear dabe; esaterako elerti-liburu bat edo oiako bideren bat artzen dabe eta orrelan ikusleai eder-lan oso bat agertzen dautse. Ortze agertzen dau zuzendariak bere eretxi argia eta gizartearen ikuspegi bizi bat. Orrelan arte-lan eder bat egiten dau, benetako erti-lana, eta ikuslea arduraz jartzen dau, edestiaren barru-barrura sarrerazten dautso eta ikusleak gizartearen aztertzaile egiten ditu.

Sarrera luze au, Rosi'ren zinea zelakoa dan agertzeko bidea izan beite.

«Agiri-zinea» esaten dautsoe oneri eta «argazki zinetik» oso urrin dago. Lenen, italiar egileak bere neurritasuna agertzen dau: jasorak berez berba egiten dabe, zineko oitura zarrak ez jake jaramonik egiten «Lucky Luziano» pelikulan. Ikuslea, gizarte eta politika-gaietan eldua dala, gauza jakiña da: Amerikatarren B saillearen antzik ez dago inondik (Ganster'en pelikula-arteko B saillea esan gura dogu). Baiña «Lucky Luziano», astiro-astiro argazkiratutako beste tomate-saltzaren batek agertzen dau bere burua.

Maffia ez da txantxetako gauzea, Ipar-Ameriketako almenaren erakundea dan bestean, gauza itzala da. Italiarren politika-mundu berezia eta drogen mundu esan-eziña agertzen dira. Pelikula onetan ez da agertuko eztabaida txikiarik be. Ori Frank Coppola'ren «Aitabixia» izeneko pelikulan ugari agiri zan. 1943'ko gudan laterri alkatuak egin eben hurreraztean zubi-buru lez agertu zan. Au ondo agertu eban arako Pantaleone critxan Maffia gaietan nagusi zan siziliatarrak: Zelan erabili zituan amerikatarren guda-etxetako buruen ariak, zelan lagundu eutsen amerikatarrek biotz zabalak eta erri-zaleak zirala adierazteko! Eta bitartean erri gosea politika indar barik geratu zan! Ertiak berez be iraultzarako jokerea ba-dauka-ta.

Ondo ekian arek Laterrien arazoak eta bereak batera sartzen, guda-osteko politika jakin-garri aretan!

Polizi baten lan ausarta alperra dala be ikusiko dogu. Siragusa komisarioa, lo-bedarrak billatzeko polizi-taldearen buru dala, drogen sal-erosketa lotsagarriaren aurrez, poliziaren lanak alperrikoak izango dira. Ta izendegia luzeegia izan ez daiten, zelan Maffia-erakundeak, gizartearen arraiña uretan lez ibilliaz, inguruko diru-arazoan eskariak beteten dituan eta azkenaz zelan gitxi batsuneskubideetan geratzen dan orretarako «outsiders»en indarrak ezeztuaz (norki au ondo agertzen dau Rod Steiger'ek) agertu da.

Bizitzea dan lez agertzen dauan inguru onek dana izan dagian, Maffia'ren eta indar politikuen batasuna ondo agertu daiten, «Cosa Nostra»ren zuzendariak, agintarien antzera, baketsuak eta bareak dira, aberats txikien baretasunez: Ba-ditue euren artuemonetako jatorduak eta Gudari-agintari nagusiakaz batzarrak.

Lucky Luziano bera, bere barru-barruan sartzen danarentzat, (Gian Maria Volonté da au), apur bat makalduta dago, garrantzi bako lez agertzen da, be-maillako gizona da eta zuzendari dauan gizandiaren aurrean illun geratzen da.

«Salvatore Giuliano» egin ebanean (1958), Francesco Rosi'k maffia-zale baten agertugura bizia agertzen eban. Erriko erdi-gizandi (Italia'ko komunisten alderdiagaz artuemon biziak ei eukazan) eta bideetako erdi lapurrez agertzen zan.

«Lucky Luziano», Italia'ko ingurua alde batera itzirik, gure benetako agintariak nortzuk eta zelakoak diran agertu gura dau.

«Lucky Luziano», ixil alkarteen indarra ez da agertzen.

Maffia, Sizilia'n jaioa zan eta gero USA'n agertu zituan bere indarrak.

Antxinatiko atzeratuak irauten daben eta ugarte ori txiroa dan artean, ango gizon arduratuak guzurrezko bizitzea ezeztuten ez daben eta Amerika'ko erriarrai ondoren ona ta aberastasuna dirala billatu bear doguzanak irakasten jakenartean, maffiak eta olako erakundeak ugarituko dira.

Baiña, Txerrenaren maltzurkeri bat onartuaz, aspaldion gai ori ixil-antzean dabil.

ZATIKA

EDER-

LANAK

7tik 9 urterako umeentzat.

Alegin asko egin ondoren, umea bere buruaren eratzetara egitera eldu da. Aldi oneri, eskema-aldia esaten dautsagu, egitamuen aldia.

Ikusia agertzeko egin zituan lenengo alegiñetan, era askotara agertzen eban gizon baten irudia, eta marrazki edo margazki ori, gizonaren irudia egiteko era ori, egun batetik bestera aldatu be egin leikean. Baiña umeak antza zer dan konturatzen dauanean, gizona agertzeko irudia be osotu egiten dau eta orrelantxe egingo dau beti irudi ori, arik eta daukan eritxia aldatu arte.

Eskema aldatze onek errazoi asko izan leikez, baiña ez aitzu ume bi bardiñak ezin izan leitekezan lez, eskema bardin bi be sekula ez doguzala aurkituko.

Sarritan nortasuna bera ez bardiña dalako, iñoz irakasleak umearen ezaguerea argitukeran bide bat ezarri dautsalako izaten da ez bardiñtasun ori.

Eskema ori noz osotuko dan jakiteko, adin ziur bat ezin geinke ezarri, baiña umerik geienak, zazpi urte ingurukoak diranean eltzen dira mailla onetara.

Urte orreik inguru daukazan umeak, gorputzaren atalak, berak daukan ezaguereak adierazten dautson lez, marraztuko ditu, baiña ezaugarri agiri ori errez igarteko lakoa izango, ikusleak bere esangurea errez igarriko dau. Adin onetako marrazkiak, batak beste, gorputz-atalik geienak marraztuko ditue: burua, besoak, begiak, iztarrak, atzamarrak eta abar.

Baiña adin onetan umeak aurkitze aundi bat egingo dau: gauzak zabalereagaz daukan zer-ikusia.

Orain umearen burutasuna ez da izango «zugatz bat, edo gizon bat, edo berebil bat, dago». Gauza onek alkarregaz daukan zer-ikusia agertuko dau, ez len lez banaka gogoratuta. Orain umeak pentsau egiten dau: «Ni lurrean nago, berebilla lurrean dago, bedarra lurgaiñean azten da, lupetza bean dago, gu guztiok lur-gaiñean gagoz». Umeak barreneko ikuspegia aurkitu dau.

Eta margoari buruz, margoaren eta gauzearen artean zer-ikusi bat dagola konturatu dau. Orain, koloreak aukeratzetan dituan, ez dau bere gurari utsez egingo ori, beste zio batzuk billatuko ditu gauzak eta margoak alkarreganatzeko.

Inguruko zabalereari buruz, gauzak non ipiñi ba daki, lekua ondo izendatuko dau.

Orrelan, baten eta sarritan, gizonarentzat eta zabalerearentzat bere eskemea agertuko dau eta gauza batzuk beti izango ditue margo batzuk.

Umeak taldezea asi duala esan bearko dogu ba. Gauzak taldeetan sartuko ditu eta irudiari eta irudi alkatuak jaramon egindo dautse: «Ze margo dauka zeruak? «Zerua urdiña da». «Ze margo dauka bedarrak?». «Bedarra orlegia da».

Edozelan be umeak egin dauan eskema au, bere-berea da. Iñoz izan leiteke ume batek bere giroa gitxi zeatztuta eukitea, izan leiteke beste batek ondo zeatztuta eukitea be, eta ori agertuko da bere marrazkian.

Zergaitik batzuk obeto eta beste batzuk txartoago irudiak egiten dabezan? Ba ditu orretarako zio batzuk: gogotikoak, gorputz-bizitzatikoak, ingurutikoak, eta gauzak eurak egiten dautsoen deitik datozenak. Eskema aberatsa daukan umeak, gauzak obeto konturatu dituala eta bere ingurugaz artu-emon geiago izan dauala pentsua geinke, uts egiteko bildur barik. Ertulanetarako eziketiek onetan zeregin aundi bat dauka.

Ori kontuan artuta, giro pozgarria eta irudiak egiterako eraginkorra sortu bear da umeangan.

Bere buruaren barria geroago ta argiago izan dagiala eta bere ingurua zabaldu daitela. Esangurea daukan gauzak margoitu edo marraztu dagizala geroago ta geiago eta bere ekinaldi oneitan, era batera nai bestera, egin dagiala lana, gaiak nai materialak bata zein bestea erabilliaz.

Lan bat egiten asi baiño lenago, aurreko irakatsi bat eskatu dagiala.

Eta beste au be bai. Azaltzen diran lanetan ume danak sartu daitetzala, banan, eta bakoitxak bere bidea daukala. Orrelan bakoitxak gura dauan ikuspegia artuko dau eta lana bere-berea izango da.

Azkenez, Eder-lanerako gai bat edo bestea artzea, ume-talde batenzat eta euren bear-izenetarako egokia izatea, eurak erabilteko lakoa izatea... garrantzi aundiko gauzak dira.

Ume bakoitxak bere trebetasuna erabilli bear dauala, ez begi aitzu irakasleak, eta ume batek bere esangurea agertzen dauanean, pintzela erabilten irakasteko-edo, ez dautsola bidea galazo bear, kontuan artu begi. Orretarako ordua ez da orain.

Igeltzo margotuagaz batera, ore-lapitzak eta margodun arbelak oso egokiak dira adin onetako umeentzat, eta buziña bera be ez da zetan alde batera itzi.

Uledun pintzelak be erabilli leikez eta ule orreik moltzoetan daukezanak be bai. Adin onetako umeak zeatztasun askoren jakitun dira.

M.

ORBELAK

GARRAZKERIAK

Biziaren garratza!

Zamudio'n, «Nicolas Achucarro»ren izena daroan psikiatri gaixotegian egon naz. Gaixotegia baiño osasun etxea deitza naiago dabe osagilleak. Sekula be ez zoro-etxea.

Azpiri osagilleari esker, bertako batzar baten.

Maiean, osagille berbera eta emakume idazkari bat alboan. Atzean, olbaltza. Aurrean, mai gañean, sagardau, garagardo, ardau eta pattar botillak.

Gordin itz egiten dau Azpiri'k. Bigunkeri barik. Sits eta bits. Bizar nabar luze, arpegi zuri, lodikote, ez andi ta ez motz, erdiko.

Janarien berogarriak edo obeto, berotasunak; alkoolaren maillak, gibelak, burua... Ez egizue edan ardaurik, ez sagardaurik, ez garagardorik. España'n irutik bi gaixo dagoz, edariak gaixotuta. Gorputzak artzen ditun berogarrien euneko ogei alkooletan ba'doaz, kontuz. Gaixoa lepoan. Zoritxarra bidean.

Bere esanak arrada eragiten dabe. Baiña otzikara andiago sartzen dabe ondorengo jardunak. Bakoitzak bizitako agerpenak.

Andrazkoak dira geien batzarrean. Eta bat asi orduko, aidean datoz besteak kontu kontari, lotsa barik, gordin.

Nire gizonak, senarrak, jo egiten mindun. Ala ta be maite dot. Gaur bertan emen nagola jakiten ba'dau, joteko arriskua dot. Baiña beragaitik nabil. Osabidetik urten naia igarten dautsat...

Nire senarra alkoolaz bero datorrenean, umeekin sartzen naz oiean, arein bigunez edo samurrez atzeratuko dalakoan, baiña ezkontzako batasuna egitera beartuten nau. Eta amatasunaren aurkako pastillak erabilli bear izaten dodaz aldian, denpora batzuetan, gaixo baten emaitzik artu ez daidan lengo kuruzearen gain. (Azken au, ixiltu, bere albokoei).

Goizeko bost eta erdietan urten bear izaten dot lanera. Noiz emon gizonari berak ain premiñazko ditun tantak? Ba dakit indarrez emon ezik, berez ez ditula artuko. Eta barrero nire kurutzea asiko da. Zelan gizona ordu orretan esnatu eragin orretarako? Amagiñarriba bere alde dago. Neu ei naz gaixoa sartzen dautsadana gizonari. Edaten ez dabenetik argaldu egin dala-ta, nire koplak beste mundura eroango dabela. Zer egin bear dot?

Orra, batzuk esatekotan, iruren agerpenak. Bata bestea baiño garratza-goak dira esakerak. Batzuk erdi lotsaz, baiña lagunei bizi daben experientzia erakutsi nairik. Danentzat dauka osagilleak berba onen bat. Igarten da danak beragaz ondo dagozala. Eta orrela gero ta biziago, gero ta gordiñago batzarrak, bizi-bide negargarri baten menpean bizi diranen agerbideak entzuten. Askok, geienak, maitasunik galdu barik euren kurutze diran senar edo guraso edo semeai.

Gain-gaiñetik kezka bat sartu yat barruan. Danak agertzen daben ardura, kezka, edo argi esanda, keixua: Gizartearen laguntzik ez dagola gaixo onetan laguntzeko. Iñor ez dala urreratzen maitasunezko eta borondate oneko esku bat luzatzen. Gaixoa batzen doanari laguntzeko, indartzen doanari geldi eraziteko, esku bedeinkatu batik ez dala agertzen, ez biotz oneko agerpide edo salakuntzarik.

Laguntzeko, biguntzeko iñor ez... eta gordintzeko, gaixoan erretzeko, ainbat «lagun».

Orbel guztiak ez dira jausten leun eta bigun arboletatik. Ba-dira kizkur eta biurri gelditu nai izaten daben orriak. Utsune baten salatari; giro bat eztsi nairik. Gaurko nire ikaskizunak nai daben eran.

ZUBEGI

GOZOTEGIA

E R I K O

Ezkontza ta Jaunartzeetarako opil-gintzan berezituak

Etxera bialtzen da

Kareaga Goikoa, 15
Menendez Pelayo, 2

491030 urrutizkiña
493059 urrutizkiña

B A S A U R I

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra
BILBAO - Casco Viejo
Tenderia, 15 eta 16

AZTERGARRIAK

ERAILKETAK

Errubako gizasemeak lotu, atzillotu ta azkenean erailteak asko geitu dira. Orrekin biziaren truk, lagunak azkatasuna edo iges egiten lagatzea eskatzen da. Adizkidetasun aundia erakusten dabe, baiña giza-eskubide zaletasun apur bat bere ez.

—Arduradunak benetan arduratu dira, ta orrelakoak gixtitzeko alegin gogorak egitera ei-doaz.

* * *

AUZIAK

Otsaillean ibilli zan aruntz-onuntz larran ondoren, ainbeste izpar, gertaera ta jakingarri egunero gaitera etorguzala, Garizuma aldean-edo garalako, epe labur ixil baten lotu dira. Udabarrarian barrido indartsu agertzeak.

—Eritrea, Kanboya, Sinai ta arrolioak, zati baterako bake-une izango dan azken erabakien zain dagoz.

* * *

AMALAU

Olan esaten yakon urriñetik orruaka etorran ari. Kadafy be orrenbestean. Oman laterri arroliotzuan dan Dhufar lurraldean, agintarien aurkako burrukaliak dabiliz basamortuan. Onai gogor egiteko, Sha orrek bere gudariak bialdu ditu, ta Kadafy'ren gogoko ez izan.

—Iran ez ei-da arabitarra, bai baiña mahomatarra, ala ta be euren artean konpondu ezin.

* * *

TXANDAKA

Aldi baten, Libia izan zan danon aurrean gogor agertzen zan laterria. Gero, makaldu eta erdi ixildu egin zan. Arrezkero erregezale diran Iran eta Saudi orreik agertzen dira zuzendari eta arroliodunen buruzagi. Lurralde orko auziak zuzentzeko oneik izango ei-dira amerikarren lagun.

—Euren artean konpontzen ba'dira beintzat.

* * *

ONDORENAK

Ta jaun bi orrekin ekinia nabarmen agertzen da: Egipto'k, oindiñok agertu barik, baiña egin ditu bakeak Israel'egaz. Sadat'ek ez dau onartu nai izan P. L. O'korik Kairo orretan. Siria'k dana eginda dagola diño...

—Egi-egia izateko, aundiegia dirudi, baiña noizpait izan bearko da.

* * *

MOROKILLARIAK

Bake luzeko lan zintzotik bizi ezinda, nastetik euren ateratzen oituak, beste zerbait asmetan ibilliko dira onezkerok. Ez da asmatzale txarra izango nundik letorkezan igarri daikena, azken urteetako nasteeikin aspertuta beste bake-aldi batera ei-doa indartsu gizona-ta.

—Ogei urte iraun ditun bake-aldirik ez ei-da izan gizonen artean.

* * *

ARRAINTZEA

Berreun millako itxas-ertz neurriak lagun asko ta aundiak izango ditu aurten. Ez da baiña or izaten dan arraintzeagatik izan, olako tokietan agertzen dan arrolioak eraginda baiño. Orain arte, Olanda izan da berreun orrekin aurkalarri gogorrena, bere arraintza zabalak bestean itxas-ertzak bear ebazalako. Orain, bere inguruko Ipar-itxaso orretan ainbeste errekin agertu dala, berreunen alde jarri da.

—Arrain txikia nagusiak iruntsi. Arrolioa arrain aundia izan!

* * *

AUNDIA BA

Aundiak txikia iruntsi. Libano'ko jaur-laritzak arraintza alkarre aundi bati bere itxas-baztarrean arraintzea egiteko bakar-eskubidea emon dautsa. Betiko arraintzaleak benetan asarratu yakez eta izkilluz eta edozelan agintarien aurka jarri be, errazoziz beterik.

—Gauza onik asmatzeko zoririk izaten ba'dozu, laster agertzen dira bela arrapata-riak inguruan.

* * *

EDERRA IRUDI ARREN

John Dundee sendagilleak azterketa berezi bat egiten jardun dau. Giar artean sartzen diran ziztaketak, ezitxuak edo euskeraz ikasten nekaten ez diran indeziñoak nork obeto emoten ete-dabean, gizonak ala emakumeak. Onik, gure neskatil liraiñak, eperdimatrail eder a ikustean, erdi-erdian satzen dabe orratza. Ikasitako sendagilleak, matrail orren gain aldean, emen ei-dabil ba odola ugariago. Ta ordubete aiña lenago bere lanean asiko da sendagilleak emokinoa.

—Ez da ba beti egia, esku leunak obeto egiten dabela, ziñestea.

* * *

TURISTAK

Geitzeko asmoan, Suiza'ko Lausana'n, mando gaitzeko naiz txirrindu gaitzeko ibilaldi errezak asmatzen dabez. Ordu gixkiko ibilaldien ondoren, erri txikeitan geratu ta bertako ardao ta gaztai bereziak txastatzea oiñarri dala, inguruak ikusi ta jakingarriak erakutsi.

—Zarautz'ko txakoliña, Azpeiti'ko bildots erreka ta Goi-erri'ko gataiak bitarteko, ez ete-genduke mando-ibilaldi ederrak auzeratzeko biderik izango?

* * *

GARAIA TA GIROA

Egualdi neurkiñari edo barometroari begiratzeak garrantzi aundia ei-dauko. Inñori ezer garrantzizkorik eskatu edo eragin bear dautsazunean, ez eskatu tramankulo ori berantza doanean. Gizasemea baikorren eta eginkorren, goruntz doanean izaten ei-da. Baita lanerako be zaletuen.

—Orrelakoan zuen ondoan izaten ez garanez, barometro ori goruntz ikusten dozun bakoitzean, gogoratu, ta ekin; AGUR onek zure laguntasun aundiena bear dau.

DANOK

ARROTU EGIN DIRA

Ez da oraindik urte asko arabitarrek munduko beartsuenak izan zirala. Orain, zer esango degu? Aberatsenak dirala. Pentsa, segundo bakoitzeko 115.000 dolar irabazten dituzte guziak, eta nai ba'lute, emendik amabost urte barru, Europa'ko Boltza joku artu-emanak berentzat izango lirake.

Iran'go Sha dalako orrek arrotasuna besterik ez du agertzen, ta nik galdetzen det, alegia, ez ote zan obe dalako Mossadegh arek agintarritza artu zuanean jarrai izan ba'zun? Beintzat, Iran'go kondaira, istoriya, besterikakoa izango zan oraingoakin neurtzeko.

Arabi guzian, arrolioa daukaten erri oietan, 10 milloi biztanle bizi dira. Guziak lanik egin gabe bizi leizke, baiña % 10 edo 20 biziko dira ederki tapatxaran, beren berebil aize-landuakin, jauregi bakoitzean 50 amar emazte edo konkubinakin, ta erria, gijajoak, goseak. Etxerik ez, ur gutxi ta bera erosi egin bear, lanik ez eta ainbat naigabe! Erri ori % 15 bakarrik dago alfabetatua, gaitzontzekoak linboan egonik.

Arabi Saudi'k zortzi milloi biztanle dauka. Onek saltzen du arroliorik geien, bere ondartzak arrolioz beteak daudelako. Errege arroa bera, ta israeldarren aurka gudak egiteko gaitzontzekoari berak emanaz dolarrak. Gero or daude Kuwait, Arjel, Libia, Irak, Omar ta beste lur edo ondar zati oiek, ta guzien artean batu diralako, mundu guziari ortzak erakutsi dizkiote.

Zeinek esan, baldin Ipar-amerikarrak ontzat artu izan ba'zun dalako Assuam'go ur putzoa, presa ori eta ez sobietarrak...? Gauzak batekoz bestera izango zirala, ez-pairik ez daukagu, Sobietarrak argi ibilli ziran une aietan eta berak lagundu zieten arabetarri, putzu ori egin ta arrezkeroz lagun dira; gaur guda orretan egonik bi lagun-tzalle, Sobietaria eta Ipar-amerika. Ortan amerikarrak erru aundia izan zun arabiarren eskeari jaramonik ez egiteaz. Orain zer? Ez du balio negar egiterik; il da gero!

Jeke arro oiek, Sha eta beste errege oiek, batera ta bestera ibiltzeko «Merzedez» berebillak daukate; erriak, alduanak, ganbeluak eta geienak ori ere ez. Beren bizi lekuak, zapiak etxetzat. Pentsa, Iran'ek, bakoitzeko 700 dolar irabazten ditu, ta 200 edo 300 besterik ez dute artzen. Zer egiten dio gaitzontzekoari Sha orrek? Berak nai duana noski, jauregi eder eta apañiak eta urteroko joan etorriak Saint Moritz ta olako gozaleketuan. Ajola zaiote oieri erria goseak egotea, berak ongi bai daude! Oien siñismena Mahoma eta Ala ta Koran dute. Siñismen oiek, ongi betetzen ote dituzte?

Aitzekia artu aintzat eta orain, esaten dute alegia, petrodolar oiek beren aberriak goitzeko bear dituztela, industri, bide, itxas-ontzi, portu, egazkin ta abar erosteko.

Zeintzuk eman oiek? Europa'k eta Amerika'k. Auek ere kirten bapoak daude, oieri eskatzen dien guziak, salduaz, gero zer ondoren etorriko zaiten begiratu gabe. Arabiarrek emendik amabost urtera, zer izango dira? Nai dituztenak lortzean? Leporaiño betetzen dituztenean bazterrak? Orko ixkilluz, ontziz, ta abar ta abar? Ba-dago ludi ontan «traperorrik!»

Prantzi'k zer egin zun orain urte asko ez dirala? Ingeles ta israeldarrekin gudan egin arabien aurka, dalako Suez ibaia ez galtzearen. Gauzak ongiago joango ziran, baldin Ipar-amerikarrak sartu ez ba'ziran, alegia, galeraziaz, sobietarrakin batean, irurari guda bukatzera derriortuaz. Ordun burua makurtu zuten irurak eta, orra orain arrezkerozko gora-berak nola joan diran. Einsehower arek ba-zitun erruak eta orduko bere politika zikin eta trakets ura ez da aztekoa. Politika txarrak ekartzen ditun ondorenak, emen guziak esateko luzeegi izango litzazke. Ortan gure gudan ikusi genitun eta ez zaigu azten, gorderik barrenak il arte.

Auek orrela dirala, kontu egin zagun, emengoak, europar eta amerikarrak izkilluak eman arrolioaren trukez, eta gero arabiarrek ortzak erakusten dituztenean... zer egin auek?

A ze nolako parreak egiten ari diran sobietarrak! Euren Varsobi'ko ituna tinko ezta-baida gabarik, eta OTAN'goak alkar burrukan... Begira Turkia'ri, begira Grezia'ri, begira Txipre'ri. «Otangoak» izan eta ala ere alkar ezin ikusirik. Gaur bertan sortuko ba'litz guda, ez dakit baiñon, prantzesak beintzat, ez dira joango otangoekin, doitzarrak ere ez dakit, ta gaitzontzekoak ere or nunbait.

Arazo auek guziak arrolioak ekarri ditu. Egi au ezin ukatu degu. Zeintzuk galtzen dute bien bitarteko jokoak? Erriak! Eta beste oiek, monopoliotar oiek zer? Oiek nai dituzten irabazteak egin.

Nun dago errua? Sha orrek esan du argi: inflazioa puztutzea goitzen dijoan bezela, berak ere arrolioa goituko duala. Gu koitauok, burua makurtu, buztana txakurrak egiten dun bezela, sartu ankartean eta, egin lo lasai...!

E. OZKIN



eziketa jostailuak
eskulanetarakoak
irakasketa gaiak

Avda. del Generalísimo, 65
24-19-16 urrutizkiña
GAZTEIZ

MORIKI

Txagorritxu auzoan

Jolasean ikasi, or zure aurrentzako emoitzarik onena

PERRETERIA UNCETA, S.A.

Landola tresnak - Galtzairu neurri zeatzekoak
Langailu guzietarikoak - Leunketa gaiak

Ibarrekurutz kalea 14
71-10-00 Urrutz.
Apartado 18

E I B A R

MENDIDI EZAUGARRIA

GIBIJO

Pizkat soñez gertuta aurkitzen dan mendigoizaleak, etxetik urten danean, atsegiñago dau medi goitia kaskarragoa baiño. Ba-daki orraitioño ain andiyak izaten ez diran mendi askotan be ba-dirala ikuskizun jakingarriak; euskal-mendigoizaleantzat batetz bere.

Gure idazlantxu onen idazpurutzat artu dogun Gibijo mendidia, eta bere erridia ez dira goitiak baiña ez txikiak be, bertoko mendirik goitienak anei neurkin goitik ez dira, gure marrazkian ikusi legikenez, baiña ba-du bere zera aran onek.

Araba eskualdearen sarkaldean; sarkalderago Garoibel (Sierra Salvada) daukela, ego aldetik Karkamo mendilerroa, sorkaldetik Badoya'ko mendidia eta be alderdi guztiyan Kuartango ta Gibijo'ko aranak ditu.

Gaur-egun landara-elesti ona du mendidi zabal onek, lenago baiño abere gitxiago alikatutzen diralako bear bada; alderdi askotan sasitzu ikusten dala mendiya. Ba-ditu zugatz andiyak eta gizenak be sakon-uneetan, ia goi-goraiño pago, arte, baita areitz banaka bat be, baiña geyen baten arantzea, agiña ta beste saztraka kaskar asko ditu.


Goi aldean, zortzireun neurkiñera inguruan, zeleikada zabal bat dau, eta errez igoten da ortik inguru ontako gallurrik goitienara, Arangatxa mendi apalera, aldapa gitxi dabelako. Ain bat erpiñaguak dira Merinda ta Gaztelu mendi-mustur zorrotzak.

Mendidi onek, ta erridiak aldi ontan dauken abeldia ez da gauza andikoa: ain andi ez diran artalde bi edo iru, zaldiren batzuk udaran, erdi etxe-bei ta erdi basa-bei diran batzuk, baiña gitxi ta ezerez geyago. Basa-piztien artian bai ei-dira ainbat basurde eta lukiren batzuk be. Eta txorien artean ainbat. Antziña, baiña, ba'litzakean basa-piztien artean askotaz aberatsagoa izatea, oraindik be ba-dira, otso ta besteriko pizti andi ta basati abereak arrapatzeko, artzain-aroan-edo, gertutako arrizko toki bereziak, emen argitalduten dan marrazkian agiri diran toki-izen batzuk dirausken bezela... Orretariko batzuk ikusiak gara-ta, or agertzen da gure arbasoen adimen bizkorra.

Gaiñera, danok dakigun lez, gure arbasoak abereak eziten ikasi eben artean beintzat, eizatik, baso-abere ta piztiegaindik eta lurrak emoten

eban igalietatik bizi izan ziran geyen baten, beraz alderdirik onurakorrenetan bizi bear ziran. Eta, alderdi ontan azterrenik asko aurkitu dabe, azkenengo urteotan, Barandiaran'dar Joxe-Mikel apaiz jakintsu ta bere laguntzailleak, lurralde notintzua izan zala erakutsiten emonaz.

Aipatutako Jaun jakintsu orreik, ainbat tregu-arri ta jentil-baratz aurkituak dira Gibijo'ko mendi ta bere larrañetan. Beraz, ez dago zalan-tzarik orain baiño aberatsagoa izan bearke eban alderdi onek, bai abere, arraiñez —urgardendun ibai ta latsak ditu aran onek— baita baso-igaliz be notintza aiek alikatzeko.



Gaur-egun be ainbat erriska dira. Izarra erri-buru dabela, Gibijo'ko mendi-aldamenetan ta aranean bertan. Asko erdi-utsik aurkitzen ba'dira be; osasunerako toki egokiak dira.

Mendirik goitienetara joateko errisarik aurkienak, beste batzuen artean Izarra, Abelia, Andagoya ta Sandaniano dira. Beste erriska asko be ba-ditu bai Gibijo aranak, eta Egoaldera dagon Kuartango aranak.

Mendidi onen gibelean sartuko ba'giña, Andagoya erriskara elduko giñake, ta ortik iñondik baiño obeto Arangatxa, Gaztelu, Merinda ta beste askotara igon. Erriska orrek amabi sendi ditu aldi ontan, baiña, askotzaz geyago ebazan lenago. Erriska ortan jayo ei-zan Amerika'ko Peru'n Agertzaille izan zan gizon ospetsua, Arzak eta Ibañez'tar Kepa izeneko jaun garrantzitsua. Guk iñoz entzun edo irakurri ez ba'dogu be, egizat eta oroigarri anditzat dauke erritar areik. Beraz, euskal-irakurle, beti daukogu zerbait ikusi ta ikasteko, gure lur maitegarri ontan.

ALTUNA'TAR JOSU

Basoko Bakea

Gure Erriko meza baten entzundako abestiak diño: Gizonak daukan egarria, betiko zoria da!

Ainbat buruauste egiteko gaia. Zelan zorion ori lortu? Bai ete, gaur bizi garan gizarte iñora eldu ezin onetan? Ba ete daukagu zoriona zer dan ausnartzeko astirik? Eta zer egin, astirik ez ba'daukagu: gabiltzazan zurrumbillo onetatik urten ezin ba'gara?

Ez diñogu bide bakarra izango danik, baiña ba'da ez ba'dan, mendira begira ipintzea ez ete litzake ona izango, Uriko ardurea itxita? Bai? Ea ba, gure emazte ta seme-alabak artzen doguzan, ta AGUR'eko lerro onetatik urten barik, Urkiola'rantza jo arratsaldea emotera. Antxe bertan bere, naita Uritik urrin izan, ainbat berebillen zaratotsa izango da, baiña Anton zar ta gazteari agur egin ondoren, laster utziko doguz atzean oneik bere, Urkiola-mendi'ko bidea artzen dogunean.

Gazteak, jakiña, ariñketan batetik bestera, oiuka ta ji-jika, urtedunak astiro baiña neurri baten. Ude-barriko eguzkiak berotu gaitu, ta or doaz gure kaiku ta kerseak besapera. Bide erdirako, gure gazteen arnasak utz egindira, ta gurasoen ankartean, noiz askaria izango dan itaunka.

Ordu erdi, iru ordu lauren baten or gagoz Ukiola-mendi'ko gallurrean. Arnasa barrizten dan artean ikustaldi bat inguruai. Une onetan Basa-Jaun'en luma azkarra, trebea bear, andik ikusten doguzan Durango'ko atxaen edertasunak azaltzeko. Ezin gure barruan sartu gure begiak artuko leukeen beste, ta bira bat emonik, Saibigain'egaz aurkitzen gara aurrez aurre.

Nor da gure artean oitotzean asi dana? A, zu, ni... bardin da. Guda zital batek eroandako gazte biotz garbi, errizaleen aldeko oitotza, non bigunago, non Jaunagandik urrago, gure mendi tontorretatik baiño? Ziri-ziri, aize mee bat, ala biotzaren dardarak...? Otz gara, ta gure jerse ta kaikuak besapetik sorbaldara barriro.

Orain, Anboto aurrez. An, bere gibelean, Anboto ta Urkiola-mendia'ren magalean, mendi biak egiten daben txoko zoragarrian, Asuntze.

Askaria izateko non toki oberik, bai gure ume ta guretzat bere? Len baiño arintxuago, gure urdaillek bere deitzen dauku-ta, or goiaz aldapa bera. Ordu lauren bat, ta emen gagoz, Asuntze'n.

An, or, emen, sendi taldeak bedar bigunean ezarrita, askaltzen. Urreratzten garanean, on egin, mardin, irribarre gozoak... Zergaitik ete da gure izkuntza maiteak iñon baiño geiago, emen mendietan, alkartzen gaituala?

Gu eldu orduko, or dabilzaz gure gazteak, Asuntze'ko iturriari asetu eziñik. Gu geu bere, makurtuko gara ta ur garbia ezan ondoren, astiro-astiro, baketsu, inguru guztiak aztertuiko doguz, baten Anboto'ko atz urdiña ikusiaz, etorri garan Urkiola-mendi'ko mazela berdzakari bestean, ta batez be azken baten len agurutako sendiai, urrintxoagotik begituaz, perretxiko zuri, gorri... amaika margoak orlegi illunean dirudi.

Jarri ta askaritzen asi gaitzean, edariak iturriko ur otzean dagozan artean. An, askaria bera be, ohea. Barriketa garbia elduak, gazteak zantzoka dagozan artean. Orduak aurrera ta igarri barik, ilunabarra. Agindu baten menpean bezela, danok eguzkiaren azkenengo dizdirai adi. Zantzoak ixilduaz doaz, barriketak gero ta apalago, belarririk belarrira mezan ba'gen-gozan lez.

Basa-beien ezkillak, ardiak beeka bordarantza bidean, len iturriko uraren entzuten ez genduzan mur-murrak irabazi gaitue. Anboto'ko atxak urdiñetik gorri, beillegi, amusko margoa artzen doazan artean. Bake beroa, pare bakoa.

Nonbaiten, norbait abesten asi da, samur, ixil, maitekiro, ta laster abeslari ta entzulari danok bat eginda, zuzendari barik, Asuntze'ko txokoa beteko dogu lenengoaren biotzetik urtendako abestiagaz.

Ametetik zantzo batek atera gaitu ta etxerako bidea artuazo, gaba illuna eldu baiño len naita laster illargi zuria izan.

Urkiola-mendi'ko aldeetatik, laster baten, ordu bat?, barriro Urkiola'n. Berebillatara sartu baiño lenago, azkenagurrean, dan-danok ago baten, AU EGUN ZORIONISUA!

ATXUTEGITAR BITOR

ALTZETA-GANA

Domeka arratsaldea zan. Egualdia, udabarririkoa. Zeanuri'ko Andra Maria'ren eleiz ondolik urten eta Asterri'ko bide barriatik igon neban. Bide-biurtze nagusian kurutze eder bat. Burdiñezkoa. Bere erdian irakurgai polita, euskera ederrean idatzita. Emaldi'ko anaidiak ipiña dala kurutza ori diño irakurgaiak.

Pizka bat aurrerago, bide-ertzean iturria, ur gardena dariola gau ta egun. Eta arri-gaiñean beste irakurgai txiki bat: «Fuente de Lorenzo». Neure artean esan neban: Zergaitik ete dago erderaz irakurgai au?

Gero Landabarreneta'ra. An egoan, oso makal, nire adiskide Nikolas. Beragaz berbaldi labur bat egin ondoren, basora igon neban: Eleizondo ta Asterri'ren erdian dagon muiño-gana, mendi-bizkarra, oso polita da.

Ganik-gan aurrera egin neban eta eleizearen pare ingurura eldu nintzanean, gaba be urrin ez egoan eta, berantza jolasi nintzan. Eta antxe bat ikusi nituala gauza politak: Txabola txiki bat: baso-otzuraz egiña, aurrean aurki politik egokiak, atea itxita... Baiña leiotik barrua ondo agiri zan: ormak apaingarriz beterik, gaztaiña-moskolak barruan, maiak, aurkiak...

Baiña geien atsegin izan jatena, txabolearen izena izan zan: ALTZETA-GANA. Euskal-izen egokiak be ikusten doguz noizean bein. Zoritxarrez ez bear litzakezan beste.

Eta Altzeta-ganeko ingurua be ikusgarria da: era askotako igale-landarak, egoki ta polito sartuta, euren sailletan eta ondo iñausita. Ikusgarria benetan.

Pizka bat berago beste txabola bat aurkitu neban. Onen izena Altzeta zan. Bestearen antzera apañaduta eta ingurua be ganeko Altzeta'ren antzekoa.

Nor ete da ain arduratsu inguru au zaintzen dauana edo izan dauana?

Patxi Intxaurrea, gaur larogei ta sei urte inguruan dagon gizon zurra. Guda aurrean erriko udaletxean idazkari izan zan eta gaur ebagiteko sasoiaren diran piñadi ederrak sartu zituan. Gem gudaren ondoren baragarriakaitik, irabazpida barik geratu zan, espetxean urte batzuk egin ondoren. Orain zartzaro paketsua eta zoriontsua dago, bere seme-alabak berari itzaltasunez eta maitetasunez begiratzen dautsoela.

GAMIZ

ERRIETAKO

BARRIAK

Arrasate

JAI BAT

Uste gabeko, bada etzan zabalkunderik egin, baiña alata be «Gure» antzestokia bete egin zan, umeck geienak. Jai au «DANOK» Alkarteak eratu eta Ikastolaren laguntzarekin. Jai onen zera, Ikastolako umeei idatzi bidez egin zitzaion galdera batzuei erantzunak astertzea. Bai ederto erantzun ere. 250 umeck emon zituen erantzun orreik eta erretatik erdiak inguru ososorik ondo egiñak. Danentzat ez izan saririk eta iru sari banandu ziran zozketa bidez, eta irabazleak onexek izan ziran: Gutierrez dar Iñigo; Salaberria tar Mertxe eta Lasar tar Yon Iñaki.

Jaia biribiltzeko, Lasarte'ko neska-mutill talde bat etorri zan. Eurok, 40 bat inguru, ordu-terdian solas-aldi ederra igaro eragin euskuen: Txalaparta; abeslariak, bakarka eta taldean; bertsolariak; dantzariak; trikitixa eta zenbait gauza eder. Poz eta atsegiñez egon giñan guztiok eureki ikusi eta entzuten. Nekeza izango da beste erri baten olako talde bat aurkitzea, ainbeste lan egoki eta txukun azaltzen duan taldea. Zorionak Lasartearrei eta izan dedilla eredu beste batzuentzako ere. Elortza, «Danok» Lendakariak esan euskuez onelako jaiak illero izango doguz. Ederto; olan izan dedilla, ikusia dago, askoren atsegin izaten dira-ta.

IKASTOLA

Datorren Udazkenean asiko dan ikastaro barrirako Ikastolara jua nai duten guztiak eta iru urte aurtan betetzen dituenak, emon dezatela euren izenak Epaillaren 31'garren egunerako, ikastola onetian: Musakola, El Ferial, San Francisco, Erguin, San Andres eta Gasteluondo'n.

BEREBILLAK

«Vergaresa»k Oñati eta Durango artean, orduak aldatu egin ditu, eta emendik aurrera onexek izango dira: Arrasate'tik Durango'ra; 8; 20-9, 25-17, 15-eta 19,30. Durango'tik Arrasate'ra; 7,15-10,00-12,25-16,05 eta 18,55.

BESTE SARIKETA BAT

«DANOK» Alkarteak euskal idazlanen-tzako eratu du. Sariaketa onetan parte artu lezakete, Ezkoriazta, Aretxabaleta, Arraste, Aramaixo eta Oñati'n bizi diran guztiak. Jakiña idazlanak euskeraz izan bear dute. Iru taldetan: 10 urte artekoak; 10'etik 16'raño, eta 16'tik aurrerakoak. Gaia edozein, euskeraz izan ezker. Lanak Epailla'ren 31 aurretik bialdu bearko dira, zuzenbide on-tara: «DANOK» Alkarteak, Rezusta, 33-ARRASATE. Zertzelada geiago jakin nai dutenak galdetu zuzenbide orretan.

UDALAITZ

Bermeo

BERMEO'KO ABESBATZA

Ainbat urtean lo zorroan egon ondoren, itxartu da barriri **BERMEO'KO ABESBATZA** bere ederti lanetara. Eta Otsailla'ren 16'an, igande eguerdian ugutzau dabe euskal-izen polit onegaz: **BERMEO'KO ABESBATZA**. Aita bixi egin eban Algorta'ko BIOTZ ALAI abes-talde goi mallakoak. Talde bi onetako zuzendari diran GAINZA eta EGIA ereslari jayok maitekiro besarkada istu bategaz anaitu dabez **ALGORTA** ta **BERMEO**.

Abesti aurkezpen eta lengo Orfeon Bermeano'ren edesti laburtxo bat azaldu eban Mundaka'ko Zorion Egileor'ek. Aitatu dituzan lengo Orfeon Bermeano'ren zuzendari izenak: Luis Esnal eta Jon Zubietza; Arantzazu'n dagozien Aita fran-tziskotarrak. Langille bi onetzako txalo ugariyak izan ziran. Merezki be bai.

Jai asiera, Bermeo'ko taldearena zan. Eta abesti ezagunen artean Egia irakaslearen abesti barri bat entzun euntzagun: **EKILIKAU** izendun jostallu alai, bizkor eta atsegingarritua. Ederto abestua emeko neska-mutill taldearen. Txalorik be bai irabazi. Eta ugari ganera. Zorionak!

BIOTZ ALAI'tarrak ere **KITOLIS**, Aran-buru'ren abesti alai eta ariñ-ariñ antzeko eresi bizkor bat abestu eban lenengoko aldiz. Onex ere txalotuak izan dira pozkiro.

BIOTZ ALAI'tarrak **KITOLIS** eta **BERMEO'KO ABESBATZA**'ren **EKILIKAU** eresi mamintsuakak Euskal-jakintzak bi lerrotxo geitu dituz. Biori zorion beroak. Eta jarrai aurrera bide orreri.

Gerotxoago gure **LUPE** neskatil ospatsuak eta **ZABALONDO** mutill jatorrak azarre, neke eta azkatasun abestiz, abots gozoz ganera; poztu ituzen entzule gustiyen biotz barrenak. Abesti artean zantzo zoli eta alaiak. **ZABALONDO** gazteak itzalez eta maitekiro abestu eban Aita **GOTZON** zanaren olerkitxo eder bat arraintza-learen goiz-bizitza agertuaz: **ALBAKO KANPAK** eresi onen izena. Luzaroan txalotua izan zan areto aretan batu ziran ostetza ugariagandik.

Jawegizar'tar Joseba Mirena (Kose Komentu) antxiñeko abeslari eta antzestalaria an egoan eta **ZORION**'eri otu yakon entzunleari agertutea, bere agokerea; bat-batera txalo ugariak entzun zituan beronek, 92 urteko aguretxu onex. Gaurko egunez, berau Bermeo'ko «Residencia de los Ancianos»en aurkitzen da itsurik. Zoritzarra benetan berantzako.

Gure erritar Abesbatzako andereño lirain batek, **BIOTZ ALAI**'ko taldeari txol txukun bat, mailasun oroigarritzat eskiñi eutsan. Ezikorra izan dagiyan **Euskal-Erri**'ko batasuna.

Benetan eguerdi zoragarritua igande atakoa. Ea, urren be, olakorik dan.

JULEN URKIDI

Basauri

Urtebete inguru igaro da, Irubide ondoko zubitik Ibaizabal'era berebil-zama edo Kamioi bat jausi zala, bost bat neurkiñean aldemeneko langarok apur-turik.

Gaur oraindio ez dira apaindu langarok, alan aurkitzen da zubi ori, bildur-garri, ez da ba jolasean ibilteko lako tokia. Noz arte? Zenbat eriotza ete dauko zientautu zubi onex apaintzen asteko? Goratuago dagon bide kurutzearen (es-petxe ostekoa) beste bear ba'dauz ondo dago urtiararako, ba bide kurutze onetan astero ikusten da, berebille bat zapuztuta.

Ba-dagoz beste bide kurutxe batzuk ederto zainduta dagozanak, esaterako, Urbi'ko bultz-kurutzea edo (paso a nivel), sarritan berebilla errezkadan utzi, Aldama'ren ardantegira sartu ta akaita txolaz artuak gara, ta au ez da dana, gafiñera bultzirik igaro barik bideori zabaltzen be ikusi dogu.

Erri onetako karriketetan, zikiñ-otzara edo papelerak ipiñi daukuezelakoan. nago, ala amesetan egin ete dot?, ba ikusi ta ez ikusi dana izan da bat. Geure onerako diran gauzak obeto zaintzea elitzake txarto etorriko.

Lagun, erri onetan Ambulatorio'ra (osategira) joateko bear izanean aurkitzen ba'zara, ez asi nun dagon itaunka, oba dozu erriko Mikrobusa edo taxi bat artu.

Gudari-etxe osteko landan eta egualdi onaz ainbat lagun ikusten da, gazteak jolasean, aiñ gazte ez diranak zerbait irakurten, eta ama ta amama asko euren aurtxoekin arratzaldea igaroten.

Gudari-etxe ori kentzen doazela diñue. Zer egingo ete da toki orretan?

Noz arte izango ete da, izentaiko landa ori, ezer ordaindu bear ez dan jolas tokia? Diru eralketa aundi barik, inguruok leundu ta asko andiagoo egin laike toki ori. Lejarza'tar Andres'eri eskerrak, Grupo Alpino Basconia'ko aldizkaria eskuratu jat, oraiñ urtebete sortu zala diñue. Onelako mamintzua agertzen ba'dabe urte askorako osasuna daukola uste'ot. Talde onex, Gorbeia'ko estalpea apaindu dabela diñue ta onetzaz dei bat egiten dabe. Dei ori emen idaztea gogoratu jat, ba, uste'ot, zabalokunde apurbat emoteko lako deia dala.

«Gorbeia'ko estalpera zoazenok, bazkide ta lagunok, zaindu egizue ezalpea ta bertalko gauzak, zeuen etxea bezela». Bepallera to talde onex daukon egi-tarua:

2'an.—Muneta (Karakate) (742m.) El-goibar. Egun erdirako.

16'an.—Peña del Pando (2.222m.) Alto Campoo. Egun guztirako.

28'an.—Peña Ubiña (2.416m.) Asturias eta León bitartean.

29'an.—Brañacaballo (2.181m.).

30'an.—Gamonal (1.715m.).

GOIKOETXEA'TAR KEPA

Arratia

Izen aundiko abesbatz entzungarriak izan doguz Begoña'ko Andra Mari'ren txadonean, bizkaitarren Ama zaindariaren eleizan.

Talde bakoitza soin bat egiñik bulartsu, entzuleen belarriak gozatsu, eskuak txalotsu. Iñoren eztl muskiñik ez zan iñon entzun.

Gaueko zortziretan zazpi egunez izan dan abesti-jaiari asiera emotera, praka ta arkondara beteko arratiar osoa egin da J. José Arizmendi gipuzkoar jatorra zan, 85 gizezko lerden eta oillandatko zoliz inguruturik. Bein batzuetan ziriki-miriki, bes-tzuetan garrazki, ederto zuzendu zituan 85'en ezarriak.

Entzuleen esanetatik: Gogozkoen eta bi-zzikuturik aundienduna, arratiarren «Gor-bei Mendian». Onena, Bermeo, Danok-Bat, Portugalete'koa ezarriari sardin azurrik bakoa. Lekeitiar «Itxas-Soñua» zerutar ezta. Zuzen-darietan garrantzirik aundienduna, 60 pozpolin biurriri alan irakasteko eskua ta eroapena izan dauan Saenz Ortuondo'k.

«Agur Jaunak asieran, «Begoña'ko Andra Mari», azkenean, abesti-gozez atera giñan.

* * *

Eleizaurrean, gaztetasun sindoak eta bi-zigogo sutsuak eragiñik, arratiar gaztedia txistu-soiñuan oinarin, dantzari. Eta antxe gengozan, begira, uztaita egiten genduala, adi-adi, Danak ari ziran bizkor-bizkorrik, an ez zan oin-txepel, erren eta ketorik.

Nire ezker-aldean lekeitiar amakuma bi, begiak galdubaiñik, dantzari bakoitzaren oiñetara begiraka. Onena zein zan nire galdera (itauna)ri, areki erantzun: Aurrean dabilkigun mardul au eta beragoko aurpegi-biribilla. Eta «mardula» ta «biribilla», Bil-bao Zautua eta Amaya Etzezarraga izan, ain zuzen be, neskatildantzari txairoenak.

Aurrera ba, Erriagaitik eta Erriarentzat, Arratia guztia batean, Gorbei-bizkarra ke-rexaz gorriturik ikusi arte.

* * *

Irakurten dogun baiño geiago irakurri-bearra dogu, azeri lukiarri buztana ebagi al izateko. Goiz-Argi, 232'gn zenbakia dot eskuan. Barri jakingarriak bere orrialdeetan.

Erri-euskeraz eta Euskera batua'n 1974'gn urtean argitaratutako liburuen kontu zeat-zak damoskuz eunekotan aterata. (Gaz-tañaga'ren lana).

Irutatik bi «h» dunak zirala iñoanak zer esango orain? Zerekin estaldu belarriak?

* * *

«Orma atzean den astoari belarriak ageri» J. A. Orbegozo'ren lan mamintua, azerien lukikeriari erantzuna. «Arrapoztua».

* * *

«Agerpen arrigarriak». Gaztañaga'rena au ere.

Haranburu-Altuna'ren «errebelazioa», Kintana'ren Euskera idatziaren «tradizioa», Kintana'k esandako beste zer batzuk, «JA-KIN», «Vasconia», «Larresoro», Txillarde-gi», «Mitxelena», «Aresti», «Ukronia» eta «Krutwig» aitazten ditu, zentzun zorrotzez, Gaztañaga'ren luma zurrak, bizkorrik.

Irakurritz itxartu. Itxartu eta lukikeriei erantzuna emoten ikasi. Gaur-egungo egi-tekori beifena dogu.

LANDAJUELA'TAR A.

Galdakano

ERIYOTZA

Ez dago esan bearrik, eriyotza guztijak izaten dirala atsekabegarriak, batesbere senditarte-koak ba'dira, baiña, Otsailla'n 19'gn, gure erri ontan il zan gizon gazte arenak, oso minduta itxi eban, bera ain atsegingarri izan eban ostetza: Ereño'tar Joseba-Koldo'k.

Berrogei ta sei urtedun zan gizon gazte au, euskaltzale ta galdakanotar jator, alai erritar eta bera ezagutzen eban guztien adizkide. Ori dala bide erriko txadon nagusia birritan andiyagua zan ba'zan be betetako beste notin batu zan bere illetetan, ildako urrengo egunean, beraz, or ikusten zan zelan maite eban erritar geyenak, ezagutzen eban guztiak. Goyan Bego adizkide ona, ta lagun gaitube aldi samin ontan bere emazte, seme-alaba ta sendikide guztiak.

Otsaillaren 21'gnean Usandolo'ko auzunean, Madariaga'tar Eli abertzale jatorra, 69 urtedun zala il zan. Goyan Bego aberkide zinzoo, ta aur-kiuko al dau lurrean nai eban edo geyagoko az-katasuna.

TXADON BARRIZKETAK

Aspalditxuan ainbat bidar irakurriak gara, basatxonuak, auzo-eleizatuak zelan berrizta-tzen dabezan auzokideak eurak, sarri askotan euren auzokideen txindi ta lana baiño beste lagutza barik, eta izpar orreik benetan atsegin yakuz kistarrak garen aldetik, baita euskaldunak garen aldetik, eleizatu orreik be geure-geuriak diran ezketiño, eta sarri askotan erti dunak be ba-diralako euro-taikoak.

Orain igande batzuk Errigoiti'ko Metxika edo Matxikak auzune alai ta baserritar eukitsu zamarrak diran inguruan egon giñan. Auzune ortan txadon politbat dabe ta «Munitibar» adiz-kide zintzo ta idazle jatorrak idazten eban lez, barrutik ederto barriztuta aurkitzen da; bertako auzokideak barriztuta; gure zorionak metxika-tarrai.

Baiña, zer idatziko ete leuke adizkide «Mu-nitibar»nek emen Galdakano'ko auzune dan gaur Erletxeta edo Erletxes izenaz ezagutzen dan an-tziñako Gumuzio'ko auzokideak egiñ ebena ba'leki? Gumuziotarrak lengo eleizatuak barriztuz ez eze, zarra eratsi, boia, ta barria ta andiyagua egin eban orain urte asko ez dala. Ez txadona bakarrik baita bertako apaizarentzat etxe barria be, Ge-yago oraindio; lengo egin eban etxea txikiitxua zalako-edo, aldamenian andiyagua be bai, ber-tako eleiztarrentzat areto eder bat eta guzti.

Gaur-egun, ez da Gumuzio'n apaizik, beste erri batera aldatua izan zalako bertan ainbat urtean aurkitzen zana, baiña ori gora-bera ez dira kikilduta geratu, ez orixe! erriko txamburu jaunaren eginduz batzorde zintzo bat antolatu eban eta orren bitartez lekaideak ekarriten dabez larumbat eta igande ta jai-egun guztietan. Eta ortik gainera, daniza-talde ta beste zerbait geyago gertutzen asiak dira auzokide zintzo orreik, eta laster gertuko dabezalakuan gara, ondo ezagutzen doguzalako Galdakano'ko menditarte bikain or-tako bizitanleak.

Geyago jakin nai ba'dau «Munitibar» idazle trebiak, zuzendu daiela Erletxeta'ra, antziñako Gumuzio'ra, bertan esango dautse, nik baiño argi ta garbiago-ta.

EZBEARRAK

Ia igaro dugun Otsail au, ez dogu ona izan galdakanotarrak ezbearrak. Egun gitxiñen bar-ruan jazokun garratz bi izan doguz. Lenengo, errian ezaguna zan gizon sasoioko bat urkatu zan, bere garrikuaz, Benjamin bere izena. Ta andik egun gitxiña, beste emakume zintzo batek, Bisi (Ikerna) bera, ibaira bere burua jaurti eban bertan itoteko, jakiña.

Biok, ez bata ez bestia, ez ziran jayotez gal-dakanotarrak, baiña aspaldiko urteetan emen bizi ziran lez, beste edozein erritar baizen ezagunak ziran, eta izakera garbikoak ziran ezketiño, ondo ta maitekiro artuak be bai. Goyan Begoz erru-karri orreik.

BASA-JAUN

OLIBA

«Et vinum lactificat cor hominis». Eta arduak gizonaren biotza alaitu egiten dau. Sarri joan izan naz Oliba'ra. Ango bakea dago eta arto artea gogoko.

Artea dago an arrietan eta artea irudietan. Artea baita ixiltasunean eta artea bakean.

Bide askotatik joan leike Oliba'ra. Kaparrutsu'tik zear Melida zar eta eguzkitua erdian lagata. Tafalla'tik, bide nausian Pitillas'eko erri-bidea artuta edo ta aurre-ratxoago, Santakara'tik zear. Edo Zangortza'tik, bardentan bera, oraingo ur-bide barriak ikusten. Emen, Kaseda'ko lurretan, ezkerretara, musgoz eta bedarrez betetako ermita gotiku bat: San Zoilo.

Aragoi aldetik datozenak, Gallur, Tauste eta Egea'tik zear ba dauke bide laua, errebera batzuetan kontuz ibiliz.

Danak dira bide onak, gaur, alde onetan, bideen oia eta beia ondo zaintzen diralako.

* * *

Euskaldunentzat, eta beste askorentzat, aita Martin Baleztena da praillerik ezagunena. Leiza inguruko. Urteak dira ardautegia bere arduratan laga ebela.

Beti keixu. Ardoak eta orduak dira bere ardura. Itzen joko dator emen. Baiña ez lotorke ondo «ardo-ura» biurriz geitzea. Olakorik ez.

Berezko kimikoa. Jantzi urdiñez ikusten da amankal eta gatzio. Prailen jantzi zuria eskegita, alboko gelatzen baiten.

Belarriko otsez igarten dau garrafoian zenbat litro doazan betetzear.

Bere gain dauka beste zeregin bat: odei illunak; astunak, begiratzea. Alderdi onetan aintab kalte egiten daben arria, odeien arria ezin zainduta ibiltzen dira naparrak udan. Irratiz be, orduetan, arriskurik ete dagon iragarten dabe. Albiste ori jakin bear izaten dau, berak be berea emoteko.

Kontu esale da, baiña itzak alkarren gain. Gerokoaren kezka. Bera be, orain, tensiñoing, eta diabetisak arduratzen dabe. Zer egingo, jaunak jakingo! Ori da bere esakera.

—Bixkor. Armonioa jotzen joan bearko naz. Ordua da gañean.

—Onetik bete.

—Bai, bai, adiskide. Danak dire onak.

—Eta klareta?

—Probatu zazu. Orra porroia, Atletikan koloretan. Ba dut Realarena ere.

—Ba...!

—Ona, ona da. Amasei ba ditu sendo.

Amasei grado. Ardo ona da aurten. Igaz, erdiko, giro busti bai zan. Zenbat garrafoi?

—Orra.

—Jesus! Ez dut denporik.

—Bi batetik, gorritik. Eta bi klareta.

—Beti azken orduan. Denporik ez. Ai, ai...

Santuzen lagun du.

Santuzen izenak daroerz barririk dagozan tokiak. Baiña nik ba dakit beste zerbait.

—Ez al daukazu eguzkitan, ortu barrerako ura?

—To! Berdiña da.

—Berdiña ta an, zetako?

Ba, ba... Atoz, atoz. Lan egin bear geiago, orain ustu ta gero betetzen. Jesús! Atoz.

Bere ortutxoia dauka Aita Martin'ek ardautegia jotzen. Lore batzuk, iru-lau arbola ta orma ondoan, eguzkiaren gozotara atarata, iru barrika. Eskutuko kimika. Berezkoa, obeto esateko. Ezin elduta be borondaterik ezin ukatu lorak.

—Artu, artu aranak, lorak e bai etxerako, emaztentzat.

—Nundik?

—Or... Ez al dira? Ba! Eraman dituzte. Bapo! Bi artzeko esan ta danak eram.

Atoz, atoz, eutsi goma oneri. Ordua da, kanpaia gañean...

Orrelaxe beti.

Bete eta kontuak egin. Onetan ez da azkarra, Norberak esan eta... Bakizu, kontua eman bear det. Nausi zorrotza degu. Ala bear ere.

Ai, ai! Kanpia jotzen eta oraindik komunitadarentzat ardoa eramateko. Ko-mu nidaderik ezin utzi ardo gabe, bakizu? Oi, oi, oi!

Eta Keixu, prisaka, kapa zuria jantzi, eskapulario nabarra gañean, gerrikoa lotu, karretillan garrafoiak sartu eta an dua praillea, bixkor, gorpuzak lagundu aifnako bizkortasunez, eguneko antifonak gogoratzen.

Oliba'n gagoz. Monastegiaren alboan. Arduak baretza biztu leike, baiña beste zerbaitek baretu.

Sartu gaitezen, ba, barruan.

* * *

Egunero, eguerdian, meza andia esaten da Oliba'n. Amabi-amalau edo geiago meza-emole.

Soloetatik, ollo-tokitik, basoetatik edo ta etxeko beste zereginetatik agertzen dira frailleak. Cister ordenakoak, mezatakoak be lan egin bear izaten dabe bestien antzera.

Eleiza andia. 74 metro luze, 36 zabaloko kurutzear. Azken urtietan kendu dituez len estutzen eben orma batzuk, fraile eta erria banatzen zituenak. Alkartasun zabalada gaur.

Doñu politik daukez, antxiñako gergoritarrek. Ez nua esaten ondo abestuten dabenik. Onetan beneditarrak geiago lotzen dira, geiago jardun eta euren eskola berezia erakutsi nai izaten dabe. Oneik, Trapakoak, lanak geiago makurtzen ditu. Areik musika arauak obeto zaindu. Oneik musikea lanagaz, alkartu eta biekien otoiuz egin.

Gizon gordiñak, eguzkiak erreka, aize eta lur kolerez igartuak. Zar eta gazte, gazteak be ba dira-ta, alba zurien azpian eskutaten ditue lanerako jantzi zarren josturak.

Oliba'ko mezak otoiuz eragiten dau. Eta nasaitu. Gizonak bere eguneroko gorabereetan nasaitasun kezka biziten dabelako.

* * *

Erdi aroko frailleak, erdi fraile ta erdi soldadu. Oliba'koen istoria be luzea da. Bere garraztasun eta guzti. 1134 urtean Garzia Ramirez'ek sortua da monastegi au. Sortu eta laster, ingurutako lur eta errien jaube egitea lortu eben frailleak. Euren nortasuna zaintzea, diruz ordainduta erosi, batzutan. Bestetan erregeen eskarrez, errien borondatez, jentien emon eta ordañez.

Askok egin eutsezan eskintza onak. Danetakoak. Sadaba'ko senar emazte batzuk bizi guztirako soin eta arimaz eskiñi ziran bertarako eta eurekin batean euren etxe, korta, sutegi, ardautegi eta ondasun guztiekin. 1231 urtean zan.

Orrelako eskintza eta mesedez, toki askotan lortu zituen lurraldeak eta jaubetasunak. Melida erri osoa euretzakotu zan.

Aibar jaunen eskintzaz. Santakara erosi egin eben.

Lurren azkatasuna billatzen eben, besteen menpetasuna galtzeko. Leku batzuetan bete-beteko agintaritzaz lortu eben. Siñismenean eta erri bizitzan. Ala Karakastelu'n, Carcastillo'n. 1818 urtearte, Oliba'ko abade nausiak aukeratu eta izentatzen eban bertako alkatea. Jakingarri da, emen be, Alfonso II Aragoi'ko erregeak erri guztia eskiñi eutsela bertako bizilagun eta ondasunekin.

Izatez eta bizikeraz erdi giroko era eta arduetan jokatu eben emengo nagusi askok. Ez eben nai izaten Iruña'ko gotzaiñen menpean gelditu.

Argalkeri eta ezin ikusiak be eroan bear. Nasteak. Batzutan bertako kalean agintzen. Ala, 1801 urtean, emengo abade nausia Naparroa'ko Aldundi'ko lendakari aukeratu eben erriberri'ko (Olibe) batzairetan. Bestetan, Eurak nai ez da be, kanpoko indarrez, jauntxokeriz, fraille be ez ziran gizonak bertako Abade nausitzako bialdu. Ondasunen nabarmenkeriak.

Danetako istoria, giroen mendetan giroaren eta girokoen otein, menpeko.

Lengo bizaldiak euki zituen bere astiñaldiak. Konbentzu asko ustu ta bertako onda-



sunak saldu. Oliba onetan be bi-irutan sartu ta urten.

Fraile gerralariak amaitu ziran. Dueñas'tik ekarri zituen 1926 urtean fraile bariak, konbentu au zainduko ba'zan. Cister'eko fraille ixillak, ez mutuak askok uste daben lez. Lengo aunditasun barik. Istorian galdu ziran lengoak.

Oliba, diñoenez, erri txiki bat izan zan gaur monastegia dagon toki onetan. Ortatik datorio izena. Bertako arri zaar eta urratsak billatu zituen bein. Gaur, lurralde au

AGVR

Apartado n.º 2
BILBAO

FRANQUEO
CONCERTADO
08/55

GARIZUMEA

Bein ta barrero dei egiten da, batez ere urte onetan, Ber-adizkidetzara jo bear dogula asanaz.

Adizkidetza au izan litekena eta da? Ezinezkoa ez da, baiña bai zaillata gatxa gizadiaren egokera onetan. Naaskera ikaragarria sortu da gure artean bere.

Adizkidetzeko, maitasuna bear da nire eretxiz, ta barru-barruko maitasuna bakarrik ebangeliotik dator. Beste aburubide-teori guztiak, bakea lortzeko ta alkartzeko gogorkeria, indarkeria ta norberekoikeria daroe euren miñean, or oñarrituten dira, ta ori bakarrik ba'dabe, ezin lortu askatasunik.

Benetako maitasuna Kristo'k irakatsi dauku ta goi-maitasun ori gure biotzetan josteko Beragana biurtu bear dogu lenen-len.

Biziteak eta urteak irakatsi dauste iñori gorrotorik ez eukitea. Maitasun ori biotzean ondo oñarriturik dagoenean gorrotoaren izenak bakarrik ere iguin emoten dau, ta beste aldetik bake pozgarria sortuten dau gure barruan. Orrek ez dau esan gure maitasun ori opio bat dala, ezer ez egiteko, dana bertan bera itxiteko, ez ori; maitasun langillea da, eginkorra da, burrukalaria da, baiña gorrotorik gabe; gizona askatu ta baketuten daben maitasuna. Maitasun ori ba'geunke siñistendun guztiok, beste zori baten legoke kristau erria. Entzute oba bat genduke kristauok.

Maitasun ori ez eukiteak askotan kristau erriari entzute txarra emoten dio. Orain ogei bat urte, judatar emakume jakitun batek esaten eustan: «Zelan nai dozu ni kristau izatea, maitasunik ez daukazue-ta. —Nik: «bai, ori da Kristo'ren agindurik aundiena— Berak: «Lenengo gizaldietako gizonak alkarri arrika ilten ziran ta zuok kristauok lagun urkoa atomikagaz ilten duzue. Len baño txarrago». —Nik: «Baiña ori ez da Kristo'k agindutakoaren errua, geure biotz txarraren errua baiño. Or dozuz Asis'ko Prantzizko, Paul'dar Bingen deunak eta milloika ta milloika, maitasuna erabili daben kristauak. Maitasuna daukan kristaua beti izango da gizonik onena, erritar onena, benetako kristau».

Emakume ura azkenez bateatu ta kristau ona izan zan. Emakume arek esaten eustana edo antzerako gauzak atxakitzat arturik, beste burubide-teori batzuekaz, politiku, diruzko-ekonomiku, gizarte auzi-sozial askatasuna lortu nairik; baiña alperrik, lenengo ta bein Kristo'gaz geure griña txar ta galgarrietatik askatuten ez ba'gara. Geure burua askatu dagidun lenbizi, gero ederto lan egingo dogu benetako askatasun guztien alde.

Ni abade gazte nintzanean anarkista batekin alkar izketa bat izan nuen. Zintzoa zan bera ta esaten ebana bene-benetan siñistuten ebana.—Berak: «Guk lortuko dogu mundu ederra, gudarozte bakoa, agintari, polizi, araudi-instituzio gabekomundua. Danak ondo ta zorionez biziko diran gizadia». —Nik: «Ori eziñezko gauzea da; gizona obenagaz zaurituta ez ba'lego, bai, baiña gizadi guztia jatorriz obenakin zauritua da, ta Kristo'ren laguntasunagaz, oben ta griña zantarrak menperatuten aleginduten ez ba'gara, bereala izango da burrukea, geurekotasuna ta bake auste».

Garizumea aro ederra, otoi, zigor eta gogaketaz geure barrua pekatuetatik garbitu Kristo'ganako maitasuna sakondu ta lenbizi geure burua askatuteko, orrela ber-adizkidetzeko gertaera ederra izango dogu, ta gero, lan ta lan beste egizko askatasun guztiak lortuteko. Lenena lenen ta gero gerokoak.

GALLASTEGI'TAR KAULDI

Karakastelu da erriz, eta ez frailleen emi. Ez dakit euskeraz zenbat urrats laga zitun inguruetan. Izen batzuk ba dira, erdi lotsaz: Larralde mendia. Zalduzarra, Arzizola, Oilarzaldia... frailleen solo izan ziranen artean.

Eteten ez dan emengo gotiko jatorri be-gira, ba daukadaz nire kezka. Espiritu bari baten premia igarten nago... Gotikoak, mutu, itz egiten dau. Frailleak, fraille ixillak be itz egiten dabe... Gu gara mututu garean.

Oliba, diñoenez, erri txiki bat izan zan gaur monastegia dagon toki onetan. Ortatik datorio izena. Bertako arri zaar eta urratsak billatu zituen bein. Gaur, lurralde au

Gu gara mututu garean.

Gu gara mututu garean.

Gu gara mututu garean.

Gu gara mututu garean.

A. ZUBIKARAI

AURRELARI ELORRIO'KO BULTZIAK AGUR ESAN DAUSKU

ASTE SANTUAN

Gaurko gizonak, irakasleak baiño naiago ditue aurrelariak.

Bear ba' da irakasleak ugaritu eta aurrelariak urritu egin diralako izango da.

Guk, kristiñauok, ba daukagu aurrelari bat: Kristo.

Irakaslea be ba zan, baiña ez irakasle utsa eta arazoetan sartubakoa. Bera aurrerengo egiteetan eta Erriaren alde bizia emoten.

Aste Santu onetan, ba daukagu zer pentsau eta zer aztertu siñstedunok.

AURRELARIAK GAUR

Politikan, ekonomian, erlejiñoan... gaur non-nai agertzen jakuz aurrelariak. Jakintsuak eta trebeak euren ustez.

Baiña euren bizikereari begiratu bear-ko dautsagu. Ez da naikoa mesias edo erri-salbatzaille barri lez agertzea. Ikusi dagigun zergaitik euren bizia emoten daben.

Bizia emoten dauanak itzaltasuna merezi dau. Besteak ez.

Eta bizia emoten dabenai eta nekeak jazaten dabezana dautsegun itzaltasun onek be bere neurriak daukaz.

Oneik be oker egon leitekez. Eta orduan itzaltasuna bai, baiña jarraitu orduko, gauzak ondo pentzatu bearko doguz.

Lentxoago ospetsu izan ziran eta gaur be aztu barik dagozan Che Guevara ta Luther King gogoratu dagiguzan.

Bizia emon eben. Eritxi askotan zuzen egozan. Baiña, ez aztu, ba dira euren pentsakeretan ta geiago barik onartu ezin geinkezan eritxi edo pentsakerak.

Gaurko aurrelarien artean, aukerapena egin bearko dogu, eta aurrelariaren bat aukeratzeko doguean, bere eritxiak be zabalak izango dira eta euren artean be oraindik aukerapena egin bearra izango da.

GURE AURRELARIA

Guk egun baten, edo sarritan geure bizitzan, aukerapen bat egin gendun eta geure irakase lez eta aurrelari lez Kristo artu gendun. Eta ez jaku sekula damutu.

Bere irakatsiak eta bere jarraibidea gaurko mundurako oso egokiak dirala ondo dakigu.

Bera ez zan berbalari utsa izan. Itzez eta egitez batera jokatu eban.

Bere irakatsietan gaurko mundurako oiñarririk ziurrenak aurkitzen doguz eta orrexegaitik bere irakatsiak anai guztiai zabaltzen alegintzen gara.

EGUENA

Eguen Guren gabaz, Kristo'k batzarren oiñarririk ziurrena agertzen dasku.

Gaur ba dago batzarretarako trebetasun edo teknika berezi bat eta orretzat liburuak be ugari idazten dira. Gauza jakingarriak dira.

Baiña batzarretan lortzeko gaitxena alkartasuna ta erabagia edo lanerako berbea emotea izaten dira.

Ori adierazo ta egiten dau Eguen Gurenez bere ikasleak egin eban avarian, orixe berori egin bear litzake gaurko mezetan: alkartasun zuzena eta bizitzan erabagiak beteteko berbea. Olakoak ba'lira euskaldunen mezak, erderazko esakun batek diñoan lez beste txori batek kantauko leuskigu.

BARIKUA

Gure Aurrelariak bere eriotzeaz itzi euskun jarraibidea gogoratzeke egun berezia dogu Bariku Gurena.

Eriotza askoren edestia dakarsku kondaireak, ez dagigun aitzu Sokrates, baiña Kristo'renak ez dasku irakatsi gitxi emoten. Orrez gaiñera geure salbapenerako izan zala ziur dakigu.

Gizon makalentzat, jarraibide eder ori onartzea ez da erreza, baiña alegiña ta go-go ona beintzat erakutsi bear.

Eta, lan onetarako geure buruak indartzeke ez dagigun aitzu geure geroko bizitzea ta berbizkundera, geure Aurrelari dogun Kristo'renaren antzera.

Kristiñau euskaldunok, Aste Santu onetan aztertu dagigun gure kristautasuna eta Aurrelariari jarraitzeke bideak artu dagiguzan.

Azken osterea da, atzean Elorrio, Apatamonasterio ta Abadiño erriak itxi dauz, eztauz barriz ikusiko, illun doa bere amaierara. Beste egunetan ausi egiten eutson txakurrak, gaur geldi ta adi-adi geratu da burni-bide ondoan, bear ba' da agur esaten...

Gizon bat gaixorik dagonean osagille batengana joaten da, osasunaren billa, ta osagilleak, ona baldin ba' da, alegiñak egingo dauz gizon orren gurariak egi biurtu daitezana.

Elorrio'ko bultzia edo trenua be, aspaldian, larri-larri ibilli da, ta osagille batengana joan ei zan, baiña emon eutsozan osakaiak ez ziran egokiak izan urrean eta urte batzutan il-zorian egon ondoren, joan yaku bere tram... tram... trarrekin, pake-paketsu.

Orain amabost illabete dala zurru-murru au entzun zan Durango aldetik eta AGUR onen bitartez adierazo genduan jazoten zana.

Dana dala, arazoak, arazo-geienak sortzen diran lekutik urten eban, diru-aldeetik. Jakin al izan dogunez egunokaz batzen ziran diruak, anei (milla) lauerleko baiño ez ziran eta egun batzutan gitxiago ondiño.

Egia da bai, olan jarraitzekotan zorra gero ta aundiago izango zala, baiña ez ete dago au zelan konpontzerik? Durango, Abadiño, Apatamonasterio ta Elorrio erriak, gero ta biztanle geiago dabez, eta egunero erri batetik bestera ibilli bear daun osteak (jendeak) gero ta ugariago; langilleak, baserritarrak, etxeoandreak, ikasleak, mendigoizaleak eta abar... Orduan zer jazo da emen? Nire ustez ba-dago nasteborraste txiki bat.

Bultzian lan egiten eban batzuk berebillak edo autobusak ipiñi ebazan, trenua baztertu edo ondatu guraz eta azkenean lortu be bai.

Baiña nire itauna zera da:

— Bultzikoak zer egin dabe guda ori irabazteko?

Ezebez, eztabe ezer egin. Durango'tik Elorrio'ra yoyazan bultziak, lau bakarrik ziran eta orduak ez ziran egokiak.

Burni-bidea itxi-itxirik egon da, lengo egunien «rail» baten gaiñean triska «salto» txiki bat egitean, dandana betik gora ebillen.

Eta orain bultzia kendu, ederra egin dozue!

Ez dot uste ori egitea erabaki ona izango danik, ez



orixe. Itxitasun orretan argi ta garbi ikusten dogu gure Euskalerrian dagon itxitasuna.

ITAUN BI

Bultzian lan egiten daun gizon bateri itaun bi egin dautsodaz:

- Zenbat balio eban txartelak, Durango'tik Apatamonasterio ta Elorrio'raiño?
- Apatamonasterio'raiño sei lauerleko ta Elorrio'raiño 9 lauerleko.
- Bultzi orretan lan egiten eban langilleak zelan geratu dira?
- Dakizun bezela bultzi ori F. V. lagundikoa zan, ori dala-ta, langilleak lagundibarruan geratuko dira, baiña beste leku batean.

EDESTI LABURPEN BAT

1882'go uztaillaren l'an Bilbo-Durango zatia zabaldu zan.

1903'go irailaren 20'an Durango-Apatamonasterio zatia zabaltzea.

1904'go Otseailaren l'an Apatamonasterio'tik Arrazola'raiño. (Zati onek lau aneurkin ditu ta aspaldian itxirik dago).

1905'go uztaillaren 16'an Apatamonasterio-Elorrio, ta onelan zati guztia, Durango'tik Elorrio'raiño geratzen da.

1946'go epaillaren 6'an tximist-bultzia «electico» ipiñi eban Elorrio'raiño.


1975'go epaillaren l'an amaitzen dira bultzi onen joan etorriak.


Bultzizale naz bai, ezin ukatu ta orregaitik negar-malko bat isuri yat biotz-barrenetik, baiña itxaropena ezta inoiz galtzen.

Burni-bidea Bakar-bakarrik gelditzen da adizkiderik onena kendu egin dautsoe-ta...

Ez ete dago zelan konpontzerik?

—Diño—





GATZ ETA PIPER

ISRAEL'ETIK EUSKAL ERRIRA

Ogei egun bertan igaro ondoren pozik etxeratu jakuz Zubiri'ar senar-emaztek. Lerro oneik idaztean ez dogu oindiño alkarizketa luzerik eukiteko astirik izan baiña olako ikusle zurren iritziak garrantzitsu izango diralakoan urrengo zenbakian, alkarizketa bidez argitaratuko doguz.

Oraingoan gure ondo etorriakin batera gure esker ona andik gure lagunen oroigarriak ekarri dituelako: gure aldizkariaren arripedun, eta amandik aurrera barri emolle, dan Uriarte Aita alde batetik eta Yair Dori israeldar abertzalea ta bere amabitxi dan Rachel Einshon bestetik. Aribat gauza eder, jakingarri ta gutzat erakusgarri ikusi ditue ta urrengoan, al doguzanak beintzat, azalduko doguz.

Alboko argazkian ikusi daitezenez gure euskereak be, bere toki berezia du baste ludiko izkuntzen artean, Jesus'en lur santu areitan.

Gutzat baiña oparirik zirkingarriena argitaratutako idaztitxo txiki bat izan da, «Israel tierra de fe» izeneko. Azalean gutzat Yair Dorik egindako eskeintza zoragarria, biotz abertzale batek bakarrik egin leikena da.


Ezker-eskumako zabalkunde gogorrek egindako «buru garbiketea» gure artean ez da makala izan, batezbe gazteen artean, baiña entzun doguzanak entzunda, lendik Israel'en alde gogotsu egon ba' gara emendik aurrera sendoago ezpairik gabe.

GUREARI EZETZIK BE EZ

Izparringi ta irrati bidez jakin dogunez Barzelona'ko erria goragoraka jarri da bere izenean Udaletxean dagozenekin. Berrogetamzar milloiko eskaria egin ei da katalan izkuntzaren laguntzarako. Udaletxean, eztabaida luze ondoren amar milloi arte gitxitu arren ezetzkoa emon ei dabe bertako aldunak. Ori dala-ta, itzelezko zarata otsa atera da Barzelona'ko erakunde ta alkarte geienetan. Danetariko «lorak» jaurti dautsez ezetzkoeri ta ez edozelakoak: erriaren naia betetzeko gauza ez ba'zarie, alde», «sasi-ordezkarie», eta abar eta abar.

An sortu dan izkanbilla ikusita, zer esango ete dogu guk? Ezetan be ez litzake gutzat gitxi izango baiña ausartuko ete litzake inor Bilboko Udaletxean olakorik

eskatzen? Leku onean! Dana dala ausartirik ba'lego alperrik izango litzake.



CIA ortik CIA emetik

Len judutarrak eta marxistak ziran gauza txar guztien sortzaille. Gero intelektualen artean marxismoa modan jarri zanetik danetariko tentelkeriak irakurri daitezke buru zuritzailleen eskutik. Judutarrintzat ez da oindiño gorrotorik palta ezkerrean ata eskuma aldean. Baiña oraingo asto makillatuak CIA'koak ditugu. Inor salatzekean CIA'koa dala esatea naiko da. Euskera ikasten etorri diran iparamerikarrena, Oñati'ko ipuin barria lekuko... negargarria!

Baiña Bilbo'ko izparringi baten irakurri doguna be ez astokeri makala. Galindez euskaldun irakaslea Trujillo diktadoraren morroiak il ebenean CIA'koen dirua artzen ebala Eta'koeri emoteko. 1956'garren urtean sortu barik egoan taldeak, zelan dirua artu? Gorrotoa aolkulari txarra da ta laprast eragille.

ARENAZA'TAR JOSU

KEREXETA BIBLIA OSOA EUSKERATZEN

BARRI ONA

Bai, barri ona, albista pozgarria, gure belarrietara eldu zana: Elorrioko Kerexetak gutz aurreratuta eukala Biblia osoaren itzulpena Bizkaiko euskerara. Olako albistak ez dira sarritan entzuten, ezta gitxiago be! Bizkaiko euskereak, beintzat, ez dau orain arte olakorik entzuteko zori onik izan. Kerexetaren alegiñak zertzen badira, lenegoz izango dogu bizkarrak Biblia osoa gure euskeran. Gure Jaimeren izenak berarizko leku txalogarria irabaziko dau, Duvoisin, Aita Uriarte eta Aita Olabideren izenen ondoan eta eurokaz batera.

EGIA ETE DA?

«Ustea erdia ustela» izan oi da, bein baiño sarriagotan, gure asmorik onenak bide erdian gelditzen jakuz. Baiña Kerexeta aspaldion ezagutzen dogunok, gauza bat dakigu, ondo baiño obeto: bein lan bat esku artean artzen badau, axe amaituta ikusi arte ez bakerik izaten. Ogeta bost liburutik gora plazaratu deuskuzan idazle onek, ez ete dau asmo eder ori beteko? Gizon bakar batek, zelan, baiña, olako lan itzel ori aurrera eroan?

ITURRITIK ARAKO UR GARBIA

Gauzea garbi jakiteko, iturrira bertara joatea da beti onen-onena. Ori olan dala, Kerexetagan jo dot neuk be, zuzen-zuzen, egiaren ur garbi billa. Itau mordo ederra neukan egiteko, eta bai berak gogoz eta zeatz erantzun be. Gure alkarizketa luzearen ari nausia, ona emen:

«Baietz, barri ori egia dala. Joan zan maiatzean eldu eutsala lan ori, eta, Jaungoikoa lagun, datorren Urtarako (bai, bai, urte onen barruan) amaituta eukiko ebalako ustean egoala bera. Bakar-bakarrik egiten ebala itzulpen lan ori, inoren laguntasun barik, egunoro 9 ordu luze bere etxeko «ariakamaran» sartuta. Leendik be onen antzeko lanetan oituta egoitako-edo, (dakizunez, irakurle, «ALKARTASUN BARRIA» leendik dauka euskeratuta, eta birritan argitaratuta be bai), ez ebala zailtasun gogorregitik aurkitzen Itun Zarrako liburuetan; nekerik geien, Isaias Igarleak emon dautsala; txarrentxarrena eginda daukala: Pentateuko eta Kondaira-liburuak izan ezik, beste dan-dana euskeratuta. Lagungarritzat, «Jerusalengo Biblia» deritxona, Aionso Schoekelina eta «Biblia Hispano-americana» erabilten dituala, Olabideren «Idazteuna» be aurrean izanik. Euskera aldetik, bere aspaldiko bideari jarraitzen dautsala: Biblia au, batez be, Bizkaiko euskaldunontzat dan ezker, Bizkaiko euskalkis darabillala, aal danik eta argien, garbien eta dotoreen...»

Pozarren entzun geuntsozan argibideok Jaime gureari; eta, aurretiaz «zorionak!» emonaz batera, Anboto-ganera igon eta tontor-tontorretik sekulako santsorik zoliena botateko gogoia sortu jakun biotz-barruan: «Aurrera, Jaime; ekin eta jarrai, azkenera arte!»

LAGUNTZAILLE ONAK

Itzulpen-lana berak bakarrik egiten dauala, autortu deusku Kerexetak. Orain artean be olako asko ta asko era berean egin izan ditu: «Barri Ona», «Apostoluen Egiñak eta Idazkiak», «Ebanjelio Alkartuak», «Salmutegia», t.a. Baiña beti be lagun onak izan ditu bere ondoan, adore-emoteko, lan barriak eskatzeko, zabalkunde aurrera eroaten laguntzeko. Lagun onok ez dauka Jaimek aaztuta, ez orixe! Sarritan abiatzen ditu euren izenak: Iturraren abadearena, esate baterako.

Oraingo onetan be, or izan ditu bere alboan abade-lagun ezin oheak, ziri ta ziri, Biblia osoaren itzulpen au eske ta eske... eta, itzulpen-lanetan izan ezik, beste edozetan laguntzeko oso gertu. Ekin eta ekin, berotu eben, alangoren baten, Jaime gurea..., eta, gutzioi eskerrak, laster izango dogu Biblia Bizkaiko euskeraz.

«Nik baldintza edo kondiziño bi ipiñi neutsezan —esan eustan Kerexetak berak—. Bata: ez argitaratzekotan, nik ez nebala lanik egin gura; bigarrena; berak naikoa eta lar eukala itzulpena egiteagaz, eta argitalpen eta zabalkunde-arazo guztia eurak artu bearko ebela...»

Tratua eginda dago, eta bakotzak gogotsu eldu deutso bere arloari. Kerexetarena, esaz dogu. Beste lagunok, zer? Batzorde txiki bat eratu dabe, Urkiolako Luis Alberdi buru dala eta Bilboko Joxe Mari Goxeaskoetxea —«Desclée de Brouwer» etxearen zuzendaria— itsuarreko ezin egokiagoa; ona ta ara «presupuestoak» eskatu dituez; zabalkunde-orriak egiten asi dira; Bizkaiko eskualde bakotxetan abade arduradun bat izentau dabe, arripedunak ugari egiteko asmotan; Gotzain jaunak bere laguntasuna eskeiñi deutse; abade askok, euren borondatez, bakotzak 2.000 peseta aurreratuta emon ditu, gastuetarako (illeroko «soldate» orrenbetean jaso deutse-la-ta, beste barik leengo diruok Biblia barriarentzat emon dituez).

ERRIAREN ERANTZUNA

Bizimodua zelan dagoan, nok ez daki? Liburuak be lainoetatik gora dabiz aspaldion, euskal liburuak, atan be! Aal danik eta merkeen argitaratu nai, eta orretarako ale asko egin bear! Baiña arin saltzekotan; bestela, diru asko galdu bear da, jakiña. Zabalkunde, zabalkunde: auxe da orain, beste burukomik askoren artean, laguntzaillean ardura nausia. Bizkaiko eleiza bakotzak, sendi bakotzak, euskaldun fededun askok eta askok, Gipuzkoa eta Nafarroako elizgizon eta euskaltzale ez gitxi... ez ete dabe Biblia bana erosiko? Ez al dogu gure eleizetan ain gogotik abestuten:

«Jaunaren Itza gure argia, gure bidea, gure bizia?»

Kerexetak berea zintzo beteko dau, lagunok euren egitekoa aurrera daroe. Eta guk, zik eta nik, zer? Eskerrak eta zorionak emon bakarrik?

AGUR

Ez Agur au beratu, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira astero-ko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskera bera beste edozein, bereko, politiko naiz ondasungarri asmoen gainetik daben iritxi-ono euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritzien, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egileak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M.^a MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.

Carretera a Galdácano, 32-Bilbao-4

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA

ZALLA, Bizkaia

Arripidete ta Agurri dagokion guttirako:

Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

EUSKALERRI'KO ARAZOAK

BERBALDIAK DEUSTU'N

Euskal Kultur-Mintegiak, Deustu'ko Ikastetxe Nagusian, iru berbaldi eratu zituan. Joan dan illearen 18,19 eta 20'an izatekoak ziran, baiña 20'ko au 21'erako itzi zan gero.

Iru berbaldi oneik ari bateri lotuta egozan. Olantxe agertzen zan iragarki aundietan: Euskalerrriaren kondaira.

Iru berbalariai oneiek izango ziran: Carlos Caballero, Mikel Ugalde eta Xabier Arzalluz.

Eta aztertuko ziran gaiak oneiek: «Karlatarren gudak», «36'garren urtera arte Euskalerrriaren izan ziran Langille-erakundeak» eta «36'ko Araudia (Estatutos)».

Gai gogoangarriak benetan. Olako erak ez jakuz egunero agertzen eta iru berbaldi onein laburpena AGUR'en agertzeko gurariaz, urreratu giñan ba Ikastetxe Nagusi orretara.

Baiña erataillean gurari guztiak ez dira zeatz bete.

Illearen 19'an, bigarren berbaldia entzuteko ara sartu giñanean, entzuleak aretotik urtetan ziarduen. Kendu egin eben berbaldia.

Gau aretan, irratitik irakurri zan legezko oarra: Deustu'ko Ikastetxe Nagusiko Jaurlaritzaren ebatziz, illearen 24'ra arte, (urtego astelena), Ikastetxe Nagusiko saille batzuk itxita geratzen ziralako. Orrelean, 21'erako izendatuta egoan berbaldia be aidean geratzen zan.

Iruen barria emon ezin dogun ezker, Caballero'ren berbaldiarena emongo dogu. Jazoera naikoa gogoangarriak izan ziran an be. Bere gaia be sakona izan zan. Aztertu dagigun berau, eta beste biak izaten diranean, arein barria be emongo dogu.

Berbaldia Itzaldi-aretoan izan zan. Une beratan Ikastetxe barruan beste batzar bat egoan, baiña ez dakit izlaria ospetsua ala gaia jakingarria zalako, ondo bete zan aretoa.

ENTZULEAK NORTZUK

Entzuleen artean geienak ikasleak ziran.

Elduagoak eta gazteagoak be ba ziran banaka batzuk. Eta elduen artean nabarmenen agertu zana, abade barritsu bat izan zan. Ba zituan bere urte-txuak.

An egozaren artean, euren itaunak agertzen ebenez, eritxi ezbardin asko egoan, eta alderdi batzutekoak ondo agertu ebezan euren pentzakerak, berbaldiaren osteko alkar-izketan.



GAIAREN IKUSPEGIA

«Karlatarren gudak» zan agerturiko izen-burua, baiña izlariaren elburua auxe izan zan: Karlatarren guda aurrean, Euskalerrri'ko ekonomiak izan zituan goraberak agertu. Berak esan ebenez, «XIX gizaldiaren lenengo erdian izan ziran jazoerak endo ulertzeko eta jazoera oneik euren maillan jartzeko ori berezkoak zan».

LUGINTZEA

Lenengo lugintzea (lurreko langintzea) aztertu eban eta lan-era onek XVIII gizaldira arte izan zituan berezitasunak gogoratu euskuzan: lurralde laburrak, solo txikiak, biztanle moltozo ugariegia ei ziran orduko bizi-eziñaren iturburuak. Ameriketatik artoa ekartearen garrantzia gomutau euskun. Artoak goi-maillako garrantzia izan dau Euskalerrriko lugintzan. 1786'an lurraren fruturik onena zan artoa.

Amazortzigarren gizaldira ezker, lugintzako legeen iraulketa-barruan sartu zan Euskalerrria be.

Iraultza onen berezitasunak (lantzarrak kentzea, ongariak erabiltea, landara barriak ekartea) agertu ziran emen be, baiña bearrezkoak ziran lan-erako tramankuluak ez ziran sartu, soloak txikiak ziralako eta lurgaiñea menditsuegia zalako.

Orregaitik «lugintza-saillea, industriko lan-ondorenak saltzeko, ez da azoka ona. Tramankuluak batez be gitxi saltzen dira. Eta industrirako dirutza aundirik be ez dator lungintzatik, lan era onek emonkortasun gitxi dauka-ta».

Lugintza, industrirako bideetan, eragozpena da, lugintzarako iraulketan sartzeko Erria prest egon arren be.

BURDIN-LANGINTZEA

Meatz-burdin arazoa aztertu baiño len, Erri-Lanak (Obras Públicas) aztertu zituan. Batez be sal-erosketarako dauken garrantzia gogoratu eban eta dirutzak alkartzeko iturri on bat dirala esan eban.

Eta emen asi eban berbaldiaren zatirik onena: Burdin-langintzearen azterpena. Ori ei da Euskalerrriko Ekonomi guztiaren ardatza. Ortik sortzen ei dira Euskalerrriko ondasun gorabera guztiak eta ortik Erriaren aurrerapenik geiena.

Zergaitik aibesteko garrantzia?

Esku-langille asko artzen dau, beste saille guztiak baiño geiago saltzen dau eta saltze orrean ordez bizitzarako bear doguzan gaiak ekarri geinkez.

Eta ekonomi-erakunde au, lege-zarren bideakaz ondo alkartzen zan, bizitz-gaik saldu erosi azkean ebiltzan-eta. Gaiñera azokak eratzeko bideak be ba ziran.

«XVIII gizaldian, daukagun gizartean saldu-erosia sartuta dago, eta beste irabazi-bide guztiak baiño beñago, sal-erosleen eta domu-zaleen irabaziak dira».

Baiña trebetasunean atzera egoteak eta Madrid'etik etorren politika ardatz-zaleak Erria Europa baiño atzerago geratzea lortu eben. XVIII gizaldiaren asieran bertan agertu zan ori: azokak galdu ziran, eta lenengo billatzeetan arazorik sakonena ez zan kontuan artu: Salgaiak merkeago atera bear ziralako.

Lan-saille onen larriuneak, muga-zergen arazoa ekarri eban eta ortik astiro-astiro lege-zar zaleen ekonomi-egoerak argitu ziran.

MUGA - ZERGAK ETA URTEBIDEAK

Egoera bat lege zarren arerioena zan. Eta egoera ori agertzeko, 1832'an, Gipuzkoa'ko Batzar Nagusira sal-erosle donostiarrak eroan eben agiria irakurri eban. An agertzen zan bidea, gai onetan España'tarrakaz batera jokatzeko zan. «España ta bere lurraldeak baiño beste urtebiderik ez dagon ezker, arazo au España'tar egitea, bearrezkoak da», iñoen.

Esandakoak aztertu ondoren, talde ori aztertzean Caballero sendoa izan zan: «Esku-zuri (burgues) talde au, Bilbo ta Donosti'ko sal-erosleak osotzen ebena zan eta Ekonomiaren larri-aldi aretan, trebetasunaren atzeratasunak eta Espaiñatarren Agintariak Erriari aurka egiteak ekarri eban estualdi aretan, urtebide bat baiño ez dabe ikusten: España'tarren ekonomi-jokoan sartzea, baiña ez salneurriak beratzeko trebetasunean aurrera egitea».

Beste alde batetik, esku-zuriak ba eukun beste bide bat (oneik ziralako, esan eban, orduko iraulketa-zaleak): Euskaldunen izaerea kontuan artu eta iñoren menpean sartu barik, bertoko lagintzea indartu. Oneik lege zarren aldezlariak ziran.

Au argitzeko, beste agiri bat: 1827'an, Bizkai'ko Batzar Nagusira, agertu zana. Onein urtebidea auxe zan: «Suezia'tarrak eta Angland'arrak egin daben lez, España'ko azokak norberagandu: Mugak dagozan lez itzi, industri-trebetasuna sartu Euskalerrriaren, baiña España'ko nagusiakaz artu-emonak itzi, batez be lugin-nagusiakazkoak. Artu-emon orreik ekonomiaren jabetasuna kentzen dabe eta lege-zarren giroaren apurtzaille dira».

Bide onek barruan dakarzan gaiztasunak be agertu zituan, batez be barruko agintaritzaren aldetik. Eta alderdi bitatik ain zuzen be: Azkekeri-zaleak (liberalak) ziranetik eta bakal-zaleak (absolutistak) ziranetik. Eta, gaiñera, Bilbo ta Donosti'ko sal-erosleen laguntzea eurakaz.

Burdin-langintzearen arazoak ez eukan luzatzerik. Eta euskal-erakunde, etxe-erakunde zan. Lantegi barri ta aundiak bear ziran. Bizkai'ko lege-zardun Aldundegiak ebatzi ebana, bidegintzako lanetan dirua sartzea izan zan.

«Diru-sartze onek Erri-errentea asko zabaltzen dau eta bertoko jabetun industriari bidea emongo dautso.»

Antzekoa zan Igualada'ren eginbidea be: 1832'an, Batzarrera ekarri eban eta Bilbo'tik Balmaseda'ra tren-bidea luzatzea eskatzen eban. (Jarraitzeko).

LEIZARRETA

«JESUKRISTO SUPERSTAR»

Nondik baiña pelikula oneri buruz aibeste eztabaida? Ulertu eziniekoa da ori. Oraingoan be erlejiño-gaietako zarzaleak uts egin dabe. Ez dabe jakin zeren billa dabilzan, ezta bideak zeintzuk diran be.

Norman Jewison'en film onek, Jesukristo apur bat gaurkotua ta gaurkoentzat maitagarria agertu gura izan dau, baiña ez dau asko lortu.

Kristo pelikuletara aroateko au anglosajoiaren artean agertu zan, baiña orain pizka bat galdu egin da. Eta ara non agertzen jakun gaur olako lan bat aundi-guraz beterik, Hollywood'ko erara eginda, arri-kartoizko Galilea'gaz, iñoz agertu danik Kristo'ren bizitza operantzeko ta baragarriena. Ba ditu gaurkotan antzeko bitxi batzuk, baiña Ipar-Amerika'ko ziñegilleak iñoz ez dabe baragarriago ziñeratu gure Salbatzaillea.

Pelikula-aztertze baten ezin sartu leikez «Jesukristo Superstar»eri buruz esan bear leitekezan gauza guztiak. Ori ezin ukatu.

Ezaguna da B. A. C. (Kristiñau-izaleen liburutegia): Sakona ta eritxi zuzeneko. Onek, zabalkunde aundiz, Jesukristo'ri buruz idaztiak liburutegian agertzen diardu aspaldion. Eta irakurleentzat itaun au egiten dau: Kristo mito bat, irautzaille bat ala Jainkoaren Sermea ete dan. Eta itaunak berak daroa barruan baietzkoak dan erantzuna.

Gizarteko jazoera garrantzitsu bat daukagu ba begien aurrean. Ez aizu B. A. C. argitaldaria, dana dalako, goitiko onepen guztiak izango ditula.

Bitartean, «show business»en arazo sakonera, «Consuladon» agertu dan pelikula oneri buruz zerbait geiago esateko, zine-egite au, dirua aterateko, trebetasunez eta buru onez eginda da-

goala agertzen daben zeatztasunak ba dira: Maria Magdalena ta kristiñautasunaren benetako balioak orretarako erabilten dira. Pelikuleak, Kristo'ri ezartzen izan jakon andra-gorrotua kendu gura dau eta, bein betiko, amaitzen ez dan zigorra, geena'ko sua eta olakoak (berbizkundera esaterako) ixiltzen ditu.

Judas nortasun jakingarri batez agertzen da: Bere bizitzan Kristo'ren aurkalaririk bizi izan da, erromatarren aurka erabili bear dala Kristo'ren irakatsi ori, esan eta esan ibilli da, eta gero Jesus'eri bere «beste mundua» aurpegira jaurtiten dautso, bere burua larregi goratzen dauala diñotso, baiña azkenean, Barri Onaren liburuetan agertzen dan lez, Judas saltzaille lez agertzen da eta madarikapena ta ondamedia beragaz daroaz.

Or agertzen da aurretiaz, gaurko mistikuak aibeste goratzen daben politikaririk eza. Orretan diardue Jeobattarrak eta Guru'ren jarraitzailleak gaur be.

Gaurko gazteak euren erara agertutako Jesus'en ikuspegi bat ei da. Alan diño asikera agertzen dan idazki batek. Baiña esate ori ez dago ondo. Barriro be gazteen mitoa agertzen da aitzaki. Baiña gaur Barri Ona gauza lez ezin leike agertu.

Gaur-egunerako erlejiñoa, aibeste gizaldiren indarrez eta alegiñez, gizonaren gogo-barrura ta jakintzaren guneraiño sartu da.

Entzun - gaiak daukaguz aztertze oraindiño.

Eres-aldeetik ontzat artzeko da, baiña une batzuetan aundi-zale ta indartsu agertzen da, eta olako izakera bat ez dago or bere lekuan.

ZATIKA

Yoan Yaku UDABERRIA

LARRAÑAGA'TAR IÑAKI GOTZAI KAPUTXINO!

Ondarrabi'n berri andia; baiñan illuna: Larrañaga'tar Iñaki gotzai yauna il dala.

Ba-genekien yakin, urte bat edo leenagotik osasunez etzebillera ondo; alan da guztiz, ez genduan uste ain laster yoango zanik; baiña Zezeillaren (Otsaillaren) 18'an eta eguerdin, bat-batez, animak gorputza utzi ta iges egin euskun Yainkoagana.

Euskaldunon alango adiskidea, Euskeraren alango maitalea zalarik, ez genduan gura ez, gugandik iges egiten ikusi. Oraindik bearrezkoa genduala guk uste... Alan da be yoan yaku bein da betiko. Goyan bego...!

* * *

Zezeillaren 19'an, illuntzeko 6'etan izan ziran illetak Ondarrabi'ko Kaputxinoen elizan.

Donosti'ko gotzai biek, Argaya ta Setien yaun agurgarriek emon eben meza; baita biekaz Lazkau'ko Beneditarren Mauro Abatak.

Eta alkar-mezako mezakideak, 30 bat abade. Onein artean Kaputxinoen Nagusi Probintzial Aita be bai.

Eliza bete-beterik. Aurreko aldare inguru guztian ta atze-aldeko korupean ta ganerako bazterretan ta kapilletan ta elizaren erdian, danean yendea, debozio ta yaiera andiz, meza entzuten ta kantatzen.

Meza, yakiña, dana euskeraz, erri osoak abestua; omilia Errenderi'ko Kaputxinoen Nagusi dan Egibar'tar Sabin Aitak egin eban, gotzai illaren bizitza yakitera emonaz.

Meza ondoan Argaya gotzai yaunak itzaldi laburra; baiñan ederrera egin euskun euskera gozoan, gotzai mixiolariaren gorazarrez.

* * *

Larrañaga gotzai yauna, 27 urtez, mixiolari izana zan Txina'ko «Kansu» probintzian. Ez probintzi osoan, «Kansu» probintzia Espaiña bezin andi-zabala bai-da ta lau goterki (diocesis) daukaz euki.

Larrañaga Aitari, 1930'ean Pingliang'o zatia emon eutsoen: zatirik beartsuena. Kansu probintzia bera be, urrin-urritan dago mundutik ta Txina'ko bertako alde aberatsetatik. Orra «Kansu» probintzia pobrea ta Pingliang'o zatia, zatirik beartsuena, euskaldun Kaputxinoak euki genduan. Esan eitekean, munduko Mixioetan pobreena zala gurea...!

Misioa artu genduan, orduan oraindik zati guzti artan ez egoen ezer be; ez abaderik, ez kristau-ikastetxerik, ez umetxoentzako kristau-ikastolarik, ez eta elizarik ta eliz ondoan txabolatxorik mixiolaria an bizitzeko.

Orra bada-ta, Larrañaga Aitak Kaputxino euskaldun mixiolarien laguntzaz, 27 urtetan, gauza orreik danok burutu ebazan ta ondo burutu gero. Euskaldun mixiolariak 28 bezelatsu ziran; danak Euskalerrri'koak izan da be, ba-zan moltzo bat euskerarik itz egiten etzekiana, napar erdalduna zana.

* * *

Ondo burututako gauzaen artean, «Kansu» bertako abadeak egitea ta eratzea atsegin-atsegin izan yakon Elizai, edo bestela esateko, edereder izan yakon orduan Txina'rako Aita Santuaren Ordezkarri zan «Riberi» gongotzaiari ta XII Pio Aita Santuari.

Aurrean aitatu doguzan egintza ugari, goresgarrien artean, bertako abadeen egitea ta eratzea izan zan merezimendurik aindiena, Larraña A. gotzai gora igoteko. Eta «Riberi» gongotzaiak berak sagaratu eban gotzai Sanghai'n, 1950'eko udazkenean.

* * *

Maotzetung komunistaek botata, Txina'tik urten ebanean, an atzean geratuten zan Pingliang'o goterkia. Ba-ziran bertako 20 abade bezelatsu eta ba-egozan ganera Mintegi Andia ta Txikia, baita elizak ta elizondoetan mixiolarietako etzetxoak eta ikastetxeak, Mintegirako deiak aukeratzeko. Baita kristauak millaka...!

* * *

Illetak andian ospatu ziran. Yende asko ikusi genduan ezaguna: Lasailletarrak, Pasiotarrak, Frantziskarrak, Garikoiztarrak eta errietako abadeak. Agerretxe A. be an egoen; Errenderi'n garizumarako gogojardunak emoten egoela-ta, illetatara etorria zan.

Larrañaga A. Euskaltzaindikoa zan; ta an agurtu genduzan «Bordari» ta Irun'go Loidi yauna, Euskaltzaindiaren izenean etorriak.

* * *

Goian bego; ta an Goian otoitz bezaio Yainkoari Txina'ko kristauen alde, baita Euskalerrri'aren ta Euskeraren alde...!

Ni an Txina'n bere laguntzailleetako bat ta menpeko izan nintzanez, lan luzeago bat egin bearra neban bear ba'da. Baiñan Garizumako egun oneitan, berandu ta doi-doi atara dot, auxe egiteko astia. Bego dagoen lez ta urrengo arte, irakurle, Yainkoak gura ba'dau.

YURRE'TAR YULEN A.K

*Bizi-mintzo edergarri
eguzkiak berotutako
aize epel, euri mamiz,
zerupe garbi, aratzez
ona emen izadia
biziro alai ta, gorakor,
egunak luzatuz, sendatuz,
mendietan, ibarretan, zelaitan
lore-ostotza ugariz
gozoro udaberrieta.*

*Ona ba emen deikada emez
bizia itxarotu, azkortuz,
oin berrien amets-otsez
zoragarriko lilluramenetan,
zeru goibel, illunak
ta, negu gorri aztunaren
goibelkeria urratuz...*

*Bat-batean, sugarretan,
ona emen etorria,
soñeko ezez iantzia
ta, emaikizun eskeintzaz,
pozvide zitukorretan
lore-mintzoz atsartua...*

*Udaberria da Udaberria,
amets berrien sorburua!
Ori dio bai goizaldeko
argi erraiñu biziak,
ori, bizia goestuz,
ari diran txori-aldra
ta, bikote kantariak.*

*...Bitartean, beste alde
gizona biurri, ergel,
bere itsumustuko
egituretan esitua,
odoleztaturik ta miñez
indarrean berekoitua,
biozge eta zimel
or dakusgu gaiztoz,
munduari su emanez.*

*Ainbeste erraiñu ta, ainbeste
gorabidezko eder artean...
ez ote dago gizonarentzat
saloberekeriz ereindako
egurats zikinduen
urbide ta, uri kutsutuetako
azi gaizto, txarraren
gorrotoz landutako
itzal garraztua besterik?*

*Argi-mendu alkartsuz
oi!, ez al-da gizonaren
biotzondo, erraietaraño,
ats anaikar, emaitzuz,
Udaberriaren bizi-alezko
erabide ongarrria
bein-betiko burutuko?*

MUNIATEGI'TAR SABIN

FERRETERIA UNCETA, S.A.

Landola tresnak - Galtzairu neurri zeatzekoak

Langailu guzietarikoak - Leunketa gaiak

Ibarrekurutz kalea 14

71-10-00 Urrutz.

Apartado 18

E I B A R

GIZONA TA ASMAKIZUNAK

ALDE ONARI BEGIRA

Yainkoak gizona egitean auxe agindu euson: «Lurra bete ta menperatu egizu». (A. I-28). Eta gizaldiak-zear lortu dituan aurrerapen guztiak, agindu ori betetera yoten dabe.

Buru lanari dagokionez, bere adimen sakontasuna, idatzi dituan idatzi zoragarrietan arrigarriri agertzen dau; yoan-eto-rietarako, asmau dituan, lur-gain, urpeko ta aizetarako ibilpideak izutu egiten gaituez; Ta gizarte-bizitzarako asmau dituan tresnak lan astunak arintzeko lanabesai agoa zabalik begiratzen dautsoegu; baiña bere burua ezi, ta egi, zuzentasuna, maitasun eta azkatasuna oiñarritzat artuta, ta naimenaren kemena, ta sendotasuna agertzen dabenean, guztiak burua makurtzen dautsoe. Alde orretatik begiratuta, gizona benetan txalogarri da.

BAIÑA BESTETIK...

Begiratu ezker, or ikusten dogu, egia ezagutzeko burua argitu eziñik, ta itaunak egin eta erantzuteko gai ez dala, bere naimen argalez grñen menpean yausten ta euren yopu egiñik ia gizatasuna bera be galzten dabela dakusguz, zuzentzea bizitzako oiñarritzat ipinten ez dabelako. Gaurko naste, anabasa, izkanbilla, gizon-baitura ta erailtzeak gomutatzea naiko da gizona noraiño yausi leiteken ikusteko.

Gizarte auziari begiratzen ba'dautsoegu alde guztietan arteak artu eziña aurrez oartzen dogu. Sarritan gizonaren eskubideak aintzat artu bearrean zapaltzen diralako, gertatzen da ori, ta beste batzuetan, bakoitzak bere eskubideai, eginbearrari baiño yaramon geyago egitearren ez ete da izango? Eskubideak eta eginbearrak eskutik yoaten ez diran artean, gizonen arteko bakea igeska sarritan ikusiko dogu.

TA AURRERAPENAK...?

Laiño arte oneik gora bera aurrerapen eguzkiak argi egiten dauskula ezin ukatu geinke. Gizona adimedun dalako, aurrerapen zalea izan da gizaldiak zear. Baiña batez be gizaldi onetan izugarritzko aurrerapenak egin ditu, igarotako milla urteetan baiño geyago. Ori da gizonaren legea; aurrera egitea. Bizitzaren laztasunak gitxiagotu, adimen lanez bizitza crosogotatu, baiña geroago ta gizonago izan bear dabela aztu barik.

Ori egin ezik, zintzotasunik eza, esku-bideak zapaltzea ta norberekeria berez be-

dar txarren antzera, ugaritzen da, anditizat dagozan erri-zuzendarietan oraintsu ikusi dogun lez. Or ikusten da gizonik ospetsuena be urrin ez doala.

ASMAKIZUN ARRIGARRIAK,

BAIÑA...

Gizonak bere adimenaren sakontasuna ta trebetasuna, gauzak egin, obetu ta onuratsua egiteko asmakizunetan agertzen dau. Eta egunerik egunera asmakizun arrigarrigoak begien aurrean agertzen yakuz. Oin eun urte bizi ziranak agoa zabalik aritututa istekoak. Egia da eukok dirala-ta, gizon askok, tamalez, bizia galtzen dabela. Aurrerapen eta asmakizunak ordaindu bear daben zergak dirala dirudi.

Orrez gaiñera erri andiak iñurritegi biurtu ditu ta eguratsa kutsutu, erreketako urak zikindu, ta olak bialtzen dituen ke kaltegarri ta lurrunak giza osasunerako kaltegarri dira, gaiñera ortuari ta zugatzet be mesederik ez dautsoela egiten edonork ezagutu leikena da. Eta or dakusguz sarritan kalteak urritzeko zer egin ez dakiela!

LANDOLAK ETA GIZONA

Gizonak bere aurrerapenerako asmau dituan landolak, gizon geyenen ogibide biurtu dira. Len, gizonak egin bear zituan tresnak, bere trebetasunaz gero ta obeto egiteko asmaoz, lan neketsuago izan arren, pozgarriago izaten yakon. Gaur urteak zear asmauteko tramankulu ederren bidez, bizkorrago ta txukunago egiten dira. Gizonak sarritan, beti gauza bat egiten daben tramankuluaren aurrean yarrita, bururik nekatu bearrik ez dauko. Ta egunak yoan ta egunak etorri beti gauza bat egiten bizitzea doakio, bere burua obetuteko ezer egin barik. Benetan gogaikarri da.

Gizona «gauza» bat ba'litz lez artzen da, limoi bateri lez, al bait zuku geyen atarateko erabili, bere trebetasuna ugarituteko aukerarik emon barik. XI Pio'k esan eban lez, «landoletatik gauza guztiak obetuta urtetan dabe, gizonak eurak izan ezik». Lanak, bere nortasuna geyagotuteko izan bear dau, ez eguneroko ogia irabazteko bakarrik. Ori tramankulu antzera lan egitea izango litzake-ta. Gorputza bakarrik ez dau ipiñi bear lanean, gogoia be bai. Ori gogoian euki bear leuke ez bakarrik langilleak, ugazabak be bai.

GAMA

ALDATTZEN

Egiz, nik ezagutu ditudan gizonik argitsuenetako batzuk, euskal base-txectan ezagutu ditut, lurrari jira ta bira eragiten ta bera txarrak eta gogorrak egiten. Baserri bizitzak bereak ditu arazo guzti onek. Ta lan giroa, inguru onetan, gaur egunean, agertzen dan eran ikusirik, munduko gizonik buru ukatuenak lugin edo lurreko beargiñak izan bearko dabe. Izan be, esaera dan bezela, zer janik ez eben umeak gosea baiño zurragoak izaten ziran. Bai, bai, goseak eta bizi bearrak oiñak bizkortu eragiten dautsoz jendeari gaurko mundu onetan.

Ta orrek zer dauko zer ikusirik gure baserri bizi-bideagaz... Ara... Lurreko arpegi alderdi ederrak daukazela, ezin ukatu giñaike, baiña Mungi au, atan be, esan bear dot, arto, gari, lur sagar, ta ortuariak artzeko, berezko adua ta autsak eukezana zan oraindik oraintsu artean. Ikustekoak ziran Jatabe, Birle, Trobika, Balako ta abarrek emoten zituen frutuak. Udabarria ta udea lorez ta urrez janzten ziran. Baserrietako etxeko-andrak amaika frutu eder, asto otzarak, tunturrez, goraiño kargauta ekarten zituen azokara, Mungi'ra. Sagar umau, piper, tomate, indaba gorri, guztiak entzute aundikoak, plaza betian, lengo aldietan ikusi genduzen. A zan poza atzera etxerakoan. Solo ta zelaiei begiratu, ta gizen eta eder agiri ziran guztiak.

Urrengo asterako itxaropen barria. Ta etxeko-andra zurrak ba-ekien poza ezarten gauzeari; umientzat gozokiak, gizonarentzat tabako-orria, guztientzat eguerdirako okela izpia. Au egiz zan bizitzarako poz-bidea. Gure baserriak ba-cukan bere eder-miña, pozaren kilima ta itxaropenaren samurtasuna. Kontuak kontari, baserri giroaren ameslari, mai baten inguruan, sendi guztia, geyago ta gozatsua, ziarduen indar barriak artzen. Amesa etzan. Egia zan, aldi garbiago artan, kutsu mingarririk ez egoan-da.

Gogor lan egiten eben. Lur geiagoren egarria agiri zan, sendiaren bizia indartzeko. Era orretan lan egiten zan bitartean, bear izan barriak otska etozen. Seme-alabak asita, lanik ez bear beste guztientzat baserrian, ta azkenez, luzaroan itxaroniko lantegiak eldu ziran. Orain, gelditu barik, perretxikoak euri ondoren bezela, gabetik eta goizera agertzen dira lantegi barriak. Gure inguru au, ondo orniduta dagola dirudi. Bai, ona etorri nai dau jendeak lan billa. An, euren erri aldeetan euki ba'litue, emen sortu diran lantegietatik irutik bi, pozik egongo ziran bakoitza bere sorterri maitagarrian.

Ta gure basetxeak orain zer? Negarra darie batzuen begiei, lurrari jazoten jakona ikusirik. Beste ainbat eta ainbat ostera, pozik. Len, lur mamintsu ta eemonkorrak ziranak, antzutu, igertu, ta gaisotu egin dira noski. Ortuariet ba'da, jaiio ta lasterrian, orri puntak igertzen jakez. Sagar nai edozein beste landara, ixil ixillik, lotsatuta ba'legoz bezela, orriak kiskortu ta bertan bera ba-doz. Aienarik ere ez dabe esaten, baiña il egiten dira. Ondamendia!

Ta baserriarrak orduan, zelan bizi dira? Zaituta dago, emen, gogoia. Ta zaitute onek ekarri bear dautso gure lengo bizikereari azkeneko eriotza. Len, euskaldunak, baserri giroan, bere izaerea eratuta eukan. Izakera ixilla, ta zerbait bakarrekoa. Lurrak, mendiak, zelaiak, aldatzak emoten dabena, baiña, geienez, zintzoa, indartsua, egizkoa.

PAULIN

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra
BILBAO - Casco Viejo
Tenderia, 15 eta 16



eziketa jostailuak
eskulanetarakoak
irakasketa gaiak

gregorio de la revilla, 1
bilbo-11

Jolasean ikasi, or zure aurrentzako emoitzarrik onena

ITURRI'RI

Otsaillaren 16'an, Donostiko Astoria antzokian (Centro de Atracción y Turismo), urtero egiten dan Bertsolarien jaia izan da, Jose Salaberria jaunaren bidez donostiarrak antolatuta. Aurtan, Kepa Ortuzar «ITURRI»ren omenez izan da.

Izpar au ez da barria, Bilbo eta Donosti'ko erdal eta euskal aldizkari guztiak argitaratu dute barri au, baiña ni aren gañerako barri ematen nator.

Enoan itxaron besterik eta Astoria antzokia ganezka zegon. Iturri'ren gizontasunak eta apaltasunak ezun besterik merezi. Muxika eta Gernika aldetik, neiku lagun eldu ziren Donosti'ra. Eskarrak Lopategi ta Enbeitatarren alegiñari.

Asi zan saioa eta mai baten biribillean agertu ziren ogeta bat bertsolari. Onexek ziran: Matxin Treku Aritza'koa, Imanol Lazkano, Joxe Agirre, Joxe Lizaso eta J. Larrañaga, onek danak azpeitiarrak. Lazkao-Txiki Lazkano'tarra, Txomin Garmendia Borrobi'koa, Mitxelena Oiartzun'tarra, Eusebio Igerzabal Gabiri'koa, J. Alberdi eta J. Gorrotxategi Bergara'tarrak, Kosme Lizaso Errenteri'koa, Patxi Etxebarria Lasarte'koa, Jon Azpillaga eta Joxe M. Arregi Berri-txu'koak, Jon Lopategi, Balendin, Jon eta Kepa Enbeita muxikarrak.

Bertsolari pilloa, guziak zeñek obien egon ziren ITURRI'ri euren bertsoak eskeintzen. An zegon gure Kepa mai erdian jarrita. Bere aldamera etorri jakon Donosti'ko alkate jauna udaletxearen orde opari bat eskeintzen. Jaialdia amaitzeko, iru bertso jaurti euskuzan ITURRI'k, eskerrak emanaz danori. Gernika'ko Arbola abestu ondoren, guztiok zutik jarrita agurtu giñen.

URBIA jatetxean antolatu zuten bazkaria. Etxe onek dadukazen jatorri biak, gañezka egon ziren. Sabela ondo bete ondoren, ezagunak gara Euskaldunak alde guztietan, eta ain bertsolari asko alkartuta toki baten, pentsa geinke zer izan zan a. Arratsaldeko zazpiretararte bertsoan. ITURRI gora, ITURRI bera. Gure Kepa ezekian nun aurkitzen zan ere. Bertso baten esaten zun, zelan bera ain txikia izanik munduko aundiena bezala sentitzen zala. Benetako apaltasun aundikoak bertsolari onek.



Erri bat goratzekotan, emen daukagu MUXIKA, bertsolari eta txirrindularien erria. Bertakok doguz Enbeitatarak, Lopategi, Iturri eta Sardui. Erri txikia baiña arima andikoa.

RENTERIA'TAR JOSEBA
ANDONI

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAOKAK

ZAZPI-KALEAK



CASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIQUEAK

MARKIÑA

OTSAILAK 2

Labur jardun nai geunke oraingoan. Kirkillon erregiña kasi-il-da. Olan eldu zan zurrumurrua gure belarrietara. Baiña, zorionez, ustea oraingoan be ustela. Kasi'k, Jainkoari eskerrak, orkatilla-biurketa bat gora-beera, luzarorako osasuna ta umore ederra daukoz bekoki argi ta orkatilla bitartean. Baita bear be! Aurrera, ba, Kasi, udabarria (era askotakoa) ate-joka daukogu-ta!

Otsaillak 2. Egun bete-betea, batez be goizaldea. Bateoak, Ikastolearen urteroko Batzar Nagusia, Sortalde-Erazko edo Ritozko Mezea... Lerrotxo bana bakoitzari ta kitu.

1.—Gure erriko iru umetxuk artu eben egun orretan Bateo Santua. Euron izenak: Alaitz, Elisabet eta Iratxe. Alegindu, ba, gure baratzeke loratuok, zuon euskal-izen politok goraltzen. Zorionak zuoi ta zuon guraso zintzoai!

2.—«Zerutxu» Ikastolearen urteroko Batzar Nagusia. Ildako bazkide ta ongille guztien aldezko Mezeagaz emon jakon asiera, ikastolan bertan; eta amaia amarretako goxo bategaz. Amarretakoa? Beno, orduak ez dau zer ikusirik, ezta izenak berak be, mai gañekoak baiño.

Ez zirala asko-asko batu? Ta zer? Jatorrak, egilleak eta eragilieak izan ezker... Beñik-bein itxaropentsu gagoz Zuzendari ta arduradun barriakaz.

Jainkoari eskerrak, otso ta azerikumak ezin izan dabe orain arte muturrik sartu gure Ikastolan. Olakoai usaiña urrintxotik somatzea onena, gero makillaka ez ibilteko.

3.—Egun eta ordu berean Mertzedeke eleizan Sortalde-Erazko Mezea, Meza luze ta lurrintsua. Baiña zergaitik erderaz? Gure erriko eleiz-arduradunak ez ete gaitue euskaldunok aintzakotzat artzen? Itauñ au berariz doa ta urrin samar. Kirkillok entzun dogunez (parkatu oker ba'gabiltz) Markiña'ko Eleizeak gaztelera ei dauko ofizializat edo dana-dalakotzat onartua. Euskerarik ez dakien banaka batzuk batzarkide diralako, batzarrak geienak Cervantes'en izkuntzan egiten ei dira, ez gure erriko Mogel andiarenean. Betiko atxaki zar eta ustela. Eta ez uste erdaldunok errira atzo goizean etorri-barriak diranik. Bai zera! Geienak berton jaiok dira, ta besteak urte luzetan berton eta bertotik jaten diarduenak. Baiña, zoritxarrez, bertokotzeko asmorik gabe.

Gaur-egunean zillegi ete da Eleizeak olako jokabiderik iñun onartzea? Amaikatzu eleiz-itzalditan entzunda gagoz Eleizeak tokian tokiko izan bear dauala; baita edozein kristau be doan tokian doan tokikotu egin bear dala. Euskalerrian ez?

Eleiz-batzarretako gora-beera andirik ez dakigu; beraz, ei-diralako aitatu doguz. Baiña kirkillok geure begiak argi ta garbi ikusten doguna auxe da: Markiña'ko iru eleiz-ateetan ezarten diran oar eta iragarririk geienak izkuntza bietan, euskeraz eta erderaz, agertu arren, ba-dagoz cervantesera uts-utsean idatzirik ikusten diranak be. Txarrago oraindiño: eurotan agiri diran euskal abizen eder jatorrak be Real Academia de la Lengua Española'ren arauz idatzirik, gureari jaramonik egin gabe. Benetan tokian tokiko.

Oraindiño asko ez dala norbaitek arriturik itanduten ebana: Nun gagoz ba? Ala kanpaiena? Besteai meztatara deitu ta eurak kanpoan geratu?

AGATE DEUNA

Aurtan be edozenbat abeslari-aldra ikusi al izan doguz Agate-bezpera illunaberean kanta-kantari laguntza-eske kalerik-kale ta etxerik-etxe. «Zerutxu» Ikastolako txikitxuak, Vera-Cruz Ikastetxeko oillandak, Kili-kilitarrak eta abar... Benetan gozatu euskuezan belarri ta biotzak. Oitura zarrai eusten dautsen erriak ez dau etenik sustrai ta adar bitartean, eta beraz, ez da errez il eta igartuko.

Aurtan talderik jatorren eta errikoienak uts-egin dausku, «Erlatx» bertsolariaren inguruan ibilli oi danak. Amaikatzu bapateko bertso bikain entzun izan dautsoguz aurreko aibat urtetan gure «Erlatx» jator zintzoari. Aurtan, barriz, bertsolaria bera ta bere taldeko asko gaixorik eta ez-bearrak jota ei egozan, tamalez. Bizkor eta zearo sendatzea opa dautsuegu Ibarzabal'dar Jose, Miguel eta Juan anaioi, Pagegi'tar Jose Domingo ta abarri. Uste osoa dogu urrengo urtean ez dauskuzuela utsik egingo. Bedi!

«ITXAS-SOIÑUA»

Iragarrita egoanez, emen izan gendun, otsaillak 8, Lekeitio'ko «Itxas-Soiñua». Karmengo eleiza nasaia gañezka betean, adi ta zur Ume Abeslarion kantuai. Ba-zan an magnetontzitan...! Jo jakezan txalo beroak ez dira edonoz edonun entzuten.

Kirkillon ustez mesedegarri litzake Euskalerrri osoak entzun al izatea umetxuan kristau ta euskal mezu garbi pozgarria. Biotzak jaso ta argitu bearrean gagoz egon be euskaldunik geienok.

Zorionak, «Itxas-Soiñua»! Eta eskerrak asko biotz-biotzez benetako markiñar guztion izenean!

KIRKILLAK

ARRIATIA

BARRIA

Leitza

LASARTE BERTSULARIARI GORASARREA

Berri on, gaurkoz. Txalo eta gorasarre. A zelako festa il onen bian, igandean izan duguna! «Basarri» aundiari ez genion besterik aditzen: Neurritz kanpoko eguna.

Jentea eruz edonundik. Nafarroa'tik eundakak, ez gutxiago Gipuzkoa'tik, Bizkai aldetik, Araba'tik, mugaz bestetik.

Gure Manuel Lasarte bertsularia goratzeko genun eta berak aipatu gaitu. Igandean ikusiak gera gizon zintzoak ba dutela erriaren arrera eta on-ikusia.

A zelako meza nausia! Sei apez meza esaten eta erria erantzuten. Euskalerrri guztia erantzuten. Nor ez zen apez elizkizun orretan? Bertsulariak meza eskintzen, bertsulariak Epistola eta Berri Ona irakurtzen. Eta predikua egiten beste bertsulari trebe bat, Lekuona jaun apez. Zoragarri.

Gero, eleizatik at, kaleari deitura jartzea. Lasarte berberak zabaldu zun oiala txalo ta gora artean.

Amazabal pelotatikira joan giñan gero, denak prisaz, tokirik artuko bazan. Nork ongi azaldu ango jaia?

Aita Zabala'ren itzaldia, asierako, ogi zuriaren mami biguñia bezin gozo. Eta bertsularien saioa gero. Aurrez agur bana aintatek. An batu ziranetako bertsulariak, denak nai zuten agur egin. Ala Arozamena, Basarri, Enbeita aita-semeak, Etxeberria, Egilegor, Gorrotxategi, Larrañaga, Mattin eta Xalbador. Ondoren ekitaldi jatorra. A bai benetan atsegiña. Bata beste baño fiñago, biguñago, gogotsuago. Orrela Agirre eta Lizaso, Azpillaga eta Lopategi, Lazkao-Txiki eta Lazkano. Eta Lasarte beraren lau bertsuak, zer? Marmolean jartzeko duiñak. Zenbatek ez zuten negar egin bera aditzean? Ori da biotza, Lasarte, ori! Tokirik ez, bukatu bear eta jentek ez nai erretiratu.

Erregaloak ere banatu ziran. Leitza'ko erriaren kopa, Sarrio'ren zillarrezko bandeja, Lasarte apellidua eskudoa Rekondo jaunaren partez.

Nork gogoratu ez jai atsegin eta erriko ura?

Azkenean Nafarroa'ko gobernadore dan Gordoa jaunak ere euskeraz egin nai zitun bere itzak.

Orra Leitza'ko festa ederra. Gero, jendea zabaldu bear ta ba dakigu kilometro askotan ibilli bear izan zutela askok bazkari billa. Leitza'an anima batentzako lekukirik inguratzea eziña zalako.

Ainbesteko zan gure egun eder eta zoragarria.

Zorionak gure erriari, alkate ta agintari. Zorionak beti gizon dan Lasarte bertsulari jatorrari. Zorionak Jose Lopategi eskultoreari egin dun irudi ederragatik. Ez degu inor basterrean utzi nai: apaiz, txistulari, koroko abeslari, agintari... Denentzat degu besarkada bero bat.

ELDUA

Galdakano

URTERAKO DIRUTZEA

Ugarituaz doyanen erriak arazo sakon asko erabagi bearran aurkitzen dira, ta arazo orreik erabagiteko eralgiteko dirutzea edo txinditzak urtean baño urtean andiyaguak, sarritan ikeragorria izaten dira-ta. Gure erri ontako Udalak aurtengo urterako ipiñi daben txinditza be, benetan da goirengoa, naita, bearbada, egiteko erabagita daukezan egintza guztijak amaituteko naikoa izan ez; Irurogi ta amabost milloa lenengotan.

Lengo urtearen azken aldera asi ziran ikastolak ez dogu uste aurtengo urterako txinditzan sartuko diranik, abiada andijan dabiltzaz jasoten-da. Naita 32 ikastoki izan, urrengo urteko ikastarorako amaituak izango diralakoan dagoz agintariak. Eta bearrekoak dira, Naita azkenengo urtaotan beste ikastola asko igiri izan emen; erri onen ugaritzea dala bide, danak ziran gutxi ume guztijak sartu al izateko. Tamalez ez dagoz ikastola orreik erriko alderdirik onenean, otz-samarra dalako inguru ori.

Dana dala, zati baterako erabagiko ei-da, dirauskuenez, errian dogun ikastola arazoa. Zati batzuk ba'ltzak ez euskeraz be izatea.

Baita laster asiko ei-dera osatete (ambulatorio) barria «Señorio de Bizkaya» txaidean, edo obeto ezagutzen dan Urreta'ko auzunean egiten, orretarako aspalditxuz, erabagia ziur artuta eiddago-ta. Eta ez dago esan bearririk bear-bearrekoa dogula osatete edo lenengoko osaketak egiteko toki ori, gaur-eguneko osagileen jokabideaz, gau bat

edo jai-egun baten gaixorik txarto aurkitzen ba'da erri ontako bizitanen bat, urbillen zabalik daukagun osatetea, Basauri'n izaten da, eta baten baño sarriagotan jazo dana, bertatik osagillea ekarri ta berriz bertara gaixoa eruan dabeneko, laguntza guztijak alperrekoak izan dira. Beraz, dana ez ba'da be, Jaun-Goikoaz be gogoratu bear dogu arazo aul orretan, zati baten beintzat gaixorri lagunduteko era ohea izango da.

Osatete ori jazoteko, berrogei ta amabost milloa laurleko dira izendatuta dagozanak, baiña, ba'ltzake amaitu baño len geyago be izendatu beara; amaitu daiela baiña.

Beste egitamu bearreko batzuk be artuak izan bear dabe erriko Udal-etxean, baiña, ez dakigu ziur zeintzuk diran. Egitamu orreien artean ba ete-dira urren aitatuak doguzan oneik?

Aldi andija da esan eustela erriko enparantzatik asi Bengoetxe'ko auzunerako bitxabala, gaur «Señorio de Bizkaya» ta «Sexta Barrenetxea» izenekin ezagutzen diran txaideak aspaldiz guztiz trakestuta dagon bidea apaindutea erabagita dago. Noizko baiña? Udalak ala Bizkai'ko Aldundegiak egin bearko ete-dau apainketa ori ala biak batera?

Aintziñatik gogoz galdakatarrok, baita guztiz bearreko dala-ta, «Urreta» txaide amaituten dan tokian bertan «G. Mola» txaide igaroteko, oiñezkoak jakitza!, ganetiko zubitxu bat bear dala, ta arazo orretaz erabagiren bat artuak ziralakoan gongozan, baiña beste eriotzarik ikusi baño len egiña izango ete-dabear-bearreko dogun zubi barri ori? Orretara ba'ltz!

ERIYOTZAK

Ainbat izan doguz, ainbat eriyotza izan dira igaro dogun Otsail orretan, baiña ezagunen izan doguzan bi bakarrik esango doguz, danak emen argitalduteko luzeegi egiño litzakelako.

Otsail orren 26'ganean Arrieta'tar Jon-Gurutz, errian ain ezaguna zan gizon langille argia il zan, irurogi ta amasei urtedun zala.

Baita egun bi geroago Jaunak bere aldamenera eruan eban, gaixo zatarrez luzaro euki ondoren, Apraiz'tar Josu euskaltzale zintzoa, irurogi ta bederatzir urtedun zala. Goyan Begoz adizkide zintzo bi orreik, eta lagun gaitube atsekabian euron emazte, seme-alaba ta sendikide guztijak.

BASA-JAUN

Ondarroa

BERTSOLARIAK

Epaila'ren lenengo egunez, bertsolarien jaia aspaldiko partez.

Azpillaga eta Lopategi, Lazkao-Txiki ta Gorrotxategi, eta eurei egiten amor Mattin eta Xalbador.

Jente ugari. Zinema bete. Jai buruan, kantuetan, baten alde Errekalde, eta beste Knor. Txalo ugari. Inor ez lo konkor. Eratzalle, sarri bezala, Kresala.

ERIOTZA

Argentina'n, Rosario uri andiaren inguruan, bat bateko eriotza euki eban Elu'tar Mikel augustindar prailleak. Furgoneta baten eioazala, txoke baten, praille bi il ziran. Mikel ondarrutarrak 36 urte eukazan.

Ezin astu, munduz mundu bide ona eta barri ona zabaltzen diarduen erri-tarririk. Goyan Bego.

ADISKIDETZEN

Aita Martzel, izleri eta bertsolari, adiskidetasun deilari ezagutu dogu gure parrokiari il onen 3'tik 9 bitartean. Norberregaz adiskidetu, Jaunagaz, eleizeagaz, erriagaz... Garizumari al bestean emon nai itxura eta erriari bide jatorraren egitura.

Arek azia erein eta guk laster esan amen. Baiña ortarako biderik ez da igar ten gaur emen. Dana dala ezin ukatu itzaldiak entzutera joan giñanok, gure alegintxoak egiteko artu dogula naiku kemen. Amen.

MERKATU BARRIA

Bein joan nitzan merkatura ta erosi neban txakurtxu bat... Ala diño umetako kanta batek. Gaur ez txakurrik ez arraiñik. Gure merkatu plaza, itxi dabe, barriztuteko asmoz. Zink'ezkoa ezagutu gendun, geroago zementozkoa. Zementozko orrek 50 urte ez ditu egin, asko falta ez-arren. Leoi ta guzti ezagutu

gendun bere sarreran. Azkenean farolik be ez.

Urrengoan zelako? Arri, zemento edo plastiko... bizi danak ikusiko. Lengo tokian egiteko da. San Iñazio'ren obria baño ariñago egingo al dabe!

Z

Arratia

GOIZ-ARGI 232'grn. zenbakitik nator, Aurre-Apraiz'en idatz-arlotik. Aiengitz'go Agarre'ra noakizue orain, Aurre Balendin berberaren etxaldera; Arratia'n doguzan ontzi, egazti, arrain, jantzi, txori, toki-izen, notin-izen, solo-tresna, eta barazkiz (ortuariz) burdia beterik.

Ea bada, Balendin, adiskide. Yagi eta adi, arratiarrak emen gozuz-da.

Gure errialdean «mutila» ta «oindino» entzun izan dozula-ta, arratiarrak ez dogula esaten, Txori-errian ere ez, eta Zaitegi jaunak ere ez daukala «ll» eta «ll» erabiltzen?

Mutila ez, baiña «mutile» bai, esaten dogu. Bai-ta saskile, morokile, ulea ta ulela ere bai beste abarrik askoren artean. Arratia'n baiña errotsua eta aientsua da «ll» ezezik «ñ» a ere.

Emen: Kinpullea (kipula), maskillu, oiñetako ta soñeko. Gallao Gallao-beti eta Ellakuri. Katillu, gaztañek, itillek, ollasko ta mallu. Mallubi, noraño, miñe, baño, langille, bellegi. Katuille, erlejiño, burutaziño ta telle. Barkilleru, matrallero, neskatile, ta kaskallu. Mozollo, motrollu, gallur, ollagor, lloba... zentallea! ta abar. Notin-izenak: Eguzkiñe, Garbiñe, Iñaki, Begoñe...

Egia da, baita ere, aitaturako itzik geienak beintzat (ala danak?) «i» dauke «ñ» ta «ll»ren aurrean, guk baiña, an «l» ta emen «ll», ez dogu aintzakotzat. Bakoitzak nai dauanez esaten doguz beraz, Arratia'n, nasairik eta osasuntsu bizi diran «ñ» ta «ll». Txori-erriarrak eta gu... bardin antzeko; eta Zaitegi jaunak ere Aita Santiri Guatemala'tik eta Miarritze'tik egindako idatzietan, «ñ» ta «ll» biak agertzen ditu.

Aurre-Apraiz Balendin adizkide mazal: Artu begidazu, arren, anaikor eskeintzen dautsudan bosteko bero au. Etsaitz gogaitu. Aurrera!

* * *

Igaro dan otsaila (zezella)ren 14'grna. maiteminduen egun aundia: San Balendin. Egun aren ordezko beste egun batean, ala bearririk-edo, gaztez inguratuko mai oparotsuan (ugarian) iñoiz gaztea izan dan onek ere aperdi bete leku izan eban.

Andik jan eta emendik edan, ezpanak koipetu eta agiñak zeatu... auntz-bizardun batek maitasun-garretan eukan labeko txingarrak oso-osorik antxe azaldu.

Legegizon izateko ikasketak egiten ari dana zan bera, Euskalerrian Erriarentzat apaiz izateko ustetan euskera ikasten diardu... ta andragaiagaz kutun-kutunik ebillala arrokeriz autortu.

Gona petraldunen usaiñak gizonen biotzik asko agudo laster zorabiatu, baiña ludi (mundu) onetako istinga ta oxin baltzetan ura edaten gazterik gogaituko ba'ltzakigu...

LANDAJUELA TAR A.

Iurre

YURRE, IURRE ala IGORRE?

Aurtengo egutegi polit bat dot nire lo-gelan, Ormaiztegi'ko Gipuzkoa'ko Metalezko Industriak argitaratua. Goian oraingo Euskalerrri osoaren eta bere inguruko lurren txatal batzuen irudia be badakarrena. Nitzako beintzat goragarri dira onango egutegiak eta orrexegaitik dot nire gelako ormatik dargilizka.

Lutirudiko izenak irakurri ala, Arratia'ko errien artean IGORRE dalako bat irakurri dot eta arri ta zur egiñik gelditu naz. Orren bentasun gitxi erabili bear ete dogu errien izenak olan olango lekuetan iminteko? Nondik arraio ortan dok izen barregarri ori? Nok asmau yok? Nori otu yakok olangorik olango lekutan irarteko edo irartzea agintzeko? Olango zer lotsagarrikin egin bear ete dogu?

Erderatan itoten gagoz, erdelidunak doguz etxean sartuta ta gure izen yatorrak al dabenez irakurten dabez eta guk, kokolotzarrok, gure izenak bazturturik arrotzak sartu gura daukuezanak ontzat artu bear ete doguz?

Iurre izan dogu beti Arratia'n, ez Yurre, olan idatzi arren, Yurre Araba'n (Foronda'n) eta Yurre Gipuzkoa'n (Tolosa'n bertan edo andik urr) eta Yurreta (au be erriak Iurreta ebaten dau).

Erdera-urutuak etorri yakuzanarte, nik daki-dala, Arratia'n edonok Yurre beti Iurre ebaten izan dau, eta noz eta orain Igorre esan eta idatzi bear ete dogu? Zergaitik?

Ortik etorri ziranak Zeanuri be Zeanuri ebaten eutsuen eta orregaitik Zeanuri bazturturik Zeanuri idatzi ta ebagi bear ete dogu? Eta Errekarorri'ren ordez Errekarurri, orrako orrexegaitik?

Iurre, esan-guraz, «erreka-baztar», da toki-izenetan ta beti «i» ura edo erreka da-ta.

AGUR'en bertan Justo Garate jaunaren lantxo bat irakurri izan dot, eta aren eretxia ta nirea bateratsu dabiz. Taungoikoarren, toki-izenai dautsegun baño lotsa geiago izan bear dautsegun, alan be oker dagozala seguru-seguru egon ezik.

Arratia'ko erri orren izena IURRE da ta olantze idatzi be idatzi bear litzateke, ez Yurre, eta gitxiago IGORRE. Igorre ezta ezer be. Bego oingoz.

ERGIAMA

Zumarraga

AITONA'REN KEZKAK

Mundu kaskar ontan bizitzak, sortzen dituen kezak une batean aldendu ta udaberri kutsuko eguraldi ederraren gurrillan, izadiaren edertasunekin biotz begiak ase asmoz, irten gera landa bidera.

Etxeditik urrun, izakia nere gogoaren jabe egiten da ta inguratzen nauen izadi guztiarekin bat, bakoitzak bere ikuntzan (izakiak berean ta nik Euskeraz) zuzendu diogu esker oneko abesti bat Goiko-Jaunari.

Murgildua nagola edertasun guzti au ausnartzen, nere aurrean igarotzen dira 14 urtetik 18 bitarteko neska-mutil talde batzuek, ikasle tankera dute, ain zuzen, ez dute el-muga jakitza, neska ta mutil zigarroa ezañetan, une ontako beren solasak, ez du zer ikusi aundirik ikasgaiekin.

Argi nabaitzen det maitasunaren gosa ta egarri da gaztedi au. Nere gogamena-aren egan, une ontan gogoratu zait; Gaztedi oni zor zaien maitasuna, bizi-bide ta burubide onak emateko, gurasoak dira gai, ta auek inguratu bear dute ezitzaile egokiz. Ta gizarteko mailla guztiak arkitzen gera beartuak, eginkizun ontan gurasoak laguntzera.

Gaur egun gurasoak, beren guraso-ellarte bidez, gazte-jendea ezitzeo gai dan indarra daukate. Ba-dakigu, erri askotan, gurasoak egiten dituztela gauza miregarrik.

Gure bizi leku dan erri au, guztiz be-rezia da gauza askotarako, baiñan ez degu Guraso Elkarre ageririk. Ba-degu erri maitale dan Elkarre egoki bat, ziur nago batzarkide askok dakitela nik bezin ongi, gure erriko gazte askoren ardi galdu ibillera, ta zerbait egiteko prest daudela beste erriar askoren maillan.

Egokia izango da, bakoitzak bere saillean ermu eltzea garaiz, gaitza sartu ondorengo aiuma ta negarrak, deus ez dute balio.

Nere aitonak esaten zuen; «Gurdia amildu baño lenago sartu bear dik bide onera...».

AZKARRAGA

GETXO

Urrun igarten dodaz keiak eta loiak. Kei zuriak ez baltzak. Berdetasuna galdu ehen mendiak, narru gordinean laga zituzelako. Urre baltza atara eta lur gorri laga mendiak. Eta keiaren zuriak eta lurraren gorriak, amets berde gabeko gizonen bizi baltza gogoratzen dauste. Ibaizabal zarra indarrak artuta, nerbioak gainduta dator ori eta zikin, alderdi bat emen daukan zubiari, Bizkai'ko zubiari, bere dotoretasunak irainduz.

Itxasoa gordin dagonetan, ondoko asarretan dabillanetan, ondoko zirri-zarretan, ba dirudi gooldi eta bedarrak arrotzean, bere txipristiñetan iodo usain nabarmena naastu eta aizeagaz batera arnasa be loditu edo sendotu egiten dabela.

Getxo'n nago. Itxas aurrean. Iodo arnasa artzen. Kei eta laioei igeska, ango izerdi eta odolaren ondorioz, Getxo berdean billatu ehen bakearen ixilla burdin gizonak, ez ataratzalleak, atara-eragilleak baiño; bardin merkataria, itxasontzi egilleak, ikatzdunak (egur ikatzdunen burdiak Oid'etan gibeledu pendizetana eta Gorbeia'ko Ald'etan eteten ziran, eta ingeles arrikatzaren txalupak itxas zabalean aizetu eta bitsa dariola agertu), diru-erabiltzalleak eta abai. Orrela eta origaitik Getxo ixilla, Getxo txikia, itxasoaren onurak eta baserrietako ardurak alkartuta erabiltzen erri au, jauregiak ezagutzen asi zan; jauregiz betetako kaleak zabaltzen, eta soloak andikien atsegin-leku bihurtzen, eta ibarrik dotoreenak jolas-toki edo lorategi.

Sasoi baten Erandio'ko Martiartutarrak makurtuko ehen Getxo. Gure gizaldian, lengoaren azkenetan asita, beste familiak, beste izenak eta beste odolak datoz Getxo'ra lo egiten.

Ez joan urrutira. Begiratu eta aztertu pixkat Bizkai'ko ekonomi arazoa. Lengo gizaldiaren azkenengo amairu urtetan 636 negoziarako alkatasun edo soziedate sortu ziran Bizkaia'n, laureun eta ogetabi milloiko kapitalak euren artean batuz. Aurreragoko urteak be aberats eta ugari agertu ziran onetan. Zenbat milloie gaurko dirutan?

Oroitzas asko sortuten dira Getxo'n ingururata begira. Ekonoki eta industri barrien ondorenak. Gizarteko gora berak miñak eteten lagata.

Igarri barik Santa Mari zarreko ormetako ikurdiari, eskudoari begira nago. Getxo eta Martiartutarren eskudoa. «Caltea dacanac bizarra lepoan» irakurten da bertan.

Zegaitik itxartu eta zurbilduten ete gaitue gure arri zarrak, geienetan ondar arri landuetan egiñiko ikurdi zarrak, onelako esakera zur eta egitsuekin?

* * *

Bizkai'ko famili entzutetsu baten deitura zan Getxo. Lope Garcia Salazar'eri ikutu daiozun. Moroak Bizkai'ra sartu ziran, Getxo'ko lur onetan andiki bat agertu eta geratu zala. Bere etxea emen egin, bere bizitokia emen eratu eta Andra Mari'ko monastegi zarra jaso ebalu. Eta bere inguruan etxe onetako jaun eta ondorengoan illobiak, sepulkroak ipiñi.

Ain zuzen be, batzun eritiziz, Getxo eta Martiartutarren ezkontza ondorenez agertutako bat izan zan eleiz ori egitea agindu ebana.

Gero erria osutzen, alkartzen etorri zan, nai eta bere auzoetan bizikeraz ez bardin agertu bertako lurretan bizi ziranak. Algorta eta Getxo, erri bat izanarren, bi ziran bizikeraz. Itxasoetan amets egiten ehen lenengoak eta besteak lurren onuretan. Ala ta be, legerako, erri bakar lez jokatzen ehen. Gernika'ko Batzar Nausietan 47'garren eritizia ukenu.

Erri ixilla. Baketsu izango zala esan bear, itxuretan beintzat. Bizitza oia, bere eguneroko izerdi eta kezakin, eta kittu.

* * *

Nortzuk ete ziran Getxo'ko lenengotako bizilagunak? Gorostiaga'ren esanetan, kristiñau zarrak. Eleizen erakutsiz datoz bere agerpenak.

San Nikolas, Algorta'n, ez da zarra, gizaldietan beintzat, nai eta arrantzale eta itxastarren begiko izan.

Andra Mari bera XI gizaldietara atzeratu lei. Geiagi ez.

Aurreñiagi da San Martin, kristautasuna gure errietan sartzen asi zan giroko. Eta or dago Alango'n bere eliza zarra. Or, baita be, Kolumba donea, Errotactxe'n.

Eta Getxo izena zetatik sortu ete zan? Gaixo luzean osagillea aldatzea komeni izaten dala esaten dabe askok. Bat bein gibeledu miña osatzen asia danetik, urteetan be bertatik jo' eta eskura-ekarten saiatuko dalako.

Eta beste osagille batak gaixo berbera begi ez bardiñekaz arakatean; beste zerbaiten sustraia billatu eta andik sendatzea iñoiz gertatu dalako.

Ala Getxo'n, erromakerako begiz ikusi, edo ta zeltaen jatorriz, edo ta ibilkera orreik basterrean lagata jatoritasun bereziz, esan naia maixu bakoitzaren erako izaten dalako. Teori guztiak begirapen eta gogo ona eskatzen dabe. Ez bardintasunean aukeratzen gaitz.

* * *

Amabost urtetan euneko eun anditzen. Miraria? Bilbotarrak ba ekien aspalditik Getxo nun dagon.

1863 urteko ondasunen azkatzeko legea zala ta, desamortizaziñoia zala-ta, emengo lur batzuk saltzera atara ziranean, emondako balioa baiño amar bidar geiagi ordaindu ziran. Eta sasoi aretan Bilbo'n ez egoan lur faltarik. Abando'n bost milla lagun bizi ziran; Begoi'na'n bostemill gitiagi; Deusto'n bi millarik ez eta Bilbo bera amazortzi millara ez zan elduten. Getxo onek bi milla bakarrik.

Gaurko miraria Bilbo diru-zale eta diru eragilleari eskartu bear da edo aren lepora jaurti. Bilbo zatar, estu eta kez' beteari. Bilbo beroari.

Sasoi baten, orain berreun urte, parroki bakarra. Andra Mari. Gero algortarrak, eskubide osoz, San Nikolas'en ermita zarra lengo antzera laga ta izen berberako parroki barri bat jaso ehen. Gaur bost parroki be batzen dira erri onen lurraldetan.

* * *

Getxo, Algorta'tik, itxasoari begira bizi zan. Ez arrantzan, bestelako itxas bizitza baiño: Eurak egiten zituen eskabidetan itxas giroko, maiordomu, txalopetako kapitan eta itxas-gizon lez agertzen ziran beti. Eta bertako gertaera batetik orduko itxas bizitzaren jokaerak ikusi eta igarten doguz.

1516 urtean, Getxo'ko Otxoa, Ortiz, nai eta sasoi aretan Portugalete'n bizi, Flandes'etarako asmoan urten zan bere itxasontzian. Frantzetarrek inguratu eta ekuratu ehen itxasoan eta eroiana, zerbait baliotsu zana, kendu. Agiriak, dokumentuak laga eutsezan, eta ain zuzen be Cisneros kardenalaren agiri batzuk eroiazan. Otxoa Ortiz benetan mindu zan eta min orreri ez eutsan laga bertan bera sikatzen. Urtetan eutsi eragin eutsan aragi bizian. Eta bost geroago, min ori arindu edo bigundu al izateko baimena lortu eban. Berari kendu eta lapurtu eutsena kittutu arte, itxasoetan prantzetar itxasontzien aurka ibilteko eskubidea emon eutsen. Itxasoetako bizitza beti izan da garrantzia eta ara agerbide bat. Etxeberri'k esaten ekiana itxastar baten aotan: Biziagaitik irrizkatzen dugu gure bizia.

* * *

Etxe eder eta jauregi apañiak billatzea errez da Getxo'n. Asko. Betetasun orrek arrotzen dau erria. Bata bestea baiño ederragoak, aberatsagoak, atsegiñagoak. Erri giti onetan berau aiñako txukun.

Zarrak, geratzeko be, giti izan ziran. Martiartu'ko torrea Getxo'ko lurren ertzean egonarren, Erandio'ri dagokio.

Ibilli ta ibarri eroata bat ikusten da gaur gaurkoz arrigarri. Aize-errotu. Ez da bakarra Bizkaia'n, baiña ez ugari dagozalako. Arnabarri'n, Arrigunaga'ko ondartzaren gaingaitzen dago. 1957 urte inguruan barriztu ehen eta zorionez.

Eta gure monumenturik andiena, gure euskera zelan eta zetan ete dago Getxo'n? Batari itandu eta besteari esan, gauza garbirik ez. Uste baiño euskeraz dakien geiagi bizi ei dira. Zenbat? Ez jakin. Irizar jaunaren estadistiketan, 40.650 bizilagunetik, 5.800 inguru. Euneko amabostik ez.

Jolaseta, Ondarreta, Ibaiondo, Areatza... izen politik paperetan erabilteko.

Bisuts-alde, Eguzki-begi, lore-toki... izen ederrak etxeen ormetan ipinteko.

Eta biotzetan?

OKERRAK ZUZENTZEN

Don Diego ta Don Tello istorian galdu ziran. Baiña bakoitzari berea emotea bidezko da.

Portugalete'ko erri-errikoa agertu zanean, Bilbo'ko irasle edo fundadore lez don Tello esaten neban, don Diego esan bearrean. Parkatu daistala Didaka jaunak egun orretan Tellapetik argi ibilli ez ba'nitzan.

A. ZUBIKARAI

AGVR

Apartado n.º 2
BILBAO

FRANQUEO
CONCERTADO
08/55

OLATUEK JOKA

EUSKAL ERRIAK GARAITU OTE DEZAKE GERO?

Nere adiskide Legarreta eta bere lagunari eskañia.

Oraindik orain, lantxo bat zuzentzearen, Yurre'ko (Bizkai) ikasle bikin jardun nintzan solasetan, Deusto'ko Unibersitatean, irurok palastaka garagararhoa edanaz. Pitxarra ustu eta pitxarra bete, orain batek orain bestek ordaindu, luzaro egon giñan Euskal Erriaren egoera, gaurregun, astertzen, gaingiroki bederen.

Ni, nere aldetik, leiatu nintzan nere adiskideen begiak irikitzen. Euskal Erriak, biziko bada eta aurrera jarraituko badu, ez dago esan bearrik, arerio edo etsai-mota asko ditu. Ez noa orain, bata bestearen ondoren, guzi-guziak eta banan-banan aipatzera. Donerako dago denbora, izan ere egunak ugariagoak bai dire eltzeak edo lapikoak baiño, erdarazko errieraerak dionez. —Hay más días que ollas—. Errioxa'ko sukaldeetan ezaguna da esaera ori. Ta ez da batere gezurra.

Euskaldunok arerio edo etsai asko ditugu, baiña ez da txikiena, nolabait ere esateko, biologiaren aldetik gure izkuntza eta kulturaren kontra ari den etsaia. Itz illunarteko oiekin zer gura deten esan, berealaxe azalduko dut.



Ondo baiño obeto dakigu eta ez genduke iñork belarrira, aopean, ixil-ixillik, erripikatzerik nai barriz esaterik alegia, gure izkuntza eta kultura izaro edo ugarte baten gisa egon direla, gizaldiak joan eta gizaldiak etorri, zenbait izkuntza, kultura eta zibilizazio bulardetsuen artean. Naiiz betiere atzeraka joan, nola edo ala garaille atera da eta gaiñera aiekin artuemanetan aberastu egin da.

Baiña, kontu izan, irakurle. Garaille, bai, noraiño ordea? Aberastu ere, bai, baiña narrutik ordainduta. Urguiluz esan oi dugu, bein eta berriz, ariotar zeritzen errien aurrekoa dela gure erria, gure izkuntza eta gure kultura. Gaur, mendebaleko errien artean, leen sortua, testigu edo lekuko den erria. Guk gaur dakigunez, gure erriak ez du gurasorik, ez seniderik, ez lengusu edo aiderik, ez eta zakurrik ere etxe atarian, naiiz kanpoko zakur askok berari zaunka egin.

Misteriozko izkuntza, arraza, kultura, nonnaiko jakintsuak lilluratu eta bereganatzen dituen, noski. Bakarrak dagoena, olatuek andik eta emendik, marruka, jotzen duten izaro edo ugarte. Ortik dator gure etniaren edertasun paregabekoa. Ortik eta txikia izatetik bere arriskua eta etengabeko galera.

Torizu, irakurle, lumero bat. Leen eta beti, euskaldunok gutxi izan gera, ba dakigu. Gutxi giñan, egia, naiokoak ordea, zertarako izan ezin-kontatu ala, alkar ez ezagutzeko?

Gaur asko gera edo dira, gure errian egotez daudenak. Euntatik 75 kanpotarrak dire, esan liteke, Araba'n, Gipuzkoa'n. Bizkai'n, oraiño Nafarro izanik gure azkazia edo arrazaren gordezailerik onena. Euntatik 75 kanpotarrak, arrotzak. Bi izkuntza eta kultura indartsuen artean kokatua, andik jo eta emendik jo olatuek, beti pulunpaka txanel edo «piragua» estu baten antzera.

Zer bear dugu egin? Esna zaitzte oraindik lotan zaudetenok gero berandugi izango da ta.

Gutxiagorekin esnatu da Suiza ta ori, an kanpotar langilleak seitatik bat izanik. Atera beza bakoitzak berari dagokion kontua. Sekulan, eiztarien eta artzaien ezipaiñetan jaijo zen ezkeru, ez da gure etnia orrelako tinka larrian gertatu.

JOXE LASA

EGUNAK

GIZONAK AZTUKORRAK

Guk gizonok ba dakigu, apur bat, geure txikitetasunaren barri, eta apaltasunez autortu bear dogu aztukorrek garala.

Ardura asko be ba daukagu, egia esan, eta gure buruetan naste aundiak sortzen dira sarritan. Ortik sortzen da aztukorrek izatearen gatx ori.

Eta, txarrena, berez garrantzi aundi-koak diran gauza asko aztuten jakuz, batez be geure bizitzako goraberatik ur dagozanak, ez ba'dira. Orretan gizona berez da berekoia: garrantzi-bako gauzak, beragandik ur ba'dagoz, ez jakoz aztuten, baiña garrantzidunak be, urrin ba'dagoz, joan egiten jakoz.

EGUNAK IPIÑI BEARRA

Gizonaren gatx oneri osakai bat ipinteko asmatu dira egunak, gauza bakoitza gogoratuteko diran egun bereziak.

Alan ospatzen doguz bakearen eguna, barri-bideen eguna, mixiñoien eguna eta olakoak.

Santuai be, eurak gogoan izan dagiguzan, egun bat izendatzen dautsegu.

Erlejiñoeko jazoerarik gurena be bai. Esaterako Berbizkudearen edo Igokundearen eguna.

USA'n bertan, esaterako, eskerrak emoteko egun bat ospatzen dabe. Gai polita ta ezikorra au be gizonarentzat. Guk be olako egun bat ezarrita daukagu baiña iñork be ez dau kontuan artzen.

ERRIAREN EGUNA

Ori guztia olan dala, ez ete da gauza egokia «Erriaren egun» bat ospatzea be? Ez ete gara gizonak aztukorrek erriko arazoai begira? Ez ete dagoz Erriaren, kontuan artu eta aztertu bear doguzan arazo asko eta asko? Eta gaur ez lenago baiño gitzxiago.

Eta zer egin egun orretan? Jan eta edan eta jolastu baiño ez?

Erria benetan maite dogunok zerbait geiago egin bearko dogu.

Egun ori, lenago ta beñien, erritarren barruan erri-miña sortzeko da. Erri-miñik ez ba'daukagu, erri-lanetarako adore gitxi izango dogu. Orretarako bideak artu bearko doguz ba egun orretan.

Baiña erri-miñ utsa aidean geratuko litzake.

Erri-miña argia izan daiten, erriko arazo sakonak gogoratu bearko doguz. Ba dago gaur zer aztertirik?

Eta arazo orrei urtenbide bat billatu, epe labur baterako edo aldi luze baterako. Geienetan, epe laburrean gauza aundirik ezin egin al izango dogu, baiña epe luze-rako erabagialak be, gitxienez gure buruak zuzenduko daukue, gure pentzakerak bideratuko ditue.

AZTERTZEA TA ERABAGIAK

Baiña aztertze au eta erabagi oneik, noro edo zeri begira?

Erriaren izakera berezia bera kontuan artu bearko dogu lenago. Zein dan eta zertan dagon eta zeintzuk gaik osotzen daben.

Erri-jakintzea edo kulturea ez da urrin izango olako aztertze baten. Ortik sortuko da, baita, gure ezibideak, batzarrek eta ikastolak eta olakoak kontuan artzea be.

Gizarte-arazoa be sakona da eta gaur kontuan artzen dana. Aztertu dagigun ba Euskalerrian ze urtenbide emoten dautsagun arazo aundi oneri. Eta orrek, eskutik lez, erriketa edo politika gaira eroango gaitu. Ba dago or be zer aztertu eta zer ikusirik naikoa.

Eta erlejiñoa ez dogu alde batera itzi bearko. Barriztatze aldi baten gagoz eta gaur erlejiño-bideetan artu geinkezan bideak urte askotarako garrantzia izango dabe. Arerioak, okerreko bidera eroan gura gaituenak, alde batetik eta bestetik, ugari izango dira, baiña argi ikusten alegindu bearko gara.

Zenbat gai egun orretan, batzarretan, etxean, eleizan, jolasean... kontuan artu bearrekoak! Emon dagiogun erantzun on bat erriari. Eta erabagi sendo batzuk artu dagiguzan.

ZER EGINGO DEGU?

Abestiak diñoskun antzera, egun onetan pentsau dagigun zein dan Erriaren aurrean gure egoera.

Zer egin degu?... Ezer ez.
Zer egiten degu?... Alkar jo.
Zer egingo degu?... Alkar il.
Ori ez! Ori ez!

EUSKAL-ERRI'TIK ISRAEL'ERA

Arenaza'tar Josu



—Ba oso ona, erri langille-langille batena, erri jator batena. Oso alai ikusten zan kalerik-kale ebillan notintzea, ta bardin etxeetan, dendetan, edangeletan, hotelean eta abar. Tel Aviv, adi bidez, oso erri polita da, barriztatzen dagoana, baiña an ez dago ezer alperrik galtzekorik; andik 60 kilometrorra zenbat gura arri dago, baiña saltsarri edo zementozkoak dira etxe guztiak; ori bai, danak euren baratz txikitxoekin orniduta. Ikusten danez ez dago an arria ekarten alperrik denporea galtzerik, ez orixe. Gudari gazte asko ikusten dira kalerik-kale.

—Ez gutzen ez doguzan baiña lagunak diran Yair Dori ta Rachel Eishon'ek zelako arrera emon eutsuen?

—Lenengo Rachel ikusi gendun; emakume oso argia da ta maitekor artu ginduzan, Yair'eri deituko eutsola esanaz, alde baiño lenago ezagutu al izan geinkean. Oso interesgarriak izan ziran Israel eta Yair'eri buruz emon euskuzan zertzeladak, batez be, mutil jator onen abertzaleatasuna ta trebetasuna goraldu euskuzan.

—Gero itanduko dautsuet zerbait geiago Yair'etzaz, baiña Uriarte aitagaz zelan?

—Uriarte Aita bardinbakoa da, zuen irakurle amorratua ta euskeltzale gogorra. Ludiko gora-bera geienak ondo ezagutzen ditu, egunero ainbat izparringi irakurtzen ditu-ta. Israel ertz batetik bestera ezagutze-ko laguntzaillerik onena.

—Zer diño Uriarte Aitak Israeldarri buruz, lur santuen begirapenari, Capucci Gotzainari eta abar?


—Katolikoak eta beste erligioetako kristauek ez daukie ezertariko eragozpenik siñezmenak eta oiturak eskatzen daben guztia betetzeko, bestera baiño. Bardin maomatar diran arabeak be. Capucci'ri buruz argi egoala «saltzan» sartuta, palestinoen aldeko jokoan, baiña arabe izanik ez zala ori arritzekoa; bai Gotzain edo eleiz gizon bezela. Uriarte aitak israelarren alde dagoala argi erakusten du... baiña geiago Agur'en alde.

—Eskerrak berari lerro onen bidez eta goazen aurrera, zuen ustez eta

entzun dozuenetik zelan bizi dira Israel'go arabeak?

—Euretariko batzuk esanda jakin genduz ondo geien baten. Acre, Jaffo, Belen eta beste erri askotan ondo bizi dira, iñoenez, len baiño obeto, israeldarrak ainbat eskola ta aurrerapen ekarri dautsez-eta. Arazorik gogorrena, «refugiak» en ori, errez konpodu leikena da, baiña inguruko laterriak ez dabe olakorik nai. Zauri ori bizi-bizi dagoan bitartean ez dago bakerik egiterik, ta eureri ori komeni jake, bestela euren artean burrukan asiko litzakez-eta.

—Bai neu bere uste orretakoa naiz. Eta hebreo izkuntzari buruz zer deritzazue?



—Ba izkuntz zoragarria dala ta kanpotik doazen judutar guztiak ikasten dabela. Israel'go laterriak 6 illebeteko ikastaroak ordaintzen ditu; 5 illebetean, astean 5 egun eta egunean 5 orduko ikastaro ondoren danak ikasten ei dabe gaurkotasun aundiko metodoekin.

—Euskerearentzat ez litzakez txarto etorriko baiña nork ordainduko? Eta bene-benetan, gogorik bai ikasteko? Eta euskerea aipatu dogun ezkerok... Ezagutzen gaitue erri berezi bezela?


—Bai orixe! Emengo aldean kultura aundia dago ango eritarren artean eta euskaldunak giñala esaten gendunean, ai bai!, esanda gure kondairaren gorabeeraren bat azaltzen euskuen bai hotelean, bai taxistak, bai beste batzuk be. Ez dagoz lo, ez; eta konturatzen ziran, adi bidez, gure pasaportea Portugal'en jota egoala. Eurak berezitzen ditue lagunak eta etsaiak.

—Euki dabe iñoiz euskaldunekin artu emonik?

—Ez goaz emen gauza aundirik azaltzera, baiña ona emen gauza polit bat: Israel sortu zanean, itxas ontzietarako piloto ta kapitán gitxi eukezan ta leenengotariko bat Ernandorena izenekoa izan zan. Jatorra izango zan Haiffa'n, kale bateri, «Ernandorena Street» ipiñi dautseta. Beste euskaldun baten irudia be ikusi gendun, baiña au San Esteban lekaide etxean izan zan, Baiona'ko Labigeri kardinalarena.

(Atzen orrialdera)





EGIAK, BETI INDARRA

SOINU-ZALE JAUNARI

Zure «Iritziak» irakurri ditut. Eskerrikasko! Egiak idazteko ez degu bildurrik izan bear. Diozun guzia ontzat artzen det, eta besteak nai dutena pentsutuko dute.

Aspaldi emanion antz, AGUR'en aldaketak zirala. Ain begiko zaigun gure Arenaza'tar Josu lagunak, ala idatzi zuna. Beonen lagunak lenengo orrian oso bikainki argitaltzen ziran, eta askorentzat-edo... beintzat baztertu zuten bigarren orrira, naizta noizik bein lenengoan ere azaldu.

Arenaza jauna, gizon aundia izanik eta gure artean ospetsua —or konpon besteak ez ba'dute berdin ulertzen— «h»a dala-ta, bateonbatzuk irten bear zuten aurka, ta lumarik sendoena orrena izan da. Geroztiko, Beitzegi'ri emandako «tiroak» beste alderdiko oien lumetatik ere, ez zaizkugu azten. Ortan ondu gendun denon artean AGUR.


Ni, bigarren alean asi nintzan idazten, eta arrezkerok emen nabil gelditu gabe. Zure idazlanak otarrara botatzen dirala? Banatuko ba'nitu nereak, zenbat bota diran! Baiñan ala ere, ez nioke idazteari utzi nai, ta kementsu nai det jarraitu. Au ta ura edo aien akatsak ez dira ezer. EUSKERA da gure izkuntza ta oneri eldu egin bear diogu ekaitz eta karrazi guzien gaitetik.

Zer esango dizut, GOIZ-ARGI'gaitik? Bertako arpededunok ederki laguntzen diogula. Guziak orrela jokatuko ba'luteke... gure aldizkariak obeki izango lirazke gaur.

Arrazoi ematen dizut esaten dezuean GOIZ-ARGI lau edo bostek idazten dutela. A ze egia ori! Aspaldi antz emana nion orko idazlan sakonegiak argitalduaz. Sakonegiak diot, ez det baiñan egirik esaten, ez bai ditut orrelakoak irakurtzen, gogozko ez diralako neretzat. Zuzendari zorrotza dago ori, guziok ongi ezagutuen deguna, ta ortan arrazoi ez dunik ez det esan nai. Bakoitzak berak dakizki ze nolatan eraman zuzentzak.

Esaten dezu baita, alegia, idazlanak motxagoak idatzi bear genduzkela. Egi aundia. Izparringi bantentzat, batzuen eta besteen goraberak, motxagoan obe argitaltzea, orrela apaindurea ematen diotelako asteroke bati, eta ez orri guziko idazlan bezetara.

Ba-dakigu, zuzendari oiek duan, «debalde» lan egiten dutela, ta askotan, berak diotenez, lanpetuak dau eta ta betarik ezeten inoren idazlanak garbiago agertzeko. Zer egin degu guk gere bizi guzian? Orain berrogeitaka urte aako ARGIA artan idazten asi nintzan, ta gaur oraindik idazten ari naiz, eta guzia «debalde». Ta ori bakarrik ez, arpidetzat diran baiñon geiago ordainduaz. Zergaitik. Guzia Euskera'ren onerako.



Diozunean, alegia, nik galdetzen nunean ea nun diran lengo idazlari aiek... berriro erantzungo dizut berdin: Nun dira? Gu txepelok, trakets aukerak, zein gera berdintzeko «Zelata» batekin, Nemesio Etxaniz'ekin, Zatarain, Labaien, Muniategi edo Zaitegi batekin? Beste pillo ori nun da, Jon Oñatibia, «Basarri» ta abar. Onekin ez nuke nai sartzetik, inork baiñon lan aundiagoa egin eta egiten ari dalako. Begira La Voz ortara ta abarrera. Baiñan zenbat apaiz idazle jator ta yayo ixillik daude?

Ez noa geiago luzetzera ta bukatu dezadan. Agur SOINU-ZALE!

E. OZKIN

SASI-MAIXUKERIAK

Sarritan lez «sasi maixutza» egiñaz datorren idazlantxu au itz bat edo beste aztertuz izango da.

«Lanbas» edo «lanebas» berbiak indar andia artu dau azken aldi onetan idazle askoren artian, «tresna» edo erderazko «herramienta»ren esanaian erabiliak. Jokabide zuzena ete da au? Ezetz esango neuke. «Tresna» itza guzia askori emoten jako; onetarako tresnak, edo aretarako tresnak. Milla eratako tresnak dagoz.

Ostera «lanbas» itza, nik, guzia bateri deitzeko ezagutu izan dot neure bizian. Ortik ziar euren idaztietan «lanbas» edo «lanebas» itza sartzen asi diranak, biar bada inoren aotik egundo entzun barik egongo dira berori. Baiña gu itxas-errikuontzat guztiz ezaguna da. Itxas-ontzi txikiak erratz edo eskobia dala esan daiteke, ontziko baztarrak uragaz garbitu ta ur apurrak legortuteko. Makil dantza egiteko antzeko makilla, musturrean ultze andi bategaz trapu zar pilloa josita.

Azkue'k bere iztegiaren olan diño:

LANBAS: 1.º (B., G.), lampazo, estropajo grande hecho de retales de paño, que sirve para fregar los costados y cubierta de lanchas y otras embarcaciones. «Lanbasa baño bastoago da mutil ori». (B-1), «ese muchacho es más grosero que el lampazo». 2.º (AN-Lezo), alga marina. (B. fr, lampas?).

Ikusten denez, gure «lanbas» eta erdaldunen «lampazo» guzia bat dira. Beraz, zeiniek zeinieri artua dan itauna egin ezker, euskereak erdereari artu dautsala erantzun biarko litzake. Beste errazoiak lagata be ondorengo onek susmo ori emoten dauku: Zera... euskaldun arrantzaleak erdal itz bat erabilten dituela euren itxasoko bizimoduan. Euskal nekazaritzan erdal itz bat arkitutia ez da erreza, baiña arrantzaren pilloka entzuten dira. Gure errian arrantza aspaldikoa izanik au zelan leiteken ez da errez jakiten, baiña alan dana ukatu eziña da.

«Lanbas» itz au «deskubrimentu» andi ba dalakoan erabilten asi diranak anka ez eta dabe sartu? Nik baietz esango neuke. Edo bestela Azkue'k ez ekian beste esanirean bat ba'dau erriaren aotan nunbaiteko alderdiren baten. (Ikus. lanabas).

* * *

Bigarrenez argitaratu dan Mujika'ren iztegiari buruz beste eretxi batzuen artian ondorengo au diño A. I. izenekoak «Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País» aldizkarian: «Rusia, rusoa, Rioja, Rumania, romantikoa», aurreko «e» edo «a» ori barik erabili bear dirala.

Nik ez deritxat txarto Mujika'ren jokabide orreri. Len euskera indarrian egoian erderatik artutako r'kin asten ziran itzak, olantxe, aurrean a edo e ipiñita esango zituen. Gure ume denporan Erroke, Errofaill, Erremijio, Erramon ta antzera deitzen ziran danak. Ta arek, bizi diranak, lengo izenakaz jarraitzen dabe. Ostera geroago jaiotakoak, Roke, Rafael, Remijio, Ramón ta abar dira. Erroma'ri be olantxe deitzen ikasi genduan eta gaur be olantxe esaten dogu, baiña gaitientzat Roma da. Ikusten denez, euskeriaren lege edo oitura au galduaz doa. Baiña Rusia, Rumania ta abar Erromania bezin ezagunak izan balitue, sarri ao miñian erabili balitue, Errusia ta Errumania izango ziran gure asabentzat. Au ezpairik be ez. Rioja olan esaten dala? Ez dakit. Bai, Iparragirre'k be olantxe esaten dau arduari ataratako bertso baldrasetan. Baiña PERÚ ABARKA'n Errijoa irakurten da. Ta neuk be olantxe ikasita daukat zarragoai entzunda. Nik uste dot, gure aurrekoak erabilten ez zituen olako itzak artzian orduan indarra eukan jakerak agintzen daben lez esan biar litzakez, aurrean «bokala» daroela.

Antxiñako idazleak, erriak erabilten ez zituen olako itzen biarra izan eikien euren idazlanetan eta aurreko «bokala» barik idatzi. Baiña itz orreik kultura itzak izango litzakez eta jokabide orrek baliorik ez leuke izango. Erriak erabilten zituan itzak bakarririk dira kontuan artzekoak, batez be asko erabilten zituanak. Ta erriak asko erabilten zituan olako itz gitxi izango dira aurreko bokal barik.

Ta amituteko: r'kin asten diranai soillik aurrean «bokala» ipinten jakela esaten da ta alantxe da. Baiña j'gaz asten dan batek be eroaten dabela nik ba-dakit. Gure aita, arrantzale izanaz gaitera, aize-oiak edo bela egillea be bazan eta belak egiteko oiari «olonia» deitzen eutsan. Au da, erderazko «lona» gutzat «olonia» zan. Eta Ondarru'ko arrantzale guztientzat alan izango zala uste dot. Gaur be alan izango da kontixu zarrentzat.

KAMIÑAZPI

IKASTOLAK

Gaur egun, ikastolak egitea azi da, baiña leen ezin ziran ikastolak egin, ba estaduak ez eban baime-nik emoten ikasketak bi izkuntzetan izateko.

Bilbo'n, ikastolak, leenengo andereño bakoitzaren etxean ziran; geroago danak batu ta pisu batera igaro ziran; eta azkenez, mendira joan dira. Gaur egun Bilbo'n lau ikastola dagoz, bi txikiak El Karmen'koa eta Begoñazpi'koa. Aundientzat beste bi: Santutxu'koa eta Lau-ro'koa.

Ikastolaren lana umeari euskera irakastea da ta orain arte idazlari erderaz izan dira, baiña orain txikiak beintzat ba-daukiez euren idazlari euskeraz.

Ikastolak euren artean atletismo-ko konpetizioak egiten dabez ta an giro ederra sortzen da.

Ikastolaren ametza gero unibersidadek euskeraz izatea da.

ITZIAR MUJIKA (14 urte)

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroke onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, bereko, politiko naiz ondasungarri asmoen gaitetik daben iritxi-onoeko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egileak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:
JOSE M.ª MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:
LA EDITORIAL VIZCANA, S. A.
Carretera a Galdácano, 32-Bilbao-4

ARGITALDARIA:
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guturako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

EUSKALERRI'KO ARAZOAK

KARLA'TARREN GUDALDIAK

(Jarraipena)

Lagintza aurreratzeke izan ziran eragozpenak gogoratu ondoren, 1833'ra eldu zan. Urte orretan asi zan Karla'tarren gudea. «Guda au emen, lenge-zardunen eta arerioen alkar jote bat izan zan, eta arerioak nagusi urten ziran. Izan eben orretarako kanpotiko laguntzea be. Eta ori dala-ta, Erriaren langitza-aurrerapenak 50 urte galdu zituan».

Euskalerrian karla'tarrai laguntzea, lege-zarrak zaintzeagaz batera joiala, argi esan eban, baiña gualde bitatik be legezarrai itzaltasun gitxi izan jakela be, esan eban.

Muñagorri eskribauaren ekiñaldiak be, ez zituan ixildu. Onen ikurriñak berau askekeri-zalea (liberala) izan arren, «bakea ta lege-zarrak» iñoan, bakea lortzeko, baiña barriro be, Madrid'eko jaurlaritzearen gurariz, galdu zan bakea.

Gudearen azkenean Erriarentzat etorri ziran ondoren kaltegarriak aztertu zituan, eta danaren laburpena zan esaldi batez amaitu eban: «Borbon'darrak barriro agintzen asi ondoren sortu zan Euskalerrri'ko langintzaren aurrerapena, 1891'ean Canovas del Castillo'k ezarri eutsan zerga-lege bereziagaz, agintekeri-bidetik etorren langintzea zan.

Gizaldi-erdi lenago euskal-eskuzuri batzuk jabetasunaren bidea agertzen eben, eta lagintza-iraulketa au karla'tarren lenengo gudeak eta osteko estualdiak etetzen dabe eta Erriak daukan almen bakarra, burdin-lanarena, galtzen dau, eta orixe zan politika-jabetasunaren oiñarria.

Berbaldiaren azkenean txaloak jo ziran eta izlariak entzuleakaz alkar izketea asi eban.

ALKAR-IZKETEAK

Alkar-izketeak zati asko izan zituan, baiña bi aukeratuko doguz.

Lenengoan, berbaldian esandakoak «bake-kaia»gaz zer-ikusirik ete euken itandu eutsoen.

Erantzukeran izlariak auxe esan eban: Erriko alderdien arten ekitaldi bi izan zirala garrantzitsuak, biak erdiko agintaritzeak zuzenduta (Godoy, Avinareta...). Agintari orreik orretan sartzeko gurari bizia euken.

Beste itaun bateri erantzunez, Naparroa'ko ta Araba'ko buru ziranak pentsakera bardiñekoak ez zirala esan eban.

Eta emen sartu zan alkar izketara len esan dako abadea. Amar bat minutuan ekin eta ekin ibilli jakon izlariari. Arrituta egoala esan eban, Karla'tarren gudaldiak ekonomi-aldeetik ikusten ziralako, eta, asko zurt eginda itzi arren, bere eritxi orren indartzaille lez Unamuno artu eban.

Ainbeste bider abade barritsu onek berba egiteak asikeran irribarreak sortu zituan, baiña gero entzuleak nekatu egin ziran. Caballero'k sendo erantzuten eutsan, baiña entzuleak ez eben jaramonik egiten eta mormoxa sortu zan.

Bigarrenean, bizitasun geiago agertu zan.

Batek Fernández de Pinedo'ren berbak ekarri zituan. Eta Errian izan ziran alderdi biak alde batera itzi-ta, (ori argi egoan berbaldian), lugiñen eta ezkuzurien arteko goraberea izan zala esan eban. Orrelan guda ori gizarte-arazo baten ondorena izango zan. Geiago oraindik: Guda arazoaren ondorena, orrelan argitu ezker, alderdi bietako buru ziranen onerako izango zala esan eban.

Ikuspegi orretan egoan maltzurkeria laster agertu eban izlariak. Erriaren lagintza-arazoa bere sasoiaren ez zala bideratu gomutau eutsan, eta ori lege zarren aurkako esku-zuriak nagusi urten ebelako izan zala. Orrelan amaitu

ziran karla'tarren gudak. Lege-zarren aldeko esku-zuriak ezin lortu izan eben langitzearen aurrerapena, eurak gura eben jabetasunagaz.

Gure ondoan be batek berba egin eban, eta Fernandez de Pinedo'ren liburua eskuan zala egin eben itaun ori, agintekeri-zalea (inperialista) zala esan eban bizi-bizi. Azterpena orrelan egin ezker, 36'ko gudea emen, gizarte-gudea lez artu legikela esan eban, eta ori kondairearen aurkako gauza bat dala. Convention'en aurkako gudea, Zamakola'tarrena, karla'tarren biak eta azkenengoa, 36'koa, Euskalerrriak bere azkatasuna lortzeko egiñak zirala iñoan. (Ta olan diño oindiño bizidiran gudariak be).

Eta berba oneik entzun nituanean, eta gero, artu nituan oarrak aztertutkeran, idazle baten esaldi au etorri jatan burura: «Giro ezbaridiñetan, bide ezbaridin eta gaurko balio ez dabenetatik, gizonak, antzekoak ziran balio ta burutasun batzukaitik bururatu ziran.

Balio ta burutasun orreik, gaurkoen antzekoak edo bardiñak edo aurka-koak izan leitezke. Baiña, geu baiño gorago dagon osotasun batek alkatzen gaitula gaur jarraitzen dogun antzera, gero datorzanak be jarraituko dabela, ondo dakigu.

LEIZARRETA

EMAKUMEEN URTEA

1975'GN URTEA

Aurten emakumea jaiki da, edo jaiki-teko deadarra entzun dau beintzat. Urte batean bakarrik, bada-etzpadan!

Argi be argi ikusten da emakumeak oraindiño ez dauala esku-artu munduko gorabeheretan. Oraindiño, gizasemea mundu onetan dagonetik, ez da emakumeentzako leku andirik izan. Gizartean izan diran aldakuntzak, urteetan, gizaldietan egin izan dan guztia, gizonentzako zuzendutako kultura barruan dago oso-osorik. Bera, gizona izan da munduaren benetako «eragile edo motoira».

Emakumeak euki, ba-eukan eta ba-daua gaur eguncan bere zeregiña: ama izatea. Gai onetaz ara zelan diñoan sikologo ospetsu batek: «Emakume geienentzat amatasuna sortzaille edo kretzaille izate bearraren betetzea da». Olan ete da?



Alde onetatik, emakumea, emakume seinduna, literaturan, baita ertian ere, beti oso goratua agertu jaku. Gizona izan da emakumearen irudi au eragin dauana. Aintbesterañikoa izan da labankeria, arrokeri uts baten aziak sustraitu dirala emakumeengan. Eta arrokeritik lelokerira ez dago bide askorik; eta lelotuta, emakumeak, aztu egin ditu, zer dan nai dabena, zeintzuk diran bere gurariak, au da, zeintzuk diran eskatu ta lortu bear dituan elburuak. Emakumeak ez dau eskubiderik ezagutzen.

Dana dala, onegaitik ala beste orregaitik, aldakuntzea aurre-aurrean nabaitzen da. Emakumeentz gaur dogun irudia, aspaldiko irudi zaarra izatera birtuko da, bihurtzen asi da. Emakumearen orainarteko zeregiña, bai sendian, bai semeekaz artuemone-tan, bai lenean, bai ikaskuntzan, itz baten, eguneroko gauzetan, beste era batekoa izango da.

Baiña, nolakoa izango ete da emakumearen «jantzi» barri au? Nork daki! Ortze ultzea! Gizonezkoen kultureak sortu dauan emakumea, emakume ederra, biguna, atse-gingarria, gizon eta emakumeen artuemo-

netako egoera estu ta larrien estalpea besterik ez da. Artuemon onetan gizonak egiten dauana entzun eta gor egitea da. Ezbardintasuna geroago eta sakonago egin da urteetan. Emakumeak ez dau kulturaren, ez jakintasunaren mailletara igoteko eskubiderik izan, eta orrexegaitik, ikaskuntzaren ezaz, ez dau iñongo nagusitasunera eltzeko eskubiderik, ez biderik.

Norbaitek esango dau ikusten dala emakumerik lanean, lantegietan, baita politikan be —ez askorik—. Baiña aren maillea, au da, indarra, bekoenetarikoa dala diñogu guk. Arrazoi onegaitik ez da emakume artean iraultzarik sortu. Gizonen menpean bizi da. Gaiñera, aurreratzeke bidean astiro-astiro gabiltz, emakume askok ez dau burruka gogor onetan sartzeko gogo andirik-eta. Au tamala!

Aztertu bearrezko arazoa dala uste dot. Gaurko egoeran jarraitzea atzera egitea dala. Gai aspaldikoa izan arren, gaurkoa dogula.

Auxe eskatuko neuskie, gizonentzoei batez be, gauza onek azaltzerakoan, betiko irri-barretxo maltzur ori atera bearrean, sakontasunez eta zabaltasunez agertu dadizala.

Gizarte barriztu batera eldu gura badogu, ekonomi bizkor bat lortu gura badogu, bizi-era patxadazkoa gura badogu, danon lana bearko da. Orduan, zergaitik itzi, lege edo eziketa atzeratuen menpe-tasunagaitik, andrazkoen lana galtzen eta baztertzen? Danon onerako zergaitik emakumeen ekintzaz ez baliatu? Zergaitik emakumeen esku-artze eza?

Auzi onetan danok gara aipatuak, danok dogu zerrikusia. Bakoitzak bere zulotik ikusten ditu gauzak; batzuetan zulo estua, bestetan nasaia. Baiña emakumei batez bere itzarririk egoteko ordua eldu jaku.

Nere ustez, egitarau egoki baten bearran gagoz. Egitarau onek aldaketa sakon bat izan bearko luke. Kultura bera aldatu bearko da, emakumea gizonen maillearaño jasoteko. Urrun ikusten dot oraindik.

Bai baiña —betiko baiña— elburuak argi ta garbi eukiteko, gauza bat, garrantzitsuena nere ustez, edozer asi baiño len mugatu bear litakena: emakuek, geuk, aldakuntza au, biotz-biotzez nai izatea.

Egoera guztiak txarrak izanik, ezagutu dogu emakumeok egoera txarririk!

—Bai zera! (Ortik, norbaitek, esan dau esatekoa).

M.

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK



ZAZPI-KALEAK

CASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

EDERTASUNA TA ERTIA

Gaur eztabaida lez gai asko artzen dira, berez jendea iritzi ezberdina-kaz dagolako; eta garrantzi aundikoa izango litzake iritzi ezberdineko gai orreik aztertzea.

Onetzaz, AGUR'eko 173-174 zenbakietan agertu ziran gai bi: «Alegindu onerako» eta jarraitzen ebana «jaialdiak eta entzuleak» gogoan artuta, itz samur batzuk esan gura neukez.

Lenengo ta bein: Ez dakit lan orreitzeko ardurea eta nirea bardiñak izango diran ala ez, baiña euskal-abestia aztertzea izango da nirea.

«Doiñuketea erti bat da», iñork ezin lei ori ukatu, gaur beste zerbaiteko tresna lez artzen dan ala ez, ez dakit, baiña doiñuketea erti lez bakarrik artzen ba'dogu, puts eta uts aurkituko da euskal-abestiaren lana, erderaz esaten dana: «Arte sin tomar parte».

Gure Errian ertilarik onak egongo dira, baita irudi lez jokutzen daben gizon ospetsuak be. Ertilarik danean bezala, Euskalerrian be bearko dira. Abeslari guztiak edo geienak eukiko dabe euren ertia, baiña or lotu barik, erti orregaz esan-nai bat emotea zergaitik ez eskatu?

Esan bear dot baita, eskatzen ba'dautsagu be, ez dala gauza arrigarririk. Beste puntu bat be ez dot argi ikusten: «Edertasunari begira gaur bizi izatea ez da erreza».

Bizitza guztia lorez betea ze polita dan guk ulertu al dagigun, edertasunagaz biziteko unean gagozan ez dakit eta dago uste edertasunetik kanpora dagoan guztia sats utsa danik.

Euskal-abestia aurreratzen doiala dirudi. Eukiko doguz abesti onak eta ez ain onak, baiña, ori bai, beti ezin gara gu leku baten egon, edertasunagaz edo edertasunetik kanpo.

JAIALDIAK ETA ENTZULEAK

Danak ez daukagu pentsakera edo gogapen bardiña; orduan ba, entzuleen artean be iritzi ezberdina izango dira. Ereslariak nola abesten daben, nola dan abestia; ereslariak zer esan nai daben... danak dauka bere garrantzia.

Ertiari noraiñoko garrantzia emon leion? Une onetan nik ezin asmatu beste gauza askoren gainetik ipintea gure zori oneko erti ori. Eta, ori bai, ertiaren arpegia onartzen dot, baiña abestia errirako eta erriarentzat ba'da, erti lar sartuta gure ertia salbauko dogunik ez dot uste, ez gure abestia eta ez beste ezer be.

Euskal-jaietan ganorabako itz eta doiñuak agertzen diranik ez dot uste. Orrenbesterako be ez da. Esakera onak, zalantzarik bage, gitxiegi izango dira, baiña ortik kanpora, bakoitzak bere erara egingo dau, eta entzuleak be bere erara artuko ditu.

Abestia, arimearen mintzaerea da, doiñuak itzagaz batera joan bear dauala jakinda.

Gaur gauzak argi ta garbi esan bearrean gagoz eta ez inguruan esandakoak poliki poliki aurrera egin.

TXINDOR

Euskal Abestiaren Erakusketa

OTSAILLEKO NEURKETATIK

1. «TXINAURRIA».—Mikel Laboa.
2. «EUSKALERRI POLITA GORA».—San Juan Bautista, abesbatza.
3. «OI GURE LURRA».—Benito Lertxundi.
4. «EUSKALDUN KANTARIAK».—Ochote Danok bat.
5. «ARABA».—Gorka Knorr.
6. «ZUGANA MANUELA».—Xeberri.
7. «SINISTEN DUT».—Xabier Lete.
8. «AMAYA».—Josu Loroño'ren soñu taldea.
9. «BERTSO ZAHARRAK».—Lete-Valverde-Lekuona.
10. «TXANTON PIPERRI».—Jatoriki abesbatza.

Zerrenda onetan, abesti bat lotu da kanpoan, «HITZAK DIRA», Lourdes Iriondo'rena, ta bere oraez Jatoriki abesbatzaren «TXANTON PIPERRI» sartu jaku.

Beste aldakuntza batzuk ere al doguz ikusi; lenengo mallan TXINAURRIA, Mikel Laboaren abotsean, jakiña zan abesti onek gorakada egin bear dabela. Ikusi egin bearko da abeslari onek zelán eutsiten dautson irabazi daben malla orreri, ze naita indar asko galdu. Olan ez da jazoten Lertxundi'gaz, onek len indar aundia euki ba'aau, geiao irabasten dabela esan geinke, or dogu irugarren mallan bere abestia, «OI GURE LURRA».

Gorka Knorr, Gazteiz'tar gaztea, or dogu malla bi igonda. Gazte au uste dogu oraindik gitxi ezagutzen dala disko alderditik: azken urteotan debekatu izanda ere Bizkaian. Zergaitik? ...Orain ikusten dogu leku askotan emen gure errietan, ta «referentziak» daukaguz ondo sartu dala oraingo aldikadan ere. Zorionak Gorka!

«TXANTON PIPERRI» barria, Jatoriki abesbatzaren abotsean eldu jaku amargarren mallara, ta indar aundiagaz; ikusten da Andoni Arregi ta bere taldearen lanak frutua emoten dabela. Ba-daukagu entzunda talde onen «AGINA» abestia ere, oso ederra, ia noiz ikusten dogun malla onen artean. Ordurarte entzun oneri ta urrengo zerrendararte.

J. M.ª ASTONDOA

ABESLARIAK

Gai onetzaz zer idatzi, zer esan eta zer asko dagola esan bear. Euskalerrian lenengo aldi baten eta «Ez dok amairu» taldea sortu zanean, abeslariak erriaren kezka eta deadarrari erantzuten eutsen. Une larri baten gengoan eta protesta orreik jarraitu egin eben eta dabe; gogoratu «Gazte gera gazte» «Mendian lar artean» eta abar, abesti onek jarraitu eta indartutera joan zan.



Orain abeslari geiago doguz, diru geiago erabiltzen da eta jenteak euskal-jai batekoa gustora ordaintzen dau. Oneri buruz au esan bear: erriak, itz batzuk larregi entzun dabezala eta konturatu barik itz orreitaro oitu egin zan, olan «erri, askatasuna, gazte, gogorkeri» eta abar entzuleen belarrian tortika bat lez egin zan. Itz batzuen puztutzea izan gendun, bestela gogoratu zelán itz orreik entzutean jentea zutik eta txaloka jartzan zan. Abeslarien lenengo aro onetan abestiak erriaren kezka bat emoten zuten.

Beste bigarren aro baten deadar eta kezka ori demagoji zerbaitegaz erabiltzen zan, nire eretxiz. Abeslariak jakiten dabe ba, abesti orrekaz ez ba'dute jarraitzen, erriak ez dutela onartuko.

Beste garrantziko aldi bat eta abeslariak, batzuk beintzat, benetan lan egin dabenak, antxiñako kanta zaarrak berbiztu dabezán aldia da.

Aldi onetan, abeslariak, itz zaar-barriak agertzen alegindu dira, ta ez abestiak bakarrik, musika arloan be lan aundi sakon bat egin eta profesionaltasun kutsua euskal-abeslariari jarri dautse.

Gai oneri buruz esan bear, len protesta ta kezka abestiak entzuten egoan

erriak ez dabela ondo ulertu abeslariaren aldakuntzea. Arlo onetan ta besteetan be, uste dot, izenak ez emotea egokien dala.

Beste arlo baten bai musika ta bai bere doai bereziagaz euskal abestiari beste neurri bat emoten alegindu direan abeslari orreik egongo litzakez. Nire iritxiz abeslari onek kanta moldeakaz ta musika abstratoagaz erria pentsatzen jarritzen dabe.

Musikeak eta abestiak zeozzer esan nai dabe, baiña... zer? Ori erriak pentsa bear. Oneri buruz gogoratu «Gernika», zoragarriko musika bategaz, «Gernika» abestia be aitatu egin bear dala uste dot.

Len esan dodan lez abeslari onek errespeto aundiena ta langutzarik indartsuena bear dabe, euren ekintza lankorragaz zerbaít billatuko dabe eta dana euskal abestia aberastuteko izango da, garrantziko ekitea da. Ondorenak agertuko dira orain edo beranduago.

Azkenengo maillan jarriko neukez beste talde ta abeslari onek: plazara urte-zeko lau edo bost abesti gertatu dabezának eta geiagoko egin ez dabenak, ez abesti, ez musika arloan. Baiña euren nortasunean jarraitu dabe arpegia bizar latz ta illun bategaz jarrita, sasi-intelektual itxura bategaz dabilta, eta barregarriena euren kantua dala-ta, beste erri maillako ekintza batzuk alde batera itxi dituez eta beste talde batzuekaz be ez dabe alkartu nai izaten.

Bear ba'da azken itz onek gogorak izango dira, baiña talde orreitan, orain arte ori ikusi dot. Baiña egunen baten benetako abesti arloan edo beste batean, lan bat asten ba'dute, itz onek arteztuteko prest ta adi egongo naz, tartean idatzi dodana ikusi dot eta emen jarritzen dot.

Au izan da euskal abestiari egin dautsadan gane-ganeko azterketa bat, nik baiño jakintsuagoak, zalantza barik, egongo dire, adi nago ea beste batzuk zerbaít aberasgarriago esaten daben.

IRRINTZI

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra

BILBAO - Casco Viejo

Tenderia, 15 eta 16

LIBURU EDER BI

Bear bere ba-genduan eta egin izan dausku, ba, Onaindia Aitak, Lauaxeta, zoritxarreko geure olerkariaren olerki guztien, edo geienen, argitalpena.

Lauaxeta! Amaika esakizun esan negikez olerkari guren onen bizitza laburra dala-ta! Baiña, zoritxarrez, oindiño ez da eldu esateko guztiak argi ta garbi esan aal izateko eretia, ta, urrengorako itxi bearko. Norbere burutapen, xede ta gogaikarren, olerkari au lez, bizitzea emoteragiño eldu daiteanak merezi dau, ba, gorespen eta aitapen luze ta sakonik, arean bere.

Euskalerrian izan doguzan olerkarietan, olerkariena genduan, ba, Lauaxeta. Onexek bide barrietan sartu eban gure olerkia, ta, bear-bearreko izan dogu onen olerki bikaiñen bilduma. Ez doguz, ba, bazterrera jaurtigarriak olerkari gailen onen olerkiak. *Bide Barrijak*-etakoak eta *Arrats-Beran*-ekoak ez direala, eriotzeaz aurre-aurre egoala egindakoak be ez doguz, ba, edozelangoak. Arena Jainko-maitasunezko ta Erri-maitasunezko ixuria! Olerkari onen azken-egunetako olerkiak irakurkeran biotzak taupadarik egin bagarik ezin gera daiteke eder-min apurrik eta geureakanako maitetasun apurrik bularrean nabari daganik, beintzat. «Dana emon bear yako / maitte dan azkatasunari» idatzi eban, beifñola, *Mendigoxaliarena* deritxon olerki aberkoi ta biotz-eragingarrian, eta, guztia emon bere, emon izan eban, bere biotz eder-beratik Jainkoaganako ta Euskalerrianako maitetasun bardinbagea eriola.

Eskiñi euskun berbea bete dausku, ba, Larra'ko lekaide langilleak. Aren, Lauaxeta'ren gorazarrea izan genduanean esan egin euskun, ba, aren, olerkari negargarri aren olerki guztiak, (ezagun direnaak, beintzat) urrango urterako argitarako zituala, ta, dotore irarrita, aurkeztu be aurkeztu izan dauskuz.

Zaitegi jaun argiaren itzaurre ederra dakar. Ikasle-laguna ebanezkero, ondo ezagutzen eban, ba, jaun onek, jokera guztietan, gure olerkaria. Ta autuan dabildan olerkari onen gorazarrean *Arrats-Beran* idaztitzuko olerkieri Arostegi karmeldar olerkari gazteak egindako azterketa zeatz eta sakonez, eta, tamalez nor daitekean ez dakidan idazleren baten gomuta jakingarriakaz osoturik dago onesgarri au.

Liburu eder eta dotorea, azal eta mamifiz, iñun ba'da, Urkiaga'tar Estepan'ren olerkiakaz Onaindia Abak atondu dauskun liburu au.

Leen be gogoan genduan, baiña idazti oneaz illezkor egin dausku, gure karmeldarrak, Jainkoari ta Erriari abesten bizia emon eban goi-maillako olerkari onen izena.

* * *

Lauaxeta'ren olerkiakaz batera beste liburu bitxi bat bere eskiñi dausku Santi Aitak: *Eskutitzak*. Bere adiskideekandik ortik, andik eta emendik artu izandako idazkiakaz ornidua. Era askotako idazkiak dakaz. Nok zelango izakerea dauan jakiteko berebizikoak. Idazki orreitan ikusten denez, Arana-Goiri'ren irakatsieri orain muxin dagitseen askok be, leenago, abizen-izenen erdian *tar* jarten eben... Nok edo zek aldatu ete-ditu? Tamalgarria, benetan, ontzat artutako bideetan ukatu, ta beste zador batzuk artzea!

Orain urte batzuk, Tauer'tar N. txekoslobakiarrak be, argitara eban idazkiakaz egindako liburutxu apaifña. Onaindia Abarena lako andia bagarik txikitxua, baiña, poli-polita. Berari idatzitako idazkien atalakaz eta adiskideeri, berak, idatziriko idazki batzukaz atondua da, onena.

Esan be egiten eban Ibiñagabeitia'tar Andima idazle argiak, baiña, gurean, idazkiak eurak bere eledertzat artu bear doguz. Ezelango atonketa bagarik norbere barrutik zuzen urten dabeen idazkiak baiño literatura zintzoagorik eta garbiagorik bai ete-da, ba, izan? Nik neuk, ezetz uste.

Eskerrik asko, ba, adiskide gurgarri orri, geure zugaitz zaarrari ezitzen diarduzun mendu barriakarren. Eta, aurrera, beti, ostopoak menperatu ta esameseri jaramon bagarik, bide-lagun izango gozuz-eta.

Iñoren idazkiak argitaratzea ez dala ondo egiña esan ei-dau norbaitek. Baiña norbait orren idazkirik ez ei-dago, arean, liburu onetan.

Daiteana dalakoanak direala, artu dagiguzan idazkien jabe geu gara. Batzuk maitasunez eta arduraz jabon daroetz, beste batzuk, ostera, apurtu edo erre. Bere senean dagoan iñok ezin txarretsi daike, ba, norberak egin izandako idazkiak argitaratzea. Sentzunik asko dau, argitara dituanak, ixillean jabon bear litzakezan idazkirik ez aizeratzeko. Bai, orixe!

Indartu beite gure elederra, era guztietara, bearrizana bere ba-dau-ta.

AURRAITZ



Landola tresnak - Galtzairu neurri zeatzekoak

Langailu guztietarikoak - Leunketa gaiak

Ibarrekurutz kalea 14

71-10-00 Urrutz.

Apartado 18

E I B A R

ERROMA'KO SAN PEDRO

Erroma'ko Kepa Deunaren Eliza, munduko aundienetarikoa da. Len aundiena zan. Bere aunditasuna, bere edertasuna ikustean lilluratuta geratzen da bat. Au jazo jaku danori, batez be lenengoz ikustean.

Ona labor-labur barri jakingarri batzuk berari buruz:

1507'gn urtean jarri zan lenengo arria, Julio II Aita Santu zala. 1623'gnea bukatu zan. Eun milla pertsona artzen ditu. 200 metro daukoz luzeeran. 300 leio eta 30 aldara. 139 Aita Santu lurperatu dira or. 250 milloa franko ordaindu ziran bukatu zanean. Zenbat ordaindu bear izango litzake gaur? 200 eta geiago gizonetzko eta emakumek dauke bere ardurea.

Eliz-aurrean enparantza zabal-ederra dago, arkupeekin. 300 santuren irudiak agiri dira eliz-barruan. 25 metro ta erdi dituan apaingarri bat dago. Apaingarri ori —obeliskoa— Ejito'tik ekarria da, ta bost milla urte ei daukoz. Kaligula kaiserrak eroan eban Erroma'ra, Jesukristo ilda 30 urtera. Urrez idatzita itzok jarri zituen krsitauak: «CHRISTUS VIVIT, CHRISTUS VINCIT, CHRISTUS REGNAT». Aurretik Neron'en jolasetea —zirkoa— egoan toki ontan. Ainbatek ixuri eban odola an Kristo'gaitik.

Iru zurubi dagoz enparantza ontatik elizara, ta zurubien alde bietan Pedro ta Paulo apostoluen irudi aundi bi agiri dira. Bost atetatik sartzen da Vatikanon enparantzara: Ate Santua izena dau eskuma aldean dagoan azkenekoak. Urte Santuan bakarrik zabal-tzen da ate au.

Metro biko izkiok agiri dira elizan, orma goian: «Tu es Petrus et super hanc petram aedificabo Aecclesiam Meam. Au da, «Aitz zara zu ta aitz onen gainean jasoko dot Nere Elizea».

Biotza pilpilka genduala ikusi genduan orain urte batzuk Kepa Donearen illobia.

Gaur egunean be indar aundia dau Vatikanook. Milla ta milla joan oi dira mundu zabaletik orain lau gizaldi jaso zan eliz aundi ederra ikustera. Ta milla ta milla Kristo'ren Ordezkarri dan Aita Santuarengana.

GOIRIA

Bai, galdera bat da...

*Gose-egarrizko gogoetaz enetutako
Mintzabidezko ikuste ta amets-egoz,
Atzotetik biarkorakoan oretutako
Igaro-bearraren bizi nai ta, oiz-beroz...*

*Mundu bat datza nire biotz-begipean
Arantza ta lorez, atsegin ta naigabez,
Odol gorritz bustia ta, malko itunez,
Il-biztuzko ioan-etorri, ar-emanean.*

*Argia ta illuna, ta itzala nastean,
Izar-aldi zoragarri batzuen dirdaiez,
Gau-egunak dabilkuz zadortza betean.*

*Bai, galdera bat da gure ioan-etorria,
Leiza-zulo itzal, emaitza edergarriez,
Ezbaiz ta aldaketaz biziari iosia.*

MUNIATEGI'TAR SABIN



eziketa jostailuak
eskulanetarakoak
irakasketa gaiak

Avda. del Generalísimo, 65
24-19-16 urrutizkiña
GAZTEIZ

TXORIKI

Txagorritxu auzoan

Jolasean ikasi, or zure aurrentzako emoitzarik onena

ERRIGAITIAKO


BARRIA

Bizkaigane

MENDIGOIZALE JAYA

Ez da arritzekoa izan be mendi-goian, euskal mendiyetan mendigoizale taldeak alkartutzea. Otsaila'n irugarren igandean eundaka mendigoizale, gazte ta ain gazte ez diranak bildu ziran Errigoiti'ko Bizkaigane mendi kozkorrean, Gernika'ko Goi-Zale taldeak eraldutako alkarketarako jaitxu baten.

Ainbeste mendigoizale menditxu alai ontan bildute au, igaro dogun urteko Urrillean, Gernika'ko talde barri kementsu orrek antolatuta ospatu zan ibilketa nertuan alde artu eben mendigoizalean artean sariak bananduteagaitik izan zan. Eta egun ontan be ibilketa bat ospatu zan igande aretan lez. Eguraldi euritsua argitu zan, baiña mendigoizaleak euri pizkatek bildurtutekoak ez dira izaten-da, egun artan aña notin batu ez ba'zan be, mendigoizalea ugari izan zan.



Ibilketa artan larogei ta amasei irukote aurkeztu ziran eta danak edo geien-geyenak amaitu be. Lenengoko sailkatu zan irukotea Mungi'ko «Jata» mendizale taldeko irukotea izan zan eta orrean urren beste asko. Baiña aldi ontan, orretara baiño bazkun bakoitzak irukotarik geien sailkatean izaten da irabazle geratzea ta onetara izan ei-zan orduko sailkatueria: Lenengo Galdakano'ko «Ganguren», eta urren, «Zornotza», Zornotza'koa; Bermeo'ko «Garbola» Arrigorriaga'ko «Padura»; Sodupe'ko «Gallarraga»; Durango'ko «Tabira»; Mungia'ko «Jata»; Balmaseda'ko «Valmaseda»; Basauri'ko «Baskonia»; Elorrio'ko «Erdella»; Getxo'ko «Itxas-Argi»; Zamakola'ko «Osea»; Bilbo'ko «Bancaya»; Ermu'ko «Artarrai»; Laudio'ko «Goiko-Gane»; Orduña'ko «Txarlazo»; Bilbo'ko «Seat»; Algorta'ko «Itxas-Gane»; Eibar'ko «Club Deportivo»; Antzuola'ko «Arrola»; Berriz'ko «Berriz»; eta Bilbo'ko «Juventus». Bazkun guztioik, Gernika'ko salerosteak eta Bilbo'ko «Eursport»ek emondako sari bikaiñekin sarituak izan ziran.

Edoizen mendigoizalek dakian lez, Gernika'ko «Goi-Zale» mendigoizale bazkuna oso barria da urte bi edo zerbait geyago. Baiña, aldi labor ortan eta kirol garbi ta beraz osasungarri ortan egin dabezan aurreapenak andiyak izan dira, bai gaitatu daben kirolar aldragaitik, bai gogotsu egin dabezan egikizun askogaitik. Orretara jarraitzen ba'dabe, aldi andirik baiño len euroganatuko dabe gernikar kirolar gaztedi zindoa, naita bertan be, «euskal-narruz» margoztutako aurrerakuntza edo «progresoan» izenean Erri-zaletasuna zikundu nayan dabilzan apurtzailerik izan.

Gernikar mendigoizaleon kementu zintzoa ikusirik eta aldi gitxian egin dabezan egikizunak saritu gurean, Euskalerrri'ko Mendigoizale Bazbatza'ren izenean eta berak Bizkaia'n daben ordezkari Fuentes-Ibarrola'tar Todor mendizale jatorrak, oroi-ikur apain batekin saritu ebazan «Goi-Zale» bazkume-koak. Orrek zerbait esan nai dau gernikar mendigoizale jatorrak!

Aurrera aspertu barik, gernikar kementsuak, euskal-azi zindo garbia gaztedian tartean creiñaz Gernika'ren izen ona Euskalerrria'n zabaltzen.

ALTUNATAR JOSU

Etxano

Gure erri txiki artean Etxano'k be ba-dau bere gora, bere izena. Antxiñakoa da, Zornotza bera baiño be zarragoa. Orainisun arte bere udal-leixea eukan, eta emendik zuzentzen ziran erriko arazo guztiak; orain Zornotza'gaz bat-eginda daukagu, Xemein, Berritu, Arratzu, Axpe ta beste ainbat errioren antzean. Etxano'k irabazi ala galdu egin ete dau alkartze orregaz? Etxano len mendi ta abarrez oso aberatsa genduan, eta gaur auzune bat besterik ez.

Tokiz ederra da-ta, ementxe ospatu zan aste gitxi dirala, urteko ziklo-krosa be; ori zala-ta, ainbat atzeritar bertoratu ziran, Belgika, Alemani ta Olanda'tik batez be. Eguraldi ederra ta karrera ederragoa berton ospatu zana. Pozik geratu ziran jaialdi ori eratu ebenak, Markos Gerediaga baittik bat.

AÑOBEROS JAUNA ETXANO'N

Iragarrita egoanez, lengo illaren 9'an, zapatuz, Etxano'n izan zan gure Gotzain jauna, bertoko eleiztarrek ezagutu ta bizkortu naiez. Arratsaldean bost eta erdietan zan mezea, eta ordu erdi aurretik bideak betean etorren jentea, oiñez ta berebillez. Bost-bostetan, gazte bik durumdutsu jarri ebezan torreko kanpaiak; bardin andik ordu laurenera be. Gotzaina emen geunkan. Eleiza beterik, argiz, loraz ta jentze ederto. Ordu-orduan mezea asi zan. Dana euskeraz, meza, itzaldi ta abar. Gotzain jauna, egia esan, ederto moldatu zan, euskaldun asko baiño be obeto, kantu, otoitz eta itzaldiagaz.

Urteko bostgarren igandeari egokionez, gosea zan itzaldi gaia. Maixuki azaldu euskun Gotzain jaunak munduan leku askotan daukugun gose ta egarria. Euskaldunok ez dakigu izurri orren samina noraiñokoa dan. Baiña, gose egarriak ezpa' daukagu be, ba-gara, alajaiña!, kultura ta zuzentasunaren egarri ta gose, ta au asetzen saiatu bearra dogu, gorputz-gosez bizi dvanakaz erruki ta maitasunez bat-egituk.

Meza ondoren, «Agur Jesus'en Ama». Kanta bitartean, erria Gotzainari erestunean mun egitera urreratu zan, pozik. Baita mun-egite orren ostean, eleizpean be egotaldi ederra egin eban eleiztar guztiak: danak eukien Artzainari esateko zeredo-zer. Gero, eleiza, abade-ete ta inguruak ikuskatu zituan; eleiza oraintxe urte batzuk dirala konpondua dago, ederto; abade-etea be barria da, baiña utsik: gaur Etxano'ko eleiz-ardurea Larrea'tik egin daroe, ta abedetean esaterako iñor ez da bizi, barri ta apaiña izan arren.

Au dala-ta (oneik gauzok be gaur esan bearra daukagu), udaldian eta, bertoko txiroak, zerbait ordainduta be, etxe uts onetan bizi izatea ondo letorkela, aitzen emon euskun Gotzain jaunak. Etxano'ko eleizeak, baiña, lendik be orrela egin izan dau: urteak dirala, Etxano'ko probreak darabillez abadetxe azpiko tabernean, alboko ortua ta Santa Lutzia ermitako zugaztia... Ori-xegaitik, egia berea emoteia ezkerro, Gotzain jaunaren guraria lendik be bete izan dogula esan bearren gagoz.

ILLUNABARRA

Etxano'ko aize osasungarri biriak beteta Bilbo'rantz artzako egoala, orra alboko mandio eta legorpe batetik Gotzainari deika. Zortzi bat gizon dira, gazte ta zar. Zer nai dabe gizonok?

Joateko, barrero be. Joan giñean. Zer zan a! Or mai galanta zigarroz, koñak botellaz, kopaz eta edontziz gaitzeka! Euren poza erakutsi nai eutsoen Gotzain jaunari. Koñaka ta ardoa eskeiñi euskuezan: naizta gu edale kaskarrak izan, gizalegea be ona dala-ta, artu geunsoen ezpan-ertzak bustiteko beste.

Ondoren alkar-izketa, ta gustokoa atan be. Gizon areik uste eben Gotzaina zarpetik jausitako jainko zigortzailerren bat zala. Baiña laster konturatu ziran, ezetz!, beste guztiok lakoxea, azur ta aragizkoa dala; esaten yakonari erantzun eta egoki dana itanduteko lain ba-dala. Unetxo batean, ainbat gauza aitatu ziran: mezea, bateoak, aberria, eleiz-nagusiak, txiroak, zigortuak, gosez dagozanak eta abar. Unetxoan, ba-zan an jakin-miña! Lotsorak ei gara euskaldunok; baiña jan ta edan ondo egiterakoan, ba-dakigu lotsea geugandik astintzen be. Orduan agertu oi dogu dan baizen zabal geure barrua. Au bai ederto! Geure barrua asazkatu ezean, ain zuten be, zenbat zalantza, burukomin, surmur eta kezka dakarskuzan! Eta, arranapola!, eleizakoa bazkari goxoa begitandu ba'yakun, azkenengo au, bazkari osteko gurin gozoko opil au, ez yakun motelagoa izan. Zeozergaitik diño, gaur, eleizgizonak taberna ta onako zuloetan lan egin bear dabela!

GOGO-JARDUNAK

Orain, Garizuman gogozala-ta, arimeari be berea emon bear dauzagu. Orixeigaitik, il onen 20'an asi ta 22'arte, iru egunez, Gogo-jardunak eukiko ditugu, arratsaldean lau ta erdietan lenengo ekiñaldia, ta gabean zortziretatik bederatzietara, bigarrena. Ez aitzu, beraz. Patatak ereiteko sasoiu eldu ta geldi legoken baserritarra-gaitik, zer esango leukie? Papaa dala, noiz lan egin bear dauan ez dakiala. Eta Garizuma aldiaren batez be, arimaren ardurarik ez daukanagaitik? Papaa ta erdi dala.

OIZ

Markiña

ILDAKOAK

Joan jaku, zorionez, gaitzeka zemaika geunkan gripe-giroa; jakiña, bereak eginda gero. Baiña gripez naiz gripe barik, jaiotzearen ordaiña, eriotzea dogu. Pekatuaren ondorio garratza; baiña Kristo'k bere eriotzeagaz gozatua ta itxaropenez betea. Arrezkero benetako fededunontzat eriotza Zeru-Aberrirako txartela dogu. Begiratu daiogun, ba, siñismenez eta itxaropen gozoz, Aitak maitasunez bialtzen daukun zigor-antzeko sari orri.

Fedez eta itxaropenez joan jakuz Aitagana azkenaldi onetan: Agirregomezkorta'tar Maria, «Elkor» baserrikoa, Orbea'tar Agustiña, «Etxetxu»koa, eta Goigogana'tar Pantxike, «Gabiola»koa. Siñismenez eta itxaropenez bizi ta il diranok begoz Jainko Aitaren maitasun betean. Agur, ba, gure aiza-arrebok, laster arte! Otoitz bat euron alde. Senitarteko ta adiskideai gure samin-agur zintzoa.

ARATUSTEAK

Euskalerrrian geienbat iñauteri deritxoenari Aratuste deritxogu Bizkaia'n. Itz jator egokiak biok. Batasun estu ertsia baiño obe neurrizko ugaritasuna. Egia, zugatzak emonkor izateko, iñausi bearra izaten dau. Baiña iñausite orrek ez dau esan nai zugatz bakoi-

tza adar bakar batez itzi bear dogunik. Jatortasunari ikuturik egin gabe, ba-dogu zer iñausi euskera-zugatzean, bai itzetan eta bai izkietan.

Ospetsuak izan ziran leenago Markiña'ko Aratusteak, eta naiko entzute andikoak. Aspaldiko urteotan ez dira ospatu. Zer dala-ta? Ez dakigu ziur, baiña Primo de Rivera'ren egunetan debekatuak izan ete ziran gagoz. Beraz, berrogetamar urtetik beerakoak, entzutez bakarrik ezagutu dabez.

Aurten, eskerrak Amutxastegi'tar Felipe euskal-dantza ta folklore-zale argi ta sutsuari, berbizturik ikusi doguz gure erriko Aratusteok. Erriko zarrai itaun-zirika, emen oartxo bat jaso ta or xeetasun bat argitu, Markiña'ko Aratusteakaz zearo jabetu jaku gure Felipe. Artza'rena ekarri dauzku kalera aurten. Otsailaren 10'garren illunke-ran «Zerutxu» Ikastolan asi ta erriko kale guztiak zear ibilli zan gure Artz mazala bere dantza traukil, ibilkera baldar eta iñuzente antzeko maltzurkeriz zar eta gazteak sakon-sakon-eraiño poztuaz. Ikustekoa zan izan be! Aurretik txistulariak eta ezpata-dantzariak, eta atzetik erriko ume ta neskato-mutikorik geienak, Artzari irrika ta zirika. Ezin esan aurtengo Garizuman gogotsu barre egin gabe sartu garanik. Gure Artz lodikotea arro-arro geratu zala uste dogu, Bilbo'tik be bera ikustearren bat baiño geiago etorri zan-da.

Zorionak, Felipe, ta jo aurrera! Benetako folklorea erriaren biotza da-ta; gure euskal zugatzak berez- berez emon dauan adar loratsua.

EUSKAL UME ATZERATUEN ALDE

Euskalerrrian eziña Ameriketara egiña. AGUR'en 151'garren zenbakian Simon Bolibar'i Omenaldia zalata auxe iragarri gendun: Bilbo'n Venezuela'ko Konsul izandako Julio F. Arias jaunak trofeo bikain baliotsu bat eskeintzen outsela Euskalerrriko futbol-talde nagusi biai, Bilbo'ko Athletic eta Donostia'ko Real'eri, gure Aberriko ume atzeratuen aldeko txapelketa bat jokatzekotan. Taldeok, antza, ezin izan dabe orretarako egunik aukeratu ta pot egin ei dauzkue. Baiña ez Ipar-Ameriketara Miami'ko West Palm Beach'en ari diran gure pelotari jatorrak. Ona emen andik eldu jakun Palm Beach Post izparringiak diñoskuna: Roberto ta Txurruka bikoteak irabazi dau bart (otsailak 11) «Simon Bolibar» Txapelketa, West Palm Beach'eko Jai-Alai pelota-tokian. Txapelketa au Euskalerrriko ume atzeratuen alde jokatu zan. Trofeo Gonzalo Paredes, Venezuela'ko Konsul-ordeak emon dautse eskuetara Roberto ta Txurruka txapeldunai.

Pozgarria Ameriketetik datorkigun izpar au. Zorionak Roberto ta Txurruka txapeldunoi, eta eskerririk-asko Venezuela'ko Agintari Jaunai, euren Askatzailearen odol-erria biotz-biotzean daroelako!

KIRKILLAK

ERRIENAKO

BARRIAK

Ondarroa

Gauzak argitu eta garbitzeko kontuak mai gaitzera ataratea lakorik ez dago.

Gure errian, diru partillak egiten diranetan, askok ez dabe nai izaten ango papirik edo ta emengo titulorik. Dirua maira atara eta kittu. Ikusi beintzat, nai eta ikuririk egin ez.

Dana ez da dirua mundu txiki onetan. Beste gauza asko be ba doguz ondarrutarrok gure aberastasuna edo ta gure makaltasuna ezagutzeko.

Ondarrutar izateak ba daukaz beste agergarri ugari: barometruak, termometruak eta bizi-metruak be ez dira txarrak, errekaizetan, garraren zoroaldietan edo ta osasun onez bizi ete garaan ikusteko. Ez al dago gaur modan txekoak?

Gure erri oneri be egin geinkio txeko bat. Odolari buruzkoa, ondarrutar izatea neurtuko dabena. Orretarako parrokiko liburutara jo dogu. Kontuak atara eta goraberak mai gaitzera ipini doguz. Grafikokoak egin... eta gorakadak edo ta berakadak ikusteko era emon.

Begiratu.

1934 urtean 4.850 lagun bizi giñan emen. Eta 170 ume jaiotako bataiatu ziran urte aretan.

Berrogei urte geroago, 1974'n, igaz, zortzi mila euskaldun inguru biziko giñan emen. Bizi geiago, baiña euskal odolekuak, esan doguzanak. Eta ba dakizue zenbat bataiatu ziran?

Kontuan euki bear da gaur erriko jaiotzak, erriaren ondorenak, bataiotatik obeto ikusten dirala, batzuk kanpuan jaiotzen, geienak, danak ez esateko be, errian bataiatzen diralako. Ba dira bataiatzea oraingoz beintzat laga edo atzeratzen dabena. Banakak.

Danetara, euskaldun eta erdaldunak batura, 212 bataiatu ziran igaz.

Ortik 112 euskaldun familietak, 70 erdaldunetak eta 30 nastekak.

Euneko ainbestekoak ataratera ba'guaz, laster konturatu gara, 1934 urtean eun laguneko iru ta erdi jaiotzen ziralako, au da, % 3,5. Orain, % 1,4 bakarrik. Nastekuei zati bat emonda be, euskaldun familiak orain berrogei urteko erdira be ez gara elduten jaiotza barrietan. Jakingarri da.

Bataiatu ziranetik 126 gizonetako izan ziran eta 86 emakumetako.

Mutillan artean 68'ri euskal izena ipini yakoen eta 58'ri erdalduna. Nesketan 40 euskal izenez eta 46 bestera.

Guztira, neska eta mutil, 108 euskal izen.

Erabili dan izenik ugariena, geigarri batzuk alkartuta, Maria izan da: 25.

Mutillan arteko euskal izenik ugariena: 8 Aitor, 8 Jabier, 7 Joseba eta 6 Josu.

Nesken artean geiena: Nerea. Zazpi.

Jaiotzetan euskaldunak gixitzen igarten doguz. Eta illetan?

85 lagun il ziran igaz, urtearen buruan. 50 gizon eta 35 emakume. Euretatik 62 ezkonduak ziran eta 23 ezkondu bageak. 42 euskaldunak eta 8 erdaldunak, gizonen artean.

Il ziranetik, zarrenak 94 urte eukazan. Gazteenak, egun bi.

Elizaz ezkondu ziranak, danetara 46 bikote. Euretatik 22 euskaldunak, 15 erdaldunak eta 9 euskaldun eta erdaldun nastekak.

Orra gure Ondarroa eta ondarrutar odolaren emaitzak, fruituak. Gure erriaren gogo eta aragia, indarra eta arnasa. Ondorenak, pentsagarriak eta sentigarriak, bakoitzaren gain lagako doguz.

Ondarrutar zaarrei begira asi ezkerok, esan bearreko da, bizi diranen artean 102 urteko bat bizi dala, 98 urtedun bi, 97 dun bat eta iru 95 urte egiñak daukezan artean. Baten batek esan lei orreik istori zarra dirala. Nik geitu nei, urrezkoa be ba dala euren bizikerea eta izakerea.

Bermeo

GURE ERRIKO GORA BERAK

Oraín iru urte dirala, gure erriar batzuen asmoetan Alkargo bezelako Ikastetxe bat egitea sortu zan. Jarri eutsien «Eleizalde Alkartea» izenez. Eleizalde jauna zan, gure erriar ainbat urte igarotako maixu euskerzale bat. Bera jaiotzez bergaratarra zan. Olantxe ba, alkarte onen lengo asmoa, gure euskal jakintzea edo kultura aurrera eroatea zan, gure erriko ikastoletan ba, bostgarren mallagaz amaitzen da gure umetxoan eziketea eta ikasketea. Gure batzordekoak joan ziren Busturi, Mundaka eta Bakio'ra, bazkide barriek aurkitzeko asmotan. Baiña danetara eun da berrogei ta bost batu giñen. Lau erri onetara begiratuta, oso bazkide gixti.

Ugari erabiltzen dogu «erriazetasuna» itza mingaitan, baiña olangoetan ikusten da erriaren jokabidearen elburua nora doa.

Amabost mila lauerleko ipini genduzan bakoitzak, ez eukeneri urte ta erdiko lasaitasuna emanik ordaintzeko. Olan da guztiz ere, ez giñan geitu bazkideak. Au ikusirik, batzar batzuek egin genduzan epaia erabakitzeke. Aztertu gendun ikastetxea aurrera eroateko bide bat egola. Eliza eta Hermanoak alkarte. Bermio'n dadukaten ikastetxea, beera jaurtitzeko asmoagaz dagoz eta bertako umetxoan gurasoak ere estu dabilizaz kalean gelditzeko bildurrez. Baita begi onagaz begiratzin dautsue gure daukagun lurrari, baiña ez gure asmoari eta elburuari.

Olantxe ba Hermanoak onartu zituen gure baldintzak, baiña urte ta erdi igaro ondoren zalan-tzetan, orain ez dute onartzen. Emen agertzen dodaz iru aldetako baldintzak edo kondizioak:

BATZORDEKUA

A) Eziketa legeak agertzen dabeneri jarraiturik, Euskal jakintza jatorra irakastea. B) Ikastetxea neska nai mutillentzat izatea. D) Eziketa eta irakaskintza duan edo debalde izan daitela. E) Iru baldintza onek betetzeko, maisuak aukeratzeko edo kentzeko eskubidea. F) Ikasleen gurasoen alkartetik kanpo, ikastetxea bear dan eroateko ordezkarriak, Alkargotik, Hermanoetatik eta Eliz-barrutik autaturik, batzorde bat eratu. Baita ere batzorde onetako kide, ikasleen gurasoen alkarteko lendarria izan leike. Sasioa eldurik, baldintza onek natal-agirian agertuko dira.

ELIZBARRUTIAREN BALDINTZAK

A) Kristau eziketa. B) Ikasleen gurasoen alkartetik kanpo, Elizbarrutiak, ikastetxea eroaten daben batzordeagaz, zer ikusia eukitea. Au, Alkargoak ere eskatzen dau.

Eleizbarrutiak Santa Eufemia'ko parrokian ondasunak (Aurrekoetxea kaleko lurra eta San Jose ikastetxea) salduta lortzen dana (zazpi milloi izan leike), ematen ditu.

Mennaisko Hermanuari buruz Ikastetxea egin (50 milloi inguru izango da), kredituak lortu, interesari eta zorrai erantzun.

Hermanuen Baldintzak: A) Alkargoak, Arene inguruko lurak, duan edo debalde emotea. B) Elizbarrutiak amar milloi emotea traba barik. (Aparte Santa Eufemia'ko ondasunak). D) Ogei urte barru, eragozpen edo aldakuntzaren bat eziketa aurrera eroateko sortuko balitzake Hermanuari, bakoitzak sasoi orretan ondasunak balio dabena altzako legike. Au da, ogei urte barru ikastetxe guztia Hermanuentzat.

Hermanuak ez dabe onartzen: Ikastetxeke batzordean gurasoetatik eta euretatik kanpo beste inor eukitea. D) Neskek Ikastetxeke ikasleak izatea. E) Ikastetxea zuzentzea inork; eziketa, diru arloa eta abar dana euren eskuetan itxi bear ei da.

Gauzak olan dirala, Hermanuak 350 ume kalean lagatzeko premiagaz aurkitzen dira. Guk berriz, azkenengo batzarrean, aurrera jarraituteko asmoa arzu dogu Hermano barik. Eliza ta Lankide Aurrezkiaren laguntzagaz. Uste dogu, Hermanuak egiten ez badabe beste Ikastetxe bat (eta au oso gatzka da), angu umeen gurasoak etorriko dirala guregana. Hermanoen ikastetxeak 70 urte irau du gure errian, baiña euraik oso lan gutxi egin dute gure erri nortasunari begira. Onetara ba, gure erriaren eskola emoteari lagatzen dabaitse, danatarikoak izango gara, pena aundia artuko dutenak eta deusik ere ez dogunak asmatuko.

Arratia

Mezea amaturik elizaurrean genozala, gizonetako gazte batek bere adineko zan adiskideari: «Eleizarik askotan pezeta ziztrin bat baiño bost ogerleko pozago emoten ioazat emen, natorren bakoitzean».

«Ziztrin bat» eta «bost eder» emotearen izkutua agirian emen: Bakoi-tzak, Yaunak alaxe egin ginduzan-da, bere izate berezia dogu ibilkeran, izketan, begirakeran, irriparrean, soñean... edozertan.

Apaiak bat naiz bost izan altare-inguruan, mezea meza izango, baiña Goizpar-Ebangelioak azaltzerakoan, Kristo'ren estualdi ta nekeak esatean, abade batzuetatik bestetxuetara ba-dago alde ederrik.

Batzuek Goizpar edo Ebanjelioa idatzirik dagon lexe irakurri... ta kitu. Kristo nondik eta nora ibilli izan zan, esan eta egin zituanak irakurri... eta emen ere lengoa, kitu.

Beste batzuk ostera Ebanjelioan oiñarriturik, eta Kristo berbera goibururu arturik, eta Erria ta erri-arazoa ta auziak gogoan izanik, ari egiten dakiñak doguz; ariakin euna, eunarekin langille apalarentzat, dirutan itorik bizi dan nagusiarentzat, agintari ta menpekoarentzat, siñstedun, siñgabe ta beste askorentzat neurri-neurririko praka ta atorra agirikoak egiten alegintzen dira, gizonki ta zuzen, txakurrari txakur eta usoari uso deituz. Emen ba, pezetearren eta bost ogerlekoen zerak eta lerak.

* * *

Zuk arratiar irakurle zur orrek, ez al dozu ikusi lengo egun batez gizontalderik, mendirako aldatzik garratzen geldirik, ezin igonik, jatsi gura ez-da, aurrera ta gora joteko ere bildur antzak arturik? Nekearen nekezko aurpegi maskaldu eta kopet, bekoki illundunik?

Eta urte au zelakoa izango ote yaku? Garriz estua ta dardar-ikaratsua, «Modamodakoa».

* * *

M. KOLDO'K «Argia'n azaldu, AI-KORPE'K lau-bost aldiz irakurri eta Goiz-Argi'n Segura'ko barrietan argitaratu. Emen:

«Etxe bat sutan badago eta barruan erre arrixkuan gazte bat eta amagiarreba zarra, ori kixkaltzen utzi eta gaztea ateratzen sayatu bear dala».

Nik ez jakin ba errenderiar adiskide zarrak amagiarreba duanik ala ez duanik, baiña AIZKORPE'K esanikoa egia baldin ba'da (nik ala uste), Koldo ta amagiarrebarren arteko art-emanetan ez-ti gutsi alajaña!

Ba-degu amagiarrebarrik, gazte alperrik asko baiño etxerako naiz Erriarentzat, onura ta etekin ohea emoten dakianik.

Eta zuok arratiar amagiarrebok zer dirauzue? Zorrotz eta gerturik izan burduntzia... bada-ezpada ere.

LANDAJUELA'TAR A.

Arrasate

EDURRA

Negua gaindua geukolakuan giñan, baiña ill onen 9'an gure inguruko mendi oneik; Udalaiz, Lurgorri, Muru, Kurtzebarri eta besteak, edurrez zurututa agertu ziran, goizgizetik. Aurten lenbiziko edurtza izan da eta berakin otz aundia izan dugu. Dana dala oraindik garaian gagoz eta garaian garaikoa danean ez daukagu zertan asarratu.

JAIOTZA

Gure lagun on diran, Arrese'tar Erramon eta Mondragon'dar Amaia'k beren lenda-biziko semea izan dute. Ugatzarakoan Eneko izena ipintzeko asmotan dira. Zorionak gurasoei eta euskaldun zintzo bat izatea lortzen duten. Jaiobarri onen aitaita-amama diran Mondragon'dar Kuiril eta Albizua'tar Miren Karmele'taz zer esan? Pozez beterik dagozala lenen illoba izan duela eta zu Kuiril maite orrek, orain zarsarrituen artean sartu zeran ezkerok ba-daukazu illobatxoak zure jolagarri. Zorionak zueri be.

TAMALA

Oraintxe esku artean erabilia naiz liburu polit bi, euskera idaskeran ondo idatita; «Uztapide»ren «Lengo Egunak Gogoan» eta «Orixe»ren «Santa Kruz Apaiza'ren Bizitza». Liburu biak errikoan idatzita daude eta ederto gaitzera, naita jokaera ez berdiña izan, danak ondo ulertzeko errezean. Baiña niretzako akats aundi bat dute biok: erri-izen eta notin-izenak idazterakoan onela idazten dute; «arrapatu zuten BERAN»; edo beste au, «Jaime ORBEK dionez» eta beste auk; «ENDOIAKO eta LAZARO-NEKO». Oba ez litzake izango onela idaztea? Bera'n eta Lazaro'neko. Orrela idaztean izenak argi eta garbi geratuko litzakez. Nire uste apalean itz orreik erderaz idazterakoan beren itzulpena izango litzake: Beran = EMBERA. —Endoia = Dendoia — abar eta abar. Ea ba gure artean ez dedilla inor izan beintzat orrelako akatsik idatziko dabena.

UDALAITZ

Galdakano

GOSEA?

Premiñan aurkitu garen aldiak, zoritxarrez, ezagutuak gara anai artean izan genduban gudaketa zitala amaitu ondoren, baiña, ezin gintzake gosearaño esateko besteokoa izan zanik. Aprika ta Indi aldeetan daben kendu bako gosetak bezela beintzat. Azken aldi ontan baiña, bildur dala esan litzake gizarte au, gosea izango ez bada be premiña gorrian aurkituko ete-garan.

Guk, jakina, ez dakigu noraiñoko premiñan aurkitu litzaketen gaurko gizarte eta, ez dakigu norateraiñoko jakin litzaketen be jakinunak, gaitz diralako agerpen orreik noraiñoko eldu litzaketen, eta batez bere gure baserriar askoren jokabideari begiratu ziran ba'dautsagu: basetxe zabal eta lur mamintsu asko ta asko bertanbera lagata bizi errezagogaatik erri andi ta urietara, eguats kutsatsuetara datorriguzalako. Egia da, baserriar-rak, euskal baserriarrek beintzat, ez dau lagun-izarik ez bere gauzak saltzeko ez berak derrigor bear dituzan lur-ongaiak ez lankiak erositeko; zerga andiak ordaindu ondoren, jakina.

Gure erri ontan, aipatu dogun gudaketa amaitu ondoren eta urteetan euki genduban jateko-ekak bultzatuta edo, basetxe inguru gutxiyako ondo landu, lugindu ziran. Eta ez lendik landuak izandako lurak bakarrik, baita erri-baso asko, ainbat eun-are (ektarea) lugindu ziran erri-basoetan, igali-zugazdi ederrak sartu ta azi ondoren ainbat lur-sagar, indaba ta arto ta barazki guraiti —erri-rako beste edo geyago— artuaz lurralde orretan. Aldi estu aiek baiña, igaro ziran da ainbat basetxe, ba naka-banaka, usitu ziran, erri-baso asko landu barik geratu ziran, da txarrena beste landuten aurkitzen ziran erri-lur asko, muzkin ederrak emoten egozala, erriko jawlarien aginduz lerdioz, piñuz bete ziran. Noren onerako?, ziurki Udaleko kuxak betetako, baiña, ez erriar asko ta askorentzako edo geyenontzako, urasa bat edo kipulle bat nai ba'dogu, derrigor biyotz gixi daben salerosketa, denda, batera jua bearrean garalako; ondo ordaindu ta askotaz erkiñagoa ta zatarragoa eka-rriteko.

Goseak etorri bear dabela? Ea ba nor ikusiten dogun piñuak ortzak santuzen sabela betetako. Tamalez, ez dira izango lerra, piñua, sartuaz dabena landara ori jan-bearrean aurkituko diranak, langille diranak baiño, ziurki.

OSATEBAKUNTZA

Lerro oneik idatziten doguzan une ontan, Bilbo'ko osatetxe baten osatebakuntza egitekotan dabe Lopategi'tar Jone, Artetxe'tar Jagoba zanaren emazte zintzo euskaltzalea, ta beraz AGUR'en irakurlea. Ebaiketa ortatik ondo urten dagizun Jauna gurtuko dogu benetan, Jone.

EGITAMUAK

Aurreko idazlantxu baten aipatutzen gendubazen gure erriko Udalak dabean egitamuak, baiña ez dakit zelan, bat itxi neban aipatu barik, au da; Urgoiti —Olabarri —Abusu (Donosti'tik Bilbo'rako bidean) berteko oinbidea. Adirazo euskuen lez, antziñarik ei-dago erabagitan artuta, orduban zergaitik edo nor-gaitik ez da egiten oinzequantzat ain berreko dan oinbide ori? Nor da errudun bitxabal ertz ori ez egiteko?

Egitamuakin asi garen ezketiño, noz apain-dutea uste dabe Abusu ta Dorre'ko zubitik Beke'dako bide zabala? Ala beti zemañuta lez bide txarrakin egon bear dau Galdakano'ko auzune alai orrek? Uste dogunez, ordua da erabagi sendo bat artuteko auzune ortako bideak dirala-ta, bai orixe!

BASA-JAUN

A. Z.

RENTERIA'TAR JOSEBA ANDONI

ALKITZA

1969 urtean «Gaur»eko teknikoak Gipuzkoa'n lenengo irakaskintzari buruz egin eben ikasketak baten, erri banakak agertzen zituen ume guztiak euskeraz ekianen artean, nai eta erderaz be, gitxi edo asko, jakin.

Erri onein artean Alkitza agertzen zan. Besteak Abalzisketa, Albistur, Belauntza, Bidegoian, Gaintza, Lizartza, Orexa, Errexil eta Elduaien.

60 ume eskoletan. Danak euskaldunak. Orrelako gitxi ezagutzen dira gaur. Gorago aitaturtako errietan ba dira, euskeraz jakinarren, gitxi dakienak.

Orrela agertzeko nai ta ez beste errietatik aldendutako erri bat izan bear, edo industriarako gai ez dan erriren bat, kutsutu gabeko erri jatorra.

Ikus daigun Alkitza. Tolosa'ko errialdean, Asteasu, Larraul, Anoeta, Errialde eta Albiztur'en artean, Tolosa bera be muga dala.

* * *

Anoeta'n artu bear da Alkitza'rako bidea. Arda bidea be deitzen dautse. Geroago Billabona'tik Orio'ra doan bidean amaitzen da berau. Origaitik, Billabona'tik nai ba da, bide orretan zati bat egin eta bertara datorrena artu bear.

Etxe banakak, zortzi?, plazan. Beste 50, inguruko auzoetan. Batzuk utsik. Danetako gaixoa. 350 bizilagun danetara. Gero ta gitxiago. Auzoak: Aldapa, 19 etxe, eurretatik zortzi utsik. Arana, 22 etxe, 5 ustuta. Azaldegi, 16 etxetik 3 utsak.

Plazan len esandakoak. Bat utsik. «Mari Anton». Esateko lez: or konpon Mari Anton. Urrutizkin bakarra.

Etxe ederrak. Zuri ta garbiak. Danen gain, bide egalean, oi dan lez, eleiza andia. San Martin'en izeneko. Gotiko erako. XVI'ean anditua. Erri onetarako, andiegi. Norbaitek esan izan dau umeak zarataka abestu bear izaten dabela, entzuten ez yakoelakoan.

Anbrosio Bengoetxea bertako semeak eginiiko sagrario eder bat gordeten da bertan. 1552 urtean jaio zan irudigille ori. Ainbat eleizetan lan egiña. Donosti'kasan Bixente'n, Tolosa'n, Errenderi'n, Ernani'n eta abar. Bere lanik onena Kaskante'ko elizako aldarrea dala esaten da. Aldarea, Irazusta'k egiña. Lengo txikiagoa, Antxietarena zan, baiña sakristian gorde eben.

Kanpoan plaza txiki bat, Anoeta'ra begira. Baserri errietan egon bear litzaken lez, berdea.

Pelota toki txukuna. Barria. Aterpean. Azpaldikoa da emen pelotarako zaletasuna. 1862 urteko agiri baten esaten zan eleizako premiñak agertzean, pelota toki eleizpearen inguruan egolako, urtero apurtzen zirala bertako tellak, zaletasun andia egolako joko onetara.

* * *

Olo erria. Ala deitzen dautse inguruetan emengoei: oloak. Ataundarrei otsoak lez, edo ta tolosarrei aizeak.

Erri aberatsa. Gogoratzeko da bertakoan esana: Asteasu'ko kanpaiak oska ei ziran bein. Dirua nun? Eta Alkitza'koak erantzun: Lete'n eta Peru'n.

Ain zuzen be plazan dagoz baserri bi oneik. Ederrak, zabalak. Peru'n Sorarraindarrak bizi dira. Amabost seme alabak osotu eben famili au. Bertako seme batenak dira euskal liburu batzuk: «Santa Maria Goretti», «Lili txuria odolatan» eta itzulpen batzuek be bai: Kanpion zanaren lanetik «Itzal-tzu'ko koblakaria» eta Arakistain'en «Irazabal'go orma tartean».

Lete'k ikurdia, eskurdoa be ba dauka. Dirudiane 1212 urtetik.

Ba dagoz beste iru etxe be eskudodunak: Aginaga, Azaldegi ballaran eta Intxaurrandiaga eta Zumitza, bi oneik Arana ballaran.

* * *

Linazasoro'tar Iñaki adiskideari esker, emengo alkatearen kontu bat agertu nei. Amabost urtetan alkate egon zan Etxabe'ko Errupio. Bere eskutuko lana: udabarriko zuzak batzea. Donosti'n eukazan adiskideak eskartuten eutsezan eta lagundu.

Bein, bertako etxe jaunak esan ei eutsen: Elektra indarra makala daukagu eta altsuago bear dogu, bestela andrei ezin mesederik egin eta andrak baketan euki bear dira etxean, erria baketan biziko ba'da. Orretarako milla ogerleko bear doguz eta zure laguntza.

Alkateak buruari atz egin eta erantzun be bai: eskari bi dira orrek. Ezin. Bietatik bat aukeratu. Ori entzun eta ezipai barik berrialako baten besteak bat izatekotan zure laguntza naiago dogu.

Orra Errupio, burua argi ta begiak dantzan, nun bere laguntza eskatuko. Aurre-rago, beste premiña baten, beirogetamar milla ogerleko lortu zitun. Baiña eskabidea egitean, kilo bat zuza croan.

* * *

Erri txikien alkar arteko txikiikeriei errua emon ezik, gaitz da Alkitza'k kondairan euki zitun jokabide batzuk ulertzea.

1386 urtean, Asteasu eta Aduan'gaz batean, Tolosa'gaz batu zan. Alkartasun anaikorrean. Bere lur, mendien onura, irabazpide eta abar, osoan beretzat gordeta. Baiña gero, berrogei urte geroago, Tolosa'gaz asarre, eztabaidetan ezagutzen da, eriko zerga eta emon bearrak zirala bide.

Origaitik Tolosa'tik aldendu eta Donosti'gaz batu zan 1450 urtean. Arrigarri. Ulertzeko gaitz eta siñisteko be biurri. Ogetamar kilometro inguru egiten dira Alkitza'tik Donosti'ra, eta bitartean ainbat erri, eskubide osoko erriak. Origaitik batasun orrek laster artu zitun milla ostopo. Orrela laster zan Alkitza berrito bere buruaren jaube egin nairik. Lortzen gaitz. Berreundak urte igaro zitun eztabaidan, eta azkenean be, 1731 urtean lortu eban jaubetasun ori. Geroago, 1742'n Anoeta'gaz alkatu zan. Alkartasun ori Ainsu izenagaz ezagutu zan errien artean eta irugarren bat be batu yakoen: Errialde. Irurok batu ziranean, batasunaren izena be luzatu: Ainsuberreluz.

1860 urtean, orduko legeen arabera, berrito bakoitzaren jaube geratu ziran eta ordutik Alkitza jaubetasun osoko erri lez ezagutzen da.

* * *

Agertu daiguzan jakingarriak aidean eta nastean.

Jaiak, Iraillea'n. Ama Birginea egunez. Maiatzea'n, Kurutzeko egunez, Santiago'ko ermitan eleiz jai bat egiten da. Barrionaren zati batzuk irakurri eta bertatik be-deinkatzen dira lurak.

Erdi-Aroan galtzairua egiten zan emengo burdiñola baten. Izen jatorra eukan-Agarrola.

Sasoi aretan, eta geroago be, emengo baserriak geienak ikatz-giñan billatzen eben lana eta irabazia. Arrikatza agertzean, zeregin ori eta bere irabaziak pikotara joan ziran.

Etxeko zeregin bat: aulkia, jarrilekuak egitea. Ala ikusten dira gaur be «don Mikellarena» etxean. Emengo bereziak, tipikoak: aulki txikia, ume aulkia eta sukaldetarakoa. Urritzeko zumitzak erabiltzen ditue orretan. Orrez gañera, garrafoien estalkiak be egiten dituez, edo emen deitzen dautsen lez, garrafoien saskiak. Gaur, saski oneik be toki askotan egurrez egiten dituelako, langintza onek gero ta bizi argalago daukala dirudi.

* * *

Alkitza'ren esan naia, teknikoan eritiz, ez da alkitik datorrena, aulki esan naia emonaz, arrikitik baiño. Au da, arri leku edo tokia. Eritzi onetako ziran Kanpion eta S. Arana. Ba dirudi inguruak be bete-betean esan nai orri zurtzen dabela. Goietan ikusten dan Ernio mendiak arri bidea erakusten dauku.

Alkitza'k urrun ikusten ditu Tolosa'ko keiak. Urrun ango bits zikiñak. Bere inguruan Alkitza-erreak eta Aranguren, txiki baiña garbi ikusten dira Oria ibaiaren sako-netara urreratzen.

Ba dago emen berezko leiza sakon bat, irureun metrotik gorakoa: Leize-andi deitzen dautse emen.

Alkitza'k, gaurko askorentzat, pekatu bat dauka. Joan egin bear dala bertara, bera ikusi nai ba'da, eta gaur bide etzeko erri zikin asko maiteago doguz, bizi-modu likiñago baten errezago naastuten gara, aukera-aukeran egiten dan zerbait gertatu ezik.

Aste guztian eizako garrez ezagutzen dot adiskide bat. Lan egin bearra ezetsiten. Igandea, domeka etorri ta eiza guztiak baiño kaleko jolasa, tabernetako txikiteoa eta jolas tokietako keia eta hurruna naiago.

Orixo da erri maitale askori gertaten yakuna be. Ederraren zaletasun asko... baiña billatu barik. Eta ezin ukatu, erri askok, bertara joatearen nekka atsegin geiagoz ordaintzen dabela.

Ikusi Alkitza eta erantzun.

A. ZUBIKARAI

AGVR

Apartado n.º 2
BILBAO

FRANQUEO
CONCERTADO
08/55

EUSKAL-ERRI'TIK ISRAEL'ERA

(Lenengo orrialdetik)

—Zer deritzazue Israeldarren izateari buruz?

—Ba demokratek izanik gutzat oso atsegiñak izan dirala; esamesak diñonaren aurka sal-erosketan oso garbiak; ez egoan an «regateo»rik eta bai arabeen dendetan. Seffard izeneko erriko bat ezagutu gendun, inozkuenez, joan diran bi milla urte oneitan judutar sendi bat beti bizi izan dana, euren aurka egiñalak egin... eta zapal-ketak ez dira makalak izan. Adi bidez, Jerico errian 17 erregintza agertzen dira bata bestearen gainean an izan zanaren triskantzaren ezaugarritzat.

—Erlitio aldetik, zer gaurko israel-darrak?

erakutsi euskun; ezkondata dago ta alabatxo biren aita da; ez dakizu zelako besarkadak emon euskuzan!

—Bai neu be ezagutzeko gogo aundiagaz nago baiña noiz? Eta zer diño euren erriari buruz?

—Israel iraunkorra dala, betiko dala. Eurentzat ainbat laterrietako judutarrek, ainbat oitura ta izakerakoak alkitze gatzena izan dala. Arabetarakin bakea, bear ba'da, urrengo belaunaldian lortuko dala, gorroto bako belaunaldiak dotozanean. Inoiz Israel arrizkoan ba'lego, INOIZ APURTUKO BALITZAKE BERAK EZ LEUKELA IKUSIKO BERE BIZITZA ABERRIAREN ALDE ESKEÑIKO LEUKELAKO. A bai aberitzale jatorra!



—Ba geienak edo asko beintzat siñezmen bakoak ei dira, baiña oitura bereziak gordetzen ditue. Euretari batego inozkuenez, euren erlijioa orain dirala bi milla urte geldu ei dago ta ori kaltegarri izan da; gutzat konzilioak, bakoitza bere denporan, mesedegarri izan dira bere iritzi. Dana dala an batak bestearentzat begirapen edo errespeto aundia erakusten du. Ertz-ertzeko erlijiosoak Israel Laterri bezela sortzearen aurka dagoz baiña onek gitxi dira.

—Azkenerako Yair Dori'ri buruzkoa itxi dogu... zer deritzazu mutil orrena?

—Ba mutil jatorra ta abertzale gogorra dala bere bizitzan; oso maitekiro artu ginduzan eta zu ezagutzeko gogo bizi

* * *

Emen amaitu gendun gure alkar-izketee... eta ni adurra neriola geratu nintzan. Yair Dori ta bere Aberria ezagutzeko itzaropena ez dot galdu. Beti egon gara Erri orren alde, baiña Zubiritarren jardun aldia entzun ondoren, zer esango? Gure gogoa len baiño gartsuago dagola.

ARENAZA'TAR JOSU

OARRA.—Yair Dori'ren bizitza, orain dala pare bat urte agertu gendun Agur onen aste-roko ataltxoan.

OARRAK

1) Aste Gureneko Jaiegunetan sartzen garala, irarkolako oporraldiak izango dira. Orra ba, datorren astean ez dozu AGUR'en alerik jasoko.

2) Gure 176'gn zenbakian, azken orrialdean eta Gallastegi'tar Kauldi'ren «Indartuaz» idaz lanean, Kili-kili aipatzen zan, eta 12 milla ume tartean ebazala esan be bai. Emengo okerra zenbaki orretan dago, 20 milla esan bear gendun-eta. Orrela, garbi geratu dadin, 20 milla ume inguru Euskal-erri guztian euskeraz idatzi ta irakurten ikasi dabenak dira, Kili-kilitarrak.

AGUR

AGIRIA AGERTU

AURRETIKOENA

Gizadiaren jakintza guztia, ezerezetik asita, norberak agertu bear dauala inork ez dau uste.

Sarritan esan dan lez, gizandi baten sorbalda gainean jaio gara, aurretik bizi izan diran ainbeste gizonen jakituria ta trebetasuna etorri jakuz. Trebetasun au alde batera itzi bearra, geuk egiña ez dalako, ez litzake zorakeri makala izango. Arako Tomas Deunaren esakuna «ikus-ten ez ba'dot, ez dot sinistuko», ez da balioko gure bizitzako gai guztietan.

GURE ZORAKERI BAT

Gizadiari begira zorakeritzat artuko genduen jokabide au, asko zabaldu da gure inguruan aspaldion, batez be erril- laritza edo politika-bidean.

Euskaldun bakoitzak dana barriro ikasi bear dauala esan lei: dana da billatu bearrekoa, bakoitzak aurkitu bear dau dana, eta orretarako ez ditu neke ta sa- mintasun makalak igaro bear izaten. Eta neke orreik errez alboratu bearrekoak ziran. Orretan galtzen dan denporea ta indarra beste arlo askotan bearrekoak zirako.

ARROTZAI ENTZUN BEARRA

Eta ez da ori be txarrena.
Ez da naikoa izaten bakoitzak dana billatu bearra, egunero eguzkia aurkitu bearra, eta gaur bertan guran daukagu- zan arazoak aiztuta eukitea. Guzti ori gitxi ba'litzake lez, kanpotik datorkuzan onuak eta aolkuak lenago entzuten do- guz, etxekoan baiño.

Esan geinke geure buruari beti auxe esaten gagozala: «Arako guztien urten- bidea nik aurkitu ezin ba'dot, inongo euskaldunek be ezin aurkitu izan dau. Begiratu dagidan ba, erbestekoren batek aurkitu dauan».

Orrexegaitik gara errilarrizan ain ez- jakinik. Inoz agertu doguz emen, ortik datorkuzan ondorenak zeintzuk diran. Ezjakintasun ori gure keto-arrokeriaz ba- tera dago.

BETI BARRI-BILLA

Gure errilarrizako arazo nagusai ur- tenbidea aurkitu jakela, ba dira urteak. Baiña gaurko jakitun barriak barriro aurkitzen dabez urtenbide orreik, jakitun izena atsegin jaku izan be ta.

Gero, aurkitze ori, orain urte asko dirala orretan jakitun ziran beste batzui agertzen dautsee, gauza barri-barria ba- litz lez eta garaitasunik aundienaz. Negar naiz barre egiteko gauzea benetan au.

Lengoak urterik urtera ibilli ziran esan eta esan, inork entzun barik. Eta gaur ba datorke billatzaille barri ori eta ixillan, irakasle lez, axe bera agertzen dautse. Asmau, irakurle, zelako arpegia agertuko dautson olako jakitun barriari antxiñako errilari zarrak!

Ba dauko, euki, pozaldi bat, pozaldi illuna benetan: Billatzaille barriari be, egunen baten zarrari jazo jakona bera jazoko jakola.

ZERGAITIK?

Baiña billatu dagigun baragarrikeri au zuritzeko zerbait.

Bai. Ba dago zuritzeko bide bat: Gure egoerea bera.

Ez daukagu goi-mallako ikaste-etxerik ez daukagu erri-jakintzea eskuratzeko bide egokirik, ez eta erakunde bideratu- rik. Aurrekoen jakituria ta trebetasuna urrengoai igarotzea ez da erreza gutzat.

Aurrekoak egin eben, eta egiten dabe euren burrukea, guk billatzen doguzan balioko billatu zituen, guk gura doguzan elburuak gura ebezan. Ori ezin ukatu.

Baiña igarotze onen gaiztasuna aundia da, eta gaiztasun orren iturri urtsua da gure gaurko jakitunen edo sasi-jakitunen arrokeria.

Eta ez dagigun aitzu gure erri zeak ondo berba egiten dabenai beti izaten dautsen itzaltasuna; bakana ta erbestetik etorria dan guztia onartzen dau gure Erri garanak.

Guzti au kontuan artu ezkeru, gure errilarrizarako ezjakintasunaren kora- pilloa errez azkatuko dogu.

PICASSO'REN «GUERNICA»

MARGAZKI-GAI BAT BEAR

Milla bederatzireun eta ogei ta amaseigarren urte larrian, Pablo Picasso Prado'ko Museorako zuzendari izendatu eben.

Urrengo urtean, erkal-agintariak (Errepublikako arduradu- nak) eskari bat egin eutsoen: «Paris'ko Feria»rako orma-margazki (mural) eder bat margotu egiala. Berak baietza emon eban eta margazki-gaia asmatu gurean ebillan.

Urte aretan eta Picasso'k asmaketa orretan ziarduala, jazoera guztiz negargarri bat jazo zan: Alemanen egazkiñak, lerkaiiz be- terik, bein eta barriro urreratu ziran Gernika'ko uriaren gainera eta euren lerkaiak bota eta uria austu ta erre eben.

Jazoera negargarri onek garrastu eban Picasso'ren barrua, berotu eban bere biotza eta bere erti-zalearen irudimena bizitu.

* * *

LENENGO LANAK

Jorraillaren ogei ta seian erre ta apurtu eben Gernika, eta barri ori entzun eta bigarren egunean asi ei zituan Picasso'k mar- gazki au egiteko lanak, Orrillaren lenengoan. Begillaren asiera inguruan amaituta egoan eder-lan goragarri au.

Orioz margotua da laukia, eta beronek ditun margoak zuria ta baltza dira. Nabarra edo urdintsua be ba dauka zerbait. Zergaitik ez margo geiago? Egin ei zituan Picasso'k margo geiagoaz aurre-lan batzuk, baiña laster konturatu zan, garrastasuna ta samintasuna agertzeko margorik onenak oneik zirala.

Laukia dan lez geratu orduko, aurre-lan eta aldakuntza asko egin ei ebazan, eun inguru bai. Ta azkenean ertiliarik, onena aukeratu eban.

Laukiak, iru neurkin (metro) ta erdiko goiberea dauka eta zabalera zazpi neurkin edo metro ta 82 eunki.

* * *

LAUKIAREN EGITUREA

Laukia iru iruki edo triangulotan zatitzen da. Onetan Gre- zia'ko ertillarien antz apur bat ei dauka. Iruki oneik ango goi- aurrea (frontoia) gogoratzen dautse batzui.

Gero, eskumatik ezkerrean, sei irudi aurkitzen dira margazki eder onetan.

Lenengoa, sutan dagon etxe batetik bera amiltzen dan andra bat, bere besoak goian dituala.

Bigarrena, laukiaren erdirantza doan emakume bat, eta onen gainean, andra baten burua eta besoa. Beso onek argi-mutil bat daroa eskuan eta argia exiotuta.

Iruigarrena, ilburuan dagon zaldi bat, bere lepoan ziri bat sartuta. Onen oinpean, gudari bat ilda eta gudariaren eskuan asta-makil bat apurtuta.

Laugarrena, ezker-ezkerrean, andra bat besoetan ume bat ilda daukala. Andra au zezen baten aurrean dago. Zezen onek giza- burua dauka eta nagusikiro begiratzen dautse beste jazoerai.


Bostgarrena, txori bat da. Zaldi illaren eta zezen biziazaren bitartean dago eta agoa zabalik daukala, aurrera doa.

Eta seigarrena, lauki margotuaren erdia ta ardatza, gabeko begia da, baiña besain edo «pupila» ordez tximist-indarrezko bonbil bat dauka. Ortze alkatzen dira laukiaren iru iruki edo traianguloak.

* * *

AZTERKETA

Lauki ain eder au, txikiagotuta, sarritan ikusi dogu, baiña bear ba'da ez genduan konturatu orrenbesteko esangurea daukanik.



Ez da arritzekoa, ulertzeko errez-erreza be ez da ta. Ez da irudi bakoa edo «abstracto»a, baiña irudi argi-argiak eta egunerokoak be ez daukaz, «figurativo» garbia be ez da.

Sarritan itanduko gendun: Zer esan gura ete dau lauki mar- gotu onek? Erantzuna Picasso'k berak emon bearke leuke, eta zerbait esan be egin eban azkenean diñodan lez. Batez be, neuk beintzat jakin gura neuke gizon-antz apur bat aurpegiñ daukan zezen adoretu orrek zer esan gura dauan. Iruditzea ez da gaitza, baiña uts egitea bere ez.

«Cubismo» apur bat eta «expresionismo» apur bat be ba daukaz laukiak, batez be «expresionismo»a, jazoerea bera zatika agertu gura izatean.

Bat-batean laukiak agertzen dauana auxe da: Erri ondatu baten aurrean samintasuna, garrastasuna ta egitearen aurkako eretxia. Orretarako irudien egoerea, ibillera, zatitzea, «cubis- mo»a ta «expresionismo»a oso egokiak dira.

Eta samintasun au zorotasun batera eltzen da laukian, ori batez be irudien ibilkeretan eta zirkiñetan agertzen da.

* * *

IRUDIAK ETA EGILLEA

Picasso'ren margazki eder au, beste bere lanen artean jarri bear da, ez da bakarra ta.

Milla bederatzireun eta ogei ta amazpian laterri-barruko gudeari buruz, «aguafuerte» deritxeen margazki batzuk egin zituan Picasso'k. Guda-gaiak ziran. Eta andik artuak dirala esan geinke emen agertzen diran guda-gaiak.

Urte bi lenago, 1935'ean, Picasso'k bere «Minotauroma- quia» margotu eban. Andik artu eikean zerbait zezena ta zaldi illa margotzeko, edo, gitxienez an izan daiteke gai onei berak daukan ardurea.

* * *

LAUKIAREN ERAKUSPENA

Arako egiña zan izan be ta, 1937'an Paris'en erakutsi zan lenengoz lauki eder au. Ikusle guztiak arrituta itzi ei ebazan Picasso'ren lan eder onek.

Alde batetik, orduko jazoera bat gogoratzen eban eta jazoera mingarria benetan mundu guztiarentzat.

Baiña, beste alde batetik, margazkia bera zan edonor arrituta izteko lakoa. Barrumiña agertzeko indar berezi bat eukan, orduko margolariaren bide-barruan.

Gaur lauki au New York'eko Erti-Musoe'an dago. Baiña toki egokia litzake erti-lan eder onentzat Gernika'ko Batzar- etxea bera.

* * *

ERITXIAK


Margo-lauki oneri buruz eritxi bat emoteko gai, ez da edonor, baiña ni baiño jakitunago diranak esaten dabe Picasso'ren laukirik onena dala «Guernica».

Gernika'ko jazoera ori igaro ta bigarren illean, Picasso Paris'- en egoan eta «Grands Augustins» deritxean kaleko bere ertilari gelan, egin eutsazan azkenengo ikutuak bere ertilanik ederren oneri, eta berak diño.

«Umeen, andren, txorien, loren eta zugaitzen garrazi minbe- ratu bat da, Ageen, zuren, zorien, etxe-tresnen eta ogeen garrazia. Ez ditu goratzen gudalariak, ildakoi begira negar egiten dau».

Guda guztien aurkako agerpen bat dogu ba «Guernica», eta guretzako ba dauka esangura berezi bat. Picasso'k gure jazoera bat, berez be gizaldien gomutan illezkorra zana, oraindiki llezkorrago egin dauku. Eskerrik beroenak zor dautsaguz Picasso'ri, eta kris- tiñau garan aldetik, zergaitik ez? Bere alde be otoiñ bat.

GAMIZ



R. M. Azkue ta Bonaparte Printzea

Guziok zer-nai gaietan bear dugu izan gidari edo maisuren bat. Esate baterako, erri edo iriren bat ikustatu nai badugu, kaleren baten billa bagabiltz, ez dugu eta ez dugu izan bear ere lotsarik ez dakiguna iñori galdetzeko.

Maisutza bear bearrezkoa da jaiotzaratik il arteraiño. Bear bearrezkoa. Maisura jo bearrean arkitzen gera edozein gauzetan, ez bait da nior mundu ontan bere burutik jakintza aterako duanik.

Duela iru bat gizaldi edo geiago Descartes jaunak —Europa berriko filosofiaren aita deritzanak— konseju edo aolku jator eman zigun. Bakoitza bere opizio edo ogibideko gaietan maisutzat eduki bear dugu eta ari galdetu bere opizioari dagozkion gaietan. Egin ere, jakiñen gaiñean edo ez jakiñean, ala egin oi dugu.

Nik euskera eta euskal kulturaren jabe izatea jaiotzetik dakarkit. Neretzat euskeraz mintzatzea eta euskal kulturaren bidez gizartea naiz mundua ikustea amaitiaren esnearekin bate-batera edoski edo xurgatu nuen. Ez dut onekin esan nai nere egoera milagroko egoera denik, baizik ori dela nere egoera, beste millaka ta millakarena bezela.

Nik ez nuen euskaldun izatea aukeratu, euskaldun izatea «sueratu» zitzaidan ta kitto. Ontan, etniko-izaeran esan nai da, ez dut maisurik izan, edo, naiago baduzu irakurle, maisu asko eta ezin-obeak izan ditut. Familia, eskola-lagunak, jolas-lagunak, eliza izan ziren nere maisuak. Euskerak ez zuen izan beste biderik nere gogoan txertatzeko nere belarriak baiño. Belarri soil-soillak. Begiak, urte askoren buruan, beste izkuntze eta kulturetan murgildurik egon ziren. Ez dut gogoan gizon egin artio izki bat bakarrik ere euskeraz irakurri detenik. Itz au bera ere, «irakurri», begien bidez sartua da nere gogoan, nere errian, Atan'en, ez baizen irakurri esaten, «leitu» baiño, beste euskal erri askoetan bezela.

Gero, ba dakizu, euskeraz eta euskal kulturaz jabetu egin bear giñala-ta, maisu billa asi giñan. Gure bidexka apalaren zear maisu asko ta asko gurutzatu dire, ola-olakoak batzuk, onak beste batzuk, ezin-obeagoak beste zenbait.

Ez naiz baiñere gramatika-zale amorratu orietakoa izan, Gogoan dut zer zion

Ch. Peguy'k nonbait: «Nada puede suplir la lectura pura de un texto puro».

Dana dala, gramatikalariekin ere izan ditut eta gaur bertan ere ba dauzkat artuemantxoak. Nortzuekin? Alor ontan nere maisurik onena —berekiko urguluz azaldu nai nuke betiko zordun— zera izan da, olandar Van Eys. Bizirik balego, Olanda'ra joango nintzake berari ikustaldi bat egi-tearren. Asko, asko alere, zor diot izkuntzalari ospatsu oni. Bere ikerketak utzi du arrasto ederrik, iraunkorrik gure euskal izkuntzalaritzan. Jaiera edo sinpati bereziberezia diot, bizi naizeiño, berari. Ona jator azaldu berarekiko dedan zorra eta ez txantxetakoa alajaiña.

Euskal izkuntzaz ari geran ezkerro, beste maisurik ere aipa dagigun: L. L. Bonaparte ta R. M. Azkue. Bi gauzetan azaldu zaizkit maisu azken izkuntzalari bi oriek, ta bietan nai dut nik izan bien jarraille eta miresle zintzo.

Batetik, ondargabeko, mugabageko gure erri-izkuntza ikastea. Euskal Erria eza-gutzeko tresnarik egokiena erriak darabilkin mintzabidea dugula, nik uste. Ez dago gai ontan dogmatikoki itzegiterik, bestela or datorkigu sorgin-eiztariren bat, iskilaturik, «txispaz armaturik». Bestetik, bi izkuntzalari aipatuek beranduxe edo beñere ondo ikaste ez dugun gauza bat irakatsi ziguten, zera alegia, ez liburuetan, baizik eta gauzetan buruz buru, arpegiz arpegi, bitartekorik gabe, xurgatu bear dugula jakintza. Aiek, izkuntza-alorrean, guk zer-nai gaietan.

Ni ere geiegi edo Rabinoen seme izana naiz gaurdeño, esan nai dut, idaztia eta liburua jainkosaren maillan gurtu duten orietako bat.

Orain bertan ere ez dut mezpreziatzen libururik ez paper idatzirik. Geroz eta areago, ordea, beste irakaspide bat ari da, ari, nitaz jabetzen: ikus, entzun, ikas, nere oiñak eta iztarrak direla medio. Ontan zer nolako maisuak Azkue eta Bonaparte. Egia zion Olabide'k zionean: «Entzuteko belarriak dituenak bentzu». Ez dire bere itzak, bai berak euskeratuak. Jaungoikoak gorde dagigula ernai gure zentzumena!

JOXE LASA

Gatz eta Piper

SAN ANTON'GO IGALIAK DIRALA-TA...

Aste gurenean, pakezko giro ederrean idatzi bear zanari bestelakoan oratu dautsegu, baiña ez gure erruz. Asi gaitzean, dana dala, Erramu Igandekotik: San Anton eleizan izan giñan beste erritar batzuekin batera Joseba Andoni'ren gogoaren alde egin zan mezea entzutera. Eleizkizun zoragarria benetan, beti bezela, San Anton'go abesbatzak parte artzen ebal. Eleizea erritarrez bete-beterik egoan, naizta iñork deitu bako «belarri luzeren» batzuntzako tokia utsik egon...

Urtekeran, abesbatzako arduradun batzuk agurtu genduzan; zorionak emon ondoren alkar-izketa mamintsua izan gendun. Alkar izketa bearrezkoa dogu, biar edo etzi, euskaldunok alkatuko ba'gara; bakoitzak berenetik apur bat emon ezkerro, ez da oztopo gaindu ezifiekorik egongo.

Gaia zein? Ba, egun batzuk lenago euki gendunari jarraituz, eta gordingordifin esanda, San Anton eta Jatorki abesbatzen arteko gora-beerak. Poztu giñan benetan alde bietakoen jarduna entzun ondoren lenengo egunetako garraztasuna urtu dala jakitean.

Oraintzu egin dan abesbatzen Bigarren Asteaen bata-besteari txaloka egon ei ziran, euren ekiñaldietan. Giro ori da guk opa doguna. Errigintzan, errizale-tasunezko bide asko artu leitekez oiñdiño, ohea zein dan ez dakigula. Alkartasun ederrean bizi giñan orain dirala 25 urtetik gora Campos Antzokian edo Ayala dalakoan «usaiñezko petardoak» bota euskuezanen. Orduan olako jai aldi bat eratzea eztan gauza erreza izaten. Jainkoak bakarrik daki zenbat oztopo gaindu bear izaten genduzan arnasa-bide ziran abesti ta dantza saio areik eskeintzeko, ta orduan, San Anton abesbatza izaten zan oiñarritariko bat. Ez dogu iñoi aztuko Etxebarria osagillearen emazteak esaten ebana: «Olako jai aldiak ikusten joateko, daukadazan jantzirik eta pitxirik onenak jazten dodaz. Ikusi dagiela «besteok» errizaleak ez gareala eurek nai leuken aiñako arloteak. Asko aldatu da orduko giroa, baiña arrazoi galanta eukan emakume jatorra zan Lola Zabala'k, gure erriak giza mailla asko ditu ta kultura mailla guztietara, toki guztietara zabaldu bear dogu euskal kutsua. San Anton eta Jatorki bide ezbaridietatik doaz, bear ba'da, baiña pozik gagoz bai bata ta bai bestea errigintza zadorretik abiatu dirala jakitean. Orain 25 urte geunkan gogoak, irau erazo dagigula guztiori.

URRENGO IGANDEAN

Pazko Igande gauean, obeto esateko arratsaldea, lantxo au amitzera noa. Aste onetan amaika jira-bira emon dautsada nere buruari, baiña nai neuken guztia ez esatekotan naiago dot ementxe amaitzea. Ez dago aztergaiak aurkitzeko, guk ezer esan bearrik. Urrerogarte.

ARENAZA'TAR JOSU

Gotzain Jaunari Gutun Agiria

Agur jauna: zure artaldekoa nozuta zuegana nator zuzentasun eta goxotasun eske. Borondate onenagaz diardut-eta biotz onez artuko nauzulakoan nago.

Gure arteko oiñaze samiñak eta atsekabeak (euskaldun ta euskaltzaleen artekoez ari naiz) aspaldikoak dira. Euskaldun eta kristau garean aldetik ausartu gara eskean. Kristauren artean bir-adizkidetza eguneroko arazo da edo bear leuke, beintzat. Altarara barru-garbiz nai dogun bakoitzekoa, alegia, Alabaiña, gure zabarkeriz edo zitalkeriz entzungor egin oi dogu ta ori dala-ta noizean beingo azterte sakonagoa bear izaten dogu. Orretxegaitik-edo ospatzen da aurtent bereiziki Bir-adizkidetzaren Urtea, batez ere siñistedunen esparruan.

Ta... orixe. Gure eleizbarrutian ere alako garbiketa-lan baten premiñan aurkitzen gareala guztiok. Beste jardunbide batzuk orremenka agiriko dira. Bat dago, orraitioño, ezkutu lotsagarrian dana. Ta orixe konpondu nai genduke, onbideratze orren oiñarritzat.

Ba-dakizu, gure eleizetako eleiz-liburuetan, Abona ta Morcillo'ren egunetan baitik bat (besterik ote dagon

Aurtentxe euron laguntzaille mamiñak jakingo bide du) ainbat kristauren izen euskerazkoak ezabatuak izan ziran, geiagoko barik. Lotsagarria, negargarria ta legeazko kaltegarria. Era berean, tokiko apaizak nai ez zutelako, eleizan barik, euren exteetan bataiatuak izan dira bakar-bakarrik ume asko, euskal izenen jaube ziralako, beste gabe.

Bidegabenez samindutako kristau anai guztioi zor yaken poza ta zuzentasuna emateko, auxe bururatu yat: Gurean bigarren maillakorik ez daiten, bataiatu daizuzala ospez eta eleizegeez neska-mutiko guzti oiek. Berdin, eleiz-agirietan, bear diran oarkizunen bidez, arteztu dezazula lengo okerra, bakoitzari zor yakon izena emanaz, legearen eta gizartearen aurrean ezari yakezan «antonimo» aiek kenduaz. Besterik ere egongo da zuzendu bearrekoa. Nik auxe ipiñi gura izan dot, lagunarteko bizitzan geien aztu oi dan auxia dalako.

Ori egin ba'dezazu, pozarren abestu genezake euskaldun siñisdunok: betorkigu zure erreñua... ta erreñua.

Eskerrik asko, biotz-biotzez.

ETXEBARRIA'TAR JUAN ANJEL

AGUR

Ez Agur au beratu, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, bereko, politiko naiz ondasungarri asmoen gaiñetik daben iritxi-onoeko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egiñleak dira.

Agur au, bere zuzendaria ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M.^a MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Carretera a Galdacano, 32-Bilbao-4

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guttirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

EUSKALERRI'KO ARAZOAK

BAITA AURREZKI-KUTXAK ERE

Lenago, laguntza arlorako jaio ziran aurrezki-kutxak, apurka-apurka Espaiña'ko ekonomiaren eraginarean billakatu dira, bai gero eta diru geiago dutelako, bai diru orri eman zaizkion bideegatik ere.

Aurrezki-kutxak jasotako dirua da, gero epetan eman eta inbertitzen dutena. Laterri onetako mozkiña iru sailletan jasotzen da geien bat. Au da:

Urtea	Banku- etxe (%)	Aurrezki- kutxa (%)	«Caja pos- tal» (%)
1967	68,07	29,68	2,25
1970	65,57	32,25	2,14
1972	67,01	31,01	1,98

1973'gnek Lotazillaren 30'ean Aurrezki-kutxak zeukaten diruaren % 88 jendeak utzitako dirua zan. Azkeneko urteetan % 90 inguruan egon da beti. 1962'tik 66'ra, % 94'ra arte eldu zan.

Diru au, geienean, langille eta lantegirik gabeko erdi-maillako jendearen artean jaso izaten da. Lantegiak, bere diruaren eraman-ekarriak ezin egin al dituztelarik, ez dute dirurik aurrezki-kutxetan sartzen. Aurrezki-kutxak zer diru dauken eta zer jende motatarik jasotzen duen, oso garrantzitsua zaigu; orrela ikusiko bait-degu zer uzta jaso duten gobernuaren erabakiak.

Aurrezki-kutxak eskualde-alkarteetan biltzen dira; 1972'grran urtean Catalunya'koak jasotzen zuten alkarte guztiaren % 33,39; Euskal-erri'koak % 18,44; Valentzi'koak % 9,83 ta Andaluzi'koak % 9,66.

Aurrezki-kutxan dirua iru lekutara joaten da geinbat: etxe-erosketara; baloreetara, maillegu-paperetara eta mailleetara.

A. K.'k naitaezkoa dute eunetik ainbesteko bat, legeari jarraituz inbertitzea; emen onen goraberak:

A. K.'n sortze-araudiak, % 30 estatu-maillegotan sartu bear zutela zion.

1951'garrenean % 60'ra jaso zuten.

1959'garrenean lengo «Plan de Estabilización» zala-ta illetik-illerako geiztearen % 65'a INI'ri eman bear zioten, maillego-paperak erosiaz.

Orrela, 1960 inguruan % 80 baiño geiago legearen araura inbertitu bearra zuten.

1967'garren urtetik aurrera, laterriak urteroko zorrik euki etzuelako, eta aurrezki-kutxetan sartutako diruen geieratzarekin, lantegi bereizi gutxi batzuen maillegu-paperetan inbertitzeko eskubidea eman zitzaizen.

Bi sail oiek 1964'an inbertsio guztien % 50'a biltzen zuten; eta % 45'a 1968'an.

Orrela ba, 1974'an onek ziran gobernuak legez ezarritako %'ak.	
—Gobernuak zuzendurik lantegieri eta merkatariari epetan emana.	% 30
—Estadu'ari maillegutan eta lantegieri (INI'koen edo beste berezi batzueri) maillegu-paperetan emana	% 40
—Zorrak ordaintzeko gordeta eduki bearra	% 4

DANETARIK. % 74

Euneko 26'a dute, beraz, A. K.'k beren kasa erabiltzeko.

Eztute baiña, bide ontatik eta, inbertitu dezakena bestela inbertitzen; naita naiezkoak dituzten sailen artean banatzen bai-dituzte sarri: 1968'tik 1972'ra gero eta geiago edatu zuten beren kasa inbertitutako saila, legeak agintzen duanari urbiduaz.

Mendabilde-ekonomian daudelarik, beren inbertsioen korrituak bear dituzte areagatu, baiña erri xumearen dirua delarik, ziurtasun mailla bat bear dute gorde, baita eskatu dezaieketeneri ordaintzeko, dirua eskutartean euki.

A. K.'k estatu batentzako premiazo dira, eta, ala ta guztiz, epe laburrean diru gutxi ematen duten industriaketetan inbertitzen dute, ez bai-luke bestela industri oietan inbertituko. Kontuan euki bear da inbertsio oiek ziurtasun guzia dutela, laterriak, estaduak babesten bait-ditu.

Bestalde, etxegintzan inbertitutako diruak ez dio arau berezi bateri jarraitzen. Kontuan euki bear da, gaiñera, Aurrezki-kutxak etxegintzan inbertitzen dutena oso gutxi dala, inbertsio guzietan begiratu.

Oietatik at, lurgintzaren aurrerapenerako eta lantegirik gabeko erdi-maillako jendeari epetan emana izaten da beste ainbat diru.

Orrela banatzen da, beraz, A. K.'k epetan emaniko dirua:

Etxe-erosketarako	% 43
Nekazaritzarako	% 23
eta Lantegitarako	% 25

Aurrekoari jarraituz, A. K.'en egin bearra ontan datzala esan genezake:

1.—Espaiña'ko estaduak bultzatutako industriaketaren inbertsio bide, berarekin bat jokatu.

2.—Banku-etxetan dirurik lortzerik ez duan jende xumeari mailleguak emanaz.

Ikusten danez, Euskal-erriaren aurrezkiaren % 74 beste eskualde batzuetara eramaten dute aurrezki-kutxan bidez, diru-aurreratzean Euskal-erria estaduko bigarren eskualdea dala kontuan artuz.

Bestalde, emen gelditzen dan % 26'a industriagintzan garrantzi aundirik ez duten arloetan inbertitzen da.

Argi eta garbi ikusi genezake, ba, Aurrezki-Kutxan arlo ontan ere, Euskal-erri'tik at igesi dijoakigun diru-jarioa.

LEIZARRETA

Atun-Arraintza

«Principe de Viana» euskal illero-koan argitatu zan nere idaz-lanean esaten nun «KONTUZ JAPONESAKIN»...

Ez nun ordea esaten, orain oiek emen atunak saltzen ari ziranik. Alajaiña, ori ere ikusteko geunden! Beste tresna guzietan artu-emanak millaka dituztelarik, orain artean beintzat, ez zuten arrairik saltzen emen. Errezago ba-da ori egitea, ta ez arrai oiek Japon'eraño eramatea.

Pontevedra'ko Santa Eugenia errian, ta bertako «AUCOSA» eta «FRINSA» erosleak izan dira erosi dutenak, nik al dakit zenbat tonela!

Oiek orrela daudela, FORMOSA'tik (TXINA'tik) bai omen datoz atunak. SHIN-HO ontziak dakarski EGUN TONELA atun. Eroslea emengoa. Jose Pascual Ortega jaunak erosita! Ori ere irakurtzeko geunden!

Zer egingo dute orain emengo KOFRADI'ko arraintzale guziak? Deadarka aritu, noski. Gero esango dute ez dutela oporraildirik egin bear, «protesta» egiñaz.

Ez dakit zer esan geiago. Makiñaldiz idatziak gera arazo auei buruz. Urteroko kontuak dira oiek-eta. Aurtengo antxo kosteari begiratuaz, ez dakit ze nolako azkena izango duten arraintzaleak. Aurtun antxo azaldu zanean, otsaillan, bi egun bakarririk ekarri zuten. Uste gendun seiñale ona zala, baiño berealan eskutatu zan antxo ura eta arrezkeroz, gaur epaillak amar, ez da geiago ikusten. Onekin esan nai detena da, arraintzaleak bi kostera dauzkatela, antxuena eta atunena. Antxuak pot egiten ba'diote, atunari begira egon oi dira, ta orain atunak arrapatzen aurki izaten diranean, bildur naiz merkeegi sal-

duko duten, saltzailleak ba'dira, emengoekin batera, txinoak eta japonesak.

Orrek esan nai du, atuna merkatuko dala eta orrek ekarriko dun buruko miña ez dala izango txantzetakoa emengo arraintzaleentzat. Antxuak ekarten omen dituzte Argentina'tik, Italia'tik, eta abarretik. Gero zer emen? Arritzekoa da, ta galdetzen det: Ez ote beste laterririk arrai oiek erosten dituztenik?

Orain japonesak eta txinoak, aurki ostera asiko dira saltzen rusoak, koreanoak, eta italianoak. Orduan, zenbat ordainduko dute emengo erosle preskurakoak eta fabrikanteak? Arrolioa goraka ta arrai beraka...? «Ene ba da, gureak egin dik», esango dute arraintzale gizajoak! Gero esango dute oporketak egiteko ez dutela aitzakirik! Orra or gaia.

Oraingo «ministru» berri orrek baidu gaia arazo au konpontzeko. Irten dunak, noski, baimena emango zun arraiak emen saltzeko eta gauzak gero ta okerrago ez ote dijoazten nago ni. Ala ere, ez gera «pesimistak» izan bear, ta zuzenduko diralakoan gaude arazo oiek.


Japonesak dira atunak emen arrapatzen dituztenak, dalako «PALANGRE» orrekin. Ori kaltegarria dala ongi dakite arraintzaleak, arrai uxatzen dutelako. Zer egin dute onen aurka, kontra? Deusik ez, ta japonesak patxaran arraintzan. Ain dira gizon sonatuak! Errebentziak egiten beintzat yayoak dira, bazterrak ederki «engaiñatzen»...

Kantauri guzietako arraintzaleen ize-nean, kofradikoak bidaliak dituzte agintariari «telegrama de protesta» diralako oiek.

E. OZKIN

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK



ZAZPI-KALEAK

CASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

BERBITUAZ

ORBELAK

PASKU TXALAK

Izadi guztia berbitzu ta edertuten, udabarria eldu da; Berbizkunde eguna ere andiriko ospatu dogu? Bakoitza berbitzu ete gara? Besteak berbitzuten alegintzen ete gara?

Bein esan genduan garizumea aro ederra dala askatasun benetakoari asiera emoteko, baiña egin bear ori ez da amaituten Pasko egunagaz. Antxiñako eliz izlariak, deadar ikaragarriak, au esaten eben: Ez da naikoa arbi loratik arbi lorara aurtortu ta geró kito egitea.

Urte guztian eta egunero ekin bear dautsagu geure ta besteen berbitze ta askatasun egizkoa lortu naian. Sarri aitatu dogun Rabindranat Tagore, India'ko olerkaririk onenetakoak diñoana jazo ez dedin. Arek diño: «Sorkaldeko kristauak Ganges, India'ko ibai aundiñeko arri biribillen antzerakoak dira. Erreka orretako arriak, millaka urteetan, urez inguratuta dagoz, uretan murgilduta, baiña atera arri bat ur barrutik eta erdibitu malluka bategaz, eta or ikusiko dozue arriaren barrua legor-legor; orrelaxe baita sorkaldeko kristauak, elizkizunez, irudi santuz, onezpenez inguratirik bizi dira, baiña zabaldu, erdi bi egin euren biotza ta tamalez, legor legoke barrualdea, azaleko kristautasuna baiño ez dauke».

Orregaitik guk egunero berbitzuaz jarraitu bear geunke, danen eredu ta gizadiaren ikur eta baietzko euzaupide izateko. Orain geiago ain zuzen bere, ba, sarritan esan dot eta ostera bere esatera noa: gaur egunean, arrotz eta euskaldun batzuk artu daben jokera galgarriagaz, bien artean euskalerraren arpegia iraindu, zikindu ta guztiz aldatu bearrean dago. Bide orretatik gure erriagaz, erri ez ezaugarri bat egitera doaz.

Orain bi urte inguru dirala, Donibane'n, alkar-izketa baten, euskaldun gazte guri batek iñostan: D. Kaludio, erratuta zagoz, gure errira benetako askatasuna, zoriona ta ontasun guztiak gizartekeri-sozialismoa ekarriagaz etorriko dira, ta ez zuen epelkeriaren bidez. Eta nik berari: ba-dakit gizadi guztia gizartekeri-sozialismorutz doala, baiña nire errixiz, irudimen gutxi dozue, ortik eta andik artutako gizartekeria baiño ez dozue barri, ta zergaitik ez gizartekeri sozialismo berezi bat sortu, Euskalerria'ri ondo jatorkona, gure oitura onak, euskalduntasuna, ondrautasuna ta Jainko siñismena, ta benetako askatasuna ta gizontasuna, alkarregaz bakean biziten itxiko daben gizartekeri berezia?

Elizak berak be ba-ditu gizarte auzirako erakutsi ederrak. Zergaitik, batez bere bateatuok, eurari aurrerapidea ez emon? Zergaitik bide orretatik berbitzuaz ez jarraitu? Orrela euskaldunok, Euskalerraren arpegi garbi ta argia zainduko dogu arierioen maltzurkerietatik. Ez esan gauza eziña dala bide orri jarraitzea, ez, ez da eziña.

Bonhoeffer gizon jakitunak esan eban: «Erri bakotxean, benetako siñismena eukin eta siñismenaren bultzadeari jarraituten dautson gizon gazte aldratxo bat bakarra ba'lego be, gizadia arin osotu, edertu ta askatuko litzake».

Ekin ba erri guztietan gazte aldratxo ori sortuten, orain gaztedia erdi galduta dagoan aro onetan, bildurrik gabe, itxaropenez beterik, dana galduta ez dagolako; ta Euskalerria ta mundua bere gaizkatuak izango dira. Zuek gazteok, geienok bateatuak, ez jarrai betiko leloari: Elizea au dala ta bestea dala, eliz agintariak txarrak dirala ta abar. LELO ORREK ez garoaz ondoren onera, txarera baiño.

Ona emen Batikano II batzar nagusiko gurasoak gazteai egindako deia: «Gazteak, artu ikurriña zuen gurasoakandik eta bera zikindu barik ekin ta ekin, zuzentasuna, egia, askatasuna ta maitasuna nagusi izango diran gizadi barri bat egiten».

Euskaldun gazteok ere bide orri jarrai zeuen barrua berbitzuaz eta erri zuzen garbi, argi ta ondrau bat sortuaz.

GALLASTEGI'TAR KAULDI

ZUBIAURRE'REN «KANTATEA»

DURANGO'KO ANDRA MARI'N

Durango'ko Andra, Mari eleiz ederra oraingoan bete-bete egin jaku, Pasko aldia dala ta. Ez uste izan gero, eleizkizun aundi baten barri emotera natorkizuenik! Ez orrelakorik!

Aintziñatik Durango'n jaio zan «Orfeoia», abesbatz taldea, aspaldian barriztu, gaztetu ta geitu egin jakula esan geinke. Orain 50 andrazko ta 60 gizonexkok baiño geiagok osotzen dabela uste dogu. Erri onek, musika zaletasun aundia agertzen dau benetan; ez da erreze gaur onenbeste lagun, ekin eta ekin sarri lanean alkartzea, Durango lako uri sakabanatuan!

Epail'aren 22'an, Orfeoia, Bilbo'ko Sinfonica, Jabier Solaun tenora, baritono dan Martin Andres'egaz batuta eskeiñi euskuen kontziertua entzutera, pozik joan giñan ba.

Lenengo abestiak durangarrak bakarrik kantatu zituen: Caligaverunt'egaz asi, Madina'ren «Aita Gurea»... Benetan ederrak... Aita Joxe Domingo'ren «Gure biotzeko potxolo» sei abotsetara... Guztia ederto, eziñ obeto kantautu eskeiñia.

Geldi unetxo bat eta Bilbo'ko Sinfonica'k Grieg'en eresi samur bi ta Vivaldi'ren kontziertua, oneik be txalo ugari artu zituen.

Gero entzun giñuna asaltzeko, Balendiñ Zubiaurre'ri buruz zerbait esan bearrean gagoz: Beñola, bost urteko mutiko koskorra, bere amak Garai'tik Berriz'ko mojetara eroan eta organu soñia entzutean, lilluratuta, korurantz begira gelditu ei zan eleizkizunak irauñ eban guztian. Ta bere amari gero: «Ama, Berriz'ko mojetara, ostera noiz joango gara?».

Pedro Pablo Astarloa jakintsuaren omeñez egin eban «Kantata» au, Arrese Beitia otxandiotarrak egin eutsazan bertsoakaz. Entzun doguez Balentiñ Zubiaurre'ren alaba zan Pilar'ek Mexico urian Kantata au antolatu nai izan eban, baiña aukerarik ez ei eban euki. Garai'ko margolari bien aita dogu Zubiaurre.

Ereserki au benetan ederra ta berak egin eban lez oso-oso lenengo aldiz, lengoan eskeiñi zan, au da, abesbatz, orkesta, tenore, ta baritono artean.

An zan txalo egin bearra eta guztion poza!, Ziurretik jai-aldi arek benetan batu ginduzala esango geunke, eta askoren biotzetik otoitz beroak urten zirala bestetan lez eleizkizun baterako alkartuak izan ez arren.

«Kantata» onegaz, biotz taupada asko sentidu giñun. Aren itzak entzutean, badaukagu zer oldoztu: «Euskera il baiño gurago dogu ill'ri gogor ekin eutsoen. Baiña zenbatak ulertzen ete eben ori? Zenbat euskaldun ete egozan bertan? Zenbateraiño alegintzen ete gara beti euskaldun izaten?... Olako jai ikusgarriak gorengo maillakoak asko esan gura dau euskal kulturaren alde; baiña ez daitela orretarako bakarrik izan gure euskera!»

Zorionak Durango'ko jai eder au eratu daben guztiai: Orfeoioai, artezkari, Sinfonica, tenore, baritono ta bertan lan egiten ari izan diranai. Eta Uribarri'ko Andra Mari eleiz arduradunai eskerrik beroenak. Aaztu eziñekoa larunbat arratsaldea, gorengo maillako musika ederra entzuteko aukera ederra izan gendulako!

YONE'K

Pasku bildotsak egoten dira. Pasku txalak be bai. Azken izen au emoten dautse, abade inguruetan, urtean bein nekez eta penaz eleizeagaz zela-ala beteteko keixu eta larri ibiltzen diranei.

Gero ta gaitzago da eleizeagaz zintzo betetea. Gero ta alpertiago azala bera eleizeari erakustea. Modak. Aitzaki eta eratasun ugari. Eta danok errudun, be, autortu daigun.

Autortzak... Orma bateri errezeago esan leikiuz egiak, norbere lagun edo ezagun bateri baiño. Gauza berberak ez dituez danak bardin argitzen. Pasku txalei omen egin daigun gaur, gure orbeltxo au euri eskeiñiz.

Manu eta Peru deituko dautsegu, ezaupide bat emoteko. Biak batera, pekatu bardiña egiñak.

Pasku garaian, etxeok be zirika eta sakadaka erabillean-eta, makurtu ziran biak, zer esanak uxatzeko ba'da be, autortzerako.

Sartu zan Manu, estu eta keixu, autorlekuan, Abadeari zer esaten eutsan, ez jakin.

Peru, kanpoan, kezkatu egoan. Tonto alu orrek oraintxe be gauz onik ez dau egingo, esaten eban bere bostean, zain egoan bitartean, luze eritxita.

Igarten yakon Manu'ri estu ebillala, edo ta abadeak gogor artzen ebal. Konfesonarioko egurrak be kirri-karraka entzuten ziran, berak, egon eziñez egiten zitun alde batea ta besterako bultzadekaz, ainak be euren egoera sarri aldatzen erabilliz.

Peru eta Manu, negute aretan, mendira joan ziran urkula billa, tertzak euren batzeko. Baserri baten inguruan ollasko bi ikusi zituen alkareri pikoka. Kendu bako gosea eukin eta ara oraintxe aukerea, esan eben, areik ikustean, ta alkarregaz burrukan iñarduen artean, biak urreratu ta atxilotu zituen. Eta gosea kentzeko, lumatu, erre eta taberna baten jan.

Luma ta guzti agertu eutsan Manu'k abadeari zer egin eben. Abadeak, ordaindu egin bear eutsela ori baserritarrari, berak ezin eikeala parkatu ordain ori egin edo ta orretarako asmorik agertu ezik. Manu'k ez eutsan olakorik agintzen, arrantzale pobreak izanez, ollasko orren dirurik ez eukelako. Ori zan eztabaidea. Eta urten ebanean, Peru'ri, ixillean, esan eutsan: Gauzak txarto dagoz. Abade zar orrek ez dau gaurko mundurik ezagutzen eta beretik urten nai ez.

Sartu zan Peru.

—Ta?

—Betikua, jauna.

—Betikua, zer?

—Ori ba. Odol beruak, eta begi argiak, eta... ba daki,

—Sasoiko gauzak, ez?

—Ori, ori jauna, sasoiko gauzak.

—Bai, baiña ezkonduak edo ezkongaiak bitartean egon, ez da bardin.

—Ai jauna, beorreri erregalo bat egiten dautsenian, sekula itanduten dautsa ezkondua ala ezkongai dan?

—Kontuz. Ez nago ni kompesaten.

—Parkatu, jauna, nik pentsaten neban danok be bardin samarrak gareala-ta...

—Besterik? Ez zara gogoratzen gauza berezien bategaz?

—Jauna... Egia esateko, sarri gogoratzen dot gauza bat. Bein urkulatara joan giñan mendira, ba daki? Arbolei, urkulak egin al izateko, adartxoak kentzea ez da izango pekatu, ez? Eta baserri baten onduan lagun bi ikusi genduzan auskan, burrukan. Oraintxe da guria, esan gendun lagunak eta nik. Joan giñan, kosta yakun, baiña biak menderatu genduzan. Eta esan gendun: oneik barriro be burrukan askio litzakez, laga ezkerro, ta eroan daiguzan geugaz. Gero, laurok batu giñan mai baten, apari-merixenda eder bat egiten, eta baketan amaitu gendun dan dana.

—Orregaz Jaugoikuaren aurrean beste zure pekatuak parkatzeko meritu onak irabazi dozuz. Ia beste baten be orrelaxe jokatu eta bakeak egiten alegintzen zarien.

Eta abadea, ixil-ixilleko esaerak amaitu, ta nasaituten lez, pixkat zuzendu, ta asi zan ingurukoak be entzuteko eran esaten: Neuk parkatuten dautzudaz...

Ori entzun eta arrituta egoan Manu. Eta Peru'k buelta artu orduko esan eutsan: Zurelako gizonik ez dago. Ollaskoak zeuk ordainduko dozuzala esan dautsazu, ala?

Ortik gorakoa, au da, ulertzeko era, sakramentuei lotsa ta abar... bakoitzaren gain. Zelako praillea alako ukandua.

Nik galtzen duan oitura bat gogoratu nai izan dot. Gero ta gitxiago ezagutzen diran pasku txalak gogora ekarri. Eurak be, sakonetik begiratuta, ezin ukatu euren erako meritua eukenik.

ZUBEGI

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra
BILBAO - Casco Viejo
Tenderia, 15 eta 16

Lisboa'ko barriak

BURUZAGI BATEN PATXARA

Alakoxea da Portugal'eko Costa-Gomes jenerala agertzen ari zaiguna. Txanogorriok gorroto ta gogorkeria ereiten duten bitartean, beñere eman ez dezateken zerua eskeñiaz, Costa Gomes'ek erantzuten du ameslari ta utopiazalerik ez duala Portugal'ek bear. Eta jorraillaren 12'gneo auteskundeetan demokrazi azke ta zabala osotu bear dala. Ez diktadura bidetik joango dana.

Erriak ori nai lukeala dirudi, bai sozialista, ta erdi alderdikoak, komunistak ezik. Costa Gomes patxaradun politika-gizontzat jo diteke, Gobienuaren buru, isillik eta ernai dagoana, ikus eta itxoin «wait and see».

Costa'k irurogei urte ditu, M. F. A'ko buruzagi ta lendakari dogu ta agintaritzaren nagusi ta jabe. Orain berrogeitamar urte soldauzkan sartua zan eta beti maillaz gora igotzen, adimenez eta borondatez gaillen zalako. Ori bai, gizon isilla ta agirion zaiona egiten oitua, naiz aldi on, naiz aldi txarretan.

Matematiko ots aundia du ta gazte zala gai ortan «summa cum laude» saria irabazia da.

Gudari baiña geiago «zibilla» dala esan omen liteke, alaz guztiaz militar buruzagi nagusi toki askotan ibillia: Macao'n, Mozambique'n, Angola'n eta abar.

«Nato» nazio-arteko alkartasunean ere buruetako bat izana.

Eta guda-eskolan maisu. Aizea nundik zetorren urrutitik nabaritzen zuana 1961'ean Beja'n bezela, ez ordea buru-arin.

1972'ko Iraillan Estado-Mayor dala-ko lendakaria zala Spinola'k argitaraturiko «Portugal eta Etorkizuna» liburua babestu zuan eta Caetano'k agintari lekutik baztertu, berriz 1974 Jorraillan Militar Putsch zalakoan aurrea artuaz, Spinola baiñon lenago Costa Gomes gidarizat zeukaten. Naiz biak adiskide izan; onek artu zuan ark utziko lekua.

Jorrailleko auteskundeetan zer gertatuko dan ez dakigu. Soares berriro buru izango dan ala ez. Costa-Gomes, etxe apaleko

semea, adimen argitasunez, borondatez eta gizontasunez oso maite du erriko jende xeak. Eta Costa-Gomes bakarra da «M. F. A.» esanpean jartzeko.

Otelo Carvalho jeneralari zer egin zion jakiña da. Itzez lotsagabetu zitzaiolako, maillaz gutxitu ta itzalean ipiñi. Eta urrena zigor aundiagoa emango ziola esan. Carvalho itzik gabe gelditu zan, Orain arte



Costa-Gomes'ek disziplina ta menpeta-suna gorde arazi ditu. Auteskunde ondoren gauza izango al da politika gora-bera guztien gañetik bere agintaritzari eusteko?

Armadun-gizonak (M. F. A.) alegia, Ejertzitua, Demokraziaren zaindari izan dedilla. Au Costa-Gomes'en asmo ta elburua. Spinola'k guztia alperrik galdu duala esan diteke, Epaillaren 11'n egindako «Putch» txoroa dala-ta.

Komunistei indar berri bat eman die ta orain Cunhal beñere baiño gaillenago azalduko da, Portugal'en buru jarri ta beste alderdi aulduak menperatzeko.

Costa-Gomes'en itzal eta agintaritzak utziko al dio? Koxka, ortan dago. Patxarako gizona bearko da izan pakean bere erria aurrera joan arazteko.

IBILKARI

BATZAR BAT DALA-TA

YESUS'EN LAGUNDIAREN BATZARRA

Epaillaren erdi inguruan Yesus'en Lagundiko Batzar Orokorra amaitu da. Batzar au garrantzi aundikoa izan da guretat, Yesus'en Lagundia, gopatz edo orden ugariena, Eleizan eragipen geyen dabena, euskaldun batek, Loyola'tar Iñaki'k irasia dalako. Batzar au XXXII'a izan da, eta Erroma'n egin dabe. Mundu guztitik 29.436'ren 237 ordelari bildu eta Batzar onek eun egun inguru iraun dau. Euren artean ezta-baida gogorak batzar aurretik izan ziran, eta zurrumurru asko ebillen gauza asko aldatuko zirala-ta.

Aita Santuak, asieran, itzaldi bat egin eutsen, asierako gogoari yarraitzeko esanaz. Eta ondo erantzun dautsoe. Bere oarrak gai guztietan ondo artu dituez.

AITA SANTUAREN MENPEKO

Yesus'en Lagundiak beti Aita Santuaren menpeko zintzoen entzutea euki dau. Eta oin be alantxe agertu da, Aita Santuaren oar guztiak aintzat artu ditue-ta. Zurrumurrua ebillen bizitza guztirako Lagundiko Buru izatea ez zala aurrera izango, baiña ez da aldakuntzarik izan. Baita Aita Santuari, batzuk egiten eutsen eskintzea, mixiño arazoetarako, kenduko ebela. Au be ez da yazo. Abade ez diranetara zabaldu gurea batzuk agertu eben, baiña lenean gelditu zan. Aldakuntza sakonik ez dabe egin, baiña gaurkotuteko erabagia artu dabe, ta batez be zuzentasunaren alde lan egiteko.

AITA ARRUPE

Guztiok dakigu, gaur yesuita guztien Buru bilbotar bat dala. Aita Arrupe. Batzarraren amayeran izparringilari batzuk egin dautsoezan itaunci auxe erantzun dautse: Bere agintaritza itxiteaz, ez Batzar aurretik ezta Batzar bitartean be, ez yakola burura etorri, Gerora barriz, gexo ala beste gauzaen bategaitik, buru izateko gaitasunik ezpadauko, inguruan dituan lau onulariak: «Ala, Aita! Oin buru izateko ez zara gauza-ta, zeregin ori itxi egin bear dozu, ta eskerrik asko! egin dozun lanagaitik», esan dagionean, pozik itxiko dabela.

Batzar onetatik, Lagundiak indartsuago ta bizkorrago urten dabela, lan egiteko gogo biziak, esan daikegu.

LAGUNDIAREN YASARPENAK

Lagundiak gizaldiak zear, adizkide sutuak ta arerio amorratuak izan ditu. Asiaren bertan eragozpen ugariak aurkitu zituan. Bere Iraslea, Loyola'tar Iñaki deuna ez zan eragozpenakaitik etzera egitekoa. Eta ezpai barik esaten eban, yasarpentakaz obeak izango zirala, eta tamala izango zala, yasarpent barik bizitia. Eta izan be izan zituan. Yanseniotarren aldiaren eta geroago amazortzi-garren gizaldian; euron arerioak alegin izugarriak egin ebazan, ondatuteko. España ta Portugal'go agintariak aurretik zirala XIV Klemente Aita Santuari bultz eginda ezereztutea lortu eban. 1914'gnea, VII Pio'k barrero ontzat emon arte. Orduan buru izan zanak. Lorentzo Ricci'k, aldakuntzak eskatu eutsoezanean, auxe esan eban: «sint ut sunt aut non sint»: «diran lez izan daitezela; ala ez deitezela izan». Oingo Batzar Nagusian be orixe erabagi dala esan leike.

Emendik be, III Karlos'ek yaurti egin zituan, eta nonbait euskerearen kalterako izan zan, gure Aita Kardebaraz ospetsua be, erbesteratua izan zan-eta. Ordurako argitalduta itxi eban bere idazti ederra: «Euskeraren barri onak». Antxe diño: «Euskerak burua jasotea Jaungoikoak nai du». Kardaberaz A. 1770'gnea erbestean il zan. Len aitaturako itzak, batzuk, Klemente XIV'ari ezarten dautsez, arerioak Lagundia ondatzeko alegin andiak egiten ebezala oartu ebanean.

GAMA

ERROMA'RA, IBILLALDIA


Lenago be agertu gendun beste bat. Oraingo au laburragoa eta aldiaren be lenago izango da, udabarri azken-azkenean. Bagillaren 3'gnea urten eta 17'gnea etxera. Oraingo onetan Zornotza'ra.

Belbil aundi barri orreitakoan izango da joan-etorri zoragarri au. Eta Pau, Narbonne ta Genova'tik zear, Bagillaren 5'gnea Erroma'ra eltzerko asmoan. Emen illaren 11' gnerarte; eleizkizunak bete, ta inguruak ikusiko dira.

Onuzkoan barriz, Asis, Floren-cia, Milan, Savona, Marsella, Narbonne ta Lourdes ikusi ondoren, etxera.

Amabost eguneko ibillaldi au 16.650 lauerlekoren orde egin dai-kezu.

Joan gura izan ezkerro, Orrille-ko 4'gna baiño len emon zeure



izena, Larrea'ko Karmeldarretan, eta zertzelada geaigo bere, gure Santi Aita agurgarriak emongo dutzuez. Idatzi ba Zornotza'ko Larrea'ra.

Urrutizkiñez deitu nai izan ezkerro, ona emen oraingo onetan zuzenean deitu daikezun zenbaki barria: 73 00 88.

B.



MONRAY

ARKONDARA-GINTZA

ANDEREENTZAT AZKEN-JOSKETAK

Bidebarrieta, 2
21 43 46 urrutizkiña

Alderdi-zarra
BILBAO-5

EGIA TA GEZURRA

1

*Egia ta gezurra: Ardia ta otsoa.
Ibaietako ur gardena ta lertzua.
Egia ta gezurra:
Zuzena ta biurra.
Ezkundu ezin diran ura ta sumurra.*

2

*Bata, bizitz-errotak eioaz egiña.
Bestea asmatua. Etsai eraskiña.
Ba dala ta eztaia,
auzian bereala,
jabetasun garaitza bitarteko dala.*

3

*Berdingaitzak izanik bata ta bestea,
zail da, bereiziz, ezagutzen ikastea.
Ezagututa ere,
gezurri oore,
askotan, geurekeri ustelen azkure!*

4

*Egiak beti du bere jabetasuna.
Gezurak, ostera, eman nai liokena.
Gezurrien oitura,
indarrezko lotura.
Gezurra mallu eta egia txingura.*

5

*Artuak artu, egia berean, zuzen.
Egiaren biotza ezpaita biguntzen.
Tinki-tanka, tan, tan, tan,
gezurra beti lanean,
egiren izate ona autsi naiean.*

6

*Bildotsa lotuta eta otsoa aske...
Ots larriek gizartetik justizi eske.
Egia esan eziña!
Ixil bear otiña!
Jaio nairik dan aurra ito bear miña.*

7

*Egiaren bidetik giazke pakera.
Gezur-bidetik, berriz, otsoen artera.
Gezur zaleen ortzak
ain dira zorrotzak...
berak aleak jan da besteri lokotsak.*

8

*Egia azaltzeak ei dama min geien.
Bai, noski, aitatu ezpadabil zuzen.
Orregatik bear da
egiaren kauskada
pakerako bidea zuzenduko ba' da.*

9

*Ez dirala egi oro esatekoek?
Ez egingai ere egi txarbidetakoek.
Nai dan bidea artu,
egi zurrak aitortu.
Eder edo zatar, dan bezela margotu.*

10

*«Bai, bai, zuzen zaude baiño etzazu esan».
«Pakea bear degu, pakea lurrean»
Orra aulen itz aulak.
Bildurraren aurrak,
eta, urrea estaltzen duten zabarrak.*

11

*Egiaren itzak bildurtzen du gaizkiña.
Bearrezko da egia. Bai alajaña!...
Azaldu egia, bai,
naizta batzuek ez nai.
Egia bait da pake zuzen egingai.*

12

*Sortu bedi iturrietan ur gardena.
Gizonen aetan egi ixurmena.
Gero, gogoz xurruta,
osangarri da-ta.
Otsondorik ez duan edaria baita.*

13

*Egia, askotan, lora zapaltzale da.
Udabarri garaiko txingor zaparrada.
Gazteak goizetan,
lillura utsetan,
loraz jazten bait dira gezur ametsetan.*

14

*Belañua urratuz doa eguzkia.
Alatsu, gazteekin, oi danez, egia.
Jelgi edo ez jelgi,
egia beti egi,
lañua uxatzean... murriz lorategi!*

15

*Zertarako asmatu ezbear ipuñak?
Zertarako eraiki gaztelu apaiñak?
Oñarririk ezean,
abeak lurrean...
egiaren eguzkik argiz ziztatzean.*

16

*Izan bedi egia gure buruzagi.
Ez otsoa arkume, ez gezurra egi.
Bereiz ditzagun elkar,
zer dan bitxi, zer zakar.
Izan dezagula beti egia gutar.*

GALLASTEGI'TAR MARTIN

OROZKO

Euskalerrri'ko txokoak ikusteko aukera aundirik bein ere ez det izan. Eta OROZKO ikusi gabea det. Asterokoetan OROZKO'ko berriak ikusi nai... eta, ez dakit idazteko lotsa ote-diran an. Urrengoan araña iritxiko ba'nintz!

Eta, epail onen bederatzigarrenean (1975) Orozkoar Ibarondo Matia'ri goramenak egin dizkiogu: IESU-Lagundi'ra sartu zaneko berrogeitamar urte bete dizkigulako.

Matia'k sendiko berein zertxo aipatu zizkidan:

—Bederatzi senide izan gera. Osaba bi lekaide nituan.

—Osabek bultza-ta zerori ere barkategira baztertu, beraz?

—Euskaldunok zer geran esaten ez naiz asiko. Gure gaztaroan lekaidetzarako gogoa ba-zan. Berotzalleak ere ba-genituan. Arako lekietar Kandido BASABE ez, beintzat, iñola ere aztutzekoa. Ua Bizkaia'n batetik-bestera txairo zebillen. Beti alai. Eraginkor. Iztun eder. Langilleen berri ba-zekian, arek.

—BASABE Aba aipatzen al didazu? Gazteiz'era noiz ioan zan gogoan det. Zuk zerorrek ez ezik, arek ere ogi latz-gogorra irentsi zizun. Ordea, berberak bein ere ez aipatuko olakorik.

—Siñisten dizut. Ua iñoren gogoa illuntzen ez ibilliko. Obe genduke orain ere alako gizon alaiak geiago ba'genitu.

—Ainbeste abesti, ainbeste kirol, eta nai duten guztia egiñez, oraingo gazteak ez al dira alai bezin alai bizi?

—Alai-izatea biotzetik-barrendik ialki bear. Axaletik eta burutik bera ezarri nai diguten giro zoroari nik ez alaitasun deituko.

—Besteak beste, gaurko egun au zuretaz, txito egun gogoangarria. Oraintxe bertan Arrizabalaga'k beñola Txina'n ziñala gertatu zitzaizkizun alaizkizunak esan dizkizu.

—Bai! Orduan gazte giñan. Gazteak, ustez beintzat, egun illunik ez du izaten. Ez bere burua gaiztesteko unerik ere. Orduan, osasun oneko giñan, eta izerdirik aundienak maillarik ez, imurtxirik ere guri ez egiten. Lagunak, berriz, alakoak nituan, besteri poza eta giro ederra sortarazi eta geitzekoak: beasaindar GARIN, gizon isil eta langillea; arek alperkeria zer zan ez zekian. Urrestildar GOENAGA, oraindik Loiola'ko etxe aundian dezu. ETXABE azkoitiarra: arek gorotzari ere izkirimiriak aterako ziozkan. GOIAZ'tar OTAEGI Xanti: gu zuztion nagusi eta anai zarrena bezela... eta beste geiago!

—Orain ere lagun eta adiskide onak ba-dituzu, noski!

—Egia! Ez al diezu entzun? Aterpe ontan ditudan adiskide maitati oriek otordu-garaian ortxe irten zaizkigu. Bakoitzak bere izkeran abestu digute: eresia aldatzeke ezik: txiñeraz, españeraz, pantzeraz, italiaraz, amerikaraz eta doitzkeraz. Euskeraz, berriz, lentreago, zerori zuzendari zaituztela, oraindik ere sail polita bildu zaizu: lekaide eta lekaiame, guztiak gogorik onenaz. Gabonak ioan zaizkigu. Bañan, abestu diguzuten ATOR! ATOR! Mutil etxera... beti biotz-biotzera sartzen zaigu. Eskarrikasko!

—Peking'orik ez dizute esan...

—Neguan, an otza nagusi. Zerorrek bialdu ninduzula esango nuke.

—Bai oso goguan det. Bañan, Peking'era ioan bear zendulako erabakia bestek atera zizun.

—Dana dala! CHABANEL delako izkera-ikastetxea oso asiberritan zan... Orain Hsinchu'n dutenaren antzik ere

ez! Dakizunez IRURE Aita gaixotu egin zitzaigun: sorbaldan, biriken gain-gañean, zuldar gaiztoa erden zitzaion, eta neroni beste gaixozaindaririk ez. Beste lanak ere buruz gora nituan eta osategira eramane genduan. Iriko osategi artan ez zioten ezer egin eta zornea garbitzeko soñekoak'edo erazterakoan oztu eta birrik izoztu. Ortatitxek il zitzaigun. Delako CHABANEL izkera-ikastetxea IRURE Aita'rengan eraikia degula esango nuke. IRURE Aitak Txina'n illabete ere ez zigun egin. Ua bai gizona, apaiz gartsu eta euskaldun zintzoa.

* * *

Olakoetan oi degunez, bakoitzak IBARRONDO eisulagun anaiaren gaitasunak aipatu nai. Guztien aitortez, gure orozkoarra, alderdi auetan agertu zaigunik zintzoena eta zuzenena.

Beti besteari laguntzeko gertu. Egitazko Anai Laguntzalle. Langille aundi. Begiak erne. Eskuak zaintsu. Besoak indartsu. Oñak arin.

Gorrien eragiñez Txina'tik Pillipiñetara aldatu zitzaigun eta Txina'tik irten ziran iesu-lagun ikasleekin bildu. Etengabe Anai Laguntzalleen arazpetan: gaixo-zaindari, eliz-mutil, etxean gertatzen diran ainbeste zuzenketen arduradun.

Ikasle-etxeetan arrotzak ere sarri izaten: guztientzat lo-etzanguak atondu, garbitu, eltxoak uxatu:

—Bañan, bertako umeak ere lanetarako artuko dituzute, agian...

—Sukalderako bi mutil-zar ditugu. Oraintxe ia atondu zaizkigu. Oriek, Formosa ontara gudu-mutiltzan etorri, eta beti ezin lan orietan ari eta sorbaldan urteak mordoskan zituztelarik, gularitza utzi egin zuten. Gero, ordea, non sartu? Lanean ere geiegi oitugabeak, eta nork naiko? Zeri elduko? Guk ere norbait nai, eta artu genituan. Bañan, oriek ez dira bertako umeak: aitor au lenbizi eta arro berek egiten digute. Formosarrek askatasun geiago opa beren buruei: auek, emen gure etxean beti itxian bizitzeak ez ditu pozten.

—Ortiz ere oartu al zera?

—Oartu? Zerori ere iakitun zaitut. Bai beste asko ere. Eta, berberak aoran batetxo bizarrik gabe aitortzen. Bañan, beti izkutuan. Isilean eta aopen bakoarik erabiltzekoak ba-dirala... eta, ezeri ez ikutu, norbaitek entzungo ba'lu ere... Beti beldurrez!

—Beldur txoro txarrak ere izaten... Bestalde izkutuan iagotekoak ere asko ditugu. Etxean. Sendietan. Gizartean. Adiskideekin.

* * *

Anai IBARRONDO Loiola'n sartu berri artan ARRUPE Aita ere antxe agertu zan: onek Erroma'tik idatzi dio. Bañan, oraingoan ez beste askori bezela eskutitz xamur-xamurra baizik. Eskutitza irakurtzez amaitu zutenean, gogorik aundienaz txalo sutuak io genizkion.

Eta, aztu gabe esan nai nukeana: omenaldi asieran elkar-meza izan genduan. Ogei apaiz ortxe-ortxe bildu ziran. Bai ta Manila'tik etorritako bat ere.

Berri Ona irakurri ondorengo eskarrietan... bai! Euskalerrri'tik gazteak mixioetara abia ditezela eskatu genduan! Bear ditugu! Eta, emengoek bear dituzte!

Ez bitez beldurtu! Besoak zabalzabalik artuko ditugu.

ETXEBERRIA'TAR, S. J.



**eziketa jostailluak
eskulanetarakoak
irakasketa gaiak**

**gregorio de la revilla, 1
bilbo-11**

Jolasean ikasi, or zure aurrentzako emoitzarik onena

ERRIENAKO

BARRIAK

Mendexa

Mendexa, Amoroto, Gizaburuaga, Aulesia ta Munitibar.

Bost erri auek alkartuta, lan asko egin dabe, ta auriera egiteko asmoak ba-dituz.

Baia ez goaz orain emen, egin dituen eta egiteko dituen lan danak azaltzera. Bai ordea «Pospolin» aldizkariaren berri emotera.

«Pospolin» euskal aldizkari au, illero, umientzako bakarrik ateraten izan da.

Orain, aldizkari orretako zuzendariak erabagi barri bat artu dabe. Umientzako bakarrik barrik, nagusientzako be garrantzitsu izango dan aldizkari biurtzea.

Orretarako bost errietako idazle batzuk batu dira. Bakotzak bere gain arduria asmo sendoz artu be bai.

Uste dogu laister azalduko dala lenengo ingura. Ia ba aldizkari onek sortzen dabien ingurua auetan euskeraz irakurtzeko zaletasuna. Orañarte beintzat, zorigaitzez, asko ez dago.

ERIoTZAK

Epailaren 13'an, ezbear batean il zan «Loikis» baserriko Felix Osa. Lekeitio'n bizi izan zan.

Kastillo Elejabeitia'n Lekeitio'ko zerrako kamioa enborrez kargetan ebillea, enbor gaiñetik jausi ta enborra bere gaiñera etorri.

Bertan il zan gizarajoa, 35 urte beteten zituan egun berean. G. B. Baita epailaren 18'an il zan, «Markue» baserriko Paula Aranburu be, 81 zituala. G. B.

Euron etxeetako senide guzterie laguntzen dautsez atsekabeen.

San Jose egunean ezkondu zan, Mendexa' ko elizan, «Sebastiñe» baserriko Mari Jesus Alzibar, Lekeitio'ko Jose Luis Alonso'gaz. Zorionak!

TXAKARTEGI'TAR JOSE

Bermeo

BITOR GOTXPRI AGUR

Mutil gazte eta arrantzale jayu au, belbillean adizkide batzukaz, kanpotik etxerantza dotozala, aldi-txar bat izan eben, eta erioagaz batera bizitza galdu. Beste belbil lagunak ere zauritxu egin ziran; euron artean bat txarto.

Eupeme Deun Txadonean illetak izan ziran, eta bertaratu zan notintza ugari-tzuantzako eliza au txikiegia izan zan.

Agur Aberkide jatorra: zure lur maite onentzako izan dozun lillura edo ilusiñoak erdibituta geratu dira. Baña Andik, Goitik, ikusiko dozu Sorterri onen benetako Berbizkunda.

Bere aita-ama eta anayari laguntzen dautset atsekabe larrian. Goyan Bego.

ITXAS GAYAK

Aspaldion motel eta illun dira gure kai ertzak. Arraiñ urritasuna eta Madrid'eko jaurleri laguntza ezak... itxas langilleari buru auste asko emon dautse, eta euron arpegietan agertuten da ituntzan eta naigabea. Noz arte izango da olako bizitza? Arrantzaleak umezurtz dira.

ABESBATZA

Eupeme Deune'ko Ziñ-Txadonean, eta Bariku Gureneko illunabarrian, Kurutze Bide aldi, Bermeo'ko Abesbatzak eliz abestaldi ederrak izan dira. Beintzat Egia irakasle trebeak, eresi bidez-neska-mutil taldea ederki orniduta dauko. Aurrera eta Gora.

JULEN URKIDI

Arrasate

ERIoTZA

Tamal aundiaz jakin genduan gure lagun eta euskaltzale zintzoa izan zan, Arregi eta Albizu'tar Iñoskenti'ren eriotza. Oraindik gazte zan, 54 urte besterik ez. Gure «Agur» onen lau lenengoetako

arripeduna zan, beraz euskaltzale osoetakoa. Bere illetara ostetza aundia juan zan eta ori izan erakutsi ederra ain maite zana errian. Artu bezate bere anai-arreba guztiak neure samin-agurra, batezere Jesus Mari «Agur»en arripeduna au ere. Goyan Bego.

EUSKAL JAIA

Joseba Deuna'ren aurregunian, jai polit bat izan genuen emengo «Gurea» antzetokian. Bertan parte zutenak izan ziran: Labo'tar Mikel, Leta'tar Xabier, Aranburu'tar Miren eta Artza anaiak. Antzetokia bete-bete goi eta be eta egin zuten lana oso txalogarria.

Baita ere urrengo larunbatean ospatu zan antzerki-jai bat eta bertan lan egin zutenak, Urnieta'ko taldea. Antzerkiaren izena; Buruntza Azpian eta egin zuten lana oso txalotua izan zan. Bi agertarazi, bata arratsaldekoa eta bestea gauekoa. Lenengoan oso jende asko eta gauekoan ez dakit, baiña ez dut uste orrenbeste izango zanik. Dana dala oso ondorengo ona utzi zuten eta atzera be ikusteko gogoakin geratu giñan.

LANA

Izen onegaz ezautzen dan Alkarteak, «Cooperativa»k izan zuan utoeroko Batzar Orokorra. Emen ere ostetza aundia izan zan eta or ikusten da Lenitz ibarreko baserriar gogoz eta sutsu artu dutela alkarte-arazoa, eta benetan ez dakigu zergaitik baserriar askok ez zuten batasun-ario ori indar geiagoz antze. Batasun onen bidez baserriarrek onura asko geiago izango luteke-ta. LANA orrek bere gain daukan zeregiñak obexek dira: Baso-egurrak ebaki eta oneik landu. Esne arazoa be erabillen du. Igazko urtean irabazi aundirik etzuten izan, baiña aurrera jarraitzeko sustrai onak zabaldu dituzte. Aurrera baserriarrek gaurko aurrerakuntza guztiak zeuenganatzea lortu arte ez gelditu. Gure Euskaleria'ren oñarriak zeuek zerate.

ASTE SANTUA

Au idazten nazen unean (astarte santua), ez dakit zelan ospatuko dan, baiña bai esan nezaket Erramu egunatzaz. Egun txit ona izan zan. Jauña (meza) tara entzule asko eta oitura dan bezela erramu bedeinkatzea egin zan. Gero ibildeun txiki bat eleiz inguruan (ni izan nintzan eleizan beintzat). Pantzeskatarrena, eta gure Jauna artzen be talde aundia. Esan bezela eleiza bete-beterik eta dana euskeraz. Arrigarriko gauza izan dana auxe da: Batikano'ko II. Batzarra'ren erabakia; au da: erri-izkuntza, eleizkizumetan egiteko aukera izatea. Gure bizi geienean ikusi duguna eleizetan latinezko izkuntzaz mezak emoten, eta entzuliak ez-giñan zuzpertzten zer esanai askokin; Pater noster; Deo gratias eta olako beste laterazko itz ulertzinak. Orain berriz danak ulertzeko moduan: Gure aita; Eskerrak Jainkoari eta abar. Orain giroa poztutzekoa da; 4, 5, 6 urteko umezkoak eleizaren mezatiko galdera guztiak ondo erantzuten. Gure aita eresia abestutzen ume txiki oek. Esan bezela giro ederrian.

UDALAITZ

Arratia

Alatz, mirari, milagro... «milegresia». Lenengo itz euskalduna; bigarrena etxekotua; irugarrena erdeldun utsa ta osoa... laugarren barri-barriari bakoitxak emon begio nai dauan izena, surtuloak atzamarrez itxiarik.

«Milegresia» begipean eta atzamarrak surtuloetan imifirik, norbaiten bat itaungaldezka izango da bere kolkoari nondik natorren, nora noan, edo-ta zer argitu gurarik ete nabillan. Ifiondik ez nator, ifiora ez noa... eta otsailla (febreroa)ren 44'garrean daragiot au idazten («iskributzen»).

Batek edo bestek au ere galdetu izango dautso bere buruari orain ezkeroz: Baiña urtearen amabi ilabetetan otsailla bera motz-laburrena izanik, zelan eta nolan daiteke ba, arratiar zozoaren zozokeri au otsaillaren 44'garren egunean idatzia izatea?

Goazen orain San Mames'go naiz Atotxa'ko landara, ikusi emengoak madritarrekin buruz-buruz (aurka) jokatzten, eta gero, urren eguneko barrietan, batez ere gaitzaille izan ba'gara... «oriundos» goitik, «oriundos» betik eta «oriundos» baster eta zulo guztietan ikusi ta entzun al izango dogu, ziur askorik. Eztabaida zaratatsu ta gariantzitsuak (?) ere bai.

Guri ere, dirutza aundidun alkarteak ostikolariekin egiten dabena berbera egin daroazkue, dirala 6-7 urte euskerearen guraso izateko aginbidea eskuratu ebien areik: «oriundodak» ekarri.

Au da: odolez, muñiez eta izate guztiz euskal-mutil izan diran EPAIL, JORRAIL eta ORRIL edo LOREILLA'ri oiñak lotu, bastertu... il, eta ildakoen lekuetan MARTXOA, APIRILA ta MAYATZA, iru «oriundo» gaztelarrak imiñi ere arro-arriorik, batasuna (?) egiteko bidea dogula siñestu-azozten alak eta zazpi bosteko egitiñik.

Garagarri edo bagillerarte euskal-illabeterik ez dogun ezker... otsaillari ekin bearko «oriundo»ekin bat ez datorrenak. Gaur ba, OTSAILLA'ren 44'garrean diardut (nabil).

* * *

Ollanda-ollaskoz osaturiko dantzari talde barri bat sortu da Arratia'n. Ikasten, azurgiltzak bigutzen, Erriaren oitura zar eta ekandu onak berbiztuten... gogoia betean diardue, sanixidroetan Zeanuri'n azaltzeko lei gartsuz.

Irakaslea, dakiana irakasteari buru-belarri emona. Galdakao'ko Andra Mari talde ospetsuan danik bizkorrena. Larunbatetan eguerdiz Erri Irratituk Arrati'ko barriak emon eta zabaltzen daukuzan Rosa Mari txori zoliaren senar berbera. Arratiar dantzari-talde barrian izango ete dogu, irakaslearen alegiñez eta egiñez, bera dan lako oiñarin treberik, jayotatun izango dauanik? Orixe gura genduke!

Gura genduke, baita ere, burua ta belarrostek garbitzeko ere gaur-egun dirua bear dogu-ta, biotz oneko eskuzabal asko izatea, soñeko barriz txairo ta polit jantzirik errikerri ta uriz-uri joango diranean, gure erri onen izena ta izatea entzute aundiko ta begiko egin al dagizkuezan.

Dirua, dirua eta dirua! Ilentzat, bizi-entzat... danerako bear dogun ogia.

LANDAJUELA'TAR A.

Usansolo

ERRIKO GORABERAK

Ainbat izan dira aspalditxoan, baiña ez danak mailla bardiñekoak. Ori dala ta emen azalduko doguzanaz, gure eretxiz beintzat, intereagarrienak izango dira.

JAIOTZAK

Emaldiñe basetxea goraldur bearrean gagoz. Etxe zoragarri onetako bizilagunak orain arte bere ezagunak izan ba' dira, bai euren zaletasunagaitik euskaldun arloan, ta euren artean Jaun Antonio dantzari trebea lez, Arantza Andra-Mari dantzari taldeko auspo-soiñulari izanez, ez dira gitxiago izan igaro dan igandean Emaldiñe'ko iru adar barri bateatzera eroandakoan.

Arantza, bildurrez, euskaldunok gitxituaz goazela-edo, banan-banan barrik, bikotxak ekarri daskuz, ta Jose Mari'k, naita Arrasate'n bizi, Emaldiñe aitzu barrik daukan ezker, ta mordo ederragoa egin dagian, emen bateatu eban bere bigarren alabea, Arantza'renakaz batera.

Ainoa aren alabatxoaren izena, Unai ta Ainaa Arantza'renak. Ez da izango euskerazko izena bakarrik, ziur gagoz, ezarriko dautseena; urte gitxi barru adar barri oneik, Emaldiñe'ko lorategian ez dira makalena izango, Jaungoikoa lagun.

Zorionak danori, batez bere gure Arantza zintzo ta apalari, ta naita zuon aita dan Juan Antonio ezin aitzu, aparteko oroimen bat Arrati'ko mendu dan Juanita'ri zuon ama irribarreduna; lorategi orretan ainbat zer esan dauka-ta.

URREZKO EZTEGUAK

Beste jai eder bat euren seme-alaba ta illobakaz alkartuta, Ojanguren'tar Lusiano ta bere emazte Sagarminaga'tar Bitori'k ospatutakoa, euren urrezko eztegetan.

Euskaldun dirala aitzu eziniñik, euskerazko meza eder baten alkart maite ikusi genduzan egunari asiera emoteko, Jaungoikoari eskerrak emonaz. Zorionak eta ea ikatzarri edo diamantezko eztegetan alkartzen zarien.

ZUGATZAREN JAIA

Ludia trakestuta dagoala, gizartea gero ta txarragoa, gaurko gazteekaz zer egiñik ez dagoala, ta abar. Baiña geienok ezer egiten ete dogu irudi ori aldatzeko?

Ala geien baten izate orreri, edo obeto esanda oker dagoanari gure asarrea erakutsita gero, ez ete gara lasaitasunean gelditzen, nik neurea bete dot, esanaz?

Eskerrak danok bardiñak ez gareala, ta orrela ikusten dira noizean bein, arduradun batzuk euren atsedinari astia kendurik, ifioran umeak eziten.

Oar bat euskeratzeko, gugana eldu diranean, gogoan jausi gara zelako ardura astunean dabillan Usansolo'ko talde bat, Marisa gure adizkide dan Zamakona'tar Alberto'ren emazte azkarra buru dala, gazteen eziketari buruz.

Azkenengo egiñaldia, ta umeak izadiaren maitasunean azi daitezten, zuzatzen jai bat gertatu dabe. Ikasgai orreri amaiera emoteko, ta umeen biotz barruan ikasitakoak sustrai sendoagoak ezarri daitezten, eureri landatuazo dautsez mota guztietako zuzat landarak, Udal-Etxeak zeregin orretarako itxitako lurretan.

Eskerrak bai zuoi ta Alkate jaunari, Erriko umetxoan alde egindakoagaitik, ta jarrairu nekatu ta aspertu barrik.

Amaitu bear dogu, baiña ori egin baiño len, lurgintzako Peritoa eskertu gura geunke, bai bere ikasgaiagaitik, baita bigarren erakustearen ondoren, Kili-Kili'koak euren asteroko ikasgia eukela entzun ebanean, bere biotza gurrez, arein andereñoeri eskatu eutselako mesedez ea euskeraz eurentzat izkalditxo bat egin leikean lengoaren ganetik, berak eukan izadi maitasuna euren gan itzulitako, baiña bere jaiotzako izkuntzan.

Ez zaitugu ezagutzen, baiña lerro oneik irakurten ba'dozuz, eskerrak asko. Ekin ta jarrai.

ATXUTEGI'TAR BITOR

Galdakano

DERRIGORREKO OPORREAN

Lerro oneik idatziten gagozenez, berrogei ta amairu egun daroz derrigorreko oporrean, Firestone landolako iru mila edo geyago lengillek eta euren arduradun batzuk be. Derrigorrean esan dogu ta alente da, ba, euren asarrea erakutsi ebetako landola barruan, langille onen «orderkari» lez aurkitzen ziranen epelkeriak erruz, landola barruko araudiak geruago ta estuago ta, beraz, zatarrago oyazala ikusten ebetako langilleak, landolatik atereak izan ziran-da.

Amabost bat egun geruago, langille orreik deitua izan ziran, baiña aldi artaraino lortutako euskubide guztiyaz galduta eta, txarrena, euron, langille onenrengoz ibilli ziralako ziralako-edo, amasei langille sartu barrik geratu bearra izango eben. Eta ori ikusirik, eta alkarreganako laguntza onarekin, langille kementisu orreik «danak edo iñor be ez» erantzun eben. Eta gure uestez, ondo erantzunda, ba, langille orreik dirauskuezen, errazoi guztiya dabe euvok, baiña, ori ta guzti be iñor ba'lego errudunik, edo egotekotan, danak dirala bardin, danak dirala bardin, danak batera eta eretxi bardiñez erakutsi ebetako asarre ori.

Onelako asarre ta alkar uleru eziniñetan, beti izaten dira batonbatzuk, azkaragoak diralako edo ausartuagoak diralako, arpegia emon bear izaten dabena; eta orretaiako langilleak, naita langille onenak izan, ez datorrioz ondo lantegiari, batez bere lantegi andei, eta iñondiko atxakirik aurkitzen ba'dabe beintzat, aleginduko dira barriz sartubarik itxien.

Lerro oneik idatzi doguzaneko, zigortuak izan diran amasei langille orren auzia ikusia izan da Bilbo'ko Langille Epaikuntzan eta bertan egon ziranak esan daukuezen argi ikusi ei-zan langilleengain eguala arasoia baiña gaitz izango dalakoan gara oneik irabaztea; bekoentzat laguntasun gitxi daukan goitik berako lage-barruan bizi garelako aspaldiko urteotan.

Gaiñera, oporrean doguzan langille orreik irabazten ba'dabe, nora begiratuko dabe orain oporordeko eskirrol lez landolan aurkitzen diran bostean edo geyagok? Egiz, eneuke euron praktetan egon nai, ez orixe! Dana dala, lerro oneik argia ikusi baiño len zuzenduko al da opor ori, goseak iñor artu baiño len.

EDURRA!

Orixe, edurra aurkituteko asmoz joan ziran epallan 3'gn igandean, Erreinoso'ko mendietara, larogei ta amarren bat erri ontako neska ta mutil mendizale, yende-berebil andi baten. Eta bidean eta bertan aurkitu ziran baita beste basauritar ta arrigorriatar lau yende-berebil andiekin be.

Esan dogunez, edur billa joan ziran, eta, ainbat eta tankera oneko ei-egon eta pozez itzuli ziran etxera, edur zuri artean guraitze ibilketa egin ondoren. Tira ba neska-mutilak! ea oraingoan edurrez asetuta etorri zarenen.

BASA-JAUN

ARTEAGA

Alako baten amaituko dabe Ibarrangelu' tik Gautegiz Arteaga'ra, itxasertzean, ur- egalean, Kanala'tik zear doan bide nausia zabaltzea.

Euskerearen esan eta oguzteko era bateri begiratzen dautzagunok, jota eta t bustien errialdea billatzen dogu emen. Euki gendun guk be izki edo letra busti eta igortzien giroa. Izki askori txapela ipinten alegintzen giñan giroaren menpetasuna. Itzik, barbarik sako- nenak be biguntzen alegintzen giñan aldia. Maitasuna be, idatziz beintzat, samurrago erakutsi nai gendun denporea; kutunkeria bera biozkor eta gozoago agertzeko arduraz ibiltzen giñan adifña. Gaur be, idatzeko erreztasunak lagata, gogotsuago dot eta berez urtetan dau berba samur eta bustiok diran lez esatea.

Ezin ukatu idazkeran zabaldu gareanik. Idegi. Kanala aurreko ondartzu luzean kre- saletan zabaldu eta bere azala idegiten daben margolen antzera. Murueta aurreko basatze- tan, zuloak billatu eta gatz apur bat sartu ondoren gatzaren emonera bat batean azalera zorrotz urtetan daben itxas-lasto edo muergoen antzera. Eta arratierrei eta txorierritarrei errezago yoaken erara makurtu giñan; beste errialdetako euskaldunen eretara urreratu; zorrik ez geuntsan erreztasuna irarkola eta makiñei eskiñiz; askotan biguntasuna biurrituz eta zailduz.

Buru gogorak ei giñan! To! Nork nori sosuak beliari... Euskalerrian gu bakarrik ba'giña lez setatsu eta zital eta odol bero.

* * *

Itxas bitsa ikusi eta itxas arnasa artzen nator.

Ibarrangelu'tik urten eta ezkerretara Akor- da'ra joan naz lenengoz. Burua argitzeko, kaskarra esnatzeko iflorena ez lakoia ei da emengo Andre Mariaren bitartekotasuna. Akorda erri izenetik akordatzea, gogoratzea, aritzen dabenak luze duaz euren irudimenez.

1520'n jasotako eleiza. Eleizpe aizetsua. Plaza txikitxo bat. Akorda'k saltzeko aifña bake erakusten dau inguru orretan. Aurrez aurre Ogoño'ren lepoa.

300 bizilagun, danak baserri bizian.

* * *

Bidera eratsi eta Laida eta Laga'ko ondartzak. Neguan itxasoa brastadaka, olatuak euren aize-errotetan etetean goratzen daben txipristiñez inguruak likinduz.

Kanala. Txalet barri eta baserri zarren ostetasuna, kontrastea. Udarako portu txiki eta ontziena gordelaku baretsua. Etxadiak erri birenak: Sukarrieta'rena zati bat eta bestea Arteaga'rena. Inguruetan Bizkai'ko ostra le- kurik aberatsenak.

Eleiaz, Legendika'ko Andra Mariren ize- nekoan batera alkartu eta sartzen dira inguru- tako etxeak. Eleiz au egin aurretik amasei etxe Sukarrieta'n sartu bear ziran. Ara jo, ango Ander deunaren parrokira joan bear jaietan eta bestelako premiña gustietan. Beste amalaurak Arteaga'ra.

Arteaga'koak, bide errezago eukita be, las- ter lortu eben eurentzat parrokia egiteko bai- mena. Besteak nekezago. Luzaro ibilli ziran eztabaidetan. Kontuan euki Kanala'tik Suka- rrieta'ra igaroteko, ibai zabala dagola eta itxasoa aurre-aurrean, beraren gora-berak egunero birritan sentidu eragiten. Beti ez da egoten txalupetako giroa.

Orrela bertako 30 etxeen artean egin zan eleiza. Esateko ez txiki ta ez andi, bai bien arteko.

Saso aretan Sukarrieta'ko bizilagun ziran kanalatarrak, abizen oneik eukezan, orduko eskabide eta agirietan irakurten diran lez: Arana, Arketa, Beitia, Garunaga, Gaztañaga, Learreta, Meaurio eta Ugalde.

* * *

Goazen aurrera, itxas giroa laga barik, nai eta ibaia gero ta urrunago ikusi. Arteaga'n be billatuko dogu itxas usaiña. Itxasontzi andietako kapitanean andrak miradore zabalak daukez etxeetan. Gogoratu:

Begira nago, begira
or goiko bide barrira
noiz etorriko ete dan
maitea neure errira.

Lengo gizaldiaren asieran, gerrarako ser- bitsariak eskeintzera erriak beartzen ziranean, zortzi lagun emon bear izaten zitun Arteaga'k gerrako itxasontzietarako.

Urtetan ba'gabiz, 1740'n egin zan kontu arte baten, 300 kintaleko ontzi bat eta gabarra bi billatu zituen emen. Kanala'ko ondar sokondoan euren euren lotzeko tokia.

Geroago, 1800-1810 urteetan, txalupa jaube edo erabiltzalle lez, or billatzen doguz emengo Jose Aldamiz, Juan Bta. Araunaga, J. B. Beckoetxea, Manu eta Jose Etxebarria, M. Gaztañaga, Joannez eta Gabriel Meaurio eta abar.

Izan be itxas ertzak berak agintzen dau itxas bizitza erabiltzea.

* * *

Erri txiki eta apaiña da Arteaga. Milla lagun. 14 km. Bide zabala, kamiñua erdiko kale. Gernika'tik sarrera bakarra. Lekeitio alderako, gu sartu gareana itxas aldetik edo ta Ereño inguruko aldatza igarota. Bide bi be ba dagoz arako.

Erri burua, kaskoa, Zelaieta'n. Oartu. Telefonikaren listetan be, aren izen erreska- detan be, Zelaieta izenpean billatu bear dira emengo urrutizkiñen gora-berak eta ez Gau- tegiz deituran.

Parrokia Andre Maria'ri eskiñia. Ez jakin noizkoa. Bere ate bat XIII gizaldikotzat dauke.

Jesuitak euki eben emen etxe bat Loiola'ra joan aurretik. Ez luzaro.

Gernika'ko batzarretan amalagarren jar- lekua eukan emengo ordezkariak.

Ginda eta kereiza onen entzutea dauke bertakoak.

XVIII gizaldiaren asieran 88 etxe egozan eta 360 bizi-lagun danetara. Gizaldi orren azkenean 120 etxe eta 772 bizilagun. Kontuan euki leiken bat: Asieran, 88 etxetatik, 25'n bizi ziranak errenteruarak ziran. Besteak etxe jau- beak. Eun urte geroago amar etxe geiago eukezan etxe jaubeak, baiña errenteruarak asieran baiño iru bidar geiago. Orrela, gizaldi baten barruan etxe jaubeak urritzen joan ziran eta errenteruarak geitzen.

Iru burdiñola egon ziran. Ojangoiti'n, Olaeta'n eta Jausoro'n.

Goitisolotarrak XI gizaldirako ba eukan emen euren jatorriko etxea, bai Albiz abizene- kuak be.

Gaur, Arteaga biziteko toki baketsu bat da, irabazpidea kanpoan billatua. Bere erri- buru txikia, kapital txikia, irakaskintza, sal- erosketa, dororetzeko, jolas eta jaietarako eta gaurko bizi-moduaren eskabide askotarako, Gernika da.

* * *

Arteaga'n sartu orduko etxe batek dei egiten dau. Gazteluak. Torre zarra, gaztelu biurtua. Emengo ikuspegi eta osotasunean, arrotz geratzen da.

Napoleondarrak euren arkitektoari agindu eutsen Arteagatarren torre zarra barrizatzeko.

Au da gertaerea. 1856 urtean Eugenia, Napoleon'en emazteak, seme bat sortu eban. Bizkai'ko Batzar nagusiak pozez eta-arro- miñez artu eban jaiotza ori eta urte bereko Garilla'ren 17'ko batzarrean erabagi eban bizkaitar jatorriko etsi bear zala printzipe ori, bere amaren odolez Arteaga'ko ondoreneko zalako. Nortasan ori ezagutu erazteko Lacalle eta Lekerika aldunak izentatu ziran eta Bia- rriitz'en artu zitun Napoleon'ek.

Ortik etxe au gertatzea, torre zarra jauregi eder biurtu naia. Couvrechek arkitektoa izan zan lenengotan orretarako izentatu ebena. Baiña zerbaitek kalte egin eutsan Arteaga'n eta sukarrez il. Ondoren Ancelet'ek artu eban ardura ori. Lenengoaren asmao aldatu eta bere erara amaitu eban.

Baiña napoleondarrak ez eben etxe onetan biziteko aukerarik artu. Aita il zanean prin- tzipea Afrika'ra joan eta bera be an il. Amak ez eban bere bakartadean ona etorteko ado- rerik artu.

Etxea or dago, ikusgarri baiña uts.

* * *

Ietarrak gogoratzen dakie. Ereñozar'eko mendi tontorrean meza emoten zanean, ingu- ruetako etxe asko bertara joatera beartuta egozan. Sasoiko oitura eta siñismenaren loka- rriak. Eta eten nai ez gaiñera, azurak sortu eta okertuta be.

Bedaru ondoko baserri bat egiten zan arako urrutien. Orduak bear. Joaldi luzea mendi-bidez, Ereño'tik gora be.

Abadea zain egoten ei zan, etxe jaun ori eldu arte. Ez ei eban mezarik asten ondo eldu ete zan itandu eta baiczkoa artu arte. Baiña berak be, erdi bertsolari, ango artadien arte- tik agertu orduko, eguneko giroari egokion agurra luzatu eta esaten ei ekian:

Ba dator, ba dator azkena,
etxetik urtetan lenena.
Esan domine dominena,
erantzungo dot nik amena.

Ereñozar'eko ermita ori inguru guztietatik errez ikusten da mendi tontor punta zorrotzean. Ez dauka galtzerik. Ereño'n, etxe artea igaro orduko, an dago iragarrita bertako bidea. Mikel deunaren izena daroa, baiña Andra Maria'ri eskiñitako ermitea da.

Mendiaren gibelean, Kortezubi aldetik, Santi Mamiñe.

A. ZUBIKARAI

AGVR

Apartado n.º 2
BILBAO

FRANQUEO
CONCERTADO
08/55



ZUGATZAK

Usansolo'ko gurasoen Alkarteak eratu ta bultzatuta egoan asmo ederra eskolako umeak bete dabe, Bizkai'ko auzo aretakoak dakiten bezela.

Egun batzuk lenago ta umeak apur bat berotzeko «Baserriaren Lagunak» alkartekoa dan Egileor Jauna, peritoea, deituta ekarri eben. Jaun onek arratsalde biren buruan errez-errez eskeñi eutsoen umetxoeri zugaitza zer dan eta zenba- teraifñoko mesedegarri dan gizonarentzat.

Berbaldiekin batera «pelikula» batzuk bota eutsezan, baserriko lanak gaitzat eukezenak euren artean, zugaitz-landarak zelan ipintzen diran iñoenak, baita baserri lagunarteko lan batzuen erakusgarriekin be.

Urrengo Igandean, Epaillaren 23'garrenean, naizta egun euritzua izan, landarak sartu ziran.

Orretarako, landara bedeinkatze ondoren, txistu ta tambolin soifñu alaiaren laguntzeagaz, ume bakoitzak zugaitz bat sorbaldan eroiala, Alkate Jaunak agintzen eutsoen bakoitzak bere arlorra jo eben. Olatxe eta euri zaparrada artean, banan-banan sartu ziran zugaitz guztiak. BERROGETA BOST amerikako areitz deritxonak, jai aldi eder orretarako berezki ekarriak.

Olako jai aldiak umeak izadia ezagutu daiten bardin bakoak dira ta eza- gutuaz bene-benetan maitatzen ikasi daiten.

Umetxoeren artean 3 urteko bat egoan, Imanol, mendira bildur barik igo ebana. Ori da jatorra izatea Imanoltxu! Olan egiten da, txikitatik gauzak ondo egiten asi, gerotxuago nagusien gauzak obeto egiteko! Jarraitu bide orreri ta bildur barik... aurrera!

Olako egun baten, zelan ez! neska mutiltxoeren txamarrak, anorakak eta gonak basaz bete ziran. Alan da guzti be umetxoak (eta gurasoak geiago) pozaldi galanta artu eben, batez be, eurekin batera guraso batzuk egozala ikustean. Olako jai eder bat ez jake umeeri azuko, batez be, irakatsiak seriotasun osoagaz egiten ba'dira.

Goraltzekoa da baita be Usansolo'ko gazteen kemen eta laguntza ederra, eurak izan ziran ba, guraso batzuekin, landara sartze onen gidari ta zulo egille.

Benetan pozgarria ta atsegiña da olako lagunarte bategaz lan egitea, batez be, gurasoak, gazteak eta umetxoak, agintariak eta maixuak aurrean dirala, alkarregaz lanean ikustean. Olako lagunarte batek goren maillako elburuak bete leikez.

Zugaitz bat sartzea askok uste daben baiño gauza garrantzitsuagoa da: Gizonarentzat aterpea izanik, ainbat atsegin aldi emongo dautsoz eta giro pozoituarentzat jabolerik onena da, kontamiñazioa dalakoarentzat aurkalaririk sendoena.

Aurrera usansolotarrok. Zaindu ain maitekor sartu dozuezan landarak eta orrela atsegin aldi galantak izango dozuez asi dozuen lan eder orregaz. Ea datorren urtean olako beste jai bat eratzen dozuen, olako irakaskintzak iraun- korrak izan bear dabe-ta.

Barrero be aurrera! Biotz-biotzez ZORIONAK!

ZUGATZ



PENTSABIDEAK EUSKEREAREN IZKELKIAK

NASTE-AROA

Gure denpora au, gauza askotan dogu naste-aroa. Ez dira gauza asko argi ta garbi agertzen eta berez argi dagozan gauzak norik illundu be izaten da.

Eta naste au jakintza ta gizarte-abar guztietara sartzen da: Erria, gizarte-ausia eta erlejiñoa bera be, Euskalerrria kontuan dogula, ez baitu egiten dira gaur.

Arrisku aundiko aldia da ba gurea, eta ez garrantzi txikikoa be.

OINARRI BATZUK

Geure pentzabide edo eretxi-bideetan beti bear doguz oinarrri batzuk, eta gaur iñoz baiño bearrago. Oinarrri oneik argi ez ba'daukaguz, labankada ta jausketa asko ta ugariak izango doguz.

Itxaso zabalean eta ekaitz ikaragarrien artean aurrera egin bear dogunean, iñoiz baiño argiago jakin bear dogu ipar-aldea zein dan eta geu norantza goazen.

ERRIA

Gure pentzabide oneitan Erria kontuan artu eta gaizkatu bearko dogu.

Ba ditu gure Erriak arerioak eta ugari izan be. Eta ez bakarrik kanpoan, barruan eta erriko semeen artean be bai.

Lenengo, geure Erria zein eta zelakoa dan ondo ezagutu bearko dogu eta bere nortasuna agertzen daben izakera bereziak zeintzuk diran be bai. Eta izakera oneik ezereen truke ez doguz emon bearko: ez diruagaitik, ez agintaritzagaitik, ez alkatasuna gaitik, eta ez beste ezer-gaitik.

Ba daukaz Erriak, asieratik bereak iza ez arren, gero beretu ditun izakera zarrak, eta oneik onartzekoak izango dira Euskalerrriak beretuta be ba daukaz eta. Gure Erria izakera batzuk beraganduten ez da txarra izan. Esaterako jolasketak, lanak, eres edo lan-tramankuluak, eta abar. Antzera beretu ditu inguruko izakera batzuk be, baiña beretasuna galdu barik, Erria bizi dala.

Ez dogu onartu bearko ba Erria aintzat artzen ez daben ezelako pentzabiderik.

GIZARTE-ARAZOA

Ez da makala gure Erriak daukan gizarte-arazoa edo sozial-arloa. Eta emen sartzen da etorri-barrien arazo bildurgarria be, zati on bat.

Urtenbide bat billatu bearko jako arazo oneri, baiña Erria kontuan dala.

Beste onen antzeko lan baten, AGUR? en, esaten zan lez, Erri guztiak langille-di zapaldua goratzeko bideetan, lenengo, Erri-bidea artu dabe. Ez ete dau gure Erriak izango orretarako bear dauan beste nortasunik? Ala munduko langillediagaz bat egingo ete dogu, euskaltasuna galduta? Edo, arrisku aundiagokoa litzake beste au, beti zapaltzaille izan doguzanakaz bat egingo ete dogu? Zeren truke salduko genduke gure Erria olakorik egingo ba'genduke?

ERLEJIÑO-ARAZOA

Esukalerrriak kristiñautasuna beragandu ta beretu dau.

Eta beraganatze orretatik ez jako kalterik etorri, edo mezedeak ugariago etorri jakoz beintzat.

Onetan be gaur pentzabide ondo baragarriak agertu jakuz.

Ezetan izatekotan, erlejiño gaitan eretxi ta pentzabide guztiak itzaltasuna izan bear jake, baiña itzaltasun orrek geureari eustea ez dauku galazo bearko. Ez dot uste gure Erriari Barri Ona zapaltzeko ta sakontzeko ezelako eragozpenik ezarri bear danik. Bai ostera kristiñau-bideari indarra emon, izan leikezan errikerietatik garbitu, euskal izakerearen barru-barruan sartu, antxe legamiñako oreari emon bear dautson indarra emon dagion gure Erriari.

Ikusten dan lez, gauza guztietan oinarrri, Erria izan bear dogu, eta itxaso nastatu onetan bide ziurra aurkitu gura ba'dogu, Euskalerrria'rentzan onena dana billatu bearko dogu, beste ezelako zirena deitzaille abotsai jaramonik egin barik.

IZKELKI-IZTIA

Izkelki-iztia edo dialektolojia gaurko izkuntzalariai oso gogoko jake. Gaur egun indar aundia artzen dau ain barri ez dan izkuntzalaritza-abar onek.

Errez aditzekoa da garrantzi ori.

Izkuntzea da gizonaren asmakizunik aundiena eta gizonaren adimena ta barruko izakerea bide orretatik agertzen jakuz. Baiña gizonak ez dira idazle ospetsuak bakarrik. Gizonik geienak beragoko mailla baten bizi dira. Eta be-maillako gizon onein jakituria ez da agertzen liburu aundi ta ospetsuetan, bere eguneroko izkuntzan baiño. Eta eguneroko gizonen izkuntzea, orixe da izkelkia edo dialektoa eta izkelkiaren barruan agertzen diran beste izkera bereziak.

Gaurko izkuntzalariek, eta jakitunak, billatzaille izan gura dabe. Eta billaketa edo inbestigaziño onetarako izkelkien mundua luzea ta zabala da. Izkuntzen kondairan ba dago zer billatu, lan onei diakronikoak edo aldirik aldirakoak deritxe, baiña eguneko izkuntzan be zer-billatu ugari dago, au lan sinkronikoa edo aldikoa da. Erri bateko edo errialde bateko izkerea aztertzen asten garanean, ain ugartasun aundia agertzen dan lez, zugatzak zugatzia estaltzen dau errez, baiña billatzailleak poztasun aundia asmatzen dau siñistu-eziñeko aberastasun orreik aurkituaz eta banatuaz.

Lan onek beste ondoren on bat be ba dakar.

Toki askotan euskerea galdu egin da edo galtzen dago. Olako lan bat egin dan lurraldeetan izan diran aberastasunak ez dira galtzen, ango euskerea galdu arren be. Ori esan bear gure Azkue aundiak egin eban billaketa txiki bateri begira: Aezkoa'ko izkerea aztertu eban apur bat.

GURE ZALETASUNA

Ez gara gu, euskaldunok, geiegi izkelki-zaleak. Gure Erriaren aberastasunak ez doguz larregi kontuan artu gai onetan. Jakin be ez dogu egin aberastasunak diranik eta orrexegaitik erriko euskerea bertanbera itzia, Erria bera itzi dogu.

Erbestetik etorri bear izan dira, bai lenago baita gaur berton be euskalki-zaleak.

Luis Luziano Bonaparte Printzea gogoratu bearko dogu lenengo. Onek lan sakona ta zabala egin eban eta orretarako lagun trebeak billatu zituan; Uriarte esaterako. Baiña izkalki lan onek jarraitzaille gitxi izan dau eta azi ez dan ume eder bat lez geratu da.

Azkue'k be egin eban zerbait, baiña ez lan sakon ta zabala edo billaketa-arauai lotua. Ba zan zerbait egin ebana eta txalogarria izan be, baiña jarraitzailleak bear zituan.

Gaur egun gai onetan lan egingura bat agertzen da. Ba dira an-or-emen billaketara sartu gura dabenak.


Arduratsu ta gogotsu diardu gure Irizar'tar Pedro'k Madrid'en. Begien aurrean daukaguz beronen azkenengo liburu bi, «Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País» ek argitaratua lenengoa 1973'ean «Los Dialectos y Variedades de la Lengua Vasca» eta bigarren azen bardiñagaz eta urte berean «Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo»k argitaratua. Lenengoan izkuntzalaritza eta erri-zenbaketa alkartzen dira eta bigarren azen galdu diran eta galtzeko zorian dagozan euskalkiak aztertzen ditu. Biak dira ondo egiñak eta oso gogoangarriak. Gaia adierazteko irudi oso egokiak ditue.

Patxi Uribarri'k ta Pedro Pujana'k be olako zerbait egin diardu entzun dot. Deustu'ko Karmele Rotaetxe irakasleak be antxiñatik diardu Ondarroa'ko izkereari buruz bere maixu-lana edo «tesis» a egiten. Ez dakit amaituta daukan ala ez. Neronek be egin neban neure maixu-lan txikia edo «tesina» Mungi alde, Bermio ta Ondarroa'ko euskal abostegiari edo «fonetika»ri buruz. Eta Maixu-lan aundia edo «tesis doctoral» egiteko Bizkai'ko esakerak batuta daukadaz, baiña asti gitxi izaten dot lan ori gogoz artzeko.

Zerbait egin-gura bat agiri da ba. Ikusiko dogu noraiño eltzen dan gurari au. Gaur ikasle asko dira zaletuak eta itxaropena izan geinke.

BILLAKETA-BIDEA

Irizar, bere liburu bi oneitan ikusi daiken lez, goitik asten jaku: euskalki aundiak aztertzen ditu. Baiña ba diardu be-maillako lanen bat egin be, jakin al izan dogunez. Uribarri ta Pujana, ostera betik asi dira eta neuk be bide onetatik ekiten dot.



Baiña oraindik ez da agiri ezelako erakunderik eta au alperriko lan asko egiteko bidea da. Norik alkartu langille oneik? Norik asmatu Euskalkien lur-irudi txorta bat egiteko bidea eta erakundeak? Laguntzaille trebeak, erdeldunak eta onetan lan sakonak egin dituenak, jakiña, izango gendukez trebetasun edo teknikarako. Euskerearen Atlas edo irudi-txorta ori benetan lan txalogarria izango litzake.

Euskalki-billaketa onek iru arlo izango leukez gitxienez: Iztegiarena, itz-osotza edo morfolojiarena ta abostegi edo fonetikarena.

Azkenengo arlo onetan izan dira nire lenengo oinatzak, eta arlora sartu nintzanerako, Erriak eukan araudia, berak jakin barik, siñistu-eziñekoa zala ikusi neban eta or agertzen dan erri-jakintzea neurri-bakoa zala konturatu nintzan.

Lenengo abots-bakarrak edo bokalak erabilikeran.

Abots-bakar bi, esateko gatxak, alkartzen diranean erri bakoi-txean bide bat artzen da eta ziurtasunaz jarraitzen jako. Eta urteak joanaz aldakuntzak egiten dira, erreztasun aundiago baten billa. Eta or erri batzuk beste batzuk baiño atzerago aurkitzen dira gaur berton, aurrerena Ondarroa ta euslariena Arratia dirala. Eta emendik lege eder bat ateratzen da: Euskereak abots-bakarrak ixtera dauan jokera indartsua.

Eta abots-ixte au agokaldi edo silaba batetik bestera be egiten da, «metafonia» deritxoe erdeldunak antzeko jazoera bateri, baiña gure metafonia ta erderearena atzekoz-aurrerakoak dira, izkuntzea bera be, bere joskeran, olakoa da ta. Ixte onetan /i/ ta /u/ abotsen indarra agertzen da ugari, oso ugari. Esaterako «eun de bi». Jazotera au aurkitu eban Azkue'k berak be beste euskalki batzutan.

Abots-lagundu edo konsonanteetan be antzeko ugartasuna aurkitzen dogu eta emen izki iraultzaille /i/ abotsa dogu: albotikoak agogaiñeratu (opilla), agiñetako gogorra agogaiñeratu (Aita, Aite, Aitte, aixe), agin-obiko txistularia agogaiñeratu (gaizoa, gaixoa), agogaiñeko batetik urrengora (egin dot, iñjot), agogaiñekoak iguzi...

Abots-lagundu bardinduen edo artxifonemen arazoa be ugartasun aundikoa da euskeran, eta orretarako gogorrek gozotzea eta gozoak gogortzea aztertu bear (ez da-ez ta, onto-ondo), edo surretatzea (campana-kanpaea, catena-katea).


Euskereak ba dauka abots lagunduak eta bakarrak galtzeko jokerea be eta ez txikia, sarritan erdiak be galtzen dira (ba ezin ba' dozu = bazin bozu).

Antzeratzak edo asimilaziñoak be indarra dauka (ez leukeleuke).

Ba dago ba ugari zer aztertu ta zer billatu.

Gauza ederra izango da, egun baten, gure izkuntzearen jokera jakinda gero, jokera oneik beste izkuntza batzuen aurrean jarri eta antzeko edo ezberdin diran arauak ateratea, orretan izkuntzalaritza bardinkatua edo «lingüística comparada» kontuan artzen dala.

Sarritan burura etorten jat olako lan sakon eta eder bat egin talde on baten asi bear gendukela. Noiz izango ete da egun aundi ori! Zain nago.



Euskerearen Antzekoak ERAGIÑEZ EZI

JAKITUNAK ESANA

Mndu guztian ibillia ta ludiko izkuntzai buruz jakitunik aundienetarikoa zan Humbolt jakintsuak esan eban: Mundu zabalean ez dago euskerea ainiako izkuntz erritar bizi, garbi, mintzari, gozo ta txeratsurik.

Larramendi Aitak be esaten eban: «España'ko lenengo izkuntza euskerea da, eta ango alderdietan mendi, erri, aran, ibar eta ibai askok euskal izenak dauke».

Beste eskoladun batzuk be España'ko lenengo biztanle zan Tubal'en izkuntza euskerea zala ta sartaldeko lurraldeetan, esaterako Prantzia'n eta Italia'n, izkuntza beru balduta egoala uste eban.

ARTERTZE BAT

Baiña oraingo gizaikiak (belaun-aldiak) euskereak inoren antziz ez izatea ta euren izkuntzea alkarbidetik aldenduta eukitea gurago dabe.

Aundikeri okertuak eta jatorriari buruzko siniste okerrak, euskerea ta euskaldunen gauza guztiak zerutik, ondasun orreik merezi ez dauzan mundura mirariz jausi dirala, uste erazoten dau. Beraz, ez dabela bear inoren alkartasunik edo Tubal'egaz ta iberotarrakaz aidetasunik. Naikoa dabela bakartasun illun baltza. Orretan gaurko euskaldun batzuk ume-poztasun bat daukela dirudi.

Asmakizun au erakutsi ta onartzen ba' dogu, bere alde izanez, beste alderdibako ta itxuradunago dan eretxi batek urten lei. Bete egia erdian.

Ez da uskerea Tubal'en izkuntzea, ez da gizagi ilkorragaz zer-ikusirik euki bear ez dauan zeruko ugartexu bat.

Zalantza barik, edesti-aurreko azken-izkuntz baten aurrean gagoz, ez besterik. Zertzelada askogaitik aienaturiko munduaren erliki oroigarri lez geratu jaku euskerea.

Euskalerrri'ko giza-taldeak, miragarriko euslea izanik, euskal-izkuntzeari eutsi dautso eta orixe izan da bere iraupenaren ezaugarririk setatsuen ta burutsuena.

INDI-EUROPA'RREN ARTEAN

Gure euskerea ugarte bat lez dala esaten da, eta ugartearen antzera indi-europar izkuntzen itsasoz inguratuta dagoala.

Antxiña eusko-izkuntzearen lurralde-mugak oraingoak baiña zabal eta luzeagoak ziran. Batez be eguzki-alderuntz erabillitako toki-izenak eta izkelki berba batzuk lenagoko euskerearen zabalkundearen ziñezlari dira.

Erromatarren garaipenaren asikera-aldian, Aragoi ta Katalunia'ko mugartean, gaur Lerida dan alderaiño euskertz egingo eban.

Ez da gauza ziurra, baiña inoz esaten da au be, lur-beso edo península guztian eskualde geienak euskera egingo ebela.

Inoz ori jazo ba'zan, askotariko sarraldiak ezeztu eban an gure euskerea.

Euskerea bide dala egin diran azalpen ospetsu batzuk, esaterako Granada-ondoan Iliberis/Iri-berri (Villa Nueva), eziñak ez dira, baiña ba ditue beste azalpen batzuk be.

Beraz, Euskerea Europa'ko sarkaldean edestiaren asieratik bakarrik egoala siñistu geinke. Mugak, Adour eta Ebro edo Nerbion Garona ta Noguera'stik arago ez ziran balduten.

BAKARTASUNA APRIKA'RANTZ?

Euskal-bakartasunaren arazo onek izkuntzalariak arduratu ta arazotu-azo eta euskerearen aide urkoak billatzera bultzatu ditu.

Eta orain arte zuzenbide bi artu ditue. Bata egoaldera, bereber eta beste Aprika'ko zurien izkuntzakin antza erakutsiaz.

Auxe zan Unamuno Bilbo'tar jakintsuaren eritxia.

Eretxi ori onartua izan ez arren, gaur euskereak Ipar-Aprika'ko berbeta batzuekin antzak ba dituala ezin ukatu. Gure lur-beso ta Aprike'ren artean izandako artu-emonak izanik, au adierrez eta ulergarri izan leiteke.

KAUKASO'RANTZ?

Beste zuzenbidea Kaukaso'rantz izan da. Ango izkuntzen iztegiak, euskerearekin bateratasuna dauke.

Kaukaso'tar eta euskaldunen arteko iztegien bide-alkartzeaz jardun daikegu. Baita morfoloji-bateratze ta izkuntz egituraz be.

Kaukaso ta euskaldunen artean artu-emon eta alkarbideak, zurtasunaz egin nai dirala esan bear dogu.

Alkar-bide au antxiña-antxiñakoa ta edesti-aurrekoa benetan.

Bouda irakasleak, bere aldia burdin-erabiltze garaira baiño antxiñagora daroa. Jazokun orrek, Kaukaso'tarrak eta euskaldunak eragimen bardiñak ebezala esan gura dau.

ERROMA'TARREN ALBOAN

Baiña euskereak, kondaira-auzo ta alkarbizitza aldetik, beste aidetasun bat be ba dauka: Sarkaldetik eta Erromatarrekandik datorrena.

Euskal-abotsen araua, Gaztela'ko erde-arearen antzekoa da, onen bost agozkoak geurreanank dira. Eta euskereak eraginda, «v», «f» eta «h» izkien soñuak galdu ebazan.

Joskerea ta iztegia ez dira ain bardiñak, naikoa ezbardiñak baiño.

Eta España'ko erdearek euskerearen aibat berba daukozala guztiok dakigu, baita Euskalerrri'ko lurraldearen ondoan bere sarrera izan ebala be.

EUSKERA MAITETU DAGIGUN

Idazlan onen egillearen gurari bizia auxe da: Euskaldun guztiok geure izkuntz bat eta eder au maite dagigula, eta beroneri sendo ta setatsu eutsi dagoigula.

Orretarako, gogoratu Humbolt jakintsuak esan euskuna eta neuk asikera indat-aldatu dodana: «Mundu zabalean ez dago euskerea ainiako izkuntz erritar bizi, garbi, mintzari, gozo ta txeratsurik».

Baita filoloji-jakintsuak diñoskuena be. Oneitariko batek, Oslo'ko ikastetxe nagusiko Noruega'tar Mr. H. Vogt irakasleak diñosku: «Guk, atzeritar aztertzailleok, euskaldunak euren izkuntza erabilli, sakon ikasi ta eutsiten aleginduko dirala itxaroten dogu... Euskal-izkuntzak jakintsuarentzat itzalezko onurea dauka. Euskerea ilten ba'da, etorkizuneko aztertzailleentzat misterio adikaitz askoren giltz-arria emoten daskun altxor eder bat galdu egingo da».

LETONA

BIDE BARRI BAT

Eziketan, kendu ziran antxiñako ezibideak. Urte asko dira ori egin zala. Ezibide barri batzuk agertu dira eta barriak diran bestean dira eretxitsuak be bide oneik.

Guztiak izen baten alkatuaz, «Egiñez ezi» edo «Egitezko eziketea» esango geunskie.

Ikusi dagigun labor-labor zeintzuk diran eretxi onen bide barriak. Eta bide batez, bide onein alderdi onak eta garrantzia agertuko doguz.

Baiña asieran bertan argi-argi esan dagigun zerbait: Egitezko eziketa au, beste eziketa batzun antzera, «azkatze-eziketea» esaterako, iraulteka oso bat egiteko gai ez da berez, gure gizarte onetan. Ikusi begie argi au, gauzak sakon aztertzen ez dabezenak eta bide arrigarriak errezegei aurkitzen dabezenak.

ZER DAN

Egitezko eziketa onek, gogo-iztiaren (psikolojiaren) legeak dakar eziketara. Alde batetik gizarte-iztia (soziologia) eta bestetik jatorriaren gogo-iztia (izakien aurrerapena sakontzen dau onek) dira eziketa-iztiaren guraso.

Asteko, umea dan lakoa artzen dau: aurreratzeko bear dauan gogo-janaria damotoz, tartean dituen izakera ezbardiñak kontuan artzen ditu eta umeak artzen ditun trebetasun barriak alkatzen eta batzen ditu.

NONDIK ASI TA JARRAITU

Elburu ori lortzeko, egitezko eziketa onek umeak berak daukazan gurari biziak artzen ditu lenengo: bere esku-lanak, bere agiriko gauzak egiteak, bere burubideen aldatzeak, bere biotz-miñak eta bere atsegiñik indartsuenak...

Orrelan ezigai dan umearen bizia bera eta bere egiteak alkatzen ditu eta bide orretatik bere barruko indarrak geitu ta geitu egiten ditu, bai geiagotuz, baita obe-tuaz be.

LEN EZ ZAN ORRELAN

Lenago beste bide batzuk artzen ziran, eta gaur be bai oraindiño sarritan: Gizonaren izakera bakar bat artzen zan elburu lez eta ezitzaileak eukan jakituria ezarten jakon gizaki orreri. Jakitunak ezjakiñari euren jakituria emoten eutsuen.

Orrelan jokatu ezker, ikasleak edo ezigai ziranak artu baiño ez eban egiten. Eurak artzaille utsak ziran eta almenak ez ebezan egitera sartzen. Ikasi ta jakin baiño ez eban egiten.

GAURKO BIDEAK

Gaurko ezitzaileen eretxiak ez dira olakoak.

Gaurko eziketeez egitezkoa da.

Umearen barruko indar bereziak azaltzea da gaurko bidea. Indar orreik agertzen diranean, eurai eutsi, eurak indartu, izango da elburua. Eta bide orretatik, umeak nortasuna, bere buruaren jabetasuna ta ardurea lortuko ditu. Bera izango da bere buruaren ezitzaile eta bere aurrerapenaren egille.

BIDE BIETATIK ZEIN?

Eziketa zarrak bizitarako jakingarriak eta trebetasuna billatu ta mundo egonkor baterako bear ziran gaiak emoten zituau. Ori uste da beintzat gaur.

Egitezko eziketeez, ondo ulertzen ba'da beintzat, ez dau gura jakite ziur-ezik. Oñentzako benetako jakituria gizonaren eta gizadiaren artean izan bear daben artu-emonak ondo eratzea da. Eziketetan sartzen danari, ikusten, batzen, neurtzen, billatzen eta pillatzen irakatsiko dautso eta gero berak ortik aterako ditu beretzako ondorenak.

Labor-laburrean esateko, ikastea irakasten dau gero bere bizitzan bere kontura ikasi dagian. Azkatasunaz eta aztertze lanaz pentzaten irakasten dau eta lan gogotsua ta iraunkorra egiteko ta banan edo batzan bere buruaren jabe izateko bidean ipintzen dau.

BIDE BARRIAREN AZTERTZEA

Egitezko eziketa onek alderdi on asko dituala ezin ukatu, benetakoa ba'da. Gizonaren iaera barri bat dakarsku. Baiña gure siñispen au ez da itu-itsuua. Ortik mito barri bat sortera giñoiakez.

Eziketea gizarte ta ekomini-mundu nastatu baten barruan dago. Eziketeez bera eta orretarako sortu diran bideak inguru onen sakakadea aldean daroe.

Oñarri-oñarrian dagozan arazoak sakonagoak dira ba. Eziketeari elburu bat jartzea, berari eginbear bat edo bestea ezartzea da, bereak ditun zeregiñak goragoko elburu batzun menpean ipintea da.

M.

ARRESE BEITIA

Felipe Arrese Beitia Otxandio'n jaiou zan 1841'ean. 1906'an il zan erri berean.

Amalau urtegeaz Bitori'ra joan zan dibujetan, eta an sari guztiak irabazten ebazan lez, mutil batek zemaitu egin eban, eta orregaitik joan egin zan.

Florentzi'rako beka bat euki eban eskultor bezela, baiña ez eban artu.

Ogetamar urtegeaz Angela'gaz ezkondu zan, Otxandio'ko neskatil bategeaz (txikitian umezurtz geratu zana ta bere osaba abadegeaz Aramatio'n bizi zan).

Bost ume euki ebazan, baiña bi txikitian il ziran. Beste irurak, Puri, Luzio ta Maria Pilartxo izan ziran. Maria Pilartxo zaarrena izan zan, baiña zazpi urtekin il zan, eta bertso bat egin eutson Arrese'k.

Gero Angela, bere emaztea il zan, eta beste bertso bat eskeñi eutson.

Sari asko irabazi ebazan: urrezko lorak, berrogei diploma, urrezko medalla bat, makilla bat urrezko musturrakin... eta abar.

Ogetamazortzi urtegeaz agertu zan olerkari bezela. 1879'an Elizondo'ko sariketan lenengo saria irabazi eban: «Ama Euskereari Azken Agurrak» olerkiagaz.

Bein baten, Donostia'n, teatro baten, euskaldun batzuen konzentraziñoa egin zan eta Felipe Arrese Beitia'k, palko baten egoala, auxe esan eban:

«Euskaldun jayo nintzan,
Euskalduna azi,
Euskara utsik amak
Eustan irakatsi;
Euskara maite maite
Zabiltz neugaz beti,
Euskara ill ezkeru
Ez dot gura bizi».

Bere seme-alabak: Luzio, Otxandio'n bizi zan bere emaztegeaz, eta Puri Bilbo'n bere gizon Rufino'gaz.

Felipe Arrese'ren etxea erre egin zan. An ez dago monumentorik bapez.

Plazeak bere izena eukan, baiña gerratean kendu eutson.

Makiña bat asmatu eban Arrese'k, errementa-rientzako, baiña il egin zan amaitu barik. Altos Hornos'eko injenieruak joan ziran amaitzera baiña ezekien.

IÑAKI LLABORI ZEARRA (12 urte)

(Arrese Beitia'ren bir-illoba)

AGUR

Ez Agur au beru, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkatze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri asmoen gaitetik daben iritxi-oneko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egilleak dira.

Agur au, bere zuzendaria ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M. MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.

Carretera a Galdácano, 32-Bilbao-4

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA

ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guz-tirako:

Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

EUSKALERRI'KO ARAZOAK

ERRIA JABE (BERBALDIA)

GIROA

Epailaren 17'an, astelena zan, eta Euskal Kultur Mintegi'ak (EKM) Deustu'ko Ikastetxe Nagusian eratu dituan berbaldietatik bigarrenera joateko erria izan genduan. Aspaldiko goraberak zirala-ta, asko atzeratu ba'da be, azkenean egin da berbaldi au.

Iru ziran gertatu ziranak. Lenengoa Caballero'rena izan zan eta bere barriak agertu genduzan AGUR'en. Bigarrena Mikel Ugald'e k emon bearrekoa zan, baiña ez dakigu berbaldi orren ezelako barririk. Eta Arzailluz'ena, illabete atzeratuta baiño ez ba'da be, entzun dogu. Aztetu dagigun gaur berau.

Paranin'io deritxoen aretoan izan zan eta EKM'koak sarrerako txartelak diru truke emon ba'bezan, ez eben irabazte makala izango. Bete beterik egoan aretoa.

Caballero'ren berbaldian gazteak ziran geienak. Oraingoan, gazte asko egoan, baiña ainbeste eldu ikustek pizka bat arritu ginduzan.

Eretxiak kontuan artu ezker, mailla askotakoak egozan, baiña geienak berbalariaren antzeko pentzakerakoak.

Giroa itxaropen aundi batena zan, baiña abots-indarkiñak ez ebiltzazan ondo eta orregaitik poz ori gitxituten zan. Eta, au be bidez esan bear dogu, sasoi'a dala uste dogu Ikastetxe arduradunak zeatztasun onei zor jaken garrantzia emoteko.

ZATI BI

Berbaldiak zati bi izan zituan. Lenengoa, Azkatatun-araudia zelaz sortu, jai, bizi eta il zan esan euskun. Bigarrena, araudi orren arauak aztertze izan zan.

ARAUDIAREN JAZOERAK

Asteko, 1931'ko jorraillaren amalaua ezker, Erkala agertuta gero euskaldunen abertzaletasunak artu eban indarra azaldu euskun. Jorraillaren amazpitik aurrera indar ikusgarriak sortu ziran: Egun orretan izan zan Gernika'n Bizka'i'ko alkate guztien batzarra. Alkateen batzarordeak Gernika'ko Batzar Nagusiari sei gai agertzen eutsazan, eurretatik seigarrena uxeza zan: «Bizka'i'ko Udaletxe guztietako guraria auxe da: Euskal Erkal bat sortu eta Erkal au, Madrid'eko Erkal-alkartuagaz batu». Ordutik aurrera, Jabetasunaren Araudia sorterazteko guraria bizitu zan.

Errien ardura au nondik sortu zan be azaldu eban eta lenagoko eskaria zein izan zan esan eban, 1930'ean Donosti'n ebatzi zana, baiña danaren gaiñetik, Errian ziran beste eritxi guztiai begira, demokrazi-bidea.

Araudiak bere bizi laburrean izan zituan gorabera guztietan beti agertzen zan beste gai bat be aztetu eban: España'ko ezkertarrak emon eutsun utsi. Uts ori emoteko zio bi ei eukezan: Bizkortze au euren eskuetan ez egoalako eta betek baiño goitik sortua izatea naiago ebelako. Orduan gaur baiño indartsuagoak ziran, mailla orretan geunkazanak.

Bidez aztetu eban Donosti'ko Ituna. Arritzekoa zan Euskalerr'iaren jabetasun zalerik an ez izatea.

Gero, Araudiaren bideari jarraituz, nortzuk idatzi eban agertu eban. Euskal ikasketaren Alkartek (Sociedad de Estudios Vascos) egin eban eta oneik jakintza gaietan sartuak eta politika-bakoak ziran.

Alkarte orren barruan euskaldunen indarren artean izan ziran politika-etzabardintasunak be agertu zituan:

Araudia idatzi ondoren, Iruña'n Udaletxeetako Batzar Nagusia egitea debekatu egin eban, eta Lizarraga'n egin zan Araudia aztertze Batzar au.

An artu ziran erabagiak bi izan ziran: Korteetara Araudi-aurre bat eroatea eta legedia egiteko arduratuko ziran izen batzuk aurkeztutea. Talde guztiak izenak ekarriko ebezan eta lan orri indarra emongo eutsen.

Ikusiak ikusita gero, Euskal-Laterriak Vaticano'gaz ziran artuemonak aldatzea uts aundia izan zala esan eban. Aldatze onetatik sortuko ziran goraberak ikaragarriak izango zirala esan eban.

Aldunak Gernika'n alkarri agur egin ondoren, eta ezkertarrak ipiñi eutsuzan oztipoak konturatuta, Korteak ez eben onartu Vaticano'gazko aldatze au.

Ordutik gora batez be ikusi zan argiago España'ko ezkertarren gorrotoa eta oso-osoan sartu ziran araudira eurak zuzentzeko asmoz.

Zuzentze ori egiteko, Erkal-zaleak eta gizarte-zaleak, batzarorde egin zituen eta batzarorde orreik ez ziran aukeratuak, Madrid'eko agintariak izendatuak baiño. Oneik errietako ordezkariak batera idatziko eban irugarren Araudia.

Irugarren au idatzita gero, onartzeko, Iruña'n egin zan errietako agintarien batzar bat. Emen, Naparro'aren autarkia aurkakoa zalako, alkartasuna apurtu zan.

Emen, izlariak, Jose Antonio Agirre'ren berba batzuk gogoratu zituan. Apurtze ori zio oneikaitik izan ei zan: Tradiziño-zale batzuk araudiaren aurka jokatu ebelako, eta Errietako ordezkari batzuk, Udal-etxeetako aginduak baztertuta, beste orreik erretxietara makurtu ziralako.

1933'an, Naparro'ak alde eginda gero, Gazteiz'en egin zan Errietako Agintarien batzarra eta lengoaren antzeko Araudi-aurre bat onartu eban.

Urte beratan, Euskal Alderdiak gorengo maillara igon eban: Beste alderdi guztiak baiño bi bidar ordezkari geiago izan zituan. Urte aren azkenerako, Euskalerr'iaren eretxi-batza bat gertatu zan eta bear ziran euneko 75'ak baiño geiago agertu ziran alde. Euneko 84 inguru ziran alde agertu ziranak.

Gero, korteetarako aldunak aukeratu ziranean, Alderdia bakarrik joan zan eta Erriak eukazan lekuri erdiak beragandu zituan.

«Bi-urte baltza» deritxon aldia, Araudiarentzat onurabakoa izan zan.

1936'an, otsaillean, Korte barrietareko auteskundean «Frente Popular» eritxonek irabazi eban eta jazoera guztiak ariñeketara sartu ziran.

Azkenean, gudea asita gero, 36'ko urrillaren 6'an, onartu eban Arudia eta urte beteko bizi izan eban. Erakundeak guztiak egiteko beste asti be ez zan izan.

Ala ta bere, guda gogor baten neke pean, ainbat gauza bete al izan ebezan gizon zintzo areik: Zaurituentzako etxeak, Janaritz banaketea, Ikastolak eta Ikastaroa, Langintzea, Kale-tarteko bakea ta zuzentasuna... utsetik.

Aldirako Jaurletza lana ondo bete al izan eban eta fakzisten eskuetara jausi ziranean, eriotzea, erbesteratzea ta espetxea izan ziran ugari.

ARAUDIA BERA

Araudiaren mamiña agertu euskun gero. Baiña, neure ustez, azaletik eta laburregi aztetu zituan gaiak: Zuzentasunaren Erakundea, Irakasketea, Agiriko eratasuna, Diru-batzea ta Al-dundiak.

Amaitzeko, Araudia alegin bat izan zala esan eban: gizabidez eta erri-bidez arazoa zuzentzeko egin zan alegin bat eta an agiri ziran gazteai, euren maixu-lan txikietan eta aundietan gai au ez aitzuteko esan eutsen.

AZKENA

Txaloak entzun ziran eta ariñeka baten sartu giñan alkar-izketara.

Begitu baten, Arzailluz'ek baretasun gitxi eukala esan eikean.

Arritzeko itaunik ez zan entzun.

Azkenengoen artean entzun genduan itaun bat artu dagigun.

An egoen batek auxe esan eban: Beingo baten geure burutik kendu bear dogula, agintari ezkertarrak eta Erri zapaldu batek ditun gurariak bardiñak dirala. Ori ikusten dogula España'ko ezkertarrak Catalunya'ko ta Euskalerr'i'ko Araudiari oztipoak ipintean. Orretan, ezkertarrak eta eskoitarrak zorro baten sartu ei leikez.

Orixe zala, uste dot, kontuan artu bearreko gai bakarra an agertu ziranean artean.

Gero, oraindiño zer itandu asko egoala, alkar-izketea amaitu egin eban.

Urtekeran, danetik ikusi gendun: batzuk biotzez alkar agurtzen eban, beste batzuk begirakun illunak eukezan, eta ez gitxi irribarrezko azalpenak...

Eta orain urrengoari itxaron bear.

LEIZARRETA

Itzaren Muiña

Idekitzea dala ta ez dala, demokrazia dala ta ez dala; orra or eguneroko itza: DEMOKRAZIA.

Batzuk babestu ta besteak madarikatu, iñork ez du adierazten, naizta denok ere gitxi jakin, gorabera zertan datzan.

Zertarako gai ontaz mintzatu, esango dute batzuk, mundu ontan ez bai dago Demokrazirik? Ergelkeri berdiñaz jarraituz esan genezake baita, Alemania «nazi»ren sasoi'ko jaurbide edo gobernu, edo gaur egunean Ingalterra'n dagona, berdiñak direla demokraziari begiratuz...

Beste alde batetik, ustezko Demokraziatik izatezko edo gaurko gizarte batzuen Demokraziara dagon aldea kontuan eukirik, ziurtasun guziaz esan genezake besteak baiño urbillago daudela ustezko Demokraziatik. Ordua da ba, ametskeriak alde batera utsirik, benetasunaren maillan jarriaz erantzun berezi bat ematea gaurko gure Euskalerr'iari.

Demokrazia eragingarri bat onartu ala deusestatu aurretik, puntu batzuk aztertu bearra dago:

1) Zein egikizun izan duan kondaira zear:

Oneri erantzunez, goazen Marx'en sasoi'ra eta ikusi daigun orduko Kapitalismoatzak eman eban iritxi politikoa: «Gero ta geiago sakonduko da, sistema kapitalistaren barnean, gizonen arteko ebakia; batzuk (gitxiñak) gero ta aberatsagoak eta besteak (geienak) gero ta txiroagoak izango bait dira. Muga ori aundituaz joango dan ezker, sistema ori bere ukamen edo kontradizioei eutsi eziñik eroriko da».

Igarkizun au ez dala egiztatu samur ikusi genezake. Zer jazo da ba? Izaera artan, Marx'en esana gertatuko zala, ez dago kezka txikiñik be; jazo zana baiña zera izan zan, aldakuntza bat. Giro berri bat azaltzen ari zan eta giro ontan, erriak gero ta indar geiago artzen joan dan neurrian, bere izaera obeagotu egin du.

Gaur, oraindik, komunistak, Marx'en uts orretan lotuta diardute. Marx'engandik metodolojia artu bearrean, Marx'en iritxiak artu dituzte irakatsi bezela.

Zenbat aldiz entzun ote degu batzuen abotsetatik «reformista» itza arbuioz esana.

Sortu diran indar berri abek (berriak, Ingalterra'n, orain dirala 40 urte asi dira osotzen) izan dira, eta ez besterik, aldakuntza onen sorburu.

Gizarteak, zenbat eta errotsuagoak izan, nastuagoak biurtzen dira, eta egitamu arruntak ez dute balio gaurko egeerari bear daben erantzuna emateko.

Ikusi dezakegunez, Demokraziak (indartu dan tokietan) gizarte orren obeagotzea ekarri du, naizta oraindiño bide luze ta eztabaidatsua geratu.

Gizartearen aldaketak, iraspene demokratikoetan, eta batez ere oiek sortu duten giroan lortutakoak izan dira; gauzak aztertuz eta bear ba'da aldatuz.

Zer esanik ez, petsateko, adierazteko ta alkartzeko askatasunik gabeko Demokrazirik ezin da ulertu. Denak alkarrekin joan bear dute.

2) Zelako jaurbide edo gobernu aukeratu genezake gaur? Mota bikoak izan dezakete:

Bata, alderdi edo partidu bakarrana edo jauntzargoa. Ontan sartu genezake, bai sistema fascista, bai sistema komunistak (onekin ez dugu adierazten berdiñak diranik). Bestea, alderdi askotakoa.

Ekonomi aldetik aurrerapen bat lortzeko jauntzargoak duten trebetasuna ikusita dago: Ludiko II guda aurrean, Alemania'k itzalezkoa izan eban, baita alderdi komunistak ere aurrerapen aundia izan dute.

Jauntzargoen deusestatzea ez dator, jauntxoan (eta emen berdin sartzen degu persona bakarra edo partidu bat) asmoak, onak ala txarrak izatetik; gizarteak berak, bere jaurbidea jagoteko eta bear ba'da aldatzeko bear duan araurik ez duelako baizik.

Iraspene demokratikoen balioa ez da egin leitekeenagatik ainbeste; jauntzargoak egin leitekeen kaltea desegin lezaketelako baiño.

Adibidez, berebil baten eustaga ta lemaren antzerakoak dira, ots, ziurtasunaren arauak izan ere.

3) Irugarren aztergarri, erakunde demokratikoak jasan bearreko eztabaidak eta bere egoera izango litzazke (alde batetik barria, eta bestetik itxaropenezkoa):

Lenengo ta bein, berria da oraindik eta zabalkunde gitxi'koa (Ingalterra, Ipar Amerika, Ipar Europa ta Australasia, 400 milloiren bat bizilagunena guztiz).

Ikusten dogunez, aurrerapen aundi-goko gizarteak Demokrazi baten barruan daudenak dira, eta gizarte atzeratuena (gitxiñak) sistema soillagoak agindutakoak. Erakunde Demokratikoak, aurrera egin nai ba'du, gizarte atzeratu'ei laguntza eskeintzeko premiña dute, jauntxokeria alde batera utzita.

Beste alde batetik, gizarte aurreratu oietan, monopolioak sortzeaz euren babesean jartzen ari dira, bai irriti, urrutikuskin... au da, azterketako arauak, eta ori Demokraziaren aurka doa.

Ona emen ba, ekintza berri au, gaur eztabaida gogor baten sartuta.

Ibillia duen bideak, laburra izanda ere, itxaropenez betetzen gaitu, naizta oraindik asko egon egiteko.

Iraungo ote du aurrera erakunde onek? Kapitalismoaren azkenengo ekidindian ote gagoz?

Oraingoan, lengoaren ondorena da; eta geroa oraingoarena izango dan ezker, jorratu daigun gure lurra ta ekaitzetatik zainduz, batuko al izango dute noiz-bait, gaur eraña.

MIKEL

AMA ANKERRA

Emen dakardan au gertatua degu. Hongkong'o Sunday Examiner asterokotik artu det. Onela:

Neure gurtariñean Cardiff'era nindoan. Aize otza zebillen, elur-bustiz gogaikarri eta zital. Gaueko amarrak ziran, eta zidorrak eta bitxabalak ia utsik. Aurretik geldi nendin eskean beste bat zetorren: ua ere gurtariñean. Ua ille-ori gazte, aurpegi ederreko neskatxa: ogeitabi urtekoa'edo. Soñekoak urdin, eta besoan longain oria zeraman. Buruko illearen eduz, alegia:

—Adiskide! Txadoneraño eramongo al ninduzuke?

Zalantzan ibilliko al nintzan? Bestalde, ain mirabe ederra aldamenean eramateak alaituko ninduan.

Eta, gurtariñeko atea zabaldu nion, sartu zedin. Berialaxe biotzean larria sortu zitzaidan. Odola aurpegira igo. Gaua zanari eskerrak. Bestela neskatxa bera lotsatuko zitzaidan... eta, neska ori len nonbait ikusi izan nuala. Zozionez, ibillian tarte motxa genduan eta okerragorik ez zitzaigun gertatu.

Eta, asko luzatu baño len txadonean giñan, atarian. Eskarrik asko esanez, gurtariñetik irten zitzaidan eta txadonatariko zugatzen artean izkutatu.

Nindoan zer-egiñera ioan nai zuzenean... eta, arako amilla ori ua nere eserlekuan utzi zidan.

Zer egin?

Neska ederraren izena ikasi ote-nezakean?

Eta, amillaren zorroan bildumatxoak aurkitu nion.

Baita: ederki bilduta aur-argazkia.

Argazkiaren kinperrean onako idazkun au: KEPA, 1974. XII. l'garrenean iasio zidaten.

Idazkunari inola ezin ezer antz-emon.

Ezertarako beta geiegi ez izan nik, eta amilla txadonera eramanez nuen. An sartu orduko, norbaitzuen izketa nentzun. Neskatxa ille-oriaren abotsa garbi nabari zitzaidan. Aurrerago sartu nintzalarik, izketan ari zana ua zala ezin nezaken uka. Antxe txadoneko irudiaren aldamenean nere burua ezkutatu eta zer zioten nik iakin nai. Irudi ua, geroztik, oroimenean zintzo daramat: Ama Mari, Semea magalean.

Ta, ille-oriak:

—Ana Lekame! Nere semeak zer du? Zergatik deitu didazu? Ez al dakizu orain lan aunditan nabillela? Ez al nizun esan, gauetan bein ere neri ez deitzeko?

—Andereño MORGAN! Bai! Zure eziñak eta buruausteak eta ioan-etorriak eta erritarren esa-mesak, nik... orixe!, ongi dakizkit! Bañan, zure se-

metxo Kepa gaixorik degu. Makal. Lengo astelena ezker, beti okerrago! Deitu dizut. Ez utsarren! Gaxotetxera eramanez bearko det. Eta lenbizi zuri baimena eskatu bear!

—Ori besterik ez! Gogaikarriak, alakoak! Lendik ere lanik aski eman dit. Gaxotetxera eramanez nai ba' dezue... Eramanez! Zorrak nik ordainduko! Besterik zer egin dezaket?



—Andereño MORGAN! Itxoin! Itxoin! Arren! Semetxo ez al dezu ikusi nai? Zure bularra artzeko arek bai gogoa!

—Eskarrikasko! Eskarrikasko! Semetxoaren argazkia nerekin daramat...

MORGAN... Izen ori sarri entzuna eta izparringietan ere ikusia nuen. Eta ontaz ni gogoratu: Andereño MORGAN, besterik ez izan, baizik MISS HELEN MORGAN!

Ain zuzen, Ludiko Ederren norgeiagokan, 1974'garrenean irabazle izan zan MISS MORGAN.

Eta besterik gabe emakumearen goraberak ulertu al izan nituan, eta neraman amilla oria Ama Mari'ren irudi-besoetan antxe utzi nuan.

Zer esan? Beintzat, Morgan errukarriarena beingoan ez det aztuko. Errukarria baño ankerrage ote? Aurtxoak negar egingo ez zuan, ba! Gizarte!: ik, bai! Lanak egiten dituk! GIZARTE!: beti asmozuzenez ote-abil?

ETXEBERRIA'TAR P. S. J.

KONPLEJUAK BAI, EUGENIO... TA EZ TXIKIAK!

Sasi aurrerakoien aurrean bere burua «aurrerakoi» agertzeko egokiena, nilako bategandik, atzerakoitzat salatua dan bategandik «egurra» jasotea onena. Orregaitik mesedegarri ta pozgarri izango jakolakoan ona emen, barriro bere, Agirretxe Aitarentzat zerbait. Baiña laprast ara ta laprast ona soka lasaian dantzan ibilteak «klerikman» barrera loituta ateratzeko arriskua dakar.

Berak Goiz Argi'n egindako «Bilbon aste zuri-gorri bat» artuta «ziranak eta etziranak» astindu nebazala esanaz asten da.

Baiña enitzan ni izan makillaka lenengo asi zana, bera baiño... ala zer esan nai ete du «aste zuri gorri» orrek? Mutikotxo giñanean, guda denporan, zuriak fazistak ziran eta gorriak besteak, gu tarteko giñala. Gero argitu da nere ustez, ori ez dala, oso osoan beintzat, gure margo bakarra. Asteari «zuri-gorri» ori ezarri dautsezunean zeuk jakingo dozu zer esan nai dozun... eta guk be bai.

Konpleju erderazko itza sartu dodala ta adarra joten jatorku gure adis-kidea. Egia esan enaiz garbizalegia iñoiz izan, baiña emen soso ta belearena ondo letorkela deritxot. Agirretxe'k berak be masokismo ta olako itzak erreskadan sartzen ditu bere idazlanetan eta aztu daiguzan bere lekaide lagunak! Euskaltzain buru «ospetsutik» asi ta azken praillekiraiño ez dira edonor euskera erderatze orretan. Zoaz Iralabarri'ko lekaide etxera ta gauzarik barregerrienak entzungo dozuz «sermolari» bateon baten agotik.

Bardin euren eskuetan egon bear leukeen (gordeta daukagu ezetzko nagusi baten eskutitza) aldizkarietan; errezkadan aurkituko dozuz animaliak, sazerdoteak, blankoak, negroak eta beste bulegokeri asko ta asko.

Ez noa baiña neure euskerea goraltzen, ezta puntuz-puntu Agirretxe'ni erantzuten be. Esan bear diran iru edo lau gauza esango ditut eta gero gerokoak.

Enaiz iñoiz eleizako aurrerakuntzen aurka agertu, ezta antzik be, baiña joan diran 25 urtetik gora, erri arazoan saltzan egotean ondo ezagutzen ditut, bai eleiz gizon, bai bestelako «iñuxente erabilkor» edo erderazko «tontos útiles» deritxoneen jokabideak ekarri dauskuezan ondoren txarrak.

Naizta «erriaren etsaien» artean iñoiz ganorabako batzuk salatu, argi dago gure bizitza guztian fazismoaren aurka jokatu dogula, baiña orrek ez du esan nai beste ertzekoek ekintzak bedeinkatzen doguzanik. Eta ez lanaren-lanez irabazi dogun diru apurra banantzeko bildurra daukagulako, askatasunean bizi gura dogulako baiño.

Orregaitik geroari begira gagoz, baiña ez edozelan, gutzat eta gutarrentzat bide obeari asiera emoteko asmoagaz baiño.

Zubingintzari barre nik? Zer egingo ba? Ez dogu ikusi zubigilleak orain arte zer egin dozuen? Zeuen eskuetan euki dozuezan «tresnak» beste «orren» eskuetan itxi ta gero, burua zuritzeko, gu gogorregiak garala zabaldu!

Imanol Laspiur'en itzak dakarsuz goi-argi-emoille edo batasunaren igarlearenak ba'lira bezela, baiña diñozun deadar orrek ba ete dauka zintzotasunik? Irakurri egizu azken Goiz Argi'n Gaztañaga'k eta Jolu'k idatzitakoa; uste dozu Zestua'n egon ziran San Martin, Satrustegi eta Lizundia'k esandakoak zubi-billa dabilzanean diranik? Eta jakingo dozu edo jakin bear zenduke Laspiur'en lagun kutunak dirala aspaldi danetik.

Zubiak eta batasuna laister egozen eginda euren eurentzat itxita, gurea erdibana egingo ba'gendu... baiña leku onera datoz! Edo ta ez dozu ikusi zer jaso dan beste era bateko ospakizunean oraintsu? Ondo deritzazu urko laguna erre daiten sua piztutzeari? Ulertuko dozula uste dot!

Gero nik idatzi nebana dakarzu: «Une larri onetan eleiz gizon batzuk, ez dakit zelako konplejuak jota, ago zabalik zagoze». Ori dala ta zeure burua zuritzen dozu beste asko be minduto jatezala esanaz.

Nik, «eleiz gizon batzuk» idatzi neban eta «batzuk onen barruan zenbat egon leikezan neurtzea errezago izango da zutatz nitzat baiño. Jainkoari esker asko izan dira, konpleju bakoan artean jakina, egi galantak bota doguzala esan dauskuenak. Ori be zuk nik baiño obeto jakin daikezu, inguruan daukazuzan Kerenski antzekoak ez dira gitxi-eta, ez da, egiten dagozan kaltea, makala!

«Konplejudunak joan ziran edo ta bildurkeriz-edo, bestela, penaz zapuztuta daude». Egia ba'litz bai joan zirala edo zapuztuta daudela! Bai zera! Konplejudun oker askok oindiño lanean diardue, jakinean edo iñuxentzian eleizeari barrutik sua emoten edo orretan laguntzen.

Eta ez bakarrik eleizeari, erriari ta euskalduntasunari buruz beste orrenbeste esango neuke. Alderdi demokratikoak sendotu bear doguzala lagun artean diñozunean, zeren bildur zara? Nik baiño obeto dakizu euskaldunen arteko erdibitzillerik eraginkorrenak era guztietako talde komunistak dirala gaur egun, ta onen aita, ama ta espiritu santua (batez be au) Erroma'n dagozala, baiña ez Batikano'an, beste laterri aundi bateko ordezkarietan baiño. Zoaz aregana edo emengo aren «bulegokoengana» zubigintzan... Leku onera!

Amaitzera noa Eugenio; Konplejuak daukazuez ba, eta ez txikiak.

ARENAZA'TAR JOSU

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra

BILBAO - Casco Viejo

Tenderia, 15 eta 16

AURTEN GERTATUA ZER EDO ZER

Bordele'n artzen degu bultzia.
Donosti aldera,
berriz etxera.
Bultzia ziara betia.
Atzerrietan langille diran jendia.
Guk, aurretik degu eskatua tokia.
Ozta-ozta sartu ta, artzen degu,
aurrez ordaindu genuen tokia.
Euskeraz mintzatzen giñan,
arreba, illoba, ta ni.
Nere aurrez-aurre gizon galanta,
lirain, lerdena, ponpoxa,
dotore jantzia.
Eskola oneko, jakitun zirudín.
Ixil-une luze bat ondoren,
gure berriketa zala bide,
ara, ixil-aldia eten.
Brasileñoa omen zan,
Portugal aldera zijoan.
Gaztelera etzekiela ta,
frantzeraz jo genuen.

* * *

Turko jendia al zerate?
Ara bere lenengo galdera.
Nundik neri ta neretarrai
turko itxura ori?
Gure izkuntza ez zala
latin iturrian sortua.
Ta nik,
ondo igerri zuala.
Ala ere, turkoak ez,
baiñan Euskaldun jatorrak giñala,
bertakoak.
Euskal-errira elduak bai giñan.
Sor ta lor gelditu zan,
gure izkuntzaren berririk ez bai zuan.

* * *

Euskeraren berri batzuk eman nizkion.
Izkuntza zaarrenetakoa dala;
latiñekin zer ikusirik ez daukala;
Euskal-errira bi pusketan zatituta zegola;
Bidaso ibaia zala guretzat,
aizto maltzurra;
Ala ere bi aldekoak
enda batekoak giñala;
izkuntza, folklore, oitura batekoak, ta abar.
Ta bera ago zabalik ezin ulertuz...
Nik orduan argi geiago eman naiez,
Portugal ta Galizia'ren adibidea eman nion.
Euskal-erri'arekin ber-bera gertatu dala.
Eta jardun auetan,
eldu giñan Irun'era.

* * *

Gela bertan ba zegon gazte bat;
ikasle itxura ematen nion.
Bera ixillik,
txintik atera gabe,
arretaz entzuten.
Olako batean,
gure berriketari,
parte artzen du sutsu ta egitan.
Madrid'tarra omen zan;
Ikastol-Nagusian ikasle.
Udarako oporrak zirala-ta,
frantzeraz ikastea etorria.
Nik esan nuen dana ontzat arturik,
baietza eman zion gure gizon ari.
Ala ere auxe bota zidan arpegira:
«Nik euskaldun ikasle asko,
ditut Madrid'en adizkide,
baiñan, geienak auetatik,
ez dakite euskerarik».
Zer egi borobilla,
ta zoritxarrez, egi-egia.

* * *

Zenbat aldiz aitu degu:
«Euskera jakitea,
ostopo galanta ikasgaietan».
Eta zenbait gurasoen buruetan,
ondo tinkatua ikusten det sarritan.
Au argi jartzeko ez dala egia,
Ara nere illobatxoari,
gertatu berria.
Izena Izazkun,
bederatzi urteko nexka sotilla.
Ikastolako orduak bukatu ta ondoren,
frantzeraz ikasten ari da,
Andereño trebe batekin.
Eta nola ikasi!
Udaran Bordele'ra eramán nuen,
izebakín eta lengusu txikiakín,
amabost egun egotera alkarrekin.
Etxekoak eta inguruko danak,
ikusí nitun, arrituta
Jakiña! iru izkuntzetan,
jarduten bai zan,
nere txikia.
Euskera ostopoa?
Bai zera!
Jakingaiak ikasteko,
bide-lagun egizko.
Ala jaña.

OLABEAGA'TAR INAKI

BAKE ZALE?

Urtearen asieran Aita Santuak esan eban: «Bakea egin bear da; bakea lortu leike». Alan da be garbi adierazten emon eban, erriak iskilluz ornitzeak, guda aurretiko era ta eztabaidak, bakearen kalteko bideak gomutara ekarten dauskuzala. Orrez gainera, azkenengo urte oneitan ugaritu diran erailkeriak eta beste zeregin barik orretarako taldeak ugaritzeak, gure izatea dar-darka ipinte dau.

Laterririk andienak iskilluak salteari gogor ekiten dautse euren itzetan oso bakezale agertu arren. Or da Egipto, Errusi'tik berrogetamar egazkiñetati lenengoak artzen diardu. Kuwait'ek 350 milloi dollarren egazkiñak erosi ditu. Iran'ek 110 milloi dollar eraldi dituz sei gudaontzi erosten. Eta emen be 200 milloen egazkiñak erosi dira.

Guztiok, benentan, bakezale dirala esango dautzue, agiñetaraiño iskilluz onriduta. Antziña esan yakun: «Begiratu egiteari!...

IDATZI DEUNA EUSKERAZ

Idatzi Donea, osorik euskeraz irakurtzeko aukerea izango dogula dirudi. Eta dirudianez laster. Orain arte 1.549 izkuntzatarata aldatua izan da. Osorik 257 izkuntzatarata. Itun Barria bakarrik enparau izkuntzetan. Lendik ba ditugu euskeralben batzuk, esaterako Duvoisin'ena, oraintsu barriz argitaldua. Ta Olabide'n «Idazteuna». Lenago be, igaro dan gizaldian Bonaparte'ren aginduz Uriarte aba prantzizkotarrak euskeratu eban, baiña lenengo bost idaztiak baiño ez ziran argitaldu.

Oingo itzulpena errikoya izango da, eta Kerexeta euskaltzale abade ta idazle trebeak egingo dau. Izpar onek euskelzale guztiak poztuko dituala uste dogu, ordua be izan da-ta.

ELEIZEAREN BARRI

1975'ngongo urtean, Katoliku Eleizan diran bateatuak, 685 milloitik gora dira. Kardenalak, 129. Gotzainburu ta Gotzaiñak 2.219. Gotzain izendunak 1.980. «Nullius» deritxoek, 22. Aita Santuaren Ordetzak, 11. Erka-errikoak, 26. Apostolu erkiak, 66. Mixiño erkiak, «sui iuris», 41. Gudal ordelaritzak, 26. Gotzain batzarrak,

98. Eleiz-barrutietako abadeak 268.976 lekaideak zenbatu barik.

Katoliku Ikastetxe Nagusiak, 46. Eleiz-ikastaroetako ikastolak, 25. Teologia ikasteko laterrietako Ikastetxena, 33.

ISUNAK DIRALA-TA

Igandeetako itzaldiak dirala-ta, iru urte oneitan, abadeeri ezarri dautsezan isunak —multak— 11.095.000 lauerlekora eltzen dira. Geyenak napparrak izan dira. Berrogeiren bat inguru. Bizkai'koak ogetamarren bat, batzuk, iru bider be zigortuak izan dira. Itzaldiak egitean kristiñau-arauz gauzak azaltzen ez ba'ditu, zer esana ugari, ta itz garbi egiten ba'dau, zigorra. Gero esango dabe itzaldiak ezer ez dabela «balio»...

Edonork daki, itzaldiak kristiñau-arauz egiñak diran ala ez, esan bear dabena, Eleizako nagusiak dirala, baiña...

AITA SANTUA TA YOLASAK

Sarritan aitatu dau Aita Santuak «deportea», kirola gaztearentzat txalogarria ta ona dala esanaz. Yolasean artean «txirrinka-uts» edo bizikletarien txapelketan danean, buru diraranak aintzat artu ta txalotzen ditu. Ointsu be bere onespina artzen yon dira. Euren artean Merckx. Bere lagunen aurrean, Merckx'ek igezko txapelketan irabazi eban txirrinkutsa Aita Santuari eskiñi eutson. Eta Aita Santuak, munduko txapeldu dan Merckx'eri domiña bat emon eutson.

GOTZAIN IZENTATZEAK

Komunistak agintari diran tokietan, gotzain izentatzeak buruausterik andiena emoten dautso Aita Santuari; euren gogoko diranak baiño ez dituez nai izaten-eta.

Or da Txekoslovakia, berak nai dituanak izentatzeko ainbeste buruausteri Aita Santuari emoten dautsona. Ungria'gaz be, beste ainbeste yazoten zan, baiña azkenean VI Paul'ek lortu dau barriak izentatzea.

Bost Gotzain barri ta beste lau Eleiz-barrutiko egin ditu. Bakez zenbat aldi iraungo daben ikusi egin bearko.

GAMA



eziketa jostailuak
eskulanetarakoak
irakasketa gaiak

Avda. del Generalísimo, 65
24-19-16 urrutizkiña

GAZTEIZ

Txagorritxu auzoan

Jolasean ikasi, or zure aurrentzako emoitzarik onena

ATZERATUEN BARRI-EMOILLE ASTEA

JORRAILLA'REN 21-27'RA

ATZERATUEN ALDEZKO BIZKAI-ALKARTEA, seme-alaba atzeratuak daukoazan gurasoak osotzen dabe. Bata-besteari lagundu ta aurrerapideak emoteko alkarzen dira. Euren seme-alaben utsuneak zelanbait arinduteko.

ALKARTE au, atzeratuak dituezan guraso guztiak osotzen dabe, edozeñen laguntza on-artuaz; gizadi osoa bai da arazo zail onekin arduratu bear duana.

Bazkun onek, bere bizitza edo izatea dau gurasoak sortua; euren usteak eta alegiñak eskiñi ondoren, urteroko emokuna ordainduaz, enparau arazoeri erantzuteko.


Alkarte au, Laterri Batasuneko kidea da ta baita be Laterri-arteko Batzakoa.

Laguntzen dautsoen beste adiskide batzuk be ba-dauz, diruz eta onuz laguntzen dautsoenak. Onei, bazkide laguntzaillak deritxoe.

Eten bageko jarduna egin daroa bere ekiñean:

—Arrera ona ta bideak adi-erazi sendiei.

—Bakotxa bere etxean ikertu batez be ume txiki-arduratsua daukezan sendiak.



—Egiketak: Gaitz bakotxaren zera jakin-azi, ikaste-sariak lortu, ogibideak billatu ta abar.

—Agindari ta ostantzekoei, goiko ta bekoei, jakin-azi bearreko dirala Ikastolak, Gordelekuak, Lantokiak...

—Udarako Leku egokiak ta igandeetarako gazte taldeentzat leku jatorrak eraldu.

—Eralketa ta azterkuntza: Batzarretara elduteko, batzar nagusietara ta abar; orreitan eralduten bai dira arazoak, eretxiak alkarri azalduaz.

A.



Zuri zerbait eskeintzean gaur, biarko emakumeari be, zerbait eskeintzen dautsagu.

Ardurak kenduko dautzuezan egokiera aundiagoko laguntza barriak eskeintzean.

Gaur iñoiz, eta barriak diralako, zaillagoak iruditen jakuzan asmo barriak zuri agertzean.

Aurre-oinkada bakoitza neketsua ba'da gaur, etorkizun erosoago bat izateko dala uste izatea ederra da.

BANCO DE BILBAO



Emakumearen Banketxea.
Gaur eta biar.

GORBEIA'RA

Izpar makurrak idaztean, miiña be laztu egiten yaku. Azpikeri zikiñak azaltzean, urdailla be korapillotzu dabil. Itxuraz idazlea bera be, salatu gura daben loikeriak orbanduta geratzen da. Baiña ba-da zerbait obarik beste aldean, ogerlekoak be arpegi bi ditu, ta aurren barri emotean, eurak osotu daben zerbait aipatzean, alako alaitasun egalaria nabaitzen da ori idaztean. Irriparrez diardut, eta idazkin onen atz-garauak be ariñago dabilzala dirudi. Ez da ba ludian, irriparre, zintasun eta umeak daben jakin-egarria lakorik ezer. Ta gaur aurrok be izpar yakuz.

Ogeita bat txiki, amar urte inguruak, Gandasegi sendagillearen izena daroan Ikastolakoak, euren irakaslea eta beste laguntzaille bat zaindari ebezela, Otsaillaren 28'gñean Gorbeia'runtz jo eben. An, izadi garbiaren biotzean, errietako orma zarretatik urrun, aize zikiñetatik gora... egun zoragarri batzuk igaroteko asmoan.

Ikastolako arduradunen asmo ori benetan onuragarria izan yakoe ume-txo alai ta urduri oneiri. Ederra da izan be, umeak izadiakin bat, onen ezkutua ikasi al izatea; norpere erriaren bazterrik ederrenak ezagutzea, ibai, mendi... Euskalerrria!

Eurok izango dira biarko euskaldunak. Mendi gaiñetan Jaungoikoagandik urbillago aurkizten dira, ta Bere ukutua izaten. Eurak, euren bizkar-zorro astunegaz, eurak be baiño astunagoegaz, neurrian eta aztan izugarriak ikuspegi baten, an doaz leiaz, baiña bulartsu ta nekazieñean gora ta gora Gorbeia'ra.

Asiera bat izan da ori; izparren asierea be bai. Emetik aurrera sari agertuko dira, eta gure edestia idazten jarri yakuz. Orra zergaitik maite dodan eurtzaz idazten jardutea. Gauza bikaiñak diralako, benetalariak diralako...

SAITUA'TAR MIKEL-GABIN

ERRIEMAKO

BARRIAK

Galdakano

IBILKETA NERTUA

Asi barri dogun Jorrailla onen ogeigarrerenan ixango dogu mendi-zaleok, ibilketa neurtu luze bat, Araba-Bizkai zati bat bitartez, Ibaizabal-Nervion Alkarte'ko dan «Ossa» mendigoizale taldeak eralduta, jakina, Alkarte ortako beste taldeen lagun-tzagaz.

Ibilketa ori Amurrio'ko auzune dan Marba'tik asi eta Arrola'ko Jesuri gaillurrera; ortik jarraituz, Mariñe deunaren basatxonutik igaro ondoren, Jon deunaren basatxonura (Orozko'n) jatsiteko. Inguru ortan egingo dabe eberdateko abopekoa edo goizarietara andik igon Untzueta'ko gallurrera (765 neurkin goiti ditu berak) eta, mendi gain ortatik, Ugau (Miraballes) errira jatsiko dira. Or bazkaldu ondoren eta Uzkorta edo Pastorekorta'tik (585 neurkin) zear Bilbo'ko Zamakola (Peña)'ra; jatsi guztira berderatzi bat ordu-inguru.

Ibilketa neurtu orretan alde artu al dabenak, gizonetako edo emakumetako, irukoteak izango dira eta Bazbatza'ko agiria (karneta) dabenak.

Ez dago esan bearrrik, irukote asko izango dirala gure erri ontatik ibilketa luze orretara juango diranak. Ea ba neska-mutillak «patxadaz» gertuten zaren, bide erdian-edo porrot egin ez daizuen, edo ibilketa ortara aurkeztuko diran beste mendigoizale asko baiño gaizkiago ibilli ez zaitez.

ERİYOTZA

Igaro dogun Epaillaren 24'nean Jaunak bere aldamera eruan eban Larrinoat'ar Pantzeske, Ugalde'ar Donato zana-ren alargun zintzoa, larogei ta zortzi urtedun zala. Goyan Bego emakume jatorra eta lagun gaitube atsekabian bere seme-alaba ta sendikide guztiyak.

ASTE DEUNA

Aldi ontako Aste Deunak, ez dira antziñakoak lakuak, txandonetan esan nai dogu jakina, ez dirala lenagoko antzera eliz-inguruak edo ibildeunak egiten. Lenago lako txonintza zaratsua eta abar. Aldi ontan, eleizkizunak txadonan barruan bakarrik egiten dira, gure erri ontan beintzat. Txonintzak ez ain bildurgarriak, aldi aietako asko izaten ziran lez, baiña bai geyen bat, gaurkotasun geyagokoak, gure ustez beintzat.

Egiya da, lenago baiño ostetza txikiagoa da txadoneratuten dana, baiña oker ez ba'nago, gaur-egun gure eleizetan ikusten dan notintzea, kistar benetakoagoa dala esan legike; eleizara zetan doian eta zetan joan bear dan geyago dakiana. Eta ori dala bide, Eguen-guren eta Bariku-guren (deunetan esan nai dogu) erriko txadon nagusian izan gendubazen eleizkizunak bikaiñak izan ziran, beraz, atsegin izan yakuzan, bildutasun andikuak izanik, geyenen erantzun maiteko-zez ospatuak izan ziralako. Ez dakigu beste batzuk ateraten dabezan ondorenak, baiña, gure eretxiak orreik dira.

BERBIKUNDE EGUNA

Edozeiñek dakian lez, egun ori oroigarri da euskal semeontzat, bai kistarrak lez ta bai Erri baten seme arduratuak lez, egun itxaropentsu bat bezela, gogoz, bera goral-duten zaleak garealko. Aurten be, baiña, aspaldiko beste urte askotan bezela aurreko egunetatik laiño baltzez yatorkun, naita egun berean eguzki argi biguna ortzian agertu.

Inguruetan agiri ziran laiño itxusiak ekaitza iragarriten euskuen bai ortzian ta bai gure lur maitagarri gainean, batez bere biyotzean dogun zugatz oroigarrian, bertan baten geyagotan itzalik andiyenaz egun ori ospatuteko asmuu gendubanak ezin izan gintzalako bertaratut, inguru guztiyak «ondo jaboten alegindu» ziranai eskerrak.

Erria edonon eta era askotara goraldur leike-ta, guk be ospatu genduban, beste egunetan baiño zerbait obeki, baiña, beste egunetan aztuteko asmu barik eusko-seme askok egiten daben lez. «Azkatasun eguzkia basotik urten da» noz edo noz egiztuko dala itxaropenaz.

BASA-JAUN

Zeanuri

URIBE'RA BIDEAN

Artu dot Uribe'ra bidea. Uribe, Zeanuri'ko zazpi kofradietatik bat da. Gaur, Uribe'ra bide zabal-ederra datza. Uribetarren berrogetamar urteko ames, alegin eta gurarien futua. Artiaño burdi-bide latz bat egoan.

Gure artean, mueta askotako bideak izan daroe. Burdi-bideak, oin-bideak, erri-bideak, eleiz-bideak, solo-bideak, bidezidorrak, kaltzadak, errege-bideak, kamino-erla... Zulaibar'tik Axpe'ko erro-taraño, errekea ta bidezabala, batera doaz kontu kontari, Urkiaga ta Zabale'ko tontorrak alkarrri eskua emoten dautsen Meagorri ta Kurutzea'ko arroa gora.

Bideari jarraituz datoz baserriak: Axpe, Astondoa, Uribe, Añibarro, Ele-xartza...

Izen oneik, baserrien izenez gañera, abizenak be ba dira. Abizen orretari-koak etxe orretatik sortuak dirala erakusteko. Ori izan daroa euskal abizenen jokabideak geyen baten. Ba dira, orratiaño, bestetarikoak be. Esaterako, Perurena, Mitxelena, Arotzena...

Egiñian be, Elexartza'n ikusi geinke, zelan Elexartza'ko jaubea Elexartza abizenekoa dala gaur be.

Belaunik - belaun, gizaldirik - gizaldi, menderik-mende, aitarik semera, Ele-xartza sortu zanetik gaurdaño, iraun izan daroan abizena. Elexarra, artzain-zugatzta ei-da. Elexarpean egiten ei ziran artzain-batzarrak. Orrela elexarra ar-bola bedeinkatua artzainentzat. Kopla zarrak be ba diño. «Zeru goyetan izarra, errekaldean lizarra»...

Elexartza aitatu ezker ezin geinke itxi aitatu barik emen bizi dan artzaña. Basilio Etxebarria. Egundo ba'zan, artzain ona ta gizon ohea, Arraba'ko artzain entzutetsua, nire ta beste askoren aizkide ona.

Jakingarria izango litzake zenbat urte bizi daroazan Uribe'ko gizonak. Argi-ago esanda. Noiz etorri ete-zan Uribe aldera lenengo gizona? Zenbat gizaldi ete-dira Uribe'n gizona lenengoz agertu zanetik gaurdaño?

Laurentzi deunaren elizaxoa dogu argi bide bat. Eleiza ori, amargarren edo amaikagarren gizaldikoa ei-da. Ondiño, amaika ta amabigarren gizaldian, baserri-asko ei-egozan, kristiaño egin barik. Konbertsiñoa etzan egingo gaubetik goizera. Orregatik egozan Euskal-errian jentillak. Uribe'n be egongo ziran bai jentillak.

Jentillen siñiskeri urratzak dira lamiñen siñestea ta Uribe'n ba dagoz siñiskera orren azterrenak. Orra izen orrek: Lamiñetegie, Lamiñepozue... Gañera baselizatxo amargarren gizaldirantza egin ba'zan, aurretik urte asko askoan egongo zan gizona Uribe alderdian. Ba'leiteko, Kristo mundura etorri baiño lenago Uribe'n gizona bizitea.

Orduko euskereak bai eukiko eballa bedar eta gaztaien usain gozoa!

AÑIBARRO

Zumarraga

AITONA'REN KEZKAK

Ba-dago alde ederra gure aurtzaro edo gaztearoko garizumatik gaur eguneko garizumara. Aldeketak eta iritzi aldatzeak, bear-bearrekoak dira ta gizabizitzan txertatuak arkitzen dira.

Kristo-Jainkoak, Eliza, Jainkotiarra sortu zuen, baiña zati bat (ikusten dena) gizonen eskuetan utzi zuen. Eliza au gizonen eskuetan dagon ezkerro gizartekoa da, ta aldakorra.

Garizuma aroan, izlari trebe batzuen jardun-aldiak entzutea, gure Erri-Elizbaruti ontan ospatu dira, talde batzuek gizon eta emakume, orokorrak; beste talde batzuek gazte jendearentzat bakarrik.

Eliztarrek ederki erantzun diote elizaren nai-ri. Urte askoreko oroigarri izango da, gure errian aurtengo Aste Santua.

Astearte santu arratsean illeta-elizkizun be-tean, gudari oneri dagokion mallan, apaiz jan-iziaz soñean, zerraldo erori ta ilda geratu zan, Jauregi eta Larrea'tar Jose apaiz jaun langille porrokatua ta Eliz-gizon jatorra (G. B.) Une ontan nere luma astune ez da gai erioiza onek erri-tarren artean sortu duen naigabea agertzeko.

Gure Eliza nagusiak aundia dan otsa du, bai-ñan guztia bear izan zuan, aste-azken santu arratsean Elizkizumetara batu zan jende osteari leku emateko, sairano jendez bete, alajaiña. Ogeita amasei apaiz lagun eta don J. M. Setien apezpiku laguntzalea buru, ospatu zuten Illeta-Meza.

Inoiz ez bezela aurten nabaitu degu, aurten, Aste Santuko Elizkizumetan mailla guztietako jende ostea. Poz-pozik ikusi degu jende asko urre-raizan mai-santura egun auetan. Pazko aro ontan ez degu sermolari malla artu nai, baiñan egoki derizkiot nere barruan egosi eziniñ daukadan kezka-izo bat jelkitzea; Egun auetan gure begiekin ikusi ditugu, erriko goragarri notin ugari, nekazariak, kalelarrak, sendi gurasoak, irakasleak etxeokandre goragarriak eta abar, besarkada estu batean Gure-Jauna'rekin bat egiten. Une zoragarriak eta Udaberriko Pazkoa oñartu-ta, guztiok elkarturik, bakoitza bere mallan, gure erria obetzeko lan apur bat egiten asteko ordua ez ote da etorri?

Argi nabaitzen degu gaur egun gure inguruan, jende oste aundiak daude egieren gose ta egarri. Norbaitek esan zuan: «gizajo oietatik bati jaten edo edaten ematen ba'dio neri ematen dit».

AZKARRAGA

Arratia

Diruaren urritasun edo baliorik ezatzaz eta lana gitxitzearen zerari buruz amaika barriketa eta barriketarako gairik ba-da gure artean, batez be etxeokandretan, erosketak egitera doazenenan edo-ta andik datorkuzanean.

Arratia'n esaten dogun lez esanik: gure andra ZENTALLEZ galbai txiki bat bete uretan itoko litzakiguz euren biotzeko «pelikula» deritzaion zereko zeren batzuek ikusten, edo-ta «novela» izendu ipuiñik ez ba'lebe.

LANDAJUELA'TAR A.

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK



ZAZPI-KALEAK

GASGO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

SEGURA

Ba dago erderazko esakera bat: «Flandes'etan pika bat ipiñi». Astamakilla bat sartu, esango genduke guk. Eta ain zuzen be, ba dira idazle batzuk diñoenak Flandes'etako gerraetan erabili ziran astamakillak, pikak, Zegama eta Segura'ko basoetako leizarren artean billatu, aukeratu, ebagi eta gertatuak izan zirala.

Nik gaur, ain zuzen be, Segura'n sartu nai neuke nire astamakillatxo. Sartu baiño erabili obe, zek urtetan daben ikusiz.

Ursuaran'go Santa Ingartzeri txapela kendu dautsat ortarako. Santa ori dauke, Segura'n; lurraren ontasunen jaube lez. Origaitik, Jorrailla'ko 16'an egiten dan erromeriarren aurretik, egun orretako bedeinkatzea artu barik, ez eben emengo baserritarrak indi-babarik ez artorik erein nai izaten. Eta ori egin ez da be, gure denporetan, baserritar gitxi geldituko dira egun orretan bedeinkatutako ura artu barik, gero ur orrekin baso eta soloak bedeinkatzeko.

Mutiloa'rako bidea artu eta bidetik laster, zelai baten dago ermita au.

Ba dirudi bere kanpai torrea, bere kanpai toki, eleiza edo konbentu andiren bate-rako egiña dala. Arku biko arrizko kanpai toki ori urrundik ikusten da. Alkarren parez daukazan arku andi biak utsik eta erdiko tentekoaren gainean kanpai txiki bat dauka. Eleiza, baserri lautu baten antzekoa eta torrea ez dira ondo alkartzen neurrietan. Baiña ten egiten dau torreak. Oargarri da. Barruan, aldare bakarra.

Aurrean basetxe zaar bat: Sakristaue-txea. Ala deitzen dautse, nai eta beste askok, eta paperetan, Santa Engartzi lez agertu.

Segura'ko parroki izan zan lau urtetan ermitatxo au, su batek erria erre eta kaleko parroki uts geratu zanean, 1645-1649 bitartean.

Beste ermita bat be izan zan parroki: San Andres. Zegama eta Zerain'go bidean. Orainsu barriztatua da ermita au. Egurrean ataratako Kristo'ren irudi balioitsu bat erdian.

* * *

Gure errietako Kale andiak beti gorde izan dabe nortasun berezi bat. Zati barriak etorrita be, errialde eta inguru barriak geitu-arren, errien lengo kutsua, nortasuna, jatorriasuna, bereiztasuna eta giroa Kale andi oneitan agertu eta ezagutzen da.

Zorionak emon bear Segura'ri bere kaleak ain jator zaintzen alegindu izan dalako. Kaleen izatea eta erriaren sentzuna ain txairo gorde ditulako.

Gipuzkoa'n geratzen diran inguru eder banaketatik bat au dala esan dabenak ba dira. Pentsakera ori ziurtatzera makurtzen da bat, erria ikusi-ala.

Jakiña da Segura erri ertsia izan zala. Emen dagoz bere bost ate nausiak, bere sarrerak ori erakusten. Eta bere ormak, orma lodiak, napan anaien sarrera zaratatsuak galazoteko. Lenagoko denporetan Nafarroa'ren aldetik eukiten eben kezka eta ango algarak sortzen eben emengoan bildurra. Euskaldunok be jakin gendun anai arteko gerrai su emoten. Jauntxoaren arduetan eta naikerietan naastuten ziran erriak. Ortik ormak, eta eurak be urez inguratzea, komeni zanetan sarrerako zubia zabalduta edo igota lagateko. Nafarroa'ri begira egin zan ate onetan lez.

Menditxo baten lepoan egiten da erri au. Inguruan, oraindik ur asko barik, Oria ibaia.

Begira nabil. Jauregi ederrak, arrizko etxe zabalak: Argauzte, Lardizabal, Alustiza, Zurbano... Gaixotegia bera ederra. Baita monjaen etxea. Abizen askoren jatorriko etxeak dagoz emen.

Eleizea bera eder eta zabala, bere torre lautua gain gainez ikusten dala. Barrua, iru zati bardintsutan banatua da. Irudi ederrak. Bidezko da imajiña ederrak egotea. Kontuan euki emengo Aste Santuko ibillerak ingurutatik ikusienak dirala. Aldare, nausia, andi, ikusgarri, barroko erakoa. Bear ba'da orni-duegi.

Ez dautsagu akatsik billatu nai erriari. Igarten da maitasunez zaindu naia, eta ori, gaurko arduragetasunetan, meritu andia da.

Milla eta seireun lagun inguru. Industrierik ez. Kanpora urten bear lanera.

Bestetan erri maitale dirala, orretantxe ez dabe segurarrak aukerarik sortu.

Erri-miñez zelan jokatzan daben jakiteko, «Uztapide» bertsolariak esana gogoan daukat: Pelota joko bateri buruzkoa da. «Errikoak irabazten ba'dijoaz, asiko dira mutil koskorak bulla ta txaloka ta ez dira ixilduko. Galtzen ba'dijoaz berriz, izugarritzko kalma izango da partidu artan». Erri miña. Ezin ukatu.

«Ai bertan bizi bear ba'gendu beti uda eta negu...»

urten eutsan beste bein bertsolari berberari. Nai eta esakera zarrak esan: «Segura, asko il eta gutxi zerura».

* * *

Segura'k, auzo erriekaz, bere gora-berak cuki zitun. Urte askotan, 1384'tik 1615 bitartean, beragaz batuta bizi ziran Astigarreta, Zegama, Zerain, Gabiri, Gudugarreta, Idiazabal, Legazpi, Mutiloa eta Ormaiztegi. Beste batzutan Ezkioga, Urretxu eta Zumarra-ga be bai. Erri bakoitzak bere duintasuna galdu barik.



Ba egoan errazoi bat orretarako: Nafarroa'rako bidea. Oraindik Gipuzkoa'tik urteera bakarra. Gero egin ziran Gatzaga'koa eta Tolosa'tik, Lizartza'tik zear doana. Oneik egin artean San Adrian'go urteerak bizi andia emoten eutsan Segura'ri. Gero, besteak egitean, bizimodua aldutu eta beste erriak be banatzeko aizeak jo.

Sasoi aretan, 24 eskribadu be egon ziran Segura'ko lurralde onetan. Erdiak alpe-riak. Ala erabagi eben 1566'ko urtean Zumaia'n egin ziran Gipuzkoa'ko batzarrak.

Suak be sarri eten eben erri onen bizitza. Bein, 1442 urtean, eleizea bakarrik gelditu zan erre barik. 1645 urtean 37 etxe erre. Ala ta be barriro barriztu eta inguruentzat entzutea emon. Ortarako lagun ona, astelenetako merkatua. Gaur be illean birritan egiten da, eta urtean beste lau andi.

* * *

Bertsolari itsuen artean, biziari bere guna ondo ataraten jakin ebana izan zan Joakin Luzuriaga, «Segura'ko itxua», nai eta bizimoduak estu artu eta baltzak «ikusit» eragin berari. Bere sasoiaren euskaldunak ez euken soldadutzara joan bearrik, baiña Cuba'ra joan zan, bear ba'da bizi-premiñak eraginda. Berak kantatuak dira:

Amabost urterekin
neguan zapatar,
gero soldadutzara
juan nitzan andi.

Geroago irakurriko dautsagu:

Soldadu egin ditudaz
amaika urte t'erdi,
aizkenian Habana'n
ixtutu nitzan ni.

Errira etorri ta ezkontzeko aukera. Ez fruturik barik. Sei urtetan, lau ume alkarren gainean. Eta alargundu. Berak diño:

Lau kriaturekin
nenguan alargun,
neri onen ongilliak
eiten ziran lagun,
baiña ume gaixuak
negar eta lantun,
aita itxua eta
ama kanposantun.

AGVR

Apartado n.º 2
BILBAO

FRANQUEO
CONCERTADO
08/55

GOIAN BEGO

LUIS MARI BELTRAN DE GUEVARA

Agur, adiskide maite ori!
Baiña, ez adiorik orratio!
Laster arte!

Goizean, alai jeiki oetik eta eguneroko lanari ekiten diogunean, ez dakigu ondo zer berri ekarriko ote digun egunak. Jorraillak 3, 1975. Beste edozein egunetan bezela jeiki, gosalduta azken errege edo enkarguak egitera joan naiz nere etxetik gertu daukaten errira, au da, Santo Domingo de la Calzada deritzan erri ezagutu ontara. Txiri-boro, txiri-boro nere lantxoak egin ondoren, berriro nere etxeruntz nator, Donostia'ko La Voz egunerokoa beso azpian detela. Ez nekien asko, ez orixe, zer-nolako berri itzala zetorkidan paper artean gordeta! Orain dela illabete bat eta geixago edo, ain zuzen ere Epaillaren lenengo igandean, elkarrekin egon giñan, zu, Luis Mari, zure zenbait adiskide ta ni, zure goiko bizitzan, ementxe bertan, Bidebieta izeneko uda-etxe ontan, musaldi bat jokatuaz eta txanpon batzuk bizigarri mai-erdian ipiñiaz. Gero, urrengo goizean goiz, arrantzara joan zihaten, igande artan idekitzen bai zen arrantza, inguru auetan. Eguraldi txarra zen, oker ez banago ta otartxoak utsik bizkarretik zinzillik zihuztela itzuli zihaten etxera. Mutillak zihaten, emakumerik gabe, zeurok bazkaria prestatzen, zu beintzat, Luis Mari.

Azken aldian, zeran, Larunbat Santuan, gauean, itz bi elkar agurtzeko egin giñuzten zuk, aldameneko Kristina'k nik eta nere emazte Sorkunde'k nere bizitzako ate ondoan. Geroztik ez zaitut geiago ikusi eta ez ikusiko ere lur triste ontan geiago. Astiro-astiro irakurri bear izan dut egunerokoa, ba nekien zoritxarreko ixtripuan Beltrán de Guevara'ren bat edo beste, Arrasate'koak ain zuzen ere, illak zirela-ta. Nere emaztea eserluan bildurrez dar-dar zegoen, jakiñen ura zu Barcelona'ra joana zihala zure anai erlijiosoari ongi-etorria ematera. Nik orrenbesterik ez nekien. Bostok, iru anaiek, kotxe-gidariak, au ere zure familikoa, eta beste zure anaiaren anaikide erlijiosoak, ixtripu batean, elurra zegoela, ez zegoela, balbatean arkitu dezute zuen azkena Nafarroa'ko zelaietan, Acedo izeneko errian, Lizarra'tik ez ain urrun.

Egia esan, Luis Mari, zure eriotzak eta zure beste anai birenak bizitzeko gogoa ere makaldu egia didate. Ezertarako gogorik gabe naukazu. Aldameneko etxera joan naiz, Anton Zumeta'ren etxera, berri ematera eta ango telefonoz baliatzera, nere baitan Sorkunde negarrez utzirik. Bestean ere malkoak dariola zegoen Miren Yosu. Ez dut Mondrago'ko nere adiskide eta bertako Bikario den Joxe Luis'ekin itzegiterik izan, bein eta berriro artua baitzegon ango telefonoa. Agur, Luis Mari! Ez adiorik orratio! Laster arte! Agur zure anai Karlos eta erlijioso Pedro Manuel! Agur azkoitiar eta erlijioso Josu Modesto! Agur gazteiztar Yosu Arandia!

Zuk, Luis Mari, ordaindu dezu guziori eta bakoitzari lege zorrotzak eskatzen diguna. Zaude aurrera zoriontsu Jaungoikoaren kolkoan, goiko beti eze eta loratsu irauten duten zelaietan, eguzkia beñere itzaltzen ez den eta ibaiak agortzen ez diren misteriozko lurralde zoragarri oietan! Ta zuk, gaur, gogobetez zoriontsu zeran orrek izan gutzaz kupira. Ta, zuri, Milagros atsegabetu orri, gaurkoz ezerez, aski bai duzu zure ezin-beteko utsunarekin. Jarrai bezate, egun, euren Ikastolan Raultxo'k eta Elenatxo'k, irugarrenak, berriz, garaia eltzen zaionean.

Guk ainbat maite dugun Arrasate'ko erriak luza deizula, orrelako ezbearretan oi duenez, bere esku zabala eta kontsolagarria. Ta ez aaztu, gero, Milagros, gu ere emen gaudela alegin osoz zuri eta zure aurtxoeri laguntzeko.

JOXE LASA

Gizon bat eten, ezezpenean jota lagateko giroa, ez? Ala zan ala ez, jarrai bere bertsoak irakurten:

Neronek pena eta
tristuten erdian,
beste alarguntxo bat
senti nuen errian;
berakin ezkondu naiz
bigarren aldian,
biarra ere ba zegun
nere familian.

Ogeta amasei egun lengo emaztea il zala ta orra «itsua» beste emazte bat billatuta. Or Luzuriaga barriro biziari irrika. Nafarra dau emazte barria. Kontxo! Sagardauaren etsaia, arerioa, biak alkarri umore fiñez egindako beste bertsoetan igarri leikenez. Luzuriaga'k berak egiñak ete dira umorezko bertso orreik ala ta besteren batek egiten ete eutsazan bizimoduan laguntzeko?

Dana dala, orain eun urte, Segura'ko kaleetan bertso kantari igarten dogu. Zer gertatu leikean igarten ez da gaitz. Barriro berri lagako dautsagu bere bizitza agertzen:

Ni naiz Joak'in eta
zu berriz Manu,
zurekin ezkondua
ez det bada damu;
nik gitarra jota
zuk papelak saldu,
oraindik perra asko
bear degu artu.

Erri txikien ikusteak olako oroitzak darrak. Gogoratu ezik laster galduko dira. Añiñegi goaz bizi aldakuntzan. Jo, apurtu eta astu nai dogu lengo guztia. Eta lengoak, eta askotan, oraindik eder asko erakusten dauku. Segura'ko kaleci itaundu, galdetu.

A. ZUBIKARAI

GOI - GOITIK?

ASKOTARIKOAK

Egunero ikusten dogunez, Erri-Bizitzek mailla asko daukaz eta Erri-mailla bakoitzean be era askotako erri-gizonak bizi dira.

Batzuk jakitunen maillara eldu dira eta goi-goian Erriko arazoai erantzuna emoteko oinarriak billatzen diardue. Ez da lan makala.

Beste batzuk Erriaren alde ekintzaille edo, inoiz, burrukalari bihurtu dira. Au be ez da lan makala eta ba ditu inon diran arriskuak.

Oneik Erri-kontzientzia artu dabe eta argi ikusten dabe bidea zein dan, areik illuntasunean eta zalantzan igaroten dabe euren egunak.

Besteak erri zea osotzen dabe eta bizitzako lenen diran bearkizunai erantzuna emoteko estu ta larri, urduri ta arduratsu dabiltz ara ta ona. Berengo maillan sarritan ezjakiañak eta esku-langilleak dira.

Angoak dirudunak dira eta lenen diran bearkizunak ardura gitxi damotse. Ondasun artean uger egiten dabe ta zoriontsu bizi dira, bear ba'da inoren estutasunai begiratu barik.

Emengoak zordunak dira eta Erri-lanetan zintzo ta gogotsu ekin arren, ez dabe aurkitzen lan egiteko bear daben erarik.

Orkoak eretxi zuzenak daukez eta jator jokutzen dabe.

Bestaldekoak Erriari begira bide oker baten sartu dira eta euren eritxi okerrak aurrera aterateko erea, ugari izaten dabe. Askotariko jentea daukagu ba, Erri-barruan.

JOKABIDEAK

Erriko bizikera ezberdin oneik ikusi ondoren, euren burua kontzientzidun eta arduratu lez daukenen artean, iru jokabide agertzen jakuz, gitxienez.

Batzuk egazkia artu dabe eta Erriko goraberak dagozan be-mailla alde batera itzita, gora ta gora egin dabe. Oneik eztabaidetan ez dira sartzen, inoz ez dabe zuzentasuna non dagon agertuko, alderdikerririk ez dabe onartzen, eurak Erri guztiagaz egon gura dabe baiña ezertan sartu barik. Orrelan Erri guztia eurakaz egongo dalakoan dagoz.

Beste batzuk egazkiñik ez dabe erosi. Lurraren gainean oiñak ondo jarrita dagoz. Erri zearen barruan bizi dira eta antxe aurkitzen diran arazo biziakaz bat eginda dagoz. Erriaren samintasanak eta pozak eurenak be ba dira. Inoz egazkiñean dabilzanai be begiraten dautse eta noiz lurrera jatsiko ete diran zain dagoz. Erriaren barren-barrean bizi dira eta antxe aurkitzen dabe benetako euskalkutsua.

Eta irugarren jokabidekoak, gizarteak alan nai izan da, ez dira bizi be-mailla orretan, baiña Erriko arazoai zur eta arduratsu begiraten dautse.

SARTU-BEARRA

Erriko beartsuak lagundu eta Erriko arazoai erantzuna emoten ez dautsena ez da benetako Erri-zalea.

Erriaren diran jokera ezberdiñak aztertu eta zuzena deritxonari indarra emoten ez dautsanak ez dauka jakobide jatorra. Inoz uts egiteko arrisku izango da, baiña arrisku orretan sartu bearra dago Erria maite ba'dogu.

Emon bear dan laguntza ori emon ez dalako, Erri-bizitza motelduten ba'da, gitxi balioko dau aize garbiak artu ta biriak garbi eukiteak.

GOITIK DABILTZANAI

Goitik dabilzan orreik uste daben baiño okerbide aundiagoan diardue.

Zer jazoko jaken?

Egunen baten jausi egingo dira eta orduan Erriak ez ditu ezagutuko. Erria iparraldetik egoaldera, sortaldetik sartaldera aztertuko dabe eta gauza asko, aurrerapen asko, aurkituko ditue, baiña ez eurak egiñak. Erri orretan erbesteko lez aurkituko dira.

Erri guztia lagun izan daiten arduratsu inarduen, baiña Erriak ez ditu ezagutuko edo gorrotoa izango dautse. Lupetzean sartuta dagoan burdia aterateko, indar egin bear da eta inoz lupetzean sartu be bai. Soñieko garbiakaz arro-arro agertzea baiño ohea izango da Erri-lanean erabillitako jantzi zikiñakaz agertzea.

Eta gaur da lan egiteko ta laguntzeko eguna.

AGVR

EZAGUTU TA MAITATU

EZAGUTU TA MAITATU

Bilbo'ko euskaldun talde bat, bere oporketak betetzen, Orozko erria ezagutu ta aztartzera joan jaku. Amar urtetik amasei urte bitartekoak dira.

Ikastola ezberdiñetakoak dira ta Aranzadi'rako lantxo batzuk egitera joan be.

Taldearen arduradunak Ziarzolo'tar Zuriñe, andereño izateko ikasten ari dana eta Elgezaba'dar Begoñe farmaziarako ari dana. Oso langille ta euskaldun jator doguz.

Talde onen elburuak oneik dira: Jainkozaleak eta euskaldunak izan eta erri euskerea ikasi ta jakin. Euskalerria ezagutu ta maitatu.

Oraindik ez dauko izenik, baiña Bilbo'ko Euskerazale'etako abar bat izango denez, danon artean asmatuko dogu.

Eskerrak emon bear dautsaguz Goti aita, Permiñ'eri, bere laguntzagaitik Orozko'n, eta AGVR onen bidez, zaspri egunetako lanak azalduko doguz, ez gara ba lanik egin barik gelditzen.

Eskerrak baita talde onetako gurasoai, ondo ikusten dabezalako gure ibillaldi ta lanak.

MARISA'K

LUTELESTIA

Orozko, Bizkai'ko ibarretatik ederrenetako da. Mendiz inguratuta dago. Mendi oneik Gorbea mendi-lerroan dagoz eta garrantzitsuenak oneik dira:

Usotegieta, bere goitasuna 1.178 m. da. Sarbideak Orozko'tik eta Zeanuri'tik daukoz. Ubixeta, onen goitasuna 1.106 m. da. Sarbideak Orozko'tik eta Ibarra'tik daukoz. Odegiaga mendia, bere goituera 1.234 m. Orozko'tik eta Ibarra'tik eldu leike bere gaillurrera.

Altube ibaia igarotzen da emendik. Gorbea'ko sortaldean jaiotako Areta errian Nerbioi ibaiagaz alkatzen da. Arbaiza errian eta Badiola mendiarren aurrean, Bizkaia'n sartzen da. Bere urak Orozko'ko lurak busti ta aberastuten dabez.

Lur eder onetan danetik landu leiteke, dana elduten dalako. Mota guztietako zugatzak dagoz: Intxaurrak, sagarrak, gaztaiñak, piñuak eta abar. Baiña berezkoak: Arizta eta Urretzak dita.

Basoetan, basurdeak bizi dira. Baserrietan txarriak azi ta araiak zaintzen dira.

Industria arloan, arizaintza ta egur-lantegia dira garrantzitsuenak.

BELDARRAIN'TAR JOSEBA (15 urte)

EUSKERAZ?

Euskera gure errian galtzen doala entzuten da. Egia ete da? Orozko errian itaun batzuk egin ondoren, emen daukogu erantzuna.

Orozko'n euskera galtzen asi zan kanpotarrak etortean, baiña euri ezin dautsegu errua bota.

Eurek euren izkuntzan itz egiten dabe, guk zergaitik ez dogu gure izkuntzan egiten?

Batzun erantzunak onek izan dira: Euskerak ez dau ezer balio. Ori baserrietarren gauza da. Euskeraz ezara ulertzen inogaz. Erantzunen iritzia.

Erantzun onek eta beste asko erabilten doguz gure ez jakintasuna estaltzeko.

Gazteen artean euskera aztuta dago. Batzuk, etxean euskerarik egiten ezatalako; besteak, lagunak erdelidunak diralako.

Baiña danon atzean ajola gabekeri aundia ikusten da. Jarraitu ba'eben euren izkuntzea gogortzen eta lantzen, orain beste gauza bat izango zan.

Urteetan sartuta dagon jentek euskeraz egiten dau. Andran artean euskera guztiz galduta dago. Erdera errezagoa ta kategori aundiagokoa dala esaten dabe.


Ume txikiak euskera ikastera doaz Parbuloko ikastolara, baiña gero, E. G. B. ikasten dabenean, euskera azu egiten dabe. Dana ajola gabekeriagaitik.

Arren orozkotarrak, egin beti euskeraz!
AGIRRE'TAR ANDER ETA JON
(15 eta 13 urte)

AIZPURU'KO ABADEA

«Egun baten, Aizpuru'ko abadea bere morroiagaz Superlaur arzulora joan zan eta andik urteetan bere mezako liburua aztuta utzi eban.

Atxular'etik jeistean, abadeak, ango arriak saiarrez beterik ikusi ebazan eta gero oiartzun bat entzun eban eta orduan liburua arzuloran utzi ebalako gogoratu jakon ta morroiari esan eutson:



—Joan zaitetz arzulora ra arri gañetik nire liburua ekarri eiztazu.

Morroiak bildurrez erantzun eutsan:

—Ez, ni ez noa.

Ta abadeak:

—Bildur zara? Joan zaitetz lasai, saiarriak nik zainduko dodaz-eta.

Morroia arzulora sartu zanean, saiarre guztiak abadearengana joan ziran Morroia, liburua agaz urten zanean, saiarre guztiak arzulora sartu ziran eta urtu egin ziran».

ELGEZABAL'TAR ELIXABETE (14 urte)

LEEN-GIZONA

Orozko'n, inguruetan, arzulo batzuk ba dira: Superlaur edo Superlegor, antziñekoa da. Arzulo onetan ez dago aztangarririk. Ernesto Nolte'k esploratu eban. Gizon au gazteztarra zan.

Casiano de Prado'k, 1864'gn urtean, «Numeración de Cavernas» bere liburuan aitatzen dau.

Lapurzulo: Nolte'k aurkitu eban 1968'gn urtean. Onek be ez dauka aztangarririk.

Triku-arri batzuk be aurkitu dira: Austergormin'go arria, Ipargota'ko zelaian dago, 1.033 m'ko goitasunean.

Arane'ko arria, Odoriaga'ko mendian dago, 95 m'ko goitasunean. Pagozarreta arria, au be Odoriaga'ko mendian aurkitu da, 120 m'ko goitasunean, Araba eta Bizkai arteko mugan.

Usegatxu arria, aurreko bien antzera Odoriaga'n dago. Iru triku-arri oneik J. M. Barandiaran'ek aurkitutakoak dira, 1922'gn urtean.

ELGEZABAL'TAR ELIXABETE (14 urte)

SORGIÑAK

Intziñe mendian, sorgiñak, lamiñak eta deabruak bizi ziren. Deabruak gabaz arrano biurtzen ziren.

Artzain batek sorgiñen etxe aurrean txabola egiñ eban. Aren bildurak eraginda argizaiola bedeinkatua eta gurutzeta ate aurrean ipiñi ebazan.

Sorgiñak ezegozen pozik artzainaren ate aurreko gauzakaz. Sorginkeriak ondo ezin egiñez aurkitzen ziren.

Egun batean arrano biurturik artzainaren txabolara joan ziren esanaz:

—Kendu eizuz gurutz eta argizaiola ori atetik gure lanak txarto egiten doguz-da.

Artzainak alako arrano pilla ta bildurgarriak ikusirik kendu ebazan ta geiago ezun sorgiñik ikusi.

ARIZTONDO'TAR ITZIAR (12 urte)

GIZON OSPETSUA

Basoa eta Arbaiza'tar Joxe. Olabarriari jaiotako, 19-3-1874. Amabost urterarte onetako konpontzallea zan, ezjakin utsa.

Urkiño markesak beka ba emon eutson eta Orozko'tik Madrille ta Alemania'ko ikastetxeetara joan zan, an, ingeniero industrial, ariketaren irakasle, aleman izkuntzaren irakasle ta osagille ikasi eban.

Santiago ikastetxean katedratikoa zan, eta andik Madrille'ra egualdiaren gora-berak esaten ebazan.


Euskeraz beinbe ezun aztu, naizta bere emaztea euskalduna ez izan.

Orozko'n, gaur be, euskaldun jator, jakintsu bat lez aitatzen dabe. 1941'ngo irailaren 9'an il zan 67 urteagaz.

Bere jaiotetxe baserriak milla urte baiño geiago daukoz, baserri ori Olabarri izenekoa da. Gero, etxe orren ondoren egin ziran beserriekaz Olabarri auzoa sortu zan.

LOYOTA'TAR GURUZNE (13 urte)

JARRAITZEKO



GATZ ETA PIPER

«AKADEMIA» TA OLAKOAK... NOIZKO?

Gure izkuntza erderatzearen alde dagoenetatik euneko irurogetamarren bat politikan be erbesteazaleak ditugu. Orain arte, indarra artu ta kokolo askoren dirua eureganatu arte, au ixillean gorde ba'dabe be, orain argi erakusten dauskue agiriko ta ixilleko aldizkari ta orrietan. Izkuntza arloan jazo dana politika arloan be jazoko da.

Euneko ogetamar orreik, naizta sortzailleen kolorea ta elburuak ezagun-ezagunak izan, batukeriaren alde jarri ziran lenengo-lenengotik. Izkuntzalari izanik bateon batzuk, eurak izan dira gaur euskereagaz egin dan triskantzaren errudunik aundienak. Jakiña, gaur ortik zear idazten danagaz lotsatuta batzuk, «buru zuriketan» asi dira, naizta beste batzuk iñoiz baiño gogorrago ekin.

Politikan euneko 30 orreik izan ezik «ego-aizeak» edo «ipar-aizeak» (prantzez-prantzesak be ba'dagoz buru-buruan) jota dagoz euskeranto zale geienak. Euskelzaletasuna «burgeskerrizat» salatzea naiko da gero aurrerakoitasunaren izenean nai diran astakeri guztiak esan arren, euneko 30 errizale diralako orreik ixil-ixillik ikusteko.

Baiña izkuntza arlorra barriro biurtuz ona emen prailleena dan Bizkai'ko aldiskari baten irakurri al izan doguna: «Arboladi bat balitz bezela, eta zeharo gaizki, onhartutako Euskaltzaindia izena». Eta agerraldia amaitzeko onako au diño JOSEPE dalako batek: «Boza eta botua dutenak mintza daitezela, eta, behin betiko ez bada ere (oxala balitz) proposa dezatela irtenbide bat. Horretan mesede handia egin dezakezuenon zain gaituzue».

Gure ume aroan, Nabarniz'en beintzat, «oxala» txarrien janaritzat egiten zan zerbait zan eta ori da, aurki, euskaltzain ospetsuerei eskatzen jakena. Vilasante, San Martin, Quintana ta beste euskaldun «jatorren» batzuk asi leitekez: euskeraren orde zuskara, urrutizkiñaren orde telefonoa, orriaren orde h-dun hozto, epaillaren orde martxoa, ingurraztiaren orde kuadernoa, erriaren orde populoa... eta «ofizialki» zergaitik ez? Euskaltzaindiaren orde Akademia!

Ala ba izkuntz irautzailleok! Zeuen buruak arbolatzat artzerik nai ez ba'dozue «sosolisto» batek sartu daben oitureari jarraituz «akademiko» egin zaitezte. Ba dago, aurki, zuentzat arboladi dan beste zerbait: gure laterriaren izena. Z'ren orde S ipiñi dautsazue baiña guztiz kentzen ez zarie ausartzen oindiño. Olakorik egingo ba'zendeke, zelan lortu dagozan beste «arbola» inuxenteen dirutza ederrak? Ori «iraultza»ren urrengo maillarako itxi!

AÑOBEROS GOTZAIÑA

Gure errian dabillen joko zikiña ez da edozelakoa. Aurrez-aurre, euskerantzoko aldizkarietan koipetsu agertzen diranak edo lagun kutunak, ixilleko orrietan adurra dariola jatorruz. Eleizako itzalpea edo liturjian «batu» ori sartu bear dala diñoenean, labankeria! «Sodupe» izenburuagaz eta beste antzeko zikinkerietan adur loa!

Ezkerretik eta eskumatik makillatua izan eta ez batzueri ta ez besteari erantzuteko erarik euki ez. Obeto esateko ere bai, baiña satsa zenbat eta geiago erabilli usain txarra urrunago! Orain dirala urte batzuk, gotzaiñak eta eleiz gizonak besoa luzatuta ikusten genduzanean errebeza larria emoten euskuen; bardin gaur beste ertzetik, bizitzaren buru zuriketan sarri, demagoji utsean jatorkuzanean.

Zuzentasuna da gaur eleiz buruentzat eskatu bear gendukena ta iñork erakutsi ba'du, denpora asko ez dala, Añoberos Jauna izan da. Ez dogu bear olako edo alako koloreko eleizgizonik, danontzat bide erakusle izan leikezan gizon jatorrak baiño, ta orretarako jakiña, bizitza eredu garridunak izan bear. Adurra dariola dabiltzan bateon batzuk jaurti ete leikee lenengoko arrikadea?

ARENAZA'TAR JOSU

USANSOLO'KO EUSKEREIA

Usansolo'n euskereia, noiz arte?

Itaun sakona, kezkatua, arriskutsua... Itaun onek garrantzi aundia dauka.

Gaur egunean gure euskereia, beste toki askotan lez, arrisku bizian agiri yaku, besterik ez. Ezin dogu ba esan euskereia galdu danik, ez indartsu dagoanik. Gure euskereia atzeraka doala? Bai, eta... non ez?

Zelan dago gure euskera Usansolo'n?

Ona emen nire eritxia:

Kalean.—Utsune aundiakaz.

Lau urtetik beragoko umeak.—Geienak euskaldunen seme-alabak, ba-dakie euskeraz. Erdeldunen seme-alabak ez dakie ezterto bere.

Bost urtetik amalaurartekoak.—Bertakoen seme-alabak geienak ulertzen dabe euskeraz. Berba gitxi, eta etxean baiño ez. Eskolara asteen iya guztiz baztarten dabe euskereia. Gurasoak be ardura gitxi agertzen dabe eta ume orreik euskereia guztiz galtzeko bidean egongo litzakez, Usansolo'ko talde bategatik izan ez ba'zan. Batzuk Galdako'n sortu dan ikastolara bialtzen dabez umeak.

Amalau urtetik amazpirartekoak.—Erdiak baiño geiago guztiz aztu dabe euskereia. Beste batzuk ulertu baiño ez dabe egiten.

Amazazpi urtetik goragokoak.—Kantopar utsak izan ezik, geienak ulertzen dabe euskereia.

Zeezer agiri yaku ba garbi: Amazazpi urtetik gorakoak, geroago ta gitxiago egiten dabe. Andra geienak lendik itxita daukie euskeraz egitea. Geroago ta euskera gitxiago entzuten dabe emendik.

Baserritar geienak euskeraz egiten dabe. Baiña gazteak, egia esan bear, iya danok erderaz egiten dabe. Zarrak eta umeak, ez.

Zer esan?, atxakiak ugari, zaletasun gitxi. Ba-dakigu telebizioak kalte aundia egiten dauskula, oso-osoa erderazkoak diralako, baiña ori ez da atxakia.

Usansolo'ko euskereia ez da berez ilgo, geuk ilgo dogu, geu izango gara iltzailleak eta errudun, zeezer geiago onetan alegintzen ez ba'gara. Eta euskereia itoz batera gure erria be ilgo dogu. Geure nortasuna eta berezitasunak betiko itoko doguz. Euskereia

itoaz batera, gure kultura aberastasunik ederrena galduko dogu.

Usansolo'n beste alderdi askotan lez, gazte asko gagoz; zoritxarrez, batez be kalean, erdera utsean mintzatu eta euskerarik ez dakienak. Euskaldun askok, nik neu be, tamalez erdera jokutzen dogu sarri askotan. Ba-daukagu ba zegaz arduratu eta kezkatu.

Gurasoen artean be, ba-dago zertan geiago arduratu eta alegindu. Ez da naiko umeak euskeraz ikasten bialtzea. Ume orreik, euskereia ikasten azi dira. Garrantziena izango litzake eurekaz egitea, baiña tamalez, ez da ori jazoten. Eta au, bai emen eta beste edozein euskal alderdian be bai.

Gazteak eta umeak euskereia maitatzen ikasi bearko dogu, beti euskeraz itz egitean. Bestela ez dago zer egiñik.

Euskereia berengo maillan, izkuntza lez, agertzen jaku, gure artean garrantzizko arazoak aztertzeke erderara jotzen dogunean.

Ez dabe ba gure euskereia, ikastolak ba-karririk salbatuko, euskaldun gurasoak eta ume orreik inguruan bizi garan euskaldunok, danok alkartuta baiño. Umeak erriar eta euskaltzale egiteko, geuk agertu bearko dogu, bai gurasoak, bai andereñoak... Ardurea guztiona da.

Zer egin dogu orain arte utsunak be-tetzeko?

Izan be, ikastolako ume txiki orreik biar edo etzi euskeraz egiteko giroa bearko dabe. Nekez mintzatuko dabe umeak euskeraz erderazko giro bategaz inguratuta aurkitzen diran artean. Berez joko dabe erderara.

Ona esakera zar batek diñoana:

«Arnas barik astoa, zertarako oloa».

Ez ete yaku jasoko euskaldunoi orren-beste?

Euskereia ikasten alegindu bearko gara.

Gogorrera izaten da euskaldunak euskalduntzea eta euskal maitasun batean berotzea. Eta ain bearrezkoa da gure euskereia indartzeko...

Barriz, emen nire itaunketa bat: Usansolo'n euskereia noiz arte? Guk dogu erantzuna, zuk eta nik, guztiok.

Gure alderdi onetan be, ba-dago oraindik non lan egin.

Emen abesti batek diñoana: «Beti gogor, beti gogor gu...».

Usansolo'ko neska batek

TOLOSA'RA DANOK

Millaka urteetan euskaldunok erabilli dogun gure euskera zarrari aibeste etsai etxean bertan sortu yakozala, bere alde aleginetan dabiltzaneri laguntzea da benetako bete bear bat.

KARDABERAZ BAZKUNA izango da, iñor ba'da, euskerearen eusle jator, zuzen eta zintzoa.

Orrillaren lenengoan, lanaren egunean bertan, Batzar Nagusia izango dau Tolosa'n. Egun orretan danok izaten dogu jai, ta or aukera ederra, Tolosa'n, euskaldun benetakoak biltzeko.

Akesolo'tar Lino Aita jakintsu eta jatorrak, zer-sakonik esateko izango dau bere itzaldian, izen-burua ez dau ba edozelakoa: EUSKEREAREN BATASUN ORI! An azalduko dira baita, Mokoroa'tar Justa Aitaren lana, Olazar'tar Martin'ena, Gaztañaga'tar Josu'rena, Berrondo'tar Kepa'rena eta Onaindia'tar Xanti'rena.

Kardaberaztarrekin bazkide ez ba'zara be, joan lasai, arrera bero-beroa izango dozu, euskerearen etsai orreitakoa ez ba'zara beintzat.

Tolosa'n ba, Orrillaren lenengoan eta amar ta erdietan.

UBITZA

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskereia bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri asmoen gaiñetik daben iritxi-oneko euskaldun guztiak Euskereatzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egilleak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M.^a MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.

Carretera a Galdácano, 32-Bilbao-4

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA

ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guttirako:

Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

Noraiño Azi!

Sartaldekoen eta arrolio-saltzailleen arteko liskarra menperatu dala, eta lurraldeak alkarregaz daukeezan artu-emonak ikusita, bear ba'da, auzi onen zutar izan dan beste arazo baten aurrean aurkitzen gara. Langintza edo industrigintza ta onegaz estu loturik datorren zerbaitei eragiteko (jenedeari eskeintzen yakozan lantokiak) jokabide barri baten bearra azaldu gura dot.

Eta lana bera, bai bere barruan naiz kanpoan, gizonak bere bizitzarako ta ludi onetan eginkizun bat betetzeko bear dauan bide lez ikusi bear litzake, baita norbera dan bezelakoa egitera laguntzeko. Eta gauza oneik lortzeak, bide batez, gizonaren aldaketea aurreratu ta obetu egin bear leukez.

Garbiago. Azi-bear aundiko aldiak, beti izan dabe laterrientzat baldintza zeatzen bat. Ekintzaren bat izaten da beste guztien zutar eta bultzalari dana. Auxe da XVIII gizaldian algodoiagaz gertatu zana, ta Inglarerra'ko gizarte-lantegitsuaren oiñarri izan zana. Geroztik be, beste ainbeste gertatu izan da ainbat tokitan, burdin, ikatz eta kimikan oiñarritzean. Gaur be berebil eta etxegintzak eragindakoa dogu agerian.

Norbaitek esango dau, berebil eta etxegintza lanak aziketa aundi onen eta jantzia aurreratzearen buru dirala azaltzea, asko esatea dala. Ondo aztertzeiko au izan bear buruan: berebil-gintzaren inguruan, burdin-saltzailleak, plastikuegilleak, eta ainbeste lan-era berezi dabiltzala. Baita gogoratu bearra da, bitxabal egilleak, turismoko berak eta onen eraginez diarduen ainbeste ekintzaren izateak eta berebil-gintzak alkarregaz dituen arremonak eta abar.

Orrenbeste esan legike etxegintzeagaitik be. Etxeetarako bear diran tresnak, erredizak eta eguneroko gauzak be gogoan izan bear emen.

Gaur argi ikusten da; sartaldeko laterrietan berebil-gintzea makaldu egin da.

Berebilla ez da gaur lenago izan zan kirol egiteko edo aberastasun erakusgarri bat. Gizonak bere bizitzarako ta lanerako bear dauan ibil-tresna bat da aspaldi. Orrela, gizartean gaur darabilguzan beste lan-tresna serbilarren jokoa egiten dau, ta urte askotan orrela izango dala uste izan bear.

Etxegintzearen azterketea zaillagoa da. Alde aundiak dagoz laterri batetik bestera. Ukatu ezin geinkeana au da: Europa'ko lurralde aurreratuenean, Mediterraneo aldekoak ezik, berakada bat nabaitzen da. Bai ba, lan aundi baten ondoren, euren biztanle geienak toki egokietan jarri al izan dabez bizi-izaten, eta orain, zar geratu dana barriztatzea da gaur daben bete bearra.

Bearrezkoa da ba, jokabide barri bat aurkitzea, dirutza eta langintza azi-bearrari eutsi ta bultz egiteko ori bear dogu, ta gaurkoz au ez da besterik: gizonen indarra obeto erabiltzea baiño. Ta, zein izan ete legike?

Itxuraz, urten-biderik onena erri-lanak edo «servicio-público» orreik bultzatzea izan leteke, itz orrek daben esan-gura guztian jokatuta. Orain urte batzuk, Galbraith'ek, erri-ondasunetarako erabiltzen diran bideen txirotasuna, sendi ta etxe-ondasunetarako erabiltzen diran aberastasunak agertzen daben alkar-ukatzea azaltzen eban.

Emen baiña, beste alkar-ukatze bat agertzen da. Laterri-gaiñetiko ekintzak edo «multinazionalak» eta erri-lanak ezin izaten dira ondo lotu. Laterri-gaiñetikoak pozik artzen dira lenengo bultzadea sortzeko, baiña oneitatik datorren ekonomi indarra bultzatzen daben langintza-aziketea, erri ta laterri erakundeetatik urrin dabil, eta euren indarra estatu batzuen baiño be aundiago da iñoiz.

Laterriak, erakunde bezela, agintari izatea daroa oiñarri, ez baiña erri-askatasunik —izan be, geienetan, erri asko batuta osotzen dira-ta. Ezin izan oiñarri, askatasun ori. Onein agirian, autonomi bideari jarraitzearen eskubidea beragaz daroala ikusten da. Ori da ba abenderri ta gizonen lenengo eskubidea, baiña laterrien muña dan agindu bearren, agintaritzak osokorraren aurko doa, bai ba, edozer gauza egiteko aukera izaten dabe, ixilleko «barne-gauzak» dirala esanda.

Eta laterrien agintaritzak onek, gure inguru au oian baten biurtzen dau. Gero, ez dago inun legerik laterriak alkarregaz daukeezan arremonak mugatzeko ta zaitzeko. Gaur, artuemon oneik indarrarenak dira, ta ez da lege-biderik laterri batek bere barruan, naiz kanpoan, egin daikezan okerrak mugatzeko.

Ala ta be, ba-da laterrien gaiñetik dabillen indar bat: «multinazional» ekintzen indarra. Eta laterri-gaiñetiko ekintza oneik laterrien barruko erabakietan sartzen ikusten doguz, eta oneik ez dabe inungo agintari ez parlamenturi erantzunik emon bear izaten, ez onein babesik lortu be.

Ta, au onela dala igartzeko, ainbeste laterri, atzerritarren lantegiak euren gantzen diarduela ikustea baiño ez daukagu.

Ba-litzake baiña, laterri batzuk «txikikerietara» jaustea. Ekintza-tzar orreik sortuko leukeezan oitura barri ta gizarte au aldatuko leukeen erabarrien aurrean.

Onela, «multinazional» lantegi orreitako erabakiak, lurralde mugatu batean, ondoren bardiñ-ezak sortu legikez, orrein eragiñagaitik. Lurralde orren dirutza-aziketea sortu legike, sozial-aziketea ba bai, ta iñoiz baita erri-askatasunera joko daben bidea zabaldu be. Baiña, bestela, barne-erabakidak, lurralde orren sozial-antolamentutik urrutikoak, eta errien arteko asarreak be sortu edo indartu legikez.

Onduan, laterriko agintariak, ekonomi-gaitz auziak, iñoiz kanpora ta sarri baruko errialde batzuen gaiñera jaurtzeko alegiñak egiten dabez.

Azterketa onetatik igartzen dala dirudi, sozial-erakunde barria bear-bearrezkoa dala gizaldi oni jarri yakon eupada gogorrari arpegi emoteko. Menperatzen gaituen aurre-ustek, ekonomi, sozial eta politiku aziketa ezaren errua dauke, ta izan be ori da lortu bear dogun lenengo elburua. Denis de Rougemont'ek europarrei buruz au esaten dausku: «Gure ezbardintasunean atsegintzea, bakoitzaren norberekeria lantzea ta orretan bizi izateko arrazoia ikustea baiño gauza arruntagorik ez dago gure artean».

Bearrezkoa izango yaku ba, laterri-gaiñetiko edo «multinazional» orreik ezartzen daben «izengabekeria» edo anonimato ori auste, ta bide batez, orrengandik letorken aziketea bear dan neurrian erabiltea. Neurria, ludi guztian eta mailla guztietan alkartasuna ta askatasuna lortzean dago.

LEIZARRETA

GOZOTEGIA

E R I K O

Ezkontza ta Jaunartzeetarako opil-gintzan berezituak

Etxera bialtzen da

Kareaga Goikoa, 15

491030 urrutizkiña

Menendez Pelayo, 2

493059 urrutizkiña

B A S A U R I

SENDIA

Zer da sendia? Gizadi-sorkun dala diño XI Pio Aita Santuak. Gizon guztiak maite dabe sendia. Izan be amets pozgarri-atsegingarriak dakars gogora. Etxe barruan, basoan sartuta ostenduta egongo da noski sendia, alan be lenengo tokia dau gure biotzetan.



Zer dala-ta? Gure maitasunik eta sakonenak bertan bizi diralako. Bai aldi gozo-pozgarriak sendian igarotakoak! Umearoan... jolasaldiak, ibilaldiak, laguntxoak... ibaietako arrainketak, soka-marroak, kirika-jolasak... baso-koipetsu-janak, soloetako txirtxirriak, txori-abiak... auzoko malluki, madari, sagar, intxaur, aran, piku, kerixa, gaztain, mats... lapurretak...

Aitita-amamaren altzo beroan entzundako lapur eta sorgin-ipuiñak, kanta zarrak... aita-amabitzik aratus-teetan emondako mokotza, oiñetako ta jantzi barriak... eskolan egindako lenengo eguna, lenengo jaunartzea... Aurtzaroko zenbat oroi!

Gaztaroa! Lenengo amets aundiak, mundu barri-barriak adimenean eta biotzean. Maitasun-esnatzea, lenengo maitasunaren agertzea... maitasun-ikurkorra zan klabeiña-larrosa. Ondartzara ta mendirala egindako lenengo ibillaldiak. Oro gozoak gaztarokoak!

Ezkundu-bizitza! Oro pozgarriak, atsegingarriak ezkontza barruan izandakoak. Lenengo aurra mundura agertu zanean... lenengo irribarrea egin ebanekoa... aita-ama lenengoz esan ebanean... ate ostean ostenduta kukua iñarduana. Zenbat oroi gozo-pozgarri ezkontza-bizitzan!

Zartzaroa! Soñña gogortu, zaartu, aztundu egin da... indarrak auldu, kemena joan, aienatu... alan be seme-alaben seme-alabak bere inguruan ikustean, euren irribarre ta laztanak artzen, besoetan, altzoan edo belauan ganean jasota... ipuin eta ixtori zarrak eurei esaten. Zenbat poztasun, zenbat gozotasun ondo egiñarenak!

Sendia! Zorion iturri, zerua lurrean! Jainko-Egilleak sortua! Biotzen gozotasun eta kabi epel izan eitean sortu eban Jainkoak sendia. Bedeinkatu dagigun Jaunaren eskua. Esker-erak agertu!

Anai: Jainkoak euskaldun egin zaitu. Sendi bat emon. Jaungoiko, erlijio, oitura, sinismen eta euskerearen abi ta zainpe izan beite zure sendia.

GOIRIA

ERAILTZAILLE BASATIAK

Enderaz, «horda asesina», esan dion bezela, doiztar Machoefer jaunak, Txile'ko buru nagusia dan Pinotxet arruari. Alako bizkarreko aizkuria etorri zitzaidan izpar ori irakurri nuanian igarotako astean. Azturtu nai nuke ordea eta esan bildur gabe doiztar oiek zer izan ziran (eta diran...?) kondairari ikustalditxo bat egiñaz. Aurretik esan dezatan «horda asesina» ori zergaitik esan dun doiztar orrek. Alegia, an Txile'ko uri aundi ta eder artan gertatuagatik, dalako matxinada edo erreboluzio arek ekarrita, ta doiztarren «Embajada» artara joan ziranen jenteaz, igeska, Pinotxet'en gudarien bildurrez. Guziok dakizkigu ere, arrezkeroz, urte bete gutxienez, nola enbajada oietan zenbat egondu eta oraindik daudenen berri. Olako ezta-baida sortu zitzaion doiztar orreri ta elkar itz latzak alkarri esan.

Guziok dakizkigu ere, nola Pinotxet jaun orrek indarrez bota zun Allende jauna, ta arrezkeroz or daude arro agintzen. Orain aste gutxi irakurri det, GOIZ-ARGI'n, praille batek idatzita, andik idatzi zion beste batek, zer esaten dion oneri. Alegia, «golpe» orreri esker-edo, an gauzak orain obeto daudela... len, gero-ta komunismoa geitzen zegoalako. Nik ez dakit ori egia izango dan ala ez, bakarrik dakiguna, or dago garbi, indarrez artutako inuren iritzi sendoa, ez dala legezkoa.

Utzirik Txile, ta orango jaunxo oiek, guazen Machoefer doiztar orreri zerbaite esatera. Bera, au da: Zuek orain urte asko ez dirala, azkenengo Europa'ko guda aundian, zer egin zenduten? Milloikak erail, bateze judioen artean. Zer egin zenduten zuek? Milloika emazte, seme, zaar ta inuxente erail. Zer egin zenduten zuek? Ostu, lapurtu, erre ta kizkali bazter guziak arrokeri osoan. Eta orain deadarka zu, doiztar ori, besteari esanaz: «horda asesina»...! Zuek, horda ta morda baiñon geiago zerate.

Oraingo doiztar gaztedia ez bai da errudun, zu bezelako edo zure aurrekoen erruak izan ziran eta guri ez zaitzigu azten ordukorik. Gure guda bukatu ta lur aietan ibildu giñanontzat, ez dira aztekoak. Gestapo arekin, zeintzuk zeunden lasai bizitzen! Lagundi madarikatu ura zertzan? Ez ote ziran «horda asesina» baiñon okerragoak? Irakurri orduko liburuak eta ikusiko dezue ze bildurgarriak diran! Beintzat, berdintzeko Txile'koekin, alde ikaragarria dago. Beraz, Machoefer jaun orrek, zere barneko arima edo kontzientziari beitu bat eman eta gero esan, esan nai dezuna. Bien bitarteko oraigo zer esanak ez du indarririk.

Joanak joan eta orrekin kondaira aztuasi nai digute ta ori guretzat ezina da, ez beintzat bizi geran bitartean. Gu iltzen geranean: OR KONPON.

Gorago idatzi det «horda de asesina», ta begirauna egin ondoren ori idatzitako izparringiak, «horda» esan bearrian, «hatajo» dala. Biak izanik berdintsuak, ortan usten det goiko esana. Atajutik joango ziran orda oiek... ta kito.

Jaunari esker orduko jaun arroputs aiek aizeak eraman zitun. Hitler, Mussolini ta beren artaldekoak; eman bai zuten buruko miñik...!

E. OZKIN

IRITZIAK

ERDERAZKO «CONCILIO VATICANO II», Euskeraz zelan esan...

«Concilio Vaticano II», iru berba orreik sarritan erabilli bear izaten dira. Baiñan zelan erabilli euskeraz...? Auxe da neure gaia.

I

Igaroari begiratu, azkeneko eliz-batzar ori asi zaneko egunetan ta lenengo aldietan, parregarri ibilli gintzazan euskaldunok, iru berba orreik esateko edo idazteko.

Batzuek erderazko berbara yo egiten eben ta «Kontzilioa» ipiñi ta kito esaten eben.

Baiñan esakera orrek ez dau erreztasuna deituerik merezi, erraztasunaren orde «errazkeria» dalako ta euskeraz ba degulako itz egokirik.

Beste batzuek barriz, euskera onean adiarazi gura ebenak, zenbait era ezbardinetan idazten eben: dala «Batikano bigarren Eliz-Batzar Nagusia», dala «Batikano Eliz-Batzar Nagusi bigarren», dala «Batikano'ko bigarren Eliz-Batzar Orokarra», t. a., ain luze ta anbat berbakaz. Ori asierako urteetan.

II

Baiñan gero, errazagora ta laburragora yo genduan. Alan da guzti be, ez danok era bat eta bardinera. Eta egungo egunetan era bitan gagoz bananduta euskal-idazleok.

Batzuek «II (edo II-garren) Batikano» Batzarra diñogun bitartean, beste batzuek «Batikano'ko bigarren Batzarra» edo antzera esaten ei dabe.

Orain ba, era bi orrein artean, zein ete da ohea ta zein aukeratu bear ete dogu...?

a) Ona erantzuna: nik neronek egin nituzan Batzarri buruzko liburu biek, «II-garren Batikano» daroate izenburua ta geroko idazki guztietan, be, olan ipiñi izan dot.

Goiz-Argi'ko Txalintxo idazle yator, bikaiñak, be, olan idazten dau «II-garren Batikano».

Eta liturgiakoak, be, II Batikano ipiñi eben, «II» ori berbarean aurretik ta ez atzetik. Ikus mezatarako kristau guztiok darabilgun «Meza Santua» liburuxoa, 5'garren orrialdearen lenengo lerroa.

Gauza yakiña da, Liturgiako «II Batikano» ta besteon «II-garren Batikano» bardiñak dirala.

b) Igaro gaitzean orain beste erakoengana. Oneik «Batikano'ko II garren Batzarra» edo onen antzekoak idaztera emon izan dira, au da «II» ori ez dautsoe «Batikano» izenari atxikitzen (erantzen), Batzar izenari baiño.

Juan Angel Etxebarria yakintsuak onelan izenburutu dauz berak euskeratu dituzan Batzarreko lanak: «Batikano II Batzar-Agiriak».

Agirretxe Aitak, «Goiz-Argi»n, onelan «Batikano Bigarrena ezkeroz» esan dau. (G. A. 237 zenbk., 6 orrialdean).

Azkenez gutxi dala eskuetara yatan «Jaunaren Deiak» (48 ta 49 zenbk.) askotan darabiltz berba orreik; ta onelango eran: «Batikano II-garrenean» (21 orrld.) edo «Batikano bigarrenak» (22 orrld.) edo «Batikano II-garrenaren deiak» (26 orrld.), t. a. Ez dot ikasbide geiagorik ekarri gure.

d) Eta barrero itauna: zelan esan bear da...?

Juan Angel Etxebarria'ren izenburua onelan ipiñiko neunke nik: «II-garren Batikano» Batzar-Agiriak edo «II-garren Batikano»ko Batzar-Agiriak.

Eta Agirretxe Aitarena olan: «II-garren Batikano» ezkerok.

Eta «Jaunaren Deia»koarenak onelan: «II-garren Batikano'n edo «II-garren Batikano»'k edo «II-garren Batikano»ren deiak.

Españolak eta frantzesak zelan idazten ete dabe...?

Españolak euren erderan «Concilio Vaticano II» oi diñoie beti; eta frantzesak, be, euren erderan «Vatican II» bakarrik.

e) Frantzes eta espain-erderatan, «II» ori izenaren (substantiboaren) ondoan ei dago; baiñan euskeran izenaren (substantiboaren) aurretik yarri bear da.

Esate baterako, zuek itanduten badozue, non dago eliza? Eta erantzungo dautzue: «Eliza or irugarren auzunean» ei dago; ta ez «eliza or auzune irugarrenean» ei dago.

Bardin, zuk itanduten badaustazu neuri, «zu zein bizitzan bizi ete zara», nik ez dautzut erantzungo: «ni bizitza laugarrenean bizi naz», «ni laugarren bizitzan bizi naz» baiño.

«II-garren Batikano», Erroma'n izan zan Batzar ospetsuaren izena bezela egiten da. Eta zeuri, irakurle, Kepa deitzen yatzun bezela, Batzar arreri «II-garren Batikano» deitzen yako.

Orain ez dot esan gure, «Batikano'ko II-garren Batzarra» esatea gaizki dagoenik, erderaz be «Segundo Concilio del Vaticano» gaizki ez legoken lez; eta ain zuzen be, azken Batzar au Batikano'n ospatu diran bigarren Batzarra zan; baiñan bai itxusiago ta motzago; eta elertian (literaturan) itxusia ta motza alde bat utzirik, polita ta atsegingarri dana erabilli bear da.

Egia da bizkaieraz 2 zenbakia izenaren ondoan ipintzen dala, gipuzkoeraz izenaren aurrean ipintzen dalarik; baiñan «bigarren» ori, bizkaieraz be, gipuzkoeraz bezela, izenaren aurretik erabilten da.

Agur; ta urrengo arte, irakurle, Yainko baitan.

YURRE'TAR YULEN A.K

Urteurrenean

Ikasle ta adiskide maiteok, AGUR!

Urtebete igaro da Arantzazu'ko egun ederra alkarregaz ospatu genduanetik. Ainbat bildu giñan leku zoragarri aretan, euskereaganako sugarrez biotzak pil-pil. Beste asko, bertara joan eziñik, gugaz bat izan ziran, biotz batez otoi ta kantari.

Euskerearen alde 25 urtez egin-dako lana eskertu nai izan zeusten, eta zuen opari bikaiña ikusita nire barru osoak pozaren pozez dardar egin eban. Baiña ez zan ori nire pozaren eragille bakarra izan. Beste au zan geien bat poztu nin-duana: euskerea maite-maite do-zuela jakitea, gure izkuntza kutunaren alde egiten diran lanak atsegiñez eta gogo onez artzen dozuezala ikustea... Orixe bai poz-garri!

Zuen jokabide zintzo orrek argi ta garbi erakutsi eustan zein dan nire eginbearra: lan orretan aurrera jarraitzea, alegia. Giza-in-darra, baiña, utsaren urrengo izan oi da Jainkoaren laguntza barik. Goiko laguntza bearrezkoa dogu. Zelan egin ain luzaroko lan ori, Jainkoak osasuna emon ezik? Ez ete doguz Berak emonak, orretarako argi ta adorea? Bai, eskerrak Zuri, Jauna!

* * *

Ogetabost urtean, milla inguru izan zaituet ikasle. Batzuk, banaka batzuk, ikastolara etorri aurretik euskaldun ziñien, jatorreaz euskaldunak. Zuei, euskerearen edertasuna erakusten alegindu naiz, euskeraz irakurten eta idazten irakatsi dautzuet, euskera goxo ta txukuna erabilten, gure izkuntza au sakon eta barrutik ezagutzen...

Geiengeienok, ostera, euskeraz ezertxo be jakin barik etorri ziñien, ez ziñien «euskaldun», Euskalerriko seme-alabak izan arren. Euskaldun biurtze ori ez da errez, ondo dakit. Bide luze ta neketsua igaro bear... eta guztiok ez gara neurri ta almen berean sortuak: batzuk buru-argiago, besteak moteltxuago; oneik asti geiago ikasteari eskeintzeko, beste areik gi-txiago. Ba-dira zuen artean ondo edo naiko ondo ikasi dozuonok; geiago, noski, nekez eta astiro aurrera zabiltzenok; baita lenengo urratsak emon ondoren alde egin dozuonok be. Zuek ni bezela, go-goan zaituet nik ere guztiguztiok, eta agurrik beroenaz auxe diño-tzuet: Ekin eta Jarrai!

Zuen opari ederra irakaslearentzat izan zan. Eskerrak asko. Baiña ez uste ikasle uts zaitueda-nik. Ez orixe! Lagun gara, euskal bidean eta Erri maitasunean alkarrekin gabiltzan lagunak, as-moz eta gogoz benetako adiskide. Aspaldian esandako zerbait da-torkit gogora: «Euskerea ez dala ezertarako gauza? Ezin nik orrelakorik esan. Nire bizitzako pozal-dirik onenak euskereari zor dau-tsodaz. Izan be, oneri esker eza-gutu dot Bilbo'ko gaztedirik ja-torrena, Bilbo ta inguruko seme-alabarik zintzoenak. Ez dala gau-za...? Orra or erantzuna!».

Aurrera ba, lagun maiteok. Ez iñoiz gogaitu euskeraz ikasten; zuzpertz zuen barruko euskal sua, guztion arnasa ta laztan beroz euskaltasuna bizirik gorde dai-gun!

Itzez, nai idazkiz, nai telegra-ma-bidez zorion-agurra bialdu zeusten guztioi, eskerrak asko, bio-tzez!

PEÑA'TAR XABIER

BIGARREN

2=BI; II=BIGARREN

Umetatik, zenbakiztia ikasi gendunetik, auxe gogoratzen nik: 1, 2, 3... arabitarren zenbakiak, kopurua zenbatekoak dan ager-tzeko erabilten dirala: bat, bi, iru...

Baiña garrena adierazo bear danean, «num-eral» onein orde, erromatar «ordinal» orreik erabiltzen dirala: I, II, III, IV..., eta eurenaz, beste ezer ezarri bear barik, lenen, bigarren, irugarren, laugarren..., adierazten dabela.

Orra ba, bigarren esateko «II» ori naiko da. Baita 2'garren = bi'garren, baiña iñoiz be ez II'garren. Onen esangurea auxe li-tzake: Bigarren-garren. Bardin beste ordinal guztiekin be.

Zein erabilli bear ete dogu? (') ala (—) ete da jatorrena? Guretzat garbi dago, Sabin aundiari jarraitzen dautsogunentzat diñot. Atzikiak ezarri ta bereiztu bear diranean (') ori erabiliko dogu: Arana'tar, Batikano'ko, 2'garren... Ta itz bi alkatu baiña lotzen ez diranean, beste ezungura bat zortzen dala, (—) jarriko dogu tartean: soiñ-atal, aundi-aundi, su-emoille...

Ta azkenean, gaurkoz, erribidetik joan gaitzean eta alde larregirik agertu ez dagigun, «ñ» ta «ll» erabiltzen doguz AGUR onetan, beti «i» ori aurretik dabela: oreña, mailla, soiña, muiña, arraiña...

Gorantziak.

IBUR'EK

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra
BILBAO - Casco Viejo
Tenderia, 15 eta 16

Aurten Gertatua

Oian etzanda idazten ditut
ierro kaxkar auk.
Nere bi helaunak,
makal, baldar, alper,
bai ditut,
egun auetan tamalez.
Gaur ez dizuet
begiz ikusia azalduko;
baña bai,
nere barru giroa agertuko.
Bakardadea,
ixil-aldi luzea,
izanez lagun,
errexago sartzen bai gera
gure barru-barrun.

Danok zorion billa ari gera,
kementsu, indartsu;
garbiago esanda
txit egarritsu.
Bañan orrela, ekin ta ekin
ari gerala tematsu,
ez al degu gure poza,
gure alaitasuna,
gure irri-parra galdu?
Ez al degu gure barruan
neguko estalki beltza zabaldu?
Lana gutxitzea, urritzea,
dan-dana gareztiago arkitzea,
guda-susmurrak edonun entzutea;
ez al digute gure izakera ozpindu?

Begira umetxo baten arpegi pollita,
begi argitsua,
arpegi irri-parretsua,
egoera lasaitsua;
orra poza, alaitasuna, atsegiña,
agirian jarria.

Begira orain gure etxaide-kaleak,
jendez okituak,
bete-betiak;
mota guztiko jantziak,
margo-kolore danak
begi aurrian jarriak.
bai baña... ia dan-danak,
arin, antxintxika,
illun, kezkatu,
irri-par gabeak.

Irri-parra...
Pozaren ezaugarri bikaiña.
Gure bizitz-egoera guztietan
agiri bear gendukena.
Baita eriotzean ere...
Egun auetan galdu degu
anai Errandonea musikalaria.
Ara bere azken eskaria:
«Nere bizitzaren asken arnasetan
jarri ezaidazute Haendel aundiaren,
ALELUIA soñu-gurpil pozgarria».
Ta orrela il zitzaigun.

Baña, zer da poza?
Zu zeranekin,
Zuk daukazunekin,
Zuk ikusten dezunekin,
Zuk dezun giroekin,
Zure barrua etsita jartzea.
Bai, jarria nago nere bizi-moduarekin;
bat nere gaurko egunekin,
kide nere lagunekin,
eduko nere lanarekin,
etsita nere biarkeko egunekin.
Edonun, edozerkin, giro danekin
kide, orretara jarria.
Orra irri-parraren etengabeko iturria.

Bañan, mundo trakets ontan,
nola arki poza?
Arren-aurretik jarri zure barrua
kide Jainkoarekin.
Urren billa ta arkitu
egizko poza duten gizonak.
Ontzat artu beren irri-par goxoa,
arakatu, azertu orren iturria.
Gure egun zalapartatsu, nastu auetan,
gure egin-bearrak
argi, pozez, alai-aldiz bete.
Gure sendi-etxea,
gure ogi-bide lantegia,
gure lagun-batzarrak,
zoramenek, pozkarioz bete.
Orrela jarriko degu agirian
guregan degun
Jainkoaren irripar zatia.
Orrela izadi luze-zabalean
barreiatuko, zabalduko degu
zerutar poza
neurri betean.

OLABEAGA'TAR IÑAKI

Idazti Barriak

«Una geografía diacrónica del euskera en Navarra».

Liburu onen egilea oso ezaguna dugu, Aingeru Irigaray, beste familiako deituraz, Apat Echebarne izenekoak. Naparroa'ko izkuntza naiz izkuntzaren historiari aspalditik oso atxikia agertzen zaigu. Izan ere bera naparra izaki.

Berreun bat orrialde ba ditu eskuartean erabiltzeko ain egokia den liburuak onek. Azalean zera dakarki, L. L. Bonaparte printzeak 1863'an, Londres'en argitaratu zuen itzkuntza-mapa koloretan.

Geroztik, delako «Escuela de Comercio» deritzan ikastetxean, Iruña'n Apat-Echebarne'k elkar-izketa eta solasaldiak izan ditu liburu onen gaia aztertu eta astindu naiz.

Gaurko egoerari buruz, euskeraren egoerari buruz, esan nai da, Naparroa'n, Apat-Echebarne, Sanchez Carrion'ek egin duen liburuaz baliatzen da, zeraz alegia, «Estudio actual del vascuence en Navarra». 1970'en egiña eta «Institución Príncipe de Viana» izenekoak argitaratua 1972'garren urtean.

Azken liburuaren egilea Granada'ko ikasle gazte bat da, lan ori moldatzeko auskera aise erabiltzen duena, an Naparroa'ko erri, errixka eta ibarretan, bertako jendeekin mintzatuaz, liburu moldatu duena.

Ortaz Apat-Echebarne'k ere argitaratu zuen Euskera aldizkarian idazlan bat, azalduaz zer nolakoa zen euskeraren egoera 1935'garren urtean, Naparroa'n jakiña.

Liburu oni erantzunaz dator Sanchez Carrion'en liburu eta berarekin buruz buru, aurrez aurre berdinduaz, irakurleak ikus dezan bere begiz no-raiñoko berakada egin duen euskerak Naparroa'n.

Goian aipaturiko liburu atera ondoren, «Escuela de Comercio» deritzan izan zituen solasaldiak, Apat-Echebarne'k bi artikuloetan zeran argitaratu ditu, Egan aldizkarian. Ikus 1-6 lumeroak, 1974'ko urtean.

Beeraldi etengabekoa daramaki euskerak Eneko Arista eta Santxo Abarkadunaren erresuman. Liburu tristeak benetan bai Apat-Echebarne'k bai Sanchez Carrion'ek egiñak. Tristeak, baiña guziz egiatzkoak. Naparroa'ren iragan aldi zoriontsuak gogoratzen dizkigutenak, euskereari gaur-egun adur edo suerte obegoa opa dizkietenak, edozein irakurle gogoetatsu epintzen dituzten orietakoak.

1935'tik onutzara, Apat-Echebarne'k dionez bere «Euskeraren egoera Nafarroan leen eta orain» Egan'go idazlanetan, errixka andiak eta txikiak oro ar, 150 erriek galdu dute euskera. Betiko ote?

Bestalde, berriz, Elizak egiñiko inkesta bat kontuan edukirik, 1904'tik gaurdeño 200 eta geiago erriek galdu dute euskera. Lotsagarria benetan! Naparro'ko arraza lotan ala illa datza!

Euskeraren galera edo atzerakada onen arrazoin batzuk ere azaltzen dizkigu Apat-Echebarne'k Egan'go artikuloetan. Leenbizi, euskal kontzientziaren eza: gero, errietako jauntxo, andiki eta agintariekin euskerari egin dioten muxiña edo meprezioa: Iruña'ko iri nausiak erri orietan izan duen erdaldar adurra edo influentzia: azkenik, ez bai eta ez beste, erri orietarako maisuak eta apizak izentatzea.

Azken arrazoin oni sekulako garrantzia ematen dio Apat-Echebarne'k. Ta ez dago batere oker ortan. Araba'ko historigille J. J. Landazuri'k, lur lau edo ordeka arietako euskera nola atzeruntz zijoan XVIII gizaldian azaltzen digunean, bibi zio edo zergatikako ezartzen dizkigu bere «Historia Civil de Alava» liburuan. Bata, Kastilla'kin duelakotz muga Araba'k; bestea, Araba'ko zelaietan barreiatuak dagozten erriketara euskaldun ez ziren apaizak izentatzen zirelakotz. Maisuak, berriz, zer esanik ez.

Apat-Echebarne'k eman digun liburu guziz dokumentuetan oiñarritua datorkigu.

Gaur, ba dirudi Naparro asi dela nagik ateratzen, eunka urteetan lo-zurrunkan egon ondoren. Ez dezagun emen gogoratu arako ura: «Il da gero salda bero». Baizik beste ura: «Obe de noiz iñoiz baiño».

Euskera galtzen doa, penagarritzko galera benetan! Baiña, euskal etniaren kontzientzia goraka. Ta au poza! Azken indar au berri-berria dugu euskal historian ta guziz emankorra. Ala biz!

JOXE LASA



eziketa jostailuak
eskulanetarakoak
irakasketa gaiak

gregorio de la revilla, 1
bilbo-11

Jolasean ikasi, or zure aurrentzako emoitzarik onena

EUSKAL - JAIAK

ONDARRIBI'N

Mendi tontorrean adar-deia entzun da Jaizkibel aldetik... EUP!!!

EUSKAL-JAIK ditugu aurten ONDARRIBIAN. EUSKAL-JAIEN urre-etzaiak. Jaitu ditzagun aundikiro!

Asi lanean orain bertatik margolari ta idazleok. Gertu pintzel eta idazlumak.

Azkartu, zuzpertz, birbitzu zeuen asma-men-gaitasuna.

Saia ta leia zuek ere, txistulari, dantzari ta kantari-taldeak.

Ekin gogotsu. Guztiok elkartuta... AU-RRERA...

* * *

ONDARRIBI'ko azken EUSKAL-JAIK nere oroitean

Nasi-xamar bederen gogoan ditut 1925'garren urtean ospatu ziren jai eder aietako zenbait oroitzapen.

Amairu urteko mutil koskorra nintzen ni garai artan. Urteroko erri-jaietz gain, berebiziko pestak izan genituen amar egun jarraituetan. Amar egunez jaiak, alajaña! Eta nolako jaiak!

Alde aurrez nabaria zen ifoiz ez bazelako zerbait, zerbait aundi gertatzen ari zirena. Zer besterik adierazten ziguten ormetako iragarki galantak eta esku-programa polit aiek? Orduan jaiok dira urtero emen argitatuaten dizkiguten esku-programa apañak. Zein begien atsegarri, zein txanbeliñak! Deus gutxioko xeekeki dirala? Erri-jende xumearengan edertzalatasuna biztuaraz lezaketen xeekeki, ordea. Nik uste. Urteen buruan banatu direnekin bildumatxo bat egingo ba'lituz... Erti-lan baldunetik ba-dago or naiz idazti naiz apaingarri aldetik. Ezagun ezaguna, aurtemein alde egin digun «alkate zarra»ren eragiña. Orretan ere zordun gatzairo ondarribitarrek.

Beste itzpiderik etzen bazterretan: ondoko EUSKAL-JAIK. Xede bat eta berak bultzaturik, lanari lotuta zebiltzen jo ta ke erri-lagunak. Gau ta egunez ziarzutenek ere baziran... Izan ere, orko ibil-toki ta kale berritze, orko andamio ta oltza, emen eta an zirkin-zuloak txukuntzen, edonungo apain-gailu ta antolaketa, nunai zintzilakariak, ikurrin-xingolak eta banderak ipiñi-bearra. Txingurritegia zirudien gure erriak.

Gu, umeteria, zer esanik ez..., ez tizan! Jaitan xautezko txanponak mundik edo andik biltzen, ba-genuen lanik aski.

—Ik ze erosi biar duk fiestatan...? eta...

—Nik, kilo bat maats..., erantzun zigun lagun batek. Etziren oraingo kontuak.

Noizpait, aatik, iritxi ziren ainbat irrikatzen genituen egunak. Ez nai orduko. Eta ara eldu bezperako SALBEA. Elizkizuna amaitu zeneko garaian artu nuen lenengo biotz-ondokoa. Elizatik irtezterakoan, berebiziko ikuskariaren aurrean arkitu bait-giñen. Uraxe ustegabekoa! Kale nagusia, goitik beeraño, dena argi-zuziz, izar-mordo iduri. Eundaka argi-ontzi pintarratu etxe-balkoietan zintzilli. Bai eder ematen zuela une illun ez illun artantxe... Argi-joku benetan bixi ta mirresgarria.

Eta biaramunean... AMA BIRJIÑA eguna! ta oituzko ALARDE alai, bizi, pintagarria.

Urrengo egunetan ere izan genuen zertan goz-artu. Nabarmenak, batipat, musikaltaldean agerraldi aiek. Gipuzkoa'ko bikañenak etorri bait-ziren. Donosti'ko IRUTXULO ta SICILIA eres-batzak. Irun, Erren-deri, Tolosa, Bergara, Eibar'koak. Bertakoa ere bai aien artean. Jantzi bereziz, zuzendari berria buru zutela, len aldiz azaldu zenean, arroxko geunden erriarrak.

Ba-dut zerbait geiago gogoan. «Keixeta» aizkolariak egin zuen erakusketa arrigarri ura, bertsolarien jardun parrerazleak, pillota-jokaldiak (eskuz, palaz, luzean, txisteraz); batez ere lau mutrikuar pelotari txiki aiena.

Gogoan ditut ere aparteko leiaketa batzuk. Txistulari-taldeak, dantzari-bikoteak eta beste.

Bañan, ALAMEDA-zumardian egin zen peri-azoka izan zitzaidan denetan begiragarrien. Ba-zen an abere ederrik. Probintzi-

aztegiko bei, bigantxa, zezen eta txekorrik bikañenak zeuden an. Eta abelgorriak ez-ezik, baita beste etx-aberetik ere: aari, oillar, ollo, untzi... Berebat, barazki ta igali (sagar, udare...) mota guzitakoak eta bana-banakoak. Ura edertasuna!

Gaiñera, gure jolas-egaria asetzeko, etzen ezerean urritasunik ALAMEDA inguruan: txilibitu, goronbil eta barkillu-saltzalle, jostaillutegi, «Al txuri-gorri» ta orrelako zori-joku, aiz-eskopeta tira-leku, indarra neur-tzeko bultzagaillu, bilin-balantzan aritze-koak, bira-birak... Zer ez?

Diru-murri, ordea, geienetan, bi soseko bat bildu orduko, «Todo a perra gorda» zozketa-dendarako bidea artzen nuen nik. Eta edozein txixtibiritxirekin, konten. Besterik ezean, «León Salvador» itz-jarioari ao-xabal begira...



Esan ere bear dut beste au. Iraillaren amarrean, urtero, illeta-elizkizun ospatsu bat egin oi da Ondarribian. 1638'ko esi-aldi izugarri artan beren bizia galdu zuten erriko semeen omenez. Ifoiz ez bezelako goratza-rra egin zitzaizen aipatu EUSKAL-JAI'etan. Ez noza, ordea, xeetasunik ematera, labur bearez.

Auxe bakarrik. Mezondoa, Armeta'ko plazara zen bildu jendea. Begiz ikusi nai, ba, aldun eta erri-agintarien aurrezku-dantza... Une artantxe, or igotzen zaigu balkoi batera erriko alkate Sagarzazu jauna. Zer esango ote?, ta... Biotza erdibituri erabat, ez tarria ler-zorian, deadarka jakin arazi zigun: Zorionetan gaude! Arestian jokatu Donosti'ko estropadetan bigarren sartu dire guretarrek. GORA ONDARRIBIA!!!

Ezin sinisturik edo pozaren geiegiz itzik gabe gelditu giñen guztiok. Ongi portatu ez baziren gero Romantxo ta mutilak...

Lendik ere agerralditxo bat edo beste egiñak zituen gure «treñeruak». Bilbo-itxas-arte estropadetan azaldu zen lembizikoz (Baiona ta Donibane'koak aipatzeka) 1919'an.

Donosti'ko Kontxan, oster, 1920, 1921 eta 1922'an, ala-olako ondorioz.

Ari genuen urtekoa, beraz, lengo guztien gaiñekoa izan zen. Baiña...

EUSKAL-JAIEN azken egunean edo arraun-burruka bat zegoen joka-bearra.

Bertako iru treñeru-txalupa ziren alkar-leian aritzekoak: Donostian ain ederki nabarmendu zitzaiguna (legortarrrena) ta Portu'ko beste bi (arrantzale zarrak?) eta gazteak bederazka. Jo dute estropada ta... Portu'ko bi treñeruak aurretik sartu, alajaña! Ez sinistekoa.

Zalaparta, ixeka, irri-gaixto ta okasio-biderik sortu zuen ustegabeko gertariak.

Oraingoan mariñelen txanda arako bertsoa kantatzeko:

«Olé porque sí,
Portugarrak irabazi.
Olé porque no,
Kaletarra, mozkortuta lo!».

Kultur-jardunak ere izan ziren: musika-sariketa-batzaldi ta abar. Baiñan barne-ikulturik etzidaten egin.

AXURI-BELTX

Markiña

ILDAKOAK

Erbesteko illuna utzi ta betiko argitara joan jakuz Mendibe'tar Jeronimo, Arri-laga'tar Pakita, Espilla'tar Juliana ta Arroitauregi'tar Joxe. Baita, gaixoaldi luze ta anker baten ondoren, Aretxabaleta'tar Anizane be, amar urteko umetxu polit argia. Unkiagarria izan zan benetan neskatillatxu onen illeta-meza ederra; Xemein'go eleizea ildakoaren umetxu-lagunez beterik. Eurok egin ebezan irakurgai ta erri-otoitzak.

Ba-dakigu, Aintzane'txu, aingeru artean zagozana, ta ez aitzu azkenerarte ain txin-txo ta maiteki lagundu dautsuen txikitxuakaz. Zaindu eiguzuz gure erriaren onerako. Gure samin-agurrik bioztiena bere guraso jator atsekabetuai. Baita beste ildakoen senitarteko guztiari be. Gorian begoz! Otoitz bat euron alde. Agur, alkar ikusi arte, anai-arreba maiteok eta aingerutxu ori!

ASTE SANTUA

Euria ta otza baztarretan. Eta amaikatxoren biotzetan zer? Zeinbat senditan ezta-baida latz eta guraso zintzo askoren biotz-urratze mingotzak! Seme-alaba asko, urte barruko eleizkuzunik ederren eta sakonenak bertan-bera utzi, ta mendirako edo batek b-daki norako aize ta ames zorotan. Udako oporrak, itxuraz, ez dira naiko, ta Aste Santua be orretaroko artu bear.

Egia esan, eleizkizun ederrak izan doguz errian, ta eleiz-betekada pozgarriak. Baiña pozagaz naaste kezka illun ta larria: ainbat gazteren utsunea. Zer ete da markiña bat gazte gure Euskalerrinari opa dautsoena? Jaungoikoaren lege bako artalde biurtzea? Ba-ete dakie eurak argi ta garbi? Batzuen ezpanetan Marx eta marxkeria gaiñezka, baiña biotz eta jokabidetan burgeskeria gaiñezkago. Benetako marxista izateko diziplina ta giarra geitxoago bear dozak, mutillak. Eta zuok ez zagoze orretaroko. Bai zera! Burgeskumok alakuok!

Jainkoari eskerrak, ba-doguz gure gazteen artean, biar benetako gizon izango diranak; eta ez gitxi. Udabarriko lorantzemoten jako uda ta udagoieneko frutuari. Onein eskuetan dogu gure erriaren etorkizuna. Ore pixka bat asko da urun-meta andi zabala bizitu ta jagiazoteko. Ba-dago ore ori gure erriko gaztedian; eta ez edozelakoa. Beraz, gora biotzak!

BATEOAK

Pazko-egunez euskerazko bateoak. Bost loratuok izan ziran Kristo'ren baratzeria aldatuak: Badiola'tar Leire, Urriolabeitia'tar Maite, Errasti'tar Jon, Arrieta'tar Idoia eta Furundazuri'tar Jose Maria. Egun batzuk lentxoago izan zan bateatua Xabier, Arrieta'tar Milagros eta Mentxaka'tar Xabier'en semetxo.

Jon txikia Niko Errasti'ren lorategikoa da, zaar-sarrituen urteroko bazkari gozoa gertatzen dauan sukaldari jaunaren lorategikoa. Ikasiko dau txikitxu onek be, ditun gura-soekin, olako zeregiñak erraganako maiztasunez egiten.

Zorionak umetxu ta guraso guztioi! Egin alegiñak egiazko erriaren serbitzari jator izan daitezcan.

«AGATE DEUNAREN ABESTI-TXORTA»

Puntarengo musikalaria dogu Markiña'n; bertoko semea, ain zuzen be. Ugarte-txea'tar Joxe Domingo karmeldarra. Oneik prailleok...! Ixil-ixillik zelako lan ederrak egiten daskuzezan! Amaika doñu bikain sortu daskuz karmeldar apal onek bere 86 urteotan. Agure gazte au, Jaungoikoak arnasa pixka bat damotson bitartean, ixildu ta geldi eukitekorik ez da sortuko. Kortxeaz eta fusaz gaiñezka jaiio ei zan, eta ziur asko, bere azken-arnasa kalderontxo bat baino ez ei da izango; eta bereala, lurrean izan dauan zeregin gozoari ekingo ei dautso zeruan be. Ori ziur!

Ora in artekoai (eta batek ba-daki zeinbat diran!) gitxi eritxita, abesti-mordoxka bat argitaratu dasku egunotan. Garbi, txairo ta txukun ikusi dogu Bilbo'ko «Ordorika»-renetik plazara urten-barri dabillan 31 orrialdeko liburuxka dotorea. Izena: AGATE DEUNAREN ABESTI-TXORTA. Euskalerrian ain ezagun dogun Agate Deunaren abestia bederatzi erataria moldatu dau egilleak, maixuki moldatu be. Ona emen billa-bidea: 1) Sei abots ezbaridiñentzat; 2) Lau abots ezleardiñentzat; 3) Bertsolariak; 4) Lau abots bardiñentzat; 5) Iru abotsetara; 6) Iru abots bardiñentzat; 7) Iru abots ezbaridiñentzat; 8) Karmelo'ko tripleentzat, eta 9) Markiña'ko gazteentzat. Azkenean, geigarri ta eredu lez, Amillaitz olerkariaren bertsoak KANTA-KANTARI liburutik jasota, gatz eta piperez oretuak, oso egoki ta errikoaiak, edonun abestutekoak, batez be bapateko bertsolari taldeak ez daroanean.

Aita Ugartetxea'ren bilduma onek abegi gozo ta txalo beroak izango ditu, zalantzarik gabe, gure euskal kulturagaz maite-mindurik dagozanen artean, benetako abertzaleen artean. Eskerrik asko, Txomin, eta ZORIONAK!

KIRKILLAK

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK



ZAZPI-KALEAK **CASCO VIEJO**

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIQUEAK

ERRIENAKO

BARRIAK

Arrasate

BATAIOAK

Berbizkunde aurregunean eta Pantzes-katarren Eleizan, bataio onek izan ziran: Bat, Barrutia'tar Jon Joseba eta bere emazte Albizu'tar Arantza'ren alabarena. Bataiatzerakoan Karmele izena ezarri eutsen. Bestea: Abarrategi'tar Xabier eta Azkarate'tar Itziar'en alaba, Alaitz izena ipiniaz. Jakiña, euskaldun zintzuai dagokionez, euskeraz izan ziran otoi eta gaiñerako guztiak. Zorionak guraso guztiei eta zeuen alabatxo orreik ea kistar eta euskaltzale kutsuan azten dituzuen.

ERIoTZA

Durango'n eta Salesatarren Lekaimen etxean il da, Gorroñoigotia'tar Josune, bere bizitzako 82 urtegeaz. Ezkondua izan zan, baiña alargunduta gero Lekaimen etxe orretan sartu zan atsedeen-aldia igarotzeko asmoz. Neure samin-agurra eskeintzen dauset bere semeak diran; Sarraonaindia'tar Mario eta Joxe Mari'ri. Baita ere beste orrenbeste Josune orren anai dan Gorroñoigotia'tar Joseba'ri «Agur» onen arpededuna eta kistar euskaltzale jatorra.

GUDA ZIKIÑA

Bai alan esan bear, or, Vietnam eta Camboia'an gertatzen dana ikusita. Ainbeste ume eta gizon ta emakume, zauritu eta illak ezeren erru barik geienak. Baita errukarri or ibilli diran eta dabiltsan gudari gizajoak. Ez dago munduan pake gose aundirik guzti au ikusita. Baiña zeintzuk errudun? Begien aurean ikusten dana auxe da: Kapitalistak eta eurakin batera komunistak. Danak diru egarri, bataak eta besteak, bateri eta besteari izkilluak saltzen alkar iltzeko.

Eurak euren buruak arriskutik urrun eta besteak alkar iltzen. Nun dira aako «criminales de guerra» aietakoak epaitu zituenak? Bai, gaur orrelako zerbaiten bearra ba-dago errudun guztiak, bai alde batekoai, zein bestaldekoai merezi dan zigorra emateko.

KARDABERAZ BAZKUNA

Bazkun onek, datorren Orrillaren lenengoan, Tolosa'n ospatuko du beren urteroko Batzar Orokorra. Aurten berebiziko garrantzi duna izango da, bertan erabiliko diran gaiak alan izango diralako. Gai onen zuzentzaileak, izango dira: Aita Mokoroa, Olazar'dar Martin, Gaztañaga'tar Josu, Berondo'tar Pedro, Aita Santi Onaindia eta Akosolo'tar Lin. Gizon ospetsu oneiz gaiñera an izango dira beste goi-maillako euskaltzale jakintsuak. Kristau ta euskera, Euskalerrria'gaz maite ditugun guztiok an izan bear giñake egun orretan, Orrilleko lenengoan.

UDALAITZ

Durango

ERIoTZA

Eguenez, arratzalde illuntzean illobiratu dabe Okarantza'tar Felix «OKARANTZA» basetxeko nagosi jauna. Aspaldiz gexo samar egoan. Gatz ori zailla zan osatuten, eta uste barik, il zan Jaunaren besoetan.

Bere gogo aldeko illeta-elizkizunak Santa Ana elizatzu politean ospatu ziran; eta ostetza ugariyagaz, ez egoan oiñ bat non ipiñi ere.

Euskalduna lez eta Kistarra lez gizon osoa zan bera, eta ganera, biotz onekoa. Goi Aberrian daukola bere Gogoak betiko atsedeen donea.

Artu bedi bere emazte naigabetuak: seme-alaba-illobak eta beste senide saminduak, batez ere gure adizkide maite dan Felix'ek, nere negar agurrik zintzoenak.

LAN ETA AURRERA

Durango'n egon nintzala azken alditik ona, erri au, zabaldu eta loditu egin da lau txokoetara. Lana eta bizkortasuna edonon agertuten da bere biotzera begiratuta. Bere aurrerapidea bistan dago.

Beti izan da Durango Bizkaiko erri aurreratua. Udaltarrak, Gerediagatarrak, bere seme jator askok, ogei urte baino lenago, erri andi eta jakinzale bat egingo dabe. Txalogarri da durangotarren yasa lurralde au jasoteko.

JULEN URKIDI

Galdakano

UDABARRIA!

Lerro auk idatziten gagozan egun ontan, jorraill onen bigarren astean gara, ta egutegiak udabarrian aurkitzen gerala dirauskun arrik, ezin dogu siñistu asi zanik, orain arte egun bi jarraian onak, udabarri antzekoak, ez doguzalako ikusi. Eta txarrena da urte-arotetan (gartak-tenporetan) siñizkerea dabenak eta ondo begiratutzen dabenak esan dauskenez, udabarri guztiyan be ez ei-dogu eguraldi on asko izango, il onen azken alderantza oberantz andiyan bat artuten ez ba'dau beintzat, negua atzeratutako antz geyago dabelako udabarri loratzu argi epela baiño.

Udabarria da izan be urteak daben arorik bikaiñena, eguraldiak lagundu ezketiño beintzat, loraz eta kimu barriz apaindurik aurkitzen diralako lurralde guztiyak. Eta ori dala bide-edo, aldi ortan aurkitzen dira, bearbada, goi-argituago olerkariak euren olerki mamintsuagoak asmu ta idatzitako. Eta orretara izanik, gure olerkariak be ezin izan zintzazken gitxiago; ara emen GOIZ-ARGI ta AGUR onek argitaldutako egutegi bikaiñean, Udabarria sartu zan egunean berean argitaldu zan aapaldi bietako bat.

Gauza politen zaleak geran guztientzak pozgarrienak bere garaien beti bezela dakarzik udabarriak. Lore eder ta txori politen abesti arrigarriak gozatutzeko gure begiak eta gure belarriak.

Ez dakit aurten beste orrenbeste esan edo abestu ete-geinken, lerro onek idatzi doguzan arte kukurik abestuten ez dogulako entzun.

ERİYOTZAK

Ainbat eriyotza izan dira «udabarri» ontan be gure errian, gorago esan dogunaz, bearbada negu antzerakoa izan dalako-edo. Urte asko izan dabezalako be bai, ba, sarritan esan dana; gazte asko ilten dirala, baiña, zarrik ez dala geratuten, alantxe da izan be.

Jorrailla onen seigarrenean, Jaunak Bere aldamenera eroan eban Uriarte'tar Domeke, Ruiz-Basaldua'tar Paskal zanaren alargun zintzo jatorra, larogeita iru urtedun zala.

Baita ezbearez il zan, bere berebillean doyala beste gurdibil batek jota, aspaldiko urteetan Usansolo-Galdakano'ko irakasle izan zan Rezio'tar Laureano gizon argia.

Jaun au gaztelarra zan, baiña, ainbat urte gure erri ontan eruana zan ezketiño, oso zan ezaguna, gizon ikasia lez txeratsua zan izan be-ta. Goyan Begoz adizkide bi orreik eta, lagun gaitube atsekabian euren sendikide guztiyak eta batez bere Ruiz-Uriarte'tar Paskal adizkide zintzoak.

AMAITU ZAN OPOR-ALDIA

Ille bi ta erdi derrigorreko oporraldi luzean izan ondoren, itzuli dira eunen lanera Firestone landolako iru milla ta geyago langille, baiña, baldintza batzukin sartu dira-ta, ikusi egin bear urren, landolako agintariak eskintza orreik betetan dabezan eta ez; bestela arrisgua dago langille orreik barriz oporrera urtetako... Eta gure ustez ziyoz. Poztuko gintzakez adizkidetasunean ulertuko ba'ltzakez.

BASA-JAUN

Arratia

Ibar (ala aran?) ontan andra-aizea (egoaizea) naiz iparrekoa, egaztiak baiño lenagotik betidanik garbia; mendi ta baso itzal-

tsuek damoskuen ura, osasunkorra, erridieren altzo sakoneko ibaia, Gorbei magaletatik Lemoa'raiño, oraindaiño beintzat, gardena.

Ora indaiño bai, baiña... noiz arte iraungo aizeak garbi eta, batez bere ibaiak garden?

Emen, ni, kili-kolo ta kulunka «noiz arte» orri erantzun zuzen eta ziurrik emon eziniñik. Ez dot oraindikarren aurtengo kulkuaren otsik entzun, eta erleak ezti zarra jaten izango oraindaiño. Ala ere, lengo batean erleen sumurru-purruaren antzeko durundua zebilkidan belerri batetik bestera. Zera: Garbe auzotegian bogadatoki, garbiola, garbi-leku edo dana dalako zeran bat egiten diarduela, (dabiltzela), «ARANZAZU» izeneko ostatu-alkarte edo bazkunak dituan ainbat ostatuetako zer guztiak bertan, Garbe'n, garbiltzeko asmoz.

Soiñeko, oeko izara (maindire) ta beste-rik garbiltzeko izango dan zer ori, aurrerapenik gaurkoenez ornidua izango ei-da ta, ibaiarentzat kalterik txikiñen ere ez.

Belarrondoan dabilkigun garbi-surmurrua ez dagizkuela sokin-soiñu biurtu ba ta orrelan danok bakean eta kitu.

* * *

GORBEA.—Gorbea ala GORBEIA ete dogu zuzenagoo?

Areatza (Villaro)'tik gora jo eta biderdian, Pagomakurre'n, egiatzko mendizaleentzat naiz egunetarako nasaitasuna gura dabenentzat, aterpe bikain, ostatu arrigarria Areatza'k goi edertsu artan egin dauana.

Lekuz ederra, bakez zabala... bide egokiegia berebillez bertaratu nai dabanentzat.

Bide egokiegia arek baiña mendizaleak kezkatzen ditu; ardi, basabei eta beorak larritu... Bilbo'ko Artxanda'ren antzeko egingo ete-dan-edo, bildur piti batek artu gaitu.

Azken-urte oneitan kankailu, kirten eta mari-mutil gangarren ugaritzea non ez! Kirten-gangarkerietatik basabereen urritzea letorkigu, zintzarri ta arranen ixiltzea, basokiratsarentzat uri-sunda... zaputza, atsa, putza, k. k. ta bidegabekeria...

Ez dagizkuela ba, Pagomakurre'tik gorantz berebil-bide barririk egin. Mendia txori, basabere, pizti ta mendizale ibiltari

jatorrena izan bite. Erbarren eta sakonak berebidunentzat, gazte kirten kaikuentzat, neska mari-mutil gangarrentzat, ijito-kitanu ta ibilteko ezindurik gagozanontzat. Bakoi-txari berea, ta Jainkoa guztiona.

LANDAJUELA'TAR A.

Bilbao

Lenago be aitatu gendun, ona emen barriz San Anton'go Katekisa zuen aurrera. Laster baten, opilla bero-bero urten barri da-ta, Olabeaga'tar Iñaki anaia biribildutako olerki txorta eder bat eskuartean izango dozu.

San Anton'go Katekisa orrek argitaratzen dau, ainbeste idatzi polit orrean urratsak jarraitzen.

Ba ete da iñor oraindik San Anton'go idatzi txiki nai aundien barri ez dabenik? Iñon olako ez jakiñik ba'lego, eskatu begi len-bait-len pozik bialduko dau-tsen zabalkunde orria ta izenpetzeko txartela.

Ba-da beste zer-jakingarri bat be. Ona eskuartean neuk, gaur, Etxebarria'tar Juan Anjel'ek ekarrita, senide ta adizkideak zoriondu bear doguzan-ean edo beste edozer jakin arazteko korreoz bialtzen diran txartel orretai-koak.

Ba-dau txartel onek bere zera. Euskal-idazle nagusien argazkiak dakarrazala apaingarri —oraingo onek «Orixena» orrela Lizardi, Azkue, Lauaxeta... danean ezagun izango yakuz.

Ni neuk, ezkutuko keritxo bat daukat. Garberdiraiño urrutiko irriatik entzuten geratzea. Dx izeneko orretarikoa nai izatea. Ba-dakizu, irriati orrean orduak eta zertzeladak jakiteko, euri be zelan entzuten diran eta olakoak idatzi bear, ba, gaurtik asi naz San Anton'go txartel-letan lan ori betetan. An, urruti, gizon baten argazkia ta azpian: «Oreja'ko Ormaetxea'tar Nikola (1889-1961) olerkari gorengoa, idazle sakona, itzultzaile bikaiña», irakurtzen dabenean, esango dabe: «zein izkuntza demontre ete dok au?».

ASTI

SOPELANA

Sopelanako ALKARTASUNA taldeko gazteen asmoak, lanak eta eginkizunak oso ezagunak dira errian. Alkartekoen elburua erria eta errietasunaren alde ekintzea da. Eurai zor jake ikastolaren bizkortasuna eta txistu eta dantza-eskolea aurrera eroatea. Egoera onetan, eta beti gure pentsaera eta izaeraren agerpenak, kultur gaiak Sopelana'ra ekarteko naian, alegindu dira Jaialdi bat antolatzen.

Jaialdi onek alde bi izango ditu: lenengoan, Benito Lertxundi'k —gaur eguneko abeslaririk onenatariko bat— bere abestiak eskiñiko daukuz. Bigarrean, oso ezaguna dogun Galdakano'ko ANDRA MARI taldea ikusiko dogu. Ille onen 26'an izango da. Azaldu nai genduke ALKARTASUNA'ko gazteak egiten daben lan aundia, dan dana, gure nortasunaren alde eta gure jatortasuna indartzeko asmoaz dala.

MIKEL

INSALUS

Urik garbiena ta osasungarriena

IBARRANGELU

1771 urtea zan. Naparreria gogor agertzen zan urte orretan Bizkaia'n. Ainbat kalte egin zitun gaixo onek. Oraindik ez zan inor gertuten ezititzek, bakunak artzera. Bildurra, siniste-eza, biurrikeria, dana dala.

Lekeitiar osagille bat, Luzuriaga jauna, keixu ebillan orretan. Arduratsu. Osagille lez ba ekian zer bait egin zeinkeana. Paris'en entzute andia eukan Gati baten ezititzeko erak. Baiña gaur baino aterapen eta fede gitxiago egoan gauza barrientzat. Gaurko zabalkunde eta erakusteko bide eta erarik be ez egoan. Onerako baino okerrera ariñago etsiten ziran olako gauzak.

Luzuriaga'k, Gazteiz'en egin eban itzaldi baten, bere egunerokoa irakurri eban. Bere ikusiak eta ikasiak, bere oarrak, bere usteak, bere itxaropenak eta ametsak. Eta bere ezezpenak be bai.

Milla eta berreun ezititze edo bakunatzeko egin ziran urte orretan Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia'n. Bat bakarrak gaitz egin eta ain zuzen be Luzuriaga berberaren alabeari gertatu ori.

Ibarrangelu'ko kontuetan jakingarri onek ez leuke zer-esanik eukiko, kontuan euki ezik Bizkaia'n osagille arek egindako lenengo ezititzek, lenengo bakunak, ain zuzen be, Ibarrangelu'ko zortzi gaztetan egin zitula.

Orra Ibarrangelu naparreriaren aurka zer bait egin bear zan kontzientzi eta kezka.

Bein ezitituen kontuan asi ezker, gogoratu daigun erbestetik etorri edo ekarritako ezititze edo bakunak baino naiago ebela, emengoak, lengo zarren eta sasi medikuen oiturei jarraituz, norbere zauri edo gaixo berberaren gogorkeriak, kalluak edo ondorenak jan eragitea, orrela ezituta gelditzen ziralakoan.

Ain zuzen be Nabarniz'ko pleitu bat gogoragarri da. 1746 urtean, ango ebakitzalle eta odol-ataratzalle zan Martin Azkarate'k auzi bat ipiñi eutsan bertako Erroze Ikazuriaga'ri, ezelako gertaera barik sendagintzan sartuta ebillalako. Au da, sasi-medikutzan ebillalako. Ibarrangelu'ko ebagitzaile eta odol ataratzalle ziran Martin Ibarra, Baltasar Igartua eta Jose Uriarte'ri deitu eutsen testigu lez andre arek. Oneik ezin ukatu izan eben Juan Bengoetxea bat, era orretan, andre arek osatuta gelditu zala.

Osasun bideko da au be. Ba zan gure azken gerra aurrean Ibarrangelu'n botika bat. Inguruetan esaten ekian inun botika egoki bat billatu bear ba'zan, emen egongo zala. Bertako botikarioak, Patxi Arrotegi'k, iru-lau ostera egiten zitun urtero erbestera aurrerakuntzen billa bere entzute on ori zaindu nairik.

Milla lagun inguru bizi-lagunetan. Gaur, bear ba'da, eldu be ez ainbestera. Orain 50 urte, bosteun geiago.

Erriko dirutza, presupuestoa, bizi-lagun bakoitzeko milla ta eun peseta, errialen bat gora-bera. Igaz, danetara, 1.120.000 peseta.

Errian, Elexalde eta Akorda sartzen dira. Amabost km. lautu danetara be.

Sasoi baten, Elantxobe be, erri legez, Ibarrangelu zan. 120 urte inguru dira banandu zala. Origaitik ibarrangelutarrak itxas giroa euki izan dabe beti, eta elantxobetarrak ibarrangelutarren odola. Elantxobe erri biurtzean, emengo asko joan ziran ara. Origaitik asarre eta txikiikeri ugari egon ziran. Baiña ba dakigu baserri eta itxas eratzak giro ez bardiñeko izaten dirala, batez be peniskeran. Alkarren ez bardintasanunak ortik etorri eikezan emen. Elantxobetarrak, euren lortu ebenean, destañez, «ganbela buru» deitzen eutsen Ibarrangelu'ri. Eta beste a geitu: jan bedarra ta...

Erri polita. Aizetsua. Gaiñetxoan, ikuspegi zabalak, ederrak. Aitzaki bat kalean: aldatza. Mendi arteko gora-bera, ondorena. Ba dirudi emengo kapitana eta piloatza, itxaso zabalgan aspertuta, itxasoaren aize eta txipristiñak galdu barik, itxas ostan, abaro epelagoak billatuta egin nai izan zituela euren bizitokiak Etxe ederrak, zabalak, txukunak. Itxastarrak, merkanteetako «puenteetan» estu sentiduten ei dira luzera begira. Emen, barrurago, sotondoago ikusita be, naiago dabe zabal eta patxadaz bizi. Ondo bizi be. Baketan. Aingearuak lez. Esakera be ba dago: Ibarrangelu, milla aingeru.

Gazteak ez dauke lan tokirik bertan. Ori da mingarri. Eta erbestera urten bear izaten dabe. Gernika aldera, Bilbo aldera. Ibarrangelu, urtikaz, uda toki biurtuko da eta neguan, itxasoetan aspertutako agure eta sendi baketsuen erri.

Ondartzetarako bidea zabaltzen ari dira eta orrek be mesede andia egingo dautsa uda aldian.

Emengo parrokia San Andres'eri eskiñia da. Arku bakarrekoa. Luzea. 106 oin luze eta 51 zabal. 60 urteko parroko bat, bertako semea. Eta Akorda'ko eleizea be bere gain.

Emen diñoenez Ander deunari eskiñi eutsen parrokia, baiña ez San Pedro'k bere oiñik sartu nai ez ebalako. Esaten dakienez, bein San Pedro Atxerre'n era etorrila, bere urratsa laga nai izan eban eta oin bat Armendua'n sartu eta bestea Ibarrangelu'ko arri-gain baten. Origaitik arri aretan ikusten zan urratsa, oin baten neurrikoa, San Pedro berberarena zala siñistuten eben bertakoak.

Parrokian, ikusgarri eder, benetan baliotsu eta maitagarri, Iñurria'k egindako Errukiaren irudia. Artista on orren eskua bizi eta sendo igarten da bertan.

«Fray Martinus de Ascensione, ex Varanguela Cantabriae...». Zer pentsatu, zer idatzi eta zer esana sortu izan dau Nagasaki'ko martirien kontuetan agertzen dan esakera orrek.

Urte luzetan ibilli ziran, bakoitza bere eskubidearen billa, Bergara eta Beasain. Eta irugarren bat ixillik: Ibarrangelu. Ixillik?

Emen, igarri barik, ezer esango ez ba'ltiz lez, Agarre erdiko izenez ezagutzen dan baserriari, santuaren etxea deitzen dautse. Nagasaki'n, beste ogetabost lagunekaz batera, 1597 urtean, ara joan eta urte bete baiño len il eben prantziskotar praille gazte a, emengo jatorriko zala esaten dabenak ba dira. Istori egilleak garbitzeko jakingarria da ori. Gu esakera eta emengo gora-bera lotuta gagoz gaur.

Aita Galdos bat ibilli zan arazo ori argitu nairik. Berak egindako lanak irakurri al izan genduzan gure gazte denporetan. Urkijo'k be, Aita Uriarte'ren sermoietan, arek Bermeo'n egindako sermoi bat billatu eban. 1862 urtean egiña zan itzaldi a. Arek be esaten eban: «Ibarrangueluac ango semia dala, Acordatic Ibarranguelura guazala bidearen bee aldian dagan baserri Aguirre derichon baten jaijua dala...».

Sasoi aretan oraindak toki askotan jaiotzak ez ziran liburuetan idazten. Eta orra, gerorako, agiririk eza. Baiña emen, oraindak, euren santua gogoratzen dabe, Otsaila'ren bostean, Agata deunaren egunez. Atal onetan aitatu dogun «ex Varanguela» ori, askok ezagutu izan dabe Ibarrangelu'ztat, euskeraz sarri gertaten diralako olako izki bakarrak galtzea eta abar eta batez be erbestetarren idatzi eta agiritan.

Iru baserri dagoz emen Agarre edo Agirre izenekoak: goikoa, erdiko eta bekoa, eta erdiko eta santuaren jaiotzetzat esaten dana.

Oiturak? Ingurutako erri askoren antzeko. Josafat'eko zelaian erri batzuetako semeak orma ondoan lotsakor agertuko ei dira, atzea jantzi barik obratu edo enterratu zituelako.


Eta emengoak? Oiñak lotuta gixajoak. Askori, len geienei, kajan sartu ondoren oiñak lotu egiten eutsezan. Eriotzek gorputza betiko lotuta laga ez ba'leu lez!

Itxastarrak ibiltari izaten diran famatxoa dauke. Gau txoriak. Ama batek bere semiarri sarri esaten ei ekian emen... «Ia, txotxo, alako baten orreik buruko zoruok amatau eta oiñak lotu...». Eta semeak, emengo oiturak bururatuz, erantzuten ei eutsan: «Dagone-rako kajan sartuta ikusi nai al nazu? Lenengotatik erleari be kurutzeta ipiñi bear zeuntzako, ia argizari on bat egiten daben nire kaskar au argitzeko». Jakiña da, ba, emen, erlea daukenak, etxeko bat ilten danean, erlategi aurrean kurutze bat ipinten dautsela erleei, bear ba'da argizariaren egille langille orrei zeregin ori eskartuteko.

Ba nua. Euskal Finisterre, Elantxobe'ra? Agertu nebazan bein Ogoño azpiko kontuak.

Besten aldean, arrigorriak ikusten nago. Ereño. Ain zuzen be Gernika'tik Lekeiti'o-rako bidea laga, Ereño'koan sartu eta laster, eskumatara, azun artean dagon landatxo baten, udabarriko suzen abi eder bat ezagutzen dot. Zetarako eskutatu edo agertu nai ez, beste askoren mesedean, nik be beste batzuei bertan inarduela «dramio» egin ba'neutsen eta batu?

A. ZUBIKARAI



NAP ETA HIT

XIX gizaldiaren asieran, almen audiko, gizon bat agertu zan: NAPOLEON zan bera. Bazterrak menderatzen asi zan: Lendabizi, Italia'z jabetu, urren, Ejipto'z. Andik itzuli ta naspillatua zebillen Frantzi'ko Gobernuatuz jabetu. Ondoren, Austria'tarrak oinperatu, ta berriro, galdutako Italia bereganatu. Bereala, Austria ta Prusia elkar-tuak Austerlitz'en zanpatu. Geroxeago, Errotamar Imperio Santua ondatu ta Prusia'tarrak zapaldu. Bere anai Luis'en bitartez Holanda eskuetan zeukan, eta berak sortutako eralguntza ta zenbait laguneng bidez, Alemania'ko lurralde audiak.

Rusia'ko Czar'a ere bere adiskide zeukan. Itz batean, Europa guztiaren jaunda-gabe izatera iritxi zan. Bañan... orduan asi zitzaizkion, Ingalaterra menderatu nai izan zuen garayan, asi zitzaizkion zorigaitzak, eta askenean, erbesteratu ta Santa Helena, Afrika'ko ugarteetan il zan ezere jabetasunik gabe.

Gu bizi geran gizaldi ontan ere agertu zitzaigun beste gizon arrigarri bat: HITLER zan bera. Au ere Napoleon'en antzera asi zan inguru guztiak menderatzen, eta pakearen orde guda bizia ekarri zion ludi guztiari. Lendabizi, Austria bereganatu zuen. Italia ta Japon'ekin elkartu ta lurbera osoatuz jabetzeko asmoetan jarri zan. Bereala, Czeckoslovachia menderatu; urren, Lituania'ko Memel, Rusia'rekin pake-itza elgarri eman. Danzig beretzat artu, eta «blitz-krieg» en bitartez, tximixtaren antzera, bazterrak menderatzen; Polonia, leenik; Noruega ta Dinamarca bereala; andik laster, Holanda, Belgica ta Frantzia; Rusia'raño eldu zan bazterrak zanpatuaz. Bañan... orduan asi zitzaizkion zoritxarrak, Ingalaterra'z jabetu nayan zebillen garayan, eta orduantxe gañeratu zitzaizkion aurkakoak. Eta azkenian, nork-nola ez dakilla, betirako galdu zan lur ontatik.

Orain berriro, oso euskera-zale dan emakume-irakasle batekin mintzatzen ari nintzala gogoratu zitzaizkidan Europa'ko bi indar-irudi oyeek: Napoleon eta Hitler.

Izan ere, emakume ori zeoro txunditu ta etsipena arturik arkitzen zan euskeraren gaurko egoerari begira. Eta elkarrizketa ortan onela ari zitzaidan:

—Ez dago ezer egiterik! Bazter guztietaz jabetzen ari zaizkigu Euskeranto-zeleak; ain asmo ederrez erriak sortutako eralguntza ta aldizkari danak bereganatzen ari dira. Lendabizi, «Arantzazu»; urren, «Anaitasuna»; gero, «Zeruko Argia». Itz batean, ain gureak genituen aldizkariak, danak atzeman dituzte beren atzaparretan. Beste aldetik, berri, ikastolak, ain maitetsuki gurasaok sorturiko ikastetxe maitagarri asko bereganatu dituzte banaka-banaka, eta ori dana aski ez dala, nai dutena egiten ari dira Euskaltzaindia'n bertan.

—Bañan...

—Zer bañan eta zer otxokuarto! Zu, Yon, zure «bañan» ori beti ezpañetan duzula. Itsutua al zaude ala zer?

—Bañan... beti esaten dizudan bezela, indarkeriak ezta bukaera onik, eta Euskeranto-zaleak, uste ba'dute ere gaztedia zurikatuz bereganatu dutela, alperrik dabilta, gaztedi berriak berak txundituko bai ditu ayen uste ustel danak.

—Ene, Yon! Bañan ain itsu al zaude? Ez al duzu ikusten beren legea jarria daukatela ta gaztedia artara oituko dala?

—Ez, enetxoa, ez! Oker zaude oso-osorik! Legea jarri, bai, egingo dute, bañan ezta oraindak euskaldunik jayo euskera berri baten indarkeria onartuko dunik! (Gaztedi berria izango da ayen amets zoroak betirako birrinduko dituna!)

—Zure usteak, bai, egitan arritzen nautela! Beti itxaropentsu... Bañan zertan itxaropena? Eta noiz...

—Askok uste baño lenago, beren zorigaitzerako... Naigabetua zabilta eta, nunbait, eztakizu gertatzen ari dana ikusten... Ara, orain berriro gertatua, eta Zarautz'en, ain zuzen; Zarautz'ko ikastolan. Zortzi urteko («zortzi urteko», esan dut) neska-mutillikin irakasle-gizaseme bat. Alako batean, orain dala aste gutxi, mutiko oyetako batek (eta bear ba'da, esango nizekizuke mutikoa ta irakaslearen izenak ere), mutiko orrek H'rik ez dula erabiliko, esan dio. Irakasleak onez-onean adibetu nai izan zuen mutikoa, bañan ikasle gaztetxoak: EZZETZ arpegira. Orduan, Irakasleak (danengana zuzenduaz) eta mutikoa lotsagarri utzi nairik, nunbait, galdera au egin zien: «H'rik nai ez dunak jaso dezela eskua». Eta irakaslearen arridurarako, ikasgelako neska-mutil danak (DANAK, diot) jaso zuten eskua.

Gertaera ori entzunda, pixkaren bat lasaitu zan nerekin ari zan emakumea. Izan ere, alaxe da, zeñen buruan sartu diteke izkuntza-burruka bat erriarengana indarkeriz etorri ditekenik? Zortzi urteko aur oye orain neketan eta beartuak dabilzatenak (eta askotan lotsagarri!) nolako nazka ez diote eukiko zoririk gabeko H orreri?

Eta beste aldetik, nunbait, erria ez da oraindak bear bezela jabetu, alegia, ITZA, IZKERA, IZKUNTZA dala, gizonaren doai bakarretan, daukagun doairik bearnezkoena ta nagusena, eta izkuntza orren jabe bakarra ERRIA dala. Orregatik, bere IZKUNTZA orrekin batzuek egiten ari diran esperimentera zeñen kaltegarri dan konturatzen dan une berean, ezin esan zer gertatuko dan, bañan, bai, gogoangarria izango dala!

«Dies irae, dies illa...».

OÑATIBIA'TAR YON

ORRILLAK-1

SHAKESPEARE

EUSKERAZ

MENPERATUAK

Alkar menperatzea eta besteak baiño geiago izatea agertzen da ugari gizadian. Jokera onek basatien legetan ditu bere zusterak eta gaur gizadian bere ondoren mingarriak.

Indartsuena nagusi izateko bidea dogu ba basa-lege gorrotagarri au. Eta gizarteko saillarik geienetara sartzen da.

Itzaltasunez heterikoa izan bear leuken kultura edo jakintza-arloan: Jakintzarik zabalenak eta indartsuenak, batez be agintaritzaren indarra alde ba'dauke, jakintza txikiak arnasarik artzen be ez dautsee izten.

Politika-gaietan, sarritan, gora igon daben laterriak eta taldeak edo gizonak, azpikoak aintzat ez dabez artzen. Orrelan laterri batzuk jabetasun ederrean bizi diran artean beste batzuk joputza lotsagarrian eta larritasun urdurian bizi dira.

Ekonomi-gaietan lanaren lanaz, edo zurtasunez edo iñoren izardiz dirudun izatea lortu dabenak, geroago ta gogotsuago artzen dabe beargiñak menperatzea. Emen be gitxi batzuk dira jentetza aundiak menperatu nai dabezanak. Eta lortu egiten dabe sarritan, batez be euren aldeko agintariak jarten dituenan.

Eta erlejiño-gaietan be, gizonak beti gizon, iñoz olakorik jazoten da.

GORA-GUREAN

Orrelan menperatuta eta eskubideen jabetasunik barik bizi diran jentetza aundiak, errazoi guztiaz, egoera larri orretatik urten gura dabe. Gizon guztiak bardiñak garan ezker, eskubidez beintzat, zergaitik ez bide orretarantza jo?

Orixe da gizonari bere barruak eskatzen dautsana. Eta barruak ori eskatzen ez dautsanean, bera egoera ederrean egonik, besteak kotuan artzen ez ditulako izango da.

BURRUKEA

Ortixek sortzen da, ain zuzen be, gizarlek burrukea. Ortik gaurko alkar ulertu eziña ta gizonen arteko gorrotoa, urduritasuna ta larritasuna.

Be-maillan aurkitzen diran askotari-ko gizonak egun bat izendatu eben burruka orren agerpenerako eta orrillaren bata izan zan egun ori. Poza alde batetik, zuzentasun-billa gizonak ikusten dira ta; baiña ituna beste alde batetik, burrukea ta gogorkeria ugari ikusten doguz ta.

Egun au ludi osoan ospatzen da eta gizon menperatuen alkartasun-ezaugarri bat izaten da. Agertzen dan burrukea, geien, ekonomi ta gizarre-arazoarena izaten da. Gogortasuna ugari izaten da bazterretan eta gogorkeria ez gitxiago.

BAKEA NAI

Olako giroan dagon munduan eta egunean, ez da bakea nagusi.

Guztiok gura genduke gizarre bake-tua ta bardintsua, baiña zuzentasun-billa ibilli-bearrak berak urrintzen gaitu benetako baketik. Ez litzake ona izango okerkeriak estaltzeko oial lez artzen dan agiriko bakea.


Santu bat egun orretan gogoratu edo lenengo jaunartzeak or egin arren, egun orrek bere sena ez dau galdu: zuzentasun-billa dabiltzan menperatuen eguna da beti.

Bakea nai ta burrukea egin, izan leiteke egun onen esangura mingorra.

LOTSATU?

Gizarrea olako egoera samieñan aurkitzeak asko lotsatu egiten ditu: Ez da au gizarre egokia, «ez dogu nai olako zibilizaziorik» esaten dabe, lentxuagoko abesti baten esangurea aldatuaz.

Baiña olakoxeak gara eta garan lakoak alkar ezagutu ta onartu bear gara. Geuk be ez dogu ondo egiten, begituaz asetuten ba'gara. Nai dogun eran, oso-osen, gizadiak eratu ezin ba'dogu be, beintzat geure lana ez dagigun ukatu. Gizarre-lanean, biotz-kikildu barik, ekin eta jarraitu dagigun.



BIZKAIAN ZEANURI ALDEKO EUSKALKIA SALBATURIK DA

37 antzerki ingeleratik euskerara zuzenean

Larrakoetxea'tar Bedita'k egin du lan ikaragarri au. Shakespeare idazle inglesaren lan osoa, 37 antzerki, euskeratu ditu bizkaitar idazle iaio onek. Erdi-aroko ingles izkuntzatik xuxen-xuxen euskeratu ere.

Lana da ikaragarria. Lana da betirakoa.

Ez goaz Shakespeare'ren lanik emen agertzera. Mundu osoan ezaguna da; jakintzuen artean batik-bat. Bere komedi, trajedi eta drameetan garai artako gizarre korapillo guztiak agertu zizkigun. Ordukoak. Betitikoak.

Orretan datza Shakespeare'ren ezagarrietatik bat.

* * *

Baiña ez da ori bakarrik. Ba du besterik. Itzen aberastasuna, alegia.

Ingles izkeraren ezkutuki guzti-guztiak, itzen ugaritasun guztia bere mende zuan Shakespeare idazleak. Beraz, Shakespeare ondo itzultzeak ba ditu bere nekeak; ematen ditu bere lanak.

Ez da edonork egiñ lezaken gauza. Itzultze ori egingo duan gizona, Euskeraren, jabe bearko du izan. Eta Larrakoetxea'tar Bedita, larogei urte egiñak dituan gizona, Euskeraren jabe da. Aberatsa bera ere, Shakespeare'ren antzera.

Bere euskalkiaren jabe da, batez ere. Arrati'ko euskalkiaren jabe. Zeanuri'ko euskeraren jabe. Ez da ba arritzeko, Zeanuri'ko euskalkira biurtu badigu Shakespeare osoa. Euskerata utsera biurtu ere.

Erreza izango litzake euskera-erdera-motroillo batera biurtzea, gaur egunean egiñ oi dan bezela. Larrakoetxea'k ez du

erderara jo. Euskerata utsera esi-barruan eutsi dio.

* * *

Eta orixe da, ain xuxen, zailtasun eta gaitzitasunik aundiena: Shakespeare guztia euskalki bakar baten neurrian sartzea.

Ba-gera euskal-idazle ugari erdera ondo baiño obeto jakinda, euskeraz ari geranok. Guri jakinduri ta kultura guztia erderaz eman digute. Eta euskeraz ari gera traketz eta urri. Motz.

Shakespeare euskera utsean jateko euskal-ortzak falta. Euskerata-motroillo batera itzultzeko, erdi-euskera erdi-erderara egiteko, euskeraz ezin degunean, erderara jotzeko, ortarako bai, ba gera. Artara neuk ere egingo nuke.

Baiña, Shakespeare-izkeraren aberastasunak euskera utsean emateko, ortarako euskal-idazle gutxi ikusten ditut bazterretan. Euskal-gizona bear. Larrakoetxea euskal-gizona degu.

Euskeraz sortu, euskeraz asi ta euskeraz ezitako gizona. Euskerata-tresna alde guztietatik menperatzen eta erabiltzen dakin gizona.

* * *

Euskeraz jantzi-gabe, billutsik eta narrugorri bagabiltza, eldu bi eskuekin Larrakoetxea'ren itzultzeari ta ikasten saiatu. Zure eskasia ez da Larrakoetxea-Shakespeare'ren kulpaz.

Errua zurea da. Ikasi.

Shakespeare aberatsa da eta Larrakoetxea ere bai. Ikasteak ba du laztasunik. Ez da erreza. Ikasi nai badezu, murgildu zaitetz euskal-itxaso orretan. Igari ez badakizu, artu bear dezun laguntza: euskal-itzegi eder bat.

Shakespeare ta beste idazle jatorrak, euskera jatorrera itzuli bear dira. Euskeraren izenean erdera-naaste batera edo euskerantora itzultzea, Euskerari iruzur egitea litzake. Trampa egitea alegia.

Larrakoetxea'k ez digu tranparik egiñ: ingelera utsean zegoena, ingelera aberatsean zegoena, euskera utsean eta euskera aberatsean biurtu eta itzuli digu.

* * *

Euskaldi batera. Bere amaren bularretik egoski zuan euskalkira. Ala bear ere, lana sakon-sakonetik egingo bada.

Ez du Euskerata baturik egiñ. Batuak gutxienez bi dira.

Euskalkiak asko. Guztiak dira Euskerata. Euskerata euskalkieri esker bizi da. Erronkari inguruko euskera illik da. Oraintsu il dira ango aizken-euskaldunak. Besteak erderantora biurturik daude: euskera aaztu eta erderarik ikasi ez. Erronkari'ko euskeran orrelako lan bat egiñ izan balitz...!

Betirako Euskerata baten aberastasunera Larrakoetxea'k egiñ digun lanak ez du preziorik. Zeanuri aldeko euskera bizkaitarra salbaturik da betirako. Euskerak bere jakintsu-talde ugariak izango dituan, orduan bai Shakespeare-Larrakoetxea bikotea izango dala —jakintsuentzako, alegia— sekula agortuko ez dan arrobi aberatsa.

Bitartean, lan onek maixutza agurgarria erakusten digu. T. B. O.'ak egiteko edo kontutxoak euskeratzeko edozein idazle, batu edo batugabekok, balio du. Euskerantor-erderantor bat ere ondo egingo da erderaz besterik ez dakienentzat. Lan erre-zak bear dira gaurko gure «populu»ari euskeraren leen-urratsak egiten laguntzeko.

Shakespeare, ordea, ez da ikastoletako katoia. Shakespeare'tik atera lezazke umeentzako kontutxoak; baiña ori ez da Larrakoetxea'ren lana izan. Euskal-bizardunen-tzako lana dezu. Euskeraren arloan gizon-dutako gizaientzat da lan ori.

Umeentzako edo Euskerata biberoretan artu bear dutenentzako or dituzute Fernando Amezketarra eta abar. Biberoretan ere esne ona bear da. Euskerata jatorra. Ume euskalduneri esne txarra ematea, euskal-izatearen aurkako pekatua litzake.

Larrakoetxea'ren lana ez da Biberoretan edaten dan oien antzekoa.

* * *

Edaria balitz, Eskozia'ko guiski litzake. Sua dariona. Edaten ez badakigu, erraiak erretzen dizkiguna. Bestela, ordea, sutondoan jarrita, pipa ortzetan, euskal-aoa gozatzeko aukerakoa.

Etorkizunerako liburua, eta teknika-gaiak ugari eskeini lezazkeena. Itxas-ontzia aundia eta ederra da. Bear bada, gaur eguneko uretarako aunditxo. Ura falta bada, ez da barkuaren errua.

Marea-beeran edo legorrean egiten dira barkuak. Marea-beera degu. Igoko da marea eta orduan itxas-ontzi ederrenetako izango da Larrakoetxea'ren ontzia. Jendea erabilliko du bere erraetan ugari.


Ez bildurrik izan, orrelako lanak betirako egiten dira. Kardaberaz Bazkuna'k betirako lana argitara digu. Errezagoa da Amezketa'ko Fernando —argitara berria: A. Albisu'rena. Errezagoa egiten. Errezagoa argitaratzen. Errezagoa saltzen.

Errezagoa da «Dos-caballo» edo «600» bat saltzen «Rolls-Roice» edo «Mercedes» bat baiño. Auek, ordea, besteak baiño obeak. Aal izan ezker...!

Yogur-katillutxoak baiño, ortzak artarako izan ezker, urdai-azpiko aundi bat ohea.

Ortzik badezu, sartu eta ekin ortzaka. Janaria aurrean daukazu ugari.

A. ARRINDA



GATZ ETA PIPER

BETIKO KEZKAK

Oñazez beterik joan-etorri labur bat egin gendun lengo baten Donosti'ra, Murua'tar Joseba gure aspaldiko lagun onari samintasunean laguntzen. Eleizkizun eraginkor aretatik urten genduncan... betikoa!, Goiz Argi'ri etorri jakon zigorra dala, Agur'en gora-beerak dirala jardunaldi luzea gendun gure Gipuzkoa'ko lagun zarrekin.

An ezagutu gendun Irala'tar Andoni, diñoenez, azken urte oneitan agertu dan idazirik garrantzitsuenaren egilea. «Diñoenez» diñot, dalako «Bat bitan banantzen da», urrengo egunean erosirik, irakurtzeko erarik oindiño ez dogulako euki... baiña astiro ta lasai iruntsiteko asmoa daukagu.

Jardunaldi berean entzun gendun Oñatibia'tar Jon adiskideak Diario Vasco'ko euskal orriaren egindako lan baten aipamena. Donosti'ko beste lagun on bateri esker, astero-astero artzen dogu gogo biziz irakurtzen dogun orri ori ta urrengo egunean esku artean neukan «Bulego politik» izeneko lan zorrotz eta erakusgarria. Garrantzi aundikoa deritzagunez Bizkai'ko irakurleentzat oso-osorik argitaratzea erabaki dogu urrengo orri aldean.

Euskaltzaindiak zer izan bear leuken barrero esaten astea azpergarria litzake; edozeinek dakiz, gitxi gora-beera, beste izkuntzetako akademiak daukezan egitarau eta elburuak zelakoak diran, urko gaztelaniarenak bai beñipein.

Euskaltzaindiaren izena dala ta ez dala, lengo astego Agur'en jaurti gendun zerbait, ba, gaur bertan artu dogu «bulego»ko azken agiria ta ona emen izen oneri buruz zer dakarren: «Izen propio bezela finkaturik dago ta hola erabilteza dala bidezkoena». Erabaki orreri jaramon gitxi egiñaz, Akademia izatera biurtu daben batzuk auren probetxurako darabile, dagokiozan elburuetatik urrun.

Politika itza oso esan zabalekoa dala, ez da Nobel sariaren irabazle izan bearrik Euskaltzaindia gaur joko politikoa sartuta dagoala jakiteko.

Onk ez du esan nai euskaltzain guztiak orretarako darabilenik, ezta antzik be, baiña bai batean batzuk. Onen jokora makurtzeak zelako ondorenak ekarri leikezan ikustean norbaitzuk itxartu dirala diño... ori egia ba'litz!

Irakurleak zeozer ulertu dagian aztertu bei bere erriko ingurua. «Alfabetatze kanpaina» edo olako zerbait egon ba'da neurtu bei zer izan dan eukeraren onerako eta zer beste asmoren bat betetzeko... ala oker ete gabiltz?

Amar milla bider esana da: Itsua izan bear dala kultur giltz guztiak gaur, politika-gai dirala ez ikusteko eta itsuago borondaterik onenagaz bear ba'da «zezen plaza»tik aparte edo gañetik bizi ezker antxiñako nortasuna gorde geinkela uste izateko.

Ez dogu «Bat bitan banantzen da» irakurri, baiña eguneroko ekintzan ikasi doguna be ez da gitxi.

Arrazoa dauka Oñatibia adiskideak eta ez dago beste jokabiderik: Aurrera emotea! Aurrera emote orrek ez du esan nai geuk be joko zikiñean asi bear dogunik, ez!, erri osoaren aberastasun diranak erri osoarentzat garbitu bear doguzala baiño.

A! baiña erria diñogunean Euskal-Erria esan nai dogu eta ez orain ugaritu jakuzan euskaldun lumakin jantzitako txori-gorrien kabiak.

ARENAZA'TAR JOSU

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri asmoen gaiñetik daben iritxi-onoeko euskaldun guztiak Euskereatzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egilleak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M.^o MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Carretera a Galdácano, 32-Bilbao-4

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guturako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

SASI MAIXUKERIAK

NOIZ ESAN BIAR DA AL ETA
NOIZ ETE?

Lenago be gai oneri jardunda egon arren barrero nator zerbait barri esanaz, txarto esatea nagusitzen dala ikusirik.

Askoren ustez itz oneik esanai bardiña dabe ta nai bata nai bestea edonoiz sartzen ditue euren idazkietan. Ara diñodana baietzuten an eta emen artutako zati batzuk:

«Ango gaitza ez ote diteke onera eldu? Toki batzuetan ez al dago naikoa zabal-duten asia?»

«Ez al da lotsagarria gure artean jazonen dana? Ez ete gara geu guziok geure bideak zuzendu biar ditugunak?»

Baiña nire ustez itz oneik, bakoitxak bere esanai edo egiteko berezia dauko. Ta onetzaz erre konturatu geinke. Berez itaunak diran itzak (zer, noiz, nun, zelan eta abar) erabilten doguzan itaunetan al itza ezetara be ezin sartu daiteke. Era onetari itaunik ezin daiteke:

Zein etorri al da?

Nun jausi al da?

Noiz etorriko al da?

Zelan bizi al da nire ama?

Ostera tartean ete dabiela egin daitezke, «Zein etorri ete da» ta abar. Ara or garbi, al eta ete ez dirala bardin-bardiñak.

Noiz erabili biar dira bata ta bestea? Arazo au garbitzen daben gramatikarik, ez ezer, ez dot irakurri; ta antxiñako idazleak eurak be argitasun andirik ez dabe emoten. Baiña egiteko berezia edo desbardiña daukena argi dago ta billatu egin bear.

Itaun batzuk, erantzun daiguzan egiten doguz, egin daiguzan ustea izanaz.

Biar zein menditara zuaz?

Bazkaldu dozu?

Bigarren itaun au gipuzkoar askok beste onetara egingo leukie:

Bazkaldu al dozu?

Guk bizkaitarrok zerbaiten antza (evidencia) artzen dogunian soilik sartzen dogu al itza. Esate baterako, Bilbo'k futbolian txapeladun gelditu dalako, gorri ta zuri margoko zapiagaz balkoia jantzi dot. Ta nire adiskide batek zeinek irabazi daben ez daki, baiña gure balkoiko zapiak iku sirik, Bilbo'k irabazi daben uste osoan itaun au egin daust:

Zer, Bilbo'k irabazi al dau? (...irabazi dau ala?)

Beste itaun era, geure buruari edo geure ustez erantzungo ez dauskunari egiten dautsaguna izaten da. Esate baterako, lagun bategaz itxasora jua naz, biok erloju barik; an denpora andia eginda gitxi

gorabera bada be ordua jakin naian, ituan au egiten dot:

Ze ordu ete da?

Olantxe, erantzun ziurrik ezin emon daikiguenian erabilten da, edo erabili biar da ete.

Onetan erderak be lagundu leikigu. Bi eratako itaunak egin daiguzan:

«¿Qué hora es?». «¿Qué hora será?».

«¿Ha venido la madre?». «¿Habrà venido la madre?».

Emen ikusten dogunez, ezkerrekoak dira benetako itaunak, erantzun daiguen egiten doguzanak. Eskumakoak, itaunak barik, daukagun jakin naia agertzea dira. Ba, eskumako onetxek dira ete eroan biar dabenak eta ez besteak.

Ondoren, txarto idatzitako esaldi batzuk ipiñiko doguz, okerra nun dagoan agertuz:

«Mesedez esaidazue, saltzen ote dira emendik Spinolak?»

Ta, Bilbo ta Euskalerrri'ko margozki edo lanik ez ete dozu egin?

Oker ote dago idazpuru au? Euskaltzaindiak ez ote zion egin bere omenaldia, Axular'eri? Bai; bai baiña baita Nafarroa'ko Aldundiak eta Principe de Viana'k ere?

Ez ote da ori benetan ederra, anaikorra? Zer ete da au? Ia labur labur esaten dogun. Bildur dira egartzizaleak udazken hontan ez ote diran oso ondo ibilliko.

Ez ete gagoz geure etxean?».

Orain arte ipiñi doguzan itaun guztietan ete kendu ta orde al ipiñi biar litzake, bai edo ez, erantzun ziurra daukielako.

Geure barruetan ere argiak egingo ote du bere agerpena.

Emen be ote kendu ta al ipiñi biar da; baiña al ori ez da besteak lakoa, ez da itaunetako, guraria edo naia agertzen dabena baiño, olako esaldietan:

«Euria egingo al dau bestela galduek gara bserritarrok!».

Beraz, beste inun baiño ortxe gutxiago sartu biar zan ete.

«Batasunaren asmoa zintzoa al dan eta loritzeko ezarri diran oñarriak sendoak al diran ikusiko da.

Nundik etorriko al da gure salbapena».

Ostera, azkenengo bietan, al kendu ta ete eroan biar dabe.

Luziegi be banoa ta amaiera emon daidan beroni. Biar bada neure eretxi batzutan zuzen ez nago, Orregaitik argitasun geiago emon leikiñak, KARDABERA'koak-edo, gaiari ekingo baleuskioe poztuko nintzake.

KAMIÑAZPI



MONRAY

ARKONDARA-GINTZA

ANDEREENTZAT AZKEN-JOSKETAK

Bidebarrieta, 2

21 43 46 urrutizkiña

Alderdi-zarra

BILBAO-5

EUSKALERRI'KO ARAZOAK

BULEGO POLITIK?

Azken aldi ontan eraman dudan arridurarik aundiena gertatu zait; asko arritu nuan zerbaiten berri izan dudala, alegia. Eta gauzak zearka-mearka esaten ibilli gabe, goazen argi ta garbi ikustera gertatua.

«Enbata» aldizkariaren 342'gn zenbakia eskuratu dut, eta zabaldurik, itz lodi abekin arkitu naiz: «Un académicien engagé». Au da, Euskaltzain konprometitu bat. Konprometitu itzak, onelakoetan, politikan konprometitutakoa dala, esan nai du. Eta ori da arrigarria.

Gizon ori Jean-Louis Davant da. Zuberoatarra, eta orain berriro Euskaltzain osoa bezela aukeratua izan dana, beste zuberotar Euskaltzain Guillaume Eppherre izan zanaren lekua bete dezan. «Enbata»ren zenbaki ortan Davant nor dan argi azaltzen da aren ezaugarri osoak emanaz. Eta ortaz gaiñera, berarekin cukitako alkarrizketa bat dakar, ark bere iritzi ta asmoak agertuz.

Davant jaunak, mintzaterakoan, ez du gordeka itz egiten, agirian baizik. Au da, argi ikusten da ez dijoala iñor iruzurtzera; bera nor dan eta bere jomugak zein diran adierazteko ez du batere disimulorik. Eta ain argi mintzatu dalarik, ortxe egon da arritu gaitun berria. Gure itzak oker eta gaizki moldaturik eman ditugula-ta, iñor jeiki ez dedin, Davant jaunaren itzak, bere politikazko konpromisuari dagozkionak, frantzesez emango ditugu. (AGUR'en baiña, euskerara itzulita agertzen ditugu, erderakoak, aldizkari orretan arkitu dezazkezu, nai izan ezker). Ara emen «Enbata»ren galdera:



—Politika ekintzak zati aundia izan du zure bizitzan, ez ote da ori orain alkartu eziña izango euskaltzain izatearen egoera berriakin?

J-L. Davant'en erantzuna:

—Absolument pas... Iñundik ere ez, burrukalari orietakoa naiz eta ortan nai det jarraitu. Nere aukerak egiñak izan zirala, ez det aldatzeko asmorik, baiñan aurreratzen jarraitu bearko det orren barnean, ez nadin gezatzen duan gatz edo erretzen ez dun piper izatera eldu. Ez det nere bizikera au aldatuko, ezta nere nortasunik ere, ezagutzen ez dedan nere gaitasunekin arrotz dan jokabide baten ari izatera lotzeko...

Davant jaunaren itzak aski nabarmen daude; politikaria izan dala beti, eta ez dijoala ezergatik aldatzera bere bidea. Itz oyeke, berez, ez dute ezeren okerrik, bere jokabidea argi azaltzen du, eta aurrerantzian ere alaxe irauteko asmoak ditula, dio. Baiñan, Euskaltzain izan bear dun batentzat ez deritzaizkigu egokiak, ezta urreratzeko ere! Euskaltzaindia, bere izenak adierazten digun bezela, euskera zaintzea bai da.

Orrekin, ez dugu esan nai, noski, politikari batek ez dezakela euskera bear bezela zaindu, ezta gure izkuntzaren alde ez ditekela sayatu ere. Ba-dakigu, bakoitzak bere erara ta bere almenez aldeztu dezakela, baiñan ez dugu iñolaz ere uste, Euskaltzaindiak politikari utsak diranen exerleku izan bear lukenik.

Davan jauna politikari utsa —lurgintz-injiniero izatez gaiñera— dala ziurtzeko, bere itzai bakarrik elduko diogu. Onela mintzo da len aitatutako alkarrizketan: «Enbata'ko ekintzari ta aldizkariari lottuta irauin izan det 13 urtez... Ekintza ori debekatua izan zan ezkeroz, Euskal-sozialisten Alkarte'an (U.A.S.)'en saio bat egin al izan dut...». Eta berak idatzi dituan liburuak, «Histoire du

Pays Basque» eta «Lutte Nationale et Lutte des Classes dans le mouvement Basque» dira.

Ba-dakigu Bidaso'z arunzko aldean euskerarenganako oso gogo epela dagola, azken aldi ontan; euskeraren aldeko deyak oso erantzun motela dutela. Eta ango berri ongi dakitenak diotenez, gure izkuntza an oso politizatua izan delako artzen omen dira ain epel euskal ekintzak. Eta ori ala izanik, gaitza txartu besterik ez du egingo politikari bat Euskaltzain oso aukeratua izan dala jakiteak.

Euskaltzaindiaren izaera zein dan jakin eta Davant politikariaren zalantzik gabeko jo-muga ta bideak ezagutu ondoren, galderak pillaka sortzen zaizkigu. Ez dut, jakiña, galdera danak egiterik gaurkoan. Baiñan ez nuke galdera berezi bat, neretzat garrantzitsuena, egin gabe gelditu nai. Eta au da: «Politika-eskalada egiteko artua izan al da Euskaltzaindia?».

Azkeneko urte abetan, euskal kultura bide, burruka sortu zan ezkeroztik, Euskaltzaindia (bertako bridak artu dituzten ezkeroztik) euskal-santutegi bat dala xiñixta arazi nairik dabilta nobaitzuek, eta oyeke ez zaizkigu esaten aspertzen: Euskaltzaindia bakarra dala euskeraren arau-emaille, bera bakarra dala izkuntza arazo guztietan erabakitzaile, bera bakarrik Euskal-instituzio.

Iritzi ortakoak, jakiña, orbangabe ikusi nai luteke Euskaltzaindia, eta orregatik, uste dut oyeke ere, lotsez bederik, salatu bear lutekela aren barruan gertatu dan nabarmenkeri aundia. Eta orrela ez ba'dira mintzatzen, au da, Euskaltzaindia gure instituzio Nagusi ta Bakarra dala aitortzen dutenak, ez ba'dute beren abotsa jasotzen itsuzkeri orren aurka, bide bat bakarra gelditzen zaigu guri ere, eta au da, alegia, Euskaltzaindia BULEGO POLITIK batean biurtu nai izatea ontzat artzen dutela.

OÑATIBIA'TAR YON

«Maitasunean eta eriotzan ibiltaldi bat»

ARETO BARRIA

Jazoera gogoangarri bat: Bilbo'n, erti ta saio-zinearentzat areto berezi bat idegi daukue.

Bilbo'tar zine-zaleentzat, zine ona ta barria emongo dauan areto bat izatea, barri on bat da.

Abando Aretoak Huston'en pelikula bat agertu dau, baiña egoera txarrean: sarri ebagita, agerkerea zatituta, entzungaiak txarto dituala eta beste olako akats askogaz. Orregaitik Areto onen askera au ez da izan zorionekoa, pelikulea ikusgai lez goragarria izan arren. Au tamala!

EGILLE ELDUA

Azkenentzako doazan beste egille batzuk lez (gogoratu Visconti, Losey ta abar) John Huston'ek be pelikula au zeatzasun garbiz egin dau eta ori maixu eldu baten ezaugarria da. Eldua izan bear, bitxikeri larregiak izteko, ertilarriak ditun asmabideak betetako, irudiak eta itzak ain egoki alkatzeko. Trebetasun orrek arritu egiten gaitu eta orregaitik ain pozik ikusten dogu pelikula au azkenentzako:

GAIA

Heron eta Klaudia'ren ibiltaldi luzea (odisea) betikoa da. Baiña egilleak Erdi-aroan jartzen dau eta orretara erreztasun aundi bat datorke: «Ancien régime» deritxonaren azken-urteetako edertasunak agertzea, Huston'ek berak toki orretara larregi jotzen ez ba'dau be.

Erdi-aroak, gaiñera, adifen utsezko egoera bat dauka, eta olako egoera, zarra izan arren, gaur be askok onartzen dau.

Erdi-aro barranean, ba dago baita eresez beteriko olerki ta edesti laburra be.

Guzti orreik agertzen dira antzeskimintz edo pelikula onetan, mundu guztiko elertian zabal agiri dan gai au aiztu barik: Maitetasuna, norberaren eta inguruaren zertzeladen gainetikoa ezin leitekela izan.

AGERKEREA

Gaiaren guna bera, aberatsagoa ta beteagoa da Huston'en lan onetan. Arriñe-

keta baten ikusten dauana, bear ba'da, ez da konturatuko.

Alkar ulertu eziña, etorri bearrekoa zan eta maite-miñak edo eriotzara (Romeo ta Julieta) edo edertasun utsera daroa. Au izakeran onartu ezin leiken alderdi bat dogu. (Erromantikuen edesti bat).

Baiña Huston'ek ez dau artzen olako biderik: Norki nagusiak il egiten dira, baiña iñongo atsegin-baratzetik ez dabez uxatzen, mundu ixiotu baten eta ezelako erru barik ilten dira. Gero Huston'ek maitasunaren eskubideak aldeztu ditu, baita, zori txarrez oraintsukoa dan biziteko eskubidea be.

KONDAIRA-PELIKULEA

Inguru onen barruan eta esan dogu nagaitik, pelikula au kondairakoa da.

Gizandi biak iltea, ezelako errazoi barik il be, mingarri jakun. Eguneroko jazoera batzuk gogora elortzen jakuzan, bear ba'da.

Baiña agerbide ori, XVI gizaldira arte orrelantxe izaten zan, eta sasoe onetan ezarten dau jazoera «Maitetasunean eta eriotzan ibiltaldi bat» pelikula onek.

Askatasuna, bizia, maitetasuna, gizonarenak dira. Orregaitik Heron, baserritar aurkalaria ilten dauanean, mutiko bat zan oraindik berau, eta bere gain odol-usaiña asmatzen dauanean, arriuta, larrituta gertatzen da.

ILLUN ETA MAITEKOR

Begirakun illun eta ituna gure mundutxo oneri! Baiña ez maitetasun eta itxaropenik bagakoa. Ba dira iñoz galdutako ez diran gauza onak. Gaurko gizonarentzat gogoangarria dan gai bat agertzen dau, ederto ta labor agertu be.

Huston'en lan onek beste zerbait gogoratzen dauku: Ikusiak ikusi ezker, gizonak ba daukala iñoz bere buruaz lotatu bearrik.

ZATIKA

FERRETERIA UNCETA, S.A.

Landola tresnak - Galtzairu neurri zeatzekoak
Langailu guztietarikoak - Leunketa gaiak

Ibarrekurutz kalea 14
71-10-00 Urrutz.
Apartado 18

E I B A R

Orozko'tik II

ORBELAK

NAUSI BARRIA

IBARRA'KO JESUS MARIA KONBENTUA

Ibarra'ko errian Merzedarien etxe bat ikusi dogu. Ugarte'tar Juan abadeak bere illoba Ugarte'tar Clara'ri lurra emon eutsan konbentu bat egiteko, 1573'an egin zan.

Lenengo, beaterio bat izan zan, Solaguren Catalina ta beste lagun batzuek sortua otoiz bizitza egiteko.

Orain dala 300 urte baño geiago, Zalao'ko Magdalena'k klausura izatea erabaki zun. Iraillako 12'an klausura egin zan eta amabi egun geroago etxea erre zan. Etxea sutan egoan bitartean Magdalena bere gelan otoiz egiten asi zan eta monjak konturatu ziran Magdalena kanpoan ez egola ta sua amatau zanean Magdalena'n gela ez zala erre ikusi eben. Markiña'ko monjai laguntza eskatu eutsen eta etxea barrero egin eben.

XVIII gizaldian guda bat sortu zan eta guda ondoren klausuradun monjak kentzea erabakia artu zan eta onegaitik neskan ikastola bat egin eben.

Azkenengo guda ondoren gauzak oso garestiak ziran eta txokolate lantegi bat egin eben eta gero lantegi au utzita koloniak ipiñi ebezan. Kolonia onek urte bitan euki ebezan. Eta orduan Pilar Careaga'k konbentua ikusi ondoren atzeratu en ikastola bat egitea erabaki eban, baña Pilar Careaga'k ez eutsen lagundu. 1966'garren urterarte ikastola atzeratuena eta normalena zan eta urte onetan atzeratuentzat bakarrik da.

Orain 12 urte dala Esandi'tar Magdalena bere Ama Nagusia egin eben. Lizarratarra da (Estella). Ikusgarria da monja aren lana umetxoarekatz. Dana erakusten dautse, jolas, idasten, irakurten, esku-lanak, garbiketa eta abar. Ango garbitasun ta txukuntasuna leku gutxitan izango dira.

Ama Nagusiak esan euskun nola guraso batzuk ez dabela euren umeengaz ezer jakin nai, beste guraso batzuk zoragarriak zirela ta besteak umetxoak oporretan eraman ta umetxoak ariñek ariñ konbentura joan nai dabela. Argi ikusten da umetxoak konbentuan persona direla; lan egiten dabe, baña etxeeta...

Sicologo bat eta Sikiatra baten laguntza eukitzen dabe. Ama Nagusiak esaten eban ainbeste gaztatze zala futboleant, kotel, guda eta abar. Ta oso kolegio gitxi dagozela eginkizun onentzako.

Gozoki batzuk eroan genduzen ta urrengorarte agurtu giñen. Benetan Jangoikotaz ziñestu bear da lan zoragarri au egiteko. Gure txalorik beroenak AGUR'en bidez.

FERNANDEZ'TAR ANA EUKENE.—14 urte
IRIONDO'TAR LURDES.—15 urte.

OROZKO TA BERE JAURETXEAK

Benetan ikusgarriak dire Orozko'n dagozan baserri eta jauretxeak. Jakintzeko ze garai eta norenak diren, erriko etxera joan giñan libururen batzuk ikustera. Erriko etxean egon zan jaunak esan euskun orrelako lanik Orozko errian iñork ez dula egiñ, baleikela diputazioan izatea baiña Orozko'n ezer ez. Arritu giñan ta etxerik etxe itaunak egiten asi giñan etxeko jabeak edo zaintzen ebazenari. Geienen erantzuna:

«No entendemos Euskera».

Itaunak asi, ze urte jabeak eta abar ta onexek dire erantzunak: Aldama etxea Zulueta jaunena 1700-1800 bitartean egiña; erderaz. Bake-Otegi lenengo Muñoz general batena edo... Gero Zarza osagillearena ta gaur Arakiña jabe: erderaz, eta gauz garbirik ez, 1800'ekoa ete dan. Aranoa, konbentua izandakoa; aititek esan euskun, bere alabeak euskeraz ez daki. Kareaga etxea 600 urte, etxearen ardura daukanak be ez daki euskeraz; bere onduan, Batzoki izeneko baserria 600 urte baño geiago: ez daki euskeraz.

Olabarria etxea emengoak ez dakie ez noizkoa dan ez ezer, euskeraz bai. Torre auzoa etxe onen izenagaz sortua, aittile ta amama bizi dira, pozik egoazen bilbotarrak euskeraz entzutean. Auzo ontan ta bere aurrean: Aurrea baserria berriztuta ta lengo guztia zementoarekin gordea. Artiñano etxea emen ere kanpotarrak zaintzen dabezenak. Altos Hornos'eko ingeniero batena. Etxe onek gaurko konponketagaz antziñekoa galtzen dau.

Jauregia auzoa, emen Basaldua etxea, ederra benetan, angu baserritarrak arrituta Bilbo'n ia oraindik euskera egiten dan itaunduaz. Pena da benetan erri ontan jende gazteak ariñ ardura gutxi eukitzea. Bilbo'n ikasten egon arren erriagaitik zeozer egin leike.

GOITIA'TAR AMAYA.—13 urte
LAURO IKASTOLA

BASTERRETXEATAR BEGOÑA.—15 urte
Sagrado Corazón

ARIZTONDO'TAR IÑAKI
BEGOÑAZPI IKASTOLA

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra
BILBAO - Casco Viejo
Tenderia, 15 eta 16

Iru urtetik bein egiten dabe karmeldar prailleak euren batzar nausia. Zer da kapituloa?

Batzuntzako buru makurtzea. Ez gaitezen ipokritak izan. Gaur, kapitulora doazan askok, burua makurtu bear dabela ta asten dabe batzar ori. Miñez. Beste batzuk bakez. Iru urtetan estutu dituen burukomiñak eteteko garaia eldu yakoelakoz.

Iru urte asko dira gaur gizon bat eteteko. Len berrogei urtetan sortuko ziran problemak gaur iru urtetan agertu, azkatu edo ez, eta zaartuten dira.

Lege ori daroe kaleak eta konbentuak.

Gaur iñork ez dau nausi izan. Esatez. Barruko arra igarten gaitz. Baiña batera nai bestera, norberak nai ez da be, norberak nai dabena egin leikeana ipiñi nai izaten da ardura orretan. Or dago akatsa.

Euskalerrri'ko karmeldarrak San Joakin izeneko taldean batzen dira. Euskaldunak bertan sartuta, eta errioxatarrak.

Kaletik be, zerbait entzunda gengozan aurrez. Talde ori zatitu egingo ete zan? Ba genkian politikarik ez ebillala bitartean, izen orregaz beintzat. Baiña euskera bai.

Ez dakigu gaur San Joakin'ek zelan itz egingo leuken. Baiña toki batzutan barruko gauzak euskeraz egiten dirala ta bestetan erderaz, eta erri izkuntza egin bear ba'da aukeratzeak be, destinoak be izkuntzari buruz egitea egoki litzakela-ta, onetan problemarik ez sortuteko, konbentua eus-

kaldunak eta erdeldunak bereiztea egoki izango litzakela-ta... ez al dabe kalera urten orrelako asmo batzuk?

Dana dala, oraingoz prailleak bake zale jarraitu nai izan dabe eta alkar-tuta agertu.

Gazteiz'en egin dan batzarretik, kapitulotik, aize barriak joko ete dabe?

Itxuraz Amoroto'n eta Aretxabale'ta'n ibilli dira botoak. Eta ez bat eta bitan, atzaparrak aifiñako barriz-tatzeetan baiño. Eta azken onetakoak nausi urten.

Orra probintzial barria. Zuazua eta Urrutia'tar Jesus.

30-XII-1932'an jai, Aretxabale'ta'n. 42 urte. Abadetza 1958'ko Jo-rrailla'ren 13'n artu.

Beste euskaldun praille geienak lez, Larrea'n ikasia. Gero Erroma'n Teo-logiko ikasketetan alegindu, ikasi eta doktoretza artua.

Geroztik, bere alegiñak, Zornotza aldean. Zornotza'ko gaztien ikaste-txea aurrera atara naiean. Or artu dau bere benetako nortasuna. Ortan iñor alegindu ba'da, ikastetxe orrer-bizia emoten iñork lanik egin ba'dau berak. Bertako irakatsien artean eus-kerea erakusteko legezko baimena lor-tzen be zintzo jokatu dala ba-dakigu.

Adiskide bateri itandu dautsat: Zelakoa da zuen nausi barri ori?

Berak, arratiar zekor txiki baiña giartsuak, bat batean erantzun: Kar-meldar-karmeldarra.

Ori entzunda gu kaletarrok, lai-kuok, ixildu egin bear. K. O.

ZUBEGI

Lengo egunak gogoan

Uztapide oso ezaguna degu gaur bertsolari bezela, ta nere ustez, gaurko bertsolarietan buruzagi dala ere bai. Uztapide goi-mallakoa da ta gure egunetan zoritxarrez ez dira, ez ugariak goi-mallako bertsolariak.

Bertsolari aberatsa, mamitsua, sakona, sentikorra, aparta. Gaiak ere ala bear. Uztapide ez da Pello Kirten. Ta orain —guk ezer jakin gabe— idazle bikaiña bezela agertzen zaigu «Lengo Egunak Gogoan» liburu ederrean. (Zorionak Aita Zabala) Gure «arridurra» ez da txikia!

Liburu ontan, mundu maitagarri bat —aspaldi joana zoritxarrez— kantatzen du Uztapide'k, maitasunarekin, apaltasunarekin, errimiñarekin.

Bizia mendietan, arkaitzetan, artzai bezela. Gero baserrietan, emen ta an, garia ta belarra ebakitzen, ikatza egiten (bizi gogorra bañan ederra, librea), ez da ez nolanaikoa! Orain, moteldu egin gera ta nola!

Uztapide, batez ere, Izadiaren olerkari, margolari minbera bat bezela agertzen da... margoz betea... batzuetan, alai; besteetan, tristea... beti sakona. Jatorrizkoa ere bai.

Baso ta mendiak, urrun urdiñak, zelaiak, artaldeak, xoilki kantatzen ditu Uztapide'k ta nola! (Birjilio'n antzera). Txundituta gelditzen gera... Baserritar bati ezin zaio geiago eskatu... ezta gutxiago ere... Sasi-intelektualak ba-dute nun ikasi...



Ara emen Euskera bere iturritik guri eskeiña... Betiko Euskera, egizkoa, ximplea, garbia, erriarena...

Izarraitz'eko uda ez da garbiagoa izango... ezta Ernio'koa ere. Zertarako Euskera asmatua? Ikasi dezagun denok baserritar jator onek ematen digun ikasbide ederra!

Lengo Egunak Gogoan... Lengo usaia... garo usasia, mendi usaia, artalde usaia... Pake usaia. Itxaropen usaia...

«Euskalerriai egiten diot

Liburu baten eskeintza». Uztapide.

MATXIN

Aurak ez dute errurik

Tamalgarriak dira VIET-NAM'go bariak aspaldiko urte auetan. Orain arte ordea, guda ez zun azkenik eta orain badiruri azkenetan dala-edo. Kamboya zeoro galduta izango da idazlan au argitaltzerako, ta Saigon estu, bide berdiña artuko ote dun.

Ainbeste urteetako guda batek, ainbeste milla erail, millioiak gastatu alperrik eta guzia: zertarako? Iñoren politzikoak betetzeko noski.

Tramankulu egileen ondasunak geitzeko, langilleak lan ugari izateko, baiñan, lan oiek, bazterrak xeetu, erre, kizkali ta erailtzeko izan dira. Dirudun oiek beti arro-puts, besterik izan ez baidira! Iñoren bizkarretik bizitzeko ta, zertarako geiago esan, guzia esana baidago?

Idazlan onen gaia, izen burutzat daramakun «Aurak ez dute errurik» da. Origatik idatzi nai det eta Vietnam'go aur koitau oien berri, guziok ongi irakurtzen ari gera egunerokoetan. Zer erru dute gizaju oiek? Umezurtz gelditurik, edo ba'leike, beste asko, aita eta amak oraindik bizi eta galduta arkituaz. Elizak ez du ontzak artu aur oien sakabanatze ori, ta nik ez dakit arrazoirik dun ala ez. Dakiguna da, aur oiek orain, irten eta eraman dituzten lekuetan, obekiago biziko dirala komunistengandik azke, eta biar edo etzi pakea sortzen danean bazter aietan, mentuaz ume oien gurasoak azalduko dirala eta gero berriro berenganatu.

Olako antzeko gertakizunak gogoratzen zaizkit gure gudan. Bilbo'tik ainbeste iges egin zutenean. Oietako aur bat Castresana idazlaria izan zan eta Beljika'n egona. Geroz, onera etorrita, berak idatzi zun «El otro arbol de Guernica», ta nik irakurri ere bai, ta emen daukatena gorderik.

Zer esango gendun une larri aietan? Bertan utzi millaka aiek? Bertan irauin goseak? Edota, itxoin patxaran lerkiañak xeetu arte? Castresana jaunak, makiña gauz esaten ditu, baiñan, beste gauz

asko ixildu. Gu, Gernika'n izan giñanontzat ta ango karraxi aiek entzun, zorabiatzen igeska mendian gora, ta zorabiatzen zer egiten gendun ez genkilla... egazkin bildurgarri aien otsak, danbarrak, ta-ta-ta aiek, ateratzen zituzten zaragategin?

Esan geinke, gure guda ura geroko Europakoa'kin eta gaur egunean Viet-Nam eta Canboya'n dabilenakin berdintzeko; ez du antzik. Eta, gertatu, ta gertatzen ari dana, Danan, Hue ta bazter oietan, denak igesi beeraka komunisten bildurrez, ta gerokoak ikusita, zer esango degu?

Guda baten azkena beti izan da olakoa. Bi alderdiak tinko dauden bitartean bata bestiak guda zelaia bitartez, gaitzerdi. Gero ordea izaten da komeria. Indar geiago duanak aurrera eta txepelago dagona atzeraka.

Ipar-amerika'k, nere ustez, nai izan ba'lu, guda irabaziko zun. Nai izan zutelako irabazi zuten Europa'n. Nola? Millaka egazkin joanaz Alemani'ko lurretara, ta xeetuaz bazterrak. Begira Bremen erria nola utzi zuten...? Begira Berlin ta beste egunka erridjak. Olan-tzen zeoro uxatuaz eta areriyua aulduaz, gero joan ziran aliatuak aurrera ta rusoak bestetik, azkar bukatu zuten guda.

Gaur zer? Une aietan itz eta pitz, geroko bizibidea obekiagoa izango zala. Askatasuna garbiago eta demokrazia onago... Bai zera! Aiek joan ziran, il ziran, eta gaur orduko gertakizunak ezerezuta gelditu dira; berriro aleman eta japonesak arrotuaz eta Europa ta Asia'ko aberatsenak izanik.

Viet-Nam ortan, orrelakoren bat gerta leike. Gu neutralok, ez gera baten eta bestien alde. Bakarrrik nai genukena, Pakea da, ta alkar maitatzea guziak. Lortuko ote dute ori an? JAUNAK ALA BEDI!!!

E. OZKIN

KIMOTO

Kimoto itz au, nexka txikiaren izena. Bere amaren irudirik ederrena.

Ama-alabak pozik izango ez ziran, ba!!!

Ezik eguzkipeko on-aldiak laburrak izaten. Nexkaren ama, izenez *Hideno*, gaixotu egin zan. Ari azkeneko arnasa ateratzeko garaia eldu zitzaion, noski.

Ua nexkaren naigabea! *Kimoto*'ren negarrak! Malkotan urtuko zala zirudian. Amak alabari:

—*Kimoto!!!* Ez negarrik egin. Ni ez naiz urrutira ioango. Zure aldamenean beti emente izango nauzu. Eta, ikusten ez nauzunean ere, ni zuregandik gertu-gertu.

Eta, *Hideno*'k bere alabari kutxatit polit-polita eman zion, esanez:

—Maite! Au zuretzat. Bañan, bizirik naizen bitartean barruan sartu dizudana ez ikusi, arren! Ez naizenean kutxatitloa zabaldu dezakezu... Bañan, ez maizegi. Oso pozez zeranean bakarrik. Bai eta alakoxe atsekabe-aldi samiñak datozkizunean ere. Alakoxe, nere aurpegia azalduko zaizu, ortxe, kutxatillaren barrunean, ondo-ondoan, sakonean... Egi dasaizut! Zurekin nauzula pozik ikusiko dezu.

Eta, amatxo biotz-biguña laister il zitzaion.

Ama gaixoa! Umezurtz errukarria. Iñoz izatekotan kutxatilla orduantxe zabaldu bear zuela *Kimoto*'ri iruditu. Eta, antxe amaren aurpegi ezti-etzia. Bañan, bai gazte! Eta biyak negarrez. Beraz, *Kimoto*'ren amatxo oraindik ere antxe zebillen. Gertu-gertuan. Ate barruan! Ua bai ama ona!

Eta, noizik-beinka beti olaxe.

Garrantziko gertaeretan zala... pozaldi aundietan zala, *Kimoto*'k kutxatilla zabal zezanean, amatxoren aurpegi maitagarria antxe... aldiz negarrez eta urrengoetan irri-parrez. Amak ez zion gezurrik esan. Ez! Ez!!!

Kimoto azkar azi zan. Oso larrantz ederreko. Amasei urte zituanean aitonak esan zion:

—Eder! Ba-zekiñat gizaseme bikaña. Ortxe aldameneko auzoan. Senartzat artu nai ba'unake, arixe neronek itz-egingo nitxionake.

Amari ez esan, beraz? Eta, *Kimoto*'k kutxatilla zabaldu.

Zer esango zion?

Izan ere, biotzeko atsegin aundiak itza izoztu zion, eta *Kimoto*'k irri-parrez amari begiratzen zion. Amatxo ere aurpegi alaienez agertzen zitzaion. Izan ere, alabaren pozaz, ama ere poztuko ez zan, ba!!!

Eta eztaietako egunak luzatu zitzaizkiola, urte osoan *Kimotori* kutxatilla aztu egin zitzaion.

Gerora, ordea, *Kimoto*'k kezkek izan zituan. Amatxok bein ere ez zion itzik egiten: beraz, kutxatillarena alakoxe *ustetxo* uts zitekean!!!

Eta, egi izan!!!

Amak, kutxatillan *antzikurra* sartu, eta leiarrean *Kimoto*'k bere aurpegia ikusten!

Ala ere *Kimoto* ez zan mindu.

Engotik kutxatillakoaren bearrrik ez zuan, eta amatxoren gogo antxe beti aldamenean zuala oldez siñisten zizuan. Txarraldietan, amak ere alakoxe une gogokaikarriak izan oi zituala gogoratzen zitzaion. Zertxo guztiak onez irtetzen zitzaizkionean, amatxok ere egun alaiak izan oi zituala, *Kimoto*'ri ez zitzaion aztu.

Biltzalle:
ETXEBERRIA'TAR P., sj

Antzerkigintza ta beste...

Leku ontatik eskerrak eman nai dizkiet, azken argitaratutako nere «Teatrogintza ta Yakintza» liburuaren aipamena, aldizkari bat edo bestean egin duten guztiei. Eskerrona, naski, goresmenez bete nautenai; eta esker berezi bat akatzak arkitu dizkietenai ere. Auek, bear bada, egillearentzat onuragarriak izan oi bait dira gure lanak urrena obetzeko eta utsegiteak nola zuzendu erakusten ba'digute.

Norbait izan da nere lanari konstante bat sumatzen zaiola, ots! mogimendu gazte eta joera berrienganako erreparoa, esan duana. Alegia, berri dan guztia ona ez dala bein eta berri irakurleai gogoraziz. Ori egia dala ez dezaket ukatu ta ez azutzeta komeni zaigulako, bayezten joango natzaizute.

Orrek ez du esan nai, ordea, ezta urrik eman ere! ni neu gazte ta berri dan guztiaren kontra nagoanik, ez etsai naizenik. Ez iñundik ere!

Aski zait erakustea, zuen begien aurrean ainbat eta ainbat lantxo ipintzea, zenbait teatro-mota lan berri, onoko onek iñork baiño lenago emen euskeraz agertuak; gazteen lana nola goratu izan dudan aspaldi asitako nere lanak dira lekuko. Auzia, ene ustez, ez dago zaar ala gazteen artean; ezta antziñako edo oraingo joeren artean; ondo, tajuz ala txarki ta trakets egindako lanen artean baizik. Ortan bakoitzak ditugu gure iritziak... Nik besteak errespetatuaz, beti muzin egingo diet gogoko ez ditudanoi naiz eta berri eta gazte izan; eta alderantzian asebetetzen nautenak onartzen ditut antziñakoak izanagatik.

Lizardi gazte zan «Ezkundu ezin zitekean mutilla» bururatu zuanean. Aren argitaratzaile izan nintzala ez duzute arrokerizat artuko.

Geroztik, zenbat gazte talde lagundu izan diodan ezin konta alakoa da. D. Landart, lapurtar antzergille gazteari «Bai ala ez» agertu zualarik egin nion kritika «Gure Herria»n irakurriaz, arrazoi emango didazute. Ez noakizute bana-banan guztiak aitatzerara. Luze joko luke-ta... artobero usia lerioko.

Zerbait erantsi gura dut Pastorelei buruz. Nere iritzia ezaguna da, baiñan norbait orrek ez daki joan dan urtean teatro-batzaldi batean «epai maikoa» izan nintzala ta Oyar-tzun'go «Intxisu» taldea saristatu genduala. Eta asteroko ontan bertan agertu zan idatzi nuan goresmenezko kritika. Garbi al dago?

Beraz, bereizketak ez ditu egiten zaar ala gazte diran begiratuaz, bestelako neurri, lege ta arauak gogoan artuaz baizik. Bai, teatrogintzan, literaturan eta abar nere ikusmoldeak ditut, oker ala zuzen nere barruan umotuak beintzat. Agian adimenaren begiak lausotu zaizkit baiñan nola nai berrikeriak ez naute itxutzen.

Oraingo idazle berrien artean Garitaonandia bat (GB), Esteban Larrañaga, Ramon Zapirain, J. L. Iriarte eta beste askorengandik zenbait akademiku zarrengandik baiño bertago nago. Ez da gaztetasunaren arazoa, beste zer edo zer baiño... Eta au bereizten jarraituko dut aurrerantzean ere. Amets zoro asko eortzi bearrean bai gaude.

* * *

Eta berriro ortan leiatuko naiz, ez iñor iraintzeko asmoz, bai ordea nik dakidan apurra adieraziaz, aintzat artu nai duanak ar dezan. Gure teatrozale gazteen baitan ideia bitxiak dabiltzalako irakiten: iraulketa, bortxakeria, beti kezka ta griña garratzen mende. Beste ezeri ez diote jaramonik ematen.

Gaur egunean ere Teatroak beste bide asko ditu aukeran. Peter Brook inglesak Shakespeare'ren «Timon» antzerkiaren antolamena ikusi ta gero oraingo Teatroaren utsunea azaldu digu. Teatroa «laboratorio» biurtzea Grotowski ta kidekok nai lutekean eran «frakaso» osora eraman dituala. Eta «Centre International des recherches théâtrales» beste orrenbeste. Aien zentzugabekeriak ez dutela egin Teatroa ondatzea besterik, jendea uxatuaz.

Peter Brook «vanguardista» au antziñako bideetara itzuli da len aitatutako «Atenas'ko Timon» Shakespeare'ren lan zar - berritua agertuaz. «Timon» ori gizon aberatsa bai-zan, esku zabalez adiskideai dirua ematen ziena. Bera, urteen buruan, bearrean arkitu zanean, esker txarrez, iñork ez zion laguntzarik eman. Experiencia ori Peter Brook'entzat «amets baten eorzketa» izan omen da, berak dionez; eta Teatro «konbentzionalera» itzultzea.

Dort, Nanterre'ko Unibersidadean maisu danak ere, ez du iritzi baikorragorik agertzen erri-teatro berezi baten alde, Brecht ere ez zala batere erriko gaineratuz. Teatro mota bat besterik ez bait dago alik eta ondu, umotu ta osoena, norentzat dan arduratzeko. Erri xeak edozein zaborreri maite baldin da' du gogoz alda arazi. Naiz eta ezer gutxi dakitenok bestela uste izan. Gazte izateak bakarrak ez dio iñori gure orain arteko teatrozaleak arbutatu ta iraintzeko eskubiderik ematen.

Ezta, «Teatro berriaren billa» dabiltzala aitzeki-maitzeki arturik... garaiz, emen bertan B. Atxaga idazleari erantzun nion arabera. Euskal-antzerkiaren aldeko nere lanak ortara beartzen naute. Teatro arazoa gazteek darabilkite, ez zarrak. Beraz zerbait egin ba'dut gazteen zaletasuna indartzea izan da. Baiñan goyan aitatutako nere azken liburuan diodanez, Buero-Vallejo'ren itzak nere egiñik: «gazteok ez ditugu losintxa bear, egiaz ezi bear baizik». Ortan jarraitzeko asmoetan natzaizute, batzuek «sektakeriz» nere zuzenbideak aintzat artu nai ez ba'dituzte ere.

Azkenik, orain arte, nekearen nekez, euskal-teatroari eutsi dioten antzezleri-talde, egille ta zuzendariei txalo jo ta goretsiaz lantxo oni bukaera emango diot.

ANTONIO M.ª LABAYEN



eziketa jostailuak
eskulanetarakoak
irakasketa gaiak

Avda. del Generalísimo, 65
24-19-16 urrutizkiña
GAZTEIZ

TXORIKI

Txagorritxu auzoan

Jolasean ikasi, or zure aurrentzako emoitzarik onena

SENDIAREN ETSAIK

Gizartearen oinarri dan sendiak beti izan ditu etsaiak. Etsai batzuk eskubide guztiak kentzen dautsoez. Onein irixiz gizonak dagie laterria, ez sendiak. Laterriaren oinarri gizona ei da, ez sendia, ta gizonaren eskubideak goratzen dabez sendiarenak ontzak artuteke. Sendia ezer ez da eurenzatzat, laterria bera lez gizasemeen alkartze berezko bat izan arren be.

Kaltegarriak irakaskintza onein ondoreak.

Sendiaren oinarria ezkontzea da, ta etsai oneik diñonez ezkontzea ez ei dau egin Jainkoak. Ezkontzea gizona mundura ekarteko zubia besterik ez ei da. Au olan agertuta, ezkontzearen elburuak austutzen dabez, sendia oro bat deuseztu.

Sendiaren etsaiak asko dira. Alan be, bitan berezitu daikeguz: barrengoak eta atekoak.

Barrengoetan

1) *Nausitasunik-eza*.—Aitak eta amak agindu bear dabe etxean; etxeko errege-erregin dira. Jainkoaren ordezkioak.

2) *Menpekotasunik-eza*.—Jainko-legeak agintzen ez ba' dau, sendian, nasaikeria ta gaiztakeria izango dira. Ezkontza maitasuna il egiten da Jainkorik gabe. Ez da izango Jaungoiko bildurrik sendi orretan. Batasunik eta bakezorianik be ez. Jainko maitasunak batu egiten ditu sendiko danak eta gorrotoak eta bekaizkeriak eta banakuntzak uxatu. Erlijiorik-eza sendiaren etsairik aundiena da ba.

Atekoetan

1) *Oitura-ustelkeria*.—Bein oitura txarrak sendiaren ja-be egin diranean, siñismena otzitu egiten da; ezkontza lokarriak nasaitu. Bein biurria sendi barruan sartu danean, dana lurrera dator. Ez da alkar maitasunik izango. Nagusi ta menpekoen arteko ar-emonik be ez.

Sendi ori zoro-etxe biurtuko da ta zoriona ta bakearen orde burrukak eta zoritxarra izango dira bertan. Sendia deuseztu egin da.

2) *Dirua ta kirkilleria*.—Dirurik-eza gaitz aundia sendiarentzat. Orobat geigia: ondasunak egiteko bizi ta ondasunok gozartzeko eskuratu. Sendi oinarriaren kaltez doa au asieratik. Ondasunetan jarri dabe euren amets osoa ta etxean barik atean, kanpoan dabe ekintzea senditar guztiak. Emakumeak be bai.

Etsai aundia kirkilleria be. Aundikeriaren ondorea. Bai kaltegarri sendi bizitzarako. Kirkilleritik lizunkerira bide laburra.

3) *Gizartekoak*.—Argitalpenak, Jolasak, Biltzarrak... Arrisku aundia sendiarentzat argitalpenak: sasi-jakintza liburuak, nobela lizun eta aldizkariak. Orobat zinea, ondartzea, mendi-ibillerak. Sendiaren etsai aundiak dira orobat gizartekeria nastatutako biltzarrak, janari ta edari etxeak. Sendiko beroa itzali, otzitu dagie.

GOIRIA

OLERKIAK

BA - DEGU BAI NUN LAN EGIN

*Gure Izkuntza, gure Erria ta Gizartea:
Auek dira bai Euskalerria'ren zabaldegiak
baiña, garaiz ez badira erein, iorratzen,
iakiña da bai, berez ez datorrela ezer,
ez arto ez garirik, alperkerian egonaz
soro-bazterrak, lenago ez badira lantzen.
Orregaitik, emen ari gara egiñalean
arriak landu, soloak aretu, atxurtuz
odolean dirakigun bizitasun eder
ta, gizaldi zear aragitutako kemenez,
gure izateari dagokion
oitasun ta gogoetaz,
emen ari gara biotzak berotuz
esku billa, gogo billa,
maitasunari darion
sugarpe ezian
indarberrituz gure gogoak.
Emen ari gara sustraiez
eguneko ta, baita gaueko orduetan
arbasoen egonarri ta,
iturburu gardenetan,
len itzaren aztarnaz
emen ari gara lanean,
baztar illunak egutzen.
Emen ari gara gure lur, gure
aritz saminduari maitez begira,
iñoizko ezaupide, ta itzalik aundienaz,
inguratzen duten esiak,
larrak, sasiak ebakiz,
emen ari gara beartsu,
erria, mintzoa biziro aldarrikatuz
ta, gogotsu, sendo, aspergabe, maillaz-mailla
esitzen gaituzten kateak,
lokarri gaiztoak apurtuz.
Eraberritezko gure bidegite onen
arantzazko bide gogor, estuan...
ba-degu bai lana eta, nun egin!
Ba-degu nun landatu, nun atxurtu,
ba-degu zer aztertu, zer iorratu,
ba-degu bai gogoz, nun io, nun ekin,
erriaren, mintzoaren ta gizarte alorrean
ba-degu bai gerria nun makurtu,
ba-degu bai nun lan egin!!!*

MANIATEGI'TAR SABIN



Zuri zerbait eskeintzean gaur, biarko emakumeari be, zerbait eskeintzen dautsagu.

Ardurak kenduko dautzuezan egokiera aundiagoko laguntza barriak eskeintzean.

Gaur iñoiz, eta barriak diralako, zaillagoak iruditen jakuzan asmo barriak zuri agertzean.

Aurre-oinkada bakoitza neketsua ba'da gaur, etorkizun erosoago bat izateko dala uste izatea ederra da.

BANCO DE BILBAO



Emakumearen Banketxea.
Gaur eta biar.

ERRIALAKO

BARRIAK

Galdakano

EZKONTZEA:

Omen, esamesak nituan errian dogun txadon zar ospetsuan ezkontza iñoz-ez-lako bat ospatuteko zala, Jorraillaren amabigarrenean. Zer izango zan jakin gurean eta ixil-ixillik bertan aurkeztu nintzan, ni bezela susman ebiltzazen beste asko be. Eta, egiz, nik iñoz ikusi ez dotanlakoa izan zan.

Guazen aldiz azalpen bat emotera: Lenago ta orain arte, iru alditan gitxienez janzkirik apaitenak jantziten ziran; lenengo-Jauna artuteko ta ezkontzarako, baita geyen-geyemelan Jauna artuteko be, eginkizunik itzaltsuentzat beti euki doguzalako euskal semeok. Gaur-egun, lenengo-Jauna artzerakoan arrokeriz baiño ez ba'da be, ederto apaituten dabez umetxuak. Nagusiok Jauna artzerakoan, geyen baten, edozein janzkigaz juaten gara, ta ezkontzara be, orainguan ikusi dogunez, txamarrek, naita euskal oiurakoak izan, gaur aipatuten asi garan ezkontza onetan bezela. Baiña janzkia izan zan gitxienez ikeratu ginduzana.

Egun ortako ezkon-barriok, erri ontako Bikandi eta Belandia'tar Miren neskatilla euskaltzale liraina ta bilbotar Besga'tar Austin jatorra izan ziran, eleiza zar ospetsua notitzez bete-beterik zala; geyen bat gaztedia. Eleizkizunak —ordago untzia!— euskeraz eta erderaz, oso euskal kutsezkoak ba'ziran be, oraingo abesti kezkatuzkoak —euskeraz— gitarraz eta gaztedi geyemaren abotsez abestuta.

Ezin izan neban ulertu «eleizkizun» ori, guk beti uzkuztat euki dogun erakoa ez zalako izan, apaizak Kristo'ren izenean ezkondu ba'zintzan be. Eskontza orretan, eleizkizunak ez ziran ezkontza guztietan bezela izan, beste ezetaiko otoiitzarik egin barik, Gure Aita bat baiño besterik ez, eta asteratu eta amayeran Aitaren, birritan.

Ezkonkeran, eskintza bikaiñez egin zituazen, neskatillak euskera txukumean eta mutillak gaztelaraz, esan dogunez, biyak mamintsu ta sakon, ERRIA'ri ta ludi obeiari begira, baiña, egiz, ez dakit zelako Erri ta ludi naiako daben gazte kementsu oneik... Bearbada guk lortutakoa baiño Euskalerrri zuzutzatsua, bardintasun geyagoko, azkatasun geyago ta beraz zoriontsuago? Orretara ba'da eurekin izango gara, baiña, zustraituta Errian dagozan siñskera garbi batzuk —zuzen eruan esketiño— aldatuaz ez dira lortuko guk ain maite doguzan erri-azkatasunak.

Beste ezetariko ezer barik ezkon-barri emakumearen nebatxu Jonxu'k txistua jo ondoren eta bere soñuaz batera Agur-Jaunak danak abestuaz, emon yakon amaia.

Dana dala, gure zorionak ezkon-barri orrei, ta urte askotarako izango al dabe artu daben biziera barri ori.

ASKUNDEA:

Jorraillaren amalaugarrenean ospatu zan erri ontako, obeto esan da, inguru ontako su-itzugilleen askundea. Jakiña, aspaldiz egun amaituta eta euren eginkuzunak, lanak ondo betetan be, baiña, bereziki askondu barik. Jazokun orreri ospe andi-yagua emotearren-edo, Laterrri'ko Jaurilaritza'ko bigarren Lemdakari ta Jaurilitza'ko buru dan Jauna etorri zan, beste agintari gorengo batzukaz batera, beraz, bandera, su-txiprista ta abar ugari izan genduban errian.

Jakin dodanez, erriko txaide apaitetik bakarrik ibilli ei-ziran jaun agurgarri orreik —orretarako edo ibilli bear izan eben iñon diran margoketak-eta egiten-baiña ni izan ba'nintzan gure erriko Endore jauna lez, «Señorio de Vizcaya» txaide zear be ibiltalditxu bat egiten eruango neban, zelango ikusgarri daukogun txaide ori ikusi dayen. Beste baten izango al'da.

BASA-JAUN

Antzuola

BERTSOLARI JAIALDIA

Jorraillaren bostean eta ikastolari lagundu asmoz bertsolari jaialdi bat ospatu zan emen gure errian. Bertan parte artu zutenak Mitxelena, Lazkano, Egi-leor, Lazkao txiki, Agirre eta, Gorro-txategui, gai emaille eta zuzendari Inozenzio Olea legazpiar bertso egille ezaguna zala, berez Jose Mari Iriondo izlari prestua zan izatekoa, baiñan onek azken orduan ezinean, aurrenean aitatutakoak bete zuan eginkizuna.

Itz batean jaialdia bikaiña izan zala esan bear, jendearen aldetik berriz erantzun ezin ohea. Maristena izandako elizatzoa goi ta be bete zalarik, onek bein da berriro adierazten du Antzuola'n bertso zaletasuna ba dala. Bestalde kanpoko jendea ere erruz ikus zitekean. Gaien aldetik ba zan aukerarik eta ala gusto guziko bertsoak entzun ziran,

pentsakorrak, jostalariak, eta baita pikardi pixka bat berekin zutenak, jendearen artean irriparra eta txalo ugari jo araziak.

Azkenik sei bertsolariak bertso banaan agurtu zitzaizkigun nik ez dakit zenbat puntuko bertso batekin Mitxelena'k bukaera ematen ziolarik.

* * *

ERIOZAK

Epaillaren 24'an il zitzagun Telleri'ko Lizarralde'tar Jose Mari bere larogei ta amar uterekin eta azkenerarte bikainki eramanak gaiñera, makiñatxobat kontu kontu oi zuan, ainbat urtean bere buru argian gordeak.

Baita ere Epaillaren 29'an agur egin zigun Iriarte baserriko Patrxia amona argi eta bixkorrak. Aiton amon biok Goian begoz.

* * *

EUSKAL IKASTAROA

Euskeraz ikasi nai dutenentzat eta lendik dakitenak idazten eta irakurtzen ikasteko ikastaroa asia da eta ez det zalantzik egiten jendearen aldetik arrera ona izango duela, beñepin ori itxaro det, ala izango dalakoan agur deizuet.

Beti bezela zutaz pentsatzen nagola, Ai! zenbat burutapen nere erri Antzuola. Atzera egin dezunik ezin esan iñola. Baiñan gauz guztietan ote zaigu ajola? Maite dezagun beti Gernika'ko arbola.

MATXALEN

Arratia

Udabarriko negu berandutiak goietan edurra mara-mara ta beetan aize zorrotza, gizezkoentzat aiñako egun gogorrak andrazkoentzat.

Negu-mamizko egunak, negu-usaiñezko soiñekoak, neguan bazen otz oeko mandira (izara) ta etxeko txokoak.

Otzak kikildu, otzak makurtu, otzak txikitu daroa gizona; emakumea osteria edertu, arrotu, azi eginda negu-udabarriko edurte, kazkabar-txingor, izotz eta leiekin. Andrazkoen urterik zorionekoena ei-da! Eskubideetan gizonagaz bardinduko dan urte gogoan-garria.

Alan iñostan burua gorati, ta surtzilloak betean aizea kedarratuz, eta ezkontzea amestuz, olanda itxura baiño olloaren taiu aundiago eukan mutxurdin (neskazar) batek.

Beralako besterik ez ba'gendu, gaitz erdi litzakigu; baiña gaitz eta erdi beste au da: aspaldiz ezkonduak ere burua goratzen, gan-garra (gandorra) gorritzen, surra gazitzen... Auzoko gizonari naiz senarrai ika (itanoka) itz egiteko ez lotsa ta ez bildurrik.

Baiña antxiñakoetatik datorkigun esaera zabal aundikoa dogu Arratia'n: Gizona betigizontxo. Au da: gizonik prakerre ta kakarruena, indar eta eskubideetan, andrazkorik mardoenaren ganetik etxean eta etxetik at (kanpoan).

Ez bitez ba geiegian arropuztu gure andratxoak, naizta prakaz jantzi gizonen bardin samarreko agertzearren... ollotegian ollarrak kukurruku, eta agindu. Olloaren lanik beñena ta bereziena... beti-betikoa: arrautzak egin ta, txitak azi ta zaintzea etxearen inguruetan. Eta kitu! Arrosko ari ba'naz, par-katu.

* * *

Aste gurenez entzun eta ikasi nitun zer batzuk. Emen: Zine aretoak (salak) ikuslez samaraiñotzeko ta begiak zabalduarazoteko gaztediari «progresaren» «erreglamentan» ohinarrituak bear duguz egun. «Jentuze kabernatien» antzeko bizi izan da gizona, gaztea, haurra. Haurtzarotik irakatsi bear zayo haurrari andrea ta gizona izandiraneko ar-emanek, irripar goxo batetan asirik ama edo aita izaterainoko «eboluzioren» «programa» «naturala».

Ba-dugu apez «progresistarik» ere lan «meritagarririk» egiten duna, bainan gutxi dire egungo munduarentzat. Sozialean ume gaude eta sexoan inoizente.

ZEBERIO

SANTA CRUZ

Orrilla'ren 3, 4 ta 5'an, Zeberio'ko Santa Kurutz auzounean jaiak ospatuko dira.

EGITARAUA

3'an.—Zapatua

Kale-jira, Ume-jolasak eta bertaratuten diran guztiei txokolatea, bertakoak egiten dakien lez; ederto benetan.

4'an.—Igandea

11'etan.—Mezea, eta jarraian Arrankudiaga'ko «INDAR GURIA» taldeak eskiñiko dituz bere dantza saioak.

5'terdietan.—Euskal-erriko albokarien 4'garren agerpena:

Oneik dira: — Leon Bilbao.
— Silvestre Elezkano, «Txilibrin».
— Eugenio Etxebarria.
— Alberto Zabala.
— Jose Egiguren.

Jarraian erromeri alai.

5'an.—Astelena.

11'etan Mezea.

Jarraian, umeen jolasak eta Emakumeen soka-tira.

5'etan.—Txirindulari txapelketea, ta jarraian erromeri alai.

JABI ta AGURTZANE

* * *

Goiak eta beak jo izan dodaz aurrean genduanaren maixukeriak berak esan bezela idazteko. Ezin baiña.

Igitaria ta mailua beren esku gurientzat gitxiegi diralakotan-edo, laiazen jabe egiñik be ba zegoan.

LANDAJUELA'tar A.

Tolosa

Tolosa'tik idatzi daukue, baita egitarau jakin-garri bi be bialdu, an urtero lez, aurtan be izango daben ekintza bikoitzaren barri emoten.

Entzutera bakarrik joaten garanontzat, goizegi da, ta urtegorako geratuko dira zertzeladarik jakingarrienak, baiña ara abesten doazan naiz bertarako abesgile izateko asmoan dabilzantentzat, izan dadilla gaurko gure au gogoragarri, euren lanak aurreratu ta garaiz gertatu dagiezan. Orra ba oiñarritzko jakin-garri batzuk.

Abesbatzarako abesti barria, orixe barri-barria izan bearko dau, lau abotsetara osotua, itzak euskeraz, norperanak naiz besteren balen-gandik artuak, eta Irailaren lenengoa baiño lenago Tolosa'ra bialdu.

Eun milla lauerlekoko saria dago...

Abesbatzen leia-ketea, Urrillaren 31'gnean asiko da. Talde bakoitzak 25 gitxienez eta 75 abeslari geienez izan daitez. Era biko leia-ketak izango dira, abots nastatuak batean; era bateko abotsak, bigunak naiz sakonak, bestean.

Irurogeita amabost, berrogetamar eta ogetabost milla lauerlekoren sariak lenengo irureri abots-nastuetan. Berrogetamar, ogetamar eta ogei milla lauerlekoren saria abots-bardiñeko lenengo irureri.

Abesbatzak, leia-keta onetan agertu edo ez erabakitzeke, epe labur samarra dabe, Garillaren, zazpigarren illaren lenengoa baiño len emon bear da izena Tolosa'n.

Sariak alde batera, leia-ketara leioiazan abesbatzari lagunizeko asmoz, biderako beste au emongo yake: 7.500 lauerleko 50 kilometrotik barruan bizi diranentzat; 10.000 lauerleko 50'etik 125'era bitartekoentzat. Urriagokoentzat, antolatzaillak orrean oena, Urrilleko 31'gn eta Azilleko 1'go gauetakoa ordainduko dabe.


Janordueiarako be izango da erreztasunik. Ba-dakizue, onelako ekintzak baldintza ta egin-bear ugari izaten ditue. Obeto jabetzeko, zuzendu zaitezze Tolosa'ko «Centro de Iniciativas y Turismo» orretara, ta or, abesti bearrezko ta askearen barriak be jakin al izango dozue. Zuzenbidea, calle San Juan, s/n.º, Tolosa.

Ekintza aipagarri gitxi izaten ditugu gure artean, edertasunean; neurrian eta erbestera begira, auxe bat, onetarikoa. Lenago izan ez ba'zara, egin aurtan aurretik, ara joan al izan dagizun bear diran aukeramenak.

ASTI

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK



ZAZPI-KALEAK

GASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIQUEAK

LEITZA

(IXIL-IXILLIK, LAN-ETA-LAN, ONA EMEN EUNGARREN ERRIZ-ERRIKOA ZUBIKARAI GANDIK!)

Berastegi'tik gora, emengo baso eta mendi orlegie begira nator. Berastegi-gaia onetan, tarteka, etxe txiki dotore ta alaiak. Eiztariak, perrotxiku biltzalleenak, mendi zaleenak. Ba dakie emen ortan ari diranak izadiaren ederra goretsi eta maitatzen.

San Anton, Urto... Gure kotxea aidaketa esakaten. Goraka ta estutzen. Aurrera. Kilometroak astundu egiten ditue basoak. Errazoiz esango eben emengoak txanda baten: Idiak min eta gurdiak soñu.

Mendi zaletasuna igarten nago. Pentsatu eragiten dau ederrak. Ikusi ala nire irudimena be iñoiz ikasitakoa gogoratzen dator: Bide ondoko arbola, abenduko izarra, ostatuko neskatxa ederra, irurak ondartzeko arrisku bera dauke.

Ziri ederra sartu euskuen leizatarrak esakera orregaz: Gizona, konturatu eta erantzun: Nun duk zuurtzia?

Kezka. Nun dagoz emen papergintzako kei eta lañoak?

Bideen nastea erri sarreran. Aurrean Leitza. Arrera ona. Igarrita nengoa: «Ipar aldetik Leiza arranditsu...». Orain eta gero be Orixe zanagaz gogoratuko naiz inguru oneitan.

Ingurutako esakera da: Mendira noanean aizkora etxera beira ta etxerakoan mendira beira.

Kotxeen legea be orrela bear litzake. Beti gertu laga, errez urteteko. Baiña ba al dakigu emendik nora jo? Danetara be, edo zertara be, bidera begira beintzat: Beti dago emen bidea aurrera begiraka. Uitzit alde-rra jotoke... Barriró «Orixe» zana gogora: «Naparroa zarrea Larraun'en Uitzit, belar goxo tartean eper-kabi iduri». Uitzit'ra lez jo leike Doneztebe'ra edo ta Goizueta'ra. Batera nai bestera euskal mendiak ikusten. Pago eta aritzen arnas sendoa artzeko bideak.

Gaur gaurkoz gizonaren zitzaldi be bai. Onerako aiña, okerrerako. Ez al da egia galtzen duazala pago ederrak eta andre jatorrak?

* * *

Emengo tellatuen urteera aundiak ikusi ta gizonak txapel aundia bear dogula kontuan naz jausi.

Ate ederrei begiratu ta... «Etxeak ate bat eta nagusi bat» gogora ekarri.

Erri onein kalea, erdiko kalea ta plaza, okertu edo nabarmendu eziñiko monumentu lez etsi bear litzakez euren betetasunean, euren osotasun ikusgarrian. Ainbat napar erri gogora datorkidaz. Etxe eder, arrizko etxe sendo, lotsa eskatzen dabenak. Andikien etxeak? Zegaitik ez langilleenak? Ez al dira langilleak baserriarrek eta ez al dira eurak naiko aundiki? Erri txikiak eta etxe aundi. Ez dago urriti, esateko. Aldatz. An lako etxeak zeinek egin gaur, zaindu eta erabili? Eskurago oraindik Lekunberri. Ez gelditu bertan bide nautan; sartu barruan eta ikusi. Eta urrunago Oronoz-alde batetik, edo ta Iturmendi, Urdiain bestetik. Edo ta Ulzama'ko errietan, batzuk esateko.

Euskaldunak bere etxeari emon izan dautsan garrantzia adieraziten datoz. Mendiko euskaldunak etxeari zor eutsen lotsa eta menpetasunaren testigantza emoten. Etxe egokiak, ez posporo kajak. Etxe zabalak, ez kaiola estuak. Gizatasunaren legeen amestez sortu eta osotutako familienak, ez bizi-modu larri baten kezka txikitu eta estututako sendienak.

Erriko plaza ez da erri batzuetan bezin aundia. Bai esaten dodanaren testigantza emoten datorrena. Erriko etxea dago bertan. Goratxoago, erriko eleizea, parrokia, Mikel deunaren aintzaz jasoa.

Goietan, Aritz mendirako bidean, ba dago ermita bat: Kurutzekoa. Ondo zaindua dala diñoste, baiña ogei minutu bear dirala bertarako.

* * *


Gaur, Leitza'ren bizitza, basoetatik dator oiezkoa, eta papeleratik egunerokoa. Nik ez dakit paper gintza onen asierarik. Bein, Lekunberri'n kontu kontari nebillala, aldaztar batez gertatu nitzan. Bera be andik etorten da lanera. Bere esanetan Lekunberri zan leku egokia papergintza au jaritzeko. Ortarako aukeratu be izan ei eben. Baiña angoak, ez jakin arrokeriz ala federik ezaz, edo ta orrelako lantegi barik bizi eikiazala-ta, ez eben aukera eta errez-tasunik emon.

Leitza'k, papergintza oneri esker, bere izaerea eta bere bizia zearo aldatu dauz. Gaur, inguru onetan, bizi barria igarten da. Onelako ola batek erruz zabaltzen dau premiñen bitartea.

Naparroa'n aldakuntzarik aundien egin daben errizat ezagutu eta erakusten dabe gaur Leitza. Milla ta berreun langille ibilliko dira zeregin onetan. Geigarriak aparte: ostatuak, erabilketak, eskolak eta abar. Langintzarako teknika sartu crazteko eskola, eskola profesionala be ba dago. Onetan aitatu bearreko da «Amazabal» zaingo edo patronatoa eta bere ardurea.

Gaurko papergintza au Arrazola gipuzkoarrari zor bayako be —gazte il zan bat-batean, kezkaen miñez, langille argi eta trebe au— jakin bearreko da, orain 150 urte, au da, lengo gizaldiaren asieran, paperaren barri ba ekiela Leitza'n. 1815 urtean billatu leikez orduan Erasote erreko urekaz baliatuta Errezuma'n aurkitu zeinkean lantegia, fabrika.

Eta Ibero, zer? Leitza'ren barrutik urten barik, 18 kilometro egin bear ara joateko. Ez nua gaur Goizueta aldera eta an dago, kilometro bi lenago, Leitza'ren lurretan jaioten dan Urumea'ren uren ondoan, Ibero etxe eta lantegi zar au. Gaur burdiñolak, burdiñola izanak eta gelditzen diran bakarrak, ez dautse erriari bizirik emoten. Ikatzak galdu eban bere txingarra. Eta gure errietako



burdiñolak, geienetan, basoen ugaritasunean errez artu zeinkean ikatzaren berotasunetik jaioten ziran. Gaur be leizatar aizkolariak emengo burdintegiaren moldatutako aizkorrekin neurtu nai izaten dabe euren indarra. Euren sendotasunean eta emengo aizkoren ontasunean baliotuta. Eta gizonaren indarrari eta aizkorearen fintasunari lez begiratu bear bertako pagoen egur sendoari, kirten egokiak egiteko. Famili izentatu batzuen zeregiña da ori. Ba dagoz, egon, aizkoragilleak Leitza'n. Gaur, orretarako, kanpotik ekarten dabe burdinkia plantxa zabaletan gero emen moldatzeko.

* * *

Aizkorak jokorako soñua ei dauka. Leitza'tarrak ba ditue euren artean jokolariak. Jokolariak, aizkoraz baliatzen diranak; jokolaria baita be erria, dirutan.

Lesaka-Enea Borda deritxon etxean jaio zan Martin Gartziaarena bat. Eundik gora dagoz emen baserrietan eta danetan aizkora zorrotz. Gartziaarena au jatorra izan zan. Irakur Yantzi'ren bertsoak:

Martin Gartziaarena
Leizako umia,
gazte bular sendoko,
gerriyaz ere mia;
egurren gañian zauli,
iduri du zumia,
azkar mugitzen ba daki
baldin badu premia,
aita eta ama euskaldun
jatorren semia.

Leitza'tarrak dira baita Patxi eta Liziano Astibia, Patxi Zabaleta eta abar.

Gizonak eta basoak bear orretarako. Eta toki gitxi dira emengo Leiza-larrea lako basoak daukezanak. Ikusgarri.

* * *

Aurten, Epalla'ren lenengo igandean, bertsolariari omenaldi bat egin nai izan eutsen Leitza onetan. Giro bat egertzen dau orrek. Erri kultura aupatu naia.

Etxe barrien inguruan, kale bateri izena ipiñi eta erriko seme bertsolari baten irudia bertan agertu. Ortarako Manuel Lasarte

AGVR

Apartado n.º 2
BILBAOFRANQUEO
CONCERTADO
08/55

BAKIO'RA BEGIRA

BASIGO DE BAQUIO, TA INDIANOAK

Atzo idazle frantzes baten nobela bat irakurtzen ari nintzan. Egilleak Enrike Capdevielle ditu izena ta abizena. Nobelak, berriz, euskeratuta «Bermeo basatia» izenburua. 1922'garren urtean argitaratua izan zen Paris'en. Sasoin artan Bermeo'ri zegokion bizimoldeari buruz mintzo da nobela aipatua. Folkloreai darraion nobela interesgarria dirudi. Ta, jakiña, nola urte aietan Bakio Bermeo'ri atxikia zegoen, Bakio'z ere mintzo da zer edo zer.

Bermeo'ko etxeoandra batek ala dio, mutiokakin Bakio'ra joan bear duela, emen, Bakio'n bait daukate «villa» bat, beste «villa» zenbaiten artean, etxe aurrean, laranja eta limoi-arbolak zutunik dituelarik, ta etxetik edo «villa»tik gertu, parajeen, txakolin gorria zer-nai ematen dituzten maatsondoak eta lurpean esparrago edo zain-zuri mardul, biguñak. Ta geroxeago dio, Bakio dela Andaluzia'ko txoko bat Kantauri'ko itxas-ertzean kokatua. Beragatik, gartzetan Bakio'tik Ameriketara joan ziren erriko semeek Bakio deritzan Paradisia autatu zutela azken urteak igarotzeko, nonbait bildur izanta beste goiko Paradisian sartuko ez ote ziren, il ondoan.

Bakio'ko jesulagun bat ere azaltzen da nobelan, marsopa bat tirokatuaz itsasoan, nonbait uste zuen sorgiñen bat izan zitekeala. Ez dakit puntu ontan egiaz ala alegiaz mintzo den nobelagillea.

Ori bai, argi ta garbi esaten digu sasoin artan Ameriketatik errira itzultzen ziren erriko semeak, Ameriketara diru-poltza egin ondoren, Bakio'n «indiano» deitua zirela. Itz ori gaur izkutatu da eta beste erri askoetan bezela «amerikanok» deitzen zaie. Nik neronek «indiano» itzari grazi geiago arkitzen diot.

Orduko «villa» asko ageri da Bakio'n, Mungia'tik Bermeo'runtz dijoan erreal bidearen bi ertzetan, murriz eta arrotz landare naiz zugaitzez inguraturik. Ori dala ta ba du Bakio'k alako aundiki edo jauntxo erriaren antza. Ez da beraz arritzeko sozialismo apurño bat sartu bada errixka ontan.

Sollube eta Jata izeneko mendi artean datza Bakio sortaldetik itsasora irekitzen dela. Ba du arriskurik asko gaurko Bakio'k bilbotarren «Week-end» eta udako - koloni biurtzeko. Lurra agitz emankorra da eta an-emenka oillo asko dago erri ontan.

Nik uste nuen-ustek emen ere erdia ustela: delako «siesta» edo bazkalondoko lokuluxka orren erdarazko izena internaziola zela, «telegrafoa» eta beste izen asko bezela. Bai zera. Emen «bixaoa» deitzen diote delako «siesta» orri. Azkue'k bere Itzegian jaso zuen lurralde auetatik «biago», Bizka'i'tik kanpora ez ezaguna.

Beñola, ez dut gogoan zein urte zen, Belgi'kan, Flandria'ko errixka baten negoela, Atan bezain ezaguna eta iximatua niretzako, ain zuzen ere Erps-Kwerps deritzon errixkan, bertan bizi zen baserriar baten aotan entzun nuen, espantuz, «siesta» itz ori, an komunki erabilia gauza bera adiarazteko. Nonbait Alba'ko Duken gudariak utzi zuten oitura naiz itz au, Belgika'ko jende artean. Orduetik gaurdeño irauten du oiturak naiz itzak an.

Maats-aienari eusteko ipintzen dituzten esolai «matxikuak» deitzen diote emen.

Baserriko emakume bati entzun nion, entzun, berakin solasetan edo berbetan negola «esnea jan» esnea edan'en orde. Ugarte du baserriak izena eta etxeoandreak Anselma. Milla esker, Anselma! Zerbait ba dakigula uste dugunok ba dugu ziñez zer ikasi oraindik. Bai orixe, arranopola.

Bakio'n izena leengo iskribuetan Básiqo de Baquio da. Gaur ere deitura ori bizi da, Elex-ondoan dagoen Zabalatarren baserri apaiñak izen au dauka-ta. Bestalde, eliz inguruko barride edo auzoak ere berdin. Errixka edo «elizate» oso sakabanatua da, lau auzo edo barride dituelarik, Goitisoló, Básiqo de Baquio, Zubiaur eta San Pelayo. Bere buru jabe izatera 1931'garren urtean iritxi zen, orduraino Bermeo'ri atxikia baitzegoen.

XVIII gizaldian 72 etxe zeuzkan ta 354 bizi-lagun. Gernika'ko Batzar Nagusietan 17'garren eserlakua. Bost bolu edo errota, eta burdin-ola bat.

JOXE LASA

erri onetan jaiotako bertsolari ezaguna aukeratu, berari omen egiñaz. Gizon jator eta umilla bertsolari argi au. Laga daiodan berari nor dan agertzen:

Nungua naizen jakitearren
onera bildu zerate,
Leitza'n sortua ta oriyotarra
orain esaten dirate;
len Aia'kua zala usten zuen
askok Manuel Lasarte,
ni zuen morroi nazute, jaunak,
zuek nai dezuten arte.

Bizi dan bateri kalea eta irudia eskintzeko —donostiar J. Lopetegi eskultoreak egin eban irudia— ezin ukata erri maitasuna bear dala, eta gizon askok ez doguzan jatorrizko izakera eta jokabideak.

Bertsolariari omen egiñaz bere euskal gogoagertu nai izan eban erri onen orretan. Ori da gaur bertan igarten dan garra. Bizi barriei bildur barik ikutu naia, era berean euskal kontzientzia be zirikatuta.

Errez igarten da ori bertakoekin batzean. Gogoan dauke oraindik «Orixe» euskaltzain egitean bertan egin eta eskiñi eutsen jaia. Euskal giro eta gogoagertu be. Bere gogorapena eta erri onentzako begirapena alkartu nai neukez, beste baterako be. «Aizkora jokua» izenez egindako olerkietan diñona gogoratzen nabil:

Leitza'r zantzulariek adirazi dute.
—Leitza'rako bidea ez len aibat luze...

A. ZUBIKARAI

Garun - Lixibak

Zuria baltza dala, edo ar-opillak iruntsitea gizasemearen gogoko egin dala ikustean, atadi onetarako jakintsu edo sakon itxurako ezer aukeratzetik ez yaku gogoko gaur. Ta, ludi naastu alakoan, egi biribillak gogor baiña biurrikeri barik esaten dabena baiño osagarri obarik ez dagola ziñistuta, E. Ozkin adizkide benetalariarena dakargu...

«Orra or azkena! Gertakizun ikaragarriak ikusi ditu Vietnam'go erriak. Lenen prantzesak irten ziran, orain ameriketararak. Ogeitamar urteko guda madarikatuak, zenbat ezbear sortu ote ditu!

Vietnam'go gertaerak idazten asten ba'gera, ez dago orririk naiko asteroko ontan. Orri igartzeko gogoratu gaitzen gure gudan jazotako antzeko gertaerekin. Donosti utzi bearra izan gendunok, Bilbo gero, Santander urrengo ta azkenik Gijon... bitartean geratu ziranak gogoratirik!

Guda baten azkena bildurgarria izaten da, ta Saigon ori erortzeak makiña bat buruko min emango die angoeri. Amerikarrak jun omen ziran aspaldi, esan nai det lengo gudari aiek. Ala ere, azkenean ba-ziran amar milla an zeudena, eta aste ortan, egalari oietan igeska irtenak dira.

Arritzen naiz, nola ez asi lenago irtetzen; amerikarrak bezela bertakoak ere. Millakak gelditu dira nun sartu eziniik, ta karraxika ta deadarka asko, eziña bai zuten beren seme-alabak eramatea.

An gertatu dana mingarria da. Gauzak ongi zeudenean amerikarren alde idatzi oi nuan, esanaz alegia, zer egingo zuten ainbeste millaka katolikuk. Komunisten bildurrez igeska egoaldera, ta azkenik nora jo eziniik, bazter guziak itxi zizkieten eta erdian gelditu.

Orain zer gertatuko zaie len igeska ibilli ziran oiei, besteen mendean daudela? Banatuko dituzte guziak, eta aukeratuak orma bazterretan jarri ta erail. Ori da guda baten azkena!

Amerikarrak Europa'ko guda irabazi zutenean, arro zeuden. Usteko zuten berak izango zirala jaun eta jabe geroztik. Europa'k ordea, ikusi-alak ikusita, ez du nai geiago gudik. Naiko izan zun ura, ta milloikak il ziran. Amerikarrak, orain ikusten degunez, urrun daude Europa'tik, eta emengo esturasun eta gudak ez diote bizkarreko azkurarik ematen, naizta lenago bezela, geroago sartu indar guziz eta irabazi bazter guziak zeeututa. Ori egin zuten azkenengoan.

Gero, politika zikin ta trakets arekin, bizkarra emanaz polandar gizajo aieri, ta komunistak ezagutu, an geratu ziran polandar jatorrak Londres'en. Churchill eta abarren zikinkeriak ziran aiek.

Gaur, zer? Europa erdian kominismoa nagusi, agintaritzari gogor lotuta. Prantzesak ordea, De Gaulle izan zuten buruzagi eta ortzak erakutsi zien onek beste oieri, ta erriak burua jeiki al izan zun nabarmen. Ala ere, De Gaulle arrotu zan geiegi, ta ainbeste leterritako gudariak beren alde bizia eman ba'zuten ere, zer egin zun onek bere aberria azkatu ziotenean? Ezer ez... eta ondoren, koitauok sakabanatuta dabiltz.

Orain zer? Kondairak esango du zer nolatan ikusi bear dan gaurko ludia. Sobietarrak, txinarrak eta abar orain irri-parreka egongo dira. Auek lagundu bai diote Vietkong'ari... Kissinger giza-joari eperdiko ederra eman diote beoiekin ziñik egin ezin lezaken Paris'ko ziñean izan ziranak. An uste izan zuan guda zearo bukatuko zala. A ze nolako gertaera! Indarra ta gezurra izan dira nagusi...

Van Thieu'k berez ezin zun ezer egin. Ala ere laisterka iges egin zun, bera ta bere lagunak urre pilloaz egazkiñetan. Nik galdetzen det, zergaitik urtebete leno iges egin ez? Ordun ba'leikean gauzak obekiago zuzentzea, eta ez azkenengo bi astetan. Nolabait, agintzen egoteari maitasun aundia diote jauntxo oiek, naizta indarrez eutsi aulkari.

Erri gizajoak zer? Jauntxoak iges berak nai duten bezela; ta erriak, ez itxasontzirik, ez berebillik, ez egazkiñik... Erruki diot erri orri. Ezagutu degunontzat, gauz asko bururatzen dizkigu onelako uneak».

«BAT BITAN BANATZEN DA»

Egilea: Irala'tar Andoni.

Etor-Erribide.

Iragan gauetako beilak, aipaturiko liburua irakurtzen pasa ditut. Aspalditxotik ba genduen ezagutza Andoni Irala liburu sakon bat ari zela, ari, lantzen eta jorratzen, Mao Tse-tung'i buruzkoa ain zuzen ere. Gaur, atera berria dugu plazara —bere il-erritik eta il-arritik zer ote dio B. Decheparek?— leen liburukia, belizez eta txuriz jantzia, muiñaren seriotasunari dagokionez. Franko portatu da oraingo ontan ere guk ainbeste maita dugun Itxaropena. Beajondeiola!

Ezin-gardenagoko iturburutik jakinda negoen Pilipinas'ko ugarteetan egin zuen egonaldi luzean —deserrituen ogi mikatza janez— Anton Irala'k ekin ziola Mao'ren pentsamentua ikasteari. Ageri denez, ez zen debaldetan jardun. Nik ez dut oraingoz zer esan apartekorik liburu onetzaz gaur eta emen, kritika zeatz eta zorrotz batek eska dezaken eran eta maillan. Artarako ere elduko da sasoi, elduko denez. Beraz, ez dut besterik emen azalduko espantuz eta arrimenez liburu eder au irakurtzeak egin didan zirrada baiño. Ta orrezaz adiarazten badut nere buruan, pil-pil, erne naiean, dabillen gogameneren bat edo beste, aski dugu gaurkoz.

Erreza ez baiño erreztua —ez da gauza bera, ez alazankoa!— interesgarria, kristalezko pentsaeran eta idazkeran emana, izkuntzaz oparoa, joria, aberatsa dugu Irala'k eman berria digun frutu umotua. Ba da zerbait, ba danez, olako dotriña arrotza eta korapillotsua azaltzean. Ba dirudi, antziñako Sokrates'en antzera, goren-goreneko zeruan, delako «yberouranios» artan egurasten dabillen filosofia, Irala dela medio, ikazkiñen eta atxurgilleen sagardotegiko gizartera jetxi dela. Askotxo esatea ote da gero? Besteak beste, ba du ori soil-soillik lortzeak merezimendurik asko, oraindik naiko txertake eta lantzeke dagoen gure larreko izkuntza maitagarrian. Ikuspuntu ontatik begira, ba dirudi sortze-sortzetik duela liburu onek klasiko izena eta izana. Desapio bat egingo nioko iñor trebe bada euskal literaturan, alegia, oro ar, muiña naiz idazkera, Dechepare, leen aldiz, plazara atera zen sasoi artatik gaurdeño, ea zenbait liburu onen parekorik argitaratu ote diren, «Gero» bera bereiztu gabe. Ta Gero'z ari geranez gero, geroak baitezte dezake nik esana.

Zorionak! beraz, Andoni. Bildur naiz irakurle gutxiago izango ote dituen liburuak, oi denez, erosle baiño, Dena den, historitxo bat egoki datorrit emen.

Beiñola, zaldizko gurdi edo orga batean, ba omen zijoan, joan, Hegel filosofo aundi ura, Suiza'ko mendi artean. Ikus eta entzun, ez omen zuen txintik ere ateratzen. Alako batean, ondoan zijoan gidariak ala esan omen zion: «Irakasle jauna, or goiean ikusten diren mendi oriek Alpeesak deritzate». Altxa omen zituen bere begiak Hegel'ek eta andik pixka batera atera omen zuen filosofoari dagokion itz zuurra: «Oriek or daude».

Irakurleak irakurle, esamesak esames, esan genezake guk ere liburu oni begira: «Ori or dago, bai egongo ere».

Giputzera irikian, ekumenikoan, osatuan egiña datorkigu liburua. Beraz, ez dakit Mokoroa'ren galbaitik pasako ote den. Egun asko baiño leen galdetuko diot. Ta izkuntzaz ari geranez gero, adibide edo muestra gisa, zuzenketa txiki bat nai nuke ementxe ezarri. Leikena da ni oker egotea eta ez liburu aipatuaren egillea.




Amaikagarren orrialdean au irakurtzen da: «Baiñan ez dugu sarrera au bukatu nai, beste oarkizun pare bat egiteke». Leikena da, berriro diot, ni oker egotea, baiñan nere ustez (usteak erdia ustela ez badu oraingoan ere) «egiteke» eta antzeko forma jator oriek pasiboan erabili oi dire. Esate baterako, «lana egiteke dago», «lur au lantzeke dago» eta ab.

Grezia'ko jainkosa Minerba itsasoko ur-aparretik jαιο zen bezala, liburu bikain au Irala'ren buruan eta burutik sortu da. Bera da beraz liburuaren aita. Mailla berezi bat arkitzearren Joxe Artola'rentzako, ez legoke desegoki aita ordezko izena bereiztako. Aspaldidanik, nere filosofiko klaseetako aukietatik ezaguna dut Pako Garmendia, Azpeiti'ko semea. Zorionak! Pako, ain euskera bitxia eman diguzulako. Noizbait nola edo alako maisu izan zenak ere ikasi bear du zerbait ikasleengandik. Ta gero, egillea ez izanik, ba du liburu onek gizon-bitzaille, eragille, ereille jator bat ere. Nork ez du ezagutzen Murua'tar Joxe? Iñork uste baiño geiago zor dio berari liburu bete, izor, paregabe onek. Uste dut Irala eta osterantzekoak batera etorriko direla nerekin azken puntu ontan.

Gari-mota asko omen dire, diote gure baserritarrek. Aurrean daukagun au, gari guziz txuria dugu, irin-lore fiña. Gose ziren, gose, gure intelektualak. Bada eskuetan duzute zuen gosea asetzeko duin ogi txuri, txingar eta errauts artean erretako ogia alere. Antziñako erromatarrek «panis subcinerius» deitu oi zuena, supeko ogia esan nai dut.

JOXE LASA



Filolojiako jardunak

KATALAN IZKUNTZA TA EUSKERA I

Bi izkuntza oien artean egin oi diran alderatzeak maiz irakurri izan ditugu. Batzuek uste izan dute katalanak beren aurrerabidean ibillitako urratzak euskerarentzat balio dutela. Bai, naski, gaiñetik begiratu ezker. Ez ordea beti, sakon eta barren-barrendik mamia aztertuaz. Oso ezberdiñak bait dira izatez, jatorriz, egoeraz, gizarte-indarrez eta etorkizunari buruz.

Katalanak, latin seaskatik sortua ta aren bularretik edoskia, eziera baldintza batzuk ditu; eta aidetasun ezagun gabeko dan euskerak, larreko izkuntzak, beste batzuek. Aspaldidanik ibilli-dabil katalana kultura bideetatik zear, literatura ta jakintzaz ondo orniturik; euskera, berriz, iru mende edo gizaldi besterik ez da liburu ta jakintza jantzia artzen asi zala. Eta ortan ere doi-doi mintzaille gutxiko izkuntza delako.

Katalanak, erdi-arogan goitar ibilli ondoren, erori aldia ezagutu zuan, eta joan dan gizaldian susperraldia etorri zitzaion «Renaixença»k bizitasun berri bat piztu ziolarik. Ez zan gaitza ala gertatzea. Gure euskera gaxoa, aldiz, erri xearen barrutitik, malkar gora nekez lantzen joan da ta ez da beñere iritxi katalanaren maillan, legezko ta aundikien izkuntza izatera, Beraz, damurik, ez genezaioko katalanari jarrai onek ibillitako bidean. Au nere jardun auetan ikusten joango zifiaten.

Katalan izkuntza «Renaixença» asi aurretik eta Pompeu Fabra'ren «Normes Ortografiques» ontzat artuak izan arte idazkera berdin-ezan zebillen. Naasmendu orren gora-berak toki ontan bertan (Ikus AGUR 1971-72-73-74) zeatz-meatz idatziak ditut. Katalan izkuntzaren batasuna dala-ta, Pompeu Fabra eragillerik bizkorrena izan zala esanik daukagu.

Eta arauak «Normes» deituak eztabaida luzeen ondoren, «Institut d'Estudis Catalans» alkarteak onetsi zituala. Orretara irixteko Prat de la Riba «atzerakoia»ren itzala erabatekoa izan zan. Ori 1913'gn urtean erabaki zan.

Gure euskera, bitartean, arnas-estuka, nekez eta urrats txikiz malkar gora zebillen. 1870 urte inguruan erderazko ortografia utzi ta «c, v, gu» izkien orde, «k, b, g ta j», eta beste zenbait aldaketa sartu zituzten. Bidaso'z bestaldeko idazleak «h»a erruz erabiltzen zerraiten, bai bokal aurre ta bai konsonante atzetik ere, prantsez ortografiak kutsuturik. Emengoek ez ziran «hatxezale». Ortaz Aita Kardaberaz'ek diona irakurtzea aski da arrazoiak jakiteko.

Onela joan zan arazoa Arana-Gori'k «Lecciones de ortografía del euskera bizkaino» liburua argitaratu zuan arteraño. Onek, «fonetika» aldetik geiegizko aldaketak sumatu zituan, idazkera zaildu ta illuntzen zutenak. R. M. Azkue izan zuan aurkalarri aundiena ortan, baiñan urte batzuetako eztabaida ta borroka ondoren, 1918-20 urteetan, Oñati'n Euskaltzaindia sortu zalarik, ortografia arauak oiñarritu zituan Arana-Goiri'ren asmoetatik artuaz; eta geroztik ikutu ta aldaketa txiki batzuek sartuta, Euskaltzaindiaren lege bezela gelditu ziran. Iñor beartu gabe, ori bai, esan bearra dago. Bidaso'z bestealdekoek arau aiek ez zituzten osorik onartzen. Prantsez «TCHE» ta «CHE» zerabilzen «TX» ta «X» orde. Eta «h» alperrez josita batere bear ez zituzten «Hitzak»... Zergatik ez «Heskuara»?

Nola nai, batasun mailla batera igo giñan, eta au da gerora gorago igotzeko baldintza. Emen, 1920-1960 bitarte ortan gure euskal-literatura urri, aldizkari ta liburuetan idazkera batasuna egiñik zegoan. Ez ainbeste lexikoarena...

Baiña 1936-39-45 ta geroztiko urteetan astifaldi gogor eta latzaren pean arkitu zan Euskal-Erria. Mundu guztiaren arabera, gure artean ere, gazte jendea, belaunaldi berria, ideia gazi, garratz eta mikatz artean ezi zan. Onelakoetan ume biurri, ezgaitzak gurasoen aurka altxatzen dira. Ta geiena maitatzen ditueni min ematen die, aiek egindako lan on guztia arbutatu ta nardatuz.

Batasunaren aitzakiz, euskaltzaleak sakabanatzea izan da lortu dutena, gorroto ta griña txarra ereñaz. Batasuna bearrezko dala ez du iñork ukatzen. Nola eta zer epetan egin, ortan dago kozka! Lenagotik egiña zegoana indarrez ankaz-gora bota naia izan zan 1968 urtean Arantzazu'n liskar artean jarri nai izan zutena. Euskaltzain eta erri-idazle geienak «h» alperra idazkeran sartzeko etsai ziran. Izki makur ori artu zuten ikurtzat... Ez «filolojiako» arazoa dalako, bestelako griñaz baizik. Ez da aski ukatzea, «hatxezale» amorratuena aspaldi aitortu bait zituzten beren asmoak.

Ala ez izanik ere, aldaketak egitea, ao batez ez diranean, kaltegarri izaten da, eta Euskaltzaindiak 1920 urtean artutako erabakiak zutik gelditzen dira. 1968'gñean artutako baezpako arauak okertzat daukagu eta ez diegu men egiten jatorrizko pekatuz kutsuturik datozelako ta ez naiz aspertuko esaten entzun gura duanak etzun dezan.

Azkenik, A. Kardaberaz'en itzak gogoratu aziaz: «Emen, gure euskeran, eta Bizkaia'n «atxe» ori alferrikako edo serbitzen ez duen gauza da. Ken ortik, gure euskera suabe eztkorra-entzat soñu ori ezta!»

Katalunya'n, I. E. C. alkarteak ortografiako «Normes» edo arauak 1913 urtean ontzat artu zituan eta geroztik ez ditu aldatu. Gure Euskaltzaindiak berriz, 1920'gñean berak erabaki zituan. Zergaitik, burugabe, aldatzen asi?... Oso da kaskarra eman nai duten erantzuna.

ANTONIO M.ª LABAYEN

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri asmoen gaiñetik daben iritxi-oneko euskaldun guztiak Euskereatzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egiñleak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M.ª MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.

Carretera a Galdácano, 32-Bilbao-4

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA

ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guttirako:

Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

GATZ ETA PIPER

PORTUGAL

Kondaira dogu irakaslerik onena; edozeñiek dakiana da Portugal'ko auteskudeetan demokratik, ain zuzen be sozialistak eta «popular demokratik», irabazi dabela. Alvaro Cunhal'en mutil zaratatsuen alde zenbat portugaldar dagozan nabarmen agertu da.

Baiña auteskundeak baiño lenago bada ez bada, goitik beera, gogorkeriz eta «batasunaren» izenean Sindikatoekin jabetu ziran komunist taldekoak.

Eurak izan ezik beste langillerik ez balego bezela, Lorailaren Lenengoko jaietan, aurrean artu dabez Mario Soares eta bere lagunak. Gitxien diranak, azpikeriz, guztiena izan bear leuken Alkarte Nagusia menperatu, eureganatu dabe... betikoa!

EUKALTZAINDIA

Euskereari bere tokia emotearen alde ainbat alkarten abotsa entzun da ta ainbat eskabide egin jakoz Bilbo'ko Unibersidadeko buruari. Euskerazaleak Alkarteak be len egindako eskaria gogoratuaz (40 millatik gora erritarrek izenpetua) beste eskutitz bat bialdu dautso Eziketa ta Jakintza'ko arduradun dan ministroari, erriaren izenean.

Emen be Cunhal'en antzeko morroi batzuk ete dagozan gagoz, eta «biotzere» damotse eurekin nastean izan ezik egiten diran alegin entzutetsuak; politik bulegokeriak.

ERBESTEKO ALDIZKARIAK

Len be sarri esan dogu baiña ego aldeko aldizkariak itzelak dira euskaldunen dirua eureganatzen. Naiko da guri edo gure egoreari buruz azalean zerbait argitaratzea, gozokiak eskola atean antzera, parra-parra saltzeko.

Gai jakingarriak dakarrezela? ez dogu ori ukatuko, baiña nork argitaratu olakorik eurak izan ezik? Aldizkari onek gaiñera «ikuspen berezia» daukie noizik bein gure gauzak aztertze, Triunfo'k oraintsu Ikastolari buruz argitaratu lekuko.

Ikastolen alde iñork lanik egin badu eleiz giñonak eta eleiztarrak izan dira geien be, orain arte beintzat. Triunfo'ko lan aretan goraltzen ziran «laguntzaille aurrerakoi ta eziketa irautzailleak», ezer egitekotan, iñoren lepotik jaten etozanak ziran.

Baiña ego aldeko aldizkari batzuetan, bai Eleizearentzat eta bai euskaldun errizaleentzat «egurra» baiño besterik ez dago. Alde orretatik bardin-bardiñak dira, adi bidez, aldizkarien jaube diran aberats, olandar nazitarrak naiz barri emoilie izan leikezan sasi aurrerakoi gorritzak.

Noizik bein zabalkunderako ondo jatorkezan zigor banaka batzuk artu arren, ez da zuurregia izan bear, danontzat neurri bardiniñak ez dagola ikusteko. Guk olakoen erdirik esango bagendu onezkeroko aztuta gengoan.

AGUR, URRUTIA AITA

Beste leku baten ikusi daikezunez, Urrutia'tar Gotzon Aita il da. «Tar» ori iñork merezi badu nabarniztar jator onek merezi izan du. Bere BBC irratik itzaldia entzun genduzenetik maite gendun eta bere senide artekoen aspaldiko adiskide izatean eriotz onek oiñaze berezia damotso gure biotzari. Goian bego abertzale jatorra.

ARENAZA'TAR JOSU

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra
BILBAO - Casco Viejo
Tenderia, 15 eta 16

BERGARA XVIII GIZALDIAN

TXIKI TA
AUNDIENTZAKO
JANTZIAK

Aranzabal

BOUTIKEA

Zubieta, 13 - 76-12-59 urrut.
BERGARA

ULTZAGINTZA
BURNI-ARI ZAPALAK

Kartoi
Joskintzarakoak

ROTALDE

LANGINTZA

Ortuibar, z/g.-76-12-67 urrut.
76^{gn} Idazki-kutxa
BERGARA

BIZI - NAI

Muxika

JOSTUNAK

Barrenkale, 1
E I B A R
BERGARA

GOZOTEGIA

RAIZABAL

GOZOKI

BARRUNBETEA

Artekale, 9 - 76-11-83 urrut.
Bidakurutzeta, 20-22
76-12-19 urrutizkiña
BERGARA

Bergara ta Oiñati, bi jauntxo-erri XVIII gizaldian. Biek dute nork bere Kondea. Bergara'ri Gipuzkoa'ko «Versailles» deitzen diote. Oiñati'ri, berriz, euskal Toledo, «la Toledo vasca».

Azkaziak, odolak, batak besteak baiño geiago balio izateak edo izan naiak sekulako famili arteko burrukak eta bein edo bein odol isurtzeak sortzen ditu. Sasoiari sa-soiko gauzak. Bergara ta Oiñati. Erri bildu edo «billa» aipatuek zentro edo erdi-bide egiten dute Ego-Euskal-errian.

Aide Nagusiek, erriko aundiki eta jauntxoek erderaz mintzo oi dire eguneroko goraberetan. Noizbait, Bergara naiz Oiñati Bizkaia'ri atxikiak zegozten, bertako izketamotak adiarazten duenez argi eta garbi. Izan ere Deba izeneko ibaia izaki Bizkaia'ko eta Gipuzkoa'ko euskalkien muga. Beraz Bergara'ko eta Oiñati'ko karriketan bizkaiera entzuten da. Baiñan, elizkizutean apaizak giputzera landua darabilkite.

Ba dakizu, irakurle, gu giputzok beti izan gera leun, gozonai, diplomaziari emanak. Ez da beraz arritzeko giputzera balin bazen izkuntza ikasia.

Bergara ta Oiñati jauntxo-erriak, arri landuan egiñiko jauregi eta dorre ikusgarriekin. Esamesak, elkarren arteko burrukak, auziak, indarkeriak ez dire beñere falta. Oiñati'n, ganbotarrek eskuin aldean, Ebanjelioari dagokionean, Garibay'en odolekoak izaki, dute beren Alkate arruntaren aulkia edo eserlekua. Oñaztarrek, aldiz, ezkerrean, Epistolako aldean, izanik Murgia'ren odolekoak. Protokoloak

direla ta, noizipein, sortzen dire eliz-barruan bertan ere txinparta ederrak.

Erri biek izan dituzte iragan denboran goi-maillako ikastetxeak. Ez zen guzia elkarri ezin eramana, azkazien arteko burruka, iraiña eta odol isurtzea.

Begien aurrean daukat Francisque-Michel argitara eman zuen liburua «Proverbes Basques». 264gn. orrialdean ba dakar onoko esaera au: «Bergara, ceñatu eta ygara». Erdaraz onela ipintzen du: «Bergara, santíguate y pasa». Ta azalpen edo esplikazio gisa: «Porque en Bergara, uno de los pueblos buenos de la tierra bascongada, sucede entre los vezinos aver de ordinario muchos pleytos».

Oiñati'ko ikastetxeak unibersidade izena eta mailla zuen. XVI mende edo gizaldian eraikia bertako seme bati esker, au da, Rodrigo de Mercado Zuazola gotzaiari. Erdi-aroko egitura du, zoritxarrez, Oiñati'ko unibersidadeak. Gure gizaldiaren asiera-asieran il zen.

Bergara'koak «Real Seminario de Vergara» zuen izena eta Peñaforida'ko Kondeak fundatu zuen XVIII mendean. Azken ikastetxe au famatua izan zan orduko Europa guzian, batipat bere «Laboratorium chemicum» delakoa. Alde guzietako irakasleak ematen zituzten ikastaroak emen, Suezit'ik, Frantzi'tik eta nik ez dakit nondik etorriak. Beraz guziz ezaguna eta internaziola zen Bergara'ko ikastetxe nagusia. Etxe ontako ospe eta loria izan ziren errioxatar Elhuyar anaiak. Beraz gaur edo biar gure artean euskal unibersidadea altxa bear bada, ez ditugu inolaz ere aztu bear gai ontan Bergara'k eta Oiñatik egiñiko saioak.

JOXE LASA



JANTZIGINTZA

YOSKIN

76-17-27 urrutizkiña
BERGARA

BERGARA'N

L A S A

ZURE JATETXEA

BITXI TA
ERLOJUTEGIA

Gantxegi

Bidakurutzeta, 13
76-13-73 urrutizkiña
BERGARA

Lombide

OSKITEGIA

NEURRI
BEREKO
OSKIAK

Bidakurutzeta, 7
76-10-57 urrut. BERGARA



nomán



DANETARIKO ARGAZKIAK
BALTZEZ NAIZ MARGOZ
ARGAZKIGAIEN SALTOKIA
Simón Arrieta enp. 4
76-25-23 urrutizkiña
BERGARA

MODAS

AMENABAR

Ondo jantzi nai al dezu?
Zoaz AMENABAR den-
dara. Jazki apañak. Ondo
egiñak. Giza-emakume ta
gaztetxoentzat.

Barrenkale, 4
76-11-28 urrut. BERGARA

MUXIKA

GOZOTEGIA

Artekale, 3 BERGARA

BERGARA



ERTI
APAINKETAK

EDERTU

ERREDIZAK

Barrenkale, 23 - 76-29-65 urrut.

Irizar ibiltokia, 2
76-12-04 urrutizkiña

BERGARA

SELLO AURREKO ESKUTITZAK

Bergara'n egin dan sellu ta di-
ruen erakusketan, antziñako idaz-
ki-zorroak ikusi ditugu, selloak
sortu aurretikoak alegia.

Oso atsegin izan zait oien kon-
daira entzutea Dulanto sendagi-
llea dan Txaro Zabala emaztea-
ren aotik.

Uste barik ganbaran arkitu
omen dituzte, orain iru illabete
inguru.

Ura poza! Oraingo erakuske-
tarako bete-betian agertu bai dira!

Selloak sortu baño lenagokoak
dira 1802'garren urtekoak batzuek.
Selluen orde markak batzuek di-
tuzte. Papera, bein alde batetik
idatzi ezkerre zuzenbidea bestetik
ipintzen zuten, tolostu eta atse-
kaldea lakrez itxiaz.

Marka oietan ba-dira batzuek
zenbakia dutenak idazki-saria edo
«porreo» adierazten dutenak, kar-

tak artzen zutenak ez ordaintzeko
oitura zan bezela.

Beste batzuek bi ebagikin iku-
sirik, zer adierazten zuten ebagi
oiek galdetu nion. Ona emen eran-
tzuna: Itxuraz 1832'garren urtean,
Prantzia'n, kutsu-gaixo aldi bat
sortu omen zan eta onera zetozten
idazki guzietan bi ebagi alde omen
egiñaz, ospiñakin kutsu-garbika-
tia egiten omen zioten.

Garai ontan Bergara Gazteiz'ko
billeran sartzen omen zan, Do-
nostia eta Tolosa Bizkai'koan.

Beste iru marka ere agertzen
dira. Batzuek tanto txiki batzue-
kin; lerroakin eta gurpil antze-
koakin besteak.

Idazki oiek irakurri ondoren
begira zer ikasi degun:

Bergara-Durango errege-bidean go-
ra-bera batzuek:

Idazki geienak Felipe M.^a Az-
kona'ri zuzenduak dira eta beste
batzuek Rikardo Zabala'ri, lenbi-
ziko lendakaria eta Txaro'n aita-
bixa, Arkitettoa, bigarrena.

Aziotako Bazkune onetan beste
Zabalatarrak ere parte artu zuten
D. Pedro Zabala azkenik artxibo
edo agiri-pillo osoakin gelditu zan.

Tarteka-tarteka ikasi degu erre-
ge bide au 1833'garren urtean asi
omen zan egiten eta aziodun asko
bildu zirela ori egiteko. «Peaje»-
koa edo bide-sarikoa izan zala.

Katedun zaindariak kataien bi-
dez gelditu arazten omen zituzten
burdi denak bide-saria ordaindu
zezaten.

Ba da ortako katedun zaindari
bat errial bat eta erdi eguneko es-
katzen zuena eta Elgeta'ko Arko
etxean bizi izatea.

Orrelako gertakizunak, gaur,
ipuin antzera direnak, asko aipatu
litezke baño luze eta aspergarri
jo ez dedan, amaitzera nua, idazki
zaar oiek, sari guztien gain, be-
reizgarrizkoa izan zuela aipatuaz.

IRAKASLE

ALKARTU

Gure errian diran —eta ez dira gutxi—
Fatun - Jakintza - Jolas Lagunarteetakoak
sortu euskuen ALKARTU-NAI au. Asmo
bakar bat ekarran gain-gaiñean, eta ez edo-
zelakoa: danok batuta, indar guztiak bide
bakarretik zuzenduta, erruki-errikoi litzake-
zan ekintzetan alkartuta jokatzea.

Jaio be, erriak bertan eukazan ain-
beste bete-bear eta ezin alboratu leikezan
arazoak bideratu bear zizala igarri eutsan
unean egin zan, eta orrenbestekoak zuzen-
tzeko jarrita egozanak egin ez edo ezin
ebelako bete erria bera alegindu da. Olako
askoren artean ara bat: gaixo-berebil bat
bera be ez izatea errian!

Bat-egite onek alde eragingarriak eka-
rrazan. Alde batetik, beti arduratsu ibilli
arren, ordurarte sakabanatuta eta albo-bi-
deetan aurrera alkarrengandik urrin ibillia-
gaitik, ezer aundirik eta onik osotu ezinda
ebillaza Alkarte askoren indarrak eta al-
menak, batu al izan zituan.

Era berean, erritasun zintzoan oiña

GALARRETA

OSKITEGIA



E I B A R
BERGARA

Loreley

AKEITETXEA

CLUD Richard

76-20-15 urrutizkiña
BERGARA

OXIRONDO

KIROLAK

Barrenkale, 32
76-11-36 urrut. BERGARA

LETE

OIAL - ESTALKIAK

EGITE - BERRIZTE - ERAENTZA

EGUTERA, BALKOI, AKEITETXE TA ABARRERAKO
MARGO ASKOTAKO BELAKIAK

Zubieta, 34 - 76-12-24 urrutizkiña
BERGARA

Amaña, 1 - 71-81-33 urrutizkiña
E I B A R

San Andres auzunean - 79-23-83 urrutizkiña
ARRASATE

Idarreta Etxea

BERGARA'N

EMAKUME TA GIZAKUMEEN JANTZIAK. BALENZIAGA TA
GIVENCHI'REN USAI GOZOAK. GEMAIN MONTEIL'EN
ARPEGI-APAINGARRIAK, ETA ABAR.
GAUZA ONAK ETA MODA-MODAKOAK
EMENTXE SALTZEN DIRA

ARRA



FILO AGIRRE

DROGATEGIA
USAIN
GOZOAK

Bidakurutzeta, 6
76-10-25 urrutizkiña
BERGARA

BAR intxorta

AKEITETXEA

Barrenkale, 34
76-22-76 urrut.
BERGARA

Zubikua

—FELISA ELKORO—

GALTZETORRATZ
LANAK
UGAL ETA NARRUZKO
GAIK

Barrenkale, 24
76-10-16 urrutizkiña
BERGARA

ERAKUSKETAK

III onen lautik amarrera egiteko da Bergara'n sellu ta diruen III erakusketa, ain zuzen Erri-etxeko areto nagusian. Erakusketa au Bergara'ko Sellu ta diru-bildumazaleen Elkartek eratzen du; ala ere, au esan bearra dago: lenbiziko erakusketa IRIGOIEN PATRONATOAK eratu zuela eta lenbiziko aren ondorio ditugula Elkartea sortzea eta arrezkeroko erakusketak.

Nolanai ere, IRIGOIEN PATRONATOAK erakusketa guzietan asku artu izan du; izan ere euskal kulturaren aldeko lanak dituela bere xede ta elburu, euskal-gaiezko bildumentzat sari bereziak jartzen bai ditu.

Gai ontaz zerbait jabetu naiez, bilduma-zale batengana jo degu, eta MIREN GON'ri galdera auk egin dizkiogu:

—Zer nolata sortu zitzaizun zale-tasun ori?

—IRIGOIEN PATRONATOAREN laguntzalleen taldeko naizelarik neri egokitu zitzaidan lenbiziko erakusketa gertatzen jardutea, eta orduan asi nintzan bere aleak biltzen.



—Nolakoa dezu zure bilduma ori?

—Nere bilduma euskal gaiezkoa da; eta zergaitik galdetuko bazenit, biotzak eskatzen didalako erantzungo nizuke. Diru oien bidez ikusten eta ikasten degu Euskal Erriaren kondaira.

Nere bilduma iberiar-garaiko euskal diruekin asten da eta Euzkadiko Jaurjaritzakoekin burutzen. Tartean, Naparroa aske zaneakoak eta erdibitu ondorengoak dauzkat.

—Zer ikaspide nagusi dario, zure ustez, bilduma orri?

—Ez gutxi; baña bat nabarmendu bearko banu, auxe esango nuke: 1830'garren urteetan ere, oraindik Naparroak bere dirua jotzen zuela, Españakoagandik bereiz. Adibidez, Naparroako dirutan azaltzen dan Fernando III, Espāniako VII degu.

Euskal nortasunaz ari geranean ez gerala, beraz, ain aspaldiko gauzez ari.

ERROMAN

ERLOJUTEGIA

arantza

BEZUA
GAIK

Barrenkale, 4 - 76-10-04 urrut.
BERGARA

maza

SOIÑEKOGINTZA'TIK
AGURRIK BEROENA
BERGARRAREI
ERRIKO JAIETAN



Bidakurutzeta, 9
76-16-25 urrutizkiña

BERGARA

TU - NAI

rrituta, erriak berak be esku artu al izan dau aspalditik aztuta eukazan arazo-zuzenketarako jokoetan. ALKARTU-NAI onen eraginetik sartu al izan dau bergararrak erri-zuzenketa jakintzearen ezkutuetan.

Gaixo-berebil, Zar-saritu Batzokia, Aur-baratza, Gaztetxo Biltokia... orra osotu al izan diran lengo ametsak; eta aurrera jarraitu dagien, lan gogorrean diardu.

Onez gaiñera, begira zenbaterainoko diru laguntzak Gor-mutuen, Buruz-atzeratuen eta Beartsuen Ekintzeri emonak. Guzti orrek aurrera dagian, eta Alkarte onen iru urte ta erdiko bizitzan, zazpi ta erdi milloi lauerleko erabili dira berak batuta.

Ondorenak ba, eurenaz, argi ta garbi erakusten daukue gure Euskal-Erri'ko Lagunarte jator oneik barrutik daroen al bultzalari indartsua; itxuraz tripezain'utsak ba' dirudie be, ba-da tartean alako egin-bear eta on-gora sutsurik.

LARREATEGI'TAR IDOIA

OIALAK

PORTU

JOSTUNDEGIA

Mazterreka, 1
76-24-93 urrutizkiña

BERGARA

IKUSGAIK ETA ORDULARIAK

J. LARRAÑAGA

BEGI-OSKOLETARAKO LEIARRAK

BETAURREKOTXOAK, BIGUNAK

San Pedro, 28
76-15-75 urrutizkiña

J. C. Guerra, 2
79-29-95 urrutizkiña

BERGARA

ARRASATE



Tel. 762050-VERGARA

Ariznoa, 3

AKEITETXEA

EGONALDI BIKAIÑA TA AKEIT ON
BAT LAGUN DEZULA EMEN. ATOZ!

76-20-50
76-27-79 } urrutizkiñak

BERGARA


Talleres ELAY, S. A.

TROKELGINTZA

LAN ZEATZ ETA NEURRI BETEKOAK
ULE - ULEKO EBAKETAK

Lizarraga'rako bidean z/b. - Korreo kutxa, 1
76-27-42 ta 76-27-43 urrutizkiñak

ANTZUOLA



IKASI BEAR IZ- ATEN ZANEKOA

Edestia aztertzen

Udabarria zan, Pasku egun onetako lez, baiña gaztetxoagoa, Jorrallekoa izan be, 1551 urte aretan eta Deba ibaiaren inguruko ibarretan eragingarria izango zan zerbait gertatu zanean.

Erroma'n eta orduko ludi ezagun osoan osperik aundienetako gizon batek, aundikien ingurutik igesi, Gipuzkoa aukeratu eban bere —mitxeletak lez— soiñeko ta batez be bere gogoko itxura aundikiak baztertu ta apaltasunez jantzi ta Jaunaren eta erri on aren onerako lanera joteko.

Gizon aundi au Borja'tar Pantzeska deuna izango zana ta aurretik Gandia'ko Duke indartsuaren izena erabillena zan.

Oñati'n aukeratu eban bere bizi lekua, baita bere erabarritze arentzako eskutua. Matxalen deunaren basaelizea artu eban gogo-indartzeko otoiz leku.

Jaunaren otseintzan aurrera oiala, erriaren arazoak zuzentzera be deitu izan eutsen. Auzi garratzetan bitarteko be izan zan, emen Bergara'n be bai. Elizkizunetan itzaldiak emon bear izan zitun; izlari zorrotza, ebagia ta zuzena ei-zan. Lenengoetan euskal-itzultzaillen iztarriekin laguntzen zan, baiña berak be euskera zati bat ikasi ei-eban, eta esan-aldi laburrak be irakurri edo esan erriaren aurrean pulpitotik.

Irakurri naiz esan, ikasi ebala zerbait ezin ukatu, ta orretarako erria bera eta inguruko ikasiak lagun izango zituan, idatzi be berak edo beste norbaitek egingo eutsazan jakingarrienak.

Erria, entzulea, euskaldun utsa zan, eta Bizkai'ko aditz jokoaren jabe emengo inguruetan. Oni itz egin bear izaten ebenean elizgizonak, euskerea erabilten ebela garbi dago. Orra ba, naita nai ez, Borja'tar Pantzeska deuna be, euskaldun orrein artean alegiñetan.

Erri askotan, elizkizunetan itz egin izan ebala dakigu. Asi Tolosa ta Azpeiti ta Oñati'tik zear Bergara'raño. Danak euskaldunak.

Jakiña da, orduko gipuzkoarra izkuntza bakarduna zan, % 99'an euskeraren jabe. Eta Bergara'n be beste orrenbeste.

Emen, gure erri onetan be bizi izan zan alditxo baten, ta bein amar

milla lagunuen aurrean itz egin. Entzule danak inguruetakoak ziran, amar leguatik barrurakoak. Belarri euskaldunen itxasora itz egin bear izan eban.

Zenbat esan-aldi, itz eta aolku emongo ete ebazan euskeraz? Or, gero eta aurretiko itzaldietan be zenbat aldiz? Ez ete-da iñun, onetarako, ikasi ta jendeaurrean irakurtzeko erabilliko ebazan orrien aztarranik?

Ea mutillak billatu ondo baztarreran!

BEITXI

O P I L E T A
G O Z O K I Ñ A K

GOXO-TOKI

Ariznoa, 3 - 76-12-35 urrut.

Oxirondo, 36 - 76-23-37 urrut.

BERGARA

DOLLY'S

B O U T I K E A

Ariznoa, 5

BERGARA

JATETXEA

ETXENAGUSIA

BALENZIARREN UR-OLO

GOZOA EGITEN

BEREZITUAK

Bidakurutzeta, 11

76-20-08 urrutizkiña

BERGARA

MAZURRIAGA

ZEUREZ-AUKERAKETEA

ETXERA BIALTZEN DA

San Pedro, 21

76-12-25 urrut.

BERGARA

ARGAZKI TA
ZINE GAIK

ARGAZKI

Barrenkale, 16

76-18-81 urrutizkiña

BERGARA

JANTZI TA
BITXI-TEGIA

IGARTZA ETXEA

emengo ta erbesteko

artillik onenak

Ariznoa, 15 - 76-24-88 urrut.

BERGARA

IRRATI TA ETXERAKO
TRESNAK

BERGARA IRRATI-ETXEA

J. URIBESALGO

San Pedro, 27

76-19-89 urrutizkiña

BERGARA

FERRETERIA UNCETA, S.A.

Landola tresnak - Galtzairu neurri zeatzekoak

Langailu guzietarikoak - Leunketa gaiak

Ibarrekurutz kalea 14

71-10-00 Urrutz.

Apartado 18

E I B A R

GOZOTEGIA

E R I K O

Ezkontza ta Jaunartzeetarako opil-gintzan berezituak

Etxera bialtzen da

Kareaga Goikoa, 15

Menendez Pelayo, 2

491030 urrutizkiña

493059 urrutizkiña

B A S A U R I

ARRIENAKO

BARRIAK

Galdakano

ERİYOTZAK

Egunokaz ainbat eriyotza izan dogu errian, baiña geyen samindu gaitubanak urren idatziko doguzanak izan dira, ain ezagunak izanik errian, gure adizkide on izan doguzalako euskatzale bi oneik: Bata, Intxaurralde'tar Joseba-Mikel sasoiko mutillaren illetak izan doguz, aurreko egunean eta Bilbo'ko osatetxe baten ogeita amazazpi urtedun zala ilda-koarenak. Mutil alai au kiroltzalea zan izan be, ta Galdakano ostikoketa bazkune-ko batzordean zan. Beraz, kiroldarren artean guztiz ezaguna.

Jorrañil orren 27'ganean be, gaixo zata- rrez illetan edo urteetan izan ondoren, Jaunak Bere aldamera eroan eban Arrandiaga'tar Joseba, irurogei ta ama- zortzi urtedun zala. Firestone landolako zar-sarritua zan berau.

Gizon zintzo azkar argi au, jayotzez elantxobetarra zan, baiña aspaldiko be- rogetak urteetan gure errian bizi zan, beraz oso ezaguna. Gaiñera, Firestone landolako goi agintaria izan arrik, ezeta- riko arrokeri bakoa. Gizon argia ta eus- kaltzalea zan ezketiño, guztien adizkidea zan itxas-basterreko seme txairo au. Goyan Begoz adizkide agurgarri bi orreik eta lagun gaitube aldi samin ontan euron sendikide guztiak.

TXORI ABESLARIAK

Udabarrin izaten dira izan be, geyen baten, txorri abeslarien leyaketak eta erri ontako «Txorien Lagunak» bazku- nekoak Orril onen 18'raiko gertatu dabe XIII Txori Abeslarien Leyaketea. Azke- nengo urteetan ospatuten zan Sagardu- landan izango da, au da, erriko enpara- ntzatik berreun neurkiñera, «Bidorreta» ixenaz ezagutzen dan inguruan.

Leyaketa polit eta alai —jakiña alai izan bear abeslariena izan ezketiño— ontan aurkeztu legikezan txoriak, kar- dantzillo, txoka ta onein nastuak izango dira. Ez dago esan bearrik, Euskalerrri guztiak ekarri leikezela leyaketa ontara txori orreik, eta aurkeztu be egingo dabe- zalakoan gara aurreko urteetan ekarri dabezan bezela. Aurten be garai-ikur ikusgarri ta sari onak izango dira txori- abeslari irabazleen... ugazabentzat. Be- raz, irakurle, txori abeslari bizkorrik edo geyagorik ba'daukazu, artu ta etorri, etxatzu damutuko-ta. Errikoentzat be sari bereziak izango ei-dira, ta emengoak be aurkeztuko dabezalakoan gagoz. Orril- laren amazortzitate ba, irakurle txori- zalea!

GAIXORIK

Bilbo'ko osatetxe nagusian aurkitzen da Uriarte'tar Gergori euskaltzale ja- torra, beraz, AGUR'en arpededuna. Esan dauskuenez, oberantz andija eginda aur- kitzen da, ta bearbada, lerro oneik argia ikusi dabeneko, Tximelarre auzune zora- garrian izango da, ta orretara nai gendu- ke: guztiz osatuta.

AGUR ADIZKIDE

Goragoko lerroak idatzita doguzala jakin dogu: Bilbao'tar Emeteri gizon argi ta oso ezaguna, langille azkarra izanda- koa, Jarraillaren 28'ganean il zan Zabalea'

ko auzunean, 82 urtedun zala. Goyan Bego adizkide ona, ta lagun gaitube bere sendikideak aldi samin ontan.

BASA-JAUN

Arrasate

EUSKAL JAI

Joan zan illaren 26'an eta emengo «GUREA» antzokian, jai polit bat izan genuen. Eskoriatza'ko «Almen», Oñati'ko ta emengo Ikastolakoak anto- latuta. Lenengo, «Almen»eko bertolariak osotutako zortzi neska-mutil taldeak erakutsi euskun bere trebetasuna. Aurkezleriak, Goikolea'tar Patxi'k, ederto esan zuanez, biar edo etzirako kimu barriak oyetan datzela.

Ondoren, gure Ikastolako bostgarren mailan diran neskatoak bi abesti polit abestu zituzten, bai ederto gaiñera. Baita emengo laugarren mailakoak ere lau dantzaketa eder eskeñi, eta oneik ere oso ondo. Onen txistulariak be emengo Ikastolakoak ziran, eta euren zuzendari, Ezpeleta'tar Jon amar urteko mutikoa, beste amar neska-mutil txistularikin. Talde ederra ta laister oso trebea izango dana.

Gero, Altube'tar Seber gure erritar euskeraza- learen omenez eraturako euskal idazleen leiaketa irabazle izan ziranari sari banatzea. Ogeiren bat izan ziran irabazle saridunak eta danen izenak ezin emen ipiñi, luze izango litzake-ta. Lenen, irabaz- learena emengo dogu: Iturrope'tar Mikel, oñatiar gaztea.

Azkenez, erritar euskal-maixuak, Zaitegi'tar Tokin'ek, itzalditxo bat esan euskun, an gengoan guztiok, naiz kalean naiz etxean euskera erabili bear dogula eskatuaz. «Agur Jaunak» guztiok zutik abestu genduan.

Eskerrak eratzailleai, sari irabazle ta tarteko izan ziran guztiak. Ta zelaz ez, Goikolea'tar Patxi aurkezleri jatorrari, ain ederto egin zualako bere lana. Baiña larrosak ere beren arantzak izaten dituzte, ta jai oste onek ere bereak izan zitun; saritan emon ziran liburuak eta antzokiko sarreran saltzen zituztenak, «asmatura» izenekoan egiñak ziran guz- tiak. Ez al dute begiramen geiago merezi igazko urtean agertu ziran 18'raiko 36 idaztiak? H'dun 20 oiek aña? Ea urrengoan alderdikeri gutxiagokin jokutzen dezuten.

ERİYOTZAK

Donosti'n, gexo txar baten ondoren, Elortza'tar Goizon, 66 urte zeuzkala il da. G. B. Bere bizi- bidea etxegintza izan zan eta Arrasate'n etxe asko jasorikoa. Naizta jaiotzez oñatiarra izan, oso ezaguna genuen. Samin agurra bere emazte ta beste semideai.

DANOK

Izen onegaz ezagutzen dogun Alkarteak bere urteko Batzar Nagusia izan du. Lan aundia egin zun igazko urtean. Onek ere, or-emen, arantzako batzuk izan ditu, baiña parkatzeok dira beste lan on askoren tartean. Lendakari, Elortza'tar Bingen izan da autatua, ta urte on bat izan dezala opa diot euskerai alde lan gogorra egin dezan. Baiña alderdikariak alde batera itxita.

«IBUR»EGAZ NAGO

AGUR onen 182'ganean, «Bigarren» izenbu- rutzat dun idazlan txikia ta polita irakurri al izan dogu. Bertan, beste gauza batzuen artean (?) ala (-) noiz erabili agertzen du. Onetan ez genuke ezbarrik izan bear, erridideari jarraituaz. Olango lantxoak sarriago agertu bear litzakez gure aldiz- karietan, ori litzake ba batasunerako biderik onena.

ERAKUSKETE

Gure Udaletxeko aretoan erakusketa bat izan da. Au, seguratar Telleria'tar Joxe Mari'k eskeñikoa. Margoketa polit eta ederrak agertu ditu, ta ikusle ugari izan da. Asko gustatu dira. Zorionak damo- tzadaz margolari bizkor orri.

UDALAITZ

Arratia

MINGAIÑA, BIOTZA, DIRUA

Danok doguz batez bere lenengo zer biak, eta miñaren esateetatik eta biotzaren egitee- tatik aguro jakiten dogu nor zelakoa dan, edo garen.

Eta zelakoak ete gare ba? Alakoak eta alakoak, eta geien batzuek, aurren neu nozuela, mingaiñez luze samarrak eta biotzez zekenak. Sakon itxurazko abertzalekerietan taberna-zuloetan diardugunean, eusko-jaietan eta beste jai ta abarrik askotan alkartzen garen bakoitzean barri-lapiko, txatxu ta minluze agertzen gara. Errizaletasun esnatzalle (itxar- tzalle) a izan zan aiñako aundi ta gartsu.

Egiteetan ketoak eta motelak gara, eta emoteko aldia datorkunean barriz... besoa motz (labur) eta zakela sakon.

Eta biotza? Zelako biotzondoa dogu? Gogorra, errukigabea... Zeken utsa. Eta etxe- etxe arazo edo zeren bat, geure-geurea dan auzi naiz ekintza bat itoten eta ezin bizirik dogula jakiñik ere, txera zekena izaten dogu atera datorkun eskalearentzat. Itteko arris- kuan diran zerentzako arnasa edo diru- laguntza eskea egitera datorkiguzantzat.

Bateri ta besteri, ango ta emengoei, etxe- koari ta auzokoari itaundu (galdetu) izan dautsiet ea zelako osasuna daben euskal aldizkariak.

Ezkerretik naiz eskumatik, kukuaren kuku- abesti bardiña entzunik natorkizue. Kuku larria, kukuketa estua. Naigabetsua.

Noiz arte biziko ote dira euskal aldizka- riak? Non dira euskal aberatzen diru pillak, aberatz barrien arrokeri ta be-maillako lan- gille biozberak?

Ni au ta ori naz, besoak gurutzan imiñi, ta geldirik dagona ezer egin gabe... kankallu zuri-zuria ez ba'da... oñetatik bururaino arlote.

Goizean goizero etxetik atera beste gabe, or joaten gara amar lauerleko eskuan, indar- tsua ta aberatza dan erderari gosaria biotzez eskeintzera. Zer dogu il-zorian doguzan euskal aldizkari ta zenbait eginkizunen osasun gaixotua indarbarritze? Biotza legor, mingaiña laban, emoteko ordua datorkigunean, mukerkeria.

Izartegia goibel dago; goizetik gauera, gaur, euria zarra-zarra. Itzalirik (amateurik) ikusten dogu Erriaren euskal-garra. Eta barruko arra? Eztizko oe gozoan. Palentzia'ko mantapean, zorion osoan.

Sabin eta aren lagun zintzoak euskal- izkuntzarentzat gura eben garbitasuna egiten asi ziranetik oraintxe arte, amaika biderrez entzun izan dogu «garbikeria» itza.

Batzuek garbikeritzat daben garbitasun orrek, bat-bateko garbiketa orrek, erderaren kutsuz (kontajoz) antziña batetik galduta, aitzuta edo bazterterrik doguzan itzak, jato- rrenak izanik ere, aldizkari ta irakurgaietan eurrez (ugaritasunez) idatzi ta gogorkeriz

janarazoteak gogaitzea, aspertzea... kaltea lekarkigula uste dabentarioko bat nozue... baiña neure burutasun edo eretxi apala emen...

Goitik egurra, sayets-artean eztena; bela- rriak eta surra zauka-mauka jan, begiak atera... Euskera gaixoa pitika-mitika ta zabar- keriz erderatzea baiña, ez al litzakigu zu- zenago ta obe: bere-bereak ditun itz jatorrak berbiztu, geikeriakaz inor aspertu gabe. Bide bigunetik jarraitu, astitsu; itz galduek irakur- learen begietara gozokiz agertu... erdel-sunda kendu ta etxeo arnasarekin morroskotzea?

Burulanez gizonak asmatutako ainbat tresna ta gauza barrientzat izen egokirik ez ba'dogu, edo asmatu ezin ba'dogu... gure izkuntza baiña aberats-indartsuagoak be egi- ten dabe-ta, datorkiguzan izen eta zer barriak datorkiguzan lez artu, esan eta etxekotzea ez dot uste lotsagarri izango litzakigunik. Lotsa- garri gorria, bururik eza ta negargaria beste au da: moskor-itsuturik eta buruari nekerik emon barik «señorito-señoritaki» itzak Gaz- tela eta Prantzi'tik ekarri, ostatu berebizikoe- nean aterpea ta habesa emon... etxeo ama zarrari, JAUNGOIKOAK LAGUN BEGIO.

Keri guztiak izango dira txarrak, baiña buru «luzidament» haundia duten jaun «doktor» «errespetagarrien» «aprobazioz» «bendezidutako» zikinkeria («euskal nazio- nalist mugimendu klerikalak sujeritutako lite- ratur sozialaren intrisukuek») baiña bein, bider eta milla aldiz naigo dot, nik neuk beintzat, abandotar irakasle zurrak asiera emondako euskal-izkuntza garbia. Garbiki- rriaren zeretik zer noraiñoko kalterik letorkigu? Zikinkerian ondoriorik ondorengoena... go- rrotoa, amorrua, izurria. «Pestilentzia».

LANDAJUELA'TAR A.

Zeanuri

JAIK

Asi dira gure errietan jaiak ospatzen; lengo astean emon gendun Zeberio'n egingo ziran jaien barri; orain Zeanuri'ko barriak emon bearrean gagoz.

Erri onetan Isidro deuna'ren jaiak ospatzen dira, baserriarren patroyare- nak.

EGITARAUA

Egitarauari buruz, ez daukagu barri aundirik; lerro oneik idazten nabillenean, urten barik dagoz ba egitarau orriak.

Baiña zeoertxo atera al izan dogu egingo diran jai batzuetaz.

Jaiak izango dira, Orrillaren 7-8-10-11 ta 15'ganean. Egun oneitan idiprobak egin- go dira, egunean ekiñaldi bat bakarrik. Amabostean, goizean ere izango dira.

Sariak ugari dagoz, 152.500 pta. zati- tuten dira 12 sari emoteko eta beste sari asko be bai.

Orduak: gabeko 10'etan, 7'an eta 10'ean. Arratsaldeko 5'30'etan 8-11 eta 15'ean eta emen, askenengoan, goizeko 12'30'etan ere.

Erromeria alaitzeko NEKEZ taldea egongo dala entzun dogu, baita pelota- jokoren batzuk ere.

Jangoikok lagundu eta denpora ona egin, ez da falta izango Zeanuri'n alaita- suna jai orreitan; orregaitik ba joan erri orretara egun on bat igarotzen.

GAUR-TXORI



eziketa jostailluak eskulanetarakoak irakasketa gaiak

gregorio de la revilla, 1 bilbo-11

Jolasean ikasi, or zure aurrentzako emoitzarik onena

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

ZAZPI-KALEAK



CASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIQUEAK

MENDARO

Euskaldun erri jatorra. Umeak be, emen, euskaldun sortzen ditue, euskaldunak ekarri, ez beste toki askotan lez prantzetarrek, Paris' etik.

Mendaroarrei sekula ez yakoe bururatu umeak Paris'tik ekarten dirala esaterik. Emen-goak, dan danak, Santa Ana'tik ekarten dira. Ala esaten dakie emen. Eta Santa Ana, Garagartza'ko auzoan dago.

Ezin ukatu nortasun bat emoten dautsala erriari. Nai eta Mendaro, erri legez, oraindik sortuteko egon. Ori da emengoan miña. Bizitako al izan, norbere jaube izateko duin izan, eta alkate bi erriaren agintzen eta eurak makilla bagakoak, beste alkateen ordekoak. Sasoi bat egon zan, 1546 urtearen inguruan, elgoibartarrak Mendaro osoa eurentzat artu nairik ibilli ziranekoa, baiña Mutriku'k bereari ten egin eutsan.

Mendi andien artean, ur ugarien egalean eta bide egokien aukeran egiten da Mendaro. Tren eta guzti.

Ala ta be erri bi berari agintzen, bertako jaubetasuna agertzen: Elgoibar eta Mutriku. Iñoiz Deba'k be euki eban zatiren bat emen. Eleizaz be parroki bi, eta orrez gañera, iñoiz artxipreste biren mende eta errialde biko epaikitza edo juzgaduak neurriak artzeko.

Eta ori, mendaroarrak egunero alkarregaz lanean diarduela, alkarregaz jolasean eta tabernan, sentimentuetan eta bizitzan, anaitasun betean diarduela.

* * *

Urteak dira. Bilbo'tik Donosti'ra bitartean, Mendaro'ko geltokian trena geratu ordukoxe, andrazkoak urtetan eben deika, otzarabxuetan erabillen gozo txortea saldu nairik: «Mendaro'ko bizkotxoak!» Erderaz eskintzen eben, egia da. Eta paper zurietan irarritako bizkotxo biribil bigunak saltzen zituen, eskatu aña, ortarako zenbat eskatu ainbesteko luzetasunean papera ebakiaz.

Trenak jentea galdu eben eta erriak zergak geitu; erostzalleak urritu eta saltzalleci bizia karutu. Origaitik eskintzalleak mututu ziran eta gure trenak, «baskongaduak», arrezkero esnagarri bat galdu. Laster, bizkotxoak, monjen eskutuko lez geldituko dira, zizpuruetan.

Atsegin egiten ziran Mendaro'ko bizkotxoak. Emen ez zituen egiten, erri batzuetan lez, kanonigoen gorringoak, edo ta santuen azurrak, edo santaren baten gurikeriak, gozoetan. Mendaro'ko bizkotxoak eta erroskak, soil-soilik eta kittu. Ba dirudi azpilgoetatarrak eta garagartzatarrak alkartu egiten zituela euren nortasuneko bizkotxoak eta erri baten duintasuna emon.

Len be esan dodanez. Mendaro Deba errekearen bideak erdibituten dau eta ez dauka, legez, erri nortasunik. Parroki bi eta erri etxerik ez. Zati bat, Garagartza, Elgoibar' en menpe, eta bestea, Azpilgoeta, Mutriku' rena. Ala ta be eurok mendarotarrak deitzen dira, bateko nai besteko izan. Mendarotar agertu beti.

* * *

Milla ta zortzi eun oiez gain artian irurogei t'amalau garren urtian, Abenduak amabost, goiz alde tristian, jaio nitzan Mendaro'n errota batian, lengo gerratian, arbolan tartian, leku politian; oindaño artian pauso txarrak emana nere kaltian.

Ez joan urrunera bertsolari ori nor zan jakin nairik. Eusebio Mugertza Azpiazu zala esaten ba dautzue, ez ainbestetan burua nekatu nor ete zanka. «Klabeliña»ren semeagaz gaur iñor ez da gogoratuko, nai eta bere amari, andre eder zalako, sasoi baten orrela deitu. Billatu beti erriaren izena. Orrela «Mendaro Txirristaka» nor zan jakingo dozu.

Ondarroa'n, 1926 urtean, eguna zabaldu orduko ikusten gendun merkatu plazan, bere abots lodiz bertso saltzen. Eskutik kentzen eutseezan bertso paperak. Donosti'ko estropadetakuak ziran:

Ta biar det adierazi bizkaitarrak dutela errez irabazi. Pin pon!

Ori zan berak orduan, estropada areitako bertsoetan erabilten eban errepika edo estribilloa. Jakiña, gu, urte aretan, estropada orreik irabazi ziralako bitsetan ibilli giñan. Gora eta txalokaz batera kontseju ederrak be emoten euskuzan, olakoetan biztu eragiten diran errien arteko ikusi ezin eta txikikeri askorekin konturatuta:

Eta edozein moduz ez errietan ekin, guziok bizi biar dogu alkarrekin.

Oraintsu omenaldi erriko i bat egin eutsen. Bere bertso saila agertu be bai «Auspoa»n. Askok gogoratzen dabe oraindik inguruetan. Ogei urte dira il zala, bizitzatik txirristaka iges egin ebala.

* * *

Arnobitarte, Arnobate? Guk Arno-ate deitzen dautsagu. Ez dakit zein izan leiken bere izen egokiena. Baserri ori dagon tokiari begiratu ta danetara be esan leike.

Euskal ikastetxe nagusia, unibersidadea baserrietan dagola? Jakingarri eta deduzko izango litzake Euskalerrri'ko osagilleen bizitza bat egitea. Nai ta sasi medikuak deitu. Ezin ukatu nortasun andia euki ebela orrelako askok eta gaur be daukela, batzuk, erriaren arrera eta konfiantzan.

Ikastetxe andietara joan barik, izadiak daukazan birtuteak ezagutu, belarren gaitasunak ikasiz, titulodun mediku askok baiño erriaren fede geiago eukenak ziran. Ez bakarrik bateko edo beste ko miñak kendu edo arintzeko. Azur apurtuak konpontzeko be bai.

Arnoate baserrik urten eban Arrillaga batek. Eta kendu txapela bere aurrean. Semeak be aitaren bidetik jarraitu nai izan eban, baiña aitaren irakaskintzak ikastetxe nagusietako aukerakin alkartuta.

Dana dala Arnoate'ko eskola egona da. Eta ez eskutuan, erriaren begien aurrean eta biotzen eskarrez baiño.

Mendaro'n, Garagartza aldean eta Azpilgoetan, 72 baserri etxe batzen ziran. Gaur, ogeiren bat gitxiago. Eskudodunak iru: Etxabe eta Lasalde alderdi batetik eta Ospas bestetik.

* * *

Uskeri bat naiku izaten da iñoiz egintza edo gertaera orren ondoren luze bat gelditzeko.

Bizkotxoak aitatu doguz. Bein Isabel II, erregeña, Gipuzkoa'tik ebillala, Mendaro'tik igarotean, bertan gelditu zan. 1.845 urteko gauza da.

Egun aretan Mendaro'ko sakristauak ez zitun kanpaiak bakarrik jo. Bera aukeratu eben erregeñari erriko oroitza bat eskintzeko. Erregalu ori, jakiña, mendarotarra izatekoan, bizkotxoekin izan bear eban. Eta sakristauak, eskintzean, berba gozo eta usaintsuak euki zitun erregeñarentzat. Bere zeregin edo ofizioak ain zuzen be: intzentsuzkoak. Itxuraz egoki, gozo eta labor-labor.

Origaitik erregin orrek beste erri eta inguruetan loraz, koipez eta lizunez betetako itzaldi utsak entzun bearrez erdi aspertuta egoten zanean, bere albokoen bateri esaten ei ekian: Nun ete dago Mendaro'ko sakristau jator a!

* * *

Laster ikusten da Mendaro. Parrokiak txukun barriztauta. Kale txikiak, ez zuzenak. Augustindar monjaen konbentua, 1561 urte-tik datorrena, lagun-arte bat edo beste ta Kilimon. Parkatu, kittu.

Urruzuno zanak, ijitoen kontuetan euskal idazlerik irritsu eta barregarri eta ugarienak, ementxe ikasi ei zitun bere ijitokeriak, eta ementxe idatzi be bere liburuak.

Jente langillea. Sasoi bateko olagizonen errastuak ba dira oraindik be. Ba dakie beintzat bertan San Martin egunez olagizonen jataldiak egiten. Orduko giroa eta jarraintzallena igarten da.

Inguruetan, arrizko mendiak, betiko nortasuna erakusten. Jatorra da Mendaro.

A. ZUBIKARAI

AGVR

Apartado n.º 2
BILBAO

FRANQUEO
CONCERTADO
08/55

«RESURRECCION MARIA DE AZKUE» I LITERATURA BATZALDIA

Bilbo'ko Aurrezki Kutxa Uriko onek, Gizarte ta Kultura saillean, «Resurrección María de Azkue» izeneko I Eleder Batzaldirako dei egiten dau. Urterokoa izango da, eta ona emen.

OIÑARRIAK

1 DIRU-SARIA

Euskal-Kontakizunen «Resurrección María de Azkue» literatura Batzaldi onek, 125.000 (Eun eta ogetabost milla) pezetako saria izango dau, sari zatitu eziaña, eta saridun bage lotu ezin leitekeana.

2 SARPIDE

Neurketa onetara, edozein kontakizun (elebarri labor, ipuin, asele, azalketa) ager leiteke, baiña urrengo arauok bete bear ko ditu:

- Euskeraz idatzia izan, egillea edonungoa izan arren.
- Edozein euskalkitan idatziak izan leitekez. Epai-maikoek lanaren balioa aztertuko dabe, bere mamiña eta erabillitako izkerea ta ulerrerretasuna aintzat arturik.
- Lanak, berekiak ta argitarabageak izatea.
- Epaia emoteke legokean beste batzaldi edo eleder sariketaren batera, izen berberaz ala bestez, bialdua ez izatea; orrelan balitz, idazlea sariketa onetatik baztertzea izango litzateke, bertatik.
- Gaia, bakotzak berak gura dauana.
- Idazleak, lan bat ala geiago bialdu leike Batzaldira, bere izenez ala izenordez siñatuak. Bear izana balitz, ezaugarria azal txiki batean gordeta bialdu.
- Batzaldi onetara lanen bat ekarri ezker, egilleak ezin izango leuke ez bere lanik eskatu, ezta sariketatik aldegin be.

3 AGERKETA

Taxuari dagokionez, sariketako lanen baldintzak:

- Makiñaz idatziak edo makiñaz berregiñak, lerro bitarte bikoetan eta orrialde batez soilik.
- Lan bereki bakotzeko iru aldaki bialdu, liburu antzean gertuak ala josi-askatuak.
- Orrien neurria, folio dalakoa, idaz-lerroak 29 inguru izanik, orrialdeko.
- Egillearen izenaz siñatuak ala izenordez (argibidea, azal itxian, berezi) eta egillearen bizitokia edo nora-joa, argitu bearrik balitz, baita adierazoteko be.

4 LUZERIA

Ez 100 (eun) orrialde baiño gitxiago, esandako neurri ta taxuan.

5 NOIZKO BIALDU

1975 urte onetako uztaillaren 21'gna. baiño leen.

6 NORA BIALDU

Caja de Ahorros Municipal de Bilbao, Gran Vía, 23, Bilbao (1). eta ganera auxe idatzirik: «Para el I Concurso Literario «Resurrección María de Azkue» de Narraciones en Vasculence».

7 EPAI-MAIKOAK ETA EPAIA

Elederrean, izkeraketan eta irizkintza arloetan gai diranak izango dira epai-kariak; Batzaldi onetako epaia emoterakoan (Urriaren 31'gn. Aurrezki Egunean) adierazoko da nortzuk izan direan. Epai onen aurka ezin leiteke iñora jo.

8 AIPAMENAK

Batzaldi onetako lanetarik, Epai-maikoek diruz-saritua bat bakarria izango dan arren, eurek egoki baderitxoe, deduzko aipamen bat ala geiago egin leikeez, sarituteke lotu direan kontakizun batzuen balioa agiri-agirian jarteko.

9 LAN SARITUA

Orren asmo-jabetasuna eta lan ori argitaratzeko eskubidea, egillearengan lotuko da osoro. Orraitiño, Bilbo'ko Aurrezki Kutxa Urikoak eskubide au gordeko dau: saria emon eta andik urtebetegarrenean, bere bezeruei emoteko, argitaraldi arrunta egitekoa.

10 SARITU BAKOAK

Biurto egingo jakez egilleci, eta oneek ala ordezkariak eskuratu aal izango ditue.

11 ARTU-EMONA

Artutako lanetaz ez da idatzizko artu-emonik izango.

12 LEGE-BARRUTIA

Sariketa onetara datozenak, beste barrutiak lagata, Bilboko Auzitegien eskupe lotuko dira.

IKASLEAK EUSKALDUN AURREN EZIKETA

ERRIEN ARDUREA

Laterri ta aberri guztietan, geroago ta geiago, sartzen da ikasleen ardurea. Ortik dator etorri be, errien aurrera-kuntzearen indarrik aundiena ta bearrrena.

Ba dauka gure Erriak be, be-maillan eta ixillean, ardura ori. Egia esan gauza asko ezin doguz lortu eta al doguna egiñez diardugu. Jakingarri bat, gai oneri begira, eskoletan euskerea sartzeko eskaria egiñez agertu ta bialdu diran agiriak dira.

Baiña gure aldi onetan geien aurrera agertzen jakun gauzea, gurasoak ardura-tzea da. Lenago ikastetxeak eskatzen eutsena ordaintzen eben, eta or amaitzen zan dana. Gaur ez da orrelan. Gurasoak euren batzarrak eta bazkunak egiten dabez eta, eurentzat lenengo ta ikasleentzat gero, batzar orreik guztiz ongarri izaten dira.

* * *

IKAS-URTE BARRIRAKO

Aurtengo ikas-urtea be amaituez doaku. Gurasoak, irakasleak eta ikasleak eurak, urte barri bateri begira aurkitzen dira.

Eta ba dakar berea urte barri onek. Lege barriak ezarri zituan epeak, urterik urtera, beteten dira, eta aurten beteten dan epeak arazo aundi bat dakar. Oñiarri Ikaskintza Orokorra (E. G. B.) aurten amaitzen dabena.

Guztiak ikasten jarraitu bear dabe, ez dago ba, amalau urtekoak diranean lantegietara sartzetik. Geitxuago ikasi bear da.

* * *

BATXILLERRA EDO LAN IKASKETEA

Lenengo maillako zortzi urteak amaitzen dituen ikasleak, era bitakoak izango dira: ikas-gai guztietan ondo urten dabena eta txarto urten dabena.

Txarto urten dabena, edo urtea barriro egin edo lan-ikastola batera joan, ez dauke beste biderik.

Baiña ez begie itxaropena galdu. Lan-ikastoletako bidetik, beste edozein eldu leiteken maillara eldu leitekez eta.

Ondo urten dabena, ostera, bide bi dauke aurrean: Batxillerra edo Lan-ikasketea.

Bide biak dira onak, baiña batxillerrereko bidea artzako, Goi-maillako ikasketak egiteko almena eta dirua kontuan artu bearko ditue.

Lan-ikaskintzako bideak, ba ditu bere alderdi onak: Buruzko gauzak batera egitekoak ikastea, une baten ikasi-naia galtzen ba'dau, bear-leku bat eskuratzeta, gogotsu ikasi ezker gorengo maillara eltzeko erea...

* * *

ERRI-ARAZO

Baiña begiratu dagigun emen be gure izkuntzearen arazo.

Lengo ikasteetan ez dakigu zelan ibilli diran, baiña amalau-amabost urteko neska-mutil guztiak, urte bian gitxienez, batxillerrera ez doazanak, Lan-ikastola batera joan bearko dabe.

Eta gure Lan-ikastoletan zelan jokatzen da euskereari begira? Ete dago olakoetan benetako euskal-girorik? Ikasten ete dabe Euskalerrira jakintzea bere arlo ta mailla guztietan?

Irakasleak eta gurasoak kontuan artu bearreko gauzea da au.

Arlo guztietan irakasleak bearko dira, eta ez daukaguz bear litzaken beste ugari. Ikaragarria da izkuntza-arloan gabiltzanai aurkezten jakun lana. Eta bear dan besteko adorea ezkiten ez ete dogun nago.

Izan beitez berba oneik ardurabakoen barru-miña bizkortzeko.

Nere lagun Sakabi-berri'ko Ale.
23-IV-1975.

Gaur goizeko zortzi t'erdietan, bost irakasle erdiko kalean: lau gizon eta emakume bat. Boston erdian, Ale. Ale'k zortzi urte ditu. Sakabi-berri baserrikoa da. Bertako semea.

Sakabi-berri nun dagoen...? Zumaia, Zestua, Azpeitia, Azkoitia, Elgoibar eta Deba'ren ardatzean. Deba'ko erriatik Sakabi'ra ba daude amairu kilometro gutxienez. Itziar'tik Lastur'ko bidera jo bear da. Lastur eta Endoya'ko gurutze-bidean, Lastur-aldera artu. Gurutze bide orretan adago Aldazabal baserri sendoa. Santa-Kruz apaizaren gorde-lekua. Bide zabalik etzanean mendi tarte auetan, aukerako tokia zan Aldazabal bertatik liberal-gudarosteari erasotzeko. Andik bide-erdian bait daude esan ditugun erri oiek guztiak.

Aldazabal utzi eta Lastur'ko bidea artu bear Sakabi-berri'ra joateko. Lastur'era eldu baiño leen, ezkerretara bear da, sakonean aurrera, gero maldan-gora Izarraitz aldera igotzeko. Ango goi aietan, Izarraitz menditik ez aii urrutian, antxe dago Ale mutill kokorren baserria.

* * *

—Qué tienes, Alejandro? Maixuak mutillari.

Ale'k bekoki illun eta negarrez:

—Mal aquí.

—Zer dek, Ale? Sartu nintzan ni tarteko.

—Agiñeko miña. Emen.

Ori esatearekin batera ao-zapaia erakusten zidan. Egia da. Agiña dauka zulatuta eta beltzaran.

—Itziar'era nai det.

Baimena eskatu diet irakasleeri, mutilltxoa Itziar'era eramateko. Baietz, eraman nezakela. Gizarajoak agiña dauka zulatutik, aurgiegi zimurturik eta burua lepo-artean sarturik. Garaiz-aurretik xaartutako aguretxoa dirudi. Inguruak zapalduetako aurtxoa.

* * *

Itziar'en etzeukan familikorik iñor. Ezagunak, bai, beste gabe.

—Ale, egia esan; emen gelditzea ala etxera joatea nai dek.

—Goazen etxera; bestela biar ere berdiñ ibilliko gera. Atzo atera zidaten agiñ bat eta oraiñ bestea daukat gaxo.

Eraman dut Lastur'eko bidean. Bere baserri-ingumarietara eldu ala, asi zait umetxoa zabaltzen. Nola beroakin batera larrosa-burua irikitzen dan...? Ala-moduz.

—Au Trekuene da; ori, berriz, Ugarte; ura, Aittola-berri...

Bat-batean mingaiña askatu zaio. Gezurra dirudi. Au nik kalean ikusitako ume zapaldua izan litekeanik ere... Lumak arrotu zaizkio. Bere onera etorri da, mendi-erpiña zapaldu degunerako.

—Aizu-esan dit Aittola-berri'ra eldu geranean-an goiko tontorrean gurutze bat dago eta goazen ara.

Besterik gabe, ekin diot gorago, Sakabi-berri'ko bidea ezkerretara utzi ondoren. Goiko muiñoan gelditu dut automobilla.

—Ez. Segi aurrera.

—Baiña, mutill, bidea emen amaitzen dek...

—Ez al dezu or bidea aurrera dijoala ikusten...? Sartu ortik.—Ale'k neri.

—Ori ez da bidea, ordea...

—Ortik aurrera ere joaten dira, bai.



Sartu naiz basa-arteko bide erdi-urratu batean. Ura eta lokatza, arri-artean zuloak, galantak. Ondo edo gaizki (gaizki esan bearko, ondo baiño) ba goaz aurrera.

—Ale, nora ekarri nauk...? Au al dek ibiltzeko bidea...?

—Jodé, ez du azpiak lurrean joko, ez. Zurea baiño bajugoak diran kotxeak emendik ibiltzen dira beintzat-eta...

Zortzi urteko ume mukizu onek, nik bildur nuena asmatu du. Nundik...? Malkorrean aurrera goaz. Azkenik, orratio, ordekea eta zabal-gunetxo bat. Bertan gelditu naiz.

—Ez, gizona. Segi aurrera. Goiko gurutzearen ondoan txabola bat egiten ari dira-eta.

—Obe degu emen bertan gelditzea —erantzun diot. Ez bait dakit or goian zer dagoen.

—Beno, emen jexi eta oiñez joango gera.

* * *

Gezurra dirudi mutilltxo au nik Deba'tik ekarritakoa danik ere. Mendien-gora, burua tente, eskuak pratetako poltxikoetan, gizona dirudi.

—Ogei bei dauzkagu etxean eta txalak, zazpi. Gaiñera, mando bat eta bi asto.

—Ez dira gutxi.

—Eta mendian zazpi larra-bei. Irixkoa bota giñun eta txala egin du batek.

Bide-ertzean mendi-bei-taldetxoa eta txala amaren titietatik tiraka.

—Oiek dira gureak.

—Aberatsak zerazte. Zuek bezela ez da edonor bizi...

—Ango piñu-sailla gurea da...

Igo gera gurutzera. Tontor-tontorrean gaude.

—Ni onera tratoreakin etortzen naiz, fubolera jokatzerara...

—Emen, fubolean...?

—Bai, or beerago. Ni emendik eta beste biak or azpitik...

Ordu t'ardi ibilli gera mendian. Umearen alaitasuna eta segurantzia arritzekoak dira. Baztar auetako jauntxoa dirudi. Nere kideko egiña dabill.

—An ikusten dezu bidea...? Madarixa'ra joateko bidea da. Baiña, zure kotxearekin ez dago joaterik. Gu etxetik joaten gera tratoreakin...

Batera eta bestera ibilli gera gelditzeke. Agiñeko miñ guztiak alde egin diote.

—Ale, etxe-aldera jo bearko diagu...

—Goazen.

Sartu gera kotxean eta ekin diogu be-aldera zulutik zulara.

—Jodé, emen kontuz ibilli bearko dezu, bestela aldapa beera joko degu baztarra.

Arrazoi mutikoak; beetik-gora baiño okerrago da goitik-beera. Alaz ere, onik atera gera. Sakabi-berri baiño leen dagoen mendiatean gelditu gera. Ale'ren poza: antxe zeuden mandoa eta bi astoak. Baita osaba ere txillarrak ebagitzen.

—Mandoa laister-ume-egiteko dago.

—Eta, zer ume izango du...?

—Jodé, zera, bere klasekoa.

* * *

Zortzi urteko umeakin ari naiz. Aurten Komunio Txikia egiñ bear duan aurtxo batekin. Euskalerrri'ko biotz-muiñean jaiotakoa.

—Zer maixu dituzu eskolan...?

—Nik ez daukat maixurik. Gurea señoritea da.

—Ona al da...?

Bai, ona da; baiña, ni estu artzen nau.

Erriko kalean ikusitako ume zimeldua ara emen txistuka arro-arro.

—Ale, eramango aut etxerañio.

—Ez. Oiñez joango naiz; gaiñ-beera dago.

Eskua eman diot:

—Agu, Ale. Lagunak izango al gera?

—Bai.

Besterik gabe alde egiñ dit. Bide guztian burua oldozpenez betea ekarri dut etxerakoan:

Zer bizi-modu estua jarri diegun gure baserrietako mutikoeri zenbait eskola-batuekin...

—Noiz jeikitzen zera, Ale?

—Goizeko zazpiretan.

Eskola bederatzietan asten zaio. Arratsaldean, etxera biurtzeko, beste ainbeste. Etxerako lanak noiz egiñ bear ditu ume onek...?

Ale'ren irakasleak ez daki Ale'ren izkuntzarik; ez daki Ale'ren bizimoduaren berririk.

—Zergaitik etorri zera eskolara agiñeko miña zeukazula...?

—Amak etzuan eskola-galtzerik nai.

Baserriak ba du bere kultura. Bizitzan bertan oñarrizten dan kultura. Milla urteen buruan bildutako kultura eta eziketa. Zer naaste-borraste aterako ote da Ale'ren biotz-buruetan, liburu usetatik, berak ezagutzen ez duan izkeeran emendako kulturatik...?

* * *

24-IV-1975

Gaur Ale'ren berri jakin nai eta billa joan naiz goizeko zortzi t'erdietan.

—Sakabi'ko Ale etorri al da...? Galdetu diot mutill-asixamar bateri.

—Bai. Sakabi'koa emen zan.

Egia. Emen da. Matz-pasa ximela dirudi. Bekokia, zimurrez betea. Burua, beera, bular gaiñera. Eskubia pratetako poltxikoan, iztarra igurtziz eten-gabe, makiñak eraginda bezela.

—Zer, Ale, agiña atera dizute...?

—Ez.

—Agiñeko miñez zaude...?

—Pixkat, bai.


Goibel dago mutilla. Oiñ-azpian zapaldu-tako mamorroa dirudi.

—Joango al gera atzoko gurutze artara...?

Orduantxe sortu zaio ezpaitetan alako negarrezko irripartxo bat. Bat-batean itzaldtu zaio.

Gu euskaldunok aztikeri txarren batek jota gaude.

A. ARRINDA



Filologiazko jardunak

KATALAN IZKUNTZA TA EUSKERA II

Gai onen joan-aria artuaz eta Pompeu Fabra'k jarraitutako bideak aztertzeke, Francesc de B. Moll izkuntzalari katalanaren iritzia azalduko dizuet.

Fabra batasunerako zer izkelgi aukeratu zitekean ausnartzen asi zalarik arazo gaitza zala antzeman zion. Katalanera klasikoena, alegia, Ramon Llul eta beste mallorkatarren izkuntza zala jatorrena zerizkion. Guk Leizarraga, Detxepare edo Axular aitatuak ba' genitu bezela. Baiñan laister ikusi zuan Fabra'k klasiko oiek zarkituak zeudela ta gaurko katalandar eta balentziarrok oso arkaiko eta arrotz arkituko zituztela. Gañera mallorkatar izkelgia artzea % 90'rrek bestelako kataleneraz mintza diranean ez zan bidezko... Orren-gatik Fabra'k batasunerako Bartzelona inguruko era aukeratu zuan, indar geiago izatez gañera, erdikoa dalako. Emen Gipuzkoa'n euskera dan bezelaxe. Baiñan onek ez du esan nai ez an Bartzelona'koa eta ez emen Gipuzkoa'koa soil-soilik aukera bear ziranik, garbitu, aberastu ta osotuak baizik guztiontzat literatura-izkuntza biurtuaz.

Pompeu Fabra'ren «Converses Filologiques»en ori irakurtzen da; eta maisu aren «Normes» diralakoan begirune ta errespeto aundia beste izkelgietako esaerai. Bestenaz, Moll izkuntzalariak dionez aren arauak ez ziran ontzat artuak izango.

Berdin gertatu zan iztegi, lexiko ta mintzaerakin. Fabra'ren iztegiaren ez daude Bartzelona inguruan erabiltzen diran itzak bakarrik, beste leku guztietatik jesanak ditu. Eta Bartzelona'n gaizki esana kendu obe bearrez.

Guk, Donostiako izketan, «esan nau» eta antzekoak kendu bear ditugun antzera. Barbarismo, erderakada, solecismo ta mordollokeriak erauzi bearrean gaudela ondo erakutsi zigun R. M. Azkue jakintsu aundiak. Eta Pompeu Fabra'k berdin jokatu du.

Izkuntza zertu, gaitu ta aberastu izkelgi guztietako itzekin. Esate baterako: Lekuko = testigu; sukarra = jebre; adiña = edad; alorra = soro; larregi = geiegi; eta abar eta abar.

Antziñako idazleek batasun geiago dutenean guretzat artu, eta geroztik sartu zaizkigun erderakadak baztertu.

Katalan izkuntza ta euskera bat etorri ditezke onoko arauet jarraituaz:

1. Literaturarako erdiko izkelgia artuaz (Ark Bartzelona'koa bezela, guk Gipuzkera osotua, P. Fabra'k eta R. M. Azkue'k esan arabera).

2. Itz zaar eta gutxi erabilliak artu esaera berrietarako.

3. Joskera ta Morfologia alik eta jatorrena mugatu.

Euskaltzaindia'k bide ortatik ekin izan ba' lu ez zukean «euskera batua» «ametszekoa» sortu bearrik izango: ezta H' alperraren inguruan auzi zitala piztuko, erretzen gaituena. Beste utsegitea izen mordollokeriari atea iriki ta baimena ematea izan da. Eta gas-koinkeriari sarrera geiegi ematea. Andik zer ikasia baldin ba' dugu, ez dezagun itsu-itsuan guztia ar... Ain zuzen, Aditzaren infinitiboa laburtzeak ez al du illuntasuna sortzen?... Adibidez: DADIN AGERT = AGERTU osoa jarri bearrean; EZ DEZAKEALA IDEK = IDEKI'ren orde; DEZAN AURKI = AURKITU murriztuz ze al dijoa argitasunaren aurka? Nik ala uste! Eta azkenik H'ren ugaritasuna ta naspilla alde batetik, eta zergatik ILDOA, IXTORIA, OSPITAL eta beste ainbeste Hatxerik gabe...? Au bitxikeria ez ba' ledi sima gaiztoa!

Beste zerbait esateko gelditzen zaigu oraindik jardunaldi au bukatzearren. Izkuntza guztietan izan oi dirala garbizale ta mordollozaleak... eta bien artekoak. Ni ustez erdibidekoan nauzute edo obeto esateko argitasunaren aldekoa.

Asko dituzu erdibidezaleak dirala diotenak baiñan ez da aztu bear euskeraren erdibidea Gipuzkoa'tik pasatzen dala. Ta au da Gipuzkera osotuaren aldeko arrazoi nagusia. Eta beste ustelak ere ba-dituala joku irabazteko guztiok dakigu.

Itz berrri ta «neologismo» arazoan R. M. Azkue eta P. Fabra garbizale izan ziralda gogorazi bear diegu «kulturalista» mordollozalei. Erderazko itza ezin zeatz itzuli danean, guretzat artzea, ondo derizkiot, baiñan nolai ta esan nai berdiña ez duten erdal itzak ez. Onela, GAZETA egunkari paperaren orde esatea oker dago.

Gaur «Gazeta» beste zerbait da; eta Diario edo JOURNAL izen orde askozaz obeto dago gure EGUNKARI. Berdin gertatzen da BULEGO itz motrolloa dala-ta, Prantisesak berak gaur OFFICE esaten dutena, eta guk IDAZLEKU itzez itzuli genezakeana. Eta orrela eta ariñegi Euskaltzaindia'ko maisuak itz oker asko artzen ari ote diran nago. Eta itzak baño okerrago, giroa!

Euskal pizkundearen eta izkuntzalari bezela R. M. Azkue Arana-Gori'ren gañetik geldi dan eran, Euskaltzaindia'ren buru izatera iritxirik, Catalunya'ko «Renaissanca» ondoren Mosen A. Alcover Pompeu Fabra'ren zentzu ta zuertasunak menderatu zuan.

Gu Azkue argidotarrak sumatutako «Gipuzkera Osotuaren» alde gaude erri ta erdibidean batasunerako beste oberik ikusten ez dugulako.

ANTONIO M.ª LABAYEN

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartzeko bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri asmoen gañetik daben iritxi-onoeko euskaldun guztia Euskereatzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egilleak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M.ª MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Carretera a Galdácano, 32-Bilbao-4

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guttirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

GATZ ETA PIPER

EKAITZ AROA

Eup! Oindiño bizi gara, bai. Gure itxas gizonak ekaitza danean, gorde leku billa kaiarik egokienera joaten jakuz; arrantzan nor geiagoka ta alkarri aurrea arrapatzen ibilli arren, estalpean dagozanean, alkarrekin bizi bearrak eraginda, laguntasunean konpontzen dira. Ea gure artean be olako zerbait jazotzen dan; bitartean irakurle, erdi ankaz-gora gabiltza giro obearen zain eta bear ba'da uts batzuk aurkituko dozuz gure ta zuen Agur onetan.

BULEGOA

Donosti'ko Diario Vasco egunerokoaren euskerazko atalean (Loraillaren 18'garrenekoan) Zatarain'dar Ambrosi euskaltzainaren lan sakon bat irakurri al izan dogu «bulego» itzaren euskal jatortasunik ezari buruz. Gaiak zeatz-meatz aztertzen maixu dogu Ambrosi ta pozik irakurtzen ditugu. Beste alde batetik lan ori mezedegarria da sasi-jakintsu batzuen aurpegi gogorra zenbateraiñokoa dan ikusi daiten. Dana dala ez uste izan okerrik zuzenduko danik: Euskaltzaindia lenago biurtuko da Akademia «bulego» idazkaritza edo beste zerbait baiño.

ITXASNE, EUSKERAZKO IZENA

Itxasoa ta «bulegoa» aipatu doguzan ezkerona emen jazoera arrigarri bat. Tira, arrigarria ez, nundik nora goazen dakigunontzat, baiña bai borondate oneko erritar geienentzat. Euskerazko aldizkaririk geienetan, ango ta emengo albisteak irakurri daike-

guz juzgaduetan euskerazko izen bat edo beste ontzat emona edo ukatua izan dalako.

Ori dala bide, naiko goralduek izan dira euskaltzain batzuen lanak eta alegiñak. Baiña orain dirala iru bat aste beste au gertatu da: Jaio barria zala Klinikari ikusi gendun umetxu bateri bere gurasoak Itxasne ipiñi gura eutsuen. Joan dira Bilbo'ko juzgadora (ain zuzen be lenengora) ta ederto artu ditue, baiña Euskaltzaindiak emoten daben «zertifikadua» eskatzen dau-tsoe, euskerazko izena dala egiztatzeko. Joan da aita ori «euskeraren iturrira» eta «este no es un nombre euskeriko, esto es un invento» entzun dau an egoan jaun baten agotik. Azkenez lortu eben izen ori ipintzea, baiña ona emen amak esan eustana: «Nos han tratado mucho mejor en el Juzgado que el señor que estaba en la Academia».

Nortzuk ete dira euskal izenen etsaiak? Ala izen batzuk bai ta besteak ez? Ez ete da Itxasne edozelako Antxoka, Gartxot edo beste askoren aiña euskal kutsuzko? Seme bateri Zigor izena ipintea egokiago ete da (semea zigorra danik ez dogu uste) ala lenengo izendegiaren egilleari gorrotoa ete da?

Gurasoen eskubiderik iñork ezin leike ukatu, baiña orrela jokaten dabenen asmoa oso ezaguna da gutzat. Len esandako gurasoak, dana dala, gertu dagoz nai dan tokian ta nai danean len esandako guztia egiztatzeko.

ARENAZA'TAR JOSU

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERA KOAK

ZAZPI-KALEAK



CASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIQUEAK

Leiaketa baten goi-berak

Gure Euba'ko Pasiotarrak Kuruzteko Paul Deunaren egunean ospatutak dabe urteroko jaialdia. Entzute aundiko jaia dogu berau, oso ezaguna, euskal-guro bete-betokoa ta ainbat lagun alkartzen dauan batzarra.

Aurtengoa, Jorraillaren 27'an ospatu dana, berebiziko garrantziduna izan da, batez be Ikastola umeentzat, baita euren gurasoentzat be. Batipat, egualdi onagaz, Orue'ko ikastetxe inguru zabaletan nun asetu dagoalako gure umearen jolas-egaria ta, bestetik, jaia, burutik biatzera, oso-osoan, ondo croana izan zalako.

Ezin ixildu ba jai-arduradunen alegiñak eta zurtasuna. Mutillak!... Ez dok edozelakoa izan zuen lana. Artu egizue neure zorionik beroena.

Onek esan da —zintzoen lanak goratu bearrekoak izaten dira aurrekoen eredugarritzat-da— artez noa neure arlora:

Arratsaldeko 4,30'an IKASTOLA LEIAKETA izan zan. Soñu, txistu, dantza, kitarra, abesti ta abar... Nor zan geiago?... Noren ekitaldia izan zan obeagoa?...

Bakotzak, gure ustez, irabazi zituan sariak banantzeko apai-maiko nintzan Erdoiza andereñoagaz ta gure «Zornotza» Koraleko zuzendari dan Joxe Mari'gaz. An erabagi zana emen agertzeko prest nago. Goratu bear diranak eta obeagotu bearrekoak, dantzetako izango da neure eritxia. Talde bat be ez dot itxiko neure zirri barik:

Lenengo ta bein esan bear dodana auxe da: Barru-barruan ikutu nabela gure umetxoan leiaketa onek. An agertu ziranak neurtu eziñezko garrantzia dauke umeen erri-sentzuna jorrazteko ta erri-kontzientzi sendo ta zintzo bat sortzeko. Punterengoa onetan Bermeo'ko Lupe'ren taldeak abestu ebana. EUSKARA! Kantuaren bidez, nabarmen garrasitan, errepika utsean, umearen gogoan jarri nai dau, lenengo ta gorengo mallan, letra aundiakin, guk plazaratu bear geunken ezaugarriker ederrena. Bide onetik zabiz, Lupe. Senean jokatzera da zuk kantuaren bitartez gure umeeri erakusten zabizena. Jarraitu joko orretan. Loratuko da zuk ereiten dozun azia. Zulako andereñoak bear dabez gure Ikastolak, artez azira doazenak ez galtzuarri putska dabizenak.

Bizitasun osokoak Ondarru eta Elorrio'ko taldeen abestiak. «Kresala» ta «Danok Bat»eko gaztetxoak kukurruku ondo joteko ezarriak agertu dauskuetz ta ez dira kokomarro batek bildurtzekoak, atzean geratzekoak bez. Gure eritxiz, kantuetan aurrengoak ziran. Urteetan be umetxoak barik, gaztearoan ondo sartuak. Euba'ko pla-

zan bota dozuen «or dago»ari erantzuna nork emon badau bazterretan, izango dira barriro be emen-lako kantu-burrukak.

Deustu ta Markiña'ko Ikastolakoak aberatsenak. Soñu, txistu, dantza, antzerki eta abesti... leiaketako eginbear danak gogotan ondo artuta etorri jakuzan Euba'ra. Urteetan laburrak baña egiñetan luzeak.

Goratu bearrekoak «Zerutxuren» kantak —gure Aite Joxe Domingo'k moldatuak— baita «Arritxinaga'ko Mikel Deunaren» dantzea be. Nortzuk ziran epai zorrotzakin, alkar ill bearrik ibilli ziran umetxo biak?... Ze bizkorrak!... Euretarike batek, bere abarkatxoak ondo koipetu ezkerro, erbiari be ariñeketan irabaziko leuskio.

Dantzetan trebeak ta ugariak Deusto'ko Ikastolakoak. Dantza-jokoan ondo ezita dagozan neska-mutiltxoak. Orretan maixu ona da nire adiskide Gainza Jauna, beñola gure Zornotzako dantzarien irakasle zana. Txalo beroak izan zituen Deustu'ko bizar ta ule-kentzailleak be. Neure eritxiz, ondo irabazita. Antzerki egin-bearretan baita kantuan be ez egoan aren parekorik. Ederto, gazte. Gure egunero-ko «tele» saioetan agertzen dok i baño makalagorik...

Pasiotarren Ikastetxeko mutiltxo bi agertu ziran gure aurrera kantari Euba-aldeko umearen izenean. Azken baten, «Elaien» uts-unea betetzearren, plazaratu jakuzan gure mutillok, lotzak urrengo baterako bastertuta. Domekakoa ikusirik, ez ete da sortuko Euba'ko umetxoan artean amets barririk datorren urterako?...

Ume txorta ederra gure Zornotza'ko «Andra Mari» Ikastolakoak. Etzeandia'tar Sorkunde andereñoaren zuzendaripean iru kanta ziran abestu zituenak. Orrenbesteko ume-taldea norbere agindupean neurritz erabilitea gatxa da. Umeak dira ta uts batzuk ez dira aintzat artu bearrekoak. Taldeko Iratxe ta Asier gaztetxoan bertsoakin amaitu zan «Andra Mariaren» ekiñaldia. Onetzaz, oartxo bi egin bearrean nago, Sorkunde. Aldi bateko «Txomin del Regato» gogoratu jatan gure hikotearen bertsoak entzunaz batera. Aurrekoari barre eragitearren, lotsa barik, euskaldunen erdera mordoilloa agertzen eban «Txomin» orrek. Gure erriaren txaloak sarritan irabazi ebazan euskaldunen izena ta irudia barregarri ta kirten jantzi arren. Sentzunbakotasun aundiagorik ezagutu leike norbere buruari barre egitea baño?... Ez da lenengoa, gure erriaren txaloak irabazi nairik, bikote onen epanetatik bertso barregarriok entzun dodazana. Benetan, niretzako ez dauke ez gatzik ez piperrik olako tentel

Alkartu edo il



Loraillean gagoz. Zelaietan, zugaitzetan, leioetan, ainbat lora agertu dira. Baña ille gazte au, oraindiño zoro dabil, eta eguzki eder ondoren, iparraldeko aize za-

tar aldikada baten, or gelditzen dira, gure lorak, burua lurraraz jo bearrean.

Alan da be, ez dozuez gure umetxoak ikusi, lora sortatxo bategaz, euren andereñoi opatu gurean, pozik ikastolarantz?...

Euren esku samurrak euren begi zabalak, euren ago irria, euren gorputz zolia... Ez ete dira, lorakaz batera, lurreko baratz, lurreko argia, lurreko bakea?...

Ori dirudit.

Gaur ba'gara, biar... ez dakigu.

Bai. Ariz'ko ikastoleak, loratxo bat galdu dau. Bost urteko loratxo eder bat.

Bere izena?... Kaloka eta Olazar'tar Oiane. Lorailaren 2'an, bere azken agurra emon euskun. Larunbatean 3'an, arratsaldeko bostetan, Basauri'ko San Pedro Eleizan, andereño, guraso eta umeak alkartu giñan, anaitasun eder batean. Eta ixillean, euren samintasuna gorde gurean, kutxa zuriaren atzetik, Oiane'ren gurasoak eta Ibon, bere sei urteko nebea.

An joian gure Oiane gaixoa, loraz beterik, Gernike'rantz, bere amaren erri-rantz... Negar malkoak ixil-ixillean...

Euskaldunak, une gogorretan, ixildu egiten gara.

Aurpegi guztietan galdera au: Zelan?... Zergaitik dana au, eta iru egunean?... Erantzun laburra: Buruan «virus» batzuk agertu jakozela-edo... besterik ez.

Udabarriko lorea. Aize zatar batek eroanda. Entzun egizu nire otoi-tza: Jaungoikoa'gandik, baratz ederra artu genduan.

Emen gabiltz gizonak, egarri sakona azetu eziñik, alkar burrukan, bake barik. Emen gabiltz andereñoak, ikastola txikietan, baña biotz aundiagaz, gure euskera maitea eutsi gurean. Ez dogu nai aize gogorrik, ez sasirik, ez bedarrik, gure izkuntza il bear dabarik. Maitasuna nai degu, alkartasuna, loratxu au bizi izatea. Samurra da. Ez daigun zapaldu, ez daigun apurtu. Bizi daitela.

Jaungoiko gure Aita, gure izkuntza, Zuk emondakoa da. Bialdu egiguzuz beste Oiane asko, beste euskaldun umetxo asko, euskeraz mintzatuaz, jarrai-bidea izan dardigun. Euskalerrri'ko ikastolak, urriñekoak eta batez be urkoak: GALDAKO, ETXEBARRI... Ariz'en gagoz, ate zabalik, eskua emon gurean. Alkartu gaitazan. Ez dago beste biderik.

UGARTE'TAR SERAPIO

ATXUTEGI'REN JULENE

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra
BILBAO - Casco Viejo
Tenderia, 15 eta 16

ARGI-ONTZIAK

EMOITZGARRIAK

EREDU BAKARRAK


ALBERTO URRUTIA GOTI

Ribera, 19 (Pelota, 1'en ertzean) 21 14 89 Urrut.

Carniceria Vieja, 8 - 23 56 25 - Urrutizkiña.

BILBAO

Santuchu, 16 - 339491 - 333123 - Urrutizkiñak



LARRINGAN D T U A R B

Aize-errotea

Entzunda neukan Durango-aldean, eta Atxerte-ondoan, aize-errota bat egoala, baña lengo iganderarte eneban izan ezagutzeko erarik, gauza ikustekoa benetan! Zoritxarrez erdi jausita dago, baña alkarrizketa labur bat izan dot, errota onen jaubeagaz, zuek obeto ezagutu daizuen.

Durango'tik oñez joateko iru ordu lauren baño eztagoz. Ara eltzean, errota-aurrean dagon ur-mea (ur-minerala) iturri baten ondoan, errotako nagusia egoan. Ona emen beragandik jakin dodazan barriak:

—Auzune au zein da?

—Larringan auzunea.

—Ta errotearen izena?

—Aize Errota.

—Ba dakizu gutxi gora-bera noiz egin zan?

—Ez, ezta kigu ezer ortaz, antxin-antxiñakoa da.

—Erabili dozue iñoiz?

—Ez, eta onetzat be ezta kigu gauza aundirik, gure aitaren aititari entzunda dakigu, «martxan» ipinteko asmoz, gauza guztiak gertatzen ibilli zala gizon bat baña «aspak» eta gañontzekoak atondu ondoren il egin zala. Orduetik ezta ibilli.

—Zenbat urte ditu zure aitak?

—Larogeta zazpi.

—Agirian dago oso itxita aurkitzen dala, tellatua eroria, ate barik, ormak baño ez daukazala esan leiteke. Eztozue konpontzeko asmorik?

—Geuk bai pozik barriztuko genduke, tellatu berri bat ipiñiaz, ormak ondo konpondu irauñ-erazi eran, baña orain urte bi dala Bizkai'ko Aldundegiak kendu euskun ezer esan eta emon barik.


—Ezta tresnarik aurkitu bertan?

—Arri bat egoan eta Aldundegiak eroan egin eban. Beste gauza batzuk ere egon dira, baiñan errota ondoan egin zan basetxe batera eroan ebezan.

—Milla esker zure erantzunakaitik.

Errota au Euskaldun guztien ondasuna da, ta nire ustez danen gogoan dago onelako gauzak gordetzeko guraria, baña azalpenik gabe artu egin dausku Bizkai'ko Aldundegiak eta or dago illun-illun, abarrez beterik noiz lurretatuko ete dan! Ez gara iñor ala?

ZANGRONIZ



Gaztetak

Egun argi eder bati dagokion (elez ta, arrokiro astinduaz zure egoa, txintada alai ez dirikizu mokoa itxaroz aizetutako ortzi zabalez.

Kabigintzako lilluramen zora-garriz ots dagizu garaille, bizitzaz betea, udaberriaren gorakuntza ikusga- (rriz egada alkartietan olestuz maitea.

Abestiaren amets berezko zo-

JANTZIAK

UMETXU

UMEENTZAKO

GAUR-GAURKO

JAZKERA APAIÑAK

Santa María, 19

81-13-20 urrut.

DURANGO

OSKIAK

MARIA GOIKOLEA

UMEENTZAKO

OIÑETAKOAK

Zumalakarregi, 1

81-02-96 urrutizkiña

DURANGO

GOZOTEGIA

OLALDE

KOKOTZURRAK

ETA

IZOZKI GOZOAK



Kurutzia, 16

81-03-89 urrut. DURANGO

GURIA

AKEIT-ETXEA

Santa María, 17

81-10-00 urrut.

DURANGO

OSKITEGIA

AZKORBEBEITIA

OIÑETAKOAK

Artekale, 10 - 81-01-84 urrut.

DURANGO

benetako akeita

CAFFÈ
BAQUÉ

CAFFÈ
BAQUÉ



utsa

soilla

JOSE URZELAI

EMAKUME TA GIZONEZKOENTZAT

JANTZI TA SOIÑEKOAK

DURANGO'N:

Galerías Astarloa — 81-07-90 urrutizkiña


BILBO'N:

Gregorio de la Revilla, 15 eta Ribera, 2

GAZTEIZ'EN:

Independencia, 18

I N R G A O



ANDONI DEUNA, URKIOLA'N

Durango'n bazkalduta Mañaria'n gora Txakurtzulon jausi naz ipurdijaz gora. Mañari'tik asi ta Urkiola'raño ezta aurkitzen besterik aldapea baño. Aita San Antonio Urkiola'koa amaika neska-mutil' uzartutakoa. Amak esaten dio bere alabari kontuz begiratzeko mutil gazteari. Luzegi egin gabe amaitzen det emen geiago esango det urrengoren baten.

* * *

Oraintsurarte Durango'ko «errekadistak» izan diran Begoña'k eta bere aizta Emilia'k diñoskue zelakoak ziran orain berrogetamar bat urte, Andoni Deuna'ren jaiak:

—Oso alaiak, begira:

Gipuzkoa-aldeetik bultzi bi etorten ziran, bata goizeko ordu bietan eta bestea lauretan, gero beste bat eltduten zan Bilbo'tik, goizeko bostetan.

Gau aretan saltokiak, ardanegiak eta okindegiak ez ebezan atek isten. Urte baten oso eguraldi txarra izan zan eta aterkiñak saltzen ebezan, saltoki guztiak guardasolik gabe geratu ziran, orduko salneurriak 5 eta 10 lauerleko artean ziran.

Jateko gauza batzuk erosi ondoren bidez-kundea (erromeria) asten zan Urkiola'ko bidean, txistu, soñu ta panderoak ez ziran faltatzen.

Urkiola'n eleizkizunak eta euskal-jaiak egin ondoren batzuk Durango'ko bidea artzen eben eta errira elduaz eleizako jazarlekuak ataraten ebezan eleixpean bazkaltzeko.

Urkiola'n geratzen ziranak, bazkaldu ondoren abiatzen ziran Durango'rantz alaitasunez beterik.

Gero, gabaz, gudan apurtu eben Ezkurdi'ko Pelota lekuan, irudibil-mutua (película) izaten zan.


Urkiola gaur

Dakizuen lez Urkiola'ko eleiza Euskal-erri'ko misio-talde batek zaintzen dau. Talde onetako apaiz bategaz alkarrizketa bat izan dogu:

—Zenbat apaiz zagoze Urkiola'n?

—Egotez iru, baña beti etorten da bat edo beste ikasketak egitera.

—Oste (jende) aundia bertaratzen ete da Andoni Deunaren egunean?



—Bai, ospakizunak gero ta geiagora doaz, bai jendez baita zaletazunez ere. Jairik nagusia Andoni Deunaren eguna da, 11 meza emoten doguz eta eleizea bete-beterik egoten da. Gotzaiña be etorten da, gañera bere eguna da. Urrengo igandean «errepetiziñoa» egiten da ta orduan be oste aundia etorten da.

—Uste dot euskal-jaiak be izango dirala, ezta?

—Bertsolariak eta ezpatadantzariak ez dira faltatzen, bear doguna egualdiaren laguntasuna da.

—Noiztik zagoze emen?

—Loraillean bost urte bete dira.

—Diru aldetik zelan zabilte?

—Gu etorri giñanean 4 unci (milloi) egozan aurreratuta ta lanetan «obretan» 8,5 unci eralgi doguz eta ondiño unci bat ordaintzeko dogu.

—Orainarte egin dozuezan lanak zeintzuk dira?

—Eliza dan-dana barriztu egin dogu barruan, tellatu barria ipiñi dogu, itogiñak gero ta aundiagoak ziran-eta, tximist-orratz edo pararrayos barri bat ezarri dogu, berogailua be ipiñi dogu ta eleizako sarrerea konpondu. Gero, beste alde batetik, berebillak isteko leku egoki batzuk sortu doguz.

—Zuen asmoak etorkizunari begira?

—Iru asmo doguz:

1.—Eleizatik bide-nagusiraño, eta oñez bakarrik ibilteko, bide bat egin nai genduke, onelan eleizea bidezabaletik ikusiko da. Zugaitz batzuk, urkiak, ere landatu gura doguz; ortik datorkio izena Urkiola'ri.

2.—Eleizeari kanpoko ormak barriztu gura dautsoz, au eztagigu noiz egingo dogun, zorrak ordaindu ondoren...

3.—Santutxo-bazeleizak dauken arri-bidea barriztu ta konpondu.

Gero, ba dogu etxetxu bat jasotzeko asmoa, gogo-jardunak egiteko talde txikietan baita otoiz egiteko ta bakardadean egoteko ere.

—Ezkontza asko izaten dozue?

—Igez 118 izan genduazan eta aurtan orainarte lez jarraitzekotan, geiago izango dirala uste dot.

—Beste zerbait esan gura ba'dautsezu AGUR onen irakurle guztioi?

—Urkiola, euskaldunena da, lenengo. Bost urte daroaguz eta poz-pezik gagoz eleiza ta erriaren serbitzuan gagozalako. Ta azkenik maitasun guztiagaz maitatzeko Urkiola; landara batzuk sartu doguz eta batzuk apurtu egin dabez, ori baño ez.

—Eskerrikasko.

Urkiola'ra joaten ba'zarie ikusiko dozue eleiza ta inguruak zein ondó geratu diran. Eleiz-barruan eta opal-mai gañean bertso au irakurriko dozue:

Gora Jainkoa zeruetan gora itsaso-mendietan!

Nor igongo da Jaungoikoaren mendiraño nor aren-leku santuraño? Eskuak eta biotza garbi dituan gizon guztien lagun dana.

UME

El Egoekin

rabioz

ots dagi biziak inguramen ederrez, aldiari darion goiturazko pozkarioz.

Oi, txori! Zure egada ta abestiakin

ni ere amesturik nabilzu, sugarrez, maitez gallendua gaztetako egoekin.

MUNIAATEGI'TAR SABIN

BARRIZKUNTZAK

MUNITXA

AZKEN JOZKERAK

Montevideo, 4

81-12-95 urrutizkiña

DURANGO

TXIMIST - TRESNAK

Ganboa

Etxe ta sukaldeetarako garbiketa ta berogailuak.



Gral. Egia, 19

81 07 95 urrutizkiña

DURANGO

ELEIZ-ATEKOA

EL PORTICO

USAIN GOZOAK,

DROGATEGIA

Artekale, 1 — Santa María, 14

81-02-39 urrutizkiña

DURANGO

IDAZTEGIA

URTIAGA

Idatz - geletarako gaiak eta idatz - tresnak.



Montevideo Ibilbidea, 1

81 02 81 urrutizkiña.

DURANGO

EL ELKARRAR

Lantegirakoak, burdingaiak.

Santa María, 24

81 03 29 - 81 04 76 urrutizkiña

DURANGO

Kapitalismoaren "Azken-Arnasa" Luzea

ESKUBIDEEN URTEA

Ez degu uste onenbeste igarle edo profeta izan duen sistemarik sekula egon danik. Ainbat dira azkenetan dagoala aspaldiz esaten diarduenak.

Katuren bat ote da ainbat bider il ondoren barriz aurrera jarraitzeko? Oraindik luzaroko dogula esan genezake, naizta oraingo kapitalismoa leengoaren aldean oso ezbaridina izan (joan zan gizaldiko bere zaintzaillerik gogorrenak, ezagutu be ez lukete egingo gaurko kapitalismoa). Izan dituan estualdietatik, oso aldatua urten da.

Azkenengo denporetan, etorvide aundiko epe luze baten ostean, berriz entzuten dogu; sistema azkenetan dagoala, erori egingo dala... Ziur gaude, bai, bere azkena etorriko dala, baiña pizka bat urrun ikusten degu oraindik.

Alde batetik ez degu kezkarik txikiarik ere, errien aberastasuna ezin-somatuzko mailla bateraigo igo duala, naizta bestetik kultur eta bizikera arloan pot-egite gogorra izan.

Erririk aurreratuetan egin diran inkestetan ikusi genezake, lenengo maillako edo premiazko gauzak (janari, jazkera...) gixtiagotuz, kultur eta bizikerari buruzko arazoak, gero ta geiago, premiazko biurtzen dirala, eta gizonen eta errien askatasuna gero ta indar gogorragoz eskatzen dala, naizta onek batzuk mindu.

Itandu bearra degu ba: Merezki al du sistema onek, ondoriotan eskeintzen digunagaitik ainbeste neke iraun bearra?

Sistema kapitalistaren erri aurreratuetariko inkestei jarraituz sistema onen deusestatzea ikusten degu gizarte arazoei dagokionari buruz, baiña lortu diran aurrerapideak alde batera utsi gabe, oiekin oituak daude-ta.

Gizon arruntak ez dio bere buruari ea bere egoera egokia den ala ez galdetzen.

Bere ustez, onak diran gauzak, onartu egiten ditu, eta txarrak bastertu. Errikoi pentsakera oiei ar-eman lojigu bat ematen ba diegu, eta ipotesi, uste edo pentsakera osozko baten zuzentzen ba'ditugu, gure biarko munduaren oiñarriak jasoten asi gerala esan genezake.

Erabat, agerpena, batzuen ustez, giz-antzeko kapitalismo bat izan leiteke, baiña ez al da au gizartekeri edo sozialismoa sistema onen jatorrizko zaindaria esan duten lez?

Ez al da gizartekeri edo sozialismoa (demokratiko itza ipitiñi bearrik ez dago, premiazkoa da-ta orretarako; itz-jario bat izango litzake) gaurko gizarteari erantzunik egokiena ematen dion sistema?

Alan deritzaigu.

MIKEL



Zuri zerbait eskeintzean gaur, biarko emakumeari be, zerbait eskeintzen dautsagu.

Ardurak kenduko dautzuezan egokiera aundiagoko laguntza barriak eskeintzean.

Gaur iñoiz, eta barriak diralako, zaillagoak iruditen jakuzan asmo barriak zuri agertzean.

Aurre-olinkada bakoitza neketsua ba'da gaur, etorkizun erosoago bat izateko dala uste izatea ederra da.

BANCO DE BILBAO



Emakumearen Banketxea.
Gaur eta biar.

Emakumeen eskubideen urtea dala ta ez dala sekulako esan-naia dogu gure artean. Ni neu urte onen alde nago, bide zuzenetik ba'doa beintzat. Lenengo ta bein argi ta garbi au jakin bear dogu guztiok: Kristo'k, baita bere elizeak, barri onaren bidez eta Andra Mari eredu dala, goi-goiko mailaraiño jaso ditu emakumeak. Emakumea, elizeak erakutsi dauskunez, ez da gizonaren azpiko ta mirabe, lagun baiño. Gero, gizonen txarkeriz, edestiz zear, gauza askotan, emakumeak bastertuak izan dira.

Gaurtik asi ta emakumeak eurai dagokien tokian ipinten alegindu bearrean gagoz. Gizonezkoen eta andrazkoen eskubideak zelan bardindu? Gauza jakina ta argi dagona da soñez eta gogoz ezbaridinañak gareala. Emakumeak euren arloan, gizonak baiño geiago dira, ta, bardin, gizonzkoak euren arloan, andrazkoak baiño geiago dira. Ez gaitzean ibilli gizonak emetuten ezta emakumeak aartuten.

Gaur egun, askotan ori nai dala esan daikegu. Iñork esan dau emakumeak euren jatorrizko akatsak azpiratu barik, gizonzkoen akatsat artuten asi dirala, mari-mutil edo mariakerrak sortuaz, eta bardin jazoten dala gizonzkoakaz, eurak emeki-antzeko biurtuaz. Itxi emakumeari bere emetasuna, biguntasuna, maitasuna tabar.

Jainkoaren alaba ta gizonaren lagun bezela, legearen aurrean gizonaren bardin izan dedilla. Itzala, askatasuna ta goratarrea bear jakoz. Sendi benetako kristaueetan emakumea ez da izan otseña, erregiña baiño. Eurak eukin bear dabe eskubidea bai ikaste zein lan eta abarretan euren soñiak eta gogoak al dabezeneraiño, edonun eta edozetara eltzeko.

Ba dira batzuk, siñesgabeak eurak, jakina, bardintasunaren izenean emakumeak, abere emeak bakarrik izatera biurtu nai dituenak. Gure ama emea bakarrik baiño zertxo bat geiago da, ta bardin, gure arrebea, alabea, emaztea naiz edozein andrazko, bai ezkondu, naiz ezkon-gabe, eme baiño askoz geiago da. Goragarriak emakumeak euren gogo bigun ta euren biotz onagaz onuragarri izan diralako. Napoleon'ek berak ere iñoan: Gizon ospatsu guztiak, ospatsuak izaten, amaren altzoan asi ziran.

Andrazkoen eskubideak illunduaz joan dira len esan dogun bezela, munduaren txarkeriagaitik. Bardin jazo da gizadi guztiagaz. Edgar Monin'ek diñoanez: «Leize-zulotik urten eban gi zonagandik gizonen barruko leizezulo-ra sartu gara. Dana da argia, dana jolasa etab, azalean; eta illuntasuna, dana gabetasuna gizonaren biotzean».

Barri onaren argiagaz argitu daigun emakumeaganako bear dogun itzala ta bere eskubideak onartzea.

Ostera bere esango dogu: Emakumea bere arloetan, jatorriz, gizonzkoa baiño geiago da, ta bardin gizonzkoa, berari jatorriz jatorkozan arlo ta albideak emakumearenak baiño aundiago dira; baiña biak, bardinañak legegaren aurrean.

Guztiok daukagu ama bat, bere gomutaz andrakoak zentzundun askatasun batera, zor jakuen askatasunera, eroaten alegindu gaitzean, ori eskatuten dabelako gizadiko eskubideen araudiak. Kristauak gareanok gaiñera, ori egiñaz, Barri-onak irakasten dauskuna betetuko dogu.

GALLASTEGI'TAR KAULDI

ARRILLAKO

BARRIAK

Galdakano

EZKONTZEA GORBEYA'N

Ez da lenengo ezkontzea Gorbeya'n, baiña bai Pagomakurre izenaz ezagutzen dogun Gorbeya'k be aldean daben zelaikada zoragarrian egin barri dan basatxonu politean ospatu dana. Eta ori zala bide-edo, an bildu zan ostetza ikusgarria izan zan Orrilla onen lenengo egunean.

Gure irakurlerik geyenak jakingo dabenez, izparringien bitartez, Pagumakur-goi ortan orain illabete edo zerbaiz geyego, aterpe-jatetxe apain bat askundu zan, zortzireun ta berrogei neurkin goiti, ta bere aldameanean Bakea'tako Ama Neskutza'ren basatxonu bikain bat, igande guztietan jaupa ospatuko da oraindik udaldi guztijan beintzat. Eta or ezkontzea gogoratu yaken erriontako Zuluaga eta Ojanguren'dar Miren Jayone neskatilla lirain eta argiari, ta jayotzez lemotarra ta bizitzetx Iurre'ko Uriarte eta Barrenetxea'tar Gergori mendigoizale kementsu ta euskaltzale jatorrari. Gazte euskaltzale zintzo onein ezkontzalari barriz, Iurre'ko Azkarai ta Bilbao'tar Anastasi apaiz azkarra izan zan.

Eleizkizuna, zelan ez! oso atsegingarria euskaltzaleontzat, euskal abesti txukun eta guzti abeslari bikainak abestuta; guzti-guztia euskera garbi gozoan. Orretara izanagaitik-edo, gogotsu bertaratu ziranen artean be abestua ta goraldua.

Emakume ezkon-barri lirain au maitekorra ba'da errian, neskatilla umilla izan dalako beti, gizon ezkonbarri au oso ezaguna ta adizkide asko Galdakano'n dabezana da. Aspaldi urteetan emengo Ganguren mendigoizale bazkune'ko bazkidea izanik, gure mendigoizaleen arteko izan data euron ekiñetan kementsu alde artzen dabena izan be. Orregaitik izan zan izan be bere ametsa; Gorbeya'ko txadontxu ori egiten ebenean bertan ezkontzea. Gure zorionik samurrenak M. Jayone ta Gergori adizkide zintzoak AGUR onen bitartez ba'dakit beste askotan lez irakurriko dozubena— ta, eta urte askotarako izango al'da artu dozunen bizitza barria.

MENDIGOIZALEEN TXANGOIA!

Iganderik geyenatan bezela, Orrilla'ren lenengo igandean be mendigoizale ugari urten zan gure erri ontatik alderdi guztietara, ta alan Bizkargi'ra, mendi alai ortan urtero ospatzen dan erri-jai politaren atxakiz, euskalgaztedi ederrak bilduten diralako.

Baita Itras-aldeko Mendigoizale Alkar-teak Mungi aldean gerturik eben mendiz-mendiko ibilketa neurtura be, ainbat juan ziran. Baiña beste txango garrantzitsuago bat be ba-zan-da, gu be beratan izango giñen.

Orain urte ta erdi inguru, erri ontako mendigoizale benetan kementsua zan San Salbador eta Ibarra'tar Errikarta gizon adifnekoa il zan Mena ta Losa arenen bitartean diran Magdalena mendi-lerroren aldameanean, eta bere oroigarri lez Basauri'ko Baskonia mendizale bazkunekoak mendi-kutxa bat ipiñi eben, mendi-lerro ortako «Tres-Dedos» izenaz ezagutzen dan gaillur erpiñian, Il-dakoren adizkide urko giñanok, ezin genduban utsik bilketa ortara egin, origaitik Baskonia'koakaz batera bertaratu giñan Gangu-ren'go talde bat.

Orretarako baiña, Mena'tik joan bearrian, Angulo'ko aldatzetik gora joanda, Kinkozetik aurrerago dagon erri txikitxu Villabasil'era joan giñan, bertatik pizkat urbiltxuago dagozalako mendi-lerro orreik. Ainbat ibilli ba' giñan be, ezin kendu izan genduban otza goyaldean.

MENDIGOIZALEA IL

Orrillaren lenengo igandean, Basauri'ko mendigoizale kementsu izan dan Astigarra-ga'tar Kepa amazorti urteko mutil gaztea, Asturias alderdiko «Picos de Europa» esaten yaken aitz zorrotzetan ezbearrez il zan. Mendigoizalea izanik, oso zan ezaguna mendizalean artean.

Goian Bego.

BASA-JAUN

Usansolo

LENENGO JAUNARTZEA

Gure Sagarminaga tar Eleni'ren idazlana irakurri dozuonok (Usansolo'ko Euskerea), arrituta geldituko zinen, an azalduko barriakaz. Egi garratzak, baiña jakin bear diranak.

Azterketa guztietan, lenengo lana gaixoa edo utsa non dagoan jakitea da. Ta gure neskatilla gazte ta kementsuak argi ta garbi erakutsi dausku zeintzuk izan diran Usansolo'ko euskerea ondamen-dira eroan dabezan bideak.

Ez goaz emen an esandakoak barriro argitaratzen, naiko argi ikusi genduzan danok-eta, baiña bai zerbaiz gure euskaldun ama gazteari esan nai gendukeala.

Nondik edo zelan artutakoa dozue, Eleni'k diñoskun gogamen edo pentsakera zitala; ezin gareala euskeragaz inora joan, euskera egiñaz beragoko mailan ezarritzen gareala diñozuenean? Nor ta norgandik gatozan jakiteak lotsatu egiten ete gaitu?

Darozuezan bideetatik jarraitzeak, ez al dauisue zuon seme-alaben biraua ekarriko bier-etzien, euren buruaren jabe diranean?

Jaungoikoari eskerrak, ez zarie danok gogamen orretakoak, ta Eleni'k bere lanean agertutako taldea lagun dozuela, ainbatek zintzo ta maitekor ekiten dauisazue zuon seme-alabok euskaldun nortasunean eziten. Gure poza ta atsegina Orrillaren batean, 24 aurtxo, neska-mutillak, euskerazko mezan lenengoz Jaunartzen, ikuste.

Noiz ikusi da Usansolo'n orrelako besterik?

Apurka-apurka, ondamentian egoan gure izkuntza maitea, bere illobitik urtetan egoala bai, baiña ogeta lau? Sei-zortzi urte, asko ez dirala, ta igez ama bira eldu giñanean zoriontsu tzat geunkan gure burua.

Bisetan gure biotza, ze pozik abestu genduan meza orretan, bai On Bitorengandik asi, ta an alkartu giñan azkenengo euskaldun arimararte, Eleni bera aitzu barik aolkari edo monitorea bezela, ta Pili'ren aitzera aurre ta lotu eziñak. Zelan zure zainme edo nerbioak Pili?

Onelako jai ederrak, eguneroko ekintzaren igali edo fruitua izan bear diran eskero, jarraitu guraso ta talde jator orrek nekatu ta aspertu barik, ea Eleni'k esandako egi minkorak, egi ezititsuk biurtzen diran ta Usansolo Euskal-Erri'ko lorategian, apal baiña eder, bere euskal nortasuna agertzen dauan.

ATXUTEGI'TAR BITOR

Arrasate

LENENGO JAUNARTZEA

Orrilla'n fan eta emengo Txadon Nagusian izan zuten 30 ume-euskaldunen Jaunartze ori. Eleiza bete-beterik eta, nola ez!, asko umeen guraso eta senideak. Ara ume guztien izenak: Atxa Askasibar dar Miren; Andueza Altuna'tar Yon; Arregi Trojaola'tar Albiñe; Arregi'tar Elene; Azkarate Morras'dar Kistiñe; Azkarate Morras'dar Inigo; Bengoa Madina'tar Iruñe; Bergaretxe Muxika'tar Amaia; Berezibar Galdots'dar Joseba; Berezibar'dar Joxe Mari; Bolinaga Idarra'tar Joxe Antonio; Garay Olabarría'tar Amaia; Garai Etxebeste'tar Yon-txu; Garzia Kruzelegi'tar Joxe Miguel; Irazola'tar Inaki; Izazelaia Ugarte'tar Yon-Inaki; Lasagabaster Garziaetxabe'tar Dorleta; Lizarralde Urrutia'tar Osane; Lizarralde Urrutia'tar Errapel; Martiartu Zugasti'tar Mikel; Mondragon Aiastui'tar Anabel; Murgiondo Gastanarres'tar Errakel; Peñakoba Etxebarria'tar Maite; Erretegi'tar Fernando; Sagasta'tar Emilio; Uribarren Liebana'tar Arakele; Urrutia Morras'dar Nerea; Billar Elorza'tar Ane; Zudaire Bitoria'tar Kepa eta Moreno'tar Kerman.

Jaupa esan zuten gure apaiz agurgarri diran: Iñarra'tar Joxe L., Sasitegi'tar Yokin eta Markaida'tar Antton'ek. Lenengo arrezazko itzaldi polit bat umeen lagun on dan apaiz argi Etxebarria'tar Xabier'ek. Gero gure Parroko Jaunak beste itzaldi bat umei zuzenduta eta erakusgarri polit batzuk esanaz, Batezere jarraitzeko sarri Gure Jauna artzen eta kristau-bide zuzeniam eroan dezatela euren bizimodua, mundu gaizto onetan. Mezatako irakurgaiak esan zituen umeak onexek izan ziran: Epistola; Bengoa'tar Iruñe'k eta Arregi'tar Elene'k. Otoitzak; Gara'tar Yon, Murgiondo'tar Errakel'ek, eta Jaunartze ondorengoak; Atxa'tar Miren, Andueza'tar Yon, Arregi'tar Albiñe, Billar'dar Albiñe, Zudare'tar Kepa, Gara'tar Amaia, Gara'tar Yontxu, Irazola'tar Inaki eta Lizarralde'tar Osane'k, baita Martiartu'tar Mikel ere. Zein baiño zeiniek ezin obeto bete zuten euren zeregiña. Abots garbi eta euskera gozo ederrean. Aingeru txo batzuk ziruditen baiña euskaldun aingeruak! Jai ederra benetan, anai arteko eta maitasunez beteriko batzar ederra. Ez dakigu zeintzuk gozatu ziran geiago, umeak ala gurasoak, egun eder onan. Dakiguna da, danak, eta ez gutxiago umeekin senidetanunik ez geunkenak be, pozez beterik egon giñala.

Beste emengo Eleiza bitan be Jaunartzeak izan ziran: Pantzeskatarrenian, bi izan ziran: Garitonandia'tar Iker eta Arriaran Billar'dar Marta eta Musakola'ko eleizatxoan, Garai Bitoria'tar Nestor. Len besteagaitik esan dodan berbera esan leike emengoagaitik, oso jai apaiñak izan zirala eta danak pozik igaro zutela eleizkizuna eta eguna ere era berean.

UDALAITZ

Arratia

Zelan emon genduan orrillaren lenengo eguna, langillediaren jaieguna? Zeinbatzuek, urtearen buruan nagusi ta langillen artean izan diran asarrealdi ta lan-arazoeri buruan toki ta biotzean leku? Langillediaren soñean ere ba-dogu akats eta tximurrik, kendu-bearrekorik.

Jorraillaren azken-egunean, zortzi gizon amabiren lana egiten ari ziran, izerdi patsetan nere aldameanean. Ba-ziran an gizonak, geldirik, egunetan ogirik irabazi barik. Lanean inarduenak (zebiltzazenenak) baiña ez gura ba beste lagunik. Zergaitik? Nagusiaren eskupekoagaitik. Aor ba, langillen artean doguzan tximurretariko tximur aundi bat: Eskupeko bategaitik, gizonak gosez itzi, esku-bideak galdu-zorian ipiñi... norberaren burua ta gizontasuna saldu.

* * *

ORRILLA'K IRU

Iurre'n abesti-jai, «Beti-Bizkor»ek antolatua; ni ere urbildu (urreratu) eta entzuleekin artekotu.

Abesti-jai eder txaloketa ederragaz erantzuna, baiña, nik uste, zoro-zororik. Eta barrero ere, zoro-zororik diñot, uts egiteko lotsa ta bildur gabe. Entzule giñanok, cunctik larogetak gora, abeslarien itz eta esateetatik ezer gitxi ulertu genduan. Norberaren errialdeko iru-lau itzeri loturik bizi gara, ifloren inongo zerik irakurtzeko gogorik ez dogu... «analphabeto» kirtanak gara. Esan bezela, eta «Beti-Bizkor»i esker, abeslariak eta jai, dana zan eder eta gozo. Entzulerik geien-geienotzat baiña, eskutxo bete baso-mallukigaz bazkaldu, akeita edan, txokorra biztu... iji-ujaka sabel ondo betearen itxurakeriak egitea edo antzerakoa zan.

* * *

Jai bukatu (amaitu) ondoren gazte bigaz nintzan, eta batek inostan: «Zuk niri eztoztezu ezetuten», «ez nozu ezagutzen» esanbearrean. Nik, neure aldetik, adarra jotera eta zirikatzerat etorritako beste ari, Santa Lutzi edo alde artako «ule kirrudun uletsuari», arren eskatu lagunak esandako trakezkeria zuzentzeko. «Kirru'k» sapaira («tetzura»), begiratu eta ezin zuzendurik... agur eta kitu. Mututu. Euskeraren eta Erriaren etsai makurren beatukerietan «iñozentetu» baiño, dakigun gitxia landu eta ez dakiguna ikastea obe dogu.

* * *

Illaren laugarrenean etxerantzako bidean Jontxu Etxebarria'kin nintzan, eta astialdi aundirik enekalarik beste aldi baten aztertu ta arakatuko genduzala, arazorik asko, alkarri itza emonik, agurtu giñan.

* * *

Eta azkenez, Begoña Olasari agurtu, eta etxera. Begoña au Arantzazu'ko umeen andereño zurra ta zolia dogu. Au argitaratu daneko ezkonduzik izango da. Ea ba, Begoña: aurre bete umegaz burutu al izan dozularik, zeure erara ezi begizu gizona be, ta bizileku barri ortan zorionik aundienak beti-beti, iraun bedi.

LANDAJUELA'TAR A.



eziketa jostailuak
eskulanetarakoak
irakasketa gaiak

gregorio de la revilla, 1
bilbo-11

Jolasean ikasi, or zure aurrentzako emoitzarik onena



MONRAY

ARKONDARA-GINTZA

ANDEREENTZAT AZKEN-JOSKETAK

Bidebarrieta, 2

21 43 46 urrutizkiña

Alderdi-zarra

BILBAO-5

DURANGO II

Urriburu, kapital izateko egokia?

Ortarako aukera faltarik ez dau euki. Jakin daben ala ez, nortasun ori euki daben ala ez, bakoitzak bere ikusteko begi eta sentzutik atarako dau ondorena.

Durango bakarrik ez da erabilli bear. Durango ta auzoak.

29 errialdek osotuten eben orain eun urte. 34.103 bizilagun. Durango berak 3.154.

Etxe-bizitzet buruz, 1.969 etxe jaube ziran eta 5.500 erreteru.

Alogerekuak, 3.435 batzen ziran lurrean inarduenak eta 54 ola edo fabriketako morroi. Bestelako langilleak: 2.520. Bateko edo besteko industrigiñak: 869. Olagizonak: 109. Dendari ta merkataria: 116.

Baserri ta kalean 22.274 abelgorri, ganadu, batzen ziran; 4.600 txarriki.

Aidean artutako kontuak dira.

Eta ultzegilleak, zidargiñak, pañulariak, urteetan, barru-barruko eta bete-beteko nortasuna eukun inguru onetan.

Oraindik Ibaizabal garbi ikusten zan. Eta Durango be bai, Abadiño eta Berriz aldeko ur guztiak eta Urkiola eta Igelgana'koak argi jeisten ziralako. Origaitik sarbu txikiak eta eskalluak gertateko erak izena emon eutsen emengo sukaldari. Eta tomateak? Azala eten barik barruko' ustu eta Ondarroa nai Bermeo' aldetik eroandako atunagaz bete eta errekatu amarratzekin inguratuta zeiniek obeto agertu saiatzen ei ziran udaldietan emengo etxeoandak. Eta kaleko merkataria eta ola-gizonak eta alogerekuak alkarregaz egiten zituen euren ibillaldi ta jaiak, beti be etxeko odolki edo txarrikiekaz, «txitxi-burduntzi» eguna gertatu nai edozein ermitetako santuren goratzeko aitzakiz.

Durango zarraren erri-miñez, maite-miñez ete nabil? Leike.

* * *

Merkatari ta eunlariak, pañulariak. Bai.

Orain bosteundak urte Durango'ko eunlariak. pañulariak, asko ezagutzen ziran. Ba dira 1496 urteko araudiak pañulari orrean Kofradia zeaztuten. Eta merkataritza biurri baten ondoren igarten doguz bertan. Ortik etorri ete zan zeregin ori, industri ori galteza?

Ainbat lege zorrotz agertzen dira pañularien Kofradian zintzo jokatu erazi nairik. Zikinkerri eta ustelkerri asko bastartu nairik datoz aginduak:

«...arimen arriskuz, lana zatar eta zikiñak naastuten zituela pañu nabarretan...»

«...goruetan, pañulari batzuen esku lapur eta okerrak ezagutu izan diralako...»

«...eta iruleak, asko egiteko garrez, naita arimen kaltez, pañu nabarrak ogetamaika ari baiño gitxiagoz egiten zituelako... edo ta arinkeriz bein baiño ez zituelako garbatzen...»

Dana dala gintza au, industri au Durango' tik Segovia'ra eroan zala diñoenak ba dira, baiña ezin esan len emen kendu zanik, ara eroateko, sasoi baten bietan batera ezagutzen dalako zeregin ori.

Ultzegilleak, euren aldetik, fin jokutzen asi ziran. Kalebarrian euki eben lenengo lantegia. Ugazaba, langille, saltzalle batera egiten eben. Egin-ala, pixkat aurreratu orduko, erriz erri urtetan eben astoetan erak eginiñko ultzak eroezala, euren lankiñei urteera emon eta dirua batu al izateko.

Lenengotan lantegi txiki eta baltzetan, illunetan asi ziran. Egur ikatzaren kedarez betetako lantegitxoetan. Gero andik Larrasoloe-ta'ko lurretara aldatu, egokitasun eta aukera obez tokiak gertu ondoren, gaur be jarraitzen daben zeregiñei bidea zabalduz.

* * *

XII gizaldian Durango ormaz inguratu-tako erria zan. Ordurako bere Jaunak be euki zitun, Naparroa'ko erregeen menpeko izan ziran jaunak.

Gero, Haro'ko Diego'k Durango'ko errialde au Bizkaia'n sartzea lortu eban eta Durango'ko Tabira izenagaz emon eutsan ezau-pidea erriari.

Lenengotatik Durango langille ezagutzen da. Sasoiak langitzei lotua. Ortik sortutako

«erejia» izan ete zan 1442 urtean emen zabaltzen asi zana? Bagardoen biztuera izenagaz ezagutzen dan giro ori, bizialdi ori, ordurako Europa zear zabaltzen asi zan bardintasun naiko ondorenen bat ete zan? Komunistak deitu eutsen aize barrietan sartu ziran frailliei. Europa'ko jokera barriak Durango'tik asi ziran Bizkaia'n sartzen. Eta fraillien inguruan gonak. Bai? Donosti'ko Milia, Mari Otxoa, Teresa Estaeta eta izenak aidean dabiliz. Merkatarien aitzakiak, bear ba'da, «bardintasun» giro ori uxatzeko?

Ez zan gaitz, sasai aretan be, jentien artean giro egoki bat billatzea. Urte bateko uzta labor eta makal agertzea naiku izatea zan gosete luze bat ezagutzeko, eta errian beratze bildurgarriak igarteko, oi ez lako eriotzak beriala agertu eraziz.


Onetan, Durango'k be, bere urte baltzak euki zitun. XV-XVI gizaldietan iru-lau bidar igarten dira olako ondorenak.

* * *

Durango'ko euskal gizonak?

Oraingoz baketan dago Astarioa. Ba dirudi bere bastertxoak billatu dautsela. Laga daigun gaurkoz, guk be, baketan.

Zidargiñekin batean ibilliko ete gara? Emengo «zidargiñak» inguru guztian ezagun ziran lengo gizaldian. Lafuente anaiak ziran. Ukondotik be umorea erakutsi eta zabaltzen eben. Bertsolari eta txistulari. Eurak egiñiko zidarkiak saltzen, batek kanta ta besteak txistua jo, ainbat erosle batzen zituen. Sasoi aretan bidietan urtetan ekien gantzeruei be, aztu egin ei yakoen bein lapurretako ustez bidera urten ustela, eroiezan kantu eta kontuekaz naastuta.



Eta kantu kantari... «Gernika'ko Arbola» Iparragirre'rena zan edo ez?

Itzak, berbak, iñok ez dautsaz ukatzen. Ta musikea?

1828 urtean Durango'n jaio zan Juan Mari Altuna. Emen jaio, erbestean ikasi, ta Lekeitio'n organu jotzaille bere bitzitzan ekin. Berak egiñiko ainbat musika-lanen artean, Iparragirre'ri be Gernika'ko Arbola ori eskiñi ei autsan. Beintzat San Luis kafetxean lenengoz abestu ebanean, Altuna au izan eban piano jotzaille.

Delmas'en esanetan, etxean euki eban partitura ori eta su baten erre ei yakon. Besteak, Iparragirre'ri aitatasun osoa laga nai dautsenak, Iparragirre'k musika kopiatzen ez ekiala ta gertatu zeinkeala arek Altuna'ri doñua ixil-mixiika erakutsi eta onek paperetan garbi ipintzea, musika ori besteagandik artuta.

Olaxe da gauzea.

Ortik fede-arazora jota, beti ez dira bikarioak jaio barriei gatza ipinten aztuten. Esakera: Zeiñen urak daukaz beronek? Arzadun bat zan Durango'ko bikario 1704 urtean. Euskal zalea. Bere «Dotriña» bat Gazteiz'en argitaratu zan 1731 urtean. Arzadun orrek bataiatu eban Diego Lorenzo Urkizu, Durango'ko alkate izatera eldu zana. Bere liburutxo bat liburu bakan lez gordeten da erbesteko liburutegiren baten. Vinson eta Bonaparte'ren katalogoetan agertzen da: «Liburu, Virginia santissimuen errosario santuena».

AGVR

Apartado n.º 2
BILBAO

FRANQUEO
CONCERTADO
08/55

ARGAZKI BAT

Orain dirala amar bat illabete SIMON BOLIBAR ospetsuaren izena sarri aipatzen asi giñan Markiña'ko inguruotan. Garilla'ren 24'an, gizon aundi orren 191'gn jaiotze urteurrena ospatzeko jai eder bat ere ospatu zan eta jai orri buruz AGUR asterokoan izpar batzuk argitaratu ziran. Jai eder aren oiartzunak Venezuela bertarano eldu ziran eta ango izparringi eta adizkarietan jai orren barri emon eben. Bilbo'n Venezuela'k daukan Konsul-etxea bide dala Lendakari jaunaganaño be iritxi ziran emengo izparrak eta geroago ta geiago Bolibar erriko gauzak arduratzen asi zan Venezuela'ko agintari jaun ori.

Orregaitik aurtengo Otsalla'ren 20'an Juan Mari Endeiza, urte luzeetan Venezuela'ko lurraldeetan lanean dabillen Lekeitio'ko seme jatorra Lendakari beragana aurkeztu zanean, SIMON BOLIBAR'ERESERKIA'ren egilleentzat zerbait berezi eskatzerano ausartu zan. Eta CARLOS ANDRES PEREZ, Venezuela'ko Lendakari jaunak bere argazki aundi eder bat emon eutsan eta bere eskuz bere izena jarri eban argazki orretan: «A LOS PADRES CARMELITAS DE MARKINA — CARLOS ANDRES PEREZ — 20-2-75». Begirapen eta ardura aundiz ekarri eban Endeiza jaunak argazki eder ori. Karmeldarrentzat zalako eta batez be 1927'gn urtean SIMON BOLIBAR'I ERESERKIAREN EGILLEENTZAT zalako, argazkiaren beeko aldean idazkun auxe ipiñi eragin eban: SIMON BOLIBAR'I ERESERKIA'REN EGILLE DIRAN AITA JOXE DOMINGO UGARTETXEA (Eresi-gille): AITA LUIS MARTINEZ DE MATORANA (Erderazko itzen egille). TA AITA BIZENTE BATIZ (Euskerazko itzen egille) KARMELDAR AGURGARRIEI VENEZUELA'KO REPUBLICA DEMOCRATICA'KO LENDAKARI JAUNAK ARGAZKI AU ESKEINTZEN DAUTSE.

Argazki eder ori Karmeldarren eskuetan ipinteko Jorraill onen lenengoan Bolibar erritxoan bertan, SIMON BOLIBAR'en asaben jaioterrian, aixkidetasunezko aparti bat eratu eta gertatu zan. An batu ziranak zortzi lagun izan ziran: Endeiza jauna bera, Aita Joxe Domingo Ugartetxea ta Aita Bizente Batiz SIMON BOLIBAR'I ERESERKIA'ren egille Karmeldarrak, Migel Mari Arriola (Vetri) eta lau Ansola Zelaia anai txistulari ospetsuak.

Gabeko'bederatziretan SIMON BOLIBAR Azkaleak antxe daukan oroitarriaren aldamenen Endeiza jaunak, aitatu ditugun bi karmeldarren eskuetan ipiñi eban Venezuela'ko Lendakari Carlos Andres Perez jaunaren argazki ederra. Ansola Anaiak bitartean Venezuela'ko Ereserki bikaña jo eben eurak dakien lez gure antxiñako txistuz. Argazkiaren aurrean, Aita Batiz karmeldarrak, euskerazko bertsoak irakarri ebazan, eta afal ostean Ansola anayak txistuzko joaldi eder bat izan eben. Eta olantxe amaitu zan beingano be aaztuko ez jakun jai gogoangarria. Venezuela'ko Lendakariaren argazkia Markiña'ko Karmeldarren etxera eroan eben eta antxe egongo da Euskal-Erria eta Venezuela'ko erria alkarri lotuta eukiten edo eusten.

BARRITSU

Durango'n billatu leiz tarte-marteka erri maitasunez idatzi ebenak, nai eta batzuk ez euskeraz: Ala Etxekeraz: Ala Etxezarreta anaiak, Arginzoniz eta abar.

Eta atzerago jota, bizkaitar eskribaduak tokirik onenetan sartzen ziranen, kaligrafo onenetako bat aurkitzen dogu: Juan Itziar, durangarra.

* * *

Lope Zuria edo Jaun Zuria, bigarrenez ezkondu zan, Durangerriko Santxo Eztegez'en alaba Daldaga. Ama il zanean, Tabira'n sartu zituen bere ondorenak. Arek laga ei eban Andre Maria'ri eleiz eder bat jasoteko agindua eta ondasunen asiera.

Ori kontuan eukita, Urbarri'ko eleiza IX gizaldikoa izan leikela esaten da.

Istorigilleak ez dira danak eritzi orretako.

Dana dala, erri onegaitik norbaitek esaten ekian:

Elizaz eta konbentuz
bizi leike kontentuz.

Aginpideko eleiza, gaiñera. Eibar, Elgoibar eta Soralue emengo artxiprestearen menpeko ezagutu tako denporak egon ziran. Giputxik eta bizkaitarrik ez ete egoan sasoi aretan?

Ontaz Durango, gaur be, alkartzaille da.

Azala da bat eta mamiña bestea. Fedeak eta lanak ez dabe gizonik aldendu bear, samurtu baiño.

Gaur, Durango, industri askoren urriburu egiten dator. Durango ta inguruak, esan daigun Abadiño eta beste batzuen bakez. Zeregin zar eta barridunak. Jakiña: sarbu eta eskalluen kal tez. Izen bat kendu eta bestea sortzen bertakoei.

Gertaera bat datorkit burura. Orain berreundak urte estrazako papera egiten zan emen. Bere egilleak, Arriaga jaunak, «Amigos del Pais»koei paper ori ontasun eta garbitasunez egiteko erdua eskiñi eutsanean, pentsatuko ete eikean arek Durango'n gaurko kei, ats eta lurrunez eta kimikaz zeregin ori egingo zanik?

Durango zarra ezagutu ala, ainbat burutasun datorkidaz. Ez dakit prailleak edo andrak «erejia» barririk sortuko daben emen. Orduko erejiak gaur «protestak» izan leikez. Anbotó lengo lekuan dago eta errekat lengo tokietan sortu ta lengo bideetan jarraitu. Baiña San Antonio'ri ez dautsagi len beste mirari eskatzen. Eta osasuna len baiño makaltasun arrisku geiagoz ikusten dogu.

Durango, industri ugari baten erri-buru biurtzen ikustean... zegaitik gogoratu ete naz fede zarrakoen Aita San Antonio'gaz?

A. ZUBIKARAI